

Egungo Euskararen Hiztegia

—T—

[bertsioa: 2024-01-09]

t-shirt ik tixerta.

tabakadi iz tabako saila.

Txistu eta bozina joka jardun genuen, eguzkia **tabakadi** berdean hondoratzen ari zen bitartean. **Joxe Austin Arrieta**

tabakismo iz tabakoa erretzeak eraginiko intoxikazioa.

Saihestu behar diren arrisku faktoreen artean arriskutsuena **tabakismoa** dela gogorazi dute, eta neurri gehiago hartu behar direla tabakoaren kontsumoa kontrolatzeko.

Berria - Gaiak

Tabakismoa eta horren inguruko gaixotasunak gutxitzeko. **Berria - Ekonomia**

Espainiako Osasun Ministerioak **tabakismoari** aurre egiteko eginiko lege proposamenaren arabera, lantokietan ezingo da erre. **Berria - Euskal Herria**

Nikotinaren menpekotasuna Espainiako hiritarren %34,5en kontua da eta **tabakismoak** astero-astero 1.000 pertsona hiltzen ditu. **Berria - Euskal Herria**

tabako 1 iz tomatearen familiako landare luzea, jatorriz Ameriketako, hosto luze nikotinadunak dituena (*Nicotina tabacum*).

Tabako landareetatik giza proteina bat lortu du NUPeko talde batek. **Tabako**-belarra erretzeko paperean biltzen ari zen. **Berria - Gaiak**

Tabako-belarrez zigarrotxo bat biltzen ari da. **Koldo Biguri**

Ez zelako garaiz heldu **tabako**-hostoen harrak astintzera. **Anton Garikano**

ik tabakorri.

Histua deplauki emaiten du, bularrak, selauruko **tabako hostoak** iduri, xukatuak balitu bezala. **Piarres Aintziart**

Tabako ihartuaren hostoa. **Berria - Kultura**

Gero, lehen **tabako**-soroak. **Joxe Austin Arrieta**

Leku ezkutu eta eguzkitsu hartan **tabako**-sail egiazko bat landatu zuen; hosto lehorrak Arkale tabernariari saltzen zizkion gero. **Koro Navarro**

Inguruan **tabako**-sailak, erretenez bereziak, giza lan txukun eta zuzenak, baina gizakirik inon ez. **Joxe Austin Arrieta**

2 tabako hostoak lehortuz eta prestatuz, erretzeko, masketatzeko edo sudurretik hartzeko egiten den produktua.

Tabakoak bularraldean ezartzen duen hersturatik laxoago zeuden ene birrikak. **Aingeru Epaltza**

Ezpain-arte mehea eta **tabakoak** herdoildutako hortzak. **Anjel Lertxundi**

Tabakoak kraskatutako ahots bat entzun nuen nire gibelean. **Anjel Lertxundi**

Ondo asko zekiela zer den kea, bolborarena ez bada, bai behintzat **tabakoarena**. **Jose Morales**

Nire iitiz, pipa erretzea **tabakoa** sudurretik hartzea baino askoz ere osasungarriagoa da. **Jose Morales**

"Zer **tabako** erretzen duzu?", galdetu zion Martinek Cesarri lurrean zegoen zigarroari begira. **Bernardo Atxaga**

Pakete bat **tabako** erostea dela edo kanpoan ikasten ari den lagunari gutuna idaztea dela. **Aingeru Epaltza**

Zigarro puru onaren oinarritzko baldintza -hala zioen berak- **tabako** ona baita. **Joxe Austin Arrieta**

Tabakoa atera eta, eskaini gabe, zigarro bat piztu zuen. **Aingeru Epaltza**

Sukaldera sartu ginen, eta ni, usadioan bezala, poltsikoak husten hasi nintzen mahaira: **tabakoa**, kartera, giltzak [...]. **Aingeru Epaltza**

Haien komertzioan badira oihalak, **tabakoa**, bihia, armak. **Elena Touyarou**

- **Tabakoa** behar nikek oraintxe... **Koldo Izagirre**

- **Tabakorik** ez diat, baina sua bai. **Aingeru Epaltza**

Lasterka joan ziren eskolara, berandu, mahaietan **tabakorako** eta metrorako dirua utzita niri. **Fernando Rey**

Tabakoaren Aurkako Espainiako Legeak aztoratuta dauka Bizkaian ostalaritza mundua. **Berria - Euskal Herria**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Tabako xeherako erabiltzen zuen narruzko toxa zabal-zabalean zeukan mahai gainean. **Josu Landa**

"**Tabako** xehetua", esan zuen orduan hark, "bost penike ontzako". **Anton Garikano**

Josebak, orain, **tabako** beltza erretzen du, ez garai bateko belar usaintsu hura. **Bernardo Atxaga**

Tabako gorri amerikarra. **Aingeru Epaltza**

Tabako gorriaren usain arina: enplegatuek erretzen dute. **Monika Etxebarria**

Charly ene ondoan zegoen, bere ezker eskuko ahurraren gainean hosto pikatu idorrek **tabako** gorriarekin nahasten ari. **Aingeru Epaltza**

Erretzeari ere ekin zion berriz, usain jasangaitzeko **tabako** mentolatua. **Aingeru Epaltza**

Eguraldi bustiaren eta **tabako** merkearen urrinak nahasten ziren Papuneko taberna zokoan. **Itxaro Borda**

Hi hantxe hago, heure gelan eserita, uxuala edaten, uxuala suelta, eta **tabako** gozoa erretzen. **Xabier Olarra**

Puruari kosk txikia egiten zion ipurdian, **tabako** malgu eta freskoaren zirkulu bat erauziz. **Jon Alonso**

Tabako ingelesaren usain lodia aditzen diat. **Xabier Olarra**

Tabako turkiarraren usain gozo-mikatza. **Anjel Lertxundi**

Estankoa erositako **tabako** espainola, kontrabandoan lortutako holandarra piparako. **Josu Landa**

Isilik gelditu da, pipako **tabakoa** txotx bategaz harrotzen. **Koldo Izagirre**

Mastekatzeko **tabakoa** bezala, minutu bakoitza ahoan batera eta bestera erabiltzen zuten. **Harkaitz Cano**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Puruak etxetik gertuko **tabako**-dendan erosten zituen. **Jon Alonso**

Sorbonako **tabako**-kafetegian izan zen, taberna hartan elkartu ohi ginen eta. **Jon Muñoz**

Tabako makinara hurbildu naiz denbora egitearren: Camel pakete bat. **Sonia Gonzalez**

Besteak zorren barrenean **tabako** -kartioiak ostendu eta portu ondoko estankoa sartu dira. **Urtzi Urrutikoetxea**

Plastikozko poltsa bat hartu eta Dunhill **tabako** pakete bat atera zuen handik. **Bernardo Atxaga**

Aitak **tabako** -poltsa atera, eta zigarro bat bildu zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Mahai gainean pipa luze bat eta **tabako** zorro bat zeuden. **Koro Navarro**

Tabako -zorrotxo bat ere bazegoen pipen artean. **Jose Morales**

Tabako -errautsa ageri zen zamauan barreiatuik *ik beherago* 8. **Jose Morales**

Lupe Velezen buzoian **tabako** koloreko gutunazal bat dago erdi aterata eta hartzekotan egon naiz. **Harkaitz Cano**

ik beherago 10. **Askoren artean**

Arropak **tabako** usaina hartuko lukeela. **Bernardo Atxaga**

Tabako zaporea mingainetan. **Sonia Gonzalez**

Doi-doi hartu nuen eskuetan **tabako** kiratsa zerion jaka pisu hura. **Harkaitz Cano**

Aurreneko **tabako** -bafadarekin batera gogoratu naiz. **Iban Zaldúa**

Lupe Velezen buzoian **tabako** koloreko gutunazal bat dago erdi aterata. **Harkaitz Cano**

Kanpo aldean berezko **tabako** -geruza duten eta ez duten puruen arteko desberdintasuna. **Jon Alonso**

Tabako erretzaileek ahoko minbizia izateko bost aldiz arrisku handiagoa dutela. **Berria - Gaiak**

Puru hauek [...] faltuak dira, esan zion **tabako** saltzaileak, egin zion hurrengo bisitan. **Jon Alonso**

Orain ez da esklabo eta **tabako** trafikatzailerik baizik. **Elena Touyarou**

Tabako eta alkohol tasetan iruzurra 4.600 milioi eurokoa izan zen 1996an **Tabako** enpresa guztiak baldintza beretan lehitzeko eskatzen dute. **Berria - Ekonomia**

Altadis **tabako** konpainiak gaurtik aurrera zigarro marka gehieneko prezioa 15 zentimo garestitutako duela jakinarazi du. **Berria - Ekonomia**

Donostiako **Tabako** Fabrikari izaniko ekitaldira agertu zirenen zerrenda. **Iñigo Aranbarri**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere zigarroaren belarrak ezti usaina botatzen zuen, pipa-**tabakoa** bailitzan. **Bernardo Atxaga**

6 **tabako bulego ipar** tabako denda.

Hala nola, Baiona barneko **tabako bulego** guziak hetsirik egon diren, gutiz gehienek grebaren arrazoinen ageria gainean paraturik. **Herria**

Xartelak salgai Urruñako turismo-bulegoan, Dongaitz trinketean, Garmendia **tabako bulegoan** [...] eta Baionako Elkar Mega Dendan. **Herria**

Saltegiatan, farmazietan, **tabako bulegoetan** eta medikuen kabinetetan ere gertatzen dira lapurretak, gauez. **Berria - Harian**

- Azkarki segitua izan da **tabako bulego** zainen greba joan den astelehenean Ipar Euskal Herrian. **Herria**

7 **tabako denda** tabakoa saltzen den denda.

Gaueko hamaikak ziren eta, etxetik hurbil, bi kale harantzago, goiztiri arte zabalik egoten zen **tabako denda** bat. **Gotzon Garate**

High Streeteko **tabako dendaren** gainean zegoen kafetegia. **Koro Navarro**

Ardandegiari **tabako denda** gehitzea lortu zuen azkenean. **Karlos Zabala**

Gergorioren keinuak jakinaren gainean jarri ditu **tabako-dendako** bezeroak. **Berria - Kultura**

Zubipetik egun argira atera zen eta eguna hasteko, lehenbiziko gauza egin zuen **tabako denda** batera sartu tabakoa erostera. **Matías Mujika**

Puruak etxetik gertuko **tabako-dendan** erosten zituen. **Jon Alonso**

Sartu-irten bat egin nahi nuke, **tabako-dendan** zigarro bat erosteko. **Koldo Biguri**

8 **tabako errauts ipar** tabako hautsa.

Aguardient pitxer bat eta **tabako errauts** paket bat eman zizkioten. **Elena Touyarou**

9 **tabako hauts**

Tabakoak emaiten zidak niri hatsa... -eta atergabe eta geldigabe erretzen zuen, tximinia bat iduri, edo **tabako-hautsa** sudurreratzten zuen, bertzerik ezean. **Joan Mari Irigoien**

Noizean behin **tabako-hauts** mordoxka itzelak sartzen zituela batean sudur-zulo batetik eta bestean bestetik. **Irene Aldasoro**

Nik husten nion beti paketea tabako-ontzi beltzera, beraren eskuek dardara handiegia baitzuten eginkizun hori **tabako-hautsaren** erdia lurrera isuri gabe egiteko. **Irene Aldasoro**

Hartu zuen liburu baten gainetik doktorearen **tabako hautsetarako** kutxatila, eta bere jabearen burura jaurti zuen zabal-zabalik. **Josu Zabaleta**

10 **tabako-kolore izond** tabakoaren kolorea duena.

-Ikaragarria da... -esan zion diademadun emakumeak mahaiburuko gizon aurpegi luze **tabako-kolorekoari** -. **Lopez de Arana**

Zilarrezko belarridun oinetakoak erabiltzen zituen, galtza bularrekodunak, lebita **tabako** -kolorea, Espainiako modura. **Josu Zabaleta**

11 **tabako ontzi (orobat tabakontzi)** tabako hautsa gordetzeko ontzia.

Nik husten nion beti paketea **tabako-ontzi** beltzera, beraren eskuek dardara handiegia baitzuten eginkizun hori tabako-hautsaren erdia lurrera isuri gabe egiteko. **Irene Aldasoro**

12 zigarretak edo zigarroak gordetzeko ontzia.

Afifi andereak **tabakontzi** batetik bi zigarro atera zituen eta biak atseginez hasi ziren erretzen. **Patxi Zubizarreta**

Behin ere baino xaloago, zigarro bat eskaini zidan, zilar nikelatuzko **tabakontzi** trinko batetik. **Matías Múgica**

13 **tabako orri** ik **tabakorri**.

14 **tabako pakete (orobat tabakopakete g.er.)**

Gero, plastikozko poltsa bat hartu eta Dunhill **tabako pakete** bat atera zuen handik. **Bernardo Atxaga**

Eskuetan zeraman **tabako paketeari** azazkalekin estalkia kendurik, zigarro bat eskaini zidan berea hartu baino lehen. **Joxean Agirre**

Segidan **tabako paketea** atera, zigarro bat piztu eta atxiki luzea emanda pasatu egin zidan. **Urtzi Urrutikoetxea**

Han sartu zen Mikel **tabako pakete** bat erostera. **Eider Rodriguez**

Ikasketa-buruak, mahai gainetik **tabako-pakete** bat harturik, zigarro bana eskaintzen die ertzainei. **Anjel Lertxundi**

Bazkariaren hondarretan daude, eta Martak **tabako paketea** -gorria- ateratzen du poltsatik txiskeroarekin batera. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zerbait gorri bereiziko du orri zabaleko belar batzuen artean, **tabako pakete** baten azala. **Bernardo Atxaga**

Kosto harria, **tabako pakete** baten zelofanean. **Sonia Gonzalez**

Tabako pakete baten tamainako biblia txiki bat. **Harkaitz Cano**

23.322.942 **tabako pakete** saldu dira urtarrean Hego Euskal Herrian, iazko urtarrean baino 817.372 pakete gutxiago. **Berria - Euskal Herria**

15 **tabako toxa**

Zilarrezko **tabako-toxa** erosi zuen kontsulak, eta, hura itsasontziko kutxan gordeta, abiatu ziren Buenos Airesera. **Felipe Juaristi**

Hezetasuna alde guztietatik sartzen duk: ohe-jantziei, barne-jantzietan, liburuari, **tabako-toxari**, ogiari, den-denari sartzen zaiok. **Xabier Olarra**

Paul D-k bere txalekoa arakatuta atera **tabako-toxa** txiki bat, eta Sethek alaba aldameneko gelara zeraman bitartean, bera toxaren barrukoan eta sokaren txibistan murgildu zen. **Anton Garikano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

donostiako tabako fabrika (3); **donostiako tabako fabrikari** (8); **sorbonako tabako kafetegian** (3); **sorbonako tabako kafetegiko** (3)

tabako beltz (4); **tabako bila** (4); **tabako bulego** (10); **tabako denda** (10); **tabako denda bat** (3); **tabako dendan** (7); **tabako dendara** (7); **tabako enpresa** (3); **tabako fabrika** (21); **tabako fabrikak** (5); **tabako fabrikako** (18); **tabako fabrikan** (31); **tabako fabrikara** (7); **tabako fabrikaren** (19); **tabako geruza** (3); **tabako gorri** (3)

tabako izpiak (3); **tabako kontsumoa** (5); **tabako landareetatik** (3); **tabako makinak** (4); **tabako makinara** (3); **tabako marka** (3); **tabako merkearen** (4)

tabako orria (3); **tabako pakete** (11); **tabako pakete bat** (6); **tabako pakete baten** (3); **tabako paketea** (13); **tabako poltsa** (4); **tabako produktuak** (3); **tabako saltzaile** (5); **tabako saltzailea** (3); **tabako saltzaileak** (7); **tabako saltzailearen** (6); **tabako saltzaileek** (5); **tabako saltzaleak** (3); **tabako toxa** (3)

tabako usaina (10)

alkohola eta tabakoa (4)

tabakoa atera (5)

tabakoa eman (3); **tabakoa erosi** (4); **tabakoa erosteko** (3); **tabakoa erosten** (3); **tabakoa erostera** (6); **tabakoa erre** (7); **tabakoa erretzea** (21); **tabakoa erretzea debekatzen** (4); **tabakoa erretzea galarazi** (3); **tabakoa erretzeak** (3); **tabakoa erretzearen** (3); **tabakoa erretzeari** (3); **tabakoa erretzeko** (4); **tabakoa erretzen** (24); **tabakoa eskaini** (4); **tabakoa eskatu** (3); **tabakoa eta alkohola** (4)

tabakoa saltzea (4); **tabakoa saltzeko** (7); **tabakoa saltzen** (4)

tabakoa utzi (5); **tabakoa uzteko** (5); **tabakoa uzten** (3)

hiltzen ditu tabakoak (3); **tabakoak eragindako** (8)

tabakoaren aurkako legea (10)

tabakoaren eraginez (4); **tabakoaren gaineko** (5)

tabakoaren inguruko (5); **tabakoaren ke** (3); **tabakoaren kea** (10); **tabakoaren keak** (6); **tabakoaren kontra** (4); **tabakoaren kontrako** (20); **tabakoaren kontrako legea** (5); **tabakoaren kontsumoa** (10); **tabakoaren legea** (8)

tabakoaren ondorioz (7); **tabakoaren prezioa** (4); **tabakoaren prezioak** (4); **tabakoaren prezioen** (3); **tabakoaren publizitatea** (5)

tabakorik gabeko (13); **tabakorik gabeko mundu** (3); **tabakorik gabeko nazioarteko** (4)

tabakofobia *iz* tabakoaren aurkako higuina.

-Ez dut elkarrizketarik onartzen -hitza kendu zidan, bere **tabakofobia** adierazteko arestiko begirada berrituz. **Aingeru Epaltza**

tabakofobiko *izond/iz* tabakoari higuina diona.

Ez naiz **tabakofobikoekin** behin ere ohituko. **Aingeru Epaltza**

tabakogile *iz* tabako-ekoizlea.

ALTADIS (%0,5) **tabakogileak** 576 milioiko mozkinak izan zituen iaz. **Berria - Ekonomia**

LPM Promodem erosi du **tabakogileak**, salmenta puntuen diseinuan jarduten den enpresa. **Berria - Ekonomia**

Erretzaileak poztuko dira, **tabakogileen** akziodunak ez hainbeste. **Berria - Ekonomia**

tabakontzi ik **tabako 11**.

tabakopakete ik **tabako 14**.

tabakorri (*orobat **tabako orri**; Hizegi Batuan **tabakorri** agertzen da*) **1** *iz* erretzeko tabakoa.

Mentxuk erlaxatzeko ariketa moldean eusten zion atzamar arteko **tabakorriaz** zigarroa osatzeari. **Josu Landa**

Jatekoak eta **tabakorria** erlaitzean ipinirik, arretaz begiratu zien bi solaskideei. **Patxi Zubizarreta**

Tabako orria ekartzen genion eta pezeta bat ordaintzen zigun. **Joseba Sarrionandia**

Sudur parera eraman zuen aurrena, begiak itxita usaintzeko, eta belarri ondora gero, puntuan lehortutako **tabakorriaren** grakada fina sumatzeko. **Joxemari Urteaga**

Gero, bere pipa bete zuten **tabako-orriarekin** eta atxiki luze bat eman zion. **Anjel Lertxundi**

Tabako-orri bat paperean bildu, ertz biak busti eta batu, eta zigarro bildu berria eskaini zidan. **Anjel Lertxundi**

Zigarroa prestatua zuela ahaztuta, berriro ateratzen zuen **tabako orria** eta papera, eta beste zigarro bat egiten zuen, trebeziarekin. **Joseba Sarrionandia**

2 tabako hostoa.

Lipar batez denda txikiari begira geratu zen, purugileak bere atzamar tindatu eta finez **tabako-orri** hauskorak nola erabiltzen zituen erreparatuta. **Lopez de Arana**

Partagasen lana egiten duen / ene lagun poetak / **tabako orrietan** / idazten ditu / bere poemak, / eta gauetan bil-bil eginda / ekartzen dizkit, / puruak erre / nik bere poesia / dasta dezadan. **Pako Aristi**

tabakotsu *izond* asko erretzen duenari dagokiona.

Oinarritzko bihurritze horretatik elikatzen zen gure osaba ("barba") eta izeba ("magna") ugarien maltzurutasun xaloa: zuhurtzia handiko patriarka **tabakotsuak** eta etxeko erregina bertatik bertarakoak. **Juan Garzia**

tabala *iz* sardina zaharrak jartzeko zurezko ontzi biribil zapala.

Zenbaitetan, gurpilak bailiran, zutik hormaren kontra paraturik, sardinarez betetako **tabala** borobilak egoten ziren. **Txillardegí**

Baina **tabalarik** gabeko Donostia berria, ez da Donostia. **Txillardegí**

tabalari ik **atbalari**.

tabardo **1** *iz* jaka handi beroa.

Bakarrizketan geratu zen **taberna** ataurrean. **Unai Iturriaga**

Kalera irten behar duenean **tabardoa** itxi eta horra pistolatzarra ezkutaturik baina hantura itzel bihurturik. **Edorta Jimenez**

2 militarren jaka luze negukoa.

Txamarra arte eta hitaguturaren azpian azpiztia azpiztia jantzita, praka barrenak zaldi-boten barruan bildurik eta kaki koloreko **tabardoa** lepotik belauetaraino, azken horrek gerrikoan eskegita daraman pistolatzarra erdi ezkututzen dio. **Edorta Jimenez**

tabarra iz *adkor* kalaka.

Jarraipeneko lehen hitzaldiak **tabarra** hutsa izan ziren. **Jon Alonso**

Tabarra galanta eman omen zien, aldizkaritik hura kentzeko eta kentzeko, eskaparatik kentzen den argazkia balitz bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

tabasko iz saltsa oso mina, txilerekin egina.

Kanape minak egingo ditut, ozpina eta **tabaskoa** erabiliko ditut eta zapore garratzeko ogitartekoak egingo ditut, hau da, neure modura egingo dut festa. Aizak, jatekoan betekoa baino **tabasko** tanta batzuk gehiago botako dizkiot. **Berria - Kultura**

taberna (*orobat taferna g.er.*) 1 iz batez ere edariak zerbitzatzen diren denda. ikostatu 6.

Taberna bat gauza asko baita: helmuga, egonleku, aspertoki edo pasabide. **Pako Aristi**

Taberna batek datozen gutzietan babesa eta adierazpidea eskaini behar die. **Pako Aristi**

Txistu izeneko **taberna** bat. **Harkaitz Cano**

-Ezagutzen duzue Gasteizko Filologiako **taberna**? **Jon Arretxe**

Dantza egiten zen **tabernak** zituzten gogokoan, eta hantxe egoten ziren, edalontzi luzea eskuan, euren aldaka ortopedikoei apurtxo bat eraginez. **Jon Arretxe**

Tabernako telebistan estatubatuar seriea, polizia. **Sonia Gonzalez**

Bost argi **tabernaren** aho ilunean. **Aritz Gorrotxategi**

Katek **tabernetako** giroa maiteago du. **Sonia Gonzalez**

Argiontziaresa gasa erretzen zen **tabernako** egurats oraindik esnatu gabe. **Karlos Zabala**

Tabernako barraren baten kontra jarrita. **Koro Navarro**

Pentsa egizu zelan ibili naizen **tabernako** sukaldetan. **Paddy Rekalde**

Zekiena esaten hasi zen berehalaxe **tabernako** arduraduna. **Irene Aldasoro**

Tabernako jabeak te-kikara bat ekarri zion. **Xabier Aranburu**

Goiz da: lasai dago oraindik **taberna**. **Iban Zaldúa**

Taberna batean kafea hartzea aitarekin. **Koldo Izagirre**

Tea hartzeko **taberna** bat zen, oso apala, aulki txiki batzuekin. **Juan Kruz Igerabide**

Poteo garaian beltz bat **taberna** bakoitzeko. **Xabier Etxabe**

Taberna jendez gainezka dago, telebistari, garagardoei, lagunei, hornei, barrari so dauden aurpegiz josita. **Sonia Gonzalez**

Etxe kantoian batean ikusi zuen **taberna** batean sartu zen, ez lehenago barrukoari begiratu bat eman barik. **Unai Iturriaga**

-Tira, lagunduidak **taberna** jasotzen eta joango gaituk zerbait hartzera... **Pako Aristi**

Hankapalok **taberna** zabaldu zuenean gazte-koadrila ginen gu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Taberna batean afaldu eta gero. **Juan Kruz Igerabide**

Taberna arian-arian husten ari zen. **Lopez de Arana**

Oso litekeena da **taberna** bateko barra atzean egotea, abila baitzen langintza horretan, eta oso litekeena da, halaber, **taberna** itxeko orduan bakarrik ez etxeratzea, egundokoa baitzen ofizio horretan ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Morroi hau maritxuen **taberna** batean harrapatu eta Drancyra deportatu gunden. **Harkaitz Cano**

Taberna aurrean jende-inguru bat zegoen, eta gorputz bat lurrian, odol-putzu baten erdian. **Juan Kruz Igerabide**

ik beherago 7. **Askoren artean**

Hiruzpalau ordu **tabernaz taberna**, hemen lerrotxo bat, hor pasti erdi bana. **Sonia Gonzalez**

Kalera irten eta, eskutik helduta, **tabernarik taberna** eramane ninduen. **Joseba Sarrionandia**

Ezagutzen dut **taberna** bat oso kosto ona pasatzen dutena! **Unai Iturriaga**

Traspasoan hartu nuen **taberna**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

New Yorkeko asmakuntza dira *deliak*; erdi supermerkatu eta erdi **taberna**, urteko 365 egunetan eta 24 orduz irekita dauden lokal bereziak. **Harkaitz Cano**

2 (kideko beste lokalekin)

Sagardotegi itxura eman nahi izan diote **tabernari**, erdi-erdian upel artifizial bat jarrita eta bertsolari ezagunen bertsoak paretetan idatzita. Eta gero, lokalak: pentsa zenbat elkarte, txoko, **taberna**, jatetxe, sagardotegi! **Xabier Etxabe**

Eraikin publiko eta pribatu gehienetan galarazita egongo da tabakoa erretzea, bai eta garagardotegi, **taberna**, kafetegi, eta gau-klubetan ere. **Berria - Gaiak**

Pub, **taberna**, jatetxe eta klub pribatuetan ez erretzearen aldeko botoa eman zuten. **Berria - Gaiak**

Golfaz bestalde, balitzaizke ere "Paint ball" pista bat, igerileku bat, **taberna** bat, [...]. **Herria**

Kontsumitzaileek aukera gehiago izango dute kafetegi, **taberna** eta saltokietan. **Berria - Ekonomia**

Sagardotegiak ez ziren iada sagardotegi; **tabernak** dantzaletako bilakatu ziren eta elkarri entzutea ere zail zen **tabernan**. **Andoni Egaña**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Laurogei bat lagun elkartu gara **taberna** zaharrean. **Iban Zaldúa**

1907an Pannecau karrikako 28.ean **taberna** txiki bat ireki zuten. **Pablo Sastre**

Dotoretasunik gabeko hotel bateko **taberna** itsusian. **Koro Navarro**

Berdez papereztatutako **taberna** meharra jendez josita eta ahotsez borborka zegoen. **Lopez de Arana**

Hotelera bidean **taberna** siniestro batera sartu gara. **Harkaitz Cano**

Hantxe dago, **taberna** ilun eta umel hartan. **Santiago Iruretagoiena**

Zergatik frankismoaren garaian deitzen zitzairen *barra amerikarra* lizunkeria kutsua zuten gaueko **taberna** ilun eta argi-gorridun haiei? **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Kale-kantoi bateko **taberna** terrazadunetan sartu nintzen, eurizirinaren ihesi. **Anjel Lertxundi**

Sekula zapalduko ez lukeen neoizko **taberna** honetara. **Sonia Gonzalez**

-Zu seguru ambienteko **tabernetan** ibili zarela txosnetatik pasatu ere egin gabe. **Unai Iturriaga**

Sartu zaren **taberna** periferiko horretan ez dago jende asko. **Eider Rodriguez**

Taberna mixerableetako putak eta gizon maritxuak etorri zitzaizkidan burura. **Koro Navarro**

Erdiguneko **taberna** ezagun eta zaratzatsua bat da, etxetik hurrean. **Eskarne Mujika**

Ondo ezberdinak dira egunezko **taberna** hauek gauekoen aldean. **Pako Aristi**

Musikarik gabeko **taberna** bat bizitza txuri-beltzean ikustea bezala omen duk. **Pako Aristi**

Taberna barru-ilunak eta garaje zaratzatsua. **Javi Cillero**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Taberna denda zen, erdia eta erdia. Jon Maia

Mesedez ez porrorik erre dioten kartelen ondoan *Mesedez ez dantzatu* dioten beste batzuk jarri behar izan dituztela **taberna** -jabe askok. Harkaitz Cano

Taberna -mutilak baso bat garagardo beltz ekarri zion. Irene Aldasoro

Oraindik ez dut erabaki zer hartu, **taberna** -zerbitzari bat ala emagaldu bat. Koro Navarro

Salgaien denda duten emakumeak esklaboekin nahasten ditu, **taberna** -jendearekin, antzokietako emakumeekin. Iñaki Iñurrieta

Taberna txokoa zegoen, beso bat barra gainean jarrita eta kafea eskuan. Jon Maia

Taberna inguruetan gizonetakoak ziren nagusi; laster itxiko zituzten denda inguruetan, emakumezkoak. Pedro Alberdi

Taberna -bakterrean oliba triste batzuk irentsi nahian. Joxerra Garzia

Infernuko atea gurutzatzea baino debekatuagoa zegoen jokorako mahaiak edukitzea edozein areto, gela edo **taberna** -bakterretan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ni **taberna** -barra batean eseri, zorabiatuta, whiskyak ez dit honezkerok batera onik egiten. Joxe Austin Arrieta

Bakarriketan geratu zen **taberna** ataurrean. Unai Iturriaga

Susok besotik heldu eta **taberna** barrura eraman zuen. Paddy Rekalde

Taberna barruko emakumea aulkitik jaitsi zen. Koro Navarro

Bat atera armairutik eta **taberna** -usaineko doinu bat aineratu zuen. Felipe Juaristi

Taberna edo self moduko jantokietan. Auzuneko **taberna** arteko mus-lehiaketaren finala dugu. Edorta Agirre

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pintore-**taberna** bat zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Atea bultzatu, eta berehala inguratu zuen gizona kantu-**taberna** hartako giro heze eta eztiak. Jon Muñoz

Karaoke-**taberna** baten aurrean utzi zuen taxiak gizona. Jon Muñoz

Kakarraldo ez da marxa **taberna**, ezta euskal giroko taberna ere. Sonia Gonzalez

6 **taberna-aurre** (orobat **tabernaurre**) iz taberna baten aurrealdea.

Berton -esan zuen bisitariak, **taberna** -aurre bateko mahaiak seinalatuz. Edorta Jimenez

Emaztea adatsetik zeramala gelditu zen **tabernaurre** guztietan "Beha ezazue puta hau, senarra lanera joateko zain egoten duk auzoarekin oheratzeko!" zuela anuntzio.

Koldo Izagirre

7 **taberna zulo** (34 esaldi, 22 liburu eta 9 artikulutan; orobat **tabernazulo** 26 esaldi, 15 liburu eta artikulua 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian **taberna zulo** agertzen da) iz

Madriilen, gau batez Frank Sinatra **taberna zulo** batera jaitsi, eta han ibili zen, whiskyrik whisky, harik eta bazter bateko ilunpean zegoen piano bati antzeman zion arte.

Patxi Zubizarreta

Noraezean, palmondo artean galduta, aurkitu duen lehen **tabernazuloan** sartu eta whiskya eskatu du. Javi Cillero

Euren herriko edozein **tabernazulotan** baleude bezala hitz egiten dute ETBko aurkezle eta aditu gonbidatu zenbaitek. Koldo Zuazo

Portuko zarata eta zirri-barrara ohituriko jendea, **taberna zuloko** musika lodi eta kanta lizunetara eginiko jendea. Felipe Juaristi

Taberna-zulotik atera berri den andre lotsagaldia ematen duzu. Karlos Zabala

Ez nintzateke harrituko edozein egunetan hemen inguruko **taberna zuloren** batean erabat trabestituta ikustea. Urtzi Urrutikoeetxea

Koadrilakoak harritu egin ziren agerian utzi nuenean nik ere sudurra zikindu nahi nuela, **tabernazulo** hartako komunean. Iban Zaldúa

Neurrigabe edaten hasi zen, eta zenbait egunez desagertzen zen, **taberna zulo** miserableenetan. Koro Navarro

Garaje itxura duen **tabernazulo** bat dago ertz batean. Iban Zaldúa

-Pasa itzak bi urte Los Angelesko **taberna-zulo** batean sartuta eta urrezko erlojua daraman lehendabizikoarekin ezkonduko haiz. Pablo Sastre

-Luze gabe, denak denen aurkako borrokaleku bihurtu zen **taberna** kezulo hura. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

alboko taberna (4); auzoko taberna (6); auzoko taberna batean (4); azertu zuen taberna (16); donostiako taberna (4)

gasteizko taberna batean (4); hango taberna (6); hango taberna batean (4); herriko taberna (31); herriko taberna itxi (4)

inguruko taberna (6); izeneko taberna (4); kaleko taberna (8); kaleko taberna batean (4)

ondoko taberna (13); ondoko taberna batean (8)

taberna aldera (5); taberna aurrean (12); taberna barruan (16); taberna barruko (4); taberna barrura (10); taberna bat dago (4); taberna batean sartu (14); taberna batean sartzen (4); taberna bateko komunean (4); taberna bateko terrazan (5); taberna batera sartu (4)

taberna eta jatetxe (4); taberna eta jatetxeetako (6); taberna eta jatetxeetan (12); taberna gehienak (4); taberna guztiak (8); taberna guztietan (8) taberna ilun (6); taberna itxi (13); taberna itxita dago (5); taberna itxeko (9)

taberna ondoko (4)

taberna txiki (11); taberna txiki batean (4); taberna zulo (14); taberna zulo batean (4); taberna zuloan (7); taberna zuloetan (4); tabernarik taberna (5); tabernaz taberna (28); zamudioko herriko taberna (7)

herriko tabernak (8); tabernak itxi (6)

herriko tabernako (5); tabernako arduradunak (6); tabernako atarian (4); tabernako ate (4); tabernako atea (12); tabernako atean (10); tabernako barra (4); tabernako barran (7); tabernako barraren (4); tabernako bezero (5); tabernako jabea (4); tabernako jabeak (6); tabernako mahai (7); tabernako nagusiak (4)

aurreko tabernan (5); beheko tabernan (7); betiko tabernan (7); herriko tabernan (14); hoteleko tabernan (6); lebigireren tabernan (7); ondoko tabernan (4); portuko tabernan (5); sartu zen tabernan (5)

tabernan agertu (6); tabernan ematen (5); tabernan sartu (30); tabernan sartu da (4); tabernan sartzen (4); tabernan zeuden (6)

herriko tabernara (7); ondoko tabernara (5)

tabernara abiatu (5); tabernara eraman (7); tabernara eraman zuen (4); tabernara iritsi (4); tabernara itzuli (4); tabernara jaitsi (6); tabernara joan (28); tabernara joan zen (8); tabernara joango (4); tabernara joateko (5); tabernara joaten (12); tabernara sartu (23); tabernara sartzen (4)

herriko tabernaren (10); herriko tabernaren aurrean (4); tabernaren aurrean (9); tabernaren barruan (4)

tabernarik taberna (5)

tabernatik atera (11); tabernatik irten (14); tabernatik irtetean (6); tabernatik irtetzen (7)

tabernaz taberna (28)

herriko tabernen (23); herriko tabernen auziagatik (4); herriko tabernen kontrako (4)

inguruko tabernetan (4); tabernetan erretzea (5)

tabernetara sartu (4)

tabernakide iz taberna berekoa.

-Emakumeak harremanak, eta gainerakoa, finkatu nahian zebiltzatek beti, gu osatu, eta lotu, beharrez, arraio!-, errepikatu ohi zuen zenbaitetan **tabernakide** batek. Jose Angel Irigaray

tabernakle ik tabernakulu.

tabernakulu (orobat **tabernakle**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **tabernakulu** agertzen da) **1** iz erlijio katolikoan, aldare gainean ostia-ontzia dagoen gordetgia. ik **sagrario**.

Hondoan, **tabernakuluaren** atzean, harrizko oholtza baten gainean, gaitzeko errezel bat luzatzen zen lurretik bobedaraino, estatuz eta azpierrez bez zamatu, orain urreztatua, orain herdoildua. **Koldo Izagirre**

Euzko Indarrakoei **tabernakuluko** atek ere bortxatu omen zituzten, eta forma sagaratuak handik desagerrarazi. **Edorta Jimenez**

Ohonek hola segituz, elizen erromestea aintzina joanen da, Protestanten tenploen pare bilakatu artio, **tabernaklea** salbu. **Herria**

2 israeldarrek, tenplua eraiki aurretik, testamentuko Kutxa gordetzen zuten denda.

Judutarren **tabernakulu** batean deserritua izan zen, aurreneko Testamentuaren Kutxa altzoan zeramala. **Patziku Perurena**

Judutarrek **tabernakulu** eramangarri bat besterik ez zeukaten, eta etengabe aldatzen zuten lekuz; horrek kanpo uzten zuen babesaren ideia. **Iñaki Iñurrieta**

Lurra karratua dela, hebrear **tabernakulua** bezala. **Juan Garzia**

3 irud/hed

Gizon hori banitatearen **tabernakulua** dela jakinda, guk ondo dakigun bezala, ez gaitu harrizko Kako-oker itsasontzian zehar aurrera eta atzera etengabe ibiltzek, bere arakastaren haizeek puztuta, ezta? **Julen Gabiria**

tabernaratu, tabernara(tu), tabernaratzen da *ad* tabernara joan.

Lunch jendetsutik apur batzuek **tabernaratu** garenean gure artean zegoen gizon bat aurkeztu dit Kandidok. **Pako Aristi**

tabernari 1 iz taberna baten buru edo arduraduna. ik **ostalari 2**.

Juana, **tabernaria**. **Pablo Sastre**

Naia, **tabernari** gaztea. **Pablo Sastre**

Kafetegiko **tabernari** batek azaldu zuenaren arabera [...] bideo kamerak ditu Tamarises hotelak. **Berria - Mundua**

Tabernariak baso bat garagardo zerbitzatu zuen. **Koro Navarro**

'Beste garagardo bat?' eskatuko diozu **tabernariari**. **Joseba Sarrionandia**

Tabernariak bi kopa atera zizkigun. **Anjel Lertxundi**

-Eta hanburgesa horiek? -galdetu zion ozenki **tabernariari**. **Lopez de Arana**

Esku batean zatarra eta baso tanta-jario bat bestean, egonean jarraitu zuen **tabernariak**. **Koro Navarro**

Tabernaria ez zen ausartzen Marrori sarrera galaraztera. **Juan Kruz Igerabide**

Tabernariak aretoa ixtera zihoala esan zienarako, alkoholaren eragina nabaria zen euren begi eta hitzetan. **Aritz Gorrotxategi**

Zabor-poltsa bi zeramatzan **tabernariak**, eguneko hondakinak. **Migel Angel Mintegi**

Tabernaria ez zen ausartzen Marrori sarrera galaraztera. **Juan Kruz Igerabide**

Irigoik bazuen ordurako langintza berria: **tabernari** egin zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Tabernari bat espeteratu dute droga saltzeagatik. **Berria - Euskal Herria**

Tabernari baten semea han lehen ministro izatera hel zitekeek... **Patxi Zubizarreta**

2 (izenondo ekin)

Barrako **tabernari** potoloak goitik behera begiratu zidan. **Joseba Sarrionandia**

Tabernari ilegorriaren mespretxuzko begiradapean. **Jon Arretxe**

Barran zegoela, bada, kartel markoduna begiztatu zuen **tabernari** bizkar-zabalaren atzean zintzilikatua. **Matías Mujika**

Printze batekin, parkean aurkitutako **tabernari** aberats edo merkatarri lizun batekin. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Taberna hutsean **tabernari** aspertuarekin solasean emanen dituzu orduak. **Joseba Sarrionandia**

Tabernari hitz-jario batekin eta txanoa zapaldua zeraman mozkor batekin ari zen xahutzen egun dohakabe hura. **Koro Navarro**

Tabernari buztanberoaren xarmak ez zituen gehiegi liluratzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 (emakumea dela adieraziz)

Taberna batean sartzen dira eta neska **tabernariari** titiak zanpatzen dizkiote. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Tabernari andrea, emakume lodia zena eta berritsua zirudiena, atea zabaldu bezain azkar jarri zen sartu berriei arretaz begira. **Aitor Arana**

4 (hitz elkartuetan)

Elurra eta elurra -erantzun zion **tabernari** lanetan ari zen emakumeak. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tabernariaren alaba (16); **tabernariaren alabak** (3)

tabernatxo 1 iz taberna txikia.

Hara non mutil gazte bat sartu zen, menua eskuan, bidearen beste aldeko **tabernatxo** batetik etorria. **Jon Muñoz**

Herri erditik pasatzen ikusi ditek goizean, zilar kolorekoa, handia, Espainiako lehenengoa omen duk horrelakoa ekartzen, eta barruan **tabernatxo** ere ba omen zeukak.

Jon Maia

2 etxeetan, edari alkoholodunak dauzkan altzaria.

Keenturatu egin zela esango nuke; liburua nire eskuetan utzi, jauzi lirain batez zutitu, **tabernatxora** zuzendu, ireki eta, makurtuz, esan zidan: "Zer hartuko duzu?". **Juan Martin Elexpuru**

tabernaurre ik **taberna 6**.

tabernazale iz tabernen zalea den pertsona.

Ateaz bestaldekoak deika segitzen zuen hala ere, eta neure ahotsa entzuteak gehiago iratzarri ninduenek, jaiki eta atera jo nuen, desorduko **tabernazale** hura madarikatzen.

Xabier Mendiguren Elizegi

tabernazulo ik **taberna 7**.

tabikazio *iz* holtzez ixtea, trenkadaz ixtea.

Uztaileko arratsalde batean, ordea, lehenengo solairuko **tabikazioa** amaituta zegoela, kotxean hartu eta Plaza Eliptikora eraman zuen emaztea. **Patxi Iturritegi**

tabike 1 *iz* holtza, trenkada. ik holtz.

Sabaietan ez-ezik, **tabikeak** egiteko ere erabili ziren horrelako hurriz-hesiak. **Pello Zabala**

Tabikeak bota, sukaldea eta komunak montatu, tarima jarri. **Jokin Muñoz**

"Deboilatu" hauek teilaturik gabeko lau hormak osatuak dira gehienetan, zenbait leihorekin, gehienak ere adreiluzko **tabike** batek tapiatuak eta tronera bihurtuak, sute arrastoekin alde guztietarik. **Koldo Izagirre**

Bere etxea ezagutzen nuenez, ez ote zitzaidan iruditzen **tabike** bat botata duplex eder bat egin zitekeela. **Koldo Izagirre**

Tabike bat markatzeko asmoz langilea baranda baten gainera etorri zenean gertatu zen ezbeharra. **Berria - Ekonomia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tabike mehearen beste aldetiko ahotsak entzuten ziren. **Lopez de Arana**

Alboko gelan, **tabike** mehe bat bitarteko, honelako zerba it ari zirela entzun zuen: [...]. **Patxi Ezkiaga**

Beirazko **tabikearen** beste aldetik ikusten zituzten metroan bultzaka sartzen eta irteten ari zen jendearen ilara amaigabeak. **Lopez de Arana**

3 irud/hed

Ahoa hertsirekita eduki behar du, sudurreko **tabikeak** erdi itsatsita dituen arnasa hartzea galarazten baitiote. **Sonia Gonzalez**

Diafragma [...]: bularraldeko nahasteak hesteetako nahasteetatik bereizten dituen **tabike** muskularra. **Xabier Olarra**

tabila *iz* upa ohola.

Irlandan, berriz, haginari arnoaren hilkutxa deitzen zioten: hagin-zurez egiten zituzten upelentzako ohol eta **tabilak**. **Pello Zabala**

Izeia, samin guztien zilarrezko erraia, hagina, atsekabe berunezkoen hilobia, zain beretiko zuen ohol **tabilak**. **Pello Zabala**

tabinete *iz* kotoiz eta zetaz eginiko ehuna.

Eskolan erakutsiko zieten beharbada, neskatilak zirela, lan-mota hori egiten, zeren eta urte batean amak **tabinetezko** txaleko purpura bat egin baitzion berari urtebetetzeko oparitarako, azeri-buru txikiak gainean, saten marroiez azpilduak ertzak, eta masusta formako botoi biribilez. **Irene Aldasoro**

tabiratar *izlag/iz* Tabirakoa, Tabirari dagokiona; Tabirako biztanlea.

Berehala ohartu zenez, adiskide **tabiratarrek** beren poza adierazten zioten arren, inor ez zen larregi luzatzen zorion-agurretan. **Pedro Alberdi**

Begiratu batean ikusi zuen jende gehiena **tabiratarra** zen, konfiantzazkoa, polizia kutsurik batere gabea. **Pedro Alberdi**

Tabiratar guztiak zekiten ordu hartan Abenidatik baxoerdiak edanez ibiltzeak zer traba zuen. **Pedro Alberdi**

tabla ik taula.

tabladu ik taulada.

tablaio *iz* kanta eta dantza flamenkoko ikuskizunak taularatzen diren oholtza.

Nahiz eta hari minimoari jarraitzeko ahaleginak egin *cantaorren quejio* minduaren bidez, ikuskizuna **tablaioaren** formatura mugatzen da, agian, luzeegi antzokiko eszenarako ordu bi luze, flamenkoaren zaletasunik ez duenarentzat. **Berria - Kultura**

tableta 1 *iz* turroi edo txokolate pieza.

-Ikusi ditut hamar urteko umeak, hemendik urrun, txokolatea ezagutzen ez zutenak, eta nik emandako **tabletak** irentsi egin zituztenak hitz bat bera esan gabe. Gozozalea nozu / ni horretan nago, / txokolate artean / denbora igaro, / **tableta** batek ez deust / irauten luzaro. **Pako Aristi**

Fardel zuri txiki bat, barnean edukiko zituena, ohi bezala, ogi xerra bat eta txokolate **tableta** bat. **Monika Etxebarria**

Lupin maisua txokolate-**tableta** handi bat zaitzen ari zen. **Iñaki Mendiguren**

Inor ez da hiltzen txokolate **tableta** batengatik, klorofilaren kolorekoa bada ere. **Joxan Elozegi**

Bonboiak banan-banan kaxetan sartu, txokolate eta turroi **tabletak** paketatuta, galletak paketatuta, ezpain-margoak paketatuta... **Berria - Gaiak**

2 pilula formako sendagaia, laua eta txikia, uretan desgin gabe hartzen dena.

Niri mesede egina zidaten zorabioaren aurkako **tableta** haiek eraman nizkionean, dena den, Sabethek ez zuen bere kamarotera inor sartzetik nahi. **Joxe Austin Arrieta**

Latorrizko kutxa txiki batetik azken **tableta** atera zuen. **Lopez de Arana**

Tableta herrestan eraman zuen ur-zurrupadak eztarria gozatu zion. **Lopez de Arana**

3 buztinez edo zurez eginiko pieza, antzinatean haren gainean idazteko erabiltzen zena.

Ez ahaztu, Sumeriako **tabletetan** bezalatsu baliatu izan direla oinatzak, hatz arrastoak, pizti irudiak (itzalak) euskal taia markatzekoan ere. **Patziku Perurena**

Bularrean hamabost kuttun neuzkan, zilarrezko kate bi, idatzi-**tableta** bat, itsasoetatik heldutako zeinuak. **Pablo Sastre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txokolate tableta (4)

tabletatxo *iz* tableta txikia.

Batean freskagarriak zeuden salgai eta bestean jateko goxokiak, sandwichak eta txokolate **tabletatxoak**. **Joxemari Iturralde**

tablinum *iz* ormatuar arkitekturan, eskuarki hondano eta bestibuluan aurrez aurre kokaturiko sala.

Atrioaren zabalera hogeioekoa baldin bada, horri heren bat kendu eta gainerakoa emango zaio **tablinumari**. Santiago Iruretagoiena

Handienen proportzioak, izan ere, erabiltzen badira txikienetan, ez **tablinuma** eta ez hegialak ezin izango dira ezertarako erabili. Santiago Iruretagoiena

Tablinumaren altuera, haberraino hartuta, zabalerrari zortziren bat gehituz egingo da. Santiago Iruretagoiena

Tablinumaren kasetoidura altuera horri zabalerraren heren bat gehituz altxatuko da. Santiago Iruretagoiena

tabloide *iz* ohikoa zena baino tamaina txikiagoko egunkaria, lade grafiko zalaba duena.

Betaurrekoak janzteari amore ez ematearren behar baino urutiagotik irakurtzen ari zen mostradoreko kristala ia bere osoan hartzen zuen **tabloidea**. Josu Landa

tabu 1 *iz* sakratutzat edota ez-garbitzat hartzen denari ezartzen zaion debekua.

Ez buru ez hanka duten mito eta **tabuengatik**. Luis Elberdin

Ez baita batere erraza ikerkuntza fidagarria egitea beldurren eta **tabuen** munduan. Pello Salaburu

Ez nuke esango neure arazo hutsa denik inhibizio hori, baina ezta, beharbada, giza espezie osoaren **tabua** ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez al da garaia, ordea, **tabua** hausteko eta galdera mahai-gaineratzeko? Joseba Zulaika

Tabuak akuilatuta, hasi eta bukatu irakurri nuen liburua. Anjel Lertxundi

Ezjakintasunak **tabu** asko sortu ditu hilekoaren inguruan. Luis Elberdin

Gerrako kontuak errezel gisako **tabu** baten ostean ezkutatu edo isilarazi ziren Euskal Herrian luzaroan. Jokin Urain

Dagoeneko hautsi dute AEBetako gidariek [...] beren **tabu** sakratua: defizit publiko izugarriak metatu dituzte, baita etorkizunari begira ere. Iñaki Heras

Heriotza XXI. mendeko **tabua** bilakatu al da? Berria - Gaiak

2 (izenondoeekin)

Horrez gain, ez zeukan besteok bezalako **tabu** eta herabetasun ergelik. Juan Kruz Igerabide

Literarioki hitz eginez, gurean ere badira **tabu** afektiboak, politikoak eta moralak. Ana Urkiza

Hautsiko ote genuke horrenbestez **tabu** zahar bat, gurasoen biluztasuna agerian uzteko debekua, Noeren semeetako bat errudun egin zenekoan bezala? Joxan Elozegi

Esaten zuen gazteen arteko harreman sexualen kontra zegoela ez **tabu** moral edo sozialengatik, baizik eta sexu gosearen eta maitasun eskasaren seinale zelako. Luis Elberdin

Gai hura **tabu** samarra zen-eta klandestinitate-garai haietan. Juan Kruz Igerabide

Herrian **tabu** erabatekoa zen gaia. Joxerra Garzia

3 (izan aditzarekin)

Garai haietako historia **tabua** da oraindik gure artean. Ana Urkiza

Sexuak **tabua** izaten segitzen du etxean. Berria - Harian

Beraz, ikusten da gai hori **tabua** dela. Edorta Jimenez

Guretzat gai hori pixka bat **tabua** izan da beti. Ana Urkiza

Bada bat hemen sekula aipatzen ez dena, **tabu** balitz bezala, eta, aitzitik, funtsezkoa dena: frogatu ote zituen Grosrouvrek bi aieruak? Jon Muñoz

Gurasook argi izan behar dugu umeentzako sexua ez dela **tabua**, guk geuk bihurtzen dugula **tabu** 8 eta 12 urte dituzten bitartean. Berria - Harian

- Garai bakoitzean interesgarri ez diren gaiak edo gizarateak inkontzienteki **tabu** dituenak bertsolariak ere hala ditu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

4 (izenlagun gisa)

Annyk beti izan ditu inguruan objektu **tabuak**. Monika Etxebarria

Hitz **tabu** halakoa, hiztegioko gorrotatuena. Sonia Gonzalez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tabu bat zen (3); **tabu bihurtu** (3)

hitz tabua (3)

taburik gabe (4)

tabula rasa (*orobat rassa*) 1 *iz* oraindik ezer idatzirik ez dagoen erregistroa. • irud/hed

Lan-mahaiko ohola eremu leuna, garbia da, **tabula rasa**, egoki mintzatzeko. Jon Alonso

Zure burua **tabula rasa** izanik, liburu hark emandako plazer osoa berreskuratzea. Berria - Kultura

Munduarekin harremantzen dena ez dela intelektu bat ("tabula rasa"), nahimen eta sentimenduzko norbait aktibo baino. Joxe Azurmendi

2 tabula rasa egin zerotik hasi.

Tabula rassa egin beharra dago. Hasier Etxebarria

Ohiko irizpide politikoen **tabula rassa egin** eta beste parametro batzuk, beste moral bat erabili beharko genuela aurrerantzean haien jokabidea ulertzeko. Berria - Mundua

Begi gorabehera batean, barkamenak iraganaz **tabula rassa egiten** du, eta barkamenarentzat mirakulu hau 'kaixo' eta 'arratsaldeon' esatea bezain simplea da. Joseba Zulaika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tabula rassa (7); **tabula rassa** (3)

taburete 1 *iz* aulki garaia.

Pianoa nahiko altu dagoenez, **tabureteak** oso ongi datoz isats-pianoaren aurrean eseri eta hura mahai gisara erabiltzeko. Harkaitz Cano

Barraren ertz bateko **taburetean** eserita. Joxean Agirre

Barraren kontra bi **taburete** ezarri eta edariak eskatu genituan. Joxean Agirre

2 irud/hed

Katalunian, hautesontziak erdibituta geratu ziren azaroaren 16an, eta, azkenik, paktu politikoek **taburetea** osatu zuten hiru alderdi ordezkatzan zituzten hiru buruzagirekin.

Berria - Euskal Herria

tadjik (*orobat tadjiko*) 1 *iz* Tadjikistaneko biztanlea.

tagalo (*orobat **tagalog** eta **tagalogera***) **1** izond Filipinetako zenbait uhartetan bizi den herri bati dagokiona.

'Adarra jotzen ari zara?' esan zuen Don Patriciok seriotasun [tagaloarekin](#). [Joseba Sarrionandia](#)

• **2** iz Filipinetan mintzatzen den hizkuntza indonesiarra.

Bi hizkuntza ofizialak, ingelesa eta ['tagalog'](#) dira. [Ramuntxo Etxeberri](#)

[Tagaloz](#) edo alemanez kaleratuko balitz erabakia bera izango zen. [Berria - Euskal Herria](#)

tagalog ik [tagalo](#).

tagalogera ik [tagalo](#).

tahandar iz Biblian, Tahanen leinukoa kidea.

Efraimen leinuko senitartek: Xutelahengandik xutelahtarrak, Bekerrengandik bekertarrak, Tahanengandik [tahandarrak](#), [Elizen arteko biblia](#)

tahitiar *izlag/iz* Tahitikoa, Tahitiri dagokiona; Taihiko herritarra.

Obrak Pahura lagun [tahitiarrak](#) umea izan zueneko unea irudikatzen du, eta loreekin eta fruituekin zoriontzera doazen emakumeak ere erakusten ditu. [Berria - Kultura](#)

Noraezean, Pitcairn uhartera iritsi ziren [tahitiar](#) batzuk preso hartuta. [Berria - Gaiak](#)

tai 1 iz mementoa.

Nitaz zen bezainbatean, mota guztietako bermeak eman nizkion [tai](#) batean. [Aingeru Epaltza](#)

2 tai gabe (*orobat **taigabe**; **Hiztgi Batuan tai gabe agertzen da***) *adlag* etenik gabe.

Iratzargailuaren biribilkian segundoen orratzak [tai gabe](#) egiten zuen arkuari jarraituz. [Oskar Arana](#)

Kaio-saldo goseti baten kurrixkak: halakoxea zen hotsen anabasa hura, [tai gabe](#) errepikatzen den olatu-korda etengabearen apar gainean. [Anjel Lertxundi](#)

Mafaldaren komikietan bezala, [tai gabe](#) txikiagotzen goaz gure sentipen negatiboen aurrean. [Unai Iturriaga](#)

Neure barruan nerabilzkien, [taigabe](#), sekula zapalduak ez nituen bazter haien irudi nahasiak. [Txillardeggi](#)

Sistema eraginkor eta alde-orotako bat dela, non aldaketak etengabe gertatzen diren eta dena [tai gabe](#) eguneratu eta birkorrelazionatzen den. [Xabier Olarra](#)

Süjeta, bat eta bakoitza da: maki ezezagüna, trajeria güzian [tai gabe](#) dabilana, denak ikusiz eta jakinaraziz. [Herria](#)

3 (izenondo gisa) ik [taigabe](#).

4 tai gabeki ik [taigabeki](#).

5 tai gabeko (*orobat **taigabeko***) *izlag*

Hankak [tai gabeko](#) mugimenduan zerabiltzan. [Unai Iturriaga](#)

[Tai gabeko](#) ahalegin bana-banakoak egin nituen neska nirekin bakarrik irudikatzeke, baina Herio tartekatzen zitzaidan beti pentsamenduan, irudimenean, grabatuan...

[Anjel Lertxundi](#)

Horrelakoetan, [tai gabeko](#) aharrasiaz askatzen naiz. [Itxaro Borda](#)

Gauerdian, lana akituta, edanak ginen zerbezarik elkarrekin, hark [taigabeko](#) bakarrikzetei ekiten zien bitartean. [Aingeru Epaltza](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[tai gabe](#) (15); [tai gabeki](#) (4); [tai gabeko](#) (4)

tai-chi ik [tai-txi](#).

tai-txi (*orobat **tai-chi***) **1** iz txinatar gimnastika, higidura oso geldi eta zehatzetan datzana.

-Nahi duzu [tai-txi](#) pixka bat egitea? [Iñaki Iñurrieta](#)

Zerbitzariak [tai-chi](#) egile baten abiaduraz luzatu zuen eskuin eskuko eri zuzena, barra gibekeko ispiluaren gaineko erlojurat. [Aingeru Epaltza](#)

Amodioa egiteko, adibidez, bera gainean jarri eta [Tai-Txi](#) antzeko bati ekiten zion, arreta eta maitasun guztia sexu-aldeko sentsazioetan. [Markos Zapiain](#)

[Tai-txi](#) irakasle hura, Xanti. [Iñaki Iñurrieta](#)

2 irud/hed

Tamarindoak, [tai-txi](#) isil geldoan garrasika. [Iñaki Iñurrieta](#)

taiga iz lurralde hotzetako basoa.

Ez al da aski handia [taiga](#) zuretzat? [Pablo Sastre](#)

Hiru urte ziren Siberiara bidali zituztela, [taigaren](#) mugan, hala irakurri nuen egunkarietan. [Matías Múgica](#)

Gizatasun hori, zernahi dela ere, harrobietan bizi izan da, berrogeita hamar gradutik beheragoko hotzaldietan, [taigako](#) basoetan, urez betetako lubakietan, bai Przemyslen bai Verdunen ondoan. [Felipe Juaristi](#)

Horrela, sabana, tundra, hosto erorkorreko baso epela, euri oihan tropikala, basamortu beroa eta [taiga](#) bezalako biomak aurkitzen dira mundu zabalean. [Berria - Gaiak](#)

Zein luzea den egingo duen bidea, Kursketik gertu dagoen Oboianetik barrera, Voronezhko lur beltzetatik barrera [taigaraino](#). Uralez beste aldeko paduretaraino,

Kazakhstaneko hondar-mendietaraino! [Felipe Juaristi](#)

taigabe¹ (*orobat **tai gabe** g.er.*) izond etengabea.

Zer dela-eta eguneroko brontzezko kanoi urtze eta atzerritik gerrarako gailu ekartze **taigabe** hau. Juan Garzia

Oraingo iruditeria exotiko **taigabe** asmaberrituan. Patziku Perurena

Hiriko erdigunean nintzen; alokairuen goititze **taigabearen** eta bizilagun gero eta zaharragoen aienatze naturalaren bortxaz, gero eta city itxura handiagoko bazterrak. Aingeru Epaltza

Denboraren oldar **taigabeari** buru egiten laguntzen ditu. Xabier Montoia

Egunez egun entzutearen poderioz isiltsan nagusiaren pareko bilakaturiko itsasoaren zurrumuru **taigabearen** eskola. Xabier Mendiguren Elizegi

Marmara **tai gabea** zen. Itxaro Borda

taigabe² ik **tai 2**.

taigabeki (*orobat **tai gabeki***) *adlag* tai gabe.

Igo, ordea, nekez, zama astunak eraman baititugu eta haien kontra jo baitu **taigabeki** haizeak. Xabier Montoia

Unaturik **tai gabeki** ibiltzeaz eta gaizki lo egiteaz eta jateaz. Xabier Montoia

Mutu irauten dugu ordutan, haizearen mehatxu ozena **taigabeki** entzuten dugun bitartean. Xabier Montoia

taiko *iz*

Taiko : danbor japoniar handia, metro batetik gorako diametroa du. Ibon Uribarri

. **Taiko** danborren perkusioan oinarritutako ikuskizuna eskainiko du gaur, 20:00etatik aurrera, Kodo taldeak Donostiako Kursaalako auditoriumean. Berria - Kultura

Taiko -danbor hotsak ermita xintoista batetik zatozan, ezta? Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taiko danborren (5)

taila ik **tailla**.

tailandiar *izlag* Tailandiako, Tailandiari dagokiona; Tailandiako herritarra.

Griñatuak ibili dira **tailandiar** pasaiant baten gainetik, hunek bi sai edo arrano pasaturik Azia alde hartarik Belgikara airekoz. Herria

Pang Ho-cheung txinatarraren *Isabella* eta Pe-ek Ratanuarengan *Invisible waves* **tailandiar** -korear ekoizpena. Berria - Kultura

Kore-Eda Hirokazu (*Nobody knows*) eta Oshii Mamoru (*Innocence*) japoniarrek, Apichatpong Weerasethakul **tailandiarrak** (*Tropical malady*) eta Wong Kar-Wai txinatarrak (*2046*) parte hartuko baitute sail ofizialean. Berria - Kultura

Neska exotiko asko dituzu aukeran, malaisiarrak, **tailandiarrak**, txinatarrak, eskatu besterik ez duzu. Oskar Arana

tailatu, taila(tu), tailatzen **1 du** *ad* zizelatu, landu.

Hiltzen naizenean, ehortz nazak egutera honetan, eta erran harginari ezen **taila** dezala spiral bat ene hilarrian, epitafio gisa. Joan Mari Irigoien

Harri bakoitzak barnean dituen argi eta edertasunak hobeto kanporatzeko, harriak eskatzen duen erara **tailatu** behar da. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Nik ere bai Saderenak, Sade Adou, gure ametsetako emakumea, egur gurian **tailaturiko** jainkosa. Eider Rodriguez

Ateburua eta ate-ondoak trakets **tailatutako** granito urdinezkoak ziren. Fernando Rey

2 harribitxiez mintzatuz, ebaki.

Harribitxi bakoitza **tailatzeko** edo lantzeko bidea aurrez erabakita zegoen, beraz, mendeetako jakituriak erakusten omen zuen eran. J.M. Olaizola "Txiliiku"

3 (era burutua izenondo gisa)

Behin barruan, gidariak eskailera **tailatu** luzean gora eraman zituen, lehenengo solairura. Agustin Otsoa

Bere gelan intxaur-zurezko kutxa astun bat zuen, **tailatua**. Fernando Rey

Etxeak goiko aldean tailatu-hegal **tailatuak** zituen, zulodunak. Fernando Rey

taile *iz* gerria.

Negarrez lepora oldartuko zitzaidan eta nik bere **taile** liraina besarkatuko nion. Joxean Agirre

tailer (*orobat **taller g.er.***) **1 iz** lantegia.

Gero mekanikari ikasten hasi **tailerren** batean, hori zen-eta orduan gehien erakartzen ninduen lanbidea. Juan Kruz Igerabide

Tailer bat jarri zitean Obabako industrialdean kamioiak konpontzeko, eta berealdiko negozioa egin. Bernardo Atxaga

Mantso-mantso egin genuen aurrera, eta, Burgosera iritsitakoan, **tailer** batera eraman genuen konpontzera. Rafa Egiguren

Fabrikek eta **tailerrek** bigarren erreleboa amaitu eta gero. Jon Maia

Zaragozako **tailer** batean montaje bat egiten ari zela. Pablo Sastre

Ikusia naiz egunkariko **tailerrek** jendez husten eta sarraski teknologikotik salbatutako langile urrien lohihartzeko tintaz zikinduak txabusina zuriek ordezkaten. Aingeru Epaltza

Bizikletak eta motozikletak konpontzeko **tailerra**. Lopez de Arana

Tailerreko nagusiak ematen zizkidan eskupekoekin, aberats sentitzen nintzen. Juan Kruz Igerabide

Tailerreko buruarekin mokokan. Aingeru Epaltza

Ne serez-vous pas une lopette?, galdetu zidan **tailerreko** arduradunak lan eske agertu nintzenean. Anjel Lertxundi

Tailerreko muntatzaileak eskuz konpondu behar izaten du erredakzioan egindako txandria. Aingeru Epaltza

Tailerreko lana gogorra zen. Juan Kruz Igerabide

Tailerretako sirenak orroka hasi dituk. Pedro Alberdi

Gutxi gora-behera, hilabete beharko dute **tailerrek** bide bazterrean utzitako ibilgailu guztiak konpontzeko. Berria - Ekonomia

2 (izenondoekin)

Publizitate-foiletoan ikusi dut badituzuela **tailer** mekanikoak, zurgintza, informatika gelak, negutegi bat eta hori guztia.

Jesus Mari Mendizabal

Honek aurrejubiliazioa eskatu zuela, bestea hil egin zela, hura **tailer** berrietara bidali zutela...

Paddy Rekalde

Rañolas erloju-konpontzaileak, bere **tailer** txikian, orduak filosofatzen ematen ditu.

Pablo Sastre

Julianen aita **tailer** txiki bateko ugazaba zen.

Pedro Alberdi

Berak lan egiten zuen **tailer** erraldoi haien osteko Playabarri auzo txikian.

Paddy Rekalde

Neonak beti piztuta egoten dira gure **tailer** eskerga horretan.

Eskarne Mujika

Ez al zaik oraindik damutu Rocandioneko **tailer** malapartatu horretan enplegatu izana?

Pedro Alberdi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Famili-liburua, lan-baldintzak, eskola-orduak, gramatika-batzordea, **tailer**-maisua, matrikula-epea, zerbitzu-kontratua... milaka dira adibideak.

Patziku Perurena

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hamalau urte bete nituelarik, mekanika-**tailer** batean hartu ninduten aprendiz, goizetan.

Juan Kruz Igerabide

Bigarren metalurgia-**tailerra** zabaldu zutenekoak.

Iban Zaldúa

Astea ez du lar ondo hasi, gasolioa gora batetik eta espero ez zuen txangoa auto-**tailerrera** bestetik.

Urtzi Urrutikoetxea

Mary Anny Walkley 20 urteko jostunaren kasua, Londreseko jantzigintza **tailer** batean beste hainbat langilerekin edonola pilotuta, izugarrizko lanaldiak egiten zituen.

Iñaki Heras

Moldiztegi modernoa, ertaina, ziliindroez, Kelley-ez, Miller elikagailuez, prentsa txikiez, linotipo-makinez eta koadernatze-**tailer** oso batez hornitua.

Lopez de Arana

Goma **tailer** bat jarri zuen Errebalean.

Iñigo Aranbarri

5 ikastaro eskuarki laburra, gai artistiko edo praktikoei buruz egiten dena.

Egunero hainbat ekitaldi antolatzen dituzte: pilotak josten ikasteko **tailerrak** eta malabarismo ikastaroak, besteak beste.

Berria - Euskal Herria

Arratsaldean lau **tailer** iraganen dira.

Berria - Euskal Herria

Venezuelan egon zen bitartean Latinoamerikako Herri-Komunikaziorako **Tailerrak** sortu zituen.

Txema Ramirez de la Piscina

Erran dezagun, goraxago aipatu bi langileen xedea (alkiak tapizatze eta muntatzeko **tailer** bat) bai eta elbarrituei buruz egin bi xedek ere zortzi saritu hoietan direla.

Herria

Orduko **tailerretan**, sorkuntza kolektiboa bultzatzen nuen.

Ana Urkiza

Kulturaren jarduteko hor daude *Kreativ Haus* direlakoak, non era guztietako **tailerrak** eta ekintzak antolatzen diren.

Joxerra Garzia

Tailerrenan bilerak irekiak dira, baina apenas etortzen den gizonezkorik: inguruetao liburudenda bateko jabea da ohiko bakarra.

Iban Zaldúa

Ohi bezala, haurrentzako **tailerrek**, kale ikuskizun eta hitzaldiek osatuko dute Bilboko Liburu Azokaren egitaraua.

Berria - Kultura

Tailer orokor bat eta arlokako hamar **tailer** antolatu dituzte.

Berria - Euskal Herria

Eta **tailerrez** gain aisialdiarekin lotutako hainbat aukera.

Berria - Euskal Herria

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zintzo betetzen zituen jostun **tailerra** aurrera atera ahal izateko aginduak.

Pello Lizarralde

Haurrentzat egin **tailerrek** arrakasta ederra ukan dute.

Herria

Artikuluren baterako gaia, literatur **tailerretarako** ariketa.

Pako Aristi

Irakurketa- eta idazketa-**tailerreko** saioa primeran joan zen, ia beti bezala.

Iban Zaldúa

Bai ipuin kontalari gisa, bai idazketa **tailerrak** zuzenduz.

Ana Urkiza

Helduen antzerki **tailerrak** prestatu "Jeux de massacres" antzezlanak ikusten ahalko da Izpurako Faustin Bentaberri gelan.

Herria

Zergatik Bernardo Atxagak ez du literatura **tailerren** bat antolatzen?

Ana Urkiza

Basoan, esaterako, landare-**tailerra** egin zuten.

Berria - Euskal Herria

Ganbara batean bizi zen, Hiru Ferrak zeritzon kaleko oso etxe zahar batean, ongi berotzeko modurik ez zegoen pintore-**tailer** moduko batean.

Xabier Olarra

Sofrologia **tailerra**, asteazkenez, aratsaldeko 6.30 etan, Eihartzean.

Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tailer berri (3); **tailer berria** (3); **tailer etxearen** (3); **tailer mekaniko** (3); **tailer mintegia** (3); **tailer txiki** (3)

autoestimua tailerra (3); **dantza tailerra** (3); **tailerra antolatu** (3); **tailerra egin zuten** (3); **zeramika tailerra** (3)

antzerki tailerrak (6); **erakusketak eta tailerrak** (4); **haurrentzako tailerrak** (5); **ikasteko tailerrak** (3)

tailerrak antolatu (4); **tailerrak antolatzen** (3); **tailerrak egingo** (6); **tailerrak egingo dituzte** (4); **tailerrak prestatu** (3)

tailerrean sartzen (3)

tailertxo *iz adkor* tailerra.

Berak antolaturiko meteorologia **tailertxo** bat eratu du Zarautzen.

Pello Zabala

taila *(corpusean taila soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian taila agertzen da)* 1 iz tailua.

Kolegioko artista ofiziala bihurtu zen Eguberriak iritsi eta bere eskuz egindako zurezko **tailak** ekarri zituen: Jaiotzarako estalpe oso bat bere Haur, Guraso eta abereekin.

Bernardo Atxaga

Artearen Historia erakusten zigun fraideak **taila** haien laudorio bat idatzi zuen kolegioko aldizkarian.

Bernardo Atxaga

Frisoan zimazio doriarra eta astragalo lesbiarra zizelkatu behar dira, erliebe txikiko **tailarekin**.

Santiago Iruretagoiena

2 janzkien tamainaren neurria zenbaki eta letra batez adierazten dena.

Berrogeiko **taila** izango zuen gerri inguruan.

Julen Gabiria

Elizaren agintzaritzaren aurka oihukatuta zuten, doako konpresak eskatu, 38 **taila** ez zaiela kabitzen ohartarazi.

Berria - Euskal Herria

Arras ongi eusten zion guztiak bere horri, baita D **tailara** igaro nintzenean ere.

Joxan Elozegi

- **Taila** berekoak gara eta.

Anton Garikano

Tipo hura mutil bat zuan, mutil gazte bat, galtzen **tailagatik**, estiloagatik.

Pako Aristi

Marley-ren elastiko bat ekarri zion, hiru-lau **taila** handiagoa.

Jokin Muñoz

Izter erdirainoko blusoi zuriekin ibiltzen zen gehientsuenetan, edota behar baino hiru eta lau **taila** handiagoko jertseeekin.

Bernardo Atxaga

3 (oinetakoetan)

Han nongoen, hortaz, XXLko txandal-jantzian eta 45 **tailako** zapatilatan, balantzaka.

Jesus Mari Mendizabal

4 *taila eman* (zerbait egiteko) gai, gauza izan.

Izan ere, nik gutxieneko **taila** ematen nian gutxienez, eta arranoaren bista nian, baina hik ezta hori ere...

Joan Mari Irigoien

Aukera falta izan zait, edo ez da niretzako moduko pertsonaierik egon, edo agian ez dut **tailarik** emango protagonista izateko.

Berria - Harian

tailu 1 iz izaki bizi baten gorputz osoko irudia.

Erakusketako **tailurik** zaharrena Irungo Junkaleko Andre Mariarena da; XII. mendean egindako irudi erromanikoa da. Berria - Kultura

Elizaren gibelaldean Naiara eta Iruñeako printzeen hobia eta han, goian, koruko jarlekuak eta sailduen **tailuak**, ez dakigula zura urreztatua den ala urrea bera zur bilakatur. Piarres Aintziart

Maria Birjinaren **tailua** zuri-urdinaren aurrean aurkitzen zenean, [...]. Itxaro Borda

Kausa materiala (kobrea), formala (zizelkariaren espirituan den irudia), efizientea (zizelkaria bera) eta finala (zertarako den egin **tailua**). Askoren artean

2 (hitz elkartuetan)

Beti hor omen zen hamahirugarren kalbarioaren harri **tailuaren** itzalean, nehork ulertzen ez zuen hizkuntza batean marmaraz. Itxaro Borda

Zuhaitz lainoen azpian agertzen zitzaizkion harri edo burdin-**tailuei** begira. Itxaro Borda

3 mota, moldea.

Hiltzeko zorian banengo bezala pentsatu nahi dut ea nolako **tailua** eta neurria eduki izan nahiko nukeen orduan neure eskupeko banatze-lanean. Patxi Altuna

Marinelak gehienak, jakina, baina baita bertze jende **tailu** batzuk ere. Joan Mari Irigoien

Egia bakoitzak demostrazione bat behar zuela, halako **tailuz**, non printzipio hura arau bihurtu baitzuen. Joan Mari Irigoien

Hazi egin nintzen, halako **tailuz**, non ahul, eskas eta uzkur zena egin baitzen, begi herts-ireki baten bitartean, ausart, azkar eta kuraios. Joan Mari Irigoien

4 gorpuzkera, gorputzaren neurria.

Hala ere, **tailuak** biribiltzera egiten zion gerri aldean, ilea urria eta grisa zuen, eta aurpegia, adierazpen-olatuak desagertzen zitzaizkionean, triskatua ageri zuen. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

halako tailuz (24)

tailu ik taxu.

tailutu ik taxutu.

taiwandar *izlag/iz* Taiwanekoa, Taiwani dagokiona; Taiwaneko herritarra.

The wedding banquet-ek (1993) New Yorken bizi den gazte homosexual **taiwandar** bat du protagonista. Berria - Kultura

Zuzendari **taiwandarrak** bere azken filma aurkeztu berri du Rotterdameko (Herbehereak) zinema jaialdian. Berria - Kultura

Sylvia Changen **taiwandarraren** *20: 30: 40* eta Kim-Ki-Duk korearraren *Samaria* filmak. Berria - Kultura

Taiwan Txinarekin bateratzea ez zuen baztertu, «**taiwandarrek** onartzen badute». Berria - Mundua

Taiwango enpresa askok lantegiak dituzte Txinan, eta **taiwandar** askok han egiten dute lan. Berria - Harian

Pekinen aldaketa handirik espero ez izateko esan die **taiwandarrei** Chen Shui-bian presidenteak. Berria - Mundua

taizetar *izond* Taizé-ko kristau komunitateko kidea.

Taizetarra izan gabe ere, haiekin bat nentorren ni. Xabier Mendiguren Elizegi

taju ik taxu.

tajutu ik taxutu.

tak 1 kolpearen edo bat-batekotasunaren onomatopeia.

Artega eraman du zigarroa hautsontzira, hatz nagiaz **tak** kolpetxo eman ez errautsa botatzeko. Joseba Sarrionandia

Bisaia bat behin ikusi eta, **tak**, buruan sekulako. Aingeru Epaltza

Lehen behakoan, **tak** antzematen dio pozik eta kontent utzi behar duen horri. Aingeru Epaltza

Inazitok globomundia **tak** jirarazi zuen, Don Patriciok egiten zuen bezala. Joseba Sarrionandia

Eta **tak**! denboraldi bakarrean Txapeldunen Ligarako sailkatu zuen. Berria - Kirola

Hara goizaldean ailegaturik gero aireportura eta **tak**!, nekazari aberastua ote zen otu zitzaidan. Berria - Kultura

Ba doaz bi lagun espaloian barrena, eta, halako batean, **tak**, erdikoa erori egiten da. Joxerra Garzia

Eta Anaren logelan kolpeak hasi ziren entzuten, **tak, tak, tak**. Unai Elorriaga

Hortaz, hogeita hamasei bat ordu bihotza **tak**! elditu zitzaionetik ugaldera bota zuten arte. Aingeru Epaltza

Makilak hartu eta denak, **tak** eta **tak**, balak airera, gainera nori eror dakizkiokeen pentsatzen jarri ere egin gabe. Hasier Etxeberria

2 **tak-tak**

Idazmakina hartu eta orri bat sartu nuen, orria eta kopia, Williamsi idazteko asmotan-edo, data tekleatu eta **tak-tak**, lekua utziz goibururako. Joxe Austin Arrieta

Erratzagaz azpitik **tak-tak** jotzen euskun. Xabier Amuriza

Oin puntarekin **tak-tak** jo du lurra, eta harriari sekulako ostikoa eman dio. Jokin Muñoz

Oin puntarekin **tak-tak** jo du lurra. Jokin Muñoz

· **Tak!** **Tak!** halako batean bi eztanda txiki eta opako entzun dira musikaren gainetik. Patxi Iturritegi

Oso kolpe akonpasatuak ziren, eta batzuetan arinagoak eta beste batzuetan motelagoak, **tak**... Unai Elorriaga

tak... edo **tak-tak-tak**. Unai Elorriaga

3 (izen gisa)

Gure oinetakoen hotsa entzuten zen: larruzko zolaren **tak-tak** lehorra ikasketa-buruarenek, gomaren txirri-txirria nireek. Anjel Lertxundi

4 **tak-tok**

Penduluaren mekanika bakarrik: **tak-tok**, **tak-tok**. Txillardegi

5 (izen gisa)

Allikeneko erloju zeremoniatsuan **tak-tok** geldoa entzun zen. Txillardegi
Ordura arte erreparatua ez nuen erlojuaren **tak-tok**, **tak-tok**, **tak-tok** geldoa entzun dut. Txillardegi

6 tik-tak ik tik¹.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tak tak (21); **tak tak tak** (9); **tak tok** (6)

taka 1 *adlag* bat-batekotasunaren onomatopeia.

Hitz sekretu batzuk esan zizkion, berarentzako hitzak, eta **taka**, haren eskuan karamelo bat agertu zen. Pablo Sastre

Taka gogoratu zitzaidan: "Ixtor-puxka". Aingeru Epaltza

Eta egun batean, **taka**: soinuak hitz egin zidaan, gure amaren ahotik. Pako Aristi

Bertara agertu, gazteei ikurrina erakusteko eskatu eta, **taka**, argazkia atera duen argazkilari baten lekukotasun beste asko bezalako, horra lana. Alberto Barandiaren

Deskuidatu eta, **taka**, bi zentesimagaatik moztu ninan gaizki. Pablo Sastre

Bat-batean, **taka**! berriz ere, arrebaren eguna zela gogoratu zitzaion, gauean harenean afaldu behar zuela. Pablo Sastre

2

Taka eta **taka**, indar guztiz berunezko pilotak obus bihurtzen. Hasier Etxeberria

3 taka-takasup_1 *adlag*

Emeki-emeki ibili beharrean, euskara maila unibertsalera presaka eta **taka-taka** igaro nahi izate horrek, tarrapatata, esan dudan bezala, gero eta zulo handiagoa egiten du gure eta iparraldeko gure anai-arreben artean. Pello Salaburu

3a oinez poliki.

Emaztearen bizkarra inguratu eta **taka-taka** lekutu ziren, lurra begipe. Aingeru Epaltza

· Nola entzuten nuen nere ama sukaldean **taka-taka**, **taka-taka**, gosariko katilu handi zuri batean maionesa egiten. Berria - Gaiak

4 taka-takasup_2 *iz* haurrak ibiltzen ikasteko erabiltzen duten lagungarria.

Amona Teresa, nire lehengusu bat **taka-takan** ibiltzen ageri den erretratu bateko atzealdean ageri da, kameraz oharatu gabe, deskuiduan bezala. Xabier Mendiguren
Elizegi

5 tik-taka ik tik¹.

6 tiki-taka ik tiki.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

astindu eta taka (4); **erlojuia tiki taka** (3); **taka taka** (8)

takada 1 *iz* kolpetxo.

Takada arin batzuk entzun zituen kristalean eta leihora itzuli zituen begiak. Irene Aldasoro

2 takada batean memento batean.

Unai aho barnean zeukan guztia irentsi zuen **takada batean**. Aingeru Epaltza

takarkeria *iz* zakarkeria.

Topagune horretan, komuneko komunitate horretan, gure jende-aurreko gixonkeriak eta **takarkeria** tristeak pixkaterako ahantziz, bestelako tratatide bat, gozotasun bat, konfiantzan hitz egiteko era bat asmatzen ari garela geure artean. Iñaki Segurola

takarrada *iz*

Nor bere sentiberatasunaren arabera jotzeko aukera ematen baitu, gainera: pianoa jotzen den bezala jo, hatzak **takarrada** arinetan atzera-aurrera, tekla bakar batean tematu gabe, tekla bakoitzean iradokizun doi bat utziz. Joxerra Garzia

takarraldi *iz* zakarraldia.

Asarretu ezkerro **takarraldi** batzuek badituzte, baiña jeneralean pake osoan alkarrekin bizi diranak. Iñaki Segurola

takateko *iz* kolpea.

Takateko bat aditu zen, eztanda txiki baina bere sikuan amorru bizikoa. Juan Garzia

Etengabeko joan-etorriak, irekitzen eta ixten diren ateen **takatekoak**, plater-hotsa, gonbidatuen elkarriketen marmar gero eta ozenagoa iskanbila bihurtua azkenean, guztia ere bizitzaren edertasunaren eta zoragarritasunaren adierazgarri. Ander Irizar

Gizonezkoen takoiak **takateko** eta zapata-zoruen ziri-zara traketsak. Irene Aldasoro

Haritzek egundoko **takatekoa** eman zion hormari. Fernando Morillo

Ruth gomazko botez **takateko** arinak jotzen ari zen lurzoruaren kontra. Lopez de Arana

Nahikoa malguki ezkerretara eta eskuinetara jiratu, eta, orpoa orpoaren kontra, **takateko** arina jotzen zuen ointxo batek. Jose Morales

Sobakevitxek, berriz, begirunea adierazteko, orpoez **takateko** arina jorik, antzeko gonbita egin zion. Jose Morales

taket (*orobat taketa g.er.*) 1 *iz* hesiak egiteko edo gurdian jartzeko makila moduko atal lodia eta motza. ikhesol.

Taket bat zegoela haitzean sartuta, aspaldi batean bukanero batzuek han utzita. Julen Gabiria

Orokaiven etxeak zutoin edo **taketen** gainean eraikita daude. Pablo Sastre

Giltzarria bezain sendo, kanpadendaren **taketa** bezain tinko, gudu-uztaia bezain gogor. Elizen arteko biblia

Peter habian sartu zen, **taketa** masta legez jarri eta, alkandora bertan lotuta, bela bat egin zuen. Julen Gabiria

Gibel-mastari garabia atontzeko behar ziren beste haga, **taket**, gurpil eta sokak erantsiz, itzeak ontziratzeko prestatu ginen. Edorta Jimenez

Bi harriren artean **taketa** sartzen den bezala, salmenta eta erosketaren artean bekatua. Elizen arteko biblia

2 (erkaketetan)

Haren besoak: zurrun, **taketak** legez. **Joxe Austin Arrieta**

Likoreen ordua heldu zenean, gizon aurpegi zurbil eta **taketa** bezain gorputz tente bat hurreratu zitzairen alboko mahai batetik. **Anjel Lertxundi**

Kalezuloko ezkongai egoki bakarra zelakoan, Um Hamidak poztasuna hartu zuen: bizartegiko nagusitzat zuen, eta **taketa** bezain zuzena irizten zion. **Patxi Zubizarreta**

Katiluak eskuan gogoratzen dut aita, kafesnea edaten eta, **taketa** baino zuzenago, halakoak esaten, *hemendik aurrera zeuk zaindu beharko duzu etxe hau*. **Joseba Sarrionandia**

Han paratu zen bera denon aurre-aurrean, burua gora, **taketa** baino artezago. **Joseba Sarrionandia**

Baina Mikel kieto hantxe, **taketa** lantxe. **Unai Iturriaga**

3 irud/hed zakila.

Berehala sumatu nituen, eskua poltsikoan sartu eta, txanponak bilatzeko aitzakiaz, **taketa** zuzen jartzen. Koskabiloak, guztiz laxo, osoro zintzilik geratu zitzaizkidan eta **taketa** inoiz baino gogorragoa neukan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Taket hark ene uzkiari berriz ere bero handia zabaldu zuen eta beroa nire erraietan hedatu zen. **Aitor Arana**

4 p/kakotxak, aipu markak.

"Eskuizkribuan" hitz asko irakurgaitzak edo irakurtezinak zirenez, adituek Gogolek zer idatzi zuen "asmatu", eta argitaletxeek **taket** artean ipini dituzte hitz horiek. **Jose Morales**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taketa baino (3); **taketa bezain** (3)

takigrafia 1 iz idazkera-sistema lasterra, ikurrak eta laburdurak erabiltzen dituen.

Ikasketak: ingeles, frantses (postaz), nederlanderazko, ingelesezko eta alemanezko **takigrafia**, ingelesezko postazko harreman komertziala. **Josu Zabaleta**

Takigrafian ere buru-belarri sartuta nago; ikaragarri gustatzen zait. **Josu Zabaleta**

Zeregin osasuntsuak denak ere denak, hariak eta egun batean abokatua nintzela eta frantsesez nekiela, eta **takigrafia** eta historia pixka bat ere banekiela jakin zuten arte; jendarmeen sarjentu baten idazkari izendatu ninduten. **Edorta Jimenez**

-Gaur gauean **takigrafia** egin behar duzu, Peter? **Josu Zabaleta**

Takigrafiaz hartzea? **Josu Zabaleta**

Pentsamenduak hain datozkizu azkar, non **takigrafia** inprobisatu baten poderioz baizik ezin dituzun harrapatu; eta agian ezta horrela ere. **Iñaki Iñurrieta**

2 (hitz elkartuetan)

Bepek posta bidezko **takigrafia** ikastaro bat eskatu du akademia batera, Margotentzat, Peterrentzat eta hirurontzat. **Josu Zabaleta**

takigrafiatu, takigrafia, takigrafiatzen du ad takigrafiako ikur eta laburdurak erabiliz idatzi.

Berak arretaz **takigrafiatu** zituen lezio haiek areto nagusian, eta gero, etxean, txukun-txukun pasatu zituen garbira. **Anton Garikano**

takigrafiatzaile iz takigrafiatzen duen pertsona.

Ikusiko duzu zein **takigrafiatzaile** bikainak egongo garen eginda datorren urterako. **Josu Zabaleta**

takigrafiko izond takigrafiaren bidezkoa.

F. de. S.-ek 1897an Silabaren teoria-ri buruz emandako hiru hitzaldiren kopia **takigrafikoak**. **Isabel Arrigain**

takigrafikoki adlag takigrafiaren bidez.

Artzapezpikuak esan zuen, eta Rogeirok gero era laburrean, **takigrafikoki**, erregistratu zuen. **Jon Alonso**

takigrafo 1 iz norbaitek esaten duena takigrafia erabiliz transkribateko lanbidea duen pertsona.

Neska hura bezalakoxe **takigrafo** on bat nahi zuen, bere gutunez ardura zedin. **Mirentxu Larrañaga**

Kazetari burua zen Farr jauna, **takigrafo** trebea, erretzaile amorratua, edale garratza. **Koro Navarro**

Ez dago epailerik lagun diezazukeenik ez eta abokaturik ere, txotxolotzat hartzeko moduko galderak egiten dizkizutenean; han norbera, distribuko fiskala, **takigrafoa** eta beraiek besterik ez zegoen. **Xabier Olarra**

Barrioren esanetan, PPK elkarrizketa nahi du, baina Legebiltzarrean, «argia piztuta eta **takigrafoekin**». **Berria - Harian**

2 (izenondo gisa)

Aizak, horretaz ari garela, zer moduz, oraindik lehenengo neska **takigrafo** txiki harekin al habil? **Lopez de Arana**

takikardia iz bihotz taupaden maiztasunaren lastertze ezohikoa.

Hiru egun lehenago, ez zuen jaitsiera proban parte hartu, **takikardia** bat izan omen zuelako. **Berria - Kirola**

Bihotz taupadak, **takikardia** betean, izutzeko moduan arintzen zitzaizkidalda erreparatu dut. **Txillardegi**

Ez nuen ezer berezirik sentitu; **takikardia** txiki bat, apika, hasieran, baina ez indar berezirik. **Iban Zaldua**

Kangchenjungang eta Everesten bezala, **takikardia** handia nabaritzen hasi nintzen. **Berria - Kirola**

Barru-barruan badakizu zer egingo duzun, eta une horretatik bertatik antagonistak hartzeari uzten diozu, kanpora okagurea, **takikardia** eta bihotza lehertzeko arriskua; zerbeatzoren bat hartzen dut ondorengo egunetan. **Pako Aristi**

takikardika izond emakumeez mitzatuz, takikardiak joa dagoena.

Gorri-gorri jarri omen zen ipuina irakurtzean, masailak sutan, eta orain ere **takikardika** omen dago. **Pako Aristi**

takila ik takilla.

takilla *(orobat takila g.er.)* 1 iz txartel leihatila, txarteldegia.

Geratzen zitzaion diruak hainbestearino altxatzen zion bihotza, non erabaki zuen zineko **takillan** galdetzea Kanjak futbolari famatuaren helbidea. **Matías Mujika**

Orduategia zabala da eta **takillan** bi ordu aholkatzen dituzte bisita egiteko. **Berria - Kultura**

2 lantegi, aldagela eta kidekoetan, banako altzari apalduna, arropa-eta gordetzeko balio duena.

Kuartel ondoko taberna batean arropak aldatu eta **takillan** utzi, eta arratsaldea lagunekin ematera etorri. **Iñaki Iñurrieta**

Takilla ireki nuelarikan ohar bat atzeman nuen, betiko gisaz atearen zirritutik sartua. **Koldo Izagirre**

Eritegia areto luze argitsua da, garbitasun handia dago hemen, ontzixtoetan sarturiko lore ihartu koloretsuak ageri dira ohe ondoko **takilletan**. **Koldo Izagirre**

Atelier guztietako **takilla** guztietako egutegi guztietako titiduna naiz. **Koldo Izagirre**

takimekanografo iz takigrafoa eta mekanografoa den pertsona.

Takimekanografoen ugazabak irrikan zeuden larunbat goizetan lanean jarduteko, lan-astea laburtzea onartzen baldin bazuten galduko zituzten mozkiniei eusteko; baina jada ez ziren gai beren lana **takimekanografoen** laguntzarik gabe egiteko. **Iñaki Mendiguren**

K.o. 1956an bazirudien, Wall Streeteko **takimekanografoak** diru-sarien bidez Wall Streeteko finantzarien ikuspuntura inola ere ekarri ez, eta azkenean ekonomi ezbeharrek finantzariak aldaraziko zituela **takimekanografoen** ikuspuntura. **Iñaki Mendiguren**

tako 1 iz kirol oinetako batzuk zolan daramatzen pieza puntadunetako bakoitza.

Orpo aldeko **takoak** larregi ilkatu zitzaizkion zelai lokaztuan. **Jon Alonso**

Atzoko partidaren, jokaldi batean botaren **takoak** Stiel Suitzako atezainaren aurpegian sartu zituen. **Berria - Kirola**

2 pelotariak eskuan, behatz zatietan eta eskuko hezurren buruetan jartzen dituen pvc-zko pieza karratuetako bakoitza.

Gero **takoak** nola jarri behar diren azaltzean, Letamendiak hainbat gomendio eman zituen, besteak beste **tako** guztiek garaiera berdina izan behar dutela, eta «inoiz» ez direla hatz tartean jarri behar, odol fluxua eragozten baitute. **Berria - Kirola**

Tako lodiek ez diote pilotaren norabidea zuzentzen utzi, eta gaur **tako** finagoak jantziko ditu. **Berria - Kirola**

Lizarrakoak iragan ostiralean **tako** gutxiago jarri zuen eskuan eta hobeto aritu zen. **Berria - Kirola**

Orain arteko partidetan Iñigo Pascualek **tako** asko jarri du eskuin eskuan. **Berria - Kirola**

3 billarrean bola jotzeko erabiltzen den makila.

Zerraldoa ikusirik, begirada saihestu, eta **takoaren** punta haustu zuen klera urdin batez. **Anjel Lertxundi**

Gero kolpe azkarregia eman zion **takoari**. **Anjel Lertxundi**

4 bloke baten baturiko paperezko orrien multzoa.

Takoan geratzen zitzaizkion txartel ertzetatik pasatu zituen erpuruak. **Iñigo Aranbarri**

5 kubo itxurako janari zatia.

Kus-kusa, tabulea, tofua, moussaka, risotto eta arroz minak, taloen antzeko **takoak**. **Edorta Agirre**

6 irud/hed

Zeren eta beraiek egiten baitzituzten kartutxoak, hartu azala, polbora sartu, **tako** biribilarekin estutu, gero perdigoiekin bete eta, kartoiarekin itxi ondoren, atzetik pistoi berria ezarrita, tiraldi bakoitzeko aldatu beharra egoten zen pistoia. **Pako Aristi**

Txalekoko **takoarekin** zituen arazoak konpondu dituela dio [Perurenak], eta saio onak egin dituela. **Berria - Kirola**

Jendeak esaten zuen ezin nuela erabili txalekoko **takoa**. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egur **takoak** (3); **takoak jartzen** (3)

takorik jarri gabe (4)

takografo iz ibilgailu baten abiadura eta egin duen distantzia erregistratzen dituen tresna.

Izan ere, bere kamioiko **takografoak** dio gau guztian ez zela handik mugitu. **Berria - Ekonomia**

Beren ibilgailuetan **takografo** digitalak jartzearen truke 25 euro pagatuko dituzte garraiolariak. **Berria - Ekonomia**

Ertzaintzak kamioi gidariaren kontrako salaketa jarri du, gurpilak gastatuegiak zeudelako, **takografoa** berrikusteko epea gainditua zegoelako eta **takografoan** baimendu gabeko diskoa erabili zuelako. **Berria - Euskal Herria**

takoi 1 iz zapata-orpoa.

Joek zigarrokina bota eta **takoiak** zanpatu zuen lurzoruaera kontra. **Lopez de Arana**

Zehar-begiz eta tarteka erreparatu nion [...] bere ibilera deskonpasatu samar horiek miretsiz, **takoiak** gainean baldrexka. **Joxean Agirre**

Zuk ere ikasi behar zenuke **takoi** gainean ibiltzen. **Jasone Osoro**

Amonarenak izan zitezkeen gona eta **takoiak** zapata horiak. **Eider Rodriguez**

Zapatetako **takoiak** gastatuta, poltsa bat besotik zintzilik. **Josu Zabaleta**

Juanak **takoi** azpian itzaltzen du zigarreta, eta bere esku beltzarana nire sorbaldan gainean pausatzen. **Joxe Austin Arrieta**

Oinetakoak ere beltzak, **takoiak** gabeak. **Ramon Saizarbitoria**

Besoia falangisten erara luzatzea pentsatu dut, baina **takoiak** jo eta eskua lokian paratzearekin konformatu naiz. **Koldo Izagirre**

Takoiak elkarren kontra jo eta agurra egin nuen **Fernando Rey**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Galtza estu berdeak janzen ditu; bluxa berde-beltza, ez askoz laxoagoa; eta **takoi** luzeko bota beltz altuak. **Txillardegia**

Takoi luzeko bota beltz puntadunak, larruzko praka beltzak, niki beltza. **Jokin Muñoz**

Takoi luzeko zapaten gainean balantzaka. **Jokin Muñoz**

Oso **takoi** luzeko oinetakoak zituen, eta modu erabat arriskutsuan zebilen haien gainean kulunka. **Jon Muñoz**

Belaunetarinoko soineko bat darama jantzita, eta **takoi** altuko oinetakoak. **Oskar Arana**

Takoi altu-altuko oinetakoa zen. **Fernando Rey**

Moketa sendo batek estaltzen zuen zoru osoa, idazkari emakumezkoen **takoi** altu eta txarolatuen hots zorrotz eta biribilak apaltzeko. **Iñaki Zabaleta**

Bezperain baino **takoi** altuagoak zekartzan eta soineko beltz utzi eta arin bat besterik ez soinean. Joxean Agirre

- **Takoi** zorrotzen gainean ibiltzen. Jasone Osoro

Zango luzeak lerdanago egiten dizkieten **takoi** fineko botekin. Urtzi Urrutikoeetxea

«Oi basque, basque» esan zuen **takoi** tzarren gainean kinkilin-kankalan gerturatzan zitzaiea. Txarolezko **takoi** luze eta zorrotzdun oinetakoak erosi zizkion Sergiori.

Berria - Kultura

Ezpainak pintatuta eramaten zituen eta kortxozko **takoi** altuak. Pello Lizarralde

Botinetan gomazko **takoiak** jartzea leporatzen zioten. Monika Etxebarria

Ondo orraztua, ondo makillatua, bere hamar zentimetroko **takoi**en gainean zut. Eskarne Mujika

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atsegin zuen haien **takoi** -hotsa, zola gainean kliski-klaska, haien barre-algaratxoak arnasetuka. Mirentxu Larrañaga

Janzkera eszentrikoa utzi eta traje txukuna, panty zuriak eta **takoi** -zapata irrigarri batzuk jantziko ditun. Joxan Elozegi

Irriz lehertu zen eta **takoi** kolpe batez ganbarako atea irekiz erantsi zuen: [...]. Itxaro Borda

Bonbilla guzti-guztiak hautsi zituela **takoi** -kolpeka! Xabier Paya

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Emakumea harro zegoen bere oin txikiez, baina harrokeria oinazetsua zitzaion inondik ere, punta kamutseko txapin **takoi** -altuetan estu-estu sarrarazten baitzituen.

Mirentxu Larrañaga

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Paolak ilea moztu nahi izanen zuen, zapata-**takoi** altuak eraman eta ez "Castagneri jaunak" egiten zituen gizon-zapata sendoak. Fernando Rey

6 orpoa.

Queer piskoanaliaren Akilesten **takoi**a dela diozu... Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

takoi altu (3); **takoi altuak** (3); **takoi altuko** (5); **takoi hotsa** (3); **takoi luzeko** (6)

takoien gainean (11)

takoidun 1 *izond* takoi

Blusa eskote handiduna, gona estu nimoioa eta zapata **takoidunak**. Aingeru Epaltza

Samantha zela pentsatu zuen, ordurako ahizpa nagusien kamiseta estuak eta oinetako **takoidunak** janzten zituen. Urtzi Urrutikoeetxea

Bi emakume zeuden ondoan zutik; bi emakume dotore jantzita, zapata **takoidunak**, galtzerdi haragi-kolorekoak. Felipe Juaristi

Martak zapata **takoidunak** daramatza, eta Txetxurenak ere [...] ez dira deportiboak. Xabier Mendiguren Elizegi

Emakume-zapata **takoidunak** zeramatzan bati. Anton Garikano

Zineman "Cabaret" ikusi nuenetik, arropa bakartako zapata **takoidunak** zeramatzan emakume bat jokatzeari nire goiz-beiletako fantasietariko bat. Aingeru Epaltza

Oinetan, zapata zuri **takoidunak**. Bernardo Atxaga

Sandalia **takoidun** errekarak. Aingeru Epaltza

Alutik, zilarrezko zapata **takoidunek** mugarritutako alutik atera zuen hiru metroko nakarezko idunekoa. Eider Rodriguez

Semea ikusi nuen; hogeita hamar urte zituen, militar botin **takoidunak** zeramatzan jantzita. Felipe Juaristi

Gorriak, berdeak, beltzak, zuriak; eta pare bat, **takoidunak**, zilar kolorekoak. Juan Kruz Igerabide

Oinak minbera zeuzkan, bere zapata zorrotz **takoi** higatudunetan sarturik. Lopez de Arana

2 (izenlagun gisa)

Gona laburreko traje bat zeraman eta **takoidun** zapata. Joxean Agirre

Dibina deitzen zen artista, eta Sergioren lehen betebeharra **takoidun** oinetakoak janzea izan zen. Jasone Osoro

Takoidun zapaten gainean zibeldu egiten zuen soina. Iñaki Zabaleta

Gero, **takoidun** sandalia bat kendu eta hankarteraino eraman zion oina, maleziazko irriño batez. Xabier Mendiguren Elizegi

Top beltza eta antezko **takoidun** botak daramatzen prostituta batek sua eskatu dizu. Sonia Gonzalez

Hiru hazbeteko **takoidun** oinetako beltzekin Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenlagun balioa duela)

Bere orratz-**takoidun** zapatak nire izterterteko angeluan/egingo lukeen efektua imajinatzen saiatzen naiz. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

takoidun zapatak (3)

zapata takoidunak (13); **zapata takoidunak zeramatzan** (3)

takoikatzaile *(corpusean takoinkatzaile soilik)* iz

errugbiko melee batean, baloi takoiz jotzen duena bigarren lerrora bidaltzeko.

Iruditu zitzaidan, oren pare bat lehenago enekin entrenamenduan zegoen Christophe **takoinkatzailearen** autoa bere etxondoaren saihetsean. Daniel Landart

takoitxo iz takoi baxua.

Aita aurretik joaten zen, pauso handiak emanez, eskuak bizkarrean eta pipa ahoan, eta amona atzetik, soinekoak xirrixta-xarraxta egiten ziola, **takoitxoekin** hanka-hotsak ateraz. Fernando Rey

taktika 1 iz ekintza militarrek zuzentzeko eta bideratzeko antzea; estrategia-planak egoera jakin batera egokiturik gauzatzea.

Estrategia, **taktika** eta «target» hitzak erabili ohi dituzte bai enpresetan, baita armadan ere. Berria - Ekonomia

Gauza izan zen, esaten ari ginen, Lisboa setiatu eta konkistatzeko lan izugarriari egokien zaizkion **taktikak** prestatzeko. Jon Alonso

Erakunde iraultzaile baten oinarri politiko eta ideologikoak, **taktika** eta estrategiak interesgarriak gerta dakizkioke polizia sozial bati etsaia hobeto ezagutzeko eta haren kontra borroka egiteko. Rafa Egiguren

V. Biltzarreko erabakiak eta lau fronteen **taktika** azaldu zizkigun: langileena, kulturala, politikoa eta militarra. Rafa Egiguren

Buruz mantsoagoak direnez, aurrez pentsatu gabe ekiten diote erasoari, eta inolako **taktikarik** gabe, ez dira iristen beren asmoak betetzera. Santiago Iruretagoiena

Gerran zaude berarekin, eta, beste edozein borroka-tokitan bezala, **taktikaren** jokoa dabil zuen arteko giroan. Rafa Egiguren

2 (izenondoekin)

Paraxutista eta harkiak joaten dira horietan eta felagek erabili **taktika** bertsua erabiltzen dute. **Xabier Montoia**
Horrek erakusten du Israelgo Armadaren **taktika** militarrek berezi gabeak eta arriskutsuak direla. **Berria - Mundua**
Badakizu, boltxebikeak, Okhranako artxibo polizialean sartu zirenean, **taktika** iraultzaileei buruzko tratatu mardulak aurkitu zituztela. **Rafa Egiguren**
Mugaz bestaldeko barbaroa ez da, ordea, konformatzen alboko zibilizaziotik ikasi dituen **taktika** nagusiak praktikatzeko hutsarekin; hobetu ere egiten ditu sarritan. **Iñaki Mendiguren**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **taktiko**.

Espainiako *Eurofighter* borroka hegazkinak eta Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeko hamahiru herrialdeetako hegazkinak, **taktika** ariketak egingo dituzte Nafarroan. **Berria - Euskal Herria**
Hortik, bada, **taktika** arau soil hori: "Dibisio blindatuak urak bezala jokatu behar du". **Josu Zabaleta**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero, abilliago aritzearren, Clausewitz-en gerla **taktikak** aztertu genituen. **Itxaro Borda**
Hemezortzigarren mendeak jada ikusia zuen oihaneko indiarra europar Mosketeak baliatzen zelata eta enboscada-gerran; gerra-mota horrek, oihanaren pantailarekin indiarren lagungarri gisa, erraz menderatzen zituen garaiko europar gudu-**taktikak**. **Iñaki Mendiguren**
IRAK, bere aldetik, gerrilla **taktikak** erabili, eta loialisten jauregi ugari erre eta soldadu eta polizia asko hil zituen. **Berria - Harian**

5 ondorio bat lortzeko erabiltzen diren bideen multzoa.

Premiazkoa da **taktikak**, praktikak eta estrategiak biltzea. **Txema Ramirez de la Piscina**
Bena estrategia, **taktika** eta jokabideetarik harat, Euskal Herriaren alde aritzea gatik daude Frantzia (eta Espainia) güzian barreiaturik. **Herria**
Taktikak (klase borroka, borroka armatua, desobedientzia zibila) ez dira erabakitzen moral estandarraren arabera, baizik une bakoitzean borroka dituen beharrei erantzunez. **Berria - Mundua**
Horixe zeukan argitu beharra, handik aurrera zer **taktika** hartu erabaki baino lehen. **Anton Garikano**
Taktika hau erabiltzen dutenek kontu handia izan beharko dute pneumatikoeekin. **Berria - Kirola**
Bere helburua lortu ez duenez, **taktika** aldatu beharra du Van Daan andreak. **Josu Zabaleta**
Helburua gure barruko espiritualitate kristaua piztea izango zen beti ere [...] norbaiten barruan ezkutaturiko elijiorako bokazioa ernaraztea, baina **taktika**, eta **taktikarekin** batera teknikak, aldatuta zeuden: limurtzea zen orain persuasiorako bidea, sedukzioa alegia. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Gazteak, bitartean, agure honekin erabili behar duten **taktika** eztabaidatzen ari dira noski. **Koldo Izagirre**
Hitzaldi horiek porrot egin zutenean, **taktika** aldatu eta agindu nion Tom eta biok han egongo ginela bera bertan gustura egokitu arte. **Oskar Arana**
Hornitzaileekin haserretzen zen, haien bizitzaren gorabeherak jakin bezain laster; hori zen haren **taktika**. **Karlos Zabala**
Badakizue zein den gure **taktika**: atzean gogor, eta baloiak aurrera Garrintxari. 'ABN Amro 1' ontziak **taktikarekin** egin die aurre aurkariaren erasoari. **Joan Mari Irigoien**
Bakarika ahalik eta errenta handiena lortu eta mendian eustea da nire **taktika**. **Berria - Kirola**
Batzuetan erabili izan dudana **taktiketako** bat binomio fantastikoarena izan da: krokodiloa eta ohea, esaterako, esparru semantiko desberdina duten bi hitz uztartzea. **Ana Urkiza**

6 (izenondoekin)

Kilo batzuk kentzeko une hartako kanpainan, horixe zuen **taktikarik** berriena. **Oskar Arana**
Denbora irabazteko **taktika** zaharra. **Jon Alonso**
Pentsatu zuen **taktika** ona izango zela Matilderi enborrari buruz eta eskafandrari buruz galdetzea, denbora apur bat emateko eta kafesnea epeltzeko. **Unai Elorriaga**
Instituzioari buruz, agian **taktika** oso bat behar da muntatu. **Berria - Euskal Herria**
Martini damutu egin zitzaion godoen **taktika** zuhur horri ez jarraitzea. **Koro Navarro**
Besteen posizioak ahultzeko **taktika** politikoak diseinatzen ari dira. Kasu honetan, oso litekeena da norbaitek pentsatu izana **taktika** psikologiko frogatuak erabiltzea ideia ona dela, itxaronaraztea kirioak higitzeko, krisiaren mugaraino eramateko. **Berria - Euskal Herria**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **taktiko**.

Taktika erakustaldia eman zuen atzo ABN Amro 1 ontziak Volvo Ocean Racen, laugarren etapen. **Berria - Kirola**
Trimmer ardura du lehenengoak eta **taktika** arduraduna da bigarrena. **Berria - Kirola**
-Aldi batez burgesiarekin bat egiteagatik, langileak ez dik ezer galtzen, nik uste; **taktika**-kontua duk. **Juan Kruz Igerabide**
Taktika aldaketa. **Josetxo Azkona**

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harekin ikasi nian dakidan guztia: penalti bat zer den [...] baita futbol **taktikak** ere. **Joan Mari Irigoien**
Zer dago adostasun horren atzean? iraganaren inertzia soilik? hauteskunde **taktika** bat? **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estrategia eta taktika (4); **taktika aldatu** (10); **taktika hutsa** (3); **taktika txarra** (3)
atzeratzeko taktikak (3)

taktiko *izond* taktikarena, taktikari dagokiona. ik **taktika 3**; **taktika 7**.

Ezingo baitzuten portugaldarrek, berek bakarrik, setio, jazarpen, gatazka eta oldarraren [...] afera **taktiko** eta estrategiko korapilatsuei buruzkoak ebatzi. **Jon Alonso**
Nondik bideratu ziren Anibali geratzen zitzaizkion elefante urriak, zeintzuk izan ziren garaipena eman zioten mugimendu **taktikoak**. **Iban Zaldua**
Ez gaude alde bakarreko mugimendu **taktikoetarako**. **Berria - Ekonomia**
Sasian, gerran bezala, inork ez du aukeratzen ahal laguna, etsaiek agintzen du norengana, nor hartu beharko duzun aliatu **taktiko**. **Koldo Izagirre**
Erabaki **taktiko** bat izan zen, Azpilgo giro gorria -herritarren samina eta sumina- hozte aldera. **Joan Mari Irigoien**
«Kointzidentzia **taktiko** batzuk» badaudela ohartarazi zuen. **Berria - Euskal Herria**
Realeko entrenatzaileak denbora asko eman du aste honetako saioetan taldearen mugimendu **taktikoak** lantzen eta zuzentzen. **Berria - Kirola**
Jokaldi **taktikoetan** mina egiten duen jokalaria delako. **Berria - Kirola**
Lan fisikoa eta entrenamendu **taktikoak** tartekatuta dituzte. **Berria - Kirola**
Oinarrizko ideologia alde aurretik ezarria dagoela dirudi, eta teoria zein izen berriak **taktikoak** baizik ez direla; modernotasun itxura bat hartzeko ahaleginak edo. **Bernardo Atxaga**
Bereizi egin behar da zer den **taktikoa**, eta zer estrategikoa. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erabaki taktiko (3)
jokaldi taktikoetan (3)

taktikoki *adlag* taktikaren aldetik.

Denek badakigu ABn zatiketa bat izan zela eta zein izan ziren horren sustraiak, bai **taktikoki**, bai estrategikoki. **Berria - Euskal Herria**

Taktikoki maltzurra, estrategikoki ezgauza eta moralik gabea zen eta gerraren bidea aukeratu zuen [...] horrek eragingo zituen giza galerak benetan hausnartu gabe. **Berria - Mundua**

Taldea desastre hutsa zen **taktikoki**, eta segituan hausten zen. **Berria - Kirola**

Onar ditzagun 25 tesi aristotelikoak, eta horiei gehi diezaiegun, **taktikoki**, hipotesi bat, hogeita seigarren baiespena: mundua betierekoa da. **Xabier Kintana**

Motibatzen maisua da eta **taktikoki** ere oso ona. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taktikoki oso (3)

taktizista *izond* taktiko hutsa denari dagokiona.

Ez dugu ikusten faktore **taktizisten** inguruan gure elkarlana landu behar dugunik. **Berria - Euskal Herria**

takto 1 *iz* ukia.

Plastikozko poltsa baten **taktoa** sentitu zuen ezkerrekoan. **Unai Iturriaga**

2 sotiltasuna.

Beti ere, aurreneko bertute pedagogikoa arazo hauetan **taktoa** izaten da. **Joxe Azurmendi**

talaburdina ik **talo** 7.

talaburni ik **talo** 7.

taladrina *iz* ebaketa-lanabesetan ponpatzen den gaia, urez eta zenbait olio osatua, makinak lubrifikatze eta ez berotzeko erabiltzen dena.

Gizajoa: **taladrinak** afektatu dik. **Pablo Sastre**

Gaien artean disolbatzaileak, ur zikinak, margoak, pigmentuak eta **taladrinak** izan ziren nagusi. **Berria - Ekonomia**

Sartu eta bertan, logela, eta logelan, ohe txiki bat, non **taladrina** usaineko estalkipean sekula maitalerik etzan ez den. **Pedro Alberdi**

taladro 1 *iz* zulagailua, daratulua.

Joan zen lasai asko hura, Niko **taladroa** lagata kanpoko aldetik markoari begi zorrotzarekin begira gelditu zen. **Pablo Sastre**

Taladro on bat erosteko eskatu dizu, eta zuri iruditu zaizu dena dakiela. **Eider Rodriguez**

Taladroaren hotsa zetorren kaletik. **Pablo Sastre**

2 zura jaten duen zomorro baten izena (*Hylotrupes Bajulus*)

Arto mota hori **taladro** zomorroaren aurkakoa da. **Berria - Euskal Herria**

talaia (*orobat talai g.er.*) 1 *iz* eremu zabalak begitatzeko erabiltzen den gaina edo egiten den dorrea.

Itsaslabarra metro gutxira dago, eta haren gain-gainetik aurrera egiten duen burdinazko **talaia** txiki bateraino eraman nahi nau aitak. **Anjel Lertxundi**

Lurra harrotu, harriak kendu eta landarerik onenak landatu zituen; erdian **talaia** eraiki zuen, eta dolarea egin. **Elizen arteko biblia**

Hogwartseko gazteluaren profila bistatu zuten bere dorre eta **talaia** askorekin. **Iñaki Mendiguren**

Ibarraren ikuspegi zabalena zuen **talaia** horrek. **Aingeru Epaltza**

Talai hartatik ikusten zen Abraren ikuspegi luzea dastatzeko isilunean murgildu zen bikotea. **Josu Landa**

Jauregia, finean, **talaia** ezin hobea zen, nondik begizta baitzitekeen, han urrunean, urrotarren dorretxea, baita, legoa laurdenerat-edo, Urbiaingo herria ere. **Joan Mari Irigoien**

Txopako gazteluko **talaiara** jo nuen. **Edorta Jimenez**

2 irud/hed

Badakit nola pasatzen dituzten asteburuak gautoki hits horietan tabureteen gaineko **talaieatik** atezuan edo edalontzi bati beila egiten. **Joxean Agirre**

Euzkadi'ko Jaurilaritzaren New Yorkeko egoitza, **talaia** bilakatu zitzaion Jesus Galindezen larrupean bizi zen Rojas sinatzen zuen NY-5075i. *Xabi*txori ekingo diot berriro, baina oraingoan beste **talaia** batetik, beste istorio eta aukera batzuk iradokitze aldera. *El Pensamiento Navarro* eta *La Voz de Navarra* egunkarietako zuzendaria izan zen 20ko hamarkadan, eta **talaia** horrek Nafarroako errealtateaz aztertze toki aukeratua eman zion. **Edorta Jimenez**

Baita sortzaileari ere, kanturako **talaia** bat aukeratzekoan. **Andoni Egaña**

Hizkuntza asmatzeko askatasunak, ordea, **talaia** urrutiratzea eskatzen du -irakurri, begiratu, hausnartu...-. **Anjel Lertxundi**

Geroari begira, baina oso **talaia** ezberdinetatik. Itzulpenaren **talaia** lanbrotsu eskaintzen bazaigu, itzultzailearen begiak lanbroz zeudelako da. **Berria - Harian**

Oi Hirutasun, kristauen teosofiaren **talai** supernatural eta superjainkozko eta superrona. **Joan Mari Lekuona**

3 (hitz elkartuetan)

Talaia -dorreak adarrak hurbileko mendixen altuera gainditzen zuen. **Agustin Osoa**

4 *talai* egin

Talai egiten ziguten faxista haiek, jakina. **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste talaia batetik (3)

herriko talaian (3)

txopako gazteluko talaiara (4)

bere talaieatik (6); **datuen talaieatik** (10); **gaurko talaieatik** (3); **talaieatik begiraturik** (3); **talaieatik begiraten** (3)

talaiari *(orobat **talaieru**)* 1 *iz* talaiatik begirutzen duen begiralea.

Petit Maison talaiatik aurrez aurre zegoen, nondik gentozen ere jakingo zuen beraz **talaiariak**, hara sartzen ere ikusi gintuela atera genuen kontua. **Joseba Sarrionandia**
Gotzainaren autoa iritsi baino minutu gutxi batzuk lehenago, hau da, **talaiariak** etsaiaren etorrera iragartzeko erabilitako suziaren kea ikusi eta berehala, [...]. **Koldo Biguri**

2 (adizlagun gisa)

Zain neukan zokoren batean **talaiari**. **Koldo Izagirre**
Giltzaduna da, jakina, **talaieru** egona, zerri alaena. **Koldo Izagirre**

talaieru ik **talaiari**.

talaitxo *iz* talaia txikia; *adkor* talaia.

Zaindarien **talaitxoaren** gainean inor ez dago; eta bi bandera mastak hutsik daude. **Txillardegi**
Arantzazuko **talaitxo** partikular honetatik ordu batzuk sartuko nituen honezkero hodei trumiltsuei begira, ezinegona gandorrean eta kiskalibeharra erraietan daramatela. **Pello Zabala**

talaka 1 *iz* kalaka.

Zuk ere beti **talaka** bera behin eta berriz! **Fernando Rey**
A zer **talaka** amarena errusierarekin! **Fernando Rey**
Hark halako **talaka** eman zidan asunto hura kaskoan sarrarazteko, ezen azkenean berak baino gehiago sinetsi nuen, eta gero berak zer eta nik ez sinestea nahi! **Fernando Rey**
Talaka hori bera aditua nauk gaur. **Aingeru Epaltza**
Ez dut berriz aditu nahi traje berriaren **talaka** hori! **Fernando Rey**

2 (hitz elkartuetan)

Beshir aldamenen neukan une oro itsatsita muki bat bezala, nire iraultzaile **talaka** nazioartekoari adi-adi, liluraturik, begiak ezin irekiago, harrituta nire buru-argitasuna zela-eta. **Fernando Rey**

3 *talakan adlag*

Ametsetan ere ez huke asmatuko zer den hiru ume inguruan izatea, **talakan**, amak agindu dielako aqua-park batera eramanen dituela. **Aingeru Epaltza**
-Joder, Charly, hi ere hasiko haiz horrekin **talakan**? **Aingeru Epaltza**

4 *talaka eman* kalaka eman.

Arruntik maitemindua nintzen, eta ez zitzaidan inporta nire neska arropa gorri-laranja janzteko setan bazegoen, edo **talaka ematen** bazidan joga egiteak nire gogo-gorputzei ekarriko zizkien onurez. **Aingeru Epaltza**
Jende hori ezagutzeaz gain, berarekin ibili izan bainaiz bezeroei zuhurrak izateko **talaka ematen** zienean. **Xabier Olarra**
Hark halako **talaka eman** zidan asunto hura kaskoan sarrarazteko, ezen azkenean berak baino gehiago sinetsi nuen, eta gero berak zer eta nik ez sinestea nahi! **Fernando Rey**

talamo *iz* burmuinaren oinarriaren erdialdeko zatia, bi hemisferioen artekoa, zentuzmenen jardueran arte hartzen duena.

Garuneko bi zatiri egiten die kalte bizkarrezurreko min kronikoak: **talamoari** eta kortex prefrontal dorsolateralari. **Berria - Gaiak**

2 greziar eta erromatar arkitekturan goiko solairuko gela, ezkon-oheta dagoena.

Prostasaren ezker-eskuin logelak daude jarrita, horietako bat **talamo**a deitzen dena, eta bestea anfitalamoa esaten zaiona. **Santiago Iruretagoiena**

talán

1 *talán egin* gustatu. ik **tilin** 3.

Nahasketa hori da, bata, bestea, edo biak; edo-ta bata bestearen galbahetik pasea... bertsozaleari **talán** egiten diona. **Andoni Egaña**

2 *tilin-talán* ik **tilin** 4.

talante *iz* aldartea; izaera.

Baina **talantea**, jokamoldea, apurka-apurka aldatuz zihoan, horretan ez neukan dudarik, agintariek sinesten ez bazidaten ere... **Karlos Linazasoro**
Asko hitz egiten da konponbideaz, **talante** ederra sumatzen dela esaten da, beste garai batzuk bizi ditugula. **Berria - Harian**
Hain ziren toke marroixka haiek asistematiakoak eta **talante** artistikoari emanak. **Unai Elorriaga**
Krisiaren kontzientzia bizi-biziz dago idatzita, eta hura gainditu ahal izateko beharko den **talante** moralaz, honela dio: [...]. **Joxe Azurmendi**
Zapaterok hauteskundeak irabazi zituenean, **talante** berri sonatua hauspotu zuten handik eta hemendik. **Jokin Urain**
Adierazpen batzuei ez diegu garrantzirik kentzen, bere neurrian baloratzen ditugu, baina **talantei** baino, ekintza zehatzei egiten diegu so. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

talante berria (8); **talante berriak** (3)

talantismo *iz* talantea erabiltzeko joera.

Herenegun esandakoekin koherente izan nahi badu, hitzetatik ekintzetara pasatu behar du, **talantismoak** alde batera utziz. **Berria - Euskal Herria**

talapasta *iz* astinaldia.

Talapasta egin wiskyari edalontzian eta jo du tragoxka bat, irribarrez burua gorantz-beherantz mugituz. **Pako Aristi**

talasemia iz ondorioatasunezko anemia.

Modu horretan ume jaio berrien artean **talasemia** [...] kasuak %30 murriztea lortu dute. Jaio aurretiko diagnostikoak haurraren eritasun hilgarriren bat iragartzen digunean (**talasemia**, demagun), edo elbarritasun ikaragarriak eragiten dituenen bat (miopatia larriak, adibidez). **Berria - Gaiak**

Europar, bi metodoak erabili dira **talasemia** errotik kentzeko. **Juan Garzia**

talasokrazia iz itsasoetan nagusi izatean oinarritzen den nagusitasun politiko eta ekonomikoa.

Oso denbora laburrean portugaldarrek arabiarren eskuetatik kendu zuten Indiar ozeanoko **"talasokrazia"**. **Iñaki Mendiguren**

Neurritasunezko iritzi horrek, hamabost mendeko leizean zehar emanak, nekez gogobete zezakeen "Minosko **talasokraziaren**" ondorengo barbaroek eragindako zulo moralean bizi izatearen kontzientzia garratza zeukan poeta heleniko bat. **Iñaki Mendiguren**

talasoterapia (orobat *talazoterapia g.er. eta thalaso* *terapia g.er.*) 1 iz itsas bainuetan oinarritzen den terapia.

Nere gorputz-arimetako gogorruneak beratzeagatik edo, itsasoari kendutako uretan sartzen naiz gozoro ("**talasoterapia**" deitzen diote). **Iñaki Segurola**

Astelehenetan, **talasoterapia**. **Berria - Kirola**

2 talasoterapia-zentroa. ik **talasozentro**.

Partida amaitu eta **talasoterapiara** joatea ohiko bihurtu da errugbi profesionalen. **Berria - Kirola**

Azpirarratzekoa da ikastaroez gain ekitaldi desberdin batzu ere eskainiko direla kurtsoen artean, deneri idekiak eta urrik: Miarrizeko **talasoterapiaren** bisita, Donibane Garazirat ateraldia, [...]. **Herria**

Sari ederrak banatuko dira: moto bat, bidaia bat itsasontziz, asteburu bat Serge Blanco **talazoterapiari**, apairu bat Oiarzungo Zuberoa ostatuan bi lagunentzat. **Herria**

3 **talasoterapia-zentro**

Instituto Onkologikoan hitzartutako zerbitzuetarako %20ko deskontua edukiko dute eta baita, zenbait **talasoterapia-zentrotan**. **Berria - Ekonomia**

Partidak jokatu eta biharamunean **talasoterapia zentrora** joango gara, Hendaia. **Berria - Kirola**

talasozentro (*corpusean talaso zentro, talasozentro eta talaso zentru soilik*) iz talasoterapia-zentroa.

Atzo egin zuen Miarrizteko prentsaren aitzineko azken agerraldia, Hendaia Serge Blanco **talaso zentrotan**, han ari baitira lapurtarrak egonaldia egiten, prestatzen eta tentsioa arintzen. **Berria - Kirola**

Bigarren saria: aste buru bat Hendaia Serge Blanco **talasozentrotan**. **Herria**

Atlantal, gaur egungo **talaso zentruaren** ondoan eraikiko dute beraz bigarren bat, *Atlantal 2* deitua. **Herria**

talastatu, talasta(tu), talastatzen du *ad* likidoz mintzatuz, inarrosi, irabiatu.

Edalontzia **talastatu** nuen, ardoa usaintzeko bezala, eta saiatu nintzen hartan ez pentsatzen, alegia, nola estaltzen duten elkar gizonak eta emakumeak. **Joxe Austin Arrieta**

talazoterapia ik **talasoterapia**.

talasozentro ik **talasozentro**.

talde 1 iz mota bereko izaki bizidunen multzoa. (persona eta kidekoena)

Bi **talde** osatu ziren kaian: euskal borrokalarik desarmatuak alde batean, eta buruzagi politikoak bestean. **Jokin Urain**

Taldea hiru sailetan banatu zenean, [...]. **Irene Aldasoro**

Lisboako futbolaren zaleak **talde** bitan banatzen dira, alegia, ala Sportingin alde, ala Benficaren alde. **Edorta Jimenez**

Hogei bat gizoneko **talde** batek zaintzen zuen borda. **Koro Navarro**

Gelatik jaitsi eta **taldearengana** iritsi nintzenean, Ubanberen eta Opinen arteko borroka ez zela hain arina konturatu nintzen. **Bernardo Atxaga**

Batzordean zeuden legebiltzarreko **talde** guztiek (EAJ, PP, PSE-EE eta EA) KESe egin duen lanaren kalitatea txalotu zuten. **Berria - Ekonomia**

Alaska hoteleko **taldea** galtzea benetako katastrofea izan zitekeen berarentzat. **Bernardo Atxaga**

Bosgarren **talde** bat dago: ukiezinak, pariak, harijanak edo dalitak, maila guztietatik kanpo daudenak. **Gotzon Garate**

Txopako bidaztiak ez ziren nahasten itxura eta kolore anitzeko **talde** horien artean. **Karlos Zabala**

Banekien gazte hitlerzaleen **talde** askotan komisario politiko bat egoten zela. **Anjel Lertxundi**

-Eta denek entzuten ditugu, berriz, *Quilapayun* **taldea**. **Menane Oxandabartz**

Tom **taldean** izatea oso lagungarri gertatu zaigu. **Patxi Zubizarreta**

ik beherago 13. **Askoren artean**

Emakume bakarra zegoen **taldean**, Maite, eta Austrian egindako pistola metrailadore bat eman nion. **Rafa Egiguren**

Bata eskolara maisua zen eta bestea Apaizaren **taldekoa** izandakoa. **Koro Navarro**

El Pradoko zaharberritzaile **taldeko** burua izan dut irakasle. **Javi Cillero**

Taldeko kideek beren eskubide batzuei uko egiten diete lanak ematen dituen onurak jasotzearen. **Luis Elberdin**

Kirol zuzendariak proposatuta lehen **taldeko** jokalariek harrobiko gazteen entrenamenduetan parte hartzen hasi dira. **Berria - Kirola**

Taldearen egoera txarra aintzat hartuta, (13. postuan da sailkapenean), klubeko zuzendaritzak ez du arriskatu nahi izan. **Berria - Kirola**

2 (persona eta kidekoena izenondoekin)

Talde literario batean egon naiz, baina ez naute kideztat hartu. **Ana Urkiza**

Ez zen inolako **talde** antimilitaristakoa, baina, Jabi epaitu eta kartzelan sartu zutenean, ekintza eta bilera guztietan parte hartu zuen. **Iban Zaldua**

Denbora berean 37 pertsona hil eta 425 zauritu zituzten **talde** parapolizialek. **Jokin Urain**

Talde supremazista estatubatuar baten web orrian. **Aingeru Epaltza**

Ez zebiltzan bakarka, **talde** armatuetan baizik, edozein erasori aurre egiteko gertu. **Karlos Zabala**

Poliziak turistaren autoetan lapurtzen espezializatutako **talde** antolatua desegin du. **Aingeru Epaltza**

Idea txarrekin **talde** indartsuen interesen aldeko direlako egiten dute aurrera. **Iñaki Heras**

Ordenako **talde** gidariak ere izan zuen zeresanik erabaki horretan. **Askoren artean**

Bi mila lagunek arnata **talde** erriarri txiki bat. **Karlos Zabala**
Harrezkero, **Talde** Iraunkor bat eratu zen, sekretua gordetzeko. **Fernando Morillo**
Gobernua ez da **talde** tekniko, fidatu beharra daukagu lanen ardura duten teknikariek. **Edurne Elizondo**

3 (pertsona eta kidekoena hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zientzia **talde** -lana da. **Fernando Morillo**
Talde liburu bat sortu zen bilera haietatik. **Karlos Zabala**
Handik goiti, kanpora joaten nintzen aldirio, **"talde** -bilera" nuen, edo **"talde** -afaria", edo **"talde** -batzarra". **Aingeru Epaltza**
Irakasleen sinesgarritasuna hobetu ezina da ikasleen begietan, eta gelakideen artean sekulako **talde** -giro baikor eta ekintzailea dago. **Joxerra Garzia**
Talde -estrategian oinarritzen genuen jardunbidea. **Jon Arretxe**
Jendaurreko ikusgarria, **talde** -jarduera ludikoa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Talde -terapia. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Donatienek irrikatsu maite zituen bi gauza hauek: uzki-koitua eta **talde** -sexua. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Talde sena sendotzeko balio dute, elkarte jakin bateko kide egiten gaituzte. **Koldo Zuazo**
Bere kultur eragina jentilen gain zertzean [...] diaspora siriakoa bere **talde** -nortasuna gordetzeko kezka mugitu zuen. **Iñaki Mendiguren**
Erroka horiek beroriek bultzatu egin zituzten juduak eurentzat **talde** -bizitzarako modu berri bat sortzera. **Iñaki Mendiguren**
Maila supra-pertsonal baina infra-razialeko **talde** -esperientziak. **Iñaki Mendiguren**

4 (pertsona eta kidekoena hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Rousseaurentzat, giza **talde** bat herri bilakatzeko duena gizarte-hitzarmena da. 'Gizatxar **talde** bat azaldu zen, lainezaz bete. **Markos Zapiain**
Gudari- **talde** bakoitza hogeita lau mila gizonetara zen. **Elizen arteko biblia**
Frantzisko dohatsuaren lehen ikasle **talde** hark berebiziko bihotz-garbitasuna zuen. **Askoren artean**
Inkontrolatu **talde** batek Ander harrapatu eta bortizki jipoitu zuen. **Iban Zaldúa**
Lagun- **talde** handia berekin zuela [...] heldu zen Jerusalemara. **Iñaki Mendiguren**
Kanpoan, Errealaren zale **talde** bat zegoen bandera zuri-urdinak lepoan hartuta. **Ramon Saizarbitoria**
Compelloko Joan anaiak, gizon eta emakumez osaturiko lepradun **talde** handia bildurik, Ordena utzi eta beste ordena bat fundatu nahi izan zuen. **Askoren artean**
Aingeru- **talde** handia etorri zen zerutik, *Aintza zeruetan Jainkoari* kantatuz. **Patxi Altuna**
Han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru- **taldearen** menpe zegoen huraxe bera. **Elizen arteko biblia**
Neska-mutil **taldea** zen, ahotsei erreparatuta. **Urtzi Urrutikoetxea**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Guardia zibil **talde** errepublikano batek egin zien aurre Beasaingo tren-geltokian. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Turista aleman **talde** oso bat hantxe zegoen multzotarik, apaiz katoliko bat gidari. **Joxe Austin Arrieta**
Neska zarpatsu **talde** baten atzetik oldartu zen. **Irene Aldasoro**
Bere adinekoekin jolastu nahiko dik, ez agure aspertu **talde** batekin. **Alberto Ladron Arana**
Kalearen bestaldean, neska uniformedun **talde** bat ageri zen, te katiluak zituztela eskuetan. **Koro Navarro**

6 (abere eta kidekoena)

Otsoen **taldea** berritu egiten zen etengabe. **Karlos Zabala**
Hamar otso larriren **talde** batek, goseak amorraturik, begiak diradi jarioka txingarren pare, almadiaren barrura egin zuen jauzi. **Karlos Zabala**
Samuak intsektu txiki-txiki batzuk dira, kakalardoaren **talde** berekoak. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**
Txerri eta txerrikume zuri-beltzak ageri ziren **talde** jorietan bildurik. **Karlos Zabala**

7 (abere eta kidekoena hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lubisek Zizpa ekarri ondoren -Zizpak **talde** -burutza kendu nahi zion Faraoni-, oreka hura kolokan jarriko zen. **Bernardo Atxaga**

8 (abere eta kidekoena hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haien abere- **taldeak** hartu eta izugarriko sarraskia egin zien. **Elizen arteko biblia**
Zenbaitetan, bai primateek bai beste ugaztun **talde** batzuetakoek, nahiago izaten dute beren sexu berekoekin jardun. **Luis Elberdin**
Gudarostearen erdia eta elefante- **taldea** utzi zizkion, beraren erabaki guztiak betetzeko aginduz Lehoi batek zebra **talde** bati erasotzen dio eta bat hiltzen du. Rantxoko zaldi **talde** bat Kaweah errekarren artean zegoen ura edaten. Artzain bat aurkitu zuen landan ahuntz- eta akerr- **talde** bat bazkatzen. **Elizen arteko biblia**
Pixkanaka, kaio **taldea** inguratzen ari zitziola ohartu zen. **Aritz Gorrotxategi**
Txita- **talde** ugaria zuen eta inguruan zebilkion etengabe jira-biraka. **Askoren artean**
Erlauntzetik alde egiten duen erle **taldea**. **Unai Elorriaga**
Anatomia konparatuak eta fisiologiak apurka-apurka atzeman dituzte zenbait antzekotasun [...] organismo **taldeen** artean. **Juan Garzia**
Gorputzaren masa handikako antolaera zelula **taldeen** arteko tokian tokiko eragin-trukez gauzatzen da. **Juan Garzia**

9 mota bereko gauzen multzoa. (pertsonen osaturiko gauzena)

Gizarteko **talde** baztertuenean askatzaile [...] eta gizarte-harremanetan bakegile. **Askoren artean**
-Boleiboleko **talde** nazionalako kide egiten zaituztenean, Kubatik kanpo bizitzeko geldituko zara? **Jon Muñoz**
Heinz Macher haupsturmführerraren agindupeko SSetako **talde** berezi batek. **Alberto Ladron Arana**

10 (pertsonen osaturiko gauzena hitz elkartuetan)

Intelektual, filosofo, politikari, artista eta pentsalariz osaturiko presio **talde** eraginkor bat. **Harkaitz Cano**
Espainiako sistema politiko eta administratiboaren aurka egin behar izan dute lan **talde** horiek. **Edurne Elizondo**
Joanesen lan **taldeko** arduraduna, belgikar bat, segidan jabeldu zitzaion, baizik eta **taldeko** langilerik hoberena zuela. **Eneko Bidegain**
Lan- **talde** baten ordezkari modura ariko balitz bezala. **Askoren artean**
Biologia molekularreko iker- **taldeak** ziren han kokatzekoak. **Juan Garzia**
Terapia- **talde** batean sartzeko aholkua eman zien. **Josetxo Azkona**
Beraz, epaileak iritzi- **talde** bati jarraitzen badio, kondonatu egingo du erregabean, eta beste bati jarraitzen badio, absolbitu. **Juan Martin Elexpuru**
Erlitio nagusi batzuk inspirazio atzeritarrak animatu izan ditu, eta gerra- **talde** barbaro batzuk kultura atzeritarraren tinduaz blai eginda zeuden. **Iñaki Mendiguren**
Legebiltzar **talde** batek, PSE-EEK hain zuzen ere, eguneko saioa 19:30erako amaitzea eskatu zion bozeramaile-mahaian. **Berria - Harian**
Parrokiaren itzalean sortutako kirol **talde** baten ospea besterik ez zuten defenditzen. **Koldo Biguri**
Egunen batean mundu osoan barrera ibiliko naiz nesken boleibol **talde** nazionalarekin. **Jon Muñoz**
Musika- **talde** bat ere sortu zuen, *Sats* izenekoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Rock **talde** batean jotzen du, izugarriko zarata egiten dute. **Iban Zaldúa**
Bidean pailazoren bat aurkitzen zutenean zirku- **talde** polita osatzen zuten hirurek. **Bernardo Atxaga**
Ttu-ttua ez zen, beraz, literatur **talde** batek eragindako aldizkaria izan? **Ana Urkiza**
Garai hartan Damián ardo truke jotzen zuten biolin- **talde** bateko partaide zen. **Felipe Juaristi**
Kurten eta filmatze- **taldearen** jarrerarekin zuen zerikusia, zeharka esaten eta egiten zituzten gauzekin. **Iban Zaldúa**

11 (bestelako gauzena) ik multzoa.

talde islamista batek (13); talde islamistak (13); talde itxura (12); talde izaera (35); talde izango (25); talde izenak (17)

talde jakin (12)

talde lan (14); talde lana (78); talde lana da (13); talde lanak (13); talde lanaren (13); talde lanean (29); talde lanerako (9); talde lehiakorra (9); talde lehiatu (18); talde lehiatu ziren (13); talde lehiatuko (21); talde lehiatuko dira (21)

talde mistoa (9); talde mistoak (12); talde mistoan (15); talde mistoko (9); talde mistora (12); talde moduan (12)

talde nafarrak (11); talde nagusia (21); talde nagusiak (19); talde nagusiarekin (15); talde nagusiaren (10); talde nagusiek (10)

talde ohia (18); talde ohiaren (29); talde ohiaren aurka (12); talde on (17); talde ona (97); talde ona da (30); talde ona du (12); talde onak (10); talde onena (44); talde onenak (41); talde onenaren (14); talde onenen (16); talde onenetakoa (10); talde orekatua (16); talde oso (43); talde oso bat (10); talde osoa (80); talde osoak (34); talde osoaren (15); talde osoari (16)

talde paramilitar (28); talde paramilitarrak (13); talde paramilitarreko (15); talde parlamentario (49); talde parlamentarioa (41); talde parlamentarioa osatzeko (10); talde parlamentarioak (19); talde parlamentarioaren (17); talde parlamentarioek (28); talde parlamentarioekin (11); talde parlamentarioko (20); talde polita (19); talde politiko (87); talde politiko guztiek (16); talde politikoak (18); talde politikoei (12); talde politikoei (42); talde politikoen (22); talde profesional (13); talde propioa (24)

talde sendo (10); talde sendoa (78); talde sendoa da (15); talde sendoagoa (13); talde sortu (13); talde sozialistak (9); talde sustatzailea (10); talde sustatzaileak (20); talde sustatzaileko (20)

talde terrorista (34); talde terroristak (9); talde terroristako (10); talde terroristaren (11); talde terroristen (14); talde ttipi (9); talde txiki (50); talde txiki bat (16); talde txikia (16); talde txikiak (16); talde txikiak (13); talde txikien (10); talde txikitan (10); talde txuri (148); talde txuri urdina (24); talde txuri urdinak (73); talde txuri urdinaren (9); talde txuri urdinean (12); talde txuri urdineko (13)

talde ugari (13)

talde zabal (10); talde zaila (11); talde zuri (184); talde zuri gorria (26); talde zuri gorriak (55); talde zuri gorrian (17); talde zuri gorriarekin (12); talde zuri gorriaren (18); talde zuri gorriko (32); txirindulari talde (10); udal talde (25); udaleko talde (16); unibertsitateko zientzialari talde (13); zientzialari talde (116); zientzialari talde batek (87); zientzialari talde baten (9)

a taldea (10); alemaniako taldea (12); amaren alabak taldea (9); antzerki taldea (25); aurkako taldea (13); azken taldea (15); babes taldea (19); belardi taldea (11); bigarren taldea (60); bigarren taldea joanen (9); bilboko taldea (10); dantza taldea (54); denboraldirako taldea (9); donostiako taldea (13) egin duen taldea (10); egiten duen taldea (9); elaudi taldea (14); elkartasuna taldea (13); enpresa taldea (9); entrenatzen duen taldea (14); etxeko taldea (63); euskal taldea (12); euskaltel euskadi taldea (10); euskarazko komunikazio taldea (9); futbol taldea (26); galiziako taldea (9); gasteizko taldea (21); gerrilla taldea (10); gudari taldea (15); gure taldea (25); herrialde katalanetako taldea (9); hirugarren taldea (19)

eko taldea (16); iruñ itoitzeekin elkartasuna taldea (12); izan zen taldea (9); izar taldea (41); izeneko taldea (10); jaso duen taldea (10); jende taldea (10); kantari taldea (26); kataluniako taldea (10); komunikazio taldea (11); lagun taldea (18); laguneko taldea (13); lan taldea (127); langile taldea (9); legebiltzar taldea (10); lehen mailako taldea (19); lehen taldea (74); lehen taldea joanen (20); lizarrako taldea (10); madrilo taldea (9); mailako taldea (45); mailako taldea da (10); moduko taldea (30); musika taldea (31); nire taldea (20); nolako taldea (9)

osatutako taldea (24); osatzen dute taldea (26); profeta taldea (9); rock taldea (10); sortu zen taldea (15); sortutako taldea (10); sozialista abertzaleak taldea (25); taldea ariko (20); taldea ariko da (17); taldea aurkeztu (11); taldea bera (14); taldea bikain (10); taldea desegin (23); taldea desegiteko (15)

taldea egiten (14); taldea eratu (19); taldea erosi (9); taldea ez desegiteagatik (11); taldea gaizki (10); taldea hartuko (18); taldea hartuko du (14); taldea indartu (10); taldea indartzeko (13); taldea izan (67); taldea izan da (12); taldea izan zen (17); taldea izango (53); taldea izango da (27); taldea izango du (16); taldea joanen (30); taldea joanen da (26); taldea kanporatu (14); taldea nagusitu (12)

taldea ondo (50); taldea ondo dago (12); taldea osatu (45); taldea osatuko (10); taldea osatzea (14); taldea osatzeko (28); taldea osatzen (55); taldea osatzen duten (18); taldea prest (10); taldea sortu (83); taldea sortu zen (13); taldea sortu zuen (18); taldea sortzeko (12)

taldea utzi (71); taldea utziko (29); taldea utziko du (11); taldea uztea (19); taldea uzteko (9)

unama taldea (9); valverderen taldea (11); zuzendaritza taldea (21); zuzendutako taldea (11); zuzentzen duen taldea (30)

a taldeak (20); abere taldeak (9); aguirreren taldeak (15); ahots taldeak (9); alemaniako taldeak (13); amorrorturen taldeak (21); angeluko taldeak (10); antzerki taldeak (71)

b taldeak (17); bere taldeak (130); bi euskal taldeak (15); bide ertzean taldeak (9); bigarren taldeak (51); bigarren taldeak galdu (11); bigarren taldeak irabazi (13); bilboko taldeak (39); bizkaiko taldeak (11)

csc taldeak (14)

dantza taldeak (83); dantzari taldeak (15); donostiako taldeak (33)

eb berdeak taldeak (12); egin du taldeak (10); egin zuen taldeak (17); eibarko taldeak (16); ekisoain taldeak (9); ekologistak martxan taldeak (15); emakumeen taldeak (13); enpresa taldeak (9); entrenatzen duen taldeak (22); eroski taldeak (14); espainiako taldeak (13); etxeko taldeak (89); euskal taldeak (60); euskaltel euskadi taldeak (23); euskara taldeak (11); ezker abertzalea taldeak (25)

frantziako taldeak (11); futbol taldeak (24)

gainerako taldeak (14); galiziako taldeak (9); gamesa taldeak (9); gasteizko taldeak (109); gazte taldeak (23); giza taldeak (14); gizarte taldeak (9); gobernu taldeak (40); gudari taldeak (34); gure taldeak (17)

herri taldeak (10); herriko taldeak (10); hirugarren taldeak (23)

eko taldeak (65); ikasle abertzaleak taldeak (21); ikerketa taldeak (16); ingalaterako taldeak (9); iritzi taldeak (10); iruñ irungo taldeak (25); italiako taldeak (15); ivanovicen taldeak (10); izango du taldeak (9); izar taldeak (13); izeneko taldeak (12)

javier aguirreren taldeak (9)

kaiku taldeak (12); kantari taldeak (21); kataluniako taldeak (20); kirol taldeak (9); komunikazio taldeak (9); kultur taldeak (16)

lagun taldeak (10)

lan taldeak (156); legebiltzar taldeak (30); legebiltzarkide taldeak (10); lehen taldeak (75); lehen taldeak errezebituko (13); lehen taldeak irabazi (25); lehiaketa taldeak (11); lizarrako taldeak (33); londresko taldeak (10)

madrilo taldeak (10); manex gogoan taldeak (9); melen taldeak (14); musika taldeak (38)

oposizioko taldeak (10); osatutako taldeak (12)

phonak taldeak (10)

rock lehiaketa taldeak (10)

salbamendu taldeak (28); saunier duval taldeak (11); sortzen ikasbatuaz taldeak (22); sozialista abertzaleak taldeak (54); sustengu taldeak (15)

taldeak alaituko (10); taldeak alaiturik (55); taldeak antolatu (18); taldeak antolaturik (13); taldeak antolatuta (13); taldeak antolatutako (16); taldeak antolatzen (15); taldeak ariko dira (27); taldeak aurkeztu (9); taldeak aurkeztutako (11); taldeak berak (25)

taldeak egin (50); taldeak egin duen (16); taldeak egindako (30); taldeak egingo (10); taldeak eginiko (14); taldeak egiten (10); taldeak eman (24); taldeak emandako (14); taldeak emanen (24); taldeak emanen du (16); taldeak emanik (23); taldeak errezebituko (25); taldeak errezebituko du (24); taldeak esan (11); taldeak eskainiko (13); taldeak fitxatu (14); taldeak galdu (29); taldeak gora egin (17); taldeak hartu (19); taldeak hartu zuen (10); taldeak hartuko (11)

taldeak irabazi (83); taldeak irabazi du (27); taldeak irabaztea (10); taldeak jakinarazi (12); taldeak joan (9); taldeak joko (11); taldeak lortu (9)

taldeak ondo (22); taldeak osatu (9); taldeak salatu (14); taldeak sartu (10); taldeak sortu (14)

torturaren aurkako taldeak (19)

udal gobernu taldeak (10); udal taldeak (22); valverderen taldeak (16); zuzendutako taldeak (18); zuzentzen duen taldeak (63)

b taldean (11); bere taldean (22); bigarren taldean (34); biktimen lan taldean (11)

euskaltel euskadi taldean (10); futbol taldean (12); gasteizko taldean (9); gure taldean (25); lan taldean (77); lehen taldean (145)

taldean ari (30); taldean ari da (9); taldean ariko (10); taldean ariko da (9); taldean aritu (31); taldean aritu zen (11); taldean arituko (9); taldean dago (10); taldean dauden (10); taldean egin (19); taldean egiten (9); taldean egon (10); taldean hasi (10); taldean jarraituko (28); taldean jarraituko du (10); taldean jokatu (25); taldean jokatu (21); taldean jokatu (16); taldean jokatzeko (10); taldean jokatzeko (36); taldean jokatzeko (13); taldean korrituko (11); taldean korrituko du (10); taldean sartu (31); taldean sartzeko (18); taldean sartzeko (14); taldean zegoen (11)

zuzendaritza taldean (13)

airoski taldearekin (10); bere taldearekin (41); bigarren taldearekin (23); dantzaldia otsoak taldearekin (9); dantzaldia samain taldearekin (10); dantzaldia xitoak taldearekin (11); gaubele taldearekin (9); hirua taldearekin (10); lehen taldearekin (119); lehen taldearekin entrenatzen (14); otsoak taldearekin (12); samain taldearekin (12)

taldearekin alderatuta (9); taldearekin alderatuz (10); taldearekin ariko (11); taldearekin aritu (13); taldearekin batera (27); taldearekin egin (12); taldearekin egingo (10); taldearekin entrenatu (13); taldearekin entrenatzen (19); taldearekin korrituko (9); xitoak taldearekin (16)

antzerki taldearen (21); babes taldearen (14); bere taldearen (50); cofidis taldearen (10); dantza taldearen (25); dantza taldearen ikusgarria (9)

egin zuen taldearen (9); enpresa taldearen (9); etxeko taldearen (38); etxeko taldearen aurka (15); futbol taldearen (29); gasteizko taldearen (12); giza taldearen (11); gobernu taldearen (14); gure taldearen (10)

ikerketa taldearen (9); izar taldearen (16); lan taldearen (71); legebiltzar taldearen (12); lehen taldearen (17); musika taldearen (18)

sozialista abertzaleak taldearen (22)

taldearen alde (26); taldearen arabera (30); taldearen ardura (12); taldearen aurka (153); taldearen aurka jokatu (13); taldearen baitan (10); taldearen barruan (26); taldearen berri (9); taldearen bigarren (12); taldearen buru (17); taldearen buruzagia (15)

taldearen egoera (34); taldearen egoerak (11); taldearen emanaldia (10); taldearen erdia (16); taldearen eskutik (24); taldearen etorkizuna (11); taldearen gidaritza (11); taldearen helburua (10)

taldearen ibilbide (9); taldearen ibilbidea (12); taldearen ikusgarria (14); taldearen inguruko (22); taldearen ingurua (9); taldearen izena (23); taldearen izenean (27); taldearen jarrera (17); taldearen jokoa (16); taldearen kontra (103); taldearen kontrako (18); taldearen kontzertua (25); taldearen lana (16); taldearen lehen (28); taldearen maila (12)

taldearen onerako (11)

taldearen ustez (24)

zuzentzen duen taldearen (9)

bere taldeari (32); eman dio taldeari (11); eman zion taldeari (15); etxeko taldeari (23); gasteizko taldeari (17); lan taldeari (14)

taldeari dagokionez (17); taldeari irabazi (9); taldeari laguntzeko (16)

euskal taldeei (12); taldeei dagokienez (14)

antzerki taldeek (11); beste taldeek (27); bi euskal taldeek (33); emakume taldeek (12); euskal taldeek (107); gainerako taldeek (26); gizarte taldeek (9); hiru euskal taldeek (23); legebiltzar taldeek (20); muturreko taldeek (9); oposizioko taldeek (24); salbamendu taldeek (56)

taldeek aurkeztutako (14); taldeek bat egin (9); taldeek egin (12); taldeek egindako (9); taldeek jokatu (10); taldeek joko (10)

beste taldeekin (10); gudari taldeekin (9); taldeekin batera (22)

beste taldeen (29); bi taldeen artean (45); bi taldeen arteko (53); dauden taldeen (29); dauden taldeen artean (10); euskal taldeen (49); euskal taldeen artean (9); euskal taldeen arteko (15); gainerako taldeen (10); giza taldeen (14); giza taldeen arteko (9); gudari taldeen (10); lan taldeen (19); lehen mailako taldeen (11); ligako taldeen (9); musika taldeen (20); salbamendu taldeen (11)

taldeen arabera (12); taldeen artean (162); taldeen arteko (157); taldeen aurka (56); taldeen berri (9); taldeen kontra (20); taldeen lana (10)

euskal taldeentzat (17)

euskal taldeetako (12); taldeetako bat (36); taldeetako bat da (13); taldeetako jokalaria (10); taldeetako kideak (11); taldeetako ordezkariak (11); taldeetako ordezkariak (13)

lan taldeetan (11); taldeetan aritu (14)

euskal taldeetatik (9)

taldeez gain (12)

edozein taldek (12); hainbat taldek (100); taldek egin (10); taldek hartu (10); taldek hartuko (18); taldek hartuko dute (16); taldek osatzen (12); taldek parte hartu (9); taldek parte hartuko (11); zein taldek (20); zenbait taldek (26)

antzerki taldeko (10); aralar taldeko (10); ardoi taldeko (12); arin taldeko (12)

babes taldeko (9); baque taldeko (11); bere taldeko (44); bigarren taldeko (61); bigarren taldeko jokalaria (12)

citroen taldeko (10); cofidis taldeko (19); csc taldeko (13)

dantza taldeko (21); eb berdeak taldeko (30); ekologistak martxan taldeko (14); euskaltel euskadi taldeko (30); euskarazko komunikazio taldeko (10); ezker abertzalea taldeko (10)

futbol taldeko (25)

gerolsteiner taldeko (9); gure taldeko (11)

eko taldeko (14); ikerketa taldeko (18); ikertzaile taldeko (14); illes balears taldeko (17); iruñ itoitzein elkartzuna taldeko (46); izar taldeko (35)

kaiku taldeko (12); kelme taldeko (15)

la boulangere taldeko (13); lampre taldeko (13); lan taldeko (49); lan taldeko presidenteak (9); legebiltzar taldeko (23); lehen taldeko (80); lehen taldeko jokalaria (10); liberty seguros taldeko (10); liberty taldeko (26)

mobile taldeko (16); musika taldeko (15)

phonak taldeko (18)

quick step taldeko (10)

saunier duval taldeko (22); sortzen ikasbatuaz taldeko (18); sozialista abertzaleak taldeko (45)

t mobile taldeko (15)

taldeko abeslari (14); taldeko abeslaria (11); taldeko arduradun (16); taldeko arduradunak (23); taldeko arduradunaren (9); taldeko arduradunek (29)

taldeko batek (11); taldeko bateria (9); taldeko bozeramaile (17); taldeko bozeramaileak (24); taldeko buru (59); taldeko burua (43); taldeko buruak (38); taldeko buruaren (13); taldeko buruzagi (9)

taldeko dantzariak (10)

taldeko eledun (15); taldeko eledunak (11); taldeko entrenatzaile (25); taldeko entrenatzailea (26); taldeko entrenatzaileak (10)

taldeko gainerako (10); taldeko gidari (14); taldeko goletzaille (16); taldeko golegile (29); taldeko golegile nagusia (15)

taldeko izarra (17)

taldeko jokalaria (74); taldeko jokalaria (11); taldeko jokalaria (30); taldeko jokalariek (21); taldeko jokalarien (12); taldeko jokalaririk (17)

taldeko kantariak (21); taldeko kapitaina (14); taldeko kide (183); taldeko kide batek (9); taldeko kide da (9); taldeko kide izan (13); taldeko kidea (67); taldeko kidea da (14); taldeko kideak (153); taldeko kideek (116); taldeko kideen (28); taldeko kirol zuzendaria (22); taldeko kirol zuzendariak (16)

taldeko lana (11); taldeko legebiltzarkide (17); taldeko legebiltzarkideak (13); taldeko lehendakaria (9); taldeko liderra (13)

taldeko musikariak (9)

taldeko ordezkari (14); taldeko ordezkariak (21)

taldeko partaide (17); taldeko presidente (39); taldeko presidentea (9); taldeko presidenteak (27)

taldeko txirrindulari (34); taldeko txirrindularia (40); taldeko txirrindulariak (28)

taldeko ustezko (11)

taldeko zuzendari (17); taldeko zuzendaria (13); taldeko zuzendariak (16); taldeko zuzendaritzak (12)

us postal taldeko (12)

zientzialari taldeko (13); zuzendaritza taldeko (14)

euskadi taldekoak (10); euskaltel euskadi taldekoak (10)

taldera itzuli (17); taldera itzuliko (9); taldera joan (10)

hainbat talderekin (14)

beste talderen (25); bi talderen arteko (11); hainbat talderen (26); talderen bat (40); talderen batean (9); talderen batek (21); talderen batekin (10); talderen baten (11)

edozein talderi (11)

europako talderik (11); ligako talderik (28); munduko talderik (15); talderik gabe (29); talderik indartsuena (17); talderik onena (32); talderik onena da (10)

hainbat taldetan (9); taldetan banatu (26); taldetan banatuta (12); taldetan banatzen (9)

taldetik at (10); taldetik kanpo (24)

taldez aldatu (10)

taldearteko *izlag* taldeen artekoa.

Taldeartekoa eratzea: Espainiako Kongresuko lau diputatuk eta beste hainbeste senatarik osatuko dute **taldeartekoa**, datorren otsailetik aurrera, eremu parlamentarioan lankidetzat hobetzeko. Berria - Euskal Herria

taldeburu *(orobat talde buru g.er.) 1 iz* talde baten burua.

Ondoren, gudarosteko buruzagiak izendatu zituen Judasek: mila, ehun, berrogeita hamar eta hamarna gizoneko **taldeburuak**. Elizen arteko biblia

Iban Mayo eta Haimar Zubeldia izango dira Euskaltel-Euskadiko **taldeburuak** Tourrean. Berria - Kirola

Bi taldetan banatu nituen nire lagun adats ederrekoak, eta **taldeburu** bana aukeratu. Juan Kruz Igerabide

Gudarosteko **taldeburuek** Jaunari oparitzat eskainitako urreak ehun eta hirurogeita hamar kilo pisatzen zuen gutxi gorabehera. Elizen arteko biblia

Ibon Fernandez Iradi, 31 urte, ETA-ko **taldeburuetarik** ditake polizaren arabera. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Bere helburua Tourra delako erabaki genuen **taldeburu** lanak, edo ardurak, nik neuk eta Samuel Sanchezek hartzea. Berria - Kirola

Nabardurak nabardura, zer moduz **taldeburu** jardunean? Berria - Kirola

3 (adizlagun gisa)

Beti esan izan dut Athleticen ez dutela talde ezberdinek egon behar, eta ni **taldeburu** egotea nahi zutenez, horrelaxe egingo dut. Berria - Kirola

Aurretik, **taldeburu**, zaldi gainean nagusi, gizon gazte bat. Txillardegi

Taldeburu izendatu zuen, konfiantza zeukalako, baina azkar jabetu zen gasteiztarra nekez saikatuko zela onenen artean. Berria - Kirola

taldeburutza iz talde baten burutza.

Mayok badaki Euskaltel-Euskadiko bizkarrezurra dela eta izango dela, eta nagusitasun horrek ematen duen agintea erabiltzen du Tourrean **taldeburutza** eskatzeko. Berria - Kirola

taldeka 1 *adlag*

Anaiak, beraz, elkarren ondoren **taldeka** iritsi ziren Trentora. Askoren artean

Bil zaitezte **taldeka**: frantsesak hemen, herrialde aliatuetakoak inguru horretan, ingelesak eta estatubatuarrek beste horretan, eta gainontzekoak ofizial horren inguruan. Iban Zaldua

11 eta 16 urte bitarteko gazteak ariko dira lehian, **taldeka**, eta sei kiroletan. Berria - Kirola

Orduan, jende guztia zelaian **taldeka** eserazteko agindu zien. Elizen arteko biblia

Unibertsalei esker banakoak **taldeka** antola ditzakegu eta errealitatea modu antolatu batean ikus dezakegu. Askoren artean

Nahi duenak, nahi duen kantua eman dezake, bakarka edo **taldeka**. Herria

Bakarka beti, ez dut sekulan binaka edo **taldeka** ikusi argioilarrik. Patziku Perurena

Autobusetatik, **taldeka** edo banaka, geroz eta gazte gehiago jaitsi dira. Urtzi Urrutikoetxea

Atzetik gazte taldeak agertzen ziren, bikoteka edo **taldeka**. Xabier Mendiguren Elizegi

Umeak bakarrik, umeak bikoteka, umeak **taldeka**, launaka, seinaka, hamarnaka. Oskar Arana

2 (hitz elkartuetan)

Gainerako israeldarrak gudari-**taldeka** etxolatu dira, nor bere kanpalekuan. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bakarka edo taldeka (3); **bakarka zein taldeka** (3); **binaka edo taldeka** (7); **gudari taldeka** (4); **taldeka antolatu** (4); **taldeka banatu** (3); **taldeka ibiltzen** (3); **taldeka joan** (3)

taldekako *izlag* taldeen arabera.

Tokian-tokikoaren errespetua edo subsidiaritate printzipioa: lurraldekako eta **taldekako** estilo eta erabakiak lehenetsiz zentralismo demokratikoaren aurretik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Arrantzaleak erruz zeuden pasealekuan, kanaberaz osatutako ilara luzeen inguruan kokaturik, hausnarketa bakartian nahiz **taldekako** berriketa lasaian. Jon Arretxe

Arabako **taldekako** bertsu xapelgoa ere aintzina doa, eta finala urtarrilaren 17an jokatu da. Herria

Artikuluak irakurketa norabide bakarra du, **taldekako** suizidioez ohartarazi nahi da. Iñigo Aranbarri

Eusko Legebiltzarrak banakako zein **taldekako** eskaera eskubidea arautu du. Berria - Euskal Herria

Atzo hasi zen Kataluniako Volta [...] **taldekako** erlojupekoarekin. Berria - Kirola

Armstrongen US postal taldeak irabazi zuen **taldekakoa**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taldekako erlojupeko (4); **taldekako erlojupekoa** (26); **taldekako erlojupekoa jokatu** (3); **taldekako erlojupekoa jokatu** (4); **taldekako erlojupekoan** (11); **taldekako erlojupekoaren** (4); **taldekako esprinta** (8); **taldekako esprinta emakumezkoak** (4); **taldekako esprinta gizonzkoak** (4); **taldekako jazarpena** (3); **taldekako jazarpenean** (4); **taldekako kirola** (3); **taldekako saikapena** (3); **taldekako saikapenean** (4); **taldekako saikapeneko** (4)
taldekakoa gizonzkoak (3)

taldekatu, taldeka(tu), taldekatzen du *ad* taldetan zatitu.

Gizonek **taldekatzeko** dituzten motiboak behin **taldekatu** eta gero egiten dutenetik ondorioztatzen da. Esteban Antxustegi

Osagai horiek bakartu behar dira, **taldekatu**, egokiak bihurtu, elkarren artean harremanean jarri, multzoak sortu. Xabier Arregi

taldekatze iz

Gizarte zibilak, ordea, ez dira **taldekatze** hutsak, aliantzak baizik, eta horiek lortzeko guztiz beharrezkoak dira leialtasuna eta itunak. Haien **taldekatzeek**, ordea, ez dituzte Estatuak osatzen eta, horregatik, animaliak ez dira politikoak, beren erregimena adostasun batera mugatzen baita. Esteban Antxustegi

Hiru lerrotan **taldekaturik**, etsaiaren atzealdetik hurbildu ziren, turutak joz eta otoitz-oihuak eginez. Elizen arteko biblia

Eurak askatuz gero batasun naturalizat, berehalakotzat eta unibertsaltzat jotzen diren **taldekatze** guztiez, badago aukera beste batasun batzuk deskribatzeko. Xabier Arregi

Zein eskemen arabera (seriean jarri, aldi bereko **taldekatzeak**, aldaketa lineal edo elkarrekikoak) lotu daitezkeen enuntziatuak elkarren artean diskurtso-mota batean. Xabier Arregi

Alferrik bilatuko dugu, beraz, enuntziatua zeinuen **taldekatze** bateratuetatik at. Xabier Arregi

Jamal Chubaki, Palestinako **Taldekatze** Lokaletako ministroak egin zituen adierazpen horiek. Berria - Mundua

taldekeria iz talde jokabide gaitzesgarria. ik alderdikeria.

Ez teologoen **taldekeria** eta haien arteko mokokaldi eta azpikoko aspergarriak. Aingeru Epaltza

taldekide 1 iz talde bereko kidea.

Ramon Saizarbitoriarekin eta Ibon Sarasolarekin lankide ala **taldekide** gisa ibili zinen areago? Ana Urkiza

Andrei Kivilev **taldekide** eta laguna hil zenean [...] edo Cofidiseko zuzendaritzak taldeko kirol jarduna bertan behera uztea erabaki dutenean, deitu omen diote komunikabide

denek. Berria - Kirola

Portalis, Tronchet, Maleville eta Bigot-Préameneu, horiek dira **taldekide** haien izenak. Andres Urrutia

Patarroyoren **taldekide** izandako Jaiver Rosasek jarri zuen abian proiektua. Berria - Gaiak

U2-ko **taldekide** guztiek ere parte hartu dute diskoan. Berria - Kultura

Lagun koadrila batekin gauzez biltzen ginen, **taldekideren** baten etxean. Ana Urkiza

Handik puska batera, **taldekideen** barre algarek esnatu nautenean, begiak zabaldu, eta Adela bideoan grabatzen ari zitzaidala ohartu naiz. Patxi Zubizarreta

Gainerako **taldekide** gehienak bezala, Leire etzana dago belar gainean, begiak itxirik eta motxila buruko eginda. Aingeru Epaltza

Black Catera azaldu nintzenez, **taldekideak** sakabanatuta zebiltzala jakinarazi zidaten. Javi Cillero

Armstrongen **taldekide** Floyd Landisek irabazi du Portugalen. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Taldekide berria duzue: Iñigo Egia perkusio jotzailea. Berria - Kultura

Taldekide ohiek, besteak beste, andre-gixon eta gonazulo deitu zieten, eta, jakina denez, gizonzkoek oso iraingarritzat daukate hitz horiek. Jose Morales

Taldekide ahobero bat, Luis, etengabe ari da Ruben zirikatzen. Patxi Zubizarreta

Diziplina orotan ondo moldatzen da, eta **taldekide** bikaina du alboan: Patxi Vila. Berria - Kirola

Hartz bakartiaren 24 irudi zenbatuko zituen, trekeko **taldekide** txunditu eta hasieran sinesgabeei topaketaren berri ematean. Aingeru Epaltza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Taldekide -txartelak ere berak eginak ziren. Joxerra Garzia

Denbora gutxirekin genbiltzanez, kabina bila hasi beharrean, **taldekide** mordoxka bat superreko telefonoan bertan jarri gara ilaran. Patxi Zubizarreta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Antzerki **taldekide** batzuk baserri kalamastra batean jarri ziren bizitzen. Javi Cillero

Ni ez naiz profeta, ez eta profeta: **taldekidea**; abeltzaina naiz eta basapiku-biltzailea. Elizen arteko biblia

Hobi-zulataile **taldekideak** aitzurrari gaitzeko oldea eman zion. Itxaro Borda

5 (izan du aditzaz)

Gaia datorren astean aztertuko du EAK, Espainiako Kongresuan **taldekide** duen ERCrekin. Berria - Euskal Herria

Gauean, **taldekide** genuen Sasoeta "jakintsuari" esker [...] zerbait gehixeago ikasteko esperantza sumatu nuen, eta berriro bertaratzeko asmoa onartu nuen. Txillardegí

Taldekide nituen batzuk igandero jokatzeko dute eta beste batzuk ez. Berria - Kirola

Taldekide izan ditudan askok ezin izan dute horretaz gozatu. Berria - Kirola

6 (adizlagun gisa)

Nor etorriko zaio **taldekide** ? Jokin Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

armstrongen taldekide (4); **bere taldekide** (24); **bere taldekide ohien** (3); **beste taldekide bat** (4); **beste taldekide batek** (3); **beste taldekide batzuk** (3); **izango du taldekide** (4)

taldekide baten lesioagatik (3); **taldekide berri** (3); **taldekide berria** (3); **taldekide berriekin** (4); **taldekide bikaina** (4); **taldekide bikaina zen** (3); **taldekide izan** (14); **taldekide izandako** (3); **taldekide izango** (3); **taldekide ohia** (4); **taldekide ohiak** (15); **taldekide ohiek** (3); **taldekide ohiekin** (5); **taldekide ohien** (7); **taldekide ohien aurka** (4); **zure taldekide** (6)

taldekidea izan (4); **taldekidea izan zen** (3); **taldekidea izango** (3)

bere taldekideak (17); **beste taldekideak** (8); **gainerako taldekideak** (12); **taldekideak azaldu** (3); **taldekideak dira** (3); **taldekideak nekatuta** (3)

taldekidearen aurretik (3)

bere taldekideek (8); **diote taldekideek** (3); **dute taldekideek** (13); **eta taldekideek** (6); **gainerako taldekideek** (7); **taldekideek asko** (3); **taldekideek azaldu** (4); **taldekideek azaldu dutenez** (3); **taldekideek beraiek** (3); **zure taldekideek** (3)

bere taldekideekin (14); **bere taldekideekin batera** (10); **beste taldekideekin** (4); **gainerako taldekideekin** (11); **gainontzeko taldekideekin** (8); **gainontzeko taldekideekin batera** (3); **taldekideekin batera** (40); **taldekideekin batera aritu** (4); **taldekideekin batera entrenatu** (10); **taldekideekin batera entrenatzen** (11); **taldekideekin entrenatu** (13); **taldekideekin entrenatu zen** (3); **taldekideekin entrenatuko** (3); **taldekideekin entrenatzen** (12); **taldekideekin entrenatzen hasi** (3)

bere taldekideen (10); **bere taldekideen artean** (3); **taldekideen arabera** (3); **taldekideen artean** (10); **taldekideen arteko** (5); **taldekideen izenak** (3); **taldekideen laguntza** (6); **taldekideen laguntzarekin** (4); **taldekideen lana** (3); **taldekideen ondoan** (3)

taldekoi *izond* taldean bizitzeko edo aritzeko joera duena.

Gizakia animalia **taldekoia** da, hau da, taldean bizitzeari abantaila gehiago ikusten dizkio, bakarrik bizitzeari baino. Luis Elberdin

Ez dakit helduagoa nintzen, baina ez hain umea, ez hain **taldekoia** ere; jendekoia betidanik izan naiz, baina, ez dakit urteen berezko uzurtze baten poderioz ala irakurketaren sentsibilitate erne berriaz, artaldean ez nintzela gustura sentitzen ohartu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

taldekotasun *izond* taldeko izateko nolakotasuna.

Kalekotasun, zuzenekotasun eta **taldekotasun** hau berezkoa du bertsoari, hor sortzen da sortzaileen eta entzuleriaren arteko konplizitatea, bat-bateko bertso-sorkuntzarako ezinbesteko orea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

taldelan ik talde 14.

taldeño *iz* taldetxo.

Gazte **taldeño** bat osatu zuten block-a osoki eraikitze bitartean. Eneko Bidegain

Ez da guti harritu, **taldeño** bat joan zaiolarik "Zorionak" kantatzerat. Eneko Bidegain

Cartierren apeta hutsak horretaratua zara **taldeño** honen Xabier Montoia

talderatu, taldera(tu), talderatzen da/du *ad* taldera joan; taldera eraman.

Tipik **talderatu** zuen. Aingeru Epaltza

talderatze *iz* taldera joatea; taldera eramatea.

Gai berean, Amorrorturen irudiko, taldearekin entrenatu ezin izatea «moldaera» oztopo bat da «**talderatzea** bilatzen duenaren bidean». Berria - Kirola

talderdi *iz*

CD&V (Kristau Demokratak eta Flandestarrak) alderdiko presidente Yves Letermek Gobernua osatzeko ekimena izango duela ziurtzat jotzen dute Flandesen, galdeketek haren **talderdiari** bozen %31,4 ematen dietelarik. **Berria - Mundua**

taldetasun *iz* talde izateko nolakotasuna.

Aristokraziak gaizkiaren ezaugarri oro arbuizatzen du: makurkeria, koldarkeria, iluntasuna, ahultasuna, distiragabetasuna, **taldetasuna** eta abar. **Askoren artean**

taldetxo 1 *iz* talde txikia. ik **taldeño**; **taldexka**.

Binako edo hirunako **taldetxoak** osatuko zituen, elkarrekin seinale bidez komunikatuta. **Joanes Urkixo**

Hiru-lau laguneko **taldetxo** hartara joateko ez nintzen gauza. **Jokin Urain**

Zortziren bat festalaguneko **taldetxo** bat osatua genuen ordurako. **Anjel Lertxundi**

Urte horietan, Elkarteko nagusi izateari utzi zion eta, hainbat gaitzek jota, erretiratu egin zen, anaia leialenen **taldetxoarekin**. **Askoren artean**

Egongelan geratzen zirenek dantzan aspertuak ziruditen, eta **taldetxoetan** hizketan ari ziren, lasai. **Irene Aldasoro**

Batzuetan hitzaldiak ematen zizkiguten, beste batzuetan gai jakin baten inguruan **taldetxoetan** bilduta hitz egin behar genuen, edo bakarka hausnartu, edo denok bilduta eztabaidatu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Herriko bandakoak kioskora igotzen hasi zirenean plazako bazterrak langile penatuen **taldetxoz** bete ziren. **Koldo Izagirre**

Taldeak eta **taldetxoak** ezin kondatuzkoak ziren, bakoitza bere buruzagiekin. **Marzel Etxehandi**

-Ondo goaz -esan zuen Pepponek, **taldetxoaren** buruzagi lanetan-. **Koldo Biguri**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Demetriok Erromatik ihes egin eta Siriako itsasertzeko hiri batera jo zuen giza **taldetxo** batekin, eta han bere erregealdia hasi. **Elizen arteko biblia**

Irujok berehala gudari- **taldetxo** bat izendatu, eta haiekin joateko, Ondarretako kartzelara. **Inazio Mujika Iraola**

Aracilek adiskide **taldetxo** bat sortu zuen bere inguruan. **Josu Zabaleta**

Berekin lagun- **taldetxo** bat besterik ez zuela, Egiptora joan eta etorkin bezala bizi izan zen han. **Elizen arteko biblia**

Gutxi batzuk besterik ez ziren, etorkin- **taldetxo** bat besterik ez.

Berrogei lagun inguru izango zen han, tertulia- **taldetxoak** eratuz edo bakarka. **Fernando Morillo**

Eta ez aspertzeko, jakina, musika **taldetxoa** daukak hobbytzat! **Unai Iturriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taldetxo bat osatu (5); **taldetxo bat sortu** (3)

taldetxoka *adlag* taldetxoetan.

Mandatuak egitera **taldetxoka** atereak ziren emakume zaharrei ez zitzaizkien irteerako prestalanak itzuri. **Jon Muñoz**

taldexka 1 *iz* taldetxoa.

Kristina ez zen gehiago parrokiara biltzen, Alde Zaharreko txabiske ziztrin batera baizik, hiri osoan dozena bat militante baino gehiago ez zuen **taldexka** baten egoitza.

Aingeru Epaltza

Bortitza da Rousseauren erasoa **taldexkaren** onuragatik herria sakrifikatzen dutenen aurka. **Markos Zapiain**

Etxeko gizona, Antonio, izugarri erreakzionarioa zen, eta afal garaian [...] grebak eta iskanbilak antolatzen zituzten "**taldexkez**" aritzen zen etengabe. **Bernardo Atxaga**

Gizon hori, Maxime Brunerie, eskuinburuko **taldexka** batean barne izana zen. **Herria**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aitzinetik, 1944eko úztailaren 7a zen, Larrabileko patarrari goiti jin zelarik maki **taldexka** bat hogeita zontait behirekin, Ündüreineko geltokian treinetik hartürik beitzütüan, alemanen hazkürütako pe hortarat ari zirelarik. **Herria**

taldexkakeria *iz* taldexkaren jokabide gaitzesgarria. ik **taldekeria**.

Senekarenean ez dago **taldexkakeriarik**, damurik, surik... **Markos Zapiain**

taldezkako *izlag* taldekakoa.

Behaskaneko Irritzina trinketak bere 12. **taldezkako** palantxa lehiaketa, antolatzen du. **Herria**

talego *iz*

-Gogoan ditiat, bai, hortik mila pezetakoari "**talego**" izena gelditu zitzaioan... **Pako Aristi**

Talego batzuk beharko nitizkek baina. **Patxi Iturritegi**

talendu ik **talentu**.

talendutsu ik **talentutsu**.

talentu *(orobat talendu)* 1 *iz* gaitasun berezia; adimena.

Benetako artelanak zirela ohartu nintzen lehenengoz, noizbaiteko artista batek bere **talentu** eta trebezia guztiarekin eginak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Borondatea eta **talentua** ez dira ordea nahikoa. **Ander Irizar**

Zailtasun hauen guztion irtenbidea aurkitzean dago Lukrezioaren **talentuaren** distira. **Xabier Amuriza**

Goi-goiko teknikari klase batek nola jartzen duen bere **talentua** kasuan kasuko ideologiaren zerbitzura, ideologion zer-nolakoaz axolatu gabe. **Juan Garzia**

Bere **talentua** besteen grina, irrika eta bekaitza pizteko adinakoa bazen, ez zen **talentu** makala, ez zen **talentu** koxkorra. **Pako Aristi**

Nondik eta nola jina zaizu gauzen esplikatzeko **talentu** hori? arte horietarako behar den **talentua** eta planta badauzkazu; baina prestakuntza falta. **Herria**

Quidditcheko zelaian **talentu** pixka bat zuelako, pentsatzen zuen besteok baino gehiago zela. **Iñaki Mendiguren**

Talentuko jokalaria da, baina txikia eta indar gutxikoa. **Berria - Kirola**

Talentu askorik ez du arintxe ezertarako. **Xabier Etxabe**

Mundu honetan zerbait egitea gustatuko zitzaidan, eta iruditzen zait ez nintzela **talentu** gabe-gabea ere. **Ander Irizar**

Ez dago bere **talentua** pieza bateko bloke ederrean akatsik gabe zizelatu duenik. **Pako Aristi**

Irakasle talentutsu baten aurrean nago, ez dago zalantzarik, eta, **talentuari talentuarekin** erantzun behar zaionez, [...]. **Anjel Lertxundi**

Talentua ote da, sena edo suertea? **Koro Navarro**

2 (izenondoekin)

Antzezlan bikaina zuan, atalez atal ongi antolatua, begiramen bezain **talentu** handiz idatzia. **Juan Garzia**

Irribarrea ezipainetan zuen beti, jostalaria zen, bizia, alaia, eta batez ere **talentu** handikoa, sentibera eta saiata. **Karlos Zabala**

Obra bikainak daude, **talentu** handiko idazleek idatziak. **Ana Urkiza**

Gure asmoa da **talentu** apartekoak identifikatzeko prozesuak sistematizatzea. **Berria - Euskal Herria**

Horrek, jakina, eskatzen du arkitektoak, esperientzia handia izateaz gainera, **talentu** argia eta trebetasun tekniko handia izatea. **Santiago Iruretagoiena**

Talentu berezia behar duk horretarako, eta hik baduk, seguru nagok, hire aldeko apustua egin nahi diat. **Anjel Lertxundi**

Liburuok -jakina- **talentu** berezko baten eta ikuskera bere kabuzko eta berezi-bakan baten fruitu ziren. **Juan Garzia**

Bere **talentu** plastikoari ematen diot, berak filmatu nahi izanen zukeen planoa dela hartzen diot tankera. **Koldo Izagirre**

Nola lieteke haurtxo jaino berri bat, aparteko **talentu** magikorik gabea, inoiz izan den aztirik handiena menderatzeko gai izatea? **Iñaki Mendiguren**

Talentu adoretsua duzu eta gizon ausarta zara. **Karlos Zabala**

Ez da injenio izugarri baten edo **talentu** neurritz gaineko baten emaitza ere. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Talentu izugarriko jokalaria. **Berria - Kirola**

Kolorearen ikusmena galtzeak [...] artearen mundua galtzea ekarri baitzion, eta harekek bideratua zuen bere **talentu** eta sentiberatasun nabarmenki ikusmenezko eta kromatikoa berrogeita hamar urtez edo gehiagoz. **Xabier Olarra**

3 (hitz elkartuetan)

Zuk ez duzu **talentu** faltarik, mutiko. **Jesus Mari Mendizabal**

-Gozogile **talentu** hura eta nonahi nonahi lotzeko gaitasun hura espero nituen nik oinordetzan hartuak. **Joxan Elozegi**

Bere medium **talentuak** saltzen bazituen ere, aurre-aurretik igaro zitzaidan marabuta neu ikusi gabe. **Joxan Elozegi**

4 pertsona talenduduna.

Dena dela, Kuban sortutako **talentu** askok beste herri batzuetan amaitu dute. **Berria - Kirola**

"Gazte" itxurako kontzertuek **talentu** berriak jalgi-arazi dituzte. **Herria**

Hirugarren mailako **talentuen** aldeko apustu burugabeak. **Oskar Arana**

5 antzinako greziarren diru unitatea, hogeita bosten bat kilo zilar edo urreri zegokiona.

Jatorrizkoak *Byzantium aureum* dio, urrezko bizantzia, jatorria Bizantzion zuen urrezko **talentua**, oso zabaldua eta estimatua zena. **Askoren artean**

Aita, Ascondas, aberatsa zen eta berrehun **talentu** utzi zizkion. **Juan Garzia**

Ponpeiok, Ariobarsano erregeari **seiehun** talentu mailegatu zizkiolarik, hogeita **hamahiru** talentu atikar jasotzen zituen hogeita hamar egunez behin. **Iñaki Iñurrieta**

Bost **talentu** hartu zituenak inberitu egin zituen berehala eta beste bost irabazi. **Elizen arteko biblia**

Ahots sendoz iragarri zuen nahi zituenari banatuko zizkiola bere herentziako berrehun **talentuak**. **Juan Garzia**

6 irud/hed

Ez natzaizu beraz urrikariz ondotik ibiltzen, egin nezakeen bezala iduritzen balitzait Jesu Kristo gure Jaunak eman dizkizun **talentu** miragarri horiek ez dituzula baliatzen ebanjelioko zerbitzari leialak bezala. **Piarres Xarriton**

7 (hitz elkartuetan)

Gobernu zentrala, tokian tokiko administrazio-**talentuaren** gero eta eskasia handiago horren aurrean, behartuta aurkitu zen ez bakarrik printze bezeroen orde gobernadore inperialak jartzera, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Badakizu gure Jainko Jaunak hainbeste jakitate **talentu** eman dizkizunaz geroz, eginbide duzula horietaz baliatzea, ez bakarrik zuretzat baina beste anitzentzat. **Piarres Xarriton**

8 antzinako greziarren pisu-banakoa, hogeita bosten bat kiloren baliokidea.

Jatorrizkoak berunezko **talentua** dio; **talentua** balio ezberdinak zituen neurria zen, pisu handikoa dena den. **Askoren artean**

EHun gizon behar ziren hura maneiatzeko, eta horien pisua lau mila **talentukoa** zen, hau da, lauhun eta laurogei mila libra. **Santiago Iruretagoiena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bost talentu (4); **talentu aparteko** (3); **talentu apartekoak** (6); **talentu apartekoak identifikatzeko** (3); **talentu apartekoan** (5); **talentu berezia** (3); **talentu berriak** (3); **talentu handia** (10); **talentu handiko** (15); **talentu handikoa** (7); **talentu handiz** (3); **talentu hartu** (3); **talentu utzi** (3)

bere talentua (7); **duen talentua** (3); **haren talentua** (3); **talentua du** (3); **talentua duten** (3)

beren talentuak (3)

bere talentuaren (3)

talentuz betea (3)

talentudun *izond* talentua duena.

Edozein arazoren aurrean bat-batean konponbidea asmatzen jakin duen teknikaria, pertsona **talentudun**, argi eta injenioztat hartua izango da. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Aski poeta **talentudun** eta famatua. **Pablo Sastre**

Zerrenda «orekatua» lortu dute, zinemagile «oso onak» eta gazte «**talentudunak**» bilduta. **Berria - Kultura**

Taldeko jokalaririk **talentudunena**. **Berria - Kirola**

Bertsolarien kasuan bat-batekotasunak ez du zerikusirik aldeztetik zerbait taxutzeko gaitasun faltarekin eta pertsona bereziki **talentudun** eta argia izatearekin ere ez. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

talentutsu *izond* talentuz betea.

Irakasle **talentutsu** baten aurrean nago, ez dago zalantzarik, eta, talentuari talentuarekin erantzun behar zaionez, [...]. **Anjel Lertxundi**

Ez dago ezer gozoagorik jakintsuen doktrinak ondo erakitako goi tenplu nareetan bizitzea baino, nondik besteak gainbegira ditzakezun [...] nor **talentutsuago**, nor nobleago, gau eta egun lan eta lan saiatzeko, nor ondasunetan gorago eta nor agintetsuago. **Xabier Amuriza**

talero *iz* zilarrezko diru zaharra, alemanierazko lurraldeetan erabiltzen zena.

13 **talero** diru-quantum deitzen badiot, orduan zuzenki izendatzen dut horrela, baldin eta zilar fineko marko baten edukia ulertzen badut honetaz. Ibon Uribarri
Ehun **talero** errealek ez dute ehun ahalgarriek baino ezer gehiago barnebiltzen. Ibon Uribarri

talgo *iz* tren arin eta lasterra, bagoiak elkarren artean artikulatuak dituena.

"Eguerdiko **Talgoa** hartu, eta iritsitakoan hoteletik deitu" esan, eta eseki egin zuen. Ramon Saizarbitoria

Talgoak klaustrofobia eragiten dit, batez ere bidaiaren azken orduan. Ramon Saizarbitoria

Egunero etortzen dira geltokira Correoari, Expresari edo **Talgoari** itxarotera, eta beraiek egokia ikusten dutenari lana eskaintzen diote. Jon Maia

Gaur egun martxan dabilen **Talgo** 3 tren. **Talgo** 4rekin ordezkatzuko dute, eta hiri batetik bestera iristeko, gaur egun baino 25 minutu gutxiago beharko dira tren berriarekin. Berria - Euskal Herria

taliban 1 *iz* Hego Afganistanen Islamak duen adar ultrakontserbadorearen jarraitzailea.

Afganistan herrialdea horietarik da eta handik heldu diren berriak hitsenentarik dira bulta huntan, **taliban** deitu islamistek gaina hartuz geroztik. Herria

Afganistán aldeko **talibanak**, suntsitzen ari dira Buda zaharrari eskaintako estatua erraldoi ederrak. Hasier Etxeberria

Badirudi atzera egiten jarraitzen dutela **talibanek**, eta, oraingoz behintzat, yankiek Iran bakean utziko dutela. Jon Arretxe

Okupazio indarrek ustezko 41 **taliban** hil dituzte, aire eraso batean, Kandaharren. Berria - Mundua

Pentagonoak dio 50 bat ustezko **taliban** hil dituela. Berria - Mundua

Talibanak, gure imaginarioan, islamiar fundamentalismoaren irudi sinpleena dira. Iñigo Aranbarri

Ez dakigu **talibanok** xiitak diren, edo suniak; pashtunak diren, edo arabiarak. Iñigo Aranbarri

Kandahar zen **talibanen** hiri nausia, eta gobernuak berehala Al-Qaïda delako islamist talde famatuaren gain ezarri du ukaldi hori. Herria

2 (izenondo gisa)

Defentsa idazkariak azpimarratu zuen Afganistango erregimen **talibana** desagertu dela. Berria - Mundua

Operazio militar handiena jarri du abian Islamabadek, Bin Laden eta bestelako buruzagi **talibanen** zein Al Kaedako kideen aurka. Berria - Mundua

Ekintzaile **talibanak** aurkitzeko egindako miaketaren ondorengo egunean. Berria - Mundua

Miana Sheneko barrutian borroka latzak gertatu izan dira ekintzaile **taliban** eta Estatu Batuetako soldaduen artean. Berria - Mundua

Erasoa gertatu zen lekua ez da gerrillari **talibanentzat** lekurik segurua. Berria - Mundua

Sied Mohammad Akbar Agak ziurtatu zuen atzo NBEko hiru jarduleak askatu zituztela 24 preso **taliban** askatzearen truke. Berria - Mundua

Akusazioa: poliziaburu **talibana** izatea. Berria - Mundua

3 irud/hed

Gure **talibanak** haiek baino okerragoak dira. Joxerra Garzia

Ez dago asaldatu beharrik, utikan euskararen **talibanak** ! Iñigo Aranbarri

Konstituzioaren «**talibanekin**» erne ibiltzeko iradoki die EAJk katalanei. Berria - Harian

Erabateko merkatu-legea, %100ekoa, inoiz aplikatu ez denez, ezinezkoa dela horren aplikazioak, neoliberal **talibanek** dioten legez, mundu honetan bertan paradisu ekonomikoa sortuko duela zehaztea. Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan)

Taliban armada batek babesturik. Lehen plaman, Arzallusen irudi trukatu, **taliban** itxura hartuta. Eider Rodriguez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gerrillari taliban (4); **hogei taliban hil** (3); **taliban deitu** (5); **taliban delakoen** (4); **taliban hil** (21); **taliban hil dituzte** (8); **ustezko taliban** (9); **ustezko taliban hil** (3); **ekintzaile talibanak** (3); **ustezko talibanak** (5)

talibanek egindako erasoan (4); **ustez talibanek egindako** (5)

talibanen arteko borrokak (3); **talibanen aurkako** (4); **talibanen garaian** (4); **talibanen kontrako** (5); **ustezko talibanen** (6)

talibanizatu, talibaniza, talibanizatzen da/du *ad* taliban bihurtu.

Euskaldunak **talibanizatu** behar badira, **talibaniza** ditzagun. Joxerra Garzia

talidomida *iz* sendagai lasaigarria, haurgintzaren lehen hilabeteetan hartuz gero umekian malformazioak eragiten dituena.

Froga horien helburua arrisku ezohiko horiek detektatzea eta neurtzea da, haiek eragin ditzaketen arazo normalek katastrofikoa izan daitekeen merkaturatze bat eragin ez dezaten (**talidomida** gogoan). Berria - Gaiak

Astebete lehenago irakurria nuen aldizkari sentsazionalista batean **talidomida** hartu zuen emakume dohakabearen kasua: nola berak sentitu zuen han barruan mutila, dinbi eta danba, ostikoka itxura batean, eta nola uste izan zuen, ondorioz, futbolari zetorkiola haurgaia... nahiz eta gero, zinezko eta minezko orduan, zangorik gabe jaio zitzaion.

Joan Mari Irigoien

talikatu, talika, takilatzen (*orobat talingatu*) du *ad* asko nekatu.

Oroitu niz ere norbaitek behin erran zautala [...] Hazpamen **talingatua** erraiten zela, bainan beste asko tokitan **talikatua**. Herria

talingatu ik **talikatu**.

talioi

1 **Talioi lege** kalte egin duen pertsonari, zigor gisa, berak egin duen kalte bera ezartzen dion legea.

Talioi legea. Elizen arteko biblia

talisman 1 iz ahalmen galaxioak egotzen zaizkion gauzak, eskuarki zero ikur bat irrarri duena.

Sarritan, kuttun edo **talisman** bezala erabiltzen diren harribixietan (Abraxas-harriak) zizelkatzen da izen hori. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

Irakasleengandik ezkutuana, **talisman**, amuleto eta beste babesgailu batzuen merkatu izugarria zabaldu zen berehala ikastetxean. **Iñaki Mendiguren**

Gerestaren hagina da giza harremanak mesprexutik, jelosiatik, mendekutik ateratzen dituen **talismana**. **Markos Zapiain**

Ez zuen Mezuzah-rik, egia, baina haren orde **talisman** bat ipini zuen errabinoak horman. **Koro Navarro**

Tribuko aztia hiltzean, bere gorputzetik ile guztia, hortz eta hagin-letaginak eta azazkal denak aterata kendu, eta euria erakartzeko gailu eta **talisman** estimatutzat gordetzen dituzte. **Pello Zabala**

Kutuna edo **talismana** baino areago bere bizitzaren estigma bilakatu zen perla hura aldamenean eduki ezean ezin zitekeen harrezkero momentutxo batez ere lasai egon gure gizona. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bada zori ona sortzen duen gauzakiarentzako izena: kutuna, **talismana**; ez ostera zoritxarra dakarrenarentzakorik. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Garbi zegoen, hala ere, irteera hau ziurtatzeko ez zegoela konstituzio federal baten inolako **talisman** -aurreproiekturik. - Judueria historikoa diaspora zen, eta judu-ethos eta erakunde tipikoak [...] diasporak denboran zehar gizarte-**talisman** bihurturikoak ziren. **Iñaki Mendiguren**

talk-show iz telebista-programa, elkarrizketetan datzana.

Telebistan arratsaldeetako **talk** -show bat ematen ari ziren, eta tabernaria eta agurea hodi katodikoetan galduta zebiltzan. **Unai Iturriaga**

Talk -show-ak, prentsa arrosako saioak, zapping saioak, kirolak, lehiaketak, reality-ak eta bideoklipak aztertzen dira. **Berria - Harian**

Talk -show horietako bat zen. **Iban Zaldúa**

Fox kateko Gerardo Riviera **talk** -show aurkezlea. **Iñigo Aranbarri**

talka 1 iz kolpea, elkar jotzea.

Hildakoekiko **talka** horretaz hitz egin nahi dut soil-soilik. **Bernardo Atxaga**

Jausgailuan jauzi egiterakoan hegazkinaren egonkorgailuak belauna harrapatu eta hautsi zion, baina Sagonek ez zuen **talka** sentitu. **Josu Zabaleta**

Badira **talka** saihesteko beste era batzuk. **Bernardo Atxaga**

Nire maskarak erdi itsuturik, zangotrabatu, irrist egin, eta buruarekin lubaki-hormaren aurka **talka** jo dut, ia konortea galtzeraino. **Mirentxu Larrañaga**

Beldurgarria izan zen **talka**; biak zauriturik geratu ziren. **Juan Kruz Igerabide**

Ikara emateko moduko hotsa atera zuen **talkak**. **Juan Kruz Igerabide**

Kolpean zapaldu behar izan zuen balazta, pareko autoarekin **talka** ekiditeko. **Unai Iturriaga**

Edontziei **talka** eragin eta edan egin zuten. **Irene Aldasoro**

Bi izarren **talkak** eragindako argi itsugarritik. **Juan Kruz Igerabide**

Segurtasun sistema pasibo bat asmatu eta patentatu egin du, **talka** gertatuz gero aktibatzen dena. **Berria - Ekonomia**

Espazioan zerturiko topaketa espazioko **talka** bat da, eta **talkak** normalean istripuak izaten dira. **Iñaki Mendiguren**

Talkaren indarrarengatik aurreko autoa ere jo zuten. **Berria - Euskal Herria**

Egia da egon zitekeela zure itxaropenen eta nire errealtatearen arteko **talka** hori, isiitasunaren lanbroan bilduta gelditzen zena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horixe da jolasa: bere eskuko esanen **talka** bat, esaldien josi-askatze bat, esanahien elkar-urratzea eta hotsen gurutzatze atzenkorra. **Iñaki Seguroa**

Iritzien arteko **talka** horretatik egia ateratzen ahalegintzea omen da eztabaida. **Joxerra Garzia**

Ez nituen ibilaldiok gorputzarekin bizitzen, nire barnean borborka eta **talka** bizian aritzen ziren ideia eta sentimenduekin baizik. **Pako Aristi**

Argi eztanda baten antzeko zerbait sentitu nuen garunean, **talka** aldi berean izugarri eta ezti bat. **Jon Muñoz**

Horregatik, «bi nazioen arteko **talka**» egongo dela azaldu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Zilegitasunen arteko **talka** saihesten saiatu zen. **Berria - Harian**

Milaka pentsamenduak, desirak eta beldurrak **talkan** zebilizkion barnean: joango al zen? **Xabier Olarra**

2 (izenondoeekin)

Izaera hauskorrekoak direnez gero, ezin da ulertu nola irauan ahal izan duten denbora eternalean, mendeetan zehar **talka** amaigabeek astinduta. **Xabier Amuriza**

Aireplanoa lurreratzen ari zen, boteka eta punpaka, harik eta **talka** luze baten ostean geratu egin zen arte. **Mirentxu Larrañaga**

Buruek erdibidean egin zuten topo, eta hain **talka** gogorra izan zen hura, ezen biak errebotetik lurrean eserita gelditu baitziren, buruan lurrikara bana zutela. **Koldo Biguri**

Guztia ikusi nuen: erakusleihoaren kontrako **talka** koloreanizta, bulego barruan Sandrak eman zuen salto izutia, gazteak ibailderantz ihesi. **Iban Zaldúa**

Kristalezko basoen **talka** etengabea, soinu bakar. **Txillardegi**

Kontraesan zentzugabe hau aspaldiko mendeetatik datorren eliz legeen eta lege zibilen arteko **talka** etengabearen ondorio da. **Juan Martin Elexpuru**

«**Talka** demokratikoa» izango dela ere zehaztu zuen. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

80 gramoko hondakin baten **talka** -energia nahikoa da 500 kiloko satellite bat birrirtzeko. Etengabe bila ari zen egia filosofiko horrek antz handia zuen **talka** -harri filosofalarena. **Berria - Gaiak**

Konturatu zen greko-pertsiar gatazka azken pasadizo bat izan zela izaera bereko eta kausalki loturiko **talka** -segida batean. **Iñaki Mendiguren**

Kolore zuria nabari dugula esatean, begi-niniak halako **talka** mota bat hartzen baitu, eta bestelako bat, beltza-eta nabaritzean. **Xabier Amuriza**

Talka -autoetako pista abandonatua ikusten zen, sarreratik hurbilen. **Jon Alonso**

Bihotzetik irteerako odol-zurrustak sortutako **talka** -uhinaren hondarra da eskumuturrean eta gorputzeko beste zenbait lekutan sentitzen den pultsuaren taupada. **Irene Aldasoro**

Jordan auto berriak ez du pasa **talka** proba. **Berria - Kirola**

Soinuak hauteman nahi zituen, eta Angarako izotz pusken arteko **talka** hotsa entzutea ia besterik ez zuen lortzen. **Karlos Zabala**

Zerraldo erori eta hantxe geratu zen **talka** -jokoko bi marren artean. **Anjel Lertxundi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bihotza goibel samar atera nintzen galeriako urreetako argi **talka** bortitzagatik. **Josu Zabaleta**

Gurutzatze bakoitzean 20 partikula **talka** gertatuko dira. Buru-**talka** deitzen genion jolasaren oso zaleak ginen eskolako lagunak, eta Hermann eta Zezenko deitzen genion mutil kankarro bat izaten ziren beti irabazle. **Berria - Gaiak**

Begirada gaizto bat, ukondo bortitz bat, bandera **talka** bat, ukabilkada despistatu bat. **Karlos Linazasoro**

Azken karlistate ondotik mende hasierako urteetara ideologi **talka** gogorrak dira gure urietan. **Berria - Kultura**

Pentsa baitzitekeen gehiegizko zama neuralak edo identitate-**talkak** areago bultzatzen zuela itsutasunerantz. **Xabier Olarra**

5 **talka** egin elkar jo; jo.

Bola elastiko batek zuzen-zuzenean bola berdin batekin **talka egiten** badu, honi komunikatzen dio bere higidura osoa. **Ibon Uribarri**

Beste ezin konta ahal (baina hemen alferrikako) molekula nitrogeno eta oxigenorekin **talka eginez**. **Juan Garzia**

Zulo beltzek edo **talka egiten** duten galaxiek grabitate-uhinak sortzen dituzte eta, era horretan, haien inguruko espazioa eta denbora aldatu egiten dute. **Berria - Gaiak**

taller ik **tailer**.

tallur 1 *iz ipar* joskina, jostuna.

Tallur pasatu nintzanean adiskiderik baizik ez nuen, batek haria galdegin, besteak orratza, edo linjeria. Marzel Etxehandi

Block-ean fama ona nuen, nik uste, eta **tallurren** artean ere. Marzel Etxehandi

Akitua niz, ene osagariak lan gogorrik ez du jasanen; nahi nuke **tallur** sartu. Marzel Etxehandi

Horra **tallur** tituluduna naizela, beste edozertara debekatua. Marzel Etxehandi

Eta horra **tallurren** kapoa. Marzel Etxehandi

Tallurren komandoan sartuko nintzelakoan nengoan, baina nehoi ez nion hitzik salatu hortaz. Marzel Etxehandi

Tallurren eta eskalapoin egileen lantegia ere erreza izan baitzen, hamabost bat egunez bakea ukan genuen. Marzel Etxehandi

2 (hitz elkartuetan)

Kapera **tallur** lantegi bilakatu zuten. Marzel Etxehandi

tallurgo *iz ipar* joskintza.

Eta orain bi laiko, goiz arratsetako dei luzeetan ene ondoan nituenak, **tallurgoan** hasi aitzin. Marzel Etxehandi

Ordukotz **tallurgoan** ari nintzen. Marzel Etxehandi

Nihaurek galdeginik, gaueko langile nintzen **tallurgoan**, arratseko Betatik eta gauerdiko arte. Marzel Etxehandi

Talmud 1 *iz iz* juduen ohiko dotrinaren bilduma zabala dakarren liburua.

Tratatu honen xedea ez da horiek guztiok jende arruntei edo ikasle hasi berriei ulertaraztea, ez eta Torah-ren zientzia, hau da, irakaspen tradizionalaren ulkerera (**Talmud**) besterik ikasi ez dutenei irakastea ere. Xabier Kintana

Talmuda irakurtzen eta Torako legeak ikasten. Anjel Lertxundi

Hau Ben Maimonen liburu juridiko nagusia da, **Talmud** osoaren bilduma sistematiko gisa, hebreeraz paratua. Xabier Kintana

Talmuda oihan bat da, ederra, zirrargarria, miresgarria, baina oihana. Xabier Kintana

Talmuda bizitzako alderdi guztiei aplikatzen zaie: legezko alderdiei eta alderdi etikoei, usadioei, zeremoniei eta abarrei. Koro Navarro

Ez naiz batere lotsatzen, erantzuten du Singerrek, Biblia eta **Talmuda** sexu istorioez beterik daude. Koro Navarro

Orduan ez banekien ere, **Talmudek** aholkatzen duena betetzen ari nintzen zintzo-zintzo: ezagutzen ez duzun hiri batera bazoaz, bakardadea arintzen dizun lehendabiziko pertsonarekin fidatu behar duzu. Anjel Lertxundi

Talmudak dioen bezala, urruti gertatzen diren gauzak kontatuko ditu gezurra esan nahi duenak. Koro Navarro

Hogeita hamasei liburuki ditu **Talmudak**, eta juduek ez dute ahaztu. Koro Navarro

Rab edo Rabbi (352-427), Surako Akademiako burua eta Babiloniar **Talmudaren** biltzaile nagusietako bat. Xabier Kintana

Horra hor **Talmuden** testuak dioena. Xabier Kintana

Talmudean ageri diren kontraesan eta bateraezintasunak lehen edo bigarren kausatik helduak dira. Xabier Kintana

2 (hitz elkartuetan)

Erasoak nonahi gertatu ohi dira: esbistikak Lyongo judu hilerriko 60 hobitan; Seine Saint-Denisen, **talmud** ikastetxearen inguruetan, "Allah Akbar" orroka gizon bat kipa zeraman gazte bati oldartu zaio. Iñigo Aranbarri

talmudar *izlag* talmudikoa.

Mi-n-h-**talmudar** literaturan eta honekin zerikusirik duten obretan, Rabbi izena, antonomasiar eta beste eranskinik gabe, Y-hudah ha-Na-i aipatzeko erabiltzen da. Xabier Kintana

talmudiko *izond* Talmudarena, Talmudari dagokiona.

Testu biblikoen eta **talmudikoan** interpretazioaz. Xabier Kintana

Baldin orain Gidariaren kapituluak berriro irakurtzen baditugu, ohartuko gara bertan ageri den azpiztestua Bibliari eta Aggadah-ri, hots, doktrina **talmudikoei**, buruzko iruzkin aparta eta landu-landua dela. Xabier Kintana

Esapide **talmudikoak** dioten bezala "ez ditugu gauzak diren bezala ikusten, gu Iñaki Heras

talmudista *iz* Talmudean aditua den pertsona.

Mo-eh ben Maimon lehen mailako **talmudista** izan zen, eta gai honi buruz garrantzi handiko idazlanak egin zituen. Xabier Kintana

Bigarren kausari doakionez, **talmudistek** honelaxe esaten dute: [...]. Xabier Kintana

talo 1 *iz* arto irinez eginiko opila, mehea eta biribila.

Altzibartarrek dutenetik eman diote eskekoari: zezina, **taloa**, ardoa. Anjel Lertxundi

Zazpi **talo**, esne katilukada banarekin. Pako Aristi

Taloa eta esnea ez ziren sekula falta. Arantxa Iturbe

Ogi biribil bat, oliotan oraturiko opil bat eta **talo** bat. Elizen arteko biblia

Irria, kantua, ondotik **talo** eta edari. Herria

Hor berean **talo** ta xingar edo **talo** ta gasna jaten ahalko da sagarnoa edanez. Herria

Bazen ostatu eta **talo** triparen betetzeko eta musika bazterren alegeratzeko. Herria

Taloak erretzeko erabiltzen den burdina. Joseba Sarrionandia

Ondo erre gabeko **taloa** dirudi. Elizen arteko biblia

Olioz oraturiko opilak eta oliotan bustiriko **taloak**. Elizen arteko biblia

Edari eta ahotik ezin utzizko **taloak** salduko dituzte Hazparneko Ikastolako burrasoek. Herria
Han bazkaldu ez zutenek **taloak** jan ahal izan zituzten, edo etxetik eraman janaria. Berría - Euskal Herria
Taloarekin gaztetan bapo nazkatu zirela. Iñaki Segurola
Talo antzeko ogi batzuk ekartzen zituztela ikusi zuen, arropetan gordeta. Hasier Etxeberria
Asteburuetan **talo** -saltzen eta kontzertu-antolatzen aritzeko astirik ez zutelako. Itxaro Borda

2 (izenondo gisa)

Hiri bereko biztanle batek **talo** handi baten tamainako hanpatua zeukan bizkarrean. Askoren artean
Ogiaren ordez, artoz egindako **talo** gogor haiek. Arantxa Iturbe
Burasoek prestatu **talo** on batzuekin, hurrupaldi bat hartuz ta ele eginez lagunuen artean. Herría
Oliotan bustiriko **talo** legamigabeak ere eskainiko ditu. Elizen arteko biblia
Talo egin berriaren usainak nora jo erakusten didanean, ni baino lehenago da han nire gosearen sabel-hotsa. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Talo opilen...: hau da, ezer gutxi, datorrenarekin alderatuta. Une hori aprobetxatu zuen Mattinek ohea **talo** -orearekin zikintzeko. Patxi Ezkiaga
Iaz saldu zen **talo** kopuru bera saldua zen joan den igandean, 15:00etan. Berría - Euskal Herria
Zakurrak ederki asko ikasia zuen Mikelen txabolarako bidea, han **talo** puskaren bat beti aurkitzen zuelako. Martin Anso
Aratsean Arroltze moleta biperrekin eta **talo** gaua. Herría
Igande aratsean, Getarian, **talo** -besta. Herría
Segundo pare bateko isilunea gertatu zen, kupoi-saltzailearen **talo** -aurpegiak ketchup kolorea hartu bitartean. Patxi Iturrategi
Talo jate eta behar den edari mota guzietan. Herría

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garagar-**taloaren** antzeko opilak egin eta jendaurrean giza gorotzaren gainean erreko dituzu. Elizen arteko biblia
Dena txappati-rekin, hots, arto-**taloen** antzeko ogiarekin. Gotzon Garate

5 (izenondo gisa)

Hoztu egingo zaik sudur **talo** hori! Pablo Sastre

6 (neurriekin)

Exe batzuen gerizpean atseden hartu bitartean agure batek platerkada bat **talo** eta gazta ekarri didanean, bizigarri gisa. Jon Arretxe

7 **talo burdina** (*corpusean **talo burni**, **talaburdina** eta **talaburni** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **talo burdina** agertzen da)* taloak erretzeko erabiltzen den burdinazko xafla giderduna.

Horमतatik behera esekita, eltze, tupin, padera, **talo** -burni, burruntzi, burruntzali, tanbolin ta kriseiluak. Xabier Mendiguren Elizegi

8 **talo-talo eginda**

Irrist egiten huen eta ipurdia bustita aurkituko hintzen, **talo-talo** eginda. Josu Zabaleta
"**Talo-talo** eginda uzten zituen, aizu!", esaten zizun. Jokin Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

talo eta edari (5); **talo eta gasna** (4); **talo eta xingar** (44); **talo gaua** (4); **talo jate** (5); **talo jateko** (3); **talo on** (6); **talo on batzuekin** (3); **talo ta** (96); **talo ta xingar** (90); **xingar edo talo** (4)

taloak eta edariak (3)

talogile (*orobat **talo-egile***) iz taloak egiten dituen pertsona.

Segurako **talogileak**. Berría - Kultura
Hor egin irinarekin **talo egilea** betiko Etiennette Bidekurutzekoa. Herría
Aspaldi **talo egilea** zen Etiennette Bidekurutzekoa ere ez da hor aurtan. Herría

taloi¹ 1 iz txekea.

Bigarren gerla ondoan ere laborariek ez zuten oraino biziki baliatzen bankoetako txekea edo **taloia**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Mila pezetako **taloia** jaso nuen handik gutxira. Arantxa Iturbe
Bankuak, berriz, emakumeak sinatutako **taloia** agertzen zuen. Gotzon Garate
Bankuak **taloia** aztertzekeo [...] Bilboko bi emakume azterlariei eman zien. Gotzon Garate
- **Taloiak** baino itxura politagoa daukate billeteek. Migel Angel Mintegi

2 txartel moduko en multzo josia. ik **taloitegi**.

Hemen daukazu ertzain horren multa- **talo**i osoa. Gotzon Garate
Errezeta-**taloia** hartu nuen. Joan Mari Irigoien

taloi² iz orpoa.

Lehenengo, oinazpi guztia; gero, oinbularra, eta, amaitzeko, **taloia** eta berna oinazpiarekin lotzen dituen ertza. Luis Elberdin

taloitegi iz txartel moduko en multzo josia. ik **talo**¹ 2.

Banku-txkeen **taloitegia**, berriz, zure jantzi-mahaiaren goiko tiraderan. Mirentxu Larrañaga
Errezeta-**taloitegia** atereaz esan zidan: "Ospitale nagusira joango zara". Joseba Urteaga
Nik hamar urte eman nituen dirua aurrezten, eta banketxeak porrot egin eta dena galdu nuen, **taloitegi** bat izan ezik, oroigarri gisa. Lopez de Arana

taloteги iz talo denda edo jatetxea.

Narazio laburren lehiaketa bat antolatzen du Kanbon dagoen Artobeltz **talotegiak**. Herría
Irabaziko diren sariak dira afariak **talotegian**. Herría
Ekainaren 21ean, musikaren eguna kari, Artobeltz **talotegiak** afari bat berezia antolatzen du. Herría

talpak iz

Gizon horiek, lerdanak eta sendoak [...] **talpak** izeneko txanoa janzten zuten buruan, arkume beltzaren larruz egina. **Karlos Zabala**

tam-tam 1 iz Afrikan, musika tresna gisa eta mezuak igortzeko erabiltzen den danborra.

-Larrugorriek irabazi badute -esan zuen-, **tam-tama** joko dute; hori da euren garaipenaren zeinua. **Julen Gabiria**

Tam-tamaren soinuaren jirabiran dantzatzeko dira konortea galdu arte. **Monika Etxebarria**

Soweto-ko 32 gaztek, neska ta mutiko, zer trebezia, zalutasuna eta airostasuna erakutsi duten beren dantza eta kantuetan **tam-tam** erne batzuek lagundurik! **Herría**

-Ez duzue **tam-tamik** sekula berriro entzungo -xuxurlatu zuen, inork ez entzuteko moduan, jakina, Kako-okerrek guztiz isilik egoteko agindu zien eta. **Julen Gabiria**

2 irud/hed

Tamalez inork ez zuen Morse kodea ezagutzen, eta **tam-tam** hots metaliko harekin aspertutakoan ohera joan beste erremediorik ez zen izaten. **Xabier Mendiguren**
Elizegi

tamaina (orobat *tamainu* g.er.) 1 iz zerbaiten neurria edo handi-txikia. ik **handitasun**.

Koloreen eta **tamainen** dualtasuna. **Berria - Kultura**

Onartzen da molekularen **tamainak** eta formak substantziaren usainarekin erlazioa dutela. **Irene Aldasoro**

Zientzialariek lortu dutela material askoren forma eta **tamaina** maila atomiko eta molekularrean kontrolatzea. **Berria - Gaiak**

Ikusmen-eremu baliagarri honen **tamaina** gradu gutxi batzuetakoa da. **Josu Zabaleta**

Urak **tamaina** horretako haitzak bota ditzakeela entzutea harrigarria da. **Berria - Harian**

Zurezko apal zurietako liburuak **tamainaren** arabera antolaturik zeuden behetik gora. **Irene Aldasoro**

Biztanleriaren **tamainak** eta hazkundeak ekosistemaren ekoizpen ahalmen aldakorrarekin harmonian beharko luke izan. **Iñaki Heras**

Enpresen **tamaina** : %93k hamar langile baino gutxiago dituzte, eta %1,15ek 200 langile baino gehiago. **Berria - Ekonomia**

Merkatuan bai, **tamainak** axola du. **Berria - Ekonomia**

Txikitutasunak ematen digu emetasunaren **tamaina**. **Ana Urkiza**

Zenbait emozio-egoeraren arabera ere, berez aldatzen da begi-niniaren **tamaina**. **Josu Zabaleta**

Unibertsitaterako aurrekontuen **tamaina** urtez urte igotzen den arren, inoiz ez zaigu nahikoa iruditzen. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Korrontearen anplitudea (hau da, **tamaina**) handitu eta txikitu egiten da soinuaren ozentasunaren arabera. **Irene Aldasoro**

Euskal enpresa bat zatitzea, eta ondorioz **tamaina** galtzea, berri txarra da. **Berria - Ekonomia**

Txernobilgo «hondamendiaren **tamaina**» ezkututzen saiatzea leporatu diote biktimek NBERi. **Berria - Gaiak**

Herritarren parte-hartzearen **tamaina** Elkartasun Krosean ikusi ahal izan zen; bertan 159 lagun aritu ziren. **Berria - Euskal Herria**

Ez ginen arriskuaren **tamaina** antzemateko gai. **Edorta Jimenez**

ETA **tamaina** horretako atentatu bat egin nahian zebilela aspaldian. **Berria - Harian**

Luzaroan iraun nahi izanez gero enpresak **tamaina** behar duela aitortu du Gisasolak. **Berria - Ekonomia**

Pixkanaka, beste **tamaina** bat hartu zuen borrokak, eta Salbuespen Egoeraren kontra jo zuten. **Rafa Egiguren**

ik beherago 7. **Askoren artean**

Lehendabizi karramarro baten **tamaina hartu** bazuen ere, katu handi baten neurrikoa ari zela egiten poliki-poliki. **Hasier Etxeberria**

Aise antzematen dugu hori abereengan, janaria gutxituz haien gorputzek galdu egiten baitute **tamainan** eta sasoiaren. **Imanol Unzurrunzaga**

ik beherago 5. **Askoren artean**

Despota baten krudelkeria ez dagoelako indarraren **tamainan**, oztupoenean baizik. **Juan Martin Elexpuru**

Ez genuen baiezko hizketarik behar den **tamainan** ikasi. **Iñaki Segurola**

Uste baitu hura dela **tamainako** etsaia, bere neurriko etsaia, bere indarrak probatzeko dina den etsaia. **Iñaki Segurola**

ik beherago 6. **Askoren artean**

Pozaren **tamainako** elkartasuna. **Berria - Harian**

Tabako pakete baten **tamainako** biblia txiki bat atera eta gorantz jasoz erakutsi zuen, denok ikus genezan. **Harkaitz Cano**

Nolanahiko forma eta **tamainako** zundak fabrikatuko ziren, hainbat materialez eginak. **Juan Garzia**

2 (izenondo edo izenlagunekin)

Haize bakoitzak ez duela neurri edo **tamaina** jakin bat izaten, indar handiagoa edo txikiagoa baizik. Ezin esan baitaiteke egiaz euskaraz "muino" batek **tamaina** finkorik duenik. **Santiago Iruretagoiena**

Bi parametrok definitzen dute formatua: irudiaren **tamaina** absolutuak eta haren neurri nagusien **tamaina** erlatiboak. **Josu Zabaleta**

Arbola bakoitza **tamaina** errealean marrazturik. **Iñaki Heras**

Tamaina ezberdinetakoa ager daiteke barano edo koroa hau, gainera. **Pello Zabala**

Leku berean gertatzen diren baina **tamaina** desberdina duten bi distiraldi dituena. **Josu Zabaleta**

Muralak, olioak, hau da, **tamaina** handiko lanak prestatzen ari naiz datorren erakusketarako. **Berria - Kultura**

Itxurazko **tamaina** handia duen gauza bat gehiago mugitu beharko da, lekuz aldatzen dela nabaritzeko. **Josu Zabaleta**

Tamaina txikiko lanabesak. **Edorta Agirre**

Etiketen **tamaina** txikiko hizkiak irakurtzeko. **Josu Landa**

Teilatuaren azpian, espazioa handia bada, tiranteak eta gapirioak; **tamaina** ertainekoa bada, gailurra jartzen da, eta teilatu-hegaleraino ateratzen diren astazaldiak. **Santiago Iruretagoiena**

Belar artifizialeko futbol zelaia, atletismo pista, olinpiar **tamaina** duen igerilekua eta mota guztietako kirol aretoak ditu eraikuntzak. **Berria - Kirola**

Tamaina egoki-egokia dauka dendak. **Xabier Aranburu**

Abere honetaz idatzi denarekin handitasun eta **tamaina** ederreko liburutegi bat osa liteke. **Xabier Olarra**

Tamaina «txukuneko» aleak ziren, Tejedorren begietara. **Berria - Ekonomia**

Tamaina bereko astakeriak, baita larriagoak ere. **Aingeru Epaltza**

Bestelako erreferentziarik ezear, paisaian ikusten den muino baten egiazko **tamaina** zein den. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste horrenbeste esan liteke zineman edo argazkian planoen **tamaina** -eskalari buruz ere. **Josu Zabaleta**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zenbait hazik gorputz **tamaina** infinitua beharko luke. **Xabier Amuriza**

Giza **tamainako** panpina bat iraul-erraza da. **Irene Aldasoro**

Horrela eginez gero, letra **tamaina** tipitu beharko nuen. **Aingeru Epaltza**

Eskuan folio **tamainako** liburu bat zeukan. **Bernardo Atxaga**

5 *tamain* *adlag* neurriz, puntu egokiaz.

Hau ere zuzenean joan da ura edatera, eta, Abelek ez bezala, **tamainan** eta patxadaz edan du. **Pello Lizarralde**

Haizerik? **tamainan** bakarrik. **Pello Zabala**

Hi: lana, **tamainan** egin behar duk. **Pablo Sastre**

Unean uneko jakin-min horri **tamainan** eusten dio Ladronek, gehiegi luzatu gabe. **Berria - Kultura**

6 *tamaina-tamainan*

Azukrea **tamaina-tamainan** duena gainera. **Iñaki Seguro**

7 *tamainako izlag* neurritakoa, puntu egokiari dagokiona.

Tamainako min batek on egiten digu; zerbaiten edo zerbaitetarako minak. **Iñaki Seguro**

Tamainako kartzela ze neurritakoa den erabakitzea ez da gauza erraza. **Iñaki Seguro**

Tamainako harri bat topatu duenean belaunikatu egin da. **Pello Lizarralde**

8 *tamaina hartu*

Segituan **hartu** zion **tamaina** lanari. **Oskar Arana**

Heure eskarmentuz ikasiko duk horri ere **tamaina hartzen**. **Anjel Lertxundi**

Hartzeko eta ikusteko zer eskaini diezaiokegun guk munduari. **Ana Urkiza**

Eta komeni, komeni zenez, giroari **tamaina hartzea** ... **Pello Zabala**

Ez zait mingarri bakardadea; bada lanik aski nor bere buruari eta bere maniei **tamaina hartzen**. **Juan Garzia**

Eta orain, familiarekiko harreman horri nolabaiteko **tamaina hartua** genionean, gutxien espero nuenean, hara non banandu egin garen. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

benetako tamaina (5); **beste tamaina bateko** (3); **enpresen tamaina** (4); **irudiaren tamaina** (7); **neurri edo tamaina** (4); **neurri eta tamaina** (3)

tamaina bereko (5); **tamaina berekoak** (3)

tamaina egokia (5); **tamaina erdiko** (3); **tamaina ertaineko** (5); **tamaina eskaseko** (4); **tamaina eta neurri** (3); **tamaina guztietako** (6); **tamaina handia** (6); **tamaina handiagatik** (3); **tamaina handiagoko** (3); **tamaina handian** (4); **tamaina handiko** (37); **tamaina handikoa** (3); **tamaina handikoak** (3); **tamaina hartako** (3); **tamaina hartu** (7); **tamaina hartzeko** (3); **tamaina hartzen** (5); **tamaina honetako** (10); **tamaina horretako** (29)

tamaina ikusita (5); **tamaina jakin** (3); **tamaina neurtu** (3)

tamaina txiki (3); **tamaina txikia** (5); **tamaina txikiko** (11)

zer tamaina duen (3)

erasoaren tamainako (3); **karnet tamainako** (3); **lurraren tamainako** (3); **tamainako balentria** (3); **tamainako erantzuna** (4); **tamainako erantzuna emateko** (3); **tamainako harri** (5)

bere tamainan (3)

tamainaren arabera (6)

obraren tamainari (5); **tamainari dagokionez** (3); **tamainari esker** (3)

tamainadun *iz* tamaina duena.

Ordenagailuz idatzita ageri zen, "Times New Roman" letra mota eta 12 puntuko **tamainaduna**, egin zuen berekiko. **Joxemari Urteaga**

tamainatsuko *izlag* tamaina bertsukoa.

Taupada-markagailua, zigarro-pakete baten **tamainatsuko** plastikozko zorro batean sarturik, saihesten azpiko toki egoki batean jartzen da. **Irene Aldasoro**

Ozta-ozta asmatu zuen esaten Amyren **tamainatsukoa** zela. **Xabier Olarra**

Eguzkiak bidaltzen digun bero-kopuruaren **tamainatsuko** zerbait litzateke bero-pila hori. **Pello Zabala**

tamainu ik *tamaina*.

tamal 1 *iz* zoritxarra; nahigabea.

Noizbait, nire **tamalak** errukia eragiten ziola adierazteko, buru-zirkin bat egin zuen. Tiro egiteko baimena eman zitzaionean ere, hori **tamala**, errepublikakide bat fusilatzeke izan zen. **Anjel Lertxundi**

Tamala! fariseismoa hain dago zabaldurik munduan! **Joan Mari Lekuona**

Baina, oi **tamala!**, hemen ezin dizut eskaini desio duzun bizimoldea eta joatea beste irtenbiderik ez dut. **Patxi Zubizarreta**

- **Tamala**, gizajo hark eskua ez ezik beste zerbait ere galdu ez izana -erantzun nion-. **Alberto Ladron Arana**

Tamala, baina istorioa, antza, amaitu da. **Oskar Arana**

Tamala: ez zen aleman perfektok bat, baina ba ote aleman perfektorik? edo judu perfektorik? **Juan Garzia**

Ezin hortaz manifestara-eta joan: **tamala**, **tamal** handia, baina jakingo du Herriak barkatzen. **Markos Zapiain**

"**Tamal** baita pobre jaio izana", nerabilen ahopean, gas-erregailu baten garrera Itsasarteetako eztainu-barra bati eusten nion bitartean. **Juan Garzia**

2 (izenondo gisa)

Hainbat gaiztoagoa baita bika zauriaren gainera hire bota behar **tamal** hori. **Anjel Lertxundi**

3 (-en atzikiaren eskuinean)

Baina, ai ene **tamala**, hain zauzkat, maite, ondoezik aspaldian. **Juan Garzia**

Ezkaratzean, Magrisekin egon ezinaren **tamala** aipatu dit ostera ere Josék. **Anjel Lertxundi**

Baina nire egoeraren **tamala** luzatzen eta luzatzen ari zen, eta gero eta eramangaitzagoa zitzaidan egoera hura, amaierarik ikusten ez niolako. **Anjel Lertxundi**

Nahiago dut tren, ditugun azpiegitura negargarrien **tamalagatik**, nahi nukene baino gutxiago ibiltzen naiz-eta trenez. **Anjel Lertxundi**

Zu adina pozten naiz, baina ezin nire **tamala** adierazi gabe egon neskato batek bere bidea bakarrik zabaldu beharraz. **Ramon Etxezarreta**

4 *tamala izan da ad*

Tamala da, Hamida! **Patxi Zubizarreta**

- **Tamala duk**, benetan; damutuko haizela iruditzen zaidak. **Juan Kruz Igerabide**

Eroturik dagoela, egia da; egia da hori **tamala dela**; eta **tamala da** hori egia izatea: figura txoro bat, horra. **Juan Garzia**

Tamala da zuk niri ez sinestea, izan ere errugabea bainaiz. **Patxi Zubizarreta**

Tamala zen belo ederragorik eta sandalia berririk ez edukitzea! **Patxi Zubizarreta**

Tamala izan zen bere kolerari eusten jakin ez, eta gizona gisa hartan laidoztatzea! **Patxi Zubizarreta**

Tamala zela berak bertan ez izana. **Anjel Lertxundi**

Ez, ez **da tamala**. Anjel Lertxundi

5 *tamalez* adlag zoritzarrez.

Tamalez, ez dakit ezer horretaz. Antton Olano

Tamalez, ordea, ezin dut daukadana hiru zatitan banatu. Anjel Lertxundi

- **Tamalez**, almirantea bera ere hila da. Edorta Jimenez

- **Tamalez** -Edurnek, kitzikari, ezpainak nireetara hurbiltzen zituela-, ez duk behar adina saiatu. Aingeru Epaltza

Ez zegoen gure esku, **tamalez**, uso berde-marroixkarena egitea. Bernardo Atxaga

Arazoak, **tamalez**, nahi baino sarriago sortzen zaizkizu. Migel Angel Mintegi

-Ez nuen jakin, **tamalez**; ez nuen jakin. Juan Kruz Igerabide

Ezpainak irakurtzen ez dakit, **tamalez**, baina honako hau irakurri nuen nik primerako morroiaren irribarrean: [...]. Joxerra Garzia

Sentitzen dut, baina **tamalez** ezin dizut ezer gehiago adierazi. Patxi Zubizarreta

Joseph Trottairen jauzi heroikoak inperioaren une jakin bateko suntsiketa galarazi bazuen ere, ez zuen **tamalez** betiko eragotzi. Anjel Lertxundi

Bada, **tamalez** (edo batzuetan ez horren **tamalez**), gure eskolan ezin itzurizko gaitza ematen du horrek. Josu Zabaleta

Bere egileak argitaratu zuen fikziozko lan bakarra da, eta, **tamalez**, inori ez zaio bururatu haren berrirakurketarik. Iban Zaldúa

Oso hartualdi iluna da, **tamalez**: ez zaio berehalakoan antzematen han ageri denari. Joxe Austin Arrieta

Egunetik egunera gero eta gehiago jabetzen ari nintzen, **tamalez**, zein urrun nengoen haiengandik. Mirentxu Larrañaga

-Ez gaude Azpimunduan, **tamalez** -erantzun zion Fionnek. Joanes Urkixo

Irun ilun izan edo ez, hango eskolaldia, Legazpikoa ez bezala, argi eta garbi gordetzen dut memorian, niretzat **tamalez**. Joxerra Garzia

6 *tamalezko izlag* zoritzarrezkoa.

Irlandako Gobernuaren jokaera **tamalezkoa** da, eta agerian uzten du ez dela gai zinez eztabaida politiko bat aurrera bultzatzeko. Berria - Mundua

Ez zaie inondik inola ere amore eman behar terroristen esijentziei eta **tamalezkoa** da, baina, filipinarrek hori egin dute. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tamala da (10); **tamala zen** (6)

tamalezkoa da (3)

tamalgarri 1 *izon*d deitoragarria, negargarria.

Kurt Cobainen heriotza **tamalgarria**. Patxi Iturritegi

Protestantismoak irudi erlijiosoak galarazi zituen garai **tamalgarri** haiez ari naiz, jakina. Anjel Lertxundi

Haren egoera **tamalgarriaren** berri jakinik, dirua bildu zuten guztien artean. Jose Morales

Minaren minez, haren egoera eroria eta **tamalgarria** deitoratzen nuelarik, gogoan izaten nuen luzaroan maite izan ninduela, eta, une gaizto batean, ezkontzaz mintzatu nintzaion. Koro Navarro

Hura, benetan, basakeria-erakustaldi **tamalgarria** izan zen. Koldo Biguri

Izan zen liskarrik, izan zen odol isurtze **tamalgarririk**. Juan Garzia

Lakoi maskal horixkek borla berde **tamalgarri** batzuk zituzten goialdean apaingarri. Karlos Zabala

Jokabide ezin **tamalgarriagoa** izan zenuen, nik egundo ikusi ez bezalakoa. Mirentxu Larrañaga

Egoera ezin **tamalgarriagoan** topatu zuten. Xabier Montoia

Gehiago zuen ikuskizunak **tamalgarritik** dibertigarritik baino. Felipe Juaristi

Esklaboak ez dira garai batean legez enkantean jartzen, baina orduko haien pare lan egiten dute egungo morroi txikiak, «baldintza **tamalgarrietan**». Berria - Gaiak

Sindikatuak «**tamalgarritzat**» jo dituzte espetxetako higiene baldintzak. Berria - Euskal Herria

2 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Argentinarra izateak, bere **tamalgarrian**, eragotzi egingo dit ditiranboan erortzea. Juan Garzia

3 (izan aditzarekin)

- **Tamalgarria da**, Dumbledore [...] baina kontseilariak uste dute garaia dela zu bazter geratzeko. Iñaki Mendiguren

Tamalgarria da, baina horrelaxe da. Berria - Gaiak

Ibaien egoera **tamalgarria da**. Berria - Harian

Tamalgarria den arren, ez dago langabeziaren kontrako politika aktiborik. - **Tamalgarria da** Clint hemen ez egotea -esan zuen, lehenago ere hainbeste alditan esan ohi zuen legez-. Iñaki Heras

Tamalgarria zen lainoak eta eguraldi narratsak ingurua ongi ikusten ez uztea. Aitor Arana

Tamalgarria litzateke jaun horri alferrik enbarazu egitea... Alberto Ladrón Arana

'Ez **da tamalgarria** obra galtzea?' galdetu du aurkezleak, eguzkipean urtzen ari den irudiaren alboan. Joseba Sarrionandia

- **Tamalgarria duk** aberats jaio ez izana. Patxi Zubizarreta

-Ene jokabidea benetan iruditzen al **zaizu tamalgarria**? Patxi Zubizarreta

4 (izan ezabaturik)

Tamalgarria ikuskizuna. Juan Garzia

- **Tamalgarria**! -esan zuen Bilbok-. Berria - Kirola

Mila deabru!, bai **tamalgarria** hi joan ez izana. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera tamalgarri (6); **tamalgarri iritzi zion** (4)

egoera tamalgarria (16); **egoera tamalgarria da** (5); **hasiera tamalgarria** (4); **hasiera tamalgarria izan** (3); **itxura tamalgarria** (3); **tamalgarria dela adierazi** (3); **tamalgarria iritzi zion** (3); **tamalgarria iruditzen** (3); **tamalgarria izan** (15)

ondorio tamalgarriak (4); **tamalgarriak izan** (6)

egoera tamalgarrian (13)

tamalgarritzat jo (18); **tamalgarritzat jo zuen** (12)

tamarillo *iz* hiruzpalau metro luze den zuhaixka, berez Andeetakoa, tomatearen antzeko fruitua ematen duena(*Solanum betaceum*).

Pakana, papaia, ranbutana, salsifia, soja, **tamarilloa**, taroa, topinanburra, txaiotea, Txinako patata gozoa, [...]. Edorta Agirre

tamarindo iz lekadunen familiako zuhaitz handia, loreak mordoetan dituen, lurralde beroetan hazten dena (*Tamarindus indica*).

Tamarindoek markatutako ibilbideetatik sartu dira. **Iñaki Iñurrieta**

Abrahamek, bere aldetik, **tamarindo** bat aldatu zuen Beer-Xeban, eta Jauna, betiereko Jainkoa, gurtu zuen. **Elizen arteko biblia**

Jaiki ziren gizonik indartsuenak, Saulen eta semeen gorpuak hartu, Jabexera eraman eta Jabexeko **tamarindoaren** azpian ehortzi zituzten haien hezurrak. **Elizen arteko biblia**

Izan ere, zer litzateke Donostia **tamarindorik** gabe? **Joxerra Garzia**

tamariz iz *Tamarix* generoko zuhaitza.

Jar dezagun, beraz, egun euritsu bat zela, eta haizeak ere gogor astindu zituela hiriko **tamarizak** eta platanondoak, baina ez gingko bilobak, hiri hartan ez zegoelako gingko bilobarik. **Karlos Linazasoro**

tamazight iz Kabiliako berebera; Kabiliako bereberen hizkuntza.

Tamazight berebereen kultura eta hizkuntza eskubideen aldeko borrokaren bultzatzaile nagusia Kabiliako hiriburua Tizi-Ouzouko Unibertsitatea izan zen. Ezin ditugu Aljeriako herritar guztiak **tamazightez** hitzegitera behartu. **Berria - Mundua**

Gaur egun, haatik, hizkuntza berebera ez da lege bidez bermatuta eta Kabiliari dagokionez, Aljerreko aginteak ebatzi du erreferendum bat egin beharko dela **tamazighta** ofizial bilakatu aurretik. **Berria - Mundua**

tamil 1 iz Indiako hegoaldean eta Sri Lankako zati batean bizi den indiar herri bateko kidea.

Meniari eusteko, bake negoziazioak abiatu dituzte **tamilek** eta Kolonbok. **Berria - Mundua**

Tamilek bozak boikotatu zituzten. **Berria - Harian**

Bost **tamilen** gorpuak agertu dira, bururik gabe, Puwakpitiya eta Dehiowita herrietan. **Berria - Mundua**

Ehunka **tamil** hil zituzten. **Berria - Mundua**

Beste milaka **tamil** behartsu bezala, herrikka batean jaiotako Kumaresan Velu Bangalorera joan da. **Gotzon Garate**

Tamilen eskubideen aldeko ekintzaile bat hil dute Trincomaleen. **Berria - Mundua**

2 (beste izen baten ezkerrean)

20 urteotan dirauen gatazkari konponbide politiko bat eman behar zaiola, **tamil** herriaren autodeterminazio eskubidea onartuz eta autonomia zabal bat emanez Sri Lankako uhartearen ipar-mendebaldean zabaldua den etnia horri. **Berria - Mundua**

Tamil etniakoa da eta lehen ministro izendatuta balitz, Sri Lankako historian lehen aldia litzateke sinhalari bat ez izatea gobernu karguan. **Berria - Mundua**

«Aldarrikatu dugu **tamil** lurraldeak, **tamil** abertzaletasunak eta **tamil** autonomiak onartuak izan behar dutela, **tamil** herriaren funtseko nahikundeak bezala» gaineratzen zuen LTTEk zabaldutako agiri honek. **Berria - Mundua**

Tamil gerrillako bi kide hil zituzten atzo soldadu srilankarrek. **Berria - Mundua**

Gobernuak behin eta berriro leporatu die **tamil** tigreei su-etena haustea. **Berria - Ekonomia**

Tamil tigreek sustatutako TNA alderdiak 22 hautetsi lortu ditu bozetan. **Berria - Mundua**

3 (izenondo gisa)

Elilan buruzagi **tamilak**, alta, erantzuteko prest daudela ohartarazi zuen. **Berria - Mundua**

Ustezko gerrillariak politikari **tamil** bat hil zuten. **Berria - Mundua**

40.000 zibil **tamilek** etxetik alde egin dute, LTTEren arabera. **Berria - Mundua**

Gehiengo **tamila** duten eskualdeetan, uhartearen iparraldean eta ekialdean, behin-behineko gobernu autonomoa abian jartzeko eskaria berretsi zuen Thamilselvanek. **Berria - Mundua**

Gerrila **tamilak** ohar hau zabaldu zuen. **Berria - Mundua**

Gutxienez 80 soldaduak ziren eta 40 gerrillari **tamilak**. **Berria - Mundua**

Bihar tigre **tamilek** srilankar soldaduei egindako setioaren urteurrena beteko baita. **Joseba Sarrionandia**

Asteartean Nazio Aliantza **Tamila** (TNA) alderdiko hautagai bat hil zuten ekialdeko Batticaloa hirian. **Berria - Mundua**

4 tamilen hizkuntza.

Denetan india da mintzatuena, gero **tamila** eta Keralan mintzatzen den malayalama. **Gotzon Garate**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gerrillari tamil (3); **tamil tigreak** (6); **tamil tigreei** (9); **tamil tigreek** (27); **tamil tigreek independentzia** (3); **tamil tigreen** (21)

gerrillari tamilak (4)

gerrillari tamilek (8)

tamildar izlag tamila.

Erakunde armatuak ez zuen zehaztu norerana izan daitekeen erasoaren ardua, baina, haren hitzen artean, uler zitekeen Sri Lankako Armadak Karuna gudalburu **tamildar** disidenteari eta haren jarraitzaileei ematen dien babesak «bultzatu» egin duela. **Berria - Mundua**

Hauen iritzian, gerrilla **tamildararen** barne zatiketak areagotu egin behar dira, LTTE erakundea militarki ahultzeko xedez. **Berria - Mundua**

tampax ik tanpax.

tan-tan 1 adlag hainbat hotsen onomatopeia.

Handik pixka batera, egun berean, **tan-tan tan-tan tan-tan**, berriro ikusi nuen beste efebo batekin, tirulirula, tiruliruli, soingainekoaren botoiaz berbetan. **Xabier Olarra**

2 tan-tan-tan

"**Tan-tan-tan**! hori heurea dok". Horren ondotik, **tan-tan-tan** bertzerik ez da entzun hainbat segundotan, euri tantek lurraen kontra lehertzean ateratzen duten hotsa. **Aingeru Epaltza**

3 tan tan tantan tan

Beste egun batean, **tan tan tantan tan**, danboliteroak armak entregatzeko agindua kantatu zuen. **Joseba Sarrionandia**

Martxa militarrik alaiak ziren, **tan tan tantan tan tan**, kalerik kale ibiltzeko gogoia ematen zuten eta gustura gindoazen gure banderekin. **Joseba Sarrionandia**

4 tan-tan-tantanka

Hara han danboliteroa bere pregoi abisuarekin **tan tan tantanka** zetorrela ikusi arte. [Joseba Sarrionandia](#)

5 tan-tan-tatan

Danboliteroak isilune bat egin zuen, gero isiltasuna atabal hotsez urratu, **tan tan tatan**, eta jarraitu zuen abisua emanez. [Joseba Sarrionandia](#)

Halaxe egiten zuen beti danboliteroak, **tan tan tatan tan** eta gu ere udaletxerantz begira jarri ginen. [Joseba Sarrionandia](#)

Danboliteroak hala kantatu zuen **tan tan tatan tana**, ezkutututakoak itzultzeko etxera. [Joseba Sarrionandia](#)

tanait iz

Berau, Mi-n-h prestatzen jardun zuten berrehun eta berrogeita hamar baino gehiago **tanaitetarik** (hau da, "errepikatzaile", hots, ahozko Legearen irakasle edo maisu tradizionalistak) azkena izan zen. [Xabier Kintana](#)

tanatoestetika iz hilotzen itxura hobetzeko tekniken multzoa. ik tanatopraxia.

Oso pozik nebilela sasoi hartan gorpuen aurpegia eta eskuak makilatzen ikasteko xedez Bartzelonan egin berri nuen ikastaro interes handiko hura egin nuelako, eta hura guztia egina nuela, hain juxtu, tanatopraxiaz eta **tanatoestetikaz** zeuden teknika berriez jabetzeko, hildakoak ahalik eta itxurarik onenean ikus ahal zituzaten familiakoek eta lagunek. [Josetxo Azkona](#)

tanatofilo izond heriotzaren inguruko gertakarien zalea dena.

Etsi-etsian pentsatu behar [...] erlijio edo sekta eldarniatu batek harrapatu dituela azpian gure lagun hurkoetarik asko eta asko, denik-eta surrealismo **tanatofilo** eta patetikoenak ez ezik. [Iñaki Segurola](#)

Garen **tanatofiloentzat**, agian, liburuko zatirik erakargarriena da. [Berria - Kultura](#)

tanatopraxia iz hilotzen hondatze prozesua gelditzeko tekniken multzoa. ik tanatoestetika.

Oso pozik nebilela sasoi hartan gorpuen aurpegia eta eskuak makilatzen ikasteko xedez Bartzelonan egin berri nuen ikastaro interes handiko hura egin nuelako, eta hura guztia egina nuela, hain juxtu, **tanatopraxiaz** eta tanatoestetikaz zeuden teknika berriez jabetzeko, hildakoak ahalik eta itxurarik onenean ikus ahal zituzaten familiakoek eta lagunek. [Josetxo Azkona](#)

tanatorio iz hilotzak beilatzeko prestaturiko eraikina.

Manu Aranbururen gorpua gaur erraustuko dute Errenteriako **tanatorioan**. [Berria - Ekonomia](#)

Aita hil zitzaigunean, bi gau osorik egin behar izan genituen **tanatorioan**, eguerdian hil zenez biharamun goizean ehorzteko baimenik eman ez zigutelako. [Aingeru Epaltza](#)

Iruñeko Iratxe **tanatoriora** eraman zuten Riveroren hilotza autopsia egin eta gero, eta han Portlandeko jokalarien, teknikarien eta zuzendaritzako kideen azken agurra jaso zuen. [Berria - Kirola](#)

Ezustean, Pariseran baino lehen **tanatoriora** joan behar izan nuen arratsaldean, zoritxarrez. [Harkaitz Cano](#)

Inork ez bide zitinan erreklamatu eta **tanatorioak** Unibertsitateari eskaini zizkionan ikasleek erabil zituzten. [Harkaitz Cano](#)

Eriak erietxera, zaharrak zahar-etxera, eta hilak **tanatoriora**. [Joxerra Garzia](#)

Hemen, heriotza arrotzu egin dugu, ez dugu ikusi ere egin nahi, horregatik izan du azken urteotan heriotzaren inguruko negoziok halako gorakada, **'tanatoriora'** deitutako asmakizun horrekin: azken orduetan ere ez dugu hildakoa etxean eduki nahi. [Pako Aristi](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eko iratxe tanatoriora (3); **iruñ tanatoriora eraman zuten** (4); **tanatoriora joan** (4)

tanatoterapia iz

Jubilatuak dabilza plizti eta plozta, beren zauri zahar hori luzatu beharrez; gaitz guztien betiko sendabidea **"tanatoterapia"** deitzen diote) noiz helduko den beldurrez.

[Iñaki Segurola](#)

tanbolin ik **danbolin**.

tanbolitero ik **danbolintero**.

tanbor ik **danbor**.

tanborrada ik **danborrada**.

tanborrero ik **danborrero**.

tanbur ik **danbor**.

tanda ik **txanda**.

tandem 1 iz txirrindu mota, bi lagun edo gehiagorentzat egokitua.

Laster agertu zitzaigun txirrindularien taldea, hiru mutil, hiru neska eta beste neska bat **tandemean**, denak barrez eta txirrina joka. Koro Navarro

-Batentzako lekua bazegok hor atzean -esan zidan **tandema** zeraman neska batek. Koro Navarro

Hiru haltera (Aleksandr Koroljov estoniarra, Youssef Cheikh Younes siriarra eta Ali Hosseini iraniarra) eta **tandem** diziplinako bide-erakusle bat (Jurak Petrovic eslovakiarra).
Berria - Kirola

2 irud/hed

Jakin ezazu, Harkaitz, **tandem** garaiezina izaten jarraitzen dugula, eta gogoan zaitudala gau eta egun. Eider Rodriguez

Errepresioaren logikan Grande Marlaska-Balza **tandem** aurreratua bihurtzen ari da. Berria - Euskal Herria

Hori horrela izan zen Asun Balzola ezagutu nuen arte; adiskidetasun sakona izan dugu eta lanaz aparte, elkarrekiko akuilu eta euskarri izan zen **tandema** osatu genuen.
Ana Urkiza

Inguruneari ematen zaion garrantzi berbera eman behar zaio pobrezari, banandu ezinezko **tandema** osatzen baitute bi kontzeptuok. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

tanga¹ 1 iz ipurmamiak estaltzen ez dituen azpiko arropa eta bainu jantzia.

Tanga bat neraman jantzita; kuleroak soineko azpian nabarmendu ez daitezen erabiltzen dut. Juan Martin Elexpuru

Titia ia-ia osorik eta sabelpekoa ozta-ozta estaltzen zion **tanga** begien bistan jartzen zizkion aurrekoari. Migel Angel Mintegi

Dudan egon nintzen **tanga** bat jarri ala ez, baina azkenean enkajezko kulero zuri garden batzuk jantzi nituen. Juan Martin Elexpuru

Itzuli zenean, harrera **tangan** egiten dizuten neska beltz horietako bat zeraman besotik. Joxan Elozegi

Ziegan hotza sentitzen nuenez, manta batekin estaltzen nintzen **tanga** eta sujetadore hutsean nengoelako. Berria - Euskal Herria

Goportuz eskulturara zuten **tanga** hutsean jantzitako kamareroek [...]. Harkaitz Cano

2 (izenondoekin)

Gura beste oihal eta arropa dago erakusgai, **tanga** ñimiñoenetik neguko jertse lodienara. Urtzi Urrutikoeetxea

Bere ligero gorrietan eta **tanga** beltzean erreparatu nuen, hura zen nik neureganatu nahi nuen altxorren zaindaria. Juan Martin Elexpuru

3 (hitz elkartuetan)

Edurneren titi beteak [...] nire bihotzarekin batean pilpiratzen zirela imajinatzen ahal nuen, **tanga** motako kulero tikien gainean jantzirik zeraman kamiseta laburraz bertzaldera. Aingeru Epaltza

tanga² 1 iz andela, tankea.

Tanga batzuk aurkitu zituzten Suitzako Pilatus mendiaren hegoaldean kokatutako kareharrizko barrunbe batean. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Izkina batean ur-**tanga** handi bat zegoen. Iñaki Mendiguren

Eguzkia ur-**tanga** edo petrolio-bidoi handien gainean piztutako suzko zuzi bat da orube soil baten atzean. Xabier Paya

Elkarren kontra bermaturik zihoazen ibai ertzeko kale ilun eta lupeztuetan barna, itzelezko gas-**tangak**, hesi eroriak eta hamaika leihodun biltegi luzeak atzean utziz. Lopez de Arana

Erregai-**tanga** apurtuta zeukan. Berria - Euskal Herria

Erregai-**tanga** betetzen ari zela Teresa etorri zitzaion gogora, eta batera Iturbideren bulegora elkarrekin joan ziren eguna. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ur **tanga** (3)

tangada iz hurrupa.

Hungariakoak vodka eta garagardoa **tangada** txikietan edaten du. Edorta Jimenez

tangarro iz adkor ontzia.

Komuneko iturrira joan zen **tangarro** txiki batez, eta urez bete zuen. Jon Alonso

tangatxo iz tanga txikia.

Arroparen esekitikian aldian aldiko neskaren **tangatxoa** zintzilikatu ohi zuelako. Xabier Mendiguren Elizegi

tangazale izond tangen zalea dena.

Ezinegona eta jakin-nahia nagusituko dira ikuskizunean, eta ikusleak hippy, apaiz, **tangazale** eta pailazoak aurkituko ditu bidean. Berria - Kultura

Txakurra, aingerua, agure **tangazalea** eta Armstrong-en txirrindaren plater handia. Andoni Egaña

tangente 1 iz lerroez edo azalerez mintzatuz, beste lerro edo azalera bat ebaki gabe ukitzen duena. ikukitzaile.

Gutxi dira, zinez, zirkulua hausteko, edo zirkulutik urruntzeko, **tangenteren** batetik abiatzen direnak, goiko espazioetan barrena meteorito ezezagun baten bila. Joan Mari Irigoien

Garai hartan, *desagerkor* deitzen zitzaien infinituki txikiei, eta **tangenteei**, berriz, *ukitzaile*. Jon Muñoz

2 angelu batez mintzatuz, angelu hori hartzen duen triangelu zuzenaren aurkako katetoaren eta beste katetoaren arteko zatidura.

Trigonometriaren lau mosketariak: sinua, kosinua, **tangentea** eta cotangentea. Jon Muñoz

Objektu baten altuera neurtzeko tresna egokia da **tangentea**. Jon Muñoz

Sinu-taulak ezarri eta berehala, **tangentea** asmatu zuen Habash al Hasibek. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan)

Tangente-taula bat edukiz gero, zuzenean neur daiteke Keopsen piramide ospetsuaren garaiera. Jon Muñoz

tangentzial *izond* tangentearena, tangenteari dagokiona. • *irud/hed*

Film laburren egileak, askotan, erosoago sentitzen gara zine formatu laburreko zinearen errealitate txiki eta **tangentzialean**. **Berria - Kultura**

Espontaneitatea falta zuen, eta [...] arin eta egoki erantzuten zuen nik hitz egindakoa, nahiz eta ustekabeko hitzek arreta hartzen zioten batzuetan, eta asoziazio **tangentzialei** eta kantu eta bertso zatiei bide ematen zien. **Xabier Olarra**

tangillo *iz* andaluziar herri kanta eta dantza, erritmo arinekoa.

Jazzaren egitura tradizionaleri jarraiki, tangoak, **tangilloak**, alegriak, buleria konpasak eta fandangoak interpretatzen ditu pianoarekin. **Berria - Kultura**

tango 1 *iz* jatorriz argentinarra den dantza, bi aldiko erritmo geldokoa, bikoteak oso loturik dantzaten duena; dantza horren musika eta hitzak.

Salaren erdian, leku karratu batean, lau bikote **tangoa** dantzaten ari ziren. **Lopez de Arana**

Gerritik helduko nion, ito arte dantzatzeko, **tangoak** eta valsak. **Unai Elorriaga**

Baltsa jo, **tangoa** jo edo pasodoblea jo, baseritarrek antzera samar egiten zuten dantzan. **Xabier Etxabe**

Tango bat dantzatzea zer den erakutsiko zieagu paristarrei. **Harkaitz Cano**

Hara, seme, kontua duk **tangoaren** pausoak dibujatzea. **Harkaitz Cano**

Hormonen dantza eta borroka hura edozein **tangoren** urratsetan labaintzen zela konprenitu zuen urte batzuk geroago. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Oskestra **tango** bat jotzen ari zen. **Lopez de Arana**

Tango baten doinu geldia aditzen zen. **Lopez de Arana**

Zer egingo eta **tangoak** abesten hasi zen bat-batean, sentimendu handia ipiniz kantuan. **Jon Arretxe**

Hura zen **tangoa** kantatzen ari zena. **Unai Elorriaga**

2 (izenondoekin)

Taldean dantzatutako **tango** garaikidea. **Berria - Kultura**

Tango ezagun batean aipatzen direlako biak batera. **Unai Elorriaga**

Ni, bionbo bati besarkatuta, metroko bagoian, **tango** baldar bat dantzaten ari banintz bezala. **Harkaitz Cano**

Argentinan **Tangoa** erakatsi da (hitzak bakar bakarrik bainan zoin mamitsuak). **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tango hotsak Parisen. **Berria - Kirola**

"Retruco" talde argentinarrak batera moldatuko ditu esku dantza eta **tango** urratsak. **Herria**

Txontxongilo ikuskizuna dugu, elkartzten ditu Marijan Minaberi [...] idazlearen ipuinak eta Astor Piazzolaren **tango** musika. **Herria**

Talde argentinarra uztailaren 15ean ariko da **tango** doinu berritzaileenak taularatuz. **Berria - Kultura**

Matias goitik behera harrituta bazegoen ere, pertsona ona iruditu zitzaion **tango**-kantaria. **Unai Elorriaga**

Tango dantzari baten burua zian, gogoratzen nauk, edo neska dantzari batena, kizkurak kopetan behera zituela. **Josu Zabaleta**

Baina nor nintzen bada ni **tango**-afari baten edo biren kontra eta zenbait ilunabarreko larru-jotzeren kontra ezer izateko? **Oskar Arana**

Une hartan, nostalgia, malenkonia, **tango** begirada jarri zitzaion. **Harkaitz Cano**

tangolari *iz* tango-kantaria.

Ortzegun aratsean, Baionan, Luna Negra kabaretean, Manuel Mateo **tangolaria**. **Herria**

tanino *iz* gai idorgarria, zenbait zuhaitzen azaletik ateratzen dena, larruak ontzeko eta sendagai jakin batzuek egiteko erabiltzen dena.

Sagardoa, analitikoki, ona den jakiteko, honako parametroak hartzen direla kontuan azaldu digu Kamiok: mostoaren edo sagardoaren azidotasuna, **taninoa**, alkohola eta ph-a. **Berria - Euskal Herria**

Oreka hori honakoa izan behar du: 5 eta 6 gramo bitarteko azidotasuna, 0,8 eta 1,4 gramo arteko **tanino** litroko, eta, azkenik, ph-a 3,5 eta 3,8 bitartean izan behar du. **Berria - Euskal Herria**

tank *adlag* tanten onomatopeia.

Izan ere, innoble samarra izango litzateke kasualitatea probokatzea eta bainugelako atea braustakoa irekitzea, barruan dutxa-soinua entzutean edo dutxa gazte baten azken tantak entzutean **tank-tank**. **Unai Elorriaga**

tanka 1 *iz* ipar kolpearen hotsa.

Zaiola aldean, nork ez du entzun goizetik arats Kaieten mailuaren **tanka**, jo eta jo, burdina, bero deno behar da jo. **Herria**

2 kolpea.

Aise abiaturik, 9-2, 20-12, 28-13, ikusi dute kontrarioak nor ziren, Duhauren bote bizi batzuekin eta Etchetoren **tanka** gibelean. **Herria**

Lau pilotariak gogotik ari, Muscarditz ainitz lotzen aitzin hartan, Kurutchary ere trenpu onean, **tanka** xuxena eta defentsa bat hain segurra. **Herria**

Otsabidetik Arbiderrako bide biluziko lautada gorakoian, zuhaitz iharrak **tankaz** inarrosaraziz hegaldatzen ziren hogeit bat sai, zero gris hotzean jostatzen miretsi zituen Agatak eta harrapakari erraldoien dantza zabalari beha zegoela. **Itxaro Borda**

tanka-tanka *adlag* ik ttanka-ttanka.

Bide bakarra: ibilgailua bahitu eta ez itzuli azken txanpona **tanka-tanka** mahai ganean pausatu arte. **Aingeru Epaltza**

tankada *iz* hurrupaldia.

Kopa hustu zuen berriz, **tankada** batean. **Aingeru Epaltza**

tankako *iz ipar tanka, kolpea.*

Irabazleen **tankako** ederra nausi zen hemen. **Herria**

tankar *iz*

Honela, apaizak, aurren joaki-eta, haien etorreraz ez zela konturatu ikusiz, hango harri-**tankar** batzuen gerizan gordetzeko, esan zien keinuka. **Patxi Ezkiaga**

tankateko *iz kolpearen hotsa.*

Tankateko bat aditu zuten. **Pablo Sastre**

Ategorrieta aldetik heldu zen trenaren txistukada zorrotz etsiak, eta bagoien **tankateko** zakarrek, errealitatera erakarri naute. **Txillardegi**

Jauregitxoaren ondo-ondotik noiztenka pasatzen ziren trenen ke-usainek eta **tankateko** sailek, zakarki gogorarazten zidaten Donostia urrun nuela; eta menturaz luzerako izango nuela. **Txillardegi**

Hegazkiñetik belarrera kokaturiko plastikozko txirrista batetik jaitsi yittuek ehun bat bidaiariak, bana-bana, garrasi eta **tankateko** artean. **Txillardegi**

tanke¹ *iz kanoi eta su armez hornituriko gudu orga blindatua.*

Kruppek fabrikatutako Tiger **tankeak** prest. **Harkaitz Cano**

Txekoslovakian, Sobiet Batasuneko agintari komunisten kontrako mugimendua sortzen da, **tankeek** isilarazten dutena. **Pello Salaburu**

20 bat **tanke**, ibilgailu blindatu eta helikoptero erabili zituen, erresistentzia palestinarrek Al Kassem koheteak egiten dituen lantoki klandestinoen bila. **Berria - Mundua**

Granadak, morteroak eta **tankeentzako** munizioa. **Berria - Ekonomia**

Tanke batek jaurtitako misilak eragindako zaurien ondorioz hil zen. **Berria - Mundua**

Tankeetatik bota zituzten obusak. **Berria - Mundua**

Frankotiratzaileen tiroak; **tankeen** tiro hotsa. **Berria - Mundua**

Tanke haren gainean, kabinan gerriraino sarturik, Reicharen soldadu bat zegoen. **Fernando Rey**

Gazte palestinarrek **tanke** batzuen kontra kale borrokan. **Berria - Kultura**

Tanke bat gidatzeko ez zagok fisika, mekanika eta meteorologia ikasi beharrik, eta eskerrak. **Anjel Lertxundi**

Gure aitona izan zen alemanei gogor egitera atera zen bakarra, hipnotizatza, aurrera zihoaz **tankeak** geldiaraztera bere pentsamenduaren indarrarekin. **Fernando Rey**

Hantxe topatu genuen *El Campesinoren* kolumna, **tanke** eta kamioietan bidean gora abiadan Sigüenza aldera. **Edorta Jimenez**

Ertzaintzaren **tanke** bat ere hor izan zen, operazioa babesten. **Berria - Euskal Herria**

AEBetako Armadako **tanke** bat sunsutura geratu zen, bere alboan bomba batek eztanda eginda. **Berria - Mundua**

Gizarteak beti egiten baitu Alemaniaren jokoa, eta beti jokatzen baitu etxean, legez ez bada **tankez** zapaltzen zaituela, **tankez** ez bada legez. **Joan Mari Irigoien**

2 (izenondoekin)

Gure soldaduek zergatik joan behar dute tokian tokiko txatartegietara metalezko piezen bila, **tanke** blindatuak babesteko? **Berria - Mundua**

Gero zorrotz begiraturako bi konboi militar pasatu ziren, denak **tanke** armatuak. **Fernando Rey**

Roussel medikuak, Lyon-eko medikuntza fakultateko erakasle dermatologoak, dio **tanke** amerikanoak hor ditugula zenbait aste barne... **Marzel Etxehandi**

Hamaseko ustezko ekintzailea Musa Abdelfata Geres **tanke** israeldar baten tiroketaren ondorioz hil zen Gazako ekialdean. **Berria - Mundua**

Tanke telezuzendu misil-jaurtigailuduna. **Aingeru Epaltza**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tanke baseak gorabehera, Arraseko garrak gorabehera, banuen esperantza. **Josu Zabaleta**

Serio galdetzen zenigun, gure erantzunek, **tanke** parkeei buruz, txanelei buruz, kamioiei buruz [...] balioko balute bezala. **Josu Zabaleta**

Hamar mila metrora ibili luze bat egin ondoren Arras inguruan dauden **tanke** multzoen gainetik zazpiehun metrora igarotzera bidaltzen gaitu. **Josu Zabaleta**

Gauean, beste bost palestinar hil zituzten **tanke** erasoak eginda Jabalian. **Berria - Mundua**

Ezerk aurre egin ezearon eroso dabilzan **tanke** sarraldi horiek erremediorik ez duten kalteak eragiten dituzte. **Josu Zabaleta**

Joe Frazierrek, Cassius Clayren kolpe bat gelditzearekin batera, ukabildakada izugarria jo zion, **tanke** kanoikada lez, eta Louisvilleko beltza hilda bezala erori zen. **Joseba Sarrionandia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aznar presidente ohiak Alvaro Uribe Velezen gobernu paramilitarrari gerra **tankeak** saldu izana Kolonbiako barne gatazkan zuzenean parte hartzeko modu bat da. **Berria - Mundua**

5 irud/hed

Noizbehinka aspaldi baino aspaldiagoko auto bat ikusten genuen, 1950 inguruko amerikar **tanke** haietako bat, jipoitua, lur joa, baina bere zaharrea oraindik bizirik zegoena.

Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako armadako tanke (3); **tanke eta ibilgailu** (3)

tankeak erabili (3); **tankeak eta artilleria** (3)

israelgo tankeek (4)

tankeen aurkako (4); **tankeen aurrean** (3)

tankez inguratuta (3)

tanke² *iz likidoen eta gasen biltegia. (autoetako)*

Kamioia neurekin eramatekoa, eta **tankea** gasolinaz betetzeko txartel batzuk. **Inazio Mujika Iraola**

Ez dakit Mojave osoa zeharkatzerik izango dugun, baina **tankea** bete egin dut Las Vegastik atera baino lehen. **Javi Cillero**

Begiratu nionean erregai-neurgailuari, **tankea** zortziren bateraino beterik zela erakusten zuen. **Oskar Arana**

Automobil baten **tankeko** erregaiak karburagailuan prozesatu behar da. **Irene Aldasoro**

2 (bestelakoetako)

Portu horietan ontziek euren **tankeak** garbitu eta haietan gertau ohi diren hondakinak jasetzeko azpiegitura egokia egotea oinarritzkoa da. **Berria - Gaiak**

Sistema hark ura **tankeetara** sartu aurretik iragazteko aukera eskaintzen zuen. **Berria - Gaiak**

Urte gutxiren buruan petrolontzien **tankeen** tamaina hirukoiztu egin daitekeela esan du erakunde horrek. **Berria - Gaiak**

Ontziak portura iritsi eta merkantzia husten dutenean **tankeak** itsasoko urarekin betetzen dituzte. **Berria - Gaiak**

Ura gainezka dator, eta **tanke** urez gairi dago. Javi Cillero

Tankeak upelak ziren berez, pinuzko kutxa handietan paketatutako hirurak. Besoekin ezetz esan zieten bokalean, **tanke** osoa hustu baino lehen zetozen nonbait. Koro Navarro

Esneketariaren kamioia zitekeen: ohizko lanean ziharduen, baserri **tanke** erraldioetan hotzean lagatzen ziren behi zein ardi esneak hurrupa metalikoan kargatzen. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gasolina- **tanke**a hutsik zegoen ia; gure urdailak ere hutsik zeuden ia; gure maskuriak bete-beteak. Oskar Arana

Banan-banan hartu eta pota bakoitzaren edukia osoa nire Oldsmobile Cutlass behiala osasuntsuaren gasolina- **tanke**ra hustu zuen. Oskar Arana

Bi hodiekin, gasolina- **tanke**ak nahiz karburagailuak, balbulak dauzkate, erregaia okerreko aldera joan ez dadin. Irene Aldasoro

Hantxe geldirik hura, aireratze- **tanke**ak, baina artean helizeak martxan jarri gabeak. Joxe Austin Arrieta

Erregai **tanke**a isolatzeko apar sintetikoak akatsak zituela esan du NASAK. Berria - Gaiak

Gorputzak baditu sistemak erregai- **tanke**, karburagailu, ihes-hodi eta aire konpresoretzat har daitezkeenak. Irene Aldasoro

Hirugarren gas **tanke**a abian jartzea falta da. Berria - Ekonomia

Piszipina eta ur- **tanke**ak, arrain bitxi eta kolorez beteak... denetarik genuen. Javi Cillero

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erregai tanke isolatzeko (4); **gasolina tanke** (3); **tanke isolatzeko apar** (4); **ur tanke** (3)

gasolina tankean (3)

gasolina tankera (3)

tanke³ iz

Gai sendo hori -lehenengo **tanke** autozigitzailea- ingeniarietako edozein material baino moldakorragoa da. Irene Aldasoro

tankera¹ iz itxura. ik **taxu**; **eite**.

Letraren **tankera** ikusita, zalantzarik ez: osaba Feliperengandik zetorren. Txillardegia

Tankera susmagarria duen edozein pertsona Moskutik aldentu egin behar da. Berria - Mundua

Arratseko zortzietan, zeruaren **tankerak** susmarazi bezala, iluntasun beltzak estali zuen eskualde guztia. Karlos Zabala

Gordelekua zer-nolakoa zen asmatu zuen lehenengoz, alegia pasillo labur baten **tankera** zuela. Bernardo Atxaga

Bere kabuz egindako zerbaiten **tankera** zuen haren egintza horrek. Xabier Olarra

Neurri eta **tankera** bera zuten bi izakiek. Elizen arteko biblia

Gurpil haien **tankera** gudu-gurdiena bezalaxe zen. Elizen arteko biblia

Likidoak garraiatzeko kontainerrak daude, gasarentzako egokituak, eta hainbat forma eta **tankeratakoak**. Berria - Gaiak

Lodi zegoen, Buddha **tankera** zuen, aurpegiera geldo eta zozoa. Xabier Olarra

Gure kanpoko zerbait hautematean, gorputzaren adigaiak hedaturaren errepresentazioa eta berekin batera sarrezintasunarena, **tankerarena**, eta abarrena, behar ditu.

Ibon Uribarri

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hizkuntzaren erabilerak ez du **tankera** normala, ez du normaltasun itxuririk. Xabier Olarra

Idazten ari naizela, itxura ona du kontuak, baina orduan ez zeukan **tankera** onik. Xabier Olarra

Taldeko inork ez zeukan **tankera** txarrik, ez itxura beldurgarririk. Koro Navarro

Nik hasieran ez nion hiltzeko itxuririk ikusten, baina Floraren amak berehala hartu zion oso **tankera** txarra. Ramon Saizarbitoria

Kontuak **tankera** itsusia har lezake. Karlos Zabala

Tankera susmagarria duen edozein pertsona Moskutik aldentu egin behar da. Berria - Mundua

Gutunazalaren zuria urratzen zuten letra ñimiñoek oso **tankera** bihurria zuten, ganorarik gabe egindako zirriborro beltzak bailiran. Javi Cillero

Errusiar **tankerako** oturuntza izan zen, baina osagai alemaniarrekin. Jose Morales

Europar **tankera** apal batez jantzita zetorren. Koro Navarro

Basamortuan ikusi izan zituen gainerako karpak guztien **tankera** berekoa zen hura ere. Xabier Aranburu

Orro askagarri bat jaulki nuen orduan, irrintzi aberkoi baten **tankera** bere-berekoa. Karlos Linazasoro

Lurraren tankera esferikoak sortzen duen abantaila aski ezaguna da. Ibon Uribarri

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Literaturan, jakinekoa da, gezur **tankerako** egia baino gehiago balio du egia **tankera** duen gezurrik. Gau hartan ilargiak gazta **tankera** zuen edo barrez ari den emakume oso gizen batena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Herri- **tankerako** hiri-bazterretan. Iñaki Segurola

Espiritua ikusi dut, uso- **tankeran**, zerutik jaisten eta honen gainean gelditzen. Elizen arteko biblia

Lortua zuten enbrioi- **tankerako** zelula horiek bakartzea eta saio-hodietan mantentzea. Juan Garzia

Haritzeko ate handi batzuetatik, haizulo- **tankera** zuen atari nagusira sartu ziren. Iñaki Mendiguren

Garbi dago deabru- **tankera** duela tximino honek bere mintzairan. Neskatoaren gorputz- **tankera**, izan ere, ez zen beste emakumeek zutenetik bereizten. Patxi Ezkiaga

Edozein izutzekoak ziren haren handia eta pausu- **tankera**, haren beltza eta lagun-taldea. Patxi Ezkiaga

Militar **tankera** ematen dion bibotetxo zuri bat du. Xabier Olarra

Madarikazio **tankera** zeukaten Alkimistaren hitzek. Xabier Aranburu

Ama gero-eta hil- **tankera** handiagoa hartzen ari delarik: [...]. Iñaki Segurola

Harrien artean, hiru harri koskor, pedernal **tankera** eta itxurakoak jausi ziren. Pello Zabala

Tik **tankerako** laztan konbultsibo batez. Xabier Olarra

4 moldea, era.

Aldi berean ordu erdiz goizean Jainkoaren aginduez, bekatu larriez, etab., otoiitz egiteko **tankera**. Patxi Altuna

Oskarbiren kantatzeko **tankerak** harritu gintuen. Berria - Kultura

Horrek bide zuzena ematen dio artearen kontura ironia erabiltzeko **tankerari**. Berria - Kultura

Bistan dago bertsolaria **tankera** horretako jardunetara behartzen denean haren bat-bateko emaitzak ez duela zer ikusirik adituek ahozko poesiarik egotzen dizkieten ezaugarriekin. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Frantziskoren biografoen lana epaitzeko orduan, **tankera** guztietako iritziak aurkitu ditzakegu ikertzaileen artean. Askoren artean

Nahiago zuten beste **tankera** batekoa izan balitz- beltzarana, bizia. Anton Garikano

Frantziskoren testu askotan aurkitzen ditugu **tankera** honetako aholkuak. Askoren artean

Batasunaren aldekoen artean ere **tankera** guztietakoak zeuden. Koldo Zuazo

Bizitzaren ispilu gisa behin eta berriro natura agertuz, beste **tankera** bateko bidaiak eskaintzen dio irakurleari. Anton Garikano

Etxea solairu bakarrekoa zen, angelu zuzena **tankeraz**, eta lorategi txiki bat zuen aurrealdean. Jon Muñoz

Tankera horretako gauzak esanarazten zizkieten gizonezkoei. Anton Garikano

[Lizardi] ez zen gaixo planten egilea Lauaxetaren **tankeran**, ezta arima egiaz gaixo zuena ere Lotsatiren moduan. Xabier Mendiguren Elizegi

Itsaso bixi haserre-**tankerako** batean. Iñaki Segurola

Nahiko luze dihardu "Anaia txikiei" eta "Ahipza txikiei" buruz, hauen bizi-**tankera** bere begiz egiaztatu ahal izan baitzuen. Askoren artean

Batez ere *idd* eta *indd* **tankerako** bustidura galduaz doa gazteriaren jardunean. Koldo Zuazo

5 (izenondoekin)

Gela hura **tankera** jakin batekoa zen, zeren osta ua bera ere **tankera** jakin batekoa zen, probintzi hiriburuetakoa ostatu guztien molde berekoa alegia. Jose Morales

Novok edo Stevanovick beteko dute bere tokia, baina ez da gauza bera, oso **tankera** desberdineko erdilariak direlako. Berria - Kirola

Beti estimatuko dugu, ostera, **tankera** analitikoaren eskuzabaltasuna eta zintzotasuna, Hemplek bere artikuluetako hainbat ideiarri egindako berraztertze eta zuzenketa liburuko oin-oharretan ikusten dena. Askoren artean

6 *tankera gabeko* (*corpusean tankeragabeko soilik*) *izlag* tankerarik ez duena.

Ez baitute atzematen, gehienek, **tankeragabeko** imintzio xelebreak eta zarata besterik. Juan Garzia

7 *tankera eman*

Finantza tresnen eta merkatu eratorrien ugaltze honek, [...] "arriskuen azoka" baten **tankera ematen** die kapitalen nazioarteko merkatuei. Koro Navarro

Kaos horren planari **tankera ematen** saiatu naiz. Juan Garzia

Gauza konkretuei **tankera emateko**, kontuz ibiltzen zen; ez zuen nolanaei esaten ezagutuko zituela. Xabier Olarra

Gai zen Virgil koloreak eta mugimenduak ikusteko, gauza eta forma handiak sumatzeko (ez haiei **tankera emateko**, ordea). Xabier Olarra

Bere edaritegiari kafetegi **tankera eman** nahirik, Lebigre jaunak burdina pintatzeko bi mahaixo eta lau jarleku ipini zituen barraren parean, paretaren kontra. Karlos Zabala

8 *tankera hartu*

Saiatu zen, beraz, pausoak ziurtasunez ematen, normal **tankera hartzen**, baina halakoetan izaten da zailena jarrera hori lortzea. Unai Iturriaga

Bildumagile baten liburutegi soila zirudienak [...] ikerlari baten liburutegiaren **tankera hartua** zuen. Jon Muñoz

Gaueko hitz-aspertu haiek, maisu eta ikaslearen arteko jardunaren **tankera hartu** zuten, denboraren poderioan. Xabier Olarra

Gerora sublimeago edo metafisikoagoko zerbaiten **tankera hartzen** hasi nintzaion. Iñaki Segurola

Gure aitona bere bizkar barre egiten ari zitzaion **tankera hartu** zioan sendagileari. Xabier Etxabe

Batzuetan iruditzen zitzaidan figura hari **tankera hartzeko** zorian nengoela, laster jakingo nuela zein mundutan bizi nintzen. Bernardo Atxaga

Oiloa beti oilo: kapaz ote da eguraldi aldaketari antzemateko, akaso? oilarrak, berriz, horrenbeste kukurruku jotzen duenez, ez ote du eguraldi aldaketari **tankera hartzeko** eskarmentu beharbeste? Pello Zabala

· Huraxe izan zen **hartu** nion **tankera**, arimarik, gogorik gabeko automata batena. Alberto Ladron Arana

Mezua jasotzarekin batera, Pirpo dantzan hasi zen: **tankera** ona **hartzen** zion enkarguari. Bernardo Atxaga

Tankera asko **hartzen** ditu lur honetan zorigaitzak. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste **tankera bateko** (5); **duen tankera** (3); **fuji mendiaren tankera** (4); **mendiaren tankera ederra** (3)

tankera bereko (5); **tankera berekoa** (6); **tankera ederra** (3); **tankera eman** (5); **tankera emateko** (3); **tankera ematen** (10); **tankera hartu** (20); **tankera hartu nion** (4); **tankera hartu zuen** (6); **tankera hartuko** (5); **tankera hartzeko** (5); **tankera hartzen** (24); **tankera hartzeraino** (3) **tankera jakin** (3); **tankera ona** (3); **tankera onik** (6); **tankera onik hartzen** (3); **tankera txarra** (3); **tankera zuen** (13); **zeukan tankera** (3)

abaraska tankerako (3); **atzokoaren tankerako** (3); **baten tankerako** (7); **bihotz tankerako** (3); **dilista tankerako** (4); **erdiaren tankerako** (3); **ilargi erdiaren tankerako** (3); **tankerako adizkiak** (3); **tankerako adizkien** (3); **tankerako begia** (4); **tankerako esaldiak** (5); **tankerako hitz** (4); **tankerako hitzak** (3); **tankerako zerbait** (7)

baten tankerakoa (14)

baten tankeran (15); **uso tankeran** (4)

tankeragabeko ik **tankera** 6.

tankeragabetu, tankeragabe(tu), tankeragabetzen da/du *ad* tankera galdu eta galarazi.

Ozta-ozta mugitzen zitaizkion begiak; saltoka zebiltzan oroitzapen batetik bestera, orainaldia **tankeragabetuz**. Juan Garzia

tankeratsu 1 *izond* tankera beretsukoa.

Bi mutiko txiki, **tankeratsuak** adinez, neurritz eta janzkeraz. Mirentxu Larrañaga

· Esaera hark bazuen molde **tankeratsu** halako bat, galtzoinak jantzita eta herabeti kulunkarazten duten makila eskuan ibili diren gizonezkoei aditzea espero litekeen horietakoa. Mirentxu Larrañaga

2 (adizlagun gisa)

Bost zentaboko txanpona eman zion gidariari, hiri bati parke bat eskainiko liokeen norbaiten **tankeratsu**, eta dotorezia handiz sartu zen trolebusaren barrualdera gustuko eserlekuren baten bila. Mirentxu Larrañaga

tankeratu, tankera(tu), tankeratzen 1 da/du *ad* tankera hartu; tankera eman. ikitxuratu 3.

Estatu Batuetan gerraren ondoren **tankeratu** zen nazioarteko ordenaren hondamenak ziklo hegemoniko bat burutu dela adierazten du. Koro Navarro

Hizkuntzak, -esaten digu gure autoreak- pentsamendua **tankeratzen** du, forma ematen dio, osatzen du eta zehazten. Isabel Arrigain

Matematika guk ezagutzen dugun eran **tankeratu** duten greziar pentsalari horiek guztiak. Jon Muñoz

Ezin uka, nolanaei ere, diruak gizarte hartan eta nobela honetan duen garrantzia, eta zenbateraino **tankeratzen** eta baldintzatzen dituen pertsonaiak eta gertakariak. Jon Muñoz

Jainkoaren begian islatzen den bezala **tankeratu** nahi izan zuen kreaizio osoa. Juan Garzia

Bere nortasunaren eta bere espazioaren bila zebilen, nerabegarotik harantz bere izaera **tankeratzen**. Jon Muñoz

Irudimenean **tankera** nezakeen, hantxe, giza-gaixoa, urte zail haien hondo-irudiaren gainean. Juan Garzia

Mundu musulman osoan, Marokotik Iraneraino, europar mundu-ekonomian txertatzea aldi berean egin zen, ekoizpena europarren premiei begira **tankeratuz** eta espezializatuz. Koro Navarro

Gauerdi aldera zapaldu nuen hormatzarren itzal beltza, hareatza horian idolatriak **tankeraturiko** itxura zorrotz hura. Juan Garzia

Urte gutxitan eraikia, eta oso-osorik planoen arabera **tankeratuak**. Jon Muñoz

2 (era burutua izenondo gisa)

Hemen zeru-lurrak sorkari antolatuta eta **tankeratuak** direla uste dutenek ere ez dute berdin ulertzen. Imanol Unzurrunzaga

tanketa 1 iz tankearen antzeko gudu ibilgailua, gurpil pneumatikonak dituena.

Tanketa bat zihoan manifestazioaren buztanari segika. Inazio Mujika Iraola

Tanketetatik tiro egin zieten hurbildu ziren ibilgailuei. Berria - Mundua

Zer egiten zuten **tanketa** eta bestelako tramankulu haiek guztiak milaka herritarri bidea eragozten? Hasier Etxeberria

Tanketek bakarrik asaldatzen ninduten. Anjel Lertxundi

Espainiako Polizia Nazionalaren **tanketa** baten aurkako erasoan parte hartu zutela. Berria - Euskal Herria

tanko *adlag ipar* puntuan, zuzen. ik ttanko.

Ostiral goizeko hamarretan, **tanko**, gu, ahokukoak sartu ginelarik, buruak apalik, eliza guztia jadanik kokorreraino betea zen. Daniel Landart

Programan irailetik goiti ikasi diren kantu berriak errepikatuko dira Lacarre plazan goizeko 11etan **tanko**. Herria

Atzo atera zen autobus bakarrean joan behar zutenak goizeko zortzietarako **tanko** han zeuden. Berria - Euskal Herria

Han gaindi gertatzen ziren jendeek ere behar zuten **tanko** gelditu eta ixilik egon. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oraingoan ere purutxoa eskuan, **tanko** eta abegikor azaldu baita zitara. Berria - Kultura

Jende ainitz izan dela bereziki goizean meza ala proosinoko, orokorki serio eta kartsutasunean iragan direla oro, aratsaldean bezperetako gazteak **tanko** tenoreko, hori ere azpimarratzekoa baita. Herria

tanpa 1 *adlag* kolpearen onomatopeia.

Eta kolpe batez, paretaren kontra igorri zuen, **tanpa!** Ramuntxo Etxeberri

2 *tanpa-tanpa adlag*

Mailu ukaldiek burua bortizki jotzen balidate bezala, **tanpa-tanpa**, etengabe entzuten nuen: hire gain, hire gain, hire gain. Daniel Landart

Euria ari zen, **tanpa-tanpa**. Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tanpa tanpa (3)

tanpax (*orobat taxpax*) iz hilekoan baginan sartzen den tanpoia.

Gutziz biluzik zeundenean oinazpiak erakutsi behar zenizkion, ahoa ireki, mihia goratu, ilajea astindu burua makurtuz, makurto eta eztl egin... **tanpaxa** atera edo konpresa jaso. Jokin Urain

Hilekoa zutenean **taxpaxaren** haria tangaren kanpoaldetik ikus ez zedin. Harkaitz Cano

Mila esker, bi pinta esne, AOC labela erdietsi duen Ezpeletako piper zakuño bat, garbi errautsa, **tanpax** pakete bat. Itxaro Borda

tanpez *adlag* bat-batean.

Gizonak Maianaren solasa **tanpez** mozten zuen, eta isiltasun pisuaz lehertuak elkarri bizkarrez pausatzen ziren, mende laurden hartan zegiten eran. Itxaro Borda

Bisaia **tanpez** ilundu zuen, oinaztura bat doi-doi zeru oskarbi batean. Aingeru Epaltza

Irrika **tanpez** desagertu zitzaion, eta haren ordeaz, matelak sutan sentitu zituen. Elena Touyarou

Zuk **tanpez** galdatu eta nik segidan baietz erran! Janbattitt Dirassar

Tanpez isildu nintzen. Itxaro Borda

Farola birakari bat piztu berria zen ene eskuinera, ondoko lur-muturrean; distirutzen zuen, gero itzali, gero **tanpez** arripiztu eta argi izamiatsu bat jauritzen zuen. Koldo Izagirre

Orduan du Garazi alderat zoan auto batek **tanpez** jo, eta bide bazterreko arroilarat bota. Herria

Bat-batean, **tanpez** gelditu, Daniri begiratu eta esaten du: [...]. Antton Olano

Tanpez iratzartzen zen, izerdi eta hatsanka. Itxaro Borda

Supituki joan da, 69 urtetan, bihotzak **tanpez** huts eginik, Roger Berné ziburutar ezagutua. Herria

Aldi hartan ordea, ehun kiloko gizonak lehertu eta hil zen **tanpez** bihotzekoak emanik. Itxaro Borda

-Poz handia izan da niretzat -esan zuen gizon herrenak, eta **tanpez** ilunpe sakonetan ezkutatu zen. Matías Mujika

Izan ere, hutsetik eginak balira, **tanpez** azalduko lirateke, uste gabeko lekuan eta kontrako urte garaian. Xabier Amuriza

Lehen garbi-garbi zegoen ortziko eguraldia **tanpez** itsusten eta nahasten denean. Xabier Amuriza

Nolaz uko eginen nuen **tanpez** hoinbeste segurtamenei? Piarres Aintziart

Herritik jalgi, duna jaitsi, harea hondoratzen da zure orpoen azpian eta, **tanpez**, hondartza lau eta leun batean azaltzen zara, harkaitz, ganbera, arkupe, zulo eta leize labirinto galgarri baten erdian. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gela tanpez bete (3); **tanpez betea** (4); **tanpez erori** (3); **tanpez gelditu** (5)

tanpís *adlag ipar* hainbat gaizto.

-Tanpís, barkatu -ihardetsi nion, bat-batean ene hutsaz ohartzuz-. Itxaro Borda

'Tanpís' Juan Karlos Perez eta bere kideak ezenatokira igotzen direlarik, giroa elektrikoa bilakatzen da. Ramuntxo Etxeberri

tanpoi (*orobat tanpona g.er.*) 1 iz ilekoaren ixuria xukatzeke baginan sartzen den zilindro modukoa, kotoi edo zeluzosazkoa.

Hilekoak irauten duen bitartean, emakumeek konpresak edo **tanpoiak** erabiltzen dituzte. Luis Elberdin

Orain ezingo dut zapi higienikorik erabili, ez baitira lortzen, eta amak erabiltzen dituen **tanpoiak** haurren bat izan duten emakumeek baizik ezin dituzte erabili. **Josu**

Zabaleta

Gerrirainoko galtzerdiak eta titi-zorroak, ile-lehorgailuak eta **tanpoiak**, makillaje-potoak eta ezpain-margoen hoditxoak. **Oskar Arana**

Bumbo klaat: Konpresa odoltsua edo erabilitako **tanpoia**. **Berria - Kultura**

2 kautzuzko zigilua; zigilu horiek tintaz hornitzeko erabiltzen den kuxin modukoa, tintaz blaitua.

Eta bere **tanpoia** hertsatu zuen txostenaren gainean. **Joxan Elozegi**

Giltza eskuan zeukan Amanciok, eta segituan atera zuen zigilua eta tinta **tanpoia** gordeleketik. **Inazio Mujika Iraola**

Irria ezin atxikiz zegoen bere ondokoak erran zion "horra **tanpona** ukaldia zure bideko paperean". **Marzel Etxehandi**

Lakatos jaunaren maletinean **tanpoi** sorta bat deskubritu nuen, tatxagabea, **tanpoi** gorriak, urdinak, beltzak, bioletak. **Matías Múgica**

tanpon ik tanpoi.

tanponarazi, tanponaraz, tanponarazten du ad tanpoiaz zigilatzen behartu.

Bazuten "Credential" deitu karnet bat eta behar zuten hori **tanponarazi** han hemenka tokiko buruzagien etxetan. **Herria**

tanta 1 iz forma biribila hartzen duen isurkari kupuru txikia. ik xorta.

Berriz ere eskuarekin xukatu ditu kopetako **tantak**. **Pello Lizarralde**

Masailetatik behera zetozkion **tantak** txukatu zituen. **Alberto Ladrón Arana**

Edontzira bost **tanta** bota zituen, banaka, urarekin nahas zitezten. **Joxemari Urteaga**

Hartzak, bada, erreazio-gaitegitik kobre sulfato soluzioa, **tanta** bat bota heure azido sulfurikoan, eta horra hor erreazioa abian. **Juan Garzia**

Eskola hau bukatzean edabe honen **tanta** batzuk emango dizkiogu zure apoari, ea zer gertatzen zaion. **Iñaki Mendiguren**

Zorbioaren erdian whiskyaren azken **tantak** edan zituen. **Jasone Osoro**

Tanta bat ere ez zen edontzitik kanpora isuri. **Jon Muñoz**

Hezetasun gehiago kondentsatu denean, pisua hartzen duenez ezin izaten dio eutsi, eta **tantak** erortzen hasten dira bainatzen ari direnen buruen gainera. **Santiago Iruretagoiena**

Poliki-poliki, eztainua urtu egiten zen, eta **tantak** konketa bateko uretara amiltzen ziren karranka ozenez. **Juan Garzia**

Horregatik ez zen **tanten** hotsa aditzen. **Jon Arretxe**

Haitzuluan goiko harriek hezetasuna izerditzten eta **tantak** destilatzen dituzte. **Xabier Amuriza**

Bizpahiru **tanta** ene izertereraino iritsi ziren eta azalean haien beroa sentitu ahal izan nuen. **Aitor Arana**

Arakatzek odol-tanta gorriak isuri dituzte, eta andere-mahatsek, tinta beltzezko **tantak**. **Itziar Otegi**

Begi-zuloetako ubeluneetan eta masailetan behera argizarizko **tantak** erantsita. **Josu Zabaleta**

Tantaren definizioa da merkurioa. **Unai Elorriaga**

2 (izenondoekin)

Ur **tanta** handi, garden, beirazkoak balira bezala. Euriak gaua ekarri zuen berarekin, **tanta** txikietan. **Jose Morales**

Behe zuriaren gainean bi **tanta** ilun daude. **Sonia Gonzalez**

Tanta lodiak erortzen zitzaizkion hatzetatik behera. **Karlos Zabala**

Masail bietatik **tanta** lodi gaziak erori zitzaizkion. **Joxemari Urteaga**

Leihoaz bestaldean bizkor erortzen ziren **tanta** astun lodiak. **Jose Morales**

Lehenengo **tanta** geldoak baino ez ziren oraindik, baina argi nabari zen zaparrada zetorrela zeru ilun harekin. **Unai Iturriaga**

Euria ari zuen, **tanta** hotz eta garratzez. **Fernando Morillo**

Erlorjuak eta segundoen frakzioak asmatu aurretik, norbaitek iturrietako **tanta** gogaikarri bakar eta errepikakor horren tortura nozitu ote zuen sekula? **Harkaitz Cano**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Botoi ilara bat sortu zion sabelean, eta **tanta** lerro bat, haur baten marrazkiko pixa irudi, maskorrez beteriko hanka luzeen artean. **Koro Navarro**

Busti egiten zuten mahaietatik erortzen ziren **tanta** jarioek. **Karlos Zabala**

Bizkarretik behera **tanta**-zorrotada geldi bat zihoakion eta ur-jauzi hotzak mahuketatik behera erortzen zitzaizkion, eskumuturrak blaituz. **Lopez de Arana**

Ohean etzanda esna zegoen euriaren triki-traka etengabeari eta teilatu-hodien **tanta**-erortze txistukariari adi. **Lopez de Arana**

Isiltasuna, artean egunerokoari zerion tintaren **tanta**-hots erregularra izan ezik. **Iñaki Mendiguren**

Inguruan ondo begiraturik, haitzulo berriaren zirritu guztietatik irazten zen zilarbizia **tanta**-intzirika, garagardoa upel berrietatik bezala. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Esku batean zatarra eta baso **tanta**-jario bat bestean, egonean jarraitu zuen tabernariak. **Koro Navarro**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euri **tanta** batzuk botatzen hasi da. **Jon Arretxe**

Euri **tanta** batek busti ditu Abelen ezpainak. Euri **tanta** lodi batek atera ninduen nire soraiotasunetik. **Pello Lizarralde**

Mielek bekain aldean geratu zaion izerdi **tanta** bat xukatu du. **Pello Lizarralde**

Izerdi-**tantak** zerizkion bere buru soilari. **Lopez de Arana**

Odol **tanta** batek belarritik lepora egin zidan. **Edorta Jimenez**

Hitzak jaten zituela segitu zuen, listu **tanta** ñimiñoak jaurtika niganaino. **Aingeru Epaltza**

[Erleen] ezten-muturretan ezti-**tantak** kolore eztanda bihurtzen dira. **Anjel Lertxundi**

Urari kolonia-**tanta** batzuk botatzeko ohitura hartu zuen. **Jose Morales**

Bai, hartuko nuke, ba, beste brandy-**tanta** bat, Vernon. **Iñaki Mendiguren**

Azken likore **tanta** hustu eta arrazoia eman nion. **Harkaitz Cano**

Edalontzian geratzen zitzaion bermut **tanta** hustu zuen. **Joxemari Iturralde**

Pozoi **tanta** bat irentsi duk. **Edorta Jimenez**

Zoruan zenbait argizari **tanta** bota eta gero, kandela finkatu du. **Pello Lizarralde**

Argitasun **tanta** bat isurtzen zen teilatuko hodiataraino. **Karlos Zabala**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Sagardo huts **tanta** bat, apartsua eta gozoa. **Josu Zabaleta**

7 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

"Campary" bat, limoi-ur **tanta** zenbaitez bataiatua. **Aingeru Epaltza**

Esku hark nire buztana inguratu eta berehala atera zitzaidan hazi-ur **tanta** bat. **Aitor Arana**

8 irud/hed

Bizitzaren azken **tanta** agortu arte. **Imanol Unzurrunzaga**

Bere errukiaren lehen **tantak**, ihintza bezala, isuri zizkielako. **Elizen arteko biblia**

Beranduxko igandeko zukuari bere azken **tantak** hurrupatu nahi dizkiotenentzat. **Aingeru Epaltza**

Badirudi ikasten ari garela **tanta** izanik itsasoan ez galtzen. **Joxerra Garzia**

Heriotzaren mekanikak **tanta** izoztu bat isuri die bizkarrezurrean behera euskaldun zabarro. **Koldo Izagirre**

9 irud/hed (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Samurtasun **tantekin** aurkezten ditu trantzean dauden pertsonaiak. **Berria - Kultura**

Hemen umore **tanta** batzuk behar ditu, han dramari egin behar diozue leku. **Joxean Agirre**

-Ederreik libratu gara! -esan zuen atezainak, izu **tantak** xukatu ezinik-. **Felipe Juaristi**

Poesia- **tanta** batzuk besterik ez neuzkan han, ardo-botila on bat betetzeko bidean gutxiegi. **Pako Aristi**

Bere paranoian antisemitismo eta neonazismo **tantak** nahasten ditu. **Berria - Kirola**

Bukatzeo nostalgia **tanta** bat. **Berria - Kirola**

Trufa **tanta** bat dago galdera horretan. **Koldo Izagirre**

Geneviève, Martin eta Teresaren ama, frantziarra zen sortzez, eta, herrian miresmen **tanta** batekin esaten zuten, errusiar jatorrikoa. **Bernardo Atxaga**

-Baina tronua beti hor dago, Versaillesen dago! -ausartu zinen erantzuten, ironia **tanta** batez. **Koldo Izagirre**

-Emetasun lurrin **tanta** bat suma zekiokkeen, baina apaiz batena ere izan zitekeela erabakirik nuen. **Joxean Agirre**

10 tanta.

Jaka horia, alkandora gorria, eta **tanta** urre-koloreak zituen gorbata zeramatzen arren, gaixotasun baten ondorenean bezain zuri zegoen. **Koro Navarro**

11 tanta bat pixka bat.

E, laguna -egin zion oihu Jacuk-, utzidak **tanta** bat! Bazegoen pixka bat oraindik, eta botila muturretik zupatu zuen Jacuk. **Josu Zabaleta**

Ba al duzu kafe **tanta** bat? **Josu Zabaleta**

12 tanta-hezueri

Halaxe zen, bai: azido urikoa, **tanta**-hezueriak joen berrero, tripazain-zurruteroen zigor eta harri-gaitzaren eragile sonatu horixe zuen sorburu. **Juan Garzia**

13 tantaz tanta adlag

Tantaz tanta bete da. **Harkaitz Cano**

Euriaren musika maite zuen, **tantaz tanta** sabai gainetan desegitean. **Felipe Juaristi**

Gogorregia, pisuegia zitzaiolako bakardadea, areago maitasun ezti gozoa **tantaz tanta** dastatu ondoren. **Felipe Juaristi**

Beste emakume bat izan balitz, aiseago kanporatuko zuen, baina **tantaz tanta** dastarazi nahi izan zion etsipenaren kopa. **Patxi Zubizarreta**

Plastikozko kadira batean gorputzari jareginda, oilo-lumen eta usteltzen ari diren sagarren kiratsaren erdian, munduarenganako bere interesa **tantaz tanta** husten ari zaiola sentitzen du. **Oskar Arana**

13 tantaz tantako izlag

Robertok eta Alaineak elkarri begiratu zioten, eta gero tantaz **tantako** soinu gogaikarri bat sortzen zuen iturriari. **Harkaitz Cano**

14 (izen gisa) ik tantakako.

Andreak dena prestatu dik: tantaz **tantakoa**, pixontzia, morfina-anpuluak... **Iban Zaldúa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken odol tanta (3); azken tanta (21); bi tanta (4); bi ur tanta (3); bost tanta (3)

esne tanta (5); esne tanta bat (3); euri tanta (29); euri tanta batek (3); euri tanta lodiak (3); hiru odol tanta (3); hiru tanta (4)

izerdi tanta (16); izerdi tanta bat (4); izerdi tanta txikiak (3); lehen tanta (4)

odol tanta (33); odol tanta bat (5); odol tanta batzuk (6); odolaren azken tanta (3); olio tanta (5)

tanta bakar (11); tanta bakar bat (6); tanta bat (86); tanta bat bera (4); tanta bat erori (6); tanta batzuk (41); tanta batzuk bota (3); tanta beltz (3); tanta bota (5)

tanta gorri (4); tanta gorriak (3); tanta guztiak (4); tanta hustu (4)

tanta isuri (3); tanta jario (4); tanta lodi (7); tanta lodiak (11); tanta lodiak erortzen (3); tanta lodiek (6)

tanta txiki (3); tanta txikiak (3); tantaz tanta (17); umore tanta (3); ur tanta (68); ur tanta bakar (3); ur tanta bat (21); ur tanta batean (3); ur tanta batzuk (5)

azken tantak (4); euri tantak (36); izerdi tantak (22); lehen tantak (7); odol tantak (10); tantak bezala (3); tantak erortzen (8); tantak ikusi (3); tantak nahasten (3); tantak xukatzeo (3); ur tantak (21)

azken tantaraino (3)

alkohol tantarik (8); ardo tantarik (4); euri tantarik (3); izerdi tantarik (4); odol tantarik (6); tantarik ere ez (3); tantarik ez (12); tantarik gabe (4); ur tantarik (5)

tantaz tanta (17)

euri tantek (12); izerdi tantek (4); ur tantek (6)

euri tanten (5); ur tanten (11); ur tanten hotsa (3)

tantadun izlag tantak dituen.

Tantadun leihoen aurka lehertu zitzaizkidan pentsamendu nahasiak. **Lander Garro**

tantai 1 iz zuhaitz garaia eta zuzena.

Han putzak zer dezakeen garbi erakusten digu hemen, arinagoa izanik, zer dagien ikusteak, hala ere **tantairik** garaiena sustraitik erazten eta eraisten baitu. **Xabier Amuriza**

2 (izenondo gisa)

Ni isilean geratu naiz sekuoia **tantai** bat besarkatu ezinik. Gora begiratu nuen, eta zuhaitz **tantai** hura ikusi, nire gainean kulunka. Hango zedrrik **tantaienak** eta zipresik bikainenak bota ditut. **Patxi Zubizarreta**

Zedroa bezain **tantai** eta artea bezain sendo zena. **Elizen arteko biblia**

3 (izenondo gisa, pertsoez mintzatuz)

Santxo Osoa izeneko gizaseme **tantai** bat atera zen jendartetik. **Josetxo Azkona**

Mutil **tantai** ederra. **Felipe Juaristi**

Hor jaio ziren antzinako erraldoi ospetsuak, gizon **tantaiak**, guduaren trebeak. **Elizen arteko biblia**

Tartean Alessandro, gazte **tantai** bat, ile-beltz kirrua, biolin-jotzailea. **Felipe Juaristi**

Bi gizon horietatik bata ingelesa zen, bestea frantsesa, biak ala biak **tantai** eta argalak. **Karlos Zabala**

Tantaia eta gorpuzkeraz sendoa, kaskamotza halabeharrez edo borondatez. **Urtzi Urrutikoetxea**

Oso altua izan gabe ere, **tantai** da, dotorea. **Pako Aristi**

4 (izenondo gisa, gauzez mintzatuz)

Izotz puska **tantaiaren** antzera, herrari zebiltzan hiriko ozeano hotz grisean, norabiderik gabe. **Aritz Gorrotxategi**

5 (izen gisa)

Auzo herrietako batetik etorritako norbait, antza: **tantai** eder bat, bizarra, bibote eta guztikoa. **Koldo Biguri**

Pagliaio-ko mendi-tontorrak, Wolkmann haitz-**tantaiarekin**. **Juan Garzia**

6 adar zuzena.

Zumar-**tantai** oso bat burrunntzi-legez sartuta. **Patxi Ezkiaga**

7 masta edo kidekoa.

-Baina ba al dago, egon, oraindik, gurean zutik dirauen telegrafo-**tantairik** bat ere? **Txillardegi**

Joan den astean berrezarri egin dugu telegrafo-**tantai**en ilara. **Txillardegi**

Izan ere, lantzarik eraman beharrean, **tantai** luzea zeramala nabaritu baitzuen, zutoihala balitz bezala. **Agustin Otsoa**

Ezkerreko eskuan sastakai luzea eta eskuinekoan **tantai**a harturik, hobitten zirkuluaren gainera abiatu zen. **Agustin Otsoa**

Trenbidea babesteko enbor hesian **tantai** bat aurkitu zuten, bestea bezain irmo jarria ez zegoena. **Karlos Zabala**

8 irud/hed

Enbor **tantai** bat atera zuen bere txilabapetik, emakumeak inondik ere izutzeko modukoa, eta ahuntzen errapeetatik bezala, bi eskuez tiraka jardun zuen, esne guztia uholdeka jeztea lortu zuen arte. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zuhaitz **tantai** (4)

zuhaitz **tantai**a (3)

tantaitu, tantai(tu), tantaitzen 1 da/du ad tantai bihurtu.

Eta oraindik, han hemen lizar kiman ikustean inor, poztu bezala egiten naiz; eta nonahi kimatu edo morrotu ezaz **tantaitzen** eta zakartzen ari direla ikustean penatu bezala.

Patziku Perurena

2 tantaiak gisa goratu.

Ikastegian gora **tantaitzen** ziren minarete misteriotu haiek. **Juan Garzia**

tantaka 1 adlag tantaz tanta.

Teiletatik **tantaka** isurtzen zen urak zulo bat egiten zuen patioko harean. **Juan Garzia**

Euri hotza **tantaka** jausten zitzaion lepoan behera. **Lopez de Arana**

Bekokitik pasatu du eskua, **tantaka** jausten zaion izerdia kendu nahian. **Paddy Rekalde**

Eta izerdia **tantaka** zerion lurrera, odola bezain lodi.

Dutxatu berria, itxuraz, ile ilun bustia **tantaka** ari zitzaion oraino. **Aingeru Epaltza**

Berrito butxatu dira isurbideak, ezin dugu ura jariatzen utzi, **tantaka** ez bada. **Josu Zabaleta**

Betortz irtenetatik lerdea zerion **tantaka**. **Agustin Otsoa**

Hortzetako pasta, **tantaka** baino areago, jarioka ari zitzaion ahotik. **Fernando Morillo**

2 irud/hed

Eguzki-argia lastozko kapelaren hegal batean zituen zulo txikietatik sartzen zen **tantaka**, neskaren begitartea bustiz. **Lopez de Arana**

Eta hornei bazirudinan murmurak zerizkiela **tantaka**, artesi eta zartadurenartetik iraziko balitzaizkie bezala. **Juan Garzia**

Gauak arku elektrikoek isuritako esne distiratsua birrintzen zuen, bai eta etxe-bloke ilunak gogor estutu ere, oin-hotsen durundiaz betetako kaleak argi gorritz, horiz eta berdez **tantaka** blaitu arte. **Lopez de Arana**

3 apurka.

Hegazkinen bateko azken bidaiariak ari dira ateratzen **tantaka**, edo abioiren bateko lehenak. **Lourdes Oñederra**

Bizitza **tantaka**, xortaka edo borborka, zetorren bezala gozatzearen aldeko suharra. **Inazio Mujika Iraola**

Berriak, **tantaka** datoz orain. **Iñigo Aranbarri**

Urtxipia informazioa **tantaka** ematen ari zela uste zitean biek, Soriarenganako presiobide gisara. **Aingeru Epaltza**

Pernocta eta asteburuko paseak-eta **tantaka** ematen omen zituen. **Iñaki Iñurrieta**

Jo dezagun gure sexu harremanak direla auzian daudenak, azken bolada honetan **tantaka** baino izaten ez ditugulako. **Patxi Iturrategi**

4 (hitz elkartuetan)

Izerdi-**tantaka**, negar batean egon ohi da, adarño gajoa, egun batzuetan, lur zorua, pare-parean, tindatuta uzten duela. **Pello Zabala**

Mateoren ardandegiaren parera iritsitakoan baretu zen Joanes, indar **tantaka**, hanka puntetan ia hurbildu baitzen kanpoko ateraino. **Felipe Juaristi**

• 5 iz tanta.

Hogeita bi zentimetroko zakiltzar honek mirariak egiten ditu eta neskatoa **tantaka** dariola joan da. **Jon Arretxe**

6 tantaka-tantaka adlag

Larrituta nago **tantaka-tantaka** prentsak ama aberriari buruz argitaratzen dituen berriekin. **Ramon Etxezarreta**

Dolarren gaineko konfiantza **tantaka-tantaka** galtzen ari da. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izerdia **tantaka** (5); **tantaka ari** (5); **tantaka ari zen** (3); **tantaka erakutsi** (3); **tantaka erortzen** (5); **tantaka jausten** (4); **tantaka tantaka** (10)

tantakako iz zerbait, eskuarki sendagai bat, tantaka isurtzen den tresna.

Neska-mutilak, txiki-txikitandik, orratzari lotzen zaizkiok; eta heroina hantxe zabilek haien zainetan barrena, suero hilgarri bat **tantakako** batean bezalaxe. **Jon Muñoz**

tantakatu, tantaka(tu), tantakatzen da ad tantaka isuri.

Hodibihurrezko hoztailuaren muturretik [...] tanta lodi urrekoloretan erortzen zen azidoa: hots, tindiz tindi "destilatzen", istilera **tantakatzen** zen. **Juan Garzia**

Zilarbizi gordina aurkitzeari dagokionez, ez zen ezer egin beharrik: zilarbizitan plisti-plasta ibiltzen zen bat harpean, buru gainera eta sorbaldetara **tantakatzen** zitzaizun.

Juan Garzia

tantan *iz tanta.*

Ekaiz tankera zuen eurijasa **tantan** betekoak gehienak, litro mordoxxa bertatik deskargan uzten dituzten horietakoak. Pello Zabala
Hodei tronpolo handi horiek eurijasa **tantan** bete-betekoak botatzen dituzte noiznahi eta nonahi: uholdeen arrisku bizia sortzen da ia urtero. Pello Zabala

tantanka *adlag tanta*,

Geroz eta gehiago ari baitzuen, izan ere, euria, eta blai eginda zeuden, ileak bekokian erantsita eta jakak **tantanka** zituztela. Josu Zabaleta
Ukui luak eta etxeak ilun zeuden, marroi sakon batez marraturik, ketsu eta **tantanka**. Josu Zabaleta
Bada beste prezipitazio mota bat: laino umela mendietan pegante sartzen denean, bertako zuhaitzen hostoetan kondentsazioz hezetasun handia sortuz, **tantanka** dihardu luzaro horrelakoetan. Pello Zabala

tantaño *iz tantatxoa.*

Hasperen eutsi bat, hondar aletxo bat hondartzan, **tantaño** bat itsasoan. Joxerra Garzia
Omonierrek, batere ahalketu gabe eskatu du, "bi **tantaño**, bideko egarria kentzeko". Aingeru Epaltza

tantatxo 1 *iz tanta txikia. ik tantaño.*

Tanta dirdaitsu eta astunak, zeinak haitzezko zoruaren gainera zuzen-zuzen amiltzen ziren, eta mila **tantatxotan** lehertzen. Juan Garzia
Zilarbizia **tantatxotan** sublimatzea. Juan Garzia
Zilar nitratozko soluzio baten **tantatxo** batekin ukitu nuen jalkina. Juan Garzia
Hala ere, itsasoaren kopuru osoaren aldean, ekarri horien denen batura apenas den **tantatxo** bat. Xabier Amuriza
Berez, galio metalaren **tantatxoak** siliziozko gainazal baten gainean jartzean hazitako egiturak dira. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orduan, lotsatuta, bekokiko izerdi **tantatxoak** lehortu eta ulertzea besterik ez duzu desiratu. Lander Garro
Euri-**tantatxoak** zituen erori hurren kapelaren hegaletik zintziliek, eta gora jasoa zamarraren lepoa. Irene Aldasoro
-Zirimiria, ur-**tantatxo** guztiak uniformeak eta txikiak direnean, 0'5 eta 2 mm tartekoak. Pello Zabala

3 irud/hed

Atseginaren eta itxaropenaren irudi liluragarriak, hilkorren engainu txit gozoak dira, eta hauengatik irensten dute zurrutada handiz gaitza, pozezko **tantatxo** banaka batzuekin nahastua. Juan Martin Elexpuru

4 apurtxoa.

Tendidoko lau neska-mutilak horditurik ez badira **tantatxo** bana falta dutela esan liteke. Edorta Jimenez
Pentsatzen dute: "Pulque **tantatxo** bat ekarri bagenu sikiera, ez lioke axola". Juan Garzia
Esne **tantatxo** batekin Dionisosentzat, kafesne handia Mikelentzat. Unai Iturriaga

tantatar *iz adkor tanta handia.*

Hezetasunak eta hautsak eragindako usaina sortzen zen, **tantatar** zalapartatsuek asfaltoari talka egitean. Lopez de Arana

tanteo 1 *iz begiz jotzea, haztatzea.*

Lehen etapa beti izaten da **tanteo** baten modukoa, baina bigarrena ez, eta are gutxiago etapa bihurria bada. Berria - Kirola

2 tanto kopuru.

Partida joan zen bezala, nire ustez **tanteo** logikoa izan zen. Berria - Kirola

tanto *(orobat tantu g.er.) 1 iz joko eta kirol batzuetako jokaldia edo puntua; puntu horiek seinalatzen dituen alea edo gauzakia. ik kintze; ttantto.*

Partida ederra jokatu eta 35 **tanto** egin.

14 **tanto** baino ezin egin izan nizkion nik berak niri 22 egiteko behar izan zuen tartean. Juan Luis Zabala

Hor du mitxa erakutsi lekuindarrak: 7 **tanto** lerroan eta 12-14, hiru bote kasik segidan sartuz ere eskuineko paretatik. Herria

Capellaneak hormabikoa jaso, dejada txokora, eta **tantoa**. Patxi Iturritegi

Parioak Titinen alde, lehen bi **tantoak** ere bai, 2-0, 6-2, 7-5 eta 8tan ados. Herria

Hogeitabana berdinduz gero, saioa luzatzeko asmoz, batzuek besteei bi **tantoren** alde kendu arte jolasean segiko genuen. Andoni Egaña

Gero dute beren lana egin bi irabazleek 10 **tantoren** abantaila ere atxikiz ondarrean. Herria

Urruñako bi anaiak ziren junior-gaztetan finalerdietarat helduak eta ez dira lotsatu Miarritze BAC-eko mutikoen aintzinean, **bost tantoren** abantailarekin. Herria

Lehen **tantoetan** tokiz kanpo erabat agertu zen Martinez Irujo kantxan. Berria - Kirola

Aurtenetxe eta Iparragirre 15 **tantotan** geratu ziren Laudion. Berria - Kirola

Tantoetara berdindu ondoren partida gehiago irabazi zituelako egin zuen aurrera azpeitarren kontra. Berria - Kirola

Nabarmenezkoa da Peñak sakeari atera zion etekina ere, guztira zortzi **tanto** egin baitzuten lehen pilotakadarekin. Berria - Kirola

Irujok hamar **tanto** saketik. Berria - Harian

Partida azken **tantoan** dago. Berria - Euskal Herria

Garaipenaren **tantua** egiteko nahikoa da segundo erdi bat. Berria - Gaiak

Tanto ez hain ikusgarriak, baina **tantoak** dira azken batean, eta frontoiaren zaleek ondo dakiten moduan, azkenean **tanto** denek dute balio berdina. Edorta Jimenez

Ordurako bazituen **tanto** batzuk, eta heldua nintzen punttu egokira, non ez diezun pilotariei begiratzen, pilotari baizik. Markos Zapiain

Ondotik, ez zuen **tanto** bakar bat ere egin. Ramuntxo Etxeberri

Gaiztoturiko giroak hondar **tantoa** kutsatu zuen. Berria - Kirola

Esaterako, "que" eta enparauiek, edo artikuluek, zero balio zuten, eta "y" edo "o" bezalako juntagailurik botatzeak puntuak kentzen zituen; adjektiboek eta "-mente"-n bukatutako adberbioek **tanto** bakarra ematen zuten. Iban Zaldúa

Sei **tanto** atzetik bazeuden ere, artekariek 100-60ri kantatzen zuten oraindik txapeladunen alde. Berria - Kirola

Aukerarik onenaren zain egon **tantoa** amaitzeko. Berria - Kirola

1 eta 0 irabazi dute gurek eta horrela 3garren toki hortan bermatzen dira 35 pondurekin eta lehenetik 3 **tantotan** bakarrik. **Herria**

2 (izenondoekin)

Finaletan **tanto** politek itsusi eta trabatuek bezain beste balio dute. **Berria - Kirola**

Tanto ederrik ere utzi zuen, ordea; 11 eta 5ekoa, adibidez. **Berria - Kirola**

Tanto eder gehiago ere egin zituzten urdinek, batez ere Xalak. **Berria - Kirola**

Bi **tanto** xoragarrirekin hasi du partida. **Herria**

Atzelariak jokatu zituen partidako **tanto** onenak. **Berria - Kirola**

Tanto gogor asko egon ziren. **Berria - Kirola**

Tanto piloteatu eta bihurriak Gaubekaren alde jausi ziren. **Berria - Kirola**

Aurrelariak egindako hainbat hutsak eta Olaizola II.aren **tanto** sendoek gorriei eman zieten garaipena. **Berria - Kirola**

Tanto luze eta lehiatu batean. **Berria - Kirola**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jasotako eta eginiko **tanto** kopuruak erabaki du Binakako Erremonte Txapelketako B multzoko azken sailkapena. **Berria - Kirola**

Biak sailkapeneko lehen tokian dira, **tanto** andana berarekin. **Herria**

Tanto diferentziak emaiten du Baiona lehen tokian. **Herria**

Ionak **tanto** pare bat egin zituen saketik, eta Ezkurak beste hiru aurrean. **Berria - Kirola**

4 irud/hed

Gerrako partidari **tantoak** falta dira jokatzeko, eta azkenean partida galdutzat eman beharko bada ere, jokatzear diren tantoetan ez dago amore ematerik. **Edorta Jimenez**

Zinemen gerlan lehen **tantoa** Angeluk. **Herria**

5 tanta.

Euriak bi hots desberdin zituela esan ohi zuten, bata **tanto** guztiak batera egiten zutena eta bestea **tanto** batzuek banaka egiten zutena. **Bernardo Atxaga**

Gogor ari zuen bat-batean, tarteka kolpetxoak emanez sabaiari, **tanto** batzuk besteak baino mardulagoak bailiran. **Bernardo Atxaga**

Itsasoaren ur **tanto** gaziekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Haur txikiak, euren amen bular histuetan esne-**tanto** bakar bat ere aurkitzen ez zutenak. **Jon Alonso**

Damian jabetzen zen egunero hartzen zituen morfina **tanto** haiek, gozatu baino, garrastu egiten zutela Leonen aldartea. **Hasier Etxeberria**

Handik pixka batera erreparatzen diot, ordea, sugearen ausikiari: hiru odol-**tanto**. **Joxe Austin Arrieta**

6 beste kolore bateko gune edo zati txikia, orbana.

Arrosa da horma, **tantoekin**. **Bernardo Atxaga**

Ilea zuria zeukan, **tanto** marroiekin, eta izaeraz ausarta zen. **Anton Garikano**

Zumeta pintorearen lehengusua da, eta azkazaletan darama froga: guzti-guztiak **tantoak** bezalako biribil koloretsuekin marraztuta dauzka. **Pako Aristi**

Danubioko bokaletan, herri eta herrixka tartaroak daude sakabanatuak, eskualde horretako mapa linguistikoko **tantoak** bailiran. **Isabel Arrigain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bederatzita tanto egin (5); **beste hiru tanto** (4); **bi tanto egin** (4); **bost tanto egin** (5); **hamabost tanto egin** (4); **hamaika tanto egin** (5); **hamalau tanto egin** (4); **hiru tanto egin** (4)

lau tanto egin (11); **lehen tanto** (4); **lorturiko tanto** (5); **partidako tanto** (7); **sei tanto lortu** (4)

tanto andana (4); **tanto asko** (8); **tanto bakar bat** (8); **tanto bakarra** (8); **tanto behar zituen** (4)

tanto eder (8); **tanto ederrak** (6); **tanto ederrik** (4); **tanto egin** (115); **tanto egin behar** (4); **tanto egin zituen** (58); **tanto eginda** (4); **tanto eginez** (5); **tanto egitea** (6); **tanto egiteko** (5); **tanto erdietsi** (7); **tanto erdietsi zituen** (5); **tanto ezarri** (4); **tanto galdu** (4); **tanto gehiago egin** (5); **tanto gehien** (11); **tanto gehienak** (6); **tanto gutxi** (4); **tanto guztiak** (4); **tanto hartu** (4)

tanto lerroan (18); **tanto lortu** (28); **tanto lortu zituen** (22); **tanto lortuta** (4); **tanto luze** (12); **tanto luzeak** (4)

tanto pare bat (5); **tanto polit** (5); **tanto politak** (8); **tanto pollit** (9); **tanto saketik** (6); **tanto sartu** (5)

tanto ugari (5); **tanto xoil** (11); **tanto xoil batez** (7); **tanto xoilak** (6); **tantoz tanto** (7)

zazpi tanto egin (6); **zortzi tanto egin** (10)

azken tantoa (17); **bigarren tantoa** (4); **hondar tantoa** (5); **lehen tantoa** (11)

tantoa amaitzeko (6); **tantoa bukatu** (8); **tantoa bukatzea** (6); **tantoa bukatzeko** (16); **tantoa bukatzeko garaian** (4); **tantoa bukatzen** (22); **tantoa bukatzen asmatu** (8); **tantoa egin** (9); **tantoa egiten** (4); **tantoa landu** (4); **tantoa lortu** (7)

azken hiru tantoak (5); **azken tantoak** (9); **egindako tantoak** (9); **galdutako tantoak** (7); **lehen bi tantoak** (5); **lehen hiru tantoak** (5); **lehen tantoak** (11); **mota guztietako tantoak** (4)

tantoak bukatzen (7); **tantoak bukatzen asmatu** (4); **tantoak egin** (10); **tantoak egin zituen** (4); **tantoak egiten** (4); **tantoak errenkadan** (6); **tantoak errenkadan egin** (4); **tantoak jarraian egin** (5); **tantoak luzatu** (4)

azken tantoan (5)

tantoek erabakiko dute (4)

azken tantoetan (28); **hasierako tantoetan** (5); **lehen tantoetan** (20); **partidako lehen tantoetan** (4)

tantoko alde (8); **tantoko aldeaz** (5); **tantoko lerroa** (12); **tantoko tartea** (4)

tantotan geratu (9); **tantotan geratu ziren** (6); **tantotan utzi** (19); **tantotan utzi zituzten** (8)

lehen tantotik (5)

bi tantoz (5); **tantoz tanto** (7)

tantodun *izond* tantoak dituena.

Emakumeak latorrizko katilu **tantodun** batetik ura tragatu, eta gehiago eskatzeko luzatu zuen. **Anton Garikano**

"Babarrunak igurzteak" babarrun **tantodun** lizunduak txukuntzea nahi du esan hemen. **Josu Zabaleta**

tantogile (*orobat tanto egile*) iz kirol jakin batean tantoak egiten dituena.

Tantogileei dagokienez, Tolosako Elizalde da eraginkorrena (49); Baionako Arbizuk 19 egin ditu. **Berria - Kirola**

Top 16ko entsegugileei dagokienez, Miarrizeko lau jokalaririk onenen artean, eta **tantogileen** artean, Yacvili da laugarren. **Berria - Kirola**

Tanto egileak gaitzeko trenpuan ziren bi aldetarik. **Herria**

Ezcurra **tanto egile** hoberena, alde guzietara, botea ere barne (10 sartu ditu). **Herria**

Taldeko **tantogile** nagusia da eta ligako hirugarrena (257). **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tantogilerik onena (3)

tantoka 1 *adlag* tantoz tanto.

Sortu zirelarik orain bezalako pilota plazak, hala nola ezker pareta, trinketa, plaza laxoa, eta abar, **tantoka** kondatzeko orde segitu zuten luzean bezala kondatuz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 apurka.

Tantoka ari dira itzultzen, Patri, banaka eta binaka aireportu apartatuenetatik. **Hasier Etxeberria**

3 tantaka.

Ontziak garbitzeko ura handik gertu isurtzen da, harraska-zulotik, tarteka zarrastadaka, tarteka **tantoka**, eta haize bolada freskoak bidaltzen dizkio. **Itziar Otegi**

4 *tantoka-tantoka* apurka-apurka.

Ordubatak laurden gutxi: **tantoka-tantoka** Etxea betez doa. **Josu Zabaleta**

tantoño *iz adkor* tantoa.

Denak untsa joanez haatik, ezagunko da poxiño bat bederen eta Sarkozy-k eskualde hortarik **tantoño** batzu bazterten ahalko ditu... **Herria**

tantotu, tanto(tu), tantotzen 1 da/du *ad* tantoz hornitu.

Azazkala bezain arrosa zen, arrasto bixiz **tantotua**. **Anton Garikano**

2 (era burutua izenondo gisa)

Pony gris **tantotu** gizen bat etorri zen presarik gabe zelaira eta belarra jaten hasi zen lasai-lasai. **Iñaki Mendiguren**

tantra *iz* tantrismoari dagokion doktrina.

Guru horrek honelaxe esan zion: "**Tantra** *vidya siddhi* iritsi nahi baduk, hots, indar ezkutuen jabe egin, heure emaztea sakrifikatu behar duk". **Gotzon Garate**

Portuko ontzi guztien tutuak **tantra** askatzailean ozenduko dira orduan zure barnean. **Koldo Izagirre**

tantriko *izond* tantrismoari dagokiona.

Mahayaniar budismoaren sekta **tantriko** lamaistak. **Iñaki Mendiguren**

Tibeteko goi-ordokiak ia gotorleku iristezin bat eskaintzen zuen desagertua zen Gizarte Indikoaren mahayaniar fosil **tantrikoarentzat**. **Iñaki Mendiguren**

Esanahi ezkutu, kabalistiko, magiko, **tantrikoa** agian, suposatzen zitzaizen hitzei. **Jon Alonso**

tantrismo *iz* budismoaren eta hinduismoaren doktrinak osagai mistiko, magiko eta erotikoekin konbinatzen dituen erlijiozko higikundea.

Asunek, erdi hippya zenez, esan zidan Indian bazela aspaldiko denboretatik zetorren **tantrismoa** izeneko eskola bat, non pentsamolde filosofiko horren jarraitzaileak nirvanara iristen bide ziren isurketaren funtzioa psikeaz irmo kontrolatzearen bidez. **Josetxo Azkona**

Nire ahalmen ikargarri hura eta **tantrismoaren** teoria nolabait lotuz, ikastaro trinkoak antolatzen hasi nintzen auzoko kultur etxean. **Josetxo Azkona**

tantta *iz adkor* tanta.

Fisikan ikasia dugu nola edozerk bere berotik botatzen duen, nola erradiatzen duen daukana, pixka izan arren, aldamenean ezer hotzagorik badago: ur **tantta** bakoitzak, hauts-motatxoak berak [...], izotzak ere bere berotik ematen du, aldamenean hotzagorik balego. **Pello Zabala**

tantto *iz adkor* tantta.

Suhiltzaileek atea txikitu zuten nire etxetik ur **tantto** bakar bat ere ez zetorrela egiaztatzeko. **Berria - Kultura**

tantu ik **tanto**.

tanzaniar *izlag/iz* Tanzaniakoa, Tanzaniari dagokiona; Tanzaniako biztanlea.

Charles Kamathi kenyarrak, Jamal Bilal Salem qatarrak eta Fabiano Joseph **tanzaniarrak** osatzen dute faboritoen taldetxo hori. **Berria - Kirola**

Kenyarrak, hala ere, ezin dira deskuidatu, Damiani Chopa **tanzaniarra** eta Cuthbert Nyasango zimbawearra prest ditu ezustekoa emateko. **Berria - Kirola**

Gatibua «Estatu Batuek bilaturiko **tanzaniar** bat» dela esan zuen Al Arabia telebistak. **Berria - Mundua**

Han, Atenasen izan garenean, maila handiko jendea ikusi dugu: brasildarrak, etiopiarrek, **tanzaniarrak**, ingelesak, munduko onenak. **Berria - Kirola**

taoismo *iz* Sortalde Urruneko herri erlijioa, Lao-tse antzinatoko filosofoaren liburuetan oinarritzen dena.

Budismoa eta **taoismoa** dira, agian, berdintasunetik hurbilen daudenak. **Berria - Gaiak**

Neo-konfuziarrak sendotasun handiagoz atxikitzen zaizkiela **taoismoaren** eta budismoaren ideia nagusiei taoistak eta budistak eurak baino. **Iñaki Mendiguren**

Antzeratsu, Pax Hanica-k mundu sinikoan eskainitako aukerengatik lehian jardun zuten erlijio proletario indiko batek -mahayanak- eta bertako erlijio proletario sinikoa zen **taoismoak**. **Iñaki Mendiguren**

Testuaren mamia nahasketa handi bat da: kristautasuna, **taoismoa**, naturismoa, kidetasan kastrensea, Kung-Fu telesaileko esaldiak... dena sartzen da. **Pako Aristi**

taoista 1 *iz* erlijiotzat taoismoa duen pertsona.

Neo-konfuziarrak sendotasun handiagoz atxikitzen zaizkiela taoismoaren eta budismoaren ideia nagusiei **taoistak** eta budistak eurak baino. **Iñaki Mendiguren**

Argi eta garbi aitortzen dut nola neure gaixoei eta hiesdunei erants dakiekeen adjektibo -marxista edo kristaua, maoista edo **taoista**, budista edo sintoista, musulmana edo animista, materialista edo idealista, fededuna edo ateo- hori besterik ez den enetzat: adjektibo bat. **Joan Mari Irigoien**

2 (izenondo gisa)

Familiak, agian jakinaren gainean egongo zarenez, sutara eman nahi zaituen; haren baldizak, ordea -monje **taoista** edo budista bat-, ez zuen etsi haiek argitaratu arte.

Juan Garzia

Gainera, txoriak zeruan bizi dira, aingeruak eta jakintsu **taoistak** bezala, ezta? Juan Kruz Igerabide

tap 1 *adlag* zenbait hotsen onomatopeia.

Idazteko makinak **tap**, **tap**, **tap**... zeure barrutik atera zaitu. Rafa Egiguren

Tap tap tap zihonan tren. Lutxo Egia

Tap-tap-tap, bat datoz ur-tanten erritmoa eta nire bihotzarena. Anjel Lertxundi

Lepoak besarkatuta... emearena gora luzatuta, arraren lepo makurturantz, **tap tap tap**, buruak elkar jotzen. Anton Garikano

2 (izen gisa)

Bere barruan, urrun-urrunean, herdoildutako ate batzuen antzeko kirrinka entzun zuen, eta ate horien atzetik **tap-tap-tap** sendo bat etorri zen, gauetz lorik egin ezin dugunean entzuten ditugun mailukaden antzera. Julen Gabiria

-Edukazio onekoa ote da zerbaitean gailentzea? -erantzun zuen eskolako **tap-tap** hark. Julen Gabiria

3 (izen gisa, fonologian)

Ameriketako ingelesean, silaba azentudunaren ondorengo /t/ edo /d/ herskariaren aldaera da eta **tap** deitzen zaio. Lourdes Oñederra

ttak edo **tap** dardarkari hobikarian (r) errepikaturik gertatzen diren ukituetatik bakar batez osaturiko hotsa. Lourdes Oñederra

tapa 1 *iz* estalkia.

Dena zen zuri izandakoa han, komun ontziaren **tapa** beltza izan ezik. Iñaki Iñurrieta

Itzali du butanoa, kendu du lapikoa su gainetik, jaso du **tapa** ... Iñaki Iñurrieta

Aulki gurgipiduna kutxa batera hurbildu zuen Ruche jaunak; **tapa** altxatu, liburu bat atera, eta hotsandiz iragarri zuen: *Introductio in analysin infinitorum*, Euler. Jon Muñoz

Ramsay jaunak erlojuaren **tapa** altxatu zuen ardurarik gabe. Anton Garikano

[Amak] eltzeari **tapa** kendu, eta aitak banpiro bat eta mila banpiro ikusi zituen bertatik ateratzen. Joan Mari Irigoien

Gero **tapa** batekin ixten dituzte kanpora ez dezan inolako lurrunik bota. Santiago Iruretagoiena

Tintontziari **tapa** jarri. Iñaki Mendiguren

Sutondoko **tapa** mugitzeko erabiltzen zuen zapia pilota bat eginda zegoen Setheren eskuan. Anton Garikano

Espaloian estoldako **tapa** altxatu egiten zela iruditu zitzaion. Pablo Sastre

Atauta zulora jaitsi, hormahobian sartu eta **tapa** betirako ixtea. Joseba Sarrionandia

Orduan teiltatua jo zuen buruarekin, eta kutxa baten **tapa** balitz bezala ireki zen, eta [...] Kensington Lorategiak ikusi zituen inguruan, elurrez estalita. Julen Gabiria

Tapa itxita, herdoilarekin. Anton Garikano

Uartia, barrutik, oihuka eta **tapa** joka ari zen. Martin Anso

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tapa birakorreko idazmahai baten aurrean eserita. Lopez de Arana

Buxia berriak, delkoaren **tapa** berri bat eta beste hainbat ordezko pieza ordaindu beharko ditut. Oskar Arana

Tapa laranjako liburuxka bat hartu zuen balizaren zolatik. Aritz Gorrotxategi

Gutako gehienok ez genuen **tapa** metaleztatua zuen bibliatxorik bertan, jakina. Harkaitz Cano

Ziloka bat badagoela, barnealdetik berinaki batekin hetsirik eta kanpoaldetik burdinazko **tapa** batek estalia. Filipe Bidart

Altzairuzko **tapak** zintzurrean igotzen nabaritzen zituen. Itxaro Borda

3 irud/hed

Zeru lainatuak ez du zuten erradiaziorik gerta dadin: lainoak berak ipintzen du **tapa**. Pello Zabala

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela.)

Koaderno **tapa**-beltz baten ertza bistaratu zitzaion. Iñaki Iñurrieta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kazola-**tapen** burrundara, turuta-hotsak, makilen kolpeak zoruan. Anjel Lertxundi

Alde bateko leiho **tapak** baino ez zeuden kenduak. Karlos Zabala

P. zauritu zen zaztar edukiontzi **tapa** bat gainera erortzean. Berria - Ekonomia

Piano-**tapa** emeki ferekatu zuen, onespenez, musika-partitura batzuk zutik jarri zituen. Mirentxu Larrañaga

6 *tapako ur* oinarekin hondoa ukitzen ez den ura.

Tapako uretan sartzeak eragiten dion beldurra menderatzeko, gabarroira joaten saiatu den zenbait aldiz. Iñaki Iñurrieta

Honela jarraitzen dut hogeit bat metroan, honezkero **tapako uretan**. jar nazazu hondartzan, eta **tapako uretara** iritsi orduko, hasiko naiz azpian dudan leize sakon ilunaz pentsatzen. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kaxaren **tapa** (3); **tapa altxatu** (7); **tapa jarri** (3)

leiho **tapak** (4)

taparik gabe (4)

tapa-tapa (*orobat tapatapa g.er.*) 1 *adlag* oinez ibiltzearen onomatopeia.

Tapa-tapa, segitu diat jaisten, hogeit bat metroan ibili nauk behera. Pablo Sastre

Azkeneko etxean bizi zen gizona pasatu zen etxera bidean; **tapa-tapa** entzun zituen haren oinotsak zementuzko espaloian. Irene Aldasoro

Antzara aldra bat **tapa-tapa** atara da, karraska ta marraska, bazkarantz. Iñaki Arranz

Maxunek lurtean utzi eta, **tapa-tapa**, oinez hasi zen haurra. Pablo Sastre

Hi atzetik hentorren, **tapa-tapa** niri jarraituz. Xabier Olarra

Eskularruak eta gorro beltza jantzita, galtzak bustita, masailak gorri-gorri, begitarte arraiarekin zetorren **tapa-tapa** Mandi. Pablo Sastre

Gaurik beltzeta bada ere eta tokirik galduean zaudela ere, mandoak hutsik egin gabe, **tapa-tapa**, Gotzon Garate

2 (bestelako onomatopeia)

Hatz muturrez erakusmahaia **tapa-tapa** jotzen zuen bitartean. Iñaki Mendiguren

Hatzekin bolantea **tapa-tapa** jo zuen, eta inguruan zeuden arlote haietako taldetxo batera joan zitzaizkion begiak. Iñaki Mendiguren

3 (izen gisa)

Entzun nuen neure ahotsa, Park Drivetik lihoakeen ezezagun batena balitz bezala, bota iltzedunen **tapa-tapaz** lagundua. **Koro Navarro**

Oin batek lurraren kontra joz egiten zuen etengabeko **tapa-tapa** hotsa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

4 *tapa-tapa* egin erabat estali.

Rotenburg aldean, ordea, irudi bat osatzen zuten giza-ingeru tipokoa, eta hura lorez eta landarez goitik behera dena **tapa-tapa** egin, ondo horniturik, sutan erre, eta haren gainera egiten zuten jauzi eta salto. Behera jaitsita ikusi zituen neskek lo, utzitako leku berean, baina orain elkarri bizkar emanda, bakoitza **tapa-tapa** eginda mantetan, burkorantz amasa egiten. **Pello Zabala**

tapadera iz estalgarria.

Ibon Aranberri galerien zirkuituetatik kanpo dago, «galeriak bestelako negozioren **tapadera** direlako gehienetan». **Berria - Kultura**

tapadun izlag tapako.

Metalezko **tapadun** txarro bat hartu, eltzekariz bete, eta jengibre-ogia harategiko paperean bildu zuen. **Anton Garikano**

tapagailu (orobat *tapailu*) 1 iz tapatzeko gailua.

Plastikezko butillen **tapailuak** birziklatzez, herbaltiak laguntzen ahal dira. **Herria**

Orai lokal handi bat txerkatzen dūe bildū **tapailuen** biltzeko. **Herria**

Nehork ez daki ezarriak izan zaizkion **tapagailuek** zonbat irauenen duten. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Elmer telefonogune batean dago, etiketaz jantzirik, belarri-**tapagailuak** dituela, Valentino bezain garaia, Doug bezain indartsu. **Lopez de Arana**

tapagarri iz tapatzen duen gauza.

Villepin frantses ministroak ihardesten du garbiki ez dutela frantses eta alemanek, haste hartan amerikarretarik berex egonak izan ondoan, heien zilo **tapagarri** izan nahi.

Herria

tapailu ik tapagailu.

tapaki 1 iz ohe estalkia.

Ekar ditzatela lastaira bat eta bi **tapaki**. **Koro Navarro**

Ez **tapaki** ez izara, elkarren alboan larrugorritan esnatu gara, Rubenek eskuin eskua nire ipurmasailetan pausatua zuela. **Patxi Zubizarreta**

Gero ohean sartu nintzen, **tapakiekin** estali eta begiak itxi nituen. **Koro Navarro**

Esan nahi dut guk ez dugula sentitzen kanpoko hotzik gorputzak **tapaki** arteko berotasuna galtzen duen arte. **Bernardo Atxaga**

Joan bezala itzuli ginen, hau da, ni automobilaren atzealdean uzkurtuta, **tapaki** baten azpian. **Migel Angel Mintegi**

Zuzentzaileak **tapakia** du belauan gainean, hotzari aurre egiteko. **Jon Alonso**

Ipurdi azpian tolestuta **tapaki** bat neukan. **Inazio Mujika Iraola**

Tapaki bat hartu eta idazmahaira etorri naiz, une batez irakurri edo idazteko. **Josu Zabaleta**

Aulki gurgildunetik **tapakia** irristatu zitzaion. **Jon Muñoz**

Berehala agertu zen hura, ordurako han egon balitz bezala, **tapaki** batean bilduz soina. **Juan Garzia**

Dusselen ohetik, han egoten baitira gordeta egunez, lumatxa, maingidreak, burukoak eta **tapakiak** atera behar dira. **Josu Zabaleta**

Nire alboan kuxkurtuta zegoen, ohearen **tapakiak** buru gainera zituela. **Bernardo Atxaga**

Mugimendu horrek zabaldu egin zituen haren oheko **tapakiak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Koadroen, alfonbren eta aukien koloreek Ellen ito egiten zuten, **tapaki** bero batean bildurik balego bezala. **Lopez de Arana**

Ni **tapaki** arin batekin moldatzen nintzen neguan ere. **Joxean Agirre**

Une batez erne jarri nintzen, **tapaki** astunen azpian. **Alberto Ladron Arana**

Zoaz gelara eta ekar ezazu **tapaki** tzar pare bat, soineko arin horrekin hotzez zurrun geratuko zinateke-eta bestela. **Anjel Lertxundi**

Izterren gainean jarri ohi zuen **tapaki** ingelesak irrist egin zion, agerian utzirik toles ezin txukunagoko galtza eta oinetako ezin hobeki betuneztatuak. **Jon Muñoz**

Erdian, nire lastaira txukun-txukun jarria, izara urdinak eta **tapaki** gorrixka. **Joxean Sagatzizabal**

Tapaki berdeko ene mahaiaren gainean. **Koldo Izagirre**

Burdinazko ohea, burkoa, lastozko koltxoia eta lumazko **tapakia** eman zizkieten Henneri. **Koro Navarro**

Lauki gorri-beltzezko artilezko **tapaki** bat hartu zuen bazter batetik. **Anjel Lertxundi**

Marra gris eta arrosekiko **tapaki** batean indiar baten modura bildurik. **Lopez de Arana**

Plomuzko **tapaki** astuna, lehegarria eta mutua. **Itxaro Borda**

3 (hitz elkartuetan)

Barruan badira arropak, ohe-**tapakiak**, artile-matazak. **Koro Navarro**

4 estalgarria.

UDF alderdi zentristako Philippe Foliot diputatua zutik geratu zen Hu Jintaok hitz egin zuen ordu erdian, oihalezko **tapaki** bat ahoan jarrita zuelarik. **Berria - Mundua**

Begien aurrean **tapaki** bat zeukaten eta buruan bala tiroen zantzuak zituzten. **Berria - Mundua**

Atzeko horman esekitako berokiak azpizolas eta bihurrikerien **tapaki** gisa erabiltzen genituen. **Pedro Alberdi**

Hala, beren protesta segurtasun **tapaki** batekin estaltzen dute. **Berria - Mundua**

Zuloaren **tapakia** altxatzean, bihotz apurtzean, ikusi zuen den dena han zegoela, bi urte utzi bezala: ekialdeko merkatariari erosi pistolak. **Itxaro Borda**

Aitzur kolpeaz beheko zureko kuxtaren **tapakia** hautsi zuen. **Itxaro Borda**

Defendatzaileak ur bazterrean zeuden, belarrietako buztin **tapakiak** garbitzen. **Joanes Urkixo**

- Mantek **tapakia** dute gainean, pareta bezain zuria. **Koldo Izagirre**

5 irud/hed

Goiz-goizetik laino **tapaki** hertsia grisa zuen gainean mendate horrek. **Berria - Kirola**

Ni baino arrazoi sendagoa zuela bizitzeko; ni **tapaki** hutsa izan nintzela, gutxietsi egin ninduela erabat, horixe ulertu nuen argi eta garbi. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tapakia kendu (4)

oheko tapakiak (5)

tapakien azpian (8); **tapakien gainean** (3)

tapalakaldi *iz ipar* zaplastekoa.

Gaitzeko indarra behar zen zimitzaren barnean, ore mokor gotor haien kokatzeko, zapatzeko, **tapalakaldi** bakoitzean are gazur gehiago isurtzen zela. **Itxaro Borda**

tapalakatu, tapalaka(tu), tapalakatzen du *ad ipar* zapaldu, jo.

Buztin malgua **tapalakatzen** begimendu zituen. **Itxaro Borda**

tapalako *iz ipar* zaplastekoa.

Irabazleak holako ziren: egun haundietako hura izan gabe, Dermitek bere gibel hura zaintzen zuen, behar zen doia, eta Duhau bere **tapalako** haundietan, itzulipurdi zenbait goiti beheiti, hots, larderia, dena den. **Herria**

tapatapa ik *tapa-tapa*.

tapateko *iz kolpetxo*.

Behatzekin mantelari **tapatekoak** ematen. **Anton Garikano**

Aldian behin, **tapatekoak** ematen zizkion bolanteari irratsaioan jarritako musikaren erritmoari jarraituz. **Bernardo Atxaga**

Osaba Kamilek, bizkarrean **tapateko** tikiak emanez lasaitu nahi zuelarik, esan zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Ez zen esnatuko harik eta bezeroren bat sartu ezean, edota Abas Al-Helu bizarginak, trufa giroan, sorbaldan **tapateko** batzuk eman ezean. **Patxi Zubizarreta**

Niri **tapateko** batzuk jo zizkidan buruan. **Koro Navarro**

Bi emakumeek **tapatekoak** jo zituzten kopetan. **Koro Navarro**

Ateko **tapatekoari** "Aurrera" erantzun. **Anton Garikano**

tapatekoka *adlag* tapatekoak ematen.

Lou besoetan eduki nahi dut, esan zuen mutilak berekiko O'Brien jauna **tapatekoka** eta irribarrez ikusiz, eta tabernaria Marjorie gero eta estuago besarkatzen. **Koro Navarro**

-Zer esan dizu? -galdegin zion, amaren sorbalde **tapatekoka** jardun bitartean-. **Patxi Zubizarreta**

Artilezko matazekin jolasean aritu zen, eta orratz bat hartuta esku ahurrean **tapatekoka** jardun zuen. **Koro Navarro**

tapatu, tapa, tapatzen 1 da/du *ad* estali. (gorputzeko zatiak)

Atera aitzin, aurpegia **tapatu** digute. **Ramuntxo Etxeberri**

Ez **tapa** zuen haurren begiak, utz itzazue mamiotan zorutzen! **Koldo Izagirre**

Josebak belarriak **tapatu** zituen. **Bernardo Atxaga**

Apezak orduan kondentatuen begiak oihal zurbailez **tapatu** zituen. **Itxaro Borda**

Maggyk ahoa ahurraz **tapatzen** zion. **Itxaro Borda**

Beldurtienak zutik jauzten ziren eta eskuaz sudurra **tapatuz**. **Joseba Sarrionandia**

Sudurra **tapatu** zuen mokanesarekin, hilotzaren ondoraino heltzeko. **Itxaro Borda**

Baby Suggsek eskuarekin **tapatu** zuen ahoa. **Anton Garikano**

Gizon hori burua **tapatuta**, makurtuta, polizien artean. **Bernardo Atxaga**

2 (bestelakoak)

Mirari hobeto **tapatu** zen mantarekin. **Fernando Morillo**

Burusiez **tapatu** zen eta berriro loak hartu zuen. **Lopez de Arana**

Izerditan nengoen bil-bil egina mataza baten pare mantarekin **tapatuta**. **Fernando Rey**

Maitea, Jainkoarren! -erregutu zuen senarrak, emaztea estalkiaz ondo **tapatzen** saiatzen ari zen bitartean. **Lopez de Arana**

Aste Santuko arratsetan, eliza ilunduan, kortinak ere botata, santuak zapi morez **tapatuta**. **Pello Zabala**

Goizerditik eguerdi aldera, hiru bider, hodei beltz ilun itsasokoak eguzkia **tapatu** eta dena ilun, gaua bailitza utzi zituen Santander aldeko bazterrak. **Pello Zabala**

Holako zerbait gertatu zitzaion Arnegiko zubi haundiari: zubipeko begiak **tapatu** baitziren laster, gaineko harresiak zituen eraman urak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Pitzadura horiek [...] zepa eta gatzarekin pasta bat eginda primeran **tapatzen** dituk. **Pablo Sastre**

Zapatetan kartoia jarria nuen zuloa **tapatzeko**. **Fernando Rey**

3 irud/hed

Sendagaiekin sintomak **tapatu** bai, baina gaixotasuna ez da sendatzen. **Berria - Harian**

Kanpoko zorraren **tapatzeko** baliatu da diru meta horren parte bat, erran nahi baita lan egin behar dugula gero eta gehiago, gero eta pobreaigo izateko. **Herria**

Konparazione, ez daki nola **tapa** "Sécurité sociale" delakoaren ziloa bazterrak sobera kexarazi gabe. **Herria**

Joan den urtearen kontu, Baiona/Angelu/Miarritze hiri elkargoak ekarri behar izan dizkio 760 000 euro diru ziloaren **tapatzeko**. **Herria**

Prologue bertan ere bateriak (nahiz eta pantaila akustikoa eduki babesteko) pianoak erabat **tapatu** zituen. **Berria - Kultura**

4 ase.

Bi ahamen irentsi orduko, **tapatua** nintzen. **Daniel Landart**

5 (era burutua izenondo gisa)

Denbora ilun eta zeru **tapatu** honekin, kamioien hats bortitzak airea hozten dit. **Piarres Aintziart**

6 tapatuxe

Azken minota hek dira luzeenak, gure beharri **tapatuxeek** senditu dute bat-batean jauste hori eta erdi-aharrosika bezalako 7atean, aho-gozoa irets, eta denak lekuratuko dira Pariserat jalgitzean. **Herria**

6 hatsa tapatu

Beldur latz ikaragarri batek hartua nago, **hatsa tapatzen** didan beldur batek. **Janbattitt Dirassar**

Hiru presuna, kearekin **hatsa tapatua** bezala zutenak, segitu ospitalerat, zombait orenen buruan jalgi direnak haatik, gerokorik gabe. **Herria**

Badira ere **hatsa tapaturik** eta beroak aski joarekin hiltzen direnak! **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoa tapatu (5); **aurpegia tapatu** (3); **begiak tapatu** (5); **belarriak tapatu** (3)

begiak tapatuta (5); **burua tapatuta** (3)

ahoa tapatzen (3); **hatsa tapatzen** (3)

tapatze iz estaltzea.

Holako **tapatze** bati arizan dira egun hotan helikoptera batekin lekuratuz behar ziren muntadura guziak. **Herria**

tapauka iz lepokoa. ik bufanda.

Begirada urdina pizten dio hotzak, beroki eta **tapaukaz** jantzita dagoen arren. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Lepoan jira t'rdi emanda zeukan **tapauka** destolestu egin zuen Mentxuk musua begietaraino estaltzearren. **Josu Landa**

Sprout andereñoak galtzerdiak eta **tapaukak** jarri nahi zizkien mandragorei, beste inoren esku utziko ez zuen zeregin delikatuak. **Iñaki Mendiguren**

tapete 1 iz mahai tapiza.

Gurutze txiki bat hartu zuen paretatik eta mahaitxoaren gaineko **tapete** gorrian utzi zuen. **Koldo Biguri**

Mus jokalarien **tapete** berdearen gainean. **Javi Cillero**

Egun hartaz gero, arratsaldero biltzen gara adiskidea eta biok **tapete** baten ingurura. **Jose txo Azkona**

2 (billar mahaikoa)

Billar jokalaria zarpail batek bat-batean **tapete** orlegia tarratatzean nola, hala tarratatzen zen gaua, balaztaren txilioarekin batera. **Harkaitz Cano**

3 irud/hed

Lokomotoraren argiek ere, gauaren **tapetea** urratzen deneko distira bortitz eta dirdaitsua marraztuko zuten noski airean, tren gidariak siku balaztari sakatu zionean.

Harkaitz Cano

tapiatu, tapia, tapiatzen du ad hormaz itxi.

"Deboilatu" hauek teilturik gabeko lau hormak osatuak dira gehienetan, zenbait leihorekin, gehienak ere adreiluzko tabike batek **tapiatuak** eta tronera bihurtuak. **Koldo Izagirre**

Klaustroko bazter batean, ojiba luzexka batzuk, **tapiatuak** zatiz, gela misterios antzeko baten inguruan hedatzen dira. **Koldo Izagirre**

Harrizko kutxa honi argitasun sobera ematen ziolakoan, **tapiatu** egin dira ojibak, eta idi begi estu bat besterik ez dute utzi bakoitzaren erdian. **Koldo Izagirre**

tapioka iz maniokaren sustraietatik ateratzen den gaia, jateko ona.

Extera itzulirik, **tapioka** zopa bat eta lekari batzuk prestatu zituen; goiz afaldu, oheratu, eta lo egitera behartu zuen bere burua. **Juan Garzia**

tapis ik tapiz.

tapitu (orobat tupitu) izond sarria, trinkoa.

Babestu ahal izateko egontokirik ez zegoenez, txara **tapitu** batean sartu zen. **Askoren artean**

Urki baten enbortzar zuriak [...] gaina hartzen zion baso **tapituari**, airean zut, biribil, marmolezko zutarri erregular eta distiratsu baten antzera. **Jose Morales**

Hona hemen, isilune **tapitutik** atereak, nire tesi pertsonalak euskararen egoeraren zenbait punturi buruzkoak. **Pello Salaburu**

Hark, bere bibote zuri **tupituaren** azpitik onbera irribarre eginez, esplikatu zidan ezen, egiazki, bera gaztea zenean eta olio pertsonalki egosten zuenean, ez zela termometrorik artean erabiltzen. **Juan Garzia**

tapiz (orobat tapis g.er. eta tapiza g.er.) 1 iz etxe eta jauregietan, hormen, pareten eta lurren estalgarri edo apaingarri pintzen den oihal landua. ik alfonbra.

Zorua espartuzko **tapiz** batek estaltzen zuen. **Patxi Zubizarreta**

Oso oihal merkeko **tapiza** da. **Anton Garikano**

Rodinen pentsalariaren jarreraren zegoen ia [...] **tapizaren** bilbe-irazkien askotarikoari, koloreen anitzari erreparan. **Iñaki Iñurrieta**

Etxe horretan nago orain, egongelako **tapizen** gainean jesarrita familiakideekin. **Jon Arretxe**

Ohiko jarreraren: aurrerantz makurtuta, begirada zoruko **tapizean** galdurik. **Iñaki Iñurrieta**

Eskailera gaineko sagar-berde koloreko **tapizak** igogailu txiki batera zeraman. **Jon Muñoz**

Hormak **tapizez** estaliak zeuden. **Koro Navarro**

Tapizen atzean naiz ostenduko, elkarrizketari adi. **Juan Garzia**

Tapiz osoa hartzen duen aurpegia da, ez dut uste hor behetik osorik hauteman daitekeenik. **Iñaki Iñurrieta**

Sultanaren jauregitik berrira joango zen belusik ederreneko **tapiz** bat. **Patxi Zubizarreta**

Tapiz batekin estaliriko kutxa moduko baten gainean. **Monika Etxebarria**

Picassoren 'Guernica' obraren **tapiz** bat dago ikusgai Parisen. **Berria - Kultura**

Zuhaitz baten azpialdean **tapiz** bat zabaldu zuelarik, mutilari hurbiltzeko esan zion. **Patxi Zubizarreta**

Sortaldeko **tapizez** estalitako sofa-ohoa. Xabier Olarra

Tapiz lodi batez zolaturiko korridorearen alde bietara zabaltzen ziren gelak. Alberto Ladron Arana

2 (izenondoekin)

Bazterretan kuxin tikiak zeuzkan eta **tapiz** pertsiar bat zoruan. Patxi Zubizarreta

Tapiz kurdu bikainekin apaindutako paretak. Fernando Rey

Gela erdian, **tapiz** brodatu bat eta sabairainoko ispilu handi bat. Patxi Zubizarreta

Hornidura handiak, urrezko eta zetazko oihalak, **tapiz** garestiak. Patxi Zubizarreta

Lurrean, ia zoru guztia estaltzen zuela, **tapiz** lodia, oinak leun goxo hartzen zituena. Iñaki Iñurrieta

Tapiz astun haietako batek erdi ezkututzen zuen korridore batean barrena abiatu zen. Alberto Ladron Arana

Panel labaingarrien eta **tapiz** zintzilikarien atzean gorderiko ateetan zehar. Iñaki Mendiguren

Tapiz ilunak zeuden hormetan zintzilik. Koro Navarro

Areto luze eta aranditsu hartan ez zen **tapiz** edo zintzilikadura zaharkiturik ikusten. Agustín Otsoa

Abokatuak **tapiz** hondatuari so egin zion. Anton Garikano

Tapiz magiko guztiak zulatuta egongo dira, ezta? Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan)

Aurrealdean zuen **tapiz** zatian xehetasunen bat argitu nahi balu bezala. Iñaki Iñurrieta

4 irud/hed

Eguna apurka-apurka ilunduz zihoan bitartean, **tapiz** berdearen gainean herrixkaraino bertaraino hor-hemen inolako ordenarik gabe sakabanaturik ageri ziren urkila-formako zuhaitz zabalen itzalpean sartu zen. Jose Morales

Usain hordigarria zeriok hostaila hezeari, iratzeari, zuhaitz-azal puska goroldiotsuen **tapiz** bigun, labain eta uniformeari. Xabier Olarra

Egileak, baina, beste osagai bat jarri du lauren artean ehuntzen den **tapizaren** atzeko aldean: duela bi urteko martxoaren 11n kokatu du gertakizuna eta hildakoak magrebtar itxura dauka. Berria - Kultura

5 mahai tapiz

Bilarreko bolak mahai- **tapiz** berdearen alboak jotzen dituen bezala, hala zebilen, behin eta berriz boteka, Ruche jaunaren esaldia Jonathanen gogoan. Jon Muñoz

Milaka lagun ari ziren han ezbaian, erosten, saltzen, barazkiak labanekin nahastuak, mahai- **tapizak** era guztietako pipen ondoan... Xabier Aranburu

6 oin tapiz

Alfonbraren gainean, han-hemen, espartuzuko **oin-tapizak**. Jon Muñoz

Okin anderea bakarrik zegoela ohartu zen, pikothean **oin tapiz** baten gainean. Patxi Zubizarreta

Oin-tapizen gainean jarrarazi zituen bikiak Maxek, eta bera handik aldaratu. Jon Muñoz

7 tapiz-saltzaile

Ez dut berraragitzean sinesten, baina sinetsiko banu, zin egingo nuke marokoar **tapiz-saltzaileren** bat izan zela beste bizitzaren batean. Oskar Arana

Tapiza saltzaile gisa jokatu dira Blair eta Jakes Haundia, nehork ez baitu amor eman nahi. Herria

Bai eta ez, **tapiza saltzale** onak dira Turkian. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tapizaren gainean (10)

tapizagintza ik tapizgintza.

tapizatu, tapiza, tapizatzen 1 du *ad* tapizez estali edo apaindu.

Gure bila etorri aurretik, gela **tapizatzen** aritu zen. Juan Kruz Igerabide

Alkiak **tapizatze**ko eta muntatzeko tailer bat. Herría

Egongela beltzez **tapizatu**a zuen, urrez brodatutako seda beltz batez. Josu Zabaleta

Zurezko bi albo astun zituen tresnak, bakoitza metro eta hogei luze eta metro bat zabalekoak edo, betegarri lodi eta goxo batez **tapizatuak**. Xabier Olarra

Belus gorri-morez **tapizatutako** besaulki bigunean. Urtzi Urrutikoetxea

Bi gela alokatu zituen, bi gela ilun, gangadunak, zeta horiz **tapizaturiko** altzariz beteak. Xabier Olarra

Paretetan itsatsitako tresillo belus gorritz **tapizatu**etan edo mahai beltzez lakatuen inguruko aukietan. Iñaki Iñurrieta

2 irud/hed

Mendiarror maldatsuak belarrez **tapizaturik** zeuden. Agustín Otsoa

Itzal handiek **tapizatzen** zuten nolabait ganbara. ile bakar batek ere ez du iluntzen haren atsegin aldarea; honen barnealdea **tapizatzen** duen mintz txit leun, sentikor eta ferekatzaila emakumearen bagina barrukoaren oso antzekoa da. Agustín Otsoa

3 (era burutua izenondo gisa)

Halako berdaje aberats eta sarriak **tapizatzen** du kobazuloaren sarrera. Koldo Izagirre

Besaulki **tapizatu** batean eserita zegoen. Fernando Rey

Besaulkiek, sofek eta zurezko aulki **tapizatu**ek osatzen zuten gela hartako apaindura. Jon Muñoz

Mahai luzearen erdian, suari bizkar emanez, beste aulki **tapizatu** bat dago. Xabier Olarra

tapizatudun *izond* tapizaturik dagoena.

Mike&Tony's jatetxea zen ganbera txiki bat, zoru **tapizatuduna**. Oskar Arana

tapizatzaile *iz* tapizatzen zuen pertsona.

Egun pare bat geroago, pintoreak eta igeltseroak, garbitzaileak eta **tapizatzaileak** azaldu ziren, lehengo maizterrek etxebizitzan utzitako zikinkeria guztia jasotzera.

Eduardo Matauko

Urruneko **tapizatzaileak** eta gutxi kobratu baina telefonorik ez zuten zurginak, eta zakurraren ipurdian zeuden oihal-dendak. Fernando Rey

Antisemitismo bera modan jarri zen burgesen, atezainen, tximinia-garbitzaileen eta **tapizatzaileen** artean. Anjel Lertxundi

tapizeria 1 *iz* tapizatze

erabiltzen den ehuna edo kideko gaia.

Seat 600 berde ilun bat erabiltzen dik, **tapizeria** gorriduna. Rafa Egiguren
 Larruzko **tapizerian** ezer ez jausteko kontuz jan ditu tailarinak aluminio paperezko ontzian. Urtzi Urrutikoeetxea
 Nire hiru besaulki sumatu nituen, puntu xehezko **tapizeriaz** estaliak. Josu Zabaleta
 Armairuaren tiraderak burrunba batean bota dituzte lurrera, sofaren **tapizeria** ere altxatu dute. Rafa Egiguren
Tapizeriazko lepokoa idunaren inguruan, uhalez utsirik, fardelek irrist egin ez zezaten. Karlos Zabala
Tapizeriaren leuntasunagatik. Juan Martin Elexpuru

2 (hitz elkartuetan)

Erakustoki apain bat egokitu zuen bizkortasun apartaz, zeinak, itzaletan, kolore simetrikoz egindako **tapizeri** lana ematen baitzuen. Karlos Zabala

3 tapiz multzoa.

Ile hori ez da deusekin bat heldu, gaizki ematen die kapelei, besaulkietako kuxinei, baita atzean dituzten paretetako **tapizeriari** berari ere. Monika Etxebarria
 Euskal-Herriko artista frangok bai-eta ere kanpoko zonbeitzuk erakutsiko dauzkgitue hiru egunetz beren obrak: margolanak, grafiak, zizelkadurak, mosaikuak, **tapizeriak** eta bertze. Herria
 Gela hura handia zen, harrizko paretak eta zola Persiako **tapizeria** miresgarrienez estaliak ziren. Aurelia Arkotxa
 Oton I.a erromatar enperadore santuaren soldadu saxoi batek eta Bayeux-eko **tapizerian** irudizaturiko zaldun normandiar batek izandako ekipamenduen artean denbora-tarte erlatiboak kalkulazten. Iñaki Mendiguren

tapizeztatu *izond* tapizatua.

Modu hartan, zurezko eskailera **tapizeztatu** zabalak igotzen ikusi zuen Ana, beti etxezainaren konpainian. Aitor Arana

tapizgile *iz* tapizak egiten dituen pertsona.

Hori bai, lan egiteko tokia leiho ondoan jarrita izan behar du **tapizgileak**. Ana Urkiza

tapizgintza (*orobat tapizagintza*) *iz* tapizak egitea.

Ez duzu orduan zeure **tapizgintza** emeki bada emeki uztea baizik. Jon Muñoz
 Nola Volanges ttipiak, leiho baten ondoan **tapizgintzan** ari baitzen, asti pixka bat behar izan zuen bere langintza uzteko. Jon Muñoz
 Obraren horietarik andana bat, bai **tapizagintzan**, bai idatzedergintzan, ikusten ahal da Belokoero frailetxearen sartzean muntatua den erakusketan. Herria
 Merkatu bat bada beraz **tapizagintzarako**, arteak edo ederlanak gero-ta garrantzia gehiago hartzen ari duen garai huntan. Herria

tapizier *iz* *ipar* tapizatzaillea; tapizegilea.

Tapizier : Manu Filiatreau. Herria

tapoi 1 *iz* zulo bat tapatzeko erabiltzen den gauza; bereziki, ontzien nahiz botilen ahoan sartzen den atala, haiek ixteko balio duena. ik **zipotz**.

Baso erdi ur edan nuen, eta botila kristalezko **tapoiraino** uez beteta zegoela erreparatzea gertatu zitzaidan. Josu Zabaleta
 Istant hartan pisuren batetik kortozko **tapoi** bat erori zitzairen. Pablo Sastre
 Botilaren **tapoiek** salto egin zuten, eta sepia-koloreko bitsak gorantz egin zuen edontzietan. Lopez de Arana
 Beste tragoxka bat hartuko dut, gero **tapoia** jarri eta hitz egin. Xabier Paya
 Itsaso zakar handi batek apurka irensten nau, bainuontziko **tapoia** kenduta xaboiaren aiparra kainerian bueltaka zurrupatua izaten dena baino bortitzago. Sonia Gonzalez
 Baiduontziko lauhun **tapoi**. Harkaitz Cano
 Garagardo botilari eragin, **tapoia** kendu eta bertatik irten zen bits ugaria zurrupatu egin zuen, zarata handia ateraz. Jon Arretxe
 Edozein tokitan uzten duzu beti tintontziaren **tapoia** ! Jose Morales
 Autotik atera, gordailuaren **tapoian** giltza sartu, ireki eta mangeraren muturra gordailuaren ahoan sartzen dut. Mikel Hernandez Abaitua
 Mangera hartu, deposituko **tapoia** kendu eta 95 oktanokoa botatzen dudan bitartean. Mikel Hernandez Abaitua
 Gordailua mukuru betetzen denean mangera atera, **tapoia** jarri, giltzaz itxi eta denda txora noa ordaintzera. Mikel Hernandez Abaitua
 -Zuk nahi duzuna egizu -esan zidan-; nik belarrietako **tapoia** jarri behar ditut. Xabier Mendiguren Elizegi

2 bide edo hodi batetik igarotzea eragozten duen gauza.

Tapoi handi bat nuen garunaren irteeran. Jon Muñoz

Konoaren hondoan metatu zen amiantoa, ate-maskor irekiaren gainean, isilpean **tapoi** trinko bat osatuz. Juan Garzia

Lucy tupustean aurkitu zen ezkaratz irteeran **tapoi** bat osatzen zuten dozena bat pertsonarekin. Joxemari Iturralde

3 irud/hed

Zibilizazio batek bere estatu unibertsalaren barruan aginte-itxura bat mantentzen zuen bitartean, gerra-jaun barbaroek eta haien *comitatus*-ak, noizbehinka, arrakastaz betetzen zuten **tapoi**-estatz hornitzeko zerbitzua. Iñaki Mendiguren

Saudi Arabiak, zeinak, praktikan, ekoizle-**tapoi** izatea onartu baitzuen, eta bere ekoizpena murriztu zuen prezio ofizialen mailari eutsi ahal izateko. Koro Navarro

Eta horixe da gure jokaldia: Euzkadi herrialde-**tapoi** bihurtzea. Alberto Ladron Arana

4 idazteko lumetan, estalgarria.

Esquetan zeneukan lumari **tapoia** kendu eta jarri, kendu eta jarri zenerabilen mugimendu urduri atregabea. Xabier Mendiguren Elizegi

Estilografikaren **tapoia** kiribiltzen ari zela txoriak ikaratu zituen bozina-hotsa entzun zuen kanpoaldean. Joxemari Urteaga

5 *adkor* pertsona mozkotea.

-Sarrriago etorri behar dugu Gasteizera -esan zuen **tapoia**, lider itxura zeukanak-. Jon Arretxe

6 *tapoi-kentzeko* *iz* tapoia kentzeko tresna.

Tiraderan, lata-, poto-, ontzi-irekitzekoak, **tapoi-kentzekoa**, kortxo-ateratzekoa eta antzeko beste zerbait, dena tresna bakarrean, agian. Edorta Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bainuontziko lauhun tapoi (3)

tapoia kendu (5)

tapoin iz ipar tanpoia.

Gelaria hor dugu berriz, **tapoia** eskuan: *orecendiala* aurkezten diot eta ari da, ene bide-karnet behar bezala zigiluaz markatu nahiz, esku ezkerrek eskuina laguntzen duela, bultzatuz, lehertuz bezala; **tapoinaren** lau eskualdeak zapaltzen ditu bata bestearen ondotik; "zer aterako ote da?", ari naiz ene baitan. **Piarres Aintziart**

tapoitxo iz tapoi txikia.

Nire azken presondegian nago eta ezin diot munduari mezurik utzi, nire hitzak ere presondegi barruan daudelako eta inor ez delako ausartzen **tapoitxo** libratzen. **Koldo Izagirre**

taponamendu iz

Zuloa estali eta zuloa estali, hara arrazoibakoen maitetasuna, istripuzko **taponamendurik** ezeean behinik behin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

tar-tar (orobat tartar g.er.) 1 adlag hizketaren onomatopeia. ik tar-tar-tar.

Tar-tar hasten zenean "Jenny" deitzen zidanen, eta neu naun horren testigu. **Anton Garikano**

Ni **tar-tar tar-tar** hasten nintzenezan, pentsakor irribarre egin eta gora eta behera eragiten zion buruari. **Irene Aldasoro**

Hirilaugarren aldia badut **tar-tar** berarekin natorrela, eta milagarrena banu ere, lepoa parako nuke, ardit baten kasorik egin ezetz inork. **Patziku Perurena**

2 (izen gisa)

Doi **tar-tar** xume bat bere hizketa pausatuan, baina hizpideari lotzen saiatu da berehala. **Iñaki Iñurrieta**

Begirale behar luketenak aspaldi daude bertzeekin nahasiak, nora ezeean edo multzo tikitian bildurik, **tar-tar** isilean. **Aingeru Epaltza**

Emakumea, ordea, zoru-garbigailua arma eginda, erdian ezarria zen, traban, bere **tar-tar** ezin isilduaz erasotzen zidala. **Aingeru Epaltza**

Eta jasanezinetan jasanezinena zen Normandoaren **tar-tar** taigabea. **Aingeru Epaltza**

Astia izan eta besotik helduta **tar-tarreen** ateratzen zirenean, gazte hartaz hitz egin, eta elkarrekin haserre itzultzen ziren. **Fernando Rey**

tar-tar-tar 1 adlag hizketaren onomatopeia. ik tar-tar.

Gabriel **tar-tar-tar** hizketan, eta gu buruarekin baiezka. **Bernardo Atxaga**

Ukanen ez dituzten elkarrizketak asmatuz, etengabe ari dira **tar tar tar**. **Ramuntxo Etxeberri**

Hor ari zen, **tar-tar-tar** isildu gabe, toki zoldazu horren dohainak kantari. **Aingeru Epaltza**

Adela eta Estherrek donuts-ei ekin bitartean gelan **tar-tar-tar** jarraitu zutenez, [...]. **Patxi Zubizarreta**

Infusioak edan bitartean beren gizonak **tar-tar-tar** larrutzer. **Aingeru Epaltza**

Zinezko demokratek danba-danba baino nahiago dute **tar-tar-tar**. **Berria - Harian**

Ahozko testigantza, **tar-tar-tar**, **tar-tar-tar**, esan dut zergatik, errazagoa delako hitz zatarrak esatea idaztea baino. **Karlos Zabala**

Ezin omen da bi pertsona batera maitatu, txor-txor-txor, **tar-tar-tar**. **Karlos Zabala**

Marianorena ez zen beste boz bat ari zen **tar-tar-tarreen** euskaraz gainera! **Berria - Kultura**

2 (izen gisa)

Gainerakoa **tar-tar-tar** besterik ez da, kontsolatzeko berriketa. **Karlos Zabala**

3 motor baten hotzaren onomatopeia.

Halako batean, hantxe agertu zen auzoan, patxada ederrean, Sanglas motor batean **tar-tar-tar**. **Juan Kruz Igerabide**

tarantas iz errusiar zalgurdia, posta zerbitzuan erabiltzen dena. iktelega.

Tarantas edo telega izeneko gurdiez bidaiatzen da han udan; leraz, neguan. **Karlos Zabala**

Ibai ontzia baino arinagorik ezer ere ez zegoen Permera edo Kazanera iristeko, ez telega, **tarantas**, berlina, kalesa edo bestelako postako zalgurdirik, eta ez zaldirik ere.

Karlos Zabala

Egun hartan, arin eraman zuten **tarantasa** postatik postara txandakatzen ziren iemstxikek. **Karlos Zabala**

Tarantasaren albo zaldietako bat telegaren gurtetxean lotu zuten soka batzuen laguntzaz. **Karlos Zabala**

Mikel Strogoffek **tarantasaren** larruzko errezelak ixteko beta izan zuen doi-doi. **Karlos Zabala**

Handik ordu erdi batera, *podaroshna* erakutsi eta postako hiru zaldi lotu zizkieten **tarantasean**. **Karlos Zabala**

tarantela iz oso erritmo biziko napolitar dantza.

Sartu orduko, akordeoi baten soinua entzun nuen: txaleko gorriz jantzitako gizon bat **tarantela** bat jotzen ari zen lokalaren bazter batean. **Bernardo Atxaga**

Orkestrak, dantzaldiaren une batean, **tarantela** bat jotzeari ekin zion. **Josexto Azkona**

Etenaldirik gabe **tarantelak** jo eta jo aritu beharko du ordutan eta ordutan, tarantulismoz jotako norbait -neska gazteren bat ia seguru- heriotzaren atzaparretatik ateratzeko.

J.M. Olaizola "Txiliku"

tarantismo iz tarantulismoa.

-Tarantismoak jotzen nau. **Karlos Linazasoro**

-Baina, zerarena, **tarantismoarena**? **Karlos Linazasoro**

tarantula iz armiarma handia, zitzada pozoitsua duena(*Lycosa tarentula*).

Europako leku askotan [...] badira *Lycosa* generoko armiarma handi, iletsu eta saltari batzuk, Taranto inguruetan beste zenbait lekutan baino ugariagoak zirelakoan **tarantula** izenarekin bataiatuak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Tarantulen heldua mingarria da eta armiarma hauen pozoia, neurri batean, arriskutsua izan daiteke, baina ez du eman ohi zaion adinako arriskurik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Tarantularen helduak jasan ezinezko beroak sortzen ditu dirudienez. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Haur bati heldu dion **tarantulari** bizia barkatzen dion ontasuna da. **Felipe Juaristi**

Kalifornian ikusten diren armiarma biribil horietako bat zen, **tarantularen** tamainakoa gutxi gorabehera eta ia haiek bezain arriskutsua. **Xabier Olarra**

tarantulismo iz tarantularen zitzadak eragindako pozoitze egoera.

Antzinatek animalia madarikatua izan zen tarantula eta [...] **tarantulismo** deitutako gaixotasunaren eragiletzat hartu izan zen.

J.M. Olaizola "Txiliku"

Tarantulismoa harrapatzen zuen gaixoak tristura izugarria izaten omen zuen: malenkonia, angustia, egonezina, heriotzaren hurbiltasuna sumatzen duenaren gogo eroria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Musikoterapiako ekitaldi batean hasi beharrean dago, etenaldirik gabe tarantelak jo eta jo aritu beharko du ordutan eta ordutan, **tarantulismoz** jotako norbait -neska gazteren bat ia seguru- heriotzaren atzaparretatik ateratzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tarantulismoak kutsatutakoek exhibizionismorako -tarantularen helduak jasan ezinezko beroak sortzen ditu dirudienez- joera nabarmena izan ohi zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

tarareatu, tararea, tarareatzen da ad ahopekatu.

Aldendu gabe jarraitu genian, bera kanta baten doinua **tarareatuz** eta ni bolantearen gainean erritmoa markatuz, ez aspertzeko, bidaia luzea baitzen. Joxean Agirre

Doinu bat jalki zen bere ezpainenetik -hogei urte lehenago agian antzezlekuen gainean alaia izandako zerbait, denean **tarareatu** eta dantzatu izandakoa. Anton Garikano

taratulatu, taratula, taratulatzen du ad adkor zuluatu.

Goizean goizetik berrikeretan hasi zait, isildu gabe, eta tarteka belarria **taratulatuz** jardun du, eta tarteka korrokada tikiak eginez, inguruetara urduri begiratzeari utzi gabe.

Patxi Zubizarreta

tarazea iz zurezko gauzaki batean egiten den txertatze artiskikoa, zura, nakarra edo beste gairen bat erabiliz.

Petrassi-ren *Tre pre sette* izan zen lanik sendoena: haizezko egurrezkoentzat egindako **tarazea** moduko pieza entzun genuen, neurri, tenpo, iraupen eta irudi ezberdinetan oinarritutako konexioa, homorritmatik askatasun osoraino. Berria - Kultura

tardatu, tarda, tardatzen du ad berandutu.

Asko **tardatuko** al du? Xabier Mendiguren Elizegi

Gehiegi **tardatu** zuen telefonoa hartzen. Juan Martin Elexpuru

Honek hiru hilabete **tardatu** behar du Quitotik Managuara! Joseba Sarrionandia

Askoz kilometro gutxiago izan arren bidea oso bihurgunetsua delako eta ziur aski berdin **tardatzen** da. Mikel Hernandez Abaitua

target iz helburua, jomuga.

Estrategia, taktika eta «**target**» hitzak erabili ohi dituzte bai enpresetan, baita armadan ere. Berria - Ekonomia

Agindu zioten **targeta** erdietsi zuen, estatubatuarren inplikazioa gerra hartan. Txema Ramirez de la Piscina

Gure asmoa **target** edo adin-multzo nahiko zabalara hartzea izan da: bi edo hiru urtetik hasi eta 17ra bitarte. Berria - Kultura

Bikote hura zuen jomuga; bere **target**-a. Fernando Morillo

la ezinezkoa da **targeteko** guztiengana iristea. Joxerra Garzia

tarifa 1 iz prezioen edo tasen taula.

A-8 autobidea Bizkaiko zatian erabiltzeagatik ordaindu beharreko **tarifa** %3,6 inguru igoko dela urtariletik aurrera. Berria - Euskal Herria

British Airwaysek **tarifak** igo ditu. Berria - Harian

Tarifa jaitsiz zihoan jende gazteen gorpuetatik atso-agureen gorpuetara. Juan Garzia

Bizitza-aseguruen **tarifak** finkatzerakoan [...]. Xabier Olarra

Enpresok eskatzen dute euren zerbitzuagatik aseguru etxeek ordaintzen duten **tarifa** bikoizteko. Berria - Ekonomia

Tarifa horiek baina, bitartekariak eta enpresa handiek jartzen dituzte. Berria - Harian

EDF barneko dokumentu batek, **tarifa** horien emendio larri bat iragartzen du heldu diren bizpahiru urtetan. Herria

Eskegi eta norberak deituz gero **tarifa** dei metropolitanoei dagokiena izaten da. Berria - Euskal Herria

Tarifa eta Trukeen Hitzarmen Orokorra. Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jubilatuak ez direnendako **tarifa** doblea dela. Koldo Izagirre

- **Tarifa** finko estandarra eta gaueko beherapena. Aingeru Epaltza

Euskaltelek **tarifa** finkoa ezarriko du ohiko telefonian. Berria - Ekonomia

ADSL, **tarifa** laua edo dena delakoa. Berria - Euskal Herria

Tarifa berriaren arabera, zergadunek batez beste %4,36 gutxiago ordainduko dute. Berria - Ekonomia

Telefonia operadoreari **tarifa** gehigarriko zenbakien deskonexioa eskatu. Berria - Euskal Herria

EBK leku guztietan telefono mugikorren operadoreek **tarifa** bera izatea nahi du. Berria - Euskal Herria

Azken bileran gutxieneko **tarifa** bat ezartzea proposatu zuten garabi enpresek. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan)

Aldatu dena lehenengo minututik aurrerako **tarifa** sistema da. Berria - Harian

Garabi zerbitzuaren **tarifa** igoeraz gain 25 eurotik 50 eurora, beste eskakizun batzuk ere negoziatu behar direla ziurtatu zuen. Berria - Ekonomia

- Entzun duk inoiz ehorztetxeek gain-**tarifak** dituztela zeharkatu beharreko probintzia bakoitzeko? Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tarifa gehigarriko (3)

tarifak igo (4); **tarifak** igotzeko (4)

tarifen igoera (7); **tarifen** inguruan (4)

tarifikazio iz tarifa ezartzea.

"Robin des Bois" izenarekin ezagutuak diren elektrika emaita eta **tarifikazio** merkeagoek EDF-aren itxura bihoztuna hedatzen dutela erran du. Herria

tarima 1 *iz* zurezko plataforma, solailuari buruz goratua egoten dena.

Aurrean **tarima** txiki bat zegoen eta **tariman** mahai bat, liburukote batekin. Jon Maia

Ostiralean, asteko notak banatzen zizkiguten, eta gure gelako **tarima** gainean jartzen ginen ilaran, onenak aurrena eta txarrenak azkena. Bernardo Atxaga

Tarimara igo zen, gizon handi hura bere txapelarekin. Jon Maia

Irakaslea, **tarimatik** jaitzirik, atzera-aurrera dabil mahai-ilaren artean. Anjel Lertxundi

2 zurezko zoladura.

Tabikeak bota, sukaldea eta komunak montatu, **tarima** jarri... Jokin Muñoz

Lehenengo **tarima** jarri denean, gainean beste **tarima** bat jarriko da trabeska, eta iltzeekin josiko da solairuari bi geruzaren babes emanaz. Santiago Iruretagoiena

tarja *iz* Nafarroako diru zaharra.

Tarja bat eta erdi orduko sos, kabala haundi bakoitxeko. Herria

tarjeta *iz* txartela.

Erreparo askotxo jarri izan zaizkio ebiakoitzari paraje gehinetan eta gure hauetan batik bat: **tarjeta** gorria ateratzen zaio oso erraz, edo gutxienez semaforoa pizten diote.

Pello Zabala

Antologia honetan, salbuespenak aparte, Rimbauden poema ulergarrienak aukeratu ditut, besteak beste kritiko zital batek **'tarjeta** postal' deitura iraingarriaz kalifikatu zituen horietakoak barne direla. Anjel Lertxundi

tarnosar ik **tarnoztar**.

tarnoztar *izlag/iz* Bokaleko auzo Tarnozekoa, Tarnoz dagokiona; Tarnozeko biztanlea.

Lehen batean, Baztandarrak elkarteko François Laroche **tarnosarrarekin** joan beharra zen. Herria

taro *iz* *Araceae* familiako landarea, jateko ona, eskualde tropikaletan almidoia lortzeko landatzen dena (*Colocasia antiquorum*).

Mirtiloa, naxia, onddoa, pakana, papaia, ranbutana, salsifia, soja, tamarilloa, **taroa**, topinaburra, txaiotea, Txinako patata gozoa, txirimoia, [...]. Edorta Agirre

tarot 1 *iz* ohikoak baino luzeagoak diren eta irudi bereziak dituzten joko kartak, kartomantzian erabiltzen direnak; karta horien multzoa.

Ez dituzu ba azterketako galderak jakin nahiko **tarotaren** bidez, ezta? Pako Aristi

Baina **tarotak** ez dizu esango maiteminduko zaren edo ez... Pako Aristi

Tarot madarikatua irakurtzen jarriko zaituztet museko karta sail batekin. Harkaitz Cano

Tarota irakurtzeko abildadea ei zuen. Harkaitz Cano

Ama beti izan diat alde, eskuko marketan eta **taroteko** kartetan izar bat pizten ikusi zuenetik Italiako zeruan. Joan Mari Irigoien

Marsellako **Tarotaren** edizio aski garestia egin nion opari, gure ezkontzaren urtemugaren oroigarri. Aingeru Epaltza

Marseillako **Tarotaren** kaxa. Iban Zaldua

Sutu zitzaidan: bi urte baino gehiago zuen **tarotean** ari gabe. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Estazioetan gauza piloa erosten dut: abanikoak, labana txikiak, teniseko pilotak, **tarot**-kartak, baselizetako gidak, dalmata arrazari buruzko liburuak. Unai Elorriaga

Fournier enpresak Arabako hiriburuan egin duen **tarot** karta-sorta ere ikusi ahalko da. Berría - Kultura

Zeure burua ezagutzeko edozein baliabide zaizu kilikagarri, baita martingala hutsa dela sumatzen baduzu ere, berdin dio apaizen gogo-jarduna izan ala sorgin baten **tarot**-irakurketa. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taroteko kartetan (3)

tarpeiar *izlag*

1 Tarpeiar haitz erromatarren garaian, Kapitoloio muturretako bat, heriotzara zigorturiko batzuk bertatik amilarazteko erabiltzen zena.

Erromatarren artean, lapurretan egiten zuen esklaboa **Tarpeiar** haitzetik botatzen zuten. Iñaki Iñurrieta

tarquinotar *iz* Erromako Tarkino izeneko erregeen familiako kidea.

Marko Katon zentsoreak zioenez, Erromako herrian gauza jakina zen - **Tarquinotarren** oroitzapenengatik eta hiriko ordenantzengatik ez baitziren batere erregezaiek errege guztiak basabere harrapakarien klasekoak zirela. Esteban Antxustegi

tarranta *iz* hots desatsegina.

Oren pare batez erabili duzue zalantza hori barrenean, harik eta helikopteroen **tarrantak** entzun dituzuen arte. Xabier Montoia

Ez zen izan elikoptero **tarrantarik** ez eta etxerako bidexkan otso-zakur ihasirik. Michel Oronoz

Berriz biltzen dira gaitzeko **tarrantan** eta gorago joaiten dira, lerroz lerro, Oilandoiko kaskoaren inguratzeko, korona batez bezala. Michel Oronoz

tarrantari *iz* tarrantan ari den pertsona.

Zer ari nintzen bada ni, han [...] leku sakratu hartan, beste **tarrantari** harro haren balentriak entzuten, bildutasunean egoteko partez? **Daniel Landart**

tarrapaka *adlag* zarataka.

Egongelako lurraren gainean, euria leihoen kontra **tarrapaka** ari dela, amodioa egiten dio. **Oskar Arana**

tarrapata 1 *iz* zarata, zalaparta, iskanbila.

Makinaren **tarrapata** entzuten egon zen pixka batean gizona, eta, gero, kopia amaitzera itzuli zen berriro. **Irene Aldasoro**

Tarrapatarik eta espanturik gabe. **Aingeru Epaltza**

Gauza bat ezin ukatua haatik, hoinbeste **tarrapatarekin**, denek Eguberri gogoan badute, ainitzek ez dutela axola handirik Eguberri hori berenez zer den bestenez. **Herria**

Esku batek ateratako **tarrapata** entzun zuten baserriko atean eta gaueko izaki haren eskuaren arrastoak geratu ziren betiko baserriko atean. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Tarrapataren ondotik, odola, malkoak eta isiltasuna. **Xabier Montoia**

Iduri du **tarrapata** haundian dabiltzala gertakariak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Eizen oraiko presa eta **tarrapatarik**. **Herria**

2 *tarrapatan adlag* tarrapatata.

Tarrapatan atera nintzen korridorera. **Aingeru Epaltza**

Korapilo bat sentitu zuen zintzurrean eta **tarrapatan** atera zen etxetik, erditze gau hartan egin zuen bezalaxe, nehork ez zezan ikus negarrez. **Elena Touyarou**

Tarrapatan mintzo zitzaigun, hats hartzeko etenik gabe. **Aingeru Epaltza**

Funtzionarioak kopeta noiznahi xukatzen zuen mokanesaz eta, elizako erlojuak bostak jotzean, puntu-puntu, orrialdeak, lumak eta tinta-ontzia altxatzen zituen, **tarrapatan** lekutu aitzin. **Elena Touyarou**

Dutxatik atera, **tarrapatan** xukatu eta oihala bularretatik izterretara, gorputzean inguratzen du. **Eneko Bidegain**

Ez dakit zer esanda **tarrapatan** alde egin nuen etxetik Marina korridorera azal zedin baino lehen. **Koldo Izagirre**

Hau zure azken gaua izan daitekeela oharturik, biziko gertakizun nagusiak oroitzen zaizkizu **tarrapatan**. **Xabier Montoia**

Biziaren ostikoei **tarrapatan** ihesik ez egiteko arma dudala tragoa. **Aingeru Epaltza**

Tarrapatan ari zarete, galtza, botoi eta boten lokarriekin borroka bizian, baina denak isilean. **Xabier Montoia**

Hortakotz lukete menturaz beste diktadura bat nahiago ikusi amerikarrek Irakian, ezen-ez-eta **tarrapatan** xutitu demokrazia bat. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tarrapatan atera (3); **tarrapatan janzen** (3)

tarrapataka 1 *adlag* arrapaladan, itsumustuan, itsumustuka. ik **tarrapata 2**.

Tarrapataka atera dute handik, txit estualdi larriak pasa ondoren. **Txillardegi**

Geldo samar batzuetan, **tarrapataka** bestetan. **Gotzon Garate**

Karlos Setimo bera ere bertan erortzeko zori-zorian egon zen; eta bihamunean bertan, **tarrapataka**, Lantz erreka arroan gora iritsi zen Frantziako Aldudera.

Txillardegi

Hiriburuko ospitalera eramaten zuten **tarrapataka**, Xarlestegi herriko auto-jabe bakarraren bi-zaldiko urdin ilunean. **Itxaro Borda**

Lantokian **tarrapataka** eta hatsantua sartu nintzen, erdia egia eta erdia alegia. **Aingeru Epaltza**

Bederatzi orenetan fraideak meza nagusian ziren; **tarrapataka** askaldua nintzen. **Marzel Etxehandi**

Domenga ez zen ohartu ere Joanto hor zela, eta berriz **tarrapataka** igan zituen eskailerak. **Elena Touyarou**

Oiloak arranoren batengandik ihesi oilategira **tarrapataka** itzuli balira bezala, halaxe itzuli zitzaion pentsamendua. **Aitor Arana**

Murruaren kontra zaplastatzen zen, arropak **tarrapataka** kendu ondoan, gurutzefikatua izateko gertu. **Itxaro Borda**

Erostunek liburuaren bereganatzeko hartu duten presa berarekin **tarrapataka** irakurriko dituztela beren etxeko egongeletan egileak idatzitakoak. **Pello Salaburu**

Ez dut besterik gogoan, eta hala ere ziur nago beste gauza asko etorri zitzaizkidalda burura **tarrapataka**, arnasa bizkortzen zitzaidan bitartean. **Karlos Zabala**

Erranak erranik lekutu zen auzoa, **tarrapataka**, bat-batean gaizki obratu zuela konbentziturik. **Itxaro Borda**

Hori gauzak neurtuz behar zela egin, ene partetik segurik, lañoki eta sanoki, urratsa urratsaren ondotik, ez **tarrapataka**. **Janbatiit Dirassar**

2 (izen gisa)

Eta gu okerreko etxean, deskuidatuta, gure **tarrapatakan**! **Harkaitz Cano**

3 *tarrapatakan adlag* tarrapatata.

-Total, **tarrapatakan** behar izan dugu harrapatu gure hegazkina! **Ramuntxo Etxeberri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tarrapataka egin (5); **tarrapataka jaitsi** (4)

tarrapatakeria *iz*

Tarrapatakerialan sartu dira eta, beraz, galdu dute. **Herria**

tarrapota *izond*

Hamalau urte bide zituen mutil bati josi zion begirakunea: gizona zen, **tarrapota**, hanka-hutsik zegoen, begitartea eta txilaba lohiz zikinduak. **Patxi Zubizarreta**

tarrat

1 *tarrat egin* urratu.

Alkarren aurrez-aur egozala, egur-txaria batek ezeutsan bada atsoari gona-magala **tarrat** eginda urratu? **Pello Zabala**

Aurrera egin nuen, eta eskolako alkandora zuriari **tarrata** egin nion. **Juan Kruz Igerabide**

Ordu arte bizirik iraun zuten soldaduek, uniformeak **tarrat** eginik, botak trapu zaharrez bildurik, eskuak oihal zarpailez estalirik, aurpegia zapi zatiez gorderik, nekez egiten zuten aurrera. **Felipe Juaristi**

tarrata 1 iz urradura.

Azken mendeaz geroz bereziki indar eta otoitz egiten dute bai bi alderdiek hein batean bederen atzoko **tarrata** haren berriz josteko. **Herria**

Baina ez gaitezen laino **tarratetan** gal. **Iñigo Aranbarri**

2 zarata, tarrapata.

Motoen **tarrata** eta burrunbetan gaindi, hango jende erromes gaixoaren lilluragarri batetik eta nardagarri gehienean. **Herria**

Sirenen txistua baino mingarriagoa arranoen amiltze astuna, oinaztuaren garraren aitzin bere **tarrata**. **Koldo Izagirre**

Ez du uzker eta **tarratarik** jalgiko baina hegal-ukaldi segura bai xori haundi horrek bere goratasun hoberenerat heltzeko. **Herria**

Komun-esertokian eseririk, sabelekoa hustu zuen aparteko **tarratetan**. **Josetxo Azkona**

tarratada 1 iz urratua.

Kaparen **tarratada** horrek ene estomakan tatuaje gorrasta bat ikustera uzten du. **Juan Garzia**

Hatz zikin batez Congok **tarratada** luze bat seinalatu zuen bere praken belaunean. **Lopez de Arana**

Berokia jantzi zuen praken atzealdeko **tarratada** bat estali nahairik. **Lopez de Arana**

Tarratada kontu handiz josteari ekin zion oso puntada zehatzez. **Lopez de Arana**

Alkandora zahar baten **tarratadak** pitzatu baitzidan arima eta kristal hautsien eztenkadek erre baitzidaten barrua. **Hasier Etxeberria**

2 irud/hed

Kanpin-dendakoa ireki denean ilunaren izara urratuta geratu da, tximistaren gisako **tarratada** batez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Atzean, lurrin eta laino **tarratada** zuriz marraturik, eraikin gris eta garaiek gorantz egiten zuten hodei erorien artetik. **Lopez de Arana**

3 tiro jasa.

Tarratada luzeak dira, mitrailleusa batek jaurtiak. **Xabier Montoia**

Pareta zikinak mauser abandonatuak paga murrizak fusilamenduen **tarratadak**. **Koldo Izagirre**

tarrataka adlag tiro jasan.

Bederatziak jo eta gero elkartu eta zuhur ibili ziren mahastietan eta anplifikadore bat egon balitz haien bihotz-taupadek **tarrataka** ari den ametrailadora bat ekarriko zuten gogora. **Koldo Biguri**

tarratatu, tarrata, tarratzen 1 da/du ad urratu.

Jantzia ziplo **tarratatu** zen. **Lopez de Arana**

Zakurrak bere jolasetan darabiltzan oihalak hozkada batez **tarratzen** dituen bezala. **Josu Zabaleta**

Ellenen oinetan, alkandora **tarraturik** eta lohiturik zuten makina bat ume zeuden. **Lopez de Arana**

Bi mahukak **tarraturik** baitzeuzkan ukondoetan. **Jose Morales**

Billar jokalaria zarpail batek bat-batean tapete orlegia **tarratzean** nola, hala **tarratzen** zen gaua, balaztaren txilioarekin batera. **Harkaitz Cano**

Analisiaren sobrea hartu eta mila puska txikitari **tarratatu** eta apurtu du. **Harkaitz Cano**

Txartelari pusкета bat **tarratatu**, pusketari su eman eta harekin piztu zuen O'Connor jaunak zigarroa. **Irene Aldasoro**

Eskura zituen koaderno eta paperak oro **tarratzen** hasi zen Isabelle, amorru biziz. **Harkaitz Cano**

Bitan **tarratua** izan zen argazki baten erdia. **Harkaitz Cano**

Trailutzar antzeko bat zebilkion dinbi eta danba, zanpaka; mamia hezurretik **tarratatu** nahi zion arantza-mutur handi bat balitz bezala. **Mirentxu Larrañaga**

Haien ontzia Erpiceko uharrietan **tarratua** zen, eta berak igerian salbatu dira. **Juan Garzia**

2 irud/hed

Orduan atsekabeak, durduzadurak eta asperdurak **tarratzen** zuten, beste edozein izaki antzo. **Mirentxu Larrañaga**

Bozgorailuaren distortsioak haizearen ehuna **tarratatu** zuen, **Karlos Linazasoro**

3 (era bururuta izenondo gisa)

Ukondo-belaunetan adabakiz jositako galtza **tarratatuak**. **Koldo Izagirre**

Jakanarru beltza, artilezko jertse beltz **tarratua**. **Unai Iturriaga**

Ohean beste norbait ere egon izan balitz bezala zen, Veronicak berekin hartu izango zuen argazki **tarratatuaren** beste erdian. **Harkaitz Cano**

Emakume bat eta gizonezko bat, Sena ertzean, sofa **tarratuan** kukuturik. **Harkaitz Cano**

Ez zen atrilistatik etorri estazioko horma apurtuaren orrialde zuri **tarratua** pasatzera. **Harkaitz Cano**

tarrateko 1 iz urratua.

Emazioe buelta: aurrez ikusita, gaur estreinatua duen jakan orbanak erakusten ditu, eta atzetik ikusita, galtzetan **tarratekoa**. **Itziar Otegi**

2 tiro jasa.

Metraileta baten **tarrateko** labur bat entzun zen, urrun. **Koldo Biguri**

tarratots iz tarrata-hotsa.

Kuleroetatik tiratu nion indarrez, eta hauek urratu egin ziren **tarratotsez**. **Juan Martin Elexpuru**

tarraz adlag herrestan.

Kumea eramaten baduzue, ama atzetik etorriko da, bere kexu kantu nekatuarekin, **tarraz**, bere odol lorratza izotzarte zakarrean luzatuz. **Joseba Sarrionandia**

tarrazka adlag herrestan, tarraz.

Morroiek hildakoei banan-banan hanketatik heldu eta **tarrazka** eramaten zituzten. **Josu Zabaleta**

tarro 1 izen ipar handi samarra.

Gaur ogi porroska mokokatzer a jin den izenik gabeko [xori] **tarro** horrek atzo eta herenegun ase eder bat eginik joana zatekeen, gizontzen ari zaidala egunetik egunera, tripazorroa. Kontrako horiek ari dute emeki emeki beren larderia hedatzen eta eskualde hortako hiri **tarro** bat dute beretu Kabul hiririk ez hain urrun. **Piarres Aintziart**

Etxe **tarro** beltzak, arbelez estaliak. **Piarres Aintziart**

Bi oreñetan xuxen, jantzi berezia zuen enplegatu batek kapera biluzi baten antza zeukan gela **tarro** batera sarrarazi gintuen. **Daniel Landart**

Muga harri eder eta **tarro** batean irakurtzen dira hitz erdi trukes baina hunkigarriak: *Uterga Ruta Jacobea*. **Piarres Aintziart**

Hiritar multzo **tarro** batek bere elkarbizitza bestearekin esklaboaren zirgilo madarikatua lepoan bezala bizi beharko ez badu, [...]. **Joxe Azurmendi**

2 (izen gisa, kirol mailetan) ik tarrotu 2.

Gero gazteen eskuzka finalak Arbotin 4etan: xitoak, **tarroak**, gaztetxoak, Baigorriko bi pareekin. **Herria**

Xiterra handian Kostakoak (xitoetan), BAC (**tarroetan**), Kostakoak (kadetetan) xapeldun. **Herria**

Horiek ziren **tarroen** arteko bi finalerdiak. **Herria**

tarrotu, tarro(tu), tarrotzen 1 da/du ad handi samartu, bereziki haurra.

Haurrak **tarrotuak** zituen. **Marzel Etxehandi**

DASSko haur aspaldi **tarrotuak**, hil-zeinuen erritmoan jaso zituzten azote eta kolpe bakoitzaz oroitzen ziren. **Itxaro Borda**

Eta elkarte eta enpresa hauek, ongi **tarrotuak**, diruak inguratzen dituzte, diru publikoak eta pribatuak, eginkizun hauek aurrera ateratzeko. **Pello Salaburu**

2 (era burutua izenondo gisa)

Plazarat hurbiltzen diren haur **tarrotuek** ikusten dute lorietan nola apainduak diren bazterrak. **Herria**

3 (era burutua izen gisa, kirol mailetan) ik tarro 2.

Tarrotuen mailean esku huska Etchemendy-Etcheverry taldea, Baigorriko pareari nagusitu da (30-19) Frantziako xapelgoko finalean. **Herria**

Tanto bat aski, **Tarrotu** hauetan, irabazteko eta hura BAC-ekoek egin, hiruez ere eremanen BAC-ekoak Amikuztarreri. **Herria**

tarta 1 iz batez ere irinez, gurinez eta azukrez osaturiko oreaz eginiko gozopila.

Mary Annek franbuesa bat hartu zuen **tartaren** gainetik eta ahora sartu zuen. **Bernardo Atxaga**

Azkenean, fruitu lehorrezko **tartatik** puska handi bat ebaki, paperean bildu eta esan zion: [...]. **Irene Aldasoro**

Ez nolana hiko **tartak**, baizik eta bi pisukoak, bata, behekoa, arrosa, eta bestea, goikoa, berdea edo zuria edo urdina, gindaz inguratua. **Fernando Rey**

Ruche jaunarengana zetorren Max, 85 kandelaz argitutako **tarta** eskuan. **Jon Muñoz**

STELLAk, sukaldera itzuli, eta **tartako** kandelak pizteari ekin dio. **Xabier Paya**

Rooneyk eta Cristiano Ronaldok behin eta berriz estutu zuten Frantziako taldea, baina azkenean Rudd van Nistelrooyk piztu zuen **tartaren** kandela. **Berria - Kirola**

Mota guztietako **tartak**, ezkontzakoak, bataiokoak, bi pisukoak eta bost pisukoak, goian ezkonberriak zituztenak eta ez zituztenak, bihotz formakoak eta gaztelu formakoak.

Fernando Rey

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nik, urduritasunak jota, **tarta** osoa jan nuen. **Fernando Rey**

Poliki zetorren, gainean kandela-baso bat zeukan **tarta** handi-handi bat eskuan zekarrela. **Jon Muñoz**

Tarta zoragarri bat, izpilikuaen kolorekoa. **Fernando Rey**

Nesken amonari ezkontzako **tarta** egin zion gozogile baten katalogoko marrazkiak ziren. **Fernando Rey**

Izekok txokolatzeko **tarta** prestatu digu, eta merienda mundiala izan da. **Patxi Iturritegi**

Mugurdizko **tarta** bat mesedez. **Joxemari Iturralde**

3 irud/hed

Nazioarteko merkataritza banatzeko prest dagoen ekoizpen jarduera masa jakin bat omen da, **tarta** finko bat bailitzan. **Iñaki Heras**

Etengabe, **tarta** ari da handitzen, baina gizarte gastuari bideratutakoa berdina da, edo txikiagoa, handitasun horren ondorioz. **Berria - Ekonomia**

1977an baliabide gutxien zuen biztanleriaren %20ak **tartaren**, hau da, errenta osoaren %5,7a zuen bere esku. **Iñaki Heras**

Venezuela munduko bosgarren herrialde petrolio ekoizlea da, beraz, oso **tarta** tentagarria nazioarteko diru erakundeentzat. **Berria - Mundua**

Beste auzi garrantzitsu bat errentaren eta aberastasunaren banaketari buruzkoa da, alegia, aipatu **tartaren** banaketari buruzkoa. **Iñaki Heras**

Azken batean, nolako zerga sistema, halako **tarta** banaketa. **Iñaki Heras**

Irak **tarta** handi bat da eta guztiek nahi dute zati bat. **Berria - Harian**

Lehen publizitate **tartaren** anaia txikiak ginelako euskarazko komunikabideak **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tarta puska bat ekarri didate baten baten urtebetetzea delako. **Agurtzane Juanena**

Hirugarren **tarta** zatia eskatu dudanean, gure begiak katigatuta gelditu dira. **Patxi Iturritegi**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urtebetetze **tarta** zuten hura, bost urte lehenago izandako gertaera ospatzeko. **Javi Cillero**

Automatikoki, urtebetetze **tartan** kandela arrosak jartzeari ekin dio. **Xabier Paya**

Goazen, Severus; bada han oso itxura gozoko krema-**tarta** bat, dastatu nahi dudana. **Iñaki Mendiguren**

Galdetu zion ea eztei-**tarta** al zen erosi nahi zuena. **Irene Aldasoro**

Amak egindako marrubi **tarta** bat. **Josu Zabaleta**

Antjek ezti-**tarta** prestatzen zuen eskolarako etxeko lan gisa. **Fernando Rey**

Hainbat bizkotxo arrunt eta patata-**tarta** egongo ziren. **Anton Garikano**

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Terrazan eseri nintzen sagar-**tarta** zati bat jatera. **Ramon Saizarbitoria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ezti **tarta** (3); **sagar tarta** (8); **tarta banaketaren** (3); **tarta egin** (3); **tarta handi** (3); **tarta puska** (3); **tarta pusketa** (4); **tarta zati** (4)

tartaren banaketa (7); **tartaren banaketan** (3); **tartaren banaketari** (4)

tartail iz arlorea, baldresa.

Lanjerra ukigarri zen, Aljerrera ari zen soldadu talde **tartail** eta tematsuarentzat. **Itxaro Borda**

tartailu *iz* totela.

Mintzo direnean hitz apalez mintzo dira, ahotsaren doinuari gorabeherarik gabeko arraia batean eutsiz; bestela, denborarik gehiena **tartailu** ematen dute. **Pako Aristi**

tartaina

Sunpur arteketan zintzilikatzen zitzaizkion begiak belar idor eta **tartaina** sareetan finka zitzakeen. **Itxaro Borda**

tartaleta 1 *iz* tarta modukoa, txikia.

Bandexa hartu eta **tartaletak** biltzen hasi zen. **Bernardo Atxaga**

2 (hitz elkartuetan)

Franbuesa-**tartaleta** guztiak lurrean barreiatu ziren. **Bernardo Atxaga**

Madame Gabastouk bandexa bete franbuesa-**tartaleta** oparitu zidan hiletari buruz galdetu ondoren. **Bernardo Atxaga**

Kuia zopari makarroi **tartaleta** jarraitu zitzaion, eta hari kafea. **Bernardo Atxaga**

tartalotu, tartalo, tartalotzen 1 du *ad* Tartalo bihurtu.

Argazki-zati guztiak batzearekin agertu zen **tartalotutako** irudia. **Joxemari Urteaga**

2 (era burutua izenondo gisa)

Haur txikien gisan barrezka eta elkarri plisti-plastaka, ilargi zaharraren begi **tartalotu** eta jakintsuaren pean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

tartamutu *iz* totela, mihi-motela.

Pentsa genezake orduko euskara lasai eta zabal entzunik eta mintzaturik biziko zela gure Bizente gizaseme prestu hau, bere gotzain Valerio hitz-motela ordezkatzeko gauza izan zena, **tartamutu** edo hitz-totel omen zuten gotzaina-eta. **Pello Zabala**

tartan *iz*

Tartan: Eskoziako ohial sendo eta beroa da, gizezkoen gona tipikoak eta abar egiteko erabiltzen dena. **Iñaki Mendiguren**

Cadinek, aldiz, soineko koadro zuri-urdindun bat, ama Chantemessek erabilitako **tartan** oihal batez egindakoa. **Karlos Zabala**

Tartanazko bufandak ere ez zion aztoramen hura disimulatzen. **Iñaki Mendiguren**

tartana 1 *iz* zalgurdi olanaduna, bi gurpikakoa, eserlekuak bi alboetan dituena.

Geltokiko mutilari ekipajearen txartela eman zioten, eta **tartana** bat hartu zuten, herrira laster batean eraman zituen. **Josu Zabaleta**

Tartanaren zaratarekin, Margarita, Luisito eta mirabe zahar bat irten ziren atera. **Josu Zabaleta**

Tartanak errepidearen jarraipeneko kale luze, zabaletik jo zuen. **Josu Zabaleta**

Andres orgara igo zen, eta **tartanak**, Valentziako zenbait kale igarorik, errepide batetik jo zuen. **Josu Zabaleta**

Esnatu zuen bere **tartanan** erdi lotan zegoen gidaria, eta atzerako buelta hasi zuen. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Andres **tartana**-orgadun batengana joan zen, herritxoraino eramatea zenbat kobratuko zion galdetu zion, **Josu Zabaleta**

tartar ik tar-tar.

tartariar (25 agerraldi, 4 liburutan; orobat tatarriar 330 agerraldi, 3 liburu eta artikulu 1ean) 1 izlag Asiako eskualde Tartariakoa, Tartariari dagokiona. ik tartaro.

Tartariar itxura ematen zion su bat sortu zitzaion bere begi beltz haietan. **Koro Navarro**

Tatarriar enperadore musulman bat izan zen. **Karlos Zabala**

Tartariar erara jantzita azaldu zen. **Felipe Juaristi**

Tartariar hiztegiaren arabera. **Pablo Sastre**

Gengis Khanen **tartariarrentzat** bekatua zen -are gehiago, delitu larria- haiztoa sutan jartzea. **Iñaki Iñurrieta**

Espiritu-jarrera hori japoniarrengana pasatu da, **tartariar** jatorrikoak izaki, erraz froga daitekeenez. **Iñaki Iñurrieta**

Den-denek kidetasuna baitzuten herri **tatarriar** edo mongoliarrekin. **Karlos Zabala**

• 2 *iz* Tartariako herritarra.

Aurpegi biribila zuen, **tartariarren** artean ohikoa. **Felipe Juaristi**

Arraza askotako jendea bizi da han, **tartariarrak** batez ere, aspaldi ia Europa osoa mendean hartu zuen Gengis Khan garaiezinen ondorengoak. **Felipe Juaristi**

Herrialde horiek guztiak **tartariarrek** sakailatu zituzten. **Iñaki Iñurrieta**

Polonia zaharra erakusten digu -mesias faltsuek sorturiko itxaropenak eta arazoak, **tartariarrek** eta kosakoek eragindako basakeriak-. **Koro Navarro**

Kitai-Gorod, Beloi-Gorod, Zemlianoi-Gorod izeneko auzune azkengabeak ziren, europarren, **tartariarren** edo txinatarren bizileku. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan)

Mutilak soldadu amaituko zuen iparraldeko mugan **tartariar**-leinu basa eta hezigaitzen aurka borroka gaiztoan. **Felipe Juaristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errusiarrek eta tatarriarrak (4)

armada tatarriarren (3)

soldadu tatarriarren (3); **tatarriarren atzaparretan** (6); **tatarriarren destakamendu** (3); **tatarriarren inbasioak** (3); **tatarriarren inbasioaz** (3); **tatarriarren kanpamentuko** (3); **tatarriarren mende** (3); **tropa tatarriarren** (3)

kanpamentu tatarriarrera (3)

tartariartu, tartariar, tartariartu (*corpusean tartariartu soilik*) da/du ad tartariar bihurtu.

Ez da komeni gehiegi **tartariartzea** ! **Karlos Zabala**

tartariera (*corpusean tartariera soilik*) iz tartariarren hizkuntza.

Mikel Strogoffek, ikusezina bere gordelekuan, elkarrizketa guztia entzun zuen, eta baita ulertu ere, **tatarieraz** mintzo zirenez gero. **Karlos Zabala**

tartariko

1 azido tartariko muztioa hartzitzen den ontzietan osatzen den gaitik ateratzen den azidoa.

Gero 250°C-ra berotzen genuen bisulfato horregaz azido **tartariko** nahaste bat, hala azido **tartariko** azido pirubiko bihurtuz deshidratatzen da eta destilatatu. **Juan Garzia**

tartarkari *izond* tar-tar egiten duena.

Jende mordoxka bildu zen espaloian automobil **tartarkariari** omen egitera. **Irene Aldasoro**

tartaro (*17 agerraldi, 11 liburu eta 3 artikulutan*) *izond/iz* tartariarra.

Dobroudja-n, Danubioko bokaletan, herri eta herrixka **tartaroak** daude sakabanatuak, eskualde horretako mapa linguistikoko tantoak bailiran. **Isabel Arrigain**

Tartaroen artean, emakumea zenbat eta gehiago prostituitu, orduan eta ohoratuagoa zen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hazka egin errusiar bati eta **tartaro** bat aurkituko duzu. **Iñaki Mendiguren**

Tartaroak dira, Europara isilka sartu eta bertan laketuak. **Matías Múgica**

Jakina da metal horiek oso urri izan zirela godoek eta bandaloekek batetik, sarrazenoek eta **tartaroek** bestetik, dena inbaditu zutenean. **Iñaki Iñurrieta**

Erdi Aroaren amaieran Errusian hegohaize zakar baten moduan sartutako **tartaroen** agintariak izan ziren Yusupovtarrak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

1944ean Stalinek Krimeako 200.000 **tartaro** Siberiara deportatu zituen, naziekin kolaboratu izana egotzita. **Berria - Mundua**

Harekin egindako itunak Inperioaren aginterako atek ireki zizkien Yusupov **tartaro** kristautuei. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lehoiz betetako basamortu batean edo estepan **tartaroz** inguratuta. **Pello Lizarralde**

tartatxo *iz* tarta txikia.

Weasley andreak jertse gorri bat egin zion Gryffindorreko lehoia aurrean zuena, eta etxean egindako fruta lehorrezko dozena bat **tartatxo** ere bidali zion. **Iñaki Mendiguren**

tarte 1 *iz* bi gauzaren edo bi punturen artean gertatzen den hutsunea edo hedadura. **ikbitarte; distantzia; arte**¹.

-Zer **tarte** dago Moskutik hona? -galdetu zion. **Karlos Zabala**

Laurehun bat verstako **tartea** zen (426 kilometro), eta trenak egun erdia beharko zuen haraino. **Karlos Zabala**

Elkarren artean hiruzpalau metroko **tartea** zuten bi arrasto paralelo marraztu zituen labanaren puntaz ziegako lur hilean. **Anjel Lertxundi**

Pertsona bakoitzari 2,4 metro koadroko **tartea** dagokio batez beste. **Jokin Urain**

Tarte hori gure "segurtasun distantzia" zen. **Aingeru Epaltza**

Dorretik dorrera utzi beharreko **tartea** ez da izango gezi-tiro batek hartzen duena baino handiagoa. **Santiago Iruretagoiena**

Habe arteko **tarteak** ere estali egin zituztela. **Santiago Iruretagoiena**

Bai dentikuluen eta bai triglifoen artean geratzen diren **tarteei** *metopak* esaten zaie. **Santiago Iruretagoiena**

Trenak [...] oso denbora laburrean bete zuen Miarritzeraingo **tartea** : hamar bat kilometrokoa, omen. **Txillardegi**

Orain arte, proiektuaren arduradunek sei **tarte** atera dituzte lehiaketara eta, osotara, 43 kilometroko luzera dute. **Berria - Euskal Herria**

Teresak ordu erdia behar zuen **tarte** hura hiru aldiz ibiltzeko. **Bernardo Atxaga**

Belarra hazi da, hala ere, lauzen **tarteetan** . **Koldo Izagirre**

Halabehar hutsez elkarrengandik bi etxe-blokeren **tarte** batera baizik ez baikin bizi Brooklyngo erresuma zaharrean. **Oskar Arana**

Albertek azaldu zion Jonathani zer-nolako berri ematen zion, aeroportutik ingurabideetarako **tartean** , bezero bakoitzak bere hiriaz. **Jon Muñoz**

ik beherago 10. **Askoren artean**

Bi marren arteko **tartean** sartu eta eskuak eraman nituen atzera. **Anjel Lertxundi**

Gizonak bagoitik bagoirako **tarteetan** elkartzen ziren, purua edo zigarroa erretzera, kontu kontari. **Jon Maia**

Herritik irten arteko **tartea** isilean egin genuen. **Edorta Jimenez**

Tarte hori ez da izango arra bat baino handiagoa. **Santiago Iruretagoiena**

Eragozpenik ez zen ageri bidearen **tarte** horretan. **Karlos Zabala**

Kazetaritzatik nobelagintzara doan **tartea** iragan berri duk. **Aingeru Epaltza**

Hasieran zuhertasunezko **tartea** gordetzen bazuten ere, [...]. **Anjel Lertxundi**

Badirudi ez dela posible iraganaren ahanztura pragmatiko bat, erregeneraziorako **tarte** gutxi geratzen dela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Maximoaren eta minimoaren **tartea** apuntatu. **Pello Zabala**

60 eta 40-45 urteko **tarte** horretan dugu elebidun gutxien. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondoekin)

Haren hutsune eta **tarte** oteizar-metafisikoak hautsez libre gordetzea batera lan erraza ez bazen ere, [...]. **Iban Zaldúa**

Eremu horretan hamahiru gela egingo dira arku moduan banatuta, beren artean hamabi **tarte** berdin utziz. **Santiago Iruretagoiena**

Emazteak aurrea hartu zion senarrari korridore estu luzean barna, egongelaraingo **tarte** osoan. **Mirentxu Larrañaga**

Ni, zutik, elkarren artean **tarte** jakin bat gordeaz, hesi ikusezin baten gainetik hizketan arituko bagina bezala. **Joxean Agirre**

Neka-neka eginda baitzeuden **tarte** handia ibili ondoren. **Karlos Zabala**

Estatu konstituzionalaren barruan, Gernikako Estatutuaren erreformak ez du **tarte** handirik. **Berria - Euskal Herria**

Izadiaren eta esperientziaren lurraldean **tarte** on bat ibili ondoren, [...]. **Ibon Uribarri**

Non aurkitu zuen halako **tarte** luzea egiteko behar zen indar fisikoa? **Karlos Zabala**

Etorreran baino **tarte** luzexueagoa utzi nuen orain haien eta nire artean. **Aingeru Epaltza**

Peristilo horra [...]¹ bi pilastrara artean elkararren artean **tarte** zabalak izaten dutenak. Santiago Iruretagoiena

Tarte zuzen bat amaitzen den bakoitzean errotonda bat dago, autopistarako iritsi arte. Mikel Hernandez Abaitua

Han, bi metro zabalako **tarte** estu batek ozta-ozta binaka igarotzen utziko zien. Joanes Urkixo

Hanka-puntetan orain, salto txikiak emanez gero, **tarte** lokaztuak saihestuz egin genuen Ingoren hilobirainoko bidea. Anjel Lertxundi

Handik ordu erdira belar motzeko **tarte** argi lau batera ailegatu ziren. Joanes Urkixo

Tarte musikalen zentzu pitagoriko, zenbakizkoa. Xabier Olarra

Tarte beretsuan dauzkagu gure Iruñea (72 litro) eta Gasteiz (75 litro). Pello Zabala

Zorioneko partida hura hogeit metroko **tarte** zuhur batetik ikusi nuela. Alberto Ladron Arana

Hansen Citrøena hartuta, **tarte** zuhur bat utzita jarraitu zieten. Alberto Ladron Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa).

Zaingeletako kanpo- eta **tarte** -hormek saredun leihoak zituzten inguru guztian, atalondoko hormek bezalaxe. Elizen arteko biblia

Arimaren denborak beste data batzuk baititu, beste neurri batzuk, itsas uhinen antzekoak, baina haien **tarte** -berdintasunik eta norabide beti-berdinik gabe. Juan Kruz Igerabide

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urtza esaten genion ibai- **tartearen** inguruko haultz luzeak alde batera zein bestera okertzen ziren. Bernardo Atxaga

Eskailera honek bai maila- **tarte** luzeak dituela, horrek izorratzen naik ni! enpleguak gora jo zuela iaz adin **tarte** guztietan, 25 urtetik beherako gazteen artean izan ezik. Joan Mari Irigoien

Denbora behar izan nuen bainuko mantala eta txapinak jantzi eta hiru eskailera **tarteak** egiteko. Koro Navarro

Jendetza urritu egin zen eta oztoporik gabe igo ahal izan zuten hurrengo eskailera- **tarteak** . Iñaki Mendiguren

Haien inguruan belar **tarte** zabalak ere hausterre bihurtuak izan ziren. Joanes Urkixo

Kontuon hausnarrean nengoela, laino- **tarte** txikia zerratu zen zeruan. Anjel Lertxundi

Mortero horrekin eta harriekin beteko da, kutxa- **tarte** guztietan geratzen diren hormen egitura guztia ondo bete arte. Santiago Iruretagoiena

Enpresek ere, beren mozkin- **tarteak** babeste aldera, atzera berriz prezioak igotzen dituzte. Iñaki Heras

Fluktuazio- **tarteak** zabaldu zituzten oraindik trukemekanismoan parte hartzen zuten herrialdeek. Koro Navarro

3.000 kilometroko kalkulua 400 kilometroko akats **tarteak** duela esan dute astronomoek. Berria - Gaiak

Begiak oso sentiberatasun **tarte** zabalak du luminantziarako. Josu Zabaleta

Interpretazio- **tarte** murriztuarekin jokatu dela beti garbi azaltzeko, [...]. Santiago Iruretagoiena

Ukaezina da gaiaren aurreko urrutze- **tarteak** askoz ere handiagoa dela molde honetako bertsioetan laburragoetan baino. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez zuen sekula gogoko izan Harry, baina beti eman izan zion hari konfiantza- **tarte** bat Alec-engatik. Oskar Arana

5 (denborari dagokiola) ik **bitarte**.

Hogeita bost urteko **tarteak** zegoen nik ezagutzen nion letratik orrialde haietakora. Bernardo Atxaga

Urte erdiko **tarteak** dago VI. Biltzarretik Mentxaka erori zen arte. Rafa Egiguren

Ordubate inguruko **tarteak** neukala iruditzen zitzaidan. Bernardo Atxaga

Lau edo bost urteko **tarteak** behar izaten ditut lan batetik bestera. Ana Urkiza

Berrogeita zortzi orduko **tarte** bat, helburu jakin baterako gordea. Xabier Olarra

Eguzkiak, berriz, hilabeteko **tarteak** egiten du zeinu baten espazioa zeharkatzeko. Santiago Iruretagoiena

Tarte horretan, hots, 1958ko Gabon Zahar gaua eta 1959ko Urte Berri egunaren artekoan, Fulgencio Batistak ihes egin zuen. Edorta Jimenez

Uztailaren 23tik irailaren 2ra doan **tarteak** . Pello Zabala

Ikasitako guztia ahalegin pertsonal handi bati esker ikasi zuen bi hilabete pasatxoko **tarte** hartan. Juan Luis Zabala

1509-1515eko **tarte** horretan egon zela Azpilkueta Alcalan. Piarres Xarriton

Ipar Euskal Herrira [...] deitzerakoan, 30 segundokoak dira **tarteak** . Berria - Harian

Tarte bat hartu zuen hausnartzeko eta aldeko eta kontrako ahalbideak neurtzeko. Karlos Zabala

Tarte bat eman nuen adi. Edorta Jimenez

Kaferako **tarteak** bezain mugatuta dauka bainugelakoa. Urtzi Urrutikoeetxea

Gelditu eta bazkaltzeko **tarte** bat hartzeko garaia zen. Xabier Olarra

Isilik geratu ginen hirurok **tarte** luze batez. Juan Luis Zabala

Sendatzeko, mina areagotu beharra zagoz, baina minaren **tarteak** laburtuz. Edorta Jimenez

Tsarrak [...] so egin zion **tarte** batean begirada sarkorraz. Karlos Zabala

Kristinak **tarte** horretan eginak zituen nirekikoak. Aingeru Epaltza

Handik **tarte** batera kanoikadak aditu genituen. Edorta Jimenez

Loari kendutako **tarteetan** . Javi Cillero

Ez zen galdera bat, arnasa hartzeko **tarteak** baizik. Unai Iturriaga

Banuen **tarte** bat, arrantzaleei txaneltxo bat eskatu, *Ánimas*-era joan eta berriz itzultzeko. Edorta Jimenez

Argi distiratsuegiak itsutu egiten zuen **tarte** baterako. Xabier Olarra

Gerraz jardun genuen beste **tarte** batez. Bernardo Atxaga

Tarte batez isilik lotu ziren, ahoa josita legez. Edorta Jimenez

Goizeko 3retatik 10etarako **tarteak** , 37 litro utzi zituen Arantzazun bertan. Pello Zabala

ik beherago 10. Askoren artean

Hilabete pasatxoko **tarteak** . Unai Iturriaga

Atrakatzeko maniobrak iraun zuen **tarteak** ontziburuak ez zion aldarri egiteari utzi. Edorta Jimenez

6 (denborari dagokiola izenondoekin)

Ez zuen irakurtzen, **tarte** libreetan leihoaz hara adreiluzko horma mortuari begira egoten zen. Pablo Sastre

Epailen liburuak hutsune luze bat bete nahi du: lurraren konkistarekin hasi eta Erregeen garairaino doan **tarte** handia. Jose Antonio Mujika

Irrati eta telebistetan ere **tarte** berezia izan du komunikatuak. Berria - Harian

Guardia aldatzeko erabiltzen duten **tarte** labor hori erabili beharko diat. Rafa Egiguren

Kafea eskatu zuen nik bezala, eta, **tarte** txiki bat bertan eman ondoren, bere automobilean sartu ginen. Rafa Egiguren

Bermeotarrak 11 ehuneneko **tarte** txikiarekin gailendu ziren. Berria - Kirola

Tarte luze batean -ordubete baino gehiago, taxutu nuenez- asotsik apalena ere ez zitzaidan inguratuta. Aingeru Epaltza

Tarte luze batean ez zen deusik jazo, harik eta Audio izeneko tokira heldu ziren arte. Joanes Urkixo

Emanaldiak iraun zuen **tarte** amaigabean, atzera ene haurtzaroarekin akordatu nintzen. Karlos Linazasoro

Tarte handiegia dago hamar urte eta ehun urteren artean. Ana Urkiza

7 (denborari dagokiola hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tabernetan atea irekita zeuden, eta argi **tarte** dirdariak igortzen zituzten kale aintziratu ilunetara. Josu Zabaleta

AP-68, A-8, N-1, A-15, N-240 eta N-622 erupideak ordu **tarte** batzuetan zabaldu dituzte. **Berria - Euskal Herria**
Lirkoreen eraginpeko eskuzabaltasun-**tarteetan** baino ez zioten ekiten euren arteko adiskidetasun-harremanari. **Mirentxu Larrañaga**
-Polikarpo ez da itsusia -esan zuen, eta isiltasun **tarte** baten ondoren. **Ramon Saizarbitoria**
Zalantza **tarte** hura aprobetxatu du lehen dardoa jaurtitzeko. **Iñaki Iñurrieta**
Bertsolaritzaren publikoa ez da belaulaldi **tarte** jakin bat edo euskaldun mota berezi bat. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

8 (testu inprimatuetan)

Lerro artean **tarte** eta erdi utzi. **Askoren artean**
Paragrafotik paragrafora bi **tarte** utzi. **Askoren artean**

9 (adizlagun gisa)

Neska, ordea, **tarte** sartu zen: [...]. **Matías Mujika**

10 *tartean adlag* ik *artean*.

Kaleetan elkarri hitz egiten dioten lagunek ere, metro pare bateko distantzia uzten dute **tartean**. **Harkaitz Cano**
Tartean baso-galtzeak desagertzeko zorian utzi dituen landareen material genetikoa ere badago. **Berria - Gaiak**
Gero, urrundu egin ziren Jakobengandik, hiru eguneko bidea **tartean** jarri. **Elizen arteko biblia**
Handik maisu-maistren etxearen zati bat ikusten zen, eta frontoiaren alde bat ere bai, **tartean** plazaren izkina bat zutela. **Juan Kruz Igerabide**
Shakespeare eta beste autore bakan batzuk, **tartean** Petrarca, aipatu ditut bizitzan. **Anjel Lertxundi**
-**Tartean** Ttipirena gertatua baitzen. **Aingeru Epaltza**
Tartean beste ahalegin batzuk ere egin zituen, ingelesez. **Bernardo Atxaga**
Elkarrengandik banandurik zeuden, **tartean** hesitxo bana zutela. **Jose Morales**
Kritikak ere entzun behar izan zituen, Scott McLeod kazetari eta idazlearen hau **tartean**: [...]. **Iñigo Aranbarri**
Eta horra, oinezko eta zaldizko gudari-talde handia zetorkien gainera; erreka besterik ez zuten **tartean**. **Elizen arteko biblia**
Poeta komiko grekoek ere, koruaren kantuek **tartean** txertatuz, zatitu egin zituzten beren jardunaldien espazioak. **Santiago Iruretagoiena**
Triglifoak honela banatu ondoren, **tartean** metopak jarriko dira. **Santiago Iruretagoiena**
Liburu haiek eman zizkidan ondoren, Axularren *Gero* hura ere **tartean**. **Joan Mari Irigoien**
Eta **tartean** gu, iberiarrek, jesarrita. **Edorta Jimenez**

11 (izan, ibili eta kideko aditzekin)

"Nire aita ere **tartean** al zen?", esan nuen. **Bernardo Atxaga**
-Baina Ivan Grigorievitx ez da bakarra, beste batzuk ere badira **tartean** -zakartu zitzaion Ivan Antonovitx. **Jose Morales**
Amona **tartean** zela, edozer gauza zen posible. **Jon Muñoz**
Ez dugu hori aldatu, aldatzeko arrazoi batzuk **tartean** izan arren. **Andres Urrutia**
Aitor dut; Ines **tartean** izan barik ere, berdin-berdin gura izango nukeen armadara joan. **Edorta Jimenez**
Eta, lotsaren lotsa, hiriko funtzionario nagusiak **tartean** dira, baita gobernadorea bera ere. **Jose Morales**
Ez dakit Xabier **tartean** izan zen. **Edorta Jimenez**
Tartean ontziaren ugazaba eta haren semeak direla aditu diat. **Edorta Jimenez**
Akabo, armak **tartean** baziren, kontua askoz larriagoa zen. **Iñaki Iñurrieta**
Hala, zelularen oinarriko eragiketa jakin batzuetarako, erreakzio eta eragin-trukeak **tartean** direla, zenbait multzo espezifiko jartzen da lanean. **Juan Garzia**
Gero gure bekatuak daude **tartean**. **Juan Garzia**
Gainera, adin txikikoak zeuden **tartean**. **Jon Muñoz**
Nahiz **tartean**, eta erregu egile, Karlos Setimo bera ibili. **Txillardegi**
-Badaki zerbait badabilela **tartean**, bale, baina ez daki zer. **Xabier Olarra**
Batek ezin du harremanik izan Stephen batekin [...] ez eta beste edozein savantekin ere, sentitu gabe oso arrotz den zerbait **tartean** dabilela. **Xabier Olarra**
Eta, nola ez, usainak ere **tartean** zebiltzan. **Bernardo Atxaga**
Pozoigarria izan daiteke **tartean** dabiltzan guztientzat, batez ere ohartzen bazara, hasteko, beharbada ez zeundela egina ezkontzarako. **Oskar Arana**
-Neskaren bat **tartean**? **Unai Iturriaga**

12 (-en atzikiaren eskuinean)

Erailerik ere izango zen jende multzo ikaragarriaren **tartean**. **Harkaitz Cano**
Fionnek akuilua jaso zuen, eta mutilaren eta munstroaren **tartean** kokatu zen. **Joanes Urkixo**
-Berrogeita hamaseigarrenean, bederatzigarren eta hamargarren abeniden **tartean**. **Harkaitz Cano**
Ez zuen begi-zirkunik egin, ezta ni ateraino joan eta haren begiradaren eta atearn **tartean** jarri nintzaionean ere. **Anjel Lertxundi**
Kontuan hartu, berebat, pilastren eta fronteko kolomen **tartean** gainerako kolomak jarriko direla. **Santiago Iruretagoiena**
Falta diren baldosen **tartean** kortxoak itsatsi dut. **Harkaitz Cano**
Doi-doi zirkunferentziaren eta karratuaren aldearen **tartean** geratzen den arkuaren tamainako ildaxka zizelkatuko da. **Santiago Iruretagoiena**
Jupiterrek bere orbita Marteren eta Saturnoren **tartean** dauka. **Santiago Iruretagoiena**
Jar dadila bizardun hori bien **tartean**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Joaniko gu bion **tartean** jarri zen, niri lepoa emanez, han ez banengo moduan. **Edorta Jimenez**

13 (izen soilaren eskuinean)

Pepinoa ogi **tartean** gauero, eta noizbehinka, izokin kezkatua. Pipa hortz-**tartean** estutuz, makurtu egin zen. **Ramon Saizarbitoria**
Dena dela, baserriko abere **tartean** hazi eta hezia izanik ere, sorgina izan da hitz hau neretzako. **Patziku Perurena**
Han zeuden hormetan, landareetan, harri **tartean**, zuhaitzetan, geldi-geldirik. **Gotzon Garate**
Beste batzuek sabaian edo ganbaran egiten dituzte umeak, lasto **tartean**. **Gotzon Garate**
Hara non ikusten duen erle-multzo bat lehoiaren hezur **tartean**, bere ezti eta gutzi. **Elizen arteko biblia**
Biziitzaren ote **tartean** hazia eta hezia naizela esan dezaket. **Patziku Perurena**
Badaude era horretako ur batzuk kanpora ateratzen ez direnak, baizik eta harkaitz **tartean** geratzen direnak. **Santiago Iruretagoiena**
Neska gazte bat, riflea hanka **tartean**, baginan barna sartu eta tiroz josi zuten. **Gotzon Garate**
Hauts **tartean** nengoen, aire lasterrean, argi gordinen azpian, kartoizko dekoratuen artean. **Monika Etxebarria**

14 *tartean behin* noizean behin.

Baina dena ez da galera, eta **tartean behin** izaten ditugu gure modukoek poz tiki batzuk ere. **Iñaki Segurola**
Tartean behin siroko bafadaren batek beste zaparradaren bat botarazten zuen oraindik San Giovanni gainean. **Josu Zabaleta**
Ez zuen ezer askotarako balio izaten, baina **tartean behin** efektua egiten zuen ukendu ikusezin hark. **Unai Iturriaga**
Beltza kobazuloan sartu, eta, gorztik, **tartean behin** bakarrik ateratzen da, Mireiaren arima Samanako paraje liluragarrietan paseatzen ikusteko. **Martin Anso**
Baina jarraitzaile sutsuenak ere behar du **tartean behin** itxaropen izpiren bat, heldulekuren bat. **Berria - Kirola**
Oso **tartean behin** idazten ditut poemak. **Berria - Kultura**

15 *tartean behinka* noizean behin.

Bidetxoa baso erditik zihoan denbora guztian; **tartean behinka** bakarrik igarotzen zen argigune pendizen batetik. **Josu Zabaleta**

16 tartean sartu

-Barkatu **tartean sartzen** banaiz... zera... *tête a tête* honetan. **Lopez de Arana**

-Nik, berriz - **sartu** zen **tartean** Jonathan, goxo-goxo-, ez dut uste zuk esan bezala gertatu denik kontua. **Jon Muñoz**

Marrazketa ere **sar** daiteke **tartean**, kaligramen kasuan esate baterako. **Iñaki Arranz**

Marro harengana abaildu zen, lepotik heldu, eta eman egingo zion, nagusia **tartean sartu** izan ez balitz. **Juan Kruz Igerabide**

Izan bedi aski hau esatea: Eros **sartu** zen **tartean**. **Oskar Arana**

Laster neureganatuko nukeelakoan nago... baldin Marcelek muturra **tartean sartu** ez balu. **Joxe Austin Arrieta**

-Zer zabilta zu **tartean sarturik**? **Jon Muñoz**

Hizkuntza arazo bat, horixe izan zen **tartean sartu** zitzaiguna. **Bernardo Atxaga**

17 tartean-tartean

Tartean-tartean, niri begira geratzen zen, baina berehala zuzentzen zituen begiak beste alde batera. **Juan Kruz Igerabide**

Tartean-tartean, komunikabideek denboraldi baterako modan ezartzen dituzten hitzei erreparatzea maite dut. **Iñigo Aranbarri**

Kazetaria lanbidearen hastapenetan uzten duten gertaerak dira, **tartean-tartean** fortunatzen direnak. **Iñigo Aranbarri**

Niretzat suerte handia zen han nirekin zeuden guztiek euskaraz jakitea; mundu hartan **tartean-tartean** euskaraz egin ahal izatea bizigarria zitzaidan. **Jokin Urain**

Sua indarrean, ke beltza zeruan eta **tartean-tartean** eraikuntzaren zatiak lurrera. **Berria - Harian**

18 tarteko ik arteko.

19 denbora-tarte

Denbora tarte hori, oro har hartuta, laburra dela eman lezake, baina oso luzea da zentzumenen beste lorpen batzuekin alderatzen baldin bada. **Josu Zabaleta**

6 hilabete eta 13 egun joan ziren zehazki **denbora tarte** horretan. **Txillardegi**

Denbora tarte batez ohe ertzean egon ginen eserita, eratzunari begira-begira. **Ander Irizar**

Denbora tarte batean Ararateko mendi-mazelari iratsia egon eta gero handik altxatu zen. **Fernando Rey**

"Ilunbarra baino **denbora-tarte** hoberik ez zagon mozkortzeko", esango zuen Stanek. **Lopez de Arana**

Ezerez huts eta ilun batean emana baitzuen oso-osorik **denbora tarte** zehazgabe hura. **Juan Luis Zabala**

Denbora-tarte labur horretan Tsin-go Cheng erregeak ordu arte bizirik zeuden beste sei erresumak eraitsi zituen. **Iñaki Mendiguren**

Denbora tarte luze batez, aita ere "frontean" izan zen niretzat, amak "eroria" zela erran zidan egun hura arte behinik behin. **Alberto Ladrón Arana**

Urdaila beteta daukagunok, aldiz, gero eta **denbora-tarte** urrunagoetan pentsatzen dugu. **Pako Aristi**

20 tarte-bitarteka adlag

Ni kapitaina ninduan Saseta batailoian, eta tenienteari **tarte-bitarteka** autoa eskatuz hasi gintuan Polixene eta biok ilunkeran ateratzen. **Pako Aristi**

21 tarte-bitarteko izlag

Baina bai **tarte-bitarteko** jende honek, bai aguretuek, denek arazo berdina daukate gaur egun: entzule falta. **Pako Aristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

adin tarte (33); adin tarte horretako (11); arteko tarte (17); bidearen tarte (7); denbora tarte (182); denbora tarte bat (12); denbora tarte batean (11); denbora tarte batez (9); denbora tarte berean (7); denbora tarte laburrean (7); denbora tarte luze (7); denbora tarte luzean (6)

egiteko tarte (9); hain tarte laburrean (5); handik tarte batera (10)

tarte bat (152); tarte bat egin (6); tarte bat hartu (19); tarte batean (63); tarte baten buruan (6); tarte baten ondoren (11); tarte baten ostean (6); tarte batera (23); tarte baterako (9); tarte batez (86); tarte batzuetan (7); tarte berean (18); tarte berezia (7)

tarte estu (6); tarte gehiago (8); tarte gutxi (11); tarte guztia (8); tarte guztietan (5); tarte handi (6); tarte handia (44); tarte handia dago (6); tarte handiagoa (23); tarte handiak (6); tarte handiarekin (5); tarte handiena (5); tarte handirik (20)

tarte jakin (9); tarte labur (25); tarte labur batez (5); tarte laburra (7); tarte laburrean (19); tarte luze (51); tarte luze bat (6); tarte luze batean (12); tarte luze batez (14); tarte luzea (20); tarte luzeagoa (5); tarte luzeak (5); tarte luzean (11); tarte luzez (9)

tarte polita (9); tarte txiki (15); tarte txiki bat (6); tarte txikia (28); tarte txikiagoa (6); tarte txikian (14)

tarte zabala (23); tarte zabalak (5)

urteko tarte (8)

adin tartea (11); arteko tartea (69); azken tartea (5); bere tartea (9); bien arteko tartea (7); bitarteko tartea (5); denbora tartea (16)

egiteko tartea (18); eguneko tartea (5); erdiko tartea (11); hilabeteko tartea (5); hobetzeko tartea (7)

inguruko tartea (6); metroko tartea (7); minutuko tartea (9); negoziatzeko tartea (5)

orduko tartea (7); segundoko tartea (10)

tartea atera (8); tartea atera zion (6); tartea badagoela (5); tartea dago (8); tartea dagoela (5)

tartea egin (9); tartea egingo (7); tartea egiten (5); tartea egon (6); tartea ematen (13); tartea handitu (10); tartea hartu (7)

tartea ireki (14); tartea ireki zuten (5); tartea irekitzea (9); tartea irekitzea lortu (7); tartea irekitzen (5); tartea izan (9); tartea izango (5); tartea jateko (5); tartea lortu (5); tartea murriztea (7); tartea murriztea lortu (5); tartea murriztu (6)

tartea utzi (15); tartea utzi behar (8); tartea utziz (14); tartea uzten (10); tartea zabaldu (7); tartea zabaltzeko (5); tartea zegoen (7)

urteko tartea (10)

arteko tartea (16); denbora tartea (5); tartea egiteko (6); tartea egiten (5)

arteko tartean (13); azken tartean (6); bien tartean (10); dago tartean (14); daude tartean (21)

erdiko tartean (5); hanka tartean (5); hatz tartean (5)

izan zen tartean (5); izan ziren tartean (6); izaten dira tartean (5); kilometroko tartean (5); kolomen tartean (5); minutuko tartean (7)

ogi tartean (6); orduko tartean (5); sartu da tartean (6); sartu zen tartean (17)

tartean baita (6); tartean baziren (6); tartean behin (37); tartean da (9); tartean dago (9); tartean dagoela (8); tartean dagoenean (6); tartean daude (12); tartean daudela (5); tartean dauden (6); tartean daudenean (6); tartean dela (16); tartean dira (11); tartean direla (23)

tartean egin (6); tartean egon (6); tartean geratzen (6)

tartean izan (22); tartean izanda (5); tartean izango (10); tartean jarri (7); tartean lau (14); tartean lau polizia (5)

tartean polizia (5); tartean preso (5); tartean sartu (58); tartean sartu zen (12); tartean sartuz (7); tartean sartzea (6); tartean sartzen (20); tartean tartean (19)

tartean ume (7); tartean zegoen (9); tartean zela (11); tartean zen (13); tartean zirela (8); tartean ziren (12)

urteko tartean (10); zegoela tartean (6); zegoen tartean (7); zeuden tartean (10)

sartu zen tartera (6)

atsdenerako tartarik (5); egiteko tartarik (9); tartarik ez (22); tartarik gabe (17); tartarik utzi gabe (11); zalantzarako tartarik (9); zalantzarako tartarik uzten (5)

tartealdi iz tartea.

Tartealdi hori da benetan izugarria; linboa, alegia: bi munduren artean egotea, bata hila/bestea sortzeko indarrak gabea. **Xabier Olarra**

tartedun izond tartea duena.

Atxetako errepidearen aldetik begiraturik, baserriak atzetik zeukan leiho **tartedun** hura aldatuta dagoela eman dit. **Txillardegi**

Intimitate **tartedun** hori, nahitaezkoa eta zorizkoa, hiriaren ezaugarri nagusia da niretzat. **Bernardo Atxaga**

tartejarri, tartejar, tartejartzen 1 da/du ad tartejan jarri.

Baina abokatua ez zen bera eta heriotzaren artean **tartejartzen** ahal den hirugarren pertsona bat. **Jon Alonso**

2 (era burutua izenodo gisa)

Eta orain, bizitzak iragazki babeslerik onartzen ez duen ekintza bakarraren aurrean paratzen zuen, pertsona **tartejarrien** bidez bizitzera ohitutako hori. **Jon Alonso**

tarteka adlag 1 tartekak utziz, tartekak hartuz.

Bidezidorra, blai-blai eginda, labain zegoan oso, eta harritsu ere bai **tarteka**. Urrezko belarritakoak egingo dizkizugu, zilarrez **tarteka** apainduak. **Txillardeg**

Horrez gainera, **tarteka** eta alderik alde hartuz, zabalera berdineko harriak jartzen dituzte, haiek *diatonos* deitzen dituztenak. **Santiago Iruretagoiena**

Lan nekea da [...] eta neke hori liburuan nabarmendu ez dadin, baditu **tarteka** sartzeko kontakizun kostunbrista batzuk ere. **Anjel Lertxundi**

Bidean aurrera, **tarteka** zuhaitzetako sustraiak espaloian nabarmetzen zirela ohartu naiz. **Patxi Zubizarreta**

Basoarte amaigabea, zarratua, **tarteka** indiar txabola multzo bat edo beste. **Joxe Austin Arrieta**

Gure azpian, zingirak beti ere, axial eta uherrak, **tarteka** lur-zerrenda batzuk, harea, zingirak berriro, noiz berdeak, noiz gorriskak, ezpain-lapitzaren kolore, ez dakit nik zergatik. **Joxe Austin Arrieta**

Zuria, **tarteka** harri mokor batzuk murruan agertzen direlarik, kare zuriz inguratutik. **Txillardeg**

Haizemaile baten eran hedatzen baitzaitzaizkion hortzak, **tarteka** hutsuneak ageriz, kua hustuekin egiten diren kriseluen antzera. **Oskar Arana**

Neronek euskaratu dizut eta **tarteka** moxtu. **Patziku Perurena**

Tarteka loreak ikusten dira. **Edorta Jimenez**

2 aldian behin, noizean behin.

Tarteka urrungo trumoi-hotsen oihartzuna hedatzen zen inguruetan. **Txillardeg**

Tarteka, hitz batzuk erretzen ziren gizon haren ahotik. **Bernardo Atxaga**

Tarteka, dardara bat igarotzen zen oihal mugikor haren gainetik. **Karlos Zabala**

Kaleko ahotsak datozkizu, klaxonak eta metroaren burrunba, baita **tarteka** hegazkinena ere. **Joxe Austin Arrieta**

Lotsatiek **tarteka** erakutsi ohi duten fanatismoarekin defendatzen zituen bere ideiak. **Joxean Agirre**

Gutunak ere bai, **tarteka**. **Harkaitz Cano**

1966 eta 1967ko gertaerak osorik zeuzkan gogoan, 1968 eta 1969koak partez edo **tarteka**, eta 1970etik aurrerakoak, berriz, ia erabat ahaztuak. **Xabier Olarra**

Kosta egiten zait orrialdeak arin pasatzea, galdu egiten naiz **tarteka** lerro artean, baina testuak badu kalitate bat, badu lilura bat, eta aitzina jo behar dudala esaten diot neure buruari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zirrara batek astintzen ninduen **tarteka**: iruditzen zitzaidan ero baten erretolika entzuten ari nintzela. **Ander Irizar**

Badaki, bai, otsailak izotz mortalak ekartzen **tarteka**. **Pello Zabala**

Bi ordu luze egin omen zituzten gizona betiko urrunduko zuen hegaldiaren zain, kafetegiko kristalaren bestaldean airean gurutzatu eta lurrean pausatzen edo urrunean galtzen ziren hegazkinei **tarteka** begiratu. **Joxean Agirre**

Izan ere, balantzaka, lepoa oker eta **tarteka** begietan beltzuneak izan arren, eusten nion, joan eta etortzen nintzen, eraman eta garraiatzen nuen, dena zaku bakar bat jausten utzi barik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Tarteka lo, **tarteka** esna egon zen plazerrak eramandako munduan, arazorik gabeko mundu igarokorrean. **Migel Angel Mintegi**

Halakoekin harrapatutik burua, ohean iraun nuen, **tarteka** izuz eta **tarteka** geroaren esperantzaz. **Edorta Jimenez**

3 tartekako izlag aldian behingoa, noizean behingoa.

Profesional espezializatuak **tartekako** garbiketa sakona edo aldiro-aldiroko garbiketa egiten dute ezinduta dauden pertsona nagusien etxeetan. Jardun osoko lau lagun, gerratean espainiar polizi indarretakoak izan direla diotenak, eta **tartekako** hamabi lagun ei dira. **Beria - Euskal Herria**

Gaztelera ere zertxobait badaki eta, ni neu narabil aspaldion **tartekako** irakasle. **Edorta Jimenez**

Leihoan haize balen eta **tartekako** kazkabar jasen hotsa entzuten nituen. **Txillardeg**

Bere pertsonalitatea Paulova dantzariarekin nahasten zuen **tartekako** brote eskizofrenikoetan. **Harkaitz Cano**

Denbora erraz zihoan erietxean: lotan ez nengoenean, nire zereginak gosea, egarria, zauriaren oinazea, **tartekako** solasaldiak edo tratamenduarekikoak ziren. **Urtzi Urrutikoetxea**

4 tarteka-marteka aldian behin, noizean behin.

Tarteka-marteka baino ez zen etortzen New Yorkera, agian bizpahiru alditan urtean. **Mirentxu Larrañaga**

Larruzko tapizerian ezer ez jausteko kontuz jan ditu tailarinak aluminio paperezko ontzian, **tarteka-marteka** jatetxerantz jasoz begirada. **Urtzi Urrutikoetxea**

Airean sigi-saga zebilen eta **tarteka-marteka** astinaldi bortitzak ematen zizkion, ia errotaraziz. **Iñaki Mendiguren**

Hitz egiten duen bitartean, Joanak eta Danik arretaz entzuten diote, eta **tarteka-marteka** elkarri begiratzen diote. **Anton Olano**

Bizirik dirau, haatik, artalde orok hurroren bat hiltzeko sentitzen duen beharra, eta **tarteka-marteka** ardi txuriren bat besteen ondotik apartatu eta urrutira eramaten dute, koloreak bereizi ezin diren puntu bateraino. **Bernardo Atxaga**

5 tarteka-tartekasup_1 tartekak utziz, tartekak hartuz.

Sakonune txiki batzuk besterik ez ziren angeluak, edo horma zuloak, **tarteka-tarteka** ipiniak. **Koro Navarro**

Zainek, nolanahi ere, balbula batzuk dituzte **tarteka-tarteka**, nahikoa hurbil bata bestetik. **Irene Aldasoro**

Zuzen eta **tarteka-tarteka** jarririk, gas argiontziek baizik ez zekarkioten bizitarik heriotzazko mortu hari, kolore horiko beren sugar txikiak. **Karlos Zabala**

Hezur pilatuz beteta zeuden hormen ondotik igaro ginen -haien artean ere ageri ziren, **tarteka-tarteka**, botilak eta upelak-, eta katakonben barreneneko parteraino iritsi ginen. **Koro Navarro**

Tarteka-tarteka, asko gara liburu hori irakurtzen dihardugunok. **Edorta Jimenez**

6 tarteka-tartekasup_2 aldian behin, noizean behin.

Tarteka-tarteka deitzeaz gogoratu zaitetz, besterik ez, ados? **Oskar Arana**

Tarteka-tarteka beren pinta beteko edontzi handietatik trago batzuk egiten zituzten, eta tabakoa erretzen zuten. **Irene Aldasoro**

Alabaina, **tarteka-tarteka**, zantzu hautsi eta nahasian bidez, nire adiskidearen buru egoeraren beste ezaugarri berezi baten berri jakin nuen. **Koro Navarro**

Gero Fernando hauspoari eragiten aritu zitzaion **tarteka-tarteka**, nekatu zen arte. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

badaki tarteka (4); **eginez tarteka** (3); **egiten zuen tarteka** (4); **oso tarteka** (13)

tarteka aditzen (3); **tarteka agertzen** (5); **tarteka atzera** (3); **tarteka baino ez** (4); **tarteka bakarrik** (4); **tarteka burua** (3)

tarteka egin (3); **tarteka egiten** (5); **tarteka elurra** (3); **tarteka eman** (4); **tarteka esnatu egiten** (3); **tarteka euri** (3); **tarteka euria** (3); **tarteka gertatzen** (6); **tarteka haize** (3); **tarteka harri** (3)

tarteka ikusten (4); **tarteka itzultzen** (3); **tarteka marteka** (56); **tarteka martekago** (3); **tarteka tarteka** (30); **tarteka tarteka gertatzen** (3); **tarteka tiro** (3); **tarteka zerbait** (3)

tartekari iz artekaria.

Ez litzateke batere gaizki egongo hiritarrei aukera hau eskaintzea ordaindu behar zuten zergen parte bat bederen gizarteak berak zuzenean bidera dezan nahi duen zerbitzu publikoetara, **tartekaririk** gabe. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hirugarrenik, inguramenaren egituratzeko **tartekaria** da Hizkuntza. **Piarres Xarriton**

tartekaritza iz artekaritza.

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du ez duela Basauriko greba mugagabeen derrigorrezko **tartekaritza** lanik egiteko asmorik. **Berria - Ekonomia**

Anitz gauza, besterik ezean, usadioaren aginpidean eta norbanako ikasien eztabaidapean uzten dira, epaile **tartekaritzaren** menera. **Andres Urrutia**

tartekatu, tarketa, tartekatzen 1 da/du ad tartean sartu.

Zaparradak ere **tartekatuko** dira, batez ere ipar partean eta mendialdean. **Joseba Sarrionandia**

Salatzen duenez, lehen atalean, Plinio-ren zati labur batzuk **tartekatu** dira. **Juan Garzia**

Ez dakit zergatik **tartekatu** zitzaidan irudimenean kantuan ari den emakume hori. **Joxean Agirre**

Baina Herio **tartekatzen** zitzaidan beti pentsamenduan, irudimenean, grabatuan... **Anjel Lertxundi**

Askotan, juntagaillua **tartekatzen** da erdian, esakune bereziak sortuz: *kinki eta kanka, kirri eta karra*. **Iñaki Arranz**

Bi fotogramaren artean fotograma zuri bat **tartekatuz**. **Josu Zabaleta**

Azalpentxo hori **tartekatu** dugu irakurleak uler dezan zergatik hasi zen aharrausika ilehoria Txitxikov hizketan ari zitzaien bitartean. **Jose Morales**

Kontratu bat idazten duen eskribauak beti edo gehienetan **tartekatuko** du datu faltsuren bat. **Juan Garzia**

Zuzendu ditut kopiatzaileen utzikeriak **tartekatu** dituen okerrak. **Juan Garzia**

Hirugarrenean arkitektura irudiak agertzen ziren negatiboan, irudi berorien argazkiak **tartekaturik**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Beste egile batzuen hitzak, esaldiak, pasarteak... **tartekatu** ditugu han-hemenka. **Iñaki Arranz**

Hizkuntza batean beste hizkuntza bateko hitzak-eta **tartekatzea**. **Iñaki Arranz**

2 (elkarrizketetan)

Zer gertatzen zaizu, Ana?- **tartekatu** zen Garbiñe, inor gutxi espero zuenean-. **Aitor Arana**

-Alpujarrak Andaluzian daude, ama - **tartekatu** zen Karmele, ahizparen laguntzan. **Joan Mari Irigoien**

-Lasai, aita - **tartekatu** zen Ayako, eta niri begiratu zidan zer bait eransteko-. **Javi Cillero**

-Ez - **tartekatu** zuen Agustinak, ahotsa apalduz-. **Aitor Arana**

Horrela ikasi zenituen tatuajeari buruzko xehetasunak?- **tartekatu** zuen berrito gazteak. **Javi Cillero**

Ez zidan hitzik **tartekatze**ko aukerarik ematen, eta ordu arte baino zurrunbilotsuago aritu zitzaidan, datuak hor, datak hemen. **Anjel Lertxundi**

Baina orduan amona **tartekatu** zen: [...]. **Joan Mari Irigoien**

Istant horretan Bigarren Mihi baten esana **tartekatu** izan balitz bezala. **Bernardo Atxaga**

3 tarteka txandakatu.

Lerroa, gizonak eta emakumeak **tartekaturik** baitzuten, jauregiko harresiraino luzatzen zen. **Fernando Rey**

Eguzkia eta lainoa **tartekatu** ziren hurrengo astean Garrúzen. **Aingeru Epaltza**

Hitzak eta isiluneak **tartekaturik**. **Joan Mari Irigoien**

Beti ibili izan gara horiek bata bestearekin **tartekatzen** eta elkarren artean moldatzen. **Pello Salaburu**

Errutinazko tramite bat betetzen hasi ziren bi agenteak, tonu ofiziala eta tonu lagunkoia **tartekatuz**. **Anjel Lertxundi**

Bere bizitzaren kontaktari ekin zion, oso estilo berezia erabiliz, berbak eta barreak **tartekatuz**. **Jon Arretxe**

Haragi-puska handiak sartuz banan-banan burdinazko barra luzean, gihar eta gizen zatiak **tartekatuz**. **Jon Arretxe**

Proteinak kodetzen dituzten sekuentziak -exonak- etenez, badira, gehien-gehienetan, sekuentzia ez-kodetzaile batzuk -intronak- **tartekatuak**. **Juan Garzia**

Traste konplexuak eta errazak **tartekatuko** dira dendako erakusleihoan. **Edorta Agirre**

Behe-behean, beiraren kontra, rilette pota errenkada bat zegoen, ziape potoeekin **tartekatua**. **Karlos Zabala**

Baxango haritzez arraunak, boliz **tartekaturiko** Zipreko zipresez zubia. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tartekatu dira (6); **tartekatu ditu** (7); **tartekatu dituzte** (3); **tartekatu izan balitz** (3); **tartekatu zen** (7); **tartekatu ziren** (4); **tartekatu zituen** (12); **tartekatu zituzten** (10); **tartekatu zuen** (16); **tartekatu zuten** (3)

tartekatuko dira (9); **tartekatuko ditu** (9); **tartekatuko dituzte** (3)

hitzik tartekatzeko (3)

tartekatzen da (4); **tartekatzen dira** (18); **tartekatzen diren** (4); **tartekatzen ditu** (19); **tartekatzen dituen** (5); **tartekatzen joan ziren** (3); **tartekatzen ziren** (7); **tartekatzen zituen** (6); **tartekatzen zuen** (3)

tartekatze iz tartean sartzea; tartean txandakatzea.

Behin edo behin, **tartekatze** zabalagoa erabiltzen dugu xede berarekin. **Itziar Laka**

Tartekatze perfektuaz ari garenean (k-b-k-b-k-b), banana hitza da nazioartean erabili ohi den izena. **Iñaki Arranz**

Aipatu dezagun, lehenik eta batez ere, **tartekatze** kontzeptua: ehundura duen gainazal baten aurrean haren azaleraren zati bat estaltzen duen gauza bat. **Josu Zabaleta**

tarteki 1 iz koma-tartea, tarte esaldia.

Zilegi bazait nire obrari buruzko iruzkinekin **tarteki** bat egitea. **Anjel Lertxundi**

2 (egunkarietan-eta)

Titulu nagusietara jota, leiho eta **tartekiak** albo batera utzita, ez dira egunean zortzi-hamar baino gehiago aipu markak dakartzaten lerboruak. **Iñigo Aranbarri**

Pixka bat egokitua, **tarteki** bera erabil dezakek izenburutako, inork plajioa sumatzeko beldurrik gabe: "Bide-lapur modernoak gure autobideetan". Irakur azken **tartekiaren** azpiko testua. **Aingeru Epaltza**

tarteko 1 izlag tartean dagoena.

Tarteko hitzak behar nituen, ez beroegiak, ez hotzegiak. **Anjel Lertxundi**

Tarteko espazioari, grezieraz metope esaten zaio eta honela banatu behar da: [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Tarteko langetak erdian jarriko dira; gainerakoak, bata goiko aldean eta bestea goiko aldean txertatu dira. Santiago Iruretagoiena

Egon litezkeela **tarteko** geruzak, ez arraza-esperientziak ez esperientzia pertsonalak metatuak, maila supra-pertsonal baina infra-razialeko talde-esperientziak baizik. Iñaki Mendiguren

Kolpe kodetuak joz **tarteko** horman. Juan Garzia

Lege publikoek ez dute uzten **tarteko** pareta mehelinetan oin eta erditik gorako lodiera duten hormarik eraikitzen. Santiago Iruretagoiena

Baldin eta aipatutako bi bide bakarren artean norbaitek **tarteko** bidea proposatu nahiko balu, [...]. Ibon Urizarri

Ez zen gonbita; aginduaren eta desafioaren **tarteko** adierazpena zen. Ramon Saizarbitoria

Hitzak errepikapenean **tarteko** letraren bat galtzen du. Iñaki Arranz

Hemen ez dago **tarteko** biderik, eta gure alde ez dagoena kontra dago. Bernardo Atxaga

Horrela, kimika-ariketaren eta polizi eleberraren **tarteko** ikuspegi horretatik, erakargarri zitzaidan problema. Juan Garzia

Alde bakarra da filosofoek liburuki atseginetan argitaratzen dituztela beren lanaren **tarteko** urratsak, eta nik, berriz, haiek galtzea erabaki dudala. Juan Garzia

Haren belar **tarteko** ibilera isilgordeak. Patziku Perurena

Hitz **tarteko** marra gaizto itsusi hori (-) gailendu zaio, eta niri nazka ematen. Patziku Perurena

Ur-tantatxo guztiak uniformeak eta txikiak direnean, 0'5 eta 2 mm **tartekoak**. Pello Zabala

Beheko faxak horietako hiru zati hartuko ditu, **tartekoak** lau, eta goikoak bost. Santiago Iruretagoiena

2 (predikatu edo izenondo gisa)

-Emakumeak ere **tarteko** diren ipuintxo batekin? Edorta Jimenez

Ostatuen izenak [...] nekez mudatzen dira, gerla, inbasio edo gisako kataklismoren bat **tarteko** izan ezean. Aingeru Epaltza

Hara, Gordon ere **tarteko** da. Oskar Arana

Zer aukera zeuden lan Metropolitsek onar zezan bera ere **tarteko** izan zela engainuan? Oskar Arana

Gerrarteko hiru mendeak aztertzeari ekiten badiogu, kasu bakoitzean **tarteko** edo osagarritzko dei genezakeen gerra edo gerra-multzo bat aurkitzen dugu. Iñaki Mendiguren

Aita moderno eta belaxkaren sindromea zegoen **tarteko**, hots, beldur alua, gure seme-alaben adimen ahula kordokatzeko. Aingeru Epaltza

Gercourt jaun zital hori behar zen **tarteko** gertatu! Osaba Felipe **tarteko** eta lekuko eginez, Donostiari agur esatea erabaki nuen. Jon Muñoz

Sistemak, batez ere klima fresko edo **tartekoetarako** diseinatua izanagatik, oso ondo funtzionatzen du tenperatura altuetan. Irene Aldasoro

Beste egoera **tarteko** bat ere izaten zen. Xabier Olarra

Ez handi ez txiki, **tartekoa** baizik. Josu Zabaleta

Komandantea komandante, marinela marinela eta **tartekoak tarteko**. Edorta Jimenez

3 (izan aditzarekin konpletibetan)

Hilaren 21ean Ernest Hemingwayren taldea zaldi-apustutan sartu da, Mundakako abadea **tarteko** dela. Edorta Jimenez

Benetan amorragarria da ikustea ezen, askotan gertatzen den bezala, laguntxoan arteko konponketak **tarteko** direla, okertu egiten direla benetako judizio zuzenak. Santiago Iruretagoiena

Euskotarren sorreran izan zituen, antza, aurreneko istiluak, erlijioa eta politika, (biak zakurbazka berdintsu izaki), **tarteko** zirela. Patziku Perurena

Adin horretako gazteak ditut orain unibertsitatean ikasle, gaztetan nire ikaskide izandako lagunene seme-alabak **tarteko** direla sarri. Joxerra Garzia

4 (esaldi bukaeran adizlagun gisa)

Hantxe zeuden "Mutilak", Ed ere **tarteko**. Mirentxu Larrañaga

Zortzi gonbidatu zenbatu nituen denera, ni **tarteko**. Karlos Linazasoro

Aukera izan dut amerikar eta britainiar kazetariekin, ezkertiar kutsuaren ospea duten batzuk **tarteko**, hitz egiteko. Edorta Jimenez

Baina gona-kontu ilunak **tarteko**, neskaren anaiek hil omen zuten. Patziku Perurena

Jaurtikin horrek berak Lincoln hil zuen, antzezle baten egintza kriminal edo eta magiko bat **tarteko**. Juan Garzia

Gürs-etik alde eginak ziren euskoak -zerbitzuetako batzuk **tarteko** - Britainia Handira joanak ziren. Baina behin batean hemengo beste arkitekturak ere, hain karibetar dirudien kolonial hori **tarteko**, denak etorri ziren arrotz eta lekuz kanpora. Edorta Jimenez

Eta mirariren bat **tarteko**, hala egin zuten. Oskar Arana

Orduan batzuek, Jurica **tarteko**, futbola ikustera egin dute. Edorta Jimenez

Josean ere gaixotasuna **tarteko** iritsi zen Zuhazpe atsedean eta osasun etxera. Berria - Harian

Lotzen dira gauza memoriadunak sorpen artistikoarekin, gizaldi berriak **tarteko**. Herria

• 5 izond ertaina.

Pikor handiko geruza hori eman eta lehortu ondoren, beste geruza bat emango da **tarteko** pikorrarekin. Santiago Iruretagoiena

-Erakutsi **tarteko** preziozko oihalen bat -entzun zen haien atzean Txixikovik ezaguna iruditu zitzaion ahots bat. Jose Morales

Zeharka begiratu ziola, Txixikovik **tarteko** tamainako hartz baten antz ikaragarri handia hartu zion oraingoan Sobakevitxi. Jose Morales

Bere seriotasuna eta **tarteko** adineko jendearen moduzkotasuna ahazturik, jauzi bi egin zituen gelan. Jose Morales

Alturaz **tartekoa** zen, baina dena osorik hartuz hain polita zenez, txikia zirudien. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazo ekonomikoak **tarteko** (3); arazoak **tarteko** (8); arrazoiak **tarteko** (11); bera **tarteko** (3); dauden arrazoiak **tarteko** (4); dela **tarteko** (4); direla **tarteko** (6); diru kontuak **tarteko** (3)

emaitza txarrak **tarteko** (4); hutsuneak **tarteko** (3)

kontuak **tarteko** (10); lesio bat **tarteko** (4); lesioa **tarteko** (6); lesioak **tarteko** (9); liskarrak **tarteko** (3)

tarteko adineko (5); **tarteko** bat (3); **tarteko** bide (3); **tarteko** bidea (4); **tarteko** biderik (4); **tarteko** dela (6); **tarteko** direla (8); **tarteko** diren (4)

tarteko helmugak (3); **tarteko** helmugetako (4); **tarteko** hitz (3); **tarteko** hizkerak (5)

tarteko izan (7)

tarteko zela (6); **tarteko** zerbait da (3); **tarteko** zirela (7); **tratu** txarrak **tarteko** (3); **txartelak** **tarteko** (9); **zigorra** **tarteko** (6); **zigorrak** **tarteko** (6)

tartekoa zen (4)

tartekorik gabe (3)

tarteño iz tartetxoa.

Tarteño bat igo, bertze bat, eta berdin. Xabier Montoia

Metalezko kasko pisuak behehitu dituzue begietarako **tarteño** bat baizik ez utzi aldera. Xabier Montoia

tartesartze iz tartean sartza.

Zerk bultzatu zuen olerkaria **tartesartze** trakets hori egitera? Iñaki Mendiguren

tartesiarr

Nafarroako zaldun guztiei, **tartesiarr** eta Leongo zaldun guztiei ere. **Patxi Ezkiaga**

tarteso-andaluziar *izond* tartesiarra eta andaluziarra dena.

F. Wulff historialariak, testu berri batean, kultura **tarteso**-andaluziarra begi euskotarregiz ikusi eta ebatzi izana leporatzen dio. **Joxe Azurmendi**

tartetxo 1 *iz* tarte txikia.

Azkenean, atea **tartetxo** bat zabaldu, eta burua atera zuen. **Ramon Saizarbitoria**

Zirkuaren sarreraren atzealdera joan zen, olana bati tira egin, **tartetxo** bat zabaldu eta esan zion Martini: [...]. **Koro Navarro**

Autoraino iristen naizenean giltza sarrailan sartu eta maletatxoa kopilotoaren eserlekuaren aurrean dagoen **tartetxoan** uzten dut, zoruan, tapizeria ez bustitzeko. **Mikel Hernandez Abaitua**

Bulkada bat abiatu denean, axoiak ez du beste bulkadarik onartuko **tartetxo** bat igaro arte: milisegundo bat edo bi normalean. **Irene Aldasoro**

Eta berauetan, erlauntzaren gisako egituran, berrogei bat **tartetxo**, letra-moldez beterik. **Txillardegi**

Egin egunkarian **tartetxo** bat eskaini zidaten, iragarpentxoa bezperatik bidali eta han ipintzeko. **Pello Zabala**

Bakoitzak **tartetxo** bat bilatzen zuen gorputz nabarrezko ore hartan. **Iñaki Zabaleta**

Gero, Armadako lekukoen hitzetan, **tartetxo** bat urrundu, itzuli eta umearengana berriz hurbilduta bere arma automatikoko kargadore osoa harengan hustu zuen. **Berria - Mundua**

Partidak hasiera orekatua eduki zuen arren (18-18), erdi aldera Muskarditzek **tartetxoa** irekitzea lortu zuen (28-23). **Berria - Kirola**

2 denbora-tarte txikia.

Tartetxo bat hartu zuen erantzun aurretik. **Edorta Jimenez**

Tartetxo bat egin genuen elkarrekin. **Javi Cillero**

Tartetxo bat baino ez genian egin han; gainerako egunetan kanpoan ostatu hartuta izan gaituk. **Edorta Jimenez**

Tartetxo bat eman genuen han. **Ramon Saizarbitoria**

Bulkada bat abiatu denean, axoiak ez du beste bulkadarik onartuko **tartetxo** bat igaro arte: milisegundo bat edo bi normalean. **Irene Aldasoro**

Teilatua konpondu edo eskailerako hormak pintatuko dituzue, eta **tartetxoa** aprobetxatuz Heineken bana hartuko duzue. **Lander Garro**

Tartetxo bat eskaintzeko urtean zehar behar bezala zaintzen ez diren gorabeherei. **Anjel Lertxundi**

Amonak bakarrik hartu ninduen, **tartetxo** batean, eta halaxe esan zidan: [...]. **Joan Mari Irigoien**

Tartetxo batez Basurtokoak duda egin zuen. **Edorta Jimenez**

Woodek **tartetxo** bat behar izan zuen lasaitzeko. **Iñaki Mendiguren**

Une horretan amasa hartzeko **tartetxo** bat izan nuen, inor ez baitzen leihatilan, eta libretak eta txartelak konparatu nituen. **Xabier Olarra**

Pilota handik, pilota hemendik, halaxe jarraitu zuten **tartetxo** luzean. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan)

Denbora **tartetxo** bat egin genuen batak bestearen ondoan epeltasunean, isilik biok. **Ramon Saizarbitoria**

Beharbada, eguzki **tartetxo** hau aprobetxatuz, beraren distira ikusteko aukera izango dugu. **Joanes Urkixo**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tartetxo bat behar (4); **tartetxo** bat eskaintzeko (3); **tartetxo** bat hartu (5); **tartetxo** batean (10); **tartetxo** baten ondoren (3); **tartetxo** batez (15)

lehen **tartetxoa** ireki (3); **tartetxoa** ireki (6); **tartetxoa** ireki zuen (3)

tartexka *iz* tartetxoa.

Baina, hartzen du **tartexka** bat, eguraldi gozo baketsuagoa oparitzeko ere: erdialde hori gustatzen zaio, normalean, San Martin inguruko alditxoa, San Martinen goxaldia deitzen zaiona. **Pello Zabala**

tartrato *iz* azido tartarikoaren gatza edo esterra.

Haietako bat katalana zen, Sabadelleko fabrika batzuen ordezkaria; bestea, ardotarako **tartratoak** saltzen zituen errioxar bat. **Josu Zabaleta**

-Hemen kimika erabiltzen hasiak dira -esaten zuen Pepinitok, harentzat zibilizazioak hondatutako herria baitzen Alcolea-; **tartratoak**, Campeche zura, fuksina..., deabrukek botatzen dizkiote hauek ardoari. **Josu Zabaleta**

tas-tas (*orobat taxtax*) ipurdikoaren onomatopeia.

Aparailua ezker eskuaz harturik, bestearekin umeei egiten zaien **tas-tas** keinua egin nion Sinbadi. **Edorta Jimenez**

Uso ar bat gaizki portatzen zenean hartu ere egiten zuela eta ipurdi aldean **taxtax** ematen ziola... **Fernando Rey**

tasa (*orobat tassa g.er. eta taxa g.er.*) 1 *iz* ofizialki erabakiriko prezioa; zerga.

Udal administrazioa, ordea, salerosketetan egon beharra duela uste du, berak kobratzen baitu tratu horiei dagokien **tasa**. **Karlos Zabala**

Dolarretako epe luzeko obligazioen interes errealeko **tasa** [...] %9raino igo zen 1983an. **Koro Navarro**

Espainiako Gobernuak Elkarleen gaineko Zergaren **tasa** bost urtean bost puntu jaitsi nahi du. **Berria - Ekonomia**

Ekaien gaineko **tasa** eta zergen ordainketa. **Elena Touyarou**

Kontsumoko zergak salerosketen gaineko **tasa** nola bihurtu. **Karlos Zabala**

Alemaniar banku zentralak (Bundesbank), epe laburreko **tasak** apur bat igoaz, dolarraren balioa nabarmen jaitea lortu zuen. **Koro Navarro**

Gobernadore bakoitzak probintzian sartzean bere ediktua egiten zuenez, eta bertan nahi zuen **tasa** ezartzen baitzion interesari, askonahiak lagundu egiten zion legeriari, eta legeriak askonahiari. **Iñaki Iñurrieta**

Esklabo berria otzana izaten da boteretsuekin, zuria goian dauzkanekin, koldarra indartsuagoekin; irentsiko du umiliaziorik iraingarriena ere ordaindu beharreko **tasa** baten moduan. Interes-tasak inoiz ez bezalako mailetaraino heldu ziren (%20raino ia epe laburreko **tasetan** 1980 eta 1981 bitartean). **Pako Aristi**

2 (izenondoekin)

Politika berri horrek, epe laburreko interes errealean **tasa** altuekin batera, Estatu Batuetarantz bultzatu zuen munduko aurrezki. **Koro Navarro**

Erreserba Federalak prezio merkeetan birfinantzatzeko aukera ematen zien bankuei, eta aldi berean beren funtsak errenta finkoko merkatuko **tasa** altuenera ezar

zitzaketen. Koro Navarro
Finantzaketa modu berri bat etorri zen 1970eko hamarraldian, hartzekodunentzat askoz seguruagoa zena: **tasa** indexatutako banku-kreditu sindikatuak. Koro Navarro
Orduz geroztik mailegua ezin izan da iritsi **tasa** zaharraren mailara, urtero Europan diru-kopurua gehitu egin delako. Iñaki Iñurrieta
Suedian, banku zentralak %500eraino altxatu zuen bere **tasa** gidaria, bere diruaren alde egiteari uko egin baino lehen. Koro Navarro
Zerga progresiboak (sarreraren arabera **tasa** aldakorrak dituztenak) eta erregresiboak (**tasa** bakarrekoak) bereizten dira. Iñaki Heras
Txartela ordaindu, eta ez genuela kamerarik esan genion, erretratuak atera ahal izateko **tasa** gehigarria eskatu zigunean. Ramon Saizarbitoria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Trukearen **tasa** -mekanismo indartsuenek ezin aurre egin izan baitiete batere trabarik gabeko kapitalen mugimenduek eragin dituzten gorabeheri. Koro Navarro
Tarifa [...] inportazioetako **tasa** -eskala, bertako ekoizlea kontsumitzailearen gutiziatik babesteko prestatua. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Interes-**tasak** apalak direnean erostean eta garestiak direnean saltzean datza espekulazioaren egonkortasun-eragina. Koro Navarro
Interes **tasa** altuek, kasu, ekonomia atzeraldia ekartzen dutela diote. Iñaki Heras
Truke libreko egoeran, portugaldar ardo-ekoizleek truke-**tasa** hobea dute ingeles merkatuan beren merkatuan baino. Koro Navarro
Truke-**tasak** dolar bateko 150 yen eta 1,80 marko ziren. Koro Navarro
Demagun Sistemaren garaian, zilarrezko txanponaren legearen eta pisuaren arteko erlazioan, kanbio-**tasa** berrogei sos-erdi zela ezkutuko. Iñaki Iñurrieta
Eskola askok, baina, matrikula **tasak** edo «borondatezko diru laguntzak» eskatzen dituzte. Berria - Gaiak
Zalantzarik gabe, korritu **tasa** da Estatuaren pultsua; hark plazaratzen ditu gorputz politikoaren gaitzak. Andres Urrutia
Errentaren gaineko zergei ala konsumo-**tasei** lehentasuna eman. Iñaki Heras
Inbertsio-**tasa** hori BPGaren %22 zen 1993an. Koro Navarro
Estatu Batuetako Federal Reserve Board erakundeak interbentzio-**tasa** puntu-laurden bat jaistea erabaki zuen. Koro Navarro
Ordaindu beharreko zerga **tasa** errenta mailaren arabera aldatzen da. Iñaki Heras

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Oso kontuan izan behar zituen truke-**tasa** gorabeherak; hau da, truke-tasei buruzko ziurgabetasuna. Iñaki Heras
Ekonomia-historian truke-**tasa** sistema finko garrantzitsuena urre-patroia izan da. Iñaki Heras

6 indizea, ehunekoa.

Ez dakigu zein izango litzatekeen egiazko langabeziaren **tasa** , datu horien arabera, gazte guztiak lan bila atera izan balira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Hazkunde mugimenduak eta jaiotzen **tasa** gordina. Pello Salaburu
Halako aldea egunero gertatzen ez bada ere, dezentez handiagoa da eguneroko heriotzen **tasa** jaiotzena baino. Anjel Lertxundi
Hezkuntza matrikuletan dagoen **tasa** gordina (%etan). Pello Salaburu
Jaiotzak Europan (**tasa** gordina: mila biztanleko sortuak). Pello Salaburu

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hazia zeukan baginan; odolean, berriz, alkohol **tasa** handi samarra. Migel Angel Mintegi
Izardia ez da beti agerikoa izaten; izerdianen ekoizpen-**tasa** lurrunte-**tasa** baino handiagoa denean baino ez da bustitzen larruazala. Irene Aldasoro
Nekazaritzak jaiotza **tasa** igotzea ekarri zuen; haurrak behar ziren, gero haiak lurra lantzen etaazienda zaintzen lagun zezaten. Luis Elberdin
Emankortasun **tasa** munduan. Pello Salaburu
Hilkortasun-**tasa** aurrez inoiz ez bezalako maila apalera murrizteko. Iñaki Mendiguren
Gaur egunean, haurren heriotza **tasa** hutsera jaitsi da eta bizi itxaropena 80 urte arte luzatu da. Luis Elberdin
Gazteen artean dago langabezia **tasa** handiena. Luis Elberdin
1973. urtearen erditik 1975. urtearen erdira, langabezia-**tasak** bikoiztu egin ziren ia Estatu Batuetan. Koro Navarro
Urtebeteen %9,1 handitu zen horien enplegu **tasa** . Berria - Ekonomia
Eguneko dolar bat baino gutxiagoko errenta duen pobrezia **tasak** %20tik %5era murriztu da. Iñaki Heras
Ameriketako Estatu Batuek lan-merkatu malgua dute, eta horren ondorioz langabezia-**tasa** apalak. Iñaki Heras
Jende nagusien artean dagoen alfabetatze **tasa** (%etan). Pello Salaburu
Gaur egun EAEen dugun unibertsitate mailako eskolatze **tasa** oso handia da, eta nekez joango da askoz ere gorago. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Txinako emakumeak dira suizidio **tasa** altuena dutenak. Berria - Gaiak
Ekonomian aurreratua dauden lekuetan, non emakumea ekonomikoki independenteagoa den, dibortzio **tasa** handiagoa da. Luis Elberdin
Kontuan hartzen da zenbat ikasle egiten dituzten ikasketak kalkulatuak urteetan (egiazko graduazio **tasa**) eta zenbatek egin beharko luketen kontuan izanik zein ziren ikasle hauen kalifikazioak unibertsitatean sartu aurretik (begiz jotako graduazio **tasa**). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
DIU tradizioaletan, % 4-5eko hutsegite **tasa** -haurdunaldiak- zegoen. Luis Elberdin

8 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Gaur egun, espezie galtze **tasa** gizakia agertu aitzinean baino ehun aldiz handiagoa da. Berria - Harian

9 irud/hed

Ez al du Altxak bere zementu-**tasa** , zementu-kupoa, edo dena delakoa, ongi eta sobera bete? Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako langabezia tasa (4); alkohol tasa (5); arabako langabezia tasa (3); arrakasta tasa (3); baimendutako hematokrito tasa (6); behin behinekotasun tasa (11); dutenen tasa (3)
emakumeen enplegu tasa (4); emakumeen jarduera tasa (3); emakumeen langabezia tasa (10); emantzipazio tasa (3); enplegu tasa (14); eskolatze tasa (10); euroguneko langabezia tasa (6); gazteen langabezia tasa (5); gizonezkoen langabezia tasa (4); graduazio tasa (3); haurren heriotza tasa (9); hazkunde tasa (13); hematokrito tasa (30); hematokrito tasa altuegia (5); hematokrito tasa gaintitu (13); hemoglobina tasa (3); heriotza tasa (23); hilkortasun tasa (10); hiltze tasa (6)
inflazio tasa (18); interes tasa (81); interes tasa apalek (3); interes tasa finkoa (4); interes tasa finkoak (3); interes tasa ofizialak (4); jaiotza tasa (11); jaiotze tasa (8); jarduera tasa (15); langabezi tasa (25); langabezia tasa (215); langabezia tasa handia (3); langabezia tasa handiena (3); langabeziaren tasa (4); norandrosterona tasa (3)
onartutako hematokrito tasa (3); suizidio tasa (8)
tasa aldakorrak (3); tasa altua (3); tasa altuak (3); tasa altuegia (8); tasa altuegia eman (4); tasa altuegia emateagatik (3); tasa altuena (3); tasa apalagoa (3); tasa apalak (5); tasa apalek (3); tasa apalen (3); tasa baxuak (3); tasa bera (5); tasa bere hartan (3)
tasa errealek (3); tasa errealaren (3); tasa errealek (3); tasa finkoa (7); tasa finkoak (7); tasa gaintitu (17); tasa gaintitu zuen (4); tasa gordina (4); tasa handia (10); tasa handiagoa (6); tasa handiak (7); tasa handiena (8)
tasa igo (3); tasa igoera (3); tasa igotzea (3); tasa igotzeko (3); tasa jaitsi (6); tasa kontrolatzea (3); tasa malguen (3); tasa murriztu (5)
tasa ofizialak (4); tasa ona (3); tasa orokorra (6); tasa txikiena (5)
tobin tasa (3); truke tasa (60); truke tasa errealaren (3); truke tasa finkoak (4); truke tasa malguen (3)
unibertsitarioren langabezia tasa (3); urte arteko tasa (8); zerga tasa (6); zergaren tasa (3)
aebetako interes tasak (7)
euroguneko interes tasak (5); haurren heriotza tasak (3); hazkunde tasak (5); heriotza tasak (6)
interes tasak (258); interes tasak igo (17); interes tasak igoko (18); interes tasak igotzea (8); interes tasak igotzeko (8); interes tasak igotzen (4); interes tasak jaisteko (9); interes tasak jaitsi (3); interes tasak jaitsiko (3); interes tasak murrizteko (3); interes tasak murriztu (3); interes tasak puntu (11); jaiotza tasak (3); jaiotze tasak (4); jarduera tasak (3); langabezia tasak (41); langabezia tasak gora (6)
okupazio tasak (3)

tasak aldatuko (3); **tasak** behera (4); **tasak** bere hartan (7); **tasak** bere horretan (5); **tasak** gora egin (11); **tasak** igo (19); **tasak** igo ditu (3); **tasak** igoko (19); **tasak** igokoa (3); **tasak** igotzea (10); **tasak** igotzeko (10); **tasak** igotzen (4); **tasak** jaistea (3); **tasak** jaisteko (13); **tasak** jaitsi (6); **tasak** jaitisiko (3); **tasak** maila egokian (3); **tasak** murrizteko (7); **tasak** murriztu (3); **tasak** puntu erdi (3); **tasak** puntu laurden (7)

truke **tasak** (26)

zentralak **interes** **tasak** (8)

truke **tasan** (3)

langabezia **tasari** (4); **langabezia** **tasari** **dagokionez** (3); **truke** **tasari** (3)

interes **tasarik** (6); **langabezia** **tasarik** (6); **langabezia** **tasarik** **handiena** (3); **suizidio** **tasarik** **altuena** (3); **tasarik** **altuena** (4); **tasarik** **handiena** (12); **tasarik** **txikiena** (5)

lan **tatsa** (7)

tasadore *iz* tasatzen duen pertsona. • *irud/hed*

Lutero edo Inazio gurea bezalako gizatasun **tasadore** extuak sortu ziren arte. Patziku Perurena

Inguru guzia daukat inozentzia puntuz betea, baina nere beginini lausook modernismo **tasadorez** zikindu zirenetik, bihotzak apenas sumatzen duen deus. Patziku Perurena

tasatu, tasa(tu), tasatzen (*orobat tatsatu g.er.*) 1 *ad* zerbaiten prezioa ezarri.

Zenbetean **tasatuko** ote zituen hatz haiek arrebaren aseguru etxeak? Harkaitz Cano

Nire etxebizitzak 5 milioi pezeta (30.000 euro) balio dituela dio Jaurilaritzak, baina auzitegi arkitekto batek 17 milioi pezetatan (102.000 euro) **tasatu** zidan. Berria - Euskal Herria

Udalek **tasatutako** etxeak. Berria - Euskal Herria

«Salneurri **tasatutako** etxebizitzak bultzatzea» da Hego Euskal Herriko erakundeen apustua. Berria - Euskal Herria

Datorren urtean **tasatutako** prezioan saltzeko izango diren 317 etxebizitza. Berria - Euskal Herria

Horregatik, arbitroak jartzen direnean horma mehelinak **tasatzeko**, haiek ez dituzte paretak beren garaian izandako kostuaren arabera baloratzen, baizik eta kontuetatik kontratuak ateratzen dituzte. Santiago Iruretagoiena

Munduko sorkariaren zinezko izatera ezin iritsi denez, sorkari bakoitzaren ordezkorik xinpleenak eta erabilgarrienak sortu ditu: izenak, numeroak... munduko errealitatea **tasatu** eta bere gisara erabiltzeko. Patziku Perurena

2 irud/hed

Bihar edo etzi zeinen guapo azalduko diren aurrikutestarekin aski dute, bere gorputzaren edertasuna deskubritu eta **tasatzen** hasi den neskakokorrek bezala. Patziku Perurena

3 (era burutua izenondo gisa)

Eriki beharreko etxe kopurua babes ofizialekoen eta **tasatu** artean banatzeko. Exebizitza **tasatu** prezioa 120.000 euro eta 180.000 euro artekoa izatea. Berria - Harian

Eraikiko diren %75ek babestutako etxebizitzak izan behar dute (%55ek babes ofizialekoak, eta %20k prezio **tasatukoak**). Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

etxe **tasatuak** (7)

etxe **tasatu** (3); **etxebizitza** **tasatu** (3)

tasatutako etxeak (3); **tasatutako etxebizitzak** (5); **tasatutako etxebizitzek** (4)

tasatzaile *izond/iz* tasatzen duena.

Aurreneko giza jardura trukea eta salerosketa izan baitzen, gizakiak bere burua balio-emaile, **tasatzaile** eta tratularitzat zuen harro, ordaingarri bilakatzen zuen guztia.

Markos Zapiain

Prezio-**tasatzaile** judu baten begiez begiratzen zien lurreko ondasunei. Josu Zabaleta

Egungo jende **tasatzaileak** [...] ezin du eraman inozentzia muttur bat ere inon. Patziku Perurena

tasazio *iz* tasatzea.

Tasazio Elkarteak emandako datuen arabera, etxebizitzaren batez besteko salneurria 2.439 eurokoa izan zen Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, metro koadro bakoitzeko.

Berria - Euskal Herria

Madrazok dio «gezurra» direla **Tasazio** Taldeak emandako igoera kopuruak. Berria - Euskal Herria

taska *iz* hozka.

Zakurrari kateak egiten dion **taskaren** antzekoak dira, oroimenak, katea balitz bezala, berritu egiten baitu zauria. Gotzon Garate

taskero *iz* tabernaria.

Tabernari-**taskeroak** musika aparatu (musikagailua) zahartu batean mugimendu batzuk egin ditu. Berria - Kirola

tasun 1 *iz* nolakotasuna. ik **propietate**.

Izakien forma, haien **tasunak**, haien karaktereak, sistema horren barne-erregulazioaren baitan daude. Juan Garzia

Ideiak bere baitan hartzen edo biltzen dituen **tasun** edo ezaugarrien multzoa. Iñaki Segurola

Erretinaren azalera osoan modu koherentean ikusmeneko informazio bat dagoenean agertzen den ezaugarri edo **tasun** berezi bat. Josu Zabaleta

Kubako goxotasuna, komunikazioa lortzeko beste inongo **tasunekin** alderatu ezin daitekeen kalitatea: zailtasuna, trebetasuna eta abar. Berria - Kultura

Ez da, ordea, harrotasuna, zintzotasuna baizik (elkar ukatzen badute bi **tasun** horiek). Lourdes Oñederra

Erresumako arazoetarako argitasun miresgarrarekin jaioa, oso denbora luzean errespetatuak izan ziren **tasunez** jantzia. Iñaki Iñurrieta

Nongotasuna nuen buruan, nire baitan nioen itsasoa objektu berdeen multzokoa zela edo berdea itsasoaren **tasunen** artean zegoela. Monika Etxebarria

Estatuaren izenek [...] estensio, eremu edo hedadura huts dira, ez dute nondik-norainokotasuna beste **tasunik**. Iñaki Segurola

Zeluletan, zitoplasmak ematen dizkio bere **tasunak** guneari. Juan Garzia

Izan dezagun garbi oraingoz ez dela egoki hotsen ezaugarriez eta fonemen **tasunez** hitz egitea. Lourdes Oñederra

Euskaraz *-keria* eransten ahal zaie txartzat edo halamoduzkotzat jotako **tasunei**. **Iñaki Seguro**la

2 (izenondo eta izlagunekin)

Ezagutzera eman zizkion ilehoriaren **tasun** fisikoak. **Migel Angel Mintegi**

Naturalistak arreta jartzen hasiak ziren bizidun guztien **tasun** erkideei. **Juan Garzia**

Organismoak osatzen dituzten molekulen egiturez eta haien arteko eragin-trukeez azaltzea izaki bizidunen **tasun** txundigarriak. **Juan Garzia**

Ikus ditugun larruazalaren beste **tasun** interesgarri batzuk. **Irene Aldasoro**

Antigorputzen **tasun** immunologikoak. **Juan Garzia**

Gizakiaren **tasun** bereizgarri diren kriminalitate eta axolagabeziari aplikatuta. **Iñaki Mendiguren**

Hots horien **tasun** fonetiko guztiak ez dira nahita egiten; ez dira, gainera, hautematen hizketa entzuterakoan ere: **tasun** alofonikoak dira. **Lourdes Oñederra**

Pragako Zirkulukoan erabaki izan zen fonema **tasun** bereizleen bilduma zela. **Lourdes Oñederra**

Ziurtasun gabeak, gure organoen nolokotasunaren araberakoak direlako guretzat materiaren ageriko **tasunak**. **Josu Zabaleta**

Lurraren antzeko **tasunak** dituzten planeta asko eta asko baitaude haien irritziz unibertsoaren luze-zabalean. **Juan Garzia**

Mirari-jiteko **tasunak** egozten dizkiote biziaren kasuan materiari. **Juan Garzia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tasun -aukera zabal-zabala ageri dute gizakiek, eta, beraz, eboluzio-gaitasun eskerga, askotariko hautespenetarako baliagarri. **Juan Garzia**

Asmamen handia behar da [...] intuizio ororen aurka, bidea egiteko, forma bizien aniztasun itzeletik harago, **tasun** - eta are ezaugarri-kidego bat aurkitzeraino. **Juan Garzia**

Fededunentzat, esentzia da garrantzitsuena, hau da, gizakiak dituen dohain eta **tasun** multzoa, jainkoak sortuak direlako. **Berria - Harian**

Egia da, **tasun** konbinaketa mota bat baldin [...] kontraste aukera bat galtzen duela hizkuntzaren ahoskerak. **Lourdes Oñederra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tasun berezi (3); **tasun konbinaketa** (7)

tatami 1 *iz* lurrean ezartzen den tapiz modukoa, karatea eta kideko borroka arteak egiteko erabiltzen dena.

Laster, oinetakoak erantzi eta gelaraino geneuzkan lau edo bost mailak jaitsi genituenean, sentsazioa izan genuen **tatami** lodi, gozo eta irregular samar baten gainean genbiltzala. **Bernardo Atxaga**

Pilota ta **tatamia** kirol tresnak dira. **Iñaki Arranz**

Ikusiko baninduzue, baldinbaitere, hobeto konprenituko zenukete zergatik batera ezinak garen **tatamia** eta ni. **Jesus Mari Mendizabal**

2 (bestelakoetan)

Tatami: arroz lastoz egindako zoru-estalkia. **Ibon Uribarri**

Etzeko gelak **tatamien** arabera antolatzen dira Japonian, eta etxebizitzan neurria ere **tatamietan** ematen da. **Ibon Uribarri**

Kontuan hartu behar da etxe horretako gelan ez dagoela oherik, **tatamiaren** gainean zabalzen den futoia erabiltzen baita lo egiteko. **Ibon Uribarri**

tatan ik **tan-tan 5**.

tatariar ik **tartariar**.

tatariartu ik **tartariartu**.

tatariera ik **tartariera**.

tati

1 **tati egin** dio *ad* (zer/nor *osagarrikirk gabe*) eskaini eta ez eman.

Luzatu zuen eskua jaulierrak eskaintzen zion papera hartzeko, baina zerbitzaburuak **tati egin** zion, hartu eta txirtxila ez zezan. **Koldo Izagirre**

Zakurrekin ez zegok **tati egiterik**. **Gotzon Garate**

2 **tati egite iz**

Joanes erditik igaro zen, eta lekuko izan zituenean aitortu zuten ikusi eta ez ikusi izan zela, to eta **tati egite** bat. **Felipe Juaristi**

tato *iz* zatia, puska.

Bestea atzean gelditzen da eta aurrean daukanaren bizkarra begiratzen du, belaunen flexio bortitzegien eraginarekin oinazpiek jaurtitzan dituzten lur **tatoak**, eta eskopetaren kanoiak haren buruaren gainetik ilunak utzi dituen hondakin goibelak mehatxatzen. **Pako Aristi**

tatorro *adlag*

Poliki-poliki hurbildu zait, **tatorro** jartzen denean egiten duen moduan. **Alberto Barandiaren**

tatsa ik **tasa**.

tatsatu ik **tatsatu**.

tatuaila ik **tauaje**.

tatuaje (164 agerraldi, 28 liburu eta 9 artikulutan; orobat **tatuai** 19 agerraldi, 7 liburu eta 3 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **tatuaje** agertzen da) **1** iz larruazalaren azpian margogaiki txertatuz egiten den marrazki ezabaezina.

Kobeko maisu batekin ikasi nuen **tatuajearen** antzea. Javi Cillero

Behin **tatuajea** azalean iraririk, gizaki tatuatuak bere egiten ditu bertute horiek. Javi Cillero

Ez egin ebakirik soinean dolua adierazteko, ez marraztu **tatuajerik** larruazalean. Elizen arteko biblia

Bihotzaren parean **tatuaje** bat dauka, ez dakit zerena. Pako Aristi

Erasoan dagoen suge baten **tatuajea** ageri da kulero berde argien elastikoaren gainetik. Paddy Rekalde

Tatuaje hura artean han ote zeukan galdetu nionean hasi zen guztia. Oskar Arana

Horrela ezagutu nituen Asiako herriak [...] eta **tatuajea** egin zidan emakumea. Javi Cillero

Tatuaje bat egin zidaten besoan, bakearen sinboloa, hain zuzen ere. Javi Cillero

Orratzaz eginiko **tatuajea** azaletik ezabatzea ezinezkoa den bezala. Jasone Osoro

Kosta ahala kosta eta sendagileen iritzi gorabehera, **tatuajea** kentzea erabaki nuen. Javi Cillero

Ryokok egindako **tatuajea** ezabatzeko ahaleginak egin nituen. Javi Cillero

Tatuajeetan islatzen dira jendearen itxaropenak, irrikak, eta ikarak. Javi Cillero

Beso sendoak zituen, eta besondotik gora **tatuaje** ondo hornitutako baten aztarnak sumatzen zitzaizkion. Javi Cillero

Alkandoraren mahukak jaso nituen besoko **tatuajea** agerian utzirik. Javi Cillero

Pentsamendu hura azaleratzen balihoakit bezala eta **tatuaje** baten moduan markatuta gelditzen ari, gero eta zabalago, gero eta sendoago. Bernardo Atxaga

Tatuajeetarako hainbat tinta sorta kutsatuta egon daitezkeela ohartarazi dute. Berria - Euskal Herria

2 (izenondoekin)

Hasieran **tatuaje** normalak erabiltzen nituen; tigre baten burua zakil puntan, eta horrelakoak. Jon Alonso

Bizkarrean, ezkerrean, **tatuaje** handia zeukan, gorri-orlegia. Gotzon Garate

Besoko **tatuaje** txikia ere morez tindaturik zeukan. Juan Kruz Igerabide

Japoniako **tatuaje** usadiozkoak irudi nagusi bat du bizkaralde osoa hartzen duena. Javi Cillero

Japoniako **tatuaje** klasikoa irudi batzuek osatzen dute arduranean, kondairako heroiak eta erlijio irudiak. Javi Cillero

3 (hitz elkartuetan)

Harrigarriena zen zer **tatuaje**-klase zeukan ikustea. Jon Alonso

Zama-ontzi batean lanean ibiltzen zen marinel peto-petoa, **tatuaje** pare baten jabea... Paddy Rekalde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tatuaje bat egin (3)

tatuajea egitera (4); **tximeleta tatuajea** (6)

tatuajeak egiten (5)

tatuajedun iz tatuaje bat edo tatuajeak dauzkan pertsona.

Tatuajedunak eskutik oratu eta komunera sartu dira biak. Paddy Rekalde

tatuajegile iz tatuajeak egiten dituen pertsona.

Deani galdetu nion, ezagutzen ote zuen **tatuajegilerik** Chinatownen, hura kentzeko gauza izan zitekeenik. Javi Cillero

Tatuajegile askorenean izan naiz, eta hala ere, neskatzak lantegiko sarbidea erakutsi zidanean, halako zirrara moduko bat nabaritu nuen. Javi Cillero

Bestalde, artistatzat ez baino eskulangiletzat joko bagenu **tatuajegilea**, agurearentzat tatuajea ezabatzea izango zen, kasurako, erlojugilearentzat erlojua barrutik desmuntatzea bezala. Javi Cillero

tatuajegintza iz tatuajeak egitea.

Goibeldu egiten nintzen, dena den, irudi ikusgarri haiek ikusita, zeren gero eta gehiago ikasten ari nintzen **tatuajegintzaz**, eta tolestura gaizto bat bilatzen nien Ryokoren gorputz irudiei. Javi Cillero

tatuatu, tatu, tatuatzen 1 du ad tatuajea egin.

Gazte batek armiarma sarea **tatuatu** du buru ile-moztuan. Pako Aristi

Nahiago duzula tigre bat **tatuatu** zakil puntan. Jon Alonso

Indarrez tira eginda alkandora tarratatu zuen, paparrean **tatuaturik** zeukan irudi gorri eta berde bat erakutsi nahian. Lopez de Arana

Ezkerreko besoan antxeta txiki bat **tatuaturik** zeukan. Javi Cillero

-Zure sinadura **tatuatua** daramat gorputzean. Joan Mari Irigoien

Lepoan sugea **tatuatuta** daukana. Pablo Sastre

2 irud/hed

Ohartu baitzen semeak amaren oroitzapena **tatuaturik** eramango zuela beti bihotzean. Berria - Kultura

3 (era burutua izenondo gisa)

Izan ere, behin tatuajea azalean iraririk, gizaki **tatuatuak** bere egiten ditu bertute horiek. Javi Cillero

Munstroaren gorputz **tatuatuaren** ikusgarria izan zen zorabiotik gertu utzi ninduen. Jon Alonso

4 (hitz elkartuetan)

Neska-lagunak lapurtu zizkieten marinel beso-**tatuatu** sendoekiko euren herra erredimitzeko. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

besoan tatuaturik zeraman (3); **tatuaturik zeukan** (3)

tatuatzaile iz tatuatzen duen pertsona.

Badaezpada ere tatuai sobera ederrik ez egiteko esan behar diok **tatuatzaileari**, ironia mehe eta hezi batean. Koldo Izagirre

Tatuatzaileak eredu bat behar zuten, eta horrek esan nahi du noizbait egin nizula sinadura, orri edo koadernotxoaren batean. **Joan Mari Irigoien**

tatxa 1 iz hutsa, akatsa.

Denak agertzen dira bizian diren bezala, **tatxa** zenbaitekin han edo hemen, nor bere ahulezi edo gaiztakeri zinikoarekin. **Herria**

-Baina gure Anttonik ere badu bada **tatxa** txiki bat... -bota zion halako batean neskaren amak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Berekin dituela dirudi **tatxa** bilau guziak. **Patziku Perurena**

Badu urriak **tatxa** bat, Penintsulako zenbait lurralderi isun latza ezartzen dielako: hilabeterik euritsuena bilakatu izan da Valentzia eta Katalunia alderako. **Pello Zabala**

Sarritan, buruari ezker-eskuin eragin ostean, bere baitan egiten zuen: zein ote haxixaren **tatxa**? **Patxi Zubizarreta**

Fidatzekoa nintzela esan zion, ostatua eta etxeakoandrea **tatxarik** gabeak zirela esan zidan. **Anjel Lertxundi**

Euskara zuzen, **tatxarik** gabekoan galdetu du barran Eugeniorengatik kanpotarrak. **Iñigo Aranbarri**

2 orbana.

Tatxa gorri bat behar dut nik, egun itsasoak eta gasoilak ilundutako harrizko lerroaren erdian. **Koldo Izagirre**

Hantxe, dotzeta bat zurzuri, pintore batek erretaularen behereko **tatxa** berdean pintzel ukaldi batez landatuak balitu bezala. **Piarres Aintziart**

Herri guti, eta **tatxa** zuri zabalak egungo etapako mapan. **Piarres Aintziart**

Lurrean **tatxa** beilegia hedatu zen, jarioaren parte batek mutikoaren papoa zikitzen zuela. **Itxaro Borda**

Etheen artean, pentzeak, eta pentzeetan, haritzek egin **tatxa** ilunak. **Piarres Aintziart**

Nasaren lerro erdian dagoen **tatxa** hori neure lotura da. **Koldo Izagirre**

Patriciaren gonako **tatxa** ez da joan, eta berri bat egingo diola erabaki du. **Eider Rodriguez**

3 (hitz elkartuetan)

Uda hark argituko ez zituen hezetasun **tatxa** ilun, inoiz urdina izandako pintura geruzak hartuak zituen. **Koldo Izagirre**

Ez zen odol **tatxarik** ere ageri belarrean! **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tatxa gorri (6); **tatxa gorri bat** (3)

tatxarik gabeko (5)

tatxadura iz urratua, ezabatzea.

Gogoan ditut haren koaderno koadrikulatuak, **tatxadura** beltzak, tipografia-ikur bitxiak eta intsektu-letra hura. **Juan Garzia**

Tatxadura bat ageri da eskuizkribuan; baliteke portuaren izena ezabatu izana. **Juan Garzia**

tatxagabe (orobat tatxa gabe) izond

Ene ama mintzatu aitzin, erabaki gabe nengoen haietan zer zen harrigarriena, marra **tatxa** gabea ala isiltasun betea. **Aingeru Epaltza**

tatxatu, tatxa(tu), tatxatzen 1 du ad urratu, ezabatu.

Umetan, anai-arrebekin haserretzen zenean albumeko argazkietan boligrafoz **tatxatzen** zituen aurpegiak bezalakoak. **Jasone Osoro**

Bueltak zenbatu eta eman zizkidan, eta kontu-liburuko oharra **tatxatu** zuen. **Fernando Rey**

Edo bere nobelak idazten zituen, laster eta bortitz **tatxatuz**. **Fernando Rey**

Era berean [...] ez daukate buruan inongo historiari edo errealtaterik leku-izen erromantzeak **tatxatzen** dabilzan euskararen militanteek. **Bernardo Atxaga**

2 orbandu.

Larrua trunpilo gorriz **tatxatua**. **Itxaro Borda**

3 irud/hed

Baina laster konturatu zen mutikoak ez ziola ohorea **tatxatuko**. **Itxaro Borda**

tatxoi iz urratua. ik tatxadura.

Beste argazki batean, emakumeek kantatu zituzten koplak ageri ziren, bere **tatxoi** eta guzti, betiko kuadrikuladun orrian. **Andoni Egaña**

Pornografia eta ukazioa, kromosomak, **tatxoiak** eta ekuazioen ziurgabetasuna, Malcom X, X izpiak. **Harkaitz Cano**

Pasarte batzuetan izen-deitura osoak idatzi zituen, baina **tatxoi** nabarmenekin ezabatu zituen gero. **Harkaitz Cano**

tatxun ik txun.

tauka iz burukoak. ik toka³.

Beraz, ohore guzia galtzen zuen emakume ezkonduak, gonazalaren batek bortxaz burua estaltzen dion **tauka** kenduz gero. **Patziku Perurena**

taula (orobat tabla g.er.) 1 iz zerrenda gisa aurkezten den emaitza edo argibide multzoa.

Unibertsitarioak dira, hain zuzen ere, lana gehien bilatzen dutenak, **tauletako** datuetan ikusten den gisa. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Azterturiko hizkuntzaren sistema fonologikoa, hau da, erabiltzen dituen hotsen **taula**, osatu behar da. **Isabel Arrigain**

Kontu handiz ibiltzen ginen beti, tenperatura basaleko **taulak** egiten. **Karlos Zabala**

Taulan ikus daitekeen gisa BPGaren %0'8raino iritsi zen. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Zalantzarik egon ez dadin, biztanleko errentaren ehuneko gisa adierazi da ikasleko gastua **taularen** zutabe horretan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

II. **taulan** datu konparatibo batzuk ageri dira: [...]. **Koro Navarro**

VIII. **taulan** finantza-zabalkundearen, truke-tasen egonkortasunaren eta diru-politikaren autonomiaren arteko hiru dimentsioko arbitraje honen baldintzak laburbiltzen dira.

Koro Navarro

Gure eranskineko 5. **taulan** ikus daiteke nola banatzen diren munduan, XX. mendearen amaieran, aberastasuna eta garapena. **Pello Salaburu**

Mundu mailako trukeen mailatan satzatzen da joera hau (IV. **taula**). **Koro Navarro**
Ancien Régime-ko **taulen** aniztasun nahasgarria kalkulu-sistema bakun batera murriztean, [...]. **Iñaki Mendiguren**
Ideia transzendentaleen bitartez sortutako arrazoimen hutsaren antinomia **taula** batean aurkeztu genuenean, [...]. **Ibon Uribarri**
Biderkatzeko **taulak** Coué-k baino hobeto sendatzen ditin nerbioak. **Lopez de Arana**
Astronomiako **taulak** erabiliz. **Santiago Iruretagoiena**
Izenak proposatuko ditugu ondoko **taula** honetan. **Iñaki Arranz**
Soldaten **taula** osatzea, lanpostuen berariazko osagarrietan oinarrituta. **Berria - Euskal Herria**
Zazpi jardunaldi jokatu dira, eta bete-betean sartuta dago **taulako** behealdean, bost puntu besterik ez dituela. **Berria - Kirola**
Orain ere, txuri-urdinak daude **taulan** erosoago, sei puntuko alde baitaude kontrarioekiko. **Berria - Kirola**
Informatikan testu tratamenduaren (Word), **Taula** eta kalkulu egilearen (Excel) baita ere datubaseen (Access) erabilpenaren menperatze osoa. **Herria**

2 (izenondoekin)

Mahai gainean paper handi batzuk zituen, **taula** handiak, koadrotxoetan numeroak. **Joseba Sarrionandia**
Estatistikoek darabiltzaten zenbakien **taula** aleatorioa zenbaki-sinboloen sail bat da. **Xabier Arregi**
Balio simple ezagun batzuetatik abiatuta, **taula** trigonometrikoak behar bezala osatzeko. **Jon Muñoz**
Gaia, XVIII. mendean espezieen bilakaera, zeinak denboran gararazten duen naturaren jarraipena eta **taula** taxonomikoaren egungo hutsuneak azaltzen dituen. **Xabier Arregi**
Espezie botanikoen **taula** sailkatzaile bat enuntziatuek osatzen dute. **Xabier Arregi**
-**Taula** psikometrikoetan tarteak begiratu. **Pello Zabala**
Nik neuk bizitza erdia **taula** aktuariak aztertzen eta hainbat lanbidetako heriotza-tasen gainean pentsatzen eman dudanez. **Oskar Arana**
Judizioetako pentsatzearen une guztien **taula** transzendentalean. **Ibon Uribarri**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egun hartan haurdun geldi nitekeen ala ez begiratu behar nuen nire tenperatura-**taulan**. **Karlos Zabala**
Gero, logaritmo horri dagokion zenbakia bilatzen duzu logaritmo-**taulan**. **Jon Muñoz**
-Aritmomantziak beldurgarria dirudi -esan zion Harryk, oso nahasia zirudien zenbaki-**taula** bat hartuta. Hori zen egiptoarrek 9 arteko biderketa-**taula** aurkezteko zuten moduetariko bat. **Iñaki Mendiguren**
Biderkatze-**taula** madarikatuak ikastea, [...]. **Itxaro Borda**
Paraje haietako irudiak eta alderdi ekonomiko, osasunezko eta medikuntzakoei buruzko estatistika-**taulak** ikusi nitian. **Xabier Olarra**
Enpresako zuzendaritzak lan batzordeak eskatu 2004ko soldata **taulak** onartu zituenean bukatu zen greba. **Berria - Ekonomia**
Ordutegi **taula** eta mapa bereziak. **Harkaitz Cano**
Parabola, elipsea, zatikien teoria, sinu-**taula** bat eratzea; hark eratu zuen trigonometria matematikaren alor autonomo gisa. **Jon Muñoz**
Tangente-**taula** bat edukiz gero, zuzenean neur daiteke Keopsen piramide ospetsuaren garaiera. **Jon Muñoz**
Ohartuko hintzen heriotza-**taulak** ezartzea izan dela probabilitateek egin duten aurreneko gauzatariko bat. **Jon Muñoz**
A eta B formulak baliokide semantikoko direla esango dugu, eta sinbolikoki $A \bullet B$ idatziko, baldin eta bakarrik baldin A eta B-k egia **taula** bera badute. **Askoren artean**
Biografietako konkordantzia-**taulak**. **Askoren artean**
Ez al dizkigute botere-klaseek beren balio-**taulak** inposatzen gaurko gerrarien gizarte moderno honetan? **Askoren artean**

4 ohola.

Iparraldean diferentzia egiten da egurra (surako egurra) eta zuraren artean; hau **taulak** egiteko lantzen da. **Xipri Arbelbide**
Bertze lagun batzuek zurezko **taula** luzeak garraiatzen zituzten. **Eneko Bidegain**
Teilatupeko bi gelatxo koxkor, murru-paretak dena hozka eta arraildura, zoladurako **taulak** harrotuak. **Janbattitt Dirassar**
Bi hiltzalek ate gibelesko kutxa baztertzan dute, tronadurako hiru **taula** altxatzen eta zilo hari behera gorputz hila norapait aurtikitzen. **Xipri Arbelbide**
Ene **taulazko** ohearen gainean etzanik nindagon. **Michel Oronoz**
Gertatu izan zaiela zenbaitetan emakume batekin ohera joatea eta emakumea hantxe gelditzea ez atzera ez aurrera, lizatzeo **taula** batek baino irrika gutxiagoz. **Karlos Zabala**
Sagarno basoa **taula** gainean utzi zion, eta bera aulki batean jarri zen. **Elena Touyaru**
Huna beraz nolakoa zen gela hori: leiho bakar bat burdin barrez hetsia; inguru guzian paretak adarailuz, salbu hegal bat, **taulaz** egina. **Xipri Arbelbide**
Soliba bakoitzean **taularen** bi muturretan bina iltze josiko dira. **Santiago Iruretagoiena**
Etxe-blokeen inguru guztiko teilatu-hegaletako **tauletan**. **Santiago Iruretagoiena**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Matalaz gisa **taula** puska bat eta estalkitarako manta mehe bat baizik ez zuen gauaren iragaiteko. **Eneko Bidegain**
Gure gazte denboran xaxariak bazuen oholaren gisako **taula** peza bat larruz bezitua, xilo batzuekin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Modaren uhinei utzi behar diegu gu urbaztererra eramaten, lehertu baino lehen, surf-**taula** batean bezala. **Lopez de Arana**
Adituek diotenez, urtean 12 000 uhain **taula** berri saltzen da Akitania osoan. **Herria**
Iker Fernandezek eta Ibon Idigorasek snowboard **taula** aukeratu izanak inor gutxi hartu zuen ustekabea. **Berria - Kirola**
Estatuan saltzen da urtean 180 000 elur **taula**, 115 000 lotura eta 104 000 oinetako pare. **Herria**

7 irud/hed

Marjolinek ebakitze **taula** ere ez zuen garbitu; untxiaren oin moztuak haren ondoan zeuden artean. **Karlos Zabala**
Errepedearen oinarria altzairuzko xaflez eginiko **taula** da. **Berria - Gaiak**
Portlanezko zazpi zutabeek **taula** horri eusten diote. **Berria - Gaiak**

8 ohol modukoa, gai zurrunezkoa, zerbait idatzia duena.

Hamabi **Tauletako** legeak zehaztasun-eredu dira: haurrek buruz ikasten zituzten. **Iñaki Iñurrieta**
Gure imajinazioan beharbada gizateria anonimo baten kontzientzia etereo isurkorra baino sendoagoa, Moisesen harrizko **taula** bat da. **Joxe Azurmendi**
Moisesi berari Jainkoak Sinai mendian eskura emandako **taulak** balira bezala. **Iñigo Aranbarri**
Marmolezko **taula** baten gaineko hiltartzak honela dio: [...]. **Joxe Austin Arrieta**
Idazkera kuneiformez, sumeriar **taulak** dira, dudarik gabe, ezagutzen diren testurik zaharrenak. **Patziku Perurena**

9 iragarkiak eta kidekoak ezartzen diren ohol handia.

Kanpoko **taulan** iltzatua duten ordutegiari begira jarri da une batez. **Pello Lizarralde**
Gymnasiumera bidean, udaletxeko atarian gelditzen ginen errekruten deialdi-**taula** begiratzeko. **Anjel Lertxundi**
"Bingoa kirolago da, telebista kultura baino!" esaldia iltzaturik genuen erredakzioko kortozko ohar-**taulan**, kameren-eta zirgarri. **Anjel Lertxundi**
Kortozko iragarki-**taula** zegoen ezkerreko horman, kolore eta tamaina guztietako paperez gainezka. **Fernando Morillo**
Jende-multzotxi bat ikusi zuten iragarki-**taularen** ondoan bilduta. **Iñaki Mendiguren**
Leiarpeko aretoa deritzon ezarritako informazio-**taulen** irakurketan murgildu zen, urdurri. **Juan Luis Zabala**
Erakusketak, hogaletau **taulen** bidez, liburuaren bidea agertzen du, idazlearen mahaitik atera eta irakurlearen eskuetara iritsi artekoa. **Berria - Kultura**

Taula bakoitzean azalpen tekniko dago, euskaraz eta gaztelaniaz, eta adibide batekin janzten da gainera. Berria - Kultura

10 xake joko eta kidekoetan, piezak kokatzen diren ohol karratua.

Nire begiek **taulako** lauki guztiak aztertu zituzten, pieza bakoitzaren posizioaren berri emanez bat-batean pizturiko garunari. Alberto Ladrón Arana

Taularen ondoan, dagoeneko jokotik kanpo geratuak, zaldi zuri bat eta alfil beltz bat. Imanol Zurutuza

Ikusi nituen lehenbiziko bi xakelariak zaharrak ziren eta isilean jokatzen zuten, beren buru urdinduak **taulatik** une batez ere altxatu gabe. Alberto Ladrón Arana

Erregea **taula** gainean utzi eta erregearen figura lerdana hartu zuen. Alberto Ladrón Arana

Peza bakoitzaren balioa, peza hori **taulan** jarria dagoen tokiaren arabera da. Isabel Arrigain

Jokalariek **taula** gainera botatzen dituzten dadoekin gertatzen den bezalaxe. Santiago Iruretagoiena

Partxiseko **taula** bat, ispilu borobil bat, ahosoinu bat. Fernando Rey

Taula den mundu txiki horretan, noranahi joan daitezke gainerako piezak: erregea, bere pauso motz eta uzurrekin; dama, bere pauso luze eta ausartekin, [...]. Imanol Zurutuza

11 irud/hed

Caballitoko **taulan** piezak mugitu dira berriro. Berria - Ekonomia

Oholtzak gillotina bat zuen erdigunean, eta, aldeetako batean, saskibaloi-**taula** bat, bere saskiarekin. Joan Mari Irigoien

12 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Xake **taula** baten aurrean egoten omen da beti eserita, baina piezarik gabe. Joseba Sarrionandia

Zurietan jokatzen duen jokalariek dama **taularen** erdira ateratzeko egiten dituen ahaleginekin konpara liteke. Jon Alonso

Dama-**taula** gorridun durbante zuria buruan ondo bermatu, amari buruz itzuli, eta esan zion: [...]Joko-**taula** prest zagok, eta piezak mugitzen hasita. Juan Kruz Igerabide

Joko-**taulari** begira. Joxe Austin Arrieta

13 oholtza. ik taulada.

600 metro koadroko **taulan** Ines Salazar sopranoa, Attila Kis eta Igor Jan tenorrek eta Genaro Sulvaran baritonoa ariko dira, besteak beste. Berria - Kultura

Zazpi aktore daude **taula** gainean. Berria - Kultura

Zamarratz eta txapelaz bezitutu aurkezlea, punpean hupatu zen **taula** gainera. Itxaro Borda

Oraindik ederki mugitzen du ipurialdea **taula** gainean Detroiteko neska txiki meharrek. Patxi Iturrategi

Argiak piztu ziren eta aitzineko ikusleek [...] **taula** gainera jauzi egin zuten, artzain olerkariaren zoriontzeko. Itxaro Borda

Zenbait hilabete **taulatik** kanpo egon ostean, euskal herriko agertokietara itzuliko da ainhoa arteta sopranoa. Berria - Kultura

Abeslariaren aginduen kontra segurtasuneko kideek **taula** ondora hurbiltzera baimendutako ikusle hautatuak gonbidatu zituen **taula** gainera igotzera. Berria - Kultura

Antzerki lanak ere idatzi eta **taulara** eramaten hasi zen garai hartan [Sartre]. Monika Etxebarria

Taula gaineko ibilbide arrakastatsu hori DVD batekin biribildu du Gorringok. Berria - Kultura

Bertset, kantu, dantza, **taula** joko osagaiak gain, pastoral bat jantzi kontu bat da ere. Berria - Kultura

Shakespeareren hiru lanak antzerki **taulatik** zinemako pantailara hainbat aldiz eraman dituztela. Berria - Kultura

14 pl

Taulen gainerat igan ziren lehenik Xuberotar dantzariak, ttuntuna eta txulula lagun. Michel Oronoz

Bere gorputz judua **tauletan** erakutsi du alemaniar gazte garbien aurrean. Ramon Etxezarreta

Epaiketa mahaia **taula** batzuen gainean dago, aski gora. Filipe Bidart

Hiru ehun kantari nunbait han **taulen** gainean eta jende frango heien entzule. Herria

15 gonetako toles bikoitza.

Txinako krepa, larrugaina, ozkar puntua, izur zeharra, gona-**taulak**, bolantak... Joxan Elozegi

17 gimnastikan eta kidekoetan, ariketen multzo egituratua.

Auzokideak amaitu du bere gimnasia **taula**. Juan Martín Elexpuru

Sendagileek partidaren atariko beroketa **taula** aldatzea proposatu zuten. Berria - Kirola

18 zoladura.

Merkantzien tren batean sartzen gaituzte, eta han etzaten gara **taularen** gainean, ez gelan bezain tinki. Marzel Etxehandi

19 ohol batean eginiko margolana.

Retrato de Emakume neurri txikiko **taula** bat da (30x25cm.) eta 1991tik Arabako Arte Eder museoko bildumakoa da. Berria - Kultura

Irudia zurezko **taularen** (XII. mendekoa) gainean egin zen. Berria - Kultura

Oleo txikiak **taulan**. Berria - Kultura

20 instrumentu taula auto, hegazkin eta kidekoetan, piloaren aurrean dagoen adierazgailuen multzoa, taula moduko batean bildua.

Instrumentu **taula** ikusten dut. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bederatzi puntuetako taula (3); elur taula (3); ikus taula (3); instrumentu taula (4); kategorien taula (3); laneko gaixotasunen taula (4); surf taula (3)

taula berriak (5); taula gaina (3); taula gainean (117); taula gaineko (16); taula gainera (40); taula gainera igo (8); taula gainerat (4); taula gainetik (5); taula joko (3); taula luze (5); taula luzea (4); taula luzeak (4); taula txiki (3); taula zahar (3); taula zuzendaria (6)

xake taula (23)

biderketa taulak (6); sinu taulak (3); taulak erakusten (5); taulak erakusten duen (3); taulak ezarri (4)

hurrengo taulan (3); iragarki taulan (3); ondoko taulan (5); taulan ikus (8); taulan ikus daitekeen (5); taulan ikusten (4); xake taulan (3)

taulara igo (3)

iragarki taularen (3); kategorien taularen (3); taularen aurrean (6); taularen gainean (9); xake taularen (6)

taulari begira (3); taulari begiratu (3); xake taulari (4)

taulen gainean (39); taulen gaineko (3); taulen gainera (8); taulen gainerat (4)

hamabi tauletako (17); hamabi tauletako legeak (8)

taulada (orobat tablada g.er.) 1 iz oholtza.

Gizon batzuk **taulada** bat eraikitzen ari ziren orkestrinarentzat. Bernardo Atxaga

Bat-batean, pantaila itzali eta ring baten itxura eduki nahi zuen **taulada** bat argitu zitean kafetegian. Bernardo Atxaga

Besta-garaietan Kanttu akordeoilari eta Pitxi txistulariek hornitzen zuten **tauladaren** gainean. Itxaro Borda

Pentze erdian, **taulada** haundi bat oihal xuri zabal batek aterbetua. Herria

Zortzi hilabeteko lan tematsu baten ordari eguna izango da biharkoa **Antso Handia** trajeria edo pastoralaren **tauladara** igoko diren 118 mauletarrantzat. Berria - Kultura

2 taulazko zorua.

Tauladaren gainean etzanik, bakoitza ahal bakoitza kokatu da, eleak isiltzen dira emeki-emeki, eta lo xorta baten egitera entseatzeko gara. **Marzel Etkehandi**

Lehen estaiako pinozko **tauladaren** gainean. **Aurelia Arkotxa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kanpoko taulada (3); **taulada gainean** (4)

tauladaren gainean (3)

taulagaineratu, taulagainera(tu), taulagaineratzen du *ad* taularatu, antzeztu.

Gaur egungo bizian oinarritua, minak, arazoak eta pozak **taulagaineratu** dituzte. **Berria - Kultura**

taulape 1 *iz* taularen azpialdea.

Zazpi pasarteak erabat loturik zeuden eta orkestrazio aldetik perkusio talde ia osoa **taulapean**. **Berria - Kultura**

Taulapean adi-adi begira ehunka entzule; baina horietako lauk baino ez zuten iritzi erabakigarririk: Xabier Ormaetxea, Felix Irazustabarrena, Mirari Azula eta Patxi Aizpuruak hain zuzen ere, Karmele Madinabeitia idazkariaren laguntzarekin, betiere. **Berria - Kultura**

2 (saskibaloian) ik taularatu 2.

Azpimarragarriak dira Gironaren **taulapean** eskuratutako 20 erreboteak. **Berria - Kirola**

taularatu, taulara(tu), taularatzen 1 du *ad* oholtzaratu, antzeztu.

Une horretan, *Inprevist* antzezlana ari zen **taularatzen**, eta hori dela-eta, jendez beteta zegoen. **Iñigo Aranbarri**

Datorren igandean "Abraham" Pastoral, Antoine Abbadie jaunaren eraginez, eta ohituratik at, Donibane Lohitzunen **taularatuko** dela jakin diagu hemen. **Txillardegia**

1791ko ekainean argitaratzen da, azkenik, *Justine edo bertutearen zorigaitzak*, eta urrian **taularatzen** du -eta arrakasta handiz gainera- *Oxtierneko kondea edo bertinajearen ondorioak*, Theatre Molieren. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Argitaratu egiten du, **taularatu** egiten dira haren obrak, iraultzan parte hartzen du buru-belarri. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Euskal lizeoko 30 bat ikaskek parte hartu dute obra horren idazten lehenik eta gero **taularatzen**. **Herria**

Von Triererrek ez du **taularatuko** 'Der ring des nibelungen'. **Berria - Kultura**

Orain arte Estrasburgon baino ez da **taularatu** Rossiniren obra, eta OLBEK berak ekotziko du Bilbokorako. **Berria - Kultura**

2 (saskibaloian) ik taulape 2.

Nahierara jokatuz mota guztietako tantoak egin zituen, punpa-sareak, iskin motzean, luze **taularatuak** ... **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

obra taularatu (5)

antzezlana taularatu (9); **antzezlana taularatuko du** (5); **antzekian taularatu** (4); **ikusbizina taularatu** (6); **ikusbizina taularatuko du** (4); **lana taularatu** (7); **lana taularatuko du** (4); **obra taularatu** (5); **obra taularatuko dituzte** (3); **obrak taularatu** (4); **obrak taularatuko dituzte** (3); **opera taularatu** (4); **taularatu du bihar** (3); **taularatu du gaur** (4)

taularatze *iz* oholtzaratzea, antzezte.

Egiguren Ave María obra behartuaren ordurarteko interpretaziorik erosoena eta **taularatze** zoragarri eta sinetserraza lortu zuten, oso noizbehinka ikus daitekeen erakoa.

Berria - Kultura

Larunbatekoa ez da izango Antso Erregea antzezlana izango duen **taularatze** bakarra, uztailearen 31n leku eta ordu berean antzeztuko baitute ikuskizuna. **Berria -**

Kultura

taulatu¹, taula(tu), taulatzen du *ad ipar*

Retegik han zuen bere botea, gibelerat ezker dilindan, eta Istillartek ere **taulatu** nahi, baina usaian baino laburrago ziren heien pilotak marrarat edo sarerat. **Herria**

Erran behar da haatik harritu gaituela Sorhueten xuxenak, eta iraupenak, gibeledu pilotak ere xuxen eta luze **taulatuz**, kontrarioa nekatuago zuen denboran. **Herria**

Hastean, duen jo biziarekin eta fermuki **taulatuz**, Biscouby nagusi: 9-4, 11-7 eta 17-10. **Herria**

Aire xoragarri batekin, aire luzea ere, eta gibeledu batek bezala **taulatuz**, damurik ditu bi falta egin botetik, beste biga, tronpaturik, taulaz taula joaterat utzi. **Herria**

taulatu² *iz* taulada.

Han aurrean, Areto Nagusiak zuen **taulatu** eskergea baten gainean, bi gizonezko ikusi zituen eserita; bat ordurako hizketan ari zen. **Joxemari Iturralde**

taulatxo 1 *iz* taula txikia, bereziki idazteko erabiltzen zena.

Idatzi agertuko dizudana, ezarri **taulatxoetan**, erraz irakurtzeko eran. **Elizen arteko biblia**

Taulatxo mizenikoetan kopuruak eta administrazio-kontzeptuak besterik ez baitira jasotzen. **Askoren artean**

Pitagoras jaio baino milatik gora urte lehenago irarria zuten **taulatxo** hura! **Jon Muñoz**

Zergatik ez dago babiloniar **taulatxo** bat bera ere? **Jon Muñoz**

Garai haietako buztinezko **taulatxoak** eta adreilu itxurako buztin-lauzatxoak badira. **Pello Zabala**

1291ko ekainaren 9an, **taulatxo** batean marrazten ari zen Dante, eta Beatriceren heriotzaren lehen urteurrena zen. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Buztin **taulatxo** batean, esaera zahar eguraldiari buruzkoak topatu ziren. **Pello Zabala**

Iragarki-**taulatxo** bat jarri zuen atean, eta mendi-magalaren goialdeko taberna txiki-txiki batera joan ziren. Umeentzako forma-**taulatxo** bat erosi zuen Amyk, figura handi sinpleak -laukia, triangela, zirkulua, laukizuzena- identifikatu eta bakoitza dagokion zuloan sartzeko jostailua. **Xabier Aranburu**

taulatzale (*corpusean taulatzale soilik*) *iz* taulatzen duen pilotaria.

Lehenean berehala jokoan sartu dira azken hauk: Frantxix arras deliberatua eta Etcheto lauretako **taulatzale** finena azken oren laurdeneraino: 4 etan eta 12 etan adosturik, 24-15, 28-20 gaina zuten lakartarrak eta uztaiztarrak 7 sakerekin ordukotz. **Herria**

taulatzale ik **taulatzale**.

taulatze iz

Donoztirikoak garaztarrari ereman bere gibelego **taulatz** moduan. **Herria**

taulen iz baratzeez mintzatuz, alorra, barazki jakin bat lantzen den zatia.

Kanpalekua frango pollita da lore **taulenak**, ezker-aihenak, eta itzalguneean, xarbota usain goxokoak. **Marzel Etxehandi**

taulier 1 iz ipar aurreko mantala.

Haste tratuak, **taulier** beltzetan etorri erosleekilan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 **taulier aintzineko** (orobat **taulerraitzineko**) aurreko mantala.

West Ibarre-ko kantariak baitziren kozinan zirenak, tenorea jin delarik **taulier aintzinekoak** ken eta joan dira kantuz artzerat eta gero jin berriz beren zartainetarat. **Herria**
Olioa ezteki burbuilaka ari zen eta atorra arrabiraturik, Herri Urratsen erosi **taulerraitzinekoak** soinean, suaren parean plantatu nintzen, deblauki **Itxaro Borda**

taulerraitzineko ik **taulier 2**.

taumaturgiko izond mirariak egiteko gaitasunari dagokiona.

Eskuinean lehendakariaren abizena etengabe ahoskatzen duten emakume batzuk daude, errepikapenak eragin **taumaturgikoa** duela sinetsiko balute bezala. **Iban Zaldúa**
Ez dut uste kontsulta batek bertute **taumaturgikorik** duenik. **Berria - Euskal Herria**

taumaturgo iz mirariak egiteko gauza den pertsona.

Esan nahi nioke zorigaitzoko herri honetan **taumaturgoak** izan behar dugula oraindik ere, ezin-ulertzearen amildegian erori nahi ez badugu. **Agurtzane Juanena**

taupa (23 agerraldi, 14 liburu eta 2 artikulutan) 1 iz taupada.

Pasaporteko izena entzuteak sekulako **taupa** eragin zion nire bihotzari. **Anjel Lertxundi**

Bihotzaren **taupa** bizia entzuten nuela. **Anjel Lertxundi**

Bihotza **taupa** bizian nuela, Luteziaren berri galdetu nion. **Matías Múgica**

Arnasestuka eta bihotza **taupa** eroan nuela iritsi nintzen ostatura. **Anjel Lertxundi**

2 (adizlagun gisa)

Herrira bidean bien bihotzak musika joka aritu ziren, **taupa** eta **taupa**, bikoteka. **Felipe Juaristi**

3 kolpetxoak.

"Ondo egin duk, lapurrak ongi merezia dik gertatu zaiona", eta bizkarrean eman dio **taupa** eskuarekin. **Hasier Etxeberria**

4 **taupa egin**

Bizirik gaude, eta orain aska dezagun barruko korapiloa [...] halako zerbait pentsatu genuen hirurok bihotzak **taupa egiten** zigula ohartzean. **Karlos Linazasoro**

Raimundo Silvaren bihotzak indarrez **egiten** zuen **taupa**, belarrietan sentitzen zuen taupaden danbada. Iduri luke, lehen orenetan, arratseko gozamen guztiez **egiten** duela **taupa** lo honek. **Jon Alonso**

Beste Europa bat izan dezakegu eta Erresistentziaren bihotzak **taupa egingo** du Atenasen. **Berria - Harian**

Hantxe **egiten** du **taupa** Japonia zaharraren bihotzak. **Joxan Elozegi**

Hiriaren bihotzak futbol taldearen erritmoan **egiten** baitu **taupa**. **Berria - Kirola**

5 **taupa-taupa adlag**

Berehala bere bihotza entzuten du pilpira gorabeheratsutan **taupa-taupa** joka. **Juan Garzia**

Eñauten 37 graduek gezurrezko maitasunez **taupa-taupa** -taupaka lasaitu egiten naute. **Sonia Gonzalez**

taupada (451 agerraldi, 127 liburu eta 40 artikulutan) 1 iz bihotzaren eta arterien aldizkako uzkuertze eta hanpatze higidura. ik **taupa**; pilpira.

Berotasuna, kili-kiliak, uzkurdurak, **taupadak**, konbultsioak, dardarak... **Luis Elberdin**

Bihotzetik irteerako odol-zurrustak sortutako talka-uhinaren hondarra da eskumuturrean eta [...] sentitzen den pultsuaren **taupada**. **Irene Aldasoro**

Eskua bihotzean jarri zuen **taupadei** eusteko. **Karlos Zabala**

Ezinezegonean, urduri, bihotzaren **taupada** sentitzen duzu zamalka. **Rafa Egiguren**

Ezin nituen bihotzaren **taupadak** kontrolatu, ezta besapetik beherako izerdi-tanta lodiak ere. **Anjel Lertxundi**

Zenbat eta denbora gehiago pasatu, orduan eta mantsuago ari dira nire bihotzeko **taupadak**, maitea. **Juan Kruz Igerabide**

Odolaren **taupadak** senti ditzake ezta. **Oskar Arana**

Minutuko berrehun **taupada** izango nituen. **Ramon Saizarbitoria**

Atearen kontra egon nintzen, arnasa eta bihotzaren **taupadak** lasaitzen. **Juan Kruz Igerabide**

Bitarte hartan indartzen ari zen bihotzaren **taupada**. **Koro Navarro**

Batzuetan bihotza **taupada** batean hasten zitzaidan. **Patxi Zubizarreta**

Taupadak azkartzen zitzaizkidalda nabaritu nuen. **Txillardegi**

Taupada joka entzuten nuen bihotza. **Koro Navarro**

Norbaitek **taupadak** hartu nahi izan zizkion etzanda zegoen gazteari. **Aritz Gorrotxategi**

Taupadatik taupadara bihotza odolez betetzeko. **Irene Aldasoro**

Ukabilak dantzan, borroka etengabea, eta Petacchi, eroso, 160 **taupadako** erritmoan. **Berria - Kirola**

Lehenik, bihotz-maiztasuna asko gututzen da, minutuko 180 edo 200 **taupadaraino**. **Irene Aldasoro**

2 (izenondoekin)

Taupada indartsu bat ematen du bihotzak segundoko, gutxi gorabehera. **Irene Aldasoro**

Zauri irekien erredura eta odolaren **taupada** bortitzak sentitzen zituen muinoian. **Ramon Saizarbitoria**

Zangoak berriz ere dardarka jarri zitzaizkidan, eta **taupada** lasterrean hasi zitzaidan ostera bihotza. **Koro Navarro**

Taupada bizian dut bihotza, huts egin didate indarrek, alde egin dit begietako argiak ere. **Elizen arteko biblia**

Saihetseko zauria pol-pol nabaritzen nuen, minik gabeko **taupada** sorretan. **Alberto Ladrón Arana**

Usu, bihotzaren **taupada** zaurituen artean itotzen da arimaren samina. **Berria - Kultura**

Bihotz-muskuluak ere kontrol-sistema integratu bat du, eta **taupada** erregularrak ematen ditu bizitza osoan ahalegin kontzienterik gabe. **Irene Aldasoro**

Taupada basatiak sentitzen zituen Norak buruan. **Anjel Lertxundi**

Ez al dut bereizten haren bihotzaren **taupada** astun beldurgarria? **Koro Navarro**

Lehen lurrikara geldo baten mugimendua, antzeman ezina ia, gero **taupada** latz, errepikakor, premiazkoa. **Jon Alonso**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Danborrak adinako **taupada** hotsa egingo zien bihotzak une haietan. **Jokin Urain**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urratsen erritmoarekin bat egiten duen zementuzko barne-**taupadak** Kat ere iratzarri du. Bihotz-**taupada** bakoitzean odola goiko zangora iristen denean, [...]. **Sonia Gonzalez**

Goizean, epaitegira eraman zituzten une beretik, bihotz-**taupadak** azkartu zitzaizkion eta arnasestuka hasi zen. **Jose Morales**

Bihotz **taupaden** danbadak motelago sumatu zituen bere baitan. **Pedro Alberdi**

Eskumuturretako bat hazita dauka eta min-**taupadak** jotzen dizkio. **Oskar Arana**

Hain lehor nuen eztarria ezen min **taupada** sorrak sentitzen bainituen, zintzurlean beste bihotz bat banu bezala. **Alberto Ladrón Arana**

Suspense-**taupada** bortitza. **Patxi Iturritegi**

5 irud/hed

Atera nuen ordularia... baina ez zuen **taupadarik** jotzen... geldirik zegoen. **Josu Zabaleta**

Gora begiratu z izarraren lehen **taupada** ikusi zuen zuhaitz meheen gainetik. **Anton Garikano**

Taupada atabikoak gidaturiko sentimenduak eta sentsazioak. **Berria - Kultura**

Del Valle geltokiko jende uholdean murgildu zen, metropoliaren **taupada** bizkorraz gozatuz. **Alberto Ladrón Arana**

Argi gorriaren **taupada** ez zen itzuli. **Anton Garikano**

Manhattan Transfer: hiri handi baten **taupada** mingarria. **Lopez de Arana**

Ibaiaren goialdetik, itsasoratzen ari zen bapore baten **taupaden** hotsa iristen zen. **Lopez de Arana**

Jazz latinoaren **taupada**. **Berria - Kultura**

6 taupada markagailu

Taupada -markagailuaren eremutik bentrikuluetara zabaltzen da bulkada erregulatzaila. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bihotz taupada (11); **bihotzaren taupada** (19); **nire bihotzaren taupada** (5); **taupada bakoitzean** (4); **taupada biziak** (4); **taupada bizian** (3); **taupada markagailu** (6); **taupada markagailua** (3)

bere bihotzaren taupadak (4); **bihotz taupadak** (33); **bihotzaren taupadak** (39); **bihotzaren taupadak entzun** (3); **bihotzeko taupadak** (10); **bihotzen taupadak** (4); **nire bihotzaren taupadak** (8); **nire bihotzeko taupadak** (4)

taupadak azkartu (5); **taupadak entzun** (3); **taupadak entzuten** (4); **taupadak jotzen** (3); **taupadak sentitu** (4); **taupadak sentitzen** (4)

bihotz taupadek (3); **bihotzaren taupadek** (3)

bihotz taupaden (11); **taupaden hotsa** (3)

taupadaka (101 agerraldi, 34 liburu eta artikulua 1ean) 1 adlag bihotzaz edo arteriez mintzatuz, hanpatzen eta uzkuertzen. ik taupaka; pilpiraka.

Bihotza **taupadaka**, begiak negarrez. **Joseba Zulaika**

Emozioaren emozioz **taupadaka**, pauso batzuk egin zituen atzera, zer gertatuko zain. **Josu Zabaleta**

Handik hamabost minutura amonaren etxean nintzen, bihotza ikara bizian eta etsi-etsian **taupadaka**. **Jon Muñoz**

Zenbait minutuz, hots ito batez **taupadaka** jarraitu zuen agurearen bihotzak. **Koro Navarro**

Bihotza **taupadaka** hasten zaio larritasun eta aztoramenez. **Oskar Arana**

Lokiak estuturik nituen, bihotza ito beharrean zebilkidan **taupadaka**. **Josu Zabaleta**

Taupadaka lehertu beharrean sentitu zuen Ruche jaunak bihotza. **Jon Muñoz**

Segundoko hamar **taupadaka** zebilkion bihotza. **Unai Iturriaga**

Anaia trantze larri hartan ikusirik, bihotz-**taupadaka**, gertatu beharrekoak bizkortzea erabaki zuen. **Joanes Urkixo**

2 irud/hed

Sabel hutsa erloju bonba bat bezala **taupadaka**. **Koro Navarro**

Beltzaran zegoen, markarik gabe, "biluzik hartzen du eguzkia", pentsatu nuen, nire sabelalde **taupadaka** hasia zela sentitzen nuen bitartean. **Juan Martín Elexpuru**

Gas argiontziekugar laburra zuten, **taupadaka** diharduen betazal odoltsu baten antzekoa. **Karlos Zabala**

Gure egin eta esan xume bezain hauskorretan **taupadaka** diharduen azken misterioa. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bihotza taupadaka (29); **bihotza taupadaka ari** (4); **bihotza taupadaka hasi** (4); **bihotza taupadaka hasten** (3); **bihotzak taupadaka** (3); **lokiak taupadaka** (3); **taupadaka ari** (8); **taupadaka egiten** (3); **taupadaka hasi** (6)

taupadatsu izond taupadaz betea.

Galdetu zion etorri berriari iraganaren zulo sakonetik ateratako ahots modurriz, ahots beltzez, ahots **taupadatsuz**, zer gertatu zitzaion aitari. **Felipe Juaristi**

taupadatu, taupada(tu), taupadatzen da ad bihotzaz edo arteriez mintzatuz, aldizka hanpatu eta uzkuertu.

Nire buru barneak neketa mamitzen ahal zuen erantzunik, niregandik metro batera berezko biziaren jabe iduri **taupadatzen** zen gainalde beltzarandu eta tonttordunari so.

Aingeru Epaltza

Hantxe, odol tanta taitzatu batzuk, Tipi gainean nozbait **taupadatu** izanaren oroigarri bakar. **Aingeru Epaltza**

taupaka (118 agerraldi, 46 liburu eta 4 artikulutan) 1 adlag taupadaka.

Big Lannieri bihotza **taupaka** hasi zitzaion, herio larrian, ikusirik Raymondek ez ziola aterik zabaldu bere oin-hotsak entzutean. **Mirentxu Larrañaga**

Bihotza bizi-bizi ari zitzaion **taupaka**. **Iñaki Mendiguren**

- **Taupaka** daukat bihotza -esan zuen. **Anton Garikano**

Dursley jauna saltoan zutitu zen, lokietan zainak **taupaka** zituela. **Iñaki Mendiguren**

Baina hor dago zutik, ahalkez mutu, odola belarrietan **taupaka**. **Oskar Arana**

Une batean gelditu naiz, zain nago, bihotza **taupaka** sumatzen dut. **Monika Etxebarria**

Armak muntatuta eta bihotza **taupaka** ailegatu ginen. **Rafa Egiguren**

Bihotza lasterka batean zebilkion, bere bular maitasunez erian eroki **taupaka**. **Oskar Arana**

Bihotza motel ari zitzaion **taupaka**. **Agustin Otxoa**

Lau ordu emanak nituen ibiltzen, bihotz-**taupaka**, egin behar nion aitormenagatik-eta. **Fernando Rey**

2 irud/hed

Bitartean erlojuak **taupaka** jalkitzen zituen segundoak, denbora bazihon. **Matias Múgica**

Nola buztan lodi goxo hura tente-tente aritzen zen **taupaka** nire barrenean. Begiak jaitsi ditu eta bere betile luzeak **taupaka** daude. **Karlos Zabala**

Setheren aurpegiak, ileari esker goxatuak, konfiantza aski eman zion etxe barrura sartzeko, argi gorria **taupaka** zerion iturrira braust. **Anton Garikano**

Harrien azpian ere lurrak **taupaka** jarraitzen zuen. **Berria - Kultura**

Koadroa kolorean aritzen da **taupaka** beste inon baino indar handiagoz **Berria - Kultura**

3 (izen gisa)

Taupaka eroan sentitzen du Gabinek bihotza. **Iñaki Iñurrieta**

4 taupaka-taupaka

Bihotza **taupaka-taupaka** zebilkion, arropa ere gorantz hegaldarazteraino. **Mirentxu Larrañaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bihotza taupaka (36); **bihotza taupaka ari** (4); **bihotza taupaka hasi** (3); **bihotza taupaka jartzen** (3); **bihotza taupaka zuela** (3); **bizi bizi taupaka** (7); **hasi zen taupaka** (3); **taupaka ari** (11); **taupaka ari zitzaion** (3); **taupaka egiten** (3); **taupaka hasi** (6); **taupaka hasi zitzaion** (3); **taupaka jartzen** (3); **taupaka nuen** (3); **taupaka zuela** (10)

taupakari 1 izond taupadutzen dena.

Loki **taupakarien** eta ohe gaineko gorputz bakarti zurrunen obsesioa. **Lopez de Arana**

Hor duzu apostolu erlijioso eta laiko handi horien kasua ere; haragi **taupakariz** elikatu orde zoz elikatzin diren arranoak dira, otso begetarianoak dira. **Josu Zabaleta**

Hamar minutu haiek [...] bizieta baino luzeagoak izan ziren, biziagoak, **taupakariagoak** haurraren odola baino, olioak bezala hatzak blaitu zizkionean. **Anton Garikano**

2 irud/hed

Herio batean, baina gustura idatzi dut liburua, eta sekulako hustualdia eman diet nola lepo gaineko ganbarari hala bular barruko kutxa **taupakariari**. **Joxerra Garzia**

Laino beltzen artetiko oinaztarri urdin-zuriskak lehorrerantz, kuartzozko lanpara baten argi **taupakariaren** gisa. **Joxe Austin Arrieta**

taupatsu izond taupadatsua.

Azture batek arnastu zuen, haren birika **taupatsuetan** amildu zen, baina ez zen sartu haren odol aberatsera, eta iraitzia izan zen. **Juan Garzia**

taurik ik taut.

tauro ik taurus.

tauromakia iz zezenak jokatzeke antzea.

Ernest Hemingway **tauromakian** adituak *Heriotza arratsaldean* liburuan hari buruzko lerro batzuk idatziak zituen. **Edorta Jimenez**

Nimeskoa izaki, **tauromakia** betidanik gustukoa izan du. **Berria - Kultura**

Tauromakia zerikusia duten koadroek osatzen dute Arte Ederretako museoak ikusgai duen erakusketaren azken parte. **Berria - Kultura**

Tauromakiako historietan, zezenen indarra frogatzeko "domingilloak" erabiltzen, nafar toreadoreak ageri dira aurreneko. **Patziku Perurena**

taurus (orobat tauro) iz Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren bigarren zeinua; latinez 'zezena' esan nahi du.

Taurus konstelazioan dauden bost izar aztertzen ari zirela ikusi zuten astronomoek planeta berria. **Berria - Gaiak**

-**Taurusen** egingo du bere txangoa: ez-tarri inguru hori dena du bere eraginpean, laringea, tiroides, matrailezurra, hortz-haginak, amigdalak eta entzumena, belarri-bideetan. **Pello Zabala**

Orion azpian geratzen da, zeharka, **Tauroren** apoaren azpian harrapatuta, ezkerreko eskuan borra duela eta eskuinekoa Geminis aldera luzatuz. **Santiago Iruretagoiena**

taut

1 tautik (orobat taurik) tutik (ezezko esaldietan)

Ceciliak, inoiz irudipenik ere izan bazuen, ez zion arima biziri **tautik** esan; ezta bere buruari ere, ziur. **Josu Zabaleta**

Ana isil-isilik zegoen, **tautik** ere esatea. **Aitor Arana**

Orduko hartan idazle gazteak ezer ez esatea erabakia zuen, eta esan ere **taurik** ere ez zuen esango gutun hura jaso izan ez balu. **Patxi Zubizarreta**

tautik ik taut.

tautograma iz letra berrekin hasten ditzen hitze osaturiko poesia-lana.

Testu luze batean **tautograma** bati eustea ez da erraza. **Iñaki Arranz**

Behin bazen bele bat: / Bele bat beltza [...] horrela hasten da [Oxobiren] "Belea eta Axeria" alegia, baina lehenengo bi lerro horietatik aurrera ezin **tautogramari** eutsi. **Iñaki Arranz**

Tautograma, palindromo, testu monobokaliko batean, mezua hain dago baldintzatuta, non askatasunik gabeko jokoak baitirudi hitzeko jardunak. **Iñaki Arranz**

tautologia iz logikan, nolana ere egia den perpaus elkartua, hots, perpaus osagaien egia-balioaren gorabehera egia den perpaus elkartua; predikatuak subjektuari ezer gehitzen ez dion perpausa.

Formula bat **tautologia** dela esango dugu haren aldagaien egia-esleipen guztientzat egiazko balioa hartzen duenean. **Askoren artean**

Atributua subjektu kalifikatuaren esentzia bera denean, hori **tautologia** besterik ez da. **Xabier Kintana**

Tamalez, ordea -eta berriz ere aurretik aipatu **tautologia** ekarriz-, Alemania Alemania da. **Iñaki Heras**

Hau onartzen bazaizue, orduan itxuraz joko irabazi duzue, egitatean, ordea, ezer ez duzue esan; izan ere, **tautologia** soila egin duzue. **Ibon Uribarri**

Ahagarritasuna, izatea eta beharrezkotasuna inork ezin izan ditu argitu **tautologia** nabarmenen bitartez izan ezik. **Ibon Uribarri**

Orokorkeria eta **tautologioi** itzurtzeko, beraz, hel diezaigun obrari. **Juan Garzia**

Hitz egitea **tautologietan** erortzea da. **Juan Garzia**

Tautologia beti da egia, baina ez digu ezer esaten munduaz; kontraesana beti da gezurra, eta ez digu ezer esaten munduaz. **Markos Zapiain**

Intelektuala, konprometitua eta ezkerrekoa dela esatea, **tautologia** da. **Berria - Kultura**

Zirkulu baten denotaziozko adierazi plastikoa zirkulartasuna dela esatea egia esatea da **tautologia** hutsa den arren). **Josu Zabaleta**

tautologiko 1 izond tautologia daukana.

Esakune **tautologiko** soilak eskuratzeko zitezten ondorioztapenei begira. **Ibon Uribarri**

A priori justifikatu daitezkeen proposizioak definizioaren mende daude, nabariak eta **tautologikoak** dira, eta ez dute mundu materialari buruz ezer adierazten. **Askoren artean**

Bere subsantziak haziz bizi zitzaidan ene baitan sinesmena, trabarik gabeko ekintza **tautologiko** batean. **Piarres Aintziart**

Proposizio zail, konplexu eta, zenbait ataletan, kontraesankorra da, eta proposizio hauetako ugari **tautologiko** edo ezin gauzatzeko gertatzen dira. **Joseba Zulaika**

Lege sinbolikoaz ari gara, arauen gainetik inposatzen den lege **tautologikoaz**, hau da: "hau horrela da nik agintzen dudalako". **Joseba Zulaika**

Egitatean, "substantziak dirau" esakunea **tautologiko** da. **Ibon Uribarri**

2 ez-tautologiko izond

Esan ahal izango da, gainera, proposizioak (ez **tautologikoak**) ezin direla egiaztatu euren eraikitze-arauetan oinarrituta, eta beharrezkoa dela erreferentzia jotzea egia edo faltsuak diren erabakitzeko. **Xabier Arregi**

taxa ik tasa.

taxi 1 iz bidaiariak garraiatzen dituen automobil gidariduna, bidaldiaren saria adierazten duen kontagailu bat daramana.

Kaletik **taxien** abarrotsa eta tranbien kirrinka zetozen. **Lopez de Arana**

-Herf, esan dizut **taxi** bat eskatzeko niretzat. **Lopez de Arana**

-**Taxi**! -dei egin zuen Ellenek. **Lopez de Arana**

Beranduegi zen **taxi** bati deitzeko, eta oinez egin nuen geltokirainoko bide osoa. **Bernardo Atxaga**

Taxi bat geldiarazi zuten beraz eta alde zaharrera joan ziren. **Ramuntxo Etxeberri**

Venezuelan **taxiaren** prezioa autoan sartu baino lehen konpondu behar da. **Pako Aristi**

Karrikan bertan atea irekinik itxoiten ari zen **taxi** batean ahal bezain laster igo ziren. **Ramuntxo Etxeberri**

Nirekin igo zen **taxira**, baina, handik pixka batera, **taxia** geldiarazi, eta esan zidan belarrira: Seigarren Etorbidearen kantoian **taxi** bat hartu zuten. **Juan Kruz Igerabide**

Taxi bat hartu eta hotelarantz abiatu zen Joseba. **Iñaki Zabaleta**

Ziztuan sartu zen **taxi** batean. **Lopez de Arana**

Maletak hartu, **taxian** sartu eta elkarriz azken agurrak egiteko beste segundo pare bat. **Edorta Jimenez**

Gure hotelak hurbil zeudela bata bestetik, eta **taxi** berean sartu ginen hirurok. **Bernardo Atxaga**

Autorik ez daukagu eta ez nago prest **taxi** bat ordaintzeko. **Sonia Gonzalez**

Taxian egindako txangoa. **Mirentxu Larrañaga**

Behin edo behin **taxiz** etorri zen. **Aingeru Epaltza**

Dena den, lasai ibili gira hirian barna oinez ala autobusez, **taxiz** ala lurpekoz. **Herria**

Maitea, nago **taxiko** txango hori dela agian gu bioi sekula gertatu izan zaigun gauzarik garrantzitsuena. **Mirentxu Larrañaga**

Taxia dolarretan ordaindu [...] eta Foyer-era sartu nintzen. **Xabier Montoia**

Taxia arin zihoan, auto, tranbia eta oinezkoen anabasan eragozpenik topatu gabe. **Patxi Zubizarreta**

Jarraitu aurreko **taxi** horri. **Harkaitz Cano**

Taxi barruan, Physics Center-etik urruntzean, Pedro Miguel Etxenike fisikari ezaguna ikusi zuen. **Fernando Morillo**

Sorbaldan lora zekuan mutikoaren ondoan zutik zegoen gizona lehenengo **taxiko** gidari huraxe zen. **Jon Muñoz**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Taxi hori bat zegoen apartaturik bihurgunean, motorra piztuta eta taximetra martxan. **Oskar Arana**

Ez zen **taxi** bat, **taxi** ofizial bat ez behintzat. Ez nuen **taxi** pirata bat aurkitzeko zortea izan. **Jon Muñoz**

Taxi Araudiak ez die horretarako baimenik ematen. **Berria - Harian**

Taxi ilegalean ibiltzeak dakartzan arriskuak. **Pako Aristi**

Hogei minutu baino lehen lortu nuen **taxi** libre bat hartzea. **Joxemari Iturralde**

Arineketan aldegin nuen, **taxi** huts bat ikusi eta geldiarazi nuen arte. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gero hotelaraino lagundu dit **taxi** kolektibo baten, Emam Khomeini kaleko Morvarid hotelera. **Jon Arretxe**

Gero eta gezurrezko **taxi** gehiago dagoelako esaten dizut hori. **Jon Muñoz**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere kasa aritzen zen bezero bila, bai **taxi** -geltokietan. **Jon Muñoz**

Ez nuen Hanna ezagutu; bestela, **taxi** -atea zabalduko niokeen, noski, musuen hagnaz bereizi ginen, **taxi** txoferraren begi-keinuen benedikazioarekin. **Joxe Austin Arrieta**

Taxi baimena hilabeterako erretiratu diete horregatik. **Berria - Mundua**

Asteazken eta larunbatetan **taxi** lanetan ari den ama familiako baten egitekoak kantatzen dauzkigu. **Herria**

Taxi -ilara hurbilenera abiatu zen gizona. **Jon Muñoz**

Taxi -saldo batez inguratuta zeuden; ia denak aireportutik etorriak. **Jon Muñoz**

Tren horretako bidaiariek gutxitan izaten zuten **taxi** -zerbitzuen premiarik. **Iban Zaldua**

Gizajoak behin eta berriro esaten omen zuen berak **taxi** -bidaia kobratu besterik ez zuela nahi. **Lopez de Arana**

Taxi ibilaldiak iraun zuen bitartean. **Joxemari Iturralde**

Taxi konpainien mahaien aitzinean pasa ziren. **Ramuntxo Etxeberri**

Aurten **taxi** -erregistroan izena emanda zaudela adierazten du orri horrek. **Jon Muñoz**

Taxi Araudiak ez die horretarako baimenik ematen. **Berria - Harian**

4 taxi-gidari (112 agerraldi, 15 liburu eta 25 artikulutan) ik taxista.

Bidegurutze batean taxi bat ikusi genuen, telefono kabina baten ondoan geldituta, eta **taxi gidaria** izan zitekeena, kabina barnean hitz egiten. **Ramon Saizarbitoria**

Amonak abiatzeko agindua eman zion **taxi-gidariari**. Aireportutik hotelera eramaiten gintuen **taxi gidari** kalakariak istorio hau kondatu zigun: [...]. **Anjel Lertxundi**

Zaniak "bere prezioa" defenditu zuen berriz, hiru dolar, **taxi gidariak** eskatzen zituen ohiko hamar dolarren orde. **Jon Muñoz**

Taharrenak autoa zeukan eta bere burua eskaintzen zidan **taxi gidari** piratarena egiteko. **Jon Muñoz**

Lana ez zen harrotzeko modukoa, jarraitu zuen Tomek esaten, baina **taxi-gidari** aritzea baino hobea zen. **Oskar Arana**

Urtarilean **taxi-gidari** lana utzi zuten geroztik ez zen auto baten bolante aurrean eseri. **Oskar Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bilboko taxi (6); **radio taxi** (5); **radio taxi elkarteko** (3)

taxi bat deitu (3); **taxi bat eskatu** (4); **taxi bat geldiarazi** (5); **taxi bat har** (4); **taxi bat hartu** (29); **taxi bat ikusi** (3); **taxi batean sartu** (4); **taxi baten bila** (5); **taxi bati deitu** (4); **taxi elkarteko** (4); **taxi gidari** (30); **taxi gidaria** (16); **taxi gidariak** (27); **taxi gidariaren** (5); **taxi gidariari** (9); **taxi gidariak** (8); **taxi gidarien** (5); **taxi kolektibo** (3); **taxi zerbitzua** (3); **taxi zerbitzua eskaintzen** (3)

taxia gelditu (5); **taxia hartu** (20); **taxia hartuta** (3); **taxia ikusi** (3)

taxian joan (3); **taxian sartu** (12); **taxian sartzen** (4)

taxiaren atea (3); **taxiaren zain** (3)

taxiz itzuli (3); **taxiz joan** (3)

taxidermia 1 iz hildako animaliak, disezio bidez, bizi itxuran gordetzea.

Taxonomia eta **taxidermia**, bi hitz horiekin ematen zion Leik Eriksonek segida bere lezioari. **Bernardo Atxaga**

Aurrez, duda tiki batzuk neuzkala eta, bi hitz haiek begiratu nituen hiztegian, taxonomia eta **taxidermia**. **Bernardo Atxaga**

Jabe berriak -izenak ez du axolarik, honakoan- **taxidermia** -negozio bat zabaltu zuen handik denbora laburrera. **Josetxo Azkona**

2 irud/hed

Behar bada horrexegatik hartu gaitu begitan "euskararen **taxidermiara**" jo izan dugun hizkuntzalariok, bizi garen kulturaren alferrikako hustuketan aritu garela. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taxonomia eta taxidermia (4)

taxidermista iz taxidermia-lanetan aritzen den pertsona.

Orain **taxidermista** sartu da eta zomorrok ehizatzen eta diseekatzen ematen du egunaren zatirik handiena. **Berria - Kultura**

Gure ametsetan, gure begien atzeko mundu aspaldi gainpopulatuari; hortxe bizi zaigu ideologia bisuala, **taxidermista** hilotzaren zain bezala. **Berria - Kultura**

Taxidermista konplexua ari zait sartzan; astea joan eta astea etorri, susmoa potolotzen ari zait: ez ote ditudan erakusten artista disekatuak, ez ote ditudan hilotzak baino erakusten, ez ote naizen ari orri erdi hau museo bihurtzen. **Berria - Kultura**

taxilari (74 agerraldi, 13 liburu eta 12 artikulutan) 1 iz taxi-gidaria. ik taxista; taxizale.

-Heldu gara -**taxilariak** kontagailuaren palankari eragin zion eta zerbaki gorriak geratu ziren-. **Iñaki Zabaleta**

Bizpahiru **taxilari** zeuden telefono zutoinaren inguruan solasean. **Ramon Saizarbitoria**

Korrika noa behera, **taxilariak** txirrina jo baino lehen. **Lopez de Arana**

"Berde dago" aipatu zion **taxilariari**. **Iñaki Zabaleta**

Taxilariak esandakoa egia bazen, han behean, labazko hondartza beltzen ondoan, berrehun mila lagun zeuden, gehienak atzeritarrak. **Bernardo Atxaga**

Bi gazte atxilotu dituzte Bilbon, bi **taxilari** mehatxatzeagatik. **Berria - Euskal Herria**

Udalak 500 euro emango dizkio manparak jarri nahi dituen **taxilari** lizentziadunari. **Berria - Euskal Herria**

Taxilarien federazioak Garraio Sailak esandakoa aintzat hartu du. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Bost mila dolar behar ditut, bidaiarako eta **taxilari** -lanpostua lortzeko. **Jon Arretxe**

taximetro 1 iz

Taximetroaren palankari emanez, trafikoaren ilaran sartu zen Manhattan behearantz. **Iñaki Zabaleta**

Aurrera zihoan **taximetroa**, eta horrek kezkatuak zeuzkan Beatrice eta Betti. **Koro Navarro**

Taximetroek erakusten dutena kobratu behar diegu bezeroei. **Berria - Harian**

Motorreko giltza birarazi, **taximetroko** kontadorea abian jarri, posizioko argiak piztu eta arrapaladan jo zenuen hiriaren hego alderantz. **Josetxo Azkona**

Taximetroaren tiktak tiktak hotsa entzuten da. **Joseba Sarrionandia**

Taxi hori bat zegoen aparkaturik bihurgunean, motorra piztuta eta **taximetroa** martxan, eta bi gizonak atzeko eserlekura igo ziren Harry atzeman baino lehen. **Oskar Arana**

2 taximetropeko izlag

Tira, beraren ardura zen, konpon zedila bera, zera, akuri-neskazko bere harem harekin eta **taximetropeko** bere musualdi okagarri haiekin. **Juan Garzia**

taxina

Hagitx mami gogorra eta zuria du (zuhaitz) haginak, eta beste aldetik, **taxina** duela eta, heriotzaren zuhaitza bezala ageri da aspaldi haunditik. **Patziku Perurena**

taxismo iz

Feininger-en edo Kupka-ren geometrietatik Sonia Delaunay edo Vasarelyrenetaraino, Sam Francis-en isurietatik Pollock-en dripping-etara, Hartung-en urratuetatik André Masson-en marra "basatiatarara", **taxismotik** arte informaleraino, eta abar. **Josu Zabaleta**

taxista (115 agerraldi, 34 liburu eta 12 artikulutan) 1 iz taxi-gidaria.

Taxistak ispilutik begiratu zion. kanpoaldean, gainezka zegoen aparkalekuan, **taxistek** berriketan edo egunkaria irakurtzen. **Migel Angel Mintegi**

-Esteban da, beheko paradako **taxista**! **Pako Aristi**

Naraman **taxista** errusiarra da eta patrikako telefonotik mintzo da etengabe. **Harkaitz Cano**

Taxista pirataren kasua. **Pako Aristi**

Gizona **taxista** ilegal bat da. **Pako Aristi**

Eduardo Robledo 40 urteko **taxista** Bilbon hil du kliente batek lepoa moztuz. **Herria**

Biharamunean, **taxisten** elkargoaren bulegoetan abisua utzi ondoren, geralekua eta tren-estazioaren inguruak abandonatu zituen. **Iban Zaldúa**

Martin Cerezo, gaur egun **taxista** dabilena baina benetan polizi inspektorea dena. **Josu Landa**

2 (hitz elkartuetan)

Aldi hartan, hain ziren gauzak horrelaxe, non Montsek bere gain hartu baitzituen **taxista** -lanak, entrenamenduetara eraman eta bertatik jasotzen ninduela. **Joan Mari Irigoien**

3 (adizlagun gisa)

Martin Cerezo, gaur egun **taxista** dabilena baina benetan polizi inspektorea dena. **Josu Landa**

taxizale (10 agerraldi, 5 liburutan) iz taxi-gidaria.

Taxizaleak hortxe datozkio, taxirik behar dutenetz. **Edorta Jimenez**

Isilik egin omen zuten aldi luze bat, **taxizaleak** ispilutik atzera begiratu eta nora zihoazen galdetu zien arte. **Joxean Agirre**

Aurrean **taxizalea** doa eta atzean turista edo dena delakoa. **Gotzon Garate**

taxoi iz taxonomia taldea.

Joera horren bidean zenbait filosofok esan zuten espezieek eta, oro har, maila goreneko **taxoiek** ez dituztela klaseak adierazten, indibiduoak baizik. **Askoren artean**

taxol iz minbizia tratatzeko sendagaia, haginaren azal eta fruituetako konposatu batetik ateratzen dena.

Egun minbizia tratatzeko erabiltzen den agente eraginkorra **Taxola** deiturikoa da, duela 30 urte Ozeano Bareko haginetik (*Taxus Brevifolia*) ateratzea lortu zuten. **Berria - Gaiak**

300 mg **taxol** natural lortzeko zuhaitz oso bat behar zen, eta orain, berriz, hagin arruntaren fruituetatik lortzen denez, ez da beharrezkoa zuhaitzak mozte. **Berria - Gaiak**

taxonomia iz sailkapenez, bereziki animalien eta landareen sailkapenez, arduratzen den zientzia.

Era berean, naturalisten **taxonomia** alderatu ahal izango litzateke ez gramatikarekin eta ekonomiarekin, baizik eta fisiologiarekin eta patologiarekin. **Xabier Arregi**

Diskurtso zientifikoen egungo banaketan Port-Royalgo Gramatikak edo Linnaeusen **taxonomiak** aska ditzakete eurekiko intrintsekoak eta berriak diren osagaiak. **Xabier Arregi**

Sarrera honetan Gogoaren Filosofiak eskaintzen dituen aukera nagusien **taxonomia** aurkezten da. **Askoren artean**

Gaur egun, erretorika elocutioaren alorrean duen egitekoa ez da jadanik **taxonomia** hutsezkoa: kontua ez da diskurtsoaren estrategia bakoitzarentzat izen bat aurkitzea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ez dago zehatza izan den **taxonomia** naturalik, fijijsmoa izan ez bada. **Xabier Arregi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taxonomia eta taxidermia (4)

taxonomiko izond taxonomiarena, taxonomiari dagokiona.

Metodo **taxonomikoek** hitzunaren esapideak aztertzen zituzten. **Itziar Laka**

1953. urterako, erabat galdua nuen ebaluazio-prozedura **taxonomikoak** formulatzeko itxaropena, eta gramatika sortzailearen arazoetan jarri nuen arreta guztia, hala teoriar nola aplikazioan. **Itziar Laka**

Biologia Izendegian behiala ikusi nuen liztor hura ez zitzaidan batere arrotz egin; bai ordea, haren erabilera **taxonomikoa**. **Patziku Perurena**

taxtax ik tas-tas.

taxu 1 iz itxura, tankera.

Ontzi mota bakoitzaren bertutei erreparatzeko era izan nuen, zapien **taxu** eta tankeren arteko aldeez eta bakoitzaren gaitasunez ohartzen hasi nintzen. **Edorta Jimenez**

Urte batzuk behar izan ditu zerbait horrek zer **taxu** izan beharko lukeen hausnartzeko, harik eta Konpainia noblean liburuan gauzatu duen formula bururatu zitzaion arte.

Berria - Kultura

Izaeraz txukun eta txukunzale izanik, poliki-poliki **taxua** ematen hasi zitzaion Administrazio lan hari. **Felipe Juaristi**

Gori-goritan ematen zaiok-eta **taxua** burdinari. **Edorta Jimenez**

Patxi Ibarluzeaz dudan irudiari beste **taxu** bat ematen dio horrek. **Edorta Jimenez**

Ordenaren paradigmaztat jotzen den alfabetoa bera, ez al da ba konbentziozko itxura hutsa, kaosari emandako hala-moduzko **taxua**? **Imanol Zurutuza**

Tipik ez bezala, inoiz ez zuen ikasle onaren **taxua** hartu. Xabier Mendiguren Elizegi

Meatze-zuloko erdi-ilunpera jarri zaio begia, eta bere aurrean hasi da itzal batzuk bereizten, gero itzal horiei gizon-emakumeen **taxua** hartzen, eta haien eskuetan, azkenean, pistola antzeko batzuk antzematen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bereen gozamenerako zer plater prestatuko dituen gogoetan ari den etxeoandreaen **taxua** hartzen diot neure buruari. Josu Zabaleta

Ikusi besterik ez zegoen bizeps haien **taxua** eta sendotasuna. Karlos Linazasoro

Batean goitik eta bestean azpitik pasatuz, ehundu eta trentzatuz, aparteko itxiturak gauzatu ohi ziren merke asko, pazientzia eta **taxu** apur batekin. Pello Zabala

Ordena bat, **taxu** bat, txukundate aratz bat. Harkaitz Cano

Gerrako denbora haietakoak, oraingoan aldean apur bat ezberdinak ziren, baina **taxu** berekoak. Edorta Jimenez

Bere **taxu** bereko lagun batekin zegoen. Xabier Olarra

2 (izenondoekin)

Goitik behera ikusitako irudia, **taxu** oneko damak eta zaldun burgoiak. Javi Cillero

Bestea, **taxu** makurrekoa, bizar-belta eta betaurrekoduna, El Masón Ilustrado aldizkariaren zuzendaria bera zen. Josu Zabaleta

Irribarre bat itxuratzen saiatu zen Noraren presentzia eskertzeko, baina ez zitzaion **taxu** jakinik gabeko zirkun bat besterik atera. Anjel Lertxundi

Haren irriak galdu egin du lehengo **taxu** jostari eta arina. Oskar Arana

Gaur egun ezagutzen zaion **taxu** eta forma modernoa 1890eko hamarraldian hartu zuen ipuinaren generoak. Juan Garzia

Beste batzuetan doinu larri hori, **taxu** dramatiko hori alde batera utzi eta estilo xeheago bat hartzen du, eguneroko zerei lotuago. Xabier Mendiguren Elizegi

Harritu egiten ninduan suntsipenak hartzen dituen **taxu** ugariak ikustean. Xabier Olarra

Eskuarki denok dugu ahalmen bat gogamenaren gaitasun berezi guztiak elkartu eta haiei gure esperientziarekiko eta emozioekiko koherentzia eta batasuna ematen diena, eta ahalmen horrek ematen digu bakoitzari geure **taxu** berezia. Xabier Olarra

Zurrunmuru berdin, **taxu** zehatzik gabeko bat, gauean haizeak zuhaitz baten adarren kontra ateratzen duenaren antzekoa. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hiru masta, eta mastotan, latina deritzegun horietako hiruki **taxuko** bela bi bakoitzean! Edorta Jimenez

Hasi eta beste korrespontsalek amestu ere izan ez duten idazkari-**taxuko** morroi horrekin, Sidney Franklinekin.- Garai batean Frantzia Versailles izan zela gogorarazten didan aristokrata **taxuko** neska honek zenbait lekutan egin dio trenari bisitaldia. Edorta Jimenez

4 taxuz adlag itxuraz, behar den bezala, egoki.

Gaiak egoki sailkaturik daude, zehatz eta **taxuz**. Andres Urrutia

Oraintxe hasi zara **taxuz** hitz egiten. Oskar Arana

Formulazio horri eutsiz ez zeuzkala buruan behar adina errima-hitz egoki bertsoa **taxuz** osatzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez zen erraza galdera hauei guztiari **taxuz** erantzutea. Patxi Iturritegi

Ezin nuen ezertan **taxuz** pentsatu, tontotuta nengoen kolpearekin. Bernardo Atxaga

Jendeen joan-etorri etengabeak ez zidan **taxuz** pentsatzen utziko. Alberto Ladron Arana

Egokitzapena **taxuz** egiten bada, irabazitan aterako da bertsolaritza, eta baita gizartea bera ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Lan banaketaren leloa nahasgarria da, bideak eta helburuak **taxuz** definitzen ez baditu. Ez dela gauza oraindik ere euskaldunei bere mezuak **taxuz** adierazteko. Iñaki Heras

Datu-bilketa **taxuz** egindakoak mende honen hasieratik edo aurreko urte pixka batzuetakoak ditugu. Pello Zabala

-Norbera ondo dabilenean, Inazio, gainontzeko guztia **taxuz** egoten duk gehienetan -erantzun nion. Hasier Etxeberria

Motorrak **taxuz** burrunbaka. Joxe Austin Arrieta

-Homerok hain **taxu** handiz jartzen duen Tersitesen adibideak leku berezia merezi du teoria politikoari buruzko edozein eskuliburutan. Askoren artean

5 taxuzko ik taxuzko.

6 taxu antzean

Ez dugu modurik, esate baterako, **taxu-antzean** irudikatzeko, ezta arrastorik ere, euli baten, edo zizare baten, edo kaio baten mundua. Juan Garzia

-Bi gauza behar dira gaur egun katedra baten jabe egiteko: arrantza **taxu antzean** egiten jakitea, eta hiru boto. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taxu bereko (3); **taxu eta** (6); **taxu oneko** (3)

taxua hartzen (5)

neurriak taxuz hartu (4); **taxuz antolatzeko** (4); **taxuz egitea** (3); **taxuz egiten** (3); **taxuz eta** (8); **taxuz hartu** (4); **taxuz hartu direla** (3); **taxuz prestatu** (4)

taxuera iz taxua, tankera. ik taxukera.

Badago haren **taxueran** huts egiten duen zerbait, bihotzetik sortua ez den zerbait. Oskar Arana

Kale nagusiko etxe txiki hartan igarotzen zituzten bi gizonek goizak, Willemek eskatutako argibide gramatikalak osatu ezinik maisua; Willem, berriz, **taxuera** bereziko euskal adizkerak eta esamoldeak logikaren arabera ere duez ulertu eta menderatu nahian. Anjel Lertxundi

taxugabe 1 izond taxurik ez duena. ik itxuragabe.

Gorputza hartu eta handi egin baitzen, oroimenezko izaki guzti haien isiltasun metatuek multzo itxuragabea, multzo **taxugabea**, osatu balute bezala. Felipe Juaristi

2 (adizlagun gisa)

Hortik pentsa, lurra berak, eguzkiak **taxugabe** erre eta kiskalitakoan, zenbateko errealdia nozituko duen: Noski, San Rokeak ezkerro, lurra beltz! Pello Zabala

taxukera 1 iz taxua, tankera.

Interesatzen zitzaidana, berriz, honako hauxe: kaleen **taxukera**, zubien eraikiera, Fiat berria, Erromako geltoki berria, "rapido"aren tren-makina berria, Olivetti berria. Joxe Austin Arrieta

Bere **taxukerak**, zutoin sendoarenak, jatorrizko zeregina adierazten du, desadostasunetik begiraraztekoa, alegia. Xabier Olarra

Atlasen **taxukera** da egokiena, zeren herrialdea eskualdez eskualde ikertzea behartzen baikaitu. Isabel Arrigain

Onartu beharra dago, askotan zientzia baten **taxukera** teorikoa eta ezin hobea ez datorrela bat, praktikak inposaturik benetan izan ohi duen **taxukerarekin**. Isabel Arrigain

2 taxuketa.

Basatiagoa da bere pertsonaien **taxukeran**, dotoreagoa bere prosa tolestean. Berría - Kultura

Erusian eta Ekialdean monarkak oraindik ere botere handia du afera publikoetan eta giza buruen **taxukeran**. Xabier Olarra

taxuketa 1 iz taxutzea.

Euskal Herrian, antza, emakumeak ez du esku hartu hirien **taxuketan**. Beria - Euskal Herria

Obraren berritasuna ezin liteke joan materiaren **taxuketa** eta ordenamendua baino haruntzago. Bernardo Atxaga

Bere baitatik egindako **taxuketak** ziren; baina, zentzu sakonagoan, sorkuntza lantzat har ote zitezkeen Stephenen marrazkiak? Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan)

Liburu eta aldizkari **taxuketan** eman nuen ia aste osoa. Txillardeggi

taxutu, taxu(tu), taxutzen 1 du ad taxua eman. ik itxuratu; tankeratu.

Txori mekaniko bat **taxutu** zuen! Jon Muñoz

Nola **taxutu** zenuen Bartzelonako tren geltokia? Beria - Euskal Herria

Gizaki baten gorputza **taxutzen** duten geneak euli baten gorputza eratzen dutenak berak izatea, [...]. Juan Garzia

Badiñela tankera horretako aurpegi ugari: naturak berehalako batean itxuratu ditu, azken ukituak emateko nekerik hartu gabe, [...] kolpe gogor batzuk emanez **taxutu** ditu, zirti-zarta. Jose Morales

Ez zen garbi ikusten, haatik, nola **taxutu** zitzaizketen geneek garabidean den organismoaren formak. Juan Garzia

Dena utzi zuen, liburu bat eta labirinto bat **taxutzeko**. Juan Garzia

2 (gauza abstraktuak)

Hori guztiori izan zen Aste Santuko opor laburretan buruan **taxutu** eta gutxi gorabehera hariikatu nuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Norminhak eta biok **taxutu** genuen ezkontza hura. Karlos Zabala

Bera ere gai zen fuga simple bat **taxutzeko**. Xabier Olarra

Barkatuko didak lehen galdera ongi **taxutu** ez izana. Xabier Olarra

Ezari-ezarian, antolamendu plan oso bat **taxutu** zuen. Karlos Zabala

Haien begietan gizartea honela **taxutua** zegoen: bizimodu erraxa, ordenatua eta burgesa, ordutegi finkoek, sendaketa bizkorgarriez eta familian kontrolatutako ikasketa sistematikoez osatua. Fernando Rey

Pianoaren aurrean eseri eta lanean hasten da, partitura baten hasiera **taxutu** eta idazten. Oskar Arana

Aldi berean begiratu eta ukituz, aukera ederra zuen korrelazio erabakigarriak **taxutzeko**. Xabier Olarra

Gogorarazi nion nobelaren pasarte oso garrantzitsu baterako behar nuela eta hura **taxutu** gabe ez zegoela aurrera jarraitzeko modurik. Ramon Saizarbitoria

Zer arauaren arabera izan da **taxutua** enuntziatu bat [...] ? Xabier Arregi

Metafisikaren sistemaren ingerada **taxutu** ahal eta behar duela. Ibon Uribarri

Arrazaren arima bera zerk **taxutu** duen, Ortega-k ez digu esaten. Joxe Azurmendi

Taxu daitekeela, era horretara, "ikurren bizitza gizarte bizitzaren barruan aztertuko duen zientzia" bat, zeinari "semiologia" esatea proposatzen baitu. Isabel Arrigain

Giza arima halako moldez da **taxutua** ezen beti oroitzen baita bere buruaz. Imanol Unzurrunzaga

Ipuina ongi **taxutu** nahi duen idazleari mintzo zaio zuhari ohia, ez fusilatu baten ilobari. Koldo Izagirre

-Borreroak mila aurpegi baditu, guk, jazarriak garenok, bakarra dugulako, minak **taxututakoa**. Felipe Juaristi

3 (era burutua izenondo gisa)

Gure egutegiko ordu **taxutu** martxak ez du balio ilargia neurtzeko orduan... Pello Zabala

Beltzeko emakume hark ostu dio begirada Haritzi, irudia liraintzen dion traje **taxutu** harekin. Urtzi Urrutikoeetxea

4 (era burutua izenondo gisa, izen sintagma batean adizlagun baten eskuinean)

Berbaldi ongi **taxutua** eta hobeto bukatua espero du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Seiak era berean izan ziren asasinatuak, erritual ongi **taxutu** bati jarraikiz. Karlos Linazasoro

Gaiaren gazi-gozaok baino areago, pertsonaien izaera ondo **taxutua** gailentzen da. Beria - Kultura

Enearen gisako ehun bat hobi nolabait **taxutuk** ildoztatzen zuten mendia eta harana. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ongi **taxutu** (4)

ongi **taxutua** (4)

taxutze iz taxua ematea.

Emakumeen gorputzaren **taxutze** patriarkala. Beria - Euskal Herria

taxutzear adlag taxutzeko zorian.

Denboraldi berria **taxutzear**. Beria - Kirola

taxuzko izlag itxurazkoa, behar den bezalakoa, egokia.

Taxuzko atzelari batekin edozer gauza egiteko gai zela erakutsi zuen Olaizolak. Beria - Kirola

Taxuzko bazkari batera gonbidatuko haut hau ospatzeko... Lopez de Arana

Taxuzko konponbidea izan zen zerikusia zuten guztientzat. Oskar Arana

Taxuzko erabaki bat hartzeko eta zure geroko karreraren zimentarriak finkatzeko garaia iritsi zaizu... Lopez de Arana

Taxuzko ideiarene bat ala betiko ipuina? Bernardo Atxaga

Garai hartan **taxuzko** arrazoiak ugari ziren mundura haur gehiago ekarri nahi ez izateko, batez ere erdi-judua baldin bazinen. Joxe Austin Arrieta

Zoriontsutat daukat neure burua bakarrik bizi naizelako, nire iritziz horixe baita gizonezkoen **taxuzko** bizimodu bakarra. Joxe Austin Arrieta

Nik ere banekien masajeak ematen, huraxe izango zen hippyen komunitan ikasi nuen gauza **taxuzko** bakarra. Xabier Mendiguren Elizegi

Irakurri nituen Dick eta Marcell datzi berriak gutunak, eta puskatu egin nituen segidan, ez baitziren **taxuzkoak**. Joxe Austin Arrieta

Oso ohar **taxuzkoak** egiten zituen arraza oneko zakurrez. Jose Morales

Metereotropismoaren teoriak mintzatu zitzaizkidan, argudio inondik ere **taxuzkorik** eskaini gabe baina, nire iritzirako. Karlos Linazasoro

Zerbait egin behar dela onartzen bada, euskarari mesede egingo dion zerbait egitea izango da, horretara ezker, **taxuzkoena**. Ea nondik ikasiak zituen bere hitz ezin-**taxuzkoago** haiek guztiak. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

taxuzko arrazoi (3); **taxuzko ezer** (4)

taza iz komuneko ontzia, sabela husteko erabiltzen dena.

Txiz arrada ederrak lagatzen dituk **tazatik** kanpora. [Iñaki Iñurrieta](#)

Komuneko **taza** gainean dago loak hartuta. [Sonia Gonzalez](#)

Ezkerreko besoa jausita dauka eta eskumako ukondoak, **taza** euskarri, buruaren pisua jasaten du. [Sonia Gonzalez](#)

tazito (orobat tazitu) izond esangabea, esan gabekoa.

Gure arteko ituna **tazitoa** zen. [Bernardo Atxaga](#)

Inoiz aipatu gabeko paktu **tazitoa** bide genuen, kalean topo eginez gero gure bizitzaren alderdi ezkuarekin aurrez aurre geratzeko beldurrez, lazgarria izango zelakoan edo. Gerora, xehetasun ttipiek, harrera **tazituek**, erakusten dizute kanpoko legea ez dela zuk etxean duzuna. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Batetik, aniztasuna, bigarrenik, ETaren kontrako batasuna Ajuria Eneko Itunaren bidez, eta, hirugarrenik ordenamendu juridikoaren onarpen **tazitoa**. [Berria - Euskal Herria](#)

tazitoki adlag esan gabe, era tazitoan.

Ez nintzen handik tiroka ari zen zerrendari bakarra, baina **tazitoki** zona neutraltzat hartu ohi dira entrenamendu-eremuak. [Iban Zaldúa](#)

tazitu ik tazito.

te¹ 1 iz zuhaixka lore-zuria eta hosto-iraunkorra, jatorriz Sortalde Urrunekoa dena (Thea sinensis).

Baina adierazpen anbiguo horiek **tearen** hostoak bezala irakurri beharrak erakusten du errealitatean Sharonek ez diola publikoari bere asmoen inguruko ideia argirik eman. [Berria - Mundua](#)

2 landare horren hostoak, egoskinak prestatzeko berariaz idorrazaiak.

Tearen prezioa ez da merketuko, ez izan beldurrik. [Karlos Zabala](#)

Txinako **tea** aukeratu zuen Ruche jaunak, latza; **te** beltza eta trinkoa zen hura, eta Ruche jaunak luzaroan utzi zuen infusioan. [Jon Muñoz](#)

Harrigarriro, **te** berdearen kalitatea aski ona zen. [Ibon Uribarri](#)

Libra erdi **te** 350 florin ordaintzen da; libra erdi kafe, 80 florin; gurina libra 35 florinetan dago, eta arrautza bat 1,45 kostatzen da. [Josu Zabaleta](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atzaparrak eta **te** -hostoak. [Iñaki Mendiguren](#)

Lurrin-potetxoak, **te** -hautsak, intsentsu-makilatxoak. [Jon Arretxe](#)

Sentitzen dut, baina **te** -polsatxoak bakarrik ditut... [Iñaki Mendiguren](#)

Hautsez estalitako olio-bidoien eta azukre- eta **te** -zakuen artean, Etxe bateko ganbararen eta antzinako **te** -denda baten tarteko zerbaiten antz handiagoa zuen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Glasgow-n zegoen bat, oihalgile baten dendan, eta Belfasteko **te** -salerosle baten enplegatu zegoen bestea. [Irene Aldasoro](#)

Hostoa herrialde askotan hartu ohi da **te** infusioa egiteko. [Pello Zabala](#)

Igel motadunek salto egin dute ertz eguzkitsutik **te** koloreko ur geldietara. [Patxi Iturritegi](#)

4 te hostoz eginiko egoskina; tea hartuz egiten den bilera.

Te berde bat bederatzietan, kafe huts bat eguerdian, **te** berde bat arratsaldeko hiruretan eta, azkenik, beste kafe huts bat arratseko zazpian. [Joxan Elozegi](#)

Sukaldera joan, **tea** egin eta **tea** hartuta sukaldeko mahaian eseri nintzen. [Koro Navarro](#)

Emazteari adierazi zion **tea** eman ziezagula. [Juan Kruz Igerabide](#)

Arrosa hostoz lurrinduriko **te** beltza edaten. [Felipe Juaristi](#)

Sukaldeko mahaian **tea** edaten. [Oskar Arana](#)

Zooko zuzendariak berak egin zion **te** sendo eta gozoa izeba Petuniari. [Iñaki Mendiguren](#)

Te bat prestatu behar dut. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ziapezko bainu bat eta **te** fuertea prestatu zizkidan. [Koro Navarro](#)

Ohikoa bihurtu zenez, Hori Wu maisua **tea** hartzen ari zen gelara eraman ninduen, eta **tea** eskaini zidan niri ere. [Javi Cillero](#)

Tea eskatu zuten. [Patxi Zubizarreta](#)

Hagridek **tea** atera zien eta Batheko opiltxoak eskaini zizkien erretilu batean. [Iñaki Mendiguren](#)

Tea hartzen ari ziren agure batzuen keinuei jaramon eginda, Mehmet-en ostatu-baserrira iritsi naiz. [Jon Arretxe](#)

Te pixka bat edan zuen. [Iñaki Mendiguren](#)

Irakiten zegoen **tea** bizkor edaten saiatu ziren. [Iñaki Mendiguren](#)

Tea eta goxokiak dastatu bitartean. [Jon Arretxe](#)

Osaba Vernonek **tearen** kikara hustu zuen. [Iñaki Mendiguren](#)

-Tira, Harry -esan zion Fudgek, **tea** ateratzen zuen bitartean-. [Iñaki Mendiguren](#)

Te bikain hura zurrupatu zuen agureak. [Ibon Uribarri](#)

Te kaneladunari beste hurrupa bat egin, eta [...] jarraitu egin zuen: [...]. [Patxi Zubizarreta](#)

Big Joeri eman zion opari, **te** ondorenean, fruitu-arbolen baratzearen hondoan ezkutatu baikinen. [Mirentxu Larrañaga](#)

Tea beirazko ontzietan zerbizatzen hasten bazara, hazi egingo da negozioa. [Xabier Aranburu](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aurreneko **te** -hurrupadaz geroztik, kiskalita zeukaten denek aho-sabaia, Habibik izan ezik. Azken datila irentsi, eta azken **te-hurrupa** zanga-zanga edan zutenerako, lasaitua zen Habib. [Jon Muñoz](#)

Itxaron azken **te** -tanta hustu arte. [Iñaki Mendiguren](#)

Te -trago handi bat egin zuen, bibotea lehortu eta jarraitu zuen: [...]. [Iñaki Mendiguren](#)

Aitak zangada batez hustu zuen bere **te** -katilua. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ginger Mooneyk bere **te** -antoxina altxatu eta Mariaren osasunari topa egin zion. [Irene Aldasoro](#)

Nik **te** -katilukadak hustu, bata bestearen ondotik. [Joxe Austin Arrieta](#)

Zilar eta kristalezko bola ugariz, eta era askotako **te** -kikarez. [Iñaki Mendiguren](#)

Emango didazu zilarrezko **te**-ontzirik handiena? **Iñaki Mendiguren**

Bera-bera egindako limoi-pusketa kikararen aurka zanpatu zuen gogotsu **te**-koilararekin. **Mirentxu Larrañaga**

Ur-pipatik erretzeko **te**-etxe tradizionalak nahiz internetetik nabigatzeko zibertokiak. **Jon Arretxe**

Nire lagun Ako-ren zain nengoan, Sarai Bazar **te**-aretoan. **Juan Kruz Igerabide**

Bide bazterrean zegoen **te**-toki batean hasi zen zerbitzari. **Gotzon Garate**

Hizpidea, **te**-mahai inguruan bildurik, jostintza alorreko puntu eta ereduei buruzkoa izan zuten. **Mirentxu Larrañaga**

Te zeremoniaren lekuko izan nintzen handik aurrera. **Javi Cillero**

Chandler Txiki berandu etxeratu zen **te**-otordua egitera, eta Anneri Bewley's-tik kafea ekartzea ahaztuta, gainera. **Irene Aldasoro**

Te-orduko maiseaketa jasan behar izan nuen. **Irene Aldasoro**

Opiltxo bat joan zitzaion kontrako eztarrira **te**-garaian. **Mirentxu Larrañaga**

Te zerbitzu bat berreskuratu zuten. **Anton Garikano**

Hamar peniketako **te** joko batek egun osotarako egiten zuen Cam zoriotsu. **Anton Garikano**

Barrualdea bero zegoen eta **te** eta pasta usaina nabaria zen bertan. **Lopez de Arana**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa elkarketak izenondo balioa duela)

Bidutzi bat, mustur-luze eta erpeduna, munstro **te**-edale bat. **Joxe Austin Arrieta**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Café batera jaitsi ginen Abdellahrekin azken menda-**tea** hartzera. **Bernardo Atxaga**

Horrelako behatokitik kaletik zihoazen guztiak primeran ikus zitzakeen, eta limoi **tea** eskatu zuten. **Joxemari Iturralde**

8 (neurriekin)

Arratsaldean zehar, bizpahiru bider, gutxi gorabehera bi ordutik bi ordura, basokada bat **te** edaten zuten. **Patxi Zubizarreta**

Alargunak pixka batean geratzeko esan zidak eta hartzeko katilu bat **te**. **Koro Navarro**

-Katilukada bat **te**, besterik ez, eskerrik asko -erantzun zuen Williams andreak. **Koro Navarro**

-Beste kikarakada bat **te** eskatuko dut. **Jon Arretxe**

Erdibana edan dugu katilukada **te** gozo-gozoa. **Mirentxu Larrañaga**

Katilukada **te** gozo beroa, eta etzanda geratzea, horixe baino ez dut nahi. **Mirentxu Larrañaga**

Hara biltzen dira merkatariak, zazpinaka edo zortzinaka, ohiturari jarraiki bina katilu **te** edatera. **Jose Morales**

Idazmahaira itzuli, eta zain topatu zuen bigarren basokada **te**. **Patxi Zubizarreta**

Katilu **tea** eskuan hartu, frutazko gozagarria isuri, eta honela mintzatu zen: [...]. **Jose Morales**

9 kikerak bat te.

Sartu eta **te** bat hartuko dugu, nahi duzu? **Oskar Arana**

-Beste **te** bat, Cassie? **Lopez de Arana**

Amak **te** on bat ipini zigun. **Juan Kruz Igerabide**

Hiru bat ordu eman ditugu berriketan, **te** bat eta beste bat edanez, denak tabernariaren kontura. **Jon Arretxe**

Hamaikak joak ziren ia, Café Royalen kakao bat edo **te** errusiar bat hartzeko ordua. **Koro Navarro**

Te bikain hura zurrupatu zuen agureak. **Ibon Uribarri**

Dozena erdi **te** hartu nituen, eta gero, ordu biak inguruan edo, terrazan eseri nintzen sagar-tarta zati bat jatera. **Ramon Saizarbitoria**

Kafe bikoitza zeraman, berarentzat; **tea** esnearekin, Josebarentzat. **Fernando Morillo**

Dendako andreak **tea** mendarekin eta pastelxoak eskaintzen zituen. **Joxan Elozegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken **te** (3); katilu **te** (4); katilukada bat **te** (4); katilukada **te** gozo (3); kikara bat **te** (6)

te bat (19); **te** bat hartzera (4); **te** berde (5); **te** berdea (3); **te** beroa (6); **te** edan zituen (3); **te** etxe (6); **te** etxean (4); **te** gozo (4); **te** hostoak (4); **te** kikara (13); **te** kikara bat (6); **te** kikarak (6); **te** kikarakada (3); **te** ontzi (7); **te** ontzi bat (4); **te** ontzia (13); **te** pixka bat (7); **te** quiero (3); **te** zurrutada (4)

lehenengo **tea** (3); menda **tea** (3)

tea amaitu (3); **tea** ateratzen (3); **tea** break (3); **tea** bukatu (3)

tea edan (11); **tea** edanez (3); **tea** edaten (11); **tea** edaten ari (4); **tea** egin (4); **tea** egiteko (5); **tea** egiten (5); **tea** eman (3); **tea** eskatu (6); **tea** eskatu zuen (3); **tea** eta kafea (3); **tea** hartu (10); **tea** hartuko (3); **tea** hartzeko (10); **tea** hartzen (23); **tea** hartzen ari (8); **tea** hartzen zuten (3); **tea** hartzera (24); **tea** hartzera etorri (3); **tea** hartzera gonbidatzen (3)

tea mendarekin (3)

tea prest (4); **tea** prestatu (4); **tea** prestatzen (11)

tea zerbitzatu (5); **tea** zerbitzatzeko (3); **tea** zerbitzatzen (6)

tearekin batera (3)

te² interj

-**Te**, **te**, **te** !... **Paddy Rekalde**

teatral 1 izond antzerkiarena, antzerkiari dagokiona.

Tailer horrek dantzaren alderdi **teatrala** eta poetikoa sakonduko ditu modu berritzailean. **Berria - Kultura**

Edozein kasutan, gure intziriekin zoritxarrari zor zaiona ordaindu ostean, modu saihestezin batez eta inolako lotsarik gabe, ikuskizun **teatral** bati bezala begiratuko dio saldo txundituak suteari. **Harkaitz Cano**

Donatienen "partidak"-orgiak- konposizio eta antzeppen **teatralak** dira ia-ia. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

OLBEK freskura **teatrala** lortu zuen tragedia eta komediaren artean kulunkatzen den Frantziako opera erromantiko eta ez ohiko honetan. **Berria - Kultura**

2 imintziozkoa, espantuzkoa.

Dezepziozko muzin **teatrala** egin zuen. **Anjel Lertxundi**

Ahotsa apaldu zuen, bisaiak halako keinu **teatral** bat bereganatzen zuelarik. **Aingeru Epaltza**

Gero, tonu **teatrala** baztertu, eta ohiko hizketamodu lasaiaz galdetu zidan: [...]. **Anjel Lertxundi**

Andreasek gizonaren jarduna eten zuen harridura **teatrala** erakutsirik: [...]. **Anjel Lertxundi**

Gero, tonu **teatrala** baztertu, eta ohiko hizketamodu lasaiaz galdetu zidan: [...]. **Anjel Lertxundi**

Irainduarena egin zuen, baina modu **teatral** batez. **Anjel Lertxundi**

Ez dizu sekula barkatuko, esan zidan oso **teatrala** iruditu zitzaidan tonu batez. **Anjel Lertxundi**

Modu **teatrolean** esan zuen, eta ehunka begi gure mahaian paratu ziren. **Lander Garro**

Finean, edo hausten zuela, hobeki, bere ezintasunak azaldu zizkigun, molde ezin **teatralagoan** -: [...]. **Joan Mari Irigoien**

teatralitate iz teatraltasuna.

Hurrena, Maria Morena aipatu zuen **teatralitate** handiz, eskuin besoa bere osotasunean luzatuz. **Karlos Linazasoro**

teatralizazio iz teatral bihurtzea.

Subjektu transzendentalaren kontzeptuaren jarraipen bezala ulertu behar da zinema-apailuak subjektu zentratu bat produzitzea, eta, zentzu horretan, zinemako eszena haren irudikapen bat ("**teatralizazioa**", dio Baudryk) izango litzateke. **Josu Zabaleta**

teatralki adlag era teatrolean.

Don Evaristo Morales, nahiko **teatralki**, sartu zen ezkerreko ate beretik desagertu zen bat-batean, gelan zeuden hiru pertsonak zutik elkarri begira utzi ondoren. **Joxemari Iturralde**

Antolatzaileek El Maestro **teatralki** izendatzen zutenaren taularatzea itxaroten genuen bitartean, Principal Antzokian Bojan Zulfikarpasic piano jotzailea izan genuen lagun. **Berria - Kultura**

teatraltasun iz teatrala denaren nolakotasuna. ik teatralitate.

Jakina, bizitzak beti du **teatraltasuna**, behar du eduki gainera, baina hemen eta orain gehiegizko zerbait ere iruditzen zait. **Bernardo Atxaga**

teatrero iz adkor teatro egiten duena.

Gure folkloreak, gizaerak, asko zor dio jendaje alderri **teatrero** horri, baina, endemas eskekanten moldea. **Patziku Perurena**

Aingerutxook noski, badakit gehienak, Erdi Aroko erromes giroaz geroztik bertakotu diren orotariko jitoeria alfer, pestazale, negarti, **teatrero**, eskazale haien ondorekoen ondorekoak ditugula **Patziku Perurena**

teatro 1 iz jendaurrean gertaera sail bat irudikatzean datzan artea. ik antzerki.

Artea ikusi nahi duenak, beraz, Erromarat joan beharko luke, eta **teatro** ona ikusi nahi duenak Pariserat. **Joan Mari Irigoien**

Idazleak, politikoak, **teatroko** jendea eta "Paris guztia" gogotsu dator Charentongo kartzela-zoroetxeko emankizunak ikustera. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Reginari musu eman diona **teatroko** langile bat da, tramoari bat. **Anton Garikano**

Jendea, hori jakin eta halere paseatzera eta **teatrora** joaten dun, jan eta lo egiten din. **Anton Garikano**

Betiko **teatroaren** artea ez dagoelako inolaz ere hiliik. **Berria - Kultura**

Gero **teatro** tipi bat egin dute denek elgarrekin, bertsulari, dantzari eta musikariek. **Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gertrude Lawrence **teatro** izar ospetsua. **Edorta Jimenez**

Monzon **teatro** gizona. **Herria**

Daniel Landarten kontagintzan hirugarren urratsa dugu hau (aipatu gabe uzten ditut **teatro** -lan ugariak). **Daniel Landart**

Teatro -lan espantagarriki ederra, poesiaz betea. **Pablo Sastre**

Musset-ek **teatro** obra batean. **Bernardo Atxaga**

Plazara atera ziren, era berean, bertsolariak eta **teatro** taldeak. **Koldo Zuazo**

Teatro jokaldi hura iraganik, prestakizunetan hasi ginen berriz. **Jon Muñoz**

Broadway-n izaten den **teatro** giro berezia nabarmentzen zen. **Iñaki Zabaleta**

Schiller-en Gaizkileak tragediako Franz Moor-ena egin nuen, arrakasta handiz, gymnasiumeko **teatro** -aretoan. **Anjel Lertxundi**

Urduña, **teatro** laborategi. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Titere- **teatroa** egiten ahalegintzen zen gizon bat ikusi zuen Marcosek katedralaren ondoko iturrian. **Unai Elorriaga**

4 arte horri dagokion literatura-generoa; hizkuntza, herri edo autore baten antzerki lanen multzoa.

Pirandello, Bernard Shaw, Brecht eta beste hainbaten ekimenez, absurduaren **teatroa**, gaitzespen-**teatroa** eta banguardismo esperimentalak landu dutenak. **Berria - Kultura**

Grezia zaharreko **teatroa** gogorarazi dit erabat. **Txillardegi**

Non bukatzen da uestezko **teatroa** eta non hasten da uestezko bizitza? **Matías Múgica**

Durán Diskurtsoa-n (1828), **teatro** baroko espainolaren defentsan klasizismoaren aurka permatu da. **Joxe Azurmendi**

Emakumearentzat ileapaindegia, antzinako grekoentzat **teatro** tragikoa zen bezala, gizon gehienentzat futbol estadioa den bezala, katarsia egiteko lekua da. **Joseba Sarrionandia**

Animalario **teatrokoek** [...] gertakizun hartan egoteko aukera eskaini digute Donostiako Kursaalak. **Berria - Kultura**

Euskal antzerkigintzan badira irakasleak, bada **teatroa**, baita ikerketa lana ere, baina ez da nahikoa, eta lan horretan murgilduko gara. **Berria - Kultura**

5 antzokia.

Teatroa garrantzi handiko topaleku eta ikuskizuna izan zen XVIII. mendeko goi mailako gizartearentzat. **Jon Muñoz**

Bere jantzi modelo berriak aurkeztu nahi zituen San Petersburgoko **teatro** batean. **Matías Múgica**

Errezelak berak, **teatro** bateko teloiari lapurtuak dirudite. **Harkaitz Cano**

Nimeseko **Teatro** zaharra. **Joxe Austin Arrieta**

Askotan joaten zen Bilbora, gure aitona eta izebekin Arriaga **teatrora**. **Mikel Hernandez Abaitua**

Ez naiz **teatrora** sarritan joaten. **Berria - Kultura**

ABAOk 'Dulcinea' opera ekoitziko du beste bost **teatroekin** batera. **Berria - Kultura**

Teatroa mendi baten maldan baldin badago, zimenduak egitea errazagoa izango da. **Santiago Iruretagoiena**

Foroa non joango den erabaki ondoren, lekurik osasuntsuena aukeratzeko da **teatroa**, hau da, jainko hilezkorren ohorezko jaietan jokoak ospatzeko lekua egiteko. **Santiago Iruretagoiena**

Teatroan ere brontzeko ontziak jartzen dira, grekoek echeia deitzen dituztenak. **Santiago Iruretagoiena**

Aldapan egin zituzten **teatroetako** harmailak. **Santiago Iruretagoiena**

Teatroan larrugorriari agertzera behartu zituzten neska gazteak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zabalago, gaurko Euskal Herri hau **teatro** bat iruditzen zait. **Bernardo Atxaga**

6 irud/hed

Elizkizunen **teatroan** ene rola egiten nuen. [Piarres Aintziart](#)

Halere, erlatibismoaren aurkako axanpa eta **teatro** guztiek ez diote "espirituaren komediari" baino deus besteri lagutzen. [Joxe Azurmendi](#)

Operazioen **teatroa** mahai handi batean jarritako mapan irudikatua dago, dagoeneko nazien mendean ziren eskualde zabalak hari gorriekin orratzei kateatuak. [Harkaitz Cano](#)

7 kafe-teatro teatro lanak antzezten diren kafe etxea.

Caveamus, igitur, iuvenes dum sumus, kantatzen zuen nik pianoa jotzen nuen **kafe-teatroko** kantariak. [Anjel Lertxundi](#)

Nire interesak defendatzen ditut bai **kafe-teatroan** eta baita kalean ere. [Anjel Lertxundi](#)

8 teatroa egin espantuka aritu, papera egin.

Eta ez zen **teatroa egiten** ari. Eta, esplikazioeak emaiterakoan, **teatroa egin**, izuturik eta heure onetik aterea bahengo bezala... [Bernardo Atxaga](#)

. Begietara adi-adi so egin nion, **teatro** pixka bat eginez, tragedia bat jokutzen ari den aktorea banintz bezala. [Joan Mari Irigoien](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

teatro konpainiak (4); **teatro lan** (7); **teatro lan berri** (3)

teatroaren inguruan (3)

teatrogile iz antzerki lanak ontzen dituen idazlea.

Antonio Maria Labaien **teatrogile** tolosarra zen horietakoa. [Koldo Zuazo](#)

Idazleek, kazetariak, kantariak, **teatrogileak**, bertsolariak... ahalik eta jende multzorik zabalenera iritsi nahi zuten. [Koldo Zuazo](#)

Antzerkia pasio duten 40 bat pertsona dira: aktoreak eta **teatrogileak**. [Berria - Kultura](#)

teatrogintza iz antzerki lanak ontzea.

Bitxiak gertatu zaizkit poeta garaikide eta gazte baten ahotan *jainko* bezalako kontzeptuak, baina, *Antzerkiola Imaginarioak* **teatrogintzan** egin bezala, Gerediagak poesian ere diskurtso berezkoa, pertsonala zedarritzeko lehen pausoak eman ditu lehen poema bilduma honetan. [Berria - Kultura](#)

teatrokeria iz papera egitea, imintzioka aritzea.

Askotan pentsatu izan dut euskaldunok ez dugula otsoa etor daitekeenik sinesten, eta azken batean gauden honetan ez gaudela oso gaizki, eta horregatik gabiltzala

teatrokeriatan. [Bernardo Atxaga](#)

Hasten zara asuntoari bueltak ematen eta egun batean aspertu egiten zara hainbeste **teatrokeriarekin**. [Patxi Iturritegi](#)

teatroki iz antzerki lana.

Lantto berezi batzuen bidez ezagutzen ginuen normahik ere Lafitte noiztenka: hala-nola ikasurtearen erditsutan edo ondarrerat moldatzen zutelarik Uztaritzeko handienek ikastetxeko korrare handian emanen zen **teatroki** edo kanpoko antzerki moduko bat, edo berdin barnekoa, aro txarrez edo negu partean. [Herria](#)

teatrolari iz teatroan aritzen den antzezlea.

Labe handiaren aurrean lan egiten zuena, berez, **teatrolaria** zen. [Daniel Landart](#)

Ibili gira gu aldiz Vauban antzokiko ate artekatik kurios pinterdi, eta ederrik ikusi ere: han ari baitziren **teatrolari** trebatu batzu, batean zintzo ta bipil ikasten, bestean berriz omore pindartsuen karkailan, eta irriz uzkaliak berak ere aldika. [Herria](#)

teatrozale izond antzerkizalea.

Ez al zen haietako txalet batekoa mutil **teatrozale** hura, SIDAK hil zuena? [Bernardo Atxaga](#)

tebastar izond/iz Tebasekoa, Tebasi dagokiona; Tebaseko herritarra.

Tebastarrek barreari eman zioten eta haren etxe aurrean tropelkatu; bizkitartean haiek baino barre gehiago zegien berak. [Juan Garzia](#)

tebeo iz haur komikia.

technicolor ik teknikolor.

techno ik tekno.

tecno ik tekno.

tedesko iz alemana.

Ez, jauna: ez **tedeskoek** ez italiarrek ez diguzue duintasunaren ondra kenduko kroaziarrak, gera bedi argi esana. [Anjel Lertxundi](#)

Baina jakizu ez zaiz-kidala **tedeskoak** gustatzen, horra esana. [Anjel Lertxundi](#)

Tedesko harroputz batengatik kezkatu? [Anjel Lertxundi](#)

Tedesko alu-zorne bat!, bota zian karabinero kankailuenak nire pasaporteari begira. [Anjel Lertxundi](#)

tee-shirt ik **tixerta**.

teflon iz gai plastikoa, bero eta korrosio altuak ongi jasaten dituena.

Zer den zientifikoki mesedegarria eta zer kaltegarria ebatzi beharko dute, behingoz, falazietan amildu gabe, genetikoki eraldatutako organismoak bai (zenbat, zein, nolako baldintzetan) ala ez, bitamina eta gainerako elementuak zehazki erantsi ala ez, paderari **teflonezko** ipurdia jarri ala ez, zein ontzi diren kantzerigenoak. **Edorta Agirre**

tegi (*orobat tei g.er.*) **1** iz leku itxi eta eskuarki estalia, abereak gordetzeko erabiltzen dena.

Geroztik oilo edo konejuentzako **tegia** izan zen, eta halaxe ezagutu nuen nik, gaur egun trasteak gordetzeko baldin badaukate ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Marraka ari dira animaliak, burua **tegia** hesitzen duen langatik kanpo. **Alberto Barandiaren**

Errapeak goseti murtzatzen zizkieten suge zilar sotilak **tegietan** sartzean ardi gaixoak, [...]. **Itxaro Borda**

Zakurrek salerosketa handiak sortu eta jende anitz erabiltzen dute dantzan: zakur hazteko **tegiak**, albatariak, [...]. **Gotzon Garate**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garay jaunak ez zion Klente abertzale gazteari baimenik ematen bere ardi **tegi** moderno handiaren eraikitzeko. **Itxaro Borda**

Batzuetan hurbildu eta belarrian mokoka egiten zion eta xigorki-zati bat lortzen zuen, eskolako beste hontzekin batera, hontz **tegi** lotara joan aurretik. **Iñaki Mendiguren**

Urtxo **teian** ibiltzen denak urtxoen berri ere badaki. **Herria**

3 abere taldea.

Horren ondorioz zerrien garraioak debekatu dituzte Espainia guzian bai eta manatu ere gaitza duten **tegi** guziak hilaraztea kotsua hortan geldidadin bederen. **Herria**

4 biltegia; egoitza.

Kasko horretan Lapurdi eta Euskal Herriko bazterren ederki gozatzear gain, 210 metro karratuko **tegia** izanen du euskal irratiak. **Herria**

Han nonbaiteko **tegi**, almazen edo sareren batean dena harrapatua dagoela, sumatu ere egin gabe. **Iñaki Seguro**

Tegi huts batean esaldiak errepikatzen ari den gizona. **Berria - Kultura**

Plan integrala aplikatzeko funtzionatzen hasiko den lehen azpiegitura Berziklatu izango da, hau da, bolumen handiko hondakinak birziklatzeko **tegia**. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hontz tegi (4)

tehenta ik **terrenta**.

tei ik **tegi**.

teila 1 iz eraikinak estaltzeko erabiltzen den buztin erreko atal bakoitza.

Hasi ziren etxolen orde zuzenak etxeak eraikitzen, zimenduz osatuak eta pezozko edo harrizko paretekin altxatuak, eta **teilaz** eta enborrez egindako estalkiak zizutenak.

Santiago Iruretagoiena

Lurraren koloreko **teilak** teiltuetan. **Rafa Egiguren**

Gaindegia konpondu zuten, **teilak** alkaternaz margotu zituzten, irazgaitz egiteko inondik ere. **Josu Zabaleta**

Baserriari gurutzear margotu zioten teiltuan bi koloretako **teilak** erabiliz. **Xabier Etxabe**

Kontuz mugitu ziren, **teila** bustiak oso labainkorra baitziren. **Fernando Morillo**

Gurdietan eraman ohi zuten, **teilez** estalita, beruna lingoteetan ere, balak urtzeko balioko zuena. **Koro Navarro**

Ezkerretan, **teilaz** estalitako etxola hura, tresnategi eta egur-gordeleku izana. **Txillardegia**

Teila gainetik erretenera erortzen den ura ez dadin kolomartetik behera erori. **Santiago Iruretagoiena**

Eguna argitzen zuelarik, musuka jarduten ziren teiltu hodian ertzean, **teilen** azpian laztanka dabilzan txorien modura. **Karlos Zabala**

Teiletatik tantaka isurtzen zen urak zulo bat egiten zuen patioa haren. **Juan Garzia**

Teilak arrailtzen, puskatzen eta errausten ari dira. **Michel Oronoz**

Likido urdinean bustiriko kotoi puska batekin azala garbitu eta **teila** koloreko hautsak eman ditu iragarkiko melokotoi efektua lortzearen. **Eider Rodriguez**

Teila koloreko galtzerdi batzuk. **Ramon Saizarbitoria**

2 (izenondoekin)

Beti da onuragarri, etxeko sabaiko itoginei errepaso bat ematea, **teila** berriren bat bere tokian kokatzea. han-hemenka, dorretxo sail bat, printza diridratsuz izarniatzen zuten **teila** urdin eta zuriz estaliak. **Pello Zabala**

Kontserba-lata herdoilduak, **teila** hautsiak, pneumatikoak, lanabes hondatuak... **Anjel Lertxundi**

Galeria oijalaren gainean bigarren galeria apalago batek, habe landuzkoa, **teila** harroko teiltuari eusten dio. **Koldo Izagirre**

Eguraldi honek arbelezkoak bilakatu ditu kilometro gutxi lehenago **teila** gorritzakoak ziren etxeen teiltuak. **Pako Aristi**

Alsaziatik ekarritako **teila** bernizatuak. **Jon Muñoz**

3 (hitz elkartuetan lehen osagarri gisa)

Hazka egiteko **teila** -puska bat harturik, zabor artera joan zen Job. **Elizen arteko biblia**

Han nonbait, Pas-de-Calais-eko mugan, adreilu eta **teila** fabrika baterako buztina ateratzen zuten leku batean. **Josu Zabaleta**

4 (hitz elkartuetan lehen osagarri gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Etxe **teila**-gorriak. **Josu Zabaleta**

5 (erkaketan)

Indargabe nago, **teila** bezain lehor. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

teila puska (4)

teilen azpian (3)

teilagiri iz teilak egiten dituen pertsona.

Belagile aritzen zen **Teilaginen** karrikan. **Aingeru Epaltza**

Zirrara berezia hartuko zenueken herriak jazarri eta garaituriko presondegi bat ikusten, ikazkinek kotxeroek **teilaginek** okinek urketarietako poetek, hiriko tabernarietako eta beren bezero guztiek lehortutako ate haiek ukitzen. **Koldo Izagirre**

teilakatu, teilaka, teilakaten da/du *ad* partziarki elkarren gainean jarri.

Bazirudien leihoak pilatu egiten zirela, hariak eta, ezkatzen antzera, elkarren gainean **teilakatu** ziren arte. **Lopez de Arana**

teilape *iz* teilaz eginiko eginiko egitura baten azpialdea; teilatupea.

Plazan azokariariak: **teilapean** baserritarrek eta patata saltzaileak, arrautzak, ezta, baratxuri eta limoiak. **Pablo Sastre**

Etxeak bazuen atzeko aldean adobezko hesi-horma bat, arbataz estalia, barruan ukulua, gurdiaentzako **teilapea**, aihendegia, dolarea, bodega, olio-errotak eta zenbait patio eta eskorta hartzen zituen. **Josu Zabaleta**

Jendeak **teilapeetan** bilatzen du babesa. **Alberto Barandianen**

Hura zela burua estaltzen zigun **teilapearen** jabea, eta, hortaz, haurrok begirunez tratatu behar genuela gurekin topo egiten zuenean. **Mirentxu Larrañaga**

Behetako gainera, solairu bakarra zuen etxeak, eta **teilape** bat goialdean. **Jon Muñoz**

Teilapea bi gela simetrikotan banaturik zegoen. **Jon Muñoz**

-Ni nagoen **teilape** berean ez da haragikeriarik egingo! **Inazio Mujika Iraola**

Leiho horrek Santa Isabel eta Esperancilla kaleetako zenbait etxeostetarantz eta patio eta **teilape** batzuetarantz jotzen zuen. **Josu Zabaleta**

Trinket txiki bat ere bazegoen: **teilapeko** etxe txiki luze bat zen, bi ikurrin zeuzkan pintatuta apaingarri gisa. **Rafa Egiguren**

teilatu (*orobat teiletu g.er., teillatu g.er. eta tellatu g.er.*) 1 *iz* eraikin baten estalkia, teilaz edo kidekoz egina.

Bi arku, harroinaren bi alboetan xilatuak bezala, hormaren harri ederra, **teilatuaren** harri lauzak. **Piarres Aintziart**

Baseri bat eraiki zuen bertan, itsas haizetik gordea, hormak zuri eta **teilatua** gorri. **Felipe Juaristi**

Aita eta beste gaztetxo batzuk mandio bateko belar pilaren gainera igota zeuden, plaza ikusten baitzen hormaren eta **teilatuaren** arteko tartetik. **Juan Kruz Igerabide**

Milioi bat euroko inbertsioa Belodromoko **teilatua** aldatzeko. **Berria - Kirola**

Merkatuko **teilatua** ez dela ekintza terrorista baten ondorioz erori. **Berria - Mundua**

Pabiloien **teilatua** suntsituta geratu da. **Berria - Ekonomia**

Elizak arbelez egindako **teilatua** zeukan, eta erlojuak soinu zakar bat ateratzen zuen ordua jotzen zuen bakoitzean. **Rafa Egiguren**

Bordaxo bat, oholez jasoa eta **teilatua** txapa okerrez estalia, lorategi baten zokoan. **Jesus Mari Mendizabal**

Zaintzailea gazteluko **teilatu** gainera erori zen, eta handik lurrera. **Askoren artean**

Gero *Les dissolutions de la mémoire* hartu dut irakurtzeko, baina gogaikarria egiten zait, eta berriro ere **teilatu** moduan ipini dut aurpegiaren gainean. **Joseba Sarrionandia**

Teilatu gaineke katuei andra zahar batek ematen die jaten, arrain buruak espaloitik botaka. **Sonia Gonzalez**

Noeren ontziaren **teilatuan** eserita egon zela. **Koro Navarro**

Atzo 09:00ak aldera gaztetxeko **teilatuan** gelditzen ziren azken bi lagunak eraikinetik aterarazi zituztela. **Berria - Euskal Herria**

Teilatuan kristalezko begiratoki handi bat zegoen, ez ikuspegiak mirestekoa, ezpada nekazarien lanak ikuskatzeko. **Jose Morales**

Escondido izeneko ibai zabalak itsasoratzean sortzen dituen irletako batean, ohol hormak eta uralitazko **teilatua** dituen etxe umelean. **Joseba Sarrionandia**

Teilatuko zurajea ustelduta, arbela hautsita. **Felipe Juaristi**

Teilatuko terrazara goaz, basoak harturik. **Edorta Jimenez**

Argi ilaun batek harturik zeukan **teilatuaren** araberako sabai makurtuko gela. **Anjel Lertxundi**

Zurginak aldiz **teilatuetakoa** zurak ditu lantzen. **Xipri Arbelbide**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tarteka agertzen hasi ziren mujiken izbak eta lurjabeen eraikuntzetako **teilatu** ederrak. **Jose Morales**

Ostera bat egiten zuten pabiloietako **teilatu** karratueta zehar, estalpeko kaleetako **teilatu** luzeetan ibiltzen ziren, gora eta behera egiten zuten hango maldetan. **Karlos Zabala**

Ataria babesten zuen **teilatu** laburreko hagetako batean lotu zuen animalia. Zenbat amets ez zituen izan han goian, begiak pabiloien **teilatu** luzatuen gainean galdurik! **Anjel Lertxundi**

Donostiako Ilunbe zezen-plazaren **teilatu** mugikorra irekitzea. **Berria - Kultura**

Inondik ere abandonatuta zegoen inguruko etxe baten **teilatu** zapalean. **Josu Zabaleta**

Goiz honetan elurrik berriz kukutu du leiho parean dudak zimenduzko **teilatu** grisa. **Aurelia Arkotxa**

Itsasbater berdea, zuhaitzez eta etxe handi zuri **teilatu** grisdunez bete. **Lopez de Arana**

Teilatu zorrotzeko etxe gris bat zen eta atzealdetik akazia handi batek itzala ematen zion. **Lopez de Arana**

Haien erdian zurezko etxe bat zegoen, ganbaraduna, **teilatu** gorrikoa. **Jose Morales**

Eraikuntza apal bat, adreilua agerian, leihoak altzairuzkoak eta **teilatua** asbestozkoa. **Oskar Arana**

Morgaiko gailurrak antzuak ziren, akasduak, biluziak, beltzak, arbelezko **teilatuak** bezalakoak. **Agustin Otsoa**

Etxeak -horiz margotutako zurezko hormak, uralitazko **teilatua** -SCR azukre konpainiari erosi zizkioten, eta ez merke. **Xabier Montoia**

Metalezko **teilatua** eguzkiak berotu, eta izerdi patsetan ematen genuen eguna. **Xabier Montoia**

Lastozko **teilatua** eta lur zapalduko zoria zituen etxe baxu batean bizi ziren. **Joseba Urteaga**

Zurezko eraikinak, berdez margotutako, eskailerak, galeriak, **teilatu** suntsituak ondoko etxe zaharrei itsasten zitzaizkien. **Karlos Zabala**

Haien **teilatu** gainezarriak handituz zihoazela iruditzen zitzaion, zabalduz, urrunduz, atzeko argi hautsetzatuen artean galtzeraino. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Teilatu -hegalen azpiko balkoi barandadunak okerturik eta belzturik ageri ziren. **Jose Morales**

Kalera begiratu nuen **teilatu** -hegal azpiko neure gelako leihotik. **Txillardegia**

Nola Sales herri hartako **teilatu** -isurbideak, hondatzen eta usteltzen diren denborarekin, nola brontzezko hodiak egiten zail diren. **Juan Garzia**

Indioioloa uhurika, zilipurdika joan zen **teilatu** -isurkian beheiti, hegatzean ezin gelditu eta erori egin zen goitik behera lurreraino. **Gotzon Garate**

Gero, pabiloiek pilatzen ziren, beren bi **teilatu** mailekin, beren persiana jarraituekin. Eskailera mehar batzuk zeuden, **teilatu** maila batetik bestera pasatu eta goi guztian zehar ibiltzen uzten zutenak. **Karlos Zabala**

Pikotxean eta kontu handiz etxearen atzeko ertzerak hurbildu eta **teilatu** -hoditik behera lerratu zen sute-eskaileraraino. **Lopez de Arana**

Teilatu izkina bat ikusten dudala iduritzen zait, zabalik den artekatik. **Filipe Bidart**

Askeak ziren eta lotsarik gabeak, **teilatu** ertzean emaltzen ziren txolarre bikoteen gisan. **Karlos Zabala**

Pentsamendu haiek, kalkulu haiek, Alcatrazeko argi motelek sortzen zituzten horma eta **teilatu** zirriborroekin nahasten zitzaizkidan. **Bernardo Atxaga**

4 (hitz elkartuetan lehen osagarri gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Gero Belfasteko gizon batek orubea erosi eta etxeak egin zituen; ez berenak bezalako etxeko arreak, adreilu biziko etxe **teillatu** -distiratsuak baizik. Irene Aldasoro

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eliz **teillatua** ohiko elkarleku zuten usoak beldurrak airean ibiltzen ziren, saldo osoa hegaldatzen baitzen zalaparta bizian belatzak gerturatu orduko. Imanol Zurutuza

6 irud/hed

Baina hiru izugarrikeria horiek, bakardadeak, isiltasunak eta hustasunak, **teillatua** lehertzen didate, izarretaraino iristen dira eztanda batean. Eskarne Mujika

EAJK eta PPK diote pilota Elorzaren **teillatuan** dagoela, hau da, Udal Gobernuak berak egin behar duela lan hori, hala agindu diolako udal batzarrak. Berria - Harian

Pilota ez dago gure **teillatuan**, beraien **teillatuan** dago, beraien ilegalizatu gintuzten. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arbelezko teillatu (4); **elizaren teillatu** (3); **etxeetako teillatu** (5); **etxeko teillatu** (6); **etxeko teillatu gainean** (3); **jauregiko teillatu** (3)

teillatu azpiko (3); **teillatu baten gainean** (3); **teillatu beraren azpian** (4); **teillatu gainean** (27); **teillatu gaineako** (4); **teillatu gainera** (8); **teillatu gainetan** (6); **teillatu gainetik** (3); **teillatu gorri** (4); **teillatu gorria** (3); **teillatu gorriak** (3); **teillatu hegai** (6); **teillatu hegala** (4); **teillatu hegaletan** (4); **teillatu izkina** (3); **teillatu pean** (8)

txabolako teillatu (3)

bere etxeko teillatua (3); **elizako teillatua** (6); **etxeko teillatua** (6); **teillatua bota** (4); **teillatua egiteko** (3); **teillatua erori** (3); **teillatua konpondu** (6)

arbelezko teillatuak (4); **etxeetako teillatuak** (3); **teillatuak ikusten** (3)

eajren teillatuan (3); **etxeko teillatuan** (5); **ezker abertzalearen teillatuan** (3); **gaztetxeko teillatuan** (3); **pilota gure teillatuan** (3); **teillatuan bezala** (3); **teillatuan dago** (12); **teillatuan dagoela** (4); **teillatuan ziren** (3)

teillatuaren azpian (5); **teillatuaren ertz** (3); **teillatuaren gainean** (8); **teillatuaren orde** (3)

teillatuen gainean (7); **teillatuen gainetik** (16)

etxeetako teillatueta (3); **inguruko teillatueta** (3)

teillatueta igo (3)

gaztetxeko teillatura (3); **katedraleko teillatura** (3); **teillatura igo** (19); **teillatura igo zen** (8)

bere etxeko teillatutik (4); **teillatutik behera** (4); **teillatutik erori** (6); **teillatutik erori da** (3); **teillatutik jaisten** (3)

teillatudun *adlag* teillatuko.

Ezin sinetsi zuen munduan bazenik hiririk urregorritzko kupuladun elizak eta zilarzurizko **teillatudun** jauregiak zituenik. Felipe Juaristi

Uralitazko **teillatudun** estalpe bat. Joxe Austin Arrieta

Aurizberrikoa zuen ama, eta bazeukaten oraindik ere etxe bat han, isuri handiekiko **teillatuduna**. Xabier Mendiguren Elizegi

Liburutegi handi bat zutela hiriaren erdian, zilarrezko **teillatuduna** bera. Felipe Juaristi

Adio iparreko amodioei, adio maitagarri sorginduei, adio ipuinetako landetako etxe lastozko **teillatudunei**. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zilarzurizko teillatudun jauregiak (3)

teillatugile *iz* teillatuak egiten dituen pertsona.

Teillatua egingo zuela agindu zuen gero **teillatugile** batek. Koro Navarro

Hamarrak eta erdiatarako, ohe hutsa Rodney Grant-ek betetzen zuen, hogeita hemeretzi urteko **teillatugile** batek, konortea galdu baitzuen mailadi batean gora zihoalarik goiz horretan bertan lehenago. Oskar Arana

teillatupe 1 *iz* teillatu azpiko bitartea.

Bi sendi bizi ziren **teillatupe** berean, bi etxebizitzatan banatuta. Berria - Euskal Herria

Teillatupeko zoruaz zirikitu bat estaltzen zuen zerrauts pilatxo bat aurkitu zuen; han utzi zuen putzutxoak berehala igaro zuen ganbarako sabaia.

Josu Zabaleta

Ohol bakar batez bereizitako **teillatupeko** geletan. Anton Garikano

Hala joan ziren, usnaka, igurtzitzen, eskailera-zuloko leihora, mirabeen logelara, **teillatupeko** geletara. Anton Garikano

Neskame jendearentzat **teillatupean** prestatutako ganbaratxo horietako bat zen. Patxi Zubizarreta

Euria hasten badu, berriz, aterpe zabala dugu eliz atariko **teillatupe** irekian. Juan Luis Zabala

Teillatupe horretan, bakoitzak egin dezala lo nahi duen tainako ohean. Joxerra Garzia

Teillatupe berean bizi eta elkarri diosalik ez egitea ez dut ondo ikusten. Arantxa Iturbe

Inork ez zuen berrero baten **teillatupe** berean ostatu hartu nahi. Aingeru Epaltza

Teillatupean habia egindako txoriek siesta garaiari zegokion bakea hautsiz barreiatutako txioak. Josu Landa

2 (izen gisa)

Begiramen handia zien auzokoei, **teillatupekoei** salbu, haiei gorroto baitzien. Josu Zabaleta

3 teillapea.

Ezkerrekoak aurreko etxera ematen du; han biltegiak, ganbara bat eta **teillapea** daude. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

teillapeu berean (8); **teillapeu berean bizi** (3)

teillatutxo *iz*

Etxe hura ere, **teillatutxo** bat fatxadan, hanpatua, hezetasunez arras ilun, ur zikinatarako ontziaren kaxa berdaxka bana estai bakoitzean, jostailu handi bihurtzen zen bi haurrentzat. Karlos Zabala

Etxeak metaturik zeuden, puzturik, dendak aurrerantz irteten ziren **teillatutxo**en azpian, haurdunen sabelak bezala. Karlos Zabala

Aurreko hormaren goiko partean, leiho txiki batek pendiz handiko **teillatutxo** batera ematen zuen. Anjel Lertxundi

teillaztatu, teillazta, teillaztazen du *ad* estali.

Haatik, txapelak zeru gaina **teillaztatu** arren, Axenariori burua estutzen dio, kopeta aldean.. Itziar Otegi

teileri *iz* teilak eta kidekoak egiten diren etxea lantegia.

Teileria galiar-erromatar bat aurkitu dute Belgika ekialdean, Liejatik gertu. **Berria - Gaiak**

[“El Eco de Navarra” egunkariak] segurtatzen du gobernadorea entseutuko dela **teileri** baten sortzen inguruan, Auritzen dagoenaren parteak erabiliz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

teiletu ik **teilatu**.

teillatu ik **teilatu**.

teink ik **tenk**.

teinka ik **tenk**.

teinkada ik **tenkada**.

teinkatasun ik **tenkatasun**.

teinkatu ik **tenkatu**¹.

teismo *iz* erlijioez kanpoko doktrina, Jainko bakar eta probidentziazkoa aldarrikatzen duena. **ikdeismo**.

Teismoa, ostera, guk zerbitzatzen dugun askatasunaren etsairik hilgarriena da berez. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zuen **teismoak** basatikeria asko eragin du, baina bakar bat ere ez du eragotzi. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Teismo hutsean, handitzeko eta hegaldatzeko arrazoi gehiago aurkituko ote dugu? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

teista 1 *iz* teismoaren jarraitzailea. **ik deista**.

Teologia transzendentala besterik onartzen ez duenari deista deitzen zaio, Natur Teologia ere onartzen duenari **teista**. **Ibon Uribarri**

Onberagoa eta zuzenagoa da esatea: deistak Jainkoan sinesten duela, **teistak** Jainko bizi batean (*summa intelligentia*). **Ibon Uribarri**

• **2 izond** teismoarena, teismoari dagokiona.

Azkenik, egiaren arazoari helduko dio egiten diren aitorten nagusietan sakonduz (adibidez, erlijio **teisten** "Jainkoa ba da"). **Askoren artean**

teja *iz* apaiz kapela.

Apaiza, ohiko sotana eta **teja** jantzi, eta esku batean bastoia eta bestean brebiarioa duela kanporatu arte. **Pako Aristi**

tejabana *iz* **adkor** teilapea.

Oso taberna zikina zen, oiloak bertan ibiltzen ziren bueltaka, eta **tejabana** baten azpian jotzen nuen. **Pako Aristi**

Geroago, gaueko hamarrak edo hamaikak aldera, **tejabana** gaineko enborretan hontzuria pausatuko zen seguru asko, eta hontzuriaren intziri ikaragarria entzungo zuen.

Joseba Sarrionandia

tejal

1 tejal egin **adkor** jan.

Nirea ez zen marantu bat **tejal** egin behar izan nuen. **Koldo Izagirre**

-Hi... koilarak **tejal** egiten dituztenetakoa haiz? **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tejal egin (3)

tejano *iz* jeansak.

Eta ahor tipoa normal-normal jantzita, **tejanoz** ... **Harkaitz Cano**

tejo (*orobat teku*) *iz* kirats modukoa.

Eskuetan oraindik sexuaren usain garratz eta sarkorra, ahoan karminaren **tejoa**, Gau osoan itxirik egon ondoren, dendako jakien usain desberdinek **tejo** itsasgarria sarrarazten zuten sudurzuloetatik. **Joxean Agirre**

Mordorko airean ahoa lehortzen zuen **teku** samina zegoen. **Agustin Otsoa**

teka *iz* *ipar* seta, tema, hisia.

Bere "berezko" klasa ez bide du ahantz Thierryryk, ez-eta pilotariak beti behar duen hura edo **teka** hura, irabazteko. **Herria**

tekila iz Mexikoko edari bizia, alkohol gradu askokoa; edalontzi bat tekila.

Luntzeko zertxobait jan, kopa bat **tekila** eta gero txanpain a. **Jose Angel Irigaray**

Antolamendu ezin hobea zen, eta, ezbairik gabe, urte askoan jarraitu izango zukeen baldin eta Smith-ek ez balu bere berrogeigarren urtebetetzea baino hiru gau lehenago **teklaz** mozkor-mozkor eginda bere etxeko teilatutik jauzi egin. **Oskar Arana**

Benga **tekila** bat! **Pako Aristi**

Tekila -sunrise zen bere edari kutuna. **Urtzi Urrutikoeetxea**

tekilatxo iz adkor edalontzi bat tekila.

Gauek ordubatean lagun guztiek Alde Zaharrean urteko lehenengo egunean hartzen duten **tekilatxo** aurkitzen dut faltan. **Harkaitz Cano**

tekla 1 iz pianoan, organoan eta kideko musika-tresnetan, klabierra osatzen duten piezetako bakoitza, soinu bat ateratzeko atzez sakatzen dena.

Ed Thatcher, pianoaren **teklen** aldera makurturik, *Eltxoaren hegaldia* jotzen saiatu zen. **Lopez de Arana**

Eskua gerriaren atzetik pasata **tekla** solte batzuk jo zituen pianoan. **Josu Landa**

Hatzak mugitzen ditu goian-behean, **teklak** edo -bere kasuan botoiak- aurkitu nahian. **Pako Aristi**

Berehala eseri da; eri muturrez lastandu ditu **tekla** zuri-beltzak. **Javi Cillero**

Glissando batzuk egin zituen gero hatzak **tekletara** ohitzeko. **Anjel Lertxundi**

Teklak zanpatuta, ez nion deus ere aterarazi ohiko soinu distorsionatuaz aparte. **Aingeru Epaltza**

Haren soinuan kanpoko **teklak** berri zeuden, eta barrukoak gastatuta. **Pako Aristi**

Orduan ezkerrak are sakonago egiten du dantzan **tekla** beltzen gainean. **Alberto Barandiaren**

2 ordenagailu, idazmakina eta kidekoetan, klabierra osatzen duten piezetako bakoitza, ikur bat idazteko edo kideko ondorioak lortzeko, hatzez sakatzen dena.

Txosten bat hartu eta bere kalkulagailuko **teklak** hasi zen sakatzen, zitzu bizian. **Joxan Elosegi**

Telefonoa hartu, eta deia errepikatzeko **tekla** sakatu genuen. **Patxi Zubizarreta**

Diru-kantitateak kutxa erregistratzaileko **tekletan** jotzen zuen bitartean, fakturen zenbatekoa buruz kalkulatzeko ohitura zuen Perretek. **Jon Mu oz**

Erpuruek bortizki jotzen zituzten idazmakinetako **teklak**, eta paperak alderdi batetik bestera zebiltzan. **Pedro Alberdi**

Olivierrek atearen beste aldetik entzuten zuen komediantea idazten: **teklen** zarata hori, munduak aurrera jarraitzen zuen seinale. **Harkaitz Cano**

Nire hatz indargeek **teklak** ferekatu zituzten, azken paragrafoari lotu beharrez: [...]. **Aingeru Epaltza**

Llumeek esku batekin Coca-cola potea hartu eta bestearekin **teklak** sakatzen segitzen du. **Antton Olano**

Tekla bat sakatu eta hantxe agertzen delako, eta atsegin ez bazaigu, beste **tekla** bat sakatu eta kito, ezabatuta. **Antton Olano**

3 (hitz elkartuetan)

Idazteko makinaren **tekla** -hotsa eteten den bakoitzean, automobilen zarata nagusitzen da nabarmen. **Rafa Egiguren**

-Azken zuzenketak egin, ohiko klabea idatzi eta behar baino indar handiagoaz zanpatu nuen itzulera-**tekla**. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tekla bat sakatu (7); **tekla sakatu** (5)

teklak sakatzen (4)

teklade ik teklatu.

tekladu ik teklatu.

tekladun izond teklak dituena.

Besoen artean soinu handi bat dauka, **tekladuna**. **Pako Aristi**

Hiru lehiaketa horietan **tekladunek** irabazi zuten, ez botoidunek. **Koldo Izagirre**

tekladura iz teklatua.

Eman zion fisarmonica haietako bat nekazari txiro baten seme musikazaleari; honek tresna guztia desmuntatu eta gero bere gisara osatu zuen ostera, hotsak leunduta eta **tekladura** ugarituta. **Koldo Izagirre**

teklatu 1 iz (orobat teklade g.er., tekladu g.er. eta teklau g.er.) 1 iz pianoan, organoan eta kideko musika-tresnetan, hotsak sortzeko sakatzen diren atalen multzoa, ordena jakin batean egituratua.

Mari Jane, eskuak **teklatuan** gora eta behera lasterka, [...] eta izeba Kate, orrialdea pasatzeko, Mary Janeren alboan zutik. **Irene Aldasoro**

Jendearen marmarra iritsi zitzaionean, **teklatua** piano piano itxi, jaiki eta eszenatokiko atea zeharkatu zuen, astiro. **Alberto Barandiaren**

Bere-berez zebiltzan nire hatzak **teklatuan**: teknika eta sena elkarrekin dantzan. **Anjel Lertxundi**

Badira batera edo **teklatu** jole imintzioak darabiltzatenak. **Pako Aristi**

Berak sortu eta jotzen duelako piezako musika guztia sintetizadore baten **teklatuan**. **Berria - Kultura**

2 ordenagailu, idazmakina eta kidekoetan, ikur bat idazteko edo kideko ondorioak lortzeko, hatzez sakatzen diren atalen multzoa.

Idazteko makina baten **teklatuan** adierazten diren hizkiak ez dira enuntziatuak: asko jota enuntziatuak idatzi ahal izateko tresnak izango dira. *iMac* ordenagailuaren diseinu originalarekin bat etortzeko, sagau eta **teklatu** bereziak diseinatzea erabaki zuen Applek. **Xabier Arregi**

Gehienek ezin dute arratoia erabili, eta, horren ordez, **teklatua** erabili behar izaten dute. **Berria - Euskal Herria**

Pasa hatzak **teklatuaren** gainetik arinki eta letrak, hitzak, azaltzen dira pantailan. Bernardo Atxaga

Teklatuan sakatutako letra bakoitza pantailan nola agertzen den ikusten du. Antton Olano

Teklatuak bi multzo berdintsutan banatzen ditu letrak: eskuineko eskuarekin idazten direnak, batetik, eta ezkerrekoa erabiliz idazten direnak, bestetik. Iñaki Arranz

Pantailak, inprimagailuak, ohiko **teklatu** urdinxka luzeak. Txillardegí

Ikasleetako batek hatz erakusleak erabiltzen zituen **teklatu** sakatzeko, oso motel. Lander Garro

Gogoeta horrek atxiki zituela nire eskuak **teklatu** gainean. Aingeru Epaltza

Burmuineko paralisia duen Richard Pascuak, bestalde, oinak erabiltzen ditu **teklatuko** botoiak zapaltzeko. Berria - Euskal Herria

3 musika-tresna teklatuduna, eskuarki elektronikoa.

Oier Ponceren laguntza izan dute; **teklatura** eta pianoa jo ditu zenbait abestitan. Berria - Kultura

Luis Aranburuk jo ditu akordeoia eta **teklatura**; Xabier Agirrek, txirula, gaita, alboka eta baxua; eta Xabier Azkaratek, perkusioa. Berria - Kultura

Kantariak gitarra jotzen du eta emakumezko baxu jotzaileak **teklatuak** hartzen ditu batzuetan. Berria - Kultura

Hor entzuten dira koraren akordeak, **teklatu**en soloak (interesgarrienak piano elektrikoan gertatzen dira). Berria - Kultura

Hiru musikari baino ez: Frederic bera programazioetan, beste lagun bat **teklatu**etan eta hirugarren bat, Burkina Fasoko kora jotzailea, noizean behin perkusioetan aritzen zena. Berria - Kultura

Ivan Pacheco (gitarra), Nando de la Casa (**teklatu** eta samplerrak), Dani Foronda (baxua). Berria - Kultura

Teklatuetan sanpleatu ziren erritmoak. Berria - Kultura

4 pianoa.

Teklatuan Joaquin Atxukarro bilbotarra, maisu. Berria - Kultura

5 irud/hed

Ez ote zait gertatuko nire garuneko **teklatuaren** tekla horietakoren bat gelditurik edukitzea? Josu Zabaleta

6 *teklatu-jotzaile* (*orobat jole g.er.*) teklatuak jotzen dituen musikaria. ik **teklista**.

Asier Oleaga bateriak taldea utzi ondoren **teklatu jotzaile** bat elkartu da: Leonel Ruiz. Berria - Kultura

Gitarrez gain **teklatu jotzaile** iaioa topatzen dugu, *Decrepitos* taldean ibili zena. Berria - Kultura

Giro amerikar horretan oso nabarmenak ziren gitarra jotzailearen soloak (*Grateful Dead* taldeko Jerry Garciairenen airea zuten, nonbait), eta emakumezko **teklatu jotzailearen** atalak. Berria - Kultura

Bakoitzak berean lan bikaina egin zuen: gitarra jotzaileak pedaletan, akordeetan, soloetan; **teklatu jotzaileak** soloetan edo giroak sortzerakoan; eta eritmo sekzioa, abiada bizian eta kolpeka, bikain. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

teklatu jotzaile (4); **teklatu jotzailea** (3); **teklatu jotzaileak** (5)

teklatxo *iz* tekla txikia.

Espiritu, arima, psikea, pathosa, zalantzarik psikaliptikoena, **teklatxo** bat sakatuta konponduko da. Karlos Linazasoro

teklatze ik **tekleatze**.

teklau ik **teklatu**.

tekleatu, teklea, tekleatzen 1 du *ad* teklak jo. (nor/zer osagairik gabe)

Bera ordurako hurrengo erosketak hartzen ari zen ezkerreko eskuaz, eskuineko eskuaz begiratu gabe **tekleatzen** zuen bitartean. Joseba Urteaga

Aski izan nuen horretan pentsatzea, derrepente karta ia bera bakarrik, berez bezala, **tekleatzen** has zedin. Joxe Austin Arrieta

Zerbait bururatu eta idazmakina batean gogo txarrez **tekleatzen** ari den Txetxuren aurreraino doa. Xabier Mendiguren Elizegi

Senarrak egunerokotasunaren estalkia ez urratzearren ordenagailuan **tekleatzen** jarraitzen zuen. Joxean Agirre

-Kanelaiye?, zer da kanelaiye? -Luis Angelek, idazmakinan **tekleatzeari** utzita. Iñaki Iñurrieta

2 du *ad* teklak joz idatzi.

Izeba Emilyk hitz horiek **tekleatu** zituen bera idazmakina bat bailitzan. Lopez de Arana

Azken finean artikulua Iban Zalduaren izenean **tekleatzea** eta liburu honetan txertatzea erraza da, edonork egin dezakeen gauza. Iban Zaldúa

Kodea **tekleatzen** hasi zen Perrette. Jon Muñoz

Kable guztiek dolarrak **tekleatzen** zituzten. Lopez de Arana

Eta *tip tip tap tip top tip*, musika egingo balu bezala **tekleatzen** du, *Bizitza ausente dago, ez gara munduan bizi, baina imajina ezazu...* Txundituta, "Aurkitu fitxategia" zanpatu eta horixe bera **tekleatu** nuen: "edu-2". Joseba Sarrionandia

tekleatze 1 *iz* teklak jotzea.

Bere atzamarrek berriro ekin zioten **tekleatzeari**: [...]. Lopez de Arana

Handik gutxira ondoko gelako telegrafistak bere **teklatzeari** ekin zion. Koldo Izagirre

2 tekleatzearen hotsa entzutea.

Ordura arte aditzen ez zuen **tekleatze** monotonoa eten egin da. Iñaki Iñurrieta

teklista *iz* teklatu-jotzailea.

Aitor Abio **teklistarekin** aterako duen azken diskoa, 'Game over', aurkeztu du. Berria - Kultura

Bi orduko emanaldia eskaintzen du Muguruzak kontzertuetan, 11 musikari ezagunekin elkarlanean: Sorkun eta Begoña Bang Matu kantariak, [...] Eva Reina abeslari eta **teklista**, DZ disko jotzailea, Xabi Solano akordeoi jotzailea, Andres Belmonte baxu jotzailea, Alfonso Arias gitarrista eta Mikel Abrego bateria jotzailea. Berria - Kultura

Winwoodek abeslari eta **teklista** gisa erakutsi duen talentua erabakigarria izan da *Spencer Davis Group* (1963), *Traffic* (1967) eta *Blind Faith* (1969) talde mitikoen arrakastan. Berria - Kultura

teknifikazio 1 du ad teknika-aurrerapenez hornitua.

Geriatrak baliabide berriak erabiltzeko aholkatu zigun egun berean, zaharrok **teknifikatzeko** kanpaina baten berri eman zuen gure gobernuak. **Anjel Lertxundi**
GKE batzuk oso **teknifikatuak** daude, Oxfam bezalako bat arma kimikoetan esaterako, eta teknifikazio hori ezinezkoa litzateke zientzialari eta teknikarien laguntzarik gabe.
Pello Salaburu

Temako saioez ari garelarik, joera desberdinak ulertzeko moduan azaltze aldera, izugarri **teknifikatu** dugu gure kontaera. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

2 (era burutua izenondo gisa)

Disko saxo elegante batek jantzita hasten da (Smith Street), laster *house* asaldatze epelei heltzen die eta baita Brasilgo bossa arrasto **teknifikatuei** ere. **Berria - Kultura**
Horrelako azalpen instituzional-ofizialek funtzio zilegitzailea eta lasaigarria jokatzen dute, ez baitute onartzen arriskuak eta istripuak gure gizarte **teknifikatuei** berezkoak, normalak alegia, zaizkiela. **Berria - Gaiak**

Izan ere, burgesiak eskulan merke eta ugaria behar zuen, gero eta **teknifikatuagoa** zegoen ekonomian jarduteko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Disko saxo elegante batek jantzita hasten da (Smith Street), laster *house* asaldatze epelei heltzen die eta baita Brasilgo bossa arrasto **teknifikatuei** ere. **Berria - Kultura**

teknifikazio 1 iz teknika-aurrerapenez hornitzea.

GKE batzuk oso teknifikatuak daude, Oxfam bezalako bat arma kimikoetan esaterako, eta **teknifikazio** hori ezinezkoa litzateke zientzialari eta teknikarien laguntzarik gabe.
Pello Salaburu

Teknikazioaren lehen urratsak ere orduan hasi ziren. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Berriz, sistema hezitzailearen **teknifikazio** gehiegizkoak existentziaren kultur gabetzea eta hutsaltasuna dakartza, horra gizarte modernoaren ezaugarrietako bat. **Anjel Lertxundi**

Saskibalo profesionalaren **teknifikazioak**, gaurkoaren antzeko derbien giroa hoztu du. **Berria - Kirola**

Teknikazioak eta abangoardiak bere menpe hartu duen kirol mundu batean Wimbledongo Torneoa usadio zaharren maitale direnentzat mugarri da oraindik. **Berria - Kirola**

Gaur aurkeztuko dute **Teknikazio** eta Oinarriko Futbola garatzeko Zentroaren lehen fasea. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan)

Eibar eta Gipuzkoako Aldundia hitz egiten ari dira, lpuurako futbol zelaiak eskualdeko **teknifikazio** gune bat har dezan. **Berria - Kirola**

Realak diruz lagunduko du Aviron, adiskidantza partidak jokatuko ditu Baionan, eta Zubietan egiten diren **teknifikazio** eta trebakuntza saioetara lapurtarrak gonbidatuko ditu. **Berria - Kirola**

teknika 1 iz arte, zientzia edo jarduera batean erabiltzen diren prozeduren edo jardueren multzoa.

Collingwooden teoriaren arabera, **teknika** soilik menderatzeak ez du inor artista bihurtzen. **Askoren artean**

Teknika artifizio hutsa da, errepikapen bat, gauza hila berez. **Pako Aristi**

Behin **teknika** menderatzen denean, alabaina, oharkabean aplikatzen da. **Askoren artean**

Mendebaldeko Europako marinelek itsasketa ozeanikoaren **teknika** menderatu zutenean. **Iñaki Mendiguren**

Akuafortearen **teknika** hobetu zuen eta eragin handia ukan zuen geroko grabatzaileetan. **Koldo Izagirre**

Garai hartatik aurrera goi-mailako ikasketetan eztabaida logikoaren **teknika** nagusitu zen. **Iñaki Mendiguren**

Hitz hasieran letra bat edo batzuk gehitu beste hitz bat sortzeko, horra hor **teknika**. **Iñaki Arranz**

Arabiar poesiaren espiritua eta **teknika**. Jakitea **teknika** da ezer baino lehen, trebetasun praktikoa [...], zuhurtasuna, azpijokoa edo amarrua bere baitan hartzen dituen. **Iñaki Mendiguren**

Tresneria horietaz baliatzeko **teknika**. **Josu Zabaleta**

Idazlanak egiten eta aurkezten ikasteko **teknika** bat proposatzen da. **Askoren artean**

Erantzuna bat-bateko jardunetan sarri erabiltzen den **teknika** batez baliatuz eman du, gainera: pertsona eta pertsonaia nahastuz. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Argazkia izan zen lehenengo aurkitu zen irudi automatikoa; hasieran errepika optikoak egiteko **teknika** bat bezala hartu zen. **Josu Zabaleta**

Fotometria argi kopuruak neurtzen dituen **teknika** da. **Josu Zabaleta**

Saiatu naiz **teknika** hori garatzen. **Koldo Izagirre**

2 (izenondoekin)

Koadroei argitasuna emateko **teknika** bereziak. **Ramon Saizarbitoria**

Teknika mnemotekniko bat da. **Iñaki Arranz**

Teknika elektronikoko sentikorrek erabiliz jaso daitezke nerbio-zuntzetan doazen seinaleak. **Irene Aldasoro**

Lan-indarraren hezkuntza-maila altuak, hasteko, **teknika** modernoak ikastea bultzatzen du. **Koro Navarro**

Ingeniaritzako **teknika** aurreratueneke nekez hobe dezaketen emaitza. **Irene Aldasoro**

Hastapenean, **teknika** mistoak eta collage-ak landu nituen, eta baita eskulturatik gertu zeuden lanak ere. **Berria - Kultura**

Medikuntzaren eta psikologiaren **teknika** osagarri bat da hipnosia. **Berria - Euskal Herria**

Marketako zaintzaileek eta aurkako gerra-talde barbaroek, denbora igarotzean, elkarren artean berdintzera jotzen dute, lehenik **teknika** militarrean eta azkenean kulturaren ere bai. **Iñaki Mendiguren**

Travellingaren ordez zoom hori erabiltzea oso **teknika** zabaldua izan zen. **Josu Zabaleta**

Sormenaren nemesia: **teknika** iragankor baten idolatria. **Iñaki Mendiguren**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik tekniko.

Ez dut uste, nolani ere, **teknika** alderdiari dagokion zerbait denik. **Andoni Egaña**

Gai bat maite dudanean hainbat **teknika** prozedura erabiltzen ditut. **Berria - Kultura**

Abisu bat **teknika** mailan estudioak segitzen dituztenendako. **Herria**

Informazio eta **teknika** trukaketak egiten ditu enpresa japoniarrek, akordioari esker. **Herria**

Teknika -laguntzari ez zaio eman behar zuen garrantzia. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Aipatuak daude dagoeneko irakasle laguntzailerik ez egotea batetik, eta **teknika** -laguntzaile gutxiegi egotea bestetik. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Margolariak erabiltzen duen **teknika** sorta suertatzen da deigarriena. **Berria - Kultura**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hura baino lehen izan ziren beste intseminazio **teknika** batzuk. **Ramon Saizarbitoria**

Beste teorialari askok, ordea, irudikapen-**teknika** batzuk beste batzuk baino "naturalagoak" direla azpimarratu dute. **Josu Zabaleta**

Kirurgia **teknika** horiek ordezkatzeko laser berdeak. **Berria - Gaiak**

Marrazketa **teknika** klasikoak ederki menderatzen zituela erakusten dute ilustrazio horiek. **Berria - Kultura**

Narrazio **teknika** berriak trebeziak baliatuz. **Berria - Kultura**

Gaur egungo teledokumentazio **teknika** berriek sekula utzi behar ez zuen zokora baztertu dute memoria. **Joxerra Garzia**

Gehiegizko arautzea, babes-**teknika** mozorrotu gisa (kontsumitzaileen babesaren aldeko arauen kasuan). **Koro Navarro**

Irratian jendekaren arabera, klonatze **teknika** jendeetara hedatuko zuten labor labur barne. **Itxaro Borda**

Hona hemen buruzigilatze- **teknika** horren printzipio nagusia:[...]. **Irene Aldasoro**

Mendebaldeko industri **teknika** militarrenen gailu modernoetako batzuk bere probetxurako bihurtzean. **Iñaki Mendiguren**

Ikas- **teknika** horietan ere berdintsu: biharko laborantza moduari doakan prestakuntzekin. **Herria**

Vaquerizaren irakas- **teknika** ez dakit Sobiet Batasunekoala ala berak asmatua ote zen, ez dakit eragingarria zen ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

5 teknika horren ezaguera.

Teknika handiko jokalarari gaztea. **Berria - Kirola**

Teknika zorrotzeko dantzariak. **Berria - Kultura**

Zuri buruz esaten da ez zarela oso **teknika** oneko jokalaria, baina partida osoan zehar kontzentrazioa ez duzula galtzen eta zure bertuteak ondo aprobetxatzen dituzula.

Berria - Kirola

Bertan 13 urteko mutilak aritzen dira lanean, **teknika** landuz. **Berria - Kirola**

6 ondasunen erabilpenaren erabiltzen diren eta jakintza-ezagueran oinarritzen diren prozedura sistematikoen multzoa. ik **teknologia**.

Zientzia, **teknika** eta gizarteak. **Markos Zapiain**

Aurrerapena, zientziaren etorkizuna, **teknika** eta produktzioa gurtzea mito burgesak dira, XIX. mendean zehar dogma bilakatu zirenak. **Iñaki Heras**

Iturri bertsutik edaten dute: zientzia, **teknika**, aurrerapena eta ekonomia determinismoaren uretatik, alegia. **Iñaki Heras**

Ez dira zientzia eta **teknika**, teoria eta praktika elkartu teknozientzia berri batean? **Askoren artean**

Horra **teknika**, mistikaren ordez! **Joxe Austin Arrieta**

Bigarren Mundu Gerran eta gero Mendebaldean ondoz ondo Errusiaren etsai izan ziren Alemania eta Estatu Batuen **teknika** industrial eta militarraz jabetzarekin konformatu gabe. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahots teknika (3); bi teknika (9); dantza teknika (3); egiteko teknika (5); erabilitako teknika (5); erabiltzen den teknika (3); erabiltzen duten teknika (3); estilo eta teknika (4); gai eta teknika (3); galdeketa teknika (3); horretarako teknika (3); mendebaldeko teknika (3); osatzeko teknika (3); probatu dute teknika (3); salmenta teknika (4)

teknika adierazi (3); teknika aitzindari (3); teknika aldetik (15); teknika arloan (3); teknika aztertzen (3); teknika bera (12); teknika berezi (5); teknika berezi bat (3); teknika berezia (9); teknika berri (23); teknika berri bat (6); teknika berria (8); teknika berriak (23); teknika berriei (3); teknika berriei esker (3); teknika berriek (3); teknika berriekin (4); teknika berrien (3); teknika berrietan (3)

teknika egokia (4); teknika erabili (5); teknika erabiliz (7); teknika erabiltzen (5); teknika eraginkorrak (3); teknika eta artea (3); teknika eta sena (3); teknika garatu (4); teknika handia (4); teknika handiko (3); teknika hobetzeko (3); teknika horren bitartez (3); teknika horri esker (3)

teknika jakin (3); teknika lantzen (3); teknika menderatu (3); teknika modernoak (3); teknika molekularra (3)

teknika ona (6); teknika onekoa (3)

teknika zoragarria (3)

zientzia eta teknika (6)

azterketa teknikak (3); egiteko teknikak (4); erabilitako teknikak (3); ernalketarako teknikak (4); galdeketa teknikak (3)

teknikak baliatu (5); teknikak erabili (10); teknikak erabili zituen (4); teknikak erabiliz (4); teknikak erabiltzea (3); teknikak erabiltzen (3); teknikak ikasi (3)

tortura teknikak (3)

teknikaren aldetik (7); teknikaren bidez (8); teknikaren filosofia (3); zientziaren eta teknikaren (3)

teknikari buruzko (6); teknikari dagokionez (4); teknikari esker (7)

teknikaz baino areago (3); teknikaz baliatu (4)

orain arteko teknikekin (3)

tekniken artean (3); tekniken berri (3)

teknikalan iz teknikari dagokion lana.

Onartzen du, halere, teknika eta artea truka daitezkeela, batzuetan gauza bera **teknikalana** izan daitezkeelako, baina baita artelana ere. **Askoren artean**

teknikalari ik teknikari.

teknikari (988 agerraldi, 47 liburu eta 542 artikulutan; orobat **teknikalari 26 agerraldi, 2 liburu eta 28 artikulutan**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **teknikari agertzen da**) **1** iz teknika edo lanbide jakin bati buruzko ezaguera berezia duen pertsona.

1.100 biologo, informatiko eta **teknikari** ari dira lanean, [Giza genoma proiektuan] 16 laborategitan eta 6 estatutan. **Pello Salaburu**

Teknikariak pitzadura haren berri eman zioten Ebroko Ur Konfederazioari. **Eduarne Elizondo**

Teknikariak gaur desmuntatuko dute labea eztanda zergatik gertatu zen aztertzeko. **Berria - Ekonomia**

Teknikari edo kontularirako bokaziorik ez eta erabat abandonatu nuen sektore primarioan kokatzeko ene xede leiala. **Itxaro Borda**

Husteko lanetan 150 **teknikari** inguruk hartuko dute parte. **Berria - Gaiak**

Viruvio, batez ere, **teknikari** erromatar pragmatikoa zen, aski ongi ilustratua, baina espekulazioetan eta abstrakzio-lanetan hasteko batere zalea ez zena. **Santiago Iruretagoiena**

Teknikari laguntzaile edo antzeko lan batean luze aritu ez izana da giltza. **Berria - Ekonomia**

Nondik atera dira gure seme-alabak prestatzen dituzten eskoletako maixu-maistrak eta institutueta irakasleak?, nondik goi mailako **teknikariak**? **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Udaleko **teknikariak** bere iritzia jakin nahi zuen. **Jon Alonso**

Moldiztegi kontueterako **teknikari** "tipografo" on pare bat bazeukaagu. **Txillardeggi**

Al Irakia telebista publikoko **teknikari** eta gidari bat hil zituzten tiroz. **Berria - Mundua**

Seguru-etxeetako **teknikari** eta zuzendariek aspalditik ezagutzen duten efektua da. **Iñaki Heras**

Urtegi bederatz **teknikari** dira auzibidean, tartean Itoizko urtegiaren proiektu teknikoaren obretako zuzendari Raimundo Lafuente, eta Ebroko Ur Konfederazioko presidente ohi Jose Vicente Lacasa eta Tomas Angel Sancho. **Eduarne Elizondo**

Lizarrako Udaleko Emakumearen Alorreko **teknikari** eta Andreako kide Tere Saezek. **Berria - Euskal Herria**

-Laborantzarik bizitzekotan, bilaka zaitez **teknikari**! **Itxaro Borda**

Horra, Cortés **teknikari** bihurtua, sutautsa zeukalako! buruz. **Joxe Austin Arrieta**

Iñaki Elortza taldeko gitarrista aritu da **teknikari**. **Berria - Kultura**

12 abestik osatzen dute Txantreakoen lan berria eta Andoaingo Garate estudioetan grabatu dira; **teknikari** Haritz Harreguy izan dute. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Karlos Balseiro aritu zen **teknikari** lanetan. **Berria - Kultura**

Goi **teknikari** diploma lortu zuen. **Berria - Mundua**

Goi-goiko **teknikari** klase bako nola jartzten duen kasuan teknologia berbitzura, ideologion zer-nolakoaz axolatu gabe. Juan Garzia

Teknikari talde bat Gipuzkoa osoko azterketa egiten aritu da bigarren errauste planta non jarri erabakitzeko. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lau elektrizitate **teknikari** frantziar bahitu zituzten atzo gauean Gaza hegoaldeko Khan Junis hirian. Berria - Mundua

-Telebista **teknikari** horiek ezagutzen zenituen? Ramuntxo Etxeberri

Nafarroako EHNEko Abeltzaintza **teknikari** Jon Uitzik ere ondo ezagutzen du «monopoliorako joera». Berria - Harian

Saint-Exupéry hegazkin **teknikari** eta asmatzaileak han eta hemen ematen dituen azalpen teknikoak. Josu Zabaleta

Daniel Kientzy saxofonista frantziarrak eta Reina Portuondo soinu **teknikari** kubatarrak ganbera musikaren alderdi berri bat jorratzen dute. Berria - Kultura

Fernando Muniozgurenak, Eibarko euskara **teknikari** izandakoak, hizkuntza afektiboa efektiboa dela esan ohi du. Koldo Zuazo

Herri askotako kultur **teknikariak** oso larri ibiltzen dira, daukaten aurrekontua amaitu ezinik, zer antolatu ez dakitela. Pako Aristi

4 (kiroletan)

Jokalari, **teknikari**, zuzendaritza, bazkide eta zaleen arteko hartu emana ezinbestekoa da. Pozik dira Lagun Aro Bilbao Basketeko jokalaria, **teknikari** eta agintariak. Berria - Kirola

Athleticeko **teknikari** eta jokalaria ezin dira fidatu. Berria - Kirola

B Mailako **teknikari** laguntzailea. Berria - Kirola

Teknikari orokorra, berriz, Doucet izango da, Bouisseten orde. Berria - Kirola

Kantxetan jarraitzen du oraindik, baina **teknikari** lanetan jokoan baino gehiago. Berria - Kirola

Klubak indartzea, gazteak surfera gerturatzeko ikastaroak sustatzea eta surf **teknikari** espezializatuak trebatzea. Berria - Kirola

Gipuzkoako Arraun Federazioko **teknikari** Unai Elizasu arduratzen da eskola horietan klaseak emateaz. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

athleticeko teknikari (3); euskara teknikari (3); soinu teknikari (3); teknikari gisa (3); teknikari lanetan (6); teknikari talde (5); teknikari talde bat (3); teknikari taldeak (3); teknikari zuri gorriak (6)

euskara teknikaria (9); informatika teknikaria (3)

alaveseko teknikariak (3); aspeko teknikariak (5); euskara teknikariak (5); goi mailako teknikariak (3); gure teknikariak (3); ministerioko teknikariak (3); osalaneko teknikariak (4); saileko teknikariak (4); soinu teknikariak (3); tauko teknikariak (8)

teknikariak adi (3); teknikariak egin (5); teknikariak egin du (3); teknikariak grabatu (4); udaleko teknikariak (4); udaletxeko teknikariak (3)

teknikariaren konfiantza (3); teknikariaren laguntzarekin (3)

athleticeko teknikariak (4); frantziako teknikariak (3); jokalaria eta teknikariak (3); lezamako teknikariak (3); udaleko teknikariak (5)

teknikariaren iritziak (3); teknikariaren lana (4)

teknikeria iz teknika gaitzesgarria.

Soraio dira halakoak beren usterek sendoen zein emozioekiko: **teknikeriak** bilatzen dituzte (Miguel de Unamunoren da hitza), idazkiak beren begiko izateko eskubiderik duen ala ez jakiteko. Juan Garzia

tekniko 1 izond teknikarena, teknikari dagokiona; teknika-alderdiez ari dena. ik teknika 3.

Odola (bihotzetik irtetea) hodi handi batetik hodi txiki askotara igarotzeko arazo **tekniko** batzuk sortzen ditu. Irene Aldasoro

Ikerketa eta txosten zientifiko eta **teknikoak**. Iñaki Heras

Produktibitatea ez da aldagai **teknikoa** soilik, soziala ere bada. Iñaki Heras

Gizarte testuingurua, erakunde testuingurua, testuinguru **teknikoa**, testuinguru ideologikoa. Josu Zabaleta

Izan ere, argumentu ideologiko, politiko edo etikoz gainera, argumentu **teknikoa** argia eta garbia baita. Iñaki Heras

Autismoa barren-barreneraino ezagutzeko, baliteke [...] aurrerapenak behar izatea, bai **teknikoak** eta bai kontzeptuzkoak. Xabier Olarra

Ezaugarri **tekniko** horiek argitu ostean emango omen dituzte akordioaren edo akordiorik ezaren argibideak. Berria - Harian

Bada horretan alderdi **tekniko** bat (argi-dardara kentzea, behar ez den mozorrotzerik ez izatea), baina bada alderdi soziosinboliko bat ere. Josu Zabaleta

Potoa da, alderdi **teknikoen** artean, bai epaimahaiak eta bai entzuleak gehien "zigortzen" duten akatsa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Irudikapenezko arte guztiak, arte horietako bakoitzaren baldintza **tekniko** eta fisikoen arabera, errealitateaz eragiten zuten ilusio partzial batean oinarritu direla adierazi izan da. Josu Zabaleta

Hobe lukete politikariek diskurtso ideologiko edo politikoa zentratu [...] ustezko diskurtso **tekniko** edo zientifikoan zentratu orde. Iñaki Heras

Dorre-peoietako bat kenduz xake jokoak aberasteko posibilitateari buruzko artikulua **tekniko** bat. Juan Garzia

Hizkera **teknikoa** baliagarri gerta dakiguke bereizkuntza. Lourdes Oñederra

Laburtzaileak ohar bat erantsi du "kolapsoaren" esanahiaz, azterlan honetan erabiltzen den termino **tekniko** gisa. Iñaki Mendiguren

Jardunbide horrek nahiko hiztegi **tekniko** berezia erabiltzea eskatzen zuen. Askoren artean

Ikasketa **tekniko** luzeen (goi ingeniarietarako) batez besteko iraupena 7'5 urtekoa da, iraupen teorikoa bost urtekoa baldin bada ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrek, jakina, eskatzen du arkitektoak, esperientzia handia izateaz gainera, talentu argia eta trebetasun **tekniko** handia izatea. Santiago Iruretagoiena

Solasaldi inuxente eta itxuraz **tekniko** bati gatz eta piper pixka bat jartzeko. Karlos Zabala

Beste argudio ustez **tekniko** bat omen da ekimena, finantzazio aldetik behintzat, erabat bideragarria izatea. Iñaki Heras

Hegazkingintzako zentru **tekniko** bat. Herria

Fitxa **teknikoa**: [...]. Patxi Iturrategi

Fiji uharteetan eskala **teknikoa** agudo egin eta gero. Jose Angel Irigaray

Hobekuntza **tekniko** batzuk ere saiatu nituen, fotograbatua barne. Txillardegui

Herri Azpigaratuentzako Laguntza **Teknikoa**. Joxe Austin Arrieta

Begirale **tekniko** permanente bat. Herria

2 prozesu teknikoetan erabiltzen dena.

Beheko sotoan botiloi bat bentzeno **tekniko** aurkitu nuen, ehuneko 95 aratz. Juan Garzia

3 ingeniari eta kidekoen mintzatuz, erdiko mailakoa dena.

Eusko Jaurilaritzako **ingeniari tekniko** batek esan zigunez, «hondagarria» litzateke pista erreka gainetik luzatzea. Berria - Harian

Injineru **tekniko** izateko ikasketak egin bitartean, Genia Pingonen edo Arconadan egin omen zenuen lan. Rafa Egiguren

4 (izenondo elkartuetan)

Ekologia ikuspegitik egun indarrean dagoen ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu **tekniko**-soziala erabat okerrekoa da. Iñaki Heras

Musikariak beren zereginetara itzuli dira, mahaiko teknikariarekin eztabaidan, gitarraren hotsa zoliegia edo apalegi entzuten ote den, beren hizkera **tekniko**-kriptiko horretan.

Xabier Mendiguren Elizegi

• 5 iz teknikaria.

Itzulera, berriz, kamera eta gainerako **teknikoekin** batera eragingo omen nuen. Anjel Lertxundi
Urola-Kosta delakoa, probintziako edo nazionalitateko hiriburutik lurraldea kudeatzen duten **teknikoek** asmatua. Iñaki Segurola
Laborategiko **teknikoa**. Xabier Arregi
-Sentitzen dut, gizona -baieztatu dio **teknikoak** -, baina halaxe da. Patxi Iturritegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akats tekniko (3); alderdi tekniko (5); arazo tekniko (21); arrazoi tekniko (4); azterketa tekniko (4); baldintza tekniko (4); baliabide tekniko (8); batzorde tekniko (3); berrikuntza tekniko (4); bitarteko tekniko (3); datu tekniko (6); eskola tekniko (4)
ezagutza tekniko (3); gai tekniko (3); gela tekniko (3); hizkera tekniko (3)
idazkari tekniko (11); ingeniari-tza tekniko (4); irizpide tekniko (3); laguntza tekniko (4); maila tekniko (3)
tekniko gisa (4); termino tekniko (5); txosten tekniko (3); zuzendari tekniko (9); zuzendari tekniko berria (3)
akats tekniko (3); alde tekniko (3); alderdi tekniko (6); arazo tekniko (3); arlo tekniko (4); aspeku zuzendari tekniko (4); aurrerapen tekniko (4); azterketa tekniko (8); berdinketa tekniko (7)
falta tekniko (8); falta tekniko adierazi (5); fitxa tekniko (3); gaitasun tekniko (3); hizkera tekniko (5)
idazkari tekniko (7); idazkaritza tekniko (3); informazio tekniko (3); laguntza tekniko (22); lan tekniko (3); lanuzte tekniko (4); maila tekniko (4)
oso tekniko (3); proposamen tekniko (3); talde tekniko (4); txosten tekniko (4)
zuzendari tekniko (14)
abeaceko idazkari tekniko (3); alaveseko tekniko (3); arau tekniko (3); arazo tekniko (20); arrazoi tekniko (3); aurrerapen tekniko (3); azterketa tekniko (3); baldintza tekniko (4); baliabide tekniko (7); batzorde tekniko (7); datu tekniko (3)
hitz tekniko (6); hizkera tekniko (3)
idazkari tekniko (14); ikasketak tekniko (3); irizpide tekniko (3); komite tekniko (3); laguntza tekniko (4)
talde tekniko (4); tauko tekniko (6); termino tekniko (3); txosten tekniko (8)
xehetasun tekniko (4); zailtasun tekniko (7); zuzendari tekniko (14)
batzorde tekniko (4); maila tekniko (3); modu tekniko (3); zentzu tekniko (3)
proiektu teknikoaren obretako (3); tauko teknikoaren ustez (3)
alde teknikoari (3)
alde teknikoaz (3)
ur konfederazioko tekniko (3); zerbitzu tekniko (5)
arazo tekniko (6); arduradun tekniko (4); azterketa tekniko (3); baliabide tekniko (4); zerbitzu tekniko (3)
arrazoi teknikoengatik (4)
batzorde tekniko (4); eskola tekniko zuzendaria (3); ingeniari-tza tekniko (8); zuzendaritza tekniko (3)

teknikodun *izlag* tekniko.

Ardouinek «dohain **teknikodun**» eta «irteeretan arriskatzea gustatzen zaion» atezaintzat jo zuen bere burua. Berria - Kirola

teknikokeria *iz* teknikaren hizkuntzari dagokion hitza, gaitzezgarritzat hartua.

Abokatuaren argudio berak entzun behar izan ditut. **teknikokeriak** eta biraoak gorabehera, nire ziegakide ohien ahotik. Koldo Izagirre

teknikoki *adlag* era teknikoan; alderdi teknikotik.

Guk *larruzal* esaten diogun hori kanpoko geruza besterik ez da, **teknikoki** *epidermis* deritzona. Irene Aldasoro
Lente simple baten lehenengo akatsa irudiaren distortsio bat da, **teknikoki** aberrazio esferikoa esaten zaiona. Irene Aldasoro
Ehunduren erretina gainerako proiektzioak irudi-ehunduraren aldakuntza progresibo bat erakusten du: **teknikoki** gradiente deitu ohi zaiona, hain zuzen. Josu Zabaleta
Teknikoki, egokiago da palatalizazioaz hitz egitea. Lourdes Oñederra
Teknikoki zuzen eta egoki egituratu zen euskara batua. Koldo Zuazo
Nik ez nuen gozatu, **teknikoki** esan nahi dut, baina bai beste modu batean, ez dut hitzik nire zoria deskribatzeko. Karlos Zabala
Beharrezkoa da esatea "zientifikoki edo **teknikoki** egokiena" edo "**teknikoki** bidezkoena den erabakia" eta antzeko leloen bizkarrean, sarritan bestelako jarrera eta arazoibideak ezkututzen direla. Iñaki Heras
Teknikoki edo ekonomikoki posible dena batzuetan ez dela sozialki edo politikoki posible ez desiragarria ere. Iñaki Heras
Teknikoki bizi gara, ordea, gizakia delarik Naturaren bezatzaile, gizakia delarik ingeniari. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

teknikoki ezinezkoa (3); teknikoki ona (4); teknikoki posible (7)

teknikolor (*orobat technicolor*) *iz* zinematografian erabiliriko teknika, pantailan gauzen kolorea erreproduzitzea ahalbidetzen duena.

Sasoi ilunak ziren baina jada **technicolorean** ikusten genituen junglak, itsasoak eta arizonak. Joseba Sarrionandia
Kota-uztaian zut, bekokia urdin eta luma-muturrak gorri; huraxe bai ikur biribila, alajaina, **teknikolorezko** estatubatuar filmen aurkezpen-fotogrametarako. Jon Muñoz
Ez zen amerikanoen **teknikolorezko** play-boy horietakoa, galai ederra baizik, gaur egun ere halakotzat joko genuke. Karlos Zabala

teknikotasun *iz* tekniko izateko nolakotasuna.

Auziaren alderdi teknikoari begira, hara non azaltzen den, **teknikotasuna** ustezko algodoiaren frogatza, edozein ideologia edo politika ikuspegitatik izatea neurriaren aldeko defentsa: "nahiz eta oinarritzko errentaren aldeko gehienak ezkerreko jendea izan, bada eskuineko jendea ere horren alde". Iñaki Heras

tekniziano *iz ipar* teknikalaria.

Beha egon behar, dutxen aitzinean, sukaldean aitzinean beha egon behar zorri ihiztari **teknizianoen** aitzinean, atorra eskuan, zure aldia jin-eta, delako atorra mia dezaten, bai eta zure larrua ere -eta hori astean behin edo bietan-. Marzel Etxehandi

teknizismo 1 *iz* teknikaren hizkuntzari dagokion hitza. ik **teknikokeria**.

Era atsegin batean idatziz gero, hau da, **teknizismorik** gabe, irakurlearentzat inolako oztoporik ez duten lanak idatz daitezke. Berria - Kultura

Teknizismoaren eta aurrerapenaren kontrako utopiaren ordez, kontsumo ekologikoaren utopia da nagusi. **Iñaki Heras**

Aldizkarian erabiltzen ziren gezurretako **teknizismo** berak erabiliz antolatu zuen artikulu absurdu bat, gainetik behera ez hankarik ez bururik ez zuena. **Pello Salaburu**

2 teknikotasuna.

Rufinoren-eta dohaia ez zan **teknizismoa**, joten ebenari brabotasuna ezartea baino. **Xabier Amuriza**

teknizista *izond* teknikotasunera joera duena.

Ocharpen hori gututz garrantzizkoa da, eta egin zen garaian nahitaezkoa zen, gainera, bazirelako tresneria teknikoari, zertarako erabiltzen zen axola ez ziola, ezein balio ideologiko ukatzen zioten tesi **teknizistak**. **Josu Zabaleta**

tekno (*orobat techno eta tecno*) 1 *iz* pop musika elektronikoa.

Popa eta **teknoa** uztartzzen ditu, eta Aizpururen ustetan, «David Bowie eta Roxy Music iradokitzen ditu». **Berria - Kultura**

Berriro **teknoa**, berriro dance musika, folklorea... **Edorta Jimenez**

-Eni ere gustatzen zaizkit eni ere **teknoreen** zaparrada sintetikoak! **Itxaro Borda**

Askotariko **technoz** eta perkusioz osatutako zortzi abesti jaso ditu musikari mutrikuarrak lan berrian: **techno** tribala, **techno** etnikoa, **techno** latinoa eta **techno** *trancea*. **Berria - Kultura**

2 (izenondo gisa)

Bitxia baita Gasteizko Ogetan Gallastegi txapeldun handia alboan hartuta bozgorailuetatik musika **tekno** ingeles doinukoa entzutea. **Berria - Kirola**

Asper-asper eginda nengoan Londresekin eta bertako mugida **teknoreekin**; titietaraino, garbi esateko. **Patxi Iturritegi**

Always on my Mind bertsio **technoan**? **Iñaki Iñurrieta**

3 (izen baten ezkerrean)

Tekno klubetara joaten ginen frankotan. **Itxaro Borda**

Exhibicionist-ek **tekno** musika aurreratuaren erakusgarri izan nahi du. **Berria - Kultura**

Menhir night clubean, Maiek azaldu zidanez, jungle **tekno** musika zerabilaten platinetan. **Itxaro Borda**

Vivaldiren *Gloria*, ondoren **tekno** eta dance musika, antzerkia, poema irakurketa, [...]. **Edorta Jimenez**

Emanaldia hasiko da 9 etan eta ikusgarritik landa besta komiteak **tekno** gaualdia antolatzen du. **Herria**

Gaur egun, esan liteke Interneten inguruko munduak duela **tekno** -liluraren eskusiba. **Joxerra Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tekno musika (3)

tekno-

Dena batera hartuz gero, baldintza **tekno** -psiko-sozial-ekonomikoek eraturik, zientzia egiten duen existentzia faktiko, historiko eta mintzoduna garena esan genezake

Askoren artean

teknofilo *izond* teknikaren aldekoa den pertsona.

Teknofilo eta teknofoboaren arteko eztabaida gizarte mugimenduen baitara zabaldu da. **Txema Ramirez de la Piscina**

teknofobia *iz* teknikaren kontrako jarrera.

«Sakelako telefonorik ez dut izango», esaten zuen, atzo arte, Madalenek, **teknofobiaren** azken mohikanoak. **Berria - Gaiak**

teknofobo *izond* pertsoez mintzatuz teknikaren kontrakoa dena.

Teknofilo eta **teknofoboan** arteko eztabaida gizarte mugimenduen baitara zabaldu da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Teknofobo sutsuenak ere ohartu dira teknologiaren beharraz. **Txema Ramirez de la Piscina**

teknoglobal *izond* teknologia bazter guztietara hedatu dena.

Mundu **teknoglobal** honetan, ontologia berri honen aurrean, oikosaren bi zientziak elkartu behar ditugu: alde batetik, ekologia, oikosaren etxe global honen lógosa edo jakitea, eta beste aldetik, ekonomia, oikonomía, oikosaren nómosa, oikosaren nómosaren zientzia, oikosa kudeatzeko araua edota legea. **Askoren artean**

Mundu berri honetan, etxe edo bizileku **teknoglobal** honetan bizitzeko, izakien egonleku berri eta aldakor honetan, gure habitata bilatu behar dugu. **Askoren artean**

teknoglobalitario *izond* adkor

Ordena **teknoglobalitarioaren** inperiorik gabeko inperialismoa arakutzen du. **Askoren artean**

teknogune *iz* teknologia-gunea.

Helduden astean,ortzegunean Bidarteko **teknogunean**, eta ortzirealean Donostiako Miramar jauregian, muntatzen dituzte proiektika jardunaldiak, Topik izeneko ikerketa saila aurkeztuz. **Herria**

A. ingineru eskolaren inguruan bilduak dira 30 bat enpresa ttipi eta ez hain ttipi, 450 lan postu sortu direlarik hoieri esker Bidarteko Izarbel **Teknogunean**. **Herria**

Bidarten, Izarbel **teknogunea** handitzen ari da eta azkartzen. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bidarteko teknogunean (3); **izarbel teknogunean** (3)

teknokrata *(orobat teknokrato g.er.)* 1 iz gobernuko teknikari goi karguduna, arazoan alderdi teknikoari, gizartearekiko ondorioen kaltean, lehentasuna emateko joera duena.

Hamasek iragarri zuen ez dituela Atzerri eta Segurtasun ministerioak **teknokraten** esku utziko. Berria - Mundua

Anartean, Pariseko gure **teknokratek** Iparraldeko euskaldunei "herri" izena eskaini ziguten, Pays Basque formula arraroa asmatuz. Piarres Xarriton

Bi mutur horien arteko aurkaritza dialektikoaren emaitza da gaurko errealitatea, nahiz eta **teknokratek** menperatzen duten egoera. Iñaki Heras

Idazleek erretorika bereziak erabiltzen dituzte, politikoei, juristek, **teknokratek** erabiltzen dituztenetarik ezberdinak direnak. Ana Urkiza

Europako jendetze bakoitxari bere tokia plantan segurtatuz eta giderrak sobera utzi gabe **"teknokrato"** delako horien esku. Herria

Hala entzuten nion behin, mahainguru batean, literatur itzulpenak menosten dituen baina euskara itzulpen tekniko eta burokratikoaren pean itozteko senperrak eta bi egiten ari den hizkuntzaren **teknokrata** bati: [...]. Anjel Lertxundi

Ahmed Nazif **teknokrata** lehen ministro izendatu zuen atzo Egiptoko presidente Hosni Mubaraketik. Berria - Mundua

2 (izenondo gisa) teknokratena. ik teknokratiko.

Europako eredu **teknokrata** bultzatzen du; herritarra erabakigune politiko eta ekonomikotik at uzten du Badirudi EAJk berriro berreskuratu nahi duela alderdi **teknokrata** eta hotzaren irudia. Berria - Euskal Herria

Platon bai putakume galanta, hura da faxismo **teknokrataren** erantzulea, kabroi alaena, zigor handia merezi du. Karlos Zabala

teknokratiko *izond* teknokraziarena edo teknokratena, teknokraziari dagokiona.

Are gehiago, Estatu aurreratu eta **teknokratikoan** errepresio itsuak euskaldun den guztia kateztatzen duela deiadar egiten dugu. Itxaro Borda

Aldi oroz, ezer ez zeukanaren haserrea hazi aurretik, hitzaren modernitate **teknokratiko** globalaren usainak hunkitzen ninduen. Itxaro Borda

Europako Merkatu Batuan sartzeko erabili nahi zuten norabide **teknokratikoari** eta teknika neokapitalistei ere eskaini diezu tarte bat. Rafa Egiguren

teknokrato ik teknokrata.

teknokrazia 1 *iz* aginpidearen alderdirik garrantzikoena goi teknikarien eskuetan dagoen politika sistema.

Kooperatibek aurrera jarraitzen dute beren gabezia eta arazo zerrenda luzearekin: langileriaren dualizazioa, edo hitz zakarragotan, klase-banaketa (bazkideak direnak eta ez direnak); soldata desberdintasunen areagotzea; **teknokrazia**; [...]. Iñaki Heras

Bere kabutarako pentsatu zuen arren horrenbesteko **teknokrazia** eta politikoki zuzen izan beharrekin gauzak guztiz bere onetik atera zituztela. Karlos Linazasoro

2 irud/hed

Medioek, kritiko akademikoek, unibertsitateak, irakaskuntzak, egitura politiko-kulturalek, kultur munduko **teknokraziak** ... Ana Urkiza

teknokurrinka *iz adkor*

Begira petrolio garestiari eta, nola ez, **teknokurrinkek** hasi eta beste guztiek jarraitutako plov edo galera egun bat ziurtatua dago. Berria - Ekonomia

teknolekto *iz* espezialitate hizkuntza.

Baina horren ordez erabaki dut erabiltzea gurean dabilen **teknolekto** xeble bat, euskararen berezko izaera pospositibo prepositibo bihurtu nahi duen ideolektoa. Berria - Kultura

teknologia *(orobat teknologia g.er.)* 1 *iz* tekniken, lanabesen eta makinaren ikerketa; zientzien aplikazioa industrian; aplikatze hori zuzentzen duten metodoak eta jarduerak. ik **teknika** 6.

"Zientzia, **Teknologia**, Gizartea" esparruan aditua da. Askoren artean

Zientzia eta **teknologia** sozialki eratutako errealitateak dira. Askoren artean

Zientziak eta **teknologiak** gizartearekin duten harremana aztertzeke metodologia. Askoren artean

Horretan ere, **teknologiak** izadia imitatzen duela ikusten da. Irene Aldasoro

Hala eta guztiz ere, zientzia eta **teknologia** ez dira gauza bera; desberdinak dira bakoitzaren interesak, bakoitzaren funtzionamendu-arauak. Juan Garzia

Medikuntza **teknologia** bat izango da, baina ingeniariak enplegatzen dituzten beste **teknologia** edo industrien antzik ez du. Irene Aldasoro

Hitza ere **teknologia** bat da, seguruenik sua bezain garrantzitsua gizateriaren iraupenerako. Joxerra Garzia

Politikan zatiturik eta **teknologian** atzeraturik, herri germanofonoen lorpen artistikoak eta intelektualak. Askoren artean

Hori bai izan zela **teknologiak** eragindako bizimodu aldaketa. Iñaki Heras

Giza gorputzaren **teknologiari** buruzkoa da liburu hau. Irene Aldasoro

Inprentaren **teknologiak** liburu du ikur nagusi, eta euskarazko lehen liburuan argi eta garbi ageri da bere garaiko teknologia harengandik zer espero zuen Beñat Etxeparek. Joxerra Garzia

Uraren **Teknologiak** saileko burua. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Teknologia handiko industrien babesa zilegi bihurtzen duen argudio garrantzitsu bat da, izan ere, berrikuntzaren kostua aski handia izan daitekeela. Koro Navarro

Teknologia berriek aukera berriak eskaintzen dituzte. Txema Ramirez de la Piscina

Teknologia aurreraturik gabe ere berdin-berdina izaten da berriaren aurreko ustekabea. Xabier Mendiguren Elizegi

Zientziak bere aurrerabiderako baliatzen dituen ereduak garaian garaiko **teknologia** modernoan oinarritu ohi dira. Irene Aldasoro

Teknologia oso zaharkituak erabiltzen ditu, ordea, oso kutsatzaileak eta baliabide fisiko ugari agortzen dituenak. Iñaki Heras

Teknologia garbiagoak garatzen direlako. Iñaki Heras

Teknologia hutsak ez du ezertarako balio. Berria - Harian

Teknologia mekanizatuak bazter utzia zuen orain gizarte- eta ekonomi testuinguru hura, non famili ugalkortasunaren gurtzak zentzu ekonomiko eta soziala izan baitzuen. Iñaki Mendiguren

Teknologia digitala mundu harmonikoagoa lortzeko bide dugu, mundu hori sortaraz dezakeen indar naturala baita. Txema Ramirez de la Piscina

Gaurko **teknologia** silizioan oinarritzen da. Pello Salaburu

Dokumentu historikoak egungo **teknologiekin** tartekatzen dira, eta ordenagailuak baliatuz erakundearen artxiboetara jo dezake bisitariak. Berria - Kultura

Oliba olioaren erraz ekoinzen da, ingeniariak genetikoak haratago, puntako **teknologiaren** premiarik gabe. Edorta Agirre

Nazkatuta zegoen punta-puntako **teknologiaren** emaitza hotz eta monotonoaz. Patxi Iturrategi

Gaur egungo **teknologia** berriek irakurketa pluralak bideratzeko eta sustatzeko aukerak eskaintzen dituzte. **Ana Urkiza**
Azken orduko **teknologia** izango dugu eskura. **Javi Cillero**
Valentziako Unibertsitate Politeknikoko **Teknologia** Nanofotonikorako Zentroan ADSLa baino mila aldiz azkarragoa den Interneterako konexio bat diseinatu dute. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat**teknologi**) ik **teknologiko**.

Teknologia -maila altuko sektoreetan. **Koro Navarro**
Argi utzi behar da hori: finantza globalizazioa ez dela hutsetik sortu; areago, ez dutela **teknologia** aurrerapenek sortu, erabaki politikoaren ondorio izan dela. **Iñaki Heras**
Herren dago gure zientzia eta **teknologia** garapenerako sistema. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Gehien aipatzen diren **teknologia** -aldaketa iraultzailearen adibide dira lurri makinak eta argindarrak sortutakoa, aldaketa erabatekoak horiek ere. **Iñaki Heras**
Munduan egin diren gerra guztietako luzeena, setatienea, hildako gehien eragin zituen eta **teknologi** berrikuntzetan emankorrena. **Iñaki Mendiguren**
Estatuak nazioarteko zuzeneko inbertsioentzat egokia izango den giroa sortzen ahalagintzen dira, aldi berean **teknologia** transferentziak gehitzen saiatuz. **Koro Navarro**
Informazio teknologien gizartearen buru belarri murgildurik gaude, eta gizakiaren historian zehar gertatu den **teknologia** iraultza sakonena bizi omen dugu. **Iñaki Heras**
Unibertsitateek txertatuta egon beharko lukete Euskal Zientzia eta **Teknologia** Sisteman. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
1965. urtean, ARPak Berkeleyko eta Massachussetseko **Teknologia** Institutua konektatzea lortu zituen, telefono hariak baliatuta. **Berria - Gaiak**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gorputzaren mekanismo gehienaren konplexutasun handiak ia gainditu ezinako arazoak sortzen ditu, giza **teknologiaren** baliabide guztiak erabilita ere. **Irene Aldasoro**
Aldatak sare bat osatua du mintegiko bereko eta inguruko dotzena bat enprekin, komunikazio **teknologiak** menperatzeko. **Herria**
Ematen zuen industri **teknologiak** ezarritako arauketak enpresa pribatuaren industriaurreko espirituari bizia kenduko ziola; eta aukera honek beste arazo bat sortzen zuen. **Iñaki Mendiguren**
Zientzia eta teknologia sozialki eratutako errealitateak direla erakutsi ostean, zuzenezuzenean zientzia-**teknologiaren** erregulazioaren (kontrol publikoaren) arazoari helduko diogu. **Askoren artean**
Ingurumen **teknologiak** garapen bidean dauden herrialdeen eskura jarri behar dira. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berrikuntza eta teknologia (4)
egungo teknologia (4); **georgiako teknologia institutuko** (3); **goi mailako teknologia** (4); **horretarako teknologia** (3)
ikerketa eta teknologia (5); **industria eta teknologia** (3); **informazio teknologia** (4); **internet eta teknologia** (3); **kaliforniako teknologia institutuko** (4); **komunikapen teknologia** (4); **komunikazio teknologia** (3); **komunikazioaren teknologia** (4); **massachussetseko teknologia institutuko** (3); **nazioarteko teknologia nuklearra** (3)
punta puntako teknologia (5); **puntako teknologia** (16)
teknologia aldaketa (3); **teknologia alorrean** (4); **teknologia baliatuz** (3); **teknologia berri** (30); **teknologia berri bat** (4); **teknologia berria** (5); **teknologia berriak** (125); **teknologia berriak baliatuta** (3); **teknologia berriak erabili** (5); **teknologia berriak erabiliz** (3); **teknologia berriak erabiltzen** (6); **teknologia berriei** (17); **teknologia berriei esker** (7); **teknologia berriek** (56); **teknologia berriekin** (15); **teknologia berrien** (98); **teknologia berrien bidez** (4); **teknologia berrien erabilera** (4); **teknologia berrien eraginez** (4); **teknologia berrien garapena** (3); **teknologia berrien menpekotasunik** (4); **teknologia berrietako** (4); **teknologia berrietan** (18); **teknologia berrietara** (6); **teknologia berrietarako** (3); **teknologia berriez** (5); **teknologia berrikuntzak** (4); **teknologia digitala** (3)
teknologia enpresa (3); **teknologia erabili** (5); **teknologia erabiltzen** (5); **teknologia eta berrikuntzaren** (3); **teknologia eta gizartea** (9); **teknologia eta gizartearen** (3); **teknologia fakultatean** (3); **teknologia fakultateko** (13); **teknologia garapena** (3); **teknologia handiko** (4)
teknologia ikerketarako (3); **teknologia institutuko** (17); **teknologia iraultza** (8); **teknologia maila** (5); **teknologia modernoak** (3); **teknologia modernoaren** (3); **teknologia mota** (4); **teknologia nuklearra** (22); **teknologia nuklearra garatzeko** (3)
teknologia zaharkitua (4)
zientzia eta teknologia (50)
azken teknologiak (3); **informazioaren teknologiak** (3); **komunikazio teknologiak** (6); **puntako teknologiak** (3); **zientziak eta teknologiak** (12)
zientzian eta teknologian (3)
mendebaldeko teknologiaren (4); **puntako teknologiaren** (3); **teknologiaren alorrean** (3); **teknologiaren bidez** (3); **teknologiaren garapen** (3); **teknologiaren garapena** (8); **teknologiaren garapenaren** (3); **teknologiaren ikerketa** (3); **teknologiaren irudi** (3); **teknologiaren izaera** (3); **teknologiaren konstituzio** (4); **zientzia eta teknologiaren** (21); **zientzia teknologiaren** (3); **zientziaren eta teknologiaren** (33)
zientzia eta teknologiari (3); **zientziari eta teknologiari** (5)
puntako teknologiarik (3)
teknologiei buruzko (3)
informazio teknologien (10); **komunikazio teknologien** (3); **teknologien inguruan** (3)
informazioaren teknologietan (3)

teknologiadun *izlag* teknologiako.

Punta-puntako **teknologiadun** gailuak ditu zundak. **Berria - Gaiak**

teknologiko 1 *izond* teknologiarena, teknologiari dagokiona. ik **teknologia 3**.

Egia da jakintza beste gune batzuetan "sor" daitekeela: laborategi pribatu batean, adibidez, edo gune **teknologiko** batean. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Gaiker zentroak suaren laborategi berria ipini du Zamudioko eremu **teknologikoko** egoitzan. **Berria - Gaiak**
Garbi daukat Leioako campusa Parke **Teknologikoan** balitz, metroa bertaraino iritsiko litzatekeela. **Joxerra Garzia**
Caltech-en, Kaliforniako Institutu **Teknologikoan**. **Fernando Morillo**
Gailu **teknologiko** zehatzen eraketa-prozesuan parte hartuko luketen aktore sozialen interes eta harremanetatik abiatuta, [...]. **Askoren artean**
Egun hauetan 35 urte beteko dira gaur egun Internet esaten diogunaren oinarri **teknologikoak** ezartzen hasi zenetik. **Berria - Gaiak**
Txinak industria **teknologiko** handia du, oso prezio merkean. **Berria - Mundua**
Horregatik guztiagatik, langabezia **teknologikoaren** auzian zentratzea zentzugabea da. **Iñaki Heras**
Asmakuntza **teknologikoak** jendearen alde ez erabiltzeko askatasuna. **Iñaki Heras**
Giza izaeraren erreakzio garaikideek nabarmen uzten zuten, giza mailan, mugapen praktikoa egon zitezkeela gaitasun **teknologikoaren** termino abstraktuetan ia mugagabea izan zitekeen produktibitatearentzat. **Iñaki Mendiguren**
Eduki **teknologiko** eta produktibitate handiko sektoreetara. **Koro Navarro**
Informazio-gizarteko aurrerapen **teknologikoek** abantaila handiak ekarriko diruzte. **Joxerra Garzia**
Determinismo **teknologikoaren** ikuspegiaren arabera, garapen **teknologiko** gizartearekiko autonomo da, nahiz eta garapen horrek era berean gizarte-aldaketak eragiten dituen. **Askoren artean**
Determinismo **teknologikoaren** eztabaidan sartu gabe, ezin uka egungo berrikuntza **teknologiko** ondorioak agerikoak izan direla maila ekonomiko orokorrean ez ezik, baita enpresa munduan ere. **Iñaki Heras**
Gizarte **teknologikoko** familia ereduaren indar fisikoa ez da beharrezkoa. **Luis Elberdin**
Izan zitekeen egia Terrence-k xarmarik ez edukitzea, baina super-heroi **teknologiko** bat zen. **Oskar Arana**
Handik hona, ikusia naiz egunkariko tailerrak jendez husten eta sarraski **teknologikotik** salbatutako langile urrien lohihartzeko tintaz zikinduak txabusina zuriek ordezkaten. **Aingeru Epaltza**
Gaur egun bizi dugun zorabio **teknologiko** honen mugak antzematen. **Txema Ramirez de la Piscina**

2 (izenondo elkartuetan)

Behatoki ekonomiko- **teknologikoak** sustatu. **Berria - Ekonomia**

Gizartea onartzeko prest dagoen aurrerakuntza zientifiko- **teknologikoaren** neurria ezartzen du erregulazioak. **Askoren artean**

Arrisku zientifiko- **teknologikoaren** fenomenoari eta, modu orokorragoan, zientzia-teknologia-gizartea-izadia harremani buruzko zenbait lanen egilea da. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaketa teknologiko (4); **aurrerapen teknologiko** (4); **baliabide teknologiko** (4); **parke teknologiko** (3)

aurrerapen teknologiko (4); **burbuila teknologiko** (4); **gaiker zentro teknologiko** (3); **garapen teknologiko** (9); **maila teknologiko** (6); **zentro teknologiko** (5)

aurrerapen teknologikoak (6); **baliabide teknologikoak** (4); **berrikuntza teknologikoak** (5); **iraultza teknologiko** (3); **parke teknologikoak** (5); **zentro teknologikoak** (9)

miramongo parke teknologikoan (5); **parke teknologikoan** (11); **zentro teknologikoan** (3)

aurrerapen teknologikoaren (3); **berrikuntza teknologikoaren** (4); **determinismo teknologikoaren** (5); **eta garapen teknologikoaren** (3); **garapen teknologikoaren** (6); **langabezia teknologikoaren** (4); **zientifiko teknologikoaren** (4)

aldaketa teknologikoek (3); **aurrerapen teknologikoek** (6); **berrikuntza teknologikoek** (3)

parke teknologikoan (6)

zentro teknologikoko (3)

teknologikoki *adlag* teknologiaren aldetik.

AEBak **teknologikoki** herririk aurreratuen eta paradoxikoki esoterismoak eta funtsik gabeko kultuek ere berton dute harrerarik beroena. **Txema Ramirez de la Piscina**

Askotariko ekonomia du [Quebec], sendoa eta **teknologikoki** aurreratua. **Berria - Harian**

Teknologikoki ondo prestatuta daude enpresok, inbertsio iraunkorra egin dute. **Berria - Ekonomia**

Teknologikoki mendebaldarturiko japoniar gobernu mantendu zen Estatu Shinto baten antolaketa ofizialerako. **Iñaki Mendiguren**

Oraingoz, ez dago zaborra biltzea **teknologikoki** eta ekonomikoki bideragarria egingo duen metodorik. **Berria - Gaiak**

Estetikoki eta **teknologikoki** aitzindari dira egitasmoak. **Berria - Gaiak**

Gobernu batek errauste planta bat eraikitzen duenean mundu osoari erakusten dio ez dela aski jakintsua, politikoki edo **teknologikoki**, hondakinen tratamendu egokia egiteko. **Berria - Euskal Herria**

teknologismo *iz* teknizismoa.

Hala ere, joskera ezinago astuneko bi gutun **teknologismoz** josi haiek berrirakurriz, ez nuen lortzen duda bat isilarazten. **Juan Garzia**

teknologizatu, teknologiza, teknologizatzen du *ad* elementu teknologikoz hornitu.

Sasoi batean, aurrerapenekin bat egon nahian edo, eskenatokia **teknologizatu** egin zen, gizatasun sotilaren arrastorik ia batere utzi gabe. **Berria - Kultura**

teknologo 1 *iz* teknologian aditua den pertsona.

Ingeniaritza biomedikoaren iraultza izan daiteke hurrengo aurrera-pausoa, eta bera da mundu modernoan zientzialariek eta **teknologoek** dituzten aukera guztietan interesgarriena eta kitzikagarriena. **Irene Aldasoro**

Ingeniaritza kimikoaren eta fluidoaren mekanikaren aldetik giltzurrunak erakusten duen maisutasuna inbidigarria da **teknologoarentzat**, baina imitaezina. **Irene Aldasoro**

Gaur egun Europako ikertzaile eta **teknologo** gazteen %4k Estatu Batuetako laborategietan egiten dute lan. **Berria - Gaiak**

2 *hed*

Izan ere, CAF da, konpainiako iturrien arabera, proiektuko **teknologo** nagusia. **Berria - Ekonomia**

teknolojia ik teknologia.

teknopol ik teknopolo.

teknopolio ik teknopolo.

teknopolis *iz* *adkor* gune teknologikoa.

Areagotzen ari den joera da hau, beraz, eta hainbat herritan sortu diren **teknopolis** "edo "zientziaren hiriak" dira areagotze horren erakusgarri argienak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Funtsean, **teknopolis** horien ideia oso sinplea da: eskualde baten garapena bultzatu nahi izan denean, zientziaren eta goi mailako teknologiaren sustapenaren bidea hartu da. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Teknologia eta ezaguera aurreratuaren erabilera sustatzen da **teknopolisetan**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

teknopolo (*orobat teknopol eta teknopolio*) *iz* polo teknologikoa.

Hartzen ari duen hedadura ikusiz, Bidarteko **teknopoloaren** barnean bigarren bastiza baten eraikitzen hasia da Euskal Herriko merkatal Ganbara. **Herria**

Formakuntza hori ESTIA-ko Injineruntza eskolan emana da, Bidarteko **Izarbel teknopolan** kokatzen dena. **Herria**

Industria eta ikerkuntza ministroa Bidarten Izarbel deitzen den **teknopolioan**, elkarrizketan ari zela Iparraldeko industriako nagusiekin. **Herria**

teknozioekonomiko *izond*

Globalizazioaren garaian, hiru prozesu **teknozioekonomikok** aldatu digute gure ohiko ontologia fisikoa. **Askoren artean**

teknotxerritza *iz adkor*

Batetik, Espainiako selekzioaren zale litzumerkeak; bestetik, txerri ehiztari artaburuak Irakeko azkenagatik; eta, azkenik, **teknotxerritza** zaleak, Yahoo, Google eta enparauak blokatuta ikusteagatik. [Berria - Ekonomia](#)

Teknotxerritza garaia amaitu zen eta eraikuntzaren urrezko garaia bizi dugu. [Berria - Ekonomia](#)

Teknotxerritza burbuila lehertu, bizpahiru urtez doikuntza latzak aurrera atera eta, itxura batean, telekomunikabide enpresak gizentzen ari dira berriro ere. [Berria - Ekonomia](#)

Teknotxerritza Zeltia (%2,65) nabarmendu zen eta, galeretan, %2na pasa galdu zuten Gamesak eta Arcelorrek. [Berria - Ekonomia](#)

Japoniako Livedoor **teknotxerritza** %6 galarazi dio jada Tokioko indizeari bi egunetan. [Berria - Ekonomia](#)

teknozientifiko *izond* teknikari eta zientziari dagokiona.

Hortaz, eboluzionismoa [...] batik bat, baikortasunaren garaietan nagusitu da, hots, aurrerapen **teknozientifiko** eta ideien hedapenaren garaietan. [Askoren artean](#)

Kultura **teknozientifiko**. [Askoren artean](#)

DAT (Demokrazia eta Alfabetatze **Teknozentifiko**) taldeko kidea da. [Askoren artean](#)

teknozientzia *iz* zientziaren eta teknologiaren batzea.

Zer da teknika gaur? ez dira zientzia eta teknika, teoria eta praktika elkartu **teknozientzia** berri batean? [Askoren artean](#)

Eta zein da teknikaren eta **teknozientziaren** balio epistemologikoa? [Askoren artean](#)

Ez dago edertasunik **teknozientzian**, ez dago jakite teknikorik arteetan? [Askoren artean](#)

tekoar *izlag/iz* Biblian, Tekoakoa, Tekoari dagokiona; Tekoako biztanlea.

Emakume **tekoarra** lurreraino makurtu zen erregeari mintzatzeko, eta esan zion: [...]. [Elizen arteko biblia](#)

Gero, **tekoarrak** zetozen; baina hauen arteko handikiek ez zuten lan-arduradunen esanetara jarri nahi izan. [Elizen arteko biblia](#)

tekonika 1 *iz* geologiaren adarra, lurrazalaren deformazioak eragiten dituen egitura geologikoak aztertzen dituen.

Ilargiaren geologia: satelitea nola eratu zen, sumendiak, **tekonika** eta osaketa kimikoa. [Berria - Gaiak](#)

Plaken **tekonikaren** teoriaren arabera lur horiek elkarturik egon zitezkeen antzinako garai batean. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

2 (hitz elkartuetan)

Jaume Almera Institutuko Geofisika eta **Tektonika** arloko ikertzaile Josep Gallartek. [Berria - Harian](#)

tekoniko *izond* lurrazalaren deformazioak eragiten dituen gertakariei dagokiena.

Indar **tekoniko** izugarriek sortutako lurralde geologiko eta historiko baztergabe bihurtu zitzaizkidan. [Xabier Olarra](#)

Argiki ihardetsiko dizut, noizbait Kabilia eta Euskal Herri hau bat zirela, plaka **tekonikoak** hautsi eta elkarretarik bereizi aurretik hain zuzen. [Itxaro Borda](#)

teku ik tejo.

tel-tel-tel *adlag* etengabeko hizketaldiaren onomatopeia.

Kanporatu nintzelarik, gizona **tel-tel-tel** ari zitzaion emakumeari, hatsari lotzeko beta ere hartzen ez zuela. [Aingeru Epaltza](#)

Baina lehen edan egiten nuen eta **tel-tel-tel**. [Unai Iturriaga](#)

tela 1 *iz* ehuna. ik oihal.

Añezka izeneko denda bat, ehunak eta **telak** saltzen zituena. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Blusa zuria **tela** arina. [Irene Aldasoro](#)

Jaka, txokolate koloreko **tela** basto batekoa, zeta marroizko bordaduraz. [Koldo Izagirre](#)

Slipa eta **telazko** galtza orbanduak arropa zikinaren pila gainean utzi nituen, begien bistan. [Joseba Urteaga](#)

Ziega ixten dutenean, horretarako erabili izan dudana **telazko** zakua hartu, bertara bota baldekada osoa eta dutxan ipini dut zintzilik. [Jokin Urain](#)

Bahearen sarea larriagoa eta metalezkoa, zetabearena xeheagoa eta **telazkoa**. [Herria](#)

2 irud/hed

Atzean, **telak**, goiti aldera bilduta delarik, arratsaldeko eguzkia sartzera uzten du logelara. [Piarres Aintziart](#)

Hormaren gainean zulo bat zegoen, barroteekin eta metalezko **telaz** itxia. [Jokin Urain](#)

Argazkiez bestalde, hor dira ere untsa ederrak **tela** berezi batzu, zinez artixta baten obrak, Christian Velez-ek moldatuak, denek ukanki zerbait lotura arrantzarekin eta itsasoarekin. [Herria](#)

3 (hitz elkartuetan)

Harrera egingo zaio martxari, eta bertako emakume talde batek martxaren oihal erraldoirako egindako **tela** zatia erantsiko da. [Berria - Harian](#)

telatxo *iz adkor* tela modukoa.

Zirru laino meharrak izan ohi dira koroa sortzen dutenak: 10-12 kilometro gora joan daitezke, izotz ale tikiak direlarik han goian, zibelaren **telatxo** luze zabala bailiran. [Pello Zabala](#)

tele (hitz elkartuetako lehen osagai gisa; ik **telebista**)

1 irud/hed

Hainbeste **tele** -morfina irentsi ondoren batzuetan arazoak ditu errealitatearekin. [Patxi Iturritegi](#)

Irratietan zerbaite egiten zen, baina **tele**-bistagarri egin nahi genuen gure jarduna. **Andoni Egaña**
Sekulako sona hartu zuen, bazekien-eta zorrotza izaten, **tele** -harira etorri zein ez, bere gainerik ez zeudenekin. **Joxerra Garzia**
Balizko **"tele** -pikareska" horren aurrean (irudietakoak eta errealitatekoen arteko aldeak, gauza bat agindu eta beste bat entregatu, etab.) geure burua defendatzeko neurriak hartu beharko dira. **Edorta Agirre**
Telebistan betikoak, betiko legez, bere gai gogokoenez aspertzin ditu ezer ikusteko gai ez diren **tele** -inbidenteak. **Sonia Gonzalez**
Arratsero telebistako berrisailtetako **tele** -reality antzeztuek goiti-botatzen dizkiguten gezurrezko egien eta egiazko gezurren herroka irudikatu digute. **Berria - Kultura**

teleagindu iz teleagintailua.

Bat-batean, Ryderrek **teleagindua** hartu eta telebista piztu du. **Javi Cillero**

teleagintailu (*corpusean tele-agintailu soilik*) iz telebista edo kideko bat urrititik gobernatzeko gailua.

Ez zen han aukerako **tele** -agintailurik. **Edorta Jimenez**

telealarma 1 iz alarma-sistema, poliziarekin edo kideko zerbitzu batekin zuzenean lotua dagoena.

Bakarrik bizi diren adindunei eskaintzen zaien zerbitzua da **telealarmarena**. **Berria - Harian**

Erabiltzaileak ez du telefonoa erabili beharrik, **telealarmak** zuzenean komunikatzeko balio baitu. **Berria - Euskal Herria**

Telealarmak edadetuari edo elbarriari bere etxean eta bere ingurukoekin bizitzen jarraitzeko aukera ematen dio. **Berria - Euskal Herria**

Telealarmarekin botoia sakatu baino ez da egin behar, eta segituan SOS Deiak-ekoek erantzun egiten dizute. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pertsonen bizi kalitatea hobetzea du helburu **telealarma** zerbitzuak. **Berria - Harian**

Telealarma zerbitzua egunaren 24 orduetan larrialdi zentroekin automatikoki konektatuta dago, eta pertsonen bizi kalitatea hobetzea du helburu. **Berria - Harian**

Telealarma ekipoak, beraz, ez dira inoiz erabiltzailearenak izango. **Berria - Euskal Herria**

Kalean ere erabili daitezkeen **telealarma** edo tele-laguntza sistemak ari dira ikertzen Matia Fundazioko Ikerketa eta Garapenerako departamentuan. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

telealarma zerbitzua (5); **telealarma zerbitzuak** (3)

teleasistentzia iz pertsona adindunei eta ezinduei zuzenduriko zerbitzua, larrialdi egoeretan laguntza bideratzen diena. ik telelaguntza.

Autonomia sustatzeko: **Teleasistentzia**, laguntza teknikoak edo etxean egotera egokitzeak. **Berria - Harian**

Halaber, babes agindua duten emakumeei **teleasistentzia** zerbitzua eskainiko zaie. **Berria - Euskal Herria**

telebingo iz

Telebingo. **Berria - Ekonomia**

telebirtualitate iz irudi birtualen eta telekomunikazioen konbinaketaren bidezko komunikazioa.

Teknologia berriak baliatuz eratutako obrak erakustez gain, soziologia konputazionala eta kartografia sinaptikoaren eremuan jazotako azkeneko joerak aztertuko ditu Ciber buruz mintzatu zen atzo Richard Stallman Linux programaren sortzailea; gaur, berriz, **telebirtualitateari** eta telepresentziari buruz ariko dira zenbait aditu. **Berria - Kultura**

telebisatu izond telebistaz emana.

Inoizko su-eten **telebisatuena** eman du atzo ETAK, gutxitan bezala izan delako su-eten bat horren iragarri eta horren aurikusia. **Berria - Harian**

telebisibo izond telebistan ongi ematen duena.

Telebistatik partidak ematen hasiak ziren ordurako, baina Realak ez zen oso talde **telebisiboa**. **Berria - Kirola**

telebisino ik telebisio.

telebisio (*49 agerraldi, 11 liburu eta 2 artikulutan; orobat telebisino eta telebisione g.er.*) 1 iz telebista.

Telebisioa piztu eta Jexux eserita dagoen tokira okertuta jarri dut. dalit horren etxera joaten ziren, **telebisioa** ikustera. **Xabier Etxabe**

Inork eskatu gabe hasten da hitz egiten, maiz **telebisioan** ematen ari diren pelikularen zatirik interesgarriena zapuzten duela konturatu gabe. **Xabier Etxabe**

-Hara, Marta, begira **telebisioari**, begira txoritxoiei, ez gelditu lotan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Erosleak beren etxeetan bide daude larunbateko afaria prestatzen, umei errietan ematen, **telebisioetako** saioekin dibertitzen edo auskalo zertan. **Lourdes Oñederra**

Ezker eskuin mugitu nintzen, ukabilak muturraren aurrean mugituz, **telebisioan** ikusia nuen bezala. **Joseba Sarrionandia**

Oraindik ere **telebisioan** agertuko haiz, Etxabe! **Xabier Etxabe**

2 (hitz elkartuetan)

Eta gazteak beren joan-etorrietan begiztatzeko, **telebisio** -makinak ipini dituzte. **Gotzon Garate**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

telebisioa itzali (3)

telebista (4055 agerraldi, 170 liburu eta 1357 artikulutan; orobat telebixta 741 agerraldi, 2 liburu eta 453 artikulutan) 1 iz uhin elektromagnetikoen bidez irudiak igortzeko tekniken eta jardueren multzoa.

Komunikabide modernoek ere, hala nola **telebistak**, konputagailuek eta sateliteek, ezin dute lanik egin begirik eta belarrik gabe. Irene Aldasoro

Irratian zein **telebistan**, hedabide bakoitzaren narrazio legeak ezagutzeak du axola, ez azken orduko softwarea ezagutzeak. Joxerra Garzia

Telebista eta irratia bazter guztietan entzuten dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Pello Salaburu

Telebista informazio-iturri ia bakartzat duten pertsonak. Txema Ramirez de la Piscina

Beren buruari ez begiratzeko edan eta **telebista** ikusi, beste irtenbiderik ia ez dutenak. Koro Navarro

Era askotako bideo-trukajeak, gaur egun **telebistak** guztiz arrunt bihurtu dituenak. Josu Zabaleta

Modan dago **telebistak** haurrengan duen -edo ez duen- eraginari buruzko eztabaida. Joxerra Garzia

Turkiako base militarrek erabiltzen ari dira yankiak erasoetarako, **telebistak** bonbardaketen irudiak eskaintzen ditu lantzean behin. Jon Arretxe

Telebista jasanezina da alkohol eta marihuana barik. Sonia Gonzalez

Telebistako dokumental batean ikusi zuen hori guztia. Unai Elorriaga

Telebistako telesail txarretako offeko ahotsa imitatuz. Aitor Arana

Telebistako esatariak hiru harridura-marka esan zituen. Unai Elorriaga

Satelite bidezko **telebista**. Berria - Gaiak

Euskaltelek lehen **telebista** digital interaktibo aterako du, kuotarik gabe. Berria - Ekonomia

Telebista birtuala, botere totala. Jose Angel Irigaray

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Telebista hargailuak berak, telebistako irudia marko baten barruan kokatzen duelarik, [...]. Josu Zabaleta

Telebista -aparatu galanta zuen egongelan, berri-berria, ikustun gisa estreineaturiko bizialdiaren ikur. Xabier Olarra

Egun ere txirotasun dira inguru haiek, uralitazko teletatu gainera **telebista** antenek iraingarri egiten duten txirotasun modernoan. Koldo Izagirre

Telebista ikusle aspergaitza eta paper kantoi hunen irakurle isil, leial edo ustekabekoa. Jose Angel Irigaray

Jay Leno nahiz David Letterman **telebista** izarren gaueko *late-show*etan purua ezinbesteko osagai bihurtu da. Harkaitz Cano

Lore nazionala, **telebista** lehiaketa bidez hautatua. Edorta Jimenez

Astekari batean **telebista** kronikak idaztea. Jose Angel Irigaray

Beti **telebista** kamerak aurrean. Andoni Egaña

Errealitatearen isla zintzoagoa da **telebista** -platoan gerta daitekeen edozer baino. Andoni Egaña

Agustina ikusi zuen urrutiko kontrolaz **telebista** kanala aldatzen. Aitor Arana

Gehienek dute *Hitzetik hortzera* **telebista** -programaren eragina. Andoni Egaña

Hori **telebista** -irudi izoztuaren arazoa izan daiteke. Iban Zaldua

Siemens-en **telebista** -iragarkia jarriko diegu gero. Andoni Egaña

Telebista -zerga 116 eurokoa izango da urtean. Berria - Ekonomia

Bat-bateko bertsularitzaren **telebista** -tratamendu egoki bati begira kontsideratu behar liratekeen kontuen orientabidetzat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zirkuitu itxiko **telebista** -sistema baten antzekoa da ikusmena. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alkohola, liburuak, bideoak, satelite- **telebista** ... Jon Arretxe

Gorroto zituen zabor- **telebistaren** saio haiek. Joxan Elozegi

4 bide hori erabiliz irudiak igortzen dituen enpresa.

Gauetik goizera sortu zen ETB, gure **telebista**, euskaraz. Pello Salaburu

Euskal **telebistaren** helburu nagusia. Pello Salaburu

Telebista kurdua ikusteko gogoia neukan. Juan Kruz Igerabide

Madrilgo **telebista** batean lanean hasitakoan agertu zen aldizkarietan. Xabier Montoia

Telebistan nenbilela, urte pare batez lankide izan nuen Jose Mari Gabiria. Joxerra Garzia

Biharamunean ere lurretara joan behar izan nuen, **telebistako** plantillan alta hartzeko paperak izenpetzera, **telebistako** pertsonal buruarekin. Joxerra Garzia

Espainiako **Telebistaren** bigarren katea. Pako Aristi

Telebistako administrazio idazkaritzan. Ramuntxo Etxeberri

Hori al da **telebista** publiko batek eman beharko lukeen erudia? Pello Salaburu

Irrati eta **telebista** publikoak sami hizkuntzan dituen saioak murrizteko. Berria - Mundua

Venezuelan **telebista** pribatu guztien seinalea gobernuaren esku dago. Pako Aristi

Espainiako **telebista** publikoko kirol kazetariak Portugalgo jokalarien izenak espainolak balira bezala ahoskatzen zituztelako. Iñigo Aranbarri

Telebistakoak gustura nonbait nirekin, eta beste programa baterako kontratatu ninduten. Anjel Lertxundi

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sobiet Batasuneko armadak Vilnius hiriburuko **telebista** etxea eta beste zenbait leku hartu zituelarik, [...]. Edorta Jimenez

2.000tik gora **telebista** kate. Txema Ramirez de la Piscina

Zorionez, bazen OK Expressoan **telebista** -taldea, eta horretan gaztelerez zekien bat. Edorta Jimenez

6 telebista hargailua.

Ordenagailuak, **telebistak**, inpresorak, telefonoak, eta abar. Iñaki Heras

Telebista aurrean igarotzen genituen egunak. Juan Kruz Igerabide

Telebista sala erdian zetzan, pantaila hautsita. Iban Zaldua

Telebista piztu nuen. Edorta Jimenez

Telebista piztuta egonagatik ahotsa kenduta zeukan. Harkaitz Cano

-Ez omen da lekukorik izan, hala esan du **telebistak**. Anjel Lertxundi

Hartarainoxe jarri dira tabernak gaur egun!, **telebista**, bideo, musika, irratia eta txanpon makinekin, askotan denak batera piztuta. Pako Aristi

- **Telebista** jar dezaket? -galdetu du emazteak. Jokin Muñoz

Telebistaren bolumena baxu-baxu jarri, eta hantxe geratzen nintzen. Iban Zaldua

Leihoak itxi eta **telebista** ipini zuen. Unai Iturriaga

Telebistan, halabarrez, Bigarren Gerra Handian girotutako pelikula bat ematen zuten. Bernardo Atxaga

Telebista itzalita, gela isilago geratu zen bat-batean. Juan Kruz Igerabide

Telebistan ikusi ditut piramideak. Unai Elorriaga

Telebistan Barne sailburua berbetan. Unai Iturriaga

Telebista ahotsik gabe zegoen. Unai Elorriaga

Telebistan agertzen den edozein da nor. Andoni Egaña

Telebistatik ikusi dut nik mundua eta txikia da. Unai Elorriaga

Futbolera joaten zara "zuzenean" ikusteko, **telebistaz** ematen dutenean ere. Jon Muñoz

Aski nuen pentsatzea zein gutxi arduratu ninduten neu ere ordu arte **telebistaz** ikusitako atentatuek. Anjel Lertxundi

Logelako **telebista** txikiari begira egon naiz pixka baten. Jon Arretxe

Zuri-beltzeko **telebista** batean bezala ikustea. Xabier Olarra

"Eskuko" **telebista**, kristal likidozkoa, ez da askorik zabaldu oraingoz. Josu Zabaleta

Nekatuta nago, argia itzali eta **telebista** programatzen dut ordu erdi barru berez deskonekta dadin. Mikel Hernandez Abaitua

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Telebista -pantaila baten aurrean lekuz aldatzen bagara, adibidez, ez da gure mugimenduak eragindako inolako perspektiba dinamikorik. Josu Zabaleta

Telebistako irudiaren marko-objektua nabarmenagoa zen hasierako telebistetan, **telebista** -leiho ia obalatu oso nabarmentzen baitzen begietarako, eta ia ito egiten zuen irudia. Josu Zabaleta

Telebista piztuta egon daiteke, zarataka, **telebista** -gelan, baina gaixo gehienek ez diote jaramonik egiten. Xabier Olarra

8 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Telebista -pantaila sail bat erakusten duen Nam June Paik-en instalazio bat. Josu Zabaleta

Gaur ez zaigu burutik pasa ere egiten **telebista** ikus-entzuleak agurtzea. Andoni Egaña

9 irrati-telebista (pl) irrati eta telebista.

Irrati-telebistak orohar norantz doazen ikusita, kontu handiz ibili beharko dugu. Andoni Egaña

Orain unibertsitatean nabil, ordea, eta **irrati-telebistetan** eman nituen urteak parentesi arteko hutsarte bat baino ez dira. Joxerra Garzia

Euskara egunero ikusten dugula **irrati-telebistetan**, eta badugula egunkari bat ere euskaraz ageri dena egunero. Pello Salaburu

Madrigo **irrati-telebistetako** iritzi emaile askok eta askok euskal gatazka eguneroko bazka-leku bilakatu dute. Txema Ramirez de la Piscina

10 (sing)

BBC **irrati telebista** britainiarrarekiko elkarrizketa batean. Berria - Mundua

EITBn beharrezko aldaketak txertatuko ditut, alderdi baten ondare izan ordez benetako Euskal **Irrati Telebista** Publikoa izan dadin. Berria - Euskal Herria

Irrati-telebista publikoko ehunka langile kalera irten ziren atzo, agintetik independente izan behar duen hedabide bat eta kazetaritza bat zaintzeko eskatzeko. Berria - Mundua

ORF Austriako **irrati-telebistak** jakinarazi duenez, John Malkovich aktore estatubatuarrak egingo du Klimten papera. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abc telebista (7); **al arabia telebista** (15); **al arabiya telebista** (8); **al jazeera telebista** (45); **australiako telebista** (4); **bbc telebista** (10); **cnn telebista** (16); **cnn telebista kateak** (5); **cnn telebista kateko** (4)

espainiako telebista (15); **euskal telebista** (22); **euskarazko telebista** (8); **euskarazko tokiko telebista** (4); **frantziako telebista** (11); **gure telebista** (4); **herri telebista** (8)

irango telebista (4); **irrati eta telebista** (26); **irrati telebista** (11); **irratia eta telebista** (5); **kanaldude telebista** (7); **katalanezko telebista** (4); **kataluniako telebista** (4); **koloretako telebista** (7); **nafarroako telebista** (4); **nbc telebista** (5)

satelite bidezko telebista (6); **suediako telebista** (4)

telebista aparailu (4); **telebista aparatu** (4); **telebista arabiarak** (7); **telebista aurkezle** (5); **telebista aurkezleak** (4); **telebista aurrean** (32); **telebista aurreko** (9); **telebista aurreko besaulkian** (4); **telebista bidez** (10); **telebista digitalak** (8); **telebista digitaletan** (4)

telebista egiten (5); **telebista erosi** (4); **telebista eta irrati** (24); **telebista eta irratia** (6); **telebista eta irratietan** (4); **telebista handi** (6)

telebista ikus (4); **telebista ikusi** (29); **telebista ikustea** (10); **telebista ikusteko** (5); **telebista ikusten** (58); **telebista ikusten ari** (8); **telebista ikustera** (7); **telebista itzali** (15); **telebista itzali zuen** (4); **telebista itzalita** (5); **telebista izan** (5); **telebista kamera** (5); **telebista kamerak** (8); **telebista kameran** (4); **telebista kameran aurrean** (4); **telebista kate** (95); **telebista kate arabiarak** (5); **telebista kate batean** (7); **telebista kate guztietan** (4); **telebista kate pribatuak** (5); **telebista kate publikoak** (5); **telebista katea** (8); **telebista kateak** (85); **telebista kateak zabaldutako** (4); **telebista katean** (30); **telebista katean egin** (4); **telebista katearen** (13); **telebista katearen arabera** (7); **telebista kateari** (27); **telebista kateari eskainitako** (7); **telebista kateek** (11); **telebista kateen** (7); **telebista kateetako** (4); **telebista kateetan** (5); **telebista katek** (6); **telebista kateko** (24)

telebista pantaila (8); **telebista piztea** (5); **telebista pizten** (8); **telebista piztu** (53); **telebista piztu zuen** (12); **telebista piztuta** (17); **telebista piztuta zegoen** (5); **telebista programa** (10); **telebista publikoa** (7); **telebista publikoak** (17); **telebista publikoan** (24); **telebista publikoan egindako** (4); **telebista publikoaren** (4); **telebista publikoetan** (6); **telebista publikoko** (11); **telebista saio** (14); **telebista saioak** (5); **telebista saioan** (4); **telebista sortu** (5); **telebista taldeko** (6)

telebista utzi (4)

toki telebista (8); **tokiko telebista** (18); **tokiko telebista digitalak** (5); **turkiako telebista** (5); **zuri beltzeko telebista** (5)

al arabia telebistak (6); **al jazeera telebistak** (15); **euskal telebistak** (35); **euskal telebistak zuzenean** (5); **irrati telebistak** (5); **telebistak zabaldu** (4); **telebistak zabaldutako** (5); **toki telebistak** (5); **tokiko telebistak** (4)

al jazeera telebistako (5); **espainiako telebistako** (6); **euskal telebistako** (22); **irrati eta telebistako** (5); **irrati telebistako** (4)

telebistako albistegi (4); **telebistako aurkezle** (4); **telebistako esatariak** (5); **telebistako irudia** (4); **telebistako irudiak** (10); **telebistako irudietan** (5); **telebistako kazetari** (7); **telebistako pantailan** (6); **telebistako programa** (12); **telebistako saio** (6)

al jazeera telebistan (6); **euskal telebistan** (27); **ikusi nuen telebistan** (5); **irratian eta telebistan** (6)

telebistan agertu (7); **telebistan agertzea** (6); **telebistan agertzen** (6); **telebistan azaldu** (6); **telebistan azaltzen** (4); **telebistan egindako** (8); **telebistan egindako adierazpenetan** (4); **telebistan eginiko** (4); **telebistan egiten** (4); **telebistan ematen** (8); **telebistan entzun** (5); **telebistan ikusi** (31); **telebistan ikusi nuen** (4); **telebistan ikusita** (5); **telebistan ikusitako** (4); **telebistan ikusten** (15)

al jazeera telebistara (6); **telebistara bidalitako** (4)

telebistarako egin (5); **telebistarako lanak** (4)

al jazeera telebistaren (10); **euskal telebistaren** (14); **irrati eta telebistaren** (4)

telebistaren aitzinean (6); **telebistaren arabera** (16); **telebistaren aurrean** (52); **telebistaren aurrean eseri** (4); **telebistaren bidez** (18); **telebistaren bitartez** (6); **telebistaren eragina** (9); **telebistaren soinua** (4)

tokiko telebistaren (4)

al jazeera telebistari (6); **euskal telebistari** (5); **telebistari begira** (40); **telebistari beha** (6); **telebistari esker** (4); **telebistari so** (15)

telebistarik gabe (8)

telebistaz eman (5); **telebistaz emango** (4); **telebistaz ematen** (4); **telebistaz ikusi** (11); **telebistaz ikusten** (8); **telebistaz jarraitu** (4)

tokiko telebisten (11)

egunkari eta telebistetan (5); **irrati eta telebistetan** (12); **irrati telebistetan** (5)

euskal telebixta (13); **frantses telebixta** (7); **irrati telebixta** (4)

telebixta leihotik (207)

euskal telebixtak (21); **euskal telebixtak zabaldu** (4); **irrati telebixtak** (4); **telebixtak zabaldu du** (5)

frantses telebixtako (8); **mintzatu da telebixtako** (5); **telebixtako leiho** (7); **telebixtako leiho ttipi** (4)

euskal telebixtan (21); **frantses telebixtan** (12); **ikusten telebixtan** (4); **telebixtan ikusi** (14); **telebixtan ikusten** (4)

telebixtaren aitzinean (15)

euskal telebixtari (5); **telebixtari esker** (5); **telebixtari so** (4)

irrati eta telebixtek (6); **irrati telebixtek** (4)

irrati eta telebixtetan (5); **irrati telebixtetan** (6)

telebistagailu *iz* telebista hargailua.

1952. urtean, AEBetan telebista «heldutasunera» heldu zenean egunero 13 ordu inguru zabaldu zituzten zuzenean eta **telebistagailua** zuen %80k 65 milioi, orduan jarraitu zuten. **Berria - Mundua**

telebistagarri *izond* telebistaz emateko modukoa.

Telebistako adituek ez zuten bertsolaritza **"telebistagarri"** jotzen. **Andoni Egaña**

Jendeari grazia egiten zion, **telebistagarria** zen oso, begietatik sartzen zen... **Andoni Egaña**

Telebistagarri dena ona da eta **telebistagarri** ez dena ez da deus. **Andoni Egaña**

telebistagintza *iz* telebista jarduera.

Horregatik Jauriaritzak hurbileko **telebistagintza** arautu behar duen honetan, **telebistagintzaren** funtzio sozialak zeintzuk izango diren definitzeko aukera paregabea duela ohartarazi dute. **Berria - Harian**

Horregatik Jauriaritzak hurbileko **telebistagintza** arautu behar duen honetan, **telebistagintzaren** funtzio sozialak zeintzuk izango diren definitzeko aukera paregabea duela ohartarazi dute. **Berria - Harian**

telebistalari *(corpusean telebixtalari soilik)* iz telebistan aritzen den pertsona.

Perigord departamendura ereman gaitu Patrick de Carolis **telebixtalariak**, erakusteko nola erosten dituzten etxeak eta lurrak ingeles, holandes eta amerikanoek. **Herria**

telebistatu, telebista(tu), telebistatzen du *ad* telebistaz eman.

Hori **telebistatua** zegoen. **Joxemari Iturralde**

telebistatar *iz adkor* telebista hargailu handia.

Gaur gauean berriro saiaturko naiz, Patxiaren etxean: sekulako **telebistatarra** izateaz gain, bideo hobea du, bost burukoa, Panasonic. **Iban Zaldúa**

telebistazale *(corpusean telebixtazale soilik)* izond/iz telebistaren zalea dena.

Ez nain-eta ezagutu ere egiten! -esan nuen, ostatuko etxeokandrea **telebistazaleari** zegokion erdeinua alboko emakume eriarri pasatuz. **Anjel Lertxundi**

Pisukide izan nituen hiru sugerorri anemiko **telebistazaleek** nahiz Itziar negarti nekaezinak ere ez zidaten batere inbidiarik sentiarazten. **Jon Arretxe**

Denek dakiten bezala **telebixtazalea** naiz aspaldi honetan. **Herria**

Telebistazalea zen eta ETBko bertsolaritza emankizunak baizik ez zituen jasaiten ahal. **Ramuntxo Etxeberri**

telebistitis *iz adkor*

Ipethea Badria anderea, herenegun hil zen 55 urteetan, Urdaspalen, **telebistitis** kronikoak -gaitz ergela- joa. **Jose Angel Irigaray**

telebixta ik telebista.

telebixtalari ik telebistalari.

telebixtazale ik telebistazale.

teledenda *(orobat tele-denda)* iz produktuak telebista bidez erosteko sistema.

Desordu horietan **teledenda** gisako iragarki amaigabe horiek izaten zituzten: etxean gimnasia egin eta sasoiaren egoteko tresna miresgarriak, argal itxura emateko faja miragarriak, sukaldean txikitu beharreko guztia di-da txikitzen zuten aizto harrigarriak... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bai lekuan lekuko ministroaren erabakiak, bai **teledendetan** ateratzen diren tramankulurik xelebreenak ere, guztiak nahi dute beretzat onespren preziatua: "zientifikoki egiaztatuta". **Iñaki Heras**

Goizean telebistako Bosgarren Kateari edo **Tele-Dendari** begira egoten nintzen (**Tele-Denda** deiturikoan egunero badira gauza harrigarriak), **Jesus Mari Mendizabal**

telediario *iz* telebistako albistegia, egunero ordu berean ematen dena.

Hiruretatik aurrera, Julianek **telediarioa** ikusten omen zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Azken atentatuak eragindako negarrak eta sumindurak horrela ikusi-entzun behar izan zituen, soinurik gabe eta edredoiaren atzetik, Josebak gauerdiko **telediario** berezi horietako bat kateren batean harrapatu zuenean. **Jokin Muñoz**

Hasiera bateko **telediarioetan** hainbat aurkezle agertzen ziren bata bestearen atzetik, egunkarietan bezalaxe, norberak ezagutzen duen gaia jorratuz. **Berria - Gaiak**

teledokumentazio 1 *iz* datu base handietan Interneten bidez informazioa lortzeko tekniken multzoa.

Denetan azkena, **"Teledokumentazioa"** izeneko ikasgaia geratu zitzaidan. **Joxerra Garzia**

2 (hitz elkartuetan)

Teledokumentazio zerbitzuak, bideohitzaldiak, urruneko tutoretzak, baliabide elektronikoaren bidezko praktikak, eta oro har, "eskola birtualak" eskaini ahal izango dira. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Izan ere, han diozunez, gaur egungo **teledokumentazio** teknika berriek sekula utzi behar ez zuen zokora baztertu dute memoria. **Joxerra Garzia**

teleferiko *iz* kableetatik zintzilik airean ibiltzen diren bagoiez osaturiko garraioidea, garaiera-alde handiko puntuen artean erabiltzen dena.

Machu Picchu herritik gotorlekura arteko **teleferikoa** egiteko proiektuari heldu zion berriro. **Berria - Gaiak**

Bi ordu eman genituen jaisten, sokaz halamoduz lagundurik, izozturik baitzegoen: bilur-milur zurrin parte txarreko bat bilakatu zen, zeina koska guztietan trabatzen baitzen eta **teleferiko** baten burdinariak bezalako hotsa ateratzen haizaren kontra. **Juan Garzia**

telefilm (*orobat telefilme g.er.*) **1** *iz* telebistan emateko pentsatua dagoen filma.

Rio de Janeiro grabaturiko komedia da *Cidade Dos Homens*, gazte bik dirua lortzearen hartuko dituzten erabakiei buruzko **telefilma**. **Berria - Kultura**

Duela bi urte emana izan zen "L'odyssée de l'espèce" deritzan **telefilma**, sekulako arrakasta ukan zuena. **Herria**

Zerbitzariak, tximuen tankeran barraren gainetik salto egin, eta **telefilmetan** bezala aztertu du Natxoren gorputza: besapean hasi eta orkatiletaraino. **Patxi Iturritegi**

De la Iglesia eta Urbizuk beldurrezko **telefilmak** estreinatuko dituzte asteazkenean. **Berria - Kultura**

Charlize Theronek *Monster* **telefilm** merkean interpretazio ikusgarria egiten duenik ere ezin ukatu. **Berria - Kultura**

Telefilm amerikarretako aurpegiera jartzen du Iñakek, "banangoen ba ni" marmarka. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Urtero zinea eta **telefilmak** ekoiztu euskara hutsean. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halakoak dira polizia **telefilmak**. **Herria**

Halere hobereana izan da "Suspect n°1" ingeles polizia **telefilma** RTL9 gatean. **Herria**

Albisteak zuzeneko ekintza-**telefilm** bilakatu dira. **Txema Ramirez de la Piscina**

3 telefilma-egile

Telefilma egileen arabera inkesta frango eginik gauzak ez dira hain garbi. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

polizia telefilma (3)

polizia telefilmak (3)

telefilme ik **telefilm**.

telefona ik **telefono**.

telefonaldi *iz* telefono deia.

Kexabidezko gutun eta **telefonaldiek** iristen segitzen zuten bitartean, ni amorrur biziaren tematurik nengoan asteazkenean kontu haren asmatzean: esanahiren bat izan behar zuten noski. **Juan Garzia**

telefonari (*9 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean*) *iz* telefonista.

Egunerik **telefonariak** arratsaldeko sei eta erdietan ailegarazi zidan semearen deia. **Aingeru Epaltza**

Azkenik entzungailua jaso zuen, zer etorriko zen zehatz bazekielako ustean, Silva jauna al zara, galdetu zuen **telefonariak**, eta berak erantzun zuen, labur, bai. **Jon Alonso**

Pabiloitik beretik egunkarira hots egin nuenean, **telefonariaren** okerra izan zen deia Anari pasatzea. **Aingeru Epaltza**

telefonatu, telefona, telefonatzen du *ad* (zer/nor *osagaririk gabe*) telefonoz deitu.

Geltokitik **telefonatu** nuen, gero ilunpean ailegatu eta atea jo nuen. **Fernando Rey**

Herriko Etxe saihetseko kabinatik Baionara **telefonatu** nuen. **Daniel Landart**

Itsasuko Gau Eskolarat **telefonatzen** ahal da ere: 05 59 93 40 83. **Herria**

Handik edo hemendik, **telefonatuko** zuen zer ari zen abisatzeko. **Daniel Landart**

Zortzietan **telefonatu** du ez zela etorriko. **Daniel Landart**

telefonatu nion, erranez oroitu nintzelela bai eta eguna finkatuko genuela. **Piarres Aintziart**

Zortziak aldera **telefonatuko** digute. **Daniel Landart**

Emmak **telefonatu** dik hiretzat. **Daniel Landart**

-Gisa guziz, **telefonatik** bederen aritzen ahal gintezke artetan, ez? **Janbattiti Dirassar**

telefonía **1** *iz* hitza igortzeko telekomunikabide sistema; telefonoari dagozkion ezagueren eta tekniken multzoa.

Europako **telefonía** finkoko zazpi enpresa nagusiek 11.666,5 milioi euro irabazi zituzten iaz. **Berria - Ekonomia**

Bortz urte baizik ez ditu telekomunikazioetako euskal enpresa hunek, eta jadanik **telefonía** finkoaren merkatuaren %40a hartua du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan; sakelako **telefonian** %30 eta Interneten %54. **Herria**

Telefonía mugikorren bitartez, tresna honen aukerak eta zerbitzuak handituz doaz egunetik egunera: *photologs, moblogs...* **Txema Ramirez de la Piscina**

Euskaltelek tarifa finkoa ezarriko du ohiko **telefonian**. **Berria - Ekonomia**

Apustuek Interneten bidezko **telefonía** (VoIP), P2P edukien partekaketa edo irrati eta telebista banaketaren hazkundearen alde egiten dute. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **telefoniko**.

Futbol partidako jokaldirik interesgarrien errepikapena babesten zuen haririk gabeko **telefonía** konpainiarena zen iragarkia. **Juan Luis Zabala**

Hego Amerikako **telefonía** konpainia nagusia bilakatu da Telefonica. **Berria - Ekonomia**

Merkatu kuota handitzeko bildu dira Europako **telefonía** enpresa nagusiak. **Berria - Ekonomia**

Euskaltel **telefonía** etxeak beste bi urtez babestuko du Euskadi taldea. **Berria - Kirola**

Telefonía-ingeniariek ondoko ezagutzen dute arazo hori, eta linean amplifikagailu bat jarrita konpondu ohi dute. **Irene Aldasoro**

Azterketetan argi geratu da euskarak ez daukala lekurik **telefonía** operadoreek eskaintzen duten zerbitzuan. **Berria - Euskal Herria**

Latinoamerikako **telefonía** merkatuaren %40 Cesar Alierta buru enpresaren esku izango da. **Berria - Ekonomia**
Hego Euskal Herrian **telefonía** zerbitzua ematen duten bi konpainia nagusien prezioak emendatuko dira. **Berria - Ekonomia**
Egun, TIMeko Marco Benedettiren zuzendaritzapean dago **telefonía** taldea. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
telefonía enpresa (3); **telefonía finkoko** (4); **telefonía konpainiek** (3); **telefonía mugikorrek** (3); **telefonía mugikorraren** (5); **telefonía mugikorreko** (6)

telefoniko 1 *izond* telefonoarena, telefonoari dagokiona; telefoniarena, telefoniari dagokiona. ik**telefono 3**; **telefonía 2**.

Gauak eta espaloietako kabina **telefonikoak** gogoaren ziliportatzera ekartzen zizkidaten. **Itxaro Borda**
Konpainia **telefonikoaren** erantzungailu estandarrak ongi etorri egin zidan lineaz bertzaldetik. **Aingeru Epaltza**
Aspaldi ez dela, zentral **telefoniko** batekin konparatzen zen garuna; geroago, konputagailua izan zen erreferentzia kontzeptuala. **Irene Aldasoro**
Linea **telefonikoan** sarea moztuta izan zen atzo, eta, ildo horretan, istripuaren inguruko informazio zehatza jasotzea ezinezkoa izan zela zehaztu zuten. **Berria - Mundua**
Skype programa **telefonikoak** ere Peer-to-peer teknologian oinarritzen da. **Berria - Harian**

2 telefonoaren bidezkoa.

Hoteleko enkontru sutua, dei **telefonikoak**, "Rivadella" ostatuko agurra, Koliseoko musua, baina, batez ere, "Neskaxka eta herioa" piezako biolin orro zolia. **Aritz Gorrotxategi**
Auzipetuei eginiko entzuketara **telefonikoan** eta jarraipenen hainbat agiri ezkutatu dizkigute. **Berria - Euskal Herria**
Kontaktua **telefoniko** horiek, positiboak izan daitezkeen arren, «argi eta takigrafoekin egin behar dira, eta jakin behar dugu zehazki zer hitzartu den, zeintzuk diren horren oinarriak eta hori guztiaren atzean zer dagoen». **Berria - Euskal Herria**
Ez zen hain zaila izan haren haren bidezkoa egitea eta arestiko mokokaldi **telefonikoak** laido barkatu baina ez atzenden zakura bidaltzea. **Aingeru Epaltza**
Gogoan nituen emakumearen aitazin eguneko irain **telefonikoak**. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eleberrí telefoníkoa (3)

telefonista (*38 agerraldi, 7 liburu eta 4 artikulutan*) 1 *iz* telefonogune eta kidekoetan deiak erantzuteko ardura duen pertsona. ik **telefonari**; **telefonozain**.

Telefonistak, telefonogunea ibiltzeaz aparte atea irekitzeko eta datorrenari harrera egiteko lana bere gain dituenak, keinu bat egiten dio hatzez, telefonoz mintzatzen bukatzen duen bitartean. **Jon Alonso**
Horrela baieztatzen dio frailetzeko **telefonistak** *Berria*-ri. **Berria - Harian**
-Julen, zurekin hitz egin nahi duen gizon bat dago hemen -eman zidan enkargua, sarreratik, **telefonistak** -. **Juan Luis Zabala**
Emakumea SSetako **telefonista** bat zela ederki jakinda ere, agente espainiarrak ezin izan zion tentazioari eutsi. **Alberto Ladron Arana**
Telefono zuzena ez da **telefonistarengandik** pasatzen, telefono zuzenen bidez lasai asko hitz egin daiteke. **Jon Alonso**
Telefonisten ordezko lana egiten duten telefono linea digitalak. **Iñaki Heras**

2 (hitz elkartuean)

Gauetz haur batzuk zaindu nituen eta kardiologo batentzat **telefonista** -lana egin nuen abortuaren dirua pixkanaka itzultzen joateko. **Joseba Urteaga**

telefono (*orobat telefona g.er.*) 1 *iz* telefoniaren bidez komunikatzeko tresna; telefonia. ik **urrutizkin**.

Begirada batez sala zeharkatu, eta **telefono** bat ikusi du, beltza, zahar-itxurakoa, liburuz estalitako apalaren ondoan. **Iban Zaldua**
Emakume bat sartu zen aldameneko kabinan eta bere txanponak ipini zituen **telefonoan**. **Koro Navarro**
Galdera horixe zerbilkidan gogoan, abuztuko larunbat horretan, erredakziotik bere etxeko **telefonoa** markatu nuenean. **Aingeru Epaltza**
Goizaren erdia joana zen **telefonoak** jo zuenean. **Jon Alonso**
Berriz jo zuen **telefonoak**. **Jon Muñoz**
Zirkunik ere egin gabe, joka utzi nuen **telefonoa**. **Aingeru Epaltza**
Ordubete geroago etxeko **telefonoa** hoska hasi zen. **Bernardo Atxaga**
Telefonoaren txirrina orduantxe, eskerrak. **Joxe Austin Arrieta**
Telefonoa hartu eta deitzen saiatu zen. **Harkaitz Cano**
Telefonoa kakotik hartu eta zerbaki bat markatu nuen. **Xabier Olarra**
Etxera deitu nitzun, baina inork ez zuen **telefonoa** hartu. **Jon Alonso**
Joanaren **telefonoaren** pantailara iritsitako mezua: [...]. **Antton Olano**
-**Telefonoa** bat-batean moztu da. **Koro Navarro**
Orduan, bidal ezazu norbait nahi duzun orduan, nik ezin dut denbora gehiago galdu, eta **telefonoa** eskegi zuen. **Jon Alonso**
Telefonoa eskegi, aukitik altxa, bulegotik irten, niregana dator. **Koldo Izagirre**
-Zergatik eseki didan **telefonoa**? **Antton Olano**
Lehenago ere deitu nion behin, berarekin hain zakarra izan nintzelako barka eske, baina pausatu egin zidan **telefonoa** hogeita hamar segundoren buruan. **Oskar Arana**
Esaldia bukatu gabe **telefonoa** pausatu nuen eta, denak ziren bezala utzirik, ziztuan kanpora abiatu nintzen. **Daniel Landart**
Llume **telefonoa** itzali eta Daniri begiratzen dio. **Antton Olano**
Eskua **telefonoaren** gainean pausatu zuen, itxaron egin zuen oraindik ere, isiltzeko azken aukera eman nahiko balio bezala. **Jon Alonso**
Aurrez **telefonoz** deitu eta bere asmoa agertuko dio. **Pako Aristi**
Telefonoz ari nintzen bitartean koadernoan ikusten nuen mesanotxearen gainean. **Bernardo Atxaga**
Aita musika-gelan sentitzen nuen, **telefonoz** hizketan. **Anjel Lertxundi**
Ezin dinat **telefonoz** esan. **Anton Garikano**
Osaba Juani ez zitzaion **telefonoz** luzatzea gustatzen. **Bernardo Atxaga**
Gela bat hartu behar diagu eta **telefono** bat lortu; badakik, Müllerrek deitzen badigu ere. **Alberto Ladron Arana**
Suaren hotsa eta aitaren **telefonoko** jardun urrutia, ez zen besterik entzuten. **Anjel Lertxundi**
Aski haren **telefonoa** kontrolatua edukiko zuten. **Xabier Olarra**
Ziztuan atera nintzen **telefono** bat zegoela oroitzen nintzen kalezulo batera. **Fernando Rey**
-Badakizu ardiarena egiten? -erantzun zioten **telefonoaren** beste aldetik. **Jon Arretxe**
Satelite bidezko **telefonoa**. **Pello Salaburu**

2 (izenondo edo izenlagunekin)

Publikazio publikoak zuzendu eta bere sailera hots egingo zuten. **Harkaitz Cano**
Autoko eskularru-kaxak haginkada batez irentsi zuen Ximurraren **telefono** mugikorra. **Aingeru Epaltza**

Telefono mugikor batek jo du. **Pako Aristi**

Sakelako **telefonoan** ari zen emakume baten hitz-hotsak esnatu nau. **Pako Aristi**

Sakelako bi **telefono** ditu ezker-eskuin, eta batetik ez denean, bestetik ari da. **Anjel Lertxundi**

Zein aldaketa izan den **telefono** mugikorren erabiltzea jendeen arteko harremanetan! **Ramuntxo Etxeberri**

Telefono zuzena ez da telefonistarengandik pasatzen, **telefono** zuzenen bidez lasai asko hitz egin daiteke. **Jon Alonso**

Pasiloan zehar abiatu da Beatrizen bila, eta sukaldea aukeratu du lehenengo: **telefono** gehigarririk izatekotan, hantxe egon behar du. **Iban Zaldúa**

Geroz eta maizago, ordenagailu ondoan dagoen **telefono** isilean pausatzen dut begirada. **Iban Zaldúa**

Telefono erotikoa antolatzea berebiziko ideia izan zen, horretan ez zegoen dudarik. **Jon Arretxe**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **telefoniko**; **telefonía** 2.

Bat hautatu dut; ez **telefono**-gidan ageri den lehenengoa, bigarrena baizik. **Iban Zaldúa**

New Yorkera itzuli nintzenean, deitzen saiatu nintzen, baina **telefono** aurkitegian ez ziren ageri ez Boris Merkin ez Esther Merkin. **Koro Navarro**

Telefono-zerrendan bilatu beharko du zenbakia, baldin eta telefonista zerrenda emateko gertu badago. **Jon Alonso**

Ez dut etsirik hartu auzo guztietako **telefono** liburuak begiratu arte. **Harkaitz Cano**

Banku paper, **telefono** faktura, era askotako prospektu, eta etxeko tresnen edo hi-fi kateen erabilera-giden bereizte lanari ekin nion. **Joxan Elozegi**

Telefono-sala publiko batera iritsi nintzen. **Anjel Lertxundi**

Cesar Telleria hoteletik atera eta ahalik eta azkarren **telefono** kabina bat bilatzen saiatu zen. **Harkaitz Cano**

Urrutzikin zentraletik, Gipuzkoan **telefono** zentralita zuten herri guztietara gaztigatuko zen Igeldoko zerbitzutik emandako abisu iragarpena. **Pello Zabala**

Lapitz bat hartu zuen, auskalo zenbatgarren aldiz hura ere, **telefono**-mahaitxoaren gainetik. **Anjel Lertxundi**

Telefono-bulegoko batek esan dit itsasoan bataila handi bat gertatu dela, St. John's-en, Ternuan. **Lopez de Arana**

Handik herri gehienetako **telefono**-etxeetara, eta handik sakristauari abisua. **Pello Zabala**

Kartoizko kutxa txiki bat jarri nuen **telefono** aparatuaren alboan: borondatea zuenak jar zezala han txanpona. **Bernardo Atxaga**

Telefono-entzurgailua eseki gabe utzi? **Mirentxu Larrañaga**

Entzuten dut nola jartzen duen gizonak bere eskua **telefono**-mintzagailuaren gainean. **Joxe Austin Arrieta**

Telefono txirrin bat joka. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Telefono-hariaren beste aldean nago. **Mirentxu Larrañaga**

Telefono postez posterako kable apur bat kurbatuen sabelak imajinatu zituen. **Harkaitz Cano**

Bizpahiru taxilari zeuden **telefono** zutoinaren inguruan solasean. **Ramon Saizarbitoria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, gauza abstraktuekin)

Bell Atlantic **telefono** konpainiara deika. **Harkaitz Cano**

Pantailak **telefono** sarerik ez daukala erakutsi dionean, deskonektatu egin du, bateriarik ez dezan alferrik gal. **Hasier Etxeberria**

Badirudi **telefono**-linean interferentziak daudela. **Jon Alonso**

Agian honantz dator zuzenean, **telefono**-deirik egin gabe. **Mirentxu Larrañaga**

Artean ez zion hark gonbidapenik igorri, ez gutunik, ez **telefono**-mezurik, ez inolako berbarik helarazi. **Oskar Arana**

Bultzadari eutsi eta **telefono**-hotsaren zain geratzea lortu nuen. **Iban Zaldúa**

Ulertzen ez duen hizkuntza batean egindako zenbait **telefono**-mehatxu jasan behar izango ditu. **Iban Zaldúa**

Zakar baitzegoen uestezko **telefono** entzuteen ondorioz. **Ramon Saizarbitoria**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, pertsonekin)

Telefono-operadoreei ere "maitea" deitzen diet, barren. **Mirentxu Larrañaga**

Haiek abiatu berri direla, **telefono**-konpontzailea dator, eta gero Ettinger zaharra. **Oskar Arana**

Telefono-arduradunak gerra-garaiko zailtasunak aipatu zizkidan. **Anjel Lertxundi**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zorioneko esku-**telefonoak**. **Edorta Jimenez**

Etixerako bidean sakela-**telefonoa** joka hasi zitzaion Josebari. **Fernando Morillo**

Posible izango zatekeen estatu bietako herri eta hiri bakoitzeko informazio-**telefonoetara** deitu eta Hawthorne 87 helbidean bizi zen David Minor-en telefonoaz galde eginez haiek aurkitzea. **Oskar Arana**

Mikel berriro, Ander's oraino eskuetan, erredakzioko helbide-**telefonoak** dakartzan orriari begira. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kriptan ez dago barne-**telefonorik**. **Karlos Linazasoro**

Aitak axotaz besoan apuntatu zidan tinta azulezko flirt-**telefono** zenbakia amak xaboi-urarekin igurzten zidan bitartean. **Harkaitz Cano**

7 telefono zenbakia.

Tokien segurtatzeko eta xehetasunentzat **telefono** huntara deitu: 05 59 29 54 41. **Herria**

Roma Maloren **telefonoa** bilatu, Roma Malori deitu. **Unai Elorriaga**

Telefonoa eskatu zidan hala ere, begiratu behar zituela berrito bere argazki zaharrak. **Alberto Barandiaren**

Etxeko **telefonoa** eman baitzidan, behar nuenean dei niezaion. **Joan Mari Irigoien**

Dena dela, emadazu zure **telefonoa**, eta berriren bat izanez gero berehala deituko dizut. **Migel Angel Mintegi**

Erantzuidazu, eta helbidea eman, eta **telefonoa**. **Pako Aristi**

Garai hartan aldizkarian lan egiten zuen erredaktore baten **telefonoa** lortu nuen. **Alberto Barandiaren**

Ipini duen **telefonoan** zenbaki bat gaizki dago, badaezpada. **Iban Zaldúa**

Adeitsua da, nire izena eta **telefonoa** apuntatu ditu, baina ez zait deirik iritsi. **Agurtzane Juanena**

Ez da denbora askoan egon behar banku batean zaintzaileen buruaren **telefonoa** buruz jakiteko. **Xabier Olarra**

9 **telefono numero** telefono zenbakia.

Bestea, Luisentzako errekadu bat, **telefono numero** bat; deitzeko, mesedez, astelehenean. **Lourdes Oñederra**

Horra ere gau eskolako **telefono numeroa**: 05 59 93 40 83. **Herria**

10 **telefono zenbaki** (245 agerraldi, 59 liburu eta 91 artikulutan)

Telefono zenbaki hura besterik ez nuen: 943882621. Paper zati bat, Tomen izena, helbidea eta **telefono-zenbakia** idatzita zeuzkana. **Iban Zaldúa**

Telefono zenbaki bat eskatu dit, eta egun osoan badaezpada ere lokalizatzeke moduan egoteko esan dit. **Pako Aristi**

Orduan nik etxeko **telefono zenbakia** eman diot. **Patxi Zubizarreta**

Telefono-zenbakia utzi nion. **Jon Muñoz**

Iragarkian agertzen zen **telefono-zenbakia markatu** eta hitzordu bat adostu nuen Sandrarekin. **Josetxo Azkona**

Telefono zenbakia aldatzeko asmoa ere hartu nuen. **Koro Navarro**

Salgai zioen kartela oroitzen zuen eta hitz erabakigarriaren azpian jarritako **telefono zenbakia** zein ote zen. **Harkaitz Cano**

Bere pusketan Dongen izena eta **telefono zenbakia** aurkitu zituzten. **Ramuntxo Etxeberri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bere telefono zenbakia (6); helbidea eta telefono (6); izena eta telefono (6); sakelako telefono (30); sakelako telefono bidezko (4)

telefono aurkibidean (5); telefono bidez (29); telefono bidezko (16); telefono dei (105); telefono dei bat (37); telefono deia (44); telefono deia jaso (10); telefono deiak (34); telefono deialdi (4); telefono deiaren (8); telefono deien (7); telefono deietan (4); telefono deirik (10)

telefono elkarrizketa (11); telefono entzuketara (5); telefono entzuketak (10); telefono erotikoa (5); telefono eta internet (5); telefono gida (5); telefono gidan (4); telefono hariak (4); telefono hariaren (5); telefono hotsa (6); telefono hotsak (5)

telefono kabina (31); telefono kabina bat (4); telefono kabinaren (8); telefono konpainia (4); telefono konpainiak (5); telefono konpainiaren (4); telefono linea (13); telefono lineak (5); telefono mugikor (5); telefono mugikorra (8); telefono mugikorren (5)

telefono publiko (6); telefono publikora (4)

telefono zenbaki (94); telefono zenbaki bat (33); telefono zenbakia (87); telefono zenbakia eman (11); telefono zenbakia markatu (4); telefono zenbakia utzi (4); telefono zenbakiak (21); telefono zenbakian (4); telefono zenbakiarekin (5); telefono zenbakien (5); telefono zenbakira (17); telefono zerbitzu (4)

zure telefono zenbakia (4)

argia eta telefonoa (4); eskuko telefonoa (7); etxeko telefonoa (12); hartu zuen telefonoa (9); helbidea eta telefonoa (4); sakela telefonoa (6); sakelako telefonoa (47) telefonoa belarrira (4)

telefonoa eman (7); telefonoa eseki (21); telefonoa eseki zuen (8); telefonoa eskegi (40); telefonoa eskegi zuen (11); telefonoa eskuan (7); telefonoa eskuetan (5); telefonoa gakotu (5); telefonoa hartu (102); telefonoa hartu zuen (18); telefonoa hartzeko (4); telefonoa hartzen (11); telefonoa hoska (6); telefonoa hoska hasi (5)

telefonoa itzali (4); telefonoa jaso (4); telefonoa jo (8); telefonoa joka (15); telefonoa joka hasi (9); telefonoa kakoan utzi (5); telefonoa markatu (4)

telefonoa pausatu (8)

telefonoa utzi (8)

eskuko telefonoak (5); jo du telefonoak (5); jo zuen telefonoak (6); sakelako telefonoak (39)

telefonoak jo (69); telefonoak jo du (12); telefonoak jo zuen (40); telefonoak jotzen (10); telefonoak jotzen du (4)

telefonoan jarri (6)

eskuko telefonoaren (5); sakelako telefonoaren (12); sakelako telefonoaren bidez (4)

telefonoaren bestaldean (11); telefonoaren bestaldetik (5); telefonoaren beste aldean (10); telefonoaren beste aldetik (9); telefonoaren bidez (9); telefonoaren hotsa (5); telefonoaren ondoan (6); telefonoaren txirrinak (6)

sakelako telefonoari (4)

sakelako telefonoei (5)

sakelako telefonoek (7)

sakelako telefonoen (19); sakelako telefonoen bidez (5); telefonoen bidez (7)

telefonora deitu (10); telefonora hurbildu (9); telefonora joan (8); telefonora joan zen (4)

sakelako telefonorik (4); telefonorik gabe (8)

sakelako telefonotik (8); telefonotik deitu (4)

amari telefonoz deitzeko (4); dei diezadala telefonoz (4); deitu nion telefonoz (7); deitu telefonoz (6); deitu zidan telefonoz (4); deitu zuen telefonoz (6); deituko dizut telefonoz (4); esan zidan telefonoz (5); sakelako telefonoz (8)

telefonoz ari (13); telefonoz bestaldeko (6); telefonoz dei egin (7); telefonoz deika (8); telefonoz deitu (115); telefonoz deitu nion (8); telefonoz deituko (26); telefonoz deituko diot (4); telefonoz deitzea (12); telefonoz deitzeko (20); telefonoz deitzen (31); telefonoz deitzen dio (5); telefonoz deitzera (11); telefonoz egin (9); telefonoz esan (11); telefonoz hitz egin (22); telefonoz hitz egiteko (4); telefonoz hitz egiten (14); telefonoz hizketan (16); telefonoz hots egin (23); telefonoz jo (4); telefonoz kontatu (4); telefonoz mintzatu (4); telefonoz mintzatzen (5)

telefona mugikor (5); telefona urtekarian (4); telefona zenbaki (8); telefona zenbakietarat (7); telefona zenbakietarat deituz (5); telefona zenbakirat (13); telefona zenbakirat deituz (7); telefona zombakiala (7)

telefonako zenbaki (12); telefonako zenbaki hauetarat (5); telefonako zenbaki huntarat (4)

telefonogailu *iz* telefonoa.

Joseba haren intenzioaz konturatu zen eta azkarki jarri zuen eskua **telefonogailuan**. **Iñaki Zabaleta**

telefonogune *iz* enpresa edo kidekoen sailetan instalaturiko telefono lineak konektatzen dituen tresna.

Baina telefonistak, **telefonogunea** ibiltzeaz aparte atea irekitzeko eta datorrenari harrera egiteko lana bere gain dituenak, keinu bat egiten dio hatzez, telefonoz mintzatzen bukatzen duen bitartean. **Jon Alonso**

Elmer **telefonogune** batean dago, etiketaz jantzirik, belarri-tapagailuak dituela, Valentino bezain garaia, Doug bezain indartsu. **Lopez de Arana**

Telefonogunea antolatut beharko zuen martxa hartan. **Fernando Morillo**

telefonoka *adlag* telefono joka.

Hasieran Leon eta besteak soseguz aritu ziren, administratzaileei eta hara eta hona **telefonoka**; gero bidea libre utzi zieten beren gizonei. **Josu Zabaleta**

telefonomendekotasun *iz* telefonoarekiko mendekotasuna.

Prusiarrak nerbioak jota dago, berak nik baino **telefonomendekotasun** handiagoa du eta. **Harkaitz Cano**

telefonopeko *izlag* telefonoaren azpiko.

Isilik egon da hariaren beste aldekoarena entzuten, gorputza okertuta, ukondoa **telefonopeko** mahaitxoan bermatua. **Pello Lizarralde**

telefonotxo *iz* telefono txikia.

Honetan nengoela, neure buruaz kupitzen, ateko **telefonotxoak** jo zuen: gizon baten ahots ezezaguna zen, zera esaten: [...]. **Juan Martin Elexpuru**

Lucy sarrerako burdinesiarri eusten zioten zutabeetako batean zegoen **telefonotxorantz** joan zen. **Joxemari Iturralde**

telefonozain *(agerraldi 1 liburu 1ean)* iz telefonista.

Buruz nekien etxeko telefonoa, ez zen hain zaila salan sartu eta **telefonozainari** zenbakia markatzeko eskatzea. **Anjel Lertxundi**

telefoto *iz* telefono bidez bidaliriko argazkia.

Nazka-nazka eginda nengoen teletipoen, **telefotoen** eta Interneten erraztasun beldurgarri eta tiraniko hartaz. **Juan Luis Zabala**

telega *iz* lau gurpileko orga, zurezkoa eta estakirik ez duena, zaldiek garraiatzen dutena, Errusian eta erabiltzen dena. ik **tarantas**.

Telega izenekoa gurdi hutsa da, lau gurpilekoa, estali gabea eta zurezkoa oso-osorik. **Karlos Zabala**

Telega ez zen, ezta kalesa edo drojkia ere; ezeren antzik izanez gero, gurpil gainean jarritako angurri lodi bat ematen zuen. **Jose Morales**

Mikel Strogoff **telega** bat hartu beharrean egongo zen, tarantas bat aurkitzeko zoria izan ez balu. **Karlos Zabala**

Ez zen tarantas bat, ezta **telega** bat ere, postako berlina bat baizik, hautsez zeharo estalirik. **Karlos Zabala**

Gauzak zeuden bezala egonda, ibai ontzia baino arinagorik ezer ere ez zegoen Permera edo Kazanera iristeko, ez **telega**, tarantas, berlina, kalesa edo bestelako postako zalgurdirik, eta ez zaldirik ere. **Karlos Zabala**

Eite militarreko jaka batez jantziriko gizon bibotedun bat jaitsi zen **telegatik**. **Jose Morales**

Nire zaldietako bat utziko dizuet, zuen **telegari** lotuko diogu, eta bihar, beste istripurik ez badago, Jekaterinburgera sartuko gara elkarrekin. **Karlos Zabala**

telegarraio *iz* zientzia fikzioan, objektuak toki batetik beste batera bat-batean higitzeko prozesua. ik **teleportazio**.

Telegarraioaren eta DVDaren teknikak ikertzen. **Itxaro Borda**

telegeniko *izond* telebistaren pantailan ondo ematen duena.

Perfil **telegenikorik** behintzat ez zitzaion falta. **Patxi Iturritegi**

Gau hartan ez nuen eskura etxekoandreaen zaparradatik, haren olio frijituaren usainetik eta ilobaren dohain **telegenikoetatik** libratuko ninduen deusik. **Anjel Lertxundi**

Zeremonia handiusteko hartan den-denak **telegenikoa** behar zuen izan, baita bertan parte hartu zuten makina bat zaldiren gorotzak ere. **Txema Ramirez de la Piscina**

telegidatu, telegida, telegidatzen du *ad 1* urrutiko kontrolaz gidatu. • *irud/hed*

Pilotarien iritziak jasotzeko hitzordu bat antolatzea ondo dago, baina ez dadila izan **telegidaturiko** sasi-aukeraketa baten aitzakian. **Berria - Kirola**

2 (era burutua izenondo gisa)

Itsas-untzi **telegidatuak**. **Herria**

telegrafia 1 *iz* informazioa telegrafoaren bidez igortzeko teknika.

Faustinok, jakin ere ez zekien ezer **telegrafiaz**. **Txillardeg**

Telegrafiako torreta birrindu ziguten. **Koldo Izagirre**

Telegrafiarako kableak gero eta laburragoak ziren. **Jon Maia**

Errege jaunak berak eskatu zion, **telegrafiaz** abisu pasatzeko Santanderko Gobernadore jaunari. **Pello Zabala**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; corpusean **telegrafi** soilik)

Benetako historialaria bilakatu nahi banu bezala, neure **telegrafi** lanaz gain, irakurri besterik ez nuela egiten Lizarran. **Txillardeg**

telegrafiatu, telegrafia, telegrafiatzen du *ad* telegrafoz bidali.

Harry Blountek emandako berri hau **telegrafiatu** zuen: [...]. **Karlos Zabala**

Anek bazuen erantzungailuko mezuak **telegrafiatzeko** ohitura kuriosoa. **Unai Iturriaga**

Gero tsarrari **telegrafiatu** zion traidorea segada batean eroria zela. **Pello Lizarralde**

Telegrafiaturiko nien nire lankideei, ezagutzen ninduten... **Matias Múgica**

-Dagoeneko nik zera **telegrafiatu** dut: bikaina! -erantzun zion Harry Blountek hotz. **Karlos Zabala**

Bibliaren txatalak ari zen Harry Blount **telegrafiatzen**. **Karlos Zabala**

telegrafiko 1 *izond* telegrafoarena, telegrafoari dagokiona.

XIX. mendeko merkatu globalaren oinarri teknologikoak izan ziren kontinenteen arteko hari **telegrafikoa** batetik, eta bapozeko itsasontziak bestetik. **Iñaki Heras**

Haria moztuta ez daukaten postu **telegrafiko** guzti-guztietara. **Karlos Zabala**

2 telegrafoaren bidezkoa.

Mahai gainean Siemens Halske enpresak mende erdi bat lehenago fabrikatutako hiru telegrafo eta mezu **telegrafikoen** hiru erregistroliburu zeuden. **Fernando Rey**

Lagun bakar bat zegoen mezu **telegrafikoak** bidaltzeko aretoan. **Karlos Zabala**

telegrafikoki *adlag* adkor oso-osu labur.

Konta dezadan labur-labur, **telegrafikoki**, gertatutakoa: [...]. **Bernardo Atxaga**

Lau hitz soil erabiliz, nire egoera zein zen adierazi nion **telegrafikoki**: Rita izeneko emakume batez maiteminduta nengoen, bi seme egin nituen berarekin eta hirugarrena, neskatxo bat, urtarrilerako espero genuen. **Hasier Etxeberria**

telegrafilar *iz* telegrafista.

Baina ez nuen batere garbi ikusten nik, derrefentian, **telegrafilar** -lanetan ongi moldatzea. **Txillardeg**

telegrafista 1 *iz* telegrafo mezuak igortzen dituen pertsona. ik **telegrafilar**.

Telegrafistak SOS bat igorri du gure posizioa emanez. **Koldo Izagirre**

Handik gutxira ondoko gelako **telegrafistak** bere teklatzeari ekin zion. **Koldo Izagirre**

Gaueko guardiaaldian **telegrafistari** gonak altxatu eta ipurdian geltokiko ziguilak jarri zizkiola. **Fernando Rey**

Funtzionarioek, Hradecetik etorriek, lehenbizi soilguneari eta gero **telegrafista** ederrari erreparatuta, hasperen egin zuten eta buruari eragiten zioten eta handik aurrera gogo biziagoz saiatu ziren kasua ikertzen. **Fernando Rey**

2 (hitz elkartuetan)

telegrafo 1 iz mezu kodetuak seinale elektriko bihurtuz hari eroaleen bidez igortzeko sistema.

Jendea egunero harritzen zen asmakuntza berriekin: lurrun ontzia, tren, **telegrafoa**, argindarra, harako edo honako lurraldearen aurkikuntza. **Karlos Zabala**

1843an: Samuel Morsek bere izeneko Morse Alfabetoa asmatu zuen, eta, **telegrafoa** medio, erabilgarri gertatu zen, itsasoaren alde batetik bestera berriak eta datuak bidaltzeko. **Pello Zabala**

Bide haren bi aldeak **telegrafoaren** zutoinen eta harien bidez elkarrekin albaindurik zeudela ematen zuen. **Lopez de Arana**

-Albisteak normalean **telegrafoz** jasoko ditugula. **Txillardegi**

Krasnoiarsten haren zerbitzuez ezin baziren baliatu, nahiz eta hiri hori Irkutskekin **telegrafoz** komunikaturik egon segur aski, asmoa hartua zuen sendo: Udinskeko posturaino joango zen. **Karlos Zabala**

2 mezu horiek hartzeko eta bildatzeko tresna.

Telegrafoetan, puntu eta marra, puntu eta marra jasotzen ziren berriak gero eta kezkarriagoak ziren errepublikar gudarosteentzat. **Jon Maia**

Telegrafoak jo eta maniobrari on bat segituan alkatzen da, aparatuaren palankatxoa askatu, bere geltokiaren adierazgarria emandakoan berriz eseri eta lozorroan gelditzen da, baina **telegrafoaren** zinta zurian mezua bukatzen denean, maniobraria esnatu egiten da, hartu izanaren seinalea eman eta **telegrafoaren** giltzarekin geltokiaren adierazgarria ematen du. **Fernando Rey**

Telegrafoak beren kasa Morse seinaleak ematen hasi ziren. **Fernando Rey**

Telegrafoa etengabe ari, Villapadierna jeneral liberala Erriberatik harantz zihoala jakin genuen guk Zugarramurdin. **Txillardegi**

Telegrafoaren mahaiak lehengo leiho beraren azpian segitzen zuen. **Fernando Rey**

Komunikazio bulegoan etengabean **telegrafo** eta telefonoen urruma goxoa eta txilinhotsa eta murmurioa aditzen ziren. **Fernando Rey**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Telegrafo -sare baten antzekoa da nerbio-sistema: errepikagailu asko ditu, eta leku batetik hartu eta beste batera igortzen ditu mezuak. **Irene Aldasoro**

Hurbildu ahala, etxea **telegrafo** bulego bat zela konturatu zen. **Karlos Zabala**

Telegrafo etxe bakoitzean, enplegatuek, leihatilan eserita, eskuratu ahala bidaltzen zituzten mezuak! **Karlos Zabala**

Zure lana ez da erruz aldatuko: **telegrafo** -lana, frantses bisitarien itzultzaile, frantses kazeten irakurle... **Txillardegi**

Orobat, **telegrafo** zerbitzua, hariaren bidez harremanetan segitzen zuten puntuetaraino, bederen. -Baina ba al dago, egon, oraindik, gurean zutik dirauen **telegrafo** -tantairik bat ere? **Karlos Zabala**

Bizikleta **telegrafo** -habearen kontra utzita. **Koldo Biguri**

Gizon bat urkatu zuten **telegrafo** zutoinetik, lapurreta batean, hordi handi, beste gizon bat hil zuelako. **Iñigo Aranbarri**

-Handik aurrera **telegrafo** haria moztuta dago? **Karlos Zabala**

Orain etenda daude mendebaldeko eta ekialdeko Siberien arteko bidea eta **telegrafo** haria! **Karlos Zabala**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Morse-**telegrafo** tresneria osoa beste leku batean aurkitu dut. **Txillardegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hirugarren telegrafo habearen (4); **telegrafo etxea** (3); **telegrafo habearen** (7); **telegrafo habearen kontra** (3); **telegrafo habearen ondoan** (4); **telegrafo haria** (3)

telegrafoaren mahai gainean (4); **telegrafoaren mahaian** (4)

telegrama 1 iz telegrafoz igorriko mezua; mezu hori hartzen den orri berezia.

Telegrama 1937ko uztailearen 25ekoa zen. **Edorta Jimenez**

Mr. Denschek **telegrama** piloa zeukan eskuetan. **Lopez de Arana**

Telegrama pilotxo bat neukan, ireki zain. **Txillardegi**

Valentziako geltokitik **telegrama** bat bidali zion familiari. **Josu Zabaleta**

-**Telegrama** bat iritsi da zuretzat. **Patxi Zubizarreta**

Rakelek jaso al du nire **telegrama**? **Patxi Zubizarreta**

Mariok Parisetik gure aitari **telegrama** bidali zionean zera galdetzeko: "egokia ote ni Adrianoren hiletara?", gure aitak istanteko erantzun zion, zakar, beste **telegrama** honekin: "tokiz kanpo zu hiletan". **Fernando Rey**

Ondoan eseri zitzaidan harrizko bankuan eta **telegrama** irakurri zuen. **Ander Irizar**

2 (hitz elkartuetan)

Mikelete bat ahaleginduko zen **telegrama** -papera gora igotzen. **Pello Zabala**

Bi emazte behartsu eta mutil **telegrama** -partitzailea zeuden krespoian itsatsiriko txartela irakurtzen. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

igorritako telegrama (3); **telegrama bat bidali** (7); **telegrama bat bidaliko** (3); **telegrama bat jaso** (8); **telegrama bidali** (3); **telegrama igorri** (3); **telegrama jaso** (3)

telehezkuntza (*corpusean tele-hezkuntza soilik*) iz ordenadorearen bidezko hezkuntza.

Esaterako, Internetek tele-lan edo **tele-hezkuntza** alorrean sortzen dituen aukerak izugarriak dira noski. **Iñaki Heras**

teleikusle (*orobat tele-ikusle*) iz telebista ikusten duen pertsona.

Teleikusleen ehuneko 23tik gora eramaten omen du ETBk. **Pello Salaburu**

Ikusle eta **teleikusleak** harri eta zur, joko geldirik, publizitate tartea bere garaian sartu ezin, sistema hiperkapitalista keinu single batek blokeatuta. **Harkaitz Cano**

Piztu ziren argiak, hasi ziren musikak, poztu ziren ikusleen eta **teleikusleen** bihotzak. **Karlos Linazasoro**

Nik aterako zaituztet, ikusle eta **teleikusle** errespetagarriak, behingoz zalantza honetatik! **Karlos Linazasoro**

Teleikusle asko dira bertsoak entzun besterik nahi ez dutenak. **Berria - Kultura**

teleirudi iz telebista bidezko irudia.

Bilboko Guggenheimaren paretik pasatzen ikusi nuen **teleirudi** batzutan eta supituan harrapatu ninduen ikarak. **Hasier Etxeberria**

teleizar *(corpusean tele-izar soilik) iz* telebistako izarra.

Duela gutxi, telebistako izar horietako bat izan zen zepoan erori zena: Ana Rosa Quintana, bigarren izena behintzat ezin hobeto jarria duen **tele-izar** loka. **Joxerra Garzia**

telejanari *iz* telefonoz eskatzen den janaria etxeetara bidaltzeko sistema.

Metroak asfaltoak argiek taxi beltzek irlandar erako tabernekin Green Parkeko kategorriekin indioen durbanteekin alkohol-dendetako Kaliforniako ardoekin **telejanariak** nesken betazal margotuekin garbitekin ederrek eta eraikin ofizialeko bandera britanikoen neka-neka eginda lagatzen zutela erabaki zuen. **Lutxo Egia**

teleka 1 *iz* kalaka.

Gizona, inguruari behako bat eman ondoren, berriz ere lehengo **telekari** lotzen da, bakarsolasean. **Jose Angel Irigaray**

2 telekan *adlag* kalakan.

-Bai horixe! Aldatu!, -gizona bere **telekan**. **Jose Angel Irigaray**

telekamera *iz* telebista kamera.

Telekameren argitan kiskali gabe, ezin zuela ataririk lasai irten esan zidan Ritak telefonoz. **Hasier Etxeberria**

telekate *iz* telebista katea.

M6 **telekateko** Hot Form emankizunaren aurkezle astana baten itxura zuen. Sevillako eta Valentziako **telekateetatik** ere etorriak omen ziren kazetariak espreski berari galdetzeraz. **Itxaro Borda**

telekinesia *iz* parapsikologian, gauzaki materialen higidura, borontateak, indar fisikoa erabili gabe, eragiten duena.

Telekinesia fenomeno metapsikiko bat da, zeinaren bidez objektuak leku batetik bestera eraman ahal baitaitezke... **Karlos Linazasoro**

Telekinesiaren bidez nire pertsonalitatea beste gizaki batengan txerta dezaket ukimenaren bidez. **Karlos Linazasoro**

telekirurgia *iz* telebista sistema baten eta robotikaren bidez urrun dagoen pazienteari ebakuntza egiteko metodoa.

Duela lau urte egin zuten lehen aldiz ozeanoz haraindiko **telekirurgia** ebakuntza bat. **Berria - Harian**

teleko *iz* telekomunikazio enpresa baten akzioa.

Telekoek, aspaldiko partez, eurengan fedea badela erakutsi zuten: Deutsche Telecom %1,01 igo zen. **Berria - Ekonomia**

Europako **teleko** nagusiek 23.500 milioi euro banatuko dituzte aurten euren akziodunen artean. **Berria - Ekonomia**

JPMorgan bankuak Europako **telekoen** gaineko gomendioa baikortu zuen atzo. **Berria - Ekonomia**

Auna **telekoa**, Telecinco eta Ferrovialen (% 1,58) kontrolpeko Cintra autobide kudeatzailea aipatzen dira gehien. **Berria - Ekonomia**

telekomandagailu *iz* teleagintailua.

Telekomandagailua eskuan hartuz, paretan ezarria zen telebista piztu zuen eta soinua apaldueta bere bizitzako 'zapping' eroena egin zuen! **Ramuntxo Etxeberri**

telekomando *iz* teleagintailua.

Telekomando bat dago ezkerreko gau-mahaitxoan, telebista pizten dut eta zapi egiten hasten naiz. **Mikel Hernandez Abaitua**

Telekomandoarekin pizteko agindua noiz emango zain dago. **Berria - Gaiak**

Gero **telekomandoarekin** hemendik eta handik pikatu zuen pixka bat, gauerdiko film erdi erotiko erdi ezer-ez horietako bat aurkitu arte. **Unai Iturriaga**

telekomedia *iz* telebistan emateko humorezko saila.

Orduko **telekomedia** arrakastatsuren batean. **Xabier Montoia**

Ez da **telekomedia** bat bezain azkarra, baina ez du antzerkiko gidoiek izan ohi duten kutsua. **Berria - Kultura**

telekomertzial *iz* telebistako iragarkiak.

150 pertsona behar dituzte casting batean, 5 urtetatik 50era bitartekoak, nobelak, pelikulak eta **telekomertzialak** grabatzeko. **Pako Aristi**

telekomunikabide *(7 agerraldi, 2 liburu eta 5 artikulutan) 1 iz* telekomunikazioa.

Maisu industriala, langilea, **telekomunikabideetako** ingeniaria, ekonomiaki ikaslea...; bakoitzak berea esan du. **Rafa Egiguren**

Telekomunikabideen bilakaera ona izan zen atzo Europan: Deutsche Telecom %0,79, Italiak %1,07 eta Frantsek %1,18 irabazi zuten, gurean Edurnezurik %0,93.

Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan)

Hautagai zerrendan leudeke Auna **telekomunikabide** enpresa, Gamesa Aeronautica eta Vocento hedabide taldea, besteak beste. **Berria - Ekonomia**

Alcatel (%1,22) Frantziako **telekomunikabide** enpresak 227 milioi euro inguru bideratuko ditu AEBetako bi enpresa txiki erostera, mugikorretarako softwarea eta bideo-konferentziak lantzeko. **Berria - Ekonomia**

telekomunikazio *(101 agerraldi, 5 liburu eta 65 artikulutan) 1 iz* urrutitiko komunikazio sistema, bitarteko elektriko edo

elektromagnetikoz gauzatzen dena.

Telekomunikazioetan eta informazioaren tratamenduan izan den aurrerapen teknologikoei asko erraztu dute zuzendaritza deszentralizatua eta malgua. [Iñaki Heras](#)

Iraganean hori ez zen beti egingarria izaten, sektore honetako adar handi gehienak estatuaren monopolio zirelako: elektrizitatea, ura, **telekomunikazioak**, aireko garraioak, bankuak, aseguruak. [Koro Navarro](#)

Informatikak eta **telekomunikazioak** gizakien harremanetan duten eragina. [Berria - Gaiak](#)

Telekomunikazioak hobetzea da satelitearen helburua. [Berria - Gaiak](#)

40.000 bat enpresek **telekomunikazioen** euskal operadorea dute hornitzaile. [Berria - Ekonomia](#)

Aurten **telekomunikazioen** merkatuaren %4 gehiago eskuratu nahi du Euskaltelek. [Berria - Ekonomia](#)

3.200 milioi euro lortzea dauka helburu **Telekomunikazioen** Klusterrak. [Berria - Ekonomia](#)

Internet eta **telekomunikazio** digitalak. [Berria - Ekonomia](#)

Morse kodea aldatzea erabaki du **Telekomunikazioen** Nazioarteko Batasunak, a bildua sartzeko. [Berria - Gaiak](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Batetik, Brandeburgoko atea okupatu genuen, eta, bestetik, Alexander Platz **telekomunikazio** dorrrera igo ginen. [Edune Elizondo](#)

Chautara hirian, **telekomunikazio** zentro bati eta Polizia etxeari oldar egin zieten gerrillariak. [Berria - Mundua](#)

«**Telekomunikazio** sistema integralak» eskainiko dizkie bezeroei. [Berria - Ekonomia](#)

Sistemak azken belaunaldiko **telekomunikazio** baliabideak erabiltzen ditu: GPS mapak, deien jatorria ezagutzeko aparatu sofistikatuak... [Berria - Euskal Herria](#)

Frantziako Tolosako SCOPELEC kooperatibak, 130 langile dituen eta **telekomunikazio** sareetan lan egiten duen SAUGE enpresa biarnesa erosi du. [Herria](#)

Arriskua badagoela onartu behar du **telekomunikazio** industriak. [Berria - Gaiak](#)

Telefonica **telekomunikazio** enpresak 2.203 milioi euro irabazi zituen iaz. [Berria - Ekonomia](#)

France Telecom **telekomunikazio** taldearen historian lehen aldiz Frantziako Estatuak partaidetzaren %50etik behera izango du. [Berria - Ekonomia](#)

Finantza eta **telekomunikazio** zerbitzuak. [Iñaki Heras](#)

Telekomunikazio ingeniari izateko ikasketak bukatzen ari da, LABeko Garraio eta **Telekomunikazio** arduraduna. [Berria - Gaiak](#)

Irrati lizentziak banatu zirenean **Telekomunikazio** zuzendari nagusi zen Sanz Barea. [Berria - Euskal Herria](#)

Epaileek argi eta garbi erran dute garai hartako Herri Lan, Garraio eta **Telekomunikazio** sailburu Jose Ignacio Palaciosen erabakia legez kanpokoia izan zela. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

telekomunikazio enpresa (8); **telekomunikazio enpresak** (3)

telekomunikazioen klusterrak (3)

telekonferentzia *iz* internetan bidez egiten den elkarrizketa.

Zeelanda Berrian bizi dira denak, eta **telekonferentzia** bidez hartu die epaileak deklarazioa. [Berria - Gaiak](#)

telekopia *iz* telefonoaren bidez kopiak egiteko sistema.

Suitzako zerbitzu sekretuek harrapatutako txosten hori Egiptoko Atzerri Ministerioak Londresko enbaxadara bidalitako sekretupeko **telekopia** bat zen. [Berria - Mundua](#)

Telekopia horretan, Egiptoko diplomazia agintariak zehazten zuten iturri fidagarri bazekitela Iraken eta Afganistanen atxilotutako 23 ustezko ekintzaile islamista [...] CIAren atxilotze gune sekretu batean galdekatu zituztela. [Berria - Mundua](#)

telekritikari *(corpusean tele-kritikari soilik)* iz

 telebistan aritzen den kritikaria.

Euskal Telebistan lankide izana nuen nik **tele**-kritikari hori. [Joxerra Garzia](#)

telekutre *adlag adkor*

Bakar-bakarrik **telekutre** jartzen duenerako gordetzen ditu. [Jokin Muñoz](#)

telelaguntza *(orobat tele-laguntza)* iz

 pertsona adindunei eta ezinduei zuzenduriko zerbitzua, larrialdi egoeretan laguntza bideratzen diena. ik **teleasistentzia**.

Zerbitzu hori hobetu nahian, kalean ere erabili daitezkeen telealarma edo **tele-laguntza** sistemak ari dira ikertzen Matia Fundazioko Ikerketa eta Garapenerako departamentuan. [Berria - Euskal Herria](#)

Telelaguntza eskatu duen ezinduaren egoeraren arabera, familiarekin edota sendagilearekin jartzen dute harremanetan, eta hala behar izanez gero, larrialdi zerbitzuak bidaltzen dituzte ezinduari laguntzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Instalazioa **Telelaguntzaren** sistemara konektatuta dago, eta abisua SOS Deiei pasatzen zaie zuzenean. [Berria - Euskal Herria](#)

Gipuzkoako diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez Txabarrik eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburu Javier Balzak SOS Deiarekin **Telelaguntza** zerbitzuak hobetzeko hitzarmena aurkeztu zuten atzo. [Berria - Kultura](#)

telelan *(orobat tele-lan)* iz

 internet bidezko lana.

Hegazti gripeak eragin ditzakeen galerak kontuan hartzeko eta **telelana** erabiltzeko eskatu dute. [Berria - Gaiak](#)

Internetek **tele-lan** edo tele-hezkuntza alorrean sortzen dituen aukerak izugarriak dira noski. [Iñaki Heras](#)

telemaratoi iz

 telebistaren bidez egiten den ongintzako diru bilketa.

Benetako solidaritatea (ez **telemaratoietakoa**) errealitate bihurtu da, eta bidezko merkataritza-formak errekuperatu egin dira (trukea, kasu). [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Telemaratoi baten bezperan, emakume misterioitsu bat iritsiko da Marina Urkijo antolatzailearen etxera. [Berria - Kultura](#)

telemarketin 1 iz

 telefono bidezko marketing mota.

Lanalden-ek, **Telemarketineko** alorrean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan «nagusi izateko», abian jarri du Derion 1.500 metro koadroko enpresa bat. [Berria - Ekonomia](#)

CCOOk eta UGTK grebara deitu dituzte biharko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **telemarketineko** 3.000 langileak. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan)

Bai Esan **telemarketin** enpresako 70 langile inguruk manifestazioa egin zuten atzo Donostian, «hitzarmen duina» aldarrikatzeko asmoz. Berria - Ekonomia
Bizkaiko **telemarketin** sektoreko langileek lanuztea egin zuten atzo, CCOOk eta UGTK deituta. Berria - Ekonomia

telematika 1 iz telekomunikazio zerbitzua, datu informatizatuak telefono bidez igortzea ahalbidetzen duena.

Komeni da jakitea, liburu tradizionalaz aparte, gaur egun euskarri gehiago ere badela: mikrofilmak, mikrofitxak, audio- edo bideo-zintak, euskarri magnetikoak eta, jakina, **telematika**. Askoren artean

2 (hitz elkartuetan) ik telematiko.

Eraikinak, ikasgeletarako eta laborategietarako hornidura iraunkorrak, era askotako zientzia azpiegiturak, eta informatika eta **telematika** produktuak dira, besteak beste, multzo horren barruan sartzen direnak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Informatika eta **telematika** tresneria berriak mila bider areagotu ditu Platonen mitoak idazketari erantsitako arriskuak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

telematiko izond telematikarena, telematikari dagokiona. ik telematika 2.

Irakaskuntza **telematikoan** oinarrizko irizpide akademiko, metodologiko, tekniko eta administratiboak finkatuko dituzte. Berria - Euskal Herria
Ordu **telematikoak**, aldiz, Eusko ikaskuntzak antolatu ditu. Berria - Kultura
Presoak eskumuturreko **telematiko** bat eramatea onartu beharko du, une oro non dagoen kontrolatu ahal izateko. Berria - Euskal Herria
Sistema **telematiko** eta informatikoen ahalmena izugarri handitu da, etaaldi berean prezioek oso beherantz egin dute. Iñaki Heras
Hego Amerikako toki askotan ez dago sare **telematikorik**, eta txartelarekin ordaintzean kalkoekin egiten da. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskumuturreko telematiko bat (5)

eskumuturreko telematika (3)

telemedikuntza iz telematikaren bidezko medikuntza.

Azaldu zuenez, **telemedikuntzak** beren egitasmoetan sakontzen lagundu die. Berria - Harian

telemetria iz distantziak telemetroaren bidez neurtzea.

Baina horren gainean azterketa sakonak egin dira, eta Italiako Cineca enpresak **telemetria** nahiz bideo irudiekin ondorio mamitsuak atera zituen. Berria - Kirola
Bigarren saioa amaitzeko bederatzita minutu faltan, taldeak **telemetria** bidez ignizio sisteman arazo bat sumatu eta berehala gelditzeko agindu zion. Berria - Kirola
Telemetriaren datuek hipotesi honekin bat datozen zenbakiak erakusten dituzte. Berria - Kirola

telemetrista iz distantziak telemetroaz neurtzen dituen pertsona.

Lau ingeniari, bi **telemetrista**, auto bakoitzeko hiru mekanikari, bi kamioi gidari, sukaldaria... Berria - Kirola

telemetro iz betaurreko mikrometroduna, objektiboarekiko distantzia neurtzen duena.

Bestela, **telemetro** bat jar dakiok kamerari. Irene Aldasoro
Telemetro elkartuan, objektiboari estekaturik dago doikuntza-botoia palanka edo espeka bidez, halako moduz, ezen **telemetroa** behar bezala doiturik dagoenean, zehatz fokaturik geratzen baita objektiboa. Irene Aldasoro

telemorroi iz adkor telebistaren mendekoa.

Batzuetan memoriak min egiten du, eta, hala ere, min horrexek esaten dizu oraindik bizirik zaudela, oraindik sentitzen duzula, oraindik ez zarela soilik iraupenerako bizi den **telemorroi** bat. Berria - Kultura

teleñeko iz espainiar telebistako programa bateko panpinen izena.

Teleñekoetako agure pare marmartia zirudien biko hori izan zen saioa piztu zuen pindarra aurrea, eta txingarrei sugarra atera zion hauspoa hurrena. Herriar xelebreari **teleñekoan** baten izena jartzen genion; barregarria iruditzen zitzaigun oro **teleñekoz** bataiatzen genuen. Berria - Kultura

telenobela 1 iz telebistan emateko telesail melodramatikoa.

Gizentzeko ezkondu diren horiek, bizitza zelulitisa pilatzen ematen dutenak eta barizeen kontrako galtzerdiak janzten, **telenobelak** ikusten, telebistako lehiaketei deika [...]. Karlos Zabala
Horrenbeste jakin behar zuen anaiak, alegia, bere miserien nolabaiteko gozagarria bilatzen zuela jendeak **telenobeletan**, horregatik zutela horrenbesteko arrakasta herrialde pobreetan. Imanol Zurutuza
Carolina Tejera eta Luis Fernandez dira protagonistak, lehenagotik ere *Mujer secreta* **telenobelan** senar-emazte istilutsuen paperean ikusi ditugunak. Pako Aristi
Badauka zarauztarrak **telenobeletako** senar jeloskorren itxura, ile txuriak estaltzeko tintea joaten zaionean. Pako Aristi
Hona hemen nire **telenobelaren** beste atal bat, eta **telenobela** diot honezkero horixe besterik ez dirudielako. Patxi Zubizarreta
Telenobela txoro horietako bat osatzeko lain eta gehiago. Hasier Etxeberria
Musika ezagutarazi zidan zure amak **telenobela** zozoanek maite zituen. Ramuntxo Etxeberri

2 (hitz elkartuetan)

Venezuelako **telenobela** txatxar horietako bat ematen zuen. Antton Olano

teleobistitis iz

Alferrik da, zeharka bada bere, telebistaren giroan ibilki -nahiz kitzikatzen, kronikatzen edota lotan izan- **teleobistitis** kronikoa zaitzu lotzen burmuinean eta, segidan, gainbeherako narriadura hedatzen gorputz osoan barna. **Jose Angel Irigaray**

teleobjektibo *(orobat tele-objektibo)* iz urruti dauden gauzen argazkiak ateratzeko edo filmak egiteko objektiboa.

Teleobjektiboaz ehun bat metrotik atera zuen foto honetan, gizon bat ageri da, aurpegia odoletan, burua bendaz lotuta, tapaki urdina duela soingaineko. **Iñigo Aranbarri**
Ivy agur-egile filmatu nuen (neure **tele-objektibo** berriarekin), baita begiratu hutsera aurpegiak zeharo antzemaneniz bihurtu eta gero ere. **Joxe Austin Arrieta**
Ivy Manhattango kaian, haren agur-keinuak nire **teleobjektiboan** barrena, goiznabarreko eguzkia Hudsonen gainean, atoiotzi beltzak, Manhattan-Skyline, kaoiak. **Joxe Austin Arrieta**

teleologia iz azken kausen azterketa.

Hala eta guztiz ere, **teleologiak** ez du irudi onik ezagutza zientifiko gisa. **Askoren artean**
Arrazionaltasunaren xedea eta zientzien **teleologia**. **Xabier Arregi**
Argi dago gure adierak ez duela inolako **teleologiarik** edo helbururik sartzen ikerketa zientifikoan. **Jenaro Garate**
Euren xedea **teleologiak** eta totalizazioak auzitan jartzea da. **Xabier Arregi**

teleologiko *izond* teleologiarena, teleologiari dagokiona.

Funtzionalismo **teleologikoa**. **Askoren artean**
Guk bilkura **teleologikoa** (*nexus finalis*) itxaroten genuenean, mekanikoa edo fisikoa (*nexus effectivus*) soilik gertatu zela. **Ibon Uribarri**
Platon eta Aristotelesek alor **teleologikoan** kokatu zituzten lege naturalak. **Askoren artean**
Erdi Aroko teologoak estoikoak bezain **teleologikoak** ziren, baina kristauek izadiaren asmoa kendu zuten Jainkoaren borondatea sar zedin. **Askoren artean**
Benetako diskurtsoa, baina existitzen ez dena bere garbitasunean, historiaren muga **teleologikoetan** ez bada. **Xabier Arregi**
Berari [...] galdegingo diogu jatorriari buruz, lehen eraketari buruz, ostertz **teleologikoari** buruz, denborazko jarraitasunari buruz. **Xabier Arregi**

teleologismo iz teleologiaren dagokion sistema.

Teleologismo horretan paradoxa bat aurkitzen dugu, alegia, Motorrak hunkitzen du, emoziona gaitzake, baina bera ez da inarrosia. **Askoren artean**

teleologo iz teleologian aritzen dena.

Hitz hezi irendu horixe da teologoez eta **teleologoez** maite dutena, hotsik gabeko hitza, esanahiaren sasiak jana, aho-mihiz ebaki baino lehen noraino iritsiko den ikusia dagoena. **Iñaki Segurola**
Hitzek, hitz bizi sarkor batzuek, bere lana ongi egiten asmatzen dutenean, teologoak eta **teleologoak** kabitu-ezin batek menderatzen ditu, eta ikara batean galdegiten dizute: bai, oso ondo, baina... zer esan nahi duzu zehazki? **Iñaki Segurola**

teleordenatu, teleordena(tu), teleordenatzen du *ad adkor*

Bizitza, hain segur, jendeek lurra edo ludia deitu duten planetatik behaturik aztertzen, sailkatzen, entelegatzen, ordenatzen eta **teleordenatzen** usatua zara irakurle. **Jose Angel Irigaray**

telepaisaje iz teleobjektiboz hartutako paisaia.

Adibidez, **telepaisajea**. **Jose Angel Irigaray**

telepata iz telepata-ahalmena duen pertsona.

Halabeharra izan zen, edo bestela telepata: musikariak oso **telepata** onak izaten dira. **Bernardo Atxaga**

telepatia 1 iz pentsamenduaren bidezko eta distantzian zeharko komunikatze sentipena; zentzumenez kanpoko komunikazioa.

Ahalmen misterioetsuz, **telepatiaz**, espirituez, hipnotismoaz, fatalismoaz eta horrelakoez idazten duzulako etorri naiz. Halabeharra izan zen, edo bestela **telepatia**: musikariak oso telepata onak izaten dira. **Koro Navarro**

Eta horrelaxe gaude, egon egonean, **telepatia** bagenu moduan, hari ezetz eta besteari ezetz, hotelean egotea nahiago dugula esanez. **Edorta Jimenez**
Nahiko nukeen arren, ez naiz aztia, gasnak ez nau pertzepzioaren ateen haraindira erooten, **telepatia** zein sinpatiaren orde zait urdepatia. **Itxaro Borda**
Titiak muxukatut zizkion **telepatiaz**, titiburuak gogortu arte. **Unai Iturriaga**

2 (hitz elkartuetan)

Halako gau batean, **telepatia** saio nekagarri baten ostean hizketan ari ginela, zera galdetu nion, ea zergatik zen hain lausoa eta konplexua alkimisten hizkera. **Xabier Aranburu**

telepatiko *izond* telepatiarena, telepatiari dagokiona.

Ezer ulertzen ez dudanean ere, orduan ere ukatu egiten dut arimen artean komunikazio **telepatikorik** badenik, horretarako neure suma aski dudala ziur bainago. **Josu Zabaleta**
Burura etorri zait bat-batean, konexio **telepatiko** bati esker edo, nire lagunen bat oraintxe pentsatzen ari dena. **Bernardo Atxaga**
Azkenean ez zuen ezertarako balio izan korronte **telepatikoan** bitartez zu erakarri nahi izatea. **Bego Montorio**
Larrua jotzera joaten ginen besterik gabe, bakarrik uzten gintuzten ia guztietan, salbu eta nik gogorik ez nuenean -oso gutxitan-, eta horrelakoetan konturatu egiten zen sistema **telepatikoren** baten bitartez edo. **Karlos Zabala**
Esanahi-truke bat, negoziazio bat, ulermen-arintasun bat; guztiak **telepatikoak** ote ziren pentsarazteko bezain nabarmena inoiz. **Xabier Olarra**

telepatista *iz* telepatiaren bidez komunikatzen den pertsona.

Ekialdeko Asian, Mendebaldeko kausa ezbehar larria pairatzen ari zen une batean, Kremlineko estatu-politikari ezpainixien bihozterara begiratzeko gai zen Mendebaldeko **telepatista** ohar zitekeen beraien txinatar aliatuen arrakasta ikusgarriak sentimendu nahasiekin hartzen zituztela. **Iñaki Mendiguren**

telepolis *iz* hiri elektronikoko globala.

Zein dira pólisaren mugak? lurraldea, Lurra? kosmopolisean ala **telepolisean** bizi gara? **Askoren artean**

teleportatu, teleporta, teleportatzen da/du *ad* objektuak toki batetik beste batera bat-batean higitu. ik**teletransportatu**.

Bi fotoi 800 metrora **teleportatu** dituzte zientzialariek. **Berria - Gaiak**

Bi fotoiak lekuz aldatzeko beira zuntza erabili dute, eta, hala, fotoi gurutzatuak laborategitik kanpo **teleportatzea** lortu dute. **Berria - Gaiak**

Tarteko lotura barik, atomoen ezaugarriak **teleportatu** dituzte. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

teleportatzea lortu (3)

teleportatze *iz* objektuak edo tasunak toki batetik beste batera bat-batean higitzea.

Bi fotoi gurutzaturen **teleportatze** distantzian errekorra lortu du Austriako zientzialari talde batek. **Berria - Gaiak**

teleportazio *iz* teleportatzea. ik **teletransportazio**; **telegarraio**.

Ez da lehen aldia **teleportazio** kuantikoaren oinarritzko teoria hori praktikan jartzen dela. **Berria - Gaiak**

telepredikari *iz* telebistaren bidezko predikaria.

Liberiako meategiak ustiatzeko hitzarmen polemikoenetako bat AEBetako **telepredikari** Pat Robertsonek sinatu zuen, 1999an. **Berria - Mundua**

telepresentzia *iz* ordenagailu bidez sortu den toki batean fisikoki egoteko sentipena.

Ciberi buruz mintzatu zen atzo Richard Stallman Linux programaren sortzailea; gaur, berriz, telebirtualitateari eta **telepresentziari** buruz ariko dira zenbait aditu. **Berria - Kultura**

telesail 1 *iz* telebistan kapituluka ematen den sail narratiboa. ik**telenobela**.

Ekoizleen asmoa atal pilotu bat izatea da, benetako helburua 26 ataleko **telesail** bat egitea baita. **Berria - Kultura**

Hor ibiltzen zen beti, *Expediente X*, *Milenium* bezalako **telesailletara** edo *Bildotsen isiltasuna* edo *Seven* bezalako filmetara kateaturik. **Antton Olano**

Greg, egia da, gustura egoten zen bere **telesail** eta western gogokoenei begira. **Xabier Olarra**

Horretaz gain, [...] ETBko "Hasiberriak" **telesailleko** platoko gidogile, eta "Baietz gogoratu!" programaren gidoilari izan da. **Ana Urkiza**

Telesail onak ez direla inoiz gelditzen frogatzen du aurten ETB euskal gateak, *Goenkale* sailarekin. **Herria**

Beharbada **telesail** merke sobera ikusia naiz. **Aingeru Epaltza**

Entzule kopuru handien duten **telesailak**, edo harrera handien duten irrati saioak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Antonio Merceroren *Verano azul* **telesailleko** doinu ezagunari esker. **Berria - Kultura**

Telesailletako esaldi estereotipatuak erabiltzen zituztela irudituz zitaion Porturi. **Patxi Iturritegi**

Nadine Trintignantek zuzendu *Colette* hiru ordu irauten duen fikzioa **telesailen** sailean lehiatuko da. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Gaur egun, filme eta **telesail** banatzaile eta ekoizlea da nagusiki MGM. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

goenkale telesailen (3)

telesailo 1 *iz* telebista-emanaldia.

Orain dela hiru bat urte, Anthony Perkins aktoreari elkarrizketa bat egin zioten seriotzat har zitekeen **telesailo** batean. **Bernardo Atxaga**

Ez da atzo goizekoa zuzenekoak bailiran saltzen dizkiguten **telesailo** aurrez grabatuen asmakuntza. **Harkaitz Cano**

"La clave-n bezala", bota du Luismarik, beste **telesailo** baten aipua eginez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

60ko hamarkadako *Estudio 1* **telesailoko** eskema estetikoetan geratu nahi ez badugu. **Berria - Kultura**

Zerbait ona badu **telesailo** horrek, ordutegia da. **Ramon Saizarbitoria**

Amaren kontakizunean erakutsi duen bitalidade horrekin berarekin mintzatzan da holakoetan; **telesailoia**, aurreko kontakizunaren segida den itxura ematen du. **Xabier Etxabe**

2 telesaila.

Made in Venezuela **telesailoetan**, euskal abizenak dituzte aberats zikoitzek, andra-gizonik okaztagarrienenk. **Iñigo Aranbarri**

telesilla *iz* teleferiko mota, kable bakar batetik zintzilik dauden aulki sail batek osatua.•

Soil-soilik Karmelo, Adela eta [...] Dan bera geratu dira emoziorik bortitzenak dastatu gabe; "erotuta zaudete: gu **telesilla** eta zaldiko-maldiko mantso horiekin nahikoa dugu", erantzun digute erreguka hasi garenean. **Patxi Zubizarreta**

teleskopa ik **teleskopio**.

teleskopiko 1 *izond* teleskopioarena, teleskopioari dagokiona.

Steven Beckwith Espazio Zientzia **Teleskopikoaren** Institutuko (AEB) zuzendariaren arabera, Hubblek ondo lan egiten duen froga da hau. **Berria - Gaiak**

2 oso txikia.

Eta garabi **teleskopikoa** tentetzen zitzaionean mamboaren erregea sentitzen zen, sexuaren nanberguana. **Patxi Iturritegi**

3 bisore teleskopiko mira teleskopikoa.

Xede mugikor horiei tiro egitea erabakitzen baduzu, aurrean duzun bisore **teleskopikoa** erabilita egingo duzu **Berria - Kultura**

4 mira teleskopiko urrutiko gauzakiak zehatz ikustea ahalbidetzen duen mira.

Aise egingo zuen bere lana Sarajevoko frankotiratzaileak ere, **mira teleskopikoan** ez baitira ageri kilometro bat harago -azokaren atarian, autoaren bolantean- erortzera doan pertsonaren ezaugarriak. **Bernardo Atxaga**

Orduan ez genuen **mira teleskopikorik** eta antzeko umekeriarik, orduan eskua tinko eta begia argi, behar zen. **Koldo Izagirre**

teleskopio 1 *iz* urrutiko gauzakiak, bereziki argizagiak, ikusteko optika-tresna.(zerukoak)

Mattin eta hirurok joan ginen osaba Joanikoten studiorat, ilargia **teleskopiotik** ikusi ahal izaiteko. **Joan Mari Irigoien**

Saturnoren eraztunak ur izotz osatuta daude gehien bat, eta **teleskopio** txiki batekin edo binokular onekin erraz ikusten dira. **Berria - Gaiak**

Betaurreko beltz eta guzti, Hubble **teleskopioak** baino bereizmen handiagoa zuen kankailu hark. **Patxi Iturritegi**

Ilargitarrek deskribatu zituen, Sir John Herschelen irispide luzeko **teleskopioaren** bidez ikusitakoaren arabera. **Xabier Olarra**

Kosmosean sarri izarrak eta planetak ikus-eremutik ezkatzen dizkigute gas hodeiek, eta horiek ezin ditugu **teleskopio** optikoen bidez behatu. **Berria - Gaiak**

Baita kobrezko **teleskopio** tolesgarri bat ere. **Iñaki Mendiguren**

Hawaiin jarritako **teleskopio** infragorri batek eta Txileko Behatoki batetik ere atzeman zuten iaz metanoa Marten. **Berria - Gaiak**

Swiftex X-izpiak behatzeko **teleskopioa** darama. **Berria - Gaiak**

Zeren, osaba Joanikotek eta biok **teleskopioz** ikus genitzakeen izarren gainetik, Mattin bera baikenuen inguruetako izarrik distiratsuen. **Joan Mari Irigoien**

2 (lurrekoak)

Holakoetan **teleskopioa** instalatu eta arratsalde osoa ematen du begira: pareko neskek bi gizonezko lagun ditu, txandaka baina egun jakinik gabe etxera eramaten dituenak.

Xabier Mendiguren Elizegi

Mendia bezalako ipurdia zuten emakumeak ageri ziren postaletan hondartzan etzanda, eta gizon herabe hanka-meheak **teleskopio** batetik haiei begira. **Koro Navarro**

3 irud/hed

Erran dizut nola memoria har dezakegun arimaren **teleskopiotzat**, zeren eta iraganeko kontuak oraingo orainerat hurbil baitiezazkiguke, denboran barrena. **Joan Mari Irigoien**

4 (hitz elkartuetan)

Izar baten inguruan biraka ari zen uesteko planeta baten irudiak lortu zituen Hubble espazio **teleskopioak**. **Berria - Gaiak**

5 irriti teleskopio ik irratiteleskopio.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

teleskopio bidez (3)

hubble espazio teleskopioa (9); **hubble teleskopioa** (5)

espazio teleskopioak (7); **hubble espazio teleskopioak** (4); **hubble teleskopioak** (3); **spitzer espazio teleskopioak** (3); **spitzer teleskopioak** (4)

hubble teleskopioaren (3)

teleskopioen bidez (4)

teleskopiotik beha (3)

teleteknologia *iz pl*

Globalizazioaren gakoak **teleteknologiak** dira (satelitea, diru elektronikoa, informatika, Internet, sare telematikoak, teknologia digitala, CD-Rom, DVD, errealitate birtuala, adimen artifiziala, bioinformatika eta beste horrenbeste). **Askoren artean**

Komunikabideen eta **teleteknologien** garaian non geratu dira Platonen haizuloaren mitoa eta errealitatea? **Askoren artean**

teletertulia *iz* telebistaren bidez egiten den tertulia.

Dirubidea ere niri esker etorri zaio: **teletertulia** batean agertzen hasia da, zorioneko jantzi motza soinean daramala. **Aingeru Epaltza**

telestu *iz* sistema elektronikoa, telebistaren bidez informazio testuak igortzen dituen seinala kodifikatuak erabiliz.

Albisteek, zeuk bilatu baino gehiago, ezustean harrapatzen zaituzte egunkari ingelesak zabaldu edo **telestua** pizten duzun bakoitzean. **Lutxo Egia**

Etxean, **telestuarekin** nabilela, Urkiza duela bigarren abizena esaten didate Euskal Telebistakoa (bai 1-en eta bai 2-n, gaztelerazkoa). **Iñigo Aranbarri**

teletipo 1 *iz* tresna telegrafikoa, idazteko makinaren antzeko teklatura duena, karaktere alfabetikoetan idatzikero testuak igortzea eta hartzea ahalbidetzen duena.

Metroa, igogailuak, semaforoak, berri ajentzietako **teletipoak**, haizagailuak... denak geratu ziren. **Harkaitz Cano**

Teletipotik jasotako albistea dagoen dagoenean irakurriko badu ere, [...]. **Joxerra Garzia**

Gaur egun, notizia nobedade egiten deneko, **teletipoak** dantzan ipintzen dira, eta puntuan dugu gertakizunaren larria gure sukaldean, telebistako erreportariak medio.

Pello Zabala

Tokitan gelditu dira garai bateko idatz makinak eta **teletipo** zaharrak! **Txema Ramirez de la Piscina**

2 teletipoaren bidez hartzen edo igortzen den mezua.

Munduko hedabideetan oihartzun handia izan du ETaren aurkako polizi operazioaren berriak; atzo iluntzean ere **teletipo** berriak banatzen ari ziren agentzia nagusiak.

Berria - Euskal Herria

Ikusi egiten dut, kazetaria batere axolarik ez dion gaiaz idazten, hemendik eta handik jasotako **teletipoak** presaka batean itzuli, moldatu eta josi nahian. **Iñigo Aranbarri**

Erredakzio nagusitik izenburu jakin bat jartzeko eskatu zioten, Efe agentziaren **teletipoa** erreferentzia hartuta. **Berria - Euskal Herria**

teletransmisio iz

Emeki haatik, hasiak dira mediku orokorrak **teletransmisioak** egiten zuzenean beren ordenadoretik. **Herria**

Teletransmisio zerbitzua ongi ibiltzen da, izan Vitale kartarentzat edo B2 sistemarentzat. **Herria**

teletransportatu, teletransporta, teletransportatzen da/du ad teleportatu.

Horrek esan nahi du hegan egin nuela erlojuaren kontrakoa edo **teletransportatu** egin nintzela, denboraren makinan edo beste makina sofistikaturen batean. **Unai Elorriaga**

teletransportazio iz teleportazioa.

Horretarako, 1993. urtean Charles Bennet fisikariak eta haren taldeak formulatu zuten **Teletransportazio** Kuantikoaren oinarritzko teoria erabil daiteke. **Berria - Gaiak**

teletxinatar iz adkor telefonoz eskaturiko txinatar janaria.

Arratsalde hartan, fakultateetik heldu berriak, ezer egiteko gogo gutxi genuela eta, telebista aurrean paratu ginen, aurreko gauean eskatu genuen **teletxinatar** bateko hondar hotzak askaltzen genituela. **Iban Zaldua**

telex iz telegrafia-sistema, teletipoen bidez gauzatzen dena.

Hegazkin konpainiak jatekoa eta edatekoa eta telefono, **telex**, fax edo posta elektronikoko zerbitzua eskaini beharko dizkio bidaiariari. **Berria - Harian**

Egoera azaldu eta gero, hegazkin konpainiak telefono dei bat egiteko edo fax, **telex** edo posta elektronikoko bidez mezu bat bidaltzeko aukera eskaini behar dio bidaiariari.

Berria - Harian

telezabor (orobat tele-zabor) iz oso kalitate gutxiko telebista programazioa.

Bai, amaginarrebak oparitutako salako besaulki berrian pizza jatera jesarri, **telezaborra** kontsumitzera. **Iban Zaldua**

Orduak eta orduak **telezaborra** irensten. **Berria - Gaiak**

Badugu telebista koloretan, digitala, bereizmen handikoa, satellite bidezkoa, ehunka kanaletarako atzipena, ekoizpen-teknikek mirariak egiten dituzte... baina herriak masiboki ikusten duena **telezaborra** da. **Berria - Gaiak**

Halako gertaera bat ezin da bihurtu «reality-show, **tele-zaborraren** gertaera hutsal edo morboa eta eskandalua nahi duten kazetaritza artikulu». **Berria - Euskal Herria**

Telezaborraren ondorioz, kontsumo ohiturak ere aldatu egin dira euskal publikoaren artean. **Berria - Kultura**

telezuzendu 1 izond urrutitiko kontrolez, eskuarki uhin elektromagnetikoez, zuzendua.

Promesik liluragarrienak egin banizkion ere -tanke **telezuzendu** misil-jaurtigailuduna, supermintendoa, lau eguneko bidaia Eurodisneyra- traidore zikinei eskaintzen zaien behako makurraz agurtu ninduen. **Aingeru Epaltza**

2 irud/hed

Iraultza **telezuzendua**. **Markos Zapiain**

tellatu ik teilatu.

telo 1 iz oihala. ik oihal 7.

Antzerki ikuskizunetako **teloia** irekitzen deneko musikaren lehen bi konpasak jorik, toalla askatu zuen. **Aingeru Epaltza**

Errezelak berak, teatro bateko **teloari** lapurtuak dirudite; granateak eta pisutsuak dira. **Harkaitz Cano**

Demokrazia, behialako urrezko gezur polit eta historiko hori, orain kartoizko maskara bat baizik ez da, belusezko **telo** bat, erreallitate gordinenak ezkututzen dituen gortina loredua, kolore biziko ataria... **Jon Alonso**

Hain justu, **teloiak** ezkututzen duen atzealde horretan hasten da egiazko bizitza, maila guztietan interesgarria den bizitza. **Jon Alonso**

Idazleari nola joaten zaizkion estaltzen ordura arte barrea erakusten zuten hortzak, **teloia** jaisten denean bezala komedia baten amaieran. **Berria - Kultura**

Teloia jaisten denean, pertsonaiaren larrutik ateratzea erraza da? **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Eta iluntasunean **teloia** goratu zen. **Iñaki Zabaleta**

Zeharka jausten ari zen euria, operako agerraldi bat ixten duen **teloia**ren gisan. **Unai Iturriaga**

*Circulo de Bellas Artes*ko atarian hantxe zela emakume beltzaren hura, jesarrita, goiko gelaren batean Altzairuzko **Telo** ohiaren bestaldeko poetek elkarri eurenak irakurtzen diharduten bitartean. **Edorta Jimenez**

telomerasa iz lerro germinalako zeluletan eta fetu ehunetan dagoen enzima.

Telomerasa entzimak minbizian nola jokatzen duen ulertu dute. **Berria - Gaiak**

Hainbat minbizi klasetan **telomerasa** entzimak eragin zuzena izaten duela gauza jakina da ikertzaileentzat, eta, orain, gainera, eragin hori nolakoa den argitzea lortu dute hainbat adituk Coloradoko Unibertsitatean. **Berria - Gaiak**

telonero 1 iz rock kontzertuetan eta kidekoetan, talde edo bakarlari nagusiaren aurretik jotzen duen talde edo bakarlaria.

Horretarako **teloneroen** lana kontuan hartu behar izan zuten: Iruñeko *Basque Country Pharaohs* laukoteak (*Mermaid* taldeko bi kide dugu hemen) jai beroa antolatu zuen berrogei minutu eskasetan, kantaria dantzan, belaunik edo jendearen artean mugitzen zen bitartean. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Gaur jakinaraziko den AEBetako urriko KPI da asteko datu esanguratsuena; baina prezio industrialena **telonero** txarra izan da, inflazioari begira. **Berria - Ekonomia**

teluriko 1 izond Lur planetarena, Lur planetari dagokiona.

Pioletaren punta zorrotzak elur gogortua urratzean egiten duena, KRAS-KRAS soinu **telurikoa** . **Josexo Azkona**

Ama Lurreko Energia **Telurikoak** , barka ezazue proteina multzo desitxuratu hau. **Jon Alonso**

Materiaren azterketatik abiatzen da, zientifikoki jarduteko plantak eginez, izpiritua iristeko; hots, klimatik eta lurretik, geografiatik (kontzientzia espainolaren "sustrai **telurikoak**"), Unamuno edo Azorin-en sentimendu literarioak filosofikoki sistematizatzeko asmotan legez. **Joxe Azurmendi**

Oteizaren testu apokriforretan ageri diren hiru arima horiek - **telurikoa** , abstrakzioarena eta iraultza kulturalarena- osagarriak izan litezke. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed

Gero eta zabalagoa omen da belztasun **telurikoari** kendutako zatia, argiak zauritutako esparrua. **Xabier Montoia**

AEBak sostengatzen dituzten atzerriko inbertsioileek konfiantza duten heinean ez du eztanda egingo AEBetan pilatzen ari diren indar **telurikoak** . **Berria - Ekonomia**

telurismo iz toki bateko orografia- eta klima-ezaugarriak hango biztanleengan duten eragina.

Erealismo sozialaren eta **telurismoaren** arteko kontrajarpen horretan, Arestik badio besterik ere: [...]. **Anjel Lertxundi**

tema¹ 1 iz gogor eta amore eman gabe eusten zaion uste edo iritzia; asmo, erabaki edo kideko bati gogor eta amore eman gabe eusten dionaren jarrera edo jokabidea. ik **seta**; **hisia**.

Halakoxe **tema** eta grina banuen, horratik, probetxugarri izateko. **Juan Garzia**

Ukrainakoen seta eta **temaren** nondik norakoaz susmoak baditut, ostera. **Edorta Jimenez**

Horregatik zeukala beltzez edo grisez janzteko **tema** . **Bernardo Atxaga**

Autoekin zeukaten **tema** , berebiziko amorrua. **Karlos Linazasoro**

Halaz ere, ez zuen amore eman eta bere **temari** eutsi zion, kontatzeko eta kontatzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jadanik auto barruan geundela, Sabethek berriro ekin zion bere **temari** ("Lotsagabea naizela uste al duzu?"). **Joxe Austin Arrieta**

Horrek, noski, areagotu egiten zidan izkribua berreskuratzeko **tema** . **Ramon Saizarbitoria**

Federicori halako **tema** etorri zitzaion, ze egun batean kaskoan sartu zitzaion mailegu bat eskatu behar zuela koadro haietako bi erosteko. **Pello Lizarralde**

Pairamena bortitzaigo eta ihardukitzeko **tema** gogorrago. **Piarres Aintziart**

Tema hori sartu zitzaion kaskoan, eta ez zuen arrazoibiderik onartzen. **Patxi Iturritegi**

-A zer **tema** hartu duan horrekin! **Jon Muñoz**

Sofatik altxatu eta ohera joan zen, **tema** harekin erabat obsesionatuta. **Josexo Azkona**

Tema horretan setati irauin zuten hiru aste inguru. **Pello Zabala**

Tema hortan direla badu zenbait egun. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Etxe hartara bakarrik joateko nire **temaren** arrazoi bakarra omen zen hura limurtzeko asmoa izan nuela. **Oskar Arana**

Senegaleko kanpoko minixtroa ararteko jarririk eta haren **temari** esker, gisa hortan bururatu dira zortzi egun irauin duten elgarrizketa horiek. **Herria**

Beraz, gaiztoa izaten jarraitzeko **teman** zaude oraindik. **Oskar Arana**

Egiptoko aztiek, ordea, gauza bera lortu zuten beren aztikeriez, eta Faraoiak bere **teman** jarraitu zuten, Moisesi eta Aaroni jaramonik egin gabe, Jaunak iragarria zuen bezala.

Jose Antonio Mujika

Ezin badu ikasi, probetxuzko beste zerbaitearantz bultza, arazo hutsaletan denbora eta ekintza galdu ez dezan; eta bere **teman** jarraitzen badu, utzi bakean. **Imanol**

Unzurrunzaga

ik *beherago* 3. **Askoren artean**

Aparte eta isilik jarraitzen zuen, halako **temaz** non hiri osoaren gaitzespen gertatzen baitzen. **Koro Navarro**

ik *beherago* 4. **Askoren artean**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ezin nuen nire benetakoa sekretua azaldu; hortaz, nire aldetik aurka egiteak **tema** hutsa zirudien, makurkeria eta seta. **Eduardo Matauko**

Landetan hila zen osaba Praixku bihurtu zen ene **tema** irauinkorra: "ni neu ere horrela hilko naiz beharbada, atzerrian, Donostiara berriro ezin itzulita". **Txillardegia**

Hain zen nabaria txoriaren **tema** bitxi hark Lawrenceci eragiten zion egoneza, non goiz batez, Lawrence kanpoan zela aprobetxatuz, bere adiskide batek karabina hartu eta hil egin zuen. **Bernardo Atxaga**

Egin dudana bidea eginbidez korritu dut, **tema** absurdu batek estekaturik. **Piarres Aintziart**

Nago lagun zenbaiten fedea ez den ororen buru **tema** soil bat, ingurumen sinesgaitz izigarriak harkaitz bihurtua. **Piarres Aintziart**

Bide biribil batean, **tema** atzeraezin eta guztiz alferreko batez jira eta jira dabilzan zomorro gogotsu horiek konparatzen zuen Hurtadok. **Josu Zabaleta**

Tema zahar batek garamatza, ordea, nolabaiteko estilo-ezaugarri batzuk ezartzeko lan ez batere errazagora. **Juan Garzia**

Barregarria baitzen beraren betiko **tema** : zu gizona zara! **Joxe Austin Arrieta**

3 *teman adlag* ik *temati* 3.

Hitz-beste egiten zuen, baina ni **teman** : elkartuko gara berriz udaberrian? **Fernando Rey**

Hilabeteetan egon nintzen han sartu nahi ezta, **teman** , ni ez ninduela delako Koldo Mitxelena horren sabel mutuak azpian harrapatuko. **Iñaki Segurola**

-Hik, jakina -gizona **teman** -, plantak egiten hituen zuzendaritzarekin, alegia koleran praktiketakoak bizkarreratzeagatik. **Aingeru Epaltza**

-Lerro bakar bat idazten baduk -**teman** hura, penatu antzo-, salaketa egin beharko diagu hire kontra, agintariak iraintzeagatik. **Aingeru Epaltza**

· Orduan **tema** gogorrean eusten dio erasoari. **Juan Garzia**

Tema gogorrean ni, amore eman zuen hondarrean. **Aingeru Epaltza**

-Eztabaidatzea, Léa; ez **tema gogorrean** aritzea. **Jon Muñoz**

4 *temaz adlag* ik *temati* 3.

-Ixo -bota zion Jonathanek, **temaz** , arrea amorrarazteko. **Jon Muñoz**

Oporrak hartzea erabaki zuen azkenean Napumoceno jaunak, esfortuz eta **temaz** lortutakoaz gozatzea. **Bego Montorio**

Bere buruaz edozein informazio emateari **temaz** uko egiten zion ume bat etxean edukitzea guztiz ezinezkoa zen. **Oskar Arana**

Hala sortu zen aritmetika, zenbakien jakintza, haiek **temaz** bereizi zutena logistikatik, hots, kalkulu hutsaren trebetasunetik. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere tema (6); **tema gogorrean** (5)

bere teman jarraitu (10); **teman ari** (5); **teman aritzea** (3); **teman jarraitu zuen** (10)

bere temari (4)

temati jarri (4)

halako temaz (3)

tema² iz gaia.

Kontzertu guztian ikusi zenez, Wolff zuzendariak ez zituen **tema** ezberdinak behar den argitasunez aurkeztu. Beria - Kultura

Hala, *-no-* bigarren mailako atzizkia, germanikoz, edozein **temari** atxikitzen zaio "honako edo halako gizataldearen burua" adierazteko. Isabel Arrigain

tema³ ik dema.

temaka *adlag*

Clemente Lopez errejimenaren lorpen sozialak azaltzen hasi zen, langileari *productor* izena zegokiola, *obrero* hitza manipulaturik zegoela langileei iruzur egiteko, eta guk **temaka** jarraitu genuen. Joseba Sarrionandia

temakeria iz tema gaitzesgarria.

Begirada horrek laztanaren **temakeriaz** ukitzen hauela ematen dik. Xabier Olarra

Irudi horiek guztiek eta banakotasun ezberdin horiek ez dute zerbait komunikatzen bakarrik eurek aurreratzen duten proposizioen kateaketa logikoa dela-eta, ezta gaiak errepikatzen direlako ere, edo transmitutako, ahaztutako, berriro aurkitutako esanahi baten **temakeriarengatik**; haatik, [...]. Xabier Arregi

temakor *izond* tematia.

Eta beharbada hauen gatik noa hoin zalu, burua apal, iheska bezala: erromes iheslari bai, baina kar kementsu eta oldar **temakor** batek harturik. Piarres Aintziart

temaldi iz tema.

Gaueko nire **temaldiak** azkarturik, zauskada batek astindu ninduen. Txillardegi

temandar *izlag/iz* Edomeko eskualdeko Temanekoa; Temaneko biztanlea.

Jobaben ondoren Huxan, **temandarren** lurraldekoa. Elizen arteko biblia

temario 1 iz gai zerrenda.

Zuzenbide ikasketak bukatzen ari nintzen, eta azken azterketak, orduan ere **temario** zabalekoak eta nahiko zailak, prestatu beharrean nengoen. Bernardo Atxaga

2 ikasgai zerrenda

Sobera nituen orduak, zuzenbide azterketetako **temarioari** labor irizten nion, nire bihotzaren taupadak konpas ezti eta lasai baten arabera zihoazela sentitzen nuen. Bernardo Atxaga

temati (233 agerraldi, 89 liburu eta 37 artikulutan) 1 izond asmo, erabaki edo kideko bati gogor eta amore eman gabe eusten diona. ik tematsu; setati. (gauzez)

Ezin nuen gehiago jasan joan-etorri **temati** hura. Monika Etxebarria

Gasteizko PPko udal gobernua **tematia** da. Beria - Euskal Herria

Autismoaren beste bereizgarri bat, Kannerren iritziz, "gauza beren errepikapen **tematia"** zen. Xabier Olarra

Urgiulu **tematiaren** eta damu negartiaren artean oreka bilatzeko egintza labaina. Oskar Arana

Desegite psikiko eta moralak, etsipenak, haien aurpegiei halako sorgortasun **temati** eta hutsala ematen zieten. Felipe Juaristi

Isiltasun **temati** bat, beren erdian duten arrotzaren inguruan eratu, nabarmen. Oskar Arana

Haren izaera **temati** eta egoskorri leporatzen zioten gehiago hitz egin nahi eza. Felipe Juaristi

Skuludis jauna ez zegoen oso gustura haren interes **tematiarekin**. Anton Garikano

Hil-oihala eta bularraldean tente geratzen zitzaion lebita **tematia** atontzen zituen. Jose Morales

Eztl **temati** batek hartu zuen Verlaque jauna. Karlos Zabala

Urte batzuk lehenago, euri **temati** batek tona asko amianto ikuz-irazi zituen harrobiaren hormetatik beretatik. Juan Garzia

2 (bestelakoez)

-Aure **temati** hura. Elena Touyarou

Gillotinan hil zuten bigarren pertsona hura izan zen, apez **tematiarekin** batean. Elena Touyarou

Langile desatsegin, oldarkor, **tematiaren** erreputazioa lortu zuen ministerioan. Patxi Zubizarreta

Ez zen ikasle-izar horietakoa; ez zen beste itsu asko bezain abenturazale, ez eta beregaintasunaren aldeze **temati** ere. Xabier Olarra

Hain zen gogorra, hain **tematia**, hain apurtezina arraioa, ezen sinetsia bainengoan betiko eutsiko ziola. Oskar Arana

Basurdetarako erabiltzen diren txakur **temati** erasokorrek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sobera **tematizat** dute astoa anitzek. Xabier Montoia

Zezen bat bezala higitzen zen su gaineko piztiatza **temati** haren kontrako amorru odolgoze eta neurrigabe batek bere senetik aterarik. Juan Garzia

Zer nahi ote zuen **temati** hark? Patxi Zubizarreta

-Ai, emakumeak, zer zarete ba **tematiak**! Anjel Lertxundi

3 (adizlagun gisa)

Ulertu nian etxe hura arte-lan bat sortzen den bezala egina huela, ezkutuan, ahalegin guztia eginez eta **temati**. Eguerdiko ordu batean [...] egiten zuen durundi lehengo esaldiak, ahots-doinuaren aldaera guztietan esanik, noiz alai-isekari, noiz haserre, noiz **temati** eta sor. Xabier Olarra

Ni, **temati**, zutik geratu, halere... Joxe Austin Arrieta

Alfer-gurpil behin eta berrirokoan itzulika gabiltza, horra, ostera ere, **temati**, gau-tximeleta argiak liluratua nola. Juan Garzia

-Ni oroitzen nintzen, bada -esan zion generalak **temati**. Xabier Olarra

Hala lorturiko zatiki guztietan nikelaren ehunekoak jatorrizkoan zirauen **temati**. Juan Garzia

Pauso motzez dabil, **temati**, begi galduekin. Monika Etxebarria

Hala ere, aurrera jarraituko dut **temati**. Xabier Arregi

Argi dago **temati** aritu zela horretan bere bizitzaren azkeneko hilabeteetan. Iban Zaldua
Gizontxoaren istorio paranoikoan, pixkana-pixkana, herriko elezahar aspalditik **temati** errepikatu baten oihartzuna sumatzen hasia nintzen. Juan Garzia
Mendiburutarrak nahikoa **temati** jarri ziren kontu horrekin. Iban Zaldua
Aitak bikiak zeuden alderantz begiratu zuen hitz ziztrinok esatean, berriz ere, **temati** eta burugogor. Aitor Arana
Eta horretan *El Campesino* eta Lister jeneral komunistak ibili ei ziren **tematien**. Edorta Jimenez

tematika iz gai orokorra.

Eta **tematika** horren gainean gehiago jakin nahi izaten dut. Ana Urkiza
Gaurtik ekainaren 29a arte ostiral eta larunbat guztietan egongo dira **tematika** horretako filmak. Berria - Kultura
Tematika horri ikuspegi desberdinetatik begiratu zion teknikoki eta estilistikoki. Berria - Kultura
Barrokismo handirik gabe amodioaz eta adiskidetasunaz idatzi du *Bihotzaren lautadak* honetan, baina **tematika** zabalagora ere iritsi da. Berria - Kultura
Tematika historiko-transzendental. Xabier Arregi
Belaunaldiak zer diren inork ez digu zehaztu: denbora-tartea, eragina, **tematika**, ahotsa, jarrera, inork ez digu esan zer den. Berria - Kultura

tematiko izond gai orokor bati dagokiona; gaien arabera.

Gaur-gaurko gai eta artistei lekua egiteaz gain, erreportaia **tematikoak** ere jorratzen dituzue. Berria - Kultura
Fitxategi-mota asko dago (bibliografikoak, iruruketarenak, **tematikoak** (gaienak), aipuenak, ideienak, izenenak, etab.). Askoren artean
Ordena **tematikoak** aukeratzeko du: gaiaren arabera antolatzen ditu kontakizunak, santuaren bertuteak eta irakatsiak azaltzeko. Askoren artean
Hor dauden panel **tematikoek** azaltzen dute Burdin Aroari buruzko ezaugarri nagusienak. Herria
Saiorik informalenetan (saio libreetan, gai-jartzailerik gabekoetan, afalosteko saioetan, edo saio **tematikoetan**) bertsolariak ez du izaten testu bikainen beharrik entzuleengan emozioa eragiteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Erdi Aroko pentsaeraren bilduma **tematiko** oso interesgarria. Ikuspegi historiko batetik egina bada ere, gai **tematikoak** ondo jorratzen ditu. Askoren artean
Ez du ordena kronologikorik, ez **tematikorik**. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

parke tematiko (3)

tematiro adlag temati.

Geometra izan barik, frogaturik dauden matematika-gaiak ukatzen dituenaren antzera; eta aurretik daukan iritziari **tematiro** eutsiz, bere burua engainatu nahiago duena. Xabier Kintana

tematizatu, tematiza, tematizatzen du ad zerbait zerbaiten gai nagusi bihurtu.

Esplizitatu, baina ez **tematizatu**, zeren hiru baitira bere arrazoimenari dagozkion ezaugarriak. Piarres Xarriton

tematsu (77 agerraldi, 23 liburu eta 31 artikulutan) 1 izond tematia. (gauzez)

Tuku ttuku, baike, eta sobera zahartu aitzin, baina heltzeko nahi **tematsu** batean. Piarres Aintziart
Mekanika bat bilakatzen zara, ardura kokatua, baina esperantza **tematsu** batekin hori guziaz egun batez bururatuko dela. Marzel Etxehandi
Biek elkarrekin jan zuten ahi-katilukada, karitate **tematsu** hura zela medio. Askoren artean
Sator meten artean, egin ahala barna sartzeko gariak bere erroko: jendearen lan **tematsua**, haatik! Piarres Aintziart
Erantzun nion, esateko nuena bortitza baitzen, egiaren grina **tematsuz** lehian ari baitzen irten nahian: [...]. Felipe Juaristi
Lanik ez egitea anitzentzat bekatua zen, parasitismo bekaitz **tematsua**. Itxaro Borda

2 (bestelakoez)

Banekien, jakin, **tematsua** zaretela, burdina bezain gogorra duzuela lepoa eta brontzezkoa kopeta. Elizen arteko biblia
Alorrek landu eta paradisu bilakarazi zuten kontinentetik (hitz hori erabili du) etorri laborari **tematsuegatik** izan ez balitz. Xabier Montoia
Ez, Euskalduna nizelakotz eta gure euskal mendietako mando bat bezain **tematsua** nizelakotz. Michel Oronoz
Efraim, basasto **tematsua**. Asiriara joan da, aliatuak erosi ditu. Elizen arteko biblia

3 (adizlagun gisa) ik tematsuki.

Norak **tematsu** begiratzen zion Andreasi, bere erabakiaren irmotasuna azpimarratzeko. Anjel Lertxundi
Zigor hauek fanatikoen harrotasunari ikusleen harrotasuna kontrajartzen baitiete, eta, hauen tinkotasuna lagun, poliki eta **tematsu** jokatuz, egia bera askatu egiten da. Bakardadearen arrazoiak bilatzeari ekiten zion tematsu. Juan Martin Elexpuru
-Bigarren porrotaren ondoren, bi aldarre metatuena, alegia; zer egin zuten atenastarrek? - **tematsu**, Perrettek. Jon Muñoz
-Ez dut janen -errepikatzen zidan **tematsu**, kasko-gogor eta une hartan zinez mainontzi. Itxaro Borda

tematsuki adlag ik tematsu 3.

Asilo eskubidearen defentsan ari garen elkarte eta erakundeak **tematsuki** borrokatuko gara Frantziak ez dezan bere hitza jan. Berria - Mundua
Irri karkailak ez dira atertzen, eta mutikoak astoak bezain **tematsuki** segi berean, komandantearen ahots amorratua aditu den arte. Xabier Montoia
Haize kontra bada ere, goazen **tematsuki** aintzina, gure boza ahal bezain ozenki entzunaraziz. Herria
Zer dela eta AEBetako informazio zerbitzuek **tematsuki** ziurtatu zuten suntsipen handiko armak zeudela, hauen zantzurik ez delarik aurkitu. Berria - Mundua
Hain gaizki asmatzen dutenek Jainkoa, aingeruak eta gizaki arimak gorpuzdunak direla, sinetsiz **tematsuki** zinez horrela, ez dutela bakarrik mortalki bekatu egiten, baina gainera heretikoak eta eskumikatuak direla. Piarres Xarriton

tematu, tema(tu), tematzen 1 da ad erabaki edo kideko bati gogor eta amore eman gabe eutsi. iksetatu.

Bera **tematu** egin zen, ezaguna zen, gainera, gizon setatsua zelako, eta ordaina hartua zuen orain. Bego Montorio
Ile horia Mikelekin **tematu** zen. Unai Iturriaga
Orain ez naiz **tematzen** gauzekin, ez baitate grinarik sortzen. Xabier Olarra

-Azkena, benetan - **tematu** nintzaion. Aingeru Epaltza
Non da emazte komentu hurbilena? - **tematu** zen gaztea. Elena Touyarou
-Amaiera jakin dezaket? - **tematu** zen Max. Jon Muñoz
Ez dut esango izenik - **tematu** zen bera-. Bernardo Atxaga
-Aski duzu abisatzea - **tematzen** da Kattalin. Eneko Bidegain
-Baina, ezagutzen al duzu? - **tematu** nintzen ni galdezka. Jon Muñoz
Baina Ala Al-Din **tematu** egin baitzen, biharamunean aitak azokara eraman behar izan zuen. Patxi Zubizarreta
Urte hauetan guztietan egon baita gizakia **tematua** lur honetako mugak apurtu eta inguruko bazterretan zer dagoen ikusi nahian. Pello Salaburu
Ez dakit zergatik **tematzen** nintzaion dena erakutsi nahian. Joxe Austin Arrieta
Pataki **tematu** egin zen, berak egingo zuela. Harkaitz Cano
Lehen auzian, Alain Juppé **tematu** zen, deus hobenik etzuela. Herria
Eta **tematu** nintzen, ikusi behar nuela-eta, minutu batez bederen. Joxe Austin Arrieta
Zerk bultzatzen hau horrela **tematzera**? Anjel Lertxundi
Bere etxera bidean ginela, Klara bera **tematu** zen itxear zegoen kafetegi batean sartzen. Aingeru Epaltza
Arabieraz eskatzen **tematu** nintzen ni. Bernardo Atxaga
Nolanahi ere, batere fanatikoak ez zirenez, ez ziren **tematu** nor bere ideiak aurrera ateratzen. Patxi Iturrategi
Igarri egin zidan lotsaturik nintzela, nik isilik segitu eta orduan bera ere isildu egin baitzen, hartan **tematu** beharrean. Edorta Jimenez
Bortizkeriaren bidetik segitzen du alde bat bere hartan **tematuz**. Herria
Loroak ez dik oroimena hemen berreskuratuko; alferrik duk horretan **tematzea**. Jon Muñoz
Faraioa, ordea, berean **tematu** zen eta ez zien jaramonik egin. Jose Antonio Mujika
Patronala berean **tematua** dago. Berria - Ekonomia
Gogor **tematu** zitzaion Amari baseria Zarautz eta Oriotik urruti zegoela esanaz. Xabier Etxabe
Handik aurrera jardun porrokatuan **tematu** zitzaion Mentxuri botikadenda propioa zabaltzeko eta zabaltzeko. Josu Landa
Ez nintzen hainbertze nabarmenduko, argazkiak ateratzeko **tematu** ez banintz. Aingeru Epaltza
Ez dugu ezertan **tematu** behar, ezta ezerekin itsutu behar ere; ez dugu inolako helbururik izan behar. Luis Elberdin

• 2 du ad

Eta iraganak **tematzen** ninduen. Txillardegi

3 (era burua izenondo gisa)

UPNk gure nortasun ikurrekiko duen itsukeria **tematuari** aski dela esan zioten herritarrek. Berria - Euskal Herria

Bere nolakoan denetan penagarriena eta **tematuena** zena aipatuko dut, epilepsia moduko bat, behin baino gehiagotan trantzean amaitzen zena. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berean tematu zen (3); **gehiago tematu** (3); **gehiegi tematu** (4); **gogor tematu** (3); **zergatik tematu** (8)

tematuta dago (18); **tematuta dago pp** (3); **tematuta dagoela** (3); **tematuta daude** (11); **tematuta segitzen** (3); **tematuta zegoen** (10); **ukatzen tematuta dago** (3)

bere hartan tematuz (3); **tematuz gero** (3)

nola tematzen (3); **zergatik tematzen** (7)

tematuki *adlag* temaz.

Ohean, inguru-minguruka dabilta, belaun ukaldi bat hemen, beso kaska bat han, letra gorritan azaltzen den 3:14 tenore zenbakiei **tematuki** begira. Itxaro Borda

Oraino legerik ez izan arren, **tematuki** zioten Konbentzioa esklabotasunaren ezeztatzeko xedetan zela. Elena Touyarou

tematze *iz* erabaki edo kideko bati gogor eta amore eman gabe eustea.

Espainiako segurtasun indarren aldetik **tematze** etengabea ikusten dugu Mexikon diren iheslariak kriminalizatzeko. Berria - Euskal Herria

Higuinagarriena, **tematze** hutsaz erdiesten ahal ez dena, [...] hauspoko azken hatsa erretzeko adore hori ukaitea da. Koldo Izagirre

Espainiako Konstituzioa eta Errepublika bat eta zatiezinareen kontzeptuei **tematze** egoerak «gatazka politikoa sortzen» duela azpimarratu zuen. Berria - Euskal Herria

temenosa *iz*

Septentrio liburuarekin etapa bat zerratu nuen eta liburu horretan inportantea dena, pintatzen dudan **temenosa** da, bere mandala poetikoarekin. Ana Urkiza

temerario 1 *izond* ausart eta arduragabeki jokatzeko duena.

"Poetarik ez letraturik ez baduzue, enkargatu libretoa Luis Mari Mujikari", erran gogo nizuen, jakinki zeinen **temerarioak** zareten, baina beldur naiz temeridade sobera den.

Patziku Perurena

2 ausart eta arduragabeki jokatzeko duenari dagokiona.

Absurdoa izateaz gain **temerario** samarra iruditu zait, operaren aurretik zorianak ematea, baina ni berria naiz operaren kontu hauetan. Harkaitz Cano

temeritate (*corpusean temeridade soilik*) *iz* ausart eta arduragabeki jokatzeko duenari dagokiona egintza.

"Poetarik ez letraturik ez baduzue, enkargatu libretoa Luis Mari Mujikari", erran gogo nizuen, jakinki zeinen temerarioak zareten, baina beldur naiz **temeridade** sobera den.

Patziku Perurena

temesta 1 *iz* antsietatearen tratamenduan erabiltzen den sendagaia, printzipio aktibo gisa/orazepama duena.

Halako ingurumen latzean, lexomil, prozac, paxil, lisanxia eta **temesta** bezalako erremedioak baliagarri suertatzen ziren. Itxaro Borda

Halaz, zintzurreraino **temestaz** emokaturik, emazteek orduak lisatzen eta bazkari apailatzen nahiz bastatzen, azpiltzen, josten, mahai oihal brodatzen edo trikotatzen pasatzen zituzten. Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan)

Hala ere, noizbehinka, **temesta** pastilla bat zintzurreratzen dut oraino zainen lasaitzeko, senargaiaren aiduru nagoela adibidez. Itxaro Borda

temoso *(37 agerraldi, 21 liburu eta 5 artikulutan)* 1 izond adkor tematia.

Hurbileko eliza batean kanpaik jotzen ari ziren, eta soinu **temoso** hark bere onetik atera zuen. Fernando Rey

Gizon santuak bere jainkotze bide **temosoan** segi dezan. Patziku Perurena

Nire onera etorri nintzenezan, agure **temoso** hark nire lepoari lotua jarraitzen zuen. Patxi Zubizarreta

Egoskor eta **temosoen** lehiaketarik inon balitz munduan edo mundutik kanpo, berau bidaliko nuke. Jokin Urain

-**Temosoa** haiz, gero -burua mugitu du Juanak etsita-. Pello Lizarralde

-Kokoteraino nauka txakur **temoso** honek! Joanes Urkixo

Zalantzak han segitzen zuen, ordea, langa aurreko astoak baino **temosoago**. Iñigo Aranbarri

2 (adizlagun gisa)

Bi haiek hasieran ezetz, **temoso**, haiek ez zutela ulertzen zertarako magnetofona, eta ezetz. Alberto Barandiarren

Irabazi ezinezko borrokan **temoso** darraien horrek, ordea, zein hilobitan ehortziko duten eztabaidan baizik ez du parte hartuko. Josetxo Azkona

2000. urte honetako martxoak 25 zitueneko, 12 hilabeteren barruan hirugarrenez, berriro loretan zen, **temoso**. Pello Zabala

Plazako bazterretan, haizeak harroturik, sanjoan suko piltzar errausturen bat, garbitzaileen erratzet **temoso** ihes egindakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

temoxo izond adkor tematia, temosoa.

Baina oraindik gelditzen diren baserriar mendiganadu bakanentzat, jendejera betizu **temoxo** paranoidetxo horrentzat. Iñaki Segurola

Horratz arrano haundiaren erregetzak espaz daukan txepetz haundinahi, **temoxo**, erretxindua. Patziku Perurena

tempo *(orobat tempus eta tempo)* 1 iz musika-pieza bat jo behar den lastertasuna.

Harrituta, pieza haren egitura eta harmoniak **tempo** goibel hartara 'agitato' jostarinera baino hobeto egokitzen zirela ikusi nuen. Pako Aristi

Bere doinuaren abiadura egokitu zuen motorraren metronomora, ordura arte balada motel bat izanikoa erdi-**tempo** alai bihurtzeraino. Xabier Montoia

Antonello Allemandi musika zuzendariak arazo txiki batzuk izan zituen Bilbaoko Orkestra Sinfonikoa eta koroa ezkontzeko hasiera burtzoragarrian, baina **tempo** onarekin eraman zuen orkestra. Berria - Kultura

Tempo oso geldoa aukeratu zuen Vargak hasierarako, eta gero, horren ondorioz, erdialdeko *acelerando*-etan asko kostatu zitzaion orkestra berak eskatzen zuen erritmora eramatea. Berria - Kultura

Fraseoak oso argi, arnasketa (nahiz sokazko instrumentu bati buruz ari garen, bere erredua ahots musika da, eta arnasa hartu beharra dauka) egoki eta **tempo** malgua, ahots eta testuaren araberakoa. Berria - Kultura

Orokorrean maila duina zuten kantuek; **tempo** aldetik akatsen bat egon zitekeen, baina aurrera egitea eta disko bat ateratzea erabaki genuen. Berria - Kultura

2 irud/hed

Pentsaturiko esaldi bat ahoskatzen den aldi bakoitzean, prosodian txertatzen da (lastertasun, **tempo**, azentu, erritmo jakin bat duen eredu musikalean). Lourdes Oñederra

Aki Kaurismakiren zinemaren arrastoa nabaritzen da *Whisky*-n, eta filmaren **tempoa**-k ere baditu parekotasunak finlandiarren lanekin. Berria - Kultura

Stendhalek, kontatzen dituen guztiak kazetetatik jaso arren, badaki **tempus** berezi baten pazientzia behar duela astiro-astiro gorpuztuko den aldaketa historikoaren muina jasotzeko. Anjel Lertxundi

Non demontre aurkitu behar da istorio horrek duen erritmoa, **tempo**-a. Lander Garro

Unionistek eta errepublikanoek oso **tempo** desberdinetan jardun zuten. Berria - Harian

Horra **tempusa**, auziaren giltza, egunerokotasunaren eta espirituaren **tempusak** desberdinak direla oharzearena, alegia. Anjel Lertxundi

Badirudi lasterketako **tempo**-a, erritmoa ikasi duela. Berria - Kultura

Tempoa aldakorra gertatzen bada, honek frogatuko du, berari dagokion neurrian, giza arazoak setatiak direla naturaren legeekiko, denbora-dimentsioan gutxienez. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan)

Oro har, uste dut onuragarri litzatekeela sakonago ikertzea urduritasun, **tempo** lastertze eta bestelako egoera berezietako ahoskera aldaketen inguruan. · Istorio moral hauek, giza okupazioaren hondakin-geruzak leku batean metatzeko beharko zuten denbora-tarte kalkulatzeko ahalgintzeko oinarri gisa, aldaketa-**tempoan** aldaezintasunaren hipotesiaz fidatzeko arriskuaren aurka ohartarazten gaituzte. Lourdes Oñederra

Histori **tempoa** aldaketarik gabekoa gertatuko balitz egoera guztietan, Iñaki Mendiguren

tempus ik tempo.

tenaza 1 iz pl kurrikak.

ikatz puska haiek sutako hautsarekin estaltzen ziren, han gainean supala eta **tenazak** elkarren gainean gurutzaturik ipinita, gaitzak eta sorginak uxatzeko. Pello Zabala

Gure aita, hain zen txikia, non haginari heldutako **tenazetatik** zintzilik erabili zuen Aranazko haundiak. Patziku Perurena

Tenazak, berriz, dira burdina hutsezkoak, zuhurrei poza kentzen abil guztizkoak. Xabier Olarra

Tenaza gorituak, ziri zorrotzak, aizkora edo garrotea ateratzen ziren orduan argitara. Aingeru Epaltza

2 sing

Hantxe supazterrean bertan, sutako **tenazari** ohartuko zitzaion gero, ea sutako txingarrak eta sutautsa lapatzen zitzaizkion. Pello Zabala

3 tenazan

Eskumako erpuru soinu hegalarren azpiko aldera sartzen eban, beroneri **tenazan** helduaz. Xabier Amuriza

tenazatxo iz pl kurrika txikiak.

-Te-ontzia erotu egin zen eta ur irakin txorrotadak botatzen zituen alde guztietara eta gizon bat ospitalera eraman behar izan zuten azukrea hartzeko **tenazatxoak** sudurrari helduta zeuzkalako. Iñaki Mendiguren

tendentzia 1 iz joera.

XX. mendearen hasieran musikak hiru **tendentzia** zituen: Claude Debussyren impresionismoa, Vienako eskola eta eskola nazionalistak. Berria - Kultura

Neke da neurtzea **tendentzia** iraunkorra ala iraupen laburreko moda den. Herria

Argazkilaritza gaztearen **tendentzia** berri baten oihartzun izan nahi dute antolatzaileek. Berria - Kultura

Parisek **tendentzia** separatistak laguntzen ditu erran gabe. Berria - Euskal Herria

Nire inpresioa da Espainian **tendentzia** bat dagoela iragana estaltzeko. Berria - Euskal Herria
Gauzek ez daukatelako normalean geldirik egoteko **tendentzia** handirik. Unai Elorriaga

2 (alderdi politiko eta kidekoetan)

Zelula gorriek ETA uzteko asmoa jakitera eman zutenean, uko egin zioten Hegoaldekoek puntu horri, eta **tendentzia** bakoitzeko bi lagunekin osatutako batzorde bat proposatu zuten eztabaida ideologikoaren arauak erabakitzeko. Rafa Egiguren

Parisen alderdiko **tendentzia** guztiak bat eman direlarik, hona non departamenduko idazkari karguarentzat bi hautagai lehiatu diren. Herria

60 bat hautetsi, **tendentzia** orotarikoak. Berria - Ekonomia

Iparraldeko militantek aldiz gehiengo berarekin Philippe Ducat (Hollanden **tendentziakoa**) hautatu dute idazkari izateko. Herria

3 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Droga kontsumo **tendentzia** berriak eta prebentzio lanak. Berria - Euskal Herria

tendentzioso *izond* alderdikoia.

Gure egonaldiaren ostean ikusi ditut idazleak Cabo Jubyko garaiaz idatzitako kontaketa batzuk, baina ez dira egiazkoak edo oso **tendentziosoak** dira. Patxi Zubizarreta

tendido (*orobat tendidu*) *iz* zezen plazetan, harmaila estaligabeak.

Zabaldu duten zulo handi hartatik bere barrenak agertu dira: **tendiduak**, burladeroak, orkestraren tokia, zezenaren pasabidea... Jokin Muñoz

Begira, zezen-plazako 7. **tendidoan**, Bilboaldeko gaizkinik handienak biltzen dira. Josu Landa

Hareatza eta **tendidoaren** artean, itxuraz aguazila den gizonezko bat ere bada, hor behean agi denari begira; **tendidoko** lau neska-mutilak horditurik ez badira tantatxo bana falta dutela esan liteke. Edorta Jimenez

Ezpata odoloztatua **tendidura** luzatuz. Patxi Iturritegi

tendidu ik **tendido**.

tendiniti ik **tendinitis**.

tendinitis (*orobat tendiniti g.er.*) *iz* gihar-zainetako hantura.

Prigionik **tendinitisa** du belaunean, Hansenek zaintiratu hankan, eta Guaitak zuntz haustura kuadrizepsean. Berria - Kirola

Iragan osteguneko entrenamenduan, **tendinitisa** izan zuen lepoan burlatarrak. Titinek **tendinitisa** du ezkerreko belaunean. Berria - Kirola

Turielek osatu du eskuin hankan zuen **tendinitisa**. Berria - Kirola

Joseba Belokiren **tendinitisa** arina da, eta Luis Puig sarian debutatuko du, hilaren 22an. Berria - Kirola

Ni besoko **tendinitisak** jota egon naiz orain dela gutxi arte, eta lehen entrenamendua aste honetan egin dut. Berria - Kirola

Osatuta zegoela zirudien lesioak, **tendinitisak**, okerrera egin du. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
belaunean tendinitisa (3); **duen tendinitisa** (3); **tendinitisa baitu** (3); **tendinitisa du** (3)

tendoi *iz* gihar-zaina.

Zurda edo **tendoia** da -zuntz-ehun gogor batez egindako kordoi bat- lotura hori egiten duena. Irene Aldasoro

Muskulua hezurrari lotzen dion **tendoia** erraz hautematen da besurrea goratzen denean. Irene Aldasoro

Bizepsa eta erradioa lotzen dituen **tendoia** oso sendoa da. Irene Aldasoro

Hantura jaitsi zait, baina **tendoia** daukat ukituta, bi aldeetatik. Berria - Kirola

Tendoia minberatuta dauka, eta gaiztoak omen dira horrelako lesioak. Berria - Kirola

Kirurgialariek izterreko **tendoia**ren zati bat betazeletan jartzea erabaki zuten, haurrak begiak ireki zitzaiz. Berria - Gaiak

Gorri ageri ziren idi eta arkumeak, kolore zurbilagoz txahalak, eta gantz eta **tendoien** orban horiak ere nabari ziren han-hemenka. Karlos Zabala

Jeremie Brechetek akilesen **tendoian** duen lesioa uste baino larriagoa da, eta frantziarrari ebakuntza egin behar izango diote. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
akilesen tendoian (3)

tendre 1 *izond* samurra.

Aski" **tendrea**" izaiten delarik haragi hori. Herria

2 samurra, amultsua.

Tendreak dira eta goxoak... Menane Oxandabaratz

tenebrista *izond* XVI eta XVII mendeetako pintura eskolez mintzatuz, argiaren eta itzalaren arteko kontraste gogorra ezaugarri duena.

Velazquez gaztearen lan batzuetan nabarmena da joera **tenebrista** hori. Berria - Kultura

Argien diseinu **tenebrista**, gune argiak oso argi eta ilunak erabat ilun uzten dituenak, guztiz bat dator esandako estetika barrokoarekin. Berria - Kultura

Argiztapenak ere merezi du bere komentarioa, giro **tenebrista** sorten duelako. Berria - Kultura

tenebroso *izond*

Indietara iritsi eta hango lurraldeak eta jendeak sarraskitzeari ekin ziotenean, kalean edo kartzeletan zeuden lapur, hiltzaile, bortxatzaile eta gainerako zibilizatu guztiak bidali zituzten, besteak beste, Espainia Berrira, hango **tenebrosoak** zibilizatzerak. Jokin Urain

tenedore 1 iz sardexka.

Tenedorearen puntan sastaturiko patata frijituak hortzartean kras-kras hausten. **Pako Aristi**

Beste tresna batzuk ere, nabalak, **tenedoreak**, pertsiana bat... pertsonaren larruz jantziak zeuden. **Gotzon Garate**

2 (hitz elkartuetan)

Tenedore soinua kristalezko ontziaren kontra **Unai Iturriaga**

tenedorekada iz sardexkada.

Oooooo! esan, eta berriro beste **tenedorekada** bat. **Pako Aristi**

tenentzia iz

Non dira orain haren kako-makoak, haren agudeziak, haren kasuak, haren **tenentziak**, haren trikimailuak? **Juan Garzia**

tenia¹ iz zizare-nagusia.

Teniak bete ditzala guztien heste-zuloak. **Xabier Olarra**

tenia² iz triglifoen azpiko ertz laua, frisoa eta arkitrabea bereiten dituen.

Arkitrabearen altuera modulu batekoa izango da, **tenia** eta gotak ere kontuan hartuta; **teniak** moduluaren zazpiren bat izango du; **teniarene** azpian eta triglifoen parez pare zintzilik geratzen diren goten luzera moduluaren seiren batekoa izango da, erregula ere kontatuta. **Santiago Iruretagoiena**

teniente 1 iz armadako ofiziala, kapitainaren azpian hurrengoa. iklotinant.

Teniente 1840. urtean, kapitain, teniente koronel, koronel, jeneral 1869an. **Antton Olano**

Berako errepidean fusilatu ditik segituan: **tenientea**, bi sarjentu, bi kabo, are Olaizola izeneko euskaldun bat, hemengotar bakarra dirudienez. **Txillardegi**

Alferez bat eta **teniente** bat zerrenda berdeekin. **Anton Garikano**

Gerra bukatu ondoren, sarjentu baizik ez zen Varela hura **teniente** izendatu zuten. **Jon Muñoz**

Egia al da don Hipolitok guardien **tenienteari** kontatu diona? **Bernardo Atxaga**

Zatoz nirekin, **teniente**. **Felipe Juaristi**

-Nire **tenientea**, hauxe da erakutsi nahi nizun neska. **Felipe Juaristi**

Teniente bat eta bi soldadu zetozkion, soldaduak beren mauserrarekin eta tenientea pistola batekin. **Joan Mari Irigoien**

Gero **teniente** batek banderatxo batekin seinalea egin eta tankea abian jarri zen. **Fernando Rey**

Gerrarako grina erabat jabetu da **tenientearen** gogoaz. **Jose Morales**

Haren atzetik, Albizturko parrokoa amasestuka, **teniente** burkide bat eta bi soldadu. **Inazio Mujika Iraola**

Teniente gizajoak, belauniko jarririk, Santakrutzi zangoak besarkatu omen zizkiok. **Txillardegi**

Ez zela ezer esatera ausartu **tenientearen** aurrean, guk jakingo genuela zertan ari ginen. **Inazio Mujika Iraola**

Guardia zibilen **teniente** batek salbatu omen zion bizia, bere gizonei aurre eginez. **Bernardo Atxaga**

"Patata-zomorroa" -esanaz moztu zuen Fenwick **tenienteak** Cliff **tenientearen** esaldia. **Joxemari Urteaga**

Vetvitski infanteria-kapitainak koronelak baino zaldi hobea zuela, baina Vzientsev **tenientearena** askoz hobea zela. **Jose Morales**

Tiranoari heriotza emateko elkar harturik zirenetako batek, Trujilloren urgazleen gorputzeko **teniente** Amado Garcia Guerterok. **Edorta Jimenez**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Isaak Zeuner Stalingradon borrokatu zen eta hantxe **teniente** gradua lortu. **Felipe Juaristi**

Gerran **teniente** maila iritsi zuen. **Alberto Ladron Arana**

Gizaseme gazte bat zen, garai eta argala, Errege Gudarosteko **teniente** -jantzian. **Juan Garzia**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Butaliak, polizia- **teniente** batek, garesti ordaindu zuen azterketa horiez ez axolatzea. **Gotzon Garate**

«Hamar irakiarren gorpuak aurkitu ditugu ibaian eta horietako bik burua moztuta zuten», azaldu zuen Ali Al Nassiri hiriko polizia **tenienteak**. **Berria - Mundua**

Bazter guztiak piparen keaz betetzen zizkion huser- **teniente** erretiratu bat. **Jose Morales**

4 teniente jeneral jeneral gorenaren azpikoa.

Armadako idazkari Jose Miguel Soto **teniente jeneralak** eman zuen berria atzo. **Berria - Mundua**

Koalizio indarren komandante Ricardo Sanchez **teniente jeneralak**, berriz, euren asmoa Moktada Al Sadr «atxilotzea edo hiltzea» zela adierazi zuen astelehenean. **Berria - Mundua**

Hautsak harrotu ditu Espainiako Armadako **teniente jeneral** Jose Mena Aguadok herenegun Espainiako Konstituzioaz eta Kataluniako estatutu proposamenaz eginiko adierazpenak. **Berria - Mundua**

Estrategia horretan, Otegiren ustez, une honetan edozein tresna erabiltzeko prest agertu da: gotzainak, **teniente jeneralak**, irrati kateak, auzitegi nazionala... **Berria - Euskal Herria**

- Louis-Charles Machault (1667-1750), poliziako **teniente generala**. **Juan Martin Elexpuru**

5 teniente koronel armadako ofiziala, koronelaren azpian hurrengoa.

Teniente 1840. urtean, kapitain, **teniente koronel**, koronel, jeneral 1869an. **Antton Olano**

Diputatu horrek bazuen, alabaina, **teniente-koronel** bat adiskidea eta honek zuen afera ongi eraman bururaino. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Goi Estatuko **teniente koronel** Wolfram Von Richthofenek. **Edorta Jimenez**

Hamasei urte eman zituen bertan espioitza lanetan eta **teniente koronela** zela. **Berria - Mundua**

"Sikiera **teniente koronel** bat izan balitz..." eta antzekoak entzun behar izaten ditu-eta. **Jokin Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako **teniente** (3); armadako **teniente** (5); espainiako armadako **teniente** (3); espainiako **teniente** (4); guardia zibileko **teniente** (4); manriquez **teniente koronela** (3); **teniente gradua** (3); **teniente jauna** (3); **teniente jeneralak** (10); **teniente jeneralaren** (5); **teniente koronel** (10); **teniente koronel bat** (3); **teniente koronela** (11); **teniente koronelak** (6); **teniente koronelaren** (7)

tenienteorde 1 *iz* tenientearen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

Hochedé ofizialorde ohi bat da, oraindik orain **tenienteorde** izendatua. Josu Zabaleta

Abuztuak 9: Francisco Casanova Espainiako Armadako **tenienteordea** hil zuen ETAk Berriozarren. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fernando Cordero: Karabineroen Segurtasun **tenienteordea** izan zen. Berria - Mundua

tenis *(orobat teniz g.er.)* 1 *iz* sare baten alde banatara kokatzen diren bi edo lau lagun aritzen diren kirola, pilota, erraketak erabiliz, elkarri jauritzean datzana.

Debekatua dute igerilekuetan, **tenis**, hockey edo bestelako kirol zelaietan sartzea. Josu Zabaleta

Gainerako kirolak edo mundutarrak edo hutsalak iruditzen zitzaizkion, **tenisa** esaterako, edo aspergarriak eta ergelak, igeriketa konparaziora. Fernando Rey

Otsailaren 1a bitartean Australia izango da **tenisaren** hiriburua, eta Melbourne, guztiaren gune. Berria - Kirola

Horiek enera etortzen dira **tenisean** egitera pilota partida ez duten egunetan. Edorta Jimenez

Denak zuriz jantzita joaten ziren herrira **tenisean** jokatzera. Fernando Rey

Apirilaren 11ko arrastian aita-semeek frantsesa berrikusi dute, eta gero **tenisean** set bat jokatu. Edorta Jimenez

Urteak dira Hakim ezagutzen duela, **tenisean** ibiltzen ziren elkarrekin **tenisean** aritzen zen garaietan. Oskar Arana

Erraketan eta **teniseko** piloten kolpe-hotsak iruditu zitzaizkidan. Anjel Lertxundi

Inbidiaz begiratzen genien "beltzei", arin igotzen baitziren **teniseko** zapatilekin, edo aterpeetan esertzen baitziren esnegaina jateko. Fernando Rey

ik beherago 5. Askoren artean

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Trinketea, ezker pareta, eskaladarako rokodromoa, **tenis** zelaiak, gimnasioa eta musikarientzako gela. Berria - Euskal Herria

Tenis zelaiaren tamainako harkaitz batean. Anton Garikano

Elurra pilatu zuen **tenis** zelaiko alanbreen kontra. Koro Navarro

Hiru urte baino gehiago egin ditu Martina Hingisek **tenis** pistetatik kanpora. Berria - Kirola

Tenis denboraldiko lehen hitzordu nagusia bihar hasiko da, Melbourneko Flinders Parkeko pistetan. Berria - Kirola

Tenis -klubean, hondartzaren parean, itsasoari begira. Jon Arretxe

Tenis Elkartearen ere dantzarako giroa izan zen, baina oso bestelakoa. Berria - Kultura

Euskadiko **tenis** selekzioak Txinaren aurka jokatu du hilaren 18an eta 19an. Berria - Kirola

Nazioarteko **Tenis** Federazioaren dopinaren kontrako epaitegiko kideen aurrean agertu zen eslovakiarra. Berria - Kirola

Egun haietan -uda amaiera-, **tenis** lehiaketa baten transmisioak zeuden etengabe. Bernardo Atxaga

Moskuko **tenis** txapelketa final-laurdenetara iritsi da. Berria - Kirola

Anastasia Myskina errusiarra, Serena Williams estatubatuarra eta Conchita Martínez espainiarra Dubaiko **tenis** torneoko final-laurdenetarako sailkatu dira. Berria - Kirola

Arambel ostatuak antolatzen du lehiaketa bat palantxan **tenis** pilotarekin. Herria

Bi neska ikusi nituen handik hurbil, **tenis** -jantzian. Anjel Lertxundi

Tenis -oinetakoa enbragetik altxa eta metro batzuk egin ditu. Urtzi Urrutikoetxea

3 tenis-zelaiak.

Arratsaldeko 2etan, bazkaria, Ziburuko **tenis** estalian, kirol zelaiaren ondoan. Herria

Lagunekin Iruñeko **tenisera** palan jokatzera joanen naiz, eta bukatutakoan hamaiketako hartuko dugu. Berria - Euskal Herria

4 tenis lehiaketa.

AEBetako **tenis** irekia, US Opena alegia. Berria - Kirola

Otsaileko azkenetan izango dute emakumezkoek txanda, Qatar Total **Tenis** Irekian. Berria - Kirola

Qatarako Exxon-Mobil **Tenis** Irekia azken bi urteetan Federerrek irabazi duena. Berria - Kirola

5 p/kirol oinetakoa.

Astegunetarako sandaliak eta igandeetarako **tenisak** erosi zituen. Bego Montorio

Txandala eta **tenisak** jantzi. Unai Iturriaga

Tenisak eta zure betiko galtzerdi zuriak kendu zenituen lehenik. Patziku Perurena

6 mahai tenis ping-pong-a.

Kirol ekitaldiak: saski baloi, errugbi, pilota, ur-polo, **mahai-tenisa**, karrika-hokeia, kanoe-kaiaka, **tenisa** ... Herria

Mahai-tenisean jokatzera da euren ogibide bakarra. Berria - Kirola

Mahai-tenis jokalaritza batek zein dohain izan behar dituen galdetuta, Wuk eta Rodriguezek ez dute zalantzarik. Berria - Kirola

Bada esatera bat dioena Txinak hiru botere dituela: Alderdi Komunista, Armada eta **mahai-tenis** selekzioa. Ieka enea **mahai-tenis** taldea. Berria - Kirola

7 tenis gune ik tenisgune.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

mahai tenis (3); **nazioarteko tenis** (3); **tenis denboraldiko** (3); **tenis jokalaria** (9); **tenis jokalaria** (4); **tenis klubak** (3); **tenis klubean** (4); **tenis lehiaketa** (4); **tenis selekzioak** (3); **tenis zelaiak** (3)

mahai tenisean (5); **tenisean jokatzera** (4); **tenisean jokatzera** (3)

tenisfikazio *iz adkor*

Bertsolaritzaren "**tenisfikazioa**" gertatzen ari dela idatzi izan dut inoiz. Andoni Egaña

Baina izan zen ideia bat [Egaña] atera zuena: **tenisfikazioa**. Berria - Kultura

tenisgune *(orobat tenis gune)* *iz* tenisean egiteko instalazioak dauden gunea.

Liburu apaindu guziak ikusten ahalko dira helduden larunbatetik aintzina, zortzi egunez segidan, irailaren 8-tik 15-erat beraz, Donibane Lohizuneko **tenisgune** estalian.

Herria

Aurten berean, sail horren arabera lan batzu egingen dira Euskal-Jai ezkerparetan eta **tenisgune** estalian. Herria

Ortzirale aratsean, Ziburun, **tenisgune** estalian, Udazkeneko kontzertua. **Herria**
Hiriko hegoaldean eraiki berri duten **Tenis Gunea** proposatu zuen Pekinek. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tenisgune estalian (6)

tenislari iz tenis jokalaria.

Paul-Henri Mathieu, 20 urteko **tenislaria**, bi aldiz segidan irabazle: Mosku-n eta Lyon-en. **Herria**
Arkupeko eskailera astiro igo zituen, ordea; dejadara bigarren botean helduko den **tenislariaren** modura. **Unai Elorriaga**
Inolako arazorik gabe irabazi zuen atzo Roger Federer **tenislari** suitzarrak Australiako Irekiko bere lehen partida. **Berria - Kirola**
Tenislari handi asko faltako dira Wimledongo Torneoaren 127. aldian. **Berria - Kirola**
Gonbidatuen artean Zubin Mehta, Tony Blair-en emaztea eta Europa Ekialdeko **tenislari** ospetsu bat, kokainaz lepo [...] agertu zena. **Patxi Iturritegi**
Ez da Pironkova **tenislari** ezaguna zirku-tuan, baina Bulgariaren sona handikoak diren bi kirolariren alaba da. **Berria - Kirola**
17 urte ditu Krajicekek, Australiako Irekiko **tenislari** gazteenak. **Berria - Kirola**
Goi mailako **tenislaria** izatea zaila da. **Berria - Kirola**
Galtzerdi beltzak, grisak, **tenislariaren** zuriak. **Eskarne Mujika**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egungo tenislari (3)

etxeko tenislariak (3)

tenista iz tenislaria.

Bata palista eta bestea **tenista**? **Jon Arretxe**

teniszale iz tenisaren zalea den pertsona.

Atzokoa ez zen egun ona izan Australiako **teniszaleentzat**. **Berria - Kirola**

teniz ik tenis.

tenk (32 agerraldi, 22 liburu eta artikulua 1ean; orobat teink 30 agerraldi, 5 liburu eta 11 artikulutan) 1 adlag kontrako indarren eraginpean.

Giharrak **tenk**. **Harkaitz Cano**
Dardar hasten zen haria bezain **tenk**. **Eduardo Matauko**
Halako batean gorputz guztia **tenk** jarri, aurpegia zurituz, eta eskutzarra sorbaldaren gainean jarri dio semeari, dardara batean. **Jokin Muñoz**
Fusilak bularren aurka joz, gorputzak **tenk** jarriz, eskuin eskuko hatz erakusleaz kapelako luma ukituz. **Felipe Juaristi**
Giharrak **teink** jarriak eta bihotza danba-danba bularrean. **Migel Angel Mintegi**
Tenk dauden gauzak, lehorregi eta idorregi akaso bai, zurrin bai, baina hala ere bizirik. **Harkaitz Cano**
Ordu arte isilik, **tenk** egondako talde-lagunak barrez algara batean lehertu ziren. **Inazio Mujika Iraola**
Gorputza biguna zeukan artean, kanaberaren eitekoa, haragiak **tenk**, baina haren estutuan urteen zama nabari zen. **Juan Kruz Igerabide**
Biak Faluan izan zirenean, goitik soka sendoa luzatu zieten, **tenk** ukan zezaten. **Edorta Jimenez**
Aurpegiko arrastoak **tenk** ditu. **Josu Zabaleta**
Hura oihuka ari zen denbora guztian, begia gauza dizdizari hartan finko, **tenk** zuela. **Josu Zabaleta**

2 (izen gisa) tenkadura.

Pertsonaiak izaera sozialaren eta norbanakoaren nortasunaren arteko **tenkan** bizi dira. **Berria - Kultura**

3 tenk egin tira egin; tenkatu.

Goikoek, ontziburuaren semeek-eta, **tenk egin** zuten, gora. **Edorta Jimenez**
Mikel Strogoffen lokarria, hark berak marraskatua ordurako, hautsi egin zen zaldiak ezustean **tenk egin** zuelarik. **Karlos Zabala**
Barneak **tenk egiten** zion, eta haustear sentitzen zuen. **Fernando Morillo**
Onak diren liburuek, haurren literatur gaitasunari **tenk egiten** diote. **Ana Urkiza**
Atezuan, gorputz mehegiko gihar guztiak **tenk eginda**, une luze batez begira gelditu zen, zerbait entzun edo gertatzea espero duenaren antzera. **Alberto Ladron Arana**

4 gelditu.

Etxe ondoan **tenk egindako** soldaduen ilaran euskal hitz bakan batzuk errepikatzen ziren nabarmenki: [...]. **Txillardegí**

5 tenk-tenk

Bion artean arrastaka eraman hindugun bebarruko itzalpera, ordurako **tenk-tenk** eginda, arranpatua, beldurrak jota hiltzen direnak hiltzen diren bezala. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

etxeko tenislariak (3)

tenkada iz tiraldia.

Gauaren erdian jaiki eta lotura batzuen irmotasuna zein soka batzuen **tenkada** egokia egiaztatzekeo punturaino iristen zen. **Jon Alonso**

tenkadura 1 iz tenkatzea.

Presondegiko sukaldean sutara, bere krimenak aitortu zituen, soken **tenkadurak** erabat beren onetik irtenaraziak gorputz adarrak, eta zintzurra hautsirik. Izan ere, egoera berean, **tenkaduraren** araberakoa da hari baten bibrazio-garaiera. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan)

tenkailu *iz* tenkatzeko gailua.

Welcome my friend, estropezu egin dudana burdina altzairuzko pilare bat sostengatzen duen **tenkailu** bat da. **Harkaitz Cano**

tenkarazi, tenkaraz, tenkarazten du *ad* geldiarazi.

Batailoiarekin, helbidea moztu, beltzen etorrera galarazi, eta atzera eragin behar zieten liber[al]ei, gehienez Sesma inguruan **tenkaraziz**. **Txillardegi**

tenkatu¹ *(157 agerraldi, 59 liburu eta 26 artikulutan; orobat teinkatu 51 agerraldi, 19 liburu eta 3 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian tenkatu erabili behar dela adierazten da)*, tenka, tenkatzen 1 da/du *ad* tenk jarri.

Trebeetan trebe nauze arku **tenkatu** eta geziak jaurtitzen. **Juan Kruz Igerabide**

Erregeak uztaila **teinkatu** zuenean, Eliseok erregearen eskuen gainean bereak ezarri. **Elizen arteko biblia**

Pieza luze kurbatu gabe bat hartu eta tomuzilean **tenkatu** zuen. **Iñaki Iñurrieta**

Gerra garaian sos batzuk ateratzeko gai den besoak -eta hitz hura esatearekin batera, **tenkatu** egin zuen, giharrak hobeki erakustearren- halako bi aterako dik bake denboran. **Patxi Zubizarreta**

Balezta soka bezain **teinkaturik**. **Aingeru Epaltza**

Mila arrosario elastiko luzatzen dira gureganantz, eteteraino **tenkatzen** dira, eta gure altueran zartatzen. Gorputz osoa **tenkatzen** da eta jartzen da dardarka. **Josu Zabaleta**

Hamida zurbildu egin zen, hazpegiak **tenkatu** egin zitzaizkion. **Patxi Zubizarreta**

Atzealdeko gihar ahaltuak **tenkatu** egiten zaizkio. **Oskar Arana**

Nire baitan zerbait **tenkatu** zitzaidan, etsaigo eta mira aldi berean, beste emakume batekiko haragizko konplizitate ageriko horren aurrean. **Eduardo Matauko**

Haren gerruntze oparo betea guztiz **tenkatu** agertzen zen kortsearen kariaz. **Karlos Zabala**

Andreari so egiten zion, hain sasoiko eta lasai, besoak apur bat **tenkatuak**, bridei eutsiz. **Karlos Zabala**

Hezurrak, berriz, iraunkortasun handia erakusten baitu **tenkatzean** edo okertzean. **Irene Aldasoro**

Beste esplikazio baten arabera, aurrez **tenkatu** gaia litzateke hezurra. **Irene Aldasoro**

2 irud/hed

Aldagelan zeuden gainerakoek elkarriketa **tenkatu** egin zen. **Irene Aldasoro**

Bakegintza eta normalizazio prozesua «muturreraino **tenkatzen** dutelako. **Berria - Euskal Herria**

Martxoaren 11n, goizetik giroa **tenkatzen** joan ziren funtzionarioak. **Berria - Euskal Herria**

Horrek egoera **tenkatu** zuen. **Berria - Ekonomia**

Eta lan nekez horretan ibili da bereziki trebe Ladron; azken batean, jakin-mina eta sorpresa azken ueña arte **tenkatu** iraunarazi ditu. **Berria - Kultura**

3 (era burutua izenondo gisa)

Orekarien soka **tenkatuak** laxatu. **Karlos Zabala**

Soka **tenkatuek** poliki-poliki igo zuten; etenez gero, hutsean amilduko zen. **Juan Kruz Igerabide**

Gorputz sendoa bezain leuna, gezi **tenkatuek** alderik alde josita ziotena. **Mirentxu Larrañaga**

Errege bihotzaren silueta ageri da behatz **tenkatuen** artean, gero muturrez behera jarri eta jokoari ekin diote. **Monika Etxebarria**

Arrosa-arrosa zegoen, eta haren gerruntze **tenkatu**, hain bizigabea eskuarki, dardara batek hartu zuen. **Karlos Zabala**

Mutur batean tinpanoa du, eta, bestean, berriz, beste mintz **tenkatu** bat, *leiho obal* deritzona. **Irene Aldasoro**

Tupustean sudur bat agertzen zen, masailaz **tenkatu** bat nabaritzen. **Karlos Zabala**

Aire-zutabe, hari, larru **tenkatu** edo mihien bibrazioek egiten dute musika. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arkua tenkatu (4)

arkua tenkatzeko gai (3)

arkua tenkatzen (3)

uztiala teinkatu (4)

teinkatzen dira (3)

tenkatu² ik **trenkatu**.

tenkatze *iz* tenk jartzea.

Nabarmena bada behintzat abertzaleen arteko harreman lehendik tenkatuak are gehiago **tenkatze** horrek ez duela lagunduko. **Berria - Euskal Herria**

tenkor 1 *izond* irmea, tinkoa.

-Proiekturik baduzu? -galdetu zidan, irribarre **tenkor** amultsu batez. **Joxan Elozegi**

2 (adizlagun gisa)

Ideiak, irudiak, herdoildu egiten dira, gauza fisikoak balira bezala, ez dute luzaro irauten esamolde boteretsuen bizkarrean ondo eta **tenkor** itsastan ez badira **Pako Aristi**

tenkortasun *iz* tenkorra denaren nolakotasuna.

Baina hori egin aurretik beste idazleren baten lekua hartu nahi nuke idazten jarraitu ahal izateko -esan omen zuen eta Monikari begiratu omen zion **tenkortasunez**. **Joxean Agirre**

tenkortu, tenkor(tu), tenkortzen du *ad* tenkor bihurtu.

Presaren antzeko larritasun batek ez dio uzten bizitzan bere sustraiak ondo **tenkortzen** eta gainontzeko bizikide guztien kezka sentitzen. **Pako Aristi**

tenor *(orobat tenore g.er.)* 1 iz gizon ahotsen artean zoliena; ahots hori duen pertsona.

Ahots biak, sopranoa eta **tenorra**, aurrez aurre, elkarren inguruan kiribiltzen, sugeak bezala, hitzik gabe. Oskar Arana

Tenorrak bikain aritu ziren lehen konpasetik. Berria - Kultura

Tuberkulosiak jotako **tenor** bat zegoen pianoari helduta. Koro Navarro

1886an "Pasayan" zartzuela estreinatuko zuen, Vidarte **tenorrak** abestua. Askoren artean

Santa Marian egin zituen txikitako musika ikasketak, eta San Bizentzen **tenor** moduan aritu zen gerora. Askoren artean

Kantuan ari ziren pianoaren inguruan, bularralde eroriko **tenorra** zutela gidari, bere ahots argiarekin. Koro Navarro

Uztailaren 20an, larunbatez: piano kontzertua, soprano eta **tenor** kantariekin. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Opera aditu guztien laudorioak jaso ditu Florezek, eta munduko **tenor** lirikorik onenen pare jartzen dute. Berria - Kultura

Bi sopranoen kantaldia nabarmenduko genuke eta etxeko Atxalاندabaso **tenor** arinarena ere, talde orekatsu batean. Berria - Kultura

La Favorita opera zen Julian Gaiarre **tenor** handiaren begikoa. Berria - Kultura

-Ingeles **tenore** garden gozo ezti zoragarri bat -esan zuen izeba Katek sutsu. Irene Aldasoro

Francisco Casanova **tenor** dominikarrak Bilboko Arriaga antzokian abestuko du gaur. Berria - Kultura

Pertsonaia nagusien artean, **tenor** harroa eta soprano itzela kapitalismoaren eta burgesiaren isla dira. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Inoiz entzun zuen **tenore** -ahots ederrenetariko bat zuela. Irene Aldasoro

Fededunek ez zuten burlatzeko astirik ukan, herriko xantreak bere **tenor** boz sakonaz ttattit eta mutu utzi zituelako: alleluia! Itxaro Borda

Tenor boz xuxena zuen eta, hura entzutearekin, goibeldurak gainditzten zuela ohartu zen. Elena Touyarou

4 (izenondo gisa)

Ahots baxu batek, baritono batek eta hiru ahots **tenorrek** osatzen dute taldea. Berria - Kultura

5 saxo tenor tenorren eskala-bitartea hartzen duen saxoa.

Ez zen gauza **saxo tenor** bat eta saxo altu baten artean bereizteko, baina ez zuen uste bereizi beharra zegoenik. Lutxo Egia

Hiru film labor emango dituzte, Tato Gracia kontrabaxu jotzailearen, Gorka Benitez **saxo tenor** eta flauta jotzailearen eta Jose Luis Canal pianistaren laguntzaz. Berria - Kultura

Gotzon Garate (bateria eta ahotsa) eta Josu Urkidi (**saxo tenorra**) ditu lagun egun. Berria - Kultura

Miguel Villar Pintxo **saxo tenor** jotzailea. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jose bros tenor (3); saxo tenor (6); saxo tenor jotzailea (3)

casanova tenorra (3); saxo tenorra (3)

machado tenorrak (3); tenorrak jokatu du (3)

tenorrek batera (4)

tenore¹ *(orobat tenor g.er.)* 1 iz garaia, ordua.

Ez nekien zer **tenore** zen ere, baina "lduzki denian zoin den eder itzala!". Piarres Aintziart

Nire bizitzak askorik balio ez zuen **tenore** eta leku batean amesturikoa. Juan Garzia

Tenorea duk, bai; hoa, hire zain zaudek zerbitzariak. Juan Garzia

Zuk hauta **tenorea** eta tokia ere ba. Janbattitt Dirassar

-Ez dut zure izena ahaztu, ezta joan den ostiralean hemen egon zinenik ere, baina orduan beste **tenore** batean etorri zinen, beste itxura batekin. laster Anjelusaren **tenorea** dut, eta herrira itzuli behar dut. Migel Angel Mintegi

Kafearen **tenorean**, altxatu eta hitzalditoxa egin nuen: [...]. Joxerra Garzia

Egun guziz idekia da **tenore** hauetan: 10tik 14etara eta 17tik 21etara. Herria

Aste huntako parropiako berrietan jakiten dugu mezako **tenoreak** aldatuak izanen direla. Herria

Orain, ene begiek idazten dudana ozta-ozta irakur dezaketean **tenore** honetan, jaio nintzen hexagonotik legoa gutxi batzuetara hiltzeko etsipena hartu dut. Juan Garzia

Erredakzioa borbor zegoen, egunero bezala **tenore** horretan. Aingeru Epaltza

Negu hotz hartan eta, bertzenaz ere, **tenore** hartan, barnearen pixteko, edozein edari irakin on zen. Eneko Bidegain

Hitzartutako **tenorean**, "Joakiñene"ra inguratu nintzen. Txillardegi

Zer **tenoretan** errezebitzen zuen joan nintzen jakitera. Marzel Etxehandi

Partitzeko **tenorea** dela? Michel Oronoz

Etxeratzeko **tenorea** laster etorriko zitzaion. Ramuntxo Etxeberri

Erran **tenorean**, erran tokian zen segurki Luixa. Janbattitt Dirassar

Partaide eta adixkide guziak otoiztuak dira **tenoreko** jitea. Herria

Ni han izaten ahal naiz zuk erranen duzun **tenoreko**. Janbattitt Dirassar

Erran **tenoreko** erran tokian zen, noiz etorriko nintzen zain egoki, begiak argi eta erre. Janbattitt Dirassar

Autobusaren **tenoreko** ez gara aski goiz arribatu. Janbattitt Dirassar

Hobe beraz **tenorez** joaitea. Herria

Kasu egiten nuen deietan **tenorez** izaiteko. Marzel Etxehandi

Biharamunean **tenorez** heldu da Antzuolara. Herria

2 (izenondoekin)

Garaiak denentzat gogorak ziren, eta **tenore** desegokietan bisitarien errezebitzeko usaia bazuten. Elena Touyarou

Leku eta **tenore** egokian. Juan Luis Zabala

Bihotzaren eritasunari buruzko sendagaiak hartzen utzi dut **tenore** onean, aski indar atxikiz hemen hasi lana hemen bururatzeko. Piarres Aintziart

Lisa ederra guztiz txeratsua agertzen zen bere ezkon-nebarekin; **tenore** onean bidaltzen zuen ohera, goizean nahiko lo egina jaiki zedin. Karlos Zabala

Guretzat ere **tenore** ederra zitekeen etzatekoetan luzatzeko. Janbattitt Dirassar

Gero Arnegira izendatu zuten eta hor urte andana luze bat iragan zuen, erretiratzeko **tenore** dorpea jin arte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hatsanka sakon eta intziri motz hautematen zen lo-gela hertsu hartan, goizeko **tenore** zurbailetan. Itxaro Borda

Kolonel erretiratu baten historia entzuna dut kondatzen: beti nahi zuen **tenore** zuzenean aurkitu behar zuen hura, jatetxea, aterpea, saltegia. Piarres Aintziart

Ortizirale arrats hartan, berriz ere **tenore** xuxeneko han nuen Luixa. Janbattitt Dirassar

Bihar, **tenore** berean, soldadu saldo bat igorriko dut. Elena Touyarou

Egun berean eta **tenore** bertsuan, manifestaldi bat gaitza bazen Donostian. Herria

Topika honen guztiaren oihartzunak ez da zaila samatzea **tenore** bertsun Euskal Herrian, autokontzientzia nazionalaren espresio bilaketan. **Joxe Azurmendi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aspaldian beti kantu bera aditzen da urtean bi aldiz, martxoan eta urrian, **tenore** kanbiatez horiekin... **Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Igande eguerdiko aperitifa **tenorean**! **Ramuntxo Etxeberri**

Hilabete haietan zituen hiru lagunetarik batek goizeko ogia eguerdi arte atxikitzen zuen, bazka **tenorean** jateko. **Eneko Bidegain**

Afal **tenorean** nehor ez zen oraino handik jinik ehun bat ginen block-ean. **Marzel Etxehandi**

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Meza **tenore** aldatze: [...]. **Herria**

6 *tenore izan da/du ad*

Tenore duk epaile jaunarengana eramateko! **Anjel Lertxundi**

Neska pollit aztal-mehe bat hurbildu zitzaidan galdatuz zer **tenore zitekeen**. **Janbattitt Dirassar**

Bazuen **tenore**! **Hasier Etxeberria**

Tenore dugu N. jaun artistaren txaleteko ate nagusiak ipar aldera ematen duela esateko. **Berria - Kultura**

Tenore nuen, bada, Dartaietek erakutsitako leialtasun hain zirrikiturik gabea eskertzeko. **Anjel Lertxundi**

7

Ber **tenorexean**, herriko zazpi laborarik erakatsiko dūe ardiak nola biskarratzen diren haixtūrrekin. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egun eta **tenore** (3); leku eta **tenore** (3)

tenore ahots (3); **tenore berean** (54); **tenore beretan** (12); **tenore bertsuan** (5); **tenore egokian** (3); **tenore onean** (5); **tenore txarrean** (5); **toki eta tenore** (3); **zer tenore** (4)

afaltzeko tenorea (3); **aldatzeko tenorea** (5); **baina tenorea** (3); **batzeko tenorea** (3); **bazkaltzeko tenorea** (10); **bazkaltzeko tenorea zen** (3); **egiteko tenorea** (33); **egiteko tenorea da** (8); **ekintzetara pasatzeko tenorea** (3); **esateko tenorea** (7); **esateko tenorea iritsi** (3)

etxeratzeko tenorea (5); **hartzeko tenorea** (14); **hasteko tenorea** (8); **heltzeko tenorea** (3); **hiltzeko tenorea** (4); **itzultzeko tenorea** (9)

izateko tenorea (3); **joaiteko tenorea** (5); **joateko tenorea** (10); **lehen tenorea** (3); **mezako tenorea** (3); **mezaren tenorea** (3)

otoitzaren tenorea (3); **partitzeko tenorea** (7); **pasatzeko tenorea** (4); **sartzeko tenorea** (3)

tenorea arte (3); **tenorea badela** (3); **tenorea da** (45); **tenorea dela** (20); **tenorea duk** (3)

tenorea etorri (5); **tenorea etorria** (6); **tenorea heldu** (11); **tenorea heldu dela** (4); **tenorea heltzen** (3); **tenorea hurbiltzen** (4); **tenorea hurbiltzen ari** (4)

tenorea iristen (5); **tenorea iritsi** (27); **tenorea iritsi da** (7); **tenorea iritsi dela** (8); **tenorea jin** (17); **tenorea jin zen** (3); **tenorea jina** (16); **tenorea jina da** (4); **tenorea zela** (6); **tenorea zen** (15)

udako tenorea (5); **uzteko tenorea** (3)

egunak eta tenoreak (5); **elizkizunen tenoreak** (13); **huna elizkizunen tenoreak** (3); **igandeko mezetako tenoreak** (5); **mezen tenoreak** (4); **mezetako tenoreak** (10); **mezetako tenoreak aldatuak** (5); **ofizioen tenoreak** (4)

zeremonien tenoreak (4)

agurtzeko tenorean (3); **bazkaltzeko tenorean** (4); **ber tenorean** (15); **bere tenorean** (8); **den tenorean** (8); **diren tenorean** (3); **egiteko tenorean** (19); **egokitze**ko tenorean (3)

emaiteko tenorean (3); **emateko tenorean** (6); **erran tenorean** (9); **halako tenorean** (4); **hautatzeko tenorean** (4); **hiltzeko tenorean** (4)

idatzeko tenorean (4); **kafearen tenorean** (3); **luhuson ber tenorean** (3); **ordaintzeko tenorean** (3); **partitzeko tenorean** (6); **tenorean heldu zen** (3); **usaia**ko tenorean (6)

tenorearen beha (3)

ber tenoretan (7); **edozein tenoretan** (11); **idekia den tenoretan** (3); **mezetako tenoretan** (3); **telefona edozein tenoretan** (8); **tenoretan izanen** (3); **usaia**ko tenoretan (5); **zer tenoretan** (8)

edozein tenorez (5); **jin tenorez** (3); **tenorez etortzea** (3)

partitzeko tenoria (3)

tenore² ik **tenor**.

tenoretsu iz

Hiriko soinu guztiak itzali eta gauarenak baizik ez direnak nagusitzen diren **tenoretsu** horretan. **Anjel Lertxundi**

tenpera iz likido gelatinatsuz eginiko pintura-mota.

Gainera, lanak era guztietako materialekin egindakoak dira: olioia mihiSean, akuarela, **tenpera**, burdina, zinka, brontzea, plastikoak... **Berria - Kultura**

Horma eta eraikuntza zahartūei doana txerkatzen dū eskūz apaintū oihal higatū eta plegatū egitūretan margotūz **tenpera** eta olioan. **Herria**

tenperamendu ik **tenperamentu**.

tenperamental 1 *izond* tenperamentuari dagokiona.

Arima subjektuan dago, hau da, gorputzean, honen eraketa **tenperamental**a bera izanik. **Imanol Unzurrunzaga**

2 aiurri bizikoa.

Nor bere hankak bihurrika, hotzikaraz dardarka bezalatsu, dena epileptiko samarra, baina libertigarria nolanahi ere, oso **tenperamental**a, nolabait esan beharko banu.

Joxe Austin Arrieta

tenperamentu 1 (*orobat tenperamendu g,er.*) iz pertsona baten izaera edo aiurria, bere jokaera baldintzatzen duen heinean.

Espirituaren talentuak (ulermena, asmamena, juzgatzeko gaitasuna) edo **tenperamentuaren** propietateak (erabakimena, intentzioetan tematzea) ontzat har badaitezke ere, ezin dira berez on bezala definitu. **Askoren artean**

Hanna oso sentibera zen, suminkorra oso, **tenperamentu** antzemanezin horietako bat; Joachimek zioen bezala: maniako-depresiboa. **Joxe Austin Arrieta**

Horiek nahasten dituen garra itzali eta trankiltasuna eta oreka lortu arte behintzat, beren bihotza apal eta **tenperamentuz** menderatua geldituz. **Xabier Kintana**

Ugari dira jaiotzetik halako **tenperamentuzko** jarrera dutenak, eta horrekin betegintza morala ezinezkoa gertatzen da. **Xabier Kintana**

2 humoreen arabeko izaera.

Grekoek *stoicheia* dituzten printzipioetatik ikusten da gutxiak daudela lau elementurekin osatuta: beroa eta ura, lurra eta airea; eta, hain zuzen ere, horiek

temperamentu naturalaren arabera nahastuz azaltzen dira munduan sortuta dauden animalia guztien nolakotasunak. Santiago Iruretagoiena

Banakoaren mailako ez baina espezie mailako gorputz iraunkorrak badiren bezala, lau humoreak edo **"temperamentuak"** adibidez, badira unibertsorearen multzoan ere banakoaren mailako iraupena duten gorputz egonkorak. Xabier Kintana

Zeren eta harenganik ikasi bainuen, orobat, hainbat arrazoin -Huarte Garazikoak gizon-emaztekiek **temperamentuen** adierazteko erabili zituenak baino hagitzez ere molde garbiagoan eta gardenagoan, Hipokratesek eta Galenok erabili zituzten hotzaren eta beroaren, hezearen eta lehorren teoretarik haratago-, arimaren estalkien desestaltzeko baliatzen zituenak. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan)

Honen sustraia inoiz malenkoni **temperamentuan** dago, giroan, atsegin ez diren bihotz-hondokotan. Joan Mari Lekuona

temperatu *izond* musikan, temperazioa jasan duena.

Salterioa, lautea, hiru arrabita, kontrabaxua, bongo moduko danborrak, pianoa eta bost gizonezko ahotsak izan zituen laguntza gisa, juxtu-juxtu **temperatuak**, tremolo asko eginaz baina ondo kontzertatuak. Berria - Kultura

temperatura 1 *iz* eguratsaren hotz edo bero maila. ik hozbero.

Temperatura zero gradukoa, eguraldia hotza eta gardena. Joseba Sarrionandia

Temperaturak gora egin du Europan, «nabarmen». Berria - Gaiak

Berrogei gradutik gora egin du **temperaturak** eguerdiko hamabietan. Patxi Iturritegi

Temperatura igotzen ari zen. Aingeru Epaltza

Temperatura igo ahala, aireak ur-lurrin gehiago behar du asetzeko. Irene Aldasoro

Eguzki izpi horiek tokiko **temperatura** igotzen dute, 5 edo 10 gradutan. Berria - Gaiak

Korronteak gutxitu ahala, bestalde, lurreko **temperaturak** behera egingo luke. Berria - Gaiak

Airearen **temperatura** bera ere zero gradutik behera jaitsi dela. Pello Zabala

1972ko ekainaren 6an, 6 gradu eta erdira jaitsi zen Donostian **temperatura**. Pello Zabala

Gau luzeetako hotz markatuak, eguneko **temperaturak** jaitsarazten ditu. Pello Zabala

Ipar-ekialdeko haize hotzak eragina **temperaturak** nabarmen hoztuko dira. Berria - Euskal Herria

Temperaturak behera egin zuenetik, askoz gutxiagotan agertzen zen besteen aurrean. Jon Muñoz

Haize bolada nekosoak **temperatura** behar bezala gainera. Pello Zabala

Beherantz zihoan barruko **temperatura** etengabe. Bernardo Atxaga

Kanpoko **temperatura** 35 gradukoa da. Edorta Jimenez

Ipar Poloko **temperatura** subtropikala zen antzina. Berria - Gaiak

Negu australean **temperatura** larriagoa izango da, 37 gradu zeropetik, edo 45 gradu zeropetik. Joseba Sarrionandia

21 °C inguruko batez besteko **temperatura** zuten eskualdeetan sortu ziren lehenengo zibilizazioak. Irene Aldasoro

2 gorputzaren edo gauza baten berotasun maila.

Goizetan, **temperatura** jaisten zitzaionean, Margaritaz eta Andresez galdezka aritzen zen etengabe. Josu Zabaleta

Izerdi-guruinen bidez eta odol-hodien sare eraginkorraren bidez, gorputzeko **temperatura** erregulatzen du. Irene Aldasoro

Orobat eskaintzen du odolak kontrol-mekanismo bikain bat gorputzaren **temperatura** egonkor mantentzeko. Irene Aldasoro

Egun hotz batean, arteria-odola 36,5 °C inguruko **temperaturan** iristen da besaurrera. Irene Aldasoro

Ardiaren ileak 93 °C-rainoko **temperatura** irits dezake kanpotik tropikoetako eguzkipean, eta, aldi berean, fresko du barrualdea. Irene Aldasoro

Eskuaz uraren **temperatura** neurtu ondoren, odol hotzeko animaliak bailiran, murgil egiten zuten batera trikatu gabe. Txillardegi

Izerdi guruinak garrantzitsuak dira gorputzeko **temperaturaren** oreka mantentzeko. Irene Aldasoro

Beroa kontserbatzeko aipatu diren konponbide burutsu horiekin guztiekin ere, nabarmen jaisten da batzuetan odolaren **temperatura**. Irene Aldasoro

Andres arduratzen zen Luisentzako bainua prestatzeaz eta mutilari **temperatura** hartzeaz. Josu Zabaleta

3 (izenondoekin)

Temperatura jakin batean, asetasun-puntua iristeraino handitu daiteke aireko ur-lurrin kantitatea. Irene Aldasoro

Horiek guztiak baino hobea da muskulua gauza batean, eta garrantzitsua da gauza: **temperatura** handirik hartu gabe funtzionatzen du **Temperatura** apalena -3,5 gradukoa da batez beste (otsailen), eta beroena, 16-20 ingurukoa. Irene Aldasoro

Ur-lurrina, honelako **temperatura** hotzekin, zuzenean pasatzen da izotzetara, ur likido edo ihintzatik pasatu gabe. Pello Zabala

Urte osoan **temperatura** altuekin batera, eurite mardulak ia egunero dituen. Pello Zabala

Temperatura baxuan esfortzu gogorra egin duen Artikoko animaliak bi modu ditu gehiegizko beroa galtzeko. Irene Aldasoro

Temperatura apalean urtzen delako, ia konposatu organikoak bezala. Juan Garzia

Banuen gisako izozketa anitzen berri eta ongi nekien hain **temperatura** muturrekoek ezin osatuzko kalteak eragiten dituztela edonoren eskuetan. Xabier Montoia

Temperatura egonkorrean irakin behar baitu. Juan Garzia

Ile-larruari eta larruazal leunari dagozkien abantailek zerikusia dute gorputzaren barne-organoak **temperatura** konstantean mantentzearekin. Irene Aldasoro

Kontu handiz ibiltzen ginen beti, **temperatura** basaleko taulak egiten, etxean ukenduak eta edabeak prestatzen. Karlos Zabala

Igelak ez du bizirik iraungo zero azpiko **temperatura** oso hotzetan. Irene Aldasoro

Temperatura erreka, urte osoan. Pello Zabala

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Temperatura igoerak beste ondorio batzuk eragingo dituela ere ohartarazi du EEAK. Berria - Gaiak

Larruazalak baditu, hala ere, nerbio-amaiera espezializatuak, oso **temperatura** -aldaketa txikiak sumatzen dituztenak. Irene Aldasoro

Esango didazu ur izotzaren eta ur irakinaren arteko **temperatura** -aldea ehun gradutan banatzea gauza arbitrario bat dela. Josu Zabaleta

Gizakietan eta ugaztun gehienetan, oso eraginkorra da **temperatura** -erregulazioa. Irene Aldasoro

Bazuen denda gela berezi bat, cava bat, hezetasan eta **temperatura** -baldintza finkoak zeuzkana, puruak bere onenean kontserbatzeko. Jon Alonso

Ura berotzeko hornigaietan erabiltzen den murgil-berogailuan, **temperatura** -sentsore batek korrontea itzaltzen du tenperaturak maila jakin bat gainditzen duenean. Irene Aldasoro

Egun hartan haundun geldi nintekeen ala ez begiratu behar nuen nire **temperatura** -taulan, Oginok asmatutako egutegi famatuan. Karlos Zabala

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Klima epel-etako biztanleen gorputz-**temperatura** bera dute eskimalek eta hotentoteek. Irene Aldasoro

Lurrinketa kontrolatuaren bidez, gorputzaren barne-**temperatura** egonkortzen laguntzen du. Irene Aldasoro

6 irud/hed

Ostiralean Wall Streeten izandako galerak ahazteke zeudela, Ekialde Hurbileko **temperatura** politikoak gora egin du. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airearen tenperatura (6); barne tenperatura (4); barruko tenperatura (3); batez besteko tenperatura (11); bere tenperatura (3); gorputzaren tenperatura (3); gorputzeko tenperatura (11); gorputzeko tenperatura neurtzeko (3); gradu inguruko tenperatura (3); graduko tenperatura (8); kanpoko tenperatura (5); lurreko tenperatura (4) tenperatura aldaketa (9); tenperatura aldaketak (5); tenperatura altua (3); tenperatura altuak (8); tenperatura altuetan (3); tenperatura baxuak (4); tenperatura baxuan (6); tenperatura bera (5); tenperatura egokia (5); tenperatura eta atmosfera (3); tenperatura gora (3); tenperatura gradu (6); tenperatura hotza (4); tenperatura igotzen (5); tenperatura jakin batean (3); tenperatura neurtzeko (4); tenperatura neurtzeko gailuak (3); tenperatura oso baxua (4); tenperatura zero azpitik (8); tenperatura zeropetik (3)

uraren tenperatura (14); zero azpiko tenperatura (4)

muturreko tenperaturak (3); tenperaturak behera egingo (3); tenperaturak gora egin (3); tenperaturak gora egingo (3); tenperaturak hoztu (3); tenperaturak igo (3)

gorputzaren tenperaturaren (3); graduko tenperaturaren (5)

graduko tenperaturarekin (5)

tenperaturaren arabera (4); tenperaturaren igoera (4)

tenperaturek gora egingo (3)

tenperazio iz musika-interbaloen doitzea, interbaloen afinazio berdinean datzana.

Albokak berak, tresna gisa, azken urteetan izandako aldaketak ere **tenperazioa**, zulo berriak, material berrien erabilera... oso lagungarriak izan dira, alboka, panderoarekiko ezinbesteko lotura gaindituta, beste tresna batzuekin batera jotzeko aukera zabaldu baitute. **Berria** - Kultura

tenpesta 1 iz ekaitza.

Filipinetan orrona edo **tenpesta** izigarri batek herri horren ekialdea funditu du. **Herria**

Zeren eta, *La Hispaniolatik* berrehun bat legoatarat geundela, **tenpesta** izugarri hark inarrosi baitzituen galeoi-flotako galeoi guztiak. **Joan Mari Irigoien**

Louiseren batela **tenpesta** erdian hinki-hanka bazebilela oharztean, jendez betetzen ari zen tabernako zerbitzariari neskak bi whisky gehiago manatu zizkion. **Itxaro Borda**

2 irud/hed

Ene lehen **tenpesta** ene lehen amorioa izan zen, eta amorio hura koadro bateko gazte segail bat izan zen. **Joan Mari Irigoien**

Aitzinetiko **tenpesta** itoak nituen, apezturik. **Piarres Aintziart**

Ordu arte bere existentzia mekanikoki bezala iragana zitzaion, **tenpesta** bortitzik gabe. **Piarres Aintziart**

3 (hitz elkartuetan)

Elür **tenpesta** baten gatik hamarrek kokatürrik dira Iratiko etxola hortan, eta hor banazka banazka ehorik dirate. **Herria**

tenplario 1 izond Tenpleko Zaldunen ordenakoa.

Monje **tenplarioek** eraiki omen zuten Eunateko eliza ospetsu bezain misterioetsua. **Martin Anso**

-Zaldun **Tenplarioek** Erdi Aroko ordena erlijioso eta militar bat osatzen zuten -azaldu zuen Imanolek-. **Fernando Morillo**

2 (izen gisa)

Ez zegoen jakiterik Luvino preso politikoa izan zen, lapurra izan zen edo **tenplario** baten alaba izan zen. **Unai Elorriaga**

Gu kaputxinoak bertara etorri baino lehen ere, **tenplarioen** ospitalea egon ote zen aipatzen dute, Santiago bidean zihoazen erromesentzat eta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Tenplarioek eraikitakoa edo. **Fernando Morillo**

Historiak oroitarazten dizkigu [...] garrantzi handia izan zuten hiru militar ordenak, Santiagorena, inguru hauetan, Loion hain xuxen, sortua, **Tenplarioena** eta Jerusalemeko San Joanena. **Piarres Aintziart**

tenplatu, tenpla, tenplatzen (orobat tenplau) du ad epeldu, gozatu.

laz idatzitako ipuin luzea, **tenplatzen** utzi zenuena, irakurtzen duzu berrir.o **Pako Aristi**

tenplau ik tenplatu.

tenple 1 iz aldartea.

Mikelek beltz berezia eta patata tortilla pintxo behintzat atera zizkion, eta beste **tenple** batean zihoan. **Unai Iturriaga**

Ahizpak eramana zuen [...] Perikoren agurrerako gelditzen ziren orduak urritu ahala bere **tenplea** okerrera egiten ari zela ikusita. **Pako Aristi**

Bonboi batek ez digu bizitza salbatzen, baina gustua aldatu bai momentu batez; eta gustua aldatuta, beste **tenple** batean gaude aurrera egiteko. **Ana Urkiza**

-Gorputza **tenple** epiko halako batez sentitu behar dut laurhun orrialdetik gorako eleberri baten kontatzen zaizkidan ibilerei ekiteko. **Anjel Lertxundi**

2 naretasuna, asaldagaiztasuna.

-Polizia izango zuan eta adarra jo gura izango zian, jolastu, hire **tenplea** hausteko. **Koldo Izagirre**

Tenplea bazuen gizonak. **Edorta Jimenez**

Tenple itzeleko gizona zen -esan zuen bisitariak hura ikustean-. **Edorta Jimenez**

3 tenperatura.

Halaxe Italiak ere, iparraldeko herrien eta hegoaldeko herrien tartean jarrita, bi alde horietatik hartutako gauzak nahasten ditu eta **tenple** oneko ezaugarri orekatuak eta ukaezinak erakusten ditu. **Santiago Iruetagoiena**

Tenple oneko klima. **Pello Zabala**

Eta erremolatxa buru luzeak, **tenple** onenaren zain, gurdika-gurdika, ukulu eta mandio bazterrean gordetzeko. **Pello Zabala**

Hotz-beroa **tenplean** jartzen doan neurri berean, euriak Ebro aldetik dira usuago. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tenple oneko (4); **tenple onekoa** (3)

tenplete iz eraikin txikia, zenbait zutabek eusten dioten kupula batek osoatua. ikpabiloi; kiosko.

Katedrala erakutsi zidan, Armen Plaza, Errege Gudaros-tearen gaztelua, **Tenpletea**, Antzoki handia, Florida zaharra -daikiriaren sorlekua-, Espainiaren enbaxada... **Jon**

tenplo ik tenplu.

tenplu (orobat *tenplo*) 1 iz elizkizunetarako edo jainko bati gurtza egiteko prestaturiko eraikin publikoa. ik **jauretxe 3; eliza; pagoda.**

Leku horretan santutegiak jarri zituzten beren jainko hilezkorrentzat, eta **tenpluak** eraikitzen hasi ziren. [Santiago Iruetagoiena](#)

Jainko guztiei ez baitzaizkie denei estilo bereko **tenpluak** egin behar. [Santiago Iruetagoiena](#)

Gainerako jainko guztien **tenpluak** egiteko ere leku egokiak bilatu behar dira. [Santiago Iruetagoiena](#)

Prestatua zeukan marmol-kopuru handia **tenplu** bat egiteko estilo doriarrean, baina bere asmoak aldatu eta material horrekin **tenplu** joniarra altxa zuen Bako jainkoaren izenean. [Santiago Iruetagoiena](#)

Aberatsek jauregiak eta **tenpluak** eraiki zituzten Shiva jainkoaren ohoretan. [Gotzon Garate](#)

Tenplu bat eraiki zion Venusi, eta mila emagalduta sagaratu zituzten bertan. [Iñaki Iñurrieta](#)

Tenpluko atarian hil zuten, aldarearen oinean. [Jose Morales](#)

Ezin dezake **tenplu** batek konposizio egokia izan proportziorik eta erlaziorik gordetzen ez badu. [Santiago Iruetagoiena](#)

Egunoro aritzen zen **tenpluan** irakasten. [Patxi Altuna](#)

Tenpluen eta elizgizonen aberastasunek zirrara handia egiten digute. [Iñaki Iñurrieta](#)

Tenpluak greziar jainko-jainkosei eskainita daude. [Iñaki Iñurrieta](#)

Tenplu hori arratoiei eskainia da. [Gotzon Garate](#)

Ez dakit noiz hasi zen Mundu Sakratuko **Tenpluaren** kontu horrekin, baina ez da eliza arrunt bat. [Oskar Arana](#)

2 (izenondoekin)

Meskitetan, sinagogetan edota **tenplu** ortodoxoetan ere badu tokia Respeto-k. [Berria - Kultura](#)

Ohikoak dira **tenplu** hinduen edo mezkiten kontrako erasoak. [Berria - Mundua](#)

Bazekien Hare Krishnakoen **tenplu** nagusian egona zela ("etxe gorri handi bat, Brooklyngo Henry Streeteko 439an dagoena"). [Xabier Olarra](#)

Tenplu eder bat ere badago, Poseidon jainkoari eskainia. [Juan Kruz Igerabide](#)

Premia larri batek bultzatuta, **tenplu** bitxi hartan sartu eta, astiro-astiro, zutabe erraldoi haien artean ibiltzen hasi nintzen. [Alberto Ladron Arana](#)

Tenplu sakratuak eraikitzeko arauak eta leku horien proportzioei buruzko kalkulak hirugarren eta laugarren liburuetan emango ditut. *The Circus* izenak dioen bezala, zirkulu bat da, eta erromatarren **tenplu** biribiletan oinarrituta dago. [Santiago Iruetagoiena](#)

Egiten dira **tenplu** zirkularrak ere. [Santiago Iruetagoiena](#)

Tenplu greziararren irudi idealean gauzatzen zen arkitektura dintelduaren kodifikatzaile handia izan zen Vitruvio. [Santiago Iruetagoiena](#)

Ettxera aurretik, Sorbonne aurrean geratu eta **tenplu** greziar bati bezala begiratu zion. [Harkaitz Cano](#)

Tenplu dipteroak zortzina koloma ditu aurrean eta atzean, baina bi koloma-ilara ditu santutegiaren inguru guztian; honelakoa da Kirinoko **tenplu** doriarra, eta Efesoko Dianaren **tenplu** joniarra. [Santiago Iruetagoiena](#)

Prestatua zeukan marmol-kopuru handia **tenplu** bat egiteko estilo doriarrean, baina bere asmoak aldatu eta material horrekin **tenplu** joniarra altxa zuen Bako jainkoaren izenean. [Santiago Iruetagoiena](#)

Presidentea **tenplu** budista batera zihoan. [Unai Elorriaga](#)

Mundu galanteko **tenplu** zerutarrei eta izar distiratsuz jositako eterrari begira. [Xabier Amuriza](#)

Zeruko **tenplu** trumoiariak eror ez daitezten. [Xabier Amuriza](#)

Tenplu Nagusia New Yorkeko hiri santuan du. [Xabier Olarra](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garai batez idazki sakratuak azaltzen eta **tenplu** -zeremoniak egiten zituzten. [Gotzon Garate](#)

Bere hiriak (suntsitu gabe) bertan behera utzi eta, berrogeita hamar edo ehun milia harantzago, oihan beti ere berdinean, beste **tenplu** -hiri erabat berri bat eraikitzearen ospa egiten duen herri bat. [Joxe Austin Arrieta](#)

Kolomen ordeze, adibidez, kanabera luzeak jartzen dira, frontoien ordeze panelak hosto kiribil eta bolutekin, eta baita argimutlak ere, gainean **tenplu** -irudiak eusten dituztela. [Santiago Iruetagoiena](#)

Tenpluen antolaketaz aritu nintzen, eta **tenplu** -mota desberdinak aipatu nituen, alegia, zenbat diseinu-estilo dauden eta horietako bakoitzari zein xehetasun dagokion. [Santiago Iruetagoiena](#)

Tenplu -tipo nagusiak. [Santiago Iruetagoiena](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Rhind papiroa atera zuen handik; XIX. mendean Ramses II.aren hil-**tenpluan**, Tebasen, aurkitutako bilkariaren faksimile bikaina. [Jon Muñoz](#)

Ez dago ezer gozoagorik jakintsuen doktrinak ondo eraikitako goi **tenplu** nareetan bizitzea baino. [Xabier Amuriza](#)

5 irud/hed

-Kopernikok **tenplu** ezin ederragotzat zian unibertsoa, eguzkiaren lanparak argitua, eta arrazoin zian. [Joan Mari Irigoien](#)

Cogito, edo arrazoia dut existentziaren **tenplu**. [Anjel Lertxundi](#)

Ez al dakizue zuen gorputza Espiritu Santuaren **tenplu** dela? [Askoren artean](#)

Denok batera haren **tenplu** gara eta gutariko bakoitza ere banan-banan haren **tenpluak** gara. [Imanol Unzurrunzaga](#)

-Ustelkeriaren **tenplua** suntsi dezagun! [Elena Touyarou](#)

Ospetsu bihurtzeko, eta zientziaren **tenplu** modernoetan jarduteko eskubidea lortzeko? [Jon Muñoz](#)

Eskolapiori, Osasunari eta honelako beste jainkoei eskainitako **tenpluak** egiten badira, [...]. [Santiago Iruetagoiena](#)

Batzuetan, bost izarreko ostatu handiosa izan, elkarte gastronomiko umila izan, elikagaien **tenplu** horietan diharduen apaiz "profesionala" da eraldatzailea [...]; besteetan, militanten amateur hutsa izaten da. [Edorta Agirre](#)

Tabernetako komunak dira komunio horren **tenpluak**, eta zulo haietan, Ostia Biribila gurtu beharrean, karnetarekin egindako Lerro Zuzena gurtzen dugu, eta itsu-itsuan sinesten han dagoena kristoren gorputz kimikoa dela. [Iñaki Segurola](#)

6 Jerusalemgo tenplua.

Horregatik, bertan eraiki eta sagaratu zuten **tenplua**, Jainkoaren bizilekua, hurrengo belaunaldi guztietarako. [Elizen arteko biblia](#)

Jesus **tenplutik** ateratzean, bere ikasleetako batek esan zion: -Maisu, begira nolako harriak eta nolako eraikinak! [Elizen arteko biblia](#)

Harri handi eta aukeratuak ebakitzeko agindu zuen erregeak, **tenpluaren** oinarritarako. [Elizen arteko biblia](#)

Goizeko gorazarrea **tenpluan**. [Elizen arteko biblia](#)

Jainko-herriaren gorespina, **tenplura** sartzean. [Elizen arteko biblia](#)

Jesus **tenpluan** dago, eta eskriba eta farisauek andre bat dakarkiotu adulterioan erori dena. [Herria](#)

Ez al duzue Liburu Santuetan irakurri apaizek **tenpluan** larunbatero atsedeen-legea hausten dutela, horregatik errudun izan gabe? [Elizen arteko biblia](#)

Juduen kalendarioan **Tenpluaren** eskaintza eguna. [Josu Zabaleta](#)

Tenpluko hondakinen gain deitorrea. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere tenplu (4); **beste tenplu** (4); **dianaren tenplu** (4); **eraiki dizudan tenplu** (6)

tenplu aurrean (4); **tenplu barruan** (6); **tenplu joniarra** (3); **tenplu joniarrari buruz** (3); **tenplu sakratuak** (3); **tenplu sakratuen** (3); **tenplu santua** (4); **tenplu santuan** (4) **urrezko tenplu** (3); **zure tenplu** (8); **zure tenplu santua** (3)

dianaren tenplua (3); **jainkoaren tenplua** (9); **jaunaren tenplua** (7); **jerusalemgo tenplua** (3); **tenplua betetzen** (4); **tenplua eraiki** (7); **tenplua eraikitzeko** (18); **tenplua eraikitzeko asmoa** (4); **tenplua eraikitzen** (4); **tenplua eta aldarea** (3); **tenplua garbitu** (3); **tenplua ireki** (4); **tenplua profanatu** (3); **tenplua suntsitua izango** (3)

tenpluak egiten (3)

jainkoaren tenpluan (4); **jaunaren tenpluan** (4); **jesus tenpluan** (4)

tenpluan aurkitu (3); **tenpluan bertan** (3); **tenpluan egon** (3); **tenpluan irakasten** (9); **tenpluan irakasten ari** (3); **tenpluan sartu** (6); **tenpluan sartzeko** (3)

tenpluaren aurrealdean (3); **tenpluaren aurrean** (5); **tenpluaren ekialdeko** (3); **tenpluaren eraikuntza** (6); **tenpluaren eskuinaldean** (3); **tenpluaren garbikuntza** (6); **tenpluaren inguru guztian** (4); **tenpluaren inguruan** (3); **tenpluaren kontra** (3); **tenpluaren zabalera bera** (3); **zure tenpluaren maitemina** (3)

tenpluko altxortegira (3); **tenpluko arduradun** (3); **tenpluko atarian** (4); **tenpluko ate** (8); **tenpluko ateak** (6); **tenpluko hondaketak** (5); **tenpluko horma** (3); **tenpluko hormak** (3); **tenpluko laguntzaileak** (9); **tenpluko ontziak** (3); **tenpluko sala** (5); **tenpluko sarrerara** (3); **tenpluko tresnak** (5)

tenplura eraman (5); **tenplura joan** (10); **tenplura joan zen** (6); **tenplura sartu** (3); **tenplura sartzan** (3)

tenplurako zerga (3)

jerusalemgo tenplutik (3)

tenplutxo iz tenplu txikia.

Jaio eta laster Kanchipuram-go **tenplutxo** batean utzi zuen amak. **Gotzon Garate**

Gazteluaren hegalepeko zokondo batera egin genuen, han oihalezko **tenplutxo** modukoa baitzuen atondurik, bere aldare, kandela, gurutze eta enparauekin. **Edorta Jimenez**

tenpo ik tempo.

tenpora 1 iz pl liturgia-urtearen lau aroen hasieran barau eta bijilia egiten zen hiru egunak.

Lehen ageri ez ziren udaberriko **tenporak** ere hor azaltzen dira Erroman IV. mendearen azken alderako garizumako **tenpora** bezala. **Pello Zabala**

Ez dakigu nondik datorren eguraldiaren eta haizeen eta **tenporen** lotura eta korapiloa. **Pello Zabala**

Uztaren inguruko oitox-egun **tenporetako** hauek, Erromatik hasi, eta, pixkanaka, Europako beste eliz-elkarteetara ere zabaldu ziren. **Pello Zabala**

Lizarriturrik kontatzen duenez, haien aitona zenak, **tenporetako** azken egunean, gaueko hamabietan, azaoa deitzen zitzaion gari lasto bala sutzen zuen etxe-goiko zelaietan; keak iparrera joz gero, hotza zetorrela seinale, eta hotzarekin izoztea eta gosea. **Pako Aristi**

Kontuak kontu, zozomikote eta **tenporekin** bueltaka zebilen fraide batek ikusi omen ninduen aurrena, elizako ate ondoan, saskitxo batean. **Jon Alonso**

2 (hitz elkartuetan)

Feria quarta tenporum, bai, halaxe seinalatzen zuen, eta urtean lau bider errepikatuko zirenez **tenpora**-egunok, data seinalatzeko pregoian ere lau bider ziotsan. **Pello Zabala**

Halako batean heldu nien **tenpora**-kontu haiei eta atera nahi izan nien beren zimurduretan gorderik izan zezaketen zuku gordea... **Pello Zabala**

3 koarta-tenpora (orobat kuarta-tenpora g.er.) iz

769ko urtean, Karlomanok berak gomendatu zien gotzainei **koarta-tenporak** gogorarazteko duten obligazioa. **Pello Zabala**

IV. mendean, Elizak orduko liturgia-egutegia finkatu zuenean, **koarta-tenpora** egunak 14ko Gurutze Santuaren egunaren ondorengo asteazken, ostiral eta larunbatean seinalatu zituen. **Pello Zabala**

Eguraldiaren erreibueltak eta gora-beherak **koarta-tenporekin** loturarik baldin balute edo baldin badute, hori norbaitek usnatu eta antzeman duelako da. **Pello Zabala**

Marxtoaren abiera inguru horretan bai, hor egokitzen dira gehienbat, **koarta-tenpora** garizumakoak. **Pello Zabala**

Udazkeneko **koarta-tenporak**. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tenpora egun (5); **tenpora egunak** (7)

udaberriko tenporak (3); **urriko tenporak** (3)

koarta tenpora (8); **koarta tenporak** (24); **koarta tenporen** (11); **koarta tenporetako** (7); **koarta tenporetan** (3)

tenporada iz denboraldia.

Laussunnek beste **tenporada** batez gera zedin nahi zuen, baina askoz handiagoa zen Rouenen proposamena". **Jokin Urain**

Kafetegiren batetik edo dendaren batetik irten berriak, ibilgiro ona eta hurrengo **tenporadako** arropak ikustera joanak biak, auskalo, guti fida ezkontzarako soinekoa erostea. **Koldo Izagirre**

tenporal¹ (orobat denboral g.er.) 1 izond denborari dagokiona.

Finitutasun espazial hau, ostera, infinitutasun **tenporalez** konpentsatzen dute. **Xabier Amuriza**

Beste asko idazle eta artisten presente zaharra, gure gune **tenporalean** bizi garenontzat "klasiko" bilakatu da orain. **Ana Urkiza**

Ezin da kasualitatez jo su-etenaren iragarpenaren eta manifestazioaren lotura **tenporala**. **Berria - Harian**

Idazleak koordinada espazio-**tenporal** konkretu batzuetan idazten du, emakume den aldetik, euskaldun den aldetik. **Berria - Kultura**

Hori ez da materialtasun sentigarria, kualitatiboa [...] hautemate-espazioaren kokapen espazio-**denboral** berak zatitzen duena. **Xabier Arregi**

2 denbora-tarte bat baino irauten ez duena; betierekoa ez dena.

Gizaki batzuek betiko gauzak maite dituztela, beste batzuek, berriz, **tenporalak**, nabarmena da; eta arestian onartu dugu bi lege daudela, bata betikoa, bestea **tenporala**. **Imanol Unzuurrungaga**

Nahimena gauza **tenporaletatik** apartatu behar dugula eta betiereko ongizaren gozamenara bideratu. **Imanol Unzuurrungaga**

Haur hura betiko zegoen kondena-tua, zeren pena eternala baitzen bekatu mortalaren ordaina eta ez pena **tenporala** ...! **Joan Mari Irigoien**

3 espirituala ez dena.

Hasiera batean gizakiak edukin erabat **tenporala** eman behar badio ere bere meditazioari, hala nola gure Jaunaren Jaitza, egintzak, bizitza eta etsenpluak. **Joan Mari Lekuona**

Ez dira batere arduratzen gauza **tenporalez**, baina kartsuki eta ahalegin osoz saiatzen dira egunero, galtzeko zorian dauden arimak munduko hutsalderietatik ateratzen eta

beren artera eramaten. [Askoren artean](#)

Ez dugu kristautasunaren eraginkortasun [tenporalean](#) aski sinesten. [Piarres Xarriton](#)

Kontua da ezen fraideak senarrak baino maizago jasotzen zuela Catalinaren ondasun [tenporalen](#) fruitua. [Joan Mari Irigoien](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[lege tenporalaren](#) (3)

[lobulu tenporaleko](#) (8); [lobulu tenporaleko epilepsia](#) (3)

[lobulu tenporalen](#) (5)

tenporal² *izond* lokiari dagokiona.

Atzealderantz, lobulu [tenporaletaraino](#) iristen zen, eta beherantz, berriz, dientzefalo nahiz garun-aurrearaino. [Xabier Olarra](#)

Amnesia batik bat lobulu [tenporalen](#) lesioak eragina bazuen ere, dientzefaloko eta lobulu frontaletako lesioak ere egin zioten berea. [Xabier Olarra](#)

Amnesia sakona zuen, lobulu [tenporaleko](#) entzefalitis batek eragina. [Xabier Olarra](#)

Ezin da kasualtatetzat jo su-etenaren iragarpenaren eta manifestazioaren lotura [tenporala](#). [Berria - Harian](#)

tenporal³ *iz* ekaitza.

Itsasoko [tenporalak](#), hirutan. [Pello Zabala](#)

[Tenporal](#) eta ekaitzen aldetik, bi izugarriak gertatu ziren Mediterraneo aldean: Manga del Mar Menor lur besanga apurtu zuen, 1598an. [Pello Zabala](#)

tenporaltze (*corpusean denboraltze soilik*) *iz* tenporal bihurtzea.

Uko egiten diot [denboraltze](#) eredu uniformeari deskribatzeko, jardute diskurtsibo bakoitzari dagokionean, bere metatze, baztertze, berpizte, arauak, bere berezko deribazio erak eta lozagia sartzeko jarraitasun ezberdinen gainean. [Xabier Arregi](#)

tenporizadore *iz* makina, lehegailu eta kidekoen piztea automatikoki kontrolatzen duen gailua.

Autoaren barruan isurkari lehegarriz beteriko ontzi bat zegoen, [tenporizadore](#) bati lotuta. [Berria - Mundua](#)

Lehegailu biek antzeko ezaugarriak zituztela gaineratu zuten, zirkuitu elektrikoa eta [tenporizadore](#) bana hain zuzen. [Berria - Euskal Herria](#)

Lehegailuak [tenporizadoreekin](#) zartarazi zirela jakinarazi zuten herenegun polizia iturriek. [Berria - Euskal Herria](#)

«Armategi txiki bat» ere bazuten furgonetan: 32 kilo amonal, sei kilo bolbora, granadak, bi kohete-jaurtigailu, *Uzi* motako pistola metrailadorea, lau kutxa kartutxo, bai eta lehegailuak egiteko bederatzita detonagailu eta [tenporizadoreak](#) ere. [Berria - Euskal Herria](#)

tenporizagailu *iz* tenporizadorea.

Ez zuten sutea eragin zezakeen [tenporizagailurik](#) aurkitu. [Berria - Harian](#)

Leherkari mota amonio-nitratoa dela eta [tenporizagailu](#) elektrikoan bitartez zartarazi zituztela adierazi zuten. [Berria - Euskal Herria](#)

tensio ik **tentsio**.

tentabide *iz* tentaldia; tentatzeko bidea.

[Tentabidean](#) egon nintzen atari inguruan barrandan gelditzeko, zer gizaseme klase ote zen jakitearren Kristinaren itxoinaldi amultsuaren merezient. [Aingeru Epaltza](#)

tentagarri (*76 agerraldi, 41 liburu eta 14 artikulutan*) **1 izond** tentatzen duena. ik **tentatzaile**.

Silikonaz puztutako azal margulean aureola eguzkitsua tatuatuko zuen, pirikorna arrosaz osatutako marrubi [tentagarria](#). [Jasone Osoro](#)

Pelikuletan ikusten diren ohe [tentagarri](#) horietakoa zirudien. [Jasone Osoro](#)

Rosekiko jakin-minak, baina, ez zion galarazi zango erakargarriak edota begirada [tentagarriak](#) estimatzeko aukera. [Mirentxu Larrañaga](#)

Denik-eta begirada iruditzen zait ez duela odol-kontuetan nahastu nahiko, ez bada diru-sari [tentagarri](#) baten truke. [Josu Landa](#)

Orain ulertzen al duzu, maitea, zer-nolako miragarri, zer-nolako enigma [tentagarri](#) bihurtu zinen niretzat, ni nintzen haurrarentzat! [Eduardo Matauko](#)

Zorrotzenaren ausardia [tentagarri](#) bat, izugarritasunaren irrikaz dagoen ausardia bat. [Iñaki Segurola](#)

Zein modu [tentagarrian](#) agertzen den, itzalgaizka, logalea! [Jose Morales](#)

Egin genezakeela esaten zigun nagusiak, ordea, eta oso baldintza [tentagarriak](#) ipini zizkigun. [Juan Kruz Igerabide](#)

Adimenaren ezagutza hutsa eta oinarri-esakuneak bakarrik eta gainera esperientziaren mugez goiti erabiltzea oso erakargarria eta [tentagarria](#) denez gero [...]. [Ibon Uribarri](#)

Idea txoro hori erakargarria iruditu zait, guztiz [tentagarria](#). [Patxi Iturritegi](#)

Gertutik ikusita [tentagarria](#) iruditu zitzaion Ane Lizarazu, begiak betetzeko gorputz lerdena baitzeukan. [Migel Angel Mintegi](#)

Oso [tentagarria](#) gertatzen zaie gobernuei truke-tasen bilakaera gidatzea, ekoizle nazionalen merkatu-kuotak handiago daitezen. [Koro Navarro](#)

[Tentagarria](#) egin zitzaidan proposamena. [Juan Luis Zabala](#)

Hain [tentagarria](#) egiten zitzaidan, hain zirikagarria, hain desiragarria, non irribarra atera zitzaidan, antza. [Ramon Saizarbitoria](#)

2 (adizlagun gisa)

Aske gelditzeko aukera daukazu eskumenean, [tentagarri](#), eta galdezka ari zaizu behin eta berriz zure burua: [...]. [Rafa Egiguren](#)

Baina Justina ondoan zuela, haren gorputza soinekoaren azpian tente eta [tentagarri](#) sumatu zuela, damu izan zen. [Felipe Juaristi](#)

Une batez eta zeharka ikusi nuen zakila izter baten gainean zeukala, [tentagarri](#) etzanda. [Aitor Arana](#)

Magala usaintsu eta garden barrendua dute, amodiorako zabalik, emakumeen haragi guztia baino [tentagarriago](#). [Josu Zabaleta](#)

• 3 *iz* tentatzen duen gauza.

Han sentitu nuen lehen aldiz neure burua hiltzeko posibilitatea ere, ez dakit sentsazio krudel bat bezala edo [tentagarri](#) ezin eztiago bat bezala. [Joan Mari Irigoien](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tentakulu 1 iz garroa.

Epaitegiak Isham Rashafi zigortu zuen, bi urteko kartzelara, Antton Bereziartu eta Ekaitz Armesto bere lagunekin batera, Agon Saron 23B-34 Gasteizko hiritarri **tentakulu** bat labanaz mozteagatik; **tentakulu** hura, gainera, ez zen birsortzera heldu, Santiago ospitaleko exomedikuek espero bezala. **Iban Zaldúa**

2 irud/hed

Margeren salaketari esker, Interpolek desartikulatu ahal izan ditu erakunde beldurgarri horrek ia mundu guztian zehar sakabanaturiko **tentakulu** lindirgatsiak. **Iban Zaldúa**

tentalari (orobat *tentari*) 1 izond tentagarria, tentatzailea.

Haiek irribarre **tentalariak** eskaintzen zizkiguten eta, luze gabe, norberaren aukerak nabarmentzen joan ziren. **Iñaki Zabaleta**

• 2 iz tentatzen duen pertsona.

Agian oraintxe bertan hiri honetako ehundaka neska Robertson hau bezalako **tentalari** bihozgabe eta maltzur baten atzaparretan erortzeko zorian daude. **Lopez de Arana**

Tentalariak, hiru bider hurbildurik, esan zion: Jainkoaren Semea bahaiz, esaiek ogi bihur daitezela; jaurti ezak behera heure burua; eta hau guztia emango diat, ahuspez gurtzen banauk. **Patxi Altuna**

tentaldi (307 agerraldi, 51 liburu eta 32 artikulutan) 1 iz desegokia gerta daitekeen zerbait egitera bultzatua sentitzen denaren egoera; tentatzen duen gauza. ik **tentazio**.

Jaunaren ardiek berari jarraitu zioten larrialdian eta erasoaldian, lotsabidean eta gosean, gaixoardian eta **tentaldian**. **Askoren artean**

Gogoan izan neska batek mutil bati egiten dion **tentaldi** bakoitza naturari egindako oparia dela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Eskaintzen ari den erreforma estatutarioa **tentaldi** bat izan daiteke EAJrentzat. **Berria - Euskal Herria**

Beste **tentaldi** batzu ere ez ote luzkete Bush eta halakoek, Irakian egin dutena egiteko Iranen ere? **Herria**

Egunero zirikatzen gaituzte **tentaldi** hauek, Jauna, atsedetik gabe. **Imanol Unzurrunzaga**

Jesus **tentaldian** garaile. **Elizen arteko biblia**

Santuaren **tentaldiak**, eta nola haietako bat gainditu zuen. **Askoren artean**

Heriotza hurbiltzean, ekaitzaldi oro baretu eta **tentaldi** oro gaindituta, lasaitasun eta bake miragarria izango du. **Askoren artean**

Gerria oso makurtua zuen, bularra oso irtena, erronka bat bailitzan aurkeztua, **tentaldi** bat bezala eskainia. **Josu Zabaleta**

Badakigu idazle guztiak izaten dutela une batean edo bestean obra erotikoren bat idazteko **tentaldia**, eta ea **tentaldi** horretan erortzen diren, **tentaldiak** erortzeko izaten baitira, eta ez pasatzen lagatzeko. **Berria - Kultura**

Nola Rizerio anaia **tentalditik** askatu zuen. **Askoren artean**

Aurrerantzean ez zaitezela deabruaren **tentaldi** eta zirikaldir horiek inori aitortzera behartua sentitu. **Askoren artean**

Mendizaleek txakurrak gehienetan loturik eramaten dituzte, baina anitzetan, libre uzteko **tentaldia** handia da, artzainei larrialdiak eraginez. **Berria - Euskal Herria**

Haragiaren **tentaldia**. **Karlos Linazasoro**

Zu izan baitzara gizona **tentaldira** eraman duen lehena. **Koldo Biguri**

Nork lagunduko digu **tentaldian**? **Askoren artean**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bere izpiritu ahula Jeannerteren bihurtzean **tentaldi** indartsuari nagusitu bazaio, bekatu batek bertze bekatu bat eragotzi duelako izan da. **Aingeru Epaltza**

Laster huts egin zioten Jainkoaren kontsolamenduek, eta **tentaldi** larriek astindua aurkitu zen. **Askoren artean**

Handik gutxira, haragizko **tentaldi** sutsu bat nabaritu zuen bere baitan, bere arnasaz ikatzak goritzen dituen etsaiek eragina dudarik gabe. **Askoren artean**

Tentaldi gogorra etorriko baita zuen gainera. **Askoren artean**

Jainkoa **tentaldi** beldurgarriekin baitator, frogakizun izugarri, neurritz kanpoko eta pentsaezinekin. **Joan Mari Lekuona**

Tentaldi astunen erasoetan. **Askoren artean**

Deabruak, bada, haragizko **tentaldi** bortitza eragin zion. **Askoren artean**

Tentaldi gainditua, Jaunak bere zerbitzariaren arima berekin esposatzeko erabiltzen duen eratzuna da nolabait. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez gogortu bihotzak, errebelde izan zinetenean bezala, **tentaldi**-egunean basamortuan bezala. **Elizen arteko biblia**

Tentaldi-garaian eta baretasuna iritsi arte. **Joan Mari Lekuona**

Zer aitortzen dizut, Jauna, **tentaldi** mota honetan? **Imanol Unzurrunzaga**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure herriak baketu nahi badira, borondate onezko hitzarmenak ez dira aski; mendeku **tentaldietan** ez erortzeko beste biderik hartu behar da. **Piarres Xarriton**

Hirugarren arauaren guztiz kontrakoa lehorraldia deitzen dut, hala nola arimaren ilunpea, gogo-nahastea, gai purzil eta lurkoietarako lera, zenbait nahasketa **tentaldiren** ezinegona, fede-ezaren dardarizoa, [...]. **Patxi Altuna**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atekabe eta tentaldi (4); deabruaren tentaldi (5); espirituko tentaldi (4); haragizko tentaldi (4); tentaldi garaian (3); tentaldi guztiak (6); tentaldi guztiz larria (3); tentaldi larri (3); tentaldi larri batetik (3); tentaldi oro (3)

deabruaren tentaldia (7); dena deabruaren tentaldia (4); tentaldia egon (3); tentaldia izan (5); tentaldia izan zuen (3); zure tentaldia da (3)

tentaldian erori (6); tentaldian erortzen (3); tentaldian ez erortzeko (6)

tentaldiarri eutsi (3)

tentaldietatik libre (3)

tentaldira eraman (3)

tentalditxo iz tentaldi txikia.

Hartara ahaliak eta arinen zihoala, **tentalditxoren** bat edo beste izan zuen korrika hasteko, baina berehala baztertu zuen ideia hura, hartan hasiz gero belauna agian kexatu bakarrik ez, eta min egiten hasiko zitzaion-eta. **Berria - Kultura**

tentaleku iz tentatzeko lekua.

tentamendu iz tentatzea, tentaldia.

Eta, txakurraekin bakarrik zaudela, **tentamendu** gaixotoren bat izan dezakezu, eta pozoinen bat-edo eman diezaiokezu, edo katetik laxatu... **Joan Mari Irigoien**
Eta norbaitek kartaren hausteko edo haren erretzeko **tentamendurik** balu, jakin beza ezen maradikatu egiten dudala lerro hauetarik. **Joan Mari Irigoien**
Zeren, bertzenaz, Joanikot harekin ezkontzeko **tentamenduan** sar baitaiteke, setakeriaz. **Joan Mari Irigoien**
Baldin **tentamenduaren** lur linburieta labaintzen eta linburtzen banintzen, [...]. **Joan Mari Irigoien**

tentari ik tentalari.

tentatu, tenta, tentatzen 1 du ad norbait zerbait egitera, bereziki gauza desegoki edo debekatueta, edo bekatura, bultzatu; norbaitentzat zerbait erakargarria gertatu.

- **Tenta** zaitzaket, Marge? **Iñaki Mendiguren**
Lagunak Kamila **tentatzea** eskatu zion Lotariori, emakumearen leialtasuna frogatzeko. **Patxi Ezkiaga**
Lehenengo, hiririk kanpora eramango dut, **tenta** dezakeen guztiak urrun. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Zergatik hartu duzue elkar Jaunaren Espiritua **tentatzeko**? **Elizen arteko biblia**
Erabakia ondorio guztiekin hartu geninan, eta hortik aparte, oraintsu esandakoa, hobe deabrua ez **tentatzea**. **Migel Angel Mintegi**
Nor bere grina txarrek **tentatzen** dute, horiek dute liluratzen eta erakartzen. **Elizen arteko biblia**
Bada ordebete morroi mardul honen ipurdiak **tentatzen** nauela, eta iritsi da berarekin dudan zorra kitatzeko unea. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Bigarren aukerak **tentatzen** omen zuen erregea, kutxa hartan altxor izugarriak, mapa harrigarriak, harri filosofala eta betiko gaztetasunaren edabea gorderik zeudela usteak emanda. **Anjel Lertxundi**
Italiarrek oraingoz kale egin dute Gas Natural **tentatzen**. **Berria - Ekonomia**
Haren jarrera positiboa eta guztiz aldekoa, jolas egitera **tentatu** nuenean. **Joan Mari Irigoien**
Goñiko zaldun Teodosio bere gurasoak hiltzera **tentatu** zuen fraile deabrua ere gaztelu gaitz honetakoa ote zen uste du jendeak. **Patzi Perurena**
Aurrekariak ere Realaren aldeko apustua egitera **tentatzen** dute. **Berria - Kirola**
Hari fusilaz tiro egiteko **tentatua** izan naiz une batez. **Jon Muñoz**
Inoiz **tentatua** edo gogogabetua sentitzen naizenean, aski dut nire lagunaren alaitasuna ikustea, tentalditik eta gogogabetik barruko eta kanpoko alaitasunera itzultzeko. **Askoren artean**
Ba... begira, **tentatzen** nau... Saio modura... **Josu Zabaleta**
Egitasmoak **tentatzen** ninduen, asko, adore faltak paralizatzen ninduen neurri berean. **Ramon Saizarbitoria**
-Zuhaurk ere egin dezakezu ihes... - **tentatu** nuen, ene asmoen bigarren partea agerian jartzen niola. **Joan Mari Irigoien**
Sosegu horrek **tentatu** ninduen; leku hartan pipakada bat erretzea gauza ederra izango zela iruditu zitzaidan. **Josu Zabaleta**
Orduan **tentatzen** dute, eta galdetzen diote eman dezala bere iritzia. **Herria**

2 haztatu, ukitu-edo.

Izterrak zabaltzen dizkit irribarre eginez, esku batez hankartea **tentatzen**, eta besteaz narras-narras egiten dit bular aldean. **Javi Cillero**
Nire nagusiaren atzamar bat, laban-labana zegoena, ipurdiko zulora itzuli zen, berriro **tentatu** zuen hau, eta astiro-astiro sartu zen... **Juan Martin Elexpuru**

3 (era burutua izenondo gisa)

Beste anaiarengandik apur bat aldenuz, anaia **tentatuarengana** hurbildu eta esan zion: [...]. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ez **tentatu jauna** (3); **jauna tentatu** (3)
egiteko tentatua (3); **tentatua izan** (7); **tentatua naiz** (4)
tentatuta egon (5)

tentatzaile (15 agerraldi, 12 liburu eta artikulu 1ean) 1 izond tentatzen duena. ik tentagarri.

Bide laburra hartu nuen, Chapel Street-etik behera, Strand izeneko auzo pobreaken ertzetik, patata frijituen italiar denda **tentatzailearen** ondokigaz. **Koro Navarro**
Anakoretetik aurre egin behar izaten zioten, hala, ordu luzean aspertasunari; aspertasunari eta, Elizaren Gurasoei sinisten badiogu, egoera horretan deabruak ekarritako irudi **tentatzaile** eta fantasmei. **Bernardo Atxaga**
Aieru-itsuskeriek ez zuten besterik lortzen ezpada berrero **tentatzailearen** poza pozagotu. **Josu Zabaleta**
Pikaroa eta pikante samarra zan, **tentatzailea**. **Xabier Amuriza**
Falta zaizkion biak ere hor daude, **tentatzaile**. **Aingeru Epaltza**

2 (izen gisa, pertsoenez)

Berehala **tentatzaileak** alde egin zuen porrot eginda, eta santua garaila itzuli zen gelara. **Askoren artean**
Tentatzailearen aurkako froga luzeetan zaildurik baitzaudete, litekeena da [...] ez noizteza hortik inolako eragozpenik. **Juan Garzia**
Beldur bainintzen **tentatzaileak** ez ote zintuzten tentatu eta gure nekeak ez ote ziren alferrikakoak gertatu. **Elizen arteko biblia**
Horra, adiskideak, nola galtzen den gizon bat itsututa egoteagatik, **Tentatzaile** Gorenak hala nahi duenean. **Matías Múgica**

tentatze iz norbait zerbait egitera, bereziki gauza desegoki edo debekatueta, edo bekatura, bultzatzea.

Xehetasun gehiegizkoetan sartu gabe, Margak ni **tentatze** hutsarekin gozatzen zuela azaldu gabe. **Juan Luis Zabala**

tentazio (378 agerraldi, 124 liburu eta 81 artikulutan; orobat tentazione g.er.) 1 iz tentaldia.

Jainkoaz hitz egiten hasi zitzaion, eta horrela **tentazio** guztiek alde egiten zioten. **Askoren artean**
Tentazio horrek, pinturaren bilakaerak areagotu baizik egin ez duenak, ez ditu arte abstraktuaren teoriarriak bakarrik tentatu. **Josu Zabaleta**
Aldi berean, **tentazioa** areagotu egin zitzaion. **Joxemari Urteaga**
Burtsaren aldakortasunak **tentazioa** piztu dezake, baina errenta aldakorra ez da jolasa. **Berria - Ekonomia**
Behin edo behin ligeroren bat ere erosi eta, gau batean, senarrari sorpresa emateko **tentazioa** izan nuen. **Jasone Osoro**

Psikoanalisisortzaileek, Freudek guztien buru, sarri izan zuten **tentazioa** arte-produkzioa bere alderdi subjektibotik ikusteko. Josu Zabaleta

Harrotzeko **tentazioa** baduzu, izan gogoan, ez diozula zuk eusten sustraiari, sustraiak zuri baizik. Elizen arteko biblia

Atzera jotzeko **tentazioa** giza espeziean konstantea dela. Jon Alonso

Jainkoaren **tentazioan** erortzen da, fedearen eta sakrifizioaren **tentazioan**. Joseba Zulaika

Marta naiz -eta eskua eskaini nion, musu bi emateko **tentazioari** eutsiz-. Iban Zaldúa

Ordurako zaila zen sakrifizioaren **tentazioari** itzuri egitea. Joseba Zulaika

Tentazioari aurre egiteko ezgauza, atzetik joan zitzairen. Iban Zaldúa

Tentazioari aurre egiteko modurik onena, **tentazioan** erortzea da. Juan Martín Elempuru

Dena den, ez zion **tentazioari** gogor egin behar izan. Ibon Urbarri

Beste askok bizitza guztian pentsatuko dute beren organo sexualak **tentazioa** eta infernura bultzatzeko baizik ez daudela dauden lekuan. Karlos Zabala

Sentimentalismoarako **tentazio** oro saihesten du hala nerabe ezjakinaren begiradak. Berria - Kultura

Tentazio haren ondoan Adanek eta Ebak jandako sagarra ez zen erdia ere. Unai Iturriaga

Begi-bistan neukan **tentazioa** uneoro, baina ez nintzen atrebitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehengo egunean Marilynren **"Tentazioa** goikoan bizi da" filma ikusi ninan. Miguel Angel Mintegi

Tentaziotik urrun bizi naiz bederen. Oskar Arana

Noraino ote daude eurak ustelkeriaren **tentaziotik** salbu? Pako Aristi

Eguneroko eta etengabeko **tentazioa** lagun txarra duk errekupeziarako. Joan Mari Irigoien

2 (izenondoekin)

Diru erraza, ez dago hori baino **tentazio** handiagorik. Oskar Arana

Piztiaren gizatasuna baino **tentazio** handiagorik ez dago. Berria - Kultura

Emakumeak **tentazio** handia dira, baina Peterrek ama legez nahi ditu emakumeak, ez emazte legez. Julen Gabiria

Ezagutu zuenean, Julia izan zuen Oscarrek **tentazio** berria. Jasone Osoro

Baina goseak zaudenean, **tentazio** hutsa da ogi kozkor bat. Joxan Elozegi

Tentazio goxoari eutsi ezin dionaren antzera. Jon Alonso

Horrexek iratzarri zion Egutxiri neskatokak bere barnean zuen emakume bitxiaren **tentazio** bortitza. Ibon Urbarri

Ximurak esku artean zeukan freskagarri kaloriaz hustua **tentazio** eskasa zen niretzat. Aingeru Epaltza

Ezkongabe gelditzera tematzen den gizona **tentazio** publiko bihurtzen dela betiko. Antton Olano

Gaiztakeriaren **tentazio** mutantearen eta ontasunaren izpiritu konserbatzailearen artean. Jon Alonso

Gerra zibil helenikoa kartagoar eta akemenestarrentzat **tentazio** saihestezina zen beraien aurkari helenikoen mania [...] hartaz aprobetxatzeko. Iñaki Mendiguren

Zenbait ekintza absurdu egiteko **tentazio** eustezinari buruzko galdera. Jon Alonso

Ezin eraman halako **tentazio** gizagaindikoa. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Pattar bortitzak, zera, **tentazio** -ezten halakoak dira, eta gure haragi ahulak ezin jasan litzake inolaz ere.- Haragi-**tentazio** hain sutua piztu zion barruan, ezen inola ere ezin baitzion eutsi haragizko tentaldiari. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tentazio handia (6)

egiteko tentazioa (7); **emateko tentazioa** (4); **erantzuteko tentazioa** (3); **esateko tentazioa** (5); **hartzeko tentazioa** (7); **hartzeko tentazioa izan** (3); **jartzeko tentazioa** (3)

tentazioa bera (3); **tentazioa izan** (21); **tentazioa izan du** (3); **tentazioa izan nuen** (5); **tentazioa izaten** (6)

uzteko tentazioa (3)

tentazioan erori (4); **tentazioan erortzen** (3)

tentazioaren aurrean (4)

egiteko tentazioari (4); **tentazioari amore eman** (3); **tentazioari eutsi** (17)

tentazione ik tentazio.

tentaziotxo iz tentazio txikia.

Nire musika saioak gazteleraz emateko **tentaziotxorik** egon zen gisa berean, eguraldi iragarpenak Bilbokoan emateko eskaintza ere etorri zen halako batean. Pello Zabala

tente 1 adlag zutik. ik zuzen.

Hantxe **tente** nengoelarik, eliza zahar hartan, zu noiz agertuko zain, ohorezko dama biak ikusi ditut. Mirentxu Larrañaga

Klitoria harro dago, **tente**, gori-gori. Jasone Osoro

Neska begi-argiak, sofan lirain eta **tente** eserita, irribarre distiratsua egin zion mutilari. Mirentxu Larrañaga

Abuztua da, eguerdia, eta **tente** noa metroan. Berria - Harian

Eskribaua, berriz,gure masta nagusia baino **tenteago** zihoan. Edorta Jimenez

Ikusi zuten naturatik jaso zituztela gainerako animalia guztiek baino dohain gehiago, hasteko, makurtuta ibili ordez **tente** ibiltzea, eta munduko eta izarretako edertasunak ikusteko gai izatea. Santiago Iruretagoiena

Besteak, ordea, haren hoztasunari begiratu gabe, **tenteago** hasi ziren ibiltzen. Josu Zabaleta

Oihu handiz esan zion: "jarri **tente** oinen gainean!". Elizen arteko biblia

Altxatzen hasi nintzenean gerriak tira egin zidan eta **tente** jarri ezinik geratu nintzen. Jasone Osoro

Fernando berotzen hasi eta ikaragarri **tente** jarri zitzaion, bioi jo zigun larrua. Karlos Zabala

Zuhaitz haga luze bat **tente** ipintzen zuten plazan. Pello Zabala

Burua **tente** sartu zen alkatearen bulegoan, bertara deitu gabe. Felipe Juaristi

Orduan **tente** eraman ahal izango duzu burua. Elizen arteko biblia

Tente eta harro ibiliz sartu zen, urrats irmo eta zehatzekin. Jose Morales

Bere burua **tente** atxikitzeko gauza ez da horrelako hegaztia. Edorta Agirre

Gizon gazte bat ikusi nuen haren aurrean, eskuak gorputzaren aurrean lotuta, serio, **tente** eta itun, begirada beherantz, otoitz sakonean ariko balitz bezala. Juan Luis Zabala

Masailak eroriak; **tente** kokotsa; sudurra zuzen. Jon Muñoz

Hermann gugana itzuli zen, eskuak gabardinan sartuta, burua **tente** eta militar baten ibileran. Anjel Lertxundi

Boa bat erdizka ikusi zuelako, isatsa kiribil, burua **tente**, urrezko orbanez ziprintinduriko enbor eskerga baten gisan zabala. **Karlos Zabala**

Pausoa doiturik, okotsa gora, fusilak **tente**. **Edorta Jimenez**

Belarriak punta-zorrotzak zituen, **tente**. **Fernando Rey**

Bekainak zuzenak; sudurra neurrikoa, fina eta zuzena; belarriak **tenteak** eta txikiak. **Askoren artean**

Sidney zihoan gidari, soldadu bat bezain **tente**. **Koro Navarro**

Horra Nofutur, I bat bezain **tente**, hagaren gainean. **Jon Muñoz**

Tente -zurrin geratu nintzen hantxe, arnasari eusten, beste noranzbait begiratzeko ahalegina saiatuz. **Juan Garzia**

· Bizkar- **tente** esertzen da. **Antton Olano**

2 (izenondo gisa)

Kondea, berrogei bat urteko gizona, handia, lodia, **tentea**, ilehoria, gaztelania barregarriaz mintzatzen zen. **Koro Navarro**

Normalean oso andre **tentea** zen, serioa, baita hotza ere. **Bernardo Atxaga**

Gizon **tente** buru-txiki bat, ilea eskuila moduan orrazturik. **Anjel Lertxundi**

Bularretakoa ere kendu zuen, titi biribil, **tente**, perfektu batzuek libre utziz. **Juan Martin Elexpuru**

Irentsi ahal nuen gutzia irentsi nuen makila **tente** hartatik, gero izterondoak usaindu nizkion. **Karlos Zabala**

Guardia bere postuan zegoen, geldi-geldirik, bere bibote **tente** mehatxariarekin. **Fernando Rey**

Ibilera, ordea, **tente** eta arina zuen. **Anjel Lertxundi**

Oso bihotz ona daukazu itxura **tente** horren barruan -esan, eta bainugelara sartu zen. **Anjel Lertxundi**

Begietan eta gorputzaren postura **tentean**, gizon hark zerbait bazuela sumatu nuen, patologia psikikoren bat edo. **Hasier Etxeberria**

Amona tikiak zen, beltzez jantzia, baina bizkar **tentekoa** eta bixi eta ernea, Su txikiaren gainera makurtzen zuen buru luzea, zepilluaren moduko kalpar sarri **tente** gorriarekikoa. **Fernando Rey**

Haren bular txiki politak, titiburu **tenteekikoa**, haren sabelalde zapal eta leuna. **Oskar Arana**

Benetan estua eta **tentea** zen eskailera hura, baina guk biziki maite genituen ganbarako ilunpea eta hautsa. **Juan Kruz Igerabide**

3 (hitz elkartuen bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Gizon aurpegi-zurbil eta taketa bezain gorputz- **tente** bat hurreratu zitzaizen alboko mahai batetik. **Anjel Lertxundi**

Nire gelan ostatu hartu duen adiskide sagu bibote- **tenteak** badu izena. **Anjel Lertxundi**

Ze ondo pasatuko duzun nirekin, titi- **tente** xixtrin honekin baino hobeto, Mikel, nik maite zaitut. **Xabier Mendiguren Elizegi**

4 *belarriak tente adlag* adi-adi.

Tira, segi, belarriak **tente** dauzkat. **Migel Angel Mintegi**

Grabagailua prest eta **belarriak tente** gerturatu gintzaizkien. **Aingeru Epaltza**

Mingainarekin klaska arin bat egiten zuelarik, Balthazarrek **belarriak tente** jarri eta pausoa luzatu egiten zuen. **Karlos Zabala**

Kontaktetako iraun bitartean txundituta egon zen Lisa, **belarriak tente** eta begiak zabal-zabalik, ia kliskatzerik gabe. **Migel Angel Mintegi**

Nik adi-adi entzuten nion, **belarriak tente** eta begiak dantzari. **Migel Angel Mintegi**

Ematen zuen zaldia, **belarriak tente**, txirularen soinuari adi zegoela. **Fernando Rey**

5 *tente potente ipar adlag* tente geldirik.

Zaintzalea, hesiaren beste aldean, **tente potente**, hormatua iduri. **Filipe Bidart**

Hortxe zutik gelditzen dira, **tente potente**, gauaren freskotasuna ahantzirik. **Eneko Bidegain**

Egunero dorretxe aitzinean jartzen zen, **tente-potente**, Gehexan Jaureneak haren makilaztatzeko eta handik haizatzeko agindua eman zuen arte. **Elena Touyarou**

Aznar, Blair, Bush, orden alfabetikoan jarriak, Bush, Blair, Aznar, aldiz, bakoitzak dauzkan indarren arabera, lehena lehen, **tente potente**, gerla gogoan eta bertzerik ez. **Herría**

6 *tente-tente adlag*

Zutiturik, **tente-tente**. **Antton Olano**

Lisa **tente-tente** gelditu zen, apur bat nahasia, nonbait. **Karlos Zabala**

Hura ezinegonak hartua egoten zen, **tente-tente**, eta nik, deus aditzera eman gabe, zer moduz zegoen besterik ez nion galdetzen. **Karlos Zabala**

Tente-tente, aldakak kulunkatzen, atzean zeukan aterantz joan zen. **Migel Angel Mintegi**

Tente-tente zihoan amaren ondoan eserita. **Koro Navarro**

Geraldaldi eman eta autoan sartu zen azkar batean eta **tente-tente** eseri zen kuxin gris argien kontra. **Mirentxu Larrañaga**

Marisa bere panpinarekin eta Senen serio arraio, **tente-tente**, paparra aterata. **Jon Maia**

Bere garaieraren erradio bereko zirkulu bat marraztu zuen harean Talesek, haren erdian kokatu, eta hantxe geratu zen zutik, **tente-tente**. **Jon Muñoz**

Crookshanksi ilea **tente-tente** jarri zitzaion bat-batean. **Iñaki Mendiguren**

Zakila **tente-tente** du, eta harekin ukitu du neskaren saihetseko haragia. **Juan Martin Elexpuru**

7 (izenondo gisa)

Garaia zen Wilmarth andereñoa, hezur irtenekoa, eta **tente-tentea**, gurdi-zaldiak antzo. **Mirentxu Larrañaga**

Pauso luzeak emanez zetorren, bere kakalardo-begi beltzak distiratsu zituela bizar handi **tente-tentearen** gaineretik. **Iñaki Mendiguren**

Bibote **tente-tenteak** ditu. **Anjel Lertxundi**

Laburra da tarte gogorrena, bai, hiru kilometro pasatxo, baina **tente-tentea**. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beharriak tente (5); **belarriak tente** (9); **beti tente** (3); **bezain tente** (12); **bizkarra tente** (7); **bular tente** (3); **bularraldean tente geratzen** (3); **burua tente** (51); **buztana tente** (5)

gorputza tente (3)

ile guztiak tente (4); **ilea tente** (5); **ilea tente tente** (3); **ileak tente** (7); **ileak tente jarri** (3); **ipurmasailak tente** (3); **jarri tente** (3); **lepoa tente** (3); **luma bat tente** (3)

oraindik tente (4); **oso tente** (4)

tente asko (3); **tente dago** (8); **tente du** (3)

tente egon (4); **tente egoteko** (5); **tente eserita** (5); **tente eusten** (4); **tente gelditu** (6); **tente gelditu zen** (3); **tente gelditzen** (3); **tente geratzen** (3)

tente ibili (3); **tente ibiltzen** (6); **tente ibiltzen zen** (3); **tente ipini** (6); **tente jarraitu** (3); **tente jarri** (59); **tente jarri zen** (15); **tente jarri zitzaion** (3); **tente jarrita** (3); **tente jarriz** (5); **tente jartzeko** (5); **tente jartzen** (22)

tente potente (12); **tente samarra** (3)

tente tente (62); **tente tente jarri** (9); **tente tente zegoen** (3); **tente tentea** (3)

tente zegoen (12); **tente zihoan** (3); **tente zuela** (6); **tente zuena** (3)

zakil tente (5); **zakila tente** (11); **zakila tente jartzen** (3)

bere zakil tentea (3); **buztan tentea** (3); **tente tentea** (3); **zakil tentea** (6)

baino tenteago (7)

bezain tenteak (3)

zakil tentearen (3)

tentearazi, tentearaz, tentearazten (*orobat tentetuarazi*) du *ad* tentetzera behartu.

Haizeak aurpegian jo ninduen, gorputzeko ilea **tentearazi**. Elizen arteko biblia

Egun hotzetan ilea pixka bat **tentearazten** duten muskulu ugari dituzte animaliek larruan. Irene Aldasoro

Gorputza **tentearazten** du [ahotsak]. Juan Garzia

tentedo *izond* tente doi-doia egoten dena.

Aita batek ere halako harridura batez begiratzen omen dio tipi-tapa pauso baldarka ibiltzen hasi berri den semeari, haur **tentedo** hura bere odol berekoa izatea ulertu ezinik.

Anjel Lertxundi

tentედun *izlag* tenteko.

Arabako hiriburuan gasteiztar peto kopeta **tentედun** ugari dago. Txema Ramirez de la Piscina

tenteki *adlag* tente.

Kaligrafiaren tentetasunarengatik neska zitekeela bururatu zitzaion, baina xehetasun hori Espainiako eskoletan monjek irakatsitako erara eraman zitekeen, ez, ustez, Estatu

Batuetakora, ezker askok idazten baitzuten **tenteki**. Iñaki Zabaleta

tentel *1 izond* inozoa, adimen gutxikoa. ik **ergel**. (pertsonez)

Armak jostailuak edo petardoak direla pentsatzen duen ume **tentel** bat. Berria - Kultura

Gogoan izan behin-betikoz, gizon motz eta **tentela**, ergelek gizatasuna deitzen duten hori beldurretik eta norberekeriatik sortutako ahultasuna besterik ez dela. Juan Martin
Elexpuru / Bego Montorio

Hasieran errepublikanoa zen eta gero monarkiko egin, Margherita erregina **tentel** hartaz maitemindu zelako! Fernando Rey

-Talesi laguntzen zion neskame **tentel** hark hobe zuen isilik egon. Jon Muñoz

Beharbada konturatu dira, ze hain **tentelak** ere ez dira. Jon Arretxe

Badakit nik bost, zuhur ala **tentel** izanzen ote den. Elizen arteko biblia

Hartan, bizpahiru **tentel** eta lehendakariordea baino ez nituen ikusten. Joxan Elozegi

Bere alaba, mantala soinean, **tentel** baten moduan musuzapia bihurritzen. Anjel Lertxundi

Hortxe bilakatzen da infernu, hain zuzen, **tentelen** bizitza. Xabier Amuriza

Baina arrazoi duzu, barka nazazu, **tentel** hutsa naiz. Itziar Otegi

-Hain **tentela** izatea ere, Nathan. Oskar Arana

Haur zentzugabeak dira, ezer ulertzeko gauza ez; gaitzerako trebeak, onerako **tentelak**. Elizen arteko biblia

Inortxo ere ez da gisa horretako hutsak egiteko bezain **tentela**! Joxan Elozegi

Zergatik ez diok atsedean segurrari gogoz heltzen, **tentel** horrek? Xabier Amuriza

-Egon isilik, akne-zorro **tentel** hori! -hark ere eztenkadaz erantzun nahi izan zidan. Jon Muñoz

2 (bestelakoez)

Animalia herbiboroa karniboroa baino **tentelagoa** dela. Edorta Agirre

Estaturik gabeko herrioi askatasuna ukatzeko estakuru **tentelak**. Markos Zapiain

Bene-benetan **tentela** ezbehar hau; ez da ba? Eskarne Mujika

Defentsan geroz eta hobeto aritzeaz gain, garai bateko falta **tentelak** ez ditu egiten. Berria - Kirola

Aita preso eroan zutenetik astebete pasatu da, eta zu hortxe zagoz, denborapasa **tentelatan**. Josu Landa

Amultsuki hurbiltzen zitzaidan, irribarre **tentel** bat ezpainetan zuela. Irribarre **tentel** bat egin zizun postre garai aldera eta kopen berotasunarekin hurbildu zitzaizun azkenean. Joxean Agirre

Azkenean nire asmamenaren apeta **tentel** bat besterik ez da izango dena. Eskarne Mujika

Hark idazki **tentel** bat baino ez zuen gura bere astekari txatxu baina errentagarrirako. Unai Iturriaga

Esaldi josi gabe haiek, elkartasunezko adierazpen **tentel** haiek, [...]. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan)

Horrek nahiko ondo funtzionatu zuen, nahiz eta jartzen zuen bizitasun gabeko begiradak **tentel** -itxura ematen zion Harryri. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bezain tentela (3)

tenteldu, tentel(du), tenteltzen da/du *ad* tentel bihurtu. ik **ergeldu**.

Gizakiak kolorea galduz, airea ilunduz edo hotziz eta arima **tentelduz**. Imanol Unzurrunzaga

Neskak eskari haren larria sentitu zuen aurrean zuten gizonaren ahotsean, buruan kolpea eman baliote bezala **tenteldua**. Bego Montorio

Tentelduta gelditu nintzen, zutik eta gora begira. Joxe Austin Arrieta

Gizabanano hura arras **tentelduta** zegoen; zer bertsioez ari zen galdetu izan balu, behintzat. Jon Alonso

tentelkeria *1 iz* tentelari dagokion egintza. ik **ergelkeria**.

Laster konturatu zen **tentelkeria** zela laurogeita hamabost mila libera komodaren tiraderan lotan uztea. Karlos Zabala

Ez dakizu funtsa duen zerbait ala **tentelkeriarik** handiena bota duzun. Iñaki Iñurrieta

Graziarik gabeko **tentelkeria**. Ramon Saizarbitoria

Bere **tentelkeria** hark irribarre eginarazi zion. Anton Garikano

Tentelkeria galanta iruditu zitzaizun istorioa, argi eta garbi esanda. Javi Cillero

Neonezko argiak eta **tentelkeria** amerikar ugari bazterretan, *country* eta *spaghetti western* estilokoak. Patxi Iturritegi

Berehala konturatu ziren [...] Amianoren gehigarriak, zalantzarik gabe kontakizunaren gauzarik interesgarriena zirenak, graziarik gabeko **tentelkeria** bihurtzen zirela beste inoren ahotan. Ramon Saizarbitoria

-Itxi orain alde batera sentimenduak eta **tentelkeriak**! Unai Iturriaga

2 (hitz elkartuetan)

Erdi aje erdi buru- **tentelkeria** batekin. **Edorta Jimenez**

tentelki *adlag* tentelari dagokion moduan.

Hala ere, talde bereko kide Danny Kennedyrentzat haserretzeko modukoa da Gobernuak IRAren hitzak «**tentelki**» sinetsi izana. **Beria - Harian**

Teknikak hipnotizaturikoak ezin du teknikaz hausnartu, ezin baitu tramankuluari **tentelki** tinki behatu baizik. **Markos Zapiain**

tentetasun *iz* tentea denaren nolakotasuna.

Gizasemeen uestezko **tentetasun** harroa eraman ezinez. **Iñaki Seguro**

Korazta arabiarra zeukan, begi almindratuak, eta munduko **tentetasunik** graziosena. **Koldo Izagirre**

Kaligrafiaren **tentetasunarengatik** neska zitekeela bururatu zitzaion. **Iñaki Zabaleta**

Honek, bitartean, masturbatzen jardun du **tentetasuna** ez galtzeko. **Juan Martin Elexpuru**

Beragana erakarri ninduen eskutik helduta, eta nik ez nion erresistentziarik jarri; otzan obeditu nion, eta naturak otzan obeditu zidan, eskatu bezala, **tentetasun** duin bat eman baitzidan. **Ramon Saizarbitoria**

tentetu, tente(tu), tentetzen 1 da *ad* tente jarri. ik *zutitu*.

Grafiko ezagun hori datorkio gogora, non tximino trazako antzinako gizona lauzpabost marrazkitan **tentetzen**, zutik jartzen eta ilea galtzen dakusagun. **Pako Aristi**

Oinaze antsiekin ahalegindu zen berriro **tentetzen**, baina lurrera erori zen. **Bernardo Atxaga**

Perrettek zigarroa zapaldu zuen; zurrin samar altxatu; duintasuna erakutsi nahi izan zuen; atzera **tentetu** zen, hazpegiak zimurturik. **Jon Muñoz**

Bat-batean, Harry kolpean **tentetu** zen lorategiko aulkian. **Iñaki Mendiguren**

Aurpegia gorri-gorri jarri zitzaion, bere aulkian **tentetu** eta ukabilkada bat jo zuen mahai ertzean. **Lopez de Arana**

Aulki gurgildunean **tentetu**, eta barandari heldu zion Ruche jaunak. **Jon Muñoz**

Badakizu noiz maitemindu nintzen zurekin? - **tentetu** egin zen ohean, eta irribarre polit bat eskaini zidan-. **Bernardo Atxaga**

-Zuri ez al zaizu inoiz **tentetzen**? -galdetu zidan lagunak irribarrez. **Aitor Arana**

Tipoak bero-bero jartzen dira, baina kasik inori ez zaio **tentetzen**. **Karlos Zabala**

Urkiaren adarñoak nekez gogortzen eta **tentetzen** dira, zumel irauten dute. **Pello Zabala**

Mendi bakarra da munduan, lautadatik bat-batean **tentetzen** dena 2.000 metroko mugaraino **Beria - Kirola**

• 2 du *ad*

Soin-enborra **tentetu** eta aurrerantz makurtu zen apur bat. **Jon Alonso**

Burua **tentetu** eta nire adiskide Lakatos ikusi nuen. **Matias Múgica**

Burua makurtu zuen eta gero **tentetu**. **Felipe Juaristi**

Mantso-mantso gorputza **tentetu**, eta ohetik aldendu zen. **Juan Garzia**

Feltrozko kapeladun emakumearen aurpegia, bizkarra **tentetu** zuenean soroan. **Anton Garikano**

Sorbaldak **tentetu** eta ate birakarrietarantz jo zuen, bultzaka. **Lopez de Arana**

Hemen zegoen berriro, pentsatu zuen, ohean bizkarra **tenteturik** eseriz. **Anton Garikano**

-Ni -erantzun zion Percyk, burua **tentetuz** -prefektua naiz. **Iñaki Mendiguren**

Nire gorputzeko ile guztiak **tentetzen** sentitu nuen, eta alderik alde zeharkatzen ninduen hotzikara bat. **Juan Martin Elexpuru**

Mesalinaren ukituak nerbio guztiak **tentetu** zizkion. **Fernando Morillo**

3 (era burutua izenondo gisa)

Geldialdi luzea egin zuen kirurgilari trebe batek gazteturiko bularretan, mutur **tentetuekin** jolastuz. **Migel Angel Mintegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aulki gurgildunean **tentetu** (4); bat batean **tentetu** (3); belarriak **tentetu** (5); belarriak **tentetu** zituen (3); bizkarra **tentetu** (6); burua **tentetu** (5); gorputza **tentetu** (6); sorbaldak **tentetu** (3); **tentetu** du (5); **tentetu** zen (23); **tentetu** zituen (5); **tentetu** zitzaion (4); **tentetu** zuen (6)

tentetzen zuen (3)

tentetuarazi ik *tentearazi*.

tentetxo *izond* apur bat tentea.

Ceciliak, ordea, aire berri bat zuen ordurako, misteriozkoa bezala, familian ohi zuenaren oso bestelakoa; aire **tentetxo** bat, xotil, elizkoi eta menekoegia, Erruki Etxeko moja bezalakoa. **Josu Zabaleta**

tentetze *iz* tente jartzea.

Lamiaren zurbiltasunak halakorik pentsarazi ez arren, bero-beroa zian gorputza eta nire zakilak **tentetze** indartsu eta iraunkor batez erantzun ziean hire izaki mitologikoaren laztanei. **Aitor Arana**

tentexe ik *tente*. *adlag* tente xamar.

Zaurituak basoa eskuan hartu zuen, eta, **tentexeago** jarri eta Martini begira garrasika hasi zen: [...]. **Koro Navarro**

tentsio (*orobat tensio g.er. eta tentsione g.er.*) 1 *iz* tenkatua dagoen gorputz elastiko baten egoera.

Hezur batek edo beste edozein elementu estrukturalak jasan ohi dituen indarrak bi motatakoak dira batez ere: konpresioa eta **tentsioa**. **Irene Aldasoro**

Zura, berriz, gogorra da **tentsioarekiko**, baina ahula konpresioarekiko. **Irene Aldasoro**

Hezurra arropa mota bat besterik ez balitz bezala hartuta, ezin dira esplikatuz ezaugarri horiek, ahula baita harria **tentsioetarako**. **Irene Aldasoro**

Kasu honetan, izterrezurraren lepoa laburtu da, **tentsioa** murriztearren. **Irene Aldasoro**

Gainera datozkizun kolpeei egiteko, **tentsioan** jarri zaizu gorputz osoa berez. [Rafa Egiguren](#)
Maleta astun bat eskuan eramatean, **tentsioan** jartzen dira besoko hezurrak. [Irene Aldasoro](#)
Erdigunean kargatzen bada, haren azpiko gainazala tenkatu egingo da eta, beraz, **tentsioan** egongo. [Irene Aldasoro](#)
Gorputzeko muskulua **tentsioan** ditu bertan ageri den gizonak. [Berria - Kultura](#)
Martak ostera, giharrak **tentsio** batean zitzen ondoko sofan eserita. [Harkaitz Cano](#)

2 (izenondo edo izenlagunekin)

Tentsio handia dagoenean gertatzen den mineral-gehitze horrek badu kontrako alderik ere: **tentsio** normalak desagertzen direnean, minerala galtzen hasten da. [Irene Aldasoro](#)

Tentsio mekanikoa sortzea korrante elektrikoak igarotzean. [Irene Aldasoro](#)

Tentsio handiko egunak izan ziren. [Eduarne Elizondo](#)

Pitzaduraren puntan metatzen den **tentsio** ikaragarriak eragiten du neurri handi batean hondamena. [Irene Aldasoro](#)

Likintasan, azaleko **tentsio**, errotazio-ahalmen eta halakoen neurketa sinpleak. [Juan Garzia](#)

3 (izen elkartuetan lehen osagai gisa)

Handiagoak baitira **tentsio** - eta konpresio-lerroak habe baten erdialdean muturretan baino. [Irene Aldasoro](#)

Tentsio - eta konpresio-lerroak izterrezurraren buruan. [Irene Aldasoro](#)

Zisterna bat da maskuria, barne-presioa maila jakin batera igotzean jaregite-mekanismoa abiarazten duen **tentsio** -galga batek kontrolatua. [Irene Aldasoro](#)

Tentsio egoerak sortzen hasten dira. [Jokin Uraín](#)

4 irud/hed

Iruditzen zitzaion Idazlea apur bat erlaxaturik zebilela, **tentsioa** galduta bezala. [Jon Alonso](#)

Berezkoa duten presioa eta **tentsioa** galdu gabe sekula defentsan. [Berria - Kirola](#)

Bihotza airean baina lehia edo gatazkari ekiteko gogoz, itxaronaldiak gorputzean pilaturiko **tentsiotik** libre gelditzeko. [Migel Angel Mintegi](#)

Puntu orok dituen "funtsezko oihartzunak", haren **tentsio** kontzentrikoa, haren egonkortasuna. [Josu Zabaleta](#)

Konplexuagoa delarik, bertso luzeak bestelako estrategiak ere behar ditu, baita barne-**tentsio** handiagoa ere. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Tentsio handiko narrazio baten barruan. [Unai Iturriaga](#)

Mendekotasun bikoitz hori, izatez, finantza- eta merkataritza-**tentsio** handiak ekartzeko modukoa da. [Koro Navarro](#)

Ikur linguistikoaen arbitrariotasuna ikur horien egitura **tentsioaren** argitan ulertu behar da. [Isabel Arrigain](#)

Orain zauden bezala askoz hobeki zaude, amodio **tentsiorik** gabe. [Iñaki Zabaleta](#)

Tentsio sexuala poliki-poliki areagotzen duten hurbiltze maniobrak. [Luis Elberdin](#)

Final bat da, eta nire beldurra da **tentsiotik** urduritasunera ez ote garen pasatuko. [Berria - Kirola](#)

5 elektrizitatean, potentzial diferentzia.

Jantziaren tenperatura, eta bateriaren **tentsioa**. [Berria - Gaiak](#)

Eztanda bortitz batek baino ezin zuen askatu airean pilaturik zegoen **tentsio** elektriko itzel hurra. [Karlos Zabala](#)

Burdinbide mota bietan desberdina dela katenaria elikatzen duen **tentsio** elektrikoak. [Berria - Ekonomia](#)

Txirrika bidezko sistema baten berri eman zigun **tentsio** altuko kableetan erabiltzeko. [Rafa Egiguren](#)

Gazte batek gorputzaren %70 erre du goi **tentsio**ko dorre batean, Bilbon. [Berria - Euskal Herria](#)

Jaurlearitza ondorioztatu du Iberdrolak ez duela bete goi **tentsio**ko sare elektrikoaren araudia. [Berria - Euskal Herria](#)

Hornikuntza elektrikoak hobetzeko, dena den, Ereño eta Ean transformazio eta banaketako azpiestazio berri bi egingo dituzte; eta,aldi berean, Gernika-Sukarrieta **tentsio** ertaineko linea lurperatuko dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Itsas hondora jaisten dituzte egitura horiek, eta han direnean, **tentsio** baxuko elektrizitate sare batera lotzen dituzte. [Berria - Gaiak](#)

Honelako «gelatxo» batek sortaraz dezakeen potentzial diferentzia volta bat baino handixeagoa da, eta, horregatik, **tentsio** altuagoak eragin nahi direnean, gelatxo ezberdinak elkarren ondoan jartzen dira. [Berria - Gaiak](#)

Abiadura handiko burdinbideetan korrante alternoko 25 kilovoltoko **tentsioa** duten katenarietan ibili ahal izango dira, baita korrante zuzeneko hiru kilovoltoko ohiko lineetan ere. [Berria - Ekonomia](#)

- Tren bakoitzak 1.500 wateko **tentsioa** izango du, bi atoi bagoi eta lau bagoi motore. [Berria - Ekonomia](#)

6 egonezinaren edo larritasunaren ondoriozko egoera.

Presondegari barnean, berriz, **tentsioak** eta ezinegonak errotik mugatzen du bakartasuna. [Filipe Bidart](#)

Tentsioa da, ez urduritasuna, txapelketa egunetakoa. [Berria - Kirola](#)

Egoeraren gogorrak **tentsio** gehiegi eragiten ditu. [Rafa Egiguren](#)

Polizia batek Angel Berroeta Legaz auzokidea hil zuelako sortu zen **tentsioa**. [Berria - Euskal Herria](#)

Batzuetan **tentsioak** oso latzak izaten dira; horrenbestez, horiek leuntzeko, taldeak arau batzuk sortzen ditu. [Luis Elberdin](#)

Ni konbentziturata nongoen aitaren izaera beraska zela, ez beste ezer, gure arteko **tentsioa** areagotzen zuena. [Anjel Lertxundi](#)

Ez nago **tentsio** hau jasateko prest. [Patxi Iturritegi](#)

Tentsio horrek orduak luzatzen dizkizu. [Filipe Bidart](#)

Desiraren eta hori betetzeko debekuaren arteko **tentsio** horretan, [...]. [Ibon Uribarri](#)

Noiz arte jarraitu behar du **tentsio** honek geroz eta gehiago zapaltzen eta itotzen? [Josu Zabaleta](#)

Bien bitartean Antton, **tentsioa** baretze aldera, emakume atsegalearena egiten hasi da. [Patxi Zubizarreta](#)

Bihar Kordobari ez badiote irabazten **tentsioak** berriro gora egingo du. [Berria - Kirola](#)

Antonia bernak igurzten hasi zen, **tentsio** guztia bertan pilatu ote zitzaion. [Josu Landa](#)

Ez litzateke zuzena, bestalde, ezinbesteko **tentsio** hori bi alternatiba muturrekoen artean erabakitzea. [Askoren artean](#)

Isilunerik gabe ez da ez herio ez misterio, ez **tentsio** ez inentzio. [Iñaki Arranz](#)

Tentsio batean itxaron zuen Albertok, eskuak bolantean tenkatuta. [Iban Zaldúa](#)

Zerbait garrantza behar nuen une **tentsioz** bete haietan. [Patxi Zubizarreta](#)

Garbiñe negarrez hasten da, **tentsioari** aurre egin ezinda. [Luis Elberdin](#)

7 (izenondoekin)

Une hark izan zezakeen **tentsio** apurra kentzearren berrikerian hasten nintzen ni. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Partida gogorra jokatu zuten, **tentsio** handikoa. [Berria - Kirola](#)

Hizkuntza ez erabiltzea **tentsio** politikoaren hornigarri. [Bernardo Atxaga](#)

Oso giro beroan, **tentsio** pertsonal ikaragarriak sortu ziren eztabaida bitartean. [Rafa Egiguren](#)

Tentsio bereziko partida izan nuen igande arratsalde hartakoa. [Joan Mari Irigoien](#)

Tentsio handiko egunak izan ziren. [Eduarne Elizondo](#)

Adierazpen horren ondoren, **tentsio** handiko isilaldia izan zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Iragan denbora bildurik eta espazioa hetsirik, **tentsio** tinkoenean nahi ditut gertatu direnak hitzen barnean atxiki bizirik. [Piarres Aintziart](#)

Eta horrela orain, eta horrela gero: une batean, eta hurrengoan berdin, **tentsio** jasanezin hartan, harik eta oihu egin zuen arte: [...]. [Joan Mari Irigoien](#)

Fionnek ezpata airean gelditu zuen [...] **tentsio** betean, aitari obeditu ala sumina kolpez batez askatu, zer egin ez zekiela. Joanes Urkixo
Semea, hasieran, ez zen ausartu egoitzaren kontua aipatzen; eta nik, urduri ikusten zuelan, larri, **tentsio** betean. Karlos Linazasoro

8 (izen elkartuetan lehen osagai gisa)

AEBetako kapitalismoa eta SESBeko komunismoaren arteko **tentsio** urteetan. Berria - Kultura

Badakigulako konponbiderako prozesuan izan daitezkeela gaur egun ditugun **tentsio** egoera eta egunak. Berria - Hariari

Tentsio uneak eta barealdiak izan ditugu hemezortzi urteotan. Edurne Elizondo

Bi taldeon artean **tentsio** une ugari izan ziren solidarioek epailearen aurrean deklaratzeko zuten bitartean. Edurne Elizondo

Tentsio faktoreak eta korapiloak aska daitezten. Berria - Euskal Herria

Azkenaldian **tentsio** giroa izan da Euskal Herrian. Berria - Hariari

Tentsio estrategiak, ordea, indarra galdu zuen, eta izazko apirillean negoziatzeko deia egin zion Indiako lehen ministro Atal Behari Vajpayeek Musharrafiri. Berria - Mundua

9 (izen elkartuetan bigarren osagai gisa)

Heisenbergekin mahaigaineratu zuen mundu-**tentsio** haren eragina, azkenean ahoa zabaltu zuenean. Fernando Morillo

Gerotzik, Frantziaren eta Alemaniaren arteko diru-**tentsioak** desagertuz joan ziren. Koro Navarro

1980ko hamarralditik aurrera, hain zuzen ere, etengabe izan dira finantza-**tentsioak**. Koro Navarro

Alde biko trukeen kudeaketa administratu horrek [...] merkataritza-**tentsioak** areagotu zituen. Koro Navarro

Era horretan Alemaniako inflazio-**tentsioak** gutxiagotuko ziren. Koro Navarro

10 medikuntzan, arteria-presioa.

Odolaren azukrea, pixaren analisia, **tentsioa**, pultsua, pisua... Jokin Urain

Ez zuen kalenturarik, eta **tentsioa** eta pultsua ongi zituen. Joan Mari Irigoien

Medikuaren kontrolak jarraitzea, kolesterol maila kontrolatzea, **tentsioa** ere maiz hartzea, eta bizi ohitura onak izatea. Berria - Gaiak

Medikuak esan dit **tentsio** altua dudala. Javi Cillero

Bitzita osoan erre duen agureari tabakoa debekatzen zaio, **tentsio** altua duelako. Anjel Lertxundi

Txus del Bado ezin da ohetik jaiki, oso ahul dago eta oso **tentsio** baxua du. Berria - Euskal Herria

Gatz gehiegi hartzeak **tentsio** arteriala igo eta bihotzekoa izateko arriskua handitzen du. Berria - Gaiak

-Odol **tentsioa** goi, oso goi. Edorta Jimenez

Herrera medikua jagi, autoraino joan eta hor dator atzera, **tentsioa** neurtzeko aparailua eskuetan. Edorta Jimenez

Animaliak gara, egoera izugarrietan iheserako fisikoki eta biokimikoki egokituta gaudenak: **tentsioa** jaitsi egiten da, etsaiak zaurituz gero ez dezagun odolik gal. Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tentsio altua (4); **tentsio altuko** (3); **tentsio apur bat** (4); **tentsio asko** (3); **tentsio batean** (3); **tentsio betean** (4)

tentsio egoera (4); **tentsio falta** (5); **tentsio gutxiago** (3); **tentsio handia** (23); **tentsio handia bizi** (3); **tentsio handia izan** (4); **tentsio handiagoa** (9); **tentsio handikoa** (28); **tentsio handikoa partida** (5); **tentsio handikoa une** (3); **tentsio handikoa uneak** (5); **tentsio handikoa** (5); **tentsio handikoak** (4); **tentsio handiz** (3)

tentsio itzela (3)

tentsio osoa (5); **tentsio politiko** (4); **tentsio politikoa** (6)

tentsio une (18); **tentsio une larriak** (3); **tentsio uneak** (32); **tentsio uneak bizi** (7); **tentsio uneak izan** (12)

bien arteko tentsioa (3); **dagoen tentsioa** (4); **izugarritzko tentsioa** (4)

tentsioa altua (3); **tentsioa areagotu** (10); **tentsioa areagotzea** (3); **tentsioa areagotzeko** (3); **tentsioa areagotzen** (7); **tentsioa askatu** (4); **tentsioa berri** (3)

tentsioa egon (3); **tentsioa eragin** (3); **tentsioa eragiten** (3); **tentsioa eragiten du** (3); **tentsioa eta urduritasuna** (3); **tentsioa etengabea da** (3); **tentsioa falta izan** (3); **tentsioa galdu** (6); **tentsioa galdu zuen** (3); **tentsioa galtzen** (3); **tentsioa goren gorenean** (3); **tentsioa gutxitu** (5); **tentsioa handia** (8); **tentsioa handia zen** (3); **tentsioa handiagoa da** (3); **tentsioa hautsi** (3)

tentsioa igotzen (3); **tentsioa izan zen** (4); **tentsioa izango** (3); **tentsioa jaitsi** (7); **tentsioa mantendu** (3); **tentsioa nabari** (5); **tentsioa nabaria** (4)

tentsioa sortu (6); **tentsioa sortu nahi** (4); **tentsioa sortzen** (4); **tentsioa zegoen** (3)

urduritasuna eta tentsioa (4)

tentsioak areagotu (3); **tentsioak baretzeko** (3); **tentsioak sortu** (3)

goi tentsioa (13); **goi tentsioa dorre** (3); **goi tentsioa sare** (6); **tentsioa sare elektriko** (5)

tentsioa gabe (15); **tentsioa gabeko** (5)

tentsioa beteriko (3); **tentsioa beterikoa** (4); **tentsioa betetako** (5)

tentsiodun *izond* tentsioa duena.

Ez zen hori batzarreko puntu **tentsiodun** bakarra izan. Berria - Kirola

tentsiogabe *izond* tentsiorik ez duena.

Itxura baketsua ageri zuen, **tentsiogabea**, lo zegoen bitartean. Xabier Olarra

tentsionamendu *iz* tentsionatzea.

Cotizan nengola Miguel Angel Blancoren ekintza gertatu zuan, eta Euskal Herriko **tentsionamendu** izugarri hura hemen ere bideoen bitartez eta espainiar gobernuaren presioen bitartez sentitu genian. Pako Aristi

tentsionatu, tentsiona, tentsionatzen du *ad* tentsioan jarri.

Euren asmoa «egoera **tentsionatzea**» zen, bai eta «borrokan sektore ezberdinen inplikazioa lortzea eta trabatuta zegoen borrokan aurrera zelana egin ikusteko gogoeta egitea» ere. Berria - Euskal Herria

Egungo espetxeetako egoera hain da larria eta **tentsionatua**, lehertzeaz dagoela. Berria - Euskal Herria

Hartara, «manipulatzea, alderdikeriaz jokatzeko eta gizarte **tentsionatu** nahi izatea» egotzi dio PPri. Berria - Euskal Herria

«Euskal politikagintza etengabe **tentsionatzen**» ari dela salatu zuen. Berria - Euskal Herria

tentsione ik **tentsio**.

tentso (*orobat tentsu g.er.*) *izond* tentsioz betea.

Negoziazio **tentso** eta luzeen ondoren, EBKO estatuko kideek tentsua lortu eta Konstituzioa hitzartu zuten. Berria - Harian
Atzoko gaua lasaia izan zen eta egoera **«tentsoa»** izan arren «egonkorra» da, liskarren abiapuntu izan zen Mitrovica hirian barne. Berria - Mundua
Itxaronaldia oso **tentsoa** izan da eta Dan, inoiz baino O'Clock-ago, lehertu egin da matxinatuak ordubete beranduago eta errietaka itzuli direnean. Patxi Zubizarreta
Beren ahotsak oso **tentsoak** zitunan, autobuseko txoferra eta bertan zeuden bidaiariak asko ikaratu ditun. Mikel Hernandez Abaitua
Bukaerako *I have a Love* delikatua, ordainezina; ordura arteko erritmo biziak albo batera laga eta era delikatu eta **tentsoan** bukatu zuten. Berria - Kultura

tentsore iz tenkatzen duen gailua.

Metalezko pisuak eta **tentsoareak** aurkitu ditut telebistaren kaxoian sartuta, metalezko hezurdura bat bailitzan, baina horrek ere ez dio aparteko jakin-minik eragiten Ryderrri. Javi Cillero

tentsu ik tentso.

tentu 1 iz kontuz aritzen denaren jokabidea; zuhurtzia.

Alemaniak aurrera egiteko, ausardiaren neurriko **tentua** behar nuela erabaki nuen larunbat hartan. Anjel Lertxundi
Zeppelinari buruzkoak kontatzen hasi ziren ama eta Annette, hasieran **tentu** pixka batez. Anjel Lertxundi
Patioan arineketa ibiltzen ginenean, giharrak tentuz luzatzen genituen, kartzelan erabili ohi den **tenturarekin**. Lander Garro
Erabaki nuenean etxean ez zela inor gelditu, **tentu** osoarekin sartu nintzen leihotxotik komunera. Anjel Lertxundi
Are **tentu** handiagoa agertu zuen bere jokabidean. Jose Morales
Lasaitasun handiagoz gobernatzen zen eta **tentu** handiagoa jartzen zuen gauza guztietan. Jose Morales
Tentu osoz, hatza behin eta berriro ahoan bustiz, egiteko hartan txakurraren bizia jokoan egon izan balitz baino ardura handiagoarekin. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan)

Ministrea oso gizon lodi, apoplexiak jo erraza zenez, **tentu**-neurri guztiak harturik eta estualdi arriskugarrik ez eragiteko moduan jakinarazi zioten oso atentatu larria prestatzen ari zirela beraren aurka. Jose Morales
Oso une egokian erabaki zuen horrelako **tentu**-neurria hartzea, zeren Nozdriovek atzera eragin baitzion besoari. Jose Morales

3 (adizlagun gisa) kontuz.

Norak abisu baten modukoa entzuten zuen, ordea, bere burmuinetako zoko urrun, oso urrun batetik deiadarka, eta **tentu** ibil zedila gaztigatzen zion. Anjel Lertxundi
Halako hots sakon bat entzuten nuen neure errailetan, debekuka: et, **tentu** bide horretatik, ez duk egokia... Anjel Lertxundi
Tentu, habil **tentu** heroiekin! Anjel Lertxundi
Etxean ez dago inor; beno, **tentu**. Pako Aristi
Baina **tentu**: birus ahuldu horiek bizirik zeuden, eta defentsa ahulak zeuzkaten pertsonengan gaixotasuna sorraz zezaketen. Pako Aristi

4 sena, zentzua.

Royalen kopa airean zuela, negozioetarako bere **tentua** goraiatu zuen, urte hartako euria iragartzera eraman zuen sena. Bego Montorio
Nolanahi dela ere, eromena izateko ez zuen asko behar nire asaldurak, eta Parisen hogeita lau ordu egitea aski izan da berriro ere nire **tentu** onera etortzeko. Josu Zabaleta
Tentu fina sumatzen zuen tarteka parafasietan; intuizio zorrotzak iradokitzen zituzten zenbait pasartek. Iñaki Iñurrieta
Eragin horri bizkar emanez, gure hitzen etimologiari beti euskal erroa bilatzeak ez dirudi oso **tentu** oneko. Patziku Perurena
Tentu oneko artistak, jakin behar du hori derrigor. Patziku Perurena
Bere bi eskuak esposaturik sentitu zituenean bakarrik itzuli omen zen bere **tentura** edo adimenera. Joxean Agirre
NIK uzkur baina abegikor ikusi nuen, bere onean edo **tentuan** nolanahi ere, inondik ere ez behintzat ez-egitekoren bat egitera doanaren itxurarekin. Joxean Agirre
ik behegaro 5. Askoren artean
Eta ez nuen zirkinik egiten, hari finko begira, agerpen baten aurrean bezala neure **tentutik** aterata. Josu Zabaleta

5 tentuan adi.

Akta-hartzailearen kontua bihurriagoa izan daiteke, zeren delakoak **tentuan** egon beharra baitauka beti, bai lehen bileran. Bernardo Atxaga
Katuek ere **tentuan** hobe dute ibiltzea. Xabier Olarra

6 tentuz kontuz, zentzuz.

Habil **tentuz**, emakume; agian hiri ere egunen batean edertasun hori kenduko din. Juan Kruz Igerabide
Ba **tentuz** ibili, ez zaudete-eta tokirik seguruenean. Anjel Lertxundi
Zentzuz eta **tentuz** jokatu beharra dagoela. Jose Angel Irigaray
Rodanoko ura, hotza: Sabethek **tentuz** haztatzen du behatzekin, eta buruari eragiten ezezka. Joxe Austin Arrieta
Eta hi, Ugatza, **tentuz** erabil ezak burdina, gazteluko sotoko sabaia zuloz josia utzi duk-eta! Jon Alonso
Baliabide naturalak **tentuz** erabili behar dira eta inoiz ez naturak bere onera etortzeko duen gaitasunaren gainetik. Berria - Gaiak
Gaia **tentuz** aztartu ostein, beharbada erosi egingo dute. atzerazale, geldizale edo astiro ibilzale horietakoa zinela idatzi zenuen behin batean; neurritz, tamainaz, zuhur (xuhur?), zentzuz, kontuz, **tentuz**... zen zure eskola. Edorta Jimenez

7 tentu handiz kontu handiz.

Tentu handiz ibiltzen naiz, inolako tontakeriarik egin gabe. Mirentxu Larrañaga
Maindirea erretiratu nuen **tentu handiz**, ez nuen eta Ada esnatu nahi. Anjel Lertxundi
Gabiara igo nintzen, **tentu handiz**, ez bainengoan ohiturik halako masta handietan gerri-txoriaren moduan jarduten. Edorta Jimenez
Guztiona den ondarearekin **tentu handiz** jokatu behar dugu. Berria - Kultura
Bere agintaldian legea **«tentu handiz»** beteko dela ohartarazi zuen. Berria - Euskal Herria
Denbora hartzen du galderei erantzuteko, eta **tentu handiz** neurtzen ditu bere hitzak. Berria - Kirola
-Baina, Allie! -esan zion Whittaker andreak **tentu handiz** baina gaitzespenez-. Mirentxu Larrañaga
-**Tentu handiz** ibili beharreko kontua -esan nion-. Edorta Jimenez
Hark, bi eskuetan bizkor hartu, eta idazmahaira eraman zuen, hain **tentu handiz**, non bai baitzirudien isurkariren bat zeramala eskuetan. · Mutila harresiaren inguruan ibili zen, **tentu** eta arreta handiz, noiz zutik noiz haztamuka, estropezu egiteko beldurrak airean. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tentu handiagoz (9); **tentu handiz** (73); **tentu handiz egin** (3); **tentu handiz ibili** (6); **tentu handiz ibiltzeko** (3); **tentu handiz jokatu** (3)

baina tentuz ibili (3); **habil tentuz** (3); **oso tentuz** (6)

tentuz ari (3); **tentuz aztartu** (6); **tentuz eta neurritz** (5); **tentuz eta zentzuz** (5); **tentuz hartu** (13); **tentuz hartzeko** (7); **tentuz ibili** (33); **tentuz ibili behar** (9); **tentuz ibili beharko** (10); **tentuz ibili beharra** (4); **tentuz ibiltzeko** (6); **tentuz jardun** (4); **tentuz jarduteko** (5); **tentuz jokatu** (13); **tentuz jokatu behar** (7); **tentuz jokatu beharko** (3); **tentuz jokakatu** (3); **tentuz mintzatu** (3); **zentzuz eta tentuz** (3)

tentuka *adlag* tentua erabiliz.

Tentuka saiatzen da Gabin, neskaren erreakzioak aztertuz hitzak bilatu ahala. **Iñaki Iñurrieta**

teodizea *iz* teologiaren adarra, munduko gaizkia dela-eta Jainkoaren izatea eta ontasuna zalantzan jartzen dituzten argudioei erantzuten diena.

Galdera latz honi erantzun ez ezik Jaungoikoa justifikatu behar da gaitzaren aurrez aurre; **teodizea** bat garatu behar da. **Imanol Unzurrunzaga**

Jainko maitagarri hori hiltzen den Jainko haragitu gisa aurkeztea **teodizea** bat da, Kristoren imitazioa babestu egiten duen eliarik giza pertsonalitate onbideratu gabekoengana zuzendutako edozein mimesitan dagoen tragediaren aurka. **Iñaki Mendiguren**

teodosiar *izlag* Teodosio enperadorearena, Teodosiori dagokiona.

Gaur egun Frantzia deritzan herrialdea lege erromatarren edo **Teodosiar** kodearen arabera eta bertan bizi izan ziren barbaroen legeen arabera gobernatua izan zen lehen dinastian. **Iñaki Iñurrieta**

Bisigodoen mendekoan, **Teodosiar** kodearen bilduma batek, Alarikoren aginduz eginak, arautzen zituen erromatarren arazoak. **Iñaki Iñurrieta**

Lege Papiarrez idatzi duten autoreetatik ateratako lege Digestokoetan; historialarietan eta aipatu izan dituzten beste autoreetan; indargabetu zituen **Teodosiar** kodean. **Iñaki Iñurrieta**

Italiar doktoreek Frantziara eraman zuten Justinianoren zuzenbidea, han **Teodosiar** Kodea baizik ez baitzen ezagutzen, zeren eta barbaroak Galian ezarri eta gero egin baitziren Justinianoren legeak. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

teodosiar kodea (3)

teofago *izond/iz* jainkoa jaten duena.

Eukaristia [...]: **Teofagoen** sekta erlijiosoaren ospakizun sakratua. **Xabier Olarra**

Eukaristia **Teofagoak** "jainkojaleak" dira, noski. **Xabier Olarra**

teofania *iz* jainkotasunaren manifestazio agerikoa.

Ez naiz profeta, hain gutxi Mesias bat, baina Haren ahotsa naiz, Joben liburuko **teofanian** bezala. **Karlos Zabala**

teogonia *iz* erlijio politeistetan, jainkoen jaiotza eta jatorria azaltzen duen kontakizuna eta sistema.

Hermann Herestauss, filosofia eta **teogoniar** doktoreak gizonaren zelatan dabilzen edo gizonak ametsetan ikusi dituen izakari ikusezin guztien historia eta agerraldiak jaso ditu. Bistan denez, Hesiodoren **Teogoniak**, Upanishad-ek edo Bibliak kontatzen diguten Sorkuntza bezain irensgaitza zaie halako historia bat inziatugabeei. **Josu Zabaleta**

teokratiko *izond* teokraziarena, teokraziari dagokiona.

Hiru fanatismoen botere **teokratikoek** jainkoaren izenean errugabeak hiltzen segitzen dute. **Berria - Harian**

Irango Gobernu eta Legebiltzarra sistema **teokratikoaren** erreforma nahi dutenen esku daude, baina ahalmen handiko erakundeak, Zaindarien Kontseilua tartean, kontserbadoreen gotorlekuak dira. **Berria - Mundua**

Honek, Cetinje printze-apezpikuaren bidez, estatu **teokratiko** bihurtu zuen Montenegro. **Berria - Mundua**

teokrazia *iz* aginpidea apaizen edo jainkotzat hartzen den norbaiten eskuetan dagoen gobernu era.

Bati lehentasuna edo babes ematen zaion momentuan, berdintasuna desagertu egingo da gobernutik, eta **teokrazia** berpiztutik laster aristokrazia jaioko da berriz. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ildo kontserbadorea ez ezik, **teokrazia** ere sendotuko duela iragarri dute. **Berria - Harian**

Mundu osoko erlijioetan **teokraziarako** eta fundamentalismorako joera nagusitzen ari da. **Berria - Kultura**

teolesia *iz*

Hainbeste **teolesia** eta jukutriekin baitezpada atera nahi daukuten baik zertan xuxentzen ote du Europan barna (eta geroz ta gehiago) jada, Europa honetan berean lanik gabe diren miliunka jenden zortea? **Herria**

teologal

1 bertute teologal Jainkoarekiko bertutea.

Era honetan ematen zaizkio gizakiari Izpiritu Santuaren zazpi dohainak, hiru bertute **teologalak**, Fedea, Esperantza eta Karitatea, eta perfekzio oro, egia, gozotasuna eta barruko bakea Izpirituagan. **Joan Mari Lekuona**

Isurtzen ditu bertute **teologalak**, hala nola fedea eta esperantza, eta beste graziak ere ematen ditu grazia ugaritu dadin. Adituen iritziz, Itxaropena izan daiteke, Bertute **Teologaletatik** hura bakarrik falta baita. **Joan Mari Lekuona**

teologia (*orobat teolojia g.er.*) **1 iz** Jainkoaren izateari, izaerari eta nolakotasunei buruzko dotrina; erlijio arazoan azterketa, batez ere goi agerkundean, dogmetan eta tradizioan oinarritua.

Metafisikaren barruan **Teologia** (jainkoaz arduratzen den teoria), filosofia lehena (kausa lehenez arduratzen den teoria) edo Ontologia (izateaz edota den guztiaz arduratzen den teoria) aurki ditzakegu. **Askoren artean**

Frantziara joan aitzin ikasketak egin nituela Nafarroan eta Filosofia eta Eskolako **Teologia** ikasi nituela Alcalako Unibertsitatean. **Piarres Xarriton**

Teologia razionalizatzeo eginkizunean oztopoak ez ziren faltako, zientziari buruzko kontzeptu filosofikoak teologiara aplikatzean batez ere. **Askoren artean**

Teologia eskolastikoa, doktrina bezala, denei zuzendua da. Xabier Amuriza

Teologia kristau katolikoaren lehenengo aurkezpen sistematikoa. Iñaki Mendiguren

Strasbourg-eko **teologia** protestanteko fakultatearen burua zen. Marzel Etxehandi

Teologia feministaren oinarriak. Berria - Gaiak

Bonabenturaren **teologia** mistikoaren hizkera. Askoren artean

Ignazioren **teologia** Erdi Arokoa da: Tomas Aquinokoarena (1225-1274), Modernitatearen aurrekoa. Patxi Altuna

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Filosofia eta **Teologia** ikasketak egin zituen Donostiako Seminarioan. Askoren artean

Alemanian **teologia** -irakaslerik ez zutela jakinik, anai Simon Alemaniako ministro-kargutik askatu eta irakasle jarri zuen. Askoren artean

Hildesheimgo gotzain izan zen Spirako Konrado maisuaren **teologia** ikasle izan zen. Askoren artean

Azkeneko behar nuen gauza zen harekin **teologia** -kontuetan nahastea. Oskar Arana

Illo beretik erran dezaket ezen bere **teologi** eskoletan ere gutitan aipatu izan zuela heresia. Joan Mari Irigoien

Filosofia eta **teologia** alorretan zenbait urrats egin duzun ber, konturatzaren zara, hor ere, egiaeren argira heltzeko ez dela zalantzaren bidea baizik. Piarres Xarriton

Hain zuzen, san Tomas Akinokoak ezin hobeki idatzi du bere **Teologia** Bilduman [...]. Piarres Xarriton

Egia zen, zalantzarik gabe; zeren eta greziarrak intelektualak baitziren, eta hainbat mendez **teologi** huskeriak jorratzen ari izan ziren emaitza tamalgarriekin. Iñaki Mendiguren

Teologia -batxilergoa beretu zuenetik, berarengan jarri zituen begiak Elizak. Juan Garzia

3 irud/hed

Historialari bat historiarekin borrokan -aberriaren **teologia** ezkutu, ausaz inkontziente, baten kariaz- R. Altamirak ematen du. Joxe Azurmendi

Estatu moderno mitiko horren **teologia** moduan sortu da historia, zientzia gisa nahiz eskolako ikasgai gisa. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere teologia (9); **filosofia eta teologia** (5); **teologia eta filosofia** (8); **teologia fisikoa** (3); **teologia ikasi** (3); **teologia ikasketak** (6); **teologia ikasten** (4); **teologia santuan** (3); **teologia transzendentala** (4)

filosofia eta teologiako (3); **teologiako ikasketak** (5)

askapenaren teologiaren (4)

filosofiko eta teologikoak (3)

teologiakume *iz adkor*

Hamar pezetako txokolatinararena irentsi zuten, baina apenas bururatzen zaidan **teologiakume** batek Nietzsche lapurtzeko zer arrazoi izan dezakeen. Joxerra Garzia

teologiko 1 *izond* teologiarena, teologiari dagokiona.

Hobbesek berak, esan dudana bezala, ateoia izanik, orri asko eskaini zizkion gai **teologikoei**. Esteban Antxustegi

Hiru tesi **teologiko** kardinalak frogatzen ditu: Jainkoaren existentzia, bakartasuna eta gorpuzgabetasuna. Xabier Kintana

Kolonian osatuko zuen bere formazio **teologikoa** eta irakasle egon zen Alemaniako eskola batzuetan. Berria - Gaiak

Libertatearen arazoak ere biziki kezkatu zuen, erabakimen librearenak alegia, baina ikuspegi **teologikotik** begiratuta, gaitza edo bekatusa ere aukeratzeko gaitasun gisa.

Imanol Unzuurrungaza

Azalpen **teologikoaren** metodoak. Xabier Kintana

Nire sarreraren lehenengo parteak ez du muin filosofiko edo **teologikorik**, "geografikoa" baizik, erranen nukeen bezala. Xabier Kintana

Gure Ignaziok berrikuntza zekarren; baina ez **teologikoa**, praktikoa eta eragilea baizik. Patxi Altuna

Zein dira Maimonen jarrera filosofiko eta **teologikoak**? Xabier Kintana

Settemthri humanistaren eta Naphtha jesuita-juduaren arteko tirabira politiko, **teologiko** eta metafisikoak. Juan Garzia

Maimonen esoterismoaren argipean, nola ulertu behar ditugu haren ideia filosofiko eta **teologikoak**? Xabier Kintana

Irakurleengan garrantzi handiko galdera antropologikoak eta **teologikoak** sortuko dituen lana. Imanol Unzuurrungaza

Erdi Aroko filosofia **teologikoa** zen, edo Jainkoaren filosofia, eta Modernitatekoa irudikapenaren filosofia. Askoren artean

2 irud/hed

Ez ditut inoiz ulertu hizkuntzen inguruan sortzen diren gatazka **teologikoak**. Berria - Euskal Herria

3 (izenondo elkartuetan)

Erregetza gorenean zegoela, baina eraikinaren lehen kraskakoak bere belarri finaren medioz aditurik, apezpikuak dogma **teologiko** -politikoa finkatu zuen. Piarres Aintziart

Frantziskoren kultura batez ere **teologiko** -espirituala izan zen, esperientziari lotua, liburuetan lorturiko teologoaren jakintzatik urruti. Askoren artean

Antonio Alamok idatziriko *Yo, Satán* antzezlan, Alvaro Lavinek zuzentzen duen «thriller **teologiko** -komikoa». Berria - Kultura

Descartesez geroko filosofia guztia urrundu egiten da ikusmolde bibliko-**teologikotik**, gizakia modu razional hutsean atzeman nahi baita. Askoren artean

Sisifo izeneko dramaren, Kritiasek egiten duen lehen itunaren -lehen legearen- oinarri mitiko-**teologikoaren** salaketa: [...]. Askoren artean

Lehen froga fisiko-**teologikoa** da, bigarrena, kosmologikoa, hirugarrena, froga ontologikoa da. Ibon Uribarri

Borges metafisiko-**teologikoa** (metaliterarioa?: [...]). Juan Garzia

Agustin deuna tradizio filosofiko-**teologiko** asko biltzen dituen aro baten eledun dugu. Imanol Unzuurrungaza

San Agustín-en "bi hiri" historiko-**teologikoak**. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

teologiko espirituala (3)

fisiko teologikoa (3)

filosofiko eta teologikoak (3)

teologikoki *adlag* teologiaren ikuspegitik.

Teologikoki, baina, oso kontserbadorea da. Maimonen bigarren ordenatze-lana Aristotelesen fisika eta metafisikaren zati **teologikoki** garrantzitsuen laburbilpena da.

Berria - Harian

Batetik, nolabait filosofiko-**teologikoki**, humanismo eta erreformaren arteko talkaren herentzia dugu (Lutero vs Erasmo). Askoren artean

teologizatu, teologiza, teologizatzen du *ad* teologia-gai bihurtu.

Gizakia historian bizi da eta historiak bizitzaren sentidurik edo ekintzaren arau absoluturik emateko ez du balio, aurretik bera **teologizatu** ez bada. Joxe Azurmendi
Merkatuari buruzko kritikaren adar bat ere **teologizatu** egin da. Iñaki Heras

teologizatze *iz* teologia-gai bihurtzea.

Ilustrazioak Jainko orde zuzen zuten Arrazoiak, eta batzuek bitxiro sekularpena bezala ederretsi ohi dute filosofiaren **teologizatze** lirdinga. Patziku Perurena

teologizazio *iz* teologizatzea.

Ilustrazioak Jainkoa kendu eta haren lekuan arrazoimena jainkotu zuen (bitxiki "sekularpena" bezala ederretsi ohi dute batzuek filosofiaren **teologizazio** lirdinga hori!). Joxe Azurmendi

Beste autore askok ere azpimarratu izan dute marxismoaren dogmatizazio eta **teologizatorako** joera. Iñaki Heras

teologo 1 *iz* teologian aditua den pertsona.

Teologo nahiz filosofo gehienek Aristotelismoak zekarren munduaren irudi filosofiko naturalago eta razionalagoa onartu zuten. Askoren artean

Irri egin dezatela, bada, Satirikoez nahi duten bezainbat, gizakien gauzez, eta **Teologoez** arbuia ditzatela gauza horiek, eta Malenkoniatsuek goraipe dezatela, ahal duten guztia, larreko bitzita landugabea. Piarres Xarriton

Filosofo bezala jokatzen dute, nahiz eta gero, erantzunak ematean, **teologo** gisa erantzun, batez ere. Askoren artean

Zenbait **teologok** ez zuten besterik ikusten, ezkontzaren esparruan, sakramentua baizik; juriskontsultorik gehienek, bestera, kontratu zibila. Andres Urrutia

Teologo bezala distiratu zuen alabaina Carranzak Kontzilioan. Piarres Xarriton

Teologoa arrazoiaren izenean ari baita, kristau-mezuaren balio orokorraren zaindaria gisa. Askoren artean

Erdi Aroko **teologoak** estoikoak bezain teleologikoak ziren. Askoren artean

Badirudi **teologo** batzuek ez dutela behin ere funtsezko teologiarik ikasi, edo ikasi hura ahantzi dutela. Piarres Xarriton

Lehenengoa *Kalam*-aren [...] hau da, filosofo-**teologo** atomista islamiarren filosofiaren laburbilpena da, lau kapitulutun egina. Xabier Kintana

Erabaki dut **teologoen** dotrinak inon ez eztabaidatzea. Esteban Antxustegi

2 (izenondoekin)

Hori dela eta, jakintsu metafisikari eta **teologo** handi guztiak, egia maite zutenak, era horretako zerbait irakatsi nahi zutenean, betiere alegoria eta igarkizunen bidez mintzo ziren. Xabier Kintana

Badirudi, tarte horretan, Zizeronen politika printzipio zenbait ahantzi zituztela Mendebaldeko **teologo**, legelari eta kanonista jakintsu anitzek. Piarres Xarriton

"Liburu Sainduen hitz propioetarik ateratako printzipio politikoak" zuen izena **teologo** famatuaren obra nagusiak. **Teologo** entzutsuenak ere filosofiari arlo propioaren eskumena segurtatzen saiatu ziren. Piarres Xarriton

Kontuan hartzekoa da tradizio bikoitza dagoela **teologo** kristauen artean: bata arkano eta mistikoa da, eta bestea irekia eta ezagunagoa. Joan Mari Lekuona

Egilea **teologo** musulmanen artean profetei, eta bereziki Muhammad-i zuzenduriko jainkozko hitzak sorturiko eztabaidaz ari da. Xabier Kintana

3 (hitz elkartuetan)

Laster jakin nuen bazterretik Erromara igorriko nindutela **teologo** ikasketak egiteko. Piarres Aintziart

4 irud/hed

Galdera horiek ordea, eta erantzun hori, zientziaren **teologoentzat** eta sinestunentzat dira, ez guretzat. Iñaki Segurola

Ez da izan, ez, gaur Gorteko **teologo** laikoek sinestarazi gura izaten diguten legez, razionalitatearen progresu historia bat, ezta "Espainiaren bategintzarik" ere. Joxe Azurmendi

5 (izenondo gisa)

"Fede katolikoaren oinarriak": Bernard Sesboué Jesuista **teologoak** "Croire" liburuan argitaratuak, Mixel Itzainak euskaratuak. Herria

6 *teologo-gai* ik teologogai.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

filosofo eta teologo (8); **teologo bezala** (3); **teologo eta** (7); **teologo guztiak** (4); **teologo guztiak eta** (3); **teologo handi** (3)

filosofo eta teologoaren (3)

teologogai *(corpusean teologo-gai soilik)* *iz* teologo izateko ikasten ari den pertsona.

Salamancako leize batean, deabru zaharrak eskola bat antolatatu du **teologo-gaiezat**. Anjel Lertxundi

teoloji ik teologia.

teontzi *iz* tea egiteko edo zerbitzatzeko ontzia.

Teontzia prestatu ondoren katiluak jarri zituen, platertxoak eta koilaratxoak. Joxemari Iturralde

Hiru ertzeko alasa zoko batean, **teontzi** eta katiluz beterik. Jose Morales

Sutontzia aurrez aurre zeukan, eta **teontzia** eskuinaldean. Patxi Zubizarreta

Teontziko ur beroa isuri zuen katilura, eta te berdea hartu zuen patxadaz. Ibon Uribarri

Teontzi urdin bat esku batean eta eltze bat ur irakin bestean zuela itzuli zen Ellen. Lopez de Arana

Teontzietatik hurbil, saski batean, gurinezko ogi txikiak zeuden. Karlos Zabala

Ez du [Txernobil-ek] **teontzi** batek baino arrisku gehiagorik. Berria - Harian

teorema *iz* froga daitekeen perpausa, beste axioma edo teorema batzuetatik ondorioz ateratzen dena.

Teorema andana bat, zenbaki perfektuei, binomioaren formula orokortzeari, grafo konexuei dagozkienak. Jon Muñoz

Han bazeukaten ausartzea, gogoak eman ahala, formulekin eta **teoremekin**, proposizioekin eta arrazoibideekin borrokan. Jon Muñoz

Talesen **teorema** edo Proporzioen **teorema**. Jon Muñoz

Fermaten Azken **Teorema** (FAT) deitzea erabaki zuten. Jon Muñoz

Zer dio Pitagorasen **teoremak**? Jon Muñoz

Stephen Hawking eta Roger Penrose fisikariek «berezitasunen **teoremak**» aurkeztu zituzten 1960ko hamarkadan, zulo beltzen portaera deskribatzeko. Berria - Gaiak

Teorema baten froga formularen segida finitu bat baino ez da. Askoren artean

Segidaren azkeneko formulak frogatutako **teorema** izan behar du. Askoren artean

Liburu horretan, **teorema** bat frogatu zian Pascalek, plazaratu zenean oihartzun handia izan zuena. Jon Muñoz

Jainkoaren izatea eta arimaren hilezkortasuna Matematikako edozein **teoremaren** ebidentzia berberarekin frogatu daitezkeela. Ibon Uribarri

Horietaik dedukzioak egiteko inferentzia-erregela batzuk zehazten dira eta, horrela, gure logikaren **teoremak** deduzituko dira. Askoren artean

-Egon lasai, izaki idealei baizik ez dagozkie **teoremak**. Jon Muñoz

-Orokorra da, dudarik gabe, **teorema**; neurketa, orde, zeharo partikularra. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

pitagorasen teorema (11); **talesen teorema** (6)

teorematxo *iz adkor*

1837an, 23 urte zituela, **teorematxo** bat frogatu zuen Wantzelek, ondorio izugarriak izan zituen. Jon Muñoz

teoretiko *izond* teorikoa.

Lehena, arrazoimenaren ezagutza **teoretikoa** da, bigarrena, ezagutza praktikoa. Ibon Uribarri

Eskuarki, harreman praktikoa baino ez bada, uste **teoretiko** askieziari *sinestea* dei dakiok. Ibon Uribarri

Horrela judizio **teoretikoa** praktikoa analogoa den zerbait dago, eta bere usteari *sineste* hitza dagokio, eta guk *sineste doktrinala* dei diezaiogegu. Ibon Uribarri

Zeru izartuaren behaketa besterik azaltzen ez duen astronomia **teoretikoak** lehena aurkezten du, kontenplati boak (munduaren sistema kopernikarraren arabera, edo baita Newtonen grabitazioaren legeen arabera argitua), aitzitik, bigarrena, hots, mundu inteligiblea. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ezagutza theoretikoa (4)

teoretikoki *adlag* teorikoki.

Teoretikoki ezagut dezakegun oro agerpen soiletara zedarrizatu ez balu. Ibon Uribarri

teoria 1 *iz gertakari sail jakin baten azterketatik zientziak ateratzen dituen ezagutzen sintesi sistematikoa; alor jakin bati buruzko ideien edo hipotesien multzo egituratua.*

Metafisikaren barruan Teologia (jainkoak arduratzen den **teoria**), filosofia lehena (kausa lehenez arduratzen den **teoria**) edo Ontologia (izateaz edota den guztiaz arduratzen den **teoria**) aurki ditzakegu. Askoren artean

Vitruvio eta arkitekturaren **teoria**. Santiago Iruretagoiena

Soka eskuan hartu eta harriaren mugimendu pendularra irakasten zigun, Galileoren **teoriak** gogoan. Joan Mari Irigoien

Kontua da predestinazioaren **teoria** bat landu nuela neure artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Egile anitzen **teoria** postulatzeke beste zantzu bat. Iñaki Iñurrieta

Ezagutzaren **teorian** (epistemologian, alegia) gogoaren azterketak leku garrantzitsua du. Askoren artean

Bere **teoria** egiaztatze aldera, Nietzsche du orain aitaponteko: [...]. Karlos Linazasoro

Azken egunetan banan-banan ehunduriko **teoria** guztiak arraitzen ikusiak nituen egun bakar batean. Aingeru Epaltza

Atribuzioaren, artikulazioaren, izendapenaren eta deribazioaren **teoriak** elkarren artean artikulatzen diren sare horiek guztiak. Xabier Arregi

Teoria hori birbiltzeko Kunderaz baliatzen da: [...]. Karlos Linazasoro

Formaren **teoria** gainditzeko ahaleginak informazioaren kontzeptuaren inguruan bildu dira batez ere. Josu Zabaleta

Aurrenik, geometria laua; ondoren, zenbakien **teoria**; azkenik, espazioko geometria. Jon Muñoz

Baina uhinen **teoria** hau migratzeen **teoriaren** aurkakoa da. Isabel Arrigain

Teoria asko daude mugimenduaren pertzepzioa azaltzeko. Josu Zabaleta

Ez dira zientzia eta teknika, **teoria** eta praktika elkartu teknozientzia berri batean? fakirren gauzak interesatu zitzaizkion, eta **teoria** ez ezik praktika ere ikasi zuen. Askoren artean

Teoria eta praktika uztartuz, Dolmacé eta Saint-Ange jaun-andere libertinoek plazeraren eta bizitzaren sekretu guztiak erakusten dizkiote Eugeneri. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Fi-efektuen bidezko itxurazko mugimenduaren **teoria**. Josu Zabaleta

Teorian behintzat, politika hedakorrek inbertsioa eta kontsumoa areagotzea dute helburu. Iñaki Heras

Teorian geologia prospektiboa egin daiteke, baina gai baten gainetik begirada, berez, retrospektiboa izan daiteke soil-soilik. Isabel Arrigain

Administrazioko bulegoetan badira zenbaitetan **teoriaz** behintzat euskaldunak direnak. Pello Salaburu

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hawkingen **teoria** berriak zulo beltzek betidanik izan duten paradoxa konpontzea du helburu. Berria - Gaiak

Baina ez ginen **teoria handietan** sartzen. Daniel Landart

Ez dirudi inola ere sofisten zaletasun nagusia teoria izan zenik; ez **teoria** hutsa, behintzat. Askoren artean

Bigarren aukera hori ere posible da **teoria** hutsean. Joxerra Garzia

Lockerren **teoria** epistemologikoak ezagumenaren azalpena lortzen du hautematearen **teoria** baten bidez. Askoren artean

Bi ezaugarri horiek baziren **teoria** analitiko zaharretan ere, askotan **teoria** enpirista deitu izan direnetan. Josu Zabaleta

Michal Kalecki, Keynesen **Teoria** orokorrean dauden ideia asko aurrez eman zituen ekonomilari poloniarra. Iñaki Heras

Kolorearen **teoria** klasikoaren eta errealitatearen arteko elkar hartu ezina harrigarri zitzaion Goetheri. Xabier Olarra

Hein batean, **teoria** zientifiko jakin baten helburua da hori, neurriaren **teoria** errepresentazionalarena, alegia. Askoren artean

Nazioarteko merkataritza da, **teoria** konbentzionalak azaltzen duen legez [...] ekoizpen ahalmena hedatzea ahalbidetzen duena. Iñaki Heras

Harik eta Koperniko heldu zen arte, bere **teoria** heliozentrikoarekin. Joan Mari Irigoien

Berrikiago, oroimenaren **teoria** biokimikoa defendatu da kartsuki. Irene Aldasoro

Pertzepzioaren **teoria** konstruktibistetan oinarritutako deskripzio-eredu bat erabiltzea. Josu Zabaleta

Erljioari buruzko **teoria** filosofikoa. Askoren artean

Teoria etikoak printzipio absolutuen arabera egituratzen dira. Askoren artean

Teoria metaetiko kinkak jartzien artean da. **Askoren artean** Adibidez, **teoria** monetarista dago, aski hedatua hau ere, inflazioa diru eskaintza osoaren areagotzearekin -hau da, masa monetarioaren hazkundearekin- lotzen duena. **Inaki Heras**

Teoria kuantikoak eta erlatibitatearen **teoriak**, beren ondorioekin, muturrez mutur jotzen dute denboraz eta espazioaz dugun sen berezkoarekin. **Juan Garzia**

Fermatek zenbakien **teoria** modernoa sortu zuen. **Jon Muñoz**

Gustuaren **teoria** kantiarra estetikaren ikusmoldearen parte zen. **Askoren artean**

Ordezko **teoria** bat, esperimentu-oinarririk gabea eta karaktere bereganatuen ondoretasunean oinarritua. **Juan Garzia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **teoriko**.

Egile alemaniarrek berpiztu zuten merkantilismoa XIX. mendearen bukaeran [...] haien artean Gustav von Schmoller-ek, *State making*-aren **teoria** -mailara goratuz. **Koro Navaro**

Gramatika-eredu ahaltsuago baten bila abiatu behar dugu, eta hizkuntz **teoria** eredu "abstraktuago" baten bila. **Itziar Laka**

Bazterkuntza horren ondorioz hutsik geratutako **teoria** -gunea . **Josu Zabaleta**

Ez da harrizkoa, bada, irudi abstraktuaz, eta balio plastikoez oro har, idatzi diren lehenengo **teoria** -lanak Bauhausek, 1920ko hamarraldian argitaratu izana. **Josu Zabaleta**

Inprobisazioari buruzko **teoria** -lanetan aritzen ziren lagunak ezagutzen hasi ginen. **Andoni Egaña**

Kode kontzeptualen eta **teoria** moten arabera. **Xabier Arregi**

Adierazlearen **teoria** -sail berean. **Xabier Arregi**

Horren ondorioz, greziararen ondoren **teoria** -klase hori defendatu dutenei neoristolotik esan zaie. **Askoren artean**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Chomskyren bi liburu horiek lan bakarria osatzen dute, eta bertan aurkeztutako hizkuntz **teoria** funtsezkoa gertatu da neurozientzian, filosofian eta psikologian. **Itziar Laka**

Komunikazio-**teoriako** hizkuntz eredu ezagun batek eskaintzen digu oztopo hori gainditzeko bidea. **Itziar Laka**

Oinarri guztiz formal batek bakarrik eskain dezakeela gramatika **teoria** eraikitzeo egonari sendo eta emankorra. Keynesen ekarpenekin aberasturiko sintesi neoklasikoa izan zen ekonomia **teoria** nagusia Bigarren Mundu Gerraren amaieratik 70eko urteen hasierako petrolioaren krisia arte. **Itziar Laka**

Zientzia-**teoria** guztiak behaketa-kopuru mugatu batean oinarritzen dira. **Askoren artean**

Modernitatean subjektu irudikatzailearen ezagutza-**teoria**, edo gnoseologia/epistemologia. **Askoren artean**

Entzumenaren erresonantzia-**teoria**, 1863an Helmholtz-ek proposatua, honela laburbiltzen da: [...]. **Irene Aldasoro**

Fregek [...] aritmetika sakondu zuen eta, horren ondorioz, kuantifikazio-**teoria** bat sortu zuen lehenengo aldiz. **Askoren artean**

Artearen instituzio-**teoria**, ebaluazio-proposamen berriak, instrumentalismoa edo auzi estetiko zehatzen azterketa analitikoak. **Askoren artean**

Botere ororen izaera aristokratikoa ezagutzeko aukera eskaintzen digu Homerok, elite-**teoria** garaikideak sortu baino askoz lehenago. **Askoren artean**

Nire maitasun-**teoria** erromantiko hark nahi zukeen bezalako amodio guztizko eta beta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

5 **teoriazko izlag** teorikoa.

Teoriazko korapilo horietan galdu nahi ez duenak Lass-en (1984) eskuliburuko lehen kapituluari du irakurgai aproposa kontzeptu oinarritzkoen inguruan. **Lourdes Oñederra**

Gombrichek, adibidez, oso gogoan dauzka perspektibaren **teoriazko** anbiguitateak (ikus puntu geometrikotik hartuta). **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arduratzan den teoria (6); **artearen teoria** (16); **darwinen teoria** (4); **dioen teoria** (11); **dioen teoria indartzeko** (5)

eboluzioaren teoria (10); **edertasunaren teoria** (6); **eginbeharretan oinarritutako teoria** (4); **egituraren teoria** (12); **erlatibitatearen teoria** (16); **ezagutzaren teoria** (7); **hizkuntz egituraren teoria** (7); **hizkuntz teoria** (24); **hizkuntz teoria bat** (4); **hizkuntzaren teoria** (5)

imitazioaren teoria (6); **keynesen teoria** (4)

oinarritutako teoria (11); **ondorioetan oinarritutako teoria** (4); **pertzepzioaren teoria** (6)

teoria azaldu (6); **teoria baten arabera** (5); **teoria bera** (5); **teoria berri** (15); **teoria berri bat** (8); **teoria berriak** (5)

teoria eraikitzeo (4); **teoria eta praktika** (15); **teoria etiko** (9); **teoria etikoak** (12); **teoria etikoan** (8); **teoria honen arabera** (5); **teoria horren arabera** (16); **teoria hutsa** (6); **teoria hutsean** (5)

teoria indartzeko (7); **teoria indartzen** (4); **teoria izan** (6); **teoria klasikoaren** (5); **teoria kuantikoak** (4); **teoria mailan** (5)

teoria oralista (6); **teoria oralistak** (5); **teoria oralistaren** (5); **teoria orokor** (14); **teoria orokor bat** (8); **teoria orokorra** (15); **teoria orokorrean** (6); **teoria politikoak** (5)

teoria zientifiko (8); **teoria zientifikoak** (11); **teoria zientifikoak** (7); **teoria zientifikoaren** (4); **teoria zientifikoan** (7); **teoria zuzena** (7)

zenbakien teoria (8)

eboluzioaren teoriak (4); **erlatibitatearen teoriak** (4); **galileoren teoriak** (4); **hizkuntz teoriak** (5); **orain arteko teoriak** (6)

komunikazio teoriako (4)

artearen teorian (4); **ez teorian** (7); **teorian bai** (5); **teorian bederen** (6); **teorian behintzat** (28)

eboluzioaren teoriaren (4); **erlatibitatearen teoriaren** (4); **hizkuntz teoriaren** (13); **queer teoriaren** (4); **teoriaren arabera** (20)

teoriari buruzko (8)

teoriatik praktikara (4)

teoriagile (*corpusean teorigile soilik*) **1 iz** teorialaria.

Puntu horren kokalekuaren finkotasun beharra (eta batzuetako ezina) zailtasun gaindiezina da **teorigile** batzuentzat. **Lourdes Oñederra**

Beste batzuek (fisiologista, kantuaren **teorigile** eta abarrek) hasiera eman zieten estudioei jarraituaz, hizkuntzalaritza, zientzia laguntzaile batez hornitu dute, eta jakintza laguntzaile horrek hitz idatziaren mendekotasunetik askatu du hizkuntzalaritza. **Isabel Arrigain**

2 (hitz elkartuetan)

Bere ikerlanetan, goiz antzematen zaio, halaber, **teorigile** alderdia. **Lourdes Oñederra**

teorialari (*orobat teorilari g.er.*) **1 iz** zientzia- edo jakintza- alor batean, alderdi teorikoez arduratzen den pertsona. ik **teoriko 2; teoriagile**.

Teorialari batzuen iritzian, hala ere, irudikapen modu guztiak dira arbitrarioak. **Josu Zabaleta**

Filosofoa izan da erlazio kausala objektutat hartu duen **teorialaria**. **Askoren artean**

Ikusleek gustuko eta **teorialariek** gorroto duten partida. **Berria - Kirola**

Teorialariaren dilema: teoriaren eraikuntzaren logikari buruzko azterketa bat. **Askoren artean**

Émile Zola idazle handia zen ordurako, itzal luzekoa, mugimendu naturalistaren **teorialari** eta eragilea. **Karlos Zabala**

Pantailan pertzibitzen diren mugimenduen anbiguotasuna askotan aipatu izan dute zinemaren **teorialariek**. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Futbol **teorialarientzat** neurrak eskasa, hutsez betetakoa, izango da Herbehereek eta Txekiak atzo jokaturakoa. **Berria - Kirola**

3 (izenondo gisa)

XIX. mendean lehenengo antropologo **teorialariek** primitibismoa arbiatu zuten eboluzionismoaren alde. **Askoren artean**

teoriatxo *iz adkor teoria.*

Handik gutxira, ordea, apur bat gehiago zehaztu zuen bere **teoriatxo** . **Hasier Etxeberria**

teoriazale *iz teoriaren edo teoria baten zalea den pertsona.*

Azken hitzxo bat: irudimen hutsaren **teoriazale** horiek, minen bat daukatenean, irudimena dela esan eta suak. **Gotzon Garate**

teorigile ik teoriagile.

teorika 1 *izond teorikoa.*

Physical Review D, fisika **teorikako** aldizkari ospetsuan **Berria - Gaiak**

2 (izen gisa)

Horien artean, soldata igoerak: **teorikako** irakasleei %6koa, irakasleei ez direnei %5koa eta praktikako irakasleei %4koa. **Berria - Ekonomia**

80ko hamarkadan **teorikatik** praktikara pasatu zen eta 90eko hamarkadan bere lanik ospetsuenak egin zituen; arkitektura modernoaren ikono bihurtu zen. **Berria - Kultura**

teoriko 1 *izond teoriari dagokiona, teoriazkoa. ik teoria 3.*

Zelan bereiz, modu egokian, maila **teorikoaren** eta behaketazkoaren artean? **Askoren artean**

Ez da, dena dela, lan **teorikoa** bakarrik, neurri batean **teorikoa** baldin bada ere. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

ETA V.ari buruzko lan **teoriko** bat. **Rafa Egiguren**

Fisika **teorikoaren** kontzeptu eta lege oinarritzkoak. **Iñaki Segurola**

1960. urterako dagoeneko bertan behera utzia zuten artearen izaera esentzialari buruzko gogoeta **teorikoa** . **Askoren artean**

Arazo **teorikook** izango dira hemen landu nahi direnak. **Xabier Arregi**

Proposamen **teorikoak** baino nahiago zituen irtenbide praktikoak. **Joseba Zulaika**

Osorik aztertu behar izan ziren berriro politika ekonomikoaren oinarri **teorikoak** . **Koro Navarro**

Egia esan, hain berria ere ez da hemen proposatzen dugun marko **teoriko** hori. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Unibertsal/banako dikotomiaren erabilera oso arrunta da, batez ere esparru **teorikoetan** . **Askoren artean**

Artikulazioaren eskema **teorikoari** dagokionean. **Xabier Arregi**

Homeroren testuetan boterearen paradigma **teoriko** bat agertzen da. **Askoren artean**

Truke-tasa malguen bertute **teorikoak** eta bizio errealak. **Koro Navarro**

Erakustea nola eratu dituen edo aldarazi dituen kontzeptu medikuak eta patologiarenean egitura **teorikoa** gizarte jakin baten jardute politikoak. **Xabier Arregi**

Kontua da, liberal espainolek, herriaren filosofia bat edukitzeko (eta hau gerra "antifrantzesean" ari zen tenorean), tresneria **teoriko** frantsesa besterik ez zutela. **Joxe Azurmendi**

Horien heterogeneotasunak berak ere badu balio **teoriko** orokor bat. **Josu Zabaleta**

Kontraesanek, hutsuneek, akats **teorikoek** zientzia baten funtzionamendu ideologikoa adieraz dezakete. **Xabier Arregi**

Eraikuntza **teoriko** honen bigarren "estaia", errealtasun-efektua, originalagoa da. **Josu Zabaleta**

Irakaskuntza **teorikoan** edo erieteko pedagogian, ahozko komunikazio-sisteman edo idatzizko dokumentazioan. **Xabier Arregi**

Eskola motak ere (**teorikoak** , praktikoak) plangintza orokorraren barnean definitzen dira. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

2 (izenondo elkartuetan)

Tesiko zuraje **teoriko** -filosofiko guztiari, onberatasun pixka batekin, apendiz inpresionatuaren zurriburri zentzubakoa iritzi dakioko. **Joxe Azurmendi**

• 3 *iz teoriarria.*

Galdetu ahal izango litzateke zein ideia partekatuko zuten, garai hartan, hizkuntzalariek, naturalistek eta ekonomiaren **teorikoek** . **Xabier Arregi**

XIX. mendeko inperialismo europarraren **teoriko** batzuen antzera. **Joxe Azurmendi**

Pidal omen da nazio espainolaren **teoriko** liberal handia. **Joxe Azurmendi**

Drogainaren **teorikoek** , droga jakintza eta ezagutza bide bezala aztertzen dutenek, ia sistematikoki ahazten dute puntu hau. **Iñaki Segurola**

Ur handiak arrain itsuentzat direla eta arrain itsuen pare diren jakintsu, intelektual eta **teorikoentzat** . **Iñaki Segurola**

Politiko eta **teoriko** kontserbadore handia. **Joxe Azurmendi**

Hortixe sortzen dira Vitruvioren komentaria eta aro modernoko arkitekturaren **teoriko** ugarik ordenen "benetako" sistema berreraikitze egin izan dituen ahalegin etsipenezkoak. **Santiago Iruretagoiena**

Hitzezoaren eta mimetikoaren (edo analogikoaren) bereizkuntza hori oinarri-oinarritzkoa da edozein narratologiatarako, eta [...] ia **teoriko** guztiek egiten dute. **Josu Zabaleta**

Proudhon, Bakunin, Tolstói, Kropotkin, Malatesta eta anarkismoaren beste **teoriko** handi guztien pentsaera. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Teoriko hutsak inoiz izan ez diren sofistikaren irakaskuntzan hasten dira. **Askoren artean**

Jende jatorrenak balira bezala gailenduko dira betiko **teoriko** funtzional argi moduan. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

eredu teoriko (4); gogoeta teoriko (4); lan teoriko (4); marko teoriko (12); marko teoriko berri (4); oinarri teoriko (5)

teoriko berri (4); teoriko berri bat (3); teoriko hutsa (4); teoriko osoa (3)

lan teorikoa (3); marko teorikoa (4); teorikoa bakarrik (3)

aukeraketa teorikoak (5); eskola teorikoak (3); marko teorikoak (3); oinarri teorikoak (11)

maila teorikoan (3)

fisika teorikoaren (3)

aukeraketa teorikoan (5))

teorikoki *adlag alderdi teorikoan.*

Bereizketa, **teorikoki** bederen, emankorra da. **Askoren artean**

Osagarritasunaren printzipioa, **teorikoki** , lotuta dago nazioartean banaketa desberdina duten faktoreen trukearekin ere (lana, kapitala). **Koro Navarro**

Eta hori, ez **teorikoki** aspaldiko urtetan bezala, baina praktikan. **Berria - Ekonomia**

Irudi abstraktuan oinarritua irudiari buruz gogoeta egin nahi izan denean, irudiaren plastikotasunaren alor hori **teorikoki** definitu beharra izan da. **Josu Zabaleta**
"Kameraren mugimendu" kontzeptua enpirikoki oso heldua den arren, **teorikoki** ez da oso trinkoa. **Josu Zabaleta**

teorilari ik **teorialari**.

teorizatu, teoriza, teorizatzen du *ad* teoriak landu; zerbait ikuspegi teorikotik aztertu.

Ez dut neure burua gai ikusten Borgesek aipatutako kausalitate edo halabehar horretaz **teorizatze**. **Bernardo Atxaga**

Baina zuzendaria **teorizatzen** hasi zen, ideia orokorren eremuak erantzukizun praktikoak arintzen dituelakoan edo. **Anjel Lertxundi**

Bakoitzak bere eran **teorizatzen** ditu ikerketok. **Berria - Kultura**

Platon baitan etengabe **teorizatzen** da gizon-emakumeen zer izateaz, zuzeneko interesez izan ala zeharkakoz. **Askoren artean**

Kontzepturik orokorrenen mailan geratu nahi izan delako, eta ez delako **teorizatu** nahi izan irudi mota jakin batetik abiatuta. **Josu Zabaleta**

Ihes egiten ari naiz, barre egiten dut iheslariaren koldarkeriaz **teorizatzen** duten mozoloez, ez, ez da egia, badakit urtero itzuliko naizela. **Mikel Hernandez Abaitua**

Bere laborategian **teorizatzen** duen fede oneko zientzialaririk, ohartzeke pasatzen gara kriminal hutsera, edozer egiteko gauza denera, hala nola formola injektatzea bihotzean biki judu nahiz ijitoei, begi heterokromatikoak ateratzeko. **Juan Garzia**

-Agian - **teorizatu** zuen Imanolek- guztiok elkartzeko? **Fernando Morillo**

teorizatzaile 1 iz teorizatzen duen pertsona.

1957an [...] Edwin Landek -Land bat-bateko kameraren eta Polaroidaren sortzaile ez ezik, esperimntatzaile eta **teorizatzaile** argia bera- kolorearen pertzepzioaren froga fotografiko are txundigarriagoa eman zuen. **Xabier Olarra**

Erakargarri zaizkio Frith eta kognizioaren beste **teorizatzaile** batzuk. **Xabier Olarra**

Jaun hau da egiazko burua, egiazko **teorizatzailea**. **Herria**

2 (izenondo gisa)

Erromatarrek ideia aristoteliko eta estoikoak jaso zituzten maila **teorizatzailean**, baina praktikan lege naturala malguagoa zen, etnikoki inperioa konplexua zelako. Bere alde **teorizatzaileak**, batetik, autismoaren azalpen orokorra eta fenomeno guztiei eta kasu bakoitzari aplikatzeko giltzarria bilatzera behartzen du. **Askoren artean**

teorizazio 1 iz teorizatzea.

Lehenik adierazpena da eta gero adierazpenari buruzko **teorizazioa**. **Ana Urkiza**

Gierek zientziaren gogoeta filosofikoaren ohiko auziak -teoriaren egitura, esperimntuaren eginkizuna **teorizazioan**, zientziaren estatus kognitiboa, aldaketa eta erabaki zientifikoaren azalpena, etab.- aztertzen ditu. **Askoren artean**

Errealismo sozialista bera ere, errealismo guztietan **teorizazio** esplizituena izan duena, hain zuzen, kanon jakin batzuen mende zegoen. **Josu Zabaleta**

XX. mendean, gustu kontzeptutik aldenduz, estetikaren **teorizazioa** edertasunean soilik hasi zen sakontzen, "edertasuna" eta "balio estetikoa" sinonimotzat onartzen hasiak baitziren. **Askoren artean**

2 (hitz elkartuetan)

euskalkien gainean gogoeta eta **teorizazio** saioa egitea. **Koldo Zuazo**

teosofia iz erlijio edo doktrina mistikoa, Jainkoaren ezagutza zuzena eta intuizioaren bidezkoa lortzea helburutzat duena.

Yoga-ariketa hinduak egiten dituela, barauak egiten dituela, buruz ikasten duela **teosofia**, munduko idatzietako testu mistikoak hartzen dituela oitutz egiteko. **Juan Kruz Igerabide**

Oi Hirutasun, kristauen **teosofiaren** talai supernatural eta superjainkozko eta superrona. **Joan Mari Lekuona**

"Allgeist" M. Lazarus-en idazkietan neuk ez dut inoiz irakurri; eta, edonola ere, termino bitxi hori, **teosofian** -eta bakarrik arrunta, eta arras beste esanahi bat izan ohi duena, ohikoena ez beste guztia da Herrien Psikologian. **Joxe Azurmendi**

teosofista iz teosofiaren jarraitzailea den pertsona. ik **teosofo**.

Mugimenduak ezker muturreko **teosofisten** terminologia hartu zuen, batez ere Alice Baileyren jarraitzaileek. **Berria - Gaiak**

teosofo iz teosofiaren jarraitzailea den pertsona. ik **teosofista**.

Erabat zuhur eta zintzo izatea perfekzioa da; eta **teosofoak** hain begi zolia duenez, badaki hobetu nahi duen orok azkenean lortzen duela perfekzioa. **Xabier Olarra**

Teosofo modernoak dio, budistekin batera, lur honetan kontu ezin ahala aldiz eta beste hainbeste gorputzetan bizitzen garela. **Xabier Olarra**

teozentriko *izond* erreferentzia-ardatz gisa Jainkoa duena.

Erdi Aroko filosofiak ere gogoz erabili du filosofia greziarra, aristotelismoa neoplatoniar inspirazioarekin osatuz, bien artean sistema **teozentriko** bat eraikitzeko, bion, kristaufedearen eta arrazoi filosofikoaren bermearekin. **Askoren artean**

Mendebalde moderno berantak historiaren filosofia **teozentriko** horretaz egindako errefusapena esplikatuz eta desenkusatu egin daiteke. **Iñaki Mendiguren**

Hasiera liburuaren 1. Kapituluako 27. txatala [...] ez dela era antropomorfitikoa ulertu behar, Jaungoikoa bizardun eta iletsua bailitzan, era espiritual **teozentrikoan** baizik. **Imanol Unzuurrungaza**

tepo 1 *izond* usain desatseginekoa ik **kirats 6**.

Motel hartako gela **tepoan**, Hutz berriro libre zela ikasi zuten. **Itxaro Borda**

Behialako uraren hiro usain **tepoari** euri eta kearena eransten zitzaion. **Itxaro Borda**

Aire **tepoak** geldo zirudien. gure gau hormatu eta ke urrineko bidean aldean, boteredunek beren gelak, erle kofoin gerizatuen antzera, aire **tepo** artifizialez hanpatzen zituzten. **Itxaro Borda**

Alabaina, azken egunetako hilotz usain **tepoa** ezabatzea zen. **Itxaro Borda**

Nondik duzu lur hiro eta aire **tepo** hats hori? **Itxaro Borda**

• **2** iz kiratsa.

tepotu, tepo(tu), tepotzen du *ad* usain desatseginez bete.

Emazte biziki ederrak gelara lerratzen miresten nituen, banaka, larrazken aireko jantziz apainduak, biloak hori eta koloreak gorri, Gucci zakuak eskuetan, ardi marrakek eta joare ozenek alegeratzen zuten irakur tokia Channel 5 urrinaz **tepotzen** zutela. **Itxaro Borda**

teraflop *iz* konputagailuen ahalmena neurtzeko unitatea.

Eta hemendik urte gutxitara, egungo neurri sistemak ere eskas ditugula, **teraflop**-etan hasiko gara konputagailuen potentzia neurtzen. **Pello Salaburu**

terapeuta *iz* terapeutikan aditua den pertsona.

Benetan gaixotu zen, eta elkarrekin ibili ginen gero Bartzelonan urte pare batean, **terapeutaz terapeuta** erromes. **Agurtzane Juanena**

Haren **terapeuta** Kathyren ustez, ezer gutxi ikusten zuen Virgilek koloreez beste. **Xabier Olarra**

Horretan, pazienteak bat-bateko hizpideari heltzen dio, burura datorcion lehen hitzari adierazpide emanez, adierazitakoaren interpretazioa **terapeutari** utziz. **Berria - Kultura**

Eskatu al diozu aholkurik inori, apaizen bati, esaterako, edo **terapeutaren** bati? **Oskar Arana**

Eskola bakoitzak baditu bere baliabideak, bere pedagogo-**terapeuta**. **Berria - Harian**

Yolanda, psikogaihofrenia larri baten diagnostikoak azpian harrapatu eta ero garbia denetik, gerra gorrian bizi da bere **terapeutarekin** eta gorriagoan atzean utzi duen mundu normalarekin. **Iñaki Segurola**

terapeutika *iz* medikuntzaren adarra, eriak zaintzeko eta sendatzeko bideak aztertzen dituena.

Andres sinetsita zegoen **terapeutika** azkar bat klinikari on baten eskuetan baizik ezin zitekeela onuragarria izan kasurik gehienetan. **Josu Zabaleta**

Aldi berean sorospen tokia, behaketa purifikatu eta sistematikorako tokia, eta hori terapeutikoa den heinean, neurri batean probatutako **terapeutika**, neurri batean **terapeutika** esperimentalta. **Xabier Arregi**

Hortik dator gorputza lanerako tresna modura balioestea, medikuntza beste zientzien ereduen arabera arrazionalizatzeko kezka, biztanleriaren osasun mailari eusteko ahaleginak, **terapeutikari** eskaintako arreta. **Xabier Arregi**

Eszeptizismo horretarako euskarri on bat **Terapeutikako** irakaslearen azalpenek ematen zioten, haren iritzian alfer-alferrik baitziren, kaltegarriak ez baziren, farmakopeako ia preparazio guztiak. **Josu Zabaleta**

terapeutiko *izond* eriak zaintzeko eta sendatzeko bideei eta ekintzei dagokiena.

Gizartea ohartzten hasi zen [hiesaren] eragina zer-nolakoa zen, nola transmititzen zen, zer ondorio zituen eta zer neurri prebentibo eta **terapeutiko** zeuden. **Luis Elberdin**

Aspalditik ezagutzen dira landarearen ahalmen **terapeutikoak**. **Berria - Harian**

Zer irizten zion aborto **terapeutikoari**? **Karlos Linazasoro**

Klonazio **terapeutikoaren** aldeko kanpaina abian da. **Berria - Gaiak**

Alemania, giza klonazio **terapeutikoaren** alde. **Berria - Gaiak**

Era guztietako programa eta proiektu **terapeutikoak** jarri ziren martxan, baina guztiek -braille-programak bezala- porrot egin zuten azkenean. **Xabier Olarra**

Diagnostikorako elementu batzuk eskaintzen ditu, bilakaeraren adierazle batzuk, osatzearen irizpide batzuk, esperimentu **terapeutikoak** baimenduz. **Xabier Arregi**

Erabilera **terapeutikorako** giza enbrioak klonatzea aurrerapausoa da. **Berria - Gaiak**

Euskal Herriko hiru bainuetxetan erabiltzen da gaur egun ur termala helburu **terapeutikoekin**. **Berria - Euskal Herria**

Musikaren indar **terapeutikoaz**. **Xabier Olarra**

Bunkerrera eramanen dute nire lagun poeta, eta gogor egiten baldin badie lo **terapeutikoan** murgilduko dute injekzio gozo bat emanda. **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erabilera terapeutikoa (16); giza klonazio terapeutikoa (4); heroinaren erabilera terapeutikoa (3); kalamuaren erabilera terapeutikoa (4); klonazio terapeutikoa (17)

klonazio terapeutikoak (4)

erabilera terapeutikoaren (4); giza klonazio terapeutikoaren (3); klonazio terapeutikoaren (12); klonazio terapeutikoaren alde (3)

helburu terapeutikoekin (9)

helburu terapeutikoetarako (3)

erabilera terapeutikorako (11); erabilera terapeutikorako klonatzea (3)

terapeutikoki *adlag* alderdi terapeutikoa.

Kalamuak sor ditzakeen eragin guztien artean gaur egun **terapeutikoki** erabilgarriak eta ikasienak bi dira: eragin antiemetikoa eta hiesa edo minbizia duten gaixoen ganjanga handitzea. **Berria - Harian**

Era berean, taldeek galdegin zuten PSOEren Gobernuak heroina botika bezala ematen ez duen bitartean **terapeutikoki** erabili ahal izatea kasurik larrienen, betiere entsegu klinikoa alde batera utzita. **Berria - Euskal Herria**

terapia 1 *iz* terapeutika; sendabidea.

Homeopata batek aholkatu zidan **terapia** zen, eta egia esan, ezin hobeto zihoakidan, zartailuarena baino hagitzez hobeto adibidez. **Karlos Linazasoro**

Horren antzeko emaitzak ikusten dira deskarga elektrikoen bidezko **terapiaren** ondoren; **terapia** horretan, korrante handi bat pasarazten da garunean zehar. **Irene Aldasoro**

Endekapenezko gaixotasunen kontrako **terapietan** erabili ahal diren zelula amak sortu nahi dituzte orain. **Berria - Gaiak**

Kalamua erabiltzen dute aspaldi minbiziaren aurkako hainbat **terapiatan**. **Berria - Gaiak**

Terapiaren eragina nabaritzen hasia zen agi zenez. **Migel Angel Mintegi**

Jin zen **terapia** hasteko eguna. **Piarres Aintziart**

Hitz egitea **terapia** ezin hobea dela barrenak argitzeko, askatzeko, baretzeko. **Anjel Lertxundi**

Motibazioa areagotzeko **terapiak** dira, hala nola akupuntura, hipnosia eta talde saioak. **Berria - Euskal Herria**

Liburuak gogotsu idaztea **terapia** zen niretzat. **Pello Lizarralde**

Charcoten eskutik, histeriaren inguruko azterketak eta hipnosia **terapia** gisa landu zituen Freudek. Berria - Kultura

Goio **terapia** dago orain. Joseba Sarrionandia

-Uste dut **terapia** hau gaizki amaituko dela! Pako Aristi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zenbait minbiziri aurre egiteko saio batetik abiatu zen Estatu Batuetan **terapia** genikoa. Juan Garzia

Terapia alternatiboek gaitzaren eragin somatiko nahiz psikikoari aurre egiten lagundu bazezaketen ere, ezinbestekoa zutela gaixoei mundu osoko onkologoek erabiltzen zituzten tratamendu haietara makurtzea. Imanol Zurutuza

Orain artemisinin oinarritutako **terapia** konbinatua eskaintzen diete eriei, eta askoz ere emaitza hobekak lortzen dituzte. Berria - Gaiak

Urduriei eta gogaikarriei **terapia** elektrokonbultsioa ematen diegu. Joseba Sarrionandia

Gezurrezko galdu-ustearen dotrinanteak psikologo klinikoaren pare dira, eta **terapia** bergizarteratzaile bat nahi lukete obratu: galera batek utzitako zulo beltz hondogabea gezur zuri polittezt bete. Iñaki Segurola

Neskaren izena errepikatzen hasi zen mutila beste behin, erantzuna jasotzeko baino gehiago **terapia** katartiko gisa. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez da **terapia** txarra norbere desgrazien bizkar barre egiten jakitea. Xabier Etxabe

Terapia egokia aurkitzeko askatasuna da gure oinarri bakarra, zuk askatasunez hitz egitea. Pako Aristi

Gaur gaurkoz, **terapia** higieniko hoberik ez zait bururutzen. Patziku Perurena

Debekua da hemengo **terapia** nagusia. Anjel Lertxundi

Urdurientzat eta gogaikarrientzat txokeko **terapiak** daude erietxeko zurtasun garrantzean. Joseba Sarrionandia

Zelula bidezko **terapiak** «parkinsona duten gaixoen sintomak asko murriztuko ditu». Berria - Gaiak

Beldurra dudanean, irakurtzeari ekiten diot, egundoko **terapia** da niretzat. Berria - Kultura

Terapia ez-gomendagarria, alegia. Unai Iturriaga

Ez baikenekien gaurko **Terapia** Hirukoitzaren berri. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mutiko hori erabat mutu eta irisgaitz zen hamabi urte zituenean, eta saiatutako **terapia** mota guztiak alfer-alferrik izan ziren haren gaixotasunarentzat. Xabier Olarra

Fisioterapia, lan, musika nahiz antzerki bidezko **terapia** taldeak. Xabier Olarra

Kontuan izan beti hona zeure borondatez etorri behar duzula, uzteko beharra sentitzen duzunean esan eta bertan behera utziko ditugu gure **terapia** saio hauek. Pako Aristi

Ideala zera da: noizbait gai izatea jendea halako gaiei heltzeko eta eztabaidan jarduteko, esate baterako, abortuaz, eutanasiaraz edo **terapia**-gogorkeriaz. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haien bizia luza dezakezu horrela, haiekin mintzatu eta talde **terapia** egin. Harkaitz Cano

Poloniak eta herrialde baltikoek [...] txoke **terapia** gauzatu zuten. Berria - Mundua

Musika-**terapia** saioaren erdian, ordea, Leire serio jarri da, bat-batean zerbait garrantzitsua gogoratu izan balu bezala. Patxi Iturritegi

Ezin da errekontziliazio **terapia** batera murriztu. Joseba Zulaika

Hau duk nik behar dudana osabide-**terapia**! Jose Angel Irigaray

5 gene terapia ik geniko 2.

Gantza gutxitzeko **gene terapia** aztertzen ari dira AEBetako eta Suitzako zientzialariak. Berria - Gaiak

Gantza gutxitzeko **gene** terapia aztertzen ari dira. Berria - Gaiak

Gene terapien eta zelula amen bitartez hondatutako neuronak ordezkatzea dute helburu ikertzaileek. Berria - Mundua

6 terapia genetiko gene terapia.

Etorkizun batean kirolariak gen aldaketa horretan oinarritutako **terapia genetiko** bat egin ahal izango dutela uste dute zientzialariek. Berria - Gaiak

Terapia genetiko bat baliatuz, tximinoen bizimodua aldatzea lortu du Estatu Batuetako zientzialari talde batek. Berria - Gaiak

Lodi dauden edo ariketak egiteko arazoak dituzten pertsonen **terapia genetiko** horren onuraz baliatu ahal izango dira. Berria - Gaiak

7 terapia geniko ik gene 5.

Neurozientzien eta **terapia genikoen** eta hepatologiaren arloetan. Berria - Euskal Herria

Terapia genikoaren eskutik etortzekoa da, noski, zenbait ondoretasun-gaitz nahiz minbiziren konponbidea. Juan Garzia

Ea posible izango den, **terapia genikoz**, Duchesne-ren miopatiak edo mukobiszidosiak jota dagoen gaixoa sendatzea. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gene terapia (3); **oinarritutako terapia** (3); **pentsamenduetarako terapia** (4); **talde terapia** (5)

terapia berri (3); **terapia berri bat** (3); **terapia egin** (3); **terapia genetiko** (4); **terapia genikoa** (3); **terapia genikoaren** (3); **terapia modu** (3); **terapia moduko zerbait** (3)

gaixotasunen kontrako terapietan (3)

terapiabide iz sendabidea.

Dena den, usaian uste ohi den baino hobariz hornituagoa bada ere, jarduera eta **terapiabide** orotan bezala, badira zenbait perill eta ondorio galgarri telebistarenean. Jose Angel Irigaray

teratogeniko izond malformazioak sortzen dituenak.

Plantek isurtzen dituzten substantziak **teratogenikoak** direnez, haurdunaldian umeari malformazioak eragin diezazkietek. Berria - Euskal Herria

teratokartzinoma iz hozi zeluletako tumorea.

Saguaren azterketarako nire gogo-sua areago berotu zen jakin nuelarik bazela, organismo horretan, tasun berezi-bereziak zituen tumor bat: **teratokartzinoma** delakoa, zenbait sagu-leinu odolkidieren barrabiletan aurkitzen dena. Saguaren teratoma edo, xuxenago, **teratokartzinoma** hark lagunduko zuen, agian, erlazio hura aztertzen.

Juan Garzia

Gogotsu ekin zion jende horrek guztiak **teratokartzinoma** eta sagu-enbrioia aztertzeari. Juan Garzia

teratologiko izond munstro ezaugarriei dagokiena. • irud/hed

Esango al genuke, kasu horretan, hizkuntza hauek mintzairaren egoera erregularretik at daudela, mintzaira zer den azaltzeko gai ez direla, eta dialekto horiek direla hain zuzen azterketa **"teratologikoa"** eskatzen dutenak, nahasketak izan ez dituztelako? Isabel Arrigain

Hizkuntzalaritzak arlo berezi batean aztertu behar ditu desitxuraketa hauek: kasu **teratologikoak** dira. Isabel Arrigain

teratoma *iz* jatorri enbrionarioko tumore mota, garatzen den ehunari ez dagozkion ehunek osatua.

Saguaren **teratoma** edo, xuxenago, teratokatzinoma hark lagunduko zuen, agian, erlazio hura aztertzen. Juan Garzia

terebinto *iz* ahuntzadarra (*Pistacia terebinthus*).

Hamarretik bat bakarra bertan gelditzen bada, huraxe ere suari emango diote, haritza eta **terebintoa** bezala: moztu eta gero, ondoa besterik ez zaie gelditzen. Elizen arteko biblia

Bibliako itzulpenetan, haritza esateko, batzuetan, ahuntzadar edo **terebinto** itzultzen du, Mambreko Artadikoan bezala; eta beste batzuetan, abarritza, txaparro edo karraska, izen horiek denak baitituzte zuhaitz hain garaiak ez diren hauek. Pello Zabala

terebuza *iz* belar landare lore-horia, barazki gisa jaten dena (*Tragopogon pratensis*).

Handik sei hilabetera, deabruaren sail itzelean azenarioa, arbia, tipula, **terebuza** baizik ez ikusten, sustrai lodiak eta jateko onak dituzten landareak den-denak. Josu Zabaleta

Nori eta berari, egunero Garner andrearen sukaldera eskua bete **terebuza** eraman behar izaten zuenari, han lan egin ahal izateko. Anton Garikano

teresiana *iz* Jesusen Santa Teresaren Konpainiako kidea.

Batxilerreko laugarrena amaitzen ari nintzela, hamalau urte nituen, **teresiana** batek estanpa bat eman zidan Ordenan sartzeko gonbita egiten zidan mezu batekin. Agurtzane Juanena

Garai hartarako **teresianak** modernoak ziren (kalekoz janzen ziren, lanbide zibilak zeuzkaten) eta pedagogiaren aldetik aurreratuenetakoak izango ziren ikastetxe erlijiosoetan. Agurtzane Juanena

Nik bi urte pasa berriak nituen barnetegi frankista batean, goi mailako batxilerra ikasten, eta hamarretik hamalau urtera bitartean mojen ikastetxe batean egona nintzen, **Teresianetan**. Agurtzane Juanena

tergal (*orobat Tergal*) *iz* poliesterrezko zuntz sintetikoa, frantziar patentea duena.

Andoni Sarriegik 50eko hamarkadako Ordizia gogoratu zuen, eta Eskisabelek, berriz, 80ko hamarkada amaierakoa oroit zuen, **Tergal** grisezko prakak. Berria - Kultura

Etxe partikular bat da orain eta **tergalezko** gortinak ditu antzinako erakusleihoetan. Joseba Urteaga

Bere mahuka motzeko alkandora ez baita gizonaren **tergalezko** jaka baino argiagoa. Iban Zaldua

terko 1 *izond* burugogorra, egoskorra, setatia.

Barrualdeko parajeotara arrimatzen denak beste kantari amorratu bati entzungo dio: txitxar **terkoak**, Luis Mariano delakoan jardungo du latoso porrokatuaren tamainan. Pello Zabala

2 (adizlagun gisa)

Frantzi-iparra **terko** samar isurtzen bada, batez ere elur erauntsi baten ondorenean, elur gaineko izotz eta guzti, urtearen azkenalde hori ez da gozoa izaten. Pello Zabala

Baita lehorteak emandako eskarmentu itzela medio ere: ekiten bazion zerua ixteari, gauza baitzen eguraldia, dena kiskalita utziz. **terko** irauteko. Pello Zabala

3 (-en *atzizkiaren* eskuinean izen gisa)

Bai esan behar dela, eguraldi makur eta umel busti hotzak, bere **terkoan**, behin eta berriz tenplea aldatuz, izotz printzak ximurtuz, edo epelez gorldio tximak xuxtartuz, [...]. Pello Zabala

terlenka *iz* poliesterrezko zuntz sintetikoa, holandar patentea duena.

Euren tuniken beheko parte zirimolatsuek, hegalariek, ozta-ozta estaltzen zituzten tuniken azpian sumatzen ziren **terlenkazko** praka grisak. Jon Alonso

terma 1 *iz* ur mineral berozko bainuetxea.

Terma eta bainuetxeei dagokienez, lehen hiri-bainuetxea izan zen Erresuma Batuaren barnealdean. Berria - Kirola

Hasieran, **terma** erromatarrak izan ziren. Berria - Harian

Gune alai eta biziak, eliza, erromatar eraikin, **terma**, bainuetxe eta Avon ibaiaren inguruan biltzen dira gehienbat. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Terma saioak ere izango dituzte. Berria - Kirola

· Gimnasioa, igerilekua, ur-**termak**, aerobic eta muskulazio ariketak egiteko gelak, kafetegia eta abar izango lituzke eraikin berriak. Berria - Euskal Herria

termal 1 *izond* uraz mintztuz, beti bero ateratzen dena.

[Andorrako Caldea balnearioan] Pirinioetako erraietatik isurtzen diren ur **termal** gozoetan bainatu ahal izan ginen, kanpoaldean elurra gogotik ari zuela. Patxi Zubizarreta

Euskal Herriko hiru bainuetxetan erabiltzen da gaur egun ur **termala** helburu terapeutikoekin. Berria - Euskal Herria

laz eraiki zuten ur **termal** naturalak dituen Erresuma Batuko bainuetxe bakarra: *Thermae Bath Spa*. Berria - Kirola

Ur azalak ur **termaletako** iturri baten itxura zeukan, herrestan zeramatzen lurrin eta hausterre beltzezko geruza zela eta. Joanes Urkixo

2 ur termalarena.

Europako laku **termalik** handiena da. Joxean Agirre

Dordoina ibaiak hiria zeharkatzen du eta establezimendu **termal** bat dago. Joseba Urteaga

3 zentrez mintzatuz, termikoa.

Compostillako zentral **termalak** botatu hondakinak [...] ikusi ditugu eskuin. Piarres Aintziart

termalismo *iz* ur termalen erabilerari buruzko jarduera.

Termalismoak nahiz horri loturiko prozedurek gaitz mota asko osatzeko duten ahalmena profita dadila eskatu dute Rafael Ledesma eta Alejandro Cima sendagile kubatarrek. Berria - Gaiak

Gizarrean **termalismoaren** ontasuna aldarrikatzen ari gara. **Berria - Gaiak**
Sendagileok Akizetik (Frantzia) etorri ziren Euskal Herrira, Biarnoko herrian nazioarteko biltzara egin baitzen **termalismoaren** erabilerearen inguruan. **Berria - Gaiak**

termiko 1 *izond* beroari edo tenperaturari dagokiona.

Isolatzaile **termikoz** eta aluminio xaflez babestuak. **Joseba Sarrionandia**
Garbitu, epeldu eta hezatu egiten du arnasten dugun airea, biriketako barne-estaldura delikatua eraso **termiko** edo kimikoetatik babesteko. **Irene Aldasoro**
Hotz zegoen, baina autoaren motorraren epeltasunak babes **termiko** txiki bat eskaintzen zien. **Fernando Morillo**
Hala, ariketa fisikoak ezartzen duen estres **termikoaren** arabera erregulatzen du txakurrak bero-galera. **Irene Aldasoro**
Beroaldiko depresio **termikoren** bat sortzen bada. **Pello Zabala**
Hego bafadatxoa dagoeneko goizetan, ez da harritzekoa, lur zoruko izotz zurien gainetik, alderantzketan **termiko** gozoa azaltzea. **Pello Zabala**
Klimatologiak mahairatuko dizkion datuak aztertu, hango eta hemengoak erkatu, haizeenak datu **termikoekin** konpondu, euri-elur nahiz beste prezipitazioenak sailkatu, [...].
Pello Zabala
Gainerakoa, kogenerazioa edo elektrizitatea eta energia **termikoa** ekoiztera bideratuko ditu. **Berria - Ekonomia**
Polimero honek dakarren arazo larrirenetako bat degradazio **termikoa** da. **Berria - Gaiak**
Energia berriztagarri **termikoen** araudia. **Berria - Ekonomia**

2 energia termikoz aritzen dena.

Zentral **termikoak** ez dira, dioten bezala, energia garbia; Nafarroako Energia Planaren kontrakoak dira, erabat. **Berria - Euskal Herria**
Zentral **termikoak** ixteko eskatu du EAEko Ingurumen sailburuak. **Berria - Euskal Herria**
Zentral **termiko** konbentzionalak 1.130 megawatt ixtea sustatuko dugu, eta, horien ordean, 2.800 megawatt ezarriko ditugu, ziklo konbinatuko gasezko instalazio lehiakorrago eta ez hain kutsagarrietan. **Berria - Euskal Herria**
Lurraren aroan, gorputzaren eredu praktikoa bat ondu zuten fisiologoek, erregaia barneratu eta energia hainbat modutan erabiltzen zuten makina **termikotzat** harturik gorputza. **Irene Aldasoro**
Ez dago motor **termikorik**, ondoan diseinatua dela ere, 100 °C iritsi gabe % 25eko eraginkortasuna iritsiko duenik. **Irene Aldasoro**

3 jantziez mintzatuz, hotzetik gehiago babesten duena.

Atzo ez ziren beharrezkoak eskularruak, txanoak eta kamiseta **termikoak** Donostian kirola egiteko. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi zentral termiko (3); **zentral termiko** (13); **zentral termiko bat** (3)
zentral termikoa (16)
castejongo zentral termikoak (3); **zentral termikoak** (27)
boroako zentral termikoaren (6); **zentral termikoaren** (11)
zentral termikoari (3)
castejongo zentral termikoei (4)
zentral termikoek (8)
castejongo zentral termikoen (5); **zentral termikoen** (10)

termikoki *iz* beroari dagokionez.

Isotzianatua produktu toxikoa da, Fagor Etxetresna Elektroko konpainiak hozkailuak **termikoki** isolatzeko erabili ohi duena. **Berria - Harian**

terminal 1 *izond* amaierakoa, amaierari dagokiona; muturrekoa.

Bestetik, ikur **terminalekin** ordezkatu ahal dira ikur horiek. **Itziar Laka**
Kontraesan hauek arkeologikoki deribatutako dira eta egoera **terminal** bat osatzen dute. **Xabier Arregi**
Modu berean, desberdintze **terminalak**, gorputzean atzeman daitezkeen zelula mota hain desberdinak eragiten dituenak, kontserbaturiko zenbait gene multzo erabiltzen ditu, elkarrekiko sintonian, bere eragiketan. **Juan Garzia**

2 medikuntzan, hilurrenekoa.

Gaitz **terminalak** jota daudenean eta hiesa, artiritra, minbizia, esklerosi multiplea eta epilepsia duten gaixoei dute kalamua tratamendu gisa baliatzeko baimena. **Berria - Harian**
Ospitaleetan ez du zertan horrela izan, jakina, baina entzuna du gaixo **terminalak** goiko pisuetara eramaten dituztela. **Harkaitz Cano**
Batetik, euskara hizkuntza erdi klandestinoa zela, eta, bestetik, eta nolabait esatearren, gaixo **terminala** zela. **Koldo Zuazo**
Horrenbestez, hiesa gaitzaren aldi sintomatikoa eta infekziozkoa da, gaitzaren aldi **terminala**. **Luis Elberdin**

3 irud/hed

Beldur pixkat ematen duten hitzak dira barnean daramaten heriozko kirats **terminala** aditzen dakienarentzat. **Iñaki Segurola**

• 4 *iz* aireportuetan bidaiari eta ekipajeentzako instalazioa.

Miraria iruditzen zait mailek nirekin batera jauzia egitea, Ariadnaren hariarik gabe iristea aireportuetako **terminal**, arropa zaharren kanposantu eta uhal garraiatzaileetan zehar, heldu behar duten lekuraino. **Harkaitz Cano**
Paris ondoko Roissy-Charles de Gaulle aireportuko 2E **terminalean**. **Berria - Mundua**
Terminalera iritsirik, ordu bete itxaron behar izan du bere ekipaje txikia garraio-zintan ikusi arte. **Berria - Kultura**
Terminaletik hegazkinerako bidean ez genuen hitzik egin. **Ramon Saizarbitoria**
Elkarri bostekoa eman eta **terminalaren** aldera abiatu ginen. **Koro Navarro**
Aireportuko pistak 200 metro luzatuko dituzte, eta **terminala** moldatzeko lanak eginen dituzte. **Berria - Euskal Herria**

5 garraio lerro edo oliobideetan, karga-deskargetarako instalazioak.

Azpiegitura: Gas natural likidotua ekartzeko **terminal** berriak eta gasbide berriak egitea. **Berria - Mundua**
Shell enpresak Forcados duen esportaziorako **terminalari** su eman, eta bederatzita langile bahitu zituzten gerrillariak. **Berria - Mundua**
Salaketaren bidez, itsasoko **terminalaren** 2. atrakalekua konpondu bitartean itxita edukitzeko eskatu diote langileek enpresari. **Berria - Ekonomia**
Terminala: Perevoznaian egin asmo zuten petroliobidearen bukaera, baina aukera baztertu zuten otsailean. **Berria - Gaiak**

6 zerbaiten amaiera-puntua.

Irteerako beste **terminal** batzuek sorturiko seinaleek, berriz, hormona-ekoizpena, bihotz- eta arnasa-maiztasunak eta gorputzaren jardueren beste alderdi batzuk erregulatzen dituzte. **Irene Aldasoro**
Idazlea **terminal** nerbioz guztiak oso sentibera dituen izakia da. **Ana Urkiza**

7 informatikan, datuak igorri eta hartzeko gailua, ordenadore bati lotua, eskuarki monitor eta teklatu batez osatua.

Telefonoa fitxatuta bazegoen, orduan bai, segurtasun guztia galtzen zuen, jada ez zelako **terminal** ezezaguna izango, eta teknologia egokiarekin arrastoa jarri zitekeelako.

Fernando Morillo

Gero etorri ziren **terminalak**, eta, hala ere, asko kostatzen zen eskola praktikoak ordenagailuekin egitea. **Berria - Euskal Herria**

Bai, badakit: astun samarra da **terminal** batera jo behar izatea amarauneko datuak jasotzeko eta hori guztia, baina nik nahiago dut horrela. **Iban Zaldúa**

Epailearen ustez, arduraren bankuarena da, **terminal** horren erabileragatik kobratu egiten baitu. **Berria - Ekonomia**

8 frantziar hezkuntza sisteman azken maila.

Ziklo bakoitzaren bururatzean (CM2, 3garrena, **Terminala**) ikaslea bere ikasketak euskaraz zein frantsesez jarraitzeko gai izan dadin helburua duenarendako, Parekotasunezko sistema ez da balezkoa. **Herria**

Joan den urtean, **Terminalako** ikasleek emaitza onak lortu zituzten urte buruko etsaminean. **Herria**

663 Euro bigarren teknikora doanarentzat eta 743 Euro **terminal** teknikoan sartzen den gaztearentzat. **Herria**

9 ez-terminal izond

Ikur "ez-**terminalak**" sartuz. **Itziar Laka**

termino *(orobat terminu g.er.) 1 iz hitza, bereziki alor jakin batekoa.*

Ahaidetasuna adierazteko balio duten **terminoak**, esaterako, ugariak dira. **Isabel Arrigain**

Termino gemaniko hori [...] Ulfilas-ek erabiltzen du probintzia bateko erromatar gobernadorea adierazteko. **Isabel Arrigain**

Ez dezagun ahaztu etika adierazten duen *areté* **termino** klasikoa bera *aristos* **terminotik** datorrela. **Askoren artean**

"Razional" **terminoa** erabili dugu, adibidez, "arrazional" hitzaren kaltean. **Askoren artean**

Monizen lanak "psikokirurgia"ren burrunda ekarri zuen (berak sortutako **terminoa**) mundu osoan zehar. **Xabier Olarra**

Alegia, garapen bideko herrialdeak **terminoa**, herrialde atzeratu **terminoaren** eufemismoa dela. **Iñaki Heras**

"Konduktismo", berriz, ez da **termino** arrunta, tekniko baizik. **Askoren artean**

Terminoaren gizarte alderdiak ere bere baitan bilduz. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Aurkakotasun batean elkarren aurka diren alderdiek, aldiz, beren bizitza propioa dute harreman antagonikotik aparte, kontraesan logikoan bi **terminoak** harremanetik kanpo errealitatea duten bezala. **Joseba Zulaika**

2 (hitz elkartuetan)

Termino -kontraesana zirudien. **Xabier Olarra**

Irakurleak idazlanean aurkituko dituen **termino** -gakoak txertatuta daude eta horrela irakurleak idazlanaren nondik norakoa igar dezake. **Askoren artean**

· Nolabaiteko anibalentziaren aurrean aurkitzen gara hautaturiko konparazio-**terminoetako** batean, eta agian, bietan. **Iñaki Mendiguren**

Dolabelly Gak doktoreak uste du satisfakzio **termino** bat zela, adimen lasaitasun maila gorena adierazten zuena. **Xabier Olarra**

3 p/ adierazmoldea.

Diferentzia beti zema eta etsaitasun eta elkar-uko **terminoetan** ulertzen da. **Joxe Azurmendi**

Nazioarteko erosahaltenaren **terminoetan**: 15-18 dolar bitarte, prezio korranteetan. **Koro Navarro**

Apreziazioa ez zen hain handia izan yenari buruz [...] baina %50era iritsi zen hala ere, **termino** errealetan. **Koro Navarro**

Sormena, hala ere, ezin da gizonezko eta emakumezko **terminoetan** bereiztu. **Ana Urkiza**

Ezagutzen ditugun gizarteek produkzioaren eta kontsumo materialaren hazkunderaren **terminoetan** planteatu badituzte aurrerapenak, [...]. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Jakinduria elkartrukatzera zabalduago bat, sortzaile eta berritzaileago bat eta gizarte zein ingurumen **terminoetan** lehiakorrago bat. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Horregatik esaten zaio "orainaldi gogoratua", Gerald Edelmanen **terminoetan**. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

termino absolutuetan (3); **termino bereizi** (3); **termino demokratikoetan** (3); **termino edo kontzeptu** (3); **termino errealetan** (7); **termino guztiak** (4); **termino jakin** (3); **termino tekniko** (5); **termino teknikoak** (3)

garapen iraunkorra terminoa (4); **terminoa erabili** (5); **terminoa erabiliz** (3); **terminoa erabiltzen** (6)

hurrenez hurreneko terminoak (3); **ideiak eta terminoak** (3); **terminoak erabili** (3); **terminoak euskaraz** (3)

terminoen artean (4); **terminoen arteko** (6)

terminologia 1 iz jarduera edo alor jakin bati dagozkion hitz berekien multzoa; hitz horien azterketa.

Sarrera honetan epistemologiari dagozkion kontzeptu, xede, **terminologia** eta filosofo garrantzizkoenak aurkezten dira. asetasunaren kultura litzateke hori, Galbraith-en **terminologia** erabiliz. **Askoren artean**

Mugimenduak ezker muturreko teosofisten **terminologia** hartu zuen, batez ere Alice Baileyren jarraitzaileek. **Berria - Gaiak**

Lurralde mailan ari diren administrazioek aintzat hartuko dituzte bertako euskalkiak, administrazioko lexiko eta **terminologiaren** batasuna begiratzuz. **Berria - Euskal Herria**

Terminoek eta **terminologiaz** irakatsi zidanak liburu honi mesede egin dio zalantzarik gabe. **Lourdes Oñederra**

Hemengo **terminologia**, ordea, Frantziskoren idazkietan beraietan aurkitzen dugu: garbiturik... argiturik... suaz pizturik... **Askoren artean**

Zentzu absolutuan, **terminologia** horiek ez dute ezer erran nahi. **Ana Urkiza**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Terminologia tekniko zuzen erabili. **Askoren artean**

Hedabideetan askotan erabiltzen den **terminologia** arrazista. **Txema Ramirez de la Piscina**

Guk, batzuetan, **terminologia** marxista erabiliz, "aparatu" deitzen diogu. **Terminologia** ideologiko ez-zientifikoa Valentzian ez ezik, beste zenbait herrialdetan ere erabiltzen hasi dira. **Rafa Eiguren**

Busti eta *bustikuntza* bezalako hitzak **terminologia** inpresionistari dagozkio, nolabait esan. **Lourdes Oñederra**

Terminologia eguneratuago bati helduz, honela adieraziko genuke ontologia aristoteliko baten muina: [...]. **Askoren artean**

Museko **terminologia** erabilia, handira jokatzeke. **Berria - Euskal Herria**

Euskarazko **terminologia** nola erabili izan den ikus daiteke, filosofiako **terminologia** barne. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobatterminologi g.er.) ik terminologiko.

Euskararen **terminologia** datutegia eguneratuko dute. **Berria - Euskal Herria**

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ardatzetako bat erabilera publikoko **terminologia** bankua sortzea da. **Berria - Euskal Herria**

Rioko Konferentziaren gauzarik azpimarragarriena nazioarteko esparru politikoan kontzeptu eta **terminologi** mailan izandako eragina izan zen. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Euskarazko «itzulpenak» era askotako hutsak dituela dio: **terminologia** nahiz morfosintaxi arauak «etengabe» bortzatzeaz gain, «komunikazioa inondik inora ez bermatzea» egotzi dio. **Berria - Euskal Herria**

Terminologia mota bera erabiltzen da Iraken atzerritarren agintearen kontra borrokatzen direnak madarikatzeke. **Berria - Mundua**

Denbora berriek ekarri zuten **terminologia** aldaketa hori. **Hasier Etxeberria**

Terminologia -nahasmendu hauek deitoragarriak dira, jakina. **Josu Zabaleta**

Terminologia zalantzak eztabaidatzeko. **Askoren artean**
UZEI **Terminologia** eta Lexikografia Zentroak. **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ukaezina eta ordaingaitza da euskararen aggruamenduan azken urteotan irakasleria egiten ari den ahalegin gaitza, hezkuntza **terminologia** finkatzetik hasita. **Iñigo Aranbarri**

Olatzek bere sorbalda keinu barkamen eskezkotatik egin eta, nolabait esatearren, marinelen ontzi-**terminologia** erabilita, nor bere postu eta zereginetara itzuli zen. **Harkaitz Cano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskararen terminologia (3); **terminologia bera** (3); **terminologia erabilita** (4); **terminologia erabiliz** (3); **terminologia eta lexikologia** (3)

gure terminologian (3)

terminologiko iz terminologiarena, terminologiari dagokiona. ik **terminologia 3.**

Eztabaida **terminologikoaren** azpian dago emakumeen aurkako indarkeriaren jatorri egiturazkoa ezkutatzeko saioa. **Berria - Euskal Herria**

Horretarako, arloko profesionalen arteko batasun bat beharko da arazo **terminologikoetatik** hasi eta [...] neurri praktikoetarako. **Berria - Kultura**

Analisiaren praktikan, erabilgarri izan daiteke bereizkuntza **terminologikoa** kontzeptuetan zehaztasun handiagoa erdiesteko. **Lourdes Oñederra**

Batasun **terminologikoaren** izenean, kontzeptu bera adierazteko erabili ohi diren hitzen arteko bakararra aukeratu dugu. **Askoren artean**

Eztabaida honen nondik norako nagusiak deskribatu baino lehen, zehaztapen **terminologiko** batzuk egin beharra dago, nahitaez. **Josu Zabaleta**

Vitruviorrentzat, dirudienez, garbi zegoen ilustrazio grafikoaren premia hitzek huts egiten dutenean erabiltzeko dela soilik, zailtasun **terminologikoak** gaindiezinak gertatzen direnean bakarrik. **Santiago Iruretagoiena**

Euskarazko formaren esplikaziorako edo kontzeptuaren historia **terminologikoan** garrantziko gertatzen denean, alemanezko edo latinezko balioak ere eman da.

Lourdes Oñederra

terminologikoki adlag terminologiaren aldetik.

Honek biak batera ulertzen lagun liezaguke, a) zergatik eboluzionatu den (**terminologikoki**) izpiritutik arimara, eta b) nola ulertu behar dugun arimaren eta biologiarren (arrazaren) elkargoa. **Joxe Azurmendi**

Ordea funtsezkoa zuzena da guztiz, bere intuizioa, ongi eta gaizki moralen jatorri fisiko eta sozialarena **terminologikoki**. **Joxe Azurmendi**

terminu ik termino.

terminus iz terminala.

Ordu bat eta erdi baizik ez baitzen eskas Austerlitz-ko **terminusera** goizeko zazpiak eta laurdenetan heltzeko. **Itxaro Borda**

Hori da **terminusen** abantaila: trenbidean daudelarik, edozein lekutan daudela edo leku guztietan; etxeko bidean, behintzat. **Ramon Saizarbitoria**

Baiona enetako abiapuntu baino, bide baten **terminus** hitza zela, espazioa falta nuela, eta negarretan, haren fruitu debekatuaren murtxatzea lerratu nintzen: mendiko ur xirripa irudi zuen, aberats, kantari eta libre. **Itxaro Borda**

termita 1 iz Isoptera ordenako intsektua, eskualde beroetakoa, inurriak bezala talde handi egituratueta bizi dena (*Reticulitermes flavipes* e. a.).

Printzipio horretan datza, **termita** inurritegitik bereizten gaituen printzipio horretan, beste ezertan baino lehenago, gure handitasuna. **Josu Zabaleta**

Termitek zulatutako eukaliptozko enbor huts bat. **Berria - Kultura**

Klordanoa: **Termiten** aurkako pestizida. **Berria - Gaiak**

Etxetako zureriak funditzen dituen **termita** deitu har edo mamutxaren inguruan. **Herria**

Zurgina, Bunuzeko Hourcade, **termiten** kentzeko edo kasatzeko, Handy Behauzekoa, eta tindatzailea Iturburu Donoztirikoa. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

60ko hamarkadan **termita** izurritea jasan zuen eta bere egiturak kalte handiak izan zituen. **Berria - Kultura**

termitategi (corpusean **termitegi** soilik) iz termita habia, lur gogorrezko meta modukoa osatzen duena.

Liburua ia bere gisa hazten zitzaidan esku artean, planik ez sistematik gabe, **termitegi** bat bezalako bihurri eta gainezkatua. **Juan Garzia**

termitegi ik termitategi.

termo 1 iz paretatik isolatzaileak dituen ontzia, likidoak tenperatura berean atxikitzeko erabiltzen dena.

Jimpsek gerrian **termo** bat du eta aldakan, berriz, *chartreuse* flasko bat... **Lopez de Arana**

Gurutze gorriko mutil gazte bat hurreratu zitzaizen **termo** handi batekin. **Fernando Morillo**

Adrianen amak **termo** batean ekarritako kafea edanez. **Bernardo Atxaga**

Kafea edaten dute **termo** batetik, lehenbiziko erosleak noiz agertuko zain. **Oskar Arana**

Beste jaki batzuk ere aterako ditu Frai Joxek bere zakutik, eta hauek amaitutakoan kafea **termo** batetik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txandaka edan genuen **termoetatik**. **Koro Navarro**

Marmeladaren ontzia, azukrea, galletak, kafearen **termoa**... **Anjel Lertxundi**

2 (neurri gisa)

Ziegan nagoela, etxeko gauzak dakarzkidate: arropa, konpresak, ogitartekoak, fruta, **termo** bat kafesne... **Agurtzane Juanena**

3 (hitz elkartuetan)

Jela-ontzia, jela-kozkorretarako pintzak, kafe-**termoak**, kanpin-sua, sakelako linternak, [...]. **Joxan Elozegi**

termodinamika *iz* fisikaren adarra, beroaren eta energia eraldaketen inguruko legeak aztertzen dituena.

Mitoei buruz mintzatzen zen, gu geure artean **termodinamikari** buruz bezalaxe, esperientzia bakoitzean egiazta daitekeen lege fisikoren bat balira legez, eta doinu antsikabe berdintsuan mintzatu ere. Joxe Austin Arrieta

Termodinamikaren lehen legeak dioenez (alegia, energia itxuraz aldatzen bada ere, energia kopuru osoa ez da aldatzen), ezinezkoa da sortzea makina bat energiarik gabe dabilena. Fernando Morillo

Termodinamikaren bigarren legeak dioenez, entropiak (desordenak) beti egingo du gora sistema itxi batean. Fernando Morillo

Termodinamikaren tiraniak perpetuum mobile guztiak debekatzen zituen. Fernando Morillo

termodinamiko *izond* termodinamikarena, termodinamikari dagokiona.

Desoreka **termodinamiko**. Patxi Iturritegi

termoegonkor *izond* plastikoez mintzatuz, beroaren eraginez forma galtzen ez duena.

Badira polimeroak beroaren aurrean bere horretan mantentzen direnak, bigundu edo jariatu gabe, hauei **termoegonkorrak** esaten zaie. Berria - Gaiak

Polietilenoaren beste aldaera interesgarri bat duela gutxi merkatura atera den polietileno **termoegonkorra** da. Berria - Gaiak

Merkatura atera berria den polietileno sareatuak, **termoegonkorrak**, oso propietate onak aurkezten ditu. Berria - Gaiak

termoelektriko *izond* termoelektrizitatearena, termoelektrizitateari dagokiona.

Iaz euri asko egin zuen, eta, horren ondorioz, zentral hidroelektrikoek lan gehiago egin ahal izan zuten, eta zentral **termoelektrikoek** ez zuten horrenbeste orduz lan egin.

Berria - Euskal Herria

Hori dela eta, zentral **termoelektrikoen** lana gutxitu egin zen. Berria - Euskal Herria

termoelektrizitate *iz* beroaren bidez sorturiko elektrizitatea.

Edukitzea ura kudeatzeko eskubidea eta ura biltzeko, banatzeko, edateko on bihurtzeko, **termoelektrizitatea** eta hidroelektrizitatea sortzeko zerbitzuak. Berria - Mundua

termoerregulazio *iz* tenperatura tarte egoki baten barruan atxikitzea.

Termoerregulazioa zer den ikusi beharko genuke zakurrak estutasun eta amasestuka zergatik ibiltzen diren ulertzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hasbeheraka aritu behar izaten dute, lurruna botaz, mihia ateraz, ahalik eta azkarren gehiegizko beroa barreiatuz **termoerregulazioa** mantentzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hortik lortzen dute **termoerregulazioa**, hortik izerditzen dira, hortik hozten dira berotuta daudenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

termofilo 1 *izond* organismoen mintzatuz, tenperatura altuak behar dituena bizitzeko.

Termofiloak dira horiek, 40 gradutik gorako tenperaturetan bizitzea gustuko duten izakiak, alegia. Berria - Gaiak

2 (izen gisa)

Termofilo eta psikofilo proteinadunak: gai beren baitan ekai kimiko pozointsuak bereganatzeko eta energia sortzeko. Jose Angel Irigaray

termografo *iz* termometro erregistratzailea.

Termografoan bada, zein ordu eta minututan izan zen apuntatu. Pello Zabala

termometriko *iz* termometroarena, termometroari dagokiona.

Datu plubiometriko eta **termometrikoekin** batera. Pello Zabala

Elkarteak zituen 87 behatoki plubiometriko, 54 **termometriko**, eta 15 anemometriko horietaz gainera, beste bost osatu eta konpletuen mailara igo zen gure Arantzazukoa.

Pello Zabala

termometro 1 *iz* tenperatura neurtzeko tresna.

Termometro eta manometroen koadranteak ez zeuden graduaturik. Juan Garzia

Paretako **termometro** handi batean. Mikel Hernandez Abaitua

Han zituen **termometro** lehorra eta beste bat hatz-tamainako gasa saretxo bustiz inguratua. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Termometro joko bat eta merkurio-anoideak. Pello Zabala

3 irud/hed

Gobernuaren determinazioa neurtzeko **termometro** bakarra dago: [...]. Berria - Harian

Espetxe politika Espainia eta Frantziako gobernuen borondatearen **termometro** erabakigarria izango da. Gaurko gazte euskañolen artean hala aditzen dut, nortasunaren **termometro**, gailenduz doan aire axolkabe batez edo: agur, venur! Berria - Harian

Chicagoko erosketa arduradunen elkarteak badu adierazle bat, enpresa jardueraren **termometro** lanak egiten dituena. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

termometro lehorra (3)

termonuklear 1 *izond* erreakzioez mintzatuz, atomo arinek tenperatura oso altuetan fusionatzean eragiten dutena.

Gizartea sorgailuen, motor elektriko eta turbinen mendean, errektore atomikoen eta erreakzio **termonuklearren** mendean sartu da. Felipe Juaristi

Eguzkian izaten diren erreakzio **termonuklearrak** Lurrean kontrolpean sortzeko egitasmoa izugarri garestia da. Berria - Gaiak

2 erreakzio termonuklearrei dagokiena.

terraltsu *izond* lainotsua.

Aurrerantzean, gure begiak ipurtargi izango ditu, artizar, itsas-faro eternitatearen bidezidor **terraltsuetan** . **Karlos Linazasoro**
Berak eraman du semea Treblinkako lur **terraltsuan** zehar. **Felipe Juaristi**

terrama *iz*

Suaroak, etxe erreen eskea, **terramak** ... izen anitz jaso dituzte suteen kalteak arintzeko baserritarrek sortutako elkarteek. **Berria - Euskal Herria**

terrateniente *iz* lurjabea.

Bere biblioteka uzten diete batzuei, ezertarako balio ez duen pasaporte maiztu bat, eta etxeak, eta lur-sail zabalak **terratenienteek** , edo zorrak, edo zenbait arazorekin gehiegi kezkatzeko desabantaila eta beste arazo batzuekin gutxiegi arduratzeko abantaila. **Harkaitz Cano**

terrazza 1 *iz* jatetxe edo edaritegien kanpoko aldean prestatzen den tokia, bezeroentzako mahaiak eta aulkiak dituena.

Kafe bat eskatu eta **terrazako** toldopean kokatzen ginen. **Bernardo Atxaga**
Hoteleko kafetegia **terrazan** zeuden bilduta. **Bernardo Atxaga**
Alboko **terrazza** batean jan ditut entsalada apal bat eta gazta pixka bat. **Anjel Lertxundi**
Garagardo bat ordaindu nion Tajo ibaiaren gaineko **terrazza** hartan. **Edorta Jimenez**
Sara neska batekin etorri zen plazako **terrazza** batean esertzera. **Patxi Zubizarreta**
-Nahi duzu **terrazza** batean eseri? -proposatu diot-. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Argi laranja ahul batek girotzen zuen [...] klubeko **terrazza** . **Aritz Gorrotxategi**
Kronikariak, kafe-**terrazza** batean jarririk dela, aspaldiko lagun bat du topatu. **Jose Angel Irigaray**
Zubitxoia zeharkatu ondoren, **terrazza** handi jenderik gabera heldu zen. **Jon Muñoz**
Kafe etxeko **terrazan** esertzen zen, nargilea erre bitartean. **Patxi Zubizarreta**
Tracy Chapmanen doinu lasaia aditzen ziren **terrazako** bozgorailuetatik. **Jon Arretxe**
Bere betiko ametsa, behin aitortu zuen hura, hirigunean kafetegi dotore baten jabe izatearena, **terrazza** , bezero igarokorrak eta barra gainean kafe-makina bat izango zituen. **Joseba Urteaga**

2 etxebizitza bateko estalirik gabeko zatia, azpiko solairuko zati baten gainean dagoena.

Gelaren azpian bazuen **terrazza** itzaltsu bat, goroldio askokoa, loreontzi batzuetan indipikondoak eta agabeak zeudena, eta eguzkiak inoiz jotzen ez zuena. **Josu Zabaleta**
Amak etxeko **terrazan** kontatutakoa egia zen. **Bernardo Atxaga**
"Batzuetan **terrazara** atera eta zigarro bat erretzen du", esan nion. **Bernardo Atxaga**
Beheko solairuko gela handi samar bat zen harena, leihoak alboko **terrazza** batera zabalik zeuzkana. **Karlos Zabala**
Han du Xabik ordenadorea, balkoiko **terrazza** lanerako aprobetxatzeko asmoz kanpotik ixtea erabaki zuten egunetik. **Xabier Etxabe**
Bazuen osabaren studioak **terrazza** edo balkoi tipi bat, norat ateratzen baitzuen aparatua. **Joan Mari Irigoien**
Goiko **terrazaren** ertzean, jauregiko aitzin-paretako erlaitzaren gainean. **Joan Mari Irigoien**
Dueñasko jauregiaren alboko lorategiaren **terrazara** heldu ziren, eta gorputzak barandaren burdinetan utzita talai hartatik ikusten zen Abraren ikuspegi luzea dastatzeko isilunean murgildu zen bikotea. **Josu Landa**

3 etxe edo eraikin bateko teilatu laua, bertan egon ahal izateko egokitua.

Goiko **terrazaren** ertzean, jauregiko aitzin-paretako erlaitzaren gainean. **Joan Mari Irigoien**
Goian **terrazza** dauka, izugarria: bizpahiru mahai otorduatarako. **Pako Aristi**
Terrazara igo behar dut. **Koldo Izagirre**
Seminario gaineko **terrazza** beretik. **Pello Zabala**
1966an, berriz, eta orduetik aurrera, Seminario (orduan) berriko **terrazza** gainean Behatoki nagusian bilduko ditu datuak, Joxe Agustin Mendizabal zientzialari prestuak... **Pello Zabala**

4 lorategietan-eta, lur zerrenda laua, maila bat osatzen duena.

Etxe zuri bat begiztatu nuen, mailaz maila hondarretaraino jaisten ziren hiru **terrazatan** eraikia. **Josu Zabaleta**
Ai lorategi xarmagarria, bere oholta elkarren gainka jarriekin, [...] bere isats-belarrezko sortekin, eta bi pikondo zahar **terrazza** bakoitzaren amaieran. **Josu Zabaleta**
Etxe eta jauregiak ziruditen, batzuk besteen gainean jarriak, metalezko babilonia bat, arintasun hindukoa, hutsaren gainean egindako **terrazza** esekiek, aireko korridoreek, zubi hegalariek zeharkatzen zutena. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alboko terraza (3); bateko terraza (5); terraza batean eseri (4); terraza batean esertzeko (3)

terrazako mahaien (4)

bavariako terrazan (3); etxeko terrazan (5); hoteleko terrazan (6); kafetegiko terrazan (7); taberna bateko terrazan (5); terrazan eseri (5); terrazan eserita (8); terrazan gelditu (3); terrazan gora (5)

etxeko terrazara (3); terrazara atera (6); terrazara atera zen (3); terrazara igo (3); terrazara joan (3)

kursaaleko terrazetan (6)

terrazadun *izond* terraza duena.

Plaza zeharkatu eta, ordu asko baineramatzan ezer jan gabe, kale-kantoi bateko taberna **terrazadunean** sartu nintzen, eurizirinarene ihesi. **Anjel Lertxundi**
Amaierarako errentan harturik neukan bi logelako apartamentu **terrazadun** bat First Street-en, Prospect Park-etik bloke erdira baino ez. **Oskar Arana**

terrazatxo *iz* terraza txikia.

Koruak elizatik kanpo, komentuko **terrazatxo** batean, Benedikta abestu zuen. **Pello Zabala**
Bezperan albisteak entzun genituen egongelak **terrazatxo** batera ematen zuen, eta Anghios eta Müller jauna mokadutxo bat jaten ari ziren bertan. **Anjel Lertxundi**

terrazo *iz* zoladura-mota, zementuz aglomeraturiko marmol zatiz egina, azalera leundua duena.

Atarira sartu da, eta Domingo ikusi du zoruko **terrazoa** lanbasaz garbitzen. **Iban Zaldia**

Porlan eta **terrazo** gutxiago zegoeneko dirudi, ezta? **Pello Zabala**

terreno 1 iz lur eremua, lur saila.

Gretak eta biok Miramare gaztelutik hurbil eraiki nahi genuen etxearentzat **terrenoak** begiratzen. **Anjel Lertxundi**

Azpijokoa egin zioan horri nik dakidan batek, eta berealdiko diruak galdu zizkian Zizurkil aldeko **terrenoak** saldu zituenean. **Bernardo Atxaga**

Hamar mila durotan-edo, **terreno** eta guzti. **Joan Mari Irigoien**

Udaletxe azpiko jatetxeak estalpe bat zeukan atzealdean, kirol zelai bihurtzen ari ziren **terrenoetara** ematen zuena. **Bernardo Atxaga**

Kanpaiaz gain bost baserri eta **terrenoak** erosi zituen iritsi bezain pronto. **Arantxa Iturbe**

Astiro-astiro, **terreno** barriak erosten joan zan, soloak eta basoak. **Xabier Amuriza**

Guretarrek, beraz, buelta osoa eman zuten [...] Rua das Taipas jarraituz Salitreraino, ondoren, etsaiaren **terrenoan** sartzen denarengan berezko den beldurrez. **Jon Alonso**

Euriak ere bere **terreno** egokietan behar du jausi, eta tamainan, kalterik egin nahi ez badu. **Pello Zabala**

Ur-ixurien arabera banatzen baitziren **terrenoak**. **Pello Zabala**

3.250 metrotan kokatu aterpetik irten eta bi ordu luze izotz eta harkaitz zorrotzez osatutako **terreno** mistotik ibili eta gero [...] hego-bizkarrera ailegatu nintzen. **Josetxo Azkona**

2 irud/hed

Hatz luzeez gainetik kendu zizkidan hondar ale ikusezinak, bular herabeak setiatuz, **terrenoa** irabaziz, azal gaineko hondartza imajinarioa orraztu arteraino, nire tolestura ezkutuena, bainujantzi azpiko fereka ausartekin. **Eider Rodriguez**

Linguista banintz ez nintzateke ausartuko hain **terreno** labankorreak sartzera. **Bernardo Atxaga**

Negua bere **terrenoan** dabil abenduan. **Pello Zabala**

terrenta (orobat tehenta) 1 iz ipar leloa.

Betiko **terrenta** dute taliban horiek boikota egin dezaten hango herritarrek, bozemaiteira ez joanez batere. **Herria**

2 (adizlagun gisa)

Terrenta ari zen gizona: Euskal Herria puskatua zen, Frantzia eta Espainiaren artean urratua, mutilatua, zapaldua, umiliatua eta loak gatibatu jende hasez osatua. **Itxaro Borda**

3 errutina.

Euskal dantza usaiako **tehentatik** ateratzeko, ohidurak haatik beti bizirik atxikiz. Ekaitz labur bat, ortzi azkarra nahiago ditut, ezinez eta etengabeko **terrenta** hori. **Herria**

Burura zinezko bide xuxen honen **tehenta** zerbaite gisaz behar baitut hautsi. **Piarres Aintziart**

4 terrentan adlag

Ez zuen hitz egiteko ahalik, semeari **terrentan** eskatzen ziona salbu: [...]. **Itxaro Borda**

terrestre iz itsas jendearentzat, lehorrekoa.

Moilan zebilena jende arrotza zen, **terrestreak** denak, esan haiei bereizteko arra eta emea legatzetan, gure galego guztiak errepublikaren armadan enrolatuak ziren, badakizu. **Koldo Izagirre**

Eta guk besagainak altxatu genituen, arrantzaleak, **terrestreak**, baserritarrek ingurutzen ziren artean. **Joseba Sarrionandia**

Zeinen neska ederra, ezta?, esanen nioke topatuko nukeen aurreneko **terrestreari**. **Koldo Izagirre**

terribilismo iz gauza izugarrien aldeko joera.

Godoten sekretua, **terribilismoa** erabiltzeko moduan zegoen, ez nabarmenegi. **Iñaki Iñurrieta**

terribilista (corpusean terriblista soilik) izond gauza izugarrien aldeko joera duena.

Badakizue, poetaren pose **terriblista** ... **Iñigo Aranbarri**

terrible 1 izond izugarria, lazgarria, ikaragarria.

Ez zuen esan "izugarria" zela edo "ikaragarria" zela: **"terriblea"** zela esan zuen. **Unai Elorriaga**

Izan ere, ez da gauza bera pertsona bat "izugarria" dela esatea edo **"terriblea"** dela esatea. **Unai Elorriaga**

Etxaide, karlista pintoresko eta **terriblea**, edota Garmendia, liberala. **Pablo Sastre**

Askok eta askok, oraindik, Serge Gainsbourgekin publikoki jokaturako bikote **terriblearen** irudia izango dute Birkinekin, baina Paris divine-ren modako bikotea baino askoz gehiago izan da kantari, aktore, eta giza eskubideen aldeko borrokalari hau. **Berria - Kultura**

Iban **Terriblea**. **Eider Rodriguez**

2 (gauzei buruz)

Barregarri uzten ditu egun tatuaiez beteta agertzen diren idazleen liburu **terrible**-ak. **Berria - Kultura**

Esaldi **terrible** bat entzun ahal izan genuen orduan, kirolari haren paturai buruz zalantza biderik uzten ez zuena. **Karlos Linazasoro**

Baina azken bertsiaroko gordetzen du Kierkegaardek historia honen akaberarik **terribleena**. **Joseba Zulaika**

Nire ingelesa **terriblea** da. **Harkaitz Cano**

Estatuaren errepresio-bideak ezezagunak bezain ugariak dira, eta **terribleak**, zein baino zein. **Karlos Linazasoro**

terriblista ik terribilista.

terrier 1 iz berez ehizerako zen txakur mota, gaur egun hainbat arrazatan banatua dena eta lagun egiteko animalia gisa erabiltzen dena.

Dekretu horren arabera hauetxek dira arraza arrakatsuek: pitbull **terrier**, staffordshire bull **terrier**, [...]. **Gotzon Garate**

Donostian, gure ilobek Yorkshire **terrier** bat daukate, *Whoopi*. **Gotzon Garate**

Bakarrik egoten da Omar, tabernako izkina berean beti, Rumi bere bull-**terrierraren** konpainia soilaz, baina bisita labur ugari izango du gaua heldu bezain laster. **Iban**
Zaldua

2 fox-terrier ik fox-terrier.

terrina

iz potexka eskuarki tapaduna; potexka horrek daukan jatekoa.

Gaur prestatu eta bihar jatekoak (**terrinak**, pateak, pudinak, pastelak, etc)... **Edorta Agirre**

territorial

izond lurraldekoa, lurraldeari dagokiona. ik **territorio 3**.

'Problema **territorialak** dituzte..' esanen du Axelek. **Joseba Sarrionandia**

Analitikoki disfuntzionalagoa da *cultura vasca* kontzeptu **territorialean** nahastea batetik munduko hizkuntza komunitate zaharrenetakoa, txikia, bizi-kinkan dagoena, eta bestetik hainbat kontinentetan milioika hiztunek hitz egiten dituzten bi hizkuntza komunitate. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

territorio 1

iz lurraldea.

FBI-a litzateke bere eskuduntza **territorio** guztira zabaltzen duen beste erakunde federal baten kasua. **Harkaitz Cano**

Ematen zuen hantxe auzoan berbertan, lehenengo izkinan amaitzen zela etxearen **territorioa** eta munduaren parte segurua. **Joseba Sarrionandia**

2 irud/hed

Euskara dela euskaldunon **territorio** libre bakarra, esan zuen poetak, eta egia da. **Jokin Urain**

Territorio zuri horiek [ospitaletakoak] ez dira memoria mantentzeko leku onak. **Harkaitz Cano**

Orduan nire energia gerrari guztia bildu nuen, inbasorea nire gorputzaren **territoriotik** bota behar nuelako. **Joseba Sarrionandia**

Territorio libreak, gastronomia eremuak, kulturen arteko muga-marrak, horietaz ohartzeko zein leku hoberik Paris baino. **Edorta Jimenez**

Littera&musika bildumaren sustatzaile Jose Angel Irigaraireren arabera, ez dute orain 20-25 urteko euskal literatur **territorioa** bere hartan berregiten. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik territorial.

Abereen **territorio** konportaera honek ezin esan araziko digu, jabeagoa besterik gabe naturala denik. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gure territorio (3); **territorio libre bakarra** (3)

terrore 1

iz politika-tresna gisa erabiltzen den izua.

Sistema horren jardunari ez zaizkio deus ere axola **terrorea** eta errukia. **Oskar Arana**

Haste beretik izua, **terrorea** izan zuen makulu Espainia berriak eta Eliza ofizialaren bedeinkapena ere bai. **Jokin Urain**

Erresistente horiek Greenspan mulahri egin ohi diote jaramon, akzio azoketan **terrorea** piztuz. **Berria - Ekonomia**

Terrorea hegazkinetan dator herritar errugabeen kontra. **Berria - Mundua**

Gainez egiten zidan gorroto bat nabaritu nuen neure bihotzaren barnean **terroreaz** eta torturaz gobernatzen zuen estatugile honengana. **Koldo Izagirre**

Ez bakeak ez **terrorearen** aurkako borrokkak ez dute exekuzioa justifikatzen. **Berria - Mundua**

Era batera edo bestera, beldurra gai nagusi duten ipuinak dira, baina ez dira **terrorezko** kontakizunak. **Berria - Kultura**

Anders Banke suediararen *Frostbitten* **terrorezko** filma. **Berria - Kultura**

Esperimentu nazista **terrorezkoa** ez da nonbait esistitu. **Joxe Azurmendi**

Arazoi politikoen atzeratu dute **terrore** islamistaren aurka irmo ekitea. **Berria - Harian**

Terrore globalizatuaren ondorioak dira horiek guztiak. **Berria - Mundua**

Honek «komunikazio sozialerako duen arma bakarra **terrore** dosifikatua» da. **Berria - Harian**

Terrorea erroturik dago gure artean, baina hau 2001eko irailaren 11ren aurretik dator. **Berria - Mundua**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Terrore aurpegiz begiratu dio Imanoli. **Iban Zaldua**

Tortura ez da terrorismoaren aurka borrokatzeko bidea, tortura bera **terrore** tresna bat baita. **Berria - Harian**

"Garbi zagok", heldu dio Manuk diskurtsoari, "euskal gobernuak, Madrilakoak bezalaxe, **terrore** politika bat egiten duela". **Pako Aristi**

Herritar errugabeen aurkako **terrore** ekintzek ez dute justifikaziorik. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eszenatik Lluís Llach-en ahots lasaia zaplatzeko emango dio estatu **terroreari**, eta biktimek urte luzez jasan duten ahanzturari. **Berria - Harian**

4 (orobat Terrore, Frantziako Iraultzaren aldia izendatzeko)

1792an **terrorea** da, apezak kanporatuak dira, elizak zalditegi edo belartegi eginak. **Xipri Arbelbide**

Iraultzariek egoera hori "**Terrorea**" deitzen zuten, eta bortizkeria zen terroristen errepublikako lurralde guzietan sortzen zutena. **Elena Touyarou**

Beste alde bat ere izan zuen, bizkitartean, Frantziako **Terroreak**, bere kulturari doakiona. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

terrorearen aurkako (5); **terrorearen kontrako** (3)

terrorifiko

izond izua eragiten duena.

Huxley-k eta Orwell-ek anuntziatu zituzten unibertso **terrorifikoan** ia sartuak baikara. **Ana Urkiza**

Baina ez zen suge **terrorifikoa**, ez; ganora handirik gabeko sugea zen, apur bat anarkista. **Unai Elorriaga**

terrorisma ik terrorismo.

terrorismo

 (orobat *terrorisma g.er.*) 1 *iz* helburu politiko bat lortzeko izua sistematikoki erabiltzea.

Madriren egiten ari diren demokrazia, **terrorismo** eta segurtasunari buruzko goi bileran. **Berria - Harian**

Terrorismoaren aurkako borrokaren izena, **terrorismo** izela justifikatzen ari da. Berria - Harian
Demokraziak **terrorismoa** garaitu behar duela, batzuek; ez dela egon behar ez gaitzailerik ez irabazlerik, besteei. Joseba Zulaika
Argentinan, bitartean, estatuaren **terrorismoa** jarri zuten abian militarrek. Pello Salaburu
Terrorismoa herrialdeen arteko elkarlanarekin borrokatzen da, eta ez **terrorismoarekin**. Berria - Harian
Terrorismoa gaitzetsi eta demokraten alde jarri behar du Europak. Berria - Euskal Herria
Jakin behar duzunez, nik ez dut hitz egiten **terrorismoa** kondentzen ez dutenekin. Jon Alonso
Konferentzian izan zirenen iritziz, «**terrorismoaren** arriskua» etengabe haziz doa. Berria - Harian
Egia baita zuek, Euskal Herrian, **terrorismoaren** problema baduzuela. Eneko Bidegain
Terrorismoaren apologia edo antzeko zerbait iruditzen zaie nonbait. Xabier Mendiguren Elizegi
Israelgo Gobernuak [...] ordea, argudiatzen du «palestinarren **terrorisмотik** babesteko» eraikitzen duela banaketa hesia. Berria - Mundua
Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT) buru Francisco Lopezen esanetan, [...]. Berria - Harian
Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasun Legeak biktima batzuekiko egiten duen diskriminazioaren argudioa aintzat hartuta onartu zuen tramiterako. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Terrorismo handi, legezko eta estatutikako hauek eman bakarrik ez dute egiten, ezta kendu bakarrik ere; eskutu ere egiten dute. Iñaki Segurola
Euskal Herrian bakarrik gelditzen da infernu hau, Europako **terrorismo** basatiena. Mikel Hernandez Abaitua
Terrorismo itsuarekin eta heroi zein martiri sistemarekin. Itxaro Borda
Inor bereizi gabe eginiko **terrorismo** beltza. Berria - Mundua
Terrorismo politikoaren esperientzia mingarriak, bai maila pribatukoak bai maila publikoak. Esteban Antxustegi
Sterneren liburua **terrorismo** islamiarraren gaiarekin lotzeko egindako irakurketa eta sortutako diskurtsoa. Jon Alonso
ETAren eta **terrorismo** internazionalaren arteko harremanaren arduraduna. Berria - Harian
Nazioarteko **terrorismoa** eta Irakeko gerra beste berririk ez zen bazterretan. Joseba Zulaika

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **terrorista**.

Terrorismo ekintzak prestatu eta aurrera eramaten dituzten horiek, zigorrak itzulezin eta gogorrena jaso beharko lukete. Berria - Mundua
Saudi Arabian inoiz ikusi dugun **terrorismo** erasorik handiena da. Berria - Ekonomia
Izigarriko **terrorismo** kanpaña egin baitute Al-Qaidatiarrek. Herria
Washingtonek 11 «**terrorismo** delitu» egozten dizkio. Berria - Mundua
Terrorismo irriskuak ezin ahantz oraiko egunean han ere eta hobe alabaina gehiegi ez egitea. Herria
«**Terrorismo** izaera» eman dio Legebiltzarrak. Berria - Harian
Hamabost urte lehenago IKren inguruko **terrorismo** afera baten karietara giltzaperatu zuten Mikel. Itxaro Borda
Iraken dagoen «**terrorismo** erauntsia» leporatu zien. Berria - Mundua
Terrorismo arazo larria dugu, eta arazoa geure-geurea da. Berria - Harian
Gazte gaixo batzu dira, gazte hutsak frangotan, **terrorismo** eskola berezietan formatuak eta berotuak. Herria
Nazioarteko «**terrorismo** sarean». Berria - Mundua
Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak **terrorismo** gaietarako aholkulari ohi Richard Clarke. Berria - Mundua
Jazarkunde gogorak izanak ere dira han girixtinoen kontra jadanik **terrorismo** giro hortan. Herria
Eisenplua eman behar zen: **terrorismo** mota horrek ez zuen hazi beha. Itxaro Borda
Alonsok «**terrorismo** era berriei» erantzuteko ituna egokitzea iradoki du. Berria - Euskal Herria
Auzipetuta eta giltzapetuta izan ziren 55 pertsona **terrorismo** akusaziotik zurituta izan ziren 1999 eta 2000ko urteetan. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baietz, garbi dagoela hilketa politikoa izan zela, estatu-**terrorismo** organizatua, baina 1985az gero ez dela ikerketarik egin. Joxerra Garzia
«Estatu-**terrorisмотzat** » jo zuten Israelek Gazan egunotan burutzen duen operazioa. Berria - Mundua

5 irud/hed

Anabasa genuen izena, Anabasa taldea, **terrorismo** kultural pixka bat egin genuen, bai. Mikel Hernandez Abaitua
Italiako Gobernuak mezuen sinesgarritasuna zalantzan jarri eta «**terrorismo** mediatikoa» dela esan du. Berria - Mundua
Bulebarretik abiatuko da CNTren manifestazioa, 11: 30ean, *Lan istripua*, **terrorismo** *patronala* lemapean. Berria - Ekonomia
Gorroto du motorrero puzkartion **terrorismo** dezibelikoa. Iñaki Iñurrieta
Beldurra eta izua ematen zuen bere bosteko gogorak -harekintxe zigortzen zituen lagunak eta ezagunak-, eta bulegoko **terrorismo** haren bitartez lortu zuen bere "Etelka" izena "Etel" gozoagora laburtzea. Anton Garikano
Beste bi mutilen fitxak faltsutu zizkiguten... kirol **terrorismo** asko dago orain. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nazioarteko **terrorismo** (3)

terrorismo arazo (4); **terrorismo** delitu (3); **terrorismo** delitua (5); **terrorismo** delituekin (3); **terrorismo** ekintza (5); **terrorismo** ekintzak (5); **terrorismo** islamiarraren (3); **terrorismo** islamikoa (6); **terrorismo** islamikoaren (4); **terrorismo** islamista (7); **terrorismo** islamistaren (6); **terrorismo** islamistaren aurkako (3); **terrorismo** kasuetan (3); **terrorismo** mota (11); **terrorismo** mota guztiak (3)

estatu **terrorismoa** (18); estatuaren **terrorismoa** (3); etaren **terrorismoa** (8); nazioarteko **terrorismoa** (5)

terrorismoa amaitzeko (7); **terrorismoa** babesten (4); **terrorismoa** borrokatzea (3); **terrorismoa** borrokatzeko (3); **terrorismoa** bukatu (4); **terrorismoa** bukatzeko (5)

terrorismoa egiten (3); **terrorismoa** erabili (3); **terrorismoa** euskal herrian (3); **terrorismoa** finantzatzea (4); **terrorismoa** finantzatzen (3); **terrorismoa** garaitu (3); **terrorismoa** garaitzeko (4); **terrorismoa** goraitzea (5); **terrorismoa** goratu (7); **terrorismoa** goratzea (20); **terrorismoa** goratzea egotzi (4); **terrorismoa** goratzea egotzita (4); **terrorismoa** goratzea leporatuta (4); **terrorismoa** goratzea leporatzen (3); **terrorismoa** goratzeagatik (5); **terrorismoa** goratzearen (5); **terrorismoa** goratzen (9); **terrorismoa** gorestea (3); **terrorismoa** hauteskunde (4)

terrorismoa leporatuta (4)

terrorismoa saihesteko (4); **terrorismoa** sustatzen (6)

nazioarteko **terrorismoarekin** (8); **terrorismoarekin** lotu (4); **terrorismoarekin** lotura (5); **terrorismoarekin** lotura duten (3); **terrorismoarekin** lotutako (6); **terrorismoarekin** lotzen (3); **terrorismoarekin** zerikusia (4)

abiatutako **terrorismoaren** aurkako (5)

estatu **terrorismoaren** (7); etaren **terrorismoaren** (4); frantziako **terrorismoaren** (6); frantziako **terrorismoaren** aurkako (4)

nazioarteko **terrorismoaren** (15); nazioarteko **terrorismoaren** aurkako (4); nazioarteko **terrorismoaren** kontrako (3)

psoek sinatutako **terrorismoaren** (5); sinatutako **terrorismoaren** aurkako (5)

terrorismoaren amaiera (4); **terrorismoaren** apologia (17); **terrorismoaren** apologia egin (4); **terrorismoaren** apologia egitea (4); **terrorismoaren** arazo (3); **terrorismoaren** aurka (65); **terrorismoaren** aurka borrokatzeko (14); **terrorismoaren** aurka egiteko (5); **terrorismoaren** aurkako (308); **terrorismoaren** aurkako borroka (36); **terrorismoaren** aurkako borrokak (6); **terrorismoaren** aurkako borrokan (42); **terrorismoaren** aurkako borrokaren (15); **terrorismoaren** aurkako borrokari (3); **terrorismoaren** aurkako borrokaz (3); **terrorismoaren** aurkako dibisio (4); **terrorismoaren** aurkako gerra (15); **terrorismoaren** aurkako gerran (5); **terrorismoaren** aurkako gerrarekin (3); **terrorismoaren** aurkako gerraren (7); **terrorismoaren** aurkako ituna (27); **terrorismoaren** aurkako itunaren (12); **terrorismoaren** aurkako justizia (4); **terrorismoaren** aurkako legea (6); **terrorismoaren** aurkako legearen (5); **terrorismoaren** aurkako neurri (3); **terrorismoaren** aurkako neurriak (3); **terrorismoaren** aurkako politika (3); **terrorismoaren** aurkako politikan (5)

terrorismoaren biktima (15); **terrorismoaren** biktima guztiei (5); **terrorismoaren** biktimak (25); **terrorismoaren** biktimatzat (6); **terrorismoaren** biktimei (21); **terrorismoaren** biktimek (3); **terrorismoaren** biktimekiko (12); **terrorismoaren** biktimen (85); **terrorismoaren** biktimen bullegoko (5); **terrorismoaren** biktimen elkarte (3); **terrorismoaren** biktimen elkarteak (30); **terrorismoaren** biktimen elkartearen (3); **terrorismoaren** biktimen elkarte (5); **terrorismoaren** biktimen fundazioak (4); **terrorismoaren** biktimen lan (3); **terrorismoaren** biktimentzat (3)

terrorismoaren erabilera (4)

terrorismoaren gaia (3); **terrorismoaren garaipena** (3); **terrorismoaren goratzea** (4)
terrorismoaren inguruan (3); **terrorismoaren inguruko** (4)
terrorismoaren kausak (3); **terrorismoaren kontra** (45); **terrorismoaren kontra borrokatzeko** (4); **terrorismoaren kontrako** (157); **terrorismoaren kontrako borroka** (19); **terrorismoaren kontrako borrokan** (17); **terrorismoaren kontrako borrokarako** (5); **terrorismoaren kontrako borrokaren** (8); **terrorismoaren kontrako borrokari** (3); **terrorismoaren kontrako dibisioak** (3); **terrorismoaren kontrako gerra** (11); **terrorismoaren kontrako gerran** (6); **terrorismoaren kontrako gerraren** (4); **terrorismoaren kontrako ituna** (5); **terrorismoaren kontrako lege** (3); **terrorismoaren kontrako legea** (6); **terrorismoaren kontrako legeak** (4); **terrorismoaren kontrako neurriak** (3); **terrorismoaren kontrako politika** (5); **terrorismoaren kontrakoa** (4)
terrorismoaren mehatxua (3); **terrorismoaren mehatxuari** (3)
nazioarteko terrorismoari (10); **terrorismoari aurre egin** (3); **terrorismoari aurre egitea** (3); **terrorismoari aurre egiteko** (35); **terrorismoari buruzko** (7); **terrorismoari uko** (4)
terrorismoaz akusatuta (4)
terrorismozat jo (3)

terrorista *(orobat terrorixta g.er. eta terrorizta g.er.)* 1 iz terrorismoa praktikatzen duen pertsona.

Lau **terrorista** -hiru gizon eta emakume bat- etxe aurrean bertan harrapatu zituzten, lehergailuz, erloju-bonbaz eta errebolberrez armaturik. **Jose Morales**
Historia-liburuetan ageri da Eustakio Mendizabal, ekintzaile, politikoa, gerrillari edo **terrorista** gisa, norberaren gustu eta kolorearen arabera. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Beraz, Euskal Herriaren independentzia defenditzen eta aldarrikatzen dutenak denak dira **terrorista**, baita bortxakeria erabiltzen ez dutenak ere. **Joxerra Garzia**
Itxia eta atzerakoa da, primitiboa, probintzianoa, agrafoa, karlista edo nazionalista, arrazista, **terrorista** askotan. **Patziku Perurena**
Terrorista bat naiz eta Camaron gustatzen zait. **Harkaitz Cano**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Herenegun atxilotu zuten ustezko **terrorista** gela erdian dago, aulki deseroso batean eserita, eskuak eta hankak lotuta. **Iban Zaldúa**
Terrorista berdetzat jo gintuzten; ekologistak ez ginela azpimarratu zuten... **Eduarne Elizondo**
Hans Lauer **terrorista** alemaniarren andrea. **Hasier Etxeberria**
Islamiar **terrorista** bati agenda bat atzeman zioten eta bertan euskal preso «ezinagun arriskutsu» biren izenak zeuden. **Berria - Kultura**
AEB, Israel eta Mendebaldeko gizartearen idealak suntsitu nahi dituzten **terrorista** islamista fanatikoa gisa erretratatu baititu. **Berria - Kultura**
Terrorista bonba-jaurtitzaila ezaguna izanik, azken bi egunetan isileko poliziakoek orpoz orpo jarraitzen zioten. **Jose Morales**
Borges **terrorista** birtual bat da. **Jon Alonso**

3 (hitz elkartuetan)

Ez zen negozio txarra **terrorista** lanetan hasi berri batentzat. **Hasier Etxeberria**
Terrorista -habia dela Euskal Unibertsitatea. **Joxerra Garzia**

Gaueko hirurak eta bostak arteko Ertzaintzaren kontrol goxo bat, Euskal Herri sakoneko **terrorista** -harrobiren baten bihotzeko bihurtzeko bihurtzeren batean. **Iban Zaldúa**

4 Frantziar Iraultzan, Robespierren erorikoaren ondoren, haren laguntzaile eta aldekoiei eman zitzaizkien izena.

Orduz geroztik, Iraultzari eratziki zaizkion frantses jatorriko "terrore", "terrorismo", "**terrorista**" eta beste izen guztiak adierazpen berezia daramate: ezen, Menditarrak deitu iraultzaileak oharu zirelarik ez zituztela haien ideiak onartzen ez herritarrek, ez auzo herriek, ideien bataila gal beldurrez, izitu ziren eta etsaiak bilatzen eta ehizatzen hasi, bazter guztietan. **Piarres Xarriton**

• 5 izond terrorismoarena, terrorismoari dagokiona. ik terrorismo 3.

Bi egun geroago -ostegunear- ekintza **terrorista** gogorra egin behar zuten. **Jose Morales**
Eraso **terroristaren** mehatxupean bizi diren alderdietako hainbat kide ere hantxe zeuden, manifestazioan. **Bernardo Atxaga**
Europako kanpaina **terrorista** odoltsu eta luzeena amaitu da. **Berria - Harian**
Delitu **terroristengatik** zigortutako presoak ez dira legean sartu. **Berria - Mundua**
Etikoki onartezina da hori, berriztagarriek ez dute hondakinik sortzen, ez dakarte arrisku **terroristarik** eta ez dago ugaltzeko arriskurik. **Berria - Mundua**
Ez dezaten Hamasekoek beren ukaldi **terrorista** hetarik egin gehiago. **Herria**
Jarduera **terrorista** amaitu dela. **Berria - Harian**
Nazioarteko sare **terrorista** bat. **Hasier Etxeberria**
Bortxakeria **terrorista** buka dadin Elkarki-k duen azken helburuekin ados gaude, baina ez gatz bat hori lortzeko erabiltzen dituen bideekin. **Berria - Harian**
Al Kaedan oinarritutako 'talde **terrorista** bat' sortzea leporatuta. **Iñigo Aranbarri**
Erakunde "**terrorista** bateko zati direlakoan. **Eneko Bidegain**
15.300 lehergailu, 36.000 tiroketa, 30.000 epaiketa **terrorista**. **Berria - Harian**
Mehatxu **terrorista** ere badu [Paris-Dakarreko] Sari Nagusiak, eta segurtasun neurri bereziak prestatu dituzte. **Berria - Kirola**
Ideologia **terrorista** zabaltzea errazteko informazio egitura. **Berria - Harian**
Atxilotu dituztenen artean badiardi komando **terrorista** baten zenbait partaide daudela. **Joxemari Iturralde**
Seme **terrorista** baten ama izatea egiazki barnetik pairatzen zuen Edmeak. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atentatu **terrorista** (6); delitu **terrorista** (4)
ekinbide **terrorista** (3); ekintza **terrorista** (19); erakunde **terrorista** (29); eraso **terrorista** (11); estatu **terrorista** (3); hamas erakunde **terrorista** (3); hans lauer **terrorista** (3)
indarkeria **terrorista** (3); jarduera **terrorista** (7); mehatxu **terrorista** (13)
talde **terrorista** (34)
terrorista bakarra (3); **terrorista** bihurtu (3); **terrorista** deitzen (6); **terrorista** gisa (8); **terrorista** guztiak (4); **terrorista** izan (8); **terrorista** izan zela (3); **terrorista** izatea (3)
ustezko **terrorista** (7)
atentatu **terroristak** (3); banda **terroristak** (3)
ekintza **terroristak** (34); ekintza **terroristak** egin (3); ekintza **terroristak** egiteko (3); ekintza **terroristak** egiten (3); ekintza **terroristak** izan (3); erakunde **terroristak** (7); eraso **terroristak** (8); helburu **terroristak** (5); helburu **terroristak** dituen (4)
mehatxu **terroristak** (12); mehatxu **terroristak** egitea (4)
talde **terroristak** (9)
terroristak babesten (3); **terroristak** izan (6)
ustez ekintza **terroristak** (3); ustezko **terroristak** (7)
banda **terroristako** (3); erakunde **terroristako** (5); erakunde **terroristako** kide (3); talde **terroristako** (10); talde **terroristako** kide (7)
azken talde **terroristaren** (3); erakunde **terroristaren** (6); jarduera **terroristaren** (4); mehatxu **terroristaren** (4); panfleto **terroristaren** (3); talde **terroristaren** (11); ustezko panfleto **terroristaren** (3)
erakunde **terroristari** laguntzea (3); etaren estrategia **terroristari** (3); talde **terroristari** (7)
terroristari bilatuena (3)
atentatu **terroristatza** jo (3); erakunde **terroristatza** (3); **terroristatza** jo (13)
talde **terroristei** (3); **terroristei** aurre egiteko (5)
erakunde **terroristekin** (4); **terroristekin** hitz egiten (4); **terroristekin** negoziatuko (3)
erakunde **terroristen** (18); erakunde **terroristen** zerrendan (7); eraso **terroristen** (9); talde **terroristen** (14); talde **terroristen** zerrendan (5)
terroristen beldur (3); terroristen beldurrez (3); terroristen burua (3); terroristen kontra (3); terroristen kontrako (3); terroristen ondotik (4); terroristen xantaiari (3); terroristen zerrenda (7); terroristen zerrendan (19); terroristen zerrendan dago (3); terroristen zerrendan sartu (6)

terroristadun *adlag* terroristako.

Laurei ere «helburu **terroristadun** gaiztagin elkarteko kide» izatea leporatzen zieten. Berria - Euskal Herria

terroristagai *iz* terrorista izateko gaia.

Euroagindua onartzea «oso larria» izango litzateke, «guztiak **terroristagai** bihurtzen gaituelako ideia politiko jakin batzuen alde egiteagatik». Berria - Euskal Herria

terroristatxo *iz* *adkor* terrorista txikia.

Baina Borges, hil genuenean, garrantzi oso txikiko **terroristatxo** bizarguri bat baizik ez zen, ekintza kaskar batzuk egindakoa, txoriburu bat. Jon Alonso

terrorixta ik **terrorista**.

terrorizta ik **terrorista**.

tertulia 1 *iz* berriketan egiteko elkartzen diren pertsonen bilera.

Oro har, barberiako **tertuliak** ihes egiten zuen teoretatik eta gure mendietan ohikoak diren animalien ezaugarri, azterketa eta ehiza gertakizunetara mugatzen ziren. Pako Aristi

Gustatu egiten zitzaion **tertulietan**, berak eta bere lagunek hoteleko kafetegian arratsaldero egiten zuten solasaldiaren hasieran, "argaldu egin naiz" edo "gizendu egin naiz" esatea. Bernardo Atxaga

Nortasun bat asmatu genion, eta toki guztietan zabaldu genuen: enpresari eta bankarien artean, [...] politikoen bulegoetan, telebista eta irratietako **tertulietan**, aldizkari arrosotan... Jon Alonso

Lehen Mundu Gerra dute **tertuliako** hizpide nagusi. Anjel Lertxundi

Magrisek ofiziatzen du, Triesten dagoenetan, **tertuliaren** gidaritzan. Anjel Lertxundi

Tertuliaren koordinatzaile-lanetan aritzen den Anaren iruzkinak laburrak izan ziren: laburrak eta zorrotzak. Iban Zaldua

Gero, berriz, **tertulia** atsegin botikaren atzealdean. Askoren artean

Horrela deitzen zioten erreakzionarioa zelako eta bere **tertulian** atzerakoiak eta erreakzionarioak biltzen zituelako. Fernando Rey

Tertuliaren osteko kirol programa hasia zen. Unai Iturriaga

Kartzelatik itzuli zenean ez zuten gonbidatzen **tertulietara**. Fernando Rey

la egunero egiten den **tertuliako** izarra Umberto Saba poeta da. Anjel Lertxundi

Lan orduak saltegi nagusiko denda ostean ematen zituen lagunen batekin **tertulian**. Ramon Saizarbitoria

Bertan **tertulian** ari ziren karioizale-itxurako bospasei gizon builosoen bizitza-pasadizoak imajinatuz entretenu nuen bazkalordua. Anjel Lertxundi

Larunbat arratsaldean amaituko dira jardunaldiak, Carlos Casaresen inguruko **tertulia** batekin. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berrogei lagun inguru izango zen han, **tertulia**-taldeak eratuz edo bakarka. Fernando Morillo

Bere petaka beti bete zela medio, ez zitzaion batere kostatu Duvrescuren **tertulia**-lagunik ordezkazezinena bihurtzea. Iban Zaldua

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez omen dut egokierarik izango udan ez beste urte-sasoietan San Marco kafetegian izaten den literatur **tertulia** ezagutzeko. Anjel Lertxundi

Goizeko irratian **tertulietan** eta telebistetako hainbat gosaritan. Berria - Euskal Herria

Zure Barne Ministroak esan du bart, irratian **tertulia** batean! Koldo Izagirre

Larunbat goizean kafe **tertulia** egongo da Unai Iturriagarekin. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
tertulia sortu berritan (4)

tertuliakide (*orobat tertulia-kide eta tertulia kide*) *iz* tertulia batean jarduten duen pertsona, tertulia laguna.

Literaturaz gainera, **tertuliakideek** lehen Mundu Gerra dute tertuliako hizpide nagusi. Berria - Kultura

"Maritxu berri" irratsaioko partaide, Euskadi Irratiko "Lauretan Babel"eko, **tertuliakide**, ETBko "Hasiberriak" telesailako platoko gidoigile, eta "Baietz gogoratu!" programaren gidoilari izan da. Ana Urkiza

Egunkaria edo libururen bat baliatzen nuen **tertuliakide** astunen aurkako bionbotzat. Anjel Lertxundi

Presidente izan aurretik, irratian **tertuliakide** gisa, Izok Palaciosen inguruan esaten zituenak ere gogoratu zituen norbaitek. Berria - Kirola

tertuliano *iz* tertuliakidea, tertulia laguna.

Espainiako espetxeak ijitoek, euskaldunek eta idazle espainolik onenek bete izan dituzte, **tertulianoen** aginduz. Markos Zapiain

Beraiek hor daude, ordea, zinegotzi, irakasle, **tertuliano** ... Jokin Muñoz

Baita ere **tertuliano** ahalguztidunen larrugorritzea eta beste hainbeste kontu katartiko. Berria - Kultura

«Horretan ez dago ez arterik, ez deusik, biluzik soilik dutxara joan daiteke» esaten zuen ETBko **tertuliano** batek. Berria - Euskal Herria

tertuliazale *iz* tertulien zalea den pertsona.

Kanpamentuetan ere denetik zegoen, gutunak idazten zituztenak papera izter gainean ipinita, barberu berriak, jostunak adabakietan espezializatuak, **tertuliazale** lizunak. Joseba Sarrionandia

tertulisto (*corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi*) izond/iz adkor hedabideetako tertulietan parte hartzen duen buruargi ustekoa. ik **listo**²; **listopasatu**; **listomari**; **zozolisto**; **tontolisto**.

Hala ere, morboa elikatuz, telebistako **tertulisto** batek esan zuen agian ez zutela bahitu diru ordaina jasotzeko, bazitekeela ekialdeko mafia batek prostituzio sare batean aritzeko sekuestratu izana, eta gehitu zuen, keinu lizun eta perbertso batez: "ukaezina da Ane neska ederra dela". **ETC-literatura, saiakera**

Tertulisto-en indarra, dopatutako kirolarien aldean handia da, nonbait. **ETC-prentsa**

Epaille, fiskal, kazetari, politikari, **tertulistoe**k bazterten hautenean, orduan haiz nire laguna. **ETC-prentsa**

Eta **tertulisto**en espektakuloa? Frogatu da nola funtzionatzen duten hauetako askok. **ETC-prentsa**

tertzera iz hirugarren maila.

Orduan dena primera, segunda eta **tertzera**koak izaten zen, treneko bagoiak eta eserlekuak berak, medikuak, hiletak..., zenbat diru zenuen. **Patxi Zubizarreta**

Zure aldamenetik joanen da Andoni andenean barrena harik eta **tertzera**n gustuko aulkia topatuko duzun arte. **Joseba Sarrionandia**

Esan, heriotza guztiak berdinak direla esaten da, baina izan, garai bateko trenetan bezala, heriotzetan ere badira primerakoak, segundakoak, eta **tertzera**koak. **Joxerra Garzia**

terztzia (*orobat Tertztzia eta terttia*) iz orduen liturgian, primaren ondoan errezatzen den otoitza.

Laikoek, berriz, esan bitzate hogeita lau Gure Aita maitinen orde; gorespenean orde bost; prima, **terztzia**, sexta eta nona, bakoitzaren orde zazpi; bezperen orde hamabi, eta kompletan orde zazpi. **Askoren artean**

Igokunde igandetik Mendekoste zortziurrenera bitartean egunero esaten da salmo hau, aipaturiko txatal guztiekin, maitinetan, bederatzietan, hamabietan eta hiruretan (**terztzian**, sextan eta nonan). **Askoren artean**

Bederatzietako otoitzean (**terztzian**). **Askoren artean**

Kompletetako ordutik **terztzia** ordua arte isiltasuna gorde behar dute ahizpek, monasteriotik kanpo zerbitzatzen dutenek salbu. **Askoren artean**

Zoazte erabat isilik goizeko lehen ordutik **terztzia** otoitza arte, Jainkoari zeuen bihotzetan otoitz eginez. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bederatzietako otoitzean terztzian (3)

terztzio 1 iz espainiar infanteriako erregimentua, XVI. eta XVII. mendeetako.

Agustin de Mexia delako baten **terztzioko** gerla gizonetako bat topatu zutela. **Edorta Jimenez**

Espainiar **terztzioek** Amberes lehendabiziko aldiz kiskali zutenean, [...]. **Felipe Juaristi**

Gure nagusiek uste moduan joanez gero, Kanalean Herbehereetako **terztzioak** bilduko zaizkiguk. **Edorta Jimenez**

Gure **terztzioak** Muley-*ez-dakit-zer* famatuaren kontra aritu zirela zabaldu zen bazterretan, eta euskaldun jende asko eta asko hil zela inguru hartan Espainiaren defentsan. **Txillardegi**

Flandriako **terztzioek** horrelako kanoiak izan balituzte, Espainiaren menean geundeke oraindik, adiskide...! **Joan Mari Irigoien**

Garibai ez zen ez itsu ez gor euforia horren aurrean, eta erabakita zuen **terztzioetan** izena ematea soldadu jarduteko. **Anjel Lertxundi**

2 zenbait talde armatu ez-militarrei ematen zaien izena.

Uztailaren 27an hartu zituzten **terztzioek** lehenengo herri nagusiak: Beasain eta Oiartzun; azken honetan planto egin behar izan zuten nafarrek, Irun eta Donostiako erresistentziak gogor eutsi baitzien. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zumarraga aldeko milizianoek trenbidea moztu behar zela erabaki zuten, **terztzioen** eraso aurreratu behintzat moteltzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Han, Begoñako **terztzio** bizkainoaren kapitain nafar Jaime del Burgok eta guk besteok elkar besarkatu genuen eta elkarren ardo zahatoetatik edan genuen. **Edorta Jimenez**

3 zezenketeta, banatzen den hiru zatietako bakoitza.

Musika-aldaketak adierazten zigun guri, goiko bizilagunoi, zezenketako bandaren turutaren moduan, **terztzio**-aldaketa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

4 egoera.

Ut, ezpata; xerka ezak **terztzio** latzagoren bat. **Juan Garzia**

5 segundoren hirurogeirena.

Horretara, adibidez, orduak hirurogei minutu dauzka, minutuak hirurogei segundo, segundoak hirurogei **terztzio**, eta kontua, haien ustez, hamarrenak bezalako alditxoetara helduko da. **Xabier Kintana**

terztziopelo (*orobat terztziopelo g.er.*) **1** iz belusa.

terztziopelo beltzez egindako zapata pare hartu zuen. **Jasone Osoro**

terztziopelozko traje beltza eta bufanda gorria jantzita, pauso motzak baina sendoak ematen zituen. **Jasone Osoro**

2 irud/hed

Eta, nire mezua, osoki adierazi gabe ere, osoki ulertua zuelakoan, ekin nion berriz haren **terztziopelozko** gorputzari. **Aingeru Epaltza**

Boz kitzikaria eta gorputz **terztziopelozkoa** zituen. **Aingeru Epaltza**

terztziopelozko labanaz, gurina zabaldu zenuen nire izter artetik gora. **Jasone Osoro**

terztzio iz hiru lerro nagusiko ahapaldia.

Lana aparta da, jenio baten fruitua; melodia ederrak, dramatismoz beteriko tartek eta taldekako zenbaki ezin-hobeak (**terztzioa**, quartetoak...). **Berria - Kultura**

terztziopelo ik **terztziopelo**.

tesaliar *adlag* Greziako Tesaliakoa, Tesalari dagokiona.

Menderatutako herriek hiritarrei bizibiderakoak hornitzera behartuta zeuden: lazedemoniarrei ilotek ematen zieten jaten; kretarrei, periezirrek; **tesaliarrei**, penesteek. **Iñaki Iñurrieta**

tesalonikar *iz adlag* Greziako Tesalonikakoa, Tesalonikari dagokiona.

Apostoluen egintzak, **Tesalonikarrei** egindako epistolaren zehar-aipamena. **Xabier Olarra**

Aristarko eta Segundo, **tesalonikarrak**. **Elizen arteko biblia**

Tesalonikarrak sinestudentzat eredu. **Elizen arteko biblia**

Tesalonikarrei eginekako epistolaren hauxe dio Jondoni Paulo-k: [...]. **Herria**

tesela *iz* mosaiko bat osatzen duen pieza.

Gehienak, zeramika zatiak 275.000, baina baita mosaiko **tesela** solteak, txanponak, giza hezurak eta objektu metalikoak ere. **Berria - Harian**

lo zuen: egitasmo baten parte zen, **tesela** bat mosaiko batean. **Juan Garzia**

tesera *iz* zurezko, bolizko edo, eskuarki, brontzezko edo burdinazko zatia, askotan inskripzioz.

Gainetik bai **tesera** handiekin edo bai baldosak galburu moduan jarriz zolatuko da, eta isuriak goian idatzi den bezala egingo dira. **Santiago Iruretagoiena**

Mosaikoa baldin bada, **teseren** arteko angelu guztiak berdinak izan behar dute. **Santiago Iruretagoiena**

Ondoren, nukleoa ondo zabaldu, goian esan den eran, eta zoladura egingo da bi hatz inguruko lodiera duten **teserak** erabiliz. **Santiago Iruretagoiena**

tesi *(orobat tesis g.er.)* 1 *iz* argudio bidez eusten zaion perpausa edo teoria; prozesu dialektikoari hasiera ematen dion proposizioa.

Tesia edo argudioa kritiken kontra babestu. **Askoren artean**

Ikuspegi edo **tesi** baten aurka egin nahi baduzu, beraz, hura zein den argi utzi beharko duzu. **Askoren artean**

Tesia onartzeko arrazoiak eman. **Askoren artean**

Gure **tesiko** oinarrietatik berriz ere abiatuz, guk zera diogu: gogoa dela adimenaren jaun eta epaile -ondorioz zientziarena- eta ez alderantziz. **Jenaro Garate**

Errealisten **tesien** kontra, badirudi benetakoak eta faltsuak diren kasuen artean jarraitasuna gerta daitekeela. **Askoren artean**

Epailearen **tesiak** dioenez, ENAMen koka daitezkeen erakunde guztiak ETArek zati dira, «erakunde armatuaren helburuei laguntzen diotelako». **Berria - Harian**

Tesi honek kritika gogorak jaso zituen, Jean-Louis Comolliren aldetik batez ere. **Josu Zabaleta**

Filosofian **tesi** eta hipotesi abstraktuak defendatzen dira, maiz ulertzeko zailak direnak. **Askoren artean**

Bi **tesi** horietatik atera ahal izan diren ondorioak benetan ugariak dira eta urrun iristen dira. **Xabier Arregi**

Laburbilduko dut lanaren **tesia**. **Berria - Gaiak**

Gobernuaren **tesiak** nagusitzea espero dute VWko langileek. **Berria - Ekonomia**

Sute kriminalaren **tesia** egia izan zitekeen, beraz. **Jon Muñoz**

Irudia ulertzen bada, bere antolamenduan ikuslearen psikismoaren "antza" duelako ulertzen dela dioen **tesia**ren aldezele sutsuenetako bat baita Eisenstein. **Josu Zabaleta**

Zenbateraino onar daiteke **tesi** hori? **Askoren artean**

Baina, nola defendatu **tesi** hori? **Askoren artean**

Herri gogoa **tesi** horren bermea baino ez da. **Joxe Azurmendi**

Tesia eta antitesia ia berezkoak dira. **Joseba Sarrionandia**

Mendebaldeko dialektika «**tesi antitesi**»=sintesi» zurruna bada, juduena, aldiz, «tesi antitesi antitesi antitesi» amaigabe eta ironikoa litzateke. **Berria - Kultura**

'**Tesi**, antitesi eta sintaxiarekin orduan,' esan diot ezpainak jadanik gelditu zaizkionean. **Joseba Sarrionandia**

Martin Luterok bere 95 **tesiak** eman zituen argitaratu. **Aingeru Epaltza**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Platonen Gorgias elkarrizketa aberatsean ageri da Kalliklesen **tesi** nagusia [...]: ahuleki eta gehiengoekin egin dute legea. **Askoren artean**

Haren pentsamenduaren **tesi** nagusiak laburbiltzen dituen *Existentialismoa humanismo bat da* liburuan Mendebaldeko etika guztia goitik behera zalantzan jartzen du.

Askoren artean

Ni hitzaurre honetan kontrako **tesia** justifikatzen saiatuko naiz: [...]. **Xabier Amuriza**

Oinarritzko **tesia** da hizkuntzen hots eredu biziak esplikatzea dutela. **Lourdes Oñederra**

Protektzionismoaren **tesi** klasikoaren antza duten ikuspegi kritikoaren arabera merkataritza askeak desberdintasunen areagotzea, pobrezia eta krisi ekonomikoa dakar. **Iñaki Heras**

Bizardun batek galde egin dit nolatan nuen italiara existitzen ez delako **tesi** bitxia defendatzeko ausardia. **Fernando Rey**

The New York Times egunkariak [...] bat egin zuen **tesi** ofizialarekin: Irakek Suntsipen Handiko Armak zituen. **Txema Ramirez de la Piscina**

Historia ofizialak beti bilatzen ditu **tesi** ofizialen aldeko datuak. **Markos Zapiain**

Tesi "ilustratu" klasiko (jakobino): progresuaren hizkuntza Estatuaren hizkuntza bakarrik dela. **Joxe Azurmendi**

Hiru **tesi** teologiko kardinalak frogatzen ditu: Jainkoaren existentzia, bakartasuna eta gorpuzgabetasuna. **Xabier Kintana**

Abiapuntu gisa **tesi** eszeptiko bat proposatu zuen ondoren hura bertan behera utzi daitekeela erakutsi nahian. **Askoren artean**

Tesi biribilegia, aukeran, ñabardura batzuk beharko litzateke. **Berria - Kultura**

Moralaz zer den ere ez dakigu; biek **tesi** diferentek, kasik kontrarioak azaltzen dituzte. **Joxe Azurmendi**

Ikusten denez, eliminatibismoa, batez ere, **tesi** semantikoa da, gogo-egoeren hiztegiak ez duela erreferentziarik dioena. **Tesi** fundazionista horri eginiko kritikak bi motatakoak dira. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Otu zait hau ere **tesi** multzo gisa jar nezakeela nik hemen, ikusteko zertan gelditu diren amets haiek. **Pello Salaburu**

Orain dela hamar bat urte dogmatikoki eta sutsuki literaturaren autonomia defendatzen zuten zenbait autore gaur egun eleberririk engaiatuak edo **tesi** nobelak argitaratzen ari dituk. **Mikel Hernandez Abaitua**

4 doktoregoa lortzeko aurkezten den ikerketa-lana.

Oposizioa dela, **tesia** dela, bada tribunal aurreko azterketarik franko unibertsitatean. **Joxerra Garzia**

-Fisikan doktorea Cambridgeko Unibertsitatean, elektrokimikaren inguruko **tesi** batekin. **Fernando Morillo**

Urteak zeramatzen Shakespeareren obraren Schlegelen itzulpenaren gaineko **tesi** bat idazten. **Koro Navarro**

Koloreen ontologiari buruzko **tesia** egin du. **Askoren artean**

Haren bizitzari buruz beste **tesi** bat egin nuen Bordalen hura ere, argitaratu zuten, CNRSean. **Menane Oxandabaratz**

Oihenarti buruzko nire **tesirako** informazio bila. **Eider Rodriguez**

Historiako **tesi** bat egin du Akitaniako legendunetaz Erdi-Aroko frantses arkiboak baliatuz. **Herria**

Bide batez bere **tesia** izango den 'Trujilloren aroa' horretarako materialak ere biltzen ditu. **Edorta Jimenez**

Lisboako Setio honen bertuosismo tekniko **tesi** asko eragiteko modukoa da, dudarik gabe. **Jon Alonso**

224 **tesi** dira 2003-2004 ikasturtean EHUn, 15 eskaraz. Berria - Euskal Herria

Beste **tesi** asko bezala hura ere, behin aurkezturik eta tesigileak doktoretza eskuratuz, tiraderaren batean galdurik gera zitekeen. Edorta Jimenez

Tesi doktralean ez *Volkgeist* eta ez Herrien Psikologiaren inolako berri duenik ageri da. Joxe Azurmendi

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horrela, emakumeak bere **tesi** lana amaituko du eta eskuizkribu sorta ederra aurkeztuko. Javi Cillero

Bizkaiko Toponimiari buruzko **tesi**-lan sakon batean sartu nahi ninduen. Txillardeg

Balantsun Parisera joan zen, alabaren **tesi**-irakurketaren behatzera. Itxaro Borda

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Epikuroren filosofia **tesietan** oinarritu zuen bere filosofia. Koldo Izagirre

Artxiboaren Gidaren kasuan eskubideak lagako dituzte, eta baita lekukotasunen antologietarako edo unibertsitate **tesi** edo ikerketa zientifikoaren argitalpenetarako ere. Berria - Harian

Berak batxiler-**tesia** egiteko landu zituen idazleetako bat. Oskar Arana

6 *doktore tesi* (39 agerraldi, 9 liburu eta 18 artikulutan) ik doktoral.

Lizentzia edo ingeniari titulua eskuratzeko ikasketak amaitu ondoren, **doktore tesia** egin behar du ikerkuntza lanetan hasi nahi duenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Filosofian lizentziatua da eta gaur egun **doktore-tesia** egiten ari da Eusko Jaurlaritzaren beka batekin. Askoren artean

Igor Horrillo farmazialaria **doktore tesia** prestatzen ari da depresioaren gainean. Berria - Gaiak

AEBetan defendatu zuen **doktore-tesia**ren itzulpena. Berria - Kultura

Doktore-tesian Helendarren Biltzarra aztertu ostean, *Boterea gizarte homerikoan* liburua argitaratu zuen 2002. urtean. Askoren artean

Doktore tesian Lauaxetaren iturri literarioak aztertu zituen Kortazarrek. Berria - Kultura

Hortzak estututa aritzen da proiektu guztietan, dela unibertsitateko **doktore-tesian**, dela lagunarteko pala-partiduetan. Xabier Etxabe

3 *doktorego tesi* (25 agerraldi, 4 liburu eta 18 artikulutan) doktore tesia.

Jamila Hussein **doktorego tesia** egiten ari da Harvardeko Hezkuntza Graduatu Eskolan (AEB). Berria - Mundua

Bizkaiko geografiari buruzko **doktorego tesia** amaitzea. Txillardeg

Bukatu gabe utzi duen **doktorego-tesia**. Iban Zaldua

Elena Urrestarazu Nafarroako Unibertsitateko ikertzailea da eta **doktorego tesia** aurkeztu berri du. Berria - Gaiak

Milanoko Unibertsitatean defendatu zuen bere **doktorgoko** tesia. Herria

Ander Iturriotz Lauzirika irakasleak bere **doktorego-tesian** aztertu du boterea gizarte homerikoan. Txema Ramirez de la Piscina

3 *doktoretza-tesi* (14 agerraldi, 7 liburu eta 6 artikulutan) doktore tesia.

Maletatxoan zeraman gerora 'La Era Trujillo' izenpean apailatuko zuen **doktoretza-tesia** izango zuena idazteko baliatuko zituen oharrak, eskuizkribuak eta dokumentuak. Edorta Jimenez

Lan intelektual bat zen, finean, **doktoretza tesi** bat ere izan zitekeena. Ana Urkiza

Doktoretza tesia Massachusettseko Teknologia Institutuan amaitu zuen, 1990ean. Berria - Kultura

Laster aurkeztuko du bere **doktoretza-tesia**: Manex Edorzaintzi-Etxarten Biografia, poetika eta obra. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

doktore tesi (4); **doktorego tesi** (3)

tesi asko (4); **tesi bat egin** (4); **tesi doktrala** (3); **tesi egin** (4); **tesi egin dira** (3); **tesi fundamentalista** (3); **tesi nagusia** (11); **tesi nagusiak** (7); **tesi nagusiaren** (3)

bere tesia (18); **doktore tesia** (17); **doktore tesia egiten** (4); **doktorego tesia** (15); **doktoretza tesia** (10); **garzonen tesia** (4); **gure tesia** (7); **kontrako tesia** (3); **lehen tesia** (5); **neure tesia** (3); **nire tesia** (6)

tesia argia (3); **tesia aurkeztu** (3); **tesia aurkeztuko** (3); **tesia egin** (14); **tesia egiteko** (3); **tesia egiten** (7); **tesia egiten ari** (5); **tesia prestatzen** (6); **tesia prestatzen ari** (4)

bere tesiak (7); **doktore tesiak** (3); **epailearen tesiak** (3)

bere tesian (9); **doktore tesian** (8); **zure tesian** (3)

bere tesiaren (7); **gure tesia**ren (8); **gure tesia**ren arabera (4); **nire tesia**ren (8); **tesia**ren arabera (12); **tesia**ren gaia (3); **tesia**ren inguruan (4)

bere tesiaren kontakutako (7)

bere tesien (3); **tesien kopurua** (4)

nire tesirako (3)

tesigile *(orobat tesi egile)* iz tesi bat egiten duen pertsona.

Beste tesi asko bezala hura ere, behin aurkezturik eta **tesigileak** doktoretza eskuratuz, tiraderaren batean galdurik gera zitekeen. Edorta Jimenez

1956ko otsailaren 27an Columbiako Unibertsitateak tesia, filosofian doktoretza eman behar zion tesia, onartu egin zuela jakinarazi zion Jesus Galindez **tesigileari**. Edorta Jimenez

Gaitasun horiek ematen diote **tesi egileari** ñabardura berezi bat arazoei aurre egiteko orduan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hainbat **tesigileren** gidari eta zuzendari ere izan dugu Patxi Altuna. Berria - Kultura

tesina iz Espainiako hezkuntza-sisteman, lizentziatura-tesia.

Hemengo ikasleen azterketa, **tesina** eta tesietan korronte horiek sartzen joan nintzen pixkanaka-pixkanaka. Berria - Kultura

Gurekin lan egin du eta **tesina** bat egina du orduko gertakariei buruz. Berria - Harian

Mireiaren lagun baten **tesina** lodia zen, liburu moduan koadermatua. Fernando Morillo

Martaren laguntzaile izango da honek egin behar duen erreportajerako, futbol gaietarako aholkulari, ez baitzuen alferrik egin "Kirolaren alienazioa, edo zergatik den futbola herriaren opioa" izeneko **tesina**. Xabier Mendiguren Elizegi

tesis ik **tesis**.

tesitura 1 iz ahots edo musika-tresna jakin bati dagokion musika-eskalaren zatia.

Giza ahotsaren antzeko **tesitura** omen du biolontxeloak. Xabier Mendiguren Elizegi

Musikari bertutetsua da instrumentuaren **tesituran** gora eta behera ibiltzen denean. Berria - Kultura

Garbizu aditua zen harmonizazioan eta korden ahots tinbreak eta **tesiturak** oso ongi ezagutzen zituen. Berria - Kultura

Ez zuen ñabardurarik eskaini ia **tesitura** osoan eta **tesitura** zabalean hobeto ibili zen goi erregistroan behean baino. Berria - Kultura

Tesitura zabalekoa dela esan ohi da sopranoetik kontraltora irago daitekeen kantari batez: zilegi bekit neure talentuen **tesitura** aparta azpimarratzea, gai baitira erregistro

guztietan. [Joxan Elozegi](#)

Tesitura grabea dauka bere rolak, eta egoki bete zuen. [Berria - Kultura](#)

2(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

EHUko abesbatzako emakumeen abesbatzak merituz kantatu zuen goi **tesituran** eta tonuaren mugagabetasunean mugitzen den melopea. [Berria - Kultura](#)

Hobeto goi **tesituran** eta agudoetan erdikoan baino, ahots motagatik. [Berria - Kultura](#)

3 jarrera; egoera.

Laihotik begiratzan du Hemek kalera, erretxin, bere auzoek **tesitura** barregarri hartan ikus ez dezaten jainkoari erregutuz. [Harkaitz Cano](#)

Nobelan haseran patio batean ahotsak entzuten hasten dira, gizonarenak, jakina, eta berehala biolentziaren **tesituran** jartzen gaitu narratzaileak. [Berria - Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[goi tesituran](#) (3)

tesoreria iz diruzaintza, diruzainaren bulegoa.

Tesoreria problema larriak ditu enpresa horrek, 100 000 euro galtzen ditu hilabetean momentu hauetan. [Herria](#)

tesoro iz altxorra.

Jainkoak Apocalipsiko **tesoroaren** giltza eman ziola esan zuen. [Juan Martin Elexpuru](#)

tesprotiar (orobat trespotro) izlag/iz Greziako Tesprotiakoa, Tesprotiari dagokiona; Tesprotiako herritarra.

Ahaztu al zaik hire aita hona ihesi etorri zela, herria atzetik zuela, **tesprotiar** lagunei kalte egin eta denak haserretu zitzaizkionean? [Juan Kruz Igerabide](#)

Hala ere, Ulises itzuli baino lehenago joateko aukera izan nian, **tesprotiarren** ontzi bat gari-alez beterik itetera baitzihon orduantxe bertan. [Juan Kruz Igerabide](#)

Uhin handi batek **tesprotiarren** lurraldera eraman nindian. [Juan Kruz Igerabide](#)

test 1 iz gaitasuna, adimena eta kidekoak neurtzeko proba, emaitza mekanikoki neurtzeko aukera ematen duena.

"Izugarri ongi" egiten zituen ikusmen-pertzepzioko ia **test** guztiak. [Xabier Olarra](#)

Komplexutasun eta distira handiko Mondrianen **test** bat erabili genuen. [Xabier Olarra](#)

Test berezi batek -fluoreszeina-angiografiak- makulako edema kistiko txiki bat agerrarazi zuen. [Xabier Olarra](#)

New Yorkera ekarrazazi genituen Virgil eta Amy, gurekin egon eta erretinaren eta garunaren funtzioei buruzko **test** fisiologiko espezializatu batzuk egitera. [Xabier Olarra](#)

Azterketa **test** gisakoa izango zela esan nien ikasleei. [Jon Arretxe](#)

Hegazti gripea erraz eta merke atzemateko **testa** sortu dutela diote. [Berria - Gaiak](#)

Bideokamara bat jarri genuen **testa** grabatzeko. [Xabier Olarra](#)

Eskuliburuak, gainera, langileei zuzendutako **test**-ak ditu, «nork bere buruari azterketa egin eta mobbing-a pairatzen ari den jakiteko». [Berria - Ekonomia](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beharra baineukan zein **test** motatako materialak eraman. [Xabier Olarra](#)

Santanderko Bankuan lan egiten zuen lagun batek utzitako **test** eredu batzuekin. [Joan Mari Irigoien](#)

Oso gutxiagatik galdu zuen Zeelanda Berriaren (29-10) eta Argentinaren aurka (23-19), iazko udazkeneko **test**-partidetan. [Berria - Kirola](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halako "profilak" ohikoak dira autisten artean: adimen-**test** direlakoetan, "barreiamendua" edo muga-mugako irregulartasuna erakutsi ohi dute. Koloretako txalupa baten irudi-**test** klasikoa eman genionean, zorrotz erreparatu, beste alde batera begiratu, eta arin marraztu zuen zuri-beltzean. [Xabier Olarra](#)

Sinadura-modu berriak probatu, nortasun-**testak** bete, kalean zoazela erakuslehoetan islaturiko zeure irudiari soslaiz begiratu... [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Diagnostiko-**test** fidagarriak. [Berria - Gaiak](#)

Material batzuk hartu nituen: gauzaki soliduak, irudiak, komikiak, ilusioak, bideo-zintak eta pertzepzio-**test** batzuk, Ralph Siegel ofiziokide eta fisiologoak kasurako prestatuak. [Xabier Olarra](#)

Begi-lausoa kendu ziotenean, gai zen Virgil koloreak eta mugimenduak ikusteko [...] eta, harrigarria badirudi ere, are Snellen begi-**test** estandarraren hirugarren lerroko letra batzuk irakurtzeko. [Xabier Olarra](#)

4 irud/hed

Santo Tomas eguna izan zen **test** erabakigarria. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Erlorjupekoa **test** polita izango da niretzat. [Berria - Kirola](#)

Baldintza horiek ezarri zituen «PSOEK gainditu beharreko **test** politikitzat». [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[hiru test partida](#) (4); [iazko udazkeneko test](#) (3); [test partida](#) (7); [test partidak](#) (10); [test partidan](#) (4); [test partidetan](#) (4); [udazkeneko test](#) (5); [udazkeneko test partidetan](#) (3)

[antigorputzen testa](#) (4); [atzemateko testa](#) (6); [testa egiteko](#) (4); [testa garatu](#) (3); [testa sortu](#) (3)

[testak egin](#) (3)

testamen ik **testamentu**.

testamendu ik **testamentu**.

testament ik **testamentu**.

testamentu (orobat *testamendu g.er.*, *testament g.er.* eta *testamen g.er.*) **1** iz norbaitek bere azken nahiaz egiten duen adierazpen idatzia, bera hilez gero bere ondasunez erabakitakoa aditzera ematen duena; adierazpen hori biltzen duen

legezko dokumentuak. ik **liburuko;** **ordeno**¹.

Ezkundu, ia behin bakarrik ezkundu ohi da bat; donazio edo **testamentuak** ez dira eguneroko egiten. **Iñaki Iñurrieta**

Izan ere, **testamentua** beteko bada, beharrezkoa da testamentugilea hila izatea. **Elizen arteko biblia**

Testamentua herriko apaizaren alde egina zegoen. bere liburutegi ugaria [...] Arhane bere sortetxera eramatea agindu zuen bere **testamentuan**. **Gotzon Garate**

Beharbada Bunburyk bere **testamentua** egin nahi du eta zu nahi zaitu **testamentua** betearazteko. **Anton Olano**

Atsoaren beste **testamentu** bat aurkitu dute, bost urte lehenago egina. **Jose Morales**

Bidali dizun gutuna haren **testamentua** da. **Jon Muñoz**

Egingo niken bere ondasun guztiak Pauline txikiari utziko dizkiola **testamentuan**. **Karlos Zabala**

Testamentuak bi onuradun aipatzen zituen, Tom Wood eta Rufus Sprague. **Oskar Arana**

Apaiz jauna eta Sanson Karrasko batxilerra uzten ditut nire **testamentuaren** zainzaile. **Patxi Ezkiaga**

Herri gehienetan, **testamentuak** ez daude lotuta kontratu arruntak baino formalitate handiagoetara, zeren eta batzuk zein besteak ez baitira kontratua egiten duenaren borondatearen adierazpen baizik. **Iñaki Iñurrieta**

Etzera erretiratu eta **testamentua** soseguz idazteko eta heriotzari patxadaz itxaroteko erabakia hartu zuen. **Bego Montorio**

Testamentuan idatzita utzi dut hileta erlijiosoak nahi ditudala. **Koldo Biguri**

Notarioarengana jo zuen Napumoceno da Silva Araujo jaunaren **testamentu** itxia irekitzeko ekitaldian formalitatea betetzeko. **Testamentuaren** bitartez, desio zahar bat, hil aurretik xedatua, ezagutaraziko zidaten guraso hilek. **Bego Montorio**

Onartu du, baita ere, errolda zabaltzea; azken borondateen **testamentua** balioztatzeke errolda ireki dute. **Berria - Euskal Herria**

Borondatezko **testamentuari** lege izaera eman nahi dio Londresek. **Berria - Gaiak**

Antso Jakitunaren **Testamentuaren** Albazea. **Edorta Jimenez**

ik beherago 7. **Askoren artean**

50 urte inguruko iruzurgileak, amonei **testamentuak** faltsifikatzen zizkietenak. **Pako Aristi**

Badakizu, Afanasi Vasilievitx, **testamentua** gezurrezkoa dela? **Jose Morales**

2 irud/hed

Laukotearen **testamentu** musikala izango zena grabatu zuten: *Spasms of Pleasure*. **Patxi Iturritegi**

Poema luze bat egin nian bere garaian gure historia esplikatzuz, hori duk nire gaztaroaren **testamentua** ! **Pako Aristi**

Ikonnikoven eskuizkribua garrantzitsua da, Grossmanen **testamentu** eta filosofia izateagatik. **Felipe Juaristi**

Berak ikusiko ez zuela jakinda, halako **testamentu** kutsua dauka Tindayako proiektuak? **Berria - Kultura**

3 Bibliako Ituna.

Judutarren tabernakulu batean deserriratu izan zen, aurreneko **Testamentuaren** Kutxa altzoan zeramala. **Patziku Perurena**

Bi "**testamentuei**" dagokienez, grekoz *diathēkai* deitzen zitzairen eta latinez *testamenta*, tresna legal edo itunen baliokidetzat hartzen baitziren, hauetan Jainkoak gizadiari adierazi zizkiolarik, bi epetan, munduan giza bizitza ordenatzeko bere "borondatea eta **testamentua**". **Iñaki Mendiguren**

4 bizi-testamentu

Bizi testamentua edo Aurretiazko Borondateen Agiria pertsonak bere bizitzaren azkenetan berak adierazi ezin izatekotan jaso nahi dituen tratamendu medikuak eta zainketa moduak biltzen dituen idazkia da. **Berria - Harian**

Eutanasia ez dago legeztatuta hemen, baina duin hiltzeko eskubidea bermatu nahi duten ekimen legalak badaude: **bizi testamentuak**. **Bizi-testamentua** jasotzen duen agiriarena baino, medikuaren eta gaixoaren arteko komunikazio prozesuaren garrantzia azpimarratu zuen berak ere, eta gaineratu zuen ordezkariaren figura ere «funtsezkoa» dela. **Berria - Harian**

Dekretu horren bidez martxan jarri zen Nafarroako **bizi-testamentuen** erregistroa. **Berria - Euskal Herria**

Katalunia aitzindari izan zen, eta 2000. urtean onartu zuen **bizi-testamentuen** legea. **Berria - Euskal Herria**

5 Testamentu Berri Itun Berria.

Antzeko adibidea ageri da **Testamentu Berrian** ziape-garauaren parabolarekin. **Xabier Kintana**

Leizarragak, gainera, Zuberoan erabiltzen ziren hitzen zerrrenda ezarri zuen **Testamentu Berriaren** itzulpenaren amaieran. **Koldo Zuazo**

Testamentu Zaharreko eta **Berriko** liburuek, santuen liburuek eta paganoenek ere bai, gizaki errukitsuen kasu ugari aipatzen dizkigute. **Joan Mari Lekuona**

Anartean beste talde zenbait sortu ziren grekotarren artean eta **Testamentu Berriko** idazkiak grekoz idatziak izan ziren. **Piarres Xarriton**

Antzeko zerbitu esaten da **Testamentu Berriko** beste pasarte honetan ere "zeren gehiago baitira deituak, baina gutxi aukeratuak". **Xabier Kintana**

Berak agindu zion Joanes Leizarragari **Testamentu Berria** euskarara itzultzeko. **Koldo Zuazo**

6 irud/hed

Horixe zen mundura zabaldu behar zen **testamentu** berria: *the new economic gospel of consumption*, 1927ko liburu baten tituluak dioenez. **Iñaki Segurola**

7 testamentu-betearazle iz testamentua betearazten duen pertsona.

Entzungo zion norbait nahi zuen bere alboan Gruwerrek arratsalde hartan, lekuko bat, **testamentu-betearazle** bat, edota, beharbada, lagun soil bat. **Aritz Gorrotzategi**

Orain zure ama gajoa zeratu... desagertu denez, Emily eta biok zure legezko tutoreak gara eta Lily gajoaren **testamentu-betearazleak**. **Lopez de Arana**

Hildakoaren **testamentu-betearazle** izendatu baitzuen bere burua, haren azken nahien hartzaile fidel, haren agindu guztien betetzeaile zorrotz. **Bego Montorio**

Rufus Griswold aukeratu zuen, zorigaitzoz, **testamentu-betearazle** literaturari zegokionez. **Oskar Arana**

8 Testamentu Zahar Itun Zaharra.

Bi liburukitan banatu dugu **Testamentu Zaharreko** istorioen bilduma hau. **Jose Antonio Mujika**

Testamentu Zaharreko lehen liburua da, irakurle, eskuetan duzun hau, bertsiio egokituan emana. **Testamentu Zaharreko** pasarte batzuk aipa nitzake... **Jose Antonio Mujika**

Aitortu beharra daukat liburu eskasean nagoenean, Bibliako **Testamentu Zaharra** hartzen dudala edo Ulisesen Itakarako itzuleraren kontakizuna. **Itxaro Borda**

Hemen moralak eta Zuzenbideak (hiriko legeak) bat egitera jotzen dute **Testamentu Zaharrean** bezalaxe, bestalde- eta biek Naturan dute ondope tinkoa eta etzauntza.

Joxe Azurmendi

Helduaroan idatzitako lan honetan **Testamentu Zahararen** ikerlan sakona egiten du. **Imanol Unzuñunzaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

testamentu berria (17); testamentu berriaren (5); testamentu berriko (4); testamentu betearazle (3); testamentu egiteko (5); testamentu egiteko ahalmena (3); testamentu zaharrak (4); testamentu zaharreko (12)

araujo jaunaren testamentua (3); bere testamentua (6); bere testamentua egin (3); bizi testamentua (15); erregela eta testamentua (3); nire testamentua (5); sienako testamentua (4)

testamentua egin (13); testamentua egin berri (3); testamentua egin nahi (3); testamentua egina (3); testamentua egiteko (6); testamentua egiten (6); testamentua gezurrezkoa (3); testamentua idatzi (5); testamentua idatzi zuen (3); testamentua utzi (3)

bizi testamentuak (4)

bere testamentuan (10)

bedeinkapenaren eta testamentuaren (3); testamentuaren arabera (3); testamentuaren ondorioz (4); testamentuaren oroipen seinaleztat (3)

bizi testamentuari buruzko (3)

bizi testamentuen (3)

testamentugilea (orobat testamentu gile) iz

Hil ondoren balio baitu testamentuak; **testamentugilea** bizi den bitartean, ez du indarrik. **Elizen arteko biblia**

Falzidiar Legeak zera agintzen zuen erromatarren artean, oinordekoak oinordekotzaren laurdena izan zezala beti, eta beste lege batek bide ematen zion **testamentugileari** laurden hori oinordekoak beretzat hartzea debekatzeko: hori legeei barre egitea da. **Iñaki Iñurrieta**

Ondasun baten legezko jabe bihurtzen gara, ondasun haren erabilzaile bilakatzen, **testamentu** egileak oinordetzan espreski utzi ez digun arren. **Joxan Elozegi**

Sexto Peduzeok egina nabarmengarria izan zen: jarantsi handia eman zioten eta munduan ez zen inor hura itzultzeko eskatua zitziola zekienik; joan zen **testamentugilearen** alargunagana eta senarraren ondasun guztiak eman zizkion. **Iñaki Iñurrieta**

testatu, testa, testatzen du ad test baten bidez probatu.

Gerra-hegazkin modelo berriak **testatzea**, probatzea da nire lagunaren lanbidea. **Joxerra Garzia**

Ez zuen ezer esan, nik zer nekien **testatzen** ari zela iruditzi zitzaidan. Teoria etiko arau-emaile desberdinen printzipio nagusiak jasoko dira lehenik, eta horietako bakoitzak darabilen argudiatze prototipikoa kasu praktikoko batekin **testatuko** da. **Koldo Izagirre**

Oraingo hauteskunde hauek PSE-EEnen ildo berria PPTik pixka bat aldentuta **«testatzeko»** aukera bezala ikusten du. **Berria - Euskal Herria**

testigantza (677 agerraldi, 62 liburu eta 221 artikulutan) 1 iz lekukotasuna. ik lekukotasun.

Auzi-jartzaileak bere **testigantza** adierazten zuen auzia ezartzeko; salatutakoak bereak adierazten zituen bere burua zurrizko; eta epaileak egia bilatzen zuen **testigantza** batzuen eta besteen artean. **Iñaki Iñurrieta**

Testigantzek ez dute biderik ematen auzipetzeko oinarririk dagoela ondorioztatzen. **Berria - Mundua**

Haren garaikideen **testigantzak** argi uzten du -eta haren bizitzak garbi asko baieztent- metafisika eta mistika alderako zuen joera. **Juan Garzia**

Inork ez zuen zalantzan ipini Otamendi, Torrealda eta enparauen tortura salaketan **testigantza**. **Jokin Urain**

Horren **testigantza** Ernest Hemingwayk berak utzi zuen, 1960ko maiatzaren 30ean Gianfranco Ivancich-i idatzi zion eskutitzean. **Edorta Jimenez**

Amak bere **testigantza** gehitu zien nik jarritako alibiei: [...]. **Anjel Lertxundi**

Emakume lesbianen antolakuntza baten lehenengo **testigantzak** Greziako Lesbos uhartekoak ditugu. **Luis Elberdin**

Txostenean agertzen diren 47 **testigantzetako** bakar bat gezurtatzeko gai ote diren. **Berria - Euskal Herria**

Gizakien **testigantza** onartzen baldin badugu, are indartsuagoa da Jainkoaren **testigantza**, eta Jainkoak bere Semearen alde egin du **testigantza**. **Elizen arteko biblia**

Guk ere, bai, **testigantza** egiten dugu, eta badakizu gure **testigantza** egiazkoa dena. **Elizen arteko biblia**

Testigu izatera etorri zen, argiaz **testigantza** egitera. **Iñaki Iñurrieta**

Nik hura ikusi nuen eta ikusiaren **testigantza** emaiten dizuet Jainko nirea, emaezu indarra gure martiriei, gure fedearen **testigantza** nekearen nekez ematen dutenei, adimenaz baliatzen segitu nahi dutenei. **Joan Mari Irigoien**

Bertsio ofiziala eman zutenen **testigantza** jaso al duzue? **Berria - Harian**

Zuen legean dago idatzia, bi lagunentzako **testigantza** baliozkoa dela. **Elizen arteko biblia**

Blogak **testigantzen** lekuko dira sarritan. **Berria - Harian**

Alemaniko Fiskaltzak zalantzan jarri zituen bi **testigantzen** egiazkotasuna. **Berria - Mundua**

Tradizioa ez zen han hemenka berandura arte amatatu, ez eta Euskal Herrian ere, Esteban Garibaikoaren **testigantza** haintzat hartzekoa bada. **Patziku Perurena**

Nire **testigantzari** azkenik hasiera emateko. **Karlos Zabala**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zilegi izango ahal zait, hala ere, bi **testigantza** goren aipatzea. **Juan Garzia**

Jasandako torturei buruzko **testigantza** gordina egin zuen, 18/98 auziko epaiketako atzoko auzi-saioan. **Berria - Euskal Herria**

Horrela egin dugu, eta arrazoi bidezkoa zen, irakurlea **testigantza** harrigarri hau aztertzen duenean ohartuko denez. **Karlos Zabala**

Testigantza erakusgarri ugari dago. **Testigantza** Osagarriak. **Patxi Zubizarreta**

Ustezko **testigantza** horien bitartez azaldu ditugun hipotesiok errealitateki jasotakoak dira. **Bernardo Atxaga**

Nazio eta hizkuntza orotako obra klasikoak zinezko **testigantza** zirela, eta lekukotasun hori ahantzi edo bazter batera uztea arriskutsua zatekeela. **Juan Garzia**

Guardia Zibilean esku atxilotuta egonik pasatu zuen «infernua» xehetasunez kontatu du Amaia Urizarrek, idatzizko **testigantza**. **Berria - Euskal Herria**

Badakit nire ahazko **testigantza** hau idatzi, digitalizatu eta inprimatu egingo dutela. **Karlos Zabala**

Akusatuak baliabide bat du **testigantza** faltsuaren kontra. **Iñaki Iñurrieta**

Nazka-nazka eginda nengoen errealitatea [...] beti zeharka jasotzeaz, testu eta irudien bidez, edo inoren ahazko **lekukotasun** zuzenaren bidez asko jota. **Juan Luis Zabala**

Zuk ongi dakizu gezurrezko **testigantza** egin dutela nire aurka. **Elizen arteko biblia**

Kenneth Layri 11 delitu leporatu dizkiote; iruzurra eta gezurrezko **testigantza**, besteak beste. **Berria - Ekonomia**

Berak bakarrik eman zuen zure aurkako **testigantza**. **Fernando Morillo**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Trebetasun eta ausardia horri esker gaititu ditu Primo Levik lekukotasunaren mugak, **testigantza** -modu bera (ispiluak jaso ezin ditzakeen eremuak baino haratago doana) lorpen literario ahantzezina bilakatzeraino. **Juan Garzia**

Fiskalaren eta akusazioaren beste **testigantza** proposamen gutxi batzuk, aldiz, atzera bota ditu epaimahaiaik. **Berria - Harian**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amaia Urizarrek jasaniko tortura **testigantza** egiazkotzat jo zuen [...] Joseba Azkarragak. **Berria - Euskal Herria**

Iaz atxilotu eta torturatu zituzten 78 lagunentzako tortura **testigantzak**. **Berria - Euskal Herria**

Ez dut hau esaten giza **testigantzen** beharrik dudalako. **Elizen arteko biblia**

Joan Bataiatzaileak "argi **testigantza**" egiten du. **Joan Mari Lekuona**

Lehenengo mailara, pozkarioarena, iristen da arretaz gogoratzen ditugunean maitasun-**testigantza** gozagarriak, Jainkoak agertu dizkigunak zeruko eta lurreko miragarrietan. **Joan Mari Lekuona**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko testigantza (4); argiaz testigantza (4); aurkako testigantza (4); bere testigantza (6); beren testigantza (3); egiaren testigantza (4); egindako testigantza (3); euren testigantza (3); gezurrezko testigantza (7); gezurrezko testigantza egin (3); gure testigantza (4); gure testigantza onartzen (3); jasotako testigantza (3); jesusen testigantza (3); lagunentzako testigantza (3); nire testigantza (8)

testigantza egin (13); testigantza egiten (13); testigantza egiten du (6); testigantza egitera (4); testigantza eman (13); testigantza eman zuen (3); testigantza ematea (3); testigantza emateko (5); testigantza ematen (12); testigantza ematera (3); testigantza faltsua (6); testigantza faltsuagatik (3); testigantza jaso (6); testigantza onartzen (5); testigantza osagarriak (4); testigantza utzi (3); testigantza zuzena (4)

gezurrezko testigantza (3); herritarren testigantza (5); lagunentzako testigantza (4); lagunentzako tortura testigantza (3); lekukoentzako testigantza (6); presoentzako testigantza (3); senideentzako testigantza (3)

testigantza bildu (5); testigantza biltzen (6); testigantza eman (6); testigantza entzun (3); testigantza jaso (11); testigantza jaso dituzte (3); testigantza jasotzen (8)

tortura testigantza (5)

emandako testigantza (3); testigantza arabera (4); testigantza bidez (3)

testigatu, testiga, testigatzen du *ad* testigantza eman.

Ikusi zuenak berak **testigatzen** du eta haren testigantza egiazkoa da. [Elizen arteko biblia](#)

Sortalde eta sartaldetik, iparralde eta hegoaldeetik datoz haren bitartez laguntza lortu dutenak, hau guztia egia dela **testigatzen**. [Askoren artean](#)

Nik egiten ditudan egintzek **testigatzen** dute nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen. [Elizen arteko biblia](#)

Demetriori buruz guztiek hitz egiten dute ongi, eta hark zabaltzen duen egia ere beraren alde **testigatzen** du. [Elizen arteko biblia](#)

Jainko Jauna zuen aurka **testigatzen** dator, Jauna bera, bere tenplu santutik. [Elizen arteko biblia](#)

testigu 1 *iz* lekukoa.

Fede-aitormen bikaina egin baituzu, **testigu** askoren aurrean. [Elizen arteko biblia](#)

-Jauna **testigu**, zuk esan bezala egiten ez badugu. [Elizen arteko biblia](#)

1970eko hamarkadaz geroztik zientziaren eta teknologiaren irudi publiko eta akademikoaren aldatetaren **testigu** gara. [Askoren artean](#)

Zuek zarete **testigu**, eta Jainkoa ere bai, zein garbi, zuzen eta akasgabe jokatu genuen zuekin, sinestunok Jainkoa bera dut **testigu**, eta hil nadila bertan egia ez badiot. [Elizen arteko biblia](#)

Neuk dakit hori eta neu naiz horren **testigu**. [Elizen arteko biblia](#)

Nik herrietarako **testigu** jarri nuen hura, nazioen buruzagi eta agintari. [Elizen arteko biblia](#)

Bihotz mutuak **testigu**. [Patziku Perurena](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hara bihotza, gure misterio guzien **testigu** mutu. [Patziku Perurena](#)

Behin baino gehiagotan lekukotza faltsu bati eutsi beharrean izango da **testigu** faltsuzat har ez dezaten. [Juan Martin Elexpuru](#)

Haren ahotik neuk entzunak eta **testigu** sinesgarri eta probatuengandik jaso ditudanak. [Askoren artean](#)

Hona zer dioen Amen-ek, **testigu** leial eta egiazkoa. [Elizen arteko biblia](#)

Jaunaren legea israelarren aurkako **testigu**. [Elizen arteko biblia](#)

Sermoi hau, Spalatoko Tomas zuzeneko **testiguak** kontatzen duena bera izan daiteke. [Askoren artean](#)

Begizko **testiguaren** iragarpena. [Elizen arteko biblia](#)

Arrazoibide horri aurre egiteko, fiskaltzak funtsezko **testigu** bat izango du: Andrew Fastow, Enroneko finantza zuzendaria eta kontabilitate apaintetaren arkitektoa. [Berria - Ekonomia](#)

3 (hitz elkartuetan)

Lanetik ateratakoan apaizaren bulegora goaz, Martin eta Larraitzen **testigu** lanak egitera. [Xabier Etxabe](#)

-Aniak, ni hautatua ninduen ezkon-**testigu**. [Daniel Landart](#)

4 lekukotasuna ematen duen gauza.

Italiar literatura jaioberriaren **testigu** dugu idazki hau. [Askoren artean](#)

Migel Mailuk bere orbainak erakusten ahal zituen, harro, erresumaren zerbitzuko ahaleginen **testigu**. [Aingeru Epaltza](#)

Elikagai transgenikoen inguruko eztabaida publikoaren [...] **testigu** izaten ari gara. [Berria - Gaiak](#)

Euskal Herriko errepideak dira horren guztiaren **testigu**. [Berria - Harian](#)

Erretiratu zuten gorputza eta itxi zen haiantzat berriro horrelako saminaren **testigu** izango ez zen atea. [Askoren artean](#)

Ohartarazi egin nion gure Gerra Zibilean mugaldekoea zen nire sorterrria edotariko izuen **testigu** izan zela. [Edorta Jimenez](#)

Belarria dut honetan ere **testigu** bakar. [Patziku Perurena](#)

Zeru-lurrak ditugu **testigu** bidegabekeriak hiltzen gaituztela. [Elizen arteko biblia](#)

5 txanda lasterketetan lasterkari baten hurrengoari pasatzen dion gauzaki zilindrikoa. • *irud/hed*

Belaunaldiz belaunaldi askatasunaren borrokaren **testigua** pasatzea. [Berria - Euskal Herria](#)

Testigua herriari pasatzeko ordua duk, autodeterminazio eskubidearen onarpena (eta independentzia) berak lor dezan. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

testigu gara (3); **testigu izan** (11); **testigu izan zen** (3); **testigu leial** (4); **testigu naiz** (6)

testigutza (15 agerraldi 4 liburutan) *iz* testigantza.

Laguntzaileek, batez ere, ahozko altxor aberatsaren **testigutza** eman didatenek, [...]. [Patziku Perurena](#)

Modu berean, inoiz **testigutza** baten sinesgarritasuna gutxitu egingo da, agian, berau elkarte pribatu bateko kide batena denean. [Juan Martin Elexpuru](#)

Ez dugu, halaber, inoren **testigutza** geureganatu dugun jakintza ukatu behar. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Ez dakigu zergatik errugabea auzitegitik zigorrik gabe irten beharrean erruduntzat kondenatzen duten, epailearen injustiziagatik edota **testigutza** faltsuen eraginez. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Arrazoiz esan ohi dugu, ikusten edota ikusi ditugunak ez ezik **testigutza** edo lekuko egokiak sinestarazi dizkigunak ere badakizkigula. [Imanol Unzurrunzaga](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

inoren testigutza (3)

testikulu *iz* animalia arren sexu guruina, espermatozoidak sortzen dituena. ik **barrabil**; **potro**.

Testikuluak esaten diete medikuek. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Gonada sexuak -obarioak eta **testikuluak** - eta horiek sortzen dituzten hormonek -estrogenoak eta testosterona- odola, bihotza eta burmuina asaldatzen dizkigute. [Luis Elberdin](#)

Testikulu eta guruin lagungarrien jariatzeak erabakitako likidoa da esperma, espermatozoidak garraiatzeko funtzioa duena. [Berria - Gaiak](#)

testimoniaje *iz* testimonioa.

Gurutze bat balitz, San Andres esan nahiko luke, horrelako batean ezarririk eman baitzuen bere **"testimoniajea"**. [Xabier Olarra](#)

testimonia*l* izond lekukotasuneko; indar praktikorik ez duena.

Eta PPK gehiengo osoa ateratzen badu oposizio **testimonia**l egitera mugatuko zarete? [Berria - Euskal Herria](#)

Diputatu **testimonia**l nintzen; peoi gisakoa. [Berria - Euskal Herria](#)

Euskal Herriko Bilgune Feministak aurrerapausotzat jo ditu Donostiako Gaztelubide eta Union Artesana elkarteek emakumeek euren danborradetan parte hartzeko hartutako erabakiak; dena dela, emakumearen parte-hartzea **testimonia**l izango dela ohartarazi du. [Berria - Euskal Herria](#)

Espainiako Gobernuak bere esku dituen irrati eta telebistetan, bestalde, euskararen erabilera «**testimonia**l» izateaz gainera, «desegokia» dela azaldu zien Belokik. [Berria - Euskal Herria](#)

PS, PCF eta FNko hautagaiek ez daukate oinarririk kantonamendu horietan, eta haien presentzia **testimonia**l hutsa izan ohi da. [Berria - Euskal Herria](#)

«**Testimonia**lizat» du bere burua Gerardo Bujanda «gudari» jeltzaleak, [Berria - Euskal Herria](#)

testimonia*l*ki adlag era testimonialean.

Euskara **testimonia**lki edo estakuru gisa erabiltzea batere ez izkribatzea bezain ahalgegarria iduri zaut. [Herria](#)

testimonio iz lekulotasuna.

Bizitza eta kultura oso baten **testimonio**a ematen digun liburu eder bat duzue hauxe. [Pablo Sastre](#)

Bitartean, euskara nekez eta ia modu klandestinoan hasi zen tokia hartzen -hasiera batean **testimonio**l hutsa baizik ez zen tokia- *Humanidades* haien programan. [Anjel Lertxundi](#)

testing iz

'**Testing**'-ak dira, diskriminazioa salatu nahi duten elkarteek filmatu gertakariak, non agertzen den jende beltzarana arrazoi berezirik gabe zigortzen dela. [Berria - Harian](#)

testo ik testu.

testosterona iz sexu hormona maskulinoa, batez ere testikuluak sortzen dutena.

Gonada sexualek -obarioak eta testikuluak- eta horiek sortzen dituzten hormonek -estrogenoak eta **testosterona**- odola, bihotza eta burmuina asaldatzen dizkigute. [Luis Elberdin](#)

Hamalau urte dituzenean, esan beharrik ez dago, **testosterona** eta bestelako hormona ugari sortzen dituzte zure guruinek, eta emakumeak beste gauzarik ez da izaten sarritan buruan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Gainezka egiten dio **testosteronak** guruin guztietatik, eta ez dirudi inporta zaionik. [Patxi Iturrategi](#)

Batez ere hormona sistemak sufrizten du galera, adrenalina, kortisona eta **testosteronaren** jarioa urritzen hasten da-eta. [Berria - Kirola](#)

Ezetz eta ezetz, berak ez zeukala gibela **testosterona** hartzeagatik hondatzeko asmorik. [Hasier Etxeberria](#)

Kontrol batean anabolizanteak antzeman zizkioten eta beste batean, **testosterona**, UCIk debekatutako sustantziak biak. [Berria - Kirola](#)

Gizonezkoari espermatozoideak egitea galaraziko dion produkturen bat ematen zaionean espermatozoideak desagertzearekin batera **testosterona** produkzioa ere gutxitu egiten delako. [Berria - Euskal Herria](#)

testu (orobat testo g.er., texto g.er. eta textu g.er.) 1 iz idazlan bat osatzen duten hitzak edo esaldiak.

Testu horren 10. artikuluaen harian indargabeturik geratu ziren lurraldeetako arau mota guztiak. [Andres Urrutia](#)

Josep Pique PPCKo presidentea **testuko** hainbat punturekin ados zegoela esan zuen. [Berria - Harian](#)

Teognisen **testuan** Homero, Hesiodo, Solon, Mimnermo, Tirteo, Pindaro eta Arkilokoren aipu ezagunak aurkitu dira. [Askoren artean](#)

Aristotelesek semeari idatzitako **testu** honetan greziar garaiko sistema politiko eta moralaren ezaugarri nagusiak atzeman ditzakegu. [Askoren artean](#)

Liburuena edo, hobeto esateko, **testuena**. [Bernardo Atxaga](#)

Testuak dioena **testua** bera da, hitzen ispiluan islatuko balitz bezala. [Iñaki Arranz](#)

Eraiki behar duen **testuko** koherentzia eta edertasuna ditu artistak legedi. [Anjel Lertxundi](#)

Porrota dute zigor **testua** bera baino luzeagoak diren itzulungurukako ahaleginek. [Anjel Lertxundi](#)

Aipuak **testuaren** edukiarekin eta eritmoarekin bat etortzeak asko errazten du horren irakurketa. [Askoren artean](#)

Haren hitzak ebakineko **testua** baino argigarriagoak gertatzen hasiak zitzaizkidan. [Aingeru Epaltza](#)

Testuen erredakzio-prozesua ezberdina izan zen, kasuen arabera. [Askoren artean](#)

Pentsatu ere egin nuen Eugeniari bidalitako **testuaren** inguruan nobela bat idaztea bazegoela. [Ramon Saizarbitoria](#)

Testuaren mamia nahasketa handi bat da: kristautasuna, taoismoa, naturismoa, kidesetasun kastrensea, Kung-Fu telesailko esaldiak... dena sartzen da. [Pako Aristi](#)

Testuen interpretazio subjektiboa. [Berria - Harian](#)

Pablo Valdesen **testuko** pertsonaia nagusiak mojak dira. [Berria - Kultura](#)

Administrazioan gehien erabiltzen diren **testuen** bertsio elebidunak. [Berria - Harian](#)

Testu haiek eragindako gogoetaz ari ziren Xankapo eta Xereal. [Iñaki Iñurrieta](#)

Hori da, hain zuzen, palimpsestoaren grazia: **testu** bakarra ageri den lekuan bi **testu** izatea. [Joxerra Garzia](#)

Donostiari buruzko **testu** batzuk euskaratzea. [Iñaki Iñurrieta](#)

Testuz kanpoko zer horiek guztiak "testuingurua" deritzon zakuan sartu ohi dira. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Testuz kanpoko alderdiok gutxiestea [...] bat-bateko bertsogintzaren izatea bera ukatzea da. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Testu hoberenak aukeratu (zure gaiari gehien lotzen zaizkionak, garbienak direnak). [Askoren artean](#)

Globalizazioaren aurkako **testu** laburra osatu du hemengo lan-talde batek. [Edorta Jimenez](#)

Kontua da **testu** xehea eta ikusiezina berrezartzea, idatzitako erroetoak irriztoak zeharkatu eta noizbehinka astintzen dituen. [Xabier Arregi](#)

Hala ere, **testu** zaharren amaraunetan arakatzek baino gehiago kilikatzen ninduen ordurako **testu** berrien sorkuntzak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Leibnizen aipatu bi **testu** laburtxoak oso egokiak dira haren funtsezko filosofia dinamikoaz jabetzeko. [Askoren artean](#)

Esaldi hori **testu** budista edo hinduista batetik aterea ere izan liteke. [Juan Kruz Igerabide](#)

Testu pitagoriko peto-petoa zen, dudarik gabe, eta zentzu bikoitzez irakurri beharrekoa, noski, sinboloz eta enigmaz josita zegoen eta. [Jon Muñoz](#)

Testu korapilatsua da. [Berria - Euskal Herria](#)

Garrantziakoa da aipauk dioena zuk **testu** nagusian esanda ez izatea. **Askoren artean**
Jatorrizko **testuan** egileak ez du espresuki Axitako gaztelua aipatzen. **Martin Anso**
Normalki, erreferentziako **testu** guztiak oso ezagunak izan ohi dira. **Askoren artean**
Ariketa berezi batetara helduak ginen: prosazko **testu** bat itzuli, ulertzeko, eta latinezko neurtzkeren ezarri, zeinek egiten zituen lerro gehienak. **Piarrés Aintziart**
Eraketa diskurtsibo bat ez da, beraz, **testu** ideiala, jarraitua eta samurra. **Xabier Arregi**
Benetokotasuna: ez dezala irakurleak sentitu **testu** prefabrikatu baten aurrean dagoela. **Ana Urkiza**
Testu zientifikoak, **testu** filosofikoak. **Jon Muñoz**
Morsezko **testu** bat irakurtzen edo izkiriartzen ere ez. **Txillardegí**
Debozioko **testu** sakratuak. **Joxe Azurmendi**
Aurrekontu Lege Orokorren **Testu** Bateratuaren 29-2 artikuluan. **Joseba Sarrionandia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **testual**.

Testu analisia. **Iñaki Seguro**
Erreferentzien joko hau ez da homologoa matematika-tratatu batez dihardugunean edo **testu**-iruzkin batez. **Xabier Arregi**
Zenbat eta inguru-testua trinkoago, orduan eta **testu**-lan gutxiago beharko du bertsolariak entzuleengan emozioa pizteko. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Hona hemen **testu**-eraldaketerako proposatzen zituzten prozeduretako batzuk: [...]. **Xabier Olarra**
Azken **testu**-sailok geroagoko borroken gogortasuna islatzen dute. **Askoren artean**
Testu hautapena, sarrera eta itzulpena: Xabier Insausti, Marijose Telletxea. **Askoren artean**
Testu bilduma amaigabea para genezake hemen, baina adibide batekin konformatuko gara. **Iñaki Arranz**
1244ko **testu**-bilketa. **Askoren artean**
Beste batzuek minutu erdi behar izaten dute, baina hori bai, lehen haiek egun osoan ere lortuko ez luketen **testu**-maila lortuko dute. **Andoni Egaña**
Komeni da lehenengo irakurketak beti erreferentziako testuak izatea (**testu**-liburuak, entziklopedietako sarrerak, [...]). **Askoren artean**
Hizkuntza lantzeko **testu**-liburuetan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Ez dakigu zehatz zer zegoen Kreszentziok jasotako **testu**-multzoan. **Askoren artean**
Hiru sinoptikoetatik hartutako **testu**-zatiak elkartzten ditu. **Askoren artean**
Ikaragarriak dira batzuetan letrek sorturiko zenbakiak: 5.800.000 **testu** hitz, 310 obra, 125.987 sarrera, 14.028 orrialde. **Testu** tratamendurako programa libreak dauzkagu. **Berria - Harian**
Batzuk boligrafoz, beste batzuk makinaz; hainbat **testu**-prozesadorez. **Iban Zaldúa**
Orain arte Microsoften **testu** prozesagailua eta kalkulu orria erabili dituzte horiek egiteko. **Berria - Gaiak**
Hain zuzen ere **testu**-lapurreta zelako erromantikoek aldarrikaturiko orijinaltasunaren etsai bortitzena. **Bernardo Atxaga**
Itzultzailea: Koro Navarro (Rosetta **Testu** Zerbitzuak). **Koro Navarro**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Testuak hiru aitzin-**testu** baditu. **Aurelia Arkotxa**
Hara non literatur-**testu** baten usaina zuen zerbaitekin topo egin zuen. **Jon Muñoz**
Testu genero bat ari da sekulako indarra hartzen: ahozko narrazio **testua**. **Berria - Harian**
Ez dela poesia-**testu** bat, ez dela kodetutako mezua, ezta drogak hartuta dagoen baten hitza ere. **Xabier Arregi**
Bazegoen fraide bat, komentuko apalena, sasoiko jakituria-**testuak** sekula ikasi ez zituena. **Xabier Aranburu**
Zein bere Eskritura-**testuari** darraiola. **Xabier Kintana**
Liturgi **testuak** pasabide bat aipatzen du hemen. **Joan Mari Lekuona**
Adituek gai zehatzei buruzko sarrera-**testuak** landu dituzte. **Askoren artean**
Ez da, ez, lege-**testu** lehorra, baina ezta gogoeta espiritual soila ere. **Askoren artean**
Testua bere testuinguruan: inguru-**testua** eta egoera. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Aldi batzuetan (frankismoan, esaterako), oso inguru-**testu** trinkoan, homogeneousan kantatzen dute bertsolariak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Frantziskotar familietan aszesi-**testu** eta espiritu-erakuntzarako orientabide bezala irakurri izan dira. **Askoren artean**

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Liburua oinarri-oinarizko kontzeptuekin hasiko dugu -eskola-**testu** kutsua ere izango dute hasierako orriek, apika-. **Iñaki Heras**

6 irud/hed

Mutazioa bat gertatzea zera da: nola edo halako aldaketa izatea informazio genetikoan, hots, **testu** genetiko osatzen duen base-katean. **Juan Garzia**

7 filologian, ikergaitzat hartzen den hitz edo esaldi multzoa, eskuarki idatzia.

Itzulpenerako erabilitako **testu** kritikoak. **Askoren artean**
Testu zaharrak ikertzetik oraindik ikas daiteke? **Ana Urkiza**
Gorde diren **testu** arkaikoen autoritatea ez dagoelako guztiz zehazturik. **Askoren artean**
Behin **testua** erakitakoan, axola gutxi idazlearen zantzuak; ez du garrantzi gogobetekorik bertsolari apal hura nor zen jakiteak. **Anjel Lertxundi**
Egon da, orobat, **testu** homerikoen azpian garai desberdinetako pasarte eta elementuak bereizten ahalegindu dena. **Askoren artean**
Eztabaida eta ezadostasuna izugarri luzatzen dira **testu** epiko ugariri dagokienez. **Askoren artean**

8 *testu-artekotasun* ik **testuartekotasun**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

bere testu (10); **egindako testu** (6); **euskal testu** (8); **euskarazko testu** (9); **idatzitako testu** (18); **idatzitako testu bat** (8); **inguru testu** (7); **jatorrizko testu** (6); **lege testu** (12); **literatur testu** (7); **oinarizko testu** (5)
testu alternatibo (9); **testu asko** (5); **testu askotan** (6); **testu bakar** (7); **testu bakarra** (6); **testu bana** (7); **testu bat irakurri** (6); **testu bateratua** (5); **testu bera** (11); **testu berri** (7); **testu berria** (9); **testu berriak** (8); **testu guztiak** (18); **testu idatzia** (5); **testu labor** (11); **testu laborra** (5); **testu laburren** (5); **testu liburua** (6); **testu liburuak** (14); **testu liburuen** (5); **testu luze** (9); **testu luze bat** (7); **testu mota** (6); **testu oso** (6); **testu osoa** (13); **testu zaharren** (6)
adostutako testua (5); **behin betiko testua** (9); **bere testua** (5); **euskarazko testua** (6); **hitzartutako testua** (6); **idatzitako testua** (8); **inguru testua** (9); **jatorrizko testua** (32); **konstituzioaren testua** (12); **lazarragaren testua** (6); **negrita testua** (8); **nire testua** (6); **oinarizko testua** (5); **onartutako testua** (16); **saren testua** (8); **saren testua osoko** (6)
testua arrazoi (19); **testua bera** (13); **testua beste barre** (19); **testua erantzun** (19); **testua erantzun zion** (19); **testua idatzi** (5); **testua irakurri** (13); **testua onartu** (14); **testua onartzea** (5); **testua onartzeko** (8); **testua onartzen** (5)
aurkeztutako testuak (7); **behin betiko testuak** (6); **erreferentziako testuak** (5); **euskal testuak** (7); **idatzitako testuak** (18); **jatorrizko testuak** (7); **legebiltzarrak onartutako testuak** (6); **nire testuak** (6); **onartutako testuak** (22)
testuak berak (5); **testuak bildu** (6); **testuak irakurtzen** (7); **testuak izan** (5); **testuak jasotzen** (10)
aurkeztutako testuan (6); **bere testuan** (5); **jatorrizko testuan** (9); **legearen testuan** (5); **testuan bertan** (6); **testuan zehar** (12)
inguru testuaren (9); **jatorrizko testuaren** (14); **onartutako testuaren** (7); **testuaren alde** (5); **testuaren arabera** (22); **testuaren aurka** (6); **testuaren bidez** (5); **testuaren edukia** (7); **testuaren garrantzia** (5)
jatorrizko testuari (9); **onartutako testuari** (5); **testuari baietz** (5); **testuari sostengua eman** (5); **testuari zuzenketak** (7)
antzerki testuen (7); **lege testuen** (5); **testuen bidez** (5)
bere testuetan (6)
testuz kanpoko (5)

testual 1 iz testuarena, testuari dagokiona. ik testu 3.

My Bonnie itsas kanta edo *sea shanty*-rik ezagunena da ez bairik gabe, baina, edertasun **testualaren** aldetik, ez zaio atzean geratzen *Le Livre d'Or de la Poésie Française* bilduman barkuez eta Bordelez mintzatzen den *sea shanty* edo *chanson à hisser* delakoa. **Bernardo Atxaga**

Guretzat balio bereko dira Iturriagaren "ateraldi" **testuala** eta Maiaren "ateraldi" kontestuala. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ustekabe mingotsa izan genuen bertso guztiak, poetika **testualaren** ikuspuntutik, hutsak zirela konturatu ginenean. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Baliabide poetiko-erretoriko **testualez** gainera, bestelako baliabideak ditu bertsolariak, beste erretorika-generoetan bideratu ezin direnak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Dantza egiterakoan, gorputzarekin idazten da nolabait, batez ere praktika **testualetik** abiatzen den dantza garaikidean. **Berria - Kultura**

2 hitzez hitzekoa.

Aipamenezko adierazpenek **testualak** izan beharko dute: hitzez hitzekoak. **Iñigo Aranbarri**

3 ez-textual izond

Berriro ekin beharko genioke ikerketari, garai bakoitzean erabili diren baliabide poetiko-erretorikoak miatu, katalogatu eta azaltzeko, baina ikerketak bertsolaritzaren baliabide **ez testualak** ere xedetzat hartu beharko litzuke horretarako. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Hiperbolea, metafora edo konparazioa bezalako baliabide testualen bitartez erdiets daiteke plastizidadea, baina zentzugabekeria izango litzateke bertsolariari beste baliabide **ez testualen** bidez iristeko aukera ukatzea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

testualizatu, testualiza, testualizatzen du *ad* testuinguruan jarri.

Norberaren esperientziak **testualizatzen** hasiz gero, hariak eskutik erabiltzea dugu onena. **Javi Cillero**

testualki *adlag* hitzez hitz.

San Atanasioaren San Antonio Abadearen Bizitza-tik **testualki** hartua. **Askoren artean**

Hona, **testualki**, esan zuena: [...]. **Pako Aristi**

Ortega-k aski kuxidadez jokatzeko **testualki**, Schelling-i ez mintzarazteko "arrazaren mitoaz" (herriaren lekuan). **Joxe Azurmendi**

testuartekotasun (*orobat testu-artekotasun*) iz kultura bereko testuen arteko harremana. ik intertestualitate.

Intertestualitateari ere (**testuartekotasunari**, nahiago bada) lotzen zaizkio testu batek beste batekin edo batzuekin dauzkan harremanak, baina literaturaren ur handitan murgiltzen gara ia ohartu gabe. **Iñaki Arranz**

Berea ez omen da plagioa, intertestualitatea, **testu-artekotasuna** baizik. **Joxerra Garzia**

Testuartekotasuna da, hain zuzen, *Arbelaren gainean* liburuaren ezaugarri nabarmenenetako bat. **Berria - Kultura**

Testuartekotasun aberats hau dela-ta nazioarteko kritikak agurtu zuen liburu hau, bere garaian, posmodernismo literarioaren adibiderik gorena bezala. **Jon Alonso**

Testuartekotasunari dagokionez, zuhurra litzateke Grimm anaien ipuin ezaguna gogoan izatea, *Basoko loti ederra*. **Ibon Uribarri**

testudun *izond* testua duena.

Denbora luze horretan garatzen duen kintza bakarra txartel **testudunak** erakustea izango da eta testuetan bera prestatzen ari omen den ikuskizun baterako ideiak, burutazioak, desbideratzeak eta ideia nagusiaren berreskurapenak agertuko dira. **Berria - Kultura**

testugile (*orobat testu egile g.er.*) iz testuak egiten dituen.

Batasuna ezinbestekoa zen batzuekiko, gehienbat euskara lan tresna zutenendako: idazle, kazetari eta, batez ere, irakasle eta **testugileendako**. **Koldo Zuazo**

Kanona **testugileek** eta kritikoez zehazten dute, baina nik **testugileei** garrantzi handia ematen diet. **Ana Urkiza**

Ospe handiko beste zenbait idazle azaltzen da **testu egileen** artean, Tristan Tzara kasu. **Berria - Kultura**

Ez ninduke harritu behar orduko **testugilearen** eta lerro hauek idazten hari den dontsu honen arteko lubaki izugarriak? **Anjel Lertxundi**

testugintza iz testuak ontzea.

Horixe da horren **testugintzan** zatirik osotuena eta biribilena. **Andres Urrutia**

testuinguru (*orobat testu-inguru g.er.*) 1 iz hitz, esaldi edo pasarte bat inguratzen duen testua, eskuarki haren esanahia edo balioa argitzen duena.

Esaterako, "Euria ari du" edo "Il pleuit" edo "It's raining" perpausek proposizio bera adieraziko lukete **testuinguru** berdinean izanez gero. **Askoren artean**

Homonimia **testuinguruak** hausten du. **Iñaki Arranz**

Testuinguruaren informazioari esanahi finko hori gehituta lortuko dugu proposizioa. **Askoren artean**

Beraz, "provincia" hitzari **testuinguru** honetan interpretazio bat baino gehiago eman dakioko. **Askoren artean**

Homero ulertzeko Homeroren jatorrizko hitzak bere **testuinguruan** ezagutu behar baitira. **Askoren artean**

Ituna-ren **testuinguru** honetan, zaharren ahoan jartzen den esaldi horrek, Pobretasuna gutxietsia eta pertseguita izan zeneko denbora adieraziko luke. **Askoren artean**

Halako jakintasun berezi bat utzi nahi dute agerian, hitz teknikoak lekuz kanpoko **testuinguruetan** purrustean erabiliz. **Pello Salaburu**

Testuinguruaren barruan, ordea, "inguru-testua" eta "egoera" bereiztuko ditugu. **Testuinguru** berean honela ezaugarritu genuen arkaismoa: [...]. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Esaldi batek indar desberdina izan dezake **testuinguru** desberdinetan, eduki bera izan arren. **Askoren artean**

Zein da "ona" edo "zuzena" hitzen esanahia **testuinguru** moralaren baitan. **Askoren artean**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esaldi baten eta bera inguratzen dutenen arteko harremana, **testuinguru**-harremana, ez da berdina eleberri batetaz dihardugunean edo fisika-tratatu batetaz badihardugu.

Xabier Arregi

Alabaina, (10iii) [esaldia] ezin sor daiteke honelako gramatika baten bitartez, erregelek **testuinguru**-mugarik ezartzen ez badute behintzat. **Itziar Laka**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehen auzigunea Reichenbachek, geroago, aurkikuntza-**testuinguru** esapideaz bataiatu zuen; bigarrena, justifikazio-**testuinguruaz**. **Askoren artean**

Hau formulazio-**testuinguru** buruzko ikerketa litzateke. **Xabier Arregi**

4 gertaera edo kideko baten inguruko zertzeladen multzoa.

Testuinguru batean barregarri gertatzen dena negargarri gerta liteke beste **testuinguru** batean. **Joxerra Garzia**

Batasunak proposatzen zuena beste **testuinguru** batean proposatzekoa zen. **Berria - Euskal Herria**

Nolabait esatearren, esaldia, **testuinguru** hartan, iraultzailea suertatu zen. **Bernardo Atxaga**

Ingurune honetan, **testuinguru** jakin honetan, erdarek euskarak baino erraztasun handiagoa dutela komunikatzeko. **Pello Salaburu**

Kawabata japoniar literaturaren **testuinguruan**. **Ibon Uribarri**

Testuinguru horretan, sekulako sesiohide bihurtu zen, esaterako, gizakien arimari zegokiona. **Askoren artean**

Testuinguru horretan, borroka bide berri bat zabaltzea erabaki zuten solidarioek Itoizko urtegiaren aurka. **Edurne Elizondo**

Errealitatea gogoratzen duten osagarri naturalak baditu ere (koloreak, forma grafikoak) [...] osagai historikoak, **testuinguru** dituela batez ere adierazgarritasunak.

Josu Zabaleta

5 (izenondo eta izenlagunekin)

Zientzia beti **testuinguru** sozial batean sortzen da, eta ezagutzaren forma singular baten moduan eraikitzen. **Askoren artean**

Arte garaikideko museoak eta haien **testuinguru** soziala aztertzeko jardunaldiak eratu ditu Artium museoak. **Berria - Kultura**

Egungo **testuinguru** politikoa «hauteskunde aurrekoa» dela uste du Elorrietak. **Berria - Ekonomia**

Gipuzkoako enpresen erdiek txartzat jotzen dute datorren urterako **testuinguru** ekonomikoa. **Berria - Ekonomia**

Zenbait **testuinguru** historikotan autodefentsarako hartu izan direla armak. **Berria - Mundua**

Arrazoia jainkotzen zuen **testuinguru** filosofiko hartan, giza adimenaren ahalmenari buruzko ikuspegi neurtu edo erlatibista sortu zen filosofo batzuegan. **Askoren artean**

Egungo bertso saioek **testuinguru** naturala falta dutela eta, galtzen ari den filosofia berreskuratu nahi dute. **Berria - Kultura**

Perpau baten esanahia perpauak bere **testuinguru** konduktual eta linguistikoa ezartzen duen erlazio-sistema izango da. **Askoren artean**

Frantziskoren irudi benetakoa berreskuratzeko eta haren bizitza, idazkiak eta biografiak sortu ziren **testuinguru** konplexuan kokatzeko. **Askoren artean**

Horietako zenbait guretzat arrotz gertatuko lirateke, beren jatorrizko **testuinguruan** kokatuko ez bagenu. **Askoren artean**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Testuaren garrantzia aldatu egiten baita entzuleek eta bertsolariak partekatzen duten **testuinguru** trinkotasunaren arabera. Bestalde "dagoeneko frogatu da..." tankerako esaldiak enuntziatu ahal izateko **testuinguruko** baldintza zehatzak dakartzate eurekin, bilduko ez liratekeenak aurreko formulazioan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Hiru Lagunek" hurbiletik ezagutzen dituzte Asisko hiri-**testuinguru** eta ohiturak. **Askoren artean**

Teknologia mekanizatuak bazter utzia zuen orain gizarte- eta ekonomi **testuinguru** hura. **Iñaki Mendiguren**

Horri esker gaintu ahal izan zituen Europar Elkargoaren nukleo gogorak 80ko hamarraldiko finantza-gorabeherak diru-**testuinguru** aski egonkor batean. **Koro Navarro**

Gizarte **testuingurua**, erakunde **testuingurua**, testuinguru teknikoak, testuinguru ideologikoak. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurreko testuinguru (3); **bere testuinguru** (14); **beren testuinguru** (3); **beste testuinguru** (14); **beste testuinguru batean** (11); **beste testuinguru batzuetan** (3); **dagokion testuinguru** (3)

egungo testuinguru (12); **egungo testuinguru politikoa** (3); **egungo testuinguru politikoan** (5)

testuinguru berean (10); **testuinguru berezian** (4); **testuinguru berri** (3); **testuinguru berrian** (4); **testuinguru desberdinetan** (4)

testuinguru ezberdinetan (3); **testuinguru filosofiko** (3); **testuinguru historiko** (6); **testuinguru historikoa** (6); **testuinguru historikoak** (3); **testuinguru horretan kokatu** (11); **testuinguru horretan kokatzen** (3); **testuinguru horretan sortu** (5); **testuinguru horretan ulertu** (4)

testuinguru jakin (12); **testuinguru jakin bat** (3); **testuinguru jakin batean** (4); **testuinguru linguistiko** (3)

testuinguru orokorra (3); **testuinguru politiko** (16); **testuinguru politikoa** (10); **testuinguru politikoak** (6); **testuinguru politikoan** (10); **testuinguru soziala** (3)

testuinguru zehatz batean (4)

garaiko testuingurua (3); **testuingurua bera** (3)

testuinguruak eta borrokak (3)

bere testuinguruan (24); **bere testuinguruan kokatzeko** (3); **bere testuinguruan ulertu** (4); **beren testuinguruan** (4); **egunaren testuinguruan** (3); **egungo testuinguruan** (4); **europako testuinguruan** (3)

testuinguruan izan (3); **testuinguruan kokatu** (12); **testuinguruan kokatu zuen** (3); **testuinguruan kokatzeko** (4); **testuinguruan kokatzen** (7); **testuinguruan ulertu** (9)

testuinguruaren arabera (13); **testuinguruaren barruan** (5)

edozein testuingurutan (4)

bere testuingurutik (3); **testuingurutik kanpo** (10)

testuliburu (*43 agerraldi, 12 liburu eta 10 artikulutan; orobat testu-liburu 42 agerraldi, 12 liburu eta 14 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian testuliburu agertzen da*) **1** iz eskolan, ikastaroen lagungarri, erabiltzen den liburu.

Datorren ikasturteko **testuliburu** zerrenda. **Iñaki Mendiguren**

Bazirela, **testuliburu** agertu ez arren, nahitaez irakurri beharreko idazleak. **Ana Urkiza**

Biologiako euskal **testuliburuak** egiten ere ibilia da. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Logika elementalarri buruzko **testuliburu**. **Askoren artean**

Aloxana hori ez da oso gai arrunt edo ezaguna, ez dut uste kimika organikoko nire **testuliburu** zaharrak bost lerrotik gora eskainiko zionik. **Juan Garzia**

Gaur egun ez da ikasgairik **testuliburu** ez duenik, eta bertsolariak duena zaharkitua dago. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Jeinutasunik gabe eta poz-atseginik gabe ikasten zuen[...], parean jartzen zitzaion **testuliburu-atal** oro porrokatuz. **Juan Garzia**

testura **1** iz ehundura, egitura.

Zentzumenen zolitasun gaizto bat pairatzen omen zuen; janari motelena besterik ezin zuen onez eraman; **testura** jakineko arropak baino ezin jantzi zitzakeen. **Koro Navarro**

«Oihala dirudien **testura** lortuta, kalitate handiko argazkiak» egin ditu Shimamurak. **Berria - Kultura**

2 ukia.

Hobe **testura** uniformeko marmol-hauts aukeratua erabiltzea, bestela igeltsua lehenago lehortzen da eta ez du uzten lan osoa dena batera lehortzen. **Santiago Iruretagoiena**

3 irud/hed

Obra baten kalitatea da obrari igartzen zaion **testura**, usain, zapore, sentsazio berezi hori, diskutitzen ez dena. **Ana Urkiza**

Moldaketak egilearen bertsioetik ahalik eta hurbilenekoak izan daitezten saiatu gara, baina lehentasuna eman diogu erritmoak, tonalitateak, harmoniak eta **testurak** pedagogikoki egokiak izateari. **Berria - Harian**

Alderdi estetikoetik ere hiru dimentsioetako teknika berriek ematen dioten **testura** leunak gogaikarri egiten du [filma]. **Berria - Kultura**

Marrakzi burutuaren "azpian", haren itzalen, haren degradatuen, haren **testuraren** pean, marrazturiko objektuaz marrazkilariak duen egiturazko ezagutza irudikatzen duen "hezurdura" bat balego bezala. **Josu Zabaleta**

4 (hitz elkartuetan)

Errealitatean ikusten den "gauza bera" ikusten dela haietan ere: ikusmen-ertzak, koloreak, neurri eta **testura** gradienteak, eta abar. **Josu Zabaleta**

Hor ditugu, adibidez, hainbat sekuentzian erabilitako **testura** aldaketak, kameraren mugimendu azkarrak eta ahotsik gabe musika hutsarekin utzitako eszenak. **Berria - Kultura**

testutxo *izond* testu laburra.

Beste idazleoi **testutxo** bana eskatzen digute, horrela euren oroitzen liburua osatzeko. **Edorta Jimenez**

Fin-fin idatzitako **testutxo** batek honela jarraitzen zuen: Arazorik ez irtenbiderik gabarik. **Jon Muñoz**

Hilarriko **testutxoa**. **Anjel Lertxundi**

"Los hermanos Zubiaurre" aurkezpen **testutxoan**. **Joxe Azurmendi**

tetano ik **tetanos**.

tetanos (*orobat tetano*) *iz* eritasun kutsakorra, Nicolaiev-en baziloak eragina, gorputzean zaurietatik sartzen dena eta giharren uzkurte oinazetsuak eragiten dituena.

-Bost axola zait **tetanosa** -esan nion, uste osorik gabe noski. **Ramon Saizarbitoria**

Nire bezero bati iltze bat irten zaiola zolan eta **tetanosak** jota hil dela. **Juan Garzia**

Olibondo zahar haiek, ehunka urtekoak, bihurrituak, **tetanosak** jotako gaixoak ematen zuten. **Josu Zabaleta**

Artaxonan ez bainuen **tetanosaren** txertorik jartzeko astirik izan. **Ramon Saizarbitoria**

Amorruaren eta **tetanosaren** aurkako txertoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Erietxera eraman, eta **tetanoaren** aurkako indizioa ipini zidatenekoa. **Pedro Alberdi**

Larri nengoen, **tetanosaren** aurkako txertoa jartzeko denbora gehiegi ez ote zelako pasatzen ari. **Ramon Saizarbitoria**

tetel ik **tetel**.

teteldu, tetel(du), teteltzen du *ad* tetelka esan. ik **zezeldu**; **tetelkatu**.

-Barkatu - **teteldu** zuen-. **Koldo Biguri**

-Ileak lasteko moduko zerbait - **teteldu** zuen On Camillok-. **Koldo Biguri**

-Ez haserretu, nagusi - **teteldu** zuen Zakarrak, eskuadrarekin hanka eginez. **Koldo Biguri**

tetele (*orobat tetel eta tetelo*) **1 izond** ergela, inozoa.

Ez Jackie ez Marilyn ez dituk gaizoak, hi haiz bai, egiazko **tetelea**. **Itxaro Borda**

Jakizu nik holako **tetele** nahasiak jestu gutiz despeitzen ditudala! **Janbattiit Dirassar**

Iduritzen zaizu gure gizonak **teteleak** direla eta gure emazteek ez dutela zure ohearen egiteko baizik balio. **Elena Touyrou**

Gertakizunak bere hartan onartu beste biderik ikusten ez zuen **tetele** bat iruditzen zitzaion Norari bere aita, kalesa hartan atzera eta aurrera, eta arto-hostoz otarrea edo kapela egin beste iniziatibarik gabeko **tetele** nahi zuen aitak alaba bere ondoan. **Anjel Lertxundi**

-Baina erasoa jo aurretik hara non desagertu egin den, eta hi, **tetele** hori, esku hutsik utzi hau. **Patxi Zubizarreta**

Zu bai **tetela**. **Xabier Montoia**

-Isil hadi, **tetele**, arrunt mozkorra haiz! **Itxaro Borda**

Txotxongilo triste honek, gizajo **tetelo** babesgabe honek, Antjek dena esatea nahi nuen: zertarako gauden munduan, elkar maitatzea ez al den zilegi. **Fernando Rey**

2 (hitz elkartuetan)

Hori erran orduko, urriki bezala nuen, ene galdeak bazukeela **tetele** aire bat edo nik dakita zer. **Janbattiit Dirassar**

tetelekeria *iz* ergelkeria, inozokeria.

Ehun bat urrats egiten dituzte **tetelekeria** kondan, alde bat haserretzea baino hobe delakoan... **Eneko Bidegain**

Tetelekerietarik urrun Marydok bizia den bezala agertzen dauku batzuetan krudela beste batzuetan ezti bainan beti den bezala. **Herria**

teteletu, tetele(tu), teteletzen **1 da/du** ergeldu, inozotu.

Arras **teteleturik** joan zen bere lagunengana. **Eneko Bidegain**

Arrunt **teteleturik** agertu zen, burua urrun, hagitz urrun zuela. **Aingeru Epaltza**

2 (era burutua izenondo gisa)

Bere fidel **teteletuek**, inguruan, lelokeriaren bat errepikatzen duten bitartean? **Aingeru Epaltza**

tetelka *adlag* zezelka.

-Eta nik... -esan zuen **tetelka** Pepponek-, eta nik arratsalde oso bat pasatu ez nuen ba trasteari hegalak kentzeko! **Koldo Biguri**

tetelkatu, tetelka, tetelkatzen du *ad* zezelkatu.

Abadetxoa, aho-zabalik jarraitu ondoren Pepponekeren ekintza, zurbildu eta bere sermoitxoa ahal bezala **tetelkatuz**, aldarera itzuli zen meza bukatzeko. **Koldo Biguri**

-Nik - **tetelkatu** zuen berriro Meharrak- lapurretatxoren bat-edo egin dut, muturrekoren bat eman ere bai, baina inori ez diot kalterik egin. **Koldo Biguri**

tetelo ik tetele.

tetika *iz*

Tetika irakaspen dogmatikoen multzo bakoitza baldin bada, orduan antitetikaz ez ditut ulertzen aurkakoaren baieztapen dogmatikoak, baizik itxuraz dogmatikoak diren ezagutzen aurkakotasuna (*thesis cum antithesi*), non batak besteak baino uzi bereziagorik ez duen onartua izateko. Ibon Uribarri

tetina *iz* titiordea, gomazko titia.

Izan ere, egin nuen saio bakarrean, esterilizatzeko unean hain zuzen, zapuztu ziren alabari biberioia emateko aukera guztiak: su gainean ez nituen ba **tetinak** ahantzi, eta, ur guztia lurrundu ostean, ez zitzaizkidan ba eltzearen hondoan mirrin-mirrin eginda gelditu, halako usain nazkagarria zeriela. Joxan Elozegi

tetoki *iz* tea hartzeko tokia.

Hori dio, behintzat, Sasan-ek, gaur gauean Gaswingo Iran hoteleko **tetokian** ezagutu dudan gizonak. Jon Arretxe

Haiei begira egon naiz apur baten, **tetokiko** zerbitzari biak, Sasanen lagunak, gure alboan jesarri diren arte. Jon Arretxe

Ez da, ordea, horretarako abagunerik izan, hortik pixka batera **tetokiko** arduradun nagusiaren etorrerak nire asmo onak erabat zapuztu ditu eta. Jon Arretxe

tetrabrik (*orobat tetra-brik g.er.*) *iz* paralelepipedo itxurako ontzia, kartoi iragaitzekoa, elikagai likidoak edukitzeko erabiltzen dena.

Isilaldia egin zuen Mister Martinek **tetrabrik** bat irekitzeko. Jon Arretxe

Zuek hipermerkatuko lerrokada hits batean zaudete, **tetrabrik** bat eskuan, zain. Jon Alonso

Erosketak egiterakoan *Berria* kooperatibak ekoizten duen behi esne **tetra-brik**-aren etiketan ez da ageri kooperatibak laborariei esnea merkeago erosten diela. Berria - Ekonomia

Vanessa dutxan, Vanessa kaka-lekuan, Vanessa **tetrabrikeko** ardoaz mozkortuta konpresa zikina aldatzen... Patxi Iturritegi

Berehala ohartu nintzen haren alboan ia ardo hutsez elikatu beharko nuela, **tetrabrikeko** ardo txarraz. Jon Arretxe

tetraedro *iz*

Tetraedroa, oinarri triangeluarreko piramidea, lau aurpegiak triangelu aldekin dituen; kubo, sei aurpegiak karratuak dituen. Jon Muñoz

tetraetilo *iz* kimika organikoko gaia, gasolina berundunaren osagaia.

Berun **tetraetiloa** (gasolinak eduki ohi duena) eta paration intsektizida, berez toxikoak ez izanagatik, oso konposatu pozoitsu bihurtzen dira gibelego entzimen eraginez. Irene Aldasoro

tetragrammaton *iz* israeldarren jainkoaren lau letren multzoa.

Ez dago Jainkoaren izenik (gorets bedil) eratorria ez denik, **tetragrammatona** salbu. Xabier Kintana

Gaur, ordea, judu ez diren adituen artean jatorrizko *Yahweh* forma hobesteko joera dago berrito ere, autore guztiak **tetragrammaton** hori berdin letraldatzen ez duten arren. Xabier Kintana

Garbi dakusazu, hortaz, *-em ha-mefôr* hori **tetragrammatona** dela, Jainkoaren esentzia adierazten duen bakarra. Xabier Kintana

Behin Simon Zuzena hil eta gero -doktoorek diotenez- haren apaiz anaiek alde batera utzi zuten izenaz **tetragrammatonaz** bedeinkatzea. Xabier Kintana

tetrahidrogestriona (*orobat tetrahydrogestriona*) *iz*

San Jose Mercury News AEBetako egunkariaren arabera, Kostas Kenteris eta Ekaterina Thanou atleta greziarrek Balco laborategiek ekoiztako THG (**tetrahidrogestriona**) esteroidea hartu zuten. Berria - Kirola

NBAk THG sustantzia (**tetrahydrogestriona**) debekatu du. Berria - Kirola

tetrahydrogestriona ik tetrahydrogestriona.

tetrakordio (*orobat tetrakordo g.er.*) *iz* interbalo laudun bat osatzen duten lau notako saila.

Hiru modulazio-mota hauean desberdina izaten da **tetrakordioen** antolaketa: modulazio harmonikoak bi tonu ditu **tetrakordioan**, eta bi diesi edo tonu-laurden (diesi tonuaren laurdena da; beraz, tonuerdi batean bi diesi jarri behar dira); **tetrakordio** kromatikoak bi tonuerdi ditu elkarren jarraian, eta hirugarren bitartean hiru tonuerdi ditu; **tetrakordio** diatonikoak bi tonu ditu elkarren jarraian, eta hirugarren tonuerdiarekin bukaera ematen zaio **tetrakordioari**. Santiago Iruretagoiena

Tetrakordioak bost dira: lehenengoa baxuena da, grekoek *hypaton* deitzen dutena; bigarrena tartekoa da, eta *meson* esaten zaio; hirugarrena konjuntua da, eta *synhemmenon* deitzen zaio; laugarrena disjuntua da, eta *diezeugmenon* deitzen da; bosgarrena denetan altuena da, eta grezieraz *hyperbolaeon* esaten zaio. Santiago Iruretagoiena

Tonu, tonuerdi eta **tetrakordioen** bitartean arabera banatu eta jarri ditu naturak ahotsarentzako mugak. Santiago Iruretagoiena

Horren luzeran erreten batzuk jartzen dira: organoa **tetrakordoa** baldin bada, lau; hexakordoa bada, sei; oktokordoa bada, zortzi. Santiago Iruretagoiena

tetrakordo ik tetrakordio.

tetralogia 1 *iz* gaiaren aldetik halako batasuna agertzen duten lau literatura- edo musika-lanen multzoa.

Balearen barbaroa **tetralogia** baten lehen liburua da. Markos Zapiain

Horren ondoren sail bereko beste batzuk etorri dira, **tetralogia** bat osatu arte (*Ince Memed* II, III eta IV; 1969, 1984 eta 1987). Fernando Rey

2 (hitz elkartuetan)

Lars Von Trier zinema zuzendariak ez du, azkenean, Richard Wagnerren *Der ring des nibelungen* (Nibelungoen eraztuna) opera **tetralogia** taularatuko. Berria - Kultura

tetrapak *(corpusean tetra-pak soilik) iz tetrabika.*

Pintako hiru botoilo edo **tetra**-pak mota desberdinetan salgai da. Herria

tetrapilo *iz erromatarren monumentu mota, oinarri karratukoa, lau ate, alde bakoitzean bat, dituen.*

Turista guztiak liluraturik zeuden argi-ilunetan agertzen zitzaizkien mirari haien aurrean, eta, arkitektura zoragarri haren opari gehiago ikustearen egarriz, iritsi ziren, azkenik, **tetrapilora**. Jose txo Azkona

tetraplegia *(orobat tetraplejia) iz lau gorputz adarren paralisia.*

Humbert **tetraplegiak** jota zegoen istripu baten ondorioz, eta 2003. urteko irailean hil zen. Berria - Gaiak

Izen bana ere emana nion gaixo bakoitzari neure golkoan, eta haien istorio iraganak (gris eta tristeak guztiak) eta etorkizunerako izan zezaketen itzaropenak (**tetraplejia**, afasia, higimen-desoreka...) irudikatuz arintzen nituen ordu luzeak. Anjel Lertxundi

tetraplegiko *(orobat tetraplejiko) 1 izond/iz tetraplegiak jo duena.*

Biziaren bukaerari edo eutanasiari buruzko eztabaida pil-pilean jarri zen Frantzian, Vincent Humbert gazte **tetraplegikoaren** kasuaren ondotik. Berria - Euskal Herria

Bitoriano Gandiaga frantsiskotarra da lehenaren egilea, Ramon Sampedro **tetraplejikoa** bestearena. Pako Aristi

Hiltzeko eskubidea aldarrikatu eta orain dela zazpi urte zendu zen Ramon Sampedro **tetraplegiko** galiziarrak. Berria - Harian

2 (izenondo gisa)

Once Caldas taldeko entrenatzaile ohia tirokatu dute, eta **tetraplejiko** geratu da. Berria - Kirola

Gaztetan, futbolean jolasten ari zela, istripu batek **tetraplegiko** utzi zuen Ahmed. Berria - Mundua

3 irud/hed

Fiona ere lausotzen ari zaizu, eta luze gabe oroipen **tetraplejikoen** artean egongo da. Lutxo Egia

tetraplejia ik tetraplegia.

tetraplejiko ik tetraplegiko.

tetrapodo *iz urlehotarrak, narrastiak, hegaztiak eta ugaztunak biltzen dituen taldeko animlia.*

Tetrapodoek ez zuten lehorra konkistatu, uretatik ihes egin zuten. Berria - Gaiak

tetrastilo *izond/iz tenpluez, atariez eta kidekoez mintzatuz, aurrealdean lau zutabe dituen.*

Goian triklinioen proportzioei buruz idazterakoan esandakoa jarraituz, sala korintoarrak eta **tetrastiloak**, eta berebat egiptoarrak deitzen direnak, arrazoi hori bera izan beharko dute zabalaren eta luzeraren artean, baina tartean kolomak sartuko direnez, lekuz zabalagoak egin beharko dira. Santiago Iruretagoiena

Atrio **tetrastiloak** angeluetako kolomak ditu haben azpian. Santiago Iruretagoiena

Tenplu doriarraren aurrealdea bana dezagun doi-doi, kolomak altxatzen diren lerroan hartuta, hogeita sei partetan tenplua **tetrastiloa** izango baldin bada, eta berrogeita bi partetan tenplu hexastiloa izango baldin bada. Santiago Iruretagoiena

Tenplua eraikitzeko izango den lekuaren aurreko aldea bana bedi, **tetrastiloa** izan behar badu, hamaika eta erdi zatitan, plintoak eta koloma-oinarrien proiektzioak kontatu gabe. Santiago Iruretagoiena

tetraziklina *iz espektro zabaleko antibiotikoa, Streptomyces vidirifaciens bakteriotik lortzen dena.*

Tetraziklinak porrokatu egin zituen jendeak gorputzean zituen bazilo arrikutsu guztiak. Gotzon Garate

tetriko *izond ilun-goibela, goibeltsua.*

Nik ez dizut gezurrik esan, hemen istorioa kontatu zuten bezala, bere ukitu **tetriko** eta guzti, errepikatzea besterik ez dut egin. Pako Aristi

Auzo fantasmagorikoa, **tetrikoa**, hutsa. Sonia Gonzalez

Donostiako portalean, gurutze bat omen dago eta Kristo odola dariola irudian, nahiko **tetrikoa**. Koldo Izagirre

Tetrikoa da, heriotza hurbil ikusten zuelako agian. Berria - Kultura

teutoi *(orobat teuton g.er.) izond/iz baltiar kostaldean kokatu zen germaniar herriari dagokiona. ikteutoniko.*

Orduan, lehenengo, barbaro akeoak ikusi zituzten "Minosko talasokraziaren" lehorreko muga europarraren hurbiltasunagatik asaldatuta, eta gero barbaro **teutoiak** ikusi zituzten esperientzia berbera jasaten Erromatar Inperioaren lehorreko muga europarraren hurbiltasunaren ondorioz. Iñaki Mendiguren

Daniarren, zaldun **teutoien**, suediarren eta errusiarren menpe egondakoa da. Berria - Mundua

Zaldun **teutoiak** eta euron etsaiak denak dira iraganak eta iraganeko, Historiako lainoetan oroigarri huts. Edorta Jimenez

Guk, nolabait errateko, XX. mendeko zaldun **teutoiak** izan behar genuen, Reich Berriko gerlari gaindiezinak eta ideal nazionalsozialistaren babesleak. Alberto Ladrón Arana

Argazkiotako batzuetan, horra **teutoien** egoitza nagusi eta gotorleku gailena izaniko hura, kasik erabat eraitsirik. Edorta Jimenez

2 alemana.

Itzuli naizenaikin ia atzetik iritsi da azafata **teutona** galanta botila oihalean bilduta, haurra bailuen. **Pako Aristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zaldun teutoien (5)

teuton ik **teutoi**.

teutoniera *iz* teutoien hizkuntza.

Liutprando bere onetik aterarazi zuenean, enperadoreak **teutonieraz** mintzo ziren Mendebaldeko lagunetik elkartasuna aldarrikatzera akuitatu zuen latindar apopiloa, "erromatar" guztien aurkako ezinikusi komunean. **Iñaki Mendiguren**

teutoniko *izond* teutoiena, teutoiei dagokiena.

Islama izan zen barbaro garaile haien erlijio bereizgarria, arianismoa Erromatar Inperioko zenbait probintziaren konkistatzaile **teutoniko** gehienen erlijioa izan zen bezalaxe. **Iñaki Mendiguren**

Ez gara geratuko aurrean etorkizunik ez zeukaten estatu barbaro **teutonikoen** ohiturretan. **Iñaki Mendiguren**

Beren parekide **teutonikoek** ez bezala, arabiar musulman primitiboek zakar astindua zuten beren bizimodu arkaiko tradizionala. **Iñaki Mendiguren**

Zaldun **teutonikoek** Siria utzi eta beren zoriona Vistulan bilatu zuten prusiar, letoniar eta estoniar paganoen bizkar. **Iñaki Mendiguren**

Ordena **Teutonikoko** bizimodu erosotik halako Ordena apal eta zorrotzera beheratu zela. **Askoren artean**

Predikarien Ordenako Maisu jeneral Joan **Teutonikoak** entziklika bat bidali zien domingotarrei Anaia txikienganako onginahia eta onarpena aholkatuz. **Askoren artean**

tex-mex 1 *iz* musikaz mintzatuz, texastar-mexikarra.

Una sangre, one blood diskoan argi geratu zen Oaxacakoak Mexikoko zein AEBetako folkloreak erroko arakutzen zein ondo dakien, zydeco, cajun, **tex-mex**, blues, corrido eta abar zintzo jorratuz. **Berria - Kultura**

Kantuen zerrendak denetarik erakutsi zuen: countrya, bluesa, **tex-mex** pixka bat (gaztelaniaz kantatua), rockabillya, folk doinuak, rock&rolla, amodiozko balada sutuakÉ eta beti, dotoretasunez eta sentimenduz. **Berria - Kultura**

Musika ere halakoxea, cowboy trauskil eta artaburuentzako bazka: The Picketts, Long Ryders, Supersuckers, eta azken bolada honetan **tex-mex** gogaikarriena, Flaco Jimenez eta Tish Hinojosaren eskutik. **Patxi Iturritegi**

2 irud/hed

Triestearrek italieraz jarduterakoan egiten dutena da, dialektoarekin eta estandararekin egindako **tex-mex** halako bat. **Berria - Kultura**

texar ik **texastar**.

texastar (*orobat texar*) *izlag/iz* Texasekoa, Tesaxi dagokiona; Texaseko herritarra.

Thomason **texar** mutur-sendo bat zen, berrogeita zortzi urtekoa. **Edorta Jimenez**

San Antonio Spursek Dallas Mavericks mendeant hartu zuen (113-100), bi talde **texarren** arteko lehian. **Berria - Kirola**

Texastar batek aukera handiagoa du heriotza zigorrera kondenatua izateko epaiketa batean newyorkar batek baino. **Pello Salaburu**

texto ik **testu**.

textu ik **testu**.

thailandar ik **thailandiar**.

thailandera ik **thailandiera**.

thailandiar (*orobat thailandar g.er.*) *izlag/iz* Thaiandiakoa, Thailandiari dagokiona; Thaiandiako herritarra.

Thailandiar musika [...] emeki entzuten zen ostatu txiki hartan. **Iñaki Zabaleta**

Biharamunekoa finkatua baitzen, Mikelek erabaki zuen gidak aholkatzen zuen **thailandiar** jate txete batetara joatea afaltzera. **Ramuntxo Etxeberri**

Ostatu **thailandiar** bat ezagutzen dut Broadway eta 82. kalean. **Iñaki Zabaleta**

Joyce nire apartamentura etorri zen, arratsaldea film bat ikusiz eta jaki **thailandiarra** janean igarotzera. **Oskar Arana**

Diru ahulenen erorikoak (bath **thailandiarra**, erropia indonesiarra, ringgit Malaysiarra...), izan ere, eskualdeko beste diruen apreziazio erreala esan nahi zuen. **Koro Navarro**

Mundu guztikoak, bat suediarra, beste bat brasildarra, beste bat **thailandiarra**, beste bat aljeriarra. **Joseba Sarrionandia**

thailandiera (*corpusean thailandera soilik*) *iz* Thaiandiako hizkuntza.

Hiztun ingelesek [...] ez dute *p/ph* desberdintasuna bereizten; **thailanderaz** berriz ez dago nahasterik, esanahia bereizteko erabiltzen baitira. **Lourdes Oñederra**

thalasoterapia ik **talasoterapia**.

thriller 1 iz suspentse edo misterioko filma edo eleberria.

Nire helburua literarioa zen, **thriller** bat egitea. Berria - Kultura

Thriller bat bagoian irakurtzeko. Javi Cillero

Eta ez esan hori **thrilleretan** baino ez dela gertatzen. Javi Cillero

Gaur egun, **thriller** onek kasik soziologia liburuek bezainbat irakasten dizute unibertso batzuei buruz. Berria - Kultura

Horietaiko multzo bati iraganeko mamuen itzulera deitu dakiok, **thriller** baten titulu baten antzera. Berria - Euskal Herria

Tolesduraz beteriko argumentua, **thriller** psikologikoaren moldeak darabiltzana. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Epaimahaiak azpimarratu zuen aurkeztutako eleberrietatik hiruk **«thriller»** giroa» zutela. Berria - Kultura

Elkarrizketa biziak, bat-batean ebakitzen diren plano labur-azkarrak, batzuetan **thriller** kutsua hartzen duen tentsio ongi eramana. Berria - Kultura

Ez da film sozial horietako bat, **thriller** generoan erraz sailka daitekeen bat baizik. Berria - Kultura

tiara 1 iz Aita Santuaren burukoa; eliza ortodoxoko buruzagien burukoa.

Aureola santutasun goitarago baten zeinuztat hartzen da, apezpikuen mitra edo Aita Santuaren **tiararen** gisara. Xabier Olarra

Heresiarika [...] jartzen zuen **tiara** batez burua estalirik sutzarrean erre zuten erlijioaren ortodoxiaren izenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 ekialdean buruzagitza-ikur gisa erabiltzen den burukoa.

Urdinez jantzitako gerlariak ziren, eta **tiara** beltz bana zeramaten beren durbanteen gainean. Xabier Aranburu

3 diadema.

Eta diamantezko **tiara** zoragarri hori janztea erabaki dun? Xabier Paya

tibetar 1 izlag/iz Tibetekoa, Tibeti dagokiona.

Indiako satelite baten irudiek azaltzen dute aintzira **tibetarraren** urak nabarmen hazi direla. Berria - Mundua

Txinako Gobernuak bost erlijioso **tibetar** espetxeratu ditu, Olinpiar Jokoen antolakuntza kritikatzegatik. Berria - Kirola

Handik goiti, aurpegi mudagaitz berberarekin hartuko nituen elkarren segidan etorri ziren guztiak: kirologia, radiestesia, alkimia, bidaia astralak, filosofia **tibetarra** eta, hutsik egin gabe, horiei denei zegozkien "Taldeak". Aingeru Epaltza

2 Tibeteko herritarra.

Tibetarren buruzagi espirituala. Alberto Ladron Arana

2005eko maiatzean atxilotu zituzten aipatu bost **tibetarrek**, Tibeten independenziaren alde eta Olinpiar Jokoa Txinan egitearen kontra paskinak banatzen ari zirela.

Berria - Kirola

Arraza mongoliar garbia, aldiz, mongoliarrek, mantxuek eta **tibetarrek** osatzen dute. Karlos Zabala

Azken bost edo sei mila urteetan zutik egondako kultur eginkizun bati berriro ekiteko zeregina **tibetarrei** egokituko zitzaieela agian. Iñaki Mendiguren

tibia 1 iz berna-hezurra.

Presoaren arreba ospitalean da, **tibia** hautsita eta ebakuntzaren zain. Berria - Euskal Herria

Izterraren gainaldeko muskulua **tibiari** loturik dagoen tendoi batean amaitzen delako gertatzen da erreflexu hori. Irene Aldasoro

Otegiren seme bat Frankoren **tibia** batekin xirula jotzen ari dela. Patziku Perurena

Menieuri zango hezurra (**tibia**) hautsi zitzaion orain dela 10 egun. Berria - Kirola

2 tibia-hezur

Belaunezur edo **tibia-hezur** higaturen bat, etengabe barkamena eskatzen duela dirudien sorbalda keinu bat, [...]. Harkaitz Cano

1997ko otsailean **tibia** eta perone **hezurrak** hausteak ez zion asko lagundu. Tiroka ekin zioten ordea, eta ezkerreko zangoko **tibia** eta perone **hezurrak** hausteaz gain izterrean ere sartu zioten beste bala bat. Berria - Kirola

tibiri-tibiri

Gaubean Lekeitioko San Antolinetara joan ginan eta hor hasten naz kalean **tibiri-tibiri**, neure lagunen artean, orduan kanta subertsiboak ziran Eusko Gudariak, Agur Zuberoa, Gora ta gora Euskadi eta holakoak jotzen. Xabier Amuriza

tiborta iz arraunari heltzen zaion zatia.

Usaia ukan behar du batek arraunlari izateko, leunduena izanagatik ere **tibortaren** igurtziak, berrinen berriz, baba sortzen baitu, lehertu zartatu odoldu, zauri eginda uzten dizu eskua. Koldo Izagirre

Arraunean hasi nintzen neu ere, disimuluez futituta, bihotza punpaka, Engelsek **tibortak** niregana hurreztatzen zituenero enbor banatik heldu eta "Aarraun!" aitzina egiten niela bulka, "Aarraun!". Koldo Izagirre

tiburoi iz marrazoa.

Itsasalderago, lakuko urgain zabalean, **tiburoiaren** bizkarreko hegatsak ur azala ebaki duela iruditu zait. Joseba Sarrionandia

Hausnartzearen poderioz, putzua itsaso bihurtu zen, eta arraintxoak **tiburoi** eta balea. Anton Garikano

Timorreko irlara etorri zenean, Sawu, Timor eta Sondako itsaso epel eta **tiburoiez** betetakoetan perlak bilatzera bultzatu zuena ez zen izan diruzaletasun edo aberasogoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Piraten filmetan-eta fiilbusteroburuak heroiaren neska **tiburoietara** bota nahi izaten duen bezala. Anjel Lertxundi

Burdinazko pisu bati loturik eta perla beltza kolkoan, salto egin zuen uretara, **tiburoien** bazka eginik. Xabier Mendiguren Elizegi

Haragi fresko eta odoltsuaren usainaren presentzia hurbila aditzen duten **tiburoien** gisa. Xabier Mendiguren Elizegi

ticket ik tiket.

tiermondista iz hirugarren mundukoa.

Amikuzeko **'tiermondista'**, erreboluzionia Euskal Herrian ere piztu nahi duena? **Piarres Aintziart**

tiffoysi ik tifosi.

tifoi 1 iz tropikoko hurakan mota. ik urakan.

Giza jardueren ondorioz Louisianako kostaldean gertatutako higadurak eta paduren murrizteak zikloi, **tifoi** eta urakanen kontrako babes natural garrantzitsua desagertzea eragin dute. **Berria - Harian**

Filipinetan, eurite garaietan, urtero hogeit bat **tifoi** eta ekaitz tropikal pasatzen dira. **Berria - Mundua**

Suzukako zirkuituko arduradunak arduratuta daude, eguraldi iragarpenen arabera, asteburuan **tifoi** batek astinduko baitu Japonia. **Berria - Kirola**

Bapore noragabetua **tifoiak** hustutako portuan. **Aingeru Epaltza**

Winnie **tifoi**a Txina Hegoaldeko itsasorantz doa eta indarra galtzen ari da. **Berria - Mundua**

Rananim deituriko **tifoi** honek 115 hildako eta 1.800 baino zauritu gehiago eragin ditu oraingoz. **Berria - Mundua**

Tifoi baten buztanaren eragin apala pairatu zuen hiri batean. **Jon Alonso**

2 irud/hed

Neure bigarren koplan hasteko prest nengoen -moztu beharra zegoen inolaz ere barrezko **tifoi** hura-, gizenak hala zehaztu zuenean: [...]. **Joxan Elozegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tifoiaren ondorioz (4)

tifoide iz

Ustez pleuresia zena, gibelesko lesioa zela ager zitekeen; **tifoide** bat egiazko gripe bihurtzen zitzaion. **Josu Zabaleta**

tifoidea iz sukar tifoidea.

Formula injektatzea bihotzean biki judu nahiz ijitoei, begi heterokromatikoak ateratzeko; edo **tifoidea** inokulatzea haurrei, biki unibitelinoen eta bititelinoen erreakzioak erkatzeko. **Juan Garzia**

tifoideo iz tifusarena, tifusari dagokiona. ik tifus 3.

Aracil doktoareak, Julioaren familiartekoak, ikusi zuen mutiko gaixoa, eta handik egun gutxira sukar **tifoidea** zuela esan zuen. **Josu Zabaleta**

Hemen, udan batez ere, ia ez da izaten gaixorik, kolikoren bat edo beste, enteritisen bat edo beste, sukar **tifoideozko** kasuren bat inoiz edo behin. **Josu Zabaleta**

tifosi (orobat tifossi eta tifossi) iz kirol talde baten zale sutsua.

Gaur Italiako elastikoa azken aldiz jantziko du, Espainiaren kontra, **'tifossi'**-ek eskatuta. **Berria - Kirola**

Tifosiak hasi dira bien arteko parekotasunak bilatzen, baina egun, mundu bat dago bien artean: Tombak 40 garaipen lortu zituen Munduko Kopan, eta Roccak hamar eskas ditu. **Berria - Kirola**

Ikastolako futbol taldea zela eta, zelairik zelai ibili behar izan genuen bolada batean gurasoak, hamaika partidatan **tifosiarena** eginez. **Joxerra Garzia**

Zaleen bihotza biguntzeko *fuoriclasse* izan behar da, baina Nedvedek konpromisoari esker lortu du **tifossi**-en estimua. **Berria - Kirola**

tifossi ik tifosi.

tifus 1 iz sukar handia eta sorgortasuna eragiten duten zenbait eritasun kutsakorren izena.

Azteko egurrezko kutxetan bizi ziren gehienek disenteria edo **tifusa** zuten. **Urtzi Urrutikoetxea**

Euli horiek helduz gero **tifusa**, legenarra, minbizia eta hazteria biltzen ziren. **Pello Lizarralde**

Herri bereko emakume bat **tifusak** hartu zuen eta azkenetan zegoen. **Askoren artean**

Herri bereko emakume bat **tifusak** hartu zuen eta azkenetan zegoen. **Askoren artean**

Ni prest nengoek elefantiasiari, izurri bubonikoari eta **tifusari** aurre egiteko, zulo honetatik irtearren. **Lopez de Arana**

Bi alaba [...] **tifusa** pasatu eta gero hil zitzaizkien. **Iñigo Aranbarri**

Asko eta asko **tifusez**, disenteriaz edo antzeko gaitzez hil ziren, osasunerako gutzit kaltegarriak ziren leku itxietan pilatuta egon eta gero. **Berria - Kultura**

Jende deportatu hura hirugarren xede baterako ere erabili zuten: SSko medikuek hainbat esperimendu egin zituzten eurekin, **tifusa**, antzutea, hotzarekiko erresistentzia e.a. ikertzeko. **Urtzi Urrutikoetxea**

2 (izenondoekin)

Tuberkulosia, **tifus** exantematikoa (zorri berdea), sarna, eromena... **Jokin Urain**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik tifoideo.

Hango higie egoera negargarriaren ondorioz, **tifus** epidemia bat izan zen; milaka espetxeratu hil ziren. **Josu Zabaleta**

Ospitalera iritsi eta denbora gutxira **tifus** erien salara eraman zutela esan zion. **Josu Zabaleta**

Frantses osteeek haren herria mendean hartu, eta legen- edo **tifus**-izurri bat ekarri zuten, ez naiz ondo oroitzen zerena. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tifusa harrapatu (3)

tigre 1 iz ugaztun haragijalea, Asia eta Indonesiako, handia eta indartsua, ile horia beltzez marratua duena, oso basatia, harrapakin bila gauez ateratzen dena (*Panthera tigris*).

Tigreak, elefanteak, krokodiloak, kobrak eta ziminoak gizakiekin adiskidetasunean bizi diren lurraldea. **Gotzon Garate**

Nire eskuek, dilindan, **tigrearen** zetazko ile leun ukuitua sentitu zuten ikaraz. **Eskarne Mujika**
Gu New Yorken egon ginen egunetan, Bronxeko zooko **tigre** batek ihes egin zuela. **Patxi Zubizarreta**
Tigreei gezi loeragileak jaurtitzen dizkiete. **Gotzon Garate**
Hasieran tatuaje normalak erabiltzen nituen; **tigre** baten burua zakil puntan, eta horrelakoak. **Jon Alonso**
Bi **tigre** oihan batean. **Berria - Harian**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Katu handi bat edota **tigre** txiki bat -esan zion Harryk. **Iñaki Mendiguren**
Tigre zauritu baten antzera uzkurtu nintzen. **Juan Kruz Igerabide**
Tigre kaiolatuaren antzera. **Joxemari Iturralde**
Halako orrialdetik **tigre** marratuak begiratzen zigun. **Joseba Sarrionandia**
Tigre disekatua, laratza, malboro paketea, hauspoa, betamax, dena nahastean eta ostetasun nabarmenean. **Joseba Sarrionandia**
Niri zinema gustatzen zait, esan nien, maite dut Greta Garbo, maite ditut zeluloidezko **tigre** Bengalakoak. **Harkaitz Cano**
Sable-horztun **tigre** eme alaena! **Mirentxu Larrañaga**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hartan, indiar batek, bezituriak eta estalirik **tigre** -larru batez, bere dantza dantzatzen zuen bertze indiarren aitzinean. **Joan Mari Irigoien**
Tigre -itxurako katu bat zegoen Privet Driveko kantoian. **Iñaki Mendiguren**
Baita **tigre** ehizan ari denean ere. **Iñaki Arranz**
Oroitu nuenean **tigre** -hezitzaileak errana, noiz eta jakinarazi baitzigun ezen suerte hartako tigreak ez zirela gizonen aurka oldartzen. **Joan Mari Irigoien**
Orga hartan **tigre** -bezatzaile bat zetorren, Cádizko andaluz hitzontzi bat. **Joan Mari Irigoien**
Supazterra, laratza, hauspoa, **tigre** buru disekatua, telebista, [...]. **Joseba Sarrionandia**

4 irud/hed

Pertsoneri trapuzko **tigreei** edo untxi-larruei eskatzen ez diegun beste zerbaitek eskatzen diegu. **Edorta Jimenez**
Tigre horietako bat eraman ziola Tadeuszi, Stanislaw bere lagunaren semeari, eta oparia ez zitzaiola asko gustatu: Stanislawen etxera egindako hurrengo bisitetan, jostailuen kaxatxoan aurkitu zuen beti. **Iban Zaldua**
Oso grafikoki ikusi zituen gazte horiek José Ortega y Gasset-ek, hiri xehe bateko kasino batean silloien peluxeetan beren **tigre** -atzaparrak zorrotzen. **Josu Zabaleta**

5 tamilen askatasun higikundeko gudariei ematen zaien izena.

Bihar **tigre** tamilek srilankar soldaduei egindako setioaren urteurrena beteko baita. **Joseba Sarrionandia**
Segurtasun indarren iritziz, tamil **tigreak** izan dira erantzuleak. **Berria - Mundua**
Zazpi tamil **tigre** hil dituzte Baticcaloa hiririk gertu. **Berria - Mundua**
Tigre abertzaleok badute askatasunaren alde beren buruez beste egiteko gerturik dagoen talde berezi bat. **Gotzon Garate**
LTTE Tamil Eelameko Askatasun **Tigreak** erakunde armatua sortu zuten tamilek. **Berria - Mundua**

6 tigre eltxo

Asia hegoaldean bizi ohi da *aedes albopictus* edo **tigre eltxoa** . **Berria - Gaiak**
Tigre eltxoak aurkitu dituzte Sant Cugat herrian, Bartzelonan. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tigre bat bezala (3); **tigre bezatzaile** (3)

askatasun tigreak (16); **eelameko askatasun tigreak** (10); **tamil tigreak** (6); **tigreak gerrilla taldearen** (3)

tamil tigreei (9)

eelameko askatasun tigreek (5); **tamil tigreek** (27); **tigreek independentzia aldarrikatzeko** (3)

tamil tigreen (21)

tigrekume iz tigrearen umea.

Belgradon hiru **tigrekume** jaio ziren. **Gotzon Garate**
Zakurra eta **tigrekumeak** . **Gotzon Garate**

tigreme iz tigre emea. • irud/hed

Deus ikustekorik ez, astebete lehenago etxe horretan berean azaldu zitzaidan martini-zahagi likitsarekin, eta are gutiago hiru egun aitzin "Lisboan" eraso zidan **tigremearekin** . **Aingeru Epaltza**

tigrina iz Eritrean mintzatzen den hizkuntza.

Izan ere, **tigrina** . Eritreako hizkuntza, silabikoa da, eta alfabeto latinoa ez zuten ezagutzen. **Joxerra Garzia**

tijereta iz kaio mota beltza.

Beltza den kaio mota bat da **tijereta** . **Pako Aristi**
Zerua **tijeretaz** beteta dago. **Pako Aristi**

tik-tak (orobat tiktak eta tik-tok) 1 erlojuaren edo kidekon hotsaren onomatopeia.

Erlouju bat irentsi zuen eta **tik-tak** egiten dio tripetan. **Julen Gabiria**
Kabinako erlojuak **tiktak** egiten zuen. **Fernando Rey**
Oso ongi jolasten zen, **tik-tak** , **tik-tak** , alde batetik bestera, gozamina zen ikuskizuna. **Joxe Austin Arrieta**
Uhinak lehen baino askoz ere ozenago aditzen ziren, behe-solairuko ping-pong soinuaren artetik ere, **tik-tak** , **tik-tak** . **Joxe Austin Arrieta**

2 (izen gisa)

Ezin nau harrapatu, **tik-tak** hori entzun eta alde egiteko astia izaten dudalako. **Julen Gabiria**
Beste nonbait ere aditu nuen segundo orratzaren **tiktak** hori. **Fernando Rey**
Tik-takaren oihartzuna heldu zitzaion, hain adi jarri baitzen entzuten. **Julen Gabiria**
Erabaki zuen **tik-taka** berak egitea. **Julen Gabiria**

Erlouari begiratzuz gero, sasoi bateko **tik-tak** zaratsusuek eta gaurko argitxo distiratsuek erritmo bera daukate. Berria - Euskal Herria

Krokodiloak besoa jan zion Kako-okerrri, eta tripan darama beso hartako erlojua ere, **tik-tak** etengabe. Julen Gabiria

Iratzargailuaren engranaje zaharrek beren **tik tak tik tak** etengabea jarraitzen dute. Joseba Sarrionandia

Sukaldearen paretan zintzilik ezarria zen ordulariaren **"tik-tok"** erregularrak bihotza xixtatzen zionaldi bakoitzean. Ramuntxo Etxeberri

3 (izen gisa hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Osaba zahar baten etxeko horma-erlojuko atea ireki eta pendulari eragiten diogun unean atzerako **tik-tak** zenbaketa bat hasten dugunean. Harkaitz Cano

Sikiera erlojuaren **tik-tak** hotsa aditu balitz! Matías Múgica

Hain emaro hasi zen hurbiltzen, non ez baitzen ezer entzuten, suaren zirtadak eta pendulariaren **tik-tak** hotsa baino. Josu Zabaleta

Tik-tak hots zakarra ez baitzen gelditzen. Matías Múgica

Taximetroaren **tiktak tiktak** hotsa entzuten da. Joseba Sarrionandia

tik-tik 1 iz Morse aparatuen hotsaren onomatopeia.

Aita morse-aparatua konpontzen saiatzen ari zen; bateria bati lotua zegoen, baina ez zuen inolako **tik-tik** soinurik egiten. Juan Kruz Igerabide

2 (izen gisa)

Aitaren morsearen **tik-tik** etengabea entzuten nuen. Juan Kruz Igerabide

tik-tok ik tik-tak.

tik¹ 1 iz higidura edo keinu oharkabea eta eskuarki errepikatua, giharren uzkurdurak eragina.

Tik eta klik horiek hartzen zioten denboraren heren bat. Xabier Olarra

Konpultsio eta **tikak** erdibidean daude; noiz norberaren borondatearen agerkari direla ematen du, noiz beste borondate arrotz batek behartuak. Xabier Olarra

Ez dago **tik** edo konpultsiorik; uluren batzuk, gehienez ere. Xabier Olarra

Uneoro errepikatzen duen **tik** edo keinuren bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Berehalaxe ohartu nintzen aitak bazuela **tik** bat oso-osoz berezia. Josu Zabaleta

Orain ohartuko zara **tik** bat duela. Joseba Sarrionandia

Tik bat banu, **tik** harixe baizik ez lioke erreparatuko Aliasek. Josu Zabaleta

Hawthornek bere-bereak zituen **tik** guzti-guztiak ezagutu behar dituzu. Oskar Arana

Eskuetako behatz-muturretan sentitzen dituzun taupada txikiak ez ezik, menderatu ezin duzun **tik** bat ere jarri zaizu hanketan. Rafa Egiguren

Umea nintzela, Toronton, betaurrekoak nituen, eta hortzetako aparatua eta gainera **tik** batzuk. Xabier Olarra

Akabo haren ohiko lepo-okertua, ibilera zurruna, **tikak**, begiratu iheskorra. Xabier Olarra

Diosal bitxia, hori bai; erdi eraso, erdi **tik** alegia, Touretteren sindromedun petoen erara moldatutako ongietorri-keinu bat. Xabier Olarra

Geroago, nire adimen ustez pribilegiatuaren erakuspen gisa sortutako josteta hura **tik** baten pareko bihurtu zitzaidan, usadio lekedazu bat. Aingeru Epaltza

Prozac bedekazio bat izan da obsesio eta amorrazioentzat, nahiz eta ez duen eraginik **tiken** kasuan. Xabier Olarra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bazuen **tik** gogaikarri bat: eskuak ezkutatze mania. Josu Zabaleta

Bekaina harrotu dut, hala egin dut ziurrenik, baditut hobetu beharreko zenbait **tik** amorragarri. Koldo Izagirre

Tentsioa sumatzen zaio juezari, belarriak tente, halako **tik** nerbiosoren bat. Berria - Kirola

Hermioneren hankak halako **tik** urduri bat egin zuen. Iñaki Mendiguren

Begiak irten-irtenak, **tik** berezi bat masail puztuetan. Iñaki Mendiguren

Tik koordinatugabe konbultsiboetatik mugimendu ongi lotu eta koherentera pasatzea istant batean gerta liteke tourettedunengan. Xabier Olarra

Sindromearen ezaugarriak honako hauek ziren batik bat: **tik** konbultsiboak, besteren hitz edo egintzak nahi gabe imitatzea edo errepikatzea (ekolalia eta ekopraxia). Xabier Olarra

Artegasunezko **tik** bat, besterik gabe, hizketan hasi aurreko eztula edo beste edozein keinu mekaniko bezalakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tik tankerako laztan konbultsibo batez laztandu zien burua. Xabier Olarra

Kantatzerako imintzioak desberdinak ziren ohiko keinu bortxatu eta **tik** -tankerakoan aldean. Xabier Olarra

Bat-bateko **tik** kutsuko hatz-ukialdien bitartez. Xabier Olarra

4 irud/hed

PSE-EEren ustez, Juan Jose Ibarretxe EAeko lehendakariak «iraganeko **tikekin**» jarraitzen du. Berria - Euskal Herria

Ez-erabiltze urteok ez dizkizute ahantzazaten zenbait **tik** profesional. Juan Garzia

Joseba Permachentzat, Menaren hitzek erakusten dute «**tik** frankistak» geratzen direla Espainiako Armadan. Berria - Mundua

5 nerbio-tik

Nerbio-tik bat zuen betidanik begi batean; hari begira egoten nintzen, ezinbestean, elkarrekin ikasgela berean genbiltzan garaian. Mirentxu Larrañaga

Begi batean **nerbio-tik** bat zeukan. Iñaki Mendiguren

tik² hots labor eta ez-ozenaren onomatopeia.

Bat-batean, **tik**, argia pizten da ene zeldan. Filipe Bidart

Gero eta hurbilago argi-pizgailu harrabotsak, **tik**, **tik**, **tik**, gero eta hurbilago, eta urrats batzuk. Filipe Bidart

tiket (27 agerraldi, 9 liburu eta 7 artikulutan; orobat ticket 9 agerraldi, 5 liburu eta 4 artikulutan) 1 iz txartela.

Gerla denboran, sosaz bestalde, behar ziren presentatu **tiket** batzu zeintan markatuak baitziren jateko bakoitzetik zenbat gramoren dretxoa zinuen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Orduan saltzaileak aixtur pare batekin mozten zizkizun zenbait **tiket**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Tiketak hartzeko dagoen ordaintokia dator aurrerago. Mikel Hernandez Abaitua

Funtzionamendu arazo esanguratsuen apartakalekuko **tiketak** emateko makinena izan da. Berria - Ekonomia

Lehenengo eta behin **tiketa** erosten lagundu dit, gero autobusaren kokagunea aurkitzen. Jon Arretxe

Tokian, kontzertuaren egunean, **tiketak** 70 liberetan salduko dira. **Herria**

Tiketa ordaindu ondoren barrurantz abiatu ninduan aulki libre baten bila. **Mikel Hernandez Abaitua**

Gainera, uste dut neu naizela Istanbulerainoko **tiketa** daukan pasaiari bakarra. **Jon Arretxe**

Metroko **tiketak** saltzen ziren gune jendetsura. **Itxaro Borda**

2 ordainagiria.

Segun eta nor eskatzen duen txartela, nor kobratzen duen, txarteldegian ala autobusean bertan eskuratzen den, **tiketa** ematen den ala bostekoa nahikoa den, [...]. **Jon Arretxe**

Bazkaldu dugun self-service-an eman diguten **tiketean** «apetitu eta egun on» jartzen du ordaintzekoaren ondotik. **Berria - Kultura**

tiki ik txikiarazi.

tikiarazi ik txikiarazi.

tikixko ik txikixko.

til-til iz

Gero, plazako musika hura aterturik, izartegiko musikaren til-**tila** entzuten zuela iruditu zitzaion Joanesi. **Felipe Juaristi**

tila 1 iz ezki lorea.

Itzuli zara tabernara eta **tila** infusioa gehiegi epeldu da. **Eider Rodriguez**

Geroago, **tila**-ura zerbitzatu zioten. **Xabier Olarra**

2 ezki lorearen egiten den egoskina.

Kafeak bezain goxo egiten ditu **tilak**, teak, kamamilak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

- **Tila** bat, mesedez. **Eider Rodriguez**

- **Tila** bat egingo deuat -esan du lxaskunek. **Txillardegi**

Honezkeroko epelduko zen **tila**, baina ez dut gogorik taberna horretara itzultzeko. **Eider Rodriguez**

tilape iz itsasontzi baten urpeko zatia.

Nago aro deslaintzat hartu behar direla mendeok, eta edertasun bena, mende orok bere-beretzat jotzen duena, harri zutena, **tilapeena**, aizkora-xaflarena eta hegazkinaren hegalarrena dela. **Juan Garzia**

tilde iz tileta.

N letraren gaineko **tildeari** dagokiola. **Herria**

Tildearekin idatz *erregiña, espartiña...* **Herria**

Tilderik ez dūe frantses idazmaxinek, bena ordezkutzen ahal da tilet hegaldūnaz, galdor diakritikoaz, hots «accent circonflexe» delakoaz. **Herria**

tilet iz ñ letran, n gaineko marka grafikoa; azentu marka.

Berak, bere kabuz, hots bustietan **tileta** erabiltzea proposatu zuen: ñ bezala, l- eta t, eta baita s ere- gaurko x adierazteko. **Koldo Zuazo**

Ez dirudi, beraz, Sabino Aranak indarrean jarritako **tileta**, marra eta apostrofoa erabiltzearekin oso bat zetorrenik. **Koldo Zuazo**

Hala nola, azentua zein silabatan dagoen adierazteko, delako silabaren aurrean jarri daitekeen **tileta** ˘: ki˘lometro. **Lourdes Oñederra**

Tilderik ez dūe frantses idazmaxinek, bena ordezkutzen ahal da **tilet** hegaldūnaz, galdor diakritikoaz, hots «accent circonflexe» delakoaz. **Herria**

tiletdun izond tileta duena.

Jende askori interesgarria gerta dakiokenez, hitzez hitz kopiatuko dut agiria egunkari horretatik, baina, trabagarriak gertatzen zaizkidanez, garai hartako idazkerako "erre" **tiletdunak** aldatuta. **Ramon Saizarbitoria**

tilin 1 iz ezkilaren eta kidekoen hotsa.

Mentxuk sortutako beirazko **tilinak** soilik entzuten ziren gelan. **Josu Landa**

2 irud/hed

Tilin hori taldean sortzen dela edo taldeak pizten duela iruditzen zait, baina, horretarako, talde bakoitzarentzako zerbait ezberdina eta berezia sortu behar da. **Ana Urkiza**

Esteban taxistak bota duen esaldiak, "Leon Martyk autoa bota dik berriro tren azpira" delakoak, edo zehatzago zortzi hitz horietan dagoen "berriro" horren **tilinak** piztu digun gertaeraren oroitzapena uhertzera datozen aparteko aldaketa batzuk daude tarteko. **Pako Aristi**

Gauean ere, esan zidak, soinu horrekin lokartzen naiz ni; logalea eragiten dit **tilin** soinu horrek. **Pablo Sastre**

- Airean utzi zituen lau bular dilindariak, **tilin** eta talan, denbora luzez. **Karlos Linazasoro**

3 tilin egin gustatu. ik talan.

Levine andreak Picasso txikia erosi du eskatuta genion salneurrian -neure burua zorientzen dut lortu dudalako- eta Fleshsman andre zaharrari Madonna itsusiak **tilin** egiten dio. **Ramon Etxezarreta**

4 tilin-talan iz

Tilin-talana izaten da lehendabiziko esperientzia. **Arantxa Iturbe**

5 tilin-talanka adlag

Bi edalontziekin itzuli zen, izotza **tilin-talanka** zebilen, "Berari ere ikara egiten diote eskuek?" pentsatu nuen edalontzia hartzen nuen bitartean. **Juan Martin Elexpuru**

tilingo *adlag* dilindan.

Makinak lepoan **tilingo** zeramatzaten eta goraki mintzo ziren. Itxaro Borda

Apainduraren osatzeko, hegia zabala zuen aita zenaren lapurtar boneta hartu zuen, itze batean **tilingo** zegoena. Elena Touyrou

Aitaren boneta hegi batean **tilingo**. Itxaro Borda

tilingotu, tilingo(tu), tilingotzen da *ad* dilindan egon.

-Jin bedi eta ikusiko dugu, ebaki zuen Fanchek Hoteleko kidearen elasturia, hormetan **tilingotua** zen Dukesa Anaren Frantziako erregin gisa koroatzearen margoari so.

Itxaro Borda

tillur ik **tilul**.

tilul (*orobat **tillur***) **1** iz ezkia.

Eri ziren eliza sahetseko **tilul** guziak eta plazan egiten dituzten obra karietarat ateratu dituzte denak. Herria

Tilul zaharrak moztuko dituzte eritasuna daukatelakotz eta bertze 14 berri landatuko. Herria

2 *tilul ondo* ezkia.

Joan den Uztailen eraikuntza berriaren hasteko, aurtiki zituzten ezki edo **tillur ondoen** orroitzapenetan, urtarrilaren lehenetik goiti, "Ezkia Ikastola" izena du hartuko eskola hunek, biltzar nagusian aho batez bozkaturik. Herria

Helduden astean, handiena den ezkiandoa (**tillura ondoa**) aurtikiko dute. Herria

timarkia iz buruargien gobernu moldea.

Zuzengabeko hiriez ari denean, sailkapen bat egiten du: azkarren gobernu-moldea **timarkia** dela dio; aberatsena, oligarkia; pobreena, demokrazia eta, azkenik, hastapenean tirania dator. Askoren artean

timatu, tima, timatzen du *ad* azpilapurreta egin.

Bikain-bikaina omen zen makina bat egiteko planoak erosi zituen Suitzan, garai hartako milioi bat bezeta ordaindu zuen, makinak ez zuen ezertarako balio, **timatu** egin zuten, hainbestetan bezala. Mikel Hernandez Abaitua

timatzaile iz timatzen duen pertsona. ik iruzurgile.

Ulermenak huts egiten ez bazidan, deus ez lehenagotik ez nekienik: **timatzaileak** Italia aldean, dibisetako iruzurgileak Europako Ekialdean, gazte-talde bortitzak Ingalaterran... Aingeru Epaltza

timina iz azido desoxirribonukleikoen osagaien base nitrogenoduna.

ADNaren osagai nagusiak lau dira: adenina, guanina, zitosina eta **timina**. A (adenina), G (guanina), C (citosina) eta T (**timina**). Berria - Gaiak

Gugan gertatzen diren erreazio kimiko etengabeek zerbait miragarriren jabe garela pentsatzera bultzatzen gaituzte, baina adinina, guanina, **timina** eta zitosina izeneko koktelek in harrapatutako katua baino ez da. Berria - Kultura

Bera, artean ere lehengo bere hiru lagun oxigenoekin estu-estu josirik, **timiniatik** irten, eta airearen bidea hartu zuen. Juan Garzia

timortar *izlag/iz* Timorrekoa, Timorri dagokiona; Timorreko herritarra.

Timortarrek independenzia nahi zuten erabaki ahal izango zuten. Berria - Mundua

Kosovoarrak, kurduak, **timortarrek** inongo errukirik gabe akabatzen badituzte, Nazio Batuetan eserleku bat izateak ematen duen babes bat falta zaielako da. Markos Zapiain

Gainera, **timortar** edo kosovoar izateagatik dituzte akabatzen, ez gizabanako zehatz hau ala bestea. Markos Zapiain

tina **1** iz suila mota. ik lusuil.

Upelak, suilak, pitxerrak, morkoak, **tina** euskarridunak eta euskarrigabeak, otarretxoak, saskiak, [...]. Jose Morales

Beren belarrak garbitzen laguntzen zien **tina** handiaren inguru-jiran. Juan Garzia

Arnoan zopatzan zen hordiaren kasua, arnoz bete **tina** batean ito zenarena. Joan Mari Irigoien

Soka-saltorako ez bada behintzat lokarri motzegi bat dago botata arroparentzako **tinaren** ondoan. Anton Garikano

Larru-zurratzeko **tinarik** handiena astean-astean husten zuten. Juan Garzia

Gogoan zuten festa hura, eta hango hamabi indioilarrak eta marrubi-purez betetako **tinak**. Anton Garikano

Cincinnati ekarritako izotz puska [...] gurdikada bete bizkotxo hotz bihurtu zen, **tina** bete marrubi-zukurentzat. Anton Garikano

2 (hitz elkartuetan)

Leku horien neurriak fruitu-kopuruaren eta **tina**-kopuruaren arabera egingo dira. Santiago Iruretagoiena

-Zuzendaria tematuta zegoen sukaldeko lapikoetako batean kaka egin eta gero ur-**tinan** botatzen. Josu Zabaleta

tinaja iz tina.

Gaztelera dakien edonori *tinajera*, **tinajak** edo ontziak daramatzen edonor izan daitekeela bururatuko litzaiokeen arren, *teenager* (nerabea) da hitzaren jatorria. Harkaitz Cano

tinba iz kubatar son-a jotzeko modu modernoa.

Horrrela, aurreko lanetako erritmo latinoak, salsa, perkusioak, teknoa eta **tinba** kubatarra alde batera utzi eta «Etsaiak taldeak jorratutako bidea» hartu dute. **Berria - Kultura**

tinbal *(orobat tinbale g.er.)* 1 iz danborraren antzeko musika tresna, kutxa biribila eta metalezkoa duena.

Martinuk indar tentsioa du aldarrikapen bezala, **tinbala** eta pianoa eszenatokiaren ardatza izanik, soka familia bitan banatuta genuen. **Berria - Kultura**

Banderez apainduko dute estadioa, eta danborrak, **tinbalak** eta perkusioa izango dira. **Berria - Kirola**

Soldadu ugari azaldu ziren **tinbale** eta tronpetekin. **Anton Garikano**

Laukote moduan etorri zitzaigun oraingoan: Javier Colina euskalduna kontrabaxuan, Efrain Porro congetan eta bere seme gaztea den Rickard Valdes **tinbaletan**. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Ez da harritzekoa ekaitzak jo, bere deskarga hainbeste litrokoa utzi, eta gaueko lehen orduotarako, berriro orkestra, trumoi-**tinbalen** perkusio eta guzti arrimatzea euri-zaparradaren batekin. **Pello Zabala**

tinbalada iz tinbal joaldia.

Ekaitz bateko trumoi-soka danbartsuari, **tinbalada** itzel bat bailitzan, *Jaunaren mintzoa* deitzen dio. **Pello Zabala**

tinbale ik tinbal.

tinbratu, tinbra, tinbratzen 1 du ad zigitatu.

Ohartu zen atzerritik etorritako gutunazal bat zegoela, hegazkinez igorria, berak ezagutu ez zitzakeen animalia exotiko batzuen seilu pare batez **tinbraturik**. **Joxemari Iturralde**

2 (era burutua izenondo gisa)

Thatcher oharrak idazten ari zen paper **tinbratuaren** orri luze batean. **Lopez de Arana**

tinbre¹ 1 iz txirrina.

Tinbrea jo eta emakume errubia batek ireki du atea. **Joseba Sarrionandia**

Atezain automatikoko **tinbreak** jo ostean, zabalik aurkitu zuen aurreneko lokalean babestu zen. **Iñigo Aranbarri**

Alferrikako lana izan zitekeen **tinbre** joka hastea, ez baitzidaten aterik zabalduko. **Joxemari Iturralde**

Edifizioko eskaileretan gora igo eta **tinbrea** artega sakatu zuen. **Joseba Sarrionandia**

Peter beheko sukaldera joan zen; **tinbrea** entzun zen eta ontzia behean geratu zen. **Josu Zabaleta**

Tinbre elektriko baten hotsa entzuten da. **Antton Olano**

Telefonoak jo zuen buru gainean eta bigarren **tinbre** -hotsaren aurretik erantzun zuen Mentxuk. **Josu Landa**

Erantzunik gabeko **tinbre** hotsak. **Iñigo Aranbarri**

2 fisikan, hotsaren berezko ezaugarrietako bat, garaiera eta intentsitate bereko hotsak bereizten dituen.

Ahotsaren **tinbrea** eta intentsitatea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Musikan erritmoa edo musika-tresnen **tinbrea**. **Josu Zabaleta**

Eteten zen erritmoa, iluntzen nahiz argitzen ziren noten **tinbreak**, baina piezak kementsu segitzen zuen aurrera. **Anjel Lertxundi**

Garaieratik baino errazago, **tinbretik** ezagutzen dira soinu baten sorburua eta garrantzia. **Irene Aldasoro**

Soinuaren **tinbrean** datza, esate baterako, tronpeta baten eta diapasoi baten arteko diferentzia. **Irene Aldasoro**

Vaneef baxuak **tinbre** ederra atera zion behe erresgistroari. **Berria - Kultura**

Ahots berezia dauka, oso erraz identifikatzen dena (ardente) eta bere **tinbre** grabea aberatsa da. **Berria - Kultura**

Ez genuen Stoianov izeneko baritonoa ezagutzen baina asko gustatu zitzaigun bere **tinbrea**, musikaltasuna eta kantua orokorrean. **Berria - Kultura**

Pendulu erlojuak ordu bata eta erdia jo zuen **tinbre** garbi-garbiarekin. **Karlos Zabala**

Laringe hotsaren **tinbrea** bere osotasunean agertzen da, eta desagertzen da aho zarata. **Isabel Arrigain**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Belarriak ere oso antzera jokatzen du: soinuak jaso eta nerbio-bulkada bihurtzen ditu garunera bidaltzeko; garunean, ozentasun-, garaiera- eta **tinbre** -sentipen bihurtzen ditu bulkadok datu-prozesaketarako sistema landu batek. **Irene Aldasoro**

Beharbada kontzertu guztian orokorrean **tinbre** paleta zabalagoa ez erabiltzearen falta sentitu genuen. **Berria - Kultura**

Bokal fonemak hizkuntza batean bi nolakotasun edo **tinbre** sorta ("argiagoa" eta bestea "ilunagoa") osatzen badituzte, [...]. **Lourdes Oñederra**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haren kantakereak eta ahots **tinbreak** bere sasoko rocklariak be harriturik eukazan. **Xabier Amuriza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahotsaren tinbrea (4); **tinbrea jo** (5)

tinbre² iz ipar zigitua.

Gutuna **tinberik** gabekoa zen eta pentsatu zuen, postaz baino eskurik esku iritsi zitzaiola. **Itxaro Borda**

Nahi duenak karta gutun-azalean sar dezake, baina orduan **tinbrea** gehitu beharko dio. **Berria - Euskal Herria**

Munduko filatelista anitzekin harremanetan zen, ahal zituen **tinbre** berri guziak erosten zituen bere kolekzioearentzat. **Marzel Etxehandi**

Emendatu dituzte beraz edo laster emendatuko telefona-sari batzu, argia eta postetako zerbitzu asko, gutunen igortzeko **tinbretarik** haste... **Herria**

Postako buruzagiek biziki polliki diote goratze hori arras egokia dela; aspaldian etzela **tinbrea** kariatua, [...]. **Herria**

tindagai iz tindatzeko gaia.

Orain hobeki zaintzen dugu geure burua, badira lozioak, **tindagaiak**, kremak, leuntzaile zenbait. **Jon Alonso**

Oso emakume garaia zen; kofia bat zeraman buruan, etxeko **tindagaiez** margoturiko xingolaz apaindua. **Jose Morales**

Lehen bi koloretak hari groteskoek osatuko zuten ilearen azpia, ile faltsua gero eta **tindagai** gutxiagorekin eta motzagoa, bestea, errotik errotik, tokia irabazten joango zen, ezinbestean. **Jon Alonso**

Sentitu zuen atsekabea hain izan zen handia non irajinatu baitzuen agian edukiko zuela hor nonbait flasko ahantziren bat, hondoan **tindagai** -hondarririk bazukeena, gaurkoa egiteko bederen. **Jon Alonso**

tindagile iz tindatzen duen pertsona.

Emakumea etxera joan zen, azkenik, eta lau soineko hartu zituelarik, **tindagilearenera** eraman zituen. **Patxi Zubizarreta**

tindaketa (orobat tintaketa g.er.) 1 iz tindatzea, pintaketa.

Horrelako **tindaketa** egiteagatik 50 bat dolar kenduko dizkizu. **Gotzon Garate**

Alabaina kuskua zen bezala atxiki dugu eta berinak eta **tindaketak** 380 000 euro gosta zaizkigu. **Herria**

2 ipar pintada.

Manifestazioa egin ondoren, 2x2aren aurkako **tindaketak** egin zituzten errepidean. **Berria - Euskal Herria**

Bide bazterrean 2x2aren aurkako **tindaketa** ugari daude, gainetik zurituta. **Berria - Euskal Herria**

Poliziak Angeluko gazte bat atxilotu zuen asteartean, **tindaketak** egiteagatik. **Berria - Euskal Herria**

Goizeko hamaiketan sartu ziren demoak tren geltokian eta berehala ekin zioten **tindaketa** lanari. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tindaketak egiteagatik (4)

tindarazi, tindaraz, tindarazten du ad tindatzera behartu.

Afifi andereak ilea **tindarazi** zuen, drogak prestatzaz, hortz hondatuak aterarazi zituen eta urrezko hortzeria ipini zuen. **Patxi Zubizarreta**

tindategi (orobat tindutegi) iz arropa tindatzeko edo garbitzeko denda.

Harantzago, telegrafo-bulego bat, kinkiladenda bat, **tindategi** bat eta erre-usain misteriozua zerion ikuztegi txinatar bat. **Lopez de Arana**

Diada baino egun bat lehenago bandera espaniarra **tindategira** eraman izan da, edo eta PPko zinegotziak konturatu gabe bandera balkoietik kentzen saiatu izan dira.

Berria - Mundua

Tindutegian garbitutako janzkiak. **Xabier Olarra**

tindatu, tinda, tindatzen (297 agerraldi, 101 liburu eta 46 artikulutan; orobat tintatu 14 agerraldi, 8 liburu eta 5 artikulutan) 1 du ad ehun batean edo ilean, koloregai bat edo tindu bat finkatu.

Gorritz **tindaturiko** ahari-laruzko estaldura. **Elizen arteko biblia**

Purpura morez eta gorritz **tindaturiko** oihalak. **Elizen arteko biblia**

Robresenea deitu etxean egiten zen mendiko lur gorritik okrea, oihalen **tindatzeko** tindua. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ilea **tindatzeko** henna erostetik dator emakume pakistandarra. **Harkaitz Cano**

Deitzen zigun mutilak jeansak zeramatzan, eta ilea gorritz **tindaturik** zeukan. **Juan Kruz Igerabide**

Ilea mozten eta **tindatzen** zion emakumea. **Oskar Arana**

Nik ilea **tindatzeari** utzi diot naizen bezalako izateko. **Jon Alonso**

Bizarra egin gabe, ilea barregarri **tindatua**. **Jon Alonso**

-Bekainak **tindatu**, eta bibotea moztu baino ez dizu egingo. **Patxi Zubizarreta**

Ile gorritz **tindatuak**, motz-motzak. **Javi Cillero**

Hester Voorhees izeneko emakume argalak adats sarri hennaz **tindatua** zuen, belarrien parean moztua. **Lopez de Arana**

Ama sutondoan aurkitu zuen, artile itsas purpuraz **tindatua** hariikatzen. **Juan Kruz Igerabide**

2 (bestelakoetan)

Koloratzaile neutroz **tindatzen** diren zelulak. **Berria - Gaiak**

Hil diren pertsonen oinetakoak hartzen ditugu eta garbitu, **tindatu** eta osagarriren bat jarri ondoren saltzen dira. **Jasone Osoro**

Zoruko baldosak odol lehorrez **tindatuta** daude. **Iban Zaldia**

Sartzen ari zen eguzkiak gorritz **tindatzen** zituen kristalak. **Juan Kruz Igerabide**

Zerua erlaitzen, ur-deposituen, teilatu-gailurren eta tximinien atzean arrosaz eta horiz **tindatu** zen. **Lopez de Arana**

Espero ezin zitekeena zen hura bezalako emakume segurua bat-batean aurpegia gorritz **tindatzeraino** asaldatzea. **Jon Alonso**

Irriñoak loratu zion berriz aho ingurua, herabe loratu ere, haren bisaia biziaren koloreaz **tindatuz**. **Aingeru Epaltza**

Igerileku bat agertzen zen, gorritz **tindatutako** urez beteta, odolaren sinbolo gisa. **Berria - Kultura**

Gorritz **tindatu** zen zeruertza, eta eguzkia atera zen segidan. **Xabier Aranburu**

Besoak aurpegiaren aurrean gurutzatuta, hego haize leunak Intxortatik Goikomendirantz bultzatzen zituen hodei arrosaz **tindatuei** begira. **Ramon Saizarbitoria**

3 irud/hed

Leherketen azantz ikaragarriak, auzoen aurpegieta **tindatu** izialdurak. **Elena Touyarou**

Argien joko kromatikoak irrealtasunez **tindatu** du neskaren gorputz biluzia. **Patxi Iturrigeti**

-Mirari, nahi duzu laguntzea? -eskaini zitzaion, hitzak ezaxolaz **tindatzen** ahaleginduz. **Fernando Morillo**

Ironiak **tindatzen** zituen haren hitzak-. **Fernando Morillo**

Orain, baina, nire oroitzapenetan Maximilian plaza txukuna oso bestelako sentimenduz dago **tindaturik**. **Alberto Ladron Arana**

Berehala zerua hegazkin beltzez **tindatu** zela. **Lutxo Egia**

Odolez **tindatutako** zorigaitzoko eguna. **Berria - Harian**

4 ipar ik pintatu.

Ohartzen dira kurritzean etxe bati zointan paretan izkiriaria baita Jan Toki eta ikurriña bat **tindatua** murruan. Eskuz **tindatu** ingurumenetako potret batzu dira, eta gustatzen zaionari erosketa ere egiten ahalko du. **Herria**

"Pacific Star" izenekoan zen eraikina: zuriz **tindatua**; marmolezko sartzea; zaindari armatuak eta kontrolak sartzeetan... **Ramuntxo Etxeberri**

Herriko etxeak eskola honetan lanak abiatu zituen 1981ean, garbitzen, emokatzen, xuriz **tindatzen** eta hola. **Michel Oronoz**

Teilatua berritua da, selaurua ere, elektririkaz berotzekoak ezarri dituzte, barne guzira eta kanpoa **tindatu**. Herria

5 (era burutua izenondo gisa)

Zetazko oihal **tindatuek**, kremek eta muselinak isuritako kirats ikaragarri batek buruko mina eragin zion. Lopez de Arana

Sekulako jendetza ari zen biltzen han-hemendik Madison Square Garden aldean, gehienak elastiko **tindatuak** soinean zituztela. Xabier Olarra

Ile eta bekain **tindatuak**, zetazko lepokoak eta belaontzi-klubetako blazerrak, maritxuen hizkera. Oskar Arana

Noizean behin bere ile **tindatuaren** xerlo bat estutzen zuen. Koro Navarro

Muturra okertu zitzaidan, Isabel Sanjoseren ilegorri **tindatua** eta bularralde oparoa lehen lerroan ikustean. Aingeru Epaltza

Foinisak bere ezpain **tindatuak** ezarri zituen Sextilioen aho biziaren gainean. Juan Garzia

Denda txikiari begira geratu zen, purugileak bere atzamar **tindatu** eta finez tabako-orri hauskorrak nola erabiltzen zituen erreparatuta. Lopez de Arana

Hemen daukazu nobela, onena izango da, noski, dena berezkoa balitz bezala jokatzea, zuria, beltza, **tindatua**, behin begiratzen zaio horri, bigarreanean ez zaio begiratzen,

hirugarrenean inor ez da konturatu ere egiten. Jon Alonso

- Anaita aieneka, manta gorriz **tindatuetan** bildua. Aingeru Epaltza

6 (era burutua izen gisa)

-Hori **tindatu** batekin konpontzen da. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gorriz tindatu (7); **horiz tindatu** (3); **ilea tindatu** (5)

gorriz tindaturik (5); **kolorez tindaturik** (3)

gorriz tindaturiko (9); **tindaturiko ahari larruak** (3)

gorriz tindatutako (5)

ilea tindatzeari (3)

ilea tindatzeko (4); **tindatzeko liken** (6)

gorriz tindatzen (5); **ilea tindatzen** (3)

tindatudun *izond*

Tipo garaia eta aurpegia estaltzen dion ile luze **tindatuduna**. Sonia Gonzalez

tindatzaile *(orobat tindatzale)* 1 iz tindatzen duen pertsona.

Haiengandik gertu, **tindatzaile** bat alkandora gorri bat ari zen sartzen tinta beltzez betetako ontzi batean. Koro Navarro

Florentziako **tindatzaile** baten alaba zen, eta ama hila zuen. Juan Garzia

2 (izenondo gisa)

Mendibil Dominique, ofiziale **tindatzale**. Herria

Egun hauetan sortu da Elorri, [...] Isabelle Arguinguey eta Bixente Duhart herriko ofiziale **tindatzailearen** alaba. Herria

3 ipar margolaria.

Guanes Etchegaray **tindatzaile** -zizelkari artistak bere obrak erakutsiko ditu, maiatzaren 2tik 21era, Baiona-Arenetako *Artein Donsacq* galerian. Herria

Aurtengo hau Jose Duarte **tindatzaile** eta grabatzailearen omenez egingen da. Herria

Joanden igandean ideki da Andere Seroraenean erakusketa berezi bat, 7 emazte artisten obreakin, 2 **tindatzaile** eta 5 zizelkarik beren obrak agertzen dituzte agorrilaren 4a arte. Herria

4 (izenondo gisa)

Gauza harrigarria, artixta **tindatzaile** batek musika lagun, aldare aintzinean zen pareta xuri batean egin dauku isopa mota ainitz eta sare puska bat ibiliz, ainitz koloretako zirrimarra. Herria

tindatzale ik tindatzaile.

tindatze *iz* ehun batean edo ilean, koloregai bat edo tindu bat finkatzea; pintatzea.

Hemengo diruarekin alokatzen dute etxe bat eta hor egiten dute "emaztearen etxea" zointarat heldu diren lanean ikasterat, kozina, joste, **tindatze** eta bertze. Herria

Luma elkartekoek berek ainitz obra egin dute, **tindatze** eta gaineratiko, etxeño horri beste bista baten emaitako, baitzuen beharra. **Tindatze** -operazioaren aztarnak han ziren. Herria

Azken **tindatzea** behin betikoa izan zela. Jon Alonso

tindi *iz* tanta.

Pattar **tindi** batekin. Edorta Jimenez

Lekeda **tindi** batez egin baitzuen lan hura. Edorta Jimenez

Tindiz tindi "destilatzen", istilera tantakatzen zen, lira bat hamar tantako gure irabazia. Juan Garzia

tinditxo *iz* tantatxoa.

Potasio **tinditxo** bat geratu bide zen ontziaren beirari itsatsirik, eta nahikoa izan bide zen nik gainera botatako urarekin erreakzionatu eta bentzeno-lurrunik irazekitzeko. Juan Garzia

tindu 1 *iz* tindatzeko erabiltzen den koloregaia.

Robresenea deitu etxean egiten zen mendiko lur gorritik okrea, oihalen tindatzeko **tindua**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Okre **tinduaren** egiteko lurra jausten zen mandotan Lindux menditik behera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ile-apaindegira joaten zen astebururo **tindua** ematera. Jon Maia

Nikotinak horituak zeuzkan eskuin eskuko hatz luzea eta erakuslea, eta sustrai urdinek agerian uzten zioten ilearen **tindua**. Iban Zaldua

Jauregian paretak zeta frantses **tindu** finekoz estaliak zeuden. Xabier Olarra

Nolanahi ere, gorostiaren ale gorrixkoetatik ateratzen omen zuten, antzina, errege-**tindua** zeritzana. Pello Zabala
Frantzia behere hortan, **tindu** egiteko lantegi baten jabe eta buru egona zen bere bizian. Herria

2 irud/hed

Azala oso du zuria, gardena, **tindu** gorrixkaz ukitua, emakume britainiar askoren antzera. Ramon Saizarbitoria

Eguna astiro zabaltzen zuen, kolore gris leun-leunekoa, gauza guztiak margotzen zituela akuarelazko **tindu** arin bat emanez. Karlos Zabala

Estatu unibertsal batzuk inperiogile atzerritarren egintza dira; erlijio nagusi batzuk inspirazio atzerritarrak animatu izan ditu, eta gerra-talde barbaro batzuk kultura atzerritarren **tinduz** blai eginda zeuden. Iñaki Mendiguren

Horrela sortarazitako intelligentsiek Errusian eta mundu islamikoan eta hinduan bazuten, beren egileek emanda, Mendebaldeko klase ertainaren tasunen benetako **tindua**. Iñaki Mendiguren

Erdiatzerritarra (Mendebaldeko **tindua**). Iñaki Mendiguren

3 ipar margotzeko erabiltzen den gaia.

Tindu berdeaz tindazak laster esperantzaren lilia. Herria

Eskaler hertsii batzuk, murruetako **tindua** dena joana eta gainerat halako mutzi usain bat. Janbattitt Dirassar

Mintzaldiaren bukaeran, manifestariiek murru bat altxatu zuten EIFFAGE enpresaren aitzinean, eta **tindua** bota zuten egoitzaren kontra. Berria - Euskal Herria

Deitura arrotzak zituzten marmolezko harlauzak **tindu** gorriz estali zituzten. Itxaro Borda

Baina bere margogintza ez da **tindua** soilik. Berria - Kultura

4 ipar margolana

Orduan ere, noizbait, eginak izan ziren aldare gaineko **tinduak**, froga bezala direla Pio IX. Aita Sainduaren eta Lacroix Baionako apezpikuaren armarriak. Michel Oronoz

Eliza barneko **tinduen** xaharbertitzeak, holakoetan ardura gertatzen den bezala uste baino luzeago irauten du. Herria

Tindu erakusketa. Herria

5 tindu lan ik tindulan.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tindu egiteko (3)

tindugai iz tindagaia.

Tindatzeko eta **tindugaiak** ateratzeko ere usu zerabilten zeltar haiek, batez ere azal ondo helduak ematen duen margo gorria lortzeko. Pello Zabala

tinduki iz tinduak egiteko gaia.

Onartuak izanen dira hemen: baratzekinak, olio, kautxuak, **tindukiak**, zur, lur, burdin ala botagailu bilakatuak diren tresna mota guztiak. Herria

tindulan (orobat tindu lan) iz margolana.

Haur andana bildu zen Herriko Etxe aitzineko plazan, **tindulanak** egiteko, hainbat jokotan parte hartzeko, txotxongiloei so egiteko. Berria - Euskal Herria

Hiru, lau eta bost metrako **tindu lanak** salgai ezarriko ditu Amoroitzeko Ospitalean duen lantokiaren erreberritze lanak ordaintzeko. Herria

tindulari iz margolaria.

Aipatu zuten elkarren artean André-Michel **tindulariak** bezperan errana. Aurelia Arkotxa

tindur iz ipar tindatzailea.

Huna ofizialeak nor diren: hargina, Gilentegi Oragarrekoa, zurgina: Duhalde Hazparnekoa, kanpoko maisturintza: SOMIR, barneko maisturintza, Betbeder Donamartirioa, lauzatzailea: SOLADOUR, iturgintza: St Jean Hazparnekoa, eletrika: Laby Suhuskunekoa, **tindura**: Carrau Hazparne, zolak: Lino Tapis, plastrak: Cangrand. Ithurburu

Jacques, 38 urte, Aguerrea, ofiziale, **tindurra**. Herria

tindura 1 iz tindua.

Neure azken antzezititzekin batean, mahaikidearen bisaiaiko larruazal beltzuz **tindura** gorritzat jabetu zen, eta horrek hondar egunetako fantasiatako Ana itzularazi zidan.

Aingeru Epaltza

Itsastxakurrak izotz blokeen gainean lotan, olioantzeko **tindurarekin** beltzaranak mantxa horiztekin. Joseba Sarrionandia

2 irud/hed

Halaber, arte eta erakunde bizantziar eta islamikoek Siziliako normandiarrengan zertutako eraginean ere aurkitzen dugu; baita Irlandako biztanle daniarrek eta mendebaldeko uharteetara joandako iparraldeko kolonoek lortu zuten Mendebalde Urruneko kultura kristau zeltikoaren **tinduran** ere. Iñaki Mendiguren

tindurgo (corpusean tindurgoa soilik) iz tinduraren lanbidea.

Negelarateko Manuel Fuente-k CAP **Tindurgoako**. Herria

tindutegi ik tindategi.

tinduztatu izond tindatua.

Ura ona dela segurtatzen dit, eta ari naiz, edan eta edan, gero argazkigailuan sartzen dudala "brabant" zahar eder **tinduztatua**, baserriko herri baten oroigarri. Piarras

Aintziart

tingadura ik tinkadura.

tinglado iz aparamena.

Mantxako Kanaleko uharte batean, II. Mundu Gerrako bunker batean, ehunka gidoilari eta kreatibo biltzen duen erakunde beldurgarri batek zuen **tinglado** guztiaren ardura. **Iban Zaldúa**

tini iz ipar goialdea, gailurra.

Mendi **tinietako** lasterkaldia: emaitzak. **Herria**

Jessicaren irudiko anaiaren itzala xerkatzen zukeen oraino ere amatxik, zuhaitzaren **tinia** hupatzen zenean. **Itxaro Borda**

Faro **tinirik**, beherera behatu nuen: buru-zoroak nahasi ninduen eta, itsas minez kiribil, berriz Enez Eussa III ontziaren zubian nintzela iruditu zitzaidan. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

mendi tinietako (3)

tink (orobat tinke) 1 adlag irmo, estu. ik tink.

Tximista bezala jaitsi zen aldapan behera, lantza **tink** zuelarik. **Patxi Ezkiaga**

Han gelditu zen zaldi gainean Don Kijote, estriboetan **tink** eta lantzaren arrimuan. **Patxi Ezkiaga**

Zurezko etxola haietan gizonak xardinak bezain **tinke** sartu zituzten. **Eneko Bidegain**

Ezpainak bata besteari **tinke** lotuak. **Michel Oronoz**

Ezpainak **tink** hetsita, errenuntzia seinale. **Pablo Sastre**

2 (izenondo gisa)

Partida guziz jokatua, emaitza **tinke** batekin. **Herria**

Hortarik asma dirogü aferak **tink** zirela beste zazpi lehiakideen artean. **Herria**

Afera **tink** izan da, bena ezkerre nausitü, 22 jargiarekin, kanpo egon den bakoitxa delarik Robert Perez lista bürüa, 46 haütageietarik azkena beitzen botz kopürüz! **Herria**

3 tink-tinka adlag irmo; estu.

Joanden asteartean **tink tinka** egon dira Banque de France-eko atepak Albert 1. karrikan. **Herria**

Bi eskuetako eriek **tinke tinke** lotuak begi xiloak marruskatzen dituzte **Michel Oronoz**

tinka 1 izond irmoa, estua.

Gaskoniarekin hareman **tinkak** dütü Antso Nagusiak, aita zenaren kusi lehena beitu ere hebenko düka, Antso Gillen **Herria**

2 iz estualdia.

Nonbaitik halere halako arrangurño batekin, ez ote nintzen, dena musu eta **tinka**, sobera ausartatua, presatua, liluratu, ez aski ene buruaren jabe izanaøø. Txaloak eta esku-**tinkak**. **Janbattitt Dirassar**

tinkada iz estutzea.

Izerdia aurretik generaman bakoitzaren esku-ahurrean, ez **tinkadaren** bero eskasak eraginda. **Aingeru Epaltza**

tinkadura (orobat tingadura) 1 iz estualdia.

Hauek izan dira Xarloren hitzak, bihotz **tingadura** batzuez artekatu, atera ahal dituenak. Landare olioaren **tinkadura** publikoaren aitzinean, eko etxearen ezagutza, teknologia eta material alternatiboak begien aitzinean. **Herria**

2 tenk jartzea.

Ahoskordek giza belarriak hauteman ditzakeen hots-UHINAK ekoitziko dituzte baldin eta, (a) biriketarik nahiko aire badator eta (b) ahoskorder **tinkadura** eta hurbiltasun baldintzak egoki badira horretarako. **Lourdes Oñederra**

tinkagailu iz tinkatzeko gailua.

Gaur egun, Templeren **tinkagailuak**, zenbait aldaketa egin ondoren, erabilera zabala du entsegu klinikoetan. **Xabier Olarra**

tinkaldi (orobat tinika aldi g.er.) iz tinkatzea, estutzea.

Boaren **tinkaldi** hilkorretik euskara libratzeko. Semea hartu, eta besarkatu zuen, haurrak **tinkaldiarengatik** protestatu zuen arte. **Herria**

Lekukoek deusen egiteko astia ukan aitzin, Xanek papotik hartu eta paretari kontra **tinkaldi** bat eman zion. **Elena Touyarou**

Beste hamar minutu egon nintzen nire bizilekuaren aurrean, eskailburuan; gero, ausardia alditxo bat izan nuen, kolpetik, kemenaren **tinka aldi** bat. **Josu Zabaleta**

Mari eta biak eleketa ikusi zituen ehorzketa ostean, eta bularrean **tinkaldi** bat sentitu zuen. **Elena Touyarou**

tinkamendu iz tinkatzea, estutzea.

Biziki ederra izan zen une hura, gertatu zen orduantxe falangista jator hark eskuak erre gabe ezin laxa zezakeen **tinkamendu** bortitz bat *Frente de Juventudes*-en udako kanpamendu hartan. **Koldo Izagirre**

tinkaño iz tinika arina.

Bazen jendea gertakariaren ikusteko eta dudarik gabe bihotzean **tinkaño** bat senditu dukete hazpandarrek. **Herria**

tinkarazi, tinkaraz, tinkatzen du ad tinkatzera behartu, estutzera behartu.

Honezkerok ez da birigarro hila, mandeulien zitzakoak ikaran **tinkarazitako** behorren gihar luzea da, bere haragiaren sendotasuna Bitorren eskugainaren kontra frogatu

behar lukeen ametsa. [Koldo Izagirre](#)

tinkarri iz tinkatzen duen gauza.

Neure baitara lotzen ninduten lokarri eta [tinkarri](#) guztiak han joan ziren hegaka, DC9 berri baten barnean eserita. [Hasier Etxeberria](#)

tinkatu, tinka(tu), tinkatzen 1 da/du ad estutu.

Sokak zintzurra [tinkatu](#) arau hanpatzen eta ubeltzen zen kondenatuaren bisaia. [Aingeru Epaltza](#)

[Tinkatzen](#) gara gehixago. [Marzel Etxehandi](#)

Besoetan hartzea eta estu [tinkatzea](#). [Xabier Olarra](#)

Galtza bakeroak daramatza, zabalak, mehaka hezurretan estu [tinkatuak](#). [Antton Olano](#)

Orduan, besoetan [tinkatu](#) eta besarkatzen zuen. [Itxaro Borda](#)

Elkar besarkatu eta [tinkatu](#) zuten, sekulan egiten ez zuten bezala. [Eneko Bidegain](#)

Mattinek Elixabet hartu zuen bere besoetan eta elkar [tinkatuz](#) berriz musuka ari izan ziren. [Janbattitt Dirassar](#)

Eskuak [tinkatu](#) zituzten eta Metuali atearen ingurumarietan banandu ziren. [Patxi Zubizarreta](#)

-Bisita berean eskua birritan [tinkatzea](#) ez da larregi? [Josu Landa](#)

Oraingoan, indar handirik gabe [tinkatu](#) nion eskaintzen ari zitzaidan eskua. [Aingeru Epaltza](#)

Ezpainak [tinkatzen](#) zituzten ez oihuka hasteko. [Elena Touyarou](#)

Segundu bukaezinak, hortzak [tinkaturik](#), begiak ia hetsirik, sudurra eta matelak zimurturik. [Eneko Bidegain](#)

Xarlesek irri mendekaria libratu zuen eta Manexunek besondoa [tinkatu](#) zion. [Itxaro Borda](#)

Uhalak [tinkatzen](#) ditu Xantik. [Michel Oronoz](#)

Bolantea, ene indar guztiez [tinkatzen](#) nuen, [tinkatzen](#), puskatu behar banu bezala! [Daniel Landart](#)

Zutitu eta gabardinako hegala [tinkatu](#) zituen, lepoa babestuz. [Harkaitz Cano](#)

2 irud

Doluaren sareak bihotza [tinkatzen](#) zion. [Itxaro Borda](#)

Bihotza ohi baino lasterrago punpaka ari zaio, halako kezka batek bularra [tinkatzen](#) dion bitartean. [Eneko Bidegain](#)

3 (era burutua izenondo gisa)

Hutsune eta bakardade guztiak gizatasunez bete dira, beso biribilez, esku [tinkatuez](#), bernez, soinekoiez, begiez eta alkondarak gainezkatzen dituzten bularrez. [Patxi Zubizarreta](#)

Haren gerruntze [tinkatua](#) bezperako zoriona txegosten ari zen oraindik. [Karlos Zabala](#)

Kortsearen balea bizarrak markatzen zitzaizkion gerruntzearen ehun [tinkatuan](#). [Karlos Zabala](#)

4 irmo kokatu.

Makuluan ongi [tinkaturik](#), beste oroitzapen bat ekarri dio oroimenak. [Imanol Zurutuza](#)

Istinga sakonean murgiltzen ari naiz, eta oinak non [tinkaturik](#) ez. [Elizen arteko biblia](#)

Orain beharbadala lotuko nauten enborrari eusten dio, probatzen ariko da ongi [tinkatua](#) dagoen. [Koldo Izagirre](#)

Xeketa, lurlean [tinkatua](#), zur eta lur geratu zen. [Patxi Zubizarreta](#)

Ez zen egoera atsegina eta begirada platerean [tinkatzen](#) saiatu naiz. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Herrenak Azkaraterenetan [tinkatu](#) zituen bere begi loratuak. [Koldo Izagirre](#)

Kopeta zimurtu zuen, enegana zuen [tinkatu](#) behakoa. [Koldo Izagirre](#)

5 tenkatu.

Arkua, berriz, korda [tinkatuak](#) ezartzen dizkion mugen eraginez kurbatzen da. [Jon Muñoz](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[besoa tinkatu](#) (4); [besoetan tinkatu](#) (3); [eskua tinkatu](#) (17); [eskuak tinkatu](#) (3); [ezpainak tinkatu](#) (3); [hortzak tinkatu](#) (4); [kopetan tinkatuta](#) (3); [tinkatu behar](#) (4); [zintzurra tinkatu](#) (3)

[tinkatzeko makina](#) (3)

[eskua tinkatzen](#) (4); [eskuak tinkatzen](#) (3)

tinkatzaile (orobat tinkitzaile) 1 iz aipatzen dena tinkatzen duen pertsona.

Uztaritzekoan, agerian emaiten dira gure lepo [tinkatzaileak](#) nor diren eta nork dituen Zarpantzarren iduriko guziak belauniko emaiten. [Herria](#)

Belarri [tinkatzaileetariko](#) batzuk *cristiano* ez zen hizkuntza ikasten hasi ziren, euskara, alegia. [Berria - Euskal Herria](#)

• 2 izond tinkatzen duena.

Edozein gisaz, ez ditu jasaten ahal «saloietako usainak, argien dirdirak, dantzaldietako arropa [tinkitzaileak](#) eta satinezko zapatek eragin minak [Berria - Kultura](#)

tinkatze iz estutzea.

Atelierrera abiatzeko asmoa zeukan goiz hartako aginduak ematera, baina [tinkatze](#) hark amorrarazi egin zuen. [Koldo Izagirre](#)

Burdin haga luze baten bidez egiten zen [tinkatze](#) hori eta arno berria, gozo gozoa, jausten zen aska batetara, soto azkar baten mentura urte guziko. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Edo ironia bako esku [tinkatze](#) bat egiten diodala. [Koldo Izagirre](#)

Esku-[tinkatze](#) eta oihu iskanbila handi baten ondoren. [Koldo Biguri](#)

Sagarretik juserat, sei hilabete nunbeitan behar dira: biltze, lantegiratze, garbitze, bereizte, xehakitze, [tinkatze](#), erakitze, botoilatze, jastatze... [Herria](#)

tinke ik tink.

tinki 1 adlag estu, irmo. ik tink.

Hantxe egon zen mahaia, baioneta esku artean [tinki](#) zeukaten bi guardak zaindurik. [Elena Touyarou](#)

Merkantzien tren batean sartzen gaituzte, eta han ezutzen gara taularen gainean, ez gelan bezain [tinki](#). [Marzel Etxehandi](#)

Oraino berantean, 1985ean, bazegoen zubiko pitrail moztuaren puska bat, etxeari **tinki** lotua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

"Oraingo kontuak", dio bere artean, eta poltsako eskulekuak ahal bezain **tinki** estutuz. Iñaki Segurola

Hondarkien erdian, ileak nahasirik, ezpainak **tinki**, baraila-hezurra gogor. Elena Touyarou

2 *tinti-tinkia adlag ipar* estu-estu, irmo-irmo.

Emeki-emeki entseazen nintzen ene bi auzoen manta mutur bat ene gana tiratzera, baina deusik ez heldu **tinki-tinkia** zeukaten. Marzel Etxehandi

Baina ostatuko ate eta leihoak **tinki-tinkia** hetsiak ziren. Daniel Landart

Elkarte horrek haatik ez du bere gogoeta gela baten barnean **tinki tinkia** atxiki nahi, zabaldu gogo du lau bazterretara. Herria

tinkiagotu

, tinkiago(tu), tinkiagotzen du *ad* estutu, irmotu.

Jadanik Frantziak Tunizia eta Marokarekin daukan adiskidantza nahi dute bi horiek ere **tinkiagotu**. Herria

[Ukrainak] aspaldiko nahia duela, Errusiaren meneko egoiteko orde beti Europarekin ere bere lokarrien **tinkiagotzea**, ala petrolio, gaz edo elektrika salerospenetan. Herria

tinkitzaile ik tinkatzaile.

tinkixe *adlag* estu samar, irmo xamar.

Horiek hola, aintzinekoa baino **tinkixagoa** den gobernua, orotarar hamar minixtro gutiago alabainan... Herria

tinko 1 *adlag* irmo, finko.

Tinko heltzen zion agureak makila landu baten bolizko eskutokiari. Jon Muñoz

Tinko oratu zion eroketa-poltsari bere alemaniar eiteko euskarri zilarrezkotik. Mirentxu Larrañaga

Esku batez pistolari **tinko** eutsiz, aitona errepublikarraren erlojua atera nuen poltsikotik. Juan Kruz Igerabide

Harresi beltzairer ilun itsusia, arrastorik utzi gabe joana zela, nahiz neure barnean oraino **tinko** iraun. Txillardegi

Horretarako, ordea, bidean bare irauteko eta ezerezaren aurrean **tinko** egoteko gauza izan behar. Juan Kruz Igerabide

Tortura **tinko** jasaten badu, absolbitu egin beharko dute errugabe gisa. Juan Martin Elexpuru

Hor jarraitzen du **tinko** Petrusek, pipa hutsari tiraka, erantzun baten zain. Oskar Arana

Sorgortuta nuen barnea, sentimenduez hustua, nire fusila **tinko** atxikitzen zuten eskuak bezainbat. Mirentxu Larrañaga

Euskal Herria, historia horretan guztian, ordena zaharrari **tinko** atxiki zaio lehen momentutik. Joxe Azurmendi

Eta horrela mantendu behar dugu: guregan **tinko**. Agustin Otsoa

Hermioneke **tinko** mantentzen zuen Ronek ez zuela frogarik Crookshanksek Scabbers jan zuela esateko. Iñaki Mendiguren

Eguzkia gelditu egin zen, eta ilargia **tinko** geratu toki berean, herriak bere etsaien lepotik mendekua hartu zuen arte. Jose Antonio Mujika

Llumeak, begiak telefonoan **tinko** josirik, batera eta bestera mugitzen du burua "ez da posible, ez da posible" esanez zezelka. Antton Olano

Tinko begiratzen dio kamerari betaurreko beltz eta astunen atzetik. Bernardo Atxaga

Bere begiek haraneko mahasti eta limoiondoen gainetik begiratzen zuten **tinko**. Bernardo Atxaga

Jaunaren zerbitzariek, ostera, mugitu gabe zirauten, begirada hildakoen egoitzan **tinko**. Agustin Otsoa

Honek **tinko** estutzen zizkidan bularrak. Juan Martin Elexpuru

Esku meheak, berriz, geldiro mugitzen zituen, aulki gurgildunaren gurgil-uztaiak **tinko** estuturik. Jon Muñoz

Begira-begira zeukan don Ottavio, pozez gainezka; makilan bermatua, zorian **tinko** kokatua zirudien, irmo. Jon Muñoz

Soa automobilean finkatu zuen, **tinko**, zekusana egiazkoa zela eta ez irudikeria bat erabat ziurtatzeko. Migel Angel Mintegi

Gizonaren etorkizuna ez dago erabakirik hankak oinarri sendo baten gainean **tinko** finkatzen ez dituen bitartean. Jose Morales

Ezpataren punta luraren kontra **tinko** eta zuzen zuela. Jon Alonso

Maldaren erdian **tinko** errotoa, horra Mila eta Bat Orri, Ruche jaunaren liburu-denda. Jon Muñoz

Arnaska zegoen, ukabilak **tinko** itxita. Iñaki Mendiguren

Orduan ez genuen mira teleskopikorik eta antzeko umekeriarik, orduan eskua **tinko** eta begia argi, behar zen. Koldo Izagirre

Alazne!, erreakzionatuko al dun behingoz? -jaurti zion Irenek, samur baina **tinko**. Fernando Morillo

"Bakarrik", erantzun nion **tinko**. Josu Zabaleta

Kontuz baina **tinko**. Urtzi Urrutikoetxea

-Konforme -erantzun zion Hermioneke, Buckbeaken sokari are **tinkoago** helduta-. Iñaki Mendiguren

Hilabete eta urte gogorrak zetozak; eta elkar hartuta jokatu behar diagu inoiz baino **tinkoago**. Txillardegi

2 *izond* irmoa, finkoa.

Gero, Daviden Hiri inguruan harresi handi eta sendoa eraiki zuten, dorre **tinkoz** babestua. Elizen arteko biblia

Haren bular **tinkoetan** aurkitu zenuen zeuri ihes egina zitzaizun denbora gaztearen zantzua. Hasier Etxeberria

Segurantzia guztiko erreferentzia **tinko** bat bilatzen da orduan (bakoitzak bere kulturaren aurkitzen duena ezinbestean!). Joxe Azurmendi

Noraezean dabilen pentsamendua ideia **tinko** bihurtzen den unea iristen ari da. Jon Alonso

Biziraupen kontua da bakartu eta hondatu nahi zaituztenen aitzinean erresistentzia **tinkoa** mantentzea. Filipe Bidart

Ez du froga zehatz eta **tinkorik**, ordea, eta ezin auzitara eramán. Gotzon Garate

Astiro makurtu zuen burua, ezker-eskuin eragin, harik eta lehengo jarrera **tinko** berberera itzuli arte. Patxi Zubizarreta

Hor ere, artearen eta teknikaren harreman **tinkoak**, bakuntasun hungigarri bat eratzen dutela. Piarrés Aintziart

Ene eskariari ezaditua egiteko asmo **tinkoa** zuela. Aingeru Epaltza

Masailak areago gorritu bazitzaizkion ere, ez zion lagunaren begirada **tinkoari** itzuririk egin. Irene Aldasoro

Halakoxe burubideak eraginik, bada, bere desioa betetzeko erabaki **tinkoa** hartu zuen. Patxi Zubizarreta

Oroimenak gizartea eraikitzen zuen garaian, gizalditik gizaldirako lotura **tinko** sendoa zen garaian. Felipe Juaristi

Esku **tinkoaz** boligrafoari oratu dio eta orriari hitz bat gaineratu dio. Jon Alonso

Bere betiko izaera **tinkoa** galdurik, estreinakoz ikusi nuen zalantzan egun hartan. Hasier Etxeberria

Aurpegi zabala zuen [...] begi urdin begirada **tinkokoak** eta bibote grisaxka. Irene Aldasoro

Heriorik ez hostoen berdetasun **tinkoan**. Anton Garikano

Bere estutua **tinkoa** eta laburra izan zen. Bernardo Atxaga

Chavezen postura gogorra izan da, **tinkoa**. Pako Aristi

Jakin ezazu, nire hitza **tinkoa** dela. Juan Krutz Igerabide Begiradan antzeman dut aldaketarik handiena: oldarkorragoa **tinkoagoa** irudituz zait, ausartagoa, eta aldi berean zoriotsuagoa. **Patxi Zubizarreta**

Haien oroitzenetan, aitaren makila eta amaren negarra zituzten **tinkoenak**. **Aingeru Epaltza**

Gauza faltsuak kearen antzekoak dira; egia, osteria, sendoa da, eta **tinkoa**, eta bere argitasunak gezurraren iluntasuna deusezten du. **Patxi Zubizarreta**

Legeak izan daitezela, beraz, **tinkoak**, eta **tinkoak** haien gauzatzaleak kasu bakoitzean, baina legegilea izan dadila gozoa, errukitsua, gizalegekoa. **Juan Martin Elexpuru**

Nire erabakia **tinkoa** da. **Alberto Ladron Arana**

3 tinko-tinko adlag

Tinko-tinko heldu zion Ruche jaunaren aulki gurgildunari. **Jon Muñoz**

Bisitarien eskuak **tinko-tinko** estutuz panpina mekaniko bat balitz bezala. **Oskar Arana**

Tinko-tinko baina emeki besarkatuz bezala estutuko zuen makinak, eta beraren agindu eta kontrolpean ariko zen. Irudiak **tinko-tinko** begiratzen dio Raimundo Silviri. **Xabier Olarra**

Andra begira geratu zitzaion albotik pasatu zenean, **tinko-tinko**. **Sonia Gonzalez**

Erlaitz gainean kokatua, hanken gainean **tinko-tinko**, distiratsua zuen lumajea, hegaletako luma-muturrak gorrimez dir-dirka. **Jon Muñoz**

4 (iznondo gisa)

Begi **tinko-tinkoetarik** aski malko jarraikiak eginahalik gabe isurtzen zaizkiola. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurean tinko (10); **begi**ak tinko (8); **begietara** tinko (6); **begietara** tinko so (3); **begirada** tinko (3); **berean** tinko (4); **bezain** tinko (10); **bidean** tinko (3); **borrokan** tinko (7); **borrokan** tinko jarraituko (3)

egon tinko (3); **erantzun nion** tinko (3); **erdian** tinko (3); **errazari** tinko (4); **eskua** tinko (5); **eskuak** tinko (3); **eskuan** tinko (4); **eutsi** tinko (6); **gerritik** tinko (4); **gobernuak** tinko (4); **gogor eta** tinko (3)

jarrera tinko (4); **jarrerari** tinko (3); **kontra** tinko (4); **lanean** tinko (6); **lanean** tinko jarraituko (3); **lurrean** tinko (3); **marian galarraga** tinko (4); **nion** tinko (4)

oso tinko (6)

tinko agertu (3); **tinko agintzen** (7); **tinko agintzen diet** (6); **tinko atxiki** (5); **tinko atxikitzen** (6); **tinko aurrera begira** (3); **tinko begira** (17); **tinko begiratu** (19); **tinko begiratu zion** (7); **tinko begiratu** (3); **tinko begiratzen** (22); **tinko begiratzen dio** (6); **tinko behartua** (3); **tinko behartuak** (3); **tinko defendatu** (5); **tinko dirau** (6)

tinko egin (5); **tinko egon** (8); **tinko erantzun** (9); **tinko erantzungo** (4); **tinko erantzuteko** (6); **tinko estutu** (4); **tinko estutuz** (4); **tinko estutzen** (3); **tinko eta lasai** (4); **tinko eta sendo** (3); **tinko eustea** (3); **tinko eusteko** (9); **tinko eusten** (33); **tinko eusten dio** (9); **tinko eutsi** (36); **tinko eutsi zion** (10); **tinko eutsiko** (13); **tinko eutsiko dio** (3); **tinko eutsiz** (10); **tinko ezarri** (4); **tinko gelditu** (3); **tinko geratu** (3); **tinko gorde** (4); **tinko heldu** (16); **tinko heldu zion** (6); **tinko heldurik** (5); **tinko helduta** (8); **tinko helduta zeukan** (3); **tinko heltzen** (8); **tinko heltzen zion** (4)

tinko irau (14); **tinko irau** (3); **tinko irauten** (13); **tinko irauten zuten** (3); **tinko jardun** (3); **tinko jarraitu** (7); **tinko jarraituko** (12); **tinko jarraituko dutela** (6); **tinko jarraitzeko** (4); **tinko jarraitzen** (10); **tinko jarraitzen du** (5); **tinko jarrita** (3); **tinko jaurti** (3); **tinko mantendu** (5); **tinko mintzatu** (3)

tinko segitzen (6); **tinko segitzen du** (5); **tinko so** (7); **tinko so eginez** (3); **tinko tinko** (11); **tinko zirauen** (3); **tinko zirauten** (3)

asmo tinkoa (3); **bezain tinkoa** (4); **erabaki tinkoa** (7); **erabaki tinkoa hartu** (4); **erantzun tinkoa** (7); **erantzun tinkoa emateko** (3); **jarrera tinkoa** (10); **oposizio tinkoa** (4)

borrokaren konpromiso tinkotik (3)

urrats tinkoz (3)

tinkoagotu, tinkoago(tu), tinkoagotzen da/du ad tinkoago bihurtu.

Haren eskua **tinkoagotu** zen ene besoan. **Aingeru Epaltza**

Proposatzen du setioa **tinkoagotzea**, xagu bati ere Lisboatik iritelen edo Lisboara sartzen ez uzteko moduan. **Jon Alonso**

Delako finkotasun hori etengabe **tinkoagotu** behar dela, istripuen aurka babestu, ez baldin badugu gure gaurkotetasunaren zentzua galdu nahi. **Jon Alonso**

Astapetro ez nolananhiokoak, beren egoskorkearian **tinkoagotuak**. **Jon Alonso**

tinkotasun 1 iz tinkoa denaren nolakotsuna.

Bekoz beko geldituak dira, eta orain, arropak elkar ukitzen ez dutela, Rosamariaren giharraren **tinkotasuna** dator kio eskutik gora bularreraino. **Koldo Izagirre**

Beltzarrean gihartsuagoa zirudien, baina bestea hobeto hornitua zegoen, haren zakilak **tinkotasun** nabarmena zuen dagoeneko. **Juan Martin Elexpuru**

Eta estiborreko karelairean gainean jarri zituen oin biak estatxaren **tinkotasuna** baliatuz, amurako eskudela amaitzen zen hartan. **Koldo Izagirre**

Hodi hartara joan, eta bi eskuez heldu zion haren **tinkotasuna** ziurtatu nahi balu bezala. **Aitor Arana**

Ametsaren kondarrak buruan, atsegina egin zitzauden inguruko gauzek erakusten zuten **tinkotasuna**, zein seguru zegoen irrati aparatua alfonbraren gainean, eta hormako erlojuak ere zein lasai zirudien. **Bernardo Atxaga**

2 (gauza abstraktuekin)

Israeldarre **tinkotasuna** eman nahi diote bere herriari, erakundetu eta jarraipena ziurtatu. **Jose Antonio Mujika**

Gauzak esateko modua da, gauzak esateko duen **tinkotasun** paregabe hori. **Lander Garro**

Han, Grazien eskutik, edertasunak **tinkotasuna** koroatuko du. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Berehalakoan, baina, pentsamendu haiek gogotik bazterturik, **tinkotasunez** egin zuen aurrera. **Patxi Zubizarreta**

Inoren salaketaren beldurrik ez zuenez, halako **tinkotasunez** aldarrikatzen zuen egia, non eskola handiko gizasemeak ere [...] harririk gelditzen baitziren haren predikuekin. **Askoren artean**

Abasek eskua sorbaldan pausatutik, erabakitasunez eta **tinkotasunez** esan zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Eta honek **tinkotasunez** ukatu baitzuen, gaineratu zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Greziarren artean **tinkotasun** indartsuaren sinbolo zen lizarra. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tinkotasun osoz (4)
tinkotasuna erakutsi (3)
tinkotasunez esan (4)

tinkotu, tinko, tinkotzen 1 du ad tinko ezarri.

Lema **tinkotu** zuen azkenik, gurgilaren erdialdean ezker-eskuinean zeuden gakoak estuturik. **Anjel Lertxundi**

Buruu belaunetan **tinkotua** eta zurrunga batean ari zen lehen eskekoarengana hurreratu zen. **Patxi Zubizarreta**

2 (gauza abstraktuekin)

Ezpainak estutu eta errepidean **tinkotu** dun begirada. **Iban Zaldúa**

Eudon irabazlea izan zen Poitiersen, baina han galdu zuen ekialdetik mendebaldera Pirinioetako bi altzoetara zabaltzen zen erresuma **tinkotu** eta mantentzeko aukera. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Aurkako protestak Frantzian zehar hedatu ahala, gobernuaren jarrera **tinkotu** egin da. **Berria - Ekonomia**

tinpaniko iz tinpanoarena, tinpanoari dagokiona.

Nahi ez den zarata uxatzen muskulu **tinpanikoek** duten eragina eta argi biziaren begirako pasabidea murrizten irisak duena elkarren parekoak dira. **Irene Aldasoro**

tinpano 1 iz belarri barneko mintza, hots dardarak belarriko hezurtxoei igortzen dizkiena.

Uhinek, airean zehar joanda, bibrazioak eragiten dituzte **tinpanoa** eratzen duen mintzean. **Irene Aldasoro**

Txistua **tinpanoak** mintzerainokoa zen. **Anjel Lertxundi**

Presioak **tinpanoak** urratu zizkion; aurpegia uzurtu, eta begiak itxi zituen. **Jon Muñoz**

Solidario bati **tinpanoa** hautsi zioten ostikada batez. **Txema Ramirez de la Piscina**

Eztandak **tinpanoa** zulatu zion. **Berria - Euskal Herria**

Garner andreak esan zuen atake batek lehertu ziola **tinpanoa**, eta Seigarrenek esan zuen bolbora izan zela. **Anton Garikano**

Tinpanoak txikituta baitzeuzkan morterokada bat zela medio. **Josexo Azkona**

Tinpanoak eta hiru hezurtxoek palanka baten gisa funtzionatzen dute. **Irene Aldasoro**

2 arkitekturan, ateburuaren gaineko hiruki formako gunea.

Kapitelen gainean joango diren elementu guztiak, hau da, arkitrabe, friso, erlaitz, **tinpano**, frontoi, akroteriak, altueraren hamabiren bateko inklinazioarekin egin behar dira. **Santiago Iruretagoiena**

Frontoian geratzen den **tinpanoaren** altuera ere honela egin behar da: [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Tinpanoaren gaineko erlaitzak ere azpian geratzen direnak bezalakoak egin behar dira, simak izan ezik. **Santiago Iruretagoiena**

Tinpanoaren gainean gailurra, astazaldiak eta petralak jarriko dira, kontuan hartuz isuriak teiltatu osoaren heren batekoa beharko duela izan. **Santiago Iruretagoiena**

tinta 1 iz idazteko, marrazteko edo inprimatzeko erabiltzen den isurkaria, eskuarki beltza.

Erreka bat, "Eau de Robec" deitua, **tinta** bezain beltza. **Josu Zabaleta**

Eskolako liburuen testu, ariketa eta diseinuak ahanziak ditut, baina artetan **tintaren** usaina datorkit! **Piarres Aintziart**

Tintak dir-dir egin zuen paperean istant batez, eta gero, orriak barrura xurgatu balu bezala, desagertu egin zen. **Iñaki Mendiguren**

Tintan itotako euli bat. **Matías Múgica**

Ekarri papera eta **tinta**. **Askoren artean**

Tinta, luma eta papera ekarrarazi zizkion. **Askoren artean**

Eskerrak **tinta** baino modu iraunkorragoan gorde nituen neure oroitzapenak. **Iñaki Mendiguren**

Biroren bolalumak oso erabiliak eta goraituak izan ziren hegazkinetan, **tinta** ez baitzen isurtzen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Itxurak eta **tintari** zerion usainak nabarmen zuten liburua berri-berria zela. **Anjel Lertxundi**

Zein egokia litzatekeen **tintaz** bustitako bola txiki bat paperaren gainean **tintazko** arrasto mehe eta garbia uzteko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Idazkera fina, txinatar **tintaz** egina. **Jon Muñoz**

Ipuin bat dugu bizitza; orri zurian idatziz goaz, **tinta** amaitzen zaigun arte. **Joxemari Urteaga**

2 (izenondoeekin)

Tinta berri baten bila murgildu zen, inprentetan erabiltzen diren lehorte azkarreko **tintekin** saiakuntzak eginez. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Tinta sinpatikoaz idatzitako gutun batzuk aurkitu zituztela. **Fernando Rey**

Paperek **tinta** freskoaren usaina ekartzen zuten oraino. **Aingeru Epaltza**

Bitarte horretan George anaia kimikariak **tinta** egokiago bat asmatua baitzuen bolaluman erabiltzeko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Agindu zuen jauregiko Historia liburuetan **tinta** ezabaezinez idatz zezatela. **Patxi Zubizarreta**

Zentsuraren **tinta** ezabatzailearen azpian. **Edorta Jimenez**

-Agian **tinta** ikusezina izango da! -esan zuen xuxurlan. **Iñaki Mendiguren**

Pergaminozko paperean eta **tinta** txinatarrak dotore idatzita zegoelako. **Ramon Saizarbitoria**

Apurka-apurka gris bihurtzen ari da **tinta** beltza. **Harkaitz Cano**

12 zenbakia, **tinta** urdinez idatzia, 49 zentimetro koadroko paper batean. **Unai Elorriaga**

-Ez, ez duk odola -esan zidan-, **tinta** gorria duk. **Koro Navarro**

Pergaminozko kartazal horixka berdin-berdinak, **tinta** berdez idatziak. **Iñaki Mendiguren**

Helbidearen letra irmoek, **tinta** bioletaz marrazturik [...] badute oraindik dirdira pittin bat. **Monika Etxebarria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tatuajeetarako hainbat **tinta** sorta kutsatuta egon daitezkeela ohartarazi dute. **Berria - Euskal Herria**

Tinta injekzioz dabilzan gailuak identifikatzeko lanean ari dira. **Berria - Gaiak**

Tinta usaina, papera nire behatzen artean zimurtzen da. **Monika Etxebarria**

Islilik eta txukun zegoen kalea **tinta**-koloreko zerupean. **Iñaki Mendiguren**

Nik neure sentipen guztiak laburbildurik ikusten nituen **tinta**-tantaz ziprztinduriko orri hartan. **Aingeru Epaltza**

Egunsentiarik izarak jarri zizkieten gainean hilei, eta izaren zurian berehala zabaldu ziren **tinta** borroien moduko odol gunek. **Joseba Sarrionandia**

Beste **tinta** marka salatari bat pasaportean. **Berria - Mundua**

Kexu agertu ziren hala ere, hiru bat **tinta**-urratu ageri zirela eta. **Inazio Mujika Iraola**

Ondoan, **tinta**-lata batzuk, eta makina-olio ontzi pare bat. **Txillardegí**

Soilik bukaeran, eskuz idatzitako gehigarri bat, faxak utzi ohi duen **tinta** arrastoen artean doiki irakur zitekeena: muxu bat. **Hasier Etxebarria**

Hau kartoizko kutxa bat da, barnean nire **tinta** flaskoa duena. **Monika Etxebarria**

Egunerokoa, ordea, **tinta**-botila gainean puskatu aurretik bezain garbi zegoen. **Iñaki Mendiguren**

Liburuak, makila magikoa, pergaminoa eta luma lurtean sakabanatu ziren eta **tinta**-botilatxoak plasta! erori zen guztien gainera. **Iñaki Mendiguren**

Bost langile joatekotan dira Gales-era, **tinta** kartuxa berritzen ikasteko. **Herria**

Segituan ateratu zuen zibilua eta **tinta**-tanpoia gordelekutik. **Inazio Mujika Iraola**

Tinta-zanpagailuarekin nire txostena zigitatu eta kanpora egotzi ninduen konturatu orduko. **Harkaitz Cano**

Gaur arte hainbesterainoko **tinta**-ibaikiak sortu eta jaitzarazi dituen jatorrizko testu polemikoaren originala. **Santiago Iruretagoiena**

Diferentzia hori aski izan da kristautasunean **tinta**-uholdeak sortzeko, eta odol uholdeez hobe ez mintzatzea. **Xabier Olarra**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Ez da kapa **tinta**-kolore soil hau, ama nire. **Juan Garzia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Imanolek idatzitako inpresio solteak dira, boligrafo **tinta** desberdinez, bakoitza bere datarekin. Joseba Sarrionandia

Gauza zitala da anhilinarean kolorea, eta Pernilek [...], buruan anhilina-**tintazko** dutxa hartu zuenak alegia, hiru egunez egon behar izan zuen etxean sarturik. Koldo Biguri

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Tinta pote ilara oso bat apal baten gainean, eta disolbakin botila pare bat, bere usain azkar bereziarekin. Txillardegi

7 tintaz eginiko margolana.

Olioa, ikatz ziria, grafitoa, pastela, akuarela, **tintak**... Berria - Kultura

Orain, aldiz, 150 olio zein **tinta**, 15 litografia harri eta 77 grabatu izango ditu museoak. Berria - Kultura

8 zefalopodoek jariatzen duten isurkari iluna.

Zinegotziak, txipiroiak **tintaren** atzean bezala, bere burua ke hodei artean ezkutatzeko ahalmena zuen. Ramon Saizarbitoria

Hara zer prestatzen ari naizen gaur: txipiroiak **tintan**, baina neure ukitu originalaz, ardo zuriaz bustita. Jon Arretxe

9 tinta-ontzi ik tintontzi.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lumak eta tinta (3); **papera eta tinta** (5); **tinta beltzez** (6); **tinta berdez** (4); **tinta gorritz** (10); **tinta urdinez** (5); **tinta usaina** (3)

tintaren usaina (3)

tintaz zikinduta (3)

tintaketa ik tindaketa.

tintalari iz margolaria.

Tintalari primitibo baten tauletan. Berria - Kultura

tintatu ik tintatu.

tinte iz koloregaia, tindua.

-Bekainetako **tintea** kendu ahal izango dut, baina bibotea... Patxi Zubizarreta

Badauka zarauztarrak telenobeletako senar jeloskorren itxura, ile txuriak estaltzeko **tintea** joaten zaionean. Pako Aristi

tintero iz tintontzia.

Han egoten ginen aukietan kikilduta, **tintero**a aurrean, sala ilun hartan, **tintero**a baino sala ilunago hartan. Joseba Sarrionandia

Zure gorpua nire **tintero** bilakatu izan dut eta bere torturen oihuak nire goi-arnasaren oihartzun. Eider Rodríguez

tintin 1 iz arin kolpekatzen den kristalaren, txilinarene edo kidekoen hotsa.

Orain garbi entzuten zituen ahotsak eta baita txilin baten **tintina** eta ate batek, irekitzean eta ixtean, ateratzen zuen kirrinka-hotsa ere. Iñaki Mendiguren

Noizik behin, ate baten kirrinka aditzen da, behien joarearen **tintina**, mutiko baten ahotsa, eulitzarren burrunba... Koro Navarro

Argitasun horrekin batera ekarri du freskura, eta hostoak bete zaizkit amaraunak zilarrez pintatzen dituzten **tintinekin**. Alberto Barandiaren

Emakumeek txio egiten zuten katiluen **tintinen** artean, txoriek txoritegian bezala. Lopez de Arana

Prentsen usaina artean sudurrean, idazmakinen **tintina** artean belarrietan, Jimmy Herfek eskuak poltsikoan zituela City Hall Square-n so egiten zion elurra kentzen ari ziren gizon zarpaitsuei. Lopez de Arana

2 tintin egin

Granada-fruituz apaindu zion jantzia, eta urrezko txilin ugariz, ibiltzerakoan **tintin egin** eta hotsa tenplu osoan entzun zedin. Elizen arteko biblia

Jake Silvermanek erretilua hartu zuen, han katilu batean izotz-puska batzuek **tintin egiten** baitzuten, eta idazmahaiaren gainean ezarri zuen. Lopez de Arana

Eskuak jaisten zituen bakoitzean, platerak **tintin egiten** zuen -arrazoi misterioetsuren batengatik-, eta zarata harek iratzarria zuen Miksch. Anton Garikano

Bullockek halako ukabilkada gogorra jo zuen mahaiaren, ezen platerak eta edontziek **tintin egin** baitzuten. Lopez de Arana

3 tintin hots (orobat tintinots g.er.)

Weasley andrearen oihuek, ohi baino ehun aldiz ozenagoek, **tintin-hotsa** eragiten zieten mahaiko platerari eta koilare. Iñaki Mendiguren

Zarata batek iratzarri zuen: platerak, labanak eta sardexkak elkar jotzearen **tintin hotsak** edo. Anton Garikano

Berrito ere portzelana apurtuaren **tintin-hotsa** entzun zen; Nevillek bigarren kikara apurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Kristalak zuraren kontra ateratzen duen moduko **tintin-hots** txiki bat entzun zen. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tintin egiten (4); **tintin hots** (4); **tintin hotsa** (4)

tintinka adlag tintin eginez.

Dominoko fitxak elkar joka, mahai gainera amorriz jaurtitako zilarrezko txanponak **tintinka**. Anton Garikano

Platera **tintinka** hasi zen oster, eta Demba berehala desagertu zen mahai atzean, bat-batean hondora joan balitz bezala. Anton Garikano

Guztietan argi-armiaria kedartu berdina, eta, handik goitik zintzilik, beiraki ugari, zeinak dardaraz eta **tintinka** hasten baitira ostatuko morroia linoliozko zoru higatutik lasterka igarotzen den bakoitzean. Jose Morales

tintinkari izond tintin egiten duena. ik tintinlari.

Hesterrek zetazko galtzamatzak, gerriko metaliko **tintinkaria** eta gerruntzea zeramatzan. Lopez de Arana

tintinlari *izond* tintin egiten duena. ik tintinkari.

Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzez hitz egin, maitasunik ez badut, brontze soinulari eta ezkila **tintinlari** besterik ez naiz. **Elizen arteko biblia**

tintinots ik tintin 3.

tintontzi (*orobat tinta-ontzi g.er.*) iz idazteko tinta daukan ontzi txikia.

Bere mahaia eta bere kadira utzi zizkidan, eta bere luma eta bere **tintontzia** ekarri. Antzara-luma luze bat eta **tintontzia** eskaini zizkion gero. **Aingeru Epaltza**

Astiro eta kontu handiz estalkia kendu zion **tintontziari**, luma tintatan sartu eta idazten hasi zen. **Iñaki Mendiguren**

Tintontzi txiki batean busti punta, eta hau idatzi zuen beirazko lumak: [...]. **Jon Muñoz**

Kristalezko **tintontzi** zikina eta idazteko paperaren kartoizko kaxa hartu zituen apalategitik. **Anton Garikano**

Eta ez da falta eskolako gela bat: arbelak, idazmahaiak, **tintontziak**, mapa zaharrak... **Berria - Kultura**

Harraskan hustu **tintontzi** gorria eta berdea. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

luma eta tintontzia (4); **tintontzia atera** (3)

luma tintontzian (7); **luma tintontzian busti** (4)

tintorratz iz bolabumaren bola.

Boligrafoaren **tintorratzaz**. **Pako Aristi**

tintura 1 iz tindua.

Erizaina, **tinturazko** errubia, botika kaxarekin ailegatu da, pazienteei pastillak bonboiak lez banatzen. **Joseba Sarrionandia**

2 iodo tintura

Gaza esterilizatuekin eta **iodo**-tinturarekin. **Fernando Rey**

iodo-tintura urratu eta harramazketarako, metileno-urdina eztarriko minerako, eta "bir" delakoa hazpizarretarako. **Fernando Rey**

tio lagun bat izendatzeko deikia. ikmotel²; hi 2.

-Hi, **tio**, hik flipa egiten al duk? -esan dio bultz duenetako batek. **Pako Aristi**

Tranki, **tio**: inork eman edo kendu ezin duen huraxe duk eta ohorerik ederrena. **Patziku Perurena**

-Bale, **tio**, portatu haiz! **Pako Aristi**

'Bueno, **tio**'. **Lourdes Oñederra**

Joder, **tio**! **Jon Arretxe**

Eta esan, **tio**, ez al haiz konturatzen hori dena gezurra dela? **Pako Aristi**

"Eske dena nahastuta zegok, **tio**". Itsasok. **Pako Aristi**

-Hau duk mobida kutrea, **tio**! -dio batek. **Pako Aristi**

Hi eta ni koittadu batzuk gaituk, **tio**! **Antton Olano**

tiobibo 1 iz zaldiko-maldikoa, karrusela. ik karrusel.

Tiobiboan jira eta bira, gora eta behera, hor doa, joan eta joan, zalditxo. **Joxerra Garzia**

Lepotik eusten zion eta jira-biraka erabiltzen zuen, **tiobiboetan** balebil bezala. **Gotzon Garate**

2 irud/hed

Gurpil zoroan, **tiobibo** etengabean, biraka dabilen errotatik eskua ateratzen saiatzen gara bakoitza, "hemen nago" oihukatuz bezala. **Harkaitz Cano**

-Lasai, ez larritu -erantzun dio honek ilea eta aurpegia laztantzen dizkion bitartean-, denok gaude berdintsu, neuk ere **tiobibo** ederra daramat gainean. **Joxemari Iturralde**

tiodextro iz

1977. urtean, beste bi produkturi buruz hitz egiten hasi ziren: difenilhidantoina eta 5-**tiodextro**-glukosari buruz. **Luis Elberdin**

tioka *adlag* 'tio' esanez.

Hitanoa jolas gisa irakatsiko balitzaie, ez lukete **tioka** hitz egin beharrik izango kideatasun premia hori asetzeko. **Joxerra Garzia**

tiorba 1 iz lautearen familiako musika-tresna, bi larako multzo dituen gider luzekoa.

Orkestran bibolinak, biola, txeloa, biolonea, **tiorba** eta klabea daude. **Berria - Kultura**

D'ell Agnellok biolontxelo barrokoan eta Palombak **tiorban** eta baxu kontinuoan egin zuten lan. **Berria - Kultura**

2 tiorba-jotzaile

Pierre Hantai klabezin jotzailearekin eta Rolf Lislevand **tiorba** jotzailearekin ariko da Savall gaur iluntzeko 20: 00etatik aurrera, Kurasaaleko ganbera aretoan. **Berria - Kultura**

tip 1 idazmakina jotzearen onomatopeia.

Bere idazmakinan hasi da **tip tip** tap **tip tip**... **Joseba Sarrionandia**

Armando idazmakinarekin ari da lanean: **tip tip** tap **tip tip** top **tip tip**. **Joseba Sarrionandia**

2 (izen gisa)

Hara hemen nobela, **tip tip** **tip** **tip** top amaiezin haien arrazoia, jadanik paper multzo bihurtua. **Joseba Sarrionandia**

tipa *iz adkor* emakumea. ik **tipo 7**.

Tipa hura sekulako txapa sartzen ari zitzaidan. **Jon Arretxe**

-Urde galanta, **tipa** hori. **Josu Zabaleta**

Ez zakiat bat, ez zakiat bat... **tipa** batekin zebilean liatuta, baina kontu arraro xamarra zuan bien artekoa. **Sonia Gonzalez**

Aldizkari ia guztietan, sarketa bikoitzeko argazkiak ageri dira, bi tipo eta zoritxarreko **tipa** bat makillajez gainezka, hot dog erotiko bat gutxi gorabehera. **Karlos Zabala**

Tipo edo **tipa** normala da, horretarako entrenatua dagoena, ohitura duena, eta hori gustatzen zaiona. **Berria - Kultura**

tipejo *iz adkor* gizonezkoa.

Gezurra zirudín **tipejo** horiek guri ezer erakutsi behar digutenik... **Pako Aristi**

tipi ik **tipi**.

tipifikatu, tipifika, tipifikatzen du *ad* zerbait tipo edo klaseetan sailkatu.

Ez du dinamita erabili, egia da, baina Anarkismoaren Errepresiorako eginiko legearen 1. Artikuluan dator **tipifikatua** bere delitua. **Koldo Izagirre**

Luesmak nabarmendu zuen gertatutakoa argitzea ez dela bere lana, eta horregatik utzi duela gaia «jokabide hauek **tipifikatzea** dagokion jurisdikzioaren esku». **Berria - Euskal Herria**

tipifikazio *iz* tipifikatzea.

Tipifikazio honek ematen digu bat-bateko bertsolaritzaren eta beste diskurtso molde batzuen arteko erlazio konplexuak atzemateko aukera. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

tipiko 1 *izond* zerbaiten ezaugarriak bete-betean dauzkana. (pertsonez)

Masail zurixkak ditu, ingeles **tipikoen** antzekoak. Txiliku ez da ilustratu ironiko **tipikoa**, ez die zientziaren eta zentzun modernoaren faroaren goietatik herri xehearen ueste atzeratuei iseka egiten. **Lutxo Egia**

Ezagun zuten ez zirela ez baseritarrik eta ez mendizaleak, ez behintzat ohiko mendizale **tipikoak**. **Juan Luis Zabala**

Gero, neskarekin erdizka dabilen tipoa: hau bai dela intelektual **tipikoa**, beti liburuez eta pelikulez hizketan, bere bixarrarekin... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bateatik, topikoekin jolasteko pronto nengoen; bestetik, ez nuen **tipikoezia** ere izan nahi. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Joanes Azatxun artzain sano eta arras **tipikoa** hartu eta "análisis franko egin zizkioten han: [...]". **Markos Zapiain**

Aro Heroikoko gizaki **tipikoa** gaztearekin hobeto konpara daiteke... **Iñaki Mendiguren**

2 (gauzez)

Etxe **tipiko** zoragarri bat zen, muino baten gainaldetik herrira begira jarria. **Xabier Olarra**

Pariseko kafetegi **tipikoa** dirudien horietako bat. **Ramon Saizarbitoria**

Iran eta Kurdistanango musika tresna **tipikoak**. **Berria - Kultura**

Neskek, ohi zuten jantzi **tipikoa** beharrean, arropa amerikano arruntak zeramatzaten soinean. **Joxe Austin Arrieta**

Eskoziako ohial sendo eta beroa da, gizonezkoen gona **tipikoak** eta abar egiteko erabiltzen dena. **Iñaki Mendiguren**

Bukaeran *sancochoa* hartu dute denek, bertan prestatzen duten salda **tipiko** bat. **Pako Aristi**

Proteina **tipiko** bat ordena jakin batean antolatutako ehunka aminoazido dira. **Irene Aldasoro**

Familia **tipiko** baten zorionezko potreta. **Itxaro Borda**

Abentura film **tipikoa**. **Unai Iturriaga**

Gabilondo [...] oinarrietaraino saiatsen baitzen suntsitzen Donostia zaharraren izaera **tipikoa**, tradiziozkoa, klasikoa. **Askoren artean**

Judas, bere diru-poltsa eskuan zuela, Ebanjeliotik erabat urrunarazten duen zekenkeriaren irudi **tipikoa** zen tradizio monastikoan. **Askoren artean**

Fenomeno hau **tipikoa** da herrialde garatuen arteko trukeetan. **Koro Navarro**

Laburbiltzeko: ligoteo **tipiko** bateko baldintza guztiak. **Unai Iturriaga**

Librekanbismoaren aldeko argumentu andana **tipikoa**. **Iñaki Heras**

Mortero eta material zeramikoz egiten ziren erromatarren horma-egitura **tipikoak**. **Santiago Iruetagoiena**

Laburbiltzeko: ligoteo **tipiko** bateko baldintza guztiak. **Unai Iturriaga**

Gure Orentzero, gizajo eskazale alprojaren pantomima **tipikoa** da. **Patziku Perurena**

Oso **tipikoa** Malfoyk dena nahastu behar izatea. **Iñaki Mendiguren**

Bainuontzia laztantzen ari zen Mercedes, bainuontziak laztantzeko erabiltzen den modu **tipikoan**, hau da, goitik behera eta eskumatik ezkerreara. **Unai Elorriaga**

3 *desbideratze tipiko* (estatistikan)

Langile batek, egunero, goizeko 08:00etan pizten badu bulegoko ordenagailua, nahikoa dugu **desbideratze** tipikoa zein den kalkulatzeko, portaera legitimoak eta subertsiboak bereizteko. **Berria - Gaiak**

tipikoki *adlag* era tipikoan.

Expiación-ek (*Atonement*, ingelesez) landetxe-nobela **tipikoki** britainiarra dirudi. **Berria - Kultura**

Giza ale **tipikoki** gris bat ateratzen zen garbi, itsuen erreinuko begibakar ez gutxietako bat. **Juan Garzia**

Bada, gainera, mesprezuzkorik ugari, inoiz pertsonak juzkatzeko erabiliak, baina **tipikokiago** erabiliak, adibidez, senar-emazteak kristau dendariaren salmahaiaren aurrean geldirik ezbaian daudela. **Juan Garzia**

tipikotasun *iz* tipikoa denaren nolakotasuna.

ETAren horizonte berriak ez du **tipikotasunarekin** zer ikusirik. **Joseba Zulaika**

tipiño ik **tipiño**.

tipirri-taparra *adlag* nekez.

Eta **tipirri-taparra** irten zen kanpora, lotsatu samar. **Iñaki Mendiguren**
Isilka, **tipirri-taparra** joan ziren zelaian aurrera, pixkanaka gero eta handiagoak ziren gazteluko argietara. **Iñaki Mendiguren**
- Borrokan ari zirela, dozenaka sorginkeria-liburu etorri zitzaizkien **tipirri-taparra** buru gainera. **Iñaki Mendiguren**

tipitasun ik **tipitasun**.

tipito ik **tipitto**.

tipitu ik **tipitu**.

tipizitate *iz* zuzenbidean, egitate bat egokitzea legeak adierazten duten delitu motari.

Auzmendiren abokatu Pelaezek «**tipizitate** printzipioa urratzea» egotzi dio, bi atalak nahasteagatik. **Berria - Euskal Herria**

tiple *iz* sopranoa.

-Kaixo, neu naiz -esan zuen kanpoan zain zegoen neskatoaren **tiple** ahotsak. **Joxemari Iturralde**
-Ni Migel naiz -erantzun zuen saguak bere **tiple** ahotsez-. **Patxi Ezkiaga**

tipo 1 *iz* talde edo multzo baten funtsezko aldeak biltzen dituen eredu edo banakoa.

Bertan aipatzen diren esaldiek banakoak izan behar dute, ez **tipoak**. **Itziar Laka**
Adina, altuera, pisua, **tipo** morfologikoa, larruaren tonua. **Jon Alonso**
Beti da interesgarria hizkuntzen **tipo** gramatikala jakitea. **Isabel Arrigain**
Tipo horren ezaugarri nagusiak hauek dira: ia ez dago elkarretarik, eratorjeta oso gutxi erabiltzen da, flexioa gutxi garatua dago [...] eta horrenbestez, hitz ordena oso erregela zorrotzei atxikia dago. **Isabel Arrigain**
Transmutazioa: espezieak ez dira **tipo** aldaezinak. **Askoren artean**
Ikuspegi horretatik begiratura, indibiduo bakoitza **tipo** esentzialaren imitazio inperfektua litzateke. **Askoren artean**
Hala gertatzen da multzokatze mota honen **tipo** ezaugarri batean: flexio paradigmetan, alegia. **Isabel Arrigain**
Horren arabera, espezie bakoitza **tipo** ideal edo unibertsal bati dagokio. **Askoren artean**
Vitruvius bera da bere burua aurkezten duena arkitektoaren **tipo** idealaren adibide bezala. **Santiago Iruretagoiena**
Zoologian arrak eta emeak daude, baina ez dago espeziearen **tipo** idealik. **Isabel Arrigain**
Aizkoraz ebakitako kokotsak eta sudurrak, euskal **tipo** eredugarriak. **Koldo Izagirre**
Mundu islamikoan zehar **tipo** estandar bilakatu zen komunitate-mota baten lagina. **Iñaki Mendiguren**
Behin eta berriro berpizten den intelektualaren **tipo** mesianiko hori, Menéndez Pelayotar edo krausista lehenbizi, 98tarra gero, laster faxista, demokrata konstituzionalista hurrengo, herri espainolaren arima salbatzeko bokaziokoa beti. **Joxe Azurmendi**
Ohiko kontzeptuen tipologiak hertsiki lotuta daude kontzeptuon metrizazio-prozedurei, eta are zehatzago prozedura horietarako erabilitako eskalen **tipoei**. **Askoren artean**
Begirada altxatu gabe ere neska hura ez zela nire **tipoa** gogoratu nuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tenplu-**tipo** nagusiak, tenplu guztien kanpoko itxura mugatzen edo finkatzen dutenak, hauek dira [...]. **Santiago Iruretagoiena**
Esaldi-banakoa" gertaera bakarra da, behin bakarrik gertatzen den esaldia (*utterance token*), eta "esaldi-**tipoa**", antzekoak diren esaldi-banakoek osatzen duten taldea. **Itziar Laka**
Hizkuntza familiarik eta hizkuntza **tipoak**. **Isabel Arrigain**
Hizkuntza familia oro ez da, berez, -eskubidea duelako eta betirako-, hizkuntza **tipo** jakin batekoa. **Isabel Arrigain**
Hizkuntza **tipoa** ezagutzen hasten direnean harrututa gelditzen direla esan digu irakasleak. **Berria - Euskal Herria**
Emazteak, emazte **tipoak**. **Lourdes Oñederra**
Gauzak garbi dituen emakume **tipoa** dirudizu... **Aritz Gorrotxategi**
Bereizketa hauen gainean karakterizatzen ditu Ortega-k arraza edo herri **tipoak**. **Joxe Azurmendi**
Bi solairurekin, hegazkinaren modelo **tipoa** 555 bidaiarentzakoa da, hiru kasetan banatuta (22 lehen klasean, 96 business-ean eta 437 turista klasean). **Berria - Harian**
Perpaua da sintagma **tipo** beteena. **Isabel Arrigain**
Etxe **tipo** bat desagertzen denean, arraza bat itzali da. **Joxe Azurmendi**
Horrela sortu zuen ama doilorraren literatur **tipoa**, ordura arte ezezaguna. **Itziar Otegi**
Gero dago hirugarren saileko nagusi **tipoa**, "nagusi ez nagusia". **Iñaki Arranz**
Horretarako, bolaluma **tipoko** linterna txiki bat jartzen da betazalean. **Irene Aldasoro**

3 (zuzenbidean)

Izan ere, 'legez kanpoko elkartea' delako **tipoa** Espainiako Zigor Kodean bi ataletan banatua dago, eta oso bestelakoak dira bata eta bestea. **Berria - Euskal Herria**
Mota horretako adierazpenak epaitzeko **tipoa** badagoelako: biktimak umiliatzea eta gutxiestea zigortzen duen Zigor Kodeko artikulua. **Berria - Kultura**
Taldea armatuari laguntza ematearen zigor **tipoak** berriz aztertzea. **Berria - Euskal Herria**
Arazoak baitakartza **tipo** penal batean bereizketa egiteak biktimen sexuarengatik. **Berria - Euskal Herria**
Terrorismo delitua aipatzen bada, Zigor Kodeak aurreikusitako delitu **tipoen** aplikazio zabala onartzen delako da. **Berria - Euskal Herria**

4 mota, klasea.

Montesinos-ek erromantizismoaren barruan **tipoak** bereizten ditu. **Joxe Azurmendi**
Lainobera **tipo** hauek osatzeko, haize nagi mantsoa behar du egon. **Pello Zabala**
Dutxa katarsi **tipo** bat da, etnografoek sinistu nahi ez badute ere. **Unai Elorriaga**

5 ekonomian, operazio jakin batzuetarako finkatzen den prezioa edo ehunekoa.

Esaterako, petrolioaren salneurriak igotzeak edo interes **tipoak** gehitzeak inbertsioan eragin txarra izan dezaketela ohartarazi du. Berria - Ekonomia

Errenta Zergako **tipoen** jaitsiera. Berria - Ekonomia

Hipoteka indizeen **tipoak** neurtzen dituen Euriborrak, bi hamarren egin zuen behera urtarrilean, eta %2,216an amaitu zuen. Berria - Ekonomia

6 inprentan, letra edo ikur baten erliebea daraman metalezko pieza.

Baina hortik aurrera lan guztia letra-**tipo** eta tamaina berarekin idazteko joerari eutsi behar zaio (baita izenburuetan ere). Askoren artean

Halaber, garai hartako letra **tipoekin** edozein hitz edota esaldi idatzi eta paperean etxera eramateko aukera eskaintzen du erakusketak. Berria - Kultura

7 adkor gizonetzkoa. ik morroi 9; tipa.

Hamar mila **tipo** zeudek Hollywoodean nire lekuan egon nahi luketenak. Fernando Rey

Bi **tipo** eta zoritxarreko tipa bat makillajez gainezka. Karlos Zabala

Hasten da hizketan [...] eta ohartzen zara zeu bezalako **tipoak** traba direla Lehendakariarentzat. Hasier Etxeberria

Ablepsiak jotako **tipo** bat ezagutzen dut. Karlos Zabala

-**Tipoa** ez zen ez zaharra ez gaztea. Koro Navarro

Tipo hori ziniko bat da. Unai Iturriaga

-Eta **tipo** hori ez da ergela, eta ez dago burutik eginda ere. Migel Angel Mintegi

Tipo batengatik bi egun baino gehiago sufritzea astakeria galanta da. Antton Olano

Emakumeak eduki ditut, borrokan egin dut **tipo** batzuekin. Monika Etxebarria

Ni ez nintzateke **tipo** horrekin fidatuko -ihardetsi zuen, zalantzarik egin gabe, zioenaz segur. Migel Angel Mintegi

Tipoa lurtean zegoen zauriturik. Ramuntxo Etxeberri

Ez nuen egin nahi berriro beste **tipoarekin** egin nuena, hirugarrenak dena ikusi baitzuen. Xabier Olarra

Tipo bat han barruan, lurtean eserita, erretzen, eta neuri galdezka ea nola nuen izena. Joxe Austin Arrieta

-Horko **tipo** hori, gure lekua hartu duena, tranpa egiten ari da. Koro Navarro

-Hi haiz hi, **tipoa** -esaten genion halakoetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Tipoa bere onetik aterata zegoela iruditu zait. Migel Angel Mintegi

Tipo honek zainetan zaborra baino zerbait gehiago zeukak! Pako Aristi

Tipo baten bizkar bizi naiz. Monika Etxebarria

-**Tipo** bat garbitu behar duzu. Sonia Gonzalez

Aspaldi galdu nioan arrastoa **tipo** hari. Harkaitz Cano

Irrikan naukazu jostailu polit honekin lehen aldiz **tipo** bati tiro egiteko. Migel Angel Mintegi

8 (izenondo eta izenlagunekin)

Tipo zintzoa duk, ikusiko duk. Alberto Ladron Arana

Lotsati samarra da, baina **tipo** ona. Migel Angel Mintegi

Tipo jatorra da baina... Unai Iturriaga

Idazkaria **tipo** handiuste samarra zen. Josu Zabaleta

Sudurrik ez duen **tipo** higuin garri hori ikusten duenean. Fernando Rey

Meheegia eta urduriegia iritzi nion **tipo** luze ilehori hari. Alberto Ladron Arana

Tipo betaurrekoduna eta ondo orraztua. Sonia Gonzalez

Tipo gogorra izandakoa, famak dioenez. Txillardegi

Tipo gogorrarena egin nuen berarekiko aurrez aurrekorako. Oskar Arana

-Bai... lehengo **tipo** bera duk. Alberto Ladron Arana

Tipo metodiko, minbera, mesfidati xamar bat. Pablo Sastre

Aparteko **tipo** bat, esaten zuten. Josu Zabaleta

Hitz pare batean edonork ulertzeko, **tipo** enrollatua zela esango nuke. Xabier Mendiguren Elizegi

Inixio euskarazko **tipo** mohikano elezakar bat da, eta itota bizi da hainbeste idiota elebakar eta elebidun izeneko belarrimotzekin. Iñaki Segurola

9 (hitz elkartuetan)

Ez Arrietarena, banekien-eta zer **tipo** -mota zen emakumeekin. Migel Angel Mintegi

10 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Udaberri hartan **tipo** xeble andana ederra ezagutzeko parada izan nuen Maximilian plazan. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskarazko **tipo** (3); horrelako **tipo** (3); izeneko **tipo bat** (3); jantzitako **tipo** (7); lehengo **tipo** (3); letra **tipo** (3)

tipo arraroa (3); **tipo atsegina** (5); **tipo bat etorri** (3); **tipo bat zegoen** (3); **tipo bera** (4); **tipo berezia** (3); **tipo bikaina** (3); **tipo bitxia** (6); **tipo bizardun** (3); **tipo gaiztoa** (3); **tipo gogor** (3); **tipo gogorra** (6); **tipo jatorra** (18); **tipo jatorra da** (8); **tipo luze** (3); **tipo majoa** (3); **tipo mehe** (5); **tipo mehe bat** (3); **tipo ondo orraztuak** (3); **tipo penal** (4); **tipo xeble** (4); **tipo xeblea** (3)

bakeroetako **tipoak** (4); egunkariko **tipoak** (4)

tipografia 1 iz inprenta-letren bidez inprimatzeko tekniken multzoa.

Ordurako baziren ehun urte Gutenbergekarak karaktere higikorretako inprenta asmatu zuenetik, eta **tipografia** deituriko teknika hura aski aurreratua eta zabaldua zegoen liburuak era nahikoa errazean egiteko. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobattipografi) ik tipografiko.

Gogoan ditut haren koaderno koadrikulatuak, [...] **tipografia** -ikur bitxiak eta intsektu-letra hura. Juan Garzia

Letrak eta **tipografi** zeinuak. Iñaki Arranz

3 testu jakin bat inprimatua dagoen era.

Hizkuntza idatziaren errealtate fisikoa grafiak ematen digu, eta **tipografia** dugu jolasteko lehen eremua: hizkien neurriak, koloreak, formak, tokiak... publikitateak ondotox dakienez moduan. Iñaki Arranz

Bestelako **tipografiaz** idatzita daude ipuin horiek, eta atal bakoitzaren hasieran kokatuak. Berria - Kultura

Gogoko ditut hareazko erlojuak, mapak, XVIII. mendeko **tipografia**, etimologiak, kafearen zaporea eta Stevensonsonen prosa. Juan Garzia

Iragarkia probintziako administrazioaren **tipografian** inprimatu zutela jakin zuen. Jose Morales

tipografiatu izond inprimatu.

Oriaki higatuak eta baldan **tipografiatuak** iruditu zitzaizkidan, bi zutabetan inprimaturik, biblia baten tankeran. Juan Garzia

tipografiko *izond* tipografiarena, tipografiari dagokiona. ik **tipografia 2**.

Letra eta zenbakiez gain, gainerako sinbolo **tipografikoak** ere aukeran ditu hitz laburtzaileak. Iñaki Arranz

Hala doaz, akats **tipografikoetatik** harago, bata bestearen atzetik, hutsa hutsaren orpotik. Iñigo Aranbarri

Akats **tipografiko** batzuk badaude, hogeit euro inguru balio duen liburu batean barkaezinak direnak, nire ustez. Beria - Kultura

Baita egilearen okerra edo oker **tipografiko** zuzentzen dudanean ere. Jon Alonso

Nahikoa litzateke proba **tipografiko** batzuk arreta profesionalaz begiratzen egotea. Jon Alonso

Zerikusirik ba al du horrek zuzenketa **tipografikoarekin** [...] ? Jon Alonso

Kaligramak eta jolas **tipografikoak** gure analisitik kanpo utzi ditugu. Iñaki Arranz

"Nok" musika taldearen disko batek *Dbkatuak* du izenburua, non hieroglifiko **tipografikoak** hitz betearen ezkutuko hitz zatia agerian uzten duen. Iñaki Arranz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akats tipografiko (3)

tipografo 1 *iz* tipografian lan egiten duen pertsona.

Tipografo bat zirudien beti liburuen gainean makurtua. Koldo Izagirre

Barchini paper-saltzaile eta **tipografo** zaharrak bost ordu eman zituen moldiztatzen. Koldo Biguri

L'Intransigeanten dihardut, **tipografoa** naiz lanbidez. Koldo Izagirre

Hawthornek *Oh* idazten bazuen, **tipografoak** beti jarriko zuen *O*. Oskar Arana

Tipografo on batek estenografian jakin beharra dauka. Koldo Izagirre

2 (izenondo gisa)

Moldiztegi kontuuetarako teknikari **"tipografo"** on pare bat bazeukaagu. Txillardegi

tipologia 1 *iz* zientzia baten aztergai bereizten diren moten azterketa eta sailkapena.

Aukera horiek guztiak, eta kameratik filmagairako distantziaren eta filmagai horren itxurazko tamainaren arteko lotura ere azaltzeko **tipologia** bat prestatu da. Josu Zabaleta

Teoria zientifikoen arteko erlazioen **tipologia** ezartzea. Askoren artean

Orotariko sistema fonologiko unibertsala hizkuntzetan gertatzen diren sistemak **tipologiatzat** ulertu behar da. Lourdes Oñederra

Genero horrek pertsonaien **tipologia** jakin bat, gertakizun multzo bat eta estilo zehatz bat du ezaugarri. Jon Muñoz

Gaur egun, ohiko kontzeptuen **tipologiak** hertsiki lotuta daude kontzeptuon metrizazio-prozedurei. Askoren artean

Helburu hori kontuan hartuta, atsegin estetikoaren teoriaren balio handiko **tipologia** bat definitzen ahalegintzen da. Josu Zabaleta

Gure **tipologiaren** arabera, denboran zehar aurkezten diren irudiek [...] baizik ez dute berez denborazko existentziarik. Josu Zabaleta

2 tipo ezaugarri jakina.

Tipologia jakin bateko belardiei lotutako "maillo" izena askoz ere ugariagoa da. Patziku Perurena

Halako **tipologia** dute pertsonen ez zaizkie gustatzen barruan sugeak dauzkaten pilotak. Unai Elorriaga

3 (hitz elkartuetan)

Arestian bezala, hiztun **tipologiaren** arabera erabateko aldaketa dute datu horiek. Beria - Kultura

Erritmo-**tipologiari** buruzko auziak auzi, agerikoa da euskarak silaba-egitura ona duela. Lourdes Oñederra

tipologiko *izond* tipologiarena, tipologiari dagokiona.

Euskal atsoitzen eta georgierazkoen arteko sailkapen **tipologikoa** egin dut. Beria - Kultura

Patricia Donegan-ek bokal-harmoniaren sorrera hizkuntzen aldaketa **tipologikoarekin** lotzen du. Lourdes Oñederra

Euskaraz diptongo emankorrenak eta zabalduenak beharazkoak izatea ez da txantxetako erregulartasuna, eta ziurrenik uste baino gehiago esango liguke ikerbide horrek hizkuntzaren historia **tipologikoaz**. Lourdes Oñederra

tipologikoki *adlag* tipologiaren aldetik.

Hizkuntzak **tipologikoki** oso antzekoak dira, hori begi-bistakoa da. Beria - Kultura

tipotu, tipo(tu), tipotzen da/du *ad* tipifikatu.

Gero atipika, atipika horrek erran nahi luke "ez zira **tipotua**"! Menane Oxandabaratx

tippitu ik **ttipitu**.

tipula 1 *iz* baratxuriaren familiako baratze landarea, geruzetan eraturiko erraboila jateko ona duena (*Allium cepa*); landare horren erraboila, sukaldaritzan erabiltzen dena.

Bertan, lore-sailak eta neguko barazkiak -azalareak, patatak, erremolatxak, zerbak, **tipulak** -ikus daitezke. Hango saski batean **tipularen** berniz urrekara pizten zen. Oskar Arana

Urdaiazpikoa eta **tipula** txikitu ditut. Lander Garro

Kontserbako atuna oso goxoa gelditzen zen **tipula** pixka batekin. Bernardo Atxaga

Patatak zuritu eta zatitu, **tipularekin** frijitu, arrautzak irabiatu, dena nahastu, tortilla egin... Sonia Gonzalez

-Ardoa, urdai-zopa, eta arrautzak **tipularekin**. Koldo Biguri

-Dena dela, baraualdiaren ostean ezin, bada, **tipula** bat jan! oilasko bana jan genuen, ogiarekin, **tipulekin**, perrexilarekin, luzokerrekin. Patxi Zubizarreta

Atari sarreran **tipulazko** opilak saltzen ari zen neska bat. Koro Navarro

Tipula bezalakoak gara: geruza bat kendu eta beste bat agertzen da. Javi Cillero

2 (izenondoeekin)

Arto frijitua **tipula** berrikin eta zurinaren. Anton Garikano
Gainean patatak, arbiak, azenarioak, **tipula** zuriak lerrotatzen zituen launaka, piramideak osatuz. Karlos Zabala
Baba egosiak, **tipula** gordinak eta pepinoak ospinetan ipintzen zituzten. Patxi Zubizarreta
Haren ahoari **tipula** egosiaren usaina zerion. Aingeru Epaltza
Tipula frijituaren usain sarkorra. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tipula xerrak pikatu berriak zituen. Karlos Zabala
Han ari ziren egosten apioa eta azenarioa **tipula** -geruzaren gainean. Jon Muñoz
Plater batean ogi-xerrak ekarri zituen, paprika eta **tipula** zati finez lagunduta. Urtzi Urrutikoetxea
Fideo gisako **tipula** zatiak eginez. Pako Aristi
Soldaduaeren zaku mailatua zopa urtsua eta **tipula** -buru biguna dituela. Felipe Juaristi
Ruche jaunak hatz batez seinalatu zuen paretatik zintzilik zegoen **tipula** -korda. Jon Muñoz
Léak, automatikoki hari heldu, eta **tipula** mordo bat bereizi. Jon Muñoz
Atzera eragiten dizun **tipula** kiratsa hedatzen da jangela osoan. Ramon Saizarbitoria
Urrunago, uraza, **tipula** , porru eta apio ildoek berunezko soldaduen desfite bat ematen zuten. Karlos Zabala

4 errabola.

Hirusta handi baten antzekoa du hostoa, lurpeko **tipula** txiki-txiki batetik ernetzen dena. Hasier Etxeberria

5 *asta-tipula* ik *astatipula*.

6 *tipula negar* negar faltsua.

Zeren nahikunde garbi ororen, sentimendu garbi ororen, idealen, eginbeharraren, begirunearen, lotsaren traba "gizatiar" guztia botaz, bizitza horrela -horren basaki- "sinplifikatzera" behartzen zarenean, orduan ezerk ez dizu higuin eta narda gehiago eragiten kontzientziaren hozkadak baino: **tipula negarrak!** Josu Zabaleta

7 *tipula-paper* oso paper fina eta arina, ikatz paperekin kopiak egiteko erabiltzen zena.

Silvio legelaria zen, baina filosofia-tratatu bat idazten ari zen **tipula-paperezko** orri ñimiñotan eta garraio- eta aduana-enpresa batean enplegatuturik zegoen. Juan Garzia
Ikuskizunak, hortaz, trinkotasuna zuen eskas, **tipula-papera** gaineratu dioten pintura-lan inpresionista batean bezala. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tipula jiteko (3); **tipula txiki** (3)

tipulano *iz*

Kuidadito pintura harrotu kablea kentzean, ederki, ikasten ari dira gainera **tipulano** hok, gogorra izanen litzateke denak bertan zamaketari gelditzea. Koldo Izagirre
Hik irakats ieazadak nola funtzionatzen duen eta neure gain bertze guztia, hi lasai, bihar **tipulanoek** grebarekin bat egin edo ez Catharina Nauwelaerts-ek beste garabiren bat bilatu beharko duen bezalaxe egiten diat zin ez dutela inoiz harrapatuko multikopista hori. Koldo Izagirre
Sinetsi egiten diot sekula entzun dudan erdararik ilunena egiten duen gizon honi, miseria erakusten dute **tipulano** hok solasean. Koldo Izagirre

tipulatx *iz* erraboiak baratxuriak bezala multzokatuak dituen tipula mota lore-morea, janariak ontzeko erabiltzen dena (*Allium ascalonicum*). ik **tipulin**.

Barrukien pabiloiaren kanpoko postuetan luze, ez kai, izpiliku, baratxuri eta **tipulatx** landak hedatzen zirela zirudien. Bi **tipulatx** xerratan moztu -malkorik isuri gabe oraingoan ere-, basobete olioia eltzera bota, eta sua egokitu zuen. Karlos Zabala
Eltzean, urtu gabe zeuden oraindik **tipulatxak**. Jon Muñoz
Arroza bota, eta olioarekin eta **tipulatxekin** nahasi zuen Ruche jaunak, harik eta arrozaleak zeharrargi gelditu ziren arte. Jon Muñoz

tipulatxo *iz* tipula txikia.

Ederki etorriko litzaiokoe jorraketa bat baratzeari, eta belar gaiztoa sortzen duten **tipulatxo** ahalik eta gehien bertatik kentzea. Hasier Etxeberria
Mudur batean gaizkataren masailak eta kartilagoak sartu, beste batean arto beltzezko ahia, eta ondoak **tipulatxoekin** , eta arrain-hazi gozatuak, eta garunak, eta hik dakian hori guztia. Jose Morales

tipulaxka *iz* tipulatxoa.

Trukean aritzen zirenek, berriz, zoritxarreko **tipulaxka** bategatik bi ogi xerra eskatzen zituzten. Pablo Sastre

tipuleta *iz*

Norbaitek poto horrexetan ezarritako pipermin edo pepinotxo edo **tipuleta** -ur ospindua. Josetxo Azkona

tipulin *iz* tipulatxa.

Ile-apaindegiko laguntzailea, **tipulina** ogi tartean eta errefau sorta bat gosaltzen zuena goizero. Katilu bat arroz egosi, katilu bat babarrun beltz egosi, tomate gordin zatitxoak erantsi eta **tipulin** txikituarekin, piperbeltzarekin, olioarekin eta gatzarekin maneatu. Anton Garikano

tipus-tapas 1 *adlag* bat-batean.

Doi bat kraskatua zen, bainan gutienik ustein, **tipus tapas** utzi du mundu hau. Herria
Tipus tapas eritasun labor batek joan du nehor gauza horren beha ez zagolarik. Herria
Ez ote nizkion bada, nik ere, Emmari, **tipust-tapast**, ele nahasiak erranen? ez ote ninduen zoro batentzat hartuko? Daniel Landart

2 *tipus-tapasean* (*orobat tipus-tapastean*) *adlag*

Tipus tapasean , heriotzeak ereman du gizon erne eta langile hori. Herria
Nihaur gauaz bezala, garaitu ezin itxura zeukan gizon puskak mundu hau utzi behar zuen, adioen banatzeko astirik gabe, **tipus-tapasean** . Itxaro Borda
Ez dezaket burutik ken, oraindik ere lo dagidan bakarretan, burdinbideetako tren erroten zarata kaskoan oihar, **tipus-tapasean** iratzartzen naizela. Itxaro Borda
Pena zuen: alabaina Seinan bat ere potretik gabe hil zen, **tipus-tapasean** , aste bat zuela. Itxaro Borda

Tipus-tapastean elkarrekin loturak hautsi zituzten, eta haserrearen haserrez, Anitak lekuak hustu zirela eztekit, hirira joateko. Daniel Landart

3 *tipus-tapez* (orobat *tipustapez*) *adlag*

Ta gero, nolaz zitekeen ere hori, delako neska funts horretan uztea, **tipus-tapez** deliberaturik beste norabait joan behar zuela. Janbattitt Dirassar
Erabakia **tipustapez** bezala hartua izan dela, hortakoak direnekin behar bezala mintzatu gabe. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tipus tapas (5); **tipus tapasean** (9)

tipustapan *adlag* tipus-tapas.

Eta **tipustapan**, erromatarikeriatan murbilduta zure esanari entzungor egiten diola uste duzun ikasle saiatuak, berbarako, ohartxo hau luzatzen dizu: [...]. Koldo Izagirre

tira egin 1 du *ad* tiratu.

Harryk **tira egin** zion sokari. Iñaki Mendiguren
Urik ez genuela erabiliko eta komuneko kateari ez geniola **tira egingo** erabaki genuen. Josu Zabaleta
Makurtu eta tranpolaren zirgiloari **tira egin** zion, eta tranpola altxatu eta zabaldu egin zen. Iñaki Mendiguren
Erreserbako depositua zabalteko ordua denez, palankari **tira egiten** diot. Josu Zabaleta
Bere ezkerreko belarriari heldu eta **tira egin** zion. Iñaki Mendiguren
Zalgurdi haietako bakoitzari zaldi ikusezin batek **tira egiten** zion. Iñaki Mendiguren
Ezkaratzera iritsi baino lehen, gerrikoa askatu eta beherantz **tira egiten** nien prakei. Harkaitz Cano
Besotik **tira egiten** zidan asaldatuta, eta esaten zidan: azkar, Garibaldi. Pello Lizarralde
-Arre, hezur pila hori! -oihu egin zuen Gusek, bridetatik **tira egingez**. Lopez de Arana
Orduan, jantzietatik **tira egiten** ziotela nabaritu zuen atzean. Iñaki Mendiguren
Makinaren entxufea ez dela atera behar kabletik **tira egingez**. Josu Zabaleta
Ez **egiok tira** kanpora irten arte, bestela odoloz beteko duk autoa. Bernardo Atxaga
Zenbait haritatik **egin** behar izan diat **tira** hori horrela zela emateko -irribarre laburra egin zion Imanoli. Fernando Morillo
Maistra Jonesez eskutik heldu eta barrura sartu zuen **tira eginda**. Anton Garikano

2 irud/hed

Mirarik **tira egiten** zion. Fernando Morillo
Gogoak **tira egiten** zion. Fernando Morillo
«**Tira egin** dezatela haritik», esan zuen. Berria - Euskal Herria
Mihitik **tira egin** beharko zion, itzulinguruka ibili gabe, ea nondik jotzen zuen. Migel Angel Mintegi
Neska sikuagorik!, mingainetik tira eta **tira eginda** ere, ezer gutxi ateratzen dio. Patxi Iturritegi
Oroimenetik **tira eginda** idazten duzula dirudi... Ana Urkiza
Filmaren urrats guztiak dute, agerian, sormenetik **tira egiteko** zuzendariaren nahi eta borondate hori. Berria - Kultura
Txikizkako salmentak %1,5 hazi ziren irailean, eta kontsumitzaileen gastuak ekonomiatik **tira egiteko** indartsu jarraitzen duela erakutsi zuen. Berria - Ekonomia
Dejadetara korrika abiatzerakoan ez ote zion muskulua **tira egingo** zen Ruizen beste zalantza, baina proba egin zuten eta ez zuten oinazerik izan. Berria - Kirola

3 (irud/hed, pipa eta kidekoei)

Pipa ateratzen du lan-jantziko poltsikotik, estalkia ireki, tabakoa ontzixkan sakatu, eta **tira egiten** dio isiotu gabe. Oskar Arana
Zigarroari **tira egitean** oharatu da aspaldi margotu barik dauzkala azkazalak. Paddy Rekalde

4 (adizlagunekin)

Gogor **tira eginda**, ezpata distiratsua atera zuen basiliskoaren aho-sabaitik. Iñaki Mendiguren
Fraideak, arian ezarian, indarka **tira egiten** du liburutik. Josetxo Azkona
Indarrez **tira eginda** gorbata beltza kendu eta poltsikoan sartu zuen. Lopez de Arana
Soka bukatzen zenean, **tira egiten** zuen poliki-poliki gora. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ateari tira (5); **ateari tira egin** (3); **atzera tira** (5); **atzera tira egingez** (3); **behera tira** (3); **belarritik tira** (4); **belarritik tira egin** (3); **beregana tira** (3); **besotik tira** (6); **besotik tira egin** (4)

ekonomiatik tira (4); **eskutik tira** (6); **gogor tira** (7); **gogor tira egin** (4); **haritik tira** (4); **heldu eta tira** (5)

iletik tira (5); **iletik tira egin** (3); **indarrez tira** (3); **isatsetik tira** (5); **isatsetik tira egiten** (3); **kateari tira** (3); **katetik tira** (3)

oinetatik tira (3); **orgari tira** (3); **sokari tira** (8); **sokatik tira** (5)

tira egin (143); **tira eginda** (12); **tira egingez** (28); **tira egingo** (13); **tira egitea** (6); **tira egitean** (3); **tira egiteko** (17); **tira egiten** (61); **tira egitera** (3)

tira egite *iz* tiratzea.

Behin eta berriz errepikatzen ziren bateko eta besteko **tira egite** horiek, maitasun irakinaren adierazpenekin eta eguneroko txikikerien kontaketaekin batera. Xabier Mendiguren Elizegi

tira¹ 1 solasaldiaren harian, amore ematen dela-edo adierazteko erabiltzen den hitza.

- **Tira**, ondo da -esan zuen Peterrek, proposamena kortesiagatik baino egin ez balio legez. Julen Gabiria
Tira, baina nik ez nuen horrelakorik gogoan. Karlos Zabala
Arratseko laztanketak, **tira**, baina goizaldekoak jasanezinak egiten zaizkit. Joxe Austin Arrieta
Tira, zer egingo zaio. Juan Garzia
- **Tira**, hantxe izango naiz -esan zuen emakumeak-. Mirentxu Larrañaga
- **Tira** -Ramirok hasperen egin zuen lasaituta balego bezala-, baina ez esan aukera hori kontuan hartu beharrekoa ez zenik. Jon Muñoz
- **Tira**, hirekin ez nian arazo handirik izan. Alberto Ladron Arana
- **Tira**! -deiadar egin zuen osaba Vernonek, amorruez esatariari begira-. Iñaki Mendiguren
Tira, ez gara milaka eta milaka urtez ariko horren inguruan jirabiraka. Jon Muñoz
-Edo, **tira**, berde ilunak bai gutxienez. Juan Luis Zabala
-Jakina, oso kontu zurraragarria duk eta, baina... **tira**, ez zekiat. Jon Muñoz

Ez daukat intentziorik, **tira** nik... nik... hau ba, badakizu ez dut erlazio bat nahi -isilune bat-.

Sonia Gonzalez

-Nahiago dut zutik egon, baina, **tira**, eseriko naiz.

Koro Navarro

Hori asko erratea da, baina **tira**, demagun lortzen dugula.

Alberto Ladron Arana

Ate-joka ez zitzaidan behintzat inor etorri eta **tira**; dena dela, nik ezin ulertu zergatik tematzen zen Ivy.

Joxe Austin Arrieta

Supermerkatuko erosketak etxera eurek ekarri beharrean morroi bati enkargatzea euro pare baten truke... **tira**; baina etxeko lanak egiteko neskame bat kontratatzearaino ailegatzea...

Jon Arretxe

- **Tira**, azkena.

Unai Iturriaga

2 (adostasunik eza-edo adieraziz, askotan errepikaturik).

- **Tira**, **tira**, Putzu.

Txillardegi

Eta kontsumitzailea errege dela... **tira**, ederrak mitoak, hauek ere.

Iñaki Heras

- **Tira**, **tira**, Julen, ez eizak gauzak euren onetik atara -arranguratu zen-.

Juan Luis Zabala

- **Tira**, **tira**, beste batek ez dik kalterik egingo.

Irene Aldasoro

- **Tira**, **tira**, Joxerra, guk ederki egiten diagu euskaraz.

Joxerra Garzia

- **Tira**, **tira**, Malfoy -esan zion Snapek ezpainak estututa, nahiz eta ezin izan zuen ezkutatu irribarretxo bat-.

Iñaki Mendiguren

- **Tira**, **tira**! -erantzun zion Alcide Jolivetek barrez-.

Karlos Zabala

- **Tira**, **tira**, emakumea, horrelakorik bururatzea ere!

Jose Morales

3 (norbait zerbait egitera bultzatzeko)

- **Tira**, segi, belarriak tente dauzkat.

Migel Angel Mintegi

- **Tira**, Andres, bota ezak bat! -animatu ninduen Amanciok.

Inazio Mujika Iraola

- **Tira**, ireki ezak papera -esan dio.

Jokin Muñoz

- **Tira**, zoaz dutxa bero bat hartzera, on egingo dizu eta.

Anjel Lertxundi

Tira, esadazu zure familiaren berri.

Koro Navarro

Baina, **tira**, alda dezagun postura.

Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

- **Tira**, mugi, mugi, zuk hirugiharra zaintzea nahi dut.

Iñaki Mendiguren

- **Tira** gazteak, mintza gaitezen garden eta gordin!

Koldo Izagirre

Tira, garçon, ateraizkiguk bi maltzako whisky erdi, txintxo haiz eta...

Irene Aldasoro

Tira, Tommy, ez ezak whiskya pontxea bezala edan: hustu edontzia!

Irene Aldasoro

- **Tira**, segi aurrera, non den baldin badakizu, behintzat.

Lopez de Arana

Tira ba -esan zuen Ignatius Gallaherrek alai-, egin dezagun topa gure alde, eta garai zaharren eta lagun zaharren alde.

Irene Aldasoro

Onartuko dugu honen guztiaren arrazoia nekea izan dela, ahalmenen itsualdi iragankor bat, **tira**, ahantzi dezagun arazo hau.

Jon Alonso

-Etorri zaitez gurekin barrura, **tira**, momentutxo bat bakarrik -esan zioten.

Josu Zabaleta

- **Tira**, **tira**, denok formatzera bandera jasotzeko!

Koldo Izagirre

tira² iz eskari edo salmenta handia.

Holako bizitegiek badutela **tira** handia.

Herria

Tira handia ba omen du Espainia behere hortarat.

Herria

Ordukoz, bertzalde, neskek izeba Milagrosen zitor kilometrikoek baino **tira** handiagoa egiten ziguten.

Aingeru Epaltza

Aurten **tira** handiena ukan duten liburu berrietan, Joseba Sarrionandiaren "Kolosala izango da", Imanol Lazcano bertsulariak bere biziko harat-hunategi idatzi duena eta Bernardo Atxaga-k jalgi duena, "Soinujoilearen semea".

Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tira gutiago (5); **tira handia** (3)

tira³ 1 iz zerrenda.

Bainujantziaren **tirak** bularraren azpiraino jaisten ditu aurrena, eta txilborrerraino geroxeago.

Xabier Mendiguren Elizegi

Etiketaz jantzita zihozazen hirurak, txalekodun trajeaz gizaseme biak eta sorbaldak agerian uzten zituen **tiretako** soineko urdinaz Mentxu.

Josu Landa

2 komiki tira

Bertsolaria da graffitigilea, komikigilea, komiki-**tirak** egiten dituen, kantautorea, sermoilaria, egunkarietako zutabegilea...

Andoni Egaña

Badira euskal komiki-egile ezagunak, badira egunkari zein aldizkarietan aldiro euskaraz argitaratzen diren komiki-**tirak** ere, badira komiki-pertsonaia ezagunak, bada argitaletxe espezializaturik ere.

Berria - Kultura

Komikigintzaren eremuan sarri gertatu bezala, (herri -) prentsako komiki-**tiratik** libururanzko jauzia egin du komiki-pertsonaia batek, Otsobeltzek.

Berria - Kultura

Ostatu aunitzetan bezeroen eskura egoten diren horietariko bat hartu, eta kirol orrialdeak eta bukaerako komiki-**tira** bistatu bai Charlyk.

Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

komiki tirak (3)

tira⁴ ik tiratu 10.

tirabida ik tirabira.

tirabide iz jaurtitzeko bidea.

Karmenek pozez zoraturik ematen zuen, eta hark ere, mauserra kargatu, eta, Amancio aurrez aurre **tirabidean** zuela, burlaizez esan zion.

Inazio Mujika Iraola

Alde batera baztertu zen, eta Fructuoso eta biok geratu ginen aurrez aurre, ni haren **tirabidean**.

Inazio Mujika Iraola

tirabike iz habaila.

Edo zelai oparoan elkar goxatzen ari ziren bikoteak **tirabikearekin** izorratzen zituztenekoak.

Alberto Barandiaran

tirabira (*orobat tira-bira g.er., tirabida g.er.*) **1** *iz pl*/auzi edo eztabaida baten inguruan aurkarien artean gertatzen diren gorabeherak edo liskarrak.

Gobernua berean izan dira **tirabira** batzu, ahal bezala estali nahi ukan dituztenak. **Herria**

Zer dira zure berne-borroka eta **tirabira** horiek? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bi borondate horien artean, **tirabirak**, abenikoa nahiz talka izan daitezke. **Xabier Olarra**

Etengabeak ziren Elizaren eta Inperioaren arteko **tirabirak**, lurralde errebindikazioak zirela medio. **Askoren artean**

Cazi-askeva, militarren arteko **tirabira** guztien epailea, emirra kanpoan dagoenean. **Karlos Zabala**

Ordina barruko **tirabirak** isildu nahi ziren horrela. **Askoren artean**

Settembrin humanistaren eta Naphtha jesuita-juduaeren arteko **tirabira** politiko, teologiko eta metafisikoak. **Juan Garzia**

Baroja-ren **tirabirak** Urquijo-rekin Lhande-ren plagio baten kontura. **Joxe Azurmendi**

Hitzarmen hori **tirabira** latzen sortzaile izan da Indiako eta Pakistango gobernuen artean. **Berria - Mundua**

Tirabira eta eztabaida biziak zeuden euskalkien eta euskaldunen artean: norberarena zen on bakarra, eta auzokoena erabat txarra. **Koldo Zuazo**

Sarasolareneko borroka eta **tirabira** horiek denak gertatzen ari zirela han ibiliko nintzen ni, eta ezertaz jabetu ez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kikek bereziki gogoratzen ditu kanpaldi hartan Guardia Zibilarekin izandako **tirabirak**. **Eduarne Elizondo**

Enrike, berriz, bakarrik zegoen, Compañía Vascongada de Segurosekoekin **tirabiretan**, erretiro aurreratua edo elbarritasun osozkoa lortu ezinik. **Iñaki Iñurrieta**

Horren ondorioz merkataritza-soberakin aski handia sortzen da, beste bi eremu handiekiko harremanetan **tirabira** etengabeen sorburu dena. **Koro Navarro**

Zurrumurrua dabil-eta **tirabirak** sortu ote diren Londresen eta Pekinen artean. **Karlos Zabala**

Ni prest nagok **tirabirak** ahanzi eta berriz adiskidetzeko. **Aingeru Epaltza**

Euskalkien inguruko **tirabira** eta eztabaida antzuek salatzea. **Koldo Zuazo**

Beharbada, **tirabira** gehiegi zegok gizakien bihotzean, grina gehiegi, mendeku gogo gehiegi. **Xabier Olarra**

Ahmed Kureiak atzo ukatu zuen PANeko presidente Jasser Arafatekin **tirabirarik** edota desadostasunik duela Egiptok PANi egindako eskaeren inguruan. **Berria - Mundua**

2 (singularrean)

Beste gizon batekin **tirabira** izan duela? **Xabier Olarra**

Funtsean, ez zen ordukoa beren arteko **tirabira**. **Daniel Landart**

Bitartean **tirabira** dago Nigeriako agintarien artean. **Berria - Gaiak**

Gutun honetan garbi agertzen da **tirabira** pobretasunean irauteko Inesen aukeraren eta Gregorio IX. Aita santuaren jarreraren artean. **Askoren artean**

Hamar egun zentzumenen **tirabira** hura konpontzeko. **Xabier Olarra**

Bi jarrera ezberdin hauen arteko **tirabiraren** ondorioa zein izan daitekeen ez dago jakiterik. **Berria - Gaiak**

Beste jarrera politiko bat hartu behar izan zuen, Italia banatzen zuten bi indar haien arteko **tirabiraren** erdian. **Koldo Biguri**

Tirabira hori areagotu egin zuen komunikazio ekumenikoetarako gune gisara mundu islamikoaren garrantzia pizteak. **Iñaki Mendiguren**

Zeruaren eta itsasoaren arteko kolore-apustu eta ñabardura gris-urdin amaigabeen **tirabira** lausoan. **Anjel Lertxundi**

Gero, **tirabiran** indarka, ezpatak trukatzan dituzte, eta hamletek laertes zauritzen du. **Juan Garzia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi herrialde hauek independentzia eskuratu zutenetik (1947) etengabeko **tirabira** iturri izan da Xaxmirko lurraldea. **Berria - Mundua**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nik ez diat traturik egiten munduarekin, ez nabilek tratu- **tirabiran** inola ere nik ezagutu dudana eta nire bizitzatik kanpo utzi dudana munduarekin. **Xabier Olarra**

Ateon atzean aurki litekeen arrikua luke, esate baterako, arraza- **tirabirak** areagotzeko. **Juan Garzia**

Ezin zuen ezer egin pertzepzio- **tirabira** hori gelditzeko. **Xabier Olarra**

Sei hilabeteko eztabaiden ondoren eta hainbat barne **tirabira** igarota, Aberri Batzarrak ezustekorik gabe onartu zuen Euzkadi Buru Batzar berria. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bien arteko **tirabira** (3); **borroka eta tirabira** (3); **tirabira asko** (8); **tirabira handiak** (3); **tirabira izan** (5); **tirabira latzak** (3); **tirabira sortu** (4); **tirabira ugari** (5); **tirabira ugari izan** (3)

barne **tirabirak** (5); **barruko tirabirak** (4); **bien arteko tirabirak** (3); **izan diren tirabirak** (3); **izandako tirabirak** (6); **sortutako tirabirak** (4)

tirabirak direla eta (4); **tirabirak eragin** (8); **tirabirak eragin dituzte** (3); **tirabirak izan** (9); **tirabirak konpontzeko** (4); **tirabirak sortu** (8)

tirabiraren erdian (3)

tirabiren ondorioz (4); **tirabiren ostean** (3)

tirabiraka 1 *adlag* tirabiran.

Bi bide horien aukera egunero izango du Chavezek buruan **tirabiraka**. **Pako Aristi**

2 tira eta bira.

Burkoei **tirabiraka** ibili baitzara, jira eta bira, orain hurreneko bost minutuotan. **Mirentxu Larrañaga**

tirabiratsu *izond* tirabirez betea.

Hain negoziazio **tirabiratsuen** ostean, badirudi gauzak bere onera datozela. **Berria - Euskal Herria**

Saakashvili agintera heldu zenetik, ordea, harreman **tirabiratsua** izan da Georgiaren eta Adjariaren artekoa. **Berria - Mundua**

Mahaian giro **tirabiratsua** izaten da normalean. **Josu Zabaleta**

Petrolioagatik sortu zen borrokaren emaitzek egoera politiko **tirabiratsua** eragin zuten. **Iñaki Mendiguren**

Bien arteko harremanak betidanik **tirabiratsuak** izan ziren. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harreman tirabiratsua (3)

tirada 1 *iz* argitaraldi baten ale kopurua.

Azkenean, kaleratzeko data gisa abuztuaren 23a hautaturik, bost mila aletako **tirada** egitea erabaki du Gómezek. **Txillardegi**

United Artists konpainiak eskala eta guzti argitaratu zion **tirada** handieneko egunkarietan. **Harkaitz Cano**

Oso mantso hasi zen liburu horren bizitza, eta, gaia dela medio asko saltzekoa ez zen arren, txakalaldirik gabe egin du bere bidea hogeitaz urteotan, hasierako 4.000 aleko

tirada erraldoia iraungitzeraino. **Pako Aristi**

Tamalgarria zen ikustea zenbait narrazio bikain ahanzturaren basamortuan galdurik geratzen zirela, saria irabazi ostean **tirada** urriko eta banaketa eskaseko edizio ziztrin

batean argitaratuak izan zirelako Berria - Kultura

Tirada motza da eta benetan gustatuko litzaiyuke berriro argitaratu behar izatea. Berria - Kultura

Liburua, hasieran, **tirada** txikioa zen, baina kritikak men egin zion, Hendricks-ek argitaratzen duen liburu guzteei bezala, eta bigarren edizioa atera behar izan zuten. Iban Zaldúa

Argitaletxeek **tirada** txiki eta garestiak ateratzen zituzten aurrena, eta handik gutxira, *paperback*-en egindako edizio ekonomiko eta handiagoak. Berria - Gaiak

Zenbat aleko **tirada** egingo duzun erabakitzea musean jokatzea bezala da. Berria - Kultura

2 tiraldia.

Hrabal inspirazioa noiz ailegatu zain egoten zen, eta ailegaten zitzaionean kontzientziak gidatzen zion luma, **tirada** batean idazteko. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aleko tirada (17); **aleko tirada egin** (3); **mila aleko tirada** (4)

tiradera *(215 agerraldi, 70 liburu eta 12 artikulutan)* 1 iz armairuetan-eta, bere erako zuloan sar eta atera daitekeen kutxatila modukoa, gauzakiak gordetzeko erabiltzen dena. ik **kaxoi**.

Tiradera ireki eta paperez betea zegoela ikusi zuen. Karlos Zabala

Ausartuko ote nintzateke **tiradera** guztiak irekitzera, paper guztiak irakurtzera eta zirrikituak miatzera [...]? Joxan Elosegi

Mahaixtoaren beheko **tiradera** zabaldu eta gutunazal handi bat atera nuen elastikoen azpitik. Anjel Lertxundi

Altzariaren eskuineko lehenengo **tiraderatik** gutun multzo eta paper sorta bat hartu behar nituen. Josu Zabaleta

Arasako **tiradera** hutsik ageri zen haren atzean. Mirentxu Larrañaga

Idazmahaiko **tiradera** bat zabaldu eta gutunazal ireki bat atera zuen. Alberto Ladron Arana

Mahai txikiaren aurrean eseri zen; **tiradera** atera, belaunen gainean jarri, eta hustu egin zuen ardura handiz. Karlos Zabala

Bere idatziak mahaiko **tiraderan** gordetzen hasi zen. Karlos Zabala

Apaintze-mahaiko **tiraderan** sartu zituen bi flaskotxoak. Mirentxu Larrañaga

Pistola **tiraderatik** atera eta poltsikoan gorde zuen. Aritz Gorrotxategi

Apain-mahaiaren **tiraderan**, mila eta hamar mila woneko billeteak utziak zituen, eta txanponak ere bai. Juan Kruz Igerabide

Galtzerdiak eta kuleroak pilatzen diren lehen **tiraderan** bilatzen duzu kamiseta gorri zaharra. Sonia Gonzalez

Tiraderaren hondoan begiratzeko ideia izan zuen [...]; eta han, otoitz liburuaren eta *Ametsen giltzaren* artean, bilatzen ari zena aurkitu zuen, ohar guztiz konprometigarriak, paper grisezko zorro soil batek baizik babesten ez zituenak. Karlos Zabala

Laster konturatu zen tentelkeria zela laurogeita hamabost mila libera komodaren **tiraderan** lotan uztea. Karlos Zabala

Azken mende laurdeneko grebarik arrakastatsuenari men egin eta planak **tiraderan** bukatu zuen, baina ez zen denbora askorik igaroko zabor kontratuak legeztatu arte.

Berria - Harian

2 (izenondoekin)

Tiradera handi bat adierazi zidan: azken asteetako fakturak zeuden han pilatuta. Joxan Elosegi

Haren ohearen ertzeko **tiradera** txikian, egunoroko bizitzako ohiko gauzen artean. Joxan Elosegi

Hiru **tiradera** estu zituen behean, eta hiru kristaleko ispilu bat goian. Juan Kruz Igerabide

Sekula ez nuen inoren sakelarik ukitu ez **tiradera** sekreturik bortxatu. Joxan Elosegi

Tiradera galduren batean gordeta behar duen argazki zahar bat . Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Zenbakidun **tiradera** errenkada batean, ogi arraspatuak, fina eta larria, ogiztatzeko ogi mamia, intxaur muskatua, iltzea, piperbeltzak eta beste espeziak paraturik zeuden lerro-lerro. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gau mahaiko tiradera (3); **idazmahaiko tiradera** (7); **idazmahaiko tiradera batean** (3); **mahaiko tiradera** (6); **mahaiko tiradera ireki** (4); **tiradera bat ireki** (5); **tiradera bat zabaldu** (4); **tiradera ireki** (16); **tiradera ireki zuen** (4); **tiradera zabaldu** (5)

idazmahaiko tiraderan (3); **mahaiko tiraderan** (6); **mahaiko tiraderan gorde** (3); **tiraderan gorde** (6); **tiraderan gordetzen** (3); **tiraderan sartu** (4)

tiraderatik atera (5)

tiraderetako batean (3)

tiraderadun *izlag* tiradera duena.

Herbieren **tiraderadun** komoda gainean, Hazelen argazki bat. Mirentxu Larrañaga

tiraderatxo *iz* tiradera txikia.

Bolante ondoko eskuineko **tiraderatxoan** ez zuen inoiz falta behar tabakoak eta goma kaxatxoak. Berria - Kultura

tiradizo 1 *iz* tiratzea.

Eta gonari **tiradizoa** berriz. Arantxa Iturbe

Nahikoa izango dute sorbaldan ukitzea edo apur bat exajeratuki behiala egin zuten jertse **tiradizo** urrunki sentsuala errepikatzea [...] eta kito, beren sareetan edukiko dute, istorio hori bukatutzat jo zuen notario mediokrea baino ez den gizonezkoa, gizontxo. Harkaitz Cano

2 irud/hed

Ez nuen beraz edanarekiko **tiradizorik**, ezta harekiko beldurrik. Xabier Mendiguren Elizegi

Aireportu batean, gure eskua laztantzen duen beste esku baten **tiradizoan**, esku horrek zure hatzen artean eraztun bat paratzen duelarik. Harkaitz Cano

Kontua da ekonomia errealaren **tiradizoa** ez dela oso indartsua momentuz. Berria - Ekonomia

Zenbat eta hurbilago heldu ilargi berrirantz, orduan eta **tiradizo** edo eragin-joera hori markatuagoa omen da. Pello Zabala

Ondo daukat lesioa, nahiz eta ezkerrarekin jotzean **tiradizo** txiki bat sentitzen dudan. Berria - Kirola

3 aire-lasterra.

Sua ordu luzeetan egoten zen piztuta, padrek diseinaturiko **tiradizo** hartan. Jon Maia

tiradora *iz*

Tiradora hark zupa eta zupa egiten zuen esnea ekarri behar zuen eskumearen titiburutik, eta berak irizten zion besteko saiok egiten zituen, zupa eta zupa, azkenean, esnea ateratzen zion arte. Jon Maia

Horretan beren beregi zekien andre bat abila bazen herrian, **Tiradora** zeritzotena. Jon Maia

tirafondo *iz* metalezko piezak finkatzeko torloju buru-karratua.

Niko **tirafondoa** sartzeko makurtu, istant hartan ama-alabak atera ziren aldameneko etxetik; kalerantza zihoazela: [...]. Pablo Sastre

Apalak okerturik daude, eta konpontzeko **tirafondo** sendoagoak jarri dituzu. Lander Garro

tiragailu *iz* komunean, bonbari tiratzeko gailua.

Jardun fisiologikoa amaitu zuenean, ur **tiragailuari** tiratu zion; baina, indar gehiegiz tiratzeagatik, edo, agian, urontzia matxuratua egoteagatik, huts galanta egin zuen ur-sistemak, eta hantxe geratu zen gorotz beherako higuigarri hura komun-zuloaren hondoari eta barrualdeari erabat itsatsia. Jose txo Azkona

tiragale *iz*

1 *tiragaleak egin* nagiak atera.

Egungentia argitzen hasia zen eta ari zen ari Febo dirdiratsua bere distira beroen beroz adats urrezkoen ttantta bitxiak lehortzen; berehala zutitu zen, **tiragaleak** eginda, Don Kijote. Patxi Ezkiaga

tiragoma *iz* hartxintxarrak eta kidekoak botatzeko tresna, Y formako pieza batek eta hari goiko muturren muturren artean itsastan zaion gomazko zerrenda batek osatua.

Tiragoma berriak egin behar ditugu urkulu gogor eta goma luzeekin. Joseba Sarrionandia

Behin, **tiragomarekin** jolasean nenbilela, [...]. Juan Kruz Igerabide

Urte osoan erabiltzen genituen guk **tiragomak**. Joseba Sarrionandia

Hamar haietako bakoitzak azken modeloko armak ditu, eta zuk **tiragoma** besterik ez duzu. Berria - Kultura

Tiragoma atera eta hasten ginen tiroka erasotzeko aukera zenean. Joseba Sarrionandia

Fletxaetapelaioen uniformearekin pasatuko zen eta, pasaeran, **tiragomaz** joko nuen. Joseba Sarrionandia

Gudariak haserretu egin ziren gurekin, lehen lerroan geundelako **tiragomez** harrixkak jaurtitzen eta pum pum egiten egurrezko pistolekin. Joseba Sarrionandia

Aginduak ematen hasi ditun bola metalikoak **tiragoma** batzuen bidez leihoen kontra jaurtitzen zituzten bitartean, handik ateratzeko guztiak, handik ateratzeko lehenbailehen. Mikel Hernandez Abaitua

tiragune 1 *iz* tiratzeko gunea.

Puntu mugikor hari begiratzen zion, bera mugitu gabe, begirada sorazioz gero begi bat itxi zuen, piztia **tiragunean** dutenean ehiztariek ohi duten bezala. Xabier Olarra

2 irud/hed

Orain bazuen erdigune bat, **tiragune** bat bere bizitzan. Xabier Olarra

tirahala ik **tiratu**.

tirain 1 *iz* olatua. ik **uhin**.

Hala ere, haietan bainatzen naiz gustura, **tirainak tiraina**, uda garaia iristean. Jose txo Azkona

Horixe gertatzen da ibai sakonetan eta itsaso zabalean, **tiraina** apurtzen denean. Xabier Amuriza

-Ararat... -erran nion nik ere, sinesgogor, gainerat zetorkidan **tirain** jigantak Ararat mendi guztiak estaliko balizkit bezala, begi-bistatik. Joan Mari Irigoien

2 olatualdia.

Hogeita lau ordu beranduago doi-doi: hondar berbera, **tirain** berbera, bare, uhinska batzuen joan-etorria besterik ez, ia-ia aparrik harrotu gabe. Joxe Austin Arrieta

Oholen loturatatik karga askatu eta korronteen **tirainean** urazalera agertu ziren zeramatzaten merkantziak. Pako Aristi

Dagoeneko nabaritzen da itsas **tiraina** kostaldeetan: garagardo-aparra bezalakoxea!, diot nik. Joxe Austin Arrieta

3 irud/hed

Kanpotik begiratu, ez inor mindu, ez neure burua samindu, jarraipen luzeko ekimenik ez hasi; edo bihotza leihotik bota, eguneroko **tirainaren** borrokara jaitsi, lana egin neure sendikideen alde, haserretu, dagoena onartu eta sumindu. Pako Aristi

tiraka 1 *adlag* tiratuz, tiratzen.

Tiraka eraman nuen plazaren beste alderaino. Juan Kruz Igerabide

Taniak eskutik heldu, **tiraka** aurrerazari eta eraman ez banindu, gatz estatua bihurtuko nintzatekeen. Jon Muñoz

Deseginen nuen, bi eskuekin **tiraka**, ahalegin hori nire indarrez goitikoa izan ez balitz une hartan. Aingeru Epaltza

Hamarka gizon beren indar guztiaz **tiraka** ari ziren sanbuka altxatzeko. Jon Muñoz

-Nahi al duzu lokiko kizkurrak **tiraka** kentzea? Koro Navarro

Segundo batzuetan bakoitza bere aldera **tiraka** aritu ziren biak, batak zein besteak haserre eta indar berberaz. Josu Zabaleta

Sokaren muturrari heldu, eta **tiraka** hasi ziren kontu handiz. Jose Morales

Tiraka ari zelakoa egiten zuen, baina itxura hutsa zen. Jose Morales

Bi gizonek korrika egiteari ekin zioten, mandoari **tiraka**. Jon Maia

Biboteari erpuruaz eta erakusleaz **tiraka**. Juan Kruz Igerabide

Orgatxoari **tiraka** dabilen eskalearen antzo nabil neu ere. Aritz Gorrotxategi

Umeteria hara eta hona dabil, gurpil gabeko gurdiei **tiraka**. Karlos Zabala

Hildako horrek heltzen zion katea kendu nion **tiraka**. Fernando Rey

Andre txiki bat da, mahukatik gizon bati **tiraka**. Monika Etxebarria

Indar zentrifugoak hari-mutur bakoitzetik **tiraka**. Joxerra Garzia

Erortze nintzanean, tximetatik **tiraka** jaikiarazten ninduten. Jokin Urain
Hermione mahukatik **tiraka** ari zitzaion, erlojuari begira. Iñaki Mendiguren
Gero haragia aterako dut bizkarrezur bigunetik **tiraka**. Pako Aristi
Zaldiaren aho-sokak eskuetara eman zizkidan, haietatik **tiraka** atera gintezen kanpora. Aingeru Epaltza
Kometa isatsetik hartu eta **tiraka** hasi zen, berarengana erakarriz. Julen Gabiria

2 irud/hed

Lehen izar multzoa ageri zen Capbreton aldean, gauari **tiraka**. Koldo Izagirre
Gaiari **tiraka** segitu dugu: azken mendean ihesa, deportazioa eta kartzela besterik ez dugula izan euskaldunok, eta sakabanaketa. Jokin Urain
Esan nahi dut ez dudala aurretiko dokumentazio lanik egin, ez naiz ari aspalditik niregan bizi den ideia bati **tiraka**. Pako Aristi
Arrazoibide horri **tiraka**, bertsoak bertso izateko, txarra izan behar duela erabakiz amaituko genuke. Andoni Egaña
Bizi-behar horri **tiraka** ariko den zerbait asmatu behar erremedio gabe. Iñaki Segurola
Albisteari **tiraka** atera litezkeen ondorioak, ez dira arraiak. Iñigo Aranbarri
Ahal dudan hobekien eramatzen saiatzen ari naiz, aurreztutako dirutik **tiraka**. Berria - Kirola
Oroitzapen lauso eta eurtsu horretatik **tiraka** hasi nahi dut. Xabier Mendiguren Elizegi
Oroitzapenetatik **tiraka** hasten den idazlea ez dela oroimen oneko pertsona, oroimen onekoak ez baitu oroitzen nekatu beharrik. Xabier Mendiguren Elizegi
Ororen buru gure zergetarik **tiraka** ari da estatua! Itxaro Borda
Txakur tonto batek ateratzen du indarka kalera, adiskidantza tristez egindako lokarri batetik **tiraka**. Iñaki Segurola

3 (irud/hed, pipa eta kidekoei)

Hor jarraitzen du tinko Petrusek, pipa hutsari **tiraka**, erantzun baten zain. Oskar Arana
Ray, bere pipa motzari gogor **tiraka**, lasterregi zihoan inori agur esateko, eta irribarre ere ez zuen egin. Koro Navarro
Besaulkian eserita eta zigarroari **tiraka**. Jon Maia
Ondoko txaboletako gizonekin fariasari **tiraka**, berriketan jardutekoa zen aita. Jon Maia

4 (beste adizlagun baten eskuinean)

Beraganantz indarrez **tiraka**. Koro Navarro
Halakoetan Cyrusek ere amorrua erakusten zuen, lokarriari gogor **tiraka**. Anton Garikano
Bigarren esku-larrua jantzi nahian zebilen, hari urduri **tiraka**. Mirentxu Larrañaga
Brodutzen ari zen, hariari malguki **tiraka** gora eta behera. Mirentxu Larrañaga
Emeki-emeki hasi zitzaion **tiraka** bridatik. Karlos Zabala

5 jaurtiz.

Harry eta Weasleytarrek arratsalde zorionsua izan zuten, elur-bolak **tiraka** borroka bizia izan baitzuten jolastokian. Iñaki Mendiguren
Mattin eta biok jostetan genbiltzala jauregiko atari nagusiaren parean, elkarri kainaberak **tiraka**. Joan Mari Irigoien
Handik ari ziren kanoikadaz ibarraren beste aldean zegoen kasko batera bonba-**tiraka**. Inazio Mujika Iraola
Heure teilatura harri **tiraka** ari haiz, Tapia! Iñigo Aranbarri
Jende saldoa ikusi zuen asaldatuta behin, eraikin handi baten hormei arrautza **tiraka**. Harkaitz Cano
Txandan txandan harrikonkor **tiraka** akatu omen ziaten bertan. Patziku Perurena

6 *tiraka-tiraka*

Ur-jauzi erraldoiaren uhertasunaren zurrunbiloko gorputzari barrura **tiraka-tiraka**, putzuaren sakoneraino eraman ninduen. Jon Maia
Tren hartara igo nintzenezan, zerbait luzatzen ari nintzela sentitu nuen, hari mutur bati **tiraka-tiraka** neramala bitzta osoa. Jon Maia
Ideia horretatik **tiraka-tiraka** Aritz sortu du Pello Gutierrez gidolariak, Aritz pilotaria. Berria - Kultura
Adelaren gaiari **tiraka-tiraka**, beldur nintzen agerian geratuko ote zen barruan ezkutaturik neukan gorrotzko itxitura. Juan Kruz Igerabide

tirakada 1 iz tiratzea, tiraldia.

Ispiluko lurruna kendu eta, eskuilaren ordez, orrazi estua pasatu nuen iletik, korapiloen eta **tirakaden** ardurarik gabe. Anjel Lertxundi
Tirakada batez ohe-estalki arrosa itsusia kendu zuen, eta ohe gainean erori ginen, elkarren hankak kiribilduta. Juan Martin Elexpuru
Harryk **tirakada** handi bat sentitu zuen, eta kapa aurpegian behera jaitsi zitzaion. Iñaki Mendiguren
Tirakada batez askatu zen Susannarengandik, eta bi lagunak atzetik zituela. Josu Zabaleta
Hantxe errotuko zuten, zezenaren **tirakadei** mugitu gabe eusteko. Iñaki Iñurrieta
Weasleytarrek **tirakada** handi bat eman eta Harryren hanka osaba Vernonon eskuetatik libratu zen. Iñaki Mendiguren
Ezpatari alferrikako beste **tirakada** bat eman zion. Iñaki Mendiguren
Azken **tirakada** egitera joan zirenean, aurrekoan baino indartsuago eta askoz erabaki handiagoz, mojen sandaliek irrist egin zuten sarrerako baldosa hotz eta labainkor haietan. Joxemari Iturralde

2 (irud/hed, pipa eta kidekoei) ik **tirako 2**.

Zaharrak zerbait esan zion ahapeka, azkenik piztea lortu zuen pipari **tirakada** batzuk eginez. Piztu, **tirakada** bat jo, ke-bafada aireratu, eta pentsatua neukan hitzaldia bota nion. Josu Zabaleta
Beste **tirakada** luze bat Ducadosari. Unai Iturriaga

tirakadatxo iz tirakada txikia.

Bazekien zertan zebilen, hauei heldu eta **tirakadatxoak** egiten hasi baitzen. Juan Martin Elexpuru

tirakai iz pl munizioa.

Gero han armak eta **tirakai** edo munizioeak egiten zituzten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Hauietarik zombait arrangura dira gudu tokietan bildu dutela eritasun bat, leuzemia, han erabili baitituzte tresna eta **tirakaia**k uranioma mendratuz eginak. Herria

tiraketa 1 iz tira egitea. ik **tiraldi**; **tirako**.

Denborarekin ikasiko dut halaber ibiltokian kirola egiten, batzuetan lasterka arizanez ibilbide luzeena hartuz, eta ibiltoki gaineko sareari lotuz **tiraketa** batzuk edo luzamenduak egiten ere bai. Filipe Bidart

2 jaurtiketa.

Bestak ez dira oraino finitu eta **tiraketa** zegoen gaur goizean. Aingeru Epaltza

"Gizatasunaren erlijio" batek, Comte-ren positibismoaren molde zurrunean **tiraketan** huts egin zuenak, mundua sutan jarri zuen komunismo marxistaren kanoi-zulotik disparatu zutenean. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan)

Erabazpenaren ondoko lehen egunetan fusilezko lasterketa bizi eta **tiraketa** -saio ugari zebilen bazterretan. Juan Garzia

- Zazpi hilabete eta erdiko dago haurdun Claudia Pfohl, Alemaniako arku **tiraketako** kidea. Berria - Kirola

tirako 1 iz tira egitea. ik tiraketa.

Tirakoak burua lepotik bereizi balit bezala sentitu nuen. Aingeru Epaltza

2 (irud/hed, pipa eta kidekoei) ik tirakada 2.

Zer ongia eta atsegina eginen zidaten zigarro baten lehen bi-hiru **tirakoek** ! Daniel Landart

3 jaurtiketa.

Zer urrezko eskua, eta nolako begia!, gutiz hutsegin dituen **tirako** batzuek ere xarmatu gaituzte hain urrundik, hoin xuxen, gutienik ustean. Herria

tiralari 1 iz sokatiran aritzen den kirolaria. ik sokatiralari.

Arrizkuzubi aurten hasi da lehen aldiz emakumezkoen sokatiran, iaz elkartu baziren ere **tiralariak**. Berria - Kirola

TWIFek (Nazioarteko Sokatira Federazioa) euskal **tiralariak** erabat Espainiaren izenean tiratu behar zutela erabaki zuelako. Berria - Kirola

Getxotarrek ez dituzte beren xedeak asetu, zortzi **tiralari** direlako, eta pisuarekin ez dira ongi moldatzen. Berria - Kirola

Aitor Olaizola izan zen B taldeko **tiralarietako** bat. Berria - Kirola

Tiralari bizkorra, eta, halaber, taldearen akuilua. Berria - Kirola

Tiralariak, gainera, goizeko zortzietarako han zeuden pisaketarako. Berria - Kirola

Tiralariok, saioan zein epaile ariko den aztertzen dugu eta horren arabera jarrera izaten dugu tiraldian; uste dut hori ere adierazgarria dela. Berria - Kirola

Tiraldiak amaituta **tiralariak** kexaka itzultzen dira etxera eta entrenamenduetan ez da hori gertatzen. Berria - Kirola

Lau **tiralari** aritu sokaratu zituen, eta tiraldi guztiak irabazi zituzten bi pisuetan. Berria - Kirola

2 jaurtitzalea, tiro egilea.

Tiralari batek erdiz erdi jo nahi duenean, begi bat itxi ohi du bestearekin zuzenago ikusteko. Joan Mari Lekuona

tiraldi 1 iz tira egitea, tira egiten den aldia.

Banan-banan erauzten zituen hankak [euliari], **tiraldi** bakar batez, ileak balira bezala. Juan Garzia

Eman nion **tiraldiarekin**, hagina ezik, uste nuen masaillezurra ere atera niola. Patziku Perurena

Harry irristaka atera iritsi, **tiraldi** batez zabaldu eta Hermione eta Buckbeak barrura sartu ziren ziztuan. Iñaki Mendiguren

Uhalari eginiko **tiraldi** arin batez kendu zion sorbaldatik eskegita zeroan zakutoa. Josu Landa

Lucyk Tomen esana bete zuen jeanetako lau poltsikoetara eskuak sartuz eta han zeuzkanak **tiraldi** batez aterata. Oskar Arana

Aise ulertzen zen gurdiko zaldiek **tiraldi** bat indarrez eman eta bi ardatzak nola bereizi zituzten bata bestetik. Karlos Zabala

2 (sokatiran)

Txapelketako **tiraldirik** borrokatuenetakoak ikusi ahal izan zituzten Altzaga kiroldegira bildu zirenek. Berria - Kirola

Nuarbek ez zuen **tiraldirik** galdu, ez A taldeak eta ez B taldeak. Berria - Kirola

Bien arteko lehian, abadiñarrek bi **tiraldiak** irabazi zituzten, indartsu eta zabu egin gabe tiratuta. Berria - Kirola

Bi **tiraldien** arteko atsedendalditxoan. Berria - Kirola

Lehen **tiraldian**, erdi-erdian egon zen soka 3. minutua bete arte, eta *Beti Gaztek* 20 zentimetro eraman zuen. Berria - Kirola

Aresok nahitaez irabazi behar zuen bigarren **tiraldia**, eta halaxe egin zuen (5 min eta 51 s). Berria - Kirola

Bigarren **tiraldia** minutu batean eraman zuen B-k. Berria - Kirola

Gasteiztarrek lehia polita izan dute Torrekolandarekin, bi eta hiru minutuko **tiraldiak** eginda. Berria - Kirola

600 kiloko **tiraldi** guztiak irabazi dituzte Euskal Herriko Txapelketan. Berria - Kirola

Abadiñok, ordea, soka-kolpea eman zuen laugarren minutuan, eta metro erdia irabazi: gero pixkanaka atzeraka egin zuten **tiraldia** irabazi arte (6'39"). Berria - Kirola

3 jaurtialdia.

Artilleriak harresiaren aurkako **tiraldiari** ekin dio. Jon Alonso

Uste izatea harresiaren aurkako **tiraldi** bortitz bat nahikoa litzatekeela mairuak almenetatik uxatzeko. Jon Alonso

Hartu azala, polbora sartu, tako biribilarekin estutu, gero perdigoiekin bete eta, kartoiarekin itxi ondoren, atzetik pistoi berria ezarrita, **tiraldi** bakoitzeko aldatu beharra egoten zen pistoia. Pako Aristi

Estalki mehe batek, putzada leun batek, dado-**tiraldi** isil batek, ez ote gaituen lerrarazi gureak ez ziren bide dibergente bitara. Juan Garzia

tiraleku iz jaurtitzeko lekua.

Telebista kamerak eta teknikariak, argazkilariak, eta haiekin gure Patxi, jadanik nerbioztua bertzeak baino **tiraleku** hobe bereganatzeko afanetan. Aingeru Epaltza

tiralinea iz lerroak tintaz marrazteko tresna, torloju baten bidez hurbil daitezkeen bi xaflaz osatua.

Bela zuri urrunek eta windsurfzaleen koloretako hurbilagoek han-hemenka eteten dute **tiralineaz** marraztutako horizontearen ertz infinitua, paisaiaren harmonia eta monotonia gupidagabeki birrinduz eta ezabatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

tiramen 1 iz helmena, irispidea.

Fatxada nagusiaren leihoetatik tatariarren kanpamentua ikusten zen, eta, setiatzaileen artilleriak **tiramen** handiagoa izatera, bertan ezin izango zen bizi. Karlos Zabala

Ez zion ihes egiten utziko ahate bati **tiramenean** gertatzen bazitzaion. Koldo Biguri

Aurrera eta aurrera zetozen, erori eta hildakoengatik kezkatu gabe, makurtuta eta taldeka, arkularien **tiramenean**. Agustin Otsoa

Dominikoen komentu zaharra moskete baten **tiramenean** nuen. Aingeru Epaltza

-E!, metrailatzaile, ez duzu hiri handiegiren bat izango, atzealdera, zure **tiramenean** ? Josu Zabaleta

EHun bat istapera gelditua zen, gure kulebrinen **tiramenetik** at. Aingeru Epaltza

Bistatik eta armen **tiramenetik** kanpo egon arren, zeri zean zalantzarik: han zeuden, eta haien ahots maltzurak airea urratzen zuen. **Agustin Otsoa**

2 erakarmena.

Debekuz kargaturiko **tiramena**, grinarik bortitzena, ez on ez txar ez den barne-bultzada, guztien arteko bultzada bortitzena. **Xabier Olarra**

Orduan ikusi nuen sexu- **tiramenak** zergatik balio izan zuen. **Xabier Olarra**

Baina atean polizia bat dago, eta bihar esnatzen denean, bere sexu **tiramenetik** puska bat galdua izango du. **Xabier Olarra**

tirandura iz tenkadura, tentsioa.

Erretore-lagunaren galderak baretu zuen Joanto eta Domengaren arteko **tirandura**. **Elena Touyarou**

Tirandura horixe da, ordea, nerabezaroaren ezaugarri nagusietako bat, ezkutatuak bizi zuten egoera itogarriak are larriago egina. **Josu Zabaleta**

Liskar, negar eta urduritasun horiek halako **tirandurak** eta nekeak eragiten dituzte, non [...]. Esango litzateke, Baroja-ren jarreraren azpian askatugabeko korapilo baten **tirandura** dagoela. **Josu Zabaleta**

Unamuno-ren testuetan, **tirandura** asko ez ezik, kontraesanak ere ugari daude, haren arrazoiketak *ad hoc* izan ohi dira-eta. **Joxe Azurmendi**

Pertsuasioa eta gozamena, kemena eta **tiranduraren** aldean. **Patziku Perurena**

tirania 1 iz aginpide zapaltzailea, indarraren gehiegikeriazko erabilera.

Askatasun itxura ematen duten zenbait gobernutan, **tirania** ezkutuan dago, edo legegilearen edozein zirrikitutatik sartzen da ustekabeen. **Juan Martin Elexpuru**

Ezjakintasunak eta **tiraniak** bakarrik nahas ditzakete hitz eta ideiarik argienak. **Juan Martin Elexpuru**

Ez al da beti **tirania** boterearen arma bat izan? **Karlos Linazasoro**

Tiraniak puztu egiten baititu bertutearen kapapean estaltzen diren bizioak. **Juan Martin Elexpuru**

Zanpatu egingo zuen hori - **tirania**, jauntxokeria deitzen zion berak- egin nahi ez duena eginaraztea inori, mintzatzeko eskubidea etetea inori. **Anton Garikano**

Feminismo sanoa, ez paper zapaltzailea gizonetzkoie kendu eta mendekuz emakumeei eman nahi dien kaka zahar hori, tontakeriak, tontakeriak besterik ez, **tirania** batek ez du beste bat justifikatzen. **Karlos Zabala**

Kaosaren irrazionaltasuna [...] beti da kaltegarriagoa irrazionaltasuna bera baino, hau ere **tirania** bada ere. **Esteban Antxustegi**

Bestela, legeen babespean dauden eta lanaren sari diren aberastasunak **tiraniaren** janari bihurtzen dira. **Juan Martin Elexpuru**

2 (hitz elkartuetan) ik tiraniko.

Irizpide hauek ez dituzte gogoko izango goikoengandik hartutako **tirania**-zartadak behetik emateko eskubidea hartzen dutenek. **Juan Martin Elexpuru**

Delituen eta zigorren eskala unibertsal bat balego, **tirania** - eta askatasun-mailak neurtzeko modu frogagarri eta komun bat izango genuke. **Juan Martin Elexpuru**

3 irud/hed

Ezkerraren munduan denbora eta energia larregi xahutu dira komunikazioaren talde erraldoiek ezarri duten **tirania** madarikatzen. **Txema Ramirez de la Piscina**

Termodinamikaren **tiraniak** *perpetuum mobile* guztiak debekatzen zituen. **Fernando Morillo**

Takigrafiak bere neurriera eratzen duen **tirania**. **Xabier Olarra**

Nola itzuri errealtatearen esklabotasunari jendetzaren **tiraniari** erori gabe. **Askoren artean**

Literatura ospe eta erakundeetatik at bizi nahi dut, libro; orobat merkatauaren **tiraniatik**. **Jose Angel Irigaray**

Stevie Wonder eta Diana Rossen diskoei dagokienez, oso ondo entzuten dira eta jartzen ditut noizbehinka, CD-aren **tiraniatik** ihesi. **Harkaitz Cano**

Arnasa sakon hartu eta imaginazioaren **tirania** behingoz etetea erabaki zuen. **Fernando Morillo**

Behatz puntetan pizten da matxinada, eta burura ailegatu orduko ez dago nirea den ezer burua ez beste, eta hori izaten da okerrena, buruaren **tirania** hori. **Eider Rodriguez**

Eskala bizkor eta arpegio koloretsuen **tirania** kontrastetsuak, indarkeria zartatsu batetik lirismo guztiz barne-bildu batera naturaltasun osoz jauzika, irentsiak zituen Saint-Saënsen oroitzapenak. **Anjel Lertxundi**

4 tiranoaren gobernuera.

Platon suminduta zegoen Atenasko herriaren **tiraniaren** kontra. **Iñaki Iñurrieta**

Panagulis, Grezia **tiraniatik** libratu gura zuen idealista bat. **Koldo Izagirre**

Ez ahantz ordea, **Tirania** dela, Montesquieu-ren arabera, gobernu modurik bortitzena baina bai ere hauskorrena. **Piarres Xarriton**

Gobernu mota bakoitzaren argiak eta itzalak, bai eta desbideraketak, hots, **Tirania**, Oligarkia eta Demagogia, eztabaidatu ondoan, hiru eredu nagusien batuketaren hautua egiten zuen Zizeronek. **Piarres Xarriton**

Borrokari lotu zitzaion berriz bere herria Batistaren **tiraniatik** askatzeko. **Jon Muñoz**

Gaur egun Francoren **tiraniaren** aroan baino handiagoa da askatasuna. **Jokin Urain**

Erromatarrek inperio handia osatu zuten Europa, Asia eta Afrikan; herrien ahultasunak eta agintearen **tiraniak** eduki zituzten gorputz izugarri haren parte guztiak batuta. **Iñaki Iñurrieta**

Gobernu-era despotikoari dagokionez, miraria litzateke gauzek beren zeinua ordezkatea: **tirania** eta mesfidantza direnean, mundu guztiak lurperatu egiten du bere dirua; beraz, gauzak ez dira diruaren ordezkari. **Iñaki Iñurrieta**

tiraniko izond tiraniarena, tiraniari dagokiona. ik tirania 2.

Inork ez du esango [...] hiritarrek, gobernu **tiraniko** baten kontra desobedientzia erabiltzeko eskubidea ez dutenik. **Askoren artean**

Arazoak berezko agintea du; are aginte **tiranikoa** ere badu. **Iñaki Iñurrieta**

Eskuduntza banaketa beharrezkoa da lege **tiranikoak** egiteko tentazioa eduki eta martxan jartzea sahiesteko. **Berria - Euskal Herria**

Arrisku hau saihestu nahi baduzue, utziozue, bere gogoz kontra, gau eta egun oinazetzen duten desira **tiranikoak** libreki betetzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Probintzietan, berriz, gobernu-era gogor eta **tiranikoa** eta merkataritza bateraezinak ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Baziren hiri **tiranikoak** eta baziren bestelakoak, demokratikoak. **Jon Muñoz**

Behar-beharrezkoa ez den zigorra, dio Montesquieu handiak, **tiranikoa** da. **Juan Martin Elexpuru**

Behar-beharrezkoa ez den gizonetik gizonerako aginte-ekintza oro **tiranikoa** da. **Juan Martin Elexpuru**

tiranizatu, tiraniza, tiranizatzen du ad tirania ezarri.

Zeren ezin onartuzkoa baita, egia, gizon bakarrak Masa bat **tiranizatzea**; baina berdin da ezin onartuzkoa Masak gizon bakar bat zanpatzea. **Josu Zabaleta**

Horrela erosi zuen honek gu guztiok **tiranizatze**ko eskubidea. **Josu Zabaleta**

Beti berea egiten zuen eta itxurarik gabe **tiranizatzen** zuen jaun zaharra. **Anton Garikano**

Gurasoei erantzun egiten diete, zangoa zangoaren gainean jarri eta beren maisuak **tiranizatzen** dituzte. **Jokin Urain**

tiranizidio (orobat tiranozidio) iz tirano bat hiltzea.

Hilketa hori egiaz asasinato bat ote zen, ala beharbada hilketa legitimo bat zen (**tiranizidioa**, etc.), ez da erabakitzen ekintzako elementu osagarri objektiboetan, hari balio sistema baten aplikazioan baino. **Joxe Azurmendi**

Hirugarren sediziozko dotrina, sustrai beretik sortua, **tiranizidioa** zilegi dela dioena da. **Esteban Antxustegi**

Praktikan de fakto salbuespen kasu gehiegi dagoela, agian egon beharra dagoela, ikusiko dugu: defentsa legitimoa -norberarena edo lagun hurkoarena-, **tiranizidioa**, gerra "justua", etab. **Joxe Azurmendi**

tirano 1 iz antzinako grekoen artean, agintaritza indarraren bidez eskuratzen zuen pertsona; agintaritza gorena izanik, nagusikeriaz eta ankerkeriaz agintzen duen pertsona.

Atenasen **tirano** ez zitzaion bakarrik gobernatu zuen Pisistratori deitzen; baita bere ondoren, elkarrekin batera gobernatu zuten beste hogeita hamarrei ere. **Esteban Antxustegi**

Diogenesek Atenasetik bidali zuten **tiranoei** esan ziena baino ez nuen gogoan: "hiria kendu didazue, baina mundua eman". **Anjel Lertxundi**

Dionisio **tiranoaren** gotorlekua. **Jon Muñoz**

Mutilen arteko maitasuna, diosku, Grezia osoan hedatu zen, kemena eta indarra emateaz gain, **tiranoak** botatzeko balio zuelako. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Errenazimentuko **tirano** guztiak, Scala eta Montefeltre, Visconti, Borgia eta Medici bezalakoak, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Tirano askok jo behar izan du lurra, eta espero ez zenak eraman diadema. **Elizen arteko biblia**

Negar beldurragatik egiten da bakarrik; horregatik izaten dira **tiranoak** errege. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Tiranoen despotismoaren biktima izan naiz hamar urtez. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zin egiten dugu **tirano** hauek hil dituzten martiriak mendekatuko ditugula. **Berria - Mundua**

Tiranoaren hiltzaileak **tiranoaren** eskolakoak ziren. **Edorta Jimenez**

2 (izenondoekin)

Federiko bera, munduko enperadorea, jaun handia eta **tirano** handia. **Iñaki Mendiguren**

Hitler, Stalin, Mussolini, Franco eta beste **tirano** basa zenbaiten eskutik. **Piarres Xarriton**

Okerra izango ote da lege hau **tirano** bidegabe, ustel harengandik datorrelako? **Imanol Unzurrunzaga**

Tirano zaharkitu baten aurka, bere jaioterria askatu beharrez ziharduen gudari miresgarria, ametsetako estatu totalitario baten izenean bere basakeriak legeztatu nahi lituzkeen borrokari itsua bihurtu da [euskaldun gaztearen estereotipoa]. **Piarres Xarriton**

Francesco **tirano** sadiko eta erasokorra bihurtu zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Tirano odolzaleak nurrigabeki izutzeko. **Xabier Olarra**

Bizirik dagoela iruditzen zaidan bihotzeko min hau ez balitz, ameskeria lausoetan murgilduko nintzateke, **tirano** zahartu bat bezala. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan)

Tirano saldo haien aitzinean makurtu ez zenari afruntu egitea litzateke senar txarpil handi-uste baten peko bizitzea. **Eneko Bidegain**

4 irud/hed

Amarekin **tirano** txiki handi bat nintzen, eta bide hartatik moldatu nuen neure izaera aurrerantzean ere: neure-neurea bezain apetatsua. **Joan Mari Irigoien**

Zu, hura bezala, nehoiz ez baitzara emakume baten ez maitale, ez adiskide; baina betiere haren **tirano** edo haren esklabo. **Jon Muñoz**

Baina ohiturak, gogoaren **tiranoak**, atzeratu eta izutu egiten du. **Juan Martin Elexpuru**

5 (izenondo gisa)

Horregatik, gizakiak Jainkoaz dituen nozioak Jainko Aitaren ikuspegitik Jainko **Tiranoaren** ikuspegira artekoak dira. **Iñaki Mendiguren**

Aita santuaren mendeku-zigorra jaso eta gaizkile bat bezala hildako neskatxak errukia eta miresmena besterik ez zuela merezi, aita **tirano** baten aurka altxatzen jakin zuelako. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Erabiltzaile **tiranoaren** aurrean biluzik dago egilea. **Ana Urkiza**

Gorgiasen eta gainerako sofisten arabera, boteretsuak **tiranoak** dira: boterean dagoenak nahi duena egin dezake eta egiten du, diote. **Askoren artean**

Ziztrina da, berekoa, harroa, egozentrikoa; gaizki ohitua dago; **tiranoa** da; Ramsay andrea latz oinazetzen du. **Anton Garikano**

tiranokeria iz tiranoari dagokion egintza gaitzesgarria.

Hori **tiranokeria** da, pasha, jauntxokeria. **Fernando Rey**

Bere gobernu-era despotikoa bada, iraultza jasateko arriskua handiagoa du beste edozein **tiranokeriagatik** baino, hori ez baita gauza berria estatu-mota horretan. **Iñaki Iñurrieta**

Gustuko zituen **"tiranokeriaz"**, askatasun hiltzailea, konstituzio aurkakoa, iraultzailea" eta horrelako hitzak. **Karlos Zabala**

tiranosauro iz bigarren aroan bizi izan zen dinosauro haragijalea.

Zientzialariek uste dutenez, *Guandong wucuii* animaliarengandik eboluzionatu zuten gero gainerako **tiranosauroek**. **Berria - Gaiak**

Fosiletako bat dinosauro haragijale batena da ustez, eta **tiranosauroaren** familiakoa izan zitekeela uste dute. **Berria - Gaiak**

Inoiz aurkitutako **tiranosaurorik** zaharrena aurkitu dute paleontologoek Txinako ipar-mendebaldean. **Berria - Gaiak**

tiranotxo iz tirano txikia.

Horrelakoa da Castellokoa, beti trabak asmatzen, nondik zirikatuko asmatzen dabilen **tiranotxo** osatutako zuzendaritzarekin. **Jokin Urain**

tiranozidio ik tiranizidio.

tirante 1 iz arkitektura-egituretan, tira eginez lan egiten duen pieza edo kablea.

Hauen gainean eta koloma-enborrekin eta pronako pilastra eta paretekin perpendikularrean jarrita, **tiranteak** eta gapirioak, basilika osoaren gailurrari eusten diotenak.

Santiago Iruretagoiena

Zoladuretan laxkak eta taulak jartzen dira; teilatuaren azpian, espazioa handia bada, **tiranteak** eta gapirioak. **Santiago Iruretagoiena**

Tirante bidez osatutako isurkiari esker, euri-urak hartu eta atrioaren erdira eramaten dira. **Santiago Iruretagoiena**

2 pl/galtzei eusteko, besagaintatik pasatzen diren bi zerrenda pintzadunen multzoa.

Prakak zabalegi nituenez eta gerrikerik edo **tiranterik** ez zegoenez, korapiloa egin behar izan diet. **Urtzi Urrutikoetxea**

Leiho ondano eserita zegoen, kalerako zuzita, alkandora zuriz eta modoren araberako **tiranteekin** prakei eusten ziela. Harkaitz Cano

Tiranteak ondo ipintzen edo gorbataren korapiloa lotzen ari zela, [...]. Jose Morales

Senar isil batzuk, galtzak belaueraino bilduta eta **tiranteak** zintzilik, itsasoaren ertzetik zebiltzan mantso-mantso pasieran, oinak bustitzen. Koro Navarro

Tiranteak jantzi zituen Marcosek, koloredunak, abendua zelako. Unai Elorriaga

Atorra hutsean dago, **tirante** malbekin; atorraren mahukak ukondoaren gainetik ditu jasoak. Monika Etxebarria

Malba koloreko **tiranteak** fraka dotoreetatik dilindan zituen gizon bat alkandoraren diamantezko mahuka-bikiak lotzen ari zen. Lopez de Arana

3 (soineko edo elastiko bati euskekoak)

Goiko **tiranteei** besaburuek kontzen zieten, berme handirik gabe, eta eskoteak goiti eta beheiti egiten zuen taupada, beso ukaldi bakoitzarekin. Aingeru Epaltza

Zer?, gustatuko al zaito Monterreyko jendeari? galdetu du, ezkerreko **tiranteari** besotik behera irristatzen utzita. Patxi Iturritegi

4 (bestelakoak)

Belaun bat jaso eta ligeroko **tiranteak** askatu zituen eta galtzerdi beltza kenduz joan zen. Juan Martin Elexpuru

Gauza hotz bat somatu nuen nire bularretako **tiranteak** ebakitzen eta esku batzuk kuleroak kentzen. Juan Martin Elexpuru

Tira eta tira ari ziren nire bainujantziaren azken **tirantetik**. Joxan Elozegi

5 ipar tiradera.

Bestela proiektu eder horiek betikotz **tirantetan** egotera kondenatuak direla. Herria

Hogei urte lehenago uda batean bete kaiera **tirantetik** atera, ordenagailura pasatu, Etxezaharretari erakutsi bere iritzia eman zezan eta honek publikatu 2005ean: Kania, uharte galduko ipuina. Berria - Kultura

Beharrik hor dira **tiranteetan** gorde idatzien argitaratzaileak. Berria - Kultura

Tiranteetatik idatziak aterarazten laguntzeko. Berria - Kultura

Goiburuak indarrean eman nahi du "Natura 2000", **tirantean** hetsirik zirudien Euro doziera. Herria

tirantedun *izond* tiranteak dituen.

Gitarra eskuan zuen gazte **tirantedun** bat. Unai Elorriaga

Neskak soineko **tirantedun** nabarmen bat atera du Max Centerreko poltsa batetik, eta burutik sartu. Patxi Iturritegi

Ilea atzealdean bildua, praka motzak eta niki **tiranteduna**. Paddy Rekalde

Lehenengo kamiseta mangamotzaren ordez **tiranteduna** da hau, eta bizkar osoa agerian uzten duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Argal-argala, ile beltz luzea, eta kamiseta **tirantedun** estua jantzita, ilearekin kontraste ederra egiten zion kamiseta zuria. Sonia Gonzalez

Hamaika jertse, alkandora, blusa, atorra motz, elastiko, elastiko **tirantedun** zeuden han. Joxan Elozegi

Anak kamiseta **tirantedun** zuri llaburra janzten zuen, behealdean xilko ttiki xarmanta eta goialdean udak belzturiko papar eta beso luze finak bistara uzten zituen. Aingeru Epaltza

Aparatutik begiak aldendu eta kamiseta urdin **tirantedun** batekin egin nuen topo. Aingeru Epaltza

Besta-jantzi **tirantedun** ikusgarria zeraman, urdin iluna, eta kolore bereko poltsa besotik dilindan. Aingeru Epaltza

tirantza *iz* joera.

Viktor Lutxenko Ukrainako presidentea European gaindi dabila, berak eta berekilako **tirantza** horratekoa izanez betitik beste aldeko Errusiaren ganat baino gehiago.

Herria

tirapen *iz* erakargarritasuna.

Testuak, beraz, ez du beste munduko kalitaterik, baina gaiaren **tirapena** eta komedia giroa aproposak izan daitezke exijentzia gutxiko ikusleak antzokietara erakartzeko.

Berria - Kultura

tirarazi, tiraraz, tirarazten du *ad* tiratzera behartu.

Eta gero beso eta sorbaldapetik gorantz **tirarazi**. Harkaitz Cano

tirari *1 iz ipar* tiralaria, sokatiran aritzen den kirolaria.

Nahiz ez diren **tirari** guziak herritarrak badaukagu orai soka tirako ekipa bat paregabea. Herria

2 jaurtilaria.

Astelehen goizeko herritarren arteko birla zoiñgehiagoka (40 **tirari** adin guzietakoak). Herria

Petanka jokoa jokolari arraroak bilakatzen ari dira hiru mutiko: Nicolas Lavignasse, 11 urteko **tiraria**, David Benguerui hamar urteko begiralea eta Romain Oliveira, hau ere 11 urtekoa. Herria

3 *soka-tirari* tiralaria, sokatiran aritzen den kirolaria.

"Serorateia" herriko salan memento goxo bat iraganik aperitifetan **soka-tirariak** beren andrekin eta kontseilukoak joan dira Larzabalerat hor elkarteak manatua zuen bazkariat. Herria

Besteak beste barne Jose Vicondoa aizkolaria, Baiona, Zuraide eta Arrangoitzeko **soka-tirari**, lasto altxatzaile eta gaineratikoak... Herria

tirata ik tiratu.

tiratu, tira(tu), tiratzen (*orobat tira; ik beherago 10*) **1** du/dio *ad* norbaitek beste norbait edo zerbait indar eginez beregana erakarri. ik *tira* egin.

Piztia hura heldu zitzaigun jauregirat, zaldi bik **tiraturikako** orga berezi batean. Joan Mari Irigoien

Hiru gurdi azaldu ziren errepidean, zaldi argal, zauri eta gogorrunez beteek **tiratuak**. Koro Navarro

Tarantas bat, Siberiako zaldi margulek **tiraturik**, beti joango duk buhame gurdi baten aurretik! Karlos Zabala

Ama bat bere semearekin dator bizikletaz **tiratutako** karro ttiki batean. Harkaitz Cano

Goiz guziz, sei gizonek **tiratu** karro batek eramaiten ditu gorputzak hiltegira. Marzel Etxehandi

Beste batzuk, asto bat lagun, bere karro ttipia ezin **tiratuz**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Tiratzen duelakoa egiten duen, baina itxura hutsa da. **Jose Morales**
Hark, oiñuekin batera, belarria **tiratzen** baitzion, errotik ateratzerainokoa! **Daniel Landart**
Norbaitek kateari **tiratu** zion. **Anton Garikano**
Gizonak bizarrari **tiratu** zion. **Koro Navarro**
Zein hari **tiratu** ez nekien, ostera. **Edorta Jimenez**
Gogor **tiratzen** zion sokari, halatan bere indarrarekin eta olatuarenarekin enborra ahalik gehien erakartzeko lehorrera. **Anjel Lertxundi**
Mutur libre bie karelaen paretik **tiratu** behar zitzairen, tramankulua ezkerretara nahiz eskuinetara birarazteko. **Edorta Jimenez**
-Goazen berriz gora -esan nion, eta eskutik **tiratu** nion. **Koro Navarro**
Burutik **tiratu** eta berak atera ninduen mundura, eta horrela sortu nintzen ni. **Joseba Sarrionandia**
Zaldiari burua jirarazi zion, lepotik indarrez **tiratuta**. **Lopez de Arana**
"Goazen!", agindu zuen gero zaldiei uhaletik **tiratuz**. **Bernardo Atxaga**
Osabak isiltzeko manatu zion, katetik **tiraturik**, eta txakurra, halarik ere, ez zen isildu, hari eta osabak lepokotik tinkatu zuen arte. **Joan Mari Irigoien**
Kuleroetatik **tiratu** nion indarrez, eta hauek urratu egin ziren tarrantotsez. **Juan Martin Elexpuru**
Makinara igo eta palankatik **tiratu** zuen eta zama trenan abian jarri eta bagoiak eraman zituen. **Fernando Rey**
Itxuraz, Mayo erori egin zela jakin zutenean, kirol zuzendarien aginduen zain geratu ziren txirindulariak, tropeletik **tiratu** edo ez. **Berria - Kirola**

2 (gauza batek)

Urak kortxoaren zenbat igotzen duen, kontrapisuak, behera **tiratuz**, beste hainbat biraraziko du ardatza, eta ardatzak danborra. **Santiago Iruretagoiena**
Gure zutabea osatua zen, abian zen soka batek **tiratuko** balu bezala. **Urtzi Urrutikoetxea**

3 irud/hed

Jo, baina, lehengoan enroilatu nintzenak ere **tiratzen** dit... **Pako Aristi**
Baina poesiak asko **tiratzen** ninduen eta bolada batean poesia batzuk ere idatzi nituen. **Anjel Lertxundi**
Aitortu behar dut nazkatzen ari naizela liburuen kontuarekin; telebistak, prentsak, mundu mediatikoak **tiratzen** nau. **Jon Alonso**
Hire begiek ninditean lehenik **tiratu**, zohardiak baitziren, nabarrak, itsasoa bezala. **Aurelia Arkotxa**
Gero, haritik **tiratuz**, zalantza batzuk argitu nahi izan ditut: [...]. **Jon Arretxe**
Hasieran Esperantoak **tiratu** zuen; gero, erlijioek; eta, azkenik, Alkimiak. **Xabier Aranburu**
Baina orduan nik **tiratu** nahi izan nioan mihitik, ene jakinahiaren asetzeko: [...]. **Joan Mari Irigoien**
Gero eta harrituago zegoen, asaldura nabarituko zitzaizalako beldurrez, baina Itziarri mihitik **tiratzen** jarraitu beharrean. **Migel Angel Mintegi**
Amanda Aizpuriere ere hantxe jesarri zen eta, abizenari **tiraturik** hitz egin nion. **Edorta Jimenez**
Tiratu egiten ninduen gertatutakoa telebistan ikusteak. **Anjel Lertxundi**
Dirua (sekula ez da aski ordean) sartzen dute euskararen aldeko ekinetan, euskararen sostenguz ari diren elkarteak legalitatera **tiratu** nahi balituzte bezala. **Itxaro Borda**

4 (irud/hed, pipa eta kidekoei)

Errabinoak pipa pizten zuen, behin **tiratu**, eta utzi egiten zuen. **Koro Navarro**
Esku ukaldika uzten zituzten kartak mahai gainean, pospolo ontzia igurzten zuten, **tiratzen** zioten pipari, serio-serio irensten zuten. **Koro Navarro**
Horregatik eta zigarroari **tiratzen** zion moduagatik, begi-bistakoa zen irakurtzen ari zenak interes handia pizten ziola. **Anjel Lertxundi**
Aitak fariasari **tiratzen** zion, minbizirik ez balu bezala. **Jon Maia**

5 (sokatiran)

TWIFek (Nazioarteko Sokatira Federazioa) euskal tiralariek erabat Espainiaren izenean **tiratu** behar zutela erabaki zuelako. **Berria - Kirola**
Ez dute erretxinarik erabiliko, soilik alde batera **tiratuko** dute eta denbora mugatuko tiraldiak jokatu dituzte, hiru minutukoak. **Berria - Kirola**
Lapurtarrek ez dute **tiratu** Ipar Euskal Herriko Txapelketaz geroztik. **Berria - Kirola**

6 tiro egin, disparatu.

Berehala **tiratu** zuen Peiok eta usoa lurrera bota. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Gehiagokorik gabe pistolarekin **tiratu** zion. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Tiro egiten nien bakoitzean gure aitari **tiratzen** niola iruditzen zitzaidan. **Gotzon Garate**
Bazterrei adi zoazte, sasiak gibeletik terroristak noiz agertuko, mitraila eskuan **tiratzeko** prest. **Xabier Montoia**
Esesleek kotxeari **tiratu** zioten, eta balek kotxea zeharkatu zuten. **Koro Navarro**
Gero, haietako lauk, Luxiak gidaturik, tiroa atera zen zuhaitzera **tiratu** zuten. **Koro Navarro**
Hark prestatu zuen zelata eta armatu zuen balezta eta **tiratu** zuen. **Koro Navarro**
Gelditu ninduan eta, abisatu gabe hi, tiroa **tiratu** zidatean! **Pablo Sastre**
Oporretan daude, jolas-tokiak ere izaten dira jendea erakartzeko, *étapes sportives*, gezi-arkuarekin **tiratzea** adibidez. **Mikel Hernandez Abaitua**

7 jo.

Tira ezak Cortesetarantz, Raimundak oraindik. **Urtzi Urrutikoetxea**
Ez zaie iruditzen gorputz guztiak erdirantz **tiratzen** dutenik, lurrekoek eta urezkoek baizik. **Xabier Amuriza**
Pisu guztiak berez beherantz **tiratzen** baitute, grabitateari talkarik gehitzen zaionean, abiadura bibidertzen eta oldar hura indartzen da. **Xabier Amuriza**

8 (era bururua izenondo gisa)

Haren betiko begi alaiak, txiki-txiki zituen, eta haren azal **tiratuak** aguretxo batena ematen zuen. **Josu Zabaleta**

9 (era burutua izen gisa)

Eskuburdinaren eskumuturretan sartzen zaizkizu, belaunak mugitzerakoan sortutako **tiratuengatik**. **Rafa Egiguren**
Poetikotasunak berarekin du hunkitzea erdietsi nahia, eta halakoa zen testua, bihotz-**tiratu**etara eta identifikazio nahira emana beste ezerean gainetik. **Iñigo Aranbarri**
-Goi-**tiratu** bat -esan zuen Georgesek. **Xabier Olarra**

10 tira (tiratu-ren ordean)

Lehenengo ilarakoei paper-bolak **tira** eta halakoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Baina Denverri lepotik **tira** aurretik, neska aurreraka makurtu eta negarrez hasi zen. **Anton Garikano**
-Jesus, **tira** aurrera, gaurkoz nahikoa diagu! **Urtzi Urrutikoetxea**
Tira albo batetik, bestetik berdindu ari nintzela, ama sartu zen logelan. **Anjel Lertxundi**
Bi tiro **tira**. **Gotzon Garate**
Kanoikada bat **tirata** ere gorpu bat dagoen lekuan, bost edo sei eguneko urpean egon ondoren azaleratzen bada, berriz murgilduko da, bere horretan utziz gero. **Berria - Euskal Herria**
Hemendik **tira** eta handik luza moldatutako testua eratxiki nion azpian. **Aingeru Epaltza**
-Handik **tira** eta hortik **tira**, kapa apurtuko genuke. **Anjel Lertxundi**
-Baratzearen bueltan jo eta **tira** jauzika ibiltzen zenean. **Irene Aldasoro**
Azkenean, **tira** eta bultza, lortu zuten esnatzea. **Tira**-bidean ongi hartua zeukalarik, jada gaturik bigarren aldiz sakatzeko prest zegoenean alegia. **Askoren artean**

11 tira ahala (orobat tirahala g.) indar guztiekin, ahal den guztia.

Goizetik arrats, **tira-ahala** ari izan ginen. Daniel Landart
Barnean norbait edo norbaitzuk **tira ahala** ari dira. Aingeru Epaltza
Kanpoan euria ari zuen **tira ahala**. Berria - Euskal Herria
Atzamarrak **tira ahala** zabaltzen ditu igurtziaren eremua handitzeko. Koldo Izagarre
Ikusi nuen elkarri **tira ahala** musuka ari zirela. Janbattitt Dirassar
Erdilariaren bitartez, baloia eskuratu nuelarik, **tira-ahala** lasterka abiatu nintzen, aurkako lerroan zuloak egiten saiatuz. Daniel Landart
Gau hura goizaldeko ordu tikietan bukatu nuen, Alde Zaharreko barra amerikar batean, zutik egoteko gauza ez nintzela eta ipurdi estuko ukrainar baten istorio tristeekin **tira ahala** negarrez. Aingeru Epaltza
Platonengana konfiantza ukan dut, baina hau gaurko *people* aldizkarietako kazetarien gisa aritu zela iruditzen zait, lumak **tira ahala**, gizon handien itzalen bila. Itxaro Borda

12 tira ahala tira tira ahala.

Tira ahala tira lau miliun tona trafikuren marra iragan du portuak 2000 urtean. Herria
Biltagarbik karkulatua baitu bost urte barne bereizketa hein horretara helduko garela **tira ahala tira**. Herria

13 tira eta tira etengabe tiratuz.

Eta ni aitzina tematzen, **tira eta tira** azkenean sakre andana bat ederra bildu nuen burutik beheiti. Marzel Etxehandi
Eta holaxe jarraituko nuke, hariari **tira eta tira**, mataza erabat askatzea lortu gabe. Bernardo Atxaga
Eta horra non, ohartu gabean, aitaren zigarro bat harturik, ari nintzela **tira eta tira**, kea biriken zolaraino igorritz! Daniel Landart
Ur ertzean zeuden besteak sokatik tiraka hasi ziren eta, **tira eta tira**, hura ez zen inoiz amaitzen. Koldo Biguri
Tira eta tira ari ziren nire bainujantziaren azken tirantetik. Joxan Elozegi
Frantziako Justiziak haritik **tira eta tira** segitzen du Cofidis taldearen auzian. Berria - Kirola
· Manuk **tira eta tira** egiten zion aitariari eskutik, lehenbailehen alde egin zezaten handik. Pedro Alberdi
· Eta ezin atera, **tira eta tira eta tira**. Joxean Sagartzizabal

14 tira-nagiak egin hankak luzatu.

Tira-nagiak **eginez** egon zen lehendabizi, eta gero, Rozinante zegoen lekura joan zen. Patxi Ezkiaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atzera tiratu (3); **belarririk tiratu** (3); **besotik tiratu** (3); **goitik tiratu** (4); **goitik tiratu baliote** (3); **mihitik tiratu** (3)
zaldik tiratutako (3)
tiratzeko aukera (3); **tiratzeko prest** (3)
ongi tiratzen (4)
tira ahala ari (3); **tira ahala musuka** (3); **tira ahala tira** (3)
tira eta tira (23)
kanoikada bat tirata (3)

tiratzina iz tiragoma.

Errepedetan ere bi ziren beti aukerak **tiratzina** baten gisan bideak bere izterrak ireki eta gidariari eskaintzen zizkionean. Harkaitz Cano

tiratzaile 1 iz tiro egiten duen pertsona.

Tiratzailea berehala harrapatu zuten, eta kuartel nagusiak berehala hiltzeko agindua eman zuen, hilketa egin zuen leku berean. Juan Kruz Igerabide
Tiratzailea urrun kokatua zegoen eta metrailetat z tiroka hasi zen leiho argituaren kontra. Koldo Biguri
Tiro-zelaian ederki erakutsi zuen konpainiako **tiratzaile** onena zela, alde handiz. Mirentxu Larrañaga
Halako mira moduko bat sentitu nuen **tiratzailearekiko**, edo zuzenago esateko, **tiratzailearen** punteriarekiko. Karlos Linazasoro
«Goi mailako **tiratzailea**» zen Castejongoa, ikerketaren arabera. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bi aldeen erdian harrapaturik, **tiratzaile** tatariarren jomuga bilakatu ziren. Karlos Zabala
Maria Quintanal **tiratzaile** bilbotarrak oso gogor kritikatu du Espainiako tiro taldeko hautatzaile Jose Luis Perez. Berria - Kirola
- **Tiratzaile** ona al zara? -galdetu zion Zalakainek atzerritarrari. Koro Navarro
Udaberriro **tiratzaile** trebeenak biltzen zituen eta oreinetara joaten zen Van aintzirearen ondoko Esrük mendira. Fernando Rey
Tiratzaile bikaina zen: basoilar edo ahateren bat ekartzen zuen beti bazkaltzeko. Jose Morales
Osaba Joanikot ehiztari eta **tiratzaile** eskasa zen. Joan Mari Irigoien
Ni zelaira irten, **tiratzaile** itsuak ere jotzeko moduan, eta ezer ez. Arantxa Iturbe
Kamioitik mitrailleta asots nasaiak ozen zetozen eta partida zuena irudiz, **tiratzaile** bakartia, tiratzetik gelditu zen, hila menturaz. Itxaro Borda
Artilleriako **tiratzaile** bat bezala armatua, bat baino gehiago iziaraziko du oraino. Herria
Ezkutuko **tiratzaileen** tiro-hotsak aditzen ditugu noizbehinka. Mirentxu Larrañaga
Eraikinetako teilatueta Inakeko Armadako eliteko **tiratzaileak** jarri dituzte. Berria - Harian
Brionesek armak prestatzeko agindu zien aurrealdeko **tiratzaileei**, eta poliki joateko, gerrilla moduan. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Tiratzaile -plaka gorria eman ziotenean, ezin harroago nengoen anaiaz. Mirentxu Larrañaga
· Horren ostean metrailadore-**tiratzaile** sartu zen armada errepublikazalean. Edorta Jimenez

4 (izenondo gisa)

Emakume **tiratzailea** ikusi zuen, belauniko lurrean. Fernando Morillo

5 aipatzen dena jaurtitzen duena pertsona.

Bost gela bederen orotara; batetik bestera, gero-ta-jende gehiago ibilki, han karta **tiratzaileak** 2.500 pezetatan edo irakurle bereziak 4.000 tan, orotarat holako 40 bat irakurle. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
tiratzaile ona (3)

tiratze iz jaurtitzea.

Bazkaria eta asko jostagailu, txartela **tiratze** eta musa. Herria

tirazo 1 *iz adkor* tiraldia.

Luca etxean batera eta bestera ibiltzen zen soka harekin, bere baitan murgildurik, [...] harik eta amak, oihuka eztarria eten beharrean eta **tirazo** batez, soka eskutik kentzen zion arte. **Fernando Rey**

2 irud/hed

Baina, gaurko moduan atezu dagoenean, irteteko pronto, amaraunean lehor-**tirazo** baten ostean, ezko poxi bat sumatu duen seinale. **Pello Zabala**

tiren 1 *adlag* tentsioan.

Joseba erne jarri zen, gorputza **tiren**, besoak geldi, eta burua bueltatu gabe. **Iñaki Zabaleta**

2 urduri.

Barrendik nerbiotsu, **tiren** baldin bazegoen ere, azaletik bare zirudien, lasaitasun hotz batez mozorrotua. **Iñaki Zabaleta**

tireta *iz tiradera* • *irud/hed*

Ahal dutena egiten dute, **tireta** hau Elizarentzat, bestea bizi pertsonalarentzat. **Piarres Aintziart**

tiriar *izlag/iz* tirotarra.

Marinek, Ptolomeok aipatzen duen **tiriar** batek, zenbait merkatarri mazedoniarrek Indietan egindako aurkikuntzak aipatzen ditu. **Iñaki Iñurrieta**

Asiako inperioetan luxuzko merkataritza zegoen bitartean, **tiriarrek** ekonomiazko merkataritza egiten zuten lehorretik. **Iñaki Iñurrieta**

Zedro-zura neurri gabe, sidondarrek eta **tiriarrek** Davidi ugari ekarria. **Elizen arteko biblia**

Axolagabezia hain izan zen handia, non greziar erregeak honako honetaz ohartu baitziren: **tiriarren**, idumearren eta judutarren nabigazioak ez ezagutzeaz gainera, Itsaso Gorrikoen berri ere ez zeukatela. **Iñaki Iñurrieta**

tiriatu, tiria, tiriitzen du *ad*

Arrazoiaren arorik ezagutu gabe haurtzarotik zahartzarora iraganen nintzen, neronen **tiriartzeko** eta segurtatzeko ahala zeukan zulo beltz intergalaktikoa hedatzen zitzaidala bien artean. **Itxaro Borda**

tiriki-tauki (*orobat tirikitauki*) 1 ingudeko kolpeen onomatopeia.

Tiriki tauki taki / Mailuaren hotsa, / Kartzelako katea / Ai zer kate motza! **Koldo Izagirre**

Tiriki tauki tauki, / mailuaren hotsa; / **Tiriki** tauki tauki, / mailuaren hotsa; / hamasei harri lantzen / ari da Oteitza. / Ai, oi, ai, / ari da Oteitza. **Xabier Etxabe**

Laga, boga, sega, **tiriki** trauki, hiru eta lau dira zazpi, zenbat dira? **Harkaitz Cano**

Bueno, ez pentsa eklipseari kontu hartzen ari naizenik, Arantzazuko 14 apostolu Oteizarenak konpontzen dabiltzan udazken honetan... **tiriki**-trauki, aspaldi batean landu eta formaz zizeldutako harrizarrak, bai, aizu, gaitzak jota...! **Pello Zabala**

2 (izen gisa)

Honelakoxeak dira eguzkiaren argia eta beroa, lehenki txiki-txikiz eginak direlako, zeintzuek, **tiriki**-taukian bezala, aire artea zeharkatzeko nagirik ez duten, atzekoen talkek eraginik. **Xabier Amuriza**

Hotsei buruzko **tirikitauki** hartaz bera arduratu! **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tiriki tauki (30); **tiriki tauki taki** (28)

tirita *iz* esparatrapu zerrenda gazaduna, zauri txikiak babesteko erabiltzen dena.

Portugaldar handi baten aurka izandako borrokaren ostean, dutxatu, orbain batean puntuak josi, **tirita** zabal pare bat jarri eta gimnasiokoak agurtuta, bakarrik joan zen kalera. **Paddy Rekalde**

Hatz batekin bekokia erakutsi zidanean, konturatu nintzen **tirita** neramala, gosaria prestatzerakoan armairuaren atea jo bainuen. **Ramon Saizarbitoria**

Dubosc-ek egin behar dik orain salto: **tiritak** prestatu! **Jesus Mari Mendizabal**

Bernako barrualdean **tirita** egunero kolore diferente batekoa zeraman neskek ere polito egiten zuen. **Edorta Jimenez**

Heriotzaren samina **tiritaz** sendatzera. **Jasone Osoro**

tiritadun *izond* tirita bat daramana.

Gero, Eskandinaviako batzuek alde egin zuten, euren artean **tiritaduna** zela, barazkijaleen jateke baten bila. **Edorta Jimenez**

tiro¹ 1 *iz* su arma batek jaurtigaia aurtikitzea; aurtikitze horretan gertatzen den danbada.

Ez dago **tiroak** baino gauza gorrotagarriagorik! **Josu Zabaleta**

Horrelaxe nengoan geldi, **tiroaren** zain, hik **tiroa** noiz egingo. **Xabier Olarra**

Gizona **tiroa** bezala atera zen ostatutik. **Elena Touyarou**

Sei **tiroko** pistola bat eman zidan, kanoi luzekoa, beterik. **Juan Kruz Igerabide**

Hemezortzi urteko gazte bat hil zen, poliziaen **tiroen** ondorioz. **Berria - Mundua**

Tiroen argiek han-hemenka baizik apurtzen ez zuten iluntasun beltz haren erdian. **Karlos Zabala**

Tiro bat bertatik bertara! Buruan hiru **tiro** eman zizkion talde-buruari. **Koro Navarro**

-Horretara iritsita, hobe zuketean **tiroa** eman baliote. **Oskar Arana**

Horrenbeste baldin badakik, zergatik ez dizkidak bi **tiro** ematen? **Koldo Izagirre**

Bi **tiro** joko nizkioan, eskuak batere dardararik egin gabe. **Juan Kruz Igerabide**

-Jo **tiroa**, jo! -egin zion oihu Joxe Mariri-. **Juan Kruz Igerabide**

Antonio de la Mazak hodi biko 12ko eskopetaz **tiro** bat jo zuen, diktadorearen autoko atzeko leihatilaren paretik. **Edorta Jimenez**

Hori gauze katuei **tiroak** tiratzen ibiltzen duk eta. Pablo Sastre

20 **tiro** bota zituen eta bakarra huts egin zuen. Berria - Kirola

Tirokatzaileak «oso ongi prestatuta» zeuden, Riparen ustez, mugitzen ari zen auto batetik jaurtiriko 20 **tiroatik** 14k helmuga jo zutelako. Berria - Euskal Herria

Kalera jaitsita eta **tiroak** airera botata azaldu zuten euren poza. Berria - Mundua

Errai-erraietan sartu diot **tiro** bat. Koro Navarro

' **Tiroak** ihes egin dit', erantzun zidan. Berria - Harian

-Errieta egin nion mutikoari **tiroa** huts egiteagatik, eta laineza hartuta erantzuten hasi zitzaidanean, belarrondoko eder bat eman nion. Koro Navarro

Hartza gainera erori zitzaioela sei **tiro** hartu eta halere korrika jarraitu ondoren. Bernardo Atxaga

Donaldsonen hilketari dagokionez, mediku iturriek jakinarazi dute orotara lau **tiro** jaso zituela. Berria - Mundua

Bi gizon mozorrotuek bost **tiroz** garbitu zuten. Goizon Garate

Etengabe entzuten ziren **tiroak** . Josu Zabaleta

Une hartan **tiro** bat aditu zen, eta bala bat igaro zen gertu samarretik txistuka. Koro Navarro

Auzitegiko medikuen eskuetan dago dagoeneko, **tiro** batek jugularra zulatuta. Migel Angel Mintegi

Behatzailea, ehiza hegazkinen **tiroak** seko hilda, karlinga barrenean zetzan. Josu Zabaleta

Inguruan ibili zaio **tiro** eta **tiro** , etengabe. Jokin Muñoz

Bi **tiro** aski maletategi barnera, autoa landa isolatu batera eramanda. Aingeru Epaltza

Bertsio ofizialaren arabera bi **tiroekin** suizidatzen den jendea. Harkaitz Cano

Bi txori **tiro** batez. Iñaki Iñurrieta

Eritrea alderik alde oinez korritu behar izan zutenak, alde batekoen eta bestekeen **tiropean** . Joxerra Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bi txori hiltzen ditugu **tiro** bakarrarekin, denok zerbait irabazten dugulako. Berria - Kirola

Asparotsen artilleroei argibideak emanez **tiro** zuzena egin zezaten gazteluaren kontra. Aingeru Epaltza

Metrailadoreen edo **tiro** bizkorreko kanoien tiro jasa bakoitzak ehunka jaurtitzen ditu obusak edo bala argitsuak. Josu Zabaleta

Soinu ikaragarri horiekin mosketeen **tiro** zoliak nahasi ziren. Karlos Zabala

Tiro itsuei **tiroen** oihartzunak baizik ez zieten ihardesten. Itxaro Borda

Tiro lasterreko kanoiak inondik ere. Josu Zabaleta

Kanoia profiatu nahi baitzuen osaba Joanikotek **tiro** parabolikoari buruzko ikerketa baten egiteko. Joan Mari Irigoien

Ez dago **tiro** segururik. Berria - Harian

Errukizko **tiroa** emateko lana ere hartu nahi ez duen izaki horren mugimenduei jarraitzen diela begiekin. Oskar Arana

Tenienteak graziako **tiroa** jo zion. Edorta Jimenez

Graziako **tiroa** eman diete ondoren. Bernardo Atxaga

Lehenengo **tiroarekin** batera erne eta bizkor jaiki nintzen ohetik. Josu Zabaleta

Barkamena eskatzen duen aldi berean, hiltzeko **tiro** egiteko politikarekin segitzea erabaki du Blairrek. Berria - Mundua

Olinpiar **tiroa** : Maria Quintanal. Berria - Kirola

Banekielako edozein unetan haren zakil lodiak eztanda egin eta nire eztarrian behera **tiro** likenak botako zituela, espermaz josiriko hitzak. Jasone Osoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hara non **tiro** -hots bat aditu nuen haranean barrena. Mirentxu Larrañaga

Metrailadorearen **tiro** -hotsaren soinu motelduak iratzarri nau, obusen kirrinka urrunekoak. Mirentxu Larrañaga

Fusilen **tiro** -hots labor bereziak, *staccato* bezala aditzen direnak. Mirentxu Larrañaga

Zeremonia amaitu orduko entzun ziren fusilamenduaren **tiro** eztrandak. Joseba Sarrionandia

Tiro -trukaketak bizpahiru oren iraun zuen. Itxaro Borda

Tiro festa amaitu denean, Mario lurrera amildu da, ziplo, tripako zuloari bi eskuez helduta. Patxi Iturritegi

Tiro sail bat entzun zen, Dyer, Lewis eta Halligan tiroka ari baitziren. Xabier Olarra

Une horretan **tiro** -andana entzuten da, emakumea dardaraz hasten da. Felipe Juaristi

- **Tiro** -jasak sabela hautsi zio. Aingeru Epaltza

Gero, bertze **tiro** eta gezi erauntsi batek makurrarazi zuen betiko. Aingeru Epaltza

Pistola, errifle eta subfusilekin ere egiten genituen **tiro** -saio batzuk aldian behin. Rafa Egiguren

Arratsaldeko **tiro** -ariketaren ondotik. Xabier Montoia

Tiro -zaparradaren oihartzuna entzun dut. Mirentxu Larrañaga

Lucyk pistola bat eta walkie-talkie bat erosi beharko litzuke, eta **tiro** -eskolak hartu. Oskar Arana

Hildakoak **tiro** arrastorik ez du, zakurriz ez da ageri. Joxemari Urteaga

Han kanpoan etzanda [...] buruan **tiro** -zulo bat zuela. Mirentxu Larrañaga

Hirurak aldera **tiro** -sua egiten diete. Edorta Jimenez

Tiro -zelaian ederki erakutsi zuen konpainiako tiratzailearik onena zela, alde handiz. Zaldiko-maldiko bat, bilintzi-balantza bat, hiru **tiro** -joko, auto txikientzako pista bat, autotoke bat. Mirentxu Larrañaga

Espainiako **tiro** taldeak Avilan egin zuen prestaketa egonaldian. Berria - Kirola

Dilermando de Assisek, **tiro** -txapeldun nazionala zenak, bala bat sartu zion bularrean. Karlos Zabala

Metrailadore bat hasi da kalakan, **tiro** -totelka. Mirentxu Larrañaga

Bestea atzetik marmarka eta **tiro** -mehatxuka jarraitzen zitzaion. Koldo Biguri

Parlamentuak aho batez onartu du Bardeako **tiro** poligonoaren aurkako mozioa. Berria - Euskal Herria

Bardeako **Tiro** Eremuaren Kontrako Batzarrak poligonoaren aurkako hamazazpigarren ibaldia eginen du gaur. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Golf egitea, ehizatzea, zokomiran ibiltzea, autoan ibiltzea, plater- **tiroa** egitea. Iñaki Zabaleta

Kanoi-hots bat aditu bainuen segidan, eta hiruzpalau fusil- **tiro** . Joan Mari Irigoien

Fusil **tiroen** ihesi ibiliko da merkatarri lasai hau. Karlos Zabala

-Ez dira eskopeta- **tiroak** izan, Marisa. Juan Kruz Igerabide

Laster, izugarrizko karraska-hotsa entzun zuten, pistola- **tiro** bat bezalakoa. Iñaki Mendiguren

SS ofizier batek piztolet **tiro** batez hil zuela. Marzel Etxehandi

Mutikoa ezkutaturik geratu den arbolen atzetik errebolber **tiro** bat entzungo da. Josu Zabaleta

Ikastaro bat egin zuen arku- **tiroaren** nondik norakoez jabetzeko. Berria - Kultura

Haren emazteki gaztea ere, haurdun zegoena, bertze arkabuz **tiro** batez hil zuten. Joan Mari Irigoien

Handik harantz bailesta- **tiro** bi harantzagokoak ere. Patxi Ezkiaga

Dorretik dorrera utzi behareko tartea ez da izango gezi- **tiro** batek hartzen duena baino handiagoa. Santiago Iruretagoiena

Orain gazteto bat jarri zaigu auzoan, alausa nondik etorrria: garaia; ederra; handinahia dariona; niretik txispa- **tiro** batera jarri denda, eta makinaz bete du. Juan Garzia

13 urteko neska palestinar bati herio **tiroa** ustez jo zion komandantea kargutik kendu egin dute. Berria - Mundua

Sakabanaketarako irteera- **tiroa** izan zela ematen din. Fernando Morillo

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Panpina- **tiro** postu itxiak, lonetaz estalitate zaldi-feria geldiak, falta ziren bonbillak bonbilla itzaliekin tartekatzen ziren karruselak. Harkaitz Cano

Metraileta **tiro** sorta batek Haitiko Poliziako Akademia Nazionala alertan jarri zuen. Berria - Mundua

6 tiro egin

-Egon geldi edo **tiro** egingo dut! -esan zuen berriro ahotsak. Koldo Biguri

Txanberlainek egin omen zien **tiro** buruan Pirpok vals pauso batzuk ematen zituen bitartean. Bernardo Atxaga

Etxean zuen eskopeta hartu eta airera **tiro** egin zuen Vandenbrouckek. Berria - Kirola

Kanoiak **tiro** egiteko prestatu. Aingeru Epaltza

Fusilek **tiro** egiten zuten aurre-postuetatik, obusek airea zeharkatzen. Karlos Zabala

Arkabuza goratxoago jaso nuen, **tiro** egiteko modu egokiaren bila. Edorta Jimenez

Gaua etorri artean hamabi aldiz egin zuten **tiro** . Aingeru Epaltza

Sei bat metrotik **tiro** eginez gero. Patxi Zubizarreta

Egiok **tiro** sasikume horri, Tommo, berak Berthari **tiro** egin zioan bezala. Mirentxu Larrañaga

Bi pertsoniak prest daude, aurrez aurre, erlojuak musikatxoa jotzeari uztean elkarri **tiro** egiteko. -Oinean egin zidatek **tiro** , sinetsi nahi al duk? Juan Kruz Igerabide

-Oilgorrei **tiro** egiteko, zein neurritako perdigoiak erabiliko hituzke? Koldo Biguri

Ezezagun batek **tiro** egin du bart gauean erretorearen kontra. Koldo Biguri

Edale ona, adiskide zintzoa, eta arimaren barrenean inori **tiro** egiteko edo herria osorik erretzeko bezain odol-beroa. Koro Navarro

Zaldiko-maldikoa eta **tiro** egiteko etxolan sos parrasta gastarazi zidan. Aingeru Epaltza

. **Tiroak** egin dituena. Anjel Lertxundi

Bi **tiro** baizik ez zitian egin. Aingeru Epaltza

Sei **tiro** egin zizkieten guztira. Berria - Gaia

Jakobek esan zidan ea baneukan adorerik pistolaz **tiro** batzuk egiteko. Juan Kruz Igerabide

7 tiroz

Kamino-bazter eta zangetan **tiroz** hildakoen historia inoiz ofizialdu gabekoak istorio bilakatuta iritsi zaizkigu maiz. Jokin Urain

Ez nuen nire inguruan senarra **tiroz** hil zezakeen emakumerik ezagutzen, **tiroz** hiltzea merezi zuten senarrak ezagutzen banituen ere. Joxean Agirre

lhes egiten saiatzen zirenak, berriz, **tiroz** hiltzen zituzten. Jokin Urain

Hantxe bertan garbitu zituzten **tiroz** . Gotzon Garate

Azkenean norbaitek, herriaren isilean, **tiroz** akabatu zuen. Gotzon Garate

Igande huntan Tel Aviv-eko karrika batean dituzte **tiroz** kolpatu hamar bat presuna. Herria

Hortxe dago nire alboan, **tiroz** jo dutenean ere. Mirentxu Larrañaga

Alemanek lubaki hauetaraino eramaten dituzte gizon-emakume juduak eta denak **tiroz** jotzen dituzte, bat bera ere bizirik uzteke. Felipe Juaristi

Poliziek pistola ikusi eta **tiroz** josi zuten. Gotzon Garate

Bidaia-arien bagoi bakar batek ere ez zuen kristalik leihoetan, denak **tiroz** josiak zeuden. Fernando Rey

Lau **tiroz** kendu zizkieten haserreak eta arnasa. Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

airera tiro egin (6); **arkabuz tiro** (4); **atera eta tiro** (4); **aurka tiro egin** (14); **bardeako tiro eremua** (10); **bardeako tiro eremuaren** (4); **bere buruari tiro** (10); **bi tiro bota** (7); **bi tiro egin** (8); **bi tiro eman** (7); **botatako tiro** (4); **buruan bi tiro** (5); **buruan tiro egin** (4); **buruan tiro eginda** (5); **buruari tiro egin** (4)

egiaz tiro egin (13); **egin zieten tiro** (4); **egin zion tiro** (4); **egin zioten tiro** (5); **egin zuen tiro** (6); **egin zuten tiro** (10); **ehiztarien tiro** (4); **elkarri tiro** (5); **eskopeta tiro** (5); **garondoan tiro** (4); **hiruro tiro bota** (4)

kontra tiro egin (16); **kontra tiro eginda** (5); **lau tiro bota** (4); **manifestarien kontra tiro** (6)

soldaduek tiro egin (4)

tiro bakar bat (6); **tiro bakarra** (9); **tiro bana** (6); **tiro bat aditu** (4); **tiro bat bota** (11); **tiro bat eman** (7); **tiro bat emango** (5); **tiro bat entzun** (11); **tiro bat izan** (4); **tiro bat jaso** (10); **tiro bat jo** (6); **tiro bat zuen** (4); **tiro baten hotsa** (4); **tiro batez bi** (4); **tiro batez hil** (10)

tiro egin (423); **tiro egin ondoren** (10); **tiro egin zion** (50); **tiro egin zuen** (46); **tiro eginda** (30); **tiro eginez** (29); **tiro egingo** (35); **tiro egingo dut** (4); **tiro egitea** (19); **tiro egiteagatik** (6); **tiro egitean** (9); **tiro egiteari utzi** (4); **tiro egiteko** (79); **tiro egiteko agindua** (4); **tiro egiteko prest** (13); **tiro egiten** (76); **tiro egiten hasi** (4); **tiro egiten zieten** (4); **tiro egiten zuten** (4); **tiro egitera** (5)

tiro eman (28); **tiro eman zizkieten** (4); **tiro entzun** (4); **tiro eremua** (16); **tiro eremuan** (4); **tiro eremuaren** (5); **tiro eta tiro** (12); **tiro hots** (22); **tiro hots bat** (9); **tiro hotsa** (26); **tiro hotsa entzun** (7); **tiro hotsak** (48); **tiro hotsak entzun** (8); **tiro hotsak entzuten** (4); **tiro hotsarekin** (4); **tiro hotsen** (6); **tiro hotsik** (4)

tiro jaso (7); **tiro joko** (5)

tiro zaparrada (7)

ustekabeen tiro (5)

arku tiroa (4); **azken tiroa** (7); **graziako tiroa** (4); **lehen tiroa** (4); **tiroa bezala** (8); **tiroa bota** (13); **tiroa eman** (14); **tiroa jaso** (6); **tiroa jo** (5)

fusil tiroak (4); **lehen tiroak** (5); **tiroak aditzen** (6); **tiroak botatzen** (5); **tiroak entzun** (14); **tiroak hasi** (5); **tiroak izan ziren** (4)

fusil tiroen (4); **soldaduen tiroen ondorioz** (4); **tiroen ondorioz** (14)

tiroko errege (7)

hil dute tiroz (10); **hil zituzten tiroz** (19); **hil zuten tiroz** (27)

tiroz akabatu (7); **tiroz akabatu zuten** (4); **tiroz eraso** (4); **tiroz garbitu** (12); **tiroz hil** (137); **tiroz hil zituzten** (19); **tiroz hil zuten** (42); **tiroz hila** (6); **tiroz hilak** (4); **tiroz hildako** (12); **tiroz hiltzen** (10); **tiroz jo** (4); **tiroz josi** (8); **tiroz josi zuten** (5); **tiroz zauritu** (10); **tiroz zauritu zuten** (5)

tiro² iz orga batetik tiratzen duten abereen multzoa.

Janariak ere ez gunituzke hain ugari izango, baldin eta uzta-erriak eta goldeak ez balira asmatu identizat eta **tiroko** abere guztientzat. Santiago Iruretagoiena

Beraz, **tiroko** hiruro txikota lotzen dira makinan. Santiago Iruretagoiena

Orduan **tiroko** soka nagusia beheko trokolaren zuloan sartzen da. Santiago Iruretagoiena

tiroaldi iz tiro saioa. ik tiroketa.

Kosovoko segurtasun indarretako eledunak gaineratu zuen, halaber, eraso egileetatik batek ere bizia galdu zuela **tiroaldian** eta oldar egite horren ostean, KPSko eta UNMIKeko indarrek etxe miaketa bat egin zutela Pristinan. Berria - Mundua

tirogile iz tiro egiten duen pertsona.

Tirogileari dagokionez, sentitu, bai, sentitu nuen hura eta sentitu nuen hori, nire ondotik pasatu, baina nik ez nion begiratu. **Anjel Lertxundi**
Isilik begiratu diote Apezetxea **tirogileari**. **Hasier Etxeberria**

tiroide *(orobat tiroides g.er.)* 1 *izond/iz* kartilagoez mintzatuz, laringearen aurreko eta goiko aldean kokatua dagoena.

Ahoskorda deitzen diren horiek laringean dauzkagun ezpain itxurako tolesdura haragitsuak dira, kartilago aritenoideen eta kartilago **tiroidearen** artean luzatzen direnak (**tiroidearen** ertza -hizkera herrikoian "intxaurra" deitzen den hori- ongi nabaritzen da gizonezkoen lepoan). **Lourdes Oñederra**

2 guruinez mintzatuz, trakearen aurreko eta goiko aldean kokatua dagoena, metabolismoan eta haztean eragina duten hormonak jarritzen dituena.

Iodoaren gehiegizko kontsumoak **tiroidearen** disfuntzioa eragin diezaike «persona sentiberei». **Berria - Gaiak**

Adituen arabera, pilula horiek **tiroideak** bete eta erradioaktibitatea gorputzean sartzea saihesten da. **Berria - Euskal Herria**

Tiroideetako hormonak dituzte Parisko argaltzeko pilula hilgarriek. **Berria - Gaiak**

Bederatzi haur baino ez dira hil **tiroideetako** minbiziz. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan edo aposizioan) ik tiroideo.

Gure gorputzak 150 mikrogramo inguru behar ditu egunero, **tiroide** guruinak hormona tiroideoak sor ditzan. **Berria - Gaiak**

Tiroide hormona eskasia horrek osasun arazo larriak sortzen ditu. **Berria - Gaiak**

Abortu naturala **tiroide** hormonekin lotu dute AEBetako eta Portugalgo adituek. **Berria - Gaiak**

Tiroides glandulan duen oinazea sendatu ezinda dabil Janica Kostelic joan zen irailetik. **Berria - Kirola**

tiroideo *iz* tiroidekoa, tiroideari dagokiona. ik tiroide 3.

Gure gorputzak 150 mikrogramo inguru behar ditu egunero, tiroide guruinak hormona **tiroideoak** sor ditzan. **Berria - Gaiak**

tiroka 1 *adlag* tiro eginez.

Jo eta su **tiroka**. **Mirentxu Larrañaga**

- **Tiroka** ez zegok irtenbiderik -Gabinek. **Iñaki Iñurrieta**

Erasotzaileak egoitzaren barrura sartu ziren su armaz **tiroka** eta eskuko lehergailuak botaz. **Berria - Mundua**

Teruelen ibili zen **tiroka**, berebiziko hotza jasanez. **Juan Kruz Igerabide**

Martinek fusila kargatu zuen, eta, gorputza leihatilatik atereaz, **tiroka** hasi zen, zaldien pausoen hotsari jarraituz; segitzen ziotenak ere **tiroka** ari ziren, baina gaua beltz zegoen, eta ez Martinek ez esesleek ezin zuten tiroa zuzendu. **Koro Navarro**

Bere fusil zaharra zerura begira ipinita, hegazkinei **tiroka** hasi zen. **Juan Kruz Igerabide**

Hamar gizon kaputxadun pistolak gora, airera **tiroka**. **Itxaro Borda**

Harrandiko bunkerreko kanoitik **tiroka** hasi ziren. **Joseba Sarrionandia**

Metrailadore bat **tiroka** hasi da gure atzean, eta, hurrengo, fusil-hotsak etorri dira. **Mirentxu Larrañaga**

Ala hemendik irtegen garenean **tiroka** hartu behar al gaituzte gu ere? **Jon Maia**

Putasemeak ziztu bizian etorri ziren, airera **tiroka** eginez eta altoa emanez. **Jon Maia**

Gero, garrasi eta irainen artean, **tiroka** ekin zieten kubertatik bodegakoei. **Koldo Izagirre**

- **Tiroka** ari dira, Dutertre? **Josu Zabaleta**

Zauritu zuten egunean han aritu zela jaio zen auzunearen kontra **tiroka**. **Inazio Mujika Iraola**

-Kapitain jauna... **tiroka** ari zaizkigu... leku debekatuan gaude... **Josu Zabaleta**

Airera **tiroka** jarraitu zuten, gelditu gabe, muinoaren beste aldera jaisten ginen bitartean. **Juan Kruz Igerabide**

Tiroka eta gezi-jaurtika uxatu zuten Lapiteagako etxalde batetik. **Aingeru Epaltza**

Arbolatik arbolara aurrera **tiroka** elkarri babes emanez. **Inazio Mujika Iraola**

Tiroka josiko zaitut eta! **Joseba Sarrionandia**

Gaztategietako kobrezko galdarak aizkora-kolpeka apurtuz eta zerriak **tiroka** hilez. **Koldo Biguri**

Erabakita zeukan koldar hura **tiroka** garbitzea. **Anton Garikano**

-Ez dira gu hiruron kontra **tiroka** ausartuko. **Txillardegi**

- **Tiroka** desegin behar ote duzue, bada, dorretxea? -galdegin nion. **Joan Mari Irigoien**

Bazekien arrainak **tiroka** harrapatzen. **Koro Navarro**

Baina nola gutxitu untxiak **tiroka** ez bazen? **Anton Garikano**

970eko uztailaren 21ean, poliziak, **tiroka**, etxegintzan zebiltzan hiru mila langileren kontra jo zuen Granadan. **Rafa Egiguren**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagi gisa)

Larunbatean, arratsaldeko ordubiak inguru horretan, kanoi **tiroka** hasi ziren. **Josu Zabaleta**

Ibairean beste aldean ez-dakit-zer kontrabando eginez, eskopeta **tiroka** eta jende guztia nahasiz. **Pello Lizarralde**

Han egokitu baitzitzaion fusil-**tiroka** italiar Kontsulatua jende-aldra basakiro asaldatu baten aurka defendatu beharra. **Juan Garzia**

- Jaikitzen zenetik, zakurrak begiratzera joaten zen, gero zaldiak, gero txori-**tiroka** aritzen zen gaztelu inguruan. **Josu Zabaleta**

Orduan Guardia haiek eta presondegiko zaintzaile-buruak, hasi ziren erreboldez tiro-**tiroka**, presondegiko jendearen izutzeko. **Jokin Urain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airera tiroka (7); aurka tiroka (4); elkarri tiroka (4); hil zituzten tiroka (3); kontra tiroka (13); kontra tiroka hasi (3); poliziek tiroka (3); soldaduek tiroka (3)

tiroka ari (26); tiroka ari dira (5); tiroka aritu (6); tiroka aritzen (3); tiroka arizan (4); tiroka arizan dira (3); tiroka atera (4); tiroka ekin (7); tiroka ekin zioten (3); tiroka erantzun (5); tiroka hartu (4); tiroka hasi (65); tiroka hasi ziren (23); tiroka hasiko (9); tiroka hasten (4); tiroka hil (30); tiroka hil zuten (17); tiroka ibili (3); tiroka jardun (5); tiroka jardun zuten (3); tiroka jarraitu (6); tiroka jarraitu zuten (3); tiroka lehia (3); tiroka sartu (3)

tirokada (11 agerraldi, 1 liburua eta 9 artikulutan) 1 *iz* ipar tiroaldia. ik tiroketa.

83 ko agorrilaren 7 an, Landesetako Leon-go kanpalekuan, **tirokada** bat gertatzen da, jandarma eta IK-ko lau kideen artean. **Herria**

Tirokada bat hasten da, jandarma bat erortzen da, Filipe eta Lucienne eskapatzen dira. **Herria**

Gure biltegi madarikatuen gainean bonbardatzen ari diren hegazkinak entzuten ditugu, bai eta ere frango hurbiletik ari diren **tirokadak**. **Michel Oronoz**

Azkenean, **tirokada** batean hilen dute gaixtagina, baina hila da Marie. **Herria**

2 jaurtiketa.

Gauerditan su ziriaren **tirokada** besten bukatzeko, ondotik dantzaldiarekin. **Herria**

tirokagune iz tirokatzeko gunea.

Larunbat goizean, tiroka lehiaketa, herriko **tirokagunean**. **Herria**

tirokaldi (16 agerraldi, 3 liburu eta 7 artikulutan) iz tirokatze aldia. ik tiroketa; tiroaldi.

Tsahaleko militarrek aurre egin zieten gerrillari palestinarrei eta gertatutako **tirokaldi** hauetatik batean hil zen 19 urteko palestinar gazte bat. **Berria - Mundua**

Tirotaldiak bata bestearen ondotik entzuten dira eta mendiek tiroen oihartzuna errepikatzen dute. **Michel Oronoz**

Bagdaden bertan ere leherketa eta **tirotaldiak** izan ziren. **Berria - Mundua**

Nik orduan are sutsuago eutsi nion neure **tirotaldiari**. **Txillardegi**

Hori bakarrik ez: bart **tirotaldi** luzea entzun omen duk Arrameleko zubiaren aldetik, Tolosako sarreran. **Txillardegi**

Santakruztekin orduan, zubiaz bestaldetik **tirotaldi** latza hasi dik, eroturik hona eta hara ari ziren bidaiari gizajoen kontra. **Txillardegi**

Apirilaren 20an, gauaz, ez-usaiako **tirotaldi** bat entzuten dugu. **Michel Oronoz**

Tirotaldi eta leherketaz jositako gudukek hainbat orduz jarraitu zuten. **Berria - Mundua**

tirokari iz ipar tiratzailea.

Bai eta **tirokariari** berehala lotu, beste tirorik ez zezan eman. **Herria**

Kaxketadunak joan dira **tirokaria** behar zutela menperatu eta bildu ere dute jestu gutiz. **Herria**

tirotatu, tiroka(tu), tirokatzen 1 du ad tiro egin.

Garbi zeukan ez zuela sekula inor **tirotatuko**. **Harkaitz Cano**

Patxi? TKAK **tirotatua** Baionako ostatu batean. **Itxaro Borda**

Inaxi Zeberio hil egin dute bere gelan **tirotatuta**. **Pako Aristi**

Beste norbait eskapatzen bazen, bahiak **tirotatuko** zituzten. **Marzel Etxehandi**

Halakoa zen umeok **tirotatu** zituztenen ankerkeria. **Pako Aristi**

Vonque-ko oihan bazterretik ikusten ginuen jendea ihes egiten eta aleman hegazkinek, bihotzik gabe, apal-apaletik **tirotatzen** zituzten. **Michel Oronoz**

Ararteko baten bidez, Abetz-i galdegin nion zentinel aleman bat jo zuen frantses bat **tirotatu** ez zezan. **Marzel Etxehandi**

Metrailetarekin **tirotatu** itxura egin du Txatok. **Koldo Izagirre**

Ume bat ustez **tirotatu** zuen soldadu bat, aulkian. **Berria - Mundua**

Sekulan alemanek harrapatzen bazituzten, seko **tirotatzen** zituzten. **Eneko Bidegain**

Trean zihozazenei erifleak alokatzen zizkieten, denborapasa ederrean bertatik bufaloak **tirotatzeko**. **Patxi Zubizarreta**

Fabrika bati fuel-oil depositua **tirotatuz** su eman nahi zion anarkista bati aurre egitea. **Ramon Saizarbitoria**

2 irud/hed

Baina azkenaurreko puntuan ari zelarik, Bertso Asteko gai-jartzaileak hiru gai **tirotatu** zizkion. **Berria - Kultura**

3 jaurti.

Su artifizial bat **tirotatzen** dute Frantziako bestaren ohoretan. **Michel Oronoz**

4 (era burutua izenondo gisa)

Eta aditzen dut gizon **tirotatuaren** buruak zorua kolpatzen duela. **Anjel Lertxundi**

Bigarrenez fusilatua izan barik gelditu ziren pago **tirotatuak**. **Koldo Izagirre**

Tirotatuarengan jarria nuen nik arreta osoa. **Anjel Lertxundi**

tirotatzaile iz tirokatzen duen pertsona.

Erignac prefetaren **tirotatzailea**. **Berria - Mundua**

Poliziako **tirotatzaile** batek tiro egiten du, IK-ko autoaren gidari den Didier-ri buruz. **Herria**

Tirotatzaileak «oso ongi prestatuta» zeuden, Riparen ustez, mugitzen ari zen auto batetik jaurtiriko 20 tiroetatik 14k helmuga jo zutelako. **Berria - Euskal Herria**

Bi omen ziren **tirotatzaileak** eta batek huts egin ondoren bigarren laguntzaile batek egin omen zituen tiroak. **Harkaitz Cano**

Badakigu nor izan ziren **tirotatzaileak**: Morcillo eta López Ocaña direlako bi morroi. **Joxerra Garzia**

tirotatze iz tiro egitea.

Fenomeno honek baduela izen zientifiko bat, zeina den **tirotatze** kutsakorra. **Harkaitz Cano**

Beste **tirotatze** bat ere jasan dute Mossoul hirian hiru soldado amerikanok, eta bomba bat Faludjan. **Herria**

Amerikanoen **tirotatze** bortitzak ez ditu onartzen Sgrena andreak bainan akusatzen ditu. **Herria**

Denera 76 erreportari edo hedabideetako laguntzaile hil dituzte, erresistentziaren erasoetan zein okupatzaileek **tirotatuta**. **Berria - Gaiak**

Espainolak hor egin zuten harresi batean aterbetzen dira eta sekulako **tirotatzea** behar izan ginuen jasan. **Michel Oronoz**

Hain ziren nahasmenduak ugari, hala nola jende **tirotatze**, eliza eta komentu erretze eta horrelako abrekeria edo basakeria frango, [...]. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

tiroketa (311 agerraldi, 35 liburu eta 182 artikulutan) 1 iz tiro saioa. ik tirokada; tirokaldi.

Peruren etxe inguruan **tiroketa** izan zela esan zidaten eta bertara joan ginenean lurrean zeuden biak. **Jokin Urain**

Hiru **tiroketa** izan ziren azken hilabetean eta hiru aldiz desagertu ziren tirotatzaileak Triangeluan. **Harkaitz Cano**

Egun gogorra izan du gaur, bere koinatua hil egin baitute **tiroketa** baten, herrian bertan. **Jon Arretxe**

Handik beste bi urtera Arantxaren heriotzaren berria jaso baitzuen, guardia zibilarekin izandako **tiroketa** batean. **Joan Mari Irigoien**

Bestea suspertzen saiatu ziren **tiroketa** gertatu zen tokira joandako osasun zerbitzuetako kideak. **Berria - Euskal Herria**

Kurdistango Ovacic hiritik gertu jazo zen atzoko **tiroketa**. **Berria - Mundua**

Mugan ohikoak dira bi Israelgo Armadaren eta Hezbolaren arteko **tiroketak**. **Berria - Mundua**

Tiroteta hartan Arkaitz Otazua ETAko kidea hil zen eta bi ertzain zauritu ziren. **Berria - Euskal Herria**

Tirotetaren baten ondoren atxilotutako GALEko ekintzaileak eta antzekoak denak libre uzten zituzten epaileek. **Jokin Urain**

Azken astean dozena bat hildako egon da Diyarbakirren, Poliziaren **tiroketetan**. Berria - Mundua

Bartzelonako **tiroketan** Durruti babestu zuen auto beltz misteriotsuarekin. Harkaitz Cano

Bahiketako bitartekariak dio zibil armatuek hasi zutela **tiroketa**. Berria - Mundua

Aushevek adierazi du ekintzaileei **tiroketa** gelditzeko eskatu zizutela, baina haiek uko egin zutela, erasoaldi militarra hasitzat eman zutelako. Berria - Mundua

Tiroketa amaitu bezain laster, maletak arrapaladan egiteari ekin genion. Alberto Ladron Arana

Tiroketaren ondorioz, Francisco Aguas polizia hil zen. Berria - Kultura

Tiroketaren zaratak begiluze andana bildua zuen ezkaratzaren aurrean. Alberto Ladron Arana

Del Valle eta Müllerren taldeko gizonak lau aste eman zituzten auzo latindarreko etxebizitza ziztrin batean, **tiroketaren** oihartzunak baretu ziren arte. Alberto Ladron Arana

Gauaz **tiroketak** hurbiltzen dira. Michel Oronoz

Pistola baten tiroa eta metraileta baten **tiroketa** ez bereizteko bezain aguretuta ere ez nago! Koldo Biguri

2 (izenondoekin)

Tiroketa larria Parisko hirigunean. Alberto Ladron Arana

Jihad Islamikoa erakundeko ekintzaileak ziren, antza, eta **tiroketa** luze baten ondoren euren buruak entregatu zituztela jakinarazi zuten hainbat informazio iturrik. Berria - Mundua

Eskualde honetan zabaldua dauden soldadu poloniar eta bulgariarren artean **tiroketa** latzak izan ziren asteazken gauean. Berria - Mundua

Tiroketa sutua izan zen. Itxaro Borda

Formazio itxiek, eboluzio zehatzek eta **tiroketa** egonkorrek beren suntsipena ekartzen zuten. Iñaki Mendiguren

Tiroketa amaiezinez eta enbaxadetako buffet gogaikarriz jositako istorio txoroak. haiekin lortutakoa margul, hits, zurbil gelditzen zen **tiroketa** on baten aldean. Alberto Ladron Arana

Jaurtiketak hasieran ahul samarrak ziren, gero gogorragoak, azkenean **tiroketa** ia profesionalak. Joseba Sarrionandia

3 (hitz elkartuetan)

Maniguako palmondo baten bala arrastoak ageri direnean, insurrektoek **tiroketa** saioak dituztela esan gura dik. Koldo Izagirre

Tiroketa tokitik ihes egiteko ustez erabili zuten ibilgailu berdea ere ez omen dute oraindik aurkitu. Berria - Euskal Herria

Hiriburuko etxe azpiko eremuan, **tiroketa** entrenamendu galeria bat, armak, lehergailuak, granadak eta munizioa atzeman zituela esan zuen poliziak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gertatutako tiroketa (3); **izan zen tiroketa** (5); **izandako tiroketa** (9); **izandako tiroketa batean** (7); **tiroketa bat izan** (13); **tiroketa batean hil** (3); **tiroketa baten ondorioz** (5); **tiroketa gertatu zen** (9); **tiroketa gertatu zen** (3); **tiroketa hasi** (3); **tiroketa izan** (11); **tiroketa izan zen** (5); **tiroketa nafarroan** (4)

tiroketak hasi (4); **tiroketak izan ziren** (3)

izan zen tiroketan (3); **izandako tiroketan** (12); **poliziarekin izandako tiroketan** (3); **tiroketan hil** (4); **tiroketan hildako** (5)

tiroketaren ondorioz (9)

izandako tiroketetan (6); **ondorengo tiroketetan** (3)

tiroldar *izlag/iz* Tirolekoa, Tiroli dagokiona; Tiroldo herritarra.

Hauptbahnhofeko sarrera handian, hantxe zegoen berriz mamua txanotxo **tiroldarrarekin**. Fernando Rey

Banuen haurtzain bat, **tiroldarra**, Paula izena zuena. Josu Zabaleta

60ko hamarkadan atentatuak eduki genituen herrialdean eta hego **tiroldarrak** jazarri zituzten; ekintzaileak torturatu zituzten. Berria - Euskal Herria

tiroles *izlag/iz* Tiroldarra.

Lodenezko soingainekoko botoiak laxatuak, azpian atorra **tiroles** bat ikusten zitzaion, haritzhosto berdez eta ezkurrez bordatua. Fernando Rey

Ordurako galajantzia soinean zuen antezko eskularru eta kapelutxo **tiroles** eta guzti. Fernando Rey

-Prensakoa -esan nion txano eta gona **tirolesez** jantzitako neska bati. Koro Navarro

Bere bota **tirolesak** gettokiko buruaren sofaren gainean jarri zituen. Fernando Rey

Emakume **tiroles** hori, nik ikusten nuen bezala, ipurdiederra eta titiederra zen. Fernando Rey

tirolina *iz* garaiera desberdineko bi punturen artean ezartzen den kable batek eta bertan zintzilikatzen den polea batek osatzen duten sistema, bertatik jaisteko erabiltzen dena.

Antolakuntzaren arabera, bestelako arazoak izan ziren, baina «bigarren mailakoak» denak: adibidez, **tirolina** bat ez zen jarri eta kontzertuak luzatu ziren. Berria - Euskal Herria

Eta beste animazio guztiak: [...] planetarioa, Donostia-Miramongotik jina ("Zuberoa" gunean); eta oraino **tirolina**, beribil parkea, erakusketa... Herria

Lau guneetan kontzertuak iraganen dira; haurren xokoa, berriz, pailazoak, eskolarteko jokoak, **tirolina** eta abentura ibilbidea. Berria - Euskal Herria

Kaxko batetik airaturik, **tirolinari** esker zuten gazte atrebitu batzuk lakua airez zeharkatzen, jenden artean pausatu aintzin. Herria

tirope ik tiro¹.

tiropitxoi *iz* usakume tiroa.

Tiropitxoiko mutil beltzarana tiobikoko alabaren inguruan dabil jira eta bira. Joxerra Garzia

tirotar *izlag/iz* Feniziako Tirokoa, Tirori dagokiona; Tiroko biztanlea. iktiriar.

Lanerako harginak eta arotzak hartu zituzten; bai eta sidondarrak eta **tirotarrak** ere jan-edari eta olioaren truke, Libanotik Jafara itsasoz zedro-zura ekar zezaten. Elizen arteko biblia

Jerusalemen bizi ziren **tirotarrek** ere arraina eta beste era guztietako salgaiak ekarri eta larunbatean saltzen zizkioten Jerusalemgo eta Judako jendeari. Elizen arteko biblia

tirotegi *iz ipar* jaurtizkeko gunea.

Cap Canaveraldelako **tirotegi**an, amerikanoek bere Discovery espazioko eremallearen airatzea gibelatu zuten duela 2 aste meteo aro txarraren gatik.

Heria

tiroteo *iz tiro* saioa. ik **tiroketa**.

Tirotea izan den tokian geldituko zen noski. **Bernardo Atxaga**

Tirotean ni bakarrik atera naiz bizirik. **Bernardo Atxaga**

tirotxo *iz tiro* txikia.

-Etorri nahi, **tirotxo** batzuk jotzera? **Koldo Izagirre**

Joandako sasoiengatik **tirotxo** bat? **Urtzi Urrutikoeetxea**

tiroxka *iz tiro*txoa.

Vincent ere triste dago: aseba baitzen hemengo komediaz, **tiroxka** bat bota dio zangoari, sorterriratuaz izateko baina jukutria agerikoa zen eta bi hilabete gehiago egonen da hemen. **Piarres Aintziart**

tirreniar 1 *izlag* Italia, Korsika, Sardinia eta Siziliaren artean dagoen Mediterraneoeko zatiari dagokiona.

Erabateko triangela, eta haren alde bakoitzak itsaso desberdin batera ematen dik: **tirreniar** itsasoa; Afrikako itsasoa; eta, hor, gure aurrean, joniari itsasoa. **Jon Muñoz**

2 etruskoa.

Mundu heleniko handiagotu honetan, bere hedatze geografikoa feniziar eta **tirreniar** lehiakideen erresistentziak gerarazi ondoren, [...]. **Iñaki Mendiguren**

[Hititak] itsasoz bestaldean ezarri ziren lurraldeetan grekoz **tirreniarizat** eta latinez etruskotzat ezagutu zituztelarik lehiakide helenikoez. **Iñaki Mendiguren**

tirri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tirri eta tarra (3); **tirri tarra** (6)

tirria 1 *iz irrika*, nahi **bizia**. ik **grina**.

Beharrak, **tirriak**, zorteak, hots, biziaren ezin ezagutzeko misterioak, hemen ezarri nau eta, abiatuan abiatu, segitzen dut hasi bidea. **Piarres Aintziart**

Gorde-gordea neukan teatorako gutizia, **tirria**, de Monzon Jaunari esker, bat-batean iratzartu zen. **Berria - Kultura**

Pentsa daiteke berak hemen izanki eta [...] urruneko erostunen **tirria** pizten jakinen dutela. **Heria**

Epeldu egin da nire baitan gobernadore izateko nuen **tirria**. **Patxi Ezkiaga**

Hark ez zuen behin ere lanik egin etxalde batean, eta ez zuen **tirriarik** ere. **Elena Touyarou**

Iduri luke sos puxka baten irabazteko **tirriak** zernahitara eramanarazten duela gizona. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hobe huke etxaldea, landak bederen, lanean aritzeko **tirria** dutenei alokatzea. **Itxaro Borda**

Ez bata ez bertzeak ez du berehala etxeratzeko **tirriarik**. **Eneko Bidegain**

Beti aztoratu izan nau aintzira exotiko eta urrunetan igeri egiteko **tirriak**. **Xabier Olarra**

Bonbak edonon pausatu aitzineko gauetan, beti larrua jotzeko **tirria** nabaritzen zuen. **Itxaro Borda**

Haren bilo xerloen beren tokian emateko eskuaren luzatzeko **tirria** ukan zuen, baina bere **tirria** gainditu zuen. **Elena Touyarou**

Goimendietarako **tirria** gero-eta handiagoa dute euskaldunek. **Berria - Gaiak**

Nik ez neukan poesiarako **tirriarik**. **Javi Cillero**

2 ezinikusia.

Hasia nintzen ulertzen Autobiografiatuak, benetan, une zehazgabe batetik aurrera zer nolako **tirria** eduki zion Zamariari; hari buruzko inpresio txar orokorra ematen saiatzen zen, batere halabeharrezkoa ez zen plan ongi kalkulatuak bati jarraiki. **Jon Alonso**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egiteko tirria (3); **tirria handia** (4)

tirriagarri *izond* tirria sortzen duena, desiragarria, gutziagarria.

Hargatik John Biscayk zuzentzen zuen LAPDan sartuz geroztik, jendetzen ari zela egiazta zezakeen, nahiz eta maiz herioarekiko hurbiltasun **tirriagarriaren** zirrarak eskas sentitzen zituen. **Itxaro Borda**

Zeregin horretan, bikotea moldatzen zuen [...] polizia lanetan zebilen gizon misterioitsu bezain **tirriagarriarekin**. **Itxaro Borda**

tirriati *izond* grinatsua.

Benetako gurari **tirriatia** sortzen joan da bi hamarkadotan eguraldiaren jakin-min sargoriz. **Pello Zabala**

tirriatu, tirria(tu), tirriatzen 1 da/du *ad* irrikatu, grinatu.

11 000 behari **tirriatu** ditu ekitaldi horrek orotara, *Hip Hop* dantzaren alderateko joera emendatuz gainera. **Heria**

Itsas hegiko kirol salgaiak proposatzen ditu, beti ere 14/18 urteko nerabeak dituelarik **tirriatu** nahi bere salgaietara buruz. **Heria**

Lo-gutizia izugarriak sareetara **tirriatzen** zuela zirudien eta, buru astuna papora ezkelduz, tu malgua ezipainetarik isurtzen zitzaiola, zurrunga larriak erosten zuen amatxi.

Itxaro Borda

Zenbat enpresetan ere egun horiek ongi markatuak dira urruneko bezeroen **tirriatze**ko alde hauetara. **Heria**

Laugarrenekorik erratan da, **tirriatzean** eta erresumintzean banatzen den sentsualitate berak obeditzen diola arrazoimenari. **Piarres Xarriton**

Oihuek **tirriaturik** presaka lehiatzen zen Cassieren aldia izan zen gero. **Itxaro Borda**

tirriki-tarraka 1 *adlag* poliki eta nekez ibiltzearen onomatopeia.

-Hau aspergarria da -kexatu zen Dudley, eta **tirriki-tarraka** hankak arrastaka alde egin zuen handik. **Iñaki Mendiguren**

Makulua eskuinean, periodikua ezkerreko beso hilak galtzarbean estutua, agureak **tirriki-tarraka** egin du aurrera, oinazearen eskailera aurpegian islatua. **Pello Lizarraide**

Tirriki-tarraka aurrera zihoan bitartean oharitu zen gerrikoak sabel puztua estutzen ziola. **Lopez de Arana**

Kanpoan **tirriki-tarraka** entzundako hanka-hotsak Filch bazetorrela adierazi zion. **Iñaki Mendiguren**

Bera, ordea, marmarka joan zen, bere makilarekin **tirriki-tarraka**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 irud/hed

Eta egia esatera, atseginago gertatu zait tren honen **tirriki-tarraka** urduria TGV berriaren abiada sendoa baino. **Patxi Zubizarreta**

Auto gorri eder batek geldialdia egin zuen gasolindegian, gasolindegi gorri eder batean hain zuzen ere, **tirriki-tarraka**, depositua huts-hutsik zekarrela, erregai gosez.

Karlos Linazasoro

Ez zuen jakin nahi izan esaldiaren iradokizunaren norainokoa, telefonista baretzeko esaldi lasaigarria bota, **tirriki-tarraka**, eta eskegi egin zuen. **Jon Alonso**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tirriki tarraka (20)

tirrin¹ 1 *iz* txirrinaren hotsa.

Halako batean, bere lezio "metodiko harrigarrian" ari zela, erlojuak **tirrina** hasten zuen bezain pronto, lasterka joan eta itzali egiten zuen. **Patziku Perurena**

2 ik txirrin.

tirrin² *iz* kaka arin eta urtsua.

Denborarekin, denboraren kaka-lanarekin, zer egin hoberik ez eta, probatze aldera, kaka probatzen hasten da bat: mokordo lodiak eta meheak, tamainako usaindunak eta kirasdunak, **tirrinak**, xirinak, gorotzak eta denak. **Iñaki Seguro**

tirrinta¹ *iz* txirrinaren hotsa. ik tirrin¹.

Nola zen oraino Azkainen besta, diote loak bentzuturik ez dutela entzun ordulariaren **tirrinta**, lasterkari kementsuek! **Herria**

Telefonoaren **tirrintak** Kattalin bapatean inarosten du. **Eneko Bidegain**

Hamargarren **tirrintan** edo, aitak azkenean hartu zuen. **Daniel Landart**

Kattalinekin atea irekitzen du, **tirrintarik** jo gabe, ttipi ttipitik hartua zuen usaiari jarraikiz. **Eneko Bidegain**

tirrinta² *iz* beherakoa.

Pastilla batzuk eman eta berehala gelditu zitzaidan **tirrinta**. **Gotzon Garate**

tirrintaka *iz* tirrinta jotzen.

Telefonoa pausatu orduko, berriz **tirrintaka** hasi zen. **Daniel Landart**

Telefonoa **tirrintaka**. **Daniel Landart**

tirrit 1 erabateko ukazioa eta adostasunik eza adierazteko hitza.

Tirrit, ori! **Daniel Landart**

Hara non hamalau historialarik edo adituak muntatu lan taldeak zorigaitoari **tirrit** egin dien eta lana bururatu duten. **Berria - Harian**

2 *izord* ezer ere ez.

Niri herriko etxeko idazkari ohiak eman zidan, baina atxilotu dute, eta haren izenpedura duenez gain, ez du **tirrit** balio. **Elena Touyarou**

Erosteko asmoarekin etorria zen bai, baina azkenean **tirrit**. **Berria - Harian**

Urrezko medailak behar zituzten eta gero... **tirrit!** **Herria**

Baina, egiazki gose izanez, izpirituaren tirriak laster **tirrit**, beste aldi batez joanen naiz hitz horien ikustera. **Piarres Aintziart**

Baina **tirrit!** **Itxaro Borda**

3 *tirrit eta tarrat*

Arraro zerbait ikusi behar ginuela gobernua kanbiatzearekin, **tirrit eta tarrat!**, ez da deus holakorik gertatu! **Herria**

tirritari *iz*

Tirritariak zirri-zirri eta kitzirrika ari. **Aurelia Arkotxa**

tirtiriku 1 *izond*

Espainola arraza **tirtiriku**, egonarrigabe, indiziplinatu bat da, ezgauza ezer ganorazkorik eta iraunkorrik jasotzeko, ez zientzian, ez artean, ez biziera politikoan. **Joxe Azurmendi**

• 2 *iz*

Alde batzuk suelto, aurrerratuago, beti puntaren puntan eta bere kasa ibili nahi duten **tirtiriku** urduriak; eta beste hainbat atzeratuta, besteen martxari jarraitu ezinda, edo txangoaz baino bide bazterreko loreez axolatuago. **Xabier Mendiguren Elizegi**

tirtitiritu, tirtiri, tirtiritzen da *ad*

Baina galdu-ustek edo, hobeki esanda, galminak bizimindu egiten gaitu, eta biziarazten, urduritzen, **tirtiritzen**, xaxpikitzen, ezinegon gozo batez janzen, aseterik izan ez dezakeen gose-egarri batekin adiskidetzen..., eta hori ez da komeni nonbait, eta horixe da dena. **Iñaki Seguro**

tisana *iz* sendabelarrez eginiko egoskina.

Handik oren erdi batera, itzultzaile batekin heldu zait jakinaraztera, puxka bat goxatzeko, sukarraren kontrako **tisana** biziki ona eginarazi didala, "4 loretako **tisana**".

Marzel Etxehandi

Tisana edan zuen pentsatuz barnea askatuko ziola. **Eneko Bidegain**

Tisana edan nuen azken xortaraino, grimas batekin azkenean, karatsa baitzen, sukerrerik gabea. **Marzel Etxehandi**

Egun guztian **tisana** berezi bat baino ez zuten edaten. **Jose Angel Irigaray**

-Zure **tisana** hauek miresgarriak dira, Mentxu. **Josu Landa**

tisanatxo *iz* adkor tisana.

Ur gehixeago edatea ez dator batera gaizki, sendabelarren baten laguntzarekin hobe, sanjuanbelar edo millorri xorta bat, edo santiobelar puxkatxo baten **tisanatxo** prestatuz. **Pello Zabala**

tiserta ik tixerta.

tisi *(orobat tisis g.er.)* 1 *iz* hetika, tuberkulosia.

Masturbazioari buruz, direnak eta ez direnak esaten zuten; [...], hil zintezkeela, bizkarrezur muina biguntzen zela, edo **tisia** edo eskrofula sortzen zela. **Luis Elberdin**

Jakina ez zela inor arrimatu haren etxera, **tisia** harrapatzeko beldur hutsez. **Juan Garzia**

Katarroa, eztula, pleuritis, **tisisa**, odol-botatzea eta beste zenbait. **Santiago Iruretagoiena**

Eta bai, ama **tisiak** jota hil zuan. **Juan Garzia**

Bi idazluma, tintaz zikinduak, zimel-zimel, **tisiak** jotako gaixoaren antzera. **Jose Morales**

Beti pentsatu izan dut aitonaren arropa eta koltxoia erretzea, eta, bide batez, Putierre delako haren ipurdia, **tisiaren** kontrako exorzismo modu bat zela. **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan)

Tisi -kasu batzuk kenduta, ezer ez. **Anjel Lertxundi**

tisiko *izond/iz* hetikaduna.

Tisikoa zen aitona. **Anjel Lertxundi**

Azala masail hezurretan atesatua, **tisiko** baten gisan. **Josu Zabaleta**

Beldurra eragiten ziena baino ez zuten errespetatzen: burdinaren zorrotza, zoroaren behakoa, **tisikoaren** tua. **Koldo Izagirre**

Lehenago ikusi dugunez, mardulak ziren denak, **tisikorik** ez zegoen haien artean. **Jose Morales**

tisis ik tisi.

tita *(orobat titi)* *iz* orban txikia, tantoa.

Orain, lurrak dena ur, etxe eta etxola zenbaitek **tita** itsusiak eginez tarteka. **Piarres Aintziart**

P.U.C., Parisko ikasleen taldearen kontra ari ziren "Banlieusards" delakoak, bere dama-joko urdin-xuri **titak** jantzieta. **Piarres Aintziart**

Zeru beltz mugagabea, milaka izarren **titi** zuriekin zikinduta. **Berria - Kultura**

titadine *(orobat Titadyne eta titadyne)* *iz* dinamita konprimitu mota.

Ertzaintzak jakitera eman zuenez, indargabetutako lehegailua bi kilo kloratitaz zegoen osatua, eta **titadinez** indartua. **Berria - Euskal Herria**

Drogak, ordea, ez dira berez gai kimiko bat besterik, nola ere baita **titadinea**. **Juan Kruz Igerabide**

Lehegaia **titadine** izan zela aipatu zuena nor izan zen jakin dugu. **Berria - Harian**

Kloratita motako kilo bat inguru lehegai zuela eta **titadine** motakoaz indarturik zegoela adierazi zuen. **Berria - Euskal Herria**

Bertan, 500 kilo **titadine**, 250 kilo klorata, 70 granada, pistolak, detonagailuak, fusilak eta dirua atzeman zituztela zabaldu zuen Poliziak. **Berria - Euskal Herria**

Polizi arduradun batek lehegaia **titadyne** zela esan zion goizean Ignacio Astarloari, eta hala zabaldu zuen Barne Ministerioak agentzia bidez, baina arratsaldean argitu zuten Goma 2 Eco zela. **Berria - Harian**

Lehegailua **titadyne** markako dinamita ez zela martxoaren 11n bertan jakin zuten. **Berria - Harian**

titadun *izlag* titak dituena.

Lau pirripitalari eskapatzen dira, gelditzen dira biga Alpetan sartzean eta gero bat bakarrik, Richard Virenque etapa bereganatzen duela, **titadun** jauntzia eta jauntzi horia ere.

Herria

titadyne ik titadine.

titakatu *izond* titaz betea.

Suge erraldoi larru-**titakatu** ikaragarri bat bereziki. **Daniel Landart**

titan *iz* gizon erraldoi eta guztiz indartsua.

Eta hura **titan** baten lanaren fruitua zuan. **Joan Mari Irigoien**

Gea -Lurra, gure planeta-, Tartaro -Jainkoei eta **titanei** merezi zuten zigorra emateko infernu berezia, bertan zeudenak maiz zigortzen eta torturatzen zituzten ziega ilun eta

beldurgarria-, Eros -maitasuna-

J.M. Olaizola "Txiliku"

Haien buruzagia ez zuten gudari gazteek bota, ez **titanek** zauritu, ez erraldoiek garaitu, baizik eta Juditek, Merariren alabak, zuen menperatu bere arpegi ederraz. **Elizen** arteko biblia

titaniko *izond* titanena, titanei dagokiena.

Artelan heroikoa zen bi eskultoreena, erlijio sentimenduz bete, Europar abangoardien grina **titanikoaz** egina. **Joseba Zulaika**

Geriatrarena ez zen galdera, nire zahartzaroa atzeratzeko ahalegin ia **titanikoan** ari den profesional arduratsu baten kezka baizik. **Anjel Lertxundi**

Seme-alabak letretan zaletzeko egin behar dituen ahalegin zail ia **titanikoak** Arrasateko giro itxian. **Anjel Lertxundi**

Aita maite nuen, kontatu zidana beldurgarria zen, eta nire bizitza bide onetik eramateko hartu zituen lanak **titanikoak** bezain miresgarriak iruditu zitzaizkidan. **Iban Zaldúa**

Ramon Barearen moldaketa **titanikoak** eleberriko pasarte ugari kendu, antzerki egitura eman eta erritimo bizi-bizia sortu du. **Berria - Kultura**

titanio 1 *iz* gai bakuna, metal zuri zilarkara, arina eta zaila, metal aleazioetan erabiltzen dena (Ti; at. z. 22).

Hala, Guggenheim museoa **titanioaren** distiren efektua leuntze aldera, beira pabesa aukeratu du liburutegia eregiteko material gisa. **Berria - Kultura**

Karbonozkoaren moldeak oso konplexuak ziren eta **titanioarekin** batera nahastea ez zen erraza. **Berria - Kirola**

Abiadura kaxa **titaniozkoa** da guztiz, iazko karbono-**titanio** nahasketa albo batera utzi ondoren. **Berria - Kirola**

Ongi ikusten dira kopeta-hezurra atzera berriz lotzeko erabilitako **titaniozko** grapak ere. **Imanol Zurutuza**

Titaniozko ezkatek, ibaian eta inguruko teilatuen gainean amaituko dute. **Hasier Etxeberria**

Guggenheimen **titaniozkoak** ezin hobeto erakusten du ziutatearen eta errekaeren arteko batasun hori. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Interesen %20 deskontatuko ditu BBK-k, **titaniozko** txartela erabilia. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan)

Titanio oxidozko estaldurak hobeak direla diote adituek, porlanak baino eremu handiagoa hartzen dutelako. **Berria - Gaiak**

titanizatu, tiraniza, titanizatzen du *ad* titanio bihurtu.

Bilbo **titanizatuta** dago goitik behera, tiranizatuta. **Lutxo Egia**

titare (*orobat ditare g.er.eta ditari g.er.*) 1 *iz* jostean, orratza bultzatzen duen hatzean ezartzen den estalki babesgarria.

Jostundegi guztia hankaz gora jarri zutela jakin nuen, eta alde egin zutenean denetarik zegoela lurrean barreiatuta, soinekoak eta oihai pusketak, botoiak eta **titareak**.

Bernardo Atxaga

Gogo barik, Peter **titarea** atzamarretik kentzen hasi zen. **Julen Gabiria**

Amonari atzamar puntan zuen **titarea** lasai bazebilkion eta tarteka erori ere bai, airea lehor zegoenaren seinale. **Pello Zabala**

Gaztetxo hark zilarrezko **titareak** zituen estimu handitan. **Karlos Zabala**

Bizitza osoa altxor baten bila ibili eta gero, "Auza, han baduk gauza" hitz magikoak esan, eta zilarrezko **titare** txiki-txiki bat aurkitu zuen behin. **Anjel Lertxundi**

Peterren sentimenduak ez mintzearren, Wendy **titare** bat eman zion. **Julen Gabiria**

Goxotasun maitagarritz, kasualitatez poltsikoan zeukan **titare** bat eman zion, eta esan zion horixe zela muxu bat. **Julen Gabiria**

Haien lastozko etxe, oholetan zentzuz zabalduak eguzki aldera irekirik zituzten beren ate **titare** baten tamainakoak. **Josu Zabaleta**

Geure buruen txontxongillo ta / sarri besteren titere, / ustez antuxun ginanak ere, / bihurtzen gara **titare**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

2 irud/hed

Nire liburua soineko bat da, egunerokotasunaren absurdian ehundua, ironia sotilaren urrezko hariz josia, eta jolasa du **titare**, injenioa anteojo, tragedia gerriko, eta ezustea andere lirainaren gorputz... **Karlos Linazasoro**

Ni orain nagoen **titare** honetan luze egondako jendeak tratamendu psikiatrikoa behar izaten du gero. **Koldo Izagirre**

titaretu, titare(tu), titaretzen du *ad*

Orduan, Peterrek Wendy **titaretu** zuen, eta neskatoak oihu egin zuen. **Julen Gabiria**

titatu, tita, titatzen du *ad* titaz ziliportatu. ik tantotu.

Bide zabal bat orain, bat-batean eta arras patartsua harri lauza alimale batzuk han hemenka **titatzen** dute bidea. **Piarres Aintziart**

titere 1 *iz* txotxongiloa.

Zazpi **titere** zituen eta kapaza zenaldi berean lau erabiltzeko. **Unai Elorriaga**

Geure buruen txontxongillo ta / sarri besteren **titere**, / ustez antuxun ginanak ere, / bihurtzen gara titare. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

2 (hitz elkartuetan)

Goiz hartan, esaterako, **titere**-teatroa egiten ahalegintzen zen gizon bat ikusi zuen Marcosek katedralaren ondoko iturrian. **Unai Elorriaga**

Baita «publiko berria erakartzeko», umeei zuzendu debaldeko **titere** antzezlanak ere. **Berria - Kultura**

Zazpi **titere** zituen eta kapaza zenaldi berean lau erabiltzeko. **Unai Elorriaga**

Trenak **titere** usaina zeukan. **Unai Elorriaga**

titi¹ (*orobat diti g.er.*) 1 *iz* emakumearen ugatzetako bakoitza. ik bular.

Ez **titi** ez ipurdi ez duten marimutil horietako batekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Aldizkarietakoak **titiak** barik errapeak dira, eta horiek bai egoten direla silikonaz beterik. **Jon Arretxe**

Titia umearen ezpainetan tinkatzen den bezala. **Karlos Zabala**

Titia, eskubarruan kabitzen dena, txikia. **Juan Martin Elexpuru**

Halako batean, gorputza apur bat zutitu eta **titiak** agerian geratu ziren, zeharka. **Lander Garro**

Haurtxo batek **titia** edoskitzen duenean bezala. **Ibon Uribarri**

Amonak Santuaren esana bete zuen, eta bat-batean laurogei urteik gorako **titiak** esnea oparo eman zuten. **Eduardo Matauko**

Behin batean, koka esnifutzen ari gizona, Rodolfo **titi** bat txupatzen uzteko eskatu zidan. **Karlos Zabala**

Titiak erabiltzen zizkidan esku artean eta hitz lizunak esaten zizkidan. **Karlos Zabala**

Andre bat larri bizitan, gizon bat **titiak** igurzten eta beste norbait alua jaten ari zaizkiola. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Juxtu-juxtu uzten dit **titiak** laztantzen. **Jon Arretxe**

Nik **titiak** ferekatu nizkion, titiburuak musukatu. **Juan Martin Elexpuru**

Larruzko gona gorria, sare moduko mediak, **titiak** ozta-ozta gordetzen dizkion top beltza. **Sonia Gonzalez**

Harrigarria ongi plantatutako **titi** pare batek eragin ditzakeen mirariak! **Aingeru Epaltza**

Eskua atorraren azpira sartu eta **titi** bat behar bezala jarri zuen bularretakoan. **Fernando Rey**

Izterditan blai zaude eta jertse urdina **titietan** itsatsirik igartzen duzu. **Sonia Gonzalez**

Txikia **titian** zintzilik, eta zaharrena ezkontzekotan. **Arantxa Iturbe**

Ama gaixoa, esnea nonbaiteik atera behar eta, arrebaren **tititari** atera zioten. **Jon Maia**

Titietaraino naukak hire alukeriek. **Patxi Iturritegi**

Asper-asper eginda nengoen Londresekin eta bertako mugida teknoarekin; **titietaraino**, garbi esateko. **Patxi Iturritegi**

Nik sekula ez dut problemarik izan, baina Genobebarekin, hura **titiko** mina, hura! **Patxi Zubizarreta**

ik titiko.

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hermanek **titi** handiak gustatzen zitzaizkiola esan zuen. **Anjel Lertxundi**

Ikusi zelako **titi** ederrak dituen, zelako sabel laua, zelako ipurdi gozoak. ik titieder. **Juan Martin Elexpuru**

Harro agertu ziren bularrak, bi **titi** sendo, gordelekutik irteko grinatsu. **Migel Angel Mintegi**

Begi berdeak, **titi** eta izter neurri-neurrikoak. **Karlos Zabala**

Gero, **titi** zuri puntta-gorrail haiek besarkatu eta pixka bat milikatu nituelarik, [...]. **Daniel Landart**

Sostenak nola edo hala kenduz **titi** mardulak igurtzi eta igurtzi ari da. **Pako Aristi**

Zerbitzariaren begiak, beren onetara gabe, saltoka ari ziren, noiz Anaren **titi** oparoetara noiz xilko beltzarandura. **Aingeru Epaltza**

Mugitzerakoan, bere **titi** txiki alaiak erdizka erakusten zituen noizean behin, xarma handiz. **Karlos Zabala**

Titi zahar eroriak ditu azpitik zintzilik. **Oskar Arana**

Orduan eta erakargarriago ikusten nuen Itsaso, bere ile luze, sabel zapal eta **titi** borobil txikiekin. **Aitor Arana**

Nik atsegin dudak guztia duzu: **titi** txikiak eta ipurdi gogorra. **Juan Martin Elexpuru**

Niniaren ahoa esnez hantu **titi** ubeletan pausatzen zuen amultsuki. **Itxaro Borda**

Bularretakoa ere kendu zuen, **titi** biribil, tente, perfektu batzuek libre utziz. **Juan Martin Elexpuru**

Neskatala freskoak, izter, ipurmazel eta **titi** oparokoak. **Jon Alonso**

-Bi **titi** ozeaniko. **Iñaki Iñurrieta**

-Kezka izan zituen zelulitisa eta **titi** nahi baino eroriagoak. **Aingeru Epaltza**

Elenaren **titi** lehen mardulak beheratu egin dira, koxkor ikarati bihurtzeraino. **Eider Rodriguez**

Gizena, **titi** aukeran handi samarrez hornitua, industrialderen batek jandako baserri ohi bateko alaba baten itxura bete-betea zeukan. **Iban Zaldúa**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sagarak eta udareak metatzen ziren, arkitektura erregularrez, piramideak eratuz, eta **titi** errekarren hasierako gorritasunak erakusten zituzten. **Karlos Zabala**

Gérard ere segundu horretaz baliatu da **titi** artekara so labur baten emateko. **Eneko Bidegain**

Higuina, mina **titi**-erroetan. **Aritz Gorrotxategi**

Uzten al dik **titi** kozkorrak ukitzen, e? **Juan Kruz Igerabide**

Niri gustatzen zaidan gauza bakarra zure **titi** puskak dira. **Karlos Linazasoro**

Ez zaio ahaztu kontzertua aurrera eramaten, **titi**-kolpez eta sexu probokazioen bitartez bada ere. **Patxi Iturritegi**

Ume maiak, eta berauen amak, beren alkandora zuriekin, **titi**-haur bana altzoan garraio. **Joxe Austin Arrieta**

Zu eta ni haur jaioberri eta, gehienez ere, **titi**-ume izan ginen euskaldun baino lehen. ik titikume. **Iñaki Segurola**

Hitzek inon ikasi gabeko jakite bat dakarte berekin, ezjakinak edo jakinezak gozatutako jakite bat, eta hartatik dira pentsamenduaren ama eta ume, arrazoiaren inude eta **titi-ume**. **Iñaki Segurola**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Ze ondo pasatuko duzun nirekin, **titi**-tente xixtrin honekin baino hobeto, Mikel. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jennifer **titi**-harroaren posterra. **Patxi Iturritegi**

5 gizonetzkoaren titi modukoa. ik tititxo.

Itsasoan eurria, egurra basoan, egunez ilargia eta gizonetzkoen **titiak** aipatzen dira euskal esaera zaharretan alferrikako gauzen adibide eta eredutzat. **Joxerra Garzia**

6 (gainerako ugaztunena)

Zerrama, bestaldera jiratuz, makilari hurbildu zitzaion, eta **titietatik** zintzilik zeuzkan zerrikumeak, bat-bateko ilunpe hartan galduta eta kurrinkaz, borrokan hasi ziren amaren toles eta poltsen azpian. **Koro Navarro**

Hamabi **titi**-xerri txiki bigun. **Patxi Ezkiaga**

7 irud/hed

Beira lodiko botila txiki gomazko **titi** zahar marroldun haiek gordetzea. **Joxan Elozegi**

8 titiko esnea.

Basa txakurrek ere ematen diete beren umei **titia** edatera. **Elizen arteko biblia**

9 titia eman

Erditze baten irudia ikusiko genuen [...] ama hori haurrari **titia ematen** gero-. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Aterpeetan eta etxeen eskailera ilunetan pasatzen zuten gaua, umei **titia ematen**. **Joseba Sarrionandia**

Titia emanik hazi bainuen neure alaba. **Joxan Elozegi**

Hiru amek **ematen** diete **titia** bostoi, bereak ez dituztenei ere bai. **Gotzon Garate**

Eme bat iristen denean aurrena topatzen duen umeari **ematen** dio **titia**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lau amatik batek **ematen** dio **titia** haurrari, bizitzako lehen sei hilabeteetan. **Berria - Gaiak**

-Zorionekoak agorrak, haurrik sortu ez duten sabelak eta **titirik eman** ez duten bularrak. **Elizen arteko biblia**

10 titia hartu

Umeek senaz bi lan dituzte: **titia hartu** eta lo egin. **Gotzon Garate**

Titiburuak eskuez inguratu eta **titia hartzen** hasten zen begiak itxita eta intziri txikiak eginez. **Karlos Zabala**

-Ukuiuluko lau bazterretatik datozen marruek **titia hartzeko** ordua iragarri dute. **Itziar Otegi**

11 titia kendu

Geldi zaitetz haurrari **titia kendu** arte. Elizen arteko biblia

Titia kendu berri dioten txekor bat sokaz harrapatzen ari den Mendebaldeko unai batek. Jon Alonso

12 *titi-aldi* titia emateko aldia.

Nerea eta biok nobelaren azken partea gaueko **titi**-aldien arteko ordu eskasetan amaitu nuen. Ana Urkiza

13 *titi jorran adlag adkor* titiak ukitzen eta igurzten.

Ahal genuena eginez, ipurdi-heltzen, **titi**-jorran eta musuka, han errenditzen gintuan. Pako Aristi

Ez baitakizue zertarako balio dezaketen [akademiak], **titi** jorran ibiltzea, barkatu hain gordin ibiltzea, askoz ere atseginago gerta daitekeen adin horretan. Pello Salaburu

14 *titi mutur* ik **titimutur**.

15 *titi punta* ik **titipunta**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

titi ederrak (6); **titi handi** (5); **titi handiak** (3); **titi pare** (8); **titi parea** (6); **titi puntak** (7); **titi txiki** (3); **titi txikiak** (3); **titi zuri** (3); **ze titi parea** (3); **zure titi** (5)
amaren titia (3); **haurrari titia** (5); **titia ematea** (4); **titia ematen** (9); **titia hartzen** (3); **umeei titia** (3)
gizonezkoen titiak (4); **nire titiak** (8); **titiak erakutsi** (4); **titiak igurzten** (4); **titiak ukitu** (3); **titiak ukitzen** (3); **zelako titiak** (3)

titi² ik **tita**.

titalde *iz* titien aldea.

Titaldeko kremallera aldiro maila bat jaitziz. Karlos Linazasoro

titiaundi ik **titihandi**.

titibiliti *iz*

Kale Nagusian plastiko beltzaren beste aldean zeudenen irain eta txistuak entzun behar izan zituzten, eta txistuen **titibilitia** eta danbor hotsak 'kanpora, putakumeak, urdangak, betiko alardea' eta horrelako irainek eta sirena hotsek ordezkatu zituzten. Berria - Harian

titiburu (*98 agerraldi, 27 liburua eta 3 artikulutan: orobat titi-buru 6 agerraldi, 5 liburua eta artikulua 1ean, eta ditiburu 2 agerraldi 2 liburutan*) 1 iz bularraren burua, botoi itxurakoa, edoskitzean umeak ahoan sartzen duena. **iktitimutur; titipunta**.

Botoien gisako **titiburu** arrosak koroa ia ikustezin banarekin. Juan Martin Elexpuru

Egutxik ez zituen gustuko **titiburu** harro, zabal eta ilunak. Ibon Urbarri

Izaren igurtzia sentitu nuen **titiburuetan**. Juan Martin Elexpuru

Haurrak berehala ikasten du amaren bularrarekin jolas egiten, eta batez ere **titiburuarekin**. Luis Elberdin

Eskuineko bi hatzekin ezkerreko **titiburu**a bildu eta haurrak ahoa zabaldu zuen. Anton Garikano

Hura hiltzeko erabaki serioa, kamisoiaren behealdea gerrira jaso, neure gainean hankalatraba jarri eta, atsegin izateko intentzio nabarmenegiaz, **titiburuak** atximurkatu zizkidan egunean hartu nuen. Markos Zapiain

Titiak muxukatu zizkion telepatiaz, **titiburuak** gogortu arte. Unai Iturriaga

Bular guriak nabari zaizkio, ez handiak ere, baina bai ongi biribilduak, dardara zaluxkoak, eta **titiburuko** mahats aleak gotor kamisetapean, bizirik baleuden. Pako Aristi

Bera izan zen Danielaren bularrak ukitu zituen lehen mutila, bere **titiburuak** miazkatu zituen. Jasone Osoro

Nire bularretan ibili da biribil txikiak eginez, zehatz milikatuz, jakinduriatz putz eginez, erantzun dute nire **titiburuak** eta harro jaiki dira. Juan Martin Elexpuru

Neskatoaren bular oparoei begiratu zien, **titiburu** ederki puztuak eta ilunak zituen. Ibon Urbarri

Nire **titiburuak** tentetzen eta nire alua hain maitea dudan eran pilpiraka sentitu nituen. Juan Martin Elexpuru

2 (gainerako ugaztunena)

Bagoiko ate erdi irekitik behatzak eskaintzen nizkien une batez behin behin errapeko **titiburuena** egin zezaten. Fernando Rey

3 irud/hed

Euria kalean behera zihoan, distiratsu eta txistukari, egunkari-orriak inarrosiz, zilarrezko **titiburutan** jauzika asfaltoaren gainean, leihoak marratuz, tranbien eta taxien pinturari distira emanez. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nire titiburuak (4); **titiburuak ferekatzen** (3)

titi buruak (4)

titiburugabetu, bulargabe(tu), bulargabetzen du *ad*

Aita Zaindarek, deskubritzen zutenean haietako bat utzi nuela kalabozoan, **titiburugabeturik**, ez nindutela goxo hartuko. Jon Alonso

titidun *izond* titiak dituena.

Atelier guztietako takilla guztietako egutegi guztietako **titiduna** naiz, itsaso guztietako bafore guztietako kamarote guztietako amabirjina linburra naiz. Koldo Izagirre

Besaulki dotorera igo zuten Ana Morena, lau **titidun** baina hala ere itiririna, eta irribarre nekatu bat egin zion kamerari. Karlos Linazasoro

titieder *izond* titi ederrak dituena.

Emakume tiroles hori, nik ikusten nuen bezala, ipurdiederra eta **titiederra** zen. Fernando Rey

Ederrago gerritik beheiti zirenei "ipurdieder" deitzen zien, konparazio batera kondesa andreari; gerritik goiti aurrealde ederra zutenei, berriz, **"titieder"**! Fernando Rey

titihandi *(orobat titi-handi eta titi-haundi g.er.) 1 izond titi handiak dituena.*

Hor ari da, horren gorrotagarria egiten zaion aurkezle **titihandi** betipoz hori. Jokin Muñoz

Eneko sartu zen gelan, erizain ilehori eder eta **titihandi** hura ikusteko irrikan. Jon Arretxe

Okindegiko emazte ilehori **titihandiaren** aurretik pasatu behar da. Urtzi Urrutikoetxea

-Eta hiri, puta zahar **titi-handi** horri, aurretik eta atzetik sartuko dinat. Juan Kruz Igerabide

Ea kabroia jabetzen den behingoan marikoia dena eta libre uzten duen **titihandia**. Urtzi Urrutikoetxea

Emakume baserritarrak, **titi-handiak** eta gorpuzkera lodikoak gehienak. Felipe Juaristi

2 (izen gisa)

Pixkanaka, **titihandi** nazkagarri hura neure lekuaz jabetzen hasi zen toki guztietan. Jon Arretxe

titiko 1 *izlag* titia hartzen duena.

Esan dizudan bezala, **titiko** haurra nintzela, gupidaren esnea edoski nuen. Patxi Zubizarreta

Hamarren bat lagun, aitona erdi itsuak, **titiko** umeak, emakume haurdunak, denak batera bizi dira gela estu batean. Felipe Juaristi

Titiko umea izango nintzen ni orduan. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izen gisa)

Bi anaiak gelditu ziren, beraz, **titikoak** zirela umezurtz, umezurtzak ibaiak eta errekaak baino ugariagoak ziren lurraldean. Felipe Juaristi

titikume *izond adkor* titi-umea, titi-haurra.

-Entzun, hi, **titikume** hori! -esan zuen orduan Braidako beste batek. Josu Zabaleta

titimotz *izond* titiak motzak dituena.

-**Titimotz** horrekin gustatua hago! Koldo Izagirre

titimutur *(17 agerraldi, 7 liburutan; orobat titi mutur 5 agerraldi, 4 liburutan) 1 iz* titiburua.

Jertse estuan nabarmentzen ziren **titimutur** ederrek sutan jarrita nindukaten. Migel Angel Mintegi

Anderea berriro hasi zen nire **titimuturrak** musukatzen. Juan Martin Elexpuru

Titimuturrak xurgatzen hasi zitzaidan, biak lehenengo, gero ezkerrekoan saiatu zen. Juan Martin Elexpuru

Titimutur harrotuen kontaktua larruazal bustian. Paddy Rekalde

Ikus ditzaket **titimutur** harroak gogor-gogor eta tente-tente eginda. Migel Angel Mintegi

2 (hitz elkartuetan)

Bularrak ukitu dizkio; gogor-gogorrek dauzka, melokotai bi dirudite, gozo eta trinkoak, bilo leunez estaliak, **titimutur** kimu tontor askeak, zimikoen eraginpean erne. Eider Rodriguez

titipunta *(6 agerraldi, 4 liburutan; orobat titi punta 11 agerraldi, 9 liburutan) iz* titiburua.

Umearen ezpainek **titi puntak** bilatzen zituzten goseti. Itxaro Borda

Ezpain artean umeldutako atzamarrak tentuz erabiltzen zituztela laztanak emateko; lepagainean, **titipuntetan**, ipurmasailetan. Jon Arretxe

Amestu bezain gogorrek haren **titi-puntak**. Aingeru Epaltza

Burua jaso eta senak bultzatuta atzeranzko keinua egin zuen, zerbitzari ilegorriaren **titipunten** mehatxuaren aurrean. Joxemari Urteaga

Bular beteak, **titipunta** borobil marroiak. Joseba Sarrionandia

Titipuntak eta hauen inguruko koroak ia modu lizunean nabarmentzen ziren. Juan Martin Elexpuru

titirimundi *iz* kamera ilunarekin ikuskizunak ematen zituen txerpolaria.

Non ikusi da de Espinosa abizena duenik musika jotzen, txerpolari, **titirimundi** eta buhameen moduan? Felipe Juaristi

titiritero 1 *iz* txerpolaria.

Umea ninduan, noiz eta Urbiaindik **titiritero** batzuk iragan baitziren, ximino tipi bat ere lagun zutela, sokatik dilindan mila zilipurdi egiten zituena. Joan Mari Irigoien

Donostiako bestan gozatu dituzte Sebastopoleko **titiriteroen** zirko tailerrak, Kukubiltxoren txotxongiloak, Txatunga Bemberen doinu exotikoak eta abar. Herria

Binefarko **Titiriteroek** bidearekin lotutako istorioak kontatuko dituzte. Berria - Kultura

Titiriteroen helduera zalapartatsuak sortzen duen ikusmiraren antzera. Joxemari Urteaga

Titiriteroen antzera ibiltzen ziren. Berria - Kultura

Titiritero ibiltarien txotxongiloak mugitzen dituzten ezkutuko hariak bezalakoa zen. Xabier Olarra

Ni, berriz,... **titiritero** bat besterik ez naiz, txorimalo bat. Lopez de Arana

Panpinlari: **titiritero**, txotxongiloak jokatzen dituena. Patxi Ezkiaga

2 (hitz elkartuetan)

Titiritero jauziak ere egin zitezkeen sukaldeko mahaiaren gainean, edo, eman dezagun, armailu gainera salto egin eta handik hegan egin oheraino. Pello Lizarralde

Tentazioa izaten dugu hangoen hezur bilakatu eta haien orde ez erabakiak hartzeko [...] **titiritero** konplexua izaten dugu. Lander Garro

3 (izenondo gisa)

Villabona eta Zizurkil arteko benta zahar hartan oinarritu zen Zumaiako artista talde bat, «espiritu **titiriteroari**» ertsiko zion banda bat sortzeko orduan. Berria - Kultura

tititxiki *izond* titiak txikiak dituena.

Zenbat denbora da ez zarela neska batekin egon, zatar nahiz polita, titihandi nahiz **tititxikia**? Jon Arretxe

tititxo iz gizona

iz gizona askatzen hasi zen, alkandora botoiak askatzen, paparretik hatz-puntak leun pasatzen, berehala tente jarri ziren **tititxoak** xurgatzen. **Juan Martin Elxpuru**

tititzar iz adkor titi handia.

Ene bularrak **tititzar** dira, izan ere, hilekoa jaitsi behar zaidan guztietan bezala, bular handitu hauek lehertzeko zorian baititut. **Patxi Zubizarreta**
Nire jabe mozoloarentzat nahikoa zen muturren aurrean **tititzar** pare bat ipintzea adurra zeriola paratzeko. **Jon Arretxe**

titizorro (orobat titi-zorro) iz bularretakoa.

Oso ondo geratzen zitzaidala tanga hori, eta **titizorrorik** gabe hobeto egongo nintzela. **Berria - Euskal Herria**
Edurneren **titizorro** beltz baten txanda. **Aingeru Epaltza**
Takoï luzeko zapata gorriak eta **titizorroa** soinean laga eta mozorro beltz bat jantzi zuen begietan. **Lutxo Egia**
istorioa bukatu orduko, giro gaiztoa lurrindua zen eta, horrez landa, banekien ez zeramala **titi-zorrorik** aldean. **Aingeru Epaltza**

titular 1 izond/iz erakundetako eta kidekoen mintzatuz, tituluduna, izendatua.

Unibertsitatearen funtsa, oraingo, katedradunen eta **titularren** gainean oinarrituko da. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Unibertsitateko **Titularren** eta Katedradunen artean desberdintasun gutxi dago praktikan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Unibertsitateko eskalafoian gora samar daudenak izaten dira jeneralean epaile: irakasle **titular** eta katedratikoak, alegia. **Joxerra Garzia**
Eskalafoian igotzeko aukerarik gabeko **titular** petral bat izatea, ordea, ez nuen hain atsegin. **Iban Zaldúa**
Berdin gertatzen zitzaion irakasle **titular** bati, unibertsitateak katedra baten deia egiten zenean. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Straussen Elektra Semyon Bitxkov ezagunak zuzenduko du **titular** den orkestrarekin, Koloniako WDR Sinfonikoarekin. **Berria - Kultura**
Straussen Elektra Semyon Bitxkov ezagunak zuzenduko du **titular** den orkestrarekin, Koloniako WDR Sinfonikoarekin. **Berria - Kultura**
Gaur egungo apaiz **titularra** da, aurreko apaizak, Jesus Maraurik, postua utzi ondoren. **Berria - Harian**
Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraleko **titular** ohi eta atzoz geroztik Zigor Salako presidentek parte hartu zuen 18/98 auzian aurkeztutako hainbat helegiteren ebazpenetan. **Berria - Euskal Herria**
Francisco mediku **titularra** da, medikuntzan dagoen mailarik altuena. **Pako Aristi**
Handik egun batzuetara Hurtado Alcolea del Campoko sendagile **titular** izendatu zuten. **Josu Zabaleta**
Jaiotzekoari «eskubideak» aitortzea gauza berria da; orain arte jaiotakoak bakarrik ziren «eskubideen» **titular** eta ez jaiotzeko daudenak. **Berria - Gaiak**
Bidegik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enpresa **titularrak**, azpikontratutako konpainia da Bidelan. **Berria - Ekonomia**

2 aurrezki kontuez eta kidekoen mintzatuz, tituluduna, jabea.

Azken 20 urteetan zehar mugimendurik egin gabe egon diren gordailuen **titular** diren bezeroei jakinarazten zaie iragarpen honen bidez, ezen, [...]. **Joseba Sarrionandia**

3 irud/hed

Jaiotzekoari «eskubideak» aitortzea gauza berria da; orain arte jaiotakoak bakarrik ziren «eskubideen» **titular** eta ez jaiotzeko daudenak. **Berria - Gaiak**
Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren **titularren** baimena eskuratzen ez bada. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Erabat debekaturik dago, Copyright-**titularren** idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea. **Patxi Altuna**

4 futboleant, hasierako hamaikakokoa.

Izquierdo ez zegoen hamaikako **titularrean**. **Berria - Kirola**
Stielek 17 partida jokatu ditu selekzioarekin, eta Portugalen atezain **titularra** izango da. **Berria - Kirola**
Nire ustez inork ez luke **titular** edo ordezeko sentitu beharko. **Berria - Kirola**
Osasunako ordezeko jokalaririk Deportivoko **titularren** aurka ariko dira. **Berria - Kirola**
Joaquin Caparros Deportivoko entrenatzaileak **titular** guztiak ekarriko ditu badaezpada. **Berria - Kirola**
20 partida jokatu ditu eta horietatik 18 egin ditu **titular** gisa, eta 9 gol erdietsi. **Berria - Kirola**
Jokalaria harrezkero Realean **titular** izan da. **Berria - Kirola**
Kvarme eta Xabi Alonso **titular** izango dira, txartelen ondorioz partida bateko zigorra bete ostean. **Berria - Kirola**
Fisikoki bete-betean egon ez arren, ohiko **titularrek** eman ez dioten ganora eman dio jokoari. **Berria - Kirola**
Balizko **titular** gehienak jokatzeko moduan zeuden arren, zelai erdian hiru aldaketa egin zituen. **Berria - Kirola**
Agian, **titular** finkoa ez den jokalaria izaten ikasi beharko du Yestek. **Berria - Kirola**

5 (adizlagun gisa)

Hala ere, uste dut badudala **titular** jokatzeko aukera. **Berria - Kirola**
Azkeneko bost partidetatik bakarrik jokatu du **titular**. **Berria - Kirola**
Ajaccioaren aurka **titular** aritu zen, eta oso partida handia egin zuen. **Berria - Kirola**
Zazpi partida jokatu ditu, bost **titular**. **Berria - Kirola**
Alkizak azkeneko hiru partidak **titular** egin ditu, eta, dirudienez, orain Aranbururen txanda da, berriz ere. **Berria - Kirola**

6 (hitz elkartuetan)

Baraja, Albelda eta Xavi izango dituzu **titular** posturako borrokan. **Berria - Kirola**
Ruben Belokik berreskuratu du bere **titular** postua. **Berria - Kirola**

• 7 prentsan, izenburua. ik titulu 2.

Herri handi askok baino **titular** gehiago hartzen genituen egunkarietan, bateko liskarrak, besteko oporrak... **Koldo Izagirre**
Lehen orrialdeko **titularretan** barreiatu zuen behakoa. **Koldo Izagirre**
Titularrak irakurtzen dizkio; amak gorroto du hori, baina alabak ez ditu amaren hitzak entzuten. **Eider Rodriguez**
Titularra ederki zegokien eman nahi nizkion neurriei: bi lerrotan, lau zutabetara, 42 tamainako letra. **Aingeru Epaltza**
Bermeon, ze ez, **titularrak** dioten moduan, Bilbon. **Edorta Jimenez**
Orain dela hiru aste Greziak Portugalen aurka irabazi zuen partida zen egunkarietako **titular** nagusia. **Berria - Kirola**
Hemen -esan zuen, eskutzarrarekin **titular** handiak zituen egunkari-orrian joz-, arazoa bere muturrera iritsi da. **Koldo Biguri**
Aldameneko bidaiariaren kazetara joan zaizkio begiak, *Eskandalua San Mamesen: 0-3* dakar **titular** larriak. **Urtzi Urrutikoeetxea**
Lehen orrialdetik barrualdera pasatu zen biharamunean, eta gero eta **titular** txikiagoak eskaini zitzaizkion hurrengo egunetan. **Iñaki Iñurrieta**

irakasle titular (4); **izan da titular** (22); **titular gisa** (22); **titular handiak** (4); **titular izan** (20); **titular izango** (9); **titular izango da** (6); **titular izatea** (10); **titular izateko** (7); **titular izaten** (3); **titular izatetik** (5); **titular postua** (5)
atezain titularra (9); **aurrelari titularra** (3); **irakasle titularra** (5); **talde titularra** (4); **titularra da** (4); **titularra izango** (4); **titularra kontatu** (6)
atezain titularrak (3); **egunkariaren titularrak** (3); **egunkarietako titularrak** (4); **titularrak irakurtzen** (3)
titularren artean (11)

titularitate 1 iz titular izatea. ik **titulartasun**; **jabego**.

Titularitatea edo jabegoa publikoa zein pribatua izanik, zerbitzu publikoa eskaintzen duten erakundeek baliabide publikoak eskuratzeko bidea izan beharko lukete. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hezkuntza sistema publikoak bakarra izan behar duela eta zerbitzuan oinarrituta egon behar duela, ez **titularitatean**. **Berria - Euskal Herria**

83koetan zinegotzi hautatu zuten, eta bien bitartean lanpostu bat lortu zuen unibertsitate sortu berrian; ez zuen asko itxaron behar izan **titularitatea** eskuratzeko. **Iban Zaldúa**

Berez publikoak ez diren datu batzuk ezagutarazi direla aitortzen du hala ere, hala nola diru kontuen **titularitateari** buruzkoak. **Berria - Euskal Herria**

Hutsegite baten ondorioz malformazio handiekin jaiotako ume baten kasuan, kalte-ordainak eskatzeko **titularitatea** ez dela soilik gurasoena, baizik eta haurrarena ere badela, modu horretan bizi honetan izango dituen beharraz aurre egiteko modua izango duelako. **Berria - Gaiak**

Orduan honako auziak izan genituen eztabaidagai: egunkariaren jabego edo **titularitatea**; kazetari euskaldun gutxi zela; euskarazko tradizio periodistikorik ez zegoela; eta irakurleria edo masa kritikoaren falta zegoela. **Berria - Euskal Herria**

Izaera juridikoa eta **titularitatea** (publikoa edo pribatua) edozein delarik ere, hilerriek araudi honetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan)

Bukaresteko Unibertsitate Zentraleko literaturako katedradun nagusi eta ahalguztiduna izateak ez zituen gauzak errazten: are gehiago, ezinezkoa egiten zuen zutabearen **titularitate** -aldaketa batean pentsatzea ere. **Iban Zaldúa**

titularizatu, titulariza, titularizatzen du *ad* titular bihurtu.

Hiltzeiaren jabeak, CABAB erakunde publikoak, 27 langile ohi beste lanpostuetara bideratu zituen, baina **titularizaturik** ez zeuden hamabiei soldataren erdiko kalte-ordaina pagatuko die 2004. urte bukaera arte. **Berria - Ekonomia**

titularizazio iz titularizatzea.

Sindikatuak prekaritate sistemaren desagertzea eta irakaslegaien **titularizazioa** bultzatuko dute. **Berria - Euskal Herria**

titulartasun 1 iz titularitatea. ik **jabego**.

Orain arte gizarteak egiten duen **titulartasun** publiko eta pribatuaren arteko bereizketa gainditu gura du Partaidek. **Berria - Euskal Herria**

Gaur egun emakumeak jabeak dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ustiatuegien %26n, eta %21ean beraien ere ageri dira **titulartasunean**. **Berria - Euskal Herria**

Zer da publikotasuna?, **titulartasuna** edo zerbitzua? **Berria - Euskal Herria**

Ni nintzen kontratuko alderdietako bat eta Lajos bestea, zeinak, etxearen eta lorategiaren **titulartasunaren** trukean, Nunu eta biok mantentzeko konpromisoa hartzen baitzuen "bizi bitartean eta baldintza duinetan". **Ander Irizar**

2 (futbol taldeetan)

Irundarra azken urteetan **titulartasuna** eskuratu duen jokalaririk gazteena da. **Berria - Kirola**

Zubiaurrek atzo adierazi zuen [...] borroka egingo duela **titulartasuna** lortzeko. **Berria - Kirola**

Sanzolek orain dela gutxi galdu zuen **titulartasuna** Osasunan. **Berria - Kirola**

Hautatzaileak hurrengo partidari Herbehereen aurka **titulartasuna** mantenduz saritu zuen aurrelaria. **Berria - Kirola**

Litekeena da, ordea, Lafuenterekin gertatu bezala, kontratu berritzeak Aranzubiari **titulartasuna** itzultzea. **Berria - Kirola**

titulatu, titula, titulaten 1 du *ad* izenburua eman.

Harri eta Herri **titulatu** zuen Arestik bere poema liburu bat. **Bernardo Atxaga**

"Bizibidea heriotz-bide", **titulatu** zuen Argia astekariak lan-istripuei buruzko erreportaiak. **Joxerra Garzia**

Le Figaro-k «Abertzale korsikarrak gero eta bananduago» **titulatu** du. **Berria - Mundua**

Jon Miranderen balada Jim Morrisonen omenez, honela **titula** zezakeen. **Harkaitz Cano**

Nor erakarri **titulatzeko** era horrek? **Txema Ramirez de la Piscina**

2 (era burutua izenondo gisa) tituluduna.

Zientifiko amerikano batek grizain **titulatu** bat behar du bidaiari batean parte hartzeko. **Joseba Sarrionandia**

Norvegiarra da, mediku **titulatu** berria, eta ez da pozik azalduko. **Joseba Sarrionandia**

Igo egin da irakasgai guztiak gainditu dituzten ikasle **titulatu**en ehunekoa. **Berria - Euskal Herria**

titulazio 1 iz titulua; titulu akademiko bat lortzea; norbaitek duen titulua edo tituluen multzoa.

Ez zieten noski ez **titulaziorik**, ez hizkuntza perfilik ez ezelako paperik eskatuko. **Joxerra Garzia**

Beste arazoetako bat eskola poloniar eta errusiarretako **titulazioak** izaten dira; arazoak jartzen dizkiete unibertsitatean, eskola lituaniarretako tituluak ezberdinak izaten direlako. **Berria - Mundua**

Suhiltzaileek, eskatzen zaien **titulazioa** egiten duten lanera egokitu behar dela diote. **Berria - Ekonomia**

Egitura mota horri, ikasleak **titulazio** bati dagokion agiria eskuratzeko duen ikasgaien egitura horri "curriculum" deitzen zaio. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ikastetxeek berdintasunaren joera erakusten dute, eta denek maila bereko **titulazioak** eskaintzeko gogoia erakusten dute. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Arrakasta duten **titulazioak** mantentzea nahiko dute unibertsitateek. **Berria - Harian**

Titulazioak berritzeko proposamen zehatzak egingo dituztela iragarri du. **Berria - Euskal Herria**

Sistema horretan mailak oso markatuak daude: oinarriko tituluak ematen dituzte unibertsitate batzuek, bigarren mailan daude lizentzia mailakoak ere ematen dituztenak eta azkenean, erpinean, goimailako **titulazioak** eta doktoregoa ematen dituzten unibertsitate ezagunenak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Unibertsitateko ikasketak, **titulazio** bakoitzari dagokion ikasketak, ikasgaia antolatua da. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Bigarren zikloko **titulazio** hauek bi urteko iraupena dute. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Teknologia berrien bidez, Internetez, eskaini daitezkeen **titulazioak**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Musika ikasketetan, goi mailako bi **titulazio** ditu: Musika Pedagogia eta Klabezin irakaslea. **Berria - Kultura**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Titulazio berriak jarri ditugu, hirugarren zikloan sartu gara eta garatzen ari gara. Hezkuntza sistema bezala ulertzen duela, **titulazio** publikoaren, pribatuaren, erlijiosoaren eta bestelakoen gainetik. **Berria - Euskal Herria**

Bertako ikasleek **titulazio** ofiziala izango dute, Unibertsitateko lizentzia baten modukoa. **Berria - Kultura**

Bi **titulazio** ofizial eskainiko ditu egoitza horrek: fisioterapiako diplomatura, eta industria diseinuko ingeniari-tza teknikoko lizentziatura. **Berria - Euskal Herria**

Pertsona nagusiei eskaintzen ahal zaizkien **titulazio** bereziak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ikasleria, irakasleria, irakaskuntza lerro, antolakuntza eta **titulazio** propioak izan litezke unibertsitate horrek. **Berria - Euskal Herria**

Graduko **titulazioak** oraingoaren antzekoak izango dira, baina graduondokoek emango diote prestigioa Unibertsitateari. **Berria - Harian**

Graduondoko **titulazioek** esparru baten espezializatze balioko dute, eta urte batekoak edo bikoak izango dira. **Berria - Euskal Herria**

Bestela ez dago ulertzerik goi mailako **titulazioak** dituzten pertsonak hain kalifikazio eskasak lortzea. **Berria - Harian**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bolognako Adierazpena sinatu dutenek hiru ardatz jarri dituzte egitura berrirako: **titulazio** mota bi ezartzea, ikasketa egitura malgua izatea, eta, lehen titulua lortzeko ikasketen iraupena laburtzea. **Berria - Euskal Herria**

Orain arte indarrean dagoen gradu **titulazio** sistema itxiarekin apurtu gura du Bolognako Adierazpenak. **Berria - Euskal Herria**

Master **titulazioak** ere izango ditugu, eta zentzuen arteko elkarlana ere beharko dugu horiek antolatzeke. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako Hezkuntza Ministerioak zehaztu behar du **titulazio** mapa zeintzuk ikasketa mantenduko diren eta zeintzuk ez. **Berria - Harian**

Sindikatuak salatu zuten **titulazio** postua erdietsi dutenen kopurua %43 apaldu dela. **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gradu **titulazioa** hiru eta lau urte bitartean lortu beharko da. **Berria - Euskal Herria**

Horrela, etorkizunean unibertsitate-**titulazioak** automatikoki ofizialak izango dira, hitzarmena sinatu duten herrialde guztietan ikasketa-eredu bera segitu beharko baitu.

Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

titulazio berriak (5); **titulazio mapa** (4); **titulazio ofiziala** (3)

mailako titulazioak (4)

titulazioen mapa (4)

titulizazio iz

Titulizazio esapideak tituluak jaulkipenek merkatuen jardueran hartutako nagusitasun berri hori deskribatu nahi du: nazioarteko obligazio klasikoak, atzerriar mailegu-hartzaile baten kontura jaulkiak, herrialde mailegu-emailearen finantza-lekuan eta diruan. Arriskua barreiatzea da **titulizazio**-dinamika horren ezaugarri nagusia. **Koro**
Navarro

titulo ik titulu.

titulodun ik tituludun.

titulu 1 iz izenburua, izena. ik idazpuru.

Bigarren obra honek **titulu** hau du: "Arimak irrikatzen duen oroigarria, Frantzisko gure aita txit santuaren egite eta esanei buruz". **Askoren artean**

Sarrituriko olerkiaren **titulua**, *Vision dorée*. **Edorta Jimenez**

Nobela haren **titulua** gogoratzen? **Ana Urkiza**

Jokin Urainek **titulu** xeble bat eman zion bere bigarren nobelari. **Iñigo Aranbarri**

Altamira-ren **titulu** sonatu bat Psicología del pueblo español izan zen. **Joxe Azurmendi**

Damnator Diaboli-ren orde besta **titulu** bat ematearen komenentzia ari da aztertzen. **Xabier Olarra**

1982an idatzi zuen bere hurrengo bildumari **titulua** emango zion istorioa, "Katedrala". **Koro Navarro**

Irakurleak SC bere osoan errazago ezagutu ahal dezan, egokia iruditu zaigu, **titulu** horiek batera, testua osatzen duten atal nagusiak jartzea. **Askoren artean**

Hiri guztietan iragan mingarriko mutilaren erretratua *wanted* **tituluarekin** iltzatu dutenen kontra. **Joseba Sarrionandia**

Zezen-lasterrak maite dituzteneri [...] gustatuko zaiote "Tâches d'encre et de sang" **titulupean** agertu berria den liburua. *Idazlan hautatuak* **titulupeko** obra berri honek azken 50 urte hauetan euskalzale militante honek eraman gogoetak ezagutzera ematen ditu 260 bat orritan bilduak. **Herria**

Sabinen bahiketa **tituluko** erromatarren film bat ikusi genuen zinea. **Joseba Urteaga**

Etzekoandreak, telebista ikusten ari zelarrik, nire izena ikusi omen zuen ez dakit zein programatako kreditu-**tituluetan**. **Anjel Lertxundi**

2 (prentsan) ik titular 6.

Tituluak dira informazioaren elementu nagusiak. **Iñigo Aranbarri**

Ed-en begiak egunkari bateko **titulu** baten gainean pausatu ziren. **Lopez de Arana**

Hona hemen *Granma* [...] kazetako lehen orrialdetik ateratako zenbait **titulu**. **Txema Ramirez de la Piscina**

Jatetxe aurrean egunkari baten argitalpen berezi bateko **titulu** nagusia ikusi zuen. **Lopez de Arana**

Berria-k berak, 19an eta 20an **titulu** nagusietan: "Aintzane Garai bortxatu egin zutela erakutsi du autopsiak", "Mutil-lagun ohiak Aintzane Garai berak hil duela aitortu du".

Iñigo Aranbarri

Ez **tituluan** ez sarreran ez da esaten bi bonba horiek kalterik edo biktimarik eragin zuten. **Iñigo Aranbarri**

Irakurlea ez dabilela gaizki **titulu** hutsekin "informatzen" denean. **Iñigo Aranbarri**

"Bihar, 16: 00etarako, presoak ez badituzte Euskal Herrira ekartzen, hil egingo dutela ohartarazi du ETAk", jarraitzen zuten berriak, letra txikiagoan, izenburu azpiko **tituluan**.

Pedro Alberdi

Benetako egunkari-**tituluak** eta garaiko kantak egokiro nahasita, "newsreels" izeneko koktel informatiboak sortzen ditu. **Lopez de Arana**

"Un autre légitimiste français impliqué" prentsa **titulua** sumatzen nuen jadanik ezer irakurri baino lehenago. **Txillardeggi**

3 obra idatzia.

2002ko 1.586 **titulu** horiek 270 agente argitaratzailek ekoitzi dituzte. **Berria - Kultura**

Ekoiatze handienei dagokienez, eta soilik editore komertzialak aintzat hartuz, Elkarlanean eta Elkarlanean/ikastolen Elkartea ageri dira zerrendaren buruan (184 eta 147 **titulu**, hurrenez hurren). **Berria - Kultura**

270 horietatik gehienek, 163k hain zuzen (%60,4), **titulu** bakarra atera dute urte osoan. **Berria - Kultura**

Erdiko multzo hori indartzen ez den bitartean, buztinezko zangoak ditu euskarazko liburugintzak, edozein delarik ere **titulu** kopurua. **Berria - Kultura**

Bere **titulu** aristokratikoarengatik ere, Markesek ez zituen maite ez apaizak ez nobleak. Koro Navarro

Mahoma profetaren ondorengo zuzena baitzen kalifa, era berean zen, lotura horrexen baitartez, Fededunen Komendadorea ere; islamaren **titulu** gorena zen hori, kalifari munduko musulman guztien gaineko boterea ematen ziona. Jon Muñoz

Enperadoreari fideltasuna zin egin eta **titulu** guztiak itzuli zizkioten. Aingeru Epaltza

Nabob, *nawab*: Ekialdean aberasturiko europarra; Indiako gobernuak ematen zuen ohorezko **titulu** bat. Iñaki Mendiguren

15 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikusten baitzuen bere **titulu**-usteak erabat usteldu zitzaizkiola, eta Mikomikona printzesa, hain dotorea, Dorotea bihurtu zitzaiola. Patxi Ezkiaga

16 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pepin errege koroatu zutenean, errege **titulua** kargurik gorenari erantsi zitzaion; Hugo Kapet errege koroatu zutenean, berriz, feudo handienari. Iñaki Iñurrieta

Arren eskatuko dizute bataila honi errege **tituluarekin** ekin diezaiozun; ez zalantzarik eduki titulu hori onartzeko orduan. Jon Alonso

Ez dadila berrito agertu Basti inoiz ere Asuero erregearen aurrean, eta eman dakiola erregina-**titulua** hura baino hobe den beste bati. Jose Antonio Mujika

Enperadoreak ohore militarrik eta noble-**titulua** emango dizkio bere salbatzaile heroikoari. Anjel Lertxundi

Ezkontza berriak bey **titulurik** gabe utziko zuen. Patxi Zubizarreta

Villagrandeko dukeak promes egin zion ezen markes **tituluarekin** sarituko zuela. Markes **titulua** eta armarría izateko, ordea, exekutoria behar. Joan Mari Irigoien

"Kondea edo markesa izan nahi diat, eta kondea edo markesa izanen nauk", noblezi **titulu** haien erdiestearen bere bizitzako ametsa balitz bezala. Joan Mari Irigoien

Colettek idatzi zuen zenbait jenderentzat Parisen bizitzea noblezia **titulu** bat izatea bezalatsu zela. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

graduondoko titulu (3); **titulu bakarra** (3); **titulu bat irabaztea** (5); **titulu bat lortzea** (3); **titulu berri** (3); **titulu gisa** (3); **titulu gutxi** (3); **titulu irabazi** (3); **titulu nagusi** (4); **titulu nagusia** (4); **titulu ofizial** (3); **titulu propioak** (4); **titulu zerrenda** (4); **unibertsitate titulu** (3)

atariko titulua (3); **dbhko titulua** (5); **denboraldiko lehen titulua** (4); **doktore titulua** (8); **doktore titulua izatea** (4); **duen titulua** (4)

emandako titulua (3); **entrenatzaile titulua** (3); **errege titulua** (9); **gradu titulua** (4); **halako titulua** (3); **heziketako titulua** (6); **hidalgia titulua** (3); **hirugarren titulua** (4)

irakasle titulua (6); **lanbide heziketako titulua** (6); **lehen titulua** (23); **lehen titulua irabazteko** (3); **lehen titulua lortu** (4); **lehendabiziko titulua** (4); **lehenengo titulua** (3); **liburuaren titulua** (5); **ligako titulua** (3); **lord titulua** (5); **lord titulua jasotzeko** (4); **mailako titulua** (7); **maisur handi titulua** (6); **maisur titulua** (4); **markes titulua** (4); **munduko txapelidun titulua** (3); **nazioarteko maisur titulua** (3); **nobelaren titulua** (3)

titulua atera (7); **titulua ateratzeko** (4); **titulua behar** (6); **titulua besapean** (3); **titulua edukitzea** (3); **titulua eman** (10); **titulua emango** (3); **titulua ematea** (3); **titulua ematen** (5); **titulua eskuan** (3); **titulua eskuratu** (10); **titulua eskuratzeko** (8); **titulua hartu** (3); **titulua irabazi** (4); **titulua irabazteko** (19); **titulua irabazteko lehian** (3); **titulua izan** (5); **titulua izango** (4); **titulua izatea** (4); **titulua jasotzeko** (6); **titulua jokoan** (3); **titulua lortu** (16); **titulua lortu zuen** (5); **titulua lortzea** (7); **titulua lortzeko** (21); **txapelidun titulua** (3); **unibertsitate titulua** (7); **zazpigarren titulua** (3)

bere tituluak (3); **lehen tituluak** (3); **noblezia tituluak** (3); **tituluak berak** (5); **tituluak irabazi** (4); **tituluak irabazteko** (7); **tituluak irakurri** (3); **tituluak lortzeko** (3)

atariko tituluaren (5); **tituluaren jabe** (4); **tituluaren pean** (5)

tituluaren eskaintza (5); **tituluaren jabe** (3)

tituluetatik haratago (3)

nbako titulurako (4); **titulurako kanporaketak** (25); **titulurako kanporaketak jokatu** (4); **titulurako kanporaketak jokatzeko** (10); **titulurako kanporaketei** (3); **titulurako kanporaketetan** (16); **titulurako kanporaketetan ariko** (3)

tituluren bat irabazteko (3)

titulurik gabeko langile (3)

tituludun *izond/iz* titulua duena.

Erizain **tituluduna** zen Wilmarth andereñoa, miragarriri trebea. Mirentxu Larrañaga

Horra tallur **tituluduna** naizela, beste edozertara debekatua. Marzel Etxehandi

Orain, kalekume **tituludunen** batek, funtzionario espainol euskaltzaleren batek, interpretatuko du gure bihotzeko mapa, eta guk ixildu egin beharko dugu ezinbestean.

Patziku Perurena

-Batek zekin gazte **tituludun** bat ez ote den Arteaga anderearen tokian sartuko. Migel Angel Mintegi

Jaun hark, **tituluduna** eta lur askoren jabea zenak, esposatu egin nahi zuen. Koro Navarro

Errege Antzokiko palkora kotxez joaten zen emakume **tituludun** batez. Josu Zabaleta

Slightly lady **tituludun** batekin ezkondu zen, eta *lord* bihurtu. Julen Gabiria

BTS **tituluduna** izatea kondularitzan. Herria

EHUn ez dira sartzen unibertsitate honetako hautaprobak gainditu dituztenak bakarrik, kanpotik ere etor baitaiteke jendea: 25 urteko azterketa egiten dutenak, atzerritarrak, **tituludunak**, LBHtik datozenak, beste erkidego edo unibertsitate batzuetatik datozenak, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrek esan nahi du Espainiako unibertsitateko **tituludunak** %57 gehiago irabazten duela, esate baterako, batxilergoko titulua duen batek baino. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Deialdia Goi Mailako **Tituludunentzat** da, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago. Berria - Euskal Herria

Musikaren Historia eta Zientzietan Salamancako Unibertsitatean lizentziatua da Etxeberria, baita Pedagogia Musikaleko Goi Mailako irakasle **tituluduna** ere, Salamancako

Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Berria - Kultura

Zein da horretan **tituluduna**? Xabier Arregi

titulugile *iz* tituluak egiten dituen pertsona.

Titulugileak proba bazterrean utzirik, airoso idatzi zuen luma presaka harturi: Joaldi bikaina, Presidente Brownek emanik. Xabier Olarra

Titulugileak proba harturik eskuetan, leitu zuen seriocki: Eskualde honetan ez da sekula aditu antzeko musikaririk. Xabier Olarra

titxoka ik ditxoka.

titxolari ik ditxolari.

tiuta *iz* txioa.

Baratzean, egunaren begian aditzen diren txorien **tiutak** politik dira. Gotzon Garate

tixbitar *izlag/iz* Palestinako Tixbikoa, Tixbiri dagokiona; Tixbiko biztanlea.

Itzuli eta Jehuri jakinarazi ziotenean, esan zuen honek: Horrela bete da Jaunak bere zerbiztari Elias **tixbitarraren** bidez esan zuena: zakurrek irentsiko zutela Izreelgo landan Jezabelen haragia. Elizen arteko biblia

tixerta *(orobat T-shirt, tee-shirt g.er., tisereta eta tixirt) iz elastikoa.*

Tisereta xuria eta 'jean's' pare zahar bat zituen soinean. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Xacobeoko T-**shirt** horitu bat darama soinean, eta galtza motzak. [Iban Zaldua](#)

Segitzen dut ospitaleratsa aterperaino, erosi diot tee-**shirt** xuria, Villafranca del Bierzorainoko bidea papoan ibiliko naizela, nahi badut. [Piarres Aintziart](#)

Mikeleke ideogramez apaindu **tisereta** koloretsu bat eskaini zion Ninari. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Ez pentsa kontratu leonino bat dela sinatu beharreko hori, ez da eskatzen zeremonian presoen euskal herriratzea edo antzeko balentriak aldarrikatuz **tixertarik** ez janzea. [Berria - Kultura](#)

Gehienek **tisereta** eta xort txiki bat zuten soinean. [Ramuntxo Etxeberri](#)

"Doala halaber lau haizetara" **tixirtean** idatzia zeraman bati garagardo erraldoia manatu nion. [Itxaro Borda](#)

Émile galtza motz eta T-**shirt** zuritan atera zitzairen erdi lo: [...]. [Aurelia Arkotxa](#)

Begiratu zuelarik, ikusi zuen bere adineko neska bat, "coca-cola" **tisereta** zikin luze bat gona gisa, nini biluzi bat altxoan. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Eginaraziak zituzten 2600 T-**shirt** atorra berezietarik 2500 saldu dituzte, jendearen sustengu ederra bilduz hor. [Herria](#)

tixirt ik tixerta.

tiza iz

Tizak non-nahi ikusten dira. [Berria - Kultura](#)

to¹ 1 gizonetzko edo animalia arrei deitzeko erabiltzen den hitz lagunartekoa. ik txo.

Alta berak, haurra zenean, "**to**" entzuten zuen aitaren gandik, haatik "xu" amaren ahotik... eta bihotzetik. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

-**To**, zerbait gertatzen bazait, emaiok hau amari... -eta muin egin zion lepokoari. [Inazio Mujika Iraola](#)

To!, kanta ezak! -egin zion oihu. [Josu Zabaleta](#)

To, hau ez duk bat ere txarra izan. [Xabier Olarra](#)

Biziki ontsa orroitzen naiz orduan zer izan zen ene lehen gogoeta: **to**, hau dea beraz presondegia? [Filipe Bidart](#)

To, ez zituan urrun, itzuli dituk. [Eneko Bidegain](#)

-Hiretzat ez litekeek gaizki, **to**, Paxkal... [Daniel Landart](#)

-**To**!, kanta ezak! -egin zion oihu. [Josu Zabaleta](#)

Villafrian nauk, **to**, orain; bazterrak itsusten ari zaiztak eta aitzinean ditudan hiru gizon horien harrapatzen ari nauk! [Piarres Aintziart](#)

Zoaz hondartzara, **to**! [Ramuntxo Etxeberri](#)

-**To**, **to**, Jean, **to**, hor duk! [Josu Zabaleta](#)

To-to, tori ipurdia, babababaina, ez zaizu altxako! [Karlos Zabala](#)

Bai **to**! [Fernando Rey](#)

2 (harridura-edo adieraziz)

-**To**! -ahoz borobildu nuen neure aurpegiak islatzen zuen ezin-sinetsia. [Aingeru Epaltza](#)

Aterpearen menturan egoiteko orde kanpoan, hotelera banao: Hostal Sabina; "**To**", ene alabaren izena dik!". [Piarres Aintziart](#)

"**To**, hori ere joan duk apezaren ikusterat!". [Menane Oxandabaratz](#)

-**To**, ez nian uste egun jinen hintzela! [Janbattitt Dirassar](#)

To! txungoa behar dik horrek... [Pablo Sastre](#)

-**To**, osaba Lou! -Ttipik gibeletik, bat-batean berpiztuta- "Rock'n'roll". [Aingeru Epaltza](#)

-**To** -esan zuen-, saltsa ederrean sartuko nauk, nik uste, endrokea egiten ez badut. [Joxe Austin Arrieta](#)

Orain arte bat bera ere ez, eta orain **to**, bi kafetera. [Harkaitz Cano](#)

-Ez duzue erdibiderik: beti negarka matxismoa dela eta ez dela, baina gero, gizonkerietan aritzen ez zaizuen, **to**, homosexuala! [Aingeru Epaltza](#)

Banestok (%0,32) «**to**!» pentsatu zuen. [Berria - Ekonomia](#)

to² (aditz forma) tori.

To, kandela bat, oherakoan argi egiteko. [Mirentxu Larrañaga](#)

-**To**, erdia. [Aingeru Epaltza](#)

-**To**, Maruxiñarendako! [Koldo Izagirre](#)

To mazelakoa! [Aingeru Epaltza](#)

To bertze bat! [Aingeru Epaltza](#)

-**To**, Paxkal... hiretzat... -eskua luzatuz zerbait eskaini zidan. [Daniel Landart](#)

To literatura jasoa! [Iban Zaldua](#)

To euskal demokrazia, eta izorra hadi! [Patziku Perurena](#)

toaila ik toalla.

toaja ik toalla.

toalla *(orobat toaila eta toaja g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian toalla agertzen da)* 1 iz xukadera, eskuoihala.

Hurrengoetan egunero elkartu ginen hondartzan, eta **toallak** elkarren ondoan ipini. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Karmele eta Sara belarditxora irten ziren, **toalla** bana harturik. [Joan Mari Irigoien](#)

Matilderen alaba irten zen orduan bainugelatik, **toalla** eskuan. [Unai Elorriaga](#)

Toalla gerrian, parez pare ireki zituen logelako leihoak. [Unai Iturriaga](#)

Tennis Clubeko saunan, **toalla** zurietan bilduta eta izerdia kopetatik behera ibaika zeriela. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Kristina kanpora atera zen, **toalla** berde argi bat soinera bildua zuela. Aingeru Epaltza

Toalla garbiak bainugelan, ondo. Iban Zaldua

Erabilera bakarreko paperezko **toailak**. Edorta Agirre

Atsedendako une horiek lepoaldean **toallaz** puztutako txabusina jantzita pasa zituen. Josu Landa

ESku odoldua **toallan** bildu zuen odoljarioa gelditu nahian. Paddy Rekalde

Dutxatik atera eta **toalla** txuri bat hartzen dut bere gakotik. Mikel Hernandez Abaitua

Toallak eskegitzeko kakoren bat. Unai Elorriaga

"**Toallak** ekarri behar genituen gainetik jartzeko", esan du batek. Xabier Mendiguren Elizegi

Nik bokadilloak eta ardoa jarri nituen hondar gainean zabaldutako **toallan**. Xabier Mendiguren Elizegi

Antzerki ikuskizunetako teloa irekitzen deneko musikaren lehen bi konpasak jorik, **toalla** askatu zuen. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan)

Gure bistatik desagertu baino lehen, atzealdeko leihora zutiturik Marilyn zakurtxo **toaila** -puskatzailea ikusi ahal izan genuen. Joxemari Iturralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

toaila hartu (3)

toallatxo *iz* toalla txikia.

Usain goxoa zeukan **toallatxo** txikiak horniturik. Jon Alonso

Lehorrean, Seafor markako **toallatxo** zurgatzailea hobetsi du, eguzki gorriari bere gorputza idortzeko astirik eman gabe. Aingeru Epaltza

Hainbat minutuz ibili zen, ura papera zapia **toallatxoak** astintzen, garbitzen eta idortzen, ilargi-paisaje hartan. Jon Alonso

toaxatze *iz ipar* mertxikondoa.

Balizko suge zilarrak kantuz izuaraziz erreka hegiko belar erraldoietan jauzika ibiltzeko, auzoko landetako **toaxatze** zein ahantzeen biluzteko, ardien gibeletik hatsak birrikak odoleztatzerraino mendi malkar gaitzetan gora igotzeko. Itxaro Borda

tobera¹ *iz pl* musika edo zintzarri joaldia, andregaiari ezkontza-bezperan, berriro ezkontzen den gizon alargunari edo gorabeherak dituzten senar-emazteei egiten zaiena.

Beste dantza, musika eta herrifesta xeblebre askorekin batera, elizak gogor galarazi zituen **toberak** ere, batik bat XVII. mende erditik aurrera. Patziku Perurena

Toberen beste elementu garrantzitsua dantza da. Berria - Kultura

Toberak desagertzen dira eta kabalkadak agertzen, bigarren gerlatik landa bereziki. Berria - Kultura

Toberak desagertzen dira eta kabalkadak agertzen, bigarren gerlatik landa bereziki. Berria - Kultura

Heletarrek berek diotenaz, azken **toberak** 1906an iragan omen ziren, herriko plazan. Herria

Xantre abiatuz geroz ez zen gehiago plazetan agertzen, are gutiago **toberetan**, Bernetxe erretoreak debekatua baitzakon. Michel Oronoz

Toberari erreferentzia egitea arras egokia iruditu zait, alabaina hori baita **toberari** eman diogun definizioa gure orain artinoko ibilbidean: jendartearen harat-honaten irudikatzea margeneko ikuspegitik, bazter-sotik, lupa efektuaz sentsu-akatsak lodituz begi bistako egiteko. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Debekuak bebeku, gureganaino ailegatu dira **tobera** hotsak. Patziku Perurena

3 kabalkada-tobera

Heletako kabalkada-**toberak** igande huntan iraganen dira beraz, aratsaldeko 4.30etan. Herria

Aurten, Bithindarrak taldeak buruilaren 29an kabalkada-**tobera** bat antolatuko du Mithirinako plazan. Herria

4 tobera jo

Gauean **tobera** joko zuten ziegako hagetan, aittitte bazihoala, ez genuela gehiago Agirrerrik. Koldo Izagirre

5 tobera-munstra ezkontza-hausteren bat-edo gertatzen denean, herriko plazan antolatzen den antzerkia.

Apezetxetik hurbil antolatu baitzuten, Bernetxe erretorea eta Etxegarai bikarioa leihogibeletik beha zauden, ahalge baitziren publikoki **tobera-munstra** horietan agertzeko.

Michel Oronoz

Ezkontzak aitzaki, galarrots edo zintzarrots gisara edota **tobera-munstra** modura herriak antolatzen zuen festagirot hartara. Patziku Perurena

Kabalkada xinpleak, **tobera-mustrarik** gabekoak, Bidarrain berrikitan egin den bezala, Baxenafarreko ohiduren arabera... Herria

Kabalkadak, **tobera-mustrez** edertuak, Lapurdiko ohiduren arabera, ekain hortan Angelun egin den gisan. Herria

tobera² *iz* turbina eta kidekoetan, haizebidea.

Aeronautika konpainiak motore aeronautiko eta gas turbinen osagaien fabrikazioan espezializatua dago: karkasak, tutuak, **toberak**, zigiluak, ardatz motzak eta diskoak dira osagaien adibide. Berria - Ekonomia

2 sarrera hodia.

Makina honetan zintzilik dagoen **tobera** batek ematen dio harriari alea, eta biraketaren indarrez egiten da irina. Santiago Iruretagoiena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kabalkada toberak (12)

kabalkada toberekin (3); **kabalkada toberen** (3)

tobogan *iz* txirrista.

Hamar bat lizar haustu, eserleku pare bat, eta haurrentzako **tobogan** bat. Anjel Lertxundi

Eta elurra den lekuetan, oinez ibiltzea zaila denean, ahuspez etzanda lerratuko dira **toboganean** behera bezala. Joseba Sarrionandia

tobogandu, toboGAN(du), toboGANtzen da/du *ad* txirristan bezala ibili.

Toboganduz jaitsiko zarete. Joseba Sarrionandia

tocatta ik **tokata**.

tofu *iz soja-esnearen gaztanbera modukoa, etorkiz Txinakoa, proteina asko eta gantz gutxi duena.*

Menu biologiko bat proposatzen du [...]: aperitifa, talo eta xingar edo **tofu**, hiru gasnen (ardi, behi eta ahuntz) jastaketa, izozkia, kafea eta baso bat sargarno. **Herria**
Geroz eta ugariagoak dira gure artean ere jabetxe txinatar, indiar, greziar, italiar, japoniar, mexikarrak... baita horiek kalean eta etxean utzitako arrastoa ere: kus-kusa, tabulea, **tofua**, moussaka, risotto eta arroz minak, [...]. **Edorta Agirre**

toga *iz oinetarainoko jantzi mauka-zabala, tunikaren antzekoa, zenbait unibertsitate ekitaldietan eta epaiketetan erabiltzen dena.*

Asko gustatuko zitzaion Ramsay andreak unibertsitateko prozesioan ikusi balu, **toga** eta burukoa jantzita. **Anton Garikano**
Baina ez al zen abokatuen ezaugarria **toga**, eta ez oilarra? **Joan Mari Irigoien**
Ezin izan nien ezer galdetu, aita-amak **togaz** jantzitako gizon luze batekin baitzetozen. **Koldo Izagirre**
Toga kendu dut. **Berria - Kultura**
Noble handien eta herriaren artean dagoen **togako** noblezia. **Iñaki Iñurrieta**

togadun *iz toga daraman pertsona.*

Aztoratu zen **togaduna**. **Koldo Izagirre**

togoar *izlag/iz Togokoa, Togori dagokiona; Togoko herritarra.*

Preverterenaren bertsio erraldoia zen Yumimoto enpresaren import-export katalogoa: emmenthal finlandiarrekin hasi, zuntz optiko kanadar, gurpil frantses eta jute **togoarrekin** segi, eta soda singapurtarrekin buka, ezertxo ere ez zen haren eskutik irago gabe. **Joxan Elozegi**

toil *iz marrazoaren eta arraiaren ordenako itsas arraina, handi samarra eta gorputz-luzea, azala latza eta kolorez grisa duena (*Mustelus mustelus*).*

Orduantxe entzunen genuela bere ahots mehe barnagarria, baina burumakur zegoen, jotako **toilaren** antzera gelditu ginen denok. **Koldo Izagirre**

toileta *iz pl* komunak.

Metalezko munstrotzar hari jaramon handirik egin gabe, **toiletak** bilatu zituen. **Unai Iturriaga**

toilo

1 **toiloarena jo** ezjakinarena egin.

Zergatia, bai, ez zaitez orain **toiloarena** jotzen has. **Anjel Lertxundi**

toka¹ *adlag* gizonezko bati hika. ik **noka**.

Askoz beranduago baino ez nintzen konturatu, ahal zuen guztietan, **toka** mintzatzen zitzaigula Rita gizonezko guztioi. **Hasier Etxeberria**
-Lagun nazak, biluzi behar diagu -xuxurlatu zidan, hura ere **toka**. **Aingeru Epaltza**
Lehena "Ez duk ukanen nitaz beste Jainkorik" zen, berriro **toka** esanda. **Edorta Jimenez**
-Jainkoari **toka**? -nioen nire artean, Basurtoko Joan Sanzek esandako berbera mamurtuz. **Edorta Jimenez**
Neskak **toka** utzi zuenean, mutila ere zukara pasatu zen, baina konturatu gabe hasieran. **Fernando Morillo**
Horrela hasiko banintz, eta hika erabiltzea erabakiko banu, aukera egin beharko nuke ondoren **toka** eta nokaren artean, eta ez da kontua inor ere mintzea hemen. **Pello Salaburu**
Adiskidantza eta politika: **toka** eta noka eta gero mokoka. **Herria**

toka² *iz sagardotegietako jokia, kutxa batean finkaturiko burdin zati batera burdinazko peza biribilak jaurtikitzean datzana.*

Probak: harri jasotzea, ingudea, lasto-altzatzea, dantza bikoteka, jende probak, lokotxak, txingak, zaku lasterketa, **toka**, trontza eta sokatira. **Berria - Kirola**
Esaiteko partaideek **toka**, igela eta beste joku batzuk antolatuko dituzte. **Berria - Kirola**
Ez da trikitia, disko festa, txistorra, gazta, sagardoa, **toka** eta igel-jokorik faltako. **Berria - Kirola**

toka³ *iz buruko zapia. ik tauka.*

Amonak bizi izan bitartean **tokari** eusteko erabilitako brotxea. **Anton Garikano**

tokadisko (*orobat tokadiskos g.er.*) *iz disko biragailua.*

Irrati-kasetak eta **tokadiskoak** sortu ziren arte. **Pako Aristi**
Tokadiskoa piztuta zegoen, eta musika doi bat entzuten zen. **Bernardo Atxaga**
Tokadiskoa martxan zebilen bueltaka, baina Goioek ez zuen Arianeren presentziaz beste ia ezer antzematen. **Joseba Sarrionandia**
Tokadiskoa isildu egin zen. **Bernardo Atxaga**

tokadore *iz apain-mahaia.*

Zipilua eta orrazea **tokadore** gainean utzirik, biharamunean itzultzea espero balu bezalaxe. **Anton Garikano**

Tokadore eta konketa gainetako purtxileriak, mesanotxe gaineko nobelak eta hain pribatuak ziren egutegiak. **Anton Garikano**

Argazkiak zilarrezko markoetan **tokadorean**. **Sonia Gonzalez**

Nik argazkia eta guzti jarrita zeukanat, **tokadoreko** ispiluan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Tokadoreko kaxoiak gauzez beteak zeuden (zabaldu egin zituen), eskuzapiak, xingolak. **Anton Garikano**

tokadun *izond* toka duena.

Hortzik gabeko administratzaile **tokadun** harengan. **Anton Garikano**

tokaio *iz* izenkidea.

Kontua da 70 urte inguru izango dituela Marioren **tokaio** eta aitaren lehengusu denak. **Jokin Urain**

Ekainaren lehenean etxera deitu du telefonoz, eta **tokaio** argentinarra bertan harrapatu du. **Jokin Urain**

Nere **tokaio** zahar Peru "Kurrilo" hura. **Patziku Perurena**

tokamen *iz* banatu behar den irabazi batetik, eta batez ere ondaretik, norbaiti egokitzen zaion partea. *ikseniparte*.

Baina gizajo hau ez dago konforme gaixo dagoelako ematen diogun **tokamenarekin**, nahiago luke ziegaz ziega hari tabakoa kendu, honi saldu, denen jaki hondarrak batu... **Koldo Izagirre**

Etzeko gobernua ere, aita familiakoari aitortzen dio, eta oinordetza gorabeheretan legezko **tokamenak** agintzen ditu seme-alaba guztientzat. **Andres Urrutia**

tokata *iz* *adkor* tokadiskoa.

Tokatan biniloa jarrita, aspaldiko abesti zaharrak entzuten zituen bitartean [...]. **Jasone Osoro**

Zazpiak eta hogeiz ziren Patakik, jaiki, pastazko betaurrekoak soineratu, **tokatara** zuzendu eta kantu bat jarri zuenean. **Harkaitz Cano**

Tokatan salsa musika jarri eta pozik. **Jasone Osoro**

Inguruotan inork ez zuen tramankulua geneukan, **tokata** zahar bat, Extremaduratik ekarria. **Jon Maia**

tokatu, toka(tu), tokatzen (*orobat tokau g.er.*) 1 da *ad* egokitu, egon.

Niri **tokatu** zaidak, baina edonor izan zitekeen. **Koldo Izagirre**

Aurten niri **tokatu** zait, baina hurrengoan beste bati **toka** dakiok. **Berria - Kirola**

Norbaitek ordaindu behar, eta berari **tokatu** omen. **Joxerra Garzia**

Egun hartan, ordea, bala-bala barreiatutako plater hegalariena **tokatzen** zen. **Josu Landa**

Nik, **tokatu** zitzaidan arte, berdin jokatu nuen, eta, beraz, ez naiz orain ausartarena egiten hasiko. **Xabier Montoia**

2 (norbait)

Migel hemen sartu zuten preso eta, kasualitateak zer diren, nire lehen senargaia ere, Pedromari, bertan **tokatu**, baina sarjente. **Patxi Zubizarreta**

Txiripa hutsa izan zen argazkiarena eta zu han **tokatzearena**, entzun? **Anjel Lertxundi**

Hurrena berriz, dakizuna baino gehiago dakizula iruditzen zaion norbait **tokatuko** zaizu, ibilbide luzeko hitzaspertua botako dizuna. **Harkaitz Cano**

Matiasek pentsatu zuen informante txarra **tokatu** zitzaiola. **Unai Elorriaga**

Pozik dago, nonbait, horren ikasle bizkorra **tokatu** zaiolako. **Josu Zabaleta**

3 (zerbait)

Guri udare mailatua edo joa **tokatzen** zitzaigunean, hari ematen genion. **Fernando Rey**

Objektu kontsumistak, erosketaren fetixiak, gehiegikeriaren kitschak... horixe **tokatzen** da, ez modenismoaren arte elitista. **Joseba Zulaika**

Final hau duela bi urte **tokatu** balitz, nerbioek jota egongo nintzateke. **Berria - Kirola**

Ostegunean ikastaroa **tokatzen** zitzaion, berriro ere. **Iban Zaldua**

Esan nahi da ispiluren bat parean **tokatuz** gero, hari begiratu beste erremediorik ez dagoela. **Unai Elorriaga**

2001 honetako Santa Ageda bezpera, domekan **tokatu** zen. **Txillardegia**

Egun ona **tokatzen** zenean, dena inolako arazorik gabe joaten zen. **Iñaki Iñurrieta**

Aldian behin geldialdia **tokatzen** da. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gaur ere guardia **tokatu** al zaik? -egin zion ongi etorria Xerealek. **Iñaki Iñurrieta**

Patua alde **tokatu** zitzaion, besterik ez. **Harkaitz Cano**

Neskak ez dauka nora joanik, eta nekatuta dago historia honetan **tokatu** zaion paperarekin. **Patxi Iturritegi**

Istiluz eta liskarrez beterikoa zen Frantziskori bizitzea **tokatu** zitzaion garaia. **Askoren artean**

Isilik irauñ zuten, hari eta, **tokatzen** ziren orduak astiro esan eta gorespenak bukatu ostean, santuak kantatzeko baimena eman zien arte. **Askoren artean**

Azken jardunaldian zer **tokatzen** den ez begiratzea hobe! **Berria - Kirola**

4 (osagarri zuzena -tzea atzizkiatz)

Orain bizitzea **tokatzen** zaik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Betiko esanaren jabe gelditzen denari lotsa pasatzea **tokatzen** zaio. **Iñaki Segurola**

Neron izatea **tokatuko** zaiguk eta baita Marilyn Monroe izatea ere. **Harkaitz Cano**

Niri **tokatu** zait Foruzaingoaren ziegan bakarrik egotea, eta ez da batera atsegina. **Edure Elizondo**

Eta guri **tokatzen** zaiguk (eta hiri ere **tokatuko** zaik, beraz!) izkribu horiek guztiak bolondres analfabetoei irakurtzea eta azaltzea. **Txillardegia**

Ezin zela orduan kaleratu, entsalada prestatzea **tokatzen** zitzaiola-eta. **Jokin Urain**

Tiroak galaraztea izan zen gerra denboran egitea **tokatu** zitzaion gauzarik heroikoena. **Ramon Saizarbitoria**

Orain, besoak zabaldua uretan gelditzea **tokatzen** zaio, eguzkirantz aurpegia. **Pako Aristi**

Gidarena egitea **tokatzen** da. **Harkaitz Cano**

Handik egun batzuetara, Gabinekin bakarka **tokatu** zen batean, ispiluko behaketez mintzatu zitzaion Hauster. **Iñaki Iñurrieta**

Atzo Frantziari **tokatu** zitzaion etxerako bidea hartzea, Greziaren kontrako partida 0-1 galdu ondoren. **Berria - Kirola**

5 (sari bat edo kideko bat)

Pozik nago, saria **tokatu** izan balitzait bezala. **Berria - Euskal Herria**

Orduan, bidaia **tokatzen** bazaizu, haren ordaina dirutan emateko eskatuko diozu gerenteari. **Ramon Saizarbitoria**

Dublina bidaia bat **tokatu** zitzaion Eroskin, aurrez egindako bidaia baten promozio zozketan berak jakin gabe parte hartu zuelako. **Pako Aristi**
Aldamenetik igarotzen ziren autoek aireeratzen zituzten boleto zatiez ohartuta, beste bi erosiko nizkiola esan nion, baina ez **tokatuko** zen beldurrez, bakeagatik baizik. **Iñigo Aranbarri**

Terrorista haiek guri beste bonba bat jartzea loteria bi aldiz **tokatzea** bezain zaila zela esaten zigun maiz. **Mikel Hernandez Abaitua**

Eta frantziarrek badakite loteria gutxitan **tokatzen** dela. **Berria - Kirola**

Alferra, zuhurra, loteria **tokatutakoa** ... asko dute gaitzizenek jolasetik. **Iñigo Aranbarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berari tokatu (4); **bizitzea tokatu** (10); **bizitzea tokatu zitzaion** (3); **egitea tokatu** (7); **guri tokatu** (8); **guri tokatu zaigu** (3); **jokatzea tokatu** (3); **loteria tokatu** (4); **niri tokatu** (9); **niri tokatu zait** (4); **ona tokatu** (5); **parean tokatu** (3); **sufritzea tokatu** (4)

tokatu da (3); **tokatu zaigu** (18); **tokatu zitzaion** (30)

txarra tokatu (3)

egitea tokatuko (3); **sufritzea tokatuko** (3); **tokatuko zaigu** (4); **tokatuko zaio** (4); **tokatuko zaizu** (4)

tokatuz gero (5)

berari tokatzen (6); **bizitzea tokatzen** (3); **egitea tokatzen** (11); **guri tokatzen** (4); **hala tokatzen** (3); **jokatzea tokatzen** (3); **niri tokatzen** (3); **sufritzea tokatzen** (3); **tokatzen da** (15); **tokatzen zaio** (17); **tokatzen zen** (9); **tokatzen zitzaion** (12)

zer tokatzen (4)

tokau ik tokatu.

toke¹ iz joaldia.

Toke zorrotz bat aurrena, gero beste laburrago bi, eta gero deskarga entzuten genian... **Koldo Izagirre**

"Diana" **tokea** ere ezagutu uste izan nuen behin eta berriz, Motako Gazteluko tropak oro berehala esnatu nahi izan balituzte bezala. **Txillardegi**

Baina nik ezagutzen ez nuen beste **toke** bitxi bat ere bazetorren batera, diananarenekin nahasian, berau ere behin eta berriz errepikatua. **Txillardegi**

2 (hitz elkartuetan)

Korneta **tokeak**, berriz, ez zitzaizkidan batera arrotz gertatu: Urgulldik Donostiako kalera iristen zitzaizkigun berberak ziren-eta. **Txillardegi**

toke² iz ukitua.

Borrokari bere **toke** pertsonala gehitzen zion Turronek moduluan ere. **Jokin Urain**

Matiasek ez zekien berezkoak ziren mantxa marroiak, hau da, dekoratzailearen batek eginak, ala dutxa horretatik pasatutako pertsona guztien apartazioak; hain ziren **toke** marroixka haiek asistemakoak eta talante artistikoari emanak. **Unai Elorriaga**

Itsasoko **tokea** dueneko, Ipar-mendebala, noski, biak uztartzen dituelako. **Pello Zabala**

toketxo iz ikutu txikia.

Eta halako batean, hego-haizearen **toketxo** leuna hor arrimatuko da, bere laztana eskaintzera. **Pello Zabala**

toki (10738 agerraldi, 257 liburu eta 4024 artikulutan) 1 iz espazioko gune jakina. ik leku.

Leku eta **toki** guztietan daude konputagailuak. **Pello Salaburu**

Gai bakuna (atomoa) ez da **toki** jakin batean, leku mugatua betetzen badu ere. **Xabier Kintana**

Toki hau ez da ideia horiek finkatzeko leku egokia. **Isabel Arrigain**

Oroitu nahi ez dudan Mantxako **toki** batean. **Joan Mari Irigoien**

Luze erdian eskuinetik, Gattuso erdian, Di Vaio ezkerrean eta Del Piero Tottiren **tokian**. **Berria - Kirola**

Luzaideko beste **toki** batzuek galdu zuten izena; aldiz irauzketak beti atxiki du berea. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Elurak edozein **toki** basamortu bihurtzen du. **Bernardo Atxaga**

Toki hartara iritsi zirenean, [...]. **Askoren artean**

Eguzkia gelditu egin zen, eta ilargia **toki** berean tinko egon. **Elizen arteko biblia**

Osabak abiatu garen **toki** berean utzi nau, eta etxera joan naiz. **Xabier Etxabe**

Toki bateko hizkuntzaren eta beste **toki** batekoaren arteko desberdintasunak. **Isabel Arrigain**

Gagarin [...] guztiz galdurik, alde zurretik begiz jota ez zegoen **toki** batean lurreratu zen, nekazari harritu batzuen etxe aurrean. **Pello Salaburu**

Toki batetik bestera. **Eduarne Elizondo**

Tokia ez dut oso gogoan (taberna zenik ere!). **Anjel Lertxundi**

Egia erran, ainitz **tokitan** greba horrek bazuen halako mottel aire bat. **Herria**

Bolidoa zeruan ikusi ondoren, hamaika **tokitatik** hamaika dei jaso ziren larrialdietarako telefonoan. **Berria - Gaiak**

Trenez **toki** askotara joaten ohiturik zegoen. **Gotzon Garate**

Lagundu erregeari **toki** guztietara. **Elizen arteko biblia**

Edozein **tokitan** egonik, okerreko lekuan nagoela irudituko litzaidakek. **Patxi Zubizarreta**

Piztuera osteko barreetze nahitaezkoaren ondoren, auskalo zein **tokitara** jo zuen Mateo apostoluak. **Pello Zabala**

Joniako lur gero eta urrunagoari begira zegoen Tales; ordu arte bizileku izan zuen **tokiari**, alegia. **Jon Muñoz**

Ibaia ez da **toki** bat eta ez dago **toki** batean[...] edo esan dezagun badagoela eta ez dagoela, badagoela eta badabilela. **Iñaki Segurola**

Badakik non dagoen hire **tokia**: kale gorrian. **Jose Morales**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lau gorputz horietako bakoitzak berezko **toki** naturala dauka, berezia duena, eta ez da beste ezekin tokitan aurkitzen, bere naturarekin dirauen bitartean. **Xabier Kintana**

Antena **toki** egokian kokatzea eta emisorearekin lotzea duzu zailena. **Josu Landa**

Argazkiak egiteko **toki** egoki baten bila hasi zen. **Migel Angel Mintegi**

Dirudunen aisialdia alaitzeko elkarte pribatua baitzen hura, **toki** dotore eta diskretua, oso garestia. **Migel Angel Mintegi**

Bizitzeko **toki** zirtzila da Hastinga. **Aingeru Epaltza**

-Bidean zehar **toki** arriskutsu asko dago, eta lapur ugari bazterretan. **Patxi Zubizarreta**

-Beote baserria **toki** estrategikoa zuan. **Xabier Etxabe**

Lokarriak lausti egiten zuten, eta deabruak **toki** bakartietara bultzatzen zuten. Elizen arteko biblia
Inori azalpenik eman behar izan gabe iriteten naiz korrika, nekatu arte, **toki** babestu batera iritsi arte. Eider Rodriguez
Beharbada **toki** ezkuturen batetik barrandan ari zitzaion. Patxi Zubizarreta
Toki bazterra eta bakartia zen hura, eta ez zen inor edo ia inor igarotzen handik. Askoren artean
Larunbatero orkestra txiki batekin jotzen zuen Finlandia izeneko kabaretean, **toki** alai eta atsegina, **toki** bero eta abegikorra. Felipe Juaristi
Toki ezkutuak bilatzen zituen beti. Askoren artean
Hiriko **toki** gomendagaitzak bisitatzen hasi zen. Elena Touyarou
Gaitzeko **toki** airoa. Janbattitt Dirassar
Toki txarra ohea sekretuak gordetzeko! Migel Angel Mintegi

3 irud/hed

Ziur gaude, frantziskotar jatorriaren historian, **toki** guztiz berezia dagokiola Asisko Klarari, liburu honetan haren idazkiek duten bigarren mailako **tokia** baino handiagoa. Askoren artean
Susmoek ere bai baitute beren **tokia** -eta destokia, jakina-. Patxi Altuna
Herensugeak, berriz, **toki** oso zabala eta beldurgarria du euskal mitologian eta antzinateko ipuinetan. Gotzon Garate
Toki hau ez da ideia horiek finkatzeko leku egokia. Isabel Arrigain
Hemen, ohiko "Profeten Printzea" barik, "Jakintsuen Printzea" esaten zaio Moisesi, berau **toki** honetan goi mailako arazo metafisikoak jorratzen saiatzen delako. Xabier Kintana
Bertako idazleen artean, **toki** seinalatua dute I. Kusan, S. Novac eta Dubravko Pasek nobelagileek. Anjel Lertxundi
Bertsolaritzaren **tokia** euskararen komunitatean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Nire **tokia** hik hartzea nahi nitek. Bernardo Atxaga
Oroimenak **toki** finko eta zehatzak behar baititu atsedean hartzeko. Felipe Juaristi
Gezurrak egia **tokia** hartzen duenean, gezurtienek zintzoenak dirudite. Anjel Lertxundi
Sailkapenak jartzen du talde bakoitza bere **tokian**. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Maria Sarari begiratu zion, oso serio, **toki** -aldaketaren emaitza emakumeak toki hartan egiten zuten itxuraren arabera neurtuko bailuen. Jon Alonso

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa 'lokal' adieran; ik beherago10)

Toki zein erregio mailako egitura administratiboak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Agintari zentralak ez zeuden aldaketa hauek ezartzeko gogotsuago **toki** -agintariak pairatzeko baino. Iñaki Mendiguren
Toki -apezpiku bat, bere aulkia erromatar probintzia dioklezianiko baten erdigune zuena, beren nagusizat onartu zuten probintzia bereko beste apezpikuek. Iñaki Mendiguren
Gizarte Siriakoaren **toki** -komunitateetako batean indarrean jarritako legerian. Iñaki Mendiguren
Toki -gobernuak zuzentzeko giza baliabideak pixkanaka agortu egin ziren, eta gobernu zentrala, tokian tokiko administrazio-talentuaren gero eta eskasia handiago horren aurrean, [...]. Iñaki Mendiguren
Estatu unibertsal bat, **toki** -administrazio unitate artifizialki antolatuen hierarkiaren bidez erditik kontrolatua. Iñaki Mendiguren
Beraien lurraldeetan hainbat **toki** -estatu konkistatutako mendekoak sartzen dira. Iñaki Mendiguren
Agenda-21 **toki** mailan ari da ezartzen, ikuspegi globalik gabe. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Artean bizirik zirauten parroki estatuek barbaroen aurka zituzten **toki** -mugetan mendebaldartzen ari zen munduan. Iñaki Mendiguren
Beraien energia apurrak lurralde-zati txikiel buruzko **toki** -eztabaidetan ahitu zituzten. Iñaki Mendiguren

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bide bazterrean zegoen te- **toki** batean hasi zen zerbitzari. Gotzon Garate
Alboko kebab- **toki** txikian gelditu behar izan dut. Jon Arretxe
Vistula larre- **toki** hotzetatik atera. Iñaki Mendiguren
Sakana aldeko Unanua aldean -izotz **tokia**, izotz parajerik bada, Sakanakoa-, honela diotsate: [...]. Pello Zabala
Egun hartan, zilarrezko mila txanpon balio zituen mila landareko mahastia sasi- eta lahar- **toki** bihurtuko da. Elizen arteko biblia
Beraren harkaitzak zafiro- **toki** dira, beraren hautsetan urrea aurkitzen da. Venezuelako kostan oraino ere geratzen diren perla- **toki** bakanetan. Elizen arteko biblia
Agertu ziren, bada, biak filistearren gudari- **toki** aurrean. Elizen arteko biblia
Bost anaia ditut eta; jar ditzala jakinaren gainean, beraien ere oinaze- **toki** honetara etor ez daitezen. Elizen arteko biblia
Kartierraren erdiko hesiaren beste aldean, bakartasun **tokiko** zeldak. Filipe Bidart

7 (espazioa, tartea)

Etxe handia zela, bazegoela **tokia** biendako. Alberto Barandiaran
Garrantzi handikoa da lanaren orrialde bakoitzean irakurleak, irakurri bezain laster, bere iruzkinak idazteko **tokia** izatea, hau da, eskuinean eta ezkerrean **toki** nahikoa uztea (2-3 zentimetro). Askoren artean
Hala gertatzen da, kasu, Liébanako Beatoaren ilustratzaileak egindako mapan, non Egiptok edo juduen herriak Asiak baino **toki** handiagoa hartzen duten. Bernardo Atxaga
Zer ehundura finekoa eta zer **toki** txikian kabitzekoa den, pilatu ahal balitz. Xabier Amuriza
Liburutegiak hartuko lukeen **toki** hipotetikoa zuen eztabaidak ardatza. Anjel Lertxundi
Seminario handiari solairu bat gehiago egin, apezgai batzu binaka zirelako geletan **toki** eskasez. Xipri Arbelbide
Zeren, alde batetik, nola burezurak gorputz osoak baino **toki** gutiago hartzen duen, ale gehiago sar baitzitzakeen espazio berean. Jerusalem **toki** bakarti bihurtua zegoen. Joan Mari Irigoien
Horregatik hartzen dute horrenbeste **toki** arauak eta oharrek. Patxi Altuna
Gaur ez dago automobila uzteko **toki** problemarik Ospitalean. Xabier Etxabe

8 (esaldi hanpatuetan leku atziki mugagabe batekin, urruntasuna-edo adierazteko)

Tokitan egongo dun dagoeneko gure Adam zaharra! Anjel Lertxundi
Tokitan daude usoak!... Jose Angel Irigaray
Tokitan egongo dituk honezker! Anjel Lertxundi
Tokitan geundeke, denekin asmatu nahi bagenu...! **Tokitan** gelditzen da gure odol baskoi mitikoa! Pello Zabala
Tokitan ! Bernardo Atxaga
Toki ederrean gaude gu haien ondoan... Xabier Etxabe

9 (sailkapen, hierarkia edo kideko batean) ik postu.

Arrazoinamendu hau egin dezakegu, hizkuntzari mintzairaren estudioan lehen **tokia** ematearren: [...]. Isabel Arrigain
Seigarren **tokian** dira, baina Txapeldunen Ligako postuak bi puntu eskasera dituzte. Berria - Kirola
Arranoak 14. **tokian** dira Ligan, Fenerbahce eta Trabzonspor liderrengandik 16 puntura. Berria - Kirola
Diru aldetik ere izango duzue alderik zazpigarren **tokian** ala hamaikagarrenean amaitu, ezta? Berria - Kirola

10 **tokiko** ik lokal 4; leku 8. (ik goraqo 5)

Mirari handi hau zinez eginez baieztatua izan zen, eta bereziki **tokiko** gotzainaren sinaduraz indartua. **Askoren artean**
Eliza aitzinean abandonatu haur bastarta Sarara itzuliko zen, **tokiko** agintari nagusiena bilakaturik. **Elena Touyarou**
Tokiko erakundeen bitartekoen urritasunak ez du ordea krisiaren dimentsio globala ezkatatu behar. **Koro Navarro**
Laster ohartuko nintzen ez zuela hark deus ikustekorik nik gogoan nuen "lurraldearen idazketaren" gaiarekin, bai ordea, anitz, **tokiko** instituzioek politika erregionalista baten barnean, idazketatik [...] atera zezaketan probetxuekin. **Aurelia Arkotxa**
Barruti bakoitzean euskarazko **tokiko** telebista bat behar dela diote euskalgintzak eta komunikabideek. **Berria - Harian**
Tokiko merkataritza nekazariaren bigarren mailako jarduera zen, eta xehekako salerosketa baino ez zen haietan egiten. **Koro Navarro**
Tokiko merkataritza eta esportaziozko merkataritza gero eta zorrotzago bereiztea. **Koro Navarro**
Haustura horrek gizarteko eta hiri handietako periferiako bazterretara zokoratzen ditu **tokiko** kapitalismoak ezin xurgatu dituen giza masak. **Koro Navarro**
Tokiko trafikoa, berriz, %10 jaitsi da. **Berria - Ekonomia**
Euskara batu orokorraren barruan, **tokiko** batuak bereizi behar lirateke. **Koldo Zuazo**
Deia **tokiko** dei baten prezioan ordaintzen da. **Berria - Harian**
Tokiko Agenda-21 lanabes bat da, eta bere helburua norbanakoengan zein gizartean aldaketak eragitea da, garapen iraunkorrerako bidea aukeratzearren betiere. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarraide**

11 toki egin (orobat tokia egin) ik leku 9.

Bera, hiri erdian autoak anbulantziari **toki egiteko** baztertzen diren gisara erretiratu zen, niri pasatzen uzteko. **Patxi Zubizarreta**
Ate ondoko hormari zegokion espazioan, artelan modernoxeago bati **toki egin** zioten, Agure Jaunak behinola paper-denda bateko erakusleihoan begiz jo zuen harixe. **Mirentxu Larrañaga**
Telebista-programa hasi zen eta gainerako hedabideek ere **toki egin** zioten bertsolaritzari. **Andoni Egaña**
Zenbait erraz eta txukun antolatuturik, eskatu bezala datozkit eta lehengoek oraingoari **tokia** egiten diote, eta **toki eginez** gorde ohi dira, berriro nahi dudanean ateratzeko. **Imanol Unzurrunzaga**
Mendeetan agintari zurien jazarpena jasan ondoren, **tokia egin** diete indigenei hiriburuko boteregune nagusian. **Berria - Gaiak**
Zeuek ikusi duzue nola jokatu duen Jaunak, zeuen Jainkoak, herri horiekin, zuei **tokia egiteko**. **Elizen arteko biblia**

12 toki eman ik leku 10.

Ordea den tokietan batik bat, zeren malkar eta mailo, aldapa eta pendizak dituenak, hobe du artzaintzari **toki ematea** edo ikasi du eskarmentuz, pinuak ere baliorik baduela gure inguru hauetan. **Pello Zabala**

13 toki izen ik leku 12.

Ondoren jentilizioak, **toki izenak** eta hizkuntzak agertzen dira. **Berria - Euskal Herria**
Euskal **toki izen** asko itxuragabetu egin dira, erdarazko hitzak, artikulua edo preposizioak gogoan. **Iñaki Arranz**
Zarauztik Usurbilera bitarteko baserri eta **toki izen** guztiak errepasatu zizkian. **Xabier Etxabe**
Erdi-Aroan agertu ziren deiturak, emeki emeki, lekua aise berantago berdin, eta deitura aintz moldatu zen denetan ere **toki izenetarik**. **Herria**
Ez zekien batere zergatik edo zer bidez etorri zitzaion ahora **toki izen** hura. **Matias Mujika**
"Asia" terminoa, badirudi Kaistro ibaiaren ibarrean zegoen zingira baten garaiko **toki-izen** batetik datorrela. **Iñaki Mendiguren**

14 toki onean (utzi eta kideko aditzekin)

Esero diat **toki onean** utziko duzuela neure hitza. **Inazio Mujika Iraola**
Horrela, oso **toki onean** geldituko zara mahaikide guztien aurrean. **Elizen arteko biblia**
"Eta ama Carola Properi", esaten zuen harro, Alberto aitaren begitan **toki onean** uzte aldera. **Fernando Rey**

15 toki txarrean (utzi eta kideko aditzekin) ik leku 13.

Amen saikapenean hamar puxtarri dagozkio patata tortillari, ezin baita norberaren ama **toki txarrean** utzi. **Unai Iturriaga**
Beraren lotsagabekeriagatik **toki** txarrean gera ez zaitezten. **Elizen arteko biblia**
Niri ez dit axola ni zuzen nengoen ala ez frogatzea, zuek ongi egitea baizik, nahiz eta ni **toki txarrean** gelditu. **Elizen arteko biblia**

16 tokiak hustu ik leku 14.

18ak irian, **tokiak hustuko** ditu bere "papamobilean", hegazkinez airatzeko 20ak irian. **Herria**
Honek hitzordurik ez zutela jakinarazi zien manifestariei eta Poliziarri **tokiak husteko** agindua eman zion. **Berria - Euskal Herria**
Giro ona zen bereziki beskoiztar euskaldunen artean, azkenak izanki urte guziet bezala **tokiak husteko**. **Herria**

17 -en tokian -en orde.

Bidezkoa da, beraz, ni ere haien **tokian** jartzea eta haiek sufritzen dituzten behar berberak sufritzea. **Imanol Unzurrunzaga**
Onartuko balu haren **tokian** hiltegiara igo eta burugabe gelditu[...]. **Felipe Juaristi**
Ingok behar luke zure **tokian**. **Anjel Lertxundi**

18 tokian-tokian tokika; toki guztietan. ik leku 15.

Antolatzaileek argudiatu dutenez, urarekin loturiko arazoek **tokian tokian** eragiten dituzte kalte handienak, edozein dela sorburua. **Berria - Gaiak**
Itzulpenarekin bertsolaritzaren funtsa, esentzia zenbateraino jasotzen duten galdetuta, «**tokian-tokian** desberdina» dela aitortu digu. **Berria - Kultura**
Handik gutxira 50 herri batzorde baino gehiago zebiltzan hesiaren kontra **tokian-tokian** lanean. **Berria - Harian**
Beharrezko zuzenketak egingo dira probintzia mailan edota **tokian-tokian**. **Berria - Ekonomia**
Tokian-tokian txakurrak ortozik. **Lutxo Egia**

19 tokian tokiko ik leku 16.

Bertsolaritzaren beste adierazmaila bat talde-jolasa da, **tokian-tokiko** bertso-eskoletan garatzen den ahozko jardun ludikoa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Guduketa asko eginez, gotorlekuez jabetu eta **tokian tokiko** erregeak hil zituen. **Elizen arteko biblia**
Mugimendu ekologisten artean ere pixkanaka **tokian tokiko** mugimenduak indartzen dira. **Pello Salaburu**
Bidean, gainera, **tokian tokiko** lagun askok bat egin zuen nafarren iballdiarekin. **Eduarne Elizondo**
Hemen literatura hizkuntzaren eta **tokian tokiko** dialektoen artean dagoen auzi handia ageriratzen da. **Isabel Arrigain**
Tokian tokikoa ekoizti, garatu, prestatu, txukunduko da, kopuru txikian baina kalitate onari eutsiz. **Edorta Agirre**
Gero, samako lokarritxo eta beste, ohitura eta usadio mila sortu izan dira, **tokian tokikoak**. **Pello Zabala**
Tokian-tokikoaren errespetua edo subsidiaritate printzipioa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Tokian tokikoa, sasoiaren sasoiak. **Edorta Agirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

aski toki (22); bil toki (17); bizi zaren toki (8); edozein toki (9); egiteko toki (10); euskal herriko toki (11); munduko toki (10)

toki alai (12); toki anitzetan (7); toki aproposa (18); toki arraroan (7); toki asko (13); toki askotan (72); toki bakarti (12); toki bakoitzean (10); toki bakoitzeko (7); toki batetik bestera (16); toki berean (184); toki berera (15); toki beretik (12); toki berezi (27); toki berezi bat (16); toki berezia (20); toki berri (8); toki berriak (7); toki bertsuan (7); toki bila (8); toki desberdinetan (16)

toki eder (24); toki ederra (20); toki ederrean (14); toki egoki (8); toki egokia (20); toki egokian (15); toki egokiena (7); toki eskasez (8) toki garai (7); toki garrantzitsua (8); toki gehiago (40); toki gehienetan (11); toki gutxi (8); toki guztietan (15); toki guztietan (115); toki guztietara (13); toki guztietatik (10); toki handia (33); toki handiagoa (8)

toki izen (9); toki jakin (20); toki jakin batean (7)

toki ona (38); **toki onean** (7); **toki osoa** (19); **toki pollita** (8); **toki publiko** (8); **toki publikoetan** (11); **toki santu** (21); **toki santua** (10); **toki seguruan** (8); **toki telebista** (8); **toki txarrean** (9); **toki xoragarri** (9)

bakoitzak bere tokia (7); **behar duen tokia** (9); **bere tokia** (180); **bere tokia aurkitu** (7); **dagoen tokia** (7); **egiteko tokia** (13); **euskarak bere tokia** (10); **euskararen tokia** (8); **hartzeko tokia** (9); **lagunentzako tokia** (11); **lan tokia** (7); **lehen tokia** (21); **taldean tokia** (14)

tokia aurkitu (19); **tokia behar** (13); **tokia bete** (15); **tokia beteko** (11); **tokia beteko du** (8); **tokia betetzeko** (10); **tokia betetzen** (7); **tokia dago** (8); **tokia du** (23); **tokia egin** (31); **tokia egin nahi** (8); **tokia egitea** (18); **tokia egiteko** (25); **tokia egiten** (14); **tokia eskas** (7); **tokia hartu** (48); **tokia hartu zuen** (10); **tokia hartuko** (21); **tokia hartuko du** (12); **tokia hartzea** (7); **tokia hartzeko** (12); **tokia hartzen** (20); **tokia izan** (30); **tokia izango** (27); **tokia izatea** (12); **tokia segurtatu** (7); **tokia ukan** (7); **tokia utzi** (13); **tokia uzteko** (7); **tokia uzten** (7)

utzitako tokia (7)

tokiak mugatuak (12)

bakartasun tokian (7); **bakoitza bere tokian** (22); **behar den tokian** (16); **behar zuen tokian** (11); **bere tokian jarri** (7); **bere tokian utzi** (9); **betiko tokian** (14); **bigarren tokian** (10); **dagoen tokian** (74); **dagokion tokian** (10); **dauden tokian** (23); **dauden tokian daudela** (7); **deitu tokian** (14)

gauden tokian (14); **gauzak bere tokian** (12); **halako tokian** (9)

laugarren tokian (7); **lehen tokian** (25); **lehengo tokian** (24); **mendeala deitu tokian** (8); **nagoen tokian** (9); **nahi duzun tokian** (13)

tokian berean (148); **tokian berean izanen** (9); **tokian bertan** (28); **tokian dago** (20); **tokian dagoela** (8); **tokian daudela** (7); **tokian dira** (10); **tokian ezarri** (9); **tokian gelditu** (8); **tokian jarri** (23); **tokian jartzeko** (7); **tokian jartzen** (13); **tokian sartu** (10); **tokian tokian** (23)

tokian tokiko (395); **tokian tokiko administrazioek** (7); **tokian tokiko gobernuei** (10); **tokian tokiko gobernuek** (10); **tokian tokikoa** (13); **tokian tokikoak** (16)

tokian utzi (11)

utzitako tokian (7); **zegoen tokian** (34); **zegokion tokian** (7); **zein bere tokian** (7); **zeuden tokian** (7)

tokietan gertatzen (8)

tokiko administrazioek (9); **tokiko agenda** (10); **tokiko agintariak** (8); **tokiko erakundeen** (7); **tokiko gobernuei** (10); **tokiko gobernuek** (10); **tokiko jendeak** (8); **tokiko jendearen** (7); **tokiko jendeen** (7); **tokiko telebista** (18); **tokiko telebisten** (11)

dagoen tokira (11); **esandako tokira** (12); **gertatu zen tokira** (8); **izeneko tokira** (8); **nahi zuen tokira** (10)

tokira eraman (11); **tokira eramango** (7); **tokira iritsi** (15); **tokira itzuli** (15); **tokira joan** (20); **tokira joateko** (7)

zegoen tokira (34)

zegoen tokiraino (8)

ez dago tokirik (7); **ez du tokirik** (23); **ez dute tokirik** (7); **ez zuen tokirik** (9); **tokirik egokiena** (7); **tokirik gabe** (18)

ainitz tokitan (65); **asko tokitan** (49); **beste edozein tokitan** (12); **beste hainbat tokitan** (25); **beste zenbait tokitan** (11); **bi tokitan** (12); **edozein tokitan** (68); **hainbat tokitan** (104); **hiru tokitan** (7); **lau tokitan** (12); **zein tokitan** (16); **zenbait tokitan** (93)

dagoen tokitik (13); **gauden tokitik** (7); **tokitik atera** (8); **tokitik gertu** (13); **tokitik mugitu** (8); **zegoen tokitik** (22)

tokiz aldatu (19); **tokiz aldatzea** (15); **tokiz aldatzeko** (7); **tokiz aldatzen** (9); **tokiz kanpo** (31); **tokiz kanpoko** (10); **tokiz kanpokoak** (7)

tokialdatu, tokialda, tokialdatzen da/du *ad* tokiz aldatu. ik lekualdatu.

Aladinek istantean kendu zion aldean zeukan argiontzia, eta jeinuari jauregia Txinara **tokialdatzeko** agindu. Patxi Zubizarreta

tokigune *(orobat tokiune)* iz tokia.

Aire horri erreparatu, eta ikus dezagun nolatsu dagoen momentu eta **tokigune** jakin konkretu batean. Pello Zabala

Familia talde batzuk ezkutuan jarri nituen, harresiaren azpialdean, ezpata, lantza eta uztai-geziekin, harresiek babesik ez zuten **tokiuneetan**. Elizen arteko biblia

tokika 1 *adlag ipar* toki batzuetan. ik lekuka.

Birla jokoa edo birleta, **tokika** erraiten den bezala, ez da oraikoa. Herria

Purtzupilatua baino gehiago ere, **tokika** urratua, petatxuen behar gorrian. Herria

Bazen ere bide bat, edo hobeki erraiteko bidexka bat, **tokika** galdua haatik iragan mende hortan. Herria

Eta denen gainera, gaitzeko uholdeak **tokika**. Herria

Hegoaldeko beilek **tokika** badute haatik berezitasun bat: Ama Birjina" beltzak" dira ohoratzen. Herria

Aroa aski gozoa zen, **tokika** bero baliu bazen ere. Herria

Tokika oren erdi bat eta bertzetan oren bat uzten ahalko da bere autoa, handik harat prozedura bat ukanen da. Herria

Enetako eliza zen batasunaren etxea, Aitaren etxea, haur guziak biltzen zituena, eta hemen berean hoinbertze muga gogoraatzen zauzkit! Aitaren haurrak **tokika** emanak, elgarrekin nahasi behar ez balute bezala! Michel Oronoz

2 *tokian tokika*

«Kantonamenduetako militante abertzaleek tokian **tokika**, afera trinkatu beharko lukete, egin ahala zerrenda bateratuak egiteko gisan» dio Matalasen agiriak. Berria - Euskal Herria

tokiko ik toki 10.

tokikotasun iz tokikoa izateko nolakotasuna edo zertzelada.

Populazio handiagoko eremuetan telebistagintza lokala egiteko aukerak agortu egin dira eta **tokikotasuna** alboratu egin da. Berria - Harian

Tokikotasunaren definizioa gehiago zehaztu behar dela diote. Berria - Harian

Alderdi ekonomikoari dagokionez, egiten ditugun proiektuen arabera ematen digute dirua, baina, proiektuez gain, badugu beste balio erantsi bat: euskalgintzan

tokikotasunaren ikuspegia zabaldu eta horretan lan ordu asko sartu dugula; baina hori ez da inon islatzen. Berria - Euskal Herria

tokilaso iz aitonaren edo amonaren aitona.

Gaizki ulertu ez banion, emakumearen **tokilaso** behar zuen Iturrinok. Anjel Lertxundi

Beldurra eta ezina, biak batera adierazten zituen suspirio bat irten zitzaion emakumeari: -Markesa! -eta gero erantsi zuen:- Iturrino, nire **tokilaso**, markesaren morroia zen.

Anjel Lertxundi

tokilla iz artilezko xala.

Hennek **tokilla** batez estali zuen bere gorputz biluzia, eta kandelak bezalaxe hasi ziren haren litsak erretzen. Koro Navarro

tokiotar *izlag/iz* Tokiokoa, Tokiori dagokiona; Tokioko biztanlea.

Abiadura supersonikoa hitz egiteko ohitura dute **tokiotarrek**, errietan ari direnean bereziki. Joxan Elozegi

tokitu, toki(tu), tokitzen du *ad* toki jakin batean kokatu.

Taldean biltokiak ere ez dituk zehatz-mehatz **tokitu** -orritz orri, ozenki irakurri nuen handik eta hemendik-: "auzoberriko etxabe batean biltzen dira"... "Alde Zaharreko soto batean egiten dituzte beren zeremoniak"... "Hiritik kanpo batzartzen dira, borda batean"... Aingeru Epaltza

tokitxo 1 *iz* toki txikia edo apala. ik **lekutxo**.

Plazako ostatuen kanpoko mahai eta kadirak hartuak daude; atzeman dut halere **tokitxo** bat. Piarres Aintziart

Astiro-astiro paseoa gindoazela **tokitxo** polit bat aurkitu genuen, eta atseden hartzera eseri ginen han. Josu Zabaleta

Jendetzan zehar barneratu zen, musikariez eta ikuskizunaz gozatzeko **tokitxo** baten bila. Patxi Zubizarreta

Harago, **tokitxo** karratu batzuk hondar-ontzia eta tintontzia gordetzeko, eta, haien artean, txalupa-formako hutsune bat idazlumarako, lakrerako eta, oro har, gauza luzangetarako. Jose Morales

Nola ez naiz ba ados egongo lorategian **tokitxo** bat gordetzearekin konpostajea prestatzeko? Berria - Euskal Herria

Orduan emaiten zuen ezen marmolak ere bere bihotza zuela, eta bihotz hartan bozkarioak ere bere **tokitxo**a zuela. Joan Mari Irigoien

Munduan barrena asko ibiliagatik, Iruñeak lortu du **tokitxo** bat zure bihotzean, ezta? Berria - Kirola

Erakusketan erosi zuen alfonbra pertsiarri, **tokitxo** bat egin zien Whittaker andreak beraren etxean. Mirentxu Larrañaga

Berau ere ilusioz beteta etorria zen Europara, zinemaren munduan **tokitxo** bat egiteko asmoz ustez "glamour" zerion Parisera, eta, ni bezala, bera ere konturatu zen geroak zer zekarkion ilusio faltsuzko paradisuari. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere tokitxoa (4)

tokiune ik **tokigune**.

tokoginekologia *iz* medikuntzaren adarra, tokologia eta ginekologia biltzen dituena.

Traumatologian, **tokoginekologian** eta psikiatريان egin zen kontsulta gehien. Berria - Euskal Herria

Ospitale publikoek kanpoko kontsulta espezializatuei dagokienez, honela banatu ziren: 478.715 traumatologiakoak, 315.485 **tokoginekologiakoak** eta 263.518 psikiatriakoak. Berria - Euskal Herria

tola *iz* xafla.

Hemen ez da asegurantza sozialik, eta "poblacion" edo auzo pobre huntan eskasia gorrian dira; geriza xumeak, taula zahar eta **tolez** estaliak. Herria

tolare ik **dolare**.

tolatxo *iz* xafla txikia.

Erosten diot **tolatxo** bat, eskuin aldean, erliebe sotil batean Santiago erromesaren itxura daukala, eta ezker, egun egin dudan bidea. Piarres Aintziart

toldo *iz* olanazko estalkia, eskuarki itzal egiteko erabiltzen dena.

Itsasoari begira jarri gara elkarrizketa egiteko, Zarauzko Narros jauregiaren parean, hondartzetako **toldoetatik** eserleku bana hartuta, horma guztiei bizkarra emanda. Berria - Euskal Herria

Zutoinak sartuak zituzten, sokak tenkatuak, eta, azkenean, **toldoa** zabaldu zuten. Patxi Zubizarreta

Zurezko ferry txiki baten bizkarrean daude, **toldo** marradun baten azpian, koktel eta freskagarri exotikoz beteriko mahai borobilen inguruan eroso eserita. Patxi Iturritegi

Nik leihatilatik begiratu nahi nien, baina ezin nuen **toldo** zabaldua zela eta. Erdi etzanda jarri zen eserlekuan, gora begira, **toldo** zuri-horiari. Pello Lizarralde

Zamarrak osatzen zuen **toldo** tinkatuak berak eutsi zion zabalik leihotxoari. Koldo Izagirre

Arrastodun **toldozko** aterpea eta zurezko aulkiak eta mahai txikiak espaloian. Iñaki Zabaleta

toldope *iz* toldoaren azpialdea.

Hura zirrara gurea bizikleta beltz astun haietan jarrita urrundu direnean **toldopeak** ikertzeari lagata laugarren biltegira buruz abiatzen gara! Koldo Izagirre

Kafe bat eskatu eta terrazako **toldopean** kokatzen ginen. Bernardo Atxaga

Toldopean, hiru gazte mahai baten bueltan, zerbeza txarrotik edalontzietara ateratzen. Iñigo Aranbarri

Pertsiana guztiak jaitsita daude adreilu gorriko txaletean, eta **toldopeko** hamaka urdinak hutsik terrazako mahai zuriaren bueltan. Patxi Iturritegi

toleamendu *iz* estira.

Azkenik elizaren kanonek debekatzeko dituzte **toleamenduak** [...] halako gisaz non, jolas artetik hiltzen dena, aitzinetik konfesatu eta komuniatu balitz ere, ez baita zilegi hilerrri sainduetan ehorztea: eta zezen lasterrak **toleamenduak** iduriak dira; beraz haientzat ere lege bera da. Piarres Xarriton

toledotar *izlag/iz* Toledokoa, Toledori dagokiona; Toledoko biztanlea.

Han bilatu zuten: baieta berdezko gorontza soinean, **toledotar** boneta koloreduna kaskoan. Patxi Ezkiaga

Puntu horretan unanimitatea osoa da Rouco kardinala eta Eliz Hierarkia **toledotarrenetik** progresia espainol laizisteneraino. Joxe Azurmendi

toleraezin *izond* ezin toleratuzkoa.

Esatea, ordea, **toleraezina** da. **Pablo Sastre**

Zehaztugabetasun hura **toleraezina** iruditu zitzaidan, zinikoa eta mingarria. **Karlos Linazasoro**

Copjec-ek ondorioztatzen duenez, gaur egungo gizartearen **toleraezinek**o plazera bera da. **Joseba Zulaika**

toleragaitz *izond* toleratzen zaila dena, ia toleraezina.

Hogeigarren mendearen bigarren erdiaren hasieran baziren kapitalistak eta komunistak, haien aurreko katoliko eta protestanteak bezalaxe, benetako fedearen (berenaren) eta heresia gaitzesgarri baten (etsaienaren) artean gizartearen leialtasuna banatuta uztea denboraldi mugagabe batez ezinezkoa eta **toleragaitza** aurkitzen zutenak. **Iñaki Mendiguren**

toleragarri *izond* tolera daitekeena, toleratzeko modukoa.

Zibilizazio bat behin-behinean azterketa-eremu ulergarri izan daitekeen bitartean, Jainkoaren Erkidegoa da moralki **toleragarri** den ekintza-eremu bakarra, eta *Civitas Dei* horretan kide izatea eskaintzen diete giza arimei erlijio nagusiek. **Iñaki Mendiguren**

tolerante *iz* tolerantziaren aldekoa dena. ik **jasanbera**.

Errurik gabeko ezjakintasunaren aurrean **tolerante** izatea zein ausarkeriaren aurrean jasankorra izatea prestakuntza moral onaren seinalea da. **Jon Alonso**

Peter bakezalea da, amore ematen dakiena, eta **tolerantea**. **Josu Zabaleta**

Herri honetako jendea **toleranteegia** da. **Lopez de Arana**

Bizantziorekin eta lehen mendeetako islam **tolerantearekin** egiten den merkataritza eskertzen. **Koro Navarro**

Bakoiak nahi duen hizkuntza erabiltzeko printzipioa soilik itxuraz da liberala eta **tolerantea**. **Markos Zapiain**

Azkenean beren burua engainatzen dute, edozein gizontto arruntek bezainbeste, gehienetan onberatasun ironiko eta **tolerantearekin** hartzen duten gizontto arruntek bezainbeste. **Jon Alonso**

Estatuaren eta gutxiengo nazionalen arteko harremanen auziari modu **toleranteago** batean aurre egitea. **Berria - Harian**

Kultura ezberdinen arteko elkarlan **tolerante**, betekorrean. **Joxe Azurmendi**

Eskola arrazional eta **tolerante** mendebaldar neopaganoen azken belaunaldia izan ziren. **Iñaki Mendiguren**

Hamakada hartako gizartea ez zetorren bat erlijio kristauaren arauarekin eta filosofia **toleranteago** baten bila hasi ziren. **Berria - Gaiak**

Ez zuten eragotzi inolako jazarpen ofizialek, arrotza izango baitzen Zibilizazio Indikoaren erlijio-ethos **tolerante** eta sinkretistikoarekiko. **Iñaki Mendiguren**

tolerantzia 1 *iz* besteren pentsamolde eta jarduerak errespetatzen dituenaren jarrera.

Tolerantzia beti izan da diferentziaren eta "desordenaren" babeserako printzipioa. **Joxe Azurmendi**

Jabego pribatua eta **tolerantzia** izan behar ziren, haien ustetan, giza askatasunaren berme nagusiak. **Piarres Xarriton**

Tolerantzia hau, antimilitarismoaren forman, abantailatsua gertatuko da kanpotar erasokorrenzat: barbaro edo auzoko zibilizazioentzat. **Iñaki Mendiguren**

Alexiok [...] gogo txarrean gurutzatuenganako izan zuen **tolerantzia** hori aldatu egingo zen bilobarekin. **Iñaki Mendiguren**

Gobernu berriak «negozio ilunekin, zero **tolerantzia**» izango duela agindu du Papandreuk. **Berria - Mundua**

Etorkinekiko **tolerantzia** gero eta txikiagoa da. **Berria - Euskal Herria**

Adituek uste zuten agintariak ustelkeriarekiko duten «**tolerantzia** ezaren eredu gisa» Duc Manh ere zigortuko zutela. **Berria - Mundua**

Erljio horien arteko **tolerantzia** ere bermatu behar dute. **Iñaki Iñurrieta**

Mendebaldean izandako aldaketa psikologiko bat zen, erlijio-fanatismo intolerantetik erlijio-gabeko **tolerantziara**. **Iñaki Mendiguren**

Garaipenaren orduan kristau-martiriaren amorerik ez ematea kristau-jazarlearen **tolerantziarik** eza bilakatu zen. **Iñaki Mendiguren**

Tolerantziak mozorrotutako indiferentzia. **Berria - Kultura**

Besteengandik laguntza edo gutxienez **tolerantzia** lortu nahian. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **tolerantzi**)

Elkartasun edo **tolerantzia** printzipioei azpia jaten dieten gizarte zatiketa eta tribalismoa. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Merkatuak uniformetasunera jotzen du, baina joera horrek ez ditu **tolerantzia** faktoreak ongi egokitzen herrien bizi-erperientziak bideratzeko hainbat gaitasun dagoenean. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Jokabide horrekin euren **tolerantzia** maila erakutsi dute. **Koldo Zuazo**

Jendetasun eta **tolerantzia** eskolak nekez jasaten nituen Tipi garai bateko doktrinarioarengandik. **Aingeru Epaltza**

Tolerantzi giroak, hasiera mesedegarria ematen dionak, ez du beti irauten prozesuaren bukaera arte. **Iñaki Mendiguren**

Tolerantzia aldiaren zegoen, begitartea mutu, jendetasuna zuzen betez, axolagabetasun plantan. **Karlos Zabala**

Bazterketa eta **tolerantzia** falta, hitz horiek laburbiltzen dute egokien gure kulturak [...] desberdinak direnekin duen jokaera. **Luis Elberdin**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erljio- **tolerantzia** eta jakin-min intelektualaren giro bikaina. **Iñaki Mendiguren**

4 organismo batek arrotza zaion zerbait bereganatzeko duen gaitasuna.

Ebakuntza-mahaian dagoen gaixoak ez du hainbesteko **tolerantzia** mailarik, eta globulu gorriak suntsitzeak mugatu egiten du makinaren erabilera. **Irene Aldasoro**

Zientzialariok diotenez, amak **tolerantzia** gutxiago du enbrioi eta fetu ahulagoen aurrean, eta bat-batean abortatzen ditu. **Berria - Gaiak**

5 **tolerantziako etxe**

Emakumeekin izan nituen harremanak ez ziren pasatu, Lakatos lagunak kontsegitu zidan neska ijito hura kenduta, zenbait aldiz **tolerantziako etxe** horietako batean dirua pagatuta neska bat -esan dezagun horrela- "niretzetik". **Matías Múgica**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errespetua eta tolerantzia (3); **zero tolerantzia** (4)

tolerantziaren aldeko (4)

toleratu, tolera, toleratzen du *ad* besteren pentsamolde eta jarduerak errespetatu.

Estatu batean beste erlijio bat onartzeko edo ez onartzeko aukera dagoenean, ez da onartu behar; lehendik ezarrita dagoenean, ordea, **toleratu** egin behar da. **Iñaki Iñurrieta**

Greziaiko errepublika guztiek **toleratu** zuten suizidioa; legegileek aurreikusitako gaia zen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Sekta-huek guztiak, enperadoreak **toleratuak** nahiz ezkutuan bizi izenak, ezin zuten elkar jazarri, denak magistratu erromatarren menpe baitzeuden. Juan Martin
Elexpuru

Ni gizona naiz, eta orain arte ziur nongoen sexua gizonen kontua dela, emakumeek **toleratu** egiten dutela maitasunaren truke. Juan Martin Elexpuru

Funtsean ez dakite bestea/bestelakoa **toleraten**; diferentzia bera zaie, funtsean, jasangaitza; eta, azkenean, haren identitatea da erro-errotik ezabatu nahi luketena. Joxe Azurmendi

toles 1 *iz* gai malgu baten zatia, bere beste zati baten gainean, lodiera bikoiztuz, biltzen dena. **iktolestura**; **izur**. (tela eta kidekoena)

Buru-zapiaren **toles** bat baino ez zezakeen begizta eta gorrimez koloreztatuta zituen masailen zati bat. Mirentxu Larrañaga

[Uil-en jantziak] hain ziren handiak, non hiru **toles egin** behar izan baikenizkion besoetan eta galtzen azpilduretan. Juan Kruz Igerabide

Moztu gabeko oihal-zati bat bizpahiru lekutan josi, eta hain **toles** ederrak osatuz egokitu eta itsatsi zitzaion gorputzaren inguruan. Jose Morales

Aurpegiara, eskuen mugimenduak, soinekoaren **tolesak**, bazirudien norabide berean oldartzen zela dena, eta bera ere hegan ateratzen zela bere hitzekin batera. Jose Morales

Gonaren **tolesen** farfailaren atzetik joan zitzaion ama, ate nagusia itxi eta gero. Anjel Lertxundi

Bere berokiaren **tolesetik** atzamar mutur bat agertu zen. Anton Garikano

Zehaztezina zuen galtza; galtzaren **tolesa**, ordea, ezin bikainagoa. Jon Muñoz

Maindirearen **tolesen** artean. Jon Muñoz

Hil-oihala zela eta ez zela, Abas galdekatzeari ekin zion: nolakoa zen, zein koloretakoa, zenbat **toles** zituen. Patxi Zubizarreta

Beste batzuek losintxa egiten dihardute, oihalaren gelditasunetik; eta denek dute zertxobait, lore bat, bitxi bat, arroparen **toles** bat, ezpain izur bat, margolariak deigarri jarria. Josu Zabaleta

Toles bat josten ari baitzen lasai-lasai. Julen Gabiria

Duke handiak gutuna hartu eta haren **tolesak** zabaldu zituen. Karlos Zabala

Eskupeko diru zikinak onartzen zituztenak eta errefusaten zituztenak, **tolesez** beteak, **tolesez** erdi beteak eta **tolesik** gabeak. Jose Morales

2 (bestelakoena)

Bat-batean, haren larruazal tenkatua, denboraldi batez zimurrez gabetua, **toles** txiki ugaritan bildu zen, eta leku batzuetan dingilizka zeukala zirudien. Jose Morales

Haren aurpegia, ahizparena baino osasuntsuagoa, dena zen izur eta **toles**, sagar gorri zimeldu baten antzera. Irene Aldasoro

Begiak betzulo sakonetan hondoratu eta betazal berde hanpatuen **tolesetan** galdu zitzaizkion. Lopez de Arana

Lepoko **tolesek** bular gainera egiten diote balantza, geldiro, erritmikoki. Itziar Otegi

Titietatik zintzilik zeuzkan zerrikumeak, bat-bateko ilunpe hartan galduta eta kurrinkaz, borrokan hasi ziren amaren **toles** eta poltsen azpian. Koro Navarro

Azaleko geruza da [garunaren] hemisferio bakoitzaren atal nagusia, zimur eta **toles** sakonak dituen ehun multzo bat, gai grisa ere esaten zaiona. Irene Aldasoro

Paperaren **tolesekin** bat eginik, hantxe zegoen ebazpena: [...]. Jon Muñoz

3 irud/hed

Lan berri honetan, Sanchez Ostizek Pio Barojaren «izaeraren **tolesak**» argira ekarri nahi izan ditu. Berria - Kultura

Gauzak era horretara jositak, istorioa **tolesik** gabe hedatzen da. Oskar Arana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azal **tolesez** estalita dago ia dena, eta kosta egiten da aurkitzea. Josu Zabaleta

Nire aurpegiari begiratzen nion ispiluan, nire betazal-**tolesei**. Juan Kruz Igerabide

Lepo-**toles** guztiak batu egin zaizkio eta girgilo bakar bat osatu, larruzko kuxin borobil lodi bat; bertan eserita, trabeska, burua. Itziar Otegi

5 itzulingurua; itxurakeria, zurikeria.

Egia gordina, subjektiboa baina **toles** eta estalki gabea -zinezkotasun botoa egin izan balu bezala- islatzen da orrialde guztietan. Josu Zabaleta

Neska jatorra da, **tolesik** gabekoa, txori airoa, esaten den bezala. Karlos Zabala

Amona oso pertsona xaloa zela, apala, **tolesik** gabekoa. Jon Muñoz

Inuzentzia edo tolesgabatasun moduko hori ez zen zintzotasunetik sortua, baizik eta itxurak eta **tolesak** ("munduaren tresneria ustela", Traherneren hitzetan) ulertzeko ezgaitasunetik. Xabier Olarra

Haren obra inolako **tolesik** gabe idatzita dagoenez, [...]. Iñaki Iñurrieta

Itxuraz **toles** gabeko esaldia denak bigarren esanahi bat ezkututzen du bere baitan. Iñaki Arranz

Guztiek gogoko zuten, berehala erantzuten zion edonori, arintasun eta umorez, eta inolako **tolesik** edo zalantzarik gabe. Xabier Olarra

Hala betetzen zituen xalotasun santuak, hala irakasten biziera errugabeak, hala agintzen haiengan bihotz garbitasunak, ez baitzuten bihotz-**tolesik** ezagutzen. Askoren artean

6 toles eginda (gorputza)

Eskuak bere belauburutxo marroien gainean kokatu eta **toles eginda** jardun zuen barre eta barre, zoro baten antzera. Mirentxu Larrañaga

- Bi **toles eginda** nongoen barrez ikuskari harekin. Josu Zabaleta

7 toles gabeko ik tolesgabe 4.

8 toles-toles egin

Toles-toles egindako papera zen. Fernando Morillo

Orduan, Charlie sumatu dut alboan etzanda, nire inguruan **toles-toles eginda**, ni babestu eta lasaitzearren. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

toles eginda (8); **toles toles eginda** (5)

tolesik gabe (6); **tolesik gabeko** (3)

tolesbakotasun ik tolesgabekotasun.

tolesdun 1 *izond* tolesa edo tolesak dituen. (soineko eta kidekoek)

Galtzerdi luze zuri marradunak zeramatzan, ia-ia belaunerainoko gona **tolesduna**. Fernando Rey

Igandetako harizko jaka eta gona **tolesduna** zeramatzan. Anjel Lertxundi

Gona **tolesdun** urdin bat, kaxmirrezko jertse zuri bat, eta kolore marroi arrunteko oinetako orpo luzekoak. Oskar Arana

Bi eskutxozen soineko arrosa **tolesduna** altxaturik zeukan. Lopez de Arana

Gona, **tolesduna** eta kanpai tankerakoa, aldenik alde kulunkatzen zitzaion. Lopez de Arana

Azken orduko modaren araberako paparreko **tolesdunak** tonu egokia ematen zion gorbatari. Jose Morales

2 (bestelakoek)

Korea modernoan, edertasunaren adierazgarri dira betazal **tolesdunak** . **Juan Kruz Igerabide**

3 itxurata, zuria, tolesez betea.

Ez zen fidatzen jendeaz, "jende **tolesduna** , zuria" ote zen beldurrez. **Fernando Rey**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gona tolesduna (4)

betazal tolesdunak (3)

tolesdura ik tolestura.

tolesgabe 1 *izond* tolesik, amarrurik edo zurikeriarik gabea; gainerakoek beti zuzen eta azpikeriarik gabe jokatzen dutela uste duena. (pertsonez)

Gizaki **tolesgabe** eta trauskilei ez zaie neketsu izaten seme-alaba anitz izatea. **Andres Urrutia**

Afaria hasi dela hamar minutu igaro direnean, ordea, haren alaba **tolesgabe** eta begi zorrotza galderak egiten hasten da. **Oskar Arana**

Barrenik gabeko gizon amoralak zen, azpisuge ziztrina, iloba **tolesgabeara** lizunkeriaren galbidera bultzatu zuena. **Karlos Zabala**

Andres edozeinekin ezkonduko zatekeen, neska **tolesgabe** batekin; baina ez zekien non aurkitu. **Josu Zabaleta**

Verne irakurriz irakurzaletu gara bai gure belaunaldia, bai aurrekoak ere; pertsonaia soil, lau, **tolesgabe** horiek gureak egin dira, gure haurtzaroko oroitzapenetan itsatsi zaizkigu. **Berria - Harian**

· Usoa bezain **tolesgabeara** haiz oraindik, polit hori!... **Karlos Zabala**

2 (gauzez)

Argi eta garbi esan gabe, adierazi nahi zidan kanbio-letra haiek [...] ez zitzaizkiola iruditzen jostailu erabat **tolesgabe** eta arriskurik gabeak. **Ander Irizar**

Haren janzkera, itxura eta portaera xaloak ziren, sanoak, eta **tolesgabeak** . **Xabier Olarra**

Oinazearen zantzu gogoiunak zeuzkan aurpegi **tolesgabean** . **Anjel Lertxundi**

Xalotasunaren pertsonifikazioa, arima **tolesgabe** sanoduna. **Anjel Lertxundi**

Begirada **tolesgaberik** ez dago. **Josu Zabaleta**

Zazpi ahalak egiten zituen haien irri **tolesgabe** bera lortze aldera, baina bekaizkeriak hartua zegoen. **Patxi Zubizarreta**

Egilearen ezbaiak nabari zitezkeen, asmo **tolesgabe** bezain zientifiko hura pausoz pauso nola sortu zen igar zitezkeen. **Karlos Zabala**

Irizpide asiarrek eta aginpidez eta indarrez jantzitako grinak ezabatu egin dituzte [...] irizpide **tolesgabe** hauek. **Juan Martín Elexpuru**

Jadanik ez da ia irakurlerik geratzen, hitzaren zentzu **tolesgabean** , denak baitira, izan ere, kritikarigai. **Juan Garzia**

Zenbait gauzari buruz idazteko modu **tolesgabe** hori, ez zait burutik pasatu ere egiten. **Josu Zabaleta**

Ez gaude ohituta gauzen funtzionamendu zitala hain era **tolesgabean** gure begien aurrean ikusten. **Berria - Kultura**

Zuek onerako argi eta gaitzaren aurrean **tolesgabe** izatea nahi nuke. **Elizen arteko biblia**

3 (adizlagun gisa)

Tolesgabe egiten du barre... **Karlos Zabala**

Utziko didak **tolesgabe** hitz egiten? **Karlos Zabala**

Ninik **tolesgabe** eta xalo agertzeko egiten zuen etengabeko ahaleginak izaera femeninoagoa ematen zion. **Josu Zabaleta**

Ez dago denotazio soillezkoa den irudirik, errealitate tolesgabe bat **tolesgabe** irudikatu baizik egiten ez duena. **Josu Zabaleta**

Barkatzeko bizkor, haserretzeko nagi, buruz zorrotz, oroimenez azkar, arrazoitzen zoli, aukera egiten zentzudun eta gauza guztietan **tolesgabe** . **Askoren artean**

4 *tolesgabeko* (*corpusean toles gabeko*) *izlag* tolesgabeara.

Juama Sarasola-k, bere izaite laño eta **toles gabekoarekin** , aurkeztu zizkigun ordu batez, 15 bat olerkitan, munduan zehar bere piapietan zamatu zirrada, burutazio eta poesiazko irudiak. **Herria**

tolesgabekeria *iz* tolesgabetasun gaitzesgarria.

Lolita idazteko, ehunka fitxa bete zituen garai hartako 12 urteko neskatxen altuera eta pisuarekin edota arma katalogoen xehetasunekin, umearen gorputz biluziaren **tolesgabekeria** eta Humbertek Lolitaren maitalea hiltzeko erabiliko zuen pistola deskribatzeko modua bilatu nahian. **Berria - Kultura**

tolesgabeki *adlag* era tolesgabean.

Gizonari, ordea, polizia iritsi zenetik ez zion behin ere begiratu, eta, horrela, **tolesgabeki** eta xalo traizionatzen zuen. **Jose Morales**

tolesgabekotasun (*corpusean tolesbakotasun soilik*) *iz* tolesgabetasuna.

Tenore horretan, legeak, gizakien makurrak aurretiaz ikusteko edo zuzentzeko dira; halako zintzotasuna, halako **tolesbakotasuna** erakutsi behar dute. **Andres Urrutia**

tolesgabetasun 1 *iz* tolesgabeara denaren nolakotasuna.

Ohartzen da zein diren beraren alderik sendoenak: kontzentrazioa, pentsamendu-intentsitatea, ziurtasuna, tinkotasuna, itxurakeriarako gaitasunik eza, **tolesgabetasuna** , zintzotasuna. **Xabier Olarra**

Neska batek behar duen xarma nagusia falta zuen: **tolesgabetasuna** , bakuntasuna, xalotasuna. Bai, nik banian zerbait [...], **tolesgabetasuna** nian, jendea armarik gabe uzten zuen berezko zintzotasuna. **Josu Zabaleta**

Inuzentzia edo **tolesgabetasun** moduko hori ez zen zintzotasunetik sortua, baizik eta itxurak eta tolesak [...] ulertzeko ezigaitasunetik. **Xabier Olarra**

Aita gerla-buruzagiaren **tolesgabetasunetik** urrun zen seme gorte-gizonaren zurikeria. **Aingeru Epaltza**

Bere aparteko **tolesgabetasun** hartan, zinismoz hitz egiten zuen. **Josu Zabaleta**

Horregatik kontzientzia alatzen zaio apur bat Costaren **tolesgabetasuna** horrela engainatzen ari delako. **Jon Alonso**

Banekien inongo eraztunek ezin zuela berezko **tolesgabetasun** noblea gorde haren eskuetan. **Ander Irizar**

Gizon hura gauza bazen hain ederki eta hain modu erabatekoan **tolesgabetasun** haragituaren irudia emateko, preziso behar zuela berez **tolesgabetasun** kantidade ederra eduki. **Matías Múgica**

2 (hitz elkartuetan)

Gustatu egiten diren zatiak kontaktatu, zakerkeria erakusten duen ezkutatzeko, zakarkeria **tolesgabetasun** -iturak egiteko eta zitalkeria trebetasuna baitzuten adierazteko. **Koro Navarro**

Defendatzeko egin diren ahaleginek "ingurumen" hitzak berak zirkulu politiko batzuetan halako **tolesgabetasun** kutsu bat hartzea besterik ez dute eragin. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

tolesgarri *izond* toles daitekeena.

Ama ohe **tolesgarrian** dago eserita, irakurtzen, josten, puntu egiten edo ikasten, une horretan zer egin behar den, hartan. **Josu Zabaleta**

Ohe bakarra baitzegoen apartamentuan, **tolesgarria**, egongelako bazter batean. **Koro Navarro**

Bazter batean zegoen zurezko aulki **tolesgarri** horietako bat seinatu dit. **Anjel Lertxundi**

Jerry eta Bill patioan zeuden, aulki **tolesgarrietan** eserita, garagardoa edaten eta atseden hartzen. **Koro Navarro**

Van Daan jaunak ez zekarren pixontzirik, baina bai tea hartzeko mahai **tolesgarri** bat besapean. **Josu Zabaleta**

Zerbitzaria gelan sartu zen, libre zeukan eskuaz gurditxo **tolesgarri** bat herrestan zeramala. **Lopez de Arana**

Ate **tolesgarri** baten bitartez, gela estu bat ere baliatu dute, bertan telebista, mahaia eta sofa luze bat egokitzeko. **Rafa Egiguren**

Badaezpada aterki **tolesgarria** sartu dut makutoan. **Sonia Gonzalez**

Baita kobrezko teleskopio **tolesgarri** bat ere. **Iñaki Mendiguren**

Behealde hartan pistaren bat zain bageneuka bezala ari ginen jaisten, eta ni aurpegia leihoari itsatsita, azkeneko momentura arte ez baitira ikusi ere egiten pistok, balazta **tolesgarriak** jadanik aterata daudenean. **Joxe Austin Arrieta**

Matanzasen eta Juaristiren ostean, lekuko izan zen ertzain batek eta marxaren atestatua egin zuen beste batek deklaratu zuten, holtz **tolesgarri** baten atzean. **Berria - Euskal Herria**

XVII. mendeko sortzaile Juan Corraeren Munduko lau kontinenteak holtz **tolesgarriarekin** egingo du topo ikusleak Mexiko kolonialako artearen aretora sartzean. **Berria - Kultura**

hitza multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aulki tolesgarri (4)

ate tolesgarriak (3)

tolesgune *iz* tolesa dagoen gunea.

Jantzi mota hau tubularra da eta **tolesguneetan** errorik gabea. **Xabier Olarra**

tolespetu, tolespe(tu), tolespetzen du *ad* tolespean ezkutatu.

Bat-batean presa handiaren aitzakiaz, hitzez erasoka hasi zitzaion aldamenekoari, aiurri ziurrenik ahula gaizki **tolespetzen** zuen harrokeriaz. **Xabier Olarra**

Gregon kasuan, lesio zabaldu horrek oso koadro kliniko korapilotsua sortua zuen, batzuetan **tolespeturiko** sintomak, edo are elkarren kontrakoak, eta sindromeak zituen. **Xabier Olarra**

tolestarazi, tolestaraz, tolestarazten du *ad* tolestatzera behartu.

Berriz hartu dut labana, ahoa mahaiaren kontra zapaldu eta **tolestarazi** dut. **Monika Etxebarria**

tolestatu, tolesta, tolestatzen (*34 agerraldi, 17 liburutan*) **1** du *ad* tolestu.

Banan-banan arropak erantzi eta kontu handiz **tolestatu** ditu belar gainean. **Itziar Otegi**

Mapa **tolestatu** zuen. **Joxe Austin Arrieta**

Mutilak egunkaria erosi, beso azpian **tolestatu** eta ate birakaria bultzatu zuen. **Lopez de Arana**

Bitan **tolestatua** zegoen eta karratua zen: hogeita bost zentimetro luze eta beste hainbeste zabal. **Elizen arteko biblia**

Josi zapiak elkarri, bost alde batetik eta sei bestetik; seigarren zapia **tolestaturik** jarriko duzu oihal-etxolaren aurrealdean. **Elizen arteko biblia**

2 irud/hed

Tximeletak [...] tente **tolestatzen** dituzte euren hegoak. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Baita [...] burdinazko ohe bat ere, bi zatitan **tolestatua**. **Lopez de Arana**

Zergatik zaude besoak **tolestaturik**? **Elizen arteko biblia**

Neskatoa etzanda zegoen, belauk kokotseraino **tolestaturik**. **Lopez de Arana**

Bat-batean, gorputza **tolestatu** eta jauzi arin bat egin du. **Götzon Garate**

3 (bertsoetan)

Ondoren, arrazoi hori 10/8 silabatako neurriera **tolestatu** zuen. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Bertsoaren bukaerako arrazoiak pentsatu, arrazoi hori hitzetara **tolestatu** neurriaren arabera. **Andoni Egaña**

Gutxi-gehiago, eskarmentudun bertsolariak, azken arrazoiak pentsatu eta **tolestatzearekin**, esaldiari errima-hitz menperagarri batez amaituko den egitura emango dio. **Andoni Egaña**

4 (era burutua izenondo gisa)

Armairua zabaldu eta, karpeta askoren azpitik, paper **tolestatu** bat atera zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eskuzapi **tolestatua** magaletik hartuz eskua gora altxatu eta mahaiaren gainean kolpe lehor bat jotzen ikusi nuen, edalontziak dantzan jarriz. **Joxean Agirre**

toleste *iz* tolesa egitea.

Moralaren **toleste** bitxi batez, debekatzen ditu. **Itxaro Borda**

Ez zeuden erabat lehorrak, baina **tolesteak** mesede handiegia egiten zion. **Anton Garikano**

tolestu, toles, tolesten (*386 agerraldi, 125 liburu eta 13 artikulutan*) **1** du *ad* paper, tela edo kideko baten zati bati tolesa edo tolesak egin. ik **tolestatu**; **izurtu**.

Lisak kalkuluen orria **tolestu** eta idazmahaiako tiradera batean sartu zuen. **Karlos Zabala**

Erditik **tolesturik** zetorrenez, lau plauma itxura hartzen zuen paskinak. **Txillardeggi**

Rimundo Silvak bi aldiz **tolestu** zuen orria, anguluetan berandutuz. **Jon Alonso**
Egunkaria ageri du sakelan... bitan **tolestua**. **Anton Garikano**
Azkenean, idazteari utzi, papera lau zatitan **tolestu**, eta eskaini egin zidan. **Ramon Saizarbitoria**
Lau plegutan **tolestu** nuen noizbait papertxo. **Koldo Izagirre**
Lautan **tolestutako** orria lisatu bezain pronto ekin zion irakurtzeari. **Joxemari Urteaga**
Aziak eskuitza **tolestu** zuen hasperen eginez. **Iñaki Mendiguren**
Papiroa ezin da **tolestu**. **Jon Muñoz**
Egunkaria erakutsi zion tabernariak, politikako atalean **tolestua**. **Koldo Izagirre**
Oihala **tolestu** eta paperean bildu zuen trebetasun handiz. **Jose Morales**
Ipurdi azpian **tolestuta** tapaki bat neukan. **Inazio Mujika Iraola**
Alkandoraren mauek **tolestuta** agertu da Dean askotan. **Berria - Mundua**
Ohe-arropak **tolestu** eta alde batera baztertzen ditu. **Oskar Arana**
Rambletara abiatu zinen jaka besoan **tolestuta**, eskuak sakeletan. **Koldo Izagirre**
Sofa gainean **tolestu** gabeko jantziak. **Lander Garro**
Han behean flotatzen zuten barku txikien artean, zenbait belak **tolestuta**, zenbait astiro, oso bare baitzegoen, bakar bat aparte samar zegoen besteetatik. **Anton Garikano**
Burkoa **tolestu**, eta haren kontra jarrita esertzen naiz. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed (gorputz atalez mintzatuz)

Haren hanka luze lerdanak angelu arraroetan **tolestuta** zeuden eroritako lekuan. **Iñaki Mendiguren**
Zabaldu hankak eta belaunak **tolestu** pixka bat. **Luis Elberdin**
Hipogrifoak aurreko belaun ezkatatsuak **tolestu** zituen, eta makurtu egin zen. **Iñaki Mendiguren**
Gelara sartu zitzaidan besoak **tolestuta**. **Juan Martin Elexpuru**
Leun estutu zion zurrun **tolestutako** besoa. **Jose Morales**
Besaurrea luzatzea edo hatzekin sorbalda ukitzera **tolestea**. **Irene Aldasoro**
Honek gerria **tolesterainoko** irriak sorrarazten zizkien. **Jon Alonso**
Noizean behin goitik behera jauziko dira kaiok, hegala **tolestuta** buruz behera, fardel galduak lez. **Joseba Sarrionandia**
Hatzak **tolestu** zituen, haurrari agur egiten dionak bezala. **Lander Garro**
Katilu-itxuran **tolestuak** zituen eskuak zabaldu zizkidan, doi-doi, barrukoa ikus nezan. **Mirentxu Larrañaga**
Ezpainak atzeraka **tolesten** zitzaizkion, hortz ilun, hautsien gainetik. **Koro Navarro**
Juan Bautistak bazekien [...] filibusteroen txistua jotzen, hala deitzen baitzuen berak, filibusteroena, lau hatz ahoan sartu, mihia **tolestu** eta oso errime egiten zuena. **Joseba Sarrionandia**
Begiak **tolestu** zitzaizkion Dimasi. **Unai Elorriaga**
Begiak **tolesturik** eta erdi barrez zegoen. **Monika Etxebarria**
Belaun azpiko tendoiak erraz hautematen dira izterreko muskuluak **tolesturik** daudenean. **Irene Aldasoro**
Malguak ziren hezur meheko hatzak, hain malguak non itxuraz amaigabeki **toles** baitzitzakeen hautsi gabe. **Ibon Uribarri**

3 irud/hed (bertsoez mintzatuz)

Bertsolariak ez du aski bere ideiak 10/8 egiturara **tolestearekin**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Neurri jakin bateko doinua aukeratuko du, ordurako bere arrazoibidea silaba kopuru jakin batera **tolestu** duelako. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Hori du beti lehen urratsa: bukaerako arrazoa pentsatu eta silaba kopuru jakin batera **tolestea**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Doinu bat aukeratuko eta pentsatu duen arrazoi hori aukeratu duen doinuaren neurrietara **tolestuko** du. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Kantuen arotza da autorea -bariazio aukera baten barruan-, kantuak **tolestuko** zituen bertsolaria da autorea. **Askoren artean**

4 irud/hed (bestelakoetan)

Haur-kotxe bat **tolesten** ari zen emakume gazte xamar bat autoaren atzealdeko kutxan sartu ahal izateko. **Joxan Elozegi**
Aberearen bizkarrean **tolesturiko** atea ireki, eta barrura sartu, behiaren atzeko hanketan paratuz zangoak. **Juan Garzia**
Bele batek alanbre zuzen bat hartu eta **tolestu** egin zuela filmatu dute. **Berria - Gaiak**
Han atzean ezkutatzeko, uhinak **tolestuz** etzaten diren lekuan. **Joseba Sarrionandia**
Ez dela pentsamendua garraiatzen duen mintzaira **tolesten**, plegatzen, manipulatzeko herioaren baimentzeko. **Itxaro Borda**
Aukera egiten hasita, nik Ellroy nahiago: basatiagoa da bere pertsonaien taxukerak, dotoreagoa bere prosa **tolestean**. **Berria - Kultura**

5 (era burutua izenondo gisa)

Uharrak kolorea jandako barnealdean paper **tolestu** bat besterik ez zuen ikusi. **Joxemari Urteaga**
Ivan Ogareffek paper **tolestu-tolestu** bat, mikroskopikoa ia, eman zion duke handiari. **Karlos Zabala**
Billete **tolestu** bat luzatzen ziola. **Alberto Ladron Arana**
Nelliek kolpetxo batzuk jo zituen bere sudurraren kontra musuzapi **tolestu** txiki batez. **Lopez de Arana**
Etiketadun, isil, besoan eskuatrapu zuri **tolestua** zuela, nagusiaren hitzen baten zain zirudien. **Joxemari Urteaga**
Vernerrren belaun **tolestuak** leunki jotzen zuen soldaduairean belaun orobat **tolestua**. **Jose Morales**
Laguntzaile batzuek anda **tolestu** bat zeramaten. **Lopez de Arana**
Bi bidaia eginen dituzu hiru maletok eta gurpilauki **tolestua** nasatik kubertara altxatzeko. **Joseba Sarrionandia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

belauna tolestu (4); **belaunak tolestu** (6); **belaunak tolestu zituen** (3); **bitan tolestu** (4); **egunkaria tolestu** (9); **paper tolestu** (9); **paper tolestu bat** (6)
besoak tolestuta (6); **tolestuta zeuden** (3)

tolestura (42 agerraldi, 22 liburutan; orobat tolesdura 66 agerraldi, 31 liburu eta 8 artikulutan) iz tolesa.

Morte, defunção eta *decesso* hitzen orrialdeak markatuta zituen Matiasek, **tolestura** elegante batez. **Unai Elorriaga**
Ezpain-zapia zabaldu zuen, **tolesturarik** gabe uzteraino. **Mirentxu Larrañaga**
Zortzi **tolesturatan** bildu zuen errepede-mapa. **Harkaitz Cano**
Kimono eskarlata bat zerabilen, **tolestura** askorekikoa eta urrats nimitxoak egitera behartzen zuena. **Javi Cillero**
Ontzian, mantuaren **tolesturen** artetik harpa txikia atera zuen. **Joanes Urkixo**
Hala egindakoan, bere kapusaiaren **tolesturak** pixka bat ireki ziren. **Joanes Urkixo**
Zenbait euli jantzi-oihalen zirrituetan eta **tolesturetan** ostendurik geratzen baitziren. **Juan Garzia**
Karta bere **tolesturetan** plegatzera. **Iñigo Aranbarri**

2 irud/hed

Giltzadura horiek 90º inguruko angeluko **tolesdura** ahalbidetzen dute, baina, giltzadura bikoitza duten pertsona bakan batzuen kasuan izan ezik, hatzak ezin dira alborra edo atzera tolestu. Irene Aldasoro

Ezpain itxurako **tolesdura** haragitsuak. Lourdes Oñederra

Hatz luzeez gainetik kendu zizkidan hondar ale ikusezinak, bular herabeak setiatuz, terrenoa irabaziz, azal gaineko hondartza imajinarioa orraztu arteraino, nire **tolestura** ezkutenak, bainujantzi azpiko fereka ausartekin. Eider Rodriguez

Azal izurtuetako nork jakin nongo **tolesturetan** emazte gaztearen koloreak berriro aurkitzeko. Josu Zabaleta

Garunaren **tolesduretatik** iragazitako teoria elabortuetan eta filosofia konplikatuetan. Joan Mari Irigoien

Alzheimerra, parkinsona eta diabetesa proteinen **tolesdura** eta agregazio okerrari lotutako gaixotasunak dira. **Tolestura** geologikoak, sumendien erupzioak, glaziazioak, denetik gertatu da ordutik honako denbora bitartean. Berria - Gaiak

Tolesduraz beteriko argumentua, thriller psikologikoaren moldeak darabiltzana. Berria - Kultura

Gauza jakina da guztiok ez ditugula hizkuntzaren **tolesturak** berdin bizi. Iñigo Aranbarri

Historiaren **tolesturak** berreskuratzen ahalegintzen zen kazetaria. Iñigo Aranbarri

Esaerato hauek lagun, beren **tolesturetan** gordeta daukaten eskarmentua gogoratzea ongi etortzen da noizbehinka. Pello Zabala

Hitzegia zarratu, eta egunero bezala, mintzo nahasi, ilun eta esku-burduinduren **tolesturetan** galtzera irten dut. Iñigo Aranbarri

3 (hitz elkartuetan)

Arreikusita ez genuen zirria egiten digu Marcosek, ezagutzen ez genuen azal- **tolesdura** batean. Unai Elorriaga

4 tolesa, itxurakeria, zurikeria.

Garaziren begietan murgiltzen nintzen jator, **tolesturarik** gabe, inolako ezkutueriarik gabe. Txillardegi

Gogoan ongi iltzatuta geratuak zitzaizkion hitz **tolesdurarik** gabeak. Imanol Zurutuza

tolesturadun *izlag* lotestura duena.

Ez zuen imitazioa xede, zer guztiak beregainki garatzeko ahala baizik, eta **tolesturadun** txanoen serie bitxi hura argigarriagotzat zeukan, Donatello handiaren marmolezko figura bikainak baino. Juan Garzia

tolete (*orobat tolet*) iz

Arraunak ere **toletetan** estropuekin lotuta jartzen dira. Santiago Iruretagoiena

Bartolomek arraunak **toletan** lotu zituen, niri begirik kendu barik. Edorta Jimenez

Eta **toleta**, eta broga, eta estropua, eta tosta. Joseba Sarrionandia

Lituanian eginiko arraunak dituzte **tolete** eta estrapuen artean. Berria - Kirola

Ziabogan istriborrek arraunlariak bogatu egiten dute, eta ababorreko lehen hirurek ziatu, euren gorputza **toletetara** gerturatu, traineruak buelta har ez dezan. Berria - Kirola

Alde banatako kareletako **toletetara** loturik zeuden espartzuko bela-sokak lasaitzen ari zen. Anjel Lertxundi

"Tximista" margotzea besterik ez zuen falta uretarako, **tolete** berriak ipintzen ikusia zuen bezperan. Koldo Izagirre

tolosar 1 *izlag* Tolosakoa, Tolosari dagokiona.

Tolosar menturazale, pilotazale eta poeta hura, antikerikalak samartzat omen zeukaten bere garaikoek. Patziku Perurena

Gaur dira 50 urte Emeterio Arrese Bauduer **tolosar** poeta eta antzerkigilea hil zenetik. Berria - Kultura

Ainhoa Arteta **tolosar** soprano ezaguna. Berria - Kultura

Ander Letamendia **tolosar** medikuari buruzko artikulu guziz interesgarri bat eskaintzen dauku Tolosaldeko *Galtzaundi* aldizkariak. Herria

Angel Rekalde **tolosar** soziologo eta berriketariak du aintzin-solasa egina. Herria

Italian egina omen zen, aitatxiri altxor bat bezala saldu zion merkataria **tolosarrak** errana. Aingeru Epaltza

Preso **tolosarraren** gose, egarri eta medikazio greba utzi zuen, atzo, ospitaleratua izan ostean. Berria - Euskal Herria

Antonio Maria Labaien teatrogile **tolosarra** zen horietakoa. Koldo Zuazo

Jon Agirre Perez bilbotarra eta Jose Anjel Murua Alberdi **tolosarra**. Unai Iturriaga

Bi herrialdeak lotu zituen proiektu haren ideia, nafarren eta gipuzkoarren arteko harremanarentzat hain sistema egokia asmatu zuena, Jeronimo Zurriarain **tolosarra** izan zen.

Askoren artean

• 2 Tolosako biztanlea.

Haragia erostera bidali gintuzten batean entzun nuen zurrumurrua **tolosar** guztiak herritik ihes eginda zebiltzala. Arantxa Iturbe

Koro Zaitegi naiz, **tolosarra**, hogeita hiru urte ditut. Joxean Sagatzizabal

Errugbia: azken partida Frantziako xapelgoan Parisen jokatzten ziren **Tolosarrak** eta Montferrandarrak. Herria

Mutilzahar, tripontzi, **tolosar** peto alai eta alferra, arratsaldero soziedadera joan zalea. Xabier Mendiguren Elizegi

Munduko neskarik politenak, **tolosarrak**. Arantxa Iturbe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azkarate preso tolosarra (8); **preso tolosarra** (12); **tolosarra aske uzteko** (3); **tolosarra atxiloarazi** (3); **tolosarra fitxatzeko** (3)

arteta soprano tolosarrak (3); **preso tolosarrak** (4); **soprano tolosarrak** (6)

preso tolosarraren (7)

tolteka iz X. eta XIII. mendeen artean Mexiko mendean eduki zuen herri bateko kidea.

Gure hondakin-bilatzailea, hura bai ari zela beti kalakan; eta, egia esan, arreta pixka bat jarriz gero, jardun interesgarri samarra izaten zen harena: **toltekek**, zapotekak, aztekek aipagai, tenpluak eraikitzen bai baina gupila zer zen ez zekitenak. Joxe Austin Arrieta

tolueno iz bentzenotik eratorririko hidrokarburua, disolbatzaile gisa eta trinitrotoluenoa ekoizteko erabiltzen dena.

Beasaingo CAFek onartutakoa baino 94 aldiz zink gehiago emititzen du [...]; Lantarongo General Quimicak 14 aldiz bentzeno eta **tolueno** gehiago. Berria - Euskal Herria

Egun horretan, Plastificantes Lutxana enpresak sileno eta **tolueno** toxikoak isuri zituen; ondorioz, inguruko 50 familia auzotik atera eta batzuk Gurutzetako Ospitalera eraman behar izan zituzten, amasa ezin harturik gelditu zirelako. Berria - Euskal Herria

toma¹ iz harraldia.

Lau **tomarekin** nahikoa izan duela bart. **Arantxa Iturbe**

toma² interj txakurrari deitzeko hitza.

-Zakur kaikua, **toma** txokora! -esan zion Damianek, eta zakurra, aldendu ordez, hurbildu zitzaionean, fereka egin zion bizkarrean, bere gelan sartu eta idazten hasi aitzinetik.

Hasier Etxeberria

tomabista (orobat tomavistas) iz formatu txikiko filmak egiteko zinema kamera.

Gustuko dut pitak kanaberako txirrikan kiribiltzen denean sortzen duen soinua: antzinako **tomabista** haiekin akordatzen naiz. **Harkaitz Cano**

Tomavistasarekin nire behatzak hartzen zituzten, nola jotzen nuen, gero beraiek ikasteko. **Pako Aristi**

Kasetarekin eta **tomavistasarekin** etorri ziren. **Pako Aristi**

tomahawk 1 iz Ipar Amerikako indiarren gerra-aizkora.

Turley, aldiz, Pantera beldurgarriaren **tomahawkaren** kolpez jausi zen. **Julen Gabiria**

2 irud/hed

Kalean inork ez dio inori begietara so egiten, eta norbaitek bere aire espazioa urratzen duen begirada arrotz bat somatzen duenean, lubakietako defentsa-lerroaren antza duen

tomahawk begi keinu batekin erantzuten du. **Harkaitz Cano**

tomate 1 iz jatorriz Ameriketako den baratze landarea, fruitu biribila, gorria, zukutsua eta haziz betea ematen duena (*Lycopersicon esculentum*); fruitua bera, jateko ona.

Hamabi hektarea hartan bildutako pilo bat arto, **tomate**, tipula, lusagar eta babarrun jana nago ni. **Txillardegi**

Aitak ur-txorrota irekitzen du **tomateak** garbitzeko. **Anjel Lertxundi**

Amak Amerikatik bidalitako haziak dituela aitortu zion gero: guayaba, arbolako **tomatea** eta abar. **Berria - Harian**

Arrainik ez, beraz; haragi egosia **tomate** eta piperrekin. **Inazio Mujika Iraola**

Haragi egosia **tomatearekin**. **Bernardo Atxaga**

Entsalada mistoa eta atuna **tomateaz** aukeratu genuen, eta edateko, sagardoa. **Joxemari Iturralde**

Tomate frijitud egindako espagetiak atera zituen mahaira. **Unai Iturriaga**

Gazta, ogia, olibak, ardoa, beren baratzeako **tomate** kontserbakoak. **Xabier Olarra**

Tomate berezi batzuk sorraraz ditzakegula gure baratzeetan, ondu ondoren denbora askoz ere luzeagoa beharko dutenak usteltzeko. **Pello Salaburu**

Gorri-gorri eginda nengoan, **tomatea** bezain gorri. **Jon Muñoz**

Tomate bat bezala jarriko nintzen edo, irribarre eginez zera xuxurlatu baitzidan: [...]. **Juan Martin Elexpuru**

Osaba Kamil, **tomate** heldu bat irudi, barreka hasi zen. **Patxi Zubizarreta**

Porruak, azenarioak eta entsaladarako letxuga: **tomateak** plastikozko poltsa batean. **Unai Iturriaga**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

3 metro goratasuneko **tomate** ondoa. **Herria**

Bederatzi metroko **tomate** landarea, non eta EHUren esperientzia gelen eraikinean. **Berria - Kultura**

Naturarik ederrenaren erdian eta baratze ederrenaren erdian, aldakaraino iristen zaizkizun **tomate** sailen erdian. **Koldo Izagirre**

Bidearen erdian **tomate** -pote pitzatu bat alde batetik bestera zebilen. **Lopez de Arana**

300 gramoko **tomate** -potea handiegia dela. **Imanol Zurutuza**

Perrexilez ziprztindutako **tomate** -erretilu bat. **Jon Muñoz**

Ez dago **tomate** -zopa beroa bezalakorik gau hotzetarako. **Mirentxu Larrañaga**

Patata eta itsaskien salda apartua, **tomate** konfiturazko ohandze baten gainean. **Edorta Agirre**

Tomate -zuztarrak, zabor-poltsara. **Tomate** azala bezain gorri zeukan matrail buelta. **Anjel Lertxundi**

Ondo nagoela frogatzeko, **tomate** -xerra bat ahoratzen dut. **Anjel Lertxundi**

Txipiroi erre puskak eta **tomate** zati gorriminak. **Jon Muñoz**

Tomate puskak, ahoratutakoan bezain oso. **Anjel Lertxundi**

Mahai-oihalera ardo-ziprztinak eta espagetiak **tomate** -izpiak isuriak ziren. **Lopez de Arana**

Dilistak, azenarioa, tipula eta **tomate** buru bat zatitan. **Unai Iturriaga**

Arloteak lepoa makurtu zuen, alkandoran **tomate** orbana bilatzen duenaren interes hotzarekin. **Lander Garro**

Ni ez nauk aurkariaren aurpegiara **tomate** -jaurtika ibiltzen den doilorkume bat! **Koldo Biguri**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Mahai gainean zeukan **tomate** frijitu potea. **Unai Iturriaga**

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Tomate -saltsa botila bat beira xehatuzko uhinen gainean zabukutzen zen, batetik bestera. **Lopez de Arana**

Tomate -zopa zale amorratua nauzu. **Mirentxu Larrañaga**

5 (neurriekin)

Hogei pitxer **tomate**, bost kilo olo maluta eta lau kilo arroz. **Josu Zabaleta**

2.153.000 kilo **tomate** saldu ziren iaz eta 1.138.094 Gernikako Piper dozena. **Berria - Ekonomia**

Gauza bat da hamar mila pote **tomate** merkaturatzea, eta besterik da dozenaka batzuk saltzea herriko plazan. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tomate ederrak (3); **tomate landarea** (3); **tomate puskak** (3); **tomate saltsa** (4); **tomate xerra** (4); **tomate zopa** (5)

tomatekada iz tomate batez emandako kolpea.

Gaitz erdi, hala ere, zeren hasiera batean odola zirudiena **tomatekada** baten arrastoak besterik ez baitzen. **Patxi Zubizarreta**

tomategi iz tomate lantegia.

Biltzeko sasoina baita, tomatea kamiunka, jateko kuia berdin, ilharrak, azak eta gaineratikoak, horien tratatzeko uzinak, bereziki **tomategiak** urrunerat ageri, ketan.

Herria

tomatetza iz adkor tomatea.

Gero haragi-bolak **tomatetzan** nahastu eta frijitzeko erabilitako su elektrikoa amataturik, horren ganean utzi zuen kazuela. **Jon Alonso**

tomavistas ik tomabista.

tomillo iz ezkaia.

Tomilloa, belarrak, hostoak, guztia nahasian. **Pablo Sastre**

tomismo iz Akinoko san Tomasen sistema filosofiko eta teologikoa.

Tomismoaren alternatiba bezala ikusia izan da askotan, baina egokiago ulertzen da une hartan zer problematikari aurre egin behar zitzaion kontuan izanez gero. **Askoren artean**

Arazoia eta fedearen arteko erlazioez aritzen ginen biak, bilkuren ondotik eta nik orduan Seminarioan ikasiak zerbitzatzen nizkion, batez ere **tomismoaren** tesiak, nihaurek gaur ahanziak ditudanak. **Piarres Aintziart**

tomista iz tomismoaren aldeko pertsona.

Horra, ba: antirrelatibistaren barruan kuku, **tomista** bat dago mozorrotuta! **Joxe Azurmendi**

Tomista amorratua, hori bai, baina ematen zuen gaiarekiko inplikazio handikoa. **Joxerra Garzia**

Tomista momifikatu edo fededun inoxent baten argumentuak ez zaizkit aski. **Piarres Aintziart**

tomo iz liburukia.

Bere lan nagusia [...] hamar urtez landua, lehen aldiz 1962an hiru **tomotan** argitaratu zen Parisen. **Herria**

Hiru **tomotan** banaturiko liburua. **Itxaro Borda**

Lau **tomotako** gramatika liburua, argitaletxe berean plazaratua. **Herria**

Zerbitzariak armairutik bi **tomo** lodiak ekarri, mahai ganean utzi, eta hurrengo eskariaren zain jarri zen. **Anton Garikano**

San Agustinen obren 3. **tomoaren** hasierako 15. kapituluan. **Piarres Xarriton**

Moskura itzullitakoan, *Arima hilak*-en bigarren **tomoa** idazten jarraitu zuen. **Jose Morales**

Burua jaso eta betaurrekoen atzetik iltzatu zituen begiak zerbitzariarengan, amorruz, "Loka-Nefritiko" **tomoaren** gainetik. **Anton Garikano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lehen tomo hori (3)

bigarren tomoaren eskuizkribua (3); bigarren tomoaren lehen (3); tomoaren lehen argitaraldian (3)

tomografia iz organo baten plano baten irudi erradiologikoak lortzea ahalbidetzen duen teknika.

Adutako masailezur zatiaren ordezkia sortzeko, hiru dimentsioko **tomografia** informatiko bat egin zioten gaixoari. **Berria - Gaiak**

tona (805 agerraldi, 59 liburu eta 361 artikulutan) 1 iz pisu (edo masa) banakoa, mila kilogramoren baliokidea dena. ik tonelada.

Balea ederra, dotzena bat metra luze, adituen arabera hamar bat **tona** pisu. **Herria**

Tona bat pisu zuen bonba bat du bota, hain xuxen jende frango bizi den gune batean... **Herria**

Diga hori azkartzeko bost ehun harriz estaliko dute, bakoitzak hoge **tona** pisu. **Herria**

Gorpuak 17 metro luzera zuen eta 500 **tonako** pisua. **Berria - Gaiak**

Tona bat ere pisatuko du zaku zahar honek. **Koro Navarro**

Abere nekatuaren gorpua astunki abaildu zen, burua zulatu zion balak **tona** bat pisatuko balu bezala. **Alberto Ladron Arana**

Gutxiena **tona** erdia pisatzen zuen burdina puska bat ematen zion. **Koro Navarro**

Beste makina bat estreinatuta zuten gobernuak eta Pennsylvaniako Unibertsitateak, oraindik handiagoa zena: 30 **tona** pisukoa, 140 metro koadro behar zuen bere 18.000 balbula elektronikoa, [...]. **Pello Salaburu**

David jaunaren ontziek gai horietako ehunka eta ehunka **tona** deskargatu zituzten S.Vicenten. **Bego Montorio**

Gruarekin hiru **tonako** pieza jaisten ari zuan tornura poliki-poliki. **Pablo Sastre**

Oinarrizko erreteina solidifikatzea sintesiak dirauen bitartean, hamar edo hoge **tonako** erreaktor batean. **Juan Garzia**

Uranio 235eko zenbait **tona** atera zitzaizkion. **Fernando Morillo**

Bi **tona** bildu dituzte nunbait han. **Herria**

2 (zenbaketetan, neurtzen denaren ezkerrean)

Bazen bat, ttipia eta biziki ezta, **tona** bat arma eta lehegailu bere etxe ondoko hilobietan gorde zuena. Hiri honetan 13.000 **tona** zabor produzitzen dira egunero. Baztertuak genituen ordurako hainbat **tona** esmalte beltz. **Marzel Etxehandi**

Nike ehundaka **tona** zilar emango diet ogasuneko zerbitzariari, errege-gordailura eraman dezaten. **Jose Antonio Mujika**

Milaka **tona** plastiko, beiraki, mami-azal ustel Gernikan. **Iñigo Aranbarri**

Dakartik Berkay N (Turkiako bandera) 1.723 **tona** burdina-txatarra. **Urtzi Urrutikoetxea**

Sotoetan 3.600 **tona** janari zekarren. **Edorta Jimenez**

Hamabi dira ontziak, eta 3.300 soldaduak, eta 1.293 marinelak, eta artilleriako 347 pieza ere badira, hoge mila balarekin eta 789 **tona** sutautsekin. **Edorta Jimenez**

Hil egin duzue emozioa, hitz zaparrada baten pean ehortzi duzue, milaka **tona** sintagma gainetik ezin kendurik dabilen gaixoa da, zuengan, emozioa. **Jon Alonso**

- Portuak lau miliun **tona** trafikua gainditu. Herria

3 itsasontzien edukiera banakoa, 2,83 metro kuboren baliokidea.

Hori dela eta, itsasontzien edukiera gari-modiotan neurtzen zen antzina, eta gaur egun likore-**tonatan** neurtzen da. Iñaki Iñurrieta

Aliatuen 1.508 zamaontzi, 8.336.258 **tona** guztira, itsasoko hondora joan ziren; urtebetean. Edorta Jimenez

Santa Ana, 1.200 **tonakoa**. Edorta Jimenez

Berrehun eguneko marea itsaspean basera itzuli barik, aliatuei milioi erdi **tona** hondoratua... Koldo Izagirre

Tonetatik eta kanoietatik, ontzi barruko gizonen kontuak atera ahal ziren. Edorta Jimenez

Ontziak ditik kasik berrehun **tona**, eta **tona** eta hil bakoitzeko sei marai direnez, enpresa honetako zortzi hiletarako dirua hamar bat mila marai dituk, Sebastian. Edorta Jimenez

Arrantza-ontzien **tona** kopurua, 5000koa baitzen 1869an, 18.000ra igo zen hogei urtean. Monika Etxebarria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dozenaka tona amianto (3); **ehunka tona** (5); **mila tona petrolaki** (3); **milaka tona** (9); **milioi bat tona** (4); **milioi tona hondakin** (3); **milioi tona inguru** (4); **milioi tona isuri** (3); **milioi tona karbono** (3); **milioi tona petrolio** (4); **milioika tona** (4)

tona altzairu (6); **tona amianto** (6); **tona antxoa** (6); **tona antxoa harrapatu** (3); **tona arrain** (4); **tona arrantzatu** (3); **tona arropa** (3); **tona bakoitzeko** (7); **tona bat haxix** (3); **tona bat pisatuko** (3); **tona belar** (3)

tona elikagai (7); **tona erdi** (3); **tona erregai** (15); **tona erregai isuri** (10); **tona gatz** (10); **tona gatz bota** (4); **tona hazkurri** (3); **tona higiarazteko gai** (4); **tona hiri hondakin** (7); **tona hondakin** (24)

tona inguru (19); **tona ingurukoa** (3); **tona isuri zituen** (4); **tona janari** (5); **tona jaso** (4); **tona karbono dioxido** (4); **tona lehergailu** (5)

tona ondarkin (8); **tona petrolaki** (7); **tona petrolio** (11); **tona petrolio isuri** (3); **tona pisu** (3); **tona trafikua** (3)

tona ur (7); **tona uranio** (7); **tona zabor** (16); **tona zabor sortzen** (4); **tona zementu** (3); **tona zementu saldu** (3)

mila tonako (6); **milioi tonako** (8); **tonako marra** (3); **tonako pisua** (8); **tonako pisua du** (4); **tonako zaborra** (3)

milioi tonara (3)

tonatik gora hondakin (5)

tonaka 1 *adlag* tona neurri hartuz; kopuru handian.

Zaborra **tonaka** sortzen duen gizarte batean, zakarrontzira bota da objektuen lirika. Berria - Kultura

Galza **tonaka** erabiltzen da elurra eta izotza urteko. Berria - Harian

Euskal ontziek **tonaka** ekartzen dute [berdela], eta saldu ezean, hozkailu erraldoietan gorde behar. Berria - Harian

Postalak bidali, postalak **tonaka**. Fernando Rey

2 (zenbaketetan, neurtzen denaren ezkerrean)

Tonaka labore, fruitu eta ortuari ekoizten eta gordetzen zen, eta ez zegoen ehizara irten beharrik. Luis Elberdin

Europak -eta batez ere Frantziak- ehun mila **tonaka** oilaskoki izoztua helarazten du Afrikarat. Herria

Goizero geneukan postontzia **tonaka** foiletaz gainezka. Jesus Mari Mendizabal

Handik gutira, miliunka **tonaka** zarama zen hartaratu. Jose Angel Irigaray

Punta-puntako teknologiaz egindako **tonaka** segurtasun tresna ezarri dituzte han. Berria - Harian

Eutsi egiten zion eta hainbeste zegoen, **tonaka** eta **tonaka** existentzia, mugarik gabe. Monika Etxebarria

tonal *izond* tonuari edo tonelitateari dagokiona.

Musikarekiko kontzientzia analitikoa konprenitzeko kontzeptuak jorratuko dituzte, hala nola: zentru **tonala**, disonantzia, erretardoa, kadentzia, kontrapuntua, horizontalitatea, bertikalitatea, harmonikoak, tentsioa... Berria - Kultura

Luzeak dira haien kantaldiak, kantu-lerroa, gainera, gorabehera **tonal** handikoa. Berria - Kultura

tonalitate 1 *iz* musika-lan baten oinarria osaten duten soinu sistema; tonua.

Oker handirik gabe esan liteke gaurko trikitalari gehienek hiru **tonalitate** besterik ez dituztela erabiltzen. Koldo Izagirre

Etxeberría nafarrak bertsoei jarri dien musika eklektikoa da [...] **tonalitatean** oinarritua baina expresionismoaren, Erdi Aroko musikaren, euskal musikaren edo jazzaren ekarpenekin. Berria - Kultura

Irlandar **tonalitate** zaharrean abestia ematen zuen abestiak, eta abeslariak zalantzakor zirudien bai letran eta bai ahotsean. Irene Aldasoro

Oso ondo jabetzen zen zein zen esku artean zuen tresnaren herrena, **tonalitate** guztietara bajuekin ez iristea, alegia. Iñigo Aranbarri

Tonalitateagatik bereizten jakiteko nola egin ote den tiroa, errepikapen-pistola batekin ala danbor-errebolber batekin. Koldo Biguri

Hiru kanabareekin egiten da [ˈlauneddasˈ-ɑː] handienak **tonalitatea** ematen dio, eta beste biekien notak egiten dira. Berria - Kultura

2 kolorearen nolakotasuna.

Sabiaren paletan kolore primarioak milaka **tonalitate** sortzeko nahastu bezala. Sonia Gonzalez

tonatu, tona(tu), tonatzen du *ad* orbandu, zikindu.

Lurrean oihal zuria zabal zabal, pentzela eskuan lehen marrez eta orbanez oihala **tonatzen** ari, damurik gabe bere buruarekin mintzatuz. Herria

tonba *iz* hilobia.

Baratze loratuan, han hemenka ziren ageri zenbeit **tonba** utziak hersturagarri. Herria

tonbarri (*orobat tonba harri*) *iz* hilarria.

Tonbak edo **tonbarriak** dira, berez. Hasier Etxebarria

Itsasertzera jo genuen, **tonbarrien** aurreko talaiaara; kondairak dioenez, jentilek Aiako Harritik Baionako katedralaren aurka jaurtitako bi harkaitz handi dira **tonbarriak**, jomugara heldu gabe Hendaiako itsasertzean uharte txiki eta ikusgarri gisa geratuak. Juan Luis Zabala

Bakarrik bihotzean egiten zimiko bat, ikusiz sobera **tonba harri**, bai eta hobi ziren bazterrerat utziak. Herria

tonbola 1 *iz* zozketa publikoa, hainbat opari zozketatzen direna; delako zozketak egiten diren tokia.

Tonbolan irabazitako panpina jantzi distiratsua nire ohe gainean zabaldua. Joseba Urteaga
Arropa salmentak, **tonbolako** txartelak, janari eta edariak hartzeko txartelak... Berria - Euskal Herria
Karia hortarat antolatua den **tonbola** edo zozketaren txartelak salgai dira. Herria
Gazte asanbladen materialarekin **tonbola** egingo da. Berria - Harian
Kontseiluak iaz martxan jarritako Euskal **Tonbolaren** etekina nabarmendu du. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Heriotzaren **tonbola** esan dio Etxerat-ek preso sakabanatuek bizi duten errealitateari. Berria - Euskal Herria
Bizitza, esaten den bezala, **tonbola** bat da, baina ez argizatua eta koloretsua, iluna eta beltza baizik. Karlos Linazasoro
Zergatik esan zenuen, Berardo adiskidea, bizitza **tonbola** itsusi, makur eta jasanezin bat zela? Karlos Linazasoro

tonelada ^(31 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan) 1 iz tona.

30 mila **toneladaren** orde 5 mila **toneladaren** arrapaketak onartzu bakarrik. Herria
Etxeak harripean gelditu ziren [...] uraren eta argindarraren sarea hondatua, itsasoa gorpuz betea, sendiarte osoak hilda, desagertuak, lokatz **toneladak** eta **toneladak**... Pako Aristi

2 (zenbaketetan, neurtzen denaren ezkerrean)

Zabortegi garrantzitsuena Garrafekoa zen eta bertan urtero 800.000-900.000 **tonelada** zabor botatzen zen. Berria - Euskal Herria
Ordainez, sei mila **tonelada** gari eta zortzi mila litro olio garbi eman ohi zizkion Hirami urte oroz. Elizen arteko biblia
Hiramek emanak zizkion Salomoni lau **tonelada** inguru urre. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berrogei tonelada zilar (3); **mila tonelada gari** (3); **tonelada gari** (3); **tonelada inguru** (4); **tonelada urre** (5); **tonelada zilar** (8)

toneladaka *adlag* tonaka.

Gauzak **toneladaka** gustatzen bazaizkizue, eraman arrain-irinez betetako kamioi bat etxera, eta eman bakea poesiari. Bernardo Atxaga
Eskolan **toneladaka** nozioak emanik elikagai, bizkor ere bizkor liseritzen nituen nik, baina ez zidaten zainetako odolik berotzen. Juan Garzia

toner iz elektrizitatez kargaturiko hauts tinta, laser inprimagailu, fotokopiagailu eta kidekoetan erabiltzen dena.

Guztiarekin, Tomek aparailua ekarri didanean eskuak zikin nituela sentitu dut, nola esango nuke, bulegoko fotokopiagailuaren **tonerra** aldatzean lohitzen zaizkidanean bezalaxe. Patxi Zubizarreta
Tonerraren usain sarkorrak guztiz menderatzen zuen espazioa. Iban Zaldúa

tongar *izlag/iz* Tongakoa, Tongari dagokiona; Tongako herritarra.

Fifitak ere jokatu egingo du gaur, ezker hegala **tongarra** zigortzeko arriskuan egon baita. Berria - Kirola
Horien artean, Pila Fifita **tongarra** da aipagarria, abenduaren 3tik ez baitu jokatu, zigorra tarteko zuela. Berria - Kirola

tongo iz norgehiagoketetan, aurkariari irabazten uztean datzan iruzurra.

Azken finean, **tongoa** boxearen parte ere bada. Berria - Kultura
Intziartek **tongo** egin eta jendea haserre. Patziku Perurena
Zuzendaritzaren aldekoek arraunlariei **tongo** egin izana leporatu zieten, eta herrian gaiztatu egin zen giroa. Berria - Kirola
Urtainek **tongoa** egin ote duen. Joan Mari Irigoien
Tongoa egin izanaren akusaziopean bota ninditean. Paddy Rekalde
Tongoa egiten zela, zerrikeria zela, batek bestea erosi egin zuela eta horrelakoak. Berria - Kirola
Tipoa **tongo** bat dela eta norbait erostera doanean ez dauka eskain diezaiokeen diruaren aztarrenik ere. Harkaitz Cano
Nire **tongo** salaketa zein nire apustuak ezerezean geratu diren arren, [...]. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tongo egin (3)

tongoa egin (3)

tonifikatu *izond* suspertua, bizkortua.

Goizetik goizera, azala indartsuago ikusiko duzu: bizi baino biziagoa, sendoagoa, **tonifikatuagoa**. Janbattitt Dirassar

tonifikatzaile *izond* suspergarria, bizkorgarria.

Beste tragoxkada bat gin-tonic **tonifikatzaile** honi. Joxemari Iturralde
Gin-tonic lasaigarri **tonifikatzaileek** horrela pentsatzera behartzen ninduten. Joxemari Iturralde

tonifikazio iz suspertzea, bizkortzea.

Tonifikazio sentimentalerako ariketa baten parte dirudi. Eider Rodriguez

tonika¹ 1 iz kininarekin egiten den edari gasduna, apur bat mikatza.

Garagardoa harentzat eta **tonika** niretzat. Aingeru Epaltza
Poliki, eskua luzatu zuen **tonika** hartzeko. Koro Navarro

Gorputzak ginebra ginebra daban beti, baina **tonika** bat edaten ari nintzen. **Aingeru Epaltza**
Di-da batean izotz puska bota eta beste di-da batean ginebra eta **tonika**. **Paddy Rekalde**
Tonikak lagundutako ginebra desagertu eta edalontzi hutsak hasi ziren ilunpeko mahaia betetzen. **Sonia Gonzalez**
Ondoren **tonika** osoa. **Paddy Rekalde**
Edalontziko azken **tonika** tantak edan nituen, horma urtuarekin nahasteka. **Aingeru Epaltza**

2 tonika erdi (orobat tonikerdi)

Tonika erdi bat eskatu dut. **Agurtzane Juanena**
Tripetatik ezongi samar gabiltzala eta, zenbat aldiz ez dugu hartu **tonikerdi** bat jinebra ttanta batekin, edo kopatto bete jinebra huts, zorioneko edari hori [...] **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gin tonik (7)

gin tonika (4)

tonika² iz zerbait garatzen den era.

Hirugarren mugimenduan, *Vivace ma non troppo*-n, **tonika** berean. **Berria - Kultura**

tonikerdi ik tonika¹ 2.

toniko 1 iz suspergarria, bizkorgarria.

Gauero, makilajea aurpegitik kentzeko esnea eta poroak ixteko **tonikoa**. **Jasone Osoro**

2 (izenondo gisa)

Gure ostatura bidean, bidaiek bertute **tonikoa** eta bizkorgarria dutela otu zitzaidan; ohiko lekuetatik urrundu orduko, bizitza intelektuala gobernatzen omen duten neuronak esnatu eta lanean hasten direla. **Bernardo Atxaga**

3 edari suspergarria.

Batek gogoan zeukan hantxe prestatutako **tonikoa**, senide bat sendatu zuena. **Anton Garikano**

Tira, ordezkorik nahi ez baduzu, proba ezazu arratointzak **toniko** hau -esan zion sorginak, eskua salmahaiaren azpira sartu eta botilatxo gorri bat ateraz. **Iñaki Mendiguren**

Arratoi-**tonikoa** eman behar diot Scabbersi. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arratoi tonikoa (4)

tono ik tonu.

tonsura ik tontsura.

tonta izond/iz tuntuna.

Barkaidak, Asier, lehengoan ez nian erantzun garbi bat eman, **tonta** bat ematen nian. **Pako Aristi**

Semeak, aitaren zangoen artetik irristatuz, bere ukabiltxoaz neskatoari zenbait kolpe jota: "**Tonta**!, gaiztoa!" eraso zion. **Pablo Sastre**

Tonta samarra naiz, baina ez horrenbestera! **Josu Zabaleta**

tontaire izond adkor tontoa.

Beste moderno-uste **tontaire** horietako bat! **Anjel Lertxundi**

tontakeria (orobat tontokeria g.er.) iz ergelkeria, zozokeria.

-Ez esan **tontakeriarik** -bota zuen azkenean. **Ramon Saizarbitoria**

Luzaro gabe damutuko zitzaidan **tontakeria** egitera nindoala pentsatu nuen. **Ramon Saizarbitoria**

Ez ezak, gero, dena hondatu, **tontakeriak** eginez: gu, komunistok, ez gaituk alproja jendea. **Josu Zabaleta**

Gutunetan **tontakeria** gutxiago idazteko eskatu zion. **Fernando Rey**

Ainhoek **tontakeriarik** ez pentsatzeko eskatzen zion. **Iban Zaldua**

-Hasi al zara umeei buruan **tontakeriak** sartzen? **Jon Maia**

Tontakeria bat litzateke. **Bernardo Atxaga**

-Hori **tontakeria** bat da -esan nuen-. **Fernando Rey**

Badakit **tontakeria** dela galdetzea ere, baina zuk ez zenuen ba ikusiko? **Joxemari Iturralde**

Horiek guztiak deus egiteko ez dutenen **tontakeriak** dira. **Karlos Zabala**

Gu denak beste mende batekoak gara, ez da egia, bi mendetakoak gara, zer **tontakeria**. **Mikel Hernandez Abaitua**

Begiratu zer **tontakeriak** irakurtzen dituen gure Bepino honek! **Fernando Rey**

Nik ez dut **tontakeria** horietan sinesten, baina argi-efektua atsegin zaidala aitortu behar dut. **Iban Zaldua**

Amorratu egiten naute emakumeen **tontakeria** horiek. **Josu Zabaleta**

-Nahikoa da, Mentxu, ez nago **tontakerietarako**. **Josu Landa**

Zuei aspaldi pasatu zitzaizuen estudiante gazteekin **tontakerietan** ibiltzeko sasoa. **Jon Arretxe**

-**Tontakeriarik** ez gero, e! **Fernando Morillo**

-Tira, tira, **tontakeriak** -moztu zion oraingoan don Evaristok. **Joxemari Iturralde**

hitz **maiztasunak** (**gutxienez 3 aldiz agertzen direnak**)

tontakeria asko (3); **tontakeria bat da** (3); **tontakeria dela** (7); **tontakeria hutsa** (4); **tontakeria izan** (3)

tontakeriak esaten (5)

ez esan tontakeriarik (3)

tonteatu, tontea, tonteatzen du *ad* ergelkerietan jardun; maite jolasetan ibili.

Gehiago gastatzen dik emazteak lagunekin **tonteatzen** ibiltzen denean. **Jokin Muñoz**

Ez da **tonteatzen** ibiltzeko adina. **Jokin Muñoz**

tonteria *iz* tontakeria, ergelkeria.

Propaganda handia dauka horrek ere telebistan, txalaparta eta halako **tonteria** batzuekin ibiltzen da, jendeak nobedadea behar du zeozer. **Pako Aristi**

Hara, ez esan **tonteriorik**! **Joseba Sarrionandia**

tonto 1 *izond/iz* gizonezkoek mintzatuz, tentela, ergela, baboa. ik **tuntun**¹.

Aberatsa da, baina ez aberats **tonto**, harro eta klasista horietakoa. **Pako Aristi**

Emazteak azken hatsean munduratutako seme **tontoaz** arduratzeko potrorik ez zuen eduki. **Jokin Muñoz**

Onartzen du ere beste ikasleak ez direla denak gaixo **tonto** batzuk. **Piarres Aintziart**

Amua ere arrain **tontoenek** irensten dute. **Pako Aristi**

Ez izan **tontoa**, ez egin txorakeriarik eta gorde zak hire dirua. **Matías Múgica**

Ezkerrekoak ez dira **tontoak** baina tontokeriak egiten dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Aberatsa duk, baina **tontoa** ez horratik. **Hasier Etxeberria**

Joan Bataiatzailea ez zen eroa Kaligula bezala, baina **tonto** samarra zen. **Bernardo Atxaga**

Edaria kendu diatenetik **tontoa** ematen duk. **Bernardo Atxaga**

Behin jaioko ni, eta ezertarako ez; **tontoa** halakoa! **Jesus Mari Mendizabal**

Klaseko **tontoena** zen. **Eider Rodríguez**

Tontoenak ere antzematen dio tranpa mortal bat egiten dela hor, jauzi mortal bat. **Iñaki Seguro**

Oilarra bezain harroa, erbia bezain izutia, astoa bezain **tontoa**. **Matías Múgica**

Tonto aurpegia jarri nuen. **Joan Mari Irigoien**

Itzelezko **tonto** aurpegia geratu zaizu. **Sonia Gonzalez**

Nora deitu nahiko ote zuen **tonto** koitaduak, nora, zurrunbilo haren erdian. **Karlos Linazasoro**

Komunistei aurpegia eskaintzen dien **tonto** baliagarria da. **Berria - Mundua**

Tontotzat hartu nauzue! **Pablo Sastre**

Tontotzat hartzen ninduzula pentsatu nuen. **Xabier Olarra**

Roblesek **tontotzat** jo ditu Jauriaritza eta Legebiltzarra. **Berria - Ekonomia**

"Askoren mina **tontoen** atsegina", esango du norbaitek. **Luis Elberdin**

Alferrik ibili nintzela seme deitzen eta horrelako **tonto** usainetan. **Hasier Etxeberria**

2 (genero neutroz)

Zoro hura, **tontoenak** ere antzemango zion, Markos Zapiain zen; barrukoa, berriz, idazlerik harroena lotsatzeko moduko lore pila, gutuna galdu ez banu ere errepikatuko ez nukeena. **Markos Zapiain**

Aspaldikoa da euskararen (hizkuntza ezdeus barbaroa) eta euskaldunaren erdeinua: menditar **tontoa** dela, arlotea, ezjakina, inkultoa, Tubal eta ideologia barregarrien sinestuna, etab., etab. **Joxe Azurmendi**

-Jendeak mezuak? Ergelkeriak besterik ez dituzte jartzen eta! Oroitzen al dituzu unibertsitateko komunetako atekak? Denak idatziz beterik egoten ziren "gora ni", "larrua jo, ez utz gerorako", "**tontoa** hau irakurtzen duena", eta abar. **Iñaki Zabaleta**

Umerik **tontoenak** ere zekizkien gauzak ziren horiek denak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 (gauzez)

Istripu **tonto** horietako baten ondorioz. **Anjel Lertxundi**

Kolpe **tonto** bat hartu nuela. **Fernando Morillo**

Gaztea egongelako ate hegiaren kontra zegoen geldi, irribarre **tonto** bat ezpainetan. Txiste txarrak kontatu eta barre **tonto** jario etengabea. **Unai Iturriaga**

Prestatua zuen esaldi bat, esaldi **tonto** bat, egia esan. **Lourdes Oñederra**

Nola eduki zitzakeen hainbeste imitatzaile eta miresle halako galdera **tontoak** egiten zituen pertsonaia batek? **Bernardo Atxaga**

Bazekien gogoeta **tontoa** zela, baina gogoeta **tontoak** izaten dira normalenak etxetik kanpo. **Unai Elorriaga**

Konfiantza eta errezeloa, lotsa eta lotsagabekeria, xalotasun **tontoena** eta gaiztotasun ankerrena. **Anjel Lertxundi**

Aukeran nahiago dut kobratu gabe gelditzea, sarritan gertatzen zait hori italiar txoro askorekin, zuen handiuste **tontoa** eramatea baino. **Anjel Lertxundi**

Mikelek goiko ezpainak ezkererantz eta gorantz mugitu zuen pixka bat, halako oinaze kontenitu baten metafora **tontoa** irudikatuz. **Unai Iturriaga**

Aldizkari **tontoa** izango da, baina mundu **tonto** honetan eredu bihurtzen ari dira hedabide masiboetan oinarritutako argitalpen hauek. **Pako Aristi**

Nerabeentzako aldizkari **tonto** horietako galdetegien antz handiagoa dauka errealtatearen bidegurutzeari baino. **Sonia Gonzalez**

Amodiozko kanta **tontoak** bata bestearen ondoan kateatuko dira etengabean. **Sonia Gonzalez**

4 (izenondo elkartuetan)

Goranahiko tontoez ari naiz hemen bereziki, hots, **tonto**-harroez. **Iñaki Seguro**

Andres **tonto**-harro harengana inguratu zen aulkia airean zuela. **Josu Zabaleta**

Okagarria duk zuen lizunkeria **tonto**-moderno hau guztia. **Anjel Lertxundi**

Hiri osoa geldirik balego ere, Sciopero? galdetuko lidake bere **tonto**-fashion aurpegiak. **Anjel Lertxundi**

Lotsa dela munduak asmatutako balore **tontogaizto** horren moztorropean ezkutaturiko balore nagusi eta eraginkorra **Anjel Lertxundi**

5 (adizlagun gisa)

Tonto ipintzen ez badituen ez dun ezer gertatuko, lasai. **Unai Iturriaga**

Tonto-tonto ari zen programa bat ikusten, denbora-pasa, telefonoa entzun uste izan duenean. **Jokin Muñoz**

Eta **tonto**-kontentu gelditu zen galdera zorrotz ustea egin eta gero. **Anjel Lertxundi**

5 tonto lapiko ik tontolapiko.

6 tontoarena egin

Tontoarena egiten ari naiz. [Lopez de Arana](#)

-Tira - behartu zuen -, ez **tontoarena egin**. [Migel Angel Mintegi](#)

Nik, **tontoarena eginez**, ea zein neska ari zen galdetu nion, alferrikako lana zela jakinik ere; baina instintiboki jo nuen Barbararekin harremana nuenik ukatzera. [Ramon Saizarbitoria](#)

Utzi dianonari dozena erdi bat aldiz gogorarazi bai, baina azkenean amore ematen dun, **tontoarena egiten** ari haizelakoan, edo ahaztuta. [Anton Garikano](#)

Hezearen distira zeukan begi ertzean, eta ni bitartean **tontoarena egiten**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tonto aurpegia (10); **tonto aurpegia geratu** (4); **tonto aurpegiarekin** (4); **tonto harro** (4); **tonto harroa** (3); **tonto harroak** (3); **tonto tonto** (5)

ez da tontoa (5); **galdera tontoa** (3); **tontoa da** (5); **tontoa ematen duk** (3); **tontoa izan** (4)

zenbat eta tontoago (3)

tontoarena egiten (6); **tontoarena egiten ari** (3)

tontotzat hartzen (5); **tontotzat jo** (4)

tontogaizto ik **tonto** 3.

tontokeria ik **tontakeria**.

tontoki *adlag* ergelki.

"Ez da beste gerrarik izango", gaineratu nuen **tontoki**. [Bernardo Atxaga](#)

Baina bere gogoak, **tontoki**, egin berria zuen inbentarioaren datuak adierazten zizkion etengabe: bost olio zahagi, hamaika ardo zahagi, hamasei gailleta kaxa, hamarna kiloko hiru atun lata... [Bernardo Atxaga](#)

tontola *iz adkor* tuntuna.

Hola, Aran, **tontola**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

tontolapiko (*orobat tonto lapiko g.er.*) *izond/iz adkor* tontoa.

Harekin guztiarekin pozik zegoen bakarra Ted **tontolapikoa** zen. [Agustin Osoa](#)

Bai, marikoia da; edo **tontolapiko** hutsa. [Jon Arretxe](#)

Horiek ulertu gabe ez dago aurrera egiterik, **tontolapiko** halakoa. [Karlos Zabala](#)

Tontolapiko hauek burutik eginda daude -esan zuen hortz artean-. [Lopez de Arana](#)

Lortu du, orain bai sentitzen dela **tontolapiko** hutsa. [Sonia Gonzalez](#)

Ez duzu irri antzerki bateko **tonto lapikoa** izan nahi, ezta? [Karlos Zabala](#)

Tontolapiko aurpegia jarri eta esan nion: [...]. [Jesus Mari Mendizabal](#)

tontolege *izond adkor* tontoa.

Irakasle **tontolegearen** ahotsak zergatik egiten du gora eta behera, zerra baten hortzek bezala? [Anjel Lertxundi](#)

tontoleszente *izond adkor* tontotik eta adoleszenteetik duena.

Bai, garaï hartan, batez ere, poesia idazten nuen; poesia "**tontoleszente**", nazkagarri, heldugabe eta txarra. [Ana Urkiza](#)

tontoleszentzia *iz adkor* adoleszentzia.

Tontoleszentzia uztektan nago eta Ecce homo helduaroa hasteko nobela egokia izan daitekeela pentsatzen dut. [Berria - Kultura](#)

Koadrilan hogeitik gora lagun ginenean, **tontoleszentzia** garaian, asko ginen izen berekoak eta halakoei abizenez deitzeko ohitura hartu genuen. [Xabier Etxabe](#)

tontolisto (*corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi*) *izond/iz adkor* buruargi ustekoa. ik **listo**²; **listopasatu**; **listomari**; **zozolisto**; **tertulisto**.

Xalo inozoak! Edo tontoak, gaur nagusi den neurriaren arabera! Bihotza jarri ez zuten ba diruaren gainetik! Eta tontoak zirelakoan, **tontolisto** bat atera zaie bidera kontzientziarik gabeko justizia baten bandera astinduz. [ETC-prentsa](#)

Esaterako, nork erabaki du ETB1eko albistegiek ETB2koen erdia iraun dezaketela? Audientziak, esango dit agintari **tontolistoak**. [ETC-prentsa](#)

tontolkulo *izond adkor* tontoa.

Luzea, repipia, pedantea, dotorea eta **tontolkuloa** zen. [Joxean Sagatzizabal](#)

Claudiarengana joan nintzen, dantza nola eskatu pedante-**tontolkulo**-euskaraz-putaidearik-ez--daukana agertu gabe hausnartzen. [Joxean Sagatzizabal](#)

tontolore *izond adkor* tontoa.

Ezagutu izan balu ere, latinez emango zukeen, intelektual-kutsuko piroteknia **tontolore** horretara erakarriak baitzeuzkan berarekin lan egiten zuten guztiak ere. [Anjel Lertxundi](#)

tontor 1 iz gailurra, goragunea.

Hura Aralar mendia, eta, harako **tontor** hura, Txindoki. **Patxi Zubizarreta**

Adarra eta Onddi **tontorrak** atzealdean. **Txillardeg**

Ostera ibiltzen hasi ziren eta berehala **tontor** baten magalak igotzeari ekin zioten. **Joanes Urkixo**

Elurra ari du gailurraren **tontorrean**, elurra ari hegian, elurra ari du teilatuan eta larrainean... **Patziku Perurena**

Tontorra, mendiarri bueltak emanez lortzen da. **Berria - Euskal Herria**

Goiko lepora 15:00ak baino lehenago iritsi ginen eta handik **tontorrera** ordubete inguru kalkulatu genuen. **Berria - Kirola**

Tontorrik garaienetara eta basarterik itxienetara heldu naiz.

Leihotik, hegoaldera begira, Jurramendiren **tontor** elurtua ikusi dut. **Txillardeg**

Oso erraz igo gintezke hortik Artzuriko **tontorrera**. **Koro Navarro**

Karakorum mendietako **tontor** betizuriez inguraturik gaude. **Xabier Montoia**

Muinoaren **tontorrean**, hiru lagun zeuden basoko borrokaren gorabeherak ikusteko ahaleginak egiten. **Joanes Urkixo**

Gau bat Larrun mendiko **tontorrean** eman nahi omen dik, aterperik batere gabe, indarrak horrela hartzeko nonbait. **Txillardeg**

Gora eta behera uneoro, baina **tontor** pikorik gabe. **Berria - Kirola**

Hegoaldeko erdi partea **tontor** nabarmenik gabeko mendizerra artez batek ixten zuen. **Joanes Urkixo**

Hiri txiki ikusgarri bat ageri zen, **tontor** apal batean. **Karlos Zabala**

Une hartan **tontor** leun bat gainditzen ari ziren. **Joanes Urkixo**

Neure gudu-gurdiaren oldarrez mendi-gailurretara igo naiz, Libanoko **tontor** hurbilgaitzetara. **Elizen arteko biblia**

Arrosako zolatik Hazparneko **tontor** eta ezpondetara doan bidean. **Berria - Kultura**

Beraien aurrean [...] berrogei metro altuera izango zuen **tontor** arrokatsu bat altxatzen zen. **Joanes Urkixo**

Tontor garaiak atzean utzi eta beste haran batera jaitsi ziren. **Joanes Urkixo**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harkaitzetan bizi da eta babesten, haitz-**tontorrean** du bere gotorlekua. Harkaitz-**tontorrera** igoarazirik, amildu egin zituzten handik. Muino-**tontor** eta mendi-gailurretan. **Elizen arteko biblia**

Eskolako lagun batzuk muino **tontor** batean geunden paisaiari begira. **Bernardo Atxaga**

Aspaldian agertuak zitzaizkigun, mendi **tontor** pelatuaren gainean, gazteluaren harresiak. **Piarres Aintziart**

Maiatz hastapeneko larunbat goiz hartan, bazuen bi oren, mendi tontorrez **tontor** genbiltzala. **Daniel Landart**

3 irud/hed

Bularren bi **tontor** txikiak esku batez elkarrengana hurbildurik, keinu lizun bat egin zidan beste eskuaz. **Anjel Lertxundi**

Baina iruzurra ez da hor geratzen, eta, sindikatuen irudiko, ikusten dena izozmendiaren **tontorra** baino ez da. **Berria - Ekonomia**

Hankekin zarta hotsa eginez joan zen atzeraino, elurrezko **tontor** bat zeukan pilaraino. **Anton Garikano**

Alasak, jantzi-armairuak, jantzitokiak, gainezka zeuden guztiak jantziz eta arropa xuriz: lisatuak, tolestuak, **tontor** erregularretan ordenatuak. **Joxan Elozegi**

4 (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Munstrozar ikaragarri baten lerdea zirudien olatu-**tontorretako** bitsak. **Anjel Lertxundi**

Hurrengo egunean ababorretik bi izotz **tontor** ikusiko dira itsaso ilun samarrean, lehenengo iceberg biak. **Joseba Sarrionandia**

Izotz **tontorren** alde ezkutua, izotzaren urpeko parte, baxura, altura bider bederatziz da. **Joseba Sarrionandia**

Ez zituen billegia, egur-pilak, ikatz-**tontorrak** bata bestearengandik bereizten. **Anjel Lertxundi**

Jack zaharrak txingarrak kartoi puska batekin elkarrengana bildu eta ikatz-**tontor** gorituaren gainean zabaldu zituen zuhurki. **Irene Aldasoro**

Tarteka ikusten ziren kare-**tontor** handiek zein enbor zerratu gabeek eta ohol ondo pilatuek hiri-inguruko mehatze eta basoen aberastasunak iradokitzen zituzten. **Anjel Lertxundi**

Hilari guztien atzealdean begiratu genuen, zuhaitz **tontor** bakoitzean. **Mirentxu Larrañaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izotz **tontor** (6); mendi **tontor** (12); **tontor txikiak** (3)

izotz **tontorrak** (4); mendi **tontorrak** (4)

mendi **tontorrean** (10); muino baten **tontorrean** (7); **tontorrean zegoen** (4)

mendi **tontorren** (3)

mendiaren **tontorrera** (3); **tontorrera heldu** (3); **tontorrera iritsi** (5)

tontorreraino igo (3)

mendi **tontorretan** (4)

mendi **tontorretik** (3)

tontorburu iz

Goio zurbil zegoen eta, errektorearen berba korranteak apenas mugitzen zuen izotza zirudien **tontorburu** gorri harekin. **Joseba Sarrionandia**

tontordun izond tontorra edo tontorrek dituena.

Itsasoa, irakinetan bezain nahasi, marrumaka ari zen, eta gero eta **tontordunagoak** ziren olatuak. **Anjel Lertxundi**

tontorka adlag adkor gainezka.

Haien ondoan, lastozko azpi baten gainean, latorrizko kutxa batzuk zeuden, txerrien odolez **tontorka**. **Karlos Zabala**

Izordia **tontorka** zerien nire poro guztiei, eta anpulu handi hotzetan geratzen zitzaidan kopetan itsatsita. **Koro Navarro**

Liburutegiaren erdira eraman ninduen, liburuz **tontorka** zegoen mahai bateraino. **Anjel Lertxundi**

tontortsu izond tontorrez bete.

Tarzanen pelikuletan ere agertzen ziren gezurrezko landareak, pelutxezko tximinoak, laino artean eta urrunean margotuta ikusten den paisaia tropikal **tontortsua**, abenturazko filmetan erabiltzen zen eretako koloreen distira, aktoreen gorputz gihartsua eta etengabeko akzioa. **Berria - Kultura**

tontortu, tontor(tu), tontortzen 1 du ad tontorrera eraman

Horixe da mendizale jonkitu edo mendiigoizale puntarengoaren karrera, heriotzaren umetgarainoko jolas zoro batek koroatzen eta **tontortzen** duena. [Iñaki Segurola](#)

2 da/du *ad* gainezka bete.

Munduko zientzia eta jakinduria guztia **tontortuta** zegoen Dembaren mahaian, eta bastioi haren atzean desagertuta zegoen estudiantea. [Anton Garikano](#)
Goizalde oroz herria ikaran hasten duk orgak iragatean; bazter guztietatik zatozak, kresalez, artaburuz, para-belarrez **tontorturik**. [Juan Garzia](#)

tontortxo 1 iz tontor txikia.

Herrixka, errekarren gaineko **tontortxo** batean, metro erdiko altuerako harresi batez inguratuta zegoen. [Joanes Urkixo](#)
Ikustekoa zen aita, **tontortxo** baten aurrean zut, satorra noiz hasiko lur azpian mugitzen. [Anjel Lertxundi](#)
Lurralde hartan zorua **tontortxo** eta zulo zen dena, eta gizon hura bizkarrean eramatea zen bide bakarra. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)
Emakume bat dago hondartzan, urak hondarretan egin duen **tontortxo** batean eserita. [Pako Aristi](#)
Sukaldeko harraskan kristalezko **tontortxo** bat ageri da, plater zikinez osatua. [Javi Cillero](#)
Samuel ezpalak pilatzen hasi zen sukaldearen erdian, **tontortxo** bat eginik errauts-meta baten inguruan. [Anjel Lertxundi](#)

2 azukreaz mintzaturuz, koskortxo.

Balantzaren platerean jadanik osatua duen azukre **tontortxoaren** gainera azukre jausi fin fina ari da botatzen. [Joseba Sarrionandia](#)

tontotasun iz tontoa denaren nolakotsasuna, ergeltasuna.

Eta nola ez ikusi gizarteko garailearen distiran berezko **tontotasunaren** seinale garbi bat? [Iñaki Segurola](#)

tontotu, tonto(tu), tontotzen 1 da/du *ad* tonto bihurtu, ergeldu.

Tontotu haiz ala? [Joxemari Iturralde](#)
- **Tontotu** egin al zarete? [Unai Iturriaga](#)
Ezin nuen ezertan taxuz pentsatu, **tontotuta** nengoen kolpearekin. [Bernardo Atxaga](#)
Flotatzen ari nintzen, nonahitik batera sartzen zitzaizkidan lanbro argitsuek **tontoturik** nengoen. [Monika Etxebarria](#)
Gure lana ez da izan behar gaixoa **tontotzea**, bere burua zulotik ateratzeko tresna arrazionalak eskaintzea baizik. [Berria - Euskal Herria](#)
Kolpe larregi jaso zituen, jasan ahal zituenak baino gehiago, eta haietako batzuek erdi **tontotuta** utzi zuten, beste askori gertatu bezala. [Paddy Rekalde](#)
Sukarra lotu zitzaion eta hiru bat aste bai lo ez lo ohetik jaiki gabe eman zituen zentzua **tontoturik**. [Karlos Zabala](#)

2 (era burutua izenondo gisa)

Infernuko esklabo gogortua nintzen ordurako, eta hala ere [...] Golubtxik deitzearen sufrimendua, jasan nuen umilazioa, Krapotkin bihurtzeko irrika ziren nire baliabide bakarra nire bizitza itsutu eta **tontotu** hartan. [Matías Múgica](#)

tontotzaile izond tontotzen duena.

Bizimodu oso alienantea, **tontotzailea**, kontsumista sortzen du. [Berria - Euskal Herria](#)
Telebista erabateko **tontotzailea** da. [Berria - Kultura](#)

tontoxka izond adkor tontotxoa. ik tontoxko.

Eta zer ninduen, **tontoxka** batentzat hartzen, ez niolakotz han berean gainerat jauzi egina? [Janbattitt Dirassar](#)

tontoxko izond adkor tontotxoa. ik tontoxka.

Maite xarmanta zela baina ni frango tontoa, hori ezarri nuen kaskoan!, ez banintz **tontoxkoa** izan, ez nuela utzi behar Maite bere etxerat sartzerat gehiagoko atxikimendurik erakutsi gabe. [Janbattitt Dirassar](#)

tontsura (orobat tonsura) 1 iz zenbait elizgizonek buru gainean daramaren ile moztuzko koroa; ile mozte hori egiten zen elizkizuna.

Tontsura edo hile-mozte honek kleriko bihurtzen zituen, hau da, agintari zibilen eskumenetik ateratzen zituen eta Elizaren babespean jartzen. [Askoren artean](#)
Nola ilea moztu, **tontsura** egiteko. [Askoren artean](#)
Jainkoaren zerbitzariaren lagun ziren anaia laiko guztiak **tontsura** txiki batzuk egiteko agindu zuen. [Askoren artean](#)
Joan kardinalak, anaientzat zuen debozioagatik, hamabi anaiei elizgizonen **tontsura** emanarazi zien. [Askoren artean](#)

tontsuratu, tontsura(tu), tontsuratzen 1 du *ad* tontsura egin.

Horrek eragindako beldurraren poderioz, anaiak **tontsuratu** zituen, eta hartara are etsai gehiago izan zituen. [Iñaki Iñurrieta](#)

2 (era burutua izenondo gisa)

Tontsuratu handiguren esklabo. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

tonu (orobat tono g.er.) 1 iz ahotsaren garaiera; hizketaldaren estiloaren nolakotasuna.

Zenbakia errepikatzen zuen **tonu** guztietan, gero eta ahots zoliagoz, eskala bitxi gorabeheratsu bati jarraituz. [Karlos Zabala](#)
Berehala kokoteko bat emanda belarrira egin zidan berba, **tonua** jaitsi barik: [...]. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)
Raxoiren kritiken **tonua** igoz joan zen. [Berria - Harian](#)
Beharbada, bere umorea zakarragoa da nirea baino, eta bere **tonua** autoritarioagoa. [Bernardo Atxaga](#)
Monaren jokabide eta **tonuagatik** egoera arrikutsua zela ohartu nintzen. [Fernando Rey](#)
Tonua apaldu zuen gero-: [...]. [Anjel Lertxundi](#)
Izan ere, **tonuak** traizionatu zuen. [Fernando Morillo](#)
Ahotsaren **tonua** zertxobait ilunduta hasi baitzen mintzaten. [Miguel Angel Mintegi](#)

-Ez dakit **tonu** hori inportatzen zaidan. **Jon Alonso**

-Garrantzia dutenak hitzak dira, ez **tonua**. **Jon Alonso**

Hitzak ez zituen ulertu, **tonua** zen inporta zuena. **Harkaitz Cano**

Hemen eztabaigarria gertatzen dena ez da gauza bera, baizik **tonua**. **Ibon Uribarri**

Guk biok emakume batek baino gehiago irauten diagu -jarraitzen du isil-kontuetako **tonuan**-. **Xabier Olarra**

-Zoriontsu izatearen ezina deskribatzeko idazten duzu. -Utzi zuen Elizabethek esaldia airean, bere hitzei kontu-eskatzearen **tonua** iradoki zezakeen ukitu oro kentzen ahalegindu eta gero. **Anjel Lertxundi**

Ez nuen etortzeko asmorik -esan zuen Teresak **tonua** aldatuz-. **Bernardo Atxaga**

Adorerik ez dago bere **tonuan**. **Jokin Muñoz**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tonu altuan barre gogotik egiten zuela zectorren, eskaileretan Gabrieli kontatu zion kontu batengatik. **Irene Aldasoro**

Tonu lasaia hartu zuen, konfidentziala: "Gauza bat esan behar didak aurrena, David". **Bernardo Atxaga**

Gerra guztiak hasten dira gaizki eta gaizki amaitzen, erantzun zidan aitak, nik baino **tonu** apalagoan, eztabaida saihesteko ahalegin nabarian. **Anjel Lertxundi**

Ministroa ongi kalkulaturiko **tonu** asepetikoaz mintzatu zen oraingoan. **Jon Alonso**

Kafearen mikatzak **tonu** indartsuagoan berba egiteko adorea eman zion. **Josu Landa**

Aitak kentzeko erregutu zidan, oso **tonu** serioan baina ahotsa batere altxatu gabe. **Anjel Lertxundi**

Angelo?, hark, estualdian dagoen baten **tonu** kezkatuan. **Anjel Lertxundi**

Willemek ere xuxurlaka erantzun zion, baina lehengo irriño beraz disimulaturik bere hitzen **tonu** errietatsua. **Anjel Lertxundi**

Seme, ez zaitetz politikan sar, gaineratu zuen gero erreguzko **tonuan**. **Anjel Lertxundi**

-Geldi, Fionn! -oihu egin zuen Cumhailek, eta bere premiazko **tonua**, zorionez, semearen gogo lausoturaino iritsi zen. **Joanes Urkixo**

Militarrak hizketan jarraitu zuen, **tonu** mehatxuzkoan beti ere eta nazka emango banio bezala. **Anjel Lertxundi**

Matxismo puntu bat ere bazuen galderaren **tonu** harridurazkoak. **Aritz Gorrotxategi**

Raimundo Silvak zalantzak ditu, ez daki besteak erabili duen **tonu** oldarkorarekin erantzun behar duen. **Jon Alonso**

Tonu beti berdinean mintzatu zen, limurtzeko edo iradokitzeko modulaziorik gabe. **Jon Alonso**

Gerrari buruz hasi zen, orokorrean, Josebaren aitak erabilitako **tonu** berean. **Bernardo Atxaga**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bekainaren bihurtura bat, ahots baten **tonu**-gorabeherak, keinu bitxi berezi bat... **Markos Zapiain**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Naturak berak behartzen ditu ahots-**tonu** lodiagoa erabiltzera. **Santiago Iruretagoiena**

Doktoreak, inolako kolore berezirik gabeko ahots-**tonu** berezkoak, ahots-**tonu** nahita neutroak, ahoskatu zituen lau hitzak bezain sinpleaz, hau esan zuen [...]. **Jon Alonso**

Gero, neska liluratu zuen hizketa-**tonu** eztea erabiliz, eta N.-rengana hurbilduz-: utzidazu azken musua ematen. **Anjel Lertxundi**

Hitz-jario koipetsuak ez zion ezer berezirik iradoki, ezta itxaropen bidean jarri ere, hizkera **tonu** berezia izan arren. **Migel Angel Mintegi**

-Berba egiteko daukazun fraile **tonu** hori oso egokia da loan astiro erortzeko. **Unai Iturriaga**

Nik txosten-**tonu** berberaz erantzuten nien. **Joseba Urteaga**

Broma **tonua** baliatuko zitzaidalakoan egin nuen galdera. **Bernardo Atxaga**

Elkarrizketa-**tonu** atseginean egin zuen galdera. **Xabier Olarra**

Gustatzen zaiola aldarrikapen-**tonu** hori, "itxaropen horrexek gartzen gaitu" eta abar. **Iñaki Iñurrieta**

Aitak eta amak gaitzespen **tonuan** hitz egiten zioten beti elkarri, baita elkarrenganako kezka azaltzen zutenean ere. **Joseba Urteaga**

Zer gura duk egitea? -ironi **tonuaz** saiatu zen Mentxu. **Josu Landa**

Belarrira eta ahapeka hitz egin nion, inork entzuteko beldurrez baino, erregu-**tonu** egoki baten bila. **Anjel Lertxundi**

Kantari hasi zen erabateko poztasun **tonu** batez. **Karlos Zabala**

-Kargu hartze **tonua** igarri zion Antoniari. **Josu Landa**

Josuk adar jotze **tonuari** eutsi zion. **Pedro Alberdi**

5 (testuez mintzatuz)

Lehenengo lerro horiek markatzen dutelako ez liburuaren segida baina bai liburuaren estiloa - **tonua**, bestela esanda. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gertaerak gertaera, ni kronikaren **tonuak** nau kezkatzen, ordea. **Iñigo Aranbarri**

Poemen **tonu** malenkoniazkoagatik. **Irene Aldasoro**

Ortega-ren **tonu** epiko inperial eta erretorika martzialak aztertzaile literario baten gozamina egin lezake. **Joxe Azurmendi**

Tonu errea eta zitala egotzi dio zenbaitek liburu horri, baina **tonuak tonu**, makina bat "egia berdadero" esaten dira bertan. **Koldo Zuazo**

La asesina ilustrada-ren bigarren (edo lehenengo) istorioak kontatzen dizkigu, **tonu** autobiografikoan. **Iban Zaldúa**

Detektibeei hain gogoko zaien **tonu** sasi-zientifikoa idatzia zegoen. **Joxean Agirre**

Pasarte hura ez zen *100 metro*tik hartua, eta ez zuen hasierako testuen **tonu** pastel turistikoaren antzik ere batere. **Iñaki Iñurrieta**

5a (testuez mintzatuz, hitz elkartuetan)

Hizkuntza-ereduaren aldetik, batu estandarra eta koherentzia hausteke, **tonu**-joko askotarikoak islatzen saiatu da itzultzailea. **Juan Garzia**

Tonu-giroz ezin hobeto zetorkidana, testua halako tremendismo batez janzteko... **Anjel Lertxundi**

Stendhalen obra guztien arteko antza eta **tonu**-unitatea argitzeko balio omen du. **Anjel Lertxundi**

Zenbat genero, zenbat bide desberdin, zenbat **tonu**-aniztasun eta alberdaniako proposamen, Calvinorena bezalako literatur biziiza laburrean! **Anjel Lertxundi**

-Pasarte batzuek halako tonu liriko jaso bat zutela, eta beste batzuetan, berriz, propaganda **tonua**, turistentzako foiletoetako erretorika pastelero horrekin. **Iñaki Iñurrieta**

6 bi musika-nota hurrenez hurrenekoen arteko bitartea, mi-fa eta si-do-ren artekoa izan ezik.

Modulazio harmonikoak bi **tonu** ditu tetrakordioan, eta bi diesi edo **tonu**-laurden. **Santiago Iruretagoiena**

Diesia **tonuaren** laurdena da. **Santiago Iruretagoiena**

Beraz, **tonu**, tonuerdi eta tetrakordioen bitarteen arabera banatu eta jarri ditu naturak ahotsarentzako mugak. **Santiago Iruretagoiena**

Modulazio kromatikoak, bere **tonuen** grazia fin eta moduluen ugaritasunagatik, askoz ere atsegin gozoagoa ematen du. **Santiago Iruretagoiena**

7 tonalitatea.

Sakabik **tonu** zailetan, sostenidoetan-eta jotzen duenean, ez du urruti txistularien eskola. **Iñigo Aranbarri**

Melodikan, **tonu** naturalean afinaturik baitzegoen, re bilatu, eta harriak burdinan ateratako nota bera jotzen zuela baieztatu nuen, harriturik. **Juan Kruz Igerabide**

Tonu-aldaketa noiz iritsiko beldurrez egiten nuen piezaz aurrera; artega, ez nintzen kontzentratzen partituran. **Anjel Lertxundi**

Onik gainditzen dut melodiaren protagonismoa eskuin eskutik ezkerrera aldatzen den ataka, garbi-garbi ateratzen zait segidako **tonu**-aldaketa ere, eta, noten trostaren zatiaren ondoren, azken konpasek behar duten trenpuaz amaitzen dut pieza. **Anjel Lertxundi**

Beti hala ezagutu izan dugu hori, eta plazetan gizonetako eta emakumezko hasi garenetik, are handiagoa da **tonu**-desberdintasuna. **Andoni Egaña**

8 (musikan modu-ren ordez)

Tonu minorrak maite ebazan, delikauagoa zan. **Xabier Amuriza**

Polka musika hasi da, **tonu** minorrean, ahul, urruntasunean. **Xabier Paya**
Ondoren, polka **tonu** maiorrera igaro da. **Xabier Paya**

9 koloreez mintzatuz, maila edo ñabarduna.

Baina kolorea, esan gabe doa, **tonua** ere bada. **Patxi Zubizarreta**

Larruaren **tonua**, begien eta ilearen kolorea. **Jon Alonso**

Esne urtsuaren **tonua** ematen dio ilargiak mendi hegala zabalari. **Pello Lizarralde**

Haragi gordinek konfituraren **tonu** arrosa hartzen baitzuten, akuarela baten antzo. **Karlos Zabala**

Begiek aurpegiari damaioien **tonu** aldaketa egunotan lurra ageri duenaren intentsitate beretsukoa da. **Pako Aristi**

Oso **tonu** pastel berezia zuen, beix eta horiaren artekoa eta oso distiratsua zen, baina deigarria izan gabe. **Txema Ramirez de la Piscina**

[Zapatak] urdin argiak ziren, oso politak, nik inoiz ikusi gabeko pastel **tonu** batekoak. **Bernardo Atxaga**

Kolore distirant haiek guztiak nahasten ziren batzuk besteekin, maskorren haragi **tonuak** legatzen opaloekin, berdelen nakarrak barbarinen urreekin. **Karlos Zabala**

10 (izenondoekin)

Tonu leun-leunak ziren, horiak eta berdeak batez ere. **Karlos Zabala**

Argi kulunkaria zen, aldatzen zihozan **tonu** urdinxka eta gorrixkazkoa. **Joanes Urkixo**

Arraia handi bat ageri zen, gorrikara, orban ilunez pintarratua, **tonu** bitxi zoragarriekin margotua. **Karlos Zabala**

Apiril heze eta gris hau, zeinean eguzkiaren txinpartak, batzuetan, argiari **tonu** latz bat ematen baitio, diamante leun eta itxia bailitzan. **Jon Alonso**

Iduneko zuriak **tonu** egokia ematen zien masaileri, eta satenezko gorbata urdinak **tonu** egokia ematen zion idunekoari. **Jose Morales**

Koadroaren **tonu** gordinenak marguldu egin ditu denboraren gorpilak, baina ez ezabatu. **Anjel Lertxundi**

Harrizko etxeetako pintura horiak biziki minberatzen zituen begiak, eta zurezkoen kolore grisak apaltasunez agertzen zituen bere **tonu** ilunak. **Jose Morales**

11 gorputzaren edo ehun organiko baten kemen egoera.

Muskulu horiek **tonua** galtzen badute (gaixotasun batengatik, adin handiagatik edo inguruko ehunen tentsioagatik), maskuriaren kontrola galtzen da. **Irene Aldasoro**

12 tonu erdi ik tonuerdi.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahots tonu (11); ahotsaren tonu (3); bi tonu (4); erabili duen tonu (4); erabilitako tonu (5); halako tonu (3)

tonu aldaketa (5); tonu batean (6); tonu batez (13); tonu berean (17); tonu egokia (9); tonu egokia ematen (5); tonu gogorrean (3); tonu hotzean (3); tonu ilun (4); tonu negarti (4); tonu orokorra (4); tonu serioan (3)

ahots tonua (13); ahotsaren tonua (10); erabilitako tonua (3); liburuaren tonua (3)

tonua aldatu (5); tonua aldatuz (4); tonua eta keinuak (3); tonua jaitsi (3)

tonuanitz izond tonu askotakoa.

Modulazio kromatikoak, bere **tonuen** grazia fin eta moduluen ugaritasunagatik, askoz ere atsegin gozoagoa ematen du. **Santiago Iruretagoiena**

tonuera (orobat tonukera) iz tonua.

Ezaguna balu legezko berbak esan zizkion, Joseluri hain toki ilunean **tonukera** lar altukoa iruditu zitzaion ahotsaz. **Josu Landa**

Aitaren **tonukera** apalak baretasuna kutsatu zion mutikoari. **Josu Landa**

Ahapeka hizketan jarraitu zuen neskak, baina **tonuera** aldatu: [...]. **Unai Iturriaga**

Titiburuak kiwi kolorez makilatuak ditu, ezpainen antzera, baina **tonuera** pastelagoan. **Patxi Iturritegi**

tonuerdi (orobat tonu-erdi) iz tonu baten interbaloaren erdia.

Etenaldi tiki bat, okerreko **tonuerdi** bat: aditu nuen, belarri ona dut musikarako. **Fernando Rey**

Berriz **tonuerdi** okerreko hori, mi bemol bat pentagramatik behera eroria. **Fernando Rey**

Entzumen arrunteko pertsona bat gai da milatik hiruko maiztasun-aldaketa bat detektatzeko maiztasun-eskalaren parterik handienean: **tonuerdi** baten hogeirenarri dagokiona, gutxi gorabehera. **Irene Aldasoro**

Musika berbera idatzi izan balu bezala da, nahiz eta nota guztiak **tonu-erdi** beherago idatzi. Bi tonu eta **tonuerdi** batez osatzen da tetrakordia. **Jon Alonso**

Tetrakordio kromatikoak bi **tonuerdi** ditu elkarren jarraian, eta hirugarren bitartean hiru **tonuerdi** ditu; tetrakordio diatonikoak bi tonu ditu elkarren jarraian, eta hirugarren **tonuerdiarekin** bukaera ematen zaio tetrakordioari. **Santiago Iruretagoiena**

Adibidez parhyptek, hyptetik **tonuerdi** baten erdiko tartea duenak harmonikoan, **tonuerdiko** tartea du modulazio kromatikora aldatzen denean. **Santiago Iruretagoiena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tonuerdiko tartea (4)

tonukera ik tonuera.

top 1 iz sailkapen bateko lehen lekuak.

Inoiz idatzitako nobela handien zerrrenda guztietan dago **top** ten-ea, lehen hamarretan. **Berria - Kultura**

Errugbia: **Top** 16 delakoan baditugu hiru talde departamenduan. **Herria**

Baionak Castresi egingo dio bisita etzi, Frantziako **Top** 14 Ligako 25. saioan, azken-aurrenekoan. **Berria - Kirola**

Bietarik bat egonen da segurki **Top** 14 delakoan, bertzeak beharko du irabazi bigarren mailako talde baten kontra. **Herria**

Parisen da dagoeneko Miarritze **Top** 8ko lehen partida jokatzeko *Stade Français* aurka. **Berria - Kirola**

Euroligako **Top** 16ko bosgarren jardunaldia bukatuta, sei taldek lortu dute final-laurdenak jokatzeko txartela. **Berria - Kirola**

Kopa eta **Top** 16 gertu, Tauk ordurako orain arte erakutsitako arazoak konpondu behar ditu azkar. **Berria - Kirola**

2 bikiniaren goiko zatia.

Neure buruari galdetu nion zergatik egiten ote zidaten hain zirrara erotiko gutxia nire aurretik bikiniaren **topik** gabe pasatzen ziren emakumeek. **Bernardo Atxaga**

3 top-less (orobat topless g.er.)

Kontxa eta Ondarretan, aldiz, **top-less**-a aspalditik dago onartuta, baina biluzik ez, ezta urrik emanik ere ez. **Berria - Euskal Herria**

Aurora **topless** dantzaria izana zen *Queens*-en. **Oskar Arana**

Giulianiren ideia izan zen zen, adibidez, eskola, eta elizetatik gertuko sex-shop eta **top-less** lokalak itxiaraztea. **Harkaitz Cano**
Edozein **top-less** lokaletan, hogeita bost dolarren truke magalean dantza egingo dizu Louisianako unibertsitate publikoan geografia ikasten duen oilanda batek. **Harkaitz Cano**

4 **top model** pasareletako modeloa, profesioko onenetakotzak hartzen dena.

Gonbidatuen artean Zubin Mehta, Tony Blair-en emaztea eta Europa Ekialdeko tenislari ospetsu bat, kokainaz lepo eta Versaceren **top model** hankaluzte baten besotik agertu zena. **Patxi Iturritegi**

'**Top modelen**' sindromea! **Ramuntxo Etxeberri**

Ez nintzen sekula **top-model** moldean itxuratuta, baina itsusia nintzela entzutea ez zitzaidan agradatzen. **Itxaro Borda**

Biek ala biek **top model** karrozeria luzitzen zuten, Andromeda galaxiako biotiporik ederrrena. **Patxi Iturritegi**

irud/hed Bilbo «**top** model bihurtu» nahi dutela salatu du, eta «Guggenheim museoarean erraldoikeriaren itzalpean» bizi direnei buruz idatzi. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

top less (6); **top model** (6)

topa 1 iz edontziak elkar jotzea.

Fionnen zentzumenak sorgortzen hasita zeuden, hainbeste **topa** eta **toparen** eraginez. **Joanes Urkixo**

Munduko emakume guztien aldeko **topa** proposatu nuen. **Aingeru Epaltza**

Orain **topa**, eta gero zer gehiago? **Aingeru Epaltza**

Txanpaina, **topak** eta bertako musika eta dantzariak. **Jose Angel Irigaray**

Toparen ostean gustura edan zuen Mentxuk. **Josu Landa**

Irakurleak aise igarriko zuenez, lehenbiziko **topan** Khersongo lurjabe berriaren osasunerako edan zuten. **Jose Morales**

Pasaiaiko badiako ur zikin horrekin bakarrik zen zilegi eta onargarria azken **topa**. **Harkaitz Cano**

Gora eskuak eta egin azken **topa**, baby. **Harkaitz Cano**

Pozarren hartzen omen zuen parte Romainek zubi baten itzalean edo plazaren bateko arkupetan eratzen ziren literatura eztabaida horietan, betiere aldiaren behin botilak altxatu eta idazle horren alde **topak** eginez. **Joxean Agirre**

Mutil onak ziren, baina mozkor porrokatuak, zientziari, kulturari eta aurrerabideari eginiko **topa** ugarien eraginez. **Jose Morales**

2 (hitz elkartuetan)

Orduan ikusi nuen, tabernaren izkina batean mahai batera eserita, eta baso bat ardo eskuan hartzen, don Roman bera, kale-jantziaren eta irribarre txikia bere sudur txapalaren azpitik, **topa** keinua egiten zidala basoa goraturik. **Inazio Mujika Iraola**

-Uda luzea izan dezagun! -haren **topa** -hitzak, edariak eskuan izanda. **Aingeru Epaltza**

-Edari-**topa** egiteko garaian, honela esan zion erregeak Esterri: [...]. **Jose Antonio Mujika**

3 (interjekzio gisa)

-**Topa**, bai -galdera Beatrizen begietan zintzilik sumatu du Imanolek. **Iban Zaldúa**

Topa nire maiteagatik! **Anjel Lertxundi**

-**Topa** hire jabea berriro etor dakian. **Josu Zabaleta**

4 **topa egin** edontziak elkar jo.

Ni, basoa eskuan, **topa egiteko** zain nengoen. **Joxe Austin Arrieta**

Denak hurbildu zitzaizkion berriro, kopak eskuan eta **topa eginez**. **Jose Morales**

Barre karkara bat egin zuen, eta basoa gora altxatu, **topa egiteko**. **Edorta Jimenez**

Topa egin genuen seriotasun eta ospe handian. **Anjel Lertxundi**

Topa egin eta edalontzia hustu nuen. **Joxemari Iturralde**

Honatx, **topa egin** dezagun, gu guztion alde! **Mirentxu Larrañaga**

Banan-banan, denen alde **egin** genuen **topa**. **Aingeru Epaltza**

-**Egin** dezagun **topa** eta edan dezagun hiruren alde. **Irene Aldasoro**

Zure osasun eta zorionaren alde egiten dut, beraz, **topa**. **Bego Montorio**

Mahaian zeuden guztiek, edalontziak altxatuta, **topa egin** zuten Mateo Xaharraren hirustaren alde. **Felipe Juaristi**

-**Topa** dagigun, beraz, iraultzaren osagarriari! -oihukatu zuen Zubiburuk, edalontzia altxatuz-. **Elena Touyarou**

Are, Eduardo -erran zuen noizbait ere-, Anarekin mintzatu beharreko mintzatu eta hoa gero hire oporrerengatik **topa egitera**. **Aingeru Epaltza**

Nire botila altxatu eta zuengatik egiten dut **topa**, zuekin ez nadin **topa**. **Iñaki Arranz**

Gora eskuak eta egin azken **topa**, baby. **Harkaitz Cano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde **topa egin** (7); **egin** **dezagun** **topa** (8); **egin** **genuen** **topa** (3); **egin** **zuten** **topa** (4); **independentzian** **topa** (6)

topa egin (69); **topa egin** **dezagun** (9); **topa egin** **zuten** (14); **topa eginez** (5); **topa egingo** (5); **topa egingo** **dugu** (3); **topa egitea** (4); **topa egiteko** (20); **topa egiten** (11); **topa egitera** (4)

topada iz topo egitea.

Kasu zailena izan zen leku hartan Tenshi jaun bikainarekin bizi izan nuen **topada**. **Joxan Elozegi**

Sentimendu guztietatik bereizitako eztabaida gai bat baizik ez zitekeen izan hura guztia, sekula ez, ordea, gurasoek eta alabak [...] hitzen eta emozioen bidez eginiko **topada**.

Joxan Elozegi

topadizo iz topada.

Munduko maritxu guztien **topadizoa**. **Koldo Izagirre**

topaera iz topo egitea.

Aurrez aurreko **topaera** horrek beste maila batera eraman ote zuen gure harremana? **Xabier Mendiguren Elizegi**

topagune (orobat **topa-gune** g.er.) 1 iz elkartzeko gunea. ik **topaleku**.

Arrotxapean **topagune** bat genuen. **Jokin Urain**
Zabalgunen zaharrekotako taberna bat genuen **topagune** : "Andia". **Aingeru Epaltza**
Beren negoziaren **topagunea** Lizuniagako benta zen. **Elena Touyarou**
Etxe haietatik urrun antzean zegoen sagasti eder bat izan genuen ohiko **topagune** Margak eta biok. **Juan Luis Zabala**
Garrantzikoena da mutilak, dopaguneari esker, **topagune** berri baten jabe egin garena, eta **topagune** horretan, komuneko komunitate horretan [...] bestelako tratatubide bat, gozotasun bat, konfiantzan hitz egiteko era bat asmatzen ari garena geure artean. **Iñaki Seguro**
Bertso-udalekuak antolatzen dira, ume eta gazte bertsozaleen **topagune**. **Andoni Egaña**

2 irud/hed

Claude Lévi-Strauss-en ustez, hain zuzen, hortxe da izadiaren eta kulturaren arteko **topagunea**. **Juan Garzia**
Bilatze-une bakoitza bihurtzen baita Jaungoikoarekin eta Betierekotasunarekin **topagune**. **Xabier Aranburu**
Erreportajea egiteko aginduko zioten delako futbolariarekin, ez kirolaz baizik eta modari buruz, elkarrengandik urrun egon arren mass medietako presentziak hurbiltzen dituen bi mundu horien **topagune** gisa edo. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Henri Cartier-Bresson-en formula famatu hura, argazkia (argazki ona) "instantearen eta geometriaren **topagune**" gisa definitzen zuena. **Josu Zabaleta**
Topagune horretan badira denborazko izaerarik ez duten alderdi asko eta asko. **Josu Zabaleta**

3 ikustaldia, bilera.

Nazioarteko zenbait **topagunetan** parte hartu du bere poesia irakurriz, besteak beste, Gasteizen, Dublinen eta Ljubljanan. **Ana Urkiza**
Europako Gizarte Foroa bezalako **topagunee** ekintza zehatzak garatzeko aukera ematen dute. **Berria - Mundua**
Idazle, argitaratzaile, liburu sailtzaile eta irakurle arteko **topagune** interesgarria da holako eguna. **Herria**
Industria plan alternatiboa prestatuko dute **topagunera** joandako adituek, udalerriren batzordea ez baitator bat SEPren egitasmoarekin. **Berria - Ekonomia**
Hogeita hirugarrenez antolatu dute Makina-Erremintaren Biurteko Azoka, eta **topagunee** marka guztiak hautsiko ditu aurten. **Berria - Ekonomia**
Politikari eta intelektualeen arteko gogoeta eta elkarrizketa sustatzea du xede, eta hartarako alderdi, gizarte eragile eta intelektualekin **topagunee** egiteko asmoa du. **Berria - Euskal Herria**
Hau da Gazte **Topagunearen** zazpigarren aldia. **Berria - Euskal Herria**
Lehen aldia da Gazte **Topagune** batean Komunikazio Gunea osatu duzuen. **Berria - Euskal Herria**
Apirilaren 9tik 12ra seigarren Gazte **Topagunea** egingo da Itsasondon. **Berria - Euskal Herria**
Hori da **Topagunearen** filosofia: amesten dugun herria jarriko dugu abian. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gazteen topagune (3); **topagune bihurtu** (6); **topagune bihurtu da** (3); **topagune izan** (5); **topagune izango** (6); **topagune izango da** (6)
aurtengo gazte topagunea (3); **aurtengo topagunea** (3); **euskara elkarteen topagunea** (3); **gazte topagunea** (46); **topagunea egingo** (3); **topagunea izango** (3)
gazte topagunee (12)
aurtengo gazte topagunee (3); **gandiaga topagunee** (4); **gazte topagunee** (19)
gazte topagunearen (20)
gazte topaguneko (14); **topaguneko idazkariak** (4)
gazte topagunera (4)

topaka *adlag* topa eginez.

Ondotik pasatzerakoan, irratilariak kopa nire aldera goititu zuen, alegia **topaka**. **Aingeru Epaltza**
Gau-pasa egiten ari duk errege, **topaka**, parrandan jo eta su, dantza-zalaparta bizian. **Juan Garzia**

topaketa 1 iz topo egitea, elkartzea, ikustaldia. ik**topaldi**. (pertsonek artekoa)

Topaketa hau urte bereko maiztasun gertatu zen. **Askoren artean**
Bi santuen arteko **topaketa** hau 1221aren hasieran gertatu zen seguruenik. **Askoren artean**
Bazkalondo hartan osaba Juanek indioekin behin izandako **topaketa** kontatu zuela. **Bernardo Atxaga**
Diagon kalean izandako **topaketaren** berri eman zion Harryk. **Iñaki Mendiguren**
Legendunekin izan zuen **topaketa** nabarmen du gertakizun erabakigarri bezala. **Askoren artean**
Topaketa hartan ere hitz gutxi gurutzatu genituen. **Patxi Zubizarreta**
Isilune labor baten ondotik, halako **topaketetan** ohikoak diren gai hutsalez hitz egin genuen. **Patxi Zubizarreta**
Zazpietako autobusa hartu behar zuen derrigorrez eta sei eta erdiatarako zeukan Angierekin **topaketa**. **Iñaki Zabaleta**
Kellyrekiko **topaketatik** ez dut deus berezirik espero, ez dut idealizatu nahi. **Iñaki Zabaleta**

2 (izenondoekin)

Topaketa labor bat izan zuen zuzendari teknikoarekin. **Juan Garzia**
Fonseca jaunaren aurrean elkartu ziren behin, baina oso **topaketa** formala izan zen. **Bego Montorio**
Izan ere aurreneko **topaketa** sutsu haietatik denboraldi luzea igaro baita. **Patxi Zubizarreta**
Egutxik, zuen adina izanik, ez zuen nahi beste **topaketa** itsusi bat izan emakume batekin. **Ibon Urbarri**
Barra gainean dagoen garagardoari so, gogorki heldu dio, naufrago batek bezala, espero ez zuen **topaketa** deseroso honetatik salbatu ahal izango balu bezala. **Sonia Gonzalez**
Topaketa deitoragarri horretan bai amak bai berak izango duten arrisku handia etorri zaio gogora. **Karlos Zabala**
Gerorako utzia nuen gu bion arteko balizko **topaketa**. **Patxi Zubizarreta**
Ezinezko **topaketak** eta abenturak asmatzen nituen. **Koro Navarro**
Ezusteke **topaketaren** bila kalean behera abiatu. **Josu Landa**
Lehenengo belaunaldiko psikoanalistek artearekin izan zituzten harremanetan eragin handia izan zuten artistekin izan zituzten **topaketa** profesionalak. **Josu Zabaleta**
Halakoetan, fusila bizkarrean zintzilikatu behar izaten du, eta orduan biziagotzen **topaketa** gaizto baten menturak sortzen dion beldurra. **Aingeru Epaltza**
Zorte ona izandako gertaeraz hitz egiten ari ziren, eta bakoitzak bere kasu bereziak kontatzen zituen: **topaketa** harrigarri atsegigarriak, treneko bagoian, hotelean, atzerrian, hondartza batean. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agerikoa zen galtzontziloan biok zakila gogorturik geneukala, desioak sortzen zigun sexu **topaketaren** irrikaz. **Aitor Arana**
Bikote hura bere ohaide **topaketetan** diskretuki ibiltzera lehiatu arren, haurrak ondoko gelan lo egiten zuen. **Elena Touyarou**
lazko udaberrian Kanbon egin ziren gazte **topaketak** iragartzen zituen afixean esposaketa baten berri ematen zen. **Iñigo Aranbarri**

4 (bestelakoena)

Zur eta lur, bi ezpainen **topaketaren** lekuko izan nintzen. **Aingeru Epaltza**
Plastikozko ontzi bat erabiltzea, alegia, besterik gabe, eskuarki espermatozoiden eta obularen arteko **topaketaren** egoitza izaten denaren ordez. **Juan Garzia**

Lehenengo bi belaldietako zibilizazioen arteko **topaketak** . Piarres Xarriton Mendebalde modernoaren eta garaikideen arteko **topaketan** ezaugarriak. **Iñaki Mendiguren**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hura ez zen erlijioaren eta arrazionalismoaren artean historian ezagututako lehen **topaketa** -kasua. **Iñaki Mendiguren**

Garbi dago [...] zibilizazio garaikideen arteko **topaketa** -kopurua askoz ere handiagoa izan litekeela, eta askoz handiagoa da izan ere, zibilizazioen beren kopurua baino. **Iñaki Mendiguren**

Ausardiaz araka ditzagun, beldurrik gabe murgil gaitezen eredu berri horren **topaketa** -lanetan. **Txema Ramirez de la Piscina**

6 bilera. ik topagune 3.

Antzerki amateurraren topaleku izateko asmoz sortu zituzten, duela 22 ekitaldi, Azpeitiko **topaketak** . **Berria - Kultura**

Ilaren 23an hasiko dira Bilbon *Periferiak* **topaketak** ; hainbat sortzaile ezagun bilduko dituzte. **Berria - Kultura**

Galeusca **topaketetara** , esaterako, beti etortzen zen. **Berria - Kultura**

Harriturik geratu zen aurreko egunean kartelean **topaketarako** deia -eguna, ordua, tokia- irakurri zuenean. **Iñaki Zabaleta**

Mendizale elkarteak antolatu; herri arteko mendigoizaleen **topaketak** bultzatu... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Herri-aldizkariaren **topaketa** horietako batean izan zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Historialari euskaldunen II. **topaketak** iraganen dira martxoaren 28an Donostian. **Herria**

"Trek" izenekoa 2005 honetan berean agertu da Idazle Pirinioarren **Topaketen** emaitza den *Lux Mundi* bilduman. **Aingeru Epaltza**

Arte Garaikideko dokumentazio zentroen **topaketak** antolatu ditu Artium museoak. **Berria - Kultura**

Iparraldeko bertsolari gazteen **topaketak** egingo dituzte Bidarrain. **Berria - Kultura**

Artista Gazteen **Topaketak** 2004 programa aurkeztu zuen atzo. **Berria - Kultura**

Egitarau «trinkoa» eta «askotarikoa» izango dute aurtengo Eibarko Antzerki **Topaketek** , antolatzaileek jakinarazi dutenez. **Berria - Kultura**

Tolosako zezen-plazan jokatu dituzte bihar Euskal Herriko joko, jolas eta kirol **topaketen** finalak. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzerki topaketa (3); **bigarren topaketa** (6); **garaikideen arteko topaketa** (4); **izandako topaketa** (7); **lehen topaketa** (8)

topaketa antolatu (6); **topaketa antolatu du** (4); **topaketa berezi** (5); **topaketa berezi batzu** (3); **topaketa egin** (7); **topaketa egin zuten** (5); **topaketa egingo** (7); **topaketa egingo dute** (5); **topaketa erraldoia** (3); **topaketa gaizto** (3); **topaketa harrigarri** (3); **topaketa izan** (4); **topaketa izango** (5); **topaketa labur** (3)

udako topaketa (6); **udako topaketa pedagogikoak** (3); **udako topaketa pedagogikoetan** (3); **ustekabeko topaketa** (3)

antzerki topaketak (5); **azpeitiko topaketak** (3); **bertsolari gazteen topaketak** (3); **bigarren topaketak** (3); **dantza topaketak** (3); **euskal jokoan topaketak** (3); **gazte topaketak** (9); **gazte topaketak egin** (3); **gazteen topaketak** (7); **lehen topaketak** (9); **nazioarteko topaketak** (3)

topaketak antolatu (10); **topaketak antolatu ditu** (8); **topaketak antolatzeara** (3); **topaketak antolatzen** (4); **topaketak egin** (7); **topaketak egingo** (8); **topaketak egingo dira** (3); **topaketak hasi** (3); **topaketak i** (5); **topaketak izango dira** (3)

udako topaketak (4); **urriko topaketak** (3); **zibilizazio helenikoarekiko topaketak** (4)

atzoko topaketan (3); **lehen topaketan** (3); **topaketan parte hartu** (3)

izandako topaketaren (5); **topaketaren berri eman** (3)

garaikideen arteko topaketen (11); **giza eskubideen topaketen** (4); **periferiak topaketen barruan** (3)

topaketen antolatzaileek (4); **topaketen azterketa** (4); **topaketen barruan** (15); **topaketen helburu** (3); **topaketen helburua** (3); **topaketen kateketa** (3); **topaketen ondorioak** (4); **zibilizazioen arteko topaketen** (3)

antolatutako topaketetan (3); **antzerki topaketetan** (6); **cortiko topaketetan** (4); **egindako topaketetan** (3); **periferiak topaketetan** (3); **topaketetan parte hartu** (6)

topaldi 1 iz topo egitea, elkartzea, ikustaldia. ik topaketa.

Gure **topaldiaren** osteko lehen gutun hark, aldiz, lehenengo gar hura zekarren. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lehenengo **topaldi** labur hartan ikusi ahal izan nuen edertasunaz kanpo, pertsona bizia, elkarrizketa zirtolarikoa eta barre lasai eta zabalekoa zela jabetu ahal izan nintzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hurrengo **topaldietan** ez zuen hobetu bere gaitasun komunikatiboa. **Aingeru Epaltza**

Badaezpada ere, irteerakoan **topaldi** gaiztorik izan ez genezan, aldean eraman diat artilleria. **Aingeru Epaltza**

Biarritz Baletak eta Donostiako Egiako kulturaguneak martxoaren 24tik apirilaren 4ra **topaldia** egingo dute Donostian. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Formen adierazgarritasuna ezin banatuzkoa da subjektu margotzailearen desiratik, eta errealitatearekiko **topaldi** arrakastatu baten testigantza ematen du beti. **Josu Zabaleta**

3 topaketa, bilera.

Bi enpresa lagunaren arteko **topaldietako** onginaldi sorgorra adierazten ari ziren Yumimotoko koadroen begitarteak. **Joxan Elosegi**

4 topa egitea.

Antifitrioe neak, aukera ikusi zuen batean, Gizadiaren alde altxatu zuen kopa eta, **topaldikoa** edan zutenean, leiho bat zabaldu zuen, esanguratsu. **Irene Aldasoro**

Ez zuen ezer esan zerbitzaria bi edontziekin itzuli zen arte; orduan, lagunaren edontzia arinki ukitu eta aurreko **topaldia** itzuli zion. **Irene Aldasoro**

topaleku 1 iz elkartze lekua. ik topagune.

Batzokia ez zen jan-edanerako elkarte soila, bere pentsamendua eta ekintzak gizarte osora zabalduko zituen **topalekua** baizik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hamarrak eta hogeita bortzetan nintzen **topalekuan** . **Aingeru Epaltza**

Gaua zen gure **topalekura** heldu nintzenerako. **Koro Navarro**

Jende askoren **topaleku** denez, istorio asko aditzeko parada izaten dugu. **Felipe Juaristi**

Teatroa garrantzi handiko **topaleku** eta ikuskizuna izan zen XVIII. mendeko goi mailako gizartearentzat. **Jon Muñoz**

Gazteen **topaleku** , gazteok eredu alternatiboak garatzeko edota gure arazoak borrokatzeko lekuak dira gaztetxeak. **Berria - Euskal Herria**

Zapata-denda bildumazale eta fetitxisten **topaleku** bihurtu zen. **Jasone Osoro**

Merkatu horiek, ororen gainetik, merkatariaren beren **topaleku** ziren, eta ez azken eskariak (kontsumozkoak) eta lehen eskaintzak (ekoizpenak) bat egiten zuten lekua, tokiko merkatuen kasuan gertatzen zen bezala. **Koro Navarro**

Feria haiek etenik gabeko merkatua osatzen zuten eta Europako iparraldeko eta hegoaldeko merkatariaren **topaleku** ziren, Italiatik Herbehereetaraino eta Alemaniatik iberiar penintsularaino. **Koro Navarro**

Ostatu zahar bat, dena beiratez inguratua, teilatua lastozkoa zuena: Txalupazainen **topalekua** . **Jon Muñoz**

2 irud/hed

Lurralde arriskutsua hauxe, laino guztien **topaleku** baita, marinela engainatu eta gero larrutu egiten dituzten jende anker odol-goseen bizitoki. **Felipe Juaristi**

Bestela ere, sektoreko berrikuntza guztien **topaleku** dira azokak. **Berria - Ekonomia**

Blues eta Jazz musika jaialdiak pasata, Getxo Bizkaiko hiriburua izango da berriro, musikaren alorrean bada ere, mundu osoko folk doinuen **topalekua** bilakaturia. **Berria - Kultura**

Pirineoz gaindiko Itoitzen aurkako oposizioaren **topaleku** izatea eta egungo borrokaren eztabaida-informazio gune bihurtzea da besta honen xedea. **Herria**

toparazi, toparaz, toparazten du *ad* topatzera behartu.

Lurraren erraiak josirik daude gnomoz, koboldoz (kobalto!), nikoloz (nikel!), zeinak eskuazabal izan baitaitezke eta altxorra **toparazi** aitzurraren puntan, edo tronparazi, liluratu, urrea bezala distiraraziz pirita xumea, edo zinka mozorrotuz eztainguraren jantziez: mineral askok daukate, hain zuzen, "engainu, iruzur, lilura" esangurako hitz-errorrik beren izenen osaketan. [Juan Garzia](#)

toparri *iz*

Inkontzientearen **toparria** geratuko da, ordea, bi ikuspegi horiek beti bereiziko dituen, kognitibistek ez baitiote inolako usterik eskaintzen, dela guztiz ezagutu ezinezkotzat daukatelako, dela inkontzienterik badenik ere ukatu egiten dutelako. [Josu Zabaleta](#)

topatu (2898 agerraldi, 208 liburu eta 653 artikulutan; orobat *topau g.er.*), topa, topatzen 1 du *ad* aurkitu. (norbait)

Hantxe **topatu** nuen osaba. [Txillardegia](#)
Noizean behin, Ana **topatzen** du kalean, eta ahalegin itzelak egin behar ditu ez agurtzeko. [Iban Zaldúa](#)
Jakingo bazenu zu ekiditen egon naizen denbora osoan zu **topatzea** zela benetan desiratzen nuena... [Sonia Gonzalez](#)
Beldur nion egunen batean Adela kalean **topatu** eta hizketan hasiko ginen orduari. [Juan Kruz Igerabide](#)
Goio **topa** nezakeela uste nuen, Kaiondoko auzoan bizi zen. [Joseba Sarrionandia](#)
Baina, han zer **topatuko**, eta emaztea mirabe beltz batekin oheratua **topatu** ez zuen ba! [Patxi Zubizarreta](#)
Ez zuen nahi nehor **topatu**; ez zuen mintzatzeko gutziarik. [Elena Touyarou](#)
Haren alarguna ere arras tristeturik **topatu** zuen. [Patxi Zubizarreta](#)
Kanpandorretik kalera jaistean emakume batzuk garrasika **topatu** nituen. [Joseba Sarrionandia](#)
Agurtu egingo nuke, hain lekuz kanpo **topatu** ez banu. [Joseba Sarrionandia](#)
Zoazte, **topa** ezazue eta moztuiozue burua! [Patxi Zubizarreta](#)
Ez duzu beste inon **topatzen** zeure burua! [Josu Zabaleta](#)

2 (zerbait)

Prismatiko batzuk ere **topatu** nituen, leiarrak apurturik. [Juan Kruz Igerabide](#)
Orain, kanpora irten behar zuten, **topatzen** zituzten arma guztiak hartuta. [Julen Gabiria](#)
Geltokitik irtetea, zalgurdi mordo bat **topatu** genuen, zain. [Txillardegia](#)
Bleeker kaleko 277.eko hauxe da **topatu** dudan ziberkaferik merkeena. [Harkaitz Cano](#)
Eta orain kontrol bat **topatzen** badugu, zer gertatuko da? [Sonia Gonzalez](#)
Gaua da, eta lo egiteko leku aproposa **topatu** dut itxita zirudien bulego huts batean. [Iban Zaldúa](#)
Oraindik ere urre doi bat **topa** daitekeela pentsatu sinetsi nahi dut. [Patxi Zubizarreta](#)
Harik eta beren sekretua **topatzen** dudan arte. [Patxi Zubizarreta](#)
Amak bizitza berri bat **topatu** zuen; aitzitik, aitak bere burua gainbehera ikusten zuen, eta osasun kaxkarrak ez zion batere laguntzen zulo hartatik irteten. [Juan Kruz Igerabide](#)
Non **topa** dezakek hau baino lan hobetrik? [Harkaitz Cano](#)
Harik eta beren sekretua **topatzen** dudan arte. [Patxi Zubizarreta](#)
Eduardo honek nor gogorarazten dion hausnartzen jarri izan da behin baino gehiagotan, baina gaur arte ez du erantzuna **topatu**. [Iban Zaldúa](#)
Baliabide egokia **topatu** zuten handik aurrera lana egoki egiteko. [Pello Zabala](#)
Ez dut horren aztarnarik inon **topatu** ordea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

• 3 da *ad*

Anja, Carsten eta laurok horrelaxe **topatu** ginen. [Edorta Jimenez](#)
Ez zen Raimundo Silva izan Maria Sara ohera eraman zuena, emakumeak ez zuen gizona, ezta ere, poliki bultzatu, bestela bezala hor **topatu ziren**, aurrena ohe ertzean eseririk, [...]. [Jon Alonso](#)
Denbora guzti horretan, bere bide bera egiten ari den jendearekin **topatuko da**, atzetik etorri eta pasa egiten duten bikote gazteekin, [...]. [Bernardo Atxaga](#)
Gero John saiatu zen, eta bainugela inguruan **topatu** zen Wendyrekin. [Julen Gabiria](#)
Nire botila altxatu eta zuengatik egiten dut topa, zuekin ez nadin **topa**. [Iñaki Arranz](#)
-Ikusi norekin **topatu** naizen -haren hatz luzeak nire andrea destatu zuen-. [Aingeru Epaltza](#)
Eta zurrumurruekin **topatu** nintzanean sokak lehertu zitzaizkidan. [Juan Garzia](#)

• 4 du *ad* topa egin.

- Topa** dezagun Jeneralaren osasunaren alde! [Jon Alonso](#)
- Topa** dezagun zure alde, Ellie, gizon zuriaren zama garraiatzen duen emakume langilearen osasunaren alde. [Lopez de Arana](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita topatu (4); arrastorik topatu (10); aurrez aurre topatu (5); azkenean topatu (7); bakarra topatu (5); berehala topatu (8); berri bat topatu (4); berria topatu (5); bertan topatu (7); bidean topatu (9); bizirik topatu (5)
egokia topatu (6); elkar topatu (8); emakume bat topatu (6); etxean topatu (8); goizean topatu (4); gorpua topatu (10); gorpua topatu dute (4); hantxe topatu (5); hara non topatu (4); hilda topatu (8); hilik topatu (13); hilik topatu zuten (7); horrela topatu (4); hutsik topatu (5)
itxita topatu (5); kalean topatu (8); lana topatu (9)
onik topatu (5); soilik topatu (4)
topatu ahal izateko (4); topatu arte (17); topatu ezean (5); topatu ezinik (7); topatu gabe (10); topatu ondoren (4); topatu orduko (4); topatu zituzten hilik (4); topatu zuen arte (6)
ugarri topatu (4); zahar bat topatu (4); zaharra topatu (5); zerbait topatu (10)
berriro topatuko (5); bertan topatuko (5); topatuko nuelakoan (4); zer topatuko (13)
bidean topatutako (5)
egokia topatzea (5); elkar topatzea (5); irtenbidea topatzea (4); topatzea espero (5)
elkar topatzeko (5); lana topatzeko (5); lekua topatzeko (5)
bidean topatzen (8); elkar topatzen (8); kalean topatzen (8)

Amodioa gezur zuri bat besterik ez zela, norberaren laranja erdia **topatze** hori mito faltsu bat, eta merezi zuen bakarra sexua praktikatzen ahalegintzea zela. Xabier Mendiguren Elizegi

Aintzane berriri maitatzen jarraituko dudala, lehen bezala, putakume hori gure bizitzan inoiz sartu izan ez balitz bezala: ez baita sartuko, urdaitegi saileko elkar **topatze** hori galarazten asmatzen badut. Iban Zaldua

Une horretatik bertatik sumatzen duguna ez da elkar **topatze** soila, baizik eta kontratu egiazkoa. Andres Urrutia

topatzear *adlag* topatzeko zorian.

Horrela bada, filosofiaren harria **topatzear** dagoela uste duen alkimista bezalaxe sukarrak harturik, inon diren kalkulurik xeheenak hasi zen egiten hipotesi haren probabilitatea aztertzeko. Josu Zabaleta

topatzeke *adlag* topatu gabe.

Malenkonia erranezin batek hartzen nau hartaz oroitzean: batzuetan gauak eta gauak eman ditut iraganbide eta harri leunduzko eskaileretan zehar liburuzain bakarrik ere **topatzeke**. Juan Garzia

Sartzean ez nuen ikusi ez nire armairua, ez nire besaulkiak, ez nire mahaiak, ez ezer, bere garaian nire etxea jantzi zuen guztiatik ezer ere ez, baina ezer ere ez, bezperan nire gauzaren bat **topatzeke** pauso bat bera ere egin ezin nuelarik. Josu Zabaleta

topau ik topatu.

topazio 1 *iz* harri bitxia, aluminio eta fluor silikatoa, beilegia eta gardena.

Paradisuan bizi zinen, Jainkoaren baratzean, mota guztietako harribitxiz apaindua, kornalina, **topazio** eta berilo, krisolito, onize eta jaspez, zafiro, errubi eta esmeraldaz apaindua. Elizen arteko biblia

Bitxi bikain eta fina zen, **topaziozko**, granatezko eta kristal landuzko zaitxoak urrezko kate mehe batez loturik egina. Oskar Arana

Kasik seiehun gorbatako bilduma paregabea zeukan, eite eta tonu guztietakoak, forma guztietakoak: nahiz frakarentzako korapilo zuri sinpleak, nahiz **topazio**-kolibria bezain kolore sutsu aberatsekoak. Anton Garikano

2 (kolore gisa)

Leihoen kanpoaldean, arrastiri euritsu baten urdin, more eta **topazioak** marratutako patioak. Lopez de Arana

tope 1 *iz* zerbait geldiarazten duen muga.

Besoka igotzen zuen gorputza, pultsuan, eskuak **tope** batetik bestera luzatuta. Koldo Izagirre

Agian hamar aste; hortxe daukat **topea**. Juan Garzia

Zurezko hanka -makila bat, gomazko **tope** bat zuena-. Ramon Saizarbitoria

Aurreko atetzarrak kolpe zatar batez **toperaino** iritsia zela abisatu artean, ondorengo atearen operazioa ez zen hasten. Txillardegi

ik beherago 6. Askoren artean

Euskal Herrian Euskaraz taldearen ustez, Euskal Herrian dauden «**tope** legalak» izugarriak dira, eta euskarazko etiketatzea oraindik normalizatzeke dagoela dio. Berria - Harian

Argi dago elurrari **topea** jartzea alferrikako kontua dela: badaki ekainean bertan bisita egiten ere. Pello Zabala

Abuztuaren zortzigarrena zeukaten haiek **tope** jarrita: herriko jaiak-edo, izango zen auzoren bateko festa usaina data horietarako gertuan. Pello Zabala

Bizkaiko golkoan, Iparralde eta Frantziako lur-mendiak itsasoko haize eta lainajeari ipintzen dioten **tope** frontoizko horrekin, guztiz bidezkoa da aire-masa umel bustiak gure txoko horretan uztea. Pello Zabala

Haustura, ez da arkeologiarentzako bere azterketen **topea**, urrunetik adierazten duen muga, bera mugatu ezinik, berari espezifikotasuna eman ezinik. Xabier Arregi

Ospitaleak **topetaraino** beteta daude. Josu Zabaleta

2 geldigailua.

Triki-trakak bakandu egin ziren, urritu; **tope** guztiek elkar jo zuten, tren osoan zehar ikaragarritzko zalaparta hedatuz. Lopez de Arana

3 (adizlagun gisa) dena emanda.

Tope ligatu nian, Marais aldean bereziki. Iban Zaldua

-Akropolis du izena lekuak, oso ondo dago, **tope** ibiltzen du! Pako Aristi

4 *topean* dena emanda, topean.

Eta ibilbidea oso bestelakoa izan arren, esfortzu maila oso da berdina kasu bietan, ia **topean**, muga anaerobikoaren gainetik ibili behar izaten baita. Berria - Kirola

- Ezker aldeko leihatila irekitik melodia bat heldu zaie **tope** arraioan. Patxi Iturritegi

5 *topera* dena emanda, topean.

Musika **topera** dago; hormak pitzatu nahi lituzketen burdinazko bolak bezala sentitzen dira bateriaren kolpeak, gitarra soloak, kantariaren oihuak. Pako Aristi

Ordua heldu eta etxetik irten nintzen, musika **topera** jarrita. Iban Zaldua

Eta esnea kafeteran **topera** berotu eta berehala izozkailuan sartzen badugu, eta hozten denean berriri berotu eta ostera izozkailuan sartu? Jokin Urain

Zure adrenalina guztia **topera**, deskarga itzela izan zen. Sonia Gonzalez

- Jenteak berak bere **topera** laguntzen euskun kantuan eta kaleak aidean alitzateko moduko korua sortzen zan. Xabier Amuriza

6 *toperaino* dena emanda, topean.

Lau itzuli eman zizkion, **toperaino**. Koldo Izagirre

7 *tope egin*

Aiztoak leun-leun egin zuen bidea, kirtanak garondoan **tope egin** arte. Anjel Lertxundi

-Hara -esan zuen-, geziak honen kontra **egin** du **tope**. Julen Gabiria

Erretratua biziaduna ematen zuen, gainera, eta Goioren begiek erretratuko haren begirakune artezarekin **tope egiten** zuten, mutil hura lauki barruan mugitzen hasiko zela eta edozer gauza esaten hasiko zela ematen baitzuen. Joseba Sarrionandia

8 *topea jo*

Mahai gaineako argia ere erori, eta itzali egin zen, beira hautsita; eta leihoak, gaizkileren batek heldu eta bultza egin izan balio bezala, **topea jo** zuen. Josu Zabaleta

Gero eta zerrikeria handiagoak eginda ere, azkenean **topea jotzen** duzu eta aspertu egiten zara. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

musika topera (3)

topeka *adlag* talkaka.

Bi ahari adar-oker **topeka** zebiltzan elkarren aurka, norik noren garunak kanpora aterako. Ahariak elkarri **topeka** egitekotan izaten direlarik zelan, halaxe lotu gintzaizkion elkarri puzka eta adurra zerigula. **Aingeru Epaltza**

-Zer, mutilak, **topeka** hasi al zarete orain? -ekin zien Orrondok, barrez. **Pedro Alberdi**

Ukondoak, fardelak, sorbaldak, ipurmamiak han-hemenka higitzen ziren, tren expres kirrinkariak emandako astinaldian elkar **topeka**. **Lopez de Arana**

topekada *iz* buru talka; talka.

Topekada batek gurdia suntsitu zuen. **Lopez de Arana**

Ez zuen ikusi taxia etortzen, bai arin etorri ere, eta ez zuen ezer nabaritu **topekadaren** ondoren. **Beria - Kultura**

topiko 1 *iz* egia arrunta, askotan errepikatzen den esamoldea edo ustea.

Topikoak bestela badio ere, katalan guztiak ez dira xuhurrak ez poltsa-zimurrak. **Joan Mari Irigoien**

Kafea Italian ona da edozein lekutan, **topikoa** baina egia. **Mikel Hernandez Abaitua**

Topikoa dirudi, enaren kontu hark bezala, baina egia baino ez da, egiantzik gabeko egia, fikzio itxurako errealitatea: elurrez estalia agertu da mendia, sasoi kanpo, aski aurreratua baita udaberria. **Imanol Zurutuza**

Topikoak errepikapena du kondena, mila aldiz erabili izanak bihurtzen du lelo bat astun. **Anjel Lertxundi**

Hizkuntzen kontzertuan hots gutxi ateratzen duten hizkuntzetako idazleok pagotxa halako bat dugudena *esanda dago* **topikoari** ihes egiteko. **Anjel Lertxundi**

Horrekin Katalunia solidarioa ez delako **topikoa** hautsi nahi dugu. **Beria - Mundua**

Oso gai erabilia da, eta ondorioz, **topikoetan** erortzeko arrisku handia dago. **Beria - Kultura**

Topikoa betetzen ari da: [...]. **Beria - Kirola**

Harrezkero **topiko** bihurtua da iritzi hori. **Beria - Kultura**

Askotan errepikatu ohi diren sentimenduak adierazteko gaitasunagatik bihurtu ohi dira esamolde batzuk **topiko**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Errealitatean merkatu-lehia ez baita askotan erruz zabalduko **topiko** bat baizik. **Iñaki Heras**

Komunismoaren irudi karikatureskoa eta **topikoz** betea. **Koldo Biguri**

Ezkerreko diskurtsoa entzuten dudanean, elkorra, fosildua, **topikoz** betea, eskema zaharkitu batzuei itsatsia iruditzen zait sarritan, traba intelektual bat sentitzen dut neure egiteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Topikoak beretzat irabazita nindukan bai, horrexetarako izaten baitira **topikoak**, berez pentsamendu zabalago eta konplexuagoa behar lukeena, hitz apur batzuen fedezaz itozteko. **Hasier Etxeberria**

2 (izenondoekin)

Itsua izanagatik ere, Borges idazleak begi ernea zuen **topiko** kulturalak eta literarioak biluzteko orduan. **Anjel Lertxundi**

Topiko merkeak botatzen ari naiz, badakit, baina utzidazue oraindik beste bat idazten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Esan nien idazlea, berez, ez dela beste edozein giza abere baino justuago edo sentiberago, **topiko** faltsuak direla horiek. **Karlos Linazasoro**

Madril eta Euskal Herria, jende itxia eta irekia, hau eta hura, sakon usteko **topiko** kosmopolitenak errepikatzen bera. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Artistak eraso egin behar dio mila aldiz entzundako *dena esanda dago* **topiko** gaiztoari. **Anjel Lertxundi**

Erdi Aroaren **topiko** gaitzesleak dioenaren kontra, bertako errealitateak beste hau iradokitzen digu: intelektualek egundoko presentzia izan zuten eta, garaiko intelektual bezala, teologo unibertsitarioak ahalegindu egin ziren teologia zientzia bihurtzen. **Askoren artean**

Topiko errepikatua zen arraza espainolaren alfertasuna eta ezgaitasuna zientziarako, iparraldeko arrazen langintasan eta zientzia eta teknikerako iaiotasunaren aldean. **Joxe Azurmendi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esatera noan honek **topiko** usaina du baina, Aloña, bere gaizkitze eta nekatze haiekin guztiekin, sekula ez zegoen aldarte egokian. **Topiko** kutsua baduela onartu arren, [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Idazleen bohemiotasunari buruzko klaxea gehi errepublika historikoen gorabehera gatazkatsuekin eskuinak sortu duen **topiko** -multzoa. **Anjel Lertxundi**

Hau dena [...] literatura arrazista eta antisemitako **topiko** andana bat besterik ez da berez. **Joxe Azurmendi**

Bigarrenak beste **topiko** eremu berri batzuk ekarri zituen. **Askoren artean**

• 4 *izond* topikoaren araberakoa, askotan errepikatzen dena.

Zorioneko bertso hori kantatu zuen bertsolaria 20 bat urteko gazte korbatahun bat zela: Inaki Eizmendi, "Basarri", bertsolarien ordu arteko irudi **topikotik** gutzit bestelako irudia ematen zuena. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Feminista erradikalen diskurtso **topikoa**, Helena endreda-makilak kutsatua. **Patxi Iturritegi**

Animozko adierazpen **topikoak** eskaintzeko. **Iban Zaldúa**

Salaverriarekin, adibidez, haren arbuioaz kristautasunari, semita izateagatik, nobleen eta plebeioen kontrajarpenaz moralean, etab., Miranderen obran ere gai **topikoak** direnak. **Joxe Azurmendi**

Irudipena dut euskaldun **topikoarekin** nekez lot litekeen ezaugarriak hutsalena ere erreprimitzeko joera izan ohi dudala gustagarri izateko desioz. **Ramon Saizarbitoria**

Pentsamendu bakar horri kontrajarrita, bada beste nolabaiteko ikuspegi **topiko** bat: lehiakortasunaren kontrako diskurtsoa. **Iñaki Heras**

Bada, aipatu eztabaida **topikoz** harantzago, Ongizate Estatuari egiten zaion beste kritika mota bat, funtsezkoa, labur bada ere aipatzea merezi duena. **Iñaki Heras**

• 5 *iz* (filosofian)

Aristotelesen **Topikoetan topikoak** lekuak dira, ikuskerak -predikatuak, atributuak-, predikatu batek subjektuarekin elkarrekikotasuna egiten ahal duelarik. **Askoren artean**

6 (literaturan)

Horra aukera eta gaia, Perurena klasikozearen "beatu ille" **topikoan** barrena egin nahiko lukeenarenzat. **Patziku Perurena**

Topikoa Arrese Beitiak finkatu zuen, berehalako eta sekulakoa izan baitzuen arrakasta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Karga poetiko-erretoriko handiz hornitzen ditu formulak Amurizak; horrenbestez, handia da formulen komunikazio-garrantzia haren bertsoetan, eta haietaz baliatzen da **topiko** edo arketipotzat inolaz ere har ezin litezkeen ideiak eta edukiak indartzeko. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

betiko topiko (4); inguruko topiko (3); topiko bihurtu (6); topiko bihurtu da (3); topiko hutsa (5)

dioen topikoa (3); topikoa dirudi (3)

topikoak erabili (3)

betiko topikoekin (3)

topikoz betea (3)

topikotxo *iz* adkor topiko txikia.

topikotzar *iz adkor* topiko handia.

Bestalde, mahaikide gehienek harriak ez eta iritziak baino gehiago **topikotzarrak** botatzen zizkieten elkarri, asmorik petralenarekin. **Jon Alonso**

topless ik top 3.

topo

1 *topo egin* ustekabeen-edo aurkitu. (pertsanak)

Ustekabeen **topo egin** dugu... **Iñaki Mendiguren**

Inoiz **topo egingo** bagenu... **Anjel Lertxundi**

-Orain ez haiz gu ikustera etortzen -esan zion inoiz Katalinak, kalean **topo eginda**. **Koro Navarro**

-Hori ikusiko dugu, gerraren jokalekuan **topo egiten** dugunean; baina ordu arte, zer arraio! izan gaitetzen bidelagun. **Karlos Zabala**

Haiekin batean eramango gaituzte hodeietan, airean Jaunarekin **topo egitera**. **Elizen arteko biblia**

Ezetz asmatu norekin **topo egin** dugun trenean? **Iñaki Mendiguren**

Behin **egin** nuen **topo** berarekin ilunpetan -kasualitatez-, bere ping-pong lagunarekin besotik helduta zihoala, eta berak ez ikusiarrena egin. **Joxe Austin Arrieta**

Ez zitzaion komeni Itziarrekin **topo egitea**. **Migel Angel Mintegi**

Taberna batean **egin** zuten **topo** biek, gaueko hamaikak aldera. **Migel Angel Mintegi**

Lekukoek diotenez, parkean **egin** zuten **topo** eta emazteak senarrari tiro egin aurretik hitz egiten jardun omen zuten. **Joxean Agirre**

Oso deserosoa egiten baitzitzaion ikasleren batekin **topo egitea**. **Anjel Lertxundi**

Lehenengo solairura igotzekotan nengoelarik, osabarekin **egin** dut **topo**. **Txillardegia**

Oraindik sekular jantzita zebilela, legendun batekin **egin** zuen **topo** egun batean. **Askoren artean**

-Eta espero dezagun laster **topo egitea** soldadu errusiarrekin! **Karlos Zabala**

Baina biak atzera itzuli eta elkarrekin **topo egin** zuten toki berean. **Elizen arteko biblia**

Topo egina zen bizitzan zenbait jenderekin, kanpotik berarekin bat agertzen zirenak, baina barrutik bestela pentsatzen zutena. **Askoren artean**

Hainbat aldiz **topo egina** zuten elkarrekin urdaitegian. **Karlos Zabala**

Inoiz, biok etxerantz gentozela, **topo egin**, eta elkarrekin egin genuen bidea. **Ramon Saizarbitoria**

Halaxe izan omen zen, baina kalean **topo egin** zuten berriro, edo **topo egitearena** egin zuen ilehoriak, itxura guztien arabera. **Migel Angel Mintegi**

2 (gauzak)

Filosofiak eta erlijio primitiboak elkar jotzerik gabe **topo egin** zuten. **Iñaki Mendiguren**

[X eta gamma izpiak] oso probabilitate txikia dute atomoaren nukleoarekin edo elektroiekin **topo egiteko**. **Berria - Gaiak**

Topo eginiko aurreneko tabernan sartu zen. **Migel Angel Mintegi**

-Elizarekin **topo egin** diagu, Santxo. Berarako bidean, Guardia Zibilaren kontrol batekin **egin** genuen **topo**. **Patxi Ezkiaga**

Ustekabea izan zen etorri eta hemen euskararekin **topo egitea**. **Berria - Harian**

Bidaia labur hark iraun zuen denboran gure begiek **topo egin** zuten behin, eta barre egin genuen. **Irene Aldasoro**

Bere antza zeukan tipo baten aurpegiarekin **topo egin** zuen ispiluan. **Unai Iturriaga**

Gerora, bi begi urdurirekin **topo egin** zuen. **Lopez de Arana**

Aparatutik begiak aldendu eta kamiseta urdin tirantedun batekin **egin** nuen **topo**. **Aingeru Epaltza**

Gero Bibliako istorio horrekin **topo egin** nuen, eta ez nuen fitsik ulertzen. **Oskar Arana**

R. Maria Azkueren "Euskalerrriaren Yakintza" leitzen ari nintzela, esaera honekin **egin** dut **topo**, aurreneko liburukiaren 399 orrialdean: [...]. **Patziku Perurena**

Italia-lat hedatuko da, eta han Aita Saintuaren poterearekin **topo eginen** du Enperadoreak. **Herria**

Era guztietako zailtasun eta larritasunekin **egin** zuen **topo**. **Xabier Olarra**

Erlijoek elkarrekin **topo egiteak** sortu zuen arazoa zen ea, epe luzera, elkarren ondoan bizi ote zitezkeen eta elkarri bizitzen utzi, ala haietako batek gainerakoak ordeztuko ote zituen. **Iñaki Mendiguren**

Victoriar garaiko "hiru liburukitako" eleberririk hirugarren liburukitik irakurtzen hasi balitz topatuko zituzkeen zailtasun berberekin **topo egin** lezake. **Iñaki Mendiguren**

Okerra non dagoen ez jakiteagatik, zuzenarekin **topo egiteak** beldur ematen dion hire adineko mutiko xalo baten hezibide sentimentalari buruzkoa duk istorioa. **Anjel Lertxundi**

3 *topo eginarazi*

Eta hemen, Jainkoak -haren ganuzten baitu gizagaixoak bere zoria-, bere pobreekiko arduratsu, harrera oneko bi gizonekin **topo eginarazi** zien hirian sartzean, eta bi denarioren ogia erosi zieten. **Askoren artean**

-Orduan, Nadia -esan zion Mikel Strogoffek-, ez dinat uste Jainkoak, bata bestearrekin **topo eginaraztean**, hain neke handiak elkarrekin jasanaraztean, besterik nahiko zuenik gu betiko elkartzea baino. **Karlos Zabala**

4 *topo egite*

Arkakuso Merkatua, izan, berez baita **topo-egite** gertagaitz nahiz bilatuen lekua. **Jon Muñoz**

Luziak atseginez gogoratzen zituen lehendabiziko **topo egite** ustekabeko haiek. **Joxemari Iturralde**

-**Topo egite** atsegina benetan! -esan zuen gerria inguratu zionaren ahotsak. **Jose Morales**

Ustekabeko **topo egiteak** oro saihesturik, Navarinoko ke eta sugar koloreko oihala saldu zion merkatariazen dendan soilik sartu zen, itzalgaizka. **Jose Morales**

5 *topoz topo*

Lehen aldia zuen, bere loro-bizitzan, **topoz topo** aurkitzen zuena beste ez-gizaki bat, bera ere hitz egiteko gauza zena. **Jon Muñoz**

Lurrean ikusita, zorroan sartu eta bazterrak husteraz zihoan, noiz eta ere ustekabeen norbaitekin **topoz topo** egin baitzuen. Goiz batez, Malesherbes kalean zehar, berotzeko-
edo lasterka nindoala, non jotzen dudán **topoz topo** emakume bat. **Koldo Biguri**

Hara non, ehun metro egin eta gero, bidea beste albo-bide batekin gurutzatzen zen aldera iritsi eta **topoz topo** egin zuten beste tropel batekin. **Koldo Biguri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiek **topo egin** (5); **berriro topo egin** (3); **bidean topo egin** (4); **bidean topo egitean** (3)

elkar topo egin (4); **elkarrekin topo egin** (20); **elkarrekin topo egitea** (4); **elkarrekin topo egitean** (6); **elkarrekin topo egiteko** (3); **elkarrekin topo egiten** (9)

inorekin topo egin (9); **inorekin topo egiten** (3); **kristandadearekin topo egin** (3); **literaturarekin topo egin** (3)

topo egin arte (8); **topo egin aurretik** (3); **topo egiteko arriskua** (3); **topo egiteko aukera** (4); **topo egiteko beldurrez** (4)

topoz topo egin (3); **ustekabeen topo egin** (4)

topo

1 topo egin ustekabeen-edo aurkitu. (pertsonak)

Ustekabeen **topo egin** dugu... **Iñaki Mendiguren**

Inoiz **topo egingo** bagenu... **Anjel Lertxundi**

-Orain ez haiz gu ikustera etortzen -esan zion inoiz Katalinak, kalean **topo eginda**. **Koro Navarro**

-Hori ikusiko dugu, gerraren jokalekuan **topo egiten** dugunean; baina ordu arte, zer arraiol izan gaitetzen bidelagun. **Karlos Zabala**

Haiekin batean eramango gaituzte hodeietan, airean Jaunarekin **topo egitera**. **Elizen arteko biblia**

Ezetz asmatu norekin **topo egin** dugun trenean? **Iñaki Mendiguren**

Behin **egin** nuen **topo** berarekin ilunpetan -kasualitatez-, bere ping-pong lagunarekin besotik helduta zihoala, eta berak ez ikusiarena egin. **Joxe Austin Arrieta**

Ez zitzaion komeni Itziarrekin **topo egitea**. **Migel Angel Mintegi**

Taberna batean **egin** zuten **topo** biek, gaueko hamaikak aldera. **Migel Angel Mintegi**

Lekukoek diotenez, parkean **egin** zuten **topo** eta emazteak senarrari tiro egin aurretik hitz egiten jardun omen zuten. **Joxean Agirre**

Oso deserosoa egiten baitzitzaion ikasleren batekin **topo egitea**. **Anjel Lertxundi**

Lehenengo solairura igotzekotan nengoelarik, osabarekin **egin** dut **topo**. **Txillardeggi**

Oraindik sekular jantzita zebilela, legendun batekin **egin** zuen **topo** egun batean. **Askoren artean**

-Eta espero dezagun laster **topo egitea** soldadu errusiarrekin! **Karlos Zabala**

Baina biak atzera itzuli eta elkarrekin **topo egin** zuten toki berean. **Elizen arteko biblia**

Topo egina zen bizitzan zenbait jenderekin, kanpotik berarekin bat agertzen zirenak, baina barrutik bestela pentsatzen zutena. **Askoren artean**

Hainbat aldiz **topo egina** zuten elkarrekin urdaitegian. **Karlos Zabala**

Inoiz, biok etxerantz gentozela, **topo egin**, eta elkarrekin egin genuen bidea. **Ramon Saizarbitoria**

Halaxe izan omen zen, baina kalean **topo egin** zuten berriro, edo **topo egitearena** egin zuten ilehoriak, itxura guztien arabera. **Migel Angel Mintegi**

2 (gauzak)

Filosofiak eta erlijio primitiboak elkar jotzerik gabe **topo egin** zuten. **Iñaki Mendiguren**

[X eta gamma izpiak] oso probabilitate txikia dute atomoaren nukleoarekin edo elektroiekin **topo egiteko**. **Berria - Gaiak**

Topo eginiko aurreneko tabernan sartu zen. **Migel Angel Mintegi**

-Elizarekin **topo egin** diagu, Santxo. Berarako bidean, Guardia Zibilaren kontrol batekin **egin** genuen **topo**. **Patxi Ezkiaga**

Ustekabea izan zen etorri eta hemen euskararekin **topo egitea**. **Berria - Harian**

Bidaia labur hark iraun zuen denboran gure begiek **topo egin** zuten behin, eta barre egin genuen. **Irene Aldasoro**

Bere antza zeukan tipo baten aurpegiarekin **topo egin** zuten ispiluan. **Unai Iturriaga**

Gerora, bi begi urdurirekin **topo egin** zuten. **Lopez de Arana**

Aparatutik begiak aldendu eta kamiseta urdin tirantedun batekin **egin** nuen **topo**. **Aingeru Epaltza**

Gero Bibliako istorio horrekin **topo egin** nuen, eta ez nuen fitsik ulertzen. **Oskar Arana**

R. Maria Azkueren "Euskalerrriaren Yakintza" leitzen ari nintzela, esaera honekin **egin** dut **topo**, aurreneko liburukiaren 399 orrialdean: [...]. **Patziku Perurena**

Italia-lat hedatuko da, eta han Aita Saintuaren poterearekin **topo eginen** du Enperadoreak. **Herria**

Era guztietako zailtasun eta larritasunekin **egin** zuten **topo**. **Xabier Olarra**

Erlijioek elkarrekin **topo egiteak** sortu zuten arazoa zen ea, epe luzera, elkarren ondoan bizi ote zitezkeen eta elkarri bizitzen utzi, ala haietako batek gainerakoak ordeztuko ote zituen. **Iñaki Mendiguren**

Victoriar garaiko "hiru liburukitako" eleberririk hirugarren liburukitik irakurtzen hasi balitz topatuko zituzkeen zailtasun berberekin **topo egin** lezake. **Iñaki Mendiguren**

Okerra non dagoen ez jakiteagatik, zuzenarekin **topo egiteak** beldur ematen dion hire adineko mutiko xalo baten hezibide sentimentalari buruzkoa duk istorioa. **Anjel Lertxundi**

3 topo eginarazi

Eta hemen, Jainkoak -harengan uzten baitu gizagaixoak bere zoria-, bere pobreeko arduratsu, harrera oneko bi gizonekin **topo eginarazi** zien hirian sartzean, eta bi denarioren ogia erosi zieten. **Askoren artean**

-Orduan, Nadia -esan zion Mikel Strogoffek-, ez dinat uste Jainkoak, bata bestearrekin **topo eginaraztean**, hain neke handiak elkarrekin jasanaraztean, besterik nahiko zuenik gu betiko elkartzea baino. **Karlos Zabala**

4 topo egite

Arkakuso Merkataria, izan, berez baita **topo-egite** gertagaitz nahiz bilatuen lekua. **Jon Muñoz**

Luziak atseginez gogoratzen zituen lehendabiziko **topo egite** ustekabeko haiek. **Joxemari Iturralde**

-**Topo egite** atsegina benetan! -esan zuten gerria inguratu zionaren ahotsak. **Jose Morales**

Ustekabeko **topo egiteak** oro saihesturik, Navarinoko ke eta sugar koloreko oihala saldu zion merkataria mendan soilik sartu zen, itzalgaizka. **Jose Morales**

5 topo topo

Lehen aldia zuten, bere loro-bizitzan, **topoz topo** aurkitzen zuena beste ez-gizaki bat, bera ere hitz egiteko gauza zena. **Jon Muñoz**

Lurrean ikusita, zorroan sartu eta bazterrak husteru zihoan, noiz eta ere ustekabean norbaitekin **topoz topo** egin baitzuten. Goiz batez, Maleshherbes kalean zehar, berotzeko-edo lasterka nindoala, non jotzen dudan **topoz topo** emakume bat. **Koldo Biguri**

Hara non, ehun metro egin eta gero, bidea beste albo-bide batekin gurutzatzen zen aldera iritsi eta **topoz topo** egin zuten beste tropel batekin. **Koldo Biguri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiek **topo egin** (5); **berriro topo egin** (3); **bidean topo egin** (4); **bidean topo egitean** (3)

elkar topo egin (4); **elkarrekin topo egin** (20); **elkarrekin topo egitea** (4); **elkarrekin topo egitean** (6); **elkarrekin topo egiteko** (3); **elkarrekin topo egiten** (9)

inorekin topo egin (9); **inorekin topo egiten** (3); **kristandadearekin topo egin** (3); **literaturarekin topo egin** (3)

topo egin arte (8); **topo egin aurretik** (3); **topo egiteko arriskua** (3); **topo egiteko aukera** (4); **topo egiteko beldurrez** (4)

topoz topo egin (3); **ustekabeen topo egin** (4)

topografia 1 iz eremu aski zabal bat mapa aski zehatz batean irudikatzeko teknika; eremu batek agertzen dituen ezaugarrien multzoa.

Dena dela, Antarktikaren **topografiari** buruz ilargiaren **topografiari** buruz baino gutxiago dakigu. **Joseba Sarrionandia**

Durangaldeko paisaiak eta **topografiak** iradokitako elementu poetikoak. **Berria - Kultura**

Luzaidek **topografia** arrunt berezia du: goratasun desberdinek, batean patar, bestean gainbehera, bidea funditzen dute. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zuasti eta Ordizia arteko eremuaren **topografiaren** zailtasuna nabarmentzen dute teknikariak. **Berria - Euskal Herria**

Kanpoaldeko ikuspegi guztien enumerazio zabal bat egiten baitu, are agortezina -eraikin, kale, harri, **topografiarena** -, ikuspegi horiek barneko hutsunea nolabait bete ahal izango balute bezala. **Xabier Olarra**

Pixkanaka-pixkanaka *Mars Express*en datuak **topografia** erakusten ari dira. **Berria - Gaiak**

16 langile ditu, eta **topografian** aritzen da. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan) ik **topografiko**.

Gauzez **topografia** -mapa bat irakurri baina ilunetarako egokitzapena galdu nahi ez bada, aski da irakurtzeko betaurreko gorriak erabiltzea. Josu Zabaleta

Herrikoak ez diren batzuk ere etorri izan omen zaizkio baserrira, neurketak, **topografia** azterketak eta beste egiteko baimen eske. Berria - Euskal Herria

3 irud/hed

Hala, bada, liburua goitik behera irakurri eta **topografia** genitala ikasi dute marrazki argigarrien bidez. Luis Elberdin

Topografia higuigarri hunen osatzeko hiru gune behar ditut aipatu: kobaien biltegia, horrat igortzen dituzte gizon azkarrenak eta ederrenak eta hauekin aleman medikuek esperientziak egiten dituzte nola abereekin; eritegia, hor gizon herresta batzuen lana zen artatu baino gehiago hiltzea; erretokia, azkenik, [...]. Michel Oronoz

Horien barnean arakutzen nuen, hizkuntza enkriptatu gaixoaren barneko mami guztia nire egiten, bere buruaren **topografia** barneratzen. Lander Garro

topografiko *izond* topografiarena, topografiari dagokiona. ik **topografia 2**.

Gaur egun enpresak erabiltzen dituen isurien eta substantzia kutsagarrien egoera errealaren plano **topografikoa** egitea. Berria - Euskal Herria

Hiru dimentsioko irudi bat lortzen da, eta horrela kalitate handiko deskribapen **topografikoa** ikusten dugu. Idazleak bereganatuta daukan geografia baten ezaugarria ez da datu **topografikoen** zehatza eta toponimiaren aberatsa, baizik eta [...] toki bakoitzari pasadizoren bat atxikitzen diogula geure oroimenean. Berria - Gaiak

Francoren oroimena, **topografiko** hutsa ez ezik, kulturala ere bada. Xabier Olarra

topografo *iz* topografian aritzen den pertsona.

Sistema batzuk berriaz erabiltzen dira oso modu konbentzionalen: hori egiten da, esate baterako, arkitektoek eta **topografoek** erabiltzen duten axonometrian. Josu Zabaleta

Topografoa han izan da, zurkaitzak ezarrita daude dagokien lekuan. Oskar Arana

Foru Aldundiko **topografoek** beren datuak jasotzeko «kaltetuen» lurra «inbaditzen» jarraitzen dutela salatu dute. Berria - Euskal Herria

Ohartu gabe euskararen osasunerako beharbada premiazkoagoak direla **topografo** euskaldunak edo odontologo euskaldunak, filologo euskaldun gehiago baino. Xabier Mendiguren Elizegi

topoi *iz* literaturako topikoa.

Guk *leku komun*, **Topoi**, esango diegu premisa orokorri. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aristotelesen **topoi** edo leku komunaren tokia zen, oroz gain, memoria, hau da, *inventioa* osatzen duten argudio-hobi edo eskemak biltzen diren gunea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Topoi hauen izatea kontuan harturik, guk nahiago dugu "argudio-hobi" ematea "**topoi**" horren ordain. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Argudio-hobi edo **topoi** horiek bi muturreko antitesi-egitura dute, eta historiako garai bakoitzak joera du antitesi horren mutur bata edo bestea lehenesteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

topolino 1 *iz* botila mota baten izena.

Nire herrian '**topolino**' esaten diete honelako botilatxoei. Iñaki Iñurrieta

Topolino botiletan, kafesnea sartzen zigun amak, eta opiltxo batzuk, bustitzeko. Jon Maia

2 edari baten izena.

Bera bezala barrari helduta daudenek osatzen duten ilarari begira jarri da Gabin, bihotz txirbildu bakartien klubeko banda, mes frères, mes semblables, kubalibre, gintonic eta **topolinoek** bilduko dizkigute barruko txirbiltxo guztiak. Iñaki Iñurrieta

Bi **topolino** eskatu eta mahaian eseri ginen. Jon Maia

3 1936z gero Fiat 500i eman zitzaion izena.

Italia faxistan, Mussoliniren asmakizuna izan zen Fiat etxeko auto txikiari **topolino** (sagutxoa) deitzea. Iñigo Aranbarri

Bereak dira, besteak beste, **topolino**, sagutxoa, alegia, Fiat etxearen auto txikiari deitzeko eta Pisorno, Pisa eta Livorno artean eraiki zen zinema produktorari eman zitzaion izena. Iñigo Aranbarri

topologia 1 *iz* matematikaren adarra, azalaren tasunak aztertzen dituen.

Esateko, matematikan espazio-erlazioen azterketa baizik ez da **topologia**. Josu Zabaleta

Gero, poliedroi buruzkoa, **topologia** sortu zuena. Jon Muñoz

Antolamendu perspektibistako gizarte-espazioari antolamendu "**topologiko**" horretako espazio genetikoa gehitzen zaio. Josu Zabaleta

Berpizkundean Eukliden geometria balioesten zen bezala, pintura modernoak espazioaren ikusmolde "**topologikoago**" bat irudikatzeke joera izango du. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Arimaren **topologia** eskolastikoa-edo ageri da haren lanean, hala iruditzen zaio Gabini. Iñaki Iñurrieta

topologiko *izond* topologiarena, topologiari dagokiona.

Antolamendu perspektibistako gizarte-espazioari antolamendu "**topologiko**" horretako espazio genetikoa gehitzen zaio. Josu Zabaleta

Errakuntza **topologiko** nabarmena bizi zuen, bere bizitzaren ardatza beste nonbait jarri zuen beti. Joseba Sarrionandia

toponimia (*orobat toponomia*) 1 *iz* leku izenen azterketa; eskualde edo toki bateko leku izenen multzoa.

Izenik ere ez duten ibarretara eta **toponimiak** bataiatu ez dituen hondartzetaraino. Iñaki Segurola

Gure **toponimia**, gure lur euskaraz humanizatua. Patziku Perurena

Beren neurririk ederrena ematen die hitzei **toponimia** klasikoak: lekuan lekukotasun bizia. Patziku Perurena

Borgesek esaten zuen, hizkuntza berez poesia fosildua baizik ez dela, eta nik diot, **toponimia** areago. Patziku Perurena

Jimeno Jurio, **toponimia** biltzen, aitzindaria izan zen Nafarroan. Berria - Kultura

Toponimia ere alor oparoa da hitz luzeen bila abiatzen direnentzat. Iñaki Arranz

Idazleak bereganatuta daukan geografia baten ezaugarria ez da datu topografikoen zehatza eta **toponimiaren** aberatsa, baizik eta [...] toki bakoitzari pasadizoren bat atxikitzen diogula geure oroimenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Pirinioetako **toponimiaz** Corominesek jaulkitako lanak. Berria - Kultura

Bizkaiko **Toponimiari** buruzko tesi-lan sakon batean. **Txillardeg**
Sakonki aztertu zuen Errioxako euskal **toponimia**. **Berria - Kultura**
Mementoko, lehen liburuki bat du argitaratzen, 6 herriren **toponimia** ttipiarekin: Hauze (500 toponimo), [...]. **Herria**
Toponomia txikian ere, lanak. **Iñigo Aranbarri**
Euskaltzaindiak atera dituen gramatikak, hiztegi mardulak eta **toponimiako** ikerketa sakonak. **Pello Salaburu**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik toponimiko.

Benetako pertsonen aipuak (bizidunenak nahiz hildakoenak), egiazko **toponimia** -izenak, edota gertakari historikoei buruzko erreferentziak oro, mailegu gisa baino ez darabiltza egileak. **Mirentxu Larrañaga**
1990an **toponimia** lanak egiteko hainbat herritan bildu ziren inkestak **Berria - Kultura**

toponimiko *izond* toponimiarena, toponimiari dagokiona. ik toponimia 2.

Alde nabarmen bat dago pentsaeraren zera hartatik maparekiko afan honetara: han euskara ezinbestekoa zen, baina oraingo eromen edo laineza kartografiko, onomastiko eta **toponimiko** honetan ez. **Iñaki Seguro**
Erromanizazioa baino lehenago, indoeuroparrak ez ziren beste hizkuntza batzuen hiztunak, iberera mintzatzen zutenak adibidez, ibarretan finkatuak zeuden jada, non aurki daitekeen beren legatu **toponimikoa**. **Berria - Kultura**

toponimo 1 *iz* leku izena.

Toponimoak dira gauzen berezko izatera hurbil gaitzakeen hitz bakarrak. **Joxerra Garzia**
Izugarria baita **toponimo** baten kargamen poetikoa. **Patziku Perurena**
Horregatik daude hainbeste leienda edota Jentilzubi, Sansonarri, Supelegor bezalako **toponimoak** mendi horietan. **Bernardo Atxaga**
Morisko horiei zor omen zaie egun ere bizirik dirauen Mouriscot **toponimoa**. **Martin Anso**
Bestelako osagarriak ere badu liburua: lehen bertsulerroen zerrenda alfabetikoa, antroponimo eta **toponimoen** zerrenda, aztertutako hitzen zerrenda eta adizkitegia, bibliografia, Perez de Lazarragarekin zerikusia duten argazkiak eta irudiak... **Berria - Kultura**
170 bat herritan ibilirik, gastu guzikiak bere sakelatik ordainduz, 90.000 **toponimo** tipi ditu bildu. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Bigarren zati hau, Akitania, Pirinio eta Euskal Herriko hainbat **toponimo** bukaeretan agertzen da. **Herria**
Hilero-hilero, datozen hiru urteotan, ikertzaile, antropologo eta **toponimo** biltzaile nekaezinak idatzi zuen guztiak argia ikusiko du. **Berria - Kultura**
· 1500 aldera bilduak dira [neure arbasoak] Piamontera, Espainiatik Probenztan zehar, zenbait deitura **toponimok** erakusten duenez. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal toponimoak (3)

toponomastika *iz* onomastikaren adarra, toki izenak aztertzen dituena.

Nazioarteko **toponomastikan**, era berean, Danimarka aukeratu da eta ez Dinamarka, edota Aristoteles eta ez Aristote, esate baterako. **Koldo Zuazo**
Beste arlo batzuetan ere erabatekoa da batasuna: erakusleetan eta lexikoaren zati baten, gehienbat hiztegi teknikoari, nazioarteko hitzei, eta nazioarteko **toponomastikari** dagokionean. **Koldo Zuazo**

toponomia ik toponimia.

tora ik torah.

Torah (*orobat tora*) *iz* Moisesen legea; lege hori biltzen duen liburua.

Torah -n datza judutasunaren funtsa, judutasunaren sinesmenen eta filosofiarene zutabea. **Koro Navarro**
Hamabi urte zituela, **Torah** ikastearekin batera, Tolstoi, Dostoievski, Txekhov, Maupassant, Flaubert ezagutu zituen, yiddishezko bertsoietan. **Koro Navarro**
Profeten liburuetan eta **Torah** -an Jainkoari (gorets bedi!) atributuak aitortzen zaizkionez, horren esangura hitzez hitz onartu eta atributuz horniturik zegoela pentsatu zuten. **Xabier Kintana**
Torah eta legea dira gizakia Id-en loturatik askatzeko borrokaren ardatz. **Xabier Kintana**
Zer ziruditen **Torah** -ko hitzek Salomon agertu baino lehen? **Xabier Kintana**
-Gaiztoak zigortuak eta zintzoak sarituak izango direla dio **Torah** -k. **Koro Navarro**
Hanukkah jaien aurreko Sabathean, Anshel pulpitura deitu zuten, **Torah** irakurtzera. **Koro Navarro**
Purimeko errabino baten parodia eginez, **Torahko** pasarte bat errezitatzen zuen. **Koro Navarro**
Haren egongelan aitak **Torah** interpretatzen zuen. **Koro Navarro**
Elkarte batek soro batzuk sal ditzake sinagoga bat eraikitzeko; era berean, profeten izkribuen salmentatik jasoriko diruarekin **Torah** -ren liburua eros daitezke; baina galarazirik dago alderantziz jokatzea. **Xabier Kintana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

torah ren misterioak (3)

torax 1 *iz* ugaztunetan, bularraldea, lepoaren eta sabelaldearen arteko gorputzaren zatia.

Toraxa zabaldu barik, bihotzeko ebakuntza egitea ahalbidetzen duen teknika aurkeztuko dute gaur Donostiako Poliklinikan. **Berria - Gaiak**
Azpeitiarrak traumatismoa du ezker aldeko **toraxean**, eta biriketako ubeldura. **Berria - Kirola**
Edmun Neville **Toraxeko** gaitzak dituztenen Erresuma Batuko Elkarteko buruaren hitzetan datuak «dardara eragiteko modukoak» dira. **Berria - Gaiak**

2 irud/hed

Unibertsoa [...] erraldoi androgino bat da: gerritik behera munduak daude; **toraxa** giza mundua da; horren gainetik, mundu zerutiarrek daude. **Karlos Linazasoro**

3 intsektuetan, buruaren eta abdomenaren arteko zatia, hankak eta hegoak txertaturik dituena.

Hor hasten dira agertzen, zirriborroan, burua izatekoa, bere begi, baraila eta antenekin; **toraxa** izatekoa, hegal pare batekin eta hiru hanka parerekin; abdomena izatekoa,

bere uzkialdearekin. [Juan Garzia](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **toraziko**.

Nola lor dezake [euliak], hirugarren **torax** segmentuan ageri diren koska edo halterioen lekuan, hegalek instalatzea? [Juan Garzia](#)

toraziko *izond* toraxarena, toraxari dagokiona. ik **torax 4**.

Bizkarrezurretik zintzilik edo hari atxikiriko kaxa **torazikoaren** barruan daude gorputzaren organo eta ehun gehienak. [Irene Aldasoro](#)

Bularra eta kutxa **torazikoa** ez direla gauza bera esanzen didazu, noski. [Koldo Izagirre](#)

Barrunbe **torazikoaren** eta abdomenaren artean dagoen ehunmihise bat da diafragma. [Irene Aldasoro](#)

Kirurgia **toraziko** eta bihotz kirurgia dira itxaron zerrenda motzenekoak, 20 eta 28 egun artean. [Berria - Euskal Herria](#)

toreadore *iz* toreatzailea.

Jito kastako **toreadoreak** datozkio bati burura. [Patziku Perurena](#)

Taoumakiako historietan, zezenen indarra frogatzeko "domingilloak" erabiltzen, nafar **toreadoreak** ageri dira aurreneko. [Patziku Perurena](#)

torealeku *iz*

Torealeku [...]: politikan, arratoi-zulo alegiazkoa, non politikariak bere jukutriekin borroka egiten duen. [Xabier Olarra](#)

toreatu, torea, toreatzen **1 du ad** (zezenak) jokatu.

Laugarren zezena Curro Banderasek **toreatu** zuen. [Joan Mari Irigoien](#)

Belmonte eta Joselitoren garaietatik hara inork egin ez zuen moduan **toreatu** zuen. [Edorta Jimenez](#)

Ehun zezenez goiti **toreatu** eta lau adarkada larri izan zituela. [Joan Mari Irigoien](#)

Zerua ilun, eta euria etengabe ari, Funestik ekarritako zortzi zezen suhar **toreatu** ziren. [Txillardeggi](#)

2 irud/hed

Okerrera bakarrik zaudenean da, orduan bai sentitzen duzula ur handiegietan zabilzala, ezin duzula zezen hori zeure indar bakarrez **toreatu**. [Iñaki Iñurrieta](#)

Lanak emango nizkion, ez ninduen hain erraz **toreatuko**. [Karlos Linazasoro](#)

Literaturak berak ez gaitu inoz defraudatuko; enparauak **toreatu** egin beharko ditugu. Arrisku asko **torea** genitzake, umore punttu batez armaturik. [Ana Urkiza](#)

Antza, jelosia hobeki dakite **toreatzen** anarkistek (Angiolilloren ingurukoek, besteak beste) komunistek baino. [Markos Zapiain](#)

toreatzaile (**46 agerraldi**, **10 liburu eta 7 artikulutan**) **1 iz** zezenak jokatzen dituen pertsona. ik **torero**.

Gizakia ez du jateak bakarrik mantentzen, eta hargatik du **toreatzaile** edo zezen-hiltzaileak zezena hiltzen. [Iñaki Segurola](#)

Hiruzpalau burtzi soilik sartu zizkion **toreatzaileak** zezenari. [Joan Mari Irigoien](#)

Toreatzaile batek kapotea nola, halaxe haiztzen du oihala bizarginak ehiztariaren lepo inguruan lotu aurretik. [Harkaitz Cano](#)

Curro Banderas zeritzan **toreatzaileak** toreatu baitzuen. [Joan Mari Irigoien](#)

Brooklingo **toreatzaile** Sidney Franklini buruzko erreportajea idatzi nahi du. [Edorta Jimenez](#)

Zezenek, **toreatzaileak** eta pikadoreek osatzen dute serie bat; alegia, eskultura txikiak osotasun batean. [Berria - Kultura](#)

Toreatzaile zaldizko haien artean, kondea omen zen onena. [Joan Mari Irigoien](#)

2 (izenondo gisa)

Inoiz, santuen zaindaritza zenbait aipatzen ari nintzela, azaldu zen betiko lagun **toreatzailea**, zirikale: [...]. [Pello Zabala](#)

toreo *iz* zezenak jokatzea.

Toreoa artea da; bestela, ez da deus. [Berria - Kultura](#)

torero (**43 agerraldi**, **14 liburu eta 10 artikulutan**; *orobat **toreru g.er.***) **1 iz** toreatzailea.

Iñaki Lertxundi Lertxundi **toreroa** zen, eta modu bitxi samar batean harrapatu zuten. [Rafa Egiguren](#)

Abokatu izan edo **torero**, berdin-berdin, lehengo lepotik burua horrek ere. [Eider Rodriguez](#)

Kazadora beltza sorbalda batean jarria darama, **toreroek** kapotea bezala. [Jokin Muñoz](#)

Ondo agerian azaldu zen haiengan zezenketa-ikuslearen moralak; besteari, gudu-zelaian soldaduari, histerioari, zirkuko **toreroari** ausardia eskatzen zion koldarraren moralak. [Josu Zabaleta](#)

Pilotari arlote batzuk eta **torero** ohi zenbait. [Edorta Jimenez](#)

Esan diot bati ea **torero** itxura ikusten didan. [Edorta Jimenez](#)

2 irud/hed

Torero hoberenetarik da baitaki nola joka bere trapu gorriarekin, izan dadien kapa edo muleta. [Herria](#)

3 (izenondo gisa)

Zenbat gizonezko **torerori** egiten zaio galdera bera? [Ana Urkiza](#)

4 (adizlagun gisa)

Bera **torero** ibili zuan, Castilla aldean. [Jokin Muñoz](#)

Sidney Franklin aspaldi batean **torero** ibilia eta orduan beraren morroi zebilen arlote hari nork ematen zizkion kafeak eta whiskiak. [Edorta Jimenez](#)

toreru ik **torero**.

tori *interj* norbaiti zerbait ematean esaten zaion hitza. ikto².

-**Tori**, edazu zeuk erak. [Anjel Lertxundi](#)

-**Tori**, irakurri. [Harkaitz Cano](#)

Tori hau eragozpenen truke: kontu edukiozu, uranioa da. [Juan Garzia](#)

-**Tori** -esan zion Harryri, zati handi-handi bat berari emanez-. [Iñaki Mendiguren](#)

Deitu eta etorri zenean, Eliseok esan zion emakumeari: -**Tori** semea! [Elizen arteko biblia](#)

-**Tori** giltzak -esan eta eskuratu zion sorta-. [Joxemari Urteaga](#)

-**Tori**, argazki hau nik moldatua da, eta hau ere bai. [Matías Múgica](#)

Gozokiak erosteko, **tori** -bakoitzari zentimo batzuk eman zizkigun. [Jon Maia](#)

Begietako gaitz eta bista sendotzeko, **tori** erremediotox hau: [...]. [Pello Zabala](#)

-Harry, **tori** Gabonetako oparia aldeztu aurretik -esan zion. [Iñaki Mendiguren](#)

Ettxeko norbaitekin haserretzen nintzenean, gazteluko neskame lapur edo soldadu gaizkile bihurtzen nuen, eta makila dantzatzeko nuen haren bizkarrean; **Tori**, gaiztoa, gaiztoa, **tori**!", jotzen nuen gupidarik gabe. [Anjel Lertxundi](#)

tori iz zezen eskorta, zezentegia.

Bertze turutots batek airea urratu, eta **torileko** atea ireki zen. [Joan Mari Irigoien](#)

Iritsi zen hil edo biziko mementua eta, noiz eta toreatzailea **torilaren** parean paratu baitzen. [Joan Mari Irigoien](#)

Hiru zezen hil zituela, haiek **toriletik** atera bezain sarri, paratzen zelarik, hartarakotz, **toriletik** beretik hamar bat urratserat, hanka bat belauniko. [Joan Mari Irigoien](#)

torinotar izlag/iz Torinokoa, Torinori dagokiona; Torinoko biztanlea.

Hiri guztiei aplika dakieke nobelagile **torinotarrak** bera jaio zen hiriagatik dioena. [Anjel Lertxundi](#)

Azoka-leku erraldoia fabrika zaharra izango da beti **torinotarrentzat**, hiriaren eta Agnellitarren arteko zibor-heste eten ezina. [Anjel Lertxundi](#)

Torinotar peto-petoeak beti uste izan dute Italiatik jasotzen dutena baino gehiago ematen diotela Italiari. [Anjel Lertxundi](#)

Napoleonen kontrako gerratean, soldadu frantsesek tunelotatik barrena hiria har zezaketela jakinik, **torinotar** gazte batek, gerrian lehegailu batzuk lotu eta gero, bere buruaz beste egin omen zuen lehegailuen eztaidarekin inbasoreei tuneleko sarrera ixteko. [Anjel Lertxundi](#)

torizu 1 'tori zuk', balioko aditz forma.

Torizu ezpata santu hau; Jainkoaren dōhaina duzu eta beronekin hondatuko dituzu etsaiak. [Elizen arteko biblia](#)

Ez da posible denak biltzea, baina, **torizu** zerrendaxka hau. [Pello Zabala](#)

Saguzaharra, **torizu** hagin zaharra, eta ekatzu berria. [Patziku Perurena](#)

2 ik to¹.

-**Torizu**!, amaren falta antzemango du! Ez, emakumea! Esnatu egin duzu, eta bere ama bezain esnaera txarrekoa da. [Arantxa Iturbe](#)

3 torizue 'tori zuek', balioko aditz forma.

-**Torizue**! -oihukatu zien, hark jaurtikitzearekin Joantok airean harrapatu zuelarik-. [Elena Touyarou](#)

Torizue patxadosoena bere aulkitik jaikiarazteko moduko datua ekaitzei buruzkoa, meteorologia eta babes elkartearen artean kalkulaturakoa. [Pello Zabala](#)

torlojo ik torloju.

torloju 1 iz iltze itxurako pieza zilindriko hariduna, hari berdineko beste pieza batean sartzen dena; iltze itxurako pieza zilindriko hariduna, beste pieza batean edo zurean sartzen dena.

Torloju batez zegoen hormara lotua. [Hasier Etxeberria](#)

Zurtoina, berriz, zazpi zentimetrotako **torloju** baten bidez zegoen estalkiari itsatsita. [Berria - Kultura](#)

Ebakuntza batean hiru **torloju** txiki jarri zizkioten iaz. [Berria - Kirola](#)

Bere lekuan utzi genuen osterata tapa, **torloju**z iltzatu, eta, burdinazko atea ondo itxita, [...]. [Koro Navarro](#)

Giltzadura bakoitza lotzen duten **torloju** eta azkoinak estutzen badira, egitura zurrin eta jokorik gabea eratzen da. [Irene Aldasoro](#)

Torlojuak lasaitzen hasi orduko, hara han zirrikitik bistara, erresuminez borborka, adur horail bat, ke kiratsezko bafada artean. [Juan Garzia](#)

Kontu handiz laxatu nizean estalkiaren **torlojuak**. [Juan Garzia](#)

Nik segituan askatu nituen idi-begiko **torlojuak**, aire gehiago sar zedin. [Joxe Austin Arrieta](#)

Torlojuari eragin zion gero. [Anjel Lertxundi](#)

Torloju herdoilduak ateratzen ziren zintzilika zeuden ohol bihurrituetatik. [Koro Navarro](#)

Hormak, morroiloak eta lurrari **torloju**z jositako aulkia aztertu zituen, espetxean lehen aldiz dagoenaren arretaz. [Jose Morales](#)

Bolizko giltzadura artifizialak erabili zituen [...]; nikelzaturiko altzairuzko **torloju**z lotzen zitzaizkion eskeletoari. [Irene Aldasoro](#)

Motor finkoa, oinarri-plaka astun bati **torloju**z loturik egoten da, oinarri-plaka zorura irmo josia dagoela. [Irene Aldasoro](#)

Izozten diren lema-kontrolen kontra, tratatzen diren palanken kontra, haria hondatzen zaien **torlojuen** kontra borrokan. [Josu Zabaleta](#)

2 irud/hed

Izua **torloju** itogarria da, begirada lausotzen duena. [Karlos Linazasoro](#)

Ministroa engranajearen **torloju** xumea baizik ez da. [Jon Alonso](#)

Txinako erregimeneak, Tsin erregimeneak Kuomintang-eraino, **torlojuari** bira bat gehiegi ematen ausartu zirenean, behin eta berriro ordaindu zuten gehiegikeria arin hori gobernu-mandatu galduz. [Iñaki Mendiguren](#)

Artea ez da disoluzio orokorraren koska bat estuago egiten duen **torloju** bat baino. [Anjel Lertxundi](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure izeben lur-sail pilo bat saldu eta **torloju** -fabrika bat muntatu zuen. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Laborde **torloju** lantegi handian. [Berria - Harian](#)

Barre ttipi urduri batean hasten da Marta, eskua kopetan duela lehenbizi eta hatz erakuslearekin **torloju** -lotzailearen keinua eginez gero, hi erotuta hago esanez bezala. [Harkaitz Cano](#)

Izadi ez-gizatiarraren gaineko boterearen gehitze potentzial izugarri horren prezioa langileen arauketan proportziozko **torloju** -biraketa izan zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Gure bezeroak -esaterako **torloju** erosleak-. [Iñaki Heras](#)

torlojugintza *iz* torlojuak egitea.

Torlojugintzako Maudeasley tornuaren aurrean gertatu zen pasadizorik interesgarriena. **Xabier Olarra**

tormenta 1 *iz* ekaitza.

Haize bortitzak eraginikako hareazko eta legarrezko lehen **tormenta**. **Joan Mari Irigoien**

Eskuak bururat eramanik, bekoz beko nuèn don Frantziskoren begi kanporatuei beha geratu nintzen, ekaitza eta **tormenta** noiz lehertuko. **Joan Mari Irigoien**

2 irud/hed

Azken egunak, Francen bila, ekidin nuen gaitzeko mehatxuaren eta laster, une batetik bestera, berriz eroriko zitzaidan balizko **tormentaren** artean iragan nituen. **Itxaro**

Borda

Rosa bakezko emaztezia zen, mantsoa eta hitz onetakoa, sosegatua eta soseguz ere mintzo zena, nahiz eta iraganean haren bihotzak **tormenta** bat baino gehiago pairatu behar izan zuen. **Joan Mari Irigoien**

3 (hitz elkartuetan)

Guztiek ukitu nahi izan zituzten edo musu eman nahi izan zieten Avilako santaren behatzezurrei, zeinak baitziren nik itsas **tormenta** hartan galdu behatzarenak. **Joan Mari Irigoien**

tormentatu, tormenta(tu), tormentatzen 1 oinazetu, oinaztatu, estira eman.

Denen izenean testu adostu hau irakurri du Txema Auzmendi [...] Egunkariaren hestean presondegiratu eta **tormentatu** zutenak. **Herria**

Orain argi gogoratu du gauero **tormentatzen** duen amesgaiztoa. **Patxi Iturritegi**

Susmo honek **tormentatzen** naik. **Xabier Olarra**

Eskolaren hastean gertatuak torturatzen eta **tormentatzen** baininduen. **Joan Mari Irigoien**

Eta, nola zuhaur baitzinen ene bekatuaren fruitu, seme, larritzen eta **tormentatzen** hasi nintzen. **Joan Mari Irigoien**

Bekatariak **tormentatzeko** ardura duten munstro ikaragarrien horiek, hain zuzen, naturaz kontrako hibridoak dira. **Juan Garzia**

Ez **tormentatu** zeure burua. **Javi Cillero**

2 (era burutua izenondo gisa)

Arima **tormentatua**, bere unibertso txikiko gauzetan tratatua, korapilatua. **Iñaki Iñurrieta**

Aurreko lanaren aldean, labirintoen konplexutasuna zuten, eta taxu obsesibo eta **tormentatu** bat, berak bizi zuen kinka larriaren adierazgarri inondik ere, modu sinbolikoan.

Xabier Olarra

Horma sabeldu erdi erori bat ageri zen, non olibondoan sustrai **tormentatuak** bihurritzen eta kiribiltzen baitziren, harri landugabeak besarkatu nahian bezala. **Patxi Iturritegi**

tormentatzaile *izond/iz* tormentatzen duena.

Euskaldun itxurak egiteko edo denak baino euskaldunago, jatorrago eta autozentratuago agertzeko bide erraza jarri dio askotxori Juezaren autoak, eta polizia

tormentatzailearen azioak. **Iñaki Segurola**

Miller ospetsuak bere **tormentatzaileari** zeharbegirada bat egin, eta erantzun zion, burua beste zerbaitetan zuela: "Atarian dagoenean", eta bere burua itsasora bota zuen labar batetik. **Xabier Olarra**

tormento ik tormentu.

tormentu (*orobat tormento g.er.*) 1 *iz* estira, oinatze bizia. ik *tortura*.

Haragikeriaren harrak eta **tormentuak** eskutik heltzen zidaten fantasia eroekin batera. **Fernando Rey**

Hare Krishnan sartu aurreko garaian hain "zaila", hain tormentatua, hain errebeldea izan bazen ere, orain haserre, **tormentu** eta larritasun hura guztia joana zuela zirudien; bakean zegoela, alegia. **Xabier Olarra**

Adiskide ditugu, beraz, larrialdi eta estuasunak, lotsa eta irainak, oinaze eta **tormentuak**, martirio eta heriotza bidegabek eragiten dizkigutenak. **Askoren artean**

Oinaze bizi hark senetik aterea, aurrera eta aurrera oldartzen zen [...] lasterka zoro horretan bere **tormentua** arindu nahian. **Karlos Zabala**

Zeren, nahiz ez duten Jainkoa ikusten ahal, ez dute horrengatik **tormenturik** jasaten. **Piarres Xarriton**

Sam gizajoarentzat gogorra bazen, nekaturik baitzegoen, Frodorentzat **tormentua** zen hura, eta berehala amesgaizto bihurtu zen. **Agustin Otsoa**

Egunak bezala gauak ere ez dira **tormentua** besterik zuretzat. **Rafa Egiguren**

Adorez beteta sentitzen zara, eta ez dago makurtuko zaituen **tormenturik**. **Rafa Egiguren**

Oso modu bitxian azaltzen zion zer izan zen Frantziako Iraultza, eta zer izan ziren Inkisizioaren **tormentuak**. **Josu Zabaleta**

Beatricek sokaren **tormentua** jasan behar izan zuen: eskuak atzean lotu eta sokatik esekita denbora luzez egon. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Uharteak eta askatasuna aipatu duten bi istorio jaio ziren, eskolako konposizioen **tormentuaren** ondoren idazteko gogoak piztu zituzten lehenak. **Juan Garzia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Asiaren erdialdeko barbaroek gustuko duten **tormentu** izugarri horietako batek egiten zion mehatxu Mikel Strogoffi. **Karlos Zabala**

Ez ote zeukaten horrela, Irkutskeko kanpamentura iristean **tormentu** ankerra noziarazteko? **Karlos Zabala**

Gaszte hauek bortizki torturatu dituzte, **tormentu** findu eta ikaragarri ugarirekin... **Jokin Urain**

Behin, oraindik gogoan dut, ez ezagutze hori -ordurako ia ohituta nengoen- jasanezinezko **tormentu** bihurtu zitzaidan. **Eduardo Matauko**

Bukaezina ote da pobreaken **tormentu** estetikoak? **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan)

Kapusai zaharkituak eta jipoiak, iltzedun **tormentu** tresnak. **Jokin Urain**

4 *tormentu eman*

Savellako kartzelara eraman zituzten, eta, aitormena egiteko konfesore ona baino tortura erabiltzea askoz eraginkorragoa izan denez betidanik, han **tormentu emateko** agindu. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Beste asko ere erre zituzten Valladoliden eta Ozkabarten, **tormentu eman** ondoren, hau da, ondo torturatu eta gero. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

tornado (*orobat tornadu g.er.*) 1 *iz* indar handiko haize erauntsia, kiribilean igotzen dena. ik *zikloi*.

Tornado batek gutxienez hamaika pertsona hil ditu Ameriketako Estatu Batuetan. **Berria - Mundua**

Ekaitz handi horietako bat, **tornado** erraldoi hurakan indarreko horietakoa. Pello Zabala
Tennessee estatuan eragin du kalte gehien **tornadoak**. Berria - Mundua
1978an, Sevillan, **tornado** zurrupari bat pasatu zen, aireportutik gertu. 1996an, Oloten sekulako **tornadoa** sortu zen. Pello Zabala
Tornado beldurgarriak, eta planeta gorriaren bi sateliteak, Phobos eta Deimos, bertatik bertara ikusi ahal izan dituzte NASAko adituek Spirit-ek bidalitako irudiei esker. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Taldea dagoen egoeran, ur tanta erraz bilakatzen da uholde; nahikoa da haize boladatu bat **tornadoa** sortzeko. Berria - Kirola
1989an, hilaren 26an, **tornado** kume moduko batek jo zuen Murtzia, Pello Zabala

tornadu ik tornado.

tornasol 1 iz argiak gainalde jakin batzuetan eragiten duen isla irisatua.

Tornasol koloreko oihala zekarren. Jasone Osoro

2 gai koloreztatzaile urdin morekara, inguru azidoan gorri bihurtzen dena.

Aurretiazko kalkulu zuhurrrik egiteko gauza ez, **tornasolera** erreakzio neutroa emateraino nahastu genituen, eta nahastea izugarri berotu zen noski, ke zuria zeriola borbor. Juan Garzia

tornasolatu izond tornasolak dituen.

Oihal **tornasolatuaz** jantzi nuen koltxoia eta gainean edredoi egin berria jarri genuen. Jasone Osoro
Ohea estaltzen zuen izara **tornasolatuan** bildu genituen zapata pareak eta alde egin genuen. Jasone Osoro

torneatu, tornea, tornetatzen 1 du ad forma biribilkara eman.

Horregatik, angelu guztiek sentimenari ihes egiten diotenean, harri eraikina **torneaturik** ikusten da, ez hurretik hala ikusten eta benetan biribil direnak bezala, baizik era lanbroan hauen antza dutela. Xabier Amuriza

2 (era burutua izenondo gisa)

Ohea, berak hala deitzen baitzion, Mab erreginaren estilokoa zen, oin **torneatuak** zituen. Julen Gabiria
Mota guztietako ontziak aurkitzen dituzte han pilaturik, zur leundu, **torneatu**, txirikordatu zein zizelatuzkoak. Jose Morales

torneatzaile (corpusean torneazale soilik) izond tornularia.

Leizagoyen Janine, 67 urte, erretretan - Larronde Bernard, 47 urte, herriko langile - Dachary Daniel, 33 urte, laborari - Dupe Philippe, 41 urte, **torneazale**. Herria

torneazale ik torneatzaile.

torneo 1 iz sailkapen txandak dituen lehiaketa.

Asteburuan maila desberdinetako Sei Nazioetako **Torneoak** hasiko dira, hala nola, gizonezkoen Maila Nagusikoa, A Mailakoa, 21 urte azpikoa eta emakumezkoena. Berria - Kirola
Serena Williamsek eta Maria Sharapovak jokatu dute Masters **Torneoko** finala. Berria - Kirola
Desafio **Torneoko** liderrak azkenekoen kontra gaur Hernanin. Berria - Kirola
Durangoko San Faustoetako Zesta **Torneoan** badakigu jada zeintzuk izango diren heldu den larunbateko finalean kantxaratuko diren bikoteak. Berria - Kirola
Adelaidako **Torneoan**, bestalde, Hewitt zerrendaburuak galdu zuen ezustean, Kohlschreiberren kontra. Berria - Kirola
Hegoafrikak irabazi zituen Zirkuitua eta Dubaiko **torneoa**. Berria - Kirola
Galesek indartze nabarmena izan zuen 2003ko Munduko Kopan hasita eta iaz biribildu zuen **Torneoko** Grand Slama irabazita. Berria - Kirola
Iazko **Torneoa** eta Grand Slama Ingalaterrak irabazi zituen, eta baita azken Munduko Kopa ere. Berria - Kirola
Torneoko laugarren zerrendaburuak ez zuen jokatzetik izan, eta pistara ere ez zen irten. Berria - Kirola
EPELEk San Fermin **Torneoaren** 30. ekitaldia antolatu du; sei bikote ariko dira lehian Labriten. Berria - Kirola
Sanmateoetako lau t'erdiko **torneoko** bigarren finalerdian ikusi zuten elkar, eta Titinek 22-19 irabazi zion Olaizolari. Berria - Kirola
Lasa eta Mendizabal Juanito Alvarez **Torneoko** txapeldun. Berria - Kirola
Buruz-buruka hau Asegarceko **torneoaren** lehen finalerdia zen, aski jokatua baina lehenak nausitasunekin irabazi duena. Herria
Frantziarrek **torneoko** partidarik onena egin zuten. Berria - Kirola
Baina bazen beste trofeo bat, **torneoko** jokalaririk onenari eman beharrekoa. Joan Mari Irigoien
Peñagarikanok ez du **torneo** garrantzitsurik jokatu aurten. Berria - Kirola

2 zaldun gudua, bi aurkari talderen artean egiten zena eskuarki Erdi Aroan.

Haren lantzak, nahi gabea, heriotza eman zion Frantziako lehenagoko errege Henrike II.ari, **torneo** batean. Aingeru Epaltza
Espiritu horrek irauin egin zuen **torneoan** usadioari esker; izan ere, adorea eta maitasunaren eskubideak bateratuta, are garrantzi handiagoa eman zioten kortesiarri. Iñaki Iñurrieta

3 irud/hed

Arratsaldean halako antzinako **torneo** moduko bat izango dugu hemen, Malborkeko gazteluan. Edorta Jimenez
Amaitu zen noizbait **torneoa**, idazleon artean zaurituren bat izan zelarik, asko izan baikinenez ezpata eskuan hartzera ausartu ginenok. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizonezkoen torneo (3); **sei nazioetako torneo** (6); **torneo bat jokatu** (4); **torneo garrantzitsu** (4); **torneo handi** (5); **torneo handi bateko** (4); **torneo handia** (9); **torneo irabazi** (10); **torneo irabazi ditu** (7); **torneo nagusia** (5); **torneo osoan** (3)

aurtengo torneoa (3); **azken torneoa** (5); **bere lehen torneoa** (6); **binakako torneoa** (3); **buruz buruko torneoa** (5); **desafio torneoa** (4); **donostia hiria torneoa** (3)

gabonetako torneoa (6); **gaztela leongo torneoa** (5); **hamarreko torneoa** (4); **harri jasotzaileen torneoa** (3); **hiru nazioetako torneoa** (7)

irun hiria torneoa (3); **nazioarteko torneoa** (7); **nazioetako torneoa** (30); **nazioetako torneoa hasiko** (3); **pilota torneoa** (3)

san fermin torneoa (9); **sei nazioen torneoa** (12); **sei nazioetako torneoa** (23)

torneoa antolatu (4); torneoa aurkeztu (3); torneoa bihar hasiko (6); torneoa gaur hasiko (3); torneoa hasi (8); torneoa hasi aurretik (3); torneoa hasiko (4); torneoa hasiko da (4); torneoa irabazi (26); torneoa irabazi du (6); torneoa irabaziko (3); torneoa irabaztea (4); torneoa irabazteko (29); torneoa jokatu (6); torneoa jokatu (13); torneoa jokatu da (4); torneoa jokatu du (4); torneoa jokatu dute (3); torneoa jokatu (4); wimbledongo torneo (3)

binakako torneoak (5); san fermin torneoak (3); sei nazioetako torneoak (3); torneoak gaur ezagutuko (3); torneoak irabazi (4); torneoak irabazi ditu (3)

aurtengo torneoan (3); binakako torneoan (6); casino kursaal torneoan (6); desafio torneoan (4); donostia hiria torneoan (4); dubaiko torneoan (6); egiaiko torneoan (3); gasteizko torneoan (4); iazko torneoan (3); nazioarteko torneoan (5); san fermin torneoan (8); sanantolinetako torneoan (3); sanmateoetako torneoan (3); sei nazioen torneoan (10); sei nazioetako torneoan (6); sydneyko torneoan (5)

torneoan ariko (5); torneoan aritu (5); torneoan parte hartuko (7)

urrezko torneoan (3)

desafio torneoaren (9); desafio torneoaren finala (3); hiru nazioetako torneoaren (3); mari zuriko torneoaren (3); san fermin torneoaren (9); sei nazioetako torneoaren (7)

torneoaren bigarren jardunaldia (3); torneoaren finala (12); torneoaren finalak (5); torneoaren finalean (5); torneoaren lehen (5)

aurreko torneoretan (3); aurtengo udako torneoretan (3)

amikuze torneoko (4); bilbo hiria torneoko (5); binakako faustino torneoko (3); binakako torneoko (3); casino kursaal torneoko (25); desafio torneoko (12); donostia hiria torneoko (10); dubaiko torneoko (5); dubaiko torneoko finala (4)

eguberri torneoko (3); faustino torneoko (18); faustino torneoko final (5); faustino torneoko partida (4); gabonetako torneoko (7); gaztela leongo torneoko (3); gernikako torneoko (9); gernikako torneoko finala (3)

kursaal torneoko finala (3); kursaal torneoko finalerdietako (4); kursaal torneoko finalerdietarako (3); kursaal torneoko lehen (6); lekeitioko torneoko (3); mari zuriko torneoko (3); masters torneoko (3); masters torneoko finala (3)

pala torneoko (4); san fermin torneoko (40); sanmateoetako torneoko (3); sei nazioen torneoko (8); sei nazioetako torneoko (4); superprestigio torneoko (3); sydneyko torneoko (3)

torneoko azken partida (3); torneoko bigarren finalerdia (4); torneoko bigarren finalerdian (9); torneoko bigarren partida (3)

torneoko ezustea (3); torneoko final laurdena (4); torneoko final laurdenetako (6); torneoko finala (54); torneoko finala irabazi (3); torneoko finala jokatu (3); torneoko finala jokatu (14); torneoko finalak (5); torneoko finalean (27); torneoko finalerako txartela (6); torneoko finalerdia (8); torneoko finalerdia jokatu (3); torneoko finalerdiak (6); torneoko finalerdian (4); torneoko finalerdietako (4); torneoko finalerdietarako txartela (4); torneoko finalerdiko (3); torneoko hirugarren partida (4)

torneoko jokalaria (6); torneoko jokalaria onena (4); torneoko laugarren partida (3); torneoko lehen finalerdia (7); torneoko lehen finalerdian (7); torneoko lehen kanporaketan (3); torneoko lehen partida (7); torneoko partida (14); torneoko partidak (4); torneoko partidarik (6)

torneoko txapeldun (8)

wimbledongo torneoko (5); zarautz hiria torneoko (11); zarauzko torneoko (3)

torneotik kanpo (7)

tornero iz tornularia.

Herrian berriro, **tornero** hasi zen lanean, eta gauez, gero, eskolara joaten zen.

Berria - Kultura

tornikete 1 iz odoljario larriak geldiarazteko gailua.

Lehendabizi, berna belaunetik banatu zion, biak batzen zituzten zain bakanak ebakiz, era horretan, **torniketea** egokiago eginez, odoljarioa saihestu ahal izateko; eta muinoia bendaz lotu zion gero.

Ramon Saizarbitoria

Lasak [...] hantxe bertan, lurrean, ebaki bide zizkion, **torniketea** egin ondoren, belauna eta berna batzen zituzten zain bakanak eta ehun hondakinak, odoljarioari hobeto eusteko asmoz.

Ramon Saizarbitoria

2 irud/hed

Kanpoko hizkuntzalaritzak xehetasunak eta xehetasunak pila ditzake, sistema baten **torniketeaz** hersturirik dagoela sentitu gabe.

Isabel Arrigain

3 ardatz bertikal batek eta hari zut loturiko besoek osatzen duten gailua, sarrera batean pertsona banaka pasarazteko ezartzen dena. ik **tornu**¹ **3**.

Oso desberdinak dira benetakoaren aldean, Madame Tussaud-en ezkozko irudiak eta haiek ikusteko **torniketeetatik** igarotzen direnak oso desberdinak diren bezalaxe.

Iñaki Mendiguren

tornillo iz musuez mintzatuz, bihurritua.

Gogo txarrez musu **tornilloa** ematen dio ondoan duen andreari eta hau ere esnatu egiten da, logalez.

Xabier Mendiguren Elizegi

tornu¹ 1 iz birarazten den atal bat duen lanabesa edo makina-erreminta, atal horretan finkatzen den atala moldatzeko erabiltzen dena.

Argi dago sektore honen enpresa batean ez duela erantzun bera emango unibertsitatean soilik ikasketa guztiak egin dituen batek ala dagoeneko **tornua** eta fresa, esate baterako, sakonki ezagutzen dituenak.

Berria - Gaiak

Atzerriko ekoiizleen **tornu** eta fresatzeko makinak saltzen ditu Aristik.

Berria - Ekonomia

Tailerreko makinak ez dira zaratzatsuegiak, ez da **tornu** batean lan egitea bezala.

Harkaitz Cano

Torlojuintzako Maudeslay **tornuaren** aurrean.

Xabier Olarra

Pentsa, **tornuan** ari ninduan eta pixt!, begian txiribiri bat sartu zaidak.

Pablo Sastre

Sarritan, **tornuaren** aurrean hamar ordu eta gehiago egiten zituenetan, [...].

Ramon Saizarbitoria

Ingurua mailu eta zizel eta **tornu** -jiren zaratez bete zen.

Julen Gabiria

Erromerietara joateagatik galdutako orduak egin beharra izaten zuen Egiguren **tornu** fabriketan, Zestoan bertan.

Iñigo Aranbarri

2 dolare eta kidekoen torlojua.

Dolareetan ez balira **tornuak**, prentsak eta palankak prestatu, ezin izango genuke ez olioaren distiraren eta ez mahastietako fruituaren emaitzarik izan gure atseginerako.

Santiago Iruretagoiena

Dolarea ez bada **tornu** bidez mugitzen dena, baizik eta hagaz eta habe bidez zanpatzen dena, ez da berrogei oin luzekoa baino txikiagoa egingo.

Santiago Iruretagoiena

Baluke borroeroak irriño harro bat egiteko aitzakia, **tornuari** ezarri dion galgak eragotzi egiten du lepoaren presioak manibela atzeraka eroan dezan, arin ekartzan du heriotza.

Koldo Izagirre

Zuk usteko duzu itota hil behar duela giza joak, baina ez da horrela, nire lehenengo urtean erantsi nion **tornu** barriak lepoko bertebrak hausten dizkio aurrean.

Koldo Izagirre

Palanekin eraginez, **tornua** birarazi egingo da, eta bere kabuz altxatzen joango da makina inolako arriskurik gabe.

Santiago Iruretagoiena

3 ardatz bertikal batek eta berari zut loturiko besoek osatzen duten gailua, sarrera batean pertsona banaka pasarazteko ezartzen dena. ik **tornikete** **3**.

Sukaldera ematen zuen leihatila bat zeukan, **tornu** batekin komentuetan bezala, eta haren alboan jarri nintzen erne.

Bernardo Atxaga

Hanka bat herrestan, Congo tren jasoaren azken geltokiko **tornu** -atetik iragan zen.

Lopez de Arana

Ez nuen sei penikeko sarbiderik aurkitu eta, feria itxiko zen beldurrez, **tornu** -ataka batetik sartu nintzen bizkor, gizon nekatu-itxurako bati txelin bat emanda.

Irene Aldasoro

tornu² 1 iz egoera; txanda, aukera; bira, aldaketa.

Abiatu da enkontru ustekabekoaren xerka, lehengo **tornura** itzuliita. **Javi Cillero**
Denbora poxi bat oraino behar gauzak beren usaia **tornurat** jin aintzin. **Herría**
Huraxe zuela, une hartan, doluaren sendabiderik eskuragarriena, esperantza moldatzeko zeukan **tornu** bakarra. **Imanol Zurutuza**
Bi urtez hola segitu zuen urketariak beti pegar bat e'terdi ur eremaiten zuela **tornu** bakotx. **Herría**
Hori nahi dute egileek, eta hori da nik ere gogoan dudana, euskarak behar duen **tornua** izan dezan unibertsitate guztietan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Hola, euskara modernizatu genuen, gaurkotu, oraingotu, eguneratu, Etxeparek eskatzen zuen **tornua** bera ere, **tornua**, hortxe-hortxe, ia-ia eman genion denen artean. **Pello Salaburu**
Saltzeko Eskaintza Publikorik (SEP) apenas izan den arren, burtsak dirutza mugitu du eta aurrezki aukera moduan behar duen **tornua**, dizdira, izan du. **Berría -**
Ekonomia
Igande arte, Baionan, Harrasietako erromeria handia, jan-**tornu**, soinu eta beste. **Herría**
Haurraren hazteagatik, sos poxi bat amari emateko, bosgarren estai trixte honetan nago, ahal bezain arranda ttipia pagatuz eta jan **tornu** gisa ez dut ardurenean ogitarteko txar bat baizik hartzen. **Janbattitt Dirassar**
Anaiaren neska gurekin zegoenetik egun bakar batean ere ez nintzen afaltzera etxeratu, eta ez nuen nabarmendu nahi nire ohiturei halako **tornua** emanaz. **Aingeru Epaltza**

2 zama.

Kamiun bat zeiharka joan da eta karreatzten zuen burdinki zahar **tornu** guzia lurrerat joan zaio. **Herría**
Barkuetan bazen zernahi arrantzale, eta arrainak hartzen zituzten, bistan da, bainan ez zuten orain bezalako **tornurik** ekartzen ahal. **Menane Oxandabartz**
Oraiko sareekin alimaleko **tornuak** ekar ditazke aldian. **Menane Oxandabartz**
Joan den aste hortan, pelajikoak deitzen dituzten sarekin dabilzan barkuek antxua **tornu** gaitzak ekarri dituzte Donibane-Ziburuko porturat. **Herría**
Atun **tornu** ederrak ekarri dira eta prezio onean saldu, bereziki uztailean. **Herría**
Gisa batez ainitz da, bestetik ez hainbeste, hain zen handia hondatu untziaren petrolaki **tornua**! **Herría**

3 kontrabandozko zama.

Biriatun, guardek geldi-arazi dute kamiun bat Holandarat ari zena liranja **tornu** batekin. **Herría**
Barnean, hogoi mila botela Whisky eta holako edari **tornuarentzat** paper xuxenik ez. **Herría**
Autoaren barnean bazen haxix **tornu** pollita, artoski gordea. **Herría**
Biriatur guardek miatu dute kamiun bat eta barnean atxeman gaitzeko droga **tornua**, haxix hortarik, orotarat 1524 kilo. **Herría**
Berriz ere droga **tornu** ederra sesitua izan da Biriaturko muga: 18 kilo heroina delako droga bortizetik. **Herría**
Tornua Lesakarako zen, eta han karlistek jasoko zuten. **Koro Navarro**

4 **tornu joko** zorizko jokoa.

Tornu jokoak direla-eta, nahiz gain gaintek debekatuak izan5, zilegi dira bizkitartean aipatu delako neurrian egiten baldin badira, zeren eta orduan baztertzten baita haien debekatzeko arrazoi guztia, 9. artikuluan lehenago erranaren arabera eta **tornu** jokoez idatzi 1. bereizketan frogatu bezala eta hori baita Kristau mundu guztiak egin ohi duena. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antxua **tornu** (4); droga **tornu** (4); haxix **tornu** (4); jan **tornu** (3)
tornu ederra (5); **tornu pollita** (3); **tornu pollitak ekarri** (4)
gaitzeko droga tornua (5)

tornu³ 1 amak abandonaturiko haur jaio berria uzten zen lekua. ikkaxa¹ 6a.

Tornua Buen Pastor parrokian zegoen, eta hantxe bataiatu zuten Baldomero Erlaiz Irazoqui izen-abizenekin egun berean. **Koldo Izagirre**
Maria Sanz-en auzoak diren Inocencia de la Calle Galan-ek eta Marcelina Collado Millan-ek daramate haurra **tornura**. **Koldo Izagirre**
Gurasoek abandonatuta, otsailaren 24an auzo batzuek Donostiako Artzain Onaren parrokiako **tornuan** utzi zuten. **Berría - Kultura**
Atorra bat, xingola bat, mantelina bat, bi gurruntze, txano bat, manto bat, musuzapi erdi bat: horixe zeraman umeak soinean 1906ko otsailaren 24an Donostiako **tornuan** abandonatu zutenean. **Koldo Izagirre**
Kasu honetan, **tornuko** agiritan haurraren osasunari buruzko ezer berezirik ageri ez denez, lehenago bataiatua ez balegoko bataioa egin zaiola adierazi nahi du seguruenik. **Koldo Izagirre**

2 **tornuko ume** amak abandonaturiko haur jaio berria. ikkaxa¹ 10.

Agiri sortan bada Bergarako Udaletik Zizurkilgo **tornuko** edo kaxako umeen batzordeko lehendakariari eginiko gutun bat. **Koldo Izagirre**
Tornuko haurren batzordeak eginiko eskaerari erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakia zeukan, 1884az geroztik, **tornuan** utzitako haur guztiei ezarriko zitzaizkien abizenek euskal jatorrikoak izan behar zutela. **Koldo Izagirre**

tornulari iz/izond tornuan aritzen dena.

Aita **tornularia** genuen, baina, lantegiaren berregituraketa zela-eta, bota egin zuten. Nekez bihur daiteke egun batetik bestera bitzita osoan **tornulari** izan den langilea ordenagailu programatzaile. **Joan Mari Irigoien**
Gerrako elbarri errepublikarraren pentsioa lortzeko, aise gastatuko zuen lehendik zuena, alegia, ofizial **tornulari** gisa zegokiona. **Ramon Saizarbitoria**

tornuralitza iz tornulariaren lanbidea.

Maisutza industrialeko ikasketak zituen, **tornularitza** arloan, baina beti gora begira bizi zen, gizon ambizioso baitzen, esan dut lehenago. **Joan Mari Irigoien**

tornuzil iz landu behar diren piezak tinko lotzeko gailua, bi barailak eta torloju birakari batek osatua.

Tornuzila bera mahaiaren ertz batean tenkatuta zeukan. **Iñaki Iñurrieta**
Pieza luze kurbatu gabe bat hartu eta **tornuzilean** tenkatu zuen, eta ondoren arkatzez idatzi zuen izena letoi gainean, letra biribilez. **Iñaki Iñurrieta**
Tornuzilean finkatutako metal pieza bat grabatzen ari zen, esku batean zizela eta bestean mailua hartuta. **Iñaki Iñurrieta**
Tornuzilean tenkatutako pieza askatu zuen esku batez, besteaz plakari heltzen ziola. **Iñaki Iñurrieta**

Tornuzila lasaitu, gainazalean putz egin eta zapi Sidolez doi bustiaz igurtzi zuen, eta gero berak jarri zion bezeroari eskumuturrean, metal malgua kurbatuz. **Iñaki Iñurrieta**

toronjondo *iz* limoi usaineko landare lore-ezpainduna sendagai gisa erabiltzen dena (*Melisa officinalis*).

Sukaldeko armairuan topatu nuen, belarrez beteriko lapiko baten barruan: **toronjondo** -hosto, gaztela-lore, erruda-adar artean. **Juan Garzia**

torpe ik **dorpe**.

torpedeatu, torpedea, torpedeatzan du *ad* torpedoz eraso. • *irud/hed*

Ibarretxeren proiektuak Konstituzioaren I Titulua **torpedeatzan** du. **Berria - Euskal Herria**

torpedo 1 *iz* urpeko jaurtigaia.

Izardun batek komentatu zuen hasiberria izan behar zuela komandante hark, **torpedoa** alferrik gastatzea kanoi ukaldiño bat aski zuenean. **Koldo Izagirre**

Jeanne M. ontzia Bolton kapitaina eta eskifaia osoa barruan zituela joan zen hondora, U-37 itsaspeko sonatuak **torpedoz** jota, 1940ko abenduan. **Koldo Izagirre**

2 *irud*

Elkarrizketen flotazio marrari **torpedoa** jaurtitzea zen. **Berria - Harian**

Diezek onartu zuenez, «elkarlanerako **torpedoa**» izan zen Kongresua. **Berria - Ekonomia**

-Atzo niri **torpedo** bat bezala atera zitzaidan, amona, lagunekin frontoian ari nintzela! **Joan Mari Irigoien**

Realak, nolnahi ere, ezingo da gehiegi fidatu, **torpedoa**k sobera dituelako urpeko horiak: Guayre, Font, Franco, Forlan... denak arrisksuak. **Berria - Kirola**

3 *hed* bonba hegalduna.

Hegada apal egitera, adiskide seinaleak ez baina **torpedo** leherketak jasoko dituzu. **Josu Zabaleta**

Torpedo hegaldariak esaten genien aurretik. **Koldo Izagirre**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

120ko 4 piezaz eta 76,6ko **torpedo** -jaurtitzaile batez hornitua. **Edorta Jimenez**

Cadizen eduki zuten preso, nonbait, **torpedo** fabrika batean lanean. **Iñigo Aranbarri**

Torpedo lantegi batean eduki zituzten sei hilabetez. **Koldo Izagirre**

5 *torpedo-ontzi* torpedoak jaurtitzen dituen itsasontzia.

Churchill kostaren kontra tiroka ari zen **torpedo ontzi** batean izan zen; gizon horrek, beste askok bezala, badirudi ez dakiela beldurra zer den. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

torpedo fabrika (4)

torrada *iz* ogi txigortu xerra.

Labearren gainaldeak edo sutondoak betetzen zituen funtzio zenbait sopleteak beteko ditu (karamelatzea, xigortzea, gratinatzea, etc.): bistan denez, ehun pintxo kraskatsu batera jantokira eraman edo **torrada** bakar bat gorritu behar denean labeko gratinagailua baino eraginkorragoa da eskuko tresna hori. **Edorta Agirre**

torrako *iz* igurtzialdia.

Hala da bai, alde batetik, xaharra zela Lafitten sotana, edo bederen laster zahartua: "Beltxak oro hartzen" erraiten zuten aspaldiko apezgai edo apezaren amek eta gelariak, edo herriko serorek, azken gisu errauts bati **torrako** bat emanez. **Herria**

torratu, torra, torratzen 1 du *ad ipar* igurtzi.

Seietan argiak piztu dira ohetegian eta Erdi-Aroko musika sakratu ezti batek laguntzen nau aurpegia **torratzeko** ur hotzera. **Piarres Aintziart**

Xukatzailearekin gorputza **torratzen** ari da. **Berria - Kultura**

Tanpez ohe gainetik zutitzeko partez, lehenik, ene besoetako hezur minberatuak bortizki **torratu** nituen; geroxago, bi hankak elkarri joz, pixka bat berotu ziren. **Daniel Landart**

Emazteak akotea orekatu zuen, sudur hipako bat irentsi eta mokanesaz betezpalak **torratuz** gehitu: [...]. **Itxaro Borda**

Begiak odoleraino **torratzen** ditut, agerrindea benetakoa dela segurtatzeko. **Itxaro Borda**

Zakila eroki **torratuz** gidatzen zian *trucka son of bitch* hark. **Itxaro Borda**

Aluaren gainaldeko kukurusta gogortua **torratzen** zuen. **Itxaro Borda**

2 *irud/hed*

Baina orduan hasi zait zekiena azaltzen, ene sentimentuak goxoki **torratuz** naski, ideiak xuxentzen, hots abstrakzio mundutik jautsarazten. **Piarres Aintziart**

torre ik **dorre**.

torta 1 *izond ipar* motela, bizitasunik gabea.

Solasa frango, bainan legunak bezen epelak eta azkenean barne-hutsak edo **tortak**! **Herria**

Ainitzen beldurra haatik, legea gisa hartarat kanbiatuz, barne-hutsa bezala geldituko dela edo arrunt **torta**! **Herria**

Sozialista alderdiko buruzagien gostuko segurik, ez ditake fida Jean Louis Borloo ministroaren solasari, solas **tortak** direla itxura ederra emana bazaiote ere... **Herria**

Xilorik gabe, guneka balitezke hutsak metalean eta ezkila arrunt **torta** jalgi liteke. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gaztainondoetatik garbotsak lurrean punpatuz, pilota **torta** ziztatzaile baten arrabots motelarekin. **Piarres Aintziart**

2 *ipar* arrautzez mintzatuz, ustela.

Karrikak sutan miretsi zituzten, zikin ontziak lurrean erretzen, koktel gisa hanpatu garagardo botilak eta etxetik ekarri arrautza **tortak** "indar errepresiboen" aurpegieta eta

bereziki Kerguelen komisarioaren sudurrean zartatzen. [Itxaro Borda](#)

Batzuk hixtukatu dute airoski, beste batzuk zernahi erran diote, eta norbaitek arrotze [torta](#) bat bota dio kasko gibelerat! [Herria](#)

Agian ez zen arrotze [torta](#)! [Herria](#)

• 3 iz opila.

Amak itxaroteko esan zigun beste hiruroi, etxean umearentzat [torta](#) batzuk zituela, eta leihotik botako zizkigula. [Jon Maia](#)

tortellini iz italiar pasta, gurpiltxo baten itxurakoa, barnean haragia, barazkiak edo gazta duen masa-geruza kiribildu eta muturretan lotuak osatua.

Uste dut kantatzen hastera doan gizaseme hori [tortelliniak](#) jaten ikusi nuela itsasontziaren auto-zerbitzuan. [Bernardo Atxaga](#)

tortika 1 iz azalean edo zerbaiten gainean eratzen den lohia. ikuger¹.

Giltzurrunak, kilometrotako hodi finak izanda, arazoak izan behar lituzke tutuen [tortikak](#) eraginda. [Irene Aldasoro](#)

Diru-galera handiak eragiten baititu hodien paretetan itsatsitako [tortikak](#). [Irene Aldasoro](#)

2 irud/hed

Maistraren irribarreak, eztitasunez askatu zuen emeki-emeki mesprezuaren [tortika](#) nire larruazaletik, eta bidea zabaldu zidan. [Juan Kruz Igerabide](#)

tortikoli (orobat tortikolia) iz lepoa gogortzen edo zurruntzen duen mina. ik lepagogor 3.

Besaulkian zegoen botata, lepoa, oker-oker eginda, ezorduko [tortikoli](#) batek hartuta. [Fernando Morillo](#)

-Eta masaileko batzuk jotzen zizkigun -gaineratu zuen aitak-, astebete osoan [tortikoliarekin](#) egon behar izaten genuen! [Joan Mari Irigoien](#)

Bere larri hartan, hantxe zegoen, bada, arima ezitu ezinik eta arranparrila batean eseria balego bezalaxe, lepoa jiratzearen jiratzear [tortikolisa](#) harrapatzeko zorian. [Patxi Zubizarreta](#)

tortila ik tortilla.

tortilla (101 agerraldi, 33 liburu eta 8 artikulutan; orobat tortila 7 agerraldi, 4 liburu eta 3 artikulutan) 1 iz arrautzopila.

Amona patata batzuk zuritzen ari zen, afarirako [tortilla](#) bat egiteko asmoz. [Joan Mari Irigoien](#)

Sandwitxak eta [tortillak](#) prestatu genituen. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Gure afaria jeneralean [tortilla](#) bat eta Liebig zopa bat izaten zen. [Fernando Rey](#)

[Tortillari](#) lehenengo buelta emateko prest zegoen Dionisos. [Unai Iturriaga](#)

Berak [tortilla](#) jaten, saminez ikusten zuen etxeko txakurrari haragi puxkak nola ematen zizkieten. [Pablo Sastre](#)

Astoaren muinak [tortillan](#) jatea. [Iñaki Segurola](#)

Arrautza bateko [tortilla](#) prestatu zion, gatzik gabe, tentsioa altua zeukalako. [Jon Alonso](#)

Hamar arrautzako [tortilla](#) bat ere jateko gauza da. [Koro Navarro](#)

Patata-[tortillazko](#) pintxo handikote bat hartu, tabernatik atera eta Bulebarrera joan zen, taxi baten bila. [Fernando Morillo](#)

-Ekariezadazu [tortilla](#) bat urdaiazpikoarena. [Monika Etxebarria](#)

Frantses [tortilla](#) ziztrin batekin konformatu beharko da. [Sonia Gonzalez](#)

Munduko [tortilla](#) frantsesik ahogozagarriena prestatzen dut nik. [Edorta Agirre](#)

Ardo beltz ona, [tortilla](#) zoragarriak eta ardi gazta ketua. [Pako Aristi](#)

Dastatu ditu mokaduak edozelan ere, berehala txorizo egosira eta [tortillatara](#) itzuli aurretik. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Frijituta, [tortillan](#) edo ur irakinetan eginda gustura jaten zituzten, baina arrautza ateratzeko kopatxoa ikusi orduko, jateko gogoia joaten zitzaion erradiologoari. [Irene Aldasoro](#)

2 irud/hed

Aurrera begiratu behar dugu, nahiz eta [tortillari](#) buelta emateko gogoarekin gauden. [Berria - Kirola](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Braust, [tortilla](#) pintxoaz ahoa bozatzea besterik ez zitzaion otu. [Unai Iturriaga](#)

[Tortilla](#) zati eder batek irrist egin zion ezkerraldeetik. [Unai Iturriaga](#)

Ahoa irekitzen zuen bakoitzean [tortilla](#) -hondarrak ikusten zitzaiz kion hortzetan eta mihian, listuaz nahasturik. [Jon Alonso](#)

Kafe usaina; patioetatik sartzen den [tortilla](#) -zarata, sardexka plateraren kontra. [Sonia Gonzalez](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Patata [tortilla](#) bat izango zena egiten ari zen Dionisos. [Unai Iturriaga](#)

Patata [tortillari](#) haginka egin eta Jokinek zuzen-zuzen begiratzen zion. [Unai Iturriaga](#)

Bakailao [tortilla](#), piperrez lagundutako bakailao frijitua, txuleta eta postrea. [Edorta Agirre](#)

Aurrena pikatxa-[tortilla](#) eta tripotxak, ondoren arkume erreza entsalada ugariarekin eta, menu beti-berdina bukatzeko, mami. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Atera patata [tortilla](#) pintxo bat eta ardo bat, berezia! [Unai Iturriaga](#)

Mikelek beltz berezia eta patata [tortilla](#) pintxoa behintzat atera zizkion, eta beste temple batean zihoan. [Unai Iturriaga](#)

Iñigok astiro eta tentuz dastatzen zuen txanpinoi [tortilla](#) ogitartekoa. [Unai Iturriaga](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

patata tortilla (21); **tortilla jaten** (4); **tortilla pintxo bat** (4); **tortilla pintxoa** (3); **tortilla puska** (3)

tortita iz opiltxoa.

Ez, zaude, hobeto txokolatea, kafesnearen ordez, eta [tortitak](#). [Iban Zaldúa](#)

-Kafesnea eta [tortita](#) amerikar batzuk, esnegainarekin eta karameluzko siroparekin... [Iban Zaldúa](#)

Zure urtebetetzean [tortitak](#) hartzera joateko eskatzen zenigun beti. [Iban Zaldúa](#)

Zinemara doala, edo amarekin **tortitak** askaltzera kafetegia batera, edo kultur etxeko astearteroko hitzaldira. **Iban Zaldúa**

torto iz multzo trinkoa edo sarria.

Berdintsu jokatu zuen, baina herri-jakintzara joz, Lazarillo de Tormes-en egileak mahats-**tortoaren** eszena ospetsuarekin. **Bernardo Atxaga**

Bacok sorbaldatik zintzilik daukan mahats **tortoa** (koadroren batean), leopardo larra eta gorri eta urrez jauzika doazen zuzien artean. Ea zein haizek bilakatuko duen arantza **tortoa** lore eder eta samur. **Anton Garikano**

Udaberriari hasiera eman nahi bailiokeen, gaurko haize epelak landare eta arbola asko sabelanditu eta lore **torto** bidean jarriko ditu. **Pako Aristi**

tortoil (orobat tortoilo) iz usapala.

Noain herrian [...] ehun urtxapal edo **tortoil** hilik atxemanak izan dira, pozoinaturik. **Herria**

-Menturaz komisario herritarrak ez daki udazkena datorrenean, hemen gaindi milaka eta milaka mendi uso eta **tortoil** iragaiten direla? **Elena Touyarou**

Eper bat, bi **tortoilo**, iru oilo, lau antzara, **Patziku Perurena**

tortoilo ik tortoil.

tortoka ik dortoka.

tortola iz usapala.

Izorra nazatela ez badira ondo bete gabeko **tortola** pare bat. **Patxi Iturritegi**

Tortola pare bat adar baten gainean. **Pablo Sastre**

tortolos (corpusean tortolox soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian tortolos agertzen da) iz oineko tartsoan dagoen hezur txikia, arkumeen kasuan haur jolasetarako erabiltzen dena. ik astragalo.

Goiok bere haragi zatia jango zuen gero, hiltzaileen artean, eta **tortoloxa** gordeko zuen. **Joseba Sarrionandia**

Tortoloxaren moduko jokia. **Lopez de Arana**

Han, gutxienez, bazegoan **tortoloxetan** jokatzera, handiagoa zuan eta jende gehiago zegoan! **Jose Morales**

tortotx 1 iz artelatza.

Tortotx azkarrak beren azal zabal arinak emanez, beren gogo onari batera eragin gabe. **Patxi Ezkiaga**

Nire andereari begi bitxiak, **tortotxaren** kukusagar bihurturik utzi dizkiozue. **Patxi Ezkiaga**

2 tortotx-arbola artelatza.

Loak hartuta gelditu zen Santxo **tortotx**-arbola baten oinean. **Patxi Ezkiaga**

Maiz egiten zion bisita bigarren zahagiari, ardoa freskatzan **tortotx**-arbolatik zintzilik jarria zeukatenari. **Patxi Ezkiaga**

tortsio iz bihurtura.

Gehry-ren museoa da orain erreferentea, eta bertan Serraren **tortsio** eliptikoak dira ikusgai nagusi. **Joseba Zulaika**

Bi malguki eta hiru motelgailu darabiltza aurrean eta atzean, **tortsio** barra bertikalekin. **Berria - Kirola**

tortura 1 iz pertsona bati, zigortzeko eta aitormen bat lotzeko, eraginiko oinaze fisiko edo psikologiko larria. ik estira.

Ivan Ogareff konturatuta zegoen, mehatxuak mehatxu, **torturak tortura**, andre siberiar hezigaitz hura ez zela mintzatu. **Karlos Zabala**

Torturak izugarriko kaltea egiten dio torturatuari, heriotzak berak baino ere kalte handiagoa. **Joxerra Garzia**

Hori baita, eta ez besterik, **torturaren** funtsa: torturatuaren arima suntsitzea. **Joxerra Garzia**

Urteotan **tortura** jasan duten milaka lagunak. **Agurtzane Juanena**

Erromatarrek [...] esklaboekin bakarrik erabiltzen zuten **tortura**. **Juan Martin Elexpuru**

Tortura erabiltzetik nahitaez datorren ondorio bitxi bat zera da: errugabea erruduna baino egoera okerragoan jartzen dela. **Juan Martin Elexpuru**

Ez dezagun ahantz baduela orain 31 urte, irailaren 11-an Pinochet altxatu zela Txile-ko gobernuaren kontra, Franco-k egin zuen bezala Espainian, diktadura dorpe pean ezarri herri guzia, **tortura** eraikiz, [...]. **Herria**

Tortura ezarri behar zioten goizaren aurreko gauean. **Askoren artean**

Ziega ilun batean egindako **tortura** beltzak. **Anjel Lertxundi**

Zer garantia dauka atxilotuak **tortura** salatzeko orduan? **Askoren artean**

Bazterrik bazter omen zebiltzan atxilotuei eragindako **tortura** izugarriei buruzko zurrumurruak. **Anjel Lertxundi**

Tortura deuseztatua dago Suedian, Europako monarka argienetako batek deusestatu zuen. **Juan Martin Elexpuru**

Espainiako kulturaren brutalitatea onartua dagoelako forma publiko arunt bezala, abereen tratutik hasi eta polemika intelektualetaraino, eta kultura horretan **torturak** toleragarria dirudielako, efikaza bada. **Joxe Azurmendi**

Egoera hura, niretzako, **tortura** bat zen. **Ana Urkiza**

Tortura eta oinazeak justuak al dira, eta lortzen al dute legeek bilatutako helburua? **Juan Martin Elexpuru**

Egun haietan oraindik sinisten nuen hiltzea barkazioa dakarren **tortura** bat dela. **Matías Múgica**

Nola pairatzen du errugabeak bere inozentziaren **tortura**? **Karlos Linazasoro**

2 (izenondoekin)

Haren ama, hainbeste **tortura** fisiko eta moralek azpiratua azkenik, lurrera eroria zen. **Karlos Zabala**

Bortxaz bakarturiko pertsona batek sufritzen duen **tortura** psikologikoa, gorria da. **Iñigo Aranbarri**

Krimenaren lekuan atxilotu zuten; gero exekutatu egin zuten, **tortura** izugarrien ondoren. **Juan Martin Elexpuru**

Hortako da erraizen bakartasuna **tortura** xuria dela. **Filipe Bidart**
Hortik aurrera hasi zen Kauffmannen **tortura** latz gupidagabea. **Felipe Juaristi**
Konturatu gabe pasatuko baitira gurpiletik **tortura** geldi eta ikasiagoetara. **Juan Martin Elexpuru**
Ni bezalako gizon batekin ezkondua egotea **tortura** amaigabea izan zela seguru asko, infernua berbera. **Oskar Arana**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artzain batek mutiko baten gorpua aurkitu zuela II Carso-ko leize batean **tortura** -arrasto garbiekin. **Anjel Lertxundi**
Goiz argira ulertzen dut **tortura** gelaren ondoan nizela. **Michel Oronoz**
Tortura zentroak dira kartzelak. **Berria - Harian**
"Asmatu berri duten **tortura** -aparatu sofistikaturen bat" pentsatu duzu. **Rafa Egiguren**
Andoni Murelaga **tortura** marka nabarmenekin agertu zen epailearen aurrera. **Jokin Urain**
Tortura salaketa batzuk entzun ditugu egunotan. **Joxerra Garzia**
Eskuliburuan, zehatz-mehatz deskribatzen dituzte **tortura** teknikak. **Berria - Mundua**
Hil aurretik, zer **tortura** saioa egin zioten adierazi zien Carabanchelgo zeldako hiru kideei. **Bernardo Atxaga**
Galdeketa eta **tortura** -saio asko behar dira seguru asko gizalegea neurri horretan galdu arte. **Rafa Egiguren**
Berrogeiren bat urte dauzka, lodikote samarra, **tortura** -taldean ezagutu duzu. **Rafa Egiguren**
Frantzisko ez zen ikaratu, ordea: ez **tortura** -mehatxuengatik, ez eta heriotza-arriskuagatik ere. **Askoren artean**

4 torturapean

Torturapean ere ez nuen deus aitortuko. **Piarres Aintziart**
Gestaporen **torturapean**, kontaktuaren izena eman zuen azkenean gazteak. **Joxan Elozegi**
Beste batzuk, berriz, **torturapean** hil ziren, handik libratzeari uko eginez, bitizta bikainagora pizteko itxaropenagatik. **Elizen arteko biblia**
Gure adierazpenak aldatu genituen, aurreko deklarazioak **torturapean** egin genituela argudiatuz. **Jokin Urain**
Maiatzaren 12an, epaileek batzarra egin zuten Beauvais-eko apezpikuaren etxean, Joana **torturapean** ezartzea komeni ote zen deliberatzeko. **Juan Garzia**
Jende hori arinki mintzatu ote zen, ala salatariak ziren, edo pasatzaileak **torturapean** mintzatu, ukatzen ahal nituen guziak ukatu nituen. **Marzel Etxehandi**
Ezin dut musu bat eman masaila batean besarkatzen dudanaren ondoan beste haren masaila ikusi gabe, eta **torturapean** naukan desira asegabe honek oinaze bizitan jarri gabe. **Josu Zabaleta**
Torturapean egindako aitortpenak ez du balio, baldin eta hura amaituta gero erruztatuak ez badu berriz zinpean baieztatzen; baina erruztatuak ez badu delitua onartzen, berriro torturatzen dute. **Juan Martin Elexpuru**

5 torturapeko izlag

Akusazioaren oinarria **torturapeko** deklarazioa dela dio Iparragirrek. **Berria - Euskal Herria**
Torturapeko deklarazio batek ez du baliorik. **Berria - Euskal Herria**
Atxilotuen tratu bortitza, umiliazioa, kasu batzuetan tortura eta tratu txarrak, **torturapeko** ustezko deklarazioen filtrazioa, espetxeratuaren sakabanaketa... **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

atxiloketa eta tortura (4); atxiloketak eta tortura (6); egindako tortura (11); eginiko tortura (8); eginiko tortura salaketak (4); jarritako tortura (6); jasandako tortura (5); lagunen tortura (5); otamendiren tortura (4); romanoren tortura salaketa (4)
tortura ahalbidetzen (22); tortura ahalbidetzen duten (9); tortura amaitzea (6); tortura amaitzeko (15); tortura arrastoak (7); tortura arriskua (8); tortura babesten (4); tortura bukatzeko (7)
tortura ekiditeko (5); tortura erabili (6); tortura erabiltzen (5); tortura eragozteko (6); tortura errazten (5); tortura fisiko (5); tortura galarazteko (4); tortura gogorrek (19); tortura gogorrek salatu (12); tortura gune (4); tortura hutsa (5)
tortura izugarriak (4); tortura jasan (10); tortura kasu (17); tortura kasuak (30); tortura kasuei (5); tortura kasuek (4); tortura kasuekin (5); tortura kasuen (8); tortura kasuetan (7); tortura latzak (6); tortura metodoak (5); tortura mota (13)
tortura psikologikoa (7); tortura psikologikoak (4); tortura saihesteko (6); tortura salaketa (69); tortura salaketa artxibatu (7); tortura salaketak (110); tortura salaketak ikertzeko (6); tortura salaketaren (8); tortura salaketari (13); tortura salaketei sinesgarritasuna (4); tortura salaketen (24); tortura salaketen inguruan (6); tortura salatu (8); tortura salatzea (5); tortura salatzeko (5); tortura sistematikoa (5); tortura testigantzak (5); tortura tresna (7)
tortura xuria (6); tortura zantzuak (5)
atxiloketak eta torturak (6); egindako torturak (12); eginiko torturak (5); jasandako torturak (8); lagunek torturak salatu (4); pairatutako torturak (7); salatu dituzte torturak (4); salatutako torturak (9)
torturak ahalbidetzen (7); torturak amaitzeko (5); torturak bukatzeko (4); torturak direla eta (5); torturak egin (17); torturak egiten (4); torturak izan (4); torturak jasan (38); torturak jaso (7); torturak ohikoak (4); torturak pairatu (11); torturak pairatu dituzten (4); torturak saihesteko (5); torturak salatu (82); torturak salatu zituen (25); torturak salatzeko (12); torturak salatzen (12); torturak sistematikoak (7)
torturapean egindako (7); torturapean lortutako (5)
torturarekin amaitzeko (4)
nbeko torturaren aurkako (8); nbeko torturaren kontrako (6); tat torturaren aurkako (4); torturaren aurka (33); torturaren aurka egingo (4); torturaren aurkako (106); torturaren aurkako borrokan (4); torturaren aurkako nazioarteko (5); torturaren aurkako neurriak (5); torturaren aurkako taldea (6); torturaren aurkako taldeak (19); torturaren aurkako taldeko (7); torturaren auzian (4); torturaren bidez (5); torturaren biktimen (4); torturaren erabilera (8); torturaren gaia (6); torturaren inguruan (11); torturaren inguruko (5); torturaren kontra (14); torturaren kontrako (49); torturaren kontrako eguna (5); torturaren kontrako kontalari (4); torturaren ondorioz (8); torturaren prebentziorako (18)
torturari aurre egiteko (4); torturari buruzko kontalari (4); torturari stop (4)
jasandako torturei (4)
eginiko torturen (9); irakiarrei eginiko torturen (4); jasandako torturen (12); pairatutako torturen (4); presoan torturen (4); torturen aurka (4); torturen aurkako (19); torturen aurrean (6); torturen berri eman (7); torturen berri ematen (5); torturen inguruko (9); torturen irudi (6); torturen kontrako (9); torturen ondorioz (8); torturen ondorioz hil (4); ustezko torturen (4)

torturabide iz

Edo kasik, naturak ez baitu zuen **torturabideen** birbiltasun zehatza erdiesten ahal. **Xabier Montoia**

torturagarri izond torturatzen duena.

Zenbaitetan, urte luze haietan zehar, bere buruaz beste egitea pentsatu zuen, beldurrez; baina hasieran funtsik gabeko pentsamendu zen hura, denborak aurrera egin ahala, obsesio bihurtuz joango zitzaion, lokamuts **torturagarri**. **Berria - Kultura**

torturagile iz torturatzen duen pertsona.

Ordurako bazekielako, bere **torturagileen** trikimailua zela, esperantzaren soka eskainiz bera menderatzekoa. **Felipe Juaristi**

torturagune iz torturatzekeo gunea.

Kaserna eta **torturaguneetarik** urrun ibiliko zen, kanpoan, aireari, mehatxupean baina aldi berean, ustez kontzientziaz lasaiago. **Itxaro Borda**

torturaldi *iz* tortura-saioa. • *irud/hed*

Torturaldiak amaierarik ez zuen, harik eta ama, jaikitzeko tenorea genuela eta, gelaritzen zitzaigun arte. Aingeru Epaltza

Neure kasa ibiltzeko adinean, piper egiten hasi nintzaion uda oroko **torturaldiari**. Aingeru Epaltza

torturatu, tortura(tu), torturatzen 1 du *ad* tortura ezarri.

Ez litzateke errugabea **torturatu** behar, errugabea baita, legeen arabera, delituak frogatu ez zaizkion gizona. Juan Martin Elexpuru

Ikaragarri bezain zinematografikoa da Trujillo diktadore dominikarraren aginduz 1956an New Yorken bahitu, **torturatu** eta betiko desagerrarazi zuten Jesus Galindezen bizitza. Martin Anso

Baremek orduan Asad berriro ere atxilotzea lortu zuen, eta biharamunean bere gizonei hura **torturatzeko** agindu. Patxi Zubizarreta

Sinets nezazu nahi baduzu, **torturatu** naute gau bat eta goiz bat, eta deusik ez dut erran, bazen ene baitan indar bat, ezagutzen ez nuen. Marzel Etxehandi

Anjelena anaiak autobusa hartu eta bertan ikusi zuen bera **torturatu** zuten polizietako bat. Mikel Hernandez Abaitua

-Hori duk Aitzol **torturatu** zuena! Koldo Izagirre

Bazter batean lotuta dagoela, laguna hiltzeraino nola **torturatzen** duten ikusten du. Joxerra Garzia

Hil zezatela erregutzeraino **torturatu** zuten. Anjel Lertxundi

Zer gertatuko da, izan ere, atxilotua **torturatu**z gero halakoren eta halakoren bizitza salba badezakegu? Askoren artean

Epailiek, froga osorik ez zegoela ikusita, **torturatu** egin zuten. Juan Martin Elexpuru

Torturatzeko erabiltzen duten gelara eraman nahi zaitu. Rafa Egiguren

Aurreneko egunetan **torturatu** zintuzten satora eraman zaituzte ziegatik berriz aterata. Rafa Egiguren

Zer da hobe, **torturatzea** ala **torturatua** izatea? Karlos Linazasoro

Denok zekiagu **torturatzen** dela, eta kartzeletan gehiegikeriak egiten direla: jendeak pintxoak jaten segitzen dik lasai asko. Iban Zaldua

Putakume halakoak, haurrak **torturatzen** zituen, gainera. Juan Kruz Igerabide

Ez nago ni animaliak **torturatu** edota hiltzearen alde. Joxerra Garzia

2 irud/hed

Harropuzkeriak haizez puzten du, inbidiak **torturatzen** du, utzikeriak lozorrotzen du, egoskorkeriak zirikatzen du. Imanol Unzurrunzaga

Arazo horrek **torturatu** egiten zuen. Julen Gabiria

Etsipenak **torturatu** egiten zuen. Fernando Rey

Zalantzarik tipienak **torturatu** eta martirizatu eginen ninduela erremediorik gabe. Joan Mari Irigoien

Ai!, gaztetan hainbeste **torturatu** ninduen auzi hura piztu duzu. Imanol Unzurrunzaga

Orain behin betiko suntsituko ziren azken hilabeteetan **torturatu** ninduten mamuak. Alberto Ladron Arana

Laborategiko buru izatea gauza bat duk, eta bestea lankideak **torturatzen** ibiltzea. Hasier Etxeberria

3 (adizlagunekin)

Bazekien oraingo ihesaldian harrapatzen bazuten ez zela izango errukirik, hil egingo zutela, eta beharbada ondo **torturatu** ondoren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Atzo azaldu zuenez, deklarazioan zer esan guardia zibilek agindu zioten, gogor **torturatu** ondoren. Berria - Euskal Herria

Bilboko La Salveko kuartelera eraman, eta latz **torturatu** ondoren, libre utzi zuten. Jokin Urain

Unai Romano 2001eko irailean atxilotu zuten, eta inkomunikatuta zegoela guardia zibilek bortizki **torturatu** zutela salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Argi eta garbi azaldu duzu oraintxe nire pentsamendua krudelki **torturatzen** duen zalantza. Imanol Unzurrunzaga

Kartzelan sartu ninditean, basatiki **torturatu** ninduten komisaria beldurgarri batzuetatik pasa ondoren. Mikel Hernandez Abaitua

Afganistanen AEBetako soldaduen esku diren gatibuak sistematikoki **torturatu** dituztela zabaldu zuen atzo Erresuma Batuko *The Guardian* egunkariak. Berria - Mundua

Frantses armadak zientifikoki **torturatzen** du. Xabier Montoia

4 (era burutua izenondo gisa)

Anaia **torturatu** eta erail guztiak mendekatzeko ere hil dut. Koldo Izagirre

Apurka hildako gizon **torturatu** baten gorputza? Bernardo Atxaga

Birjina bortxatuak, ume **torturatuak** ikusten zituen ametsetan. Koro Navarro

Zorigaitzoko leku honetako aurpegi **torturatu** hauek. Urtzi Urrutikoetxea

Maximilian plazak oasi moduko bat osatzen zuen gure hiri **torturatuaren** erdian. Alberto Ladron Arana

5 (era burutua izen gisa)

Anatomia, **torturatuaren** gorputzen bidez ikastea tokatu zitzaigun. Iñigo Aranbarri

Hori baita, eta ez besterik, torturaren funtsa: **torturatuaren** arima suntsitzea. Joxerra Garzia

Gorputza xehatu eta arima suntsitzerainokoa izan liteke torturak **torturatuari** eragin diezaiokeen kaltea. Joxerra Garzia

Horregatik **torturatuak** egia edo gezurra erantzuteko eskubidea dauka, edota ez erantzutekoa. Esteban Antxustegi

Salaketa jarriz gero, Instrukzio epaileak artxibatu egiten du, eta, gainera, kasu honetan, salaketa **torturatuaren** aurka abiatzen da. Berria - Euskal Herria

Torturatuaren errehabilitazio zentroa. Berria - Euskal Herria

Hona hemen gure hildakoak, gure **torturatuak**; hona gure elbarrituak, ezinduak; gure zurtzak, bakartuak, bihotz-urratuak, bizi-puskatuak, oroimenaren zulo beltzean iltzatuak.

Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atxilotu eta torturatu (17); atxilotuak torturatu (5); bortizki torturatu (7); bortizki torturatu zutela (3); egunetan torturatu (5); ertzaintzak torturatu (3); espainian torturatu (4); gizon torturatu hura (3); gogor torturatu (5); guardia zibilak torturatu (3); guardia zibilek torturatu (10); hil eta torturatu (3); jipoitu eta torturatu (3); lagun torturatu (4); pertsona torturatu (3); presoak torturatu (8); psikologikoki torturatu (3)

torturatu bat (4); torturatu dutela salatu (4); torturatu eta espetxeratu (3); torturatu eta gero (3); torturatu eta hil (15); torturatu hura (3); torturatu izana leporatzen (3)

atxilotua eta torturatu (3); torturatu izan (15); torturatu izan zela (4); torturatu izateko (5)

torturatuak izateko arriskua (3)

torturatu hil (7)

preso irakiarrek torturatzeko (3); presoak torturatzeko (3); torturatzeko leporatuta (3)

torturatzeko akusatuta (3); torturatzeko akusatutako (4)

torturatzeko agindu (3); torturatzeko agindua (5); torturatzeko arriskua (4); torturatzeko baimena (3); torturatzeko bide ematen (3)

atxilotuak torturatzen (5); egunero torturatzen (4); espainian torturatzen dela (3); presoak torturatzen (7); torturatzen ari (9)

torturazaille (*orobat torturazale g.er.*) 1 iz torturatzen duen pertsona.

Armada horiek ezkutaleku oso onak dira gaur egun ere **torturazaille**, bortxatzaile, hiltzaileentzat: Serbia, Txetxenia, Guantanamo, Abu Ghraib... Jokin Urain

Helburua arima suntsitzea izan ohi du **torturazailleak**. Joxerra Garzia

Oinazea ez pairatzea eta **torturazailleekin** kolaboratzea aukeratzen baldin baduzu, ezin esan ahalako oinaze morala erosten duzu. Agurtzane Juanena

Aitzolen **torturatzalea** hemen bertan edukitzea deus ez balitz bezala. **Koldo Izagirre**
Goiz argira ulertzen dut tortura gelaren ondoan nizela: ene **torturazaleen** sadismoak ene gizonen martirioan parte hartu behar dutala erabaki zuen. **Michel Oronoz**
Presoak askatu ondoren, iraultzaileak urkatzen zituzteneko Semenov plazan fusilatu zituzten Okrana-ko **torturatzaleak**. **Koldo Izagirre**
Haren eraginez, zikina garbi bilakatu zen nire gogoan, lotsa loria, **torturatzalea** biktima eta zekena barregarri. **Joxan Elozegi**

2 (izenondoekin)

Modu erraz eta merke bat, gizabanako erraz eta merkeek erraz eta erruz egiten dutena, terrorista eta **torturatzale** handienen poz eta atseginerako. **Iñaki Segurola**
Torturatzale ankerrek errugabeen odolaz bazkatu zuten beren haserre, baina ez ziren hala ere asebate. **Koro Navarro**
Guardia zibileko sarjentu bat hil behar genian, Panizo izeneko bat; **torturatzale** putakume bat, ziotenez. **Juan Kruz Igerabide**

• 3 izond torturatzatzen duena.

Hiru mediku **torturatzale**. **Pablo Sastre**
Ezagutzaren gurutze handia eman dio espainiol gobernuak Meliton Manzanos komisario **torturatzale** zenari. **Herria**
Izpiritua abandonaturik gelditzen baita biluzte **torturatzale** batean. Unaduraren poderioz loak azkenik bere menean hartzea lortzen zuenean berehala hasten zitzaizkion bere lokamuts **torturatzaleak**. **Joan Mari Lekuona**
Tirandura arozko horrek herriaren geruza zabaletan larridura **torturatzalea** sortzen zuen. **Joan Mari Lekuona**
Alonsok «legeria **torturatzailerik**» ez dagoela, ez dela «egiturazko arazoa» eta Lasagabasterrek hori «interes ideologiko politikoengatik» esaten duela erantzun zion.
Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
nire torturatzalearen (4)
torturatzaleen burua (3); **torturatzaleen inpunitatea** (3); **torturatzaleen izenak** (3)

torturazale ik torturatzale.

tortxa iz zuzia, lastargia.

Argizari-santu saltzailearengana oldartu, eta **tortxa** handi bat erosi zuen. **Juan Garzia**
Atlantako Joko Olinpikoak iragan zirelarik, 1996an, agertu zen, dardaraka hinki hanka emeki ibiltzen, eskutan eramaten zuen **tortxa** olinpikoarekin piztu zuen kirol zelaiko su bizia. **Ramuntxo Etxeberri**
Gure pilotari xapeldunak joko horien lehen seinalea ekarri du lasterka plazarat **tortxa** bat piztuta joko horietan ohi den bezala mendeetarik hunat. **Herria**
Bat batean 9 1/2 etan gure ezkila dorre zabalak ezkoxu, **tortxa** izigarri baten itxura hartu du. **Herria**

toru iz geometrian, zirkulu batek ardatz planokide baina eszentriko baten inguruan biratzean sortzen duen gorputza.

Arkitas Tarentekoak, adibidez, hiru azalaren ebakiduraren bitartez: konoa, zilindroa eta **torua**. **Jon Muñoz**

torysmo iz Erresuma Batuko kontserbadoreen ideologia.

Aitak ez zituen berriak hartu nahi, haiek betidanik egonak baitziren etxean; horra hor gizartearen segmentu horren **torysmoa**. **Koro Navarro**

toscaniar ik toskanar.

toskanar (orobat toskanatar, toskaniar eta toscaniar) 1 izlag/iz Toskanakoa, Toskanari dagokiona; Toskanako herritarra.

Haurtzain **toskanar** handia etxean batera eta bestera gonarekin fir-fir ikusita. **Fernando Rey**
Ahoa ireki zuen, eta **toskanatar** azentu nabarmena zuen. **Juan Garzia**
Orain estilo **toskanarrari** buruzkoak ekarriko ditut, nola eraiki behar diren esanez. **Santiago Iruretagoiena**
Ontzi **toskanar** hura. **Joxan Elozegi**
Tenplu horiek kanpoko itxura hankazabala izaten dute, astunegia, zapala eta zabala, eta frontoia lurrezko edo brontze urreztatuzko irudiekin apainduta izaten dute **toskaniarren** estilora. **Santiago Iruretagoiena**

2 italiararen dialektoa, Toskanan mintzatzen dena.

Adibideak literaturako gipuzetik hartuko ditut gehienetan, [...] hura delako, azken batean, euskararen benetako ordezkaria, gutxi gorabehera **toscaniarra** eta gaztelania italiar eta espainiararen diren neurri berean. **Koldo Zuazo**

toskanatar ik toskanar.

toskaniar ik toskanar.

toskano 1 izlag/iz toskanarra.

On Camillok puru **toskanoa** piztu zuen. **Koldo Biguri**
Egilea **toskanoa** izatea, hau da, italiar arrotza. **Jon Alonso**

2 italiararen dialektoa, Toskanan mintzatzen dena.

Oso ondo atzematen da Frantziako literatura hizkuntza, esaterako, Frantziako uharteko dialektoan, eta **toskanoa** italiara arruntean. **Isabel Arrigain**
Hiru multzo nagusitan daude banatuta hainbat eta hainbat dialekto eta azpi-dialekto, harrigarri zabaldua eta bizi-bizi daudenak: hegoaldekoak, **toskanoak** eta erdi aldekoak. **Anjel Lertxundi**

• 3 iz puru toskanoa.

On Camillo bere **toskano** erdia erretzen ari zen apaizetxe aurreko jarlekuan eserita. **Koldo Biguri**

tosta iz arraunontzietan, jarlekutzat alde batetik bestera dauden oholetako bakoitza, arraun aulkia.

Eta toleta, eta broga, eta estropua, eta **tosta**. Joseba Sarrionandia

Txalupa gorri bat dago lotua bertan, arraun pare **tosten** gainean. Koldo Izagirre

Bihar goizean hementxe azalduko da gure mutila, txipiroiez **tostetaraino** beteta. Koldo Izagirre

Azken urteetan, Kantauri osoko jendea topa genezake traineruetako **tostetan**, galiziarrek, kantabriarrak, bizkaitarrak, gipuzkoarrak, iparraldekoak... Berria - Kirola

Pasai San Pedrok marka ezarri zuen urte hartan, bere **tostetan** aritu zen Balda. Berria - Kirola

Kontxan aritu zirenek jardungo dute arraunean Bou Bizkaia traineruko **tostetan**. Gero, **tostan** arnasesutuka, han hondartza bazterrean eguzkipean gilaz gora irribarrez eta esamesaka zeuden neskegana zelan hurbildu asmatu behar izaten zen. Berria - Kirola

Hamargarren Eskuadraren berriz, baziren lau galera, hots, **tostetan** arraunlari gizon zigortuak edo galeoteak zituztenak horiek ere. Edorta Jimenez

Ni neu ere bogalarien **tostan** jesarri, arraunetako bat eskatu eta boga egin genuen. Edorta Jimenez

Baziren handik ihes egiterik ez zeukatenak ere, alegia, **tostetan** beharturikoak. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

traineruetako **tostetan** (3)

tostada iz txigorkia.

Zerbitzariak kafea, baxokada bat laranja-ur, **tostada** bat eta gurin puxka bat ekarri zizkigun. Bernardo Atxaga

Mahai gainean utzi zizkidan **tostadak**, kea zeriela. Aingeru Epaltza

Haginkada eman dio **tostadari**, eta papurrak mahai gainean sakabanatu ditu. Lander Garro

Sutara behar baino makurtuagoa, **tostada** gurindunak prestatzen ari zen ama. Aingeru Epaltza

Middle class-eko etxekoandreak marmeladazko **tostadarekin** batera, [...]. Iñaki Zabaleta

tostarte 1 iz tosten arteko tartea.

Bateletan (lau arraunlari eta patroia) eta aulki mugikorrean soilik lehiatzen dira oraingoz, baina eurak ere jo eta fuego aritzen dira **tostartean**. Berria - Kirola

2 eskifaia.

Zena zelakoagatik zela, urpekari alemanen ehizan ibiltearena, *Pilar* haren **tostartean** ez zen euskaldunik falta izaten. Edorta Jimenez

Tostartean aldaketa batzuk egiteko baliatu du geldialdia Mendizabalek. Berria - Kirola

3 tostarteko iz eskifaiaiko kidea.

Argi zegoen *Royal Navy*rako ari ginela, eta **tostarteko** batzuk behintzat baraurik. Koldo Izagirre

Aita ageri zen, kapitaina, **tostarteko** guztiak zituela inguruan. Koldo Izagirre

Hamar-hamabi lagun baforeko, horrela zebilen kontua berrogei **tostarteko** behar zituzten zamakoetan, beldurra. Koldo Izagirre

tostatu izond kolore marroikarakoa.

Dotore jantzita, traje **tostatu** eta panama sonbreilu txuri batekin, don Silverio zigarro puru bat erretzen ari zen zabal-zabal barre eginez. Bernardo Atxaga

tostoi 1 iz adkor kalaka, asperkeria.

Gainera Ruper itzelezko **tostoi** iruditzen zait. Eider Rodriguez

2 ogi frijitua.

Haren etxetik esku hutsik inor ateratzen utzi ez zuen (bost **tostoi** izango ziren, edo ogi bat, edo zigarro huts bat) merezimendu handiko gizon harenganako. Bego Montorio

Haren kontuetarako zintotasunaz hitz egin zuen, kontabilitate zorrotzari hark ematen zion garrantziaz, zehaztasun berberaz kontabilizatzen baitzuten bi **tostoi** edo askoz ere kopuru handiagoak. Bego Montorio

total 1 izond erabatekoa.

Ni guztiz sistematik kanpo dagoen idazlea sentitzen naiz, outsider **totala**. Ana Urkiza

Kontua da nire anaia ikaslea ezjakin **totala** zela. Pello Lizarralde

Inozo **totala** iruditu zait. Fernando Rey

Kaos **totala**. Joxe Azurmendi

Kiebra **total** baten eta berriro zerotik hasi beharraren kontzientzia. Joxe Azurmendi

Nazismoak ekarri duen gerra eta Alemaniaren txikizio **totala** "katastrofe" natural bat da. Joxe Azurmendi

Kultura **total** baten une gorena da festa. Berria - Kultura

Naturak, pisua bide, lurra joarazten die eta, hutsune ia **totalean** dautzala, arima gorputzaren poro guztietatik galtzen dute. Xabier Amuriza

Ez omen diote inutilidade **totala** eman nahi. Iñaki Iñurrieta

Ergel bat, **totala**! Fernando Rey

Deserosoa egin zitzaidan, ia eramanezina, museoan arnasten ari nintzen aire hutsal-fashion **total** hura. Anjel Lertxundi

Izan ere, Eguren saxojoleak dioen bezala, "**totaleko** diferentea dago lehendikan gauza". Pako Aristi

Nortasun bildurgarriko gizona zala; bere lanbide nagusi bietan, errementaritzan zein soinularitzan, urgulu profesional **totalekoa**. Xabier Amuriza

Edozer guaikeria, hutzalkeria edo umekeria gatzbakorekin izugarri emoxionatzen dena ("uaaa! oona! latza! **totala**, e?"). Iñaki Segurola

2 (adizlagun gisa)

Bere izaeraz beraz errebindikatiboa izan beharra baitauka, jada **total** etsia ez bada behintzat. -Soinua **total** itzita eukan? Joxe Azurmendi

Laja itzak sareak putzuan, egik **total** abaor, jo ezak La Rochellera. Koldo Izagirre

Lema **total** estibor emanda. Koldo Izagirre

Agorrarenak inon betetzen ote dira **total** eta arraso? Pello Zabala

Badut deabrutxo bat barruan, eta atera eta bihurrikeriaren batzuk egiten uzten ez badiot, **total** aspergarria bihurtzen da mundua niretzat. Oskar Arana

3 izond guztira duena.

Maxima-minima, euri-kontuak eta beste, denen kopuru **totalak** eta batezbestekoak ere, kontu denak paper muturretan aterako zituen kurioxo asko. Pello Zabala

Arlo guztietan bakoitzak handien ikusi dituenak eskergezatzat ohi dauzka, nahiz eta gauza guztiak, zeru-lurrak bane, izadi osoaren batura **totalaren** aldean ez ez izan. **Xabier Amuriza**

Alor horren ingurumen-presio nagusiak hazkunde ekonomiko **totala** baino neurri handiagoan ari dira handitzen. **Berria - Euskal Herria**

• 4 *adlag* hitz bitan.

Total, IKEAn buelta batzuk eman ondoren, sofak ikustera abiatu ginela. **Iban Zaldua**

Total, kontua da Herminiok alde egin zuela eta aldageletan bere emaztea eta biok geratu ginela. **Jasone Osoro**

-**Total**, tarrapatakan behar izan dugu harrapatu gure hegazkina! **Ramuntxo Etxeberri**

Hutsegite handia iruditzen zaidak hik literatura utzi izana, **total** zertarako, aberri bat eraikitzeko? **Mikel Hernandez Abaitua**

Niri berdin zaidak; ni, **total**, horditzera etorri nauk... **Pablo Sastre**

Total, neska, nor enteratuko da? **Iban Zaldua**

• 5 *iz* osotasuna, guztizkoa.

Bataren **totala** bestearen **totalari** dagokionez, bataren parte bat bestearen parte bati egokituko zai. **Iñaki Iñurrieta**

Gure artxiboko txartela hartu nuenean, han ageri zen **totala** libretan ageri zena baino 150\$ gutxiago zen. **Xabier Olarra**

10 eguneko datuen **totalak** aterak, portzentajeak ondo eramateko. **Pello Zabala**

6 *total egina/eginda adlag* erabat mozkorturik.

Etiazuela ahaztu Schumacher koronela maiz **total** egina egoten zela gauean, bere garagardo-edanaldiak zirela-eta. **Fernando Rey**

Dabid, Patxiaren antzera, **total** egina zegoen eta estropozo egin du, neska bat berarekin lurrera eramanez. **Patxi Zubizarreta**

Total egina itzuli zen Honoré. **Joxan Elozegi**

Total eginda nengoen ordurako, ez nintzen lagunekin berriketan jarraitzeko gauza, Azkenean hirurak **total** eginda zeuden, ohean etzanda izeba eta Campione langilea arreta elkar ukitzeko jardunean jarrita. **Juan Luis Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

total egina (4); **total eginda** (5)

totala izan (3)

totalitario 1 *izond* gobernu eraz mintzatuz, demokraziak ezagutzen dituen gizabanakoaren eskubideak eta gizarte askatasuna ezeztatzen dituen eta agintaritza mota oro eskuratzen duena.

Are ezinezkoagoa izango zen mendebaldeko Europako langile-klaseari erregimen **totalitario** baten alkandora hertsagarria eskaintzea. **Iñaki Mendiguren**

XX. mendean, Europan «bi erregimen **totalitario** izugarri: nazismoa eta komunismoa» nagusitu zirela dio eskuineko taldeak atzo onarturiko ebazpenak. **Berria - Mundua**

Garbi da denak anai faltuen botere faktiko **totalitarioen** menpe jartzen garela dituen ondorio latzekin. **Itxaro Borda**

Arriskua oinarritzko heziketa unibertsalak propagandarako irekitzen zuen aukera zen, eta aukera horri heltzeko publizitate-saltzaileek, albiste-agentziek, presio-taldeek, alderdi politikoek eta gobernu **totalitarioek** trebetasuna izan zuten, eta eskrupulurik ez. **Iñaki Mendiguren**

Lehen, tirano zaharkitu baten aurka, bere jaioterria askatu beharrez ziharduen gudari miresgarria, ametsetako estatu **totalitario** baten izenean bere basakeriak legeztatu nahi lituzkeen borrokari itsua bihurtu da. **Piarres Xarriton**

Orohartzalea eta **totalitarioa** da; ez du nabardurarik onartzen, dena asimilatzen du bere mende: ideologia, merkatua, herria, kultura, aisialdia... **Txema Ramirez de la Piscina**

2 *hed*

Gizarte **totalitario** bat deskribatzen digu Orwellek bertan, litekeen **totalitarioarena**: Anai Nagusiak herritar guztiak ditu kontrolpean, haien mugimenduak ez ezik haien pentsamenduak ere ezagutzen eta kontrolatzen baititu, etenik eta hutsik gabe. **Joxerra Garzia**

Euskal gizarteari indarrez inposatu gura izan zitzaion proiektu **totalitario** baten biktimak izan ziren. **Berria - Harian**

EAJk «keinu **totalitarioak**» erakusten dituela azaldu du Lopezek. **Berria - Euskal Herria**

Pentsaera hau, noski, ultranazionalista da, **totalitarioa**. "Feminismo" hitzak garai bateko egoera **totalitario** batzuen oroitzapena ekartzen duelako gogora: emakume borrokazaleak, itsusiak, ez direnak bat ere femenoak... **Bernardo Atxaga**

Inoiz aipatu dut Oteizaren estetika etnozentrakoari segitzen zaion ondorio **totalitarioa**: euskaldun orok aintzakotzat hartu beharra dauka Oteiza, baldin uko egin nahi ez badio euskal arimari. **Anjel Lertxundi**

totalitarismo 1 *iz* gobernu era totalitarioen sistema politikoa.

Hasteko, pertsonalismoaren alde eta **totalitarismo** ororen aurka deklaratzan da Liburu Zuria. **Joseba Zulaika**

Borroka elkarte horiek punk eta destroy uhinak irentsi dituzte, beren baitako **totalitarismoaren** edo eztiagiago erranik, armen borroka sostengatzeko duen diskurtsoaren gordetzeko. **Itxaro Borda**

Idazle txekiar askok bizi eta idatzi zituzten esperientziak **totalitarismoak** eragin zituen. **Berria - Kultura**

Atea eta eskuindarra zen Revel, eta **totalitarismoen** aurka agertu ohi zen beti, tinkotasun handiz. **Berria - Kultura**

Totalitarismoaren aurkako eta demokraziaren (edo gizarte irekiaren) aldeko Popper-en argudioak. **Askoren artean**

Arrazoitik at ez dago ezelako salbaziorik, amildegi itsu eta iluna baizik, **totalitarismora** eta faxismo berrira daraman amildegia. **Berria - Harian**

Diktadurak, **totalitarismoak** bortxaz isilarazi zituenei hitza bihurtzea. **Ana Urkiza**

«**Totalitarismo** komunista» gaitzetsi zuen atzo Europako Alderdi Popularrak, Bruselan eginiko bozketan. **Berria - Mundua**

2 irud/hed

Pinturatik musikara salto egin dut, nire margotzeko eraren zenbait ezaugarri nagusi, bat-batekotasuna, emozionalitatea, gordez etaaldi berean arte bisualen **totalitarismoa** baztertuz. **Berria - Kultura**

Ekialdeko blokeo idazleek bi belaunaldiz aurre egin behar izan zioten **totalitarismo** kultural eta politiko berberari aurre egin beharrean dira Egungo AEBetako idazleak. **Berria - Kultura**

«**Totalitarismo** informatiboa» egotzi diote Berlusconi. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

totalitarismo informatiboa (3)

totalitarista *izond* totalitarismoarena, totalitarismoari dagokiona. • *irud/hed*

Baina, zer egin lezake, egungo gizartean, sabelean demonio zoragarri bat sortu zaionak, kasik inguru guzira aingeru zuri **totalitarista** aspergarri baten alde jarri denean? **Patziku Perurena**

totalitate 1 iz totala denaren nolakotasuna. ik totaltasun; osotasun.

Honi osotasun kualitatiboa (**totalitatea**) dei dakioko. **Ibon Uribarri**

Honi begiespenen sintesia orotasuna (universitas) edo baldintzen **totalitatea** dagokio. **Ibon Uribarri**

Horrela, beraz, orotasuna (**totalitatea**) ez da askotasuna batasun gisa kontsideratua baino. **Ibon Uribarri**

Arrazoimenaren adigai transzendental beti **totalitatearen** sintesiari baino ez datzekio baldintzen sintesia. **Ibon Uribarri**

Les mots et les Choses lanean mugarritze metodologikoaren faltak eraman ahal izan du pentsatzera nire analisiak **totalitate** kulturalak balira bezala bururatu ditudala.

Xabier Arregi

2 (hitz elkartuetan)

Funtzio kontserbatzaile bera egongo da ekinean kultur **totalitateen** gaian. **Xabier Arregi**

Arazoa ez da (are gutxiago oraindik) kultur **totalitateen** (mundu ikuskerak direla, tipo idealak direla, garai ezberdinen espiritu berezia direla) kategoriak erabiltzea historiari ezartzeko azterketa kulturalaren formak. **Xabier Arregi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ilararen **totalitate** (3); sintesiaren **totalitate** (3); **totalitate absolutua** (8); **totalitate absolutuaren ideia** (4)

baldintzen **totalitatea** (5)

totalitatearen ideia kosmologikoaren (4)

totalizatu, totaliza, totalizatzen du ad zerbaiten osotasuna hartu.

Idaien, pentsaeren eta zientzien historian mutazio berak aurkako ondorioa ekarri du: kontzientziaren aurrerabidea -edo arrazoiaren teleologia edo giza pentsaeraren eboluzioa- osatzen duen sail luzea bereizi du; bateratzearen eta gailurra jotzearen gaiak auzitan jarri ditu, **totalizatzeo** aukerak zalantzan jarri ditu. **Xabier Arregi**

totalizazio iz totalizatzea.

Denbora **totalizazio** modura bururutzen da eta iraultzak kontzientzia hartzea besterik ez dira. **Xabier Arregi**

Deskribatutako sailak, finkatutako mugak, ezarritako alderaketak eta korrelazioak ez dira etzaten antzinako historiaren filosofietan, haatik, euren xedea teleologiak eta **totalizazioak** auzitan jartzea da. **Xabier Arregi**

Globalizazioa «bezeroentzat funtsezkoa den harremana hautsiko lukeen **totalizazio**» bihurtzeko arriskua dago. **Berria - Ekonomia**

Mota berri bateko **totalizazio** hori integrazioa da. **Jon Muñoz**

totaltasun iz totalitatea.

Enuntziatu-multzo bat deskribatzea irudi zatikatu eta xehatu bezala eta ez esanahi baten **totaltasun** itxi eta pletoriko bezala; enuntziatu-multzo bat deskribatzea kanpokotasun sakabanaketaren arabera eta ez asmo baten, pentsamendu baten, subjektu baten, barrukotasunarekin harremanean. **Xabier Arregi**

total 1 izond/iz mintzatzeko debekua duena, zenbait silaba errepikatuz hitz egiten duena. ikmotel¹ 4.

Oso-oso **totela** zen Dimas. Lasterka hitz egiten hasi zen baina, mihi punttan garatxo eder bat edukitzeaz gain **totela** zenez gero, lanak izan zituen Malanttonik auzoak esandakoa zuzen ulertzen. **Unai Elorriaga**

Deitu nion, eta hitz **total** batzuk eta doministiku bat entzun nituen. **Koro Navarro**

Humphries jauna eskola maisua zen, gizon altu, buruargi, mintzo-**totela**, arrakasta gabeko nobela bat idatzi zuena. **Koro Navarro**

Izatekotan, esaldiak edo sintagmak dira hemen **totalak**: gazte tematiak, agindu duzu... **Iñaki Arranz**

Ikus daiteke, halaber, Luis **Totelak** Compiègne-n egin zuen zina, koroatu zutenean. **Iñaki Iñurrieta**

Ez motel ez **total** ni, baina barkatu egin nion niri hala iriztea, haren itzalpetan horixe irudi bainuen; mutila. **Edorta Jimenez**

-Jaiki bai, esnatu ez oraindik -ihardesten diegu irri etsia ezpainetan, begiak idor eta mihiak **total**. **Itxaro Borda**

2 (adizlagun gisa) ik totalka.

Hizketan hasi zen, baina **total**, haserreak ez baitzion uzten: [...]. **Joxan Elozegi**

Hasi zitzaidan **total** eta lotsaz esaten bere ahaideak, alarguna bera ere, egina ziola ezkontzeko proposamena eta onartzea erabakita zuela. **Eduardo Matauko**

3 (izen gisa)

Total pixka bat egiten bazuen ere, hizketalagun paregabea zen. **Fernando Rey**

4 (hitz elkartuetan)

Aipatu ditudan bi egitasmoak [...] zentzugabeak dira, baina halako bikaintasun oraindik **total**-antz baten adierazgarri ere badira. **Juan Garzia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Humphries jauna eskola maisua zen, gizon altu, buruargi, mintzo-**totela**, arrakasta gabeko nobela bat idatzi zuena. **Koro Navarro**

6 irud/hed

Ta-ta-ta-ta, berriro da hots **totela**. **Aingeru Epaltza**

Horren aurrean isildu egin zinen, desenkusa **totelen** bat ezpain artean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Berak aldeaz aurretik irudikatu zuen elkarrizketa katastrofiko bat, akusazio formal eta larria, defenda ezinaren aldeko bere defentsa **totela**, laidoa, ironia astuna, iraina, zemaia. **Jon Alonso**

Gaztetasun **total** batetik heldutasun betera daraman errege-bidea ibili. **Juan Garzia**

Terapia genikotik, nahiz hastapen **totelatan** baino ez dagoen oraindik, uste osoz espero ditugun aurrerapenek bide horretatik joan behar dute noski. **Juan Garzia**

Aldizkako durunda hotsa zen, milaka erleren burrunba **totela** bezalakoa. **Mirentxu Larrañaga**

Mirariren begiak zulo beltzak ziren, infinituak, **totalak**. **Fernando Morillo**

Gerta liteke, haatik, azalpena bera padura baino ez izatea edo desertu **total** bat. **Unai Elorriaga**

7 hitz-total izond/iz

Pertsona batzuk **hitz-totalak** diren bezalaxe, hitzak berak ere totalak izan daitezke. **Iñaki Arranz**

Hitz-totela zen eta kantatzen zuenean baizik ez zuen hitz-jario normala. **Fernando Rey**

Eztairiaren kontra pistola bat estutu zion crackzale hordi **hitz-totelarengatik** izan ez balitz. **Oskar Arana**

Aspalditik ezaguna da gauza bera gertatzen zaiela **hitz-totelei**. **Xabier Olarra**

8 total-motel izond adkor totela.

Bere eskolak institutuko onenetakoak ziren, edanak eragindako kalaka **total**-motel eta guzti. **Anjel Lertxundi**

9 total-total adlag

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hitz total batzuk (3)

toteldu, total(du), toteltzen 1 du *ad* totalka hitz egin.

-Ezin dut berorren gogoia bete, bada -**toteldu** zuen zerbitzariak, burua erabat nahasita. Anton Garikano

-Nik ez... nahi gabe... - **toteldu** zuen beldurtuta, atzeraka eginez ezpata askatzen zuen bitartean. Joanes Urkixo

-Gero! Gero! - **toteldu** zuen Dembak erabat nahasita, eta izututa begiratu zion Georg Weinerrri-. Anton Garikano

Eta ahoz ari zenak sagardotegiko kupelaren jiran **totelduko** zuen bere kanta-saioa. Andoni Egaña

Eroturik hil zen, Bermudetan, handik egun batzuetara, hitzok **totelduz**. Juan Garzia

2 du/da *ad* total bihurtu.

-Nahitara ere ezinen nikek... -erran zuen, hitzak mihian **toteltzen** zitzaizkiola-. Joan Mari Irigoien

3 (era burutua izenondo gisa) *irud/hed*

Hire hanka **totaldu** horrekin, ez hurbildu balekebale, alde egin ezak, hoa putzura nahi baduk, ken hadi hortik. Koldo Izagirre

totalgrama *iz* silaba bat edo letra-multzo bat jarraian errepikatzen duen hitza.

Letra batzuk gaineratuta sortzen diren horrelako **totalgramak** ziklogramak ere badira, hiru bider errepikatzen dira silabak edo letra multzoak: *kakarazaka, kokoriko, kukurruku, pipirripi, tutulikatu, txitxibiritxi...* **Totalgrama** asko ziklogramak dira: goiko *baba, tuntun eta arantzarrantz* lekuko. Iñaki Arranz

totalka 1 *adlag* mintzatzeko debekuz, zenbait silaba errepikatuz.

Dougan gorritu eta **totalka** hasi zen. Lopez de Arana

Tartagliak bezala, Faziok ere **totalka** hitz egiten zuen. Jon Muñoz

Behin ere ez nuen lortu pertsona politekin normal hitz egitea, izerditan hasten nintzen, **totalka** mintzatzen. Fernando Rey

Frantsesez, **totalka** eta sudur-mintzoz hitz egiten dute; ingelesez, berriz, txorien doinua antzeratzen dute, eta fisionomiaz ere txori bihurtzen dira. Jose Morales

Zera... -esan zuen **totalka** Ruche jaunak. Jon Muñoz

-Peter -esan zion, **totalka** -, zurekin hegaz joateko zain zaude? Julen Gabiria

-Eta ze-zer egin be-behar dut, bada, nik? -galdetu zuen **totalka**. Iñaki Mendiguren

-Hamahiru, hamahiru egun -esan zuen Pippinek, **totalka** -. Agustin Otsoa

Erran nahi dut, ez - **totalka** nik. Alberto Ladron Arana

-Nik, ordea... -Maelek **totalka** eta lotsaz, aitzakia baten bila-: [...]. Joanes Urkixo

Luis Galdosek **totalka** eta neke handiz esanikoa sinestera, Goako hondartza batean ikusi zuen azkenekoz Gerardo. Xabier Montoia

2 irud/hed

Ez dut idazten jarraituko, ez baitut **totalka** jardun nahi azaltzeko gauza ez naizena adierazten. Askoren artean

Txirrina **totalka** hasi zen klasera sartzeko ordua abisatzeko. Joseba Sarrionandia

3 (hitz elkartuetan)

Beste kanpai urrutiagoko batzuen hotsa entzuten baitzen, izan ere, besteen berdinak, baina harritzeko moduan ahulak, ulertezinak, magiazkoak ia, beren **total** hots urrun hura joandako mendeen bihotzetik baletor bezala edo. Josu Zabaleta

-Metrailadore bat hasi da kalakan, tiro- **totalka**, eta beherantz makurtu dut burua tupustean. Mirentxu Larrañaga

4 *erdi totalka*

-Orduan, egitekoa zenbat eta lehenago burutu, hainbat eta arinago izango dugu atsedena -esan zuen **erdi totalka**, hitz hoberik aurkitzen ez zuelarik-. Agustin Otsoa

Eta Xalbadorrek gibela eta gibela egiten zuen, begiak ardi batenak iduri, harik eta, halako batean, zango bat belaunikatu, bertzea aitzinatu, eta erdi nigarrez **erdi totalka** erran zion arte: [...]. Joan Mari Irigoien

5 *hitz-totalka adlag*

Harryk ezin zion aurpegia ikusi, baina inoiz baino okerrago ari zen **hitz-totalka**. Iñaki Mendiguren

Quirrell zerbait esaten ari zen **hitz totalka**. Iñaki Mendiguren

Gauza horiek ez baititugu gizonok modu agerian inoiz esaten, **hitz totalka** baizik. Joxean Agirre

Saint-Ange Anderea, **hitz-totalka**: Eugeni, egunen batean kontatuko dizut nire bizitza. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hitz totalka eta begiak atera beharrean kontatu zidan ikaskide ohi hark berria. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erdi totalka (4); **esan zuen totalka** (16); **hitz totalka** (27); **totalka hasi** (13); **totalka hasi zen** (10); **totalka hasiko** (3); **totalka hitz egin** (3); **totalka mintzatzen** (4)

totalkatu, totalka(tu), totalkatzen du *ad* totaldu, totalka mintzatu.

Zeharo zarpailduaren itxura egiten ari zen Ramsay jauna; apur bat **totalkatu** ere egiten zuen zutik zegoen bitartean. Anton Garikano

Orduan, harridura otzanez, aspaldian galdtu eta ahantzirik zerbait aurkitzen bailu bezala, honako hitzok **totalkatu** zituen Argos-ek: [...]. Juan Garzia

Orduan bera ere eseri eta mantuaz begietaraino estali zen, hauxe **totalkatuz**: [...]. Joanes Urkixo

Funtsgabekeria batzuk **totalkatu** nituen, berak entzun ere egiten zituunik ez ziruditenak. Josu Zabaleta

totalkeria *iz* totaltasun gaitzesgarria.

Haien zientzia ezjakintasun bilakatzen delako, mihiiek atributuena bitartez Bera goretsi nahi dutenean, bokantza oro **totalkeria** ahulean geldituz. Xabier Kintana

totaltasun *iz* mintzatzeko debekua; totalaren nolakotasuna.

Ronek jendeari esaten zion ez barre egiteko Quirrellen **totaltasunari**. Iñaki Mendiguren

Totaltasun ezkutaetzina atera zuen handik. Fernando Morillo

Gorutzen entzun zuen Girolamok bere adiskidearen ahotsa, haren **totaltasun** ia ezin antzemanekoaren kokka arinak sumaturik. Jon Muñoz

Nire birraitonak **toteltasuna** nola sendatu aurkitu zuela. [Karlos Zabala](#)

Haren sudur okerra, haren **toteltasuna**, haren keinu bitxiak, haren tikak... atoa ohartzen nintzen zein zen ezaugarri haien arrazoia. [Jon Arretxe](#)

Antzera gertatzen da parkinsondunen mugimendu konbultsibo eta hautsien kasuan (batzuek **toteltasun** zinetikoa deitzen diote). [Xabier Olarra](#)

Hitz barneko silaba bat jarraian bitan agertzea eta **toteltasuna** lotzen genuen lehen. [Iñaki Arranz](#)

toteltsu *izond* totelka esana.

Lo zegoela soinaren bidez agurearekin hizketan aritzeko gaitasuna zuen, xarma gainezka zuelako, baina, amets-hizketa **toteltsua** zela-eta, haren ahotsa entzuteko itxaropenak ez zuen Egutxi bakean uzten, ziurrenik etxeko sekretua oraindik hain ongi ezagutzen ez zuelako. [Ibon Uribarri](#)

totem 1 *iz* leinuaren arbaso eta babesletzat hartzen den landare, animalia edo bestelako izakia, gurtza-gai eta tabu dena.

Totem bat aukeratu beharko balu, sugea aukeratuko luke. [Oskar Arana](#)

Harrizarra, **totem** bat bezala, ikur megalitiko baten antzera, zut. [Karlos Linazasoro](#)

Bigarrena zen egun hartan, arratsaldean bere arrano itxurazko **totema** zero urdinean ikusi baitzuen, hegatsak zabal-zabalik hodei zurien artean jalgitzen zitzaioela. [Aurelia Arkotxa](#)

Marinelaren labanak behar luke landu sakrifizioen **totema**, baina materia nobleagotan tinkatzeko daukat nik tresna sakratu hau. [Koldo Izagirre](#)

Nahi baduzue snob deitu neskari, baina ez ezazue ahaztu garai batean fetixen eta jabetzen **totem** zaharkituek osorik zetela beren mende lurjabe noble, edo ia nobleen, bizimodua. [Koro Navarro](#)

Kamera bere inguruan jiraka ari da, **totem** baten inguruan ariko balitz bezala. [Berria - Kultura](#)

2 irud/hed

Ohikoa den jazz **totem** baten aldarrikapenak kasu honetan Ella Fitzgerald eta Louis Armstrong ditu ardatz *Isn't this a lovely day?* apainean. [Berria - Kultura](#)

Posizio baten adierazgarri eta kulturari buruzko ikuspegi elitista baten **totem** bihurtu zaigu liburua. [Anjel Lertxundi](#)

3 (hitz elkartuetan)

Totem -makila bat zen masta, arranoak ziren hegazkina, eta pintura aztekez dekoraturik ageri ziren leihoak. [Irene Aldasoro](#)

totemiko *izond* totemarena, totemari dagokiona.

Jorge Oteizak esaten zuen gure animalia **totemikoa** zaldia zela, eta gure lehen hizkuntza irrintzia. [Patziku Perurena](#)

Nik uste, zaldi **totemikoaz** eta irrintzi arkaikoaz ahaztu, eta hizketan erakutsi behar geniokela geure bihotzari, eta nork bere argiz eta kuraiaz bere arima gidatzen ikasi.

[Patziku Perurena](#)

Behin begi urdineko otso zuriak oihan beltz eta basamortu biluzietan, otso abiaduran otsoturik, elurrez estali eremuak eta larraitza abandonatueta barna ibili nintzela agertu nien, neure molekula arteko izate **totemikoaren** bila. [Itxaro Borda](#)

totemismo *iz* totemean oinarrituriko sinesteen eta gizarte-egituren sistema.

Gehienek irudi zoomorfoa zuten ezaugarri, eta honek **totemismo** afrikarraren kutsu zaharra gorde lezake. [Patziku Perurena](#)

toto *iz* arrautza usteldua.

Solaz berezi elibat piztüz etxeko eta auzoen artean, ez ote zūanez Napoleonek bezala **totoa** errūnen Hitlerrek. [Herria](#)

totolo *izond* ergela.

Horren efetua hain segur parte segurik, halako partida **totolo** bat egin dute. [Herria](#)

totolotu, totolo(tu), totolotzen 1 da/du ad tontotu, ergeldu.

Ez zuen jadanik erakusten lehengo urduritasun edo desirarik, eta, noizbehinka, **totoloturik** aurkitzen zuten, aurpegian irribarre bitxi bat zuela. [Xabier Olarra](#)

2 (era burutua izenondo gisa)

Gerta liteke eskuez ero-etxeren bateko leihoko barroteak astintzen aritzea Noah Webster dela aldarrikatzen duen bitartean, ikusle **totolotu** sail baten libertimendu inozente bihurturik. [Xabier Olarra](#)

toton

1 *toton egin* leher egin; huts egin.

Azkenik, zaldi suharrak ibai erdian **toton** egiten badigu eta uhin bizkorrei begiratzen badiegu, abere geldiaren gorputzari indar batek daragoiola eta ibaiaz kontra arrastatzen duela dirudi. [Xabier Amuriza](#)

totxo 1 *iz* orri pilo lodia.

Costak eskuetan dauka proben **totxoa**, hartu du haztatzen ariko baillitza, are, esan ere egiten du, ulerkor, Lodia da. [Jon Alonso](#)

2 irud/hed

Txiskeroaren su txikian usain ederra zerion arren, hauts egitean bolatxoak eratzen zitzaizkion atzamarretan, eta beste askotan moduan pentsatu zuen nahiago zuela **totxoko** kostoia moroko puru hura baino. [Unai Iturriaga](#)

touareg ik tuareg.

tour

1 **tour operadore** enpresa turistikoa, talde bidaiak antolatu eta bidaiia-agentzia bati saltzen dizkiona.

Espainiarako turismoa sustatzen duten estatuetako **tour**-operadore, bidaiia agentzia eta enbaxada nagusiei. [Berria - Euskal Herria](#)

tour

1 **tour operadore** enpresa turistikoa, talde bidaiak antolatu eta bidaiia-agentzia bati saltzen dizkiona.

Espainiarako turismoa sustatzen duten estatuetako **tour**-operadore, bidaiia agentzia eta enbaxada nagusiei. [Berria - Euskal Herria](#)

tourettedun 1 *iz* Touretten sindromea duen eria.

Tik koordinatugabe konbultsiboetatik mugimendu ongi lotu eta koherentera pasatzea istant batean gerta liteke **tourettedunengan**, musika edo egintza erritmikoen eraginpean edo haietan murgildurik egonez gero. [Xabier Olarra](#)

Gauza birakariak erakartzen dituzte **tourettedunak**. [Xabier Olarra](#)

Prozac, izan, bedeinkazio bat izan da **tourettedun** askorentzat. [Xabier Olarra](#)

Tourettedun askok nahiago izaten dituzte txokoak, "segurtasun" tartea baitago handik besteenganaino. [Xabier Olarra](#)

Gehienetan, operatzen ari naizela, ez zait burutik pasatu ere egiten **touretteduna** naizela. [Xabier Olarra](#)

2 (izenondo gisa)

Hegazkina gidatzen dakien kirurgialari **tourettedun** bakarra naiz mundu osoan. [Xabier Olarra](#)

tourettiko 1 *izond* tourettismoari dagokiona.

Operazioak berriro bere martxa hartzen duenean, sindromea, nortasun **tourettikoa**, desagertu egiten da berriro. [Xabier Olarra](#)

Bat-batean begitandu zitzaidan bere ahots **tourettikoan** "Kaixo, mutilak" esan, eta han hasiko zela bie, sinkronikoki, simetrikoki, burua laztantzen. [Xabier Olarra](#)

Erakutsi behar hura, ordea, ez ote zen haren zehaztasun eta arreta-zaletasun **tourettikoak** eragina? [Xabier Olarra](#)

2 *ez-tourettiko izond*

Halakoetan, lanean ari den kirurgialari batena du identitate osoa, eta antolaketa psikiko eta neural osoa horren arabera moldatzen da haren baitan: eginkor, zentratu, eroso, ez-**tourettiko** bihurtzen da. [Xabier Olarra](#)

tourettismo 1 *iz* Touretten sindromea.

Horixe bera gertatzen zaie zenbait aktoreri ere; ezagutzen dut agertokitik kanpora tourettedun nabarmena den aktore bat, pertsonaia xelebreetan espezializatua, **tourettismoz** erabat libre gelditzen dena, erabat bere rolean sartu, eta aktore lanean aritzean. [Xabier Olarra](#)

2 Touretten sindromeak eragiten duen tika.

Lasaitasun horren adierazgarrietako bat, paradoxikoki, zera zen: libre sentitzen zela haien artean **tourettismoak** egiteko -hatz-muturrekin haiek emeki ukitu eta haiei txapaka egiteko edo, sofa batean beste batzuekin zegoela, bat-batean alde batera okertu eta oinetako behatzez lagunen sorbaldak ukitzeko-; jokabide bera atzeman dut beste zenbait tourettedunengan. [Xabier Olarra](#)

Bennett kontu handiz ibiltzen da **tourettismoekin**, gutxi ezagutzen duen jendea tartean bada, edo ezkutatu edo disimulatu egiten ditu, hobeto ezagutu arte. [Xabier Olarra](#)

toxa 1 *iz* tabako ontzia.

Ohea zegoen lekura zuzenean jo, eta **toxa** bat atera zuen haren azpitik. [Juan Garzia](#)

"Bai neskatxa xarmagarria! -esan zuen bere artean, **toxa** zabaldu eta sudurretik tabakoa hartuz-. [Jose Morales](#)

Aurkariak lasterrago adiskidetzeko aldera, Txitxikovek behin eta berriro eskaini zien guztiei bere **toxa** esmaltatu zilarrezkoa. [Jose Morales](#)

Puru erretzaile batek eduki behar dituen tresna sofistikuak -puru moztekoa, supizteko egokiak, larruzko **toxak** ...-. [Jon Alonso](#)

2 (hitz elkartuetan)

Kontsul ingelesak Buenos Aireseko lehengusuari erositako tabako-**toxa** zilarrezkoa. [Felipe Juaristi](#)

Nik zigarro-**toxa** eskaini nion, baina hark muzin egin zion. [Inazio Mujika Iraola](#)

3 *hed*

Loup-Y-Es-Tu etxeko hauts-**toxa** bat eta ADNaz indarturiko Gilda krema multzo bat, zelulak indarbertzeko eta makromolekulak birkonbinatzeko bizkortua, eman zizkidaten gainera. [Joxan Elozegi](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tabako toxa (3)

toxafeno *iz*

Toxafenoa: kotoi, ale, fruta eta barazki soroetan erabilitako pestizida. [Berria - Gaiak](#)

toxiinfekzio *iz* aldi bereko intoxikazio eta infekzioak eragindako prozesua.

Urak eta elikagaiak eragindako **toxiinfekzioak**. [Berria - Euskal Herria](#)

toxikagarri *izond* intoxikatzen duena.

Etxeko edozein tokitan ditugu produktu **toxikagarriak**. [Berria - Harian](#)

toxikapen *iz* intoxikazioa. • *irud/hed*

Izan ere, autore ospetsu horren hitzen **toxikapenaz** mintza daiteke, hitzak esanahiez inongo ardurarik gabe erabiltzen dituelako. [Berria - Harian](#)

toxikatu, toxika, toxikatzen 1 du ad intoxikatu, pozoitu.

16 lagun hil eta beste 2.500 inguru **toxikatu** dira Hyderabaden (Pakistango hego-ekialdean) kutsatutako ura edateagatik. [Berria - Gaiak](#)

Hainbat suhiltzaile eta guardia zibil aluminio fosfuroarekin **toxikatu** dira Tuteran. [Berria - Euskal Herria](#)

Bertan zen gizonezkoa kearengatik **toxikatu** zen, baina onik atera zen. [Berria - Euskal Herria](#)

Karbono monoxidoak **toxikatuta** hil zirela. [Berria - Euskal Herria](#)

Aireak ez du mozkortzen, gizentzen, **toxikatzen**, pozoitzen. [Edorta Agirre](#)

2 informazio faltsua edo alderdikoia hedatu, norbaiten iritzia edo jarrera aldatzeko.

Iritzi publikoa **toxikatu**. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

toxikatze iz intoxikazioa, pozoitzea.

Balentin Alzinak, Nafarroako Unibertsitate Ospitalean Pediatria Saileko espezialistak dioenez, udan gehiago gertatzen dira umeen errikoak, itotzeak, **toxikatzeak** eta eredurak. [Berria - Harian](#)

toxikazio (24 agerraldi, 2 liburu eta 15 artikulutan) 1 iz intoxikazioa, pozoitzea.

Sanferminetan hogeit **toxikazio** izan ziren. [Berria - Euskal Herria](#)

Toxikazioa izan ote zitekeen edo ez, azken hilabeteetan horrek sortu ditu eztabaida handienak sendagileen artean. [Berria - Mundua](#)

Gas horrek sortutako **toxikazioaren** ondorioz zendu ziren, Jaurilaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez. [Berria - Euskal Herria](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Legez kanpoko ostalaritza izan zitekeen **toxikazio** kasuen eragilea. [Berria - Euskal Herria](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Agian, bidezkoagoa litzateke esatea gripeak jota zeundela edota ptomaina-**toxikazio** baten kutsadurapean. [Mirentxu Larrañaga](#)

Gaixoa dioxina **toxikazio** baten ondorioz hil izan balitz, nire ustez ia ezinezkoa izango zatekeen inork pentsatzea dioxina izan zela heriotzaren arrazoa. [Berria - Mundua](#)

Kokaina **toxikazio** larriak eragindako garuneko edema. [Berria - Kirola](#)

4 informazio faltsua hedatzea.

Espainiako agintariak ohikoa duten nahasketa eta **toxikazioa** eragiteko jokabidearen baitan kokatzeaz gain, indar polizialen jarrera arduragabea zuzitzeko baliagarri ere izan daitezke. [Berria - Harian](#)

Ametzak taldeak Udaleko auzian izandako «**toxikazioa**» gaitzetsi du. herenegun egunkari batean agertutako informazioa «**toxikaziotzat**» jo zuten abokatuek. [Berria - Euskal Herria](#)

5 (hitz elkartuetan)

Informazioaren ugaltze izugarria manipulazioen hazkunde esponentzial bilakatu da, eta hedabideen bidezko **toxikazio** kanpaina ere bai sarriegi. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

M-11ko batzordeko PSOEren bozeramaile Alvaro Cuestak PPrean «**toxikazio**» estrategiatzat jo zuen atzo gertatutakoa. [Berria - Euskal Herria](#)

toxiko 1 izond pozoitsua.

Amaiera eman behar zaie substantzia **toxiko** eta beste materia batzuen isurketari. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Oraindik gai **toxiko** asko dago pilatuta inguruan, eta edateko ura ere kutsatua dago. [Berria - Gaiak](#)

Metanol gai **toxikoa** zeraman tren batek su hartu du Baionako portuan. [Berria - Euskal Herria](#)

Diesel motor batek baino gas **toxiko** gehiago botatzen du erretzaileak. [Berria - Gaiak](#)

Tarragonako enpresak 300.000 tona hondakin **toxiko** isuri dituela egiaztatu du Generalitateak. [Berria - Gaiak](#)

1984an Bhopalgo (India) lantegi batek isuri **toxiko** bat izan zuen, eta milaka pertsona hil ziren. [Berria - Gaiak](#)

Bhopaldarrek beraiek kalkulatu dute orubean 25.000 tona zabor **toxiko** gelditzen dela. [Berria - Gaiak](#)

Uraniozko partikula **toxikoak** 4.500 milioi urtez bizi dira. [Berria - Mundua](#)

Alzheimerra eragiten duten plaketa **toxiko** amiloideak suntsitzen dituen tratamendu berri bat aurkeztu zuten atzo, Kaliforniako Unibertsitatean. [Berria - Gaiak](#)

Sutearen ondorioz [...] laino **toxiko** bat sortu zen inguruan. [Berria - Euskal Herria](#)

Gaitzeko ke **toxikoak** auzo gune guzira estali balu bezala. [Herria](#)

Ez dago dioxinen eta furanoen maila **toxiko** minimorik gizakiarentzat kaltegarri ez denik. [Berria - Euskal Herria](#)

Ez ditu osagai horiek degradatzen, zeluletako hormetatik iragazi eta haien eragin **toxikoa** murriztu baizik. [Berria - Gaiak](#)

Adituentzat gauza jakina da jariakin (latinez *secretio*) guztiak kaltegarri edo **toxiko** direla. [Juan Garzia](#)

Toxikoak ez diren molekula ekoiztuz. [Berria - Euskal Herria](#)

Substantzia horietariko asko oso **toxikoak** dira. [Irene Aldasoro](#)

• 2 iz gai pozoitsua. ik pozo.

Ondorioz, bertako gatza eta gizakiak isuritako **toxikoak** agerian geratu dira. [Berria - Gaiak](#)

Horrez gain, **toxikoak** hartu baditu, REM fasea eraldatu egiten da eta ikasteko ahalmena gutxitzen da. [Berria - Gaiak](#)

Arazo nagusia **toxikoak** aireeratzen jarraitzea da. [Berria - Euskal Herria](#)

Munduko 12 **toxiko** kutsatzaileenak. [Berria - Euskal Herria](#)

Irakak [...] **toxiko** bihur dezake ogia. [Askoren artean](#)

Toxikoen Sare Nazionalako Australiako ordezkariak. [Berria - Gaiak](#)

3 (hitz elkartuetan)

1996an musika idazteari uztea erabaki nuen, eta gaixotasun bat bailitzan hortik irteteko **toxiko**-mendetasun batetik ateratzea bezalako zer edo zer izan zen. [Berria - Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gai **toxiko** (12); **hondakin toxiko** (5); **produktu toxiko** (4)

gai **toxikoa** (5); **gas toxikoa** (4); **oso toxikoa** (4)

gai **toxikoak** (26); **gai toxikoak isurtzen** (5); **hondakin toxikoak** (8); **oso toxikoak** (4); **partikula toxikoak** (3); **substantzia toxikoak** (6)

gai **toxikoek** (6)

gai **toxikoen** (8)

toxikodun *izlag* toxikoko.

«Osagai **toxikodun** produktuen» zerrenda jarri du Espainiako Greenpeacek bere web orrian. Berria - Gaiak

toxikologia 1 *iz* medikuntzaren adarra, gai toxikoez aritzen dena.

Medikuntzan adituak direnei zuzenduta dago sinposioa, kutsadura gaietan, errauste plantetan, ekologian, pediatrian eta **toxikologian** adituak izango baitira bertan. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, orobat**toxikologi**) ik **toxikologiko**.

Hagako auzitegiak autopsia eta **toxikologi** azterketa egiteko eskatu zuen. Berria - Harian

Milosevicen heriotza ez zuela pozoiak eragin diote **toxikologia** azterketek. Berria - Mundua

Inkestaren barnean alkoholemia eta **toxikologia** analisiak egin dituzte, baina atzo ez zuten analisi horren emaitzarik eman. Berria - Euskal Herria

Eduard Rodriguez-Farre Europako Batasuneko Osasun Gaietako Batzorde Zientifikoko kidea eta **toxikologia** gaietan aditua da. Berria - Euskal Herria

Alfred Bernard Lovainako Unibertsitateko **Toxikologia** saileko irakasleak. Berria - Gaiak

Brettania Walker WWF erakundearen menpeko **Toxikologia** Buleko arduradunak. Berria - Gaiak

Hori **Toxikologia** Zerbitzu Nazionalak kaleratu duen txostenak erakutsi du. Berria - Harian

Istanbulgo **Toxikologia** Institutuak herenegun jakinarazi zuenez, 22 militarren gorpuk gaizki identifikatu dituzte. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espainiako toxikologia institutuak (4); **toxikologia institutuak** (6)

toxikologiko *izond* toxikologiarena, toxikologiari dagokiona. ik **toxikologia 2**.

Pantaniñi egindako autopsiaren azterketa **toxikologiko** eta histologikoetan, forenseak Pantaniñ «bere buruaz beste egin izanaren elementurik» ez dela agertu dio. Berria - Kirola

Analisi **toxikologikoek** ez dute pozoitze zantzu bakar bat ere agerian ezarri. Berria - Mundua

Arau **toxikologikoek** pertsona nagusiak soilik hartzen dituzte kontutan. Berria - Euskal Herria

toxikologo *iz* toxikologian aditua den pertsona.

Toxikologo batek duela bi aste eginiko analisisetan tuberkulosia tratatzeko botika baten arrastoak aurkitu zituen. Berria - Mundua

toxikomania *iz* drogekiko mendekotasun patologikoa.

Gure eskualdean, **toxikomania**, HIESA, setsualitate problemak, depresioak, suizidioak, alkohola, tabako eta drogen erabilpena kezagarriak baitziren, indarrak egitea erabaki zuten, jadanik diren elkarrekin lana emendatuz. Berria - Herria

toxikomano *iz* toxikomaniak joa dagoen pertsona.

Ez, ni **toxikomanoa** naiz, oraintxe utzi diot zaldiari. Xabier Mendiguren Elizegi

Toxikomanoak bergizarteratzeko zentro batean. Aingeru Epaltza

Orain, gaua lagun **toxikomanoekin** terrazan igaro beharrean, etxetik urrun egoten zen, eta horrek oroitzapen ezin garrantzagoak ekartzen zizkion emakumeari eta, horrekin batera, sufrimendua atzera. Patxi Zubizarreta

Don Tirso hark ez zeukan **toxikomanoekin** ibiltzen ziren apaizen antzik: lege zaharreko apaiza zen hura. Xabier Mendiguren Elizegi

toxikotasun *iz* toxikoa izateko nolakotsuna. ik **toxizitate**.

Barbiturikoak **toxikotasun** gutxiagoko substantzia bihurtzen dira, baina berun tetraetiloa (gasolinak eduki ohi duena) eta paration intsektizida, berez toxikoak ez izanagatik, oso konposatu pozoitsu bihurtzen dira gibelego entzimen eraginez. Irene Aldasoro

Toxikotasun izugarria sor dezakete kutsatzaile horiek, eta geneetan alferazioak eragiten dituzte. Berria - Euskal Herria

toxina *iz* organismo biziek, bereziki mikrobio eta bakterioek, sorturiko gai toxikoa.

Beste pozoiz batzuek, hala nola zianuroa, arsenikoa eta eritasun infektzioek sorturiko **toxinak**, modu konplikatuagoan funtzionatzen dute. Irene Aldasoro

Artean ez genekien I. jaunari garuneko lesioa zerk eragin zion, karbono monoxidoak edo antzeko **toxinaren** batek. Xabier Olarra

Buru-jariakinean **toxinak** drainatzen badira, Alzheimerren ondorioak egonkortu egiten direla esan du AEBetako zientzialari talde batek. Berria - Gaiak

Barrua garbitzen du, diuretikoak da, izerditzen eta **toxinak** botatzen laguntzen du. Pello Zabala

toxizitate *iz* toxikotasuna.

Ibaiaren **toxizitatea** zela eta, Barakaldoko Udalak ibaiaren ondoan bizi zirenak etxez aldatzera behartu zituen. Berria - Euskal Herria

toxoplasmosi (*corpusean toxoplasmosi soilik*) *iz* *Toxoplasma gondii* protozooak eraginiko eritasuna, gizakiari eta zenbait animalari erasotzen diena.

Eta **toxoplasmosiak** beso bat paralizatu zion. Joan Mari Irigoien

traba 1 *iz* oztopoa, eragozpena. (gauza fisikoak egina)

Bazekien gurdia zaldi errusiarek ez dutela ezer saihesten bidean, ez harriak, ez gurpil arrasto sakonak, ez basatzak, ez zuhaitz eroriak, ez zuloak; **traba** guztien gainetik igarotzen dira arrapaladan. Karlos Zabala

Azkenik, burdinbidetik **trabak** kendu eta abian jarri zen trena berriz ere. Karlos Zabala

Zuzen-zuzen zerura igotzen ikusi zuen, inolako **traba** edo eragozpenik gabe. Askoren artean

Bideetako zinketerri, harri puska eta **traba** guzian kentzen aritu behar zuten. Eneko Bidegain

Denboraren poderioz, eta hiria handitzen joan den heinean trenbidea **traba** bilakatu da. Berria - Harian

Arterian zuten **traba** konponduta, New Yorken ari da osatzen kantaria. Berria - Kultura

Harri-koskor horiek, inolako **trabarik** gabe, askatu ahala brontzezko ontzian eroriko dira eta hotsarekin emango digute abisua. Santiago Iruretagoiena

Horrek esan nahi du entzulearen belarriak jasotzen duen hotsa **traba** batek sortua dela: hitzunak biriketatik kanporatu duen aireari, ahots-bidean, ebakera-organoez egindako **trabak**. Lourdes Oñederra

Trabaz traba laster egiten zuten. Itxaro Borda

2 (bestelakoak egina)

Makina ez da bizi, ez du, beraz, ez beldurrik, ez itxaropenik, halakoak **traba** besterik ez baitira, eta inolako nahikunderik ere ez. Joxe Austin Arrieta

Duda ez da **traba**, atea baizik. Piarres Aintziart

Hainbeste pena, **traba** eta kezka, bat-batean burutik beheiti, gehiegi zitzaizkidan. Daniel Landart

Haietako askorentzat euskara **traba** izan da, eta **traba** da. Pello Salaburu

Hasten da hizketan [...] eta ohartzen zara zeu bezalako tipoak **traba** direla Lehendakariarentzat. Hasier Etxeberria

Bista ordukotz doi bat histua zuten, **trabak** zituen irakurtzean. Herria

Trabak jartzen dizkio merkataritari, baina merkataritzaren mesedetan. Iñaki Iñurrieta

Nazioarteko finantzen mekanismoei **trabak** jartzea da asmoa. Koro Navarro

Emaitzak ikusi baino lehen **trabak** ipintzen hasten gara. Ana Urkiza

Traba eta erresistentzia guztietatik libratu, eta azken ekintza erabakigarri batekin gauzatu zuten bere desioa. Bernardo Atxaga

Legeak ezarritako **trabak** gainditzeko. Eduarne Elizondo

Amodioak, aski barnetikakoa denean, ez ote ditu haatik muga guziak hausten ahal eta **traba** guziak gainditzen? Janbattitt Dirassar

Betiereko bizira heltzeko **trabak** baztertzeke. Piarres Xarriton

Komunikazioa *Tour* birak hainbat eta hainbat **trabari** egin behar izan die aurre. Berria - Kultura

Bazekien, behin ezkontuta, ez zuela Venezuela aldera joateko hainbeste **traba** izango. Xabier Etxabe

Zailtasun eta **traba** guztiak gainditzen erakutsi duen maisutasuna. Patxi Altuna

Ordutegi alua nuela, bistan da, baita halako beharkizun batzuk ere semearekin, baina horiek guztiak ez zirela **traba** gure artekoan. Aingeru Epaltza

Miarrizeko ikastolak egina du bide, haste hartan nekez abiatu, denbora batez **traba** asko ere kausiturik. Herria

Traba, batzuetan, eguneroko bizimodurako nik neuk ipinitako lehenasunen zerranda izaten da. Ana Urkiza

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez baitago erabateko hersketa edo etena baino **traba** handiagorik. Xabier Amuriza

Ez zuten **traba** handirik izan erromerietan ikasitako piezei tokian tokiko pieza berriak eransteke. Xabier Etxabe

Indian ingelesez jakinez gero, batetik bestera **traba** handirik gabe ibiliko zara. Gotzon Garate

Legea dute **traba** nagusi. Berria - Ekonomia

Euskal-Herri osoari buruzko historiaren saileko gauzak ikertu nahi direlarik **traba** bereziak badirela nahitez. Herria

Traba gogorrek jarri zizkieten kanpoko harremanetarako. Xabier Olarra

Traba arkitektoniko ugari dago Santa Lucian, «auzoa aldapaz eta eskaileraz josita baitago». Berria - Euskal Herria

Horri kontratuak betetzeko dituzten zailtasunak eta **traba** burokratikoak gehitu behar zaizkio. Berria - Gaiak

Traba administratiboei buru egin behar. Berria - Euskal Herria

Ezkerreko diskurtsoa entzuten dudanean, elkorra, fosildua, topikoz betea [...] iruditzen zait sarritan, **traba** intelektual bat sentitzen dut neure egiteko. Xabier Mendiguren

Haiekin beti izango zuten, nahi eta nahi ez, **traba** gaindiezina harreman normal bat sortzeko, bera herriko jauntxoaren seme baitzen, eta besteak aitaren langile. Xabier Mendiguren

Soilik hamar lekoak bereizten gaituzte, eta bitarte gaindierraz hori soil-soilik niretzat da ezin gaindituzko **traba** bihurtu! Jon Muñoz

Geroari buruz bagintuela uste-gabeko **traba** eta buru-haustekak. Herria

4 (hitz elkartuetan)

Bien arteko elkarrizketa kalitate handikoa zen bakoitzak erakutsiz zeri buruz ari zen, zer **traba** motak zituen. Herria

· Israelgo Armadaren indarrezko ekitaldi bat edonoiz gerta daiteke, kilometro bat edo bi bakarrik egiteko bide **traba** eta kontrolak daude eta ez dakizu zenbat denbora egonen zaren. Berria - Mundua

Oviedoko espetxean egona, gero Carabanchelera eramana, handik etorri zen bere mingain **traba** eta guzti. Pako Aristi

5 *traban adlag* traba egiten.

Emakumea, ordea, zoru-garbigailua arma eginda, erdian ezarria zen, **traban**, bere tar-tar ezin isilduaz erasotzen zidala. Aingeru Epaltza

Burdin hesi bat baino gehiago jarri zitzaizen **traban**, eta sopleteari esker zabaldu zuten bidea. Rafa Egiguren

Alabak atean **traban** jarrira azaldu zidanez. Xabier Mendiguren

Erabaki du **traban** dauden arbola eta sastrakak garbitzea. Berria - Euskal Herria

Batzuetan urrutitik sentitzen da norbera dagoela **traban**. Hasier Etxeberria

Bost belaun pare ditu **traban** ("barka, barka... barka"), begirada suminduak, marmar haserreak, pasabidera iritsi, atetik irten eta gau haizetsu ilargirik gabera aterate arte. Oskar Arana

6 *traba* egin

Traba egiten dizu pistolak gerrian, bere lekuan egokitzen saiatu zara disimuluz. Rafa Egiguren

Traba egiten zidaten jantziak kentzen hasi nintzen ahal nuen bezala. Juan Martín Elexpuru

Makurtuta zegoen udaltzainak besoa goratu zuten **traba egiten** zien andra baztertzeke. Berria - Euskal Herria

Entzuna neukan argiak **traba egiten** ziola, eta horregatik bere etxean pertsianak beti itxita egoten omen zirela. Jon Muñoz

Zein neurritan, bestalde, ez ote dion **traba egiten** zaharrak berriari, hau hazten ari delarik. Iñaki Iñurrieta

la agurtu ere ez gintuen egin; **traba egiten** genion. Joxe Austin Arrieta

Zerbaitek merkataritari **traba egiteak** ez du esan nahi baitezpada merkataritzari **traba egiten** dionik. Iñaki Iñurrieta

Izan nintzenak **traba egiten** zioan nintzenari. Xabier Montoia

Bazirudien elkarri **traba egitea** eta elkar jotzea zela bi haien patua. Koro Navarro

Ez nizuke **traba** egin nahi nire gogoez hitz eginez. Josu Zabaleta

Milioika pertsona telefonoa hartu eta denak aldi berean deika ari direla, makina batek eramango ditu dei horiek hari batetik edo bestetik elkarren artean gurutzatu gabe eta inori **traba** egin gabe. Pello Salaburu

Niri ez dit batere **traba egiten** gure eta UMPren botoak hautestontzietan uztartzeak. Berria - Mundua

-Noiz arte **egingo** diozu **traba** dama honi? Matías Múgica

· Soinua jotzeko eskuak libre behar ditu, eta besaulkiak **traba** handiegia **egiten** dio. Xabier Etxabe

-Ez dizuet **traba** gehiagorik **egingo**. Koro Navarro

Elkarri ahalik eta **traba** gutien **egitera** saiatzen ginelako. Aingeru Epaltza

Ez diat emakumeen beharrik, **traba** gehiegi **egingo** lidaketek. Karlos Zabala

Lagundu beharrean **traba** baino ez ziguk **egiten** . Patxi Iturritegi

Hara itzultzen ahalko zen trankil-trankil, inork **trabarik** egin gabe. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elkarri traba eginez (3)

traba arkitektonikoak (3); **traba bihurtu** (5); **traba bihurtzen** (3)

traba egin (25); **traba eginen** (4); **traba eginez** (3); **traba egingo** (9); **traba egingo zion** (3); **traba egitea** (3); **traba egiteko** (4); **traba egiten** (87); **traba egiten zion** (7); **traba eta kezka** (3); **traba frango** (6); **traba gainditu** (5); **traba gertatzen** (3); **traba guzieren gainetik** (3); **traba guztiak gainditu** (4); **traba handia** (7); **traba handiagorik** (3); **traba handiak** (15); **traba handirik** (8)

traba izan (12); **traba izanen** (3); **traba izango** (8); **traba izaten** (3); **traba jarri** (4); **traba jartzen** (3); **traba nagusi** (3); **traba nagusia** (3)

traba ugari (10)

trabak traba (3); **zerbaitek traba egiten** (3); **zernahi traba** (6)

egiteko trabak (3); **jarritako trabak** (6); **jartzen zaizkien trabak** (3); **nolako trabak** (3); **sartzeko trabak** (3)

; **trabak aurkitu** (3); **trabak besterik ez** (6); **trabak eta oztopoak** (3); **trabak gainditu** (5); **trabak gaindituz** (3); **trabak gainditzeko** (5); **trabak gainditzen** (4); **trabak ipintzen** (3); **trabak izan** (6); **trabak izanen** (3); **trabak jarri** (12); **trabak jarriko** (4); **trabak jartzea** (7); **trabak jartzen** (26); **trabak jartzen dizkioten** (3); **trabak salatu** (6); **trabak salatu zituen** (3); **trabak traba** (3); **trabak trabatei** (6)

batere trabarik gabe (3); **beste trabarik** (4); **inolako trabarik** (35); **inolako trabarik ez** (4); **inolako trabarik gabe** (13); **inolako trabarik jarri** (4); **inongo trabarik** (3); **trabarik egin gabe** (12); **trabarik gabe** (61); **trabarik gabea** (3); **trabarik gabeko** (6); **trabarik handiena** (8); **trabarik jarri gabe** (3)

trabadun *izlag* traba duena, trabak dituena.

1500 metroko eragozpen eta **trabadun** laster-saioa. Pello Zabala

trabagabe *izond* trabarik gabea. • (adizlagun gisa)

Rubertentzat, hala ere, Estatua ez da gauza eterno bat, ez du inolaz ere Abrahamen parabola exijitzen, une historiko bateko joeren konbergentzia **trabagabe** jariatzen dena besterik ez da. Joseba Zulaika

trabagarri 1 *izond* traba egiten duena.

Etxe-giroan sentitzen da han eta olgatu egiten da, jostailu **trabagarrien** erdeinuan, bere irudimenaren kolkora. Itziar Otegi

-Negu hotza dugu aurten, e? -agur gisa, zerbait esateagatik, **trabagarri** izaten baitzitzaion dirua eskatzea. Iñaki Zabaleta

Han loturik, baziren pinazaren moldeko ontzi bi, gure maniobraren **trabagarri** . Edorta Jimenez

Jende askori interesgarria gerta dakiokenez, hitzez hitz kopiatuko dut agiria egunkari horretatik, baina, **trabagarriak** gertatzen zaizkidanez, garai hartako idazkerako "erre" tiletunak aldatuta. Ramon Saizarbitoria

Haien begietan ni peoi ziztrin bat baizik ez nintzen, pieza ttipia, anizteta **trabagarri** gertatzen den pieza ezdeusa. Alberto Ladron Arana

Gaia: Euskal kultura, **trabagarri** ala aberasgarri? Herria

2 (izen gisa)

Temperatura igotzen ari zen, **trabagarri** izerditsua bilakatzeraino jaka mehe kirastuna. Aingeru Epaltza

Nigan adiskidea edo laguna ikusteko, eta ez lehiakide **trabagarri** berri bat mahaian nahiz ganberan. Aingeru Epaltza

Nola errespetarazi Lan Kodea, ohar **trabagarri** bat egin eta kanporatzeko arriskuan zarelarik? Berria - Harian

trabailarazi, trabailaraz, trabailarazten du *ad* lan eginarazi.

Oroitu nintzen etiopeen artean erraten dela ziminoak berariaz ez direla mintzatzen, gizonek **trabailaraz** ez diezaieten, eta goganbehar edo beldurrari egotzi nion Argos-en isiltasuna. Juan Garzia

trabailari *iz* langilea.

Trabailariek lanean hilabete zerratela, tupustean etorri zen aita Bartolome Iruñatik. Joan Mari Irigoien

Untzi batean orotarik behar da... zeren eta behar baitira **trabailariak** , beren esku-besoez trabailatzen direnak [...] eta behar dira, orobat, buruaz trabailatzen direnak. Joan Mari Irigoien

Galdetu nion **trabailari** -buruari ea zertarako ari ziren txabola hura egiten, Joan Mari Irigoien

trabailatu, trabailla, trabailatzen da *ad* lan egin.

Zeren eta behar baitira trabailariak, beren esku-besoez **trabailatzen** direnak, zamen batetik bertzerat eramaiteko edo ezpataz behar bezala balitatzeko, eta behar dira, orobat, buruaz **trabailatzen** direnak. Joan Mari Irigoien

Neure bizitzako historiarekin hasi baino lehen, jakin nahi nuke nor zareten zuek eta noiztatu **trabailatzen** zareten. Joan Mari Irigoien

trabailu *iz* lana.

Baina ez dut egun bisitatuko Sahagún; berantegi da eta egungo **trabailuek** eztitua naute. Piarres Aintziart

Halaxe bildu ahal izan dut, hitzez hitz, neure **trabailuaren** ondoko uztza. Joan Mari Irigoien

Estefaniak ere **trabailu** xumeren bat baizik ez zigun noizbehinka manatzen. Aingeru Epaltza

Horrela, hamaika pena eta **trabailuren** artean, Urbiaindik alde egin behar izan genian, desterrurat. Joan Mari Irigoien

Ez dizut kontatuko zenbat neke eta **trabailu** , eta zenbat pena eta sufrimendu pairatu behar izan genuen. Joan Mari Irigoien

Trabailua ongi eginez gero eskatuko ditugu guk ere eskatu beharrekoak. Joan Mari Irigoien

Ene **trabailuak** , errana dut, Tebasko jardinetatik hasi ziren. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

neke eta trabailu (3)

trabaño iz trabatxoa.

Christian Sauv  "berdeak" ustegabeko **trabaño** bat kausitu du bere lixta osatua zuelarik. **Herria**

Ezkerraldean, sozialistak jarraitzen zaizkio segur Jospin-i bainan komunixtak eta "berdeak" frango uzkur daude, eta hori **trabaño** bat gehiago izanki gobernuburuarentzat. **Herria**

trabarazi, trabaraz, trabarazten du ad trabatzera behartu.

Gainezka egiten zion alkoholak, hitzak **trabarazi** eta totelka esatea eragiten zion. **Patxi Zubizarreta**

Barre-algarek hitzak **trabarazten** zizkioten. **Mirentxu Larrañaga**

trabari izond/iz fonetika-fonologian, ahotsaren igarobideari traba jartzen diona.

Afrikatuak hots **trabariak** dira. **Lourdes Oñederra**

Kontsonante **trabari** ahostunek ere eskaintzen dute zarata eta hots konbinaketa interesgarria. **Lourdes Oñederra**

Hots herskariak dira **trabaririk trabarienak**, ez baitago erabateko hersketa edo etena baino traba handiagorik. **Lourdes Oñederra**

Ezin ahaztu dugu **trabariak** funtsean eta berez ahoskabe direla. **Lourdes Oñederra**

Euskal **trabarien** artean, herskarietan bakarrik aurkitzen da ahostunen eta ahoskabeen arteko aurkakotasuna eta, betiere, bokal aurrean. **Lourdes Oñederra**

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trabari ahoskabeak (3); **trabari ahostunak** (5)

trabaritasun iz trabarria izateko nolakotasuna.

Halaber sumatzen du haurrak nola mugimendu horietako batzuk hobeto datozen, beste zenbaitekin batera, beste batzuk baino (esaterako, bokaltasuna ahokaritasunarekin, **trabaritasuna** ahoskabetasunarekin, sudurkaritasuna ahostuntasunarekin, etab.). **Lourdes Oñederra**

trabategi (orobat trabatei)

1 trabak trabategi ipar trabak gorabehera.

Trabak trabatei, duela 30 urte sortu erakundeak nahi du haatik aintzina segitu ildo beretik. **Herria**

Ikasi duguna, **trabak trabategi** alkartasunez aintzinatu behar dugula bai eta zuzentasun eta bakebidez. **Herria**

Trabak trabatei, Euskal-Herriak aintzinerat egin behar duela! **Herria**

Aintzina behar dela segitu bixtan da, **trabak trabatei**. **Herria**

trabatei ik trabategi.

trabatsu izond trabaz betea.

Izkribatzaile trebatu gabe baten lana zen nabarmen: erretorikoa, erdizka zintzoa, digresioz eta laudorio neurrigabez betea, hungigarria, pedantea eta **trabatsua**: ez zen, ez, erraza ezain epai-iritzi laburbidezko eta global ematea hartaz. **Juan Garzia**

Hiruren arteko lan hori (hots, anhidrido karbonikoaren, argiaren eta landare-berdearen artekoa) ez da gaurdaino modu behin betikoan deskribatu, ez eta oraindik denbora luzean deskribatuko ere apika, hain baita desberdina kontua gizonaren obra **trabatsu**, mantso eta astuna den beste kimika "organiko" horretatik. **Juan Garzia**

trabatu, traba(tu), trabatzen 1 da ad aurrera ez atzera ezin eginik gelditu. (gauza fisikoak)

Bizkor zabaltzen du ildoak goldeak orain, zokil artean **trabatuta** geratzen da gero. **Imanol Zurutuza**

Ibilgailua zuloren batean **trabatua** zegoela irudi zuen. **Karlos Zabala**

Kontu egin nuen ezen mihia ahoan **trabaturik** zuela [anaiak]; eta, hala, mihia bere tokian paratzen niola, bere onerat etorri zen. **Joan Mari Irigoien**

Bazirudien zerbait geratua zitzaiola urdailean **trabatuta**. **Pello Lizarralde**

Eroa bezala noa, oinak **trabatu** egiten zaizkit, erorika noa. **Bernardo Atxaga**

Hunkitirik eskertu zituen Napumoceno jaunak Sousa doktoarearen hitzak, ahotsa eztarrian **trabaturik** [...] kopa eskuan dardarka. **Bego Montorio**

Oina alfonbran **trabatu** eta hankaz gora erori zen. **Iñaki Zabaleta**

-Nola... Nola... ukan duzue argazki hori? -hatsa guztiz **trabatua** zuen. **Ramuntxo Etxeberri**

Lanak eduki zituzten lema askatzeko, kate-kandatu batekin zegoen **trabatua**. **Koldo Izagirre**

Ehiza hegazkin hark, ordea, bere metrailadoreak **trabatu** zitzaizkiolarik, bira egin zuen. **Josu Zabaleta**

Nire hartan gelditu nintzen, zepo batean **trabatua** iduri. **Aingeru Epaltza**

Sasian **trabatua**, lokatzak erdi estalia, herdoil arrastoz, sekula ikusi gabea genuen kaio erraldoiren batek errun arrautza. *Je vous remercie infiniment, monsieur... monsieur...*, eta hor **trabatu** zen gizajoa ez atzera ez aurrera. **Koldo Izagirre**

2 (bestelakoetan)

-Esaldi batean **trabatuta** nengoan -jarraitu du gizonak-, lerro berean aurrera eta atzera, hurrengora igaro ezinik. **Imanol Zurutuza**

Eztabaida luzeetan **trabatuta**, behin baino gehiagotan sortu ziren istiluak tentsioaren ondorioz. **Rafa Egiguren**

Alferrikako zeinuak biderkatzeko beldurrak **trabaturik** nengoan. **Juan Garzia**

Ikasturtea osorik amaitu nuen eta ahoko azterketak gaititu ere bai, baina **trabatuta** geratu nintzen ikerlanarekin. **Trabatu** egiten baitzitzaizkion haien lanen irudi desitxuratua lehendik ezagunak zituen irudi jatorrekin. **Oskar Arana**

Hitza bidean **trabatu** zitzaion. **Aingeru Epaltza**

Maltzurra bere gaiztakerietan **trabatua** dago, bere bekatuaren sarean harrapatua. **Elizen arteko biblia**

Aita-amen ezkon-porrotaren ondorioz zurzatasunaren sareetan **trabaturiko** gure seme errukarri eta erugabearenganako. **Aingeru Epaltza**

Amorrua eztarrian **trabatu** zitzaidan. **Juan Martin Elexpuru**

Braust eseri nintzen ohean negarraldi eder bat egiteko asmoarekin, zintzurrean **trabatua** izan bainuen hamaika aldiz negargura. **Fernando Rey**

Une batez amets txar batean **trabatuta** bailegoen iruditu zitzaion bezperan emandako pauso berberak errepikatzean. **Joxemari Iturralde**

Berdinketan **trabaturiko** xake-joko odoltsu eta azkengabe baina hala ere urrun bat. **Juan Garzia**

3 (du aditz gisa)

Harriak gurrpila **trabatu** du, eta gurdia gelditu egin da. [Koldo Izagirre](#)

Gurdien gurrpila **trabatu** zituen, nekez mugitzen zirela utziz. [Elizen arteko biblia](#)

Norbait jausi zitzaidan gainera, eta guztiz **trabatu** ninduen. [Jokin Urain](#)

Zure presentziak **trabatu** egiten ditu. [Joxan Elozegi](#)

Egia erran, ez naute **trabatu**. [Herria](#)

Amak atea **trabatu** zion. [Karlos Zabala](#)

4 du *ad* traba jarri, traba egin.

10.000 manifestari eta 550 nekazari traktoreekin bidea **trabatzen** saiatu ziren. [Berria - Gaiak](#)

Donostian, Bulebarreko errepidea **trabatu** zuten hainbat lagunek, alde batetik bestera pankarta bat jarrita eta zaborrontziak errepidean gurutzatuta. [Berria - Harian](#)

Kamioi bakar batek autopista **traba** dezakeela azpimarratu zien. [Berria - Euskal Herria](#)

Hornitzeko bideak **trabatu** dizkie izozmendiak McMurdo badiaren inguruan dauden hiru ikerketa estazioei. [Berria - Gaiak](#)

Bidea **trabatu** zidan hirugarren batek. [Koldo Izagirre](#)

Ez zen uste izatekoa setiatzaileek ibai **trabatua** izango zutela Irkusketik gora. [Karlos Zabala](#)

Ezaugarri zehaztugabeko gorputz batek argi mehearen bidea **trabatu** zuen, gelako ate erdi irekitik. [Aingeru Epaltza](#)

Pannekau alde huntan bide handia **trabatua** egona da bi astez. [Herria](#)

5 (gauza abstraktuekin) ik eragotzi.

Ez ote duen horrek eragotzi edo **trabatu** behar buldaren berritzea. [Piarres Xarriton](#)

Pilulak **trabatu** egiten du ernalketa, bai espermatozoideen lana zailagoa eginez, bai ernalketa prozesua eraldatuz. [Luis Elberdin](#)

Ultrasoinuek erresonantzia magnetikoaren irudikapena **trabatu** egiten dute maiz. [Berria - Gaiak](#)

Hazkundera **trabatzea** leporatu die Medefek Frantziako politikariei. [Berria - Ekonomia](#)

Begiak eta beharriak ernealdi oro, nehork ez dizu zure egitekoa **trabatuko**. [Filipe Bidart](#)

«Prozesua **trabatzea**» egotzi dio Aralarrek Sanzi. [Berria - Euskal Herria](#)

Inputazioek baketzea **trabatzen** dutela dio Jaurilaritzak. [Berria - Euskal Herria](#)

Londresko nazioarteko konferentziak erretiratze plana **traba** dezakeela ohartarazi zuen atzo Israelgo lehen ministroordeak. [Berria - Mundua](#)

16 bat urtez zerbitzatu ditut, Jainkoari esker, halako leialtasunarekin, artarekin, lehiarekin eta karrarekin, non nehongo gaitzak, ez beste egiteko bihi batek, ez nauela **trabatu** bermatzen ahal baitute denek non gain ginetik bereizten binaute. [Piarres Xarriton](#)

6 du *ad* zerbaiten zatiak, osotasunari sendotasuna emateko moduan lotu.

Zimenduak ere hormaren zabalarekin egin behar dira; paretak, horrela **trabatuta** egiten badira ez baitira berehala hondatuko. [Santiago Iruretagoiena](#)

Sukarrizko edo harri gogorrezko ilarak egiten dituzte, eta pezoekin lan egiten denean bezala, junturak **trabatu** egiten dituzte ilarak txandakatuz; horrela betiko sendo irauteko moduan egiten dituzte lanak. [Santiago Iruretagoiena](#)

Beste batzuk zanpatutako lur-zokorrak lehorraziz altxatzen zituzten paretak, zeharragekin **trabatuz**. [Santiago Iruretagoiena](#)

Tramankulu burrunbatsua hain zegoen tinko **trabatuta**, ezin izan bainuen ezer egin. [Oskar Arana](#)

Ez baitago ezer bere lehen elementuak estuago eta kohesio handiagoz **trabaturik** dauzkanik burdinaren izaera gogorra eta zurruntasun hotza baino. [Xabier Amuriza](#)

Ama zangoak zabaldu eta gizonaren sabelean hankalatraba jarri zen, besoak oso gogor atxikita gizonaren bizkar gainean, gizonaren gorputzean **trabatu** eta itsatsi nahi balu bezala. [Joseba Sarrionandia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bake prozesua trabatu (5); **bidea trabatu** (7); **eztarrarian trabatu** (10); **eztarrarian trabatu zitzaidan** (3); **lana trabatu** (3); **mihia trabatu** (4); **prozesua trabatu** (9); **trabatu gabe** (7)

bidean trabaturik (3); **eztarrarian trabaturik** (5); **trabaturik gelditu** (4); **trabaturik geratu** (3); **trabaturik geratzen** (3)

eztarrarian trabatuta (4); **eztarrarian trabatuta geratu** (3); **trabatuta dago** (6); **trabatuta gelditu** (6); **trabatuta geratu** (14); **trabatuta geratzen** (4); **trabatuta zegoen** (4)

ondo trabatutako (3)

justizia tratatzea (3); **prozesua tratatzea** (5); **prozesua tratatzea leporatu** (3); **tratatzea leporatu** (9); **tratatzea leporatu die** (3)

bidea tratatzeagatik (3)

lana tratatzeko (4); **politikoa tratatzeko** (3); **prozesua tratatzeko** (4); **tratatzeko asmoa** (3); **tratatzeko moduan** (3)

bidea tratatzen (11); **euskal politika tratatzen** (3); **garapena tratatzen** (3); **jarduera tratatzen** (3); **negoziazioak tratatzen** (5); **politika tratatzen ari** (3); **politikoa tratatzen** (3); **tratatzen ari** (17); **tratatzen saiatu** (5)

trabatxo *iz* traba txikia.

Ideia honek ere baditu bere **trabatxoak**: denbora asko kostako dela, haur batzuk konturatu egin litezkeela norbait beren gauzen artean ibili dela, lapurrak berea ez den txoko batean ezkuta dezakeela harrapakina... [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

trabatzaile *izond/iz* tratbatzen duena.

Dario Silvaren esperientzia, Gerardo Torradoren joko **trabatzailea** eta Pablo Alfaroren jokaldi eztabaidagarriak. [Berria - Kirola](#)

Garapen Kontseilua horren sustatzaile izan daiteke edo **trabatzaile**? [Berria - Euskal Herria](#)

Batzuek uste izan zuten beste gizarte bat eraikitzeko modu bakarra bide hain erradikala hartzea zela non jendea bazterten baitzuten, etsaia edo **trabatzailea** zelakoan. [Berria - Euskal Herria](#)

Trabatzaileen eta ustelen minbiziaz libratu behar dugu Bosniako Errepublika Serbiarra. [Berria - Mundua](#)

trabatze *iz* traba jartzea, traba egitea.

Egin ziren bide **trabatze**, elkartasunezko kantaldi eta bertze. [Herria](#)

Nahi gabeko mihi- **trabatze** horren ostean, Rachelek ontzat emango zukeen ideia bat otu zitzaidan. [Oskar Arana](#)

Europako Batzordeko agintarien nahiak betetzen badira berrikuntzaren alde egin nahi duten enpresaburuek zango- **trabatze** larria jasango dute, eta nekez egingo dute aurrera hemedik aurrera. [Berria - Gaiak](#)

trabaza *iz*

Trabaza laneko tresna bat da (edo zen izaitekotz), ez aitzur eta ez aizkora, bainan gisa bertsuko ahoarekin. [Herria](#)

Horra zergatik **trabazak** baziren Urruñan, Posta egoitzan, *Hazia* elkarteak muntatu soinu-tresna erakusketan... [Herria](#)

trabekula *iz* egitura luzanga, organo edo barrunbe bateko euskarria osatzen duena.

Trabekulak deritze belakiaren zati solidoak osatzen dituzten hezur-egiturei. [Irene Aldasoro](#)

trabekular *izond* trabekularena, trabekulari dagokiona.

Tentsioa edo konpresioa jasan behar duten eremuak erraz ezagutzen dira hezur **trabekularrean**. [Irene Aldasoro](#)

trabertino *iz* kare harkaitza, gune karstikoetan uretan disolbatuta doan kaltzio karbonato metaketek eratua, eraikuntzan erabiltzen dena.

Trabertinoak, ordea, eta bere motako harri guztiek ondo jasaten dituzte pisu guztiak eta ekaitzen erasoak. [Santiago Iruretagoiena](#)

trabes¹ *iz* apustua.

Adiskideekin kafetxo bat hartzeko aitzakia izango ditugu **trabes** horiek, gerora. [Edorta Agirre](#)

Edozeini egingo nioke **trabesa** Lizarriturrik gutxien laket duena dakarrela asmotan: gerra. [Pako Aristi](#)

Bertan **trabesa** egin, zakila atera eta irabazi egin zuen. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Borrokarik gehienak [zakurrenak] **trabesak** egiteko izaten dira. [Gotzon Garate](#)

Bi **trabes** jokatzek ditut nik normalean: bata entzuleekiko eta bestea neurekiko. [Pello Zabala](#)

Gero karta jokoan, dadotara, dominora, aritzen ziren, gauzatxoak irabazten eta galtzen zituzten **trabesetan**, beren partida interesgarriago egiteko. [Josu Zabaleta](#)

Titinek, Adarragako zaleen kuttunak, jokatzek duen arren, **trabesak** parean irtengo dira. [Berria - Kirola](#)

Apustueta dirua Belokiren alde irten zen 100-50i, **trabes** gutxi gurutzatu ziren. [Berria - Kirola](#)

Alargunak bere **trabesa** mantentzeko karta onegirik ez zuelakoan [...]. [Ramon Saizarbitoria](#)

Guretariko batek [kartetan ari ginelarik] mahai erdira **trabesa** botata, sudurra uzkuratzen zuen, usnaka iduri: "honek bikote triste bat ere ez dik". [Aingeru Epaltza](#)

Trabes hotsandiko bat dugu egingo bion trebeziaz. [Juan Garzia](#)

2 (apustu formuletan)

Dukat bat **trabes** baietz hil. [Juan Garzia](#)

Zer jartzen dugu **trabes**? baietz izen hauekin askoz hobeki koadratu, aldian aldiko eguraldiak! zenbat doa...? [Pello Zabala](#)

3 irud/hed

LTCM erraldoiak errubloari botatako **trabesa** galdu egin zuen, eta funtsak porrot egin zuen. [Iñaki Heras](#)

4 *trabesean adlag* trabes egiten.

Batzuk **trabesean** ibiltzen dira karta-jokoan. [Oskar Arana](#)

5 *trabes egin*

- **Egin** duzu **trabes**, gazte? [Anton Garikano](#)

Ez nion behin ere hartaz galdetzen, baina **trabes egingo** nuke horregatik eman ziela akabera Danelekin bizpahiru urtez izan zituen harremani. [Anjel Lertxundi](#)

Trabes egingo nuke pentsatzen zuela, halaber, balentria haiek guztiak ez direla beste inon gertatzen militarren buruetako guda-eremuetan baizik. [Anjel Lertxundi](#)

Hil edo bizi **egin** zuen **trabes**, eta heriok hartu zion gain azkenean biziari. [Karlos Linazasoro](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trabes egingo (3); **trabes gutxi** (5); **trabes gutxi gurutzatu** (3)

trabes² *iz*

Beste batzuk arpanaz oholak ateratzen eta **trabesaz** piezak lantzen hasiko dira. [Berria - Kultura](#)

trabes³ ik **trabesa**.

trabes⁴ *1 adlag* trabes.

Fusila soinaren aurrean **trabes** erakutsiz, argazkirako lez. [Joseba Sarrionandia](#)

Don Juan Manuel Garaikoaren automobil handia ekarri zuten, **trabes** jartzeko herriaren sarreran. [Joseba Sarrionandia](#)

Zintzurrian **trabes** geratuko ahal zaik. [Juan Garzia](#)

2 *trabesean adlag*

Armairuek arropak eskegitzeko **trabesean** izaten duten kakoari eutsi zion. [Edorta Jimenez](#)

Mailek, nolanhakia eta **trabesean** paratutako oholez baldar konponduak, otsoendako tranpak ematen dute. [Koldo Izagirre](#)

3 *trabeseko izlag* trabes dagoena.

Eskilara zarratuak eta erripeak ziran eta alboan, **trabeseko** haga batean, kodainak-eta egoten ziran eskegita. Errepide probintzialaren alboan, hiriko gizon ilara luze batzuk ari ziren harria jartzen, **trabeseko** habeak lurrean ezartzen eta errailak lotzen. [Xabier Amuriza](#)

- Jakina den moduan, euskaraz hazi gareno **trabeseko** egiten zaigun lengoaia horretan zuzen eta egoki izkiriartzea. [Edorta Jimenez](#)

trabesa (*orobat* **tabres** *g.er.*, **trabiesa** *g.er.* eta **trabesa** *g.er.*) *iz* trabiesa.

Hantxe egona nintzen Herbert Henckerekin trenaren zain, **trabes** estuen artean kaktusez jositako geltoki txiki hartan bertan, bi hilabete lehenago. [Joxe Austin Arrieta](#)

Haien buru gainean, tren jaso batek orro egin zuen, **trabesen** artean motelduz zihoan triki-traka burrunbatsu bat atzean utziz. [Lopez de Arana](#)

Lehergailua lur azpian erdi ezkutuan zegoen balasto eta **trabesaren** artean eta SNCF enpresako langile batek ikusi zuen. [Berria - Mundua](#)

Nire gizonak, esan zuen, egun batean etxera treneko **trabiesa** batzuk ekarri zitian. [Pablo Sastre](#)

Langilea trenbideko betoizko **trabesak** berrikusteko eta aldatzeko lan taldean ari zen. [Berria - Ekonomia](#)

Zama trena abian jarri eta bagoiak eraman zituen, gainetik behien adarrak eta begiak ateratzen ziren bagoiak, azpitik **trabesen** kontra hondoratu, larrutu eta zanpatutako hankak ateratzen zitzaizkien bagoiak. [Fernando Rey](#)

trabesalari *(corpusean **trabeslari** soilik) iz apustularia.*

Lehen partidari aitzin gustu bat ukana zuten parioak maite dituzten **trabeslariak**, lehen horiek zoin ederki gaina hartzen ikusirik, holako Larrechea baliosaz hainbat gustaturik bereziki. **Herria**

trabesatu ik **trabeskatu**.

trabeseke ik **trabes**⁴ **3**.

trabesia **1** iz itsas ibilaldi edo bidaia.

Orduan, patrioiak ohola erretiratu du eta lemara itzuliko da **trabesia** jarraitzeko. **Joseba Sarrionandia**

Trabesia asko egin zituen Atlantikoan eta hainbat ozeanotan. **Unai Elorriaga**

2 zeharkaldia.

Eguedian Getariatik Zarautzerainoko **trabesiari** emango zaio hasiera. **Berria - Kirola**

800 igerilari Getariatik Zarautzerako **trabesiarako**. **Berria - Kirola**

trabeska *(53 agerraldi, 30 liburu eta 5 artikulutan) izond trabeska.*

Gurdi haietako bi, **trabeska** zeuden kalearen erdian, zaku grisaskez mukurua, ibiltzeko traba. **Karlos Zabala**

Trabeska ibiliz, lerratu gabe egin daiteke jaitsiera. **Piarres Aintziart**

Haurra **trabeska** heldu zen eta, zesarea egin behar izan zioten. **Aingeru Epaltza**

Irristada bortitzean, motor batek 90 graduko angelua marraztu zuen, eta **trabeska** gelditu zen Volvoaren aurrean. **Aingeru Epaltza**

Lehenengo tarima jarri denean, gainean beste tarima bat jarriko da **trabeska**, eta iltzeekin josiko da solairuari bi geruzaren babes emanaz. **Santiago Iruretagoiena**

Urkatokiak, hiru zutoi, bi ohol **trabeska** eta erdian urkabihur txar bat besterik izaten ez zutenak, batzuetan harrizko paretak batekin inguratzen ziren. **Patziku Perurena**

Sofaren ertz batean eseri zara **trabeska**. **Lourdes Oñederra**

Asto gainean **trabeska** ikusi zuenean bentariak Don Kijote, zer-nolako gaitza ote zekarren galdetu zion Santxori. **Patxi Ezkiaga**

Dezepzioa ezartarian **trabeska** nuela sartu ginen hamar egun lehenagoko burger berean. **Aingeru Epaltza**

Masta bat jarri zuen zutik, eta hari beste bat jarri zion, **trabeska** eta esekita, balantza baten gisa. **Santiago Iruretagoiena**

Puta bati **trabeska** begiratu eta pausoa arindu du. **Eider Rodriguez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trabeska begiratu (3); **trabeska geratu** (3)

trabeskatu *(14 agerraldi, 5 liburu eta 4 artikulutan; orobat **trabesatu** g.er. eta **trabestu** g.er.), trabeska(tu), trabeskatzen 1 du ad zeharkatu. ik **trabeskatu**.*

Nik Nafarroara nahi nuen, eta Nafarroara egiteko ugaldea **trabeskatu** behar nuen. **Aingeru Epaltza**

Nik igerika **trabeskatu** nuen Ihuri ibaia, Maitiaren zuberotarren gezien artean. **Aingeru Epaltza**

Gure aitzinetik, biek karrika **trabesatu** zuten eta bestaldeko ate batetik norabait sartzen ikusi nituen. **Janbattiti Dirassar**

"Kasu egin behar diat bideko seinalei, Burlata **trabeskatu** aitzin, eskuin egiten baita. **Piarres Aintziart**

Eguzki berriaren lehen printzek nabe altuko beiradurak horizontalki **trabeskatzen** zituzten. **Koldo Izagirre**

Sarraskiaren iduri negargarri hura burmuinetan iltzaturik geratu baitzitzaidan: gizonak tirokaturik edo geziz **trabeskatu** eta odolusturik, haurrak sastaturik, emaztekiak lohiturik... **Joan Mari Irigoien**

2 trabeska gelditu.

Gizakiekin ere gertatu izan da arrain hezurra zintzurrean **trabeskatu** eta kirofanora eraman beharra izatea. **Gotzon Garate**

Bigarrenean ere lehengo berak ageri ziren; pilatuta oraingoan, elurrez estaliak, eskiak eta eskumakilik mikado-jokaldi nahaspilatu batean **trabeskatuak**. **Jon Muñoz**

trabesti *(orobat **travesti** g.er.) 1 iz beste sexukoan janzkera eta jarrerak dituen pertsona. iktrabestitu 4.*

Trabestiek gizon serioekin egiten dute txortan sarri askotan, **trabestiek** istorio izugarri onak kontatzen dituzte, jatorrak dira **trabestiak** normalean. **Karlos Zabala**

Ez nahastu ni **trabestiek**in, mesedez: **trabestiak** gauez emakume janzten diren gizonak dira, eta gu, transexualak, gizonezko gorputzarekin jaio, baina emakume sentitzen garen emakumeak gara. **Aitor Arana**

Puteta eta **trabestiak** imajina daitezkeen hots zakarrenekin jendea deika inork josi ditzakeen minigonarik laburrekin; hordi eta kokatuen sexu-goseak buxka-buxkan... **Anjel Lertxundi**

Erdi gay-a soilik zen arren, hara non haren lagunik minena **trabesti** beltz bat zen. **Oskar Arana**

Musika, edariak, jatekoak eta, halako batean, **trabestien** showa. **Edorta Jimenez**

Barruko lurrina eta **trabestien** kanten hotsa iristen zaizkio atea zabaltzen duten aldi bakanetan. **Urtzi Urrutikoetxea**

2 (izenondo gisa)

32 urteko Carlota eta bere bizilagun **trabesti** baten arteko maitasun harreman nahasia. **Berria - Kultura**

3 (izenondo gisa, irud/hed)

Horiek ez dira osagai azortatzaileak, diskurtsoaren forma huts, neutro, intenporal eta isilari gainjartzen zaizkionak, bera ezabatuko luketenak bere lekuan diskurtso **trabesti** bati hitza emanaz. **Xabier Arregi**

Negu **trabesti** aldrebes honek / baietz marka denak hautsi! **Pello Zabala**

trabestismo *(orobat **travestismo**) 1 iz beste sexukoan janzkera erabiltzeko eta jarrerak hartzeko joera.*

Trabestismoa maite duten gizajo koadrila bat, odola ikuste hutsak xoratuko lukeena. **Aingeru Epaltza**

Ironia eta umore dosi handiak ditu; **trabestismoarekin** jokatu, nortasunaren trukaketan eta klase harremanean oinarritzen den obra da. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Hasieran elkar ezagutzen ez duten pertsonaien arteko nortasunen aldatketetan **trabestismoaren** ildotik doa, inolako tentsiorik gabe eta amaiera zoriontsuarekin. **Berria - Kultura**

trabestitu, trabesti(tu), trabestitzen 1 da *ad* beste sexukoen janzkera eta jarrerak hartu.

Ez nintzateke harririk edozein egunetan hemen inguruko taberna zuloen batean erabat **trabestituta** ikustea. **Urtzi Urrutikoeetxea**

2 irud/hed

Poesiatik Zientziara, Otoitz ongiletik Teknika dirugilera hamabost egunean **trabestitu** zirenak. **Iñaki Seguroa**

3 (era burutua izenondo gisa)

Hiru prostituta gazte eta oilaloka **trabestitu** bat. **Patxi Iturritegi**

4 (era burutua izen gisa) ik **trabesti**.

Nerabe mozkor, **trabestitu** eta prostituto izatetik kultuzko idazle goiztiarra izatera pasatu zen atzo, eta hogeitaka hizkuntzataraz itzuli dute haren lana. **Berria - Kultura**

trabestu ik **trabeskatu**.

trabiesa ik **trabesa**.

trabuka *adlag* oztopoka.

Asmatzailea, ordea, diru eske hasi zen hitzari hitza josi ezinik, mihia lodi-lodi eta **trabuka** : [...]. **Anjel Lertxundi**

trabukari ik **trebukari**.

trabukatu ik **trebukatu**.

trabuko *iz* aurretik kargatzen zen su arma, eskopeta baino motzagoa eta kalibre handiagokoa.

Metalezko tronpa itxurako zerbait, ezkil-ahoko eta zabela, ikusi batean mendiko korneta bat zela uste nuena, eta **trabuko** bat izaki. **Koldo Izagirre**

Kanoiak, puñalak, ezpatak, **trabukoak** ... arma guztiak darabiltza esku artean, etsiak ere gero eta ugariago baitira. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Haiek zaldiz, **trabukoz** eta labanaz aurrez aurre oker egiten zutena, oraingo funtzionariook diplomazia zuriz eta paperez saiheska egiten baitituzte beren azio kobardeak. **Patziku Perurena**

Gure ile hori Flandriazkoekin, gure sudur **trabuko** gisakoarekin eta gure betaurreko biribilekin gure gurdi haren luzamendua ginelako. **Josu Zabaleta**

traditu, tradi, traditzen (*orobat trahitu*) du *ad* 1 saldukeria egin. ik **saldu 4**. (norbait)

Segur naiz uste duela nik **traditu** dudala, egoera hartaz baliatuz. **Elena Touyarou**

Halabeharrez partitu da, ezagutu gabe bihotzak **traditu** egingo duela ilusentzi honetan, fin gaitz egingo duela kalearte estu batean. **Javi Cillero**

-Jainkoak begira nazala ene ongilea **traditzetik** . **Patxi Zubizarreta**

Adiskide ederra, zeure onestasunak berak **traditzen** zaitu, segurantzaz ematen baituzu. **Jon Muñoz**

Ez dakit nork **traditu** gaituen; nire gelazaina edo nire kofesora baizik ezin daitezke izan. **Jon Muñoz**

Adiskidea, engainatua izan naiz, **traditua** , galdua; etsi gaiztoan naiz: Tourvel andrea partitu da. **Jon Muñoz**

-Adiskideek ez dute elkar **traditzen** . **Elena Touyarou**

Zeren gizakiek aberria eta guraso maiteak maiz **traditu** izan baitituzte, Akeronteko leizeak ekiditearren. **Xabier Amuriza**

2 (zerbait)

Beren printzipioak **traditu** beharrik ez zutela izango, hori bere bizkar, Luis Angelen beraren bizkar geratzen zela. **Iñaki Iñurrieta**

Hurrena elkarrekin topo egin zutenean, erakutsirik konfiantza **traditu** izana leporatu zion. **Joxerra Garzia**

Iduriz zuk eman bide didazun eta nik neurririk gabe men egin diodan fidantzia hori **tradituko** zenuke? **Jon Muñoz**

3 (era burutua izenondo gisa)

Haren jarraikitutasunak salbatuko nau bederen amodio **traditu** baten oinazeetarik. **Jon Muñoz**

Ez naiz zure maitasunaz susmatzera ausartzen, dudarik gabe halaber zu ez zinateke nirea **traditzera** ausartuko. **Jon Muñoz**

traditzaile (corpuseam **trahitzaile** soilik) *iz* traditzen duena. ik **traidore**.

Hutxek, aldiz, **trahitzaileen** negar gura zeukan begietan. **Itxaro Borda**

traditze (corpuseam **trahitze** soilik) *iz* saldukeria egitea.

Justu eraginkorrak ginen uenean, **trahitze** baten medioz Klaus Barbie-ren zakurrek arrastatu dute. **Itxaro Borda**

tradizino ik **tradizio**.

tradizio (*orobat tradizino g.er. eta tradizione g.er.*) 1 *iz* belaunaldiz belaunaldi ondare gisa transmititzen den oihura,

doktrina edo multzoa multzoa

Bizitza eta **tradizioa**, nire esperientzia eta nire aurrekoena, oraina eta lehena: bi-bietatik datorriko idazleari errealitatea deitzen duguna. **Anjel Lertxundi**

Tradizioa tradizioak sortzen du, izen hori erabiltzeak alegia. **Julen Gabiria**

Tradizioak nonahi elkartzen dira: aski da guk elkartu nahi izatea. **Anjel Lertxundi**

Itzulpen lana izan delako **tradizioaren** eta hizkuntza-ren arteko osmosiaren eragile nagusi. **Bernardo Atxaga**

Tradizioarekin eta gramatikarekin hautsi gabe komunikaziorako tresna argia lortu du. **Janbattitt Dirassar**

Ezagutzaren teoria atomista-sentsualistaren **tradizioan** kokatuta. **Askoren artean**

Gaurko bainuetxeen oinarria **tradiziotik** datorrela uste dut: urak sendatzen duela dioen **tradiziotik**. **Berria - Euskal Herria**

Euskal Herrian beti familiak, elizak, **tradizioak** agintzen zuen; ez dugu izan subjektibitatearen edo kontzientzia autonomoaren **tradiziorik**. **Joxe Azurmendi**

Ezagutzaren teoria atomista-sentsualistaren **tradizioan** kokatuta. **Askoren artean**

Tradiziorik ez dagoen lekuan **tradizioa** eraikitzea, hasieran behintzat, nekeza da, belarriek agintzen dutelako eta belarriek ez dutelako nahi arrotz egiten zaien ezer. **Julen Gabiria**

Inken **tradizioko** xirula haiek. **Pako Aristi**

Ordutik, **tradizioari** buruzko ikuspegi etxezuloegiek bezainbat goganbehartzen naute kanpoederregiek, **tradizioa** ez baita oinordekotzan ematen zaigun zerbait, lan eta neke askoren ondoren irabazten hasten garen eta inoiz osorik lortzen ez dugun altxor bat baino. **Anjel Lertxundi**

Gizarteko kideen arteko erlazioak erregulatzen dituen **tradizio** eta instituzioak [...] ekonomia hazkunde eta garapenerako berebiziko eragina dute. **Iñaki Heras**

Berak ez dauka **tradizioaren** astuntasuna; eta berak ez du osatzen denborarik gabeko liburuetgia. **Xabier Arregi**

Kapitalismoaren bi **tradizio** bereizi behar dira. **Iñaki Heras**

Ez dugu izan subjektibitatearen edo kontzientzia autonomoaren **tradiziorik**. **Patziku Perurena**

Hautsak hartutako **tradizio** batez ari ote naizen galdetu badit ere, [...]. **Anjel Lertxundi**

Tradizioa da **tradizioaren** traizioa ere, Karl Kraussek esana. **Anjel Lertxundi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tradizio handiko esparrua izan da etimologia gurean. **Iñaki Arranz**

Bai baitzen erromatar **tradizio** zaharrago eta sakonago irarritako bat. **Tradizio** zabala bezain jaiera sakonekoa. **Iñaki Mendiguren**

Helburuen araberrako bereizketa hori ez da gaur egungo kontua, eta **tradizio** luzea du historian zehar. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Mendez mendeko **tradizio** luzeari begirunea zor zaiola. **Iñigo Aranbarri**

Tradizio klasiko horrek bi doktrina esoteriko zituen oinarri. **Xabier Kintana**

Mendebaldeko **tradizio** moralari egindako kritika suntsizaila. **Askoren artean**

Abertzaletasunaren baitako **tradizio** heroikoan, Etxebarrietaren heriotza Lauaxetarenekin konparatzea argigarri da. **Joseba Zulaika**

Tradizio militar handi baten oinordekoak ziren. **Iñaki Mendiguren**

Tradizio kritiko handi batean dago Mirande, hori ez daukagu zergatik ezkutatu. **Joxe Azurmendi**

Galiar menderakaitzen egunkarietan, **tradizio** laikoa nagusitu zaiou usadio katolikoari. **Iñigo Aranbarri**

Alemaniko **tradizio** etnografikoa. **Askoren artean**

Antzinako **tradizio** aszetikoa. **Askoren artean**

Tradizio judu-kristauaren leloa. **Iñaki Heras**

Tradizio monastikotik jasotako arauak ziren. **Askoren artean**

Tradizio homeriko aristokratikoan maiz agertzen den errege indartsuaren eredu berbera. **Askoren artean**

Euskaldunen **tradizio** antisentimentala. **Joseba Sarrionandia**

1895ean [...] bere interesa Espainian eta **tradizio** espainolean zentratua dago. **Joxe Azurmendi**

Tradizio anglosaxoiko kapitalismoa. **Iñaki Heras**

Frantziskotar **tradizioak** irakurketa juridiko estuegia egin du lege-testuez. **Askoren artean**

Baina horretarako, «gezurrezko **tradizio** eta dogmak desagerrarazi» behar dira. **Berria - Gaiak**

Modernitatearen krisia, erlatibismoa, elkarneurgaitasuna, hizkuntza eta **tradizio** ez-mendebaldarrak. **Askoren artean**

Herriaren hizkuntza baita yiddisha, **tradizio** idatzi eskasa duena, hizkuntza pobrea, haur eta emakumeena. **Koro Navarro**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mendi horretan dute beren **tradizio** -iturri Karmeldar lekaide-lekaimeek ere. **Pello Zabala**

Eman ahal zaizkie garai baten dimentsio kolektiboak eta diakronikoak, kontzientzia era orokor batenak, gizarte-mota batenak, **tradizio** -multzo batenak. **Xabier Arregi**

Herrixka bat, gerra denean, ez da **tradizio** korapilo bat. **Josu Zabaleta**

· Saio polita izan dugu, gaur arratsaldean, **tradizio** -modernitate auziaz. **Anjel Lertxundi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mateo ebanjelioetako baten egiletzat gelditu da kristau **tradizioan**. **Pello Zabala**

Herri-**tradizio** asko dago, kronikariek jaso dituztenak, Frantziskoren Espainiako bidaiari buruz. **Askoren artean**

Artea saldu eta erosteko negozioan halako familia-**tradizio** luze moduko bat iradokitzen zuela. **Oskar Arana**

Udal **tradizio** zaharra ikasteko lanari ekin zion. **Bego Montorio**

Guk aurkitu genuen hizkuntza **tradizio** jakin bat, eta literatura **tradizio** bat, baina euskal kulturak tradiziorik ez du. **Berria - Harian**

Literatur **tradizio** anker horrek ezartzen zuen patu saihetsezina saihesteko modua bilatu behar nuen. **Jon Alonso**

Musika **tradizio** sendoa du Txekiak, eta eutsi egin dio. **Berria - Mundua**

Ekialdeko eta Mendebaldeko antzerki **tradizioen** azterketa konparatiboa egiten. **Berria - Kultura**

Gogoan har bedi Marcel Jousse eskolako antropologia-**tradizio** frantsesak omen handia eduki duela halaber gure artean. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Arkitektura-**tradizio** helenizatzailea. **Iñaki Mendiguren**

Beste filosofo batzuek ikerketa-programa edota ikerketa-**tradizio** bezalako kontzeptuak erabili dituzte teoria zientifikoa ezaugarritzeko. **Askoren artean**

Aitaren familiakoak, aldiz, enpresa **tradiziokoak** ziren. **Ana Urkiza**

Futbol **tradizio** handiko herria da, futbolzale sutsuak gara bermeotarrak. **Berria - Kirola**

Mendebalean eztabaida-**tradizio** handia daukagu, zein ote den erlijio egiazkoa, teologia egiazkoa, filosofia egiazkoa. **Joxe Azurmendi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahozko tradizio (4); euskal herriko tradizio (4); gure tradizio (3); izan duen tradizio (3); literatur tradizio (9); literatura tradizio (5); mendebaldeko tradizio (3); musika tradizio (4)

tradizio demokratiko (3); tradizio desberdinak (3); tradizio erlijioso (3); tradizio eta ohitura (3); tradizio filosofiko (8); tradizio handia (13); tradizio handiko (23); tradizio handiko herria (3); tradizio handikoa (10); tradizio handikoa da (4); tradizio klasiko (4); tradizio literario (4); tradizio luze (3); tradizio luzea (9); tradizio luzea du (3); tradizio politikorik (4)

ahozko tradizioa (7); euskal tradizioa (3); euskarazko tradizioa (3); gure tradizioa (6); herri tradizioa (4); herriko tradizioa (4); kandinskyren tradizioa (3); kristau tradizioa (3); kultura eta tradizioa (3); literatur tradizioa (6); literatura tradizioa (7); mendeetako tradizioa (3); musika tradizioa (3)

tradizioa du (6); tradizioa duten (3); tradizioa erabili (4); tradizioa eta modernitatea (6); tradizioa izan (5); urteko tradizioa du (3)

ahozko tradizioak (4)

euskal tradizioan (9); gure tradizioan (3); kristau tradizioan (6); literatur tradizioan (3); tradizioan oinarritzen (3)

ahozko tradizioaren (3); euskal tradizioaren (5); literatur tradizioaren (5); tradizioaren eta nabarmenaren (22); tradizioaren eta nabarmenaren (3)
tradizioari eutsi (3); tradizioari jarraiki (9)
kristau tradizioko (3)
badu tradizioak (3); inolako tradizioak ez (3)

tradizional 1 *izond* tradizioarena, tradizioari dagokiona; tradizioaz mendez mende dirauena.

Gizarte **tradizionala** hankaz gora zihuan eta, ohi denez, balio **tradizionalen** krisiak alde bateko erradikalismoak probokatu zituen. **Joxe Azurmendi**

Ezagutzaren ikusmolde **tradizionala**. **Askoren artean**

Betiko moral **tradizionala** trapu berriekin. **Joxe Azurmendi**

Eskualde honetan jende gehiena animista da, erlijio **tradizionalaren** zalea, baina ni kristaua naiz. **Berria - Kultura**

Hori soilik informatikatik at dauden teknika **tradizionalen** bitartez lortuko duzu. **Askoren artean**

Kuhnek ezbaian jarritako zientziaren irudi **tradizional** edo positibista hori. **Askoren artean**

Historiari garrantzi gehiegi eman ondoren, gramatika **tradizionalaren** ikuspuntu estatikora itzuliko da hizkuntzalaritza. **Isabel Arrigain**

Nazioarteko merkataritzaren teoria **tradizionala** (klasikoa eta neoklasikoa) ekoizpen-faktoreak aldagaitzak, konkurrentzia erabatekoa eta perfektua, eta etekinak konstanteak edo beheranzkoak zirelako hipotesian oinarritzen zen. **Koro Navarro**

Kontzepzio **tradizionalaren** arabera, jarrera proposizionalak moduan eta edukian bereizten dira elkarren artean. **Askoren artean**

Arabiar musulman primitiboek zakar astindua zuten beren bizimodu arkaiko **tradizionala**. **Iñaki Mendiguren**

Honek iraganarekiko lokarri **tradizionalak** urratzea dakar, eta iraultzailea da benetan. **Iñaki Mendiguren**

Eskoziako eta Irlandako abesti **tradizionalak**. **Berria - Kultura**

Euskal musika **tradizionalean** oinarritutako disko bat. **Berria - Kultura**

Gure ipuin **tradizionaletan** ez da ispilu magikorik ageri, kontu bitxia dirudi. **Anjel Lertxundi**

Pintura-sekuentzia **tradizionaletan** (gurutze-bidea da hemen ere prototipoa), sketch erdi-autonoma bat irudikatzen du irudi bakoitzak. **Josu Zabaleta**

-Europa Ekialdeko juduen janari **tradizionala**. **Josu Zabaleta**

Industria **tradizionala** gainbehera zetorren. **Anjel Lertxundi**

2 (pertsonei buruz) era tradizionalen eusten diena.

Tradizional samarra zen, halaxe esaten zien Gabinek pisukideei Anaz zerbaite esatera behartuta sentitzen zenean. **Iñaki Iñurieta**

Hi bai **tradizionala**, gizajo hori! -bukatu zuen, higuinezko doinu. **Jon Muñoz**

Herritarra: **tradizionala**, tokian tokikoa. **Edorta Agirre**

Tradizionalak -odolaren, arrazaren eta izenaren garbitasunaren ideologia lehen jartzen zutenak- eta moderno zaleak -gerla ondoko Hegoaldeko errefuxiatuek ekarri kultura herrikoiairen maitasuna txertatua zeukatenak- konformismo berdina zorutzen zituen. **Itxaro Borda**

3 irud/hed

Bere etsai **tradizionalak**. Santanderrek (%0,62), Mexiko nahiz Brasilen apustu handiak ditu. **Berria - Ekonomia**

4 ez-tradizional

Familia **ez-tradizionaletan** honako hauek sartzen dira batez ere: guraso bakarrekoak (aitek osatuak %2,2 dira; amek osatuak %9,6); pertsona bat baino gehiagok osatuak, baina ahaidetasunik gabeak, %3,4; seme-alabarik ez duten bikoteak, %18,5; eta bakarrik bizi direnak, %20,3. **Berria - Euskal Herria**

Familia **ez-tradizionalak** %55,6 dira EAEn. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bikote tradizional (3); **familia tradizional** (3)
alarde tradizionala (11); **bizimodu tradizionala** (4); **dantza tradizionala** (9); **euskal musika tradizionala** (4); **familia tradizionala** (5); **musika tradizionala** (16)
alarde tradizionalak (4); **balio tradizionalak** (3); **dantza tradizionalak** (4); **doinu tradizionalak** (5); **familia tradizionalak** (5); **ipuin tradizionalak** (6); **kanta tradizionalak** (3); **kantu tradizionalak** (18); **musika tradizionalak** (4); **musika tresna tradizionalak** (3); **politiko tradizionalak** (3)
tresna tradizionalak (5)
alarde tradizionalaren (11); **alarde tradizionalaren aldekoek** (4); **dantza tradizionalaren** (6); **erlijio tradizionalaren** (3); **erlijio tradizionalaren zalea** (3); **musika tradizionalaren** (9)
alarde tradizionalean (3); **era tradizionalean** (3); **modu tradizionalean** (3); **musika tradizionalean** (5)
alarde tradizionaleko (3)
frantses alderdi tradizionalen (3); **tresna tradizionalen** (4)
musika tradizionalera (3)
musika tradizionaletik (4)

tradizionalismo 1 *iz* ohiturazko politika- eta erlijio-moldeei eutsi behar zaiela aldarrikatzen duen doktrina.

Liberalismoa, klasizismoa, erromantizismoa, **tradizionalismoa**, erlijio katolikoa, espainoltasuna, patriotismoa, honezkeroko dena nahas-mahasten da. **Joxe Azurmendi**

Etsai izan ditu, edo badaezpadako lagun, aurrerakoiak, atzerakoiak eta bertarakoiak, errealismo unibertsalista eta idealizazio nazionalista, falangismoa eta sozialismoa, **tradizionalismoa** eta liberalismoa, faxismoa eta... anarkismoa. **Iñaki Segurola**

Finkielkrautek tratatzen digun metafisikaren hondamen-bidean beste urrats bat **tradizionalismo** politiko frantsesa izan da. **Joxe Azurmendi**

2 *neo-tradizionalismo* ik **neotradizionalismo**.

tradizionalista 1 *izond/iz* tradizionalismoari dagokiona; tradizionalismoari atxikia. ik **tradiziozale**.

Tolosako kristau progreen aldean, Juan Luisek ikuspegi **tradizionalistagoa** zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horrexegatik dio ahozko adierazpenak kontserbadoreak eta **tradizionalistak** direla. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Eta gero kalez kale ibili ginen berarekin segitaldean, kaleei izen berriak ezartzen, herri **tradizionalistak** jasandako irainen ordainez. **Joseba Sarrionandia**

Unamuno eta Ortega, katoliko **tradizionalistentzat** zailak ziren irensteko. **Joxe Azurmendi**

Tira, ba, **tradizionalista** bazara orduan Alderdi **Tradizionalistakoa** izango zara! **Joseba Sarrionandia**

1936-39ko gerra zibilaren inguruan izpiritu edo arima espainola erruz aipatu da literatura falangista nahiz **tradizionalistan**. **Joxe Azurmendi**

2 ik **karlista**.

Zer asmatu ez zekitela zebiltzan, falangistak kea baino faltsuagoak zirela errepikatzen zuten eta hiru erakunde **tradizionalista** sortu zituzten karlistaren mistikarekin. **Joseba Sarrionandia**

Margaritas izeneko erakundea sortzeko selektiboagoak izan ziren, familia **tradizionalistako** neskatuekin osatu zuten. **Joseba Sarrionandia**

3 (izenondo elkartuetan)

Bizitza politikoaren kontsiderazio mekaniko-razionalistari, organiko-**tradizionalista** oposatzen dio (nolabait esan: besteak matematikarekin pentsatzen badu, honek biologiarekin pentsatzen du gizartea). **Joxe Azurmendi**

tradizionalki ¹ *adlag* tradizioan.

Tradizionalki, tropo edo figuren ugaritasunean aurkitu nahi izan da literaturtasunaren ezaugarria, hots, hizkuntza-arau zein hizketa arruntarekiko urruntasunean. **Bernardo Atxaga**

Prest egon behar du zientziari jakintza intelektualaren arlo guztiak uzteko, baita **tradizionalki** erlijioaren eremukoak izandakoak ere. **Iñaki Mendiguren**

ZTG ikasketok irauli egiten dute filosofiak **tradizionalki** zientziari esleitu dion arazo-sorta. **Askoren artean**

Esan beharra dago, **tradizionalki** teknologia zientzia aplikatu gisa ikusia izan dela. **Askoren artean**

2 era tradizioalean.

Eta **tradizionalki** egin dut: senarra segitu dut. **Menane Oxandabaratx**

tradizionaltasun *iz* tradiziozalea denaren nolakotasuna.

Rufino Arrolaren **tradizionaltasun** harroak ez eban kontraesanik aurkitu, bideokliparen modernidadean sartzeko. **Xabier Amuriza**

tradizione ik tradizio.

tradiziozale *iz* tradizioaren zalea dena.

Harriturik utzi gaitu Lujanbiok, **tradiziozalea** (ezinbesteko **tradiziozalea**) zelakoan baikeunden guztiok. **Anjel Lertxundi**

Familia erlijioso eta **tradiziozale** estu baten atzaparretatik ihes egin ahal izateko. **Berria - Kultura**

Egun batean Friburgon, nire ugazabaren alabaren lagun batzuen etxean musika jotzera gonbidatu ninduten, eta orduan konturatu nintzen zein **tradiziozalea** den Suitza.

Josu Zabaleta

Bizi laburreko agerkariak izan ziren aipatuok, baina esan dugun pentsaera **tradiziozale** horren ildokoak beti ere. **Berria - Kultura**

traduktologia *iz* itzulpengintzaren oinarrien eta aplikazioen aztertzen dituen diziplina.

Traduktologian ez bakarrik hizkuntza txikietan, handietan ere bai oso aipatua da itzultzailearen ardura soziala. **Berria - Kultura**

tradukzio (*corpusean tradukzione soilik*) *iz* itzulpena.

Liburu hura Gaspar de Asteteren *Doctrina cristiana*-ren euskarazko **tradukzione** bat zen, 1608koa eta Iruñian publikatua. *Clara est, et quae numquam marcescit, sapientia; et facile videtur ab his qui diligunt eam, et invenitur ab his qui quaerunt illam* -eta, amari beha **tradukzionea** egiten zuela, erran zuen: [...]. **Joan Mari Irigoien**

tradukzione ik tradukzio.

traduzionista *iz* giza arima gurasoen arimatik sortzen dela dioen doktrinaren jarraitzailea.

Agustinek zalantzak ditu arimen jatorriari buruzko bi jarreraren artean, kreazionisten eta **traduzionisten** teorien artean, alegia. **Imanol Unzurrunzaga**

traduzitu traduzi, traduzitzen du *ad* (testuak) itzuli.

Osabak amaren aitzinean zibiltasun arauak -horrela **traduzitu** beharko ote genuke frantsesen *civilité* delakoa, jaun André?- [...]. **Joan Mari Irigoien**

trafikante (*14 agerraldi, 5 liburu eta 4 artikulutan*) ¹ *iz* trafikatzailea.

Gizajo bat, **trafikanteen** artean zubi egiten duten alfer bihozgabe horietako bat. **Anjel Lertxundi**

Ez nuen dirurik, beraz lapurretan ibili nintzen, **trafikante**, eta... Mexikora iritsi nahi nuen, baina ez nintzen Kubatik atera. **Jon Muñoz**

Pierruguesen arabera, bada drogaren gaineko eztabaida mahai gainean jartzeko garaia: «Substantziek herritarrei laguntzeko balio behar dute eta ez **trafikanteak** aberasteko». **Berria - Euskal Herria**

Kalamua legeztatuz gero, prebentzio lana egingo litzateke: merkatu beltza, **trafikanteak**, diru zuritzeak, adulterioa eta beste hainbat zikinkeria saihestuko lirateke. **Berria - Euskal Herria**

Azpian, letra gorritz, aldarria: **Trafikanteak** hormara! **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan)

Lehen abortugileen artean bezala, immigrante-**trafikanteen** artean zintzoak ere izango dira seguruenik. **Joseba Urteaga**

Pertsona-**trafikanteek** dirutza izugarriak exijitzen dizkiete eta batzuetan desagertu egiten dira zeharkaldia hasi aurretik. **Joseba Urteaga**

trafikari *iz* trafikatzailea.

Garai horretan mekanikari moduan egin zuen lan, baina baita arma **trafikari** moduan ere, erresistentziarentzat. **Berria - Kultura**

trafikatu, trafika, trafikatzan ¹ du *ad* trafikoa egin, legez kanpoko salerostean aritu.

Portugaldarrek konkistatzaile gisa **trafikatu** zuten Indietan. **Iñaki Iñurrieta**

Edari hura **trafikatua** izan zen, eta trafikoa heriotza zigorrer ordaintzen zen. **Elena Touyarou**

Zuk eskatutakoa erosten dute horiek eta zuk ordaindu ondoren pagatuko diote beren hornitzaileari, hau da, zure diruarekin eta jeneroarekin **trafikatzen** dute. **Edorta Agirre**

Beste bi talde lurrean erdi etzanda fumatzen, marihuana edo; izkina batean, bikote bat **trafikatzen**. **Bernardo Atxaga**

Trafikatzen, intrigetan eta espioitzan aritu zen. **Monika Etxebarria**

2 irud/hed

Hoteleko ohe alokatuan, sentimenduekin **trafikatzen** zuten, gorputzak korapilatzean amodio faltua asesinatuz. **Jasone Osoro**

Estatuak pobrea izango da beti, bere biztanleria bere bizibideak baino handiagoa bada, eta aberastera izango da beti, baldin eta, bere muga egokian gelditurik, sobera duenarekin

trafikatzen badaki. [Juan Martin Elejpuru / Bego Montorio](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ustez droga trafikatzegatik (4)

trafikatzaile *(91 agerraldi, 17 liburu eta 35 artikulutan)* 1 iz trafikatzeko duen pertsona. ik **trafikante**.

-Ohoiak eta **trafikatzaileak** besterik ez dituzue topatuko, ez ezazula elkartasunik espero. [Koldo Izagirre](#)

ETAk mehatxatua zuen, **trafikatzailea** zela salatuz. [Juan Kruz Igerabide](#)

Helburuak lorturik, emakumeen **trafikatzailea** agerian etorri ohi zen maitalea ordezkatzera. [Patxi Zubizarreta](#)

Animalien **trafikatzaileen** aztarnari heltzerik ez zegoela konturatu zen Ruche jauna. [Jon Muñoz](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Trafikatzaile talde bateko legez kanpoko langileak ziren ikertzen ari dira. [Berria - Mundua](#)

Badirudi geroago **trafikatzaile**-babesleek diru iturriak ere murriztu zizkiotela. [Berria - Mundua](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrekin batera, droga **trafikatzaileei** gertatzen zaienaren kontrara, pobrea zen. [Patxi Zubizarreta](#)

Narkotiko **trafikatzailea** izaki, gauaren babesean jokatu ohi zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

Organo-**trafikatzaile** izan nintzela Somaliar eta Ugandar? [Karlos Linazasoro](#)

-Oraitxe ikusi dut alkohol-**trafikatzaileen** eta hijackerren arteko borroka bat. Rimbaudek bezala, arma **trafikatzaile** egin behar du idazleak? [Lopez de Arana](#)

Orain ez da esklabo eta tabako **trafikatzaile**rik baizik. [Elena Touyarou](#)

Akusazioak gar-biak ziren: atzeritarrak, noblea, girondinoen aldeko ezkutuko satorra, legez kanpoko diru-**trafikatzailea** ... [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

-Animalia-**trafikatzaileen** taldekoek! [Jon Muñoz](#)

Gauza bera gertatuko ote da Manausko matematikari-**trafikatzaileak** bere Mamaguénari egindako isilmandatuekin? [Jon Muñoz](#)

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

lazko ekainean AEB Ameriketako Estatu Batuek FARC eta AUC taldea sartu zituzten droga **trafikatzaile** zerrendan. [Berria - Mundua](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alkohol trafikatzegatik (3); **droga trafikatzegatik** (11)

droga trafikatzegatik (3)

droga trafikatzegatik (6)

trafiko *(orobat trafiku g.er.)* 1 iz ezkutukoak, legez kanpokoak edo lotsagarriak-edo diren gauzen merkataritza.

Bitxi samarra zuan, ordea, salerosketa hura; **trafiko** deituko hioke hik. [Jon Muñoz](#)

Legez kanpoko armen **trafiko** aritzeagatik. [Berria - Mundua](#)

Urriar egindako epaiketan etorkinen **trafiko** parte hartu izana onartu zuen. [Berria - Kultura](#)

Ekialdeko umezurten **trafiko** espezializatutako GKEko arduraduna. [Aingeru Epaltza](#)

Kuba ez zen leku txarra beltzen **trafikoarekin** dirua egiteko. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Dopatzeko substantzien **trafikoaren** aurkako operazioan. [Berria - Gaiak](#)

Frogak badituzte muturra sartua zuela drogaren **trafiko**, kokainarenean zehatzago izateko. [Fernando Rey](#)

Trafiko horretan dihardutenek ezantza nahiko merke erosten dute Iranen eta nabarmen garestiago saltzen Pakistanen. [Berria - Mundua](#)

Zerbaiten **trafiko** aritua zen, hori ziur. [Jon Muñoz](#)

Iraun zuen epe laburrean, **trafiko** sosa zekarren, ausarki. [Itxaro Borda](#)

2 (hitz elkartuetan)

Emakumeen aurkako indarkeria eta sexu **trafiko** pertsonaren eta gizadiaren aurkako krimenak dira. [Berria - Harian](#)

Afrikako herrialde askok onartu dute giza **trafiko** existitzen dela, baina, txostenaren arabera, gutxi jarri dituzte indarrean haren kontra egiteko araudiak. [Berria - Gaiak](#)

Sei lagun hiltzera zigortu dituzte Txinan, haur **trafikoagatik**. [Berria - Gaiak](#)

Orain bazakiat ziur: animalia-**trafiko** zabiltzak. [Jon Muñoz](#)

Edo beste hau -albumaren hurrengo orria bistaratu zuen-, arma **trafiko** osoa kontrolatzen duena, baina Gobernadorearen oneritzi ari denez libro dabilena. [Josu Landa](#)

Gero arma-**trafiko** ikaragarri hazi ez balitz Pertsiar golkoan. [Iñaki Mendiguren](#)

Militante batek dirua irabazteko, banku edo posta bulego atrakatzeko gain, droga **trafikoaren** posibilitatea proposatu zuen. [Itxaro Borda](#)

Droga kontsumoa eta **trafiko** saihesteko asmoz. [Berria - Euskal Herria](#)

Latinoamerika eta AEB arteko kokaina **trafikoaren** gune garrantzitsua da Jamaika. [Berria - Kultura](#)

Haxik **trafiko** jazartzea leporatzen zion gobernuari eta madarikatu egiten zituen homosexualak begitan hartzen zituztenak. [Patxi Zubizarreta](#)

3 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Organo **trafiko** sare bat izan zitekeenaren lehen susmoak han bertan izan zituzten. [Berria - Gaiak](#)

EAEko Herrizaingo Sailaren arabera, droga **trafiko** sare bat zuten eratuta Bilbon, eta atxilotutako hiru arduradunak ziren. [Berria - Euskal Herria](#)

Gobernuaren kontrako droga **trafiko** akusazioak, gainera, ugari ziren. [Berria - Harian](#)

4 irud/hed

Jean-Pierre Destradek epaileari deklaraturakoaren arabera, influentzia **trafiko** sare bat ezarri zuen 1988 eta 1992 bitartean, Henri Emmanuelli galdegini. [Berria - Euskal Herria](#)

5 merkataritza.

Urtetan odolaren **trafiko** ibili izan gaituk, baina **trafiko** garbian... [Josu Landa](#)

Salgaien **trafiko** legez kanpo da, eta beraz, delitua. [Elena Touyarou](#)

Garai hartan liburuen eta komikien **trafiko** izaten genuen auzoko umeen eta gazteen artean. [Berria - Harian](#)

Badira urte batzuk animalia-**trafiko** handia dabilela Parisen. [Jon Muñoz](#)

Trafiko ilegala egin zuela uste dut, eta orduan ere justutik ez zuten atxilotu. [Pello Lizarralde](#)

Legez kanpoko immigrazio **trafiko** aurretik jardun duten ala ez argitzeko xedez. [Berria - Mundua](#)

Hipoteken oreka berma dezaketen lege jakintsuak, horien hartzekodunek zordunen aurka izan dezaketen akzioa laburtu, arindu eta merke dezaketenak, era-erara datoz **trafiko** horri eusteko. [Andres Urrutia](#)

Trafiko hori korritu tasa eta nazio aberastasunaren gainean eragin handikoa da. [Andres Urrutia](#)

6 ibilgailu zirkulazioa.

Etxe berriak jaso dituzela, **trafikoa** marduldu dela... **Pako Aristi**

Kalean Eibarko udaltzain gehienak ariko dira lanean, **trafikoa** bideratzeko. **Berria - Kirola**

Hurrengo orduetan, berriz, ederki loditu zen elur-geruza, mota orotako ibilgailuen **trafikoa** guztiz eragotziz. **Joan Mari Irigoien**

Autobideak kamioien **trafikoa** ekarriko luke gurera, eta guk ez dugu horren beharrik. **Berria - Harian**

Zubiaren bi muturretan, dozena erdi udaltzainek **trafikoa** geldiarazten eta saihesten zuten. **Aingeru Epaltza**

PSOEren egoitzen aurrean manifestazioa egin zuten eta **trafikoa** moztu zuten zubi batean. **Berria - Mundua**

Trafikoa dezente murrizturik zegoen. **Migel Angel Mintegi**

Oinezkoak ezkerretik doaz, **trafikoa** bera ere ezkerretik joan arren. **Gotzon Garate**

Elurrak bigarren mailako errepideetako **trafikoa** arazoak eragin zituen. **Berria - Harian**

Trafikoaren erdian ziren berriz, motor, auto, kamioi eta autobusez inguraturik. **Xabier Montoia**

Parisen metroz mugituko nintzen, beraz, **trafikoa** zurrumbiloen erotzen ibili gabe. **Hasier Etxeberria**

Indiako hiri handietan **trafikoa** nahaste-borraste ikaragarria da. **Gotzon Garate**

Trafikoa ez zen oso sarría, eta aise egin nuen bidea. **Anjel Lertxundi**

Trafikoa motel dabilelako atzeratu gara apur bat. **Berria - Harian**

Trafikoa berriro gelditu zen, taxiaren balaztek kirrinka egin zuten eta bat-batean Ellenek aurrerantzako bultzada bat sentitu zuen. **Lopez de Arana**

Polizia-sirenak gailendu zaizkie **trafikoa** eta euriaren hotsei. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Trafikoko polizia epokakoa da, barregarri samarra. **Harkaitz Cano**

Trafikoko guardia zibil bat hil zutela hantxe ondoan, Billabonan, gure herritik lau kilometrora. **Bernardo Atxaga**

Trafikokoak bezala zeudenan jantzita. **Mikel Hernandez Abaitua**

7 (izenondo eta izenlagunekin)

Ordu horretan ez da **trafiko** handirik izaten, eta erraz aurkitzen dugu non aparkatu. **Patxi Iturritegi**

Trafiko handi samarreko errepidean makina bat ibilgailuk jo didate klaxona. **Jon Arretxe**

Trafiko gutxi dabilela iruditu zait. **Koldo Izagirre**

Trafiko urriko errepidea zen Angiozartik Bergarara bitartekoa. **Juan Luis Zabala**

Trafiko gehieneko orduan garraio sistemari eginiko eraso sorta izan da. **Berria - Harian**

Hotel erraldoiaren azpitik pasatzen zen etorbidearen **trafiko** ugarian lekua aurkitu zuen taxi gorriak. **Ramuntxo Etxeberri**

Union Square-n **trafiko** trinkoa zen. **Iñaki Zabaleta**

Hiriaren bihotza zeharkatzen duen kalea, **trafiko** zaratatsuak itotako Enqelab Hiribidea, Iraultzaren Hiribidea. **Jon Arretxe**

Udaletxeko zubia zeharkatu dugu zerbitzuko udaltzainak zuzentzen duen **trafiko** nagaiaren ondotik. **Javi Cillero**

Kale zikinak, **trafiko** kaotikoa, jende etsia eta deserrotua bazterrik bazter... **Patxi Iturritegi**

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Trafiko hotsa kanpaiek estaltzen dute. **Lourdes Oñederra**

Hainbat taldek ohartarazi dute azpiegitura horrek ez dituela konponduko Bilboko **trafiko** arazoak. **Berria - Euskal Herria**

Toki gutxitan omen dago Iranen adina **trafiko** istripu. **Jon Arretxe**

Beldurra uxatzeagatik, **trafiko**-seinaleak kontatzeari ekin diot. **Patxi Iturritegi**

Ertzaintzak **trafiko** operazio berezia egingo du maiatzaren 1eko zubian. **Berria - Euskal Herria**

Trafiko-polizia erne dabilelako. **Edorta Agirre**

Trafiko zaintzaileak ez ziren inon ageri. **Joxemari Iturralde**

Foruaingoak N-240-A errepidean jarritako **trafiko** kontrol arrunt batean, Ibai Ederra atxilotu zuen. **Eduarne Elizondo**

Bileran **trafiko** eskumenaz ere aritu ziren. **Berria - Euskal Herria**

Ehun eta hamabost **trafiko**-isun jaso ditu etxean. **Karlos Linazasoro**

Guardia Zibilaren **Trafiko** Sailak jakinarazi zuenaren arabera, [...]. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako **Trafiko** Zuzendaritza Nagusiak. **Berria - Ekonomia**

Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila, **Trafiko** Zuzendaritza, 2002. **Iñaki Arranz**

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bilboko portuko kanpo **trafikoa** %27 igo da. **Berria - Ekonomia**

10 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Fernandez harrilita ageri zen, **trafiko** segurtasun delitu batengatik barik, kopiengatik salatzea. **Iñigo Aranbarri**

Trafiko bide-seinale bakoitza edo arbola bakoitza tamaina errealean marraturik. **Iñaki Heras**

Aire **trafiko** kontrolatzaile batentzat. **Berria - Mundua**

11 harat-honata.

Pasaiaik inoizko mailarik gorena jo zuen, ia sei milioi tonako **trafikoarekin**. **Berria - Ekonomia**

Bilboko portuak ere **trafikoa** handitu zuen joan zen urtean: %10,5 **trafiko** guztia kontuan hartuta itsasontzien hornikuntza eta barneko trafikoa barne, eta %6 merkantzien **trafiko** soila aintzat hartuz gero. **Berria - Ekonomia**

Nekezia handiak izan ditu merkatal ganbarak enpresa bat aurkitzen Liverpool-en itsas **trafiko** horren asumitzeko. **Herria**

Merkatal Ganbarak ireki nahi du **trafiko** berri bat Baiona/Liverpool artean, puskaz bete kamioiak garraiatzeko. **Herria**

Trenen **trafikoan** eragina izango du SNCFren grebak. **Berria - Ekonomia**

Mundu honetan, mendea amaitzen ari zela, 18 milioi erabiltzaile berri sartzen zen Interneten hilerio eta urte erdiaz behin **trafikoa** biderkatu egiten da. **Pello Salaburu**

Merkantzien eta turistaren **trafikoa** nabarmen igo da Bilboko Portuan. **Berria - Ekonomia**

Karga ez ezik, petroliontzien **trafikoa** bera ere handitu egingo dela ohartarazi du, bestalde, UNEPek. **Berria - Gaiak**

Italiar merkatariaik merkantzia-**trafikoaren** eragile nagusiak. **Askoren artean**

Indibiduo bakoitza taldeko besteekin komunikatu egiten da, informazio-**trafiko** batean hartzen du parte. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espainiako trafikoko zuzendaritza (3); jaurlaritzako trafikoko zuzendaritzak (10)

trafikoa arazo (4); trafikoa arazo larriak (3); trafikoa arazoa (3); trafikoa arazoak (11); trafikoa arazoak eragin (3); trafikoa arduradunek (4); trafikoa eta (4); trafikoa gutxi (5); trafikoa handi (5); trafikoa handi samarra (3); trafikoa handia (10); trafikoa handiko (4); trafikoa hori (4); trafikoa istripuen (3); trafikoa istripuetan (4); trafikoa kontrol (4); trafikoa mota (4); trafikoa sare (4); trafikoa sare bat (3); trafikoa seinale (3); trafikoa seinaleak (4); trafikoa zuzendaritza (7); trafikoa zuzendaritza nagusiak (3); trafikoa zuzendaritzak (15); trafikoa zuzendaritzaren (3)

arma trafikoa (5); droga trafikoa (45); droga trafikoa leporatuta (4); emakumeen trafikoa (3); errepideetako trafikoa (4); giza trafikoa (10); haur trafikoa (4); haurren trafikoa (6); influentzia trafikoa (3); kamioien trafikoa (3); legez kanpoko trafikoa (4); organo trafikoa (3)

trafikoa arintzeko (4); trafikoa kontrolatu (3); trafikoa leporatuta (4); trafikoa zuzentzen (3)

droga trafikoagatik (3); haur trafikoagatik (3)

droga trafikoak (3)

droga trafikoan (9); trafikoan aritzeagatik (3); trafikoan aritzen (4)

droga trafikoarekin (10)

aire trafikoa (3); droga trafikoa (24); droga trafikoa kontrako (3); emakume trafikoa (4); giza trafikoa (6); giza trafikoa arrazoiak (3); hiriko trafikoa (3)
trafikoa aurka (3); trafikoa aurkako (5); trafikoa burrunba (3); trafikoa erdian (3); trafikoa gaineko (4); trafikoa kontra (3); trafikoa kontrako (5)
droga trafikari (9)
trafikoa arau (3); trafikoa guardia (5)
portuko trafikua (6)
droga trafikuan (3)

trafikoburu iz trafikoa burura den pertsona.

Eskoil Pertolbide **trafikoburu**. Jose Angel Irigaray

trafikozain iz trafikoa zaintzen duen pertsona.

Trafikozainaren plantak egiten hasi da, ni oraindik oholezko euskarriaren gainean dagoen autora sartu eta, bolante aurrean eserita, dena berriro probatzearen, abiadura-aldagailuarekin ari naizen bitartean. Joxe Austin Arrieta

trafikozale iz trafikatzalea.

Oraino legerik ez izan arren, tematuki zioten Konbentzioa eskalabatasunaren ezeztatze xedetan zela, nahiz kontra agertu ziren kolonietako ordezkariak, landatzaileak, eskalab **trafikozaleak** eta... Basile. Elena Touyarou

trafikua ik trafikoa.

tragadera iz

Amorrua gainetik kentzeko hankapetik ere oihu egin nahi eta ezina, aire **tragaderak** faltan izate hura. Harkaitz Cano

tragatu, traga, tragatzen 1 du ad irentsi.

Bi aldiz **tragatu** zuen listua, kontakizuna prestatzeko. Anton Garikano

Listua **tragatu** du senarrak. Jokin Muñoz

Emakumeak latorrizko katilu tantodun batetik ura **tragatu**, eta gehiago eskatzeko luzatu zuen. Anton Garikano

Mastekatu eta **tragatu** egiten din. Anton Garikano

Nik whiskya hutsik ezin diat **tragatu** ... zerbait nahastuko zioagu! Pako Aristi

Ezin dute erre baina bezeroen kea **tragatzer**a behartuta egongo dira. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Autoak, dio Ernestek, **"tragatu** egin zituen kilometroak; Burgosko taberna zaharrea -aspaldikoan?- lotu ginen". Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
mastekatzen eta tragatzen (3)

tragatze iz irentsea.

Tragatze eta algara hotsa entzuten dinat. Anton Garikano

tragaza iz gezia.

Jelosiak nehoiz ere jo izan banau, orduantxe jo ninduen, eta jelosiak bihotz hondoraino sartu zidan bere **tragaza** pozintsua. Joan Mari Irigoien

Kupidok, artean, **tragaza** bat gordetzen zuela enetat bere buirakan. Joan Mari Irigoien

Mugaraino izutzen baduzu, bapatean **tragaza** moduan zeure buru gainetik pasa eta atzera bere lurralde barnera itzuliko zaizu. Patziku Perurena

tragedia (405 agerraldi, 94 liburu eta 119 artikulutan; orobat **trajedia** 37 agerraldi, 21 liburu eta 6 artikulutan; eta **trajeria** g.er.) 1 iz gai goibel edo latz batez diharduen eta halabeharrez zorigaiztoko amaiera duen antzerki lana; obra mota honek osatzen duen antzerki generoa.

Bestela galdūko da eta hilen, Grezia zaharreko **tragedia** hil zen bezala, Euripides batek banalizatū zūalarik. Herria

Euripidesen **tragedia** bat ikustera joan zēn egun batean, goiargiak joa sentitu zen Misiako errege Telefono hantxe agertu zenean. Juan Garzia

Hamabi urte zituela bost ekitalditako **tragedia** bat idatzi zuen. Josu Zabaleta

Bien bitartean, **tragedia** bat idatzi zuen frantsesez, *Salome*, 1896an Parisen estreinatua. Antton Olano

Teatro pixka bat eginez, **tragedia** bat jokatzen ari den aktorea banintz bezala. Joan Mari Irigoien

Horregatik du norberak bizi beharra, gaur egun ere, Ediporen **tragedia**. Joseba Zulaika

Garai hartan, hain zuzen, antzerkia zen literatura-adierazpen nagusietariko bat, komedia zein **tragedia**. Juan Garzia

Tragediaren eta komediaren osagaiak nahasten ditu lanak. Berria - Kultura

Kalbarioko hura teatroa zela: ez **tragedia**, komedia hutsa baizik. Joan Mari Irigoien

Tiresias da perpaus harrigarriaz gehien eta hobekien gogoratzen [...] horrelako gauzak ahoskatze ohitura handia zuelako, jendea zorionera bideratzeko ala **tragediara** desbideratzeko Oidipos gaiztoa nola. Itxaro Borda

Funtsean, **tragedia** *poiesis* da, obra baten produkzioa, errealitatearen imitazioa, *mimesis*, baina ahaztu gabe ekintza ere badela. Askoren artean

Eta eromen baten ume den greko zaharren **tragedia**, ez ote zuen sortuko atseginak, indarrak, sasoi beteak, betetasun handiegiak? Iñaki Segurola

Tragediaren punturik gorena iritsi da. Martin Anso

2 irud/hed

Tragedia modernoak fedea galtzeru behartu eintzaren kintza du: ez duzu zure bizitza eskaintzen, zure azken begiratu duzu egia izenean.

Joseba Zulaika

Haren erantzuna zuzena balitz, esan nahiko luke giza bizitza **tragedia** bat dela katarsirik gabe. Iñaki Mendiguren

Horra hor Singerran (eta bere pertsonaiaren) **tragedia**: ezin judu izan, judu ez izan nahi eta ezin judu ez izan. Koro Navarro

3 ezbehar samina.

Zoritxarra **tragedia** bihurtu da... -hasperen egin zuen-. Migel Angel Mintegi

Madame L'Españe eta haren alabaren heriotzen **tragedia**. Koro Navarro

Zinegotzigorako hauteskunde kanpainan, uholdeen **tragedia** gertatu zen hartan. Bego Montorio

Orduan, gau batean, **tragedia** gertatu zen. Julen Gabiria

"Pitzadura bat elur izoztuan" ipuinean, **tragedia** bat gertatzen da elurraren eraginez. Bernardo Atxaga

Plaza isilean, musikatxoaren oihartzuna zabaldu zen, jostailuzko zaldi bat airean **tragedia** baten iragarpen-jolasa egiten ari balitz bezala. Juan Kruz Igerabide

Umeak, edozein **tragedia** kontatzeko, modu oso labur eta grafikoan egingo du. Ana Urkiza

Zoritzarreko egun haietako **tragedia** ahazten hasi zitzaionean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Garai baten epigono izatea, horra D'Annunzioren **tragedia**. Anjel Lertxundi

Handik gutxira hasi nintzen nire buruan **tragediarik** gorenena sufritzen, **tragedia** guztietan sakonena, nahi baduzue: banalitatearen **tragedia**. Matías Múgica

Jendea zorionera bideratzeko ala **tragediara** desbideratzeko Oidipous gaiztoa nola. Itxaro Borda

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Osaba Cesare gero aktorea batekin ezkondu zen, eta hori **tragedia** handia izan zen gure amonarentzat. Fernando Rey

Lehen kontakizunetan, jende xumearen eguneroko bizitzako **tragedia** txikiak kontaktzen zituen, erruki handiz. Jose Morales

Omagh **tragedia** izugarria izan zen nazio irlandarrarentzat. Berria - Mundua

Umea porroak erretzen hasi dela eta **tragedia** lazgarri baten moduan aurkezten du erreportaiak gertaera, *cannabisari* gaitz hauek denak egotziz. Pako Aristi

Liburu eta film erotikoetan ikusitako **tragedia** sentimentalak! Fernando Rey

Tragedia handi bat, shakespearearra, biblikoa. Iban Zaldúa

Istori bitxi horren atzean benetako **tragedia** bat zegoela igartzen zen, edo hala sumatzen nuen nik behintzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Gurea bezalako lasaitasun-egoera bat iraina da jelosiazko, bekaitezko eta ergelkeriazko **tragedia** etengabe batean bizi den jende horrentzat. Josu Zabaleta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Napumoceno jaunak aitortzen zuen gerokoei jakinarazi nahi zela [...] bizimodua beste ezer baino gehiago hondatu zion maitasun **tragedia** hura. Bego Montorio

Artistak [...] arimaren sotoetarainoko jaitsiera zein han aurkitutakoak -giza **tragediak** eta giza komeriak- deskribatzen dizkigu, bere burua baita idazleak hurbilen duen mundua. Anjel Lertxundi

Emakume haren atzapar eskarlata-kolore zorrotzek giza **tragedia** bezain sakona zen gutizia adierazten zuten. Koro Navarro

Hor duzu bake arrazoi nagusia harrapatuko, zure barne-**tragedia** etorkizun kanta iziotuz apainduko zaizunean. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gure tragedia (4); **tragedia handi** (4); **tragedia handia** (4); **tragedia iragartzen** (3); **tragedia izan** (3)

tragediagile iz tragediak ontzen dituen egilea.

Berorri halako atsegin zitaizkion haiek berak, hiriko **tragediagileak**. Juan Garzia

tragediatxo iz tragedia txikia.

Egunen batean bere adiskidearen maitasun haiek negar eta aienezko **tragediatxo** batez amaituko zirela ziur jakitea, andre Leonarda garrasika eta Nini alditxartuta, ez zekarkion batere atseginik. Josu Zabaleta

tragiko (orobat *trajiko g.er.*) 1 izond tragediari dagokiona.

Horren ondorengo isilunean, antzele **tragiko** baten gisako ahotsa entzun zen deklamatzan: [...]. Jon Muñoz

Emakumearentzat ilepaintedgia, antzinako grekoentzat teatro **tragikoa** zen bezala, gizon gehienentzat futbol estadioa den bezala, katarsia egiteko lekua da. Joseba Sarrionandia

Abraham ez da inoiz heroi **tragiko** bat izan [...] hiltzaile edo sinesle bat izan zen. Joseba Zulaika

Mintzaldi **tragikoa**, bere maskararen mailara jasoa espero dut, hileta kantu bat. Monika Etxebarria

2 zorigaiztokoa.

Baina etsipenak jo ninduen handik lasterrera egunkarien bidez Hemingwayren heriotza **tragikoaren** berri izan nuenean. Edorta Jimenez

Gaur arte luzatu du ETAk Etxebarrietarekin hasitako euskal abertzaletasunaren tradizio **tragikoa**. Joseba Zulaika

Mundu periferikoan morrontza **tragikoa** eta European XIX. eta XX. mendeetan gertatu diren hondamendi sozialak eta politikoak. Koro Navarro

Mendebaldeko historiaren aro modernoa burutua zela, esperientzia **tragikoz** beteriko aro postmodernoa hasteko bakarrik. Iñaki Mendiguren

Euskal historia **tragikoaren** ildo tradizionala moztuz, eskoletarik haste, legalitatearen kultura bat haz liteke, etsaiaren kontzeptua ezabatuz. Itxaro Borda

Nire bizitzaren zentzu **tragikoa** hori zen: gazte zital baten biktima zorigabea izatea. Matías Múgica

Horrela esanda badirudi kutsu **tragiko** bat daukala, paradisuaren galeraren antzekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Itxaropenik gabeko fanatismo **tragiko** hori. Eduardo Matauko

Zu zara istorio **tragiko** horren guztiaren amaiera zoriotsua. Oskar Arana

Pekingo plaza horretan ikasleek, langileek eta intelektualek duela 15 urte egindako manifestazioen bukaera **tragikoak** egin zuen ezagun. Berria - Mundua

Modu **tragikoan** erakutsi dute bi Mundu Gerrek ororen gainetik pentsamolde arrazionala gurtzen duen zibilizazio horren gainean irrazionaltasunak duen indarra. Koro Navarro

Ez da **tragikoa**, izugarria da: etsipen lehorra, malkorik eta errukirik gabea adierazten du. Monika Etxebarria

Isilunea **tragikoa** iruditu zitzaidan: akabera zen, heriotza. Monika Etxebarria

Bada frantses idazle baten esaera bat, **tragikoa** izan nahi duena, eta guztiz irriagarria dena. Josu Zabaleta

Ondorioa ironikoa eta **tragikoa** izan zen. Iñaki Mendiguren

3 (izenondo elkartuetan)

Kartzela garai hartatik, anekdota **tragiko**-komiko batzuk baizik ez zizkidan kontatu. Joxan Elozegi

Antiheroi **tragiko** erromantikoa zen Jean Gabin. Berria - Kultura

· Kutsu epiko-**tragikoa** dukeen edozein gaitan erabil daitezke, haien funtzioa ez baita gaia garatzea, baizik eta aurrez esandakoa indartzea. J. Garzia / A. Egaña / J.

Sarasua

Gertaera grotesko eta irrimangarriek, dena dela, ez diote gizatasun izpirik ere kentzen historiari, aitzitik, gertakera komiko **tragikoen** aldean nabarmenago gelditzen da pertsonen miserien, ahulezien, irriken eta bizi-pozen indar eta balioa. **Fernando Rey**

• 4 iz tragediagilea.

Homero osoa: Odisearen hamabi dozena bertso desberdin; **tragikoak**: Eskilo, Sofokles, Euripides. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
gertaera tragiko (3); **tragiko samarra** (3)
amaiera tragikoa (4); **subjektu tragikoa** (4); **tragikoa da** (7); **tragikoa izan** (5); **tragikoa zen** (4)
modu tragikoan (4)

tragikoki *(orobat trajikoki) adlag* era tragikoan.

Rosamonde **tragikoki** hil zen, printze batek begiz joa. **Juan Garzia**
Biloak hori eta eder, Marilyn Monroe, Hollywoodeko bizitza kitzikagarriaren ikur eraginkorra, **tragikoki** hil izan da igandean. **Itxaro Borda**
Zuek biok **tragikoki** burua galdu duzuela haren gorputz hondatua ikustean. **Iñaki Mendiguren**
1987an, Ruth, **tragikoki**, gaixotu, eta, minbiziarekin borroka etsian ahitu ondoren, hil egin zen. **Xabier Olarra**

tragikomedia *(orobat trajikomedia g.er.)* 1 iz antzerki lana, osagai tragikoak eta komikoak biltzen dituen.

Erigone eta *Mirame* **tragikomediak** inprimatu zituen Salmoen itzulpen batekin batera. **Juan Martin Elexpuru**

2 alde komikoak eta tragikoak dituen gertaera edo egoera.

Berriro ikastolara, ume honen irria eta haren negarra, hemen dago biharko esperantza, beste irri bat, beste negar bat, **tragikomedia** bat dirudi, **tragikomedia** bat da. **Joan Mari Irigoien**
Hargatik dute eta izan dute erlijioak, astrologiak, mistika berritsuak eta amodio kosmikoak horrenbestearainoko sarrera eta arrakasta neska, andre eta atsoetan, eta hargatik dira errua eta errudunak horren premiazko pertsona gajoaren bizitzako **tragikomedian**. **Iñaki Segurola**

tragikomediatoxoa iz tragikomedia txikia.

Omnibus batean, egun batez, eguerdi aldera, jarraian doan **tragikomediatoxoaren** lekuko izatea suertatu zitzaidan. **Xabier Olarra**

tragikomiko *izond* osagai tragikoak eta komikoak dituen.

Pasarte gogoangarri eta umore **tragikomikoz** mukurua beterik. **Markos Zapiain**
Elezaharren batetik ateratakoea zirudien duintasun **tragikomiko** batez mintzaten zen Noraren aita mundu berriaz. **Anjel Lertxundi**
Kalisto eta Melibearen amodio **tragikomikoak**. **Berria - Kultura**
Eleberria tresna egokia izan liteke euskararen ataka petralak euskaldunoi dakarzkigun pasadizo **tragikomikoak** adierazteko. **Markos Zapiain**
Aurpegi serioa zeukan, **tragikomikoa** ia. **Unai Elorriaga**
Beste testua, berriz, **tragikomikoa** da, japoniar bati buruzkoa. **Bernardo Atxaga**
Anfetamina dagoela, kokaina dagoela, ketamina dagoela edo beste *inaren* bat (droga **tragikomikoak** aipatzeagatik, jenero heroikoa modatik pasatuxea dagoen honetan). **Iñaki Segurola**

tragikotasun *(orobat trajikotasun) iz* tragikoa denaren nolakotasuna.

Ezaugarri horiekin neurtzen den **tragikotasun** heroikoa ezin da **tragikotasun** modernoarekin ulertu. **Askoren artean**
Drama ezin da antzeztu, bila ari diren autorea falta delako; eta, drama horren ordez, pertsonaia horien alferreko ahaleginaren komedia antzeztu da, arbiuatuak izateak ahalegin horri ezartzen dion **tragikotasun** guztiarekin. Rol horretan Myerst tenoreak liriko mailan zuzen abestu eta antzeztu zuen baina **tragikotasun** gehiago eskatuko genioke ahots dramatikoa goarekin. **Josu Zabaleta**

trago *(orobat tragu g.er.)* 1 iz behingoan ahoratzen edo irensten den edari kopurua. ik **hurrupa**; **zurrupada**.

Aitak, gaztari bultzatu beharraren aitzakiaz, azkeneko **tragoa** eskatzen zion. **Anjel Lertxundi**
-Jarri beste **trago** bat, putakumea -esaten dit-. **Koro Navarro**
Tragoa ipiniko dizut ala popatik hartzera bidaltzea nahi duzu? **Sonia Gonzalez**
Ateraidak ardoa, **trago** bat behar diat eta. **Pedro Alberdi**
-Beste **trago** bat behar dut -eten zidan. **Edorta Jimenez**
Nahi al duk beste **trago** bat tabernaren kontura? **Lopez de Arana**
Trago batzuk kendu genizkion hasita zeukaten xanpaina-botilari. **Inazio Mujika Iraola**
Orduantxe kendu zion lehen **tragoa** konbinatuari. **Josetxo Azkona**
Juliok ordaindu zituen **trago** guztiak. **Harkaitz Cano**
Tragoaren azkenetan, arnasa eztarrian trabatu zaiola ematen du, eta ez tulka hasi da Agustin. **Anjel Lertxundi**
Trago baten premia nuen, alajaina! **Migel Angel Mintegi**
-**Trago** batera gonbidatuko zaitut gaur ere -esan zuen gizon lodiak-. **Matías Mujika**
-Lehenik eta behin **trago** bat. **Migel Angel Mintegi**
Basoa erabat hustu nuen, beste **trago** batez. **Anjel Lertxundi**
Trago bakar batean husteko gehitxo geratzen zela deliberatu zuen. **Harkaitz Cano**
Hator hona eta buka dezagun **tragoa**. **Aingeru Epaltza**
Filmen ondotik izanen da solasaldi bat, **trago** baten inguruan. **Herria**
Aratsean, **trago** ta pintxo eta dantzaldia. **Herria**
Zigarro bana erre genuen **tragoei** laguntzeko. **Anjel Lertxundi**
Haiek ere gehienez **tragoen** truke joko zutela imajinatu nuen. **Jon Arretxe**
Tragoz trago, Ximurrarenganako nire susmo txar gero eta zehatzagoen partaide egin nuen Charly. **Aingeru Epaltza**

2 (edan eta kideko aditzekin)

Klasetik landa Kattalinekin **trago** batzuen edateko esperantza baduelako. **Eneko Bidegain**

Trago bat edan zuen muturretik. Fernando Morillo

Ez izan eskergabea eta gonbida nazazu **trago** bat edatera. Migel Angel Mintegi

-Hartuko dugu **trago** bat? Unai Iturriaga

Mostradorera joan, basoerdi bat eskatu eta **trago** batean hartu zuen. Anjel Lertxundi

Badakit Euskal Herriko edozein herritan **trago** bat hartu eta mokadu bat egiteko lagunak topatuko ditudala; zer gehiago eska dezaket? Berria - Ekonomia

Weathersek beste **trago** bat behintzat harrarazi zien beraren kontura. Irene Aldasoro

Tarteka-tarteka beren pinta beteko edontzi handietatik **trago** batzuk egiten zituzten, eta tabakoa erretzen zuten. Irene Aldasoro

Nik melokotoi-zukuari **trago** bat egin nion, ezer erantzun gabe. Juan Kruz Igerabide

Mostradorera itzuli eta **tragoa** egin nion kafeari. Anjel Lertxundi

Gauerdi baino lehentxeago sartu nintzen tabernara, **trago** bakarara egin eta berehala alde egiteko asmoan. Matias Múgica

Bada hemen denok **trago** bana egiteko adina. Koro Navarro

Goazemak **trago** bat jotzera, zer arraio! Lopez de Arana

Beste **trago** bat joko nion, baina hutsik zegoen botila. Xabier Mendiguren Elizegi

Tragoa jo nion osterara kopari. Anjel Lertxundi

Beste **trago** bat jo zuen botilatik. Joxemari Urteaga

Har ezak ematen zaiana, eta jo ezak **tragoa**. Juan Garzia

3 (izenondoekin)

-Pentsatzen nuen, bail -esan zuen izeba Margek, brandy- **trago** handi bat eginez. Iñaki Mendiguren

Diannek **trago** txiki bat egin zion kafeari. Fernando Morillo

Trago luzea eman zion garagardoari, atsegin handiz. Migel Angel Mintegi

Beste Keler luze bat eskatu zuen, lehena hiru **trago** luzetan edan eta gero. Iñaki Iñurrieta

Basokadaren erdia baino gehiago hustu nuen **trago** luze batez. Jose txo Azkona

Bermuta hartuko dut gizon bakartiaren itxuran, leihatila ondoan eserita, urrunera begira, **trago** laburrak eginez. Pako Aristi

Ardo-kopa jaso, **trago** laburra jo, eta Mathilde eta Norari zuzendu zitzaien: [...]. Anjel Lertxundi

Trago eder bat edan, eta gero zuzenean joan zen harira. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Salomonek zenbait ur **trago** hartu behar izan zituen, zer egin ez zekiela geratu baitzen. Te- **trago** handi bat egin zuen, bibotea lehortu eta jarraitu zuen-: [...]. Julen Gabiria

Zalantzarik gabe, on egingo lioke limonada **trago** batek. Patxi Iturritegi

Eloyk garagardo **trago** luzez xamurtu zuen eztarriaren lehorra. Unai Iturriaga

Pendulu-erlojuari begira-begira jarri da, bistarik kendu ere egin gabe ardo **trago** bat egin du. Xabier Etxabe

Vodka **trago** bat hartu, eta aurrera egin du: [...]. Iban Zaldua

-Pentsatzen nuen, bail -esan zuen izeba Margek, brandy- **trago** handi bat eginez. Iñaki Mendiguren

Guztiek antidoto- **trago** bat hartu eta handituak jaitsi zitzaizkienean, Snape Goyleren pertzera hurbildu zen. Iñaki Mendiguren

Eguna garbi eta eguzkitsu zetorren, amarrurik gabea, doratua, Cutty Shark **trago** bat bezalakoa. Harkaitz Cano

5 (neurri gisa)

Trago bat whisky edan edo emakume bati betiko agur esan, aurpegia batere mudatu gabe egingo duena. -Aizu, emaidazu **trago** bat esne. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero, **trago** handi bat ur jo zuen, gargarak egiteko edo. Jon Muñoz

6 (neurri gisa)

Eta bere basotik azken **trago** ardoa edan zuenean, berriro ere bat-bateko beldur hura gaindu zitzaion. Matias Mujika

7 irud/hed

2001ean txapelaren ezti gozoa dastatu zuen, hartaz geroztik, baina, eta azken bi urteetan bereziki, **trago** garratza egokitu zaio buruz burukoa. Berria - Kirola

Itxura guztien arabera, promesa egin izango zion bere buruari ondorengoek ez zutela berak pasatu zuen **trago** txarra pasatuko sekula. Arantxa Iturbe

Ikusi duela nire argazkia prentsan; bezperakoa ez zela **trago** gozoa izango; beste atentatu bat izan dela eta gazte batzuk atxilotu dituztela. Anjel Lertxundi

Itsuenak ikusten du, baina, **trago** ezinago mingotsa behar duela izan, larrietan larria. Jon Alonso

8 *tragoan* trago bakarrean.

Neskak ardoa ekarri dionean basoa erdiraino bete eta **tragoan** edan du Lainezek. Pello Lizarralde

Garagardo **tragoan** irentsi eta Mikeli gauza bera egiteko agindu zion. Unai Iturriaga

Kopa hustu zuen **tragoan**. Anjel Lertxundi

Tragoan hustu zuen edukia. Unai Iturriaga

9 *trago egin*

Hiletak ez baitira hiletak zintzurra busti gabe, neronek proposatu nuen **trago egitera** abiatzea. Upakada bat ke arnastu eta lehentxeago ezpain ertzera hurbildutako edalontzitik **trago egin** zuen. Aingeru Epaltza

Kantua amaitu zutenean, ardotxo txuritik eta kolore guztietatik **egin** zuten **trago**. Anjel Lertxundi

Neskak Mikel askatu eta **trago egin** zion garagardoari. Unai Iturriaga

-**Egiok trago** eta ahantz astopito horretaz -eskaini zion Ttipik botila. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardo trago bat (3); beste trago bat (27); bi trago (4); garagardo trago (4); garagardo trago luze (3); hiru lau trago (3)

trago bakar (10); trago bakar batean (3); trago bakar batez (7); trago bakarrean (3); trago bana (3); trago bat (128); trago bat edan (8); trago bat egin (9); trago bat egiteko (3); trago bat eman (5); trago bat hartu (13); trago bat hartzeko (5); trago bat hartzen (5); trago bat hartzera (7); trago bat jo (5); trago bat jotzera (3); trago bat nahi (3); trago batez (9); trago batzuk (14); trago eder (4); trago eder bat (4); trago egin (5); trago handi (5); trago handi bat (5); trago luze (16); trago luze bat (10); trago luze batez (3); trago luzea (13); trago luzea eman (4); trago pare (3)

azken tragoa (4); lehen tragoa (3); tragoa egin (4); tragoa eman (8); tragoa eman zion (4); tragoa jo (8)

tragoan hustu zuen (3)

tragoen truke (3)

tragua jo zuen (4)

tragoaldi iz trago edanaldia.

Hunen sustenguz, ortzirale huntan, otsailak 16, aratseko 8-etarik goiti, "**tragoaldi**" bat muntatua da Sarako gaztetxean. Herria

tragokada iz tragoa.

Eta baieztapen haren egiazkotasuna frogatzeko edo, **tragokada** ederra jo zion botilari. **Alberto Ladron Arana**
Noizbehinka *schnaps* nazkagarri hartatik **tragokada** bat edanez. **Alberto Ladron Arana**
Ezkutuan ohera sartu eta bi **tragokada** eman nizkion ikore ilunari. **Alberto Ladron Arana**

tragokide iz norbaitentzat, harekin trago egiten duen persona.

Hura izan zen nire gau hartako **tragokide** bakarra Euskal Herrira iritsi aurretik trenan utzi zuena. **Berria - Kirola**

tragoño iz tragotxo.

Hautentzat kirola eta mahaina elgarri lotuak baitira, hor berean errekiak janen dituzte eta **tragoño** bat edanen... **Herria**

tragoska ik tragoxka.

tragotxo (20 agerraldi, 9 liburu eta artikulu 1ean; orobat tragutxo g.er.) 1 iz trago txikia. ik tragoxka.

Gaztari bultzatu beharraren aitzakiaz, azkeneko tragoa eskatzen zion, leungarri eta guzti, **tragotxo** eskatzen baitzuen beti. **Anjel Lertxundi**

Tragotxoren bat edan eta hor konpon dena! **Mirentxu Larrañaga**

-Et, uztazu, azkeneko **tragotxo** hartuko dut. **Anjel Lertxundi**

-Eguedian, **tragotxo** batzuk egin eta biztu egiten zara. **Xabier Amuriza**

-Jo **tragotxo** bat, jan zeozer -aholkatu nion. **Edorta Jimenez**

Kaxkarina zen, **tragotxo** sarri behar izaten dutenetakoa. **Pako Aristi**

2 (hitz elkartuetan)

Zalantzan egon da Dylan ardo **tragotxoren** bat, edo anisa, zerbait gosariaren laguntza gisan ekarri edo ez, baina ez zaio iruditu, goizeko ordu hauetan. **Pako Aristi**

Gogoko zuen han garagardo **tragotxoak** jotzea eta bolo-jokoan ibiltzea, eta gogoko zuen kantuan aritzea ere. **Mirentxu Larrañaga**

3 (neurri gisa)

Hantxe, ondoan bizi zela, eta nahi banuen gonbidatuko ninduela **tragotxo** bat ardo edatera. **Ramon Saizarbitoria**

tragoxka (82 agerraldi, 42 liburu eta 3 artikulutan; orobat tragoska 4 agerraldi, 3 liburutan) 1 iz trago txikia. ik tragotxo.

Tragoxka bat edan, eta kikara ezpainetatik urrundu gabe adi begiratu zion. **Migel Angel Mintegi**

Tragoxka bana edan genuen eta horrek apur bat hobetu zituen gauzak. **Harkaitz Cano**

Teari **tragoxka** bat egin zion eta pentsatzen jarraitu zuen. **Joxemari Iturralde**

Whiskyari **tragoxka** bat eman ostean, bere bizitzaren kontakizun laburra egin zidan. **Aritz Gorrotxategi**

Ardoari **tragoxka** luze bat eman dio soinujoleak. **Pako Aristi**

Bekatua egin eta gero bekatutik disfrutzea baitator, egongelan eseri zen afalurreko **tragoxka** hartzen. **Unai Iturriaga**

Urduri jartzen hasita nengoen, eta berriz ere beste **tragoxka** bat hartu nuen. **Inazio Mujika Iraola**

Talapasta egin whiskyari edalontzian eta jo du **tragoxka** bat, irribarrez burua gorantz-beherantz mugituz. **Pako Aristi**

Gero, Heineken botilatik **tragoxka** bat jota, zera galdetu du: [...]. **Patxi Iturritegi**

Jubilatuak **tragoxka** kendu zion kafeari, hotsaz xurgatuz. **Jon Alonso**

Cutty Shark botila bat hartu eta **tragoxka** bat zintzurreratu zuen. **Harkaitz Cano**

Tragoxka eta **tragoxka** artean segi zuen hitz aspertua. **Migel Angel Mintegi**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehen ardo **tragoxka** edan arte ondoezik bezala sentitzen baitzen. **Pako Aristi**

Airean utzi zuen esaldia, eta Deerek ezpainak busti zituen ur **tragoxka** batez. **Karlos Linazasoro**

Ene Jainkoa, garagardo **tragoxka** bat, garagardo **tragoxka** bakar bat! Lehen garagardo **tragoxkek**, musikaren erritmo bero eta limurtzailearekin batera, erabat bizkorturik sentiarazi zuten. **Anton Garikano**

Kaxuela baten aurrean, patxada betean, sagardo **tragoxka** lagun... **Pello Zabala**

3 (neurri gisa)

Tragoxka bat kafe hartu zuen Teresak. **Migel Angel Mintegi**

Bere burua salbu ikusita, ostutako barrikote hartatik **tragoxka** bat sagardo edan nahi izan zuen. **Martin Anso**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

garagardoari tragoxka (3); tragoxka bat edan (4); tragoxka bat egin (3); tragoxka bat eman (6); ur tragoxka (3); whiskyari tragoxka bat (3)

tragoxkada 1 iz tragoxka.

Gu, saioa amaitu osteko **tragoxkadarekin**, saioaren analisisa egiten eta geure buruaren lana ebaluatzen hasi ginen. **Andoni Egaña**

-Hau ez baina lehenagokoa bai, nik uste -erantzuten nion zerbezari beste **tragoxkada** egin aurretik. **Joxemari Iturralde**

Lucyk beste **tragoxkada** bat egin zion teari. **Joxemari Iturralde**

Anselmo, gin-tonicari beste **tragoxkada** egin ondoren, zutitu eta harengana joan zen. **Joxemari Iturralde**

2 (hitz elkartuetan)

Besterik gabe Ludwigen ondoan eseri nintzen eta bere botilatik garagardo **tragoxkada** kendu nion. **Joxemari Iturralde**

3 (neurri gisa)

Beste **tragoxkada** bat gin-tonic tonifikatzaile honi. **Joxemari Iturralde**

tragoxkaka adlag tragoxkak eginez.

Gorputzak egokitzapen bortitza gaudituta, **tragoxkaka** lotu nintzaion hirugarrenari. **Aingeru Epaltza**

tragu ik **trago**.

tragutxo ik **tragotxo**.

trahitu ik **traditu**.

trahitzaile ik **traditzaile**.

trahitze ik **traditze**.

trahizio ik **traizio**.

trahola 1 iz ipar egiteko lantsua.

Sortuz geroztik Maianak ez zituen orenak sekula alferrik higatu; beti bazuen zerbait egiteko, etxea garbi, poallak bazka, ardiak jetzi, sasoiko **traholak**, haurrak ala arrahaurrak. **Itxaro Borda**

Ez deiot orano ihardetsi, **trahola** franko beität mementoko ene pastoralarekin, bena xedea badüdala jakinarazten deiot hebertik. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Otsabiden edonor beste mundura eskapatzen zenean, fede **trahola** guztien aitzina eramateko prest zegoen, arima bekatorosak zerura hupa zitezen bidean sobera denborarik galdu gabe alainan. **Itxaro Borda**

traidore 1 iz saldukeria egiten duen pertsona.

Traidore, heroi, sator, salatari, azpijoko eta maltzurkeriei buruzko nobelak idazteko material itzela. **Jon Alonso**

Traidorearen eta heroiaren gaia. **Berria - Kultura**

Ekintza heroikoz osatzen zelarik ETArekin kontaktuz, **traidorea** heroia bezain garrantzizkoa zen. **Joseba Zulaika**

Erresumako zaldunek **traidore** batekin ezkondu nahi naitek. **Juan Kruz Igerabide**

-Patriaren **traidore** gisa, konspiratzaile gisa, eta etorkinak laguntzeagatik... errezitatu zuen. **Elena Touyarou**

Baina gaur heroi dena bihar **traidore** bihur daiteke. **Felipe Juaristi**

Traidoreak oso-osoa bete zuen bere burubide zitela. **Karlos Zabala**

Traidore horrek, handinahi zoroa eta gorroto bizia zainetan, Siberiako bide nagusia mozteko antolatu zuen mugimendua. **Karlos Zabala**

Mordret **traidoreak** hala esan zien orduan: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Inork ezin zuen igarri tsarraren mandatari uestezko hori **traidore** bat besterik ez zela. **Karlos Zabala**

Erregea **traidore** ekarria izan zen eta haren lekutzea eskaturik, errepublika baten aldeko bozak aditu. **Elena Touyarou**

Badakit ez zarela **traidore** bat, Ziriako. **Koldo Izagirre**

Anaia salatzen badut, ez al naiz **traidore** nire jendearekiko? **Berria - Kultura**

Independentziaren gailurra lortzeko mendiari bueltak ematen igotzeagatik **traidore** izatea leporatu ziguten. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondoekin)

-Ni **traidore** handiena naiz eta ez dut inolako onik merezi. **Askoren artean**

-Hik, **traidore** zikin horrek, gogoan izan mendietan genbiltzanean zazpi aldiz salbatu niala larrua. **Koldo Biguri**

- **Traidore** doilorra! -esan zuen. **Irene Aldasoro**

Ez izan **traidore** zital horien gupidarik. **Elizen arteko biblia**

Justizia eske etorri naiz, **traidore** etoi horren burua eskatzera. **Xabier Olarra**

Desleialak baitira guztiak, **traidore** hutsak denak. **Elizen arteko biblia**

Berteak hilak edo -**traidore** desleialak!- beren herri espainolduetara itzuliak ziren. **Aingeru Epaltza**

Gizon ona batzuentzat, **traidore** alu bat besteentzat. **Iñaki Seguro**

-Kakazaharra, **traidore** puta horiek, kakazaharra. **Edorta Jimenez**

Gol **traidore** horrek zuen aitarekin egin zuen moduan. **Joanes Urkixo**

3 (hitz elkartuetan)

Halaxe kizkaliko zuten Aiketako gaztelu zaharra, eta baita hango etsai eta **traidore** tropa guzira ere. **Patziku Perurena**

Traidore eta faltsu fama dugu bai, apurtxo bat. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

4 (izenondo gisa)

-Ehunka apez eta noble **traidore**, denak lerro-lerro, sokatik dilindan! **Aingeru Epaltza**

Guduketa latza izana zela papista **traidoreen** eta erreformazale fidelen artean... **Aingeru Epaltza**

Epaitu zuten eta heriotza-zigorra ezarri zioten, altxamendua eta tsarraren aurkako maxtinada antolatzen jarduteagatik, gerrako kriminala izateagatik, ofizial **traidore** eta etsaiari saldua izateagatik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gobernadorearen tropa **traidoreak** atzetik tiroka ari direla. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Franco jeneralak diktadura militarra ezarri zuen Espainia osoan, baina Bizkaian eta Gipuzkoan, herrialde **traidore** izendatuetan, izan zen batez ere gogorra. **Koldo Zuazo**

Gero ontzi **traidore** batzuk izan baziren ere behean sinatzen dugunonak beti izan zaizkio fidel Gobernuari. **Edorta Jimenez**

Doilor **traidore** guztiak konderriko kartzelara eramanean zituen, hura guztia zalditik jaitsi gabe. **Karlos Zabala**

5 irud/hed

Sentimendu **traidore** batek kilika eta kilika egin, eta jakin nahi izan ninan hire berri. **Javi Cillero**

Ahizpak bazekien taberna zuloa **traidorea** zela. **Alberto Barandiaren**

Hizketa guziak dira **traidore**. **Patziku Perurena**

Su **traidore** batek du guzia suntsitu. **Herria**

Gene **traidorea** nigan lanean hasi aurretik. **Arantxa Iturbe**

Baita galleta **traidorearen** marka ere. Txema Ramirez de la Piscina

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

traidore bihurtu (3); **traidore gisa** (5); **traidore izatea leporatu** (3)

traidorea da indigenekin (3); **traidorea izatea leporatu** (3)

heroiak eta traidoreak (3)

traidorearen eta heroiaren (8)

mordret traidoreari (3)

traidoretzat jo (8)

traidoreki *adlag* traidoreen gisa.

Bizkaiko jaun Diego Lopez Harokoak eta Ximeno Ruiz jaun Kamerokoak lagundu omen zioaten, aldez aurretik Los Arkosen Eustaquio Beaumarchaisekin **traidoreki** bilduak baihituan guziak. **Patziku Perurena**

traidoretxo *iz adkor* traidorea. • *irud/hed*

Orduan, nire morroiari gauzatxoak kontatzen hasi zen, odolak nire lokiak mailukatzen zituen, eta nire **traidoretxo**a gero eta handiagoa ari zen bihurtzen. **Juan Martin Elexpuru**

traiektoria (*orobat trajektoria g.er.*) **1** *iz* zerbaitek, espazioan higitzean, egiten duen bidea. **ikibildide 4.**

Airetik itsasontzi bati ematea ur azpian doan arrainari ibaiertzetik jotzea bezain zaila da, kalkulatu behar dituzu zure abiadura, objetiboarena, bion arteko aldea eta bonbarean **traiektoria**. **Koldo Izagirre**

Egotzi harriaren **traiektoria** parabola bat duk. **Joan Mari Irigoien**

Maistrak ogi mamia airean ikusi zuen, eta Zumalderen garondoa jotzen, eta zoruan, eta, atzerantzko **traiektoria** asmatuz, betaurrekoak erantzirik, begi ilun, sakon eta distiratzaille haiekin, Goiori esan zion: [...]. **Joseba Sarrionandia**

Mapa batean hiriz hiriko **traiektoria** marraztuko bagenu bezala. **Harkaitz Cano**

2 irud/hed

Pertsonaiek, lehenetik azkenera arte, beren nortasun propioa dute, haietarik bakoitzak bere **traiektoria** deskribatzen du. **Berria - Kultura**

Filosofiatik begiratuta, Unamunoren **traiektorian** doigabetasun logiko deigarri bat dago afera honen inguruan, ene ustean oraindik aski argitu ez dena. **Joxe Azurmendi**

Beren **traiektoria** intelektualean hegeliario, marxista, heideggeriano eta filosofo handi guztien "post"ak direnez, [...]. **Joxe Azurmendi**

Luzaro inork begiratu ez duen argazki bati norbaitek begiratzen dionean, munduaren **traiektoria** desbideratu egiten da une batez. **Harkaitz Cano**

trailan **1** *adlag* ilaran elkarri lotuta.

Gaurko egunez ohitura zen, etxeko abere-aziendak hartu eta, sokatik **trailan**, itzuli bat edo beste -auzo batzuetan hiru eta zazpi ere bai- emanaraztea; hori dena, aziendak gaitzetik eta ezbeharretatik libratzeko. **Pello Zabala**

2 irud/hed

Elurteak izoztea ekarri zuen **trailan** eta izotz gogorrek iraun zuen 75 egunen segidan. **Pello Zabala**

Gure buruetan neguarekiko dugun txip hori ezin da eroso sentitu, urtarrean eguzki garbitako egunak bata bestearen atzetik **trailan** ikusten ditugunean. **Pello Zabala**

trailer **1** *iz* kamioien atoi handia; atoi handia duen kamioia.

Kamioia, **trailer** hozkailu bat, Donostiako norabidean zihoan Zorrotzako zubitik jausi zenean. **Berria - Ekonomia**

Ryderrek brastakoan geldiarazi du **trailerra** etxeko sarbidean. **Javi Cillero**

Leihoko argi horiaren bestaldean **trailer** bat zihoan pisutsu eta nekez. **Harkaitz Cano**

Eszenatokia: ostiralean eta larunbatean iritsi zen 22 **trailerretan**. **Berria - Harian**

Popalde ederra bai, harena, **trailer** baten parekoa, alajaina! **Aingeru Epaltza**

2 (hitz elkartuetan)

Errepidean zihoazen **trailer** eta auto gidariengan harridura eta izua sorrazten zuten, ezustean [...] Pasaiara korrika ihes egiten zuten iluntasunaren zerbitzari haiek, gauak zurrupaturik desagertzen zirenak gero. **Harkaitz Cano**

3 irud/hed

Informazioaren **trailerrak** zapalduko katuak dirudite gaur egungo hainbat eta hainbat artikulok eta hitzaldik. **Joxerra Garzia**

4 film baten propaganda egiteko aukeratzen diren pasarteen multzoa.

Filmaren **trailerra** aurki ikusteko aukera izango da, Donostiako Zinemaldiaren barruan Euskal Zinemaren egunean, hain justu. **Berria - Kultura**

Ikus-entzunezkoen finantzabidearen tirabiraren erdian, 'Aupa Etxebeste!'-ren **trailerrarekin** ospatuko da gaurko eguna. **Berria - Kultura**

trailu *iz* garia larrinean jotzeko tresna.

Su beraren eraginez, urreak distira egiten du eta kea dario lastoari, **trailu** berak jotzen du galburua eta barreiatzen du lastoa. Ikusten dut aita, nireganantz datorrela, zuhaitz artean lasterka, alkandora ikarak airean duela, **trailuak** jota bezala. **Imanol Unzurrunzaga**

trailutzar *iz* trailu handia.

Trailutzar antzeko bat zebilkion dinbi eta danba, zanpaka; mamia hezurretik tarratatu nahi zion arantza-mutur handi bat balitz bezala. **Mirentxu Larrañaga**

trainera ik **traineru**.

trainerila ik **trainerilla**.

trainerilla *(orobat trainerila)* iz traineru modukoa, txikia, sei arraunlari eta patroarentzakoa.

Gipuzkoako **trainerillen** ligako laugarren jardunaldia jokatu da gaur 11.00etan Mutrikun. **Beria - Kirola**

Trainerillen sasoiari emango zaio hasiera gaur Gipuzkoan eta Bizkaian. **Beria - Kirola**

Trainerilla denboraldia hasi zen iragan asteburuan. **Trainerilla** ligetako azken bi jardunaldiak aste bukaeran jokatu dira. **Beria - Kirola**

Euskadiko **Trainerilla** Txapelketa gaur eta bihar jokatu da Hondarribian. **Beria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskadiko trainerilla txapelketa (3)

traineru *(orobat trainera g.er.)* 1 iz arraunontzi aski handia, gaur egun batez ere estropadetan erabiltzen dena.

Hiru **traineruk** harrapatu zeroi handia. **Koldo Izagirre**

Asturiarrek **traineruak** eta **traineruarekin** arrantza egiteko tresnak saltzeko iritsi ziren. **Beria - Kirola**

Hogeitabi arraunlari abiatuko dira hemendik **traineru** batekin Saint Laurent ibai horretan 500 kilometro egiteko. **Herria**

Noiztik egiten dituzten **traineruak** sirena urdinekin eta pikoletok gidari dituztela? **Harkaitz Cano**

Aita arraunean aritzen zen zarautzarren **traineruan**, "Golondrina" izeneko hartan. **Xabier Etxabe**

Lehen teknika ezinbestekoa zen, eta indarra ere bai, orduan **traineruek** 400 kilotik gora izan baitzezaketen. **Beria - Kirola**

Traineruak zein arraunak karbono edo beira zuntzez egiten hasi dira asko ez dela. **Beria - Kirola**

Launa **traineruko** hiru txandatan egingo dute norgehiagoka. **Beria - Kirola**

Atzo aurkeztu zuten aurtengo Kontxako Bandera; irailaren 2ko kanporaketan zazpi **traineruk** lortuko dute txartela. **Beria - Kirola**

Gaur eguerdian hasiko da Euskadiko **Traineruen** Txapelketa, Lekeition. **Beria - Kirola**

Federazio Ligako **traineruek** jokatu zuten Bilbo Hiria Bandera. **Beria - Kirola**

Traineruen Kluben Elkarteak eta Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxeak akordioa lortu dute. **Beria - Kirola**

2 mozkorraldia.

Eta hori gutxi balitz, senarra ere egundoko **traineruarekin** etorri huen larunbatean. **Unai Iturriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

traineru ariko dira (3); **traineru aritu ziren** (3); **traineru arituko dira** (3); **traineru erregularrena** (3); **traineru kluban elkartea** (10); **traineru kluban elkartek** (4); **traineru kluban elkarteko** (6); **traineru onenek** (4); **traineru onenen** (3); **traineru onenen arteko** (3)

trainerua ateratzea (3)

lehen bi traineruek (3)

traineruen kluban elkarteko (8)

traineruetako tostetan (3)

traizino ik traizio.

traizio *(orobat traizione g.er. eta trahizio g.er.)* 1 iz saldukeria.

Traizioa, amodioaren eta leialtasunaren formarik gorena... hasieran harridura sortzen badu ere, ez da logika gabea. **Joseba Zulaika**

Eraman beharrak zauzkaugu **traizio** eta desleialtasunak, eta guztietan zailena: persona jakin bat gu baino gehiago izatea, bere arimako edo adimeneko dohainetan. **Xabier Olarra**

Ondasun eta mesede zahar eta berriak berenganatuko zituzten **traizioaren** truke. **Aingeru Epaltza**

Lehenagotik aski etsai ez bagenu bezala, geure artean gabiltza diskrepantzia **traizio** bilakatu eta geure arrazoia handiagotuko delakoan. **Hasier Etxeberria**

Airean zegoen Sinbaden ihesa **traizioa** izan ote zen. **Edorta Jimenez**

Traizioa, **traizioa** duk beldurtzen nauena: izaki miserable horren **traizioa**. **Agustin Otsoa**

Traizioa egin zigutek...! **Koldo Izagirre**

Herriari **traizioa** egiten dio herriaren etsaiaz errukitzen denak! **Koldo Biguri**

Dena barkatzen zuenak ez zuen bere dizipuluaren **traizioa** barkatu. **Bernardo Atxaga**

Lancelotek **traizioz** hil zuen nire anaia. **Juan Kruz Igerabide**

Begoñak gupidarik gabe sartu zidan ukondoa saihets artean, eta ez-tul-itxurak egin behar izan nituen **traiziozko** maniobraren ondorioak disimulatzearren. **Patxi Iturritegi**

Borrokarako adorerik ez, eta itsaso zabalean bilatu zuten beren bi **traizioetarako** bidea: egiazko aberriaren kontrakoa, itoazazi nahi izan baitzuten; eta beren adiskideen kontrakoa, ez baitzuten haiek bakarrik uzteko zalantzarik izan. **Inazio Mujika Iraola**

2 (izenondoekin)

Zer egingo, eta **traizio** handi bat asmatu zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Neureari eutsi nion nik eta ez nion deus ere aitortu, **traizio** txiki hark oraindik ere gaizki sentiarazten nauen arren. **Joxan Elosegui**

Traizio inozoez betetako moda-modako telesaila. **Anjel Lertxundi**

Liburu hau oso aberatsa da, eta ondokoa laburpena baino gehiago **traizio** hutsa. **Markos Zapiain**

Ez nekien aitak nola hartuko zuen **traizio** barkagaitz hura. **Alberto Ladrón Arana**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Goi-mailako **traizio**-krimena esaten zaio aberriaren edo honen ordezkari den soberanoaren aurka egiten denari. **Juan Martin Elexpuru**

Krimen arruntetan, Ingalaterrako legea akusatuaren aldekoa da; baina goi-mailako **traizio** krimenetan, ostera, aurkakoa. **Juan Martin Elexpuru**

Malgobernuaren ordezkari nahasmendua ezartzeko **traizio**-saio hutsegina. **Xabier Olarra**

Desdemona gaztearen eta haren senar Otello Zipreko gobernadorearen arteko amodio eta **traizio** istorioa. **Beria - Kultura**

Traizio sentimendua nagusi zen gure armadan. **Alberto Ladrón Arana**

Zimbaweko auzitegi batek **traizio** akusazioaz errugabe jo du [...] Morgan Tsvangirai. **Beria - Mundua**

Errepublikanoek ez dutela inoiz baiezkoren aldeko konpromisorik hartu erantzun die Carod-Rovirak **traizio** salaketei. **Beria - Mundua**

Nork ere ikusi baitu hori, zitalez blaituriko mihiz Fortunaren aurka duke **traizio**-epaia emango. **Juan Garzia**

Ingalaterrako legeek ez dute **traizio** errudun jotzen, traizioaren berri jakin arren, jakinarazten ez duena. **Juan Martin Elexpuru**

4 irud/hed

Bistakoa zen, guretzat, guztia prosa estandarrez ematea **traizio** latza zatekeela. **Juan Garzia**

Jatorrizko zure testuari **traizio** egin, urrunago joaten saiatzeko. **Imanol Zurutuza**

Ai, Max maitea, ohi bezala neure buruari **traizio** egiten ari natzaio! **Ramon Etxezarreta**

Horietao zein oroitzenen egiten dio memoriak **traizio** lehenago. Iban Zaldúa
Edozein txikieria, intuizio ustel edo instintuen **traizio**. Harkaitz Cano
Subkontzientearen **traizioak** dira, edo zergatik ez, subkontzientearen tradizioak. Unai Iturriaga
Tradizioa da tradizioaren **traizioa** ere, Karl Kraussek esana, ezer traizionatzeko idazleak zer traizionatua izan behar baitu eskura. Anjel Lertxundi

5 **traizio egin** ik **traizionatu**.

Traizio egin ziola Masakori, esan zidan ia negarrez. Bernardo Atxaga
Zergatik ez ote zion inork inoiz aipatu lagunik onenak **traizio egin** zielako hil zirela bere gurasoak? Iñaki Mendiguren
Gerora, gau hartan **traizio egin** hidala jakin nuenean, eszena horretaz oroitu ninduan, elkarri esandako hitzak entzun nitian berriro. Xabier Olarra
Horrek Alderdiari txantajea edo **traizio egitea** esan nahi zuen, eta Ostolazak ezin zuen onartu. Migel Angel Mintegi
Zure fedea frogatzeko modu bakarra duzu fede horrexek maitatzeko agintzen dizunari **traizio egitea**. Joseba Zulaika
Azalpen hau bururatzan zait: **traizio egin** duzunean, idaztea da geratzen zaizun azken baliabidea. Joseba Urteaga
Nork **egin** zion **traizio** nori, gerrillari ohiak iraultzari ala buruzagi nazionalistak gerrillari ohiari? · Nirekin estuenik loturik zeuden bi pertsonak iruzur eta **traizio egiten** baitzidaten modurik lotsagarrien eta zakarrenean. Joseba Zulaika
Neure buruari **egiten** nion amarru eta **traizio**, nire ofizioak besteei amarru eta **traizio egiteko** agintzen zidan bezala. Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errepublikari **traizio egin** (3); goi mailako **traizio** (6); **traizio delitua** (3); **traizio egin** (39); **traizio egin ziola** (3); **traizio eginez** (3); **traizio egingo** (5); **traizio egitea** (11); **traizio egitea leporatu** (5); **traizio egiteko** (4); **traizio egiten** (10); **traizio handi** (3)
egindako traizioa (4); **hildakoei traizioa** (3); **traizioa egin** (13); **traizioa egitea** (7); **traizioa egiteko** (3); **traizioa egiten** (4); **traizioa leporatuta** (3)

traizionatu, traizona, traizionatzen 1 du *ad* traizio egin. ik **saldu 4**; **traditu**.

Bolivar **traizionatu** egin zuten bere gizonak, eta hark fusilatu egiten zituen. Pako Aristi
Ai zu, inork hondatu gabeko hondatzaile hori, inork **traizionatu** gabeko traidore hori! Elizen arteko biblia
Sorteria utzi izanaren damuaz hitz egin nahi zuen bat edo batekin, beretarrak **traizionatu** izanaren har halako bat baitzerabilen barruan. Anjel Lertxundi
Santoñan esaten zieten eurek, abertzaleek, **traizionatu** zutela Errepublika. Lutxo Egia
Emakumeak begiko zuen portugesa, baina ez zegoen inolaz ere senarra **traizionatzeko** prest. Martin Anso
Iritsi bezain pronto igartzen baitzaio begiradan beste batekin **traizionatu** gaituelako etorri dela berandu. Harkaitz Cano

2 irud/hed

Ez al dituzu zure zin sakonenak **traizionatu** ? Jon Alonso
Erakusleihu batean islaturik ikusi nuen neure begirada urduriak **traizionatzen** ninduen. Iban Zaldúa
Izan ere, tonuak **traizionatu** zuen. Fernando Morillo
Gure ezjakinean **traizionatzen** ari ginen egiazko zibilizazioak. Josu Zabaleta

traizione ik **traizio**.

traje 1 *iz* jantzi mota, kolore eta ehun bereko jakak eta galtzek edo jakak eta gonak osatua.

Gurasoek ezkontzeko erabilitako **trajeak** nire armaruan zeuden gordeta. Juan Kruz Igerabide
Emakume gutxi ikusiko duzu **trajearekin**. Gotzon Garate
Madril frankismoarekin lotzen genuen: tabernetan eta kaleetan ikusten genituen gizon gehienak, beren bibotetxo, **traje** eta eguzkitako betaurrekoekin, sekretakoak iruditzen zitzaizkigun. Ramon Saizarbitoria
Hiru piezako **traje** bat zeraman, kolore biziko gorbata, eta mahuka-bikiak zituen alkandoran. Koro Navarro
Trajea joskera ederrekoa zuen, aurpegia ere egikera tatxagabekoa. Matías Múgica
Bere **trajea** maiztu samarra zegoela konturatu nintzen. Bernardo Atxaga
Trajearen poltsikoetan miatzen hasi nintzen. Bernardo Atxaga
Pentsatzen hasi zen zegokion dirua eskuratu orduko hamabi **traje** egingo zituela. Pello Lizarralde
Bibotetxo ondo ebakia eta **trajea** jantzen. Iñaki Iñurrieta
Neurriira egindako **trajeekin**. Fernando Rey
Niri izugarria iruditut zitzaidan sekula jantzen ez zuen **traje** batekin osabari lur ematea. Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jantzen zuen **traje** gurutzatuak egokiagoa zirudien Europako hotel garesti bateko hall-ean ibiltzeko, Estatu Batuetako Armadako jeneral bati bisita egiteko baino. Alberto Ladrón Arana
Tipik kartazal zuri bat atera zuen **traje** italiarraren poltsikotik. Aingeru Epaltza
Indioek, **traje** ingeles dotorea erantzi [...] guanako larrua jantzi eta bere tribuko bizimodura itzuli nahi izan zuten berehala. Joseba Sarrionandia
Hirurogeita hamarren bat urteko gizona zen, **traje** beltz eta alkandora zuriz jantzia. Bernardo Atxaga
Traje urdin bat dauka jantzita, zabalegi dagokiona. Oskar Arana
Ehorzleek **traje** grisez, alkandora zuriz eta gorbata beltzez jantzita egin zutela lana. Ramon Saizarbitoria
Ni nahiko formal nago jantzita, *Three Riversen* edo *Visalían* gestioak egiteko erabiltzen nuen **traje** ilunarekin eta polo zuri batekin. Bernardo Atxaga
Traje marraduna jantzi behar duzue? Koldo Izagirre
Harrera ofizialetara beti gorbata eta **traje** lisatu berriak jantzita etortzen da. Edorta Jimenez
Traje berria jantzen dutenean nik gehiago maite ditut nire semeak. Fernando Rey
Aitzineko eguneko **traje** dotorearen partez, niki gorria eta galtza bakeroak zeramatzan soinean. Aingeru Epaltza
Eta **traje** maiztu hura... Anton Garikano
Ez zenuen aurkitzen nire neguko **trajea** ! Fernando Rey
Zure aitaren armadako **trajea** har dezakezu, eta amaren pazko kapelua. Harkaitz Cano
Poliesterrezko **traje** zimurtuak (marroiak gehienetan), betaurreko lodi oskolezko erdzunak, buruan zahia beti. Oskar Arana
Tertziopelozko **traje** beltza eta bufanda gorria jantzita. Jasone Osoro
Txikienak harizko **traje** bat zeraman. Fernando Rey
Paisanozko **traje** batzuk, besterik ez. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haize freskoa bezala pasatu ginen arraia diplomatikoko bulego **trajea** zeraman gizon baten ondotik. Koro Navarro

Preso politikoak prisionero **trajea** janztera behartu nahi zituztelako. Jokin Urain
Hala begiratuko lieke, beldur naiz, kultura ofizial honetako gorteak gure baskoei ere etiketa- **trajearen** gainetik. Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

traje bakarra (4); **traje bat zeraman** (4); **traje beltz** (6); **traje beltza** (3); **traje berria** (5); **traje berriak** (3); **traje dotorea** (3); **traje gris** (9); **traje grisez** (5); **traje grisez jantzitako** (3); **traje ilun** (6); **traje ilun bat** (4); **traje urdin** (10)

trajea eta gorbata (3); **trajea jantzi** (3); **trajea jantzita** (3); **trajea janzten** (3); **trajea zeraman** (3)

aitaren ezkontzako trajean (5)

trajebuzo *iz* buzo-jantzia.

Behin eta berriro begiratzen dio bere buruari, laneko **trajebuzoa** soinean ez daramala erabat sinetsiko ez balu bezala. Harkaitz Cano

Ez zeukan zertan baina nahiago du horrela, **trajebuzoa** jantzi eta lanean hasi. Harkaitz Cano

Medikuaren bolantea atzeko patrikan, mahoizko **trajebuzoa** etxean. Harkaitz Cano

trajedia ik tragedia.

trajedun 1 *izond/iz*

Erdi-erdian, eta eserita dagoen bakarra, gizon **trajedun** bat, canotierarekin. Iñigo Aranbarri

Mozkorra nekez disimula zezakeen ingeniari **trajedun** batekin. Jon Arretxe

Olerkariak, ez dakit, diot, badu poetak ez duen plus serioago bat, gertuago dago poeta **trajedunetik** zarpailetik baino. Iñigo Aranbarri

Moldakaitzak dira **trajedunak**, gorbata irigarri horiek lepoan loturik. Lander Garro

Trajedun horien aldean hemengo batzuk igande goizean lagunekin txikiteoan joateko moduan jantzita etorri gara. Edorta Jimenez

2 *izlag*

Balkoiko **trajedun** gizona familiako medikua zen. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizon trajedun (3)

trajektoria ik traiektoria.

trajería¹ (*orobat tragedia g.er.*) *iz* pastoralara.

"**Trajería**" da pastoralaren egiazko izena. Herria

Trajería da pastoralara, gei epikoa behar dū, testū bat aski lūzea istoria baten ontsa kontatzeko, eta pūbliik seriusa (nahiz erri egiteko builitak ere badiren, ez beigira Grezia zaharreko edo Frantziako tragedia osoki beltzean, bena bai kiristi **trajería** baikor eta optimistan: honkia nausitzen da heben azkenean, gora-behera handien ondotik).

Herria

Sūjeta, bat eta bakoitxa da: maki ezezagūna, **trajería** gūzian tai gabe dabilana, denak ikusiz eta jakinaraziz. Herria

Pierre Etxebarne zenaren aitak ditu ere Antso Handia pastoralarentzako makilak egin eta, beraz, joan den aste amaierako **tragedia** honek trajeriaren mundua are gehiago durduzatu du. Berria - Kultura

Orotara 15 **trajería** kudeatūren dūtū Battitta errejentak, azkena 2001ean Irurin "Etxahun-Iruri", Michel Arotce "Zartantxū" herritar kantaria lagūn, idazlea zelarik Roger Idiart herriko erretor ohia. Herria

Aspalditik berria zabaldua zen Zuberotan Ligi-Atereik asmoa zuela *Bereteretxe* **trajería** berriz emateko 2005ean. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

idatzitako trajería (3)

trajería² ik tragedia.

trajetxo *iz* adkor traje bakuna.

Teresak **trajetxo** krema bat zeraman, eta zinta urdin argiz apaindutako lastozko sonbreirua. Bernardo Atxaga

"Goi-mailako joskintza" estiloko **trajetxo** bat? Eskarne Mujika

trajiko ik tragiko.

trajikoki ik tragikoki.

trajikomedia ik tragikomedia.

trajikotasun ik tragikotasun.

traka-traka 1 *adlag* trostaren onomatopeia.

Eguzkiak zeruan bide laburra egina izaten agertzen ikusten genuelarik, **traka-traka** Donapaleuko bidetik. Aingeru Epaltza

2 (izen gisa)

Bere ohizko pausajea bizkortuz, jabeari baimenik eskatzeke, **traka-traka** bizi samarrean joan zen haiengana bere eginbeharra parte ematera. Patxi Ezkiaga

trakasa iz buruhaustea, arrangura.

Mundu honetatik behar zela urrundu eta egun guzietako plazerrak eta **trakasak** behar zirela utzi Jainkoaren kausitzeko, basamortura ihes egiten zuten. Michel Oronoz

trakasakeria iz katramila.

Urteak pasatu zituzten, batean hemen kokatuak, bestean han, gela eskasian, diru eskasian, frantses administrazioaren **trakasakeriak** bestalde. Michel Oronoz

trakasatu, trakasa, trakasatzen arranguratu, grinatu.

Baxenabarreko hautetsien gehiengoak errefusatu du, tokiko garapen egitasmoetaz arduratzen den egituran, euskararen erabiltzea, hautetsi horien ustez ez duelako merezi gauza gutirendako **trakasatzea**. Herría

trakatan 1 zaldiaren ibileraren onomatopeia.

Portxean eserita, erre kara bidean lasterka, gizonei adarra jotzen, gerrian haurra zutela, edo, berak zirenean haurrak, gizon zaharren orkatiletan zangalatrau, haiek esku txikietatik heltzen zietela, **trakatan-trakatan**. Anton Garikano

2 (izen gisa)

Zetorren zaldi baten **trakatan** hotsa entzun zuten. Anton Garikano

trakateko iz triki-traka.

Idazten ari zela, trenaren **trakatekoren** batek ezustean hartu izango zuelakoan, garrantzia kendu nion ustekabeko kolpeari. Anjel Lertxundi

trakea iz zintzur hestea.

Arnasa hartzen dugunean, **trakeatik** (zintzur-hestetik) biriketara igarotzen da airea. Irene Aldasoro

Altzairuzko birikaren gisako arnasgailu mekaniko baten bidez airea zuzenean **trakeara** (zintzur-hestera) sartzen da presioan. Irene Aldasoro

Hain zuzen ere, laringean bereizten da biriketarantz doan arnasaren bidea (**trakea**) jakiak urdailerantz bideratzen dituen hestegorritik. Lourdes Oñederra

trakeotomia iz aireari igarobidea zabaltzeko, trakean zulo bat egitean datzan ebakuntza.

Igandean bosgarren ebakuntza egin zioten: **trakeotomia** bat. Berria - Mundua

Aurreko ostiralean eraman zuten Hackensackera, eta **trakeotomia** egin zioten. Berria - Kultura

trakeskeria iz traketsa denaren nolakotasuna, gaitzesgarritzat markatua; traketsari dagokion egitea.

Ez ditut neure gogoz gertakariak faltsatuko, baina aurrez susmatzen dut nagitasunak eta **trakeskeriak** behin baino gehiagotan eragingo didatela okerrik. Juan Garzia

Tipo despistatu samarra izan liteke, eta honen **trakeskeria** xarmagarri iruditu neskari. Xabier Mendiguren Elizegi

Tellagorrik gaztelaniaz hizketan zuen **trakeskeria**, isuri, lastertasun eta grazia bihurtzen zen euskaraz ari zenean. Koro Navarro

Harrokeriagatik izan da, segur aski, baita, neurri batean, nire **trakeskeriagatik** ere, pixka bat. Monika Etxebarria

Joseluk kontatuko dizu honanzkoan zer **trakeskeria** egin behar izan ditudan gona hauekin burdina horiek zamalkatzeko -motoaren giltzak eman zizkion-. Josu Landa

Ez baitzen hura beldur nehongo ikasle lauso edo bihurrien **trakeskerien** salatzeke. Herría

trakeski adlag trakeskeriaz, trebetasunik gabe.

Trakeski jaiki eta eskua luzatu zidan. Fernando Rey

Gero eta ilunagoa zuen ile horia ere antzaldatzen ari zitzaion, peroxidotan **trakeski** beratzearen poderioz. Mirentxu Larrañaga

Giza bizia begien aurrez lurrean **trakeski** zetzanean, erlijio astunak zapaldua. Xabier Amuriza

Trakeski bada ere, gaur betetzen dut nire asmoa. Bernardo Atxaga

Euli baten bizitzarekin bateragarri ez diren mutazio askok ez dute eragozten beldarra eratzea, antzaldaturik bada ere, edo are **trakeski** desitxuraturik. Juan Garzia

trakestasun iz traketsa denaren nolakotasuna.

Peterrek edozer gauza emango luke, uste dut, nire hitz egiteko erraztasuna izateko; ez daki bere **trakestasunak** samurtzen nauela hain zuzen. Josu Zabaleta

Zeru puska zoragarriak, lorezko eskulturak, amets politik sardinzar saltzaile baten eskuetan jartzeko, bai eta markesa bati oparitzeko ere, birjina baten **trakestasunak** eta urdanga baten irris sentsualak. Karlos Zabala

Ikusi egin behar zenuke nolako leuntasunarekin eramaten duen Nick Valdibiak kontrabaxua batetik bestera, hauts bihur lezakeen **trakestasunaren** suaren beldurrez bezala.

Pako Aristi

trakestu, trakets/trakestu, trakesten da/du ad trakets bihurtu.

Miarritzek Top 8rako txartela ziurtatzeko aukera duen bakoitzean, **trakestu** egiten zaio bidea, eta ondorioz, hurrengo partidarako utzi behar izaten du erabakia. Berria - Kirola

Salbatu behar dudan ala damnatu, iada erabakia dago eta, nik ongi egin edo gaizki, ezin da aldatu; eta horrek **trakesturik**, zabartzen dira osasunera eta arimen espiritu-onurara daramaten egintzetan. Patxi Altuna

Hemendik gutxira, pertsona horiek guztiak kanpora joanen dira, janak **trakesturik**, haize leunak laztandurik, berokia zabal-zabalik, burua berotuxea eta pittin bat burrunbari.

trakets 1 *izond* moldakaitza; xehetasunik, sotiltasunik edo dotoretasunik ez duena. (pertsonez mintzatuz)

Ez dago emakume frigidorik, baizik eta gizon **trakets** eta ezjakinak. Luis Elberdin

Ez dago emakume frigidorik, gizon **traketsak** baizik. Luis Elberdin

Ez dakit dantzari **traketsa** edo hizlari motela nintzelako, hortik gora ez nuen batere aurrerapiderik lortzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni, ordea -erremediorik gabeko **traketsa** -, ezin nintzen kirurgialari izan. Xabier Olarra

Bizkarkin **trakets** harexek ekarri baitzuen mazzuchelitarren bihotzera bere iloba desorekatu eta galbideratzailea. Oskar Arana

Mutiko **trakets** zenbaiten irain eta irriak. Jose Angel Irigaray

Trakets hutsa ez bada, behinik behin, behar bezala trebatu faltan dagoena. Karlos Zabala

Ipuineko ahateko itsusiaren pareko sentitu izan naiz: **traketsa**, zabarra, ezgauza. Xabier Mendiguren Elizegi

Hizmotela nauzu, hizketarako **traketsa**. Elizen arteko biblia

Inoiz ez dut espero zitekeen maila jo, mago **trakets** eta arlotea naiz. Joanes Urkixo

2 (gauzez mintzatuz)

Eta horra hor Esau, neu bezalakoxe babalore **trakets** bat. Oskar Arana

Pentsatzen jarrita, nola sartuko zen bada gorputz astun eta **trakets** hau traje dotore, ongi moztu batean. Anton Garikano

Batzuetan iruditzen zait binilo eta idazmakina **trakets** haiekin batera orduko kemena eta lagun-arteke giroa ere joan direla betiko. Joxerra Garzia

Urrats **trakets** batzuk egin nituen soil-soilik. Aingeru Epaltza

Jolas sexual **trakets**, pobre, irudimenik gabeko eta baita maitasun gabeko baten ondorioz. Luis Elberdin

Etxea ikusita zaila egingo zitzaidan auzoko etxeoandre banatuaren fikzio **trakets** hari eustea. Jatorrizkoaren karrikatura **trakets** bat. Iban Zaldua

Hartu izan balu gertatu berriaz gogoeta egiteko nahikoa denbora, ohartuko zatekeen [...] poliziaren esku uzteko mehatxua hordago ustel bat zela, **traketsa** eta antzerik gabekoa. Oskar Arana

Urkatu egiten zituzten, inor hiltzeko modu **trakets** eta gogorra hori, batzuetan heriotza azkarra zen bezalaxe baitzen luzea eta gogorra besteetan. Felipe Juaristi

Adjektibo desegokiki bat hemen, komunztadura okerra hor, esaldiaren barne antolamendu **traketsa** han. Aingeru Epaltza

Itxuraz urri eta **trakets** diren hizkuntzek lehengai eskaintzen dute kultura landu eta konplexu baterako. Bernardo Atxaga

Franko berotzen zen zirri **trakets** haiekin. Fernando Rey

Iruñeko bi mando-manta, artile bikaineokak, langintzaz **trakets** eta gustuz zoragarri. Koldo Izagirre

Modu **traketsean**, eskuz eta korrika, zegoen idatzita. Joxemari Iturralde

3 (izenondo elkartuetan)

Neure neurrira egindako Arkadia, munduaren esku **trakets** -zikinak ezin iritsitako leku bikaina. Xabier Montoia

Tarte gaitza, haatik, gure ibilera motel, pisu eta **trakets** dudakorretik haien martxa segur eta zalura. Xabier Montoia

Halako batean, txistua eta ttuntuna hasi ziren; oso tristea txistua eta ilun- **trakets** ttuntuna. Patxi Ezkiaga

4 (adizlagun gisa) ik **traketski**.

Eria **trakets** moldatzen da dirua kontrolatzeko orduan, erosketak egitean edo sukaldeko lanetan. Berria - Gaiak

Orduan nik jaka erantzi eta zerbait baliozkoa biltzen den eran bildu omen nuen, **trakets** eta baldar baina aldi berean amultsuki. Joxean Agirre

Ni aritmetikan oso **trakets** nobilela ere ez zekien. Fernando Rey

Batere heraldikoa ez den armari bat dago erdiko ate gainean **trakets** margotua. Koldo Izagirre

Baldreski moldatu gara gas maskarekin, **trakets** oso, gure heriosuharrean. Mirentxu Larrañaga

Sentimenduen arloan geure burua dorpe eta **trakets** ikusten dugu. Luis Elberdin

Bat-batean **trakets**, ahalke, gorri-gorri jarri dira biak. Itziar Otegi

Trakets eta ekaitzsu datorrenean, aldiz, beroaldi eta hotz kamutsaldi, denak nahasian, ez dira batere onak suertatzen. Pello Zabala

-Etor zaitez nirekin botikariarengana -esan nion **trakets**. Monika Etxebarria

-Dena ondo -esan zion, Harry **trakets** samar olo-ahia jaten ari zen bitartean ezkerreko eskuaz-. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trakets aritu zen (3); **trakets ibili** (3); **trakets moldatu** (3); **trakets samar** (6); **trakets samarra** (4); **trakets samarrak** (4)

idazkera traketsa (3)

gizon traketsak (5)

era traketsean (3); **modu traketsean** (7)

trakoma *iz* konjuntibitis mota kutsakorra, itsutasuna dakarrena.

Ekiialdera egin zuen bidaian harrapatu zuen Frantziskok gaitza - **trakoma** edo "konjuntibitis granuloso"-, azkenerako itsu utziko zuena. Askoren artean

Maputoko begiko arazo ohikoenez galdetuta, kataratak eta **trakoma** erantzun digu. Berria - Gaiak

Aita, Civitavecchiako kartzelan, itsu gelditzeko arriskutan zegoen **trakoma** zela eta. Fernando Rey

trakta 1 *iz* esku papera. ik **panfleto**.

-Orain arte ez nien batere maite gau horiek [...] eta preseski, ordenagailuarekin, gure aldizkariak, eta **traktak** -eta egiten ditugu. Menane Oxandabaratx

-Hemen ekarri diat komunikatu bat ekintza aldarrikatuz, **trakta** batzuk inprimatzeko. Koldo Izagirre

Emakume kaskamotz bat, **traktak** banatzen eta elkartasuna eskatzen munduko oinezkoei. Koldo Izagirre

-Ongi urten duk dena, **traktaz** bete diagu kaia. Koldo Izagirre

Klasikotik rockera, euskal koruetatik pasatuz, **trakta** baten bidez gune eta artisten ordutegiak zehazten ahalko dira. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Arazoia, 2000ko azaroaren 9an, Baionako auzitegian, Demo mugimenduko lau jende defenditzen zituelarik, auzitegirat esku «**trakta**» batzu zakuan sarrarazi zituela akusatzen dute. Herria

traktatu ik **tratatu**¹.

traktatutxo ik **tratatutxo**.

trakto-pala *iz* traktore paladuna.

Herriko Etxeko 60 langile prest dira hasteko fiul opil bilketa lanetan, kamioi eta **trakto pala** tresnekin, beti ere su hiltzaileen gidaritzapean. **Herria**

traktor ik **traktore**.

traktore *(orobat traktor g.er., traktur g.er. eta tratur g.er.)* 1 *iz* goldeei edo gainerako nekazari lanabes edo makinei tiratzeko erabiltzen den ibilgailu motorduna.

Bere irudimenean, **traktore** erraldoiaren itxura hartzen zion bat pasatzen ari zen, bere gurpil handi, ke botatzeko tximinia eta kabinarekin. **Jon Alonso**

Bata **traktorea** gidatzen hasi da, eta bestea atzeko aldean jarri da, zutik, plastikozko bidoi handi bat eskuan duela. **Jokin Muñoz**

Traktoreak utzitako ildoengatik ez balitz bidea denik ere irudiko ez lukeen bidean barrera doa alarguna. **Imanol Zurutuza**

Hango gizona **traktoreak** azpian harrapatuta hil zela enteratu nintzen gero. **Pako Aristi**

M. errumaniarrak gidatzen zuen **traktorea** irauli egin zitzaion. **Berria - Ekonomia**

200 bat jauntxo aizkoraz, ganibetaz, igitaiez eta lantzaz hornituak, **traktoretan** etorri eta dalitei erasotzen hasi ziren. **Gotzon Garate**

Txaboletatik pinudirako bidetik **traktore** txiki bat agertu zen, atzeko erremolkean belar fardel handiak zituela. **Jon Maia**

Traktore txikiaren gurdi azpian sartu zen, bere mutur zikinarekin. **Jon Maia**

Basoko lanetarako hiru lankide dira, eta, bera motozorrarekin eta **traktorearekin** aritzen da. **Berria - Kirola**

Elurra kentzeko 62 makina, 20 **traktore** eta pala mekaniko, gatza botatzeko 23 ibilgailu eta 70 ibilgailu laguntzaile aritu dira lanean errepideetan. **Berria - Euskal Herria**

Traktoretik ateratzen dugun fuela zikinkerki hutsa dela arrunt kontziente naiz. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan)

Ezkilak eta txintxarriak, **traktore** soinuak, urruneko moto baten durunda... **Hasier Etxeberria**

3 irud/hed

Horrez gain, ekonomian **traktore** lana egiten duten beste batzuen etorkizuna ez dagoela argi nabarmendu du LABek. **Berria - Ekonomia**

Ikus-entzunezkoak enpresa **traktore** gisa hartzen dira, eta hori ondo dago. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gidatzen zuen traktorea (3); **traktorea irauli** (5)

traktoreak utzitako ildoengatik (4)

traktoretxo *iz* traktore txikia.

Agian tribunalak ziren nekazariaren hitz haiek, baina, **traktoretxo** gorriaren ondoan, artasoroari begira, amonaren otoitzaren marmartxoia lagun, zentzu handia aurkitu nien.

Bernardo Atxaga

traktoretzar *iz ipar adkor* traktore erraldoia.

Manifestazioa beroa izan zen, batez ere erdialdean zihoan **traktoretzarreko** animatzaileek ipinitako giroari esker. **Berria - Euskal Herria**

traktu *iz* anatomian, kordio itxurako atala.

Garunaren irudian erdiko tumor izugarri bat ageri zen, guruin pituitariora eta alboko kiasma optikoa eta **traktuak** desegin eta lobulu frontaletara zabaltzen zena. **Xabier**

Olarra

traktur ik **traktore**.

trakzio 1 *iz* tira egitea, indarra egiten den gunerantz zerbait ekartzeko.

[Autoa] egin-egina da, lau gurpiletako **trakzioari** esker, mendirako; bidez kanpo ibiltzeko, bereziki. **Xabier Olarra**

Lehenengo makina-mota gora igotzeko balio duena da [...]; beste bat haizeaz mugitzen dena da, grekoek *pneumaticon* deitzen dutena; eta hirugarrena **trakzioz** lan egiten duena, haiek *baru izon* deitzen dutena. **Santiago Iruretagoiena**

Trakzioko makinei buruz beharrezkoak zirela iruditu zaizkidanak azaldu ditut labor-labor. **Santiago Iruretagoiena**

Trakziozkoak, erabiltzeko aukera handiagoak eta emaitza zoragarriak eskaintzen ditu, eta zuhurtasunaz erabiltzen denean, abantaila izugarriak. **Santiago Iruretagoiena**

Abiadura handiko Brava trenak, lau bagoikoak dira, guztiak motordunak, **trakzio** elektrikoarekin eta lau megawatteko potentziarekin. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orain arteko V10 motorrek bultzada asko zuten eta pneumatikoak ez ziren gai hori guztia lurrera transmititzeko, eta **trakzio** kontrola etengabe aktibatzen zen. **Berria - Kirola**

Trakzio -kateek gurpil koskadunak hartu eta karranka egiten zuten. **Lopez de Arana**

CAFen zeregina trenak egitea izango da, eta Siemens eta Bombardierren ardurapean egongo dira **trakzio** sistemak. **Berria - Ekonomia**

Siemensek **trakzio** ekipoa egingo du. **Berria - Ekonomia**

Neurri estuko trenak izango dira 90 horiek, eta bi **trakzio** teknologia desberdin izango dituzte. **Berria - Ekonomia**

Taularen pisu osoan beirazko zuntza oso gutxi izan arren, **trakzio** indarrak ongi absorbatzen ditu eta zurruntasun egokia ematen diomaterialari. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

36 milioi euroren truke, aldi berean diesel eta argindar **trakzioa** duten eta merkantziarako erabiliko dituen 12 lokomotor erosiko dizkio Euskotrenek. **Berria - Ekonomia**

4 irud/hed

Nahiz eta energia prezioen eraginez urte hasieran zertxobait alpaldu, ekoizpenaren hazkundeak **trakzioa** berreskuratu du, eta lan merkatuko baldintzek hobera egin dute xumeki. **Berria - Ekonomia**

trama 1 iz azpijokoa, konplota.

Oates honek eta beste lekuko batek deklaratu zuten berrogeitama jesuitak Karlos erregea hiltzeko **trama** bat antolatzen ari zirela. Juan Martin Elexpuru

Trama iruzurgilean parte hartu zuela egiaztatuta baitago. Berria - Euskal Herria

Laburbil dezagun Orain arte ikusitakoa: batetik "**trama** politikoa" edo daukagu, Borges eta Harry Harrison ministroarekin; bestetik, "krimenezko **trama**", Pioletadun Hiltzailearekin eta Taigherrekin; bion erdian harrapatuta, Bazofias dago [...]. Jon Alonso

Trama handietan sinեսmena galduz, betaurrean duguna dela gutxien ikusten duguna pentsatuz, lagunaren juzkua egin zuen beste behin. Joxemari Urteaga

2 eleberrri eta kidekoetan, kontakizunaren haria. ikbilbe.

Oso antzerki zalea zen eta ugari dira bere partidei eranstean dien teatro osagaiak: pertsonaiak, **trama**, konposizioa, elkarriketak... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ea ez ote den **tramaren** mesedetarako moja bizirik mantentzea hobe. Harkaitz Cano

Hiru pertsonaia hauen arteko harremanek ematen diote **tramari** behar duen tentsioa. Joxean Agirre

Polizia-narrazio haietako baten **tramak** askatzen ninduenean. Bernardo Atxaga

Elizaren indarra oso nabaria da operaren **tramari**. Berria - Kultura

Guztiei kontakutako die gertatu zaiona, baina inork ez dio sinetsiko, kontatzen duenak nobelaren **tramarekin** kointziditzen baitu bete-betean. Joxean Agirre

Lehen testua **trama** gisa idatzia zegoen eta nobela luzeago baten zirriborroa zirudien. Joxean Agirre

Ez dago **trama** edo istorio baten aztarna garbirik, eta ikusleari dagokio [...] irudien arteko loturak bilatzea. Berria - Kultura

Hantxe zeuden zain [...] nik artearen munduan noiz sartuko, beren pertsonaz, beren grinez eta beren kasuez eleberrri bat, **trama** bat edo, besterik ez bazen, ipuin bat osatuz.

Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Bertsotik **tramak** (gidariak proposatzen duen nolabaiteko antzerki-gidoi bat garatuz egiten den bat-bateko saioa), eta saio esperimentalak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Alde horretatik, zuhurrago eta bizkorrago jokatu ohi du bertso **trametako** gai-emaileak. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bertso trama (5)

bertso tramak (4)

bertso tramaren (3)

tramagile iz bertso trametako gai-jartzailea.

Bertsolaria desbideratu delako **tramagileak** buruan zuen ideiatik. Berria - Kultura

Tramagileak bere egin behar ditu bertsolariek aipatutako elementu berriak. Berria - Kultura

tramankulu 1 iz tresna, makina edo kidekoa, eskuarki handia, landugabea edo bitxia dena. ik trepeta; traste.

Europako setio guztietan erabili ohi direla, emaitzarik onenekin, zurezko dorre mugikor batzuk, hau da, ez hain mugikorrak, horrelako **tramankulu** bat mugiarazteko jende eta abere pilo bat behar izaten delako. Jon Alonso

Hainbat aparatuz zeuden, hestekiak betetzeko ponpa bat, zapalgailu bat, haragia xehatzeko makina mekaniko bat, eta **tramankulu** haiek guztiek, beren gurpil eta biraderekin, infernuko sukalde baten ideia [...] irudikatzen zuten. Karlos Zabala

Zer egiten zuten tanketa eta bestelako **tramankulu** haiek guztiek milaka herritarri bidea eragozten? Hasier Etxeberria

Zergatik ez dute **tramankulu** hau martxan jartzen, orduan? Karlos Linazasoro

Otsontzako edo basurdeentzako zepo batean eroria zen; hura zen urrutitik ikusten genuen burdinazko **tramankulua**. Inazio Mujika Iraola

Erretratuak karpetara bilduta, jaikiarazi eta esku banatan ipini zizkion kamera eta flasharen **tramankulua**. Josu Landa

Berak artelana artefaktu moduan ikusten duelako, forma esanguratsua duen **tramankulu** baten gisa hain zuzen. Askoren artean

62-65 urteko suhiltzaile bat ez dago sekulako **tramankulua** bizkarrean jarri eta eskaileretan gora eta behera ibiltzeko sasoiari. Berria - Ekonomia

Biek ala biek baitzuten atsegin jolas-parkeetan ibiltzea: errusiar mendietan edo antzeko **tramankuluetan**. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Plazaren ertzean burdinaz eta egurrez eraikitako harmaila gisako **tramankulu** erraldoia atondua zen. Josu Landa

Metalezko **tramankulu** handi bat ikusi duzu sartu orduko; bi hankakoa, pare bat metro luze. Rafa Egiguren

Ontziaren armadore grekoak burdinazko **tramankulu** zahar hura mantendu baino nahiago zuelako seguruak ematen zituen diruak kobratu. Joseba Sarrionandia

Gau hartan, garraio gizonak pianoa bere tokian utzi eta gero, **tramankulua** distiratsu, geldo, pisutsu ikusi genuenean, negarrez hasi ginen. Lander Garro

Han Morganeke egundoko **tramankulu** xelebrea jarri zidan eskura, tridente antzeko zerbait, baina ziriak barrualdera guztiz makurtuta. Joxean Sagatzizabal

Atso gor bat topatu zuen [...] **tramankulu** bitxi bati eragiten: printzesak ezin zuen jakin hura gorua zela. Iban Zaldúa

Aterkiak gordetzeko **tramankulu** bitxi baten ondoan zakarontzi are bitxiago bat zegoen. Aritz Gorrotxategi

Gero esan zuten hainbat **tramankulu** elektrikoren eskemak harrapatu zizkizutela. Koldo Izagirre

Lima-berde koloreko *Oldsmobile Cutlass* bat, 1994koa, **tramankulu** harrigarri itsusi bat. Oskar Arana

Irrealak, traketsak iruditu zaizkizu, eta torturatuzko **tramankulu**en antza eman diozu bati. Rafa Egiguren

3 (hitz elkartuetan)

Hantxe bada, eskaileretan babestuak, Rositak garbiketa-**tramankuluak** jaso zituen, sorgor, txukundade handiz. Karlos Linazasoro

Aldi hartan, Judeako gudariak bildu zituen Jonatanek Jerusalemgo gotorlekuari erasotzeko; gudu-**tramankulu** ugari eraiki zuen horretarako. Elizen arteko biblia

Bet-Basira heldurik, inguratu eta eraso egin zion egun askotan, gudu-**tramankuluak** erabiliz. Elizen arteko biblia

4 irud/hed

Ez, ez naiz MP3 aren kontu horretara pasatu; bai, badakit oso eroso dela eta hori guztia, ehunka kanta sartzen direla **tramankulu** horietan, baina berandu harrapatu nau, ez dakit ulertzen didazuen. Iban Zaldúa

Lenteak erratan diete halako **tramankulu**ei, eta burdinazko gider batzuen bitartez lotzen dituzte jendeen belarrietara. Aingeru Epaltza

Gezurrak detektatzeko amerikarrek asmatutako **tramankulu** berri bat. Josu Landa

Bada borondate arrazional eta instrumentala (hobbiesiarra) **tramankulu** politikoak, enpresak, batzarrak eraikitzen eramatean gaituena. Esteban Antxustegi

Europako Batasuneko hainbat herrialdek sekulako **tramankulu** estatistiko eta kontableak aplikatu zituzten baldintza preziatu horiek taxuz betetzeko. Iñaki Heras

5 adkor zakila.

Berotzen ari nintzela sentitu nuen, eta **tramankulua**, haragi bilduma zaintsu hura, eskuan hartu eta kemenez eragiten hasi nintzaion. Juan Martin Elexpuru

Une hartan nire desirarik handiena zera baitzen, nire potxotxa bete zezatela **tramankulu** haietariko batekin. Juan Martin Elexpuru

Aurki dezakeen **tramankulu** handienari eman behar dio bere lehen lorea birjina batek. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Berak beste [kopa] bat zerbitu zuen eta, hura eskuan, nire **tramankulu** gogor eta adurtiarene gainean eseri zen. Juan Martin Elexpuru

Mutil-izenaz bataiatzen ninduen halakoetan eta kasik beti **tramankulu** berezi batzuk jartzeko eskatzen zidan, gomazko zakil batzuk, neurri honetakoak. Karlos Zabala

hitz maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
burdinazko tramankulu (3); **tramankulu bitxi** (3); **tramankulu zahar** (3)

tramankulutxo *iz* tamaina txikiko tramankulua.

Oroitu behar genuke nolakoa zen artoa ereiteko **tramankulutxoa**, bi erreten axalekotan, erruberatxoa bueltatu ahala, arto ale pare batekin babarrun bat edo beste jausten uzten zuen txulo tikiarekin. **Pello Zabala**

tramankulutzar *iz* *adkor* tamaina handiko tramankulua.

Eta Aldapetan behera zortzi zaldik tiratutako **tramankulutzar** hura bazetorrela ikusten genuenean, urduri ere jartzen ginen, noiz iritsiko zain. **Txillardegi**
Gure amaren ustez astunegiak ziren, **tramankulutzarrik**. **Fernando Rey**

tramatu, trama(tu), tramatzen du *ad* bilbatu.

Denak ezin hobeki **tramatuak**, ehunduak eta ezin hobeki tindatuak ziren artilezko edo zetazko hariekin ehunduak. **Aurelia Arkotxa**

tramazo *iz* bilbea.

Hegazkintzak Saint-Exupéryren ia obra osoaren ageriko gaia eta **tramazoa** osatzen du. **Josu Zabaleta**

tramitatu, tramita, tramitatzen du *ad* bideratu, zuzemenak egin.

Zenbat denbora behar da orain bisa **tramitatzeko**? **Jon Arretxe**

Oposiziorik handiena jaso duen proiektua izan arren, beste asko baino askoz ere azkarrago **tramitatu** zuen Espainiako Gobernuak. **Eduarne Elizondo**

Marixaren deia jasotakoan, oraino lantokian nintzela, banantzea **tramitatzen** zidan abokatuaren telefono zenbakia eta guzti markatu nuen. **Aingeru Epaltza**

Prozedura guztiak premiazkoak balira bezala **tramitatzen** badira, [...]. **Berria - Kultura**

Euskadiko Museoen Lege-proiektua onartu du Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak, Legebiltzarrerara lege gisa **tramitatzeko**. **Berria - Kultura**

Bost helegite aurkeztu zituzten Kongresuak EAEko estatutu proposamena **tramitatzeko** aukeratuko prozeduraren kontra. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ehna tramitatzeko (15); **ehna tramitatzeko aukera** (6); **tramitatzeko eskatu** (3)

ehna tramitatzen (5); **tramitatzen ari dira** (3); **tramitatzen hasi** (4)

tramitatze *iz* bideratzea, zuzemenak egitea.

Auzitegi Nazionalaren erabakiari helegitea aurkeztu diotela esan zuen Iberok, baina oraindik **tramititze** bidean dagoela. **Berria - Euskal Herria**

tramitazio 1 *iz* tramitatzea.

Espedientearen **tramitazioa** nori dagokion erabaki arte. **Berria - Ekonomia**

Astebete beharko dut **tramitazio** guztiak burutzeko. **Jon Arretxe**

Beste akats txikiago batzuk ere aurkitu dituzte teknikariek, eta horrek moteldu ditu **tramitazioak**. **Berria - Kultura**

Ozenki eskatu nahi dugu aurreproiektu honen **tramitazioa** bertan behera uztea. **Berria - Kultura**

Tematuz gero arriskua neukan bisarik gabe geratzeko edo, ordu batzuetan behintzat, **tramitazioa** atzeratzeko. **Jon Arretxe**

Bankura joan, euren aurrean sinatu, eta dirua eskuratzen baduzu nire partez, dohainik egingo dizut bisaren **tramitazioa**. **Jon Arretxe**

2 (izenondoekin)

Eusko Legebiltzarrak atzo egindako ezohiko osoko bilkurak onartu egin zuen legearen **tramitazio** berria egitea. **Berria - Euskal Herria**

Tramitazio zaila eta luzea izan du Legebiltzarrean. **Berria - Euskal Herria**

Tramitazio korapilatsu baten ostean, joan den asteazkenean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak EAEko Unibertsitate Legea. **Berria - Euskal Herria**

Gaur hasiko da EAEko Estatutu Proposamenaren **tramitazioa** Espainiako Kongresuan. **Berria - Harian**

Legebiltzarraren esku utzi ondotik, **tramitazio** parlamentarioari ekin zitzaion, gaur artean. **Berria - Euskal Herria**

Gorenak prentsa ohar batean aurreratu du Otegiren aurkako epaiketean «epaile inpartziala izateko eskubidea» ez zela bermatu, zigor epaia eman zuten epaileetako bik

tramitazio prozesalean esku hartu zutelako. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan)

Lurzoruaren lege proiektuaren **tramitazio** -prozesu luzea. **Berria - Euskal Herria**

Tramitazio -epeak geldiarazteko eskatu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Kontxi Bilbaok legearen **tramitazio** epeak «luzatu nahi izatea» egotzi zion PPK egindako eskaerari. **Berria - Euskal Herria**

Donostian **tramitazio** eguna izango da larunbatean. **Berria - Euskal Herria**

Inpugnazioa aintzat ez hartzeko argudio nagusia, azken batean, «prozedura parlamentarioaren barruko **tramitazio** ekintza hutsak» direla da. **Berria - Euskal Herria**

Langabezi lanpostua modu aktiboan bilatzea exijitzen zien, aldizkako langile finkoak desagerrarazten zituen eta **tramitazio** soldatak kentzen zituen, besteak beste. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

legearen tramitazio (6); **legearen tramitazio berria** (3); **tramitazio berria** (6); **tramitazio epeak** (3)

estatutu proposamenaren tramitazioa (4); **planaren tramitazioa** (4); **proposamenaren tramitazioa** (9)

proposamenaren tramitazioak (6proposamenaren tramitazioaren (4)

tramite 1 *iz* bideratzea, zuzemena, izapidea.

Tramite guztiak egin eta gero. **Jose Angel Irigaray**

Ezkontzeko asmoa du berak, eta jada **tramiteak** egiten hasi da. **Berria - Harian**

Ezkontzeko **tramiteak** abiatzeko Lisboako Errolda Zibilera joko dutela iragarri zuten atzo. Berria - Gaiak
Goizeko lehenengo orduan joango naiz kontsulatura eta, dena ondo itenez gero, **tramiteak** bete, eguerdian autobusa hartu eta Dogubayaziterantz joko dut. Jon Arretxe
Sorterrira itzultzeko **tramiteak** -eta burututakoan. Jose txo Azkona
Gure bide bera egiten ari zen beste autobuskada bat elkartu zaigu, eta horrek are gehiago geldotu ditu **tramiteak** . Jon Arretxe
-Ez zen premiazkoa zure gurasoekin hitz egitea, ikusi duzu ez dela **tramiteko** kontu bat besterik izan. Anjel Lertxundi
Good morning esaten dute **tramitez** inori begiratu gabe. Mikel Hernandez Abaitua
Barojak idealizatu egiten du bikote-bizitza -betiere ezkontza burgesaren, eta, beldur naiz, erlijiozkoaren barruan, **tramitezko** kontu honetaz hitz egiten ez badu ere-. Josu Zabaleta
Kereila **tramiterako** onartu badute, epaiketa izango dugu. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lasai, **tramite** soil bat da, bost minutuko kontua. Anjel Lertxundi
Tramite hutsa da pauso hori, baina derrigor eman beharrekoa. Berria - Kirola
Gorrito genuen Madril, ministerioetan egin beharreko **tramite** absurduak eramaten gintuztelako. Ramon Saizarbitoria
Oraingoan hiru orduetik gora daramagu **tramite** geldoak betetzen, alde batean zein bestean. Jon Arretxe
Betebeharreko **tramitea** da. Berria - Harian
Biharamun goizean Napumoceno jaunak presaka egin zituen salgaien aduanetako **tramiteak** . Bego Montorio
Alsfeden inork ez ziola sinesten, eta epaitegi batek hasiak zituela deportaziorako **tramiteak** . Iban Zaldua
Sartzeko **tramiteak** hiru ordu laurdenez luzatu ziren. Iban Zaldua
Errefuxiatu txartela badaukazu, baina hiru hilean behin zeharkatu behar izan duzu muga orain arte, Hegotik Iparrera, isilpean, eguneratzeko **tramitea** betetzearren. Rafa Egiguren
Errutinazko **tramite** bat betetzen hasi ziren bi agenteak, tonu ofiziala eta tonu lagunkoia tartekatuz. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Garai horretantxe alde egin zuen Pedrok etxetik, eta banatze- **tramiteak** hasi zituzten. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tramite guztiak egin (3); **tramite hutsa** (6); **tramite hutsa izan** (3)

tramiteak bete (3); **tramiteak betetzeko** (3); **tramiteak egiten** (3); **tramiteak hasi** (3)

babes helegitea tramitera (3); **helegitea tramitera onartu** (5); **tramitera ez onartzea** (3); **tramitera onartu** (22); **tramitera onartu du** (7); **tramitera onartzen** (4)

helegitea tramiterako onartu (5); **inpugnazioa tramiterako onartu** (3); **osoko zuzenketa tramiterako** (6); **tramiterako ez onartzea** (3); **tramiterako onartu** (46); **tramiterako onartu zuen** (11); **tramiterako onartzeko** (3); **tramiterako onartzen** (6)

tramo iz egitura lineala duen zerbaiten zati berezia.

Korridore horretatik gora, tartean beste eskailera batzuk jarriko dira, beheagoko **tramoaren** bina eskailera-pareen erdian, eta, hala, korridore zirkular bakoitzeko biderkatzen joango dira eskailera- **tramoak** . Santiago Iruretagoiena
Dirutza horretatik 21 milioiko defizita eusko **tramo** izenez ezagutu diren soldata osagarriek eragina izan dela esan zuen. Berria - Euskal Herria

tramoia 1 iz antzeztokietako makineria.

Bizitzatik oso hurbil, berriz, eszenografia huts eta **tramoia** soil baino zerbait garrantzitsuagoa den plano batean. Anjel Lertxundi
Tramoia ezkutu hori argira ekartzea posible da noski, antzerki esperimentalaren baliabide ohikoa izan zen garai batean Xabier Mendiguren Elizegi

2 irud/hed

Adiskideek galdetzen ziotenean ea zergatik idazle frantziarraren izena bereganatu zuen puztu egiten zitzaien bularra, eta literaturaren **tramoia** duen hutsakeria hain ausarki salatu zuen bere idazle maitearen istorio zenbait kontatzen zituen. Joxean Agirre

tramoiaegile iz tramoiaria.

Ustekabean, liluran bezala, eta **tramoiaegilearen** ziztua entzun gabe, dekoratua aldatu egin zen eta ikuskizun miragarri bat agertu zen ene aitzinean. Berria - Kultura

tramoia iz antzeztokietako makinista.

Reginari musu eman diona teatroko langile bat da, **tramoia** bat, sarrera-emailea agian, baina Oswald ez. Anton Garikano
Jatetxe dotoreetan eta antzokietan **tramoia** publikoa ohartu gabe elkarri dei egiteko erabiltzen duten hots barregarri hori egin zuen. Ramon Saizarbitoria
Ustekabean, liluran bezala, eta **tramoiaegilearen** ziztua entzun gabe, dekoratua aldatu egin zen eta ikuskizun miragarri bat agertu zen ene aitzinean. Berria - Kultura

tramontana iz katalan herrialdeetako ipar haizea.

Tramontana zebilen eta zerua ez zen batere garbia. Patxi Iturritegi
Baina neguan ez da itsasaldirik, beti dabil **tramontana** , edo mistrala, edo hegoa. Juan Garzia
Mallorkara joateko asmotan zeuden arren, **tramontana** haizeak Oranera bultzatuko ditu. Patxi Ezkiaga

tran-tran iz mandoaren ibileraren onomatopeia.

Anekatik idazteko materialak ateratzen dituenean, estileteak eta oholtxoak bakarrik, bestela mandoaren **tran-tranarekin** tinta isuri eta letra barreiatuko litzateke. Jon Alonso

tranbala iz balantza.

Norak ez zituen, ordea, bideko **tranbala** eta neke haiek sentitu ere egiten, berdintsu baitzitzaien bide zelaia nahiz harritsua, galtzada nahiz euri-jasek hondatu eta lokaztutako estrata. Anjel Lertxundi

tranbalaka adlag balantzaka.

tranbia 1 iz hiri eremuetan errailen gainean zirkulatzen duen ibilgailua, lehen zamarien indarrez eta orain argindarrez higitzen dena.

Lehen **tranbia**, mandoek tiratua. **Askoren artean**

Enplegatu-jendez kargaturiko **tranbia** aldapan gora tiratzen zuten zaldi otzanei begira. **Irene Aldasoro**

Hona 7. **tranbia**, "Hiltegiak-Dartsena nagusiak". **Monika Etxebarria**

Kale-kantoiraino egin zuen korrika eta abian zen **tranbia** batera igo zen. **Lopez de Arana**

Jendez betetako **tranbia** batek nasan gelditu behar izan zuen. **Pello Lizarralde**

Tranbia, jendez gainezka, zabuka zihoan. **Anjel Lertxundi**

Tranbian joaten zen goizero Chapelizod-etik. **Irene Aldasoro**

"Zer polita den **tranbian** ibiltzea!" esaten zuen. **Fernando Rey**

Amarenera joateko **tranbia** hartu behar nuen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Madrilera matrikula egitera iritsi zen egunean, bere bizitzan lehendabizikoz **tranbia** batera igo, eta **tranbia** hark oinezko bat nola harrapatzen zuen ikusi zuen. **Arantxa Iturbe**

Tranbiako gidariak ezklari eragiten zion aldiko, bihotzak jauzi egiten zidan, ni banintz bezala **tranbiak** azpian harrapatzeko arriskuan zegoena. **Anjel Lertxundi**

Kale erdian **tranbiaren** zain gelditu zen. **Lopez de Arana**

Tranbiaren bidetik zihoan gizon itxura-txukun batek kartel bat zeraman goi-goian. **Koro Navarro**

Tranbiako kobratzailea komunista duk, Klausek. **Anjel Lertxundi**

Umore bikainean jaitsi zen **tranbiatik** eta etxe alderantz jo zuen. **Mirentxu Larrañaga**

Bezeroengana oinez joaten zen, ez baitzuen **tranbiarako** sosik. **Juan Garzia**

Ozen entzuten ziren **tranbien** triki-traka, zaldien apatxten hotsa eta, urrunago, automobil binbilikarien turutak. **Jose Morales**

Tranbia baten zarata gailendu zitzaion euriarenari. **Anjel Lertxundi**

Azken **tranbia** gaueko hamaikak eta bostean abiatzen da udaletxetik. **Monika Etxebarria**

Tranbia baten txilina entzun dinat. **Anton Garikano**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erreginak **tranbia** elektrikoa nahiago omen dik, aziendak zikinduko duen sistema baino. **Txillardegi**

Istripua **tranbia** urbanoen lantegi zentrallean. **Anton Garikano**

Tranbia gorri batean ibili nintzen eta benetako trenean bidaiaiu nuen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Tranbia luze eta hori bat txistuka igaro zen handik. **Lopez de Arana**

Donostiako Udalak laster hitzarmena sinatuko du Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Diputazioarekin, **tranbia** arina hirian ezartzeko azterketa egiteko. **Berria - Euskal Herria**

Merkantzia tren bat bidez aldatzen, tutu hotsa kaietan, **tranbia** ahots-lakarrak oso urrutiko kaleetan. **Koro Navarro**

Jostailuzko **tranbia** elektriko bat. **Josu Zabaleta**

Fleischmann zaharrak aldirietako **tranbia** gomendatu zuen, Steiner jaunak ostera autobusa hobetsi zuen. **Urtzi Urrutikoetxea**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tranbia -geltokitik tarte bat baitago oinez. **Urtzi Urrutikoetxea**

Matson andreak **tranbia** -ibilbide alderantz egin zuen, etxera eramango zuen trolebusari hantxe itxaroteko asmoz Marcosek **tranbia** -gidariari begiratu zion: zutunik zegoen, zurrun. **Mirentxu Larrañaga**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Gaur-gaurkoz, zaldi-**tranbia** duk (kristauak eraman behar direnean); eta mando-**tranbia**, jeneroa besterik eraman behar ez denean. **Txillardegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autobus eta tranbia (4); bilboko tranbia (3); desio izeneko tranbia (10); gasteizko tranbia (5); sprako tranbia (17); tranbia arina (3); tranbia batera igo (5); tranbia gidari (5); tranbia hartu (10); tranbia hartuko (3)

bilboko tranbiak (4)

tranbiara igo (3); tranbiara igotzen (4)

tranbiaren bidea (4); tranbiaren norabidea (3); tranbiaren zain (5)

tranbiatik jaitsi (3)

tranbiazain iz tranbia-gidaria.

Aurrerantzean edo ez naiz etxetik irtengo edo **tranbiazain** jantzita ibiliko naiz. **Koldo Biguri**

tranbuila iz zalaparta.

Haizea ere badabil; hostoen **tranbuilak** xehatzen du bere indarra. **Pako Aristi**

tranbus iz

Garraiobide hori tranbia, **tranbusa** edo PPK bultzatutako minimetroa izan daiteke. **Berria - Euskal Herria**

tranga 1 iz atea eta kidekoak sendo itxeko zurezko barra lodia.

Haizea dabilenean etxeko ate guztiak nekatzen dituk, harik eta azkeneko atea, atarikoa, **trangaz** ixten den arte. **Anjel Lertxundi**

Ganbela bateko burdin **trangatik** eskegita, arrasto hitsezko artzain-larru batek zaintzen du artaldea, bakar-bakarrik. **Itziar Otegi**

2 adkor zakila.

Nire baitan gogo bizia sentitzen nuen esku artean zuen **tranga** hura hondoraino ezar ziezadan. **Juan Martin Elexpuru**

trangabera iz

Plazara ekarri zuen orgatik jaitsarazi, bi fraide bidelagun zituela urkabera igo, estaltzen zuen espartzuzko estalkia kendu eta, odoleztatuta eta gerritik gora biluzik, borroaren **trangaberara** eraman zuten. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Horretaz errotan aukera handiegirik ez daukagunok ondo dakigun bezala tamainak zerikusirik ez badu ere, ezin ukatu halako **trangabera** batek piztuko zuela hainbat grina, jakin-minarena besterik ez bazen ere... J.M. Olaizola "Txiliku"

trangadera iz freskera.

Beraz, gaitza fabrikatik datorren arren, etxeko sukaldean higiene neurri zorrotzagoak hartu beharko ditugu: hozkailuan, harraskan, **trangaderan**, etc. Edorta Agirre
Kontsumitzaile ertainak, oraintsu arte, elikagai askoren ibilbidearen berri zehatz-mehatz ezagutzen zuen: galsorotik errotan barrena labera eta hortik okindegira; larretik hiltzegira eta bertatik harategiko **trangaderara**; mahastiak upeldegira eta, bertan hainbat hilabete eman ondoren, tabernara, etc. Edorta Agirre

trangalatu, trangala, tramgalatzen du ad kulunkatu.

Aitabxi berriz ere isildu zen eta burua doi bat **trangalatu** ondoan, segitu zuen: [...]. Daniel Landart
Horri pentsatuz, burua **trangalatu** nuen. Daniel Landart
Itsasoaren burrunbak **trangalatzen** ninduen. Daniel Landart

trangatu, tranga, grangatzen (orobat *trankatu*) du ad trangaz itxi.

Jaiki egiten ziren; txoriak giltzapetu; atea **trangatu**; argia itzali. Juan Garzia
Ondo zaindu ganadua, **trangatu** ganbarako atea, sartu perdigoiak eskopetari! Anjel Lertxundi
Ateak **trangatu** eta leihoak adreiluz tapatzen dituztek, beldurrak airean. Agustin Otsoa
Atea itxirik zen berrito ere eta Irunberrik lehen bezala **trangatu** zuen, lan honetan usatua balitz bezala. Koldo Izagirre
Alboetan ate baxu bana zegoen, baina biak itxita eta **trangatuta** zeuden. Agustin Otsoa
Zuhurtziaz, Lepic andreak korraleko atea **trangatuta** utzi du. Itziar Otegi
Gauean, polizia sartzeaz zela, ate automatikoa **trankatu** zuten presoek, modulura sarrera zailduz. Jokin Urain

trangotsu izond bidez mintzatuz, eragozpenez betea.

Hartu zuten zabortegiko auzobidea, berriz, **trangotsua** eta malkartsua zen. Gotzon Garate

trankala *adlag*

Urin borobila pluf idor batean urera **trankala** erori zen, pizuairekin, bazterretik zebiltzen jendeak ausarki ziliportatuz. Itxaro Borda

trankalaka *adlag*

-Nongoa hut hi, hain mensa? -galdegiten zidan, **trankalaka**, Joanesez bere iloba zuzena nintzela jadanik ohartezin. Itxaro Borda

trankalari

Orduan, sorginaren gisa piztua ostatutik lehiatu zen Leonie, Maddi orroaz odotik zetorkiola eta gero herroka **trankalari**, arrunt berotua, ehortzetan parte hartu zuen jendaldea. Itxaro Borda

trankatu¹, tranka, trankatzen du zauritu.

Guziak nekatzen, azkenak **trankatzen**. Anjel Lertxundi

trankatu² ik trangatu.

tranki *adlag* lasai.

Tranki, tio: inork eman edo kendu ezin duen huraxe duk eta ohorerik ederrena. Patziku Perurena

trankil 1 *izond* lasaia.

Oso egokia zen lanerako -pertsone **trankil** horietakoa. Anton Garikano
Najerilla ibaiaren bazterrean dagoen errepede **trankilean** dabilen gizon bati, hemengoa naski, galdegiten diot lau egunez uzten ahal dudanez hemen berean ene tresna. Piarres Aintziart
Etxeratu nintzen, gau **trankila** pixkanaka argituz zihoala. Matías Múgica
Goxotasun leun, lasai, nag-i, **trankil** eta baretik beste aldi mugituago, kitzikagarriago eta gartsuagora pasatu behar da. Luis Elberdin

2 *adlag*

Ez nengoen **trankil**, hala ere. Aingeru Epaltza
Biamon **trankil** izanen zara. Piarres Aintziart
-Jesarri **trankil**, guk kantau bitartean. Xabier Amuriza
-Hoa **trankil** -moztu zidan-. Aingeru Epaltza
-**Trankil**, ez nauk aspaldiko kontuez ariko. Josu Landa
-**Trankil**, ikusi dut. Iban Zaldúa
-**Trankil**, mutilak, kontrolpean dago dena. Unai Iturriaga
-**Trankil**, txo! Sonia Gonzalez
Ez bainuen kontzientzia **trankil**. Daniel Landart
-Hurrengo urteak **trankil** eta jabal joan zitzaizkidan. Joan Mari Irigoien

Txute bat ezin da taberna bateko munean sartu, **trankil** eta inimitatean egin beharreko gauza da, lerrotxo bat edonon har daiteke, baina txute bat ez. Sonia Gonzalez

Ohera sartuko haiz, bestondoa **trankil** demonio ematzer. Aingeru Epaltza

Ordura arte nahiko **trankil** ematen zuen, baina bat-batean, aurpegia itsustu, eta lehenengo belarrondokoa eman zidan. Rafa Egiguren

Trankilago ematen zuen semeak, Antoniaren ustez bezperan Mentxurekin izan bide zuen solasaldia zela eta. Josu Landa

Larridurak ito behar nauenean, Lucas eta Maria bezalako pertsonak agertzen dira, heriotzaren erdian arrunt eta **trankil**. Unai Elorriaga

Otsoak garbitu baziren garbitu, artzainak **trankilago** eta lan guttiagorekin bizi izan dira. Herria

3 (gauzei buruz)

Trankilago zebilen haizea. Unai Elorriaga

4 (hitz elkartuetan)

Trankil itxurak egin arren, kalerako irrikaz ziruditen. Pedro Alberdi

-Manuelen berri zehatzik izan arte, hobe diagu denok batera eta **trankil** antzera ibiltzea. Pedro Alberdi

5 *trankil-trankil* adlag

«**Trankil-trankil**» bizi dela dio, futbolaren falta ez duela inondik ere sumatzen. Berria - Kirola

Goizeko hiruretan hirigunetik **trankil-trankil** ibiltzea, inolako arrisku barik, paseoan. Urtzi Urrutikoeetxea

Hara itzultzen ahalgo zen **trankil-trankil**, inork trabarik egin gabe. Aingeru Epaltza

Politikaz, arteaz, liburuez, zinemaz berba egin genezakeen **trankil-trankil**. Xabier Montoia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
hago trankil (6); **hain trankil** (3); **trankil egon** (9); **trankil egoteko** (4); **trankil trankil** (4)

trankildu, trankil(du), trankiltzen 1 da *ad* lasaitu.

On handia egin ziola Marcos ikusteak, amasestua erabat joan zitzaielako, **trankildu** egin zelako erabat. Unai Elorriaga

Autobidean sartu zirenean Joseba osotara **trankildu** zen." **Trankildu**, gizona" esaten diot iluntzean, bonbilla ondora datorrenean. Iñaki Zabaleta

"Beno, Mikel, orain **trankildu** eta pentsatu egik zein izango den hurrengo pausoa. Unai Iturriaga

Mariak **trankiltzeko** erantzun zion, Matias Lucasen antzinako laguna zela, tranbia-gidaria. Unai Elorriaga

Trankilduta irten zen dutxatik. Unai Iturriaga

2 du *ad* lasaitu.

Printze izenak, harez gero barregarria iruditzen bazitzaidan ere, **trankildu** ninduen. Matías Múgica

-Lasai, Iñake, lasai -Ritxi bere ahots sendo eta beso sendoagoez laguna **trankiltzen** saiatzen da-. Xabier Mendiguren Elizegi

-Haurrak - **trankildu** nahi izan zuen Kerley andreak- hain dira bitxiak batzuetan. Mirentxu Larrañaga

Trenaren tiki-takak **trankildu** egin zituen Mikelen kiroak, loak hartzeraino. Unai Iturriaga

Nire laguna ez zela inoiz ez irratizale ez prentsa irakurle izan oroitu eta **trankildu** nuen neure burua. Aingeru Epaltza

trankilki *adlag* trankil, lasai.

Heldu diren bozkak **trankilki** behar ginituzke pasatu. Herria

Berantago, Jacki droga diskretuki pasarazi ziolarik, Dongi telefonatu zion tipoa **trankilki** joan zen komunera. Ramuntxo Etxeberri

Ea ez zuten beren karga pausatzan ahal ixtant bat, pipatzeko doia **trankilki**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

trankiltasun *iz* lasaitasuna.

Ez da komeni gazteei hori irakastea [...] horiek nahasten dituen garra itzali eta **trankiltasuna** eta oreka lortu arte behintzat. Xabier Kintana

Neska ere, lagunaren arrangurak indartu ahala, urduriago jartzen ari zen, gogoz kontrako egoera hartan **trankiltasuna** mantentzen saiatu arren. Xabier Mendiguren Elizegi

Goizaldean arratsaldeko bihotz **trankiltasuna** berreskuratua nuen. Matías Múgica

Kartier hortako eta urrutxagoko jendea **trankiltasunean** bizi dadin. Herria

trankilxe ik *trankil*. *adlag* trankil xamar.

Hiru egun patxadan hartu, eskuen artean darماغun bizitzari erreparatu **trankilxeago**, Jauna eskertu bihotzez, [...]. Pello Zabala

tranko *iz* (zurubi) maila.

Zer lurrikara sortuko zuen zakur honen buruan baldin eta deskubrituko balu eskailera honetako ehun eta hogeita hamalau **tranko** ezagunei bat-batean beste bat erantsi zaiela. Jon Alonso

Eskaileretako **tranko** batean esertzen da, beldurra uxatzeko. Jon Alonso

Eskailera hau jatorrizkoa egongo zen tokian dagoela, bi edo hiru belaunaldik, gehienez ere, higatu dituzten gaurko **trankoak**. Jon Alonso

trankula *iz*

Lauetan edo zortzitan plegaturik, kamioiaren **trankula** eztituko dit. Marzel Etxehandi

tranpa 1 *iz* harrapatzeko edo erorarazteko trepeta.

Beste pardel handi bat ere bageneraman, ehizarako sareekin eta **tranpa** txikiekin. Jon Maia

Tranpa prestatzen duena bertara jausiko da, harria birarazten duenari gainera eroriko zaio. Elizen arteko biblia

Gaiztoentzat **tranpak** daude gordeta lurrean, zelatak bideetan. Elizen arteko biblia

Basoan **tranpak** jartzen ari nintzen egun batean izan zen. Jon Maia

Arrazoirik gabe, **tranpa** jarri didate; motiborik gabe, zuloa zabaldu. Elizen arteko biblia

Mahaikide zenituenek **tranpa** jartzen dizute hankapean. Elizen arteko biblia

Mailek, nolanhika eta trabesean paratutako oholez baldar konponduak, otsoendako **tranpak** ematen dute. Koldo Izagirre

Une hartan asmo bakarrak hartzen zion burua: bere txori gaixoa likazko **tranpa** hartatik nola libratu. Patxi Iturritegi
Bospasei urterekin jada ikasi zuen **tranpen** artea, eta aitak biriketako gaitz hura hartu zuenetik, berak ekartzen zituen txoriak etxera. Jon Maia
Amuok **tranpa** hilgarri bilakatzen dira dorkentzat. Berria - Gaiak
Hementxe geratu beharko dinagu, egunetan eta egunetan, elurrezko **tranpa** zuri gaiztoan harrapatuta. Anjel Lertxundi
Gureak egin zuen, eta jakinarene gainean geunden: **tranpan** harrapaturik geunden, bakoitza bere **tranpan**, eta ez zen han irtenbiderik, beherantz ez bazen. Juan Garzia
Zuzenak bide txarretik eramaten dituenak, berak prestatutako **tranpan** jausiko da. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Ekonomilariak [...] hainbat **tranpa** izaten dituzte zain beren jakintza bidean barrena. Iñaki Heras
Bekataritari **tranpa** bihurtzen zaio mihia, iraintzaile eta harropuzari erorbide. Elizen arteko biblia
Ziurtatu beharra zegoen bere aurrekoa ez zela detektibe bat, **tranpa** jarri zion agente probokatzailerat. Anton Garikano
Tranpa bat jarri nahi al zenion printzeari, Rifkindarren alde zerbait egiteko eskatzean? Matías Múgica
Madarikatua, eszena kitsch baten **tranpa** sentiberan erortzen ari naizela esaten ari zaidan ahotsa. Anjel Lertxundi
Ez ote gara etsaiaren **tranpa** erretorikoan erori? Berria - Euskal Herria
Tranpa batean erori naiz: gauzak egiteko gogoia etorri zain egoten naiz gauzak egiten hasteko, eta **tranpa** hori utzi egin nahi dut. Pako Aristi
Bi pintoreek, askatu zituztenean, **tranpa** bat asmatu zuten mendeku moduan. Pello Lizarralde
Beste labirinto edo kobazulo edo uharte batean galduta dabilela pentsatuz, beste **tranpa** sorgindu eta saihestezin batean. Karlos Linazasoro
Lázló-ren Parisko erbestaldia, ustez arriskurik gabea, **tranpa** bihurtu zitzaion beste hainbat iheslariri bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tranpa-jartzaileek jendea putreak bezala tirokatu edo untxiak bezala sareratzear gain, ezin zenuen lasterka egin ez bazeneken nora joan. Anton Garikano

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hau sagu-**tranpa** bat duk suak hartzen badik... Harkaitz Cano
Xagu-**tranpa** batean harrapatuta zegoen eta ezin zuen ezetz esan. Harkaitz Cano
Txori **tranpa** txiki bat egiten zuen bitartean. Jon Maia
Bonba-**tranpa** batek lurrean zaurituta utzi duen andrearen irudia. Bernardo Atxaga
Albariño botila erdia hustu ostean halako gaiekin hasten zenean, isilik geratu eta Robertok bere hari-**tranpak** bakarrik jar zitzaion uztea izaten zen onena. Harkaitz Cano
- Azken urteotan sarritan izan da hizpide *tranpa* adjektiboa; ezagutu izan ditugu bai «su-eten **tranpak**», bai «itun **tranpak**», baita «alderdi **tranpak**» ere. Berria - Kirola

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ez dakit nola izan zen, baina 'elkarrizketa **tranpa**' itxura du, hots: prestatu zuenak, nahita edo nahi gabe, tranpa bat jarri zion hiruko gobernuak zikintzeko. Berria - Euskal Herria

6 engainua; iruzurra.

Hik ere ederki dakik munduan dena **tranpa** bat dela, **tranpa** besterik ez zegok, mugitzen haizen bezain laster harrapatzen hauten **tranpa** bat. Fernando Rey
Lehen bi kanporaketek **tranpa** dute. Berria - Kirola
Inolako **tranpa** eta iruzurrik gabe. Patxi Ezkiaga
Hain zuzen ere, itxaropena **tranpa** den bezala, logika ere **tranpa** da. Josu Zabaleta
Hala ere, **tranpa** handi bat da, zeren eta ezagutu nahiak literaturara bultzatzen gaitu, eta literaturak, oster, beste mundu batera eramaten, zeinetan, oraindik misterio handiagoak eraikiko ditugun... Ana Urkiza
Betiko **tranpa** kontsumista. Patxi Iturritegi
Jakina, dena **tranpa** hutsa zen. Gotzon Garate
Gure moralista progreak "maitasun heldua" aldeztu zuen [...] "erabateko konpromisoa" heldu arte -hor dago **tranpa** - "itxoiten dakien" maitasuna aldarrikatzen zuen. Luis Eiberdin
Osaketa edo konposizioaren falazia ere aintzat hartu beharreko **tranpa** da ekonomian. Iñaki Heras
Bertoak bat-batean botatzen dituenak ez du erabili inolako **tranpa** edo trukurik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Gatozen egiantzekotasuna deritzan **tranpa** mortalera. Iñaki Segurola
Tranpei esker hogeita bata lortzen zuen eskuko zen guztietan. Felipe Juaristi
Teknikak eta medioak beharturik, bertsogintzan sekula egin ez zen **"tranpa"** bat egitera prestatu ginen. Andoni Egaña
ik beherago 11. Askoren artean
Bi neskatxo negozianteek **tranpak** egiten zituzten erosketen kontuetan, eta gero dirua niri uzten zidaten maileguan. Fernando Rey
Nixon presidentek bere kargua utzi behar izan zuen [...] kazetari batzuek berak Alderdi Demokrataren aurka egindako **tranpak** agerian utzi ondoren. Pello Salaburu
Tranpan edo gezurretan harrapatzen dituzten haurrek egin ohi dutena. Joan Mari Irigoien
Haietatik bi milioi inguru erori dira **tranpan**, eta bakoitzari, batez beste, 1.200 dolar inguru kendu dizkiote kontu korrontetik. Berria - Gaiak
Ez zait gustatzen **tranpetan** ibiltzea. Eskarne Mujika

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tranpa itxurako norgehiagoka da gaur arratsaldekoa. Berria - Kirola
Tranpa usaina hartzen ari nintzaien bere hitzei. Jon Alonso
Aupa, segi aurrera, idazmakina hori, atera gaitezen **tranpa** gau honetatik. Fernando Rey

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezagutzen dituzue [...] nabigaziorako heriotza **tranpa** maltzurak osatzen dituzten hondar pila menditsuak. Pako Aristi
Lege-**tranpa** bat da, legez kanpoko delako. Berria - Ekonomia

9 tranpola.

Eta berehala ulertu zuen: ganbara gorenerako sarbidea korridorearen sabaian kokatutako **tranpa** zen. Agustin Otsoa
Azken solairuko **tranpa**-zuloa itxi eta gero, kanpajolea mundutik aparte dago. Koldo Biguri
On Camillok argi elektriko bat piztu zuen eta, lurretik belar-bala bat baztertuz, **tranpa**-ohol bat agertu zen. Koldo Biguri
Juliaren ondo-ondotik agertu zen Gabriel, eskailera-**tranpan** Freddy Malinsi gidaritza egiten. Irene Aldasoro

10 *tranpazko izond* tranpa daukana, iruzurtia.

Eta zientzia, ez ote da pesimismoaren beldurra, eta hari ihes egiteko bide seguru bat?, ez ote da egiaren kontrako defendagarri **tranpazko** bat? Iñaki Segurola
Ez dut "gizaki", "ugaztun adimendun" eta antzeko bihurrikeria jakintzetan katigatu nahi, ez diot "logokeria" lasaigarriaren dialekto **tranpazkoari** [...] amore emango. Iñaki Segurola
Berdin egotzi zaio San Sebastian egunari: aurreraxeago aztertuko dugu egia honen gezurño **tranpazkoa**. Pello Zabala

11 *tranpa* egin

-Horko tipo hori, gure lekua hartu duena, **tranpa egiten** ari da. Koro Navarro
Tranpa egiten ote zuen hainbeste kasualitate bata bestearen atzetik paratzean? Iñaki Iñurrieta
Inoiz **tranpa egiten** hasiko bazina ere eta ez egitekoak ezkutuan egiten, ohart zaitez Adurrek erabakiko dituela bai **tranpa egitea** bai tranparen nolakoa. Anjel Lertxundi
Tranpa egiten saiatzan da, labor eta xuxen esanda: traspazkente itxura eman nahi du, baina ezin. Harkaitz Cano

Neure buruari askotan **egiten** diodan **tranpa** da hori. **Ramon Saizarbitoria**

12 tranpa oholik tranpol.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere tranpa (3); **betiko tranpa** (3); **dena tranpa** (3); **tranpa bat da** (11); **tranpa bat dela** (5); **tranpa bat jarri** (3); **tranpa da** (12); **tranpa dela** (3); **tranpa egin** (6); **tranpa egitea** (4); **tranpa egiten** (12); **tranpa egiten dute** (3); **tranpa hutsa** (3); **tranpa itxurako** (3); **tranpa izan** (4); **tranpa jarri** (8); **tranpa txiki bat** (3); **tranpa zikina izan** (3)

tranpak egiten (6); **tranpak jartzen** (7)

tranpan erori (6); **tranpan ez erortzeko** (3)

tranparik gabe (4)

tranpakeria iz iruzurkeria.

Mexikan irriska presondegia, lanjerra eta **tranpakeria**. **Herría**

tranpal 1 iz zurubi batean, bi maila sailen arteko zati laua.

Lehen **tranpalean** gelditu zen, eta aurrera segitzeko keinu sustagarri bat egin zigan hildakoaren gelako ate zabalduaren aldera. **Irene Aldasoro**

Hirurak jo arte egon nintzen eskaileretako **tranpalean** jesarrita. **Koldo Izagirre**

Hanka-puntetan joan ohi ziren biak eskaileretan gora, kandela banarekin, eta hirugarren **tranpalean**, gogoz kontra, bata besteari gabon esaten zion. **Irene Aldasoro**

2 hegazkinetan, paraxutistak jauzi egiteko atea.

Sagonen unibertsoa ere horretara mugatzen zen: **tranpal** irrizarria abiarazten duen biradera, jaugailuaren helduleku bat -haren lekuak kezkatzen baitzuen- eta bere ekipoaren egoera teknikoa. **Josu Zabaleta**

Tranpala zabaltzeko zazpi buelta eman behar zaizkio gogor eusten dion biradera bati. **Josu Zabaleta**

3 ik tranpol.

4 ik tranpol 2.

tranpaldo iz

Susmo beltza baino areago, inpresioa zuen lagunak, politikoen bozgorailu baino ez zirela askotan, prentsa bulegoek nahierara erabiltzen dituzten **tranpaldo** mediatikoak.

Iñigo Aranbarri

tranpaleratu, trapalera, tranpaleratzen da ad tranpalera iritsi.

Kearney andreak ez zuen ezer esan, baina parte--hartzaile kaskarrak bat bestearen atzetik **tranpaleratzen** zirenez eta aretoan zegoen jende apurra gero eta bakanagotzen zihonez, kontzertu horretarako egin zituen gastuez damutzen hasi zen. **Irene Aldasoro**

tranpaltxo iz

Goian bada **tranpaltxo** bat, normalean eskailera-buru deituko dioguna. **Josu Zabaleta**

tranparendum iz adkor ik erreferendum.

Galdeketa boikota egiteko mezua helaraziko dutela iragarri zuten herritarrek: «Erreferenduma ez, **tranparenduma** da». **Berria - Mundua**

tranpati izond/iz tranpa egiten duena.

Morroitxo hauek deabru **tranpati** eta engainagarriak izan daitezke! **Iñaki Mendiguren**

-Hementxe, begira -esan zuen, besteei berehala interesa piztu zien ahots **tranpatiaz**. **Iñaki Mendiguren**

Entimema, berriz, nolabait esateko, sasi-silogismoa da, silogismo **tranpatia**, amarruzkoa. **Joxerra Garzia**

Hartzak hori, zikin, **tranpati** hori! **Iñaki Mendiguren**

Suschitzky-k **tranpati** *alaena* deitu zion jokalarari bati, Rüksam-i jokaldia salatu ziolako. **Anton Garikano**

Gainerako hegaztiekin badakite egun hartan tranpa egin zuela [...] eta ez dira liluratzeko badakite **tranpati** baten txorrotzio ederrekin. **Hasier Etxeberria**

Sekula ez zela gehiago mahai berean eseriko **tranpati** koadrila harekin. **Anton Garikano**

tranpatxo 1 iz harrapatzeko edo erorarazteko trepetatxo.

Eskainitako dirua patrikara sartu eta handik gertuko **tranpatxo** bat ireki zuen lurrean garbitzaileak. **Harkaitz Cano**

2 iruzurtxo.

Beronek lortu zuen, gaitzik gabeko **tranpatxo** baten bidez baina berebiziko debozioarekin, haren saihetseko zauria ukitzea. **Askoren artean**

Letra bakoitzak dakar bere istorioa **tranpatxoren** bat edo beste eginda, alfabetoaren zerrrendara moldatu dira hogeita bost bizitza eredugarriak- eta letra bakoitzak dakar bere musika... **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

3 urkamendian, urkatu behar denaren azpian jartzen den ohola, beherantz irekitzen dena. iktranpal 3; tranpol 2

Uste duguna da aulki elektrikoan, urkamendian, gilotinian, garrotean edo sutan hiltzera ezin kondenatutako ez duela sekula agindua eman korrontea piztu, hanka azpiko

tranpatxoa ireki, xafra zorrotza askatu, torlojuari bueltak eman edo pospoloa izekitzeko. **Jon Alonso**

4 tranpola.

Hirurak desagertu ziren **tranpatxotik**, azkar demonio, eta atea doi beren atzetik itxi zenean, [...]. **Jon Alonso**

tranpazulo iz tranpa.

Gramatika [...]: **tranpazulo** sistema, bere kasa ikasitako gizonaren oinak trabatzeko prestatua, nabarmendu nahi badu ibili behar duen bide guztirako. **Xabier Olarra**

tranpoli (orobat tranpal eta tranpa ohol) 1 iz sabaiko ate lurreko ate txikia, satora edo ganbarara iristeko jartzen dena.

Azkar, oin-puntetan igo zen azken eskaibururaino, gero, eskaileretan gora egin zuen **tranpol** bateraino. Lopez de Arana

Ronek ukondoko txiki bat eman zion Harryri eta sabaira keinu egin zuen; han **tranpol** biribil bat zegoen letoizko plakarekin. Iñaki Mendiguren

Galdera horren erantzun gisa, bat-batean ireki zen **tranpola**, eta zilar-itxurako eskailera bat jaitsi zen Harryren oinetaraino. Iñaki Mendiguren

Makurtu eta **tranpolaren** zirgiloari tira egin zion, eta **tranpola** altxatu eta zabaldu egin zen. Iñaki Mendiguren

Andreas ere soto-zuloraino hurbildu zen, bertako **tranpola** itxi, eta Nora giltzapean gordetzea pasatu baitzitzaion burutik. Anjel Lertxundi

Orduan, On Camillok **tranpa-ohola** kendu eta belar-bala bat bota zuen piririka barrura. Koldo Biguri

Snape gaur gauean sartuko da **tranpoletik**. Iñaki Mendiguren

Handik irten eta **tranpola** itxi zuen; lurrean hauts azpian hain ongi gordeta geratzen zen **tranpola** hura, ia ezinezkoa baitzen han zegoela igartzea. Iñaki Mendiguren

Hermione urrats luzez **tranpolera** joan zen, jo eta ostikoz zabaldu, eta zurbian behera desagertu zen. Iñaki Mendiguren

Eskaileratik behera jaisteko, **tranpalari** heldu beharra zuen. Josu Zabaleta

2 (orobat tranpal) urkamendiko tranpatxoa.

Urkamendiko **tranpola** zabalitzen zuen hagari eragin zion borroeroak, eta Martharen oinek ostikada bana eman zioten aireari. Anjel Lertxundi

Bi zaindariren artean eraman zuten [...] urkamendia muntatuta zegoen hartara; borroeroak buruko kapusaia jarri zion, zuria, **tranpal** gainean klarionez marraztutako zirkulu barrura eraman zuen, orkatilak lotu zizkion uhal batez, urka-bilurra lepoari egokitu zion, eta gelaren beste aldera joan zen urkamendiko oholtzaren gainean zapata dotoreekin tiki-taka, tiki-taka denboraren ihesa markatuz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tranpala erortzen uzten zuen palankari eragin zion eta, hura irekitzearekin batera, Ruthen lepohezurrak haustean egindako krakatekoa entzun zen beste soinurik onar ezin zezakeen isiltasunean. J.M. Olaizola "Txiliku"

tranpolin 1 iz igerilekuetan uretara jauzi egiteko ohola.

Bi metroko **tranpolin** gain horrextetara igo dira mutikoetan ausartenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Batek ez du noski hasieran **tranpolin** handienetik jauzi egingo. Karlos Linazasoro

Nire yogurra emango dizut **tranpolinetik** salto egiten baduzu. Xabier Mendiguren Elizegi

Tranpolinaren mutur-muturrean, gorantz egin zuen indar. Karlos Linazasoro

Handik hamar bat minutura kirol ontzira igotzen eta **tranpolina** alferrik miatzen ikusi dugu denok. Txillardegí

2 (txapelketetan)

Lars Bystol eski jauzilari norvegiarrak irabazi zuen atzo Lau **Tranpolinetako** hirugarren proba, Innsbrucken (Austria). Berria - Kirola

Michael Greis eta Georg Hettich izan ziren lehenak podiumeko maila gorena zapaltzen: Greisek biatloiko 20 kilometrokoan egin zuen, eta Hettichek **tranpolin** arrunteko konbinatu nordikoan. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Merezi al du, esate baterako, Belaguan halako jauzi **tranpolinik** eraikitzea? Berria - Kultura

4 irud/hed

Bigarren Mundu gerran zehar, AEBetako Gobernuak entrenimenduaren **tranpolin** hura erabili zuen propaganda zabaltzeko. Berria - Ekonomia

Filmak **tranpolina** eta izateko arrazoiak hizkuntza izango du. Berria - Harian

tranposa izond/iz emakumezko tranpatia.

Orduan ageri da benetan **tranposa**. Pello Zabala

tranposo izond/iz amarrutsua, iruzurgilea.

Gu baino larriagoko mutil **tranposo** haiek. Patziku Perurena

Azpeitiarrak jendaje takarra eta **tranposoa** dira. Iñaki Segurola

Gauza zatarak esateko zaletasuna zuen, eta **tranposoa** zen jokoan. Xabier Olarra

Gizon horiek zu bezalakoak ziren, ttikiak, baina oso bizkorak eta **tranposoak**. Bernardo Atxaga

tranpoxo izond/iz adkor tranposoa.

Ttikien zuhurtzia erdi-**tranpoxo** erdi-axkarraz baliaturik. Pello Zabala

Gixon hura "gu" zen, ttikia, baina oso bixkorra eta **tranpoxoa**. Patziku Perurena

transakzio 1 iz hautsi-mautsia, konponbidea.

Legeen arteko **transakzioa**. Andres Urrutia

Bateko ohiturak eta besteko zuzenbide idatzia, bitarikoak zen Frantziako antolamendu juridikoa, eta beharrena, agi denez, bi egitura horien arteko **transakzioa**. Andres Urrutia

Europako Batasuneko Parlamentuan eztabaitzen hasi zirela atzo, diputatuen artean **transakzioak** eginik, biharko bozketan Bolkesteinen testu arras moldatuaren alde eginen du gehiengoak. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan)

Sarritan aipatu ohi da Frantziako Kode Zibilaren **transakzio** izaera. Andres Urrutia

EAJk eta EAK adostutako **transakzio** -zuzenketa onartu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek. Berria - Euskal Herria

3 (legeen mundutik at)

Politikak konpromisoarekin, hitzarmenarekin eta **transakzioarekin** duela zerikusia, orduan errazagoa izango da elkargunea. Berria - Euskal Herria

Alexandro-osteko helenismoaren eta bere garaikideen arteko **transakzio** artistiko eta intelektualak, militar eta politikoak bezalaxe, garai honetarako, kontu kitatuak ziren. Iñaki Mendiguren

Transakzio baten bi mutur bilakatu gara, baina nola gizarte moderno batean bizi garen, ganadu ferietan salerosketa burututakoan ospatzen ziren afariak ahaztu egin behar izan ditugu, baserritariek gure kultura gehiago samair usainez kutxa ez dezaten. Pako Arísti

4 salerosketa-ekintza.

2002ra arte **transakzioak** egiteko gai izan bazen, agintari militar ohiak dementzia arrastorik ez zuela frogatuko litzatekeela esan zuen Hertzek. Berria - Mundua

Merkatuko **transakzio** guztietan erabateko informazio gardentasuna izan behar da. Iñaki Heras

Nazioarteko **transakzioentzat** oinarri izango den potentzia hegemoniko batek bermaturiko dirua, besteak beste. Iñaki Heras

Orain 8.000 dolar bidal diezazkizukegu **transakzio** honengatik. **Ramon Etxezarreta**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Informazio teknologiararen bilakaerak sortu duen aldaketa handienetakoa bat **transakzio** kostuen murrizketa da. **Iñaki Heras**

Transakzio-asmoa, espekulazio-asmoa eta ustekabeei aurre egiteko zuhurtzia. **Iñaki Heras**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Riggs bankuko kontuak Pinicheten eta Lucia Hiriart bere emaztearen izenean daude eta Pinochetek 1994tik 2002ra banku **transakzioak** egin zituela frogatzen du. **Berria - Mundua**

Dohaintzen, oinordetzaren eta ondare txikien gaineko zerga ezarri nahi du berriz, baita inbertsio publikoen funtsen eta burtsa **transakzioen** gainekoak ere. **Berria - Mundua**

Zerga bat sortzea proposatu zuen arma salmentari, finantza **transakzioei** eta paradisu fiskalei ezartzeko. **Berria - Gaiak**

Munduan aste batean gauzatzen den finantza **transakzioekin** badago urte osoan egiten diren ondasun eta zerbitzu trukea berdintzerik. **Iñaki Heras**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko transakzioa (4)

transamazoniko *izond* Amazonetako eskualdean zeharkoa.

Urte hartan azpiegitura handi baten proiektua aurkeztu eta onartu zuen Brasilgo Gobernuak: autobide **transamazonikoa**. **Berria - Gaiak**

1986. urtean, Autobide **Transamazonikoa** eraikitzen ari zirela aprobetxatuz, Bannach Ltd. zur enpresak zerratoki handi bat ezarri zuen Cachoeira Seca eskualdean. **Berria - Gaiak**

transaminasa *iz* aminoazidoak sintetizatzen dituen enzima.

Gaixotasuna oso garatua dagoenean agertzen dira lehenengo zantzuak; **transaminasa** maila oso altua denean edo gibela asko handitu denean. **Berria - Gaiak**

Odolean **transaminasa** maila altua izatea alkohol kontsumo handiarekin lotzen da normalean. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

transaminasa maila (4)

transatlantiar *izond* Atlantikoaren bi aldeen artekoa; Atlantikoaren beste aldekoa. ik**transatlantiko 3**.

Igandea zen; balaustradaren eta oporretako txaleten hesien artean sarturik, jendetza uhin txikitari barreiatzen zen, milaka errekatari galtzen joateko sozietate **transatlantiarraren** eraikin handiaren atzean. **Monika Etxebarria**

transatlantiko *(orobat trasatlantiko) 1 iz* ozeanoak zeharkatzeko prestaturiko itsasontzia, eskuarki bidaiariak eramaten dituena.

Eskaintza erakargarria zen oso: hilabetean joan-etorria Karibera, luxuzko **transatlantiko** batean. **Berria - Kultura**

Trasatlantiko batean nago makinista. **Koldo Izagirre**

Haien aurrean **transatlantiko** bat zegoen eta, hari bultzaka, brankaren alde bakoitzean, ke zurizko bafadak botatzen zituen atoiointzi bana; **transatlantikoa** gailentzen zen portuko ontzi guztien arteik. **Lopez de Arana**

Berriro itsasoratzekotan nahiago nitek **transatlantiko** baten itsasoratzea, bere igerileku, kasino eta gainerako erosotasunekin. **Migel Angel Mintegi**

Berriro adituko duzu turuta, eta **transatlantikoren** bat izango da. **Joseba Sarrionandia**

1912ko apirilaren 15a: *Titanic* **transatlantikoak** izozmendi batekin talka egin zuen Ternuan, eta 1.513 pertsona zendu ziren. **Berria - Mundua**

Pianista fina zen gizona, eta itsasoan barrera ibili izan zen gaztetan *Alfonso XIII* **transatlantikoan** orkestra-zuzendari. **Josu Landa**

Lagunek eta emakume batek [...] lineako **transatlantiko** bateko mediku-posturako lehiaketan sar zedin lortu zuten. **Juan Garzia**

2 (erkaketetan)

ERCK gobernu hirukoitza muntatzeko momentuan adarra jo zion CiUri, baina **transatlantikoan** mugimenduak geldoak dira, urperatzean zurrunbilo handiagoa sortzen dute, baina behin ibilbide zehatz bat hartuta inplakableak dira. **Berria - Euskal Herria**

Gurea txalupa txiki bat zen, eta *Egunkaria*, berriz, itsasontzi handia, **transatlantikoa**. **Berria - Harian**

• 3 Atlantikoaren bi aldeen artekoa; Atlantikoaren beste aldekoa. ik**transatlantiar**.

Jose Maria Aznarrek datorren ikasturtean Europako politikari eta harreman **transatlantiko**ei buruzko eskolak emango ditu. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

transatlantikoa bahitu zuten (3)

transbertsal *izond* hitzarmenez eta kidekoen mintzatuz, ideologia ezberdinetakoen artean egiten edo gertatzen dena.

Beharrezkoa da bake mugimendu **transbertsal** bat hemen. **Berria - Harian**

Kasu honetan gehiengoak ez du balio, bai transakzio **transbertsalak**. **Berria - Euskal Herria**

Beraiek frontea osatu baina guri zeharkako itunak eskatu, «**transbertsalak**» izan beharra dago eta garaiotan. **Berria - Euskal Herria**

Adostasun zabala, adostasun **transbertsala**. **Berria - Euskal Herria**

Elkarri izan da **transbertsala**, izan du bi aldeetako sufrimendua aintzat hartzeko ahalmena. **Berria - Harian**

Gobernuaren eta erakundeen lana baino **transbertsalagoa** da egiteke dagoen lana. **Ana Urkiza**

transbertsalitate *iz* transbertsala denaren nolakotsuna. ik **transbertsaltasun**.

60ko euskal kulturagintzaren ezaugarriak behinena «**transbertsalitatea**» dela iritzi du. **Berria - Kultura**

EAJko buruzagiek irizpide metodologiko horiek nabarmendu dituzte: **transbertsalitatea**, «akordio integratzailea» eta ez ezarri/ez eragotzi printzipioa. **Berria - Euskal Herria**

transbertsaltasun *iz* transbertsala denaren nolakotsuna. ik **transbertsalitate**.

transbordadore 1 *iz* bi punturen artean uretan edo airez atzera-aurrera salgaien eta bidaiaren garraioan aritzen den ontzi edo kidekoa, bereziki tamaina handikoa. ik **ferry**.

Hartzen uzten diguten ibilgailu bakarra **transbordadorea** da. **Josu Zabaleta**

Tartean behin **transbordadoreren** bat igarotzen zen ibaitik. **Unai Iturriaga**

Brooklyngo zubia eraiki aurretik **transbordadore** bat zen East River zeharkatu eta aberaskumeak Manhattanetik beren udako etxaldeetara eramaten zituena. **Harkaitz Cano**

Altura apur bat hartu bezain laster agertu zitzaion Trapaga haraneko hedadura zabala, eta Nerbioi gainean eskegitako **transbordadore** metalikoagatik ezagutu zuen Portugaletek non behar zuen, San Roke eta Iruiturri mendixkek ezkutatuta. **Josu Landa**

852 lagun hil ziren Estonia **transbordadorea** Itsaso Baltikoan hondoratuta, Finlandiako kostatik 40 kilometroa. **Berria - Mundua**

2 atmosferatik kanpo tresnak eta gauzakiak eramaten dituen espaziontzia.

Erregai depositu handi bati lotutako pisu handiko espaziontziak dira **transbordadoreak**. **Berria - Gaiak**

Ilargian plataforma egonkorra sortzeko lur orotako ibilgailuak eta robotak diseinatzea, eta Martera joan-etorria egiteko **transbordadoreak** sortzea. **Berria - Gaiak**

Koloka egon da egitasmoa, ISSra gaiak eta astronautak eramaten dituzten **transbordadoreak** segurtasun arrazoiengatik erretiratuko dituztela iragarri ondoren. **Berria - Gaiak**

Maiatzerako aurreikusitako bidaian lau gizonezko eramango ditu NASAren **transbordadoreak** ISSra. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

transbordadore bat hondoratuta (3)

columbia transbordadoreak (3)

columbia transbordadorearen (3)

transbordo *iz* ibilgailu batetik beste batera aldatzea.

Hiru **transbordo** metroan, behin baino gehiagotan galdu nintzen kaleetan, artean ere Gisela eta amodiozko desengainuak nituelako buruan. **Fernando Rey**

Horrela lortu genituen tren guztietarako, **transbordoetarako** eta itsasontzira txartelak. **Mikel Hernandez Abaitua**

Metroa hartuta, esan dudan bezala, **transbordo** egiten zen Sierichstrasseko geltokira. **Fernando Rey**

transduktore *iz* energia-mota batedo seinale bat hartzeko eta beste mota bateko energia edo seinalea igortzeko egitekoa duen gailua.

Transduktoreak izan ohi dira normalean gailu horiek: era askotako seinaleak jaso -beroa, argia, soina edo presioa-, eta nerbio-bulkada bihurtzen dituzte. **Irene Aldasoro**

Narrasti emeengan bezala, ugaztunengan ere klitoria da plazeraren hartzegunea eta kitzikapen sexualaren **transduktorea**. **Luis Elberdin**

transdukzio *iz* energia-mota bat edo seinale bat beste izaera bateko energia-mota edo seinale bihurtzea.

Hartzailearen eta estekatzailaeren arteko eragin-trukea, fenomeno asko eta askotan, hala nola seinaleen **transdukzioa** edo zelulen arteko eragin-trukea, zelulen itsastea, eta abar. **Juan Garzia**

transeuopar *izond* Europako barne mugen gaindikoa.

Euskal Y-a egitasmo nagusietako bat zen ardatz **transeuoparrean**. **Berria - Euskal Herria**

transexual *izond/iz* beste sexukoa dela sentitzen duena; beste sexuko pertsonen nolakotasun fisikoak, hormonien edo kirurgiaren bidez, hartzen dituena.

Ez nahastu ni trabestiekin, mesedez: trabestiak gauzez emakume janzen diren gizonak dira, eta gu, **transexualak**, gizonezko gorputzarekin jaio, baina emakume sentitzen garen emakumeak gara. **Aitor Arana**

Ez dira genitalak aldatu behar **transexuala** izateko. **Berria - Euskal Herria**

Beti egon naiz etxean lagunik gabe, eta aitaren gorrotoa etengabe nozitzen, bere ustez maritua nintzelako, benetan **transexuala** naizenean. **Aitor Arana**

Transexualak eta hermafroditak, esaterako, ez dira naturak eman dien sexuarekin gustura sentitzen. **Berria - Gaiak**

Lesbiana, gay, heterosexual edo **transexual** zarea jakiteak, sentitzeak eta horren arabera bizitzeak izugarriko garrantzia du pertsonaren bizitzan. **Luis Elberdin**

Badira **transexual** heterosexualak eta **transexual** homoseualak, hau da, anatomia maskulinoa izanda emakume sentitzen direnen artean, batzuei gizonak gustatzen zaizkie eta beste batzuei emakumeak. **Luis Elberdin**

Transexual guztiak ez dute generoarean nortasuna aldatzeko sexu aldaketarik egiten. **Berria - Euskal Herria**

Gizarteak **transexualekiko** duen isilpeko jarrera gainditu, eta **transexualak** beste edozein pertsona bezalakoak direla ulertu behar da. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gayen eta transexualen (3); **homosexual eta transexualen** (3); **lesbiana eta transexualen** (8); **lesbianen eta transexualen** (4); **transexualen inguruko** (5)

transexualitate *iz* norbaitek beste sexukoa dela sentitzea; beste sexuko pertsonen nolakotasun fisikoak, hormonien edo kirurgiaren bidez, hartzea.

Homosexualitatearen, lesbianismoaren eta **transexualitatearen** arrazoiak familia barruko harremanen psikodinamikan bilatzen tematzen direnek. **Luis Elberdin**

Transexualitateak beste aukera sexual bat izan behar du. **Berria - Euskal Herria**

Urtero beste 300 gehiagok onartzen dute euren **transexualitatea**. **Berria - Gaiak**

transfer (*orobat trasfer g.er.*) *iz* eskualdatzea.

Birixti astrologikoak ginen gau mineko solaskidearen aurpegiat ontsa gogoratzen nintzen: argizteiak amultsutasuna oparitzen zion eta bihotza arintzearen, prest nintzen naski, bertan debalde bezain arrisurrik gabeko, dena ere on, **transfer** sentimental baten bideratzeko. **Itxaro Borda**

Freud gure artean egon bailitzan, batere maleziarik gabe segurki, gasnaren funtsean eramaten genituen **transfer** guztiak aztertuko zituzkeen, non ez zen hura berdinki gasna

transferentzia (orobat *trasferentzia g.er.*) 1 iz eskualdatzea.

Geldiro egiten da substantzia kimikoen **transferentzia**, gorputzaren tenperaturaren egin behar baita, odolean edo beste ehun batzuetan dauden substantziak beste materialik erabili gabe. Irene Aldasoro

Spainia Gubernuak eskualdatu gabe dituen **transferentziak** direla medio, Jaurritzak 200,6 milioi euroko gastua egin behar duela. Berria - Euskal Herria

Eskubidearen **transferentziarako** beharrezkoak dira bai transferitzailearen borondatea bai hartzailearena. Esteban Antxustegi

Eskumenaren **transferentzia** lagungarria izango litzateke, baina ezin dugu horren zain egon, besoak gurutzatuta. Berria - Harian

Autonomiak indarrean jarri ziren, eskuduntzen **transferentzia** egin behar zen, baina asko makaldu zen egiteko hori. Berria - Euskal Herria

Kupoa eta **transferentziak** «bide onetik». Berria - Euskal Herria

Ulertzen da eskubidearen **transferentzia** erresistentzian bakarrik datzala, **transferentzia** egin aurretik **transferentziaren** destinatzaileak guztirako eskubidea baitzeukan. Esteban Antxustegi

Ez da burujabetzaren **transferentzia**, izen aldaketa baino. Berria - Mundua

Teknologiaren -horien artean teknologia berrien eta berritzaileen- garapena, egokitzapena, hedapena eta **transferentzia** areagotu beharko lukete. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizarte eragileen aldetik bi dira jakintza erabilgarriaren **transferentzia** eragotzen duten hesi edo eragozpen nagusiak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ikertzaile askok **transferentzia** nuklearen bidez enbrioak sortu eta hortik zelula amak lortzea, klonazio terapeutikoa deitzen dute. Berria - Gaiak

Aurreneko truke-letrak XII. mendearen bukaeran agertu ziren, eta haiei esker saihestu ziren funtsen **transferentzia** fisikoak, saltzaileari kreditu-titulu bat ematen baitzizkion. Koro Navarro

Ezinezaren **transferentzia**, lekualdatze edo destokitze itxuragabe bat gertatu da hor: nere ezina hitzaren berezko ezin bihurtu da eta, horrenbestez, delako hitz horrek berekin du ezina. Iñaki Segurola

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estatuak nazioarteko zuzeneko inbertsioentzat egokia izango den giroa sortzen ahalegintzen dira, aldi berean teknologia **transferentziak** gehitzen saiatuz. Koro Navarro

Gaurkotutako zientzi informazioaren eta **transferentziaren** inguruko esperientzien truke libreaki [...] laguntza eman behar zaio. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Orain botere **transferentzia** egitea geratzen da. Berria - Mundua

Aginte **transferentzia** delakotik sortuko den aginteak legez kanpokoak den egoerari zilegitasuna eman diezaiola nahi dute. Berria - Mundua

Munduan zehar lanak dituen ordain desberdinen ondorioz sortzen diren balio **transferentziak**. Koro Navarro

Horretarako, nolana ere, mugatu egin behar ziren herrialde hartzekodunei egindako baliabide **transferentzia** garbiak, eta, beraz, berriz hasi behar zuten bankuak finantza bideak eskaintzen. Koro Navarro

Hala bada, nazioarteko zuzeneko inbertsioa jakituria- **transferentzia** ere bada, alegia, ikaste baten transferentzia. Koro Navarro

Nukleo **transferentzia** bidezko teknikak gizakietan balio duela frogatu zuten Hego Koreako ikertzaileek. Berria - Gaiak

3 kiroltan, beste herrialde bateko talde bateko kirolari baten eskualdatze baimena.

Elton Giovanni brasildarrak ere ezin izango du jokatu, bere fitxaketaren **transferentzia** ez delako iritsi. Berria - Kirola

Poliziaren arabera, alderdi independentistako buruak SCB Sporting Club Bastiako jokalarien **transferentzian** eta salerosketan parte hartu zuen. Berria - Mundua

4 banku eragiketa, diru kopuru bat kontu batetik beste batera eskualdatzean datzana.

Aljeriako Gubernuak 35 milioi dolarreko **transferentzia** egin dio, eta Saudi Arabiak eta beste herrialde arabiar batzuek agindutako diru laguntzak iristearren zain dago PAN. Berria - Mundua

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Inbertsio zuzenek urtebete baino gehiagorako **transferentzia** -fluxu pribatu garbien erdia hartu dute 1990-1996 aldirian. Koro Navarro

Horren arabera finkatuko ditu taldearen barneko salerosketa prezioak ("**transferentzia** prezioa" deitzen zaio horri). Iñaki Heras

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Onartuz gero, baiezkota adieraztearekin baterat banku **transferentzia** egin beharra dizut lehen bait lehen. Jose Angel Irigaray

LFPk soldata horiek ordaindu behar zituen diru **transferentzia** martxoaren 17an Espainiako Futbol federazioari egin ziola esan du. Berria - Kirola

Beste elementu bat izan zen Bensaiden eskuetan Poliziak aurkitu zuen diru- **transferentziarako** txartel batean Ramdaren hatz-markak egotea. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskumener **transferentzia** (5); jakintzaren **transferentzia** (3); **transferentzia** egin (7)

eskumener **transferentziari** (3)

transferentzien inguruan (3)

transferiezin *izond* ezin transferituzkoa.

Idaztea ariketa indibiduala da, **transferiezina**, eta intimoa. Ana Urkiza

Transferiezina den ekingia intelektuala. Anjel Lertxundi

transferigarri *izond* transferi daitekeena.

Negozi txikiarentzat, partaidetzako sozietateak osatu ziren: sozietate horietan pertsona batzuek, gehienetan familia berekoek, partaidetza ez **transferigarriko** kapital bat osatzen zuten, eperik gabe eta erantzukizun mugagabea hartuz. Koro Navarro

Negozi garrantzitsueni zegokienez, kapital ekarpenak epe jakinekoak eta partaidetza **transferigarrikoak** izaten ziren. Koro Navarro

transferitu, transferi, transferitzen (orobat *trasferitu g.er.*) 1 du *ad* eskualdatu.

Teknika horrek erakusten du hobeto **transferitzen** dela beroa fluxu beroa eta hotza kontrako norabidean eta elkarrengandik hurbil doazenean. Irene Aldasoro

Iradoki izan da animalia batengandik beste batengana **transferitu** ahal izango litzatekeela oroimena, RNA injektatuz. Irene Aldasoro

Nola **transferitu** behar zaizkion baten eskubideak besteari itunak baliagarriak izan daitezkeen. Esteban Antxustegi

Bere eskubidea utzi egiten du, uko egiten dionak edo beste bati **transferitzen** dionak. Esteban Antxustegi

Nork bere indarrak bere onerako erabiltzeko zeukan eskubidea, gizon edo asanblada bati **transferitzen** zaio, oso-osorik guztion onerako. Esteban Antxustegi

Horretarako, behar besteko finantza eta teknologia laguntza **transferitu** behar da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Enuntziatu-mota bat erabilpen-eremu batetik bestera **transferitzeko** modua (hala nola, landare ezaugarrietatik animalia taxonomiara **transferitzea**; edo azaleko ezaugarrien deskribapenetik organismoaren barruko osagarrietara). Xabier Arregi

Kontzeptu bat bestearekin gainean proiektatzea ahalizkoak egin duten puntuak zehaztea, metodoak edo teknikak **transferitzea** baimendu duen isomorfismoa finkatzea.

Xabier Arregi

2 (era burutua muntziora gisa)

Moduluko funtzionario **transferituek** ez zituzten sekula begi onez ikusi Mirenek proposatutako aldaketak.

Iban Zaldúa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste bati transferitzen (5); **eskubiderik transferitzen** (3)

transferitzaile iz transferitzen duena.

Eskubidearen transferentziarako beharrezkoak dira bai **transferitzailearen** borondatea bai hartzailearena. Esteban Antxustegi

Ezin izan zaio eskubide berri bat eman, **transferitzailearen** erresistentzia zuzenaren deuseztatzea baizik, zeinagatik besteak ezin zuen bere eskubidea gauzatu. Esteban Antxustegi

transfiguratu, transfigura, transfiguritzen (orobat *trasfiguratu* g.er.) da ad itxuraldatu.

Transfiguraturik sentitu zen bere perzeptioaren intentsitatearekin; haren gogortasuna zen; haren ontasuna. Anton Garikano

Orain, zutik, itxuraz **transfiguratu**, udareondoaren alboan, bi gizon haien inpresioak zetozkion barra-barra. Anton Garikano

transfigurazio iz itxuraldaketa.

Nolanahi ere, beti behar duk **transfigurazio** bat -jarraitu du-. Bernardo Atxaga

Ez nekatu, [Tabor] Galileako mendia baita, Nazaretetik gertu, eta han gertatu omen zen Kristoren **transfigurazioa**, gizona Jainko antzaldatzea; hemen ere antzera, "baratz zârra baratz berri!". Xabier Mendiguren Elizegi

Chevalierek ez du puterrik aipatzen, baina dio, eguzkiaren taigabeko mugimendua sinbolizatzen duela Ejiptoko "disco hegaldunak", eta era berean, hegadak sortzen duen sublimazioa eta **transfigurazioa**. Patziku Perurena

transfinitu 1 izond multzo teorian, zenbakiez mintzatuz, edozein zenbaki natural edo finitu baino handiagoa dena.

Kabalarentzat, letra horrek *En Soph* delakoa adierazten du, dibinitate mugagabe, puru-purua; [...] Mengenlehre delakoarentzat, zenbaki **transfinituen** sinboloa da, osotasuna beren zatiren bat baino handiagoa ez den zenbakiena, alegia. Juan Garzia

2 irud(hed

Ondoez **transfinitu** batek harrapatua zegoen. Iñaki Segurola

transfobia iz transexualenganako fobia.

Instituzioei edozein homofobia, lesbofobia edo **transfobia** arrastoak, edo lesbiana, gay eta transexualen aurkako giza jarrera diskriminatzaileak ezabatzekeo politika eraginkorrak susta ditzatela eskatzen diegu. Berria - Harian

transformadore iz korrante elektriko alfernoaren tentsioa eta, ondorioz, intentsitatea aldatzeko tresna edo gailua.

Boltaje handiko **transformadoreen** zarata eta aulkiaeren deskarga baino ez dira entzuten. Harkaitz Cano

Atxilotuak izateko beldurrez, poliziarengandik ihesi, ezereen erurrik ez zuten hiru nerabe EDF enpresako **transformadore** batean babestu direnean, hauetako bi elektrokutatuta eta hil egin dira. Iñigo Aranbarri

Ez zian sabotajea izan zitekeenik pentsatu, **transformadoreko** kobrea lapurtu nahi zutela uste zian. Josu Zabaleta

Douaiko geltokiko **transformadorearen** sabotajea. Josu Zabaleta

-Gizon bat aurkeztu da **transformadorearen** sabotajearen egile bezala. Josu Zabaleta

Bera zela **transformadorea** dinamitatu izanaren arduradun bakarra. Josu Zabaleta

transformagailu 1 iz transformadorea.

Modu honetako materialek aplikazio interesgarriak dituzte **transformagailu** elektrikoetan, bobinetan... Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Bortizkeriak piztu ziren Clichy-sous-Bois hiriko bi gazte elektrokutatuta hil zirelarik, Poliziarri ihes egiteko xedez argindar **transformagailu** baten barrura sartu ostean. Berria - Mundua

transformaketa iz errugbian, entsegu bat tanto bihurtzea.

Iñigok entsegua hagapean eta Dourthek **transformaketa**. Berria - Kirola

Berdinketa eskura zuten landetarrek, baina Labatek ez zuen **transformaketa** lortu ezustean, aski erraza baitzuen. Berria - Kirola

Bost entsegu, bost entsegu **transformaketa**, hiru zigor kolpe eta drop bat. Berria - Kirola

19-10: Yachvilik entsegu **transformaketa** gauzatu. Berria - Kirola

Briveko Dalla Rivak ez zuen asmatu bi zigor kolpe jaurtiketa eta entsegu-**transformaketa** batean. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

entsegu transformaketa (86); **entsegu transformaketa gauzatu** (27); **yachvilik entsegu transformaketa** (18)

transformatu, transforma, transformatzen 1 du ad eraldatu; itxuraldatu.

Sorkuntzaren eta suntsipenaren arteko kontzeptu bitartekaria transformazioa da: naturan ezer ez da guztiz sortzen ez suntsitzen, dena **transformatzen** da. Xabier Amuriza

Argia produzitzeko eta **transformatzeko** ikuspegi heuristikoz. Berria - Harian

Ohaidetza ilegada da, baina desagertu barik **transformatu** egin dela esango nuke nik. Berria - Gaiak

Eta horixe zen pertsuasiozko diskurtso orok nahi zuena: informatu ez ezik, hartzailearen arima **transformatu**. Xabier Amuriza

Lehen sektoreak ekoitzi eta bigarrenak **transformatzen** duena konpainia itzel horiek erosi eta beren biltegietan metatzen dute. **Edorta Agirre**

Nola **transformatzen** diren eraketa-sistema baten berezko harremanak. **Xabier Arregi**

Sistema hau **transformatzen** den unea. **Xabier Arregi**

2 errugbian, entsegu bat tanto bihurtu.

43-16, (71. m.): Piossekek entsegua eta Dourthek **transformatu**.

31-9: Yachvilk entsegua **transformatu**. **Berria - Kirola**

transformatzaile 1 *izond* eraldatzailea.

Zientziaren gaitasun **transformatzaile** izugarriak neurritan du egina hortaz bere jarduera ezin eragileagoa nola edo hala leunduko lukeen erantzun kritikoa. **Berria - Gaiak**

Museoak «jarduera bizi, parte-hartzaile eta **transformatzailetzat** » jotzea du oinarritzko abiapuntu. **Berria - Kultura**

• 2 *iz* eraldatzen duen pertsona.

ekoizle (eta **transformatzaile**) txikiak. **Edorta Agirre**

Transformatzaile eta kontsumitzaile garen aldetik, etorkizunean identifikazio txartela patrikan eraman ordez, txip antzeko bat txertatuko digute guri ere. **Edorta Agirre**

Elikatze-jokamoldeen desegituratze honen eraginez [...] irinezkoen eta oilaskoaren presentzia jeneralizatu egingo da, abantaila asko eskaintzen dizkiotelako

transformatzaile, garraiolaria, metatzaile, ekoizle eta kontsumitzaileari, orduz kanpoko elikaduraz ari garela, batik bat. **Edorta Agirre**

3 transformadorea.

Lehergailua **transformatzaile** baten alboan ezarrita zegoen. **Berria - Euskal Herria**

transformazio (*orobat transformazione g.er. eta trasformazio g.er.*) 1 *iz* eraldaketa.

Sorkuntzaren eta suntsipenaren arteko kontzeptu bitartekaria **transformazioa** da: naturan ezer ez da guztiz sortzen ez suntsitzen, dena transformatzen da. **Xabier**

Amuriza

Energiaren **transformazioa**. Hiru etapa horien aurretik (produkzioa, **transformazioa**, kontsumoa), tartean eta ondoren, jangaiok garraiatu, metatu eta banatu egiten ditugu.

Edorta Agirre

Ugartean egoiten ziren garaietan, harremanak bazituzten Amerindianoekin eta hauen laguntza ere balearen **transformazionean**. **Herria**

Lege horietan oinarrituta aise ulertzen da **transformazio** optiko-geometriko honek informazio ugari ematen duela ikusten den eszenaren sakontasunaz. **Josu Zabaleta**

Esaten da harremanen **transformazio** orokor bat gertatu dela, baina honek ez dituela nahitaez aldatzen osagai guztiak. **Xabier Arregi**

"Aldaketaren" oinarria den **transformazioen** sistema. **Xabier Arregi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zeren objektuaren beraren edo begiralearen mugimendu-aldaira bakoitzak **transformazio**-eskema (bakar) bat eragiten baitu erretinan. **Josu Zabaleta**

Transformazio kostuen gainean egindako kontrolak eta burtsaren bilakaerak ere izan dute zerikusirik haren emaitza txukunetan. **Berria - Ekonomia**

Transformazio kopuru jakin batek zehaztutako jarraitasun-eza da, definituriko bi positibotasunen artean dagoena. **Xabier Arregi**

Eraiketa-legeak, baliokidetasunak eta **transformazio**-arauak ezartzea. **Xabier Arregi**

3 errugbian, transformaketa.

Hiru entsegu, **transformazio** bat eta zigor kolpe bat. **Berria - Kirola**

15-34: Laharragak **transformazioa**. **Berria - Kirola**

4 korrante elektriko altxatzearen tentsioa eta, ondorioz, intentsitatea aldatzea.

Hornikuntza elektrikoa hobetzeko, dena den, Ereño eta Ean **transformazio** eta banaketako azpiestazio berri bi egingo dituzte; eta, aldi berean, Gernika-Sukarrieta tentsio

ertaineko linea lurperatuko dute. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dupuyek transformazioa (4)

transfuga *iz* alderdi politiko bat utzi eta beste bateko kide bihurtzen den pertsona. **ikiheslari**.

Halere, aurreko bi alderdi horietako **transfugetatik** elikatu da Sharonek abiatu eta orain Olmertek gidatzen duen alderdia. **Berria - Harian**

Berriro irakurleari utziko diogu aukera emigrante edo **transfuga** intelektualen adibide gehiago berak gomutatzeke: ezker abertzaletik EAJ-PNVra, PNVtik PP-PSOE frontera,

PSOEtik PPrara..., den-denek zinez liberalak azkenean berak izanez amaitzeko. **Joxe Azurmendi**

transfusio (*orobat trasfusio g.er.*) 1 *iz* isuraldatzea.

-Zauritu asko dago, **transfusioetarako** odola ari dira eskatzen! **Koldo Izagirre**

Hamarkadak daramatzate zientzialariek gizakiei **transfusioak** egiteko odolaren ordeko artifizial baten bila. **Berria - Gaiak**

Transfusio hori EPO sustantziarekin aberasteko aukera legoke, UCIn arabera. **Berria - Kirola**

2 irud/hed

Diru **transfusioei** esker bizi dira egun eremu horietako asko. **Berria - Gaiak**

3 odol transfusio

Odol **transfusioak** egiten hasi zen halakorik inork egiten ez zuenean. **Arantxa Iturbe**

-Odol **transfusio** batean odol kutsatua jasoz gero. **Luis Elberdin**

Zigortzekoak ote dira odol **transfusio** bat ez baimentzeagatik haurra hiltzen utzi duten gurasoak? **Joxe Azurmendi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

odol transfusio (14); **odol transfusio bitartez** (4); **transfusio bitartezko** (3)

odol transfusioa (5); **transfusioa egin** (3)

odol transfusioagatik (3)

odol transfusioak (6)

transgalaktiko *izond* beste galaxia batekoa.

Hogei kilo guttiagoren jabe eta markako txandal gorri-laranja batez txatxutua, gure semeak maite dituen filme guztiz pedagogikoetako heroi **transgalaktiko** zangomotza iduri

zuen, sugar desgisatu eta lekuz kanpoko "Lisboako" histuran. **Aingeru Epaltza**

transgenero *iz* sexu genetikoaren araberako generoaren bat ez datorren generoa.

Hasierako kritika gay komunitateetan egitetik beste eremu politiko batzuetara iragan zen gero; adibidez, gorputzaren erabilerari edo **transgeneroei** dagokienez. **Berria - Gaiak**

transgeniko *(orobat trasgeniko g.er.)* 1 *izond* landare eta animaliez mintzatuz, artifizialki sortu dena gene ingeniartzaren bidez.

Aarrain **transgeniko** oihukariak, genetikoki aldatu artaburu txapeldunak. **Itxaro Borda**

Animalia **transgeniko** gehienak ekoizpena handitzeko sortuak izan dira, hots, animalia handiagoak edota azkarrago hazten direnak lortzeko. **Berria - Gaiak**

Izokin **transgenikoak** lortzeko, Atlantikoko izokinari Pazifiko itsasoko izokinaren hazkuntza hormona ezarri zaio. **Berria - Gaiak**

Ameriketako Estatu Batuetan, ikerlari talde batek txerri **transgenikoa** sortu du. **Berria - Gaiak**

Egun gehien landatzen diren landare **transgenikoak** artoa, soja, koltza eta kotoia dira. **Berria - Gaiak**

Monsantok gari **transgenikoa** saltzearen ideia atzera bota izana «garaipen handia» da. **Berria - Gaiak**

Hazi **transgenikoen** banaketa txarra eta genetikaren alorrean lan egiteko azpiegitura eskasak. **Berria - Gaiak**

Laborategietako batean, jatorriz **transgenikoak** ez diren arto-hazien %50etan ADN **transgenikoa** aurkitu zuten. **Berria - Gaiak**

Soja **transgenikoa** erabiltzen hasi zirenetik, lehen oihanak ziren eremuak soja landatzeko toki bilakatu dira orain. **Berria - Gaiak**

Ez landare **transgenikoek** eta ezta animalia **transgenikoek** ere ez diote kalterik egiten biodibertsitateari, ezta giza osasunari ere. **Berria - Gaiak**

2 hed

Mendearen argia itzaltzear zela, eztabaida bizia sortu zen elikadura **transgenikoekin**. **Pello Salaburu**

Laborantza **transgenikoaren** arrisku ekologikoen erregulazioa zorrotzagoa ari dela izaten European Amerikako Estatu Batuetan baino. **Askoren artean**

Bioaniztasunari buruzko Kartagenako Protokoloaren sinatzaileek produktu **transgenikoak** kontrolatzeko nazioarteko sistema lotesle bat ezartzea erabaki zuten atzoko bilkuran. **Berria - Gaiak**

Teknologia **transgenikoaren** segurtasunaz dagoen konfiantza soziala txikiagoa baita. **Askoren artean**

Syngenta multinazional suiztarraren Bt 11 arto **transgenikoa** merkaturatzeko baimena eman zuen. **Berria - Harian**

Ezpeletakoek aldiz **"transgenikoari ez"** dute goraki oihukatu, biper zigante baten ondoan. **Herria**

Lau gasna **transgeniko**. **Itxaro Borda**

0,9ko kutsadura **transgenikoa** duten elikagaiak bakarrik bereiztuko dira. **Berria - Euskal Herria**

3 (izen gisa)

Europar gizarteak ez du, oro har, begi onez ikusten nekazaritzan aplikatutako **transgenikoen** bioteknologia. **Askoren artean**

Transgenikoek nekazarien ekonomia hobetuko dutela zioen. **Berria - Gaiak**

Transgenikoek elikadura katea aldatu dute, eta, ondorioz, «kontu handiz kontrolatu» behar dira. **Berria - Gaiak**

Neoliberalismoaren bultzadarekin, Castejongo zentralak ekarri ditu, **transgenikoa** ekarri ditu, Iruñea-Baiona eta Iruñea-Jaca errepideak ekarri ditu, Larrako eski estazioa ekarri du. **Eduñe Elizondo**

Transgenikorik gabeko lurralde ekarriak izan diten galdegin dute Europako hamar lurraldek, horietan Euskal Autonomia Erkidegoak. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrain **transgeniko** (4); **produktu transgeniko** (5)

adn **transgenikoa** (3); arto **transgenikoa** (7); soja **transgenikoa** (8); **transgenikoa bada** (3)

animalia **transgenikoak** (4); arto **transgenikoak** (3); ekoizpen **transgenikoak** (5); hazi **transgenikoak** (4); landaketa **transgenikoak** (3); landare **transgenikoak** (7); osagai **transgenikoak** (7); **produktu transgenikoak** (5)

transgenikoak egiten (3); **transgenikoak ekoizten** (3); **transgenikoak erabiltzen** (3); **transgenikoak ez** (6); **transgenikoak ez dira** (5); **transgenikoak kontrolatzeko** (4); **transgenikoak sortu dituzte** (3); **transgenikoak transgenikoen** (3); **txerri transgenikoak** (5); **txerri transgenikoak sortu** (3); **uzta transgenikoak** (3)

elikagai **transgenikoei** (3); **transgenikoei buruzko** (3)

produktu transgenikoek (3)

elikagai **transgenikoen** (5); hazi **transgenikoen** (4); **produktu transgenikoen** (3); **transgenikoak transgenikoen** (3)

transgenikoen alde (4); **transgenikoen aurkako** (6); **transgenikoen gaineko** (5); **transgenikoen inguruan** (6); **transgenikoen inguruan dagoen** (3); **transgenikoen inguruko** (4); **transgenikoen kontra** (4); **transgenikoen kontrako** (4)

transgenikorik gabeko (4)

transgresibo *izond* transgresioa inplikatzan duena.

Gaur ezin aurkez liteke artelanik, ezin salba liteke, hots, ezin sal liteke inolako moduz titulu axkarkeriazko bat gabe, esplikazio lehor, ulergaitz, hermeneutiko, enigmatiko eta **transgresibo** bat gabe, egileak badela eta badakiela erakusten duen zera hori gabe. **Iñaki Segurola**

transgresio 1 *iz* lege bat edo arau bat haustea.

Lau egunetan zehar egundoko jai eta erokeriak egingo dituzte askok, lege eta arau guztien **transgresioan** ari direlakoan, ohartu gabe **transgresio** hori ere arau bihurturik dagoela, urtearen gainerakoan artalde arrastotik atera gabe eta otzan-otzan ibil dadin pentsatua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Beste **transgresio** batzuk egin nahi zituen, zein ordea? **Koro Navarro**

Nik irakur zaletasuna **transgresioarekin** lotzen dut, zeren eta, nire etxean beste askotan bezala, irakurtzea ez zuten ondo ikusten. **Ana Urkiza**

Transgresiorako grina faltu eta erasokor bilakatzen da kultura marginal batek ematen duen giro anaikor-itogarrian. **Berria - Kultura**

Orduan zer litzateke morboa?: legea hauste hutsaren laina eta txoro-haizea?, edo, artearen liturgiaren idiolektoan dioten moduan, **transgresioa**? **Iñaki Segurola**

Bigarren zatiak Lisboako setioaren garai hartara garamatza, lehen aldiz; hirugarrenak nobelari funtsa ematen dion legehaustea - **transgresioa** - kontatzen du. **Jon Alonso**

2 (hitz elkartuetan)

Fantasia sexuak duten **transgresio** funtzioa oso garrantzitsua da, arauak gainditu egiten baititugu eta gure benetako desioak betetzen laguntzen baitituge. **Luis Elberdin**

Tesian **transgresio** elementuak ere aztertu dituzu. **Berria - Euskal Herria**

transgresore *izond/iz* lege bat edo arau bat hausten duena.

Kontrabandoari edo «gau lanari» buruzko istorio **«transgresore»** batekin birbildu du poemarioa. **Berria - Kultura**

Libertinoa baino gehiago -eta hori neurritz kanpo izan zen- Sade **transgresorea** izan zen, apurtzailea. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hara beste seinale bat ikusteko gurean zein diren benetako **transgresoreak**, eta zein, ortodoxian eta territorio komunetan gozo-gozo jarririk, matxinada probable, zintzo eta onargarrietan ari diren epigonoak. **Berria - Kultura**

Transgresore ospetsu hark hala amaitu zuen santutasunaren ("Saint Genet" izendatu zuen Sartrek hari buruzko liburua) eta hiltzaileen konplize izatearen arteko leizean,

tranhistoriko *izond* historia zeharkatzen duena eta historiaren subjektu bihurtzen dena.

Ez gara historiaren joan-etorria epaitzera esertzen diren subjektu transzendente edota **tranhistorikoak**. Txema Ramirez de la Piscina

transiberiar *izlag* Siberian gaidikoa.

"Ondorio latzak paira ditzake gure planetak", batez ere Siberia inguruan -**transiberiar** trenbidearen zatirik malenkoniatsuenean, hain zuzen-. Unai Elorriaga

transideologiko *(corpusean trantsideologiko soilik)* izond ideologiengandikoa.

Era berean, baina, eta ideologiagertuago -edo esparru **trantsideologikoan**, nahi bada- ezagutza esparru jakin bati buruzko ideia konkretuen eragina ere handia da, gutxitan aipatzen den arren. Iñaki Heras

Eta parte-hartzearen auzia, nolabait ere, **trantsideologiko** bilakatu da. Iñaki Heras

transilbaniar ik trantsilvaniar.

transistore *(orobat trantsistore g.er.)* 1 iz osagai elektronikoa, hiru erdieroale elektrododun lotune biz elkartzen dituen eta, besteak beste, sarrera-seinalearen anplitudea handitzen duena.

Brattain eta Shockley ikertzaileek garatu zuten Bell Laboratorietan lehenbiziko **transistorea**. Pello Salaburu

Taupada-markagailu elektronikoa pultsu-sorgailu bat dauka (**transistore** bat eta beste osagai bakan batzuk izaten ditu modelorik sinpleenak). Irene Aldasoro

Mende amaieran *Pentium 3* batek 28,7 milioi **transistore** behar ditu, eta kalkulatu da 2011 urtean, teknika berriak erabiliz, 1000 milioi **transistoreko** mikroprozesadoreak egingo direla. Pello Salaburu

Ikasle bat laguntza eske etorri zitzaigun, etxean **transistore** bat egin nahian zebilelako. Berria - Gaiak

Izan ere, **transistore** «izugarri azkarrak» eraikitzeo aukera ematen du, asmatzaileen arabera. Berria - Gaiak

2 irratihargailu transistoreduna.

Kafe-makina itzaliaren ondoan, **transistore** txiki bat piztuta zegoen. Pablo Sastre

Ez zuen amak ekarritako **transistore** piladunik piztu nahi. Hasier Etxeberria

Liburu batzuk, **transistorea**, gaileta zorro bat, arropaz betetako poltsak. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan)

Transistore irratia asmatu zen 1954an, eta urte berean sortu zen lehenbiziko indarretxe nuklearra. Pello Salaburu

Milaka pertsonak egiten dute bizimodu normala saihesten azpian taupada-markagailu elektronikoa bat dutela, detektaezina, ez bada irati-**transistore** bat inguruan denean egiten dituen klik-hots erregularrengatik. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

transistore txikia (3)

transitatu ik trantsitatu.

transito ik trantsito.

transitozko ik trantsitozko.

transitu ik trantsitu¹.

transizio ik trantsizio.

trankaukasiar *izond* Trankaukasiakoa, Trankaukasiari dagokiona.

Errepublikan Federatibo Sobietar **Trankaukasiarraren** zati gisa, Sobiet Batasuneko sortzaileetako bat izan zen Georgia. Berria - Mundua

transkribaketa *iz* transkribatzea. ik transkripzio.

Artxibo haustsu batean, BE atzeratuen bilduma aurkitu nuen, eta horra, kromatoaren txartelak aurreko argitaraldian "2-3" tanta botatzeko agindu-oharra zekarren, eta ez "23": garrantzi biziko "-" hori erdi ezabaturik zegoen, eta hurrengo **transkribaketan** galdu egin zen noski. Juan Garzia

Maila fonemiko eta morfemikoen arteko loturaren arazoa ez da nahasi behar **transkribaketa** fonemiko bat irakurtzeko informazio morfologikorik behar ote den galdetzearekin. Itziar Laka

transkribapen *(orobat traskribapen g.er.)* 1 iz transkribatzea. ik transkripzio.

Ez dago esan beharrik ez ziola sekula jatorrizkoaren **transkribapen** mekaniko bati ekin; ez zen kopiatzea noski haren asmoa. Juan Garzia

Nola finkatu enuntziatuaren identitatea era askotako gertatze hauen bidez, errepikapen eta **transkribapen** hauen bidez? Xabier Arregi

Bertsozale Elkarteak (BE) 1991. urtean plazaratu zuen *Bapateko bertsoen* **transkribapenerako erizpideak** (sic) izeneko txostena, eta oraintsu arte hori erabili izan da

bertsoak transkribatzerakoan. [Berria - Kultura](#)

Annani grabatutako zenbait elkarrizketaren [transkribapena](#) irakurri zuela adierazi zuen Shortek. [Berria - Mundua](#)

Ekintza armatuen etenaldi iraunkorraren albistea bideo baten bidez zabaldu zuen atzo eguerdian ETAK, eta bideo horren [transkribapenaren](#) testua izan zen atzo hedatu zena. [Berria - Harian](#)

2 (hitz elkartuetan)

Gertakarien katea egoki berrosatuz zihoan: txartelaren ikuskaketak [transkribapen](#) -huts bat ekarri zuen, eta huts horrek hortik aurrerako analisi guztiak faltsuztatu zituen.

[Juan Garzia](#)

transkribatu, transkriba, transkribatzen (*orobat transkribitu g.er.*) 1 du ad testuez mintzatuz, idazkera-sistema berean edo beste batean kopiatu. ik [letraldatu](#).

Historia Universal de la Infamia liburuko "El espantoso redentor Lazarus Morell" ipuinaren hasiera [transkribatuko](#) dut. [Bernardo Atxaga](#)

Jakina, "guisqui" dioen tokian, "gaisqui" (gaizki) behar luke, baina esaldia [transkribatu](#) dugun bezala dago idatzita. [Iñaki Arranz](#)

Grafia arrotzez [transkribatu](#) dituzte gure izenak Buenos Airesko portuan. [Iñigo Aranbarri](#)

Gero dator hilotz bat bidean trabeska aurkitzen duten pasarte; ez dut [transkribatuko](#), Stendhalen prosak merezi duen arren. [Jon Alonso](#)

Letra hauetatik *c, q, v, w* eta *y* erdaretatik hartutako maileguak eta kanpotar izenak [transkribatzeko](#) erabiltzen dira bakarrik. Transkripzio praktika saio batean *el/sab* diktatuta, ikasleak *el/sap* [transkribatu](#) du. [Iñaki Arranz](#)

Diskurtsoa, [transkribatzen](#) duen berehalako esperientzia berraurkitzen ahalegintzen da. [Xabier Arregi](#)

2 irud/hed

Euli-enbrioiaren bizitzaren lehen urratsetan parte hartzen duten eragiketak zuzentzen dituzten gene guztiok, hain zuzen, beste gene batzuen gain eragiten dute, ADN segmentu hori ARN gisa [transkribatzeari](#) baietz edo ezetz esanez. [Juan Garzia](#)

Proteina fabrikatzeko makinak [ez du jada sekreturik guretzat, [...] bere bi urratsekin: genea ARN mezulari gisa [transkribatzea](#), mezularia peptido-kate gisa itzultzea. [Juan Garzia](#)

3 ahoz esaten dena testu gisa eman.

Ondo zekien handik altxatzen bazen gelara joan beharko zuela eta lanean hasi beharko zuela, grabazioak [transkribatzen](#), besteak beste. [Unai Elorriaga](#)

Bere lan guztietan etsipenetik abiatzen zen artista plastiko arranditsuen esaldi labirintikoak [transkribatzeari](#) berrekin nion. [Juan Luis Zabala](#)

Urriko polizi operazioan atxilotutako Egunkaria-ko langile bati egindako galdeketa [transkribatu](#) du epaileak. [Berria - Euskal Herria](#)

Ezagutzen ez dugun erdara baten mintzoa [transkribatu](#) behar dugunean, ez dakigu hitzak non hasi eta non bukatzen diren, eta erraz jotzen dugu okerreko bidetik. [Iñaki Arranz](#)

Aste honetan neuk A Coruña-ko Kirs kafetegiaran atarian entzundakoa [transkribatuko](#) dizut, gutxi gora behera. [Hasier Etxeberria](#)

Irizpide hauen baitan, bertsolariak hitzen bat gaizki esaten badu, [transkribatzerakoan](#) zuzendu egin beharko da. [Berria - Kultura](#)

4 musika-tresna baterako edo batzuetarako ondu den musika beste musika-tresna baterako edo batzuetarako aldatu.

Atal hori flauta eta ahotsera [transkribatutako](#) Tomas Luis de Victoriaren birsortze batzuk beteko dute. [Berria - Kultura](#)

transkribatze iz testuez mintzatuz, idazkera-sistema berean edo beste batean kopiatzea.

Materialtasuna (ez dena substantzia bakarrik edo artikulazioaren euskarria, baizik eta estatutua, [transkribatze](#) -arauak, erabilpen eta berrerabilpen aukerak). [Xabier Arregi](#)

Proteina fabrikatzeko makinak [ez du jada sekreturik guretzat, [...] bere bi urratsekin: genea ARN mezulari gisa [transkribatzea](#), mezularia peptido-kate gisa itzultzea. [Juan Garzia](#)

transkribitu ik [transkribatu](#).

transkripzio 1 iz transkribatzea.

Lazarragaren eskuizkribuaren [transkripzioa](#) Interneten jarri du Susak. [Berria - Kultura](#)

Heriotza zigorra gainean zuten presoek azken egunetan edo azken orduetan idatzitako eskutitzen [transkripzioak](#) makinaz eginda daude "Abertzaletasunaren Agiritegia"-ren zigilua daramaten paperetan. [Jokin Urain](#)

Libretan agertzen diren zirriborroak txosten horien [transkripzioak](#) balira? [Rafa Egiguren](#)

Gaur badakigu testu idatzia ez dela hizketaren [transkripzio](#) hutsa, eta funtsezko aldea dagoela bien artean. [Patxi Altuna](#)

[Transkripzioa](#) «ia hutsean paleografikoa» da. [Berria - Kultura](#)

· Musikaren [transkripzioa](#) egin eta gero antzeko liburuak bilatzen hasi zen. [Berria - Kultura](#)

2 (ahoz esaten denarena)

1935 eta 1936ko txapelketetako [transkripzioak](#) dudakoak dira, baina 1960az geroztikako txapelketetako bertsoak fidelki jasoak daude. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Egilearen nahiari jarraitu diogu, era berean, zinten [transkripzioa](#) egiterakoan, eta ahozko izaerari atxikitzen saiatu gara. [Karlos Zabala](#)

[Transkripzio](#) fonetiko, ortografiaren mugak gaindituz, ahoskera islatzeko asmoz sortu zen. [Lourdes Oñederra](#)

[Transkripzio](#) [fonetiko] laxoa eta [transkripzio](#) zehatza bereizten dira maiz eskuliburuetan. [Lourdes Oñederra](#)

Galdeketa egiteko ulean grabazioak ez egitea, mintzatutakoak hitzez hitzeko [transkripzioak](#) ez hartzea eta deklarazioa atek itxirik egitea hitzartu zuen Gobernuak ikerketa batzordearekin. [Berria - Mundua](#)

3 (hitz elkartuetan)

[Transkripzio](#) sistema bakoitzak gehiago edo gutxiago erabiltzen ditu ikur lagungarriok. [Lourdes Oñederra](#)

[Transkripzio](#) sistema guztiek ez dituzte ikur berak erabiltzen. [Lourdes Oñederra](#)

Seguru asko izen-aldaketa [transkripzio](#) -errua da. [Askoren artean](#)

· Bertsolarien doinuaren solfeo-[transkripzioak](#) urrun daude oso bertsolariak doinu horiek kantatzen dituen era zuzen islatzetik. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

[Transkripzio](#) praktika saio batean *el/sab* diktatuta, ikasleak *el/sap* transkribatu du. [Lourdes Oñederra](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
[transkripzio fonetiko](#) (4); [transkripzio fonetikoan](#) (3); [transkripzio sistema](#) (3)
[transkripzioak egin](#) (3)

transkultural izond kulturen gaindikoa.

Fenomeno horrek hiru adarreko mugimendu sortaraziko du: tokian tokiko bereizgarritasun batzuen suntsiketa, elikadura-plegu agerpena (mestizaia prozesuen ondorioz) eta hainbat elikagai eta elikadura-praktikaren hedapen **transkulturala** . **Edorta Agirre**

translatino *izond*

Hasteko, Antzerki Jaialdi **Translatino**a finkatua du urriaren 19a eta 23aren artean. **Berria - Kultura**

translatione ik translazio.

translazio *(orobat translatione eta traslazio g.er.) iz itzulpena.*

Kristo aurreko III-II. mendeetan Alexandriako juduek grezierara egindako itzulpenean, izen hori *Kyrios* gisa eman zuten eta geroago Vulgata-n eginiko latinezko **translazioan**, bide beretik, *Dominus* itzuli zen. **Xabier Kintana**

Hantxe nituen ingelesezko **translationeak**, hantxe ontziburuaren izkribuetatik kopiaturiko batzuk, hantxe biko liburua, eta haiek denak batera, ikustean argitasun bat egin zitezkeen enteleguan. Positibotasun era honek (eta enuntziazio-funtzioa gauzatzeko baldintzek) arlo bat definitzen dute, non beharbada heda daitezkeen identitate formalak, jarraitasun tematikoak, kontzeptuen **traslazioak**, joko polemikoak. **Edorta Jimenez**

transliterazio *iz letraldatzea.*

Azkenik, **transliterazioaren** kontua aipatu behar dut, hau da, hitz japoniarrak euskaraz emateko modu zuzena. **Ibon Uribarri**

transluzido *iz zeharrargia.*

Baina haren azal **transluzidoari** erreparatzean, zalantza egin genuen: agian espektroa zen hura, arima herratua. **Iban Zaldua**

Conques-eko kreatu dituen mitrail zuri **transluzidoengatik**. **Berria - Kultura**

transmaterial *izond* materiaren gaidikoa.

Gizakiaren adimenak ezin ditu, bere logika hutsez, gizaki horien ekintzak ulertu, **transmaterialak** direlako, ez daudelako inongo legeen menpe, ez diotelako jarraitzen inongo adimenezko logikari. **Jenaro Garate**

Hauek dira datu fisiko **transmaterialak**, datu fisikoak izanik ere, legearen menpe ez daudenak. **Jenaro Garate**

Datu fisiko **transmaterialen** ikerketa gogoari dagokio. **Jenaro Garate**

transmigraldi *iz* transmigratzea. ik **transmigrazio**.

Doktorea gai zen joandako gizon bat, bere **transmigraldi** guztiak bukatu eta berriro lehengo itxura berean noiz agertuko zen, hutsaren hurrengo gorabehera batekin kalkulatzeko. **Josu Zabaleta**

Tximino erraldoi bat ikusi zuen, bere ipurdi gainean eserita, jostunen edo turkiarren gisara hankak gurutzatuta, eta bere azkeneko **transmigraldian** zegoen giza erakusgarri bikain haren aurrean, gogoeta sakon batean murgildu zen Héraclius Gloss, pozaren pozez zurbildurik. **Josu Zabaleta**

transmigratu, transmigra, transmigratzen du *ad* arimez mintzatuz, gorputz batetik beste batera pasatu.

Bazekien, hutsaren hurrengo gorabeheratxoren batekin, zein datatan **transmigratzen** zuen arima batek maila apalagoko izakietara, eta azkeneko giza bizialdian egindako ongiaren eta gaizkiaren halako batuketa moduko bat eginez, gai zen arima hori suge baten, zerri baten, zamari baten, idi baten, zakur baten, elefante baten edo tximino baten gorputzean noiz sartuko zen zehatz. **Josu Zabaleta**

transmigrazio *iz* transmigratzea.

Ukatu egiten du, era berean, arimen aurre-existentzia eta gorputz batzuetatik besteetarako **transmigrazioa**, platonikoek defenditzen zutena. **Imanol Unzurrunzaga**

Indio askorentzat mundu honetako konturik larriena arimen **transmigrazioa**, metenpsikosia da. **Gotzon Garate**

Barka diezadatelara arimaren **transmigrazioan** edo ez-dakit-zer energiatan sinisten duten guztiak, baina ezezkoan nago, bere bi lagunei eskuetatik bizi-bizi heldurik jakinarazi zien ezen beti-betiko alde batera utziak zituela metenpsikosia, animalia aldiak eta **transmigrazioak**, eta bular kolpeak jotzen zituen bere hutsegitea aitortuz. **Bernardo Atxaga**

Babarunetan gorde ohi direla arima bekatari **transmigrazioa** kondenatuak-edo. **Iñaki Iñurrieta**

transmisio *(orobat transmizio g.er. eta trasmisio g.er.) 1 iz* transmititzea. (seinale, uhin, indar eta kidekoena)

Transmisioen zentroko bunkerraren ateetan itsasoko ertzain bi zeuden. **Edorta Jimenez**

Noizbait, ordea, kolpetxo batzuk identifikatu nituen, puntu-puntu-puntu-marra-puntu-marra, **transmisio** baten bukaerakoak. **Anjel Lertxundi**

Egun haietan -uda amaiera-, tenis lehiaketa baten **transmisioak** zeuden etengabe, eta, nahiz kirol hura oso gustukoa ez izan, hari begira pasatu nuen denbora. **Bernardo Atxaga**

Transmisioak irrati-amateurretzako 145.990 FM MHz frekuentzian zabalduko dira, VHF bandan. **Berria - Gaiak**

Ikus kirol-sekuentziak bere *Kameraduna* filmean, telebistako **transmisioetako** *slomo*-aren aitzindari direla esango liratekeenak. **Josu Zabaleta**

Transmisioen arduraduna ninduan. **Karlos Zabala**

Etengabe aldatzen den **transmisioari** esker, abiadura maila askotan indar guztia emateko gai da makina. **Irene Aldasoro**

Badira pertsonak behar diren muskuluak nahierara uztertzen dituztenak eta 30 dB inguruko murrizketa egiteko gai direnak maiztasun apaleko soinuaren **transmisioan**. **Irene Aldasoro**

Substantzia horietarikoren bat gorputzean sartzen bada, eten egiten da nerbio-bulkaden **transmisioa**. **Irene Aldasoro**

2 (seinale, uhin, indar eta kidekoena, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zen haren albisterik etorri, agian gure **transmisio** sistema guztiak Sollube inguruetako guda-zelaietara eta haren aurreko itsasgainekoetara adi zeudelako. **Edorta Jimenez**

Baina esadak, transmititu zitekek **transmisio** torreta birrindu diatenean? **Koldo Izagirre**

Obus batek pareta zulatu, eta haitz hodei bat hedatu zen **transmisio** aretoan, den-dena lausotuz. [Karlos Zabala](#)

Transmisio -buruaren bulego atea -tunel-etako batean egindako zuloa- zabalik zegoen. [Edorta Jimenez](#)

Ozeanoz haraindiko **transmisioetan** edo satellite bidezko komunikazioetan arreta jarriz gero, kontuan hartu behar da informazioak leku batetik beste batera joateko behar duen denbora. [Berría - Harian](#)

3 (seinale, uhin, indar eta kidekoena, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zertifikata erdietsia zuelakoan irriti-**transmisioetara** bideratu zuten. [Itxaro Borda](#)

Astronauta jantzi zahar bat jarri dute Lurraren inguruan biraka, irriti **transmisiorako**. [Berría - Gaiak](#)

Ordutik hona, data-**transmisioen** abiadura izugarri garatu da. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

4 (hizkuntza, kultura-eduki eta kideoena)

Horrek [...] gurasoek hizkuntza guztietan egiten duten hizkuntzaren **transmisio** naturalaren prozesua hautsi du. [Pello Salaburu](#)

Belaunaldi berrietara bertsolaritzaren **transmisioa** ziurtatzea. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Transmisio horretan zenbaterainoko garrantzia du irakasleak? [Ana Urkiza](#)

Transmisio bat dago, inolaz ere ez pedagogia bat. [Berría - Kultura](#)

Familia bidezko **transmisioa** goratzen dute gaur egungo pedagogo, psikologo eta bestelako apaiz laikoek. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Gizaldiz gizaldiko **transmisio** hori -gaurko gure indoeuropartze azkarraren beste hitz fetitxeetako bat da hau, '**transmisioa**' [...] - ahalik eta gutxien transmititzean oinarritu da nonbait. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ipar Euskal Herrian izugarri apaldu dira euskararen ezagutza, erabilera eta **transmisioa**. [Berría - Kultura](#)

Beste ikastolak bezala funtsean, euskara eta frantsesa ikasteko guneak baino gehiago izan nahi luke, **transmisio** kulturala ere bermatuz. [Herria](#)

Kamino-bazter eta zangetan tiroz hildakoen historia inoiz ofizialdu gabekoak istorio bilakatuta iritsi zaizkigu maiz, ahozko **transmisioaren** kateari esker. [Jokin Urain](#)

Baina ahoz ahoko **transmisioa** izan zuten ipuin hauek XIV. mende arte ez ziren idatzi. [Patxi Zubizarreta](#)

Kirol eta jarduera askotan gertatzen da gurasoengandik seme-alabenganako **transmisioa**. [Berría - Kirola](#)

5 (hizkuntza, kultura-eduki eta kideoena, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herri kulturaren **transmisio** bideak ikertzeko, eragiteko eta gauzatzeko. [Berría - Harian](#)

Gazteek ez dakite beren etxe izenaren erran nahia ere: familiako **transmisio** katea hautsia da. [Itxaro Borda](#)

Herri indigena gehienetan kultura eta jakintza ahoz zabaltzen da, eta **transmisio** lan hori emakumeek betetzen dute gehienetan. [Berría - Gaiak](#)

Zeharkaldia behar bezala burutu denean, elizaren **transmisio** -zerbitzuan "ernaldiaren" ondoren "erditzealdia" dator. [Iñaki Mendiguren](#)

Hezkuntza arautuan baino modu sakonagoan lantzen da bertsolaritza bertso eskolatan, eta **transmisio** gune nagusia bihurtu da azken hamarkadetan. [Berría - Kultura](#)

Gizarte-gorputz emisore batean ezarri den kultur ereduak gizarte-gorputz hartzaile batean berresteko duen joera da, **transmisio** -prozesuan banatu egin diren kultur elementu osagarriak bildu eta elkartzu. [Iñaki Mendiguren](#)

Gurutzatuek Sirian egindako aldi bateko konkistak eta, are gehiago, Sizilia eta Andaluziako konkista iraunkorrak [...] beste horrenbeste **transmisio** -estazio bilakatu ziren, hauen bidez komunikatu zitzaizkiolarik Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadeari hilzorian zegoen mundu siriakoko altxor espiritualak. [Iñaki Mendiguren](#)

Praktikan, politika neoliberalaren **transmisio** uhal baino ez dira, zerbitzu publikoa suntsitzen laguntzen dutenak eta zerbitzu sozialen pribatizatzea sustatzen dutenak. [Iñaki Heras](#)

CNIK eta El Mundo-k «lehen unetik beretik atentatuei buruzko informazioa faltsutu, nahastu eta gezurra esan zuten, eta Aznarren gobernuak abiatutako makinariarentzat **transmisio** uhalarena egin zuten». [Berría - Euskal Herria](#)

6 (hizkuntza, kultura-eduki eta kideoena, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hizkuntza **transmisioa** hautsi da erabat. [Berría - Euskal Herria](#)

Euskal hiztunak ez ziren konturatu hizkuntza ahozko tradizioa bezalako kultur **transmisio** bati lotuta irauarazten bazuten, ahultzen eta gizartean eragina galtzen ari zena, hizkuntza ere ahuldu eta eragingabetu egingo zela. [Pako Arísti](#)

Bertsolaritzaren kultur proiektua, hiru ardatzetan marrazten da: belaunaldi-**transmisioa**, hedapenaren antolaketa eta dokumentazioa-ikerketak. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

7 (ondasunena)

Frantziako Iraultzak askatasunak aldarrikatu zituen, denok berdinak garela oroitaraziz, nahiz berdintasun horrek ere [...] ondorio txarrak izan zituen, Euskal Herrian bertan, iparraldean, etxearen ondasunen ohiko **transmisio** bideak itxiz eta pobrezia ekarri. [Pello Salaburu](#)

Maiz erregeek berek ere askiatsi egiten zuten zetroaz **transmisio** simple bat egitea, San Mauroren bizitzan ageri denez. [Iñaki Iñurrieta](#)

8 (bestelakoena)

Antikontzeptibo modura oso eraginkorra izateaz gain, **transmisio** sexualeko gaitzen kontra ere oso egokia da [kondoia]. [Luis Elberdin](#)

Gaur egun badakigu hiesak [...] bere **transmisio** bideak dituela, eta bide horiek berdin-berdin daudela jarduera heterosexualetan zein homosexualetan. [Luis Elberdin](#)

9 makina eta motorretan puntu batetik bestera indarra eramateko mekanismoa.

Motorren eta **transmisioen** burrunba motela. [Juan Garzia](#)

10 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Joko **transmisio** kate bat sortzea da nire nahia, hots, dinamikoa, sortzailea. [Berría - Kirola](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

transmisio bideak (4); **transmisio lan** (3); **transmisio sexualeko** (7); **transmisio sexualeko gaitzak** (4)

ahozko transmisioa (4); **belaunaldien arteko transmisioa** (3); **euskararen transmisioa** (6); **hizkuntzaren transmisioa** (4)

transmisore 1 iz hainbat motatako seinaleak, elektrikoak eta hotsezkoak esaterako, igortzen dituen tresna.

Radar **transmisore** baten gunean dagoen magnetroi baten ondoan zegoela, txokolate zati bat urtu zitzaion Percy LeBaron Spencer-i. [Pello Salaburu](#)

2 (hitz elkartuetan)

Bateriak, temperatura neurtzen duen sensore bat eta irriti-**transmisore** bat gehitu dizkiote jantziari, eta hortxe dabil, beste sateliteen gisan, Lurraren inguruan biraka. [Berría - Gaiak](#)

3 irud/hed

Kontua da, istorio horiek kontatzeko formatoak aldatuz doazela, eta orain, adibidez, telebista dela istorio horien **transmisore** nagusietarikoak. [Ana Urkiza](#)

Euskararekiko gaietan ikertzailerena baino **transmisore** eta zabaltzaile papera betetzen du. [Berría - Kultura](#)

Gaur egun, irakasleok izan behar dugu informazioaren **transmisoreak**. [Berría - Euskal Herria](#)

transmitidu ik **transmititu**.

transmititu, transmiti, transmititzen (*orobat transmitidu g.er. eta trasmititu g.er.*) 1 du *ad* zerbait leku batetik bestera

igorri, herrialde edo herrialdearen (seinaleak, uhinak, indarra eta kidekoak)

Askoz presio handiagoak aplikatu behar dira soinu bibrazioak **transmititzeko**. [Irene Aldasoro](#)

Korronte elektriko bitxi batek **transmititzen** du nerbio bulkada. [Irene Aldasoro](#)

loien mugimenduaren bidez **transmititzen** da seinalea, modu korapilatsu baina eraginkorren, segundoko ehun metro inguruko abiaduran. [Irene Aldasoro](#)

Axoia hainbat adarretan banatzen da bere azken muturrean, eta adar horietatik **transmititzen** da seinalea ondoko neuronetara. [Irene Aldasoro](#)

Erretina bera ere, informazioa, interpretatu gabe, puntuz puntu **transmititzen** zuen halako errele soil samar bat bezala ulertzen zen. [Josu Zabaleta](#)

Zelula hartzailleetatik iritertzen diren seinaleak datu-prozesaketa bat pasatzen dute lehenik; gero, garunera **transmititzen** dira, usaimen-nerbioaren 50.000 zuntzetan zehar. [Irene Aldasoro](#)

Giza gorputzak fisikoki garraiatzea eskatzen ez zuten komunikabideak sortu eta abian jarri ziren, telegrafo, telefono eta, irritari bidez, hariarik gabeko **transmisioen** -ikus nahiz entzutekoen- forman. [Iñaki Mendiguren](#)

Korrontearen indarra handituz edo gutxituz, informazio asko **transmititu** dezake ingeniari elektronikoak kable batetik. [Irene Aldasoro](#)

XIX. mende erdi aldera, Morse jaunaren alfabeto sistema erabiltzen hasi zireneko, datu meteorologikoak igortzeko eta **transmititzeko** bidea urratu zen bertatik. [Pello Zabala](#)

2 (hizkuntzak, kultura-edukiak eta kidekoak)

Ene aitzinekoek sekulan ez baitute "soka moztu", hizkuntza beti **transmititu** baita gure familian. [Ana Urkiza](#)

Euskara familia bidez **transmititzeak** duen garrantzia gizarteratzeko eta guraso euskaldunak sentsibilizatzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Zer esaten dugun bezain garrantzitsua dela nola **transmititzen** dugun. [Ana Urkiza](#)

Jakitate gehientsuenak ahoz **transmititzen** ziren. [Jon Muñoz](#)

Ahoz nahiz idatziz, belaunaldiz belaunaldi **transmititzen** den denboraren altzoan babestutako kultur ondarea. Irakaskuntza eta ikerkuntza, bada, alde batetik, eta jakintza mantentzea, sortzea eta **transmititzea**, bestetik, dira unibertsitatearen ezaugarriak. [Anjel Lertxundi](#)

Balio batzuk **transmititu** zizkiguten: erlijioarenak, obediencia-arenak, tradizioarenak... [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Eskoletan **transmititu** beharreko kultura Espainiako eta Frantziako gobernuak zehaztu dutela nabarmendu Batasunak. [Berria - Euskal Herria](#)

Mahayana mundu indikotik sinikora **transmititu** zen, bi gizarteak elkarren aurka inoiz gerran jardun gabe. [Iñaki Mendiguren](#)

Gogotik saiatu dira ulertu dutena ahalik eta ilunen **transmititzen**. [Jon Alonso](#)

Kodeetan [...] biltzen diren arauak, balioak, jarraibideak eta rolak **transmititu** dituzte. [Luis Elberdin](#)

Gurasoek eta apaizek **transmititu** zizkioten gizarte tradizionaleko eskemak ez diote ezertarako balio. [Luis Elberdin](#)

Zer bereizgarri inkontziente **transmititu** zizkidaten gurasoek berak ohartu gabe? [Joxan Elozegi](#)

Itzala berritzen-edo dugu hizkuntzarekin, eta geografia hori **transmitituko** diegu datozen belaunaldiei, bertan itzala berritzen jarrai dezaten. [Anjel Lertxundi](#)

Mezua ez baita mezu ezer **transmititu** ezean. [Iñaki Arranz](#)

3 (sentimenak eta kidekoak)

Bere gorpuzkera mugitzean indarra eta segurtasuna **transmititzen** zituen. Barruan horma zuri-beltzek seriotasuna **transmititzen** dute. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Kasete higatuan, jendeak arruntasunaren poza **transmititzen** segitzen du. [Iñigo Aranbarri](#)

Pertsona bat maite duzunean eta haren azala sentitzen duzunean [...] azaldu ezinezko sentimendu bat **transmititzen** da. [Luis Elberdin](#)

Ez dago irudikatzerik koadroak **transmititu** nahi duen zorianarena baino geldotasun handiagorik. [Anjel Lertxundi](#)

Telefonoak butxaturik edo hondaturik daude, eta ezin dute **transmititu**, bere dentsitatean, oraingoz behintzat desegiten ari zen izakia. [Josu Zabaleta](#)

Haren gorputzak eta aurpegiak ez dute garai bateko erotismoa **transmititzen**. [Berria - Kultura](#)

Gauza batzuk ezin dira **transmititu** edo ezin dira kontatu oraindik, formulatu gabe daudelako. [Ana Urkiza](#)

4 (bestelakoak)

Autore eskubideetan enpresei ez zaielako benetako jabetzarik lagatzen edo besterentzen, **transmititzen**, erabilera-lizentzia zehatza baino. [Berria - Gaiak](#)

Biktima nortasuna ADNarekin **transmititzen** da. [Itxaro Borda](#)

Herentzia geneetan **transmititzen** dena baino askoz zabalagoa da, eta faktore epigenetikoek eragin handia dute. [Askoren artean](#)

Lortutako ezaugarriek ez dute inola ere organismoan eraginik eta ez dira herentziaz **transmititzen**, jendeak uste ohi zuen bezala. [Iñaki Mendiguren](#)

Hemakromatosi hereditarioa genetikoki **transmititzen** den gaitz ohikoenetako bat da. [Berria - Gaiak](#)

Nola **transmititzen** da hiesaren birusa? [Luis Elberdin](#)

Lortutako ezaugarriek ez dute inola ere organismoan eraginik eta ez dira herentziaz **transmititzen**, jendeak uste ohi zuen bezala. [Iñaki Mendiguren](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

transmititzeko gai (3); **transmititzeko gaitasuna** (3)

bidez transmititzen (3); **konfiantza transmititzen** (3); **nola transmititzen** (3)

transmisio ik transmisio.

transmutatu, transmuta, transmutatzen da/du ad bilakatu, bihurtu.

Alkimistek elementuak **transmutatu** nahi zituzten. [Fernando Morillo](#)

Guk materia **transmutatzea** lortu dugu azkenean. [Fernando Morillo](#)

Nahiz eta badakigun ez dagoela politikarik edo moralik kimikaren eta histologiaren baieztapenetan oinarritzen denik, eta bihar gorputz bakunak zatitan bereizi eta **transmutatzeko** moduren bat aurkituko balitz, ez litzatekeela zientzia klasikoaren aita santurik izango ikertzaile horiek eskumikatzeke. [Josu Zabaleta](#)

transmutazio iz aldaketa, itxuraldaketa.

Idaztea beste zerbaitean bilakatzea zela zioen Gilles Deleuzek, **transmutazio** bat egon behar zuela. [Berria - Kultura](#)

Transmutazioa: espezieak ez dira tipo aldaezinak (neoplatonismoaren eraginez uste zen bezala). [Askoren artean](#)

Sinesten al zuen arimaren **transmutazioa**? [Karlos Linazasoro](#)

transnazional (orobat *transnazional g.er.*) 1 izond nazioen gaidikoa.

Globalizazioak kapitalismoari bere sorburuko asmoa berriz eman baino ez dio egingen: **transnazionala** da nazioartekoa baino areago; mugak eta estatuak, usadioak eta nazioak ezabatzen ditu, gauza oro balioaren lege bakarraren mende jartzeko. [Koro Navarro](#)

Arsur plataformaren ekimen logistikoa «garraio talde **transnazionalen** mesederako» izango dela ziurtatu du *Hiruk*, Euskal Herriko Garraiolari Autonomoen Sindikatuak. [Berria - Ekonomia](#)

Ekoi-zpena oinarri **transnazionalen** gainean antolatzen. [Iñaki Heras](#)

Estatuarterko logika gainditzera jotzen du, eta sare **transnazionalen** logika ipini nahi du haren lekuan. sistema neoliberalak garrantzi handiagoa ematen dio kapital **transnazionalari**, indigenen eskubideei baino. **Koro Navarro**

Nazioarterko lana eta ingurugiro arauak eta legeak gobernuek ezarri behar dituzte, ez enpresa **transnazionalen** kontsorzioek eta bere kontulariak. **Iñaki Heras**

Enpresa multinazional edo **transnazionalak** dira globalizazio prozesuaren agente gidari nagusi. **Iñaki Heras**

Patenteak eta jabetza intelektualaren gaineko eskubideak arautzeko erakunde nazional eta **transnazionalak** daude. **Berria - Gaiak**

Nazioarterko merkatuetako elkartrukeen barneratzea erabaki-hartze unitate bakarrean, hots, korporazio **transnazionala**. **Iñaki Heras**

2 (izen gisa) enpresa transnazionala.

Kultibo konbentzionalak **transnazionalek** hertsaturiko monopolioen oreka galarazten laguntzen du baina nekazariaren, ingurugiroaren eta beste hainbaten hondamendi ekonomikoa dakar. **Edorta Agirre**

Boliviako gas erreserbek **transnazionalen** esku egoten jarraitzen dute. **Berria - Mundua**

Transnazionalen diru sarrerak, hainbat kasuetan, herrialdeenak baino handiagoak dira: General Motors enpresa erraldoiaren 1995 urteko salmenta zifra, konparazio baterako, 169 herrialdeen NPGa baino handiagoa izan zen. **Iñaki Heras**

Transnazionalek atzerrian inbertitzeko arrazoiak ugaritu egin dira. **Iñaki Heras**

Transnazionalek, beren erabaki ahalmenaren bidez, estatuen araudiei muzin egiteko gero eta aukera handiagoa dute. **Iñaki Heras**

Nazioarterko ekonomia 40.000 **transnazionalek** dominatzen dute. **Iñaki Heras**

Machou Corporation Inc., feminismoaren aurrerapausoei kontra egiteko sortutako **transnazionala**. **Iban Zaldua**

3 nazio bat baino gehiago hartzen duena.

Eskubideen aitortza eta babesa nazio-estatu bakoitzaren barruan ez ezik maila **transnazionalean** ere antolatu behar da». **Berria - Harian**

Eskualde **transnazionalek** pixkanaka nazio estatuak ordezkatzeko bilatzen baitu estrategia horrek. **Berria - Euskal Herria**

Gutxi gara euskaldunak, baina, besarkada horren ondoren, nahikoa eta sobera izango gara hizkuntza eta kultura eta komunitate **transnazional** baliagarri bat osatzeko. **Joseba Zulaika**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

enpresa transnazional (5)

enpresa transnazionalen (6); **transnazionalen esku** (6); **transnazionalen esku uzteko** (3)

transnazionalizazio *iz* transnazional bihurtzea.

Enpresa horien multinazionalizazio edo **transnazionalizazio** maila areagotzen ari da azken urteetan Nazio Batuen datuen arabera. **Iñaki Heras**

Jakina, **transnazionalizazio** bidearen hasiera besterik ez da. **Iñaki Heras**

transorbital *izond* lobotomiez mintzatuz, tresna ziztatzaile batez begiaren orbitan zehar egiten zena.

Oihartzunik handiena Estatu Batuetan izango zuen, han Walter Freeman neurologoak hurbilbide kirurgiko berri bat asmatu baitzuen, berak lobotomia **transorbitala** deitzen ziona. **Xabier Olarra**

transparente ik **transparente**.

transparente *(orobat transparent g.er.)* 1 *izond* gardena.

Argazkiaren angelu batean, haragia erretzeko parrilla ikusten da, dena ketan, eta, haren atzean, erreka jairo berriaren ur **transparentea** eta harri leunez osatutako hondoa. **Bernardo Atxaga**

Suediarra edo islandiarra ematen zuen andre gazte bat kale kantoi batean zegoen zira **transparente** batekin eta argazki makina bat eskuetan zuela. **Bernardo Atxaga**

Neska itxura ona ematen zion lehengusuari, galtzerdi **transparenteak** jantzita joaten baitzen beti eta permanentea egiten baitzuen ilean. **Pello Lizarralde**

Montura **transparenteko** betaurrekoak erabiltzen zituen. **Koldo Izagirre**

Gainetik teilatu zehargi edo **transparentea** ezarririk, argi naturala sar erazten diote erakustokiari erdi erditik eta gune horretatik pasatu behar da parte batetik bestera joateko. **Herria**

2 irud/hed

Haren begi urdin-urdin, ia **transparenteen** begirada. **Xabier Amuriza**

Hortik landa, ez zaituzte ikusten, **"transparentea"** bilakatzen zara, eta ez dizute ikus zaitzaten uzten. **Ana Urkiza**

transparentzia 1 *iz* gardentasuna.

Bestalde, transakzio kostuak murrizten dira, prezioetan **transparentzia** areagotzen baita, prezioak diru berean adieraziko baitira. **Iñaki Heras**

Gerxeago, **transparentzia** berde bat baino ez zen ardo botila. **Unai Iturriaga**

2 irud/hed

Klube eskatzen zuten **transparentzia** eman nahi zuten modu honetan, «eta odol analisiak egin EPOa antzemateko, aurrez Euskal Herriko Federazioak egin ez duena». **Berria - Kirola**

3 diapositiba.

Dekoraturik gabe, baliabide mugikorrek eta kolore biziak erabili zituen naif-en modukoak, zuhaitzetan bezala; argizatzea, kea eta **transparentzia** arruntak; ikusgarrienak zolatik eginiko agerpenak edo airez egindako hegaldia izan ziren. **Berria - Kultura**

transpiratu, transpira, transpiratzen du *ad* izerditu.

Tanta patsetan ginen han biak, taberna tropikalean, gure bainujantzi bustietan barrena **transpiratuz**: gorri-gorri ageri nintzen sabaian horren ugari ageri ziren ispiluetan, gizon beltz handi batek haize ematen zigun bitartean. **Joxan Elozegi**

transpirazio *iz* izerditzea.

Galtzarbako **transpirazioa** hurrupatuko zuten kuxin txikiak josten aritzen zen bitartean. **Joxan Elozegi**

transpirineko (orobat transpirineko) izond Pirineoen gaindikoa.

Justu orain, bera positibismo eta razionalismoa destainatzen ari da, errekarra botatzen modernitatea, progresoa mespretxatzen, intelektualismo **"transpirenaikoa"** erdeinatzen. **Joxe Azurmendi**

Aurkezleak gure hizkuntza periferikotzat aurkeztu zuen eta nik esan nion multiperiferikoa dela, hain zuzen ere, Madrilan periferian dagoen bezala, Parisen periferian ere badagoela eta, hizkuntza erregionala barik, gurea hizkuntza **transpirenaikoa** dela. **Edorta Jimenez**

transpirineiko ik transpirenaiko.

transplantatu, transplanta, transpaltatzen (orobat *trasplantatu g.er.*) 1 du ad transplantea egin.

Berrogeita hamar urte bete dira, lehenengoz giza organo bat **transplantatzea** lortu zutenetik. **Berria - Gaiak**

Errumanian txerri transgenikoak haziko dituzte, haien organoak gizakiari **transplantatzeko**. **Berria - Gaiak**

Obulutegi osoa **transplantatzea** erabaki zuten medikuek. **Berria - Gaiak**

Transplantatutako bihotz batekin egin ditu hamar urte. **Berria - Gaiak**

2 lekualdatu, tokialdatu.

Gurera **transplantatuz**, gure hainbat politikarik dio gurea ez dela eskuduntza kopuru kontua, erabakitze gaitasunaren eskubidearen onarpenarena baino. **Berria - Euskal Herria**

3 (era burututa izenondo gisa)

Proteina arrotz bat gorputzean sartzen den guztietan (gehienetan gaitz kutsakorren baten organismoak izaten dira, baina ehun **transplantatu** bat ere bai inoiz), erreakzio immunologiko bat sortzen da. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

obulutegia transplantatu (3)

transplante (orobat *trasplante g.er.*) 1 iz norbaiten gorputzean organo edo ehun sanoak sartzea, ondatuta daudenen orde, kirurgia-ebakuntza baten bidez.

Erabat itsutu, gainera, handik hogeita bi urtera kornearen **transplantea** egin zioten arte. **Xabier Olarra**

Gaur egun zirujau trebea da gibelaren edo bihotzaren **transplantea** egiteko gai dena. organoen **transplantean** bezala jokatzeko ari gara. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Zilbor-hesteko zelulen **transplante** autologorik ez da inoiz egin. **Berria - Gaiak**

Giltzurruneko, gibeledoko, pankreako, bihotzeko eta biriketako **transplanteak** dira ohikoena. **Berria - Gaiak**

Aurpegiko **transplantea** egiteko baimena eskatu dute AEBetan. **Berria - Gaiak**

Datozen hamar urteetan iraultza ikusiko dugu **transplanteetan**. **Berria - Gaiak**

Peter Rowe Erresuma Batuko **Transplanteen** Elkarteak presidentea. **Berria - Gaiak**

Txinan exekutatzen dituzten pertsonen organoak gerora nazioartean saltzen direla salatu du Erresuma Batuko **Transplanteetarako** Elkarteak. **Berria - Mundua**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hezur-txertaketa aspaldian finkaturiko [...] **transplante** mota bat da. **Irene Aldasoro**

Begia eta belarria oso egitura delikatu, sentikor eta konplikatua dira, eta ez da kirurgiaren aurreikuspenetan sartzen haiek **transplante** bidez edo baliokide artifizialen bidez ordezkatu ahal izatea. **Irene Aldasoro**

Transplante eta Birsortze Medikuntzaren Zentro Nazionalari. **Berria - Gaiak**

Gustavo Milone Fundaleuko **Transplante** Unitateko buruak. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehenengo bihotz- **transplantea** 1967an egin zen, Hego Afrikan. **Irene Aldasoro**

Estatu Batuetan, 1991n, ia 20.000 giltzurrun- **transplante** egin ziren. **Irene Aldasoro**

3.600 gibel- **transplantetik** gora, 665 pankrea- **transplante**, 127 birika- **transplante** eta 125 bihotz- eta birika- **transplante**. **Irene Aldasoro**

Oraindik ere ez dira oso ohikoak aurpegi **transplanteak**. **Berria - Gaiak**

Zailagoa da organo- **transplanterako** ehunen bateragarritasuna lortzea. **Irene Aldasoro**

Zientzia fikzioaren eremuan geratzen dira garun- **transplanteak**. **Irene Aldasoro**

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Hezur-muin **transplantea** egitea erabaki genuen. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurpegi transplantea (3); **aurpegiko transplantea** (7); **aurpegiko transplantea egiteko** (5); **transplantea egin** (14); **transplantea egiteko** (9)
transplanteen bidez (3)

transpolar izond lurburuaren gaindikoa.

Eskimalak [...] bonbaketa-bide **transpolarrean** aurkitzen ziren Volga eta Mississippi arroen artean. **Iñaki Mendiguren**

transporte 1 iz garraioa.

Oroitazten daukute aintz jende ez direla izanak Eskolako haurren **transporteko** karten ateratzen. **Herria**

Herriko etxeak jakin arazten du helduden urteko eskolako haurrek beharko dituztela dozier batzu hartu herriko etxean eta bete **transporteari** buruzko laguntzen izaiteko. **Herria**

2

Hala "Friseure zum Bad, Friseure zum Bad" sarritan entzuten da egunean zehar, geroz eta gehiagotan, eta kontua argi dago: **transporte** berri bat heldu da. **Urtzi Urrutikoetxea**

transposizio 1 iz musikan, tonalitatez aldatzea.

Eta berdin gertatzen da hamar soinuekin, beren **transposizio** horien bitartez modulazioaren barietate hirukoitzak sortzen dituzte hiru motetan. **Santiago Iruretagoiena**

2 alor batetik beste batera igarotzea.

Nazionalismoan modu naturalista samarrean egiten da: erkidego historikoa dagoenez, berehala **transposizio** politikoa behar du. **Berria - Euskal Herria**

transtestualitate iz testuartekotasuna.

Makrotestu poetikoaren asimetria beharrezkoa, **transtestualitatea**, kanpora begirada bat, garrantzizko osotasunari eginikoa deskubritu nituen. **Berria - Kultura**

transzendental (orobat *traszendental* g.er. eta *trazendental* g.er.) 1 izond ondorio erabakigarriak dituen; garrantzizkoa, gorabehera handikoa.

Eta zorientasun material eta ez materialari buruzko eztabaida **transzendental** alde batera utziz -eztabaida horretan ere begi-bistakoa da mendebaldeko etnozentrismoa kritikatzeko duten zenbaiten artean aurreiritzirik-, argi dago egoera hori neurtu egin daitekeela. **Iñaki Heras**

Lehendabiziko aitortzan buruz ikasita zeraman, guztiz gauza **transzendental** bailitzan, bere bekatu guztien zerrenda. **Josu Zabaleta**

Niri dagokidenez, nire bizitzako unerik bitxienetakoa, **transzendentalenetakoa** izan zen. **Oskar Arana**

Zorientasun material eta ez materialari buruzko eztabaida **transzendental** alde batera utziz [...] argi dago egoera hori neurtu egin daitekeela. **Iñaki Heras**

2 transzendentea.

Arteak gizartearen premia bati erantzuten dio; premia horrek premia erlijiosoarekin, sakratuarekin zerikusia zuen hasieran, baina gizakiaren egoera "gainditu" nahia, esperientzia, ezagutza **transzendental** bat lortu nahia du beti erroan. **Josu Zabaleta**

Gizartearen edozein jarrera ez dela betiko itxia, ezin dela **transzendental** bihurtu, azken batean, anbiguotasuna nahitaezko duela. **Joseba Zulaika**

Hori bera gertatu zaio ETArein abertzaletasunari: Hainbat hilketen ondoren, ETArein abertzaletasun **transzendental** sakrifiziozale horretan fedea galdu genuen euskaldun ia denok. **Joseba Zulaika**

Laino batean egin zuten Ronda kaletik lokalera inoia, egoera **transzendental** batean, mundutik at, Olinpoan. **Unai Iturriaga**

3 (filosofian) esperientziaren aurreko balditza bat adierazten edo gauzatzen duena.

Eredu kantiarra: paradigma idealista (eta horren eztabaida; "Idealista"ren ordeza **transzendental**) esan daiteke. **Askoren artean**

Kantenari Idealismo **Transzendental** esaten zaion moduan, Hegelenari Idealismo Absolutua esan ohi zaio: Kantek Lehen Filosofia ezagutzaren teoriara ekarri bazuen, Hegelek berriro metafisikara itzuli du -orain metafisika "Logika" da-. **Askoren artean**

Sen onaren ikuspuntutik, gogoarekiko independente diren objektuak existitzen direla dioenari Kantek errealista **transzendental** esaten dio. **Askoren artean**

Zeren, ongi begiratuta, zoria kausaren gabetasuna ez dela ikus dezakegu, horren transzendentea baizik: zoria kausa **transzendental** da. **Askoren artean**

Osagai hauek ez dira apriorizko ezagutza hutsez soilik arduratzen den Filosofia **transzendentalaren** multzokoak. **Ibon Uribarri**

Ez begiespen empirikoek ezta hutsez ere arrazoimena bide ikusgarrian atxikitzen ez dutenean, hots, bere erabilera **transzendental** adigai soilen arabera. **Ibon Uribarri**

Arrazoimen hutsaren kritika bi zatik osatzen dute aurkibideak dioenaren arabera: osagaien irakaspen **transzendentalak** eta metodoaren irakaspen **transzendentalak**. **Ibon Uribarri**

Arrazoimen hutsak erabilera **transzendental** matematikoan lortu duen adina arrakastaz eta oinarritzotasunez heda daitekeela itxaroten du. **Ibon Uribarri**

Aurkakotasun hau Kantek osagaien irakaspenaren barnean jasotzen du, zeinak Estetika **transzendental** izena duen sentimenaren eta begiespenaren teoria batekin hasiz Logika **transzendental** izena jasotzen duen pentsatzearen edo adimenaren teoria batekin jarraitzen duen. **Ibon Uribarri**

Ea objektu **transzendental** batek zer antolaera duen, hots, bera zer ote den, galdekizunari ezin zaio erantzunik eman. **Ibon Uribarri**

Filosofian kontu garbia da aspaldi, Descartesekin hasi, Kanten subjektu **transzendentalarekin** jarraitu, mundua eraikuntza dela, pentsamenduak eraikitzen duela. **Joxe Azurmendi**

Joera dago, beraz, Nietzsche filosofia **transzendental** ikuspegitik interpretatzeko eta bere genealogia jatorriaren bilakuntzaren egitasmo baten mailara jaitsarazteko. **Xabier Arregi**

Pentsalari kristau horrek, Aristotelesek ez bezala, guztien ongia muga **transzendental** baten mende jarri zuen. **Askoren artean**

4 irud/hed

Hogeita sei edo hogeita zortzi liburu idatzi zituela, guztiak ere asperduta **transzendental** aharrasit moduan zabalitzen direnak, dena eskas duen mundu baten aurrean. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adigai transzendental (7); erabilera transzendental (5); erabilera transzendental soila (4); esakune transzendental (6); filosofia transzendental (3); frogia transzendental (3); idealismo transzendental (13); ideia transzendental (3); itxura transzendental (7); lege transzendental (4); logika transzendental (4); objektu transzendental (12); objektu transzendental gisa (3); oinarri esakune transzendental (3); subjektu transzendental (4)

adigai transzendental (4); analitika transzendental (6); batasun transzendental (4); dedukzio transzendental (10); dialektika transzendental (9)

erabilera transzendental (10); esakune transzendental (3); estetika transzendental (5); ezagutza transzendental (3); filosofia transzendental (7)

idealismo transzendental (5); idealtasun transzendental (3); ideia transzendental (7); irakaspen transzendental (4); itxura transzendental (3); kausa transzendental (3); logika transzendental (6); logika transzendental izena (3)

objektu transzendental (12); oinarri transzendental (5); sintesi transzendental (3); subjektu transzendental (4); teologia transzendental (4)

adigai transzendentalak (5); analitika transzendentalak (4); esakune transzendentalak (3); estetika transzendentalak (6); filosofia transzendentalak (4); ideia transzendentalak (7); logika transzendentalak (4); objektu transzendentalak (4); printzipio transzendentalak (3)

analitika transzendentalaren (6); dialektika transzendentalaren (11); estetika transzendentalaren (6); filosofia transzendentalaren (10); irakaspen transzendentalaren (12); juzgamenaren irakaspen transzendentalaren (3); logika transzendentalaren (9); metodoaren irakaspen transzendentalaren (4); osagaien irakaspen transzendentalaren (3); psikologia transzendentalaren (3)

ilosofia transzendentalari (5)

adiera transzendental (9); analitika transzendental (6); dialektika transzendental (4); erabilera transzendental (9); estetika transzendental (7); filosofia transzendental (5); zentzu transzendental (4)

ideia transzendental (3)

adigai transzendental (3); ideia transzendental (5)

transzendentalista izond traszendentalizatzeko joera duena.

Ez, ezin zen ametitu munduari buruzko kanpotasun hura, ezin zen ametitu -beraien mania **transzendentalistengatik**, edo beraien pedantekeriagatik- sortze prozesuari buruz esaten zuten hainbat falsukeria. **Bernardo Atxaga**

transzendentalizatu, transzendentaliza, transzendentalizatzen (corpusean *traszendentalizatu* soilik) du ad transzendente bihurtu.

Gehiegi **transzendentalizatu** degula uste det. **Lourdes Oñederra**

transzendentali *adlag* era transzendentean.

Nabarmena da, ordea, inherentziaren subjektua pentsamenduari atxikitako niaren bitartez **transzendentali** soilik ezaugarri daitekeela bere berekitasunik ohartu gabe edo honetaz oro har ezer ezagutu edo jakin gabe. [Ibon Uribarri](#)

Predikatu ahalgarri denak logikoki ez ezik, **transzendentali** ere kontsideratzen baditugu, h[au] d[a], beraietan a priori pentsa daitekeen edukiaren arabera kontsideratzen baditugu, orduan beraietatik batzuen bitartez izate bat, besteen bitartez ez-izate soila errepresentatzen dela aurkitzen dugu. [Ibon Uribarri](#)

Esakune honen bitartez predikatuak elkarrekin logikoki alderatu ez ezik, gauza bera ere alderatzen da **transzendentali** predikatu ahalgarri oren multzoarekin. [Ibon Uribarri](#)

transzendentaltasun iz transzendentea denaren nolakotasuna.

Horrez gain, **transzendentaltasuna** azken helmugaraino eramanez -baldin eta estatuaren boterea giza helburu horren aurka erabiltzen bada-, botere horren gaitetik gizabanakoen askatasuna defendatuko du Tomasek. [Askoren artean](#)

Pornografiako liburuak irakurtzen ziren, bere **transzendentaltasunagatik** beragatik barregarria zen pornografia bat zekartenak. [Josu Zabaleta](#)

transzendente (*orobat transzendente g.er. eta trazendente g.er.*) 1 izond transzenditzen duena.

Oinarri-esakuneen aplikazioa esperientzia ahalgarriaren zedarrien barne gertatzen denean, hauei imanenteak deituko diegu, muga hauek gainditzen badituzte,

transzendenteak. [Ibon Uribarri](#)

Hala ere, arrazoimenaren erabilera izadiaren kontsiderazio arrazional honetan fisikoa edo hiperfisikoa da edo, hobeto esanda, imanentea edo **transzendentea** da. [Ibon Uribarri](#)

Imitazioa baino "harago" iritsi nahia, irudiari ikusi ezin daitekeena, esan ezin daitekeena, **transzendente** dena irudikatzen iristeko aukera ematea, alegia. [Josu Zabaleta](#)

Lehen Jainkoaren gainean esaten zirenak esaten dira orain Espainiari buruz: **transzendenteak**, zatietzinak, ubikuoak ei dira bi-biak. [Markos Zapiain](#)

Xede inmanentez gainera, bertsolaritzak baditu ukan helburu **transzendenteak**. [Berria - Kultura](#)

Bai, egiazko literatura da, besteak beste beldurretik sortua delako, denik eta sentimendurik **transzendente**, benetako eta eragileenetik alegia. [Bernardo Atxaga](#)

Maitasunak objekturen bat behar du [...] bere helburua zerbait **transzendentea** da, hasieran gure baitan zegoena ia ikusi ezinik. [Askoren artean](#)

Gizakia espirituali janzen duena balio **transzendenteak** izango dira. [Joxe Azurmendi](#)

Bortxa oro gaiztoa, perspektiba **transzendente** batean izan daiteke. [Joxe Azurmendi](#)

Mundu biziaren egiturak, gaur egun begietaratzen zaigun moduan, halaber **transzendente** bat islatzen zuen. [Juan Garzia](#)

Frantzisko gizon predestinatutzat aurkezten digu, Elias berria, Apokalipsiko seigarren zigiluko aingerua, irudi **transzendente** eta idealizatua. [Askoren artean](#)

Ez dago lege **transzendentetik** banako bakoitzari bere lekua izendatzen dionik. [Piarres Xarriton](#)

2 (izen gisa)

Otoitz egitea Jainkoari, Besteari mintzatzea zen, **Transzendenteari** hel egitea. [Piarres Aintziart](#)

3 garrantzizkoa, gorabehera duena.

Hamabi urte bete zezazkiz ez nuen solasaldi **transzendentetik** amarekin. [Aingeru Epaltza](#)

Ekintza debekatua halako zerbait eskatzen zuelakoan, edo ariketa **transzendente** batean ari ginelakoan... [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Lehen bertsioaren tonu larri eta **transzendentea**, aldiz, ezin izan dut bazterrean utzi. [Aingeru Epaltza](#)

transzendentzia (*orobat transzendentzia g.er.*) 1 iz transzenditzen duenaren nolakotasuna.

Arau absolutuak onartzea, gizagaindikoa onartzea da, **transzendentzia** onartzea. [Joxe Azurmendi](#)

[Mistikak] ez du esan nahi **transzendentzia**, baizik jainkozkaren inmanentzia, esan nahi du Jainkoa altzoan bertan barrentzea "unio mystica"-ren bizipenaren bitartez.

[Joan Mari Lekuona](#)

Ongi begiratuta, zoria kausaren gabetasuna ez dela ikus dezakegu, horren **transzendentzia** baizik: zoria kausa transzendentala da. [Askoren artean](#)

Transzendentzia batek, logikari men egitera, bera transzendituko duen beste **transzendentzia** bat eskatuko luke, eta hala, azkenik gabe. [Juan Garzia](#)

Aristotelesen aburuz, Lehenengo Motorraren **transzendentzia** ez da aise adosten munduaren deskribapen mekanikoarekin, higitzeko, sakatzeko edo tiratzeko ukipen bat behar da eta. [Askoren artean](#)

Egia bada badela dimentsio bat ez dagokiona ez logikari ez hizkuntzalaritzari, bera ez da, hala ere, berrezarritako **transzendentzia**, ez da, ezta ere, helezina den jatorrirako bidea, berriz irekitakoa, eta ezta gizakiak gauzatzen dituen bere esanahi propioen eraketa ere. [Xabier Arregi](#)

Kantekin batera, ordea, filosofia bera erlijioso bilakatzen da eta, jakina, pertsonaren izaera sakonenaren aurrez aurre jartzen da (**transzendentzia**), nahiz eta mundu honetako eran ezagutu behar izan hori guztia, "zifra" gisa, alegia. [Askoren artean](#)

2 (hitz elkartuetan)

Irudien egiazko iraultza, iraultzarik bada, aspaldi gertatua da, poliki-poliki itxuraren erregistroa [...] baizik ez izatera murriztuz joan ondoren, garai batean izan zuten

transzendentzia -ahalmena galdu zutenean. [Josu Zabaleta](#)

3 gorabehera.

Transzendentzia gehiegirik gabeko kontuak dira. [Ramon Etxezarreta](#)

Orduan maitemintzen edo desmaitemintzen gara, edo tornado batek hamar mila pertsona erailten ditu Ertamerikan, eta gertaera bat zein bestea dira nire ikuspegitik ulergaitz, eta bata zein besteak du **transzendentzia** ikaragarria kosmosak bere oreka mantentzen. [Harkaitz Cano](#)

Nafarroako Txapelketak ez du beste txapelketa batzuek duten lan zama eta **transzendentziarik**. [Berria - Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[denborazkotasuna eta transzendentzia](#) (4)

transzendentziagabe izond transzendentziarik ez duena.

Egiazko unibertsaltasuna eta balio absolutuen sostengua, bat, Jainkoa izan daiteke: ilustrazioa Jainko galduarengana itzulera izango da orduan, hots, egiazko Jainko batengana, ez erromantikoen sasijainko **transzendentziagabeagana**. [Joxe Azurmendi](#)

transzenditu, traszendi, traszenditzen (*orobat traszenditu g.er.*) du ad haratago doana.

Ilunak ilun eta sakonak sakon, transzendentzia batek, logikari men egitera, bera **transzendituko** duen beste transzendentzia bat eskatuko luke, eta hala, azkenik gabe.

[Juan Garzia](#)

Arrazoimenak "esentziak" atzematen dituela, suposatzen da platonikoki, esperientziaren erlatibotasun belaska **transzendituz**. [Joxe Azurmendi](#)

Halako Estatuak ere ez ditu gizonak **transzenditzen**. [Josu Zabaleta](#)

Formek esperientziaren mundua **transzenditzen** dutela dioen platondar tesia ukatzen du Aristotelesek. **Askoren artean** Helburu estetikoak bera -espirituzko errealitateen adierazpena, ereduaren sinbolismoak **transzenditzen** duena-, [...]. **Josu Zabaleta** Lan horretan analisi fenomenologikoen segida bat egiten du, gainditzeko gaituenaz hausnarketa eginik, **transzenditzen** gaituen esperientziaren baldintzak eta horizontea proposatuz. **Berria - Kultura**

trantsideologiko ik **trantsideologiko**.

trantsilvaniar (*orobat **trantsilbaniar***) *izlag* Trantsilvaniakoa, Trantsilvaniari dagokiona.

Hogeita hiru urte ditu animaliak eta sarri burutuko du bere mundualdia, ehiztari **trantsilvaniar** batzuek umetan harrapatu eta orduko diktadorearen ponte-izenarekin bataiatu zutenetik. **Aingeru Epaltza** Gero Gernikan hiru mila jendez gehiagoko elkarretaratze suharrean, hor ginituela ere Katalan, Polisariorat, Errumania aldeko **Trantsilbaniar** eta beste Europar herri zapalduetako mezu eta ordezkari. **Herria**

trantsistore ik **trantsistore**.

trantsitatu, trantsita, trantsitatzen (*orobat **trantsitatu***) da *ad* igaro, ibili. • *irud/hed*

Espainiak, izatekotan, behar du politika batetik bestera **trantsitatzea**, baina ez jokaleku politikoa aldatzea. **Berria - Euskal Herria** Zer erabaki izango da erronka eta ia honetan asmatzen dugun, ze zazpi urteren ondoren badakigu zein ez den betiko baso berri honetatik **trantsitatzeko** bidea: gehiengoaren logika. **Berria - Euskal Herria**

trantsitibo *iz* aditzez mintzatuz, iragangaitza.

Maitasuna, aldiz, aditz **trantsitiboaz** deklinatzen da, zeuk nahitakoa delako. **Pako Aristi**

trantsitibotasun *iz* iragangaiztasuna.

Zuberoako aditzen **trantsitibotasunaren** dinamika aztertzen ari da. **Berria - Kultura**

trantsito (*orobat **trantsito***) **1** *iz* igarobidea.

Euskal Herria iraganbide edo **trantsito** lekua izanik, beti ibili da modu askotako jendea. **Koldo Izagirre** Valdemoron utzi zuten eta hantxe zeramatzen egunak bakar-bakarrik, egunez **trantsitoetako** moduluan paseatuz eta gaua sarrerako moduluko galeria-zulo malapartu hartan igaroz. **Jokin Urain**

2 zirkulazioa, trafikoa.

Nire anaia **trantsito** alorreko bulegoetara eraman zuten, eta ni aske utzi ninduten. **Pako Aristi**

3 *irud/irud*

Ziklo politiko bat amaitutzat jo eta **trantsito** prozesoz hitz egin zuen Diezek ondoren, prozesu politikoaren inguruan LABek Biltzarrerako egin duen diagnostikoan. **Berria - Ekonomia**

trantsitorio (*corpusean **trantsitorio soilik***) *izond* igarokorra. ik **trantsitozko**.

Bularreko angina iskemia **trantsitorio** bat da; odolak bihotzera heltzeari lagatzen dio, baina aldi batez, gero, berriro ere bere onera etortzen da. **Berria - Gaiak**

trantsitozko (*corpusean **trantsitozko soilik***) *izlag* aldi baterakoa, behin-behinekoa. ik **trantsitorio**.

Sindikatuak nahi dute aurtengo itunak logistikako langileei ere eragitea, baina lortuko ez balute, «**trantsitozkoa**» eskatuko dute, datorren urtean behin betikoa lortze aldera. **Berria - Ekonomia**

trantsitu¹ (*orobat **trantsitu***) *iz* korridorea.

Maletatik orriak atera, eta **trantsitutik** zehar barreiatu ditu, zaratarik atera gabe, aleatoriotasun efektu bat lortuz, presaz egindako ekintza baillitza. **Iban Zaldúa** **Trantsituko** lorontzian aurkituko duk dirua. **Juan Garzia**

trantsitu², trantsi, trantsitzen da/du *ad ipar* erasan.

Trantsitua nintzen. **Daniel Landart**

trantsizio (*orobat **trantsizio g.er.***) **1** *iz* egoera batetik beste batera igarotzea.

Boterearen erabilera eta abusuarekiko antzeko jarrera-aldaketa gertatu zen beste zibilizazio batzuen historian arazoaldetik estatu unibertsalerako **trantsizioarekin** batera. **Iñaki Mendiguren**

Orainari dagokionez, berriz, badirudi gure egunerokotasuna ez dela [...] iragan beharreko **trantsizio** bat besterik: izan behar omen dugunak izan omen ginenera hurbilduko gaituen esperantzak bizi gaitu. **Anjel Lertxundi**

Kooperatiba bihurtzeko **trantsizioa** lasaia izaten ari da. **Berria - Ekonomia**

Gerra zibilik ez badago, **trantsizio** bat egongo da, Espainian bezala, eta gero hauteskundeak, demokrazia, eta mundura aterako zarete. **Jon Muñoz**

«**Trantsizio**» baterako negoziazio prozesua» eskatu dio EB-IUK PSOeri. **Berria - Euskal Herria**

Arrainen eta narrastien arteko **trantsizioa** erakusten duen animalia baten fosila topatu dute Kanadako iparraldean. **Berria - Gaiak**

Biziagoak suertatzen dira planoan arteko **trantsizioak**. Berria - Kultura

Bokalikoak dira **trantsizio** horren egitura akustiko eta ekoizte artikulatorioa. Lourdes Oñederra

Bata dela benetan bokal oso eta bestea, berriz, bokalaren eta kontsonantearen arteko **trantsizioa**. Lourdes Oñederra

2 (izenondoekin)

Kuban «**trantsizio** demokratikoa» eragiteko lan egitasmoa aurkeztu du Colin Powell Etxe Zuriko Estatu idazkariak. Berria - Mundua

Irakiarrei **trantsizio** politikoan eta bozak prestatzen laguntzea. Berria - Mundua

"Zauriak sendatzeko" ematen den barkamenak, adibidez, ez du gaizkilea bera helburu, **trantsizio** psikologikoa, ahaztea, osotasun mentala baizik. Turkiako ordena berriak bakarrik lortu zuen bi alderdiko erregimen bihurtzea, Mendebaldeko ildo liberalen arabera, **trantsizio** baketsuaren bidez. Joseba Zulaika

Merkataritza-ziklo "labur" baten batez besteko uhin-luzera industrializazioaren lehenengo etapetan 5,86 urtekoa zela kalkulatu zuen, 4,09 urtekoa ondorengo **trantsizio** lasterreko aroan, eta 6,39 urtekoa ondorengo aro egonkor samarrean. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urtebeteko epean tropen egoera berraztertu ahal izango du **trantsizio** gobernuak. Berria - Mundua

Demokrazia pluralista bateranzko **trantsizio** prozesua bultzatzea. Berria - Mundua

Balioen konfliktu nahasi batean murgilduak bizi gara: gizarte erditradizional, erdimoderno, kontserbakoi, anarko, erlijioso, pagano lardaska batean, ez mundu bateko ez besteko, **trantsizio** krisietan ohi den eran. Joxe Azurmendi

Halaxe gertatzen baita muga- eta **trantsizio**-hizkera diren guztien kasuan. Juan Garzia

Horren ondorioz sortzen da bigarren motako irtenbidea: **trantsizio**-garaian, birgaitzeak sustatuz, kualifikazio urriko enpleguari diruz laguntzea. Koro Navarro

Trantsizio urtea izango da 2006a Donostiako kultur zentroarentzat. Berria - Kultura

Proposamen horrek **trantsizio** aro bat irekiko luke, eta Teheranek IAEaren eta Mendebaldearen «konfiantza» lortuta, epea bukatutakoan berriz ekin ahal izango lioke uranioa aberasteari. Berria - Mundua

4 Espainian diktaduratik demokraziara igarotzea.

Izan ere, Franco hil osteko **trantsizio** hartan, orduan bai ilusioa, eta orduan bai kezka, egunik egun aukerak galtzen zihoazela ikusi ahala. Xabier Mendiguren Elizegi

Trantsizioaz geroztik, bi gai nagusi konpontzeko daudela uste du: Estatuan dauden nazioen eskubideak eta baketzea eta normalizazio politikoa. Berria - Harian

Trantsizio deitu izan diote hainbatek urte haiei; Espainian **trantsizio** izan zena, Euskal Herrian, bertako politikoei -eta politikoei ez ezik, gehienei- oharkabean pasatu bazitzairen ere, [...]. Iñaki Iñurrieta

Errepresioa **trantsizio** deitutakoaren moldeak beretzen ari zen neurrian, herri-borrokak ere asmatu egin nahi zuen nola aurpegi eman. Jokin Urain

Guk Espainian **trantsizioan** egin zen politika egin nahi dugu: kontsentsuaren, elkarrizketaren eta erantzukizunaren bidez. Berria - Euskal Herria

Telebistan ohikoak ziren **Trantsizioari**, Olinpiadei eta Expoari buruzko saio koloretsuak. Iban Zaldúa

Bigarren **trantsizio** bat abiatzea da Espainiak egin dezakeen akats handiena. Berria - Euskal Herria

Trantsizio garaiko presidente guztiak ezagutu genituen hurbiletik, halako okasioetan: Adolfo Suárez, Leopoldo Calvo Sotelo, Felipe González. Iban Zaldúa

Euskal Filologiako ikasketak **trantsizio**-urteekin ezarri ziren EUTGn, Deustuko Unibertsitateak Gipuzkoan -Donostian- zuen sukurtsalean. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bigarren trantsizio (13); **bigarren trantsizio bat** (6); **irakeko trantsizio** (6)

trantsizio demokratiko (4); **trantsizio demokratiko baterako** (3); **trantsizio demokratikoa** (4); **trantsizio epea** (3); **trantsizio garai** (7); **trantsizio garaia** (6); **trantsizio garaian** (12); **trantsizio garaiko** (5); **trantsizio gisa** (3); **trantsizio gobernu** (16); **trantsizio gobernu bat** (5); **trantsizio gobernu bati** (3); **trantsizio gobernuak** (3); **trantsizio politiko** (3); **trantsizio politikoan** (5); **trantsizio politikoaren** (3); **trantsizio urtea** (6)

bigarren trantsizioa (13); **espainiako trantsizioa** (4); **trantsizioa egin** (3); **trantsizioa egiteko** (5)

bigarren trantsizioa (4)

trantsizioan egin (3)

bigarren trantsizioaren (6)

bigarren trantsizioari (3)

trantsizioko gobernuaren (3)

trantxada *iz ipar* lubakia, trintxera.

Trantxada batean ur hodian ezartzea, hara zer izan zen ene lehen lana. Marzel Etxehandi

Airekoen bonbaketez bazterrak itoz prestatzen zuten beren pasaia baina Irakiarrak ere ez lo egoki: hauk erreka **trantxada** batzu ezartzen petrolioz beterik eta haueri su emanez sekulako kea beltz lodiak altxatzen, zeru guzira estaltzen eta iluntzen dutela, kanpotiar armaden nahas eta okaztagarri. Herria

trantxitu, trantxi, trantxitzen da/du *ad* igaro.

Hezurretaraino **trantxitua** nintzen eran, aitortu behar nuen jori ilunaren erredua zintzurran gozo zitzaidala. Itxaro Borda

Hezurretaraino ur molekulaz **trantxituak**, hoztuak eta kezkaz hanttuak. Itxaro Borda

trantze 1 *iz* estualdia, herstura-egoera. ik **trantzealdi**.

Pentsa amak nolako **trantzea** pasatu zuen. Berria - Euskal Herria

Gurasoek behin abandonatu zuten, eta berriro **trantze** horretatik ez du pasa nahi. Berria - Euskal Herria

Han beste ikazkin batzuk ari ziren lanean, eta, pasatzen ari zen **trantze** hartan, bakarrik baino hobeto haiekin egongo zela pentsatu zuen. Martin Anso

Trantze horretan zegoela, inoiz aurrez entzungabeko zerbait gertatu zen: Kristo gurutziltzatuaren irudiak ezpainak ireki eta margotik hitz egin zion. Askoren artean

Zerbait ezkututzen ari haizela pentsatzen ditek, eta **trantze** hartatik aterako ninduen zerbait goxoren bila, kanta zahar bateko hitzak gogoratu zitzaizkidan. Iñaki Iñurrieta

Bertze bat da, etxekoei **trantze** haren aitortzea, hori ahalke haren berpiztea bezala baitzen. Eneko Bidegain

Bertzeen aitzinean ergel bat bezala geratzeko **trantzeaz** libratzen gaituena. Joan Mari Irigoien

Nahikoa txukun atera nintzelako **trantzetik**, espantukeria handirik gabe. Joxerra Garzia

Neure burua aitaren eta amaren artean erabakitzeko **trantzean** ikusirik, pianoaren aurrean arintzen nuen egonezina. Anjel Lertxundi

Banoa, besteak ere badoazelako, aurrerantz mugituz, **trantze** antzekoan sartuta bezala, erabat neure onetik aterata banengo bezala. Mirentxu Larrañaga

ik beherago 7. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zer esanik ez kartzelako **trantze** latza pasa ondoren. Migel Angel Mintegi

Anaia **trantze** larri hartan ikusirik, bihotz-taupadaka, gertatu beharrekoak bizkortzea erabaki zuen. Joanes Urkixo

Zuri-zuri zegoen, **trantze** estu bat pasatzen ari balitz baino abailduago. Anjel Lertxundi

Familian pasea zuten **trantze** txarrik lehenago ere ezkontzen kontura. Xabier Etxabe

Sesmak, **trantze** txarra ahalik eta arinen pasatu nahi izanaren sentsazioa eman zuen. Berria - Harian

Zergatik dago, orduan, hain **trantze** lotuan? Anjel Lertxundi

Guri ere erakutsi ziguten **trantze** jakin batzuetan eskerrik asko esaten. **Iñaki Segurola**
Elur-bisutsetan han goian, **trantze** gozoak ez direnak pasatakoak baikara. **Pello Zabala**
Harry, ikarazko **trantze** batean bezala eserita, burutazio bat izan zuen bat-batean. **Iñaki Mendiguren**

3 estasi moduko egoera.

Espero izatekoa da telefonistak ikarazko garrasia egin dezan edo estasiszko **trantzean** sar dadin. **Jon Alonso**
Ez nintzen behin ere jarri **trantzean**, baina uste dut ulertu nuela zergatik pasatzen zuen Norma Lúciak hain ondo, uste dut susmatu nuela zergatik zen harentzat gozamen hutsa. **Karlos Zabala**
Epilepsia moduko bat, behin baino gehiagotan **trantzean** amaitzen zena. **Koro Navarro**
Bi minutu luze igaro zituen **trantzean**, ezpain ertzetan labaintzen ari zitzaion laborri mingotsa dastatuz. **Aritz Gorrotxategi**
Emakumeek mirespenez begiratzen diote, eta gizon gehienek, gustura baino areago **trantzean**, espekulazio fantasiatsuak egiten dituzte imitaterik ez dagoen bere gorputz atalen simetria zerutiarraren gainean. **Patxi Iturritegi**
Irudipena dut betazalen dardara txiki batek "espasmoa" litzateke hitza-iragar dezakeela oihuka jartzen duen **trantzearen** hasiera. **Ramon Saizarbitoria**
- **Trantzean** ez dakit, baina **trantzetik** gertu... beharbada bai; edo lelotu samar, batek daki. **Migel Angel Mintegi**
Kontu ezin hobea da horrela eginez gero, gizakiak jakinaren gainean egon behar du, **trantzera** nola iritsi ondo aukeratu nahi badu, behinik behin. **Karlos Zabala**
Sarkasmotik hurbil dagoen ironia erabiliz, eta samurtasun tantekin aurkezten ditu **trantzean** dauden pertsonaiak. **Berria - Kultura**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Trantze egoera hipnotiko batean murgildu zen. **Harkaitz Cano**
Von Neumannek klarion bat hartu zuen, **trantze** antzeko batean. **Fernando Morillo**
Zenbait minututan dantzan jarraitu zuten, **trantze** antzean, doinua amaitu zen arte. **Joanes Urkixo**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hartu zuen Saul Jaunaren espirituak eta, besteekin batera, profeta-**trantzean** jarri zen bera ere. **Elizen arteko biblia**
Hirugarrenez bidali zituen Saulek mandatariaik, eta hauek ere profeta-**trantzean** sartu ziren. **Elizen arteko biblia**
Profeta-**trantzetik** atera zenean, muino sakratura joan zen. **Elizen arteko biblia**

6 irud/hed

Isabellek tolestuak zituen belauak: gustura miatzakutoko zukeen idazleak belauburu haietatik izterretarainoko **trantze** leuna. **Harkaitz Cano**

7 *-tzeko trantzean* *-tzeko zorian*.

Esan liteke balentria gartsuenei ekiteko **trantzean** zegoela gazte militantea. **Anjel Lertxundi**
Elizabeth Siddal, Dante-ren Beatrice-ren gisan, hiltzeko **trantzean**. **Ramon Saizarbitoria**
Baina ikusi zuenean ez nintzela ez nazkatu, ez zorabiatu, baizik eta gustura baino gusturago nengoela, hamaikagarren zigarroa eskatzeko **trantzean**, etsi egin zuen. **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
profeta trantzean sartu (4); **trantzean sartu ziren** (3)

trantzealdi *iz* trantzea, estasi modukoa.

Trantzealdi moduko logura eta, txandaka, xenofobia fanatikoak piztaldien erritmo hori berori bereiz daiteke Txinan, Ekialde Urruneko Zibilizazioaren historiaren epilogoan. **Iñaki Mendiguren**

Dean Thomas, aho zabalik leihotik kanpora begira zegoena, astindu batez irten zen bere **trantzealditik**; Lavender Brownek burua altxatu zuen beso gainetik, eta Nevilleren ukondoak irrist egin zuen mahaitik. **Iñaki Mendiguren**

trapa *(orobat trapata)* 1 zenbait talka-hotsen onomatopeia.

Trenak, bere astirotasunean, musika egiten du, **trapa**!, errail biren arteko hutsune nimitxo hori zapaltzean, **trapata**!, hurrengo errail-gunea zapaltzean, **trapa**! **Edorta Jimenez**

Egin ezkerreko gurpilek eta **trapata**! **Edorta Jimenez**

2 *trapa-trapata*

Erantzun eskuinekoek ia behingon, **trapa-trapata**! **Edorta Jimenez**

trapaka *adlag* uzkurtuta.

Bihotza **trapaka** nuenez, tabernaren xehetasunetan entretenitu nahi izan nuen gero eta kabitu ezin izutuagoa. **Anjel Lertxundi**

trapala *iz*

Batek lurrak hartuko bere alor eta pentze eskasegien osagarri, besteak berriz egoitza hori bere baxenabartar kalieriarekin... eta beste batek argamasadun **trapala** apalago hura. **Herria**

trapari *iz* begiratze postu batean dagoen uso-ehiztaria.

Saiberriko abatariak, ahal guztiak egiten ditu igorri nahiz uso pila, **trapariaren** menerat; orduan bai da egiazko loria sare azpian direlarik bilduak? **Herria**

trapata¹ *iz* erritmoa.

Begirada argitu zitzaion eta amasaren **trapata** eroa baretu. **Anjel Lertxundi**

Ez gara parkeetako pampina-**trapatan** mila gudari ezpatadunen aurka ukabila jasotzen duen trapuzko agure txiribiria baino gehiago. **Anjel Lertxundi**

trapata² ik *trapa*.

trapatarren iz zisterar erreformatuen ordenako kidea. ik trapista.

Hori ote da **Trapatarren** monasterioa? **Jokin Urain**

trapatu *izond* gizenkotea.

Etxarri hertsu aitzineko bi asteetan ahoa bete hortz ikusi zituen ardi **trapatuak** asaldatzen, bortizki, edozein ekintzetan aurreko herroketan, besteak baino indartsuago aldarrika. **Itxaro Borda**

Ez nau lotsatzen demagun ardi **trapatu** gaixo baten aitzinean, belarjaleen miseriak kontatzen dizkidala, aberearen marraketan solasak ehuten saiatuz orduak eta orduak egoteak. **Itxaro Borda**

Antxuak, ahariak eta ardi **trapatuak** hamasei dira. **Itxaro Borda**

Sugeak, ardiak, hormona sintetizatuak zein abere irinez hazi urde gurintsuak, erreformako ahari kankail **trapatuak**. **Itxaro Borda**

Kakueneko astaina bilo luze hura, zakur **trapatua** ondolik, hiritarra bezala lasterka. **Itxaro Borda**

Treneko gizonak idi- **trapatu** marruma bat askatu zuen. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardi trapatu (3)

trapazeria *iz*

Lur hartzeko **trapazeria** atera du azkenean. **Txillardegia**

trapero *iz* piltzarketaria, trapuketaria. ik **trapu 10**.

Zamarginak, ehunki saltzaileak, hitz batean esateko, "**traperoak**", fama iluna ekarri du menderen mendetarik: pobrea, zarpaila, tranposoa. **Patziku Perurena**

Goizez **traperoa** joaten zitzaion burdin puskak saltzera eta tratua egiten zuten. **Pello Lizarralde**

Lutezia, jakina, ez zen ez **trapero**, ez atezain, ez zapatarri edo antzeko inoren alaba, ni inongo printzea ez nintzen bezala. **Matías Múgica**

- **Traperoetara** bidali genuen... -dar, dar-. **Harkaitz Cano**

Begira, bestela, abere ferietan (Estellan, Iruñean, Zumarragan, Baionan) biltzen den **trapero** jende horri. **Patziku Perurena**

traperokara *izond* traperoen jitekoa.

Irakurtzen ari zaren lankide hori, ez gehiegi txunditu kimikagintza kolon-aurreko eta **traperokara** horretaz. **Juan Garzia**

trapezilari *iz* trapezista.

Erlats eta Azantz kantariak, Betibegar eta Petelan bertzunari eta **trapezilariak**. **Jose Angel Irigaray**

trapezio 1 *iz* bi alde paralelo baino ez dituen laukia.

Hura agertu arte, ezin izan ziren egin irudi lerrozuzenen koadraturak baizik: laukizuzenarena, paralelogramoarena, **trapezioarena**. **Jon Muñoz**

Gero, erroñoa, paralelogramoa, **trapezioa**. **Jon Muñoz**

2 bi sokatetik zintzilik dagoen barra horizontala, soinketa- eta akrobazia-arietak egiteko erabiltzen dena.

Bere gorputz zaluaz oroitzen, batbatean **trapezio** batean hegan bezala ikusi nuena. **Fernando Rey**

Gazteagoa zenean, **trapeziora** igotzean ere, benetan, nik Kirk Douglasen antza hartzen nion. **Harkaitz Cano**

Aretoaren erdian, sabaitik zintzilik, **trapezio** formako lau instalazio jarri ditu muntaketa bitxi batean. **Berria - Kultura**

Konprobazioak eginik, Bennettek **trapezioko** artisten antzera, hegazkinera jauzi egin, ni igotzen ari nintzen bitartean azeleratu, eta han aireratzen da. **Xabier Olarra**

Zerua ari da saretzen estoreen bestaldean, baina oraindik ez dago nahikoa argi begirada batetik bestera dauden **trapezio** kordelak ikusteko. **Harkaitz Cano**

trapezista *iz* trapezioan arietak egiten dituen akrobata.

Beste film bat ere ikusi genuen, Calderrek alabrez egindako zirko bat agertzen zen bertan, **trapezistak**, animaliak, ekilibristak, berak mugitzen zituen denak. **Mikel Hernandez Abaitua**

Airean eroriko / ez eroriko dabilen **trapezistari** bezala. **Andoni Egaña**

Bihotzak ziribuelta egin zuen Joanesen barruan, **trapezista** baten modura, berehala etorri baitzitaion akordura bere gelan lo zegoen printzesaren begitartea. **Felipe Juaristi**

trapil *izond* zarpaila.

Gazte batek armiarma sarea tatuatu du buru ile-moztuan; andre zarpailak erosketa karroan darama gizon are **trapilagoa**. **Pako Aristi**

trapista (*orobat trapizta g.er.*) 1 *iz* trapatarra.

Trapistetan sartua eta bere zuzendariak Estatu Batuetara igorri zuten Gethsemani frailetxea sortzeko. **Xipri Arbelbide**

Uharte Garazin sortua (1800), apetz (1824), erroter Lekuinen (1825), Heletan (1834), Hazparden (1837), Meilleraye-ko **trapistetan** (1843), priore (1845), Gethsemani (AEB) (1848), La Platan, La Meilleraye (1872), 1875 hila. **Xipri Arbelbide**

Ontasuna **trapiztei** eskaini zien lehenik Arbelbidek, komentu bat egin zezaten hor, baina ez zuten onartu. **Xipri Arbelbide**

2 (izenondo gisa)

-Hobeto horrela -esan zuen-, fraide **trapisten** "Anaia, hil behar duzu" hark bezala, gogoeta serioak ekarriko dizkit gauean lotarakoan. **Josu Zabaleta**

trapitxeatu, trapitxea, trepitxeatzen da *ad* trapitxeoan aritu.

Eta **trapitxeatzen** ibiltzen ote zen ere -ari da aita-. **Anjel Lertxundi**

trapitxero *iz* **adkor** trafiko xehea.

Trapitxeroa utzi edo alde egiteko esan ei zietek. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Nire **trapitxeoak** utzita zabaldu genuen taberna zuloan osatu nituen konbinatu batzuk, baina laster ulertu genuen barraren zein aldetakoak ginen. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Duela hilabete batzuk, Marrakexen, Hassan ezagutu nuen, Djna al Fna plazaren inguruan gidari lanetan eta **trapitxeoan** jarduten zuen behartsu bat. **Bernardo Atxaga**

Zortzi-hamar urte inguruko ijito talde bat plazan dabil olgetan, **trapitxeoan** ari den auto baten alboan. **Sonia Gonzalez**

Etengabeko **trapitxeoan** aritu izan ez balira apaizak erlijioaren exijentziarik zorrotzenekin, masa lizunak utzia zukeen erlijioa aspaldi eta sekula betikoz. **Markos Zapiain**

trapitxero *iz* trapitxeoan aritzen den pertsona.

Paisanozko poliziak, EGiko burukideak, **trapitxeroak**, borrokak, nobodyak, makarrak, pijoak, iurretarrak eta despistaturen bat edo beste. **Unai Iturriaga**

Txapli bere kolega birekin zegoen tabernan, auzoko **trapitxero** bi. **Unai Iturriaga**

Ze kaka klase saldu dik Santutxuko **trapitxero** horrek? **Patxi Iturritegi**

Ez zara inolaz ere **trapitxeroarekin** identifikatzen, beldurra diozu drogaren mundu horri. **Anjel Lertxundi**

Ametsezkoa iruditzen zait, ez benetan gertatua, **trapitxeroa** hiltzen ikusi izana. **Anjel Lertxundi**

trapitxerotza *iz* trapitxeroaren jardunbidea.

Konparazio batera, dirua, lana edo gobernuak, aski baitute horiek nola funtzionatzen duten ikastearekin diru-**trapitxerotzan** edo politikeroztan gailentzeko. **Iñaki Segurola**

trapizta ik trapista.

trapu 1 *iz* oihal edo ehun zati eskuarki zahar eta urratua; garbitzeko edo xukatzeke erabiltzen den oihal zatia.

Eskuoihalak zirpilduak, maindireak **trapuak** egiteko egokiak, alkandorak erabiliak. **Karlos Zabala**

Behin, **trapu** bat eskegi nahian nenbilela, erori egin zitzaidan eta irudi hura gustatu zitzaidan. **Ana Urkiza**

Paper eta **trapu** biltzen ateratzen du bizimodua. **Gotzon Garate**

Eskuak sukaldeko **trapuarekin** lehortu eta lehortu ari zen. **Fernando Morillo**

Ekar ezan **trapu** bat, berogailua garbitzeko. **Karlos Zabala**

Sukaldera joan eta **trapu** batekin eta zaborrontziarekin itzuli zen, plater puskek eta janaria jasotzeko asmotan. **Joan Mari Irigoien**

Hautsontzia hustu, zapi bustia pasatu mahaiari eta **trapua** aulkiari. **Joseba Urteaga**

Bistan da, gertatu diren hilketa eta bortizkeria guztiak ez daitezke **trapu** bat pasatuz ezabatu. **Berria - Euskal Herria**

Zapatentzako krema horizontalki hedatuz zapataren gainean, hura **trapuarekin** zabaltzen hasi aurretik. **Harkaitz Cano**

Ilea apur bat lehortu zuenean, errebolber zilarreztatua **trapu** batekin igurtzitzen hasi zen. **Harkaitz Cano**

Beste bat **trapu** batekin orkatila nolabait lotzen hasi zitzaion. **Pablo Sastre**

Zaldira igoaraziko dituzte bai zalduna bai ezkutaria, begiak **trapu** batez estalita. **Patxi Ezkiaga**

2 (izenondoekin)

Trapu zikin bati bezala heltzen zion aldizkariari, punta batetik hartuz hatz erakusleaz eta lodiaz. **Bernardo Atxaga**

Juxtu-juxtu eskaini zidan sukaldeko **trapu** zikin samarra, sudurpeko bi lorratz gorriak xukatu beharrez. **Aingeru Epaltza**

Handik aurrera, **trapu** zaharrak ematen zizkidan Ramonik pistola garbitzeko. **Rafa Egiguren**

Trapu ahaztu bat eta bezperako kartak jaso gabe ageri ziren mahaietan. **Karlos Zabala**

Azkenak seda balitz bezalako distira du; ez da, ordea, **trapu** tindatu bat baino. **Juan Garzia**

Anttonik **trapu** bustia bihurtitu zuen berriro esku artean. **Anjel Lertxundi**

Haize-bolada batek kez eta **trapu** erreten usainez bete zuen kalea. **Lopez de Arana**

Esku ona zuen **trapu** zaharrekin jantzi berriak egiteko. **Arantxa Iturbe**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ama sukaldera etortzen zen, atzealdea garbitzera balde batean; **trapu** mutur batez sikatu, eta lotara itzultzen zen. **Eskarne Mujika**

Trapu puskekin egindako panpinak. **Karlos Zabala**

Fardela dirudi, masa bizigabea, **trapu** pila. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Jo dezagun lapurtu didaten traje bat aurkitzen dudala **trapu**-saltzaile baten dendan. **Isabel Arrigain**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Atea irekitzen zien, mantalarekin, tapin pikartekin, eskuan sukalde-**trapu** bat zeramala: "Zer nahi duzu, gazte?". **Joseba Urteaga**

5 (erkaketean)

Trapu bati bezala lepoa bihurtitzen dio. **Pablo Sastre**

Berriz ere joan eta geldi, **trapu** batzuk bezala herrestatuak. **Marzel Etxehandi**

Esku-gibebez halako kolpea eman zion, non lurrera bota baitzuen **trapu** bat baillitzan. **Koldo Biguri**

Lehen zuri-zuria zuen lepokoak, **trapu** zikin bat zirudien. **Elena Touyarou**

Manuel panpina bat bide zen Patxiren besoetan, honek **trapu** bat bezala gora eta behera zerabilena. **Pedro Alberdi**

Denok dakigu nola jotzen zenuen ama **trapu** zaharra balitz bezala, etxera mozkorturik etortzen zinen bakoitzean. **Aitor Arana**

Zuetaz baliatu ondoan, **trapu** zahar mutzitu baten antzera gero botako zaituztenak. **Itxaro Borda**

Hilak kamioian metaturik eramanarazten zizkioten, **trapu** zahar batzuk balira bezala. **Eneko Bidegain**

Trapu tzar bat bezala utzia ninduela. **Janbattitt Dirassar**

Trapu zikinak bezala botako dituzue kanpora, esanez: "Utikan hemendik!". **Elizen arteko biblia**

6 irud/hed

Sarkozu torero hoberenatarik da baitaki nola joka bere **trapu** gorriarekin, izan dadien kapa edo muleta. **Herria**

Ideologiarik ideologikoena, adierarik txarrean: **trapu** literario koloretsutan beztitua. **Joxe Azurmendi**

Betiko moral tradizionala **trapu** berriekin. **Joxe Azurmendi**

Beharbada ezagutzen du egia, bizitzan zehar horrenbeste **trapu** zaharrez ezkututzen saiatzen garen egia soil eta behin betiko hori. **Ander Irizar**

Laneko **trapu** zikinak jantzita etorri da gainera! **Xabier Paya**

Bi pilotariet urradura egin aurretik **trapua** jarri nahi izan al dute? **Beria - Kirola**

Koitadua zeu, **trapuan** pupua baizik ez duen gaizo hori. **Hasier Etxeberria**

Horrela egiten du lan estereotipoak, pertsonak panpinduz; haiei barrua kendu eta hutsunea ideia-lastoekin edota ideia- **trapuekin** betez. **Bernardo Atxaga**

7 haize oihala.

Trapu barik halaxe biluzik, mastak eta aparailuak denak aspaldi usteldutako gorpuren bateko hezurak zirela esan zitekeen. **Edorta Jimenez**

Ez zen, nonbait, aski **trapu** karrakak behar zuenerako. **Edorta Jimenez**

8 *adkor* bandera.

Bertako agintariet, libertaterik handienean eta jende asko eta askoren zoramenean, Euskadiko **trapu** txuri-gorri-berdea udaletzeko balkoian jaso zuten momentuan, [...].

Iñaki Seguro

Portugalen! Ez dago etxe, auto edo dena delakorik **trapu** gorri-berde batek apaintzen ez duenik. **Beria - Kirola**

Bera zinegotzia zelarik, kabroi separatista horien **trapu** zikina bere kabuz Udaletxean jarri zuen. **Pablo Sastre**

Irabazten badu, seigarrena A mailako estropadetan lortutakoa izango da, herenegun Bilbo Hiria, eta sailkapen estropadan Donibane Lohizuneko irabazita, zazpi **trapu** izan baditu eta aurten. **Beria - Kirola**

'Trapu' preziatuena jokoan da. **Beria - Kirola**

9 *trapuzko izlag* trapuekin egina.

Lehen egunetan **trapuzko** pilota goxuaekin, gutxika-gutxika saioetako materiala gogortuz. **Beria - Kirola**

Trapuzko panpina bezala. **Anton Garikano**

Trapuzko andrakila hartu eta arineketan alde egin nuen gauean. **Joseba Sarrionandia**

Euretako askok eta askok, ordea, **trapuzko** hartz bat ei zeramaten bularrean besarkatuta. **Hasier Etxeberria**

Pertsonen **trapuzko** tigreei edo untxi-larruei eskatzen ez diegun beste zerbait eskatzen diegu. **Edorta Jimenez**

Bere gorputz sendo eta gihartsuak **trapuzkoa** dirudiela, konorterik gabe jada, errendituta, zutik iraun ezinean dagoeneko. **Ramon Saizarbitoria**

10 *trapu-biltzaile (orobat trapubiltzaile) ik trapero.*

Gero, haserretu egin naizelako, itzultzen da, eta **trapu** biltzaile bat bera ere tratatzen ez den moduan tratatzen nau. **Josu Zabaleta**

Vaudeville aurrean **trapu biltzaile** bat espaloi bazterak miatzen. **Josu Zabaleta**

1949an **trapubiltzaileen** (*chiffonniers*) obra piztu zuen, jende pobre eta bazter utzietarik hasita mundu guzirat hedatua dena. **Herria**

irud Trapu zaharrak kaleratuak, izan ere, **trapu-biltzaileak** ere laster kaleratuko ziren. **Migel Angel Mintegi**

11 *trapu zahar/zikin pl irud* haizatu behar ez diren akatsak eta hutsegiteak.

-Eta, jakina, **trapu** zaharrak ateratzen eta ustelkeria banatzen hasi, ahalik eta boto gehien eskuratzeko -Maizak gehitu. **Migel Angel Mintegi**

Azken egunotan, berriz, zenbait **trapu** zahar argitaratu dira. **Beria - Kirola**

Itxuraz, osabak ezer galdetu gabe, **trapu** zaharrak astintzen hasi omen zuan. **Xabier Etxabe**

Athleticen aurka Denoueixen erabaki batek atera zituen gordetako **trapu** zaharrak. **Beria - Kirola**

Ez dago euskaldunen artean **trapu** zikinak etxe barruan gortzeko joera? **Beria - Harian**

Gure familien **trapu** zikinak hobeto zeuden gordeta. **Bernardo Atxaga**

Kontrarioen desprestigioa bilatzen zuten **trapu** zikinak airera atera. **Jon Alonso**

Nor zen azken etorri hori, [...] izkribatzaile moko hori, iraganeko errakuntzen peskizan hasteko eta belaualdi baten **trapu** zikinak garbitzera ateratzeko? **Juan Garzia**

Goiz hartara arte gure **trapu** zikinak argitara ateratzerik ez bainuen nahi, ezta zure aurrean ere. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trapu busti (3); **trapu bustia** (3); **trapu gorri** (4); **trapu zahar** (15); **trapu zaharra** (11); **trapu zaharrak** (11); **trapu zaharren** (4); **trapu zaharrez** (4); **trapu zikin** (5); **trapu zikinak** (9)

pupuan trapua (9)

trapuan pupua (5)

trapuetan haizea (3)

trapuzko andere (3); **trapuzko panpina** (11); **trapuzko panpina bat** (4); **trapuzko panpina baten** (4); **trapuzko pilota** (3)

trapubiltzaile ik **trapu** 10.

trapukeria *iz* maltzurkeria, iruzurra.

Gainera, azpikeriak eta **trapukeriak** erabiliz guretarrak bota berriak zituzten udaletxetik, eta etsaiarentzat kristoren mauka izango zen istilu haren berri zabaldu izan balitz.

Xabier Mendiguren Elizegi

traputu, trapu(tu), traputzen da *ad*

Jendakiak, ahaideak, azkaziak eta auzoak **traputzen** zihoazen, zangalatrabatzen edanaren ondorioz. **Itxaro Borda**

traputxo *iz adkor* trapua.

Traputxo batzuk nahi nituzke erosi! **Harkaitz Cano**

trapuzahar ik **trapu**.

trasatlantiko ik **transatlantiko**.

trasbase *iz* isurialdatzea. • *irud/hed*

Usainagatik ez ote den dena hasia naiz pentsatzen, gantz usain nerabeagatik; maitasun **trasbasearen** lekuko patetikoa izatearena, begirada sorgorrena, bitrinazko begiena.

Eider Rodriguez

trasfer ik **transfer**.

trasferentzia ik **transferentzia**.

trasferitu ik **transferitu**.

trasfiguratu ik **trasfiguratu**.

trasformazio ik **transformazio**.

trasfusio ik **trasfusio**.

trasgeniko ik **transgeniko**.

trasgo *iz* iratxoa.

Askotan hitz egin dute aukera horretaz beste lurraldeetako **trasgoekin**, draksekin, drudekin, shedimekin... **Anjel Lertxundi**

traska (onomatopeia)

Zakur hotsa dabil inguruan, bihotza bun-bun-bun, tira dio, kale, eta basurdeak **traska!** **Pako Aristi**

traskail *izond* traskila.

Eta nahikoa izan da ipar **traskail** samarra azaltzea, bazterrak orbelez betetzeko. **Pello Zabala**

traskaildu, traskail(du), traskaitzen du *ad* traskildu.

Ez deskuidatu, beraz, lizar-gara eta garañoei punttak **traskaitzen**. **Pello Zabala**

Zuhaitzarrak **traskaildu** arren, enbor zartatuak ere gorde nahi zituzten. **Pello Zabala**

Ubelez eta kizkiz kolpeka bizkar eta bularraldeak **traskaildu** zizkioten, gibela eta bihotza bera gorri bizitan azaltzeraino. **Pello Zabala**

trasko *iz* txinala.

Jantzi **traskoak**, laztana. **Lopez de Arana**

Jimmy eseri egin zen **traskoak** janzteko. **Lopez de Arana**

Jimmyk **traskoak** kendu eta kapusaiko poltsikoetan sartu zituen. **Lopez de Arana**

traskribapen ik **transkribapen**.

trasladatu, traslada, trasladatzen **1 da/du ad** etxebizitzaz aldatu.

1927an karrika bereko 49.enera **trasladatu** zen familia. **Pablo Sastre**

• **2 du ad** presondegiz aldatu.

1972ko martxoan Soriana **trasladatu** zuten. **Jokin Urain**

Ailaiz Iturriotz eta Ibon Urrestarazu Soto del Realetik (445 kilometro) Valentziara **trasladatu** dituzte (595 kilometro). **Berria - Euskal Herria**

traslado 1 iz etxebizitzaz edo lantokiz aldatzea.

- **Trasladoa** eskatu behar dut Ministerioan lehenago. **Unai Elorriaga**

- Bilborako **trasladoa** lortzen ez badut, zoratu egingo nauk. **Bernardo Atxaga**

Bai, jeneralarekin hitzegin eta **trasladoa** lortuko zion, seguru. **Bernardo Atxaga**

2 tokiz aldatzea.

[Hauek] dira Saderen obrarik ezagunenak, baina beste mordo bat ere idatzi zuen, nahiz eta asko eta asko **trasladoetan** eta Bastilla erre zenean galdu ziren. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

3 presondegiz aldatzea.

El Duesotik Madrilerako **trasladoan**, trenetik salto egin eta lehenbiziko ihesaldia egin zuen. **Pablo Sastre**

Lehen **traslado** hartan ez nuen aparteko gorabeherarik izan. **Jokin Urain**

Presoen zaintzan eta **trasladoetan** parte hartzen duten funtzionarioen gastuak zehazteko. **Berria - Euskal Herria**

Frantzia eta Espainiako estatuetako espetxeetan 117 **traslado** egin baitituzte urtarriletik. **Berria - Euskal Herria**

Trasladoetan, guardia zibilen eskuetan zaude, komisaldegian torturatu zintuzten haien eskuetan. **Jokin Urain**

Preso politikoek eraso fisikoak, gradu aldaketak, urrunketak eta **trasladoak** salatu zituzten. **Berria - Euskal Herria**

traslazio ik **translazio**.

trasmisio ik **transmisio**.

trasmititu ik **transmititu**.

trasnazional ik **transnazional**.

traspasatu, traspasa, traspasatzen (*corpusean **traspasadu** soilik*) du *ad* pasatu.

Ez dago dudarik bere aitaren eta Rufino Arrolaren arrakastearen zati handi bat Kepari jagokola, jenteak, adinagaitik, meritua hareei **traspasetako** joera bihozkorra hartzen baeban be. [Xabier Amuriza](#)

traspaso 1 iz eskumenez eta kidekoez mintzatuz, eskualdatzea.

Osasun eskumenen **traspasoa** zerratu gabe zegoenean egindako behin-behineko kalkulua eguneratu besterik ez da egin behar zorra 50 miliokoa dela jabetzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

2 lokal bat eskualdatzea, errentan jarriz edo salduz.

Traspasoa hartu nuen taberna. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Orain, berriro ere, **traspasoa** dago taberna. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

trasplantatu ik **transplantatu**.

trasplante ik **transplante**.

traste (*orobat **trastu** g.er.*) **1** iz tresna edo gauza, batez ere zaharra edo erabiltzen ez dena, eskuarki etxekoa.

Patio txiki lauzatu bat zegoen, **trasteak** gordetzeko balio ziena, non lurrontziak, upelak eta jadanik erabiltzen ez zituzten lanabesak pilatzen baitziren. [Karlos Zabala](#)

Inguruan, kartoizko kaxak zeuden, paperez bateak, eta beste hainbat **traste**: aulki bat, maleta bat, larruzko zorro bat aulkiaren gainean. [Bernardo Atxaga](#)

Kantinazain batzuk beren saski, flasko eta **trasteekin**. [Koro Navarro](#)

Irratiarekin, janariaren otartxoarekin, termoarekin eta beste **traste** batzuekin batera, kanario bat zuten ondoan, kaiola barruan sartuta. [Juan Luis Zabala](#)

Nola nahi duk soinuarekin justu ibiltzen den batek **traste** handi hori jotzea? [Bernardo Atxaga](#)

Lanak izan zituzten **traste** guztiak autobuseko azpian sartzen. [Fernando Morillo](#)

Lucyk bere **trasteak** hartu zituen zinta garraiatzailetik eta goardia zibilaren kontrol leihatilatik pasatu zen. [Joxemari Iturralde](#)

Maletak oro ireki eta lurrean barreiatu zituen arropak eta zorroak eta **trasteak**. [Unai Iturriaga](#)

Etxeko sukaldako **traste** guztiak ikusten ziren, paderetatik eta egurrezko koilaratatik hasita berogailuraino. [Koro Navarro](#)

Trasteak jasotzen eta mahaia garbitzen lagundu behar duzue. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Afarian erabilitako **trasteak** garbitu zituen. [Anjel Lertxundi](#)

-Anna Sémonovna, zure **traste** guztiak gelatik kentzeko eskatzen dizut gaua baino lehen, bertara joango naiz-eta bizitzera. [Felipe Juaristi](#)

Bere **traste** guztiak bikar-zorroan sartuak zituen ordurako. [Juan Luis Zabala](#)

Linterna moduko **traste** bat, kristalaren orde z iaia aditzen ez zen tiktak bat egiten zuen erloju moduko zerbait zuena. [Fernando Rey](#)

Burrunka ari zen **trastea**, ondo zebilen seinale. [Jon Muñoz](#)

Oraindik ez al duzu **traste** hori itzali? [Arantxa Iturbe](#)

Traste horiek, gure bizitzaren joanean, arrazoiren batengatik, albo batera utzitako sentipen negatiboak dira, denboraren etengabea igarotzeak inkontzientzia egoera batera bultzatu dituenak. [Unai Iturriaga](#)

Rossek telebista ezin izaten zuen konpondu, **trastea** zoratu eta irudia galtzen zenean. [Koro Navarro](#)

Erabat sorgor bihurtu zen, **traste** edo altzari baten pare. [Ander Irizar](#)

85 metro koadroko apartamentuak izanzen dira, garajearekin eta **trasteentzako** lekuarekin batera. [Berria - Euskal Herria](#)

2 (izenondoekin)

Armairu handi bat ikusi zuen, noizbait gelaren batean egon eta orain **traste** zaharrak gordetzeko erabilia. [Joxemari Urteaga](#)

Orubearen bazter batean txabola bat, hondakinez eta **traste** zaharrez beterik: kontserba-lata herdoilduak, teila hautsiak, pneumatikoak, lanabes hondatuak... [Anjel Lertxundi](#)

-Baina nola eramango dituzu **traste** zahar horiek denak trenean, Pedro! [Jon Maia](#)

Baduk jendea bere burua **traste** zahar bat bezala ikusten duena, baterako edo besterako igual-igual balio dezakeena. [Koro Navarro](#)

Estaziora abiatu nintzen, tren a iritsi zen eta **traste** zaharkitu hartan sartu nintzen. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Badakizu, telefono itxurako **traste** handi horiek, belarran jarrita koadroei buruzko informazioz betetzen dizkizutenak begiak. [Berria - Kultura](#)

Ez zen, izan ere, **traste** handia pistola zahar hura. [Unai Iturriaga](#)

Goitik behera pipiatuak eta zigarro erreduz beteta zegoen **traste** nardagarri hura antigoaleko pieza paregabea zen Elseren begietara. [Patxi Iturritegi](#)

Traste puskatuak ikusten ziren lurrean barreiatuta. [Josu Zabaleta](#)

Traste madarikatu haletako asko lehertu gabe gelditu ziren, lurrean ozta-ozta sartuta [...] hegazkinek altura gutxiti bonbardatu zutelako. [Koldo Biguri](#)

Noiz egin ahal izango dut berba zurekin zuzenean eta ez **traste** malapartatu horrekin? [Patxi Zubizarreta](#)

3 (hitz elkartuetan)

Berak **traste** -dendako mutikoari aipatutako agure baten testamentua. [Harkaitz Cano](#)

Hamaika urterekin, dagoeneko **traste** -saleroslearen arima zuen. [Jon Muñoz](#)

Nonahi, balkoian zein barnean, **traste** -meta ikaragarri bat zegoen barreiatuak, hain antzinako eta maiztuak guztiak, non alde-aldean ezagutezinak baitziren: azterketa arretatsuago batez baino ezin zen bereizi tresneria profesionala domestikotik. [Juan Garzia](#)

Londresko bere egonaldian zehar pilatuz joan zitzaion **traste** mordoa eramateko. Joxemari Iturralde

4 (izenondo gisa)

Ez baitzen alferrik maiatz **traste** hau uda gerokoaren atari eta gako: Maiatzeko zazpi egun, zazpi hilabeteren lagun. Pello Zabala

Bihurri edo **traste** samar izateaz hitz egin berri zen Temple; gustukoa zuela, alegia, tarteka. Xabier Olarra

5 adkor

Eta orain **traste** hura Lurretik 1.730 kilometrora zebilen, 25.400 km/h-ko abiaduran. Patxi Iturritegi

Gangsterrek burukipean gordetzen ditek beti **trastea**. Koldo Izagirre

Izena markatuta, **trastearen** memoriak zenbaki bat egotzi zuen pantaila argiztatu estura. Aingeru Epaltza

Hobe dut **traste** hau arropa azpian janztea -jaka erantzi eta, armaren zorroa hartuta, sorbaldetatik sartu nituen uhalak. Alberto Ladron Arana

6 irud/hed

"Euskal herri-literatura" hori, ordea, **traste** zaharren kutxa halako bat da, literatura idatzi edo landuan sartzen ez den guztia sartzeko erabili ohi dena. J. Garzia / A. Egaña /

J. Sarasua

Nahiz eta **traste** gaizto baten seme izan, erraz gerta daiteke umea Paradisura joatea nahi gabe ere. Koldo Biguri

7 traste-gela. ik trastegela.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere traste (4); **traste handi** (5); **traste kolonialen biltegi** (3); **traste madarikatu** (10); **traste pila** (3); **traste zahar** (14); **traste zaharrak** (9); **traste zaharrak gordetzeko** (3); **traste zaharren** (6); **traste zaharrez** (5); **zure traste** (3)

trasteak bildu (3); **trasteak gordetzeko** (3); **trasteak hartu** (4); **trasteak jaso** (4)

trastez beterik (3); **trastez beteta** (4); **trastez betetako** (5)

trastegela (*orobat traste-gela*) iz trasteen gela. ik trasteleku.

Hark, ekaitza zekarren bakoitzean Polikarpori deitu, eta etxeko **trastegelan** kukutzen zen. Patxi Zubizarreta

Airea, denbora luzean itxirik egonda, zoko-usaina harturik zegoen gela guztietan, eta sukalde ondoko **trastegela**, berriz, ezertarako balio ez zuten paper zaharrez estalita.

Irene Aldasoro

Zoko-usaineko **traste**-gela heze bat, garnizoiko soldaduen bota eta azpantarren kiratsa, mahai margotu gabe bat, bi aulki kaxkar. Jose Morales

trasteleku iz trasteen lekua. ik trastegela; trastetegi.

Etxean sartuta, sukaldea, egongela eta bi logela txiki daude ezkerretara, eta eskuinean, berriz, bainugela eta **trastelekua**. Rafa Egiguren

Bada gela txiki bat ere, orain **trasteleku** moduan erabiltzen dudana eta gero, mahai batekin [...] idazgela moduan erabiliko dudana. Eskarne Mujika

Logelatzat **trastelekua** izatea baino okerragoa zen hura. Iñaki Mendiguren

Garbiketa-tresnak gordetzeko **trasteleku** txiki bat zen. Rafa Egiguren

Harry ohituta zegoen armiarमतara, eskailerapeko **trastelekua** halakoz betea baitzegoen, eta hantxe lo egiten baitzuen berak. Iñaki Mendiguren

Trastelekutik komuneko paper-bilkariak ateratzera. Joxan Elosegi

Itzultzean, Lucy aurkitzen du biltegitarako erabiltzen duen lizun-usaineko **trasteleku** txikian ohetxo bat ipintzen. Oskar Arana

Astebete **trastelekuan** egotera zigortu zuten. Iñaki Mendiguren

trasteria iz traste multzoa.

Argazki-kamera, bideoa, telebista, irratia, mahaia, aulkiak, kanpineko **trasteria** guztia. Aingeru Epaltza

Igerilekurako **trasteria** guztia zeramaten aldean. Aingeru Epaltza

Bere blusaren azpian bere pailazo **trasteria** guztia, korseta eta puska guztiak zituela ez zen, bada, eskolara etorri eta bere eskola eman! Josu Zabaleta

Garaje, hangar, mandio guztiek direnik eta **trasterik** nabarrenak jaulki dituzte kale estuetara, auto berriak eta azkeneko berrogeita hamar urteetan zaharkiturik hauspeko lotan zeuden zalgurdiak, belarretarako gurdiak eta kamioiak, omnibusak eta iraul-orgak. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trasteria guztia (4)

trastetegi iz trastelekua.

Bi saltzaileek **trastetegian** giltzarrapoa ipiniko zutela zioten; eta La Sarriette oroitu zen aurreko astean saski bat mertxika lapurtu ziotela. Karlos Zabala

Ohol batzuen gainean, **trastetegiaren** inguruan, estalkirik gabeko kutzak zeuden lerrokaturik. Karlos Zabala

trastetxo iz traste txikia.

Zubira iritsi baino hamar bat metro lehenago gelditu zen, patrikan aurkitu zuen **trastetxoren** bat eskuan hartuz. Koldo Biguri

Arterietan **trastetxo** batzuk txertatzen diren bezala, itxi ez daitezen eta odola behar bezala ibil dadin, [...]. Jon Muñoz

trastetzar iz adkor traste handia.

900 zentimetro kubikoko **trastetzar** japoniarra, zaharra halako bi handian. Aingeru Epaltza

trastezulo iz trasteen zuloa. ik trastetegi.

Balkoian daukat, **trastezulo** batean gorderik, haurrek uki ez dezaten. Juan Garzia

trastornatu, trastorna, trastornatzen 1 da/du ad nahasi; burua nahasi.

Trastornatuta omen nago: egoeren eta gertakizunen hari logikoari segitu beharrean, buru-hankarik gabeko kaos batek gidatzen omen du nire diskurtsoa. Anjel Lertxundi

Eratut **trastornatu** zuen, eta gaizki portatzen hasi zen. Xabier Olarra

2 (era burutua izenondo gisa)

Haur **trastornatu** eta ezinduentzako zaindegi-eskola berezi batera bidali zuen familiak, eta logoterapian saiatzeko proposamena egin. **Xabier Olarra**

trastorno iz nahasmendua; alditxarra.

Eguraldiaren aldaketa bat-bateko eta guztizkoak halako **trastornoak** sor ditzake. **Karlos Linazasoro**

Erietxea, osasun atsedenerako lekua da, **trastorno** psikikoak tratatzen omen dira. **Joseba Sarrionandia**

Gaur egun gizarteak transexualak baztertu egiten ditu, eta pertsona horiek dutena **trastorno** edo anomaila bat bezala ikusten jarraitzen du. **Berria - Euskal Herria**

Bi modu nabarmen zituen, beraz, "itsu-portaera" agertzeko edo "itsuarena" egiteko: bata, ikuste-prozesatzearren eta ikustun-identitatearen porrota, oinarri organikoa zuena ("azpitik gorako" **trastornoa** edo neuropsikologikoa, neurologoen mordoiloan); eta bestea, berriz, ikustun-identitatearen porrot edo inhibizioa, baina, bigarren kasuan, oinarri funtzionalekoa ("goitik beherako" **trastorno** edo psikoneurotikoa). **Xabier Olarra**

trastu ik traste.

trasunto iz zerbaiten isla edo irudikapen zehatza.

Kontaera barne-barnekoa da, hots, Mikela Eliceagui berak bizi izandako esperientziaren **trasuntoa**. **Bernardo Atxaga**

Obabakoak euskal mundu ruralaren **trasunto** gisa ikusi dute askok, literatura obrak hortxe aurrean dagoen zerbaiten deskribaketa balira bezala, armairu bat ere hortxe dagoen bezala bernizatuko duenaren zain. **Bernardo Atxaga**

-Pertsonaia guztiak **trasuntoak**, ustezkoak edo iruzurgileak diren nobela bat bukatzen ari naiz. **Joxean Agirre**

Baina ez da horretan bukatzen Romainen abentura: ez da konformatzen ordezeko bat, **trasunto** bat sortzearekin. **Joxean Agirre**

Holmes eta Watsonen **trasunto** argiak ditugu protagonistak. **Berria - Kultura**

trazdental ik tranzdental.

trazdentalizatu ik tranzdentalizatu.

trazdente ik tranzdente.

trazdentzia ik tranzdentzia.

trazdendu ik tranzdendu.

tratabide (orobat *tratabide*) 1 iz gizakien arteko harremana.

Garrantzikoena da mutilak, dopaguneari esker, topagune horretan, komuneko komunitate horretan, gure jende-aurreko gixonkeriak eta takarkeria tristeak pixkaterako ahantziz, bestelako **tratabide** bat, gozotasun bat, konfiantzan hitz egiteko era bat asmatzen ari garela geure artean. **Iñaki Segurola**

Egun batez, berak **tratabiderako** uzten zidan zirrikitua handitu egin zela sentitu nuen, eta "zer moduz, Virginia?", esan nion, bere izena ebakiz. **Bernardo Atxaga**

Gure ama oso lotua zegoen Paolari eta, Paolak gazte horrekiko **tratabidea** izan baino lehen, biak elkarrekin batera eta bestera ibiltzen ziren hirian barrena denbora luzean.

Fernando Rey

Tratabidea zeukan hoteleko sukaldean gozogile izandako neska frantses batekin. **Bernardo Atxaga**

Berorrek agindu bezala, uko egin diet haren gutunei eta **tratabidea** debekatu. **Juan Garzia**

Usteetan sendo, leun-leuna gertatzen da, aldiz, hitz eta **tratabidean**. **Xabier Montoia**

Susmoa dut atsegin zuela **tratabidea**. **Inazio Mujika Iraola**

Ordurako bazekien dirua erabiltzen eta neurtzen, eta baita jendearen **tratabidea** bizi zen garaira egokitzen ere. **Juan Luis Zabala**

Virginia, ezkontzera zihoa, eta bere jarrera txeratsuk bukaera ematen zion gu bion arteko harreman xeheari; ez zen, inola ere, **tratabide** estuago baten lehen pausoa.

Bernardo Atxaga

Eta orduan esan zidan elkarren lehengusu zirela, bien amak ahizpak, ordura arte aitarekin **tratabide** handirik izan ez bazuen ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (hitz elkartuetan)

Maitasun **tratabide** baten bukaera ona? **Bernardo Atxaga**

3 zerbait erabiltzeko era. ik *trataera*.

Beste batek, ziur aski, sua itzaliko zuen, edo auskalo zer asmatzen hasiko zen [termometroa] 100°raino igoarazteko, **tratabide** -oharrak zekarrenez. **Juan Garzia**

tratadistika iz diziplina edo garai bati buruzko tratatuen multzoa.

Antzinate grekoerromatarreko arkitekturari buruzko **tratadistikatik** bizirik geratutako testigantza bakarraren testua aurkitu zuen: *De Architectura* tratatuaren hamar "liburuak".

Santiago Iruretagoiena

Galdutako marrazki horiei dagokienez, Bepizkundetik aurrerako **tratadistikak** mito bihurtu zituen. **Santiago Iruretagoiena**

Europako klasisismoaren **tratadistika** arkitektonikoak oso ondo izan zuen, hasieratik bertatik, arazo guzti hauen kontzientzia. **Santiago Iruretagoiena**

trataera (70 agerraldi, 24 liburu eta 25 artikulutan) 1 iz norbaitekin hitz egiterakoan, haren adina, gizarte maila edo beste ezaugarrien bat aintzat harturik hura izendatzeko erabiltzen den modua. ik *tratamendu* 11.

Elkarren arteko **trataerak** Zukakoa eskatzen du inork ez dezan ezagutu zure sexurik. **Hasier Etxeberria**

Saderi "jaun eta erkide maitea" **trataera** ematen diote. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

-Berori aurretik, don Joakin; eta ez ahaztu preso zoazela... -Ez nekien zein **trataera** erabili. Berria - Mujika Iraola

Bukharako sultanei ematen **zaien** trataera. Karlos Zabala

Printzeak begirada gogorra egin zion alkateari, berarekiko erabili zuen **trataeraz** oso pozik ez. Felipe Juaristi

-Begira, seme -semetzat hartzen zuen, **trataeran**, batzuetan; bere agintzeko modu naturala zen. Jon Alonso

2 iz tratatzeko era, norbait edo zerbait erabiltzeko era. ik **tratamendu**.

-Gaixotasun honek **trataera** berezirik ez du [...]; bainatu, jaten eman eta itxaron, besterik ez. Josu Zabaleta

Preso guztiek **trataera** indibidualizatua izan behar dute. Berria - Euskal Herria

Zakaria Moussaouiren epaiketari eman zaion **trataerak**, madarikaziorako bide baino ez du ematen. Iñigo Aranbarri

Aniztasunaren **trataeran** eta kulturarteko hezkuntzan sakontzeko. Berria - Euskal Herria

Ez dago klasismorik, ez dago xenofobiarik albistearen **trataeran**? Iñigo Aranbarri

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularrak idatzizko baimenik gabe [...] obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta **trataera** informatikoa barne direla. Juan Martin Elexpuru

Irudi digitalaren erabilpenari ematen dion **trataera** ez da askotan ikusten gure artean. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

albistearen trataeran (3)

tratagaitz *izond* tratatzen zaila, ia ezin tratatuzkoa.

Gizakia ez da ez inurri desinteresatua, ez ziklope **tratagaitza**, "animalia soziala" baizik, eta bere nortasuna beste pertsona batzuekiko harremanen bidez bakarrik adieraz eta garatu dezake. Iñaki Mendiguren

tratagintza

1 *azpi tratagintza ipar* ik **azpikontratazio**.

Industriako muntadurak fabrikatzen dituzten enprezentzat lanean ari diren lantegiak biltzen dira azpi **tratagintza** hitzaren barnean. Berria

Ez bada mirespenetan galdurik egon behar ere, azpi **tratagintzaren** sektore ekonomikoak kalipu gaitza duela agertzen dute xifrek. Berria

tratalari ik **tratulari**.

tratamendu (1274 agerraldi, 76 liburu eta 553 artikulutan; orobat **tratamentu** 21 agerraldi, 6 liburu eta 11 artikulutan) 1 iz sendabidea.

Patologiaren analogiarekin jarraituz, esan daiteke, medikuntzan askotan gertatzen den bezalaxe, batzuetan **tratamendua**, hainbat arazo direla medio, ez duela aurreikusiriko efektua sortzen, edota, lortu arren, txarrera ere egiten duela eriak **tratamenduaren** efektu sekundarioengatik. Iñaki Heras

John Roebingek onartzen bide zuen **tratamendu** bakarra hidroterapia zen. Harkaitz Cano

Gaur egun badira sintoma horiei aurre egiteko **tratamendu** ugari. Berria - Gaiak

Tratamendurik ez dute munduko GIBdun gehienek. Berria - Gaiak

Afrikan HIESak jota dauden miliokako eri horiek 30 urtez har lezakete **tratamendua** diru horrekin. Pello Salaburu

Mikropartikula bidezko **tratamendua** ahotik edo sudurretik ere har daiteke. Berria - Gaiak

Tratamendu bat jarraitzen duten gaixoei kirola egitea aholkatzen diete medikuek. Berria - Gaiak

Asko dira gaixotasun larriak izan arren, **tratamendurik** jasotzen ez duten gaixoak. Berria - Gaiak

Hamar hilabete daramat **tratamendu** horrekin. Imanol Zurutuza

Psikiatrikoan hiru hilabeteko **tratamendua** egin ondoren, etxera ekarri genuen aita. Joan Mari Irigoien

Tratamendu hori egin zaien gaixoak gai dira oinen gainean ibiltzeko. Irene Aldasoro

Antsiolitikoen eta antidepresiboen pilula-dosia ordurako erdira jaitsia zuen arren [...] ongi erantzuten ari zitzaion **tratamenduari**. Joan Mari Irigoien

Tratamendua behar den moduan jarraitzen bada, birusa ahuldu egiten da eta, ondorioz, nekezago kutsatzen du. Berria - Gaiak

Tratamendua debekatuta dago Erresuma Batuan. Berria - Gaiak

Orain **tratamenduan** dago eta hobera egiten ari da. Berria - Mundua

Ezinbestekoa zutela gaixoei mundu osoko onkologoek erabiltzen zituzten **tratamendu** haietara makurtzea. Imanol Zurutuza

Tratamendu bakarra kirurgikoa zela azaldu zien, berak hitz egingo zuela zirujauarekin. Imanol Zurutuza

Erradioterapia saioez gain kimioterapia ere baliatzea komeni zela, **tratamendua** albait eraginkorren gerta zedin. Imanol Zurutuza

Tamiflu botika Roche botika enpresa handiak egiten du, eta bost milioi **tratamendu** jarri ditu dagoeneko OMEren esku. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaitza eragiten duten plaketak suntsitzeko **tratamendu** berria. Ospitalean geratu beharko duzu -jarraitu zuen, gaixoari zuzenduta-, **tratamendu** egokia jasotzeko. Berria - Gaiak

Cook andreak ezin konta ahala espezialistarengana jo izan zuen, dirutza handiak xahutu zituen, eta **tratamendu** oinazetsuak pairatu. Mirentxu Larrañaga

Tratamendu goiztiarra askoz eraginkorragoa da umeetan pertsona helduetan baino. Berria - Gaiak

Erradioterapia, **tratamendu** sendagarriarik ez, gozagarriak bakarrik. Imanol Zurutuza

Ez dago **tratamendu** alternatiborik, osagarriak baizik. Berria - Gaiak

Malariaren aurkako aldizkako **tratamendua** haurrengan duen eragina aztertzeko bost proiektu jarri dituzte martxan, Afrikan. Berria - Gaiak

Elektro-shockez baliatzen zen **tratamendu** psikiatrikoa pasarazi zioten arte. Bernardo Atxaga

Tratamendu genetikoaren eraginak hamar aste iraun zuen. Berria - Gaiak

Tratamendu asko eta askotarikoak daude, eta kasu bakoitzari bat dagokio. Berria - Gaiak

Oso gizen dauden eta ohiko **tratamenduekin** argaldu ezin diren nerabeei eskaintzen zaie ebakuntza egiteko aukera. Berria - Gaiak

Medikuek aginduko diete ordezko **tratamendu** egokiren bat. Berria - Gaiak

Kontrolrik gabeko **tratamenduek** irtenbide baino arazo gehiago sortzen dituzte. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagarri gisa)

Tratamendu gelara sartzeko itxaronaldi. Imanol Zurutuza

Hainbat **tratamendu** mota erabili behar dira gaur egun gaitzari aurre egiten saiatzeko, batera. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan bigarren osagarri gisa)

Errehabilitazio **tratamendu** bat jartzea. Berria - Gaiak

Ebakuntza **tratamendu** berri bat da, eta berria den aldetik jarri behar dira esperantzak. [Berria - Euskal Herria](#)

Geroztik erradioterapia eta kimioterapia **tratamenduak** hartu behar izan ditut. [Imanol Zurutuza](#)

Etsirik nengoen hil egingo nintzela, eta behin tumorea erauzi eta erradiazio- eta kimioterapia-**tratamenduen** oinazealdi ahulgarriak igaro ondoren [...] zail zen niretzat aurrera nola jarraitu asmatzen. [Oskar Arana](#)

Ordurako lobotomia **tratamenduak** jasan zituen. [Berria - Kultura](#)

Ez indarkeria-pasadizorik, ez bortxaketarik, ez psikologia-**tratamendurik**. [Iban Zaldua](#)

5 irud/hed

Hainbat dira inflazioaren kausari, diagnostikoari eta **tratamenduari** buruzko ekonomia-teoriak. [Iñaki Heras](#)

6 produktua eta gaiak tratatzeko era.

Kongo kopala ordezkatzeko erretxina fenoliko bati kopalari berari bezalakoxe **tratamendua** ematen segitu zuten, hots, sutan haren ehuneko 16 kontsumituz. [Juan Garzia](#)

Petronor «irtenbide bila dabil findegiko hondakinen **tratamendurako**». [Berria - Ekonomia](#)

Konpostatu eta birziklatu ezin daitekeen %60 horrentzako, bi **tratamendu** mota daude: errausketa eta **tratamendu** mekaniko biologikoa. [Berria - Euskal Herria](#)

Nola pentsatua da gaur egun bizitegietatik ateratzen diren ur erabili **tratamendua**? [Herria](#)

Cherburgoko kaitik Cadaracheko hondakin nuklearren **tratamendurako** lantokira, plutonioa daraman kamioiari aurrera egitea eragotzi nahi zioten. [Berria - Gaiak](#)

Gaikako hondakin-**tratamenduari**, birziklatzeari eta berrerabilpenari. [Berria - Euskal Herria](#)

7 jakintza gaiak eta kidekoak tratatzeko era.

Idazlanak gaiaren **tratamendu** sakona eta kritikoa islatu behar du. [Askoren artean](#)

Argi dago egiten duen "sinbolo" terminoaren **tratamendua** ez dela oso egokia. [Askoren artean](#)

Baliatutako iturrien **tratamenduak** ulertarazten dizkigu, halaber, "eskolastikoa" deritzan beren gogoeta-metodoaren ezaugarriak. [Askoren artean](#)

Virginia Woolf-en obran **tratamendu** berezia duen beste alderdi bat denborarena da. [Anton Garikano](#)

Hori ezin da gauzatu Palestinako kausari, zein Irakeko aferari **tratamendu** bidezko, zuzen eta orekatua eman gabe. [Berria - Mundua](#)

Kristau-kulturaren edukiek bestelako **tratamendu** razionala hartu zuten, ohikoarekin erkatuta, eta beren itxura nabarmen aldatu. [Askoren artean](#)

Herri musikak eta herri dantzak hezkuntza sarean duten eragina eta **tratamendua** aztertuko dituzte. [Berria - Kultura](#)

Nozio horiek guztiak zenbait **tratamendu** matematiko konplexutatik datoz. [Juan Garzia](#)

Telekomunikazioetan eta informazioaren **tratamenduan** izan den aurrerapen teknologikoez asko erraztu dute zuzendaritza deszentralizatua. [Iñaki Heras](#)

Euskarari eta politika parte-hartzaileari proposamenak ematen dion **tratamendua** «eskasa» dela esan zuten Zabaletak. [Berria - Euskal Herria](#)

Idazleak bereganaturiko ikuspuntu honek areagotu egin zuten Mendebaldeko Zibilizazioari **tratamendu** berezia emateko hasieran zuten uzurtasuna. [Iñaki Mendiguren](#)

Bereziki egokia iruditu zait hizkuntzari ematen zaion **tratamendua** lan honetan [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esan daiteke lehenik optikoki eta gero kimikoki tratatu den informazioaren hirugarren **tratamendu** maila bat osatzen duela sare guztiz trinko eta konplexu horrek. [Josu Zabaleta](#)

9 (hitz elkartuetan bigarren osagarri gisa)

Harrera protokoloa, aurre ebaluazioa, kokapena, gelako erantzuna edo erantzun curricularra horren barruan hizkuntza **tratamendua** eta familiarekin harremana. [Berria - Harian](#)

Bertsolaritzaren telebista-**tratamendu** egoki bati begira. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Xagua maneiatuz, testu **tratamendurakoa** hautatu nuen. [Aingeru Epaltza](#)

Testu **tratamendurako** programa libreak dauzkagu, programa eta aplikazio libreak ere bai. [Berria - Gaiak](#)

10 norbait tratatzeko era.

Menturaz bazterrak geroztik gogortu ziren edo, bertzenaz, gerlako presoentzat ez zen **tratamendu** bera. [Eneko Bidegain](#)

Rodriguez Galindoren eta gainerako preso **tratamenduan** irizpide berberak ez direla erabiltzen ohartarazi zuten. [Berria - Euskal Herria](#)

Biktimei zein erasotzaileei **tratamendu** egokia emateko, ikastetxeen esku adituak jartzea proposatu du EILASek. [Berria - Euskal Herria](#)

Kexu da, halaber, artista plastikoek erakunde publikoen aldetik jasotzen duten **tratamenduaz**. [Berria - Kultura](#)

«**Tratamendu** bera esaten dugunean, gehienbat finantzaketa arloa eta ekonomikoaz ari gara», zehaztu zuen Tellituk. [Berria - Euskal Herria](#)

Testuak dio kartzelek egiturak egokitu beharko dituztela erasotzaileentzako **tratamendu** programak abian jartzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Espetxeko **Tratamendu** Batzordeak Espainiako Espetxe Zaintzako epaileari igorri behar dio mediku txostena. [Berria - Euskal Herria](#)

Garrantzia duena da protagonista horiei nolako **tratamendua** ematen zaien. [Ana Urkiza](#)

11 trataera.

Zukako **tratamendu** demasak salatzen zuten lagunak zinetela. [Koldo Izagirre](#)

Klaudio erregearen "gu" maiestatiko ere gorde dugu, eta berorikako **tratamenduaz** ere baliatu gara hala zegokionean. [Juan Garzia](#)

Gaizkileen buruzagiari bezala esaten zitzaion deituraz, begiramenezko detailea zen, goragoko mailakoari zor zaion **tratamendua**. [Koldo Izagirre](#)

Esaterako, **tratamendu**-sistema solas berean aldakorra, hori ere gorde nahi izan baita jatorrizkotik. [Juan Garzia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako **tratamendu** (11); **aurkako tratamendu berri** (4); **aurre egiteko tratamendu** (4); **errausketa tratamendu** (3); **haurrentzako aldezkatu tratamendu** (3); **hiesaren aurkako tratamendu** (3); **kontrako tratamendu** (4)

tratamendu bakarra (7); **tratamendu bat hasi** (3); **tratamendu bera** (11); **tratamendu bera emateko** (3); **tratamendu berak** (3); **tratamendu berbera** (5); **tratamendu berezi bat** (5); **tratamendu berezia** (14); **tratamendu berezia ematen** (3); **tratamendu berezirik** (3); **tratamendu berri** (13); **tratamendu berri bat** (9); **tratamendu berria** (4); **tratamendu berriak** (9)

tratamendu egin (4); **tratamendu egoki** (3); **tratamendu egokia** (18); **tratamendu egokiak** (8); **tratamendu egokirik** (5); **tratamendu esperimental** (3); **tratamendu farmakologikoak** (3); **tratamendu medikoa** (4); **tratamendu mekaniko** (4); **tratamendu mekaniko biologikoa** (3); **tratamendu mota** (5)

tratamendu psikiatrikoa (3); **tratamendu psikologiko** (3)

tratamendu ugari (3)

aurkako tratamendua (13); **aurkako tratamendua jasotzeko** (3); **behar bezalako tratamendua** (3); **bidezko tratamendua** (7)

emandako tratamendua (3); **ematen zaion tratamendua** (4); **gaitzaren kontrako tratamendua** (5); **gaixoak tratamendua** (3); **hondakinen tratamendua** (10)

minbiziaren kontrako tratamendua (4); **nolako tratamendua** (3)

tratamendua amaitu (4); **tratamendua behar** (9); **tratamendua behar duten** (3); **tratamendua bera** (3); **tratamendua egin** (4); **tratamendua egiteko** (4); **tratamendua egiten** (3); **tratamendua eman** (8); **tratamendua emateko** (5); **tratamendua ematen** (7); **tratamendua ezarri** (5); **tratamendua hartzen** (6); **tratamendua hasi** (7); **tratamendua izan** (3); **tratamendua jarraitzeko** (4); **tratamendua jarraitzen** (3); **tratamendua jartzen** (5); **tratamendua jaso** (5); **tratamendua jasotzeko** (4); **tratamendua jasotzen** (13)

aurkako tratamenduak (9); **bestelako tratamenduak** (3); **kontrako tratamenduak** (6)

hondakinen tratamenduan (4); **tratamenduan jarri** (6); **tratamenduan jarri dute** (3)

aurkako tratamenduaren (3); **tratamenduaren arabera** (3); **tratamenduaren bidez** (4)

tratamenduari buruzko (4); **tratamenduari uko** (3)

kontrako tratamendurik (3); **tratamendurik gabe** (3); **tratamendurik hartu** (3); **tratamendurik jasotzen** (5)

tratamendutegi iz ipar zaborra tratatzeko biltegia. ik tratategi.

Europar hala egin dute, **tratamendutegi** guztiak batera dauzkate. **Berria - Harian**

tratamentu ik tratamendu.

tratante 1 iz tratularia.

Honek beti pentsatu du Eusebio **tratante** ona izango zela. **Alberto Barandiaren**

Juliak badaki noiz bukatzen den hizketaldia, Eusebio **tratanteen** begirada hori jartzen duenean. **Alberto Barandiaren**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nola ulertaraziko diote ez direla poliziak, New Orleansko esklabo **tratanteak**, edo lapurrak? **Berria - Harian**

Ni txatarra **tratante** bat besterik ez naiz. **Harkaitz Cano**

Askotan aditu izan dut [...] sekula lanik egin gabekoa dela Keneri, inoiz ez duela kolpe zorriker jo, bere lehengusu Kornelio txerri-**tratanteari** lagundu zion boladatxoak kenduta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Ez hadi kezkatu -oihu egin zion zakur **tratanteetako** batek-. **Harkaitz Cano**

Ni, izan ere, garagar **tratantea** naiz bizibidez. **Matías Múgica**

3 irud/hed

Horrek erakusten du intelektualki egiaz kritiko baten eta egoista txiki material ziztrin baten artean funtsezko diferentzia: sentsibilitate handi gaitz haren bizi-bortzitasunaversus merkataria arima-**tratante** baten mainak eta jukutriak. **Joxe Azurmendi**

Bankaria, zer esan jakin gabe, txarteltxoari begira geratu zen: «Arima **Tratantea**» zioen letra gorritz. **Berria - Kultura**

4 (izenondo gisa)

Orduan inoiz baino **tratanteagoa** iruditzen zitzaion senarra. **Alberto Barandiaren**

tratategi iz ipar ur lohitsuak tratatzeko biltegia.

Lohi horiek kontrolatuak dira **tratategitik** ateratzean eta ondotik, laborantza lurretan hedatuak direlarik, badea seguramenik ez dutela kalterik ekartzen? **Herria**

342 000 metro kubo edateko ur nolazpait galtzen dira Errobiko **tratategia** eta Hiriburu Gurutzetako urtegiaren artean. **Herria**

tratatu 1 (orobat traktatu g.er.) 1 iz gai jakin bati buruz era ordenatuan eta hedatuki diharduen idazlana.

Hiru **tratatu** biltzen ditu liburu honek. **Markos Zapiain**

Matematikari batek [...] zifrok ezagutarazteko eta haiek nola erabili deskribatzeko **tratatu** bat idatzi zuen. **Jon Muñoz**

Tratatu honen helbururik behinena profezi liburuetan ageri diren izen edo hitz batzuk azaltzea da. **Xabier Kintana**

Tratatu honen xedea ez da horiek guztiok jende arruntei edo ikasle hasi berriei ulertaraztea, ez eta Torah-ren zientzia [...] besterik ikasi ez dutenei irakastea ere. **Xabier Kintana**

Baina baziren lan gehiago, besteak beste: Arimari buruzko **Tratatu** (*De Anima*), Biologiako **tratatu** laburrak (*Parva Naturalia*), Animalien historia (*Historia Animalium*), [...]. **Askoren artean**

Inola ere ez da eraikuntzako **tratatu** osoa osatzera iristen, batzuetan hala esan izan bada ere. **Santiago Iruretagoiena**

Aljebra lehenengo **tratatu** inprimatu horrek ez zuen emaitza berririk; XV. mendearen bukaeran mendebaldeko aljebra alorrean zekienaren inbentario bat aurkeztzen zuen. **Jon Muñoz**

Badakizu, boltxebikeak, Okhranako artxibo polizialeetan sartu zirenean, taktika iraultzailei buruzko **tratatu** mardulak aurkitu zituztela. **Rafa Egiguren**

Hilotzen baltsamatzeari buruzko iragan mendeko **tratatu** bat ikusi nuen saltegiatoko batean. **Anjel Lertxundi**

Vitruvioren **tratatuak** sintesi gutzitzaile pertsonala egiten du afan kulturalista orokorren eta diskurtso tekniko eta espezifikoki profesionalak bilduz. **Santiago Iruretagoiena**

Baltsamatzeari buruzko **tratatuaren** infolio-neurri berekoa zen. **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oparien artean, bazen bat arabiar jakintsuentzat sekulako garrantzia izango zuena: *Sid-dhantha*, astronomia-**tratatu** bat, taula eta guzti, mendebete lehenagokoa. **Jon Muñoz**

Antropologia-**tratatu** ugari bada medikuentzat. **Askoren artean**

Har dezagun adibide modura matematika-**tratatu** bat. **Xabier Arregi**

Zelanok espiritualitate-**tratatu** txiki sistematikoa eskaini nahi die anaiei. **Askoren artean**

3 ituna, hitzarmena.

NATOK, Ipar Atlantikoko **Tratatuaren** Erakundeak, Alemaniko lurretan zeuzkan kuartelen aurka eginiko dozena bat atentatu. **Hasier Etxeberria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tratatu bat idatzi (3); **tratatu honetako kapitulu** (8)

bigarren tratatu (3); **legeen tratatu** (5)

vitruvioren tratatuaren (3)

tratatu², trata, tratatzen (orobat traktatu g.er.) 1 du ad norbaitekin edo zerbaitekin aipatzen den eran jokatu edo aritu. ik erabili. (norbaitekin)

Ez al zaituzte ongi **tratatzan**? **Oskar Arana**

Hilabetetik gora eman nuen bertan, eta oso ondo **tratatu** ninduten; etxekoa banintz bezala. **Rafa Egiguren**

Familia osoak onberatasunez hartu zituen [...] eta oso ongi **tratatu** zituen. **Askoren artean**

Jende betizua zen, hitz gutxikoa, baina ez zuten armarik eta ez naute gaizki **tratatu**. **Juan Garzia**

Sekula ez dinat emakume bat gaizki **tratatu**. **Anton Garikano**

Jaunak berak eraman ninduen haien artera, eta errukiz **tratatu** nituen. **Askoren artean**

Jauregiko andere Grazianak kapitaina afaltzerat gonbidatu duen bezala, nik ere zuek gonbidatu nahi zintuzketet, despedida gisa, zeren begirunez **tratatu** baikaituzue, eta begirunez **tratatu** nahi zintuzketet nik ere, desterrurat joan aitzin. **Joan Mari Irigoien**

Zergatik ez zaitudan berze edozein amak bezala **tratatu**, hurbiltasunez eta xamurtasunez. **Joan Mari Irigoien**

-Noiz ikasiko ote dute [...] urkamendia dela horrelako jendea **tratatzeko** era bakarra? **Iñaki Mendiguren**

Haur baten gisara **tratatu** behar litzatekeen haur bat da. Jon Muñoz

Nork ez luke deitoratuko gisa horretan **tratatu** izana? Jon Muñoz

Alabatzaokoa ukatu zion, eta ez zion aitortu beraren giza kondizioa ere, txakur bat bailitzan **tratatu** zuenez. Joan Mari Lekuona

Zenbat eta seguruago egon frankoak erromatarrez, hainbat begiramen gutxiagoz **tratatu** zituzten. Iñaki Iñurrieta

Hor konturatu da ehiztaria hain modu ankerrean **tratatu** duen neskek beste inork ezin dezakeela salba. Anjel Lertxundi

Egun batzuetan bederen, whiskiak samurki **tratatu** eta beratu zuen Morse andrea. Mirentxu Larrañaga

Behingoz samur **tratatu** zuen harekin ordu arte hain anker jokatu zuen halabeharrek. Karlos Zabala

Ez, gero, berriro hala **tratatu** Big Joe. Mirentxu Larrañaga

Guk badakigulako nola **tratatu** jendilaje hori, nola erabili, nola kudeatu gure indarra. Jon Alonso

Nola **tratatu** zaitu futbolak? Berria - Kirola

2 (zerbaitekin)

Ez ziren landareak, aleak baizik; ez ziren kontu handiz **tratatu** beharrekoak, izugarri baliotsuak baizik. Jon Muñoz

Nola behar den gorputza **tratatu**, marmar egin ez dezan. Askoren artean

Badakizu apez eta eliz jende kasik gehienek erraiten dutela ezen gorputza zafratu beharra dagoela eta gaizki **tratatu**, arimaren osasunaren zaintzeko eta begiratzeko.

Joan Mari Irigoien

Eleaniztasuna ondare eta aberastasun gisa **tratatu** behar da, eta ez arazo moduan. Berria - Euskal Herria

Enpresa normal bezala **tratatu** behar gaituztela. Berria - Euskal Herria

Gizentasuna gaitz gisa **tratatu** beharko dute Erresuma Batuko sendagileek. Berria - Gaiak

Objektiboak *more geometrico* **tratatz**en du argia, bere egikeraz helburu gisa dituen perspektiba moduetarako. Josu Zabaleta

Zer eratakoa eta zeren bidezkoa da irudikatze hori, nola **tratatz**en ditu irudikatze horrek espazioa eta denbora [...] ? Josu Zabaleta

3 produktuez edo gaiez mintzatuz, prozesu jakin bat ezarri ondorio jakin bat lortzeko.

Lagin bat hartu zuen galdaratik, hozten utzi, eta erreaktiboarekin **tratatu** zuen: probetak garden iraun zuen segundo batzuk; gero, esnea bezalako zuri bilakatu zen. Juan Garzia

Ikerketaren egileak ohartu dira Baionako uren %55 baizik ez zela **tratatu** izanzen 2000. urtean. Herria

Tratatu gabe geldituko den ur zikinen %3 hurrengo fase batean landuko dute. Berria - Euskal Herria

Materia organikoa aurrez **tratatu** gabe ezin dela zabortegietara bota. Berria - Euskal Herria

Ur horien ondorioz eratzen den lokatzak **tratatu** egiten dituzte, Kyotoko protokoloa jarraituz. Berria - Euskal Herria

Urtean 12 000 tona lohi beharko dira **tratatu**. Herria

Artigasko zabortegiko libixatuak tratatzeko plantan, 350.000 metro kubo likido **tratatu** ahal izango dira urtean. Berria - Euskal Herria

Hondakinak ateratzeko sistema bat ere behar da, oxigenoak bere lana egin eta gero erabilgarri ez diren zaborrak **tratatzeko**. Irene Aldasoro

Oraindik ez zekiten sua **tratatz**en, ez larruaz baliatzen. Xabier Amuriza

Gaur egun, 10 000 tona haragi **tratatz**en dute hildegi horretan. Herria

Ilea (beroaren edo gai kimikoen bidez **tratatu** gabea bada) zilindro leun bat da normalean. Irene Aldasoro

4 jakintza gaiez eta kidekoen mintzatuz, ikertze edo lantze prozesu bat ezarri ondorio jakin bat lortzeko.

Auzi administratibo gisa **tratatu** behar dugu, isun bat ez ordaintzeagatik atxilotu balute lege. Josu Landa

Uste dut gaia **tratatu** egin beharko litzatekeela, gainditu ahal izateko. Luis Elberdin

Gizonen bizio eta zentzugabekeriak Geometren modura **tratatu**. Aurrez aurre **tratatu** zituen orduko pentsamendu aurrerakoienean azaltzen ziren auziak. Askoren artean

Horixe izaten zen nazioaren batzarretan **tratatu** ohi ziren gauza nagusietako bat. Iñaki Iñurrieta

Ikusten da enuntziatua ezin dela **tratatu** gertaera bat bailitzan, denbora eta leku jakin batean ekoizitakoa. Xabier Arregi

Errepresentazioak, hainbestez, beren egoitzaren arabera gogamenean homogeenak balira bezala **tratatu** behar dira. Ibon Uribarri

639 afera **tratatu** dira jaz, aintzineko urtean 545 zirelarik. Herria

Oso modu eskematikoan bada ere, esan daiteke lehendik optikoki eta gero kimikoki **tratatu** den informazioaren hirugarren tratamendu maila bat osatzen duela sare guztiz trinko eta konplexu horrek. Josu Zabaleta

5 eri bati edo eritasun bati sendabidea aplikatu.

Diabetesa gaixotasun bat da, odoleko glukosaz arduratzen den mekanismoa bere onera ekartzeko insulina emanaz **tratatz**en dena. Irene Aldasoro

Batzuetan, labirintoa garunera lotzen duten nerbioak ebakitzen dira eritasuna **tratatzeko**. Irene Aldasoro

Parisen, 2004an, 13 haur burbuila **tratatu** zituzten antzeko prozedura baten bidez. Berria - Gaiak

Batez ere pozoitze-kasuak **tratatzeko** erabili zen giltzurrun artifiziala (Wilhelm Koff-ek 1943an asmatua) 1960 arte. Irene Aldasoro

Banekien zer-nolakoa izan zitekeen gutxi gorabehera Sararena, hamaika gaixo depresiborekin **tratatu** behar izan baitut kontsultan, antzeko koadro klinikoekin. Joan Mari Irigoien

Ni neu **tratatu** ninduen traumatologoa ikustera joan naiz ni. Agurtzane Juanena

Ama **tratatu** zuen medikua zen don Nestor. Joan Mari Irigoien

Beso hautsia abileziarekin **tratatu** da, eta denborak sendatuko du, bizirik irauteko indarra baldin badu. Agustin Otsoa

6 harremanak izan.

Garai horietan ere **tratatu** nuen zer edo zer. Jon Alonso

Funtsean, besteekin **tratatu** behar izatea nolabaiteko morrontza zela irizten zion, ezer onik espero ezin daitekeen lokatza. Jon Alonso

Nazkatuta ninduten, leporaino beteta, egunero **tratatu** behar nituen artista, idazle, musikari, aktore, zinema edo antzerki zuzendari, bertsolari, dantzari eta abarrek. Juan Luis Zabala

7 aipatzen den trataera eman.

Mezuaren hizkerak zer pentsatua eman zidan: hartzailea "hi"ka **tratatz**en zuen, eta igortzailea gehiegikeria nabarmenez baliatzen zen eskolako solas-jolasetako hitz zaharkituez, hogeita bost urte haiek iragan ez balira bezala. Juan Garzia

Eta "mi capitán" esanez **tratatu** zuela. Ramon Saizarbitoria

Txerrizainak ere zatoz-zatoz esanaz, baina labana ezkatutuz, erakartzten dik hiltegiara beti hator-hatorka **tratatu** duen txerria. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ballitzan tratatu (4); **balira bezala tratatu** (3); **balitz bezala tratatu** (4); **banintz bezala tratatu** (3); **bat bezala tratatu** (3); **baten moduan tratatu** (3); **begirunez tratatu** (5); **behar bezala tratatu** (4); **berdin tratatu** (3); **bezala tratatu** (33); **bezala tratatu zuen** (4); **bezalaxe tratatu** (3)

errespetuz tratatu (8); **errukiz tratatu** (4); **errukiz tratatu nituen** (4); **gaizki tratatu** (17); **hala tratatu** (9); **hobeto tratatu** (3); **horrela tratatu** (7); **horrela tratatu behar** (3) **kontu handiz tratatu** (3); **nola tratatu** (18)

ondo tratatu (11); **ongi tratatu** (11); **oso ondo tratatu** (3); **primeran tratatu** (3)

tratatu beharra (3); **tratatu beharreko** (4); **tratatu gabe** (3); **tratatu gabeko** (4)

txarto tratatu (3)

gaizki tratatu (7)

gaizki tratatuak (7); **gaizki tratatuak izan** (3)

arabera tratatuko (3); bezaala tratatuko (3); bezaala tratatuko (5); gisa tratatuko (4); ondo tratatuko (4); ongi tratatuko (3)
ballitz bezala tratatzea (3); berdin tratatzea (3)
gaiak tratatzeko (4); gaitza tratatzeko (4); gaitzak tratatzeko (4); hondakin arriskutsuak tratatzeko (3); hondakin batzuk tratatzeko (3); hondakinak tratatzeko (10);
lixibatuak tratatzeko (3); minbizia tratatzeko (6); minbizia tratatzeko erabiltzen (4); presoak tratatzeko (3)
tratatzeko bide (3); tratatzeko erabiltzen (7); tratatzeko erabiltzen den (3); tratatzeko joera (4); tratatzeko lantokia jarri (3); tratatzeko modu (6); tratatzeko modua (3);
tratatzeko orduan (3); tratatzeko planta (4); tratatzeko sistema (3)
tuberkulosia tratatzeko (4); ur zikinen tratatzeko (3); zaborra tratatzeko (10); zaborrak tratatzeko (5)
adetasunez tratatzen (4); bagina bezala tratatzen (8); baino okerrago tratatzen (4); balira bezala tratatzen (7); balitz bezala tratatzen (15); banintz bezala tratatzen (5); bat
bezala tratatzen (4); baten moduan tratatzen (3); begirunez tratatzen (7); berdin tratatzen (8); berdin tratatzen ditu (3); bezala tratatzen gaituzte (4)
gaizki tratatzen (16); hobeto tratatzen (5)
modu berean tratatzen (3); nola tratatzen (10)
okerrago tratatzen (5); ondo tratatzen (13); ongi tratatzen (13); oso ondo tratatzen (3)
zakar tratatzen (3); zergatik tratatzen (4)

trataturxo *(orobat traktaturxo)* iz tratatu laburra.

Leibnizen Metafisikako Diskurtsoa **trataturxoari** begiratu badiogu, Jainkoaren ideiarekin hasita, metafisikatik fisika eta etikara, "arrazoimenaren erresuma" osoa tesiz tesi modu ia berdinean dagoela garatuta ikus dezakegu. **Askoren artean**

Haren *Filosofía de la Hispanidad* **traktaturxoan** [...] materiaren azterketatik abiatzen da, zientifikoki jarduteko plantak eginez, izpiritura iristeko. **Joxe Azurmendi**

tratatzeko iz produktuez edo gaiez mintzatuz, prozesu jakin bat ezartzea ondorio jakin bat lortzeko.

Bizpahiru hilabete irauan behar omen dute kanpoko obra horiek; teiltatu arranjatze, zur **tratatzeko**, ezkilaren dorre erreberritze. **Herria**

tratatzear *adlag* tratatzeko zorian.

Auzi ugari zeuzkan **tratatzear**: zer egin politika arloan Atenasen? **Askoren artean**

tratu 1 iz saleroste jarduna, saleroste hitzarmena; salerostea.

Eta hala egiten dituk **tratuak** eta bertzelako negoziak mundu honetan. **Joan Mari Irigoien**

Fusilen eta kanoien **tratu** biribil hark zernahi merezi zuen. **Joan Mari Irigoien**

Zeren negozio hartan **tratuak** eta sal-erosiak berdin eta orobat egin baitzitezkeen ageriz nola kapapetik. **Joan Mari Irigoien**

Irabazi handiko **tratuak** tea edanez ospatzeko tabernan elkartzen zirenetan ere, antikristoaz mintzatzen ziren. **Jose Morales**

Azkenean, egin nuen **tratu**, prezio onean, kantitate itxuroso bat erostekotan. **Juan Kruz Igerabide**

Hala itxi genuen **tratu** hogei libran. **Juan Garzia**

Neska gazte beltzaran maitagarri bat ikusi zuen, lurrean eserita, **tratu** lotu nahian. **Karlos Zabala**

Ingalaterran, aduanak errege-administrazioak kudeatuta baitaude, negoziatzeko oso erraztasun bitxia dago: hitz bat idaztea aski da **traturik** handienak egiteko. **Iñaki Iñurrieta**

Agian **tratu** onak ere egin izan dira. **Herria**

Tratu bikaina egin berri duzuna! **Patxi Zubizarreta**

Ez zuen **tratu** txarra egin. **Karlos Zabala**

Tratu merkeago egiten saiatu zen eginahalean, itxura egite aldera, Nikolas Korpanoff baitzen bera, Irkutskeko merkataria xume bat. **Karlos Zabala**

Ez duk txarra laguntza-zaldi hori; begiz jota zeukaat aspaldion, baina gizon horrekin ez zegok inolako **traturik** egiterik. **Jose Morales**

Tratuak ez zuen aurrera egin, eta Skuludisek alde egin zuen, aipamen garratzak egin ondoren saltzailearen egoismoaz eta diru-goseaz. **Anton Garikano**

Ez nian, ordea, **tratu** zerraterik izan, jabea ez zuan-eta bezperan jarrirako orduan agertu. **Anjel Lertxundi**

Korrelazio handia aurkitzen dut animaliei eta elbarriei ematen zaien **tratuan**. **Xabier Olarra**

Kanbioa martxan diren **tratu** mende dago, eta denboraldi baten ondoren doitzen da. **Iñaki Iñurrieta**

Egun gutxi barru, Daniel-ek hiriburura lekutu behar izan zuen, abere- **tratu** bat zerratzeko. **Juan Garzia**

Merkataria- **tratuak** egitera joana potomaken artera. **Juan Garzia**

2 tratatzea, tratatzeko edo erabiltzeko era.

Txarrena, ordea, nagusi ankerraren **tratu** zen. **Gotzon Garate**

Eman berari berak besteei emandako **tratu**, ordaindu berari berak egin halako bi. **Elizen arteko biblia**

Niganako jarrera zen, bere **tratu**, adeitasuna, atsegin gertatzen zitzaidana. **Ramon Saizarbitoria**

Kameran ezkatatu den beste edozeini emango nikeen **tratu** emango diot berari. **Xabier Olarra**

Etengabeko liskarrak, mesprezuak, elkar larrutzeak eta **tratu** iraingarriak. **Berria - Kultura**

Atxilotuei eman beharreko **tratuari** buruzko protokoloa. **Berria - Harian**

Ondo nengoela esan nion, **tratu** zuzena izan zela. **Berria - Euskal Herria**

Oso **tratu** «berezia» jasotzen dute: senideei galarazi egiten diete presoak bisitatzea, zigor gelatik ezin dira irten eta inkomunikatuta egoten dira. **Berria - Mundua**

Irakeko Gobernuak argi utzi behar du ez dituela onartuko **tratu** krudelak, umiliagarriak eta ankerrak. **Berria - Mundua**

Eman dioten **tratuaren** ondorioz asko argaldu dela. **Berria - Euskal Herria**

Baina egiptoarrek **tratu** txarra eman ziguten, zapaldu eta esklabotza gogorra ezarri. **Elizen arteko biblia**

ik beherago 10. **Askoren artean**

Pepinitok oso **tratu** txarra ematen zien emazteari eta alabari; ergelak, astakiloak, baldarrak deitzen zien etengabe. **Josu Zabaleta**

-Ziur naiz gajo honi Rossetti-k **tratu txarra** eman ziola, jo egiten zuela, eta, zuzenean hil ez bazuen, seguru bere burua hiltzera bultzatu zuela. **Ramon Saizarbitoria**

Hain zen guttiz ederra ikusteko, hain ezia nirekiko **tratuan**, hain gertu nire ateraldi kaskarre barre egiteko, [...]. **Oskar Arana**

ik beherago 8. **Askoren artean**

Konfiantza handiegiko **tratuan** ez sartzea aholkatzen baitzidan. **Juan Garzia**

Tratuan ez zegoen inguruetan bera bezain gizon samurrik. **Joseba Sarrionandia**

Hotz samar agertzen zen, ordea, gizonetikiko **tratuan**. **Joxean Agirre**

-Izugarri motza omen da **tratuan**. **Joxean Agirre**

Bere lehen esperientzia erabakigarria, errukiarena izan zen (legendunekin **tratuan**). **Askoren artean**

Horren miressgarria omen zen nire osabak, bestelako **traturik** merezi bide zukeen izeba Arrosarengandik. **Txillardegi**

Hala duk geratu [...] garaiko hitzots dotore eta **tratu**-adeitasun itxura huts-hutsean. **Juan Garzia**

Bazirudien lege naturalen zegokiola berriruzeko **tratu**-modu kortesko hura. [Anjel Lertxundi](#)

-Ez dago beste **tratu**-motarik putakume hauentzat! [Rafa Egiguren](#)

Amagandiko babes-**tratu**a. [Fernando Rey](#)

Inork ez dio erreparrorik erakusten bihotz-zabaltasunetik deus gutxi duen sator-**tratuari**. [Anjel Lertxundi](#)

3 hitzarmena.

Ituna egin dugu Heriorekin, **tratu**a Hilen Egoitzarekin. [Elizen arteko biblia](#)

Politikan, **tratuak** eta itunak etsaiekin egiten direlako maizago, adiskideekin baino. [Pello Salaburu](#)

-Hauxe duzu **tratu**a: ni erdia erretzen hasiko naiz, baldin eta zuk berdin egiten baduzu. [Joan Mari Irigoien](#)

-**Tratu**a egin zuten: gauaz baizik ez zen agertuko eta, trukean, ez botilarik ezta bertzelako zaborrik ere agerian. [Aingeru Epaltza](#)

Herenka ordainduko ziotela egin zuten **tratu**a. [Jon Muñoz](#)

Tratuaren beste puntuak ere laster zehaztu zituzten. [Iñaki Iñurrieta](#)

Eguneko lanaren ordainetan zilarrezko txanpon bana emateko **tratu**a egin ondoren, mahastira bidali zituen langileak. [Elizen arteko biblia](#)

Urte horretan onartu zen Espainiako Konstituzioa, garai hartako politikoaren artean hainbeste **tratu**a egin ondoren. [Pello Salaburu](#)

Ez nuke Karmelarekin egin nuen **tratu**a hautsiko. [Joan Mari Irigoien](#)

Hitz eman duzu eta hitza bete ezazu, **tratu** honetarik guztiok irabazten atera gaitzen. [Joan Mari Irigoien](#)

Hori zen ezarria alabainan [...] mazedoniar eta albaniar politiko taldeen artean egin **tratu**an. [Herria](#)

Seaskarekin egin **tratu**an, 20 lagun hitzartu zituzten garbiketa lanetan parte hartzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Ikasleentzako batek geratu behar izan zuen deabruaren zerbitzuan, beronekin egin **tratu**aren arabera. [Joan Mari Irigoien](#)

Concha Valdes delako batek Jesus Galindez kontaktatu du, Madrilen beste askok kontaktatu duten helburu berarekin; isilpeko **tratu**a ixtea. [Edorta Jimenez](#)

Usain txarra hartzen dio **tratu**aren kontuari Jesusek. [Edorta Jimenez](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jexuxek, Aitak egin zuen ezkontza-**tratu**a ez zuen aintzakotzat hartu, eta horrek erabat petraldu zuen bien arteko giroa. [Xabier Etxabe](#)

Hautsi-mautsi **tratu** bat sinatu dute hor Xinarekin, akordio bat aurkituz, baitezpadakoa. [Herria](#)

Enperadore mantxuek zera uste zuten beren diplomazi **tratu**etan: [...]. [Iñaki Mendiguren](#)

Bi aldeen artean irekitako arrakala morala ezin dela etengabe konpondu merkataritza-**tratu** baten bidez. [Iñaki Mendiguren](#)

Horixe izan zen Txikia neure bizian ikusi nuen aldi bakarra, eta harekin egindako isilatasun-**tratu**a, gaur arte zintzo asko gorde dudana. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

5 harremana.

Oso espirituala eta Frantzisko dohatsuarekin **tratu** handikoa zen anai batek. [Askoren artean](#)

Andre Leonardak ez zuen nahi bere alabek neska harekin **traturik** izaterik; zenbait adiskidetasun ezin onar zitzakeen, esaten zuenez. [Josu Zabaleta](#)

Ikasleekin **tratu**a izateak berak ere ekarri zuen ondorio hori. [Berria - Kultura](#)

Eta nik ere banuen harekin **traturik**. [Joan Mari Irigoien](#)

Ez zuen inoiz eduki **tratu** handirik beste gizon edo emakumeekin. [Jon Alonso](#)

Ez zitzaidan zaila gertatu nire enpresak Frantziako ordezkariatzara, zeinarekin nazioarteko eskubidean aditua naizenez **tratu** estua nuen aspalditik, urtebeterako bidal nintzan.

[Ramon Saizarbitoria](#)

Harremanetan jarri nintzen W.ren ordezkariarekin, nahikoa konfiantzazko **tratu**a bainuen berarekin. [Juan Garzia](#)

Don Tirsorekiko **tratu**a geroago etorri zen, hala ere. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

-Zein **tratu** duk dioan hori! -Haragizko **tratu**a -zizt bota nion. [Edorta Jimenez](#)

Zein harreman, zer konfiantzazko **tratu** izan nuen, bada, nik, ordura arte, Enpedoklesen lau elementuekin? [Juan Garzia](#)

Nirekin, berdinen arteko **tratu** ia adiskidetasunezkoa izan omen zuen. [Juan Garzia](#)

Urkamendian hiltzera kondenatzen dut Martha Cory, deabruarekin **tratu**an ibili izana frogatu eta gero. [Anjel Lertxundi](#)

Gogoratu behar zitzaidan bertze munduarekin **tratu**an ibiltzen direnek ere badutela udako pausarako eskubidea. [Aingeru Epaltza](#)

Putxa konfirmatua izan gabe, haragi-**tratuak** izan zituela graduaziorik gabeko soldaduekin. [Jon Alonso](#)

Erran-merranak zebiltzan bazterretan, baizik eta Nafarroako erregea espainolekin **tratu**an ari zela. [Aingeru Epaltza](#)

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esamesa zarabilten esamesariak bera dela don Pedrorentzako neskak **tratu**-konpontzailea. adinen diferentzia maila horretakoa denean, beste **tratu**-molde bat sortzen da, sendoagoa, ene ustez. [Juan Garzia](#)

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Eta zuk uste duzu don Pedrok, daukan jenioarekin, lasai onartuko lukeela beraren semeak atso-**tratu**an segitzea? [Juan Garzia](#)

Gizon horrek ez zuen emakume **traturik**, birjina zen. [Josu Zabaleta](#)

Bitxia gertatu zitzaidan benetan Idoiarekin izan nuen maite-**tratu**a, maitemintzeari buruz eskuarki hedaturik zegoen ikuspegiarekin alderatuta behintzat. [Juan Kruz Igerabide](#)

Wernerrekin partikulazki larru-**tratu** finkoetan abiatuz geroztik. [Itxaro Borda](#)

Abantaila denborazko zein espirituzkoren bat ateratzen baitzuen (edo saiutzen baitzen) elkar-**tratu** horretatik. [Juan Garzia](#)

8 trataera.

Eta, irri ezin zabalagoa egiten zidala eta hikako **tratu**a emaiten, erran zidan: [...]. [Joan Mari Irigoien](#)

9 *tratu*an adlag saltzen eta erosten.

Irrikatan zegoen saltzeko eta gozoa zen **tratu**an. [Hasier Etxeberria](#)

Katalogoa ez da ia aldatzen, eta aditua da kinkila dendarietako **tratu**an: urteetan zehar ibilbide bera egin du probintzian zehar, eta berarekin batera zahartzat joan diren dendariak ondo ezagutzera iritsi da. [Iban Zaldua](#)

Tratuan hasten zelarik, deus erosi gabe berbetan ziharduelarik, hondakinak jasotzera bidaltzen zuten. [Karlos Zabala](#)

Tratuan aritu naiz merkatariekin dendaxorik dendatxo. [Jon Arretxe](#)

Gogortasun hori itxurakeria hutsa dela **tratu**an preziorik altuena lortzeko. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

10 *tratu* etxe prostituzio etxea.

Horren ondoren, don Martin hiltzat emanik, erakusmahaiko sosa hartu eta San Jose kaleko **tratu**-etxe batera joan zen mutila, eta han atxilotu zuten. [Josu Zabaleta](#)

"Halako **tratu-etxera** sartzen ikusi nuen", erran nahi baita, putetxe batera. [Juan Garzia](#)

11 *tratu* txar pl

Azkenik, Bill, Tony eta Joe zenbait delitu eta krimen zirela medio atxilotu zituzten, hala nola, emazteari emandako **tratu txarrak**, nahita eragindako sutea, lapurreta eta prostituzioa. [Lopez de Arana](#)

Garrotak ez zuen ukatu bere emazteari **tratu txarrak** ematen zizkiola, baina bai hil zuela. [Josu Zabaleta](#)

Emakume koitaduak ez omen zuen ihes egiteko ahalegin txikienik ere egin, auskalo zer **tratu txar** jasango zituen. [Joxean Agirre](#)

Azken ikerketek erakusten dutenez, munduan %50 emakume **tratu txarrak** izan dituzte. [Gotzon Garate](#)

Sistematikoki andreen % 20tik 25era (kalkuluak nola egiten diren) **tratu txarrak** sufritzen baititu etxean, berdin dela herri pobre nahiz aberatsetan. [Pello Salaburu](#)

Aske utzi zutenean, **tratu txarrak** salatu zituen Beaumontek. [Edurne Elizondo](#)

Nahiago izan zuen Jainkoaren herriarekin batera **tratu txarrak** jasan, bekatuaren atsegin iragankorrek gozatu baino. Elizen arteko biblia

Zergatik onartzen dituzu amaren eguneroko **tratu txar** horiek? Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adinekoegi egindako tratu (3); animaliei tratu txarrak (3); atxilotuei tratu txarrak (3); aurkako tratu (18); aurkako tratu txarrak (7); aurkako tratu txarren (5); bikotekideari tratu txarra (5); bikotekideari tratu txarrak (18); bikotekideei tratu txarra (6); diru tratu (4)

egindako tratu (6); egunetan tratu txarrak (4); emakumeak tratu txarrak (4); emakumei tratu txarrak (4); emakumeen aurkako tratu (4); emakumeen kontrako tratu (5); emandako tratu (20); emandako tratu txarren (5); emazteari tratu txarrak (14); etxean tratu txarrak (6); irakiarrei tratu txarrak (5); irakiarrek jasandako tratu (4); jasanarazitako tratu txar (4); jasandako tratu (29); jasandako tratu txar (5); jasandako tratu txarrak (9); jasandako tratu txarren (8); kontrako tratu (13); kontrako tratu txarrak (9)

ohiari tratu (4); oso tratu ona (5); salatutako tratu (4)

tratu bat egin (9); tratu bat egingo (4); tratu berezia (10); tratu berezirik (4); tratu duin (4); tratu duina (7)

tratu egin (4); tratu fiskala (5); tratu hobea (5); tratu iraingarria (4); tratu krudela (4); tratu krudelak (5); tratu on (10); tratu ona (21); tratu ona eman (5); tratu onak (7)

tratu txar (124); tratu txar fisiko (9); tratu txar fisikoa (4); tratu txar fisikoak (16); tratu txar psikologikoa (4); tratu txar psikologikoak (9); tratu txarra (98); tratu txarra eman (22); tratu txarra ematea (9); tratu txarra emateagatik (16); tratu txarra ematen (13); tratu txarra salatu (5); tratu txarragoa (4)

tratu txarrak (560); tratu txarrak direla (4); tratu txarrak egin (5); tratu txarrak egiten (9); tratu txarrak eman (21); tratu txarrak ematea (11); tratu txarrak emateagatik (43); tratu txarrak ematen (19); tratu txarrak eragin (7); tratu txarrak eragiteagatik (12); tratu txarrak eragiten (8); tratu txarrak izan (4); tratu txarrak jasan (37); tratu txarrak jasandako (5); tratu txarrak jasaten (37); tratu txarrak jaso (11); tratu txarrak ohikoak (6); tratu txarrak pairatu (8); tratu txarrak salatu (32); tratu txarrak salatze (10); tratu txarrak salatzen (10); tratu txarrak sufritzen (4); tratu txarrei (22); tratu txarrei buruz (4); tratu txarrei buruzko (5); tratu txarrek (9); tratu txarrekin (6); tratu txarren (133); tratu txarren aurrean (4); tratu txarren berri (11); tratu txarren biktimak (5); tratu txarren inguruan (5); tratu txarren inguruko (9); tratu txarren ondorioz (11); tratu txarregatik (24); tratu txarretatik (4); tratu txarrez (7); tratu txarrik (22); tratu txarrik ez (5); tratu zuzena (4)

ustez tratu txarrak (4); ustezko tratu (7)

egin zuten tratua (6); emandako tratua (14); jasotako tratua (5); jasotzen duten tratua (4); nolako tratua (7)

tratua dela eta (6); tratua egin (29); tratua egin zuen (4); tratua egin zuten (4); tratua egina (7); tratua egiten (6); tratua eman (9); tratua ematen (10); tratua gaitzetsi (4); tratua izan (8); tratua jaso (8); tratua jaso zuen (4); tratua jasotzen (4); tratua ona (4); tratua salatu (6); tratua zuzena izan (4)

tratuagatik kezka (4)

deabruarekin tratuan (4); tratuan ari (7); tratuan hasi (4); tratuan ibili (6)

inolako traturik (5); traturik egin (6); traturik ez (9); traturik izan (14)

tratubide ik **tratabide**.

tratuketa iz negoziazioa.

Espainiako Zapatero lehendakaria New Yorken izan da besteekin batean 60garren ONUren biltzar nagusi hortan, berriz ere ETA-rekin hasi **tratuketa** hortaz kezkatua.

Herria

tratukide iz tratu berean ari den pertsona.

Aski abil zen, gainera, nire **tratukidea**; bazuen sekretu bat beira koloretuentzat, eta guztiz itxura ederreko xafra nabarrak ontzen zekien. Juan Garzia

Ontziaren burua eta marinela Gartziairen aspaldiko adiskide eta **tratukidea**, François eta haren hiru gizonak ziren. Elena Touyarou

tratukidetasun iz tratu bera izatea.

Horra hor agerian Herri Hautatuak bere Sortzailearekin zuen **tratukidetasun** biblikoa. Juan Garzia

tratulant iz tratularia, merkataria.

Europa batua hinki-hanka doala, eta maikua, parte segurik tratulari edo **tratulanteen** Europa delakotz oroz gainetik eta ez ainitzek amesten ginukeen gisakoa. Herria

Zigarro meharrek biribilkatzen zituzten, **tratulantak**, martxandizari ohartu bitartean. Itxaro Borda

Tratulantaren eraso bakoitzean prezioak oxka batez apaltzen zituzten, frankotan bildotsak galtzetan eskaintzeko. Itxaro Borda

Eskuratu dituela lau ehun mila dolar droga **tratulant** baten ganik. Herria

tratulari (orobat *tratalari g.er.*) 1 iz tratuan aritzen den pertsona, tratuak egiten dituen pertsona. ik merkataria.

Tratulariek, Lurbiaroko nazio guztiei begi emanda daudenez, batetik ateratzen dutena bestera eramaten dute. Iñaki Iñurrieta

Merkataritza-askatasuna ez da **tratulariei** nahi dutena egiteko ematen zaien gaitasuna. Iñaki Iñurrieta

Kanbioa beherago dagoenean, **tratulari** batek, bere aberastasunak gutxitu gabe, jar ditzake bere diru-funtsak atzerrian. Iñaki Iñurrieta

Upategi ezin handiagoa, handikazko saltzaileek eta **tratulariek** ardoa gordetzeko erabilia. Jon Muñoz

Tratalari fina duzu, inon galtzen ez diren horietakoa. Xabier Montoia

Bihotz gabeko **tratulariek** inoren minarekin dirua irabazi nahi dutelako. Gotzon Garate

Merkatariak nekez ihes egingo dio hutsegiteari eta **tratularia** ez da bekaturik gabe geldituko. Elizen arteko biblia

Ijito kastako **tratulariren** bat. Patziku Perurena

2 (hitz elkartuean lehen osagai gisa)

Tiresiasek kontatzen zuen, behin, Bazkoak ospatzera joan zela greziar **tratulari** saldo bat Jerusalemera eta Jesus non harrapa zezaketen eskatu ziotela ustez haren dizipulua zen Filipe bati. Itxaro Borda

Hainbat herrik hain zuhurtzia handiz jokatu zuten, non **tratulari**-konpainiei eman baitzieten boterea, eta hauek, [...] beste ahalmen handi bat erantsi zioten estatu nagusiari, trabarik egin gabe. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuean bigarren osagai gisa)

Baina zein zen maltzurkeriarik gabeko eskua itsaslapur eta beltz-**tratularien** herri hartan? J.M. Olaiola "Txiliku"

Larru-**tratularia** din aita, Leopoldstadt-en. Anton Garikano

Egun hartan desegin zen ituna, eta niri begira zeuden ardi-**tratulariek** argi eta garbi ezagutu zuten Jaunak bere mezua azaltzen zuela horretan. Elizen arteko biblia

Zaldi-**tratulariek** mika esaten dieten zalditxo zuri-horixka horietako batek tiratzen zuen gurditik. Jose Morales

Battitta Ameztoi jauna, batetik, abel-**tratularia** eta Garaziren aita; eta Hoki Arhanegoiti anderea, bestetik, Garaziren ama, eta bertako alaba. Txillardeggi

Upategi ezin handiagoa, handikazko saltzaileek eta **tratulariek** ardoa gordetzeko erabilia. Jon Muñoz

Lasai-lasai belaunikatu eta arte-**tratulariaren** galtzazuloa ireki zuen. Oskar Arana

4 (izenondo gisa)

Han ibiltzen ginen, kale koloretsu haietan barna, gizon mozkorrek bultza eta emakume **tratariek** bultza. **Irene Aldasoro**

Beldur handia zieten barbaroel, baina batere ez herri **tratar** bati. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

larru tratularia (3)

trataritza *iz* tratulariaren jardunbidea, merkataritza.

Herri tipiago eta xuhurragoeri ere behatzen eta parte emaiten jakinen duen bestelako **trataritza** bat, bereziki laborantzako ahalmenen partikatzea baina ere eskola hezkuntza, ura, osasuna, energia eta oro kontsideratuko dituen. **Herria**

tratur ik traktur.

tratutegi *iz*

Horren gatik, diru **tratutegian** agertu da konfientzia guti dela bazterretan gobernuaren politika hortan. **Herria**

tratutxartu *izond* tratu txarra hartu duena.

Aurkikuntza bakarra, galleta idor batzuk, jangarritasun eskasekoak nire lixeriketa aparatu **tratutxarturako**. **Aingeru Epaltza**

traukatu, trauka, traukatzen du *ad* zeharkatu.

Elpides, emazte lakonikoa da: mintzo den aldi oroz hitzetan **traukatzen** eta grekatzen duelako gure mundukoa dela onartu ezazu, O, Sokrates... **Itxaro Borda**

Aspaldian hil eta menturaz arbol erroetan **traukatu** zeri zein bildots hilkiak baziren, plastikozko ontziak eta etxeetan beharrezkoak ez ziren mila gauza zaharkitu. **Itxaro Borda**

trauma *1 iz* zirrara bortitza, jasaten duenaren nortasunean eragina duena.

-Irakurri al duzu ama gutxi ikusten duten umeeke ze **trauma** izaten dituzten gerora? **Arantxa Iturbe**

Hautzaroko **traumak**. **Karlos Zabala**

Bost urte zituela **trauma** ikaragarria jasan zuen, bere aita hil baitzuten meskitan errezoan ari zela. **Fernando Rey**

Lehen kolpea, lehen **trauma** jasanezina, sarri askotan gertatzen den bezala, jaunartzean jaso zuen. **Karlos Linazasoro**

Trauma sortzeko, bizia arrisku larrian ikusi edo izu handia sentitu behar izan du torturatuak. **Berria - Harian**

Bata guardia zibil baten emaztea, bestea torturaren **traumatik** osatzen ari den euskalduna. **Agurtzane Juanena**

Nabari zen gaixo burasoak holako izialdurarekin isilik egoiteko, **trauma** biziki bortitz batek joak zirela, hori zioten jendeek. **Michel Oronoz**

Trauma haiek bilatu, berriro bizi eta analizatu behar zirela. **Luis Elberdin**

Gure lagunak ezin izan zuen esperientzia haren ondoriozko **trauma** gainditu. **Jon Arretxe**

Gerra garaiko sindromeaz hasiko irakete, edo **trauma** osteko shockei buruz. **Alberto Ladron Arana**

Trauma ondoko estresaren zantzuak: insomnia edo logurarik eza, amesgaiztoak, fobia, antsietatea... **Berria - Euskal Herria**

Kolonialismoaren **trauma** dugu oraindik etorkinek. **Berria - Euskal Herria**

2 irud/hed

Den-denek onartu zuten begi-bistakoa zena, eta azkenean **trauma** handirik gabe burutu zen publikazio prozesua. **Joxerra Garzia**

*Laissez-faire*aren sorkuntza **trauma** bat izan zen gizaki zibilizatuak bere buruaz zuen ikuspegiarentzako. **Iñaki Heras**

Hori orain dela urtebete baino gehiago zegoen planteatuta IUren zuzendaritzan; [...] pozik gaude prozesu hori gainditu dugulako, **trauma** edo hausturirik gabe. **Berria - Euskal Herria**

Lagun batek irribarrez kontatzen dit oraino ere Andu Lertxundiren liburu bakoitzak, irten berritan, sortarazten zion **trauma**, kezka beltza. **Iñigo Aranbarri**

3 kanpo eragile batek, kolpe batek bereziki, eraginiko zauria. iktraumatismo.

Doktore bat etorri zen, goragalerik ba ote nuen galdetu zidana, burezurreko **traumaren** sintoma baita hori, gerora ere agertu eta beste mundura bidaltzen ahal ninduen txotxongilo ahul bat bezala. **Fernando Rey**

Katemeak, bada, eraso, jazarri, harrapatu eta sudurra harramazkatu zion: **trauma** gogorra utzia zion hark txakurrari betiko. **Juan Garzia**

traumaosteko *izond* trauma baten ondoriozkoa.

Izena ere ba omen dauka, "**traumaosteko** sindrome hondarrekoa". **Agurtzane Juanena**

traumatiko *1 izond* trauma eragiten duena.

Auschwitz da, noski, esperientzia **traumatiko** hori laburbiltzen duena: 1929an jaio zen Imre Kertész eta 1944an, hamabost urte zituela, Auschwitzera eraman zuten naziek.

Urtzi Urrutikoetxea

Baginismo kasu gehienek benetako arrazoiak gehiago dira kulturalak, gertaera **traumatikoak** baino. **Luis Elberdin**

Egoera **traumatiko** baten osteko estresak eragindako desorekak oso kontuan hartzekoak dira. **Berria - Gaiak**

Torturaren ondorioz gera daitezkeen bizipen **traumatikoek**, biktimari ez ezik, inguru gertukoenean diren pertsoneri ere eragiten dietela azaltzen du lanak. **Berria - Euskal Herria**

Ondare baten jasotzaile gisa bizi izan nuen txikitan kristautasuna: ez debozio gaixotirik, ez beldur **traumatikorik**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez zen erabaki **traumatikoa** izan, baina bai zirt-zartekoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

«Kaleratze **traumatikorik** ez egitea» eskatu diote sindikatuek enpresari. **Berria - Ekonomia**

Sentsazio **traumatiko** samarra atera genuen gehienok eztabaida politiko haietatik. **Rafa Egiguren**

Egoera horretan haundun geratzea benetan **traumatikoa** izan ohi da. **Luis Elberdin**

Tamalez neurriak **traumatikoak** izango dira batzuetan. **Iñaki Heras**

2 irud/hed

Historia **traumatiko** baten ondoren, lehena ahaztu nahia izaten da gizartearen arriskua. **Joseba Zulaika**
Horrek gauza bakar bat esan nahi du, euskal gizarteak modu **traumatikoan** bizi duela Iñaki Uriaren espetxeratzea. **Berria - Euskal Herria**
Euskarak modu naturalean integratu behar du lan munduan, ez modu **traumatikoan**. **Berria - Euskal Herria**

3 traumari edo traumatismoari dagokiona.

Shock **traumatikoa**. **Agurtzane Juanena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
modu traumatikoan (3)

traumatikoki *adlag* era traumatikoan.

Freuden teoriar, amak falorik ez duela **traumatikoki** oharzten denean, haurrak falo hori existitzen dela sinesteari uko egin nahi ez eta "haren lekuan" haren ordezeko bat, fetixea, emakumezkoaren irentasuna egiaztatzeko uanean bere begien aurrean aurkitu duen gauzaren bat jartzetik sortzen den perbertsio bat da fetixismoa. **Josu Zabaleta**

traumatisatu ik traumatizatu.

traumatismo 1 *iz* kanpo eragile batek, kolpe batek bereziki, eraginiko lesioa.

Buruan **traumatismo** larria zuen hildakoak, Nafarroako Ospitaleko iturrien arabera. **Berria - Euskal Herria**
Gorputz osoan jasotako kolpeen eraginez buruko eta aurpegiko **traumatismoak** eta zauri ugari egin zizkieten. **Berria - Euskal Herria**
Errepide istripuen ondoriozko **traumatismoak**. **Berria - Gaiak**
Azpeitiarrak **traumatismoa** du ezker aldeko toraxean, eta biriketako ubeldura. **Berria - Kirola**
Traumatismoa du buruan eta kolpe handia saihestetan. **Berria - Ekonomia**
Traumatismo gaitzak ukanen zituen, arras bizirik jalgitzen baldin bazen bederen. **Itxaro Borda**
Kasu horretan era askotako **traumatismoak**, burezurreko **traumatismoak**, konortea galtzea gerta daiteke. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

44 urteko langileak, Amurriokoak, **traumatismoa** du buruan eta kolpe handia saihestetan. **Berria - Ekonomia**

3 trauma, zirrara bortitza.

Horren ondorioz, Japoniak ez zuen pairatu ez subiranotasun alienatu baten **traumatismoa**. **Koro Navarro**

traumatizatu, traumatiza, traumatizatzen (*orobat traumatisatu g.er.*) 1 da/du ad trauma jasan; trauma eragin. ik traumatu.

Haurren sexualitatean arriskua bakarrik ekarri dute, eta horrekin haurrak **traumatizatzea** lortu dute bakarrik. **Berria - Harian**
Azkenekotz eritasunak **traumatisatu** egiten ninduen. **Menane Oxandabaratz**
Hurrengo saioak ere zein baino zein txarragoak izan ziren, esperientzia umiliagarriak eta iraingarriak, urteak eman nituen **traumatizaturik**. **Karlos Zabala**
Gerla Zibileko eta gerla ondoko garaiek ama eta haren haurrideak biziko **traumatizaturik** utzi zituzten. **Ana Urkiza**
Batzuk tratu txarrarengatik **traumatizaturik** zeuden. **Xabier Olarra**
1969ko apirilean gertatutako eroriko garrantzitsuak zirela medio, **traumatizatuta** geunden oraindik. **Rafa Egiguren**
Traumatizatuta irtengo zara hemendik. **Agurtzane Juanena**

2 (era burutua izenondo gisa)

Beren historia bizi ahal izateko, inolaz ere alden du beharra zuten gurasoen oroitzapen **traumatizatu**en ñabardurarik gabeko magma oro-hartzaile hartatik. **Joxan Elozegi**

traumatologia *iz* medikuntzaren adarra, traumak aztertzen dituena; traumatologiako zerbitzua dagoen gunea.

Traumatologian, tokoginekologian eta psikiatrian egin zen kontsulta gehien. **Berria - Euskal Herria**
Traumatologian, berriz, ez omen dute gordetzen horren historial zaharrik, pazientearen arretarako zerbitzuan agian... **Agurtzane Juanena**
Joateko **traumatologiako** solairura, eta eska dezadala historialaren kopia bat berari eramateko. **Agurtzane Juanena**
Guztien artean erreabilitazioko kontsultek (%17,5) eta **traumatologiakoek** (%5) izan zuten hazkunderik nabarmenena. **Berria - Euskal Herria**
Guztien artean erreabilitazioko kontsultek (%17,5) eta **traumatologiakoek** (%5) izan zuten hazkunderik nabarmenena. **Berria - Euskal Herria**

traumatologiko *izond* traumatologiarena, traumatologiari dagokiona.

Ebakuntza **traumatologikoa** eta kirurgia plastikoa dira atzerapen handieneko ebakuntzak, 60 eta 66 egun bitartean. **Berria - Euskal Herria**

traumatologo *iz* traumatologian espezialista den medikua.

Mikel Sanchez **traumatologoaren** kontsultara joan nintzen. **Berria - Kirola**
Gasteizko **traumatologo** entzutetsuak egindako probak eta txostena. **Berria - Kirola**
Sozialak eta **traumatologia** ageri dira UVlko kristalaren ostein. **Agurtzane Juanena**
Anbulatoriora lehenbailehen ailegatu eta ahalik eta numerorik onena hartzeko, oftalmologorako, **traumatologorako**, otorrinolaringologorako... **Xabier Mendiguren Elizegi**

traumatu, trauma(tu), traumatzen da/du ad traumatizatu.

Isilpean mantendu genuen gertakaria, noski: ez genituen haurrak gehiago **traumatu** nahi. **Iban Zaldua**

trauskil (*orobat truskil g.er.*) 1 *izond* baldana, baldresa. (norbait)

Neskak atseginak ziren [...] mutil **trauskil** eta arrunt baldarrak ez bezalakoak. **Mirentxu Larrañaga**
Gizaki tolesgabe eta **trauskilei** ez zaie neketsu izaten seme-alaba anitz izatea. Besotik emakume **trauskil** bat dakar; "bost dolarrean" diotso Patxiri. **Andres Urrutia**

Betaurreko biribileko mutil **trauskil** samar bat, galdutakoaren itxura zeukana guztiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Musika ere halakoxea, cowboy **trauskil** eta artaburuentzako bazka. Patxi Iturritegi

Bitxia zen halako gizon on eta eskuzabala, halako itzal handiaren jabe izaki, gero etxean hain zakarra eta bortitza, hain gogorra eta **trauskila** izatea. Patxi Zubizarreta

Lotsati jarri zion bere buruari goitizena, eta baliteke **trauskila** izatea harremanak egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Sartu, **trauskil** hori... bazeneki zenbat gautan eragin didazun lo eza! Patxi Zubizarreta

Janzkeraz eta Jarreraz identifikatu uste nituen jatorri proletarioko **trauskil** airekoak eta burgeskume finagoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Grafiteroak bandalo edo **trauskiltzat** jotzen gaituzte. Berria - Kultura

2 (zerbait)

Gizon zuriek, bien bitartean, hesi **trauskil** samarra eraiki dute zelai uhindu baten tontorrean. Atari barruko zahar usainak, barradun itxiturazko igogailu **trauskilak** eta maila higatu eta horituek egin zidaten harrera. Julen Gabiria

Oppenheimerrek Tellerren doinu **trauskil** eta apur bat lakarra imitatu zuen. Fernando Morillo

Nik zuri, zuk niri, aurpegiak eta betarteak zikindu eta pintatu zizkioten elkarri, odolez, mota guztietako txantxa **trauskilen** artean. haren balentriak ez zirela astakeria **trauskil** batzuk baizik. Joan Mari Irigoien

Tresna simple batzuekin, teknika **trauskil** ezin mugatuago baten bidez. Iñaki Iñurrieta

Gogorra da, dorpea, askotan **truskila**, bizkaitarren euskara. Koldo Zuazo

3 (adizlagun gisa)

Ume lotsati batek bezain **trauskil** jokatzea. Anjel Lertxundi

trauskildu, trauksil(du), trauksiltzen da/du *ad* trauksil bihurtu.

Errekak mandotu ederra hartu zuen, hartu zuenez gero... bere onetik atera eta bazterrak **trauskildu** zituen eta zubitxoren bat irauli ere bai... Pello Zabala

trauskilkeria *iz* baldankeria, baldreskeria.

Ez nuke gauza handirik asmatu beharko, ze gauza benetan barregarriak gertatu zitzaizkigun urte gogoangarri haietan: lige saioak, kalabazak, mozkorrak, egindako **trauskilkeriak**, jasotako putadak. Jon Arretxe

Eta ez da soilik erantzunen aurrean daukadan **trauskilkeria** edo ezinagatik. Karlos Linazasoro

trauskilondo *izond* *adkor* trauksila.

Badu hoberik ahoan, **trauskilondo** hauek mututuko dituen lipua. Koldo Izagirre

trauskiltasun *iz* baldantasuna, baldrestasuna.

Nork daki **trauskiltasun** horrek ez ote zuen zerikusirik izan gaztearen fingaiztoan ere. Xabier Mendiguren Elizegi

travaillista *izond*/*iz ipar* laborista.

Tony Blairlehen ministroak bozak irabazi ditu Inglaterran eta lehena izan da **travaillistetan** hiru aldiz ereman dituen segidan boz horiek. Herria

Bere partidutik demisioa eman du ezkertiar horrek, eta fama da, hola Sharon eta **travaillistek** egin lezaketela akordio berri bat, beste gobernu batentzat. Herria

Horra nola koalizio baten menturan ari diren orain 2.005 eko hortan Gaza aldearen palestinarreri uzteko Likoud eta **Travaillistez** egina litakeen maioria batekin. Herria

travellin ik **travelling**.

travelling *(orobat* *travellin g. er.) iz* errailen gaineko plataforma batean mugitzen den kameraren higidura; plataforma hori bera.

Filmatzeko zoom-a (fokala aldatuz joan daitekeen objektiboa) azaldu zenean [...] **travellingaren** ordez zoom hori erabiltzea oso teknika zabaldua izan zen (horregatik deitu izan da askotan zoom-a **"travelling** optiko"). Josu Zabaleta

Travelling baten traza guztia duen zerbait, alegia. Anjel Lertxundi

Barne bidaiarena aipatu nionean **travelling** bat egin behar zuela otu zitzaion zuzendariari; nire sukaldeko **travelling** bat. Pako Aristi

travesti ik **trabesti**.

travestismo *iz* ik **trabestismo**.

traza 1 *iz* aztarna.

Babiloniarren **trazak** gelditu zaizkigu alor batzuetan, eta meteorologian baliagarri zitzaien kontu baten arrastoa ere bai. Pello Zabala

Neskaren gorpuak ez zuela eraso sexual baten **traza** bakar bat ere. Anjel Lertxundi

2 itxura; modua.

Ez genuen gaizkile itxurarik inondik ere, izatekotan ere bikote maitemindu berriaren **trazak** izango genituen. Joxean Agirre

Mallorcako jokalarientzat finalaren **traza** du biharko lehiak. Berria - Kirola

Polemika handiko **traza** duen egoerak ez hanka, ez bururik ez duelako. Berria - Kirola

Gaitzak ez zuen bertatik alde egiteko inolako **trazarik**. Anjel Lertxundi

Golegile handien **traza** dauka, eta bere izaera apalak aurrera egiteko bidea zabaldu dio. Berria - Kirola

Goikoetan erreparatu baduzu, gure esaera zahar hauetan ez duzu halako **traza** eta tankerarik topatzen? Pello Zabala

Maina bila dabilen katutxoaren **trazak** hartuz-. Xabier Mendiguren Elizegi

Pertsona grisaren **traza** hartu dio Robertok. Urtzi Urrutikoeetxea
Eta kurrilo bakarrean galdu horri, ez dakit zergatik, neure buruaren eta neure guzizko hitzun edo idazle horien **traza** hartzen diot. Patziku Perurena
Zerbitzariari aspaldi irakurritako beldurrezko nobela bateko pertsonaia baten **trazak** hartzen zizkion. Joxean Agirre
Kontuak argitu ezinean ibili naiz, **trazarik** hartu ezinik, begira han, begira hemen. Pello Zabala
Ez zion inolako **trazarik** hartzen distantziari. Xabier Olarra
Segituan eman nion **traza** : oso goiti joanen zela gizarteko eskailera ofizial zurietan barrena. Patziku Perurena
Janaria ekartzen dit neskame amultsuaren **trazak** eginez, eta sinetsi egin nahi dut bere irribarra ez dela maltzurra. Eider Rodriguez
Automatek bezala erantzun zieten gure konplimenduei, eskerturik baino areago dena lehenbailehen bukatzeko gogo duenaren **trazan**. Aingeru Epaltza
Errusiako ikatz edo bestelako meatokiak nahiko **traza** txarrean daude. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hortaz, marixu bat jarriko dugu, keinu, hizkera eta imintzioetan emakume **trazak** eta plantak dituen. Xabier Mendiguren Elizegi
Arantxari ez zitzaion jada gelditzen, egia esateko, beste garai bateko kirolari **traza** gehiegirik. Fernando Morillo
Nork uka euskal errege jatorrako para berri diguten ikazkin muturbeltz alfer tripazain eskazale honen moro **traza** nabaria? Patziku Perurena
Hanka-hutsik eta eskale **traza** harekin. Harkaitz Cano
Bat-batean grafiko ezagun hori datorkio gogora, non tximino **trazako** antzinako gizona lauzpabost marrazkitan tentetzen, zutik jartzen eta ilea galtzen dakusagun. Pako Aristi
Gaizki hezitako gizabere **traza** igoal hartuko zenidan, gaur zortzi, txoko honetan bertan puzker kontutan ari nintzela. Patziku Perurena
Neke **trazak** zituen behargin itxurako gizona zetorren gidari. Josu Landa
Damu- **trazez** nahastutako irribarre batek lagundu zuen gizona burua andrearen kolkoaren kontra babestera. Josu Landa
Telebistari begira hazitako belaunaldiak, elkarri hariturik eta mesfidantza **trazako** aurpegiekin begiratzen dioten giza saldoak besterik ez dira. Pako Aristi

4 traza onez ipar

Hau da **traza onez** helduden asteleheneko egin gogo duten partida Garatenean. Herria
Bertzeek txartelak atxiki dituzte datorren asteleheneko, partida hori orduan jokatuko baita, **traza onez**. Herria
Hor izanen dira hauk ere geroxago, **traza onez**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten traza (15); **traza dauka** (5); **traza du** (6); **traza hartu** (6); **traza hartuko** (3); **traza hartzen** (24); **traza hartzen diot** (5); **traza hartzen zaio** (3); **traza oneko** (4); **traza onez** (5)
baten trazak (6); **trazak hartzen** (4)
inolako trazarik (3); **trazarik hartu** (3)

trazadura iz lerroen bidezko marrazkia edo plano. ik

Lerroa ezin zuzenago luzatzen zen tarte batez; gero, eskumuturraren higitze doi atzemanarekin batera, kurbatzen hasten zen, perfekzio geometriko osoa ageri zuen **trazadura** zalantzagabea. Iñaki Iñurrieta
Ametsetan sartu naiz, behako bat botatuz Gida-liburuan zabaldua zen Bidearen **trazadurari**. Piarres Aintziart
Bere ideia, begiratokitik mailadiak bailiran ibairaino jaisten diren teilatuak miratzen zituenean jaiorikoa, mairuen harresiaren **trazadura** ibiltzea da. Jon Alonso

trazaketa iz trazatzea. ik

Dagoeneko, lehen ibilbidearen **trazaketaren** ondoren, 25 etxe desjabetuko ditu Estatuak xedea bultzatzeko. Berria - Euskal Herria
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Nafarroako Gobernuarekin **trazaketari** buruzko akordioa lortu ondoren, autobidearen gatazkaren irtenbidean izandako esperientzia gatazka politikoaren konponbidera bideratzeko asmoarekin sortu zuten, 1992an, Elkarri mugimendu soziala. Berria - Euskal Herria

trazatu, traza(tu), trazatzen 1 du ad lerroen bidez marraztu edo zenbaiten plano egin.

Bi hiriak lotuz marra bat **trazatu** zuen errotuladore gorriaz. Harkaitz Cano
Zilborretik abiatuz **trazatutako** zirkuluan eta horri dagokion karratuan inskribatzeko modukoa izatea da gorputz horren perfekzioaren azken demostrazioa. Santiago Iruretagoiena
Sarritan esan dut mugak ezin direla berriro **trazatu**. Berria - Mundua
Gorroto berezia diedala gauza luze, bikain eta kordelez **trazatuei**. Koldo Izagirre

2 irud/hed

Judua nintzela jakin nuenetik, ordea, ezinezkoa zitzaidan ongiaren eta gaizkiaren arteko marra argi bakar bat **trazatzea**. Anjel Lertxundi
Substantzian hori da, Max Weber-ek bi moral tipo funtsezko ezberdinen bereizketa ezaguna **trazatu** duenean, konbentzimenduaren edo intentzioaren etika bezala erantzukizunaren edo ondorioak neurtzen dituen etika "politikoaren" ereduari kontrajarri diona. Joxe Azurmendi

3 (era burutua izen gisa)

Irla hau luzea eta estua da, eta horrek asko baldintzatzen du pistaren **trazatua**. ahal den guztia egingo dugu Euskal Y-aren **trazatua** nolabait aldatzeko, lanak hasi aurretik. Berria - Kirola
Bi zatiketa horien arteko angeluek zehaztuko dizkigute kaleen eta paseabideen **trazatuak**. Santiago Iruretagoiena
Iruidi eta **trazatu** hauen guztien helburua bat bakarra izaten da, alegia, ekinokzioko eguna, eta berdin udako edo neguko solstiziokoa, hamabi parte berdinetan zatitzea. Santiago Iruretagoiena
Harresiaren **trazatua** errepasatzea. Jon Alonso

4 plan edo proiektu bat taxutu.

Baina nik gau hartan bertan **trazatu** nuen neure etorkizuna, eta erabaki nuen, ondorez, ezen hiru soineko erosi behar nituela, ez bi. Joan Mari Irigoien

trazatzaile izond trazatzen duena.

Bala **trazatzaileek** gari argi bat isurtzen zuten: nola jakin nezakeen nik goreneraino igota, iltzeak iltzatzen diren bezala, banan-banan banatzen zituztenik gai ilun horiek? Josu Zabaleta

trazendental ik transzendental.

trazendente ik **tranzendente**.

trazeria *iz* geometria-figuren konbinazioek osaturiko dekorazioa.

Goian, ganga handiaren ilunantzean, **trazeria** eta arabesko nabarren errearen mateak egiten zuen distira. **Agustin Otsoa**

traziar *izlag/iz* Traziakoa, Traziari dagokiona; Traziako biztanlea.

Traziar jatorriko zaldun batek Dositeori atzetik eraso eta besoa moztu zion. **Elizen arteko biblia**

Europa osoan bildutako mertzenarioak, Ptolomeo erregearen armadetan soldadu sartzera etorriak: eszitak; **traziarrak**; eta, batez ere, galiar beldurgariak. **Jon Muñoz**

Traziarrek, szitiarrek, pertsiarrek eta lidiarrek eta ia barbaro guzietan. **Patziku Perurena**

Bigarren mendeko enperadore handi baten ahalegina tradizionaliki barbaroak ziren **traziarrak** desbarbarizatzeke. **Iñaki Mendiguren**

trazo ik **trazu**.

trazu (*orobat trazo*) **1** *iz* idaztean edo marraztean eginiko lerro edo marra.

Marrakzia egina zuen orduko, **trazu** bizi bezain kementsuz, eta pintura ere aski aitzinatua zuen. **Joan Mari Irigoien**

Hizki haien makilen eta kontsonante haien kirtenen **trazuak**. **Joxan Elozegi**

Xehetasun txiki bidez, **trazu** fineko pintzelada emanez. **Berria - Kultura**

Adimenaz ikusten du **trazu** idatziek edo sentimenek adierazi dioten esanahia. **Imanol Unzurrunzaga**

Guti iraun nuen, ordea, maisu italiarraren marrazkien **trazu** trebeei begira. **Aingeru Epaltza**

Banakako **trazuak** diren monogramekin. **Ibon Uribarri**

Pintoreek lehen **trazuan** pintatzen dutenean bezala. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Ez dago esan beharrik luma-**trazu** bakar batez egin duela dena. **Itziar Otegi**

3 irud/hed

Liburua **trazu** lodiaren aurkako aldarri ozena da. **Berria - Kultura**

Bizitza ez da **trazu** lodiz osatutako koadro zatarrak, pintzelkada txiki eta zehatzet osatutako koadro oso konplexua baizik. **Berria - Kultura**

Funtzio enuntziatzaileari berez dagokion **trazuetak** bat da, bera deskribatzea baimentzen duena. **Xabier Arregi**

Deskribatzearen, **trazu** bereizgarrietan eratzearen, ezaugarritzearen eta sailkatzearen artean dagoen harremana eta menpetasun-jokoa. **Xabier Arregi**

trebaera *iz* trebakuntza.

Orrialdeotan ikusi dugun eguraldi-gizon eta -emakumeen **trebaeraren** lekuko, hara hemen bertso sorta eder hau. **Pello Zabala**

trebaketa **1** *iz* trebakuntza.

Erresuma Batuan esku bertualak sortu dituzte erizainak **trebaketan** laguntzeko. **Berria - Gaiak**

Goizeko 9-etarik 10-ak arte elgarren arteko **trebaketa** eginen dute. **Herria**

Txinan egingo diren **trebaketetan**, itsasontziak eta hegazkinak ere erabiliko dituzte. **Berria - Mundua**

2 (hitz elkartuetan)

Abuztutik NATOK 40 pertsonaz osatutako taldea dauka **trebaketa** lanetan Iraken. **Berria - Mundua**

Beraz, horrelako politikak ezartzekotan, beharrezkoa da hezkuntza, heziketa eta **trebaketa** politikei ere arreta handia eskaintzea. **Iñaki Heras**

trebakuntza (**228** agerraldi, **25** liburu eta **132** artikulutan) **1** *iz* trebatzea.

Ez dago froga sinesgarriarik oroiarena **trebakuntzaz** edo ariketa bidez hobetu daitekeela erakusten duenik. **Irene Aldasoro**

Laugarren mendean, anakoreta izateko **trebakuntzak** martiri izateko **trebakuntza** ordeztu zuenean, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Urtean 40 orduko **trebakuntza** eskainiko zaie suhiltzaileei. **Berria - Ekonomia**

Lehen **trebakuntza** bat eginen da otsailaren 1etik 4erart. **Herria**

Sindikatuak eskola eta **trebakuntzaren** pribatizazioa eta prekarizazioa salatu zituzten. **Berria - Euskal Herria**

Eremu jakin batzuk kontrolatu ahal izateko, armak eta **trebakuntza** jaso dituzte indar publikoen aldetik. **Berria - Mundua**

Gizarte zibilera bueltatzea aukeratzen dutenei lanbide baterako **trebakuntzak** eta bestelako abantailak eskainiko zaizkie. **Berria - Mundua**

1994tik 2001era Lezamako jokalarien **trebakuntzaren** arduraduna izan zen. **Berria - Kirola**

Esperientzien, tekniken eta metodologiaren elkar truke eremu ahal bezain emankor eta aberatsa izan nahi du ACTk, etorkizuneko aktoreen **trebakuntzarako** espazio sendoa.

Berria - Kultura

Billarrean jokatzeko mahai bat, gazteen **trebakuntzarako**. **Felipe Juaristi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Autistek, heziketa eta **trebakuntza** egokia jasotzen badute, dohain asko gara ditzaketela gogorarazi dute. **Berria - Gaiak**

Borrokak gazteen belaunaldira mugatu dira; hauek ez dute inolako **trebakuntza** ideologiko edota politikorik. **Berria - Mundua**

Arma zahar batzuk bageneuzkan, eta **trebakuntza** militarra emateko eskatu genion aspaldiko lagun bati. **Rafa Egiguren**

Sirian **trebakuntza** militarra jaso zuen bi hilabeteetan. **Berria - Mundua**

Gazteek ez zuten gehiago molde horretan jokatzeko gogorik, ezen **trebakuntza** luze eta boritza galdegiten du, besoak eta zangoak ernarazi behar baitira tresna bakoitzak manatu heinean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hori kendu egin didate, **trebakuntza** jarraikiaren beharrik ez bagenu bezala. **Berria - Harian**

Etengabeko **trebakuntza** kudeatzen duen EAEko fundazioa da *Hobetuz*. **Berria - Ekonomia**

Alor berezi honetan jarduteko berariazko **trebakuntza** izan beharko du. **Berria - Euskal Herria**

Ezinduentzako lanerako sarbidea, lanerako **trebakuntza**, bereziki luzaroan langabezia direnentzat. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hemen nirekin bildu zaretenoi, hezkuntza eta **trebakuntza** sasoiari zaudetela kontuan hartuz, lizentzia hori eman ez ezik aginduz ere agintzen dizuet arinkeriak esandako baieztapenak behin eta berriz aztertzeko. Imanol Unzurrunzaga

Trebakuntza lanak bidaiaren segurtasuna bermatzeko egin behar direla gaineratu zuen lehen ministroak. Berria - Mundua

Alfabetatze planak, laguntzarik gabeko milioika pertsonentzako dohako osasun zerbitzuak (Kubaren laguntzak), **trebakuntza** programak [...]. Berria - Mundua

Langileak derrigorrez joan beharko du **trebakuntza** ikastaroetara. Berria - Ekonomia

Hemisferio batean erregistraturiko oroimen-arrastoak ez zirela bestera transferitu, **trebakuntza** -saioretan garunaren bi erdiak aktibatuturik egon balira gertatuko zen bezala. Irene Aldasoro

SSen ardurapean badago ere, ez da kuartela edo **trebakuntza** eskola. Alberto Ladrón Arana

Trebakuntza eta garapen zentro berria. Berria - Ekonomia

Marokoar bat eta bi frantziar epaituko dituzte Afganistanen talibanen **trebakuntza** guneetan ikastaroak egin izana [...] leporatuta. Berria - Mundua

Israelgo **trebakuntza** zelai batean beste bi artzain beduino hil ziren bonba bat lehertzean. Berria - Mundua

Al Kaedako **trebakuntza** eremu bateko irudiak. Berria - Mundua

Hiru ardatz nagusi izango ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta **Trebakuntza** Sailak martxoan abiatuko duen 2006-2010 Plan Estrategikoak. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ibaialde elkartearen egoitzan, arraun **trebakuntzen** ondotik, sagarno xorta bat hartzearekin, gorputzak hatsa hartzen du eta izpiritua uste gabetarik bezala abiatzen da han harat, abentura gose. Herria

Unibertsitateko fonetikazko eskoletan [...] fonetikariaren belarri-**trebakuntza** lantzen da. Lourdes Oñederra

Bere apaiz **trebakuntza** herri kokorren batean egin behar, eta Beizamara destinatatu zuten. Pello Zabala

Gizadiako jende xeheak gidariei jarraituko diela ziurtatzeko "gizarte-**trebakuntza**" gisa. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

enplegu eta trebakuntza (9); **hezkuntza eta trebakuntza** (3); **lan eta trebakuntza** (18); **langileen trebakuntza** (3); **segurtasun indarren trebakuntza** (3)

trebakuntza diputatu (6); **trebakuntza diputatua** (5); **trebakuntza diputatuak** (4); **trebakuntza diputatuaren** (3); **trebakuntza eremu** (3); **trebakuntza foru** (4); **trebakuntza mailan** (3); **trebakuntza sailak** (3); **trebakuntza saioa** (3)

trebakuntzarik gabe (3)

trebalari iz prestatzailea.

35 ontzari erosiak izan dira, arraunlariak estatuko hoberenen erronkan kokatzen dira, kirolari guztien beharrei ihardesteko badira 12 **trebalari** diplomatuak eta berrogei arraunlari aitzinara ateratzen direnak. Herria

trebaldi iz trebatze aldia.

Trebaldi militar hauek Kuroiedov almirantearen agintaritzapean egin ziren eta hauen karietara zen 'Piotr Veliki' gerra ontzian egon. Berria - Mundua

Jende ugari bildu zen Maule hiriak aurten emango duen 'Antso Handia' pastoralaren lehen **trebaldirako**. Berria - Kultura

trebaleku iz trebatzeko lekua.

Herri-administrazio erromatarra, Mendebaldeko Kristandadea sortu zuten hiru elizgizon handiren **trebaleku**. Iñaki Mendiguren

trebantzia 1 iz trebetasuna.

Trebantzia haundiko pilotaria da azkaindarra, dituen ahalekin, eta esperientzia luzea duena. Herria

Gasatea bero halere, joan nausi, nahiz ez beti hain junto, 27-30 eta 30-33, beti lanjerean zauden irabazlea, haatik bote falta bat tenore txarrean eta horra nola xantza utzi dion garaztararen **trebantziari** bururat heltzeko. Herria

Nork du Xabi garaztarrek eta Jean Mixel gereziatarrek bezalako **trebantzia** bildua, hainbeste partida elgarrekin jokaturik gainera? Herria

Jadanik baginuen Pierre Lacabe 16 urteko mutiko gasatea **trebantzia** handienarekin zenbait denbora hautan gure origina dabilana. Herria

2 familiartasuna, barrukotasuna.

Trebantziak mintzatzerantz entseatu nintzaion, lagun baten kumeari zor zaionez, baina saioa erdi ustel atera zitzaidan. Aingeru Epaltza

trebarazi, trebaraz, trebarazten du ad trebatzera behartu.

Abagune honetarako **trebarazi** gaituzte, behin eta birritan, baina, hala eta guztiz ere, baldreski moldatu gara gas maskarekin, trakets oso, gure heriosuharrean. Mirentxu Larrañaga

Bapateko bertsularitzan gai direnak **trebaraztea**. Herria

Erakasleek erran behar leikeie haurrer, hitzak erdaraz ützüli entelegatzen ez dütüen ikasleer, eta hobeki orano eüskaraz **trebarazi**. Herria

trebatu, treba, trebatzen (orobat *trebetu g.er.*) 1 da/du ad trebe bihurtu, trebetasuna hartu edo eman.

Geroago, bere lanbidean fin-fin **trebatu** zen. Juan Garzia

Bertan Latinoamerikako hamaika militar **trebatu** zituzten. Berria - Mundua

Dozenaka gazte afganistandar **trebatzen** ari gara. Berria - Mundua

Jainko Jaunak hitz egiteko **trebatu** nau, bihotz-eroriak adore-hitzez bizkor ditzadan. Elizen arteko biblia

Bedeinkatua Jauna, ene Jainkoa, eskuak gudurako **trebatzen** dizkidana. Askoren artean

Ehun mila gudari oinezko, hogeita mila zaldizko eta gudurako **trebaturiko** hogeita hamar elefante zituen erregeak bere gudarostean. Elizen arteko biblia

Beste gisako jolasak, horiek baitute ez bakarrik jendea dostatzen, baina ere gerlako eta beste ariketa ederragoetako **trebatzen**. Piarres Xarriton

Gizon hezi eta jadanik beteginek, Legea ikasten **trebatuak** baina, esan dudana bezala, alderriak sentitzen direnek, onura kapitulu guztiei aterako diete. Xabier Kintana

Jakinarazten dizuet deaburik handien eta maltzurrenetako batzuk bidaliko zaizkiola anai Bernardori, bertutean **trebatzeko**, atsekabe eta tentaldi ugari eragingo diotenak. Askoren artean

Ba ote da euskaldunik Polonian, hango hizkuntzan **trebatzera** joanik? Herria

Masaje terapeutikoan **trebatu** zen, eta laster lortu zuen lana YMCA-n. Xabier Olarra

Bere burua arkitektozat aitortzen duen orok bi gauzetan egon beharko du **trebatua**. Santiago Iruetagoiena

Bestelako xarmetan daude **trebatuak**. Koldo Izagirre

Bertzetik zen lantzarekin, baleztarekin edo ezpatarekin **trebatzeko** eskola. Aingeru Epaltza
Une honetan, beste bat da nire kezka: Tetrarekin **trebatzen** jarraitzea. Iban Zaldua
Belarriak **trebaturik** zeuden zenbait ñabardura atzematera. Juan Garzia
Osakidetzako langileak euskaraz **trebatzeko** lana prestatu dute. Berria - Euskal Herria
Piarres Charritton-ekin ainitz **trebatu** niz euskaraz. Menane Oxandabaratz
Izkribatzaile **trebatu** gabe baten lana zen nabarmen. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Profesional baten begirada **trebatuarekin**. Matías Múgica
Bibloseko artisau **trebatuenak** zenituen zeure itsas artz; itsas ontzi guztietako marinelek erosten zizuten merkantzia. Elizen arteko biblia
Emakume guztiz ohitu eta **trebatu** baten atsegintasunak. Jon Muñoz
Emakumeek, gizonaz kezkatzeke, jotzen segitu dute, gero eta alaiago jo ere, gero eta hatzak **trebatuago**. Felipe Juaristi
Hasiberrientzat ezinezko gertatzen denak inolako zailtasunik ez du **trebatuentzat**. Joan Mari Lekuona
Begirale eskuzabalago eta psikologian **trebatuago** bat. ibaia inguratzen zuen itzal lodia zulatzen saiatzen zen bere begi **trebatu-trebatuekin**. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi pilotari trebatu (3); **ondo trebatu** (3); **ongi trebatu** (3); **pilotari trebatu** (7)
trebatu beharra (3)
aski trebatua (5)
gazteak trebatzeko (3); **segurtasun indarrak trebatzeko** (5); **trebatzeko aukera** (6); **trebatzeko erabiltzen** (3)
txakurrak trebatzen (4)

trebatuxago ik trebatuxe.

trebatuxe ik trebatu. *pred* zerbait trebatu.

Ez nahi orduko, baina **trebatuxe** gara jada hainbat eritasunetarako joera neurtzen; zenbait minbizi motaren kasuan, kasurako. Juan Garzia
Irabazleak hemen, Dardy bereziki, **trebatuxago** ziren. Herria

trebatzaile (*orobat trebazale g.er., eta trebetzaile g.er.*) iz trebatzen duen pertsona.

Sindikatuak esan dute dirua eta **trebatzaileak** behar direla euskalduntze plana betetzeko. Berria - Euskal Herria
Agerizkoa da belaunaldi berriek maskaradak egitearen lekukoa hartzen dutela, aurrekoetan jardun zutenak irakasle edo **trebatzaile** dauzkatela. Berria - Kultura
Saudiarren **trebatzaile** ziren AEBetako bost militar eta bi indiar hil ziren. Berria - Mundua
Javier Clemente du Bilboko Athletic-ek **trebatzaile** berria, Jose Luis Mendilibarren ordainez. Herria
Gora gure neska pilotariak, horien **trebatzaileak**, eta segitzaileak. Herria
Azkenean Frazieren **trebatzaileak** borroka geldiarazi zuen. Ramuntxo Etxeberrri
Administrazio ataletan **trebatzaileen** falta igartzen dute sindikatuak. Berria - Euskal Herria
Ekipa horren giderra hartu dü kanpotik horra den Alain Bretos **trebazale** berriak. Herria
2004-06-08: AEBetako **trebatzaile** militar bat hil zuten. Berria - Mundua

trebatze 1 iz trebe bihurtzea, trebetasuna hartu edo ematea.

Horrek, **trebatzea** eskatzen du, irizpide jakin batzuen arabera behin eta berriz saiatzea. Han, Kodari herritik abiatu, hamar eguneko **trebatzea** eginen dute, 4000 metra inguruko goratasunetan. Askoren artean
Lehenengo Kristau Elizan elite espiritual batek bere gain hartu zuen trebakuntzak (*ascésis*, hemendik "aszetiko") bere izena olinpiar joko eta beste joko heleniko batzuetarako atleten **trebatze** fisikotik hartu zuen. Iñaki Mendiguren
Gobernuak **trebatze** egokia eman behar die atxiloketa guneetan lan egiten dutenei. Berria - Harian
Ezar liteke nolabaiteko paraleloa, ez erabat kapritxosoa, **trebatze** moral eta intelektual horren eta konfuziar klasiko sinikoei buruzko heziketaren artean. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan)

Irakeko segurtasun indar berrien **trebatze** arduradun Tomasz Bak koronel poloniarrek Iraken «nazio mailako matxinada gertatzeko arriskua jada pasatu» dela esan zuen. Berria - Mundua
-Bai, gazteluaren inguruan badira SSen **trebatze** zelai batzuk, baita kontzentrazio esparru tiki bat ere. Alberto Ladron Arana
Trebatze kanpalekuetara bidali zuten, eta itzuli zenean esan zidan engainatu egin zutela. Berria - Harian
Emazte guti daitaie Euskal Herri guzian esku-uskako **trebatze** lanetan ari denik. Herria
Hain juxtu ere, lehengo egunetako **trebatze** ariketetan sekulako lanak eman zizkidan perukutorea tinkatzeak. Aingeru Epaltza
Trebatze denboraldia bururatu bezain laster. Herria
Beren **trebatze**-aldiaren azken eguna iristen zitzaizenean, otordu bikain bat eskaintzen zien Hassanek gudariei. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trebatze zelai (5)

trebatzeke *adlag* trebatu gabe.

Gaitasunik ez dutela irizten badiogu, zertarako eskainiko diegu goi kargurik? [...] **Trebatzeke** daudela pentsatzeak gure kontzientzia zuritzeko balio digu. Berria - Euskal Herria

trebazale ik trebatzaile.

trebe 1 *izond* zerbait ongi eta erraz egiten duena. ikiaio; abil.

Hamazazpi urte inguruko mutil erne eta **trebe** batek. Jose Morales

Emakume lizun eta **trebeak**, plazer hau ez sekula ukatu zuen maitaleei. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Poker-jokalari **trebe** eta porrokatua. **Ramon Saizarbitoria**

Dekoratuzaile **trebe** baten eskua ere nabaria zen. **Migel Angel Mintegi**

Esau ehiztari **trebe** bihurtu zen, oihaneko gizona. **Jose Antonio Mujika**

Hiramek bere zerbitzari batzuk, itsasgizon **trebeak**, bidali zituen ontzietara. **Elizen arteko biblia**

Bordelen bertan [...] Juan Duñabeitia **trebeak** ere *Habana* korreoa ikusi du, eta itsasontzi itzelak askatasuna promes egiten diola begitandu zaio. **Edorta Jimenez**

Neskame frantses **trebe** batek gauza harrigarriak egin zituzten istant batean. **Antton Olano**

Zerbitzari **trebeak** erregearen onespina du, duin ez denak haren haserrea. **Elizen arteko biblia**

Piano-jotzailerik **trebeena** bezain ongi jo dezake lehenbizikoan edozein pieza. **Xabier Olarra**

Sar ezazue A sailean, 853 ziegan, droga trafikatuzaile labana erabiltzaile **trebe** haiekin. **Itxaro Borda**

Esku **trebea** nabari zaio, batik bat, pertsonaien arteko elkarrizketak josterakoan nahiz istorioak eta pasadizoak kontatzerakoan. **Berria - Kultura**

Gizonak poliki-poliki, esku **trebez**, lasaitu egin du. **Juan Martin Elexpuru**

Ez naiz sekula oso igarle **trebea** izan. **Berria - Harian**

Bere mihi txit **trebeak** zakilburua lantzen zidan beste inork inoiz ez bezala. **Juan Martin Elexpuru**

Suge **trebeen** antzera lerratuz. **Itxaro Borda**

Dialektika **trebea**. **Berria - Euskal Herria**

2 (predikatu gisa)

Lanpostu horretan egin beharko duen langintzan **trebe** izatea eskatzen zaio: ofizioa menderatzea, alegia. **Joxerra Garzia**

Laurehun mila gudari ziren, ezpata erabiltzen **trebeak**. Badira gizakiak oso **trebeak** direnak irudimenezko praktketan. **Elizen arteko biblia**

Berehala igartzen zen lurjabea ezinago **trebea** zela. **Jose Morales**

Badakizu gure artean ez dela inor sidondarrak bezain **trebe** zuhaitz botatzen. **Elizen arteko biblia**

Ez zen halakorik gertatu, ordea, kapitain **trebea** baitzen Iraurgikoa. **Felipe Juaristi**

Ingelesak ez baitira ingelesa ulertzen **trebeak**. **Ramon Saizarbitoria**

Konturatuta zegoen, ordea [...] **trebeagoa** zela, dirua irabazten baino, hari eusten. **Juan Garzia**

Bera zen polizien aurka edozer aurkitzeko **trebeena**. **Itxaro Borda**

Gure amaren anaia zen, gizon lasaia eta **trebea** bere lanean. **Pello Lizarralde**

Rieti hirira joan zen, han gaitz hura sendatzen oso **trebea** zen espezialista bat omen zegoela eta. **Askoren artean**

Horko 42 langileak arras **trebeak** dira. **Herria**

Indarrak neurtze bat, kontura-jauste bat, maila bat gora, adoretuago eta **trebeago** bilakatzen zaituena. **Juan Garzia**

Trebeetan trebe nauzue arkuena tenkatu eta geziak jaurtitzen. **Juan Kruz Igerabide**

Adarbakoitza izutia, azkarra eta ihes egiten **trebea** omen zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ekintza ausarta eta **trebea** izan zen. **Txema Ramirez de la Piscina**

Letra-gizona izan beharko du, lapitzarekin **trebea**, geometriari jantzia. **Santiago Iruretagoiena**

Jaunaren zerbitzariak, ordea, ez du sesiotan ibili behar, baizik eta bihozbera izan guztientzat, irakasteko **trebe**, jasankor. **Elizen arteko biblia**

Erizain tituluduna zen Wilmarth andereñoa, miragarriro **trebea**, ziuerra, eta patxadatsua eta nekazaria. **Mirentxu Larrañaga**

3 (adizlagun gisa) ik **trebeki**.

Lakioak behar ziren lekuetan jartzen-eta, hots, ni bezalako txoriak harrapatzen, abadea **trebe** hezia zen. Fin eta **trebe** mintzatu haiz, beti bezala. **Edorta Jimenez**

Beraz, bere asmoak egokiera hartara **trebe** moldaturik, hiru laidoztatuei erran zien: [...]. **Jon Muñoz**

Trebe sakatu zuen bertan irina, eta ezkerrekin ura botatzen ziola osatu zuen orea. **Anton Garikano**

Zapategian **trebe** aritzen zen, Tomas Atondoren itzal jeloskorrek parada ematen zionean. **Aingeru Epaltza**

Erromesak, ordea, erraz eusten die piztiei urrutu, makila **trebe** erabilia. **Martin Anso**

Zeren azken buruan, jauna, **trebe** ibiliagatik, nik ulertzen dudana nago ulertzen ahal dutela bertzeek ere. **Jon Muñoz**

Literatur kritikan ez habil oso **trebe**, adiskide maitea. **Antton Olano**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

-Oso adeitsua eta atsegina da -jarraitu zuen Txixikovek-; eta esku- **trebea**, alajaina! **Jose Morales**

5 (norbaitekin) trebetasuna duena, barrukoa, mamia.

Herritarrekin Xalbat baitzinen hain **trebe**. **Herria**

6 **trebe-uste izond**

Non-nahi baziren mintzaldiak block-etan, eta estrategia militarrean **trebe-usteek** gerla briu-brau finitzen zuten, bakoitzak bere gisara jana xuhurrago izanik ere, esperantzak barnea goxatzen zuen. **Marzel Etxehandi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aski **trebe** (5); bezain **trebe** (6); biolin jotzaile **trebe** (6); biziki **trebe** (10); gazte **trebe** (3); gudari **trebe** (3); izigarri **trebe** (3); jotzaile **trebe** (6); langile **trebe** (3); musikari **trebe** (4); oso **trebe** (8)

trebe agertu (3); **trebe** ari izan (3); **trebe** baino **trebeago** (4); **trebe** bihurtu (6); **trebe** da (3); **trebe** diren (9); **trebe** egin (4); **trebe** izan (7); **trebe** izatea (3); **trebe** **trebea** (3); **trebe** **trebeak** (5)

arras **trebea** (4); aurrelari **trebea** (6); ausarta eta **trebea** (3); bezain **trebea** (8); biziki **trebea** (3); ehiztari **trebea** (5); etapa ehiztari **trebea** (4); gizon **trebea** (3); hizlari **trebea** (9); idazle **trebea** (4); igerilari **trebea** (3); jokalar **trebea** (3); kontalari **trebea** (3); mintzalari **trebea** (3); musikari **trebea** (5); ona eta **trebea** (3); oso **trebea** (29); oso **trebea** zen (4); pilotari **trebea** (4); sakatzaile **trebea** (6)

trebe **trebea** (3); **trebea** baitzen (8); **trebea** da (57); **trebea** da oso (5); **trebea** dela erakutsi (3); **trebea** den (5); **trebea** izan (24); **trebea** izana (3); **trebea** omen (5); **trebea** zen (24)

zirujau **trebea** (3)

trebe baino **trebeago** (4)

ezin **trebeagoa** (10); ezpatari ezin **trebeagoa** (3)

antzerkilari **trebeak** (3); arras **trebeak** (3); aurrelari **trebeak** (5); bezain **trebeak** (3); ehiztari **trebeak** (3); esku **trebeak** (3); gazte **trebeak** (4); itsasgizon **trebeak** (3); jokalar **trebeak** (4); langile **trebeak** (3); musikari **trebeak** (7); oso **trebeak** (18); **trebe** **trebeak** (5)

trebeak izan (6); **trebeak** izaten (3)

esku **trebeek** (7); musikari **trebeek** (3)

gizon **treberik** (3)

trebede iz su gainean zartaginak edo ontziak jartzeko tresna, hiru oin dituen uztai edo hiruki burdinazko batek osatua.

Nire amaren josteko gelako jantzi guztiak hartu eta airean bota zituen, manikiei ostikoak jo zizkien, eta manikiek hara eta hona egiten zuten salto **trebedeen** gainean, erori gabe, baina ostiko haiekin alde guztietara egiten zuten salto aske dauden eroak bezala. **Pello Lizarralde**

trebeki iz letratasunez. ik trebe 3.

Bakoitza bere sailean, **trebeki** eta serioSKI ari ziren, edo zerbait ezin bururaturaz, edo egina ezin salduz. Daniel Landart
Tinko estutzen zizkidan bularrak, eta **trebeki** mugitzen zen nire titiburuak atximurtzen zituen bitartean. Juan Martin Elexpuru
Haur loak hartua **trebeki** Chandler Txikiri besoetan jarri eta esan zion: [...]. Irene Aldasoro
Kanta hari kantu berria, jo **trebeki** eta egin irrintzi. Elizen arteko biblia
Oro har eleberrri ona da, txukun idatzia eta **trebeki** kontatua. Berria - Kultura
Hanka bat bestearen azpian **trebeki** tolesturik. Jose Morales
Aldi berean suspentsiboa eta probidentziala den ondorio honek ahalbidetzen digu, plano narratiboa **trebeki** aldatuz, Raimundo Silva zuzentzailearengana itzultzea. Jon Alonso
Hain **trebeki** ordenatuta zegoen maletari begiratu zion. Ibon Uribarri
Kale bat eraiki zuen oso zabalera handikoa, eta haren erdian Mausoleoa egin zuen, eta hain **trebeki** egin ere, non munduko zazpi mirarien artean izendatzen baita. Santiago Iruetagoiena
Nolabait errateko, Otto isilak bere sukaldean bezain **trebeki** erabili omen zuen labana Vartsoviako ghettoan. Alberto Ladrón Arana
Sutearen ondoan belaukatu nintzen, *Ouest France* egunkariaren ale zahar **trebeki** purtzilikatu batzuk tximinian ezartzeko. Itxaro Borda

trebes 1 *adlag* zeharka. ik *trabes*⁴.

Bat-batean sasi batetik gizon bat ateratzen da eta bidean **trebes** jartzen, besoak kurutzean. Michel Oronoz
Herri gehienetan, ez baitzen haatik Nafarroako gobernu lo, ezarri zuten, bidean **trebes**, gatina edo kate bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Zaintzaile limurgaitz gogorra; bere txikitasunetik epaile handi, zehatz-zorrotz eta fantasiarik gabea; makila bat, alegia, ekoizpenaren gurpil artean **trebes**. Juan Garzia
Eskuak gerrian, zango bat zuzen eta bestea plegaturik, txapela buruan **trebes**. Itxaro Borda
Bide hori, mendian **trebes**, ehun aldiz egina dut. Elena Touyarou
Herria setiatu zuenean, bi gizonen hilotzak, barrabilak ahoan **trebes**, egurrean gurutzefikatuak kausitu zituzten. Itxaro Borda

2 irud/hed

Hasi zuen azken hitza zintzurrean **trebes** gelditu zitzaion. Daniel Landart
Bihurri eta **trebes** jaiotzen denak, halaxe dirau: sei urterekin gezurra esaten dizunak, hamaseirekin eta hirurogeirekin ere berdin esango dizu. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Haietako batean, zeinari **trebes**-igeri isil harengatixe "Itsaspeko Baita" esaten baitzitaion, ni bizi nintzen. Juan Garzia

4 (izenondo gisa)

Argi **trebes** eta mugikor bat zuen begietan, zilarbiziarena berarena bezalakoa. Juan Garzia

5 *trebesean adlag*

Izan ere, handik hogei metrora, aurreko gurpilek leher egiten dute eta autoa **trebesean** gelditzen da bide erdian, Montrolen autoari bidea eragotziz. Javi Cillero

6 *trebeseko izond*

Ez daitezen lehert bi mendi parteak, badira zubi bezala utziak, harria ingurutik janik, zoragarriko zutikakoak eta **trebesekoak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bidean trebes (6); **buruan trebes** (3)

trebesa ik *trabesa*.

trebesarazi, trebesaraz, trebesarazten du *ad* zeharkarazi.

Launazka lerroan ezarririk, hiria **trebesarazi** ziguten bi edo hiru kilometrotan, Royalieu kasernara arte. Marzel Etxehandi

trebesatu (*26 agerraldi, 4 liburu eta 11 artikulutan; orobat *trebestu g.er.**), trebesa, trebesatzen 1 du *ad* zeharkatu. ik *trebeskatu*.

Frantzia guzira **trebesatua** zuen buruan buru, 1200 kilometrotan, ez baitzen guti, jakinez beste 800 behar zituela egin oraino Espainian gaindi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Gero Nevada **trebesatu**-eta Utah estadoan sartu gira. Herria
Itsaso Ozeanoan egunak eta egunak iragan behar dira, uharte eta herrialde anitz **trebesatu** ere, hegoari buruz. Aurelia Arkotxa
Oise ibaiaren gaineko zubia **trebesatu** genuen, hirian sartu, eta geltokira buruz zeharkatu ginen. Marzel Etxehandi
Bidea **trebesatzera** aski zitzaion etxeratzeko. Herria
Mugaz bestaldean, bada gune bat anitzez hobea zeinetarik erreka **trebesatzen** ahal baita puskan aiseago Arnegi zaharrera, oraingo zubia bere gisa utziz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Ez zen batere errex muga berri horren **trebesatzera**, alemanak zain egoiten baitziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 irud/hed

Eta egunaz gutiago oraino, argiak gaua **trebesatzen** baitu, iluna desagerrarazten, ilunbea argi bilakarazten. Michel Oronoz

trebeseko ik *trebes* 6.

trebeska (*22 agerraldi, 6 liburu eta 11 artikulutan*) 1 *adlag* zeharka. ik *trabeska*; *trebes*.

Muru gorenek ez dute gehiago teilturik atxikitzen, zutarte guziak eroriak dira, salbu pitrail bat edo beste, oraino **trebeska** daudenak, suak eta eguzkiak beltzatuak. Michel Oronoz
Oinez ibiltzeko Pirineotan **trebeska**, behar da osasun edo osagarri azkarrekoa izan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Espainian zegoenean, arrats guziez mutil bat etzaten zen atearen gibelean **trebeska**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Eiheratik **trebeska** jinez Luzaide aldera, badira zernahi harresi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Bet betan apezten erdian huna gizon bat, xuriz bezi, apezak bezala, bainan estola **trebeska**. Herria
Kasketa **trebeska**, zigarreta ezpain punttan eta omore ona denetan! Herria

2 irud/hed

Bada garaia ahantz dezazun, eta zure ehunari kasu eman diezaiozun, dena **trebeska** ateratzen ari zaizu eta! [Elena Touyarou](#)

Ohar haiek oraino ere zintzurtean **trebeska** geldituak zaizkio. [Eneko Bidegain](#)

Larrereren orduko hautua zintzurtean **trebeska** daukate oraino Hazparneko abertzaleek. [Berria - Euskal Herria](#)

-Aristokrata madarikatu horiek eta egiazko deabru-semeak diren apezak beti **trebeska** ditiagu! -gehitu zuen gizonak, berriz sutan-. [Elena Touyarou](#)

3 trebeskako izlag

Horregatik, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren ustetan, gai garrantzitsuetan beharrezkoak dira « **trebeskako** akordioak » abertzaleen eta abertzale ez direnen artean. [Berria - Euskal Herria](#)

trebeskakotasun iz trebeskako denaren nolakotasuna.

Estatutu Berrirako Proposamenak batu beharrean, zaitu egiten duela adierazi zuen Luesmak, eta herria « **trebeskakotasunez** » eraiki behar dela. [Berria - Euskal Herria](#)

trebeskari izond trebeskatzen duena.

Pierra so geratu zen: han, euri **trebeskariak** teiltuak eta loiroa astintzen zituela, buhame taldeak sua atixatu zuen. [Itxaro Borda](#)

trebeskatu, trebeska, trebeskatzen (25 agerraldi, 4 liburu eta 13 artikulutan) du ad zeharkatu. ik trebesatu; trabeskatu.

Mendozatik Xilerat buruz joan gira, 80 kilometra egun baten gustuz eginez, Andesetako Mendikatea **trebeskatuz**. [Herria](#)

Moissac-etik jo aitzina oraino aste batez, Gers departamenduan gaindi, eguzki-lore eremu zabalak **trebeskatuz**, Lectoure, Condom, Eauze, Landesetako Aire sur l'Adour, hemen aldiz armañakaren lurraldea, helduz Biarnoko Arzacq herrirat. [Herria](#)

Patagonia muturretik, Australiako bush hartan barna, Tizi Ouzouko eremu gorriak **trebeskatuz**, Mongoliako estepetaraino, ahantzi gabe Bardeak eta Saharako Peulen bideak, guztiak ama ezeztatuen haurrak ginen, arrotz izatearen bildots eraldatuak. [Itxaro Borda](#)

Ikusiz Errobiko urek laborantza guneak **trebeskatzen** dituztela, ez dea harrigarri hain nitrato guti izan dezaten? [Herria](#)

Plan horren ideia nagusia hauxe da: herria **trebeskatzen** duen errepidea, Ametzondoko zolatik eta Herriko Etxea iragan arte, egiazko hiribarne bat bilaka dadin. [Herria](#)

Bi sunpur hertsiz osatu zubitik **trebeskatu** zuen ibaia. [Itxaro Borda](#)

Rochechouart etorbide zabala **trebeskatu** nuela, [...]. [Itxaro Borda](#)

trebeslari ik trabesalari.

trebestu ik trebesatu.

trebetasun (458 agerraldi, 106 liburu eta 84 artikulutan) 1 iz trebea denaren nolakotasuna; zerbait trebeki egiteko gaitasuna.

Baldin aski trebe eta arduratsu bahintz, manu hau aski izan beharko huke; baina **trebetasuna** eta ardura ordezkatzeko, dirua igortzen diat. [Jon Muñoz](#)

Berebiziko espiritua, ezaguera eta **trebetasuna** ditu ametsen esanahia argitzeko. [Elizen arteko biblia](#)

Haien dantza egiteko dotorezia eta haien ezpata manaiatzeko **trebetasuna**. [Joan Mari Irigoien](#)

Beren **trebetasun** eta kemenari esker jabetuak ziren herrialde hartaz guztiaz. [Elizen arteko biblia](#)

Haien **trebetasuna** bidaia zoragarri hauek kanoa ireki hauskorretan egitea izan zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Damu dut ohoien **trebetasuna** ez izana. [Jon Muñoz](#)

Gure erresuman inor gutxi dik **trebetasun** hori. [Jose Morales](#)

Ez baitakit ni **trebetasun** horren jabe naizen. [Ibon Uribarri](#)

Honezkeroko ohartuko zinen nolako **trebetasunaz** erabiltzen duen idazluma. [Jose Morales](#)

Horiei ez baitzitzaien falta ez **trebetasunik**, ez talenturik eta ezta arterik ere. [Santiago Iruretagoiena](#)

Joko horretan ere behar da denbora, doi bat berederen **trebetasun** biitzeko. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Informatikan, erabiltzaile mailako **trebetasuna**. [Herria](#)

2 (pluralean)

Guri iruditzen zaigu badaudela ikastea merezi duten **trebetasunak**. [Iñaki Mendiguren](#)

PISA programan irakurketa, matematika, zientzia eta buruketak askatzeko **trebetasunak** neurtzen dira. [Berria - Euskal Herria](#)

Gure **trebetasunek** baino askoz gehiago, gure aukerak erakusten dute benetan zer garen. [Iñaki Mendiguren](#)

Badira beste **trebetasun** batzuk helburu bera lortzeko. [Xabier Olarra](#)

Zientzia baten asmoa eskolako adigaien arabera determinatzen dut, bera hautazko helburu jakinetarako ditugun **trebetasunetako** bat soilik balitz bezala begiztatzen denean. [Ibon Uribarri](#)

Savanten **trebetasunek** ba ote dute antzik normalenekin? [Xabier Olarra](#)

Artistak, forma menderatzen duela, teknikazko **trebetasun** guztien jabe dela frogatu ahal izan duelarik [...]. [Josu Zabaleta](#)

Ohartu gira arras miserian bizi direlarik ba dituztela gaitzeko **trebetasunak** dendaritzan. [Herria](#)

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Trebetasun miragarria zuen forma abstraktuak ezagutzeko eta ikusmenezko analisirako. [Xabier Olarra](#)

Hain omen zuen **"trebetasun** txundigarria katu-irudiak marrazteko, non "katuen Rafael" deitzen baitzioten". [Xabier Olarra](#)

Trebetasun mentala edo estrategia jokoak. [Berria - Kirola](#)

Esperientzia handia izateaz gainera, talentu argia eta **trebetasun** tekniko handia izatea. [Santiago Iruretagoiena](#)

Diru publikoak eskuratzeko maisutasun eta **trebetasun** handia baitute. [Pello Salaburu](#)

Gero, oso azkar, **trebetasun** handiz, zauriaren ertzak josi, eta, nylonezko puntada bakoitzean, bost korapilo egin zituen. [Xabier Olarra](#)

Bi damek hain **trebetasun** handiz matazatu zitoen burua jendeari, ezen denak -eta bereziki funtzionarioak- durduzaturik geratu baitziren puska batean. [Jose Morales](#)

Zaldiz bazihoan **trebetasun** haundirekin; ezkerria zen. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Esan behar da **trebetasun** eta adimen zorrotza erakutsi zituztela gauza horietarako. [Santiago Iruretagoiena](#)

Handitu egin zuen hasierako diru-kopurua urte hartan bertan, ezohiko **trebetasuna** erakutsiz. [Jose Morales](#)

Behaketaren behaketaz eta berezko **trebetasunari** esker nabarmendu zen bere lanbidean. [Patxi Zubizarreta](#)

Nire hizketarako **trebetasunaren** sekulako erakustaldia egiten nuen. **Fernando Rey**

4 (izenondo eta izenlagunekin, pluralean)

Ikasketa hauen helburua ez zen zientzia ezagupenak eskuratzea, baizik **trebetasun** jakin batzuk lortzea gero zuzenean aplikatuko zirenak, behin unibertsitatea utzi ondoren.

Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Logikaren esparrukoa da arazo horiek bizi behar izatea, gaitasun eta **trebetasun** praktikoak garrantzitsuagotzat jotzen direnean balioen lorpena baino. **Anjel Lertxundi**

Ez da egia umEEK oinarritzko **trebetasun** motoreak ez dituztela tximinoek baino goizago eskuratzen. **Jon Arretxe**

Horregatik da, hain zuzen ere, zailago, hizkuntza berriak ikastea edo **trebetasun** berriak bereganatzea adinean aurreratu ahala. **Xabier Olarra**

Berehala erakarri zuen arreta savanten dohainetara eta, oro har, dohain horien eta **trebetasun** berezien nondik-norakoetara. **Xabier Olarra**

Politiki garatzen dute hizkuntza, eta **trebetasun** sozialen oinarriak eta lorpen intelektual handiak bereganatzen dituzte. **Xabier Olarra**

Abantaila ugari ditu zutikako jarrerak -esate baterako, eskuzko **trebetasunak** garatzeko aukera ematen du-. **Irene Aldasoro**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artillereroen **trebetasun** faltagatik ez zuen bere helburua lortzen. **Ramon Saizarbitoria**

Gizakiak noraezekoak ditu **trebetasun** -lanak, bere jatekoak, jantziak eta bizilekua prestatuko balitu, bere izaerak horiek guztiok beharrezkoak ditu eta. **Xabier Kintana**

Hala ere, gaixo haien artean **"trebetasun** uharteak" zeuden, dohain ikusgarriak ere bai tarteka, txikizioaren erdian distiratsu. **Xabier Olarra**

Bentham-en grinak usadioaren ordez zientzia jartzeko, administrazioaz zuen ikuspegiak **trebetasun** -kontua zela, alegia- emaitza erabat pozgarriak izan zituen kasu hartan.

Iñaki Mendiguren

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berrikiago, medikuek deskribatu dituzte gorputz-**trebetasun** harrigarrien jabe diren idiot savant zenbait, erraztasunik handienaz akrobazia eta marka atletiko izugarriak egiteko gauza direnak. **Xabier Olarra**

Traketsa ematen zuen, baina zenbait mugimen-**trebetasun**, nonbait, ia berehala bereganatzen zituen. **Xabier Olarra**

Marratzeko gaitasuna, garai hartako usteen arabera, kontzeptu-ahalmenaren eta hizkuntz **trebetasunen** parean garatzen zen umeengan. **Xabier Olarra**

Komunikazio-**trebetasun** aurreratuak. **Oskar Arana**

Knosos-era ez zen iritsi Dedaloren "bikaintasun"aren ospea baino, eta haren artisau-**trebetasun** apartarena. **Juan Garzia**

Jakinduria zientifikoa eta literatur **trebetasuna** lagun, 112 hizkuntzataraz itzulita dauden obrak idatzi zituen Jules Vernek. **Berria - Harian**

Ez dut deus esan beharrik ihardespenerari dation hitz-**trebetasunaz**. **Juan Garzia**

Isil-**trebetasun** horretatik idazketa soil-soilik ideografikora -esperientzien, eta ez soinuen, komunikazio zuzenera- distantzia ahitezina dago, baina etorkizuna baino laburragoa beti ere. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

giza trebetasun (3); **hain trebetasun handiz** (6); **trebetasun berezia** (4); **trebetasun handia** (8); **trebetasun handiz** (38)

bere trebetasuna (4); **sekulako trebetasuna** (3)

trebetasuna erakusten (4); **trebetasuna erakutsi** (3); **trebetasuna erakutsiz** (3); **trebetasuna izan** (3)

savanten trebetasunak (4)

bere trebetasunaren (3)

trebetasunari esker (5)

gainerako trebetasunekin (3)

trebetsu *izond* trebetasunez bete.

Eta, bere iduri haren edertzeko, bertalalde, zein trebetasun **trebetsuz** ikasi zuen ezpata manaiatzen, Villagrandeko dukearen erranetat! **Joan Mari Irigoien**

trebetu ik trebatu.

trebetzaile ik trebatzaile.

trebezia (*291 agerraldi, 98 liburu eta 93 artikulutan*) 1 iz trebetasuna.

Predikari amoltsu haren karra neure **trebezia** baino hobeki baliatu zitzaidan. **Jon Muñoz**

Nire **trebeziari**, kemenari eta zuhurtziari esker ihes egin genuen orduan. **Juan Kruz Igerabide**

Trebezia baino ausardia gehiagorekin. **Felipe Juaristi**

Jaunarenak dira jakinduria eta ahalmena, berarenak **trebezia** eta zuhurtzia. **Elizen arteko biblia**

Jainkoaren izpirituz bete, jakituria, **trebezia** eta lan guztietarako gaitasuna emanez. **Piarres Aintziart**

Jainkoek batzuei indarra eman ziek, beste batzuei mintzatzeko **trebezia**, besteei edertasuna. **Juan Kruz Igerabide**

Miresgarri zitzaion anfritioiak elkarrizketa bideratzeko zuen **trebezia**. **Irene Aldasoro**

Dakarrak, 2005ean, bidaldia egiteko gaitasuna eta oztopoak gainditzeko **trebezia** sarituko ditu. **Berria - Kirola**

Zuhaitzetara igotzeko **trebezia** zuen tximinoa da *pierolapithecus*-a, ikertzaileen arabera. **Berria - Gaiak**

Hitz egiten **trebeziarik** ez zuen arren, zientziak bete zegoenez, zalantzazko arazoak erabakitzen zituen eta ezkutuko gauzak argitara ekartzen. **Askoren artean**

Nik ordea, sormen literarioarako **trebeziarik** ez dut inoiz izan, aitortu behar dut. **Jon Alonso**

Falta dituzte, hau ere bistakoa da, dotorezia eta imajinazioa, mugimendu fina egiteko talentua, suspentsio jakintsurako **trebezia**, hitz batez, zibilizazioa eta kultura. **Jon Alonso**

Lehen proban, zutikako egurrak ebakitzen duen **trebezia** erakutsi zuen Olasagastik. **Berria - Kirola**

Hatz lodikote haien **trebezia** miretsi ahal izan nuen berriro ere. **Ramon Saizarbitoria**

Mekanikaren gainetik, gidariaren **trebezia** nabarmentzen da Nelson Pique zirkuituan. **Berria - Kirola**

Beethovenen Fidelio operako obertura laburrean sumatu genuen orkestraren **trebezia**. **Berria - Kultura**

Tipiren **trebeziak** zelaitu zizkigun elkarrenganako bideak. **Aingeru Epaltza**

Neure indarrez egin dut hori guztia, neure **trebeziak**, argia bainaiz. **Elizen arteko biblia**

Inazitok **trebeziak** zabaltzen zituen, krik kriz, ate zarratuak. **Joseba Sarrionandia**

2 (pluralean)

Gazte-gaztetatik elkarrizketarako, dantzarako, abesteko eta musika jotzeko prestatzen duten emakumea, eta gero bizibide gisa **trebezia** horiek gizonen bileretan erakusten dituen. **Ibon Urbarri**

Ahozko **trebeziak** lantzen, egoera komunikatibo bat sortzen. **Berria - Kultura**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Trebezia handia behar da harekin, edo, trebeziarik ezean, maltzotasun handia. Jon Muñoz

Nahiz eta zaldia jantzi gabe zegoen, haren gainera igo zen **trebezia** handiz. Bernardo Atxaga

Haien lan-zaletasuna eta **trebezia** bikaina goraiatzaren zuen. Askoren artean

Borreroak, gorpu exekutatuari, hezur guztiak bere lekuan ipintzen dizkio, hala behar denean, osteopata baten **trebezia** harrigarri. Karlos Linazasoro

Orduantxe ohartu zen nolako segada ikaragarrian eroria zen; bere etsaien **trebezia** maltzurra sumatu zuen, eta kalera irteten ahalegindu zen. Josu Zabaleta

Trebezia teknikoaren estimua. Josu Zabaleta

Inguruetan zebiltzan eulitxo eta eltxoak harrapatzeko izugarritzko **trebezia** erakusten zuten. Gotzon Garate

-Arian-arian sekulako **trebezia** hartuko diat. Rafa Egiguren

Nahiz "nekazari zorionsuen" artekoa izan, aparteko **trebezia** zuen autoak ezagutzeko. Bernardo Atxaga

4 (hitz elkartuetan)

Ez bezate, bada, kontatzailearen **trebezia** falta gutxietsi. Ordurako indarra hartua zuen gaitzak, eta, ezer egitekotan, mediku **trebezia** izugarria eta erremedio gogorrenak behar ziren. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere trebezia (8); **beren trebezia** (3); **egiteko trebezia** (4); **idazteko trebezia** (3); **sekulako trebezia** (3)

trebezia erakusteko (3); **trebezia erakusten** (3); **trebezia erakutsi** (4); **trebezia handia** (5); **trebezia handiz** (14); **trebezia zuen** (5)

ahozko trebeziak (5)

ahozko trebeziak (5)

trebeziari esker (4)

bere trebeziak (3)

trebiñar *(orobat trebiñuar)* izlag/iz Trebiño konderrikoa, Trebiñori dagokiona; Trebiñoko herritarra.

EAJk herenegun eta EAK atzo eta Aralar-Zutik, joan den asteburuan, Trebiñu **trebiñarrek** erabakitzen dutena izan dadin lan egingo dutela agindu zuten, konderrira joanda.

Berria - Euskal Herria

Alegia, **trebiñarrak** nahi dutena izango direla Espainiako Gorteek horretarako baimena ematen badiete bakarrik. Berria - Euskal Herria

Trebiñuarren borondateaz gainera, bi komunitate erkidegoen arteko adostasuna beharrezkoa izango da, alde baten erabakia ez baita nahikoa. Berria - Harian

Rafa Larreinaren (EA) ustetan, **trebiñuarrei** erabakitzeko eskubidea ukatzeak «zalantzan jartzen du sistema demokratikoa bera». Berria - Euskal Herria

trebiñuar ik trebiñar.

trebukada iz ipar estropezua.

Azen ontzeko, zangoan **trebukada** bat egin du. Herria

trebukaldi iz ipar estropezua.

Trepelak **trebukaldia** ... /... trenkatu zuen tratuz. Iñaki Arranz

trefla iz ipar hirusta.

Biharamun goizean, emaiten gitu kanpo handi batetarat zointan badiren ainhitz kofoin eta hor dena **trefla** xuri eta gorri da osoki loreturik. Herria

Erleak hor alhatuz ainhiz ezti ateratzen dute eta ber denboran **trefla** hori fekondatzen omen dute hazi ateratzeko izanez. Herria

Angelak gero lau hostotako **trefla** harrapatu zuen eta esku batean hartu, bestearrekin haizearen gatik erori begikoak ozkan jartzen zituela. Itxaro Borda

tregoa *(31 agerraldi, 7 liburu eta 18 artikulutan; orobat tregua 27 agerraldi, 12 liburu eta 8 artikulutan)* 1 iz su-etena, gudu-etena.

Borrokak eteten badira ere, horregatik ezin da bakeaz hitz egin, **tregoa**z baizik. Esteban Antxustegi

Frantzia jaun bakoitzak gerra edo bakea egiten zuenean, erlijioak ematen zituen aldi jakin batzuetan egin beharreko **tregoa**k. Iñaki Iñurrieta

Xiitekiko negoziazioak hasi dira, eta Falujan **tregoa** ez da eten. Berria - Mundua

1974ko abendutik 1976ko urtarrila arte beste **tregoa** bat eskaini zuen IRA Probisionalak, nahiz eta tarteka erasoak gertatu. Berria - Harian

Loialistek ere **tregoa** eman zuten 1994an. Berria - Harian

Korsikako talde armatu nagusiak [...] atzo adierazi zuen iazko azaroan iragarritako **tregoari** eutsi egiten diola. Berria - Mundua

Ezker abertzaleak 1998ko **tregoa**ren albistea loriaren atariko bezala hartu zuen. Txema Ramirez de la Piscina

-Jaungoikoaren **tregoa** -esan zuen On Camillok-. Koldo Biguri

2 (izenlagun eta izenondoeekin)

Hamasek **tregoa** luzea eskaintzeko jarritako baldintza nagusiak hauek dira: [...]. Berria - Mundua

«Eta, **tregua** orokorra» titulatu zuen Frantziako Liberation-ek. Berria - Harian

Kolonbiako Gobernuko ordezkariekin elkarriketa politikoak egiten behin-behineko **tregoa** baieztatu zuen. Berria - Mundua

Aldebakarreko **tregoa**k esan nahi zuen aurreko aurrebaldintza guztiak bazterteza. Berria - Mundua

3 irud/hed

Euroak ez dio **tregoari**k eskaintzen dolarrari eta etengabe gorantz jarraitzen du. Berria - Ekonomia

Hurrengo hiruzpalau egunetan Mattin eta Elbiraren ehizan ibili zen aita, nola azeria oiloaren gibeletik, ezkutuan eta isilpean, **tregoari**k gabe. Joan Mari Irigoien

Txoriek ere **tregua** deklaratu zieten eltxoei iluntzera arte. Joxemari Urteaga

Bankuz banku mugitu arren ez dago **tregoari**k. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan)

Plazer hartu nuen ez uestezko menia edo **tregua** unea eskaintzen zidan lagunaren ahotsaren doinu ezta hautematean. Legeek gerrak bukatzeko edo gerrei aurrea hartzeko inolako bitartekorik ez dutenean, erlijioak bake- edo **tregoa**-aldiak ezartzen ditu, herriak zenbait gauza egin ditzan, hala nola ereitea eta antzeko lanak. Itxaro Borda

tredua ik **tredua**.

trein ik **trein**.

treinbide ik **treinbide**.

trek iz mendi ibilaldi luzea eta ohiko bideetatik egiten ez dena. **iktrekking**.

Motxila ere porlana bezain pisua zaio gaur, **trekaren** seigarren egunean. [Aingeru Epaltza](#)

*Auñamendi Bidaie*n bereizgarrietarik, bereizgarri nagusia ez bada, **trek** bakoitzean sortzen den giro aparta da. [Aingeru Epaltza](#)

Gizonezkoen erabateko nagusitasunak giro txepela ekartzen dio beti **trekari**. [Aingeru Epaltza](#)

Alfonsok inoiz ez zuen pentsatuko **trekeko** gainerako partehartzaileen prestakuntza fisikoa hain negargarria izan zitekeenik. [Aingeru Epaltza](#)

Hartz bakartiaren 24 irudi zenbatuko zituen, **trekeko** taldekide txunditu eta hasieran sinesgabeei topaketaren berri ematean. [Aingeru Epaltza](#)

Gizonak hiru **trek** gehiago gidatu behar ditu, abuztuan, mendebaldeagoko Pirinioetan. [Aingeru Epaltza](#)

trekin ik **trekking**.

trekking (*orobat trekin*) 1 iz mendi ibilaldi luzea eta ohiko bideetatik egiten ez dena. **iktrek**.

Atzo arte, Begoñak bortzetan madarikatua zuen bere opor luzeetako aste bat **trekking** honetan xahutzeko erabakia. [Aingeru Epaltza](#)

Ihardetsi zien semea oporretara joana zela, ez zekiela zuzen nora, baina behin aipatu ziola Nepal herrialdea, eta agian han zegoela **trekking** egiten. [Itxaro Borda](#)

Karakorum-en egon beharrean Pirinioetako camping batean nengoela iruditu zait, hain baita handia K2 zein Broad Peak igotzera edo **trekking** egitera ailegatutako denek osatutako multzo koloretua. [Xabier Montoia](#)

Pixkanaka kontatu dit zein bizimodu lasaia daukaten haran isolatuotan, zelan **trekkingak** antolatzen dituen inguruko mendietatik turista talderen batek eskatzen dionean.

[Jon Arretxe](#)

Udan aldez, **'trekking'** ibilaldi luzeak egiten ditu munduko beste puntako leku zenbaitzuetan: Sahara kameluz, Australiako 'bush' basamortua 4x4 'jeep'-ez, Tanzania oinez, Patagonia motoz, Mongolia zaldiz, Indonesia itsasontziz... [Ramuntxo Etxeberri](#)

2 (hitz elkartuetan)

Konkordiatik bueltan etorritako **trekking** talde ingeles batekin topo egin eta, kontaktu digutenez, arrunt eguraldi txarra izan dute han egon diren artean. [Xabier Montoia](#)

tremendismo 1 iz izugarria dena nabarmentzeko joera.

Zerbait egon daitekeela guztiz ukatu gabe, nonbait edo nolabait egon (hurbiltasun batzuk edo), marxismoaren eta faxismoaren fantasma horiek eduki ditzakete **tremendismo** gutxiagorekin beren esplikazioak, nahikoa sinpleak seguruenak. [Joxe Azurmendi](#)

2 (literaturan)

Tremendismoa duk errealismoaren muturra. [Anjel Lertxundi](#)

Egileak ederki lortzen du gaiaren adar eta inplikazio guztiak islatzea, **tremendismo** errazean jauzi barik eta gaixotasunaren larritasuna ekintzaren erdi-erdian jarriz, mozorrorik gabe. [Berria - Kultura](#)

Hona bigarren nerbio dramatikoak, Agustin izeneko agure armairutxoarena, baserria **tremendismoaren** agertokitizat daukatenean morboa aitzakiarik gabe gizen duko duena.

[Anjel Lertxundi](#)

Tonu-giroz ezin hobeto zetorkidana, testua halako **tremendismo** batez janzteko... [Anjel Lertxundi](#)

tremendista *izond* tremendismoarena, tremendismoari dagokiona.

Frontean bizi eta ikusi izandako hainbat gertakizun **tremendista** kontatuko banizkik! [Anjel Lertxundi](#)

Apokalipsia agertzen da, baina ez Hollywoodeko filmetako irudi **tremendistekin**. [Berria - Kultura](#)

Baserritarasunarekin zer ikusirik duen oro halako alkanfor usain arkadiko batez zein tragedia odoltsu **tremendista** batez blaiturik balego bezala. [Anjel Lertxundi](#)

Horregatik iruditu zitzaizkidan hain barregarri eta sinesgaitzak zenbait nobela amerikar, gaztetxoaren alkoholismoa modu ikaragarri eta **tremendistan** agertarazten zutenak.

[Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Nahiko **tremendistak** gara. [Berria - Kirola](#)

trementina iz pinuei, izeiei, laritzei eta ahuntzadarrei darien erretxin horia eta likatsua, medikuntzan eta industrian erabiltzen dena.

Zerri-koipez gantzutu dut, baita **trementinaz** igurtzi ere. [Jose Morales](#)

Estatuko trenbideetako tailerraren inguru guztiko hesi hura pintatzen ari ginenean pintura loditzen zen bezala, eta gero **trementina** gehitu behar izaten genion. [Fernando Rey](#)

Pintura eta **trementina** usaina zerion gelari. [Koro Navarro](#)

tremes iz birzahizko ogia; gari eta zekale irinezko ogia.

Ogi saltzaile mordo bat aurkitu dut segidan: ogi beltzezko opil borobilak, flamitxeak, **tremesak**, euspeko sorginak, [...]. [Txillardegui](#)

Lurrezko zali zabalak, erretilu handi sakonak, zurezko koilara beltzuak, eta ogi, **tremes** edo artoa edukitzeko otarretxoak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Jakitatzeko eskarmentu zaharraren baserriko ogi eta **tremesa** lehorra ahogozatu ditut. [Pello Zabala](#)

tremolita iz amianto mota.

Egitura eta funtzio ezberdinetako amianto mota ugari dago: antofilita, amosita, kroizidolita, aktinolita eta **tremolita**, adibidez. [Berria - Ekonomia](#)

tremolo 1 iz nota baten errepikapen lasterra.

Elvis Presleyk berak maisuki erabili zuen **tremolo** moduko hura. [Berria - Kultura](#)

2 irud/hed

Bidaiaari ausarten eta bidaiairisa amore-emaileen minorreko akordeen eta kobratzaile diruzalearen **tremolo** marru-antzekoen artean. [Xabier Olarra](#)

tremulo iz dardaratia, ikaratia, dardaratsua.

Gainera, ura, eguzki izpiek joa, egunez bero **tremuloan** dilatzen da; horregatik dauzkan su hazi guztiei jareiten die; sarritan barruan daroan jela uzten, izotza hausten eta korapiloak laxotzen dituen bezala. [Xabier Amuriza](#)

tren (orobat *trein g.er.*) 1 iz gurpil gaineko makinak eta honek herrestan daramatzen bagoiek osaturiko multzoa, errailen gainean ibiltzen dena.

Laurogeita Hamaseigarren Kalean beste **tren** bat hartu behar zuen. [Lopez de Arana](#)

Zazpi t'erdietako **trena** hartuko zuen Atxurin. [Unai Iturriaga](#)

Mosteko arrotik ikatza zekarren **tren** bat zen. [Fernando Rey](#)

Madrilgo Metroko **trenak** CAFek egingo ditu, 520 milioi euroan. [Berria - Ekonomia](#)

Geltokiko burua pozik jarri zen **treneko** nagusia eta langileak berari begira zeudelako. [Fernando Rey](#)

Jende asko zegoen geltokian eta nasetan, nor bere **trenaren** zain. [Anjel Lertxundi](#)

Lekukotasunen arabera, Sinico andrea, trenbidea gurutzatzen hasi zela, Kingstowndik zetorren hamarretako **trenaren** lokomotorrak jo eta bota zuen. [Irene Aldasoro](#)

Trenaren azken bagoia furgoi ireki bat zen. [Fernando Rey](#)

Tren bateko bagoi batetik bestera. [Harkaitz Cano](#)

Sarri izango dituzu **trenak** Triestera. [Anjel Lertxundi](#)

Laugarren egunean, azkenean, **trena** berriz abiatzen da Berlin-i buruz. [Michel Oronoz](#)

Mikel Strogoff **trenera** igo eta eseri egin zen. [Karlos Zabala](#)

Orduantxe ateratzen ari zen **tren** batera igo nintzen. [Fernando Rey](#)

Trenetik jaitsi eta nasako jendetzaren artean nahastu nintzen. [Alberto Ladron Arana](#)

Trenaren lehenbiziko xistu luzeek bidaia hasiko zela seinatu zuten. [Eneko Bidegain](#)

Lehenbiziko aldia zen **trenez** nenbilea. [Alberto Ladron Arana](#)

Ni Zumarragatik nentorren, egun osoa **treanean**. [Pako Aristi](#)

Trena abian jarri zen berriro. [Anjel Lertxundi](#)

Trena ez zen, ordea, berriro abiatzen. [Anjel Lertxundi](#)

Abiadurarik gorenean jarri da une honetantxe **trena**, orduko 140 kilometrotan. [Pako Aristi](#)

Trena badoa aitzina, maiz geldituz. [Marzel Etxehandi](#)

Tren bat ziztu bizian ari zen hurbiltzen bertara. [Mirentxu Larrañaga](#)

Trena gelditzen hasi zen. [Anjel Lertxundi](#)

Biharamunean Sara Vidalek Auschwitzera zihoan **trena** hartu zuen. [Felipe Juaristi](#)

Arratsaldeko hirurak laurden gutxitan beste **tren** bat hartu dut Donibane Garazirako. [Patxi Zubizarreta](#)

-Pariserako **tren** hori zer ordutan abiatuko da? [Unai Iturriaga](#)

Arratsaldeko bostak eta hogeita hemezortzi minutuan abiatuko da Dieppeko **treanean**. [Monika Etxebarria](#)

Utzi egin behar haut, Xabi, bestela **trena** huts egingo diat eta. [Xabier Etxabe](#)

Kasualitatez nengoen etxean, Valentziara irten behar nuen egunsentian putzu batzuk kalkulatzera, baina **trena** huts egina nintzen. [Koldo Izagirre](#)

Nire zain geratu zen geltokian, **trenen** joan-etorriari begira. [Juan Luis Zabala](#)

Altzairuzko xafak zeramatzen **tren** bat burdinbidetik atera zen atzo. [Berria - Euskal Herria](#)

Horrela lortu genituen **tren** guztietarako, transbordoetarako eta itsasontzirako txartelak. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Trenak merkantziak zekartzan Santurtzitik. [Berria - Euskal Herria](#)

-Leon Martyk autoa bota dik berriro **tren** azpira! [Pablo Sastre](#)

Ludhiana ondoan bi **tren** geldiarazi eta 126 lagun hotz-hotzean hil zituzten. [Gotzon Garate](#)

Hiru hilabete pasata, **trenen** zirkulazioa gidatzera itzuliko naiz. [Fernando Rey](#)

Abiada bizian doan **tren** baten pasilloan kontrabidean joango banintz bezala. [Anjel Lertxundi](#)

50 urteko gizon bat hil zen Bokalen (Lapurdi), **trenak** harrapatuta. [Berria - Gaiak](#)

Trenak gizon bat harrapatu du Ordiziako geltokian. [Berria - Euskal Herria](#)

Hogei urterekin abangoardiako aldizkari literarioetan kolaboratzen zuena eta hogeita bostekin emaztea labankazoka hil eta bere burua **trenera** bota zuena. [Bernardo Atxaga](#)

Tren hau, azken egunotan, ganaduaren **tren** bilakatu da. [Edorta Jimenez](#)

25 **tren** dira norabide bakoitzean. [Berria - Euskal Herria](#)

Abiadura handiko 75 **tren** egiteko bi adjudikazio eta haien mantentze lanen kontratua. [Berria - Ekonomia](#)

Treneko txartelak jarri zizkidan gero mahai gainean. [Anjel Lertxundi](#)

2 (izenondoekin)

Haien eskuinaldean, urrun, **tren** elektriko batek txistu egin zuen. [Lopez de Arana](#)

Ez da hain garrantzitsua non bizi zaren, baizik eta ondo komunikatutako **tren** zuzenak dituen metro geltoki bat gertu edukitzea. [Harkaitz Cano](#)

Geltokietan zehar gelditu gabe pasatzen den **tren** lasterra. [Fernando Rey](#)

Guretzat **tren** espreso bera da, eta halere, lokomotorra, bagoiak, enpleguak, dena desberdina da. [Isabel Arrigain](#)

Ukondoak, fardelak, sorbaldak, ipurmamiak han-hemenka higitzen ziren, **tren** expres kirinkariak emandako astinaldietan elkar topeka. [Lopez de Arana](#)

- **Tren** militar bat genuen geldirik trenbideen orratzetako palanken ondoan. [Fernando Rey](#)

Tren jasoaren burdinazko egitura atzean utzita, hori bero koloreko marra zabalak sortzen zituzten kale urdinean. [Lopez de Arana](#)

Tren sozialaren alde agertu diren gizarte eragileen ustearekin ez dator bat. [Berria - Euskal Herria](#)

Unai etorkinen semea da eta **tren** anbandonatu batean bizi da. [Berria - Kultura](#)

Bagoneta abian jarri eta bosgarren trenbideko **tren** metrailatuaren ondok pasatu zen. [Fernando Rey](#)

Tren osoa metrailatu zuten. [Fernando Rey](#)

Tren zaharreko bagoi bat erosi zuela eta etxe ondoan jarri. [Unai Elorriaga](#)

Tren imajinarioak planoetan jarri eta Pedrori erakusten nizkion. [Unai Elorriaga](#)

Tren italiar zahar bat zen, bonbardaketetan seinaleekin, pintura galdua eta kristalik gabea. Josu Zabaleta
Bizitza **tren** zahar bateko azken bagoi bihurtu zitzaion, eta, orain bazekien, atzeneko aukera hura ere galtzeaz zegoen. Fernando Morillo
Lertxunak ugari, gure **tren** geldoa igaro ahala saldo zuritan hegaldatzen zirenak. Joxe Austin Arrieta

2a (izenlagunekin)

Aldiriko **tren** bat geltokira ailegatzan ari zen. Fernando Rey
Gizon bat hil da Urnietan aldiriko **tren** batek harrapatuta. Berria - Euskal Herria
Lurrunezko **tren** gorrin bat zegoen itxaroten jendez jositako nasaren ondoan. Iñaki Mendiguren
Lurpeko **trena** ere bat-batean geratu zen moztua. Pello Salaburu
Hurbileko **trena**: trenbideen atalean hurbileko zerbitzuak ere aztertu ditu Lopez Gereñuk. Berria - Euskal Herria
Geltokian mundua bildu da, antigualeko **trena** hartzeko. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bestelakoetan)

Zenbat gustatzen zitzaion osabaren **tren**-bagoia eta han sartuta egiten zituzten bidaiak. Unai Elorriaga
Tren-nasen gainean. Lopez de Arana
Memento batez, **tren** burdinbide bat zeharkatu zuten eta Ninak, deus erran gabe, bere aitaren eskua hunkitu zuen. Ramuntxo Etxeberri
Gure etxeak **tren** plataformak dira. Gotzon Garate
Baiona, *deux minutes arret*, entzuten du **tren** geltokiko bozgorailutik. Javi Cillero
Tren gidaria ez zen ohartu ere egingo kolpeak trenbidetik urrundu eta aurpegia odoletan zetzan emakume bat zeharka jo zuenik. Harkaitz Cano
Oroimenaren azalera, oraingoan, **tren** bidaia batean ezagututako gizon lodi bat etorri zitzaidan. Bernardo Atxaga
Honezkero jakingo duk **tren**-bidaiariekin soilik funtzionatzen duela, indar guztiaz behintzat. Iban Zaldúa
Ez naiz **tren**-begiralea, gutxiago polizia. Anjel Lertxundi
Orain-ez-dakit-nongo geltokian **tren** aldaketa egin beharra dago. Fernando Rey
Tren-aldaketetan galdutako denbora ere kontuan hartuz gero, hamahiru bat orduko bidaia. Anjel Lertxundi
Worthingerako lehen-mailako **tren**-txartela zuelako sakelari. Antton Olano
Demoek antolatzen duten bestara joaiteko **tren**-txartelak nahi zituzten eskatu Baionako geltokian. Herria
Metrotik trenera, **tren** ordu luzeak. Lourdes Oñederra
Tren hotsak entzuten ziren tunel aldean. Iñaki Zabaleta
Gero **tren**-aurkibide bat hartzen du. Antton Olano
Han nire anaiak **tren** ordutegi guztiak irakurri zituen. Pello Lizarralde
Arrastiri epel bikaina mamitzen hasiz zihoalarik, ohiko **tren**-txistukada luze tristagarriak astindu ninduen Aturriz bestaldetik. Txillardegí
-Kenyako hego-ekialdean 25 pertsona hil ziren **tren**-zisterna batek eztanda eginda. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kale-**trena**. Lourdes Oñederra
Aurki Espainiako trenbide konpainiako lineatan zirkulatzen hasiko den S/598 diesel-**trenari** azken probak egiten ari zaizkio. Berria - Ekonomia
Beste hamaika merkantzia **tren**, beste milaka auto-stop kilometro zain zituen New Yorkera itzuli aurretik. Harkaitz Cano
New York Central-eko trenbidean atzeraka zetorren merkantzi **tren** batek harrapatuta. Lopez de Arana
Zama **trena** abian jarri eta bagoiak eraman zituen, gainetik behien adarrak eta begiak ateratzen ziren bagoiak. Fernando Rey
Aspaldian lurperatutako meatze-**tren** baten burdinbide morturen batean? Karlos Linazasoro
Loreak belarrietan, soldadu-**trenak** kantari doaz gerrara. Lopez de Arana
Ganadu-**tren** bat ere bazegoen nasetako batean eta simaurraren usaina heltzen zitzaidan, nahiz leihoa itxita egon. Anjel Lertxundi
Kordobako frontetik zetorren heriotza-**treneko** dozenaka prisionero metrailatu zituzten Pozo del Tío Raimundon. Lutxo Egia
Literatur **trenak** atzo burutu zuen azken etapa. Edorta Jimenez

5 (garraio modu gisa) ik trenbide 4.

Denbora batez, XIX. mendean oro har, errail paraleloetan joan ziren **trena** eta ekonomia, edo **trena** eta gizartea. Edorta Jimenez
Trenari eta trenbideei buruzko 100 argazki biltzen dituen erakusketa bat. Berria - Kultura
Trena garraibide lehiakor eta moderno bihurtzeko materialetan, egiturari, komunikazio sistemetan eta beste hainbat alorrean egiten ari diren garapen eta berrikuntza lanak. Berria - Gaiak
Ez da **trenaren** eta autoaren artean aukeratu behar, baizik biak zentzuz erabili. Berria - Euskal Herria
Auto bat aloka nezakeen hara-hona ibiltzeko, baina nahiago dut **trena**. Anjel Lertxundi
2015. urtean kamioiekin errepideak gainezka egongo dira, batez ere Irunen, eta horren alternatiba **trena** da. Berria - Euskal Herria

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik trenbide 6.

Tren sareari buruzko eztabaida «antzua» dela dio Intxaurragak. Berria - Euskal Herria
2002. urteko abenduan Espainiako eta Nafarroako gobernuek herrialde horretako **tren** azpiegiturak garatzeko akordio bat sinatu zutela gogoratu zuen Miranda kontseilariak. asanbleakoek Euskal Y **tren** proiektua nabarmendu zuten New York Central **tren**-konpainiako langileen zabarkeriaren erruz. Berria - Harian
Tren-konpainiakoek deitu zituzten orduan, ingeniari bat behar zutela eta kontratatu nahi nindutela. Unai Elorriaga
Tren istripu batez hitz egin zidaten, Frantzia aldean gertatua. Alberto Ladron Arana
Gurasoak (Eva eta Albert) 1913an hil ziren, **tren** istripu batean. Alberto Ladron Arana
Istripuaren ondorioz **tren** zerbitzua eten egin zen. Berria - Euskal Herria
Euskal Herriak beharrezkoa duen **tren** ereduaren inguruan. Berria - Euskal Herria
Tolosa eta Parise lotzen dituen **tren** ardatzean, Limoges ondoan hain zuzen ere, lehegailu bat ezarri zutela jakinarazi zion AZFk gobernuari. Berria - Euskal Herria
Frantziako Gobernuak **tren** materialen merkatua zabaldu beharko du. Berria - Ekonomia

7 abiadura handiko tren

Abiadura handiko trenaren obrak hastear daude! Bernardo Atxaga
Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan **abiadura handiko tren** (AHT) «elkarlanean» egiteko hitzarmena sinatu zuten atzo ofizialki. Berria - Harian
Adostasun zabal samarra lortu duen iritzia da **abiadura handiko trenean** oinarrituriko trenbide ereduak ez dela Euskal Herriak behar duena. Berria - Euskal Herria
Abiadura Handiko Trenaren aurkako kamiseta gorria, lepoaldean moztua. Unai Iturriaga
Orotara, sei trenbide bilduko dira, **abiadura handiko trenaren** zabalera dutenak eta zabalera iberikoa dutenak. Berria - Harian
Abiadura handiko trenen %60 ekoizten ditu munduan [CAFek]. Berria - Euskal Herria
Abiadura handiko trenean Sevillarako bidean zihoala, berriarekin hitz egiteko tarte bat hartu zuen. Berria - Kirola
Istanbul eta Ankara arteko bidea egiten ari zen **abiadura handiko tren** bat bidetik atera eta gutxienez 139 pertsona hil ziren atzo arratsaldean. Berria - Mundua
Abiadura Handiko Tren bat erreserbatu dute. Berria - Kirola
Hegazkinarekin lehiatzeko **abiadura handiko trenak** erabiliko dira. Berria - Gaiak

8 lurreratze tren hegazkin bati lurreratzea eta aireratzea ahabidetzen dion gailua.

Ezin da ulertu nola horrelako **lurreratze-tren** bat, bi pneumatikoparez osatua, elduti-txasien esekiduraz hornitua [...] zergatik hasi behar duen, ez bat eta ez bi, deabru baten gisa portatzen zorua ukitu orduko. Joxe Austin Arrieta

Tarteka, gure pinuaren gainetik, DC-7 edo Super-Constellation-en bat edo beste igarotzen zen hegaz, **lurreratze-trena** jadanik aterata, lurra ukitu eta Campagna hartako bazterren batean ezkutatzeko prest. Joxe Austin Arrieta

Jaisten ari ginen, eta hantxe zoruko argi horiak, pista, berriro gure islagailuak, gero betiko tupusteko leuna [...] eta betiko hauts-harrotuak **lurreratze-trenaren** atzetik. Joxe Austin Arrieta

9 tren makina (orobat trenmakina g.er.)

Nasetatik **tren-makina** baten txistua zetorren, bai eta merkantzi bagoiak bazterbidean lotzean sortutako zarata ere. Lopez de Arana

Tren makina gelditu eta bertatik bi SS saltatu ziren, parabelluma eskuetan zutela, eta itxant batez nire txano gorriari begira gelditu ziren. Fernando Rey

Horretatik zatirik handiena **tren makinan** eta bagoien salmentari dagokio 431,8 milioi euroko fakturazioa. Berria - Ekonomia

Burbuila zuriak botatzen zituen **tren-makinak**, kotoia bezain trinkoak, aire gordinean eta leiho beltzeko etxe zurrunetan deuseztuko zirenak. Lopez de Arana

10 irud/hed

Ibarretxe Plana tren bat dela, **tren-makina** autodeterminazio eskubidea dela, eta bagoietan eskumenak doazela. Berria - Euskal Herria

Churchillek altzairuzko oihala esamoldea sortu zuenerako, Stalinek martxan zeukan bere propagandako **tren-makina** eskerga. Fernando Morillo

Tren-makina martxan jarri eta Euskadiren gainetik pasatu ziren errusiarrak. Berria - Kirola

Ongarotok, Velok eta Trentik (Fassa Bortolo) osatzen duten **tren-makinak** abiadura harrigarria ezarri zuen azken metroetan. Berria - Kirola

11 tren ospitale (corpusean trenospitale soilik)

Eta ni nasara atera nintzen, pasatzeko seinalea egin nion frontetik heldu zen **trenospitale** bati, ospitale bihurtutako tren laster bati. Fernando Rey

12 tren huts egin

Utzi egin behar haut, Xabi, bestela **trena huts egingo** diat eta. Xabier Etxabe

Trena huts egin zuela esan genion prefektuari.-Ez nuke **trena huts egin** behar! Bernardo Atxaga

Irudi zait geroztik **trena huts egin** dudala eta batzuetan hartzekoa den trenak hiltzea eta bazterren xehekatzea helburu bakar duela. Itxaro Borda

Kasualitatez nengoen etxean, Valentziara irten behar nuen egunsentian putzu batzuk kalkulatzera, baina **trena huts egin** nintzen. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abiadura handiko tren (15); **aldiriko tren** (4); **autobus eta tren** (5); **baionako tren geltokian** (4); **doan tren** (4); **eusko tren** (4); **hogwartseko tren espresa** (10); **merkantzi tren** (5); **merkantzi tren batek** (3); **merkantzia tren** (10); **merkantzia tren bat** (4); **snct tren konpainiak** (7); **snct tren konpainiaren** (4)

tren aldaketa (5); **tren azpira** (4); **tren bat hartu** (9); **tren bat iritsi** (4); **tren batek harrapatuta** (5); **tren berria** (4); **tren bidaia** (7)

tren egiteko kontratua (4); **tren espresa** (11); **tren estazio** (4); **tren estazioan** (7); **tren estaziotik** (4); **tren eta autobus** (7); **tren geltoki** (60); **tren geltoki batean** (6); **tren geltokia** (23); **tren geltokiak** (7); **tren geltokian** (51); **tren geltokiaren** (25); **tren geltokiaren inguruan** (4); **tren geltokiaren ondoan** (4); **tren geltokien** (5); **tren geltokietako** (5); **tren geltokietan** (14); **tren geltokiko** (17); **tren geltokira** (31); **tren geltokira joan** (3); **tren geltokiraino** (5); **tren geltokirantz** (4); **tren geltokitik** (23)

tren istripu (5); **tren jasoaren** (12); **tren konpainia** (10); **tren konpainiak** (16); **tren konpainiako** (5); **tren konpainiaren** (10); **tren konpainiari** (7); **tren laster** (5); **tren makina** (17); **tren makinak** (5)

tren soziala (4); **tren sozialaren** (7); **tren sozialaren alde** (4); **tren txartel** (5); **tren txartela** (5); **tren txartelak** (5); **tren txiki** (5)

tren usaina (6); **tren zerbitzu** (6); **tren zerbitzua** (9); **tren zerbitzuak** (6)

zeraman tren (4); **zihon tren** (7)

abiadura handiko trena (62); **autobusa edo trena** (4); **azken trena** (9); **bilborako trena** (4); **burgosen trena hartu** (4)

hurrengo trena (5)

lehen trena (4); **nire trena** (5)

trena abian jarri (5); **trena abiatu** (15); **trena bidetik atera** (4); **trena egiteko** (4); **trena galdu** (11); **trena gelditu** (14); **trena gelditzen** (9); **trena hartu** (81); **trena hartu zuen** (12); **trena hartuko** (7); **trena hartuta** (4); **trena hartzea** (6); **trena hartzeko** (13); **trena hartzen** (14); **trena hartzera** (14); **trena huts egin** (4); **trena iritsi** (5); **trena utzi** (7)

zihon tren (9)

abiadura handiko trenak (16)

trenak harrapatu (6); **trenak harrapatuta** (10); **zorrotz begiratutako trenak** (4)

abiadura handiko trenarekin (4); **trenarekin batera** (4)

abiadura handiko trenaren (81)

trenaren antolatzaile (4); **trenaren aurka** (4); **trenaren aurkako** (19); **trenaren aurkako asanbladak** (4); **trenaren geltoki** (4); **trenaren hotsa** (4); **trenaren ibilbidean** (4); **trenaren inguruko** (4); **trenaren proiektua** (4); **trenaren zain** (28)

abiadura handiko trenari (8)

abiadura handiko trenaz (7)

abiadura handiko trenean (4); **lehenengo trenean** (3); **trenean bertan** (4); **trenean joan** (4); **trenean sartu** (11); **trenean utzi** (3)

trenek elkar jota (5)

eusko treneko langileek (3); **gure treneko** (3)

treneko bagoian (4); **treneko billetea** (3); **treneko burua** (3); **treneko buruak** (3); **treneko egunkarian** (9); **treneko idazle** (4); **treneko idazleen** (3); **treneko idazleok** (3); **treneko idazleon** (3); **treneko langileak** (3); **treneko langileek** (4); **treneko leihotik** (4); **treneko nagusiak** (3)

abiadura handiko trenen (5); **bi trenen arteko** (5); **trenen arteko istripuan** (3); **trenen ordutegia** (3); **trenen ordutegiak** (3); **trenen zirkulazioa** (3)

igo ziren trenera (4); **trenera ekarri** (3); **trenera igo** (20); **trenera igotzeko** (3); **trenera igotzen** (7); **trenera sartu** (5)

madrilgo trenetan (4)

trenetik irten (4); **trenetik jaistean** (3); **trenetik jaisten** (8); **trenetik jaitsi** (20)

trenez aldatu (3); **trenez edo** (4); **trenez egin** (5); **trenez eta** (5); **trenez etortzen** (3); **trenez iritsi** (3); **trenez joan** (9); **trenez joatea** (3); **trenez joaten** (3); **zizutzen trenez** (3)

trenbide 1 iz trena dabilen bidea, bi errail paraleloz osatua.

Bufalo bat hantxe zutik, gure aurrean, **trenbidearen** lerro-pare zuzenaren erdian, besterik ez. Joxe Austin Arrieta

Begirada [...] **trenbideetako** errailtan dir-dir egiten zuen euri-zaparradan finkatu zuen. Lopez de Arana

Trenbideko karrilen arteko zabalera. Xabier Olarra

Lehergailua **trenbidearen** errail baten azpian zegoen eta AHTko langile batek ikusi zuen. Berria - Mundua

Joan den astean Madril eta Sevilla arteko ibilbidea egiten duen AHT Abiadura Handiko Trenaren **trenbidean** jarritako lehergailua. Berria - Mundua

Trenak Madrildik abiatu eta abiadura handiko **trenbidean** joango dira Zaragozako Plasencia de Jalon herriraino. Berria - Euskal Herria

1885ean **trenbidea** egin zelarik egunero bi tren esnez kargaturik joaiten ziren Ezeizatik Buenos Aireseko Constitucion geltokira. Herria

Metro-geltokian bere burua **trenbidera** botatzea utuko balitzαιο ere, ez dago beldurrik, baina ez kuraia falta zaiolako. Anjel Lertxundi

Goizeko zazpitan Sestao bidean dauden errepideak eta **trenbideak** moztuko dituzte. Berria - Ekonomia

Egur mota hori **trenbideak** egiteko erabili ohi da maiz. Berria - Gaiak

la Donostiaraino, frankisten esku zegoen burdinbide osoa, baina erdian bazen tarte bat, Madril-Irun **trenbide** hark egindako kurba bitxi bati esker, errepublikazaleen esku geratutakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Trenbide bakarreko geltoki txikiren bateko burua. Fernando Rey

Trenbiderik gabeko geltokiak. Joxerra Garzia

Trenbide ondoan jaioa izateak mundua bi aldetara irekitzen zela erakutsi zion. Arantxa Iturbe

Eta lehenbiziko **trenbideetik** zamaren luze bat pasatu zen, ziztu bizian zihon. Fernando Rey

Bosgarren **trenbide** tren bat zegoen geldirik, soldaduz bete. **Fernando Rey**

-Tren militar bat genuen geldirik **trenbideen** orratzetako palanken ondoan. **Fernando Rey**

Trenbideari jarraitzen dioten postetik postera doazen kable haietako edozein izan zitekeela nire bizitzaren haria pentsatu nuen. **Jon Maia**

Trenbidearen ibilbidea aldatzeko eta lurperatzeko egitasmoak errotik aldatuko du Gasteizko hirigintza etorkizun hurbilean. **Berria - Harian**

Xang doktoarengana joateko, erreka eta **trenbidea** zeharkatu behar ziren. **Juan Kruz Igerabide**

Trenbidea nasatik nasara gurutzatzeko ohitura zuela. **Irene Aldasoro**

Honek **trenbideak** gurutzatu eta zaldia geltokiraino eraman baitzuen lauhazka. **Fernando Rey**

Hor daude **trenbideak**, biderdia eragozten duten hesiak alde banatan dituztela, eta argi gorriak, mezulari erneak, bonbila batetik bestera keinuka. **Pako Aristi**

Pedrok **trenbide** ondoan itxaroten zion trenari, bi zaku huts aldean. **Jon Maia**

Trenbidea 17:30ak arte itxita egon zen. **Berria - Euskal Herria**

Aditzen du ailegatzen ari den treneko makina noiz sartzen ari den **trenbide** bakartuan. **Fernando Rey**

Bagoneta trabes eskoratua **trenbide** abandonatuan. **Joseba Sarrionandia**

Lur azpiko **trenbideari** jarraituz lurpean barneratzea zen haien abenturarik handienetakoa. **Karlos Zabala**

Putakume bakoitzak bala bat merezi badin, hasiko al gaitun balak egiteko hemendik Moskurako **trenbideak** funditzen! **Harkaitz Cano**

Trenbidean olgetan ari zela gazte bat hil da Santurtzin. **Berria - Euskal Herria**

Trenak eta **trenbideak** lotzen dituzte istorioak, baina batzuek besteak baino hobe lotzen dira euren artean. **Berria - Kultura**

Beti baita gaua metroaren **trenbideetan**. **Hasier Etxebarria**

2 (hitz elkartuetan)

Bi tren horiek elkarren ondotik igaro behar zirenak ziren nonbait, baina, halako batean, **trenbide** -orrazak mugitu zituzten, eta elkarren kontra jo zuten bete-betean. **Karlos Linazasoro**

Altzairuzko idazmakinak, urpekontzi errusiarren periskopio txikitua, **trenbide** zatikiak. **Harkaitz Cano**

Lau auto-ilara **trenbide** -pasagunean zain. **Lopez de Arana**

Gela tekniko horretan zegoen Ermua-Zaldibar tartean **trenbide** aldaketak egiteko sistema eta seinaleen kontrola. **Berria - Ekonomia**

Bost **trenbide** -kilometro horien eraikuntzakoak eta orduko gizarte-giroaren nondik norakoa kondatzearen. **Edorta Jimenez**

Lokatzarekin nahastutako **trenbide** ertzeko txotxak hartu nituen amorruz. **Harkaitz Cano**

Bihurgune bat zatorrek orain..., **trenbide** -zainen adreilu gorritzko txabola. **Anjel Lertxundi**

AHT proiektua eraikuntzan eta **trenbide** -materialen hornikuntzan diharduten enpresa handiei baino ez zaie interesatzen. **Berria - Euskal Herria**

3 irud/hed

Atzamarra ahoan pausatu zidan eta gereziaren **trenbide** bihurtu zituen nire ezpainak. **Jasone Osoro**

Trenbideetako langile gazte batek, Milo?s Hrmak, [...]. **Fernando Rey**

4 errailezko bidea erabiltzen duen garraio mota. ik**burdinbide**.

Baiona-Kanbo **trenbide** berria "berehala" zabalduko omen zen albisteak hedatu zen bazterretan. **Txillardegi**

Trenbideak ekarri baitzuen bere familia Tolosara, aitak **trenbidean** egiten zuelako lan. **Arantxa Iturbe**

Izen ederrak izango zituzten geltokiek, Urolako **trenbide** zaharrekoek zituztenak bezalakoak. **Juan Luis Zabala**

Tira goazen, Padraic, osaba Timothyk Bederatzigarren Etorbideko **trenbide** jasoan eramango zaitu eta. **Lopez de Arana**

Hor erabaki da Tours/Bordele abiadura handiko **trenbide** berria 2008-an idekiko dutela. **Herria**

Lehendabizi, **trenbideko** langileak, Tourvillekoak, etorriko dira. **Monika Etxebarria**

Ortuella eta Basauri lotuko dituen lurpeko **trenbidearen** proiektua. **Berria - Euskal Herria**

Hainbat tunel labur zeuden Hokurikutik Kyōtorako **trenbidean**. **Ibon Uribarri**

Frantziak begi onez ikusten du **trenbide** mistoa egitea, horrela salgaien arazoari aurre egingo liokeelako. **Berria - Euskal Herria**

Trenbide Sozialerako Sareak txostena egin du AHTren hutsuneekin eta bere proposamenekin. **Berria - Euskal Herria**

5 (pluralean)

Edo funtzionario sartu, postan, **trenbideetan**, Gobernuren bateko bulego batean, nork daki. **Matías Múgica**

Turkiako **Trenbideetako** zuzendaria Ali Kemal Ergulecen arabera, atzeko bagoiak atera ziren burdinbidetik. **Berria - Mundua**

FEVE **trenbideetako** 300 langilek Bilbotik Oviedorainoko bidea bete dute, oinez, enpresak lan ituna sinatu dezan eskatzeko. **Berria - Ekonomia**

Trenbideetan lanpostu bat zian, eta hura behar ez zuenean niri utziko zidala esan zidaan. **Josu Zabaleta**

-Estatuko **trenbideetako** ikuskatzaile izendatu behar omen zaituzte, ez da hala? **Fernando Rey**

Uniformeak nonahi ikusten ziren: **trenbideetako** enpleguak, polizia, militarrek, Gizarte Zerbitzuko neskek, eskola-umeak. **Alberto Ladrón Arana**

Trenari eta **trenbideei** buruzko 100 argazki biltzen dituen erakusketa bat. **Berria - Kultura**

Trenbideetarako Ministerioaren arabera, azken hamar urteotan 5.000 pertsona hil dira Indian izandako tren istripuetan. **Berria - Mundua**

6 (hitz elkartuetan) ik **tren 6**.

Ahalegin horren gakoetako batek, halabeharrez, garraio arloa izan behar zuen: **trenbide** -sare bat eraikitzea premiazkoa zen. **Iban Zaldúa**

EAEko **trenbide** sare berriaren iraunkortasun azterketa aurkeztu zuen atzo Eusko Jaurlaritzak. **Berria - Euskal Herria**

Zerbait New York Central **trenbide** -konpainiari buruz. **Lopez de Arana**

James Lennon-ek, lokomotorreko gidariak, esan zuen hamabost urte zeramatzala **trenbide** -konpainian enplegatu. **Irene Aldasoro**

Antzinako ardozale bati **trenbide** istripu batean sekulakoa hartu ondoren, ezpainetan ardo pixka bat jarri zioten suspertzeko. **Xabier Olarra**

ADIF Espainiako **Trenbide** Azpiegituren Kudeatzaileko presidentearekin bildu zen Odon Elorza herenegun. **Berria - Euskal Herria**

Trenbide garraioa sustatzeko apustu garbia egiteko asmoa daukala esan zuen atzo Nuria Lopez de Gereñu Eusko Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio sailburuak. **Berria - Euskal Herria**

Trenbide sistema publikoa nahi dugu, ez orain artekoa bezala. **Berria - Mundua**

Eusko Jaurlaritzaren Garraio Sailak **trenbide** -sektorean egin duen berrantolaketari egokitzeko, EuskoTren konpainiak bere irudia aldatu du. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi trenbide (3); **eaeko trenbide sare** (5); **espainiako trenbide** (14); **espainiako trenbide azpiegituren** (3); **euskal trenbide sare** (5); **frantziako trenbide sarean** (3); **kilometro trenbide miatu** (3)

trenbide berria (5); **trenbide berriak** (3); **trenbide ertzera** (3); **trenbide gaineko** (4); **trenbide ondoan** (7); **trenbide ondoko** (4); **trenbide pasagune** (4); **trenbide sare** (30); **trenbide sare berriak** (4); **trenbide sare berriaren** (7); **trenbide sare** (19); **trenbide sareak** (5); **trenbide sarean** (9); **trenbide sarearen** (13); **trenbide sareari** (4); **trenbide sareen** (3); **trenbide sozialerako** (9); **trenbide sozialerako sareak** (6); **trenbide zaharren** (8); **trenbide zati** (3)

hegoaldeko trenbidea (4); **kilometroko trenbidea** (5); **trenbidea egin** (6); **trenbidea egitea** (4); **trenbidea gurutzatzen hasi** (3); **trenbidea zeharkatu** (5)

hemendik moskurako trenbideak (3); **trenbideak funditzen** (3)

trenbidean aurrera (5); **trenbidean zehar** (3)

trenbidearen erdian (3); **trenbidearen ibilbidea** (4); **trenbidearen ibilbidearen** (4); **trenbidearen ondoan** (4); **trenbidearen proiektua** (3); **trenbidearen zati** (3)

trenbideen gainean (3); **trenbideen ondoan** (3)

estatuko trenbideetako (4); **trenbideetako langile** (4)

frantziako trenbideetan (3)

bere burua trenbidera (3)

treneratu, trenera(tu), treneratzen da/du ad trenera joan; trenera eraman.

Trena ez zen mugitu gure azken kutxa **treneratu** zuten arte. Fernando Rey

tregile iz trenak egiten dituen.

Aldiriakoetarako Civia trenak edozein **tregilek** egin ditzake, teknologia propioarekin, baina baldintza batzuk beteta: [...]. Berria - Ekonomia

CAF **tregileak** 5,96 milioi euro irabazi zituen urtarrietik uztaileira bitartean; iaz epe berean baino %11 gehiago, hain zuzen. Berria - Ekonomia

Azken kontratu honekin, **tregileak** 2.500 milioi eurotik gorako eskari poltsa du. Berria - Ekonomia

tregintza iz trenak egitea.

Jarduerak: **Tregintza** %29 (abiadura handiko trenen %60 egozten ditu munduan); argindar ekoizpena %48; elektrizitatearen horniketa (%12) eta ontzigtza (%6). Berria - Euskal Herria

Frantziako taldearentzat «strategikoak» diren sektoreetan, hala nola **tregintzan** eta energian. Berria - Ekonomia

Tregintza sektoreari dagokionez, Baztarrikaren ustez, Europar sektoreak gehiegizko eskaintza du eta lantegiak itxi edota saltzera behartuta ikusiko dira zenbait konpainia. Berria - Ekonomia

trenkada (orobat *trinkada* g. er.) iz holtza. ik holtz; tabike.

Atzean jarri ezazu **trenkada**, eta errezelak ere jarri. Josu Zabaleta

Gavardek bi konpartimentu hartuak zituen errentan, eta, erdiko **trenkada** kenduz, oilategi bakar bat egina zuen biekin. Karlos Zabala

Trenkada eta aireztapen sistema jartzeko zortzi hilabeteko epea izango dute. Berria - Euskal Herria

Bero zen jangelan, makinak bigunkiro negar-zotinka ari ziren **trenkadaren** atzean. Lopez de Arana

Atzeko aldean, gela txiki pribatu bat zegoen, **trenkada** beiradun batek tabernatik bereizten zuena. Karlos Zabala

Lantegi eta bulegoetako jarlekuen ondoan proposatzen ditu: apalak, artxibategiak, janztegi eta **trenkada** metalikoak. Herria

Zarpeatuak egurrezko **trenkaden** gainean egin behar direnean, ezinbestez gertatuko da zeharkako eta luzetarako piezetan zartatuak ateratzea. Santiago Iruretagoiena

Isover enpresarentzat etxe barneko **trinkaden** indartzeko baldintzen ikerketa bat burutu dute berriki. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trenkadaren kontra (5)

trenkaezin izond ezin trenkatuzkoa.

Azken paradoxa horren argitzeko, Iparraldeko gerlari ohien korda luze **trenkaezinari** eratzikiz Aljeriako gerlari lagun Xemartin salatari medailadun harroaren itxurari kontrajarriko dio Aintziartek. Piarres Aintziart

trenkalari iz

Buruzahato-Biligarro jaun andereak eta pulustariak, barrendariak, **trenkalariak**, zirtolariak, [...]. Jose Angel Irigaray

trenkatu, trenka, trenkatzen (orobat *trinkatu* g. er.) 1 du ad erabaki, ebatzi.

Noiz eta nola **trenkatu** zuten ene lagunek ni ere soberan nengoela. Aingeru Epaltza

Uztaritzen nuen, hamabost urterekin, misionest egiteko erabakia hartu: hiru asteen duda-muda eta afera **trenkatua** zen. Piarres Aintziart

-Bakarrik zenbait egun egonen naiz; hara joan, familiako aferak **trenkatu**, eta berehala itzuliko naiz. Elena Touyarou

Baina arazo bat **trenkatu** orduko, beste bat agertzen zitzaien. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Kierkegaardek **trenkatu** ahal izan du, iduriz, arazo hori, baina berarentzat bakarrik du balio haren irtenbideak. Piarres Aintziart

Zuk abiarazi zenuen nirekiko afera, niri galdetu barik, eta zuk nahi zenuen **trenkatu** auzia, behin betiko, nire iritzia galdegin gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure zortea **trenkatu** behar zuten hiru jujeen aitzinean nintzelarik, batek erran zidan: [...]. Marzel Etxehandi

Holako eroste bat edozoin gisaz ez baita hola eta hola **trenkatzen**. Janbattitt Dirassar

Ondoko asteetan **trenkatuko** du auzitegiak ea Hendaiak bi egituretan parte har dezakeen arazorik gabe. Berria - Harian

Hilabeteño bat badut oraino hautu horren **trenkatzeko**. Janbattitt Dirassar

-Betegarri hutsa - **trenkatu** zuen, *betegarri* idatzi bitartean-. Aingeru Epaltza

Kontua da, haatik, hauteskunde hauek hauteskontzietan **trenkatuko** direnez ala armek duten hitza izango. Berria - Mundua

Anarteak, gauzak ez daude oraindik **trenkatuak**. Berria - Harian

-Bego - **trenkatu** zuen aitak-. Itxaro Borda

2 hautsi, ebaki, eten.

Galtzen baduk, lepoa **trenkatuko** diat, eta zin degiat ezen orduan bertze mundutik ikusi beharko duala *El Dorado*. Joan Mari Irigoien

Adiskidearen bizia **trenkatu** zuen marrazan. Elena Touyarou

Pilota itsasora besagainka botatuz, ez ote nuen lehen aldikoz anaiaaren eta ene arteko zerbait "sakratu" hautsi, **trenkatu**, eta beraz, behin betikoz suntsitu? Daniel Landart

Berriz ere ene baitan zerbait **trenkatu** zen. Daniel Landart

Neraman bidea zakar **trenkatzen** zuen itsas adar batera nindoan zuzen. Koldo Izagirre

Geroztik frangotan mahai gainean zabaldu dugu xehetasun balios baten bila, zalantza baten **trenkatzeko**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zuhaitza **trenkatu**, eta animaliak bertan behera omen doaz lurrera zabal-zabal eta ezin omen dira ostera handik altxatu. Juan Garzia

Hire idunekoaren hari **trenkatua** dun eta hire lepo inguruan barreiu zautzan urre aleak. Juan Garzia

3 irud/hed

Haien pistolen muturrek **trenkatu** zuten auzia. Aingeru Epaltza

Filipe Carricart-ek du **trenkatu** azken kintzea, bere berezkoen arteko azken partida hortan. Herria

Trenkatu zuten erranez ez ginela garai berekoak. Michel Oronoz

Maddiren heigiara **trenkatuz**, Jessicak barnera bulkatu zuen jada bururik ez zeukan anderea. **Itxaro Borda**

4 (era burutua izenondo gisa)

Gurutze gamatuak nonahi, soldadu armatuak portuan barreiatuak, zakur **trenkatu** baten saihets gorrietan euliak bazkatzen. **Harkaitz Cano**

5 ezin trenkatuzko ik trenkaezin.

Ezin trenkatuzko auzitik jalgitzeko eta, adosean ere ez baitzuten uzten ahal partida, erabaki zuten borrokaren irabazleak izanen zuela arrazoi, irabazlearen erlijioa zela egiazkoa. **Piarres Aintziart**

Hala dio gure orzaiztarrak aurrerago, delako mintzo **ezin trenkatuzko** hori euskara bera baino gaitzagotzat joaz: [...]. **Iñaki Segurola**

Gogoari eman ditake ez direnez frantses soldado horiek **ezin trenkatuzko** korropilo batean estekatuak. **Herria**

Liberian beste boz auzi bat bazuten, iduriz **ezin trenkatuzkoa** eta ororen buru bere argia egin duena. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hautua trenkatu (3); **laster trenkatu** (3); **trenkatu auzia** (4); **trenkatu beharra** (3); **trenkatu du auzia** (3)

alde bat trenkatua (4); **arras trenkatua** (5)

alde bat trenkatu (3); **deus trenkatu** (3); **oraino trenkatu** (7)

ezin trenkatuz (10)

ezin trenkatuzko (4)

trenkatzaile *izond* trenkatzen duena.

Hala esan zidan, ezpata bezalako ahots **trenkatzaile** batez: [...]. **Joxan Elo segi**

trenkatze *iz* erabakitzea, ebaztea.

Bilkura frango, baina **trenkatze** guti: ez zuten bidea zabaldu 1878a arte. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Haatik hor dute erakutsi bi baxenabartarrek ere pilotari ederren gaia badutela azken **trenkatze** hura eginez indarrean eta xuxen. **Herria**

trenkide *iz* tren berean doana.

Hungariako Laszlo Garaczik ekainaren 9an Treneko Egunkarian idatziak **trenkide** askoren barne giroa islatzen duela, dudarik ez. **Edorta Jimenez**

Biharamunean **trenkideen** ezaupidea egiten segitzeko asmo biziz itzartu nintzen. **Edorta Jimenez**

Biharamunean bera prostituta birekin izan dela zabaldu da **trenkideen** artean. **Edorta Jimenez**

trenmakina ik tren 9.

trenospitale ik tren 11.

trenpa aldi ik trenpaldi.

trenpaldi (*orobat trenpa aldi*) *iz ipar* bustialdia.

Gakoak noizbait aurkitzen ditu, ez **trenpaldi** ederra bildu gabe, haatik. **Eneko Bidegain**

Alta, zer **trenpaldia**, buru kaskotik zango puntetaraino zipaturik ginaudelarik, aterbean ez ginenak bederen! **Herria**

Zer hotzikarak, zer **trenpa** aldiak! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

trenpatu, trenpa, trenpatzen 1 da/du ad busti, zopatu.

Eta horren gainera, jantzi mehe haiak berehala **trenpatu** ziren. **Eneko Bidegain**

Ederki bustirik, arrunt **trenpaturik**, plisti-plasta hasten naiz ene camembert zatian ibiltzen, ekaitzaren erdian kantuz, presondegia eta zaintzale, denak ahantzirik... **Filipe Bidart**

Usinan/fabrikari gerizak txokolatetz **trenpatzen** ari. **Pablo Sastre**

2 irud/hed

Infernuan **trenpatu** dut fedea. **Felipe Juaristi**

3 (era burutua izenondo gisa)

Aterki **trenpatuak** bazter batean zintzilikatu genituen. **Itxaro Borda**

trenpe ik trenpu.

trenpu (*orobat trenpe g.er.*) 1 *iz* saioa, osasun edo adore egoera ona.

"Hire aitonaren aita bai gizona!" entzun zuen bere baitan amaren ahotsa, John Hathorne epailearen zintzotasuna, oreka, **trenpua** goraiaturik. **Anjel Lertxundi**

Oraiko **trenpua** atxikitzen badute, nik pentsatzen dut baietz, ez dute larrua nola nahika salduko. **Herria**

Lanerako **trenpurik** biltzen ez nuelako. **Anjel Lertxundi**

Ageriko da, fite, haren **trenpua** zertakoa den.Bai zorigaitzokoa gai horri ekin beharra, baina orain ez dago asmatzen aritzeko **trenpuan**. **Menane Oxandabaratz ik beherago** 5. **Askoren artean**

Harzkitzue bi pilotari, bat **trenpukoa** eta bestea adinez higatuxagoa: [...]. **Herria**

2 (izenondoekin)

Trenpu onean nago. **Anjel Lertxundi**

Hirian eta industrialen diruaren diren kilometroak, goizeko **trenpu** onean, arratsaldeko nekearekin baino aiseago eginak dira. **Piarres Aintziart**
Bai, Otabak bazuen iragan Bestaberrien itxura alai bertsua; jendea ederki etorri da Mezarat, eta gure gazte eta haurfoak oro fleitean, eta soinulariak **trenpu** hoberenean.

Herria

Dena den aitortu behar dugu kontrarioak **trenpu** hobean zirela. **Herria**

Zartailu ukaldika erabili ninduten gero, eta beste gauza asko egin zidaten hurrera, baita **trenpu** eta itxura hoberenean nengoen uneetan ere. **Joxan Elozegi**

Hau izan da Diman jokatu partida, irabazleek **trenpu** haundia erakutsi dutelarik bieki ere. **Herria**

Bertsulari gazteen **trenpu** gaizta! **Herria**

ik beherago 6 eta 7. **Askoren artean**

Xala izan delarik aurten San Ferminetako pilotari hoberena, gaitzeko **trenpua** erakutsiz Goñi III haundi batekin halere. **Herria**

Ene **trenpu** makalaz ohartu zen Martina. **Itxaro Borda**

Bet-betan eskuratu zuen, haatik, ordu arteko bere **trenpu** samurra, eta, irribarre xume bat eginik, nire bularreko biloa kiribildu zuen hatz puntekin. **Anjel Lertxundi**

Leizarragaren kargu hartzeak ez zidan damurik eragin, baina bai are gehiago beheratu nire **trenpu** eroria. **Aingeru Epaltza**

3 irud/hed

Azken konpasek behar duten **trenpuaz** amaitzen dut pieza. **Anjel Lertxundi**

Gurpil bat osatuz esertzen ziren, norbaitek **trenpuan** jartzen zuen gitarra, eta azkenean inoiz ez zen jotzera iristen. **Juan Garzia**

Geratuko lit zaiake balizko egoera horretan orain baduala uste duan **trenpu** moralaren aztarnarik? **Anjel Lertxundi**

4 (hitz elkartuetan)

Interpretazio itxurako **trenpu** -aldaketa gorabeheratsu haien -atzean bazegoen ordu arte igarri ez nuen zerbait: izuak eragindako sufrimendua. **Anjel Lertxundi**

- Ez zirudien Mirandek Isabelleren aitortpena entzun ondoren **trenpu** -aldatuegi. **Harkaitz Cano**

5 *trenpuan* sasioan.

Trenpuan dela dio berak telebixten aitzinean. **Herria**

Jendea loriatua egon da, Andoñi Egaña, Estitxu Arozena, Igor Elortza, Sustrai Kolina eta Amets Arzallus, bostak **trenpuan** baitziren. **Herria**

Trenpuan zegoen berriz ere Enrike. **Iñaki Iñurrieta**

Trenpuan dela dio berak telebixten aitzinean. **Herria**

25/18 nagusitu zaizkie Metro/Racing-ekoei, Lamaison beti bezain **trenpuan** izanki. **Herria**

Beti iriz, umore onean, eta **trenpuan** agertu, ahulezia ttipiena ere erakutsi gabe, etsaia sobera kontent litaike... **Filipe Bidart**

Lehen partida hau izana zen 4 1/2 tan, Duhau **trenpuan** agertuz orohar eta galtzaleak ez hanbat. **Herria**

Arras **trenpuan** zen Beloki eta besteak ez gaizki. **Herria**

Hau agertu da sekulako **trenpuan**, irri alai batek argitzen ziola aurpegi zabala. **Herria**

Presio ikaragarriarekiko denbora pixka bat irabazi zuen, ahoskatu zuelarik, irudiz **trenpuan**: [...]. **Itxaro Borda**

Dacharry ez ginuen usaiaiko **trenpuan**, eta Lazkano aise ari zen, 13 bote sartu ditu eta Dacharryk 3. **Herria**

Baginakien, eskua ez zuela **trenpuan**. **Herria**

MAIATZ aldizkaria **trenpuan**. **Herria**

6 *gaitzeko trenpuan* trenpu gaitzean.

Gaitzeko trenpuan nintzela ari nintzen ene baitan. **Piarres Aintziart**

Alabainan, **gaitzeko trenpuan** da eta airez aire sakelaratzten ditu garaipenak. **Herria**

Hemen gertatu dena ordea gerta ditakeena: **gaitzeko trenpuan** hasi dira denak irrisku haundiko partida horrentzat. **Herria**

Bi oren eterdiko zoriona! Erramun bera **gaitzeko trenpuan**, musikari eta kantari lagunekin hoberena eskaintzen. **Herria**

7 *trenpu gaitzean* sasoi betean.

Trenpu gaitzean zen Christophe Lamaison, 35 tanto haren ostikotik atera baitira. **Herria**

Gernikarra bereziki **trenpu gaitzean** zen, badu holakoan ohidurarik, munduko mendi-maratoieta trebatua, berrikitan Suitzian eta laster Italian beharra. **Herria**

Aramburu **trenpu gaitzean** dugu, eta Xabi Errecart gazteak arras joko ederra ateratu du ere. **Herria**

Gure soinulariak **trenpu gaitzean** ditugu eta segitzeko maneran, ardietsirik beren lehen saria. **Herria**

Beste euskaldun batzu **trenpu gaitzean** agertu dira: Joseba Beloki hirugarren sailkapen nagusian, Iban Mayo bosgarren, [...]. **Herria**

8 *trenpu txar (orobat trenputzar g.er.)*

Nonbaitetik, haize girotuaren asotsa heldu zitzaidan, baina hura ez zen aski nire **trenpu txarra** apaltzeko. **Aingeru Epaltza**

Nire **trenpu txarraz** gain, ez zen sobera zorrotza izan behar ateraldiaren mingotsari oharitzeko. **Aingeru Epaltza**

Bazter inarrosleak eta saloieta iraultzaileak ere **trenpu txarrean** uzten zituzten. **Itxaro Borda**

Trenpu txararen arintzeko, jartoki bat xerkatu baina ez zuen ezer kausitu: zutik geratu zen. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nire **trenpu txarra** (3); **soinulariak trenpu gaitzean** (3); **trenpu gaitzean** (41); **trenpu gaitzean agertu** (7); **trenpu gaitzean dugu** (3); **trenpu gaitzean zen** (3); **trenpu hobean** (4); **trenpu hoberenean** (11); **trenpu onean** (17); **trenpu txarra** (3)

arras trenpuan (7); **gaitzeko trenpuan** (13); **gaitzeko trenpuan ziren** (4); **trenpuan agertu** (3); **trenpuan dela** (3); **trenpuan zen** (3); **trenpuan ziren** (4)

trenputzar ik trenpu 7.

trenputxartu, trenputzar(tu), trenputxartzen (*orobat trenpu txartu g.er.*) da/du ad alditxartu.

Mugitzen hasi naizenean **trenputxartu** da. **Itxaro Borda**

Ene taularen gainean etzaten niz, arrunt ahuldua, eta **trenputxartzen** niz. **Michel Oronoz**

4 suhiltzaile **trenputxartu** dira, zorionez gehiagokorik gabe. **Herria**

Furgoi beltzean itzaleratu zutenean, gilotinaren mihi fin eta zorrotza lepondoan hotz lerratzten imajinatu eta **trenputxartu** zen. **Itxaro Borda**

Trenputxartuko zela uste zuen. **Eneko Bidegain**

Hezetasun honek **trenputxartu** egin nau, eta nahiago dut hemen -esan zion Norak aitari. **Anjel Lertxundi**

Neska gazte bat bazegoen etzanik, **trenputxartua**, hedailo eta doi-doi hatsartzen zuela. **Itxaro Borda**

Begiaki ireki nituen eta... hauxe gertakaria: aita lurrean, zabal-zabala, **trenputxartua**, ezagutza galdua. **Daniel Landart**

Orainko aldiari bi mato ukaldi aski zauzkit **trenputxartzeko**. **Michel Oronoz**

trenputxartze iz alditxartzea.

Igande aratsaldean 36 urteko emazte batek **trenputxartze** bat izan du Pesarrin eta Baionako ospitalerat ereman behar izan dute. **Herria**

Hiru **trenputxartze** ere izan dira bat zelaian 50 urte, bertzea karrikan 51 urteko emazte bat eta hirugarrena Errebot plazan 20 urteko gazte bat. **Herria**

trenputxartze*ar* *adlag* trenputxartzeko zorian.

Trenputxartze*ar* zegoen Xarles, baina hankarteko pastenagriaren bermea nabaritzean, sosegatu eta izpiritua bildu zen. **Itxaro Borda**
Herriko plazatik Santa Izpiritu zubian zehar apartamentura itzuli zen, hinki-hanka, **trenputxartze*ar***. **Itxaro Borda**

trentotar *izlag/iz* Trentoko kontzilioari dagokiona; Trentoko kontzilioko edukien aldekoa.

Aldi berean, Idazti Deunak jainkotzearen nemesi moral eta intelektuala protestanteen morrontza izan zen, **trentotar** katolizismoak, artean apaizgoan oinarrituak, izan ez zuena. **Iñaki Mendiguren**
Kristautasun erromatar katoliko **trentotarrera** konbertituekin. **Iñaki Mendiguren**
Jauregia eta gure inguru osoa **trentotarren** sakristia bihurtuko dik jesuita honek denborarekin, ikusiko duk... eta guk prestik egon beharko genikek orduko. **Joan Mari Irigoien**

trentxada ik trintxera¹.

trentzadun *izond* txirikordak dituena.

Portaera horrek xoratu zuen 14 urteko neska ile horizko **trentzaduna**. **Pello Zabala**

trentzadura *iz* trentzatzea; trentzatzearen ondorioa.

Oso zubi alemaniarra da, nolabait esatearren: altzairuzkoa, x formako **trentzaduraz** betea, graffitiz estalia, itxura zaharkitua duena. **Harkaitz Cano**
Williamsburgeko zubia osatzen duten X itxurako **trentzadura** haiek, egitura metaliko hura nire buruan daukat honez gero, Brooklyngo zubia sekula zapaldu ez arren. **Harkaitz Cano**

trentzatu, trentza(tu), trentzatzen 1 du *ad* txirikordatu.

Batean goitik eta bestean azpitik pasatuz, ehundu eta **trentzatzuz**, aparteko itxiturak gauzatu ohi ziren merke asko, pazientzia eta taxu apur batekin. **Pello Zabala**
Lehen analogia leienda bihurtuz, esate bateko, Ipar Europako ele zaharretan, munduko gizon guzien ile izpi bana **trentzatzuz** josi behar da poltsa bat, galdutako eguzkia sortzeko. **Patziku Perurena**
Ile ezti kolorezkoak zeramatzan artoski **trentzatuak** eta buruaren inguruan bilduak, saia Brugesko satin berdez zuen egina, gipoina urre perleriaz eta soinean zuen kapa urrezko hari eta zeta berde damazatuaz. **Aurelia Arkotxa**

2 irud/hed

JAKITATE BEREKI ETA MAITAGARRI BAT TOPATZEN DA, hitz ondo **trentzatu** horien xirikittuetan gordeta. **Pello Zabala**

trenzain *izond* tren-gidaria.

Westland Row geltokian jende mordo bat pilatu zen bagoiaren ateteara; baina **trenzainek** atzera eragin zieten, hura feriara zihoan tren berezia zela esanez. **Irene Aldasoro**

trenzale *izond/iz* trenen zalea dena.

Lucio, txiki-txikitatik, **trenzale** porrokatua zen, eta gelan barrena beti borobilean itzulika ibiltzen zen, bafadaka eta ufaka tren-makina bat bezala; eta etxean tren elektriko handi bat zeukan, osaba Maurok Argentinatik igorria. **Fernando Rey**

trenzulo *iz* tren tunela.

Trenzulo hori munduan denik eta luzeenetakoa da. **Joseba Sarrionandia**
Etxetik alde egindako mukizu baten antzo, emakumea segundoak zenbatzen ari da **trenzuloa** noiz amaituko, harik eta argi ukaldi batek hiria ilunpetatik berreskuratzen dion arte. **Javi Cillero**

tropa *izond* adkor gorazalea.

Pozak gutxi irauin zion, beharrea hila bete gutxi zeramatzala, Madrildik etorritako yuppie **tropa** batzuek "zangotrabatu" egin baitzuten, euren igoera prozesuan lehiakiderik ez izateko. **Jon Arretxe**
Bazekien **tropa** samarra zela, beno ez **tropa** samarra, **tropa** soilik, baina beti izan zuten harreman ona. **Unai Iturriaga**
Orbainak ditiat bi sorbaldeetan Sacco-Vanzetti kasuan eta beste mila kasutan parkartak eramateagatik zuek bezalako **trepak** gora hasi zineten baino lehenago. **Fernando Rey**

trepalari *izond* adkor gorazalea.

Pozak gutxi irauin zion, beharrea hila bete gutxi zeramatzala, Madrildik etorritako yuppie **tropa** batzuek "zangotrabatu" egin baitzuten. **Jon Arretxe**

trepianatu, trepana, trepanatzen 1 du *ad* hezurrez eta eskuarki burezurraraz mintzatzuz, kirurgia-tresna batez alderen alde zulatuz.

Urre-orriak dituen garezur **trepianatua**, esate baterako, Peruko iparraldean finkaturiko Paracas kulturari dagokiola irakur daiteke. **Berria - Kultura**
Derrigorrezko garagardoa, berak bezain **trepianaturik** dauden lagunekin. **Joxan Elozegi**

2 irud/hed

Itsuei buruzko beste esaldi solte eta arbitrario batzuk esan zituen gero, oilaskoa **trepanatzen** ari zen bitartean. **Unai Elorriaga**
Kristau erlijioak **trepanaturiko** panteismo light bat. **Pako Aristi**

trepanazio *iz* trepanatzea.

Trepanazioa da burezurrean edo beste edozein hezurretan zulo bat egitea. **Unai Elorriaga**
Medikuek egiten dituzte **trepanazioak**, eta sasi-medikuek ere bai. **Unai Elorriaga**

trepel *izond* okerra.

Trepelak trebukaldia... /... trenkatu zuen tratuz. **Iñaki Arranz**

trepeta 1 *iz* tresna, tramankulua.

Guk ez baitugu espazioa neurtzekorik ezer, ez **trepetarik** ez tramankulurik, neurtzaileak erabili ohi duen bezalakorik. **Felipe Juaristi**
Frontera iritsi baino lehen abioi aleman batek eraso egin baitzion musikariak eta **trepetak** zeramatzan kamioiari. **Felipe Juaristi**
Korridorea ezertarako balio ez duten trastez beteta dago: golfeko makila herdoilduak, makinaria industrial erabilezina, ileordekoz betetako kutzak, koadro baztertuak eta bestelako **trepetak**. **Harkaitz Cano**
Trepetak atsegin zituen: egutegi ziren erlojuak, linternak zeuzkaten lumak. **Koro Navarro**
Plaza erdian esertzen zen alfonbra baten gainean, bere **trepeta** bakarra horixe baitzen. **Felipe Juaristi**
Zur eta lur daude korridore ilunean pilatutako anabasari eta **trepetei** begira. **Harkaitz Cano**
Komun baterako **trepeta** arruntzez gainera, kanabera bat eta arrantza-otarre bat, aldizkariak, bizikleta baten gupila, botilak eta orain gogoratzen ez ditudan beste lanabes asko zeuden bertan. **Anjel Lertxundi**
Liburu-euskarriaren inguruetan edo lurrian ez zen argi-giltzarik ikusten, ez zen argia pizteko balio zezakeen beste inolako **trepetaren** bat nabarmentzen. **Anjel Lertxundi**
Ehizarako jantziak eta **trepetak** hartu eta mendira egin zuen ihes. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Mareajerako **trepeta** guztiak prestatzen ari gintuan moila berrian. **Koldo Izagirre**
Gerrarako **trepetak** zein hornidurak saltzen ibiltzen baita, horretarako baimendurik. **Felipe Juaristi**
Baina armairuan aurkitu nuenak [...] ez zidan deus esaten, salbu motxila batek eta mendiko **trepeta** batzuek. **Anjel Lertxundi**

2 (izenondoekin)

Baina tradizioa ez da fosil baten antzeko **trepeta** zaharkitu bat. **Anjel Lertxundi**
Baina kri-kri-kri hozki horrek ez al du salatzen sagu liburu-jalea **trepeta** mekaniko bat izan daitekeela? **Anjel Lertxundi**
Olinpiak, ordea, **trepeta** mekaniko bat darama tripetan, Olinpia ez da panpina bat besterik. **Anjel Lertxundi**
Jostailuzko tranbia elektriko bat eta beste **trepeta** elektriko pila bat ari zen egiten. **Josu Zabaleta**

3 irud/hed

Zein dira, ordea, bizitzari aurpegia erakusteko dituzten **trepeta** psikologikoak eta ideologikoak? **Anjel Lertxundi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gerra **trepeta** herdoilduz, hondar zakuz, zur-lanka ustelduz, inguratua bera, eta sartu zen barrura. espazio harrigarri bat, dena itsasoari buruzko liburuz eta itsas **trepetez** beteta: mapak, grabatuak, sestanteak, urpekarien kaskoak, unamak eta era guztietako sokak, aingurak... **Felipe Juaristi**
Han etorri zen osaba, radio-**trepeta** sastar batekin. **Pako Aristi**

trepeteria *iz* trepeta-multzoa.

Kutxan bere alkimista-**trepeteria** guztia zeukan. **Juan Garzia**

trepetxu *iz* trepeta, trastea.

Trepetxuz josita daukat etxea. **Juan Garzia**
Korridorera urten dute, laguntzaile gaztea **trepetxuak** maletan sartzen utzita. **Koldo Izagirre**
Ondoren grina eta berotasun bera itzultzen da, desio dutena eurenganatu guran, gaitza menperatuko duen **trepetxurik** ezin aurkituz: halakoxe noraezean ahitzen dira zauri ezkutuan. **Xabier Amuriza**

trepidazio *iz* dardara bizia, inarrosi bizia.

Estatu-nazio europarrak jasan dituen kontraesanen **trepidazioak**, bere boterearen galtze eta errekupezteak, eragin zuzena izan du estatu-azpiko nazionalismo periferikoetan ere. **Joseba Zulaika**

tres *iz* gitarra modukoa, txikia, hiru hari dituena.

Musika tresna berri bat gehitu dute, **tres** kubatarra. **Berria - Kultura**

tresa ik **tretza**.

tresillo *iz* sofaren eta bi besaulkiren multzoa; hiru pertsonarentzako sofa.

Elvis Costello bozgorailuetatik, baina ez ozenezi ere; areto zabalean zehar, paretetan itsatsitako **tresillo** belus gorritz tapizatueta edo mahai beltzez lakatuen inguruko aulkietan eserita daudenek eztarria eta belarriak gehiegi bortxatu gabe solasean jarduteko moduan. **Iñaki Iñurrieta**

Bi **tresillo** eroso, leun, arre kolorekoak. **Txillardegi**

-Hor zeudek Zorroagako dibinoak -egiten du Hausterrek, eta seinalatutakoan aldera hurbiltzen hasten da, taldeak duen **tresilloaren** bizkaraldearen kontra bermatuta jarri arte, barrara begira. **Iñaki Iñurrieta**

Irakasle itxurako hiru gizonezko **tresilloan** eserita, eta mahaiaren beste aldean ikasle izan behar duten neska-mutil batzuk. **Iñaki Iñurrieta**

treska iz lusuila, tina.

Bilboko emakumeak ur-ontziak eta **treskak** noiz beteko zain zeuden. [Lutxo Egia](#)

Batzuetan haurrek, ametsetan, upel edo **treska** baten aurrean soinekoa jasotzen dutelakoan, gorputzeko txiz guztia barreiatzen dute, tapiz baboniar distiratsua blaituz.

[Xabier Amuriza](#)

Jan aurretik, **treskara** botatzen zuen janariaren erdia. [Jose Morales](#)

tresmaila iz tretza-maila.

Baina orain esanen nuke Julia moilan edo karrikan ez topatzeagatik egoten nintzela barruan tretza eta **tresmaila** guztiak arakutzen. [Koldo Izagirre](#)

tresna 1 iz lan jakin bat egiteko, eta oro har eginkizun bat betetzeko, erabiltzen den atalen eta osagaien multzo egituratua. ik **gailu; trepeta; makina**¹; **lanabes**. (tresna fisikoak)

Tresna ?, mailu bat bezala?, ez dauka ba mailu itxura handirik! [Bernardo Atxaga](#)

Lehergailu-karga bat prestatzen ari zen, zanpa-burdina bat erabiliz (palankatxo moduko **tresna** bat, hamahiru libra pisu eta ia metro erdi luzekoa). [Xabier Olarra](#)

Oxigeno hori, aldi berean, konplexutasun handiko **tresna** batek hornitzen du. [Josu Zabaleta](#)

Azenarioak arraitzeko **tresna** baten zulo biribiletatik. [Harkaitz Cano](#)

Bizar-makina atera eta eginahalak egin nituen, hau da, egin-ezinak, zeren argindarrak gabe ez baitago **tresna** horrekin deus egiterik. [Joxe Austin Arrieta](#)

Dedangoek zaldi gainean ibiltzeko **tresnak** salerosten zizkizuten. [Elizen arteko biblia](#)

Azken hauek ziren lurraren iraultzeko **tresnak**. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Bi gitarra, bi mikro eta gitarrak eta ahotsak sanpleatzeko **tresna** baino ez zuen eraman. [Berria - Kultura](#)

Mozteko **tresnak** egiten dituen Kennametelek greba hasiko du asteartean. [Berria - Ekonomia](#)

Hiru **tresna** horiek kometa neurtu ahal izateko piztu zituzten. [Berria - Gaiak](#)

Tentsioa hartzeko **tresna** atera nuenean, musu-huts gelditu zen, ezin ulerturik zer zen. [Xabier Olarra](#)

Uretan soinuak igortzen dituen **tresna** da, 250 inguru bost segundoan. [Berria - Gaiak](#)

Trabaza laneko **tresna** bat da (edo zen izaitekotz), ez aitzur eta ez aizkora, baina gisa bertsuko ahoarekin. [Herria](#)

Tresna eta osagaien dimentsioen estandarrak. [Iñaki Heras](#)

Urre garbiko argimutilla bere **tresna** guztiekin. [Elizen arteko biblia](#)

Ez naiz oroitzen zenbat **tresna** atera nituen garajetik, baina batek ere ez zuen balio izan. [Oskar Arana](#)

Tximinoek **tresnak** erabiltzen dituztela baieztatu dute. [Berria - Gaiak](#)

Urre nahiz zilar hutsezko **tresnak** hartu zituen: intsentsu-ontziak eta ixipu-ontziak. [Elizen arteko biblia](#)

Diskoari buelta eman, **tresna** martxan jarri eta aurikularrak jantzita berriro eseriko da bere liburuarekin. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

-Ba al dakizu zenbat **tresna** kontrolatu behar dituen gaur egungo hegazkin pilotu batek? [Josu Zabaleta](#)

Zaldien gainean esertzeko **tresnari** eusten dioten uhalak. [Patxi Ezkiaga](#)

Dedangoek zaldi gainean ibiltzeko **tresnak** salerosten zizkizuten. [Elizen arteko biblia](#)

2 (tresna ez-fisikoak)

Horrelako **tresna** batek sor dezakeen hizkuntzari *egoera mugatuko hizkuntza* deitzen diogu; eta **tresna** bera *egoera mugatuko gramatika* izenda dezakegu. [Itziar Laka](#)

Barneko segurtasun publikoak beharrezkoa duen **tresna**. [Juan Martin Elexpuru](#)

Ekonomilarien **tresnak** eta helburuak. [Iñaki Heras](#)

Izan ere patenteak eta copyright-a gizarte industrialeko **tresnak** dira, soilik enpresa eta faktorien merkatua erregulatzeko **tresnak**. [Berria - Gaiak](#)

Kultur gerra sekular bat egiteko **tresnak** izatea. [Iñaki Mendiguren](#)

Industriaren egoerari aurre egiteko **tresnak** sortzeko exijitu zien LABeko idazkari nagusiak bi gobernuei. [Berria - Ekonomia](#)

Gauzak gogoratzeko **tresna**. [Bernardo Atxaga](#)

Akemenestar Inperioa Jahvek hautaturiko **tresna** zen judaismoa hedatzeko. [Iñaki Mendiguren](#)

Abertzaletasuna erakargarri egin behar dela, alegia, eta indarkeria eta kale borrokarena ez direla horretarako **tresnak**. [Hasier Etxeberria](#)

ELAren ustez, LAB «CCOOren **tresna** bihurtu da». [Berria - Ekonomia](#)

Zuzenbide Estatuaren **tresnak** muturreraino erabiltzen jarraituko dutela ere esan zuen. [Berria - Harian](#)

Arrazoimen zaharra, absolutua eta metafisikoa, kreaizailea eta oinarritzatzailea Jainkoaren ordezkaria izatek, **tresna** (instrumental) hutsa izatera etorria dago. [Joxe Azurmendi](#)

Allah jainkoaren **tresna** naiz. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Jarri zeuen gorputzak Jainkoaren zerbitzura, ongia egiteko **tresna** bihurtuz. [Elizen arteko biblia](#)

Gatazka konpontzeko **tresna** sortu behar da. [Berria - Euskal Herria](#)

Honela, beren gogoz bekatuaren esklabo egini, gorputzeko atal guztiak gaiztakeria egiteko **tresna** bihurtzen dituzte. [Askoren artean](#)

3 (tresna fisikoak izenondo eta izenlagunekin)

Esaten da zaletasun handia zuela **tresna** mekanikoak egiten aritzeko. [Santiago Iruretagoiena](#)

Batana [...] ehunki latza kolpeka joaz lantzeko eta tinkatzeko **tresna** hidraulikoa zen. [Patziku Perurena](#)

Arropak, **tresna** elektronikoak eta su-arma bat ostuta egin zuten ihes. [Oskar Arana](#)

Ezertarako balio ez duten **tresna** elektriko ugari ere trukatu dituzte elkarrekin. [Harkaitz Cano](#)

Tresna informatiko elebidun bat landu dugu eta agiriak itzuli ditugu. [Berria - Euskal Herria](#)

Normala da **tresna** sexualak erabiltzea, jolasak aldatze aldera? [Luis Elberdin](#)

Neska ederrez eta **tresna** sofistikatuaz gain, beste berezitasun bat ere agertzen dela beti Bonden pelikuletan: leherketak. [Hasier Etxeberria](#)

Har itzak ehizako **tresnak**, uztaiak eta geziak, eta hoa oihanera. [Jose Antonio Mujika](#)

Burdinazko **tresna** sutan sartu zuen kauterizazioa egiteko. [Askoren artean](#)

Kulturako erabili ohi ziren brontzeko **tresna** guztiak ere hartu zituzten: eltzak, palak, labanak, katiluak.

Itxura bitxiko **tresna** handi bat zegoen ohe ondoan. [Xabier Olarra](#)

Urregorritzakoak baitziren sukaldeko **tresna** asko, koilarak eta sardexkak, labanak eta edalontziak. [Felipe Juaristi](#)

Motozerra, bai **tresna** bizkorra. [Joxan Elosegi](#)

Oso **tresna** erabilerrazak dira. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Tresna bereziak ere egin behar izan zituen, altzairuzko labana berriazkoak, esaterako. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Traizioaren **tresna** makurra, eskuan duk, kamusteke eta edendua. Jabeari lagungarri zaion etxeko **tresna** erabilgarri bat. [Juan Garzia](#)

4 (tresna ez-fisikoak izenondo eta izenlagunekin)

Legezko **tresna** hori baitezpadakoa baita berreuskalduntze lana ereman ahal izaiteko. [Herria](#)

Demokrazia parte-hartzailearen **tresna** nagusia da herri kontsulta. Berria - Euskal Herria

Tresna bizia da negoziazio kolektiboa eta gatazkak sortzen dira lantzean behin. Berria - Ekonomia

Eskola izango da burgesiaren **tresna** nagusia botere politikoa eta ekonomikoa eskuratzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Oso **tresna** eraginkorra da komunikazioa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Merkatu askea **tresna** efikaza da, baliabideak esleitzeko limitazioak dituen arren. Iñaki Heras

Probokazioa ere oso **tresna** interesgarria da. Txema Ramirez de la Piscina

Hizkuntz mailak, hala nola fonemika, morfologia, edota sintaxia, gramatikak egiteko eskaintzen diren **tresna** deskribatzaileak dira batez ere. Itziar Laka

Erromatar gobernu berehala ohartu zen dirugintza ekumenikoak **tresna** politiko gisa zuen balioaz. Iñaki Mendiguren

Nazio ekonomikoki aurreratuen eragin politikoaren **tresna** osagarri bat. Koro Navarro

Beharbada ez dagoela hainbeste **tresna** moral eta lokarriren beharrik, gizonak zoriontsu eta burujabe egiteko. Juan Martin Elexpuru

Ezertarako on ez den **tresna** mesprezagarria ote da, bada, Jekonias hori? Elizen arteko biblia

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Karabana seinalatuz azaldu zidaten zer ez zebilen ondo; hara joan nintzen nire **tresna** -kutzarekin. Juan Kruz Igerabide

Ez zen mailu, pikatxoi edota burdinazko beste **tresna** -hotsik entzun tenplua eraikitzean. Elizen arteko biblia

Ekonomian merkatua **tresna** multzo bat dela esaten da, erosleak eta saltzaileak harremanetan jartzen dituen **tresna** multzoa. Iñaki Heras

Pantaila-zolako **tresna** -barratik, leihoxka batek ohartarazi ninduen horraino idatzitako karaktere kopuruaz: 2.734. Aingeru Epaltza

Hegazkintzarako **tresna** asmatzaile, hegazkin zerbitzuen antolatzaile eta propaganda zerbitzuetako kide ere izan baitzen. Josu Zabaleta

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, tresna fisikoez)

Piezak erosi, eta berak egina omen zuen hari eta istribiluz betetako irratia **tresna** hura. Pako Aristi

Mostradorea eta honen atzetik kafe-**tresna** expresoa. Iñaki Zabaleta

"Hispano-Olivetti" markako idazmakina beltza, gerra-**tresna** itxurakoa. Alberto Ladron Arana

Menperatutako gudu-taldeei kenduriko arma, gudu-**tresna** eta harrapakin ugariei esker. Elizen arteko biblia

Gela hartan ez zegoen ezer, garbiketa **tresna** batzuk besterik ez bazter batean. Iñaki Iñurrieta

Erakustazokaren %76 profesionalentzat izango da, baina gainerakoan etxeko burdindegi eta brikolaje **tresnak** izango dira ikusgai. Berria - Ekonomia

Hantxe neroan nik nire nabigazio-**tresnen** kutxatxoa, Zubiaur maisuaren hobaria. Edorta Jimenez

Zentzumenak neurketa-**tresna** dira, eta sentsazioaren bidez jasotzen dute kanpoko mundua guretzat. Xabier Olarra

Zelula "iraunkorrek" analisi-**tresna** bat balira bezala. Josu Zabaleta

Mahai-**tresnak** plater gainean gurutzatu ondoren, mahai erdirantz bultzatzen du. Ramon Saizarbitoria

Portzelanazko kikara zaharrak ateratzen genituen eta zilarrezko mahai-**tresna** ingelesak. Ander Irizar

Lerak, oinetako erraketak, eskularruak, ehiza **tresnak**, ume jostailuak. Joseba Sarrionandia

Egin lubetak, ezarri gudu-kanpalekuak eta jarri eraso-**tresnak** inguru guztian. Elizen arteko biblia

Bic etxeak hogeit bat idatz-**tresna** egiten ditu, Ladislao Jose Biróren asmakuntzatik zuzenean edo zeharka sortutakoak. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Euskal Soinu **Tresnen** Musika Eskola. Berria - Kultura

Has daitezela berehala kotxea eta zaldi-**tresnak** garbitzen. Xabier Olarra

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, tresna ez-fisikoez)

Izan ere, hizkuntza, ezer izatekotan, komunikazio **tresna** da. Joxerra Garzia

Oso zorrotzak izanik ere, azterketa-**tresnek** ezin eraman zezaketen hitzunaren buruko gramatikara. Itziar Laka

Euskara lan **tresna** dutenen artean oso onartuta dago euskara batua. Maite diat halere ironia, ia lan **tresna** bihurtzeraino. Koldo Zuazo

Distribuzio osagarrian auzaltzen ziren hotsen sailkapen-**tresna** zen fonema. Lourdes Oñederra

Idea horren arabera gastu publikoa ekonomia-**tresna** eraginkorra zen ziklo ekonomikoei aurre egiteko. Iñaki Heras

Hasieran ordainketarako tresna ziren truke-letrak, kreditu-**tresna** bihurtu ziren berehala. Koro Navarro

Bestetik, Funtsak finantza **tresna** berriak sortu zituen, industrializatu gabeko herrialde zorpetuek beren ekonomiak neurri jakin batzuen arabera aldatzearen truke. Iñaki Heras

Baliabideen kostua handitu egiten da, inbertsio-**tresna** errentagarriagoak agertzearekin. Koro Navarro

PNVk ezker abertzalearen borroka **tresnen** indargabetzea bilatu zuen, prozesua usteltzera eta blokeo egoerara eramanez. Berria - Harian

Denborari aurre egiteko, denbora tortura **tresna** baita gela itsu batean. Felipe Juaristi

Epailak soberano berriaren mendeku-**tresna** eta aginte-sustengu bihurtzen dira. Juan Martin Elexpuru

Merkatu batean negozioa daitezkeen babes-**tresna** berezien sorrera. Koro Navarro

Gaiztakeria-**tresna** bilakatu da askotan lan fisikoa; fabrikatik materia hila hobetuta ateratzen da; gizakia, berriz, usteldu eta doilortu egiten da. Iñaki Heras

Arerioa beldurtzea gerra-**tresna** handia da. Pako Aristi

Bategite **Tresna** deitutako hitzarmena sinatu zuen orduan, Indiaren jurisdikzioa, atzerri aferak, defentsa eta komunikazio bideetara hedatuz. Berria - Mundua

8 musika-tresna.

Bakoitzak bere **tresna** hartu du eta menuettoari ekin diote, Hegatxabalaren hirugarren mugimenduari hain zuzen. Felipe Juaristi

Lau musikari juduk, José Israel de Tudelaren gidaritzapean, lau harizko **tresnak** jo zituzten. Felipe Juaristi

Ikusiak zituen lehendik ere italiarrak Amsterdameko eliz atarrietan [...] halako **tresna** hura joka, baina sekula ordu arte ez zitzaion deigarri egin biolinak sortutako doina. Felipe Juaristi

Ziotenez, biolinaren arima zurezkoa izateagatik, omen zuen **tresna** txikiak halako zolitasuna, halako trinkotasuna, halako handitasuna. Felipe Juaristi

Tresna arretaz hartu zuen eskuetan, uste baitzuen une hartan edozein bortizkeriak desegingo zituela, biak batera, biolina eta neskaren esku. Felipe Juaristi

Ezaugarri horiek denek egin zuten esku-soinua herri xehearen **tresna** izatea. Koldo Izagirre

IAZAR Baionako soinulari taldea (piano, eskusoinu, kobrezko **tresna**, kantu eta perkusioak: euskal, afrikano eta jazz musika). Herria

Jo pianoa mozkorrik, perkusio **tresna** bailitzan, harik eta hatzak apur bat odoldu arte. Harkaitz Cano

Musika kioskoan metal-**tresnak** afinatzeko saioan hasiak ziren. Edorta Jimenez

Fanfarre bat antolatu ere bai, haize-**tresna** zalapartari eta kantariekin. Matías Múgica

9 musika-tresna (287 agerraldi, 54 liburu eta 112 artikulutan; orobat musikatresna g.er.) ik instrumentu.

Oholtzan Amadeo eta herri-bandako musikariak zeuden, **musika-tresnak** eskuan, hasteko aginduaren zain. Felipe Juaristi

Okasiorako sortutako orkestra inprobisatuan ez dago **musika-tresna** aski Wagner jotzeko. Harkaitz Cano

Turuta, txilin eta gainerako **musika-tresnen** laguntzaz. Elizen arteko biblia

Orkestrako **musika tresnen** sailean. Berria - Harian

Oso ongi gozatutako **musika-tresna** baten antzekoa. Xabier Olarra

Harizko **musika-tresnaz**. Berria - Kultura

Hamaika musika tresnaren espezialitateez gain (akordeoia, hari **tresnak**, gitarra, klarineta, oboea, pianoa...), koro eta orkestra zuzendaritza ikasketak eskaintzen ditu ikastegiak. Berria - Harian

Haizezko **musika-tresna** batzuen doinuak entzun nituen alboko gelatik. Xabier Olarra

Bazekien legeak, biolinak bezala, bi soinu dituela beti, bata jotzaileak **tresnari** ateratzen diona eta bestea, erabat desberdina askotan, entzuleari berlariraino iristen zaiona.

Felipe Juaristi

10 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Musika tresna kurtoso ainitz: gaita, pandero, arrabita, tronpeta, [...]. **Herria**

- Didjeridua, munduko haize **musika-tresna** zaharrenetakoa. **Berria - Kultura**

Perkusio eta soka **musika tresnak** erabiliz. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

antzeko tresna (5); **argazki tresna** (8); **aurre egiteko tresna** (10); **beharrezko tresna** (6); **bere tresna** (24); **bere tresna guztiekin** (5); **beren tresna** (5); **bideratzeko tresna** (6); **borroka tresna** (7); **burdinazko tresna** (5)

erabilitako tresna (5); **erabiltzeko tresna** (5); **erabiltzen den tresna** (6); **etaren tresna** (8); **etaren tresna zela** (5); **etxeko tresna** (12); **euskara lan tresna** (10); **ezinbesteko tresna** (22); **ezinbesteko tresna da** (6); **funtsezko tresna** (5); **gainditzeko tresna** (6); **gerlako tresna** (7); **haizezko musika tresna** (5); **hobetzeko tresna** (5); **horrelako tresna** (9); **horretarako tresna** (9)

izateko tresna (5); **izeneko tresna** (5); **komunikazio tresna** (10); **komunikaziorako tresna** (6); **konpontzeko tresna** (8); **lan egiteko tresna** (5); **lan tresna** (56); **lan tresna gisa** (6); **laneko tresna** (10); **lanerako tresna** (12); **lantzeko tresna** (6); **lortzeko tresna** (15); **musika tresna** (145); **musika tresna bat** (9); **musika tresna baten** (5); **neurtzeko tresna** (7)

oinarrizko tresna (7); **perkusio tresna** (6); **soinu tresna** (17); **sortzeko tresna** (5); **tortura tresna** (7)

tresna atera (5); **tresna bakarra** (14); **tresna ballagarria** (19); **tresna ballagarria dela** (5); **tresna ballagarriak** (5); **tresna bera** (8); **tresna berezi** (6); **tresna berezia** (7); **tresna bereziak** (5); **tresna berri** (23); **tresna berri bat** (13); **tresna berria** (9); **tresna berriak** (20); **tresna bihurtu** (14); **tresna bihurtu da** (5); **tresna bihurtuz** (5); **tresna bihurtzen** (6); **tresna bilakatu** (11)

tresna egoki (6); **tresna egokia** (33); **tresna egokia izan** (8); **tresna egokiak** (13); **tresna elektriko** (10); **tresna elektrikoak** (7); **tresna erabilgarria** (9); **tresna erabiliz** (5); **tresna eraginkorra** (17); **tresna eraginkorra da** (5); **tresna eraginkorrak** (6); **tresna ezin hobea** (6); **tresna garrantzitsua** (17); **tresna gisa erabili** (5); **tresna gisa erabiltzea** (5); **tresna gisa erabiltzen** (7); **tresna handi** (6)

tresna izan (33); **tresna izango** (21); **tresna izango da** (8); **tresna izatea** (17); **tresna mota** (6); **tresna nagusi** (5); **tresna nagusia** (17); **tresna nagusiak** (6)

tresna politiko (17); **tresna politikoa** (6); **tresna tradizionalak** (5); **tresna txiki** (7); **tresna ugari** (10)

aurre egiteko tresnak (5); **bere tresnak** (7); **etxeko tresnak** (6); **lan tresnak** (13); **mahai tresnak** (15); **musika tresnak** (57); **sasi tresnak** (5); **tenpluko tresnak** (5)

tresnak aurkitu (5); **tresnak egiteko** (5); **tresnak egiten** (5); **tresnak ematen** (5); **tresnak hartu** (7); **tresnak jarri** (6); **tresnak jotzen** (5); **tresnak sortu** (7); **tresnak sortzeko** (6); **tresnak sortzen** (5)

musika tresnaren (17)

tresnarik egokiena (7); **tresnarik gabe** (9)

lan tresnatzat (6); **tresnatzat hartu** (5); **tresnatzat jo** (10)

burdinazko tresnaz (5); **harizko musika tresnaz** (6); **musika tresnaz** (9)

musika tresnekin (8)

itsasoko tresnen (6); **musika tresnen** (29); **soinu tresnen** (5); **tresnen bidez** (5)

tresnagile iz aipatzen diren tresnak egiten dituen enpresa.

AMPER (%0,96) telekomunikazio **tresnagilearen** Erosteke Eskaintza Publikoa aurkeztuko ote duten zurrumurruak dabilza. **Berria - Ekonomia**

tresnagintza iz tresnak egitea.

Hainbestekoa zen musikarekin zuen anaitasuna, non Tuterako azken urteetan **tresnagintzan** aritu zen, biolingintzan batez ere, eta maila altua lortu lanbide horretan. **Felipe**

Juaristi

ik tresna 8.

tresnaño iz tresna txikia.

Diote batzuk elkortzen ari dela gure Jakes Haundia, mihi gaixtoek derasatelarik beharri ziloetan ezarri dituzkeela "beharritxoak", erran nahi baita hobeki entzuteko eginak diren

tresnañoak. **Herria**

tresnaska ik tresnaxka.

tresnategi iz tresna-biltegia.

Eta ezkerretan, teilaz estalitako etxola hura, **tresnategi** eta egur-gordeleku izana. **Txillardegi**

tresnatu, tresna(tu), tresnatzen 1 du ad tresnez hornitu.

Tresnatuta zauzkanat dagoeneko kabalak. **Juan Garzia**

Bazegoen, gastu handirik gabe, zelula-laborategi gisa **tresnatzea** bakterio-laborategia. **Juan Garzia**

Itsasontzi bat ondo egina denean, ondo **tresnatua** badago, eta zama handirik ez badu, haizeak bultzatzen du ekaitz gogorra denean, eta olatuak ontziaren azpitik irristatzen direla ematen du beti. **Koro Navarro**

Nik eta nire bi anaiek izan genuen behin belaontzi bat, goleta modura **tresnatua**, hirurogeita hamar bat tonakoa. **Koro Navarro**

2 irud/hed

Hortako herria behar da **tresnatu**, gorpuztu eta xutik ezarri. **Herria**

Laboraria **tresnatua** da orain, eskolatua, argitua, ikasia. **Herria**

Gure biziko beste zati bat hasten da, baina hobeki **tresnatuak** gara ihardokitzeko. **Marzel Etxehandi**

tresnatxo iz tresna txikia.

Grabagailuari eranstekoa **tresnatxo** eramangarria. **Bego Montorio**

Nik behin esan ere egin nion ea zergatik ez zuen belarrin jartzen **tresnatxo** haietako bat, jendeari hobeto entzunarazten zionetakoa. **Bego Montorio**

Etxeratu eta **tresnatxo** guztiak prestatu nituen: koilaratxoa, gomatxoa, kandelatxoa, zigarreta-ahokoa... **Sonia Gonzalez**

tresnatzar iz adkor tresna handia.

-Hobeto zaude, ezta? -eta antzeko gauzak galdetzen zizkion, berak ezer erantzutako aukerarik baleuka bezala, **tresnatzarra** eztarrian behera zebilenean. **Hasier**

Etxeberria

Esan nion, nire barneko xaitik bota egin nituela alferrikako sareak eta **tresnatzar** zaharkituak. **Hasier Etxeberria**

tresnaxka *(corpusean tresnaska soilik) iz*

Horrek ez ninduen aldenarazi, dena den, **tresnaskaren** desmuntaketa-lanetik; jakin nahi nuen zergatik ez zebilen. **Joxe Austin Arrieta**

tresneria 1 iz tresna-multzoa.

Timoteok Karnion izeneko tokira bidali zituen emakumeak, haurrak eta **tresneria**. **Elizen arteko biblia**

Beren **tresneria** guzia (400 kilo material eta janari) helaraziko dute, 18 yak-en bidez, sherpa batzu gidari, 5750 metretan dagon "behereko kanpamenduraino". **Herria**

Horgo ferietan bazen kabala, **tresneria**, nekazal produktu edo laborari mozkin ainitz. **Herria**

Gamelu, asto eta mando ugari hartu zuen **tresneria** eramateko. **Elizen arteko biblia**

Laurehun bat gizonek jarraitu zioten Davidi; beste berrehunak **tresneria** zaintzen gelditu ziren. **Elizen arteko biblia**

Ez zegoen zaldientzako **tresneria** besterik. **Juan Kruz Igerabide**

Nire lanerako **tresneria** oraindik ailegatu ez omen delako. **Txillardegi**

Joskintzako **tresneria** eta mota desberdineko oihalak. **Josu Landa**

Segaren inguruko **tresneria** erakusgai jarriko dutela adierazi zuen. **Berria - Kirola**

Ogia egiteko **tresneria**, hestekiak moldatzeko lanabesak, esnetik gurina egiteko ontziak. **Edorta Agirre**

Irudiak muntatu ahal izateko **tresneria** jarriko dute. **Berria - Kultura**

Bertan ipintzen zen oparitarako abereak hiltzeko **tresneria**. **Elizen arteko biblia**

Inprimatzeko **tresneria** berritzeko premian zegoen erakundea -herrialde bakoitzean multikopista bat, gutxienez- eta bagenekien non eskuratu. **Rafa Egiguren**

Bulego nagusia eta informazioaren **tresneria** (egunkariaren idazkaritza, nolabait esateko, telegrafoa barne), Kale Nagusiko 45ean kokatu genituen. **Txillardegi**

Zuzendariaren lana izanen da lantegiak hurbilgotik jarraitzea, heien beharrak hobeki neurtzeko, **tresnerietan**, merkatuetan, eta abar... **Herria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erakusketaren gainerako guneak **tresneria** elektriko eta elektronikoari, manipulazio bidezko eta robotikoari, **tresneria** hidrauliko eta pneumatikoari eta metrologia eta kalitate kontrolari eskainiko dizkiete. **Berria - Ekonomia**

Arnasa hartzeko dugun **tresneria** anatomikoaz baliatzen gara hitz egiteko ere. **Lourdes Oñederra**

Tresneria kirurgikoa zeure esku dago. **Joseba Sarrionandia**

Salbamendu taldeek hasieran ez zuten **tresneria** astuna erabili nahi izan, eraikineko zati gehiago eroriko zen beldurrez. **Berria - Mundua**

Pasteur Institutua oso txiroa zen orduan alde horretatik: leku gutxi, **tresneria** eskasa. **Juan Garzia**

Ez ditugula geure erretinako irudiak ikusten (oftalmologo batek bai, ikusi ahal izango litzuke, horretarako **tresneria** berezi batez baliatuz). **Josu Zabaleta**

Kontua da, liberal espainolek, herriaren filosofia bat edukitzeko [...] **tresneria** teoriko frantsesa besterik ez zutela. **Joxe Azurmendi**

Mikek argazki-estudio bat zuen etxean, primerako **tresneria**, atzealdeko paisaiak aldatzeko tramankulua eta guzti. **Karlos Zabala**

Zurezko **tresneria** zen nagusi han barruan. **Joxemari Iturralde**

Magistratu jakintsuek eta apaiz serioek lasaitasun axolagabez eta **tresneria** geldoz zatikarazten dutela presoak, eta dohakabe hau azken arnasan, behin betiko golpearen zain dardaraka dagoen bitartean, [...]. **Juan Martín Elexpuru**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat tresneri g.er.)

David, ekarri zituen zamak **tresneri** zaintzaileen esku utzirik, gudu-tokiraino joan zen bizkor, eta ongi ziren galdetu zien anaiei. **Elizen arteko biblia**

Tresneria-enpresa bateko departamentua izateko feminenogea irudituz zaizu beti diseinua, inkoherentea. **Eider Rodriguez**

Batzuek desordenarik handiena eta **tresneria**-pilaketarik handiena mahaian gainean erakutsiz adierazten dute beren aginpidea; beste batzuk, berriz, soilkiago, hutsaren eta garbi-distira zorrotz-zorrotzaren bitartez aitorrarazten dute beren nagusigoa. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Morse-telegrafo **tresneria** osoa beste leku batean aurkitu dut. **Txillardegi**

Informatika eta telematika **tresneria** berriak mila bider areagotu ditu Platonen mitoak idazketari erantsitako arriskuak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Santanderren ez zegoen aski garraio 6.000 zauritu eramateko, eta are gutxiago osasun **tresneria** edo sendagairik. **Jokin Urain**

Asmo oneko ingeniariak egindako konputagailu-ereduek eta medikuntza- **tresneriak**. **Irene Aldasoro**

Erretiradan Coppi jeneralaren indarrek utzi dituzten hildakoek eta gerra **tresneria** ugariak beren gordinen hitz egingo diete Esku Hartze Ezaren Aldeko gobernuei. **Edorta Jimenez**

Idazkaria sartu zen, erretilu batean kafe- **tresneria** zuelarik. **Anjel Lertxundi**

-Mahai- **tresneria** finlandiarrik izan al dugu inoiz, ama? **Iban Zaldúa**

Bada, hala, sentsu- **tresneria** bat organismo bakoitzean, hura kanpoko munduaren zenbait alderdi hautemateko gaitzen duena. **Juan Garzia**

Ilargiaren kasuan, eskura zegoen aspalditik adigai- **tresneria** guztia. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere tresneria (9); **bere tresneria guztia** (4); **beren tresneria** (5); **beren tresneria guzia** (3); **egiteko tresneria** (8); **gainerako tresneria** (3); **izateko tresneria** (3); **mahaia tresneria** (5); **sukaldeko tresneria** (4)

tresneria berezia (4); **tresneria berri** (5); **tresneria guzia** (6); **tresneria osoa** (3); **zernahi tresneria** (3)

tretza *(orobat tresas) 1 iz* arrantza aparailua, soka luze bati atxikiriko soka amudun batzuez osatua.

Baina orain esanen nuke Julia moilan edo karrikan ez topatzeagatik egoten nintzela barruan **tretza** eta tresmaila guztiak arakaten. **Koldo Izagirre**

Bokalean aurrera zoazela, laster farolak urrun egonen direla sumatzen duzunean, hobe petretxa egiten, **tretzak** beitatzen edo sukaldariari laguntzen hastea. **Tresak**, kordelak, bahe zabalak eta arrantzarako hainbat trepeta, kresalak jandako horman zintzilik... **Koldo Izagirre**

2 tretzan adlag tretza erabiliz arrantzan.

Tretzan aritzen diren arrantzaileek subil deituriko soka luzeak 30 eta 60 kilometrokoak zabaltzen dituzte itsasoan, eta horietako bakoitzari 150 bat potxera hari lotzen dizkiete.

Berria - Gaiak

Ia milioi erdi itsas dortoka erortzen dira urtero, munduan **tretzan** dabilzan arrantzontzien amuetan. **Berria - Gaiak**

tretzaontzi iz tretzan aritzen den arrantzontzia.

Egunero 3,8 milioi amu erabiltzen dituzte mundu osoko **tretzaontziek**. **Berria - Gaiak**

treza iz

Bakotxak egin du bere korona, zumearekin **"trezak"** eginez. Herria

triada iz hirukoa.

Atzo izan zen medikuarenean eta espero baino larriagoa izan da erresonantziaren emaitza: ezker belaunaren aurreko aldeko lotailu gurutzatua eta barne meniskoa ditu apurtuta, **triada** famatua. Berria - Kirola

-Aztiazen hiru dohainak, **triadak**, eta Hirutasun zalantzarik gabea. Juan Garzia

Harreman hauek ez dira zabaltzen inguruko eremuetara eta ezin dira poliki-poliki transferitu diskurtso garaikideen multzora, ez eta, arrazoi gehiagoz, "espiritu klasikoa" deitu ohi denera ere: eurak zorrozki konfinatuak daude landutako **triadan**, eta ez dute baliorik hor zehazten den eremuan ez bada. Xabier Arregi

trial iz motokross mota, gidariaren trebetasunari begiratzen diona.

Gaztea zenean **trialean** eta motokrossean aritzen zen, baina laster jantzi zituen lau gurpilak. Berria - Kirola

Trial bizikleta. Berria - Kirola

triangelu (276 agerraldi, 50 liburu eta 43 artikulutan; orobat *triangulo g.er.* eta *triangulu g.er.*) 1 iz hiru aldeko poligonoa. ik hiruki¹.

Talesek erakutsi zuen **triangelu** bakoitzari zirkulu bat egokiaraz dakiokela; haren hiru erpinetatik pasatzen den huraxe, hain zuzen. Jon Muñoz

Euler-en erlazioa, **triangelu** batean zirkunskribatutako zirkuluari dagokiona. Jon Muñoz

Paper bat hartu eta **triangelua** marraztu zuen. Joxemari Urteaga

Zirkuluaren kurba ukitzen duten **triangeluen** erpinak. Santiago Iruretagoiena

Triangelu baten angeluen batura 180 gradu da. Jon Muñoz

Triangeluen neurketa da trigonometria. Jon Muñoz

Triangeluen hipotenusa komuna karratuaren diagonal da. Jon Muñoz

Triangelu hori angeluzuzena da. Jon Muñoz

lido berean, hiru aldeak desberdinak dituzten **triangeluei** eskalenoak esaten zitzaizkien: herrenak. Jon Muñoz

Triangeluaren grabitate-zentruan. Jon Muñoz

Triangeluaren bi alde hartzen zituen Eskolapioen ikastetxeak. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere pubiseko goroldioa sarria zen, eta **triangelu** perfektua markatzen zuen. Juan Martín Elexpuru

Belak **triangelu** gorritzat bat zirudien. Lopez de Arana

Bostak Kalamuaren itsasoranzko mazalean daude, Barinaga-Etxebarri-Urkarregi **triangeluan**. Anjel Lertxundi

-Ez al duzue entzun Bermudetako **Triangeluarena**? Harkaitz Cano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eta bereiz daitezke nolana hiko **triangelua**, **triangelu** isoszelea, **triangelu** aldekiea eta **triangelu** angeluzuzena. Jon Muñoz

Berdin gustatzen zitzaizkidan hirurak, eta beraiekin nengoenean **triangelu** aldekie baten erdian bezala sentitzen nintzen, zein erpinetara jo ez nekiela. Bernardo Atxaga

Zirkunferentzia horretan lau **triangelu** aldeberdin egin behar dira. Santiago Iruretagoiena

Talesek frogatu zuen **triangelu** isoszele batek bi angelu berdinak dituela. Jon Muñoz

Triangelu esferiko baten angeluen batura 180 gradu baino handiagoa da. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan)

Maxwellen kolorearen teoria eta kolore-**triangelua** kolore-elkartzearen kontzeptuan oinarriturik zeuden. Xabier Olarra

Gero tea hartuko zuten, eta bina sandwich-**triangelu** jango zituzten. Mirentxu Larrañaga

4 irud/hed

Galdosen aburuz, euskal politikaren **triangeluaren** hiru erpinak oso definituta daude. Berria - Euskal Herria

Erasoak **triangelu** sunitan'. Berria - Mundua

5 bikote batek eta biotako baten maitaleak osatzen duten multzoa.

Edith Thompsonen historiari nobela beltzeko kontakizun baten itxura du, maitasun eta gorrotozko **triangelu** eta guzti: senar onbera, emakume dotore eta maitasun beharrekoa, eta maltzur jokatzeko duen adiskide estimatua, amorante gazte eta sutsu bilakatua... J.M. Olaizola "Txiliku"

Oraingo istorio erromantiko-fantasiatsu eta ezohiko honetan protagonismoa amodiozko **triangelu** bitxi batek izango du. Jon Arretxe

Danelen izena, berriz, Ada eta Mitxel izenek markaturik dator: ezin zen gehiegi urrutiratu bi izen horiek eskatzen duten girotik, Ada eta Mitxel **triangelu** bat osatzera erakartzeko ari den angelu bisilabikoa baita Danel. Anjel Lertxundi

Niri dagokidenez, artean itsu nengoen: ez zitzaidan burutik pasatzen **triangelurako** arriskurik zegoenik ere. Anjel Lertxundi

Egun haietan Ada ohartzeko hasita zegoen **triangelua** osatzeko baldintza zenbaiten amarauna ehutzen ari zela gure inguruan. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

triangelu aldekie (4); **triangelu** angeluzuzen (3); **triangelu baten angeluen** (4); **triangelu** formako (3); **triangelu** isoszele (3); **triangelu** plazan (4); **triangelu** sunita (12); **triangelu** sunitan (5)

triangeluaren idelarik gabe (3)

bermudetako triangeluarena (3)

triangeluaire (corpusean *trianguluaire soilik*) izond triangelu itxurakoa.

Milafrangako inguruak nahiago: teillatu **trianguluaire** erpin eta bakarreko eliza zahar hura, inguruan milafrangarek bakarrik ezagutu zituzten herrikide xumeen oroitarri borobilak. Txillardeggi

triangeluar (orobat *triangular*) izond hiruki forma duena.

Tetraedroa: oinarri **triangeluarreko** piramidea, lau aurpegiak triangelu aldekie dituena. Jon Muñoz

Bere ipurdi handia aulki urreztatu **triangeluar** batetik ateratzen zen. Lopez de Arana

Makurtu eta adar okerreko garezur **triangeluar** bat jaso zuen. Lopez de Arana

[Poroak] txikiagoak eta handiagoak izan behar, batzuek **triangeluarrak**, beste batzuek karratuak, askok borobilak eta asko era askotako angeluanitzak. Xabier Amuriza

Zubia zeharkatuta, patio **triangeluarra** harrigarriro txiki eta estua iruditu zitzaidan. **Alberto Ladron Arana**
Fatxaden erpin **triangeluarrak** atzera makurtzen ziren. **Karlos Zabala**

triangelutasun *iz* triangelu izateko nolakotsuna.

Beraz, estrategia horren arabera, ez dago **triangelutasunik**, objektu banakoak eta antzekotasunaren erlazioa baizik. **Askoren artean**

triangular ik **triangeluar**.

triangulazio *iz* triangelu gisa eratzea.

28. minutuan ezker hegaletik sartu ziren, hiru lagunen arteko **triangulazio** eder bat eginda, erdiratzea ere lortu zuten, baina Vryssisek lehen zutoinean, eta Charisteasek bigarrenengoan ez zuten errematatzerik lortu. **Berria - Kirola**

triangulo ik **triangelu**.

triangulu ik **triangelu**.

trianguluaire ik **triangeluare**.

triatleta *iz* triatloietan lehiatzen den atleta. ik **triatoilari**.

Espaniako **triatleten** sailkapenean Hawaiiko Ironmanerako sailkatzea lortu zuen. **Berria - Harian**

Bost euskal **triatleta** ariko dira Valentzian, Europako Txapelketan. **Berria - Kirola**

Eneko Llanos eta Virginia Berasategi euskal **triatletek** maila bikaina eman zuten zapatuan Bay Islandseko Triatloian. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal triatleta (3)

triatloi *iz* hiru kirol probaz osaturiko atletismo norgehiagoka.

Lehenik igerika, gero bizikleta baten puntan eta azkenik lasterka, hola egiten dira **triatloi** guziak. **Herria**

Euskal zirkuiturako eta Arabako txapelketarako baliagarria izango da biharko **triatloia**, eta denera 750 metro igeri, 25 kilometro txirrinduan eta bost korrika egin beharko dituzte. **Berria - Kirola**

200 partaide baino gehiago izango dira bihar Gasteizko Andra Mari Zuria **triatloian**. **Berria - Kirola**

Ur-Kirolak elkarteak muntatu bi **triatloiak**. **Herria**

Barakaldoko **triatloiarren** hamargarren ekitaldia jokatu da bihar. **Berria - Kirola**

Igande honetan hasiko da Euskal Herriko **triatloi** denboraldia. **Berria - Kirola**

Espaniako **Triatloi** Federazioak atzo eman zuen heldu den abuztuan Greziako hiriburuan ariko diren triatloiarren zerrendaren berri. **Berria - Kirola**

triatoilari *iz* triatloietan lehiatzen den atleta. ik **triatoilari**.

25 urteko **triatloilariak** urte gutxian egin du zaletasunetik kompetiziorako jauzia. Bi hilabete eskas barru Atenasko Olinpiar Jokoetan parte hartuko duten hiru **triatloiarren** partehartzea lotu du Atletiko San Sebastian kirol elkarteak. **Berria - Kirola**

triatxotx *iz* ik **txotx 5**.

Triatxotx xapelketa umoretsu bat ere iraganen da 25 elkarteren artean. **Herria**

tribal *izond* tribuarena, tribuari dagokiona.

Riaden milaka pertsona bildu ziren, tartean, buruzagi **tribalak**, klerikoak, alkateak eta hamalau eskualdeetako gobernadoreak. **Berria - Harian**

Neoprimismoak arrakasta handia izan zuen Errusian, Hego Amerikako, Afrikako eta Ekialdeko herrietako arte primitibo eta **tribalak**, hain zuzen. **Berria - Kultura**

Horrela azaldu zizkigun hasieran, tartean eta bukaeran saxofoi jazzistikoarekin eta emakumearen abesti **tribalarekin**. **Berria - Kultura**

Askotariko technoz eta perkusioz osatutako zortzi abesti jaso ditu musikari mutrikuarrak lan berrian: techno **tribala**, techno etnikoa, techno latinoa eta techno trancea.

Berria - Kultura

Gallego! desafio oihua zen, ez dakit ulertzen didazuen, mutilen arteko nolabaiteko kode **tribala**. **Iñigo Aranbarri**

Horieta hiru ezaugarri errepikatzen dira: gorroto **tribala**, ideologia bati atxikimendu itsua, arduratasun pertsonal gutxitua. **Askoren artean**

tribalismo *iz* tribukako gizarte antolamendua.

Estatu ez diren autogobernuak ez dira "**tribalismo**" ra itzultze bat, "forma politiko berrien aitzindari" baizik. **Joseba Zulaika**

Ikuspegi integratzaile horiek ihes egiten dute elkartasun edo tolerantzia printzipioei azpia jaten dieten gizarte zatiketa eta **tribalismoa** sustatzen dituen ikuspegi murriztaile orotatik. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

XX. mendeko gizateriaren ibilbide morala erakutsi digu Gloverrek, gure alde suntsitzailea bazterteke, atalez atal: lege moralik gabeko etika, gerraren psikologia morala,

tribalismoa, gerra tranpa gisa, sinestea eta izua. **Askoren artean**

tribalizazio iz gizartea tribua antolatzea.

Tribua moldatzen dugula azpimarratzen dut, mundu zibilizatu honek antolaketa sozial hori preseski gaitzesten duenean, **tribalizazioa** erranahi negatiboaz apainduz. **Itxaro Borda**

tribial 1 iz hutsala, garrantzigabea.

Agian **tribialak** ziren nekazariaren hitz haiek, baina, traktoretxo gorriaren ondoan, artasoroari begira, amonaren otoiaren marmartxo lagun, zentzu handia aurkitu nien. **Bernardo Atxaga**

Horrekin zerbait itxuraz **tribiala** jatorriratzea lortzen du: ortzi urdinaren eta egunsentiaren miraria. **Xabier Amuriza**

Bakarrek izen bakarra behar zuten Leizarragarentzat, *laincoa*: bestea, bi silaba gehiagorekikoa, puzte ergel bat baizik ez zen izango harentzat, berria, **tribialegia**, denik-eta misteriorik sakratuena urardotzen zuena, kasik haur batek asma zezakeena. **Iñaki Seguroa**

2 ez-tribial izond

Hemen daukagu identitate-perpau **ez-tribialen** auziaren erantzuna: identitate-zeinuaren alde bietan erreferentzia bera baina zentzu desberdinak dituzten izenak daudenean izango da informatiboa perpau hori. **Askoren artean**

tribializatu, tribializa, tribializatzen da/du ad hutsaldu, garrantzia kendu.

Nahiz tartean Marxen teoriak zabaldu, nahiz jenialtasunari buruzko teoriak izugarri **tribializatu** izan, egungo literaturaren edo artearen ideologia nagusiak azpimarratu egingen da beti indibidualtasuna, eta gutietsi, berriz, gizarteak, aurrekoak edo garaikoak, edozein obratan duen eragina, faktore kolektiboa. **Bernardo Atxaga**

tribializazio iz hutsaltzea, garrantzia kentzea.

Denboraz gaindi den orori lotzen zaion herdoila bera baino gaitz asekaitezagoa da **tribializazioa**: desitxuraketaren gailur demokratikoaz berdintzen ditu arrunkeria eta klasikotasuna, moda eta artea. **Anjel Lertxundi**

Egungo gizarte eta gizaki modernoari buruzko kritika zorrotz bati ekin dio: kontsumismoaren ategabeko deia, komunikabideen kalaka beti-berdina, publizitatearen manipulazio gordina, mugimenduen masifikazioa, harremanen **tribializazioa** ... gatazka egoeretan gaur egun sortzen ari den **tribializazioa** azpimarratu dute. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Tribializazioari buruzko liburuko azpimarrak. **Anjel Lertxundi**

tribu 1 iz etnia-harremanetan oinarrituriko gizarte talde primitiboa.

Ojigbwa **tribua** oso hedatua zen, Kanadako Erdi-mendebaldearen goialdea eta ekialdea zituen bizileku. **Xabier Olarra**

Argentinako Ona **tribu** indigenako azkenengo kidea hil da. **Berria - Gaiak**

Eta bi emazteki indiar zituen neskame, Iriyama eta Iriyumo, chaimen **tribukoak**. **Joan Mari Irigoien**

Concho, **tribu** indiar bat izateaz gain, Texas aldeko ibai baten izena ere bazen. **Harkaitz Cano**

Tribu horietatik batzuk askeak dira, eta beste batzuek subiranotasuna aitortzen diote edo Errusiari, edo [...]. **Karlos Zabala**

Urte asko eta asko pasatu ondoren, maisu batek eta bere ikasleek bidaia antolatu zuten **tribu** isolatuon lurraldeetan zehar, haien bizimodu eta ohiturak gertutik aztertzeko. **Jon Arretxe**

Gizon seinalatu eta berezi bat, **tribuko** medikua eta aztia zirudiena. **Joan Mari Irigoien**

Al-Fayoungo **tribuetako** buruen aurrera eraman zituzten segituan ailegatu berriak. **Xabier Aranburu**

Bere nahiaren berri eman zion **tribuko** buruzagiari. **Joan Mari Irigoien**

Alderdi hartako **tribuetako** bey-ak ziren. **Fernando Rey**

Tribuen arteko tiroketan 14 pertsona hil dira Darfurren. **Berria - Mundua**

Jakin genuen toki hartan espainiarren gotorleku bat zegoela, eta horren alboan frantsesen aerodromo bat eta bertako **tribu** nomaden bizpahiru denda. **Patxi Zubizarreta**

Amerikako **tribu** indioetako izenen berri ondo dokumentatua eman zuen. **Anjel Lertxundi**

Mississippi Arroko Lautada Handiak, abeltzainen paradisu izan zitezkeenak, **tribuen** ehiz lurralde izaten jarraitu ziren. **Iñaki Mendiguren**

Afganistango **Tribuen** Batzar Handiak joan den igandean onartu zuen Afganistango konstituzio berri hori. **Berria - Mundua**

2 irud/hed

Tribua, zuk deitzen zenion moduan, gutziz sakabanatuta, Garaterekin baino ez nintzen egoten, oso bakanka gainera. **Xabier Montoia**

Genizun begirunea, eta miresmena ere, ez ziren nahikoa izan **tribua** baturik mantentzeko. **Xabier Montoia**

Ez naiz haatik arras bakarrik, biziaren gauzen erdian bazegoelakotz jendea: bospasei adiskide, egiazko haiek, **tribuko** kusiak, hain maitatuak, haurtzaroko jostetakide ahantzezinak. **Piarres Aintziart**

Tribu gazte osoari eta gure Elsa gogoberoari eman iezaiezu besarkada bat. **Ramon Etxezarreta**

Asteroko proba zen hura, tribukideak **tribuko** zirela frogatzeko. **Tribua** moldatzen dugula azpimarratzen dut, mundu zibilizatu honek antolaketa sozial hori preseski gaitzesten duenean [...] globalizatzen gaituen kontsumo gizartearen aurka doa irudiz **tribua**, hautsia, anitza, ele lauduna, purruskatua, gustu ezberdinen artean beti urratua. **Iñaki Iñurrieta**

Supermerkatua da guretzat **tribuen** ezabaketa obratzen duen toki sinbolikoena. **Itxaro Borda**

Bestalde, ekonomiarren **tribuan** ez ezik, politikoenean ere sarri baino sarriago gertatzen da tranpa hau: [...]. **Iñaki Heras**

Belaunaldia, **tribua** edo herria... pertsonaia kolektiboak dira eta askotan egiazko pertsonaiak gogoratzeko sortuak. Itomenak, berriz, **tribua** koadrila bihurtzea dakar. **Ana Urkiza**

3 (hitz elkartuen lehen osagai gisa) ik tribal.

Ordu arte Mendebaldeko erresumen legeria barbaroen **tribu**-kode zaharren kristau-eranskin gisako bat izan zen. **Iñaki Mendiguren**

Tribu erakundeen bitartez antolatu izan baitute lurraldearen kontua. **Xabier Olarra**

Ezaugarri nagusia **tribu**-legearen loturekiko emantzipazioa -soziala, politikoa eta erlijiosoa- da. **Iñaki Mendiguren**

Monarkiaren forman, ez **tribu**-legean baizik eta ospe militarrean oinarritua. **Iñaki Mendiguren**

Lehenago ere aipatutako artalde eta **tribu** sentimendua. **Hasier Etxeberria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

australiako tribu (3); osatutako tribu (3)

tribua osatzen (3)

tribuaren buruzagia (3)

afganistango tribuen batzar (3); tribuen arteko (6); tribuen batzar (9); tribuen batzar handiak (4)

tribuetako buruak (3); tribuetako buruek (5)

tribukoak dira (3)

tribuburu *(orobat tribu buru)* iz tribuko burua.

Aitor nezala hondarrean mendiko ikusgarrietan bermatuz, behialako **tribuburuaren** hitzek, suaren itzalpean, gure herrian berean arrotz, indiano, aborigen, yanomani eta tuaregen pareko moldatzen gintuztela: [...]. **Itxaro Borda**

Zortzi **tribu-buru** zeuden, baina berehala ohartu zen mutila zein zen nagusia. **Xabier Aranburu**

Autogen enpresaren burua Tongako **tribu-buruarekin**, Lopeti Senitulirekin, batzartu zen eta bioprospektiba egiteko baimena eskatu zion herrian zenbait azpiegitura eraikitzearen truke. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tribu buru (3)

tribugizon *(orobat tribu gizon)* iz

Herrialdearen barruko oposizioko alderdi nagusiak ahuldu eta Afganistanekiko mugan bizi diren **tribugizonekin** harremanak estutzen aritu da Pervez Musharraf jeneralaren gobernu. **Berria - Mundua**

Afganistango mugan Pakistango 8 soldadu eta 24 **tribu gizon** hil dira. **Berria - Mundua**

1914-18ko gerrako europar borroka-lekuetan, armada antolatuen artean leku lauetan operazioak egiteko asmaturiko ekipamendu sofistikatu eta garestiak askoz eraginkortasun txikiagokoak ziren mendien artean zelatan zeuden **tribugizon**-taldeen aurka. **Iñaki Mendiguren**

tribukeria *iz adkor* taldekeria.

Tribukeria horrek nere probintziarrak euskaltzaleatasunetik maiz urrundu ditu eta bizkaitarrei bezala "euskaldun gaizto" sentimendu bat sortu, euskararen atzerkadaren zio bat izan dena Zuberoan. **Koldo Zuazo**

tribukide *(orobat tribu kide)* iz tribu bereko pertsoana.

Gizaki primitiboaren ikuspegi espiritualean elkartasuna dago nabarmen **tribukidearen** eta bere jainkoen artean, eta hau, **tribukideak** elkarren artean ez urruntzeaz gain, beraien arteko gizarte-loturarik sendoenetakoa da. **Iñaki Mendiguren**

Asteroko proba zen hura, **tribukideak** tribuko zirela frogatzekoa. **Iñaki Iñurieta**

Erkiderik ez baduzu alboan, alde honetara edo horretara dauden ziegetan **tribu**-kiderik ez badago, "ikusezina" zara. **Jokin Urain**

tribulagun *iz* tribuko laguna.

'Oso pozgarria duk egun batzuk **tribulagunarekin** pasatzea', esanen dizu Andonik hurrengo goizean. **Joseba Sarrionandia**

Hurrengora arte, **tribulaguna**! **Joseba Sarrionandia**

tribulamendu *iz* atsekabea, nahigabea.

Ene pena eta ene **tribulamendua**! **Joan Mari Irigoien**

Eta han izan ziren nigar-purpuilak eta aiak, dolorezko dolorea eta **tribulamendua** ...! **Joan Mari Irigoien**

tribuna 1 *iz* hizlarientzako edo ikuskizunetarako plataforma edo oholta; bereziki, bertatik zerbait hobeto ikusteko oholta.

Sinestsezina zitzaidan trikornio eta guzti jantzita zegoen guardia zibil bat hizlarien **tribunan** igota ikustea, eta pistolarekin sabaiari eta gainerakoei seinalatzea. **Berria - Euskal Herria**

Oholezko **tribuna** bat begiztatu nuen, Inkisizioaren hainbat estandartek presiditua. **Joan Mari Irigoien**

Gainerako jendea barandiletan zegoen, eta irudi luke ia guztiak hiritik kanpo etorritakoak zirela; plazako **tribunan** zeudenen jantzi dotoreagoen kontrastean haiek luzitzen zizuztenek halamoduzkoak ematen zuten. **Josu Landa**

Korrída egin ahal izateko, inguratu zuten oholesi batez Urbiango Erreboteko Plaza [...] eta ohol batzuk jaso zituzten han eta hemen, jende xehearentzat, baita **tribuna** bat ere, bere jarlekuekin eta eserlekuekin, handikientzat eta jende printzipalarentzat. **Joan Mari Irigoien**

2 irud/hed

Adierazpenok Madrilen egin zituen atzo Imazek, Forum Europa izeneko **tribunan** eskainitako hitzaldi batean. **Berria - Euskal Herria**

Entzutea eta arrakasta, Espainian ez ezik, Latinoamerika guztian; **tribuna** bat zabalik mundura prentsa eta konferentzia bidez; ezagumendu nazional eta internazionala.

Joxe Azurmendi

Masoneria ideia guztientzako **tribuna** bat da, eta gure ideientzako lubaki bat. **Berria - Gaiak**

3 kirol zelaietan eta, eserleku hoberenak dauden gunea.

Bere aurrean, harrizko **tribuna** xume batean, orduko ahaltsuak esertzen ziren. **Berria - Kirola**

Goiko eta beheko **tribuna** nagusiko sarrerek 90 euro balioko dute [Athleticen eta Real Madrien arteko partidan] eta beste **tribunek** 80 euro. **Berria - Kirola**

Madrilgo Zarzuelako hipodromoaren **tribunaren** estalkia. **Berria - Kultura**

-Joan eta leku on batean eseriko naiz, Harry! -eta **tribunara** joan zen presaka. **Iñaki Mendiguren**

Harry zelaira zihoala, Ron eta Hermione ikusi zituen **tribunan** eserita. **Iñaki Mendiguren**

Itxura batean, Moskuren aliatua hil zuen lehergailua duela bi hilabete jarri zuten estadioko **tribunaren** azpian. **Berria - Mundua**

Estadioaren eskuinean harrizko **tribuna** bat dago oraindik. **Berria - Kirola**

Tribunako harmailetan eseri nintzen, gizaseme bakarti baten alboan. **Karlos Linazasoro**

4 (pluralean)

Harryk **tribunetara** begiratu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Ron eta Hermione **tribunetan** aurkitu zuten eserlekua Nevilleren ondoan. **Iñaki Mendiguren**

Irribarre besterik ez zioten egin, Harry bizkarrean **tribunetara** zeramaten bitartean, hantxe baitzegoen Dumbledore zain quidditcheko kopa itzelarekin. **Iñaki Mendiguren**

Carlinhos Brownek dantzarako musika eskainiko duenez, ez dira jarriko aulkiak; **tribunetako** eserlekuak baino ez dira mantenduko. **Berria - Kultura**

5 tenpluetan eta kidekoetan, balkoi edo hemiziklo modukoak, behealdean gertatzen dena segitzea ahalbidetzen duena.

Ez da nabarmenduko, beraz, Espainiako Erregina Errejentaren bularra Donostiako Santa Maria elizako **tribunako** antepetxo gorrian. **Koldo Izagirre**

Legebiltzarreko hemizikloaren gaineko hirugarren solairuko **tribunatik** osoko bilkulari begirada labur bat egin zioten. **Tribunan** ere, PPko kide Maria San Gilek gustura dirudi Raxoiren hitzaldiarekin. **Berria - Harian**

tribunakide *iz* tribuna berean dagoen pertsona.

Eta non zeuden, baina, bostehun edo mila **tribunakide**, alderdikide, herrikide haiek guztiak? **Karlos Linazasoro**

tribunal 1 *iz* auzitegia.

Tribunaleko lehendakari harroari. **Koldo Izagirre**

Tribunalean bokal zegoen alferrez bat inguratu zen. **Koldo Izagirre**

1927an auzia Baionako **tribunalean** pasatu eta Bittor gogorki kondenatua izan zen, baina ez zen damutu. **Itxaro Borda**

Tribunaletara joan nahi bagenuen, gure eskubidea zela, baina ez genuela dirua galdu besterik egingo. **Anjel Lertxundi**

Galileok gaizki egin zuela eta ez zuela gibelat bihurtu behar Inkisizioeko **tribunalaren** aitzinean. **Joan Mari Irigoien**

Abokatu berriak hogeita hamar urteko zigorra eskatuko du, **tribunalak** hamabi urte eta egun bateko iluntasunera zigortuko du. **Edorta Jimenez**

Auzitegi Nazionalak, salbuespeneko **tribunal** horrek, zeregin garrantzitsua jokatzen du oztopo horien kudeaketan eta eraikuntzan. **Berria - Euskal Herria**

Hilabete ingurura etorri zen **Tribunal** Militarreko epailea, Eymar koronela. **Jokin Urain**

Ofizio Santuaren **Tribunalak** atxilotua zuela. **Edorta Jimenez**

-Egin duzunak **tribunaler**a ekarri zaitu. **Tribunalaren** ezkerrean zegoen aulki hartan jesarria nago. **Koldo Izagirre**

- Auzitegiko **tribunalak** gogorazi zion epaile instuktoreari beharrezkoa dela diligentziak egitea zirkustantziak argitzeko. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

1936-39ko gerra **tribunalek** kondenaturiko haiek ere ez zuten bete gaurko hainbat euskal presok adinako kartzelaldi luzerik. **Jokin Urain**

Zuei ere, herri **tribunaleko** kide guzti, zuen kontzientziak pixka bat aztertu, eta barka dezazuela eskatzen dizuet. **Patxi Zubizarreta**

3 irud/hed

Guri hemen dagokiguna da arrazoiaren **tribunaler**a jotzea. **Iñaki Segurola**

4 azterketa eta kidekoetako epaimahaia.

Oposizioa dela, tesia dela, bada **tribunal** aurreko azterketarik franko unibertsitatean. **Joxerra Garzia**

Gero, eskolak emanez batera, tesia egin behar izan nuen, eta **tribunal** baten aurrean defenditu. **Joxerra Garzia**

5 *tribunaleko iz* auzitegiko epaimahaiko kidea.

Abokatuen eskatuko zuen aska ziezazkidatela eskuak, eta **tribunalekoek** erantzunen zioten lehendabizi zutik jar nendila. **Koldo Izagirre**

Zeren, bere aurkako prozesuan, **tribunalekoei** hitzez baietz erran zien arren, onartzen zuela bere hutsa, buruz ezetz erraiten ari baitzitzairen. **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tribunalaren aitzinean (3)

herri tribunaleko (3)

tribuno 1 *iz* Erroma zaharreko magistratua, populua defendatzeko hautatzen zena.

Bururatu zitzaion plebeiu batek behar zuela Klodio adoptatu, halatan populuaren **tribuno** bilakatu ahal izan zedin. **Juan Garzia**

Erromako 398. urtean, Duelio eta Menenio **tribunoek** interesak urteko ehuneko batean ezartzen zituen lege bat eman zuten. **Iñaki Iñurrieta**

Azkenik, zorrak ezabatzeko aukera eztabaidatu zen **tribunoren** batek herriaren gogoko izan nahi zuenean. **Iñaki Iñurrieta**

Marko Senpronio herri- **tribunoak** plebisizito bat eginarazi zuen senatuaren agintearen izenean. **Iñaki Iñurrieta**

Nik, Marko Flaminio Rufo-k, Erromatar legioetarik bateko guda- **tribunoak**. **Juan Garzia**

2 legio baten agintari ziren sei ofizialekotako batkoitza.

Egiptoko gerletan, Berenize-n, Itsas Gorriari bekoz beko, kokatua zen legio bateko **tribunoa** nintzen. **Juan Garzia**

Nik, Marko Flaminio Rufo-k, Erromatar legioetarik bateko guda- **tribunoak**. **Juan Garzia**

tributario *izond* zergarena, zergari dagokiona.

Erdira heldu dira eta agentzia **tributarioa** lortuko dute. **Berria - Harian**

tributazio *iz* zergak ordaintzea.

Ricardok, *Ekonomia politikoaren eta tributazioaren printzipioak* lanean [...] kritikatu egiten ditu ordea Smithen ideiak. **Koro Navarro**

Baliteke erromatar **tributazioa** berez desagertzea frankoen monarkian; oso eginkizun zaila eta bihurria zen, eta ez zen sartzen herri simple haien ez ideietan ez asmoetan.

Iñaki Iñurrieta

tributo ik tributu.

tributu (*orobat tributo*) 1 *iz* zerga.

Zeren nobletasun agiria bereganatu ondoren egin baitzezakeen amets, orduan baizik ez, nobleen bizimoduarekin, zergak eta **tributuak** ordaintzeari utziz eta lana ere alde baterat utziz. **Joan Mari Irigoien**

2 irud/hed eskuerakutsia, ordaina.

Arazo da jende askok nekez ikusten duela droga horrek eskatzen duen **tributua** ezin dela ordaindu, eta, behin sartuz gero, ez dira gauza handik ateratzeko. **Karlos**

Zabala

Mexikon bizi izandako infrarrealismoaren konkistatik salbatu ziren **tributuak** dira poemok. **Berria - Kultura**

tridente *iz* hiruhortza.

Neptunoren **tridente**a erakusten zidan. **Joxean Sagartzabal**

Han Morganek egundoko tramankulu xelebrea jarri zidan eskura, **tridente** antzeko zerbait, baina ziriak barrualdera guztiz makurtuta. **Joxean Sagartzabal**

tridimentsionala *izond* hiru dimentsio dituen.

Ekintza, hitzaren alderako, zinemako irudi bidimentsionala pertsona bizi **tridimentsionalaren** alderako den bezala da edo, nahiago baduzue, fotografia bat orijinalaren alderako den bezala. **Mafias Múgica**

triedro *iz* anguluez mintzatuz, puntu batean biltzen diren hiru planok osatua.

Gero, hiru makilatxo lotzen nituen, **triedro** baten forma emanez, eta, eskuaz lagunduta, **triedroaren** erpinaren gainean mugitzen nuen zilindroa, batera eta bestera... **Joan Mari Irigoien**

triestear ik **triestetar**.

triestetar *(orobat **triestear**) izlag/iz* Triestekoa, Triesteri dagokiona; Triesteko biztanlea.

Historikoki, Trieste aparte samar egon da Italiatik eta **Triestetarren** dialektoa ere aparte dago italiara estandarretatik. **Anjel Lertxundi**

Italiarrek diote **triestetarrek** ez dakitela italiaraz. **Anjel Lertxundi**

Taldearen ezaugarriak nabarmenena, bertako kide diren idazle **triestetarren** sormen-hizkuntzen ugaritasuna: italiara, serbokroaziera, alemana, gaztelera, friulera, esloveniera, ingelesa, frantsesa eta orain gogoan ez dudana bederatzigarren bat. **Anjel Lertxundi**

Ero-hiri batean bizi ziren **triestearrak** eta, han denbora asko eginda, agian neu ere halakoxea bihurtuko nintzen. **Anjel Lertxundi**

trifasiko *iz* korrante alternoez mintzatuz, hiru fasekoa.

Iberdueroren aurka idatziriko testu bitxi bat, bere lantegian sare **trifasikoa** jartzen amaitzen ez zuelako argindar enpresa gaitzetsiz. **Berria - Kultura**

trifle *iz*

Triflea : bizkotxoz, jelatinaz, fruituz eta esnekiz egindako postre gozoa. **Iñaki Mendiguren**

Imajina daitezkeen zapore guztietako izozkiak, sagar-tartak, melaza-tartak, txokolatzeko tximistak eta marmeladazko doughnutsak, **trifle**-a, marrubiak, jalea, arroz-pastela...

Iñaki Mendiguren

Afari-askaria egin zuten indioilar-ogitarako, opiltxo bigun, **trifle** eta Eguberrietako pastelaz. biak bakarrik geratu ziren Slytheringoan mahaian, mauka-mauka laugarren aldiz **triflea** jaten. **Iñaki Mendiguren**

trigamia *iz* hiru emazte dituen gizonaren egoera; gizon batek emazte bat baino gehiago izan ditzakeen familia era.

Bigamia [...]: gustu kontuko huts bat, zeinengatik etorkizuneko zuhurtziak **trigamia** izeneko zigorra ezartzen duen. **Xabier Olarra**

triglifo *iz* doriar ordenako frisoko apaingarria, bi metopa bereizten dituen, erlaintetik ateratzen den laukizuzen ildodun bat dena.

Gero [...] oholtxo batzuk jarri zituzten habeen burualdeak estaltzen, oraingo gure **triglifoan** antzekoak, eta argizari urdinarekin pintatu zituzten, habeen ebakigunea ezkutatu eta begira minik egin ez ezazaten; hala, ordena doriarrean, habe-buru hauek estaltzearen ondorioz hasi ziren **triglifoak** era horretan jartzen, eta **triglifoan** erdian metopak jarri zituzten. **Santiago Iruretagoiena**

Estilo doriarrean, bai **triglifoan** eta bai modiloien neurriak zurgintzako lanak imitatu nahi horretatik sortu dira. **Santiago Iruretagoiena**

Derrigorrezkoa baita **triglifoak** kolomen tarteko koadranteen erdian kokatzea, eta metopak, altu bezain luze izatea eta **triglifoan** erdian jartzea. **Santiago Iruretagoiena**

Arkitrabearen gainean **triglifoak** jarri behar dira beren metopekin. **Santiago Iruretagoiena**

triglizerido *iz* glizerina hiru azidok ester bihurtzen dutenean eratzen den lipidoa.

Zirkulazioa hobetzeko, hipertentsioa kontrolatzeko, tronbosiak saihesteko eta **triglizerido** kopurua murrizteko. **Berria - Gaiak**

trigono *iz* astrologian, zodiakoko hiru ikur distantziakideen multzoa.

Beren orbitak eguzkiaren ibiliaren gainetik egiten dituzten planeta guztiek, bereziki eguzkia sartu den **trigono** horretan aurkitzen direnean, orduan ez dute aurrera egiten, baizik eta atzera eginez geratu egiten dira, eguzkia bera, **trigonotik** irten eta beste zeinu batera aldatzen den arte. **Santiago Iruretagoiena**

Eguzkiaren indar kementsuak bere errainuak triangelu baten moduan zabalduz, atzetik datozen planetak beregana erakartzen dituela eta aurretik doazanak mantsotuz eta geldiaraziz bezala ez diela aurrera egiten uzten, baizik eta beregana itzularazten dituela eta beste **trigono** bateko zeinuan sarrarazten. **Santiago Iruretagoiena**

trigonometria *iz* matematikaren adarra, triangelu baten aldean eta angeluen arteko erlazioak aztertzen dituen, eta erlazio horiek triangeluei buruzko problemak ebazteko erabiltzen dituen.

Izenak berak adierazten duen moduan, triangeluen neurketa da **trigonometria**. **Jon Muñoz**

Trigonometria itzalen zientzia dela esaten da batzuetan. **Jon Muñoz**

Ekuazioen teoria, aldaketen kalkulua, **trigonometria** esferikoa, probabilitateen kalkulua, [...]. **Jon Muñoz**

Aukera paregabea eskaintzen zuen **trigonometriak** angeluak neurtetik aldeak neurtzera igarotzeko, eta alderantziz. **Jon Muñoz**

trigonometriko *izond* trigonometriarena, trigonometriari dagokiona.

Balio simple ezagun batzuetatik abiatuta, taula **trigonometrikoak** behar bezala osatzeko. **Jon Muñoz**

trikaldi *iz ipar* geldialdia.

Lehen **trikaldia** Kalifornia izan zen. **Berria - Kultura**

trikatu, trika, trikatzen da *ad* gelditu.

Hasteko, eta batere **trikatu** gabe, berehalaxe, Donostiako Aieteko Jauregira aldatzeko. **Txillardegi**

Erantzi, buru-txano zuriak jarri eta, eskuaz uraren tenperatura neurtu ondoren, odol hotzeko animaliak bailiran, murgil egiten zuten batere **trikatu** gabe. **Txillardegi**

Soseguaren xistera eta etzauntza hartan, non denbora ere pausatu egiten baitzen, gelditzen zen eta **trikatzen** zen. **Joan Mari Irigoien**

triki ibilbide *iz* trikitiarekin egiten den ibilbidea.

11:00: **Triki ibilbidea**, Saturrarango aparkalekutik Ondarroaraino. **Berria - Euskal Herria**

triki-traka (*orobat trikitraka g.er.*) **1 adlag** neurrizko urrats edo hididuraz.

Esne-bagoiak **triki-traka** pasatzen ziren handik. **Lopez de Arana**

Triki-traka zihonan etxera azkeneko tranbia. **Koro Navarro**

Lanegunetan ez bezala, ez da ke-adarrak ageri tximinetan gora, galdaretan ez dator burdina irakinik; ez dabil bagoirik bloke tzar goriak **triki-traka** garraiatzen. **Rafa Egiguren**

Trena **triki-traka**, euriak danbor-hotsa, haizea orroka, baina hala ere Lupin maisua lo. **Iñaki Mendiguren**

Ahotsek deidar egiten zuten, telefonoek jo, janari-gurditxoak igarotzen ziren **triki-traka**. **Oskar Arana**

2 (izen gisa)

Ozen entzuten ziren tranbien **triki-traka**, zaldien apatxen hotsa eta, urrunago, automobil binbilikarien turutak. **Jose Morales**

Triki-trakak bakandu egin ziren, urritu; tope guztiak elkar jo zuten, tren osoan zehar ikaragarritzko zalaparta hedatuz. **Lopez de Arana**

Tarantasaren **triki-traka** txikia ez izanagatik, Nadiak lotan eman zituen ordu batzuk. **Karlos Zabala**

Ortuzainen guriak Paris aldera igotzen ari ziren, gurpilen **triki-traka** erritmikoz. **Karlos Zabala**

Merkantzi tren baten **triki-traka** geldia eta lokomotoraren txistua aditzen ziren. **Lopez de Arana**

Haien buru gainean, tren jaso batek orro egin zuen, trabesen artean motelduz zihonan **triki-traka** burrunbatsu bat atzean utziz. **Lopez de Arana**

Triki-traka hotsaren oihartzunak luze iraun zuen. **Berria - Kultura**

3 *triki-traka* egin

Haien eskuinaldean, urrun, tren elektriko batek txistu egin zuen, **triki-traka eginez** hurbildu zen eta gero, haren aztarna iraungiz joan zen, urrutiratu ahala. **Lopez de Arana**

Trakzio-kateek gurpil koskadunak hartu eta karranka egiten zuten; bagoneta **triki-traka eginez** zihonan maldan gora. **Lopez de Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

triki traka (34); **triki trakak** (4)

trikikrisi *iz*

Eta berriro krisia etorri da trikitiaren mundura, «**trikikrisia**» deitu zion fenomeno horri Zabalak. **Berria - Kultura**

trikimailu **1 iz** engainua, jukutria, iruzurra.

Inspektoreak ahuldu egin nahi zaitu, eta zuk, amarruak eta **trikimailuak** bitarteko, aurre egiten diozu ahal bezala. **Rafa Egiguren**

Dena **trikimailua** eta zikinkeria. **Karlos Linazasoro**

Miraria dirudi, edo gehiago, **trikimailu** bat dirudi. **Josu Zabaleta**

Proposamena zein ere izan, kontu hari guztiari **trikimailuaren** airea igarri dio, berriro ere, Jesus Galindez iaioak; bada, izan behar du, horren denaren azpian, edo atzean, jukutriaren bat. **Edorta Jimenez**

Edozein gisaz, segur **trikimailu** eta azerikerietan trebe zela Jose Maria Aznar, gobernuburu izan den zortzi urte hauetan. **Herria**

Ezagutzen nituelako haren lanbidearen **trikimailuak**. **Ander Irizar**

Emakumezkoek emakumezkoekin ligatzeko orduan filmetan heterosexualean artean ohikoak diren **trikimailuak** erabiltzen dituztela. **Edorta Jimenez**

Zer **trikimailu** erabil nezake giza zirriborro hau etxera nire neskame Honorinerekin ezkutuan sartu ahal izateko? **Josu Zabaleta**

Aztikeriaren **trikimailuek** ere porrot egin zuten, eta lotsagarriro gezurtatua gelditu zen haren jakintza-ospea. **Elizen arteko biblia**

Ariannak egindako guztia **trikimailua** besterik ez zela Alessandrorekin bakarrik geratzeko. **Felipe Juaristi**

Burgesiak mila **trikimailu** asmatzen baititu, herria bere menpe izateko, eta futbola ez duk, ez, inuzenteena. **Joan Mari Irigoien**

Denbora irabazteko **trikimailu** gisa ere har dezakete, eta ez diote akaso behar duen garrantzia eman. **Rafa Egiguren**

Zigor hura ez zela jendearen kontzientziak malgutzeko asmaturiko **trikimailua** besterik. **Anjel Lertxundi**

Orain, ordea, **trikimailua** begien bistan dago. **Xabier Olarra**

Joseluren musua piztu egin zen, **trikimailuaren** nondik norakoaz jabetuta. **Josu Landa**

Bakardadeak eta deabruaren **trikimailuek** eta aztikeriek itsutu egin ohi dute marinela. **Edorta Jimenez**

Harryk bazeukan arte-galeriako ezkutuko gelatik arte-lanak Smith-en lanen bildumari suharrenei saltzea, eta Valerie Smith-ek deus jakin ezean, **trikimailuak** etekin ezin hobe emango zuen. **Oskar Arana**

Kazetari paristar batek zeharo jarria egon behar eszenografia modernoaren **trikimailu** guztietara. **Karlos Zabala**

Itxaropena izan nuen aterako nizkiola **trikimailuz** hitzen batzuk. **Oskar Arana**

Aberria haren beharrez zelako gaztigua etortzean, Charly ez zen, gu bezala, **trikimailutan** hasi, uniformeak ez janztearren. **Aingeru Epaltza**

Ez zaitez ibil maiz artista arinegiekin, haien **trikimailuetan** ez nahasteko. **Elizen arteko biblia**

Handiki biziko zirela biak inozoak engainatuz **trikimailuzko** dadoez. **Juan Garzia**

Nazkagarriak irudituz zaizkit beti horrelako **trikimailuak**. **Karlos Zabala**

Fraideek ere ezagutzen baitzituzten engainuaren **trikimailuak**. **Felipe Juaristi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sarumanen **trikimailu** berriren bat zela pentsatu zuen, erregea [...] ustekabean harrapatzeko. **Agustin Otsoa**

Gure arteko askok ikasi genuen gorputzaren zulo ia guztietatik gozatzen, aski da **trikimailu** txiki batzuek jabetu eta landu eta landu kemen pixka batez. **Karlos Zabala**

Kazetari alfertuaren **trikimailu** zaharra. **Aingeru Epaltza**

-Ez ahaztu: **trikimailu** hutsa da matematika! Jon Muñoz

Hain proposamen burugabe eta amarruzkoa zen, hain **trikimailu** bihurria eta makurra, Tom eta Marina barrez lehertu baitziren, biak. Oskar Arana

Tamarri, ordea, ukatu egin zioten eskubide hori, eta **trikimailu** bitxia asmatu zuen berea lortzeko. Jose Antonio Mujika

Web horien sortzaileek bezero berriak erakarri eta haiei eusteko gero eta «**trikimailu** konplexuagoak» erabiltzen dituztela esan du. Berria - Gaiak

Ezin daiteke **trikimailu** eszenografiko bat izan. Patxi Iturritegi

Irudimena baliatu behar duzu, **trikimailu** sinesgarriren bat topatu beste erremediorik ez daukazu. Rafa Egiguren

E, hi, Ozpin, Ardoren seme, noiz utziko dituk hire **trikimailu** nazkagarri horiek? Koro Navarro

Ez al zen jokabide huraxe **trikimailu** zikin bat izango, ezjakintasun mixerable bat ezkutatzearren? Karlos Linazasoro

Sedano, analista denez, ez da **trikimailu** konduktista horien zale. Ramon Saizarbitoria

Behin, zerbitzatzzen zuen anaia batek, deboziozko **trikimailua** erabiliz, hautsak astintzeko tunika erantzera eragin zion. Askoren artean

Mendira belar bila joaten, edo herrira jaisten auzoei harpa berriarekin edota magiazko **trikimailuekin** alaitasuna eramateko. Joanes Urkixo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Trikimailu saio bateko biktima bezala deklaratu dut d'Huy epailearen aurrean. Berria - Mundua

Ez dugu eztabaidatuko Donatoz, **trikimailu** egile bizkor bat baizik ez baita. Josu Zabaleta

Besteen jabetza euren egiteko **trikimailu** festari. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azaroan jakin zen Anfinn Kallsberggek kontabilitate-**trikimailuak** egin zituela orain hogei bat urte lan egiten zuen enpresan. Haatik, artikulu horren amaieran lehen pertsona kontatu zaiguna idazlearen beraren literatur **trikimailua** izan dela susmatzeko bidea ematen digu. Berria - Mundua

Hire judu **trikimailu** horietakoren bat, nik burua gal dezadan, eta hik horrela nire arima deabruari eskaini ahal izan diezaioan? Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trikimailu erabili (3); **trikimailu guztiak erabili** (3)

trikimailua izan (3); **trikimailua zela** (5)

trikimailuak egin (3); **trikimailuak erabiltzen** (5)

trikimailutxo *iz* trikimailu txikia.

-Ezagutzen ditiat beren **trikimailutxo** guztiak -aitortu zuen Corleyk. Irene Aldasoro

Noiz ez duzue **trikimailutxo** hau ikusi. Irene Aldasoro

trikimailuzale *izond* trikimailuen zalea dena.

Halakoak ziren beti Oesteko heroiak, ausartak baina krudelak, seguruak baina **trikimailuzaleak**, arduratuak baina isilak, hausnarrean beti baina laburrak, zinikoak esango nuke orain. Joseba Sarrionandia

trikimaina *iz* trikimailua.

Ikasteko baino gehiago, etxean izateko eta albokaren **trikimainak** ezagutzeko, eskatu nion bat, eta baita ekarri ere abudo. Patziku Perurena

Terroristekin ez dute balio **trikimaina** eta akordioek, gaizkileei indar gehiago ematea baino ez baita lortzen. Berria - Euskal Herria

trikimaisu *iz* pertsona lardatsa.

Sekula igarri ez zuena zera izan zuan, nagusiak berari nolako **trikimaisua** zen igarri orduko hilko zela. Juan Garzia

trikimex *iz* trikitiarekin eginiko mex estiloa.

Gorakada horrek trikiti eskolen eta ikasleen bat-bateko gorakada ekarri zuen, eta «berarekin **trikimex**, trikipop, trikipunk taldeak sortu ziren; baina ez zen mugimendu sendoa izan, sustrai sakonik ez baitzuen», Mendiguren Elizegiren hitzetan. Berria - Kultura

trikina *iz* hari itxurako harra, mikroskopiorik gabe ia ezin ikus daitekeena, heldua denean zerrien eta beste zenbait abereren hesteetan bizkarroi, eta beldar egoeran giharretan kisteak osatuz bizi dena (*Trichinella spiralis*).

Baina **trikinaren** antzera, kiribilduta bere horretan irauteko prest daudela adierazi dute gure lagunek aste honetan, Patri, hitz zahar bati lan berria emanez. Hasier Etxeberria

Zeure baitatik atera ezin den **trikina** bilakatu zara. Hasier Etxeberria

trikinosi *iz* trikinaren beldarrek gizakiarengan eragiten duten eritasuna.

Moses Mendlessohnek, gaixotu baitzen, mediku kristau bat eskatu zuen, eta hark filosofoaren gaitzari **trikinosisa** zela berehala antzeman zion arren, beste izen bat eman zion, ez asaldatzeko. Xabier Olarra

Oso bertso gustagarriak bota zituzten era askotako elikagaiak biltzen zituen azoka berezi batean: txintxeta tortilla, mahonesa gorria eta **trikinosisa** bezalakoen aipuak eginez, gogotik jo zioten adarra elkarri. Berria - Kultura

trikipop (*orobat triki pop*) *iz* trikitiarekin eginiko pop estiloa.

Gorakada horrek trikiti eskolen eta ikasleen bat-bateko gorakada ekarri zuen, eta «berarekin trikimex, **trikipop**, trikipunk taldeak sortu ziren; baina ez zen mugimendu sendoa izan, sustrai sakonik ez baitzuen», Mendiguren Elizegiren hitzetan. Berria - Kultura

Aaltaboz erraldoi horiek, fokoak jotzeko orduan, gitarra, gitarra-baxua, emakume kantariak, rock taldeak, txalaparta, alboka, **triki-popa**. Pako Aristi

trikipoteo (*orobat triki poteo*) *iz* trikitiarekin egiten den poteoa.

Goizeko eskola orduez gain, herri bazkaria egin zuten, eta arratsaldean jokoak eta **trikipoteoa** Donostiako Parte Zaharrean. Berria - Euskal Herria

Manifestazioa izango da eguerdian eta gero **triki-poteoa** eta bertso bazkaria. Berria - Euskal Herria

13:30ean, **triki poteoa** egingo dute, eta 14:00etan herri bazkaria izango da. Berria - Euskal Herria

Erakusketa zabaldu ondoren, Jose Elortza trikitilariak lagundutako bertso- **triki-poteoa** zegoen iragarrita, Nabarreriatik zehar. Berria - Kultura

trikipunk iz trikitiarekin eginiko punk estiloa.

Gorakada horrek trikiti eskolen eta ikasleen bat-bateko gorakada ekarri zuen, eta «berarekin trikimex, trikipop, **trikipunk** taldeak sortu ziren; baina ez zen mugimendu sendoa izan, sustrai sakonik ez baitzuen», Mendiguren Elizegiren hitzetan. Berria - Kultura

trikiti *(orobat trikitri g.er., trikitia g.er. trikitixa g.er. eta trikititxa g.er.)* **1** iz panderu-jotzaile batek lagundurik jotzen den soinu txiki diatonikoa, euskal erromerietan ohikoa dena; horrela jotako musika.

Esaten da **trikitia** burdinbideak egitera etorri ziren langile italiarrek ekarri zutela XIX. mende bukaeran. Pako Aristi

Esku soinua (**trikitia**), pianola (soinu handia) eta pilarmonika (ezpainetako soinua) ume umetan ezagutu nituen. Berria - Kultura

Martin 18 urterekin hasi zen **trikitia** jotzen. Pako Aristi

Imanol Arrola Beaskoetxea, artean mutikoa zala, **trikiti** jotzen ikusi genduanok txunditurik gelditzen ginan. Xabier Amuriza

Ordurako, ordea, umeak barruan zeraman **trikitia**ren harra. Iñigo Aranbarri

Etzetik zetorkion **trikitirako** zaletasuna, baina ezin inon ere ikasi. Iñigo Aranbarri

Gaur kaleumea dago, sekula **trikitia** entzun ez duena. Pako Aristi

Jaiero izaten zen **trikitia** plazan. Arantxa Iturbe

Bitartean, hasia zen **trikitia**. Txillardegí

Txalapartak eta **trikitia** alaituko dute bazkalordua. Berria - Harian

Trikitiaren boom-a etorri zen gero, eta azken urteotan beherakada bat. Berria - Kultura

Trikitiaren Jardunaldien barruan. Berria - Kultura

Euskal Herriko **Trikiti** Elkarteak soinu handia gonbidatu zuen lehen urtean, eta dultzaina bigarrengoa. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

"Bizkaiko trikitilariak" diskoak Bizkaiko **trikiti** zaharrenean ezaugarri batzuk nabarmentzeko balio dau. Xabier Amuriza

Rufinok soinu mota honexegaz ikasi eban eta gero, **trikiti** modernoagoak etorri arren, bere era zaharrean jarraitu eban. Xabier Amuriza

Trikiti distiratsu bat. Pako Aristi

Usain azkarra edonon, eta **trikiti** bizkor bat bozgorailuetatik inguruak blaitzen ari. Txillardegí

Trikiti bizkaitarra umezurtz. Xabier Amuriza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hortik sasoko **trikiti** disko guztien izenak: "Triki-tixa de Zumarraga", [...]. Iñigo Aranbarri

Trikiti zinta bat martxan imini. Xabier Amuriza

Ordura arte inongo **trikiti** piezak lortu ez zuen arrakasta izan zuen Sakabirenak. Iñigo Aranbarri

Trikiti doinuak, folklore moduan ulertuta, pasatu egiten ziren, "Boga-Boga" eta bezala. Iñigo Aranbarri

Honen aldean berdeak diren **trikiti** bertso asko kantatuko da aurrerantzean ezkontzetan-eta. Iñigo Aranbarri

Beste arlo batzuetan bezalaxe, antzeman egiten da **trikiti** letretan ere gizartearen bizi den usadio lasatzea. Iñigo Aranbarri

Xabi Solanok jo ditu disko berrian azaltzen diren **trikiti** tarreak. Berria - Kultura

Alaitzek **trikiti** eta pandero eskolak ematen jarraituko du. Berria - Kultura

Trikiti asunto honek Elgetari zor dio den-dena. Koldo Izagirre

Trikiti zaletasuna argi dago gorantz doana, Bizkaian behintzat. Xabier Amuriza

Urrunagoko jendea ere **trikiti** gosez hurbildu zen Aiako auzora. Berria - Kultura

Neuk, **trikiti** jeneroan, kapritxo bat eskatzerik baneuka [...] Maurizia eta Kepa batera eta txandaka kantetan entzutea eskertuko neuke. Xabier Amuriza

Martin Aginagaldek eta Lajak Pepe lantziren pieza bat jo zuten 1980ko **trikiti** lehiaketan. Berria - Kultura

San Jose eguneko **Trikiti** Jaialdian. Berria - Kultura

Oso gazterik, hamabost urtetan, **trikiti** munduan sarturik, plazaz plaza ibili zen. Herria

Urkiolan **Trikiti** Eguna zan. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herriko trikiti elkarteak (6); nazioarteko trikiti jaialdiaren (4); trikiti doinuak (4); trikiti eguna (6); trikiti elkarteak (8); trikiti jaialdia (4); trikiti jaialdian (4); trikiti piezak (3) abertzaletasuna eta trikitia (3); trikitia jotzen (6)

trikitilari *(orobat trikitrilari g.er., trikitixalari g.er. eta trikititxalari g.er.)* **1** iz trikitia jotzen duen musikaria.

Musikoa zen Beristain, **trikitilari** baino. Iñigo Aranbarri

Aratsean, zortzi orenetan, talo ta xingar, txalapartariak eta Maialen eta Antton **trikitilariak** alaiturik. Herria

Txistulariak, **trikitilari** eta pandero jotzaileak. Berria - Kultura

Txalapartariak, dantzariak, gaitero eta **trikitilariak** goiz osoan arituko dira herria alaitzen. Berria - Euskal Herria

Goizean, **trikitilariak** eta gaiteroak karraketan, bai eta mutxikoak herriko plazan. Herria

Trikitilari eta dantzari ugari ariko dira Azpeitiko kiroldegiko jaialdian. Berria - Kultura

Martin **trikitilariak** gogoan ditu Santiago Errekako erromeria hauek. Pako Aristi

Trikitilari guztiek aitortzen dute Jazinto Rivasen garrantzia soinu txikiaren jarraipenean eta bilakaeran. Koldo Izagirre

Heldu dira erromeriara, eta hor ikusi du **trikitilari** bat zelaian, jo eta jo. Iñigo Aranbarri

Trikitilariak behar ziren euskal jaietan, **trikitilariak** ezkontzetan. Iñigo Aranbarri

Rufino eta Kepa 1977an hasi baziran, 1979ko **trikitilari** txapelketan bikote famadu bihurtu ziran, Euskal Herri osoan. Xabier Amuriza

Gero bata bestearen atzetik etortzen dira Ituren eta Zubietako joaldunak, Lizarrako gaita-joleak eta **trikitilariak**. Xabier Etxabe

19.00tan zintzur bustitzea **trikitilariekin**. Herria

Gaur milaka **trikitilari** daude eta dantzan inor ez. Pako Aristi

Bertsolari Elkarteak eta **Trikitilari** Elkarteak talde bana zelairatuko dute. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Trikitilari nagusiak eta gazteak elkartuko dira oholta gainean: Laja eta Landakanda, Maixa, Ixiar eta Kristina, Izer eta Alabier, [...]. Berria - Kultura

Trikitilari ona dela erakutsi zigan [...] eta kantatzean ere ez da makala. Berria - Kultura

Martin **trikitilari** beteranoak hartu du orain, eta berarekin hitz egitera etorri naiz. **Pako Aristi**

Bada honetan aldaketarik **trikitilari** zaharreko. **Iñigo Aranbarri**

Trikitilari tradizionalak jo ohi zituen tangoen, baltseen, pasadobleen eta generakoen erreperitorio adierazgarri bat osatu eban. **Xabier Amuriza**

Omenaldia gerraosteko **trikitilari**. **Beria - Kultura**

Hau ez zen ohikoa garaiko **trikitilarien** artean. **Koldo Izagirre**

Junkera egungo **trikitilari** ezagunenetakoa da baita Euskal Herritik kanpo ere. **Beria - Kultura**

Horregatik nioen gaurko rokerok eta gogor usteko **trikitilari** gazteak, euren furgoneta epeletan, ez direla ezer Gelatxoren ondoan. **Pako Aristi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jugada ona egin zuen: bere **trikitilari** sena oso-osorik gordetzea eta lantzea posible egin. **Pako Aristi**

Kepa, Roberto, Laja eta hainbat **trikitilari** bikote batu ziran bertan. **Xabier Amuriza**

Eneritz-Edurtzeta eta Etxeberria-Arribabalaga **trikitilari** bikoteek dantzan jarriko dute plaza, Bizkaiko gaiteroek eta albokariek lagunduta. **Beria - Kultura**

Euskal Herriko hainbat txokotik hurbildutako fanfare, gaita jotzaile, **trikitilari** eta musika taldeen eskutik. **Beria - Kultura**

lurretan urtero egin ohi zan **trikitilari** egunean, Rufinok bere burua numero unotzat ikusten ebala dinoe han ibilitakoek. **Xabier Amuriza**

Rufino eta Kepa 1977an hasi baziran, 1979ko **trikitilari** txapelketan bikote famadu bihurtu ziran, Euskal Herri osoan. **Xabier Amuriza**

Trikitilari elkarteak antolatzen duen jaialdian Juliana omendu zuten. **Beria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizkaiko trikitixa (8); **euskal herriko trikitixa** (10); **trikitilari bikote** (3); **trikitilari elkarteak** (4); **trikitilari gazteak** (3); **trikitilari txapelketan** (3)

joseba tapia trikitilaria (5)

gaitero eta trikitilariak (3)

trikitilariek alaiturik (5)

gerraosteko trikitilarien (3); **trikitilarien elkarteko lehendakari** (4)

trikitixa elkartea (5); **trikitixa elkarteak** (8); **trikitixa elkarteko** (4); **trikitixa gipuzkoan** (3); **trikitixa taldea** (3); **zumarragako trikitixa** (5)

trikitilaritza *iz* trikitilarien jarduera.

Jotzaileak eta irakasleak bakoitza bere aldetik doaz **trikitilaritzan**. **Beria - Kultura**

Gaur, liburu bat plazaratu du Xabier Amuriza bertsulariak, "Vulkanoren atzamarrak", Bizkaiko **trikitilaritzaz** eta Rufinok haren alde egindako ibilbideaz. **Herria**

trikititxa ik **trikiti**.

trikititxalari ik **trikitilari**.

trikitixa ik **trikiti**.

trikitixalari ik **trikitilari**.

trikitizale *iz* trikitiaren zalea dena.

Ehunka trikitilari, ehunka **trikitizale**. **Beria - Kultura**

Euskal Herri osoko bi mila **trikitizale** espero dituzte antolatzaileek. **Beria - Kultura**

Trikitizaleek belarriak adi-adi eta begiak zabal-zabalik zituzten, eskuak prest txaloz giroa animatzeko. **Beria - Kultura**

Ez naiz inoiz izan **trikitizalea**, eta ez nuen asko ezagutzen mundu hau. **Beria - Kultura**

Trikitizale elkarteko Agurtzane Aizpuruk hots egin zidan atzo. **Beria - Kultura**

trikitizaletasun *iz* trikitizalea denaren nolakotasuna.

Txikitatik datorkit **trikitizaletasuna**, eta nire aita zenak horretan errurik izan zuen. **Beria - Kultura**

trikitraka ik **triki-traka**.

trikitri ik **trikiti**.

trikitrilari ik **trikitilari**.

triklinio 1 *iz* hiru lagunentzako etzalekoa, erromatarrek bazkaltzeko erabiltzen zutena.

Portikoen inguruan, eguneroko **triklinioak**, gelak, eta baita esklaboen gelak ere. **Santiago Iruretagoiena**

Triklinioaren lurreko mailatik behera zuloa egiten da bi oin inguruko sakoneraraino, eta lurra zanpatu ondoren hartxintar edo adreilu birrinduzko zoladura zabaltzen da, isuria emanez hodiak erreten aldera jaisteko moduan. **Santiago Iruretagoiena**

Neguko **triklinio** edo jangelak eta bainu-gelak hego-mendebaldera begira jarriko dira, beharrezkoa delako arratsaldeko argia erabiltzea. **Santiago Iruretagoiena**

Horien ezker-eskuin beste etxetxo batzuk jartzen dira, bakoitza bere ate, **triklinio** eta gela erosoekin, hain zuzen ere, etxera etortzen diren bisitariak peristiloetan ez hartzeagatik, bisitari-gela hauetan baizik. **Santiago Iruretagoiena**

Liburutegiak ekialdean, exedrak mendebaldean; erabat hegoaldera begira jarrita, salak eta atek, hain zabalera handikoak ezen, bertan lau **triklinio** zabalduz, zerbitzarien eta atseden-jolasen lanetarako nahikoa leku geratzen baita. **Santiago Iruretagoiena**

Luze-zabalean, berriz, bata besteari begira bi **triklinio** jartzeko modukoak izan behar dute, inguruan lekua utzi, eta ezker-eskuin leiho orridunetarako baok izango dituzte, hain zuzen ere, etxe barrutik berdeguneak ikusi ahal izateko leihotan barrena. **Santiago Iruretagoiena**

trikolore *izond* hiru kolorekoa.

Alderdietako buruzagien erdian, auzapezek xingola **trikolorea** zeramaten papoan zehar. **Itxaro Borda**
Karrikan auto **trikolorean** edo banalizatuan zebilenean Kerguelen komisarioaren soaren gurutzatzea. **Itxaro Borda**

trikornio *iz* hiru adarreko kapela.

Ikara izu bihurtze aldera, prozesioaren zaintzaile guardia zibilak izaten ziren, beren traje eta **trikornio**. **Berria - Kirola**
Pistola bati helduz eta **trikornioa** buruan, guardia zibil bat mintzo. **Txillardegi**
Oinez zihoala, Ontziolako garabiaren parean bi guardia zibil inguratu zitzaizkion, **trikornio** beltza dirdiraka eta metraileta kanoiak apuntaturik. **Joseba Sarrionandia**
Hasieratik, metro erdi diametroko txapela beltza eta txapelokerren **trikornioa** elkarren ondoan ikusteak piztu du zure arreta. **Lutxo Egia**

trikota 1 *iz* jertsea.

"Tiserta" errebendikatiboak udan ala beren amatxik eskaini **trikota** afrusa neguan! **Ramuntxo Etxeberri**
Artilezko irlandes **trikota** lodi bat zeukan soinean, baita ere, bufanda koloretsu bat. **Ramuntxo Etxeberri**
Orduan ordezkari sindikalek eskaleen antza edukitzen zuten euren bizar zabar, **trikota** ilun eta praka zaharkituekin. **Hasier Etxeberria**
Jarlekuan emazte txiki samar bat zegoen **trikota** bat egiten arrastiri goibel baina, hala ere, epel hartan. **Hasier Etxeberria**
Korapilo bat eta beste bat, izugarritzko abiadan zerabiltzan **trikota** egiteko orratzak, bere kasa lanean ziharduten inurrien antzo. **Hasier Etxeberria**
Penelope berria, hari bat eta beste bat, urrutit dagoenaren mesedetan eta itxaropenetan **trikota** ehuntzen. **Hasier Etxeberria**
Zenbait egunen buruan Beloketik arropak ukan genituenean, **trikota** bat eman nion. **Marzel Etxehandi**
Etxetan orain baino arropa higatuagoak ibiltzen baitziren, beti bazegoen zerbait apaintzeko, galtzerdiak ez baziren, **trikotak**, atorrak eta beste soineko frango. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 (hitz elkartuetan)

Heure birramonak egin zinan **trikota** -lan hau. **Joxan Elozegi**
-Bainan ez zira **trikota** egile horietarik... **Menane Oxandabaratx**

3 *trikotan aritu* trikotatzen aritu.

Baratzean artzea, lore apaintzen; **trikotan** artzea; irakurtzen artzea. **Menane Oxandabaratx**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trikota bat (3); **trikota egiten** (4)

trikotatu, trikota(tu), trikotatzen du *ad* orratz edo makina bidez puntuzko ehuna egin.

Emazteek orduak lisatzen eta bazkari apailatzen nahiz bastatzen, azpiltzen, josten, mahai oihal brodatzen edo **trikotatzen** pasatzen zituzten. **Itxaro Borda**
Nini oinez iritsi zen jauregitxora, **trikotatzeko** poltsa eskuan. **Xabier Olarra**
Begiratu besterik ez zidan egin -penaz esango nuke, hori bai-, eta **trikotatzen** jarraitu zuen. **Ramon Saizarbitoria**
Poltsari itsatsirik, amak batere zalantzarik gabe niretzat idatzi zituen hitz gutxi batzuk ageri ziren: "Bertha Kaufmannek 1920. urte inguruan **trikotatua**". **Joxan Elozegi**
Kanario-koloreko zirko-karpa ematen zuen zerbait hasi zen **trikotatzen**. **Iñaki Mendiguren**
Gutunak ere idatzi dizkigute etxeok, Mollyk eta amak; eta, bufandak eta eskularruak, eta galtzerdiak ere **trikotatu** dizkigute bioi. **Mirentxu Larrañaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zer trikotatzen duzu (3)

trikotomia *iz* sailkatze metodoa, hiru ataleko zatiketetan datzana.

Rudolf Arnheimen gogoetari (1969) jarraituko diogu honetan; iradokizun oparoko **trikotomia** eroso bat proposatzen baitu irudiak errealitatearekin duen erlazioaren balioen artean. **Josu Zabaleta**

triku 1 *iz* ugaztun intsektujalea, gorputzaren gaina eta alboak arantzaz beteak dituen(*Erinaceus europaeus* e.a.). ik kirikino; sagarroi.

Triku arantzatsua. **Berria - Kultura**

Jainkoaren deiari erantzunez, batzartu ziren ardiak, otsoak, zaldiak eta behorrak, lehoiak eta tigreak, zakurra eta katua, behiak eta ahuntzak, eta gainerako abere jende guztia... **trikua** izan ezik. **Jokin Urain**

-**Triku**, neuk harrapatua. **Koldo Izagirre**

Non edo han sasia sartu eta beti aterako zuen **trikuren** bat. **Gotzon Garate**

Triku, ordea, akabatu egiten zuen. **Gotzon Garate**

Bidean **triku** hil bat topatu dutelako. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Trikuak errepidean bezala, euskarak ere arrisku askori egin behar die aurre egungo munduan. **Berria - Harian**

Sutan zeuden basoetatik piztia samalda bat atera zen ihesi, eta adarrak ahariarenak, muturra txerriarena, larruzala **trikuarena** eta eme ugatzak zituzten. **Koro Navarro**

Zazpi espezie bai behintzat, hala nola, marisorgina, arrabioa, **triku** europarra, satorrak eta muxarrak. **Berria - Euskal Herria**

2 (erkaketetan)

Bazekiela, ausartu ezinda, hurriztikio eserlekuan kizkurtzen nintzela **trikuaren** antzera, bera zegoen lekutik berrehunen bat pausora. **Hasier Etxeberria**

Elkarren aurka biribildu ziren, **trikuaren** modura, fusilak soilik erakutsirik geratu ziren, haizeari aurre egiteko Neure baitara babestu naiz, **triku** bat negu hurbila igartzeko baino bilduago. **Felipe Juaristi**

Zerbait galdetuz gero, **triku** baten moduan bilduko zen bere baitan. **Anjel Lertxundi**

Pilota baten antzera kiribildu naiz, **triku** baten moduan, neure burua babestearren. **Mirentxu Larrañaga**

Gure planteamendu politikoa **triku** baten antzekoa da, nonahitik hartuta ere mindu egiten zaitu. **Txema Ramirez de la Piscina**

Haren orkatila puztuak **triku** bat zirudien, arantza zilarrezkoekin. **Juan Kruz Igerabide**

3 irud/hed

Baina **triku** zakar haren barruan, emakume otzana eta bihozbera zen bereentzat; eta, beharra gertatzekotan, bere buruaz ahaztu eta dena emateko presta. Txillardegi
Hor daude borrokariz beteriko terraza horiek, lantzazko **triku** bihurturiko harresi horiek. Jon Alonso

4 (hitz elkartuetan)

Erratz pasatuko diot eta guzti erraustuko; zingira eta **triku**-leku bihurtuko dut. Elizen arteko biblia
- -Ea, azaldu guztioi zer den bada behorra -agindu dio aurreneko ilaran eseritako **triku** ileدون mutikoari. Iñigo Aranbarri

5 (hitz elkartuetan, elkarketak izenondo balioa duela)

Gero zein bere txandan joaten ginen "despatxu"ra, non Caselli **triku**-ileak banatzen baitzizkigun lehengaiak, exotikoak zein domestikoak. Juan Garzia

6

Oinezko gaztelarre **triku** egina utzi zuten beren pika luzeekin. Aingeru Epaltza

7 itsas triku ik itsas triku.

trikuharri *(orobat triku harri g.er.) iz neolito aroko oroitarria, mahai gisako bat osatzen duten zenbait harri landugabek osatua eta sarrera sartalderantz duela eraikia.*

Jentilsoloko **trikuharria** joan naiz. Txillardegi
Zergatik gure **trikuharriak** daude beti burua ekialdera, eguzkia eta ekia sortzen diren tokira begira? bertako harrespil eta **trikuharrietan** egiten ari ziren indusketen berri eman zidan. Pello Salaburu
Orduan [azaroan] hiru egun luzez mundu honetakoek bestera pasatakoekin harremanak estutzen saiatzen ziren **trikuharrietan** eta bestelako ospatokieta. Pello Zabala
Triku harri eta zernahi lehengo arrastok orroitarazten dute betidanik Larrun zela artzainen arlo eremua. Herria
Gure memoria historikoan eta autokontzientzian, guk ez daukagu piramiderik eta tenplu galantik, **trikuharri** eta sepultura galdu batzuk mendietan apal-apalak bakarrik daukagu hasieran, orgabidezko historia mehar neketsu luzea gero. Joxe Azurmendi

trikun-trakun ik trakun-trakun.

1 trikun-trakun egin lapurreta egin.

Buhameak badakite **trikun-trakun** egiten, / **trikun trakun** egiten eta oilaskoen ebasten. Patziku Perurena

trikutzar iz adkor triku erraldoia.

Hantxe zeukan bere aurrean, gori-gori, **trikutzar** arantza-zut baten gisa, ez baitakizu nondik ukitu eta heldu, eta gogoa ematen baitu jo eta ostikoz ekiteko bertan. Juan Garzia

trilero iz iruzurgilea.

Etsaien erraiak jaten zituzten piratak, koko-oskolez **trilero**-jokoak egiten zituzten buhameak, krokodilokiak saltzen zituzten bisuteroak. Jon Alonso

trilioi iz milioi bat bilioi.

Gizakiaren gorputzak 50 **trilioi** zelula inguru ditu. Pello Salaburu
Tximista batek 30 mikrosegundo irauten du eta 10 **trilioi** watt sortzen ditu. Gotzon Garate
Bankuek nazioarteko 1,5 **trilioi** eragiketa egiten dute egunero. Pello Salaburu
Trilioi bat lagunenez ezkontza, jaunartze, aitasantutze eta gainerako sakramentuenak ospatzeko toki gaitzak. Edorta Agirre
Kalkuluak egin ondoren, kontatzen hasten ginen numero luze hura, eta milioien, bilioien eta **trilioien** artean galtzen ginen. Joan Mari Irigoien
Diamantea, 10 bilioi **trilioi trilioi** kilatekoa, eta Zentaurus konstelazioan dago. Berria - Gaiak

trilioika adlag neurri gisa trilioa erabiliz.

Trilioika ditugun zelula guztiek badute, odoleko globulu gorriek izan ezik, gune bat, eta gune horretan bada gizaki genomaren kopia bat. Pello Salaburu

trilogia iz argumentu batasuna duten hiru sormen lanen multzoa.

Ostegunak umorezko **trilogia** baten lehenengo atala baino ez da. Jon Arretxe
USA **trilogiak** (*The 42nd Parallel, 1919* eta *The Big Money*) ederki islatu zuen bitasun hori. Lopez de Arana
Hari tiraka iritsi zen *Eraztunen Jauna* **trilogia**, 1954an. Agustin Otsoa
Zelanoren **trilogiako** hirugarren liburu honek Frantzisko santuaren mirariak biltzen ditu. Askoren artean
Trilogia honetan berebiziko garrantzia dute Çukurovako ordokiak eta Ziliziako kotoi-zelaiek. Fernando Rey
Beethovenen hiru sinfonia, Brucknerren bi kontzertu eta, jakina, Wagnerren opera bikainak, *Eraztunen* **trilogiako** disko hautatu batzuk, *Holandarra* eta *Parsifal* goitarra. Alberto Ladrón Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trilogiaren azken (3); **trilogiaren bigarren** (5); **trilogiaren lehen** (3)

trimestra *(orobat trimestro g.er.) iz ipar hiruhilekoa.*

Horra zortzi **trimestra** edo hiru-ilabeteko amerikano ekonomia gorakadan dela. Herria
Donibane Garaziko Sta Maria eskolako CE-CM gelako haurrek Irulegiko irratiarekin ereman dugu proiektu berezi bat lehen **trimestra** huntan. Herria
Jazko azken **trimestraz** geroztik langabeziako deklarapenak emendatzen hasiak dira. Herria

trimestro ik trimestra.

trimotor *iz* hiru motor dituen hegazkina.

Hamabi ehizako eta bederatziko bonbaketari **trimotor** Junker 52 aritu zitzaizkigun arratsaldeko lehen orduetan herio jaurtika, Felipe del Riok eta Anton Kovalevskiren mutilek uxatu zituzten arte. **Koldo Izagirre**

Zuri ere komeni zaizu bat, ez zara oso gustura egoten-eta gure **trimotorrak** ageri direnean Artxanda gainetik. **Koldo Izagirre**

trimurti *iz* brahmanismoan, Jainko hirutasuna.

India, India sagaratu, India misterioa, fakirren, Budaren, **trimurtiaren** herria. **Gotzon Garate**

trinakriar *izlag/iz* siziliarra.

Makina bat Tavio txiki zagok oraindik Sirakusako kaleetan eta hire **trinakriar** uharteko landan. **Jon Muñoz**

trineo *iz* lera.

Zenbat kaiku, esne-ontzi, lera eta **trineo**, gudi eta beste tresneri, txaboletako hainbat ontzi, zenbat uztarri eta beste ez ote dira egin urkiaz! **Pello Zabala**

tringili-trongolo *adlag* balantzaka.

Tringili-trongolo dator ibaia, xirrista apalean bokalera egiten duen erreza muskerra. **Javi Cillero**

trinidad ik trinitate.

trinitario 1 *izond* trinitatearena, trinitateari dagokiona.

Unitario [...]: **trinitario** baten jainkotasuna ukatzen duena. **Xabier Olarra**

Deigarria eta guztiz harrigarria gertatzen da bere *De mystica Theologia* liburua sarrarazteko darabilen arren **trinitarioaren** superlatibazio eta hiperkodetzea. **Joan Mari Lekuona**

2 Trinitate Txit Santuaren ordenakoa.

Sarritan afaldu zuen neskak haren konpainian Mandemearen ostatuan, **trinitarioen** elizaren aurrez aurre; eta, afal ondoren, han abiatzen zen Casin Cholet oilo-harrapaketan Parisko harresi-hobien ifrentzuetan. **Juan Garzia**

trinitate *(orobat trinidad g.er.)* 1 *iz* (T larriz) kristau doktrinan, Jainko bakarraren hiru pertsonen batasunaren dogma eta misterioa; hiru pertsonako Jainkoa bakar hori. ik **hirutasun 2**.

Jainkoa bera eta **Trinitate** Sainduko hiru pertsonak, bigarren pertsonaz bestalde. **Piarres Xarriton**

Zalantza etorri zitzaidala, supituki, **Trinitatearen** pertsonak ez ote ziren lau. **Joan Mari Irigoien**

Trinitate Sainduaz eta Fede Katolikoaz diharduen kapituluan. **Piarres Xarriton**

Zergatik ez dituzu **Trinitatearen**, Aita Sainduaren hutsezintasunaren eta Jesus Haurraren Ama Maria Birjinaren dogmak dudan ezartzen? **Itxaro Borda**

· Eliza zahar hau, apez zahar hau eta atso zahar hau **trinitatearen** antzekoak ziren, bat ziren. **Koldo Izagirre**

2 Trinitatearen dogma ospatzen deun eguna.

Oraino ez nekien **Trinitatez** Djorming, Autrixian, izanen ginela, eta Besta-Berriz, eguerdi irian, Beloken. **Marzel Etxehandi**

Tenporak eta **Trinitate** ekaineko 15-17-18tan egokituko dira, eta Korputz eguna San Joan bezperan. **Pello Zabala**

Tenporak ere horren arabera tokatzen dira **Trinitate** bezperan. **Pello Zabala**

32 haurrek eginen dute urrats hori **Trinitatez**. **Herria**

· Komunione handia, igande huntan dugu, eta **Trinitate** Saindua izanki, aiten besta ere, pentsu dut, oste handian jendea etorriko dela 10 ak 1/2 etako xuxen, Lekorneko eliza eder huntarat. **Herria**

3 hiru gauzen edo pertsonen multzoa.

Hain zuzen ere, aurretik ere aipatu dugun "ezinezko trilogia" edota "sendotasunik gabeko **trinitatea**" izenez ezagutzen den dilema da nagusi: herrialde batek ezin ditu, aldi berean, truke-tasa finkoak, erabateko kapital merkatu irekiak eta helburu nazionalak dituen diru politika jakin bat atxiki, ezinezkoa da. **Iñaki Heras**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trinitate saindua (6); **trinitate sainduaz** (5)

trink

1 *trink* *egin* topo egin.

Baina honezkerok laster da hemen..., utz gaitzazu; lorategitik irten zaitez harekin **trink** ez egiteko, eta garaiz azaldu hitzordura. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Egunen batean apropos **trink** egingo dut berarekin eskilaran, eta gutxienez pare bat hitz esango diogu elkarri. **Juan Martin Elexpuru**

trinkada ik **trenkada**.

trinkatu¹, trinka(tu), trinkatzen du *ad* lotu, estekatu.

Moilara iritsi nintzenezan estatxa **trinkatzen** ari zen *Beti Santa Rita*, bertakoa zen, Fontela anaiena, baina ez zetorren arribadan, kanpaina osoa eginda zetorren, hiru hilabete zituen itsasoraturik. **Koldo Izagirre**

trinkatu² ik **trinkatu**.

trinkatu³ ik **trinkotu**.

trinkatze iz lotzea, estekatzea.

-Ez zaitetz kezka, ez dio atximurrik egingo ulean, zaku puska bategaz biltzen dut, oso **trinkatze** bortitza eta azkarra emoten du. **Koldo Izagirre**

trinket¹ (orobat *trinketa g.er.* eta *trinkete g.er.*) 1 iz alboko bi hormak dituen pilotaleku itxia eta estalia, jokalekuaren atzealdean ere pareta duena; pilotaleku horretan jokatzen den pilota joko mota.

Herriak eresia duen Haizpean zentro honetan elgarren ondoan ziren **trinket** bat eta ezker pareta. **Herria**

Amédée Arce 1900ean sortu zian Baigorriin, otsailaren 23an, hotela eta **trinketa** zen etxe batean, ur haundiaren bazterrean. **Michel Oronoz**

Burua gora dabiltzagan aspaldixkan mexikar eta kubatarrek beren **trinket** xilo gabe eta gibebeko sare gabeen. **Herria**

Trinketa jendez brokatua, partida oraino hastekoa eta jadanik dena ziztuz eta oihez betea. **Michel Oronoz**

Armendaritzeko **trinketa** betexea zen hastetik gazteekin eta kokorreraino, bixtan dena, hirugarren partida huntarakotz. **Herria**

Trinketaren urteurrena. **Herria**

15-16 urtetan, Baionan zegoelarik bere ikasketentzat, Iñaki hasi zen **trinketean**, esku huska eta "pala ancha"-n, Baionako "Club Olympique" taldearen kondu. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Badu bulta bat ez dela gurea **trinketa**, brontzezko medailarekin gorenean gaudela. **Herria**

Neguan **trinketa** -guretako hura zen ederrena-, eta udan jokogarbia. **Menane Oxandabaratz**

Trinketa hor plaza laxoari nausitu. **Herria**

Pilotan ere nabarmentzen zen, eta aurrenetako bat zen **trinketean**. **Koro Navarro**

Hastetik **trinketetan** eskularruarekin, pasakan bezala, hasi ziren, gero esku huskara etorri, orduan baitzen sortu **trinketeko** jokoak, partikulazki Iparraldean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hau zen Baiona Sant Andreseko partida joan den ortzegun aratsaldean Baionako **trinket** zaharrean, ez baitute saltzekoa baionesez beren asteko partida. **Herria**

Pilota saila azkartuko ote du berinazko **trinket** berri horrek Angelun? **Herria**

Oren bat eta erdi eta zerbait gehiago pasatu dute, Garaziko **trinket** nagusian, asteroko ikusle jarraiek. **Herria**

Trinket txiki bat ere bazegoen: teilapeko etxe txiki luze bat zen, bi ikurrin zeuzkan pintatuta apaingarri gisa, eta *Jo pilotan* eta *Orok bat* irakur zitekeen letra gorri eta berdetan. **Rafa Egiguren**

Gainerat, **trinket** eder bat, partida ongi ikusten eta jendea gostuan egoki. **Herria**

Horrek erran nahi du jende gehiago sartzen dela **trinket** berinadunetan, ez osoki beterik ere. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Titin, ostera, nekatuta kantxaratu zen, bezperako **trinket** partidak bere errendimendua gutxitu zuen. **Berria - Kirola**

Trinket jokoak maite dutenek, itzuli bat egin behar lukete! **Herria**

Mereziko zuen bururatze ederrago bat Baiona xaharreko **trinket** sasoiak. **Herria**

Trinket zola biziki lerra zen. **Herria**

Mattin, Xalbador, Azpillaga, Lazkao Txiki eta beste zonbat bertsulari ezagunek ez ote dute parte hartu saio horietan, **trinket** zola tanpez betetzen baitzen, jende heldu eta gazteez!! **Herria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Larrainen ere pilota **trinket** berrian. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aiherako **trinket** (4); baionako **trinket** zaharrean (4); baionatipiko **trinket** zaharrean (4); beren **trinket** (4); sant andreseko **trinket** (6)

trinket aintzinean (4); **trinket** berinadunetan (5); **trinket** berri (6); **trinket** berrituan (4); **trinket** gisa (3); **trinket** modernean (3); **trinket** nagusian (3); **trinket** ondoan (3); **trinket** ondoko (6); **trinket** zahar (3); **trinket** zaharra (3); **trinket** zaharrean (10); **trinket** xaharreko (3); **trinket** zaharra (3); **trinket** zaharrean (9)

berria **trinketa** (3); donapaleuko **trinketa** (3); gure **trinketa** (3); irrintzina **trinketa** (3); moderne **trinketa** (4)

trinketa bestan (3); **trinketa** bete (6); **trinketa** betea (4); **trinketa** kokorreraino betea (3); **trinketa** ondoko (5); **trinketa** ondoko gelan (3)

garaziko garat **trinketan** (7)

trinketaren erdian (4); **trinketaren** ondoan (3); **trinketaren** ondoko (3)

aiherako **trinketean** (9); antxitonea **trinketean** (3); armendaritzeko **trinketean** (8); arrangoitzeko **trinketean** (15); baigorriko herriarena **trinketean** (7); baigorriko **trinketean** (4); baionako moderne **trinketean** (14); bazkaria **trinketean** (4); berria **trinketean** (18); bidart **trinketean** (11); darmendrail **trinketean** (6); donapaleuko **trinketean** (7); dongaitz **trinketean** (3)

esku huska **trinketean** (6); gantxiki **trinketean** (9); garat **trinketean** (7); garaziko garat **trinketean** (4); garaziko **trinketean** (6); gure **trinketean** (6); harpe alde **trinketean** (3); herriarena **trinketean** (11); herriko **trinketean** (7)

ibar **trinketean** (4); isturitzeko **trinketean** (4); izturitzeko **trinketean** (4); kanboko **trinketean** (18); laduche **trinketean** (5); larzabaleko **trinketean** (3); lekorreko **trinketean** (9); luhusoko **trinketean** (11); moderne **trinketean** (25)

pariseko **trinketean** (5); partida **trinketean** (15); pausuko **trinketean** (5); pilota partida **trinketean** (11); pilota **trinketean** (3); pleka **trinketean** (4); san andreseko **trinketean** (3); sant andreseko **trinketean** (3); senpereko gantxiki **trinketean** (3); senpereko **trinketean** (6)

trinketean esku huska (3); **trinketean** iragan (6); **trinketean** iragan da (3); **trinketean** iraganen (6); **trinketean** iraganen da (5); **trinketean** izanen (4); **trinketean** jokatu (12); **trinketean** jokatu (4); **trinketean** jokatzen (3); **trinketean** pilota partida (5)

xehetasunak kanboko **trinketean** (3); zoi gehiagokoa **trinketean** (3)

bazkaria berria **trinketeko** (3); berria **trinketeko** (6); berria **trinketeko** jatetxean (3); irrintzina **trinketeko** (3); kanbo **trinketeko** (3); lapurdi kanbo **trinketeko** (3); moderne **trinketeko** (3); pilota **trinketeko** (3)

trinketeko finala (5); **trinketeko** finalak (5); **trinketeko** gela (3); **trinketeko** gelan (7); **trinketeko** jatetxean (3); **trinketeko** jokoak (3); **trinketeko** lehia (4); **trinketeko** ostatuko (3); **trinketeko** partidak (4); **trinketeko** salan (4); **trinketeko** xapeldun (3); **trinketeko** xapelgoak (12); **trinketeko** xapelketan (3)

gure **trinketetan** (3)

trinket² (orobat *trinketa*) iz belaontzietan, branka aldeko masta; masta horretatik zintzilikatzen den bela.

Masta nagusiaz gainera, *Animas* karrakak [...] bazituen han beste masta bi; mesanako edo gibel-masta deritzona, txopako gazteluaren aurrean, eta **trinket** edo aitzin-masta esaten zaiona. **Edorta Jimenez**

Joanesek [...] aitzin mastara egin zuen, **trinketa** delakora, hango bela jaitsaraztera. **Edorta Jimenez**

Trinketa askatu bezain laster, luze-luze etzan nintzen ontzian, brankako karel estuaren kontra oinak ipini, eta, eskuekin, masta nagusiaren oinarritik gertu zegoen burdinazko uztai bati heldu nion. **Koro Navarro**

Laguna **trinketaren** eta masprezaren arteko aparailuetan sartzen zela ikusi nuen, urrundik. **Edorta Jimenez**
Bizarbeltz gudukaldian hil, eta lotinantak agindu zuen burua moztu eta **trinket** -mastaren puntan lotu zezatela; eta halaxe egin zuten. **Juan Garzia**
Baupresaren muturretik **trinketa** nagusiaren eta mesanaren barrena txoparaino zetorren argizko xingola bat. **Koldo Izagirre**

trinketa ik **trinket**¹ eta **trinket**².

trinkete ik **trinket**¹.

trinketlari *iz* trinketean jokatzeko pilotaria.

Ai zer idaia ona izan zuen Ximun Haranek joko hori asmatu zuelarik ezkerparetako **trinketlarientzat** ! **Herria**
Hegoaldean ere badabilta gero ta gehiago gure **trinketlari** berezkoak hango trinket bakarretan. **Herria**
Dufourcq, Robert haundiaren semea, Errecart lekondar **trinketlari** pollita. **Herria**
Partida erditarik goiti, 19-21 izanik, airatu da garaztarra, ainitz bote sartuz hunek ere (18) eta **trinketlari** abilagoa agertuz, ahal ederrak dituen lapurtarrari. **Herria**

trinketzain *iz* pilota-trinket baten arduraduna.

Baionako *Nautique* elkarte eta Fredo Teileri **trinketzainaren** artean iaz sortu zen eztabaida, San Andres trinket xaharraren kudeantzaren gainetik. **Herria**
Mende bat eta erdia pasatua duen *Nautique* elkarteak hautsi zuen iaz "location/gérance" kontratua, eta geroztik **trinketzaina** beti hor egonki zela eta, *Rélééré* auzitegiaren aitzinera emana zuen Fredo Teileri trinketetik kanpo emateko galdea. **Herria**
Nautique elkarteak segurtatzen du partida horiek segituko direla **trinketzaina** joan eta gero ere. **Herria**

trinki ik **trinko**.

trinki-tranka *iz* mugituz eta zarata atereaz ibiltzea.

Horra hor zigor-zartadak, gurpilen zarata-hotsa, zaldien zalaparta, gudu-gurdien **trinki** -tranka! **Elizen arteko biblia**

trinkili-trankala 1 *adlag* oztopo eginez.

Orduan, aita zaldien aitzinean zebilen urratsean eta bera ondotik, **trinkili-trankala**, eskuan matoa zatxikala. **Itxaro Borda**
Eskuak txamarrako sakeletan sartuta, **trinkili-trankala** heldu zen Karrikara Dimas. **Pablo Sastre**
Pannecau zubi lainotsuaren gainetik lerratzean lanera joateko larunbat goizetan ardura kausitu zuen zerako zera **trinkili-trankala** hurbiltzen, txapela buruan trebes eta eskuak merkatuan erosi fruta eta baratzeak astundu zakuz tiran. **Itxaro Borda**

2 trinki-tranka.

Gaua heldu zaigu; treina badoa **trinkili trankala**, inarrosaldi ederrik hartzen dugula. **Marzel Etxehandi**

3 **trinkili-trankalaka** *adlag* trinkili-trankala, oztopo eginez.

Ibaieren hegira itzulikatu zen eta Bernat auzo zaharra **trinkili-trankalaka** zetorrela ohartu zen. **Itxaro Borda**
Frantxua deika zinpurto eta azkenean Maiana **trinkili-trankalaka** egon-gelaratu zen, biloak barreiatuak, begiak blai eta jantzi urdinak purtzilikatuak. **Itxaro Borda**

trinko 1 *izond* hutsarterik gabe baturik edo elkarturik dauden zatiz osatua.

Harri **trinkoa**, zeparik gabea, ehunka gizoni ehunka urtez lan emateko modukoa. **Juan Garzia**
Ez dela solido **trinko** bat. **Xabier Kintana**
Gero, murru **trinkoak** eratzen ziren berriz. **Karlos Zabala**
Irudiek erakusten dute Wild 2 [kometa] **trinkoa** dela, eta ziurrenik ur izoztua eta beste izotzen nahasketa gogorra da. **Berria - Gaiak**
Material **trinkoa** da hezuraren pareta, eta barrunbe batzuk ditu zelula bizientzako. **Irene Aldasoro**
Trinkoa du haragia, estu-estua eta mugikaitza. **Elizen arteko biblia**
Txiki bezain **trinko** bularrak. **Jon Muñoz**
Autoa zegoen han, hutsik, inguru guztian zuhaitz sendoak eta gainean adar **trinkoak** sabai gisa zituela. **Iñaki Mendiguren**
Zura **trinkoa** eta indartsua du: estimatua da oso. **Pello Zabala**
Soka **trinko** eta hautsezinen modukoak. **Fernando Morillo**
Nora galdua zen beira **trinkoaren** zurruntasun amorengaitz hura? **Juan Garzia**
Halako hodei-multz **trinko** itsu bat sortu zen berehala brankaren aurrez aurre. **Anjel Lertxundi**
Eguzkiaren norabidean gindoazen, sigi-sagaka noski, zidor bat non ageri, handik, oihan **trinkoan** barrena. **Joxe Austin Arrieta**
Basorik **trinkoena** ere soilten duten egurgileak. **Elizen arteko biblia**
Arboladi hori, **trinkoa** izanik ere, errepide publikotik oso gertu dago. **Koro Navarro**
Beste batzuetan, ordoki handi oparoak ziren, landaredi **trinkoz** estalitako alderdiak. **Karlos Zabala**
Eguzkiak Zitadelako hostotza **trinkoko** zumar handietan jotzen zuen. **Koro Navarro**
Urtero moztu ohi zuen ilea, oso **trinkoa** zuelako. **Elizen arteko biblia**
Lepoko gogorra eta alkandora paparduna jantzirik eta gizon gaztearen bibote **trinkoarekin**. **Monika Etxebarria**
Bazen arrano handi bat, hegal tzar luzekoa, lumaia **trinko** eta koloretsua zuena. **Elizen arteko biblia**
Burbuila zuriak botatzen zituen tren-makinak, kotoia bezain **trinkoak**. **Lopez de Arana**
Goiz erdian, ordea, hodei beltz **trinko** batzuk sartu ziren iparretik. **Joan Mari Irigoien**
Zeruan lainoak zeuden, zuritasun erabat garbikoak eta oso **trinkoak**, eguzkia zapuzteko gauza zirenak. **Bernardo Atxaga**
Kea, galipota bezain **trinkoa**, bosgarren pisuko leihotik irteten zen. **Lopez de Arana**
Ingeniaritza militarren ale ederra zen, gurpil **trinkoen** gainean mugitzen zen. **Jon Alonso**
Hori esaten zuen bitartean, zilar ileadun gizonak urre **trinkozko** erlojua atera zuen poltsikotik. **Matías Múgica**

Sestaoko Bizkaiko Altzairutegi **Trinkoan** kobalto-60 gai erradioaktiboaz kutsatutako txatarra atzeman. **Berria - Euskal Herria**

Boterea deitzen dugun ore **trinko** horren adar guztiak zituen, beraz, kontra eta atzetik. **Anjel Lertxundi**

Orain espresso **trinko** bat behar nuke, baina hemengo kafearekin etsi beharko dut. **Patxi Zubizarreta**

Oso **trinkoa** zirudien, oso sendoa. **Iñaki Mendiguren**

2 irud/hed

Orain ez bezala, oso talde **trinkoa** osatzen zuten, ikuspegi, balio eta erreferentzia beretsuei atxikita. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Multzo **trinkoan** egin dute ibaldai guztia. **Berria - Ekonomia**

Euskal Herrian dagoen asoziazionismo-mailak harreman-sare **trinkoa** osatu du gizartean. **Txema Ramirez de la Piscina**

Dena dago beterik, existentzia nonahi, **trinkoa** eta astuna eta goxoa. **Monika Etxebarria**

Haurrak segur ziren begi-bistan zeukaten buhame saldoak ez zuela arras segitzen girstinotasun **trinkoaren** ildo. **Itxaro Borda**

Haritzak lurrean zainak dituela, lurreko indar **trinkoan** bereganatzen baititu. **Pello Zabala**

Mundu itxi horretan **trinkoagoa** ematen du denborak, lodiagoa. **Rafa Egiguren**

Gero eta iluntasun **trinkoagoan** egin zuten aurrera. **Agustín Osoa**

Ilunpe **trinkoan** orduetan, lauretan jaikitzen ziren eta gosaldu gabe, hegiak agerian zeuzkan kamioira igotzen. **Itxaro Borda**

Liskararen ondotik halako isiltasun **trinkoa** zabaldu zen. **Patxi Zubizarreta**

Geltokian dagoen usain **trinkoa** saretzen ari dela ematen du. **Anjel Lertxundi**

Hotz eta zehatz gertatzeko asmo **trinkoa** nuen. **Aingeru Epaltza**

Mikroskopiaren gainean arnasari eusten dion Pasteurrengan, presentzia **trinko** bat dago. **Josu Zabaleta**

Epailen baten begitarte **trinkoekin** aztertzen. **Karlos Zabala**

Bestalde, moral kode oso **trinkoa** izan dut. **Ana Urkiza**

Assicurazioni Generali utzi eta handik bi astera ordutegi **trinkoarekiko** lan bat, alegia eguerdiko ordu bi eta erdietan bukatzen zena, aurkitu zuen. **Pedro Alberdi**

3 betegarririk ez duena, mamitsua.

Norbera testu **trinkoak** exigitzen duen arreta emateko prest egotea dela baldintza bakarra. **Jon Alonso**

Ez zuen Faulkner irakurtzen **trinkoegia** zelako; ez zuen Hemingway irakurtzen mehegia zelako. **Javi Cillero**

Pertsona baten barne hegaldi bat da, nortasunak dituen alor guztien gainbegiratzeko bat [...] La Rochefoucauldena esango litzatekeen estilo **trinko** eta soildu batean. **Josu Zabaleta**

Orain arte agertu ditudanen mami zientifikoa **trinkoa** baldin bazen. **Anjel Lertxundi**

Bere baitako beste itzalen batena iruditzen baitzitzaion idazkera **trinko** sentikor hura. **Anjel Lertxundi**

Mariasun Landa ahots literarioen magia eta sekretuen ikerle nekazina da, eta hitzen ekonomialaria: lan laburrak eta **trinkoak** gustatzen zaizkio, kentzea du obsesio. **Ana Urkiza**

Kanutoak erretzen zituzten edo rock musika entzuten zuten, herrikide herrialde larderiartzen nahiz pleguan ezartzen, edo Maika bezala, ideologia aldetik epel zirautenei predikatu **trinko** eskaintzen. **Itxaro Borda**

Ikasle batzuek horrenbesteko trebezia hartzen dute txuletarik **trinkoan**, kontzentratuenak egiten, non labor-zurrean bildu beharrak berak bultzatzen baititu eskemaren funtsari antzematera, eta hartara gaia goitik behera menderatzera iristen dira. **Iñaki Iñurrieta**

4 (adizlagun gisa) ik trinkoki.

Etengabe eta **trinko** zirauen elur-jasak eta zeharo zuri zegoen ontzigaina. **Anjel Lertxundi**

Atetik lurrin heze, gozo, garestia zetorren eta **trinko** hedatzen zen kale urdin bizian zehar. **Lopez de Arana**

Horrela atzeman zuten poliziek, oihal zarpaila ahurrean **trinko** eta erratza aldamenean. **Itxaro Borda**

Oso **trinko** eusten dio, zaila da zura zartatzea eta printzatzea. **Pello Zabala**

Minutu gutxiren buruan, Um Hamida lo **trinko** geratu zen eta bere zurrunga zaratsuez bete zuen gela. **Patxi Zubizarreta**

Esnatu nintzanean bost t'erdiak paseak ziren, baina **trinko** esnatu nintzen. **Jon Muñoz**

5 aditz trinkoa.

Trinkoen hitanoak sortu zituen buruhausterik handienak. **Koldo Zuazo**

6 aditz trinko aditz laguntailerik gabe osatzen den aditz forma.

1977an egin zen beste urrats esanguratsu bat: batasunerako **aditz trinkoak** aurkeztu ziren (egon, joan, etorri, jarraitu, etzan, ekarri, eduki...). **Koldo Zuazo**

Asko jostatzen naiz, adibidez, aditz **trinkoekin**. **Aditz trinkoak** noiznahi erabiltzen ditu, Iparraldean egiten ohi ez den bezala. **Ana Urkiza**

Aditz trinko eta erranmolde arraro horiek gabe ere ez ote zen berdin ederra izanen? **Xipri Arbelbide**

6 ikastaro trinko eskola-ordu askoko egun gutxitan ematen den ikastaroa.

Arantxak hogeita hamabi urte bete zituen egunean. Zen **ikastaro trinko** horretarako matrikula ordaindu zion. **Iban Zaldua**

Gizarajoak mundologia **ikastaro trinkoa** egin du bidaia honetan zehar. **Patxi Zubizarreta**

Errusierazko **ikastaro trinkoa**. **Berria - Gaiak**

Uda osoa eman nuen irakurketan, literatura unibertsaleko **ikastaro trinko** bat egin banu bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Big City-n urtero egiten zen goi mailako **ikastaro trinko** haren eragile eta zuzendari nagusia. **Josetxo Azkona**

Ikastaro trinkoak eginarazi zizkien han. **Jon Muñoz**

1994an sortua, urtero eskola eta **ikastaro trinkoak** antolatzen ditu komunikazio alternatiboaren inguruan. **Txema Ramirez de la Piscina**

· Udan, berriz, hiru asteko **saio trinkoak** egiten ditugu. **Berria - Euskal Herria**

7 trinko-trinko izond

Gutuna **trinko-trinkoa** zen: atzeratu behar izan ziren hiru operazio aipatzen zitien, lanaldi galduak, kintalka argazki-xafila errefusatuak, adituen txosten bat eta ez dakit nongo Auzitegiko tirabira nazioarteko bat. **Juan Garzia**

Trinko-trinkoa zen kiratsa; eta epela. **Anjel Lertxundi**

Arratsalde hartan lainoa **trinko-trinkoa** eta itogarria zen. **Lopez de Arana**

Han hormak metro erdi lodi ziren, atea **trinko-trinko** eta kanpotik zaindua, leihatila barraz hornitua. **Juan Garzia**

8 (adizlagun gisa)

Trinko-trinko zeuden, kondentsatzeko zorian. **Karlos Zabala**

Horrelako egunetan harea **trinko-trinko** egoten da, eta arropetan itsatsi egiten da zilipurdika eginez gero. **Jokin Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bezain trinko (5); **hodei trinko** (7); **ikastaro trinko** (10); **ikastaro trinko bat** (5); **iluntasun trinko** (4); **isiltasun trinko** (3); **ke hodei trinko** (3); **laino trinko** (5); **lo trinko** (11); **lo trinko geratu** (5); **lo trinko zegoela** (3); **multzo trinko** (3)

trinko geratu zen (5); **trinko trinko** (4); **trinko trinkoa** (4); **trinko zegoela** (3)

ikastaro trinkoak (9); **oso trinkoak** (3); **trinkoak izan arren** (3)

urre trinkozko (4)

trinkoago(tu), trinkoago(tu), trinkoago(tu) da/du ad trinkoago bihurtu.

Euriak mofetaren kerua arindu orde, **trinkoagotu** egin zuela iruditu zitzaion, airean ore bihurturik sentitzen baitzuen. **Anjel Lertxundi**

Isluneari **trinkoagotu** egiten zuen ganbaroteko giroa, eta berbarik ez egitea gero eta plazeragoa zitzaion Mentxuri, taktikaren eta jolasguraren arteko muga ezaguneari. **Josu Landa**

trinkoarazi, trinkoaraz, trinkoarazten du ad trinkotzera behartu.

Badirudi dena dardaratzten dela eta mundu zabalaren murru eskergak, bat-batean lehorturik, bat-batean zabalitzen direla, kolpera baturiko haize bortitzak hodeia zulatzen duenean eta, beronen barruan sarturik, zirimolaka biratzen eta hodeiaren erdigunea hutsarazten eta ingurua are eta areago **trinkoarazten** duenean, arik eta, bere indarra eta oldar zorrotza makalduz, zarata izugarriko burrunban lehertu arte. **Xabier Amuriza**

trinkodun izlag trinkoko.

Gero, urkamendiko eskaileretan gora hasi zen fardel itxurako lepoalde **trinkodun** gizon lasaikotea, idi nekatu baten antzo. **Anjel Lertxundi**

Munduaren izaera ez da gorputz **trinkoduna**, gazetan hutsunea nahasturik baitago. **Xabier Amuriza**

Eternal dirauten gauzek nahitaez behar dute edo kolpeak ezetsi, gorputz **trinkodunak** direlako, eta ez utzi barne-atal batuak, euren izaera lehen azaldu dugun materiaren lehenkiak direlakoak, banatzeko ezer sar dakien. **Xabier Amuriza**

trinkogune iz gune trinkoa.

-Kometak, jauna, gu **trinkogune** batzuk baizik ez garen izar hodeiaren mugetan baitabilta, kometak, txori aske eta argitsuak, Infinituaren barren-barrenetik datoz eguzkirantz. **Josu Zabaleta**

trinkoki iz trinkotasunez. ik trinko 4.

Zientzia-gizonek gauza nabarmen horien existentzia **trinkoki** ezarri eta uste hutsezko gauzan existentziarik eza erakutsi behar izan zuten. **Xabier Kintana**

Abarren artean balantza kulunkaz ari zen, itsasora ilkitzeko beldurrez kaiari **trinkoki** loturik legokeen ontzia bezala. **Itxaro Borda**

Gurutzearen inguruan plantatu ziren gizon ilunak, pistolak **trinkoki** lurreen zegoenarengana zuzenduz. **Itxaro Borda**

Eta, **trinkokiago** bildurik, leku estuagoan jo eta punpatzen direnek, euren egitura korapilotsuetan trabaturik, haitzaren sustrai indartsuak eta burdinaren gorputz ohila eta antzeko guztiak osatzen dituzte. **Xabier Amuriza**

Lodiagoa, berriz, **trinkokiagi** igortzen da, edo ez du behar besteko indarrez aurrera egiten edo ezin du behar den tokian sartu, edo, sarturik, hazia nekez nahasten da emakumearen haziarekin. **Xabier Amuriza**

trinkotasun 1 iz trinkoa denaren nolakotasuna.

Hartara, arian-arian, gela ikusi, hormak eta etxe-barneko gauzak handik eta hemendik ukitu, eta espazioaren, **trinkotasunaren** eta perspektibaren kontzientzia izateko.

Xabier Olarra

Urguiluz erakusten du harmarri zaharra bere sarreran, eta bere harriaren **trinkotasunean** urteak metatu ditu dotoreziaz. **Berria - Kultura**

Begien borobiltasuna eta biboteen **trinkotasuna** ere azpimarratzeko modukoak dira. **Itziar Otegi**

Eta testuaren oreka, **trinkotasuna** ... bilatu egin behar dira, noizbait aurkitzeko ere. **Andoni Egaña**

Sarriegiren doinuek **trinkotasuna** ematen diote jaiari. **Askoren artean**

Ahotsa bat-batean aldatzen zitzaion, ezin erabaki dardarti batetik [...] **trinkotasun** indartsu moduko batera. **Koro Navarro**

Eliza konikoak, azukre-ogiak bezala jasoak, harrizkoak, gotorrak, sinestezineko **trinkotasun** arkitektonikoan. **Berria - Kultura**

Gure argudioetan moralaren **trinkotasun** logikoa bermatu nahi baldin badugu, [...]. **Askoren artean**

Intentsuaren usainak ohiko **trinkotasun** zorabiagarria zuen. **Anjel Lertxundi**

Ametsetako irudikapen batek baino **trinkotasun** gutxiago zuen-eta beti puntua egiten aritzen zen emakumearen oroitzapenak. **Anjel Lertxundi**

Ukapenak jainkozkoan egiazkoak dira, aldiz baieztapenak **trinkotasunik** gabeak (*incompactae*) edo desegokiak. **Joan Mari Lekuona**

Bazen lanean jardute diskurtsibo bat, bere erregularitasunekin eta bere **trinkotasunarekin**. **Xabier Arregi**

Gogoan izan behar da, ordea, aldi jakin bateko inguru-testuaren **trinkotasunik** eza gauza erlatibo da. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Charly **trinkotasunaz** eta kaitateaz baliatzen zen, harremanen iraupen laburra orekatu beharrez. **Aingeru Epaltza**

Somorrostroko meategietan ebasten nituen dinamita kartutxoak balizkoak direlako, eta nik nekartzan tresnek ezin dutelako **trinkotasun** hura zulatu. **Koldo Izagirre**

Ikastaldien gutxieneko **trinkotasuna** ziurtatu eta **trinkotasunik** handieneko ikastaldiak sustatu behar dira. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Inguru-testuaren kohesio edo **trinkotasun** mailak sekulako garrantzia du bat-bateko bertsogintzan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Hodeien **trinkotasun** gehiegiagatik ere [...] sumatu ahal izan genuen nolako lastertasunaz mugitzen ziren hodeiak, nonahitik abiatu eta elkar joka, urrunean desagertu gabe.

Koro Navarro

Mitmensh delakoa bilakatzen baita, giza kidea, bere haragi-**trinkotasun**, tik, bitxikeria eta anakoluto guztiekin. **Juan Garzia**

Herrikidetzan eta gizarte **trinkotasunean** hizkuntzak duen pisua. **Berria - Kultura**

trinkotu, trinko(tu), trinkotzen (orobat trinkatu g.er.) 1 da/du ad trinko edo trinkoago bihurtu.

Hartixintarra zabalduko da eta egurrezko mazoekin, koadriletan banatuta, estu-estu zanpatuz **trinkotuko** da. **Santiago Iruretagoiena**

Apurka-apurka **trinkotuz** joan den bola, pixkanaka gesaltzen du beroak. **Iñaki Arranz**

Bere konposizio itxi horrekin **trinkotuta**, ez du ez eguraldi txarrenen eta ez suaren eraginaren kalterik nozitzen. **Santiago Iruretagoiena**

Hor ikusten dugu hari batek beste hari asko behar dituela soka txirikordatu eta **trinkotzeko**. **Anjel Lertxundi**

Iberiarren taldea, ezarian ezarian, osatu eta **trinkotuz** joan zen. **Edorta Jimenez**

«Sakabanatuta» zegoen euskal komunitate zientifikoa **trinkotzea** lortu gura zuten datu basearekin. **Berria - Euskal Herria**

Gaueko ilunpeak **trinkotu** egin ziren nire inguruan. **Alberto Ladrón Arana**

Ez dakit mundua bat-batean **trinkotu** den edo ni naizen soinuek eta formen artean hain batasun indartsua ezartzen dudana. **Monika Etxebarria**

Isliltasuna **trinkotzen** ari zela iruditu zitzaiguan, kito txoriak, kito haizea, kito luraren intziri sorra. **Josu Zabaleta**

Ustel-usainak **trinkotutako** bero astuna egiten zuen. **Anjel Lertxundi**

Euskararen Aholku Batzordeak ikastaldiak **trinkotzea** gomendatzen du. **Berria - Euskal Herria**

Funtsean, **trinkotu** samartuak ditugun zenbait eredu eta pentsamolde aldatu beharko ditugu. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

- Lur honetan non palmondoak izaten baitira eta kresala gatz- **trinkotzen** . **Juan Garzia**

2 (era burutua izenondo gisa)

Egoskia bere doi gradura iritsi zela erabaki zuenean, ontzia erretiratu zuen sutatik, eta, kurrika baten laguntzaz, ore **trinkotua** atera bertatik. **Anjel Lertxundi**

Begira begira, horren gordean ondutako mami xuri **trinkotu** horri, biziaren muin xuri gordea iduri. **Patziku Perurena**

Baina Ramsay jaunak, denbora ahitzen ari zitzaiola baleki bezala, Lilyren irudi bakartiaren gainean ezarri zuen, sekulako presioarekin, bere oinaze **trinkotua** . **Anton Garikano**

Hurra jakituria mamitua da, barruan sendotua, gordean ondua, jakituria umo **trinkotua** . **Patziku Perurena**

trinkoxe ik trinko. *adlag* zerbait trinko.

Jatorrizko musikaltasunaren kutsu bat gordetzen saiatuko naiz, hamabi silabako lerroak errespetatuz eta errima mehe bat erantsiz, mezua **trinkoxeago** geratzen bada ere.

Xabier Mendiguren Elizegi

trino iz tono edo tonuerdiko tartea duten bi noten txandakatze lasterra.

Goi mailako teknika indartsua adierazi zigun txeloaren gainean [...] soinua garbia, afinazio eta fraseatze txukuna zati lirikoetan; arpegio, **trino**, mordente edo hiru hariako akordetan artista. **Berria - Kultura**

Baina balio izan zitzaigun Koczis jotzailearen digitazio apartaz gozatzeko gora eta beheako eskaletan, mordente, **trino** edo apoiaturen gardentasunaz harritzeko. **Berria - Kultura**

trinomio 1 iz adierazpen aljebraikoa, gehi edo ken ikurrez loturiko hiru gaiz osatua.

Eta hiru osagai dituen gero, **trinomioa** da; bigarren mailako **trinomioa** ! **Jon Muñoz**

2 batasun gisa aritzen dituen hiru pertsona edo gauzen multzoa.

Nekez aldendu dira euskara-identitatea-nazioa **trinomioak** marraztutako zirkulutik, nahiz norberak bere posturatik aztertu gaia, nahiz elkarren artean desadostasunik izan.

Berria - Kultura

Sufrimenduak eragindako etengabeko emigrazioek eta baliabiderik ezean sortu garen tokian bizi izateko modurik ez izateak hainbat **trinomio** osatzen dute, esate baterako pobrezia, enplegua eta kultur aniztasuna hirukoa. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

trinotasun iz trinoa denaren nolakotasuna.

Ez al da, hain zuzen, **trinotasunarena** idazlearen gaurko egoera metaforizatze irudirik zehatzena? **Berria - Kultura**

trintina iz

Egun guzietako **trintinaren** aurka gabiltza, egun guziak berriak dira bere inguramenean eta etorkizunari buruz ez dugu deus finkatu nahi ez bada egunerokoa osoki bixitza.

Herria

trintxa iz zura lantzeko tresna.

Harriaren gainean **trintxarekin** ebaki diren arabesko eta kiribilak balira bezala. **Koldo Izagirre**

Txikienak ez ditu ukitu, baina **trintxa** batekin baloreak eta paper garrantzizkoak zeuzkatena ireki ditu, eta erabat hustu. **Xabier Olarra**

trintxera¹ (*orobat trentxada g.er.*) 1 iz lubakia.

Hori guzti hori, **trintxera** izan zen, han goiko Barrankutik beheko troketaraino. **Joseba Sarrionandia**

Eta gero bere burua ikusi zuen, **trintxera** gaineko zakueta etzanda, Loxetako sorora so. **Ramon Saizarbitoria**

Goizeko seiak aldean esnatu eta tiro hotsak **trintxeretan** . **Jokin Urain**

Ez omen ditek **trintxera** abandonatu nahi. **Bernardo Atxaga**

Ahalegin handia egin behar izan zuen **trintxeratik** salto egin, eta maldan behera Loxeta aldera lasterka bizian ez abiatzeko. **Ramon Saizarbitoria**

Verdugo **trintxeretan** bizia galdu zuen Maianaren anaia zaharrenek omenez. **Itxaro Borda**

Urriko egun bat etorri zitzaion gogora, Beldarrainek militarren lerroko **trintxeren** eskema zaharra hautsi, eta defentsa sakabanatu eta ezkutukoak eratu baino lehenagokoa.

Ramon Saizarbitoria

Gerrak iraun zuen bitartean frankistentzat **trintxerak** egiten jardun behar izan zuten langile askok. **Jokin Urain**

2 irud/hed

Han ziren soingaineko, **trintxera** eta gonon artean gorde zuen gorputza. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trintxera gainean (4)

trintxera² iz gabardina gerrikoduna.

Han ziren soingaineko, **trintxera** eta gonon artean gorde zuen gorputza. **Edorta Jimenez**

trintxerpetar izlag/iz Trintxerpekoa, Trintxerperi dagokiona; Trintxerpeko biztanlea.

Trintxerpetar guztiak sartu ginen berriro Espainiako gerran. **Koldo Izagirre**

trio 1 iz hiru tresna edo hiru kantarirentzako musika-lana. ik hirukote.

Gabriel Erkorearen Biola, klarinete eta pianorako **trioa** lanaren estreinaldiarekin hasi zen, atzo, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren 2004-2005 ganbera denboraldia. -Itzuli behar diat, harizko **trio** bat bukatu behar diat-eta gaur gauean. **Berria - Kultura**

Zazpi musikarik lagunduta bakarkakoak, duoak eta **trioak** eskainiko dituzte soul-eko hiru dama handiren omenez: Nina Simone, Donny Hathaway eta Chaka Khan. Berria - Kultura

2 minuetoaren eta kidekoen erdiko zatia.

Gustatu zitzagun Scherzoren **Trioa**, baltsaren modukoa, Finale-ren 1.go gaia metalezkoek eramana edo harizkoen 2. gaiko polka. Berria - Kultura

trip 1 iz bidaia.

Etenaldi koxkor bat ez letorkidakeela gaizki, oporraldi labor bat, alegia, udaberriaren kariatz, pare bat asteko bidaia koxkor bat-edo **"trip"** bat), Avignon eta Pisa, Florentzia, Erroma aldera. Joxe Austin Arrieta

-Egunero atzerapen honekin iriteten bagara, goizeko itxaronaldiekin bakarrik, **trip** honetan guztira hamabost bat ordu galduko ditugu esperoan, kasik egun oso bat. Patxi Zubizarreta

Bitartean, gainontzekoak isiltasunaren oinaze itsuetan galdurik daude *La* egunkari gaelikoa helburu dutela, ahazturik gure **trip**-aren amaiera iristear dagoela. Berria - Kultura

2 trip-hop

'Trip -hop' soinuaren aita pontekoak dira Smith&Mighty. Berria - Kultura

Trip hop deiturarekin ezaguna egin den Bristolgo soinuaren ardatz garrantzitsuenetakoa dira Smith&Mighty. Berria - Kultura

Nicolette musikan hasi zenean, 1992. urtean, mundua *drum&bass* eta **trip** hop joera berriei amore emanda zegoen. *Dark summer* diskoan **trip** -hop doinuak jorratu zituen *Sepiatone* taldearekin. Berria - Kultura

tripa 1 iz adkor sabela.

Kontuak kontu, **tripa** hutsik eta azkar demonio ekin nien neure kankarrekoeki, halako suertez non, ordu bete geroago, laugarrena edan orduko, tristezia mugagabe batek baizik ez baininduen lotzen errealitateari. Aingeru Epaltza

Handik pixka batera **tripa** ogiz betea genuela altxatu ginen. Pello Lizarralde

Tripako gantzagatik atorra horailak leher zorian. Itxaro Borda

Asteburuko kalapita batean harakin aizto bat **tripa** erdian sartuta amaitzeko. Javi Cillero

Ez zaik gaizki etorriko lan pixka bat egitea, **tripa** bajatzeko ere. Pablo Sastre

Kilo askorik galdu ez banuen ere, egunez egun **tripa** desagertzen hasia zitzaidala ikus nezakeen. Iban Zaldua

Lagunek, beren baionetekin lehenbiziko lerroko zazpi-zortzi Espainoleri **tripa** idekitzen deete eta bertzeak iziturik oihuka hasten dira otoi bizirik utz ditzaten. Michel Oronoz

Ohartua zen jadanezok Nakoren **tripa** loditzen ari zela, baina ez zuen deus erran. Itxaro Borda

Amorante bat hartuko dun, **tripa** zaintzea beste zer eginik ez dun izango, edo alferrontzi bat izango haiz, nork daki. Joxan Elozegi

Merke-zurrean erositako gerriko estuegi batek atximurkatutako **tripa**. Antton Olano

Bortxatzaileak bere ingurutik pasatu zirelarik, labana **triparen** erdian sartu ziela, malla-kotako hegala nekez iristen den tokitik. Jon Alonso

Guri esaten zigun mina izaten zuela **tripan** eta gauza hura eraman behar zuela. Pello Lizarralde

Tiro festa amaitu denean, Mario lurrera amildu da, ziplo, **tripako** zuloari bi eskuez helduta. Patxi Iturritegi

Irlandarrak sartu dira, gosea **tripan**, denak iretsi beharrean. Herria

Tripaz gora jarri da, honezkerok bizkarra nahiko beltzuta izango duelakoan. Joxerra Garzia

Jan Ullrich oso indartsu dago, baina ez dakit **tripetako** arazo horretatik osatuko den. Berria - Kirola

Xalaren aita eta ama ere **tripetakoarekin** ibili dira azken egunetan eta haiengandik jaso du gaitza semeak nonbait. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Bizi mugitzen zen Peter Kontseilaria [...] burusoiltasunak eta **tripa** handiak irudi bitxia eskaintzen bazioten ere. Fernando Morillo

ik beherago 12. Askoren artean

Tripa handiegiak ikusten ditiat bazterretan. Aingeru Epaltza

Gero aita bere **tripa** handirantz erakarri eta besarkatu egin du. Urtzi Urrutikoetxea

Bibote luzeak eta **tripa** biribila, eskuak galtza narrasetako poltsikoetan. Pablo Sastre

Ez duzu **tripa** makala, alajaina! Joseba Urteaga

Nire aldera behatu gabe mintzatzan hasi zitzaidan, eskuak bular hantuen eta **tripa** puztuaren artean ezarrita. Aingeru Epaltza

Arropa ilunez bezitua zen eta zapatak zuri-zuriak zeuzkan, **tripa** animalearen itzal beltzez ttakatuak. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Ez ginen gose -erantzun zion Ronek ozen, bere barruan **tripa** -hotsa entzuten zen bitartean. Iñaki Mendiguren

Lehendik ere **tripa** -barruko gogorrak bazituen, orain, poto erdia jan zuenean, hankak ere gogortzen hasi zitzaizkiola ohartu zen. Joan Mari Irigoien

Gainera, ene pena eta kezkek ahazteko, brauki jaten eta edaten bainuen, konturatu nintzen, **tripa** puska bat atera zitzaidala. Daniel Landart

Gerria inguratzen dit besoarekin eta **tripa** aldea laztantzen hasi zait. Agurtzane Juanena

Beste batek **tripa** plastada galanta joko zuen uraren kontra. Joseba Sarrionandia

7'30 tan zintzur bustitze eta **tripa** betetze, Elektrotuna taldearekin. Herria

Ez egin barre berarekin, negar egin beharrik izan ez dezazun, ez eta azkenean **tripa** -jaten egon beharrik ere. Elizen arteko biblia

Erakaspen baitezpadakoa oraiko gizaldiarentzat, dena **tripa** joko. Herria

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balio duela)

Sagu **tripa** -hutsak iduri, soin gaineko arropen larru higatua marruskatzera abiatzeko puntuan ginen. Aingeru Epaltza

Artean irteeta lortu ez zuelarik, han zeukan Dimitrios garai eta **tripa** zabala bidea ixten. Oskar Arana

5 (animaliena)

Lehertu da eulia, haren **tripa** txiki zuriak sabeletik ateratzen ari dira. Monika Etxebarria

Arrainei **tripa** irekitzen diet, hustu eta maskuriak oinazpian leherrarazten ditut. Itziar Otegi

Eta **tripan** erlojua daukan krokodiloa, eta azal-gorriak eta, zelan ez, Wendy eta Txilintxo. Julen Gabiria

Katu-haragiak ez du parekorik ibai-karramarroak harrapatzeko, ez oilasko-**tripak**, ezta hiltegiko hondakinak ere. Itziar Otegi

Min pixka bat dut gaur **tripan**. Fernando Rey

6 (digestioari loturik, pluralean)

Bero nardagarri honek **tripak** aldrebestu dizkit. Eider Rodriguez

Denverrek barre egiten zuen, Sethek irribarre, eta Paul D-ri **tripak** nahasten omen zitzaizkion. Anton Garikano

Handik gutxira, ordea, **tripak** nahastuta, gereziondotik jaitsi, eta sasi batzuen artean ezkutatu behar izan nuen. Joan Mari Irigoien

Eguerdi aldera, alkatea eta idazkaria hamaiketakoak hartzen ikusi zituen betiko tabernan, eta Floreni **tripak** irauli zitzaizkion berriro. Eider Rodriguez

Arratsalderako **tripak** marmarika ari zitzaizkigun, haserre. Aingeru Epaltza

Barreneko egonezinak korapilatu egiten dizkio **tripak**, eta jateko gogoia kendu dio. Paddy Rekalde
Nik komunera ihes egiten nuen haren oihuek eragiten zidaten **tripako** estualdiak behartuta. Pello Lizarralde
Tripetatik ezongi samar gabiltzala eta, zenbat aldiz ez dugu hartu tonikerdi bat jinebra ttanta batekin [...] ? Patziku Perurena

7 (sentimenduei loturik, pluralean)

Zaila da azaltzea, azken batean arrazoi kontua baino gehiago sentimendu kontua baita, **tripekin** hartutako erabakia. Berria - Kultura

Nola ez du horrek nolabaiteko existentziarik Luisen gogoan, bihotzean, **tripetan** ... Lourdes Oñederra

Ez nuke asmatuko une hartan zenbat eta nolako burutazioak izan nituen esaten, ezta **tripetako** kilika amorragarri hura adierazten ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Errutinazko keinuen errepikapena bezalakorik ez zegoen **tripetako** ezinegon lausoa eta buruko zitzadak desagerrarazteko. Jon Alonso

8 irud/hed

Almak zeraman poltsak bere **tripak** irauli zituen trenbide ondoan: nik frontetik bidalitako gutunak ziren. Harkaitz Cano

Olinpiak, ordea, trepetat mekaniko bat darama **tripetan**, Olinpia ez da panpina bat besterik. Anjel Lertxundi

Eserita nengoen ordurako, tresnari **tripak** ateratzearren. Joxe Austin Arrieta

Bera gustura dabil autoen **tripak** konpontzen. Berria - Euskal Herria

Estanko oso-oso aurkitu zuten piano zigortuaren **tripetan**. Askoren artean

Demagun walkmaneko pilari **tripak** atera, eta haietako zuku alkalinoa irentsiz nire buruaz beste egin nahi dudala. Anjel Lertxundi

Ondoan jarri zitzaidan, **tripak** agerian zituen aukito luze batez jabetuta. Aingeru Epaltza

Begia eman zien itsasontziaren **tripan** eserita, geldi-nahi, buru-makur eta esku lakarrak elkaturik zeuden zamaketariei. Felipe Juaristi

Oso analisi zalea naiz; obraren **tripetaraino** sartzea gustatzen zait. Ana Urkiza

9 p/ hesteak-eta.

Eskaileretatik erori eta **tripa** guztiak atera zitzaizkion. Harkaitz Cano

Nire **tripak** korrok eta korrok hasi ziren, hartuak nituen jaki horientatik guztiengatik. Joxan Elozegi

Odol ugari zegoen eta **tripak** airean zituen. Jon Alonso

Marinelek kanpoko arrain horien **tripak** botatzen dituzte bertara, eta horregatik hazi eta gizendu dira izugarri zubipeetako arrainak, lupinak. Felipe Juaristi

Berehala begiratu zion bere jesarlekuari eta labezomorro lehertu bat ikusi zuen, **tripak** kanpoan. Unai Elorriaga

Bizpahiru behi hil dituztenak (egiazko jabe edo ez) funts gutiko jendea dela: alabainan aragia hartu eta **tripak** eta buruak bertan utzi dituzte. Herria

· Artean ez zuten abere **tripaz** egindako lau hari haiek -lau golde-mutur mastaren gainetik tenkatuak baliraxe-, musika hazia ereiten. Felipe Juaristi

10 tripa-ateratzaile tripa ateratzen dituen pertsona.

Lanbro itxiak gogora ekarri zion garai bateko Londres ospetsua, smogek jendea etxean bilduarazi eta **tripa-ateratzaile** eta gisako gaizkileak kaleratzen ziren garaikoa.

Migel Angel Mintegi

Julen abailduta dago, eta polizia etxean izugarritzko aitorpena egin balu bezala dago; "Bostongo **tripa ateratzailea** naiz", esan izan balu bezala. Luis Elberdin

11 tripa-festa (orobat tripa-besta g.er. eta tripafesta g.er.) bazkari handia.

1.600 laguneko **tripa festa** besteak beste, ohidurak oro zainduz eta elgertasuna gainerat izetatarren inguruan. Herria

Jakinduriaraz arduratuta bizi diren gazteek uko egin beharko diote gozamen sexual orori, **tripa-festei**, gorputza gehiegi zaintze eta apaintzeari, jolaserako zaletasun hutsalari, [...]. Imanol Unzurrunzaga

Esker ona adierazteko, **tripa-festa** batera gonbidatu gintuen Josek. Jesus Mari Mendizabal

Murruetatik harata, berriz, bertako nahiz kanpoko zakurrak liskarrean ari ziren **tripa-bestako** hondakinen inguruan. Aingeru Epaltza

Inork ez zituen abisatu, eta Zorra Kitok beti pentsatu zuen ez zituela moteldu **tripa-festaren** ondoko kamustasunak. Anton Garikano

Purpura-koloreko bi apo handi eta heze, hildako haragi-euliak irensten eta **tripa-festa** egiten ari ziren. Iñaki Mendiguren

12 tripa-handi (orobat tripa haundi, tripahandi, tripandi eta tripaundi) izond/iz sabel handia duena.

Gizon gorri hura, jendearekin borroka eta oihu egiten zuena, eta aitona **tripa handi** burubeltx hura, orain joan, orain etorri, gazta batekin dantza egiten zuena. bibote luzeko

Gaston **tripa-handia**. Pablo Sastre

Tripandi itzelak dira eta. Patxi Iturritegi

13 irud/hed

Orain, motel, porlana ekarri kamioi **tripa haundi** horietako batekin, eta zarrasta-zarrasta, hustutzen die ondo enkofrauta, eta kitto! Pello Zabala

Baldin eta zartagin-izenik merezi bazuten halako pazi **tripaundiek**. Patxi Ezkiaga

14 tripa-jan iz amorrua.

Pentsa ezak zer **tripa** -jan eginarazi zion apaiz likits hark gure amari, arta-puska hari. Pako Aristi

Emakume guztiak eduki behar lukete motoa; batzuetan **tripa** -jan ederrak eragotziko lizkieke. Pako Aristi

15 tripa-jaten adlag amorratzen.

Ez egin barre berarekin, negar egin beharrik izan ez dezazun, ez eta azkenean **tripa-jaten** egon beharrik ere. Elizen arteko biblia

Ene! hots egin zuen Maxunek; **tripa jaten** egongo da Marijo; ezagututa hura... Pablo Sastre

16 tripa-salda barrukiekin egiten den salda.

Bai **tripa saldak** goizean, eta bai eguerdiko bazkariak arrakasta ederra bildu dute. Herria

Partida ondoko janaria aipatzeko, lehenago bazen ohidura, pilotarien artean, **tripa saldaren** jateko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Laurogei lagun bildu dira nunbaitan **tripa salda** eta tripotxaren jastatzeko. Herria

17 tripa truk janariaren truke, soldatarik gabe.

Alabaina bertze inor ez izaki **tripa truk** etortzeko prest. Aingeru Epaltza

18 tripa-zorri gosea.

Bihotza pilpiraka zuen, bizi-bizi; **tripa zorriak** zituen gosearen gosez. Fernando Rey

Eta zuek, epaimahaiko jaun andreak, Aliziarenean bezala, epaiketa bertan behera utziko al duzue hamaiketakoari hots egin dioten **tripa-zorriak** dituzuelako? Berria - Kultura

Negarrik egiten ez zuenari ematen zioten jaten, besteak **tripa-zorriekin** eta egun osoko lanean majo nekatuta ohera bidali ondoren. Aitor Arana

Tripa zorriak esnatu zitzaizkion, jasanezin, errukigabe. Karlos Zabala

Pastel mordoia jaten dute, okelaz edo katuarrainez beteak, ikuste hutsarekin **tripa-zorria** esnatzen duten horietakoak. Jose Morales

Eta total, **tripa-zorriei** ezeren zaporerik ez zuen ahi okaztagarri hura jaten emateko. Harkaitz Cano

· **Tripetako zorriak** ordurako kexatzen hasiak, non zer jango hasi naiz. Anjel Lertxundi

19 tripa zorro ik tripazorro.

20 tripak bota

Bandakoak **tripak bota** beharrean. Joxean Sagatzizabal

Natxo barrezka hasi da neskaren kontura, **tripak bota** beharrean. Patxi Iturritegi

21 tripak jaten amorratzen.

Gizon Handia **tripak jaten** zegoen, bekaitzaren bekaitzez, Idazleak artikulu bat izenpetzen zuen bakoitzean bezala. Jon Alonso

Une honetan, Lehen Antzele Emakumezkoak, Lehen Antzele Gizonezko Ugazalabarekin maite-jolasetan ikusiz **tripak jaten** egona, aurreratu eta Konpainia-buruari galdetuko dio: [...]. **Josu Zabaleta**

Ez zitzaigun batere bidezkoa iruditzen batzuek hainbeste gozaten zuten bitartean beste batzuk **tripak jaten** egotea, eta atsegina hobeto banatu behar zela deliberratu genuen. **Jon Arretxe**

· Klandestinitatearen zama jasanezina zenean, torturaren beldurrak **tripak jaten** zituenean. **Joseba Zulaika**

22 *tripako min* (66 agerraldi, 31 liburu eta 17 artikulutan; orobat *tripakomin g.er.*)

Antzele kaxkarrek aurpegia okertzen dute, **tripako mina** izango balute bezala. **Javi Cillero**

Tripako mina daukazu? gosaria izango zen igual... Jatetxeetara joaten zaretenetan ez du janari alerik uzten platerean, nahiz eta gose izan ez, nahiz eta **tripako minez** egon. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Tripako minari eutsi ezinda utzi behar izan zuen Australiako Irekiko finala. **Berria - Kirola**

Ostiral osoa pasa bainuen **tripako min** handi eta ondoezarekin. **Berria - Kirola**

Askok etxean pasatzen dituzte **tripako minak**, perretxikoekin pozoitu direla ez esatearren. **Berria - Gaiak**

Erremediorik onena baita **tripako minak**, haizeak, edo beste edozein dijestio prolema konpontzeko. Atzo gehiegi jan zenuelako duzu **tripako** mina! **Patziku Perurena**

Tripako minik txikiena sentitzen baduzue, joan bizkor Gurutze Gorriak atarian jarri duen sorospen-postura. **Iban Zaldua**

Justine Henin-Hardenne aurkariak, **tripako minak** jota, erretiratzea erabaki baitzuen. **Berria - Kirola**

23 irud/hed

Zalantzak, eta apustuzaleren baten **tripako minak**. **Berria - Kirola**

Bidenabar esanik, hamaika **tripako min** eman izan digu bere burutazioak! **Andoni Egaña**

Zortzi mila dolar eskuratu nituen, eta uste baduzue **tripako minik** ez duela ematen, seinale ez duzuela sekula etxea hipotekaturik eduki. **Xabier Olarra**

Errusiarekin dituzte beste nazioeek beren **tripako minak** denboraren buruan. **Herria**

24 *tripetako min* (2 agerraldi, liburu 1 eta artikulua 1ean)

Esne beroak ez dit onik egin: **tripetako mina** dut. **Iban Zaldua**

250 hur, irakasle eta laguntzailek **tripetako minez** eta gastroenteritis zantzuekin etxera joan behar izan zuten. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tripa barruak (3); **tripa barruan** (4); **tripa festa** (8); **tripa handi** (3); **tripa hutsik** (7); **tripa salda** (3); **tripa saldak** (4); **tripa saldarekin** (3); **tripa zorriak** (5)

bere tripak (4); **tripak atera** (6); **tripak jaten** (5); **tripak nahasten** (3)

tripako min (13); **tripako mina** (29); **tripako mina eman** (3); **tripako mina ematen** (3); **tripako minak** (11); **tripako minez** (6)

amaren tripan (3)

tripaz gora (3)

tripadun *izond* tripa nabaria duena.

Pintzadun galtzak eta alkandora karratutxodunen botoiak lehertu beharrean daramatzaten gizon **tripadunak** dantzan ikustea. **Pako Aristi**

Mostradorearen beste aldean betiko mutiko **tripaduna** zegoen, Miguelito. **Aritz Gorrotxategi**

tripafesta ik tripa 11.

tripahandi ik tripa 12.

tripakada 1 *iz* betekada.

Zoritxarrekoa erregetzat haurra duen lurraldea, agintariak goizetik **tripakadak** egiten dituzteneko lurraldea. **Elizen arteko biblia**

Zertarako egin behar zuen halako **tripakada**? **Mirentxu Larrañaga**

Gaueko **tripakada** prestatzen ari dira. **Karlos Zabala**

Frogatzen bazenion argalegi ari zinela geratzen zure zuhaitzaren neurrirako, orduan **tripakada** eder bat egiten uzten zizun. **Julen Gabiria**

Nire arrazoiei berriz ere entzungor egiten bazien, **tripakada** pozoitsuak barrenak xehatuko zizkion esperantza geldituko zitzaidan. **Aingeru Epaltza**

2 irud/hed

Azterketa **tripakada** ederra izango duk datozen egunetan, ikasleei "ostiralerako" erantzun diek-eta, noizko egongo diren zuzenduta galdetu diatenean. **Jokin Muñoz**

tripaki 1 *iz pl* hausnartzaileen urdail zatiak, egosiak jaten direnak.

Tripakiez eta txipiroiez oroitu da. **Berria - Ekonomia**

Odogiak eta **tripakiak** paratuko dituzte ostiral arratsalde osoan. **Herria**

Igande goizeko tripa saldak eta **tripakiak** izan du errekesta gaitza bai eta eguerdiko oiloak eta irrisak. **Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erantzun zidan, hasieran italiaraz eta gero alemanez, **tripaki** -zopa zela egun hartako eltzekoa. **Anjel Lertxundi**

Hik jarriok sai bati **tripaki** lata aldamenean, eta erakutsiok lata irekitzen, eta berdin jango dik **tripaki** lata. **Jon Alonso**

Ez nintzen oso **tripaki** zalea, baina aseak ez bezala begiratzen baitio goseak sagar mailatu bati, amen batean irentsi nuen atera zidaten platerkada ez oso ugaria. **Anjel Lertxundi**

3 tripaki lainoa.

Ezagunak ditugu lainaje batzuen keruak, **tripakiak** eta beste, nola euriaren pegoi diren. **Pello Zabala**

Tripaki eta zeru laiatuak abisua pasa dutenez gero, hor goian haize hotz umelagoarekin batera, eskaparatea hodei mehe tximaluzeekin ornatzen joan den neurrian, aire-masak ez daudela batere egonkor ikusi ahalko dugu. **Pello Zabala**

Tripaki eta laiatu, nahi zenuke zuzen-zuzen zer den laino bisaje hori adieraztea? **Pello Zabala**

4 *tripaki laino* laino mota, euria dakarrena.

Tarte batzuetan **tripaki** -lainoak, xare-xare, eguzkiaren argia iragaziz, azaltzen hasten direnean. **Pello Zabala**

Tarteka, baita, txuri finez janzen, letxada zarpeo batzuk ei datoz nabarmentzen goialde horietan, batzuetan zibelak deitu mintz xuri fin baten antzera, edo pilatuxeago,

tripaki -lainoen islan beste batzutan. **Pello Zabala**

tripakomin ik **tripa 22**.

tripandi ik **tripa 12**.

tripape *iz* triparen azpialdea.

Ziri batekin irauli eta, **tripapea** berriz hori ubel argixeagoa. **Patziku Perurena**

Potx eginez lortu zuen hurbiltzea eta **tripapean** zingila pixka bat laxatu eta pixka bat baretu zuen, gero heldu zien uhalei eta leihoaren herskailuan estekatu zuen. **Pablo Sastre**

tripartito *izond/iz* hiru alderdi politikok osatua.

Atzoko emaitzak ikusita, **tripartitoarenak** egin du. **Berria - Harian**

tripatsu 1 *iz* tripa handia duena.

Gizon **tripatsuak**, motor bati ostiko bat joz: [...]. **Pablo Sastre**

2 irud/hed

Oraindik argi ageri den zeruaren eta dagoeneko belztu diren mendien arteko kontrasteak lagundurik, gailurrek egunez baino altuago dirudite, mendiek zabalago, **tripatsuago**, menditzarrago. **Pako Aristi**

tripatu, tripa(tu), tripatzen du *ad* tripa atera.

Oilanda gazte bat atzeman, lumatu, **tripatu**, erre eta bazkaldu zuten han berean, data-ondoaren malda zekenean. **Itxaro Borda**

tripatxo *iz* tripa txikia.

Bestea mozkotea, baldarra, ile-gorria, eskumutur gorriak alkandora mahuka-motz saretu batetik ateratzen zitaizkiona; beste bat betaurreko lodiekikoa, bere **tripatxoa** eta etxe-zulo baten sorbaldak zeuzkana, eta bota lokarri-askatueta sartuak beti oinak, zein bere bidea egin nahian. **Koro Navarro**

tripatzar *iz* *adkor* tripa erraldoia.

Horrela egoten haizenean, eskuak bizkarrean jarrita, nahi baino gehiago nabarmentzen zaik **tripatzarra**. **Jokin Muñoz**

Pantxok, hala beharko, lagunak bezain agerian utzi ditu bere **tripatzarra** eta ipurdi are tzarragoa. **Aingeru Epaltza**

Anartean, zerbitzariak orkestra bat azkar antolatzen ari ziren, Gausenheimers-tarren **tripatzarrak** danbor gisa erabilia. **Lopez de Arana**

Utziok osaba Kamilen **tripatzarra** miresteari. **Patxi Zubizarreta**

tripaundi ik **tripa 12**.

tripazai ik **tripazain**.

tripazain (*orobat tripazai g.er.*) 1 *izond/iz* pertsonen mintzatuz, oso jatuna dena. ik **tripontzi**.

Bilintxen bertso batzuk kantatu zituen, *Potajirena* izenekoak, eta nola haietan egileak apaiz **tripazain** bati burla egiten dion. **Koro Navarro**

Ume **tripazain** batek bezala, dena irensten zuen. **Anton Garikano**

Herri guziak adarra jotzen zion aguazil gixatxarra, eta beste antzeko hirulau alper **tripazain** edo erdimoxkor grazioso. **Patziku Perurena**

Tripazain eta mozkorra, zergalari eta bekatarien laguna.

Ez zaitez elkartu zurruteroekin, ez eta **tripazainekin** ibili ere. **Elizen arteko biblia**

Kretarrak beti gezurti, piztia txar eta **tripazain** alfer. **Elizen arteko biblia**

Tripazain galanta dela, txoro-txoro jaten duela. **Jokin Muñoz**

Lehenbiziko hilketaz geroztik, **tripazain** handiek odola xurgatu zietek jale urriei. **Karlos Zabala**

2 irud/hed

Higuin zituen Maxek halako pertsonak: hitz-irenselek, puntuazio-ikur oroen **tripazainak**. **Jon Muñoz**

tripazainkeria *iz* tripazainaren bizioa.

Antzerkigile gipuzkoarrak euskararen mundura ekarri ditu zazpi bekatu nagusiak amorrua, lizunkeria, zuhurkeria, bekaizkeria, nagikeria, hantustea eta **tripazainkeria**, «ikusleari egunerokoan euskararen inguruan sortzen diren hainbat egoera bitxi eta batzuetan larri aurkezteko». **Berria - Kultura**

tripazaku *izond* tripazaina.

Tripazaku galantak, txantxa eta trufazale porrokatuak, zorionean bizi ziren. **Patxi Zubizarreta**

Izan ere -pentsatu zuen Txitxikovek-, **tripazaku** ederra duk gizon hau. **Jose Morales**

tripazale *izond* tripazaina.

Inoiz ez zara deusetara ailegatuko, debru **tripazale** hori! **Pablo Sastre**

Guztiei esan izan ez zutela gizon espirituala bezala ohoratu behar, baizik eta guztiak gizon haragikoi eta **tripazale** bezala mespretxatu. **Askoren artean**

Federico betidanik **tripazale** handia izan da, baina ni ez. **Pello Lizarralde**

Federico betidanik **tripazale** handia izan da, baina ni ez. **Pello Lizarralde**

tripazalekeria *iz* tripazainkeria.

Kontuan izan, **tripazalekeriak** eta diruzalekeriak agintzen duten lekuan, zulo lizun eta zatar bat dagoela, guztiz arrisksua dena. **Joan Mari Lekuona**

Ospakizun erlijioso bat, **tripazalekeria** eta mozkorkeria ezaugarritzat izan ohi dituena. **Xabier Olarra**

tripazaletasun *iz* tripazalea izateko nolakotasuna.

Pedriño, bere izeba Adegaren babesean, behin eta berriro bere malezia gabeko azioek, bere **tripazaletasunak** galaraziko dute bizitzako bidean: apaizak eskolatik bidaliko du aurrena, orobat egingo du don Andresek udaletxeko bulegoetatik hurrena. **Pablo Sastre**

tripazarro *iz*

Herriko hiltegiatan, erne egoten omen zirela, batez ere ijito kastako atsorik lotsagabeenak, harakinak azienda hilen barrenki guziak noiz emango zai: esteak, **tripazarro**, birrikak, gibela, burua, bernazurrak... **Patziku Perurena**

tripazorro (*orobat tripa zorro*) *izond* adkor tripa.

Batere neke fisikorik gabeko bizimodu batek eragindako **tripazorroa** irteten baitzaio gerrikoaren gainetik. **Anjel Lertxundi**

Tripazorroarekin kajoia berriz itxi eta sinatzen hasi zen, ez bat eta ez bi, erregistroko orrialdeetan. **Fernando Rey**

Gizentzen ari zaidala egunetik egunera, **tripazorroa**. **Piarres Aintziart**

Eskuekin **tripazorroari** eutsiz, irriz lehertzen. **Fernando Rey**

Tripa zorroa ondo betea dute burges horiek. **Karlos Zabala**

tripazulo *iz* tripa.

Caracasen, malandroek airera jaurtitako tiroekin agurtzen dituzte euren hilak; aberatsek, aldiz, **tripazulora** botatako tiroak diruditen poema txoroekin. **Pako Aristi**

triperero *iz* adkor tripazaina.

Farrucoren seme zaharrena, mutil ona, goxoa eta xarmagarria, baina bihurria ere bai, bizkorra eta batez ere **tripereroa** eta gozozalea. Euskaldunak ez omen gaituk **triperero** astazakil batzuk besterik. **Pablo Sastre**

triperotza *iz*

Leitzan eta beste herri nafar askotan ere hala esaten baita: Orantzar; eta bete betean lortoke, **triperotzarako** edo haragia harrapazka jateko garaia adieraztera. Eguberrietan "kristauen berri ona" aitzaki, eskera, lapurretara eta **triperotzara** datorrena. **Patziku Perurena**

tripi *iz* LSD dosia.

Haxixa eta **tripiak** erosteko. **Aingeru Epaltza**

Portuk **tripia** irentsi bitartean, Gorkak maskuria hustu zuen sasi artera. **Patxi Iturritegi**

Fama zen gaztetan **tripi** batek zulatu ziola garuna. Zeren horrelako **tripi** txarrek flashback itzela izaten baitute. **Aingeru Epaltza**

tripiliar *izond*

Egun Ukraina dena jendeztatu zuten lehen jende multzoak kultura **tripiliarrekoak** (Neolitiko garaikoak) izan ziren. **Berria - Mundua**

tripode *iz* hiru oineko tresna, euskarri gisa erabiltzen dena.

Idurika itzazu lau horma zuri, lastozko bi aulki, **tripode** baten gaineko jofaina, ilte batean zintzilikatua dagoen ume kapelu bat lorez eta abalorioz apaindua. **Tripodea** luzatu, kamera ezarri eta makalak bilatu zituen. **Koldo Izagirre**

Ez du argi berezien premiarik, ez **tripodearena** edo bestelako prestaketenak ere. **Berria - Kultura**

Tripodea batu, poltsa bizkarreratu eta irten egin zen. **Joxemari Urteaga**

tripoikeria *iz* tripontzikeria.

Joantok begizatzen zituen, jakitik behin eta berriz hartzen zuen bitartean, itotzetik salbatu berria denaren **tripoikeriaz**. **Elena Touyarou**

tripontzi 1 *izond/iz* pertonez mintzatuz, oso jatuna dena. ik tripazain.

Bidean aurkitzen dituzten dohakabe guztiei "herrikume astoa" oihukatzen diete, eta norbait lodia izanez gero **"tripontzi"** edo "urdaizaku" deitzen diote. **Koldo Biguri**

Mutilzahar, **tripontzi**, tolosar peto alai eta alferra, arratsaldero soziedadera joan zalea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nagusi zitalek ematen zioten soldata ziztrinarekin ezin izango zituela beti mantendu bi seme bizkarroi **tripontzi** eta errespetu gabeak. **Pello Lizarralde**

Senar **tripontzi** erdi-inpotente haren ondoan. **Karlos Zabala**

Ez dago gauza gorrotagarriagorik: goiz goizetik txikiteoan mozkortzen diren gizon zahar **tripontziak**, eguraldi ona seme-alabekin paseatzeko aprobetxatzen duten gurasoak, balkoietatik auzokideen zelatan dauden atsoak... **Sonia Gonzalez**

Masaila gorriak puruak mastekatzen, oliba-koloreko aurpegi iharrak, gizon eta emakume gazteen soin lauak, gizon nagusi **tripontziak**, denak estu-estu eginda. **Lopez de**

Arana

Tripontzi hura fruituan bai, baina lanean parte hartzeko prest ez zegoela ikusiz, [...]. Askoren artean

Ez nuen egoera luzatu nahi, ez ote nintzen damutuko, ez ote zen **tripontzi** hura gehiegi hurbilduko, gehiegi emozionatuko. Sonia Gonzalez

2 irud/hed

Kapela hark zapala, lohia eta biguna ematen zuen, onddo-kapela **tripontzien** eta esekitokietatik zintzilikatuetako jipijapa kapela dotoreen artean. Lopez de Arana

Zer duk gaur nire **tripontziarendako** ? -ordenagailuaren pantailaren ipurdia ferekatu zuen berriz, ia-ia likitsa gertatu zitzaidan keinu batean. Aingeru Epaltza

3 iz tripa.

Soldadua bera oso txikia zen, itxuraz xaloa eta guztiz lodia, saman bertan hasten zitzaion **tripontzia**, girgiloa idun gainetik. Urtzi Urrutikoetxea

-Abisatu zintudan ez zenidala ziria sartu behar, ez? -erran zion, ganibetaz **tripontzia** ziztatuz. Elena Touyarou

triposo izond/iz

Triposo bat, sekulako ogitartekoak eramaten zituena, ezta? Aingeru Epaltza

tripot iz odolkia, ardiarekikoa bereziki.

Zertaz egina zen? Ardi zaharra hil eta, haren haragiarekin egiten ziren salda eta **tripotak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eginen diagu hor bahitz bezala, miha **tripotetan** ezartzen badugu ere. Herria

tripotx (orobat tripotxa g.er.) 1 iz pl ardi erraiak.

1898etan hasia zen lukinka eta **tripotxak** egiten. Herria

Aurrena pikatxa-tortilla eta **tripotxak**, ondoren arkume erre-entzaldada ugariarekin eta, menu beti-berdina bukatzeko, mamia. Xabier Mendiguren Elizegi

Halatan saltxitxak, haragi karioak, xingar azpiak, errietak, txorizoak, lukainak, **tripotxak**, pateak, ezti-ontziak, [...] eta gasnak metatzen zitzaizkigun, Herri Urratseko kamiseta ugari-iz gain. Itxaro Borda

Botila bat ardo edalontziarekin utzi mahaiaren gainean eta bere txokora joan zen gero **tripotxak** prestatzera: etxeko berezitasuna. Felipe Juaristi

Xurgatuz **tripotx** famatuak. Herria

Tripotxek badute fama hori, direlarik ongi gozatuak; Baratxarteko jatetxean bego, gustu eztiaren sekretua badute. Herria

2 (singularrean)

Goizetik ehun bat lagun bildu dira tripa saldaren eta **tripotxaren** jateko mezarat joan aintzin. Herria

Sukaldean, Christophe Leborgne-k kozinatuko du xerri zango eta **tripotarekin** eginikako jaki bat. Herria

3 (hitz elkartuetan)

Gogotik gonbidatzen ditu **tripotx** bestarat. Herria

Lagunak agurtu; Gartzia ostatuan **tripotxa** plater bat afaldu eta zinera. Iñaki Zabaleta

4 tripotx jate (orobat tripotxjate) tripotxak jaten diren otordua.

Larunbatean eta igandean, Saran Santa Katalina ohoratuz, **tripotx jatea**. Herria

Ortzegun aratsean, **tripotx jatea**, mundu bat biltzen baita urte guziz! Herria

Egun hortan zuten **tripotxjatea**, aratsean beti bezala. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tripotx jatea (4)

tripotxjate ik tripotx 4.

triptika ik triptiko.

triptiko (orobat triptika g.er.) 1 iz hiru atalen multzoa.

Liburuaren aurkibideak eta Maimonen sarrera-**triptikoak** aski behar lukete izan. Xabier Kintana

2 hirutan tolesten den eskupapera, hiru zati dituen.

Sarrerako txartelarekin batera, **triptiko** bat jasoko du bisitariak. Berria - Kultura

Goiz zen, eta ez zegoen errenkada luzerik; minutu batzuk itxaron behar izan nuen, eta atarian hartutako **triptikoa** interes handirik gabe gainbegiratzeko aprobetxatu nuen denbora. Iban Zaldúa

Ikasleek *Apurtu tratu txarren katea* izeneko **triptikoa** jasoko dute, jazarpen egoeretan jarraitu beharreko hainbat irizpiderekin batera. Berria - Euskal Herria

100.000 **triptiko** baino gehiago zabalduko dituzte. Berria - Euskal Herria

3 hiru orri edo zatiz osaturiko ohol gaineko margolana.

Guggenheimek erosi dion obra inoiz egin duen handienetakoa da, eta 6x3 metroko **triptiko** urdin eta beltz bat eta hiru metro altu den eskultura bat biltzen ditu. Berria - Kultura

Egurreen erliebean egindako **triptikoak** jarri ditu Jauregik, liburuen antzera ireki daitezkeenak, zerbait gordetzen dutenak. Berria - Kultura

Erakusketan Metropolis **triptikoak** toki aukeratua du. Berria - Kultura

tripulante iz eskifaikoa, eskifaikidea. ik tripulatzaile.

Ezbeharrean hil zirela hegazkinean zihoazen guztiak, hots, 105 bidaiariak, hauen artean sei ume, eta 8 **tripulanteak**. Berria - Mundua

1.318 bidaiari eta **tripulante** zeramatzalarik ontziak, 200 lagun inguru salbatu zituzten hondamendia gertatetik hogei bat ordura. Berria - Mundua

'Ekaitza dakar,' entzunen diozu **tripulanteren** bati. Joseba Sarrionandia

tripulatu, tripula, tripulatu 1 du ad eskifai aritu.

Flota handi bat hurbiltzen ari da Anduinen bokalera, hegoaldeko Unbar herriko kortsarioek **tripulatu** . Agustin Otsoa

Tripulatutako lehen hegaldi pribatua bihar abiatuko da espaziora. Berria - Gaiak

Tripulatu gabeko misioak eta garraiorako misioak industria pribatuaren lan eremuan sartzen dira. Berria - Gaiak

2 (era burutua izenondo gisa)

2020rako aurreikusi du AEBetako presidentetia llargirako misio **tripulatu** , eta 2030erako Marterako. Berria - Gaiak

Zientzia misio **tripulatu** . Patxi Iturritegi

tripulatzaille iz eskifaikoa, eskifaikidea. ik tripulante.

Ezkutuko bidaiariaren adina, baldintza fisikoak, egiten duten bidaia edo itsasontziko **tripulatzailleak** edo kapitainek eurekin izan duten jarrerak zerikusi handia izaten dute.

Berria - Euskal Herria

XVI. mendean [...] tokian-tokian ehizatzen dutenarekin konpondu beharko dute zazpi **tripulatzailleak** . Iñigo Aranbarri

Baina nazioarteko urak direnez, itsasontzia Panamakoa denez, kapitaina eta **tripulatzailleak** Hego Koreakoak eta Txinakoak direnez... Berria - Euskal Herria

Batek baino gehiagok gaizki hartuko zuelakoan Gabrielle bezalako **tripulatzaille** batekin itsasoratzea. Migel Angel Mintegi

tripulazio iz eskifaia.

Ontziaren **tripulazioa** 300 bat lagunekoa zen, eta bidaiariak, berriz, 850etik gora. Berria - Kultura

Onðizen ontziak lortu zuen bere helburua, baina Barandikaren boua faxistek harrapatu eta **tripulazioa** Larrinagako kartzelan sartu zuten. Jokin Urain

Almadia katxoiaren artean desegiten bazen, **tripulazioa** zati-zati eginda utziko zuten koral zorrotzek. Iñaki Mendiguren

-Txakurrok -oihu egin zion **tripulazioari** -, ideia bat daukat. Julen Gabiria

XIX. mende akaberan, Cadiz aldeko ekaitzaldi izugarrian, *Reina Regente* kruzeroa **tripulazio** osoarekin desagertua. Pello Zabala

Ondarroako arrantzale baporeak gaur egun senegales-*ez josita* (**tripulazio** gehientsuenak senegalesak dituk, bai) daudela ikus-entzungo balu? Jokin Urain

Hegazkineko **tripulazioa** sei pertsonak osatua zela esan dio. Josu Zabaleta

Kapitaina burutik zagok, lehenengo ofiziala Sing-Sing-etik atera den lapurrik handiena duk eta **tripulaziokoak** alproja galantak. Lopez de Arana

Santander, Zumaia, Zierbena eta Urki, oraintxe momentuan horrek lau **tripulazio** horiek dira, gurekin batera, aurrean ibiltzeko moduan daudenak. Berria - Kirola

Garai haietan traineru batekin parte hartzeko traineru horretako **tripulazioko** kide izatea ezinbestekoa zen. Berria - Kirola

Tripulazioko kide bat eta bidaiari bat dira hildakoak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tripulazioko kide (5)

tripulaziokide iz tripulazio bateko kidea.

Ryanairrek dirua jaso zuen langileak kontratatzeko eta trebatzeko, bere **tripulaziokideen** egonaldia ordaintzeko, eta instalazioak eraikitzeko. Berria - Ekonomia

trisektriz iz

Konkoidea; horrek esan nahi dik kasu partikular batean Descartesen obaloa dela, eta beste kasu batean... **trisektriza** ! Jon Muñoz

trisekzio iz angelu bat hiru zati berdinetan zatitzea.

Emandako zirkulu baten berdina den karratua eratzeari zirkuluaren koadratura esaten zaio; emandako kubo batetik kubo bikoitz bat eratzeari, berriz, kubo bikoiztea; eta angelu bat hiru zati berdinetan banatzeari, azkenik, angeluaren **trisekzioa** . Jon Muñoz

Kontu berria zen hori, baina ez zuen ebazten erregelaz eta konpasaz **trisekzioa** eraikitzeak sortzen zuen problema. Jon Muñoz

Ezinezkoa da angeluaren **trisekzioa** erregelaz eta konpasaz egitea. Jon Muñoz

Angeluaren **trisekzioaren** ekuazioa. Jon Muñoz

trisexual izond/iz sexu harremanak gizonetzko, emakumezko, homosexual, trabesti, transexual eta bestelakoekin dituen.

Nonbait bi edo **trisexuala** izan behar duket eta izkiritzen dudanak hautatu ezinako kinka hori pairatzen du segur aski. Itxaro Borda

Jose Miguel Lopez Belaustegieta detektibe galaktiko trinoa (**trisexuala** , eleberriaren etorkizun urruneko neohizkuntzan). Berria - Kultura

trisilabiko izond/iz hiru silabakoa.

Dimitriv bezalako izen exotiko batek, demagun, Danelek behar -eta merezi- ez duen azpikontakizun bat eskatuko luke, eta triangeluaren angeluetako batek, Dimitriven **trisilabikoak** , irudi geometrikoaren oreka desitxuratuko zukeen halako angelu iheskor batez. Anjel Lertxundi

triska iz jauzia.

Musika ozen, ke handi eta jende izerditsu artean jauzi eta **triska** , gu ere laster ginen izerdi patsetan. Aitor Arana

triskantza 1 iz triskatzea; triskatzearen ondorioa.

Triskantza , mina eta zorigaitza beti dira auzoan hobeak norberaren etxean baino. Hasier Etxeberria

Egun hartan izugarria izan zen **triskantza** : hogeita mila gizon galdu ziren. Elizen arteko biblia

Nork egin du martxoaren 11ko **triskantza** ? Txema Ramirez de la Piscina

Gizadi osoa, salbuespenik gabe, aldatzen ez den bitartean, gerrak **triskantzak** egiten jarraituko du. Koldo Zuazo

Horrek ez dio eskubiderik ematen bere lorategian **triskantzarik** egiteko. Pako Aristi

Oinaztuak katedraleko dorrean egin zuen **triskantzan** , erlojua erre eta kiskali zuen. Pello Zabala

Neguko elurte zikoitzek sor ditzaketen **triskantzen** eta ezusteko nahasmenei aurreikuspena. Pello Zabala

Hondamendia eta **triskantza** uzten dituzte pasatzen diren tokian. Elizen arteko biblia
Auziko arlorik garrantzitsuena Srebrenicako sarraskia (1995) izango da; Gerra Krimenen Jugoslavia Ohirako Nazioarteko Auzitegiak genozidiotzat joa du **triskantza** hura. Berria - Mundua

Borrokak ikusi zituen ordoki izoztuetan, **triskantzak** oihan itogarrietan, sarraskiak basamortuetako dunetan. Alberto Ladron Arana

Otso horren **triskantza** nahiago zuten, aukeran, desorduan eta desgaraian eguzkia ikustea baino. Pello Zabala

Haren nahigabea anaiari gertatutako **triskantzaz** jabetu zenean! Patxi Zubizarreta

Armairuko **triskantza** erabatekoa izan zen, ordea. Harkaitz Cano

Minaren mundua, munduaren mina, bizialdi osoan gerra, txikizioa eta **triskantza** besterik ezagutu ez duenarena. Felipe Juaristi

Lagun judu dezente zuen aitak [...] eta **triskantzen** kalteak jaso zituzten asko eta asko lagunak izango ziren, seguru. Anjel Lertxundi

Erasmok pentsamendu laikoan, Kopernikok zientifikoan eta Luterok erlijiosoan eragindako **triskantzak** konpondu nahi ditu Axularrek. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Polizia zela nitaz galdezka; ezezagun batzuek **triskantza** handiak egin zituztela bezperan juduen barridean. Anjel Lertxundi

Harrapaturik dauzka hilketarako ezpatak, **triskantza** handirako ezpatak. Elizen arteko biblia

1996an, Oloten sekulako tornadoa sortu zen: **triskantza** handiak eta 47 zuhaitz orpotik jiraka atera eta botreak. Pello Zabala

Baso-soiltzea dela eta, uholdeek **triskantza** nabarmenak egin dituzte uharterko lurretan. Berria - Mundua

Tomspera eramango zituen ala bertan hilko **triskantza** odoltsu batean, buruzagi tatariarren artean ohikoa zenez? Karlos Zabala

1989an, Kanarietako uholdeak: 140 litro, Las Palmasen; 112, Lanzaroten eta beste; **triskantza** makurrak utzi zituen errepede eta kaleetan. Pello Zabala

Santander hiriburuko 37 kale kaltetu eta suntsitu zituen **triskantza** izugarrian. Pello Zabala

Kanoi bakar batek sekulako **triskantza** eragin diezaieke. Karlos Zabala

Egun hauetantxe 300 bat bomba bota omen dituzte zuriak Bizkaiko hiriburuan, **triskantza** gaitzak burutuz. Txillardegi

Tarteka gertatzen diren ustekabeko **triskantzok** ez direla klima aldaketaren erruak. Pello Zabala

Harri erauntsi ikusgarria Gironan, intxaur gisakoak eta batzuk laranja tamainakoak, izugarriko **triskantza** egin zutela teilatuetan. Pello Zabala

CSC taldeak **triskantza** handia eragin zuen tropelean. Berria - Kirola

Sekulako **triskantzak** egiten zituen emakumezkoen bihotzetan. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Batzuetan ibaiaren gure aldean agertzen zen, eta bestetan, urertzetik bestaldera salto eginez, hango herrian burutzen zuen giza **triskantza**. Pako Aristi

2000. urtean bertan Mediterraneo aldean egin dituen uholde-**triskantza** penagarrien pareko. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izan zen triskantza (3); sekulako triskantza (10); sekulako triskantza egin (3); triskantza egin (6); triskantza egiteko (3); triskantza eragin (3); triskantza handi (4); triskantza handi samarra (4); triskantza handia (7); triskantza izugarri (3); triskantza izugarriak (3)

triskantzak egiten (4)

triskantzaren berri (3)

triskantzazale izond triskantzaren zalea dena.

Nola begiratu ote die berak Dennis, Katrina eta Rita ekaitz nagusi **triskantzazale** horiei, eta etorriko direnak iragarrita ukango ditu honezkeroko...? Pello Zabala

triskari iz triskatzen duena.

Behin, urratsik sumatzen ez eta, Herbert zegoen aldera begiratu nuen: hantxe bera, zutik eta geldi, asto hilarengandik harantzaxeago, hegazti **triskariei** harri jaurtitzeari utzia, hantxe, zutik eta begira. Joxe Austin Arrieta

triskatu, triska(tu), triskatzen 1 du ad apurtu, suntsitu, desegin. ik triskilatu; sakailatu 2; birrindu.

Gure herria **triskatuko** zutela egin zuten zin Mussolini guztiek. Koldo Izagirre

Atera zen Israelgo erregea ere, **triskatu** zuen zalditeria eta gudu-gurditeria eta izugarriko hondamendia egin zien siriarrei. Elizen arteko biblia

Damaskoko lautadara jaitsi eta uztei su eman zien, artalde eta behi-taldeak **triskatu**, hirietan guztia harrapatu, landak soildu eta jende gaztea ezpataz hil zuen. Elizen arteko biblia

1643an, Zaragozako harrizko zubi handia kraskatu eta **triskatu** zuen uholde izugarri batek. Pello Zabala

Etsaiak pertsegitu nituen eta **triskatu**, eta ez nintzen itzuli denak suntsitu arte. Elizen arteko biblia

Konfiantza osoz idia zaintzeko gomendatu zion, bera itzuli artean otsoek **triskatu** ez zezaten. Askoren artean

Hor datoz matxinsaltoak piloka, herri indartsu eta kontaezin baten antzeko, nire lurraldearen aurka; lehoiak bezalako hortzak dituzte, dena **triskatzen** dute. Elizen arteko biblia

Belauna **triskatu** zitzaion, eta hogeit urte ez zituela futbola utzi behar izan zuen betiko. Jon Alonso

Arropa, janaria, liburuak, ontziteria... Dena lurretik, dena **triskatuta**. Fernando Morillo

Txuspok zuzen-zuzenean jo du pianorantz, eta **triskatu** antzean duen egurrezko tapakia atabalatzen hasi da. Harkaitz Cano

2 (era burutua izenondo gisa)

la-ia ez zen ezer gelditzen: harri hondar batzuk patio zaharrea, eta eskudela, besterik ez, eskailera **triskatueta**n, xaharrak bizikletarekin eta saskiekin igotzen eta jaisten zituen eskailera haietan. Fernando Rey

triskatzaile izond/iz triskatzen duena.

Apirileko lehorte, harri erauntsiaren hurrengoa (hortik pentsa zenbateko estimua zukeen: biak **triskatzaile** parekoak). Pello Zabala

Eta hortxe, pizten eta biharazten gaituen bero horretantxe abiatzen da ekaitzaren materiala eta elementu **triskatzaile** izango dena. Pello Zabala

triskele iz

Bakean utzi zuten, bazuen arrazoirik, letra handiz egon behar zuen Mateo Taboadaren izenak herriko hilerrian, eta harriaren azpian Mateo Taboadaren gorputza, orain dagoen bezala, letrak kolokan dauden aren eta gaineko **triskelea** higitu samarra. Koldo Izagirre

triskilatu, triskila, triskilatzen 1 du ad triskatu.

Edo ostiko ederrak ematen zizkioten, edo **triskilatu** egiten zizkioten bere belarrondoko bizar ile-sarri eta ondo zainduak, halako moldez, ezen, batzuetan, belarrondoko bizar bakarrarekin itzultzen baitzen etxera, eta bakar hori nahikoa ile-bakandurik zeukala gainera. Jose Morales

2 (era burutua izenondo gisa)

Bertera hurbiltzenago, hiri-kanpoko bihitegiak, ferratzailearen estalgunea, ardi **triskilatu** berrien eskorta nabarmenagotzen hasi zen Nora zero urretsuaren kontra. Anjel Lertxundi

Zaldi-zurdarena dirudien ukitu latzekoa, baina kixkurtua eta motxa, azpian duen haur-burezurra ere nabaritzen zaio, beroa, zakurño **triskilatu** baten burua ukitzerakoan bezala. Joxe Austin Arrieta

trisomia *iz*

Kromosoma 18ko bikotean kromosoma bat gehitzeak dakarren anomalia kromosomikoa da **trisomia**. Beria - Gaiak

Luke Winston-Jonesek **trisomia** 18 gaixotasun genetikoa zuen eta sendagileen arabera, ez zuen sendatzeko edo luze bizitzeko itxaropenik. Beria - Gaiak

Luke Winston-Jones haurrak **trisomia** 18 gaixotasun genetikoa du hazkuntza geldoa, ukabila itxiak, atzerapena, burua marrubi formakoa, giltzurrunak eta bihotza kaltetuta eta ez du sendatzeko edo luze bizitzeko itxaropenik. Beria - Gaiak

trisomika ik trisomiko.

trisomiko (*corpusean trisomika soilik*) *iz* trisomiak jotako pertsona.

Autistak, zanko gabeak eta ere **trisomikak**. Herria

trispasto *iz* hiru poleako sistema batez osaturiko makina.

Hiru poleaz mugitzen diren era honetako makinak **trispastoak** deitzen dira. Santiago Iurretagoiena

tristadura (*orobat trixtadura*) *iz* tristura, tristezia.

Harridura eta **tristadura** ziren nagusi, Mickael Arhancet gaztearen heriotzea jakin dugularik. Herria

Jaitsi nintzen; segidan, **trixtadura** pisu bat senditu nuen bihotzean sartua. Janbattitt Dirassar

Arratsean, **trixtadura** handi batek hartua nengoen. Janbattitt Dirassar

tristagarri *izond* tristatzen duena.

Nire baitako argi berriak estaliko baitzituen oroitzapen **tristagarriak** oro eta itsutuko baitzuen gure memoria, nola arratsaldeko eguzkiak porturako bidea. Hasier Etxeberria

Ohiko tren-txistukada luze **tristagarriak** astindu ninduen Aturriz bestaldetik. Txillardegi

Gainbeheraldi luze **tristagarri** hartan nik deusik ezin eginik, umezurtz sentitu nintzen zinez. Txillardegi

Bere hirurogeita hamarretan, alargundu berria, eta bere bi seme-alabak nor bere aldetik joanak, **tristagarri** zitzaiola arras hamaika poz-iturri izandako txoko kuttuna hutsik topatzea, eta saldu egin nahi zuela. Txillardegi

Eta, horregatik, are **tristagarriagoa** gertatzen zen haiei begiratzea. Jose Morales

tristarazi, tristaraz, tristarazten du *ad* tristatzera behartu.

Tristurak, ordea, **tristaraztea** du xede, eta irribarrea loratzen zaio ezpain-begietan bere egitekoa burutzen duen aldirio. Joxerra Garzia

tristatu (*151* agerraldi, *64* liburu eta *10* artikulutan; orobat *tristetu 43* agerraldi, *16* liburu eta *8* artikulutan, *trixtatu 8* agerraldi, *liburu 1* eta *5* artikulutan, eta *trixtetu g.er.*), trista, tristatzen **1** da *ad* triste jarri, tristuraz bete. ik **goibeldu**; **ilundu 4**; **atsekabetu**.

Bakarrik gelditu nintzen lruaingo etxean, eta, udazkenaren etorrerari amore emanez bezala, den-dena **tristatu** egin zen nire inguruan. Bernardo Atxaga

Gure irudiko gauza bat Tristuraz hunkitua dela irudikatzen dugun heinean, **tristatzen** gara hein berean. Piarres Xarriton

Nire hamabi uturekin ez nuen motiborik **tristatzeko**. Beria - Kultura

Ginebrak Artur zetorrela jakin zuenean, biziki poztu zen, baina baita **tristatu** ere; poztu, libre zegoelako, azkenean; **tristatu**, Artur erregea hil zezaten beldur zelako. Juan Cruz Igerabide

Beti beren irrikak nola aseko, gordinkerietan ziren poztzen, huskerienegatik **tristatzen**. Askoren artean

Tellagorri, abstinentziatzako prozedura haiekin, ahultzen eta **tristatzen** hasi zen. Koro Navarro

Eta zeharo **tristatuko** ez banintzen, gelan sartu, eta afaldu ere gabe oheratzea erabaki nuen. Txillardegi

Nik ez nuen konprenitzen zergatik bada bat-batean hain **tristatu** zen. Daniel Landart

2 (du ad)

Triste dagoenak, besteak **tristatzen** ditu. Josu Zabaleta

Lesioa sendatzeko udara osoan jokatuko ez badu ere, horrek ez du **tristatzen**. Beria - Kirola

Batzuek **tristatu** egiten zaituzte, argiak, zuriak, urre kolorekoak izan arren; beste batzuek alaitu egiten zaituzte, kolore bereko zapiz tapizatuta egonda ere. Josu Zabaleta

Florent lurreko lokatzak **tristatzen** zuen; ur horiaren jarioak ilunabarra basatzen herrestatu eta itzali nahi zuela zirudien. Karlos Zabala

Horrek **tristatu** egin ninduen, zapuztu. Jon Muñoz

Ez haut areago **tristatu** nahi. Txillardegi

Amak ikusi gintuenean ez zen bestetan baino gehiago **tristatu**. Arantxa Iturbe

Ezer ez den bezala Jainkoa atsekabetu eta oinazepean jar dezakeenik, ez da ezer horrelako gizaki bat nahigabetu eta **tristatu** dezakeenik. Joan Mari Lekuona

Mercedesen hilketa aipatzean, aurpegia **tristatu** zitzaion bati baino gehiagori. Beria - Euskal Herria

Tristaturik, mutilari begira geratzen naiz. Anjel Lertxundi

Nonbait, azkeneko porrotek **tristaturik** zeukaten. Jon Arretxe

3 (era burutua izenondo gisa)

ESku bat sentitu zuen sorbaldan orduan, eta Maelen ahots **tristatuak** esan zion: [...]. Joanes Urkixo

triste (*orobat trixte g.er.*) **1 izond** poztasun edo alaitasunik ez duena, tristura adierazten duena. ik **goibel**; **ilun.** (pertsonak eta kidekoak)

Biok irakasleak, biok New Hampshirekoak, baina zu alaia eta bera **triste**. Bernardo Atxaga

Tristetzat jotzen gaituzte, baina beti pozik gaude. Elizen arteko biblia

Hiri osoan zegoen pertsona **triste** eta mintu bakarra zirudien. Agustin Otsoa

Emakume **triste** bat ohe batean eserita. Mikel Hernandez Abaitua

Dama eder bat edukiko nuen zain gazteluren batean, arima garbiko printzesa **triste** bat. Alberto Ladrón Arana

-Zein gizon **triste**! -esan zuen Mathildek, Velasco desagertu orduko. Anjel Lertxundi

Mahasti zaharren landatzaile **tristeak** ere denboren gainbehera salatzen eta gizaldia madarikatzen du. Xabier Amuriza

Hantxe agertzen dira, fraile **triste** gisa, gelarako abian behin eta berriz. Txillardegí

Zuzenbidean lizentziatu **triste** bat besterik ez naizelako. Ramon Saizarbitoria

Haurdunaldiak erabat aldatu zuen Lulu; isekari eta alai zena, **triste** eta sentimental bihurtu zen. Josu Zabaleta

Don Juan mantxatar apatikoa, **triste** bat zen, oso serioa, oso neurritsua, oso zezenzalea. Josu Zabaleta

Militante bat bezain ernegante eta neurotikoa, guraso bat bezain xitala, **triste** eta alua. Iñaki Segurola

Piltzar artean bizi ziren ume gaixobera eta **tristeak**. Josu Zabaleta

Tristeak gaituk bai gu, zinez! Daniel Landart

Honek bikote **triste** bat ere ez dik. Aingeru Epaltza

Jende **triste** guziaz jainko amoro horren bila dabilela oraindik. Patziku Perurena

Pailazo **tristeetan tristeena**. Anjel Lertxundi

2 (bestelakoak)

Judu hark akertxo **triste** nekatu xamarra ematen zuen. Matías Múgica

Gauza **triste**, benetan. Julen Gabiria

Hamaika emakumeren aurpegi **tristeak** ikusi zituzten atalondo ilunetarik haiei begira. Agustin Otsoa

Nre sabela alaitzeko jogurt **triste** bat ere ez zeukala niretako hozkailu arpilatuak. Aingeru Epaltza

Gau beranduan prestatzen zidan zerba-pure **triste**. Anjel Lertxundi

Bi hilabetez ibili naiz oinezko bidean, haran handi **triste** batean behera. Juan Garzia

Petroliozko argiontzia **triste** batzuen argita. Koro Navarro

Argi gorri **tristezko** iturri batek aspaldi bainatu eta gatibu hartu zuen lekuan, orain ez dago ezer. Anton Garikano

Nire adiskide haiekin, hiriko zoko **tristeena** bilatzen nituen gure bileretarako. Fernando Rey

Berri **triste** hori aitari helarazi behar zaiok, inori baino lehen. Agustin Otsoa

Bertsorik **tristeena** idatz ditzaket gau honetan. Jose Morales

Maiz-maiz kanpai-hots geldi, **tristeak** entzuten ziren... Josu Zabaleta

Agur hura oso **triste** izan zen, eta penaz ikusi nuen. Agustin Otsoa

Hiri honetan, asteazken **triste** batean, zer uste duk dagoela irekia goizaldeko bortzetan? Aingeru Epaltza

Horregatik da **triste** udazkena. Imanol Zurutuza

Nazkatu naiz bukaera **triste** duten ipuin alaiez. Lourdes Oñederra

Historiaren alde **triste**. Bernardo Atxaga

Irribarre **triste** itzuli zitzaion ezpainetara. Karlos Zabala

Gau batez, tristurak menderatuta, lo **tristeak** hartu zuelarik, San Frantzisko agertu zitzaion. Askoren artean

Musika hasia zen, **triste** pasodoble hura. Koldo Izagirre

Bere pentsamendu **tristeetan** murgildua. Imanol Zurutuza

Batzuetan pentsamendu **tristeak** etortzen zaizkio, eta orduan musika ere **triste** bihurtzen da. Julen Gabiria

Gerra dela eta ere hausnarketa **tristerik** ez da falta liburuan. ik tristerik. Pablo Sastre

Paretetako pitzadurek, leiho puskatuek, pintura higatuek, utzikieriazko eta gainbeherazko sentipen **tristeak** dena betetzen zuten. Jon Muñoz

Ahalmen **triste** horrexek pentsarazten digu mundu objektiboa bera ere geure metaforetara errenditzen dugula. Juan Garzia

Baina mozkor **tristekoa** naiz. Bernardo Atxaga

Ez nuen dena kakaztu nahi zapata takoidun **triste** eta aise ere prosaikoagoen kontura. Aingeru Epaltza

Erretira guztiak **tristeak** badira, **tristeetan tristeena** izan zen hura. Aingeru Epaltza

Sukaldeko armarioa trastez beteta egon arren, kafetera **triste** bat ere ez dago. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan)

Lasai zegoela ematen zuen, **triste** -itxura doi batekin. Juan Kruz Igerabide

- Autista halakoa; "Musu- **triste**" erratan diodalarik ere ez du muturjea argitzen. Aingeru Epaltza

Triste dagoenak begirada tristea duela-eta, begi- **triste** irudikatu ohi dugu tristura. Joxerra Garzia

- Kolore motel- **tristeetako** atorra luzez jantzita. Anjel Lertxundi

4 (adizlagun gisa) ik **tristeki**.

Triste bizi eta hilko balitz hobe lukeela seguru dakienaren tristura. Iñaki Segurola

Beraz, **triste** eta alai jaiki zen, hori esaterik baldin badago, poza eta nahigabea txandaka sentitzen baitzituen barnean. Askoren artean

Juduak begia eman zion ibaiari, ez **triste** ez alai. Felipe Juaristi

Eta irabaziz gero, **triste** jartzeko arrazoia izango al litzateke nire azken indarrak borrokan uztea? Agustin Otsoa

Gogoeta horiek arras **triste** jartzen zuten, bere anaiarengan edo Lisarengan gogortasunik batere sumatu ez arren. Karlos Zabala

Helen oso **triste** dago, eta zurekin animatu egingo da. Bernardo Atxaga

Benetan **triste** geratu nintzen Elronden segizioan ez zetorrela ikusita. Agustin Otsoa

- **Triste** sentitzen naiz -esan zuen. Juan Garzia

Merry makurtu eta **triste** urrundu zen, zaldizkoen ilare begira. Agustin Otsoa

Éomerrek, nekatuta eta **triste** ikusi zuenez, esan zion: [...]. Agustin Otsoa

Gizonak **triste** baina irmo erantzuten zien: [...]. Julen Gabiria

-Ondo pasatu genuen azken aldialdi! -erantzun zuen Darling jaunak, **triste**. Julen Gabiria

5 **triste-triste** izond

Irri **triste-triste** bat egin zidan. Daniel Landart

Paolak irakurri zidan, garai hartan historia **triste-tristeak** maite zituelako, historia bihotz-hunkigarriak, negarra eragiten zutenak, atarramentu txarrekoak. Fernando Rey

6 (adizlagun gisa)

Triste-triste ari ziren neskek txutumutxuka. Koro Navarro

Errege-erreginak **triste-triste** bizi ziren seme-alabarik ez zutelako. **Iban Zaldúa**

Oinak arrastaka, Harry **triste-triste** joan zen sukaldera. **Iñaki Mendiguren**

Zinkurinka egiten edo aurpegia **triste-triste** jartzen hasten ziren gizon lodikote haiek, nazkagarriak iruditzen zitzaizkion. **Josu Zabaleta**

Begiak **triste-triste** ditu berriro, gaixoak. **Josu Zabaleta**

Ginny haiei begira egon zen, **triste-triste**, Hermioneren ohiko aulkian eserita. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahots triste (5); arras triste (3); aurpegi triste (3); bakarrik eta triste (3); begi triste (7); begiak triste (5); begirada triste (4); berri triste (4); beti triste (6); bezain triste (5); bihotza triste (3); bizi triste (3); bizi triste eta (3); dago triste (5)

egon triste (5); ere triste (12); ez da triste (3); ez dago triste (3); ez egon triste (4); gauza triste (7); gertaera triste (6); gertakari triste (4); hiri triste (3); historia triste (4); irribarre triste (14); irribarre triste bat (4); irribarre triste batez (4); istorio triste (9); itxura triste (3); kanta triste (3); kantu triste (3); kasu triste (5); kasu triste bat (5); kontu triste (4); musu triste (5); nahiko triste (4)

oso triste (27); oso triste jarri (3); oso triste nago (3); taldea triste (3)

triste eta triste (3); triste agertu zen (5); triste antzean (10); triste baino tristeago (4); triste begiratu (4); triste bezain (3); triste bizi (9); triste bizi naiz (5); triste dabil (3); triste dago (16)

triste egon (8); triste egongo (3); triste egotea (5); triste egoteko (10); triste eta etsita (3); triste eta goibel (3); triste eta ilun (5); triste eta urduri (3); triste gaude (3); triste geratu (4)

triste ikusi (4); triste ikusten (8); triste isilena (3); triste jarri (15); triste jarri zen (8); triste jartzen (19); triste jartzen nau (4); triste jartzen zen (4); triste kantatzen (4); triste nago (11); triste nengoen (7)

triste samar (12); triste samarra (9); triste sentitu (3); triste sentitzen (6); triste triste (10)

triste utzi (3); triste zaude (4); triste zebilen (4); triste zegoela (7); triste zegoen (18); triste zirudien (3)

tutu triste (3); txiste triste (4)

amaiera tristea (5); apur bat tristea (3); begirada tristea (5); benetan tristea (3); beti tristea (3); bezain tristea (6); bizimodu tristea (3); bizi tristea (5); bukaera tristea (3); doinu tristea (3)

egoera tristea (3); egun tristea (21); egun tristea da (9); entrenatzaile tristea (3); errealitatea tristea (4); errealitatea tristea dela (3); gauza tristea (10); gauza tristea da (4); giro tristea (3); historia tristea (5)

irribarre tristea (9); irribarre tristea egin (4); istorio tristea (6); itxura tristea (7); jende tristea (3); kontu tristea (3); musika tristea (3); nahiko tristea (4)

ondo tristea (3); oso egun tristea (3); oso tristea (23); oso tristea da (10); patu tristea (3); piano tristea (4)

triste da esatea (3); triste da oso (3); triste eta gogorra (3); tristea iruditu (5); tristea iruditzen (10); tristea iruditzen zitaion (4); tristea izan (40); tristea izan zen (19); tristea izan zuen (4); ze tristea (3); zein tristea (3); zeremonia tristea (3); zinez tristea (3)

baino tristeago (12); ezin tristeago (3); triste baino tristeago (4)

are tristeagoa (5)

ezer tristeagorik (3); gauza tristeagorik (5)

begi tristeak (4); gauza tristeak (4); gogoeta tristeak (3); kantu tristeak (4); kontu tristeak (3); oso tristeak (3); pentsamendu tristeak (6)

piano tristearen (6); piano tristearen musika (3)

gauzarik tristeena (3); tristeetan tristeena (4)

bertsorik tristeenak (5); bertsorik tristeenak idatz (4)

gauza tristeetarako (3)

musu tristek (5)

itxura tristeko (3)

antonio musu tristeren (4)

irribarre tristez (3)

tristealdi iz tristurazko aldia.

-Bizitza osoa daramalako nire haserrealdiei erantzunak ematen, nire **tristealdiei** erantzunak bilatzen. **Pako Aristi**

tristeka adlag (izen baten eskuinean, hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Horrela, arnasa larrika sartu zen Urrezko Lehoia ostatuan, arnasa **tristeka** ere bai, ez baitzuen Justina ikusterik lortu. **Felipe Juaristi**

tristeki (orobat *trixteki* g.er.) adlag tristuraz, tristerik. ik triste.

Hobe beste mundu hartara ausarki pasatu, pasioaren baten gloria betearen, ezen ez urteekin **tristeki** zimeldu eta ihartu. **Irene Aldasoro**

Gauean **tristeki** distiratzten ikusi zituzten hilarrietako lanparatxoak. **Juan Garzia**

Kaxa barruko kaxa batek bezala, kopa bateko kopa baten barruan bezala bizitza baten barneko bizitzaren antzera **tristeki** kantatzen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Aspaldiko partez, irriñoa egin zidan, **tristeki**. **Aingeru Epaltza**

-Izan genuen etxean galdi arin bat, eta oso zaldi ona -esan zuen izeba Juliak, **tristeki**. **Irene Aldasoro**

tristerik adlag tristuraz, tristeki. ik triste.

Ezinak **tristerik** uzten nau. **Txillardegi**

Pozik dagoenak barre egiteko gogoa sentituko du agian, eta **tristerik** dagoenak berriz negar egitekoa. **Bernardo Atxaga**

Zorixtar guztiak oroituta, **tristerik** zeuden denak. **Juan Kruz Igerabide**

Erregeak burua makurtu zuen, eta **tristerik** urrundu zen. **Juan Kruz Igerabide**

Ez bainintzen mugitzen eta printzeari **tristerik** begiratu baizik ez bainuen egiten. **Matías Múgica**

Edozein xoriñoak kioalan **tristerik** du kantatzen, zeren kanpoa baitu desiratzen: horixe da libertatearen giltza. **Iñaki Segurola**

Aulkiak, mahaia, liburuak eta gortinak metatzen ziren haien inguruan, **tristerik**, atzoko, herenegungo, herenegunaren aurreko hautsa jantzirik. **Lopez de Arana**

tristetasun iz tristea denaren nolakotasuna.

Gauean **tristetasun** handi batean sartzen gara. **Koldo Izagirre**

Barbeitok irri erori bat ageri zuen zigarro itzalia kentzea ahantzita zeukan ezpainetan, Dopazo **tristetasun** akigarri batek zeukan mukertuta, "Vladimir Ilich" errepikatzen zuen ahapean. **Koldo Izagirre**

Inork ezin arindu genion **tristetasun** hura ikusi nuen berriro Hucken aurpegian. **Koldo Izagirre**

Ez dakit zergatik; bere **tristetasunean** alaia delako ala alderantziz. **Ramon Saizarbitoria**

tristetu ik tristatu.

tristetxo *izond* triste samarra.

Behingoz bakarrik, **tristetxo** iruditu zaidan hirian atzera eta aurrera ibili naiz, harik eta Hard Rock jatetxe horietako bat topatu dudan arte. **Patxi Zubizarreta**

tristexko *aldag* triste samar.

Jon eskalatzailearekikoak goibel eta **tristexko** atxiki zuen uda guztian. **Aingeru Epaltza**

Amaieran heroia **tristexko** dago: [...]. **Pablo Sastre**

tristeza ik tristezia.

tristezia (199 agerraldi, 56 liburu eta 25 artikulutan; orobat **tristeza 5** agerraldi, **2** liburu eta **3** artikulutan, eta **trixtezia 9** agerraldi **8** artikulutan) **1** iz tristura.

Zernahi pairatua genuen, gosea eta egarria, izua eta **tristezia**, sua eta burdina. **Aingeru Epaltza**

Tristeziak, heriotzak bezala, ez du inoiz ezertarako balio. Irudiarekin duen loturak bereizten du beldurra poza edo **tristezia** bezalako sentimenduetatik. **Lourdes Oñederra**

Euriak **tristezia** dakar. **Sonia Gonzalez**

Liverpool berehala **tristezia** sartzen zaizun hiri bat da. **Fernando Rey**

Tristeziak eta bozkarioak erdibitzen naute. **Patxi Zubizarreta**

Bozkarioa lurrundurik, **tristeziak** hartu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Tristeziaren blai, udazkena. **Imanol Zurutuza**

Aterruerik gabeko hotzak eta eguraldi euritsuak **tristeziara** gonbidatzen zuten. **Patxi Iturrategi**

Aitonarengandik eta aitarengandik datorcio Adelinori **tristeziarako** isuria. **Berria - Kultura**

Buruari **tristeziak** eragin, eta esan zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

-Amodio minez hiltzen dena, hil dadila **tristeziak**. **Patxi Zubizarreta**

Tristeziak lanbroa sumatu nizun begien sakonean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Etxearen giro lasaian bazen senarraren fede sakonak ere ezin uxa ezakeen **tristeziak** eta malenkoniazko halako aire bat. **Patxi Zubizarreta**

Tristeziak olatu geldo eta ilun bat bezalako izan zen. **Alberto Ladron Arana**

Victor Hugok esana omen da malenkonia **tristeziaren** zoriona dela. **Imanol Zurutuza**

Bastiza honen mina eta **tristezia** ez ditu nehonek ere gauaren ilunak gordetzen ahal. **Michel Oronoz**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tristezia gozo horrekin. **Berria - Kultura**

Bere begiek **tristezia** amaiezina iradokitzen zuten. **Aritz Gorrotxategi**

Tristezia mugagabe batek baizik ez baininduen lotzen errealitateari. **Aingeru Epaltza**

Bere begi urdin handietan oinazkerik mingarriena ikusten zen, **tristeziarik** sendaezinena. **Fernando Rey**

Etsaigoak ez gaitu bultzatuko gaitzari gaitzaz erantzutera, neurrigabeko **tristezia** sakonak ez gaitu itoko. **Imanol Unzurrunzaga**

Arimarik gabeko hark halako **tristezia** lauso bat sartu zidan bihotzean. **Alberto Ladron Arana**

Bere adiskide zaharrekirekin elkartzen zen bakoitzean halako **tristezia** nagusitzen zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Irribarreak, ezti eta halaber **tristezia** ukitua zuenak, liluratu egiten ninduen. **Tristezia** itzal baten ukitua. **Ramon Saizarbitoria**

Martinen aurpegian **tristezia** arrasto bat islatu zen, sentitzen zuena gordetzera saiatu arren. **Aritz Gorrotxategi**

Zaitak, buruari **tristezia** aire batez eraginik, esan zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

4 irud/hed

Tristeziaren musuak sugearen laztanak legez korapilatzen zaizkit eztarrian. **Aritz Gorrotxategi**

Denborak, zirimolaka, **tristeziaren** orbela berekin eraman ondoren ere zorion hondar bat geratzen dela pentsatzen du alargunak. **Imanol Zurutuza**

Tristezia larriaren aztaparretan behera. **Itxaro Borda**

Tristeziaren eta etsipenaren kopa oinazetsua hurrupatua zuen. **Patxi Zubizarreta**

Ezinezko dela **tristeziaren** eremu mortuan luzaro bizirik irautea, bizipozaren iturriko urik edan gabe. **Imanol Zurutuza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edertasuna eta tristezia (3); **tristezia ematen** (3); **tristezia eta poza** (3)

tristezialdi *iz* tristeziakzko aldia.

-Harry Potterrek bere biziaren arriskatzan du besteengatik! -esan zuen Dobbyk intzirika, **tristezialdi** biziak jota-. **Iñaki Mendiguren**

tristura (1028 agerraldi, 161 liburu eta 91 artikulutan; orobat **trixtura 8** agerraldi, **4** liburu eta **4** artikulutan) **1** iz arimaren egoera bihotz-mingarri, bare eta iraunkorra; nahigabeak edo oinazeak gogo hartzea. ik **tristezia**; **goibeltasun**.

Bere bihotzean poza eta **tristura** sumatu zituen nahasian. **Askoren artean**

Noiz bihurtzen da **tristura** depresio? **Berria - Gaiak**

Ez zuen beldurrik ez **tristurarik** sentitzen. **Jose Morales**

Poz sinestezinak **tristura** arintzen zien, eta mirari berri batek haien gogo-bihotzak harriduraz gainezka utzi zituen. **Askoren artean**

Bakardadearen **tristura** arintzeko. **Juan Kruz Igerabide**

Haserreak ezin izan zion **tristura** eragotzi. **Jon Muñoz**

Nigan utzi zituen zauria eta **tristura** ez dira sekula ezabatu. **Txillardeggi**

Tristura ikusi nion aurpegian, maitasuna ezin dela behartu esaten ari zenean. **Josu Zabaleta**

Tristuran irauten badu, Babiloniako gaitzak joko du, eta hau, negar-malkoz garbitu ezean, herdoil iraunkor bihurtuko da haren bihotzean. **Askoren artean**

Wulff, **tristurak** eta etsipenera erra lerratzen zena izaki berez, gaixorik eta anemiarekin sentitzen zen. J.M. Olaiola "Txilliku"
Nekeak eta **tristurak** jota oheratzen zara halako batean eta oharkabean harrapatu zaitu loak eta ez dakizu ametsetan zaudela. Jokin Urain
Azal horren atzean **tristuraz** hiltzen edo desiraz urtzen ari zen haragizko emakume bat. Joxean Agirre
Barrua **tristuraz** bete zaizue. Elizen arteko biblia
Ume biluzi polit bat ikusi zuen, berari **tristuraz** begira. Julen Gabiria
Tristuraz eragiten zion buruari, luze eta astun hasperen eginez. Jose Morales
Zure amak zure **tristuraren** areagotze hori maiteminarean areagotzeari egotzi diola, laidotua dela beraz. Jon Muñoz
Zenbat metro karratu ditu begirada baten **tristurak** ? Joxean Agirre
Hura **tristura** bazterretan! Txillardegi
Gaztetan Mediterranioko argiak luzaz gozatu izanak areagotu egiten zion egurats gandutuaren zama, bazterralde lausotuarekiko **tristura** . Josu Landa
Ene anaia zenarekiko **tristurak** eraman du beste mundura. Txillardegi
Zergatik **tristura** eta samin hori zeure bekatuengatik? Askoren artean
· Pasio hauek esplikatzeko Poztasunaren eta **Tristuraren** afektuak. Piarres Xarriton
Jainkoak ez du pasiorik, eta ez du afekzio bihirik pairatzen, ez bozkariozik ez **tristurarik** . Piarres Xarriton
Edozein gauza gerta daiteke ustekabez Poztasunaren, **Tristuraren** edo Desiraren kausa. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hilko dutenaren heriozko **tristura** , hiltzailearen poz ankerra. Jose Morales
Asmatutako **tristura** beltz bat, sekula izan ez diren garai batzuen mina, denborarik ez zen denbora haien atzera-karga. Iñaki Segurola
Tupusteko **tristura** zorrotz bat bihotzean, ulertu zuen ez zuela ez lo egiterik, ez lasaitasunik, ez alaitasunik izango esferatik bereizitako ordu madarikatu, beltz hura igaro arte. Jose Morales
Ezkutuko **tristura** isil batek astintzen zion bihotzaren hondoa. Jose Morales
Ezin izaten zuen bere **tristura** garrantza erabat eragotzi. Askoren artean
Tristura umel batez kutsaturik bezala ibili zen bolada batez, xangrin edo saudade sakon batekin. Joxean Agirre
Oinez abiatu ginen gure txokora, azken gaua izango zela jakinda, **tristura** mehe baten mende biok. Xabier Montoia
Zerk eragiten zion ezohiko **tristura** eta atsekabe hura. Askoren artean
Tristurarik handiena elizetako eta kaperetako ezkilak entzutea zen. Juan Garzia
Emeki-emeki halako **tristura** pisu, eutsiezin batek hartzen ninduela sentitu nuen. Alberto Ladron Arana
Tristura oinazegarria xeheki printzatu zitzaion barrenean. Mirentxu Larrañaga
Calviko gizon noble baten emaztea, Juliana izenekoa, **tristura** ilunean bizi zen, bere seme-alaben zoritxarreko galeragatik negarrez. Askoren artean
Edozer gauza zure **tristura** luze, sakon, ulertezinaren aurrean larrubizirik ez geratzeagatik. Lourdes Oñederra
Jalgi naiz haren gelatik sentimendu **tristurazko** eta halaber izuzko batez. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Suerte txar hura zela eta, **tristura** -puntu txiki bat nabari zitzaion aurpegian. Julen Gabiria
Halako moldez dago antolatutarik mundua, ezen atsegingarri zaiguna, haren aurrean denbora gehiegi egonez gero, **tristura** -iturri bilakatzen baita bat-batean. Jose Morales
Bere arimaren bi muturrak ziren, batetik, mingostasun-, lehortasun-, garraztasun-egoera bat, eta, bestetik, depresio- eta **tristura** -sentipen bat ziren. Josu Zabaleta
Zer **tristura** -minak ez ote lukeen kiskaliko "bere Lolotte"... **Tristura** -nahasketari amore ematen diozu, batzuetan pozik, besteetan goibel, gaur prest, bihar txarto. Jesus Mari Mendizabal
Tristura -printza oinazegarriak aienatu zituen, eta hagitz aztoratuta sentitzen zen. Mirentxu Larrañaga
Animaliek bizirik jarraitzen dute aski ongi, baldin eta halako **tristura** -hondar bat aintzat hartzen ez bada. Oskar Arana
Tristura -garaia izanda ere, gaztea beti gazte, eta gai dagoenak zerbait nahi. Xabier Mendiguren Elizegi
Haren aurpegiak poza islatzen zuen eta ez zuen oinazeen erdian inolako **tristura** -zeinurik azaltzen. Askoren artean
Hara, badator negar- eta samin-eguna, atsekabe- eta **tristura** -eguna! Askoren artean

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero, ama-**tristura** bati amore emanez bezala: [...]. Karlos Zabala

5 irud/hed

Ezin baitzuten jasan **tristuraren** oihal astun hauek. Anton Garikano
Tristuraren enbor zaharra lehertzeko burniziri beltza iduri. Patziku Perurena
Tristuraren argi abaildua zuten sendagilearen begiek. Anjel Lertxundi
Urdailaren **tristuran** neurtu du egun bartko poza. Aingeru Epaltza
Espero ez nuen **tristura** olatu batek harrapatu nau goitik behera. Txillardegi
Tristura -zipritzinak bere aurpegi maitagarrian. Joxean Sagaztizabal
Garaitza hori da geltokien gaitza: **tristura** usaina, lurrin hitsa. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere tristura (11); **daraman tristura** (11); **darion tristura** (3); **halako tristura bat** (5); **poztasun edo tristura** (4); **poztasuna edo tristura** (3); **poztasuna eta tristura** (4); **sorturiko tristura** (5); **sortzen den tristura** (3)

tristura apur (5); **tristura azaldu** (3); **tristura baino gehiago** (3); **tristura batek** (5); **tristura baztertzeko** (3); **tristura eman** (3); **tristura ematen** (9); **tristura ematen du** (3); **tristura ezkatatu** (3); **tristura guztiak** (4); **tristura handi** (6); **tristura handia** (7); **tristura handiz** (4); **tristura kausa** (5); **tristura mingots** (3); **tristura mota bat** (3); **tristura oro** (3); **tristura puntu** (5); **tristura sakona** (4); **tristura sentitu** (5); **tristura sentitu zuen** (3)

zer tristura (3); **zure tristura** (3)

tristurak jota (10)

poztasunaren edo tristuraren (6); **tristuraren afektua** (3); **tristuraren kausa** (8)

poztasunari edo tristurari (3)

tristuratik sortzen (6); **tristuratik sortzen den** (4)

haren tristuraz (3); **nolabaiteko tristuraz** (3); **poztasunez edo tristuraz** (10); **tristuraz begiratu** (4); **tristuraz beterik** (10); **tristuraz hunkitua** (14); **tristuraz hunkitua dela** (6); **tristuraz hunkitua izanen** (5); **tristuraz hunkitzen** (16); **tristuraz hunkitzen duela** (4)

poztasunezko edo tristurazko (3); **poztasunezko eta tristurazko** (3); **poztasunezko nahiz tristurazko** (3); **tristurazko afektu** (9); **tristurazko afektu batez** (3); **tristurazko afektua** (4)

tristuraldi *iz* tristurazko aldia.

Tristuraldi hura joan zen, baina handik gutxira indar handiagoz itzuli zen berriro; Luluren begiak lausoturik zeuden, aurpegian ezagun zuen negar egin zuela. Josu Zabaleta

tristuramendu *iz* tristura.

triterapia *iz* hiesaren aurkako sendabidea, birusa zuzenean suntsitzen ahalegindu beharrean haren erreproduzio ahalmena mugatzen ahalegintzean datzana.

Ahoan bilorik gabe salatzen du eta akusatzen farmazigintzaren diru-jokoa, alde batetik, ez direlaketoz Afrikarren paga-menean ezartzen erremedio batzu eta bereziki Sidaren artatzeko **triterapia** famatuak, eta denbora berean 517 miliun dolar benefizio egin dituztela beren erremedioetan 2002 urtean. Herria

"Medikuntza berriak, **triterapiak** baldin badira ere, SIDA/HIESak hiltzen du oraino", hona zein mezu adiarazi duen *Aides* elkarteak bere egoitza berria estreinatzean, Baionan. Herria

tritio *iz* hidrogenoaren isotopoa, nukleoan bi neutroi dituena.

Detonagailuetan erabiltzen den **tritioa** da minbizia eragiten duena. Berria - Mundua

Nazio Batuen Erakundeko beste aditu batek [...] detonadoreen baitan dagoen presioa aintzat hartuz **tritio** -ihesa eragozteaz ezinezkotzat jo du. Berria - Mundua

triunbirato *(orobat triunbiratu eta triunvirato)* 1 *iz* antzinako Erromako magistratura, hiru pertsonak osatua.

Liskar zibilek, **triunbiratoek**, legez kanpo uzteek, aurrez egindako edozein gerrak baino gehiago ahuldu zuten Erroma; hiritar gutxi geratzen ziren, eta gehienak ez zeuden ezkontuta. Iñaki Iñurrieta

2 zerbaiten buru diren hiru pertsonaren multzoa.

Italiako Atzerri ministro Franco Frattinik «Europako eraikuntza kaltetzen duten **triunbiratoak**» gaitzetsi zituen. Berria - Mundua

Ahmed Kureia lehen ministroak hitz egin zuen, Gazan, **triunviratoa** ordezkatzen: [...]. Berria - Mundua

Ahmed Kureia lehen ministroak ukatu egin zuen **triunbiratu** bat osatzeko agindu presidentziala egotea; Ahmed Kureia, PAE Palestina Askatzeko Erakundeko idazkari nagusi Mahmud Abbas eta Palestinako Kontseilu Nazionaleko buruzagi Sallem Zaanun egongo lirateke bertan. Berria - Mundua

triunbiratu ik **triunbirato**.

triunfal *iz* garaipenezkoa.

Bitartean, orratzpean biraka jarraitzen zuen Gloria all'Egitto-ko tronpeten martxa **triunfalak** ere gorantz egin zuen, gelako zoko bakoitza jantziz. Joxemari Urteaga

triunfalismo *(orobat triunfalismu g.er.) iz* gertatu dena eta gertakizun dena gehiegizko oniritziz aipatzeko joera.

Bistan da Uriberen gobernuan eta haren indar militarretan neurrigabeko **triunfalismoa** dagoela. Berria - Mundua

Gehiegizko **triunfalismoak** objektibotasun txikiena ere itotzen du. Berria - Mundua

Berez txikiak diren hizkuntzak, eta handiekin lehiatu behar dutenak, ezin baina, **triunfalismoan** eta erosokerian sekula bizi. Koldo Zuazo

Gizonak ez zuen Matias ikusten, beste aldera begira zegoelako, eta gero eta ozenago ari zen kantatzen, **triunfalismoz**. Unai Elorriaga

triunfalismu ik **triunfalismo**.

triunfalista *izond* triunfalismoarena, triunfalismoari dagokiona.

Diskurtso «**triunfalista**» egitea leporatu zion oposizioak Espainiako gobernuburu Jose Luis Rodríguez Zapaterori. Berria - Harian

Erakundeen «irakurketa **triunfalistak**» salatu eta biharko eguna eguneroko borrokan aurrera egiteko baliatu behar dutela azpimarratu du sindikatu abertzaleak. Berria - Euskal Herria

Zapatero modu «**triunfalistan**» aritu zela baina «sugar politikoa» falta izan zitzaioela adierazi zuen Barkosek. Berria - Harian

Emaizak baikorrak dira, baina ez gara **triunfalistak**. Berria - Harian

triunfalki *iz* triunfalismoz.

Pentsamendua oso gutxi berrukituz, J. Juaristi liberalak, ETAtik, Euskadiko Ezkerratik, PSOEtik, PPraino xuxen-xuxen paseatu ahal izan du, beti **triunfalki**. Joxe Azurmendi

triunfatu, triunfa, triunfatzen du *ad* garaile gertatu.

Dohain guztiak zituen bizitzan **triunfatzeko** eta biktorios izaiteko. Joan Mari Irigoien

triunfo 1 *iz* garaipena.

Unamuno-k, euskararen heriotza **triunfo** bat bihurtu gura du: [...]. Joxe Azurmendi

Anaiaren **triunfoak** eta arakastak neure onetik atera baininduten, [...]. Joan Mari Irigoien

Erromatarrek guda-harrapakin gisa eskuratu eta hiriburura eraman zituzten, **triunfoan**. Iban Zaldúa

'Pariseko **Triunfoaren** Arkua,' esanen du nostromoak. Joseba Sarrionandia

2 karta joko batzuetan, gehien balio duen karta, besteei irabazten diena.

Horra **triunfoa**, oraintxe bota du. Monika Etxebarria

-Bada, bai, **triunfoa** jokatu dut. Monika Etxebarria

3 irud/hed

Ergel hau ez da konturatu hau ez dela kasua aurrera eramateko modua, mintza eta mintza ari da, atsegin du bere buruari entzutea, Silvari **triunfo** guztiak ematen dizkio, Silva ezin hobeki pasatzen ari da, isiltasunak nola administratzen dituen ikustea baino ez dago. Jon Alonso

triunvirato ik **triunbirato**.

trixtadura ik **tristadura**.

trixtatu ik **tristatu**.

trixte ik **triste**.

trixteki ik **tristeki**.

trixtetu ik **tristetu**.

trixtezia ik **tristezia**.

trixtura ik **tristura**.

trizeps *iz* tendoi berean biltzen diren hiru atal dituen giharra.

Zuntz haustura eskuin besoko **trizepsean**. Besurrearen mugimendu horretan, **trizepsa** da bizepsaren aurkaria. **Beria - Kirola**
Eskua beheratzerakoan, **trizepsa** uzkurto egiten da (ukondoari luzatzea eraginez), eta bizepsa, erlaxatu egiten da. **Irene Aldasoro**
Bizepsak, **trizepsak** eta kuadrizepsak erabiliz. **Joxean Sagatzizabal**

triziklo *iz* hiru gurpileko ibilgailua, eskuarki bizikletaren antzekoa.

Ume mihi-lasterrak eta ahots-kantariak, txirlak bezain zapalak bularrak, txotxongiloen eta **trizikloen** inguruan zeuden bilduta. **Koro Navarro**
Argazkiaren hondoa monumentuaren hondakinek betetzen dute; alde batean, izozki-saltzailearen **trizikloa** azaltzen da. **Bernardo Atxaga**
Ez zen batere deseroso sentitzen, **trizikloa** hartu, eta laneko galtzamantal grisez bezeroei gure nekeetako kloruroa banatzen ibiltzeko. **Juan Garzia**
Terraza horretan bihar-etzi haurrak ibiliko dira agian **triziklo** batean, edo barbakoak antolatuko dituzte udaberriko larunbat arratsetan adiskideekin. **Xabier Mendiguren**
Elizegi
-Hi, Tourmaleta ere igo zitekek **trizikloarekin**, zer uste duk, bada? **Joan Mari Irigoien**

trobadore 1 *iz* Erdi Aroko poeta probentzala. ik **trobolari**.

Arabiari poesiaren espiritua eta teknika hizkuntza erromantze batean Proventzako **trobadoreen** bidez iritsi baitzitzaien. **Iñaki Mendiguren**
Beren ariman erroturiko ohiturak eta sineskerak koplatuz herria bozkariotan ipinten zuen **trobadorea** zen bardoa, (demagun gaurko bertsolaria). **Patziku Perurena**
Erdi Aroko zaldun ibiltariak eta **trobadoreek** beren dama bezain goian ia, atzemangaitz. **Iñaki Iñurrieta**
Peire Vidal Tolosakoa zen, larru-zurratzaile baten semea, baina semeak ez zuen aitaren ogibidea hautatu. **trobadore** egin baitzen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Arnaut Daniel **trobadorearen** bertez metafora ezagun hura: *eguzkiak euri dagi*, zeina erabili baitzuen Bertran de Born zeritzan bertez **trobadore** bati xuxendu poeman. **Joan Mari Irigoien**
Versum honestum: ez apaina bakarrik, baita profanoa ez dena ere, **trobadoreena** maiz izaten zena ez bezalakoa. **Askoren artean**

2 hed

«Compayk guk jarrai dezagun nahi du», esan zuen Salvadorrek, Compay Segundoren semeak, maitasunari eta heriotzari abesten zien **trobadorea** hil zeneko egunean, 2003ko uztailearen 14an. **Beria - Kultura**
1996.eko Bertso Egunaren kariaz, Alpujarrako **trobadoreak**, Menorkako glosadoreak eta Kubako dezimistak ekarri genituen. **Andoni Egaña**

trobolari *iz* trobadorea.

Trobolari baten maitasun kantu bat edo Shumanen obra bat, musikak beti edukiko du gaurkotasuna. **Beria - Kultura**

trofea ik **trofeo**.

trofeo (*orobat trofea g.er.*) **1** *iz* garaipenaren lekukotasuna ematen duen gauzakia. ik **garaikur**.

Ezkutu distiratsiak eta beste zenbait tresna zituen hormetatik zintzilik, ospe militarri zegozkion **trofeoak** denak ere. **Askoren artean**
Berareztat zen-eta zilarrezko erretilu batean zegoen saria, ikuskizun eder harengatik zegoekion garailearen **trofea**: orrazi bat, marfilez bikain moldatutakoa. **Josetxo Azkona**
Boz-Alai ume abesbatzari emandako **trofeoa**, forma zehatzik gabeko ia metro-erdiko eskultura-antzekoa. **Iban Zaldúa**
Nik, maitekiro, abesbatzaren **trofeoa** bere lekura itzuli nuen, oinarria kokatuz, milimetrikoki, utzitako hutsunea estaltzen. **Iban Zaldúa**
Trofeoak, kopak eta halakoak etxera ekarri be ez ei zituan egin gura izaten. **Xabier Amuriza**

Ederki zekien emateak lagunena inbidia eragiteko paseatzen zuela beran abentian gora eta behera, **trofeo** baten moduan. **Jokin Muñoz**
Bandera, **trofeo** bat balitz bezala, urtero-urtero ateratzen zuten Zangozakoek Corpuseko prozesioan. **Martin Anso**
Karibeko jendea jende apasionatua gara, eta horrela adierazten dugu, guri maitasunak ez digu lotsarik ematen, guk maitasuna erakutsi egiten dugu, **trofeo** bat bezala.
Pako Aristi
Etxetik pasatzen zirenen nesken tangak zintzilikatu ohi zituen aldiro, nik ez dakit neskek bertan ahazten zituztelako edo Hankapalok **trofeotzat** hartzen zizkielako. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (kiroletan)

Pioren txikitako argazki bati begira egon nintzen luzaroen: bizikleta zuen aurrean eta **trofeoa** eskuan. **Xabier Etxabe**
Bazen beste **trofeo** bat, torneoko jokalaririk onenari eman beharrekoa. **Joan Mari Irigoien**
Frazier etsaiaz trufatzeko, Ali aitzinatu zen espantuka eta **trofeoa** hartu zuen "ez du balio borrokatzea, jadanik irabazia dut" adierazi nahian. **Ramuntxo Etxeberri**
'Speaker' delakoak hitza hartu zuelarik, borrokaren saria, erakutsi zuen publikoari: **trofeo** itsusi eta handia zen. **Ramuntxo Etxeberri**
910 euro, txapela eta Euskadiko Federazioaren **trofeoa** jasoko du txapeldun handiak. **Berria - Kirola**
Hiru maila edo sari desberdin ari dira jokatzeko **trofeoa**, zilarrezko **trofeoa** eta ldeki **trofeoa**. **Berria - Kirola**

3 (hitz elkartuetan)

Jarraian, **trofeo**-banaketa: txapeldunarena guri, nik jaso nuena, kapitaina nintzelako, eta txapeldunordearena Errealari. **Joan Mari Irigoien**
Trofeo eta txapel banaketaren ostean, txapelketako 3. eta 4. postuak erabakitzeke norgehiagoka jokatu zen. **Berria - Kirola**
Emakumearen aitaitxik [...] gerla **trofeo** gisa ekarri omen zuen Marokotik. **Aingeru Epaltza**

4

Zer erran nahi ote zuten aitaren ehiza **trofeo** haiek, sala nagusiaren apaintzeko eta dekoratzeko erabili zituenek? **Joan Mari Irigoien**
Ehiza **trofeo** bati bezala eusten dio, argazkilariak plano on bat izan dezan. **Iban Zaldua**

5 irabazleari trofeo bat ematen zaion kirol lehiaketa.

Ermukoak larunbatean zuen lehiaketari ekiteko asmoa, Etruskoen Sari Nagusian, baina Laigueglia **Trofeoa** ekingo dio, Italian. **Berria - Kirola**
Garaziko **Trofeo** hori berriz hasiko dela, astelehen huntan berean, bestetik, helduden maiatz horren erditan bururatzeko. **Herria**
Garaziko **trofeo** horri buruz jokatzeko diren partidetan, lehen finalerdia zen astelehen huntan. **Herria**
Aratsaldeko 6etan Heleta **trofeoaren** finalak Erregelun. **Herria**
Euskadik 7-31 galdu zuen Tolosaren aurka Zilarrezko **Trofeoko** finalerdian. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ehiza trofeo (4); **garaziko trofeo** (6); **garaziko trofeo hori** (3); **trofeo gisa** (4)
abesbatzaren trofeoa (3); **garaziko trofeoa** (12)
garaziko trofeoaren (5); **trofeoaren finala** (8)

trofeoketa iz irabazleari trofeo bat ematen zaion kirol lehiaketa. iktrofeo 5.

Garaziko Trofeoa aurten laburtua izanen dugula Xapelgo haundiaren gatik doi bat gibelaturik, bainan izanen dela **trofeoketa** apirilaren 2 tik eta Bazko egunera. **Herria**

trofeotto iz adkor trofeo txikia.

Errespetu handiz zineraman Euskararen **Trofeotto** hori. **Herria**

trofiko izond elikadurarena, elikadurari dagokiona.

Ekosistema urbanoaren kate **trofikoa**, behintzat, primeran zebilen. **Patxi Iturritegi**
Kate **trofikoaren** oinarri-oinarrian aurkitzen dira. **Berria - Gaiak**
Prestige-ko fuelaren artean ere PHak aurki daitezkeela esan zuen: arroketa aurkitzen dira, eta hortik kate **trofikora** pasatzen dira. **Berria - Euskal Herria**
Etorkizunean horrek guztiak gardena izan beharko du, ezinbestean, kate **trofiko** horren maila bat geu gara eta. **Edorta Agirre**
Belatzaren kasuan, zehazki, are garrantzitsuagoa da, piramide **trofikoaren** goi-mailan dagoelako. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kate trofikoaren (4)

trofoblasto iz blastomeroak inguratzen dituen zelula-geruza, elikadura-funtzioa duena.

Amniozentesia edo **trofoblastoaren** biopsia (arrautzaren kanpoaldeko pareta osatzen duen ehuna da **trofoblastoa**, amaren umetokiko mukosarekin kontaktuan dagoena). **Juan Garzia**

troglobio izond animaliez mintzatuz, kobazuloetan bitzitzera egokitu dena.

Horretaz gain, fauna **troglobioaren** babeserako estrategia ari da lantzen saila. **Berria - Kultura**

troglodita (orobat troglodito g.er.) 1 iz kobazuloetan bizi den pertsona; pertsona basa, lagunartea maite ez duena.

Burutan erabili nuen harpe zolatik so zegokidan **troglodita** gizabasa hori ene zain egona zela. **Juan Garzia**
Trogloditen herrialdea zeharkatu genuen, sugetzarrak irensten dituzten eta hitzezko harremanik ez duten jendeak. **Juan Garzia**
Trogloditen herrialdea zeharkatu genuen, sugetzarrak irensten dituzten eta hitzezko harremanik ez duten jendeak. **Juan Garzia**
Herriak ez zuen zentzu sozial txikiak ere; familiak beren etxeetan sartzen ziren, **trogloditak** haizuloan bezala. **Josu Zabaleta**
Badaude hemen [...] liburuei inolako onurarik ikusten ez diotenak, eta **troglodita** hauei Johnson doktoreak erantzun zuena errepikatu beharko litzaieke: [...]. **Bernardo Atxaga**
Choriset **troglodita** bat zen; gizaki primitibo baten adimena zuen. **Josu Zabaleta**
Jekyll doktorea Hyde jauna bihurtzea gauza arrunta da, are arruntagoa galai ulerkorrenari **trogloditaren** sen falozentrikoenak bistaratzeko, batez ere dozena erdi marra eta kubata litro bi irentsi ostean. **Eider Rodriguez**

2 (hitz elkartuetan)

Troglodita komunitate ospetsu bat Dabidekin bizi izan zen Adullameko leizean. Xabier Olarra

3 (izenondo gisa)

Max, pagaiok kopa bat asturiar **troglodita** honi. Pablo Sastre

Egoitza **trogloditoak**, mendixkaren xiloetatik doi-doia agertzen zaizkit, ateak, begiak iduri, niri so daudela. Piarres Aintziart

troglodito ik troglodita.

troiar *(robat troiatar) izlag/iz Troiakoa, Troiari dagokiona; Troiako herritarra.*

Tindaride bahitua edo **troiar** herria gerrak menperatua izan zela diotenean, [...]. Xabier Amuriza

Apoloren apaiz **troiatarra**, bi semeekin batera itsas suge batzuek hil zutena. Xabier Olarra

Honela, bi gerra handiak, **troiarra** eta pertsiarra, "Europa" eta "Asiaren" artean historikoki etengabea zen liskarraren baitako gorabeherak ziren. Iñaki Mendiguren

Bada, **troiarrek** Helena, ederretan ederrena, bahitua zuten, eta greziarrak haren bila joan ziren. Juan Kruz Igerabide

Troiarek Helena helenikoa bahitu zuten, eta helenoek mendekuz Troia inguratu zuten. Iñaki Mendiguren

Troiarek Helena helenikoa bahitu zuten, eta helenoek mendekuz Troia inguratu zuten. Iñaki Mendiguren

Emazte: ez dinat uste Troiatik osorik iritsiko direnik akaiar adats-eder guztiak, **troiarrak** borrokalaria apartak baitira. Juan Kruz Igerabide

troiatar ik troiar.

troika 1 iz errusiar orga handia, patinduna, hiru zaldik tiratua.

Maniloven etxeko zerbitzari-jendeak eginiko abegi onak alaiturik, oso oharpen zuhurrak egiten baitzizkion **troikako** laguntza-zaldi izpildunari. Jose Morales

Zaldi hura **troikaren** eskuineko aldean zebilen. Jose Morales

Zaldi hura **troikaren** eskuineko aldean zebilen. Jose Morales

Atzean utzi ditu hotza, euria, lokatza, posta-geltokietako arduradun logaletuak, **troikako** kanpaitxoaren hotsa. Jose Morales

Troika bat igaro zen ziztu bizian, zalapartaka eta hautsa harrotuz. Jose Morales

Jauzika zihoan gida-aulkian, noiz gora eta noiz behera, **troika** bideko muinoetara zalu igo edo muinoetatik agudo jaisteaz batera. Jose Morales

2 goi mailako hiru politikarik osaturiko gidari taldea.

Esan bezala, Oteitzak, Pirritxek eta Anne Igartiburuk osatu ETAre **troika** buruzagi berriaren filosofia dirudi; baina Rousseurena da. Markos Zapiain

3 irud/hed

Hain zuzen ere, **troika** paregabe horrek ezarri zituen errusierazko prosa modernoaren oinarri eta zutabeak. Jose Morales

troinu iz korapiloa.

Su haren garrak haizez haize heldu ziren sinbolotik errealliterata, galerna hasi zuen jotzen aldiro gure bazterrean, gurpil zulatzeak zenbait autotan, eskela itxurako paperak salatarien izen-deiturekin, karabineroen zodiac gris berria desagertzea, agidanez beheko olatuak **troinua** askatuta. Koldo Izagirre

troka iz sakonunea, amildegia.

Hots zakar bat entzun zuten **troka** gainetik: "¡Alto a la guardia civil!". Anjel Lertxundi

Hori guzti hori, trintxera izan zen, han goiko Barrankutik beheko **troketaraino**. Joseba Sarrionandia

Aurrera jarraitu zuten apurka-apurka, batzuetan oinez, besteetan arrastaka eta sigi-sagaka, **troka** labainkorretara jaisten eta katazulo estuetara igotzen. Joanes Urkixo

Orain, arranoek-eta habia egiteko egokiagoak ziren amildegi eta **troka** izugarrien gaineko pasabideetatik igarotzen ginen. Anjel Lertxundi

Gau hartan, Fionnek berriro ikusi zuen aita, **troka** sakon haren hondotik deika ari zitzaiola. Joanes Urkixo

trokagune iz troka edo trokak dauden gunea.

Gune orotara egokitzen, baita Arantzazu bezalako **trokagune** arriskutsuetara ere. Pello Zabala

trokar iz barnealdean zuloa duen orratza edo eztena, puntzioak egiteko erabiltzen dena.

Andresek gaixoa zertxobait animatu zuen, ziztada egiteko lekua xaboiz garbitu eta igurtzi zuen, eta **trokarra** nes karen sabel handituan sartu zuen. Josu Zabaleta

Trokarra atera eta kanula han uztean, ura, berdekara, serositatez betea, azpil batetik barrinoini batera bezala zerion. Josu Zabaleta

trokarte iz haitzartea, amildegia.

Bidea mendi-mendian sartzen zen, **trokarte** sakonen ertzetik eta gailur antzu, zorrotz, basatien azpitik. Josu Zabaleta

Ibarrak arrastiriko zehar-argitan, itzal-mazelak, itzal-**trokarteak**, lats zuriak han behean, larre-pentzeak zehar-argitan, sarale-metak eguzki-argitan gorri, eta artalde bat oihan-ertzeko sakonune harri-kozkortsu batean: zizare zuriak iduri! · Emakumea bakarrik aurkitu, egur puska batez jo, **trokarte** batera eraman eta bortxatu egin zuela zioen. Joxe Austin Arrieta

trokel 1 iz ertz ebakitzailleak dituen pieza metalikoa, presioz ebakitzen duena; txanponak, dominak eta kidekoak estanpatzeko moldea.

Enpresa berri horrentzako negozioa ez baita **trokela**k egitea. Berria - Ekonomia

Gehienek **trokelez** eginiko piezak egiten dituzte. Enpresak ordezkarri sindikalei azaldu die ibilgailuentzako **trokelen** merkatua geldi dagoela. Berria - Kultura

Arratsalde erdian fabrika batera bidali omen zuten **trokel** batekin. Pedro Alberdi

2 irud/hed

Miseriaren **trokela** milaka ekoizten dituen tipo eta irudi lauso horietakoak ziren. Koro Navarro

trokeladora *iz* trokelatzen duen makina.

Matrikula faltsuak egiteko **trokeladora**. Berria - Euskal Herria

Hamarna urteko espetxe zigorra ezarri zien Auzitegi Nazionaleko beste sala batek Carrasco eta Etxezarretari **trokeladora** lapurtzeagatik. Berria - Euskal Herria

trokelatu, trokela(tu), trokelatzen **1** du *ad* trokelaren bidez forma eman.

Trokelatu gabeko Frantziako matrikulak, lapurtutako autoak, dirua eta beste hainbat gauza aurkitu zituztela adierazi zuten. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Impresioa dut oso gaztetandik **trokelatu** gaituztela eta forma hori indeleblea dela, betikoa. Ana Urkiza

Transmisioa belaualdiz belaualdi burutzen da eta pertzepzio batzuk **trokelatuta** gelditzen dira bazterketaren bat jasan duten kolektiboetako kideengan. Ana Urkiza

3 (era burutua izenondo gisa)

Latorri **trokelatuzko** kriseilu bat. Koldo Izagirre

Albarearen aurrean eskegitako latorri **trokelatuzko** lanpara handi gustu oneko batean. Koldo Izagirre

trokelgintza *iz* trokelatze industria.

350 lagun zuzenean enplegatzen ditu Matrinorrek eta autogintza sektorerako **trokelgintzan** aritzen dira. Berria - Ekonomia

Autogintzaren sektoreak, gainera, «une delikatuak» dituela gogoratu du sindikatuak baita **trokelgintzak** ere. Berria - Ekonomia

trokelista *iz* trokelarekin lan egiten duen pertsona.

Lehenengo harotz ikasten eta gero **trokelista**. Urdulizko Mekanica-n. Xabier Amuriza

trokilo *iz* arkitekturan, moldura ahurra, zirkuluerdi formako ebakidura duena.

Astragaloek **trokiloaren** zortziren bat neurtuko dute; proiektzio edo irtengunea koloma-diametroaren zortziren bat gehi hamaseiren batekoa izango da. Santiago Iruretagoiena

Gainerako lau parteak bi zati berdinetan banatuko dira, eta horietatik, bata goiko **trokilo** eta astragalo eta moldurentzat izango da, eta bestea, beheko **trokiloarentzat**; hala ere, beheko **trokiloa** handiagoa ikusiko da itxuraz, hain zuzen ere atera egiten delako plintoaren ertzearaino. Santiago Iruretagoiena

troko *iz* puska.

Batak besteari hortzak kraskarazi dizkio portuko harri **trokoen** gaina zartaraziz: odolak harrien arteko lotuneetan gurutze gorri errepikakorrek irekitzen ditu. Harkaitz Cano

Ozeanoz inguraturiko lur **troko** lehor eta gogor hartan jasoko zen Euzkadi Berria, gure Israel ederra. Iñigo Aranbarri

trokola *iz* txirrika.

Trokola makinaren goiko buruan kable batekin lotzen da eta handik txikota pasatzen da ziri bateraino, eta ziri horretan dagoen **trokolan** lotzen da. Santiago Iruretagoiena

Beheko **trokolan** bi polea eta goikoan hiru mugitzen direnean, horri pentapastoa deitzen zaio. Santiago Iruretagoiena

Tiroko soka nagusia beheko **trokolaren** zuloan sartzen da, bi muturrak berdín geratzeko moduan soka luzatuta dagoenean, eta han beheko **trokolaren** kontra lokarri batekin inguratu eta lotuko da, eta sokaren bi muturrak finkatuko dira, ez eskuinera eta ez ezkerrera ez okertzeko moduan. Santiago Iruretagoiena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beheko trokolaren (3)

trokolo *iz*

-Koxkor bat, hi, **trokolo** pare baterako. Lurrean eserita nago, **trokoloa** prestatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

trolebus *iz* autobus mota, aireko kable batetik hartzen duen argindarraz ibiltzen dena.

Matson andreak kaiertxo eta arkatza atera zituen ostera poltsatik: "**Trolebus** -txartela, 0,05 \$", idatzi zuen. Mirentxu Larrañaga

trolley *iz* trolebusa.

Hiriburuko lineak egokitzen zituzten bitartean portuan ikuilututa zeuzkaten Londresek saldutako bi solairuko **trolley** zaharren artetik. Koldo Izagirre

troll *iz* alegiazko izakia.

Idunak ekialderantz zihozaren lauhazka, etsaia aurrerantz bultzatuz: **trollak**, variagak eta eguzkiaren argiari gorroto zioten orkoak. Agustin Otsoa

Halaxe hasi ziren Sauronen izakiak, orkoak eta **trollak**, eta piztia sorginduak, batera eta bestera korrika, ikararen ikaraz. eskarlataz jantzitako Hegoaldeko Gizakiak eta Harad Urrunetik iritsitako begi zuriko eta mihi gorriko Gizaki Beltzak, **trollen** itxura zutenak. Agustin Otsoa

Orkoen artean, urrats handiez eta piztien moduko orroak eginez, Gorgorotheko mendietako **trollen** konpainia ageri zen orduan. Agustin Otsoa

tronadura *iz* zola edo sabaia estaltzen duen zureria. ikzoladura.

Patioko zoruak **tronadura** zirudien, hain zegoen garbi. Jose Morales

Bi hiltzalek ate gibebeko kutxa baztertzen dute, **tronadurako** hiru taula altxatzen eta zilo hari behera gorputz hila norapait aurtikitzen. Xipri Arbelbide

Tronaduran argi baso bat zilo batean sartua, sare ttipi batek ongi babesturik. Filipe Bidart

Barne iluna zen, jendez eta kez gainezka; **tronaduran** zintzilik zeuden urdai azpiko, txorizo, eta odolkien usainak gogorazi zion ez zuela ondikotz deus jan bezperako gosariz geroztik. Elena Touyarou

Techno 98 jarri zuen azkar laser irakurgailuan, hain azkar non, beheko auzo zaharra entzun nuen **tronaduran** erratz-gider ukaldika. Itxaro Borda

Barne zerratu batean zaukaten ["Susper"] eta airearentzat **tronaduran** utzi arteka hertxi batetarik jalgi da nolazpait. Herria

Isiltasuna beti, garbitasuna, lixiba usaina, argi bizia... ibilbide luze zabal bat, edo eni hola iduritzen zait, zeren **tronadura** aski apala baita, orai arteko ibilbideekin konparatuz.

Filipe Bidart

tronba iz erauntsia.

Peligros herrian, ur **tronba** handi batek bi pertsona hartu eta suntsitu zituen. Pello Zabala

tronbina iz odoleko enzima, gatzatze prozesuan fribinogenoa fibrina bihurtzea katalizatzen duena.

Honetara ezkerro, amaierarik gabeko arrazoibidea dirudi honek, zeren, egia esan, odol-zirkulazioan **tronbina** egonez gero, fibrina bihurtuko bailuke hark fibrogenoa, eta odol guztia gatzatu. Irene Aldasoro

tronboflebitis iz odol zain baten hantura, odol tronbo bat eratzea dakarrena.

Gure pabiloian bazen **tronboflebitis** baten kausaz bi hankak moztu zizkieten gaixo bat. Anjel Lertxundi

Beheko gorputz adarrei egiten die kalte, eta tronbosia (**tronboflebitisa**) sor dezake. Berria - Gaiak

tronboi 1 iz haize musika-tresna, tronpeta handi baten gisakoa; eskuarki, U formako tutu lerrakor batez hornitua dena.

Diskoan Asier Ituarte **tronboia** jo du *Aurrenak eta azkenak* eta *Zorteko eguna* abestietan. Berria - Kultura

Lehengo musika ona zen, lehengo musikoak, tronpeta zela, **tronboia** zela, onak ziren, melodia hobeak egiten zituzten. Pako Aristi

Pailazo batek, adibidez, tu eta tu egin dio **tronboiarekin**. Jokin Muñoz

Oinak danborraren, **tronboiaren**, klarinetearen doinuei jarraiki. Lopez de Arana

Tronpeta, **tronboi** eta orkestrarako kontzertua. Berria - Kultura

Dean Fraser saxoan eta Nambo Robinson **tronboian**. Berria - Kultura

Haizea **tronboi** laukoteak emanaldia eskainiko du gaur, EOSen egoitzan, Donostian. Berria - Kultura

2 irud/hed

Eguzkiaren **tronboiak** bemola jartzen zion eguerdiari. Xabier Olarra

3 tronboi-jotzailea.

Jazz pieza estandarrak jotzen ditu, New Orleans Jazz Bandeko musikari apartek babestuta: Simon Wettenbal (tronpeta), Jerry Zigmont (**tronboia**), Cynthia Sayer (pianoa), Hendi Davis (baxua), Conald Fowlkes (kontrabaxua) eta Ron Garcia (bateria). Berria - Kultura

Horiek guztiek ez ezik, Muñecok (Amparanoieren perkusio jotzailea), Marcos Collek (ahosoinua), Oye Larsonek (**tronboia**) eta Iñaki Arakistainek (saxo tenorea) hartu dute parte diskoan. Berria - Kultura

4 tronboi-jotzaile ik tronboilari.

Christian Lindgren **tronboi jotzaile** ezaguna EOSekin emanaldiak egiten ari da. Berria - Kultura

Eugeny Rechkalov tronpetista, Denis Krents saxo tenor jotzailea eta Ignat Udovichenko **tronboi jotzailea**. Berria - Kultura

Thierry Durand, Arnaud Mandoche, Javier Almarza eta Herve Cahen EOSeko **tronboi jotzaileek** Waslaw Sistiaga organistaren laguntza izango dute zenbait obratan. Berria - Kultura

Naif kantua, bestalde, Muguruzarekin batera, Carlos Zubikoak (baxu jotzailea), Gorka Baskaranek (bateria jotzailea) eta Asier Ituarte (**tronboi jotzailea**) osatutako taldearen barruan geroz eta indar handiagoa duen joeraren erakusle da. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tronboi jotzaile (3); **tronboi jotzailea** (6); **tronboi jotzaileak** (3)

tronboilari iz tronboi jotzailea.

Jean Christian Irigoien akordeoilaria, Maitane Sebastian apaleko xirribikaria eta Thierry Madiot **tronboilaria**. Herria

tronbosi iz odol hodi batean edo bihotzean odol koagulo bat eratzea.

Gero emaztea hil zitzaion **tronbosi** batek jota, eta kioskoa itxi zuen. Karlos Linazasoro

Basarri bera ere, nahiz **tronbosiak** jota egon, bertsoa txukun asko kantatzeko gai zela joan zen. Andoni Egaña

Bi **tronbosi** izan ditu, bat hankan eta buruan bestea. Berria - Euskal Herria

Tronbosiaren aurkako sendagaia. Berria - Ekonomia

Antikoagulanteak hartu ezean, arazo larriak izan ditzake: **tronbosia**, flebitisa... Berria - Euskal Herria

Pertsona batek **tronbosi** koronarioa duenean, ordea, berehalaxe geratzen da oxigeno gabe arteriak oztopotik aurrerako ehuna. Irene Aldasoro

Zirkulazioa hobetzeko, hipertentsioa kontrolatzeko, **tronbosiak** saihesteko eta triglizerido kopurua murrizteko. Berria - Gaiak

Arrisku bako barize sinpleenetatik hasi eta zainetako **tronbosi** larri bat izan osteko flebitisaren ondorioetaraino. Berria - Gaiak

Buruko **tronbosia**. Harkaitz Cano

Horrek osasun arazoak sortu zizkien bizilagunei: gizonetako bati garuneko **tronbosia** eta emakumezko bati buruko mina. Berria - Harian

tronera iz leiho txiki eta eskuarki estua.

Hiru **tronera** herriari beha. Koldo Izagirre

"Deboilatatu" hauek teiltaturik gabeko lau hormak osatuak dira gehienetan, zenbait leihorekin, gehienak ere adreiluzko tabike batek tapiatuak eta **tronera** bihurtuak, sute arrastoekin alde guztietarik, eta barnean behiren bat edo ahuntz pare bat lurreko belarra edo hormako huntza lasai bazkatzen ari. Koldo Izagirre

tronko *(orobat tronku g.er., truko g.er. eta tronko) iz enborra.*

Hamabigarren **tronkoan** itsutu egin zen, eta arratsaldeko bostetan esnatu ospitalean. **Pako Aristi**

Hamabosgarren **tronkoan** zihuala, Jaunarena lurrera erori zen zentzunik gabe. **Pako Aristi**

Hamabigarrena bukatu eta beste hiru **tronko** ebaki zituela esan ziotenean ez omen zuen sinesten. **Pako Aristi**

Zer **trunkoak** ez ziren erretzen alimaleko su batzutan! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hala, bada, kondenuatu zuten giristinoek sutan hiltzerat, lotu zuten hura **tronko** bati... hurbildu zitzaion frantziskotar bat, erran ziona zer sinetsi behar zuen eta zer ez, baldin zerurat joan nahi bazuen, zeren, bertzenaz, infernurat joanen baitzen. **Joan Mari Irigoien**

Ohi bezala entseguen artean aizkoriari ariko dira Hairako oihaneko pago **tronkoen** mozten aizkoraz eta esku zerraz. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hamabigarren tronkoan (3)

tronkotxo *(corpusean trunkotxo soilik) iz enbortxo.*

Ezpaltu txuri hori, Erramu egunez elizan bedeinkatutako erramu **trunkotxo** edo adar lodixka batetik ateratzen genuen. **Pello Zabala**

tronku ik tronko.

trono ik tronu

tronpa 1 *iz elefantearen sudurra, tutu luze malgu baten itxura duena.*

Bigarren itsua, ordea, elefantearen **tronpa** eman baitzieten ukitzera, ez zegoen inola ere ados: [...]. **Joxerra Garzia**

Elefantearen buztan soila, edo hanka soila, edo **tronpa** soila. **Fernando Morillo**

Bene-benetako elefanteek, **tronpak** zerurantz ezin ikusgarriago altxaturik. **Karlos Linazasoro**

Azukre alor batzuk hondatu zituen, eremu haietan zebilen gizon bati saiheztu hezurak hautsi zizkion, ahuntz bat **tronpaz** hartu eta horma baten kontra lehertarazi zuen.

Gotzon Garate

2 haize musika-tresna, tronpeta kiribildu baten itxurakoa.

Frai Alfonsok Santanderretik ekarri zituen **tronpak**, musika tresna bereziak, gaurko musu-gitarrek baino handiagoak eta ozenagoak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Kantuz kantu musikariek tresnaz aldatzen zuten: lehen biolina, orain flauta; lehen tronpeta, orain **tronpa**; orain baxua, gero gitarra. **Berria - Kultura**

Hari sailak lehenago jo dituen pasarteak gero **tronpek** errepikatzeak ez du zentzurik. **Berria - Kultura**

Biolinak oso ondo aritu ziren, baita **tronpa** natural eta fagotak ere. **Berria - Kultura**

BOSeK tronpeta jotzaile bat, fagot jotzaile bat eta **tronpa** jotzaile bat behar ditu. **Berria - Kultura**

Klarinete, flauta eta **tronpen** soloak aipagarriak suertatu ziren. **Berria - Kultura**

3 Falopioren tronpa.

Obulua **tronpan** zehar umetokirantz bere bidea egiten ari bada, pilulak ernalketa eragotzen du obulua semenarekin kontaktuan jarri baino lehen. **Luis Elberdin**

Tronpek bilo txiki batzuk dituzte, eta horiek bultzatzen dute obulu edo arrautza ernaldua uterorantz. **Luis Elberdin**

Espermatozoiden nekazekin **tronpetara** iritsiko dira, baina han ez dute obulurik aurkituko. **Luis Elberdin**

Beste arazo batzuk ere badaude: **tronpak** itxita izatea edota obarioren bat ez izatea. **Berria - Harian**

Haurrik ez izateko emakume askori **tronpak** lotzen dizkiete. **Gotzon Garate**

Joachimek jakin zuenean Hannak **tronpen** lotura egina zuela, lehertu zen zirkuitalaburra: bolondres aurkeztu zen Wehrmacht-era. **Joxe Austin Arrieta**

Nire lankide honek hiru haur aski gazterik izan arren, senarrarekin gehiago ez ekartzea erabakia izan arren, ez zuen **tronpa** ligadurarik egin nahi izan. **Patxi Zubizarreta**

4

Gainean beste hodi bat, **tronpa** deitzen dena, ontziarekin ondo lotuta eta goraka zutik jarrita. **Santiago Iruretagoiena**

5 Falopioren tronpa *(orobat Falopioren tronpa g.er.)* ugaztun emeen ernaltze aparatuko hodia, obario bakoitza uteroarekin lotzen duena.

Obulu, espermatozoiden, hodi deferente eta **Falopioren tronpei** buruz hitz egin eta, ikasleak aspertzea al da heziketa sexuala? **Luis Elberdin**

Zelulen argazkiak eta marrazki eskematikoak tartekatuz, han agertu ziren txalburu buztanluzeak, barrabiletik zakilerainoko tutuak, obulutegiak eta umontzia, **Falopioren**

tronpa eta guzti, nondik ibiltzen baitira txangoan obulu izeneko pilota txiki, bigun batzuk. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Plastikozko ontzi bat erabiltzea, alegia, besterik gabe, eskuarki espermatozoiden eta obuluaren arteko topaketaren egoitza izaten denaren orde: **Falopioren tronpa**.

Juan Garzia

tronpabidetsu *izond* tronpatzeko bidea ematen duena.

Eta Lur Arraroen familia **tronpabidetsu** eta heretiko horretako kide zela. **Juan Garzia**

tronpagarri *izond/iz* tronparazten duena. ik **engainagarri**.

Liburu hau eskuan hartzen duzunean bertan sartzen zara etxe **tronpagarri** batean, guztia baitu ispilu eta mudantza. **Markos Zapiain**

Eta baldin, amoltsutasun **tronpagarri** horren lilurari men egirik, zeure bihotzaren arabera ihardetsiko bazenio, [...]. **Jon Muñoz**

Metodo horren operazioak (oro har) fidagarriak omen dira; ez dira, hala ere, jakina, nolabaiteko **tronpagarririk** gabe zabaltzen. **Juan Garzia**

Pintatzailearen begi burlati eta txantxazaleak, ordea, pintatzaile-kapeluaren azpitik begira, pintura osoa komedia dela erakusten du, begien engainagarri eta **tronpagarri**,

begiek ikusten dutena gezurtatzen baitu eta begiek baieztatzen dutena ezeztatzen. **Felipe Juaristi**

tronpagarriro *adlag* era tronpagarrian.

Bederatzi ate ziren soto hartan; zortzik labirinto batera ematen zuten, zeina ganbera berera itzultzen baitzen **tronpagarriro**. **Juan Garzia**

tronpakeria iz ekintza tronpagarria.

Alkimisten gelazuloak, haien ideien eta hizkuntzaren nahasmen gorrotagarria, urrearen alderako haien interes nabarmen aitortua, sortaldeko hitzontzi zein aztien jiteko haien **tronpakeriak**. [Juan Garzia](#)

tronpakor iz ipar tronpagarria.

Badira ere bihurgune txarrak, patar gaixtoak, bide peza batzu dena ozka eta zilo, gune batzu zerbait gisaz **tronpakor** direnak, bereziki euria delarik edo lana lodi. [Herria](#)
Iduritzen hau, iduritzen hura, bainan iduritze horiek frangotan **tronpakor**... [Herria](#)

tronparazi, tronparaz, tronparazten du ad engainarazi.

Emakume hori ahalik eta gutxiena **tronparazteko**, eta batez ere belarrietaraten ahal zaizkion erranen ondorioetik begiratzeko, nihaurk dizkiot kontatu, eta iduriz neure burua akusatzen nuela, neure balentriarik ezagunenak. [Jon Muñoz](#)

Bada, armiarmak berak nahasten eta **tronparazten** dituen eguraldi jenero bat, azeriarekin lotu izan duguna. [Pello Zabala](#)

Halatan irabazi nuen begi ukaldi sarkor hori, esperientziak haatik hari osoki ez fidatzera irakatsi didana; baina, oro har, oso bakan **tronparazi** nauena. [Jon Muñoz](#)

Zer deabruk zaitu honela **tronparazi**, alegia itsumandoka? [Juan Garzia](#)

tronpatu, tronpa, tronpatzen 1 da/du ad engainatu.

Nire izeba haatik zu bezalaxe **tronpatu** zen, eta erran zuen. [Jon Muñoz](#)

Tronpatu bide zara agian: ondikotz, saiatzan ari naiz oraino neure burua engainatzen. ez baniz **tronpatzen**, HERRIA agertzen da urtean 50 aldiz. [Jon Muñoz](#)

Kontuz, irakurle, ez dut inor ezagutzen lehen irakurketan **tronpatu** ez denik. [Juan Garzia](#)

Zer dela eta bidaltzen zizkidan niri eskutitzak, Marga nintzelakoan: hasieratik **tronpatu** zelako izenez, edo Margak berak nirea eman ziolako gau hartan. [Iban Zaldúa](#)

Autobus gidaria **tronpatu** egin zelako errepidez. [Berria - Kirola](#)

Zahardadeak eta beldurrak **tronpaturik** nabil beharbada. Ez daitezela **tronpa** mandatari mendekuzale horiek, gure Kolektiiboak apustu garbi eta tinkoa egin du Konponbide Demokratiko baten alde. [Juan Garzia](#)

Labirinto bat gizonak **tronpatzeko** landu den etxe bat da. [Juan Garzia](#)

Atezain ilupa horrek polizia batekin **tronpatu** banau, berak diik errua, ez baitiot inolako biderik eman. [Aingeru Epaltza](#)

-**Tronpatu** egin zaituztete, zuek ez zarete eskirolak. [Koldo Izagirre](#)

Bere senarra **tronpatu** zuela, beste gizon batekin. [Herria](#)

Bere buruaz hanpatua da agian **tronpatu** nauelako. [Jon Muñoz](#)

Mila gauzak **tronpatzen** dute eta nahasten. [Josu Zabaleta](#)

Itxurek **tronpatu** zaituzte. [Jon Muñoz](#)

Literaturaren aterbean egona nintzen, liburuak ez dute nehor **tronpatzen**, **tronpatua** izan nahi duena baizik. [Piarres Aintziart](#)

Bere tximinoak guztiz doilorki **tronpatu** zuela. [Josu Zabaleta](#)

Ez du bere burua **tronpatzen** utzi behar arteari buruz, Jainkoa ontasunaz **tronpatu** den baino areago. [Juan Garzia](#)

2 (era burutua izenondo gisa)

Hauxe dugu mundu honek inoiz ezagutu duen gizonik **tronpatuena**. [Josu Zabaleta](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tronpatzen ez banaiz (3)

tronpatzaile 1 iz engainatzailea.

Amodioaren ikuspuntu lauso eta **tronpatzailerik** gabe. [Patxi Zubizarreta](#)

Zalantzarik gabe bere bozkarioa neurritz kanpokoia izan zen, bere ilusioa **tronpatzailea**. [Patxi Zubizarreta](#)

Ez zitzaion geratzen printzesa **tronpatzailearen** eskariz sototik ekartzera joana zen Afrikako ardo botiletariko bat bera ere. [Juan Garzia](#)

2 (hitz elkartuetan)

Arratsaldeetan, eguzki izpi ahul iheskorrek jotakoan, alabastroaren izaera aldagarriagatik, aurrealdeak, zurian zuri, eguzkiaren ispilu, benetako gatz harria zirudien: su gezurretakoa, begi-**tronpatzailea**, eguzkiaren musika. [Felipe Juaristi](#)

tronpeta 1 iz haize musika-tresna metalezkoa, pistoiduna, muturrean tutu konikoa duena. ikturuta.

Bihozaz zazpi apaiz **tronpeta** banarekin Jaunaren kuxtaren aurrean. [Jose Antonio Mujika](#)

Herriko musika bandan, berriz, **tronpeta** jotzen ikasi zuen. [Berria - Harian](#)

Aragonek **tronpetak** joarazi zituen, eta heraldoek hitz egin zuten: [...]. [Agustin Otsoa](#)

Atearen itxiera iragartzen duen **tronpeta** joka dabil dagoeneko. [Agustin Otsoa](#)

Zutoihala zabaldu eta **tronpetak** jo zituzten. [Agustin Otsoa](#)

Adarrak joka, **tronpetak** durundi eginez. [Agustin Otsoa](#)

Filologiako tituluaz gain musikako zenbait ikasketa eginda baitzeuzkan, **tronpetakoak**, hain zuzen ere. [Jon Arretxe](#)

Tronpetaren doinura, kanposantu hartan Internazionala kantatu genuen guztiok. [Jon Maia](#)

Iraganarekin lotzen zuten lokarri guztiak hautsirik, orainaldia zuen mugarri, bere **tronpetaren** soinuak hartzen zuen espazioari atxikia. [Felipe Juaristi](#)

Organorako Musika Zikloaren barruan, gaur, ostirala, organo eta **tronpetarako** kontzertua izango da Iruñeko Santo Domingo elizan. [Berria - Kultura](#)

Gorrito hark **tronpetak** baino burrunba gehiago egiten zidan buruan. **Tronpeta** ikasten ari zen, baina 16 urterekin aspertuta utzi egin zion. [Matías Múgica](#)

2 (izenondo eta izelagunekin)

Tronpeta txiki bat jarri zian belarran, eta Normak eta Dorisek beren deklarazioak egin zitiztean. [Koro Navarro](#)

Batzuetan, **tronpeta** zahar bat egokitzen da orkestran. [Jose Morales](#)

Kobrezko **tronpeta** handi bat tonutik ateratzen zen, noiz atzeratuz, noiz barregarriro aurreratuz. [Jose Morales](#)

Haren buruaren aurrean banderak zabaltzen dira eta beraren aitzinean **tronpeta** zoliak jotzen dituzte. Pippinek, ozen eta urrun, zilarrezko **tronpeten** antzeko errepika argi eta sendoa entzun zuen. [Xabier Kintana](#)

Miles Davisen **tronpeta** urratua eta John Lee Hockerren aiene lakarra. [Lourdes Oñederra](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Organo eta **tronpeta** kontzertuak Iruñean eta Orreagan. Berria - Kultura
Jerikoren konkista, **tronpeta** hotsez eta herriaren bat-bateko irrintzi beldurgarriari esker lortutakoa. Jose Antonio Mujika
Tronpeta -soinuak entzun ondoren, atsedenerako astirik hartzeke, musika bandak baltseari ekin zion. Felipe Juaristi
Andra Joseparen **tronpeta** -soloak, prozesioaren erritmora egokitzen diren pausoen pausoko jardunak. Anjel Lertxundi
Bat-batean, **tronpeta** -kolpe bat bezala [...] eguzkia jaikitzen ikusten nuen. Urtzi Urrutikoetxea
Ustekabean, oso goitik, **tronpeta** -koru handia goratu zen. Agustin Otsoa
Haiek txaloei **tronpeta** -zartaz erantzun zieten, trumoi-hotsa atereaz. Felipe Juaristi

4 tronpeta-jotzailea.

Taldean bost musikari daude, Neal Sugarman liderra eta saxo jotzailea eta orain dela zortzi urtetik abentura honetako parte hartzaile diren honako hauek: Adam Scone (teklatuak), Rudy Albin (bateria), Al Street (gitarra) eta Todd Simon (**tronpeta**). Berria - Kultura
Jazz pieza estandarrek jotzen ditu, New Orleans Jazz Bandeko musikari apartek babestuta: Simon Wettenbal (**tronpeta**), Jerry Zigmont (tronboia) [...]. Berria - Kultura
Orzegunean 21etan kontzertu elizan Nicolas ANDRE (**tronpeta**) Béatrice ANDRE (oboia) Jean Claude FRANCON (organoa) Kanboko harmoniak antolatuturik eta lagundurik. Herria

5 adkor porroa.

Camel eta erdi nahastu eta **tronpeta** bat egin. Unai Iturriaga
Eta Bobek liatzen zituen **tronpetak**, paregabeak aixkide... Harkaitz Cano
Tronpeta gizenak haren hatzetatik nireetara egin zuen jauzi, eta handik -zerbait egin behar eta- ene ezpainera. Aingeru Epaltza
Opio **tronpeta** bat erre duzue edo ze ostia! Unai Iturriaga

6 tronpeta-jotzaile (23 agerraldi, 4 liburu eta 13 artikulutan; orobat tronpeta-jole 18 agerraldi, 6 liburu eta 2 artikulutan, eta tronpetajole 2 agerraldi, liburu 1ean)

Orkestrakoak, hiru **tronpeta jotzaile** eta biolin jotzaile bat, aire alaiak jotzen ari ziren. Magnolio baten azpian, erdi eserita erdi etzanda, musikariak zeuden, **tronpeta** eta biolin **jotzaileak**. Felipe Juaristi
Armadako **tronpeta-joleak** zuhaitzen zirkulura zihoazen lau bidezidorretan kokatuz. Agustin Otsoa
1998tik La Feniceko antzokiko **tronpeta jotzaile** nagusia da, eta 1999tik, berriz, I Solisti Veneti taldeko bakarlaria. Berria - Kultura
Connie Tomaino **tronpeta-jotzaile** profesionala da. Xabier Olarra
Erik Truffaz **tronpeta jotzaile** frantziarrak. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tronpeta eta danbor (3); **tronpeta jo** (4); **tronpeta joaldi** (3); **tronpeta jole** (5); **tronpeta jolea** (3); **tronpeta joleak** (5); **tronpeta jotzaile** (10); **tronpeta jotzailea** (3); **tronpeta jotzaileak** (5); **tronpeta jotzaileak eta** (3); **tronpeta jotzen** (6)
tronpetak jotzen (4)

tronpetajole ik tronpeta 6.

tronpetalari iz tronpeta-jotzailea.

Bere semea, Jean Bentaberry, musikari famatua izana da Frantziako Tolosan **tronpetalari** bezala eta bazuen orkestra bat muntatua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

tronpetaldi iz tronpeta-joaldia.

Eta ustez erabat gorroto eta gauditurik neukan hiri militarraire hura, Matxoko bere presondegi lizunduak, eta bere bandera harroak eta **tronpetaldi** higuigarriak, nire barne-muinetan zeutzala erreparatu nuen. Txillardegi

tronpetaxka iz tronpeta-mota txikia.

Guardak gerrikotik zintzilik zeukan **tronpetaxka** jo orduko, dozena erdi bat lankide agertu zitzaizkion zubitik lasterka. Elena Touyarou

tronpetista iz tronpeta-jotzailea.

Internazionala-rekin ezkondu ginen, eta sobietar **tronpetista** batek jo zuen, gainera, zer iruditzen zaizu? Jon Maia
Martin Baeza Rubio **tronpetista** da, Berlingo Operako Orkestra Sinfonikoan. Berria - Kultura
Madrilgo John Pinone taldeko **tronpetista** da Carlos Perez Cruz Piolet **tronpetista**, Magali Zubillaga, Carmen Vasquez eta argentindar artistak, Biez-Bat dantzari taldea... Berria - Kultura

tronpolo izond lodikotea.

Hodei **tronpolo** handi horiek eurijasa tantan bete-betekoak botatzen dituzte noiznahi eta nonahi: uholdeen arrisku bizia sortzen da ia urtero. Pello Zabala

trontza (orobat trontze) 1 iz bi muturretan eskutokia duen zerra handia. ikarpan.

Enbor horiek aizkolariek eta **trontzalariek** landuko dituzte. Berria - Kultura
Sokatiran, Sakanaren eta Girizaren arteko neurketa, eta, **trontzan**, Lezaungo Itziar eta Lopez, eta, Ainhoa eta Bixente. Berria - Kirola
Zazpi kirol izango dira ikusgai: ingude-altzatzea, harri-jasotzea, aitzurrez egurra ebakitzea, aizkora, lasto-altzatzea, **trontza** eta orga jokoa. Berria - Kirola
Baina entrama galanta eman zion eta, indarrez eta abildadez, **trontza** asmarazi horrela. Pello Zabala
Trontzeak uste ote du trontzalaria baino gehiago denik? Elizen arteko biblia

2 trontza-zerra

Europa zaharreko goldeen zain zauden alorrak, hango **trontza -zerren** zain haritz eta gaztainak, hango pikatxoien zain mendi-muinetako aberastasunak. Anjel Lertxundi

trontzalari iz herri kiroletan, trontza erabiliz enborrak ebakitzen dituen.

Linaza ez da aspaldi hasitako **trontzalaria**, baina bai Iturrioz. **Berria - Kirola**
Irailaren 11n jokatu da Euskadiko Txapelketa, Donostian, eta hartan aritzeko bi txartel izango dituzte jokoan Bizkaiko **trontzalariek**, gaur, Getxo-Erromon. **Berria - Kirola**
Enbor horiek aizkolariek eta **trontzalariek** landuko dituzte. **Berria - Kultura**
Trontzeak uste ote du **trontzalaria** baino gehiago denik? **Elizen arteko biblia**

trontzo iz zati handi eta mardula, eskuarki janariena.

Zorionez, suak gorantz egin zuen, sutarako egurra edo ikatza baino erregai hobeak ziren arropa zaharretan gora, eta altzoan zuen orrialde **trontzoa** onik atera zen. **Harkaitz Cano**
Ondorengo egunak Paradiisuren erdiko **trontzotik** hartutako modukoak gertatu ziren Rita eta nire artean. **Hasier Etxeberria**

tronu (orobat *tronu g.er.*) 1 iz erregeak eta kidekoek eskuarki jendaurreko zeremonietan erabiltzen duten jarlekua.

Erregea bere **tronuan** etzanik egon arren, aberastasunez eta ospez bete bere erreinuan, utzi egin zuen bere jauregia, baztertu bere ondarea. **Askoren artean**
Mahommed VI-na **tronuan** jarriz geroz lehen aldia zen bozkatzerat deituak zirela Marokanoak. **Herria**
Printze horrek, **tronoa** eseri bezain laster, dekretu baten bidez, Inperioko Goi Kontseilua sortu omen zuen. **Xabier Olarra**
Enperadoreari gerla eman zion, ipurmazelak **tronuan** jarri orduko. **Aingeru Epaltza**
Tronutik egotzitako tirano, nire esklabo bihurtu horiek. **Jon Muñoz**
Mikel Strogoff emirraren **tronuaren** parean eduki zuten, terrazaren oinetan, eskuak loturik. **Karlos Zabala**
Eginkortasunez arduratzen da Jainkoaren **tronuaren** aurrean lurrean utzi dituenen arazoez. **Askoren artean**
Jaitsi zen Gregorio Aita santu zoriotsua **tronutik**, eta beheko mailetan gora elizan sartu zen, eskaintzak eta sakrifizioak egitera. **Askoren artean**
Aldare gisako jartoki bat ezarri zuten, eta beronen aurrean Erregek erabili behar zuen damaskozko **tronu** apala. **Txillardegi**

2 erregetza.

Henrike VIII.aren eta Jeanne Seymouren seme gaztea zen Eduardo, **tronura** bederlatzi urterekin igoa. **Jon Muñoz**
Eta arestian aipatu dugun Don Juanek (Don Carlosen aitak), egun haietantxe egin baitzion muzin, ofizialki eta Parisen, Espainiako **tronuari**. **Txillardegi**
Legeen barne-indar babeslea berezita dagoelako kanpoko indarretik, **tronua** eta nazioa defendatzen dituenetik. **Juan Martin Elexpuru**
Karlitek beren mementoa zela pentsatu zuten aho batez; eta sekulako ahalegina egin zuten **tronuaz** jabetzeko. **Txillardegi**
Arestian aipatu dugun Don Juanek (Don Carlosen aitak), egun haietantxe egin baitzion muzin, ofizialki eta Parisen, Espainiako **tronuari**. **Txillardegi**
Hau da **tronuaren** eskubiderik handiena, hau soberanotasunaren ezaugarriak kutunena. **Juan Martin Elexpuru**
Legegileak, **tronuaren** gainetik, burdinazko legeak ezartzen zituen esklabo obeditzaleen arima gogortuentzat. **Juan Martin Elexpuru**
Bi gizon botere-gose **tronua** lortzeko lehian badabilta, indartsuenak irabaziko du eta heriotza epaia ezarriko dio ahulenari eta haren jarraitzaile guztiei. **Juan Martin Elexpuru**
- Alemanek demokratikoki paratu zuten **tronuan** Hitler. **Markos Zapiain**

3 irud/hed

Geometriaren **tronu** oraindik beroan, aljebra ezarri zuen, garaile, Descartesek. **Jon Muñoz**
Gurutzetik, Kristoren **tronu** gorenetik. **Askoren artean**
Ruche jauna, bere aulki gurgildunaren **tronuan** errege. **Jon Muñoz**
Orduan andre Pobretasunak, bere biluztasunaren **tronuan** etzanda, aurre hartu eta bedeinkapen gozoz bete zituen. **Askoren artean**
Ulertzen dut, bai, hau zigor handia dela eta erabat zuzena, jakinduriaren **tronura** iritsi eta libidoaren morroi izateko handik jaistea erabaki duenarentzat. **Imanol Unzurrunzaga**
Orain metafisikak arrazoimena **tronutik** kentzen du! **Askoren artean**
Tronutik txabolaraino jaisten den eta gizon handiena eta txiroena berdin lotzen dituen obligazio honek zera besterik ez digu esaten: [...]. **Juan Martin Elexpuru**
Plastikozko puf erraldoi batek ipuinetako nanoaren **tronoa** irudikatzen zuen. **Jasone Osoro**
Eguerdia bada eta ederrago: eguzkiaren **tronupean** mundu osoa geldi-geldi, eta ur xirripa bere zilar bidean, nere belarria goxatuz, marmarika bere burutik, bizitzaren inoraezin xalo eta fina erakutsiz. **Patziku Perurena**
Bateria agertokiko **tronua** da. **Berria - Harian**
Nengoèn **tronutik** dena ikusten nuen: Iñaki eta Txomin, adar banaren gainean. **Joan Mari Irigoien**
Tronutik altxatu eta katetik tiratu ondoren, baineran sartu zen. **Jon Arretxe**

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Tronu ospetsuan eserita dagoenagandik hauts eta errautsetan apaldurik dagoenaganaino. **Elizen arteko biblia**
Esaioi zuitzeko, eta eser dadila zilarrezko **tronuan**. **Juan Kruz Igerabide**
Agur, alaba bihotzekoa, zuri eta zure alabei, Jainko handiaren aintzazko **tronura** arte, eta egin otoitz gure alde. **Askoren artean**
Loriazko **tronua**, hasieratik goian ezarria **Xabier Kintana**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erregek **tronu**-gela utzi zuenean. **Xabier Olarra**
Gipuzkoako Foru Aldundiaren **Tronu** aretoa elegante eta apain zegoen atzo. **Berria - Euskal Herria**
Han, sabaiairen gainean, **tronu**-itxurako zerbaite ikusi nuen, zafiro harriaren antzekoa. **Elizen arteko biblia**
Justizia eta zuzenbidea haren **tronu**-oinarri. **Elizen arteko biblia**
Danimarkako **tronu**-oinordekotzarako? **Juan Garzia**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jainko naiz eta jainko-**tronuan** nago eserita. **Elizen arteko biblia**
Errege-**tronuak** irauli eta giza erreinuen ahalmena desegingo. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere tronu (3); **neure tronu dut** (3); **tronu aurrean** (3); **tronu dut zerua** (3)

bere tronua (3); **haren tronua** (4); **jainkoaren tronua** (3); **zure tronua** (3)

bere tronuan (8); **bere urrezko tronuan** (6); **daviden tronuan** (8); **daviden tronuan esertzen** (4); **izakien arteko tronuan** (3); **tronuan eseri** (5); **tronuan eserita** (17); **tronuan eserita dagoenaren** (4); **tronuan eserita zauden** (3); **tronuan eseriko** (4); **tronuan eserita** (6); **tronuan eserita zegoen** (3); **tronuan esertzen diren** (3); **urrezko tronuan** (9); **zure tronuan** (3)

tronuaren aurrean (8); **tronuaren erdian** (3)

tronura igo (3); **tronura iritsi** (3)

bere tronutik (3); **tronutik jaitsi** (3); **zeruko tronutik** (3)

tronugabe(tu), tronugabe(tu), tronugabetu da ad tronukik kendu.

Napoleon deserriar hil zen; Josefina uko hartuta hil zen; Karlos IV.a eta bere emaztea **tronugabeturik** hil ziren. **Koldo Izagirre**

tronukide *(corpusean tronu-kide soilik) iz tronu bereko kide den pertsona.*

Bestorduko geure arreba, oraingo geure erregina, erresuma gudulari honetako **tronu**-kide inperiala, dugu [...] geure emaztetzat hartu. **Juan Garzia**

tronuratu, tronura(tu), tronuratzan da/du ad tronuan jarri.

Wambaren historiak erakusten duenez (672. urtean **tronuratu** zen), bertakoak nagusituak ziren, eta erromatar legeak lege godoak baino itzal handiagoa zuen. **Iñaki Iñurieta**

Gontranek, bere iloba Txildeberto **tronuratzean**, hizketaldi sekretua izan zuen harekin, eta feudoak nori eman eta nori kendu esan zion. **Iñaki Iñurieta**

Apezke eta espainolazaleek hedaturik, aspalditik zebiltzan solas gaiztoak lehenagoko erreginaz -Margarita Angulemakoa, Henrike zenaren emaztea- nahiz Joana **tronuratu** berriaz. **Aingeru Epaltza**

tronutzako *izlad tronutzat hartutakoa.*

Grezia zaharrek poeta jakintsuek kantatu zuten ezen beronek, bere **tronutzako** gurditik, lehoi pare uzartuari zeragiola, erakutsiz lur handia airearen espazioan eskegita dagoela eta lurra ez daitekeela lurtean finka. **Xabier Amuriza**

tropa 1 iz ostea.

Haien agindupean, 2000 gizonen **tropa** zegoen, baxenafatar eta gaskoi. **Aingeru Epaltza**

Astebetea aski izan zuen hogeit bat zaldizko eta ehun bat oinezkoen **tropa** osatzeko. **Aingeru Epaltza**

Berrogeita hamar mila soldaduko **tropak** tatariarrei alboetatik eraso eginez. **Karlos Zabala**

Beren **tropa** guztia bildu eta Ismaelen aurka borrokara irten ziren. **Elizen arteko biblia**

Kataluniako Aste Tragikoa Bartzelonan sortu zen **tropak** enbarkatu nahi izan zituztenean Kuba eta Filipinetarako. **Markos Zapiain**

AEBetako **tropak** hainbat egun daramatzate Faluja eta Ramadi inguruetan, erasotzeko aginduaren zain. **Berria - Mundua**

Agerikoa da Ruandako **tropak** gure herriari eraso diotela. **Berria - Mundua**

Herenegun Armadako bi komandante matxinoren **tropak** Bukavu hiria (ekialdean) hartu zuten. **Berria - Mundua**

Arratsaldean, Emilio Mola frankisten generala buru zuten **tropak** Elgeta hartu zuten. **Berria - Euskal Herria**

Franco jeneralaren **tropen** kontrako borrokan. **Fernando Rey**

Tropa ontzitik jaitsi berriek oraindak okupatu ez duten karrika estu batean barrena. **Harkaitz Cano**

Bushek ezin die aliatuei esan Iraketik **tropak** ateratzea terrorismoaren aurrean makurtzea denik. **Berria - Mundua**

NBERen Segurtasun Kontseiluak hala eskatuz gero, ez dira **tropak** erretiratuko. **Berria - Mundua**

Pirateria **tropa** gutxierekin eginiko gerra besterik ez baita. **Esteban Antxustegi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hurrengo egunean gero eta nabariago zen zaldizkoen eta oinezkoen **tropa** handi bat igaro berria zela. **Karlos Zabala**

Armada sobietarraren **tropa** garailuek Dresdengo Museoko koadroak hartu eta Moskura eraman zituzten. **Felipe Juaristi**

Tropa naziak Manhattan hartu dute! **Harkaitz Cano**

Gerra garaian bera sartu zuan Obaban **tropa** nazionalen buru. **Bernardo Atxaga**

Gure bolondresak harrigarriko ausardiak eraso zieten **tropa** liberaleri, baionetaz. **Txillardegi**

Handik italiar **tropa** faxistak haran estuan gora igotzen ikusi ahal genituen. **Edorta Jimenez**

Baina hark, zinezko **tropa** bat nahi zuen. **Berria - Kultura**

Gudariok Legutioko ofentsiba loriatsua hasi genuelako zeuen **tropa** mertzenarioen aurka. **Koldo Izagirre**

Inolako hauts hodeirik ez zen agertzen zaldizko **tropak** hurbiltzen ari zirela iragartzeko. **Karlos Zabala**

Borrokaldia izango zen berehala iparraldetik zetozen **tropa** moskutarren eta **tropa** tatariarren artean. **Karlos Zabala**

Iraken dauden nazioarteko **tropak** alde egiteko eguna finkatu behar dela Erasoko **tropak** bere loriazko unea bizi dute. **Berria - Mundua**

Lehorreko **tropak** Estatu Batuetako lurraldean zabaltzeko. **Berria - Harian**

Aitona, bada, errepidean zihonan, begiak **tropa** motorizatu haien aitzindari heldu zen lehenbiziko tankean finkatuta. **Fernando Rey**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezinezkoa izango zen **tropa** mugimendurik egitea, eta Mikel Strogoff errazago pasatuko zen. **Karlos Zabala**

Bi mila eta bost ehun mutiko binakako herroketan kokatu ziren **tropa**-garraiorako baliatzen zen batel erraldoiaren sabelean. **Itxaro Borda**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Italia eta Danimarka mehatxatu zituzten, estatu hauek Iraken okupazio **tropak** dituztela argudiatuta. **Berria - Harian**

Nola da posible inbasio **tropak** erresistentziak baino askoz zibil gehiago hil izana albistegietan agertzen diren hildako guztiak hauen biktima badira? **Iñigo Aranbarri**

Espainiako armadari buruzko xehetasunak, baita Alemaniako zein Italiako laguntza-**tropen** gaineakoak. **Alberto Ladron Arana**

Richard Ottaway diputatu kontserbadoreak nazioarte **tropak** «gutxienez hamar urtez izango zirela» zehaztu zuen. **Berria - Mundua**

5 adork taldea.

Bat-batean, **tropa** guztia ate handi itsu baten aitzinean gelditzen gira, xefak ate ondoko zirrinta jotzen du eta beha egoiten gira. **Filipe Bidart**

Tropa txiki bat atera zen, aizkoraz horniturik, Peko Berroko harizti berrira. **Aingeru Epaltza**

Egun batez jakinarazi zieten liberaleri karlisten **tropa** bat iragan beharra zela, jatekoek kargaturik. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Erdiko pasabide nagusian haur **tropa** bat korrika ari zen, jostetan. **Ramuntxo Etxeberri**

Hambost-hogei urteko mutil **tropa** bat iritsi zen Rosatik. **Josu Zabaleta**

Suteari so egon zen Txoko, polizia **tropak**, Kerguelen lehen, eta sokorriak etorri arte. **Itxaro Borda**

Halaxe kizkaliko zuten Aixetako gaztelu zaharra, eta baita hango etsai eta traidore **tropa** guztia ere. **Patziku Perurena**

Soldadu **tropa** handia zegoen Larrearekin batean. **Aingeru Epaltza**

Hurrengo abuztuan, Migel Mailuk agindua hartu zuen Pauetik, Amikuzen jende **tropa** bat biltzeko eta Baigorriara jotzeko. **Aingeru Epaltza**

Olatraneko lepoan ihizari ari zelarrik, heldu zaio uso **tropa** bat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Arditegia sutan zegoen eta barnean 50 axuri eme, ardi **tropa** berritzeko hautak. **Berria - Euskal Herria**

Orai arte, behi **tropa** batean agertzen bazen behi bat burtxoroak joa, hil-arazten zuten eta harekin batean **tropa** guztia... **Herria**

Karrikan hola **tropen** zabilzanak beren aldarrikapenak entzun-arazi beharrez... **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardi tropa (5); behi tropa (5); jende tropa bat (5)

tropa britainiarrei (3); tropa britainiarren (3); tropa erusiarrek (4); tropa estatubatuarrek (3); tropa estatubatuarrek (11); tropa estatubatuarren (5); tropa guzia (3); tropa guzia (3); tropa guztiak (4); tropa guztiak (4); tropa horiek (5); tropa liberelei (3); tropa mugimendu (3); tropa sobietarrak (6); tropa tatarriarren (3)

zaldi tropa (4)

aebetako tropak (8); amerikano tropak (6); armadako tropak (3); bere tropak (12); bere tropak iraketik (3)

emirraren tropak (4); euren tropak (4); gure tropak (6)

indiako tropak (4); iraken dituen tropak (5); italiako tropak (3); nazioarteko tropak (5)

okupazio tropak (3); soldado tropak (3)

tropak aterako (3); tropak ateratzeko (7); tropak bidali (5); tropak bidali zituen (4); tropak bidaliko (4); tropak bidaltzea (3); tropak bidaltzeko (4); tropak bidaltzen (4); tropak erretiratu (5); tropak erretiratu (6); tropak erretiratu dituela (3); tropak erretiratzeko (8); tropak erretiratzeko (13); tropak erretiratzen (3); tropak iraketik ateratzeko (3); tropak iraketik erretiratu (3)

troparik igortzeko asmorik (3)

aebetako tropek (10); bere tropek (4); erresuma batuko tropek (4); francoren tropek (3); gure tropek (3); okupazio tropek (4); turkiako tropek (3)

bere tropekin (3)

aebetako tropen (15); bere tropen (3); espainiako tropen (3); gure tropen (4); nazioarteko tropen (4); okupazio tropen (8)

tropen artean (6); tropen arteko (3); tropen aurka (4); tropen aurkako (4); tropen buru (5); tropen egonaldia (3); tropen kontra (5); tropen kopurua (3)

tropaka *iz ipar* samaldaka.

Etorri dira **tropaka**, non nahitik jinak, Frantziako iparraldetik, Alsaziatik, Bretainiatik eta, nahi ala ez, Parisetik eta Akitaniatik. Aro zaharretako gudari mitikoak bezala aitzinatzen ziren **tropaka**, irriz, dantzalekuaren erditsuraino. Heria

Jendea **tropaka** heldu da. Heria

Bururatuwa dutelarik, fraileak berriz jotzen du xilintxa eta orduan **tropaka** badoaz berriz mendi aldera. Aurelia Arkotxa

tropatu, tropa, tropatzen da/du *ad* elkartu, bildu.

Gertatuak gertatu, dolu bortxatuak katezatu familiakideak agurturik, Pierrak Baionako bidea hartu zuen herriko plazan **tropatuak** ziren lagunekin. Itxaro Borda

tropatxo *iz* tropa txikia.

Eta **tropatxo** ondoren iritsi zuan. Josu Zabaleta

tropel 1 *iz* taldea, samalda.

Laster entzun zituzten ahots latzak eta pauso astunak, eta baita berehala bidelapurren **tropel** osoa ikusi ere. Agustin Otsoa

Jesusen Bihotzetik abiatuko da **tropela**, 17:00etan, eta protestaren joanean, Naval ontziola izango dute gogoan. Beria - Ekonomia

Hara doaz neska-mutilak **tropel** presatuan, plater gaineko altxor ziurraren bila. Xabier Mendiguren Elizegi

Sartuko gaituk langileen **tropelean** eta minutu batean egingo diagu, inor ohartu baino lehen. Bernardo Atxaga

Tropelean eta bultzaka sartzen ziren saltokietan, mukuru betetzen zituzten dendak, eta kotxeek ilara amaigabeak osatzen zituzten, hain ziren ugariak. Jose Morales

Asisko hiri guztia **tropelean** etorri zen eta inguruko herrietako jende guztiak lasterka egin zuen, Jaunak bere zerbitzariagan burutu zituen egintza harrigarriak ikustera. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gotzaina heldu zenean, zapi gorriko jende-**tropel** batez beterik aurkitu zuen errepidea. Koldo Biguri

Ume-**tropelaren** jolas alaien artean. Jose Morales

Halako batean, musikari **tropel** bat sartu zen arrapaladan ostatura, kanpoan euria ari zuelako aitzakian. Felipe Juaristi

Zakur-**tropelak** inguratu ninduen, gaizkile taldeak erdian hartu. Askoren artean

Hitz egitea ez da adierazteko daukagun sentipen **tropelari** irteera emateko bidea besterik. Pako Aristi

Neska dantzari **tropel** bat sartu zen orduan plazara. Karlos Zabala

Eta ume mukizu **tropelak** ? Jokin Muñoz

3 txirrindulari lasterketan, lasterkari gehienak doazen taldea.

Tropelak iheslariak harrapatzen dituenean 'irentsi' hitza erabiltzen da askotan. Beria - Kirola

Tropela oso urrun zuen, bost minutura, eta garaipena eskura zuela zirudien. Beria - Kirola

Laugarren kamera horrek erakutsi zion, hain zuzen, ziklisten **tropela**, goi-goitik, muino bat igotzen. Unai Elorriaga

Tropela txikitzeko egokia da Passo Furcia. Beria - Kirola

Azken 50 kilometroak arte ez zuen atzo **tropelak** erreakzionatu. Beria - Kirola

Tropel nagusia 49 segundora heldu zen eta ez zen aldaketarik egon lidergoan. Beria - Kirola

Afizionatu mailan hamabi garaipen lortu ditut **tropeletik** ihes eginda, eta, horregatik, konfiantza banuen neure buruarekin. Beria - Kirola

Asturiarrak bere kabuz lortu zuen **tropeleko** burura iristea. Beria - Kirola

Badirudi jendeari ez zaiola gustatzen Euskaltel taldea **tropelaren** buruan ikustea. Beria - Kirola

Oraindik atzerago Markus Zberg, **tropeleko** lehena helmugan sartzen. Beria - Kirola

Tropelekoak mendate horren zain eta Richard Virenque ere bai. Beria - Kirola

4 irud/hed

Igotzeko gogoan badago, baina ezkorren **tropeletik** baikorkeriaren **tropelera** salto egiteko arriskua du burtsako itzuliak. Beria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tropel nagusia (4); tropel nagusian (9); tropel profesionalen (3); tropel txikia (3)

txirrindulariko tropel (3)

onenen tropela (5); tropela hausteko (3); tropela hautsi (6); tropela txikitu (5); tropela txikitu zuen (3); tropela txikitzeko (3)

igoko ditu tropelak (3); irentsi zituen tropelak (3); irentsi zuen tropelak (3); tropelak harrapatu (6); tropelak irentsi (3)

tropelaren babesean (3); tropelaren buruan (10)

onenen tropelean (3); tropelean heldu (3); tropelean sartu (3)

onenen tropeleko (3); tropeleko esprinter (3); tropeleko txirrindulari (12); tropeleko txirrindulari onenetakoa (3)

tropeletik ihes egin (3); tropeletik ihes eginda (3)

tropelburu (*25 agerraldi, liburu 1 eta 16 artikulutan; orobat tropel buru 25 agerraldi 19 artikulutan*) **1** iz tropelaren buru den pertsona.

Peppone zen **tropelburua**. **Koldo Biguri**

Bi **tropelburuak** aurrez aurre geratu eta gogorki begiratu zioten elkarri. **Koldo Biguri**

Frantzia «Europaren hazkuntzaren **tropelburuan**» dagoela. **Berria - Ekonomia**

2 txirrindularitzan, tropelaren burua.

Talde indartsuenak **tropelburuan**, eta esprinterren taldeak atzean. **Berria - Kirola**

Asentziora bidean taldeen lan polita ikusi zen; buruak **tropelburua** nola eramaten zituzten, hain zuzen ere. **Berria - Kirola**

Libertyk atzera egin zuen **tropelburutik**, eta Quick-Stepek txanda hartzerako, berandu zen. **Berria - Kirola**

tropeldu, tropel(du), tropel, tropeltzen da *ad* tropel bihurtu.

Nonpoilu tikiak ateratzen zaizkio, normalean, goi aldetik: lurrin beroa, hegazkinetik irten orduko, kanpoko hotzaren magalean, hazi eta gizendu egingo da, zabaldu eta

tropeldu. **Pello Zabala**

tropelka *adlag* taldeka, samaldaka.

Jendetza ikaragarri bat biltzen da katedralaren inguruan **tropelka**, estu-estu eginek poliziak zorrotz zainduriko ateen aurrean. **Juan Garzia**

Bazela beste jende bat -jende heldua, gainera- guk bezala egunero-egunero eskolako aldapako bidea egiten zuena, eta eskola-umeak bezala, egunero-egunero **tropelka** ibiltzen zena: behargin jendea, hain zuzen ere. **Pedro Alberdi**

Hirugarren bat gero eta betokerrago zegoela gizonaie begiratzearen begiratzeaz; laugarrenak ahantzia zuela zorriak garondotik **tropelka** jaisten zitzaizkioneko... **Patxi Zubizarreta**

Hegaldian oroitzapenak, sentsazioak eta gogoetak **tropelka** datozkio gogora egileari, eta xehe-xehe kontatzen dizkigu. **Berria - Kultura**

tropelkatu, tropelka(tu), tropelkatzen da *ad* taldeka, samaldaka bildu.

Dolcinoren inguruan **tropelkatzen** ziren dohatsu, eta murmurikatzen: "Aita, aita, aita!". **Juan Garzia**

Denek imitatzen zuten haren keinua, are, ate kanpoetan **tropelkatu**rik, hitzik ere ulertzen ez zutenek ere. **Juan Garzia**

Tebastarrek barreari eman zioten eta haren etxe aurrean **tropelkatu**; bizkitartean haiek baino barre gehiago zegien berak. **Juan Garzia**

tropeltxo 1 iz tropel txikia.

«Eguberritarako tripa horiek desagerraraziko ditut», esan zuen irakasleak, inolako zalantzarik gabe bromatzat hartu behar zen tonu kastrense bat imitatuz, ariketa abdominalak egiten zituen bere **tropeltxoaren** artean eskuak bizkarrean trabeskaturik paseatzen zelarik. **Berria - Kultura**

2 (txirrindularitzan)

20-25 txirrindulariko **tropeltxoan** garaipena lortzeko aukera handia daukat. Hamalau txirrindularik osatutako **tropeltxoak** izan zuela arrakasta. **Berria - Kirola**

Azevedo **tropeltxoaren** buruan jartzearekin bat, txikizioa. **Berria - Kirola**

Bi minutuko aldea atera zion faboritoen **tropeltxoari**, eta 22. jarri da sailkapen nagusian. **Berria - Kirola**

Tropeltxoa gero eta txikiagoa. **Berria - Kirola**

tropikal *izond* tropikokoa, tropikoarena, tropikoari dagokiona.

Mendebaldeko Kristandadea banatuta zegoen lehorrez Afrika **tropikaletik**. **Iñaki Mendiguren**

Asia eta Australia aldean, berriz, montzoien lurralde **tropikala** daukagu. **Pello Zabala**

Egun-argitik gauerako bitartea ez da izaten ordu erdi baino gutxiagokoa, ezta eskualde **tropikaletan** ere. **Irene Aldasoro**

Herrialde **tropikaletakoa** bide da jatorriz [*Drosophila melanogaster* eulia]. **Juan Garzia**

Gaitz **tropikala** da elephantiasisa; arraroa oso, mendebaldeko herrialdeetan. **Berria - Gaiak**

Hainbat gaixotasun **tropikalen** kontrako txertoak hartu ondoren. **Xabier Montoia**

Klima **tropikala**, landareta ikusgarria sortzen duen arren, ez da laboreak landatzeko lurralde emankorra. **Iñaki Heras**

Jenderik gehiena, klima **tropikaleko** lurraldeotan bizi da, biztanleriaren ia erdia bai. **Pello Zabala**

Oskorriari luzitzeko astirik eman gabe zabaldu da gau **tropikala**, beroa eta itsaskorra. **Joseba Sarrionandia**

Adituek esan zieten, datozen hamarkadetan zikloi **tropikal** eta bero bolada gehiago pairatuko ditu Asiak. **Berria - Gaiak**

Ekaitz **tropikal** eta hurakan beldurgarri eta kaltegarriak gerta daitezke. **Pello Zabala**

Euri **tropikalari** begira. **Joseba Sarrionandia**

Erdi Amerikako oihan **tropikala**. **Iñaki Mendiguren**

Oihan **tropikalaren** joritasuna. **Iñaki Mendiguren**

Hango baso **tropikalak** suntsitzeaz gain, lurrik pobretzea eta pestizidak gero eta gehiago erabiltzea eragiten du sojaren sukarrak. **Berria - Gaiak**

Landare **tropikalek** bazter guziak apaintzen zituzten. **Ramuntxo Etxeberri**

Alde batetik, kafea, kakaoa, azukrea, patata, tomatea, artoa, arroza, fruitu **tropikalak**. **Koro Navarro**

Ez zen han hazten Mendebaldekoentzat interesik izan zezakeen ekoizpen **tropikalik**. **Koro Navarro**

Giza zama horiek, ondoren, Amerikara eraman eta gai **tropikalekin** trukatzeko ziren. **Koro Navarro**

Auskalo zergatik, txori **tropikalen** bat zela erabaki genuen, lorenzo familiakoa-edo. **Bernardo Atxaga**

Marrazo erraldoi **tropikalak**. **Paddy Rekalde**

Bezperan agertu zen etxean, arrain **tropikalak** ekartzera. **Patxi Iturritegi**

Iraultza **tropikalaren** gerrilla ibiltaria. **Itxaro Borda**

“Zientzia ekonomikoak gogoeta horretan sartu behar dira, gizarte zientziak bezala”, dio Jeremy Jackson Smithsoniango ikerketa **tropikaletako** institutuko kideak. **Berria - Hariari**

Londreseko Medikuntza **Tropikaleko** Eskolak egin du ikerketa lana. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekaitz tropikal (5)

ekaitz tropikala (4); klima tropikala (6); oihan tropikala (4)

ekaitz tropikalak (13); oihan tropikalak (4)

ekaitz tropikalaren (6); **ekaitz tropikalaren eraginez** (3); **oihan tropikalaren** (3); **winnie ekaitz tropikalaren** (3)
londresko medikuntza tropikaleko (4); **medikuntza tropikaleko** (9); **medikuntza tropikaleko eskolako** (4)
oihan tropikalen (4)
medikuntza tropikalerako (4)

tropikalismo *iz* Brasilgo kultura-higikundea, 1970 inguruan gertatu zena, besteak beste Bahia inguruko herri musikako, bossa-novako eta rock-and-rolleko elementuak bildu zituen.

Eta **tropikalismoa** ere hala sortu zen; ez zen alde zuzenik pentsatutako mugimendua izan. Berria - Kultura

Tropikalismoak izan du nolabaiteko eraginik zuengan? Berria - Kultura

tropikaltasun *iz* tropikala denaren nolakotasuna.

Bertan mailarik goreneko musika kubatarrak hartzen du protagonismoa *Timbancó* laukotearen eskutik, eta haien teklatu, perkusio, tronpeta eta gitarretatik irteerako soinuekin dantzatzeko konpainiak kideak, kontraste arraro eta zirrargarria sortuz beren mugimendu etereoan eta **tropikaltasunaren** artean. Berria - Kultura

tropiko 1 *iz* Ekuatoretik 23° 27'-tara, iparraldera eta hegoaldera, Lurrean nahiz zeru esferan, dauden bi paraleloetako bakoitza.

Keopsen piramidea Gize-n dago, 30°ko latitudean, ipar-hemisferioan; **tropikotik** gora, gu bezala; askoz beherago, ordea. Jon Muñoz

Eguzkiaren arrazoi bakar eta zuzenik ere ez dago argi, zergatik doan, udako aldeak utzirik, kaprikornioaren neguko **tropikora** eta nola, han eurt eginik, kantzerren solstizioa duen berriz helburu. Xabier Amuriza

Zeren, akiloiatik austrorako bide erdian, zeruak distantzia berdiner mantentzen baititu **tropikoak**, zodiako osoaren posturagatik. Xabier Amuriza

Malaria **Tropiko** Azpiko 102 herrietan hedatzen da. Pello Salaburu

Zin egin nuen, esku ahurra Millerren *Cancer tropikoa*-ren azalaren gainean solemneki ezarrita. Aingeru Epaltza

Handik behera egiten du, **tropikoaz** azpiko lurteraraino, eta han, lehorte eragiten du. Berria - Gaiak

2 (izenondo gisa)

Halako batean, denboraren denboraz, toki berera itzultzen da [eguzkia] berriz ere, eta aspaldi ikusitako tokietan ageriko da biribil-biribil eta distiratsu: horri deitzen diogu urtea, urte **tropikoa**. Pello Salaburu

3 tropikoen arteko eskualdea.

-Non bizi izan haiz **tropikoa**? Xabier Olarra

Pentsa, **tropikoa** denbora puska bat eman duten ingelesak susmagarri dituk beren sorterrian. Xabier Olarra

Meatokitak ostiakuntzaren ondoren, segituan, **tropikoko** laboreak etorri ziren, europarren kontsumorako denak: azukre-kainabera, kafea, kakaoa, geroago kotoia eta kautxua. Koro Navarro

Tropikoko gaitzetatik babestea bazegok; ez, ordea, **tropikotik** beretik. Xabier Olarra

Tropikotik itzuli nintzenez, han gelditu ninduan. Xabier Olarra

Amerikako **tropikoa** bizi da. Ibon Uribarri

4 (pluralean)

Bere amets guztia da **tropikoetara** bizitzera joatea, urteko egun guztietan eguraldi epela duen Karibeko uharteren batera. Oskar Arana

Filipinak deitzen diren ugarte porroxken historia **Tropikoen** itsas haizean idatzia izan da. Ramuntxo Etxeberri

Gizakiak (nahiz hegaztiak), ipar polotik **tropikoetara** joanda ere, oso aldaketa txikiak izango ditu gorputzaren tenperaturan. Irene Aldasoro

Nihaurek atzeman ditut hondartzetan **tropikoetako** arrainak. Berria - Euskal Herria

Ardiaren ileak 93 °C-rainoko tenperatura irits dezake kanpotik **tropikoetako** eguzkipean. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tropikoa bizi (4)

tropikoari buruzko (4)

tropikoaz azpiko (3)

tropo *iz* erretorika-figura, hitz bat berezko adieraz bestelako batean erabiltzean datzana.

Iluna, Unamuno-ren pentsamendua delako iluna kapitulu honetan (eta, menturaz, edonolako **tropo** artean berak apropos ilunagotua, ez zelako inkontziente bere iluntasunez). Joxe Azurmendi

Hizkuntza klasiko guzira da funtsean baserriko (rurala) izana, eta bere **troporik** ederrenak tokian tokiko izadiari zor dizkiona. Patziku Perurena

Bertsoa txartu egin dezake **tropo** eta irudien metatzeak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Tradizionalki, **tropo** edo figuren ugaritasunean aurkitu nahi izan da literaturtasunaren ezaugarria, hots, hizkuntza-arau zein hizketa arruntarekiko urruntasunean. Bernardo Atxaga

Poetika jakin bat aztertzeak kasu bakoitzean erabilitako baliabide poetikoak xehe ikertzea eskatzen du oro har, kontuan harturik helburua ez dela azal daitezkeen irudiak eta **tropoak** besterik gabe katalogatzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Tropoei dagokien, ikerketa ezean senak gidatuta esan ahal izango dugu nagusi direla metonimian oinarrituriko jardunbideak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Tropo, irudi, edergailuzko lorebaratze naharo horrek ez baitu onartzen egia zorrotzak baieztatu ez duen xehetasun bat bakarrik ere. Juan Garzia

tropoildu, tropoila, tropoiltzen da/du *ad* nahaspilatu.

Bere aitarentzat zen *Huisston 3 R* maleta gorria lardaskatuta zegoen dena, berak bertan tolestu eta txukun jarritako janzkiak nolahi pilatuta zeuden, desordena batean eta edozein modutan **tropoilduta**. Joxemari Iturralde

tropoila *iz* nahaspila, nahaste-borrastea.

Laugarren zigorroa paketetik ateratzera zihoanean ahots hotsak entzun eta jende **tropoila** ikusi zuen eskaileratik jaisten. Joxemari Iturralde

Jendea **tropoila** pilatzen zen eta artean eserlekurik aurkitu ez zutenek bultzatuta egiten zuten aurrekoei aurrerago sartzera behartuz. Joxemari Iturralde

Une bat iritsi zen non ikasleek eskaileran geratu behar izan baitzuten aurrera ezin eginik, harik eta handik puska batera, Europa ekialdeko ikasle talde bat, [...] **tropoila** kalera ateratzera animatu zen arte. Joxemari Iturralde

troposfera

iz atmosferaren zatia, lur azalaren eta estratosferaren artekoa.

Gailu horiek **troposferako** eta estratosferako datuak bilduko dituzte. Beria - Gaiak

Ozonoa modu naturalean dago **troposferan**. Beria - Euskal Herria

Nitrogeno dioxidoak asma, alergiak eta ozonoa **troposferan** sortzea eragiten du. Beria - Mundua

troposferiko

izond troposferakoa, troposferari dagokiona.

Lau gailu berezi ditu *Aurak*: erresoluzio handiko zunda dinamikoa, mikrouhinen zunda, ozonoa kontrolatzeko sentsore espektrometroa eta sentsore **troposferikoa**. Beria - Gaiak

Ozono **troposferikoa** gizakion osasunarentzat kaltegarria da, bai eta landareentzat ere. Beria - Euskal Herria

Zentral termikoek igortzen dituzten nitrogeno oxidoak ozono **troposferikoaren** aitzindari izaten dira, landareei eta gizakion osasunari kalte gehien egiten dioten kutsatzaileetako bat. Beria - Harian

Ozono **troposferikoaren** igoeraz kezkaturik daude ekologistak. Beria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ozono troposferikoa (5)

ozono troposferikoak (5)

ozono troposferikoaren (9); **ozono troposferikoaren aitzindari** (3)

trotskismo

(corpusean *trotskismo soilik*) iz L. Trotski-ren doktrina iraultzailea.

Vladimir, 68ko maiatzaren garaiaz gero, ezkerreko talde eta joera guztietatik pasatua zen: stalinismoz zipriztindutako marxismo-leninismotik **trotskismora** eta (berehala) maioismora; [...]. Iban Zaldúa

trotskista

(*orobat trotskista g.er.*) 1 izond/iz L. Trotski-ren eta trotskismoaren jarraitzailea.

Modu horretan ezagutu nuen Francine, lehen aipatu dizudan atso **trotskista** hori. Unai Iturriaga

Alderdi **trotskistak** indar guztiak ezarri ditu itunaren aurka. Beria - Harian

Ezker muturreko alderdiak dira, **trotskistak** eta komunistak. Beria - Mundua

Elkarlanean jarraitzeko gogoia du LCR **trotskistak**. Beria - Harian

Alain Krivine **trotskista** aulkia galtzekotan dago. Beria - Euskal Herria

Imajinaezina zela Ondarroako edo Hernaniko **trotskista** batek gauak belauniko pasatzea. Bernardo Atxaga

Guk pentsamendu eta mugimendu ezkertiarren loratzea bizi izan genuen Parisen: gautxistak, maoistak, **trotskistak** ... Ana Urkiza

Errusian, baten batek **trotskistatzat** salatu zuen, eta urre meatzeetara bidali zuten, iparraldera. Koro Navarro

• 2 izond trotskismoarena, trotskismoari dagokiona.

Hori ere ez zitzaigun arraroa irudituko, gure curriculum eta argitaletxearen iragan **trotskista** ezagututa. Iban Zaldúa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi trotskistak (3)

trosko¹

izond/iz *adkor* trotskista.

Neuk entzunda dauzkat ETAKoa naizela, **troskoa** naizela, PNVkoa naizela, anarkista naizela, HBkoa naizela, erosita nagoela, EAKoa naizela, Aralarrekoa naizela, neure amaren semea naizela... Hasier Etxeberria

Trosko izana zen. Xabier Mendiguren Elizegi

-Erran nahi baita... **troskoan** taberna horretan lau bat erakusketa egin nituela. Unai Iturriaga

trosko²

iz zakilaren eta barrabilen multzoa.

Bainujantzia besterik ez soinean, oinutsik zebilen kirola egiten eta bere oinek lurra ukitze orotan, zakil-barrabilak, hau da, bere **trosko** ederra, boing-boing mugitzen zitzaion gora eta behera. Aitor Arana

Esliip moduko bainujantzia zeraman eta ia **troskorik** ez zeukala zirudien. Aitor Arana

Trosko txikia duenak zakil txiki samarra izango du teorian, ala? Aitor Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trosko txiki (3)

trosko txikia (3)

trosta 1

iz zaldiaren eta kidekoen ibilmoldeetako bat, urratsezkoaren eta lauoinakokoaren artekoa.

Gero, **trosta** hori ohiko ibilerara itzultzen zen, Nikolas itzartzen zelarik. Karlos Zabala

Joxe Marik gelditu ninduen, zaldi baten **trosta** gelditzen duen zezenak bezala. Juan Kruz Igerabide

Goiz batez, zaldi baten **trosta** entzun du Elederrek. Anjel Lertxundi

Zaldiaren **trosta** ere ez nuen entzuten gainera, eta harritzen ninduen, gaua bare baitzegoen. Josu Zabaleta

Irrintzi egin zuten zaldiek eta, ibili-ibilian bazebiltzan ere, **trosta** astirotu behar izan zuten, harik eta kalesa geldirik zegoela zirudien arte. Anjel Lertxundi

Zaldiek **trosta** bizkortu zuten eta kalesak bideari ekin zion berriro. Anjel Lertxundi

Zaldiek, inoren inolako agindurik gabe, zeudenetik mugitzeke ibiltzeari utzi, eta, **trosta** biziturik, bideari ekiten zioten. Anjel Lertxundi

Zaldiek ohiko **trostaren** ibilian segitzen zuten, lasai eta erasoekiko axolagabe. Anjel Lertxundi

Trosta eta **trosta**, etengabeko ibilian egon dituk urkatzeek iraun duten bitartean. Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Jendetzaren joan-etorri etengabearen artean, gurdiaq gangen azpian sartzen ziren, haien zaldien **trosta** zaratatsua baretzen zela. Karlos Zabala

Entzunak nituen atsedetik hartzen ez zuten zaldien **trosta** beti berdin hari buruzko esamesak. Anjel Lertxundi

Maldan behera gindoazen oinez, astoen **trosta** punpakatua entzunez. Koro Garzia

Aurrera jarraitu zuen kotxeak, zaldien **trosta** motelean. Koro Navarro

Serkok zaunka egin zuen pixka batean, eta kibitka **trosta** txikian jaitsi zen Krasnoierskeko bidean behera. Montorgueil kalean behera jaitsi zen **trosta** laburrean, itxura alaiarekin. Jendea atzetik segika zuela igarri zuenean, zaldiak **trosta** luzean jarri baitzituen, eta lauhazkan gero. Karlos Zabala

Imajina ditzaket soro idor hauetan Erdi Aroko bidaiariak, pausoen makaltasunean edota zaldien **trosta** nekean batetik bestera. Pako Aristi

Destakamendua **trosta** bizian zebilen karrika estu hartan zehar. Karlos Zabala

Une hartatik aurrera, zaldizkoak nahiko **trosta** arinean joan ziren ofizialak korrika jarraitzera behartzeko. Agustin Otsoa

Endaitzen arteko zaldia, beste biak baino handixeagoa eta gurdiairen ibilera zuzentzeko ardura zuena, **trosta** luze-luzean zihoan beti, zelaian nahiz maldan. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bat-batean **trosta** -hots gehiago iritsi zen argiunearen beste aldetik. Iñaki Mendiguren

Haietako batek bidea erakutsi, landroverraren aldamenearen bere **trosta** -pauso indioan lasterka. Joxe Austin Arrieta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zaldi-**trostaren** denbora etenik gabea entzuten nion sukaldeko erloju tzarraren hots monotonoari. Anjel Lertxundi

Zaldi-**trostak** kalesari eragindako klanka-klankarekin bat egin zuten aitaren azken hitz errepikatuek. Anjel Lertxundi

Bat-batean soinu txikia jotzen hasten dira, panderoaren kriskitin-**trostaren** gainean. Pako Aristi

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Urrunean zaldi **trosta** hots ozena sumatu zen. Itxaro Borda

6 irud/hed

Laster nabaritu dut berriz giltzadunen **trosta**. Koldo Izagirre

7 *trostan* adlag

Utzi zuten herria, eta batzuetan **trostan** eta besteetan urratsean, Amezketaraino iritsi, eta han gelditu ziren.Zaldi gainean **trostan**, zurien karabanari erasoan. Koro Navarro

Han abiatu ginen **trostan** Carmarthengo hirirantz. Koro Navarro

Gurditzar batzuk **trostan** iritsi, eta Vallée merkatuaren espaloi bat oztopatu zuten zeharo. Karlos Zabala

Zaldiak dantzatokiaren erdiraino **trostan** sartu eta han geratu ziren. Iñaki Mendiguren

Zaldunak mingaina klaskatu eta **trostan** joan zen. Anton Garikano

Zaldia **trostan** jarri zuen berriro ere. Karlos Zabala

Zaldiek neketsuago eta makalago egiten zuten **trostan**. Anjel Lertxundi

Bernardinok zigorrada batez abian jarri zituen zaldiak, **trostan** baino dantza geldian gehiago. Felipe Juaristi

Aurreko gauean, handixe etorri zitzaion **trostan** oreina. Iñaki Mendiguren

Lasterka joan ziren, ahal bezain bizkor, Buckbeak erdi **trostan** atzetik zutela. Iñaki Mendiguren

Zaldi gainean kasakak airean eta ezpatak eskuetan turkoen aurka **trostan** amildu zirenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

8 irud/hed

Pelotoi bat sartua zen galerian, **trostan**, fusilak eskuetan, bular aurrean gurutzatuak. Koldo Izagirre

Ilargia **trostan** zihoala zeru hodeitsutik, [...]. Julen Gabiria

Burutu ezin ditudan estudio madarikatu horiek guztiak **trostan** zabilzkidak buruan. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trosta astirotu (3); **trosta bizian** (3); **trosta bizkortu** (3); **zaldi trosta** (3); **zaldiaren trosta** (3); **zaldien trosta** (6)

erdi trostan (3); **trostan hasi** (4); **trostan joan** (5); **trostan zihoala** (3); **zaldia trostan** (4)

trostaka *adlag* trostan.

"Arre!" eta "Iso!", eta haren mingaina ahoaren sabaian **trostaka**. Koro Navarro

Une haiek ziaten Marcia ulertzeko gakoa, istant tximistatsu haiek, **trostaka** iragaten den printzesaren karroza. Berria - Kultura

trostaldi *iz* trostan egiten den saioa.

-Hator, nana; hator, ene laztana: amaitu dun **trostaldia**. Anjel Lertxundi

Baziren amets haietan zigorrak eta sugeak adinako begiztak, mendateetan zehar ihes egiten zuten dilijentziak, **trostaldi** luze haizetsuak kaktus soroetan barrena. Koro Navarro

Ez nintuen elekatu nahi izan eta Elur-i aztal ukaldi batez **trostaldi** labur bat galdegin nakon horietarik urruntzeko. Michel Oronoz

Gorrotatzen ere hasita nengoen bai Leonore eta bai haren **trostaldi** tristea. Anjel Lertxundi

trostari *1 izond/iz* trostan doana.

Aizak, Iliá Paramonix, ea noiz hatorren nire **trostaria** ikustera: lasterketa egingo diagu, ea zeinek irabazten duen, hireak ala nireak! Jose Morales

Kanpoan paseo bat ematea, edo **trostari** eder bati gurdia lotu eta lasterketatxo bat egitea. Irene Aldasoro

2 irud/hed

Scènes d'enfantseko beste pieza **trostari** bati etorri zitzaion txanda, *Histoire bizarreri*. Anjel Lertxundi

trote *1 iz* trosta.

Zaldun eta **trote** -zaleak nola ziren, gainera, zaldiak zirikatzeko eta astintzeko makilatxoak ere lizar-adarretatik hartuak ohi ziren. Pello Zabala

2 irud/hed

Ez hago hi **trote** horreitarako. Txillardegi

-Ez al zaigu **trote** hauetarako sasoia joaten ari? -dio Inaxiok arnaska. Pako Aristi

3 *trotean adlag* trostan.

Gurdietatik askatutako zaldiak **trotean** ari dira, putzuetan zehar larrean, jaietarako jantzitako mutikoren bat zaldun. Josu Zabaleta

trotineta 1 iz ipar patinetea.

"Rollers" txirindula, oinezkoak, **trotinetak** ala oinetako erroten gainean baizik ez da ibiltzen ahalko leku hortan. Heria

Zoin lasterka edo kurri, zoin xirindulan edo **trotinetan** ibiltzen ahalko direla igande goizetan 9 etarik eguerdi arte. Heria

2 (hitz elkartuetan)

Handik landa birla lehiaketa bat, 12 urtez pekoentzat **trotineta** zeingeziagoka eta segitzeko, arraza markarik ez duten zakur/xakur lehiaketa. Heria

trotskismo ik troskismo.

trotskista ik troskista.

trovero iz trovoak bat-batean kantatzen dituen hispanoamerikar bertsolari modukoa.

Maximiano Trapero, decimista eta **troveroen** kantuzko inprobisazioaren ikertzaile handiak, modu miresgarrian jaso zuen argudioa dela bertsolaritzaren funtsezko izaera: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hor daude, esate baterako, decimista eta **trovero** hispanoamerikarrak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

trovo iz bat-batean botatzen den bertso modukoa.

Dela décima, dela **trovoa**, dela glosa... bertsoaren modu berera egiten dutela jabetu ginen. Andoni Egaña

troxa iz pl/ haur oihalak.

Ez dizkio **troxak** aldatzen, ez du kulunkatzen; negar egin dezan uzten du. Eskarne Mujika

Izbekak umea **troxetan** ekarri zion buhameari eta, papo aldea azalduz, bi bularren erdian pausatu. Itxaro Borda

Larruak gainezka egiten zion alkandora eta mantalean, doi-doi kabitzen zen barruko arropa zurien azpian, **troxetan** bildutako umegorri potolo bat zirudien. Karlos Zabala

Haurren inozentziara zeharo itzultzearen, sehaska bat fabrikatu zuen, **troxaz** bil zezaten agindu, eta bularra eskatu zion errukiz negar egin zuen emakume single bati.

Juan Garzia

troxatu, troxa(tu), troxatzen (orobat troxatu) 1 du ad troxetan bildu.

Haur bat aurkituko duzue xatarrez **troxatua**, eta otalako batean etzana. Heria

Gordeka bezala, keinu ernez, emaginak ohe estalki batean **troxatu** zuen eta eliza atarian utzi. Elena Touyarou

Frantxua amodio hurbilaz **troxatu** zuela oroitzen zen emaztea: ez zekien zergatik baina bere sabeletik munduratuko zen lehen haurra neska zatekeela imajinatu zuen beti Maianak. Itxaro Borda

2 irud/hed

Bat-batean papera hartu eta tabako lerroa harekin **troxatu** zuen, bazterretara tu eta alajinkoa-ka. Itxaro Borda

Zenbait astez beraz, gure dorrea aldamu azkarrez izanen da **troxatua**. Heria

Gauetz ibiltzen naizenean, batez ere lainoak bere oihal laztanaz bazterrak **troxatzen** dituelarik, gasnategiko argiak ortzaizean jaukitzen zaizkit, oldarroi, menperatzaile, beldurgarri. Itxaro Borda

Ilunpeak **troxatzen** zion soa geltokiaren eremuan urtzen saiatu zen, tristura bultaren ezabatzeko. Itxaro Borda

Bere herrikoak arras zeru-zulo itxuratzen zituela, Tours eta Orleans bitarteko ogi zelai hedatuaren zedarrietan hedoiak bereiz zebiltzan, zerua urdintasunaren xatarraz **troxatu** eta zurtasun mardulez hantuz. Itxaro Borda

Jaun apezak ongi **troxatu** prediku bat egin dauku eta mundu zabaleko berri ere jakin dugu, argazkieri esker. Heria

Ideologia historikoak zuen beldurra **troxatzen**. Itxaro Borda

3 (era burutua izenondo gisa)

Egun batez nire anaia Gino ikustera etorri zen, artean nini **troxatua**, kalentura pixka bat zuelako eta, gure aita lasaitze aldera, aztoratuta baitzegoen, esan zion sukarra apika hortzengatik zela. Fernando Rey

Bat-batean, birjina **troxatua**, jaiki, eta lurpean barrendu zen, hortzak agerian. Juan Garzia

trozatu ik troxatu.

trufa 1 iz burla, iseka. ik ihakin.

Bizkitartean dena izan da **trufa** eta algarra, espero baitzuten aurreneko mehatxua aski izanen nuela koldartzeko. Koldo Izagirre

Ez zen hori denen gustukoa izan, izan zen irri eta **trufa**. Michel Oronoz

Antolatzaileek antzerkitxo moldean dute euskal gizartea kitzikatu: **trufa** eta arralleria nagusi, ez-beharrak salatuz. Heria

Ez zien Migel Mailuren **trufei** ihardetsi. Aingeru Epaltza

Bere egoerak hobera egin zuen eta ordurako ez zen Um Hamidaren **trufak** jasan behar zituen muturzikina. Patxi Zubizarreta

Fernando joan eta etorri zebilen, kazetarien esan eta **trufei** erreparatu gabe. Lutxo Egia

Akitaniako zerrendaburuak ttipikeriak eta **trufa** erabili ditu PS eta Bayrouren aurka. Berria - Euskal Herria

Ene baitan egin nuen, neska hori, burua gora eta papoa harro, ez zela **trufa** eta espantu baizik. Janbattitt Dirassar

Zaintzaleak ez zuen ulertzen gure ezetza, eta oraino guttiago gure irriak eta **trufak**... edo ez ulertua egiten zuen. Filipe Bidart

Jadanik abertzale izenaz beztitzen zen Frantxis **trufa** eta **trufa** ari zitzaion. Itxaro Borda

-Ageriko... -erran zion **trufa** ezpainetan apez kazetari kokin batek. Itxaro Borda

Lehen irria eragin didan **trufari** guztiz gustu txarrekoa irizten diot orain. Patxi Zubizarreta

Ez ote da **trufa** bat geure buruari? Berria - Kultura

Darcosek **trufa** merke. Berria - Euskal Herria

2 (izenondoeekin)

-O, ez, jakina hilko naizela -esan zuen berak, **trufa** gaiztoaren airea ezkutatzeko batere ahaleginik egin gabe. Oskar Arana
Parisera abiatzen zirenek ez omen zuten **trufa** garratza baizik merezi, hirira joaten zirelako, mutikoak mutil izateko eta neskek, nola ez, puta bilakatzen. Itxaro Borda
Trufa gaizto hark arrakasta izan zuen, gaitzerreraneko joera duten guztiak bezala. Jon Muñoz
Bereziki emazte soldado harek irakiar presunerak buluzgorri ezarririk heieri egin dezteien **trufa** ahalgegarriak. Herria
Nolako **trufa** samina! Koldo Izagirre
Ez zait laket jokabide makurrei **trufa** makurrak gehitzea. Jon Muñoz
Instrukzioak, zaintzaldiak, ofizialen aginduak, armakide zaharragoen ziriak eta **trufa** krudelak. Aingeru Epaltza
Trufarik krudelenaren irria zen, azpian eta bere maskarapean oinaze neurritz gaineko hura gordetzen zuelako, bizi-bizia... Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Uztail hasieran, uste ez genuen arma erabiltzen hasi ziren gure kontra: **trufa**-kantak. Aingeru Epaltza
Furgonetan ere **trufa** giroa nagusitu da. Patxi Zubizarreta
Trufa eta txantxa giroko horrelako elkarriketa batean, harrigarria iruditu zitzaidan bat-batean ezezagun bati horrelako aitortpena egitera ausartzea. Oskar Arana
Aingeru aurpegi horretan ez zen, alabaina, **trufa**-aierurik, sufrimendu neurtezin eta isilaren marka baizik. Aingeru Epaltza
Trufa tanta bat dago galdera horretan. Koldo Izagirre
Furgonetak ere hasieran benetako erlauntza bat ematen zuen, **trufa** eta haserre hitzak nahasian. Patxi Zubizarreta
Iduritu zitzaidan **trufa** musika zerbait bazela Elenaren solasetan. Janbattitt Dirassar
Ez, motel, ez haiz oraingoz hilko, broma bat zuan, ondo bizirik hago!, esan zuen Angelok, apur bat serioxeago, baina artean **trufa**-doinua guztiz baztertu gabe. Anjel Lertxundi
Wallace Reiden eta Valentinoren eta aspaldiko denboretako gainerako izarren **trufa**-irribarrea ikusten nuen. Fernando Rey
Ez nien deitu, lo-kuluxkaren ordu nagai haietan hotelean zer egiten ote nuen **trufa**-ziritan hasteko aukerarik izan ez zezaten. Anjel Lertxundi
Halako **trufa** aire batez jantzi zen erregeren ahotsa: [...]. Aingeru Epaltza
Eta, nik dakita, halako **trufa** aireño batekin, ez banizu bederen aipatu andre hori. Janbattitt Dirassar
Gaur egun irri edo **trufa** konnotazioak izaten ditu gehienbat prozedura honek. Josu Zabaleta

4 *trufan adlag* trufa egiten.

Aurretik intsentsua bota eta atzetik **trufan** ibiltzen zitzaizkionak, adarra jotzen, maiseatzen. J.M. Olaizola "Txiliku"
Baroi gaztearen bizkar **trufan** aritzen ziren, ikusita nolako apainkeria zaharkituarekin adierazten zituen esaldiak. J.M. Olaizola "Txiliku"
Errekesta bera ginuen beti, halere bat entzun nuen **trufan** ari: [...]. Michel Oronoz
Ni irriz **trufan**, baina beste guztiak serios, mutur eta ilun, beren ekimenetan biziki serios. Filipe Bidart

5 *trufaz adlag* trufa egiten.

Trufaz galdetzen zidaten ea nire herrian berunez egiten diren goldea eta ezpatak ere. Juan Garzia
Trufaz hertsatzen zitzaizkion itzain zeltiarrei erratan zien hordimenak gatibatu baino lehen: [...]. Itxaro Borda
-Zer eskubide? -galdetu zuen **trufaz**. Fernando Rey
-Nork idatziko dizu, ba, zuri? -erantzun zion osaba Vernonek **trufaz**, gutuna esku batez zabaldu eta begiratu bat emanez. Iñaki Mendiguren
-Lehengoan ere erakutsi huen hire trebezia -**trufaz**-. Aingeru Epaltza
Egun batean goian, hurrengoan behean; muturrekin eta isil goizean, eta barrez eta **trufaz** gauean. Oskar Arana
Eta zer axola dio -erantzun zion emazteak **trufaz**-. Bernardo Atxaga
Ibilian-ibilian, Rubeni erdi **trufaz** galdegin diot ea gaur goizeko otoitzak egiteko astia izan duen eta hark, irri firfira ezpainetan, baietz erantzun dit. Patxi Zubizarreta
Zer barkatu behar dizut? Irribarrez dago, alai, **trufaz** bezala. Oskar Arana

6 *trufazko izlag*

Bere poetikak ekarri duen berritasuna ez dago zalantzan jartzerik: ostikatuen erremina **trufazko** lanabes bihurtu du, eta ostikatzaileen atzaparkadarik zorrotzenak lotsagarriki utzi ditu nabarmen. Txema Ramirez de la Piscina
-Nathan Soilik -erantzun zuen, bekainak zimurtzen zituela **trufazko** atsekabez-, ala Nathan besterik gabe? Oskar Arana
Erraidazu bada, adiskide ederra, nondik dator zure azken gutunean nagusi den doinu latz eta **trufazko** hori? Jon Muñoz
Aurpegiera serioak, irribarretsuak, **trufazkoak**, aspertuak. Joseba Sarrionandia

7 *trufa egin* ik *trufatu*¹.

Isekazko ateraldi batekin **trufa egin** ordez, azalpen oso eta neurtu bat eman zion. Barkatu egin behar zaio doinu ironikoa, berak **trufa egiten** dizula uste du, baina gertatzen zaiona da ezin duela aitortu kontatzen ari zarenak harrapatua daukala. Oskar Arana
Trufa egiten zenidatenean ez zenuten zeuen burua ziurtatu baino egiten. Koldo Izagirre
Ez genien **trufa egin** irailako estropadetarako entrenatzen ari ziren atunburuei. Koldo Izagirre
Poesiari **trufa egiten** diozu, baina zu ere ez zinroteke poeta eskasa izanen, Joanikot. Joan Mari Irigoien
Apirilaren batean (ez dugu aiantzi behar frantsesek egun hori baliatzen dutela elkarri **trufa egiteko**, beste hainbat tokitan abenduaren hogeita zortzia bezalaxe), Saint-Exen lagunek adarra jo nahi izan zioten. Patxi Zubizarreta
Ez du erlijorik, Jesukristoz **trufa egiten** du, begirunerik gabe erabiltzen du Jainkoaren izena. Josu Zabaleta
Ez daude inoren penaz **trufa egiteko**. Javi Cillero
Egunkarietan ez zuen Algortako hilketaz ezer aurkitu, eta bere buruaz **trufa egin** zuen halakorik espero izateagatik. Josu Landa
Ezin zituela jasan adimen zorrotz eta biziko mutilak, beraren lepotik **trufa egitea** beste asmorik ez zetula iruditzen zitzaion eta. Jose Morales
Haren begiek **trufa egin** zidaten. Aingeru Epaltza
· -Hire gain dudan aginteagatik, **egiok trufa** apur bat. Patxi Zubizarreta
Schumacher sarjentuak kosta ahala kosta jakin nahi zuen, arrats hartan, eta irri eta **trufa egiten** zidan: [...]. Fernando Rey

8 *-en trufan ari izan*

-Zendako ariko naiz zure **trufan**? Janbattitt Dirassar
Aitzina ene **trufan** ari zen Elixabet tzar hura. Janbattitt Dirassar
· Epaileak, haien **trufan**, erran zien haien semea jaten ari zituen oilar eta oiloa bezala zela bizirik. Piarres Aintziart
Eskolako balentriak ere hor ziren, honen **trufan**, haren jelos. Piarres Aintziart

9 *-z trufan ari izan*

Badut galde egiteko kopeta, / nor da nitaz **trufan** ari? Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eginiko trufa (3); halako trufa (5); halako trufa aireñ irri eta trufa (7); nitaz trufa (3); o (3); o batekin (3); trufa aireñ trufa egin (18); trufa egin zuen (3); trufa eginez (4); trufa egitea (4); trufa egiteko (8); trufa egiten (16)

trufan ari (3)

nitaz trufatu (5); trufatu zen (6); trufatu ziren (3)

nitaz trufatuko (6)

gutaz trufatzen (7); haietaz trufatzen (3); hartaz trufatzen (4); nitaz trufatzen (8); nitaz trufatzen ari (5); trufatzen ari (10); trufatzen da (4); trufatzen dira (5); trufatzen hasi

trufa² iz boilurra.

Arrozari eransten zaiona nolako, *risotto*-a halako: **trufekin** egina baldin bada, *risotto ai tartufi* izango da emaitza; arraina baldin badu, *risotto alla pescatora*; [...]. **Berria** - Kultura

trufagai iz trufatzeko gaia.

-Haxix gehiegi hartu duzulakoan nago, eta ez duzula ni beste **trufagarrik** topatzen. **Patxi Zubizarreta**
Jarraian, prologomania desegokietsi zuen, "aspaldian erabili baitzuen jada **trufagai**, Kixotearen aitzinsolas antzetsuan, Ingenioen Printzeak". **Juan Garzia**

trufagarri izond trufatzeko modukoa.

Oso ezagunak diren literatur obren izenburuak eraldatuta, **trufagarri** suertatzen dira sasi izenburu hauek. **Iñaki Arranz**
Erretorika ez da "erretolika" zaharkitua eta **trufagarria** den espresatzeko modua. **Ana Urkiza**

trufaize izond/iz trufa-airekoa.

-Oso jantzia ikusten haut estrategia erotikoetan... -esan zidan Adak halako destaina **trufaize** batez. -Zorionekoak zuek! -esan zuen sarjentuak, **trufaizez** -. **Anjel Lertxundi**

trufaka adlag trufa egiten, trufatuz.

Joe Brooksek ez zukeen itxarongo gu biok bakarrik egon arte, arropa-kontuetan dudan gustu on edo txarraz **trufaka** ekiteko. **Mirentxu Larrañaga**
Duela hiruzpalau hilabete doi-doi, Dabid sarritan **trufaka** hasten zitzaidan. **Patxi Zubizarreta**
Trufaka hartu zaituztete kamioietatik jaistean, irainka. **Xabier Montoia**
Bizkaitarrak **trufaka** eta irri-karkaraka ekin zion berriro, eta hurrengo egunetan ere irri egin zion, harik eta gipuzkoarrak egun batean pazientzia galdu zuen arte. **Joan Mari Irigoien**
Gelakideak, astakirten galantak, ez zuten zeregin hobeagorik aurkitzen, noski, beren habailak [...] nire zirkuluetarantz keinatu baino, irrika eta **trufaka**, irakasleak bizkarra ematen zigunean. **Eskarne Mujika**
Mantso-mantso, pisu-zuloan sartuta eta etzanda alferrik galdu zituen egun geldoak, Jimmyreneko iluntze-pasak, emakume alai eta kaskarinarena egiten, bere buruaz **trufaka** eta Artekin edo Art bezalako beste gizaseme batzuekin urrumaka. **Mirentxu Larrañaga**
-"Olerki bat!" -ufatu zuen **erdi** trufaka. **Ramuntxo Etxeberri**

trufakor izond ipar trufagarria.

"Gure helburua ez da lurra bainan dirua", zion Ezpeletako gaztek apaindutako karro **trufakorrak**, Uztaritzen. **Herria**
-A baia -Gérard-ek doinu erdi **trufakor** batean ihardesten dio, Sophie-k interesaturik burua itzultzen dion bitartean. **Eneko Bidegain**

trufalari ik trufari.

trufan ik trufa¹ 4; trufa¹ 8.

trufañi ik trufaño.

Trufania iz Epifania.

Berrikitan, urteko bi besta haundi ospatu ditugu: Eguberri eta **Trufania**. **Herria**
Beti bezala,urtarrileko lehen igandearekin, **Trufania** kartsuki ospatu da Donibane Lohizunen, aspaldiko ohidura berme. **Herria**
Horra zertako **Trufaniaz** elizetan errepikatua den aurten ere gure sinestearen asmo xoragarria. **Herria**
Ihauterian sartzen giren Eguberri irian, Urtatsez, **Trufaniaz** ala Ganderailuz, ikusmoldeak frango desberdin daude. **Herria**
Errege-bixkotxakegiten baitira **Trufania** -kari, Bidartenhartua dute usaia batto egiteko zinez alimalea! **Herria**

trufaño (orobat trufañi) iz trufatxoa.

Ez ote litake egokiago, ihauteria zer den orroitzuz bestenez ere, ateraldi omoretsu batzu ausarkian sartzea holakoetan, **trufaño** batzuekin berdin, zendako ez, izari bat atxikitzekotan bixtan da, bainan jendea irriz asetzeko gisan... **Herria**
Lehenago fama txarra zūan gure xaharren mihietan, huntzaren entzūtean "Lanbareko ūlūn-zeinūa" erraiten beitzūen halako **trufañi** batekin. **Herria**

trufari (orobat trufalari g.er.) 1 izond trufa egiten duena. ik isekari.

Aise mintzo zen hura arras **trufaria** izan behar zen. **Janbattitt Dirassar**
Bulebarreko leiho argiztatuak ikusten zituen berriz ere, eta orduko emakume **trufariak**, eta urtarreiko gau urrun hartan utzitako hiri sabelkoi berbera. **Karlos Zabala**
Noiztenka lagun **trufari** batek ene kontakizuna salbaiki hausten zuen. **Itxaro Borda**
Erromantizismoaren **trufaria**. **Berria** - Kultura
Zernahi badira hemen arruntak, xori-buruak, ergelak, espantu-untziak eta **trufariak**. **Janbattitt Dirassar**

2 (gauzak)

Bigarren behako zabal **trufaria** eskaini zidan, Josuren ganberako atea hertsai aitzin. **Aingeru Epaltza**

Husainek irri **trufaria** egin zuen. **Patxi Zubizarreta**

Lehena, irriño **trufaria**, gorakoia, lurra larruari sobera lotua daukanaren ahalkearen ikurra. **Itxaro Borda**

-Ederto, txundituta nagok, azkarra haiz benetan -doinu **trufariaz** esan zuen Mentxuk, eta idazmahairantz jaiki zen-. **Josu Landa**

Bere esku txiki hezurtsuekin gure mahaiari heldu, gugana makurtu eta hala esan zuen bere ahots **trufariaz**: [...]. **Koro Navarro**

Zaitak, orduan, halako hizketa molde **trufaria** erabiliz, galdegin zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Bestela delako hori kopeta gaineko muga-lerro saihestezin eta zuriari so geldituko zen, begitarte **trufariarekin**. **Jon Alonso**

Raimundo Silvak solemnitate **trufarizko** mugimendu batez liburu izugarria itxi eta errepikatu zuen, Amen. **Jon Alonso**

3 (adizlagun gisa)

Sorbaldak agerian, ahotsa **trufari**. **Karlos Zabala**

-Zeren trukean? -eskatzen zion **trufari** Mikelek. **Itxaro Borda**

-Bi basorekin gaur nahikoa izango duk, gehiagorik ez -esan zion Husainek **trufari**. **Patxi Zubizarreta**

Gizonak, orduan, **trufari**: [...]. **Patxi Zubizarreta**

trufati 1 izond trufaz betea, trufazkoa.

Definizio-sorta hau nahikoa errealista dela iruditzen zait, pasarte batzuetan **trufati** samarra suerta badaiteke ere. **Iban Zaldua**

Judaismoa hobeto ezagutzeko parada ezin hobea eskaintzen zaigu hemen, erlijio honen aurkia pentsamendu ortodoxoa eta ifrentzua juduek beraiek betidanik ekoiztu duten eta ekoizten jarraitzen duten erlijio ofizial horrekiko eztabaida libre eta tarteka **trufatia** txanpon beraren bi aurpegiak direla erakutsiz. **Berria - Kultura**

2 (adizlagun gisa)

Emakumeak burua jaso zuen eta, **trufati**, galdegin zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

-Ea, Mixel, anima hadi -hasi da, **trufati**, begirakunea Gaxuxaren begi urtsuetan josiz-. **Patxi Zubizarreta**

trufatsu 1 izond trufatia.

Ikusleek begirakune **trufatsuak**, maleziatsuak eta harropoztuak trukatu zituzten. **Patxi Zubizarreta**

"Nora joateko asmoa duzu?", esan zidan irribarre **trufatsu** batekin. **Juan Kruz Igerabide**

2 (adizlagun gisa)

Trufatsu hitz egin zion gero: [...]. **Anjel Lertxundi**

Lehen eskaiburuan, Abasi **trufatsu** zuzendu zitzaion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

trufatu¹, trufa(tu), trufatzen 1 da ad trufa egin.

-Ez dut ulertzen zergatik **trufatzen** zaren -esan nuen-. **Fernando Rey**

-Ez naiz batere pozten -erantzun zidan-, eta ez zen nire asmoa **trufatzea**. **Berria - Mundua**

-Ez zait ezela nitaz **trufa**! **Ramuntxo Etxeberri**

-Ez, Minor jauna, ez naiz zutaz **trufatzen** ari. **Oskar Arana**

Noren alde? hori ez dakigu, haietaz **trufatzen** dela, hori bai. **Herria**

-Baina ez dira nazio burujabeaz **trufatuko** -jarraiki zuen-. **Elena Touyarou**

Arazionaltasunaz **trufatzen** den azalkearen despotismo ez ilustratua. **Jose Angel Irigaray**

Erraz da, adiskideak, nire orduko egoeraz **trufatzea**. **Matias Múgica**

La Sarrietterekin dagoen mutil hori, badakik, Gavardez **trufatu** zuan ederki lehengo gauean. **Karlos Zabala**

Ume batzuk **trufatzen** ari, hainbeste urtez gizonei ikara eman dienaz! **Koldo Izagirre**

Albistea non, gu han -**trufatu** nintzaion. **Aingeru Epaltza**

Gure anaien eta semeen odolaz **trufatu** baitzineten! **Txillardegi**

Bere kontura **trufatuko** ziren denak, emakumea barne. **Aritz Gorrotxategi**

Bere lankideak **trufatzen** zitzaizkion, ez baitzuen mahai azpiko diru ustela onartzen, nahiz eta irabazten zuenarekin nekez bizitzen ahal zen hiri nagusian. **Ramuntxo Etxeberri**

Laket zait erdaraz ene buruaz **trufatzea**! **Piarres Aintziart**

2 (adizlagunekin)

Beraien obraz erraz **trufa** naiteke; nire obra propioaz trufatzen naizen bezala. **Unai Elorriaga**

Biharamunean haatik erran hitzordurat joanen nintzela eta orduan nitaz horren itsuki **trufatua** zen Luixa zirtzilak adituko zituela bereak eta asto beltzarenak. **Janbattitt Dirassar**

Ahal bezainbat berotu dut, eta gogotik **trufatu** naiz haren adeitasunaz eta haren herabekeriez. **Jon Muñoz**

Nago ez ote diren Rabanaleko hiru herritarrek, erromes galantek pagatu arno ona edaten ari direla, hauetaz goxoki **trufatzen**. **Piarres Aintziart**

Bazekiten finki **trufatzen**. **Piarres Aintziart**

Sokrates, bizi zeino, gutaz guztietaz **trufatu** zen ederki eta ahoan bilorik gabe. **Itxaro Borda**

3 ik musikatu¹.

Haren herritarren ahoskeraz poliki **trufa** -musikatzeko baita Piarres, hazpandarrek "zintzurrez eta zintzurretik ateratzen omen dutelakotz -dugulakotz- español iduri jota delikatu eta landu bat, eta ni hazpandaja naiz", erraitean. **Piarres Aintziart**

trufatu² izond boilurrez betea.

Mingain beteak ere baziren, eta galantina **trufatua**, eta txerri burua pistatxoekin, azpil biribil eta obalatuen gainean. **Karlos Zabala**

Dendaren aurrean gelditu eta so egiten zien haragi bola arruntei, lutzoz egindakoei, foie-gras **trufatuzkoei**. **Karlos Zabala**

trufatxo iz trufa txikia. ik trufaño.

Valmontek nahiago izan du ero baten gisara maite duena sakrifikatu, **trufatxo** bat jasan baino; haatik, zorionaren etsaia da harrokeria. **Markos Zapiain**

trufatzaile *izond* trufatzen dena.

Akize aldeko lau gazte dira, doi bat **trufatzaileak**, omore gozo batez eta berdin xoxolinkeriz beztitut beren ikusgarria. **Herria**

trufatze *iz* trufa egitea.

Trufatze zenbait ez baintuen hola onartzen, azkenean "ausweis" bat emaiten dautate, paper horri esker libertate osoan ibiltzen niz biltegi guzietan. **Michel Oronoz**

trufazale *izond* trufatzea atsegin zaiona.

Tripazaku galantak, txantxa eta **trufazale** porrokatuak, zorionean bizi ziren. **Patxi Zubizarreta**

Eta gauza bera gertatu zen jostun **trufazalearekin** eta epaileak dena jakin zuelarik, kopeta ilundu, eta esan zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

truk *1 adlag* truke. ik *truke 5*.

Hamar luis eskaini nizkion zerbitzu xume horren **truk**. **Jon Muñoz**

Gainerakoa ez zen esker oneko eta harridurazko adierazpen soil bat baizik, balio urriko dohainen **truk**. **Jon Muñoz**

Iraki ere uzten diote petrolioia saltzen sendagaien edo janariaren **truk**. **Jon Muñoz**

Salatzen dute Madrileko epailearen erabakia, nola diruaren **truk** askatzen duten, bahiketa baten tratu molde berean. **Herria**

Prefetak ordezkari bat igorri zion 6.000 liberako arrandaren **truk** demisionea eman zezan eskatzeko. **Xipri Arbelbide**

Atxilotuak dirua ematen zien sexu ukituen **truk**. **Berria - Euskal Herria**

-Fabore bat beste baten **truk**. **Elena Touyarou**

Proposamen bat 1,50 euroren **truk**, hiru proposamen 3 euroren **truk**. **Herria**

Horra gelari fidela nire isiltasunaren **truk** adosturiko saria ekartzera etorria. **Jon Muñoz**

Dauden baliabideak kristau, judu eta musulmanen artean parteka daitezke alokairu baten **truk**. **Berria - Harian**

Ikaragarria zen libertatea; bakardaderik latzenaren **truk** lortzen zen soil-soilik. **Xabier Montoia**

Konfiantza konfiantzaren **truk**. **Matías Múgica**

Ostiak egiten ditu bi sosetan **truk** biziaren irabazteko. **Michel Oronoz**

Amaturrak Plazetan, horien berri ere nola ez eman guk, jakitean **truk**. **Herria**

Bi emazte berriz libratuak, ez jakin zertan **truk**. **Herria**

Orduan tipo bat ailegatu da, hamar zentabo ordaindu dituen bere oinetatik sei metro beherago lurperaturik dagoen neskari periskopiotik begiratzearen **truk**. **Fernando Rey**

Yusufek azkenean amore ematen bazuen, menditarrek ez ote zuten preso hartuko Ahmeten **truk**? **Fernando Rey**

2 (izen soilaren eskuinean)

Herrikka batean geldi zitekeen, eta lan bat eskatu, aterpe eta janari **truk** izanik ere. **Elena Touyarou**

Alabaina bertze inor ez izaki tripa **truk** etortzeko prest. **Aingeru Epaltza**

Fraideeneko azken ikasturtean berean, zigarro **truk** saltzen zituen kalifikazioen emaitzen aurrerapenak. **Aingeru Epaltza**

Bet-Rehob eta Tzobako aramearren artean hogei mila oinezko, Maakako erregearen mila gizon eta Tob-eko beste hamabi mila gizon hartu zituzten sari-**truk**. **Elizen arteko biblia**

Aginpidea, ogitarteko, edari eta musika **truk**. **Aingeru Epaltza**

Begia begi **truk**. **Oskar Arana**

3 *diru truk (orobat dirutruk) adlag* ik *truke 9*.

Izreelgo Naboti esan diot bere mahastia **diru truk** niri saltzeko edota, nahiago bazuen, beste mahasti bat emango niola berearen orde. **Elizen arteko biblia**

Manzanok **diru truk** esan zituen esandakoak. Geroago atsegin ez bazaio, libre joaten utziko dio; ez du salduko **diru truk**, ezta esklabo egingo ere, berea izatera behartu baitu. **Berria - Kirola**

Baita presazko sexu-beharrak asetzeko beren burua **diru truk** eskaintzen zuten emaztekiek etxe goxoak ere. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gutiz gehienak 19garren mendean Roca presidentaren garaian erahil zituzten, batzutan **dirutruk**, hango lur gaineko eta azpiko ontasunetaz jabetzeko. **Herria**

4 *musu truk (52 agerraldi, 16 liburu eta 29 artikulutan; orobat musutruk 23 agerraldi, 13 liburu eta 6 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian musu(-)truk agertzen da) adlag* doan, hutsean, urririk.

Musu-truk bazkaldu duzu Francesenean?! **Fernando Rey**

Ordaindu zioten, bai, baina **musu-truk** ere eginen zuen, are gehiago, ordaindu ere eginen zuen itzuli ahal izateko. **Fernando Rey**

Musu-truk emateko prest nengoan, baina orain ez duk niregandik ezertxo ere jasoko! **Jose Morales**

Merezi duten saririk ezin eman, eta esker oneko aipua behintzat zor nien **musutruk** lagundu didatenei. **Joxerra Garzia**

Zenbat holako uso kolpatu eder ote da, jauntxo izandun batek haurdun utzi ondoren, diru edo **musu truk** beste gizajo pobreren bati disimuloan erantsia? **Patziku Perurena**

- Zera, zuretzako doan izango delako, **musu-trukean**. **Karlos Linazasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begia begi truk (4); **diru truk** (9); **euroren truk** (3); **musu truk** (48)

trukada *1 iz ipar* trukea, trukatzea.

-Gure aitzinekoak zuen aitzinekoekin aritzen ziren **trukadan**, bakailaoaren arrantzako lanetan eta balearenetan ere, bat atzematen zutelarik. **Aurelia Arkotxa**

Bide horren lekuz aldatze edo hobetze baten egitea jadanik aipatua izan zen Kontseiluan, **trukada** batzu eginez Estatuarekin. **Herria**

Uribe jaun presidentak onartu du izan zitekeela holako «nomansland» bat, polizia eta soldadorik gabeko eremua, jendearen **trukada** baten egiteko, jende horien artean izan daitekela Ingrid Betancourt bere adiskidearekin. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Janariaren politika bat bazuten bidean ezarria Irakiarekin ONUko Nazion Batuek petrolio eta janari **trukada** batentzat, irakiarrek petrolio a horni eta sartaldekoek janaria emaiteko. **Herria**

Ondotik zuten egin lur **trukada** bat, Zokoaren eskualde bat Zibururi josiz. **Herria**

Presuner **trukada** bat lukete egin nahi bakezaleek. **Herria**

trukagarri *izond* trukazeko modukoa. ik trukagai.

Fusila, zakurra, zaldia... guztia zen **trukagai**; dena dela, ezer irabazteko asmorik gabe jokatzen zuen horrela. Jose Morales

trukagarri 1 *izond* truka daitekeena. ik trukagai.

Gizabanakoak, banan banan harturik, izen **trukagarritzko** itzal hutsalak dira, eta multzoan bildurik, espezie kategoria harrapatzen dutenean baizik ez dira benetan garrantzizkoak. Jon Alonso

Elbarritasun **trukagarria** zela zuena, ihardetsi zuen Mirandek. Harkaitz Cano

Bahitu «**trukagarriak**» hauek izango lirateke: Ingrid Betancourt presidentetzarako hautagai ohia, bost batzarkide, dozena bat diputatu, gobernadore ohi bat [...] besteak beste. Berria - Mundua

Kaltearen eta kaltetuak kaltegileari eraginiko minaren izaera **trukagarria** ez da berriki baizik auzitan jarri. Markos Zapiain

Ordutik, sentimenduak eta ustirik sakonena ere **trukagarri** bihurtu zaizkigu, objektuak baitira, nonbait, benetako ziorionaren berme bakarrak. Anjel Lertxundi

Bi ale elkarrekin **trukagarriak**! Jon Muñoz

2 (izan aditzarekin)

Gorputza, zoritzarrez, oso modu bitxian eraikia dago ingeniariaren begietarako: serieko ekoizpena erabili da, baina osagaiak, edozein proba sinpleren arabera berdin-berdinak, ez dira **trukagarri**. Irene Aldasoro

Lanaldia murriztearen aldeko neurriek langileak erabat **trukagarriak** direla onartzen dute. Iñaki Heras

Alderdi ekonomikoa, eskura daitekeenera, diruz baloragarria eta **trukagarria** denera murriztu da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizon Handiaren arazoa zen, funtsean, ez zuela erabat ulertzen, edo onartzen, bera ere **trukagarria** zela-. Jon Alonso

Enuntziatuak diren neurrian, formulazio bi horiek ez dira balio berekoak eta elkarren artean **trukagarriak**. Xabier Arregi

trukagarritasun *iz* trukagarria denaren nolakotasuna.

Arauek ekonomian hain garrantzitsua den bateratasuna eta **trukagarritasuna** lortzea dute helburu. Iñaki Heras

trukagune *iz* trukaketak egiteko gunea.

Kebek-eko Mirabel, Poloniako Sopot herria, Bizkaiko Mundaka, ibil eta **truka** gune jarraikiak bilakatzen ari dira Angelurekin. Herria

trukaje *iz* filmaturiko irudiak manipulatu ezteko bereziak lortzeko teknika.

Geroztik, Cocteauk sarri erabili zuen, helburu poetiko eta fantasiatzko baterako, zenbaitetan beste **trukaje** batzuekin batera. Josu Zabaleta

Irudi elektronikoa bere gainazalaren ekorketa batek sortua izateak ekorketa horretaz egin daitezkeen manipulazio berezietarako aukera ematen du (era askotako bideo- **trukajeak**, gaur egun telebistak guztiz arrunt bihurtu dituenak, hortik sortu dira guztiak). Josu Zabaleta

trukaketa 1 *iz* trukatzeara.

Transmititzeko molderik onenak horiek baitira: sorkuntza eta **trukaketa**. Berria - Kultura

Deigarria da bi urtez bahituak askatzeko ahaleginetan porrot egin ondoren Gobernuak bere diskurtsoa iraultzea **trukaketen** inguruan. Berria - Mundua

Nagusia eta langileen arteko **trukaketa** antolatzea, lan poltsa gisan. Berria - Euskal Herria

Biktimak, giza eskubideak, bake esperientzien **trukaketak**, elkarrizketa eta bake kultura babesteko neurriak proposatuko ditu Elkarri-k. Berria - Euskal Herria

Munduko kulturen arteko **trukaketaren** bidez abiatu nahi izan du EKEk Batek Mila kanpaina. Berria - Kultura

Oihuak eta diosalak, bezperan telebistan emandako programaren bati buruzko esamesak, apunteen **trukaketa**, arratsaldean Portuko festetara joateko planak... Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Bi herrialdeetako musikariaren arteko **trukaketa** kulturalean du oinarria 'Biharko' diskoak. Berria - Kultura

Bi lurraldetako **trukaketa** ekonomiko eta kultural bat izan nahi du festibal hunek. Herria

Horrek Interneten bidez eginiko **trukaketa** ez komertzialak arautzea du helburu. Solasaldi **trukaketa** interesgarri batean parte hartu dute gero laguntzaileek. Berria - Harian

Iritzi edo opinione **trukaketa** eder batekin bururatu zen bilkura balios hori. Herria

Esperientzia **trukaketa** emankorra da ni hemen egotea. Berria - Kirola

Hots, hango eta hemengoaren arteko **trukaketa** aberatsa. Herria

Artean, bi aldearen arteko hitz **trukaketa** bortitzak ere entzun ziren atzo. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Trukaketa operazio guztiak egin eta gero, [...]. Pello Zabala

Aurtengo FIPA jaialdian, Hego eta Ipar Euskal Herriko profesionalen **trukaketa** bilkura ere antolatu genuen. Berria - Kultura

Elkarrizketa eta **trukaketa** aukerak mahai gainean ezarri behar dira. Berria - Euskal Herria

Gisa berean, mintzaldi eta eztabaida gunea indartzeko xedea dute, zinezko **trukaketa** gune bat bilakatzeko. Berria - Harian

Trukaketa eta eztabaida gune bilakarazi nahi dugu hitzordua. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baionako *Maimorables* jaialdiak kultur **trukaketa** bultzatuko du. Berria - Kultura

Uzbekiztanen eta Euskal Herriaren arteko egiazko kultura **trukaketa** da Euskal kultur erakundeak eta Uzbekiztanen dagoen Frantziako Enbaxadak antolatzen dutena. Herria

Taldearen zuzendaritzak jokalaria **trukaketa** batean taldeko izarra Atlantara bidaltzea erabaki zuen. Berria - Kirola

Ihes eginda nongoen bitartean, gutun **trukaketa** sarria izan genuen Almak eta biok. Harkaitz Cano

JP Morgan Chase, AEBetako bigarren bankuak, Bank One-rekin akzio **trukaketa** egin du. Berria - Ekonomia

Tiro- **trukaketak** bizpahiru oren iraun zuen. Itxaro Borda

Droga **trukaketa** nahiko laster iragan zen. Ramuntxo Etxeberri

Azkenean, hain eraginkorra bihurtu zen bihotzak kontrolaturiko barne-zirkulazioa, ezen hau besterik ez baita itsasoarekiko substantzia- **trukaketa**: [...]. Irene Aldasoro

Gorputzak egiten duen gas- **trukaketa** guztiaren % 0,5 inguru baino ez da hori; gainerako % 99,5a birriker egiten dute. Irene Aldasoro

Horregatik sortzen dira hotz-bero ezberdinak, bero- **trukaketa** bestelakoak. Pello Zabala

Iragana hobeto konprenitu ahal izateko, rol **trukaketa** egiten dute. Berria - Kultura

Dena egingo bailukete hitz- **trukaketa** soil batez. **Jon Alonso**

Pintada haiek egiten dituenaren eta ezabatzen dituztenen arteko mezu **trukaketa** bat. **Harkaitz Cano**

Nahiago dute, argi dago, gaia gobernuarekiko mesede **trukaketan** sartu. **Berria - Ekonomia**

Materia, bertsioak, informazio **trukaketa** ... **Berria - Kultura**

Neguaren bihotzeko garai honek izen **trukaketa** izan du gure baserriarren artean. **Pello Zabala**

Horretarako dinamika bat abian jarri gero, esperientzia **trukaketa** bat gertatzen da. **Berria - Kultura**

Eragileekin izandako harremanak, agertutako borondateak eta ikuspegi **trukaketak** kontuan hartuta. **Berria - Euskal Herria**

Ez zen eskolako ariketa batean ari, argudio- **trukaketan**, edo oratoriazko lehiaketa batean. **Jon Muñoz**

Gaijartzaileek behin eta berriz eskatu izan digute iritzi- **trukaketa** modu hori. **Andoni Egaña**

Irain **trukaketa** eta gero, biok serio geunden. **Jon Alonso**

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Landareekiko jakintza **trukaketa** tailerra. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esperientzia trukaketa (3); **gutun trukaketa** (4); **informazio trukaketa** (7); **iritzi trukaketa** (6); **kultur trukaketa** (3)

trukaketa aberatsa (3); **trukaketa izan** (3)

ikuspegi trukaketak (3); **ikuspegi trukaketak kontuan** (3)

trukakide *iz* trikaketa batean parte hartzen duen kidea.

Aurten ere, seigarren aldikotz Cassin ikastetxeko euskarako klaseak segitzen dituzten ikasleak egon dira Bizkaian, Zornotzako **trukakideen** etxeetan eta Iso onarpena lortu duen Urritze ikastetxean. ikasleek Urkiolamendi-ra igan dira beren **trukakideekin** ezagutza egiten zutelarik. **Herria**

trukakor *izond* trukagarria.

Merkatua balio jakin bat duten gaiez arduratzen da, ordea, hau da, **trukakorrak** diren gaiez: saldu daitezkeen gaiez (kapitala, lurra eta gizakiaren lana barne). **Iñaki Heras**

trukalari *iz* trukean aritzen den pertsona. ik **trukatzaile**.

Jesusek, lokariz zartailu bat eginez, tenplutik kanpora bota zituen denak, bai eta ardiak eta idiak ere; eta **trukalarien** diruak sakabanatu eta mahaiak irauli egin zituen.

Elizen arteko biblia

Tenpluan merkataria aurkitu zituen idi, ardi eta usoak saltzen, eta diru- **trukalariak** ere bai, han eserita. **Elizen arteko biblia**

Jesus tenpluan sartu zen, eta bertan salerosketan ari ziren guztiak kanpora bota zituen eta diru- **trukalarien** eta uso-saltzaileen mahaiak irauli. **Elizen arteko biblia**

trukatu, truka, trukutzen 1 du *ad* gauza bat eman eta haren orde bestea hartu.

Lurralde osoko alderdirik onena den horretan ezin izango da lurzatirik **trukatu**, ez saldu, ez laga, Jaunari sagaratu baita. **Elizen arteko biblia**

Horrela bide batez dolarrak **trukatuko** dituzu. **Edorta Jimenez**

Nobelak **trukatzen** genituen, bakeroenak, Simenonenak, Zane Greyrenak. **Karlos Linazasoro**

Gai horri buruzko hainbat gutun **trukatu** zitena elkarrekin Pascalek eta Fermatek, eta probabilitateen kalkuluaren oinarriak ipini zitiztenan haietan. **Jon Muñoz**

Bidezidor bateko zurratasunean gure oroitzen batzuk **trukatuko** genituzkeen elkarrekin. **Josu Zabaleta**

Ofizial berriak sartzen ziren etengabe, dena aztertzen zuten, iritziak **trukatzen** zituzten. **Jose Morales**

Irudi du albisteak **trukatzeko** bulegoa dagoela bertan. **Karlos Zabala**

Etorriko ziren garaiei buruzko ideiak **trukatuz**. **Agustin Otsa**

Uste dugu, beste herrialdeetako jendearekin esperientziak **trukatzea** falta zaigula. **Berria - Euskal Herria**

Kromoak **trukatzetik** kromosomak **trukatzera**. **Joxerra Garzia**

Olatzekin bigarren begirada bat **trukatu** ondoren, ezpainetik kosk egin eta zakarregi ez mintzatzen saiatu zen. **Harkaitz Cano**

Maiana altxatu zen eta musu uzkurak **trukatu** zituzten. **Itxaro Borda**

Doi-doi bizpahiru hitz **trukatu** zituen gau bitxi hura harekin iragan zuen emakumearekin. **Elena Touyrou**

Aholkulariak eta zuzendariak ohiko agur protokolarioak **trukatu** zituzten, eta solasari ekin zioten. **Jon Alonso**

Irri konplizeak **trukatu** zituzten. **Itxaro Borda**

Bizpahiru ukabilkada **trukatu** zituen unibertsitateko greba batean parte hartzerantz borbaxatu nahi zuten kide batzuekin. **Juan Garzia**

Datozen egunetan [euroa] 1,29 eta 1,31 dolar artean **trukatuko** dela espero dute. **Berria - Ekonomia**

Teoria klasikoaren arabera, truke-tasak berdintzera jotzen dute herrialde desberdinek **trukaturiko** ondasunen dibisetako prezioek. **Koro Navarro**

Bogotak eta gerrillak presoak eta bahituak **trukatzea** galarazi nahi dute AEBek. **Berria - Mundua**

Arras lurralde putazulua zela, non senarrek emazteak **trukatzen** baitzituzten. **Juan Garzia**

Informazioa etengabe **trukatzeko** tresnak sortzea. **Berria - Euskal Herria**

Jakintza eskubideak babestutako materiala **trukatzen** zuten beraien artean, Poliziak salatu duenez. **Berria - Gaiak**

Garrantzitsua da prozesu hori biriken eta odolaren artean oxigenoa eta karbono dioxidoa **trukatzeko**. **Irene Aldasoro**

Elkarri eskua emango genioan edo besarkadak **trukatuko**. **Joxean Agirre**

Gero, dibisen merkatuan, diru hori saldu egiten du, alegia beste dibisa baten orde **trukatu**, esaterako dolarraren orde. **Iñaki Heras**

Erleak ezin omen dira diru truke saldu, **trukatu** baizik -ehuna, garia, ardia eta beste erabil daitezke trukea egiteko- edo besterik gabe erregalo gisa eman. **J.M. Olaizola**

"Txiliku"

2 (trukean hartzen dena -kin atzikiarekin)

Besteetan, esaten dute juduak gerra-presoa alemaniarrekin **trukatuko** direla. **Felipe Juaristi**

Hiru bahituak Guantanamo presoekin **trukatzeko** nahia. **Berria - Mundua**

-Ez da jauregi bat [...] baina nirea da eta ez nuke hobe batekin **trukatuko**. **Elena Touyrou**

Brady plangintzak, funtsean, kreditu zaharrak hogeita hamar urterako obligazioekin **trukatzea** proposatzen zien bankuei. **Koro Navarro**

Banku Zentralaren ebazpenaren arabera, azaroaren 16tik hasita AEBetako dolarrak eskudiruarrekin **trukatu** nahi dituenak % 10eko balio erantsia ordaindu beharko du. **Berria - Mundua**

Soberakin horiek beste unitate batzuek ekoizturiko ondasunekin **truka** daitezke. **Koro Navarro**

Abiatu aurretik, nire salgai batzuk erresuma hartako beste batzuekin **trukatu** nituen, hala nola aloa egurra, sandaloa, alkanforra eta jengibre. **Patxi Zubizarreta**

Lehen astakumea arkume edo antxumearekin **trukatuko** duzue. **Elizen arteko biblia**

Izan ere, zilarra eraman zutenez Ekialdeko salerosgaiekin **trukatzeko**, arindu egin zizkieten espainiarrei Europan zuzen gehiegizko artikuluak. **Iñaki Iñurrieta**

Lan behartuen zigorra etengabeko erromesaldi batekin **trukaturik**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Uniformeak ere ez zetozkigun neurriera, batak bestearenarekin **trukatu** behar izan genituen. **Mirentxu Larrañaga**

Prest zegoen zituen guztiak utzi eta [...] munduko negozioak Ebanjeliokoekin **trukatzeko**. **Askoren artean**

3 (trukean hartzen dena -gatik atzikiarekin)

Presoak bahituengatik **trukatzeko** negoziazioetan bermerik ez diola eman nahi uste du gerrillak. **Berria - Mundua**

Piano zaharra kontrabaxu batengatik **trukatu** zuen. **Eskarne Mujika**

Ez **trukatu** adiskidea diruarengatik, ez eta anaia maitea ere urrerik finenagatik. **Elizen arteko biblia**

Pozik bizi zen, ondasun galkorrak ehun halako balio zuen ondasunagatik **trukatu** zituelako. **Askoren artean**

Liburu lodiago bategatik **trukatu** zuen berea, eta plazako jarleku batean eseri zen. **Xabier Aranburu**

Zure arierioa hiltzeagatik, zure semea salbatzeagatik, zure gaixoa sendatzeagatik, zure asmazioagatik, asmatzailea bazara, **trukatzen** duzu zeure burua! **Josu Zabaleta**

Ni elbarriturik gelditzen ez banaiz, Espainiako titulurik hoberenagatik ez nuke nik nire esperantza **trukatuko**. **Patxi Ezkiaga**

4 (trukean hartzen dena bestelako atzizkiekin)

Diruz **trukatuko** dituzue [hamarrenak] eta, dirua harturik, Jaunak aukeraturiko lekura joango zarete. **Elizen arteko biblia**

Bigarren hamarrena, berriz, dirutan **trukatu** ohi nuen eta urtero Jerusalemen eralgitzen. **Elizen arteko biblia**

Frantziasko, berriz, lurreko armak espirituak armetan **trukatu** zituen, eta ospe militarren ordez, jainkozko buruzagitza hartu. **Askoren artean**

Nahiz behialako mantalina buruzapi baten kontra **trukatu** zuen, argi zen haren soinekoak serora jantziak zirela. **Elena Touyrou**

Merkatu horretan, pobrezia eta gaztetasuna, europar dirua, bakardadea eta miseria afektiboaren kontra **trukatzen** ziren. **Ramuntxo Etxeberri**

5 aldatu.

Handik Ega ibarrera; inguruetan "Ibarra" jatorrizko izena **trukatu**, eta hiritarrek erdaraz "Los Llanos" bataiatu duten eskualde baketsura hurbildu nintzen. **Txillardegi**

Munduaren osagaiek beren zereginak **trukatu** egin zituzten, harpa batean, tonalitate bat bera mantenduz, nota ezberdinek melodia aldarazten duten bezala. **Elizen arteko biblia**

Izan ere, bi hitzek esaldian duten lekua **trukatzea** aski da gauza ezberdinak adierazteko. **Iñaki Arranz**

Egoera politikoari buruzko irakurketa **trukatu** zuten atzo ELAK eta Aralarrek Iruñean, ELAren egoitzan egin zuten bileran. **Berria - Euskal Herria**

6 iruzur-edo egiteko asmoz aldatu.

Halaxe esaten zidan: "Argazki hau **trukatua** dago, eta hau ere bai" bekainik ere mugitu gabe. **Matías Múgica**

Urte askoan ikasia zuen argazki **trukatuak** benetakoak adinaxeko froga zanpagarriak zirela; ez zituen jada bereizten besteetatik. Lehen plaman, Arzallusen irudi **trukatua**, taliban itxura hartuta. **Matías Múgica**

Hollywoodetik etorri berri, ohituta zegoen zinea egiteko modu sofistikatuekin: platoon eta plano **trukatuekin** jokatzek ziren bai eszena zailak bai aktoreei deserero egiten zitzaizkienak. **Anjel Lertxundi**

7 (truka erroa hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez ditut adierazi nahi bakarrik eta nagusiki hitz-desegokitasunak, errepikapen nahiz **truka** -bihurriketa onartezinak. **Juan Garzia**

Urte horretan bertan ezarri ziren euroaren eta diru-mota nazionalen bi noranzko **truka** -neurri ezeztazina. **Iñaki Heras**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begirada azkarra trukatu (5); **begirada bat trukatu** (4); **begiradak trukatu zituzten** (3); **bizpahiru hitz trukatu** (3); **elkar trukatu** (6); **elkar trukatu zituzten** (3); **esperientziak trukatu** (7); **hitz batzuk trukatu** (5); **hitz trukatu** (5); **hitzik trukatu gabe** (4); **iritziak trukatu** (3); **paperak trukatu** (3)

esperientziak trukatzea (4); **informazioa trukatzea** (3)

artxiboak trukatzeko (3); **elkar trukatzeko** (3); **esperientziak trukatzeko** (13); **informazioa trukatzeko** (18); **inguruko informazioa trukatzeko** (3); **iritziak trukatzeko** (10); **trukatzeko aukera** (6); **trukatzeko gune** (3)

babestutako materiala trukatzen (3); **elkar trukatzen** (4); **elkarrekin trukatzen** (5); **informazioa trukatzen** (3); **materiala trukatzen** (4); **mezuak trukatzen** (3)

trukatzaile iz aipatzen dena trukatzek duen pertsona.

Merkatariak ziren merkataritzako kredituaren agenteak, baina bankuak ere laster sortu ziren, nazioarteko tratuetatik haiek ere, kasu honetan truketik (banca, edo bankua, **trukatzaileen** mahaia zen), eta ez lukurreiatik. **Koro Navarro**

Horra hor diru-**trukatzaile** hori. **Xabier Kintana**

Ebanjelioan Levy zergalaritzan ageri delakoz, aduanariak, muga-zergak eta arbitrioak kobratzen zituztenek aurrena, diru **trukatzaileek** gero, eta kontulari eta kontableek hurrena, eta azkenik, bankariak bildu dira Mateoren itzal zabalera. **Pello Zabala**

trukatze 1 iz gauza bat eman eta haren ordez beste bat hartzea.

Elkarren artean zer mugiera ematen eta hartzen duten eta nola, elkar **trukatze** txiki batez, eurek berek sortzen dituzten garrak eta enborrak. **Xabier Amuriza**

Trukatze orokor ikusgarri bat dago narrazio honetan, bilakaera txundigarri bat. **Markos Zapiain**

Trukatze horiek pugilatza bezain araututa zeuden, gogoan izango baituzu, noski, alor horretantxe irabazi zituela Pitagorasek Olinpiadak. **Jon Muñoz**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bera ez da ez sintagma, ez eraikitze araua, ez segizio eta **trukatze** era kanonikoa. **Xabier Arregi**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez da ezustekoa liburu hau, batik bat "perbertsio" deituriko moldeez ari dadin: mutilazioa, voyeurismoa, fetitxismoa, intzestu orokorra, bikote-**trukatzea** baserrian, melodrama, masokismoa... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nire eta haien arteko begirada-**trukatze** bakoitzarekin, tximistatxo bat horra, txiki-txiki baina atzemateko modukoa, mesfidantzaz eta goganbeharrez oratua. **Juan Garzia**

Dena den, Zalduaren ereduak, hau da, adiskideen arteko kritika **trukatze** egiaitiak, baditu bere arriskuak: besteak beste, ostikolariaren mintzamoldea. **Markos Zapiain**

Droga trafikoaren edo laborantzako funts **trukatze** alorrean. **Itxaro Borda**

Eztabaida anitzez interesgarriagoa da, zinezko argudio elkar **trukatze** bat dago. **Berria - Euskal Herria**

4 aldatzea.

Ez zen **trukatze** automatiko bat izan, ez zen egun batetik bestera gertatu aldaketa hori. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Trukatze orokor ikusgarri bat dago narrazio honetan, bilakaera txundigarri bat: Sabine Bioleta bilakatzen da; Polikarpo Sabino eta gero berriro ere Polikarpo, orain Bioletaren bitartez bere izena aurrenekoz onartzen baitu. **Markos Zapiain**

trukatzeke adlag trukatu gabe.

Etxe hondakinen artean ibili ginen, karrika izena ere merezi ez zuten bidexka ozta-ozta garbituetan zehar, muturtuta eta hitzik ere **trukatzeke**. **Alberto Ladron Arana**

truke 1 iz kratzea, gauza bat eman eta haren ordeze beste bat hartzea.

- **Truke** bat proposatzen dizut -esan nion-.

Juan Garzia

la **truke** guztia deusezten da, ekonomikoa eta politikoa izan ezik. Iñaki Mendiguren

Gehienetan oso baldintza desberdinetan egiten ziren **truke** haietatik sortu ziren printzeen hornitzaileen eta bankarien aberastasunak. Koro Navarro

Era horretan osatu ziren merkatuak, hau da, soberakinen zirkulaziorik gabekoak, eta haietan, berehala, dirua agertu zen; horrek **truke** soilaren lekua hartu eta **trukean** aukerak ugaltu zituen. Koro Navarro

Etorkizuna erosi baitzuten azken semeak, **truke** eginez bezala. Anton Garikano

Askatasuna garesti saltzen baita, biziarren **trukean** batzuetan, bakardadearen **trukean** besteetan. Felipe Juaristi

ik beherago 7. Askoren artean

Bihoa nire hau beraren jaio-lurraren aitortzen xume modura, hobearren esperantzaren: berak ez du ahanzi, eta **trukezko** gizalegea zor zaio. Juan Garzia

Nazio Batuen **Truke** eta Garapenari buruzko Konferentzia. Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Varisco ere andregaiturik zegoen, eta elkartasun sakona eta isilberri intimozko **truke** ugaria zebilen horrenbestez bien artean. Juan Garzia

Zibilizazio Indiko eta Sinikoaren arteko harremanetan **truke** baketsuaren adibide bat aurkituko dugu, lehen begiratuan bortizkeriaren akatsik gabea bezain emankorra dirudiena. Iñaki Mendiguren

Herrialde garatuaren arteko **truke** industrialetan, nazioarteko espezializazioa alde aurreko konkurrentzia guztiz aktibo baten emaitza baino ez dela esan daiteke. Hortik dator **truke** librearen eta nazioarteko espezializazioaren garrantzia. Koro Navarro

Sistemaren oinarria urtearen eta dolarren arteko **truke** finkoa zen: urte ontza bakoitzeko, 35 dolar. Iñaki Heras

Truke finkoko erregimen batean ezinezkoa baita nazio mailan finantza-liberalizazioarekin adostuko den diru-subiranotasunik bideratzea. Koro Navarro

Truke malguko erregimen baterako aldaketa oso gogo onez hartu zuten aditu askok 1970eko hamarraldian. Koro Navarro

Nazioarteko **truke** osoen hirurena enpresa barneko trukea omen da. Iñaki Heras

Truke gurutzatuen garrantzia. Ipar Amerikako **Truke** Askeko Hitzarmena). Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Xarrien hori Madrildik ateratzea faxistei beste **truke**-proposamen batzuk egiteko erabil daitekeelako esperantzak. Edorta Jimenez

Oraingoan **truke**-talderik edo ordezeko konpainiarik ez zen Lehorreko Atera azaldu. Txillardeggi

Begiradaren hegemonia baliokide orokorretan oinarritutako **truke**-sistema orokorraren ondorio bat. Josu Zabaleta

Martiritzaren sutan bere burua Jaunari opari bizi eskaini nahi zion, horrela gugatik gurutzatzen hildako Kristori **truke**-erantzuna emateko. **Truke**-balio bat, moneta balio bat duten ondasunetara. Askoren artean

Hasieran ordainketa tresna ziren **truke**-letrak, kreditu-tresna bihurtu ziren berehala. Koro Navarro

Truke libreko egoeran, portugaldar ardo-ekoizleek **truke**-tasa hobea dute ingeles merkatuan beren merkatuan baino (1,20, ez 0,89). Koro Navarro

Truke-tasak herrialde petrolio-ekoizleen alde aldatu izanak, **truke** korronteen 360.000 milioi dolar inguruko gainerako metatua eragin zuen zortzi urtetan (1974-1981). Koro Navarro

Euroaren abantailarik handiena **truke** komisiorik ez izatea omen zen. Iñaki Heras

Diruak betetzen duen rol nagusia **truke** bidea izatea da. Iñaki Heras

Tobin tax esaten zaiona, James Tobinek proposatu zuen jadanik 1978an; **truke**-eragiketa guztiei zerga apal bat ezartzean datza, %0,5 adibidez. Koro Navarro

Ingalaterrak esportazioen balioaren maila handiago batez orekatuko du bere **truke**-baldintzen beharrez. Koro Navarro

Krisia **truke**-merkatuetara zabaltzea. Koro Navarro

Egun Internet bidezko **truke** sareak dira mamua. Berria - Gaiak

Bailarak osatzen zuen bigarren **truke**-zirkulua. Koro Navarro

Dolar-soberakinak ez zituzten munduko gainerako banku zentralak eskatzen urte bihurtzeko; **truke**-erreserba moduan gordetzen ziren eta Estatu Batuetan inbertitzen ziren. Koro Navarro

Ekialdeko eta Magreb-eko herrialdeek harreman zuzenak zituzten Europarekin (**truke**- eta gatazka-harremanak). Koro Navarro

Handiena, bizar-luzea, **truke** agentea da. Monika Etxebarria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zazpigarren zeruraino goratu zuen hitz- **truke** haren aire surrealista. Joxan Elosegi

Gutun **truke** bat hasi zen, 1933tik 1938ra luzatu zena. Koro Navarro

Helbidea lorturik, bertatik bidali nion, posta- **truke** pertsonal gisa, [...] neure liburuaren aleman itzulpenaren ale bat. Juan Garzia

Concha Valdes bere ipuintxoarekin datorkienean Jesus Galindez Madrilen bada, preso- **truke** horietako baten kariaz da gizona han. Edorta Jimenez

50 aldiz handiagoa da urtean zehar egiten diren finantza- **truke** guztien balioa nazioarteko ondasun eta zerbitzuen urteroko merkataritze baino. Iñaki Heras

Gorputzeko energia- **truke** garrantzizkoak zeluletan gertatzen dira, eta zeluletan bakarrik. Irene Aldasoro

Herrialdeen arteko mugak zeharkatzen dituzten trukeak dira, baina beti ere enpresen baitan gertatzen direnak (enpresen barne- **trukeak**). Iñaki Heras

Eragin- **truke** horri, forma-emate prozesu horri zor zaio eulia euli izatea, edo elefantea elefante. Juan Garzia

Horra, horrenbestez, eragin- **trukezko** joko bat, zientziaren eta teknologiaren arteko konplizitate bat, bataren aurrerabideak bestearen mende baitaude, eta alderantziz. Juan Garzia

5 *adlag* trukean, ordeze. ik **truk**.

Jakina, sinbolo bat beste baten **truke**. Pello Salaburu

Europar produktu manufakturatuen ez ziren jada esklaboen **truke** aldatzen, tropikoko gaien **truke** baizik. Koro Navarro

Lanaren **truke** pagatzen. Anton Garikano

Zeure salgaien **truke** zilarra, burdina, eztainua eta beruna ematen zizkizuten. Elizen arteko biblia

Hauak ere beren lanen **truke** lurra eta jabegoak jaso ote zituzten. Jon Alonso

Herriak, krediturik gabeko zordun baten antzo, ez zuen mailegu-emailerik aurkitzen, etekin handien **truke** ez bazen. Iñaki Iñurrieta

Nire herria hutsaren **truke** eraman dute gatibu, eta menperatzaileek ulu dagite harro. Elizen arteko biblia

Banku eta aurrezki kutxek ez baitute "ezer ematen" bertan aurrezturik edukitzearen **truke**. Iñaki Heras

Konponketa bat proposatzen diote bere bizimodu libertinoaz damutzearen **truke**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bizibidea seguru izatearen **truke** aberasteko itxaropena gaitzeko prest dagoenari. Iñaki Iñurrieta

1,20 oihal-unitate, ardo-unitate baten **truke**. Koro Navarro

Sos baten **truke** seme-alabak saltzeko prest zegoela. Aingeru Epaltza

Egun bateko lana eskukada polit bat diruren **truke**. Oskar Arana

ik beherago 8. Askoren artean

Duela hiru urte, esaterako, bi neska gazte eman nizkion artzapezari, ehun errubloren **truke** bakoitza. Jose Morales

XVIII. mende hasierako britainiar gobernuak zenbait konpainiari, administrazioak beraiekin zituen zorren **truke**, inbertsoreei akzioak trukatu ahal izatea baimendu zien. Iñaki Heras

Jaunak erregearengandik eskuratzen du lurra, edo goragoko maila duen beste jaun batengandik, zerbitzu militarren **truke**. Koro Navarro

Hileko 39 euroren **truke**, megabyte bateko lotura eskaintzen die enpresei. Berria - Ekonomia

Zure ziorantasuna 30 zentimetro **truke** ! Patxi Zubizarreta
Gixajo baten moduan ibiltzeko, egunero paseoan eskutik helduta, noizbehinkako txortaren **truke** ? ez du merezi. Jon Arretxe

6 (izen soilaren eskuinean)

Mentxuk farmazeutiko titulua izan arren, dirutan nekez ordainduko ziola gaztigatu zion Rafael Lizarraga lizentziatuak, eta pentsio **truke** itxi zuten tratua. Josu Landa
Eros gaitzazu gu geu eta gure lurrrak janari **truke**, eta faraoiaren esklabo bihurtuko gara, geure lurrekin batera. Elizen arteko biblia
Etelkaren neba gazteari eskola partikularrak emanak zizkion bazkari-**truke**. Anton Garikano
Josek Egipto eta Kanaaneoko diru gutzia bildu zuen gari **truke**, eta faraoiaren jauregiko altxortegian sartu. Elizen arteko biblia
Emagalduen saritzat mutikoa ematen zuten, eta zurruterako ardo-**truke** neskatxa saltzen. Elizen arteko biblia
-Bizarginek, kobrezko txanpon **truke**, ikurrez apainduriko hezurrezko edo pergamuzko laukiak ematen zituzten. Juan Garzia

7 *trukean adlag*

Trukean kanpotarren urrea eskaintzen duen arren, inork ez dio atea irekitzen. Martin Anso
Ez baita gauza bera denborako sari baten ordainetan edo **trukean** izpirituko opari baten izatea eta sari haren ematea obra on hau edo hura eginen duenari. Piarres Xarriton
Merkatu beltzean **trukean** ibiltzea leporatu zioten. Urtzi Urrutikoetxea
Atseginaz irakasten diot, **trukean** eskaintzen dizkidan irriek urre gorriaren balioa baitute niretzat. Edorta Jimenez
Smithen iritziz, "gizonak **trukean** aritzeko, gauzak aldatzeko eta gauza bat bestearen orde emateko berez duen joeran" datza azterketa ekonomikoaren oinarri psikologikoa. Koro Navarro
Auzoko mutikoekin egiten nuen **trukean**, haiek ere izugarri irakurtzen baitzuten. Pello Lizarralde
Filosofiak, adierazi gabe, errebeldioaren mezuen aurka kritika arrazionala ez erabiltzea onartu zuen, eta **trukean** profeten mezuak sofisten hizkeran berriro formulatzea onartu zitzaion. Iñaki Mendiguren
Ikusiak zituen Venezian eta Genova [...] hango eliz atari eta jauregietan hirunaka, launaka, bosnaka, seinaka, zazpinaka halako tresnaz musika joka, jendearen erremusina eskatuz **trukean**. Felipe Juaristi
Sekula ez zuen horregatik dirurik onartzen **trukean**. Felipe Juaristi
-Heure premu-eskubidea ematen badidak **trukean**... Jose Antonio Mujika
Zer irabaziko dut **trukean**? Monika Etxebarria
-Gure ondoan nire adineko mutiko bi zeuden, kromo-**trukean**. Unai Elorriaga

8 *diru truke iz*

Diru truke egonkorrei eustea eta nazioarteko dirua zabaltzea. G-7ko Taldeak **diru trukearen** gorabehera handiak kritikatu izanak eragin gutxi izan du dibisa merkatuetan. Iñaki Heras
Barrako emakumeak ez dio niri egin didan **diru-trukea** egin nahi izan. Edorta Jimenez
Barrako emakumeak ez dio niri egin didan **diru-trukea** egin nahi izan. Edorta Jimenez
Indarka ezin zutela ikusirik, erasotzaileak saiatu ziren gazteluko jauna **diru trukean** haien alde jartzten. Martin Anso

9 *diru truke adlag* ik truk 4.

- **Diru truke**, edozer gauza egin daiteke Varsovia. Koro Navarro
Halakoa da gure mendea, preso hartzen ahal dituztela eta preso atxikitzen **diru-truke** behar bada. Herria
Errudunari **diru-truke** arrazoi ematen eta erugabeari zuzenbidea ukatzen diozuenok! Elizen arteko biblia
Erleak ezin omen dira **diru truke** saldu, trukatu baizik -ehuna, garia, ardia eta beste erabil daitezke trukea egiteko- edo besterik gabe erregalo gisa eman. J.M. Olaizola "Txiliku"
BPGan **diru truke** lor daitezkeen ondasunak eta zerbitzuak kontabilizatzen dira, ez besterik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

10 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Niri dagokidanez, diru **truke** datu faltsuak emango nizkieke, eta kito. Josu Landa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akzioen truke (3); akzioaren truke (3); alde egitearen truke (3); apur baten truke (3); arimaren truke (3); askatasunaren truke (5); askatzearen truke (18); babesaren truke (3); bahituak askatzearen truke (6); baimenaren truke (3); bakea lurren truke (3); bakearen truke (8); bidaltzearen truke (3); biziaren truke (7); bokadillo baten truke (3); diru baten truke (4); diru horren truke (3); diru truke (29); diruaren truke (25); dirutzaren truke (3); dolarren truke (17)
egitearen truke (21); elikagaien truke (13); ematearen truke (9); eragin truke (4); eskubidearen truke (3); eskumenen truke (4); euro baten truke (4); euro ingururen truke (3); euroaren truke (7); euroaren truke ofiziala (4); euroren truke (97); euroren truke egin (4); euroren truke erosi (3); euroren truke eskuratu (3); ezeren truke (7); geratzaren truke (3); gutxi batzuen truke (5); gutxiaren truke (4); hartzearen truke (6); hiltzearen truke (5); hutsaren truke (23)
informazio fidagarriaren truke (3); informazioaren truke (8); iritzi truke (5); itzultzearen truke (4); izatearen truke (7); janariaren truke (3); jartzearen truke (7); jasotzearen truke (8); kalte ordainen truke (6); laguntzaren truke (3); lan egitearen truke (4); lanaren truke (15); lau euroren truke (4); lau sosen truke (3); liberaren truke (4); lortzearen truke (4); lurren truke (7); maiztasunaren truke (3); mantentzearen truke (3); mesedearen truke (3); milioi dolarren truke (9); milioi euroren truke (47); milioiren truke (8); nafarroa truke txanpon (3); nazioarteko truke (3); nire biziaren truke (4)
ogierlekoren truke (3); onartzearen truke (4); ordain baten truke (4); ordainen truke (6); ordaintzearen truke (5); orubearen truke (4); pare baten truke (5); parte hartzearen truke (4); petrolioia elikagaien truke (11); petrolioaren truke (3); pizgarrien truke (3); presoen truke (4); produktuen truke (3); sariaren truke (4); sei euroren truke (3); soldataren truke (3); sos baten truke (3); sos batzuen truke (4); sosen truke (6); su etenaren truke (3); tragoen truke (3)
truke aldatu (3); truke aldatzea (5); truke aldatzeko (3); truke aldatzen (3); truke askatzeko (4); truke aske (3); truke baldintzen (3); truke baliorik (3); truke dirua (5)
truke egin (9); truke egingo (4); truke egiten (4); truke eman (10); truke emango (6); truke ematen (12); truke erosi (7); truke erreserben (3); truke eskaintzen (8); truke eskaintzen duen (4); truke eskuratu (4); truke finkoko (3)
truke izan (3); truke jasotako (3); truke jasotzen (4); truke korronteen (5); truke lan (8); truke lan egiten (3); truke letrak (3); truke libre (4); truke librearen (5); truke librearen aldeko (3); truke libreko (4)
truke ofiziala (11); truke ordaindu (6); truke ordaintzen (3); truke prezio (4); truke programan (5); truke saldu (15); truke salduko (3); truke saltzea (3); truke saltzen (4); truke sare (3); truke tasa (60); truke tasa erreala (3); truke tasa finkoak (4); truke tasa malguen (3); truke tasak (26); truke tasan (3); truke tasaren (13); truke tasari (3); truke tasen (39); truke tasen egonkortasun (3); truke tasetan (5); truke txanpon (10); truke txanpon gisa (5); truke txanpon izan (3); truke utzi (3); txakur txikiren truke (5)
uztearen truke (12); zerbaiten truke (8); zerbitsu horren truke (3); zerbitzuaren truke (4); zeren truke (17)
bahituen trukea (3); diru trukea (3); eragin trukea (6); gutun trukea (3); informazio trukea (3); iritzi trukea (3); kultur trukea (3); merkataritza trukea (4); posta trukea (3); preso trukea (3); trukea egin (8); trukea egiteko (9)
merkataritza trukeak (5); trukeak egiteko (3)
diru trukean (6); euroren trukean (9); milioi euroren trukean (7); musu trukean (3); trukean aritzen (5); trukean ehun (3); trukean eman (3); trukean ezer eskatu (3); trukean jasotzen (3)
kultur trukearen (3); nazioarteko trukearen (3); trukearen baldintzak (4); trukearen baldintzen (8); trukearen bitartez (3); trukearen ondorioz (3)
kanpoko trukeen (3); nazioarteko trukeen (6); trukeen liberalizazioa (5)
ez da trukeerako (3); ez duela trukeerako (3); nafarroa trukeerako txanpon (7); trukeerako txanpon (27); trukeerako txanpon gisa (8); trukeerako txanpon izan (6); trukeerako txanpon izatea (3); trukeerako txanpona (6)

trukegai iz trukearen gaia.

Besoaren indarra igitaiari eta gerriaren abilezia lanean, beste **trukegai** ez zeukan Perikok Arabako bidea hartu zuenean. Pako Aristi
Europak inportaturiko metal bitxiaren eta bizigarrien balioak, garai hartan, bost aldiz biderkatzen zuen Europa barneko gariaren salerosketaren balioa, nahiz eta XVI. mendean, bolumenari zegokionez, huraxe izan, garia alegia, itsasbideko **trukegai** nagusia. Koro Navarro

trukekide *(orobat truke-kide)* iz truke berean parte hartzen duena.

Egile horiek, Ricardoren ikusmoldeari jarraituz, **trukekideen** artean legokeen lan edo kapital-faktoreen ugaritasun erlatiboaren bitartez saiatzan dira abantaila konparatiboen existentzia azaltzen. **Koro Navarro**

Ricardok ez du zehazten ingeles kontsumitzaileek [...] nola aterako zuten onurarik halako egoera batetik, ezta nola banatuko lirartekeen ere, **truke-kideen** artean, mundu osoko mailan sortutako soberakinak. **Koro Navarro**

Horren ondorioz, bi herrialdeei komeni zaie trukea, herrialde bakoitzak bere **truke-kideak** produktibitate handienaz ekoizten duen ondasun hura inportatzen baitu. **Koro Navarro**

trukes¹ 1 iz *p/*kurrikak.

Hilabete hastapeneko gau batez, ilargi beltzaren ilunaz baliatuz, haren lantegitik hartu **trukesekin** alanbre xixtadun batzuen moztera ahalegindu zen. **Eneko Bidegain**

Beste zernahi tresna: sega, segu kotxu edo opotxa, zerra, arpana, haizkora, mailu, **trukes** eta gaineratiko! **Herria**

2 irud/hed

Neska gaztea askatu zen hertsatzen zuten gizon haren **trukesetarik** eta, aurre egin zion. **Elena Touyarou**

trukes² *izlag* moldakaitza, traketsa; itsusia, gaizki egina.

O! pilotan ere, arrunt **trukesa**!!! **Menane Oxandabaratz**

Beti bezala ene gaztelania **trukesean** mintzo naiz. **Piarres Aintziart**

Muga harri eder eta tarro batean irakurtzen dira hitz erdi **trukes** baina hunkigarriak: *Uterga Ruta Jacobea*. **Piarres Aintziart**

truko¹ *(orobat truku)* iz trikimailua.

Fikzioaren mugimendua lortzea askotan zaila bada ere, «**trukoak**» erabili behar dira, idazlearen hitzetan: gertakizunak azaldu, edo atalen bidez elipsiak egin, aldaketak sartu... **Berría - Kultura**

Bertsoak bat-batean botatzen dituenak ez du erabiliko inolako tranpa edo **trukurik**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ikuslea ez aspertzeko **truko** bat. **Pako Aristi**

Gizon baten seduzitzeko ehun **truko** zerrendatzen zituen, hitzik ez ordea derragun seduzitua emaztea izan zitekeen kasuarentzat. **Itxaro Borda**

Segundo bat bera ere galdu gabe iragarri zion **truko** bat zeukala berak igogailuaren geldialdiak ebitatzeko. **Unai Elorriaga**

Jolasteari utzi zion orduan, arinegi harrapatu zuelako jolasaren **trukoa**. **Unai Elorriaga**

Telebista **trukoz** beteta dago. **Pako Aristi**

Zintzotasun-itxura bat egiten zaio ikusleari, baina hori ere faltsua da azken batean, erabaki artistiko baten emaitza baita zer erakutsi eta zer ostendu, efektu bereziekin publikoa txunditu ala **trukoaren** kakoa bistan azaldu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Joanese bezala Anbroxioren **trukoa** erabiltzen zuen bakarretarikoa. **Eneko Bidegain**

truko² ik tronko.

truku ik truko¹.

trukulento *izond* beldurgarria, izugarria.

Arrietaren ipuinetako umorea eta «sexu eszena gordin eta **trukulentoak**» laudatugarritzat ditu Linazasorok, eta gustuko ditu liburuko ipuin guztiek duten «absurdo ukitua» eta «joera existentzialista» ere. **Berría - Kultura**

trukulentzia *iz* beldurgarrikeria, izugarrikeria.

«Mendekurako biderik errazena bortxakeria, indarkeria edo **trukulentzia** dira», Linazasororen ustez. **Berría - Kultura**

trumilka 1 *adlag* samaldaka. (pertsonak)

Ehunka joaten ziren entzuleak, **trumilka**, haren eskoletara. **Jon Muñoz**

Nire herrikideak, hala ere, **trumilka** irten bide zaizkie txalo jotzera. **Txillardegi**

Gaur ere, antzina bezala, gipuzkoarrak **trumilka** igotzen dira Zelatuna. **Txillardegi**

Trumilka etorri ziren erromatarak hirira: horra Sirakusa hartua! **Jon Muñoz**

Ziatik, Zalaindik, Malaustetik, Illukuetatik, Kautetik, Elzaurdi eta Garaitarretatik, **trumilka** jaitsi dituk bideetara gizasemeak eta emakumeak, esku-zartaka eta oihuka. **Txillardegi**

Jendea bazabilan **trumilka** abadetxearen inguruan. **Michel Oronoz**

Gizonak **trumilka**, lerroan oinez, indarrik gabe, uniforme xuri marraduna soinean, buruan ilerik gabe, begiak errotik ateratzeraino argaldurik, hil biziak iduri. **Eneko Bidegain**

2 (bestelakoak)

Berehala erretxindu zen Willem, leihoak zabaldu orduko euliak sartzen baitziren **trumilka**. **Anjel Lertxundi**

Haizea **trumilka** dator etxe arteetatik: plastikoak, harea, hosto ihartuak zirimola eroan. **Anjel Lertxundi**

Urre zuria **trumilka** ekoizten zen Euskal Herrian. **Itxaro Borda**

Orain arte axurikia hara saltzen genuen **trumilka**, kamioiak beteka. **Itxaro Borda**

Gizen-gizen eta **trumilka** zetozen Charles ibaiko urak, aurreko egunetan izandako euri-jasen eraginez. **Anjel Lertxundi**

Odol-zorabioa igo zitzaion zainetan gora, **trumilka** eta brastakoan. **Anjel Lertxundi**

Malenkoniaren meneko, uda burutu berriko asteburuaren oroitzapenak etortzen zitzaizkidan **trumilka**. **Xabier Montoia**

3 (izen gisa)

Goizean goiz amak esan zikion hitzak matxinak zitaizkion, antsiaren antsiatz, **trumilka** bizian. **Anjel Lertxundi**
Fusilaren tiroa balitz bezala entzun zen kolpea, eta horra non, eztanda hari sekulako **trumilka** hotsak erantzuten dion nire etxeko goiko aldetik. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
jendea trumilka (6); **trumilka etorri** (8); **trumilka etortzen** (3); **trumilka irten** (3)

trumilkatu, trumilka(tu), trumilkatzen da *ad* trumilka erori.

Denborarekin lur puska itzel bat lurpeko aintzira handi eta zabaletara **trumilkatzen** denean, zorua inarosten dela uraren tirainez. **Xabier Amuriza**

trumiltsu *izond* trumilka gertatzen dena.

Babes ezak lur berria eguzki gehiegitik, euri **trumiltsutik**, haize zakarretik! **Anjel Lertxundi**
Zuzendari txit agurgarriaren ahots **trumiltsuak** atera nau nire gogoetatik. **Anjel Lertxundi**
Eguraldi ona edo ekaitz **trumiltsu** eta harri-jasa gaiztoetatik libre ateratzeko. **Pello Zabala**
Haizea, batetik, **trumiltsu** ohi dena, zirimolaz datorrena, ezin zarela gobernatu bere aurka, eta galtza barrenak astinduz hozten zaituelarik. **Pello Zabala**
Ibaiaren ahoa bare-bare zegoen eta belaontziak ez zuen batere nekerik izan ibaiak itsasoarekin bat egiten zuen gunen **trumiltsua** igarotzeko. **Anjel Lertxundi**

trumoi (*orobat trumon g.er.*) 1 iz tximistaren hotsa. ik **ostots**; **inusturi**; **ihurtzuri**.

Trumoi jotzen duenean, zakurrak nagusiaren edo maite duenaren geriza bilatuko du. **Gotzon Garate**
Martxoan **trumoi** jotzen duenean, ardoa ta ogia non-naहितik badatoz. **Pello Zabala**
Tximistak erori ziren, **trumoiak jo** zuen, eta zerua sugarretan piztu zen. **Koro Navarro**
Tximista batzuk islatzen ziren uretan, **trumoirik** gabe, eta eguratsa argizatzen. **Karlos Zabala**
Xehatuko ditu Jaunak bere etsaiak, hauen gainera bidaliko ditu zerutik **trumoiak**. **Elizen arteko biblia**
Gero, **trumoi** baten hotsa entzun zuen. **Joan Mari Irigoien**
Trumoi baten eztanda ekarri zituen ostatuan zeuden denak beren onera. **Felipe Juaristi**
Hirugarren eguna argitzean, **trumoiak** eta tximistak izan ziren mendi gainean. **Jose Antonio Mujika**
Trumoi haize eta euri, lurra musu eman dio zeruari. **Patziku Perurena**
Errealitatea bere haize, tximista, **trumoi** eta uholdeekin ailegatuko da ezinbestean. **Berria - Gaik**
Ortzi urdina **trumoi**pean dardaritzen da, goi-hegan doazen eter hodeiek, kontrako haizeen eraginez, elkar jotzen dutelako. **Xabier Amuriza**
Egun batean egundoko ekaitza izan genuen, **trumoi** eta tximistak gure gain-gainean lehertzen zirela ematen zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Egundoko ekaitza sortu zen pare-parean, tximist eta oinaztu, **trumoi** eta erauntsi, goiak behera lehertzeraino. **Pello Zabala**
Zeruko **trumoiak** entzutea ere galaraziko lukeen iskanbila sortu zen jauregian. **Patxi Zubizarreta**
Trumoiaren azken burrunbak mendiaren barne sakonetan galdu ondoren. **Karlos Zabala**
-Azken **trumoi**ek galdu egin zizkideatek arrautza gehienak. **Koldo Izagirre**
Bazkalondoan, egongelan solasean zihardutela, gure aitonak txitean-pitean ipurdia altxatu eta **trumoi**en moduko puzkerrak egiten zituen. **Karlos Zabala**
Trumoiaren beldur agian, baina ez euriaren. **Bernardo Atxaga**

2 (izenondoekin)

Trumoi handi bat entzun zen bat-batean eta etxeko argiak dar-dar egin zuen. **Aitor Arana**
Zerutik zetorren hotsa entzun nuen, ur handien edo **trumoi** handi baten burrunba bezalakoa. **Elizen arteko biblia**
Tximista hurbileko batek **trumoi** ikaragarria ekarri zuenean. **Hasier Etxeberria**
Trumoi indartsuak astindurik, badirudi dena dardaritzen dela. **Xabier Amuriza**
Gero zarata ederreko soinu tinko eta betean segitu zuen suak, **trumoi** jarraitu baten gisa. **Juan Garzia**
Kanpoko euria eta **trumoi** urrunak alde batera utzita, dena lasai eta isilik zegoen etxe handiaren barruan. **Aitor Arana**
Udako egunik ederrenak ere inoiz **trumoi** beldurgarriak hondatzen dituen bezalaxe. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egun asko izango direla, bateko sirimiri eta besteko **trumoi**-erauntsi, euri gandutan pasatu beharko direnak. **Pello Zabala**
Behar ez den bakarra, **trumoi** eta ekaitz erauntsiak etortzea. **Pello Zabala**
Maiatzean 16 uholde erauntsi ageri direla, leku ezberdinetan emanak, batzuk harri eta kazkabar, eta tximist eta **trumoi** erauntsiak ere hagitz aldiz ageri dira. **Pello Zabala**
Gurdiaren hotsa **trumoi** erasotzat jotzen dugunean. **Imanol Unzurrunzaga**
Sargori sapa gehitzeaz gainera, **trumoi** hodei trumiltsuak ere azaltzen joango direla eguerditik aurrera. **Pello Zabala**
Trumoi eztanda latz batek berri zuen eraso. **Koldo Izagirre**
Zure **trumoi**-burrunbak zeruan jotzean, oinartzegiek mundua argitu zuten, lur-barrenak ikara eta dardara egin. **Elizen arteko biblia**
Hartan geundela, **trumoi**-zartada baten eztanda. **Anjel Lertxundi**
Beste **trumoi**-danbada bat entzun zen, hurbilago eta ozenago, eta, bat-batean, goian behean eraso zion euriari. **Jose Morales**
Ordutik makina bat haizete, **trumoi**-danbarreko eta beste hainbat ekaitz ibili eta lehertu dira. **Pello Zabala**
Izan al da **trumoi**-sonik aurreko egunotan? **Pello Zabala**
Tamalgaria zen dena, lanbroa bezala, lanbroean bere **trumoi** zaratarekin pasatzen ziren kamioiak bezala. **Joseba Sarrionandia**
Trumoi-soinuak ere garaitu hau dute gustuko. **Pello Zabala**
Aitaren **trumoi**-ahotsa aditzen zen: "Zikinkeriarik ez, mesedez!". **Fernando Rey**
Entzun Jaunaren **trumoi**-ahotsa, entzun haren ahotik iriteten den durundia. **Elizen arteko biblia**
Egun sargoria zen, eta **trumoi**-giroa zegoen. **Iñaki Mendiguren**
Hauxe da Zeusen, Jupiterren, Herkules, Thor eta **trumoi**-jainko guztien zuhaitza. **Pello Zabala**
Lau izaki bizidunetatik lehenengoak **trumoi** antzeko ahotsez hau esaten zuela entzun nuen: "zatoz". **Elizen arteko biblia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jarraian beste aro eta haize batzuk, Volturmo goi-**trumoi**a eta Austro tximist-jauna. **Xabier Amuriza**
Bezperako ekaitz-**trumoi**en ostean, goiza dena garbi argitsu zabalitzen denean. **Pello Zabala**
Tximist-**trumoi** eta harri erauntsi ikusgarriak bota zituen. **Pello Zabala**
Ekaitz giroan bizi zela ikusten genuen, tximist-**trumoi**ez inguratuta. **Ander Irizar**

5 irud/hed

Janaria astuna gertatzen zaigu denoi; horrek **"trumoi"** ikaragarriak eragiten ditu zoko guztietan. **Josu Zabaleta**

6 trumoi hots (orobat trumoihots g.er. eta trumoiots g.er.)

Lau pauso eman orduko aditu zuen [tximista] haren **trumoi hotsa**. Josu Landa

Trumoi-hotsa entzun eta ia bat-batean oinaztarria ikusi zuen. Felipe Juaristi

Moises mintzatu eta Jainkoak **trumoi-hotsez** erantzuten zion.

Zuzengabeen aberastasunak errekastoa bezala lehortuko dira, ekaitzaldiko **trumoi-hots** handia bezala pasatuko. egundoko **trumoi hots** luzea heldu zen zelaietatik.

Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren trumoi ahotsa (12); bere trumoi ahots (3); trumoi ahots (6); trumoi ahotsa (14); trumoi ahotsez (3); trumoi burrunba (3); trumoi eta oinaztu (3); trumoi eta tximist (4); trumoi handi (3); trumoi hodei (3); trumoi hots (6); trumoi hotsa (9); trumoi hotsak (6)

trumoi entzun (3); trumoi jotzen (5)

trumoiak eta tximistak (3); trumoiak jo (3); tximistak eta trumoiak (5); zeruko trumoiak aditza (4)

trumoioren antzera (3)

trumoialdi iz trumoi jotzen duen aldia.

Bitxikeria, kontuan hartu nahi duenarentzat: 2000. urteko abuztuan, hiru **trumoialdi** edo ostots erauntsi bota zituela: ostiral edo ebiakoitz hirutan bana. Pello Zabala

trumoihots ik trumoi 6.

trumoiika 1 adlag trumoi joko.

Zerua **trumoiika** ari da azkeneko hamar minutuetan, eta haizea gero eta bortitzagoa da. Bernardo Atxaga

Zeus **trumoiika** hasi zen, itsasontzira tximista bat bidaliz. Juan Kruz Igerabide

Eta bat-batean **trumoiika** ekin ziezaiokek zeruak. Juan Garzia

2 irud/hed

-Mila deabru! -esan zuen **trumoiika** -. Julen Gabiria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trumoiika hasi (3)

trumoikada 1 iz adkor trumoi.

Baina, gertuan edo urrun, askotan bezala, ez zen faltako **trumoiadarik** ere. Pello Zabala

2 irud/hed

Badoa suak hartuta telefonoraino eta ohizko **trumoikada** botako du. Xabier Mendiguren Elizegi

trumoiokume iz

Santiago Zebedeorena eta Joan, Santiagoren anaia -hauei Boanerges izena jarri zien, hau da, "**Trumoiokume**". Elizen arteko biblia

trumoiolari izond trumoi jotzen duena.

Bai espazioak eta bai materiak infinituak izan behar dute, beraz, munduaren murruek bat-batean, gar hegalaria gisan, ihes egin ez dezaten, hutsunean disolbatuрик, eta gainerakoek ere berdintsu segi ez diezaieten eta zeruko tenplu **trumoiolariak** eror ez daitezten. Xabier Amuriza

trumoiots ik trumoi 6.

trumoiotsu 1 izond trumoi maiz jotzen duena.

Egun **trumoiotsu** haietan. Xabier Olarra

Horrelako kosken artean etorri ohi dira ekaitz **trumoiotsuak** ere. Pello Zabala

lñustuixa deitzen zaio paraje askotan tximistari eta atzetik dakarren soinu **trumoiotsuari** ere. Pello Zabala

-Nausikaa, Altzinoz ausartaren alaba: emango ahal dit Zeus **trumoiotsuak** etxera itzultzeko aukera. Juan Kruz Igerabide

2 irud/hed

Badira egun bare-bareak, eta badira, atzo adibidez, **trumoiotsuak** direnak egonezina giroan bertan atzematen delako. -Zaude geldi, Joanes -esan zuen alkatearen ahots **trumoiotsuak** -. Berria - Euskal Herria

Erabateko isiltasuna egin zen, eta epailea irakurtzen hasi zen batere dardararik gabeko ahots **trumoiotsuz** : [...]. Anjel Lertxundi

-Hara nor dugun hemen! -ahots ozen **trumoiotsuak** jauzi eragin zidan aulki gainean- nor eta gure mutiko jokalaria! Alberto Ladron Arana

Gizagaixoak atzera egiten zuen, bere burua defendatu ezinik, kalea garrasi **trumoiotsuez** inarrosiz. Patxi Zubizarreta

Maisua bere umetako apaiza imitatzen hasi zen, ahotsa goratu gabe baina tonu **trumoiotsuan** . Joan Mari Irigoien

Gizagaixoak atzera egiten zuen, bere burua defendatu ezinik, kalea garrasi **trumoiotsuez** inarrosiz. Patxi Zubizarreta

3 (adizlagun gisa)

Trumoiotsu zabaldu zuen eguna goiz euritsu hartan. Jose txo Azkona

Sargori dago, **trumoiotsu** . "Erpururik gabeko hiru hankako bizkarroker baten sasikumea!" esan zuen subiranoak **trumoiotsu** . Karlos Linazasoro

trumoiitu, trumoi(tu), trumoiitzen da/du ad trumoi giroa hartu. • irud/hed

Komisario-burua kolera batean **trumoiitu** eta oihuka lehertu zen. Harkaitz Cano

trumon ik **trumoi**.

trunkilo *izond*

Artzain **trunkiloak**, hinki-hanka, Sebasen mahaira jo zuen. **Itxaro Borda**
Wernerrekin partikulazki larru-tratu finkoetan abiatuz geroztik, ez zuen gizon **trunkiloaren** berri zehatzik. **Itxaro Borda**
Ene bizimolde zarpailarekiko interes maltzurra erakusten zuten **trunkiloek** gauea ohean pasatzen zuten eta goizetan dena eskaera zeuden. **Itxaro Borda**

trunko ik **tronko**.

trunkotxo ik tronkotxo.

trunpilo *iz* handitua, tumorea.

Larrua **trunpilo** gorritz tatxatua. **Itxaro Borda**
Zazpi ateen azpitik iragan behar zen, gerria **trunpilo** zornatsuz tatxatua suerta ez zekion. **Itxaro Borda**

trunpilotu, trunpilo(tu), trunpilotzen da/du *ad* hantu, trunpiloa egin.

Bihotzean, antsia **trunpilotu** zitzaion. **Itxaro Borda**

truskil ik **trauskil**.

trust *iz* enpresa askoren arteko finantza elkarte.

Alabaina ADA barne den Aceralia Espainiako holdina beretua du Luxenburgoko Arbed-ek, honek Usinor frantsesarekin bat eginik NewCo deitu **trust** mundiala bilakatzearekin. **Herria**
Momentuko bederen iduri du **Trust** mundial horrek onartzen duela ADAK segi dezan aitzina nahiz ez duen aurten ere irabazi garbirik aterako. Garai horretan eratu ziren, herrialde industrializatuenetan, industria eta finantza-talde handiak (**trust** Estatu Batuetan, *Konzern* Alemanian, *zaibatsu* Japonian), eta askok, berehala, nazioarteko dimentsioa hartu zuten. **Herria**
Erresuma Batuan tarteko zerbaiti ekin diote: irabazi asmorik gabeko fundazio bat (**Trust**) izango da ehunen jabe, onuradunak dohantza egileak izango dira eta ikertzaileek soldata moduko bat jasoko dute. **Berria - Gaiak**
Teddy Erraldoien hiltzailea, John Sharp Williams Lotia, Txanogorritxu eta Azukrearen **Trusta**, Ederra eta Brisbane, Efesoko zazpi Zinegotziak, Rip Van Fairbanks, eta abar. **Xabier Olarra**

tsar 1 *iz* Errusiako enperadorea.

Erromatar Inperioaren sortzailearen goitizena kaiser eta **tsar** tituluetan piztu zen. **Iñaki Mendiguren**
Errusiako Pedro Handia **tsarrak**, bere armadak Narvan Suediako Karlos XII.aren eskuetan porrot lotsagarria jasan ondoren, [...]. **Iñaki Mendiguren**
Iraultzaile errusiarra **tsarren** erregimenaren kontra, Suitzan gorde zen, eta gero Italian. **Fernando Rey**
Ukrainara joan zen, orain Nikolas I.a Errusia Guztien **tsarraren** agintepean zegoen Ukrainako bere Podolia maitera. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Bi gobernadore nagusik ordezkatzeko dute **tsarraren** agintaritza gorena lurralde zabal hartan. **Karlos Zabala**
Atzerriratuek Errusia maite zuten, **tsarraren** politikak aldi baterako erbestean bazeuzkan ere. **Karlos Zabala**
Pasaporte haren jabeak bidaia luzeak egiteko baimena zuela zioen eta **tsarraren** zigilu eta guzti apaindua zegoen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Tsarraren mezulariek lauzpabost aste eman beharra zuten gehienetan Asia aldeko Errusia zeharkatzen. **Karlos Zabala**
Lehenbiziko posta etxeetatik **tsarraren** mandatariak jakin zuen beste zalgurdi bat aurretik zihoakiela. **Karlos Zabala**
Strogoff, **tsarraren** sikario hori. **Pello Lizarralde**
Epaitu zuten eta heriotza-zigorra ezarri zioten, altxamendua eta **tsarraren** aurkako matxinada antolatzen jarduteagatik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Nemo, hasiera batean, poloniarra zen eta Errusiako **tsarraren** kontra egiten zuen borrokan, Poloniaren askatasunaren alde. **Karlos Zabala**

2 (izenondoekin)

Dimitri Paulovitxek izan behar zuen Errusiako lurralde guztietako **tsar** bedeinkatua. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Tsar indartsua eta gogorra nahi zuten horri guztiari aurre egiteko, eta Dimitri Paulovitx zen Errusiako **tsar** izateko pertsona egokiena. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Iritzi zuten Errusiako lurralde guztietako **tsar** ahalguztidunak, Nikolas II.ak [...] ez zuela inoiz ez aginterako joerarik ez ahalmenik izan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
-**Tsar** gorriaren postaria berandu dabil -erantzun zuen Pepponek-. **Koldo Biguri**
Zer egin daiteke ministro guztiak eta Inperioko **Tsar** Txit Gorenaren inguruan dauden agintari guztiak Rasputinen jarraitzaileak direnean? **J.M. Olaizola "Txiliku"**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tsarra bera (3)

tsarrak berak (3)

tsarraren mandatar (10); **tsarraren mandatar** bat (6); **tsarraren mandatar** (21); **tsarraren mandatar** (10); **tsarraren mandatar** (4)

tsarina *iz* Errusiako enperatriza; tsarraren emaztea.

1745ean, **tsarinak** agindu bat eman zuen judutarrak kanporatzeko, atzerrira atera zutelako Siberian konfinatutako eta soldaduskan zeuden atzerritar guztien dirua. **Iñaki Iñurieta**
Etsaiak etsai, Rasputinek eta **tsarinak** bideratzen zuten Errusiako politika. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Hala zioten: Rasputinek egindako auskalo zer magiarekin Nikolas sorginduta zeukala **tsarinak**, eta ez zela inoiz ahaztu behar Alexandra alemana zela jaiotzez, arerioaren herrikoa, eta Errusia Santua prusiarrak odoltsu haien eskuetan jartzeko bideetan zebilela **tsarina** traidorea... **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Tsarina iraindu baten antzera. **Jose Morales**

tsarismo iz tsarren erregimena.

Errusiar **tsarismoak** porrot egin zuen lekuan errusiar komunismoak arrakasta izan zuen, era batera edo bestera. **Iñaki Mendiguren**
Txinan Mantxu Inperioak eta Japonian Tokugawa shogun-goak berdin huts egin zuten ekimena hartzen, Errusian petritar **tsarismoak** ez bezala. **Iñaki Mendiguren**
XIX. mendeko azken hamarkadetan, mota eta joera guztietako iraultzaile talde txikiak zeuden Errusian, eta haietako askok terrorismoa erabiltzen zuten **tsarismoa** suntsitzeko. **Jose Morales**

tsarista iz tsarismoarena, tsarismoari dagokiona.

Besteak beste, tsar bat, ministroak, gobernadoreak eta erregimen **tsaristako** goi-agintari asko hil zituzten. **Jose Morales**
Geldiro bidaiatzen hamaika ordu egunik [...] Leningradoko geltoki bikain batera iritsi ginen; iraultza-aurreko bikaintasun **tsaristaren** aztarnaren bat geratzen zitzaion oraindik. **Xabier Olarra**

tse-tse iz

Tze-tze (edo **Tse-tse**) euli [...]: Afrikako intsektu bat (*Glossina morsitans*), zeinaren zitzada loezinerako erremediorik hobereana kontsideratzen den, nahiz eta zenbait gaixok nahiago duten nobelagile amerikarrarena (*Mendax interminabilis*). **Xabier Olarra**

tsigane 1 iz ijitoa.

Mendietatik etorritako buhameak, ikuslerik inozoenei zoria iragartzen; motxaileak edo **tsiganeak** -horrela deitzen diete errusiarrek ijitoei, koptoen antzinako ondorengoei-, beren doinurik alaiena kantatzen eta beren dantzarik bitxiak dantzatzen. **Karlos Zabala**

Nijni Novgoroden Kaukaso ontzira igo eta Kazanen lehorreratu zen **tsigane** zahar hura gogoan. **Karlos Zabala**

2 (beste izen baten ezkerrean)

Mikel Strogoffek [...] gurdi eskerga bat ikusi zuen, motxaile edo **tsigane** jende horren ohiko bizileku ibiltaria. **Karlos Zabala**

Han bildurik zeuden buhame, ijito eta **tsigane** kastako guztiak ere. **Karlos Zabala**

Bistakoa duk -zioen berekiko-; **tsigane** koadrila honek brankako gazteluaren pean eman dik gaua, egun osoa zubiaren pean eman ondoren. **Karlos Zabala**

3 (izenondo gisa)

Emakume **tsiganeak** halako xarma baten jabe dira oro har. **Karlos Zabala**

tsunami iz maremoto batek sorturiko olatu erraldoia.

Asia hego ekialdean **tsunamiak** bere gordintasunean zifra beldurgarriak utzi dituzte: 23.000 hildakotik gora. **Beria - Ekonomia**
Indiako Barne Ministerioak alarma deia egin zuen atzo, **tsunami** edo olatu erraldoi gehiago izateko arriskua zegoela eta. **Beria - Mundua**
Eta olatu eskerga bat lehertzen hasia ikusi dut aurrealdean, **tsunami** erraldoi bat, ihortziri etengabetan itoa. **Txillardegi**
Orroit gira **tsunami** izigarri batek suntsitu zituela bazter guziak han gaindi, hango jendea kasik deusik gabe utziz. **Herria**
Lan Arriskuak Prebenitzeko Legea «erabateko porrota» izan dela salatu zuen eta «**tsunami** hiltzaile» batekin alderatu. **Beria - Ekonomia**
La Palmaren Cumbre Vieja mendia itsasora erortzen denean New York eta AEBetako ekialdeko kostaldean mehatxatuko duen mega **tsunamia**. **Beria - Gaiak**

2 irud/hed

Itsasondokoa emaitzak zabalduko dituen «**tsunami** bat, olatu erraldoi bat» izango da, bere ustez. **Beria - Euskal Herria**

«**Tsunami** soziala» sortu behar da aukera politikoa bideratzeko, Diezen ustez. **Beria - Harian**

Hamasek garaipen izugarria lortu du hauteskundeetan, **tsunami** politikoa eraginda. **Beria - Mundua**

Geldiaraztea komeni ez den diru **tsunamia**. **Beria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tsunami izigarri (3); **tsunami soziala** (3)

ttaka-ttaka 1 adlag adkor taka-taka.

Urteak aurrera egin ahala haziz joan zen Ishmir gurea, **ttaka-ttaka** ikasi zuen oinez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Behialako ama-alabak **ttaka-ttaka** bazihoazen eguneko lehen kafe azkarraren hurrupatzera Austerlitzeko ostatura. **Itxaro Borda**

2 (izen gisa)

Iruditzen zitzaion **ttaka-ttaka** bakoitzak bihotza eta burumuina urratzen ziola. **Itxaro Borda**

ttakun iz txalapartaren erritmoa.

Barañoingo Udal plazan eginitako ekitaldian, txalapartaren **ttakunak** eman zion ongietorria manifestazioa. **Beria - Euskal Herria**

Hara non txalapartarietako batek oinarrizko erritmoa ipintzen duen, "**ttakun**" deritzana, hots, herrenaren onomatopeia. **Juan Kruz Igerabide**

Makilak hartu, eta jo eta jo hasi ginen; hark "**ttakun**" egiten zuen, eta nik "urgun", eta gero alderantziz. **Juan Kruz Igerabide**

ttanbur ik danbor.

ttanka-ttanka adlag cf tanka-tanka.

Eta arrosa kolorea zeukan pottolo hari bihotza **ttanka-ttanka** ari zitzaiola! **Daniel Landart**

ttanko adlag ipar adkor tanko, zuzen.

Zazpiak **ttanko** abiatu naizenean. **Piarres Aintziart**

Bestalde, polizia gizonak abisatzen zituen Malateko ostatu batean izango zela zortzietan **ttanko**. **Ramuntxo Etxeberri**

Eta, **ttanko**! etorri eguerditako! **Herria**

Beti tenoreko **ttanko** tortzen da klasera. Eneko Bidegain

"**Ttanko** hor diat eguzkia, iduri espres eginal!" diot ene baitan. Piarres Aintziart

ttanta ik **ttantta**¹.

ttanto ik **ttantto**.

ttantta¹ (*orobat ttanta g..er.*) **1** iz *adkor* tanta.

Hartu absentia **ttantta** bat, hartu brandy **ttantta** bat, Fernet Branca, Polly, Ooo! Koro Navarro

Izertdia **ttantta** gotorretan isurtzen zitzaion kopetan behera. Itxaro Borda

Odol-**ttantta** poloniarren bat ere izango zian apika aitaren aldetik. Xabier Olarra

Ixabel izerbera zen, orduan ere **ttantta** distiratsuz betea zegoen. Joxean Sagatzizabal

Libraturiko **ttantta** lodiak baino ez zitzaizkion aurpegiratu. Itxaro Borda

Edan zuen kizaratik azkeneko **ttantta**. Pablo Sastre

Ur horiei gainezka eginarazi dien azken **ttantta** izan da aurreko batean egunkari honetan bertan irakurtzen nuena: [...]. Iñaki Segurola

Suspentsioan dauden **ttantta** ttiki buxtiz betetzen da airea, eta horrela lainobera eraten. Pello Zabala

Neurtu ere ezin diren **ttanttak**. Pello Zabala

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Negar egiteraino penatzen den gorputzak ixuritako malko gazi bat da izerdi **ttantta** bakoitza. Iñaki Segurola

Begi izkinan bi negar **ttantta** isurtzen nabaritu zuten etxeokoe eta auzoek. Itxaro Borda

-Pattar **ttantta** bat? -eskaini zidan Sinbadek, kafe kikara bat luzatuz-. Edorta Jimenez

Hauxe bera egiten zuen gero etxeokandreak oiloaren hegapean arrautzak ezarri orduko, bosna argizari **ttantta**. Pello Zabala

Pentsatu soil-soilik: hona hemen urdin-**ttantta** bat, horra arrosa-laukizuzen bat, hori-marra bat. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, irud/hed)

Liburu honetan ere, norberaren munduaren adierazpenarekin edo egolatria **ttantta** batzuekin batera. Xabier Mendiguren Elizegi

Halere, topatu dudan misoginia **ttantta** aipurik gabe ezin dut utzi. Berria - Kultura

Ez zion munduari plazer **ttantta** bihirik iradoki: debekatua zitzaion? Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izerdi **ttantta** (3); odol **ttantta** (3); ur **ttantta** (5)

ttantta² **1** iz *ipar adkor* izeba.

Ttantta Amélie zen, amaren ahizpa. Daniel Landart

Ttantta Mari eta otto Xanen ikustera joaten segitu genuen, 1990eko urteetan hil ziren arte. Ana Urkiza

Herriko baratzean, gostuan ibilki, amaxi, ama, **ttantta**, kusi eta auzoko emazteak, haurrekin. Piarres Aintziart

Hori entzun dut gure etxean, alta baziren erran dizudan bezala bizpahiru emazte, amaz bestalde, eta baziren mutxurdinak eta **ttanttak**... Menane Oxandabaratz

Ondoketa trebatu ninduen ni **ttanttak**. Herria

2 irud/hed

Orduan **ttantta** xahar batek adierazi zuen denak baino hobe zirela Elizaren otoitzak. Michel Oronoz

ttanttaka *adlag adkor* tantaka.

Botatzen nuen gosariarekin batera gainera jendeen soak jasan behar nituen, urera keldarra **ttanttaka** igortzen nuelako, ilun, biketsu, urrintsu eta azkenean disgustagarri.

Itxaro Borda

Arratsalde euritsua izaki, trafikoa arazoak medio-edo **ttanttaka** hasi ziren iristen gonbidatuak Kultur Parkeko areto nagusiaren atarira, aterkiak eskutan gehien gehienak.

Berria - Harian

ttanttan **1** iz *adkor* tantana, tanta.

Lanbroa eta langarra deitu ohi zaion lainobera, aireak hegan daramatzen **ttanttan** ttipi-ttipiz osatua. Pello Zabala

2 (hitz elkartuetan)

1903tik 1917ra bitarteko 14 urteotan, ez zuten euri **ttanttan** bat bera ere jaso: 5.206 egun euririk gabe. Pello Zabala

Bazen bailararik, basarrietan arrautza bakoitzari Kandelarioz bedeinkaturiko argizari **ttanttan** bat ezartzen ziotenekorik ere. Pello Zabala

ttanttanka *adlag adkor* tantaka.

Urteki horiek denak, iturriak barne, zorrote orde jario eskasean eta **ttanttanka** gelditzen badira. Pello Zabala

ttanttankatu, ttanttanka(tu), ttanttankatzen da/du *ad* tantakatu.

Iturrien jarioa **ttanttankatzen** denean, bibelarra ahuldua eta zenbait tokitan arretua eta erdi ihartua trixetetzen denean, harkaizti batzuetako zuhaitzen hostoak horixkatu eta

ximeltzen hasten direnean, ezki hostozabalarenak batik bat... ez zaio traza batere onik hartzen. Pello Zabala

ttanttantto iz *adkor* ttanttan txikia.

Ur-**ttanttantto** ttikiak, beroak bultzata gora, izoztu bidean. Pello Zabala

ttantto *(orobat ttanto g..er.) 1 iz adkor tantoa. (pilotan eta)*

Ttanttoa egiten duenak du partida irabaziko. Herria

Trinketean beti, Frantziako xapelgoa Peio Guichandut eta Eñaut Costerak **ttantto** xoil batez galdu dute finalean. Herria

Lehenek ereman dute **ttantto** batez, biziki partida ederra egin daukute 4 gaztek. Herria

Handik harat, partida luze bat izan da, ainitz berdintze, **ttantto** pollit baina huts haundiskoak ere. Herria

Gérard-ek galdu dituen **ttantto** guziak Txominek berreskuratu ditu. Eneko Bidegain

Partida kasik bururatua zelarik Philippe Oxandabarats-ek du sartu azken **ttanttoa**. Herria

Musarekin **ttanttoa** eta musikarekin baltza. Herria

2 (bestelakoetan)

Geroztik ikasleek daramate mugimenduaren bandera eta sindikatuek, presente badira ere, zuhur jokatu behar dituzte **ttanttoak**, ez baitute ikasleen mugimendua kontrolpean.

Berria - Ekonomia

Gorputz airea berdina zuen baina keinuak, entzuleriari mintzatzeko manera, boteredunen aire hura, eskuan dituen **ttanttoak** ongi ezagutzen dituen gizon goranahieren ezaugarriak ziren. Elena Touyarou

Bi **ttantto** paregabe eskutan ditu ofizioen unibertsitate horrek Baionan idekitzeko atea hemendik dotzena erdi bat urte. Herria

Iduri du estatuak [...] eta jujeek **ttantto** guziak bildu dituztela puskaketako unti kutsatzaileak kondentatzeko. Herria

3 (beste izen baten eskuinean)

Bera **ttantto** zilarra eskuetan harrapatuko zuen, pentsatzen zuen, baina hori aitzin bazuen afera bat trenkatzeko. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ttantto xoil batez (6)

azken ttanttoa (4)

ttanttoka *adlag adkor tantoka.*

Ttanttoka bada ere, doala beretik beti aintzina, Euskal Herriaren partida. Herria

ttapa *interj*

Senide edo lagun arteko otordu batean, hasi edozein gairi buruz hizketan eta, **ttapa**! hor aterako zaizu eper moderno. Patziku Perurena

ttapa-ttapa 1 *adlag adkor* tapa-tapa. ik **ttipi-ttapa**. (ibiltzearen onomatopeia)

Portutik bazterrez bazter herri erdira doan bidexka ilunean, adineko bikote bat **ttapa-ttapa** doana. Aurelia Arkotxa

Egin diot galde, kamioz **ttapa ttapa** honuntz datorren laborari xahar sudurmako bati: [...]. Patziku Perurena

Andrea bere sonbreirutxoarekin, kipea bizkarrean urrundu da **ttapa ttapa** pauso arinka. Joseba Sarrionandia

Bitartean, bidean **ttapa-ttapa** doala, duela astebete telefonoz entzundako ahotsa entzuten du. Javi Cillero

2 (bestelakoena)

Txakur leiala nola, hala tratatzen dut pianoa: hizketan egiten dugu; ferekatu egiten dut; teklei **ttapa-ttapa** eragin, *à promener*, *à promener!*, eta paseoan ibiltzen gara elkarrekin. Anjel Lertxundi

ttapar *izond adkor* mozkotea.

Tomas eta bion artean azken-putz, forentsea zetorren, Gomez de Segura, jubilaziotik hurbil zegokeen gizontto **ttaparra**, nahitaezko gonbidatua hirian aldi-aldi gertatzen diren bortxazko heriotzetan. Aingeru Epaltza

Udaleko funtzionarioa tartean sartu zitzairen eta, ez barkamenik ez bertze kortesiarik gabe haien solasa moztuz, gorpuzain **ttaparrari** ere galdatu zion sinadura. Aingeru Epaltza

ttarraka-trarraka *adlag adkor* tirriki-tarraka.

Ikuspegi batetik, txanponaren alde bati erreparatuz, gizarte zuzenagoa lortu ahal izateko nolabaiteko **ttarraka**-ttarrakako iraultza; beste ikuspegi batetik, berriz, gizarte zibilizatua edukitzeagatik ordaindu beharreko prezioa. Iñaki Heras

ttarrapa-ttarrapa *adlag adkor* tirriki-tarraka.

Beraz, bitartean erakustaldi batzuk egin eta segi **ttarrapa-ttarrapa**. Berria - Kirola

ttarro 1 *izond ipar adkor* tarroa.

Ordukotz, frango herrikka **ttarroa** egina zen, bost ehun bat familia bizi, ehun urte lehenago hogoi bat baizik etzelarik haatik. Herria

Eskuin, bere etxe xurriekin, herri bat, frango **ttarroa**. Piarres Aintziart

2 (izen gisa, kirol mailetan) ik **tarro 2**.

Marion Etchegoinberry eta Virginie Jonquet-k, **Ttarroen** mailan, finalerdietan galdu zuten, Euskal Herriko trinketeko xapelketan. Herria

Gure xito eta **ttarroek** esku huska azken borroka jokatu dute ezker paretean, azaroaren 26an Beskoitzen. Herria

Orain arte, ezker paretean bi aldiz irabazi dute gaztetxoetan, eta lehen aldia orain **ttarroetan**. Herria

Benjamin **ttarroen** mailean Jeremy Irazoqui eta Remi Marticoarena agorriaren 11 an Landesetan eginen den finalerat helduak ditugu. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

benjamin ttarroak (4)

benjamin ttarroen (3); **benjamin ttarroen mailean** (3); **ttarroen mailan** (3); **ttarroen mailean** (7)

ttarrotu, tarro(tu), tarrotzen 1 da/du *ipar adkor* tarrotu.

1972an sortu ikastola, ari da orain **ttarroitzen**, azken urte hauetan bereziki, kopuruen emendatze azkar bat sendi baita: 66 haur 1995ko sartzean, 82 1997an, 99 1999an, eta 107 aurtengo sartzean. **Herria**

Ttarrotuko denean, zaldiz ibiltzen irakatsiko diot Maianari. **Itxaro Borda**

Landaren xume gisa, hauskor **ttarroitzean**. **Herria**

2 (era burutua izenondo gisa)

Pentsu dut bide beretik segituko dutela gure gazte eta haurño **ttarrotuiek**. **Herria**

3 (era burutua izen gisa, kirol mailetan) ik **ttarro 2**.

Pilotan: esku huska **ttarrotuetan**. **Herria**

Ttarrotuagoen mailan (14-18 artekoetan) xapelketa hori egina izan zen Itsasun aintzineko astean eta hor Miren Artetxe eta Xumai Murua-k ordezkaturiko dute Lapurdi eta Mizel Mateo-k Baxenafarroa. **Herria**

ttatit *adlag* geldirik, isilik.

Deus erran gabe mehatxuen aurrean **ttatit** eta mutu egoten zirenak ez ziren jada kontaktzen. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ttatit eta mutu (4)

ttattol iz *ipar adkor* etxola modukoa, eskuarki zaintze lanak egiteko prestatua.

Zaindari batek **ttattola** baten gainetik barrandutzen zituen presoak. **Eneko Bidegain**

Gorago begiratu oraino, ohartzen naiz teiltatuen goratasunean beste **ttattola** bat ere badagoela, zaintzale batekin, largabistak begietan. **Filipe Bidart**

Bazekien muga zaintzen zuten haiek zer tenoretan ateratzen ziren **ttattolatik**, noiz argitzen zuten zein alderdi. **Eneko Bidegain**

Ttattolaren lau aldeetan hiruna leiho. **Eneko Bidegain**

ttattun *izond*

Zer gauza **ttattuna** hau baratze erakustoki baterako! **Itxaro Borda**

Hemeretzigarren mendeko manoir kuttun baten parrean nindagoela ohartu nintzen, dena dorre **ttattun**, dena berina muntto, dena arbelezko hegats, dena zuhaitz exotikoz landatu parke. **Itxaro Borda**

ttau *onomat* txakurraren zaunkaren onomatopeia. ik **au**.

Etorri hona: hona, Lur, hona! **Ttau**, **ttau**! **Iñaki Segurola**

ttente 1 *izond adkor* tentea; harroxkoa.

Noiz edo noiz irtetzen zenean, tabernara joaten zen zuzenean, baina ez lehen eramaten zuen itxura **ttente** eta begirada harroarekin. **Juan Kruz Igerabide**

Makurraraziko dute agure **ttentea**. **Koldo Izagirre**

Ni **ttente** samarra bihurtua nintzen, nire zoriak hobera egin zuenez geroztik. **Fernando Rey**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Hire eguneroko lanarekin aski huela, sekulako karga zela... agerian zelarik ergel bati adar puska baino gehiago gustatzen zitzaiala halako axiendaño ttiiti-**ttente** ixter-guriak eskolatzea. **Aingeru Epaltza**

3 (adizlagun gisa)

Gutuna patrikeran gorde, **ttente** jarri, eta serio demonio: "Ezkerrez eskribitu baitit, bere burua ez konprometitzeko". **Patziku Perurena**

Neure inguruan "bera" antzeman orduko, hala ere, halako barne-ximikoa sentitzen nuela, eta urduri antzean paratzen nintzela, eta **ttenteago** zutitzen, eta abar: bai. **Txillardegi**

Hiribidean behera joaten zen, apal, **ttente**, paper-zorroa besazpian zuela. **Fernando Rey**

Berriz atzera, etsai bildur, alde guzietara erne, burua **ttente** ipini aldiro abaniko miragarri hura bilduz. **Patziku Perurena**

ttentel *izond adkor* tentela.

Hari-mutur bat edo beste gelditzen zait oraindik ondare **ttentel** horretatik, eta erabat libratu nahi dut horretaz hil aurretik. **Karlos Zabala**

ttette iz *adkor* txakur txikia.

Elerik gaineratu gabe, Maianak itzala azpildu zion, Elvis **ttette** melenga atzetik zeukatela. **Itxaro Borda**

Santa Izpiritu zubitik iragatean, haizea zifli-zaffa, ekialdeko alaba atzetik **ttette** umilaren antzera segika zeukala. **Itxaro Borda**

ttiki ik **txiki**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bertsulari ttiki (23); **bertsulari ttiki eguna** (4); **bihotz ttiki** (4); **dantzari ttiki** (12); **emakume ttiki** (3); **entziero ttiki** (3); **gazte ttiki** (3); **gela ttiki** (6); **gezur ttiki** (3); **haur ttiki** (6); **herri ttiki** (8); **iturri ttiki** (3); **kontu ttiki** (3); **korrika ttiki** (7); **kutxa ttiki** (4); **larrun ttiki** (3); **lezio ttiki** (4); **lezio ttiki bat** (4); **oihu ttiki** (4); **perla ttiki** (3); **pilotari ttiki** (8); **sanmartin ttiki** (5); **su ttiki** (3); **su ttiki bat** (3)

ttiki polit (3); **ttiki ttiki** (8); **ttiki ttikia** (7); **ttiki ttikitatik** (3); **ttiki ttikitik** (4)

txori ttiki (3); **xerri ttiki** (3); **zati ttiki** (5); **zati ttiki bat** (3); **zulo ttiki** (3)

otsail ttikia (5); **ttikia izan** (8); **ttikia izan arren** (3)

begi ttikiak (3); **gizon ttikiak** (5); **kontu ttikiak** (4); **otsail ttikiak** (3)

eskola ttikian (3); **zortziko ttikian** (11)

otsail ttikiaren (4)

aztarrenik ttikiena ere (4)
oinetako behatz ttikienaren (3)
behatz ttikiraino zeharkatu (4); oinetako behatz ttikiraino (4)
ordu ttikitan (3)
ttiki ttikitatik (3)
ttiki ttikitik (4)

ttikiagotu ik txikiagotu.

ttikigarri ik txikigarri.

ttikikeria ik txikikeria.

ttikitasun ik txikitasun.

ttikitto ik txikitxo.

ttikitu ik txikitu.

ttikun-ttakun *adlag*

Hanka puntetan jarri, eta **ttikun-ttakun**, erdi kantuan hasi da neska eta pauso airoso batzuk ematen kamerinoaren erdian. **Anjel Lertxundi**

ttilika *iz adkor tanta*.

Badakizu gero whisky **ttilika** bat hurrupatuko dugu gure ohiko ostatuan. **Itxaro Borda**

-Zer mediku eta zer deabru! -asaldata nintzaion bat-batean- whisky edo gin-kas **ttilika** batekin hobeki nindukeen! **Itxaro Borda**

Itzalean jartzen ziren ahamen eta ur **ttilikaz** sosegatzeko. **Itxaro Borda**

ttilikano *iz adkor tanta*.

-Ez daut meiku pixtolet horrek ene arno **ttilikanoa** ezeztatuko arauz? **Itxaro Borda**

ttinki *adlag adkor tinki*.

Balentria gabea izan du osoki bitoria hori; lehenik, abantzu ttipiarekin ereman duelakotz, aitzineko aldian baino ehun bat deputatu gutiago izanez orain bere alde eta beraz gehiengo izana gatik, beharko baitu arras **ttinki** eta xuxen ibili, hautsi mautsika, gobernatzeko. **Herria**

Punduketa frango **ttinki** izana gatik Ziburuko taldea atera da xapeldun. **Herria**

ttintil *izond adkortxikia*.

Ez zen altxatu eta ez zion komisarioaren agurrari ihardetsi; eri **ttintila** ere ez zuen higitu, harrizkoa baillitzan. **Elena Touyarou**

ttintta 1 *iz adkor tanta*.

Zeru urdina mihise grisek estali dute eta lehen euri **ttinttak** mehatxuka ari dira. **Eneko Bidegain**

Beharrik oraino Joanesek ez zuela alkoholik edan, egoera hartan alkohol **ttintta** bat bera aski baitzen oraino gaizkiago gelditzeko. **Eneko Bidegain**

Aitak, Suze bat zeukan aitzinean eta amak Porto **ttintta** bat. **Daniel Landart**

2 irud/hed

Harrigarri litzateke hemen zerbato, **ttintta** bat, xirtaño baten itzala bada ere, sortzea. **Patziku Perurena**

Dena gudu, dena ezpata ukaldi umore **ttintta** batekin. **Herria**

Bihotzean ximikoa eta aldi berean askatasun **ttintta** bat senditzen zituen memento hartan. **Eneko Bidegain**

ttinttaño 1 *iz adkor tanta*.

Botaidak **ttinttaño** bat anixa, kamarada. **Koldo Izagirre**

ttipi (2872 agerraldi, 88 liburu eta 1388 artikulutan; orobat **tipi** 625 agerraldi, 92 liburu eta 100 artikulutan) *izond txikia*. ik **txiki**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

alaba ttipi (7); **barne ttipi** (4); **dantzari ttipi** (4)

enpresa ttipi (5); **etxalde ttipi** (4); **etxe ttipi** (7); **gela ttipi** (6); **gertakari ttipi** (6); **gizon ttipi** (4); **handi ala ttipi** (4); **handi eta ttipi** (5); **haundi ta ttipi** (5); **haur ttipi** (55); **haur ttipi bat** (5); **haur ttipi hartzen** (4); **herri ttipi** (50); **herri ttipi bat** (6); **herri ttipi batean** (6); **hiri ttipi** (4)

loba ttipi (4); **indar ttipi** (5); **indar ttipi bat** (4); **jainko ttipi** (5); **kabalkada ttipi** (11); **korrika ttipi** (13); **lantegi ttipi** (6); **leiho ttipi** (7); **leiho ttipi hortarik** (4); **mahai ttipi** (4); **multxo ttipi** (5); **mutiko ttipi** (9); **mutiko ttipi bat** (5); **muttiko ttipi** (4); **nekatto ttipi** (4); **neska ttipi** (28); **neska ttipi bat** (7); **neska ttipi hori** (9); **neska ttipi horren** (4);

neskatila **ttipi** (4); neskatxa **ttipi** (8); neskatxa **ttipi** hori (5); nexka **ttipi** (11); nexka **ttipi** bat (9) omenaldi **ttipi** (4); ostatu **ttipi** (6); talde **ttipi** (9); talde **ttipi** bat (5); telebixtako leiho **ttipi** (4) **ttipi** ala handi (10); **ttipi** eta handi (22); **ttipi** eta haundi (4); **ttipi** pollit (4); **ttipi** **ttapa** (33); **ttipi** **ttipi** (4); **ttipi** **ttipia** (4); **ttipi** **ttipiak** (4); **ttipi** **ttipitik** (24) **urrats** **ttipi** (4); xehetasun **ttipi** (4); **xerri** **ttipi** (12); **xerri** **ttipi** jatea (8); zubi **ttipi** (7) **arras** **ttipia** (5); **baiona** **ttipia** (11); **balentria** **ttipia** (9); **biltzar** **ttipia** (4); **finala** **ttipia** (6); **haur** **ttipia** (6); **herri** **ttipia** (5); **izen** **ttipia** (5); **komunione** **ttipia** (11); **laguntza** **ttipia** (4); **mari** **ttipia** (4); **muttiko** **ttipia** (5); **seme** **ttipia** (4) **ttipia** handi **dadila** (6); **ttipia** izana **gatik** (4); **volanges** **ttipia** (5); **xerri** **ttipia** (5) **biziki** **ttipiak** (4); **haundiak** eta **ttipiak** (4); **herri** **ttipiak** (11); **neska** **ttipiak** (4); **volanges** **ttipiak** (6); **zerga** **ttipiak** (8) **atxiki** **ttipian** (10); **baiona** **ttipian** (29); **herri** **ttipian** (4); **oholtza** **ttipian** (7) **baiona** **ttipiaren** (4); **volanges** **ttipiaren** (4) **ñ** **aingeru** **ttipiar** (8); **i** **ttipiar** (4); **iñ** **muttiko** **ttipiar** (4); **neska** **ttipiar** (5); **ttipiar** **bitzite** (4); **ttipiar** eta **goresmenak** (22) **eliza** **aise** **ttipiegi** (4); **eliza** **ttipiegi** (9) **haur** **ttipiek** (4) **haur** **ttipiekin** (5) **haur** **ttipien** (11); **herri** **ttipien** (10); **laborari** **ttipien** (4); **ttipien** **alde** (6); **ttipien** **artean** (5); **ttipien** **handitasuna** (4) **adinekotarik** **ttipienetaraino** (4) **haur** **ttipientzat** (5) **haur** **ttipier** (5) **haur** **ttipieri** (10) **herri** **ttipietako** (6) **herri** **ttipietan** (21) **haur** **ttipiez** (4) **atxiki** **ttipiko** (4); **baiona** **ttipiko** (36); **baiona** **ttipiko** **karrketan** (4); **kanpaleku** **ttipiko** (4)

ttipi-ttapa *(orobat ttipi-tapa , tipitapa g.er.)* 1 *adlag* urrats labur eta lasterrez.

Batengana zein besterengana hurbiltzen zen urrats labur eta lasterrez, edo, esan ohi denez, **ttipi-tapa**. Jose Morales

-Ba doaz bi lagun espaloian oinez **ttipi-tapa**. Joxerra Garzia

Erosi du izozki bat, sartu du patrikan, eta badoa harro bueltan **ttipi-tapa** baserrira. Andoni Egaña

Baby Suggsek pentsatu zuen Bixkor zela **ttipi-tapa**, sekula joaten ez zen lekuetara. Anton Garikano

Haren oin ortutsek **ttipi-tapa** jotzen zuten behegaina, eta nire buru gainetik pasatzen. Juan Garzia

Aita batek ere halako harridura batez begiratzen omen dio **ttipi-tapa** pauso baldarka ibiltzen hasi berri den semeari. Anjel Lertxundi

Txindurriko 100 miloi urte inguru daramatela **ttipi-tapa** eginez planeta honetan barrena. Josetxo Azkona

Hartu poltsa galtzarbean eta **ttipi-tapa ttipi-tapa** joan nindunan handik. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izen gisa)

Baina kapaz estali ahal izan baino lehen, arnasa bere erreskuratu ahal izan baino lehen, hanka handi batzuen **ttipi-tapa** hots biguna entzun zuten. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ttipi tapa (49); **ttipi tapa joan** (3)

ttipiagotu, ttipago(tu), ttipiagotzen da/du *ad* txikiagotu.

Hannaren gorpuzkera -izutu nintzen heldu nionenan- meheagoa da, kaxkarragoa, alabarena baino, lirainagoa, ez dakit, beharbada **ttipiagotu** egin da Hanna urteen poderioan. Joxe Austin Arrieta

Haren ardurak eta trebeziak **ttipiagotzen** ahal dizkio urratsak; baina hala eta guztiz ere lerro lerro beharko ditu egin. Jon Muñoz

ttipiarazi, ttipiaraz, ttipiarazten du *ad* txikiarazi.

Kiroleko indarkeriarenkontrako euskal batzordea sortu du Gasteizen Eusko Jaurilaritzak, kirol alorrean gertatzen den indarkeria **ttipiarazteko** asmoz. Herria

Pobrezia eta injustizia **ttipiarazi** nahiz. Herria

Hau ere hitzeman du beroan bero, urte bat barne langabezia %10ez nahi duela **ttipiarazi**. Herria

ttipiegitu, ttipiegi(tu), ttipiegitzen du *ad* txikiegi bihurtu.

Oroitu beharra dago ospitale publikoan gaur egun ba direla 2500 langilez goiti; haien pausu eta eritasun ordezketen segurtatzeko 60 langileko unitatea aspaldian **ttipiegitua** da. Herria

ttipigarri *izond* txikigarria.

Idatzitako azken izena zortzi karaktereak osatzeraino luzatzen ahal nuen oraino, Potzolak erran **ttipigarriaz** baliatuz: Javierit. Aingeru Epaltza

ttipika *adlag (izen baten eskuinean)* txikietan.

Batzutan kantua, beste batzutan dantza edo antzerkia, artetan talde **ttipika**, beste aldiz denak elgarrekin. Herria

"Demo" delakoek deiturik, ehun eta hogoiita-zonbait lagun multxo **ttipika** plantatu dira larunbat aratsaldean burdin-bidearen gainean, Baiona eta Hendaia arte hortan, musean ari behar zirela. Herria

Ura edatea xurrupe **ttipika** kontseilatzen dute hor gaindi. Herria

Urrats **ttipika** doala garapena, eta pobrezia samina dagoela oraino hedatuegia herrian. Herria

Molde hortan ixuri petrolakia uhainek badabilate harat eta hunat, peza handika edo **ttipika**, nola gerta. Herria

ttipikeria *iz* txikikeria.

Ttipikeria bat gero, gaizkiaditu ergel bat, eta biok hain estu lotzen gintuen soka eten zen ustekabean. Xabier Montoia

Joana da jazko nagusitasuna, berriz etorriak lehengo hutsak eta **ttipikeriak**. Herria

Ezberdintasuna, beldurra, maitasuna, demokrazia, askatasuna eta beste hitz handien giblean gordetzen diren **ttipikeriak** azalera ematen dira. Berría - Kultura

Horiek dira frantses administrazioaren **ttipikeriak**, frantses garbian "chinoiseris" deitzen direnak. Herria

Politikari gehienak sobera aise mintzo dira! bada hor nunbait sobera **ttipikeria**, sobera faltsukeria, sobera maltzurkeria! Herria

Berehala ohiko **ttipikeriak** agertu ziren: Berrogaingo lepotik haraindian, Garaziko aldean diren herriek ez zuten hori beren gustukoa batere eta erran zuten zubi berri baten eraikitzean ez zutela parte hartuko. Michel Oronoz

ttipiño (orobat *tipiño g.er.*) iz adkor txikitxoa.

Graxik Mariren aginduak bete zituen eta zama **ttipiño** bat moldatu, barnean emanez larruzko xahako bat urarentzat, ogia, txorizoa eta sagar zenbait. Elena Touyrou

Istorio **ttipiño** bat kondatuko dautzut. Menane Oxandabaratx

Ateak zerratuko dituela iheslariari edo doi-doia arteka **ttipiño** bat utziko idekirik... Herria

ttipitasun (orobat *tipitasun*) iz txikitasuna.

Zeren eta handitasuna eta **tipitasuna** ez baitira tamainaren arabera neurtzen, baina ateen zabaltasunaren arabera. Joan Mari Irigoien

Ideia hori sakontzen du titare hitzak, **ttipitasunaren** ñabardura erantsi ondoan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ttipitasun horren itzalpean, haatik, nabari daiteke lan horiek egiteko arkatza atxiki duenaren jeinuaren neurria. Berria - Kultura

ttipito ik ttipitto.

ttipitto (orobat *tipito g.er.* eta *ttipito g.er.*) izond/iz adkor txikitxoa.

Lehen bide juntan, kausitzen dut neska **ttipitto** aurpegi-argi bat denetarat beha eta beha egoki. Janbattitt Dirassar

Red Bayko anis eta beltzut kolorezko etxe **ttipittoek** hondartza gorriluna argitzen dute. Aurelia Arkotxa

Lionel Jospin mintzatu da astelehen aratsean telebixtako leiho **ttipitto** hortarik. Herria

Musu **ttipitto** epel bat deusik ez baita alabaina! Janbattitt Dirassar

Aldare **ttipitto** baten gibeletik mintzo da erretorea hogeit bat emazte bilo xuriei. Piarres Aintziart

Batto handixkoa, ipurdi zabal batekin, dena haro eta jestu, bestea **ttipittoa** eta mendrexkoa, beti ixil-ixila zegoena. Janbattitt Dirassar

Ttipittoek 'Ate' deitzen naute. Ramuntxo Etxeberri

Euskara mintzo dute etxean beti, xaharretarik eta azken **ttipittoraino**, agian luzazko. Herria

Tipittoetan gehiago ba ditugu, ama eskolan sartu direnak, bi urtetarik eta lau arte. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autobus ttipitto (3)

ttipitu (orobat *tipitu g.er.* eta *ttipittu g.er.*) da/du ad txikitu, txikiago bihurtu.

Begiak **ttipitu** nituen haren begitartea hobeki ikusi beharrez. Aingeru Epaltza

Ura **ttipitzen** ari zait, baina ordu bat barne, Hornillos del Caminon izanzen naiz. Piarres Aintziart

Geroago eta haboro ari **ttipitzen** herria. Herria

Egia dena haatik, Luzaideko oihanak **ttipitzen** hasi zirela, burdinaren urtzeko anitz egur behar baitzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ondorioz, kanpoko aterbea eremuz **ttipitua** gelditu baita, bazterreko plazañoa estaliko dute. Herria

1802an apezpiku berria etorri zelarik apezzen erdiak baino gehiago 60 urtez goitkakoak ziren eta apezzen kopurua **ttipituz** joanen zen oraino zenbait urtez. Xipri Arbelbide

Lan-gabezia, **ttipitua** zena, berriz emendatu da. Herria

Estaduaren parte aintzina **ttipitu** da eta % 50-en azpirat jautsi. Herria

Egun ikusten ditugu elizetan fededunak bakantzen, apez gaiak izigarriki eskasten, bataioak **ttipitzen**. Herria

Saltzeak **ttipitu** dira ehuneko bostez ezbaian. Herria

Bere irabaziak seriocki **ttipitzen** ikusi baitzituen. Elena Touyrou

Ainitzek diote astakeria dela zergen **ttipitzea**, hobe ginukeela defizita **ttipitzea**, zor gehiegi ez uzteko heldu diren balaunaldiei. Herria

Etxe-lurren arrakasta ez da beraz **ttipituko**. Herria

Zenbait asteren buruan, nonbaiteko bitxikeria, senditu nuen ene pena ez zihoala **ttipituz** baina ba handituz. Janbattitt Dirassar

Kartzelan, diferentzia politikoak asko **ttipitzen** dira. Koldo Izagirre

Hori da jende baten **ttipitzea**, mespretxatzea eta, nahiz kriminal bat den Saddam Hussein, ez dut uste beren burua haunditzen duten kasetariak hola jokatzuz. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azkarki ttipitu (6)

ttipituz doa (4); **ttipituz joan** (6); **ttipituz joan da** (4); **ttipituz joanen** (5); **ttipituz zoala** (3)

azkarki ttipitzen ari (3); **ttipitzen ari** (17); **ttipitzen hasi** (5)

ttipitzaile iz txikigarria.

Itxaxu deitzen zuten, **ttipitzaile** eta guzi, herri hartakoa baitzen. Eneko Bidegain

ttipitze iz txikitzea, txikiago bihurtzea.

Beste batzuek diote **ttipitze** horrek ez duela deusik erran nahi. Herria

Langabeziaren **ttipitze** hori ez dela aise izanen %10-ekoa denbora batez erraiten zuen bezela. Herria

Buruzagien ustez, Paueko gutun berextegian maxina berri batek eginen duen lanaren ondorioz gertatuko da banaketa lan **ttipitze** hori. Herria

ttipixko izond adkor txikia.

Herri **ttipixko** ainitzetan, bestak kasik galduak izanik, edo galtzen ari, berriz ernatu direla egitaraua gisa hartarat beztitzeko. Herria

Baiona ondortako beste herri **ttipixko** batzu ere erkidego sarten ahal litazkeela. **Herria**

Ttipixkoa nintzaiokeen haren miseria guzien entzuteko... **Eneko Bidegain**

ttiraka *iz adkor* tiraldia.

Marihuanaren esku beratzak **ttiraka** egin zidan, goitti. **Aingeru Epaltza**

ttirriagarri *izond adkor* tirriagarria.

Telebistari esker izenez baizik ezagutzen ez nituen tokiak nihauren begiz ikustea eta han gaindi ibiltzea, zinez **ttirriagarri** zitzaidan. **Daniel Landart**

ttirriki-ttarraka *adlag adkor* tirriki-tarraka.

Soinean sira grisa zeraman andre bat, loreen aldera makurtua, paseoan igaro zen logelako horman zehar, tokadorean gora eta lababo gainetik, McNab andrea **ttirriki-ttarraka** zebilen bitartean, hautsak kentzen, txukuntzen. **Anton Garikano**

Alde batean gizagaindizko indarra daukaten ekintzaile tinkoak, **ttirriki-ttarraka** eta saiatur alfabeto osoa ordenean errepikatzen dutenak, hogeita sei hizki denera, hasieratik bukaeraino. **Anton Garikano**

Han dabilen bitartean, **ttirriki-ttarraka**, burruntzali eta zurezko koilara, babarrunei baratxuri, olio eta gainerakoak botatzen, ez diegu jaramonik egiten. **Pello Zabala**

Ispilura begira jarri zen, arrazoirik gabe farrez, eta berriro hasi zen **ttirriki-ttarraka**, koltxoiak altxatu, portzelana bere lekuan ipini, ispilura saiheska begiraturaz, azken batean zerekin kontsolatua baleuka bezala. **Anton Garikano**

ttirriki-ttirriki *adlag adkor* tirriki-tarraka.

Errezoan hasieran, sustraiei zeozer esan nahian, **ttirriki-ttirriki**, lurra musukatzeraz hurbildu da. **Alberto Barandiaren**

ttirrintta *iz adkor* izpia.

Lauetan-hogoi jandarme argi **ttirrinttako** bilduak, helikoptere bat ere ba, bere etxen gostuan zagon gizon baten biltzeko, beihalakoak ziona irringarri ere litake ez balitz nigarringarri! **Herria**

ttirritta 1 *iz* txitxarra.

Jatea ahanzten duten **ttirrittak** bezala kantatzen. **Itxaro Borda**

Ene ondoan **ttirritta** bat kantari belarretan. **Koldo Izagirre**

Arzten ginen ere, pentzetan, xiri batekin **ttirrittak** beren xilotik aterarazten. **Menane Oxandabaratz**

2

Kamainan etzan dela pentsa genezake; eman dezagun **ttirrittan** Smetanaren *Nire Aberria* ari direla jaulkitzen, piezaren gozoak kontraste polita egin dezan aberriaren presoak paperean irakurri behar izan duenarekin. **Koldo Izagirre**

-Badakizu **ttirrittak** debekatute dekoguzala, eta azken miaketan... **Koldo Izagirre**

ttitta 1 *iz adkor* tita, orban txikia.

Guztiaren ondarra aipa nezake: espazio sideral beltzean izar urrunak bezala **ttitta** zuriak, eskuinean landare inartu bat, hiltzen ari den lore gorria. **Berria - Kultura**

Uhin labur bezain lasterrek jaten ari zuten xirla nimitsoek legar busti ilunean **ttitta** xuriz xilatzen zuten hondartza iluna. **Aurelia Arkotxa**

Gehienetan Heraitze nuen, ene kartiera, behakoaren so-mugatza hartzen, eta, han ere, klarki ikusten **ttitta** xuri epiko bat, sortexea, Kaminoa. **Piarres Aintziart**

Banindoan, txotx edo **ttitta** ez deusa, ezkerreko platanondo gazteak agurtuz bezala. **Piarres Aintziart**

2 (hitz elkartuetan)

Argi **ttitta** ttipi batzu zeru zolan, hain urrun. **Michel Oronoz**

Han hemenka, harrixabal xuriak, ardi **ttittak** iduri dutela pentze lohitsu batean landatuak. **Piarres Aintziart**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ttitta xuri (3)

ttittatu, ttitta(tu), ttittatzen du *ad adkor* tantotu.

Egoera horretan naizelarik, aski dut bide ertz bateko pentze aberatsetan artalde bat alhan ikustea, baketzeko; orduan, orlegia zuriz **ttittatzen** duten ardiak ortzaiz eta leihor urrun desiragarri zaizkit. **Itxaro Borda**

ttitti *iz adkor* titia.

-Hik, jakina -gizona teman-, plantak egiten hituen zuzendaritzarekin, alegia koleran praktiketakoak bizkarreratzeagatik: hire eguneroko lanarekin aski huela, sekulako karga zela... agerian zelarik ergel bati adar puska baino gehiago gustatzen zitzaiala halako axiendaño **ttitti** -tentte ixter-guriak eskolatzea. **Aingeru Epaltza**

ttittil

1 *eri ttittil* hatz txikia.

Zergatik ez zuen haien salbatzeko eri **ttittilik** ere mugitu? **Itxaro Borda**

Eta ez zen irri egitekorik: mextak sutan, kabalak sangreatuak, neskatxak bortxatuak eta umeak urkatuak, harkiek makila ukaldika kalituriko FLNko errebeldeak, soldaduek eri **ttittila** higitze beharrik gabe. **Itxaro Borda**

ttiutta *iz adkor* tiuta.

Ez zen arimarik ageri; txorien **ttiuttak** eta urruneko ardien joareak salbu, ez zen toki haren bakea haren beste azantzik, eta Joanntori hainbeste nahasmenturen erdian hori izan zitekeela sinstea gosta zitzaion. **Elena Touyarou**

ttoka *iz adkor* buruko zapia.

Hamaika aldiz ikusita ere, beti harritzen zinen, **ttoka** egiteko ile hori askatu eta beheraino erortzen zenean. **Alberto Barandiaren**

ttoko-ttoko *adlag adkor* urrats geldian.

Erraza zen itxuratzea hura zen urguiltsuak ez zuela alde txarretik ikertua izan nahiko, makila eskuan, karriketan **ttoko-ttoko** ibilki. Bide horren egiteko lau oren behar da, **ttoko-ttoko** eбилtez, eta 770 metrako petigora bat goitzekoa da, gogorrena ürrtzentean delarik. **Itxaro Borda**

ttontto 1 *izond adkor* tontoa.

Eta hortik ateratzen zira xoraturik pentsatuz lehengoak ere ez zirela hain **ttonttoak**! **Herria**

Ondotik heldu diren gazteak ez dira **ttonttoak** eta ohartuko dira zer bideri buruz behar duten jokatu. **Herria**

Huna hemen ere beste lau gazte: Dufourcq, Robert haundiaren semea, Errecart lekondar trinketlari pollita, Bonetbeltche makearra, ez **ttonttoa** putikoa, eta Lazcano urruñarra. **Herria**

Inozo **ttonttoenak** antzematen dio horri. **Pello Zabala**

Nazkatu bai, nazka ninteko nahi dudan guztia eurixka motel temoso segidoko honekin, euri-zirina **ttontto** mantso, edo tarteka bixi-bixi botatzen duenarekin. **Pello Zabala**

2 *ttontto-ttontto* adlag

Patatak eta txorizoak emandako epeltasun loarazleaz **ttontto-ttontto** begiratzen nion lxabeli, mahaia tartean eserita biok, elkarri irribarrez. **Joxean Sagatzizabal**

ttonttor (*orobat ttonttor g.er.*) 1 *iz adkor* tontorra.

Igo ziren **ttonttor** batean eraikia izan zen Sao Paulo-ko elizaren mirestera. **Ramuntxo Etxeberri**

Txalin eta Bordatxo **ttonttorren** arteko lepoan. **Txillardegi**

Beronen gibelean, eta gain-gainean ere bai, muinoaren **ttonttorrean**, Gaztelu-Kaserna zaharra. **Txillardegi**

Teilatuaren gainean, halako burdinazko hesi tankerako zerbait erreparatu dut, eta lau **ttonttor** izkinetan. **Txillardegi**

Eperra da endemas, neskatxa maitalearen itxura liluragarria sinbolizatu izan duena, bere lumaje apainekin, buruko **ttonttor** harroarekin, betondo urdinska ñabarrekin.

Patziku Perurena

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

laino artean erdi ezkutaturiko mendi-**ttonttorra**. Zenbat eta altuagoa izan mendi-**ttonttorra**, orduan eta gertuago zegoen beroaren labe eguzkiarenetik. **Anjel Lertxundi**

Barrualdera jotzean, mendi-bizkar eta muino-**ttonttor**, denak berde eta ezko nahi baditugu, eguzki galga ez baino lainoaren umela eta hezkura beharko dira eguzki errearen aurka. **Pello Zabala**

Gainean, buru-**ttonttorrean**, jasminez, arrosez, almitzez eta aihen-zuriz egindako apain buruntzak. **Patxi Ezkiaga**

Baseri-ate takarrei hotsa ateratzeko gogor jo beharra dago, eta ez dizkio inori hatz-**ttonttorrak** alferrik minarazi nahi. **Pako Aristi**

Mendi **ttonttor-ttonttorretatik** jaitsi gabe ere. **Pello Zabala**

ttor-ttor (*orobat ttorttor*) adlag adkor hitz egin eta hitz eginez. ik **txor-txor**.

lonesco eta Beckett, eskua hilobitrik ateraz gero elkar agurtzeko moduan jarrita daude, barne-patio batean balkoitik balkoira **ttor-ttor** ari den sardinera parea bezain gertu.

Harkaitz Cano

Bulegoan tresna eta aparatuak aditzen dira eta noizean behin telefonoak **ttorttor** arin bat egiten du errakuntzaz konektatzen denean. **Fernando Rey**

1 *ttor-torr-torr* iz eperraren kantua.

Betidanik xoratu izandu nau, urrungo mendi mazeletik eperraren **ttor-ttor-ttor** hirutar hori aditzeak, eta zer esanik ez, haren belar tarteko ibilera isilgordeak. **Patziku**

Perurena

ttoro *iz arrain* saltsa.

Ttoro deitzen den arrainki saltsa nork hobekienik presta izan da ere beti bezala zoin-gehiagokoño bat. **Herria**

Ttoro izena bera nundik heldu den, noiz pentsatua eta nork, hortaz ez bide da haatik argitasun handirik. **Herria**

Aski ederki iragan da Ziburun **ttoro** arrain-saltsakiaren kofradiak muntatu besta. **Herria**

Ttoro arrain saltsaki prestatzaileen lehiaketan, *Denekin* taldekoak deneri nagusitu. **Herria**

Larunbatean eta igandean, Donibane Lohizunen eta Ziburun, itsasoaren besta **ttoro** prestatzaileen lehiaketarekin. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ttoro arrain (10); **ttoro arrain saltsaki** (6); **ttoro arrain saltsakiaren** (3)

ttorrot *iz*

Txori-berde edo berdantza, **ttorrot** deitzen diogun *verderon* delakoa ote...? **Pello Zabala**

ttorttoil (*orobat ttorttoil*) *iz adkor* tortoila.

Egun hautan, **ttorttoileri** nagusiturik, egin dute beren pasa, agur ixila eginez bi etxetan. **Herria**

Halatan, arropa bustiek, ile beltz eta kixkurretan behera lerratzen zitzaizkion ur-**ttorttolek**, eskuan zeraman plastikozko poltsak, denek, euriak kearekin ezkonduz osaturiko usaina zeukaten. **Itxaro Borda**

ttotta *iz adkor* tanta.

Arratseko 8etarik goiti, hurrupaldiaren ondotik izan da afaria: salda, zizka-mizka, oiloa errizarekin, gasna, izozkia, kafe eta **ttotta**, 16 euro helduentzat, 8 euro haurrentako.

Herria

Kafea hartu genuen gero; eta **ttotta** bat pattar; edo bi, edo lau. **Txillardegi**

ttottila *iz adkor* tanta.

Pixka bat edan, **ttottila** bat, eta gero... **Menane Oxandabaratz**

ttotto 1 *iz adkor* txakurra.

Gaztetxoentzako aldizkarietan, eta helduentzat egin ohi diren aldizkari pseudozientifikoetan, zehaztasuna eta zientifikotasuna **ttottoaren** ipurditik-edo pasatzen da askotan.

J.M. Olaizola "Txiliiku"

Hemen ibili gara, tontoen moduan, nesken atzetik jo eta su, eta haiek berriz **ttottoaren** salara bidaltzen gintuzten behin eta berriz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 aulkia.

Hor naiz betoinezko mahai aitzinean betoinezko **ttotto** horren gainean jarririk, begi aitzinean dutan hormari so. **Filipe Bidart**

3 irud/hed

Emazte bakar batek ere ez zuen bere burua eskaintzen ordainaren beha egon gabe: dirua, **ttotto** bat, geriza... **Elena Touyarou**

ttottotu, ttotto(tu), ttottotzen *da ad adkor* eseri.

Zikiro gunearen parrean zegoen zubi hertsira iritsi nintzen hatsanka eta bertan lur haseko errautsetan **ttottotu**. **Itxaro Borda**

Anartean, lurrean **ttottotzen** ginen, historiako kurtsoak ikasten, badakizu "nos ancêtres les gaulois..." marmaran, ipurdiak karroindatu arte. **Itxaro Borda**

Gatu ilatxez estali jargian **ttottotua**. **Itxaro Borda**

ttu 1 *iz* tua.

Abelek mingaina mugitu du aho barnean, eta **ttu** pixka bat egin zaionean irentsi egin du. **Pello Lizarralde**

Eskuan **ttu** pixka bat hartu eta zakilbaban zabaltean amaitu zen. **Aitor Arana**

Jarraian **ttu** ugari bildu nuen eskuan eta uzkian ipini nuen. **Aitor Arana**

Ttua irentsi du eta masaila azpiko itzalak haunditu egin zaizkio. **Pello Lizarralde**

2 ttu egin

Sanadikia kalera sartu baino lehen, zakarkeriaz lurrera **ttu egin**, eta, ahots durduzatuaz, garrasi egin zuen. **Patxi Zubizarreta**

Ttu egin ezazue hilobi honetan: hemen datza Spinoza. **Felipe Juaristi**

Garraioan dabilen zaharrenak **ttu egin** du eskuetan goikoak eskaintzen dion zakua hartu aurretik. **Pello Lizarralde**

Ttu egin zuen, bere baitatik Abas bera jaurti nahi balu bezalaxe. **Patxi Zubizarreta**

Gurutze batean iltzatu eta barre egiten zioten, haurrok, **ttu egiten** zioten Jainkoaren Arkumeari! **Alberto Ladron Arana**

Atzera berriz ikusten badut, ikusi, **ttu egingo** zioat. **Patxi Zubizarreta**

-Egingo al dut? -galdetu zidan, ezpainak muturturik, **ttu egiterakoan** bezala-. **Joxe Austin Arrieta**

-Bururatu zitzaion egunen batean mendekatu egingo zuela, **ttu** besterik **egiten** ez bazion ere. **Patxi Zubizarreta**

Aulki batean jarrita, gizon ile zuri-luze bat pafa-pafa, pipatik erre eta, inoiz behinka **ttu** eta **ttu**, listua botatzen zion suari. **Pablo Sastre**

3 irud/hed

Bilo beltza ikustera zihoanerako bortizki **ttu egin** zuen Mikelen zakilak. **Unai Iturriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ttu egin (28); **ttu egin du** (7); **ttu egiteko** (3); **ttu egiten** (9); **ttu pixka bat** (3)

ttua irentsi (6)

ttuka *adlag* tuka.

Puzzleak murtzikatu, eta kartoi-ahia lurrean **ttuka** barreiatzen nuen. **Xabier Olarra**

Garabiak ikusi nituen, burdinazko hegazti gaitzen antzora airez aire mugitzen, eta beren kargak zain zeuden barkuetan botatzen, alegia eztañri zabal-zabal, burdinazko, marroi-beltzetatik **ttuka**. **Matías Múgica**

Gorputz erori hura ostikoka ubeltzen eta aulkikadaka edo **ttuka** odoleztatzen zuten bitartean [...]. **Karlos Linazasoro**

ttukatu, ttuka(tu), ttukatzen *du ad* ttu egin. ik **listukatu**.

Sabeth leiho barreneko karelean eserita, hankak gurutzaturik, oinutsik: gereziak jaten ari, kalera begira, eta hezurrak **ttukatzen** handik behera, eguraldi eurikara. **Joxe Austin Arrieta**

ttuku-ttuku *adlag* urrats geldian.

Orain, erraztasun horien ondotik, "pedibus cum jambis", **ttuku ttuku**, bai, eta sobera zahartu aitzin, baina heltzeko nahi tematsu batean. **Piarres Aintziart**

Beti aintzinerat joan, **ttuku-ttuku** bada **ttuku-ttuku**... **Herria**

Baina pirka pirka ari naiz; ez haatik **ttuku-ttuku** zalutzen baitzait maiz urratsa, bereziki arratsalde hastapenean. **Piarres Aintziart**

Geldialdi mugimendutsu hartan oren pare bat egon ondoan, trena berriz abiatua zen, **ttuku ttuku**. **Eneko Bidegain**

ttukundu, ttukun(du), ttukuntzen *du ad*

Ea ba zer kondatu dizuten kolonien garaiaz, Parisko manifestaldietan hildako aljeriarrez, metroko labirintoak **ttukuntzen** zituztenez, aberatsen etxeetako zerbitzariez; zer, zaharrei pairarazi dizkieten irain, laido eta ahalkeriez. **Edorta Jimenez**

ttul *izond* hutsala.

Bainan euskararik nihundik ere ez!, iduri-eta gure mintzaira "barbaroak" ihesaraziko lituzkeela!; zer arrazoinamendu **ttula**, zinez, gure hizkuntzak leher egiten ari duen garaian! **Herria**

ttume

1 *ttume-ttumea ipar adlag*

Burua ahalkez plegaturik gero, jende ez nintzenez ba galdezka, **ttume-ttumea** gasna puska hartu nion, isilik eta mutu, goraintziak etxera ozenik ahoskatu gabeen. **Itxaro Borda**

-Goiz huntan partitu'uk, **ttume-ttumea**. **Itxaro Borda**

ttunpa *iz tiro hotsa.*

Duela zonbait urte gertatua, kapena batetik besterat solas egiten zutelarik, oihan pareta batetik besterat: batek tiro batez urtxo bat botatzen du: "errak entzun duka **ttunpa** hori", geroxago bestek bi tiroz bi urtxo eta dio, oihu batez "errak entzun tuka bi **ttunpa** horiek!...". **Herria**

ttunttun¹ *iz tuntuna, danbolina.*

Nik xirula eta **ttunttuna** nahi ditut entzun. **Txillardegi**

Baina oraingoan Zuberoatik propio pastoralarekin etorritako xirulak eta **ttunttunak** jorik, eta pastoral-taldeko dantzari ezinago arinek miresgarriro dantzaturik. **Txillardegi**

Taulen gainerat igan ziren lehenik Xuberotar dantzariak, **ttunttuna** eta txulula lagun. **Michel Oronoz**

Giroan bederatzi etapa irabazita, aurten ere **ttunttuna** joz irabaziko zuela zirudien Petacchik Tourrean. **Berria - Kirola**

2000 urtean, Xabier Itzaina (gitarra, mandolina, xirula eta **ttunttuna**) eta Mathias Lopez (kontrabaxua) sartu ziren taldean. **Herria**

Eta oraino txülüla eta **ttunttun** ikastaldia, abendoaren 27an, Mixel Etxekoparrekin. **Herria**

2 *ttunttun-jotzaile (corpusean ttunttun-jole soilik)*

Ttunttun-jole bat aterea zen nonbaitetik. **Aingeru Epaltza**

Biola, lira, harpa, **ttunttun** edo arrabita joleek lagundurik, bertze batzuk eguzkitan dantzan ari direla. **Aurelia Arkotxa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xirula eta ttunttuna (3)

ttunttun² *izond* tuntuna, ergela.

Efracim uso **ttunttun** burugabea da: Egiptori degiote lagutzeko dei, Asiriara jotzen dute. **Elizen arteko biblia**

ttunttunero *iz ttunttun-jotzailea.*

Ixtorioa hau da: Mizel Ttunttun herriko **ttunttunero** ohiak, alaba bakarra ezkontzen du Auxtin dohainik gabeko margolari bati. **Herria**

Zilbor eta Pikor **ttunttunero** famatiak. **Jose Angel Irigaray**

ttur-ttur (*orobat tturttur*) *1 iz* eperraren kantua.

Eta eperraren lumaje eta ibilera pinpoxa bezain engainagarri dukezu eperraren **tturttur** kanta xaloa bera **Patziku Perurena**

2 *adlag* ahots apalean.

Atarian atezaina ezagutu nuen, bertze bi-hiru emazteki gehiagorekin **ttur-ttur**. **Aingeru Epaltza**

- Fite eta isila mintzo zen, **ttur-ttur** batean, letaginak non landatuko gogoeta ari den sugegorri baten eitean. **Aingeru Epaltza**

3 *ttur-ttur-ttur adlag* urrats geldian.

Partida **ttur-ttur-ttur** hasia zelarik lehenik, beso extiko lau pilotari abilen artean bigarren pare horren nausitasunarekin (25-12 eta 30-17), nola ez da berotu gero, eta 34 etan berdindu, Urrutigaray ere doi bat pixturik! **Herria**

Ttur-ttur-ttur doatzi aintzina, egun hobeak laster berriz jinen direlako menturan. **Herria**

tturrindu, tturrin(du), tturrintzen du *ad*

Amerikanoek ez dute bat-batean eta hortan berean moztu nahi ukan petrolio-janarien tratu hori, nazione batueri beren diru mentura **tturrinduz**. **Herria**

Gaixo gaztiak, **tturrinduik** fueratzen zitxin etxerat, hainbeste akitzein ondotik, gauaz, hotzian, euria jeuts ahala... **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

tturruxta *iz adkor* turrusta.

Oila-larruak harria bezain gogor bihurturik, deabrua gostatzen zitzaion ur **tturruxta** izoztu hartan bustitzea, ia berdin berdin zikin ateratzeko. **Eneko Bidegain**

tturta-tturta *ipar adlag* dabilen uraren onomatopeia.

Bazkaltzen ari zira goxoki, dutxulua edo errobineta **tturta-tturta** entzuten duzu. **Menane Oxandabartz**

ttut¹ *izond* sinesbera, txoriburua.

Eta zuek, ez ahal zarete aski **ttutak** izanen horien sinesteko eta lehen jinari zuen buruaren eskaintzeko?! **Daniel Landart**

ttut² *adlag* kitto.

ttuttu iz adkor tutua.

Zer bait ere bidali nahi nioke berorri; baina ez dakit zer; **ttuttu** -ziri batzuk agian, maskurie jartzekoak. **Patxi Ezkiaga**

Ikus ditakeen bezala, Parisko **ttuttutik** edana zuen bere esnea. **Xipri Arbelbide**

Gizonek normalean uste dute mingaina parrandan dabilen zakil bat dela eta klitoria xurgatzea freskagarri bat **ttuttutik** gutuziaz zurrupatzea bezalakoa dela. **Karlos Zabala**

ttuttula izond ergela.

Itxuraz gizon bat untsa ixila eta umila, halako **ttuttula** aireño batekin kasik... **Herria**

ttuttuldu, ttuttul(du), ttuttultzen da/du ad ergeldu.

Nevadako urte latzak pekaturik, adina eta belaunetako gogordurak bildu beihalako Errotxildak, orain itaxurak zurrutzan, hots, gutitu dira edo **ttuttuldu** lehengo osaba zahar puxantak. **Herria**

ttuttulean adlag ergelkerian.

Ez eta ere agertu direnak **ttuttulean** aurkitu dituelako. **Eneko Bidegain**

Ttuttulean ditugu hauk, Berasateguik ez luzatzen beso hura, salbu... zortzi kintze segidan eta azkena sare xoragarri bat azkaindarrak. **Herria**

ttuttun iz botilez mintzatuz, muturra. ik tutun.

Esquetan zeukan whiski botilako **ttuttuna** ahoan sakatu zion. **Itxaro Borda**

Monoprix dendan ez hain aspaldi erosi ardoa inguruka ibilarazten zuten eta bakoitzak, eskuarekin **ttuttuna** xahatu gabe, botila berde uhargia ezpain artera hupatzen zuen.

Itxaro Borda

tu 1 iz listua.

Nire **tua** gozoa da, nire gorputza epela. **Monika Etxebarria**

Aldamenekoa pipa erretzen egon da eta belaunen artean bota du **tua**. **Monika Etxebarria**

Zerura **tua** botatzen duenari gainera erortzen baitzaio. **Berria - Euskal Herria**

Tua ere irentsi ezinik. **Anjel Lertxundi**

Tua lurrera jaurti. **Anjel Lertxundi**

Irakasleoi eztarrian trabatuta geratu zaigu **tua**, eta **tuarekin** arnasa. **Joxerra Garzia**

Hankagorri lotsabako hark mastarakoan egin zion **tuaren** imintzioa gogoan. **Koldo Izagirre**

Haren bila abiatzen da tiroa bezala, errabiaz, ezpain izkinetarik **tua** zirristan dariola. **Itxaro Borda**

Babesten zuten zaindarek eramanik, helikopteroan hegaldatu zen ministroa, irain eta **tuen** artean. **Juan Kruz Igerabide**

Itsuak biolinari **tu** ematen zion eta zapi batez garbitu zuen, zapi batez ukitu eta ferekatu zuen. **Felipe Juaristi**

2 (izenondoekin)

Ahoa garbitzeko **tu** lodi bat jaurti du harri biribilez eginiko zoruko lorearen kontra. **Koldo Izagirre**

Tu malgua ezpainetarik isurtzen zitzaioela. **Itxaro Borda**

Cienfuegosak, ohi moduan, **tu** haserre baten bedeinkatu ditu ohol kriminalak. **Koldo Izagirre**

Tu uharrak biltzen zituen aldi oroz Bozen predikuen ondorioz Kerguelen komisarioak. **Itxaro Borda**

Gabe geratu nintzen, **tu** mikatza irentsiz. **Itxaro Borda**

Paperak? - **tu** gordin bat-. **Koldo Izagirre**

3 (hitz elkartuetan)

Tu -tanta lodiak iriteten zitzaizkiolarik hortz zikinen artetik: [...]. **Anjel Lertxundi**

4 irud/hed

Zuzenki doaz tiroak lurrari buruz, jainko baten suzko **tua**. **Xabier Montoia**

5 tu egin txistu egin.

Gero **tu egin** du, berak bakarrik dakien moduan: karkaxa lodi bat boteaz, ozen eta urruti. **Jokin Muñoz**

Autoen koipe tanta batzuk ez ziren kentzen; **tu egin**, eta garbitzen jarraitu zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Tu egitea besterik ez dik merezi. **Jose Morales**

Ahalkearen eta fiertasunaren nahaste hordigarri batean bizi naiz, **egidazue tu**, otoi, edo emadazue harrika. **Koldo Izagirre**

Zutitu egin da eta **tu egin** bezala bota dit: [...]. **Agurtzane Juanena**

Kamioi altu bat zen, sei gurplekoa, eta **tu egin** geniezaiekeen goi hartatik aldamenetik igarotzen zitzaizkigun autoei. **Koro Navarro**

Autoen koipe tanta batzuk ez ziren kentzen; **tu egin**, eta garbitzen jarraitu zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Zakarrontzian **tu egitera** joaten zen eta gero eskuaren bueltarekin igurtzitzen zuen ahoa. **Juan Garzia**

Tu egin zuen sasira. **Koldo Izagirre**

-Zin dagit! -erantzun du berak, erpuru biak altxatu eta tartetik lurrera **tu eginik**. **Juan Garzia**

Zuloraino hurbildu nintzen, begietara **egin** gura nion **tu**. **Koldo Izagirre**

6 (objektu zuzenarekin)

Aspertuta zegoen korridoreetan jendea beregandik urrutiratzen ikusteaz, letaginak luzatzeko edo pozoia **tu egiteko** zorian balego bezala. **Iñaki Mendiguren**

Nola egoten den atsedendaldian boxeolaria korerrean managerrak eskainitako inbutuan odol-listu eta lerre-aparrak **tu egiten**. **Harkaitz Cano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tu egin (47); **tu egin zuen** (16); **tu egin** (12); **tu egin bezala** (4); **tu egiteko** (6); **tu egiten** (24); **tu egiten zuen** (3)

tu-tu (orobat tutu) 1 turutaren hotsaren onomatopeia.

Berdin dio zer esan nahi duzun, tutuak **tu-tu** baizik ez daki esaten. Joxerra Garzia

2 (izen gisa)

Eta kontu handiz aurreratu nahi duzun txirindulariak ere, larri ibili, tua jaurtiz erantzungo dio zure **tu-tu** dorpeari. Joxerra Garzia

Telefono **tutu** mota ezberdinak daude gainera. Harkaitz Cano

3 tu-tuka iz

Sakatzen duzun bezala sakatzen duzula ere, ondo bai ondo adieraziko dizu hori tutuak **tu-tuka** totelez. Joxerra Garzia

4 tu-tu-tu

Goizean jaikitzen giñanean, lenengo diana, eper kantua: **tu-tu-tu**. Ez daki zer plazera ematen ote zion sei urteko mukizu bat horrela txundituta uzteak, baina hor aritzen zen, **tu-tu-tu** eta ge-ge-ge, auskalo zer erakutsi nahian. Patziku Perurena

'Je suis enceinte'... telefonoak bestaldean **tu-tu-tu**. Berria - Kultura

tualdi iz listu botatzea.

Norbaitek gizartearen kontrako nire azken "**tualdia**" izan dela esan dezake, azken protesta, eta artista nahiz pertsona bezala erakutsi dudana irizpide askatasuna Joxean Agirre

tuareg (orobat touareg g.er.) 1 iz Saharako desertuko bereber nomada.

Basamortuko **Tuareg** horien kantu eta erritmo baketsuak atsegin handiz ditugu gozatu. Herria

Hori **Tuaregekin** bizitzera joan baino lehen izan zen. Jon Alonso

Tuaregek ere beren zibilizazioa dute; baina, batek baino gehiagok esan du, Ortega-k horien artean, zibilizazio historiko handi bakarra, arraza -ariar- bakarrak jaso duela. Joxe Azurmendi

Truxa irakasleak iparreko **tuaregen** hizkera erabili zuen. Anton Garikano

Gure herrian berean arrotz, indiano, aborígen, yanomani eta **tuaregen** pareko moldatzen gintuztela. Itxaro Borda

Han bizi den jendea (oraindik Afrikan **tuaregik** edo Australian aborijenik gelditzen den neurrian) mila seinaleri begira bizi omen da etengabe. Iñaki Segurola

Inguratzen zuen giroan **tuareg** bat ozeano erdian bezain lekuz kanpo ematen zuen. Sonia Gonzalez

Orain 12 urte sortu zen taldea, 1992an, Mauritanian, **tuareg** iheslarien esparru batean. Berria - Ekonomia

2 (beste izen baten ezkerrean)

Maliko **tuareg** etniako emakume batzuek sortutako talde bat. Berria - Kultura

Tuareg arrazakoak dira leku heietako egoiliarak. Herria

Oraingo eta ohizko dantzak, Gourmantchés dantzak, Agadezeko **touareg** dantzak, Djerma edo Zarma dantzak. Herria

Paulo 6-garrenak berak errana du De Foucauk **Tuareg** kultura ez zuela bakarrik lagundu bainan salbatu. Herria

tuasa iz frantses luzera-neurri zaharra, 1.946 metroren baliokidea.

Mendi zut batzuen gibel-muga zeukaten bi muinoren artean nintzen, eta hogei **tuasa** barru, neraman bidea zakar trenkatzen zuen itsas adar batera nindoan zuzen. Koldo Izagirre

Antxeta bat dotore amildegian barrena, ene begi bistatik ehun **tuasara**. Koldo Izagirre

tuba 1 iz haize musika-tresna metalezkoa, tamaina handikoa, musika-bandetan baxuaren parte jotzen duena.

-Klarinetea -esan zuen, eta gero **tuba**, saxofoia, tronpeta eta moko-flautaren soinua egin zituen bata bestearen ondotik. Xabier Olarra

Karkara nota luze bakar batera aldatu zen, **tuba** baten hotsaren antzeko aupats moduko batera; izan zitekeen gizaki baten korrokada ere. Oskar Arana

Wagner iraultzailearen aintzindarizat jantzi zen Bruckner sinfonia honetan, lau **tuba** wagneriar gaineratzen. Berria - Kultura

Oker larria, baina ez bakarra, denetako eta betiko Lisboako Setioaren Historia horren azken orria orbanduko duena, gainerakoan **tuba** burrunbariez, danborren hotsez oparo hmitua. Jon Alonso

2 tuba-jotzaile

Konpositorearen akrostikoa garatzen da hirugarrenean, non doinua instrumentu desberdinetatik igarotzen den nabarmentzeko **tuba jotzailea** biolinaren *cadenza* kilikagarrian bukatzeko. Berria - Kultura

tubarro iz adkor tutu handia.

Horrez gain, perfil baxuko gurpilak, **tubarro** bikoitza, aleroia, faldoia eta horrelakoak. Jon Arretxe

tuberia iz hoditeria.

Sapaian **tuberiak**, pintura geruza pitzatuz osaturiko laku eta orbanak dituzten hormak. Harkaitz Cano

Zuhaitzak okertu eta makurtu, eta hostoak zalapartan hegatzten dira, belardiari adabakiak jarriz, eta erretenetan metatzen eta **tuberiak** tratatzen eta bide bustietan barreiatzen dira. Anton Garikano

Orain dena **tuberiatik** barrena itsasoraino joan eta, horrela dago mundua, horrela dago dagoen bezala mundua. Pablo Sastre

Tuberia zati bat aldatu behar dut. Pablo Sastre

Han eta han, batzuk elurrez erdi estaliak: metal kontainer txikiak eta handiak, plantkazarrak, errejak, **tuberiak**, bizikleten eskeletoak, elektrodomestikoen karkasak, [...]. Pablo Sastre

tuberkulina iz

Hilabete batzuk lehenago zabaldu zen Robert Kochek tuberkulosiarentzat sendagai eraginkor bat asmatu zuelako berria: **tuberkulina**. Josu Zabaleta

San Carloseko irakasle bat Alemaniara joan, eta **tuberkulina** ekarri zuen. Josu Zabaleta

tuberkulo ik tuberkulu.

tuberkulosi (orobat *tuberculosis* g.er.) 1 iz hetika.

Orduko eritasunik hilgarriena zen petxuko gaitz edo **tuberkulosia**. **Iñaki Seguro**la

Mutikoak **tuberkulosia** izan zezakeela pentsatze hutsak ikara sartu zion Andresi. **Josu Zabaleta**

X bat klarionaz **tuberkulosiak** jota zetozen etorkin haiei Ellis Islandeko kuarentena-pabilioi erraldoian. **Harkaitz Cano**

Lepra eta **tuberkulosia** tratatzeko botikak omen ziren. **Berria - Mundua**

HIESa eta **tuberkulosia** oso loturik daude: **tuberkulosiak** hildakoen artean 365.000 lagun HIESaz kutsaturik zeuden eta, jakina denez, HIESak jotako gaixok besteek baino 30 aldiz aukera handiago dute **tuberkulosia** harrapatzeko. **Pello Salaburu**

Ikerrek gaintutua du erabat **tuberkulosia**, eta animatuta dago bere bizitzaren aro berri honi ekiteko. **Joan Mari Irigoien**

Tuberkulosiak bi milioi pertsona hiltzen ditu urtean, gehienak garatzeko bidean diren herrialdeetan. **Berria - Gaiak**

Tuberkulositik 1,4 milioi eri salbatzeko giltza, esku-eskura. **Berria - Gaiak**

Tuberkulosiarekin hil ziren lezoi haietan denboraldia egiten zuten askok. **Jokin Urain**

Tuberkulosiaren atzerakada, esate baterako, profilaxiaren arrakastaz: %30etik %8rainoko jaitsiera. **Joxe Austin Arrieta**

Tuberkulosiaren aurkako txerto batek proba guztiak gaintutu ditu. **Berria - Gaiak**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaixoko tratamendua jarraitzen ez duenean edo medikuek tratamendu egokia jartzen ez diotenean bilakatu ohi da **tuberkulosi** arrunta botikekiko erresistente. **Berria - Gaiak**

Ohiko **tuberkulosia** sendatzeko sei hilabeteko tratamenduak 8,15 euro inguru balio du. **Berria - Gaiak**

Gaitz neurologikoak "ugaldu" egin omen dira aspaldi honetan, malaria, tifus eta **tuberkulosi** hilgarrien (goiztiarren) kaltetan. **Edorta Agirre**

Horri erantzen badiogu S. Nicolautik ekarritako **tuberkulosi** amigdalitokoa sendatzeko Portugalen emandako denbora [...] argi gelditzen da zenbat zor didan eta zein gaizki ordaindu duen. **Bego Montorio**

William, zaharrena, gazterik hil zen, **tuberkulosi** alkoholikoz. **Koro Navarro**

Tuberkulosia, gripea bezala, airearen bitartez zabaltzen da, baina soilik biriketako **tuberkulosia** dutenek kutsa ditzakete era horretan inguruokoa. **Berria - Gaiak**

Mutiko gizarajo bat zegoen kaderako **tuberkulosiarekin**, argizainaren semea. **Anton Garikano**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

OMEren arabera, Giza Immuno-eskasiaren Birusa (GIB) dutenek **tuberkulosi** mota horretaz kutsatzeko arrisku handiagoa dute. **Berria - Gaiak**

Bederatzi milioi **tuberkulosi** kasu berri agertzen dira urtero munduan. **Berria - Gaiak**

300.000 lagun kutsatzen dira urtero botikekiko erresistentea den **tuberkulosi** aldaeraz. **Berria - Gaiak**

Bazitekeen ezer ez izatea; baina, hemoptisi arin batekin batera, probabilitate asko zegoen **tuberkulosi** hasieraren seinalea izateko. **Josu Zabaleta**

Tuberkulosi - edo psikosi-zantzuren bat zirudien, edo eritasun neurologikoren bat. **Xabier Olarra**

laz 46 herrialdetan aldarrikatu zuten **tuberkulosi** larrialdia. **Berria - Gaiak**

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Tuberkulosi hazkuntza-hodiak lapurtu dituzte Bartzelonako Sants estazioan. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tuberkulosi kasu (3)

erresistentea den tuberkulosia (5); **tuberkulosia harrapatu** (3); **tuberkulosia harrapatzeko** (3); **tuberkulosia izan** (3); **tuberkulosia sendatzeko** (3); **tuberkulosia tratatzeko** (4)

tuberkulosiak jota (14); **tuberkulosiak jota hil** (3); **tuberkulosiak jotako** (4)

tuberkulosiaren aurka (3); **tuberkulosiaren aurkako** (13); **tuberkulosiaren kontra** (4); **tuberkulosiaren kontrako** (8)

tuberkulosis ik tuberkulosi.

tuberkuloso 1 iz tuberkulosiak jotako pertsona.

Haur hark txori batek bezala egiten zuen garrasi, eta izerdiak usain berezi bat zuen, saguarena bezalakoa, **tuberkulosoaren** izerdiaren usaina. **Josu Zabaleta**

Horregatik durduzatu nau hain latz zortzi urte geroago **tuberkuloso** gizajo batek gaur bertan esan didanak. **Koldo Izagirre**

2 (izenondo gisa)

Auzoan neska **tuberkuloso**a esaten zioten, baita aingerutxo ere. **Patxi Zubizarreta**

• 3 izond tuberkulosiarena, tuberkulosiari dagokiona.

Meningitis **tuberkuloso**a izan zuen. **Josu Zabaleta**

tuberkulu (orobat *tuberkulo*) iz zurtoinarene edo sustraiaren koskor biribilkara, eskuarki lurpekoa, landarearen erresalbuko elikagaia gertatzen dena.

Patatak, aguakateak, guaiabak, mangoak, bananak, eta bertze mila **tuberkulu** eta fruitu. **Joan Mari Irigoien**

Lehenengo gauean, jakina, gauza kuriosoa iruditu zitzaizkidan laranja kolore hitsezko **tuberkulu** horiek. **Iban Zaldúa**

Jarri ginen aulki batzuetan, nagusiak manatu bezala edan genuen yarakia -edo *juka* deritzan **tuberkuluaren** arnoa, hobeki uler diezadazun, jaun André-, eta bazkaltzen hasi ginen... **Joan Mari Irigoien**

Nema arrautzaren gorringoa da, eta *níame* **tuberkulo** bat, baina biek esanahi berdintsua daukate, kaskarina, motza. **Pako Aristi**

tubo 1 iz hodia, tutua.

Ceciliak gomazko **tuboa** hartu zuen, sartu zuen upel batean, tira egin zion ahoaz, eta ardo beltza jarioan atera zuen. **Josu Zabaleta**

Haren leihozulo batetik metalezko **tubo** bat atera eta, kanpoan zerrautsak mendi txiki bat egiten zuen. **Pablo Sastre**

Hor bazagok **tubo** handi bat, estoldara edo ez zakiat nora daraman horrek eta, han barruan, txerrikume bat ikusi diat. **Pablo Sastre**

Soldadura gabeko **tuboen** negozio nagusian. **Berria - Ekonomia**

Orduan izua mundualdi guztirako kendu zidan agindua entzun dut **tubotik**, nire komandantearen ahots marrantatuan, "Erdu kubertara, Nikola!". **Koldo Izagirre**

2 tubo tankerako ontzi tapoiduna.

Flaskotxoak, kaxatxoak, **tuboak**, emakume-erreminta haiek guztiak ikusten nituen neure aurrean. **Joxe Austin Arrieta**

Rayleytarrak, pentsatu zuen Lily Briscoek, pintura berdearen **tuboa** estutuz. Anton Garikano
Mahaitxora zuzendu eta **tubo** bat atera du; sakatu eta zarraztada eder bat bota du lagunaren eskubarruan. Juan Martin Elexpuru
Askatu dituzte alozak zatikatu dituzte frutak hustu dituzte hortzore **tuboak** matxuratu dituzte idazmakinak. Koldo Izagirre

3 (hitz elkartuetan)

Tubo-gonaren morrontza. Arantxa Iturbe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
tubo bat atera (3)

tuboeskape iz ihes tutua, ihes hodia.

Haratago, errenkan, batzuk elkar gainka, auto zaharrak, pneumatikoak, **tuboeskapeak** eta beste. Pablo Sastre
Gure kaleetako **tuboeskapeen** zikinak, erregaienak, horrelako kalteak egiten badizkio harriari, [...]. Pello Zabala
Tuboeskapetik leherketa txiki modukoak atera zaizkio. Paddy Rekalde

tubotzar izond hoditzarra.

Hango mugida, eguzki distiretan, **tubotzar** handiak zut eta zut mendi bizkarrari iltzatuz zihardutenean. Pello Zabala

tubular izond hodi itxurakoa.

Hots ergelak ahoratzen dituen objektu **tubular** pilpiratsuren bat. Xabier Olarra
Jantzi mota hau **tubularra** da eta tolesguneetan errorik gabea. Xabier Olarra

tubulu iz hodi-egitura txikia, eskuarki giltzurrun edo barrabilekoa.

Horren ondoren, **tubulu** estuetan barrena igarotzen da irazitako fluidoak; odol-kapilarretan katigaturik daude **tubuluak**, eta giltzurrun-zainetara konektaturik kapilarrak. Irene Aldasoro
Tubuluetako zelula espezializatuek energia erabiltzen dute (hartzen ditugun elikagaietatik eratorria, besterik ezean) sodio ioiak berriro odol-kapilarretara bultzatzeko, kapilarrak oso kontaktu estuan baitaude **tubuluekin** leku askotan. Irene Aldasoro
Azken batean, odolak behar dituen substantziak **tubuluetako** birxurgatze-prozesuan berreskuratzen dira. Irene Aldasoro
Sodio kloruroak kontzentratuago bihurtzen du odola eta, horren ondorioz, errazago igarotzen da ura **tubuluaren** paretatik odol-kapilarra. Irene Aldasoro

tudortar izond

Ingeles historian jakina zen **tudortarrek** Komunei emandako botereak haiek estuardotarren aurka erabili zituztela. Iñaki Mendiguren

tuerka iz azkoina.

Zubiaren parean, **tuerka** bat duen ate metalezko bat, letra txuri-gorriekin... Pablo Sastre
Ibaira joaten ziren, burdinazko zubiko **tuerkak** sartzera. Koldo Biguri
Peppone **tuerka** bat amorrutz estutzen ari zen kamioi baten kapotean burua murgilduta. Koldo Biguri

tuio iz hodia.

Baziren **tuio** edo hodi larri batzuk urarentzat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Hortik goraxago bazegoen zubi tipi bat, zeintatik pasatzen baitzen txokolateriara uraren eramaiteko **tuioa** edo hodia, burdinezkoa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Ifernuko errekatik hartzen zuten behar zen ura, burdinezko **tuio** edo urbide batean eramanez eiherraraino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Hazpandar artixta hunentzat dirua badela eta **tuio** baten ezartzeko eskas dela izan da hasarrearen gaia. Herria

tuka (orobat tu-ka) adlag tu eginez.

Altxatu egin da atzera, eztulka, **tuka**, itota, itsu, nahastuta. Itziar Otegi
Gehiago dena badira batzu, horiek arrunt salbaiak irain, mehatxu eta **tuka** ari direnak, bereziki Armstrong-en kontra. Herria
Madriren markesa baten etxean zerbitzen ari zela, **tu**-ka egin zien behin ate-joka etorritako handiki usteko batzuei. Joxerra Garzia
Hara-hona gelan barrena, denbora guztian zinkurinka eta bazter batean zegoen listuontzi batera **tuka**. Jose Morales
Gure aurrealde osoan zehar fusil-tiroen txinparta distiratsua nonahi, metrailadoreak sugarrak **tuka**. Mirentxu Larrañaga

tukan iz hegazti igokaria, lumadi ikusgarrikoa, moko handi eta kakotua duena eta Hego Amerikan bizi dena(*Ramphastos gen.*).

Iragan fosilizatuaren aztaparratarik askatzeko otsoz, antilopez, arranoz, ostrukaz, ainaraz, gameluz, **tukanez** edo urzoz aldatzea gertatzen zitzaigun. Itxaro Borda
Oihan aldetik, hegazti arraroen oihuak entzuten dira, moko gogorreko **tukanen** bat izango da arbola gainean. Joseba Sarrionandia
Jaten ematen nien, eta atzealdeko patioan erdi ostenduta zeuden **tukanei** ere bai. Javi Cillero
Antzik batere atera gabe, karikaturak eginez, Solomon jaunaren **tukan** soslaiarena eta telefono kabinaren ondoan txistu joka zegoen morroi mozkotearena. Koro Navarro

tuku-tuku 1 adlag urrats geldian.

Trean sartu eta **tuku tuku** abiatu zen, Bordelera buruz. Eneko Bidegain

Badiaren erdian pailoten kanoa ageri zen, Atanasio, **tuku-tuku** egoskorrak salatzen zuen. **Koldo Izagirre**

tul *iz* ehun fina eta gardena, sare tankerakoa, eskuarki zetazkoa edo kotoizkoa.

Batzuen ametsetako eta besteen kezketako Kattalinek jantzi berri du **tulezko** gonatxo txuri arina. **Anjel Lertxundi**

Prozesioetan, elizan, **tulezko** soineko eta txanoa janzten zituen, satinezko xingolekin. **Karlos Zabala**

Gelditu egiten nintzen, zalantzaz, **tul** arrosazko errezelen aurrean. **Monika Etxebarria**

Tul zuriari erlantz distiratsuegia zerion. **Lopez de Arana**

Zein brodatu politak egiten dituen **tulean**! **Jose Morales**

tulipa (*orobat tulipan*) **1** *iz* zitoriaren familiako landarea, sustrai errabolduna eta hosto luzaranak dituena, eta kolore biziko lore bakar ikusgarria, behealdean hanpatua eta ahoan itxiagoa, ematen duena (*Tulipa gesneriana* etab.).

Lore ederrak dira **tulipak**, beren koloreak miresgarriak eta argizari antzekoak lore-hostoak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Azafrairean eta hiazintoaren garaia maite dute gehien, kolore apur baten aldekoak direlako, baina **tulipak** (zuriak izan ezik, maitagarrien sehaskak baitira) deigarriegiak iruditzen zaizkie. **Julen Gabiria**

Ahal zuelarik, logeletan ezartzen zituen **tulipa**, edo margarita, edo jasmin batzuk, beti, airostasun eta usain ona ematen zutenak. **Daniel Landart**

Enarak etortzen diren garaian galtzen dituzte **tulipek** petaloak. **Imanol Zurutuza**

Bai baitzekiten gauza ezohikoren bat lortzen zuenak (kolore beltzeko **tulipa**, esaterako) aberastasuna bere esku izango zuela. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Bere emazte zena gogoratzen zuen, **tulipa** gorriei begira. **Imanol Zurutuza**

Tulipa ihartuak ez dira inoiz berpizten. **Imanol Zurutuza**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tulipa -petaloak erauzi ditu haizeak; haiekin haizatu da gure poza. **Itziar Otegi**

Batzuetan, egun luzez egoten dira **tulipa** -soinekoa jantzi gabe. **Julen Gabiria**

Tulipan -baratze batean. **Anton Garikano**

tulipan ik **tulipa**.

tumatxa *adlag adkor* gehiegi.

-Tumatxa , ezta, lagunak? **Jon Arretxe**

tumor ik **tumore**.

tumore (*orobat tumor g.er.*) **1** *iz* gorputz ehun baten hantura ez-ohikoa edo gaiztoa.

60 kiloko **tumorea** kendu diote emakume bati Gurutzetako ospitalean. **Berria - Euskal Herria**

Etsirik nengoen hil egingo nintzela, eta behin **tumorea** erauzi eta erradiazio- eta kimioterapia-tratamenduen oinazealdi ahulgarriak igaro ondoren. **Oskar Arana**

Bere eskuak ez dira aitari buruan duen **tumorea** kendu eta ebakuntza behar bezala egiteko gai. **Harkaitz Cano**

Cannabisaren osagai kimikoek [...] **tumoreen** elikatze sistemari erasotzen diote. **Berria - Gaiak**

Tumoreak angiogenesis fenomenoagatik hazten zirela uste zuten lehen zientzialariek. **Berria - Gaiak**

Tumoreak nahiko janda nauka barrutik, eta nire bizitzan egindako zenbait lantxo txukundu beharrez konturatu ninduan. **Fernando Morillo**

Uhin hori **tumorea** erre eta ezerezteko gai izango da. **Berria - Gaiak**

Zerebroan zerbait neukala uste nuen inolaz ere, **tumore** bat agian, ez dakit, aldi berean gibelaldea paralizatu, ikusmena ilundu eta txegoste sistema hein batean nahasiko zidan zerbait. **Joxan Elozegi**

Autonomia erkidegoetan **tumoreen** erregistroak sortu beharra azpimarratu du, «informazio zehatza eta egiazkoa izan ahal izateko». **Berria - Harian**

Tumorea txikia zela eta zulutxo bat eginda kenduko ziotela. **Imanol Zurutuza**

100 **tumoretik** 20 bularrekoak izan ohi dira. **Berria - Harian**

Tumoreak garroak zituela irudi zuen, erresonantzia magnetikoetan. **Imanol Zurutuza**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tumore gaizto bat aurkitu zidaten, kopetaldean, eta tratamendu bakarra kirurgikoa omen zen. **Imanol Zurutuza**

Neutrofilo horiek **tumore** gaizto baten gainean egiten duten presio mekanikoak minbiziaren garapena oztopa dezake. **Berria - Gaiak**

Beste zurtza batzuk ere utzi dizkigu horrek, Jainkoarekin batera beste gauza asko hil baitugu, **tumore** txarra kentzeko puska sanoak ere erazten diren bezala. **Joxerra Garzia**

Bey tituluarena ere inguruka zebilakion, zeina, **tumore** makurra nola, ustez desagertua zelakoan, berriro ere erasoka hasten baitzitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Sortu al lezake metastasirik buruko **tumore** batek? **Imanol Zurutuza**

Anaia ttikia hil zorian du burumuineko **tumore** batekin. **Herria**

Minbizia, leuzemia, giltzurrunetako arazoak, hezurretako **tumoreak** eta enbrioietao malformazioak eragiten ditu uranio pobretuak. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tumore mota jakin batekin lotu ahal izan dute zientzialariek aspirinaren eragina. **Berria - Gaiak**

Kezka ernatu zaio dena eraztea ezinezko izan zitzaie, geratzen diren **tumore** -hondarrak hiltzen saiatzeko tratamendu hori beharrezkoa dela entzutean. **Imanol Zurutuza**

Sakelako telefonoek **tumore** arriskua handitzen dutela dio ikerketa batek. **Berria - Gaiak**

Donostiako Institutu Onkologikoko **Tumore** Erregistroko arduradunaren esanetan, [...]. **Berria - Harian**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Badago beste ur hotz mota bat nitroa duena [...] edaten denean barrua garbitzen duena eta hesteetatik pasatzen denean eskrofula-**tumoreak** sendatzen dituena. **Santiago Iruretagoiena**

5 (beste izen baten eskuinean)

Glioma **tumorearen** ingurukoa da ikerketa. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
tumore bat ageri (4); **tumore gaizto** (5); **tumore gaiztoa** (5); **tumore gaiztoak** (7); **tumore mota** (3)
tumorea atzeman (3)

tumoredun *izond* tumorea duena.

Lau substantzia horiek gaitz neoplasikoei (gaitz **tumoredunak**) zelan eragiten dien argitu gura dugu, batetik. **Berria - Gaiak**

tumulu *iz* lurzoruko maila baino gorago jasotzen den hilobia.

Okre gorrikoa usu ageri da antzinako hilobi eta **tumuluetan**. **Pello Zabala**

Etxearen gainean **tumulu** handia altxatu zuten, eta belar berdearekin eta krabelin zuriekin estali zuten. **Agustin Otsoa**

Pasha jauregiaren aurreko **tumuluraino** joan eta bertara igo zen. **Fernando Rey**

Hiletak amaiturik, emakumeen negarra eten eta Théoden azkenean **tumulu** azpian atsedenean eta bakean geratu zenean, jendea Urrezko Jauregiaren ondoan bildu zen oturuntza handia eginez tristura baztertzeko. **Agustin Otsoa**

Denean, hiri inguruetako herrikka guztietan, halako **tumulu** juduak sortu dira. **Felipe Juaristi**

[Cervantesek] idatzitako bertso batzuk etorri zitzaizkidan burura, Sevillan altxatako Felipe II.aren **tumuluari** eskainitakoak. **Bernardo Atxaga**

tunako *iz*

-Non da Boz? -marrakatu zuen bigarrenak larrupeko organoak oro zatarazi zizkion **tunakoa** igortzen ziola. **Itxaro Borda**

tunante *izond/iz* alproja, xitala.

Tunante hutsa duk, beraren saltokian ezin duk ezer erosi, eta, gainera, denetariko zerrikeriak botatzen zizkiok ardoari. **Jose Morales**

Olerkari **tunante** horren bertso batzuekin maitemindu nuen nire lehenengo amodioa. **Patxi Ezkiaga**

Hura bezalako boyscout- **tunante** -harroputza ikusi baino miletan nahiagoko nukeen... **Daniel Landart**

Ixtudiant batek, **tunanteenak** ere, edo langile erretiratuak, biziak ez baldin badu sobera higatu edo malindu, kolpez egin dezake ibilbide hori, astero egun bat geldituz.

Piarres Aintziart

2 *estudiante tunante*

Otañoz oroit naiz, **estudiante tunantei** kantuak ateratzen zizkion Otañoz. **Pello Salaburu**

Ordurako gu Bartzelonan genbiltzan, **estudiante tunante**. **Joxerra Garzia**

Trintxerak utzi zituen **estudiante tunante** Gasteiza jotzeko, Euskal Filologia ikastera-edo. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estudiante tunante (6)

tundra *iz* eskualde artikoko estepa, urteko hilabete askotan izoztua dagoena.

Siberiar **tundraren** hegoaldeko zerrendetatik arabiar basamortu eta Birmaniako junglako ipar-zerrendetaraino. **Iñaki Mendiguren**

Alaskako oliobide batek milioi bat litro petrolio isuri ditu **tundran**. **Berria - Gaiak**

Distrituko administrazioak, **tundrako** bizimoduak neskatilarentzat zekartzakeen osasun arriskuak zirela eta, barnetegian sartzea erabaki zuen. **Pablo Sastre**

Sabana, **tundra**, hosto erorkorreko baso epela, euri oihan tropikala, basamortu beroa eta taiga bezalako bioma aurkitzen dira mundu zabalean. **Berria - Gaiak**

Elur-klimak, polarrak, mendi-klimak, estepakoak, basamortukoak, montzoi-klimak, hezeak, neguan urtaro lehorrekoak, udan urtaro lehorrekoak, **tundrakoak**, izotz betikoena klima, itsasaldekoak... **Pello Zabala**

tunel *1 iz* lur azpian egiten den igarobidea, eskuarki mendi bat alderik alde igarotzen duena.

Tren hotsak entzuten ziren **tunel** aldean. **Iñaki Zabaleta**

Ibaitik gertu, gorantz abiatu ginen hiri erdia atzean utzita, eta badakit **tunel** bat zeharkatu genuela bidean. **Rafa Egiguren**

Estazio azpiko **tunela** ikusten zen handik. **Unai Elorriaga**

Sustapen Ministerioak esan duenez, Serantesko **tunela** eta lurpeko trenbidea bateragarriak dira. **Berria - Euskal Herria**

Hainbat biadukto, zubi eta **tunel** ere egingo dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Preso talde bat eskapatzera ahalegindu zen, lur azpian **tunel** bat zilatuz. Ni ere halaxe sentitzen naiz batzuetan, **tunel** bat zulatzen. **Eneko Bidegain**

Setiatuta zeuden eta etsaiak hogeita hamar **tunel** baino gehiago ireki zituen. **Santiago Iruretagoiena**

Tunelen zundaketek lur azpiko sistema hidrologikoan kalteak eragingo ditu. **Berria - Euskal Herria**

Beste aldean, amildegi ilunean indusitako kobazulo eta **tuneletan**. **Agustin Otsoa**

Harresien barruan hainbat **tunel** trazatu zituen [...] eta **tunel** guztietan brontzezko ontziak jarri zituen esekita. **Santiago Iruretagoiena**

Israelgo Armadak ehunka etxebizitza eraitsiko dituela Rafako errefuxiatu gunean, armak sartzeko **tunelak** suntsitzeko. **Berria - Mundua**

Gizatalde handi zurbilak metro-zuloetan eta **tuneletan** sartu eta lurpean desagertzen ziren. **Lopez de Arana**

Garai hartan itsasoaren azpitik zulatzen ari ziren **tunel** hura benetako zulo beltz bilakatu dela akziodunontzat. **Berria - Ekonomia**

Ondoren geratu den isilunea eternitatearen beraren aho-zuloraino daraman **tunel** sabairik gabea iruditu zait. **Pako Aristi**

1426 pertsona hil ziren **tunel** batean harrapatuta gelditu ondoren. **Berria - Mundua**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bertan zutik egoteko bezain **tunel** handia zen. **Iñaki Mendiguren**

Onddo-kapelako gizon bat purua erretzen ari zen **tunel** zabalaren erdian. **Lopez de Arana**

Hainbat **tunel** labur zeuden Hokurikukit Kyōtorako trenbidean. **Ibon Uribaldi**

Errepideak lur azpitik egiten zuen tarte bat, 25 bat metrokoa, eta gure bidea **tunel** labur haren goialdetik pasatzen zen. **Juan Luis Zabala**

Indian, txindurri zuriek zura jan eta pareta azalean **tunel** luzeak egiten dituzte. **Gotzon Garate**

Estatxatik jarraitu zuen, kopeta izerditan, hirugarren mailaraino uztaien barne aldetik, nekez, zutikako **tunel** estu hartan. **Koldo Izagirre**

Tunel ilun batean aurrera joan ziren, gazteluaren azpian. **Iñaki Mendiguren**

Hurrengo, **tunel** batean sartu ginen, **tunel** ilun beltz luze batean. **Mirentxu Larrañaga**

Argi xume baten ikusten du **tunel** ilunean. Berria - Harian

Ate Handiaren lerroarekin parekatzen zen guztietan **tunel** gangadun batetik pasatzen zen, arrokazko mutur handia zeharkatuz. Agustin Otsoa

Ozta ikusi ahal izan genuen ikertu gabea geneukan uren **tunel** zharrean sartzen. Koldo Izagirre

Pasabide ezkutu edo **tunel** sekreturen batera. Iñaki Mendiguren

Mapan ezkutuko zazpi **tunel** daude, ezta? Iñaki Mendiguren

Aieteko **tunel** irteeran. Iñigo Aranbarri

Muturretik irten zen harrizko **tunel** ilun baten zoru hezera. Iñaki Mendiguren

Gizonak eta emakumeak bultzaka sartzen ziren egurrezko **tunel** kirastuan, elkar estutuz eta zanpatuz. Lopez de Arana

Distira hori iheserako **tunel** bat da, arrakala bat orainean, bururatzen zaio komedianteari. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire buruari galdetzen diot ea noizbait topatuko ote dudan beste ertzetik nigana datorren **tunel** -zultatzailea. Harkaitz Cano

Bizikleta **tunel** -bokan utzi zuela dio zenbaitek eta, min hartuta, etxeraino iritsi zela. Xabier Etxabe

Marik Martintxo kobazuloan sarrarazi eta barruko **tunel** -labirintoan barrena upategira eraman zuen. Martin Anso

Sabaitik behera zetozen **tunel** -puska handien paretik ihesi. Iñaki Mendiguren

Ikuspen horietan berrezagutzen dut nire haurtzaroko **tunel** -zaletasunaren errepika. Iñaki Zabaleta

Binnig IBM enpresako bi zientzialarik **tunel** efektuko mikroskopikoa asmatu zuten. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garbiketa-**tunel** batetik zuzenean etorria bezainbat distiratsen zen. Aingeru Epaltza

5 irud/hed

Francoren **tunel** beldurgarritik atera berriak ginen, eta guztiok itxaropentsu geunden. Berria - Euskal Herria

Badirudi iritsi garela puntu batera non [...] pornografia zulo beltz bat bihurtzen ari den: gero eta beltzagoa den **tunel** bat. Berria - Kultura

Berebat politikan, igartzen da argitxo bat **tunelaren** bukaeran. Markos Zapiain

Lazkaotarra urtebeteko **tunel** ilunean argia ikusten hasi dela dirudi. Berria - Kirola

Tinpanoan bukatzen den **tunel** estu itsu bat. Irene Aldasoro

Egin bedi kontu urdaila eta digestio-aparatuaren beste atal batzuk gorputzaren kanpotik daudela, **tunel** bat eratzen baitute kanpoaldeko larruazalarekin. Irene Aldasoro

Muskulu edema atzeman diote ezker eskuan, miositisa eta **tunel** karpianoaren edema ere bai. Berria - Kirola

Bazirudien supituki beste garai batean murgiltzen zela, berdez babesturiko denbora- **tunel** berezi batean sartuta. Joxemari Iturralde

Hilurren dagoenak ez du argi **tunelik** ikusten, baina badago zerbait, zentzuen bat-bateko zorrozte bat. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

metroko tunel (4); **tunel ilun** (4); **tunel ilunean** (3); **tunel luze** (4)

arlabango tunela (5); **azpiko tunela** (5); **iratiko tunela** (12); **iratiko tunela itxi** (7); **malmasingo tunela** (3); **serantesko tunela** (11); **tunela egiten** (3); **tunela itxi** (8); **tunela pasatu** (4)

artxandako tunelak (4); **tunelak egiten** (3)

serantesko tunelaren proiektua (3); **tunelaren alde** (3); **tunelaren azpian** (3)

haizearen tunelean (4); **tunelean aurrera** (3); **tunelean barrena** (3)

artxandako tunelen (3)

tunelera joan (3)

artxandako tuneletako (5); **artxandako tuneletako langileek** (3)

tuneldun *izond*

Serora beltzak, **tuneldunak**, berriz jiten dira 1933an. Michel Oronoz

Gero serora **tuneldunen** lerroa, ezkerretarik beti, Etxauzko bizkondeen kapera, aparte behar zuten. Michel Oronoz

tungsteno *iz wolframa.*

Tungsteno harizko bonbila. Josu Zabaleta

tunguz *iz Siberiako ekialdean bizi den herriko altaiko bateko kidea.*

Beldurrik gabe, Angarako ibarreko nekazariak, mongol-khalkhak, **tunguzak** eta buretak, erakarri zituzten hirira, eta mortua zabaldu inbaditzaileen eta hiriaren artean.

Karlos Zabala

tunika 1 *iz grekoen eta erromatarren soineko zabala eta luzea, soingainekoaren azpian alkandora gisa eramaten zutena; antzinako tunikaren gisako jantzia.*

Batek txanoa **tunikatik** banandu eta eskale bati eman zion; beste batek **tunikaren** besoa ebaki eta eman egin zuen, eta beste batzuek **tunikaren** beste atalen bat ematen zuten. Askoren artean

Aaronentzat eta beronen semeentzat **tunikak** egin zituzten liho finez ehunduak. Elizen arteko biblia

Hariezadazu oihal hau; sei **tunika** egiteko ematen du. Askoren artean

-Ene jauna, arren, erantzi zure soinekoa eta durbantea, eta jantzi **tunika** hau, eta ipini belo hau buru gainean. Patxi Zubizarreta

Erdian, zutik, gerriko batek hertsitzen zuen zeta zuri fineko **tunika** batez jantzia, gizon gazte bat. Patxi Zubizarreta

Erlijio-bizitza hasi zuenetik hil zen arte, **tunika**, gerriko soka eta barruko galtzekin aberats, pozik bizi izan zen beste ezer gabe. Askoren artean

Hik ere edozein kontakizun asmatuko duk, **tunika** bat eta estalki bat irabaztearren. Juan Kruz Igerabide

Hire nagusia itzultzen bada, **tunika** eta soinganekoa emango dizkidak. Juan Kruz Igerabide

Gero **tunika** eta kapirotea jantzi eta kalabozo hartatik atera nintzen. Jon Alonso

Zirzek **tunika** bat jantzi zidan; berak ere hala egin zuen, urrezko gerrikoaz loturik, eta buruan zapi bat ipini zuen. Juan Kruz Igerabide

Tunika berehala erantzi zuen, biluzik geratuz, eta bihotzez eman zien. Askoren artean

Oihalaz, berriz, ehortzeko jarri zioten **tunika** egin zuten anaiek. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gela jendetsu batera ematen zuen ate batean Cassandra Wilkins topatu zuten **tunika** greko bat jantzirik. Zuk, seme, jantzi ezazu nire **tunikarik** dotoreena, eta hartu urrezko ukaraiak. Lopez de Arana

Lur biluziak hartzen zuen haren gorputz biluzia, **tunika** mehe bat baino tartean ez zela. Askoren artean

Tunika zarpail eta latz batekin pozik zen arren, hau ere askotan behartsuren batekin banatu nahi zuen. Azken-azken Ahmed bera zihoan, **tunika** urdin bat jantzirik burutik oinetaraino. Askoren artean

Ateko Zaindarien **tunika** beltzak eta itxura arraroko kasketak zeramatzaten. Agustin Otsoa

Bi **tunika** txanogabe, gerriko soka, azpiko galtzak eta sokarainoko longaina. Askoren artean

Lihozko **tunika** eta lihozko galtzak jantzirik. Elizen arteko biblia

Ez dute erabiltzen larruzko jantzirik, ez lihozko ehunik, ilezko **tunika** kaputxadunak bakarrik baizik. Askoren artean

Agian gure azpiko **tunikaz** ere jabetu nahi dute. Askoren artean

Agian gure gaineko **tunikaz** jabetu nahi dute. Askoren artean

Emakumeentzako jaka motzak, gaueko **tunika** bat, bi ezkontza soineko, mahukarik gabeko soineko ugari, eta baita artilezko eta satenezko berokiak ere. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Frankotan **tunika** -atal bat anaia bati hartzen zion eta beste atala beste bati. Askoren artean

Hotzaren hotzez ur jeltatzeko izotz-kandelak egin zaizkit **tunika** -barrenetan. Askoren artean

Tunika -barrena urratu eta eman egin zion. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hil-**tunika** zakuki latzez estaltzea eskatu zuen. Askoren artean

Apaiz-**tunika** liho finez bordatua egingo duzu, eta buru-zapia ere liho finezkoa izango da. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apaiz tunika (4); **bere tunika** (9); **erantzi zeure tunika** (3); **lihozko tunika** (3); **tunika arrosa** (3); **tunika bakar bat** (6); **tunika bakar batekin** (3); **tunika egiteko** (5); **tunika eman** (5); **tunika erantzi** (5); **tunika eskatu zioten** (3); **tunika eskatzen** (3); **tunika eta barruko** (5); **tunika eta estalkia** (3); **tunika jantzi** (3); **tunika urdin bat** (3); **tunika zuri** (3); **zeraman tunika** (3); **zeure tunika** (3)

tunikadun *izond/iz* tunika daramana.

Tunikadunari begiratu nion. Eta **tunikadunari** mintzo-: segi atzera, hoa hire lagunekin biltzera. Alberto Ladron Arana

tunikatxo *iz* tunika txikia.

Tunikatxo pobre batez estalia, biluzik eta hotzak zerbitzatzen zuen Jauna. Askoren artean

Jainkoari esker hain indartsu jarri zen gorputzez zein arimaz, non, handik gutxira santuaren erlijio-elkartean sarturik, **tunikatxo** bakar batez estali baitzen eta zilizioa eraman baitzuen luzaroan haragiaren gainean. Askoren artean

tunisiar *(orobat tuniziar g.er.) izlag/iz* Tunisiakoa, Tunisiari dagokiona; Tunisiako herritarra.

Hantxe zegoen, bere alfonbra **tunisiarrak** sorbaldetan, ingurura begira dohatsu-aurpegiarekin. Fernando Rey

Bereberrak, marokoarrak, **tunisiarrak** ... ez daki zer ote diren, zoritxarrez denak iruditzen zaizkio berdinak. Sonia Gonzalez

Lehen garaipena Mexikoren kontra erdietsi zuten **tunisiarrek**. Berria - Kirola

Hondoratzeko uanean 11 lagun (10 marokoar eta **tunisiar** bat) bizirik atera zituzten. Berria - Mundua

Zohra Ben Lakhdar, **tunisiarra**, fisika erakasle eta ikerle Tunis-eko unibertsitatean. Herria

Serhane Ben Abdelmaji **Tunisiarra** bilatzeko eta atxilotzeko agindua eman zuen atzo Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile Juan del Olmok. Berria - Mundua

Haxixa saltzera etorritako **tunisiar** bat zen Beshir hura. Fernando Rey

tuniziar ik tunisiar.

tuno *iz* Tuna izeneko espainiar musika-taldeko kidea.

Eta kapitalismoari, fatxei, **tunoel** eta txakur horterei ere bai! Jon Arretxe

tunpalahara *adlag*

Izuerditan hasi zen gero eta gorriago, goitu egin zitzaizkion odolak eta **tunpalahara** erori zen pultsuak saltatuta. Koldo Izagirre

tunpatako *(orobat tunpateko) iz* dunbada.

Errebuelta batean **tunpateko** bat hartuko dik horrek. Pablo Sastre

Kañoi-**tunpatakoak** entzuz ditugu emendik (Saturraran'dik) arratsaldean: guda ontzien batek bombardeatzen du nunbait Donosti. Berria - Kultura

tunpatapalahara *iz*

Bi edo hiru hilabeteren buruan hil zuten Xegama eguerdiko eguzkitan eta etxeko atarian, **tunpatapalahara** handiz, bere morroiak txakurtegi gortortzen zirela. Koldo Izagirre

tuntik (ezezko esaldietan) *ipar* tutik.

Ez zen **tuntik** ere ikusten. Gotzon Garate

Jendeak ez baititu desberdintzen ostatuetakota eta elkartetako edantegiak, beraz elkarteen barneko biziaz ez baita **tuntik** jabetzen. Herria

Euskaraz **tuntik** ez! Herria

Tuntik ere ez! Elena Touyarou

Graxik ez zuen, azkenean, ele **tuntik** atera. Eneko Bidegain

Atzo, zer bero tzarra zen!, aire **tuntik** etzen! Herria

tuntitu, tunti(tu), tuntitzen da/du *ad ipar* kantitu, higitu.

Litekeena da erdibidekotzat jotzen duen zerbitzu horren sortzea aipatzea, eta jarrera horretatik ez **tuntitzea**. **Berria - Euskal Herria**

tuntun¹ *iz ipar* danbolina. ik **ttuntun**¹.

Bertsuak ahantzi zituen, ahantzi zuen halaber bestak zirelarik zein guti gozatu ohi zuen txistu eta **tuntunen** soinuak entzun baitzituen jendearen gonbidatzen dantzara.

Elena Touyarou

Ohi bezala Baionako Ikastolen **Tuntunak** (*Baionan Kantuzeko* soinulari eta kantari multxo) araberako programa prestatua du. **Herria**

tuntun² *1 izond* emakumezkoek mintzatuz, ergela, adimen gutxikoa. ik **tonto**.

Ez zeukan asmorik emakume **tuntun** haien mailara makurtzeko. **Anton Garikano**

Ai zein den atso **tuntuna**! Jainkoak daki zenbat neska **tuntun** engainatu ote zituen... **Anjel Lertxundi**

Neska **tuntun** batengatik emazte jatorra uzteko zorian egon zinela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bilboko beraneante errubia polit eta **tuntun** haietako bat maite zuen. **Joseba Sarrionandia**

Seguru nengoen neska nire atzetik etorriko zela **tuntun** baten moduan. **Anjel Lertxundi**

Ea hurrengoan belarriak garbitzen dituzun, **tuntuna**...! **Joan Mari Irigoien**

Tuntuna halakoa, zu! **Mirentxu Larrañaga**

Tamalez, **tuntuna** galanta naiz, ordea. **Mirentxu Larrañaga**

Eta ni, **tuntun** alaena, zutaz maitemindu nintzen. **Lopez de Arana**

Bazekien **tuntun** hutsa zela, esan zien, hainbeste denboraren buruan eta Big Lanniek berarekiko izan zuen jokabidea izan eta gero. **Mirentxu Larrañaga**

Eta, zuk, **tuntun** gajo horrek, beti sinetsi izan diozu, eta bera beti beste emakume horrengana itzuli izan da. **Mirentxu Larrañaga**

Tuntuna; ez duzu ikusten zure aitona naizela? **Anjel Lertxundi**

Eta ni, **tuntunaren** moduan hire zain. **Antton Olano**

Benetan, **tuntuna** ematen du. **Bernardo Atxaga**

Ez ezan egin **tuntunarena**... **Karlos Zabala**

Ikusle gisa, ez ditugu gogoko **tuntuntzat** hartzen gaituzten filmak. **Berria - Kultura**

2 (gauzei buruz)

Beti prest ni zirkora eramateko, film **tuntunetara**, su artifizialelara. **Joseba Urteaga**

Arrebak txanponak sartu zituen, banan-banan eta bozkario **tuntun** batez, Santa Anak oinetan zeukan itsulapikoaren zirrikitutik. **Anjel Lertxundi**

3 (hitz elkartuetan)

Eta zer eta **tuntun**-ipurdi hau babo arraio horrekin maitemindu behar, aizu! **Antton Olano**

Donostiako neska **tuntun**-txolin bat. **Joxean Sagatzizabal**

4 **tuntun-paela** (*orobat tuntunpaela*) *adkor* tuntuna.

Maria Luisa, latina eta grekoa ematen zizkigun **tuntun-paela** bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Argazkiak, neska bargasta bat bere ederrean erakutsi ordez, **tuntunpaela** ilehori bat ageri zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

neska tuntun (3); **tuntun hori** (3)

tuntuna izan (7); **zein tuntuna** (3)

tuntunarena egin (3)

tuntundu, tuntun(tu), tuntuntzen da/du *ad* tuntun bihurtu.

Zur-lur gelditu zen Don Kijote, zentzu gabe Santxo, harriturik lehengusua, erabat jota mirabea, **tuntundua** arrantza-jolea, nahastua bentaria, eta, azkenik, izutuak denak.

Patxi Ezkiaga

Umetan sekulako sukarrak izan nituen, eta pixka bat **tuntunduta** geratu nintzen. Txostenak behin eta berriz galtze hark, ni behinik behin, zeharo **tuntunduko** ninduen eta.

Bernardo Atxaga

Tuntuntzen hasia nago ni ere. **Bernardo Atxaga**

tuntunkeria *iz* tuntuntasun gaitzesgarria.

Emakumeek ezinezkoa bihurtzen zuten zibilizazioa, beren "xarma" harekin, beren **tuntunkeria** harekin. **Anton Garikano**

Orain, hortzik gabeko administratzaile tokadun harengan ez zeukan inongo zentzurik, gehiago ematen zuen **tuntunkeria**, nahikeria, setaren ahotsa, oinazpian zapaldu baina berriro zutitzen dena. **Anton Garikano**

tuntunpaela ik **tuntun**¹ 4.

tuntur *adlag* mukuru.

Baietz esan nion, halako irmotasunez non, nire ziurtasuna ikusita, Mattin laguna sudurra **tuntur** lotu baitzen. **Edorta Jimenez**

tupa *iz* buztinez eta kare haitzez osaturiko harria.

Lurra latza da, lurra amorragarria da, lurra beltza da, lurra **tupaz** betea dago, lurra madarikazio bat izaten da. **Koldo Izagirre**

tupiki *iz* labe garaietatik ateratzen den burdina, altzairuak baino ikazkai gehiago duen eta hauskorra dena.

Goizero, egunsentian, Uil esnatzen zuen, **tupikizko** ontzi batean pixa eginarazten zion, eta ahate zuri baten arrautza eder bat sartzen zuen hantxe. **Juan Kruz Igerabide**

tupin ik **tupina**.

tupina (orobat *tupin g.er.* eta *dupin g.er.*) **1** iz eltzea; esne marmita.

Hor ari ziren mobileten konpontzen, iturgintzarentzat burdinezko hodian bihurtzen, ileak moztzen, edarien saltzen, **tupinetan** janaria prestatzen... **Ramuntxo Etxeberri**

Domenga joan-jinka abiatu zen, jauntzien kutxatik suteagian irakiten ari zen aza zopaz beteata zen **tupinaraino**. **Elena Touyarou**

Tupin handi batean, berotasun handia denean, urak irakiten du eta une batzuetan ontzi-ertzeraino igotzen da. **Joan Mari Lekuona**

Bazelako Urbiainen baxeragile eta tupinagile bat, baxerak eta **tupinak** ez ezik lurrezko eta buztinezko bertze mila ontzi ere egiten zituena. **Joan Mari Irigoien**

Balde bat ur botatzen du **tupinara**, ilinti parea gerturatu eta errautsa astintzen du. **Itziar Otegi**

Estefaniaren **tupinaren** inguruan ginen denok, gure goporrak noiz beteko zain. **Aingeru Epaltza**

Tupinarekin gindoazen esne bila. **Edorta Agirre**

Aurkitzen ziren, horretatik behera esekita, eltze, **tupin**, padera, talo-burni, burruntzi, burruntzali, tanbolin ta kriseiluak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 irud/hed

Denak seminario ezberdinen **tupina** berdinetako saltsetarik zetozkigula. **Itxaro Borda**

Gure ametsak, eskualde anizteta tren geltoki busti edo portu zikinen kaietan hurrantzen zirenak ziren; hiri nagusia gehienontzat, gero gabeziaren **tupina** herdoildua zen. **Itxaro Borda**

3 (hitz elkartuetan)

Goizetik gauera, ur-**tupina** bat egon ohi da larazetik zintzilik. **Itziar Otegi**

Laraztean biharamuneko ur bero **tupina** dilindan zegoela. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atsoa eta tupina (6); **ur tupina** (16)

tupinagile iz tupinak egiten dituen pertsona.

Bazelako Urbiainen baxeragile eta **tupinagile** bat, baxerak eta tupinak ez ezik lurrezko eta buztinezko bertze mila ontzi ere egiten zituena eta trebetasun handia zuena bai material haiek eskuz lantzeko eta bai idurien egiteko ere. **Joan Mari Irigoien**

tupitu ik **tapitu**.

tupoka *adlag* taupadaka.

Egunero berriro hasten den bizitzaren sentimena, bizitza fresko, alai, maitasunezkoarena, ikaraz ageri zen hostoetan, **tupoka** zebilen airean, ispiluz islatzen zen uretan. **Josu Zabaleta**

tupperware iz hermetikoki ixten den ontzia, eskuarki plastikozkoa, janari prestatuak gorde edo eramateko erabiltzen dena.

Bazkaltzeko, berriz, lankide batzuekin inguruko kafetegi batera joaten da Txemi, eta Garbiñek, aldiz, etxetik ekartzen du **tupperwarea**, enpresak egokituriko sukaldetxoan berotu eta jateko. **Berria - Kultura**

Palo Altoko astrofisikariak 2001 SG506 izenaz bataiatutako objektu espazialak ez zuen asteroideen patata-itxura arrunta, diseinuzko **tupperware** ultramodernoarena baizik. **Patxi Iturritegi**

tupust 1 iz estropezua.

Lehenbiziko galbahetxo hori pasatu dutenetatik, txoke eta **tupust**, batetik bestera, desbideratuta, sakabanatuta galtzen dira batzuk. **Pello Zabala**

Tupusta horrek moteldu egiten du hedabideen eragina gizartean. **Txema Ramirez de la Piscina**

2 tupustean adlag bat-batean, ustekabean.

Tupustean jaiki nintzen, eta bat-batean itzuli, ia-ia erori bainintzen. **Josu Zabaleta**

Hainbat zientzialarik kontatu izan du nola aurkitu duen **tupustean**, gutxien ustean, aspalditik bilatzen zuen ebazpen bat. **Juan Garzia**

Mister Lewinek, **tupustean** iratzarri eta ea dagoeneko Southamptonen ginen galdetu zidan, nik hitzik esan baino lehen ere. **Joxe Austin Arrieta**

Big bang delakotik sortua dela, eta energia, infinituki trinkoa artean, **tupustean** dilatatu dela eztanda gaitz horren bitartean. **Juan Garzia**

Zirt edo zarteko kinketan errusiarrak ohi duenez, ez zen luzamendutan ibili, eta, **tupustean**, eskuinetara jo zuen aurreneko bidegurutzean. **Jose Morales**

-Nago gizaseme dezente aberatsa izango dela -esan zuen Bain jaunak, eta **tupustean** oraindira erakarri zuen Agure Jauna. **Mirentxu Larrañaga**

Zer gertatzen da? -galdetu du **tupustean**, harriturik-. **Monika Etxebarria**

Norbaitek atea ireki zuen **tupustean**. **Harkaitz Cano**

"Banoa, Ernesto", bota zion Nataliak **tupustean**. **Aritz Gorrotxategi**

Existitzen ez zen kasualitatearen bat asmatu, eta, **tupustean**, topo. **Anjel Lertxundi**

3 tupusteko izlag bat-batekoa, ustekabekoa.

Tupusteko erreakzio bat izan zen nirea, batere hausnarketarik gabea. **Anjel Lertxundi**

Zangoa lurrean pausatu eta hiru urrats gabe, **tupusteko** zalaparta batek irauli zidan bihotza: ondoko pabiloi batetik, zakur bat saingaka ari zitzaidan. **Aingeru Epaltza**

Tupusteko tristura mingots batek hartu zidan barrena. **Anjel Lertxundi**

Zugana bestelako sentimendu berriak nabaritu nituen **tupusteko** bihotz-taupadetan, arima erdiz-erdi urratzen zidatenak. **Eduardo Matauko**

Argialdi **tupusteko** horrekin batera, "eureka" ozen bat entzuten da batzuetan. **Juan Garzia**

Alkate jauna -segitu zuen esaten mezulariak, hanka sartze **tupustekoa** zuzenduz. **Felipe Juaristi**

4 (izen gisa)

Berriro erekatzen zenean, ordea, lasai pasatzen genituen minutu batzuk, hurrengo **tupustekoa**, hego-dardarizoa eta balantzaldia etorri arte, noski. **Joxe Austin Arrieta**

Agian **tupusteko** bat, errailetik irtetea, inoiz argituko ez zitzaigun nahaste bat. **Karlos Linazasoro**

Unak **tupusteko** gehiago eman nahi zidan, ordea. **Aingeru Epaltza**

Eta liburuaren izenburua irakurtzeak, **tupusteko** galanta eman zidan. **Txillardeggi**

Horrelako isilaldiak eta **tupustekoak** normalak dira edozein solasalditan. Xabier Mendiguren Elizegi

-Iritsi gara! -esan zuen Fredek, **tupusteko** txiki batekin lurra jo zutenean. Iñaki Mendiguren

5 *tupustez adlag* tupustean.

Tupustez, Kristinaren eskua nirearen gainean sumatu nuen. Aingeru Epaltza

Ez dakit zenbat denboraz jarraitu nuen bidean, **tupustez** milaka oihu berezik osaturiko harrabots zorrotz batek iratzarri nindueanean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tupustez hil zen Ben Barka, ez baitzuen nehork holakorik goaitatzen. Herria

Etixerat heltzean **tupustez** hilik gelditu da, Simon-Pierrek, **tupustez** galdatu zidan: [...]. Herria

6 *tupust antzean* bat-batean.

1960aren hasieran erabaki zuen -hogeita bost urte zituela, beraz-, **tupust** antzean baina nahiko ongi pentsatuta, bere lana uztea, mundua ikustea eta bidaiari-ontzi batean sukaldaritzan lan egitea. Xabier Olarra

Halako batean, euliak **tupust** egingo zuela bere begien edo ezpainen kontra. Unai Elorriaga

7 *tupust egin* oztopatu, behaztopatu; bat-batean topo egin.

Eta beti **egiten** dugu **tupust** arazo bertsuarekin. Andoni Egaña

Egun horretan, lehoiagandik ihesi ibili eta hartzarekin **tupust eginen** duen gizonaren antzeko izango zarete. Elizen arteko biblia

Mikel Strogoff kontuz zebilen, bada, inorekin **tupust** ez **egiteko**. Karlos Zabala

Zeharbidetuz luzeagoak hautatuko zituztela aurrerantzean haien ezte argazkiarekin, **tupust** ez **egitearren**. Harkaitz Cano

Taldea egiterakoan, behin baino gehiagotan **egin** du klubak harri berarekin **tupust**. Berria - Kirola

Hain kezkatuak zegoen artean ere, non ate ondoan zegoen norbaiten kontra **tupust egin** baitzuen. Iñaki Mendiguren

8 *tupust egite* oztopatzea, behaztopatzea; bat-batean topo egitea.

Ukaldiitsu bat besterik ez zen izan lurrera-behar hura niretzat, ahozpeko **tupust egite** bat konorte-galerarantz. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kontra tupust egin (5); **tupust egin** (28); **tupust egin ondoren** (5); **tupust egin zuen** (4); **tupust egiteko** (3); **tupust egiten** (8)

egin zen tupustean (4); **egin zuen tupustean** (3); **tupustean etorri** (4); **tupustean gogoratu** (3); **tupustean jiratu** (4); **tupustean zabaldu** (3)

tupustez hilik gelditu (3)

tupustaka *adlag* tupust egiten.

Haize-zurrunbiloren bat edo beste, mendi-aurrealdeetan normala denez, tenperatura ere normala, hain normala dena ezen gure hegazkina **tupustaka** eta ziraldoka hasten baitzen, berriro orekatu eta gorantz segitzen zuen arte. Joxe Austin Arrieta

tupustaldi *iz* tupust egitea.

Berriro orekatu eta, tira, goraka jarraitzen genuen, dena behin betiko konponduta zegoela iruditu ere bai, eta gero berriro beste **tupustaldi** bat... haize-zurrunbiloen artean ohi denez. Joxe Austin Arrieta

Lehenbiziko **tupustaldiaren** ondoren, pentsamendu-ohituren aurkako borroka gogor bat hasten da. Juan Garzia

Tupustean -eta laudatuak bira gure **tupustaldiok**: aitor dezagun zenbaitetan ederki zaigula begiramen eza baliatzen asmo burutsuek kale egiten diguten lekuan. Juan Garzia

turanian *iz* Asia erdialdeko herri turkiarretako kidea.

Turanian eta iparrekotako ariarrak, berriz, izadia den bezala ikusten ahalegindu ziren. Josu Zabaleta

turba *iz* zohikatza.

Mende oso batez **turba** gainean egondako gizon gazte baten gorpua bezala. Anton Garikano

turban (*orobat turbano*) *iz* turbantea.

Batzuetan Martinari eskatzekotan nintzen garbiketa orokorra egin zezala etxean, gure amarenean egiten ikusten nuen bezala, Natalinak, **turban** bat piraten modura buruan zeukala, altzariak hankaz gora jarri eta mustukaz astintzen baitzituen. Fernando Rey

Bost izarreko hotelen sartzetean **turbano** handia daukaten Zik indiar gudariak. Ramuntxo Etxeberri

Tulipa hitza turkiarren hizkuntzatik omen dator, *dulband* hitzetik, hain zuzen, zeinak esan nahi baitu turbante edo **turbana**. J.M. Olaizola "Txiliku"

turbano ik turban.

turbante (*24 agerraldi, 14 liburu eta 2 artikulutan; orobat durbante 57 agerraldi, 16 liburu eta 5 artikulutan*) *iz* gizonezkoen buruko, berez ekialdekoa, buru inguruan biltzen den telazko zerrenda luze batek osatua.

Cromwell kristau suitsuak **turbante** bat du, edozein turko paganok bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Durbantea zeraman buruan, eta ia aurpegi osoa estaltzen zion oihala. Xabier Aranburu

"Hemen mairuak sartu ziren, beren **turbante** zuriekin" esan zuen. Ramon Saizarbitoria

Ama zeukan aldamenean, Ekialdeko **turbante** lumadun bat arrandiro kulunkatzen zitzaiola buru gainean. Jose Morales

Burdinazko txilista-xaftaxto distiratsuz apaindutako jaka du eta zetazko **turbantea**. Gotzon Garate

Ekitaldia bukatutakoan Sha Nadir bere gelara erretiratu zen, eta esku dardartiz Mogol Handiaren **turbantea** askatu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Persiako gerlariak esan zion menderatutako mogolari ohikoa zela **turbanteak** trukatzeko bi herrien arteko adiskidetasuna eta elkartasuna betiko zirela adierazteko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Blusa buru inguruan **turbante** gisa bilduta. Joxe Austin Arrieta

Gehienak buruhas ibili arren, askok burua **turbantez** edo oihal gorritz edo zuriz biltzen du, sikhek batez ere. Gotzon Garate

turbantedun (orobat *durbantedun*) izond/iz turbantea daramana.

Esku baten tamainako eremu txiki-txiki batean, lehoi bat, elefante bat eta azal iluneko gizon **turbantedun** bat zerbait zaintzen daude, lasai eta bakean. Izerditan dago, eta bertan biluziko litzateke, baina zuhur jokatu beharra dauka, zerbizari **turbantedunak** ez dio begirik kentzen. **Xabier Olarra**

Eta hau pentsatzeaz batera zerbizarien artean dabilen **turbantedunari** erreparatu dio berriro ere. **Patxi Iturritegi**

Turbantedun bizartsu bat otoitzak, kantuak eta berbaldiak tartekatuz, goxo-goxo. **Jon Arretxe**

turbiditiko *izond* itsaspeko ezponda baten oinean jalkitzen diren ekaiei dagokiena.

Flysch **turbiditiko** horma nagusiaren azpian, flysch **turbiditiko** bigarren hormaren azpian, eta flysch **turbiditiko** bi hormen inguruan. **Eduarne Elizondo**

Batez ere bi hormak flysch **turbiditikoaren** gainean daudelako. **Eduarne Elizondo**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
flysch turbiditiko (4)

turbina 1 *iz* uraren, lurrunaren edo gas baten indarrez biratzen den gurpil paladun batek osatzen duen motorra.

Gizartea sorgailuen, motor elektriko eta **turbinen** mendean, errektore atomikoen eta errektzio termonuklearen mendean sartu da. **Felipe Juaristi**

Hegazkinen motorraren antzekoa da **turbina** horren funtzionamendua: konpresore batek airea xurgatzen du, goi presioan trinkotu eta erregaiarekin nahastu egiten du. **Berria - Euskal Herria**

Gas hori da **turbinaren** ardatzari eragingo diona. **Berria - Euskal Herria**

Zentralak berreskuratu egingo du **turbinek** airean askatzen duten gasa, galdara handi batean sartuz. **Berria - Euskal Herria**

50.000 **turbina** eoliko jarrita, 720.000 milioi kilowatt argindar sortzea legokeela dio Greenpeace erakundeak. **Berria - Gaiak**

Esnea **turbina** hormadun batean pasatzean hoztua arribatzen da untzirat. **Herria**

Turbina bertikalak eta pala kurbadunak erabili nahi dituzte. **Berria - Gaiak**

Baporezko **turbina** baliatzen du ziklo batek, eta gasezkoa besteak. **Berria - Euskal Herria**

Motorraren behe presioko **turbina**. **Berria - Harian**

Gure **turbinak** oraindik ez baitzeuden muntaiarako prest. **Joxe Austin Arrieta**

Ziklo konbinatuko zentralak gas naturala erabiltzen du eta elektrizitatea sortzen du bi **turbina** erabilita. **Berria - Harian**

Pistan hegazkin baten **turbina** piztu denean. **Joseba Sarrionandia**

Berak badu soluzioa: Pelton **turbina**! **Pablo Sastre**

2 (hitz elkartuetan)

Turbina gelara lurrina eramaten zuten hodiak ugerrak janda zeudela eta hirugarren errektorea lanean jarri zutenetik ez zutela ikuskapen lanik egin. **Berria - Gaiak**

Hirugarren errektoreko **turbina** gelan gertatu zen ezbeharra. **Berria - Gaiak**

Boroako zentralak oinarrian gas **turbina** bi erabiliko ditu indarra sortzeko. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
turbina gelako (3); **turbina gelara** (3)

turbo *iz* turbokonpresorea.

Katalunian **turborik** gabe geratu zen Gronholm eta garaipena lehiatzeko ia aukerarik gabe geratu zen. **Berria - Kirola**

S3ak, **turboaz** aparte, berrehun eta hamar zaldi dauzka, pentsa! **Jon Arretxe**

Garai hartan geure egoera pertsonala nolakoa zen zehazteko eginahalari datu objektiboen fidagarritasuna gaineratzen zaio, hala nola artean telebista zuri-beltzean zela diotenak, adibidez, edota **turboa** ondorengoa dela eta ezin zitekeela halako autorik egon. **Pako Aristi**

turbot *iz* itsas arrain hezurduna, zapala eta ia biribila, kolorez arrea, sukaldaritzan guztiz ontzat hartua(*Scophthalmus maximus*). ik **erreboilo**¹.

Lengoradu pare bat nahi dun, **turbot** eder bat? **Karlos Zabala**

Turbot handia, erreboilo handia, biak pikortsuak eta esne gatzatua bezain zuriak. **Karlos Zabala**

turbulentzia 1 *iz* jariakin baten higidura zirimolatsua; horren ondoriozko egoera.

Egitura horien gainazal gogorrak hautsi egiten du airekorrontea, eta horrek sortzen duen **turbulentziak** airea nahasten du. **Irene Aldasoro**

Hegazkinen **turbulentzien** moduko baten lekuko gara; ia nahitaezkoak dira halakoak, konponbiderantz goazenean. **Berria - Euskal Herria**

2 nahasmendua, asaldura.

Hegaldi merkeen konpainien lehiarekin batera, horietan ditu bi **turbulentzia** iturri nagusiak. **Berria - Ekonomia**

turbustu, turbutu/turbustu, turbusten 1 du *ad* uhertu, arretu.

Kontserbatzaileentzat herria berez erlijioso, erregezale, etc., etc. da, ur bare gardena, haren izpiritua "besteak" **turbusten** du. **Joxe Azurmendi**

2 irud/hed

Lehenik, beronen aita hila; hurrena, zure semea joana, bere eskutiko lazkeriak berak erbestarazia hemendik; populua **turbustua**, larritu eta gaizkitua susmoz eta zurrumurruz, Polonio gaixoaren heriotzaz. **Juan Garzia**

turindar *izlag/iz* Turingoa, Turini dagokiona; Turineko biztanlea.

Gauza guztiz ere jakina da Milanera landaldaturiko **turindarrak** ez direla han sustraitzen, edo gaizki sustraitzen direla. **Juan Garzia**

Zain dago Turin eta zain daude **turindarrak**. **Berria - Harian**

turingiar *izlag/iz* Turingiakoa, Turingiari dagokiona; Turingiako herritarra.

Alemanen, bavariarren, **turingiarren**, frisiarren, saxoniarren, lonbardiarren eta burgundiarren legeak erriparioen molde beraren gainean egin ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Badirudi **turingiarren** kodea Teodorikok berak eman zuela, **turingiarrak** ere mendeko baitzuten. **Iñaki Iñurrieta**

Turingiarren legearen arabera, adulterioz salatutako emakume bat ez zuten ur irakinaren frogara kondenatzen, salbu eta haren defendatzailek aurkezten ez bazen. **Iñaki Iñurrieta**

turingio *izond* turingiarra.

VIII. mendeko eskutitz **turingio** batean. **Isabel Arrigain**

turisma ik turismo.

turismaburu ik turismoburu.

turismo *(orobat turisma g.er. eta turismo g.er.)* 1 *iz* atsegin hartzeko bidaiatzea; atsegin hartzeko bidaldien inguruko jardueren multzoa.

Espanian zehar **turismo** egitera etorria. **Iban Zaldúa**

Turismoa egin nahi duenak, Italian baditu Torino baino lehenagoko mila aukera. **Anjel Lertxundi**

Turkiara, astebeteko **turismoa** egitera. **Juan Kruz Igerabide**

Turismoa gutxitu eta ingurumena hondatuko dela ere azpimarratu du elkarsteak. **Berria - Euskal Herria**

Turismoa suspertzeko kanpainaren bat izango da. **Pako Aristi**

Alde Zaharrak **turismoa** eta merkataritza bultzatzeko dituen ahalmenak. **Berria - Euskal Herria**

Gatazkak milaka hildako eta 150.000 errefuxiatu eragin ditu eta **turismoa** uxatu du. **Berria - Mundua**

Turismoa edo espekulazioa sortzea eskatzen zaio arteari. **Berria - Kultura**

Hiriaren **turismo** eta ekonomiarako ona izango da horiek denak etortzea eta, bestalde. **Felipe Juaristi**

Turismoak indar handia dauka Garaziko eta Baigorriko kantonamenduetan, bereziki ostalaritza eta laborantzan, salmenta zuzenarekin adibidez. **Berria - Euskal Herria**

Laborantzak galtzen duena **turismoak** bereganatzen du bainan hotel horiek ez dira edonorentzat eginak. **Herría**

Turismoak gaitu salbatzen, horrek esplikatzeko du dinamika. **Berria - Euskal Herria**

Turismoaren alorrean, naturguneen kalitatearen hobetzean ezarriko dituzte indarrak. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Argi dago hiriko turismoa, eta **turismo** kulturala Gasteizen, Donostian eta Bilbon biltzen dela. **Iñigo Aranbarri**

Turismo sexuala asko hedatua baita. **Ramuntxo Etxeberri**

Adituen arabera, hori guztia ekoturismoaren edo **turismo** ekologikoaren ondorioa da. **Berria - Gaiak**

Goi mailako gastronomia eta elikagai landatarrak vs. elikadura industrializatua, neurri handi batean, bertoko **"turismo** berdeak" bultzatuta. **Edorta Agirre**

Ezin gogoratu nituzke dispersioa hasi zenetik Joxeanek ezagutu zituen kartzela guztiak, eta ondorioz guk derrigorrez egin behar izan genuen espetxe bideetako **turismo** iberikoa. **Jokin Urain**

Barruko **turismotik** bizi diren herri ederretatik pasatu naiz egunotan: Xile, Akçakoca, Amasra, Sinop... **Jon Arretxe**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik turistiko.

Turismo esperientzia berezi bat bizitzeko parada eskaintzen dizuet! **Ramuntxo Etxeberri**

Munduko **turismo** jarduera %12 hazi da abuztura bitartean. **Berria - Ekonomia**

Aski tiki eta lasaia omen duzu. **turismo** azpiegitura erraldoirik gabe. **Jose Angel Irigaray**

Turismo azpi eta gain egiturak. **Itxaro Borda**

Turismo -bulegoan ezagutu dut. **Jon Arretxe**

Turismo bulegoko liburuxketan Mundakako argazkia topatu du norbaitek. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Turismo sailean lanean ari direnentzat. **Herría**

Turismo enpresa batek eginahal berezia egin du postalgintza berritzeko. **Pako Aristi**

Guy Poulou auzapeza eta Yves Duhalde, hau **turismo** -elkartearen buru dena. **Herría**

Turismo gidetan ere agertzen da. **Txillardegí**

Turismo prospektuak, hiri planoak, posta-txartelak, bisitarako gida-liburuxkak. **Joxan Elozegi**

Turismo iragarki zaharrak, modaz kanpoko aldizkariak, telefono zenbaki zaharkituak. **Joxan Elozegi**

Hango inguruen **turismo** -balioen propaganda egin dezaten. **Edorta Jimenez**

Turismo arduradunei, ostalariei, hoteletako arduradunei eta zezen-plaza eta Arriaga antzokiko kudeatzaileei galdetu die. **Berria - Euskal Herria**

Berriz ere **Turismo** ikasketei helteak ez zuen erakartzen ez gehiegi ez gutxiegi. **Joxemari Iturralde**

Euren esku dauzkate [sukaldariak] telebista eta irrati programak, egunkarietako gehigarriak, kofradien izendapenak, **turismo** sariak eta argazkiz betetako luxuzko liburu dotoreak. **Pako Aristi**

Munduko **Turismo** Autoen Txapelketan ere parte hartu nahi du. **Berria - Kirola**

Ellenek lastozko kapelarekiko mutil gazte baten begi beltzei so egin zien, zeinak, ia-ia espaloia ukitzu, Stutz **turismo** -kotxe gorri bat gidatzen baitzuen. **Lopez de Arana**

Israelgo **Turismo** ministro ohi Rehavam Zeevi hiltzea leporatzen diote Saadati. **Berria - Mundua**

Departamenduko **turismo** komitean. **Herría**

Duela guti erreberitu da "Gites de France" saileko **turismo** erakundea. **Herría**

Departamenduko **turismo** zerbitzuekin eskuz-esku. **Herría**

Eusko Jaurilaritzaren Industria, Merkataritza eta **Turismo** Sailak atzo prentsa oharrez jakinarazi zuenez. **Berria - Ekonomia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sexu **turismoa** eta haurrak baliatuz egiten den pornografia zigortzeko neurriak. **Berria - Euskal Herria**

Baikor gaude datu horiekin, baina era berean natur **turismoaren** inguruan ahalegin handiagoa egin behar dugu. **Berria - Euskal Herria**

Igoera nabarmenena landa **turismoak** izan du, %8 gehitu baita turismo mota hori aukeratu duten bisitarien kopurua. **Berria - Euskal Herria**

Horrez gain, «espetxe **turismoa**» ere salatu du. **Berria - Euskal Herria**

5 turismo karrera.

Lucinda Bereziortua **Turismo** ari zen ikasten hirian jesuitek zeukaten unibertsitatean. **Joxemari Iturralde**

Kirola baztertu eta ikasten eta ikasten hasi nintzen (**Turismoan** lizentziatuta dago). **Berria - Kirola**

6 turismo autoa.

Turismo gorri txiki bat. **Anjel Lertxundi**

Azkenean, 1.528.849 **turismo** matrikulatu ziren, duela urtebete Luis Valero Anfaceko presidentek iragarritako 1,45 milioiak baino dezente gehiago. **Berria - Ekonomia**

Turismo partikularren salmenta gutxi jaitsi da Hego Euskal Herrian. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estherren turismo sexuala (3); hendaiaiko turismo bulegoan (3); herriko turismo bulegoak (3); informazio eta turismo (3); israelgo turismo ministro (5); kanboko turismo bulegoan (4); kultur eta turismo (8); kultura eta turismo (20); merkataritza eta turismo (34); nazioarteko turismo (3); sarako turismo bulegoak (6)

turismo autoen txapelketan (4); turismo batzordeak (3); turismo bulego (22); turismo bulegoa (35); turismo bulegoa kudeatzen (3); turismo bulegoak (56); turismo bulegoak antolatutik (6); turismo bulegoan (55); turismo bulegoekin (3); turismo bulegoaren (23); turismo bulegoaren laguntzarekin (3); turismo bulegoek (4); turismo bulegoen (4); turismo bulegoetan (4); turismo bulegoko (15); turismo bulegora (6); turismo bulegorat (3); turismo egitera (3); turismo ekintzetxea (3); turismo ekintzetxeak (4); turismo ekintzetxearen (3); turismo eta merkataritza (7); turismo gune (7); turismo gune bat (3); turismo kontseilariak (3); turismo kulturala (4); turismo ministro (10); turismo ministro ohi (4); turismo ministroa (4); turismo pastoralaren (3); turismo sailak (11); turismo sailaren (3); turismo sailburu (8); turismo sailburua (5); turismo sailburuak (9); turismo sailean (3); turismo saileko (8); turismo sexuala (22); turismo sexualak (3); turismo sexualaren (6)

merkataritza eta turismoa (3); turismoa egiteko (5); turismoa egiten (4); turismoa erakartzeko (3); turismoa sustatzea (3)

turismoaren alde (3); turismoaren beharra (4); turismoaren gatik (3); turismoaren sail (3); turismoaren saila (3); turismoaren sailean (6)

turismoaz arduratzen (4)

landa turismoko (3)

turismotik bizi (3)

turismobide iz turismoko bidea.

Badatozkigu filologoak, euskalari doktoreak, kaleko mendizaleak, huri zikinetao ekologistak, biologo jakitunak... beren izen zerrenda perfektuak, mapa esaktoak, alternatiba berriak eta **turismobide** segurua eskuan ditzutela. **Patziku Perurena**

turismoburu (*corpusean turismaburu bakarrik*) iz

Henri Lauque **turismaburua**. Jean Pierre Ithurbide Eusko Jaurilarizaren Garapen Agentziakoa, André Garreta lantegiburua. **Herria**

turismogune (*orobat turismo gune*) iz turismorako gunea.

Poli-miliek Espainiako **turismoguneetan** jarritako lehergailuak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ondotik, berrehun bat joan dira Uharte Garazirat, han eraiki **turismogune** berrirat. **Herria**

Turismo guneetako hotel eta tabernetan promozionatzen duten 'Happy hour' edo 'ordu zoriontsua'ren ondoan [...] bizitzaren nekeak eta gure indarren ahalak 'Ordu txepela' dakarkigu maiz. **Pako Aristi**

Nolanahi ere, udako **turismoguneak** gorrotatzen ditut. **Lopez de Arana**

Hiritik sei kilometrora dagoen Yera herrixkan gora egin ostean, han aurkitzen zen kostalde-**turismo gune** isil eta bakartia **Aritz Gorrotxategi**

turismokeria iz

Lur eta egoitza espekulazioari geldione bat eman genion, **turismokeria** gibelarazi, egundo zutik dirauten hainbat tresna eraiki genuen... **Berria - Euskal Herria**

turismoleku iz turismogunea.

Espainia **turismoleku** arraro bezala ezagutua da. **Herria**

turista 1 iz turismoa egiten ari den pertsona.

Pozik zegoelako **turista** batekin ligatu edo dena delakoa egin izanaz, bazkaltzera eta afaltzera gonbidatzen zuen **turista** batekin gainera. **Jon Muñoz**

Zertara joaten da osaba Miarriztera?, Parisko **turista** andreekin dantza egitera? **Bernardo Atxaga**

Thailandian, 500.000 **turista** joan ziren 2002. urtean, sexu merke bila. **Berria - Gaiak**

Duomoa eta edozein **turistak** ikusten dituen gainerako monumentu eta arte lanak ikusi genituen geuk ere. **Xabier Montoia**

Turistak autobusetatik jaisten dira, iturriko urretatik edatera. **Javi Cillero**

Ez dabil ia **turistarik** kale bihurrietan gora. **Anjel Lertxundi**

Kyototik gertu, esaterako, 37 **turista** erreskatatu zituzten. **Berria - Mundua**

-Neska-mutil asko **turisten** atzetik ibiltzen dira, haien gidari izateko, eskupeko baten bila, baina baita ere haiekin hitz egiteko, besterik gabe. **Jon Muñoz**

Gin Galactic konpainiaren lehenengo urteetan 3.000 **turista** espaziora eramatea da helburua. **Berria - Gaiak**

Turistak ematen dugu. **Edorta Jimenez**

Begiak haruntz eta honuntz, **turisten** gisa, baina "bertako" turista gisa! **Iñaki Segurola**

Turisten begiek ez dakite ikusten. **Hasier Etxeberria**

Ainitz etortzen dira **turista** gisa eta gero gelditzen lan baten menturan. **Herria**

Hiria **turistez** mukuru zegoen. **Edorta Jimenez**

Turista bezala bizi dugu euskal kultura; frantsesa dugu egunorokoa. **Berria - Kultura**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ni ez bainintzen trenera **turista** arrunt gisa etorri, gerora horretan amaitzeko perilean izan banaiz ere. **Edorta Jimenez**

Pentsatzen nuen deserosoa zela edonorentzat leku arrotzean **turista** bakartiaren moduan ibiltzea. **Bernardo Atxaga**

Hala pentsatu du **turista** kulturazaleak, piramideetara egin berri duen bisitaldi gidatuan entzundako argibideak gogoan. **Joxerra Garzia**

Sekretua ez da hiriarri darion tristura nostalgikoa, hori **turista** itsuenak ere nabarmendu behar luke. **Anjel Lertxundi**

Turista eta erretiratu dirudun ingeles askok bertan etxeak erosten dituzte, bertako paisaiak eta giroak erakarritak. **Berria - Mundua**

Aski bailitzateke emakumezko **turista** despitatu bakar bat Azpilgo elizan bere gona motzekin sartzea, guztia hankaz gora jartzeko... **Joan Mari Irigoien**

Moda-modako bazterren bila dabilen ohiko **turista** bat. **Anjel Lertxundi**

Japoniar **turista** batzuek bostekoa luzatu zioten. **Jon Muñoz**

Arabiar **turistak** kaleetan zehar zebiltzan, beren jantziekin, eta mesprezuz begiratzen ziguten. **Juan Kruz Igerabide**

Zeru bideetako **turista** interkontinentalak. **Ramuntxo Etxeberri**

Ez zara jakitunarena egiten duen **turista** berripozarin horietako bat ere **Turista** aluke agur egiten zieten zubien gainetik listua botatzen zieten paristar langabetuei. **Anjel Lertxundi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bidean euria berriro, ozta-ozta ukan dut ibaian gora-behera dabiltzan **turista** -ontzi horietako batean aterpetzeko astia. **Edorta Jimenez**

Ze txikiak diren **turista** klaseko jesarlekuak! **Patxi Iturritegi**

Inguruan pilatzen hasia zitzaion **turista** -saldo harekin. **Jon Muñoz**

Palomita-zorro bat erosi du **turista** -bikoteak, binakako bakardadearen entretenigarri. **Joxerra Garzia**

Pozik **turista** multzo hartako beste kide anonimo bat izateagatik. **Josetxo Azkona**

Turista sindromea' oxigeno mailarekin eta airearen presio baxuarekin lotu dute. **Berria - Gaiak**

Ohituta nongoen ni elizatzarra **turista** begiekin ikustera. **Hasier Etxeberria**

Atobusean zihoazen gehienek **turista** uniformeak jantzia zuten (fraka motzak eta haien bidaiek orotarazten zituzten elastikoak: Egiptoko piramideak, Pariseko Eiffel Dorrea, Euskal Herriko "Nafarroa Oinez" ikurriña eta guzti...). **Patxi Zubizarreta**

Moskuko animalien merkatuan egotea **turista** -gidoitik aldentzea izan zen. **Edorta Jimenez**

Han ere, **turista** -guneak dira gehienak edota bestela, El Prado bezalako almazen dotoreak. **Hasier Etxeberria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Turista aleman talde oso bat hantxe zegoen multzoturik. **Joxe Austin Arrieta**

Turista ile-hori bikote bat metro-sarrerari begira. **Jon Muñoz**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

600 milioi sexu **turista** , hiru milioi pederasta. **Berria - Gaiak**

6 (izenondo gisa)

Ezin **turistago** , ba. **Edorta Jimenez**

7 (adizlagun gisa)

XX. mendeko errusiar abangoardietako lanen afitzak eskuratu nahi nituzke, orain **turista** ibili arren trenera idazle, sortzaile beraz, etorri bainintzen. Bi pisuko autobus batean **turista** ibiltzea. **Edorta Jimenez**

Horrela, errazena da gure moduan **turista** etorri direnekin behin eta berriro kale berberetan topatzea. **Edorta Jimenez**

Inoren atzetik ibiltzeko ere ez nago eta, **turista** noa. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

turista hil (3); **turista klasean** (3); **turista kopuruak** (3); **turista talde** (4)

turistak erakartzeko (5)

turisten kopurua (3)

turistiko iz turismoarena, turismoari dagokiona. ik turismo 3.

Kostaldea gune **turistiko** garrantzitsua da, eta jenderik gehien biltzen duen uneetan ere jendeari ura bermatu behar diogu. **Berria - Euskal Herria**

Ipuineko protagonistak hiri **turistiko** bat du helmuga. **Iban Zaldúa**

Sekula egon gabea nintzen leku erabat **turistiko** batean. **Bernardo Atxaga**

Euskal Herria garrantzia handiko lurralde **turistiko** bat da. **Herria**

Gida **turistikoaren** maparen arabera, pilotalekua portutik arras hurbil zegoen. **Ramuntxo Etxeberri**

Eskuetan zeukan mapa **turistikoaren** orrialde guzietan errepikatzen zen Hong Kong hiriaren turismo bulegoaren lema: [...]. **Ramuntxo Etxeberri**

Han jarraitzen zuten ekinean motorista frantses eta italiarrek, hantxe foileto **turistikoen** banatzaileek. **Bernardo Atxaga**

Gabonetako oporraldiaren amaierak pakete **turistikoen** salneurriak jaitea ere ekarri zuen. **Berria - Ekonomia**

Bidaia **turistikoak** egiten dituztela tropikoetara. **Pako Aristi**

Bostongo ibilbide **turistiko** -historikoa oso modu errazean egin daiteke. **Patxi Zubizarreta**

Haien atzean, limusinak, turismoak, ibilaldi **turistikoetarako** autoak eta sedanak herrestan zebiltzan. **Lopez de Arana**

Ingurumenarekin bateragarria den garapen **turistiko** eta ekonomiko bat sortzeko alternatiba. **Berria - Mundua**

Interes bakarra ludikoa zuten, edo **turistikoa** , nola begiratzen den. **Patxi Iturritegi**

Pasarte hura ez zen 100 metrotik hartua, eta ez zuen hasierako testuen tonu pastel **turistikoaren** antzik ere batere. **Iñaki Iñurrieta**

Turistikoagooa da hau, baina ez dago guztiz gaizki. **Harkaitz Cano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gida turistiko (4); **gune turistiko** (3); **hiri turistiko** (3); **proiektu turistiko** (3)

bidaia turistikoak (3); **gune turistikoak** (3)

hiri turistikoan (3)

espainiako interes turistikoen (6); **gune turistikoen** (4); **interes turistikoen aurka** (5)gune turistikoetan (3)

gune turistikoetan (3)

turistikoki adlag turismoaren aldetik.

Irinbeltzaga **turistikoki** sona hartzen, eta asteburuetan, bai turismo haren deira, bai inguruko herri txikietatik giro jendetsuago baten itxaropenera, ipurdiraino beteta egoten zen urteak ziren. **Pako Aristi**

turkesa 1 iz harribitxi urdin argia, gogorra, aluminio eta kobre fosfatoz osatua.

Perlez, **turkesez** eta kornalinez nahasitako zintzilikario aberatsak txirikorda luzeen muturretan dar-dar. **Karlos Zabala**

Hainbeste bitxi zeuzkan, hainbeste urrezko txanpon, zilarrezko harian sartuak, hainbeste katea tiki, **turkesez** eginak [...] ezen haren blusa eta gona harribitxiz ehunduak zeudela zirudien. **Karlos Zabala**

Hamalau koroa zeuden bertan, eta koralrezko katea, baita **turkesazko** eratzun bi ere. **Anton Garikano**

Turkesaz egindako lepokoak gustatzen zitzaizkion, eta belarritako luzeak. **Koro Navarro**

Ongi baldin badago berau jantziko dut zilar eta **turkesazko** orratzarekin, itsas zaldi formakoa. **Xabier Paya**

2 turkesaren kolore urdina.

Turkesatik zafiroyarainoko urdinaren ñabardura guztiak dauzka zeruak. **Koldo Izagirre**

3 (izenondo gisa)

Azal **turkesa** duen [koaderno] hauxe hautatu dut. Patxi Zubizarreta

Ile horia dir-dir zuela urrez apaindutako kapela **turkesa** ondo jarriaren azpian. Iñaki Mendiguren

Eraikinaren ingurua zero **turkesak** betetzen du. Xabier Paya

Gero, beste hanka-pare bat ikusi zuen kolore **turkesa** biziko takoi altuekin, eta emakumezko ahots bat entzun zuen. Iñaki Mendiguren

Zeru garbi hodeirik gabea, Guadarrama urdin **turkesa** baten parekoa. Josu Zabaleta

Crisocola, urdin **turkesa** koloreko harria, Perun oso ugaria dela. Berria - Kultura

4 **turkesa-kolore** izond

Hartu izanaren agiriak sinatu behar nituen nik, eta haiek zigilu **turkesa-kolorea** jartzen zieten gainean. Fernando Rey

Sei petaloko lorea zuen zigilu **turkesa-kolorearekin** apaindutako lehenbiziko gutunazal hartan. Fernando Rey

Aurpegi bat lauki moduan jaisten zena, lepo korbatadun baten gainean, eta gero behean jaka **turkesa-kolore** bat. Fernando Rey

Dotorea, **turkesa-kolorea** edo, betiere hozkailuak ahaztu gabe. Fernando Rey

5 **turkesa-koloreko** izlag

Turkesa koloreko blusaren goiko botoi askatuaren azpi-azpian agerian zeukan haragi eremu txiki haren parean. Oskar Arana

Gilderoy Lockhart, ordea, ezin garbiago zegoen **turkesa-koloreko** jantzi dotoreekin. Iñaki Mendiguren

Turkesa-koloreko auto zahar baten atzeko leihotik. Iñaki Mendiguren

Kristaletan, hodeiak **turkesa-koloreko** itsas gainean iheska. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

turkesa koloreko (8)

turkesadun *izond* turkesa edo turkesak dituena.

Belarritako **turkesadunak** zeramatzan belarrietan, gurutze txiki bat lepoan, eta belus urdineko begizta bat adats ondo-ondo orraztuan. Karlos Zabala

turkiar 1 *izlag* Turkiakoa, Turkiari dagokiona.

Urak **turkiar** piratez josita baitzeuden. Felipe Juaristi

Niri, bitxia eman badezake ere, bizkitartean, Antje eta **turkiar** inbasorea etorri zitzaizkidan burura. Fernando Rey

Turkiar mutil dantzari batekin alde egin zuen neska dantzariak. Jon Muñoz

1999an Ócalan buruzagi kurduak atxilotu zuten **turkiar** komandoek Nairobin. Jon Arretxe

Errusia saiatu zen erabaterako eragina zertzen Serbiaren gain, hau onik atera berria zuelarik **turkiar** armaden eskuetan jasan zezakeen desegogitik. Iñaki Mendiguren

Kamioia alemana bai, baina lo hartu zuen gidaria **turkiar** jatorrikoa zela abisatu ziguten prentsatik. Iñigo Aranbarri

Brighton-eko akuario hain izen onekotik ez urruti zegoen etxe bat, **turkiar** bainuak eskaintzen zituen. Juan Garzia

Turkiar banderatxo gorriak eskuan... Jon Arretxe

Lurrera bota ninduen **turkiar** armairu puska lotsagabe aprobetxategi hark. Fernando Rey

Nola edo hala, Klausenhof Akademie delako ikastetxean matrikulatzea lortu nuen, etorkin **turkiarrentzako** ikastaro batean. Joxerra Garzia

Beste idazle **turkiar** baten olerkiak irakurri ditut, Turgai Fisekirenak. Edorta Jimenez

Testuinguru horretan sortu zen Kemal, nekazari familia batean, ama kurduaren eta aita **turkiararren** seme. Fernando Rey

1971n, gorbenu **turkiar** militarrek berriz kondenatu zuen PTTn zuen konpromisoagatik. sei penikeko koñak bat edanez edo zigarro **turkiar** bat erreaz. Fernando Rey

Tabako **turkiararren** usain gozo-mikatza egin zen gelaren jabe. Anjel Lertxundi

2 *iz* Turkiako herritarra.

Kaukaso inguruan gaude eta eskualdeotan herri nahasketa handia dago: **turkiarrez** gain, georgiarrak, azeriarrak, kurduak, armeniarrek... Jon Arretxe

Inork ez daki zenbat **turkiar** bizi diren hemen. Edorta Jimenez

Eder-uste Ispahan antzinako Pertiako hiri bat zen, **turkiarrek** hamaikagarren mendean fundatua. Xabier Olarra

Uda partean hirietako **turkiarrez** gainezka egoten omen dira Itsaso Beltzeko hondartzak. Jon Arretxe

Josif Stalinnek 160.000 **turkiar** meskhetiar deportatu zituen Georgiatik Uzbekistanera. *Tulpa* hitza **turkiarren** hizkuntzatik omen dator, *dulband* hitzetik. Berria - Harian

Ekaitzak bete-betean harrapatu du 15 **turkiar** eta 15 kristau doazen itsasontzia. Jon Muñoz

Islamera konbertitu ziren **turkiar** barbaroak ez ziren arerio antipatikoak garai hartako kristau-zaldunentzat. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kamioilari turkiar (4); **langile turkiar** (4); **soldadu turkiar** (10); **soldadu turkiar bat** (4); **soldadu turkiar hil** (3)

turkiar bat hil (6); **turkiar bizi** (3); **turkiar hil** (6); **turkiar zipretar** (3); **turkiar zipretarrak** (7); **turkiar zipretarrei** (3); **turkiar zipretarrek** (4); **turkiar zipretarren** (10)

errepublika turkiarra (12); **errepublika turkiarra aldarrikatu** (3); **iparraldeko errepublika turkiarra** (5); **kamioilari turkiarra** (3); **printze turkiarra** (3); **zipreko errepublika turkiarra** (5)

aurrelari turkiarrak (4); **polizia turkiarrak** (3); **talde turkiarrak** (3)

errepublika turkiarreko presidente (3); **jatorri turkiarreko** (4); **zipreko errepublika turkiarreko** (9)

turkiarren menpeko (3); **zipretar turkiarren** (4)

turkiartasun *iz* turkiarra denaren nolakotasuna.

«**Turkiartasunari** irain egitea» egotzita, bost kazetari epaitzen hasi ziren atzo. Berria - Mundua

turkiera *iz* Turkiako hizkuntza ofiziala.

Konturen bat edo besteri buruz jarduten zuen, ingelesa eta **turkiera** nahastuz. Jon Arretxe

Turkieraz ez zekien hiriko goi kargu bakarra zen. Berria - Mundua

Eskoletan **turkiera** eta kurduera irakatsi behar dituzte. Berria - Mundua

Turkieraz mintzo ziren beste herri musulman batzuek Islamaren agintea Itsaso Beltzaren eta Volgaren bide ertaineraino hedatua zuten. Iñaki Mendiguren

Parte-hartzaileek **turkieraz** eta kurdueraz kantatu zuten, eta ohi bezala su baten inguruan dantzatu zuten. Berria - Mundua

Neshe eta Asli, **turkieraz** idazten duten emakumeak. Edorta Jimenez

Besterik ezean, berba batzuk ikasi behar izan ditut **turkieraz**, esaterako ohiko dudan menuarenak. Jon Arretxe

Turkierazko atsoitzak, itsu-itsuan segituz gero, oso aukera gutxi uzten du Turkiaren benetako aldaketan sinesteko. Berria - Mundua

turkmanizazio *(corpusean turmanizazio soilik) iz turkmen bihiurtzea.*

Badoa, ez dago prest beste **turmanizazio** baten lekukoa izateko. Berria - Kultura

turkmen *(orobat turkoman eta turkoman) 1 iz turkmenistandarra.*

Azeriarrak populazioaren %22 dira, kurduak %8, gilaki eta mazandaraniak %7, luriak %3, ahuazi tribu arabiarrek %3, balutxeak %2 eta **turkmenak** %1,5. Orotara hamahiru ordezkari xiita, bost sunita, bost kurdu, kristau bat eta beste **turkmen** bat daude Gobernu Kontseiluan. Berria - Mundua

Kurduak «adiskidetze nazionalerako» lehenengo bilera egin dute arabiarrekin eta **turkmenekin**. Berria - Mundua

Irakiarrak, dena den, kezkatuta daude, erasoan ondorioz ez ote den gerra zibila piztuko, irakiar sunitak zein xiitak, kristauak, **turkomanok** eta kurduak (gehienbat sunitak) elkarren kontra oldartuta. Berria - Mundua

2 (izenondo gisa)

Kurdistango Irbil hirian, berradiskidetzarako bilera bat antolatu zuten alderdi kurduak, ordezkari **turkmen** eta arabiarrekin. Berria - Mundua

Harago, haien jaunengandik hurbil, emakume **turkomanak** ageri ziren. Karlos Zabala

Abere horiek, zaldi **turkomanak** baino txikixeagoak baina indar bikaina dutenak, oso egokiak dira bidaia luzeetarako. Karlos Zabala

Turkmeniera edo asiriera hizkuntza ofizialak dira eremu **turkmenean** eta asiriarrean. Berria - Harian

Aurrerago, *karaoi* izeneko denda **turkoman** milaka batzuk hedatzen ziren ordokian azkengabe. Karlos Zabala

Irakeko Fronte **Turkomanoa**. Berria - Mundua

turkmeniera iz Turkmenistaneko hizkuntza ofiziala.

Turkmeniera edo asiriera hizkuntza ofizialak dira eremu turkmenean eta asiriarrean. Berria - Harian

Arabieraz, kurdueraz eta **turkmenieraz** idatzitako aleak banatu dituzte. Berria - Harian

turkmenistandar izlag/iz Turkmenistanekoa, Turkmenistani dagokiona; Turkmenistaneko herritarra.

Erietxeko iturrien arabera, zaurituak hiru herbeheretar, bi txinatar, **turkmenistandar** bat eta ukrainar bat dira. Berria - Mundua

turkmeno ik turkmen.

turko *(orobat turku g.er.) 1 izlag/iz turkiarra.*

Miliun bat eta erdi jende, giristino eta beste suntsitu zituzten genozidio hilketak, geroztik **turko** gobernuak sekulan aitortu edo ezagutu ez baditu ere. Heria

Turko Konstituzioa ez da giristinoa baina galdea egiten bai hark ere European sartzeko. Heria

Preso hartutako ofizial **turko** batek. Felipe Juaristi

Polizia **turko** jator batek zigilua ipini dit berehala pasaportearen, eta aurrera segitzeko esan irribarrez, ezertxo ere arakatu gabe. Jon Arretxe

Jean Sobieskiri buruz ere hitz egin zion, zeinak askatu baitzuen Podolia eder hura **turko** otomandarren atzaparretatik 1675. urtean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jean Sobieskik 30.000 soldaduko armadarekin Viena askatu zuela **turko** inbaditzaileen atzaparretatik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Turkuei arpegiratzen zitzairen gauzarik okerrera zera zen: ez zutela ez aztirik eta ez deabruak hartutako pertsonarik. Juan Martin Elexpuru

Bezperan, Rauf Denktash buruzagi **turko** -zipretarrak ere ezezkoa eskatu zuen. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan)

Bide-lapur **turko** -hiltzailea Kosmas zela baieztatu zuten. Felipe Juaristi

· Bidean zaldizko soldadu **turko** -talde batekin egin zuen topo, Felipe Juaristi

3 (pastoraletan)

Ea **turkoek** zer funtzio betetzen duten pastoraletan, eta ea zer pertsonifikatzen duen **turko** batek euskal mentalitatean... Anjel Lertxundi

Zuberoako pastoralen itxura hartua du nolazpait munduko politikak, ate batetik heldu zaizkigularik jende onak eta kristau garbiak, beste batetik aldiz jende gaiztoak eta **turko** lohiak, hots, terroristak. Piarres Xarriton

4 turko-buru ik pagaburu.

FMI nolabaiteko **turko** -buruzat ere erabiltzen dela lekuan lekuko klase politikoak erabaki gogorrak hartu beharra justifikatzeko, edota baita beharrezko erabakiak ez hartzea ere justifikatzeko. Iñaki Heras

· **Turko** -buru bat, bai. Fernando Morillo

Berak aitortu bezala, **turko** -bururik ez dute karpabetonikoek euren kostetan. Berria - Kultura

· «Pertsona horiek zigortu dituzte, baina beste batzuk izan zitezkeen, **turku** -buruak dira», zehaztu du Joseba Leza batzordeko presidentek. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

turko zipretarrek (6); **turko zipretarren** (7)

turkoen aurka (3); **turkoen aurkako** (4); **turkoen kontra** (3)

turkoman ik turkmen.

turkomanok ik turkmen.

turku ik turko.

turmanizazio ik **turkmanizazio**.

turnabis *iz* bihurkina.

Bihurkina ezin duenean kanporago, edo herdoilak **turnabisa** ahokutzen eragozten duenean, **turnabisa** bera zintzel ipini eta mailuka apurtzen du. **Koldo Izagirre**
Hartu mailua eta **turnabisa**, hoa kamaroteetara eta hasi hadi eskutokiak eta latoizkoak diren guztiak askatzen. **Koldo Izagirre**

turnada *iz ipar* txanda. ik **tornu**².

Badu urtea segurik hasia dela galde eta galde, esneketako **turnada** enekin egin beharrez. **Janbattitt Dirassar**
Oztibarre baino urrunago heltzen den lagunartea da lehiatzen **turnada** hontan. Ondoko egunetan, Olentzero-k bere **turnada** aintzina segituko du eta Donibane Lohizunenera ikusten ahalko da. **Herria**
Hiru **turnada** gehiago bainan gisa hortan astean 35 oren baino gehixago sartuko baitituzte, ordainez urtean zazpi egun gehiago pausuko. **Herria**
Herriitik etorriko dira 8 pilotari, parte hartuko dutela aurtan antolatua den esku-huskazko **turnada** bereziaren finalean. **Herria**
Hortik aitzina, ikertuko dute zehazki autobus **turnada** bat, Angelu barnetik eta auzo desberdinetatik itsas hegiraino jendea garraiatuko duena, urrik. **Herria**

turnarazi, turnaraz, turnarazten du *ad ipar* itzularazi.

Heien gomendio ezarri dirua dute gibelerat **turnarazten**. **Herria**

turnatu, turna, turnatzen du *ad ipar* itzuli.

Erantzukizun penalak baieztatu direnez, Parisko Udalarari legez kanpo hartutako dirua **turnatu** beharko zaio. **Berria - Mundua**
Miatu gintuztelarik kendu puskak **turnatzen** dizkigute. **Marzel Etxehandi**
OTAN-eko arduradunek diote talde horrek zituen armak **turnatuak** dituela, bietarik bat bederen. **Herria**
Frantziako iraultza handiaren denbora hartan, Ziburuko paper batzu ereman baitzituzten Donibane Lohizunerat, Donibaneko auzapezak Ziburukoeri **turnatuko** daizkio paper horiek. **Herria**
Abantzatuko, erran nahi baita untsalaz norbaitek beharko dituela noizbait **turnatu**! **Herria**
Duela zombait denbora herriko etxetik hartua zuten Maiana **turnatu** dute herriko etxearen aintzinerat. **Herria**

turno *iz* txanda.

Barraren kontra bospasei neska, goizeko **turnoan** lan egiteko-edo etorriak. **Joxean Agirre**
Azken hilabetean, **turnoa** hiru alditan aldatu zidak. **Pablo Sastre**
Nere mintzatzeko **turnoa** etorri zelarik, erran nuen: [...]. **Menane Oxandabaratz**

turroi 1 *iz* arbendolak eta kideko fruitu lehorrak eztiarekin eta azukrearekin nahasiz egiten den gozokia.

Eguberriak etorri ziren, eta **turroia** erosteko umorerik ez nuen izan. **Ramon Saizarbitoria**
Nork ez du jango **turroia** Eguberrietan? **Berria - Kirola**
Turroi bigunezko plaka bat osorik irenstea bezain kaltegarria litzateke gibelarentzat. **Berria - Kultura**
Badakizu ogi zaharrak azukrearekin **turroia** ematen duela? **Joseba Sarrionandia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alacanteko **turroi** barra gogor baten bila. **Josetxo Azkona**
Bonboiak banan-banan kaxetan sartu, txokolate eta **turroi** tabletak paketatu, galletak paketatu, ezpain-margoak paketatu... **Berria - Gaiak**
Lucas **turroi** zati bat jaten ari zen telebista aurrean. **Unai Elorriaga**
Turroi-puska krematsuak, kokozko laukitxo arrosa dardariak, ezti-koloreko karamelu lodiak. **Iñaki Mendiguren**
Oporraldi txiki bat hartu, pare bat entrenamendu gogor egin eta egunotako **turroi** janak bizitasuna eman didate. **Berria - Kirola**

turrupilo *adlag*

Martxo erditsutan, hormek egunak zurpailtzen zituztenean, pentze biluzien azaletan sator puloak **turrupilo** biderkatzean, ardiak eta bildotsak marrakaz hautematean, etxe gibelesko muinoetara abiatzen ginen, supiztekoak eta xanbraderak eskuan. **Itxaro Borda**

turrusta 1 *iz* iturri, hodi edo zulo batetik ateratzen den isurkari baten jario joria. ik **zurrusta**.

Odola kolpeak jo gaituen alderantz borbortzen da eta **turrusta** gorriak etsaia ere harrapatzen du, hurbil badago. **Xabier Amuriza**
Ximunek isurtzen zidan Historiako ibaiaren **turrusta** burrunbatsuak aditzera eta entzutera uzten zidan ene leienda tristearen hatsa. **Piarres Aintziart**
Etxeratu aurretik parapeto abandonaturaino igotzen zen [...] zeroiren baten **turrusta** ikusten ote zuen ortzimugako haria eteten. **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ur-**turrustak**, deabruzko ur-jauziak! **Jon Muñoz**
Ez al dakuzu batzuetan zer ur **turrusta** mehea behar den, landa zabalak ureztatzeko eta zelaiak blaitzeko? **Xabier Amuriza**
Berro-zopa, txerri-azpizun errea, lekak almendrekin, eta, azken-buruko, budina, eta horri guztiari laguntzeko, ardo-**turrusta** oparoak. **Oskar Arana**
Behatzailerean karotida ebakitik lehenengo odol **turrustak** ihes egiten duenerako, [...]. **Josu Zabaleta**
Ortzitsu izan behar ginuke aste undar hau, guneka euri **turrusta** ederrekin. **Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Florentek pontxea edan zuen; urdail hutsera berun gori **turrusta** bat bezala nola erortzen zitzaion sumatu zuen. **Karlos Zabala**

4 irud/hed

Haien armek, bolbora koloreztatuaz kargaturik txinatarren eran, **turrusta** gorri, berde, urdin handiak jaurtitzen zituzten zeru aldera. Ez doa diru bila, ez doa ondasunen bila, bizitzaren **turrustatik** ur biziagoak atera nahian baizik. **Karlos Zabala**
Alaitasun are samurrago batek gainezka egin zion bihotzetik eta **turrusta** beroan barreiatu zitzaion zainetan barrena. **Irene Aldasoro**

Echeberryyk gisa, egun gisa bat eta bihar beste moldez idatzia gatik hitz bera, zer iturri oneko **turrusta** zirtoduna bere euskara aberatsean. Heria

Guztia pentساتو bezala ateratzen bada, diru- **turrusta** handi bat izango dugu laster. Oskar Arana

Behaketa ekipoak, zeru osoan bakar-bakarrik, inoiz ez ditu menderatuko hirurogeita hamabi metrailadore, jaurtitzen dituzten balen argi **turrustagatik** baizik ez baititu sumatuko. Josu Zabaleta

- Arma automatikoetakoren batek doiegi tirokatzen zidala iruditzen zitzaidanean, haren gainera jotzen nuen, al bait lasterren, lur arrasean, eta metrailadore **turrusta** bat botatzen nion. Josu Zabaleta

4 turrustan

Blai-blai sartu zen, arropetatik eta iletik ura **turrustan** zeriola. Oskar Arana

Are gustu gozoagoa sumatu zuen ahoan, listua **turrustan** zerion. Jose Morales

Berdin odolak ere, gure gorputzetik irteean, **turrustan** jauzi egiten du goraino eta bere gorritasuna zabaltzen. Xabier Amuriza

Behe-lainoa jaso du, eta eguzkiaren argia **turrustan** sartzen da leiho irekietatik. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

turrusta handi (3); **ur turrusta** (4)

turrustaka *adlag* turrustan.

Halako batean burutazio beldurgarri batek odola **turrustaka** jarri zidan bihotzean, eta, une labur batez, soraio geratu nintzen berriz ere. Koro Navarro

Han urrea **turrustaka** isurtzen du lurrak. Xabier Paya

turrut 1 iz turuta.

10ak eta 1/2 etan: St Huberten meza ihiziko adar **turrutekin**. Heria

2 *interj* porrota adierazten duen hitza.

Bigarren erabakia **turrut**!, ez baitira batere akomeatu. Heria

turto *iz ipar* olio landareen haziak sakatzen direnean gelditzen den uzkina.

Kolza edo ekilorea tinkatzearekin olioa ateratzen da, gelditzen da " **turtoa** ", aberek jaten dutena. Heria

Gainera lekuan lekuko **turtoari** ezagupen bat emaiteko bidea idekitzen da. Heria

turuta 1 iz tronpeta; tronpetaren antzeko musika-tresna, hura baino txikiagoa.

Beethoveenen 6. sinfonian gazteek biribildu egin zuten zuzentasuna; haien artean concertinoaren, piccolo, oboe, flauta, fagota, tronpa eta **turuta** bakarlariren ziurtasuna nabarmendu behar dugu. Beria - Kultura

Arratsaldeko hirurak arte lo eginen duzu, harik eta **turuta** batek esnatuko zaituen arte. Joseba Sarrionandia

Leihora inguratu zen gero, trenaren **turuta** entzunda. Joseba Sarrionandia

Tartean baziren lauzpabost lokomotora zahartxo polit ere, guztiak **turuta** zorrotza jotzen, belarri-mintzak urratu beharrean. Gotzon Garate

Egon adi **turutaren** hotsari! Elizen arteko biblia

Turutaren hotsera, irrintzi egiten du; urrutitik sumatzen ditu guda, buruzagien aginte-hotsak eta gudu-irrintziak. Elizen arteko biblia

Azkenik, **turutari** putz egin, eta predikatzen hasi zen. Juan Garzia

Turuta jo zuten, eta herri osoak oihu egin zuen: gora Salomon, erregea! Jose Antonio Mujika

David eta israeldar guztiak Jaunaren aurrean zihoaizen gogotik dantzatuz eta kantatuz, zitarak, harpak, danbolinak, txilinak eta **turutak** joz. Elizen arteko biblia

Zin egin zioten Jaunari, ozenki eta oihuka, **turutak** eta adarrak joz. Elizen arteko biblia

Orain erregearen **turutek** erasora deituko balute oso litekeena izango litzateke Mogueimek ezer ere ez entzutea. Jon Alonso

Ahotsa goratzen dute **turutaren** pare. Askoren artean

Ez da sekula entzungo zitara-soinu edo kanturik, ez txirula edo **turutarik** zure baitan. Elizen arteko biblia

Ematua bide zen **turuten** sukarraldia. Txillardegi

Turuta txiki batzuk zeramatzaten zaldi zelaren aurrealdeari loturik, haien graduaren ezaugarri. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitzak eztia bezala poliki-poliki ezpainetara irristatzen ari zitzaizkion uanean, **turuta** -soinu batek ekarri zuen bere onera. Felipe Juaristi

Abisatu gabe, **turuta** -deiadarrrik gabe, hemen da, eta bera erdi-erdian dago. Oskar Arana

Entzun zen, antzerki-guduen aurretik bezala, **turuta** -deiadarraldi goibel bat. Juan Garzia

Turuta -joaldi bat eta bi kanoi-danbada. Juan Garzia

Harrigarriro astindu ninduten **turuta** -sail zorrotz haiek. Txillardegi

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tresna erabil dezakegu, bai lhiziko adar **turuta**, zein haurren jolasa, soinuak gaitu interesatzen. Beria - Kultura

Plataforman pilatu ginen, kobratzaileak zarata- **turuta** bati tiratu zion kartsuki, eta abiatu zen berriro ibilgailua Xabier Olarra

4 *turuta-hots* (orobat *turutots*)

Kazola-tapen burrundara, **turuta-hotsak**, makilen kolpeak zoruan. Ez duzue entzun **turuta-hotsik**, ez eta ahotsik ere. Anjel Lertxundi

Danbor eta **turuta hotsa**, kanoi-sutunpa. Juan Garzia

Gorazarre, kantu eta **turuta-hots** artean ohore guztiz eraman zuten hirira. Askoren artean

"Alkateak nahi zaituela", errepikatzen zuen **turuta-hots** desafinatuak. Jose Morales

Neure ostean ahots handia entzun nuen **turuta-hotsa** bezalakoa. Elizen arteko biblia

5 *turuta-jotzaile* (orobat *jole*)

Halaxe hornitzen dituzte ontziak atabalariz eta **turuta-jotzailez**. Edorta Jimenez

Buruzagiak eta **turuta-joleak** erregearen ondoan zeuden. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jo turuta (7); **jo zuen turuta** (7); **turuta hots** (7); **turuta hotsa** (12); **turuta hotsak** (4); **turuta jo** (4); **turuta joleak** (3); **turuta jotzean** (4); **turuta jotzen** (4) **turutak jo** (3); **turutak joko** (3); **turutak jotzen** (3); **turutak joz** (8)

turutakada iz turuta joaldi ozena.

Atzealdetik zetozkidan **turutakadak**, Urgull aldetik; San Telmo (orain "Trinidad" esan beharko, omen) kale gaineko Infanteri kasernatik zehazkiago. **Txillardegi**

turutaldi iz turuta joaldia.

Ala Gaztelutikako **turutaldi** errepikakorrena? **Txillardegi**

Ez nuen lortu Fossarekin hitz egiterik, baina bai tapaki bat nireztat eta besteentzat, eta gauero ordu erdiz berotzeko baimena, isiltasun **turutaldiaren** aurretik, termosifoiaren galdararen ondoan. **Juan Garzia**

turutari iz irud mezularia.

Entzuna diat ezen oilarrak, zeina goizaren **turutaria** baita, bere eztarri ozen zorrotzaz duela, egunaren jainkoa iratzartzen. **Juan Garzia**

turutero iz turuta-jotzailea.

Eta "**turuteroak**" badira, hobe. **Andoni Egaña**

turutots ik turuta 4.

tust iz

Begien aitzinean dauzkat, kaskoa belar **tustek** apaindurik, kapera, eta ere X. mendeko monasterio mozarabe baten aztarnak, edo bederen haien oroitzapena. **Piarres Aintziart**

Ondo ondotik darion erreka segitu dut bazter bazterretik, ote **tustek** desbideratzen ez nindutelarik. **Piarres Aintziart**

Berehala datorkit burura Aljeriako gertako irudia: berdin berdina ibiltzen ginen alfa **tustez** bete zelai zukuetan. **Piarres Aintziart**

tusto iz

Eta hura onuragarria zela sinets dezagun, zertzelada partzil **tustoa** ezabatzen du, etsaikeriekin batera, denak lagun ginela eta funtsean bakoitzak bereizkeria zantarrak ez zuela esanez. **Pako Aristi**

tuta 1 iz ipar turuta, bereziki autoarena.

Jendearen isiltasun urrunak marmara elkorra osatzen zuen eta taxien **tutek** zein bezeroen manuek dorpea zulatzen zuten. **Itxaro Borda**

Autoetan **tutak**, karriketan kantua, besta eta zirrarari lekua utzi zion, partida euritsuak. **Berria - Kirola**

Kamiunetaren **tuta** urrunetik entzuten da. **Herría**

Kai hegirat ez nintzelarik arras heldua, betiko **tuta** karranka hura jo zuten eta metroa partitu zen, ateak tanpez zerraturik. **Janbattitt Dirassar**

Etorri ziren, gau beltzean, euriak euriari, beren **tuta** samin eta argi gorri, argi urdin, argi hori, argi zuri handiekin, halako apokalipsi giro bat sortzen zutela. **Daniel Landart**

Denek ezagutzen dugu zer zen lehengo herriko mutilak oihukatzen zuen alkateak hartu erabakia, **tuta** joz bazihoalarik karrikaz karrika. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 (hitz elkartuetan)

Etxe zolatik lau **tuta** kolpe haserreturen oihartzunak jin zitzaizkigun eta karrikan, musuen haginaz bereizi ginen, taxi txoferraren begi-keinuen benedikazioarekin. **Itxaro Borda**

3 hed

Berriz oihuka hasi zen, adar batekin gaitzeko **tuta** ere eginez, tenorea zela, If-eko uharterat joan nahi zutenentzat, ernatu behar zutela untzian tokiño bat segurtatzeko gisan. **Janbattitt Dirassar**

tutagarri izond tutatzen duena.

Bera aitzina bazihoan, gibelera so egin gabe, eta lehena baino aise **tutagarriagoak** ziren beste leherketa zenbait entzun zituen. **Elena Touyarou**

Eta oraino soinu-aitxagailua beharrien **tutagarri** zen eta horri kasu handia egin behar da, jendea solasean artzeko, beharriak ez zauritzeko, buru muineraino ekartzen baitu. **Herría**

tutaka adlg tuta jotzen.

Berrogateitamar auto hurbildu dira, karakoil urratsean eta **tutaka**, suprefetura aitzinera. **Herría**

Autotik **tutaka** aritzea jarrera errepesiboaren seinale da. **Eneko Bidegain**

Behar baino gehiagotan gertatzen zaio **tutaka** eta oihuka hastea, auto barnetik beti errexago baita ontsalaz berriz gurutzatuko ez denari zernahi erranka aritzea. **Eneko Bidegain**

Aitzineko autoko gidariaren huts ñimiñoena aski du **tutaka** eta sakreka hasteko, are gehiago gidaria erdi beltzarana baldin bada. **Eneko Bidegain**

tutatu, tuta(tu), tutatzen du ad zaratak nekatu.

Orain karrika gainetik pasatzen dira sekulako metalezko zalapartan, beharriak **tutatuz**, etxeak inarrosiz. **Michel Oronoz**

Pentsatzen dut beharriak **tutatuak** dituzuela Turkiako afera horrekin. **Herría**

Egiten nuen ez ahal zela bederen sobera akitua gaixo neska, burua hantua eta beharriak oraino **tutatuak** hain segur, arratsalde guzia lanez itoa egonik, arropak sal eta sal. **Janbattitt Dirassar**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beharriak tutatuak (3)

tute 1 iz karta-jokoa, altxaldiak eginez eta horrela lorturiko karten puntuak batzean datzana.

Ederto pasatu nuen, **tutean** jokatu eta kantuan. Edorta Jimenez

Jakingo duk musean edo **tutean**, ezta? Pedro Alberdi

Tutean, juletean, briskan eta horrelako karta jokoetan aritzen ziren bitartean, beren kontuez hitz egiten zuten. Jon Maia

2 (hitz elkartuetan)

Bota zidan hitzaldian "tutian" eta "seietan" ulertu nituen; seiak eta hogei ziren, eta seietan, **tute** partida zeukan. Joxean Sagaztizabal

tutela iz zaindaritza.

Beste hainbat, berriz, «euskal instituzioetan ari den alderdikide bat» hautatzearen alde agertu ziren, eta «inoren **tutelarik**» ez dutela behar adierazi dute, Bilboko zinegotzi Basagoiti beraren hitzetan. Berria - Euskal Herria

Loiola de Palacio Europako komisarioak EAEko lehendakariyai izateko prestutasuna agertu zuenean, «inoren **tutelarik**» ez zutela behar adierazi zuen Basagoitik. Berria - Euskal Herria

Armada bezalakoan **tutelarik** ere ez dugu onartuko. Berria - Euskal Herria

tutelatu, tutela(tu), tutelatzen 1 du ad zaindaritza egin.

Tutelatutako etxebizitzek gabeziak dituztela dio Emakundek, emakumearen intimitatea, pribatutasuna eta autonomia ez dituztelako bermatzen. Berria - Euskal Herria

2 (eta burutua izenondo gisa)

Etxe **tutelatuak** beren kabuz baliatzeko gai direnei zuzenduta daude. Berria - Euskal Herria

tuterar izlag/iz Tuterakoa, Tuterari dagokiona; Tuterako biztanlea.

1553an Suitzako Genevan erre zuten Migel Servet **tuterarra** da pentsamenduaren askatasuna defendatzeagatik hildakoen ikurra. Askoren artean

Haren kalteak jasan dituzte beste askoren artean Ana eta Jose **tuterarrek**. Berria - Euskal Herria

Oraindik Athleticen jokatu dezakeela erakutsi zuen **tuterarrak** Anoetan. Berria - Kirola

tutik (ezezko esaldietan) ezer ere ez. ik tuntik.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ez dakit tutik (3); **ez du tutik** (6); **ez dut tutik** (10); **ez nuen tutik** (4); **ez zekien tutik** (4); **ez zion tutik** (4); **ez zuen tutik** (17); **ez zuten tutik** (3); **tutik ere** (102); **tutik ere esan** (9); **tutik ere ez** (32); **tutik ere ulertu** (13); **tutik ere ulertzen** (18); **tutik esan** (18); **tutik esan gabe** (11); **tutik esaten** (5); **tutik ez** (25); **tutik jakin** (3); **tutik ulertu** (8); **tutik ulertuko** (3); **tutik ulertzen** (20); **tutik ulertzen ez** (3)

tutore 1 iz pertsona adingabe edo ezindu baten arduraduna, lege auzietan haren ordezkari dena.

Ni Miss Cardewren **tutorea** naiz, eta bera ezin da nire baimenik gabe ezkondu adinez nagusi ez den artean. Antton Olano

Emily eta biok zure legezko **tutoreak** gara eta Lily gajoaren testamentu-betearazleak. Lopez de Arana

Ikasketak amaitu zituenean Devonshireko Earl-en semearen **tutore** egin zen. Esteban Antxustegi

Ofizialak orri bat eman zion nire **tutoreari** izenpetzeko. Juan Kruz Igerabide

Zuriek indiarren eta beren ondasunen **tutore** izaten zirauten. Berria - Kultura

ETAk menia iragarri gero, horrek «mugarik eta baldintzarik gabekoa» izan behar duela iritzi zion, eztabaida politikoa **«tutorerik»** egotea onartezina litzatekeelako. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

Tutore -kargua ematen diatenean, moraltasun handiko jarrera hartu behar izaten duk gauza guztietan. Antton Olano

3 (adizlagun gisa)

Tutore hasi hintzenetik, aitak baino gehiago zirikatzen nauk. Lopez de Arana

4 ikasleen ikasketen ardura hartzen duen irakaslea.

Zure gelako **tutoreak** hots egin digu. Xabier Montoia

Jose izeneko fraidea genuen filosofia irakasle eta **tutore**. Joxerra Garzia

Oxford-eko **tutoreek** bi galdera egiten omen dizkiete euren ikasleei lan bat aurkeztu behar dutenean: zer esan nahi duzu, eta nola dakizu hori. Txema Ramirez de la Piscina

Jokin Zeberioaren familiak salaketa jarri du Talaia Institutuko zuzendariaren, ikasketaburuaren, beren semearen **tutorearen** eta irakasle baten kontra. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nire tutore (3); **tutore izan** (3)

tutoretza 1 iz tutorearen jarduera edo kargua.

Tutoretza da, etxeko gobernuan, sorospidezko magistratura. Andres Urrutia

Seme-alaben **tutoretza** kendu zioten ama batek jasaniko «kalbarioa» aitortu du Andaluziako epaitegiak. Berria - Euskal Herria

Ezkontza, familiaren gobernu, seme-alaben egoera, **tutoretzak**, egoitzaren kontuak, absenteen eskubideak [...] oinordetzak, kontratuak, horiek dira Kode Zibil baten objekturik beharreneak. Berria - Gaiak

Gure ohiturek *garde-noble* deitzen diote horri; **tutoretzarenak** ez bezalako printzipioetan oinarritzen da, eta guztiz bestelakoa da. Iñaki Iñurrieta

2 irud/hed

Parlamentua **tutoretza** onartezinen menpe jartzea litzateke. Gernikako Estatutua onartu genuen **tutoretza** militarra tartean zegoela eta orain, aldiz, herri gisa eta euskal herritar gisa ezagutzea nahi dugu. Berria - Euskal Herria

Aitor dezadan ez dudala gustuko ETAk bere buruarentzat hartu duen **tutoretza**, nahiz eta edozeinek ikusiko lukeen orain arte ekimenak abian jartzeko gaitasunari hari bakarrik aitortu ahal zaiola. Berria - Harian

3 (irakaskuntzan)

Egia da eskola teoriko bat berdintsu eman daitekeela aurrean 50 ikasle baldin badira edo 200, baina ez da gauza bera gertatzen eskola praktikoekin eta **tutoretzekin**, horrek

beste modu bateko irakaskuntza eskatzen duelako.

[Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Bide horretan laguntzeko, ikus-entzunezko materiala, taldekako bilerak eta **tutoretzak** antolatzen dituzte.

[Berria - Gaiak](#)

Duela urte batzuk, Espainiako hegoaldeko kartzela batera joan zen unibersitateko irakasle bat, han zegoen preso bati **tutoretza** egitera. Irakaskuntza **tutoretzetan** oinarrituko da gehiago, eta ikasleak berak laborategietan, tailerretan edo kalkulu zentroetan ikasitakoa izango da oinarria.

[Iban Zaldúa](#)

Gizarteak irakasleriari gero eta zeregin gehiago eskatzen dizkio (**tutoretza** pertsonalizatuak, orientazioa, etorkinentzako arreta berezia...).

[Berria - Euskal Herria](#)

4 (hitz elkartuetan)

Tutoretza orduen koordinazioa eta ebaluatzeko sistemen estandarizazioa ere lantzen da. Bakarrik datozen adingabe atzerritarren harrera eta **tutoretza** neurriak hartzeko.

[Berria - Euskal Herria](#)

Curriculum premiak, aurreko eskolatzearen edo eskolatzeko ezaren ondorioz; eta **tutoretza** premiak, bai ikastetxean bai gizartearen integratzeko.

[Berria - Euskal Herria](#)

tutoria iz tutoretza.

Hurrengo egunetan, gogo-jardunean zehar **tutoriak** izan genituen Sebastianekin.

[Alberto Barandiaren](#)

Nire gorputz osoa -besoak, bularra, burua- ukitzen eta laztantzen bukatu zuen **tutoria**, eta besarkada luze baten ondoren -berriz sumatu nuen bere zakila hor, handi, eta orduan okerragoa izan zen-, gure arteko sekretua izango zela.

[Alberto Barandiaren](#)

tutorizatu izond

Gure kasuan, erdibidean da, erdi **tutorizatu** baita: irakasle bat dugu bere tresna guztiak, eta ordutegi librean datozen ikasleen bi talde ditu.

[Berria - Euskal Herria](#)

tutsi (orobat tutzi g.er.) 1 iz Ruanda eta Burundin kokatua den arraza beltzeko etnia bateko kidea.

XVI. mendean [...] Uganda eta Etiopia utzi eta **tutsiak** indarrez ezarri ziren Burundin, beren abereak bertako lur emankorretan hazteko.

[Berria - Mundua](#)

Pierre Buyoya **tutsia** 18 hilabetez agintean egon ondoren, joan den apirilean Domitien Ndayizeye hutuak hartu zuen presidentetza.

[Berria - Mundua](#)

Gertatutakoa Aintzira Handien eskualdeko **tutsien** aurkako genozidio egitasmoaren jarraipena da.

[Berria - Mundua](#)

Hiru urteko epean, bozak egin aurretik, **tutsi** eta hutuen arteko botere banaketa orekatua ekarriko lukeen trantsizioko gobernuaren eratu zen orduan.

[Berria - Mundua](#)

2 (izen baten ezkerrean)

Rwandan bildu dira talde batean hutu eta **tutsi** arrazakoak diren emazteak, lehen etsiak zirenak, orai adiskideak, elgar laguntzen dutela edergintzan, margoak sortuz.

[Herria](#)

Ruandako **tutsi** etniako herritarren genozidioaren 10. urteurrena gogoratzeko ekitaldiek sumindu egin dituzte Kigali eta Parisko gobernuen arteko harremanak.

[Berria - Mundua](#)

Oinarrian **tutsi** eta hutu etnien arteko gatazka duen gerrak 300.000 hildako baino gehiago eragin ditu azken hamar urteetan Burundin.

[Berria - Mundua](#)

3 (izenondo gisa)

Ruandako matxino **tutsiak** boterera iristean, matxino hutuak ondoko herrialdera, Kongora, ihes egin, eta ekialdean egokitu ziren. Gutxienez 159 iheslari **tutsi** hil zituzten eta beste 111 zauritu.

[Berria - Mundua](#)

Jatorri **tutsia** duten banyamulengeen buru izan nahi du koronelak.

[Berria - Mundua](#)

Gobernuak eta hiru talde **tutsik** su-etena hitzartu zuten, baina bi talde nagusiek muzin egin zioten akordioari.

[Berria - Mundua](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hutu eta tutsi (3)

tutsien aurkako (3)

tutti iz orkestra osoak jo behar duen musika-lanaren pasartea.

Musika ere biziagoa da orkestrak eritmo arina mantendu du **tutti** osoan. *Nisi Dominus*-en abesbatza **tutti** eran aritu zen, eta ezagutzen ez genuen Segarra baxu potentea aurkitu genuen.

[Berria - Kultura](#)

tutu 1 iz hodia.

Kanaletik soka bat eraman zuen angelu bateraino, eta han **tutu** batzuk jarri zituen.

[Santiago Iruretagoiena](#)

Ezin zen mugitu, jaten ere **tutu** baten bidez eman behar zitzaion.

[Jon Alonso](#)

Medikuak **tutu** bat sartu zion eztairitik behera.

[Javi Cillero](#)

Euria aditzen nuen borborka, zulatua behar zuen **tutu** batetik erortzen.

[Anjel Lertxundi](#)

Narrastien, ugaztunen eta giza primateen zakila **tutu** bat da, espermatozoidak bagina barruan, umetokiko lepoaren ondoan, uzteko pentsatua.

[Luis Elberdin](#)

Imajina ezazue gure bizitzaren muina organo horietako baten egituraz osatua dagoela; milaka **tutu** daude, bizitza horri gertatzen ari zaiona hots egiten dutenak.

[Pako Aristi](#)

Bi eskuak **tutu** gisa ahoaren inguruan jarrita, dei egin duzu leihora hurbildu ondoren.

[Rafa Egiguren](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Herio zelaietako **tutu** luze haietatik beti kea ateratzen ikusi zuen, geldi-geldia...

[Eneko Bidegain](#)

Alanbrez bildutako **tutu** metalikoak baranda gisa.

[Rafa Egiguren](#)

Orri kiribildu bat heldu zen bulego batetik bestera mezuak banatzeko erabiltzen zituzten **tutu** pneumatikotik erretilu batera.

[Anjel Lertxundi](#)

Tutu zilarreztatu haiek astintzen zituen, hoditxo moduko batzuk.

[Fernando Rey](#)

Bainugelako atea irekitzean dutxa baten gomazko **tutu** gorri batek aurpegiaren kontra jo zion.

[Lopez de Arana](#)

Metodoetarikoa batek sare fineko zilarrezko gasa biribildu bat erabiltzen du, plastikozko **tutu** batean sartua, beroa eta ur-lurrina trukatzeko bitartekotzat.

[Irene Aldasoro](#)

Piparen **tutu** anbarezkoa.

[Jose Morales](#)

Ondo ematen zion musika tresna hark, lepoan jarrita, aho zabal eta borobileko **tutu** kiribildu hura buru gainean zuela.

[Jon Maia](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Koralaren oinarritzko unitatea polipoa da, **tutu** itxurako gorputz bat. **Tutu** barruko ura izozten denean hautsi egin ditzake hodiak eta madiak.

[Berria - Gaiak](#)

Ume palestinar bat hil eta beste bi zauritu ziren, soldaduentzat jarritako **tutu** bonba bat aurkitu eta hau lehertuta.

[Berria - Mundua](#)

Gero gogoia lainotzen zaio eta Bruno Paulovarekin bistaratzen du, edo Bruno Paulovaren **tutu** gonarekin jantzita. ik tubo 3.

[Harkaitz Cano](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Belarri hegalaq belarri-**tutu** integratu gisa egiten duen lana oso eraginkorra da katuetan, hamar aldiz soinu indartsuagoak bidaltzen baitu tinpanora.

[Irene Aldasoro](#)

Lokalaren erdian metalezko berogailu zaharra, tximinia-**tutu** luzekoa, sabairainokoa.

[Jon Arretxe](#)

Azkentzen mintza- **tutu** luze eta kiribilean kizkurturiko bat egokitu zioten, heste luzearen oso antzekoa. Harkaitz Cano Mirentxu Larrañaga
Burdin hari lodi eta gogor batez lotu zituen ibai **tutu** bakoitzeko uhateak elkarrekin, eta burdin hari bakoitza burdin haga bati erantsi zion. Harkaitz Cano Felipe Juaristi

5 turuta.

Ohi ez bezalako trafikoz bor-bor zegoen kalea, automobilzaleen **tutu** eta tranbia-gidari presatien dangada hots batean. Harkaitz Cano Irene Aldasoro

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atunketari eta lebatzero guztiak **tutu** joka hasi baitziren, orain ere adio egiten. Harkaitz Cano Koldo Izagirre

Draga zaratatsu bat badian entzun nuen eta itsasontzi bat portuan **tutu** joka sartzen. Harkaitz Cano Koro Navarro

"Klakzon" **tutu** kolpe luze bat entzun zuen. Harkaitz Cano Ramuntxo Etxeberri

Aretoko sabaitik zintzilik zegoen fokua pizteaz bat areagotu ziren, oso nabarmen gainera, publikoaren oihu, **tutu** -jotze, bonbo-hots eta esku-zartak. Harkaitz Cano Josetxo Azkona

Berriz ere, **tutu** -hotsa jo zuten talaia nagusitik, eta patioko lagunak lerro-lerro jarri ziren. Harkaitz Cano Javi Cillero

Tutu hotsa kaietan, tranbia ahots-lakarrak oso urrutiko kaleetan. Harkaitz Cano Koro Navarro

7 ik tubo 2.

Egongelatik irten eta minutu baten buruan eskuzapi bat eta hortzorearena bezalako **tutu** bat zekartzala itzuli zen. Harkaitz Cano Aitor Arana

Mina kentzeko pilulen **tutu** bat, erreduretarako benden pakete bat. Harkaitz Cano Oskar Arana

8 *ihes tutu* (*10 agerraldi*, *5 liburu eta 2 artikulutan*) ik *ihes 12*.

Kolpe-leungailuak atzeko argiekin bat, lohi-babesak elkar marruskatuz, motoreak marruka, **ihes-tutuak** ketan. -Nik ez dut inoren **ihes-tutua** izan nahi -esan zuen barreka begiak txilotuz. Harkaitz Cano Lopez de Arana

Autoaren **ihes tutuari** hodi bat jarri zioten eta hodiaren muturra autoaren barrura sartu zuten. Harkaitz Cano Berria - Euskal Herria

Ihes-tutuari txinpartak zerizkion, gau beltzean... Harkaitz Cano Joxe Austin Arrieta

9 *tutu malgu* ik *mangera*.

Kale erdian, hutsik zegoen lekuan, suhiltzaileen ibilgailuaren eta **tutu** malgua zeraman bagoi gorriaren letoizko piezek biziki egiten zuten diz-diz. Harkaitz Cano Lopez de Arana

-Horrela bada, **tutu** malgua erabili beharko genuke. Harkaitz Cano Lopez de Arana

Lau zintzilikari, suhiltzailez mozorroturik (bata **tutu** malguarekin, bestea aizkorarekin, hurrengoa suitzalgailuarekin...), eta, erdian, suhiltzaileen autoa, sirena eta guzti. Harkaitz Cano Iban Zaldúa

Zelango irudia osatuko zuten, euren makina tuneleko atean eta **tutu** malguz eta pinturaz barrura jotzea, atean ertzainak zelatan daudela. Harkaitz Cano Urtzi Urrutikoetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berunezko tutu (3); **tutu hotsa** (5); **tutu hotsak** (4); **tutu luze** (4); **tutu triste** (3)

andreaken mintza tutua (3); **mintza tutua** (5); **tutua jo** (11); **tutua jo zuen** (3); **tutua jotzen** (7); **zilarrezko tutua** (4)

tutuak jo (5); **tutuak jotzen** (3)

tutualdi *iz* telefono joaldia.

Begiak itxita, telefonoaren **tutualdi** bakoitzak gela hutsaren xehetasun berri bat ematen dizu. Harkaitz Cano Harkaitz Cano

Agian telefonoa hartuko zuen Nekane hurrengo **tutualdian** eta erabat une desaprobosean harrapatzen zenuela esango zizun. Harkaitz Cano Harkaitz Cano

Eten eta puskatuko duzunaren iraupena hamar **tutualdikoa** izateak benetan zerbait garrantzitsuaren itxura ematen baitio, zernahi izanda ere Nekane egiten ari zen hura.

Harkaitz Cano

tutueria *iz* instalazio bateko tutu multzoa. ik *hoditeria*.

Tutueria itsututa dagoenean eta iturginak askatzen duen moduan egiten diagu guk. Harkaitz Cano Joxemari Iturralde

Eraikin askotan kable sare elektrikoa gasaren **tutuerien** ondoan dago, eta oso arriskutsua da. Harkaitz Cano Berria - Euskal Herria

Araza ez da inbertsioa, auzo honetan kable sareak lurperatzeko **tutueriak** eginak daudelako, baina lotura egitea falta da. Harkaitz Cano Berria - Euskal Herria

tutulu¹ *iz* tutu zati txikia.

Klasean maniobra eta harrabots belikoak hasten zirenean paper bolak eta arroz aleak jaurtitzeko **tutuluak** ziren gure arma nagusiak. Harkaitz Cano Joseba Sarrionandia

Ile txuriak **tutulu**an bildurik atzean. Harkaitz Cano Pablo Sastre

tutulu² *izond* ergela.

Voltaire-k (XVIII) ez du inola onartzen beltz mokolo burugabeak edo eskimo **tutuluak** eta Europako arraza zuria espezie berekoak izan daitezkeenik. Harkaitz Cano Askoren artean

Jadanik ez hain lagundua izanki eta... bere senar **tutuluarekin**. Harkaitz Cano Daniel Landart

tutulutu, tutulu(tu), tutulutzen *da/du ad* ergeldu.

Kanpotik heldu den jendea harritia dago nola tenore honetan herria oraino **tutulutua** dagoen. Harkaitz Cano Michel Oronoz

tutun *iz* botilez mintzatuz, muturra. ik *ttuttun*.

Botila berdearen **tutuna** tinkatzen zuen. Harkaitz Cano Itxaro Borda

Telebistaren aitzinean plantatu zen mando, edaria **tutunetik** beretik zurrutan. Harkaitz Cano Itxaro Borda

Emazte hanpurusak, botila **tutunetik** husten ari zela, erregutu zion: [...]. Harkaitz Cano Itxaro Borda

tuturritu *iz*

Ezkerreko aldean zegoen inbutu antzeko **tuturritua** burutik belarrietara zaldiari bezala erantsi, eskuin aldeko egurrezko kirten handi bati tarra-tarra eragin. Harkaitz Cano Pako Aristi

tututxo 1 *iz* tutu txikia.

Guztiak **tututxo** mehean finkatu zituzten begiak. Harkaitz Cano Jose Morales

Manilovek paper bat atera zuen berokiaren barrualdetik, **tututxo** baten inguruan bildurik eta arrosa koloreko xingola batez loturik. Jose Morales
Gehienetan, zori hobeko jokalariren baten eskuetan amaitzen zuen egun berean, piparekin, toxarekin eta pipako **tututxoarekin** batera batzuetan. Jose Morales
Isurkari hori kanporatzeko, zein bide hobea zakilaren **tututxo** baino? Unai Iturriaga

2 (hitz elkartuetan)

Tabakoz beteriko paper- **tututxo** bat. Jose Morales

tutzi ik **tutsi**.

tweed 1 iz artilezko ehun eskoziarra, itxura landugabekoa, traje eta berokietarako erabiltzen dena.

Berrogeitaka urtekoak, bizardunak, gorbatahunak eta **tweed** -ezko jakaz jantziak. Ramon Saizarbitoria

Berehalaxe antzematen zen hori haren asko ibilieren itxuran, haren **tweedezko** janzki ondo josian eta hitz egiteko modu bipilean. Irene Aldasoro

Tweed -ezko jantziaren gainetik kolpetxoak eman zizkion bere tripa handiari. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan)

Baina maniki bat golfeko arropaz jantzia, eta **tweed** pieza bat, besterik ez zegoen. Koro Navarro

twist iz erritmo laster eta mugimendu biziko dantza, jatorriz estatubatuarra, beso, aldaka eta belauen kulunkatzea ezaugarri duena.

Egongelan, **'Twist'** ala 'Madison' dantzen urratsak ikasten zituzten elkarrekin. Ramuntxo Etxeberri

txa-txa-txa ik **cha-cha-cha**.

txabalinakada ik **xabalinkada**.

txabiske iz adkor oso maila apaleko lokala.

Alde Zaharreko **txabiske** ziztrin batera baizik, hiri osoan dozena bat militante baino gehiago ez zuen taldekka baten egoitza. Aingeru Epaltza

Hogei urte lehenago **txabiske** zikin bat zen "Purple", erdiguneko gure ohiko ehizatokitatik at neska "errazagoen" bila antolatzen genituen espedizioen jomuga. Aingeru Epaltza

Txabiskeak "Memphis" zuen izena, jauregi sasikoa, etxebizitza merkez eta ibilgailuak konpontzeko tailerrez hesitua. Aingeru Epaltza

Aurreko gauean jasotako ostiko eta ukabilkadek min egiten zidaten oraindik, eta ez nuen presa berezirik **txabiske** hartara informazio bila itzultzeko. Iban Zaldua

Guk zer **txabiske** klasetan sartzen den jakiteak ez dik honetara ezkereratsaraziko, ezta? Aingeru Epaltza

txabola 1 iz aldiri txiroetako bizilekua, solairu bakarrekota eta material txarrekin egina; landako etxe txikia, batez ere aberak, tresnak eta kidekoak gordetzeko-eta erabiltzen dena. ik **etxola**.

Salamanca Los Pizarrales auzoko **txabola** batean. Pablo Sastre

Orain **txabola** batean bizi da amarekin, lau nebarekin eta bi ahizparekin. Gotzon Garate

Txabolako atea behera bota zutenean, oiloak, untxiak eta gu, denak harrapatuta geunden. Jon Maia

Bere onera etorri zenean, mujik baten **txabolan** zegoen. Karlos Zabala

Gero dena aldatzen da, etxeak gehiago dira **txabola** baserri baino, eta basoak daude baratzeen ordez. Koro Navarro

Bizileku txiki eta pobreak egiten irakasten zien, zurezkoak, ez harrizkoak, egitura apaleko **txabolak**. Askoren artean

Nola bizi liteke jendea holako **txaboletan**? Gotzon Garate

Hotelaren eta errepide nagusiaren artean orube bat zegoen, erdi abandonaturik, eta orubearen bazter batean **txabola** bat, hondakinez eta traste zaharrez beterik. Anjel Lertxundi

Txabolan, oilo eta untxi kaiola artean etzan ginen, uzkurtuta eta isilik. Jon Maia

Zelaien **txabola** handi samar bat zegoen eta haren ondoan ardientzako artegia, **txabola** bera baino handiagoa. Aitor Arana

Ikazkinen surik ez basoetan, meatzarien kanpamenturik ez harrobi zokoetan, ezta **txabola** galdurik ere zuhaitzen artean. Karlos Zabala

Txabolako atarira bi aulki atera eta izarrei begira hartu genuen kafea. Aitor Arana

Txabolako atea behera bota zutenean, oiloak, untxiak eta gu, denak harrapatuta geunden. Jon Maia

Aitak berehala egingo zuen **txabola** bat etxetik ez oso urrun, pinudirako bidean. Jon Maia

Txabola bat sumatu zuen zuhaitzen artean, oraindik kea zeriola. Karlos Zabala

Atsegin zaio orain mendian oinez ibiltzea [...] edo borda batean babestuta lo egitea ere, edo behiala isotermo izandako kamioi-kaxa orain **txabola** bihurtuan bestela. Juan Luis Zabala

Hauxe da nire zigorra: txakurraren **txabolan** bizitzea. Julen Gabiria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Beren soinekoak laga dituzte ezagutzen ez nuen **txabola** zatar batean. Txillardegi

Lana bukatu eta **txabola** xaxtar batean bilduko dira amarekin. Gotzon Garate

Asis inguruan zegoen **txabola** baztertu batera bildu zen, eta han, neke eta behartasun handietan, pobretasun santuaren arabera bizi ziren. Askoren artean

Baserri isolatu batzuk ozta-ozta, edo jende xeheen **txabola** soilak! Karlos Zabala

Aldirietan **txabola** errukarriek beren aurpegi itsusiak erakutsiko dizkizute. Gotzon Garate

Mendiko **txabola**ren eskuin aldean etzanik, tristeziak hiltzera utzi zuen bere burua. Itxaro Borda

Herrikka baino gehiago, lastozko **txabola** batzuk dira, sasiz eta larrez inguratuta. Gotzon Garate

Bertze jende miserable batzuk plantazioneko beheko partean bizi ziren, lastozko **txabola** batzuetan. Joan Mari Irigoien

Uralitazko sabaidun **txabola** txuriak. Joxe Austin Arrieta

Herbertek benetan sinetsi ere bai, indiar **txabola** hutsezko Palenque hartan, zinema egon bazegoela. Joxe Austin Arrieta

Eseri egin naiz aulki luzeetako batean, surfarien **txabola** itsusiaren inguruan. Txillardegi

Errabinoak bazuen **txabola** txiki bat bere etxetik ez oso urruti, Sukkoth-eko jaietan erabiltzen zena. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aireportua utzi eta handik gutxira, ezker-eskuin agertzen hasi ziren **txabola**-auzoak. **Xabier Montoia**
Lur idor eta hutsezko zerranda batean zehar, lehenbiziko **txabola**-lerrotik, iskanbila-hotsak datoz. **Oskar Arana**
Errekatxo zikin baten ondoan **txabola** mailara iristen ez diren oihalezko bizitegi urratuak ikusiko dituzu, jendez beterik. **Gotzon Garate**
Bi egurzaleak **txabola** bazterrean etzan dira beroaren izpiak nondik berenganatuko. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**
Gorantza abiatu aurretik gehienok **txabola** itxurako komunetik igaro gara. **Patxi Zubizarreta**
Orduantxe ikusi zuen **txabola**-biltegia, berak lan egiten zuen tailer erraldoi haien osteko Playabarri auzo txikian. **Paddy Rekalde**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Indio-**txabola** baten barruan zegoen, euritik hosto-sabai soil batez babestua. **Joxe Austin Arrieta**
Artzain **txabola** ordu erdira zegoen. **Jokin Muñoz**
Ahuntzain-**txabola** batzuen ondoan zeuden eta, hantxe gaua pasatzea erabaki zuten. **Patxi Ezkiaga**
Mutirik txakurtegi deitu zuena, berriz, ez zen ardi-**txabola** erdi erori bat baino. **Anjel Lertxundi**
Kuxandarren oihal-etxolak deseginak ikusi ditut, madiandarren oihal-**txabolak** astindurik. **Elizen arteko biblia**

5 irud/hed

Txabolatik jauregitik baino bizkorrago igotzen da zerura. **Askoren artean**
Tronutik **txabolaraino** jaisten den eta gizon handiena eta txiroena berdin lotzen dituen obligazio honek [...]. **Juan Martin Elexpuru**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artzain txabola (7); **bere txabola** (3); **lastozko txabola** (3); **nire txabola** (3)
txabola auzoak (3); **txabola auzoen** (3); **txabola auzoetako** (4); **txabola auzoetan** (4); **txabola barruan** (6); **txabola berri** (3); **txabola daude** (3); **txabola handi** (3); **txabola txiki** (3)
txakurraren txabola (3)
txabolako teilatu (3)
bere txabolan (4); **txabolan sartu** (6); **txakurraren txabolan** (3)
txabolara eraman (3); **txabolara joateko** (3)
txabolatik atera zen (4)
txaboletan bizi (7)
beheko txaboletarat (4)

txaboladi *iz* txabola-multzoa, txabola-auzoa. ik txabolategi.

Jamestown jarri zioten izena **txaboladiari**, eta beren koloniar Virginia deitu zioten. **Juan Garzia**

txabolamodu *iz* txabola moduko bizilekua.

-Mendialde guztia ibili dut goitik behera don Bartolomé San Juan ezkututzen den txokoaren bila, harik eta azkenean topatu dudana arte, hango zulo batean galduta, enborrez egindako **txabolamodu** batean bizitzen **Juan Garzia**

txabolategi *iz* txabola-multzoa, txabola-auzoa. ik txaboladi.

Ibai-hegian, **txabolategi** bat bazegoen. **Ramuntxo Etxeberri**
Txabolategietan metatzen dira. **Ramuntxo Etxeberri**

txabolatxo *iz* txabola txikia.

Ez zutela **txabolatxo** bakar bat besterik, lastoz estalia eta zume eta buztinezko hormaz egina. han sasi eta zuhaixka ugariak gordeleku edo **txabolatxo** moduko bat zeukaten erata. **Askoren artean**
Bera igogailutik ateratzen ikusi bezain laster egunkari eta aldizkarien **txabolatxoan** sartzen zela presaka. **Joxemari Iturralde**
Erortzeaz dagoen **txabolatxo** bat. **Julen Gabiria**

txabolismo *iz* txabola-metaketa.

Martainville auzo aldera jo nuen, auzo pobre horretan, **txabolismoaren** mugan, sendagileak ulerkorragoak izango zirelakoan. **Joseba Urteaga**

txabolo *iz* adkor kartzelako gela.

Atsedetik gabe setiatzen gintuzten, sosegurako tartetxorik utzi gabe; **txaboloan** bezala galerian eta galerian bezala patioan edo jangelan. **Jokin Urain**
Galeriako lehena zen nire **txaboloa**; neu kontatzen ninduten lehenengo, eta jarraian gainerakoak. **Jokin Urain**
Arratsaldean, behin askatasun agiria jasota, funtzionarioak esan zidan **txabolora** joan behar nuela. **Berria - Euskal Herria**
Itxialdiko lehen sei hilabeteen ez ginen **txabolotik** atera ezertarako. **Jokin Urain**

txabusina 1 *iz* jantziak ez zikintzeko, horien gainean jartzen den soinekoa, atzealdean edo aurrealdean lotzen dena. ik mantal.

Azpiko arroparen gainetik **txabusina** jantzi eta pertsiana ireki zuen. **Joxemari Urteaga**
Hainbat botila eta lanabes sartu zituen maletatxo batean, **txabusina** erantzi eta berokia jantzi zuen. **Mirentxu Larrañaga**
Barre egin zuen Mentxuk eta **txabusina** kenduta oheratu egin zen ostera. **Josu Landa**
Txabusina soineratzen zuen bitartean gizonaren galdera entzun zuen. **Josu Landa**
Txabusina dauka jantzita, oinutsik dago, ilea bustita. **Oskar Arana**
Ospitaleetako gaixoei jartzen zaien **txabusina**. **Harkaitz Cano**
Txabusinak gorputz borobila inguratzen ziola irten zen bainugelatik, txistuka, beratuta eta berrituta. **Joxemari Urteaga**
Emakumetxoak **txabusinaren** sakelatik tabako-poltsatxo bat atera eta pipa galkatzen hasi zen. **Alberto Ladrón Arana**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez zuen uniformerik janzten, etxean egoteko **txabusina** dotore bat baizik. Alberto Ladron Arana
Josuren **txabusina** zaharra zekarren, gaur ere, soinari estu-estu lotua. Aingeru Epaltza
Laborategiko **txabusina** zuria aulkiaren bizkarralde altzairuzkoan zegoen zimurtuta. Josu Landa
Horixe polita! -izeba sartu zen egongelan, etxeko **txabusinaren** azken botoiak lotuz-. Joxemari Urteaga
Sarraski teknologikotik salbatutako langile urrien lohihartzeko tintaz zikinduak **txabusina** zuriek ordezkaten. Aingeru Epaltza
Ohean etzanda zegoen, kotoizko **txabusina** zeru-urdin bat jantzirik. Lopez de Arana
Edunek betiko **txabusina** koloretsua baizik ez zeraman soinean, eskuin txorkatila uztaitzen zion zilarrezko katea aparte utzita. Aingeru Epaltza

3 (hitz elkartuetan)

Behingoan aldatu eta bainu- **txabusina** eta etxeko zapatillak jantzi zituen. Joxemari Urteaga
Bainu **txabusina** jantzita, bere logelara joan eta armairuak zabaltzeari ekin zion. Joxemari Iturralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
txabusina jantzita (7); **txabusina zaharra** (4)

txadar *izlag/iz* Txadekoa, Txadi dagokiona; Txadeko herritarra.

Ia 70 miliziano sudandar hil dituzte soldadu **txadarrek**. Berria - Mundua
Txadar guztiak euren aukera azaltzera etorri behar dute, bihotzez egin behar dute aukeraketa. Berria - Mundua
Sudango Armadaren bonbak Txadeko eremuan erori ziren, mugatik gertu, eta hiru **txadar** hil zituzten. Berria - Mundua

txador *iz* andre musulmanen burua estaltzen duen belo luzea.

Emakumeak goitik behera estalita ageri dira, ia denak **txadorra** jantzita, gehienez ere aurpegia erakutsiz. Jon Arretxe
Itxura berdintsua zeukaten gehienek: soingaineko luzea bai baina **txadorrik** ez. Jon Arretxe
Islamaren presentzia han Sumatrako gainontzeko eskualdeetan baino handiagoa dela baieztatzeko bi datu erabil daitezke: bat, emakume guztiak ilea **txadorraz** estalita eramaten dutela; eta, bi, errezo jendetsuek. Berria - Mundua
-Gertatzen dena da -erantsi du beste batek, **txadorra** zeramaten urrietako batek-. Jon Arretxe
Mendebaldar kutsuko *fast-food*-ak, **txadorra** barik buruko fular hutsa janzen duten emakume gazteak... Jon Arretxe

txafla ik **xafla**¹.

txaflakatu ik **xaflakatu**.

txahal (*orobat xahal g.er.*) 1 *iz* behiaren umea, arra nahiz emea. **ikzekor**; **aratxe**.

Txahala egin behar zuen behiak ozen entzunarazi zuen bere marruma. Koldo Biguri
Han aritu ziren Bereziartua bera eta baserriko gehienak, tira handik eta tira hemendik, **txahala** mundura ekarri nahirik. Joxerra Garzia
Bi betizuok **txahal** banarekin zeuden. Gotzon Garate
Txahalak hazten ari ziren bi behi hartu, uztartu eta gurdian lotu zituzten; **txahalak**, berriz, ikuluan utzi zituzten. Elizen arteko biblia
Biren bat urteko **txahalaren** larruaz egina. Patxi Ezkiaga
Ekarri **txahal** bat, ahuntz bat eta ahari bat, hiruna urtekoak. Elizen arteko biblia
Urdaiazpiko handiak, **txahal** eta txerrien atal ederrak. Karlos Zabala
Txahalaren bekokian adarrik agertu aurretik, eurekin jotzen eta erasotzen saiatzen da, haserretzean. Xabier Amuriza
Txahalak behiengandik bereiziko zituzten goizean. Xabier Olarra
Nahiz ezer ez jakin ardiekin mendian ibiltzeaz edo **txahal** bati biberoi esnea emateaz, mira sentitzen nuen lan xehe haiekiko. Bernardo Atxaga
'Behi eroen' gaitzak eritu ezin duen **txahala** klonatu dutela diote Txinan. Berria - Gaiak
Jango dutela goizetik gauera hamar erraldeko **txahala**. Anjel Lertxundi
Behi eroen gaitzak eritu ezin duen **txahal** transgenikoa sortu dutela klonazio bitartez. Berria - Gaiak
Okela astoarena omen zen, ez **txahalarena**, eta katu batek ogerleko bat balio zuen. Joseba Sarrionandia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txahal -hezur bat marraskatzeari ekin zion. Jose Morales
Arrautza frijituak berakatzarekin, **txahal** -txuletak, patata frijituak eta brokolia jaten. Lopez de Arana
Orain, **txahal** -saiheski erdia ahiarekin eta platera adinako *vatrushkak* jaten dituk. Jose Morales
-Zer moduz, Elaine? -esan zuen Harry Goldweiserrek, Ellenen atzean eserita, bere **txahal** -burua astintzen zuen bitartean. Lopez de Arana
Bai, jauna, eta orobat **txahal** -larruz. Juan Garzia

3 **txahala bota** oka egin.

-Oskar dago komunean **txahala** botatzen. Jon Arretxe
Ilunabarrean, atera dira denak herritik, moxkor samarrak, eta bidean **txahala** botatzera ere gelditu da baten bat. Koro Navarro
Txahala bota eta deskantsu pixka bat hartzeak on egingo lioke. Patxi Iturritegi
Gure alboko mahaian mutil batek **txahala bota** zuen. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
txahala bota (5); **txahala egin behar** (3)

txahalki 1 *iz* txahalaren haragia, txahal okela.

Urdai saltzaileak, salmahaiaren gainetik aurrera makurtua, eskua **txahalki** betearen lurrontzian paraturik, entzun egiten zion. Karlos Zabala
Hobe barazkiak maitasunarekin, **txahalki** gozoa gorrotoarekin baino. Elizen arteko biblia
Txahal jaioberria gorputza inguratzen dion mintzetik jareitean. Xabier Amuriza

2 (neurriekin)

Kilo bat ogi osatzeko kilo bat labore behar da; kilo bat **txahalki** egiteko, ordea, 16 kilo labore. Edorta Agirre

3 (hitz elkartuetan)

Eraman ezazu mingain bat, edo txerri buru puska bat, edo urdaiz beteriko **txahalki** xerra bat. Karlos Zabala

Eguna amaitzeko, **txahalki** -puska hotz bat eta litro erdi aza-zopa mikatz zerbitzatu zizkioten. Jose Morales

txahaltxo iz txahal txikia.

Fabrikan egingo zuela lan, aitzak bezala, eta txerriak eta bi **txahaltxo** jarriko zituztela. Gogoia sabaitik jaitsi duenean, jai berri den **txahaltxoaren** begirada aurkitu du hortxe parean. Alberto Barandiaran

txaiote iz kukurbitazeoen familiako landare igokaria, jatorriz Mexiko eta Ameriako Erdialdekoa, fruituagatik lantzen dena (*Sechium edule*).

Txaiotea, Txinako patata gozoa, txirimoia, zidra eta beste hamaikak ere Euskal Herriko klima desberdinetan, errentagarri gertatzen diren heinean. Edorta Agirre

txairo 1 izond dotorea eta liraina, baldartasunik gabea.

Atsegina zen, polita bainoago; ona, buruargia bainoago; **txairoa** eta liraina, emakume klasikoak bezala. Jose Morales

Liraina eta **txairoa** zen, bera bezalako graziosa. Joxan Elozegi

Jarb zakurraren mutur lodira igortzen zuen kea, Jarben usinak, etxeokandre **txairoaren** barrea. Jose Morales

Richard Ford ingelesak, gutxi gorabehera Victor Hugoren garai berean, Donostian Urumeako batelerak ikusi eta ez ditu Manierrek Irungoak eta Hugok Pasaiaikoak bezain **txairoak** aurkitu, maskulino eta zartanak baizik. Koldo Izagirre

Munduan den jende **txairo** guztia da bazkide, heriotza ezertan ez duela itxura emateko. Josu Zabaleta

Hain zen **txairoa** eta ederra, ezen gogora ekartzen baitzuen gau zuri bat hegoaldeko lekuren batean, itsasertzean, nekostekin eta haien itzal beltzekin. Jose Morales

2 (adizlagun gisa)

Gizonak erabakitsu, jaseko, **txairo**, makinak bezala doaz. Gailentzen ari zen, **txairo** ageri zen bere postuan, apain-apaina, orrazkera ezin korapilatsuagoak buruan zituela.

Gotzon Garate

txairoki adlag txairotasunez.

Batek gorbata txo arina zeraman; beste bati **txairoki** biltzen zion lepoa zapi mehe batek, "musuak" deritzen gozopil horiek bezain arina. Jose Morales

Soineko zuri eta ia arrunta, zeinak **txairoki** eta leunki biltzen baitzuen alde guztietatik neskaren gorputz gazte eta liraina, haren atalak garbi nabarmenduz. Jose Morales

txairotasun iz txairoa denaren nolakotasuna.

Ibiltzen hasi, ordea, eta **txairotasun** guztia galtzen zuen. Gotzon Garate

Txairotasun handia erakusten zuen mugimendu guztietan, Jose Morales

txakal¹ (orobat *xakal g.er.*) 1 iz otsoaren antzeko ugaztun haragijalea, Asian eta Afrikan bizi dena, batez ere animalia hilez elikatzen dena (*Canis aureum* eta beste).

Gizakiak **txakala** bezalako haragijale batetik zakur orojalea atera du; baina mende asko behar dira horretarako. Josu Zabaleta

Basastoak ere geldi daude mendian, **txakalak** bezala aireari usnaka. Elizen arteko biblia

Edomdarren mendialdea lur soil bihurtuko dut, eta haren sailak basamortuko **txakalei** utziko dizkiet. Elizen arteko biblia

Esku-argi luxu batekin, *ridgeback* eta **txakalaren** nahasketa dirudien txakur gazte baten eztarria ari da miazten. Oskar Arana

Plazer-gose den arraren ametsa, irrika, hantustea, berekoikeria, bekaitza, mendekua, grina guztiak gordetzen dituk giza arimaren gauean, beti zelatan, nola egoten baitira puma, putrea, **xakala** sortaldeko gauetako basamortuan. Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jerusalem harri-pila bihurtuko dut eta **txakal**-zulo. Elizen arteko biblia

Txakal-kume bat. Oskar Arana

Dendaren zirrikituti begiratu eta **txakal** talde bat ilargi argitan lasterka ikusten dudanean, haietako bat zarela bururutzen zait, eta nigana zatozela aldi hartan etorri zinen bezala. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txakal zulo (4)

txakal² izond ahula.

Kontrario Sebastian Gonzalez izango zuela jakin zuenetik hasi zen Iberokoia ezkertiarren kontrako taktika prestatzen, haren eskuin esku **txakalari** nondik edo handik zukua atera nahian. Berria - Kirola

Ezin nuen eraman aitaren porrota beste deus erakusten ez zuen **txakalen** erretolika beti berdin hura. Anjel Lertxundi

txakalaldi 1 iz ahulaldi larria.

Alkoholak sortutako **txakalaldiak** logalea eragin zion, eta ordu batzuetan lasai egon zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oso mantso hasi zen liburu horren bizitza, eta, gaia dela medio asko saltzekoa ez zen arren, **txakalaldirik** gabe egin du bere bidea hogeitertean, hasierako 4.000 aleko tirada erraldoia iraingitzaeraino. Pako Aristi

2 (txirrindularitzan-eta)

1996ko Tourrean euria eta hotza izan zituen arerio gogorrenak lehen astean, eta haien ondorioz izan zuen nonbait **txakalaldia** Les Arcsen gora. Berria - Kirola

Jasandako **txakalaldi** ikusgarriekin ere ezagun egin zen Hinault. Berria - Kirola

Tourra iraganera itzuli zen atzo, aspaldian ahaztuta zeuden **txakalaldien** garaira, ziklismoa humanoagoa zen sasoiatar, gorabeherak eguneroko kontuak ziren denboraldietara, zientziak perfekzioaren arrastorik erakusten ez zuen urteetara. Berria - Kirola

Txakalaldi serioa izan du azken bi urteetan, baina sasoi honetan dotore ari da berriro. Berria - Kirola
Bigarrenean, ordea, Lasaren **txakalaldiaz** ohartu ziren Olaizola I.a-Otxandorena kontrarioak, eta aise irabazi zuten gero (22-8). Berria - Kirola
Gonzalez jokoan sartu zen, **txakalaldiak** Xala jo zuen eta markagailua goitik behera aldatu zen. Berria - Kirola
Txakalaldirik ez duela izan erakutsi nahi du Osasunak, Deportivori lehen aldiz Riazorren irabazita. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txakalaldirik ez (3)

txakar iz izpia, tantoa.

Gizon arrunta zen hura ere: **txakarra** ikusten zuen lagun hurkoaren begian, eta berean berriz habea ere ez. Bernardo Atxaga
Individualtasuna beti gelditzen da markatua, eta, logikoa den bezala, marka hori, **txakar** hori, tradizio eta gizartetik datorkion habea baino gehiago ikusteko joera izaten dugu. Bernardo Atxaga
Nire pozari, nire ideiarekin jiratze biziari, **txakar** batek bakarrik egiten zion enbarazu. Bernardo Atxaga

txaketa 1 iz jaka.

Telefonoa eskegi eta **txaketa** hartu zuen pertxerotik. Harkaitz Cano
Bai, **txaketa** hartu eta irten egingo zara. Lourdes Oñederra
Teresak **txaketa** eta gona horiko traje bat zeraman, eta poltsa zuri bat, sorbaldatik zintziilik. Bernardo Atxaga
Erabiltzen ditugun **txaketak** ere askoz ere dotoreagoak dira. Pello Salaburu
Soineko erantsi bat darama, kolore urdin argikoa, eta gainetik lihozko **txaketa**; oinetan, zapata zuri takoidunak. Bernardo Atxaga
Juliak puntuzko **txaketa** bildu du bizkar gainean. Alberto Barandiaren
Zure antezko **txaketa** berria. Harkaitz Cano
Bata beltzarana eta zurbila bestea, biak gazteak, eguzkitako betaurreko merkeak, hirulaurdeneko **txaketak** soinean. Unai Iturriaga
Ez zitzaidan gustatu Monikari **txaketa** kentzen laguntzeko egin zituen imintzioak eta eskotera begiratzeko modua. Joxean Agirre
Txaketaren poltsikotik zigarro paketea atera zuen. Bernardo Atxaga
Txaketako patrikatik katalogotik erazitako argazkia atera zuen eta espaloiairen bestaldean zihuan emakumearekin erkatu zuen. Harkaitz Cano
«Nahikoa da jakitea Txinan fabrikatutako polarrezko **txaketa** bat 7 euroan iristen dela Marseillako portura Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

Txaketa -lepotik heldu, eta astindu nuen. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txaketa beltz (3)

txaketatxo iz txaketa txikia.

Edurneren pakete bat eman ziguten, barruan eskutitz bat zekarrena eta, horrez gain, umearentzako **txaketatxo** bat, Xabier Mendiguren Elizegi

txaketero izond adkor bere interesen arabera iritzi politikoak adlatzen dituen.

Ezagutzen den erorikorik nabarmenena Tarsoko Pablo harena izan zen, **txaketero** gisa gogorki maiseatu izan dutena gure egunkari alderdikoi zenbaitek. Xabier Olarra

txaketila iz irud/hed arduraduna.

Goal dio eskola maisu, fabrikako **txaketila**, euskaltzain, bankero, idazle, ekologo, artista, edo beste edozein zozologo herrisalbatzaile izan. Patziku Perurena

txakil¹ (orobat izond txankil) izond kemen gutxikoa, ahula; esanahi zehatzik gabeko irain hitza.

Zintzurretik heldu zidan, **txankil** gaixoak. Matías Múgica
Horregatik emegatzen naute azken 15-20 urteotak o partidak baizik ikusi ez dituzten kazetarien izenburu handiosek, eurek ezagutu duten txapeldunik handiena baino handiagorik inoiz izan ez dela ziurtatzen diguten **txakilen** baieztapenek. Berria - Kirola
Zertara, eta beren tresna **txakil** horietako batean 901/4 jartzen zuen leku batera! J.M. Olaizola "Txiliku"

txakil²

1 txakil ardo

Badira edo izan dira hor nonbait ezbehar honen kontra asmatutako arinbideak, eta horietako bat da, edo zen, **txakil-ardoa** (hots, "zakil-ardoa") izeneko usadio beneragarria. Neska ederrari edo dotore bati laguntzen zionak, berriro tabernara lagunetara etorritakoan, **txakil-ardoa** atera bear izaten zuen. Iñaki Segurola

txakoli ik txakolin.

txakolin (orobat txakoli g.er. eta txakoliñ g.er.) 1 iz berez Euskal Herriko itsasaldean bertako mahatsez egiten den ardo mota arina eta garratz samarra.

-Bolinagan, **txakolina** edaten. Xabier Etxabe

Txakolin edaten. Iñigo Aranbarri

Han hartu dugu **txakolina**. Berria - Harian

Arabán, Bizkaian eta Gipuzkoan, halaber, **txakolina** egiteko mahatsak datorren hilean jasotzen hasiko dira. Berria - Harian

Sagardoa eta **txakolina**, horiek gure udazkeneko emariak dira. Pello Zabala

Txakolinaren efektuak ere lagundu zion berritsuago agertzen. Josu Landa

Txakolin argi, **txakolin** gorri, ardo txuri, ardo gorri, ardo beltz, ardo latz eta ardo goxo... Pello Zabala

Ez **txakolin** freskorik ahoan, ez Bibi aldamenean. Paddy Rekalde

Andresentzat beste kopa bat eta Bombarentzat botila bat **txakolin** ordainduta utzi ditu. Paddy Rekalde

Kaxa bat **txakolin** ekarki zidan opari. Aingeru Epaltza

Txakolin, **txakolin**, **txakolinak** on egin. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan)

Herri askotan egin ohi den ardo, **txakolin** edo sagardo festa horietako bat. Anjel Lertxundi

Txakolin botila batzuen bila. Paddy Rekalde

Andresek **txakolin** baso luzanga luzatu dio Bombari. Paddy Rekalde

Sukaldari lehiaketa, **txakolin** jastaldia, dantzak, hitzaldiak ala bazkaria, denak ederki joan dira. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txakolinak on egin (9)

txakolin *(orobat txakoli g.er. eta txakoliñ g.er.)* 1 iz berez Euskal Herriko itsasaldean bertako mahatsez egiten den ardo mota arina eta garratz samarra.

-Bolinagan, **txakolina** edaten. Xabier Etxabe

Txakolin edaten. Iñigo Aranbarri

Han hartu dugu **txakolina**. Berria - Harian

Arabán, Bizkaian eta Gipuzkoan, halaber, **txakolina** egiteko mahatsak datorren hilean jasotzen hasiko dira. Berria - Harian

Sagardoa eta **txakolina**, horiek gure udazkeneko emariak dira. Pello Zabala

Txakolinaren efektuak ere lagundu zion berritsuago agertzen. Josu Landa

Txakolin argi, **txakolin** gorri, ardo txuri, ardo gorri, ardo beltz, ardo latz eta ardo goxo... Pello Zabala

Ez **txakolin** freskorik ahoan, ez Bibi aldamenean. Paddy Rekalde

Andresentzat beste kopa bat eta Bombarentzat botila bat **txakolin** ordainduta utzi ditu. Paddy Rekalde

Kaxa bat **txakolin** ekarki zidan opari. Aingeru Epaltza

Txakolin, **txakolin**, **txakolinak** on egin. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan)

Herri askotan egin ohi den ardo, **txakolin** edo sagardo festa horietako bat. Anjel Lertxundi

Txakolin botila batzuen bila. Paddy Rekalde

Andresek **txakolin** baso luzanga luzatu dio Bombari. Paddy Rekalde

Sukaldari lehiaketa, **txakolin** jastaldia, dantzak, hitzaldiak ala bazkaria, denak ederki joan dira. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txakolinak on egin (9)

txakolindegi iz txakolina zerbitzatzen eta saltzen den etxea edo denda.

Orduan Hogar Vasco delakoak bazuen frontoia, bazuen **txakolindegia**, bazuen lorategi itzaltsua, bazituen joko-gelak eta bazituen dantzalekuak ere. Edorta Jimenez

Txakolindegi batera eramaten zuen, Sarriko atzean zegoen batera. Paddy Rekalde

Txoro ostia bat, Bilboko kaleek **txakolindegiz** josita jarraitzen dutela pentsatzen duten horietakoa. Hasier Etxeberria

Getariako Ameztoi **txakolindegian** dantza, musika eta bertso ikuskizuna izango dira gaue. Berria - Kultura

Txakolindegitik arandegira. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

getariako ameztoi txakolindegian (5)

txakolingile iz txakolina egiten duen pertsona.

Kalitate oneko 300.000 kilo mahats biltzea aurreikusten dute aurten Arabako **txakolingileek**. Berria - Ekonomia

txakur *(2033 agerraldi, 185 liburu eta 145 artikulutan; cf. zakur 3130 agerraldi, 191 liburu eta 108 artikulutan; xakur 235 agerraldi, 11 liburu eta 101 artikulutan)* 1 iz etxe ugaztun haragijalea, otsotik datorrena, arrazen arabera hainbat tamaina eta eite dituen *(Canis familiaris)*. ik **zakur**.

Txakur bat ate ondoan loturik zegoen. Juan Kruz Igerabide

Txakur bat zaunka eta zaunka ari da, mekanikoki, etengabe. Oskar Arana

-Zure **txakurrak** hozka egin dio nire nebari. Juan Kruz Igerabide

Txakurrak aztoratu egiten dira Lucy ikustean. Oskar Arana

Lepokotik heldu **txakurrari**, katea lotu eta sorbalda laztandu zion gero, ezinegona baretzeko asmoz. Joxemari Urteaga

Txakur batzuek eraso diote, dio emakume zaharrak. Oskar Arana

Banan-banan botatzen ditu **txakurrak** zulora, eta gero lurrez betetzen du hobia. Oskar Arana

Txakurrak oka egiten du, zurrun jartzen da, eta azkenean lasaitu egiten da. Oskar Arana

-Nik ere ezagutu nuen **txakur** bat gizon bat salbatu zuena. Joan Mari Irigoien

Hori gertatzen da **txakur** bat izateagatik umezain. Julen Gabiria

Txakurra gai da, pertsona baten eskua usaindu eta gero, pertsona hori bera besapeko usainetik ezagutzeko. Irene Aldasoro

Zenbat eta **txakur** gehiago, orduan eta errazago uxatzen dituzu etsaiak. Oskar Arana

Txakurra jan genuen, eta **txakur** bihurtzen ari ginen. Juan Kruz Igerabide

2005. urtearen hasieran lehen aldiz **txakur** bat klonatzea lortu zuela jakinarazi zuen. Berria - Gaiak

Txakurren zaunkak ozenago entzuten dira berriro, aztoratuago. Oskar Arana

Txakurren ulua entzuten diat eta ulu egiten uzten zieat. Juan Garzia

Txakurrari ezarri eta emazteari gezurrak. **Edorta Jimenez**

Ni **txakurarenak** botatzen ari nintzen janzen ari nintzen bitartean. **Josu Zabaleta**

Baina, esan bezala gertatu zen, oina zapaltzen zion beste bidaiari bati **txakurarenak** entzunarazi ondoren, tipoa esertzera joan zen besterik gabe. **Xabier Olarra**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Leinu garbirik gabeko **txakur** gorraile bat zen, sasikoa, jipoitu-itxura uzurrekoa. **Juan Garzia**

Batzuetan **txakur** txikiak ere aukeratzen dituzte, zakur borrokalariek entrenamendu pixka bat izan dezaten. **Gotzon Garate**

ik beherago 25. **Askoren artean**

Orain gutxi itsu bat ikusi dut, bide-erakusle **txakur** txiki bat besterik ez zuena. **Askoren artean**

Txakur handi bat badaramadala ere esan nion, txakur alfer eta alferrikako bat. **Hasier Etxeberria**

ik beherago 22. **Askoren artean**

Atarian **txakur** handi bat zeukaten, katez lotuta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Begi zurbileko **txakur** beltz handi bat. **Iñaki Mendiguren**

Basurde-ehizarako **txakur** beltz erraldoi bati lepokotik helduta. **Iñaki Mendiguren**

Txakur gazteak sokatik tiraka askatu nahirik. **Oskar Arana**

Zein izango eta Bran, **txakur** leiala, ihesi joan zen ezpata hortz artean zekarrela. **Txakur** otzana gramolaren aurrean, adi. **Joanes Urkixo**

Arraza nahastuko **txakur** ziztrin batzuk. **Oskar Arana**

Nola igaro hiru buruko **txakur** erraldoi baten ondotik. **Iñaki Mendiguren**

Etsaia **txakur** zaunkari beldurgarria zen garaian, ETA bazen zerbait. **Joseba Zulaika**

Lapurrek sei **txakur** zaindari tirokatu eta bertan hil zituztenean, [...]. **Oskar Arana**

-**Txakur** galduren bat izango zen -esan zion Hermionek lasai. **Iñaki Mendiguren**

Txakur makilatua ibilera abailduarekin desagertu zen gure bistatik. **Anjel Lertxundi**

Hartara, **txakur** hilak zaborretan utzi beharko lirateke asteburuetako gainerako zaramarekin batera. **Oskar Arana**

Bere jabeak gurtzeko eta miazteko dagoen **txakur** depresibo bat. **Iñaki Segurola**

Kaleko **txakur** bilakatzeko erabakia hartu nuenez geroztik, denetik gertatu zait, gauza sinesgarriak nahiz sinesgaitzak. **Jon Arretxe**

Lanerako **txakurrak**, aldi batean zaintzeko ematen dizkidatenak. **Oskar Arana**

Lagun egiteko **txakurrak** udako oporraldietan ekartzen dizkidate. **Oskar Arana**

-**Txakur** batek hozka eginez gero, erotu egiten da bat, **txakur** amorratu bihurtzen da. **Juan Kruz Igerabide**

Txakur ahulak arkakuso asko, esan ohi da. **Imanol Zurutuza**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haiek **txakur** burua duen gazte bat ere badago. Laukiekiko txalekoa zuen eta, **txakur** -buru batez apaindutako iskilinba bat ere, brokatuzko gorbatan iltzaturik. **Monika Etxebarria**

Gordailuaren barruan, besteak beste, bi **txakur** burezur aurkitu zituzten. **Berria - Harian**

-Ez dugu inoiz jan **txakur** -haragirik. **Juan Kruz Igerabide**

Zure emazteak hiru poltsa **txakur** -jan hartzeko esan du. **Xabier Olarra**

Nik supermerkatuko **txakur** -janari nazkagarria jan behar izaten nuen sukalde txokoko ontzi zikinean. **Jon Arretxe**

Larruzko txupa, **txakur** kate bat lepoan eta militar botak. **Sonia Gonzalez**

Belarriak zorrotz gero, oihauek, **txakur** -zaunkak, tiro-hotsak bereiz zitezkeen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Inor ere ez inguruetan, **txakur** zaunka eta uluak bakarrik. **Joseba Sarrionandia**

Guztietan **txakur** etxolak ikusi zituen, baina animalien arrastorik gabe. **Bernardo Atxaga**

ik txakurretola.

Emozioaren muina dena literaturan, kazetariaren **txakur** -zuloa izan daiteke. **Iñigo Aranbarri**

Gero, beti **txakur** -itxuraz, kontinentera etorri nintzen igerian. **Iñaki Mendiguren**

Azkenaldian dabilen **txakur** piloarekin, ez dakizu nondik joan auzora. **Jon Maia**

Amaitu dute egun horretako **txakur** -hilketa, poltsa beltzak atean daude pilatuta. **Oskar Arana**

Azkenean, izebak **txakur** -saltzaile bati saldu zion txakurra. **Juan Kruz Igerabide**

Goizero jartzen zion mutur aurrean, harekin mendeka zedin egin zitzaion irainaz, eta bere **txakur** -ohorea berreskura zezan. **Juan Garzia**

Txakur jendea. **Iñigo Aranbarri**

Guztiak ere etxe-etxeokak ziren, eta ez dakit nola aukeratzen zituzten: tipula, baratxuri, azenario, lapabelar, ahabia, milorri, sahots, salbia, erromero, **txakur** -arrosa, ipuru. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Inoiz ikusi duzue erbi- **txakur** bat Lorategietako hesiak saltatzen? **Julen Gabiria**

Azeri- **txakurrek**, polizia- **txakurrek** eta, berrikiago, ekipaje piletan marihuana eta beste narkotiko batzuk bilatzeko trebaturiko txakurrek, denek erakusten dituzte giza sudurrak iristerik ez daukan usaimen-ahalmenak. **Irene Aldasoro**

Alde guztietara segitzen zion, handiusteko atari- **txakur** batek bezala. **Iñaki Mendiguren**

Bat etxe- **txakurra** baitzen bestea ehizora, hots, ohiturak egin omen dezake azkenean etxe- **txakurrak** ehizan ikastea eta ehizora, alderantziz, erbien lasterkatetik gelditzea. **Piarres Xarriton**

Kale **txakur** batena bezalako segimenduarekin kontentatuko ote zen? **Patxi Zubizarreta**

Txanpon bat ipini zuen saltxitxa- **txakurraren** ahoan, eta berau antxintxika desagertu zen kale kantoitik. **Jon Arretxe**

Hilerrak sorgintzen dituen mamu- **txakur** erraldoia da! **Iñaki Mendiguren**

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Lera- **txakur** lasterketa ikusgarria izango dela iragarri zuen atzo Pep Pares lasterketako zuzendariak. **Berria - Kirola**

6 *adkor* poliziakidea.

Lehen ETAK "**txakurrak**" zituen etsai eta hauen kontra egin zuen eraso ugari.-Seguru morroi hori **txakurra** zela... **Joseba Zulaika**

Zortzi bat Patrol... eta dozena bi **txakur** metraileta, txaleko eta 9mm-tako amorruz horniturik. **Unai Iturriaga**

Txakurrez josiak. **Unai Iturriaga**

Haren arabera, Intxaurrendoko **txakur** bat izan baitzitekeen *El Diario Vasco* irakurtzen ari zen agurea ere. **Unai Iturriaga**

Idazten denaz gainera, ezin da alde batera utzi kartzelan galdu egiten dela idazten denaren hainbesteko handi bat: **txakurren** sarraskiak, lapurretak, trasladoak, zentsura... **Jokin Urain**

7 balio txikiko txanpona. *ik beherago* 25.

Hantxe aritu zen gaixoa lau **txakur** irabazten, urte batzuetan "Batallón de Trabajadores"en eduki ondoren askatu ninduten arte. **Xabier Mendiguren Elizegi**

8 (izenondo gisa) oso txarra.

Eguraldi **txakur** harekin, Goizueta inguruko baso itxi eta hezeetan, bakarrik eta atzetik Guardia Zibila zuela. **Juan Luis Zabala**

9 *ardi txakur* artaldeak zaintzeko txakurra. *ik beherago* 12.

Ardi-txakurra da, arra, txuri-txuria. Gotzon Garate

Zazpi pitbull eta bi **ard-txakur** aleman ziren, denak hagin-kadekin. Gotzon Garate

Txondorra, artisautza erakusketa, **ard-txakur** erakusketa, belarra segadoraz ebakitzea idiekien, herri bazkaria eta musika. Berria - Kirola

Egia zen halaber giza etxabere batek, giza artzain osmanliarrak giza **ard-txakur** izateko heziak, bere talentuztat are karrera distiratsua goa aurkitzen zuela. Iñaki Mendiguren

10 **argi txakur** lur gainean higitzen ikusten diren gar txikiak.

Hara eta hona zebilen, isilik, uhinak bezala, **argi-txakurrak** bezain zehaztugabe. Fernando Rey

11 **arratoi txakur** arratoiak harrapatzeko trebatuak txakurra.

Ustekabean, **arratoi txakur** bat azaldu zen bidezidor hartatik zalapartan eta guri zaunkaka. Bernardo Atxaga

Orduan etxeko txakurrak agertu ziren, bata **arratoi txakurra** eta bestea dachshund, saltxitxa horietakoa. Gotzon Garate

Mutrikoko landetxe batean, adibidez, hiru zakur zeuden: **arratoi txakurra**, ehiza-zakurra eta *german shepherd* bat. Gotzon Garate

Jaietako petardoek ere izutzen nautela, **arratoi-txakurrak** izutzen dituzten beste. Hasier Etxeberria

12 **artzain txakur** artaldeak zaintzeko txakurra. ik gorago 9.

Dobermanak, **artzain-txakur** alemanak, *ridgeback*-ak, *bull terrier*-ak, *rottweiler*-ak. Oskar Arana

Bere aita atzerriatik etorritako artzaina zen, **artzain txakurrak** hezten ibilia zena. Berria - Kultura

Artzain txakurrak ehiza-txakuraren inguruan jarraitzen zuen usnketan. Joxemari Urteaga

Arazoa konpontzeko, beren mendeko berriak giza artalde eta abere-saldotzat hartu zituzten, eta nomaden **artzain-txakurren** giza ordekoak sortu zituen administratzaile eta soldaduen esklabo-"etxe" baten forman. Iñaki Mendiguren

13 **ehiza-txakur**

Banekien zer-nola sentitu behar duen azeri batek bere gordelekuan ezkatuturik, **ehiza-txakurrak** kanpoan zain dituela jakinda. Mirentxu Larrañaga

Sarritan **ehiza-txakurrek**, lo gozoan, bat-batean hankei eragiten eta ahausi egiten dute eta sudurretatik arnasots bizian hasten dira, ehiziaren arrastoa aurkitu eta segika bailihoazen. Xabier Amuriza

Sudurra luzatu zuen haiengana, **ehiza-txakurren** uxar egiteko modua imitatuz. Pedro Alberdi

Hotzak bildu zuen haizea bat-batean, **ehiza-txakuraren** zaunkak hirugarren tiro batek isildu zituenean. Joxemari Urteaga

Harrezkero begikoa izan diat beti **ehiza-txakur** eme hori. Mirentxu Larrañaga

14 **itsas txakur** (*orobat itxastxakur eta itxas txakur*) iz ugaztun itsas-lehortarra, aurpegia zakurraren antzekoa baina belarririk gabekoa duena, ilea motza eta gorputz adarrak igerian egiteko egokituak dituen (*Phoca vitulina*). ik **foka**.

Itsas txakurrek koipezko geruza baten babesa dutenez, beti daude bero. Lopez de Arana

Itsas txakurrek ehundaka milia egiten dituzte inon gelditu gabe. Lopez de Arana

350.000 **itxas txakur** ehizatzea baimendu du Kanadak. Berria - Gaiak

Ehiza talde bat ere antolatuko da, **itsastxakurrak** harrapatzeko, bestela pinguinoak. Joseba Sarrionandia

Itsas txakur aurpegia zeukan gizona ere gogoan dut. Urtzi Urrutikoetxea

Irlandan **itsas txakurrek** emakume itxura har dezakete. Martin Anso

Emakume bihurtutako **itsas txakur** bat. Martin Anso

15 (hitz elkartuetan)

Itsastxakur saldoak iparralderantz joango dira, eta baleak ere han urrun ugari pasatuko dira. Joseba Sarrionandia

Nahikoa zuten gorputza **itsastxakur** koipez igurztearekin Joseba Sarrionandia

16 **itsas txakur fraide** Mediterraneo itsasoan bizi den itsas txakur mota (*Monachus monachus*)

Horra hor zergatik, hain handiak izanik ere arrainen eta ugaztunen arteko aldeak, guztiek dituzten ia gene berak, eta berdin krokodiloek zein **itsas txakur** fraideek. Juan Garzia

17 **jan-txakur** jan besterik egiten ez duen txakurra; besteren kontura bizi den pertsona.

Baseria jendearen etengabeko pasaleku bihurtua dagoenez zaunkarik ere inori egiten ez diotenak, egonean egon eta gizendu beste lanik ez duten **jan-txakurrak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Arrasateko baserri batean bada Kittolis arratoi txakur edo **jan-txakur** argi bat. Gotzon Garate

Eldarnioak berriro jo ote ninduen, hots, egunetan eta egunetan **jan-txakurrak** egiten egon izanak eroturik ote nindukan, [...]. Edorta Jimenez

18 **su txakur** argi txakurra.

Kelleyren eraginez John Deek zientziarekiko loturak erabat hautsi zituen, eta asmakizunaren eta sineskeriaren **su-txakurren** atzetik joan zen betiko. J.M. Olaizola

"Txiliku"

19 **txakur amets** amets hutsala.

Urteik urtera apalago sentitzen ditut Jon Etxaidek **txakur-amets** deitzen zituen kimera eta ilusio-modu gehiegizko guztiak. Anjel Lertxundi

Halako fantasiak, ordea, ez dira esnaldiko **txakur-amets** soil edo amets eroak. Xabier Olarra

Bigarrena, berriz, Lisboan hartuko zutelakoan ziren-eta, hara amets hura **txakur-amets** bihurturik. Iñaki Zabaleta

Munduko **txakur-amets** guztiak baino hobea dira lagun zintzo batzuk inguruan. Anjel Lertxundi

19a **txakur etxola** (*orobat txakurretxola*) iz

Guztietan **txakur etxolak** ikusi zituen, baina animalien arrastorik gabe. Bernardo Atxaga

- adok bizileku ziztrina. Hiri batera iristen zenero, edozein zelarik ere hiria eta edozein ostatu hartzen zueneko lekua, baita edozein **txakurretxola** izanda ere, amets bera izaten zuen. Harkaitz Cano

Gauero errepasatzen zituen katalogoak pentsio, hotel, apartamentu edo ostatu hartua zuen txandako **txakurretxolako** flexoepen: ohean etzanda zegoela, askotan. Harkaitz Cano

20 **txakur eztul** eztul latza, txakurraren zaunkaren antzekoa.

Haginekin libera bat, hori jarri dut, baina esango nuke gehiago ere izango dela, hogeita hamar txelin bai... ez egin berba orain... elgorriarekin bost gehiago, errubeolarekin ginea erdia, guztira bi hamabost sei... atzamar hori geldi derrepente... **txakur-etzularekin** hamabost txelin inguru... Julen Gabiria

21 **txakur eme** (*17 agerraldi, 7 liburu eta artikulu 1ean; orobat txaurreme 9 agerraldi, 3 liburutan*)

Oinez jarraitzen dute; txakur gazteak sokatik tiraka askatu nahirik, **txakur emea** atzetik urrats astunak eginez, hatsantua. Oskar Arana

- Txakur eme horrek txakurkume txikiak dauzka sabelean. Juan Kruz Igerabide

Txakur emea lauzpabost kumez batera erdi ohi da. Pablo Sastre

Txakur-emeak akatsen bat baldin badu, txakurkumeak ere izango du. Iñaki Mendiguren

Behiak, behorrak, ardiak, katemeak, **txakur emeak**, orein emeak, lehoi emeak, elefante emeak... Luis Elberdín

Ehiza- **txakur eme** bat genuen bereziki kutuna, Bertha izenekoa. Mirentxu Larrañaga

22 **txakur handi** (*corpusean txakurrandi soilik*) pesetaren hamar zentimoko txanpon zaharra.

On Camillok sukalde handian aurkitu zituen Filotti etxeko guztiak, baita umeak ere, alkandora hutsean eta **txakurrandiak** bezalako begi zabalduekin. Koldo Biguri

23 **Txakur Handi** zeru ekuatoretik gertu dagoen konstelazioa, Sirio, zeruko izar distirasuena, daukana.

Tartean, *Canis major* eta *Canis minor* ere, **Txakur handia** eta Txakur ttikia ere hor dira nonbait. Pello Zabala

Txakur handiaren hori da, hain zuzen, gure semiferio honetatik ikusten duguna, eta han da Sirio izarra, mordoxka honetako 8 izarretako bat, distria handien erakusten duena, **Txakur handi** deitu 8 izar horietako eta izartegi osoko distiratsuen bera. **Pello Zabala**

24 txakur kume ik txakurkume.

25 txakur txiki (orobat txakurtxiki) iz pesetaren bost zentimoko txanpon zaharra.

Kaka putza da **txakur** txikirik ere ez izatea. **Lopez de Arana**

Zurekin sekula ez dut **txakur** txikirik irabazi. **Patxi Zubizarreta**

Inortxok ez dio **txakur** txikirik emango. **Patxi Zubizarreta**

Lau **txakur** txikiren truke igotzen zen ring gainera, kolpe oldearen esperoan. **Paddy Rekalde**

Bi liburu besterik ez ditut lapurtu nire bizitza osoan, biak ere karrerako lehen urtean nengoela eta **txakur** txikirik ez neukala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txakur txikirik ere ez, eta Franciek ezin izan zion ezer eman. **Lopez de Arana**

-**Txakurtxikirik** ez eta hor joiek hori, taxian! **Unai Iturriaga**

26 Txakur Txiki (orobat ttiki) zeruko ipar hemisferioko konstelazioa, Geminis konstelazioaren ondoan dagoena.

Txakur txikiak Geminisi jarraitzen dio Hidraren buruaren aurrez aurre. **Santiago Iruretagoiena**

Tartean, *Canis major* eta *Canis minor* ere, Txakur handia eta **Txakur ttikia** ere hor dira nonbait. **Pello Zabala**

27 txakur-zain ik txakurzain.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardi txakur (4); **artzain txakur** (4); **azeri txakur** (4); **bere txakur** (4); **bezalako txakur** (3); **ehiza txakur** (6); **ehiza txakur eme** (3); **etxeko txakur** (3); **gure txakur** (4); **hiru buruko txakur** (4); **itsas txakur** (13); **itsas txakur bat** (3); **jan txakur** (3); **kale txakur** (3); **lau txakur txiki** (4); **lau txakur txikiren** (5); **nire txakur** (3)

txakur amets (5); **txakur amorratu** (4); **txakur bat ikusi** (3); **txakur bat izan** (4); **txakur baten antzera** (3); **txakur beltz** (7); **txakur beltz handi** (4); **txakur bihurtu** (3); **txakur biologikoa** (3); **txakur burua duen** (3); **txakur eme** (5); **txakur emea** (7); **txakur emeak** (3); **txakur gaixoa** (4); **txakur galdu** (4); **txakur gisa** (4); **txakur handi** (10); **txakur handi bat** (3); **txakur leiala** (6); **txakur molekular** (3); **txakur txiki** (16); **txakur txiki bat** (3); **txakur txiki gorritxo** (4); **txakur txikia** (12); **txakur txikiak** (6); **txakur txikiren** (8); **txakur txikiren truke** (5); **txakur txikirik ere** (8); **txakur zahar** (4); **txakur zaharra** (4); **txakur zaina** (3); **txakur zuri** (3)

zure txakur (4)

artzain txakurra (3); **aurkitu zuen txakurra** (3); **basurdetarako txakurra** (3); **bere txakurra** (7); **dabilen txakurra** (3); **nire txakurra** (5)

txakurra alboan (3); **txakurra baino** (4); **txakurra bezala** (7); **txakurra eta katua** (8); **txakurra hil** (3); **txakurra lagun** (3)

artzain txakurrak (4); **basurdetarako txakurrak** (3); **bere txakurrak** (6); **etxeko txakurrak** (5); **itsas txakurrak** (5); **itsas txakurrak ehizatze** (3)

txakurrak baino (4); **txakurrak bezala** (8); **txakurrak ehizatze** (3); **txakurrak eta katuak** (3); **txakurrak hozka egin** (3); **txakurrak kalean** (4); **txakurrak trebatzen** (4); **txakurrak zaintzen** (3); **txakurrak zaunka** (4)

zure txakurrak (4)

bere txakurrarekin (4)

ehiza txakurraren (4); **nire txakurraren** (5); **txakurraren atzetik** (4); **txakurraren begiak** (4); **txakurraren bila** (3); **txakurraren bizkar** (3); **txakurraren txabola** (3); **txakurraren txabolan** (3); **txakurraren zaunka** (4)

txakurrari begira (3)

txakurrei botatzea (4)

ehiza txakurrek (3); **itsas txakurrek** (4); **txakurrek ere jan** (4); **txakurrek hagin** (3)

basa txakurren (3); **itsas txakurren** (5); **txakurren artean** (5)

artzain xakur (69); **artzain xakur lehiaketa** (12); **artzain xakur xapelketa** (23); **artzain xakur zoingehiagoka** (4)

xakur lehiaketa (13); **xakur pazka** (3); **xakur xapelketa** (27); **xakur zoin gehiagoka** (16); **xakur zoingehiagoka** (5)

artzain xakurrak (7); **xakurrak zoin gehiagoka** (5)

artzain xakurren (7)

ardi xakur (13); **ardi xakur handi** (3); **arratoi xakur** (6); **arratoi xakur bat** (4); **artzain xakur** (8); **atari xakur** (3); **ehiza xakur** (13); **ehiza xakur bat** (3); **erbi xakur** (3); **itsu xakur** (4); **otso xakur** (9); **polizia xakur** (5); **ur xakur** (4); **ur xakur bat** (3)

xakur alderrai (3); **xakur alderrai bat** (3); **xakur ametsak** (4); **xakur amorratu** (11); **xakur amorratu bat** (3); **xakur amorratua** (3); **xakur amorratuak** (3); **xakur amorratuaren** (4); **xakur amorratuaren** (5); **xakur arrak** (7); **xakur arrisksuak** (4); **xakur basak** (3); **xakur bat askatu** (3); **xakur bat bezala** (13); **xakur bat ikusi** (3); **xakur batek bezala** (5); **xakur batek zaunka** (6); **xakur baten moduan** (3); **xakur baten zaunka** (5); **xakur beltz** (6); **xakur beltza** (8); **xakur borroak** (10); **xakur borroak antolatzen** (3)

xakur eme (11); **xakur eme bat** (3); **xakur emea** (5); **xakur emearen** (3); **xakur eskola** (3); **xakur eta katu** (3); **xakur gizajoa** (3); **xakur gogorrak** (3); **xakur gose** (3); **xakur gosea** (3); **xakur handi** (21); **xakur handi bat** (7); **xakur handia** (5); **xakur handiak** (7); **xakur herresta** (3); **xakur herresta bat** (3)

xakur ihiztorren besta (3); **xakur jende** (3); **xakur jipoitu** (3); **xakur madarikatu** (3); **xakur mota** (4); **xakur mutur** (4)

xakur okela (6); **xakur puska** (3); **xakur txiki** (3)

xakur zahar (13); **xakur zahar bat** (3); **xakur zaharra** (23); **xakur zaharra da** (5); **xakur zaharrak** (3); **xakur zaharrek** (4); **xakur zaharren** (3); **xakur zaindari** (4); **xakur zapuztuak** (5); **xakur zaunkak** (4); **xakur zuri** (4)

ardi zakurra (8); **argos zakurra** (4); **artzain zakurra** (5); **ehiza zakurra** (3); **etxeko zakurra** (5); **gizona eta zakurra** (6); **katua eta zakurra** (3)

zakurra agertzen (3); **zakurra atzetik** (3); **zakurra bera** (4); **zakurra eta katua** (7); **zakurra hil** (5); **zakurra ikusi** (3); **zakurra izan** (3); **zakurra izatearen** (9); **zakurra izatearen kontzeptua** (3); **zakurra izatearen propietatea** (3); **zakurra izatearen unibertsala** (3); **zakurra lagun** (4); **zakurra lotu** (4); **zakurra ondotik** (4); **zakurra zaunka** (3); **zakurra zaunkaka** (3)

aleman ardi zakurrak (3); **ardi zakurrak** (10); **arratoi zakurrak** (3); **borroka zakurrak** (4); **ehiza zakurrak** (3); **ehiztari eta zakurrak** (4); **etxeko zakurrak** (5); **itsu zakurrak** (3); **katuak eta zakurrak** (5); **zakurrak baino** (4); **zakurrak bezala** (11); **zakurrak borrokan** (3); **zakurrak elizan** (3); **zakurrak eta katuak** (4); **zakurrak hazten** (3); **zakurrak kosk** (3); **zakurrak maite** (4); **zakurrak oso maite** (3); **zakurrak saingaka** (3); **zakurrak zaunka** (8)

zakurraren berririk (3); **zakurraren ipurdira** (6); **zakurraren ipurtzulora** (4); **zakurraren izena** (3); **zakurraren odol** (3); **zakurraren putza** (17); **zakurraren salara** (5); **zakurraren zaunkak** (4)

zakurrari begiratu (3); **zakurrari begiratu zion** (3); **zakurrari esker** (3); **zakurrari jaten eman** (3)

zakurrei botako (3)

loturik dauden zakurrek (3); **zakurrek bezala** (4); **zakurrek irentsiko** (3); **zakurrek jango dute** (3)

ehiza zakurren (4); **itsas zakurren** (3)

zakurren antzera (3); **zakurren artean** (4); **zakurren arteko** (3); **zakurren bat** (5); **zakurren batek** (4); **zakurren erasoak** (3); **zakurren moduan** (3); **zakurren zaunka** (7); **zakurren zaunkak** (4)

zakurrentzako janari (3)

txakurka *adlag* lau hankan.

Gizona **txakurka** urrundu zen ahalik eta arinen. **Aitor Arana**

Neure burua **txakurka** ikusi nuen eta mutil hura niri atzetik ematen, bera gozatzen eta ni zeruraino goratzen. **Aitor Arana**

Antonio **txakurka** jarri zen, burua lurraren parean, popa guztiz agerian gera zekion. **Aitor Arana**

Geroago Antoniok **txakurka** jarriarazi ninduen. **Aitor Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txakurka jarri (7); **txakurka jarri zen** (4)

txakurkara iz txakurraren eitekoa.

Bonino gizontxo potolo, zarpaitxo, lausoki **txakurkara** bat zen; bizarra gaizki moztua zuen eta irribarra horzgatetua. **Juan Garzia**

txakurkeria *iz* jokaldi makurra; esaldi makurra.

Egunez ez ezik gauetz ere kartzelero da kartzeleroa, eta egunez bejalaxe egin diezazkioke kontaktetak, araketak eta bururatzen zaizkion **txakurkeria** guztiak. **Jokin Urain**

Geuk erakutsiko dizkizugu **txakurkeriak** ! **Oskar Arana**

Ronek **txakurkeriak** esan zituen McGonagall andereñoarengatik, eta horrek oso haserretu zuen Hermione. **Iñaki Mendiguren**

-Txetxu oldarkor ari baita, beti bezala futbolarien kontra berealdiko **txakurkeriak** esanaz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

txakurkume *(orobat txakur kume g.er.) iz* txakurraren umea.

Zazpi **txakurkume** zeuzkan barruan, gaur edo bihar jaiotzeko zorian. **Juan Kruz Igerabide**

Denda atzetik zakur emea atera zen eta ondotik bost **txakurkume**. **Gotzon Garate**

Txakur-emeak akatsen bat baldin badu, **txakurkumeak** ere izango du. **Iñaki Mendiguren**

Txakurkumea otarrean lo. **Berria - Kultura**

-Akabatu ditek -esango zuen akaso, errekan itotako **txakurkumeaz** esango zukeen bezalaxe. **Imanol Zurutuza**

Lurretik altxatu eta maite-maite egin ohi zion **txakurkumeari**. **Mirentxu Larrañaga**

Neskaren aurpegiak jabeari agindua ulertzen ez dion **txakurkume** batena zirudien. **Aitor Arana**

txakurño *iz* txakurtxoa.

Agian horrexegatik, eramanezina egiten zaidalako, bildu nuen atzo pazientzia pixka bat berriaren, modernitatearen, azken olatuaren amandre babesleak berarekin batera lurperatuta dauden **txakurñoei** jarri zien epitafioa kopiatzeko: [...]. **Anjel Lertxundi**

txakurrada 1 *iz* txakur multzoa.

-**Txakurradagaz** joaten garenian lez... **Txillardegia**

2 *adkor* polizia.

Poliziaren zodiak bat portu inguruko ur bazterrak miatzen ari dela esan digu, **txakurradaren** mugimendu larregi dabilela portu aldean. **Paddy Rekalde**

txakurraldi *iz*

Zakurrak hiru hesialdi, astoak hiru **txakurraldi**, gizonak hiru astoaldi. **Gotzon Garate**

txakurrandi ik txakur 22.

txakurreme ik txakur 21.

txakurrettxola ik txakur 19a.

txakurrillo *iz*

Arantxak kontatu dit, trenetik atera eta interrogatu zintuena gure **txakurrilloa** izan zela. **Joseba Sarrionandia**

txakurtasun *(corpusean zakurtasun soilik) iz* txakurra izateko nolakosatuena.

Aristotelesentzat Greta eta Belle substantzia dira, baita **zakurtasuna** ere, nahiz eta azken hori beste maila bateko substantzia izan. **Askoren artean**

Horregatik, **zakurtasunari** ere "substantzia" esaten dio Aristotelesek, "substantzia bigarrena", hain zuzen ere. **Askoren artean**

Hala bada, ikuspegi aristotelikoa onartuz gero, Greta zakurra denez, hau da, **zakurtasuna** haren zerizana denez, Greta zakurra da ezinbestean, nahiz eta guk hori a posteriori jakin izan dugun. **Askoren artean**

Errealistaren iritzian, adierazpen predikatibo horrek unibertsal bat adierazten du, hain zuzen ere, **zakurtasuna** zertze unibertsala. **Askoren artean**

txakurtegi 1 *iz* txakurrak gordetzen diren tokia.

Bere alaba Lucyz hitz egiten die, **txakurtegiez**, haren erleez eta baratzeko proiektuez, merkatuko salmahaian egotea egokitu zitzaion larunbatez. **Oskar Arana**

Lan bat aurkitzekotan, eginbehar ilunen batean izan beharko luke, kontabilitatean-edo, baldin eta oraindik horrelakorik badaukate, edo **txakurtegi** batean laguntzaile. **Oskar Arana**

Halatan baikekituen, haien zaintzeko eta babesteko, etxola batzuk -beheitegi bat, zaltegia, oilotegia, baita **txakurtegi** bat ere, etxeko ehiza-txakurren ostatu eta bizileku-.

Joan Mari Irigoien

Hemen geratuko zarete, eta goitik behera txakurduko dizkidazue ehiza-**txakurtegiak**, harik eta joan zaitezketela irizten diodan arte. **Mirentxu Larrañaga**

Nirekin ari zen mutilak **txakurtegi** deitu zuena, berriz, ez zen ardi-txakurra erdi erori bat baino: bertan, drogazale hura bizi zen, hiruzpalau txakurrekin. **Anjel Lertxundi**

Nazien kontzentrazio barrutien itxura duten hirietako **txakurtegi** horietan. **Gotzon Garate**

2 *adkor* komisaria.

Ez zen hilabeterik joanen udaltzainek atxilotu gabe, hainbat gau emana zen **txakurtegi**an eta horrek miresmena sortzen zigun. **Koldo Izagirre**

Herriko hordi publiko biek, Oteizak eta nik, beste inork ez zuen **txakurtegia** ezagutzen! **Koldo Izagirre**

Bere seinala nahi izan zuen anulatu, baina berantegi zen: bere gizonak denak atxilotu zituzten **txakurtegi** eramateko. **Ramuntxo Etxeberri**

txakurtxiki ik txakur 25.

txakurra

Livornon ginen, gomutan daukat sobietikoek Laika **txakurtxo** espaziora bidali zutela zekartela izparringi guztiek. Koldo Izagirre

- **Txakurtxo** bezain esanekoa. Alberto Ladron Arana

-Baina zer egiten ari da zure zakurtzar zikin hori nire **txakurtxoarekin** ? Jon Arretxe

Haietako batek **txakurtxo** bat zeraman zumezko otartxo batean. Joxemari Iturralde

Nire parean alderrai bikote gazte bat dago, **txakurtxo** eta guzti. Iban Zaldúa

Argentinarraren zuzendari neurotoikoak eta haren **txakurtxo** nazkagarriak denen pazientzia agortu baino lehen. Berria - Kultura

txakurtxodun

izond txakurra edo txakurrak dituena.

'Dama **txakurtxoduna**' ipuinean. Iban Zaldúa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dama txakurtxoduna (6)

txakurzain

(*orobat txakur-zain*) iz txakurrak zaintzen dituen pertsona.

"**Txakurzaina**" esaten du berrirori, bere asmakizunaz pozik. Oskar Arana

Orain bera bihurtu da **txakur-zain**: txakurren ehorzle, txakurren arimen gidari. Oskar Arana

txal

ik **xal**.

txalaka

iz sagar mota gazia.

Azal desberdinekoak ziren, sehaskatik atera gabeko apiren sagarrak, rambour itxuragabeak, soineko zuriz jantzitako **txalakak**, kanpandoja odol koloreak, gaztain sagar aurpegi-gorriak, errege sagar horiak, ereztez beteak. Karlos Zabala

Kolkoak bete bular itzultzen ziren, **txalaka** mikatz haiei haginkada bana egin eta harrika ekiten genion elkarri gero. Koldo Izagirre

txalamatika

iz kalamatika.

Hartan, ahapeka zerabilen **txalamatikari** utzi gabe, begiratu egin zidan. Anjel Lertxundi

txalaparta

(*orobat xalaparta g.er.*) **1** iz antzinako euskal musika tresna, makila labur batzuek jotzen diren bi oholez osatua.

Aurrerantzean, inguruetan **txalaparta** jo behar zutela jakiten nuen bakoitzean [...] beti egiten nuen modua entzuterara joateko. Juan Kruz Igerabide

Ziburuko Bourousse karrikan trikiritxak, mutxikoak eta **txalapartak** entzuteko aukera ukanen duzue, izanen da ere jateko eta edateko. Herria

Gero **txalapartaren** euskal soinu hunkigarri eta ederra. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Han, **txalapartaren** doinuak zituzten zain. Berria - Euskal Herria

Barañaingo Udal plazan eginitako ekitaldian, **txalapartaren** itakunak eman zion ongietorria manifestazioari. Berria - Euskal Herria

Gaur gauean **txalaparta**, aurreko eta zeremonia hori guztia izango ditek auzoan. Jokin Muñoz

Afrikako perkusioa eta **txalaparta** uztartu ditu Ttakunpak bere lehenengo diskoan. Berria - Kultura

Arbolak aldatu ditugu, **txalaparta** jo, errautsak sakabanatu... liturgia paganoak asmatu behar izan ditugu ordainetan. Hasier Etxeberria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero, kultur ekitaldi bat: bateko korala, besteko euskal dantzak edo **txalaparta** emanaldia. Berria - Kirola

Klaseko ordua zela adierazten zuen megafoniazko **txalaparta** -hotsak jotzen zuen arte. Iban Zaldúa

Txalaparta soinu lagunduta zabaldu dute galeria eta lehenengo lanak bildu dituzte dagoeneko. Berria - Kultura

Txalaparta doinuek girotu zuten elkarretaratzea. Berria - Euskal Herria

Argazki, gimnastika eta **txalaparta** kurtsoak berriz hasiak dira. Herria

Txalaparta dantza-tokian izan naiz. Itxaro Borda

Txalaparta Festa egingo du gaur Txori Barrote konpartsak. Berria - Kultura

3 txalaparta-jotzaile

(*orobat joile*)

Euskal Herri osoko **txalaparta jotzaileak** bilduko dituzte, tartean Ugarte anaiak. Berria - Kultura

Txalaparta joileak ere izanen dira, hala nola Maialen Camblong eta Denise Loyatho, hauek ere ongi ezagutzen ditugunak. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txalaparta jo (5); **txalaparta jotzen** (4); **txalaparta kurtsoak** (4)

txalapartaren doinua (3); **txalapartaren soinua** (3)

txalapartari

iz txalaparta-jotzailea.

Oreka TX-ko Harkaitz Martinez eta Igor Otxoa **txalapartariak**. Berria - Kultura

Bi **txalapartari** aritu ziren eliz atarian, ezkonberrien omenez. Juan Kruz Igerabide

Txalapartariak, dantzariak, gaitero eta trikilitariak goiz osoan arituko dira herria alaitzen. Berria - Euskal Herria

Kontalari batek, Jon Maia eta Unai Iturriaga bertsolariek, *Aukeran* taldeko dantzariak eta hainbat **txalapartariak** hartuko dute parte Eduardo Txillidaren eskulturen ondoan egingo den ekitaldian, Zabalagan. Berria - Kultura

Hara non **txalapartarietako** batek oinarrizko eritimoa ipintzen duen, "ttakun" deritzana, hots, herrenaren onomatopeia; beste **txalapartariak**, berriz, oinarrizko eritimoaren barruan sartzen saiatu behar du, lehenbizikoari protagonismoa lapurtuz [...] bigarren **txalapartariak** "urgun" edo "herren" egiten du. Juan Kruz Igerabide

txalapartazale

izond txalapartaren zalea dena.

txalburu 1 iz zapaburua.

Errekan, **txalbururen** batzuk bilatzen ote dituzten edo... **Pablo Sastre**

2 irud/hed

Zelulen argazkiak eta marrazki eskematikoak tartekatuz, han agertu ziren **txalburu** buztanluzeak, barrabiletik zakilerainoko tutuak, obulutegiak eta umontzia, Falopioren tronpa eta guzti, [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bera bai, **txalburu** galanta. **Pablo Sastre**

txaldan 1 izond funtsik gabekoa, ganorarik gabekoa. ik txepel; putzil.

Baina ez genian penetan alde egin, eta ez hadi harritu: ni orduan gazte **txaldan** bat besterik ez ninduan, hemengo osterantzekoak bezala. **Pako Aristi**

2 (gauzei buruz)

Izan ere, diosku Baroja-k, erregionalismo edo nazionalismo **txaldan** hori, euskal izpirituari kontrajartzen zaiona, ez da euskaldun jatorra. *Arroz-ur AB*-k zeharka adierazten du nobelagile eta poeta herrikoiek emaitza **txaldan** eta epelak lortzen zituztela. **Joxe Azurmendi**

Falta jaurtiketa **txaldan** batean, turkiar batek buruz jo eta baloia Lafuentek hartuko zuela zirudienean sartu zuen norvegiarrak hanka punta. **Berria - Kirola**

txaldandu, txaldan(du), txaldantzen da/du ad txaldan bihurtu.

Haietako batek karate kolpe bat eman zidan lepo ondoan, eskua **txaldanduta** utzi zidana. **Bernardo Atxaga**

txaldartu, txaldar(tu), txaldartzen du ad txepeldu, txaldandu.

Aire zikinak itotzen gaitu edo **txaldartzen** bestela. **Xabier Olarra**

Junok edan zuen nektarra, ez **zion** txaldartu kazkarra, / Junok edan zuen whiskya, akabo haren zuhurtzia. **Xabier Olarra**

txaleko (orobat txaleku g.er.) 1 iz barneko motza.

Zutitu eta **txalekoa** eta jaka jantzi zituen. **Irene Aldasoro**

Jaka zeukan jantzirik, ez **txalekorik** ez lepokorik. **Monika Etxebarria**

Paul D-k zabalik zeraman **txalekoa**, zamarririk gabe, alkandoraren besoak ukondotik gora bilduta. **Anton Garikano**

Kolore gorri iluneko galtza estuekin eta **txalekoarekin** jantzita zihoan, eta jertse beix lepo-luze batekin. **Bernardo Atxaga**

Jaka eta **txalekoa** erantzen hasten zenean. **Koro Navarro**

Txalekoan erloju-kate astun bat agerian zuen. **Lopez de Arana**

Txalekoaren botoiek eguzkitan distiritzen zuten. **Koro Navarro**

Txalekoaren sakelatik papertxo bat atera eta hitzaldirako egin zituen izenburuei begiratu bat eman zien. **Irene Aldasoro**

Atzamar potoloak **txalekoko** faltrikeretan gaketuta zeuzkan Luigiri begiratu zion. **Josu Landa**

Neska zoriontsuak eta eguzkiak erreak, beren eguzki kremekin, mutil beltzu bularralde itrenekikoak eta haien inbidiaz zeuden mutil zurbil **txalekoz** jantziak. **Koro Navarro**

Zortzi bat Patrol... eta dozena bi txakur metraileta, **txaleko** eta 9mm-tako amorruz horniturik. **Unai Iturriaga**

Baletatik babesteko **txaleko** baten behar gorria banuke. **Berria - Mundua**

Jendeak esaten zuen ezin nuela erabili **txalekoko** takoa. **Berria - Kirola**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Beren gorbata argi, **txaleko** gurutzatu eta galtza zabalekin. **Koro Navarro**

Trajea zeraman, eta **txaleko** zuria. **Matías Múgica**

Kotoizko **txaleko** zuria eta udako galtzak. **Jose Morales**

Gona eskoziar bat, alkandora gris bat eta **txaleko** beltz bat. **Eskarne Mujika**

Flanelazko ohe-ator zuriaren gainetik **txaleko** gorri bat zeraman jantzia. **Koro Navarro**

Malkoek larrazko **txalekoaren** aurrealdea ziprintzintzen zioten. **Iñaki Mendiguren**

Hogwartseko prefektu-ikurra puntuzko **txalekoari** itsatsia zuen. **Iñaki Mendiguren**

Sedazko **txaleko** aberatsak tonu egokia ematen zion paparrekoiari. **Jose Morales**

Ama artilezko **txaleko** gorriak josten dabil. **Javi Cillero**

Kolorezko **txalekoak** erabiltzen zituen, eta zilarrezko zintzilarioak erlojuaren katean. **Koro Navarro**

Laukiekiko **txalekoa** zuen. **Lopez de Arana**

Enboskada bat izan da [...] hogeizi zipaio armaturik, **txaleko** antibalekin, lotan zegoen borrokalaria baten aurka. **Pako Aristi**

Horietako askori ez zieten blindatutako **txalekorik** eman. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan)

Zeta marroiez brodatutako txokolate koloreko **txaleko** oihal lodia. **Koldo Izagirre**

Ez ginela txalupan fijatuko salbamendu- **txalekoaz** hornitutako chihuahua harengatik izan ez balitz. **Bernardo Atxaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txaleko beltz (3); **txaleko zuria** (5)

txalekodun izond txalekoa daramana.

Begirada altxa zuen dendari **txalekodunak** aitaren piura doi begiztatu eta eztarri karranka desatsegin batekin betaurrekoak beherratu ostean, berriro bere zereginetan murgildu zen. **Harkaitz Cano**

Kurier saltzaileari prentsa erosi, sastre-lokarria lepoaren inguruan zuen Minkiewicz justun **txalekoduna** urrunetik agurtu eta Kotkowski andreari bere alaba bihurriei buruz galdetzeraz. **Harkaitz Cano**

Ez ulertuarena egin zuen **txalekodunak**. **Harkaitz Cano**

txaleku iz txaleko egiten dituen pertsona.

Baratzuri izena dute eta -esaten zuen azken horietaz Mottke, **txalekogileak** - mister Tipula deitzea jantziagoa delakoan daude.

Pablo Sastre

txaleku ik txaleko.

txalet (orobat *xalet* g.er.) 1 iz iz familia bakarreko etxea, eskuarki lorategiduna.

Nahiz eta gurasoak bereizi ziren, **txalet** hartan jarraitu zuten bizitzen.

Joxemari Iturralde

Gaiean dagoen baserriak (gaur **txaleta**) *Gaztelu-muño* duela izena.

Xabier Mendiguren Elizegi

Etxez aldatuko dira David eta haren neskalaguna, Dulantziko urbanizazio bateko berrehun eta berrogeita hamar metroko **txalet** batera.

Iban Zaldúa

Bi artzain-zakur aleman irten ziren **txaleta** inguratzen zuen lorategiko ateraino.

Anjel Lertxundi

Gerotik etxean geratu zen, erretiroa hartuta, **txaleteko** lorategian paseo kokorrek eginez.

Xabier Mendiguren Elizegi

Zuhaitzez inguratutako **txalet** bat zuen.

Pello Lizarralde

Askaldegi bat eta denboraren poderioz xarma guztia galdu duten **txalet** txiki batzuk.

Iban Zaldúa

Denboraldirako errentan hartua genuen **txalet** txikian.

Karlos Zabala

Hiriko **txalet** dotoretsuenetako eta aldirietako gaztelu eta jauregiak zalgurdi ugari dator bulebarrera ematen duten kale eta zumardietatik.

Anjel Lertxundi

Serranon oso goian dago, **txalet** aberatsak dauden alderdian. Beste bat buruz behera zintzilik zeukatela San Giustora zeraman bideko **txalet** baten sotoetan.

Ramon

Saizarbitoria

Eskuinetan, Dorrea jauregia, Arteta parkea, Ondarrondoko zazpi **xaletak** ilaran.

Txillardegia

Lau **txalet** berdinetatik bandera nazirik ez zuen bakarrera hurbildu nintzen.

Anjel Lertxundi

Landatar herriak desagerrarazten ditu, **txaletez** betetako urbanizazioen mesedetan.

Berria - Ekonomia

Testuak debekatu egingo du **txaleten** urbanizazioak eraikitzea 3.000 biztanletik gorako guneeetan, zabalkunde-eremuan.

Berria - Euskal Herria

"Orain hirugarren pisuko **txalet** batean bizi haiz, ez?" esaten zidan ironia mindu batekin.

Patziku Perurena

2 (hitz elkartuetan)

Txale-jauregiak harmaila batzuk zeuzkan aurrealdetik, luzeak eta zabalak aldeberean.

Joxemari Iturralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txalet batean bizi (3)

bere txaletean (3)

bere txaleteko (3)

txaletxo iz txalet txikia.

Beren atzean, oihu eta jolas iskanbila bat zen hondartza; inguruan, **txaletxoek** eta ostatuek, berdearen eta loreen artean, baretasunaren eta erosotasunaren irudi beteak zirudite.

Josu Zabaleta

txalin iz

Sukalderako soineko loreduarekin jantzita zegoen, beste batzuek amantala zuten soinean eta denek zeuzkaten **txalinak** jantzita.

Jon Maia

Txalinak erantzi eta besoak altxatu ditu.

Lander Garro

txalma 1 iz astoari eta kidekoei, zama garraiatzeko ezartzen zaien tresna, ez oso sendoa. ikbasta¹; arbalda.

Asto gainean, **txalma** edo bastak edo zerbait jarriko ziotela, eta hantxe sartuta ongi joango zela orduan.

Inazio Mujika Iraola

Rakelek hartuak zituen ordurako etxe-jainkoen irudiak eta gameluaren **txalman** ezarriak.

Elizen arteko biblia

Mandoen **txalmak** eta mantak jarrita moldaturiko ohea. Irribarrez zetorren hura, **txalmaren** alde batean eserita; makuluak, astoaren bizkar gainean; **txalmaren** beste aldean, urki-enbor handi bat.

Patxi Ezkiaga

Azpillagaren etxearen atean, paretan beltzetatik zintzilik, pilotan jokatzeko txisterak, **txalmak**, muturgainekoak, andaluziar estiloko zelak ikusten dira.

Koro Navarro

2 (hitz elkartuetan)

Txalma-soketan tratatua gelditu zitzaion hanka bat asto gainetik jaisten hasitakoan eta ezin libratu izan zuen.

Patxi Ezkiaga

- Bizargileak, etxea azpikoz gora ikusita, bere asto- **txalmari** heldu zion.

Patxi Ezkiaga

Asta- **txalma** ote den ala ez ote den, berauek diotenez; hori da guztia.

Patxi Ezkiaga

txalmatu, txalma(tu), txalmatzen du ad txalma jarri.

Txalmatu zaldiak, igo gainera, zaldunok!

Elizen arteko biblia

Hurrengo goizean, astemea **txalmatu** eta Moabeko buruzagiekin joan zen Balaan.

Elizen arteko biblia

Gero, esan zien bere semeei: - **Txalmatu** iezadazue astoa!

Garaiz jaiki zen Abraham, astoak **txalmatu** eta dendatik irten zen, Isaak berarekin zeramala.

Joseba Zulaika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

astoa txalmatu (3); **txalmatu zuen astoa** (3)

txalo 1 iz esku ahurrak elkarren aurka behin jotzea.

Goizeko lehendabiziko **txaloak** esan nahi zuen garbitzera irteko baimena zutela.

Arantxa Iturbe

Bigarren **txaloarekin**, bakoitza bere gelara.

Arantxa Iturbe

Mediku iharrak **txalo** isil bat zuzendu zidala.

Bernardo Atxaga

Bi **txalo** eman zituen hitz haiek agindua zirela adierazteko.

Bernardo Atxaga

Markesak bizpahirutan jo behar izan zuen **txalo** gonbidatuak isilarazteko.

Anjel Lertxundi

Txalo batzuk entzun ziren; baita txistuak ere.

Edorta Jimenez

Berotasun ondirik gabeko **txalo** banaka batzuk entzun ziren. **Iñaki Mendiguren**

2 esku ahurrak elkarren aurka behin eta berriro jotzea, onspen, mirespen edo gogo beroaren erakusgarri gisa.

Txaloak isilduz joan ziren poliki-poliki. **Irene Aldasoro**

Txaloak atertutakoan, danbor-hotsa zabaldu zen bazterretan. **Felipe Juaristi**

Horren ergela baldin bada, eta **txaloak** gustatzen bazaizkio, txalo egingo diogu. **Josu Zabaleta**

Emakumea antzaldatu egin da **txaloekin**. **Anjel Lertxundi**

Ez zaizkiola emakumeak jaso dituen **txaloak** gustatu. **Anjel Lertxundi**

Txaloak nahasten dira ukabil mehatxuzkoekin, hortz estutuak irribarre elkarkidetasunezkoekin. **Karlos Linazasoro**

Antzezleek **txaloak** eskertu eta mutis egin dute. **Martin Anso**

Txaloek eten egiten dute Thomasen diskurtsoa. **Edorta Jimenez**

Biek merezi izan zituzten laudorioak eta **txaloak**. **Koro Navarro**

Jendearen hainbesteko **txalo** eta gorespentak higuigarri gertatzen baitzitzaizkion. **Askoren artean**

Txalo eta ohore gehienak Alain Jupperezat. **Berria - Euskal Herria**

Jose Maria Aznar presidente ohia **txalo** artean hartu zuten. **Berria - Mundua**

Txalo eta besarkada artean hartu zuten Eugenio Etxebeste. **Berria - Euskal Herria**

Erdi-erditik zeharkatu zuten lorategia, txistu eta **txalo** artean. **Felipe Juaristi**

Presoner askoren **txaloen** eta algaren artean. **Koldo Izagirre**

Berriketan jarraitu zuen, inguruko arloteen biba eta **txaloen** artean. **Jon Arretxe**

Danbor hotsak eta **txaloak** entzuten ziren. **Berria - Mundua**

Langileen **txalo** eta algara artean itxialdiaren protagonistak Osakidetzaren egoitza atera ziren. **Berria - Euskal Herria**

Gauzak behar bezala ateratzen ez zaizkionean, aurten bezala, txistu gehiegi entzuten ditu, eta ondo dabilenean, aldiz, **txalo** gutxiegi. **Berria - Kirola**

Telebistan gutxienik, aurrez aurre ikusleak izaten dira, **txaloen** epela eta epelen **txaloa** bereiztea zaila izaten da baina. **Andoni Egaña**

Urrats nabarmen hark gizon guztien **txaloa** jaso zuen. **Jon Muñoz**

Santuak nahiago zuen bere sinpletasunean mespretxatua izatea santutasuna nabarmenduz jendearen **txaloak** irabaztea baino. **Askoren artean**

Jendeen **txaloak** gustatzen zitzaizkion. **Ramuntxo Etxeberri**

Erdiko bidetik jo zuten, gizonezkoen txistu eta emakumezkoen **txaloak** lagun. **Felipe Juaristi**

Ez dugu inoren **txaloa** bilatzen eta kritika itzelari ere ez diogu beldurrik. **Berria - Euskal Herria**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Nik eskua eman bezain laster, **txalo** beroak hartu zituen. **Pello Salaburu**

Kathleenek irlandar doinu hautatu batzuk jo zituen, eta **txalo** beroak jaso zituen. **Irene Aldasoro**

Txalo beroenak bihurtzen ditugu Julien Arbeletche Irisartarrari buruz buruka egin duen xapelketa ederrarentzat. **Herria**

Guztia zutik jarririk, **txalo** bizi-biziki jo baitzitzaizkion luzaro. **Josexo Azkona**

Biziki poliki arizan dira lauak eta bildu dute **txalo** ederrik. **Herria**

Biharamunean Harry eta Gryffindor taldeko beste jokalariek **txalo** handien artean sartu ziren jangelara. **Iñaki Mendiguren**

Txalo handiek agurtu zuten Mary Jane. **Irene Aldasoro**

Txalo haundienak merezi dituzte. **Herria**

Juppe hitza hartzera abiatu zenean **txalo** luzeak izan zituen. **Berria - Euskal Herria**

Txalo ozenak heldu ziren afalmahaitik ere. **Irene Aldasoro**

Txalo bakan batzuk eta txisturen bat. **Unai Iturriaga**

Txalo grabatuak ipini zituzten bozgorailuetan. **Karlos Linazasoro**

Txalo adore-emaile batek eraman zituen hitzak goraino. **Felipe Juaristi**

Txalo, oin-zarta eta kantuketa erritmikoan murgildu zen, eta oihuka hasi. **Xabier Olarra**

Emakumezko idazleak konpromisozko **txalo** hori bereganatu nahi du. **Ana Urkiza**

[Alkateak] orduan, sekulako **txalo** eta oihuen artean, lehenengo harresi-puska bota zuen lurrera. **Txillardegi**

Egundoko **txalo**, oihu eta negarrak ez ziren nahikoa izan hiru Jainko haien presentzia eskertzeko. **Karlos Linazasoro**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Adagioa indarrez amaitutakoan **txalo** -zarta batek, luze iraun zuen esku-jotze batek, geldiarazi baitzieten. **Felipe Juaristi**

Ikusleak, txunditurik, txaloka hasi ziren, **txalo** -zartaz eskuak puskatuz ia. **Felipe Juaristi**

Eskuak puskatzerainoko **txalo** -zartaka hasi ziren gizon-emakumeak. **Felipe Juaristi**

Orduan **txalo** -eztanda burrunbatsua izan zen. **Fernando Rey**

Txalo -zizpakada desberdin batek eskoltatu zuen orduan izeba Julia pianoraino. **Irene Aldasoro**

Mutiko batek telebistako programa bat buruz zekien, eta hura "errepikatzen" ematen zuen eguna, ezer ahaztu gabe, ahots eta keinu, eta are **txalo** -hots eta guzti. **Xabier Olarra**

Txalo -imintzioen egile mingarri bezain barregarri. **Harkaitz Cano**

Hautagaiak, **txalo** -oihuak erantzute aldera, eskuak jasorik egin zuen aurrera. **Patxi Zubizarreta**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrenbestearaino uko egina zion gizon honek Kristorekin zerikusirik ez zuen ospari, horrenbestearaino zituen betiko gaitzetsiak giza **txaloak**. **Askoren artean**

6 txalo egin ik txalotu.

Ez dago **txalo egiterik** esku bakar batekin. **Juan Kruz Igerabide**

Ez genekien **txalo egin** behar genuen ala ez. **Juan Kruz Igerabide**

Mundu guztiak **egiten** zian **txalo**, mundu guztiak egiten zian biba. **Koldo Izagirre**

Txalo egin zidaten Mary Annek eta Helenek, baita jatetxean afaltzen ari ziren hainbat bikotek ere. **Bernardo Atxaga**

Zuk, gizaseme, hitz egin nire izenean eta **egin txalo**. **Elizen arteko biblia**

Bergilek **txalo** eta barre egin zuen, lasaitasunez. **Agustin Otsoa**

Hau dio Jainko Jaunak: "**Egin txalo** eta dantza!, zoriondu Israel herria bere jokabide guztiz higuigarriagatik!". **Elizen arteko biblia**

Strip-tease txiki bateko begirale eta voyeurrak baizik ez baitira izan eta batzuetan egingo dute **txalo**, eta bestetan txistu. **Hasier Etxeberria**

Egin bezate **txalo** ibaiek, poz-oihu aho batez mendiek. **Elizen arteko biblia**

Joanesek ere **txalo** egin zuen gogotik. **Felipe Juaristi**

Batzartuek bizi-bizi **egin** zuten **txalo**. "**Txalo** asko **egiten** badidazue, siniestroa irudituko zait", esan diet, eta isildu egin dira denak. **Iñaki Mendiguren**

Guk **txalo** batzuk **eginez** erantzuten genuen. **Anjel Lertxundi**

Txalo bero-bero bat egin zioten mutilek. **Josu Zabaleta**

Berebiziko **txaloak egin** zizkieten. **Josu Zabaleta**

7 txalo eta txalo

Jendea **txalo** eta **txalo**, denak loriatuak! **Herria**
Erregea agertu den tokietan, batzu eskuzartaka, **txalo** eta **txalo**, beste frango hixtuka eta oihuka. **Herria**
Azkenean, jende guzia **txalo** eta **txalo**! **Herria**

8 txalo jo

Sar hadi, **txalo jotzen** dudanean. **Karlos Zabala**
Etzekoandreak **txalo jo** zuen airean, bere harriduraren handia markatzeko. **Anjel Lertxundi**
Zuek ikustean, mendi eta muinoek poz-irritzika ekingo diote, landako zuhaitz guztiak **txalo joko**. Nori **jo** behar dio **txalo** entzuleak? **Txalo jorik**, isiltasuna eskatu zuen markesak. **Elizen arteko biblia**
Txalo eta txistu **jotzen** diote bere etxetik alde egitean. **Elizen arteko biblia**
-Eta orain zer nahi duk: nik barkatzea eta **txalo jotzea**? **Xabier Mendiguren Elizegi**
-Husainik **txalo** bat **jo** zuen eta, agondu bitartean, esan zuen. **Patxi Zubizarreta**
Josebak bi **txalo jo** zituen: "Adrian, lagunak, isilik, mesedez". **Bernardo Atxaga**
Neska ilehoriak **txalo** labor pareta **jo** zuen, aretoan zegoen jende urriari ixteko ordua zela adierazteko. **Anjel Lertxundi**
Txalo gehiago jo ezin izan zuenean, bat-batean jaiki eta izeba Juliarengana joan zen lasterka. **Irene Aldasoro**
-Eragiok ostera, eragiok oster! - **jo** zuen berriro **txalo** Noraren aitak. **Anjel Lertxundi**
Gabrielek ozenki **txalo jo** zuen beste guztiakin batera abestiaren bukaeran. **Irene Aldasoro**
Txalo joka hartu gintuzten denek. **Inazio Mujika Iraola**

9 txalo zaparrada ik txalokada.

Gero, haiek ere esku-zartaka hasi ziren, eta **txalo**-zaparrada ikaragarria izan zen. **Iñaki Mendiguren**
Txalo zaparrada itzela jaso zuen, egina zuen ospearen neurriko hotsa, ospearen itzala maite ez ei zuen gizonak. **Edorta Jimenez**
Gaitzeko **txalo zaparrada** hartu du. **Herria**
Han zeuden *Viejas Glorias* eta *Buru Berri* guztiak **txalo zaparraden** bitaminak jasotzen. **Hasier Etxeberria**
Txalo zaparradek behin eta berriz eten zuten lbarretxeren hitzaldia. **Berría - Harian**
Txalo zaparrada batek egin zion abegi Ruche jaunaren azken esaldiari. **Juan Garzia**
Jendeak beste **txalo-zaparrada** batez saritu dio apaltasuna. **Anjel Lertxundi**
Sekulako **txalo zaparradaz** saritu zuten afaltiarrek Mathilderen saioa. **Anjel Lertxundi**
Txalo zaparrada amaitu zenean, Didier Dorise hurbildu zitzaigun eta hitzik esan gabe, bere ondoren joateko agindu zigun, keinu sotil batez. **Hasier Etxeberria**

10 txalo-jotzaile (corpusean txalojole soilik)

Neu izan nintzen **txalojole** bakar; beste milaka begi ezin zabalduago haiek zer adierazi nahi zuten ez dut sekula jakin. **Karlos Linazasoro**

11 txaloa jo

Den-denek jo zuten **txaloa**, dela erregeak hitz egiten duenean hala behar delako, dela han guztiak konforme zeudelako hartutako erabakiarekin. **Jon Alonso**
Kartzeleroak **txaloa** jotzen zuenean jaitsei behar zenuen galerietatik patiora, **txaloa** jotzen zuenean egin behar zenuen hau edo hura. **Jokin Urain**
Hizlariari adi egon eta gero, **txaloa jo** eta alde, hori baino ez zegokien. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

12 txaloak jo

Jende guztiak **txaloak jo** zituen. **Fernando Rey**
Txaloak jotzea eta irribarre egitea, sinpatiaz eta filantropia apur batez. **Unai Elorriaga**
Eskubeteka jo zituzten **txaloak**, sutsu. **Jon Alonso**
Txaloak neronek joko dizkizut. **Joxemari Urteaga**
Jaurti eta golak sartzen zituenean, sekulako **txaloak jotzen** genituen gure laguna eta buruzagia zela erakusteko. **Pello Lizarralde**
- Inork ez zuen ezer esan ez **txalorik** jo. **Koldo Izagirre**

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barre eta txalo (3); berriro txalo (4); bildu dute txalo (3); bildutako txalo (3); egin txalo (7); egin zuten txalo (4); egiten zuten txalo (3); entzuleen txalo (3); eskainitako txalo (3); eta ikusleek txalo (3); ikusleen txalo (6); jendearen txalo (9); jendearen txalo artean (4); jendearen txalo zaparrada (3); oihu eta txalo (5); sekulako txalo (3)
txalo andana (4); txalo artean (60); txalo artean amaitu (4); txalo artean hartu (13); txalo asko (3); txalo bat jo (3); txalo batzuk (5); txalo beroa (4); txalo beroak (15); txalo beroak jaso (4); txalo beroenak (3); txalo beroez (5)
txalo ederrik (14); txalo egin (57); txalo egin behar (3); txalo egin zuen (16); txalo eginez (4); txalo egingo (3); txalo egiten (27); txalo egiten zuten (4); txalo eta animo (3); txalo eta oihu (5); txalo eta txalo (5); txalo gehiago (5); txalo gutxi (4); txalo handi bat (3); txalo handiak (3)
txalo jo (26); txalo jo zuen (5); txalo joka (5); txalo jotzen (10); txalo joz (5); txalo nasaia (5); txalo zaparrada (124); txalo zaparrada bat (3); txalo zaparrada entzun (5); txalo zaparrada eskaini (5); txalo zaparrada galanta (3); txalo zaparrada handi (4); txalo zaparrada jaso (10); txalo zaparrada jasoko (3); txalo zaparradak (19); txalo zaparradarekin (4); txalo zaparradaren (3); txalo zaparradari (3); txalo zaparradaz (4); txalo zaparradek (3); txalo zaparradez (4); txalo zarta (5)
zaleen txalo (4)
txaloa jotzen (3)
entzuleen txaloak (6); jendearen txaloak (9); nire txaloak (3); publikoaren txaloak (4); sekulako txaloak (3)
txaloak entzun (8); txaloak entzun ziren (3); txaloak eskatu (4); txaloak jaso (16); txaloak jaso zituen (9); txaloak jasotzeko (3); txaloak jasotzen (4); txaloak jo (5); txaloak jotzen (7); txaloak merezi (3); zer txaloak (3)
jendearen txaloak (3)
jendearen txaloen artean (4); txaloen artean (20)
txaloz agurtu (3); txaloz hartu (4)

txaloaldi iz txalo saioa.

Hamabost minutuko **txaloaldiekin** amaitu ziren Donostiako Orfeoia eta Simon Bolivar gazte orkestrak [...] Caracasko Teresa Carreño antzokian egindako emanaldiak. **Berría - Kultura**
Txaloaldi horrekin gogaitu egiten da filosofoa, barreragile herrikoia aldiz, harropxutu. **Patziku Perurena**
Hor zeuden 63 demoak banaka-banaka deituak ziren auzitegi barnera, baktotxarentzat **txaloaldi** ederra eskaintzen zuela inguruan sustenguz bildua zen jende saldoak. **Herría**
Estasi-murmurio baten ondoren, orain arteko **txaloaldi** sutsuena eskaini diote bere biluztasun diseinatuari, ondo merezia gainera. **Patxi Iturritegi**
Publikoak **txaloaldiarekin** eskertu zituen bai Belkinen bertsio bikaina bai orkestraren lan ona. **Berría - Kultura**

txalogarri izond txaloak merezi dituen.

Gure ondarea biltzeko, gaurkotzeko eta zabaltzeko ekinaldi **txalogarria**, inondik ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Badira hala ere pondu **txalogarriak**: euskararen presentzia Baionako Conforaman eta Miarrizteko Aguilera poliklinikan. **Herría**
Ilustrazio xehe, orekatu eta beti **txalogarrien** multzo batez osatu. **Santiago Iruretagoiena**
Honi ere Lisak halako ikara jatorri lausoko bat ematen baitzion, isilik eduki zuen, gauza arras **txalogarria**. **Karlos Zabala**

Txalogarria da azken hamarkada hauetan Ipar Euskal Herriko abertzaleek egin duten lana. **Berria - Ekonomia**
Kableak moztu zituzten kideek euren ekintzaren erantzukizuna euren gain hartu zuten, eta hori **txalogarria** da. **Edurne Elizondo**
Gartsuki maite duen arima **txalogarria** izango da, maite duena biziki maitagarria denean. **Imanol Unzurrunzaga**
Txalogarri zerituz Fischer-ek boterearen jokabideari, esku hartzen baitzuen nazioaren bizitzan. **Juan Garzia**
Indarkeria gaizki dago noski [...] baina ez dakigu moralki dagoen gaizki, ala politikoki bakarrik dagoen gaizki eta moralki indiferente, edo are agian moralki **txalogarri**. **Joxe Azurmendi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lan txalogarria (3); txalogarria izan (5)

txalojole ik txalo 10.

txaloka *adlag* txalo eginez, txaloak joz.

Jende guztiak, **txaloka**, honela zioen oihuka: "Gora erregea!". **Elizen arteko biblia**
Hara, **txaloka** ari natsaizu egin dituzun bidegabeko negozio eta hilketak ikusiz. **Elizen arteko biblia**
Orduan lagunak eta ahaideak bibaka eta goraka eta **txaloka** hasten. **Koldo Izagirre**
Mandatariek **txaloka** eta zutik egin zieten harrera. **Berria - Harian**
Leandro **txaloka** hasi zen, asmo gaiztoko irriño batez. **Anjel Lertxundi**
Mahaian **txaloka** eta goraka hartu zuten, berriro eseri zenean. **Lopez de Arana**
Txaloka, orroka eta txistuka, abesti aberkoiak kantatuz eman genion amaiera pantomimari. **Anjel Lertxundi**
Trinketean hiru minutako kintzeak luze emaiten du, jendea jarririk, xutik, orroaz, **txaloka**, elgarri mehatzuka, zangoekin zarpaka. **Michel Oronoz**
Alkateak eskatu zuen printzeak **txaloka** hartzeko, eta eskuak puskatzerainoko txalo-zartaka hasi ziren gizon-emakumeak. **Felipe Juaristi**
-Oi, oso ondo! -oihu egin zuen Flitwick maisuak, **txaloka** -. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

denak txaloka (3); goraka eta txaloka (4); guztiak txaloka (5); jendea txaloka (6)

txaloka agurtu (10); txaloka agurtu zuten (3); txaloka ari (10); txaloka aritu (3); txaloka eta oihuka (5); txaloka hartu (17); txaloka hartu zuten (8); txaloka hasi (41); txaloka hasi ziren (14); txaloka hasiko (3); txaloka hasteko (3); txaloka hasten (7)

txalokada *iz* txalo zaparrada.

Julio Medem-en "Euskal Pilota" dokumentalak sekulako **txalokada** bildu du, nahiz ere polemika sortu, bereziki alderdi popularrekoen ganik. **Herria**

txalokatu, txaloka(tu), txalokatzen du *ad* txalotu; txalo ugari egin.

Jendetzak **txalokatuz** agurtu zuen, arestian gozaturiko ikuskizun ederraren ordainez. **Josetxo Azkona**
Sala bete-betea zen Hego-Afrikako talde xoragarri horren **txalokatze**. **Herria**
Jendalde ederra bildu da Urepeleko elizan kantaldirako, tokiko eta Laruns-eko kantariak gogotik **txalokatuz**. **Herria**

txalokatze *iz* txalotzea; txalo ugari egitea.

Aratsaldeko bretoin dantza ikusgarriak ere **txalokatze** nasaia ukan du. **Herria**
Bozkarioak, dibertsioak, elizkizunak, ospakizunak, mendeurrenak, jokoak, jaiak, lehiaketak, inaugurazioak, prozesioak, errege **txalokatzeak**, eskumiin **txalokatzeak**, kermesak, igandeko festak, San Juanak eta Santo Tomasak... **Askoren artean**

txalotu, txalo(tu), txalotzen 1 du *ad* onespeneren, mirespenaren edo gogo beroaren erakusgarri gisa txalo egin; gorai patu. ik txalokatu. (norbait)

Nagusiak **txalotu** egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhurki jokatu zuelako. **Elizen arteko biblia**
Hamasei gizon gazteek nagusia **txalotu** zuten. **Itxaro Borda**
Mendizaleak zortzi miletara igotzen dira eta jendeak **txalotu** egiten ditu. **Joxean Sagatzizabal**
Halakoa da oraiko pedagogia eta **txalotzen** ditut hola jokatzen diren erakasleak. **Herria**
Punduen arabera, pilotariak **txalotzen** ala gogorki iraintzen zituzten. **Ramuntxo Etxeberri**
Carrero Blancoren curriculum beltza, autoa teilatu gainean airean... zenbait zokotan, goraka aritu zen jendea, hura egin zutenak **txalotuz**, heroizat hartuz. **Juan Kruz Igerabide**
Artista ezagutzen du mundu guztiak, bera dabil jende artean, bera da **txalotua**, omendua, berea da kulturari egindako aportazioaren meritua. **Pako Aristi**
Bai, **txalotu** eginen naute; zeren azkenik iragar baitezaket neure debot latz horren erorikoa. **Jon Muñoz**
1300 ikuslek gogotik **txalotu** dituzte Txirri, Mirri eta Txiribiton pailasoak. **Herria**
Mila bat ikusleek gogotik **txalotu** dituzte Baztan, Otxagabia, Larraine, Donibane Lohizune, Bilbo eta Iruñeko taldeak. **Herria**

2 (zerbait)

Kalean igarotzen ziren bizikletak **txalotzen** zituen. **Pablo Sastre**
Hemengoek zure ekintza gero **txalotuko** zuten, gero eta isilean, zinismorik gordinenaz. **Koldo Izagirre**
Londresetik eta Dublinek desarma **txalotu** eta bake prozesuan aurrera egin beharra adierazi dute. **Berria - Harian**
Bidegabekeriak berak baino gehiago, bidegabekeria **txalotzen** eta harrotzen zuten emakume itsusi haren izaerakoek jotzen zioten Norari ikararen hondoa. **Anjel Lertxundi**
Ez daukazu eskubiderik hurkoa baino tristeago egoteko, betiko ergelkerien motela **txalotu** behar duzu, algara-merke ikusi behar zaituzte. **Koldo Izagirre**
Nire frantses motza mihira ekartzeko ahaleginak **txalotzen** zizkidaten irakasleak. **Aingeru Epaltza**
Kunderari konpromisoa eta ausardia eta zorrotasuna **txalotzen** zizkitenek soborno triste bat eskaintzen diote beste honi. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Zalutasuna eta ausardia **txalotzen** genizkion eta egoera zailenetan erakusten zuen patxada miresten. **Anjel Lertxundi**
Ez dira hain zuzen horrexegatik **txalotzen** eta saritzen zinemaldietan *In this world* bezalako filmak? **Iñigo Aranbarri**
Hor dago, adibidez, ikasliburuen alorrean egindako lana, **txalotzekoa**. **Ana Urkiza**

3 (adizlagunekin)

Euskaldun deftiodan dionela dituen demagun, atentatuak kondonatzen, arras arraiki **txalotzen** ez baldin baditu ere. Itxaro Borda

Jantokiko bazkaltiar hurbilenek barrez **txalotu** dute begiralearen ankerkeria. Anjel Lertxundi

4 (era burutua izenondo gisa)

Ikusiko duzu Apelesek zapatariari eginiko alegia **txalotu** horrekin erantzungo dizutela. Jon Alonso

Ohitura eta konbentzioaren aurka eginez, eta zinez penaturik ikuskizun hauen tradizio guztiz **txalotuak** eta eszenografia historikoak gezurtatu beharraz. Jon Alonso

1911n idatzi, edo behintzat bukatutzat eman zuen Barojak bere eleberririk **txalotuenetako** bat, denboraren joanean benetako ikur bihurtu zena irakurle barojazaleentzat: *El árbol de la ciencia*. Josu Zabaleta

Hauxe baizen ez da euskal kultura ofizial subentzionatu **txalotua**. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalegina txalotu (3); **ainitz txalotu** (3); **akordioa txalotu** (3); **aldaketa txalotu** (3); **biziki txalotu** (4)

egindako lana txalotu (4); **ekimena txalotu** (8); **ekimena txalotu du** (3); **emandako erantzuna txalotu** (3); **erabakia txalotu** (13); **erabakia txalotu zuen** (6); **erantzuna txalotu** (4); **gogo biziz txalotu** (3); **gogotik txalotu** (7); **gogotik txalotu zuten** (3); **gogoz txalotu** (3); **guztiak txalotu** (4); **hartu izana txalotu** (3); **hartutako erabakia txalotu** (3); **hartzeta txalotu** (3); **hitzak txalotu** (3)

iragarpena txalotu (5); **jarrera txalotu** (6); **jarrera txalotu zuen** (3); **lana txalotu** (19); **lana txalotu zuen** (9)

parte hartzea txalotu (3); **proposamena txalotu** (6)

txalotua izan (6)

oso txalotuak izan (3); **txalotuak izan** (7); **txalotuak izan ziren** (4)

txalotzeko aukera (3); **txalotzeko modukoa** (7); **txalotzeko modukoa da** (3); **txalotzeko prest** (4)

ausardia txalotzen (3)

txalotxo iz txalo txikia.

Umbertok **txalotxo** bat jo zuen eta barre egiteari utzi zion. Anjel Lertxundi

txalotzaile (orobat txalotzale) iz txalotzen duen pertsona.

Eta galerietan den **txalotzailea**. Herria

Jendea ere urrun zagon lehengo milaka batzuetarik: batzu lotsaturik joanak, besteak ezin fidatuz ez mugitu, hiru ehun bat **txalotzalek** ohoratu dute halere gertakaria.

Herria

txalotzale ik txalotzaile.

txalotze iz onespeneren, mirespeneren edo gogo beroaren erakusgarri gisa txalo egitea; goraiatzea. iktxalokatze.

Bat ala bertzearen musika biziki ederra izan da eta uste dut jendeak estimatu duela, zeren ixiltasun handia izan baita eta ainitz **txalotze**. Herria

Jazko xapeldunak batetik, herritarra bestetik, behari eta **txalotze** ainitz zituztenak biak ere. Herria

txalupa (orobat xalupa g.er.) 1 iz arraunontzia, eskuarki handia ez dena; arrantzurako ontzia, arraunez eta belaren batez higitzen zena. ik batel; potin.

Gure batel, **txalupa** eta halakoen aldean, itzela zen ontzitzar hura. Edorta Jimenez

Txalupa bat, txanel xume bat, zernahi, kibitka sartzeko adinakoa. Karlos Zabala

Marinelak, untzitik ihes egin nahirik, **txalupa** uretara eraisten ari ziren. Elizen arteko biblia

Enperadorea urrats bizian heldu zenez bergantinarean **txalupara**, [...]. Koldo Izagirre

Halako batean, alboko ontzitik **txalupa** bat erriatzen zihardutela begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

Etxaurreko moilan lotuta dagoen **txalupa** buruka ari da enbor ustelduen kontra. Joseba Sarrionandia

Bizkitartean **txalupak** lehorra joa zuen. Koldo Izagirre

Haiak bertan utzirik, **txalupara** igo zen eta bestaldera abiatu. Elizen arteko biblia

Txalupatik jaitsi zenean, jendetza handia ikusi zuen Jesusek. Bernardo Atxaga

Askatu dute esteka, harresian egin dute indar arraunarekin, ibaiaren erdiraino ekarri dute **txalupa**. Koldo Izagirre

Frutaz kargaturiko **txalupan**. Anjel Lertxundi

Txalupako aurrealdeko gizona atzera joan zen, eta bi gizonek arrastaka igo zuten, txaluparen alde batetik, tantaka ari zen gauza hura. Koro Navarro

Sena ibaian behera hutsik zihoan **txalupa** bat ikusi zuen. Koro Navarro

Txalupa kalafateatu berria zegoan, ez duk posible hondoratzea itsaso honetan! Koldo Izagirre

Tximistargi batek zerumuga argitu zuenean, Mael zutik jarri zen jauzi batean, **txalupa** modu arrikutsuan kulunkaraziz. Joanes Urkixo

Arraunik eta belarik gabeko **txalupa** batean itsasoratua izango da, bi egunetarako janariarekin. Joanes Urkixo

Urak gurgurrotsa egiten zuen **txaluparen** hondoan, non hiru edo lau berdelek gora eta behera eragiten zioten isatsari, beren buruak estaltzeko aski ez zen ur putzu batean.

Anton Garikano

Ea nortzuk osatuko dituzten **txalupetako** eskifaik. Jon Alonso

Maitasunaren **txalupa** eguneroko bizitzaren aurka zirtzildu zen. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Txalupa gorri bat dago lotua bertan, arraun pareta tosten gainean. Koldo Izagirre

Ez duzue arimen bila lehorrera inguratzen den **txalupa** zuriaren eta gringoaren elezaharra entzungo. Joseba Sarrionandia

Txalupa txiki bat itsaso haserrean bezala. Fernando Morillo

Iraultzaileek preso hartutako txuanak **txalupa** handietan sartzten omen zituzten eta gero Loira erdi-erdiand zeudelarik, kanoiz bota, presoako ito zitezen. Felipe Juaristi

Txalupa motordunean ailegatu zen Korsikara eta gero Frantzia gorde zen. Fernando Rey

Karelez kanpoko motordun **txalupa** batekin. Joseba Sarrionandia

Motorrezko **txalupak** zebiltzan putzuan, uraren gainean kezko hodei zikinak eskegiz. Koro Navarro

Asteburuan zendutakoak **txalupa** pneumatiko batean zebiltzan. Berria - Euskal Herria

Arrantzale txiroek gauez harrapatu duten arraina **txalupa** zahar baten inguruan makurtuta zatikatu eta husteko [...] uhinen marruma gorgarrian. Koldo Izagirre

Londresko hiru **txalupa** militar atzeman dituzte Irakeko mugan. Berria - Mundua

Non dago ordea **txalupa** lemagabe hori? Koro Navarro

Hantxe zegoen, Armadako beste ontzi txiki batekin karelez karel mulaturik, arrantzako **txalupa** xumeak hondaturik ziren hareatzaren aurreko ur txikian. Edorta Jimenez

Arrantzaleen **txalupa** ikusezinak igerian dabilta ene azpiko amildegian. Koldo Izagirre

Hamar kanoi pezako **txalupa** zahar bat. Juan Garzia

Beira-zuntzezko **txalupa** omen zuten erosia eta hiriburuko badiaz kanpo arraun egiten irakastea eskatu omen zioten. Koldo Izagirre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tropa kopuru handi bat zenbait versta ibaian behera bidali eta beste aldera igaro ziren berariak moldaturiko **txalupa** zubi batzuen bidez. Karlos Zabala

Mikel Strogoffek Volga ibaia gurutzatu zuen zalditeriako kosakoek zaindutako **txalupa** zubi batean zehar. Karlos Zabala

Mahai gaina joka aritu ziren inpentsan, doinuaren indarrak eramanda, itsasoaren uhinik bortitzenak **txalupa**-egurrak bezala. Felipe Juaristi

Haien artean, **txalupa**-formako hutsune bat. Jose Morales

Txalupa-ertzeraz makurtzen zenean eta gorpuari heldu, txalupa balantzaka hasi eta iraultzeko arriskutan jartzen zen. Gotzon Garate

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etsaien arraun-**txaluparik** ez da handik igaroko, ez ontzi handirik bertan ibiliko. Elizen arteko biblia

Itsasoaren aurrera iritsitakoan ez zuen gerra itsasontzirik, ez arrantzale **txaluparik** ikusi, itsaso urdin-urdina, itsaso amaigabea baizik. Felipe Juaristi

Sehaskara hurbildu zen argizko salbamendu-**txalupa** batean. Lopez de Arana

Ozta-ozta egin ginen salba-**txaluparen** jabe. Elizen arteko biblia

5 txalupa-zain ik txalupazain.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

salbamendu txalupa (5); **txalupa hartu** (7); **txalupa ikusi** (3); **txalupa txiki** (9); **txalupa txiki bat** (5); **txalupa zahar** (3); **txalupa zubi** (4)

txalupan eserita (3)

txalupara igo (11); **txalupara igo zen** (4)

txaluparen hondoan (3)

txalupadun iz txalupa duena.

Oihu lazgarriak ziren eta **txalupaduna** gizona zegoen tokirantz hurbildu zen. Gotzon Garate

Txalupadunak ez zuen asko sinetsi. Gotzon Garate

txalupaldi iz txalupa-ibilaldia.

Niretzat, **txalupaldi** hura egundoko mozkorra harrapatzea bezalakoa izan zen. Iñaki Iñurrieta

txalupaño iz txalupatxoa.

Ekaitzak behin eta berriz zigortu **txalupaño** ezdeusa. Xabier Montoia

txaluparatu, txalupara(tu), txaluparatzen da/du ad txalupara joan; txalupara eraman.

Bi orenen buruan, dena ikusitakoan, edo dena hautemandakoan bederen, **txaluparatu** egin nintzen ostera. Koldo Izagirre

Txaluparatzeko orduaren zain daude. Jon Alonso

Gorputz zikin eta odoloztatu hauek osatzen duten lerro hau korri dezagun, besoa besoaren ondoan daude etzanik, noiz **txaluparatuko** zain. Jon Alonso

txalupari 1 iz txalupa daraman arraunlaria. ik txalupazain.

Estigia ibaian, Karon -Charon, Karonte- izeneko **txaluparia** zegoen arimak beste aldera eramateko. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Bi ibaiertz arteko **txaluparia**, eguraldi on nahiz txarrarekin. Joseba Urteaga

Txalupari biek zutik egiten zuten arraun, gibeletik aitzinerat, erramu banarekin, mugimendu motel, single eta dotorez. Koldo Izagirre

Txalupariak entzuten ditut urrunean kantari. Koldo Izagirre

Denok asmatu duzueenez, emakume garrasilaria horiek **txalupariak** dira. Koldo Izagirre

Marinel bat entzuten dut kantari, haur batzuk barrez, **txalupariak** deika, garbitzaileak harria jotzen arroparekin. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan)

Txalupari talde baten erdian nengoan, itsasoa iragateko eskaintza egiten zidatela. Koldo Izagirre

txaluparitza iz txalupariaren lanbidea.

Nire lagunik onenetako bat, Louis Bernet, orain **txaluparitza** eta hark dituen ponpeziak eta pildak alde batera utzi, eta Estatu Kontseiluan sartua dena, C... herrian kokatua zen. Josu Zabaleta

txalupatxo 1 iz txalupa txikia.

Gure **txalupatxoa** bi emaztek gidatzen zuten, bata zaharra eta bestea gaztea, ama-alabak. Koldo Izagirre

Askotan ikusi izan ditu garabi horiek Pasaiaiko portuan, aita, ama eta arrebarekin San Pedrotik Donibanera **txalupatxo** batean pasatu izan direnetan. *Ánimas* karraka sorterriaren aurreko badien agertu zenean hantxe ninduten begira ni [...] Bitorianoren **txalupatxoan**, bateltxo xume batean, fardel edo hatu are xumeagoarekin. Jokin Muñoz

Hegoaldeko bi uhartetxoak kaio-habiaz beterik daude: **txalupatxo** bat hartu besterik ez dago, eta nahi adina arrautza aurkitzen du han batek. Juan Garzia

Lanak izan ditut nire **txalupatxora** igotzera bairatzeko bikotea, Desolaziotik bereizten gintuen tarte laburra, ehun bat itsas besabete, zeharkatu behar zela eta. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan)

Txalupazainen topalekutik ikusten zen eliza Vétheuilkoa zen, Monetek margotua; Albertek eta berak otordua egin zuten lekuaren ondo-ondoan lehorrera lotutako lantegi-**txalupatxo** batetik margotu ere. Jon Muñoz

txalupatzar iz adkor txalupa handia.

Maddalenek bizimodu kilikagarria bazeraman **txalupatzar** hartan bizi zen mutilarekin. **Joxemari Iturralde**

txalupazain (orobat txalupa-zain) iz txalupalaria.

Egunero, basora iristeko, ibaia zeharkatu behar izaten dute, **txalupazainari** bidaia ordaindu eta beste aldera igaro. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Txalupazainen topalekutik ikusten zen eliza Vétheuilkoa zen, Monetek margotua. **Jon Muñoz**

Gizarte hauetan guztietan gizakiak **txalupazain**, zaldizko edo gerrari gisa espezializatzeagatik gizazpiko maila batera degradatuta daude gizatasun osokoekin [...] konparatuz. **Iñaki Mendiguren**

txalupilo iz

Merkantzi tren bat atoiotzi batek bultzatutako **txalupilo** baten barnean. **Lopez de Arana**

txaman ik xaman.

txamar ik txamarra.

txamarra (orobat txamar) 1 iz jaka.

Guapa-guapa, **txamarra** erdirekia, bular erdiak begi bistan, ni haiei begira nengoela, halako batean berak begiratu zidan. **Pablo Sastre**

Bakeroak, kirol zapatilak eta txandal antzeko **txamarra**. **Sonia Gonzalez**

Txamarraren kremaiera igo eta ostatura jo zuen. **Paddy Rekaide**

Une batez, karneta **txamarraren** zein poltsikotan gordea nuen gogoratzen saiatu nintzen. **Iban Zaldúa**

Eskuak **txamarrako** sakeletan sartuta. **Pablo Sastre**

Txamarrako sakelari sartu nuen liburua inor azaldu baino lehen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Paul D-k **txamarraren** sakelako botilari heldu zion. **Anton Garikano**

Gizonak bularretik haurra askatu eta mutilaren **txamarran** bildu zuen, mahukak aurrean lotuz. **Anton Garikano**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Maukak luze irteten zitzaizkion **txamarra** zahar bat zeraman soinean. **Koldo Izagirre**

Galtza argiak zeramatzan; eta gainetik neguko **txamarra** marroi bat. **Txillardegi**

Laruzko **txamarra** beltz sendoa soinean, kendu gabeko bizarra, neke aurpegia. **Jon Arretxe**

Txamarra luzea zuen jantzita, mahukarik gabea, eta kolore ilunekoa, lepoko xingola izan ezik. **Karlos Zabala**

Trajearen gainetik laruzko **txamarra** luze bat baitzeraman. **Berria - Kirola**

Eskularru argiak besoetan gora, eta **txamar** eta longain ilunaz jantzirik. **Txillardegi**

Oinetako parea, ehizarako kapela, gona eta **txamarra** maiztu batzuk armairuetan. **Anton Garikano**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zaindari txano-gorri eta **txamarra**-urdinen kasernatxoaren aurretik pasa. **Txillardegi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oihalak baso-usaina izaten zian [...] gerritik zintzilik eramandako hegaztiekin isuritako odolarena: odolak beti zikintzen zian ehiza **txamarra**. **Xabier Olarra**

Gauetz denbora-pasa mendi buelta bat egin eta etxeko lan **txamarrak** egingo ditu, gero egunaren zati handi bat lotan igarotzeko. **Joxean Agirre**

Espaloian bilduta, jertse koloretakoekin, larru **txamarra** ximpleekin jantzitako emakume aurpegi-luzeek etsi keinuak egiten zituzten. **Pablo Sastre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

laruzko txamarra (5)

txamota iz adreilu eta kideko ekaien pikorretatik ekoizirikoa materiala.

Txillidak etxean zuen harakin mahaia erreproduzitu du Anthony Carok, eta euskal artistak ohikoa zuen materiala erabili du horretarako, **txamota** lurra. **Berria - Kultura**

txanbela iz dultzainaren antzeko musika tresna.

Soinu tresnetan, hor dira segur txistua, xirula, txiribita, **txanbela**, silbotea eta holako batzu. **Herria**

Bertze edozein ohizko tresna bezala, dela txistu, **txanbela** ala alboka, gaitak ere bere toki osoa behar luke musika erakaskuntzan. **Herria**

Hori guziaz erritmo askorekin, biolin, **txanbela** eta pandero musika tresnek lagundurik. **Herria**

txanbelan iz errege ganberako gehiena, erregeari lagun egiten ziona.

Zeren eta, **txanbelanetako** bat barbaroak isilarazten saiatzen bazen, bera isilarazten baitzuen enperadoreak, bai baitzekien frankoak zein erraz ateratzen ziren beren onetik, eta beldur zen probokazio hutsalen batek leherketa eragin eta Erromatar Inperioari kalterik larriena ekarriko ote zion. **Iñaki Mendiguren**

Orduan are gehiago sutzen nintzen, eta merkatu kapitalistaz hitz egiten nuen, baita estatuko nagusi eta soberano eta **txanbelan** handi eta militarren mundu honetaz ere.

Fernando Rey

Udaletxeko agintari bat, amarruz sartua, burgumaisua, **txanbelan** handia, aholkularia, halako zerbaiz. **Fernando Rey**

Ez naiz iritsi berri baten **txanbelan** inozoa izango. **Agustin Otsoa**

txanbelari iz txanbela-jotzailea.

Soinu egileen atalean ere, xumetasunerat jo du Jesús pastoralak, txirulari, **txanbelari**, atabalari eta ttun-ttun eta arrabita jotzaileek soilik lagunduko baitituzte kiristi, türk eta satanen ateraldiak. **Berria - Kultura**

Jerkaldien eta dantza-jauzien lagungarri izango diren musika egileak, bi **txanbelari**, atalabari bat, ttun-ttun jotzaile bat, arrabita jotzaile bat eta akordeari jotzaile bat izango dira, besterik gabe. **Berria - Kultura**

Xiberoko kantariak, dantzariak, musikariak eta **txanbelariak**. **Herria**

txanbelin iz polita, txairoa.

Kuriosoa da, baina, Hugoren begitan, neskak beti zoragarriak ditugu, politik, alaiak, **txanbelinak**, eta beti barrez ari dira. **Koldo Izagirre**

Mutil apaina iruditu zitzaion, karana eta **txanbelina**. **Patxi Zubizarreta**

txanberga iz trinketearen ondoko bela txikia.

Eta kulunkan zebilen ontzi baten **txanberga** ikusi zuen kable-bete batera. **Juan Garzia**

Ohol-xafra bat erantsi zitzaion **txanbergari**. **Juan Garzia**

txanbergo iz kasaka gisako jaka luzea.

Beste mahaiko bezeroak hiru ziren: bik soroko peoiak ziruditen; hirugarrenak txino-hazpegi baldarrak zituen eta **txanbergoa** jantzirik edaten zuen. **Juan Garzia**

txanbero iz

'Txele, txele, txele,' diote **txanberoeak**, 'astunegia da zuretzat, neuk eramango dizut poltsa hori!'. **Joseba Sarrionandia**

txanbil 1 iz noria edo kideko tresnetan, ura igotzeko suiletako bakoitza.

Oraindik hori baino gorago lekuetara igo beharko balitz ura, gurpil horren ardatzean burdinazko kate bikoitza jarriko da inguruan bilduta eta behearaino iristen dela, eta zintziilik brontzezko **txanbilak** dituela bakoitza kongio bateko neurrikoak. **Santiago Iruretagoiena**

Gurpilaren biraketaz katea ardatzaren inguruan biltzen joango da eta **txanbilak** gora jasoko dira, eta ardatzera iritsi ahala, iraultzen joango dira jasotako ur guztia depositu batera isuriz. **Santiago Iruretagoiena**

2 pegarra.

Txanbil bat ireki eta kolore gorriko edari bat isuri zuen Alkimistak mutilaren edalontzian. **Xabier Aranburu**

txanbra iz emakumezkoen atorra.

Elastikoak eta galtza motzak zeramatzen mutil guztiek, eta cricketeko **txanbra** irekiak eta gizonezkoen galtza luze grisak neskek, behealdea lotzeko kateorrazak jarrita. **Koro Navarro**

txanda (orobat *tanda g.er.*) 1 iz era bereko egite hurrenkera batean, norbaiti edo zerbaiti dagokion ueña.

Goizean goizxeago sartu eta arratsaldean lehentxeago ateratzeko baimena eskatu nion gure buruari, optikoarenean **txanda** neukala esanda. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Atenasko herritarren biltzarrak 7.000tik 8.000ra lagunekoak izaten zirela, eta herritar bakoitzak hitz egiteko aukera zuela haietan, **txanda** zegokionean. **Jon Muñoz**

Zuri ere iritsiko zaizu **txanda**, uste baino lehenago agian. **Josu Zabaleta**

Txanda iritsi zitzaionean, break berri-berri batean sartu zen gizona, eta iparraldeko autobidea hartu zuen autoak. **Jon Muñoz**

Pedrok bere **txanda** itxaroten zuen, ilaran, eskuburdinez lotua. **Jon Maia**

Javierrek, ilaran sartuko dela eta **txanda** gordeko duela diosku. **Edorta Jimenez**

Aulkiak betetzen zituzten mutiko, neska eta atso zahar guztiei utzi zien **txanda** pasatzen. **Josu Zabaleta**

Fiskalak, lotsatuta, nire defentsa suharrari utzi zion **txanda**. **Koldo Izagirre**

Txandak antolatuta genituen, eta, horrela, eta egoera epaileen aurrean salatuz, lortu genuen eustea. **Eduarne Elizondo**

Izan ere, Joiadak ez zien alde egiteko baimenik eman **txanda** bukatzen zutenei. **Elizen arteko biblia**

Ihes egin zuen, **txanda** amaitu gabe, Almaren besoetarantz. **Iban Zaldúa**

-Orain dela ordu erdi zunan etortzeko Robe, **txanda** aldatzeko. **Sonia Gonzalez**

Txanda eskatu nuen, baina itxaron zerrenda handia zegoenez, zain egon beharko nuela esan zidaten. **Berria - Euskal Herria**

Keinu zorrotz batez nire **txanda** eskaturik, irakaslearen bularra seinalatu dut nire atzamarrak: [...]. **Anjel Lertxundi**

Elkarri **txanda** jenez jarraitu zuten huntaz eta hartaz. **Unai Iturriaga**

Ongi jarria du, bai, Jakob izena, oraingoarekin bi bider kendu baitit **txanda**. **Elizen arteko biblia**

Harri bakoitzarekin hiruna minutuko **txanda** bana egingo dute. **Berria - Kirola**

152 kiloko kubo erabili zuten, eta bost minutuko **txanda** bana egin ondoren, parra egin zuten, 21 jasoaldirekin. **Berria - Kirola**

ik beherago 8. **Askoren artean**

Txanda bakoitzean egindako lau orduko lanuzteak erabatekoak izan dira, eta zuzendaritza kezkaturik dago egoerarekin. **Berria - Ekonomia**

Gero zein bere **txandan** joaten ginen "despatxu"ra. **Juan Garzia**

Jo argibide bila apaiz lebitarregana eta une hartan **txandan** egongo den epaileagana. **Elizen arteko biblia**

Telefonoaren zain egon beharko zenuen tabernan, **txandan**, neska batek Leridan soldadu zeukan nobioarekin berriketaldia bukatu arte. **Berria - Kirola**

Egunean 11 orduz atsedean hartu beharko dute, gutxienez 3 eta 9 orduko bi **txandatan**. **Berria - Ekonomia**

Labur irizten zion egonaldia, eta pena saminez atera behar izaten zuen seietan hurrengo **txandakoak** iritsi aurretik. **Pako Aristi**

Poliziek eurek deitu omen zuten **txandako** abokatua, «atxilotu piloa» zegoela-eta. **Berria - Euskal Herria**

Jite horretan harrapatu baitzuten Istillaga, galtzak lurrean, seietan hasten ziren **txandakoek**, ilunpean zegoen gelan argia piztu zutenean. **Pako Aristi**

Billarreko mahai bat zegoen, eta bi gizon ari ziren bertan, isiltasun ia erlijioso batez, **txandari txanda**. **Anjel Lertxundi**

2 (-en atzikiaren eskuinean)

Vernerren eta Jansoen **txanda** zen. **Jose Morales**

Apur bat geroxeago nire **txanda** zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hire **txanda** duk orain! **Jon Muñoz**

-Zure **txanda**, Tommo -esan zuen amak. "Zein da zure izena?", galdetu zidan nire **txanda** heldutakoan. **Bernardo Atxaga**

Janson, gainerako lapur eta hiltzaileen zerrendan bere **txanda** iritsi zitzaionean, epaitu eta heriotzara kondenatu zuten. **Jose Morales**

Mogolen aitzindari musulmanei eta, beren **txandan**, mogolei euei, komenigarri iruditu zitzairen ordezten ari ziren hindu-estatuen jarraibideari segitzea. **Iñaki Mendiguren**

Alkatearen **txanda** dator. **Edorta Jimenez**

Justinianoren **txanda** etorri zen gero. **Jon Muñoz**

Segidan baltsaeren **txanda** izan zen eta ondoren tangoena. **Felipe Juaristi**

AK honen hasieran agindutako argibideak eman eta gero, ondorioaren **txanda** dator segidan. **Anjel Lertxundi**

Galderen **txanda** heldu zenean. **Berria - Euskal Herria**

Abeslariaren **txandak** antolatzen zituen eta solistak aukeratzeko zituen. **Jose Morales**

Saio normala amaituta, propinen **txandan**, "Itziarren semea" kantatu zuten, entzuleren batek eskatuta. **Agurtzane Juanena**

3 (ordinaletan)

Handiena besterik ez dut kendu, eta bihar bigarren **txanda** bat egingo dut. **Itziar Otegi**

Hitzaldien hirugarren **txanda**. **Elizen arteko biblia**

Lehendakaritzarako hauteskundeetako bigarren **txanda** galdu ondoren. **Berria - Mundua**

Auzitegi Gorenak bozen bigarren **txanda** errepikatzeke agindu du. **Berria - Mundua**

EAJko Arabako eta Gipuzkoako barne hauteskundearen bigarren **txanda** atzeratu egin da. **Berria - Euskal Herria**

Laugarren **txandaren** ondoren Srubovek ez zituen aurpegiak, oihuak bata bestetik bereizten. **Pablo Sastre**

4 (-ko edo -tzeko atzikiaren eskuinean)

Maiz etxeratzen zitzaigun arratsaldeko **txanda** zuenetan. **Xabier Montoia**

Gaueko **txanda** heldu zenean. **Anton Garikano**

Zazpietako **txandan** hasi omen duk lanean. **Aingeru Epaltza**

Amaitzean, besteok *Amen* esan genuen, eta gero norbaitek zaintzako **txandetarako** deia egin zuen. **Edorta Jimenez**

Giroa berotzen hasten dira kartzeleroak, patioko **txanda** berean ateratzen dituzte preso aurkariak: motina probokatzeko ari dira. **Jokin Urain**

Denekin mintzatzen zen jakintsua, eta bi ordu itxaron behar izan zuen mutilak horretarako **txanda** heldu zitzaion arte. **Xabier Aranburu**

Azkeneko **txandan** bezalaxe. **Joxe Austin Arrieta**

Bere burua zuzitzeko **txanda** zen. **Anton Garikano**

Heldu zitzaion, bada, Esterrí [...] erregearen aurrera agertzeko **txanda**. **Elizen arteko biblia**

Barrakoiko atarian sendagilearenean egoteko **txanda** heldu zitzaion. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gero gainotzeko taldeei erantzuteko **txanda** emango zaie. **Berria - Euskal Herria**

Mahaian eseri zenean, amak hartu zion komunera joateko **txanda**. **Aitor Arana**

Hantxe nago, ilaran zain, ordaintzeko **txanda** noiz etorriko. **Joxerra Garzia**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Guardiaren **txanda**-aldaketari esker jakin duzu ordua. **Rafa Egiguren**

Besterik ezear, **txanda**-sistema bat antolatu genuen andreak eta biok, gau osoan ez bazen ere bakoitzak hiruzpalau orduz behinik lo egiteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nahiz eta hazkundealdia [...] erronka eta erantzunen **txanda**-sail bezala azter daitekeen, aurkitu dugu ezinezkoa dela uhin-luzera estandar eta komunik bereiztea **txanda**-segidarentzat. **Iñaki Mendiguren**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Biak talde mistoan egonda, interbentzio **txandak** eta finantzaketa ere banatu egin beharko dituzte. **Berria - Harian**

Bukatzeke, erreplika **txanda** hasiko da. **Berria - Euskal Herria**

Garbiketa-**txandena** ere gogorarazteko. **Iñaki Iñurrieta**

Txopako gazteluan pilotu **txanda** egiteko agindua hartu nuen. **Edorta Jimenez**

Mahai-aulkiak ez dira garbitzen zikindutakoan, langile-**txanda** aldatzean baizik. **Edorta Agirre**

Bigarren zerbitzua amaitutakoan, hirugarren janari-**txanda** ekarri zuten, hura ere beroa. **Felipe Juaristi**

Hauetako, beraien senide ziren Aaronen ondorengoei bezala, beren zerbitzu-**txanda** ezarri zieten. **Elizen arteko biblia**

Otoitzean ziharduelarik, lehen gau-**txanda** aldean edo, hor non datorkion deabru talde handi bat. **Askoren artean**

Otoitzean pasatu zuen gaua, bigarren zaindaria-**txandara** arte. **Jon Alonso**

Beste guardi **txanda** bat egiteko aski denbora. **Edorta Jimenez**

Gaur lan-**txanda** izan duten begirale guztiei erakutsi diet literatur-lan aske eta dohain baten aldeko aldarria. **Anjel Lertxundi**

Zelata-**txanda** bete beharrez, Pello inguruak miaztera abiatu zen bitartean, loak ez zituen hartu denak. **Joxemari Urteaga**

7 edaria edo kideko zerbitzu talde bateko kide guztiei banatzea. ikerronda; turnada.

Niretzat kafea eta lagunentzat hartzen ari zirenen beste **txanda** bat agindu nuen. **Edorta Jimenez**

Giroa ekaiztsu ikusten zenean, **txanda** bat ardo bere kontura atera, eta Galarretako partidaz galdetzen baitzien. **Ramon Saizarbitoria**

8 kirol lehiaketa batzuk banatzen diren zati berdinetako bakoitza.

Lau laguneko zortzi **txanda** egingo dira, eta aurreneko biak sailkatuko dira. **Berria - Mundua**

Zozketaz banatutako **txandak** izango dituen azken estropada izango da. **Berria - Kirola**

Sailkapenaren arabera egin dira **txanda** banaketak, beraz, etxeko taldea lehenengoan izango da, Isuntza, Trintxerpe Servicristal eta Pedreñarekin batera. **Berria - Kirola**

Santurtzi izan zen **txanda** horretan lehena. **Berria - Kirola**

Bi traineruak **txanda** berean aritu baitziren. **Berria - Kirola**

Txanda nagusiko lau traineruen arteko lehia aurrekoan baina estuagoa izango den. **Berria - Kirola**

txanda: Santander, Zierbena eta Arkote. **Berria - Kirola**

Merezi du aipamenik Oriok (bere **txanda** irabazi zuen [...] eta merezi du aipamenik Pedreñak ere (lehen txandan aritu, eta bosgarren bukatu zuen atzoko estropada, indartsuen artean). **Berria - Kirola**

Helduden igandean, hiru **txandetan** eta arrualari hoberenekin, goizeko 11-ak eta erdietan hasiz. **Herria**

Bost kirolariak hiru **txandatan** jardun zuten segan. **Berria - Kirola**

Gizonezkoen 200 metro libreko **txandak** erakargarriak izan baziren, emakumezkoen bularkako 50 metroak ere ez ziren emozio gabeak izan. **Berria - Kirola**

Penaltien **txanda** 4-2 amaitu zen. **Berria - Kirola**

Egurretan, Larretxeak eta Mindegia **txanda** libreko probetako egurrak plazaratuko dituzte. **Berria - Kirola**

Lehen proba: bi bikoak **txanda** librean 60 ontzako egurra ebakitzen (2 puntu). **Berria - Kirola**

Bigarren jardunaldia jokatu ondoren berdinduta baleude bi edo talde gehiago, orduan jokatuko lukete berdinketa hausteko **txanda**. **Berria - Kirola**

Zozketarik ez da izango, biek ala biek badakite elkarren ondoan egingo dutela arranean, eta **txandan** lehenago bukatzen duenak sailkapeneko ohorezko postua eskuratuko du. **Berria - Kirola**

Bera izan zen **txandako** azkarrena. **Berria - Kirola**

9 txandan adlag txandaka. ik beherago 13.

Bera eta beste hogeita bi jubilatuta latorrizko hesitik **txandan** begira. **Unai Iturriaga**

10 txanda egin

Begiak kukatu nituen; norbait zortzen **txanda egitera**. Juan Kruz Igerabide

Gaur, ikusten duzunez, **txanda egiten**. Sonia Gonzalez

Nazioarteko Espazio Estazioan dira **txanda egingo** duten astronautak. Berria - Gaiak

Goizeko **txanda egin** dutenek ordu erdiko atzerapena izan dute Ondarroatik Bilbora. Berria - Harian

Txopako gazteluan pilotu **txanda egiteko** agindua hartu nuen. Edorta Jimenez

Alemaniarren hiru ehiza misio daudelako Albert gainean elkarri **txanda egiten**. Josu Zabaleta

. Zaintzaileek hiru **txanda egiten** dituzte egunean: 07:00-15:00, 15:00-22:00 eta 22:00-07:00. Berria - Harian

Etengabeko **txandak eginez**. Joanes Urkixo

Platerak garbitzeko **txandak egitea** erabaki zuten. Fernando Morillo

11 txanda eman

Bizpahiru hilabetera **ematen** dute **txanda** [Osakidetzan]. Berria - Harian

Maiatzaren 22rako **eman** zioten **txanda**. Berria - Euskal Herria

Zenbat bidaiarik **eman** ote zion elkarri **txanda**? Jon Muñoz

Nekatzen zenean, amaiera hitzetara jo, "hala ez bazan sar nadila kalabazan", eta beste bati **ematen** zion **txanda**. Bernardo Atxaga

Eman diezaiogun **txanda** orain Bizkaiko gertaera txikiena ere xehetasun handienez jaso ohi duen *El Correo Español*-i. Iñigo Aranbarri

. Lau ziklista behar badira lau, bost behar badira bost; **txanda emate** luze zein motzak ere aukeran. Berria - Kirola

12 txanda hartu

-Lur jo zuen Erromak; Bizantziok **hartu** zion **txanda**. Jon Muñoz

Jostaketarekin aspertu zenean Pantxok **hartu** zion **txanda**, era okerragoan. Bernardo Atxaga

Orain hondeatzaileek **hartuko** zieten **txanda** zurginei. Jon Alonso

Gero, mendea iragan ondoren, Cauchy, Poncelet, Sophie Germain, Poisson, Chaslesek **hartu** zuten aurrekoen **txanda**. Jon Muñoz

Ruche jaunak **txanda hartu** zion. Jon Muñoz

Hodeietan gordetako euria haizeari **txanda hartu** zain zegoen. Anjel Lertxundi

1938an, Barañanori **txanda** Jose Inazio Ibarbia errezildarrak **hartzen** dio. Pello Zabala

-Astakirten bat ezagutu duela! -esaten du Joanak **txanda hartuz** -, berarekin txat batean aritzen den pirata bat. Antton Olano

Sistema abian jarri ondoren baino ez dute **hartuko** enbrioiaren geneek beren **txanda**, eta lanean hasi. Juan Garzia

13 txandan-txandan adlag txandaka. ik beherago 9.

Lurrean, zoladura gisa, baldosa zuriak eta arrosak jarriak zeuden **txandan-txandan**, greka gorri ilun bat inguruan zutela. Karlos Zabala

Ez kezatu, **txandan-txandan** denoi tokatuko zaizue eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Bata bestearen ondoan jarri ginen belauniko eta ipurdia gora, **txandan-txandan** sar ziezagun. Karlos Zabala

Txandan-txandan hartuko ditinagu, aldian urre pilatxo bana. Karlos Zabala

14 txanda-pasa egin (orobat txandapasa eta txandapaso) txanda pasatzen utzi.

Zer uste zenuen maribihurritxo horrek, **txanda-pasa** egingo nuela? Nadiak, berriz, urrats horiei **txandapasa** egin, eta marrazki nabarmenki ezagugarri eta irudi xehekoak egiten zituen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Urtarrilak bere azken egunean ilbete zuria lapurtzen badio, otsail 28 egunekoari **txanda-pasa** egiten baitio. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

agertzeko txanda (5); azken txanda (12); azken txanda libreakoan (4); bakoitzak bina txanda (4); bere txanda (36); bere txanda iritsi (8); bere txanda zen (4); beren txanda (9); bi txanda (6); bigarren txanda (68); bigarren txanda bat (5); bigarren txanda egin (6); bigarren txanda errepikatzea (5); bilera txanda (10); bina txanda (5); bozen bigarren txanda (13); da bigarren txanda (5); da nire txanda (4); da txanda (5); diete txanda (4); dio txanda (9); dute txanda (7)

egiteko txanda (7); elkarrizketa txanda (12); galderen txanda (10); gaueko txanda (9); gazteen txanda (5); gure txanda (29); gure txanda da (7); hartu zion txanda (5); hauteskondeen bigarren txanda (6); hire txanda (7); hire txanda duk (7); hiru txanda (10); hirugarren txanda (6); hitz egiteko txanda (5); hitzaldien txanda (4); hurrengo txanda (4)

izateko txanda (4); lan txanda (8); lehen txanda (20); minutuko hiru txanda (7); minutuko txanda (12); minutuko txanda bana (4); nire txanda (64); nire txanda da (13); nire txanda iritsi (7)

orain nire txanda (8); orain zure txanda (4); proba txanda (4); proba txanda librean (4); taldearen txanda (8); taldearen txanda izango (4); taldeen txanda (4)

txanda aldaketa (6); txanda amaitu (6); txanda bakoitzean (23); txanda bakoitzean bi (6); txanda bakoitzeko (10); txanda bakoitzeko bi (6); txanda bana (6); txanda bat irabazi (4); txanda batean (6); txanda berean (23); txanda berean arituko (4); txanda bukatu (4)

txanda egin (19); txanda egingo (18); txanda egingo ditu (7); txanda egiten (7); txanda egokitu (5); txanda eman (4); txanda errepikatzea (5); txanda eskatu (6); txanda etorri (25); txanda etorri zen (13); txanda gaur (4); txanda guztiak (6); txanda hartu (14); txanda hartu zion (4); txanda hartuko (4); txanda hartzen (10); txanda hasi (6); txanda heldu (32); txanda heldu zen (9)

txanda iraganen (5); txanda iraganen da (5); txanda iristen (5); txanda iritsi (71); txanda iritsi arte (4); txanda iritsi zain (4); txanda iritsi zen (25); txanda iritsi zitzaionean (4); txanda iritsiko (7); txanda iritsiko da (6); txanda izan (72); txanda izan da (7); txanda izan zen (57); txanda izango (77); txanda izango da (70); txanda librean (66); txanda librean bi (14); txanda libreako (15); txanda libreakoan (8); txanda nagusian (4)

xalaren txanda (4); zure txanda (21); zure txanda da (9)

bigarren txandak (4); hiruna minutuko txandak (8); minutuko txandak (13); minutuko txandak egin (4); minutuko txandak egingo (6); orduko txandak (4)

txandak antolatuta (4); txandak egin (9); txandak egingo (8); txandak egingo dituzte (4); txandak egiten (8); txandak sailkapenaren arabera (5)

bigarren txandako (11); bigarren txandako emailzak (4); gaueko txandako (4); lehen txandako (7); txandako langileak (5)

aurreko txandan (10); aurreneko txandan (8); azken txandan (11); bere txandan (10); bigarren txandan (61); bilera txandan (4); bost minutuko txandan (12); bozen bigarren txandan (10); erantzunen txandan (6); galderen txandan (12); gaueko txandan (7); goizeko txandan (10); hauteskondeen bigarren txandan (8); hirugarren txandan (11); lehen txandan (59); lehen txandan aritu (6); minutuko txandan (17)

txandan ariko (4); txandan aritu (11); txandan aritu ziren (4); txandan egongo (4); txandan izan (4); txandan txandan (11)

bigarren txandara (5)

bigarren txandarako (8)

bere txandaren zain (6); bigarren txandaren (5); bilera txandaren barruan (4); nire txandaren zain (4); txandaren zain (22)

bigarren txandari (4); txandari ekin (4)

bi txandatan (19); hiru txandatan (20); minutuko bi txandatan (5); minutuko hiru txandatan (7); minutuko txandatan (5)

lehen txandatik (8)

bi txandetan (4); hiru txandetan (7)

txandaka 1 adlag elkarri txanda hartuz.

Gehienetan, **txandaka** egiten dute; lehenengo, batek, eta gero, besteak. Luis Elberdin

Idoia **txandaka** begiratzen zigun Adelari eta niri, esanez bezala: "Zer arraio gertatzen zaie hauei?". Juan Kruz Igerabide

Txandaka aritzen ziren anaiak: aldika "ama" ziren, Martaren antzera jardunez eta "semeak" zainduz, eta aldika "seme", Mariaren antzera kontenplazioari erabat emanak biziz. Askoren artean

Eurek eguzkia ikustean, guk gaueko izarrak ikusten omen ditugu eta urtaroak gurekin **txandaka** banatzen omen dituzte, eta haien gauak gure egunei omen dagozkie.

Xabier Amuriza

Etsipenak eta itxaropenak ginderabiltzan **txandaka**. Juan Garzia

Txandaka edan genuen termoetatik. Koro Navarro

Ondoren gizona enfokatzen digute, bere musikarekin, aurpegia eta testua **txandaka** Xabier Mendiguren Elizegi

Txandaka egiten zuten beren zainketa Don Carlosen etxe arruntaren aurrean. Txillardegia

Ur beroa bulegoan baizik ez dagoenez (*bulago* esatean beheko solairu guztia esan nahi dut beti), **txandaka** jaisten gara zazpiok, abantaila handi hortaz aprobetxatzeko.

Josu Zabaleta

Gaurko zutabeen ISS nazioarteko estazioari buruz mintzatu nahi nuen, aspaldiko partez, urtearen amaieran bost urte bete baitzituen orbitan, eta 12 eskifaia izan ditu

txandaka . Berria - Gaiak

Garijotze lanak ez ziren txantxetakoak, baserriz baserri **txandaka** , batak besteari lagunduz, auzolan sanoenean egiten zutenean. Pello Zabala

Txilinak eta granadak, **txandaka** . Elizen arteko biblia

Nik jolas bat proposatu nahi dizuet; **txandaka** egiteko jolas bat. Luis Elberdin

Txapelketa hiru aldiz segidan edo bost urtez **txandaka** irabazten duen bikoteak jabetzan hartuko du. Berria - Kultura

Iraupen eskia, 4x5 km. **txandaka** (emak.). Berria - Harian

3. proba: **txandaka** bi bikoteak bi kanaerdiko ebakitzera (2 puntu). Berria - Kirola

2 txandakako izlag

Bihotzaren taupadak eta biriken **txandakako** uzkurte eta hedatzeak automatiko bihurtzean, bizitzak giza pentsamendua eta borondatea beste erabilera batzuetarako aske utzi ditu. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko jarduera ekonomikoaren **txandakako** goraldi eta beheraldi horiek -merkataritza-ziklo deitu direnak- [...]. Iñaki Mendiguren

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko **txandakako** gose greba. Berria - Harian

WWFk dio sojak **txandakako** laborantza egiteko aukera eskaintzen duela. Berria - Gaiak

EBko **txandakako** presidente Wolfgang Schussel kantziler austriarrak proposamen bat jasoko du datorren asteetan. Berria - Mundua

Zuzendaritzako karguak **txandakakoak** dira eta kudeaketa lanak egiten ditugu. Berria - Kultura

Ez da kasualitatea txapelketako azken hiru probak emakumezkoen 1.500 metrokoa, gizonezkoen 800 metrokoa eta emakumezkoen 4x400 metro **txandakakoa** izatea.

Berria - Kirola

Errusiak irabazi du urrea biatloiko 4x6 kilometro **txandakakoan** . Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txandaka ari (3); **txandaka aritzen** (3); **txandaka egitea** (4); **txandaka egiten** (10); **txandaka joaten** (3); **txandaka txandaka** (3)

batasuneko txandakako (26); **batasuneko txandakako presidente** (14); **batasuneko txandakako presidentek** (3); **ebko txandakako** (37); **ebko txandakako presidente** (13); **ebko txandakako presidentek** (5); **ebko txandakako presidentetza** (10); **europako batasuneko txandakako** (24); **gobernu kontseiluko txandakako** (4); **kontseiluko txandakako** (7); **kontseiluko txandakako presidente** (5)

txandakako gose (3); **txandakako jolasa** (3); **txandakako lehendakaritza** (5); **txandakako munduko marka** (3); **txandakako presidente** (38); **txandakako presidente bertie** (7); **txandakako presidente jan** (4); **txandakako presidente wolfgang** (4); **txandakako presidentea** (4); **txandakako presidentek** (15); **txandakako presidentetza** (18); **txandakako presidentetza duen** (9); **txandakako presidentetzak** (3)

kilometro txandakakoa (4); **metro txandakakoa** (8)

txandakatu, txandaka(tu), txandakatzen 1 da ad pertsonez mintzatuz, zerbait egiteko txandaka aritu.

Giharren tentsio-joko perfektua nire aurrean, ezker-eskuin **txandakaturik** : estutu, lasaitu, estutu, lasaitu. Xabier Mendiguren Elizegi

Txandakatuz , ardurak banan-banan izendatu eta "orain zuk, gero nik" erabakitzen dutenak. Arantxa Iturbe

Mairuak, frankozaleak eta italiar Gezi Beltzak **txandakatzen** ziren zaindaritzan. Jokin Urain

Egun hartan, arin eraman zuten tarantasa postatik postara **txandakatzen** ziren iemstxikek. Karlos Zabala

Lasai, Tomas, **txandakatuko** gaituk. Koldo Izagirre

Txandakatu egiten ginen bolantean. Joxe Austin Arrieta

Jakina zen Antxon eta biok **txandakatuko** ginela. Koldo Izagirre

Bidailagunok **txandakatu** egiten gara gidariaren alboan joateko. Patxi Zubizarreta

Txandakatzen diren hiru kide ezegonkor baino ez ditu Afrikak NBEko Segurtasun Kontseiluan. Berria - Harian

Osasuna B-n Xabi Pascualekin **txandakatu** du atezain postua. Berria - Kirola

• 2 da/du ad gauzez mintzatuz, txandaka gertatu edo egin.

Historikoki bi alderdi horiek **txandakatu** izan dira boterean. Berria - Mundua

Mahai obalatu zuri distiratsuan, xanpaina eta Rhin-eko ardoa edateko kopak **txandakatzen** ziren, toki guztietan bata bestearen ondoan. Lopez de Arana

Esaldi baloratiiboak eta deskriptiboak **txandakatu** . Askoren artean

Bizitza ere aldakorra da: bere aurpegiak, bai politikak, bai itsusiak, **txandakatu** egiten dira. Ana Urkiza

Neguko arratsalde distiratsu hartan ostareak eta hodeiak **txandakatzen** ziren presaren presaz. Lopez de Arana

Intzirriak aditzen ziren ondoko logelan, oihuekin **txandakatuak** . Koro Navarro

Ama gazte zeneko garaia, duela 40 edo 50 urtekoa, eta alabaren garaia, gaur egungoa, biak erakutsiko ditu, **txandakatuz** , nobelak. Menane Oxandabaratz

Lagungi on itxurako aldarreak eta halaber itxura baino ez ziren sumindura ezta **txandakatzen** zituen. Juan Garzia

Iraganeko eta presenteko aditz-denborak etengabe nahasten eta **txandakatzen** ditu Kerteszek narrazioan. Berria - Kultura

Gure pertzepzioa etengabeko erakusgarri-hautaketa baten bidez gauzatzen da (begi mugimenduak eta finkaldi laburrak **txandakatuz**). Josu Zabaleta

Junturak tratu egiten dituzte ilarak **txandakatuz** . Santiago Iruretagoiena

Gainean beste enbor batzuk jarri **txandakatuta** lau aldeetan, izkinak egiten dituzte. Santiago Iruretagoiena

3 (era burutua izenondo gisa)

Udalekuan ikasitako batzuk abestu dituzte, "Anttoni, Anttoni" edo "Maritxu nora zoaz" esaterako, neska-mutilen solas **txandakatuak** eginez. Xabier Mendiguren Elizegi

EHEko kideak Gernikan (Bizkaia) gose greba **txandakatu** egiten ari dira bertako epaitegiaz hizkuntza eskubideak bermatzeko. Berria - Euskal Herria

Estatus politikoa lortze aldera, Urtarrilaren 3ko planto orokorrari segida eman diogu itxialdi **txandakatu** baten bitartez. Berria - Harian

txandakatze 1 iz txandaka aritzea, txandaka egitea.

Aurrekari haiek gure oraingo ikuspegi psikologikotik aztertuko bagenitu, guztietan aurkituko genituzke zelotismoaren eta herodianismoaren bulkada antagonisten artean

txandakatzeak eta gatazkak. Iñaki Mendiguren

Espainiako Ligan **txandakatzeak** egon ziren arren Potillonek hartu izan du bere postua Txapelunen Ligan. Berria - Kirola

Txandakatzeak egitea gustuko dute zenbait entrenatzailek. Berria - Kirola

Sei lagunekin iritsi ziren helmugara, eta **txandakatzeetan** ez zuten harmonia handiegirik erakutsi. Berria - Kirola

Ikus honako atal hauek ere: erregela, naturaltasuna fonologian, **txandakatze** edo alternantziak. Lourdes Oñederra

Hiztun askoren morfema elkarketetan jazotzen diren igurzkarri/afrikatu **txandakatzeek** frogatzen dute esandakoa. Lourdes Oñederra

Euskarak ahoskabetasunaren alde egin izan duela erakusten dute bai morfema barreneko bilkurek, bai morfema elkarketetako **txandakatzeek** . Lourdes Oñederra

Egia da benetako **txandakatze** fonologikoetan desberdintasuna ezin dela handiegia izan. Lourdes Oñederra

2 (hitz elkartuetan)

Soldadu **txandakatzeak**. [Berria - Mundua](#)

Aniztasunarena izan zen lehena: bai ideia aldetik, bai demokraziak bideratutako gobernu **txandakatzeengatik**. [Berria - Euskal Herria](#)

3 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Zuloa ederki betetzen du Europako herri nagusietan erabiltzen den **txandakatze** -ikasketa sistemak, ikasi bitartean lan egiten baita enpresa batean. [Berria - Gaiak](#)

txandaketa iz txandakatzea.

Sasoi hasieran, Aguirrek **txandaketen** aldeko apustua egin zuenean, hainbat partida jokatzeko aukera izan zuen Miguelek. [Berria - Kirola](#)

11 partidatan jokatu ahal izan du **txandaketei** esker. [Berria - Kirola](#)

Beraren bizimodua, zeinaren monotoniaz ezin baita pentsatu izulaborririk gabe, bero-hotzen **txandaketa** gupidagabe bat da. [Juan Garzia](#)

Askotan idatzi izan omen du halako langileen **txandaketaren** garrantziaz, etengabe ari ez daitezen azienda hiltzen, odolusten edo hiltzera eramaten. [Xabier Olarra](#)

Gizarte Egipziako kolapsatuaren berezko bizialdiaren epilogo izugarri luzea asperraldi luze eta deabruzko kemenaldi asaldatuena **txandaketa** zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Porrot eta indarberritzeen **txandaketetan**. [Iñaki Mendiguren](#)

2 (hitz elkartuetan)

Euskadiko CCOOren arabera, gazteen artean egiten den lan-**txandaketa** kezkarria da. [Berria - Ekonomia](#)

Euskal ekonomiaren beste arazo bat belaunaldi **txandaketaren** falta da, Industria Sailaren irudiko. [Berria - Ekonomia](#)

3 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Enpresa askok duten lan-**txandaketa** sistema ere gaitzetsi du. [Berria - Ekonomia](#)

txandal 1 iz galtza eta jaka lasaiek osaturiko kirol jantzia.

Sukaldean atzeman nuen, tipula pikatzen, **txandal** berde min batez jantzia. [Aingeru Epaltza](#)

Martak **txandalaren** kapusaiaz estali zuen burua. [Harkaitz Cano](#)

Laguna **txandal** barneko kamisetaren poltsikoa arakutzen ari zen. [Aingeru Epaltza](#)

Txandala eta tenisak jantzi. [Unai Iturriaga](#)

Gustuko zuen hango paisajea, kapusaidun **txandala** jantzi eta erdi eroritako pabilioi eta txatarra meta ikaragarrien artean ibiltzea. [Harkaitz Cano](#)

Korri egiteko **txandalarekin** jantzirik. [Eider Rodriguez](#)

Kaiku edo brusa bat soinean zuela ikusiko zenuen atzo; gaur **txandal** batekin dabil. [Anjel Lertxundi](#)

Txandal zuri batekin jantzia zegoen Ubanbe. [Bernardo Atxaga](#)

Zahar samarra, **txandalez** jantzia, herrena eta oro har xelebrea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bakeroak, kirol zapatilak eta **txandal** antzeko txamarra. [Sonia Gonzalez](#)

Han nengoan, hortaz, XXLko **txandal** -jantzian eta 45 tailako zapatilatan, balantzaka. [Jesus Mari Mendizabal](#)

-Etorri hona, mari-potxorra -esan zion Nano Zuriari larderiatu, **txandal** prakak txorkatiletaraino jaitsita. [Patxi Iturritegi](#)

Kaleko arropak kendu eta **txandal** galtzak eta puntuzko jertse zahar bat jantzi zituen. [Unai Iturriaga](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txandal gorri laranja (3)

txandapasa ik txanda 14.

txandata iz txindata.

Lau soinu tresna aipatzen ditu testuak: zitarra, lira, txirula eta **txandata**. [Berria - Kultura](#)

txandatu, txanda(tu), txandatzen da/du ad txandakatu.

Talde horiek **txandatzen** joango dira agertokian. [Berria - Kultura](#)

Zoko sekretu hori harrapatu nahi didate, ziur nago **txandatu** egiten direla judesean niri etengabe begi emanda. [Koldo Izagirre](#)

Nahasten ziren, **txandatu**, mailu-hotsa eta mendiaren hatsa. [Fernando Rey](#)

Sofik, Ahmetek eta Musa Beyk, **txandatu**, zuloatik begizatzen zuten udaberri lehertu berria. [Fernando Rey](#)

Utzi iezaiozue lehendakariari ere bere lana egiten, eta **txandatu** zaitzte argazkiak ateratzeko. [Berria - Harian](#)

txandatze iz txandakatzea.

Txandatze guztiak erregulartasunaren lehiaketan egin ditu. [Berria - Kirola](#)

txandrio iz kaltea, hondamendia, okerkeria.

Zenbait urte lehenago, **txandrioa** "akats tipografikoa", lanbideko mintzaje beti zikin-estalian- tailerretako muntatzaile lardaskatzaileei egotziko niekeen. [Aingeru Epaltza](#)

Tailerreko muntatzaileak eskuz konpondu behar izaten du erredakzioan egindako **txandrioa**. [Aingeru Epaltza](#)

Emakumeak ez, **txandrioa** egin dionak. [Migel Angel Mintegi](#)

«Ene bada, bai **txandrio** handia», aipatzen zuen emakume batek. [Berria - Euskal Herria](#)

Bestalde, hala gertatzen zitzaidan tresna guzietan; beti okerreko botoia sakatuta, egunak **txandriotik txandriora** joaten zitzaizkidan. [Jon Alonso](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sekulako txandrioa (3)

txanel 1 iz arraun ontzi txikia, hondea laua duena. ikxalant¹.

Lemazainak aise gidatzen zuen ontzia Volgan gora edo behera zebiltzan txalupa, gabarra eta **txanel** ugarien artean. Karlos Zabala
Bera zuzendu zitzaion gure ontziburuari, portugesez, urrundik, **txanelaren** eta karrakaren artean arkabuz-tiro baten tarte zelarik. Edorta Jimenez
Ez zegoen ontzirik hondar gainean, ezta **txanelik** ere ontzirelekuaren oholetan. Karlos Zabala
Maniobretan zebilen edozein ontzik gure **txanela** jo eta hondora joan gintezkeen, ez baikenuen arraun bakar batez han irauteko modurik. Edorta Jimenez
Senari begira zihoan; **txanel** batzuk, beltzak ikatz hautsaren kariatz, ur berdean behera jaisten ari ziren. Karlos Zabala
Bermeoko gazte hura [...] 1912ko galerna handiaren biktima, Kantauriko uretan galduta ibili zen **txanel** batean, erbinude bat zuela lagun bakarra. Iban Zaldua
Ari zen zerbait hartzen gure umoretik haurtzarora **txanel** batean kulunkatu gabe emana zuen dohakabe hark. Koldo Izagirre
-Ea, mutilak, **txanela** hondoratu gabe gero! Edorta Jimenez
Beste **txanela** *Ánimas* ontziaren gainean lotu zen, hondora barik, ur azalean zurtz. Edorta Jimenez
Domingo berriro hartuta eta besteak lehorrean utzita, **txanelean** igo zen. Edorta Jimenez
Gero **txanelekoekin** berbetan segitu zuen, eta halaxe jakinarazi zioten Lisboan bazela atondua Bizkaitarren Ospitalea zeritzona, gure naziokoentzat. Edorta Jimenez
Katuaren atzetik berak egin zuen **txanelera**. Edorta Jimenez

2 (izenondoekin)

Txalupa bat, **txanel** xume bat, zernahi, kikitka sartzeko adinakoa edo. Karlos Zabala
Pailoten motoraren **txanel** auxiliarra hartzen zuen inori baimenik galdatu gabe eta portuko bertze muturreraino abiatzen zen. Koldo Izagirre

txaneltxo iz adkor txanela.

Txaneltxoaren tostan elkarren parean arraunean. Edorta Jimenez
Lehorrera bidali zuen **txaneltxo** bat, popako kriselua isioturik zeramala. Edorta Jimenez
Iluntzean karrakako bigarren **txaneltxoa** uretaratu genuen, upel batzuekin zamaturik. Edorta Jimenez
Han, goizeko lehen argiarekin *falua* deritzen **txaneltxo** horietako bat karelaren parera etorri zitzaigun. Edorta Jimenez
Ahalegin batean saiatu zen istriborreko karelaren gaina gainditzin, Domingo semearen laguntzaz, gero handik **txaneltxora** borda-zurubian behera egiteko. Edorta Jimenez
Txaneltxoaren barruan gora egiten hasi ginen, gabizain jarduten nuen denboretan baino balantza bortitza gozetan. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gure txaneltxoa (4)

txaneltxoan sartu (3)

txango 1 iz atsegin hartzeko bidaldia, eskuarki laburra.

Itzulitakoan, hizketan hasi eta **txangoaren** -eskurtsioaren, ibilaldiaren...- inpresioak kontatu genizkion elkarri. Bernardo Atxaga
Etxeko nagusiak **txango** bat antolatu zien, errekan gora. Jose Morales
Taxian egindako **txangoa**. Mirentxu Larrañaga
Place Saint-Michel-etik hasita [...] Place des Vosges zoragarrian amaitu genuen **txangoa**. Ramon Saizarbitoria
Ospe txarreko lokaletatik egindako **txangoetan** aurkitutako Dakarko emakume bat. Bego Montorio
Danek **txango** bat egitea proposatu digu bi pisuko autobus batean: "hiriaren lehen inpresioa hartzeko, bildinak ikusteko, autobusaren goiko pisua bezalakorik ez dago".
Patxi Zubizarreta
Txango hura zuten egitekoa -farora ziren joatekoak, Ramsay jauna, Cam eta James. Anton Garikano
Kultura Ministerioak lau hizkuntzetako poeten antologia [...] antolatzeko bilerara deituta joana nintzen Madrilera, eta bidaldian Sedanorekin egokitu nintzenez, Aranjuezera **txango** bat egiteko profitatu genuen. Ramon Saizarbitoria
Gustura egingo zuen Ruche jaunak **txango** bat behera; *behea*, berarentzat, Mediterranea zen. Jon Muñoz
Claudio Magris-ek *Danubio* liburu gogoangarrian egindako **txango** erdi literario erdi bidaiaria darabilt gogoan. Anjel Lertxundi
Italiara **txango** bat eginez hasi nintzen. Josu Zabaleta
Gehienez ere Bruselarako **txangoren** bat. Lourdes Oñederra
Egun batez, ordea, Madrilera **txango** egin duenetako batean, Anbereseko Plantin inprimategiaz hitz egin diote Garbairi. Anjel Lertxundi
Udazkena zen, eta negua baino lehen Normandian zehar **txango** bat egitea deliberatu nuen. Josu Zabaleta
Txangotik etxeratu ondoren, Trois-Frères kaleko arotza etorrarazi zuen. Jon Muñoz
Lorena dut izena, zuen gidaria izango naiz **txangoan**. Urtzi Urrutikoetxea
Aitak, igande goiz oroz, Max sekula ez zen udalekuetara joan, edo eskolarekin **txangoan**. Juan Garzia
Nona Mália ikustera eramaten ninduen **txangoz**. Juan Garzia
Nola errege batek **txango** egin dezakeen eskale baten este-zakuan zehar. Juan Garzia
Gogoz nongoen Triestera **txango** egiteko, baina ez Torinok aspertzeko motiborik eman didalako. Anjel Lertxundi
Erakunde honek lantegiak eskaintzen dizkie gazteei, jolastokiak, hitzaldiak, aholkulariak, **txangoak** eta bidaiak. Gotzon Garate

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Paseo bat zen harentzat bidaia hura, **txango** atsegin bat. Karlos Zabala
Nire erabakia -lan-bidaia bertan behera utzi eta, horren ordez, gazetako lagun zahar bat berrikusteagatik ez besterengatik, Guatemalan barrena **txango** pribatu bat egitekoa [...]. Joxe Austin Arrieta
Parisa egindako **txango** militar batean Weimar-ko dukearen bidailagun. Juan Garzia
Txango txikiak dira, laburrak eta apalak, etxe-inguruan egitekoak gehienak. Joxerra Garzia
Tarteka **txango** luzeagoetara ere eramaten hasi ziren: Salisburuya egindako bidaia batera behin, eta Eskoziara bi asteburutan. Xabier Olarra
Txango labor horretan inguruan ikusitakotik, dena nuen gustuko. Urtzi Urrutikoetxea
Baleak ikustera joateko **txango** zoragarri bat gomendatzen zigun. Bernardo Atxaga
Belaontzi batean **txango** zoragarri bat egin ostean. Patxi Zubizarreta
Aizkorri alderako **txango** goiztiarrak genituen gogoko eguraldi garbiaren peskizan. Pello Zabala
Txango noragabeok nolabaiteko atsedean apurra ematen zidaten burutik kendu ezinik nerabiltzan gogoeta asturugaitzetatik. Juan Garzia
Txango ezinago ederra egin genuela erantzun, kontua ordaindu, eta duintasunez alde egin genuen handik. Juan Garzia
Eguneroko **txango** biak komunera, goizean garbiketa-barrakoira [...] gero janari banaketa, gauean *Appell*-a, eta noski, informazio trukea. Urtzi Urrutikoetxea
Gura baduzu, goizeko **txango** hau amaitzen duzuenean, hoteleko kafetegian itxarongo dizut. Patxi Zubizarreta
Oraindik ez dugu erabaki etziko **txangoa** nondik nora egingo dugun. Xabier Mendiguren Elizegi

3 irud/hed

Udaberrira bagerenerako, gaur astebete inguru, 12 ordu bete eta beste 10 minutu izango ditu ordurako egunak, eguzkiaren **txangoak**, alegia. **Pello Zabala** Han agertu ziren txalburu buztanluzeak, barrabiletik zakilerainoko tutuak, obulutegiak eta umontzia, Falopioren tronpa eta guzti, nondik ibiltzen baitira **txangoan** obulu izeneko pilota txiki, bigun batzuk. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Adimenetik etikara **txango** egingo banu, ordea, jakin badakit ez irakurketak ez idazketak ez nautela hobetzen. **Anjel Lertxundi**

Noraren arretak, ostera, gertakizunen haritik burutazioenera egiten zuen noizbehinka **txango**. **Anjel Lertxundi**

Kanpotik al dator, lan arazoak ditu, berea ez duen eremu batera egin al du **txango** etorriak? **Iñaki Arranz**

Astea ez du lar ondo hasi, gasolioa gora batetik eta espero ez zuen **txangoa** auto-tailerrera bestetik. **Urtzi Urrutikoeetxea**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hura beti txistuka, mutil kozkor bat eskola-**txangorakoan** bezain pozik. Artean miresleetako bat zuen Joe-k, negozio-**txango** batean zelarik, Herbie ikusi omen zuen. **Joxe Austin Arrieta**

Oporretako arrantza **txangoek** humoreak dantzan jarri dizkidate. **Itziar Otegi**

Ekintza aurretik esplorazio-**txango** batzuk egin nituen. **Iban Zaldúa**

Ibai-**txangoak** -Lucy ontziazen izenari erreparatu zion: [...]. **Joxemari Iturralde**

Chris, tarte batez, moldatu zen Stephenekin asteburuetan egoten jarraitzeko, Londresen batera eta bestera marrazketa-**txangoak** antolatzeko. **Xabier Olarra**

Baita opoterapia-gaien ekoizpen sailletara eginiko zenbait iker-**txango** ere. **Juan Garzia**

"Kirolari-ikasle" talde bat zen, beren matematika-irakaslearekin ikas-**txangoan** irtena. **Jon Muñoz**

Ezkon-**txango** batean denetik egin beharra baitago, egin beharra dagoenez... **Joxe Austin Arrieta**

5 (adizlagun gisa)

Amak eta James txikiak etxetik ikusten den beste irla bateko farora biharamunean **txango** joateko asmo goxoa dute, aitzak berehala zapuztua: eguraldi txarra egingo ei du. **Markos Zapiain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egindako txango (4); **txango bat egiteko** (3); **txango egin** (4); **txango zoragarri bat** (3)

bere txangoa (4); **egindako txangoa** (4); **egun osoko txangoa** (3); **txangoa antolatu** (3); **txangoa egin** (4); **txangoa egiteko** (6); **txangoa egiteko aukera** (3)

txangoak banpiroekin (5)

txangogune iz txango denbora.

Gure gorputza, goitik behera, horoskopoko zeinuen arabera, ilargiaren eraginpean fortunatzen baita bi egun pasatxoko **txangogune** horretan. **Pello Zabala**

txangolari iz txangoan ari den pertsona.

Atzo goizean, **txangolari** batek oso andeatu rik zegoen gorpu bat aurkitu zuen Angeluko Pignada basoan, lurrian. **Berria - Euskal Herria**

txangotxo iz txango txikia.

Intxixu-xarma gauzatu duk, bere gisa eta patura utz dezakek eta **txangotxo** bat egin laboratorioan zehar, ea ezer itxurazkorik egitea lortu duten besteek. **Juan Garzia**

Egunero bertatik **txangotxoa** egin eta gameluei argi gelditu zitzaizen kontua. **Urtzi Urrutikoeetxea**

txangozale izond txangoen zalea den pertsona.

Gertu zituelarik ere emakume **txangozale** eta haur mardoa [...] beren poltsekin lanpetuta, edo gazteluak egiten, zeinak berehala desegiten zituzten beste **txangozaleen** itsasalderako aurrerabide traketsak. **Koro Navarro**

Moilara jotzen dute gizon-emakume **txangozaleek**, han aingura botata dauden bandera hiru koloreko [...] eta hiru mastako itsasontzi handietan baitute ziurtatua beren altxorra. **Felipe Juaristi**

Makilkada bat jo genion gutun ontzia bati, eta harrokeriaz egin genuen bidea Gowerko autobusen geralekuan zain zegoen **txangozale** talde handi baten erdi-erdtitik. **Koro Navarro**

txangurro ik txangurru.

txangurru (orobat txangurro) iz itsas karramarro handia, jateko oso ona, oskola ia biribila eta arantzaz betea, eta hanka luze eta iletsuak dituena (Maja squinado).

Buiak, **txangurruak** eta nekorak. **Berria - Euskal Herria**

Datorren urteko lehen sei hilekoan sortuko dute marka, Bizkaiko Golkoan eta Kantauri Itsaso osoan arrantzatutako legatz, hegaluze, antxoa, sardina, lanperna eta **txangurruarentzat**. **Berria - Ekonomia**

Edurneren iragarpenen bat betetzen ez zen bakoi-tzean, aitarekin elkartu eta abakandoa edo **txangurroa** jaten ospatzen genuen. **Iban Zaldúa**

Arrantzaleak, kaiok ez bezala, sareak, **txangurrotarako** butroiak pilatu edo bestelako betebeharrak alde batera utzi eta Urbanoren etxolara abiatzen ziren. **Paddy Rekalde**

txanka iz

Bai, **txanka** begibakarrak dituk. **Xabier Paya**

Orioko **txanka** sarbidea. **Berria - Euskal Herria**

txankame ik txankamehe.

txankamehe (orobat txankame) izond zango meheak dituena.

Morroia **txankamehe** erdi maritxu bat, ostia erdirik ez zuena, lanbidez informatikoa. **Patxi Iturritegi**

Lehengor **txankamehe** bera! **Xabier Olarra**

txankil ik **txakil**¹.

txankleta iz txinala.

Gomazko **txankleta** zaharrak jantzi eta, halla zeharkatu ondoren, ate bat ireki eta komunen alboko pasabidera heldu naiz. **Jon Arretxe**
Igerilekuetan **txankletak** erabiltzea gomendagarria da. **Berria - Harian**
Txankletak erantzi barik eta begiak itxita ipini zuen bere burua txorrotapean. **Xabier Montoia**
Ilea laxo eroria, antioju handiak ia estaltzeraino, eta **txankletak**. **Berria - Kultura**

txankro iz ultzera-lesio hedakorra, eritasun benereoei dagokiena.

Gaitzena eta okerreana biharamunekoa izan zen, noiz eta **txankro** mingarri haiek atera baitzitzaizkidan, zuk dakizun tokian, izterzokoetako gongoilak ere handitzen zitzaizkidalda. **Joan Mari Irigoien**
Ez zituzten ordura arte ezagutzen zuriel ekarrirako hotzeriaren birusak, birikaminaren bakteriak, **txankro** sifilitikoak. **Joseba Sarrionandia**
Baina ezkerlatde guztiaren gainean existentzia bizkarroi bat dago, ugaltzen ari dena, **txankro** bat. **Monika Etxebarria**
Sutea **txankro** baten gisan zabaltzen da, inguruan ertz soil bat duela haragi bizitan. **Josu Zabaleta**

txano 1 iz burukoa estaltzeko jantzia, gehienetan kapusaiaren eta antzeko jantzien osagarri dena; burukoa.

Aterkiak eta **txanoak**. **Koro Navarro**
Kapeluak eta **txanoak** saltzen zituen denda bat. **Jose Morales**
Bi neskak egunkari-paperezko **txanoak** eginak zituzten euren uda-kapelak estaltzearren. **Lopez de Arana**
Kokotsaren azpian lotutako **txano** bat. **Koro Navarro**
Xira hori bat dauka jantzita neskak; auto barruan **txanoa** kentzen du. **Oskar Arana**
Txanoa tunikari josi gabe zeramala. **Askoren artean**
-Jantzi **txanoa** -esan zion Patricia, atzera jiratuta-. **Koro Navarro**
Ezker-eskuin, **txanoa** erantzirik, herritar xehe bi zetozen. **Jose Morales**
Hondartzan, Luthek **txanoa** burutik kendu zuen. **Joanes Urkixo**
Austriako basozainen **txanoa** zeraman kapitain bat. **Fernando Rey**
-Ez huen **txanoaz** agurtu behar -esan zidan Sidney Evansek-, zein eskolakoak garen jakingo dik horrela. **Koro Navarro**
Nire lan jantziko **txanoa** eskuilatzen aritu nintzen. **Fernando Rey**
Buruan astrakanez forratutako **txanoa**, eta soinean jantzi luze iluna, izur zabalez apaindua. **Karlos Zabala**
Osaba dardarka zihonan, eta **txanoa** beheratu zuen, belarriak estali nahian. **Koro Navarro**
Arreba hegatzabalak **txanoa** du erlijiosek bezala; eta hegazti apala da. **Askoren artean**
Txano gabe ibili zen hoge egunean. **Askoren artean**
Fez: kono-enbor baten forma duen **txanoa**, gehienetan gorria eta batzuetan borla batez hornitua. **Iñaki Mendiguren**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haien artean, armeniarrek zeuden, jantzi luzeak soinean eta mitra antzekoak buru estalgarri; juduak, beren **txano** konikoengatik ezagunak. **Karlos Zabala**
Turkiarrek ere ageri ziren, durbante nazionala kaskoan; eta indiarrek, burua **txano** karratuez estalirik eta soka soil bat gerrian. **Karlos Zabala**
Marcos komadanteordearen **txano** famatua. **Berria - Mundua**
Itsasoan erabiltzen den (zen) **txano** irazgaitza. **Koro Navarro**
Behinolako partisano uniformeak, **txano** mimetizatuekin. **Josu Zabaleta**
Bazebiltzan han tatariarrek, mahuka laburreko kafetanez jantzirik eta buruan Pierrotenak bezalako ertz zabal-zabaleko **txano** punta-zorrotzak zeramatatzatela. **Karlos Zabala**
Painulua lepoan eta **txano** biseraduna buruan. **Fernando Rey**
Hark ere oihal gaztaintzaraz forraturiko beroki hartz-larruzkoa soinean eta neguko **txano** belarriduna buruan. **Jose Morales**
Belarri-babesgarriekiko **txanoa** erabiltzen baitzuen. **Jose Morales**
Jantzi marradun estu bat zeraman soinean, eta kono formako **txano** kaskabiloduna buruan. **Koro Navarro**
Tolesturadun **txanoen** serie bitxi hura argigarriagotzat zeukan, Donatello handiaren marmolezko figura bikainak baino. **Juan Garzia**
Zeuk zuzenean eros ditzakezu **txano** bolivartarrak, inongo bitartekariren beharrik gabe. **Berria - Gaiak**
Parisen **txano** errusiarrak, kabiarrak, eta Michel eta Nadia izenak moda-modan jarri ziren. **Karlos Zabala**
Buruan, bere greziar **txano** belus beltzekoa, urrez brodatua. **Josu Zabaleta**
Buruan, zetazko **txanoak**, larruzko ertzarekin eta haizeak dantzarazten zituen hiru xingolekin. **Karlos Zabala**
Nire etorkizuneko maitea, paperezko **txanoa** buruan, autobusaren atzealdean eserita egon zitekeen, upeletik gertu. **Koro Navarro**
Gizonezko **txanoa** zeramatzen emakume mutur-luze bati. **Koro Navarro**
Sabel hutsa erloju bonba bat bezala taupadaka, eskolako **txanoa** eskuetan estutuz. **Koro Navarro**
Talpak izeneko **txanoa** jantzen zuten buruan, arkume beltzaren larruz egina. **Karlos Zabala**
Aztiki bat lotarako **txanoarekin** marmarka ari zen autobusaren atzealdean. **Iñaki Mendiguren**
Txano arrautza formakoa, gerezi-koloreko satinez egina. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Danek sofaren azpitik atera zuen **txano** -kutxa baten atzealdean. **Koro Navarro**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zaindari **txano** -gorri eta txamarra-urdinen kasernatxoaren aurretik pasa **Txillardegí**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Handik gutxira, etxeoandrea sartu zen, presaka jantziriko lo-**txano** bat buruan eta flanelazko sorbalda-ohal bat lepo inguruan loturik. **Jose Morales**
Buru-**txano** zuriak jarri. **Txillardegí**
Amama Otso ere harekin etorria zen, artean ohe-**txanoa** buruan. **Mirentxu Larrañaga**
Laguntzaile txiki bat daukate, mendi-**txano** bat buruan jantzita duena. **Oskar Arana**
Brooklyn Dodgers-en beisbol **txano** bat erabat artilez egina. **Oskar Arana**

Bizardun erraldoi bat zen, marinela **txano** hegalduna begietaraino sartuta zuena. Ramon Saizarbitoria

Gasteiztar askok sukaldari **txanoa** zeramaten buruan. Berria - Kirola

Gero Kupidoei errieta egin zien, eta agindu zien pailazo **txanoak** eramateko. Julen Gabiria

Hanley sarjentuak akats bat aurkitu zion Charlieren soldadu **txanoko** plakari. Mirentxu Larrañaga

Alpinista **txano** berde argiko gizon hura zen agian? Fernando Rey

Ikastetxeko abesbatzak, arrantzale **txanoak** eta bainu jantziak soinean eta kantari, heroi deitu zidan. Koro Navarro

Kukurutxo **txanoak** jantzita tutuak joka oraindik ere Urteberri eguna ospatzen zebilen talde handi batekin. Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artilezko txano (4); **astrakanezko txano** (3); **bere txano** (3); **larruzko txano** (7); **larruzko txano soilduaren** (3); **txano bat buruan** (3); **txano beltza** (4); **txano biseradun** (3); **txano biseraduna** (6); **txano gorri** (3); **txano gorria** (4); **txano gorritxo** (9); **txano gorritxok** (3); **txano gorritxoren** (5); **txano koadroduneko** (3); **txano koadroduneko ziklista** (3); **txano soilduaren** (3); **txano zuria** (3)

artilezko txanoa (3); **larruzko txanoa** (3); **txanoa beheratu** (3); **txanoa buruan** (8); **txanoa ematen** (3); **txanoa erantzi** (3); **txanoa hartu** (3); **txanoa jantzi** (5); **txanoa kendu** (12)

kapeluak eta txanoak (3)

txanoaren azpian (5)

txanorik gabe (3)

txanodun *izlag/iz* txanoa duena; txanoa jantzita daramana.

Eguerdiak janta **txanoduna** ez hartu izanaz damutzen naiz. Anjel Lertxundi

Kulero zangodunak, kulero motzak, pijamak, izerditzeko elastiko **txanoduna**, nylonezko zamarra, [...]. Oskar Arana

Izaki **txanoduna** desagertua zen handik-. Iñaki Mendiguren

Irudi **txanodun** bat gazteluko eskailera jaisten ari zen isil-isilik. Iñaki Mendiguren

Eduki bitzate **txanodun** tunika bat eta beste bat txano gabea. Askoren artean

Hiru dementor, hiru dementor luze, beltz eta **txanodun** berari begira zeuden. Iñaki Mendiguren

-Kontuz, Reichführer -ohartarazi zuen **txanodunak**, ni seinalatuz. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txanodun emakumea (3)

txanogabe *(orobat txano gabe)* izond txanorik ez duena.

Bi tunika **txanogabe**, gerriko soka, azpiko galtzak eta sokarainoko longaina. Askoren artean

Obedientzia hitzmana dutenek eduki bezate txanodun tunika bat, eta beste bat **txanogabea** nahi dutenek. Askoren artean

txanogin iz txanoak egiten dituen pertsona.

Geroago, bere lanbidean fin-fin trebatu zen, ordurako Jehanneton **txanogin**, Perrenette gobadagin eta Ysabeu eskularrugin bilakatuak baitziren. Juan Garzia

Katherine alderrai ibiltzen zen eskularruginaren eta **txanoginaren** denden aurretik. Juan Garzia

txanogorri iz

Txanogorriak aztertu zituzten, iratxoan antzeko izaki higuigarri batzuk. Iñaki Mendiguren

Txanogorrien ondoren, kappas-ak aztertu zituzten, uretan bizi ziren izaki nazkagarri batzuk, tximino ezkatatsuen antzekoak. Iñaki Mendiguren

-Aizu, jauna, guk boggartak, **txanogorriak**, kappak eta grindylowak estudiatu ditugu. Iñaki Mendiguren

txanogorritxo iz cf Txano Gorritxo.

"Ze lore dira horiek?", galdetu diote **txanogorritxo** hauek erretaguardiaz arduratu behar duen begiraleari. Xabier Mendiguren Elizegi

txanotu izond txano bat jarria duena.

Etxearen ondoan zakurtegiak zeuden: bertan brakoak, usna-zakurrak zeuden; ehiza-hegatzizaina etxe berean bizi zen, bere hiru belatz **txanotuekin**. Xabier Olarra

txanotxo 1 iz txano txikia.

Gizonezkoak lastozko kapelekin eta **txanotxoekin**. Josu Zabaleta

Txanotxo bat koadroduna, ile luzeagoa, andereño eder bat nora joan ez dakien gizon zarpail honekin. Fernando Rey

Ile gainean **txanotxo** zuri bat, farfailaz eta hodiz apaindua. Josu Zabaleta

Puntuzko **txanotxo** politikak. Fernando Rey

Hantxe zegoen berriz mamua **txanotxo** tirolarrarekin. Fernando Rey

Paper sinpleko **txanotxoekin** barruan. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan)

-Zenbat gustatuko litzaidakeen Kupidoak pailazo **txanotxo** polit horiekin ikustea! Julen Gabiria

Baina, so egizue, zakur **txanpa** bakarrak ardiak barreiatzen zaizkigu. Itxaro Borda

txanpa¹ 1 iz estropadetan, arraunaldi bizkorra.

Enbatar gordean eduki zituen antxeten txilioak lotuan amorratzen egondako bajurakoan **txanpa** bokaleari brankaz. Koldo Izagirre

Astilleroen eta Urdaibaren arteko azken **txanpa** ikusgarriari, lehenengoak nagusitu ziren. Berria - Kirola

Lehenengo aldiz, esprint edo **txanpa** motako estropada batek emango dio hasiera denboraldiari. Berria - Kirola

Oriko estropada **txanpa** egin aurretik bilera izan zuten auzi hau eta beste batzuk konpontzeko asmoz. Berria - Kirola

2 irud/hed

Gasteiz eta Txuri-Urdin Espainiako Izotz Hockeyko Superligako azken **txanpa** erabakigarria iritsi dira. Azken **txanpa** goiz guztiko malda gogorrena izan zen, San Martin baselizako aldapa. **Berria - Kirola**

Idazleak bere **txanpa** harrapatzen duenean eta, zintzoki, barrutik idazten ari denean, irakurlea desagertu egiten da. **Ana Urkiza**

Nire nobelan, bigarren pertsonan idazten hasi nintzenean harrapatu nuen aipatu **txanpa** hori... **Ana Urkiza**

Hauteskunde kanpainaren azken **txanpa**. **Berria - Mundua**

Iñigo Olabarri eta Juanjo Perez koalizioaren kanpainaren nondik norakoak antolatzen aritu dira, eta horretan dihardute azken **txanpa** honetan ere. **Berria - Euskal Herria**

Aurreikuspenen arabera, lehen bost hiriak (Paris, Madril, Londres, New York) dira azken **txanpan** lehiatzeko faboritoak. **Berria - Kirola**

Azterketa zailena finalerdietan pasatu zuen, Barriola baino gehiago izan zen eta azken **txanpako** markagailu iraulketan burua hotz zuela mantendu zen. **Berria - Kirola**

Bigarren Mailako binakako txapelketak azken **txanpara** iristen ari da. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken txanpa (73); azken txanpa erabakigarri (3); azken txanpa erabakigarria (4); bertso txanpa (4); esprint edo txanpa (3); orioko txanpa estropada (6); txanpa erabakigarria (3); txanpa erabakigarriari (3); txanpa erabakigarria (4); txanpa estropada (10); txanpa hutsa izan (3); txanpa motako (3)

azken txanpak (6)

azken txanpako (4)

azken txanpan (261); azken txanpan dago (5); azken txanpan erabaki (6); azken txanpan lortu (4); azken txanpan sartu (13); azken txanpan sartuko (5); azken txanpan sartzer (4); azkeneko txanpan (6); denboraldiaren azken txanpan (6); denboraldiko azken txanpan (4); lehen txanpan (4); ligaren azken txanpan (3); lujanek azken txanpan (3); partidako azken txanpan (13); partidaren azken txanpan (15)

azken txanpara (37); azken txanpara arte (3); azken txanpara iritsi (5); ligako azken txanpara (4); txanpara arte (3)

azken txanparako (6)

azken txanpari (18); azken txanpari aurre (7); azken txanpari begira (3); azken txanpari ekiteko (4); txanpari aurre egiteko (6)

txanpa² iz zaunka.

Berehala, zakurraren **txanpa** erlastuak aditu ziren. **Itxaro Borda**

Karriken artetik haur irriak eta ama aspertuen deiak biderkatzen ziren, oilo koloka karakaka zenbait eta txakur **txanpak** ere bai. **Itxaro Borda**

Baina, so egizue, zakur **txanpa** bakarraz ardiak barreiatzen zaizkigu. **Itxaro Borda**

Larreñeko edo Santa-Graziko llabrit bat bezala, **txanpa** handirik gabe, büria artetarik aphil aphala, herratzen ari ginelarik, ejerki aholkatü gütützü. **Herria**

txanpa³ iz zortealdia.

Eta hara zer txiripa, zer **txanpa** eta zer kointzidentzia: Elsaren hatz-markak bai, eureka, haiek bat zetozen errebolberrari itsatsitakoekin. **Harkaitz Cano**

Suge gaizto hark Algeriako bileraren aurretik Charles de Gaulle kankailu hura pozoitu eta heriotzara eraman izana **txanpa** hutsa izan zen. **Harkaitz Cano**

txanpain ik xanpain.

txanpan ik xanpain.

txanpan ik xanpain.

txanpatu, txanpa(tu), txanpatzen du ad ipar zaunka egin.

Hedexurien buruzagiak manuak **txanpatzen** zituen. **Itxaro Borda**

Xarlesek besoaz Paris erakutsiz **txanpatu** zuen: [...]. **Itxaro Borda**

Lehen amore emaila Mai izan zen, gero ni eta azkenik goizeko hamaikak eta erdiak **txanpatu** zituen ordularia. **Itxaro Borda**

txanpi iz adkor txanpiñoia.

Egun hartan, norbaitek gilda batzuk eskatu zituen, baina amak **txanpi** batzuk eman zizkion aitari. **Joan Mari Irigoien**

txanpinoi ik txanpiñoi.

txanpinoi ik txanpiñoi.

txanpon 1 iz diru peza; balio gutxiko diru peza.

Diru eskaintza herrialde jakin bateko ekonomian dagoen diru kopurua da, ez soilik **txanpon** edo diru-paper kopurua, baizik eta **txanpon**, diru-paper eta banku sistemak dituen banku-gordailuak. **Iñaki Heras**

Txanpon guztiak bezala, bi alde ditu horrek ere, aurkia eta ifrentzua. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Txanponaren bi aldeak, hots, aurkia eta binperra. **Itxaro Borda**

Arranoa Errusiako **txanpon** bat da, urrezkoa, 5 errublo balio duena. **Karlos Zabala**

Laster fede gaiztoak edo premiak ekarri ohi dute **txanpon** bakoitzetik metal-pixka bat kentzea, izena berdin utziz. **Iñaki Iñurrieta**

Prezioa merkantziak beren artean konparatuta ateratzen da; beraz, ez da inolako txanponik, baina merkantzi zati bakoitza da bestearen **txanpon**. **Iñaki Iñurrieta**

Neskak barreari eman zion, eskutada bat **txanpon** ateratzen zuela. **Karlos Zabala**

Elizan sarturik, **txanpon** batzuk utzi zituzten aldare gainean. **Askoren artean**

Jose putzu lehorretik atera eta zilarrezko hogei **txanponetan** saldu zieten ismaeldarrei. **Elizen arteko biblia**

Urtean lau **txanponeko** alokairua ordaintzen zuten. **Askoren artean**

Diamanteak, perlat eta zortzi bost **txanponak** botatzen zizkieten kaipei, eskukadaka. **Julen Gabiria**
Honek bostekoa estutu eta bost liberako lau **txanpon** lerratu zizkion. **Karlos Zabala**
Kolpe laburrak jotzen zizkion anaiari sabelean, handik urdaitegi osoa pasatu arren, bi soseko **txanpon** baten gantzaz ere ez zela lodituko esaten zuen. **Karlos Zabala**
Nickela: bost zentaboko **txanpona**. **Lopez de Arana**
Ahalegin horri txanpon-makinen antza hartzen diot nik: **txanpona** sartu eta sartu, eta inoiz saririk ez. **Bernardo Atxaga**
Hogeita bost zentaboko beste **txanpon** bat sartu behar dut. **Iñaki Zabaleta**
Bost zentimoko **txanpon** baten bila hasi nintzen Friedeli deitzeko. **Koro Navarro**
Bizitza bera ere halakoxea baita, azken batean, **txanpon** baten antzekoa: bi alde ditu, eta ezin dira inola ere bereizi. **Joxerra Garzia**
Oroitzapena **txanpon** bat bezala hondoratu zitzaidan oroimenean. **Bernardo Atxaga**
Ibiltariak ere bota egin du **txanpon** bat ermitaren lurrera, baina ezer zehatzik eskatu gabe. **Bernardo Atxaga**
Hogeita hamar **txanpon**, hogeita hamar **txanpon** desio, hogeita hamar **txanpon** eskaera. **Bernardo Atxaga**
Errege-erreginek jendetzari penny erdiko **txanponak** botatzen dizkieten modu berean. **Julen Gabiria**
Agian tumoreak **txanpon** itxura du eta **txanpona** pailazoaren kapelura botatzea aski zen bere gaitza gainetik kentzeko. **Harkaitz Cano**
Txanpon batzuk sakelatik atera eta eman nizkion. **Koro Navarro**
Txanpon bat bedeinkazio baten truke. **Edorta Jimenez**
Kostatuko Arratsaldeetan diskodenda batera joaten ginen, **txanpon** batzuen truk jazz disko berriak entzuter. **Javi Cillero**
Txanponez **txanpon** dirutza bildu eta monumentu bat egin zioten penaz hil omen zen zakurrari. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**
Kostatuko zen bi **txanpon**, garai hartan ere! **Pako Aristi**
Taberna batean **txanponakiko** telefonoa lapurtzeagatik. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Txanpon faltsua egitea lesa maiestateko bigarren mailako krimentzat jo izan da, eta irizpide zuzenez. Akemenestarren urrezko "arkulari" **txanpon** ekumenikoek bultzada handia eman zioten txanponaren erabilerari. **Juan Martin Elexpuru**
Handik aurrera ziurtatua zegoen **txanpon** landuaren etorkizuna. **Iñaki Mendiguren**
Andreak **txanpon** handi bat atera zuen oihalezko zorro txiki batetik. **Karlos Zabala**
Diru xehea asti-asti ateratzen zuen sakelatik, **txanpon** handien artean galduta balego bezala. **Karlos Zabala**
Bi errealeko **txanpon** zulduna. **Joan Mari Irigoien**
Urrezko eta zilarrezko **txanpon** uholde bat ohearen gainera mantso-mantso erortzen utzi zuen. **Karlos Zabala**
Urregorritzko nahiz zilarrezko **txanpon** pila. **Patxi Zubizarreta**
Orain mokoka dituzu kobrezko bi **txanpon** direla eta, eta orain taberna zuloan edanean diruzorroa hustu arte. **Karlos Zabala**
Hiru koroa eta nikelezko **txanpon** batzuk zeuden bertan. **Anton Garikano**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txanpona gobernuaren **txanpon**-etxeko benetako produktu zela bermatzeko. **Iñaki Mendiguren**
Txanpon trukerik egin beharrik ere ez. **Harkaitz Cano**
Ez du hitzik esaten, **txanpon**-hotsa atera besterik ez, horrela amatxo, labea zaintzen ariko baita, ohar dadin. **Itziar Otegi**
Txanpon-poltatik giltza txiki bat atera, eta kajoi luze eta sakon bat zabaldu zuen. **Xabier Olarra**
Urrezko **txanpon**-metak zeuden barruan. **Iñaki Mendiguren**
Nik **txanpon** eskukada bat besterik ez neukan, Lucyren idazmahaiko tiradera batean aurkitutakoa. **Oskar Arana**
Bainugelara itzuli zen, han itxi zen, bere gisako **txanpon** faltsutze horri ekiteko. **Jon Alonso**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Prezioa santutegiko pisu-neurriaren arabera zilarrezko txanponetan ordainduko da, oin-**txanpona** hamar gramokoa delarik. **Elizen arteko biblia**
Ea, erakutsi zerga-**txanpona**; haiek denario bat aurkeztu zioten. **Elizen arteko biblia**
Harry aزي-**txanponak** azpikoz gora jartzen eta haiek ikusten ari zen. **Iñaki Mendiguren**

5 irud/hed

Txanponaren ifrentzia, aldiz, kontratuen kalitatea da. **Berria - Ekonomia**
Demokristauek **txanponaren** beste aurpegia erakutsi dute: 1975. urtetik hona izaniko emaitzarik hoberena lortu dute, eta itxaropen guztiak gainditu dituzte. **Berria - Mundua**
Izan ere, **txanponaren** beste aldean, badira arrasto sakona utzi duten fitxaketak. **Berria - Kirola**
Emakumea trukerako **txanpona** da han. **Berria - Gaiak**
Xantaia egiteko trukerako **txanpona** izan gara betidanik, indefentsio handiena daukan aldea garelako. **Berria - Euskal Herria**

6 dirua (bosgarren adieran)

Holandan florin deritzan **txanpona** dute; florinak hogeit hamar balio ditu, edota berrogei hamar. **Iñaki Iñurrieta**
Estatu bakoitzeko **txanponek**, gainera, balio erlatibo dute, beste herrialde batzuetako **txanponekin** konparatzen diren aldetik; balio erlatibo horixe ezartzen du kanbioak. **Iñaki Iñurrieta**
Aldi berean garbi dago **txanponaren** erabilgarritasuna areagotu egiten dela zenbat eta eremu handiagoan izan erabilera legala. **Iñaki Mendiguren**

7 antzinako zenbait diruren izena.

Egiptotik ekarritako gudu-gurdi batek zilarrezko seiheun **txanpon** balio zuen, eta zaldi batek ehun eta berrogeita hamar. **Elizen arteko biblia**
Zaindu gizon hau! ihes egiten badik, heure biziaren erantzun beharko duk; edota, bestela, zilarrezko hiru mila **txanpon** ordaindu. **Elizen arteko biblia**
Toki haren ordaintan urrezko seiheun **txanpon** eman zizkion Davidek Ornani. **Elizen arteko biblia**
Lursail hura Sikengo buruzagi izandako Hamorren semeei erosi zien, zilarrezko ehun **txanpon** ordainduz. **Jose Antonio Mujika**

8 txanpon makina (24 agerraldi, 8 liburu eta 3 artikulutan)

Txanpon-makinan arituriko bi emakumeak barrara hurbildu ziren. **Migel Angel Mintegi**
Txanpon makinetan jendeak eulia zirudien, marmar gortzailez makina batetik bestera aldatzen zen. **Iñaki Zabaleta**
Zer izango itsasontzia eta, nola esango nuke, olgeta-areto flotagarri bat edo horrelako zerbait zen, **txanpon-makinetan** jokatu, pantaila erraldoian telebista ikusi edo dantzan ibiltzeko. **Bernardo Atxaga**
Taberna handietan, mutur batean daudenek ez dute entzuten beste muturrekoen solasaldia, ezta mahaietara eseri direnek barran zutik daudenena ere, eta are gutxiago **txanpon makinan** dabilenak osterantzeko beste guztiena. **Pako Aristi**
Kasino baten jabea zen, eta txanpon-**makina** piloa zeukan barreatuta Renoko hainbat supermerkatutan. **Javi Cillero**
-3.000 **txanpon** urre. **Martin Anso**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi errealeko txanpon (4); eskukada bat txanpon (4); kobrezko txanpon (4); nafarroa truke txanpon (3); nafarroa trukerako txanpon (7); truke txanpon (10); truke txanpon gisa (5); truke txanpon izan (3); trukerako txanpon (27); trukerako txanpon gisa (8); trukerako txanpon izan (6); trukerako txanpon izatea (3)
txanpon bakar (7); txanpon bakar bat (3); txanpon bakar baten (3); txanpon balio (7); txanpon balio zuen (3); txanpon bana (5); txanpon bat bota (4); txanpon bat eman (8); txanpon baten bila (3); txanpon batzuk eman (6); txanpon batzuk utzi (5); txanpon berarekin (4); txanpon beraren (23); txanpon bereko (5)
txanpon eman (8); txanpon eman zizkion (3); txanpon emango (6); txanpon gisa (13); txanpon gisa erabili (4); txanpon hartu (5)

txanpon izan (10); **txanpon izan behar** (6); **txanpon izatea** (4); **txanpon makina** (3); **txanpon makinak** (7); **txanpon makinan** (4)
txanpon ordaindu (4); **txanpon txiki** (4); **txanpon txikiak** (6)
txanpon xehe (4)
txanponez txanpon (3)
urrezko txanpon (26); **urrezko txanpon bat** (9); **zilarrezko hamar txanpon** (3); **zilarrezko hirurehun txanpon** (3); **zilarrezko laurehun txanpon** (3); **zilarrezko mila txanpon** (4); **zilarrezko txanpon** (18); **zilarrezko txanpon bana** (3); **zilarrezko txanpon bat** (3)
azken txanpona (4); **bost zentaboko txanpona** (6); **oin txanpona** (3); **trukerako txanpona** (6)
txanpona airera (3); **txanpona bota** (7); **txanpona galdu** (3); **txanpona hamar gramokoa** (3); **txanpona hartu** (5); **txanpona sartu** (4)
urrezko txanpona (4); **zentaboko txanpona** (8); **zentaboko txanpona i** (3); **zilarrezko txanpona** (5)
biko txanponak (8); **txanponak botatzen** (4); **urrezko txanponak** (10); **zilarrezko txanponak** (4)
txanponaren alde bati (3); **txanponaren beste alde** (6); **txanponaren beste aldeari** (6); **txanponaren bi aldeak** (10)
txanponari buelta eman (3)
txanponez betea (5); **txanponez txanpon** (3)

txanponbide *iz* dirubidea.

Horrexek arrimarazi zuen Châtelet-eko makila-sarjentu Casin Cho-let-engana; bere ofizioaren itzalpean, **txanponbide** makurra zuen. **Juan Garzia**

txanpondegi *iz* txanpon biltegia.

Banekien [...], Zazpi Urteetako gerratean, gure **txanpondegi** ere Oñatin zegoela; Lazarraga Dorrearen inguruan, omen. **Txillardegi**

txanpondu, txanpon(tu), txanpontzen du *ad* txanpon bihurtu.

Metal preziatuak ez dutenez, ez eta lurrinezko prentsa, laminagailu eta sufre-azidorik, altxor-dirurik **txanpontzeko**, onenean besteei altxor baten lekua seinala diezaieketen. **Juan Garzia**

txanponerruki *iz* *adkor* etxegabea, eskalea.

Hara, hara komediantearen antza du ba clochard-homeless-kalejale-**txanponerruki** horrek! **Harkaitz Cano**

Ahor zure Santxo, egiten ari zaren erokeria honen barruan, erotu den mundu honetan, ehun eta hogeiki kiloko clochard-homeless-**txanponerrukia**, daukan itxaropen guztia eta behialako gaztetasan guztia begietan biltzen zaion emakume bazterreko bat. **Harkaitz Cano**

Atso bat, kale ertz bateko kartoen artean babestua, bourbon upel baten gerrri bueltari inbidiarik ez diona, gaueko debekua errespetatzen ez duen **txanponerruki** bat. **Harkaitz Cano**

txanpongintza *iz* txanponak egitea.

Dirua jaulkitzeko prerrogatibak ematen duen probetxu moral automatiko hau, baita ingurune politiko eta erlijioso erabat aurkakoan ere, askoz baliotsuagoa izan zen erromatar gobernu inperialarentzat **txanpongintzaren** kudeaketak bide batez ekar diezazkiokeen finantza-irabazi huts guztiak baino. **Iñaki Mendiguren**

Albisteak zabaltzeko metodo modernoek eta propaganda-bide berriek, postatik hasi eta irratsaio eta prentsa arterainokoek, **txanpongintza** inperialean izan zuten baliokidea. **Iñaki Mendiguren**

Gobernu inperialak, aurrez edo ondoren gobernu gutxik bezala, balioetsia zuen ez bakarrik **txanpongintzaren** funtzioa garaiko bizimoduaren [...] ispilu gisa, baita berak bakarrik zuen aukera ikaragarria ere propaganda-tresna gisa urrutira iristeko. **Iñaki Mendiguren**

txanponjale

1 *makina txanponjale* txanpon makina.

Jende asko aldatzen da **makina txanponjalez**, kasinoan zorteak bizkarra eman dionean. **Javi Cillero**

Emakumeak borroka bizian ari ziren **makina txanponjale** batekin, denbora egiten sexua salgai zegoen katakonbetara lanera joan aurretik. **Migel Angel Mintegi**

1980ko hamarkadan **makina txanponjaleak** zabaldu ziren tabernetan. **Berria - Gaiak**

txanpu ik **xanpu**.

txantaia ik **xantaia**.

txantaje ik **xantaia**.

txantajeatu ik **xantaiatu**.

txantajegile ik **xantaiagile**.

txantier ik **xantier**.

txantilo *iz* marrazketa-eredua.

Aurkezpena ere moldagarria da, norberak bere ezagutzaren arabera molda dezake; diseinu aldetik ezagutza mugatua dutenek aldeaz aurretik egindako **txantiloak** erabiliko dituzte, baina badira blog oso itxurosoak eta oso landuak. **Txantiloak** "arrazoia" eskatu dio. **Berria - Harian**

txantre iz katedraleko koruaz arduratzen zen kalonjea.

Atarian jarrita zeuden ahots gorarik kantari, eskarnioz eta algara handitan parodiatuz meza eta bezperak, aldareko apeza eta koruko **txantreak**. Koldo Izagirre

Han, adiskide mami izan zuen Jean Bruillot, kalonje eta **txantrea**, zeinarekin letania ederrik salmodiatzen baitzuen Mariaren ohorez. Juan Garzia

Sutegiak zurrunga egiten zuten, eguzkipean lokaturiko **txantre** baten gisan. Karlos Zabala

Biblia txatala bukatzen duen **txantre** baten doinuak. Karlos Zabala

Saltxitxoiak, **txantreen** bizkarrezurren antzekoak, beren zilarrezko kapaz estalirik. Karlos Zabala

txantrear izlag/iz Iruñeko Txantreakoa, Txantreari dagokiona; Txantreako biztanlea.

Iruñeko Volkswageneko **txantrear** langilea, euskaraz egiteagatik lankideek "el vasco" deitzen dutena. Iñigo Aranbarri

txantxa 1 iz asmo gaiztorik gabeko adarjotze edo zirrikada, atsegin hartzeko egiten dena. ikbroma.

Barre eta **txantxa** asko izan zen otordukoan. Irene Aldasoro

- **Txantxa** bat da hori -esan zuen Andresek. Josu Zabaleta

2.200 milioi euroren salerosketa izan zen, eta kopurua ez da **txantxa**. Berria - Ekonomia

-Ez da **txantxa**, ez pentsa. Irene Aldasoro

Ez da **txantxa**, ezta mehatxua ere. Oskar Arana

Txantxa gutxi izaten zen harekin. Joxerra Garzia

-Nahiko **txantxa** izan dugu. Josu Zabaleta

Amaituak ziren **txantxak**. Juan Kruz Igerabide

Bingo esan ordez, *Virgo* esaten omen zuen askotan, edo *Bimbo*, *Vigo* ere bai, **txantxa** jotzearen. Karlos Linazasoro

Hori dela eta, **txantxa** bat baino gehiago jasan behar izan zuen. Joxerra Garzia

Neurtu gabe nola hartuko zuen nire **txantxa**. Anjel Lertxundi

Gizon bibotedunak, barre eta **txantxa** ugari zerabiltzatenak. Felipe Juaristi

Anai talde hain ugarian ez zitzaion inori entzuten ez hitz arinik, ez **txantxarrik**. Askoren artean

Aldez aurretik ikusten dut badatorrela **txantxa**, eta hatzak gurutzatzen ditut ona izan dadin. Oskar Arana

Elkarri burua berotuz eta batak bestearen **txantxak** txalotuz. Xabier Mendiguren Elizegi

-Utzi **txantxak**, Mentxu, sorpresa bat daukat zuretzat. Josu Landa

Txantxa ondo joan zen. Karlos Zabala

Posta elektronikoaren bitartez hedatutako **txantxa** baten bitartez izan zen. Berria - Harian

Ezkongaietan edo ezkonberritan bezala, **txantxarako** beti gertu. Xabier Mendiguren Elizegi

Halako **txantxarrik** ez niri, gero! Patxi Zubizarreta

Haserre handirik eragiten ez zituzten elkarren arteko **txantxa** eta zirtoak. Anjel Lertxundi

Gehiegizko ukazioa ez ote zen izango galdetu nion, jakin-minez eta **txantxaz**. Fernando Morillo

Laneko bilera da, beraz, baina giro lasaia egiten dena, **txantxa** artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Guk **txantxatzat** hartu genuen. Joxe Austin Arrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ateraldi zentzugabez, **txantxa** alaiz eta bufoieria sasi histrionikoz beterik. Oskar Arana

Ezjakinaren **txantxa** inozoa edo jakitunaren probokazio zitala? Aingeru Epaltza

- **Txantxa** ederra Georgerentzat. Lopez de Arana

Harropuzkeria hutsez ni txiki-txiki egitea eta elbarri uztea **txantxa** bikaina balitz bezala. Xabier Olarra

Txantxa txiki horretan parte hartu ahal izan banu! Oskar Arana

-Ez da gero zure **txantxa** merke horietakoa izango, ezta? Oskar Arana

Txantxa burugabea izan da. Koldo Biguri

Egin dezatela barre, asma ditzatela **txantxa** iraingarriak: aspertuko dira. Anjel Lertxundi

Ezin ditu burutik uxatu haien ziriak, haien burla on-usteko nahiz **txantxa** gaiztoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Badira gazteak [...] gai horri buruz normal eta **txantxa** gordinik egin gabe hitz egiteko gauza direnak. Josu Zabaleta

Buru-buztanik gabeko **txantxa** gordin batekin errezibitu ninduen. Anjel Lertxundi

Txantxa umiliagarri eta zitalenak. Luis Elberdin

-Elbarri ez ezik, mutua zara? -nire harridurarako, neskek ez zuen **txantxa** ankerren tonuan galdetzen. Alberto Ladron Arana

Oso bakanetan egokitu zait **txantxa** lizunen bat entzutea. Anjel Lertxundi

Ez haren ateraldi zorrotzik, ez haren **txantxa** ausartik. Joan Mari Irigoien

Kolpismo judizialaren ondoan, militarrena **txantxa** hutsa da. Berria - Mundua

Esaldi ziniko bat zen, baina baita gure arteko **txantxa** ohikoa ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Begi-bistakoa zen Danelen gustu txarreko **txantxa** baten biktima ginela. Anjel Lertxundi

Bai, barkatu: oso gustu txarreko **txantxa** izan zen. Patxi Zubizarreta

Betiko **txantxa** bota du: "behera bihotzak eta ez dezagun etsipena gal". Urtzi Urrutikoetxea

Banekien hori guztia ez zela inolako **txantxa**, beste ikuspuntu batetik begiratuta. Urtzi Urrutikoetxea

Beste neskek Niniren kontura egiten zizkioten berriketa eta **txantxa** maliziarik gabek hasi bezalaxe amaitu ziren poliki-poliki. Josu Zabaleta

96.000 euro ziren, **txantxa** benetan garestia merkatarientzat. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orduan Florentek, **txantxa** kutsua utzi gabe, bere dirua urdaitegian bertan inbertitzeko eskaintza egin zuen. Karlos Zabala

Txantxa tonuz baina argi ebakiz berbak. Urtzi Urrutikoetxea

Descartesek **txantxa** itxurako zalantza famatu horrekin hasten da Aro Modernoa. Anjel Lertxundi

Gerlariak berehala utzi zuten alde batera euren **txantxa** -jarrera eta errespetu handia erakutsi zuten. **Txantxa** giroan bazen ere, ez zuen zalantzarik egiten haien huts bakoitza, ttikiena izan arren, nabarmen uzteko. Joanes Urkixo

Trufa eta **txantxa** giroko horrelako elkarrizketa batean. Oskar Arana

Begietara egin nion so, **txantxa** keinuren baten bila. Aingeru Epaltza

Ez zuela inolako **txantxa** edo irain itzalik sumatu mutilarengan. Bego Montorio

Harry Zonkoren dendako **txantxa** -gaien poltsatxo bat. Iñaki Mendiguren

Gozoki-denda nahiko ona da, baina Zonkoren **txantxa** -denda arrikutsua da. Iñaki Mendiguren

Txantxa -barre batez lagundu zuen esandakoa, Fionn oso serio bezagoen ere. Juanes Urkixo
Charliek, ni zaintzeaz gain, behera jaisten lagundu dit, eta eskolako patioa zeharkatzen, hango **txantxa** -hots zalapartarian barrena. Mirentxu Larrañaga

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak adizlagun balioa duela)

Bidean **txantxa** -kontari eta barreari emanez zihozten. Juan Garzia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Trapuzko pampina baten legez mugitzen zen, kanpotik zetorren ikusleei keinu- **txantxa** lotsagabeak eginez. Berria - Kultura

Hori, giza eskalan, akrobazia ironiko bat da, txerpolar- **txantxa** bat. Juan Garzia

Gabriel ferekatzen zuten, eta hala ikasi zuten hark tragediazko bertso etenik eta baserriar antzez- **txantxa** baldarrrik. Juan Garzia

6 (adizlagun balioko esaldietan)

Umeak ardurara handi barik ikusi ditu, solas eta **txantxa** , eskolara bidean. Urtzi Urrutikoeetxea

Izan ere, **txantxa** eta algara baino ez ginen ibili hainbat astetan. Mirentxu Larrañaga

7 txantxetako izlag

"Abajo los Borbones" leloa hedatzean, ez zetorren batere **txantxetako** asmotan. Txillardegi

Txantxetako izen taxonomikoak "katu borrokari" esan nahi du. Xabier Olarra

Eraso erdi **txantxetakoari** zuzenean erantzun ordez, arrisku handi batez abisatzen ari den baten seriotasunaz mintzatu nintzaion: [...]. Anjel Lertxundi

-Ez da **txantxetako** gauza, Ron -bota zion Hermioneek zorrotz-. Iñaki Mendiguren

Mutiko maitea, hori ez da gero **txantxetako** gauza... Iñaki Mendiguren

-Ez zuan **txantxetako** kontua, jakina. Juan Kruz Igerabide

Garijotze lanak ez ziren **txantxetakoak** , baseriz baserri txandaka. Pello Zabala

-Ez dira **txantxetako** gorabeherak, Nora! -zakartu zitzaion Andreas-. Anjel Lertxundi

Zergatia ez da **txantxetakoa** , hilketara bat leporatzen baitiote, bere emaztearen hilketara hain justu. Migel Angel Mintegi

Gaia ez zen **txantxetakoa** : lan munduaren giltzak zabalduko al du euskararen etorkizunaren atea? Berria - Euskal Herria

Txantxetan, noski, nahiz badakidan batzuetan itzuri zaidan sermoi-kutsua ez dela **txantxetakoa** izan. Joxerra Garzia

Konpainia bateko zuzendari eta koreografo izatea ez baita **txantxetakoa** , eta neurri batean baldintzatzen du. Berria - Kultura

8 txantxetan (orobat txantxan g.er.) adlag

Txantxetan edo burlaiez begiratzen dio, baina maitasunez inoiz ez. Josu Zabaleta

Banda batean bildu ginen denok, ausarki batzuk, **txantxetan** beste batzuk eta beldurrez beste batzuk. Irene Aldasoro

Txantxetan denak, niri barre eginez. Bernardo Atxaga

Atsekabez begiratzen zion eratzun horri, kondenaioaren sinboloa balitz bezala, eta, aldez **txantxetan** , aldez serio. Jose Morales

Hizketan hasi zen... **txantxetan** edo. Lopez de Arana

Nire laguna, agian **txantxetan** , Heineren poema bat errezitatzeko hasi zen. Bernardo Atxaga

Ni ez naiz **txantxetan** ibiltzen. Koldo Biguri

Haren begitartean ez zuen **txantxetan** edo adarra jotzen zebilelako aztarnarik nabaritu. Migel Angel Mintegi

Mundu guztia irribarreka eta **txantxetan** zebilkion hori zela eta. Barre egin zuen, **txantxetan** ari zela adierazteko. Xabier Olarra

Berrikerian eta **txantxetan** aritu zen, begiak espaloi batetik bestera zihoazkiola. Patxi Zubizarreta

Begi-bistakoa izaten zen ez zela **txantxetan** ari, bene-benetan baizik. Patxi Iturritegi

Gaiari nola-hala heldu nionean, berehalaxe agertu zen **txantxetan** esana zuela esandakoa. Joxe Austin Arrieta

Idoia muturtu egin zen, **txantxetan** . Juan Kruz Igerabide

-Ez da **txantxetan** hartzeko moduko arazoa. Fernando Rey

Ez zeukan eskubiderik jende guztiaren aurrean berari mendebaldeko britainiar deitzeko, ezta **txantxetan** ere. Irene Aldasoro

Ezta **txantxetan** ere horrelakorik! Txillardegi

· Erdi **txantxetan** errana, baina aldi berean gogaituxea ere bai. Aingeru Epaltza

"Ai, Garibairen arima erratua!", egin du biografoak, erdi **txantxetan** , hasperen. Anjel Lertxundi

Erdi serio erdi **txantxetan** esan zion: [...]. Joan Mari Irigoien

· Haren kopiak eskuan genituela eta elkarri **txantxetan** joan ginen *Guernica* jatetxeraino. Bernardo Atxaga

9 txantxa egin

Txantxa egiteko asmorik gabe, Gavoiilerengana itzuli eta esan nion: [...]. Josu Zabaleta

Reginak, **txantxa egiteko** , lotsagabe samar erantsi zuen: [...]. Josu Zabaleta

Ezin zuen sinetsi hil-oihalaren **txantxa egin** zion adiskide mamia hilik egon zitekeela. Patxi Zubizarreta

«Justiziaren erabateko **txantxa egitea** » gaitzetsi zuen Asif Ikbal eta Shafik Rasulen defentsariek, eta Gareth Peirce beste hiru preso ohien abokatuak, berriz, «ez sinesteko moduko historiatzat» jo zuen. Berria - Mundua

Pobretasunaz **txantxa egitea** bezain baldarra litzateke hori. Anjel Lertxundi

Nik Teresarekin izandako auziaz **txantxa egitea** ez zitzaidan bidezkoa iruditu. Anjel Lertxundi

· Orduan **txantxa** bat **eginez** irten behar izaten dut ataka horretatik. Josu Zabaleta

Baina ez da txantxetakoa; izugarriegia da **txantxak egiteko** . Josu Zabaleta

Halako **txantxak egiten** zizkion, eta halako ergelkeria txoroak esaten, non barre egin beste erremedioirik ez baitzuen Taibeak izaten. Koro Navarro

Arrailarian jarduten da, barre egiten da, **txantxak egiten** dira, graziaz hitz egiten da, eta graziaz mintzatzen ikasten. Josu Zabaleta

Fernandok **txantxa** bera **egiten** du beti: Honezkero ile urdinaren bat edo beste izan beharko huke... ziur tindatzen duala"- Iban Zaldúa

Gizonak bere buruari egiten zion irribarre, **txantxa** on bat egitera doanaren gisa. Monika Etxebarria

Poliziaren kontura **egiten** zituzten **txantxa** gehienak. Joxerra Garzia

Nik ez dut sekula **txantxarrik egiten** . Lopez de Arana

10 txantxak txantxa

Txantxak txantxa , primeran aritu zen Jon, gainerakoiki alde nabarmena kenduz. **Txantxak txantxa** , ez naiz ni ezeren egunen oso zalea. Andoni Egaña

Txantxak txantxa , atzokoan hainbeste aipatu zen artisten engaiamenduaz hitz egin zuen, besteak beste: «ez direnean arrazoi politikoak sentitzen, behartzea ez da kontua». Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barre eta txantxa (3); dena txantxa (4); ez da txantxa (11); ez dira txantxa (3); gustu txarreko txantxa (3)

txantxa artean (11); txantxa bat izan (3); txantxa bat zela (3); txantxa bat zen (4); txantxa besterik ez (3); txantxa da (3); txantxa egitea (3); txantxa giroan (8); txantxa gordin (3); txantxa gutxi (4); txantxa hutsa (5); txantxa izan (9); txantxa moduan (4); txantxa txiki (3); txantxa ugari (3); txantxa zela (3); txantxak txantxa (3)

txantxaren bat (12)

ez txantxarrik (3); txantxarrik egin (5); txantxarrik ez (6); txantxarrik gabe (3)

txantxatik harantzago (3)

txantxatzat hartu (4)

ez da txantxetako (14); txantxetako gauza (10); txantxetako ikuspenak (3); txantxetako kontua (9)
ez da txantxetakoa (14); ez dela txantxetakoa (4); ez zela txantxetakoa (4); ez zen txantxetakoa (8); txantxetakoa izan (7); txantxetakoa izango (4)
ez ziren txantxetakoak (3)
beti txantxetan (6); erdi txantxetan (49); erdi txantxetan esan (4); esan nion txantxetan (8); ezta txantxetan ere (4)
txantxetan ari (93); txantxetan ari nintzen (6); txantxetan ari zara (10); txantxetan ari zela (8); txantxetan ari zen (6); txantxetan ariko (5); txantxetan aritu (12); txantxetan aritu ginen (6); txantxetan aritzea (6); txantxetan aritzeko (6); txantxetan aritzen (6); txantxetan bezala (8); txantxetan egindako (3); txantxetan esan (17); txantxetan esan zidan (4); txantxetan esaten (9); txantxetan hartu (4); txantxetan hartzeko (6); txantxetan hartzen (9); txantxetan hasi (5); txantxetan hasten (3); txantxetan ibili (8); txantxetan ibiltzeko (3); txantxetan ibiltzen (10); txantxetan jarduteko (3)
ez dago txantxetarako (5); ez zegoen txantxetarako (4); txantxetarako gogoia (4)

txantxan ik **txantxa 8**.

txantxangorri 1 iz txori txiki kantaria, bekokia, lepoa eta paparra gorri biziak dituena(*Erithacus rubecula*). ik **papogorri**; **txindor**.

Hara non ari den **txantxangorri** bat kantari hagin baten gainean. **Mirentxu Larrañaga**
Zuhaitzen hosto berdeen aurretik ziztu bizian igarotzen ziren **txantxangorriez**, txonta horiez eta eskilaso luma-urdinez. **Oskar Arana**
Txori apala, goxoa, adiskidetsua **txantxangorria**! **Gotzon Garate**
Beharbada, bele horrexek uxatuko zuen nire **txantxangorri** emea, eta haren habia hustu eta arrautzarik gabe utzi. **Mirentxu Larrañaga**
Nolako sinbologia du **txantxangorriak** euskal poetaren gogoan? **Patziku Perurena**
Trixte kantatzen baitu **txantxangorriak**, eguraldia okertzen hasten denerako. **Pello Zabala**
Esaten dutenez, **txantxangorriak** bere aita erail omen zuen, eta horregatik omen du bere papartxoa gorri gorri. **Patziku Perurena**

2 (hitz elkartuetan)

Goian, eguzkiak **txantxangorri** -arrautzaren kolorea zeukan. **Lopez de Arana**

txantxar 1 iz hortz-haginetako eritasuna, esmaltean zulo gero eta handiagoa sorrarazten duena. ik **ikkarie**.

Ahoko gaitzak (**txantxarra**, periodontitiisa, eta ahoko nahiz faringeko minbiziak) ugaritu egin direla ohartarazi du OME Osasunerako Mundu Erakundeak. **Berria - Gaiak**
Txantxarrak jotako haginak ordea, zenbat lan ez ote digun ematen atera nahi ez duenean! **Harkaitz Cano**
Ilehoria eta isila, haginak **txantxarrak** janda. **Joseba Urteaga**

2 (hitz elkartuetan)

Funesek etengabe bereizten zituen ustelduraren, hortz- **txantxarren**, nekearen aurrerapauso astitsuak. **Juan Garzia**

txantxari iz ziba.

Txantxari baten pare jardun nuen, jira-bueltaka, etxe handiagoaren bila. **Aingeru Epaltza**

txantxartu izond txantxarrak joa. • *irud/hed*

Inork ez zuen legenda egiaztatzeko ahaleginik egin -Rasputinek bere irribarre **txantxartua** erakutsi zuen orduan-, leizea sorginduta zegoela uste baitzuten herrikoek. **Iban Zaldúa**

txantxati izond/iz txantxazalea.

Jende **txantxati** eta galaitsuz inguraturik bizi zen. **Juan Garzia**
Maitaleak ez beza doan egin hasperen; **txantxatiak** bakean beza bere partea burutu. **Juan Garzia**

txantxazale izond/iz txantxaren zalea dena. ik **txantxati**.

Ahots nagusiak, noski, Rychard Feynman fisikari gaztea, George Gamow **txantxazalea** eta Bertrand Russell isilezina ziren. **Fernando Morillo**
Gaur egun, futbol zelai zaharra dago -beti ardi-kakaz beteta zegoelako, leitzar **txantxazale** batzuek Kakazelai izenarekin bataiatu zutena-. **Martin Anso**
Osaba **txantxazalea** zen oso, zientziak ari zitzaigunean izan ezik. **Joan Mari Irigoien**
De Villon kondea ekarri zuen gogora, jaun alai **txantxazalea**. **Felipe Juaristi**
Oso bisualizatzaile ahaltsu eta sortzailea da Tom, eta, bera bezala, ez da ortodoxiazale, bihurri eta **txantxazale** baizik. **Xabier Olarra**
Koadroaren hondoko aldean, pintatzailearen begi burlati eta **txantxazaleak**, ordea, pintatzaile-kapeluaren azpitik begira, pintura osoa komedia dela erakusten du. **Felipe Juaristi**
-Tira -esan zuen Ruche jaunak, umore **txantxazalez** -, buruz ikasiko dut OL guztia. **Jon Muñoz**
Pentsa zitekeenaren kontra, **txantxazale** agertu zitzaigun. **Joan Mari Irigoien**
-Argia erakutsiezaguk -eskatu zion Alexek **txantxazale** -. **Fernando Morillo**

txantxazaletasun iz txantxazalea denaren nolakotasuna.

Txotxongilo bat zen, eta haren **txantxazaletasuna** eta arinkeriak, berriz, gertatutakoaren larritasunaren kontrapuntua. **Xabier Olarra**
Txantxazaletasun mota hori, izan ere, oso berezkoa da sindrome orbito-frontaletan, eta hain da harrigarria, non izena ere eman zaion:*witzelsucht* edo **"txantxazalearen** gaixotasuna. **Xabier Olarra**

txantxibiri

Txantxibiri, **txantxibiri**, gabiltzianian... **Unai Iturriaga**

2 txatxibirian adlag

Dendetan, gordeketan, kaniketan, **txantxibirian**. **Arantxa Iturbe**

txantxibirika *adlag*

Ikusten dituzu zazpi astoren gainean Santa Ana komentu aldera **txantxibirika** doazen hamalau atso tronpeta-jole horiek? **Anjel Lertxundi**

txantxiurtu, txantxiur, txantxiurtzen du *ad* ore modukoa bihurtu.

Harrituta zeuden, kezkatu, patatak era hartan maneaturik ikustean: erreta bezala, **txantxiurtuta**, muttur-belztuta utzi zituen Isidorak zartagian. **Pako Aristi**

txantxo *iz* pertsona mozorrotua.

Gau-jaietako jolasetan ohi diren **txantxoak** ziruditen. **Patxi Ezkiaga**

txantxotu, txantxo(tu), txantxotzen **1** da *ad* mozorrotu.

Aitaren anaiarekin harremana zuten pertsona haiek guztiak ez zitezkeen egon "burutik nahasita", agertokian **txantxoturik** aterata ere, edo ilea eta bibotea tindaturik ere.

Fernando Rey

Boxeo entrenatzaile bezala **txantxotutako** batek. **Bernardo Atxaga**

2 (*era burutua izenondo gisa*).

"Alaba," esan zion apaiz **txantxotuak**, / "benetan beltzak dira zure bekatuak". **Xabier Olarra**

txanza *iz* zortea.

Bigarren ezarria kabinetara **txanza** hobearen entseiatzera. **Jokin Urain**

txao *interj* agur, adio.

Bai, ikusiko gara, e? **Txao!** **Patxi Iturritegi**

Txao. **Fernando Morillo**

txapa **1** *iz* xafla; xafla material gisa hartua.

Monumentua **txapa** edo latorriz eginda zegoen, barrendik hutsa. **Iñaki Zabaleta**

Bordatxo bat, oholez jasoa eta teilatua **txapa** okerrez estalia, lorategi baten zokoan. **Jesus Mari Mendizabal**

Eskuzko plantxekin aritzen ginen **txapa** handi-handi baten kontra. **Arantxa Iturbe**

Txapak txaparen kontra jotzean ateratzen zuen metal xaxtar baten hots lehorra. **Harkaitz Cano**

Lurra **txapazkoa**, alantze bildutako tutu metalikoak baranda gisa, ez zuen metro bat zabal. **Rafa Egiguren**

Caudilloaren enparantza zioen **txapazko** errotulu batek. **Jon Maia**

Txapazko erretilu zahar bat izan zuen bere lehengo panderoa. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Bezero bat etortzen zenean **txapa** puska baten edo sutegi zahar baten eske, txatarra meta bat desegin behar izaten zen hura aurkitzeko. **Pello Lizarralde**

Bazuen kriminal haiek eragiten zituzten torturen berri, begiak ateratzen zituztela koilarak erabiliz, edo burdin-**txapa** goritu batera botatzen zutela jendea behin eta berriro.

Bernardo Atxaga

Ziegetako leihoak burdin-sarez itxita daude, boligrafoa igartzeko baino zulo txikiagoak dituen burdin-**txapa** zuluarekin itxita. **Jokin Urain**

3 (*karrozeria gisa hartua*).

Bere modukoek autoa irauli dezakete, bidetik atera, atzetik jotzea ere litekeena da, baina **txapa** kontu hutsa baino gehiago izango da orduan. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Noizbait, altzairu herdoilgaitzezko **txapaz** egindako tren agertu zen. **Iñaki Zabaleta**

Elurrak eta izotzak eraginda zauriturik gabeko **txapazko** istripu txiki ugari izan zen. **Berria - Harian**

Lanuztea dela-eta, Volkswagenean ekoizpenaren %70 gelditu dago, eta **txapa** eta pinturako sailak bakarrik ari dira lanean. **Berria - Ekonomia**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ibilbide luzeko trenek hauts gehiago eta neke gehiago zuten gainean, lurralde ezberdinetan zahartu denaren **txapa**-azala, beste garai bateko ukitu bat, herdoilera iristen ez den distira-ez bat. **Harkaitz Cano**

Bat-batean bizikletaren **txapa**-zarata entzun genuen, lurrean arrastaka, behin eta berriro ai larriekin batera. **Juan Kruz Igerabide**

Euriteen ondorioz, **txapa** istripu ugari izan ziren atzo goizean errepideetan. **Berria - Euskal Herria**

5 suko edo sukaldeko xafla. ik **plaka**.

Eta hark lehengo ekonomika edo **txapa** seinalatu! **Patxi Zubizarreta**

Plantxa sukaldeko **txapan** berotzen ipini eta arropa zimurren artetik luzatzen zenizkion eskuak hartu zituen Dolorsek. **Koldo Izagirre**

Azkarki, ketan zegoen kafe-eltzea **txapatik** baztertu zuen. **Iñaki Zabaleta**

Ekonomika gainean eltzea lurruna dariola, kako batean **txapa** irekitzeko gantxoa, paretan Arantzazuko egutegia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sutegi ekonomikoaren **txapa** ilunaren gainean bi eltze eta kafetera esmalte zurikoa. **Pello Lizarralde**

Ogia **txapan** xigortzen ari zen. **Koldo Izagirre**

Hirugihar xerrak plastikozkoak balira bezala bihurturiz ziren **txapa** gainean. **Iñaki Zabaleta**

Ontzietatik **txapa** gainera jausten diren tanten klaskadek urratzen dute isiltasun epel eta hezea. **Pello Lizarralde**

Lepokoa eta gabardina aulki batera bota ondoren **txapa** elektriko batean kafe-eltzea berotzen jarri zuen. **Iñaki Zabaleta**

6 xafla-zati txikia, eskuarki biribila, ezaugarri gira erabiltzen zuena.

"Nuklearrik Ez" **txapa** erraldoi faltsifikaezinak. **Iban Zaldúa**

Jertsean neraman Euskadiko Ezkerraren sinboloaren **txapa** eskatzea. **Iban Zaldúa**

Zuria, berdea eta gorria zen **txapa**. **Iban Zaldúa**

-Gizonak Gestaporen **txapa** bat erakutsi dio. **Alberto Ladron Arana**

Txapa obalatua zen, nikelzkoa itxuraz, eta agentearen zenbakiaz gain, bi hitz zituen irarrita: *Geheime Staatspolizei*. **Alberto Ladron Arana**

7 xafla-zati txiki biribila, pilota-partidetan gora botatzen dena sakea nor egingo duen erabakitzeko.

Finalerdiak hasteko **txapa** botatzea baino ez da falta. **Berria - Kirola**

Txapak Esaini eman zire emantzinako sakea, eta 2-0 jarri zen aurretik markagailuan. Berria - Kirola

8 xafila-zati txiki biribila, edari botila batzuk tapoi gisa erabiltzen dena.

Txapa kendu eta botila erdia hustu du zurrutada batez. Paddy Rekalde

Aspaldiko Coca-Cola baten **txapa** gorria izan zitekeela esan zuen Monikak. Joxean Agirre

Plater birakari batean edukitzen ziren plastikozko espezia-pote haiek, "Cinzano" **txapa** -kentzeko haiek. Joxan Elozegi

9 musika-bateria bateko osagietako bat, xafila biribila dena.

Ane minutu beteko soloan murgildu zen luzimendu eta luzamenduan, eta **txapa** kolpe batekin amaitu. Unai Iturriaga

10 pilota-jokoan frontoiko txapazko zerrenda, zeinaren ginetik jo behar baitu pilotak pareta.

Azken hori esatean pilota **txapa** gainean utzi nion. Edortia Jimenez

Ondo atzeratuz eta **txapa** gainean moztuz guztira hamabost tanto egin zituen, asko Otxandoren lanaren fruitu. Berria - Kirola

ik txapagain.

Hainbatetan zortea izan zuen lagun pilota **txapatik** gora kokatzeko. Berria - Kirola

Dejadak **txapara** joan zitzaizkion, eta gantxoak, kontrakantxako marrara. Berria - Kirola

Hemezortzigarren tantoa Ruizek pilota **txapara** bota ondoren lortu zuen Martinez Irujok. Berria - Kirola

Urdinak 18-14 hurreratu zirenean, azkaindarrak **txapa** jo zuen eta bere hotsak iraulketa itxaropenak desegin zituen. Berria - Kirola

Tantoa eginda zuela botariko bi dejadak **txapa** jo zuten, eta metalaren hotsak Xala aztoratu zuen (8-8). Berria - Kirola

Hamargarren koadroan behar zuten pilotakadek **txapa** azpia jo zuten. Berria - Kirola

ik txapape.

11 *adkor* jardun aspergarria.

Tomasek harrapatu nau alde egiteko nengoela eta orain kriston **txapa** emango dit, ziur. Jon Arretxe

Ez dion entzun gaur goizean sartu digun **txapa**! Anjel Lertxundi

Nahi beste luzatzeko aukera ematen badiet batzuek sekulako **txapa** sartuko didate eta gero hori dena zuzentzeko. Jon Arretxe

-Hi, ta, Aiorari ere **txapa** hau dena sartu diok? Xabier Mendiguren Elizegi

-A ze **txapa**, ezta? -esan zuen Mikelek. Xabier Mendiguren Elizegi

-Alex, Alex, zer **txapa** da hori guztia? -moztu nahi izan zion Julenek. Fernando Morillo

Potroetaraino nago irakasleek agintzen dizkiguten **txapak** irakurtzen eta zure liburua guztiz desberdina da, deskonjonoa! Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txapa gainean (14); **txapa gainean moztuz** (3); **txapa gainera** (4); **txapa kendu** (4)

txaparen kontra (3)

txapa-txapa (*corpusean txapatxapa soilik*) *adlag* urrats laburretan.

Aitak, ardiak laxatu zituen eta lohian **txapatxapa** ihalozka pasatu ziren, muturrak lurrera, ilatxetan iratze zein ote abarrak perlatzen zirela, kakaila pikorren artetik. Itxaro Borda

txapadun *iz* txapa daraman pertsona.

Planto modukoa behar omen zuen modulu bakoitzeko ekimenak, eta ziegara igotzeko orduarekin batera patioko zoru grisean ipurmasailak paratu eta **txapadunek** eraman gintzaten bultzatuko genuen. Lander Garro

Gutunen ordua zen, eta horren ilusioarekin zutitu nintzen, burua estali eta hara abiatzeko, **txapadunen** etxolara, gutun irekia hartzera. Lander Garro

Beste batzuk inguruan zebiltzan, ilaran gertatutakoari adi, **txapadunen** etxola barnean gertatzen zena ahaztu gabe. Lander Garro

Pase, esan dizu beste **txapadun** batek. Eider Rodriguez

txapagain *iz* pilota jokoan, txaparen gainean jotzen duen pilota.

Ezker gantxoak, dejadak, **txapagainak**. Berria - Kirola

Sakea, **txapagaina**, ezker besagaina... lau koadro horien barruko bazter guztietara daki pilota bidaltzen, eta kontrarioa behartzen. Berria - Kirola

txapaka (*orobat txaplaka g.er.*) 1 *iz* eskuarekin emandako kolpetxo.

Baina ez ziren egokiak garrasi eta egon-hadi-bada haiek, pentsatzen zuen Andrewk labarretik jaisteko lekua bilatu bitartean, ezta bizkarreko **txapakak** eta berari "aspaldiko" deitzea ere; ez ziren batere egokiak. Anton Garikano

Agente espainiarrek bagoiko atean itxaron zion eta, igotzen lagundu ostean, **txapaka** jo zuen aleman hatsandituaren bizkar alimalekoan. Alberto Ladron Arana

Aurki nobelaren bat idazteko ere gauza izango haiz -esan zidan eskuarekin nire bizkarrean **txaplaka** jo eta barre eginez. Joxean Agirre

2 txapaka egin

Morori **txapaka egin** zion, eta astoa hinki-hankarik gabe abiatu zen basoan barruratzan zen bidezidorretik. Bernardo Atxaga

Josebak **txapaka egin** zion bizkarrean: "Nahi nuke nik, Maribel, zuk Toshiro zaintzen duzun bezala zainduko nindukeen ama bat". Bernardo Atxaga

Josu R, ardaile une hura aprobetxatuz, Manuelengana inguratu, eta **txapaka egin** zion sorbaldan. Pedro Alberdi

Eta, berehalaxe, bostekoa eman zidaten eta bizkarrean **txaplaka** egin, eta geltokiko buruak ezin izan ziren malkoei eutsi. Fernando Rey

-Eutsi... -esan dio Preteritok bizkarrean **txapaka egin** bitartean. Patxi Zubizarreta

Erretoreak **txapaka egin** zion masailan, ume bati bezala. Bernardo Atxaga

Cesarek **txapaka egin** zidan besoan, hizketarako aurrerabiderik eman gabe. Bernardo Atxaga

Sethek **txapaka egin** Maiteari hatzetan, eta Denverri begiratu zion. Anton Garikano

Lanazko manopla lodiak zituzten eta hala ere bi eskuekin gorputzean **txapaka egin** behar zuten pixka bat berotzeko. Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sorbaldan txapaka (3); **txapaka egin** (15); **txapaka egin zidan** (5); **txapaka egin zion** (7); **txapaka eginez** (3)

txapal 1 *iz* *adkor* zapala.

Sudur **txapal** hura ez zela ring baten gainean jasotako kolpe txar baten ondorioa. Inazio Mujika Iraola

Plaza Zaharretik irtanda, eskuinetara begiratu, eta sekulako batimendu dotorea topatu dut, **txapal** eta luzea, Igeldoko harri horiz eraikia. Txillardegi Iparraldera begiratzuz, Eugénie enperadoresak bere kuttuntzat zeukan "Villa Eugénie" jauregi **txapal** eta gorri-zuria ageri zen. Txillardegi Hirirako sargunean [...] arku **txapal** zabala gurutzatu dut. Txillardegi Kristalean laban egin, eta ziztuan desagertu da, harri **txapal** batek ur azalean egiten duen modura. Berria - Kultura Muino **txapal** eta elkor batean, dena haitzalde eta sasi ihar, amildegi koniko ziklopekara bat erroizten zen hondorantz, krater artifizial bat, laurehun metro zabal. Juan Garzia

2 txapal-txapal

Gorputza **txapal-txapal** eginda neukanean. Juan Garzia

Paretak asko esan nahi diola iruditzen zaio, eta betaurrekoak ia haren kontra dituela, begiak **txapal-txapal** eginik, ozta-ozta irakurtzen ditu: [...]. Iñaki Segurola

txapaldi

Inuzentekeriak iruditzen zitzaizkidan niri haren mintzagaiak, baina berak munduko gauzarik inportanteenak balira bezala jorratzen zituen, egun hartako **txapaldian** legez: [...].

Jon Arretxe

txapape

Eskuetan babesgarririk gabe jokatzen zuten, ez zegoen **txapapea**, ezker horma eta errebotea zikinduko zituen iragarki sailik, ezta Coca-cola eskainiko zien neskatzarik ere.

Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txapapera bidali (3)

txapapote 1

Bai, badakit **txapapotearena** zorigailza dela, baina azken finean diru asko sartuko da gurera, eta guztiz diru goxoa gainera. Hasier Etxeberria

2 irud/hed

Itsasoan agertu da orain, baina aspaldi ditugu bihotzak **txapapote** beltzez, galipotez estaliak. Joxerra Garzia

Horra bekatua, horra krimena... horra manipulazioaren **txapapotea** noraino iritsi litekeen. Joxerra Garzia

Txapapotea beti egon da zenbaiten bihotzetan, Patri, Prestige hondoratu baino askoz lehenagotik. Hasier Etxeberria

txapar 1

Burusoil **txapar** bat. Aingeru Epaltza

2 zapala.

Grattan zubia igarotzean, ibaian behera begiratu zuen, beheko ibaiertzetara, eta erruki izan zituen hango etxe **txapar** pobreak. Irene Aldasoro

• 3 iz abaritza.

"Garizumako "su handiaren egunean", leku askotan **txaparrak** ebaki, batez ere ipurua, eta arratsean su haundiak egiten dituzte muinoetan". Patziku Perurena

txaparrada

Berrikuntzak eta inizatiba esperantzatsuak, ordea, ezker abertzalearen eskutik espero dira hemendik aurrera, eta horretan asmatu behar du orain, kanpainan **txaparradari** eusten eta aurrera egiten ederto asmatu duen eran. Berria - Harian

txaparro

Gizon **txaparroa** zen, lodikotea, baxua, ez zidan inpresio ona egin. Mikel Hernandez Abaitua

Gizon **txaparroak** isilik segitu zuen, mugigaitz, itsasora begira marmarka. Migel Angel Mintegi

Kea baino zaharragoak ziren arrantzarako arrokek baldar itxura ematen zioten gizon **txaparroari**. Migel Angel Mintegi

Morroia **txaparroa** zen, atorra hutsik zebilen eta oso sendoa zen. Alberto Ladron Arana

Txaparroak begiratu iluna egin zion. Migel Angel Mintegi

Bigarren batxillerreko mukizu bat izan zen, patioko garaian beti kromoak trukatzen ibiltzen zen **txaparro** kaskagorri maritxu ospeko bat. Koldo Izagirre

txapati

Uharri biribil batean jarri eta eguzkiaren xera azalean nabaritzen dudala, **txapati** erreen usaina eta lanean diharduten baltiarren mintzaira konprenigaitza lagun ditudala.

Xabier Montoia

Gauden Paju hau, **txapatiak** labean egin daitezkeen azken tokia omen dugu, goitiago oxigeno ezak eragotziko ligue. Xabier Montoia

txapatu

Sozialen jolasordua zen, baina denak **txapatuak** zeuzkaten, atean jotzen zuten batzuek. Koldo Izagirre

Txapatuta egoteaz gain, ate joka jarduten genuen, ordu jakinetan, egunean zenbait aldiz. Jokin Urain

txapatxo

"Goldstein, irakaslea" zekarren **txapatxoa** ukitu zuen. Alberto Ladron Arana

W. P. Weber izena irakurri nuen, letoizko **txapatxo** batean irarrita. Alberto Ladron Arana

Oso zikoitza naiz halako kontuetan, eta banekien metalezko **txapatxo** horiek lortzen zailak zirela, gutxi egin baitzituzten. Iban Zaldúa

Minutu bakoitzeko bi kaloria jasoko eta bereganatuko lituzke zentimetro koadroko **txapatxoak**. Pello Zabala

txapel (*orobat txapela g.er.*) 1 izartilezko buru estalki biribila eta zapala, atal bakarrekoa, askotan beltza; bestelako buruko malgua. ik **bonet**.

Gas argiontzit batek [...] zapata baten iltzeak, blusa baten orban urdina, **txapel** baten punta argizatzen zituen. **Karlos Zabala**

Peterrek sonbreiru bat zuen eta nik **txapela**. **Josu Zabaleta**

Artzain horiek orratza eta haria ibiltzen zituzten **txapel** edo bonetaren azpilduran. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gela apain batean, sofa baten gainean zabalik, ofizial karlisten uniforme bat ikusi zuen, bere **txapel** eta ezpatarekin. **Koro Navarro**

Boluntario sartuko nauk itsas armadan eta borla gorriko **txapel** bat jantziko diat. **Lopez de Arana**

Beilari baten jantziak ditu, lenazko kapa luze marroi, **txapel**, maskor eta makila. **Michel Oronoz**

Hernanin baserritarrak, **txapela** buruan doaz denak feriara. **Koldo Izagirre**

Bai batak eta bai besteak euskal **txapela** jantzi omen zuten iritsi zirenean, eta alde egin arte ez zuten kendu nonbait. **Jokin Urain**

Txapela eta kaiku urdin-berde bat jantzita ibiltzen omen da beti kalean, eta kurdua, palestinarra edo, besterik gabe, pailazoa dela pentsatzen dute berarekin kalean gurutzatzen diren paristarrek. **Hasier Etxeberria**

Txapela jarrita ibiltzen zen Parte Zaharrean, soinua jo eta erdi eskean. **Koldo Izagirre**

Gehienek **txapela** daramate. **Iñigo Aranbarri**

Horrelakoetan, bihotz hartu, **txapela** burutik erantzi eta baimena eskatzen zaio zaindariari: [...]. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gizon bat horraino ailegatzen denean, **txapela** kendu behar da haren aurrean. **Monika Etxebarria**

Sekulakoa egin dute gaur, **txapela** kentzeko moduko partidua -esan nion nik-. **Patxi Iturritegi**

Txapela kentzeko modukoa! **Juan Luis Zabala**

Martin, handik gutxira, **txapela** gereziz beteta zekarrela itzuli zen. **Koro Navarro**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lan-jantzi hura soinean eta **txapel** handi hura buruan, fabrikara zihoan aitona bat ematen zuen obispoak. *ik beherago* 8. **Inazio Mujika Iraola**

"Euskal **txapela**" deritzogun **txapel** urdin iluna. **Urtzi Urrutikoetxea**

Aurrena zetorrenak erreketean **txapel** gorria janzten zuen. **Alberto Ladron Arana**

Paraxutisten **txapela** gorria daramana. **Xabier Montoia**

Don Carlosek, beriz, **txapel** gorria zeraman, eta Kapitain Jeneralaren uniformeak. **Txillardegi**

Ile motx-motxa eta **txapela** berdea okerretara etzana. **Unai Iturriaga**

Garaño bizkor baten gainean itziorik agertu duk orduan Karlos Setimo gazte-gaztea, **txapel** zuri zabala bere urrezko borlaz hornitua. **Txillardegi**

Hegal zabaleko **txapel** beltzeko "frantses eskualdunetz" osatua zen. **Txillardegi**

Osaba Lajosek zetazko **txapel** txiki, beltz eta biribila jantzi du buruan. **Urtzi Urrutikoetxea**

Bekokiraino labaintzen zitzaion **txapel** zabal harekin. **Urtzi Urrutikoetxea**

Benetako presoak, marradun jantziekien, kaskamotz, eta gaizkileen **txapel** biribilaz. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ifniko gerra zuen ia hizpide bakar, eta hango argazkietan agertzen zen mundua uniformeaz jantzita zegoen: **txapel** militarra, botak, fusila. **Anjel Lertxundi**

Lurretik ikusi zuen Beldarrain, **txapel** higatua buruan, panazko jaka urdin eta bonbatxo ohikoez jantzita. **Ramon Saizarbitoria**

Ofizial alemanen **txapel** jaso eta harrotuarekin. **Urtzi Urrutikoetxea**

Bururako itxura xelebrenko **txapel** astun samar bat aurkitu nuen, urtarorekin behintzat bat ez zetorrena, bisera gogorrekoa eta gainetik aldeak eta ertza zeharka zeuzkana. **Urtzi Urrutikoetxea**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etorri zen ba Don Kijote, bere **txapel** -aurrea gorantz. **Patxi Ezkiaga**

Onena **txapel** -zuloka egitea izango da. **Julen Gabiria**

Eskuineko eskua **txapela** hegaleraino altxatu eta irribarre bat eskaini zidan. **Iban Zaldúa**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkartetak izenondo balioa duela)

Txapel -handi haiek irribarrez aditzen zituzten nire predikuak. **Txillardegi**

Ahantzi egin behar dugu iraganeko eskarmentu guztia, ziegetan ikasitakoa, batzuen eta besteen komisarietan jasotakoa eta **txapel** -gorriak maitatzen hasi, geure anaia-arebak direlako. **Hasier Etxeberria**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaskoi-**txapel** handi bat zeraman, borla batez apaindua. **Koro Navarro**

Marinel-**txapela** zeukan gizon beltzaran bat. **Lopez de Arana**

Marra gorria praka zurien alboan, buruan artista-**txapel** beltz handia. **Urtzi Urrutikoetxea**

Preso-**txapel** higatu, bigun, marradun eta biribila. **Urtzi Urrutikoetxea**

Buru-**txapel** handi batekin sugea nahasi eta harrapatu egiten du. **Gotzon Garate**

6 irud/hed

Aterpe handia, oihal etxe bat edo, hobeki erraiteko teilatu plastiko bat, murruen **txapel** izurtua. **Piarres Aintziart**

Gero, atertu aurrena, zerua arindu, hego eta bertoko freskoaren arteko lainotzar batzuk mendi kaxkoetan **txapel**, eta, bien bitartean, goia garbiago. **Pello Zabala**

7 (lehiaketa batzuetako irabazlearen irudi gisa)

Aurretik hiru **txapel** irabazita, ez zenuen hasierako motibazio berbera ekarriko. **Berria - Kultura**

Mattin Lukuk jantzi du **txapela** eta xapeldun ordea Mikel Olaizola elgoibartarra izan da. **Berria**

Urte berean ere eskuratu **txapela** birazka edo bikotean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Euskal Herriko **txapela** lehendabizikoak lortu zuenetik, Egañak ez du sekula erretiratzea pentsatu. **Berria - Harian**

Mondragonesi irabazitako **txapel** hura 1948an galdu zuen, 44 urterekin, Migel Gallastegi eibarko pilotariaren faboretan. **Berria - Kirola**

Elortzari **txapela** kentzen, Estiballes, Lekue, Xabi Paia, Iturriaga, Igor Muniategi, Iratxe Ibarra eta Fredi Paia saiatuko dira. **Berria - Kultura**

Emakumezkoen Sei Nazioetakoan ere Ingalaterra eta Frantzia heldu dira azken partidara, **txapela** jokoan dutela. **Berria - Kirola**

Denboraldi bukaeran **txapelen** bat izango dugu eskuetan. **Berria - Kirola**

Nafarroako **txapel** nagusia bitan jantzi du. **Berria - Kirola**

Zortzi buru, **txapel** bakarra. **Berria - Kultura**

Mungian bi **txapel** banatu zituzten, baina gainerako finalistak ere ez dira geldituko saririk gabe. **Berria - Kultura**

Guztira bost **txapel** bereganatu dituzte ezpeletarrek: 600, 640, 680, 720 kilokoak eta pisu librekoa. **Berria - Kirola**

Larretxeak buruz buruko **txapel** bat irabazi nahi du. **Berria - Kirola**

Maila pertsonalean, **txapel** goserik gabe aritu zela aitortu du. **Berria - Kultura**

Bere burua ere animatzen zuen garaipenaren **txapela** lortzera, bertutearen gorenko mailara iritsiz. **Askoren artean**

Beti Gaztek iazko bi **txapelei** eutsi egin die. **Berria - Kirola**

8 txapel-handi (orobat txapelandi) izond/iz txapel handia daramana.

-Agertu! -aldarri egin nuen, edozein sarjentu **txapelandiren** modura. **Edortia Jimenez**

Esku txikiko **txapel-handia**. Txikiak eta hauskorrek zituen eskuak Azkoitiko **txapel-handiak**, eta hilabeteko partida bat baino ezin zuen jokatu. **Berria - Kirola**

Txapel-handi haiek irribarrez zuten aire predikua; eta zenbait aldiz zantarkeria eta birao ozenez erantzuten.

Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bere txapel (5); beste txapel bat (9); bi txapel irabazi (5); lehen txapel (4); txapel bat irabazteko (4); txapel beltza (4); txapel gorri (4); txapel gorria (11); txapel gorriak (5); txapel handi (6); txapel handia (4); txapel irabazi (19); txapel irabazi ditu (11); txapel jantzi (8); txapel jantzi ditu (4); txapel lortu (4); txapel nagusia (7); txapel txiki (4); txapel urdin (4)

azken txapela (7); banakako txapela (5); bere txapela (5); bigarren txapela (15); binakako txapela (10); buruan txapela (6); buruko txapela (12); buruz buruko txapela (12) erabakiko da txapela (4); eraman zuen txapela (6); euroligako txapela (4); euskadiko txapela (8); euskal herriko txapela (5); euskal txapela (4); gipuzkoako txapela (4); hirugarren txapela (16)

iaz txapela (4); irabazi zuen txapela (6); izan du txapela (4); jantzi du txapela (10); jantzi dute txapela (4); jantzi zuen txapela (27); jantzi zuten txapela (6); kiloko txapela (8); laugarren txapela (6); lehen txapela (32); lehen txapela jantzi (4); lehen txapela lortu (5); lehenengo txapela (5); ligako txapela (5); lortu zuen txapela (5); maila nagusiko txapela (5); mailako txapela (18); mailako txapela jantzi (6); manomanistako txapela (4); nafarroako txapela (4)

seigarren txapela (6)

txapela bat (13); txapela bigarrenez (4); txapela buruan (23); txapela burutik (4)

txapela erabakitze (4); txapela erantzi (6); txapela eskuan (4); txapela eskura (6); txapela etxera (4)

txapela irabazi (30); txapela irabazi zuen (5); txapela irabazita (4); txapela irabaztea (7); txapela irabazteko (36); txapela irabazten (6); txapela jantzi (83); txapela jantzi zuen (41); txapela jantziko (5); txapela jantzita (4); txapela jantzea (14); txapela jantzeko (58); txapela jantzeko aukera (6); txapela jantzeko hautagai (5); txapela jokoa (12); txapela kendu (10); txapela kentzeko (24); txapela kentzeko moduko (7); txapela kentzeko modukoa (10); txapela kentzekoa (4); txapela kentzen (4); txapela lortu (21); txapela lortu zuen (6); txapela lortzea (4); txapela lortzeko (26)

zortzigarren txapela (6)

bi txapelak (10); irabazitako txapelak (4); maila nagusiko txapelak (4); txapelak irabazi (4); txapelak jantzi (9); txapelak lortzeko (5)

txapelaren bila (13)

iazko txapelari (4); txapelari eusteko (27); txapelari eusteko erronka (6)

txapelaz jabetzeko (4)

aurtengo xapela (4); bere xapela (3); bigarren xapela (4); ereman dute xapela (3); ereman xapela (3); euskal herriko xapela (3); frantziako xapela (6); hirugarren xapela (3)

xapela beretu (4); xapela bildurik (3); xapela buruan (5); xapela ereman (5); xapela irabazi (5); xapela irabazi dute (3)

txapela ik **txapel**.

txapeladun ik **txapedun**.

txapelandi ik **txapel 8**.

txapelarri iz murru edo zutabeen gainaldeko harri zabala. ik **kapitel**.

Eliza erromanikoaren **txapelarriak**. **Piarres Aintziart**

Denbora hartako bastizarenak direa aitzineko bi pilareak beren **txapelarri** zizelkatuekin? **Michel Oronoz**

Nola ez aipa arku biribil perfektuak, **txapelarrien** motiboak eta kanpotik hirurehun eta hamabost gorbela prosesionean heldu direnak, teilatu azpiaren itzulia eginez? **Piarres Aintziart**

Santiago elizaren **txapelarrian** dagoen ezin deskribitzeko Kristo Pantocrator mirengarri honen eta Amiens hiriko katedralako "Jainko ederra"-ren irudiek, artearen haraindiko oinarri goxo zerbait menturaz badaukate. **Piarres Aintziart**

txapelatu, txapela(tu), txapelatzen da/du *ad* gainaldean txapel gisa izan.

Mahats ondo lodi, beltz eta bihurdikatuak, hostoila berdeak **txapelaturik**. **Piarres Aintziart**

Beste herri batetik ateratzean, erle kofoina nuen aitzinean, lastoz **txapelatua**. **Piarres Aintziart**

Leongo mendiak, Astorga eta Ponferrada artean, joan den urteko abuztuan iraganak eta gaur elurrez **txapelatuak** ikusten ditudanak. **Piarres Aintziart**

txapedun (*orobat txapeladun eta xapedun*) 1 iz txapelketa bat irabazi duen pertsona.

-Arku-tiroko **txapeduna**. **Joxan Elozegi**

Manu Kid Sanchez, pisu astunetako **txapeduna**. **Josu Landa**

Hiru aldiz **txapedun** birazka plaza guzian, hiru aldiz **txapedun** buruz buruka plaza guzian. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Eskuz binakako **txapeduna** (2002). **Beria - Kirola**

Zeberio II.a-Auzmendi **txapedunak** oso indartsu Galarretan. **Beria - Kirola**

Fernando Arretxe izan da zazpi aldiz **txapedun** eta bost aldiz **txapedun** orde. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

-Ai, urrezko gol hura, 1981eko apirilaren 26an errealezaleok **txapedun** egin gintuena...! **Joan Mari Irigoien**

Marrazketan eta Eskulan Teknikoetan, ordea, **txapedun** nintzen. **Jesus Mari Mendizabal**

Nere oilarra **txapeduna** baldin bada, asko irabaz dezaket! **Ramuntxo Etxeberri**

Arku-tiroko **txapeduna**. **Joxan Elozegi**

Frantziako **txapedun** atera dira Hendaiaiko talde bera garaituz 30 eta 18. **Herría**

Beraz, Harry Harrison, ordenaren defendatzaile porrokatua, bakearen **txapeduna**, gizartea zafrazten zuen terrorismoaren aurkako borrokalari, traidorea zen. **Jon Alonso**

Txapedunen Ligako txarteltxoak balitz legez. **Beria - Ekonomia**

Txapedunen Ligako **txapedunak**. **Beria - Ekonomia**

2 (izenondo gisa)

Pilotari **txapedunak** ohoratuak Aurten kirol erakasleek eta ikasleek nahi ukan dituzte ohoratu kanboar errugbilari **txapedunak**. **Herría**

Haur **txapedun** hartatik zer aldatu da zuregan? **Beria - Kultura**

Gau hartan [...] entrenatzaile **txapedunaren** begirada betikoa zen, serioa, baina beste ñabardura batekin. **Beria - Kirola**

Eragingarritasuna da zailena futboleant, talde **txapedunen** eta apalagoen artean aldea egiten duena. **Beria - Kirola**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Historian zehar izan diren **txapedun** handiez lezioak ematen nizkion. **Pello Lizarralde**

Pilotaleku mitikoaren mendeurren jaialdian eta **txapedun** zahar ugariren begiradapean. **Beria - Kirola**

Aire librean, behin olinpiar **txapeldun** eta bitan munduko **txapeldun** 10.000 metrokoan. **Berria - Kirola**

Coppik baldekada guztiak saihestu eta helmugara iritsi zen munduko **txapeldun** garaiezin gisa. **Pello Lizarralde**

Munduko erlojupeko **txapelduna** . **Berria - Kirola**

Europako egungo **txapelduna** da Celje. **Berria - Kirola**

Eguno **txapelduna** da gaur faborito nagusia. **Berria - Kirola**

Gasteizko Badaiotz izan zen 480ko iazko **txapelduna** , eta baita aurtengo 520koa ere. **Berria - Kirola**

Joseba Auzmendi binakako **txapelduna** izan zen iaz Patxi Zeberierekin. **Txapeldun** federalak sorbaldak jaso zituen, iritxo batez. **Berria - Kirola**

Oillarretan munduko **txapeldun** gertatu eta gero, eskuak bete konbate zeuzkan. **Pablo Sastre**

Hiru urte buruz buruko partidarik irabazi gabe egitea ez da batere gozoa **txapeldun** ohi batentzat. **Berria - Kirola**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Koirio hau Buenos Airesko *Luna Park*en Joe Pandari **txapeldun** gerrikoa kendu ziona duk, ezta? **Harkaitz Cano**

Besterik ez bada, neuk eroango haut herrian zehar **txapeldun** loriak jantzita. **Josu Landa**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dilermando de Assisek, tiro- **txapeldun** nazionala zenak, bala bat sartu zion bularrean. **Karlos Zabala**

Billbotarra Espainiako kros **txapelduna** da. **Berria - Kirola**

Nik diotsot behin munduko futbol- **txapelduna** izan zela, eta taldearen elastikoa zuri-gorria dela. **Edorta Jimenez**

Munduko eski **txapelduna** . **Berria - Kirola**

1930ekoetan polo **txapeldun** ospetsua izan zen. **Edorta Jimenez**

Xake- **txapeldunek** ordenagailuaren kontra egiten zituzten borrokaldi heroikoen bertsio light moduko bat. **Jon Muñoz**

6 irud/hed

Gezurrietan **txapelduna** zara, Harry. **Oskar Arana**

Mosku Irratiak, aldiz, matxino hutsak ginela zioen, Saddam Hussein-en kontra, "sozialismoaren **txapeldunaren"** kontra. **Juan Kruz Igerabide**

Ai zuek, ardoa edaten nagusi, edariak nahasten **txapeldun** zaretenok. **Elizen arteko biblia**

7 (adizlagun gisa)

Eeremu handiko bozetan alferrik da Washingtonera **txapeldun** iristen saiatzea. **Berria - Mundua**

• 8 izond/iz txapela daramana.

Han ari ziren Fructuoso eta inondik ezagutzen ez genuen gizon **txapeldun** bat liskar batean garrasika. **Inazio Mujika Iraola**

Ganadua ferian saltzera doan anitz nekazari **txapeldun** . **Koldo Izagirre**

Txapeldunak keinu egin zien bere atzeko **txapeldun** armatuei, eta atxilo hartzeko agindu. **Inazio Mujika Iraola**

Txapeldun baserritar edo artzainen bat. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

atera da txapeldun (4); beste txapeldun bat (6); bigarren mailako txapeldun (6); binakako txapeldun (6); bizkaiko txapeldun (4); buruz buruko txapeldun (10)

egungo txapeldun (5); espainiako txapeldun (12); espainiako txapeldun izan (5); europako txapeldun (21); euskadiko txapeldun (6); euskal herriko txapeldun (4); frantziako txapeldun (7); gipuzkoako txapeldun (4); hirutan munduko txapeldun (4)

iazko txapeldun (17); irekiko txapeldun (4); irujo txapeldun (5); izan zen txapeldun (6); kopako txapeldun (4); ligako txapeldun (6); mailako txapeldun (9); mailako txapeldun izan (4); munduko txapeldun (100); munduko txapeldun izan (20); munduko txapeldun izandako (6); munduko txapeldun izandakoa (6); nafarroako txapeldun (7); nbako txapeldun (4)

olinpiar txapeldun (6); torneoako txapeldun (8)

txapeldun atera (10); txapeldun atera dira (4); txapeldun berria (15); txapeldun berria izango (5); txapeldun berriak (8); txapeldun egin (6); txapeldun geratu (4); txapeldun gisa (5); txapeldun handi (4); txapeldun handia (10)

txapeldun izan (81); txapeldun izan ostean (5); txapeldun izan zen (30); txapeldun izandako (10); txapeldun izandakoa (10); txapeldun izandakoak (5); txapeldun izango (6); txapeldun izatea (10); txapeldun izateko (26); txapeldun ohi (8); txapeldun ohia (20); txapeldun ohiak (25)

aurtengo txapelduna (4); azken txapelduna (8); banakako txapelduna (7); bizkaiko txapelduna (7); buruz buruko txapelduna (13)

egungo txapelduna (31); egungo txapelduna da (10); eskuz banakako txapelduna (5); europako txapelduna da (4); euskadiko txapelduna (9); euskal herriko txapelduna (14); ezkurra txapelduna (5); frantziako txapelduna (6); heineken kopako txapelduna (4)

iazko txapelduna (36); iazko txapelduna da (4); irujo txapelduna (8); jarduneko txapelduna (5); kopako txapelduna (10); kros txapelduna (6); ligako txapelduna (10); mailako txapelduna (9); martinez irujo txapelduna (4); munduko txapelduna (91); munduko txapelduna da (9); nafarroako txapelduna (6); olinpiar txapelduna (19); patxi ruiz txapelduna (4); talde txapelduna (4)

txapelduna ariko da (4); txapelduna eta txapeldunordea (7); txapelduna hartuko du (5); txapelduna izan (41); txapelduna izan zen (19); txapelduna izango (14); txapelduna izango da (5); txapelduna nor den (4); txapelduna tau baskonia (4)

urteko txapelduna (4)

aurtengo txapeldunak (6); azken bi txapeldunak (4); azken txapeldunak (4); banakako txapeldunak (4); bi txapeldunak (7); binakako txapeldunak (18); buruz buruko txapeldunak (12); egungo txapeldunak (9); eskuz binakako txapeldunak (6); espainiako txapeldunak (4); europako txapeldunak (8); ezkurra txapeldunak (4); gipuzkoako txapeldunak (4); iazko txapeldunak (22); iberoko txapeldunak (4); izan ziren txapeldunak (4); ligako txapeldunak (7); mailako txapeldunak (6); munduko txapeldunak (30); patxi ruiz txapeldunak (4); txapeldunak dira (7); txapeldunak elkarrekin arituko (4); txapeldunak izan (5)

iazko txapeldunaren (7); munduko txapeldunaren (11); txapeldunaren aurka (20); txapeldunaren aurka jokatu (4); txapeldunaren kontra (12); valentzia txapeldunaren (4)

bi txapeldunek (5); binakako txapeldunek (10); iazko txapeldunek (6); munduko txapeldunek (5); txapeldunek irabazi (5)

zazpi txapelduneko batez (4)

aizkora txapeldunen (4); aldiz txapeldunen (6); aldiz txapeldunen ligako (4); asteartean txapeldunen (5); aurka txapeldunen (5); aurkako txapeldunen (4); aurkako txapeldunen ligako (4); aurtengo txapeldunen (5); baina txapeldunen (13); baina txapeldunen ligan (4); baita txapeldunen (5); bartzelonak txapeldunen (4); bat txapeldunen (6); da txapeldunen (30); da txapeldunen liga (6); da txapeldunen ligako (13); da txapeldunen ligan (5); datorren denboraldian txapeldunen (5); datorren urtean txapeldunen (5); denboraldian txapeldunen (13); denboraldian txapeldunen liga (7); dira txapeldunen (13); dira txapeldunen ligako (6); donostia txapeldunen (9); donostia txapeldunen ligako (5); du txapeldunen (24); du txapeldunen liga (6); du txapeldunen ligako (12); dute txapeldunen (7); dute txapeldunen ligako (4)

edo txapeldunen (6); ere txapeldunen (7); eskubaloia txapeldunen (6); eskubaloia txapeldunen ligako (4); eta txapeldunen (84); eta txapeldunen liga (25); eta txapeldunen ligako (20); eta txapeldunen ligan (19); eta txapeldunen ligarako (9); eta txapeldunen ligatik (4); ez da txapeldunen (4); futbola txapeldunen (4); honetan txapeldunen (6)

ea txapeldunen (7); iaz txapeldunen (4); iazko txapeldunen (5); iruñ jokatu (4); kontrako txapeldunen (4); kontrako txapeldunen ligako (4); lehen aldiz txapeldunen (6)

txapeldunen arteko (7); txapeldunen kontra (5)

txapeldunen liga (236); txapeldunen liga irabazi (15); txapeldunen liga irabazteko (7); txapeldunen liga irabazten (4); txapeldunen liga jokatu (16); txapeldunen liga jokatu (4); txapeldunen liga jokatzea (9); txapeldunen liga jokatzeko (26); txapeldunen liga jokutzen (5); txapeldunen ligak (17); txapeldunen ligako (355); txapeldunen ligako bigarren (9); txapeldunen ligako final (75); txapeldunen ligako finala (32); txapeldunen ligako finalean (18); txapeldunen ligako finaleko (7); txapeldunen ligako finalerako (4); txapeldunen ligako finalerdiak (4); txapeldunen ligako finalerdiak (4); txapeldunen ligako finalerdiak (11); txapeldunen ligako finalerdietara (7); txapeldunen ligako joaneko (5); txapeldunen ligako kanporaketa (4); txapeldunen ligako ligaxkako (4); txapeldunen ligako ligaxkan (5); txapeldunen ligako partida (11); txapeldunen ligako partidak (4); txapeldunen ligako postuetan (10); txapeldunen ligakoa (5); txapeldunen ligan (184); txapeldunen ligan jokatu (4); txapeldunen ligara (17); txapeldunen ligarako (92); txapeldunen ligarako postuetan (7); txapeldunen ligarako sailkapena (9); txapeldunen ligarako sailkatu (9); txapeldunen ligarako sailkatzea (9); txapeldunen ligarako sailkatzeko (8); txapeldunen ligarako txartela (24); txapeldunen ligarekin (5); txapeldunen ligaren (15); txapeldunen ligari (16); txapeldunen ligatik (33); txapeldunen ligatik at (11); txapeldunen ligatik kanpo (10)

akitaniako xapeldun (7); aldiz xapeldun (6); atera da xapeldun (6); aurtengo xapeldun (3); beloki xapeldun (3); berriz ere xapeldun (5); bietan xapeldun (3); espainiako xapeldun (6); europako xapeldun (10); euskal herriko xapeldun (12); euskal ligako xapeldun (4); frantziako xapeldun (37); frantziako xapeldun atera (4); frantziako xapeldun ditugu (4); gure xapeldun (3); herriko xapeldun (13); ligako xapeldun (8); miarritze xapeldun (3); munduko xapeldun (27); munduko xapeldun ateratu (3); munduko xapeldun bilakatu (3); nafarroako xapeldun (3); trinketeko xapeldun (3)

xapeldun atera (41); xapeldun atera dira (13); xapeldun aterako (3); xapeldun ateratu (9); xapeldun berria (5); xapeldun berriak (7); xapeldun bilakatu (6); xapeldun bilakatu da (5); xapeldun da (6); xapeldun dira (9); xapeldun direla (4); xapeldun diren (4); xapeldun ditugu (12); xapeldun eder (7); xapeldun gai (3); xapeldun haundi (3); xapeldun izaiteko (3); xapeldun izan (8); xapeldun izana (8); xapeldun izanen (4); xapeldun izanik (3); xapeldun ohia (7); xapeldun ohiak (8); xapeldun

orde (12); **xapeldun orde** (6)
aurtengo xapelduna (5); **euskal herriko xapelduna** (6); **jazko xapelduna** (6); **munduko xapelduna** (5)
aurtengo xapeldunak (14); **frantziako xapeldunak** (3); **jazko xapeldunak** (10); **ligako xapeldunak** (5); **munduko xapeldunak** (4); **urteko xapeldunak** (5); **xapeldunak garaitu** (3)
jazko xapeldunaren (3); **xapeldunaren kontra** (5)
jazko xapeldunek (5)
europako xapeldunen (3); **jazko xapeldunen** (3); **xapeldunen artean** (3); **xapeldunen kontra** (4)

txapeldungai *iz* txapeldun izan daitekeena.

Nirekin ez, hura txapelduna baitzen, eta ni **txapeldungai** besterik ez, gaitasun ugari banuen ere, hori bai. **Karlos Zabala**
Nesken 520koak badu **txapeldungai** ahalmentsu bat: Gasteizko Badaiotz. **Berria - Kirola**

txapeldunorde *(orobat txapeldun orde g.er. eta xapeldunorde g.er.) 1 iz* txapelketa batean bigarren gertatzen dena.

Txapeldunen Ligako **txapeldunorde** izan da. **Berria - Kirola**
Europako **txapeldunorde** gara, eta horrek badu garrantzirik. **Berria - Kirola**
Europako **txapeldunordea** munduko **txapeldunordearen** aurka. **Berria - Kirola**
Hondarrerako, ez zen zalantza handirik lehen bi postuetan: Silveira txapeldun, eta Arozena **txapeldunorde**. **Berria - Kultura**
Aiako gazteak (19 urte) 5.000 kilo leporatu zituen, Unai Aresti **txapeldunordeak** baino 400 kilo gehiago. **Berria - Kirola**
2001. urteko Txapelketa Nagusiko txapelduna (Andoni Egaña) eta **txapeldunordea** (Maialen Lujanbio) zuzenean igaroko dira finalera. **Berria - Harian**
Arretxe (107,5 p.): Nafarroako Irekiko txapeldun, eta **txapeldunorde** Errioxakoan. **Berria - Kirola**
Euskadi **txapeldunorde** Espainiako Autonomien Txapelketan. **Berria - Kirola**
Eskuz banakako 2. mailako **txapeldunordea** (2001). **Berria - Kirola**
Gauza izan ziren **txapeldunordeak** estu hartzeko. **Berria - Kirola**
Abel Barriola aise gailendu zitzaion iazko **txapeldunordeari**. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan)

Hirugarrenez lortu du **txapeldunorde** titulua. **Berria - Kirola**

3 (izenondo gisa)

Talde txapeldunak 1.260 euro eskuratuko ditu eta **txapeldunordeak** 900. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
europako txapeldunorde (4); **munduko txapeldunorde** (4); **reala txapeldunorde** (4); **txapeldunorde geratu** (4); **txapeldunorde izan** (33); **txapeldunorde izan zen** (22); **txapeldunorde izatea** (5); **txapeldunorde izateko** (6)
eskuz binakako txapeldunordea (7); **europako txapeldunordea** (4); **iazko txapeldunordea** (7); **izan zen txapeldunordea** (6); **munduko txapeldunordea** (6); **txapelduna eta txapeldunordea** (7); **txapeldunordea izan** (16); **txapeldunordea izan zen** (10)
binakako txapeldunordea (8); **eskuz binakako txapeldunordea** (7); **eta txapeldunordea** (14); **europako txapeldunordea** (4); **iazko txapeldunordea** (7); **izan zen txapeldunordea** (6); **munduko txapeldunordea** (6); **txapelduna eta txapeldunordea** (7); **txapeldunordea da** (12); **txapeldunordea eta** (7); **txapeldunordea izan** (16); **txapeldunordea izan zen** (10)
txapeldunordearen aurka (8)

txapeldunordetza *iz* txapeldunordearen kategoria.

Txapeldunordetza lortu zuen jokaturako hiru txapelketetan, Bizkaikoan, Euskal Herrikoan eta Espainiakoan. **Berria - Kirola**

txapelduntxo *iz adkor*

-Bistan zegok, **txapelduntxo**, inork ere ez zuela zentimorik ere dortoka penagarri haren alde jokatzeko, motelegia zelako... **Jesus Mari Mendizabal**

txapelgile *iz* txapelak egiten dituena.

Txapelgile baten gaiztakeria. **Xabier Olarra**

txapelgo *(orobat xapelgo) 1 iz ipar* txapelketa. ik **xapeldungo**.

Txapelgo bat, ikus zazu, hamar hamabost mila pertsona biltzeko bertsutan, **txapelgo** batentzat. **Menane Oxandabaratz**

Pilotan, Euskal Herriko **xapelgoko** emaitzak esku huska: [...]. **Herria**

Eta **xapelgo** nagusia badoa bestalde aintzina beretik. **Herria**

Hegoaldetik ere badauzkagu ondorio batzu, lauterdiko **xapelgoko** eta beste. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Demo kide batek10925 euroko isunaren pagatzeko manua eskuratu du, SNCFaren fagoretara, tren bide gainean 2003ko azaroan egin mus **txapelgoaren** gatik. **Herria**

Frantziako Bakarleri **Txapelgoa**. **Herria**

18.30 etan, fandango **xapelgoa**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
amaturren xapelgo (3); **aurtengo xapelgo** (3); **basque mus xapelgo** (3); **basque xapelgo** (6); **basque xapelgo handian** (3); **bertsulari xapelgo** (4); **bertsularien xapelgo** (10); **bertsularien xapelgo nagusiaren** (7); **europako xapelgo** (4); **europako xapelgo nagusiko** (3); **munduko xapelgo** (5); **mus xapelgo** (18)
mus xapelgo bat (4); **mus xapelgo handian** (4); **museko xapelgo** (9); **museko xapelgo nagusiaren** (5); **plazako xapelgo** (3); **union basque xapelgo** (6); **xapelgo ederra** (3); **xapelgo handi** (4); **xapelgo handia** (7); **xapelgo handian** (10); **xapelgo haundian** (5); **xapelgo nagusia** (7); **xapelgo nagusian** (18); **xapelgo nagusiaren** (23); **xapelgo nagusiaren kondu** (9); **xapelgo nagusiaren konduko** (5); **xapelgo nagusiko** (14); **xapelgo partida** (3)
aurtengo xapelgoa (3); **berezkoen xapelgoa** (3); **birazkako xapelgoa** (4); **birla xapelgoa** (4); **boneta botatze xapelgoa** (3); **buruz buruka xapelgoa** (3); **eki xapelgoa** (3); **fandango xapelgoa** (3); **frantziako xapelgoa** (11); **frantziako xapelgoa jokaturako** (3); **liga xapelgoa** (5); **munduko mus xapelgoa** (4); **munduko xapelgoa** (16); **mus xapelgoa** (15); **museko xapelgoa** (5)
pilota xapelgoa (3); **xapelgoa bururatu** (4); **xapelgoa egin** (3); **xapelgoa hasiko da** (3); **xapelgoa irabazi** (3); **xapelgoa jokaturako** (6)
amaturren xapelgoak (13); **berezkoen xapelgoak** (6); **munduko xapelgoak** (15); **plaza laxoko xapelgoak** (5); **plazako xapelgoak** (7); **trinketeko xapelgoak** (12)
xapelgoak hasi (3)
beren xapelgoan (5); **bigarren mailako xapelgoan** (4); **buruz buruka xapelgoan** (3); **euskal herriko xapelgoan** (7); **frantziako xapelgoan** (20); **lauterdiko xapelgoan** (4); **liga**

xapelgoan (3); **ligako xapelgoan** (4); **munduko xapelgoan** (6); **mus xapelgoan** (4); **union basque xapelgoan** (10)
akitaniako xapelgoaren kondu (3); **aurtengo xapelgoaren** (3); **bertsulari xapelgoaren finala** (3); **europako xapelgoaren** (3); **euskal herriko xapelgoaren** (3); **frantziako xapelgoaren** (14); **frantziako xapelgoaren finala** (4); **frantziako xapelgoaren finalerdia** (3); **munduko xapelgoaren** (3); **mus xapelgoaren** (3); **union basque xapelgoaren** (6)
xapelgoaren finala (9); **xapelgoaren finalak** (7); **xapelgoaren jokatzeko** (3); **xapelgoaren kondu** (11)
frantziako xapelgoari buruz (3)
munduko xapelgoen kariatarat (3)
beren xapelgoko (3); **frantziako xapelgoko** (6); **xapelgoko finala** (6); **xapelgoko finalak** (3); **xapelgoko lehen partida** (3); **xapelgoko partida** (7); **xapelgoko partidak** (3)

txapelgorri 1 iz adkor gudari karlista.

Kolorea beti izan da identifikatibo erraza lehenago ere: **txapelgorriak** ziren karlistak, beltzak liberalak. **Iñigo Aranbarri**
Euskaldun gazteriak nasaiki isuri baitzuen odola Frantziako Iraultzaren edo Napoleonen aldeko ala aurkako batailetan, Espainiako Txapeltxuri eta **Txapelgorrien** Karlistaldietan. **Piarres Xarriton**
-Hasieratik hasita -esan du- hementxe daukazu uniformeak: txamar lodia, galtzak, txapel gorria (bere borla eta guzti, jakina: gu ez gaituk **"Txapelgorriak"**!), bota pare bat ere bai, apreta pare. **Txillardegia**
Amorratio etsiaren uanean, **txapelgorriak** eta mikeleteak madarikatu nituen. **Txillardegia**

2 adkor erreketea.

Heldu aurretik, Marriotek azaldu zion uztailaren hemeretziaren Castillo plaza eta Sarasate ibilbidea hartu zituztela bost mila **txapelgorrik** odolik isuri gabe. **Lutxo Egia**
Aurre egin behar zitzaizela **txapelgorriei**, nola edo hala. **Inazio Mujika Iraola**

3 (izenondo gisa)

Bestela, abertzale jeko horiengana edo karlista **txapelgorriengana** inguratuko dituk eta! **Inazio Mujika Iraola**

4 ertzaina.

Badoa Saizarbitoriaren alaba Donostiako eskolarekin Bilbora, galdu egiten da eta ertzain bati itauntzen dio: "Mesedez, non dago Arte Ederretako Museoa?" **Txapelgorriak**: "Chavala, no me vaciles". **Markos Zapiain**

txapelgorridun iz txapelgorria.

Ez zuen akordu txarrik Arangurenekin, Marriotekin, Ezkurrarekin, Gorritirekin Pamplonan emandako egunez, **txapelgorridun** larderia demasekoa gorroto bazuen ere. **Lutxo Egia**

txapelketa (orobat xapelketa g.er.) 1 iz txapela irabazten den norgehiagoka.

1970eko iraileko bigarren igandean, 13an, ospatu zen Donostian "Trikitilarien I **txapelketa"**. **Iñigo Aranbarri**
Txapelketa "concurso popular" bezala aurkezten baldin bazen ere, kontuan hartzekoa da soinu handia estimatzen zela gehienbat orduan. **Koldo Izagirre**
Txapelketa hartan launa pieza jo zituzten bi bikoteek: fandangoa, arin-arina, trikitixa eta porrusalda. **Xabier Etxabe**
Euskal Bixkotx hobereenaren **txapelketa**. **Herria**
Euskal Herriko Bertsuzale elkarteak ezagutzerat eman du aurtengo **txapelketa** hunen berri. **Herria**
1980ko **txapelketako** azken saioan, hamazortzi urte lehenago Uztapideri jarri ziotenaren pare-pareko gaia jarri zioten Amurizari: "aita". **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Egia da Amurizaren 1980ko **txapelketa** hari zor diodala bertsolari izatea. **Andoni Egaña**
Neronek aditua Euskal Herriko **txapelketa** batean, kartzelako gaitzat. **Patziku Perurena**
Nik uste, **txapelketak** ere jolas modura hartzea dela naturala. **Andoni Egaña**
Ez dago ikusi besterik zenbat bertsolari gazte eta sasoiko aritzen diren elkartearen ohiko lanetan nahiz **txapelketa**, batzar eta bestelako antolamenduan. **Andoni Egaña**
Horregatik esan izan dut inoiz, **txapelketa** kirol-irizpideetatik presta daitekeela, baina epaitu, aztertu eta gozatu, kultur irizpideen arabera egin behar dela. **Andoni Egaña**
Orain dela hogeitatu urte trikitilari beteranoen **txapelketa** egin zen Zinema Pilotalekuan. **Xabier Etxabe**
Musean hainbat **txapelketa** irabazi dituela aitortu du. **Berria - Euskal Herria**
Urte hartan, **txapelketa** jokatzeko hamabost egun falta zirela, Nafarroako herri txiki batera erretiratu zen, eliteko beste kirolarien antzera, kontzentratzeko edo. **Joxerra Garzia**
Egia aitortzera, **txapelketak** prestatzea gustatzen zait niri, jokatzera baino gehiago. **Andoni Egaña**
Liburu proiektu bi eta kirol **txapelketa** bat antolatu dituztela azaldu zuten. **Berria - Euskal Herria**
Kalitate handiko **txapelketa** antolatzen ahalko da Iparraldean. **Berria - Kultura**
1993ko **txapelketetan**, zazpi puntukoa izan zen bertso molde erabiliena. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Erromeriaren kontakizuna izango da **txapelketara** bidailiko ditudanetako bat. **Xabier Etxabe**
Partida hau galtzen badugu, **txapelketatik** kanpo geratuko gara. **Iñaki Mendiguren**
TF1 kateak zuen Frantzia munduko **txapelketako** partidak emateko eskusiba. **Iñaki Heras**

2 irud/hed

-Herfy eta Kid euli pisuko **txapelketa** lortzeko lehiari arituko dituk. **Lopez de Arana**
1 Formulako **txapelketa** bateko irteeran baleude bezala. **Paddy Rekalde**
Urtainek Europako **txapelketa** irabazi zuen. **Joxerra Garzia**
Musaren psikologia guzia ikasi zuen eta mus **txapelketa** batean irabazteko gai bihurtu. **Eneko Bidegain**
Bere taldeak cricket **txapelketa** bat galdu zuelako. **Ramon Saizarbitoria**
-Ziur esaten dizut, aurtengo irabaziko dugu quidditch-**txapelketa** -esan zion Fredrek-. **Iñaki Mendiguren**
Komunitateko Diru-Kutxa Batzordeko kide garrantzitsua zen, eta berak gertatu eta antolatzen zuen urteroko Bridge **Txapelketa**. **Mirentxu Larrañaiga**
Igerilekuko **txapelketa** batean bigarren saria irabazi zuenetik, *sporting girl* itxura egiten zuen. **Anton Garikano**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Txapelketa handia da Euskal Herrikoa. **Berria - Kultura**
Euskadiko kirol selekzioek nazioarteko **txapelketa** ofizialekin parte hartu ahal izateko beharrezko diren lege aldaketak egitea defendatuko dugu. **Berria - Euskal Herria**
Txapelketa Nagusien finalak Belodromoan jende samalda handia biltzen hasi ziren. **Andoni Egaña**
2001eko Bertsolari **txapelketa** Nagusiko bertsolari parte hartzaileak eta bertso-eskolarekiko harremana. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Sariketa eta txapelketa hauek haur mailan, gazte mailan, bailaraka nahiz herrialdeka jokatzeko dira eta lau urtez behin antolatzen den bertso lehiaketa gorena da denen gailurra, Euskal Herriko **Txapelketa** Nagusia. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Mus **txapelketa** nazionalaren finala. **Berria - Euskal Herria**
Demoek burdinbide gainean antolatu zuten mus **txapelketa** berezia. **Berria - Euskal Herria**
Txapelketa bikaina izaten ari da aurtengoa. **Berria - Harian**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Frantziako eta Italiako birak irabazi zituen, biak urte berean, eta itzuli handi horiekin batera bere aurrean jartzen zitzaizkion **txapelketa** mota guztiak, garrantzizkoak izan nahiz ez. **Pello Salaburu**

1987. urtean finkatu zuten egungo **txapelketa** eredia Espainian. **Berria** - **Kirola**

Rockeko izarrik distiratsuenaren emanaldira baino jende gehiago dator gaur trikitilarien **txapelketa** finalera. **Pako Aristi**

Hedabideek harrotzen dituzten hautsak erabat desbideratuak iruditzen zaizkit **txapelketa**-sasoian. **Andoni Egaña**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1935ean, egin zen zentzu zabalean lehen bertsolari **txapelketa** kontsidera dezakeguna. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Egin ziren Errepublika garaian soinujole **txapelketak** Erretererian, Bergaran eta Donostian. **Koldo Izagirre**

Mus **txapelketa** antolatu izan diagu, eta ondoko herri bateko jaietara joan ere bai. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Dantza **Txapelketa** horrek herriarekin duen lotura azpimarratu zuen. **Berria** - **Kultura**

18.00tan fandango **txapelketa**. **Herria**

Bakailao edo tortilla **txapelketetan**. **Edorta Jimenez**

Gogoan dut atletismo **txapelketak** egiten ziren garaia. **Javi Cillero**

Liga **txapelketa** hartan zerbeit egiteko azken aukera zen hura bilbotarrentzat. **Joxemari Iturralde**

Gaur saskibalo **txapelketa** jokatuko dute egun osoan Gaztelu plazan. **Berria** - **Euskal Herria**

Banoa hotelera, Europako Futbol **Txapelketa** hasi baita. **Edorta Jimenez**

Ondo pasatzen zuen lastertasun-**txapelketak** egiten makinaren kontra. **Jon Muñoz**

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Axurki saltsa **txapelketa**. **Herria**

Gainerakoan ez zen Nafarroa Behereko edo Zuberoako albiste gehiagorik, baina Haur Kantu **Txapelketako** finalaren berri ematen zuen artikulu batek. **Juan Luis Zabala**

Euskadiko laugarren arroltze botatze **txapelketa**, elizako plazan 21 eta erdietan. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arabako bertsolari txapelketa (5); **arabako txapelketa** (5); **aurresku txapelketa** (6); **aurtengo txapelketa** (28); **autogileen txapelketa** (10); **azken txapelketa** (20); **azkeneko txapelketa** (5)

banakako txapelketa (31); **berria txapelketa** (21); **bertsolari txapelketa** (54); **bertsolari txapelketa nagusiko** (6); **beste txapelketa bat** (5); **bigarren mailako txapelketa** (14); **bigarren txapelketa** (10); **biharko izarrak txapelketa** (11); **binakako pala txapelketa** (5); **binakako txapelketa** (55); **bizkaiko bertsolari txapelketa** (14); **bizkaiko txapelketa** (30); **buruz buruko txapelketa** (29)

egindako txapelketa (6); **elgetako txapelketa** (7); **elite txapelketa** (5); **emakumezkoen txapelketa** (5); **erremonte txapelketa** (7); **eskolarteko bertsolari txapelketa** (6); **eskolarteko txapelketa** (7); **eskuz banakako txapelketa** (18); **eskuz binakako txapelketa** (6); **espainiako txapelketa** (44); **europako mendi txapelketa** (6); **europako txapelketa** (85); **europako txapelketa irabazi** (6); **euskadiko lauko txapelketa** (7); **euskadiko txapelketa** (92); **euskadiko txapelketa jokatuko** (7); **euskal herriko txapelketa** (23); **euskal kantu txapelketa** (5)

futbol txapelketa (15)

gazteen txapelketa (6); **gidarien txapelketa** (11); **gipuzkoako txapelketa** (22); **gravn txapelketa** (7); **hasi zen txapelketa** (9); **hasi zuten txapelketa** (5); **hasiko da txapelketa** (10); **herri arteko txapelketa** (6); **herrialdeetako txapelketa** (9); **herriarteko txapelketa** (6); **hurrengo txapelketa** (7)

iazko txapelketa (5); **irabazi du txapelketa** (7); **izango da txapelketa** (5)

kantu txapelketa (16); **kluben arteko txapelketa** (5); **kopa txapelketa** (6); **kros txapelketa** (14)

lauko euskadiko txapelketa (5); **lauko txapelketa** (14); **lehen mailako txapelketa** (8); **lehen txapelketa** (33); **liga txapelketa** (13); **mailako txapelketa** (53); **mailako txapelketa irabazi** (7); **mendi txapelketa** (7); **motoziklismo txapelketa** (7); **munduko futbol txapelketa** (5); **munduko motoziklismo txapelketa** (6); **munduko rally txapelketa** (14); **munduko txapelketa** (269); **munduko txapelketa irabazi** (20); **munduko txapelketa irabazteko** (7); **munduko txapelketa jokatu** (6); **munduko txapelketa jokatuko** (10); **munduko zesta txapelketa** (5); **mus txapelketa** (34)

nafarroako txapelketa (30); **nazioarteko txapelketa** (7); **neguko txapelketa** (8)

ortuellako txapelketa (8); **oso txapelketa** (6)

pala txapelketa (15); **pista txapelketa** (5); **punta txapelketa** (5); **rally txapelketa** (15); **san isidro txapelketa** (7); **san prudentzio txapelketa** (8); **sega txapelketa** (5); **selekzioen arteko txapelketa** (6); **sopelako txapelketa** (9); **teledonosti txapelketa** (14); **trobika txapelketa** (13)

txapelketa amaitezko (7); **txapelketa antolatu** (20); **txapelketa antolatu du** (8); **txapelketa antolatzeko** (9); **txapelketa antolatzen** (13); **txapelketa aurkeztu** (9); **txapelketa bera** (7); **txapelketa bihar hasiko** (5); **txapelketa bikaina** (11); **txapelketa bukatzeko** (7); **txapelketa dela eta** (7)

txapelketa egin (5); **txapelketa eskuratu** (5); **txapelketa garrantzitsu** (9); **txapelketa garrantzitsua** (5); **txapelketa garrantzitsuenak** (5); **txapelketa garrantzitsuetan** (10); **txapelketa gaur hasiko** (13); **txapelketa handi** (12); **txapelketa handi batean** (5); **txapelketa handia** (6); **txapelketa handietan** (9); **txapelketa hasi** (52); **txapelketa hasi aurretik** (24); **txapelketa hasiera** (7); **txapelketa hasiko** (11); **txapelketa hasteko** (9)

txapelketa irabazi (113); **txapelketa irabazi ditu** (5); **txapelketa irabazi zuen** (51); **txapelketa irabazi zuten** (7); **txapelketa irabaziko** (6); **txapelketa irabaztea** (15); **txapelketa irabazteko** (60); **txapelketa irabazteko faborito** (8); **txapelketa irabazteko hautagai** (9); **txapelketa irabazten** (12); **txapelketa irekia** (8); **txapelketa izan** (22); **txapelketa izan zen** (10); **txapelketa izango** (15); **txapelketa izango da** (10); **txapelketa jokatu** (43); **txapelketa jokatuko** (71); **txapelketa jokatuko da** (35); **txapelketa jokatuko du** (6); **txapelketa jokatuko dute** (14); **txapelketa jokatzeko** (23); **txapelketa jokatzen** (18); **txapelketa jokatzen ari** (6); **txapelketa jokoan** (6); **txapelketa luze** (5); **txapelketa luzea** (8); **txapelketa nagusi** (6); **txapelketa nagusia** (37); **txapelketa nagusiak** (9); **txapelketa nagusian** (47); **txapelketa nagusiaren** (17); **txapelketa nagusiar** (5); **txapelketa nagusiko** (35); **txapelketa nagusiko finala** (8); **txapelketa nagusiko finalean** (5)

txapelketa ofizial (6); **txapelketa ofiziala** (6); **txapelketa ofizialetan** (9); **txapelketa on** (9); **txapelketa on bat** (6); **txapelketa ona** (14); **txapelketa ona egin** (5); **txapelketa oso** (14); **txapelketa osoa** (8); **txapelketa osoan** (12); **txapelketa polita** (9); **txapelketa prestatu** (7); **txapelketa prestatzeko** (15); **txapelketa prestatzen** (14); **txapelketa sistema** (5); **txapelketa utzi** (7)

uefa txapelketa (7); **veronako munduko txapelketa** (7); **zaramagako txapelketa** (9); **zesta txapelketa** (8)

aurtengo txapelketak (9); **berria txapelketak** (7); **bertsolari txapelketak** (6); **binakako txapelketak** (11); **espainiako txapelketak** (9); **europako txapelketak** (14); **euskadiko txapelketak** (25); **euskal herriko txapelketak** (5); **gipuzkoako txapelketak** (8); **jarraituko du txapelketak** (5); **kros txapelketak** (6); **mailako txapelketak** (7); **munduko txapelketak** (26); **nafarroako txapelketak** (13)

txapelketak antolatzeko (5); **txapelketak aurrera jarraitzen** (6); **txapelketak egiten** (8); **txapelketak irabazi** (7); **txapelketak izan** (6); **txapelketak jokatu** (8); **txapelketak jokatuko dira** (17); **txapelketak jokatzen** (6)

aizkolarien txapelketako (9); **arabako bertsolari txapelketako** (6); **arabako txapelketako** (7); **arteko txapelketako** (7); **aurtengo txapelketako** (7)

banakako pala txapelketako (11); **banakako txapelketako** (41); **banakako txapelketako final** (7); **berria txapelketako** (39); **berria txapelketako bigarren** (9); **berria txapelketako final** (5); **berria txapelketako lehen** (5); **bertso txapelketako** (5); **bertsolari txapelketako** (43); **bertsolari txapelketako finala** (10); **bertsolari txapelketako finalera** (6); **bigarren mailako txapelketako** (11); **binakako faustino txapelketako** (7); **binakako pala txapelketako** (11); **binakako txapelketako** (124); **binakako txapelketako bi** (7); **binakako txapelketako bigarren** (6); **binakako txapelketako final** (14); **binakako txapelketako finala** (14); **binakako txapelketako finalerako** (5); **binakako txapelketako finalerdietako** (6); **binakako txapelketako lehen** (22); **binakako txapelketako sailkatze** (8); **bizkaiko bertsolari txapelketako** (16); **bizkaiko txapelketako** (13); **buruko txapelketako** (27); **buruko txapelketako final** (5); **buruko txapelketako partida** (8); **buruz buruko txapelketako** (27)

casino kursaal txapelketako (8)

da binakako txapelketako (5); **da euskadiko txapelketako** (5); **da txapelketako** (15); **dira euskadiko txapelketako** (6); **dira txapelketako** (9); **du txapelketako** (9); **dute binakako txapelketako** (5); **dute txapelketako** (5)

epelen binakako txapelketako (5); **erdiko txapelketako** (65); **erdiko txapelketako final** (17); **erdiko txapelketako lehen** (12); **erremonte txapelketako** (15); **eskolarteko txapelketako** (5); **eskuz banakako txapelketako** (28); **eskuz binakako txapelketako** (14); **espainiako txapelketako** (10); **eta txapelketako** (12); **europako txapelketako** (29); **europako txapelketako finala** (7); **euskadiko lauko txapelketako** (5); **euskadiko pala txapelketako** (12); **euskadiko txapelketako** (69); **euskadiko txapelketako bigarren** (7); **euskadiko txapelketako lehen** (9); **euskal herriko txapelketako** (24); **euskal kantu txapelketako** (5)

faustino txapelketako (8)

gazteen txapelketako (7); **gipuzkoako txapelketako** (9)

herriko txapelketako (24)

kantu txapelketako (8); **kros txapelketako** (5); **kursaal erremonte txapelketako** (7); **kursaal txapelketako** (8)

lauko euskadiko txapelketako (5); **lauko txapelketako** (9)

mailako binakako txapelketako (5); **mailako txapelketako** (20); **motoziklismo txapelketako** (7); **munduko motoziklismo txapelketako** (7); **munduko rally txapelketako** (6); **munduko txapelketako** (88); **munduko txapelketako lehen** (9); **munduko zesta txapelketako** (6)

nafarroako bertsolari txapelketako (8); **nafarroako txapelketako** (11)

pala txapelketako (53); **pala txapelketako bi** (8); **pala txapelketako hiru** (6); **pala txapelketako partida** (8); **pala txapelketako sailkatze** (6)

rally txapelketako (7); **rallysprint txapelketako** (5)

sokatira txapelketako (5); **suitzako europako txapelketako** (7)

txapelketako aurreneko (9); **txapelketako bi finalerdiak** (6); **txapelketako bi partida** (10); **txapelketako bigarren** (79); **txapelketako bigarren finalerdia** (5); **txapelketako bigarren jardunaldia** (12); **txapelketako bigarren kanporaketa** (8); **txapelketako bigarren proba** (6); **txapelketako bigarren saioa** (5); **txapelketako bikote** (19)

txapelketako ezuste (6); **txapelketako ezustea** (5); **txapelketako ezusteko** (6); **txapelketako ezustekoa** (7); **txapelketako final laurdenetako** (23); **txapelketako final laurdenetan** (8); **txapelketako final laurdenetarako** (8); **txapelketako final zortzirenetako** (8); **txapelketako finala** (96); **txapelketako finala jokatu** (23); **txapelketako finalak** (5); **txapelketako finalaren** (5); **txapelketako finalean** (34); **txapelketako finalera** (11); **txapelketako finalerako** (12); **txapelketako finalerako sailkatu** (5); **txapelketako finalerako txartela** (5); **txapelketako finalerdia** (6); **txapelketako finalerdiak** (15); **txapelketako finalerdietako** (18); **txapelketako finalerdietan** (10); **txapelketako finalerdietara** (5); **txapelketako finalerdietarako** (10); **txapelketako finalerdiko** (5); **txapelketako hiru partida** (8); **txapelketako hirugarren** (27)

txapelketako kanporaketan (5); **txapelketako laugarren** (12); **txapelketako lehen fasea** (5); **txapelketako lehen faseko** (18); **txapelketako lehen finalerdia** (5); **txapelketako lehen jardunaldian** (7); **txapelketako lehen kanporaketa** (7); **txapelketako lehen partida** (13); **txapelketako lehen partidari** (5); **txapelketako lehen saioa** (6); **txapelketako lehenengo** (7); **txapelketako ligaxkako** (7)

txapelketako partida (53); **txapelketako partida jokatu** (7); **txapelketako partidak** (11); **txapelketako partidari** (11); **txapelketako partidari** (6); **txapelketako proba** (7); **txapelketako sailkapen** (6); **txapelketako sailkatze** (18); **txapelketako sailkatze faseko** (6); **txapelketako talde** (6)

urrezko aizkolarien txapelketako (9); **zesta txapelketako** (12)

aizkolarien txapelketan (6); **aurtengo txapelketan** (31); **banakako txapelketan** (29); **berria txapelketan** (6); **bertsolari txapelketan** (12); **bigarren mailako txapelketan** (11); **binakako txapelketan** (29); **bizkaiko bertsolari txapelketan** (6); **bizkaiko txapelketan** (20); **buruz buruko txapelketan** (10)

eskuz banakako txapelketan (17); **espainiako txapelketan** (42); **europako txapelketan** (70); **europako txapelketan ariko** (6); **euskadiko txapelketan** (68); **euskal herriko txapelketan** (17); **formula txapelketan** (5); **frantziako txapelketan** (8); **futbol txapelketan** (7); **gipuzkoako txapelketan** (19)

iazko txapelketan (10); **kantu txapelketan** (12); **kros txapelketan** (22); **lauko txapelketan** (14); **lehen mailako txapelketan** (5); **lehen txapelketan** (5); **liga txapelketan** (5); **mailako txapelketan** (21); **munduko kros txapelketan** (10); **munduko rally txapelketan** (8); **munduko txapelketan** (178); **munduko txapelketan ariko** (7); **nafarroako txapelketan** (21)

pista estaliko txapelketan (5)

rally txapelketan (10)

txapelketan ariko (23); **txapelketan ariko da** (11); **txapelketan aritu** (15); **txapelketan aritzeko** (12); **txapelketan aurrera egiteko** (5); **txapelketan bizirik** (6); **txapelketan esku hartu** (6); **txapelketan gertatu** (5); **txapelketan izan** (10); **txapelketan izango** (5); **txapelketan jarraitu** (5); **txapelketan jarraitzeko** (5); **txapelketan jokatu** (7); **txapelketan lortu** (6); **txapelketan lortutako** (5); **txapelketan parte hartu** (19); **txapelketan parte hartuko** (16); **txapelketan parte hartzeko** (24); **txapelketan parte hartzen** (8); **txapelketan sartu** (8); **txapelketan sartzea** (7)

uefa txapelketan (6); **urrezko aizkolarien txapelketan** (6); **urteko txapelketan** (6); **veronako munduko txapelketan** (6); **zesta txapelketan** (7)

espainiako txapelketara (5); **munduko txapelketara** (15); **txapelketara joan** (5)

espainiako txapelketarako (6); **europako txapelketarako** (12); **munduko txapelketarako** (16); **txapelketarako sailkatu** (6); **txapelketarako sailkatzeko** (5); **txapelketarako txartela** (10); **txapelketarako txartela lortu** (5)

iazko txapelketarekin alderatuta (5)

aurtengo txapelketaren (6); **banakako txapelketaren** (26); **banakako txapelketaren finala** (6); **banakako txapelketaren finalerdietako** (5); **berria txapelketaren** (6); **bertso txapelketaren** (5); **bertsolari txapelketaren** (7); **bigarren mailako txapelketaren** (5); **binakako txapelketaren** (20); **binakako txapelketaren finala** (10); **eskuz banakako txapelketaren** (23); **eskuz binakako txapelketaren** (11); **euskadiko txapelketaren** (14); **gravn txapelketaren** (8); **kantu txapelketaren** (10); **mailako txapelketaren finala** (5); **munduko txapelketaren** (22); **pala txapelketaren** (8)

txapelketaren atarian (7); **txapelketaren aurkezpenean** (9); **txapelketaren aurretik** (5); **txapelketaren azken** (9); **txapelketaren bigarren** (14); **txapelketaren final** (5); **txapelketaren finala** (48); **txapelketaren finala jokatu** (6); **txapelketaren finala jokatu** (6); **txapelketaren finalak** (5); **txapelketaren finalean** (8); **txapelketaren finalerdietako** (9); **txapelketaren hasiera** (6)

aurtengo txapelketari (5); **binakako txapelketari** (5); **ekin dio txapelketari** (5); **euskadiko txapelketari** (6); **munduko txapelketari** (8); **txapelketari begira** (14); **txapelketari ekingo** (5); **txapelketari uko** (5)

txapelketarik jokatu (5)

munduko txapelketatik (6); **txapelketatik at** (13); **txapelketatik at geratu** (6); **txapelketatik kanpo** (41); **txapelketatik kanpo geratu** (9); **txapelketatik kanpora** (8)

txapelketaz kanpo (5)

europako txapelketetako (6); **txapelketetako lehen** (6)

espainiako txapelketetan (12); **europako txapelketetan** (25); **munduko txapelketetan** (38); **nazioarteko txapelketetan** (6); **pista estaliko txapelketetan** (5); **txapelketetan parte hartzeko** (6); **txapelketetan parte hartzen** (5)

artzain xakur xapelketa (23); **aurtengo xapelketa** (4); **bertsu idatzi xapelketa** (3); **bertsu xapelketa** (3); **bertsulari gazteen xapelketa** (3); **bertsulari xapelketa** (19); **bertsulari xapelketa nagusia** (8); **bertsularien xapelketa** (8); **bertsularien xapelketa nagusia** (4); **birla xapelketa** (18)

euskal herriko xapelketa (6); **euskal kantu xapelketa** (16); **fandango xapelketa** (3); **frantziako xapelketa** (4); **gazteen xapelketa** (3); **haur kantu xapelketa** (34)

kantu xapelketa (62); **marrazki xapelketa** (3); **munduko mus xapelketa** (3); **mus xapelketa** (61); **mus xapelketa bat** (12); **museko xapelketa** (5); **nafarroako bertsulari xapelketa** (6); **nafarroako xapelketa** (3)

palantxazko xapelketa (5); **pilota xapelketa** (4)

xakur xapelketa (27)

xapelketa bat (18); **xapelketa bat antolatzen** (3); **xapelketa bururatu** (3); **xapelketa bururatu da** (3); **xapelketa bururatzera** (3); **xapelketa bururatzera doa** (3); **xapelketa ereman** (4); **xapelketa ereman du** (3); **xapelketa hastera** (3); **xapelketa hastera doa** (3); **xapelketa igande huntan** (4); **xapelketa irabazi** (3); **xapelketa iragan** (5); **xapelketa nagusia** (19); **xapelketa nagusian** (8); **xapelketa nagusiaren** (9)

haur kantu xapelketak (3); **kantu xapelketak** (4); **mus xapelketak** (5)

haur kantu xapelketako (3); **kantu xapelketako** (6); **xapelketako finala** (3); **xapelketako finalak** (3); **xapelketako lehen tokian** (3)

frantziako xapelketan (7); **haur kantu xapelketan** (11); **kantu xapelketan** (21); **mus xapelketan** (5); **trinketeko xapelketan** (3); **xapelketan parte hartu** (5); **xapelketan parte hartuko** (3)

batasunak antolatu xapelketaren (4); **bertsulari xapelketaren** (11); **bertsulari xapelketaren finala** (5); **birla xapelketaren** (3); **euskal herriko xapelketaren** (10); **euskal kantu xapelketaren** (8); **frantziako xapelketaren** (13); **frantziako xapelketaren kondu** (8); **haur kantu xapelketaren** (14); **iparraldeko bertsulari xapelketaren** (4); **kantu xapelketaren** (26); **kantu xapelketaren finala** (8); **kantu xapelketaren kondu** (9); **mus xapelketaren** (3)

xapelketaren finala (26); **xapelketaren finalak** (5); **xapelketaren finalean** (3); **xapelketaren kondu** (37)

xapelketetan parte hartzen (3)

txapelketazale iz txapelketen zalea dena.

Berez ez naiz oso **txapelketazalea** , nahiz eta jakin horrek duela funtzionatzen gazteak bultzatzeko.

Berria - Kultura

txapelkide iz

Karlitek urte horretan Del Burgo bera eta beste **txapelkide** batzuk Italiako militar-eskola batera bidali zituzten.

Edorta Jimenez

txapeloker 1 iz adkor guardia zibila.

Moilan zeuzkan zain karabineroak eta **txapelokerrak** , ni ere hantxe nengoen zer gerta ere.

Koldo Izagirre

-Zazpi-zortzi **txapelokerrekin** -kontatuko zidan handik urte batzuetara komandanteak-.

Edorta Jimenez

Ikusteko nago halako eguraldiarekin muga marra zaintzera bere borondatez joango den **txapelokerra** .

Edorta Jimenez

Garaiz oroitu zen fuel depositoak **txapelokerrek** zaintzen zituztela.

Koldo Izagirre

Zer daki zer den komisaldegian torturatut zaituzten **txapelokerren** eskuetan pasatzea orduak eta orduak?

Jokin Urain

2 (izenondo gisa)

Atzetik erasotzen gintuzten bikoteka ibiltzen ziren berde ilunezko basapiztia **txapeloker** haiek.

Berria - Euskal Herria

3 guardia zibilen kapela.

Azkenean, noizbait bukatu behar eta, beste talde batek, kartoizko **txapelokerrak** jantzita, erasora deitu zuen manifestaldia desegiteko. **Rafa Egiguren**

txapeltxo *iz txapel txikia. • irud/hed*

Wendyk mutikoarengana hurbildu zuen aurpegia, baina Peterrek ezkur baten **txapeltxo** jarri zuen neskaren eskuan. **Julen Gabiria**
Orduan, Peter Wendyren alboan belaunikatzean, ezurraren **txapeltxo** ikusi zuen. **Julen Gabiria**

txapeo *iz protesta egiteko borondatezko itxialdia kartzelan.*

Zortzi bidaia jasangaitz, kunda itogarrian makurturik; han eta hemen egindako zortzi **txapeo**, gehi bost gose-greba luze. **Txillardegi**
Hilean behin baraua eta astean behin **txapeoa** egitea erabaki dute. **Berria - Euskal Herria**
Txapeoari ekin genion goizean, egunero bezala, errekuentoa egiten hasi ziren kartzeleroak. **Jokin Urain**
Gaixotu egin zen **txapeoa** hasi eta bere aginduei jaramonik ez geniola egiten ikusi zuenean. **Jokin Urain**
Iragan abuztuaren 18an funtzionario batek Alex Akarregi euskal presoari eraso egin ziola salatzekeo Zuerako espetxeko euskal presoak **txapeoa**-n izan ziren iragan ostiralean. **Berria - Euskal Herria**

txapero *iz prostituzioan aritzen den homosexuala.*

Doña Casilda parkean arratsaldero banku berean gizon bera jesartzen da, museoari begira, ordu batzuk beranduago **txaperoek** inguratuko dituzten komun publikoak bere atzean. **Sonia Gonzalez**

txapin *(orobat xapin g.er) 1 iz pl etxean ibiltzeko oinetako bigunak.*

Oin-hotsik txikienak ere ez zion haren etorreraren berri aldarrikatzen, andereñoaren olanazko Oxford **txapinek** gomazkoa baitzuten zorua. **Mirentxu Larrañaga**
Zapi bat eta bururdi bat hartu, bainuko bata jantzi, **txapinak** jarri eta aitarengana joaten naiz korrika. **Josu Zabaleta**
Azkenean, ohetik atera nintzen, lanpara piztu, eta mantala eta **txapinak** jantzi nituen. **Koro Navarro**
Oinetako eta galtzerdiak ere sarreran erantzen dituk, eta hauts-aurkako **txapinez** ordezkutzen. **Juan Garzia**
Etxeko bata eta **txapinak** zeramatzan emakume handi bat. **Koro Navarro**
Melaniek berak irekitzen dio atea, elastiko zimurtu bat, bizikletarako galtza motzak eta komiki-liburuetako urtxintxen itxurako **txapinak** [...] jantzita dituela. **Oskar Arana**
Aita beti gaixorik, astrakan-larruzko jaka luzea soinean eta puntuzko **txapinak** oin biluzietan, hara-hona gelan barrena. **Jose Morales**
Bizkarra makurtu zuen feltrozko **txapinak** hartzeko, lehendabiziko dantza-pausoan kokatuta baitzeuden lurzoruan, ohe-atorraren azpian. **Mirentxu Larrañaga**
Neguan mendelezko **txapinak** erabiltzen zituen. **Josu Zabaleta**
Oin-bizkar zuriak distiraz zituen ile-larruzko **txapinen** irekiduran eta odol epela gorri larruazal urrintsuaren azpian. **Irene Aldasoro**
Punta kamutseko **txapin** xanpain-koloreetan. **Mirentxu Larrañaga**
Van Daan andreak oinetakoak aldatu eta **txapinetan** hasten da gelan hara-hona ibiltzen; senarrak ere, Charlie Chaplin egiazkoa balitz bezala, **txapinak** jantzen ditu. **Josu Zabaleta**
Haren oinean dilindan zebilen **txapinari** irrifarrez begiratu. **Anton Garikano**
Kontu handiz ateratzen zituen bere zetazko pijama, bere xaboi-pastillak eta bere **txapin** marokoarrak. **Fernando Rey**

2 (hitz elkartuetan)

Oinetako beixetako baten zola fin eta labainkorraren arkuan, papertxo zuri luzanga bat zuen itsatsita, **txapin**-parearengatik eskatu eta ordaindutako salneurria ageriz. **Mirentxu Larrañaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txapinak jantzi (5); **txapinak jantzita** (3)

txapintxo *iz adkor txapina.*

Oihalezko **txapintxo** batez jantzitako ipotx-oin ñimiñoarekin pedalari eraginda. **Fernando Rey**
Erruz atxikitako malkoak begietatik behera irristatzen zitzaizkion Morse andreaki, zaldien ondotik balantzaka igarotzean, bere **txapintxo** mutur-motz eta xanpain-koloreetan hertsaturiko oin minberatuen gainean. **Mirentxu Larrañaga**

txapista *iz autoetan txapa-lanak egiten dituen persona.*

Berritu aditza erabili zuen, eta **txapistanetik** pasatu behar duen auto zahar bat nintzela otu zitzaidan. **Anjel Lertxundi**

txapitel ik txapitula.

txapitula *(orobat txapitula) 1 iz etxeetan bizitegi gisa erabiltzen den ganbara.*

Augustinek behean lo egiten zuen orain; hobeto egongo zen, **txapitulak** oso hotzak ziren neguan. **Karlos Zabala**
Atso txikia gora zihoala zirudien, solairuz solairu zebilela, kristalezko zuloetatik pasatuz, **txapitulen** idi begietaraino iritsi arte. **Karlos Zabala**
Gauetz, hala ere, arindu handia zen harentzat **txapitularen** leihoan ukondoak bermatu eta kanpora begira egotea. **Karlos Zabala**
Sofa batean eseri ziren, **txapitulako** bi leihoen artean. **Lopez de Arana**
Baiona Zaharreko **txapitula** ziztrin hartan. **Jokin Muñoz**
Irakasle Laguntzaileak zehaztu zidan eskuak erabat libre nituela; bazter guztiak araka nitzakeen sotoetatik **txapiteletaraino**. **Juan Garzia**
Beren ametsen ilusioz, **txapitel**-zulo bat baliatu ahal izan zuten ikuspen arranditsu batzuen kokalekutzat. **Juan Garzia**

2 irud/hed

Brankako **txapitelaren** goian gelditu da, nola ezean, itsasoaren hondoraino doazela diruditen burdinazko uztaiei beha, zorabioa. **Koldo Izagirre**

3 teilatuan ateratzen den leihoa gainaldea teilaz babestua duena.

Eraikin horiek ezkerreko espaloiaeren ertzean hedatzen dira laurehun metroan; leihorik txikiena ere ez, ezta **txapitula** bat ere. **Monika Etxebarria**

txapla *adlag*

Gero, uretan **txapla** murgildu ziren, berriro gaineratu, eta guztiak ahalegin larria egin zuten, irten nahirik, harik eta ur azpian galdu ziren arte. Juan Kruz Igerabide
Mutiletako batek [...] eskuak **txapla** jotzea proposatu du. Urtzi Urrutikoetxea

txapla-txapla *1 adlag* ur meheetan oin edo eskuak sartuz zarata ateratzen.

Izuturik, bobeda aurreko zolorantz hasi naiz, **txapla-txapla** eta erdi igeri urdurian, handik zuzenean itsasora irteteko. Anjel Lertxundi
Adak amaneraturatz zeuzkan Danelek urtean bizpahirutan larkoia hotelean antolatzen zituen gure festa haiek, eta ez zitzaion jolas haietako ur dekadenteetan **txapla-txapla** ibiltzea. Anjel Lertxundi

2 (izen gisa)

Zaldiek beren trosta astirotuaren hotsa belaontziaren eta moilaren arteko uraren **txapla-txapla**rekin egokitu nahi zutela ematen zuen. Anjel Lertxundi

txaplaka¹ ik **txapaka**.

txaplaka² *adlag* txapla-txapla.

Ertzetik gertu geratu ziren, olatu artean **txaplaka**, eta gero hondartzara itzuli ziren berriro, etsita. Josu Zabaleta

txaplata *1 iz* sendagai nahastura biguna, zauriaren edo sendatu behar den gorputz zatiaren gainean itsasten dena. ik **enplasto**.

Ahoz gora etzanda nago eta erizain andreak **txaplatak** jartzen dizkit. Itziar Otegi
Egun haietan, kamamiraz eta kanforrez eginiko **txaplata** bat eduki zuen masailan loturik. Jose Morales
Lehen bezeroak migrañaren kontrako **txaplata** eskatu zion. Josu Landa
Maggiak sendatu dio aste pare batean, berak ezagutzen duen belar baten **txaplataz**. Juan Garzia
Sarritan, Egor Timofeievitxek buruko min handia izaten zuen, eta halako **txaplata** berezi batzuk itsasten zizkieten garondoan. Jose Morales
Kolpean kendu zizkigun lausoak begien aurretik, azalari itsatsitako **txaplata** kolpetik kentzen dizun erizainak bezala. Juan Kruz Igerabide
Amen batean, Gorkaren hatz arinek pilota bat egin dute zangoari erazutitako **txaplatekin**. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Ekzer poltsikoaren gainean, izar urdin eta marra gorritz jositako **txaplataren** inguruan, Estatuko baso-guarden ezaugarri nahastezina zeramaten haien jakek. Joxemari Urteaga

Ez du juzgurik egiten, ez du epai moralik ematen; bizitzari ebatsitako **txaplatak** jartzen dizkigu begien aurrean, irakurleak adabaki horiek josi eta nork bere ondorioak atera ditzan. Berria - Kultura

Txaplata bat izango litzateke gangan Sixtinaren kopia bat pintatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez hasi hire **txaplata** historikoekin, Karlos. Iban Zaldúa

Platerekoa bukatu, Jainkoak zigortuko zaitu, **txaplata** ez bestena, horrenbeste ume goseak hiltzen munduan eta zu Jainkoak ematen dizuna platerean hoztutzen uzten. Lourdes Oñederra

Izenburua erakargarria zen -*Paz en la guerra*-, baina sekulako **txaplata** iruditu zitzaion marinelari. Iban Zaldúa

3 (hitz elkartuetan)

Arnika **txaplataz** zaintzen zenizkidan. Josu Zabaleta

Ur-**txaplatak** bekokia freskatzeko. Javi Cillero

Gehiegizko pintura-**txaplata** horren atzean seguru aski aurpegi eder gaztea ezkututzen da. Sonia Gonzalez

Denbora horretan pilulak hobetzeaz gainera, baginarako eraztunak, azal-**txaplatak**, hormona UBGak eta biharamunerako pilulak asmatu dituzte. Berria - Euskal Herria

"Ave, Ave, Ave Maria" lelo errepikakorrek taigabe urratzen zituzten mendi mazeletan luzatzen ziren laino **txaplatak**. Txillardegí

4 (izenondo gisa)

Liburu potoloa da, baina zeharo **txaplata**. Xabier Aranburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
gorritz jositako txaplataren (3); txaplataren inguruan (3)

txapligu *1 iz* suzeria.

Eta orduan ikusi nuen lehenengoz [...] bertako gauaren kolorea eta haren bereizgarrietako bat: **txapliguak**, txinpart eta garrez osatutako egiazko su artifizialak ezkerreko zerumuga osoan. Urtzi Urrutikoetxea

Bolanderak, suzko erroberak, Japoniako bonbak, hiru buruko **txapliguak**, umeak elkarri petardoak jaurtita, ehiztariak leihoetarik zerurantz kanoi bikoarekin... Koldo Izagirre

Berehala, kanpaiari erabat isiltzeko betarik eman gabe, norbaitek **txapliguak** botatzen zituen airera, hiru **txapligu** segidan. Bernardo Atxaga

Txapligu bat lehertu zen Villa Lecuonaren parean. Bernardo Atxaga

Motorraren hotsaren gainetik **txapligu** baten leherketa entzun nuen. Bernardo Atxaga

Aireportutik saiak hastantzeko, tarteka **txapliguak** leheratzen dituzte. Gotzon Garate

- Musikak ez du ematen **txapliguak** botatzeko lain, baina ezin kexatuko gara. Patxi Iturritegi

2 (hitz elkartuetan)

Goiz batean kanpai eta **txapligu** hotsa aditu nuen, eta jostundegira joan nintzen haren arrazoia galdetzera. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
txapligu hotsa (3)

txaposo *izond adkor* gogaikarria. ik **txapa 11**.

Eta lehen deitu duen maisu jilipolla eta **txaposo** horri niputokaso! Jon Arretxe

txapuza iz lardaskeria, lan lardatsa.

Batzuen ustez, hura dena **txapuza** itzela zen; beste batzuek oso ongi zihoala uste zuten. **Jon Alonso**

Auzoko **txapuzaren** bat, business txikiren bat tarteka, bazterrean mantentzen saiatuz beti ere. **Urtzi Urrutikoetxea**

txapuzero iz adkor lardaskaria.

Mundua zen bezala onartzen zuten bi lagun ziren, diruari atxikiak, eta beste garai bateko burgesiaren bertuteen jabe ere ez zirenak; eraikuntzaren bi **txapuzero**, ez zoriz elkarren sozio bilakaturakoak, eta, noski, elkarri ziria sakatzen lehiatzen zirenak. **Jon Alonso**

Kontrariorik handienak txistulariak ziren, "**txapuzeroak**" deitzen ziguten. **Koldo Izagirre**

Iruditu zitzaidan Luvino eta entziklopediaren arteko harremana konplikatuagoa zela, **txapuzeroagoa**. **Unai Elorriaga**

txar 1 izond funtsezko akats bat duena, bere egitekoa ongi betetzen ez duena, ona ez dena. iktzar.

Gariaren orde z hazi bitez arantzak, garagarren orde z, belar **txarrak** ! **Elizen arteko biblia**

Paradisua iruditu baitzitzaion baratze abandonatu, belar **txarrez** bete hura. **Josu Zabaleta**

Ohe **txar** bat besterik ez duten 'caged-men' izenezko langile-morroiak. **Ramuntxo Etxeberri**

Ganibet **txar** bat badut, gauza handirik mozten ez duena. **Marzel Etxehandi**

Jabeak ez du [abereak] onak ala **txarrak** diren begiratu behar, ezta aukeratu beste batez trukatu ere. **Elizen arteko biblia**

Oihalik **txarreanean** ere orban bat eror daitekeela. **Jon Alonso**

2 (pertsonei buruz)

Haur eta Gazte Literaturaren esparruan, idazle onak, ez hain onak eta **txarrak** daude, literatura orokorrean bezala. **Ana Urkiza**

Kontuz erdaikuntza faltsua proposatzen dizueten langile **txar** horiekin! **Elizen arteko biblia**

Ez nazazu har emakume **txartzat**. **Elizen arteko biblia**

Ministro **txarregatik** egin zion uko prelatu izateari. **Askoren artean**

Bertsolari **txarra** ez hintzen: diferentia izatea. **Iñigo Aranbarri**

Ondorengo prentsaurrean futbolari gazte **txar** bat atera zela esateko ez zegoela arazorik. **Jon Alonso**

3 (gauza abstraktuez mintzatuz) ik desegoki; gaizto.

Gaizki esaka ari zitziola amari, laidoka eta irainka, modu **txarrean**. **Joan Mari Irigoien**

Han zeuen jokabideaz oroitu zarete, zeuen buruak kutsatu zituzten egintza **txar** guztiez. **Elizen arteko biblia**

Zorte **txarreko** gizona zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Populu zenbaiten etsipena [...] mundu guziaren ganik beren suerte **txarrera** abandonaturik. **Herria**

Ikusten duzu nola mendekatu zaizkidan, zenbat asmo **txar** duten nire kontra. **Elizen arteko biblia**

Begi-keinuka diharduena asmo **txarrez** dabil: Jakinduria ez da sartzen asmo **txarreko** bihotzean, ez eta bizi ere bekatuaren menpe dagoenaren gorputzean. **Elizen arteko biblia**

Iritzi **txarregia** dut emakumez horrelakorik uste izateko. **Josu Zabaleta**

Bolada **txarrean** hago: familia aferak, batetik; hire lagunaren heriotza, bertetik -ahotsa apaldu zuen-. **Aingeru Epaltza**

Gogo **txarrez** makurtzen naiz frogabideetara. **Juan Garzia**

Bere aurkariaren harrera **txarraz** jabetua zen. **Karlos Zabala**

Harriduratik susmo **txarrera** nire laguna. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Gaixo amak baleki nolako planta **txarrean** nengoen! **Janbattitt Dirassar**

Ospe **txar** hau gaizki-ikuste publikoaren ezaugarria da. **Juan Martin Elexpuru**

Nire bihotza barruko z kanpora jarri, eta alde **txarra** erakusten dut kanpora eta ona barrura. **Josu Zabaleta**

Aldi onean goza ezazu, eta **txarrean** pentsa. **Elizen arteko biblia**

Afektu bat ez da **txarra** edo kaltegarria, Izpirituari pentsatzea eragozten diolako baizik. **Piarres Xarriton**

Baina egiptoarrek tratu **txarra** eman ziguten, zapaldu eta esklabotza gogorra ezarri. **Elizen arteko biblia**

Gaur egun emakumeen kontra gertatzen diren tratu **txarrak**. **Luis Elberdin**

Agresioa, tratu **txarrak** eta legez kanpoko atxiloketa! **Aingeru Epaltza**

Zizarez betetako arrosa eta usain **txarreko** okela. **Karlos Zabala**

Duela 15 bat urte deitua izan zen zuzendari, elkarte hori kinka **txarrean** zelarik. **Herria**

Eibar denboraldiko unerik **txarreanean** sartu da sailkapeneko azken postuan. **Berria - Kirola**

Pertsona ona, hitzaren zentzurik **txarreanean**. **Iñaki Mendiguren**

Euskara moderna, zentzurik **txarreanean**. **Pello Salaburu**

Leibniz-en "mundu posibletarik hoberenean" alegia, edo gutxien **txarrean**. **Joxe Azurmendi**

4 (ezezko esaldietan indargarri gisa)

Ez zaio ongietorri **txarra** iruditzen Dylani, Hendrixtownen egin nahi zioten agurraren antzekoa, baina handik ihes egin du eta lasai dago. Hilaria aldatzeko ere ez litzateke momentu **txarra**. **Pako Ariesti**

Delitu batez akusatutako pertsonak, espetxeratua eta libre utzia izan ondoren, ez luke fama **txarrenean** orbanik eraman behar. **Juan Martin Elexpuru**

Ez haiz leku **txarrera** etorri gosaltzera, alajaina! **Juan Luis Zabala**

Iruditzen zitzaidan testu labur eta oso zehatz baterako euskara ez zatekeela, behingoz, baliabide **txarra**. **Ramon Saizarbitoria**

Goiz busti lardaskeroan kantuan abia ohi denean, ez da batere seinale **txarra**. **Pello Zabala**

5 kaskarra, balio gutxikoa, ezdeusa.

Nork bere buruari kolonia botatzea, etxe **txar** bat erostea, preso bati kitarra erregalatzea, herriko alkate izatea. **Patziku Perurena**

Ganbara **txar** bat banuen hartua Baionan, ez bainuen arrats guziz etxerat itzultzeko molderik. **Janbattitt Dirassar**

-Bosgarrenean, ez da bizitegi **txar** hau baizik. **Janbattitt Dirassar**

Ogitarteko **txar** bat hartu nuen. **Janbattitt Dirassar**

6 oinazea, nekea edo kidekoak eragin ditzakeena.

Eta, halako erorketa **txarrean**, gorputz-atal guztiak kolpatuak gelditu baitzitzaizkion. **Elizen arteko biblia**

Eta horrek oso egoera **txarrean** utzi zuen Black. **Iñaki Mendiguren**

Hanka egingo zenukete aberri mairurantz, nondik ordu **txarrean** etorri baitzineten, guretzat utziz gurea dena. **Jon Alonso**

Bide **txarrean** setati, ez du gaizkia utzi nahi. [Elizen arteko biblia](#)

Ez nau harritzen, bide **txarra** hartu zuen. [Karlos Zabala](#)

Lanbide **txarra** eman die Jainkoak gizon-emakumeei, horretan jardun dezaten. [Elizen arteko biblia](#)

Bainan amore eman behar izan du elur gehiegi eta eguraldi **txarregia** zelako. [Herria](#)

Ordu **txarrean** askatu ere. [Gotzon Garate](#)

Baina ez nekiela zein zentzutan, onean ala **txarrean**. [Ramon Saizarbitoria](#)

Badirudi bere **txarrean** ere onik irten nintzela, hots, petrikiloak ondo egin zuela bere lana. [Juan Kruz Igerabide](#)

7 gaiztoa dena, zintzotasunaren aurkakoa dena.

Grina **txar** eta irriks gaiztoen ondoren dabiltzanak. [Askoren artean](#)

Kasurik onenean -hau da, borondate **txarrik** edo herra gaiztorik leporatu ezin zaien kasuan, halakorik balitz-, [...]. [Jon Alonso](#)

Orain, jentilak harritu egiten dira eta irainka ari zaizkizue, beren biziera **txarreko** gehiegikerietan ez duzuelako parte hartzen. [Elizen arteko biblia](#)

Horrelakoak hiltzaileak dira, arima asko eramaten baitituzte hondamendira beren etsenplu **txarrez**. [Askoren artean](#)

8 (izen gisa) gauza txarra.

Emadazu adimen argia zure herria gobernatzeko, eta ona eta **txarra** bereizteko. [Iñaki Heras](#)

Gizabanakoez, baina, onaren eta **txarrenen** ezagutza beraiantzat erreklamatzeko dutenean, errege izateko irritsa dute. [Esteban Antxustegi](#)

Zure anaia hemen dagoenez geroztik, **txarretik txarragora** doa dena... [Karlos Zabala](#)

9 txarrean adlag

Ezagutzen zuen egoera bakoitzari zein jokamolde egokitu: onean ongi, baina **txarrean** gaizki, eta primeran moldatzen zen bietan. [Patxi Zubizarreta](#)

Ezkongaiak hildako azienda guztia itzularaziko zientat akaiarrei, edo onean, edo **txarrean**. [Juan Kruz Igerabide](#)

Gizakiaren bihotzak aurpegia moldeatzen du: onean nahiz **txarrean** aldatzen. [Elizen arteko biblia](#)

Gustatu egiten zitzaidan amonak eskaintzen zidàn Jainkoa, hain probidentziala -hala onean nola **txarrean** - eta hain bere hurbilekoa. [Joan Mari Irigoien](#)

-Konforme, polit hori, **txarrean** nahi badun, **txarrean**. [Patxi Iturritegi](#)

Elezaharretakoen antzeko adiskideak gintuan, Kastor eta Polux, onean eta **txarrean** elkarren lagun hogeita lau urtez. [Xabier Olarra](#)

Orain badakigu nolakoak garen, **txarrean** behintzat. [Iñaki Seguro](#)

Ez ezak **txarrean** hartu, gizona. [Jokin Muñoz](#)

Golek oso **txarrean** hartu zuen hau, eta borrokatzeko desafioa egin zion Cumhaili. [Joanes Urkixo](#)

Pistolaren estiluz geroztik **txarrean** zegoen Ximurraekin. [Aingeru Epaltza](#)

10 txarrean adlag

Beraz, telegrama batekin ez nuen, onenean, etxeok alferrik kezkatzea beste ezer lortuko; **txarrean**, berriz, arriskuan jartzea. [Anjel Lertxundi](#)

Beharbada ez dio ezer esango, **txarrean** seko aspertuko du. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Enpresa handi horiek, nekez laburbil daitezkeen bidegabekeria eta gehiegikeria guztiekien ere, **txarrean** jarrita ere, ekarri izan diote hainbat eta hainbat gizakiri onurarik.

[Iñaki Heras](#)

Gainera, **txarrean** jarrita ere, hire susmoak egia izan eta Manuelen arrastoa topatzen badute ere, ez dituk ausartuko jende artean sartzen. [Pedro Alberdi](#)

11 txarrenera adlag

Zer gertatuko zait bada, **txarrenera** ere? [Juan Martin Elexpuru](#)

Almuedanoak iloba batekin ematen dizkion azalpenak entzuten ditu eta **txarrenera** jartzen da, hau da, txarra oraindik gutxi gorabehera jasagarria izango zela pentsatzen hasten da. [Jon Alonso](#)

Txarrenera jota ere -hots, nire deia ez zitziola atsegina gertatzen sumatuko banu-, duintasuna gordetzeko behintzat, ez zitziadala aitzakiarik faltako. [Ramon Saizarbitoria](#)

Bidaiari haiek guztiek bazekitela liberatuak izango zirela, edo, bestela, **txarrenera** jota, kondanaren ondorioak ez zituztela jasango. [Karlos Linazasoro](#)

12 txarrerara adlag

Eta zein da -onera ala **txarrerara** ari ote den kontuan hartu gabe- munduko desberdintasun itzel horien kausa? [Iñaki Heras](#)

Lehenengotik oso egoki erantzunez gero, arrisku handia dago gero bertsoak **txarrerara** jotzekoa. [Andoni Egaña](#)

Eta ez dezatela **txarrerara** har, ezjakintasuna dela medio, guk haiei bizkarra itzultzea. [Jon Alonso](#)

Lehenbizi jarri zizkieten antibiotikoez ez zuten eraginik izan: **txarrerara** egin zuen. [Xabier Olarra](#)

Alemaniarak etorri zirenetik tabakoak ere **txarrerara** egin du. [Berria - Ekonomia](#)

Merkataritza trukearen aukeran [...] sartzen denak onera egiten du, kanpoan geratzen denak berriz **txarrerara**. [Iñaki Heras](#)

Bisita haren ondoren aitak **txarrerara** egin zuen berriz. [Ramon Saizarbitoria](#)

Bertze zenbaitetan antxetak ikusten ditut neure parean hegaldaka, eta orduan badakit eguraldiak **txarrerara** eginen duela, antxetak dira barometrorik onena. [Koldo Izagirre](#)

Baina hurrengo goizean eguraldiak **txarrerara** jo zuen. [Bernardo Atxaga](#)

- Hilabeteak pasatu ahala eta ez zuela ezer arrarorik sentitzen sumatu zuenean, berdin erretzen jarrai zezakeela eta apertuak ere ez zuela behera egin, bere onera eta bere

txarrerara itzuli zen. [Jon Maia](#)

13 txartzat adlag

Han **txartzat** ematen diren esaldi anitz aski naturalak izan daitezke, nolakoa den testuingurua. [Pello Salaburu](#)

Neke guztietara makurtzen zuten beren burua, espirituko kontsolamendua ez beste atsegin guztiak **txartzat** emanaz. [Askoren artean](#)

Izan ere, naturaz [...] animalia jaiotzen direnez gero, berehala atsegin duten oro irrikatzen badute eta datozkien gaitzei beldurrez ihes egin eta hiraz arbuiztzen ahalegintzen badira ere, horregatik ez ditugu **txartzat** jotzen. [Esteban Antxustegi](#)

Lur landuetan agertzen diren belarrak dira **txartzat** jotzen diren horiek. [Berria - Gaiak](#)

Euskaraz -keria erantzen ahal zaie **txartzat** edo halamoduzkotzat jotako tasunei. [Iñaki Seguro](#)

Eta nola gizonak kalte egiten digutenak **txartzat** hartzen ditugun, hots, erruduntzat, ez da posible ados jartzea zer den errudun eta zer ez definitzeko orduan, denok ez baititugu atsegin eta gaizki hartzen gauza berak. [Esteban Antxustegi](#)

Ez hartu **txartzat** esan behar dizudana. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ez hartu **txartzat** zure senitartea egiaz zein den jakin nahi izatea. [Elizen arteko biblia](#)

Errorearen ilunpetan gure espiritua itsutu ez dadin, ona **txartzat** eta txarra ontzat har ez dezagun. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Beraz, legegileak ontzat ematen zuena hartu behar zela ontzat, eta hark debekatzen zuena, berriz, **txartzat**. [Esteban Antxustegi](#)

Gizagaioa izan behar da, edo zakurraren arima eduki, askatasuna gauza **txartzat** edukitzeko. [Josu Zabaleta](#)

14 parte txarreko izlag

Ez da izango **parte txarreko** zerbaitez? [Juan Garzia](#)

Parte txarreko areto hartan bazen arima zimeltzen zuen zerbaitez. [Alberto Ladron Arana](#)

Mikel Strogoff beldur zen **parte txarreko** topaketaren bat ez ote zuen izango Barabako zingirez harantzago luzatzen diren lautadetan. [Karlos Zabala](#)

Parte txarreko seinale hark lur jota utzi zuen. [Karlos Zabala](#)

Emakumeek batez ere noiznahi eta nonahi ikusten dituzte sorginak, deabruak, begi kolpeak eta **parte txarreko** okerkeriak. [Gotzon Garate](#)

Lokal hartan **parte txarreko** mozkorrek zeharkako begiratuekin larrutzen ninduten, tabernari ilehoriarekin sesiorik bilatzen ari ote nintzen pentsatzen zuten. [Fernando Rey](#)

-Birigaro ederra Tom hori, baina ez da **parte txarrekoa** -hasi zaigu-. **Patxi Zubizarreta**

Hamabortz urtetan ere **parte txarrekoa** iduritzen zitzaidan haren orizta puta hori, eta handik goiti egin dituen guztiek ez zidatek baietsi baizik hasierako aburua. **Aingeru Epaltza**

Baina inbidia ez zen batere **parte txarrekoa**, ez pentsa. **Mikel Hernandez Abaitua**

Sarritan pentsatu izan dut ez ote zuen musikari **parte txarrekoen** batek asmatu. **Juan Garzia**

Ezin ukatuko dut tabernariaren zaratetik eta kantarien gurgurrek, amorrazioarekin batean, halako jakin-min **parte txarreko** bat pizten zidatela, morboa esan ohi zaiona. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bi ordu eman genituen jaisten, sokaz halamoduz lagundurik, izozturik baitzegoen: bilur-milur zurrun **parte txarreko** bat bilakatua zen. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

albiste txar (8); **alde txar** (14); **belar txar** (6); **berri txar** (34); **berri txar bat** (13); **bolada txar** (43); **bolada txar batean** (6); **bulta txar** (7); **egoera txar** (8); **egun txar** (16); **egun txar bat** (13); **emaitza txar** (6); **gauza txar** (17); **grina txar** (6); **kolpe txar** (7); **molde txar** (6); **ohitura txar** (11); **on edo txar** (9); **on eta txar** (16); **ondorio txar** (9); **oroitzapen txar** (15); **oroitzapen txar bat** (6); **partida txar** (10); **susmo txar** (28); **tratu txar** (124); **tratu txar eta** (23); **tratu txar fisiko** (9); **tratu txar fisikoak** (16); **tratu txar psikologikoak** (9); **ukaldi txar** (13); **une txar** (7); **urte txar** (6); **usain txar** (6); **zorte txar** (10)

albiste txarra (25); **alde txarra** (23); **alderdi txarra** (9); **amaiera txarra** (6); **aro txarra** (25); **asmo txarra** (12); **aukera txarra** (11); **aurpegi txarra** (11); **balentria txarra** (12); **batere txarra** (16); **belar txarra** (7); **bere alde txarra** (8); **berri txarra** (58); **berri txarra da** (7); **beti txarra** (8); **bezain txarra** (18); **bide txarra** (6); **bikotekideei tratu txarra** (6); **bolada txarra** (88); **bolada txarra eten** (15); **bolada txarra pasatzen** (6); **dena txarra** (6); **denbora txarra** (17); **denboraldi txarra** (7)

egoera oso txarra (8); **egoera txarra** (37); **egun txarra** (40); **egun txarra izan** (13); **eguraldi txarra** (97); **eguraldi txarra dela** (6); **eguraldi txarra egiten** (7); **eguraldi txarra zela** (12); **elikadura txarra** (15); **emaitza bolada txarra** (6); **emaitza txarra** (17); **eragin txarra** (11); **esker txarra** (15); **etsenplu txarra** (13); **ez da txarra** (68); **ez litzateke txarra** (14); **fama txarra** (42); **gau txarra** (15); **gauza txarra** (36); **giro txarra** (9); **gizon txarra** (8); **gustu txarra** (12); **harreman txarra** (11); **harrera txarra** (6); **hasiera txarra** (14); **horren txarra** (6)

ideia txarra (38); **ikaragarri txarra** (6); **irakasle txarra** (6); **iritzi txarra** (6); **irudi txarra** (10); **itxura txarra** (46); **itxura txarra eman** (11); **izen txarra** (17); **izugarri txarra** (7); **jenio txarra** (7); **joko txarra** (11); **kalitatea txarra** (7); **kontzientzia txarra** (18); **kudeaketa txarra** (20); **lagun txarra** (6); **lan txarra** (17); **leku txarra** (20); **litzateke txarra** (14); **nahiko txarra** (7)

ohitura txarra (10); **ona ala txarra** (24); **ona edo txarra** (41); **ona eta txarra** (23); **oroitzapen txarra** (13); **osasun txarra** (6); **oso eguraldi txarra** (12); **oso itxura txarra** (9); **oso txarra** (107); **oso txarra da** (20); **oso txarra izan** (23); **oso zorte txarra** (6); **ospe txarra** (23); **ostia txarra** (6); **partida txarra** (32); **partida txarra egin** (15); **rollo txarra** (7); **sasoi txarra** (8); **seinale txarra** (39); **seinale txarra da** (6); **suerte txarra** (30); **suerte txarra izan** (6); **susmo txarra** (90); **susmo txarra hartu** (25); **susmo txarra hartzen** (20); **tratu txarra** (98); **tratu txarra eman** (22); **tratu txarra ematea** (9); **tratu txarra emateagatik** (16); **tratu txarra ematen** (13)

txar txarra (24)

umore txarra (13); **une txarra** (7); **urte txarra** (25); **urte txarra izan** (17); **usain txarra** (56); **usain txarra hartzen** (6); **zein txarra** (10); **zer txarra** (7); **zerbait txarra** (15); **zorte txarra** (125); **zorte txarra izan** (55)

eguraldi txarragatik (15)

askoz txarragoa (7); **baino txarragoa** (23); **ezin txarragoa** (14)

baino txarragoak (11); **emaitza txarragoak** (8); **ezin txarragoak** (7)

albiste txarrak (15); **alde txarrak** (24); **aro txarrak** (6); **asmo txarrak** (10); **baldintza txarrak** (17); **belar txarrak** (11); **bere alde txarrak** (6); **berri txarrak** (138); **berri txarrak taldeak** (8); **bikotekideari tratu txarrak** (18); **bolada txarrak** (7)

egun txarrak (15); **eguraldi txarrak** (30); **elikadura txarrak** (10); **emaitza txarrak** (50); **emaitza txarrak izan** (8); **emaitzak txarrak** (10); **emazteari tratu txarrak** (14); **etxean tratu txarrak** (6); **garai txarrak** (16); **gauza txarrak** (19); **grina txarrak** (9); **guztiak txarrak** (6); **hain txarrak** (14)

jasandako tratu txarrak (9); **kontrako tratu txarrak** (9); **kritika txarrak** (10); **lan baldintza txarrak** (8); **molde txarrak** (8); **nota txarrak** (12)

ohitura txarrak (10); **on eta txarrak** (22); **onak ala txarrak** (6); **onak edo txarrak** (16); **onak eta txarrak** (75); **onak nahiz txarrak** (6); **onak zein txarrak** (6); **ondorio txarrak** (39); **ondorio txarrak izan** (6); **oso txarrak** (39); **oso txarrak dira** (8); **partida txarrak** (7); **susmo txarrak** (47)

tratu txarrak (560); **tratu txarrak egiten** (9); **tratu txarrak eman** (21); **tratu txarrak ematea** (11); **tratu txarrak emateagatik** (43); **tratu txarrak ematen** (19); **tratu txarrak eragin** (7); **tratu txarrak eragiteagatik** (12); **tratu txarrak eragiten** (8); **tratu txarrak jasan** (37); **tratu txarrak jasaten** (37); **tratu txarrak jaso** (11); **tratu txarrak pairatu** (8); **tratu txarrak salatu** (32); **tratu txarrak salatze** (10); **tratu txarrak salatzen** (10)

une txarrak (24); **usain txarrak** (12); **zein txarrak** (8); **zorte txarrak** (7)

bolada txarreakin (6); **eguraldi txarreakin** (7)

aro txarreakin (19); **aro txarreakin gatik** (13); **bolada txarreakin** (8); **denbora txarreakin** (6); **eguraldi txarreakin** (22); **eguraldi txarreakin ondorioz** (10); **txarreakin ondorioz** (6); **txarreakin ondorioz** (20)

bolada txarreakin (22)

aldarte txarreakin (11); **bolada txarreakin** (17); **egoera txarreakin** (50); **egoera txarreakin zegoela** (6); **era txarreakin** (7); **kenka txarreakin** (6); **leku txarreakin** (9); **modu txarreakin** (30); **onean edo txarreakin** (7); **onean eta txarreakin** (7); **ordu txarreakin** (7); **oso egoera txarreakin** (13); **oso modu txarreakin** (6); **toki txarreakin** (9); **une txarreakin** (7); **zentzu txarreakin** (6)

grina txarrei (8); **tratu txarrei** (22)

emaitza txarrek (14); **tratu txarrek** (9)

tratu txarreakin (6)

asmo txarreko (9); **esker txarreko** (45); **fama txarreko** (11); **gustu txarreko** (18); **itxura txarreko** (12); **kalitate txarreko** (6); **parte txarreko** (32); **susmo txarreko** (9); **umore txarreko** (7); **usain txarreko** (7); **zorte txarreko** (11); **zorte txarreko gizona** (6)

adur txarrekoa (7); **esker txarrekoa** (21); **gustu txarrekoa** (14); **jenio txarrekoa** (7); **parte txarrekoa** (16)

esker txarrekoak (9); **gustu txarrekoak** (7)

berri txarren (9); **emaitza txarren** (13); **grina txarren** (12); **jasandako tratu txarren** (8); **susmo txarren** (6); **tratu txarren** (133); **tratu txarren berri** (11); **tratu txarren inguruko** (9); **tratu txarren ondorioz** (11)

bolada txarrena (6); **da txarrena** (18); **egunik txarrena** (8); **eta txarrena** (27); **eta txarrena da** (6); **gauzarik txarrena** (14); **horixe da txarrena** (6); **onena eta txarrena** (9); **parterik txarrena** (6); **partidarik txarrena** (8); **txarrena da** (36); **txarrena egin** (8); **txarrena egiteko** (6); **txarrena ere** (9); **txarrena ez** (11); **txarrena izan** (14); **txarrena zen** (6); **unerik txarrena** (10)

unerik txarrenean (12)

tratu txarregatik (24)

egoerak txarrena egin (8)

onerako ala txarrerako (11); **onerako edo txarrerako** (33); **onerako eta txarrerako** (31); **onerako nahiz txarrerako** (15); **onerako zein txarrerako** (26); **txarrerako izan** (7)

baldintza txarretan (16); **une txarretan** (6)

bide txarretik (16)

aldarte txarrez (8); **asmo txarrez** (37); **begi txarrez** (55); **begi txarrez ikusi** (6); **begi txarrez ikusiko** (7); **begi txarrez ikusten** (27); **etsenplu txarrez** (7); **fede txarrez** (11); **gogo txarrez** (67); **susmo txarrez** (25); **tratu txarrez** (7); **umore txarrez** (33)

asmo txarrik (28); **asmo txarrik gabe** (6); **berri txarrik** (6); **deus txarrik** (19); **ezer txarrik** (68); **ezer txarrik egin** (13); **ezer txarrik gertatu** (8); **itxura txarrik** (9); **ondorio txarrik** (15); **onik ez txarrik** (7); **susmo txarrik** (51); **susmo txarrik ez** (10); **susmo txarrik har** (6); **susmo txarrik hartu** (8); **tratu txarrik** (22); **zer du txarrik** (6)

txartzat hartu (10); **txartzat jo** (19); **txartzat jo zuen** (6); **txartzat jotzen** (6)

txara (*orobat xara*) 1 iz mediterranear aldeko zuhaixka erretxinatsua, hosto likatsu iletsuak eta lore handi zuriak dituena; txara-eremua.

Pasa zaitez **txaretatik**, zelaietatik, soroetatik, basoetatik, mendietatik, herrietatik. **Juan Luis Zabala**

Txara, erroitz eta oihan arteko jarraitu zion, ezagutzen ez zituen basoetatik igaroz. **Josu Zabaleta**

Txarak eta sasiak, horra lur idor-antzu honek ematen duen guztia. **Xabier Montoia**

Babestu ahal izateko egontokirik ez zegoenez, **txara** tapitu batean sartu zen. **Askoren artean**

Inongo gailurretara igo gabe, herri batetik besterako bidea egiten nuen, mendizalerik gabeko bide galduetan barrena maizenik, **txara** sasiz betetakoetan galtzak urratzeko beldurrik gabe. **Juan Luis Zabala**

Sbarúa delakoa sasiz eta **txaraz** lazturiko muino apal batetik ehun bat metro nabarmentzen den granitozko prisma bat da. **Juan Garzia**

Sasipe ilunak **txaraz** eta otez! **Patziku Perurena**

Arin--arin erantzi ziren **txara** artean, eta biluzik egin zuten jauzi uretara. **Josu Zabaleta**

Urrats ernean zebilen, eta **xara** tipi bateko xendran desagertu zen. Elena Touyarou

2 (hitz elkartuetan)

Haritz **xara** baten itzalean patar bat iraganik, Villei herrixkan gara. Piarres Aintziart

txarada iz hitz batzuen silabak konbinatuz beste hitz bat asmatzean datzen denbora-pasa.

Txaradetan jolasten bazuten, Rosek soinekoak egiten zituen; dena egiten zuen; mahaiak, loreak eta gainerakoak prestatzea gustatzen zitzaion gehien. Anton Garikano

txaradi (orobat *xaradi g.er.*) iz txara-eremua.

Basora ez bada, aterako gara **txaradira**. Jokin Urain

Baserri inguruko soro, belaze, ordeka xabal, pendizetako **txaradi**, zuhaitz gaxte eta berriei. Pello Zabala

Txaradiko hosto-hotsa entzun nuen, gero adar-kraskatzearena, eta ondoren esku-zartada moduko bat, animaliarenean palastada, noski, guk ikusten ez genuen putzuren batean. Joxe Austin Arrieta

Eszer eta eskuin, arbola ttipi pollitak eta laster behi edo zaldi aterpe zahar baten ondotik, **xaradi** bat, zernahi zuhaixka sistakor elkarri lotuak daudela. Piarres Aintziart

Gar bizian ari da gaiztakeria, sua sasi eta lahar artean bezala; hartuak ditu denak, suak **txaradia** bezala. Elizen arteko biblia

txaraina iz *adkor* ertzaina.

Hercules Poirot edo **txaraina** izan beharrik ez dago burtsaren ezaugarria egongoaitasuna dela ohartzeko. Berria - Ekonomia

txaraka iz txara.

Ikasle ongi ikasien gisara, inoren agindurik gabe barreiatu dira nor bere alde, harri eta **txaraka** xumeek ematen duten babes xuhurrera. Aingeru Epaltza

Gero, basoa berritri, **txaraka** eta akaziak. Joseba Sarrionandia

Basotik irteeran, bi anaiak, pausoa eman behar duten bidezidorra bezala inguruko pendoitz, haizarte, **txaraka** eta dena argiroago ikusten hasi dira, iluna basoko zuhaitz meharren errua bailitzan. Pako Aristi

txaranbelari ik *xaramelari*.

txaranda iz ergela, txotxoloa.

Saldual, malgorra!, **txaranda**! Anjel Lertxundi

txaranga (orobat *txarranga g.er.* eta *xaranga g.er.*) iz haize musika-tresnazko talde txikia, kalez kale ibiltzen dena. ik fanfarre.

Txaranga jotzen ari zen. Koro Navarro

Ohiko **txarangak** jotako musika sarkor eta alaia, haizez egina eta haizetara bihurtua, Pariseko haize heze eta hotzetara joana. Felipe Juaristi

Tronpeta eta platilozko **txaranga** batek egiten du zapart plaza nagusian. Koldo Izagirre

Partidan zehar **txarangen** soinuak bazterrak alaitu zituen. Berria - Kirola

4 orenetan ibilaldi animatua (**txaranga**, triki, gaitero,...) herriko karraketan. Herria

7-ak aldean, mutxikoak Beñat Elizondo eta Ezpeletako **txaranga**. Herria

Atxilotu edo ihes egindako askoren andreak ilea arraso moztuta pasearazi zituzten Estafetan zehar, atzean **txaranga** zutela. Berria - Harian

Nafarroako Gorteak eta San Inazio kaleak zeharkatu zituzten partehartzaileek, joaldunen hotsak eta **txaranga** baten musikak lagun. Berria - Euskal Herria

Hoteleko korridore hezeetan zehar estropozuka atera ziren **txaranga** bezain zalapartatsu ziren kale haietara. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ezpela txaranga (3); ezpeletako txaranga (5); kuxkuxtu txaranga (14); txaranga eta gaiteroak (3); uztaritzeko txaranga (12)

ezpeletako txarangak (5); kuxkuxtu txarangak (7); txarangak alaiturik (3); uztaritzeko txarangak (11); uztaritzeko txarangak lagundurik (3)

ezpela txarangarekin (3); ezpeletako txarangarekin (3); uztaritzeko txarangarekin (5)

txarangaren laguntzarekin (3)

txarangaño iz txaranga txikia.

Mikel Urdangarin eta Kepa Junkera-k beren talendu nasaiena agertu dute, Berako **txarangaño** batek ere ba ondotik, eta bakan izaiten dira holako besta ederrak, hoin kartsuak eta hoin herrikoiak! Herria

txardade iz txartasuna.

Baina, garizuma, beste zenbait esalditan ostirala bezala, neguko eta udaberri leheneko penaketa eta ezinen **txardadearekin** lotuta ageri da. Pello Zabala

txardango ik *sardango*.

txardantxilo iz

Txakurra, **txardantxiloa** eta zaldia. J.M. Olaizola "Txiliku"

txardin ik **sardina**.

txardina ik **sardina**.

txari *iz* egurraz mintzatuz punta mehea.

Alkarren aurrez-aur egozala, egur-**txaria** batek ezeutsan bada atsoari gona-magala tarrat eginda urratu? **Pello Zabala**

txarkeria 1 *iz* *adkor* gaiztakeria. ik **txartasun**.

Kontuz gaiztoarekin, **txarkeria** baitu egitasmo. **Elizen arteko biblia**

Zuzengabekeriak, **txarkeriaz**, diru-gosez eta gaiztakeriaz josiak daude. **Elizen arteko biblia**

Bota itzazu kanpora beren **txarkeria** neurrigabeagatik, zure aurka jaiki baitira. **Elizen arteko biblia**

Hainbeste **txarkeria** egin zioten irakasleari non ihes egin zuen. **Koro Navarro**

Zintzoa, bere justiziatik aldendu, **txarkeria** egin eta hiltzen denean, egin duen **txarkeriagatik** hiltzen da. **Elizen arteko biblia**

Horrexenbesteko **txarkeriak** eragin ditu erlijioak. **Xabier Amuriza**

Zigortu egingo ditut beren **txarkeria** guztiengatik, ni baztertzuz, jainko arrotzei intsentsua erre baitiete. **Elizen arteko biblia**

2 (hitz elkartuetan)

Txarkeria asmorik gabe, familia ez baitzen inoiz itzuliko [...] McNab andrea makurtu eta lorexorta bildu zuen bere etxera eramateko. **Anton Garikano**

Denek ezagutzen baitute giza **txarkeria** eta esperientziak baitakite zein gutxi betetzen duten agindutakoa zigorra kentzen denean. **Esteban Antxustegi**

txarki *adlag* *adkor* gaizki. ik **txarto**.

Dena egiten nuen **txarki**. **Jesus Mari Mendizabal**

Nire txanda heltzean, **txarki** moldatu nintzen eta izugarritzko mina hartu nuen. **Jesus Mari Mendizabal**

Nekez pentsa zitekeen horren **txarki** kudea zitekeenik horren ondare baliotsua. **Berria - Kultura**

Izoko **txarki** zegoela. **Alberto Barandiaren**

Dioenez, ez luke **txarki** ikusiko hainbat alderdiren arteko akordioa. **Berria - Euskal Herria**

Marrubi urrina zuen haren zapi **txarki** lotuak. **Karlos Zabala**

txarkuteria (**6** *agerraldi*, **3** *liburutan*; *orobat* **xarkuteria 2** *agerraldi 2* *artikulutan*) **1** *iz* hestebete eta txerriki denda. ik **urdaitegi**.

Egun batean saltxitxa batzuk ikusi nituen **txarkuteria** baten erakusleihoan. **Joseba Urteaga**

Ez harakinek bakarrik, baita **txarkuteria** eta urdaitegiak langileek eta txerrizainek ere. **Pello Zabala**

2 hestebeteen industria.

Egungo **txarkuterian**, adibidez, urdearen ordeaz, oilaskoa, indioilarra eta tankerakoak baliatzen dira produktu klasiko eguneratuak moldatzeko. **Edorta Agirre**

3 txarkuteriako produktu sorta.

Afaria: **xarkuteria** hasteko eta gero bakalaua Bizkaiko moduan, gasna eta bixkotxa kafearekin bukatzeko. **Herria**

Denda espezializatua: jenero-mota bat edo bakarren bat **txarkuteria**, gozokiak, itsaski eta arraina, okindegia, ardoa eta kontserbak, begetarianoa), baina kalitatea edo prestigioa helburu, marka, tamaina eta formatu askotakoa. **Edorta Agirre**

Barazki eta **xarkuteria** platera. **Herria**

txarkutero *iz* hestebeteak egiten eta saltzen dituen pertsona.

Legeak ekoizleei (eta, hein apalago batean, transformatzaileei: sukaldari, **txarkutero**, okin, saltzaile berezi batzuk, etc.) orain higiene-neurri zorrotzak betearazten dizkien arren, sektore asko "ahantzita" daude. **Edorta Agirre**

txarla *iz* hizketaldia.

Mar-36k badaki 'sexua' esan nahi zuela; gero kariñoa eta **txarla** piska bat, sortzen badira. **Pako Aristi**

Eguneroko jardunetik kantineko **txarlara** doanak bezala. **Berria - Kultura**

txarleston ik **charleston**

txarol *iz* berniz oso distiratsua eta iraunkorra; berniz hori ezarri zaion larrua.

Eskularruak, orraziak, bizar labanak, zetazko galtzerdiak, harizko zapiak, txirla-maskorrezko botoiak, Hungariako katu larruak, **txarola**, sakarina... **Pablo Sastre**

Gain baten gainean eserita zegoen, alkandora zuri eta **txarolezko** zapata beltzekin. **Bernardo Atxaga**

Gona [...] dantzari baten gona bezala harrotzen zen, eta bai galtzerdi zuri zuzatuak bai **txarolezko** oinetako urdin-argiak ikusten uzten zituen. **Karlos Zabala**

Txarolezko zapata gorriak zeramatzan. **Juan Martin Elexpuru**

Txarolezko zapata arrakalatu baten puntaz zeraman konpasa. **Lopez de Arana**

Kalezain bati deitu zion -mutil gazte eta bizia bera, **txarolezko** bota luzez jantzia-. **Jose Morales**

Txarolezko bisera apurtu bat, whisky-usain arina isurtzen zuen musu estu baten goialdean ezarria. **Lopez de Arana**

Lau guardia zibil agertu ziren ia berehala bunker sarreratik kapote berdea, **txarolezko** buruko beltza eta besapean fusil bana zekartela. **Joseba Sarrionandia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txarolezko zapata (3)

txarolatu, txarola(tu), txarolatzen 1 du *ad* txarol geruza ezarri. ik txaroleztatu.

Egun batean nagusiak agindu zion Bilintxi beste batekin komoda **txarolatu** zezatela. Iñaki Arranz

2 (era burutua izenondo gisa)

Kanpoan hainbeste ordu pasatu ondoren, beren distira galdua zuten haren oinetako **txarolatuek**. Jon Muñoz

Charronek ez zuen frackik soinean, *cutaway* bioleta bat baizik, eta sedazko alkandora arrosa zurbila, eta oinetan eskarpin **txarolatuak**. Matías Múgica

Moketa sendo batek estaltzen zuen zoru osoa, idazkari emakumezkoen takoi altu eta **txarolatu**en hots zorrotz eta biribilak apaltzeko. Iñaki Zabaleta

txaroldun *iz* adkor guardia zibila.

Txaroldunen zizpen su biziak bete-betean jo eta zerraldo erori zen Miel. Joxemari Urteaga

Ez zuten laguntzeko aukerarik izan, atzetik baitzituzten **txaroldunak**, ia bertan. Joxemari Urteaga

txaroleztatu *izond* txarolatua.

Kolore argiko soinekoak daramatzaten emakumeak daude, aurreko udaberriko jantziak soinean; luze eta zuri iragaten dira, antxume larruzko eskularru **txaroleztatu**en gisa.

Monika Etxebarria

txarpil (*orobat txarpila*) *izond* ipar zarpaila.

Joanesek ez zuen xuxen jakin ea, halako batez, atorra-beso puntarekin edo zerekin, zaindari **txarpil** haren eskua perekatu zuen ala ez. Eneko Bidegain

Tirano saldo haien aitzinean makurtu ez zenari afruntu egitea litzateke senar **txarpil** handi-uste baten peko bizitzea. Eneko Bidegain

Eta baserritarrari erosi porru **txarpila** heiek aldiz gaitzeko gustu ona! Herría

Umiliatzen zuten, mutikoak, etsamin **txarpil** bat edo beste erreusitu zuela harro zirela ez zezan sinets. Itxaro Borda

Partida **txarpila** astelehenean. Herría

Bruma adarraren parrera iristean susmatu bezala gertatu zen: kea zeriola, su **txarpil** bat agertu zitzaigun, itzalaren aztarnarik ez baina lur ustel urrinda ordea bai. Itxaro Borda

txarpoil *iz* kuminoa.

Garagardoa zurrutada batean edan eta **txarpoil**-hazi bat eskatu zuen gizonak. Irene Aldasoro

txarpot *iz* ezkaia.

-Oker ez banago, arbazta-estalki horretatik, badator alde honetatik halako hats usaina eta ez **txarpot**-ihiena; urdai frijitu-usaina da noski. Patxi Ezkiaga

txarraldi 1 *iz* gauzak txartzten diren aldia.

Igande gauerako zetorren [eguaraldiaren] **txarraldia**, baina pixka bat atzeratuta iritsi da. Berria - Harian

Jainkoaren nahiera makurtzen dena, nahiz onaldian nahiz **txarraldian**. Joan Mari Lekuona

Ohar beza, esan ohi dena, **txarraldia** aldarazten duela bihotzeko adorea. Patxi Ezkiaga

Norbait onaldian denean, nahigabetu egiten dira etsaiak; **txarraldian**, adiskideak ere alde egiten. Elizen arteko biblia

Jainkoaren nahiera makurtzen dena, nahiz onaldian nahiz **txarraldian**, konfiantza apalean iraunez. Joan Mari Lekuona

2 gorputzeko ondoeza.

Zigarroari zupada eman eta **txarraldia** sartu zaio. Alberto Barandiaren

txarranga ik txaranga.

txarrangil *iz* belar landarea, gozagarri gisa erabiltzen diren ginbail lore txiki zurixkak edo gorrixkak dituen. (*Coriandrum sativum*)

Txarrangil-haziaren itxurakoa zen mana, erretxina-kolorekoa. Elizen arteko biblia

Zuria zen [mana], **txarrangil**-haziaren itxurakoa eta ezti-opilaren gustukoa. Elizen arteko biblia

txarranka *iz* txerri hanka.

Ardoa edan bai, galanki, **txarranka** pareta egoki laguntzeko. Txillardegí

Pelloreneko barran tartetxo bat lortzeko bultzaka ibili ondoren, **txarranka** pare bat jan dut txakolinaz. Txillardegí

txarranpin (*orobat xarranpin*) *iz* larruazalean agertzen diren gorrigune ugariak ezuagarri dituen eritasun kutsakorra. ik elgorri.

Zereko **txarranpinak** heldu zionetik. Juan Garzia

Haietarik batek, zeinak baitzuen bisaia pikor gorritz pikadaturik, **xarranpinak** joa balego bezala, erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

txarrantxa 1 *iz* alanbre puntaduna; alanbre puntaduneko egitura.

Txarrantxa hori dozena bat pertsona lotzeko soka gisara erabiltzen ari direla ohartu denean apartatu egin ditu begiak. Harkaitz Cano

Soroak babesten dituen **txarrantxa** eta honen ondoan hazi diren belar luzeak dituzte eskuinean. Pello Lizarralde

Txarrantxa gainetik pasa behar izan dira bi ibiltariak haranera iragateko. Pello Lizarralde

Bi metro garai den hesi batez dago inguratuta, goiko aldean **txarrantxa** duela. Pako Arana
Atarietan **txarrantxa** dago bebarruko atearen gaineko hutsuneak estaltzeko, handik sailuruetara pasa ez daitezen. Pako Aristi
Errausteko labetan ez omen zitean sartzen ikusi, **txarrantxa** elektrifikatueta ere ez genian atzeman, tiro hotsik ez zian inork sumatu. Koldo Izagirre
Muinoaren atzean zeuden mugako **txarrantxak** imajinatu nituen, eta beste familia bat handik igarotzen, guk lehentxeago egin genuen bezalaxe. Juan Kruz Igerabide
Txarrantxaren lerroa bukatuta haraneko ordoki belartsura irten dira. Pello Lizarralde
Urbanizazioko etheen itxura berekoa da eskola: eraikuntza apal bat [...] hautsez betetako lur zati karratu batean eraikia eta **txarrantxaz** hesitua. Oskar Arana
Goitik albo banatara leiho itxurako zabalune bi zeuzkan, kontu handiz **txarrantxaz** estalita. Urtzi Urrutikoetxea
Barrakoiaren atzetik **txarrantxazko** hesiraino zabaltzen zen espazio itxitik zehar paseatzera ateratzen ziren. Felipe Juaristi
Lager-ak eremu itxiak ziren, harresiz eta **txarrantxazko** hesi elektriko inguratuak. Urtzi Urrutikoetxea
Gure baratzean behera joan, eta hesiaren **txarrantxaren** azpitik igaro nintzen. Juan Kruz Igerabide
Makurka hurreratu natzaie, etsaien lerroetan sabotaiak egitearren **txarrantxapetik** narrastan nintzen moduan. Koldo Izagirre
Itsasoan libre daukagu larre osoa, zergatik langak eta itxiturak lurrian, mundua denon baratze handia da, ken ditzagun hesiak eta **txarrantxak**, itsasoa arrantzaleena, lurra nekazariena. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi soldadu txirrika batean bildutako **txarrantxa**-haria askatzen ari dira, auskalo zer hesitzeko asmotan. Harkaitz Cano
Imre Kertész Nobel Saridun berriak **txarrantxa**-alanbrez eta zaintza-dorrez inguratutako oroitzapenen artean idazten duen bezala. Hasier Etxeberria
Ordurako ezaguna genuen **txarrantxa**-hesia, baina harriduraz jakin dut elektrifikatuta dagoela. Urtzi Urrutikoetxea
Txarrantxa hesi bat saltatu genuen eta, belardia lasterka gurutzatuta, pinudian sartu. Jon Maia
Txarrantxa lerroak baino ez zituen ikusten hizkiak eta hitzak behar, eta lubakietako kedarra eta sua, leherketak eta lehergaiuek egindako zuloak. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hari hura, ibilitako bideetan tratatua, hemen pena batean, hurrena poz txiki bati, han adar batean, hurrengo esku bati, hesi **txarrantxetan**, hari luze hura. Jon Maia

4 lihoa orraztu eta garbitzeko lanabesa, alanbrezko hortzak dituen eskuila.

Zelai eta barrutietan, harrizko hesiak eta langak baztertu gabe arantzazko hesiak jartzen hasi zirenean txarrantxa deitu zioten itxitura hari, benetako **txarrantxa**-ardiaren ilea harrotzeko, artilea egiteko esango genuke, erabiltzen zen punta zorrotz ugari tresna- kardu arantzatsu baten itxurako batean bezala -horra hor beste metafora bat- ardiek han uzten zituztelako euren ileak. J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txarrantxazko hesiaren (3)

txarrantxadun 1 *izond* txarrantxa duena.

errealitate gordin eta pisua, argirik gabeko izua, zorabioa, zentzumenak lizuntzen dituen irudia, gogoia hesidura **txarrantxadunez** mugatzen duen lotsa. Felipe Juaristi

2 irud/hed

Tabernara gindoazela galdera **txarrantxaduna** egin zidan, "Ezagun batzuek galdetzen zidatek noizean behin semeaz, zertan egiten duen lan...". Koldo Izagirre

txarrantxatu, txarrantxa(tu), txarrantzatzen 1 du *ad* txarrantxarekin orraztu eta garbitu.

Sei egun dituzu egin ahalean lan egiteko, bat ontziganina lixatu eta sokak **txarrantxatzeko**. Xabier Olarra

2 (era burutua izenondo gisa)

Honela dio, bada, kondairak, bere hari **txarrantxatu**, bihurritu eta matazatuari jarraituz: [...]. Patxi Ezkiaga

txarrastada *iz* zurrustada. ik *xarrastada*.

Gero basoerdia eraman du ahora; nik uste, **txarrastada** bat edateko baino mingaina eta ahozerua, eztarriarekin batean, bustitzeko eta mugiarazteko; "lijertzeko", esango luke berak. Pako Aristi

txarratela *iz* militarren uniformeko apaingarria, pala modukoa, parpailduna, besaburua estaltzen duena.

Besaburuek, non lits ugari **txarratelak** eraman baitzituen garai batean, dar-dar egiten zuten, une horretan lits ugari **txarratelak** eramango balitu bezala. Jose Morales

· Domina eta **txarratela** ugari bularreko ezkerrean eta bi eskuak ondo okupatuak. J.M. Olaizola "Txiliku"

txarretsi, txarrets, txarresten du *ad* txartzat jo. ik *gaitzetsi*.

Atzo, ez gora ez behera, lau samar mugitu ziren indizeak, inork lehen kontratuarena onetsi edo **txarretsi** ez balu bezala. Berria - Ekonomia

On Camillo ere badago zure kontra eta **txarresten** du egin zenuena. Koldo Biguri

Sozialistek alderdikideen ekimena goraiatu zuten eta PPK **txarretsi** egin zuen. Berria - Euskal Herria

Etxe barruan ere izan du Garzonek haren ekinbideak **txarretsi** eta «gehiegikeriatzat» jo dituenik. Berria - Harian

Elkarretaratzea ingo dute gaur azoka egunean jazotakoak **txarresteko**. Berria - Euskal Herria

Espekulazioak **txarretsi** eta hedabideei arduraz jokatzeko eskatu die. Berria - Euskal Herria

«Beste asko» Madrilen eta Euskal Herrian gezurretan aritu zirela **txarretsi** zuen. Berria - Harian

Jaurlaritzaren aurrekontuek superabita helburu dutela **txarretsi** zuen Txomin Lorcak ere. Berria - Euskal Herria

Iztuetak gogor **txarretsi** zuen gainera «PP-PSOE koalizioak» auzi horretan izan duen portaera. Berria - Harian

Estrellak gogor **txarretsi** ditu Jean Grenet Baionako alkateak egindako adierazpenak. Berria - Harian

PSOEn eta EAJren jarrera gogor **txarretsi** dute: «Bake prozesua tratatu baino ez dute egiten». Berria - Euskal Herria

«Konstituzioa aloratu eta Estatuaren arkitektura guztia suntsitzen du», **txarretsi** zuen Raxoik. Berria - Harian

«Ez du ekarpen berririk egiten», **txarretsi** du. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gogor txarretsi (5); **indarkeria txarretsi** (3); **jarrera txarretsi** (12); **jarrera txarretsi zuen** (4)

txarri ik txerri.

txarriboda iz txerria hiltzea.

Niri, 7-8 urte nituela eman zidaten konfirmazio hura, eta mesede galanta egin zidaten, hartara ez nuen halako zirriparra eta **txarribodetan** parte hartu behar, eta aldi berean libratu egiten nuen ama, egingo ez nuela esanez gero emango nikeen atsekabetik. *Bostak eta iluna, txerria hiltzeko eguna*, dio beste batek, **txarribodekin** ametsetan.

Xabier Mendiguren Elizegi

Txarribodetako kontuak ere ilbehera du maite: *Txarria hiltzeko egun txarra da Ilbarria*. Pello Zabala

txarrikeria ik txerrikeria.

txarrikorta ik txerri 10.

txarrikume ik txerrikume.

txarrimutur ik txerri 12.

txarritoki ik txerritoki.

txarro 1 iz pitxerra.

Toldoepan, hiru gazte mahai baten bueltan, zerbeza **txarrotik** edalontzietara ateratzen. Iñigo Aranbarri

Sukaldera lehiatu zen ur beroa jartzeko **txarro** batekin. Juan Garzia

Hegoaldera ematen zuen [gela] bat egokitu zitzaigun, eta bertan bi oharka eta komoda bat, bere palangana eta **txarroarekin**, zilarrezkoak biak. Juan Garzia

Logetetara sartuz, hemen pitxerra eta antoisina irentsiz, hor dalia gorri-horien **txarroa**, han komodaren ertz zorrotzak eta gorputz sendoa. Anton Garikano

Pitxerdiko **txarro** ilunetatik ari ziren laurak edaten. Koro Navarro

Baita buztinezko **txarro** bat eta beirazko ontzi bat ere, mahai gainean. Joan Mari Irigoien

Hainbat **txarro** apaingarri, etxean eskuz landutakoak. Mirentxu Larrañaga

2 txarroaren edukia. ik txarrokada.

Txarro bat ur eskaintzera kupitu zen, eta, freskatuagoa izateagatik putzu barrenetik aterata ekarri zion. Patxi Ezkiaga

Nire ondoan, **txarro** bat kafe. Juan Garzia

Cardinalek **txarro** bat ardo eta edontzi batzuk ipini zituen mahai gainean. Lopez de Arana

Ea, hoa Vaughan-enera eta ekardak **txarro** bat pattar. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Diogenes Laerziok irakasten digu Aristotelesek olio beroz beteriko larruzko poltsa bat eramaten zuela urdailaren gainean, eta, hil ondoren, lurrezko **txarro** pila aurkitu zutela haren etxean. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Edari sendoago bat hartu nahi nuen galdetu zidan mahai gaineo ur **txarroari** begira. Bernardo Atxaga

Ingalaterratik ekarri zuen garagardo **txarroaren** eta aitaren mus txapelketetako oroigarrien atzean. Iban Zaldúa

Bat-batean kortan zeuden zahagiez oroiturik, olio **txarroa** hartu, eta hara inguratu zen. Patxi Zubizarreta

Garbitzen eta irakiten zituztenean aurreko udako kontserba-**txarroak**. Anton Garikano

Irribarre ere egiten zuten -eskua jela-**txarroan** harrapatutako umea bezala-. Anton Garikano

Esku-**txarroak** askotariko moduz zulaturik zeuden eta jariatzean mira sortzen zuten ur koloreztatuz beterik. Juan Garzia

txarroan izond/iz txarroa daramana.

Etorri zen halako batean andereño **txarroan** eta hartan bukatu zen Don Kijoteren garbiketa. Ur bila joateko esan zion **txarroan**. Patxi Ezkiaga

txarrokada iz txarroaren edukia.

Ez dago janaririk gordetzeko, baina Sethek dio **txarrokada** bete melaza edo kanaberazko siropa lortuko duela, eta ogi pixka bat ere bai, joateko ordua hurbiltzen denean.

Anton Garikano

txartasun iz txarra denaren nolakotasuna.

Teologoen lana da zuzenaren eta ez-zuzenaren arteko mugak zehaztea, eta ekintzaren berezko ontasuna edo **txartasuna** erabakitzea. Juan Martin Elexpuru

Kritikan (propagandan?) dihardutenek honako honen moduko liburuen gainean jardun barik, txar irizitakoek nork du eskua, bestalde, **txartasunaz** berba egin ahal izateko?

Berria - Kultura

Gizakia gaitzaren beraren muina da, **txartasun** gauzatua; metafisikak berak darabilen gaitz abstraktua ez da, antza, pertsona bezain ankerra. Berria - Kultura

txartatu iz

Bisigu sendoak gorrinin puntu batez tindatzen ziren; eta, bitartean, berdel urrekarek, bizkarra **txartatu** berdexkez ildaskatuta, beren saihestetako nakar aldakorrari distirarazten zioten. Karlos Zabala

txartel (*orbat txartel g.er.* **1 iz paper, kartoi edo plastiko zatia, gehienetan lauki formakoa, informazio jakin bat daramana edo erabilera jakin bat duena.**

Ez ziren bi gizon itzaltsuak, postaria baizik, gutun bat eta **txartel** bat zekartzana. **Anton Garikano**

Zaintzaile igo zen, **txartela** zulatu, eta kalera atera zen berriro. **Xabier Olarra**

Txartelaren ifrentzuarri so egin nion: azken ikuskaketaren data zekarren, 1944ko urtarrilaren 4^a. **Juan Garzia**

Txartelei data jartzeko makina. **Fernando Rey**

Atearen kanpoaldean, maritatilik esekia, **txartel** hau zegoen: DO NOT DISTURB - BITTE NICHT STÖREN - NO MOLESTEN POR FAVOR. **Patxi Zubizarreta**

Argazki dendako ateari giltza eman eta "itxita" **txartela** bistan jarri zuen Justo Badiolak. **Joxemari Urteaga**

Anjel Maiza naiz -**txartel** bat luzatu zion-, detektibe pribatua. **Migel Angel Mintegi**

Emakumeak **txartel** bat luzatu zidan: "Elena Duvrescu" jartzen zuen bertan, eta azpian, eskuinaldean, sakelako baten zenbakia. **Iban Zaldúa**

Saskia paketeak biltzeko paper marroi zabal batez estalita zegoen, eta **txartel** bat zuen erantsita. **Josu Zabaleta**

Jarri egik **txartel** bat paparrean "ni naiz bila ari zaren hori! dioena. **Unai Iturriaga**

Txartelak saltzeko leihatila itxiko kristalari erantsita, **txartelak** trenean saltzen zituztela gaztigatzen zuen oharra. **Anjel Lertxundi**

Txartel-ikuskatzaileak esan zion bigarren klaseko **txartela** zela hura. **Josu Zabaleta**

Bankuko **txartelak** erabiliz. **Antton Olano**

Eskudiruak koadratzen du, balantzeak koadratzen du, eta **txartelek** ere bai. **Xabier Olarra**

Txartelarekin ordaintzen dut, ez daukat diru espainiar gehiegirik. **Mikel Hernandez Abaitua**

Hagridek [...] Harryri eman zizkion billeteak **txartelak** erosteko. **Iñaki Mendiguren**

Operarako **txartelak** erosiko ditut eta gau soineko beltzez jantziko naiz. **Iñaki Zabaleta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Produktu bakoitzaren ondoan, **txartel** handi bat gomendaturiko adin tartereekin, salneurriarekin (pezetatan eta eurotan) eta niretzat esanahi erabat iluneko sinboloekin.

Txartel horia, futboleko bezala. **Iban Zaldúa**

Paper eta arrazionamendu **txartel** faltsuak marrazteko. **Itxaro Borda**

-Eta segurtasun sozialaren **txartel** berdea? **Iñaki Zabaleta**

Billete bat makina banatzaile batean sartu eta **txartel** magnetiko bat jaso nuen. **Joxan Elozegi**

Txartel berriek betiko banda magnetikoa izango dute, baina baita txipa ere. **Berria - Harian**

Parisen, Eiffel dorrea Europako kolorez jantzi, eta metroko **txartel** bereziak inprimatu zituzten. **Berria - Mundua**

Abra akuarioa, Zubi Esekia eta Itsas Museoa bisitatzeko **txartel** bateratua sortu dute. **Berria - Kultura**

Habanara iritsi ginenean Kuban oso maiz ikusten diren **txartel** argibide-emaile horietako bat ikusi nuen bidegurutze batean. **Jon Muñoz**

Itxura gotorreko ateari izaltutako **txartel** metalezkoak honela zioen: *Anjel Urtxipia*. Bere opari eta urtebetetzeko **txartel** guztiak bildu eta oholaren azpian gorde zituen eskolako lanarekin batera. **Aingeru Epaltza**

Keinu bizkor batez sartu zuen patrikan, ezkutuko **txartel** emateetara ohituta zegoen esku batez. **Josu Zabaleta**

-Zer nahiago duzu: hamar saiotarako **txartel** bat, ala urtekoa? **Jon Muñoz**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kartulinazko **txartel**-bilgo bat atera zuen. Hiruzpalau geltoki huts igaro zituzten eta **txartel**-ikuskatzailea sartu zen. **Irene Aldasoro**

Emakume betaurrekodun bat eta **txartel**-zulatzailea igo ziren nirekin batera. **Anjel Lertxundi**

Zergatik esan zidan **txartel**-saltzaileak [...] bidaia on bat izan nezala, ez baninduen ezagutzen? **Karlos Linazasoro**

Indar ezkutu eta misterioitsu batez goarazten du **txartel**-leihatila bateko edo besteko sarreraren prezioa. **Lopez de Arana**

Metrora sartzeko **txartel**-langan trabatuta geratu zen. **Iñaki Mendiguren**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behin posta-**txartel** bat bidali zidaten Barranquillatik, baina ez zegoen idazkera ulertzetik. **Javi Cillero**

Azken urtean Milanera bitan joan zela adierazten zuten bi tren-**txartel**. **Anjel Lertxundi**

Alde egiten duela ziurtatzeko, autobus-**txartel** bat erosi zionat. **Xabier Paya**

Donostian izan nindunan eta bi hegazkin **txartel** zeuzkanat. **Harkaitz Cano**

Hainbat denboran karteran eramandako aurkezpen-**txartel** hura etorri zitzaion burura Lázló-ri. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Sendagileak bisita **txartel** bat jarri zion eskuetan, eta esan zion: [...]. **Josu Zabaleta**

12 urte luzez, 1922tik 1934ra, nota-**txartel** denak Arantzazutik, bertako datu meteorologikoekin bidaliak dira. **Pello Zabala**

Nortasun **txartel** berriak eman behar dizkiete holandar guztiei. **Josu Zabaleta**

Hilversum-eko udalak identifikazio **txartel** berriak banatu behar ditu biztanleen artean janari errazionamendurako. **Josu Zabaleta**

Errazionamendu **txartelak** ere ezkutuan erosten ditugu. **Josu Zabaleta**

Artxibategitik, Melanie Isaacs-en matrikulazio-**txartela** ateratzen du eta haren datu pertsonalak kopiatzen ditu. **Oskar Arana**

Milaka kreditu **txartel** bikoiztu dituzte Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako kutzazainetan. **Berria - Harian**

Amak belarritakoak eta bi loteria-**txartel** gorde dituen kutxatila giltza duk. **Anton Garikano**

Gauza ziurra da behea jo zuela ondarez, Herri Ogasuneko diru-**txartelen** "kupoia ebakitzen ez zuelako". **Juan Garzia**

Propaganda eta boto-**txartelak** bidali zituzten etxe guztietara. **Rafa Egiguren**

Patroi batzuek, lukurrerik jota, gero eta diru gehiago eskatzen zuten bidaia-**txartelagatik**. **Anjel Lertxundi**

Hotelera, zezenetara joateko sarrera-**txartelen** bila baino ez zen joan. **Edorta Jimenez**

Urte-bukaera hartan ere moja batek bidalitako urteroko zorian-**txartela** jaso zuen Adak. **Anjel Lertxundi**

Irakurle-**txartela** atera zuen, eta argazkiari begiratu. **Jon Muñoz**

Lortu dutena da gazte egina dela dakien gazte bakoitzaren patrikan Gazte-**txartel** bana sartzea. **Iñaki Segurola**

Asko etortzen naiz eta VIP **txartel** bat egin didate. **Harkaitz Cano**

Ekainetik aurrera europarrek Europako Osasun **Txartela** eskuratu ahal izango dute. **Berria - Gaiak**

5 irud/hed

On egin zidan eritasunari **txartel** bat jarri ahal izateak. **Xabier Olarra**

6 norbaiti bidaltzen zaion idazki laburra.

Ginny Weasley, lotsaz gorri-gorri eginda, berak egindako **txartel** batekin joan zitzaion, "azkar sendatzea opa dizut" zioena. **Iñaki Mendiguren**

Tenore berean ematen dio nire **txartel** bat, ez ordea nik izkiriatur, nire arau zuhurrari jarraiki. **Jon Muñoz**

Txartel bat idatziko dizut. **Lopez de Arana**

Adio; entseia zaitetz **txartel** hau irakurtzera. **Jon Muñoz**

Txartel zorrotz horri sentimenduzko karta luze batez ihardetsi diot. **Jon Muñoz**

7 **posta-txartel** postaz bidal daitekeen txartela, alde batean argazki edo kideko bat eduki ohi duena. **ikpostal**.

Posta-txartel bat, non kostaldeko paisaia bat ageri baitzen: arrantzale batzuk nasan, ilunabarreko zero gorri ilun baten argia atzetik zutela. **Xabier Olarra**

Oso gutxitan idatzi zigun atzerrian izan zen bitartean, eta gehienetan **posta-txartelak** baizik ez. **Ander Irizar**

Aitak Portbelotik bidali zion **posta** -txartel hura ezin egiogiaoa horretarako: hondartza zabal bat jenderik gabe, itsaso urdondo eta, hondartza, piraten erasoetatik babesteko kanoiak. Aniton Olano

Behin **posta-txartel** bat bidali zidaten Barranquillatik, baina ez zegoen idazkera ulertzetik. Javi Cillero

Turismo prospektuak, hiri planoak, **posta-txartelak**, bisitarako gida-liburuxkak. Joxan Elosegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aurkezpen txartel (4); **bigarren txartel horia** (13); **bisita txartel** (5); **bosgarren txartel horia** (17); **bost txartel hori** (4); **boto txartel** (9); **euskadiko kutzako txartel** (4); **finalerako txartel** (5); **hegazkin txartel** (6); **kreditu txartel** (5); **posta txartel** (9); **tren txartel** (5)

txartel bakar (5); **txartel bakarra** (7); **txartel bana** (4); **txartel bat eman** (6); **txartel bat erosi** (6); **txartel bat jarri** (4); **txartel berdea** (4); **txartel berria** (7); **txartel berriak** (8); **txartel gorri** (16); **txartel gorri zuzena** (5); **txartel gorria** (85); **txartel gorria atera** (20); **txartel gorria erakutsi** (5); **txartel gorria ikusi** (16); **txartel gorriak** (8); **txartel guztiak** (13); **txartel hori** (53); **txartel hori bana** (4); **txartel hori bat** (9); **txartel horia** (65); **txartel horia atera** (9); **txartel horia ikusi** (13); **txartel horia kendu** (8); **txartel horiak** (111); **txartel pilaketaren** (9); **txartel pilaketaren ondorioz** (9); **txartel saldu** (9); **txartel urdina** (4)

aritzeko txartela (30); **atenaserako txartela** (15); **aurkezpen txartela** (5); **azken txartela** (12); **banku txartela** (5); **bere txartela** (6); **bidaia txartela** (12); **bigarren txartela** (11); **bisita txartela** (8); **boto txartela** (6)

egiteko txartela (5); **egoteko txartela** (8); **europan aritzeko txartela** (5); **europan jokatzeko txartela** (5); **europarako txartela** (32); **europarako txartela ematen** (6); **faserako txartela** (6); **final laurdenetarako txartela** (21); **finala jokatzeko txartela** (8); **finalean aritzeko txartela** (6); **finalerako lehen txartela** (6); **finalerako txartela** (150); **finalerako txartela dute** (7); **finalerako txartela izango** (4); **finalerako txartela lortu** (30); **finalerako txartela lortuko** (4); **finalerako txartela lortzeko** (6); **finalerdiak jokatzeko txartela** (4); **finalerdietako txartela** (5); **finalerdietarako txartela** (74); **finalerdietarako txartela lortu** (14); **finalerdietarako txartela ziurtatu** (5); **finalerdirako txartela** (6); **hegazkin txartela** (7); **hurrengo kanporaketarako txartela** (4)

identifikazio txartela (4); **igotzeko txartela** (5); **jokatzeko txartela** (69); **jokatzeko txartela ematen** (7); **jokatzeko txartela eskuratu** (6); **jokatzeko txartela lortu** (7); **jokoetarako txartela** (5); **kanporaketa jokatzeko txartela** (4); **kanporaketak jokatzeko txartela** (6); **kanporaketarako txartela** (6); **kopa jokatzeko txartela** (5); **kopan aritzeko txartela** (4); **koparako txartela** (10); **kreditu txartela** (13); **kreditu txartela erakusten** (4); **lauko finalerako txartela** (8); **laurdenak jokatzeko txartela** (5); **lehen mailarako txartela** (10); **lehen txartela** (14); **lehiatzeko txartela** (7); **liga jokatzeko txartela** (6); **ligarako txartela** (28); **ligarako txartela ematen** (7); **ligaxkarako txartela** (7); **lortu zuen txartela** (6); **lortu zuten txartela** (4); **lortuko dute txartela** (4); **mailarako txartela** (10); **munduko txapelketarako txartela** (4); **nire txartela** (4)

olinpiar jokoetarako txartela (5); **osasun txartela** (7); **sarrera txartela** (4); **sartzeko txartela** (14); **segurtasun txartela** (4); **torneoko finalerako txartela** (6); **torneoko finalerdietarako txartela** (4); **tren txartela** (5); **txapeldunen ligarako txartela** (24); **txapelketa jokatzeko txartela** (4); **txapelketako finalerako txartela** (5); **txapelketarako txartela** (10); **txapelketarako txartela lortu** (5)

txartela atera (18); **txartela atera zuen** (5); **txartela bere** (4); **txartela bereganatu** (5); **txartela dago jokoan** (4); **txartela dute jokoan** (13)

txartela eman (9); **txartela ematen** (34); **txartela ematen duen** (11); **txartela ematen duten** (14); **txartela erabili** (5); **txartela erakusten** (5); **txartela erakutsi** (6); **txartela erosi** (9); **txartela erosteko** (5); **txartela eskatu** (5); **txartela eskuan** (12); **txartela eskuan zuela** (4); **txartela eskura** (7); **txartela eskuratu** (29); **txartela eskuratu zuen** (7); **txartela eskuratuko** (6); **txartela eskuratzea** (5); **txartela eskuratzeko** (17); **txartela eskuratzeko lehian** (5); **txartela galdu** (5); **txartela hartu** (9); **txartela hartu zuen** (4)

txartela ikusi (5); **txartela irabazi** (8); **txartela izango** (15); **txartela izango dute** (10); **txartela jokoan** (10); **txartela kendu** (7); **txartela lor** (4); **txartela lortu** (96); **txartela lortu du** (15); **txartela lortu dute** (9); **txartela lortu nahi** (7); **txartela lortu zuen** (21); **txartela lortu zuten** (23); **txartela lortuko** (21); **txartela lortuko du** (8); **txartela lortuko dute** (8); **txartela lortzea** (7); **txartela lortzeko** (33); **txartela lortzen** (7); **txartela ordaindu** (9); **txartela patrikan** (10); **txartela poltsikoratu** (4); **txartela ziurtatu** (13); **txartela ziurtatu zuen** (6); **txartela ziurtatuko** (5); **txartela ziurtatzen** (5)

uefako txartela (4); **uefarako txartela** (16); **visa txartela** (8)

boto txartelak (7); **finalerako txartelak** (5); **hegazkin txartelak** (8); **kreditu txartelak** (6); **posta txartelak** (8); **sartzeko txartelak** (6); **tren txartelak** (5)

txartelak banatzen (6); **txartelak erakutsi** (4); **txartelak eros** (4); **txartelak erosi** (7); **txartelak erosteko** (10); **txartelak erosten** (5); **txartelak har** (4); **txartelak jadanik salgai** (4); **txartelak salgai** (24); **txartelak salgai dira** (9); **txartelak saltzen** (4)

zozketako txartelak (4); **zozketaren txartelak** (5)

kreditu txartelarekin (7); **txartelarekin ordaindu** (5)

finalerako txartelaren (4); **kreditu txartelaren** (4); **txartelaren bila** (12); **txartelaren zenbakia** (4)

kreditu txartelen (10); **txartelen bila** (5); **txartelen ondorioz zigortua** (5); **txartelen prezioa** (4); **txartelen salmenta** (5)

txartelik gabe (7)

txarteldegi iz txartelak eta kidekoak saltzen diren lehiatila.

Geltokiko harrera gelako **txarteldegian** bazen jende multzoa. Unai Iturriaga

Txarteldegiko ilaran bikote bat eta lau magrebiar, aldean poltsa handi bana. Unai Iturriaga

-Laguntzarik behar? - **txarteldegian** bere aurretik igarotako biki ilegorrietako bat zen. Iñaki Mendiguren

[Renfeko] makinari, ikuskatzaile eta **txarteldegietako** langileen kolektiboak lanuzte partzialen deialdiak «ezeztatzen eta isiltzen» ari dela salatu dute sindikatuek. Berria - Ekonomia

Azken laurdenetako eta finalaurreko saioetako sarrerak tokian tokiko **txarteldegietan** jarriko dira salgai. Berria - Harian

Sarrerak Arriagako **txarteldegian** jaso daitezke, bi euroko prezio sinbolikoan, Bilbao Musikako iturriek jakinarazi dutenez. Berria - Kultura

Salneurriak hiru dira, 26, 38 eta 80 eurokoak, baina gaur **txarteldegian** egongo direnak, guztiak, 80koak izango dira. Berria - Kirola

Gaur, Ipuruako 2 zenbakidun **txarteldegian**, geratzen diren azkeneko sarrerak salduko dira. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzoko txarteldegia (4)

anoetako txarteldegian (3)

txarteldun izlag txartela duena.

Eskua "A-D" **txarteldun** tiraderarantz mugitu nuen. Alberto Ladron Arana

Mutila, zeina ni baino gazteagoa baitzen eta era berean ederki burusoildua, gogor saiatzzen zen maiteñoaren eskakizunak betetzen, jubilatatu urrezko **txarteldun** talde bati zeharka begiratzen zien bitartean. Karlos Linazasoro

txarteltxo 1 iz txartel txikia.

Haietako bakoitzak **txarteltxo** bat zuen letra txiki-txikiaz idatzitako izen batekin. Iñaki Mendiguren

Txarteltxoak egin bere helbidearekin eta telefonoarekin, eta auzoko postontzi guztietan banatu ditu. Juan Garzia

Futbol-apustuen **txarteltxoak**. Juan Garzia

Ez zen publizitate-orri handia, **txarteltxo** xoil bat baizik. Jon Muñoz

Abiapuntuko aireportuan ekipajeari jarri zioten **txarteltxo** identifikagarria askatu, eta gorde egin du. Berria - Kultura

Liburuak bulegotik ateratzerakoan bete ohi genuen **txarteltxoa** sinatu ondoren, [...]. Txillardegi

Gustatuko litzaioke paparrean **txarteltxo** bat eramatea, esanez Tonyren arreba zela. Julen Gabiriá

Bi aste geroago, Queensberryk **txarteltxo** bat utzi zuen Albermale Club-en "Oscar Wilde sondomitarentzat", horrela, akats eta guzti. Antton Olano

2 (hitz elkartuetan)

Auzoko ileapaindegiko propaganda **txarteltxoari** puska bat kendu eta hoditxo bat egin dut biribilduz. Pako Aristi

txarto 1 adlag gaizki. ik txarki.

Hasieran **txarto** ulertu diodala pentsatu dut, baina ez, Israelera joan nahi du. Jon Arretxe

Ez haiz **txarto** bizi. **Unai Iturriaga**
Nik gauza bi egin nituen **txarto** . **Unai Elorriaga**
Ez legoke **txarto** gaua berarekin amaitzea. **Sonia Gonzalez**
Azkenean erabaki zuten ez legokeela **txarto** Nozdriovi beste galdeketa bat egitea. **Jose Morales**
Txarto portatu naiz, egia da. **Koldo Izagirre**
Zein **txarto** hezi zaituzten! **Jose Morales**
Txarto aparkaturiko bi edo hiru autok bidean aurrera egitea eragozten digute. **Edorta Jimenez**
Ondo nahiz **txarto** , hortxe geratu dira mutil gaixoak, hotzari aurre egiteko zigarroari eta botilari zupaka. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Nerbioetatik **txarto** , klinika batean izan da. **Pablo Sastre**
Athleticek **txarto** jokatu du. **Berria - Kirola**
Dolu nazionala dekretatu zenuen, **txarto** oroitzen ez banaiz. **Iban Zaldúa**
Baserritarrek badaki gauzak **txarto** eginez gero piperrik ere ez duela salduko. **Berria - Ekonomia**
Asmatu ez eta gauzak **txarto** doazen talde guztiei gertatzen zaiena gertatu zaio. **Berria - Kirola**
Euro bi kobratzea, esaterako, ez dut **txarto** ikusten. **Berria - Kultura**
Ez **txarto** hartu, baina giro honetan halakoak sortzea ez da harrizketa. **Patxi Zubizarreta**
Jansonek geldiro pasatu zuen hatza sudur hezearen azpitik eta lepoko **txarto** lotua zuzendu zuen. **Jose Morales**
Esan ohi denez: **txarto** ebakia baina ondo josia! **Jose Morales**
Lasai demonio jarri zen, ahopeka kantatuz, ez **txarto** gainera. **Julen Gabiria**

2 (adizlagun edo kidekoen)

Oso **txarto** lo egin zuen. **Jose Morales**
Txarto oso. **Mirentxu Larrañaga**
Jokoa oso-oso **txarto** azaltzen ari zelako inpresioa zuenez, gauzak astiroago azaltzea erabaki zuen Mercedesek. **Unai Elorriaga**
Ikaragarri **txarto** sentitzen zara, ezta ba? **Mirentxu Larrañaga**
Izugarri **txarto** kantatzen zuen, eta tonutik ateratzen zen are iraultza-abestietan ere. **Jose Morales**
Mutiko gizagaixoa, negargarria da zu hain **txarto** ikustea. **Mirentxu Larrañaga**
-Ez zaizu batere **txarto** irten. **Josu Landa**
-Berrogei milioi... ez legoke batere **txarto** . **Jose Morales**
Ardoa ez zegoen batere **txarto** , ez jauna, ez zegoen batere **txarto** . **Unai Iturriaga**

3 txarto-ulertu iz gaizki-ulertua.

Aurreneko **txarto** -ulertua goizean gertatu zen, bideko iturri batetik ura hartzerakoan. **Jon Arretxe**
Bigarren **txarto-ulertua** larriagoa izan zen. **Jon Arretxe**
Zaindua izateko besteon eskubidea zalantzan jartzen ez dugulako, pertsonen arteko laguntza gutxietsi ez eta gizon gehienen jokabidea zaintzarekiko eredu gisa nahi ez dugulako... **txarto ulertuak** izateko beldurrez, azken finean. **Berria - Euskal Herria**

4 txarto-ulertze iz

-Uste dut **txarto ulertze** bat izan duzula hilotzen inguruan, eta... **Paddy Rekalde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dena txarto (3); **dut txarto** (4); **ez dago txarto** (12); **ez legoke txarto** (8); **nahiko txarto** (5); **ondo edo txarto** (3); **oso txarto** (22)

txarto aparkaturiko (3); **txarto ari** (6); **txarto bizi** (6); **txarto dago** (6); **txarto dagoen** (4); **txarto egin** (8); **txarto egiten** (9); **txarto egon** (5); **txarto egongo** (3); **txarto etorriko** (5); **txarto hartu** (4); **txarto hasi** (3); **txarto ikusten** (5); **txarto jokatu** (14); **txarto jokutzen** (3); **txarto portatzen** (4); **txarto sentitzen** (3); **txarto tratatu** (3); **txarto ulertu** (7)

baino txartoago (5)

txartu, txar(tu), txartzen 1 da/du ad txar edo txarrago bihurtu.

Beroarekin janaria errazago **txartzen** delako. **Berria - Harian**
Begi bistakoa da etxetik at Osasunaren jokoa asko **txartu** dela azken boladan. **Berria - Kirola**
Unibertsitatetik egotzia protesta politiko baten ondorioz, Cesarren ateraldiak benetakoz kezka baten oihartzuna zeukan: auzi hura ez ote zen **txartuko** , ez ote zitzaion polizia bila etorriko. **Bernardo Atxaga**
Maiz salatzen duzue presoan egoera **txartu** dela Frantziako espetxeetan. **Berria - Euskal Herria**
Trenpua **txartzereinoko** atximur bat sentitu nuen urdailean. **Anjel Lertxundi**
ik beherago 5. **Askoren artean**
Ikusi beharko da ea horrek giroa **txartuko** duen eta hautetsiak Estatuarenganako enfrontamendu dinamika batean sartuko diren ala burua makurtuko duten. **Berria - Harian**
Livniren eta Olmerten arteko harremanak **txartu** egin dira azkenaldian, biek nahi zutelako Kadimako bigarren buruzagi nagusi kargua lortu. **Berria - Mundua**
Neke harekin batera Juanen aldartea, eta denona, pitzatu bezala egin zenean, ametsak ere **txartu** egin zitzaizkidan. **Bernardo Atxaga**
Airearen kalitatea aldiz orokorki **txartzen** ari da urtetik urtera. **Herria**
Nik uste norabide hori hartu beharko genukeela ekaitza **txartu** baino lehen. **Bernardo Atxaga**
Bertsoa **txartu** egin dezake tropo eta irudien metatzeak, lan hori egoki egiten ez bada. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Aitak teiltuan egindako lanak egoera areago **txartu** zuen. **Juan Kruz Igerabide**
Aurtengo bestak oro har ederki iragan dira, aroa doi bat **txartu** bada ere larunbatean. **Herria**
Dresdner eta Citiigroupeko analistek iritzia **txartu** dute Sabadell (- %1,42) eta Gamesaren (- %1,89) gainean. **Berria - Ekonomia**

2 irud/hed

Gertatutakoa oroitzen duen bakoitzean odola **txartzen** zaio: [...]. **Berria - Euskal Herria**

3 (izen baten eskuinean elkarketak adizlagun balioa duela)

Hotzaren eraginagatik hortzak karraskaka hasteko zorian bazeuden ere, odola berotu zitzaidan bat-batean, eta halaxe egin nuen, odol **txarturik** , auskalo zenbat denbora. **Anjel Lertxundi**

Erresumindurik, umore **txarturik** , zer suma ibili zenaldi batez, nire joan-etorriak bijilatuz edo paperen artean miatuz. **Joxean Agirre**

Ezta lanetik jenio- **txartuta** etorri bada ere, ezta bidean egin behar izan dituen enkarguagatik hatzetako minez lehertzen badator ere. **Arantxa Iturbe**

Zurbil, gogo **txartua** , egun biko bizarrarekin, eta arazoak zituela, aitortu omen zion, bere plana aurrera eramateko. **Joxean Agirre**

4 (era burutua izenondo gisa)

Begi bistakoa da etxetik at Osasunaren jokoa asko **txartu** dela azken boladan. **Berria - Kirola**

5 trenpu txartu ik trenputxartu.

txartxaka iz zaparradatxoa.

Hori egiteagatik, **txartxaka** batekin aski kilikor nonbait, berehala pasatu gintuzten gaiztoen zakura, baten batek hartu zuen arrailduraren ondorio. **Pello Salaburu**

txartze iz txar edo txarrago bihurtzea.

-Zalapartari daude; eta horrek eguraldiaren **txartzea** iragartzen duela pentsatzen dugu Bizkaian. **Txillardegi**

Zainketa berezien unitatean zegoen botika baten albo-ondorio bakan horietako batzuek eraginiko osasun **txartzearen** ostein. **Joxan Elozegi**

Produktzio sailekoek azken hilabeteetako baldintzen **txartzea** salatu dute. **Berria - Ekonomia**

txarxeago izond apur bat txarragoa.

Egin dezagun esperientzia bat, hobexeargoa edo **txarxeagoa**, baina gure esparruan, modu errealistan, bere ametsa eta bere koherentzia propioa izango duena, eta geroak erranen. **Iñaki Heras**

txasi ik txasis.

txasis (orobat txasi eta xasis) 1 iz ibilgailuean-eta, motorrari eta karrozeriari eusten dion egitura zurruna.

Indarra, **txasia** eta karrozeria ezberdinak dira. **Anjel Lertxundi**

Motorra da R24aren berrikuntza nagusia, indartsuagoa; baina ez bakarra, **txasisa** ere hobe baia. **Berria - Kirola**

Motor mugikorra, berriz, darabilen ibilgailuaren **txasis** edo egiturari atxikitzen zaio. **Irene Aldasoro**

Focusak aerodinamika, **txasisa** eta motorra berriitu ditu, eta ez du emaitza txarra jaso. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan)

Monzan motorrek zeresan handia dutenez, auto baten eta bestearen artean dauden **txasi** diferentziak bigarren mailan geratzen dira. **Berria - Kirola**

- Zeharo lagunarteko zituzten, hiri-bazterreko auto puskatuen biltegietan lardaskan dabilzan ume bihurriek auto-**txasisak** bezala. **Jon Muñoz**

Lurreratze-tren bat, bi pneumatiko-parez osatua, hodi-**txasisean** esekiduraz hornitua eta bere metal distiratsua ongi koipeztatua daukana. **Joxe Austin Arrieta**

3 irud/hed

Motorra eta **txasisa** ongi dauzkat, baina bi belaunak hazi egiten zaizkit. **Berria - Kirola**

txastatu ik dastatu.

txaston iz perkusio baterian, euskarri pedaldun batean kokatzen diren bi txindatek osatzen duten sistema.

Baketa hotsak, bonboa sartzen da orain, **txastona** gero, kontrabaxuaren soka-kolpe limurtzailea, orkestra sinkronizatu bat segidan. **Harkaitz Cano**

txat 1 iz interneten bidezko komunikabidea, sarera konektaturiko ordenagailuetan edo telefonoetan zenbait pertsonak aldi berean idatziriko mezuen bitartez bideratzen dena.

Galdera-erantzunak trukatu ezagutu zuten elkar Elsak eta Albertok idazkuntzari buruzko **txat** batean. **Josetxo Azkona**

Mike-Hellok ere ikasi du **txatean**, bizitzan bezala, emakumeei ez zaiela presarik gustatzen. **Pako Aristi**

Pantaila honek ematen didan guztia besterik ez balego: Morfeorekin ditudan **txatak**, nabigatzea, jolasak. **Antton Olano**

Kontua da Llumek esan zidala Morfeo delako bat ezagutu zuela bera aritzen den **txat** batean, eta bere mutilaren argazki bat bidali ziola. **Antton Olano**

Laguntasuna urrun daike berdin xerka... " **Txat** " eginez pasatzen da zorbait ateka. **Herria**

Zu **txatari** lotuta bizi zara ala? **Antton Olano**

2 (hitz elkartuetan)

Nahi dutenarekin elkarrizketak on-line hasteko aukera izango dute **txat** zerbitzuaren bidez. **Berria - Euskal Herria**

txatal 1 iz zati txikia, zatia.

Paretaren zurian lapitzez eginiko esaldiak ageri dira han-hemen, eta aldizkarietatik harturiko **txatal** batzuk txintxetaz josiak. **Koldo Izagirre**

Kartera hanpatu bat zabaldu du, tolesdurek lautan ebakitako prentsako **txatala** erakusten dit. **Koldo Izagirre**

Egunkari bateko **txatalak** ebakitzen hasi zen guraizeekin. **Harkaitz Cano**

Amorruz kentzen genituen kofradiako zutabeen ageri ziren **txatal** haiek, euskal patrioiak esku hartu behar zuela justizia sozialean. **Koldo Izagirre**

Beste **txatal** batean deszifratu daiteke "arazlea" hitza, letra zuriz egina, tanta gorriak darizkiela, odol tantak agian. **Monika Etxebarria**

Sorkuntza kolektibo horretan ere, norbaitek **txatal** solteak josi behar zituela konturatu eta idazten hasi nintzen. **Ana Urkiza**

Patriatik elgorriaga txokolatea atera zuen eta, oso kontent, **txatal** bana eman zigun. **Joseba Sarrionandia**

Irakurleak tentazioa izan lezake pentsatzeko zoriontasun unibertuala zela nagusi Brooklyngo gure **txatal** txiki hartan. **Oskar Arana**

1815. urtean Europako estatuen ordezkariak Vienan elkartu ziren, eta Napoleonen inperioaren **txatalak** banatu zituzten. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mariok bere lehen kartzela egunaren oroimenari kendutako **txatal** sorta da. **Jokin Urain**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argazkia zapata kaxa baten hondoan dago, egunkari **txatal** eta ginkgo hostoen artean. **Harkaitz Cano**

Egunkari **txatalari** buelta eman eta bestaldean zerbait are interesgarriagoa topatzen duzu. **Harkaitz Cano**

Garai guztietako santuek utzitako idazki-**txatal** askorekin. **Joan Mari Lekuona**

Paper **txatal** bat eman dit zenbakia apuntatzeko. **Joseba Sarrionandia**

Nekazaritzarako Lurren Saitetik dirulaguntza bat eman diote aurten, norbaiti hektarea bat eta niri beste lur-**txatal** bat erosteko beste. **Oskar Arana**

Gero, bi kortxo **txatal**, batetik, eta dozena bat iskilinba bestetik, kaiolatxo borobilak eraiki. **Txillardegi**

Koloretako oihal **txatal** bat abar batean loturik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oharkabeen entzundako elkarrizketa- **txatalak** dira. **Xabier Mendiguren Elizegi** **Urtzi Urrutikoetxea**

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Aire-molekulak, ur-lurrin **txataltxoak**, hodeietako eta lainoetako ur-xorta tikiak eta beste hauts-motta ttipi-ttipiak. **Pello Zabala**

5 Biblia eta beste liburu batzuen kapituluak banatzen diren zati laburretako bakoitza.

Hasiera liburuaren 1. Kapituluko 27. **txatala**. **Imanol Unzurrunzaga**

Ebanjelioko **txatal** erabilienetako batean. **Pello Zabala**

Biblia **txatala** bukatzen duen txantre baten doinuuan. **Karlos Zabala**

Dante Alighieri, Jainkotiar Komedía, Infernua, XV. kapitulua, 65. eta 66. **txatalak**. **Fernando Rey**

Oteizak dioela *gogo* hitzaren jatorria "gu-gu" izan daitekeela; *Quousque Tandem*, 41. **txatalean**. **Iñaki Iñurieta**

Bestetik, argumentua, kapitulutan baino gehiago, **txataletan** eman du, esaldi laburrak dira nagusi. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egunkari txatal (3); **paper txatal** (3)

egunkari txatalak (4); **txatalak ebakitzen** (3)

txatalka *adlag* zatika.

Handik jo, hemendik jo, teillatu ertzeko elurra laster hasi zen **txatalka** erortzen, tabako-dendako bezeroen ikara eta gaztetxoan olgeta artean. **Berria - Kultura**

txataltxo *iz* txatal txikia.

Besapean daraman analisiaren sobrea hartu eta mila puska txikitan tarratatu eta apurtu du, kiniela paper **txataltxoan** gainera bota aurretik. **Harkaitz Cano**

txatar (*orobat txatarra*) 1 *iz* metalen hondakina.

Burdina **txatar** bihurtzen deneko zalaparta. **Patxi Iturritegi**

Bide erdian, **txatar** bailiran / Miss Charlotten hondakinak. **Xabier Olarra**

Txatarra, herdoila eta kraka dira nagusi. **Hasier Etxeberria**

Txatarra deskargatzen dugunean ez diat inguru eder hau ikusteko astirik edukitzen. **Koldo Izagirre**

Aita buru izaten zen **txatarra** biltzeko igandeetako kanpainetan. **Fernando Rey**

Maiz inguru haietan ibiltzen zela, **txatarra** eta zaborra biltzen. **Gotzon Garate**

Ahal dugun **txatarra** gehiena botatzen dugula moilaren gainera. **Koldo Izagirre**

Derrigorrez jakin behar zuen noizkoa zen Pasaiaiko portuan **txatarra** artean agertutako gorpu bat. **Hasier Etxeberria**

Enbaxadaren arabera, **txatarrarekin** batera eramaten dituzte armak. **Berria - Mundua**

Chavezek Venezuela suntsitu besterik ez du egin, nazioa desegiten ari da, besterik ez, **txatarretarako** auto bat bezala. **Pako Aristi**

Garñoako **txatarra** erradioaktiboa atzeman dute Sestaon. **Berria - Euskal Herria**

Aspaldi proposatu zen, ontzi zaharrak desegin eta **txatarrera** bideratu ordez, labar horietan bertan hondoratzea. **Edorta Agirre**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txatar hotsa atera zuen ganibetak kobrezko pazian erori zenean. **Joxan Elosegi**

Sestaotik abiatu eta Barakaldoraino, **txatar**-metak, hodi okertuak eta burdinaren herdoila besterik ez da bazterretan ageri. **Rafa Egiguren**

Gustuko zuen hango paisajea, kapusaidun txandala jantzi eta erdi eroritako pabilioi eta **txatarra** meta ikaragarrien artean ibiltzea. **Harkaitz Cano**

Txatar biltegi bat ematen zuen gure etxeak. **Fernando Rey**

Klops, bederatzi haur, aita tximinia-garbitzaile, **txatarra** biltzailea. **Pablo Sastre**

Ni **txatarra** tratante bat besterik ez naiz. **Harkaitz Cano**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Wilster Avonmouth-etik burdina- **txatarrarekin**. **Urtzi Urrutikoetxea**

4 irud/hed

Hori dun katxarroa, hori!: zenbat kendu dinare **txatar** pilo horrengatik? **Patxi Iturritegi**

Dirua, diru handia -ez naiz patrikako **txatarraz** ari-, urre, zilar, txanpon eta are paper izateari utzi eta bere izana numero hutsetan banatzen duen diru elektronikoa edo platoniko soilak egin denetik, ez da ikusten, ez dago ikusterik. **Iñaki Segurola**

- **Txatarra** hutsa dituk bouetako kanoiak! **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txatarra artean (4); **txatarra guztia** (3); **txatarra meta** (15)

txatarra ik txatar.

txatarrategi ik txatartegi.

txatarrerria 1 *iz* txatarra bilzen eta salerosten den biltegia.

-Bereiz itzazue zati txipiagoak zuentzat, pezeta egiten dik kiloak **txatarrerrian**. **Koldo Izagirre**

Zuluetak esan zidak, Altunaren **txatarrerrian** linternarekin ikusi dituztela zibilak. **Pablo Sastre**

Aluminio pieza tikiak bilatu eta lapurtu ondoren badia inguruan merkezurreen ziharduten **txatarrerriatara** saltzen zituztelako. **Harkaitz Cano**

Altuna, **txatarrerriako** nagusia. **Pablo Sastre**

2 txatar pila.

Txatarra artean sarrailla bat irekitzen duzu eta hutsetik hutsera eta orubetik orubera egiten duzu jauzi, **txatarreriatik** zuhaitz artera. **Harkaitz Cano**

· *irud/hed* Bere begi berde horiekin, bere txima luzeekin eta belarrietatik dilindan daraman **txatarrerria** guztiarekin. **Aingeru Epaltza**

txatarrero 1 iz txatarra saltzen edo erosten duena.

Noizbait oharatu da bakarrik doala, bakarrik eta herriko karrika nagusitik barrena, **txatarreroak** ez ikusiarena egin dionean jabetu. **Koldo Izagirre**

• 2 txatarrari dagokiona. • *irud/hed*

Taberna honetako musika **txatarreroakin** ... zuk esango didazu, makalaldia baino... egundoko bajoia! **Sonia Gonzalez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kanonetik askatzeko txatarreroak (3)

txatartegi (*orobat txatarrategi g.er.*) iz txatar biltegia.

Txatarrategiko nagusiak bere biltegian [...] sutegi zaharren puskak saltzen zituen. **Pello Lizarralde**

Baita eskultura guztiak ere: figuratiboak, abstraktuak, zinetikoak [...] artista ezagun nahiz ezezagunenak, denak erazi zituen garabi erraldoi batek, eta **txatartegira** bota zituzten. **Karlos Linazasoro**

Txatarraren inguruan ikusten baldin bagintuzten uste behar izaten zuten kobre hariaren atzetik genbiltzala -ongi ordaintzen zen kiloa **txatartegietan** -. **Koldo Izagirre**

Tokian tokiko **txatartegietara** metalezko piezen bila, tanke blindatuak babesteko. **Berria - Mundua**

Marga eta bion oroitzapen kutun zaharretako sagastia, Marga eta bion Gustiz Ederra, **txatartegi** bihurtuta aurkitu nuen: auto eta kamioi zaharren hilerri handi bat. **Juan Luis Zabala**

Gasolindegia, auto-saltokiak beren banderaño eta zurezko hesiturekin, auto porrokatuz metatu **txatartegiak** . **Xabier Montoia**

Txatartegi batetik bi auto zaharren motorrak ere ekarri zizkidan aitak, aska eta osa nitzan. **Juan Kruz Igerabide**

Pablo Picassok, lanerako erabiltzen zuen **txatartegiko** horman egindako zulo batetik zelatatzen zuen Dora Maar. **Harkaitz Cano**

Utzi ere, negozioari atxikitako auto-hilerria utzi zion, milaka auto kraskatu eta guztiz hondatuak biltzen zituen **txatartegia** . **Javi Cillero**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txatarrategiko nagusiak (3)

txateatu, txatea(tu), txateatzen du *ad* txatean aritu.

Mike-Hello oso pertsona bakartia bilakaturia dago **txateatzen** hasi zenetik, edo agian hain bakartia zelako hasi zen **txateatzen** . **Pako Aristi**

Mar-36en kasua ezberdina da, **txateatzeak** ez dio bakardade konplexurik sortzen; gehienez ere pragmatismoaren eta liluraren artean dago **txateatzeak** pizten dion sentimendua. **Pako Aristi**

Konturatu da **txateatzea** orain arte ligatzeko formula hankaz gora jartzea dela **Pako Aristi**

txatxal *izond* emakumeez mintzatuz, txotxoloa.

-Hi hago isilik, neska **txatxal** hori! -esan zion amak. **Josu Zabaleta**

-**Txatxalak** ! -esaten zien zaharrak, lotsaturik, berak ere barre eginez. **Josu Zabaleta**

txatxamurka *adlag* atximur egiten.

Gizonek zuri **txatxamurka** egitea gustuko izateko behar bezain potolatxo, ez besterik. **Lopez de Arana**

txatxar *izond* hutsala, ezereza, ezdeusa.

Arriskutsua duk gizaki **txatxarra** horrela denean aurkari ahaltsuen ezpatakada sumin bizikoen erdian agitzen. **Juan Garzia**

Autodun kimikari bat bazina, eta ez gerrakin **txatxar** bat, asti librean idazle, eta gainera ezkondu berri, ez zinateke hor jardungo azido pirubikoa izerditzen. **Juan Garzia**

Esertoki itxurazkorik ez, baizik eta burdinazko aulki **txatxar** deseroso eta kirrinkatsuak. **Juan Garzia**

Honekin tortilla **txatxar** bat egiteko ere ez zaukaagu. **Pedro Alberdi**

Venezuelako telenobela **txatxar** horietako bat ematen zuen. **Antton Olano**

Holakoxe itxura erkin, **txatxar**, tautologiko edo arlote pobrea hartu ohi du Egiak; ustez diren eta ez diren gezurrak urratzeko asmatua izan delarik, bera da bihurtzen gezur handiena eta gezur garailea. **Iñaki Segurola**

Kontu guztia -pentsatu zuen- Pedro Páramo hasierako **txatxar** izate hartatik goragoko gradura igo zenean hasi zen. **Juan Garzia**

Belta eztilorea da, hitsa eta kiratsua jareina, beturdina Palasen irudi, haritsua eta zurezkoa gazela, **txatxarra** eta nanao ene grazia, gatz-harri purua, handia eta kankailua miragarria eta maiestatez bete. **Xabier Amuriza**

txatxarkeria iz hutsalkeria, ezerezkeria, ezdeuseria.

-Ekingza poetiko hutsa, **txatxarkeria** honetatik garbituko gaituena. **Iñaki Iñurrieta**

txatxo iz euskal inauteriko pertsonaia.

Goizeko 10:30tik goiti **txatxo** , trapuzahar edo joaldun espiritu txarren haizatu nahian bere isopoa astintzen ikusteko parada ukanen duzue. **Herria**

txatxu 1 *izond/iz* ergela, ganoragabea. (pertsonak)

Ez zituen jubilaziorako urte asko faltako agure **txatxu** hark, baina gustura egingo zion tiro bekoki erdian. **Unai Iturriaga**

Ez nuen ulertzen orduan osabak atso **txatxu** harengan zer xarma debru atxeman ote zuen. **Txillardegi**

Ez zait batere ohoregarria iruditzen Aita Santuak [...] koruan lanean aritu diren emakumeak korutik bidaltzea eta haien ordeztutako **txatxu** batzuk jartzea. **Irene Aldasoro**

Arratsalde guztia alferrik galdu diat neskato **txatxu** horren arrastoaren atzetik. **Joxemari Iturralde**

Adi-adi zeuden aleman **txatxuak** , jakin-minez historia nola bukatuko zen. **Fernando Rey**

Nolanahi ere, baserriar **txatxutzat** joko zuten apirillean egurpiloa ondo hornitu gabe zeukana. **Pello Zabala**

Bera komentuan sartu, eta han eduki nahi zutela moja **txatxu** haiek, hemezortzi urte betetzen zituen arte. **Inazio Mujika Iraola**

Kontzientzia den hiltzaile erreinzidente **txatxu** hori. Harkaitz Cano

"Zuk ikusi" esan diok, besterik ez, katedratiko **txatxu** horrek. Jokin Muñoz

"Jende xehea!" esango luke Alberdi **txatxuak**. Unai Iturriaga

Hura, bere onetik aterata, "**txatxuak**!" esanez hasi zaie, eta pedalei eraginez jarraitu du. Josu Zabaleta

Charles ekarri nuen gogora, eta ea zein ote zen txotxolotu zuen **txatxua**, eta ea harekin ni Sheilarekin bezain txotxolotua ote zebilen. Xabier Olarra

-**Txatxua** halakoa, zer uste duk hik ba? Antton Olano

2 (bestelakoak)

-Zergatik ez diok kasu egiten txakur **txatxu** horri? Aingeru Epaltza

Bere begi txiki **txatxu** eta gaizto haiekin. Itziar Otegi

Mehatzeari eman zionez geroztik, kirolariendako edari **txatxu** horiekin baizik ez zenuen harrapatuko Ximurra. Aingeru Epaltza

Makina **txatxua** zen, makina kaxkarra, pentsatu zuen, pintatu edo sentitzeko gizakiak zeukan aparailua. Anton Garikano

Tailerreko lana gogorra zen; neguan hotza pasatzen genuen, eta udan beroa, uralitazko estalpe **txatxu** haren azpian. Juan Kruz Igerabide

-Alferrik zabiltza, honek nahiago izaten du-eta kalesan nire zain egon, liburu **txatxuren** bat eskuetan duela. Anjel Lertxundi

Hark idazki tentel bat baino ez zuen gura bere astekari **txatxu** baina errentagarriako. Unai Iturriaga

Informatikoen ohiko hizkera **txatxuan**. Aingeru Epaltza

Ez pentsa, hala ere, porno gogorra ikusten genuenik; erotismo **txatxua** zen gehienetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Estatu Batuetako Kongresua «salaketa **txatxuak**» debekatzea aztertzen ari da. Berria - Gaiak

Duintasun-une **txatxu** baten erruz, larrutan egin gabe gelditua nintzen izugarri gogoko nuen neska galant batekin. Aingeru Epaltza

Gizaki batek egin dezakeen lanik **txatxuena**, seguru aski, beretzat hilobi bat egitea da. Xabier Olarra

Madriren harrapatutako gripe **txatxu** batengatik. Iñigo Aranbarri

Bigarren harresira iristeko zaudenean lanrober bat pasatzen da inoiz egiten ez duen erronda **txatxu** batean. Koldo Izagirre

Elkarrizketa **txatxu** hauetatik ez da gauza onik ateratzen, beti bukatzen dugu berdin. Patxi Iturritegi

Zurrumuru **txatxu** eta pozoitsu hori lehenbailehen gelditzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Barren-barrenean babo hutsa zen, eta bere alabak erromantizismo **txatxu** bategatik alferrik galtzen ari zen. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Oiartzuar guztiek zekiten begi-**txatxu** hark jakin behar zuela zehazki hilobia non zegoen. Koldo Izagirre

Al Jexux Mari: igeltseroa; begi-**txatxu** hori; lehenago Milarekin ibiltzen zena... Pablo Sastre

txatxuita *izond adkort*txatxua.

-Hori **txatxuita**! -xuxurlatu zidan Danek, eta burlazko agurra egin zion Georgeri, oraindik atzeraka zihoan itsasoari begira baitzegoen. Koro Navarro

txatxukeria *iz* ergelkeria, ganoragabekeria.

Jada ez dakizue zer txorrada esan, zer mozolokeria idatzi, zer **txatxukeria** asmatu, zer zentzugabekeria irudikatu gainerakoengandik bereizteko. Jon Alonso

-Utziogu, behingoz, **txatxukeriak** esateari. Patxi Zubizarreta

Buda zoriotsuen etxea egokia da, bai, egokia, patxadatsuagoa, **txatxukeriak** eta ezjakintasunak sortutako suminetatik babesten nau. Karlos Zabala

Hemen **txatxukeriatan** hasten dena kanpora joango da eta ez da itzuliko. Iñaki Mendiguren

Txatxukeriak! -esaten zuen irakasleak-, nik jokaera bakarrik hartzen dut kontuan. Jose Morales

txatxutu, txatu(tu), txatxutzen 1 da/du *ad* txatxu bihurtu.

Hogei kilo guttiagoren jabe eta markako txandal gorri-laranja batez **txatxutua**, gure semeak maite dituen filme guztiz pedagogikoetako heroi transgalaktiko zangomotza iduri zuen. Aingeru Epaltza

2 (era burutua izenondo gisa)

Harritua nintzen nola zitekeen Tsarraren gorteak halako jostun **txatxutua** etorraraztea Paristik San Petersburgora. Matías Múgica

txaubinismo ik chauvinismo.

txe (deikia)

Txe, semeari Julioek eta biok Luxenburgoko lorategietarako dugun asmoa erakusten ari nintzaion. Harkaitz Cano

-Uretara, **txe**, uretara orain bertan! Koldo Izagirre

txegosbide *iz* digestio aparatua.

Ariketabxo hori, esan ohi zuen, apartekoa zen ohetik jaikitzean; odolaren zirkulazioa bizkortzen zuen, lozorroturik egoten baitzen loarengatik, burmuineko haizeak uxatzen zituen eta **txegosbideak** prestatzen. Josu Zabaleta

txegosgaitz *izond* digerigaitza. • *irud/hed*

Senarraren bi gutun kausitu nituen lehenik, jujamendutako xehetasunen eta ezkon maitasunezko hizketen halako nahaspila **txegosgaitza**, pazientzia handiz osorik irakurri nituenak, baina nirekin zerikusirik zukeen elerik aipatzen ez zutenak. Jon Muñoz

txegosi (*13 agerraldi, 6 liburutan; cf digeritu 34 agerraldi, 17 liburu eta 5 artikulutan*), txegos, txegosten 1 du *ad* digeritu.

Jadanik jana bakean **txegosi** ezin duen katu baten antzera. Karlos Zabala

Txegosten al zuen edari erogarri suzko hura, "Ulrich!" oihu hark esnatzen zuen berriro, bala batek garezurra zulatu izan balio bezala. Josu Zabaleta

Ez zekiten ez belarra nola hazten den, ez argia zer den, ez nola funtzionatzen duen herentziak, nola **txegosten** duen urdailak, Koro Navarro

2 irud/hed

Jatekoak on egin diezazun, lehenago ahoan **txegosi** behar da. Haren gerruntze tinkatua bezperako zoriona **txegosten** ari zen oraindik. **Patxi Zubizarreta**
Gaur egun asko dira beren lanak presio lapikoetan prestatzen dituztenak, baina letren sukaldari xume hau dago ezen hobe dela obra erraietan zein paperean astiro eta presarik gabe **txegostea**. **Patxi Zubizarreta**

txegosketa iz digestioa.

Kafea harturik, eta trago batetik edaten zuen, mahaian hasitako **txegosketak** ekarri ohi duen lozorroari inoiz amore eman gabe, bere redingote handia jantzi eta alde egiten zuen. **Josu Zabaleta**

Irina, letren sukaldari xume honen ustetan, pentsamendua litzateke, hausnarketa, eta besamela edo literatur lana astunegi gerta ez dadin, neurritz erabili beharra dago **txegosketa** txarrik izan ez dezagun. **Patxi Zubizarreta**

txegoste 1 iz digeritzea.

Gero, bazkariaren espioitza zetorren; biek bazekiten besteak zer jaten zuen, **txegostea** ere zelatatzen zuten. **Karlos Zabala**

Gizonezkoen arteko afari baten ondoren zen, zigarro puru azkengabeen eta basotxo etengabeen orduan, ketan eta **txegosteen** moteltasun beroan. **Josu Zabaleta**

Sutegiko beroak atsegin ematen zien, sukaldeko gantz guztiak dir-dir egiten zuen **txegoste** luzeko ongi-izate haren barruan. **Karlos Zabala**

2 (hitz elkartuetan)

Zerebroan zerbait neukala uste nuen inolaz ere, tumore bat agian, ez dakit, aldi berean gibelaldea paralizatu, ikusmena ilundu eta **txegoste** sistema hein batean nahasiko zidan zerbait. **Joxan Elozegi**

txehe ik xehe.

txehetu ik xehatu.

txeiene izond/iz konkistaren garaian Ipar Amerikako Aintzira Handien eskualdean bizi zen tribua; tribu horretako kidea.

"Indioen kulturak zibilizazioa deitzen dugunari egindako ekarpenaren aitortza izango da museoa", Richard West zuzendari **txeienearen** ustez. **Berria - Kultura**

Apatheen lana baino hobexea da, baina ez **Txeieneena** baino. **Xabier Olarra**

Nik komantxe", "nik txeroki", "nik **txeiene**". **Xabier Mendiguren Elizegi**

txeismo iz hizkuntza-gertakaria, s idazten den hotsa tx idazten den hots bihurtzen baita.

Musugorria izan da euskal usarioan gazte ederra, segaila, sasoikoa; eta alderantziz: musurdina (edo **txeismoa** tarteko: mutxurdina) sasoia joandakoa, musuzimurtua, zakartua, gaztekolore ederra galdutakoa, alegia. **Patziku Perurena**

Txeismoa inork uste baino ugariago eman da euskaran. **Patziku Perurena**

txeka 1 iz Espainiako gerra zibilean, errepublikaren zonan, erakunde politiko baten mendeko atxilotze eta epaitze gunea.

Halako batean errepublikazaleek Madrilgo **txekaren** batean [...] Falango buruetakoa den Raimundo Fernandez Cuesta preso dutela jakin da. **Edorta Jimenez**

Txekarik txeka presoan bila dabilen milizianoa. **Edorta Jimenez**

Bere zereginen artean polizien bulegorik bulego eta **txekaz txeka** euskotarrak bilatzen eta, ahal delarik, askatzen ibiltzea denez gero, [...]. **Edorta Jimenez**

Aukeran **txekak** nahiago zituela, baina egia entzun gura bazuen, haietako sasi-epaiketak ere ez ziren ba oso fidagarriak. **Lutxo Egia**

2 errusiar iraultzan, gobernu boltxebikeak sorturiko polizia sekretua.

Andrei Srubov bertako **txekako** presidentea da. **Pablo Sastre**

Geroago, Sascka leialarekin gau lanean ari zela, **Txekakoek** hura hil, Sergiusz berririo harrapatu zuten. **Pablo Sastre**

txeke (orobat xeke g.er.) iz banku-agiria, kontu jabe baten banku kontutik bertan adierazten den zenbatekoa ateratzea agintzen duena eta jabearen sinadura duena.

Txeke batekin ordainduko dut. **Lopez de Arana**

-Bihar goizean **txeke** bat bidaliko dizut. **Lopez de Arana**

- **Txeke** bat kobratzera noa oraintxe bertan, Mrs. Budkowitz. **Lopez de Arana**

Konpainiako abokatuek hamabi mila eta bostehun dolarreko **txeke** bat eskuratuko didate. **Lopez de Arana**

30 euroz goitikoentzat usaiako **xekeak** baliatu behar edo bestenez karta urdina... **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dolarreko txeke bat (4); eta txeke (3); txeke bat eman (3); txeke zuri bat (3); txeke zuria (8); txeke zuria eman (3); txeke zuririk (3)

txekeatu, txekea, txekeatzen 1 du ad berrikustea egin, kontrola egin.

Polizietako bat beste poliziekien haserre, maletak **txekeatu** gabe sartzen utzi gaituztela eta. **Edorta Jimenez**

Alarma jotzen dute, planoak ateratzen dituzte, hodi guztiak **txekeatzen** dira, zulo guztiak miatzen, burdina guztiak jotzen, zoru guztiak makilkatzen. **Koldo Izagirre**

Gogoan har zitekeen liburu hori balizko espia horiek beren klabeak **txekeatzeko** erabil zezaketelako hipotesia. **Edorta Jimenez**

Txekeatzeko ilaran. **Ramon Saizarbitoria**

2 irud/hed

Txekeatu egin nahi al du zure erantzuna, beste emakume batekin joango dela esaten dizunean. **Lourdes Oñederra**

Roackaway Parkway-rako noranzkoa **txekeatu** nuen, badaezpada ere, nasan bertan eskegita zeuden karteletan. **Iñaki Zabaleta**

3 osasun azterketa egin.

Zer egin ez nekiela gelditu nintzen, automatikoki pultsoa eta bihotza **txekeatu** nizkion, bizirik zegoen. **Jose Angel Irigaray**

txekeo 1 iz osasun azterketa.

Osakidetzaren eskutitz bat heldu zitzaidan: **txekeo** orokorra egitera joan behar nuen hiriko ospitale nagusira. **Iban Zaldúa**

Txekeo bat egin beharko huke. **Bernardo Atxaga**

2 kontrol azterketa.

Lehen ildoa "espainiar ontzietako pasaiari eta eskifaiako **txekeoa** egitea" da; bigarren ildoari buruzko informazioa ezabaturik da; azkenik, hirugarren ildo "zentzu zabalean Komunisten jardueren ikerketa" egitea da. **Edorta Jimenez**

txeketegi iz txeke taloitegia.

Mutilak **txeketegia** atera eta ezpainetara eraman zuen, pentsatzen ariko balitz bezala. **Koro Navarro**

txekhovzale izond A. Txekhov errusiar idazleaten zalea.

Txekhovzalea zu ere? **Iban Zaldúa**

txekiar 1 izond Txekiakoa, Txekiari dagokiona.

Txileko Neftali Ricardo Reyes-ek mirespenez hartu zion Neruda izena oso maitea zuen Jan Neruda **txekiar** poetari. **Iñigo Aranbarri**

Gauza bera egin zuen jarraian Martin Povejsil enbaxadore **txekiarrak**. **Berria - Euskal Herria**

Bures **txekiar** fisiologistak teknika bat garatu zuen 1956an [...] garunaren eremu zehatz batzuk desaktibatuzko ordu batzuetako tartean. **Irene Aldasoro**

Arrats batez, seiak irian, aleman itzultzailea, **txekiar** abokatu bat, jiten zauku "Felwebel" batekin. **Michel Oronoz**

Karl Kautsky **txekiar** sozialista "alemanduak" idatzi zuen, adibidez: [...]. **Piarres Xarriton**

Bere inguruko juduek helburu bat zuten: jentil bihurtu, ez **txekiar** jentil, aleman jentil baizik. **Koro Navarro**

Munduan gehien itzuli den idazle **txekiarra**. **Fernando Rey**

Helburua, bada, **txekiar** zientzialaririk handienetarikoa bat ohoratzea da. **Juan Garzia**

Txekiar Akademiak mundu guztiko genetista-jendea gonbidatu du elkarretaratze batera. **Juan Garzia**

Txekiar Errepublikan, ostera, Elba ibaiaren maila jaisten hasi zen atzo. **Berria - Mundua**

Fonetikaren aldetik, hitz **txekiar** bakoitzak azentu dinamikoa eskaintzen du lehenengo silaban. **Lourdes Oñederra**

Agindua iritsi zenean, segituan jarri zen zutik, fusil **txekiar** zaharra eskuan harturik. **Juan Kruz Igerabide**

Bere burua bota zuen, antza denez, **Txekiar** Zubitik Moldava ibaira. **Felipe Juaristi**

Bruselak irizpideak markatu eta Txekiak zorrotzegi bete behar dituela salatu du Paolicekek; «politikak **txekiarragoa** izan beharko luke». **Berria - Mundua**

• 2 iz Txekiako herritarra.

Praga baitzitzaien aberri bezain erbeste, bera Pragakoa izanik ez baitzen Pragakoa, ez baitzen ez judu, ez **txekiar** eta ez aleman. **Felipe Juaristi**

Aleman zenbait bazen, **Txekiar** anitz. **Marzel Etxehandi**

Pavel Verner **txekiarraren** amets gaiztoa. **Edorta Jimenez**

Bohemiako **txekiarren** hizkuntza eta kultura. **Piarres Xarriton**

Txekiarrak, egun batez, bekoz beko galdegin zidan "Apez katolikoa zirea?". **Marzel Etxehandi**

Viena familia handi bat zen, Inperioa ere bai, bere hungariar, aleman, moraviar, **txekiar**, serbiar, kroaziar eta italiarrek, eta familia handi horretan guztiek zuten sentsazio sekretu bat, abentura-iririkaren, jaiduren, grinaren artean Enperadorea baizik ez zela gauza ordenari eusteko. **Xabier Olarra**

Oihal-enpresa bateko arduraduna, Tilda Schröder alemaniarrarekin ezkondua, **txekiar** peto-petoa. **Pablo Sastre**

Idazle merkea eta manipulatzailer nazkagarria iruditzen zitzaiolako **txekiar** frantziartua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txekiarren ostea biltzen da burdin bidearen gainetik 15 metro gora pasatzen den zubian. **Michel Oronoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txekiar bat (4); **txekiar errepublika** (45); **txekiar errepublikak** (6); **txekiar errepublikako** (18); **txekiar errepublikan** (7); **txekiar errepublikaren** (3); **txekiar errepublikari** (7)

dostal txekiarrak (3); **neska txekiarrak** (4); **txekiarrak irabazi zuen** (3)

txekiera iz Bohemian eta Moravian hitz egiten den hizkuntza eslaviarra.

Txekieraz gain hungariara asko entzuten zen herri batean jaitsi nintzen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Sarjentu kontularia, birao gordinak **txekieraz** botatzen zituena, bestek irabazten zuenean. **Anton Garikano**

Fonologiaren aldetik, **txekieraz** ez dago azenturik, ezin baita esanahia bereizi azentuaren lekua dela medio. **Lourdes Oñederra**

"Attention, attention!" entzun nuen adibidez frantsesez; "Pozor, pozor" **txekieraz**, nik uste. **Urtzi Urrutikoetxea**

Txekierazko genitibo pluralak ez du ikur positiborik genitibo eta plurala dela adierazteko. **Isabel Arrigain**

txekista iz txeka bateko komisarioa.

Txekistak, heriotza bezain zurbil. **Pablo Sastre**

Txekistek zigarroak piztu dituzte. **Pablo Sastre**

txeko izond/iz txekiarra.

Eskatu bezala, bi metraileta hartu nituen; C.Z.25, **txekoak** biak ere, eta lau kargadore munizioz beteta. **Rafa Egiguren**

Txekoak Europear Txekian ziren aldi huntan Europaren alde edo kontrako referendum edo bozak. **Herria**

txekor 1 iz zekorra.

Jendeak, kontzientzia hartuta, oilasko, urde, **txekor** eta gainerakoei eman zaien tratua gaitzetsi eta galaraziko du. **Edorta Agirre**

Hiri gotortua hondaturik gelditu da, baserri hustuaren pare, basamortua bezain bakar; **txekorren** larre eta etzaleku bihurtu da. **Elizen arteko biblia**

Hiltegitara daramaten **txekorra** ematen dut. **Jon Alonso**

Bakeroen filmetan lakioarekin **txekorrak** harrapatzen dituztenean bezala. **Harkaitz Cano**

Abeltzain gheientsuenek aratxea, **txekor** emea, dute bizibide. Berria - Hariari
Harategi-gakoekin zintzilik jarritako **txekor** larrutu bati ezkutuan puska kentzen. Harkaitz Cano
Ehorzketaren bezperan **txekor** gisatua prestatu genuen zeremoniaren ondoko otordurako. Joseba Urteaga
Sancta-sanctorumean sartu ohi zen, berekin hartuz **txekor** baten odola, ikatz piztuekin batean. Joan Mari Lekuona
Bere hartan jarraituko dute **txekorretarako** behiekin. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bestelako hainbat ekitaldi izango dira, Urnietan: sagardo dastatzea; **txekor** erretzea; [...]. Berria - Kultura
Horrelakoari serioski azaldu behar izaten zaio itsas zapoa ez dela inondik ere zapo mota bat, eta 'riz-de-veau à la financière' ez dela **txekor** irribarra bankeroaren andrearen erara prestatua. Xabier Olarra
Ikusi dute ikasleek ere, eta Andonik, zer edo zer esate aldera, zera galdetu dio **txekor** jabearen semeari: [...]. Joxerra Garzia

3 irud/hed

Eskolan oraindik lehenengo maila bukatu ez duten **txekor** errenkada bat. Josu Zabaleta

txekoslovakiar *izond/iz* behinolako Txekoslovakiakoa, Txekoslovari dagokiona; Txekoslovakiako hiritarra.

Han-hemenka sakabanaturik, berriz, ehunen bat europar eta **txekoslovakiar** genetista, aztoraturik hantxe iparramerikar blokearen eta sobietar blokearen artean harrapatu egoteaz. Juan Garzia
Bere izena Reichera bidali zituzten eta desagertu ziren herritar **txekoslovariaren** zerrendan atzemango dugu. Pablo Sastre
Artean jakiten dut presoak komandoetara izendatzen dituen bulegoko buruzagia txekiar bat dela, komunista salbamendua, enetzat, ez da **txekoslovariaretarik** baizik etortzen ahal. Marzel Etxehandi

txelai *iz adkor* zelaia.

Hain zuzen ere, bihurtze baten ondoren, errepideak egiten zuen barrurako bihurtze baten ondoko **txelaiari**, hantxe aurkitu genuen kamioi txiki bat ondo ezaguna: nire Peugeotta; eta kamioiaren aurrean, lagun bat fusilez guri zuzen-zuzen apuntatzen. Inazio Mujika Iraola

txelin *iz*

Bahikuntza-agindua dugu zure kontra, hogeie eguneko zorreratik Savoy Hoteleko suitean: 762 libra, 14 **txelin** eta 2 penike guztira. Antton Olano
Pasaporte faltsua; korona bat, bi **txelin** eta penike batzuk; lapitz gorri-urdina, musuzapia; errebolbera, bala batekin. Juan Garzia
Ginea, berriz, 21 **txelin** ziren, hau da, libera bat eta **txelin** bat. Julen Gabiria
Orriko 20 **txelin** ordaintzen zioten. Juan Garzia
Blusa mahai gainera bota eta harengatik hamar **txelin** eta hamaika penike eskatzea lapurreta garbia zela esan zion. Irene Aldasoro
Mooney andreareneko mutil gazteek hamabost **txelin** ordaintzen zituzten astean ostatu eta mantenuagatik. Irene Aldasoro
Azpizuna, hiru **txelinko** tea, botilako garagardo beltz onena. Irene Aldasoro
Txelinko emakumeak daude Lord Jerseyen. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bederatzi txelin (3); **bi txelin** (3); **hamabost txelin** (3); **hamar txelin** (4); **txelin bat** (6); **txelin ordaintzen** (3)

txelo 1 *iz* biolontxelo.

Orain, beste aldera ari naiz aldatzen, oso musika-laguntza urriarekin: arrabita, **txeloa**, oboea edo beharbada fagota. Oskar Arana
Ekitaldi honetan hiru musikarik hartu zuten parte: arestian aipatutako Pello Ramirezek **txeloarekin** eta akordeioiarekin, Karlos Gimenezek pianoarekin eta Olatz Zugatzik harparekin. Patxi Zubizarreta
Soka grabeak (kontrabaxu eta **txeloak**) apartak eta metal taldea indartsua. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Elgarren **txelo** kontzertua nobleziatz beteriko lana da, oso britainiarra (victoriarra). Berria - Kultura
Txelo zortzikoterako eta sopranoerako obra da. Berria - Kultura

3 txelo-jotzaile (*orobat jole eta joile*)

Patricia Franco eta Maitane dantzariak, DJ Mau, Venas eta Charles gitarristak, Maik Kruse **txelo jotzaile** eta dantzaria eta Asier Sarasola idazlea. Berria - Kultura
Ondoren, Clamores y secuencias izango da, Asier Polo **txelo jotzailearen** parte-hartzearekin. Berria - Kultura
Pieter Wispelwey **txelo jotzaile** holandarra musika klasikoan aski interprete ezaguna da. Berria - Kultura
Aita musikari ingeles bat zuen, ozeanoak gurutzatzen zituzten ontzietan **txelo-jole** aritzen zena eta lehorra noizbehinka besterik ukitzen ez zuena. J.M. Olaizola "Txiliku"
Akordeoi, **txelo** eta piano **joile** hoberenetarik da Euskal Herrian. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
txelo jotzaile (3)

txepel 1 *izond* erraz kikiltzen dena, adore gutxi agertzen duena. ikkoldar.

Fernando kanpora joan zen aberats-plantako emakume karioka baten gogoak asetzera, haren senar **txepela** deusetako gauza ez baitzen. Karlos Zabala
Esan ezak horregatik aukeratu zuela Ina, **txepelena**, gixajoena, alegia, ohekide. Jokin Muñoz
Zeren jendaila **txepelak** errespetu edo beldur sakratu batekin onesten baitu arrakastaduna. Iñaki Segurola
Ez nuen ulertzen zer arraio ikusten zion Julio **txepel** hari, inguruan iraultzaile lerdin askoak edukita. Juan Kruz Igerabide
Buruazgiak ere beste horrenbesteko **txepelak** dira; baina beste gizonei obeditu ordez, printzipioei obeditzen diete. Josu Zabaleta
Txepel alaina! Zer ikusiko zuen beregan, itxuraz aparte? Jokin Muñoz
Sozialdemokrazia ahaztu eta leninismoa mirestera pasa nintzen, zirt-zart, **txepelek**, koldarrek eta tratulariek tokirik ez duten tokia. Xabier Mendiguren Elizegi
Urteak aurrerago, eta **txepelago** eta buruarinago dirudizu. Patxi Zubizarreta

2 (gauzez mintzatuz) txaldana, exkaxa.

Gero kafe bat eskatu dugu, EEBBetako ohiko kafe basokada **txepelekin** zerikusirik ez duen espresso bat. Patxi Zubizarreta
Arima lotsor, **txepelak** ez du munduan misio propio bat. Joxe Azurmendi

Egia **txepel** xamarrek dira, erdipurdikotik askoz gorago iristen ez direnak. Iñaki Segurola

Funtsik gabeko arrazoi **txepel** eta umiliagarri batengatik. Itxaro Borda

Eta "duintasuna" gainezka: zenbat maite duten hitz **txepel** horren putza, laostia! Iñaki Segurola

Ulertu nahiak bultzaturik, komunikatu **txepeletan** begiak erre arren, argirik eskaintzen ez zaigunontzat, Mespreza itzazu ama ergel baten errieta **txepelak**, gorrotoa eta mesprezua besterik ez baitiozu berez zor. Hasier Etxeberria

Berez maitagarritik ezertxo ere ez duten animaliei diegун kariño **txepel**, melenga, belaxka hori. Joxerra Garzia

Arimaren zokoan hartagitk semearen baiezko **txepelaren** oihartzuna zetxikan, amodiozko seinale ahul. Itxaro Borda

Espiritu latinoa eta haren argitasun hain goraiatua gauzarik gatzik gabeena, hutsalena eta **txepelena** iruditu zitzaion. Josu Zabaleta

Nik ezin dut ulertu merezi duen jendea ez astintzeko dagoen joera **txepel** inozo hori. Iñaki Mendiguren

Milaka tona zabor gure egunerokotasun **txepelean**, informazioaren garai modernoon erakusle. Iñigo Aranbarri

Borrokarik eta pozik gabeko jai **txepel** bat dago, ezinago tristea eta aspergarria. Iñaki Segurola

Bizitzaren nekeak eta gure indarren ahuldadeak 'Ordu **txepela**' dakarkigu maiz, zeinak ordu baten makalaldiari amore ematen badiozu bigarrenaren zama dakarkizun dohain.

Pako Aristi

3 (adizlagun gisa)

Nik ez dut uste fisikoki **txepel** aritu ginenik. Berria - Kirola

«Etxean kale egiterik ez dugu, etxetik at **txepel** gabiltzalako. Berria - Kirola

Kafea **txepel** dago. Alberto Barandiaren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ordu txepela (10)

txepeldu, txepel(du), txepeltzen da/du *ad* txepel bihurtu. ik **kikildu**; **koldartu**.

Horrenbestearaino **txepeldu** gara, eta biguindu. Joxerra Garzia

Indartsuenei, errepikatu beharraren errepikatu beharrez, xanpain merkeari bezala doakie bitsa, **txepeldu** egiten dira. Iñigo Aranbarri

Ez zegoen polizia hoberik asmatzerik euskaldun jendea **txepeltzeko** eta lehenaz gainera idiotatzeko. Iñaki Segurola

Jakina baita beroak gauzei indarra kentzen diela, eta bere lurrin beroarekin xurgatu egiten dizkiela berezkoak dituzten bertuteak; urtu egiten dituela eta, erabat ahulduz, **txepeldu** egiten dituela. Santiago Iruretagoiena

Zahartuta, **txepelduta**, hipokondriako bat eginda nagoela? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

txepelkeria *iz* txepeltasun gaitzesgarria.

Erijio doilor eta asmaziazale horren dogma eta misterioen **txepelkeriak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hire bizitza ametsa eta **txepelkeria** besterik ez duk. Patxi Zubizarreta

Amen Elkarte, Elkarte Filantropikoa... [...] aitak horiek guztiak uztera behartu du, eta esan dio pentsioa erabat murriztuko diola, berriz horrelako **txepelkerietan** erortzen bada. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Birjintasuna emakume txepelen **txepelkeriatzat** baitzuen, mojen ikastetxe batean ikasi zuen arren. Joan Mari Irigoien

Zeren jendaila txepelak errespetu edo beldur sakratu batekin onesten baitu arrakastaduna eta, **txepelkeriaren** gairiduran, zorionez -zorianak emate ustelez- janzen.

Iñaki Segurola

Makina bat **txepelkeria** egina nintzen joan zeneko urte haietan. Matías Múgica

Lagunak txantxetan ari zela uste izan zuen, Geinek, bete-betea ez zenez gero, horrelako **txepelkeriak** esaten baitzituen. Gotzon Garate

txepelketa *iz adkor*

Txapelketak zenbateraino diren **txepelketa** eta zenbateraino diren subjektibo azaltze aldera, 1986ko Nagusian gertatu zena ekarriko dut hona. Andoni Egaña

txepelki *adlag* txepelkeriaz.

Parlamentua jarri zuen agintaritza nagusi bezala baina berak indarra eta boterea emandako Parlamentu hark **txepelki** erantzun zien Cromwellen eskakizunei. J.M. Olaizola
"Txiliku"

Baina hau oso **txepelki** zioen jada. Imanol Unzuurrungaza

txepeltasun *iz* txepela denaren nolakotasuna.

Hainbeste lasaituko da laztasuna eta nagusiko **txepeltasuna**, non aita pobreaken semeek ez baitute lotsa-izpirik izango eskarlatatzko jantziak eramaten, kolorea soilik aldatuz.

Askoren artean

Barre txepel bat egin zuen, baina haren **txepeltasuna**, niri bost. Eskarne Mujika

-Hori **txepeltasuna** da, benetan -erantzun zuen, oso lasai eta onbera, filosofo-legegizonak-. Jose Morales

txepetx 1 *iz* Oso tamaina txikiko txoria, potoloa, kolorez arrea, moko-zorrotxa eta buztan-zuta(*Troglodytes troglodytes*).

Txepetxak sasi artean nola babesten diren. Hasier Etxeberria

Arrano bat bezala sentitu nintzen **txepetxaren** aitzinean. Joan Mari Irigoien

Musu bat pausatu zuen haren ezpain zurietan, haizeak **txepetxa** adar txiki ikartian pausatzen duen bezala. Felipe Juaristi

Hainbestekoa zen sumatzen genuen zoriona, non leiho eta ate guztiak ireki beharrean aurkitzen baikin, baita negu gorriean ere, zorionez itoko ez baginen bertan, arnasarik gabe geratutako **txepetxen** antzera. Hasier Etxeberria

Eskuinean lau etxe, elkarren ondo-ondoan ilaran jarrita **txepetxen** antzera. Anton Garikano

Idoia **txepetxaren** hegaldia baino ausazkoagoa zela pentsatu nuen, noiznahi ezustean harrapatzen ninduela. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo gisa) ergela.

Halaxe ibiltzen naiz neu ere, zozoaren antzera, gezurrik **txepetxena** esan behar dudan bakoitzean, inork gezurretan ez nauela harrapatuko ziurtatzen. Hasier Etxeberria

-Zertan ari haiz, **txepetx** halakoa? -esan zidan askatuz; baina gero irribarre herabe bat eskaini zidan. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txepetxa harrapatu dugu (4)

txera (98 agerraldi, 43 liburu eta artikulu 1ean) 1 iz xamurtasunezko sentimena. ik xera; losintxa.

Gogoeta eta samin, sufrikario, infernua bera, gaixoak ditu **txera** eta atsegintasun bilakatzen. [Juan Garzia](#)
Maitemina denborarekin osatzen den gaitza dela diote batzuek, pasioa amodio bihurtzen dela, eta amodioa **txera**. [Luis Elberdin](#)
Samurtasuna hitz ederra da, esanahi sakonekoa, eta beti maitasunari eta **txerari** lotua. [Luis Elberdin](#)
Egokiera izanez gero, hurbilduko natzaio, hitz egin, berarekin solastatu eta ahal dudan eran adieraziko diot nire **txera**. [Imanol Unzurrunzaga](#)
Media Lunari hainbesterainoko **txera** ziolako izan ez balitz, ikustera etorri ere ez zitzaion egingo. [Juan Garzia](#)
Munduko gauzarik naturalena iruditu zitzaion Durant jaunari neskak berarengana zuten **txera**. [Mirentxu Larrañaga](#)
Gerta liteke erakarpen fisikoa **txera** bihurtzea. [Luis Elberdin](#)
Usapal maitemindu parearen hura, eta *uxapalak* deitzen zieten denek, urruma eta **txera** besterik ez baitzen haien artean. [Karlos Zabala](#)
Eta eskuak, oraindik Egañazpik soina **txeraz** laztantzen ikusten dizkion esku haiek. [Iñigo Aranbarri](#)
Txerazko zaplatatxo batzuk eman zizkion haurrari masailetan, haren mardultasuna miretsiz. [Jose Morales](#)

2 (izenondoekin)

Donostiarrek **txera** handia diote Koruko Amari, baina izen horren azpian Goruko Ama ezkatutu bide da (goruan ari den amabirjina, alegia). [Iñaki Arranz](#)
Zer egiten duzu horren goiz?, esan nion **txera** handiz eta gaiaz beste egite aldera. [Anjel Lertxundi](#)
Durant jaunari **txera** maitekorra sorrarazten baitzion. [Mirentxu Larrañaga](#)
Ez nuen **txera** berezirik sentitzen etxeagatik, atzean uztera nindoan guztiagatik. [Anjel Lertxundi](#)
Txera bitxiz begiratu zion gorputz fimiño hainbat aldiz apaindu izan zuten hari. [Irene Aldasoro](#)
Txera osoz ferekatu nuen. [Anjel Lertxundi](#)

3 (hitz elkartuetan)

Aurrena lotsagorritu egin zen taula gainera igotzean; gero **txera** -imintziaz erantzuten zien hitz galaitsuei. [Juan Garzia](#)

4 maitasunezko edo xamurtasunezko fereka edo hitza.

Etxean, dena zen laztana eta **txera**. [Karlos Zabala](#)
Onez onean saiatu zen lehenik, **txeraz** eta lausenguz, eta mehatxuekin gero. [Joxean Agirre](#)
Hemen nik zer proposatzen dudana: 1) losintxak, 2) mainak, 3) musutxoak, 4) hazka-egiteak, 5) masajeak, 6) musuak, 7) **txerak**, 8) laztanak, 9) zirriak, 10) musu grinatsuak, 11) miazkatzeak, 12) astinduak, 13) triki-trakak... [Luis Elberdin](#)
Duda izpirik ez dut, maiteago du bere katu zorritzioa, edo behintzat harentzat gordetzen ditu **txera** guztiak. [Patxi Iturritegi](#)
Aretoko bezeroak zelatatu zituen, harik eta, nagusiaren eskuinean, gaztea begiztatu zuen arte, haren **txerak** etengabe jasotzen. [Patxi Zubizarreta](#)
Zientziak berak nolabaiteko **txera** egiten zien Goethek funtsezkotzat zituen "anomali"ei. [Xabier Olarra](#)
Neskatxak **txerak** egiten eta xingola zerurdin batez apaintzen zuten arkumetxo bat hesi-sastakan zauritu zen. [Juan Garzia](#)
Ez diot inori errurik leporatzen, baina **txera** gutxi egin didate hemen. berari eta bere arteari egiten zien **txera** nabarmena. [Javi Cillero](#)
Badakik, mutiko, behin gure adinera helduz gero, sentimenduak bakarrik geratzen zaizkiguk, -saltzaileak, **txera** atsegin batez. [Anjel Lertxundi](#)

5 irud/hed

Nikotinazko **txera** biriketaraino doakio otzan. [Eider Rodriguez](#)

txerakeria iz txera gaitzesgarria.

Hamleti eta haren **txerakeriei** dagokionez, galatzat eduki eta odol-apeta hustzat, liliubel bat nola udaberri jaukalean: goizerne, ez iraunkor; kutun, ez luzaroko; lipar bateko urrin laketgarria, besterik ez. [Juan Garzia](#)

txeratasun iz txera.

Etxean egon arren, bazuen halako apartekotasun bat, urruntasun bat, ilderi eta beste mutikoei halako menekotasun bat, eta aldi berean **txeratasun** bat eragiten ziena. [Josu Zabaleta](#)
Eta bainutegiko tristorak, beti berdin diren egunen monotoniak, are beteago egiten dute orduarik ordu, **txeratasunezko** eztanda hori. [Josu Zabaleta](#)

txeratsu 1 izond txeraz betea.

Diosal-keinu **txeratsu** bat. [Xabier Olarra](#)
Nire ondoan neukan neska hura, Virginia, ezkontzera zihoan, eta bere jarrera **txeratsua** bukaera ematen zion gu bion arteko harreman xeheari. [Bernardo Atxaga](#)
Dagoeneko ez zen lehengo sinpatia **txeratsu** eta lotsati hura, hain gozoa; abere-maitasun bat zen orain. [Josu Zabaleta](#)
Marjolin ez zen joan dendatik; estasiak hartuta gelditu zen andre eder haren aurrean, halako esanekotasun **txeratsu** batez beterik. [Karlos Zabala](#)
Haren aurpegiak antz handia baitzuen zaldi prestu eta noblei zerien malenkonia **txeratsuekin**. [Mirentxu Larrañaga](#)
Gogoko ditu haren iruzkin **txeratsu** eta animatzaileak. [Xabier Olarra](#)
Autorearengandiko ironia zantzu baten bila aritu naiz, baina gaitzespen **txeratsu** bat baino ez dut aurkitu. [Berria - Kultura](#)
Aztoramen **txeratsu** eta tristez. [Xabier Olarra](#)
-Ez al da egia oso gizon agurgarria eta **txeratsua** dela? [Jose Morales](#)
Eta oso **txeratsua** izanagatik hire katua, ez dinat nahi ondoan, horratik, lo nagoenean. [Juan Garzia](#)

2 (adizlagun gisa) txeraz beterik.

Muchek eskua hartua zion; eta, bere hutsegiteaz konturatutik, **txeratsu** jokatzen hasi zen berriz, sakelak bizi miatzen zituen bitartean. [Karlos Zabala](#)
-Zer moduz zaude, osaba Kamil? -galdegina zion, **txeratsu**. [Patxi Zubizarreta](#)
Jator, lagunkoi, **txeratsu** jokatu, ez ziezaiotela antzeman bere haserreari. [Anton Garikano](#)
Torturatzailerari eskua bizkarrean jartzen diozu **txeratsu**, eta esaten diozu: [...]. [Josu Zabaleta](#)
Elkarrekin ikusi gintzitean lehenago bizitzako egoera guztietan, armadan, gizartearen ikusten gintzuten bezala, beti elkarrekin adeitsu eta **txeratsu**. [Xabier Olarra](#)

txerbeldu, txerbel(du), txerbeltzen da/du ad edariak apur bat igarora egon.

Mister Lewin **txerbeldua** zegoen pittin bat, ardoa edaten ohiturarik ez-eta, baina oso jator, eta derrepente, pentsa, Sabethekin dantzatzeko adina adore ere erakutsi zuen, erraldoi halakoak. [Joxe Austin Arrieta](#)

txeremiak iz

Gobernue horretako bizilagunak enda eta leinu askotakoak dira; badira han **txeremiarrak**, mordviarrak, txuvashiarrak, volsalkoak, vigulitxak eta tatarriarrak, ezaugarri asiar garbiagoak azken horiek, besteek baino hobeki eutsi baitiote izaera horri. Finlandiarrak, estoniarrak, laponiarrak, **txeremiarrak**, txuvashiarrak eta permiakak gehitzen baditugu, [...]. **Karlos Zabala**

txerka ik **xerka**.

txerkatu ik **xerkatu**.

txerkes izond/iz

Kaukasoko ipar-mendaldeko Zirkasian bizi den talde etniko bati dagokiona.

Iberia herriko jauna eta Kartalinia, Gruzinia, Kabardinia eta Armeniakoa, printze **txerkesen** jaun oinordeko subiranoa, mendietakoena. Zaldiak zela **txerkes** eder bat zuen.

Karlos Zabala

Longaina zaldiko gorrixka baten larruz egina zen, zilarrezko brodatu eta azpildurekin apaindua **txerkesen** erara. **Fernando Rey**

txerlotu izond

Ikragarri nabarmentzen zen urrezko erloju kate **txerlotu** bat, erdian katenbegi handiak zituena, eta anitz zintzilario pinpirinez hornitua. **Matías Múgica**

txermen iz udarea. ik madari.

- **Txermena** ez, llargi, udarea da hori. **Joxerra Garzia**

Orduan, zergatik behartu nahi du llargi gajoa udarea jatera, llargik **txermena** jan nahi badu? **Joxerra Garzia**

txermoni iz txerri barrukiak.

Manolok bizitzan zehar eginikoa **txermoniak** ordainetan ematea besterik ez da izan. **Berria - Kultura**

Eeskribauak, gastu guzien akta jaso du: ezpezeroak 50 xueldo, pitxergileak 33 diru; Erregeren **"txermoni"** partitzaileak, zaldia barne, 154 florin, zirujau odolzaleak hiru halako, eta eskribauak berak, auskalo zenbat gehiago. **Patziku Perurena**

txernobildar iz Txernobigo biztanlea.

Txernobildarra naiz eta ongi jakinaren gainean nago: ihes egin nahi izanda ere mundu honetan ez dago aski espaziorik. **Berria - Kultura**

txeroki izond/iz

Oklahomako estatuan bizi den indiar tribuari dagokiona; tribu horretako kidea.

Gaueko ibilaldiaren segundoak oro halatan, navajo, anjou zein **txeroki** neurtitzen konpainian gozarazi nituen. **Itxaro Borda**

"Nik komantxe", "nik **txeroki**", "nik txeiene". **Xabier Mendiguren Elizegi**

txerokitar iz txerokia.

Zineman usu ikusi esploratzaile siux edo **txerokitarrek** oroitarazi dizkizute, Biarritzeko neguko igande malenkoniatsuetako filmetakoak. **Xabier Montoia**

txerpolari 1 iz herriz herri zirku ariketak eginez ibiltzen den artista. ik titiritero.

Jaiki, **txerpolari** batek baino akrobazia gehiago eginez dutxatu, jantzi, gosaldu eta kalera irten naiz. **Anjel Lertxundi**

"Irriz karkailaka lehertuko gara **txerpolari** honen bizkar", xuxurlatu zioten elkarri senar-emazteek. **Patxi Zubizarreta**

Haien atzetik, **txerpolariek**, batzuek ahoan sua, eta beste batzuek, ezpata okerra sartzen zutenak. **Felipe Juaristi**

Arropa berdez jantzirik **txerpolariek** txerri gazte trebatuak suzko uztaietatik zehar iraganarazten zituzten egunetan. **Juan Garzia**

Ezerezetik sortutako hiri horren plaza eta auzoetan molde guztietako **txerpolariek** pilotzen ziren: saltinbankiak eta akrobatak, hurbiltzen zirenen belarriak sorgortzen beren orkestren orro eta uluekin eta beren antzeppenaren deiarrekin. **Karlos Zabala**

Ez zen harriztekoa **txerpolariek**, saltinbankiek eta orekariak zarata itzela ateratzea beren txosnen aurrean saltoka eta dantzan. **Karlos Zabala**

Nazio askotako **txerpolari**, su-jale eta gezur-esale ugarirekin batera. **Felipe Juaristi**

Non ikusi da de Espinosa abizena duenik musika jotzen, **txerpolari**, titirimundi eta buhameen moduan? **Felipe Juaristi**

Hotela txikia da eta gelan, berriz, **txerpolarientzat** eta bi egin beharra dago ohearen eta hormaren arteko pasillo txikitik pasatzeko. **Anjel Lertxundi**

2 (izenondo gisa)

Ordua da nano **txerpolarientzat** istorioa gutxi-gorabehera kontatzeko. **Patxi Zubizarreta**

Maisua gizon adeitsua zen, koblakari **txerpolariek** baino jantziagoa. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan)

Ruche jaunak, aulki-gurpildunean tentetu, eta han ekin zion, **txerpolari**-ahotsez: [...]. **Jon Muñoz**

Giza eskalan, akrobazia ironiko bat da, **txerpolari**-txantxa bat, guztiahalduntasun-larderiazko erakuskeria ulertezin bat. **Juan Garzia**

4 herriz herri dabilen saltzailea.

Birsaltzaileak, **txerpolariek**, frutariak lehiaz ari ziren erosten. **Karlos Zabala**

Diru gizona zen, lukurrerua, **txerpolariek** maileguak egunka egiten zizkiena eta orgatilik errentan ematen, eskandaluzko korrituak eskatuz. **Karlos Zabala**

Ticesko Ama Birjinaren irudixoa bat zuen, **txerpolari** bati Ohanesko festetan erosi ziona eta etxeko egongelan jarri zuena. **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txerpolari iruzurtia (3); **txerpolari iruzurtien** (4)

txerraga iz txingarrak mugitzeko haga.

Txerraga edo sutan dauden txingarrak mugitzeko haga dago goitzenaren iturrian? [Anjel Lertxundi](#)

txerrama 1 iz umeak izan dituen txerri ama.

Larogeita hamabosteko udan, beroa zela eta hiru ume hilik jaio zituen gure **txerramak** ! [Pablo Sastre](#)

Soroetatik ibiltzean, **txerramak** artadian bezala egiten zuten: zarata eta iskanbila. [Koldo Biguri](#)

Txerramak begi makartsuak kiñatu zituen. [Pablo Sastre](#)

Gaileta zatiak poltsikotik atera, banan-banan eman zizkion, gero **txerramak** eskua lamizkatu zion. [Pablo Sastre](#)

2 (hitz elkartuetan)

Txapela bekainetaraino sartua, matrailezur agerikoa, **txerrama** begirada. [Jokin Muñoz](#)

txerren 1 iz deabrua.

Amildegitik behera amildu zirenak Jesus Guztiz Onak gorputzean sartu zizkienean deabruak hartutakoaren gorputzean zeuden **txerrenak**. [Jon Alonso](#)

Bere ohorearen aurka **txerrenaren** asmazioak erabiltzen zituzten. [Jon Alonso](#)

2 (izen berezi gisa)

Garibaik **Txerreni** arima saldu diola zabalduko da, arian-arian, erresuma guztietan. [Anjel Lertxundi](#)

Ostiralelako azkazal-mozkinekin, gurdien gurpilak egiten aritzen omen da **Txerren**. [Pello Zabala](#)

- **Txerrenen** kastakoa haiz. [Patxi Zubizarreta](#)

Txerrenek ez zuen eta ez du inor engainatzen, denek nabarmentzen diote arroztasuna. [Anjel Lertxundi](#)

Baionako Santi Espiritu zubitik hurbil dagoen leizetik behera hartuko du **Txerrenek**, berehala ahaztuko zaizkio bai eta ez hitzak. [Anjel Lertxundi](#)

3 txerren hauspo

Bosgarren bat ere badauka, Kepa Enbeitak bere bertsoari emandako titulua hain zuzen: **Txerren** -hauspoa. [Koldo Izagirre](#)

txerrenkume 1 iz txerrenaren umea, pertsona gaitzesgarria.

Nik ez nituela atzeko "**txerrenkumeak**" bazter utzi nahi; nire jendea zela hura, eta ez gindoazela Damaskorako bidean. -Azaldu beharko didazu zer egiten duzun zuk jainkogabeko **txerrenkume** hauekin, don Roman... [Inazio Mujika Iraola](#)

Haiek nahi, bai... baina bururatuko zaiguk guri zerbait orduan, atzeko **txerrenkume** horiek bazterrean uzteko moduren bat. [Inazio Mujika Iraola](#)

2 (deiki gisa)

-Kontuz, gero, **txerrenkumea**, aurpegia txiki-txiki egitea nahi ez baduk! [Patxi Zubizarreta](#)

"Deabruak eramango ahal hau, **txerrenkume** malapartatu hori! [Jose Morales](#)

txerrero iz maskaradako pertsonaia, karrika-garbitzailea.

Entseñaria, **txerreroa**, gatüzaina, kantinierra eta zamaltzainaz gain, dantzari gazteenak diren küküileroek ere ikusle zaleen begirada zorrozpean jardun beharko dute.

[Berria - Kultura](#)

txerri (orobat txarri g.er.) 1 iz ugaztun apodun orojalea, gorputz lodia, ile motza eta mutur luzea dituen, bere haragiagatik hazten dena (Sus scrofa).

Arrantzaka noizean behin astoren bat, eta kurrinka **txerriak**, eta miauka katuak. [Patxi Ezkiaga](#)

Buruaz moztzen dioten **txerriak** nola, hala egiten zuen garrasi Hennek. Ukuluan **txerriak** heian zaintzean, bakoitza bere azpilean txukun moldatzea gustatzen zitzaidan. [Koro Navarro](#)

Nahiago izan dugu hemen geratzea geure **txerriak** zaintzen. [Juan Garzia](#)

Antzeko sistema erabil liteke, Templek esan zidanez, **txerriak** hiltzeko ere. [Xabier Olarra](#)

Nekazariak **txerria** hiltzen zutenean, nire amarentzat gordetzen zituzten zatirik eskasena, tripak eta auskalo zer gehiago. [Eskarne Mujika](#)

Angelek **txerriak** prestatu behar zituen, erreta. [Berria - Euskal Herria](#)

Txerria erretzeko urrutiko mendietatik ekartzen ziren garoz betetako gurdri eta lerakada mardulen usain gozoa. [Pako Aristi](#)

Nola urrezko eraztuna **txerriaren** muturrean, hala da zentzugabeko emakume ederra. [Elizen arteko biblia](#)

ik beherago 11. [Askoren artean](#)

Nola anai Juniperok **txerri** bati hanka moztu zion, gaixo bati emateko. [Askoren artean](#)

ik beherago 7. [Askoren artean](#)

Ganibet mehe batez, **txerri** baten saiheski multzo batetik hiru bereizi zituen. [Karlos Zabala](#)

Urdaiazpiki handiak, txahal eta **txerrien** atal ederrak. [Karlos Zabala](#)

Azken asteotan bi **txerri** lapurtu dizkiotela eta, [...]. [Joxemari Urteaga](#)

Bi milaren bat **txerri** ito ziren. [Elizen arteko biblia](#)

Garondan azal latza zuen, **txerriaren** larru gorritza iduri, eta haren kokots bizar-moztua zur begitsua bezain zimurra zen. [Karlos Zabala](#)

Txerriaren saltxitxa eman zion jateko. [Anton Garikano](#)

Kutsatutako **txerrien** gaineko kontrol neurri bereziak orain dela aste batzuk jarri zituzten indarrean, dioxina gehiegi zuten **txerriak** detektatu ostean. [Berria - Gaiak](#)

Txerrien zelulak, diabetesa sendatzeko itzaropena. [Berria - Gaiak](#)

Urdaitegiko **txerri** guztiak min horiak jo izan balitu bezala. [Karlos Zabala](#)

Baina **txerriak** dena ona du, ez zuk bezala. [Bernardo Atxaga](#)

Txerri goseak ezkurra amets. [Xabier Etxabe](#)

Txerrizainak ere *zatoz-zatoz* esanaz, baina labana ezkutatuz, erakartzen dik hiltegiara beti *hator-hatorka* tratatu duen **txerria**. [Anjel Lertxundi](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mendebaldean *apoa* deitzen bazaio ere **txerri** arrari. [Iñigo Aranbarri](#)

Txerri gazte trebatuak suzko uztaietatik zehar iraganarazten zituzten egunetan jaio zen. [Juan Garzia](#)

Txerri beltz polit bat, baserriko **txerriak** bezalakoxea. [Anton Garikano](#)

Ez nolanhiko txerria, **txerri** serbiarra baizik, **txerri** konkorduna. [Pablo Sastre](#)

Dena aprobetxatzen zaien jakiduna izaki **txerri** maitagarria. Pello Zabala

Gantzaren poto bat eta **txerri** ketuaren saihets bat. Anton Garikano

Txerri odolustua ematen nian. Mirentxu Larrañaga

Mendiko **txerriaren** gantzaren kolesterol gehientsua "mesedegarria" (HDL) da, granjakoarena, berriz, "kaltegarria" (LDL). Edorta Agirre

Esan zuten baita ere, granjako **txerriek** buruhausteak eta horrelakoak izaten dituztela. Pablo Sastre

Txerri garbitu berria lokatzetara. Elizen arteko biblia

Orain, Omega 3a duten **txerri** transgenikoak sortu dituzte. Berria - Gaiak

Azalera txiki-txikian hazitako **txerri** masifikatuak bihotzeko infartua nozi dezake noiznahi. Edorta Agirre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bazebilen han **txerri** -talde on bat mendian uxarrean. Elizen arteko biblia

Txinako **txerri** etxalde batean. Berria - Gaiak

Ez zekien zer izan zen, edo whisky txarra, sotoko gauak, **txerri** -sukarra, ahoko bridak, [...]. Anton Garikano

Txerri -aska guztiz zatar eta zikin batean. Askoren artean

Patatak, mendetan **txerri** -jangai izan ondoren, ogiaren tokia bete du leku zenbaitetan. Edorta Agirre

Biharamunean prestatu beharreko urdaiazpikoak eta **txerri** okela gazituzko zerrrendak. Karlos Zabala

Quenu **txerri** gibelak xehatzen ari zen. Karlos Zabala

Masail guriko kupido txiki batzuk ageri ziren jolasean, animali buruak, **txerri** saiheskiak, saltxitxoi girlandak inguruan zituztela. Karlos Zabala

Haragi errea, oilasko errea, **txerri** -txuletak eta arkume-txuletak. Iñaki Mendiguren

Txerri xerra ogitan pasatua erosten zigun. Juan Kruz Igerabide

Lekak **txerri** -azalez gozatuak. Anton Garikano

-Ez didazu jarriko **txerri** burua pistatxoekin? Karlos Zabala

Léonek aurpegia muzindu zuen, odolkiarentzat **txerri** hesteak prestatzen zituen bitartean. Karlos Zabala

Bi gurpileko galdi txiki luze batzuen aurrean gelditu zen; olana biribil batez estaliak zeuden, eta **txerri** erdiak zeramatzen. Karlos Zabala

Txerri -gorotz pixka bat. Anton Garikano

Urdaiazpikoak atontzen zituen eta **txerri** gantza urtzen. Karlos Zabala

Han itxura aldatu zuen eta **txerri** -ilezko eskuilen saltzailea zela esan. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Bere lehengusu Kornelio **txerri** -tratanteari lagundu zion boladatxoa kenduta. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontatu egin behar, zuek bizi zareten kalean, garai batean **txerri** -azoka antolatzen zela. Xabier Etxabe

Diabetesa eta **txerri** organoak. Berria - Gaiak

Inongo aiatoraren agindu beharrik gabe, **txerri** ehiztariet tiro batzuk bota zituzten atzo. Berria - Ekonomia

Emadazu libra bat **txerri** gantz. Karlos Zabala

Bera-bera eginda dagoen kilo bat **txerri** -gantza. Anton Garikano

Auguste patiora joan zen lehenbizi, bi pitxer **txerri** odol ekartzera. Karlos Zabala

Garai batean **txerri** bodetan gizonek parte hartzen zuten eta umea gizontzen zenaren seinale, pesta jakin honetan ematen zen. ik txarriboda. Berria - Kultura

-Esklabo eginak egon behar al dugu ba beti, patata landatzen edo **txerri** zaintzen? Koro Navarro

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Gero, **txerri** gantz ontzia eta okela errearen koipearena ondo lerrotatu zituen. Karlos Zabala

Txerri gantz potea edo barraskilo kaxa ekartzeko eskatzen zion mutilari. Karlos Zabala

5 (irain hitz gisa)

Ez naizela batere aldatu pentsatuko du Zöek, arrazoi osoz, apartamentu itxurosoagoa izan arren betiko **txerri** nazkagarria naizela. Patxi Iturritegi

"Noski, orain ez da aurpegia ematera ausartuko **txerri** hori", pentsatu du Sofiak. Patxi Iturritegi

Ederki gizendu haiz, **txerri** alaena. Joxerra Garzia

Auskalo ze **txerri** bargastarekin ote dagoen. Xabier Mendiguren Elizegi

6 (izenondo gisa)

Presoak, egia esan, oso modu **txerrian** zeuden ontzien bodegetan. Koldo Izagirre

7 txerri hanka

-Asko pozutuko nintzateke niretzat **txerri-hanka** bat ekartzetik izango bazenu. Askoren artean

Txerri-hankak (bezperatik ardotan beratuak), zapal-zapal eginik. Xabier Olarra

Strasbourgeko mingain bilduak, gorriak eta dirdirka, odoletan, saltxitxa zurbilen eta **txerri hanken** alboan. Karlos Zabala

Zer zela eta, ordea, nahitaez, **txerri-hanka** dilistekin, eta gazta xehetua makarroiei? Juan Garzia

Jakina, hesteek, saltxitxek, andoilek, **txerri hanka** ogi-arrautzeztauek fintasun handiko grisak ematen zizkidatean. Karlos Zabala

8 txerri hiltze

Larunbat goizerako, **txerri hiltzea** antolatua dute. Berria - Kultura

Baita **txerri-hiltzean** ere, nahiz eta ez den batere erraza aitzoa sartuta txerria hiltzea, agoniako kurrinka haiek, gorputza bihurka, odol-zipritzinak bazter guztietan. Karlos Zabala

Txerrikitarako behar dugulako, behar bezala hiltzen badugu, ba horixe, hil egiten dugu, **txerri-hiltzeak** dakartzan lantegi guztiak hartzen ditugularik. Iñaki Segurola

9 txerri-jan (orobat txerrijan) iz txerriak jatekoa.

Trinko-trinkoa zen kiratsa; eta epela; **txerri-jan** egosiarena gogorazten zuen. Anjel Lertxundi

Txerrijanik ez da sartzen nire begi-belarrietatik, alferrikakoak ez baitu kausitzen lekurik nire baitan. Hasier Etxeberria

Txerri-jana ematen omen zuen gehiago zapero hark. Xabier Mendiguren Elizegi

10 txerri korta (orobat txerrikorta eta txarrikorta)

Mundua salbatzera datorren Jainko hori puta judutar baten sabelean agertzen da, **txerri-korta** batean! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Tapiaren eta Izagirrerren apoa ez da **txerrikortako** ordotsa, putzuetako zapoa baizik. Iñigo Aranbarri

11 irud/hed

Horren ondorioz, etxeko eremu komun osoa **txerrikorta** hutsa bilakatu zen, eta txarrena da horrek ez ziola inori higuinik ematen; ez, behintzat, garbiketari ekiteko adinakorik. Jon Arretxe

Txarrikorta honetan dagoen andra bakarra. Sonia Gonzalez

Ez nago inork ikusteko moduan eta nire logelak **txerri-korta** bat dirudi. Lopez de Arana

Politikaren **txerrikortan** gora egiteko. Fernando Morillo

12 txerri mutur (orobat txarrimutur g.er.) iz

Haren aurpegi bizar-kendua aurrerantz luzatua zegoen, eta denborarekin **txerri muturraren** halako antz lauso bat hartu zuen. Karlos Zabala

Hautsik gabe, bestalde, halako **txerri-mutur** itxura deitoragarria hartzen zuen nire sudurrak. Joxan Elosegi

Txerri-mutur upelen ondoan.

Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txerri buru (3); **txerri burua** (4); **txerri burua pistatxoekin** (3); **txerri eginda** (3); **txerri ehiztariek** (4); **txerri gantz** (8); **txerri gantza** (4); **txerri hanka** (5); **txerri korta** (3); **txerri mutur** (7); **txerri okela** (3); **txerri talde** (4); **txerri transgenikoak** (5); **txerri transgenikoak sortu** (3)

txerriak zaintzen (3)

txerriengan sartu ziren (3)

txerrijan ik txerri 9.

txerrikeria (orobat txarrikeria g.er.) iz zikinkeria, eskuarki jateko zikinak edo zikin prestatuak.

Une batez badirudi xerra gurineztatatu bat, galleta blaituak, edozer **txerrikeria** botako dietela neskek mutilei, mendeku gisa. Xabier Mendiguren Elizegi

Izugarrri nahigabetzen zuen sukaldean aginpiderik ez izateak, zeren batek zekien zer-nolako **txerrikeriak** jaten zituen Shevirev doktoreak. Jose Morales

-Ez hion ba **txerrikeria** hau egunero hartzea aholkatuko! Unai Iturriaga

Txerrikeria haiek, ordea, ez ziguten inondik ere egarria kentzen, are gutxiago kontuan izanik bakoitzak nahi zuena ordaintzen zuela basokada zurrakapoteren truke.

Xabier Mendiguren Elizegi

Jendea pozoituko dute azkenean beren **txerrikeria** kirastuekin! Karlos Zabala

Ez al jatzu **txarrikerixe** iruditen zigarro meta hori, ala? Sonia Gonzalez

txerriki 1 iz txerri haragia.

Gezurra dirudi **txerriki**, irina eta patata planeta osoko jangai tipiko izateak. Edorta Agirre

Haragia eskatzen zuen, ahalaz bildotskia, edo hura ezean, aratxekia edo **txerriki**. Elena Touyarou

Mahometarrek higuina diete indiarrei, hauek **txerriki** jaten dutelako. Iñaki Iñurrieta

Ahoa zabaltzera behartu eta **txerriki** janarazi nahi zioten. Elizen arteko biblia

Nolanahi ere, haurdun hagoenean, erabat baztertu beharra zagon **txerriki**, gaitzak saihesteko. Joxan Elozegi

Proteina guztiak ez dira berdinak; jaten dugun ardikiaren edo **txerrikiaren** proteinak ez dira bere horretan giza proteinaren ordeko. Irene Aldasoro

Txerrikiaren monopolioa, hori dirua irabazteko bide paregabea da. Lopez de Arana

2 (izenondoeekin)

-Hala da, bai, haragia da: **txerriki** errea. Aitor Arana

Uretan egositako **txerriki** gazituaren puska. Karlos Zabala

Txerriki gatzatua, berriz, zapi zuri batean bildu zuen. Anjel Lertxundi

Txerriki ketuaren orkatila-hezurak pila batean zeuden plateretan. Anton Garikano

Beste zenbait jangairi ura sartzen zaie (hainbat **txerriki** eta hesteki freskori, izozturiko arrain eta itsaskiei, etc.). Edorta Agirre

Zartagin bete **txerriki** hotz eta arto-ogia. Mirentxu Larrañaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Entsalada xume bat, zopa hotza eta purez lagunduriko **txerriki** xerratxo bat izan da agintariek eskaini diguten oturuntza. Ohioen hegoaldea bete zuten alemaniarrek

txerriki -sukaldaritza ekarri eta landu zuten goiko mailaraino. Edorta Jimenez

Txerriki -puska eder bat zirtaka erretzen ari zen labean. Iñaki Mendiguren

-Ondo da, ondo da -Agustinak, erretilutik bi **txerriki** zati berak hartu bitartean-. Aitor Arana

Baita ura eranstea bera ere, **txerriki** preziotan ordaintzen dugun arren. Edorta Agirre

-Zergatik ez duzu erosten **txerriki** gazitu puska bat? Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txerriki gatzatua (3); **txerriki gazitu puska** (3)

txerrikorta ik txerri 10.

txerrikume (orobat txarrikume g.er.) 1 iz txerriaren umea.

Txerri eta **txerrikume** zuri-beltzak ageri ziren talde jorietan bildurik. Karlos Zabala

Estoldako zulotik, **txerrikume** bat besapean zuela, ijito bat atera zen. Pablo Sastre

Txerrikumeak saldu eta letxona hil, gerokeetan pentsatu ere egin gabe. Arantxa Iturbe

-Lapurtu egin duk **txerrikume** hori? Anton Garikano

Azala, distiratsua eta gorritzat, **txerrikume** erre baten azala bezala. Josu Zabaleta

Zakilak eta titiak txupatzea gustuko zuen, eta **txerrikume** baten gose biziak zurrupatzen zituen. Karlos Zabala

Arratoia **txerrikume** bat bezala ari zen kurriskaka, Ronen aurpegia eta lepoa atzaparkatuz, ihes egiteko ahaleginean. Iñaki Mendiguren

Kurrin egiteko ere ez dik betarik izandu **txerrikumeak**. Pablo Sastre

Omega 3 olioan «iturri alternatibo» moduan ez ezik genetikoki eraldatutako **txerrikumeak** bihotzeko gaitzak ikertzeko ere aski erabilgarriak izango direla iradoki dute.

Berria - Gaiak

2 txerrikume haragia.

Afari arina eskatu - **txerrikumea** baino ez-. Jose Morales

3 irud/hed

Roberts kapitainak bere ukabil itzelaz mahaian jo zuen: **txerrikume** madarikuok! Edorta Jimenez

- **Txarrikume** hutsa haiz! Sonia Gonzalez

txerri mutur ik txerri 12.

txerritegi *iz txerritezako ukulua. ik urdetegi.*

Txerriak **txerritegira**. Joxemari Urteaga

Hildakoa **txerritegian** zetzan, zerraldo, txerrien artean. Joxemari Urteaga

-Kitok zabalik uzten din **txerritegia**, norbaitek ibaia zeharkatzen duenean. Anton Garikano

Garai batean harrizko **txerritegi** handi bat izan zela ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Emakumeok!, hau jadanik ez da paradisia, **txerritegia** baizik. Jose Morales

Prefeturak **txerritegiaren** handitze lanak bermatzen dituen ebazpena plazaratu du. Berria - Euskal Herria

Azalera txiki-txikian hazitako txerri masifikatuak bihotzeko infartua nozi dezake noiznahi (ate metalikoa ixteko zaratarekin, adibidez: horregatik daude **txerritegi** industrialetan plastiko bigunezko atek). Edorta Agirre

txerritoki *(corpusean txarritoki soilik) iz txerritegia. • irud/hed*

Abesti hau ez dakit neuk zelan dan, baina entzunda daukot [...] higuigarria dala, Bilbaoko goi-kaleetako **txarritokietan** erabilten dana. Koldo Izagirre

Txukun, orbangabe eta mezajale behar zuen herriak, ordea, Kirikiñok nahi baino maizago bisitatzen zituen **"txarritokiak"**. Koldo Izagirre

txerritxo 1 *iz txerri txikia.*

Hiru **txerritxo**en ipuina kontatzen hasi da Julia. Alberto Barandiaren

Handia eta gizena zen, dotorezia barroko samarrez jantzia zihoan, eta **txerritxo** larrujoleen korbata bat zeraman. Juan Martin Elexpuru

Dudleyk **txerritxoa** ematen zuela ileordearekin esaten zuen sarri Harryk. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan)

Dudleyk udako denborarik gehiena sukaldean sartuta eman zuen, bere **txerritxo**-begiak pantailari josita eta bost kokospeak dardarka zituela, etengabe jan eta jan. Iñaki Mendiguren

Barre egiteko gogoari eutsi behar izan zion, imajinatu zuenean zer-nolako **txerritxo**-aurpegia jarriko zuen Dudleyk orain bera han ikusterik izango balu. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txerritxo ehiztariak (4); **txerritxo** ehiztarien (5)

hiru txerritxoak (3)

txerrizain 1 *iz txerriak zaintzen dituen pertsona.*

Junipero txerriari hanka mozten ikusi zuen **txerrizainak** samintasun handiz zehatz-mehatz kontatu zion bere jabeari gertatutako guztia. Askoren artean

Ez harakinek bakarrik, baita txarkuteria eta urdaitegietako langileek eta **txerrizainek** ere. Pello Zabala

Egia beti egia duk, Agamenonek esan zein haren **txerrizainak**. Anjel Lertxundi

Txerrizainak ere zatoz-zatoz esanaz, baina labana ezkutatzuz, erakartzen dik hiltegitara beti hator-hatorka tratatu duen txerria. Anjel Lertxundi

2 (adizlagun gisa)

Herrialde hartako gizon batengana joan zen morroi, eta hark bere sailetara bidali zuen **txerrizain**. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txerrizainek ihes egin (3)

txerta-leku *iz zerbait txertatua degoen lekua.*

Halako batean, apaleko folioa **txerta**-lekutik askatu, eta airean dilindan erori da, udazkenean orbela erortzen den gisan. Joxerra Garzia

txertaka *iz txertatu gabeko zuhaitza.*

Badit inguruan sagarondo xaxtar batzuk, basati samar hazitakoak, **txertaka** gelditutakoak, baina sagar tiki ugari emaleak. Pello Zabala

Hurrak ugari emateko nahi denean, trunkotik oso beheran adarrak datozkiola nahi da, hartarako **txertakaz** prestatua. Pello Zabala

txertaketa 1 *iz organo lesiodun batean ehun biziko zati bat ezartzea, batasun organikoa gertatzen delarik.*

Gaixotasun mota hauei aurre egiteko bi estrategia berri planteatu dira azken urteotan: batetik ama-zelulen erabilera eta bestetik xenotransplanteak, hots espezie desberdineko organoen **txertaketa**. Berria - Gaiak

Txertaketarako giltzurrun asko baztertzen dituzte, erabat funtzionatzen ez dutelako, eta ez da behar adina organorik egoten. Berria - Gaiak

Teknika hau erabiltzen da moztutako esku edo hatz bat berriz txertatzeko, baina ez da inoiz erabili azal **txertaketa** ebakuntza batean. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Hezur-**txertaketa** aspaldian finkaturiko eta inork zalantzan jartzen ez duen transplante mota bat da. Irene Aldasoro

Teknika hau erabiltzen da moztutako esku edo hatz bat berriz txertatzeko, baina ez da inoiz erabili azal **txertaketa** ebakuntza batean. Berria - Gaiak

Sendagileek esperantza eman zioten, zenbait ebakuntzaren ondoren, agian larruazal **txertaketaren** bat ere bai, ez zitzaiola arrasto handirik geratuko, baina segurantzza osorik gabe. Iñaki Iñurrieta

3 irud/hed

Gezigintzan, ordea, bi osagarrian **txertaketa** da garrantzitsuen. Joxerra Garzia

4 pertsona edo animalia bati txertoa jartzea.

Europako Batzordeak **txertaketak** egiteko kontrol neurri zorrotzak jarraitu beharko direla jakinarazi du. Berria - Gaiak

Txertaketaren ondorioz H5N1 birusaren aldaera bat sortzeko arriskua «zientzialarien teoria bat besterik ez da». Berria - Gaiak

OMEk Immunizazioa eta **Txertaketarako** Mundu Elkartearen laguntza izango du. Berria - Gaiak

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Poliomielitisaren kontrako **txertaketa** kanpaina. Berria - Gaiak

1988. urtean hasi zuten **txertaketa** kanpaina masiboa, poliomielitisa jotoako 125 herrialdetan. Berria - Gaiak

Txertaketa programaren gaineko informazioa partekatzeko prest agertu da Txinako Gobernuak. Berria - Gaiak

Txertaketa gastuak hegaztien jabeek ordainduko dituzte. Berria - Gaiak

txertakuntza 1 iz txertaketa.

Mundu ekonomia hori kontinenteko espazioen integrazioaz eta **txertakuntzaz** garatu zen, kanpotik barrura zihoan mugimendu batean, nazioarteko merkataritzatik barneko merkataritzara. **Koro Navarro**

Merkatuen elkarrekiko **txertakuntzaren** ondorioz. Baina, gauzen sortzaile den natura bera izan zen ereintzaren eta **txertakuntzaren** lehen adibide, haziek eta ezkur zaharrek ernamuin pilo berria ematen baitzuten zuhaitzaren orpoan. **Koro Navarro**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Neurri fidagarri bakarra gazur-**txertakuntza** bide zen, hiru-lau orduko epe barruan, eta ausikia ebakitzea neurri gehigarri hutsa. **Joxe Austin Arrieta**

txertapen iz txertatzea.

Baina egia bada literatura bakoitzak bere **txertapen** sozialaren araberako formak sortu ohi dituela, zergatik izan diogu hain begirune gutxi azken bi mendeotako gure literaturak aldizkarietan bilatu duen bozgorailuari? **Berria - Kultura**

txertarazi, txertaraz, txertarazten du ad txertatzera behartu.

Ederrik deus ere espero ez daitekeelako juzgua baita emakume nipondarrari zentzurik gabeko dogma hauen bitartez **txertarazi** nahi diotena. **Joxan Elozegi**

txertatu, txerta, txertatzen (orobat xertatu g.er.) 1 du ad landare baten enborrean edo adar batean, beste landare baten adarra itsatsi, hark honen fruituak eman ditzan.

Hurritzondoak bederatzi urte behar omen ditu, **txertatu** ezean, fruitu emateko. **Pello Zabala**

Jatorriz zeurea zenuen basolibondotik moztu eta zeurea ez zenuen olibondoan **txertatu** bazintuen, askoz errazago izango du olibondotik sortutakoak beren berezko olibondoan **txertatzea**. **Eiizen arteko biblia**

Bai, adar batzuk moztu dizkio Jainkoak Israeli, eta moztu gabekoan artean zu **txertatu**, basolibondo zaren hori. **Elizen arteko biblia**

2 organismo batean beste organismo bat edo honen atal bat ezarri.

Eratat ongi funtzionatzen ez duten bi giltzurrun **txertatzea** organo osoa **txertatzea** bezain eraginkorra dela ondorioztatzen du Ameriketako Estatu Batuetan eginiko ikerketa batek. **Berria - Gaiak**

Zelula amak kaltetutako ehunetan **txertatu** dituzte ikertzaileek, eta horrelakoetan bihotzak normaltasunez lan egiten duela frogatu ahal izan dute. **Berria - Gaiak**

Lehenik, emakumearen obuluei espermatozoideak **txertatzen** zaizkie. **Berria - Gaiak**

Ingeniaritza genetikoak [...] aukera ematen zuen zernahi ere organismotatik gene bat bakartu eta beste batean **txertatzeko**. **Juan Garzia**

Horri esker, emakumearen uteroan **txertatu** aurretik, diagnostiko genetikoak egingo zaie enbrioiei. **Berria - Gaiak**

Enbrioak izoztu eta gero berriro ama inudeen baitan **txertatzea**. **Juan Garzia**

Hodi horren bidez, ziztada txiki bat egiten zaio hestegorriaren mukosa azpian, eta polimero bat **txertatzen** diote. **Berria - Gaiak**

Horretarako, gene markatzaile bat **txertatu** nahi diote birusari. **Berria - Gaiak**

3 irud/hed (gauza fisikoak)

Filtrazioak minutuko 160 litrotik 60 litrora jaistea lortu da porlana pitzaduretan **txertatuz**. **Berria - Euskal Herria**

Eraikinean **txertatzeko** moduko turbinak garatu eta teiltalapean kanalak zulatu zituzten haizea turbinetara irits zedin. **Berria - Gaiak**

Harrian **txertaturiko** uztai batean paratu nuen oina. **Monika Etxebarria**

Laugarrenak punta zizelkatzen du, bosgarrenak mutur bat zorrozten du burua bertan **txertatzeko**. **Koro Navarro**

Haren esku zuhurrean dirdir zegen bi errubi zurbil-nahasiz **txertaturiko** eraztun urre berdezko batek. **Juan Garzia**

Etorkizuneko identifikazio txartela patrikan eraman ordez, txip antzeko bat **txertatuko** digute guri ere. **Edorta Agirre**

Horrez gain, komunikabideetan ere **txertatuko** dute propaganda. **Berria - Euskal Herria**

Kolektibo honek lortu zuen Alonso alkatearen gutun (falsu) bat **txertatzea** udalak doan banatzen duen aldizkariaren barrenean. **Txema Ramirez de la Piscina**

Arraien eta mielgen bizkarraren gainean, harri handi ilunak, moreak, berdexkak, metal belztu batean **txertatzen** ziren. **Karlos Zabala**

Sudurrean **txertatua** zuen perla txiki-txiki bat. **Jon Muñoz**

Arterietan trastetxo batzuk **txertatzen** diren bezala. **Jon Muñoz**

Haragizko produktuek antibiotiko ugari **txertatuak** dauzkate. **Edorta Agirre**

Multzo horrek guztiak kolore anitzeko etxe-mosaiko ikusgarri bat osatzen zuen, hamar legoako esparru zabal batean **txertatua**. **Karlos Zabala**

Hildako gehienak adinekoak ziren eta morfina **txertatuta** hil ziren. **Berria - Gaiak**

4 (gauza abstraktuak)

Euskara lan munduan **txertatzeko** urrats sendoak ere egin dira. **Koldo Zuazo**

Ohartxo bat **txertatua** zuen Grosrouvrek: [...]. **Jon Muñoz**

Don Pacheco eta Doña Incarnacion izeneko irri-ipuina **txertatu** zuen Jean Baptiste Elizanburuk bere *Piarres Adame* eleberrian. **Anjel Lertxundi**

Balitzko sentimendu horiek, beraz, gezurrak dira, zentzugabeak; interesak asmatu zituen soilik [...] baina naturak inoiz ez dizkigu gure bihotzean **txertatu**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Oharrak hartzeko, deskribatzeko, sailkatzeko, sail numerikoetan eta estatistiketan **txertatzeko**. **Xabier Arregi**

Jardute diskurtsibo hau **txertatuta** zegoen medikuntzan, baina baita administrazio-arauetan ere, literatur edo filosofia testuetan, kasuistikan, behartsuei zuzendutako derrigorrezko lan edo laguntza teorian edo egitasmoetan. **Xabier Arregi**

Esan genezake ez zaizkiola azentuak jartzen hitzei, baizik eta hitzak **txertatzen** direla eredu prosodikoetan. **Lourdes Oñederra**

Ekonomia erlazio sozialetan **txertatu** ordez, erlazio sozialak **txertatu** ziren merkatuan. **Iñaki Heras**

Merkataritza ez da mugatzen gai bitxi edo exotikoak ekartzera eliteek kontsumi ditzaten; aitzitik, ekoizpen-aparatuan **txertatua** dago. **Koro Navarro**

Teoria hau praktikara eraman nahi du Platonek eta politikaren diskurtsioan **txertatzen** du. **Askoren artean**

Kuhnen azterketak ekoizpen zientifikoa bera **txertatzen** du analisi soziologikoan. **Askoren artean**

Amerika ez bezala, Afrika beltza XIX. mendea arte ez zen europar mundu ekonomian **txertatu**. **Koro Navarro**

Ekonomia ez zen alor beregaina; aitzitik, sistematikoki **txertatua** zegoen gizarte-harremanetan. **Koro Navarro**

Munduko ekonomia osatzen duten parteak gero eta elkarrekin **txertatuago** daude. **Koro Navarro**

Nola **txertatzen** ditu irudiak esanahiak? **Josu Zabaleta**

Kontaketa denboran zehar gertatzen den ekintza bat baldin bada, nola **txerta** daiteke irudiaren barruan, irudiak denborarik ez badu? **Josu Zabaleta**

(28iii) erregelari, etenik gabeak balira bezala hartu ditugu elementuok, eta (29ii) erregela guztiz erraza gehituz, etena **txertatu** dugu. **Itziar Laka**

5 pertsona edo animalia bati txertoa jarri.

Polioaren aurka 16 milioi haur **txertatuko** dituzte Afganistanen eta Pakistanen. [Berria - Gaiak](#)

500.000 soldadu **txertatu** behar zituzten, eta poliziak, larrialdi zerbitzuak eta suhiltzaileak. [Berria - Gaiak](#)

EBK hegaztiak **txertatzen** hasteko baimena eman du Aziendak eta animaliak **txertatzeko** garaia ere haxe, izurriteak eta gaitzak saihesteko badira. [Berria - Gaiak](#)

Bailarako beste haurrek bezala, ez zegoen **txertatuta**. [Joseba Urteaga](#)

Lapurrak, kezkatuak, galde egiten zuten: "Zakur hau **txertatua** al dago?". [Gotzon Garate](#)

Ez badu arriskua guztiz kentzen zenbateraino merezi du **txertatzea**? [Berria - Gaiak](#)

6 irud/hed

Ez pentsa funtzionario ezkerriar progr-usteko haiek atzera ere eliza amaren magalera itzularazi nindutenik; **txertatuta** nongoen gaitz horren kontra, bizitza osorako seguru asko. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

7 (era burutua izenondo gisa)

Badakizu zer gertatzen den, metal puska **txertatuak** erotzen dira, zatitxoak puskatzen dira. [Koro Navarro](#)

Hantxe ari da, aurrena folio **txertatuari** begiratu, hurrena azterketa-orrin idatzi, eskua ez ezik burua ere etengabe dantzaten. [Joxerra Garzia](#)

Burdin sare **txertatu** atzean, harriesietako horma aberatsetan, txakur aurpegiko Egiptoko tximino asko ari ziren garrasika. [Juan Garzia](#)

Hegazti **txertatuak** tartean sartuz gero, ordea, nabarmen zailduko litzateke hori. [Berria - Gaiak](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gaixoari txertatu (3); **geneak txertatu** (3); **hori txertatu** (3); **txertatu aurreko diagnostiko** (3); **txertatu aurretik** (3); **uteroan txertatu** (3)

txertatua dago (5); **txertatua izan** (3); **txertatua zuen** (3)

hegazti txertatuak (4)

txertatuta egon (3)

ekonomian txertatzeko (5); **lan merkatuan txertatzeko** (4); **munduko ekonomian txertatzeko** (4); **txertatzeko aukera** (4); **txertatzeko modu** (3)

hegaztiak txertatzen (4); **txertatzen hasteko baimena** (3)

txertatze *(orobat xertatze g.er.)* 1 iz organismo batean beste organismo bat edo baten atal bat ezartzea.

Protesia, organo-**txertatzea** edo -transplantea. [Juan Garzia](#)

Laido-zaku berean pilatzen dira, nahas-mahas, errealtateak eta mamuak: giza portaeraren kontrol kimikoa, aukerako organo-**txertatzea**, munduaren populazioaren gehiegia, [...]. [Juan Garzia](#)

Zuhaitz **Xertatze** Ikastaldiak. [Herria](#)

2 irud/hed

Munduko ekonomia osatzen duten parteak gero eta elkarrekin txertatuago daude, eta **txertatze** horrek bere dinamika berezia ematen dio munduko ekonomiari. [Koro Navarro](#)

Denboraren aztarrena argazkian **txertatze** hori oso nabarmena da argazki mota jakin batean. [Josu Zabaleta](#)

Nola eta zer dela-eta hartzen duen parte bere azalartze, **txertatze** eta funtzionatze-baldintzez. [Xabier Arregi](#)

Txertatze modu horiek ekar dezakete, bai integrazioa, bai, alderantziz, baztertea. [Koro Navarro](#)

3 pertsona edo animalia bati txertoa jartzea.

Aurre egiteko «**txertatze** kanpaina» abiatu dutela esan zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

Txertatze programako langileek eta bekadunek Gizarte Segurantzaren kotizazioa eta langabezia kotizazioa izatea. Frantziar hasiak dira **txertatze** lanak. [Berria - Ekonomia](#)

Nazioarteko **Txertatze** Zentroan, txertoez gain, infomazioa ematen diete bidaiariei, gaixotasunak saihesteko neurriak hartze aldera. [Berria - Harian](#)

txerto *(orobat xerto g.er. eta txertu g.er.)* 1 iz pertsona edo animalia bati gorputzean sartzen zaizkion mikroorganismo ahulduak, horiek sortzen dituzten eritasunetik babesten dutenak.

Duela gutxi arte, birusen aurkako **txertoak** birus ahulduekin egiten zituzten eta gorputzak abantaila guztiak zituen haien kontrako gerran. [Pako Aristi](#)

Mediku batek **txertoa** jarriko badu, ekarri egin behar diote aurrena. [Bernardo Atxaga](#)

Hobe zuen bere garaian **txertoa** eman balio. [Bernardo Atxaga](#)

Artaxonan ez bainuen tetanosaren **txertorik** jartzeko astirik izan. [Ramon Saizarbitoria](#)

Pasteur ardiei lupuaren baziloaren aurkako **txertoa** jartzen hasi zenean, [...]. [Juan Garzia](#)

Txertoa egiteko OMEren baimena eskatu dute. [Berria - Gaiak](#)

Patarroyok Hego Amerikan probatu zuen bere **txertoa** eta nahikoa eraginkorra zela ikusi ahal izan zen. [Berria - Gaiak](#)

Txertoa hiru dositan hartzekoa da, eta aho bidez hartzen da. [Berria - Gaiak](#)

BCG **txertoa** 1921. urtean merkaturatu zuten. [Berria - Gaiak](#)

Txerto bidez eragin daiteke immunitate artifiziala. [Irene Aldasoro](#)

Haurdun ez gelditzeko **txertoa** ezarri nahi diete nerabeei Erresuma Batuan. [Berria - Gaiak](#)

Mikrobizidak eta **txertoak** hiesaren kontra egiteko esperantza berriak direla esan dute Bangkokeko bileran. [Berria - Gaiak](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Duela gutxi arte, birusen aurkako **txertoak** birus ahulduekin egiten zituzten eta gorputzak abantaila guztiak zituen haien kontrako gerran. [Pako Aristi](#)

1999an gobernu eta enpresa pribatuek 300 milioi dolar inguru gastatu zuten **txerto** berrien ikerkuntzan. [Pello Salaburu](#)

Polioaren aurkako borrokan, 1950eko urteetan, **txerto** hil bat garatu zuen Jonas Salk doktoarek, baina A.B. Sabin doktoarearen **txerto** biziak hartu zion lekua. [Irene Aldasoro](#)

Txerto eraginkorra eta segurua dela sinestuta gaude. [Berria - Gaiak](#)

Txerto sintetikoak, Patarroyoren eskutik. [Pello Salaburu](#)

Batzuetan, nahikoa izaten da "hildako" **txerto** bat -bakterio edo birus hilak- injektatzea. [Irene Aldasoro](#)

3 (hitz elkartuetan)

Lau milioi **txerto** dosi prest dituzte agintariek. [Berria - Gaiak](#)

Ez dago **txerto** industriarik. · Eritasun birulentoak; birus-**txertoak**; errabiaren profilaxia. [Juan Garzia](#)

Lasaigailu **txertoak** egiten zizkioten orduetan bereziki memoria inarrosaldiak pairatzen zituen eta beti itxura berdinar zetozkion buru-zokoaren lardaskatzera. [Itxaro Borda](#)

4 irud/hed

Sara da maitasunaren aurkako nire **txertoa**, birus hila dagoeneko nire bihotzean: gaixotasuna gogorarazten dit, baina hilik dago, eta ez nau gehiago gaixotzen. [Pako Aristi](#)

Asperduraren kontrako **txertoa** zela *look* berria. [Karlos Linazasoro](#)

*Caracazo*ak kontzientzia berri bat ekarri zuen ejerzitaoen baitara, **txerto** baten eragina izan zuen, eta **txerto** horrek militarrengan sartu zuen mezua hau da: ez dezagun gehiago jende zibila erail, ez gaitzeen gehiago krudelkerian erori. **Pako Aristi**

Hilik bizitze horren kontrako **txertoa** litzake kultura, deus izatekotan: izpiritu plazer bilatzailea erne zaintzea. **Patziku Perurena**

Esperientziak erakutsi digu masa-hedabideek duten efektu narkotizatzailea benetan sendoa dela, batik bat, hartzaileak **txerto** egokirik jarrita ez badauka. **Txema Ramirez de la Piscina**

5 injekzioa.

Shipmanek heroina **txertoa** emanez hiltzen zituen. **Berria - Gaiak**

6 landare baten enborrean edo adar batean txertatzen den beste landare baten adarra. ikmentu.

Txertoa ez da mentu onean itsatsi, eta ez du fruiturik ekarri geurean. **Pello Zabala**

7 irud/hed

Eskola militanteak sortu ziren eta, euskara zela medio, sekula ezer errebindikatu ez zuen euskaltzaleen mugimenduari abertzaletasunaren **txertoa** egin zitzaion. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako txerto (4); **kontrako txerto** (8); **malariaren kontrako txerto** (4); **txerto berria** (3); **txerto eraginkorra** (4)

aurkako txertoa (29); **aurkako txertoa aurkitu** (3); **aurkako txertoa garatzeko** (3); **gaitzaren aurkako txertoa** (5); **gripearean aurkako txertoa** (6); **gripearean kontrako txertoa** (4); **hiesaren aurkako txertoa** (6); **hiesaren kontrako txertoa** (3); **jasoko dute txertoa** (3); **kontrako txertoa** (20); **kontrako txertoa hartzeko** (3); **meningitisaren aurkako txertoa** (3); **patarroyoren txertoa** (3); **txertoa aurkitu** (3); **txertoa aurkitzeko** (4); **txertoa garatzeko** (6); **txertoa hartzeko** (8); **txertoa jarriko** (3); **txertoa jartzea** (3); **txertoa jartzeko** (4); **txertoa jaso** (5); **txertoa lortzeko** (3); **txertoa probatzen** (3)

aurkako txertoak (8); **gripearean aurkako txertoak** (3); **kontrako txertoak** (5)

aurkako txertoaren (4); **txertoaren inguruan** (3)

aurkako txertorik (5); **aurre egiteko txertorik** (3)

txertu ik **txerto**.

txetu ik **xehatu**.

txetxe iz adkor haurra.

Jose Luis, sein txikerra zala, oso lotia ei zan eta, baten batek **"txetxe** non dago? **Xabier Amuriza**

" itauntzean, **"txetxe** lo" erantzuten ei zan eta, hortik, "Txetxelo" ezizen karinosoa geratu jakon betiko. **Xabier Amuriza**

txetxekari iz txistukari sabaiaurrekoa.

Txistukari zentzurik zabalenean hartuta, **txetxekariak** barne, alegia, [...]. **Lourdes Oñederra**

Horrela, behar izanez gero, bereizi genitzake s, ts, z, tz (S, tS, s, ts) ziztukari hobikariak eta x, tx (, t) txistukari sabaiaurrekoak edo **txetxekariak**. **Lourdes Oñederra**

Horrek erabilera zabalean txistukari guztiak jasotzen ditu edo, erabilera estuan, **txetxekari** ez direnak bakarrik. **Lourdes Oñederra**

txetxeniari izond/iz Txetxeniakoa, Txetxeniari dagokiona; Txetxeniako herritarra.

Txetxeniari herriaren aurkako genozidioa geldiarazteko eta herri horren autodeterminazio eskubidea errespetatzeko. **Berria - Euskal Herria**

Txetxeniari armadako komandantea. **Berria - Kultura**

Chamil Bassaev deitu **txetxeniari** gudari buru batek bere gain hartu du ukaldi hori. **Herria**

Txetxeniari separatistek ere ez dute haatik lan hori beren gain hartu. **Herria**

Juri Budanovek onartu egin zuen 18 urteko neska **txetxeniari** bat hil izana. **Berria - Mundua**

Errusiaren aldeko gobernu **txetxeniari** ustelak dirutza irabazten duelako, kalte-ordainen eta berreraikuntzarako diruaren zati bat beretzat hartuz. **Berria - Mundua**

Orotara, 260.000 errefuxiatu **txetxeniari** daude egun eta horietatik 52.000 Ingushetian bizi dira. **Berria - Mundua**

Poloniak baditu berrehun mila eta bost ehun mila arte arrotz bere lurrean, ukrainiar, armeniar, vietnamdar, **txetxeniari** eta irakiar, paperik gabe, baina horgotu nahiak. **Herria**

Txetxeniarirek hotelik onenak dituzte Moskun. **Edorta Jimenez**

Errusian inork ez dio kontu hartzen Gobernuari **txetxeniari**ren aldeko atariak blokeatzen dituenean. **Berria - Gaiak**

Telebista piztu zuten Marcosek eta Lucasek: **txetxeniari** bi agertu ziren, metraileta bana eskuan. **Unai Elorriaga**

24 urteko **txetxeniari** baten kasua dakar txostenak. **Berria - Mundua**

Ingushetian errefuxiatuta daude oraindik **txetxeniari** asko, eta bueltatu direnek itzulera latza izan dute. **Berria - Harian**

Ingushetiako presidente zela, **txetxeniari**ekin negoziatzearen aldeko jarrera izan zuen Aushevek. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gerrillari txetxeniari (7); **txetxeniari bat hil** (3); **txetxeniari hil** (6)

basaiev gerrillari txetxeniaria (4)

buruzagi txetxeniari (3); **erresistentzia txetxeniari** (3); **gerrillari txetxeniari** (9); **txetxeniari** nazioarteko terrorismoarekin (3)

gerrillari txetxeniari (3)

gerrillari txetxeniari (13)

gerrillari txetxeniari (8); **txetxeniari** kontra (4); **txetxeniari** kontrako (3)

txetxeniartze iz txetxeniari bihurtzea.

Kadiroven hilketak, hutsune politikoaz gain, Moskuren aldeko buruen arteko lehia eta **Txetxeniartze** politikaren porrota eragin dezakeela uste dute adituek. **Berria - Mundua**

txibatazo iz adkor salaketa.

Mobida txar bat, **txibatazo** eta guzti. **Patxi Iturritegi**

txibato *(orobat txibatu g.er.) iz adkor* salataria.

Txibatoa ote den esaten dute eta... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txibatoa ez dakit baina traidore zikina iruditu zitzaidan Hankapalo. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gela hatz-arrastoak, neurriak, krokisak eta apunteak hartzen zituzten espioiez, poliziez, detektibez eta **txibatoez** mukuru zegoen.Toliño izeneko jonkiak Poliziarentzat

txibato lanak egiten zituen noizbehinka. **Jon Alonso**

Itziarren ikusi nuen indarkeriaren barne logikak zer neurritan duen beharrezko "traidorea", kasu hartan **"txibatoa"**. **Joseba Zulaika**

txibatu¹, txiba(tu), txibatzen du *ad* salatu; esan.

Elena atzetik ari zaio, kontatu behar didana **txibatzen**. **Iban Zaldua**

Batzuetan nik neuk ere **txibatuko** lidakeen norbait behar nuke, pentsatu dut. **Iban Zaldua**

txibatu² ik **txibato**.

txibia 1 *iz txipiroiaren antzeko molusku zefalopodoa (Sepia officinalis).*

Heste luzeetatik hartu zituen olagarroak bere besoak; belarrietako kartilagoaz egina da **txibia**. **Txibiak** harrapatzeko ontzi bat. **Pako Aristi**

Txibiez betetako edukiontzia arakutzen hasi ziren poliziak, eta barruan kokaina poltsak aurkitu zituzten. **Berria - Euskal Herria**

Txirlak eta **txibiak** ontziratzeko kaxa hutsak. **Aingeru Epaltza**

Jan genuena: izkirak plantxan eta **txibia** saltsan. **Edorta Jimenez**

Txibia erraldoiak jaten dituen marrazo mota bat aurkitu dute. **Berria - Gaiak**

Senarrari, berriz, Nautilus ontziari eraso zioten **txibia** erraldoiak zekarzkion gogora. **Imanol Zurutuza**

2 *txibia-hezur (corpusean txibiezur soilik)*

Guztiz harrituta geratu nintzen gizon bat eskuak altxaturik ikusi nuenean kobazulotik irteten, **txibiezurra** baino zuriagoa, fusil bati eutsiz esku batean eta munizio kaxa zahar bati bestean. **Joseba Sarrionandia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txibi erraldoi (3)

txibia erraldoiak (5); **txibia erraldoien** (3)

txibierro *iz txibiaren garroa.*

Hantxe zegoen tabernako bere mahaian **txibierro** frijituak jaten ardo zuriarekin. **Joseba Sarrionandia**

Taberna aurrean harrapatu zuten, **txibierro** frijituak jateko asmoa balu bezala oraindik. **Joseba Sarrionandia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txibierro frijituak (5)

txibiezur ik **txibia 2**.

txibirita *iz tximeleta.*

Erregeren zalduneria, belardi eta **txibiriten** zelaian da ageri. **Anton Garikano**

txibista 1 *iz begizta.*

Hiru aldiz egin zion **txibista** Lilyren oinetakoari; hiru aldiz desegin zuen. **Anton Garikano**

Oinetakoak oso txukun lotu eta estu samar korapilatu zituzten **txibistak**. **Anton Garikano**

-Korapiloa estu zegoen eta **txibista** ere bai. **Anton Garikano**

Txibista deigarri batez hornitutako fardela eman zion eta "eskerrik asko" lotsatu batekin batera jaso zuen. **Josu Landa**

2 (hitz elkartuetan)

Ez dago sarrailarik edo kisketarik, soilik alanbre **txibista** bat iltze batean katigatzeko. **Anton Garikano**

txibuka ik **txibuki**.

txibuki *iz turkiar pipa-mota, tutu luze eta zuzena duena.*

Txibukia eskuan eta katilutik hurrupaka, oso irudi egokia zatekeen pintore batentzat. **Jose Morales**

Gero, pipak erakutsi zizkien; denetariakoak zeuzkan: zurezkoak, buztinezkoak, magnesitazkoak, [...], tututxoa anbarrezkoa zuen **txibuki** bat aspaldi ez zela jokoan irabazia...

Jose Morales

Bere irudimenean ikusi zuen turkiar bat, durbantea buruan zuela, bere dendako salgai-fardelen artean pikotxean, **txibukaren** ordez ziri bat erretzen, kontenplazioan. **Anton Garikano**

txigar *iz*

txigor *(corpusean xigor soilik)* iz txigortua dagoen gauza.

Berokia kendu zuen; azpian **xigor** -koloreko soineko soil bat zeraman gorputza markatzen ziona. **Juan Martin Elexpuru**

txigordura *(corpusean xigordura soilik)* iz janari txigortua.

12etan, Baigura kartierean zintzur bustitzea, Ezponda etxean eta **xigorduren** jateko manera hor berean. **Herria**

txigorgailu *(orobat xigorgailu)* 1 iz ogia eta kidekoak txigortzeko gailua.

Joanak ogia **txigorgailuan** sartu, Llumi besotik heldu eta aulkiraino eramaten du. **Antton Olano**

Txigorgailu batean jar zezaketen guztia -ogia, opiltxo bigunak, malba zurizko pastelak... **Iñaki Mendiguren**

2 (hitz elkartuetan)

Batek daki ez ote zen horren kontrako eraginez asmatu ondoko urtean ogi **txigorgailua**. **Pello Salaburu**

txigorgarri *(corpusean xigorgarri soilik)* iz txigortzen duen gauza.

Bikotea bereizirik zegoenean, distantziak muzinduta, Edithek gutun bihotz-**xigorgarriak** bidaltzen zizkion Freddyri, Percy bidetik kendu eta bientzat irekiko zen zeruko atea nolakoa izango zen zehatz-mehatz eta larruz larru agertuz. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

txigorki *(corpusean xigorki soilik)* 1 iz ogi xerra txigortua.

Biharamun goizean gosaltzeko, arto-malutak jan zituzten, eta poteko tomate hotzak **xigorkietan**. **Iñaki Mendiguren**

Arratsaldean, Chanel eta bisoizko emakume handikiak, bere erosketetan atsedentxo bat eginez, kafea **xigorkiekin** edo txokolatea txurro egin berrieekin hartzera. Harryri **xigorki**, koko, babarrun egosi, marrubi, curry, belar, kafe eta sardinen gustukoak suertatu zitzaizkion. **Juan Martin Elexpuru**

2 (hitz elkartuetan)

Batzuetan hurbildu eta belarrian mokoka egiten zion eta **xigorki** -zati bat lortzen zuen, eskolako beste hontzekin batera, hontz-tegira lotara joan aurretik. **Iñaki Mendiguren**

txigorraldi iz zerbait txigortzen den aldia.

Bai, horren gerrenak badu urre geruza, noski, berroren **txigorraldiak** nork ez ditu miretsi? **Xabier Olarra**

txigortu *(40 agerraldi, 22 liburutan; orobat xigortu 65 agerraldi, 28 liburu eta 6 artikulutan)*, txigor(tu), txigortzen 1 du ad zerbait, kolore arrea hartu arte, erre gabe surtan edo kidekoetan eduki.

Kafe aleak kontuz **txigortu** behar dira, su motelean, erre barik. **Javi Cillero**

Bi ogi-xerra **txigortu** zituen, eta hark astigar-ziropatan busti-busti egin eta minutu eta erdian irentsi zituen. **Oskar Arana**

Ogia txapan **xigortzen** ari zen. **Koldo Izagirre**

Karobian **txigortu** zuten, bada, kaltziotik banandu zedin. **Juan Garzia**

Ale berria sutan **xigortua** eta xehatua eskainiko duzue. **Elizen arteko biblia**

-Alde batetik ondo **xigorturik** egon behar dik, eta bestetik, aldiz, gutxi erreta, ulertzen? **Jose Morales**

Heriotzan piztien hagin-sari izatea okerra bada, ez dut ikusten gozoago denik sutan gar goriek **xigor** zaitzaten, edo ezitan ito zaitzaten. **Xabier Amuriza**

2 irud/hed

Muinoaren tontorretik ordokia ageri zen, bizkar grisez mugaturik, eguzkiak **txigorturik**. **Josu Zabaleta**

Alde egin nezakeela iruditu zitzaidan... -aurpegia eta eskuak **txigortuta** zituen ordurako-. **Josu Zabaleta**

Ondartzetan **xigortzea** laket zaiotenak loriatuak direla. **Herria**

Horra ere hantxetan daudenak, itsas bazterrean, larrua **xigorturik** gazteak eta ximurturik zaharragoak. **Herria**

Alde egin nezakeela iruditu zitzaidan... -aurpegia eta eskuak **txigortuta** zituen ordurako-. **Josu Zabaleta**

Eguzkitan bapo **txigortua** izaki, inoiz gutxitan bezain beltzaran bainengoan. **Joxe Austin Arrieta**

3 (era burutua izenondo gisa)

Kakahuete **txigortuak** eta gazi-puntu fin bat emanak. **Jon Muñoz**

Har itzazu zaku bat gari **xigortu** eta hamar ogi hauek, eta eraman bizkor zeure anaiei kanpalekura. **Elizen arteko biblia**

Gurina ogi **txigortuan** zabaldu, kafesnetan busti eta ahora. **Anjel Lertxundi**

Ames andreak burua astindu zuen, triste, eta kanelazko ogi **txigortua** eskaini zion. **Mirentxu Larrañaga**

Kafe **xigortuaren** usaina zuten eskailera beltz batzuen tarte aldapatsu batetik igo eta kristal esmerileztatuzko ate batean jo zuen. **Lopez de Arana**

Hara, Lucy, laranja-ura, ogi-xerra **txigortuak** eta arrautzak. **Oskar Arana**

Montreuiloko mertxika gorriak, iparraldeko nesken azal fin argikoak, eta hegoaldeko mertxiak, kolore hori **txigortukoak**. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ogi txigortu (6)

ogi txigortua (6)

gari xigortu (3); ogi xigortu (3)

ogi xigortua (9)

ale xigortuak (3); ogi xigortuak (4)

txigortzaile *(corpusean xigortzaile soilik)* iz txigorgailua.

Ogi txigortua, arauak eta printzipioak dituen gizon honentzat, ia bizioa da [...] eta sentsazio anitz biltzen dira horretan, hala ikusizkoak nola ukimenezkoak, nahiz usaimenezkoak nahiz dastamenezkoak, hasteko **xigortzaile** kromoztatuaren dirdira, gero zerrandak ebakitzen dituen labana, ogi txigortuaren usaina, [...]. **Jon Alonso**

txiio iz txio.

Aldiz, enarak etorri eta zabaldukakoan, goizetik **txiio** batean elizako kanpandorrearen jiran ikusi eta entzun orduko, hau ziotsan: Enarak goizean txio-txioka, eguraldi ona.
Pello Zabala

txiita ik xiita.

txikane iz automobil zirkuitoetan, abiadura moteltzeko bihurgune artifizialen sistema.

Horri hiru **txikane** gehitzen zaizkio, abiadura mantsotu eta «zalditoki» ordeztatu «zirkuitu» deitu ahal izateko. Berría - Kirola

Txikanerik ez duen zirkuitua da, eta bihurgune gehienak nahiko zabalak dira. Berría - Kirola

Gilles Villeneuve zirkuitua zuzengune eta **txikane** lotura bat da funtsean. Berría - Kirola

txikano izond/iz mexikar jatorriko estatubatuarra.

Lupe Velez [...] bigarren mailako aktore **txikanoa** izan zen. Harkaitz Cano

Gandhi, Martin Luther King eta César Chávez (sindikalista **txikanoa**) bezalako buruzagien pentsamoldea eta jokabidea. Txema Ramirez de la Piscina

Txikanoak, indioak eta Europa ekialdekoak. Itxaro Borda

txikar ik txiker.

txikarra

1 txikarra egin sasieskola egin, eskola huts egin, piper egin.

Eskola orduan **txikarra** egiteak erruduntasunaren zaporea eta lege haustearen lilura dakartzio oraindik. Urtzi Urrutikoetxea

Hirugarren eskola-eguna, bigarrenean **txikarra** eginda. Joxean Sagatzizabal

Izan ere, **txikarrik** ere egin gabeko institutu eta unibertsitateko ikasle formaltxo eta grisa izan nintzen. Iban Zaldúa

txikatu, txikatu, txikatzen du ad

Aski nian, eman dezagun Motelera nentorren pausa-garaietan **txikatzen** nuen Maureen irlandesa biluzirik itxuratzea. Itxaro Borda

txiker (orobat txikar g.er.) 1 izond txikia.

Sendo bezain **txikerrak** ziren; La Caledonia-n ni gizon garaia nintzen, ez baitzitzaidan ordura arte sekula gertatu. Juan Garzia

Nire mundualdian, beste dozena bat hutsen artean burusoil eta **txikarra**, lodi eta itsusia, mizkin eta narrasa zen emakume batek oniritzi zidan. Anjel Lertxundi

Hare jauna gelaxka **txiker** batean bizi zen, Edinburgheko etxe garai eta jendetsu bateko seigarren solairuan. Juan Garzia

Ohe **txiker** bi, estu eta lar bigunak, eta haiek bezain meharra komuna, horra eman ziguten gela. Xabier Montoia

Sudurra besterik ez zuen erakusten belus beltzeko kapela **txikerraren** azpian. Karlos Zabala

Erabat ridikulua iruditu zitzaion pertsona bik maleta **txiker** hura eramatea eta berak maletatzar bi behar izatea. Unai Elorriaga

La Sarriette ikusi zuen [...] Jules jaunari bibote **txikerretik** tiraka. Karlos Zabala

Begi aurrean ispilu **txiker** bana baleramate bezala. Koldo Izagirre

Halako sua eukan ze, atzamar **txikerra** apurtuta eukana ahaztu egiten jakon. Xabier Amuriza

Etxea, familia, beharra, adiskideak utzi nituen [...] nire herri **txikerrean**. Koldo Izagirre

Bada lanbro-lainoaren euri **txiker** temosoa eta irautea gustatzen zaiona. Pello Zabala

2 hatz txiker hatz txikia.

Erpurua zuzen ipini eta esku ahurrean lotu zion **hatz** txikerrari. Anton Garikano

Libre lotzen ziran beste lau atzamarretarik, barriz, **hatz** txikerra oso gitxi erabilten eben, batzuk, esateko, inoiz bere ez. Xabier Amuriza

txikertu, txiker(tu), txikertzen da/du ad txikitu.

Bilboko egunkariak **txikertutakoan** berri eman zezaten agindu zion Leizaolak Arbex zentsoreari. Lutxo Egia

txiki (17596 agerraldi, 273 liburu eta 3850 artikulutan; orobat ttiki 1181 agerraldi, 76 liburu eta 235 artikulutan eta tiki 177 agerraldi, 26 liburu eta 4 artikulutan) 1 izond ohiko tamaina iristen ez duena. anthandi.

Ahoa ere **txikia**, baina ongi marraztua du. Ramon Saizarbitoria

Letoizko iparrorratz **txiki** bat, bidaia luzeetan erratzean ipintzeko. Iñaki Mendiguren

Haga **txiki** bati eragiten dio horretarako ardura duen udal enplegatua. Felipe Juaristi

Barra **txiki** bat ere badu eskuinaldean, oraingoz hutsa. Pako Aristi

Lastaira-antzeko bigungarri **txiki** bat ipini zuen gainean. Jose Morales

Ostatuko gurdi-atetik zaldi-kotxe **txiki** eta nahikoa polit bat sartu zen. Jose Morales

Gaizki zaindutako parke **txiki** batean. Anjel Lertxundi

Urteetan bertan behera utzitako lur-zati **txiki** trastez betetako bat zen lorategia. Oskar Arana

Ibaieren ondoan, plaza **txiki** zahar itxurako batean. Felipe Juaristi

Kamera sofistikatu baten ezaugarri asko ditu begiak, baina askoz leku **txikiagoa** hartzen du. Irene Aldasoro

Ibilera bihurriko ibai **txiki** batek ilargiaren izpiak islatzen zituen han-hemenka. Karlos Zabala

Izaki **txikienek** ez dute hezurren beharrik. Irene Aldasoro

Gizon **txiki** argal eta betaurrekoduna zen funtzionario hori. Felipe Juaristi

Makume **txiki**, azal-ilun, horzgabe, konkortu bat. **Koro Navarro**
Hendrik geratzen zen, eta neskato **txiki** eta argal bat. **Juan Garzia**
Artalde **txikia** sendotzeko. **Askoren artean**
Arrain handi eta **txiki**, bedeinka ezazue Jauna, goretsi eta goraipatu menderen mendetan! **Elizen arteko biblia**
Lau ijtok osatutako orkestra **txiki** baten doinuak entzuten. **Felipe Juaristi**
Herri **txikia** zela bai, hori gogoratzen zuen Romanek, oso-oso **txikia**. **Unai Elorriaga**
Jauzi **txiki** batzuk eginarazi zizkion lagunari espaloitik errepidera eta errepidetik espaloira. **Irene Aldasoro**
Pauso **txikitan** doa berokien esekitokiraino. **Monika Etxebarria**
Gustura edan duzu, zurrutada **txikitan**; zaporea gordez. **Rafa Egiguren**

2 ohiko kopuru, gorabehera edo indarra baino apalagokoa.

Etxeak hipoteka **txiki** baten zama zuen artean. **Ander Irizar**
Hizkuntza **txikien** ohizko gorrotatzaile baten aurrean. **Bernardo Atxaga**
Tragoxka **txikiak** hartzen zituen bitartean. **Bego Montorio**
Mundu mailako bihurtu diren enpresen kopurua oso-oso **txikia** dela. **Koro Navarro**
Mesede **txiki** bat eskatu behar dizut. **Elizen arteko biblia**
Piezaren erdi aldera, piano-joleak huts **txiki** bat egin zuen akorde batean eta gelditu egin zen. **Anjel Lertxundi**
Gezur **txiki** batzuek bakarrik salbatzen gaituzte. **Pako Aristi**
Hau argi ikusiko duzu beste istorio **txiki** batekin. **Pako Aristi**
Irakasle bakar batek ere ez zigun hari buruzko aipamen **txikiena** ere egin. **Anjel Lertxundi**
Batzuetan aztarna **txiki** baina esanguratsuetan saiatzen naiz haien izaerak zehazten. **Pako Aristi**
Masailak gorri-gorri, pixka bat lelotua, erretzen ari ziren animalia gizenei barre **txikiak** eginez. **Karlos Zabala**
Bai baitaude liburuak ordetzka ezin ditzaketan poz **txiki** eta handiak zulo hauetan. **Jokin Urain**
Eguneroko beldur **txikiak** gainditu ahala, handiagoak hasten dira iristen. **Arantxa Iturbe**
Gertaera **txiki** batek besterik ez zuen orbandu bidaia zorientsu hura. **Juan Kruz Igerabide**
Aropa bustita neukan eta hura erantzi eta su **txiki** bat egin nuen. **Jon Maia**
Sentimenduak, oso maila **txikian** bada ere, badu lotura objektuaren kalitate batzuekin. **Askoren artean**
Estetika maila apalekoak iruditu zitzaizkien irudi haiek, eskematizazio-maila **txikia** zutelako. **Josu Zabaleta**
Esku mugimendu **txiki** ondo estudiantuak eginez. **Koro Navarro**
Esku leunez kolpe **txikiak** emanda. **Karlos Zabala**
Mihia hortzen kontra joz hots **txiki** bat egin zuen. **Lopez de Arana**
Kantuan aritzen ziren beroak erdi itotako txitarrenak ziruditen ahots **txiki** garbi zorrotzez. **Karlos Zabala**
Bere mirespena agertu zuen oihu **txikiak** eginez. **Karlos Zabala**
-Zer deritzozu Cleremont-en gosari **txiki** bat egiteari? **Lopez de Arana**
Neure lasaitasunerako erants dezadan jainko-**txiki** asko duela Zapiainen aldaerak. **Markos Zapiain**
Erradiazio **txiki** batek ez du eragin larririk sortzen. **Irene Aldasoro**
Karga handia eta abiadura **txikia** denean, egokiagoa da lubrikazio hidrostatikoa. **Irene Aldasoro**
Aurrean gizon handi eta sendoa du, behartsua baina, eta aitzinean jarrita limosna **txiki** bat eskatzen dio. **Xabier Kintana**
Erretiro-sari **txiki** bat emango zioten. **Juan Kruz Igerabide**
Lapurreta **txiki** bat egin duela eta. **Koldo Izagirre**
Mahaitik eroritako papurrak biltzen zituen lapur **txiki** eta tripazain pare harenganako. **Karlos Zabala**
Gizon guztiak homosexualak dira, gradu handiagoan edo **txikiagoan**. **Karlos Zabala**
Bazekien, orobat, ez dela bertute **txikiagoa** daukazuna zaintzea ez daukazuaren bila ibiltzea baino. **Askoren artean**
"Anai **txikiak**", *Fratres minores*, dute izena eta izana, guztien mendeko eta guztien zerbitzari. **Askoren artean**
Anaia **txikien** Erregela eta bizimodua hauxe da: [...]. **Josu Zabaleta**

3 (beste izenondo baten ezkerrean)

Bulkada zela eta, urrats **txiki**-arinetan espaloiraino iritsi zen. **Lopez de Arana**
Magnolio handi baten abaroan, gizon **txiki** kaskarra ikusi zuten. **Felipe Juaristi**
Farolaren inguruan, nire leihoaren azpian bertan, talde **txiki** tristea osatuko dute nonbait. **Monika Etxebarria**
Hau bezalako herri **txiki**-maspiletan natura ez da gizakiaren eguneroko bizitzatik bereizten. **Pako Aristi**
Herri **txiki**-lausoetan etxe zuloraino sartzen zaizkizu naturaren uholdeak. **Pako Aristi**
Tunika **txiki**-pobre batez jantzi zuen. **Askoren artean**
Jantzita zuen gona **txiki** estua zango polit meharretan gora bildu zitzaion neskari. **Mirentxu Larrañaga**
Automobileko ur-ponpak, adibidez, gurpil **txiki** paladun bat dauka. **Irene Aldasoro**
Konturatzen nintzen haren begi **txiki** beltz biribilak ni aztertzen ari zirela. **Irene Aldasoro**
Lehenago irribarre **txiki** iheskor bera. **Oskar Arana**
Nik neuk ere ez baitut amets handirik, amets **txiki** gutxi batzuk baizik. **Berria - Kultura**
Salonika hirian judu **txiki** bizar-zuri batek esandakoaz gogoratu zen da Rua. **Felipe Juaristi**

4 (beste izenondo baten eskuinean)

Gizon gazte argal bat zen, hezurdura larrikoa, buru-handia, bizarduna, sudur mehe-mehea eta begi argi **txikiak** zituen. **Karlos Zabala**
Itxi-itxiak ageri ziren kristalen atzeko errezel zuri **txikiak**. **Karlos Zabala**
Hostotxoak zeuden, harri txintxarrak, petalo zuri **txikien** zerrendak. **Bernardo Atxaga**
Elektrodo-orratz bat garunean sartu eta korrante elektriko **txiki** bat emanez gero. **Irene Aldasoro**
Elektrizitate-karga negatibo **txiki** bat dauka mintzaren barrualdeak. **Irene Aldasoro**

5 (hitz elkartuetan)

Beharrezkoak direla saguak, arratoiak, tximitxak eta gainerako **txiki**-jendea. **Jokin Urain**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa elkarketak izenondo balioa duela)

Liburukotean ikusia zuen deabru begi-**txiki** kokots-zorrotzaren antza hartu zion ostera Tomek Hucken aurpegiari. **Koldo Izagirre**
Gizon tente buru-**txiki** bat. **Anjel Lertxundi**
Ahuspez etzanda, beren soingaineko marra-**txiki** beltz-grisezkoez estalirik. **Karlos Zabala**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Hori adierazten zidan etengabe xehetasun **txiki** mordo baten bidez. **Anjel Lertxundi**
Ogitarteko eta zahatoaren poltsa, rosly puru-**txiki** kaxa zamarran. **Pako Aristi**
Tranpa-**txiki** usain edo bat hartzen nion nik saio mota horri. **Juan Garzia**

8 izond/iz urte gutxiko.

Florentek Quenu **txikia**, hamabi urte besterik ez artean, bakar-bakarrrik aurkitu zuen sukaldearen erdian. **Karlos Zabala**

Haurrak -Hynkel **txikiak** - harri eta zur begiratzen dio Hans Breveski mutikoari. **Harkaitz Cano**

Betiko nahi dut ume **txikia** izan eta ondo pasatu. **Julen Gabiria**

Elkar besarkatu eta musukatu zuten haur **txikien** antzera. **Karlos Zabala**

Goiz batean, gora begiratu eta hiru mutil **txikiren** aurpegiak ikusten ditu. **Oskar Arana**

Konturatuko zinetenez, zuen arreba edo ahizpa **txikiak** egin nahi dituen gauzak beti dira amak eta umezainak hark egitea nahi ez duten gauza berberak. **Julen Gabiria**

Anai **txikia** hezikaitza baitugu. **Migel Angel Mintegi**

Nire amama zenari laguntzen nion lan honetantxe **txikia** nintzenez. **Hasier Etxeberria**

Datozen urtetan igual gu izango gerala **txikien** begiraleak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Handiegia nintzen **txikien** jolas inoizotarako, txikiegia handien solas serioetarako. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zezen beldurgarriaren imintzioa egingo du gero Juan Luisek, hazitxoenei irri axolagabea eta **txikienei** izu gozatsua eraginez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Padrek eta madrekin beste gelan, **txikienean**. **Jon Maia**

9 (-en atzikiaren eskuinean, izen gisa)

Zirrikitu txiki bat aurkitu genion baina, bere **txikian** adierazgarri. **Andoni Egaña**

10 (izan aditzarekin)

Indibiduen arteko desberdintasunak **txikiak** izateak ez du argitzen sailkapenak nola egin behar diren. **Askoren artean**

Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen, baina ezin zuen jendearengatik, **txikia** baitzen. **Elizen arteko biblia**

Sekula ez zegoen hotzak; ez zen, ez **txikia**, ez ahula. **Jon Muñoz**

Inpunitatearen kaltea **txikiagoa** denez, laburtu egin behar da preskripzioarena. Interes tasak **txikiagoak** izanik, enpresa proiektuak [...] eta inbertsioak, eskuarki, erlatiboki errentagarriagoak dira inbertsio finantzarioen aldean. **Juan Martin Elexpuru**

Kopuru horiek **txikiagoak** izango dira herri jakin batean unibertitate ikasle asko baldin badaude. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Tampicoko aireportua **txikiegia** zen gure Super-Constellation-arentzat. **Joxe Austin Arrieta**

Izan ere apostoluetan **txikiena** naiz ni, apostolu izenik ere merezi ez duena. **Elizen arteko biblia**

Errespeturik handienetako bat, pertsona batentzat, bere hizkuntzan egitea da, nahi den **txikiena** izanik ere bere eskubide oinarritzko bat baitu. **Pello Salaburu**

Puntu baten eta puntu hori baino "lehentxeago"koaren arteko aldea **txikia** da, oso **txikia**, norberak nahi bezain **txikia**. **Jon Muñoz**

Aldaketak oso-oso **txikiak** diren arren, sumatu daitezke, halaber, FMLren laguntza errezeten paketeetan. **Iñaki Heras**

Egoera hori aldatzeko Batasunak duen aurrekontua oso **txikia** da. **Iñaki Heras**

Askoz **txikiagoak** izan ziren orduan hezur-galerak. **Irene Aldasoro**

Letra, berriz, oso **txikia**. **Bernardo Atxaga**

Bi txanpon zeuden elkarren ondoan, bat handia eta bestea oso **txikia**. **Bernardo Atxaga**

Musuzapi bat bezain **txikia** dela Paris, mundua bera **txikia** delako. **Ramon Saizarbitoria**

Txiki bezain trinko bularrak. **Jon Muñoz**

11 txikitako izlag umetako.

Txikitako ametsak. **Iñaki Iñurrieta**

Txikitako eta gaztetako pasadizoz josita daude; erromeriak eta festak kontatzen ditu, trikitilarien ibilerak, [...]. **Xabier Etxabe**

Ez dut haurtzarora berritzeko berebiziko lilurarik edo **txikitako** kale-bazterretan ibiltzeko gogorik. **Anjel Lertxundi**

Txikitako adiskidea zuen Telleria, jolas-laguna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txikitako zerbaitek eragin zidala uste dut. **Berría - Euskal Herria**

Ziurrenik hori ere **txikitako** oroitzapenak dira, **txikitako** atzerria Frantziako hegoaldea izan baitzuten. **Lourdes Oñederra**

Lagunei dagokienez, nire **txikitako** oroitzapenak oso onak dira. **Ana Urkiza**

Egun argitan ikusi nahi dut nire **txikitako** paisaia sentimentala. **Anjel Lertxundi**

Txikitako nire argazki maiteena dela esango nuke. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Geroztik bati baino gehiagori entzun izan diot bere **txikitako** euskara isplitua ikusi zuela Izagirreren parrastada haietan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gure **txikitako** erdara halamoduzko hartan. **Iñaki Seguro**

Txikitako gure jokoak eta Pompeiako haurrek erabiltzen zituztenak oso antzekoak ziren. **Berría - Kultura**

Berehala ohartu nintzen nor zegoen hor niri itsatsita, Má?saren **txikitako** argazkia zen, bera ere marinel jaka batekin. **Fernando Rey**

Ernestek Duñaberiaren **txikitako** jolasleku hantxe zeukala. **Edorta Jimenez**

Hartu bestela, zeure argazki bat, **txikitakoa**. **Berría - Kultura**

12 txikitán adlag umetan.

Txikitán herri baten baino gehiagotan bizi izan zinen. **Ana Urkiza**

Txikitán izan hintzen bertan, ezta? **Iban Zaldúa**

Gogoratzen al zara, David? **txikitán** hemen ibiltzen zineten mutil guztiak futbolearen, eta baloiak maldan beheara alde egiten zizuenen ni joaten nintzen korrika haren bila. **Bernardo Atxaga**

Nik **txikitán** aitonak nolakoak ziren galdetzen nien etxekoei, eta amona Noeliari aitona Alejandro nolakoak zen galdetzen nion. **Jon Muñoz**

Aita **txikitán** galdu huela eta ama, berriz, gerra hasi baino lehenxeago... **Alberto Ladron Arana**

Egun batean, **txikitán**, kalean barrera zebilela Milanen, zutoina baino tenteagoko gizon bat ikusi zuen. **Fernando Rey**

Hik ez duk **txikitán** pelikularik ikusi... **Harkaitz Cano**

Egia esan, **txikitán** beti ari ginen mutur joka. **Mikel Hernandez Abaitua**

Kontu-jateari utzi eta esaten diet jakin nahi dudala **txikitán** zoriontsu izan ote ziren. **Arantxa Iturbe**

"Zeinen potxoloa zen **txikitán**!", kexatzen zen. **Fernando Rey**

13 txikitandik (46 agerraldi, 23 liburu eta 4 artikulutan) adlag txikitatik.

Inork baino lehenago eman nuen izena, **txikitandik** erakartzen baininduen tresna hark. **Juan Kruz Igerabide**

Txikitandik gustatu izan zaio hizkuntzarekin jolas egitea. **Ana Urkiza**

Katalinari haiek nabarmenkeriak iruditzen zitzaizkion, berak **txikitandik** baitzuen ordenaren eta lasaitasunaren sena. **Koro Navarro**

Oso gustuko dut mekaniko izatea; horixe nahi nuen **txikitandik**. **Juan Kruz Igerabide**

Artista, Stephen Wiltshire, autista zen, eta savanten trebetasunak erakutsiak zituen **txikitandik**. **Xabier Olarra**

14 txikitatik (213 agerraldi, 77 liburu eta 89 artikulutan) adlag umetatik.

Txikitatik erakutsi digute ez dela aski ez dugula nahi esatea: jakin egin behar zer nahi dugun, zer izan nahi dugun. **Iñaki Seguro**

Txikitatik zen autozale porrokatua. **Fernando Rey**

Alabaina, Graxi **txikitatik** urguilu-ontzi eta harro-putzua zen. **Itxaro Borda**

Hala bada, **txikitatik** zaletu zen Thomas bereziki eritimoa zaintzen duten poetekin. **Koro Navarro**

Toto esaten dugu beti, hori baita nire osabari **txikitatik** geratu zitzaion ezizena. **Bernardo Atxaga**

Malenkonia zen, etxe alemanen gauaz etortzen zena, nik **txikitatik** ongi ezagutzen duduan malenkonia iluna. Fernando Rey

Hori ikasia eta zaildua zagok, horretara **txikitatik** egina. Juan Luis Zabala

Janutak asko hitz egiten du: oso hitzuna izan da **txikitatik**. Iban Zaldua

Pertsona baten izaera **txikitatik** osatzen da. Berria - Harian

Marinak pozik hartu zuen Sara eta musika ikasketak eman zizkion **txikitatik**. Felipe Juaristi

Barruko sentimenduak menderatzen ikasia naiz **txikitatik**. Xabier Mendiguren Elizegi

15 *ahaide txiki* lehen edo bigarren mailakoa ez dena.

Urte askoan, Anfisa Andreievna **ahaide txiki** zuen kondesa baten etxezaina izan zen. Jose Morales

15a *ez-txiki izond*

Frantzisko dohatsuaren ahotik entzun zituzten, anaia guztien harridura **ez txikia** piztuz. Askoren artean

Urte askoan ezindu haren bitzita intelektualaren parte **ez txikia** izan ziren liburu haiek. Koro Navarro

Bere jenialtasunaren handiaren eta jendearen mirespen **ez txikiagoaren** jakitun. Joxerra Garzia

Haien irazkinak, ehuneko 90 azido uriko, ugari lor zitezkeen, aldiko peza **ez txikiegitan** eta purutasun-baldintza zentzuzkotan. Juan Garzia

Ikerkuntzak behar dituen diruen zamaren atal bat, **ez txikia**, dela unibertsitateetan, dela enpresetan beretan ere [...] diru publikoa izaten da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Baina Jontxuk ere izan zuen zerikusia, eta **ez txikia** gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

16 *golde-txiki (corpusean goldetiki soilik)*

Zenbat saski eta otarre klase, eta astozesto eta gurdizesto, eta zenbat lera, are, bostortz edo **goldetikiren** karela... Patziku Perurena

17 *handi-txiki* iz tamaina.

Egia bere **handi-txikian** neurtzen. Iñaki Segurola

-Entzuleriaren **handi-txikia**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Alegia, tamaina egokiko izan zedin bidaiaria: ez handi, ez txiki... **handi-txikia** ohearen arabera juzkatu beti ere. Joxerra Garzia

Handi-txikiari erreparatuz gero, ziriak duke garrantzirik handiena. Joxerra Garzia

18 *Hartz Txiki* zeruko ipar hemisferioko konstelazioa, ipar izarra daukana.

Hartz Txikiko zazpiak, eta beronen Ipar-Izarra ere. Txillardegi

Hartz Txikiaren eta Casiopearen parte osatzen duten beste izar asko ere badaude nahasita. Santiago Iruetagoiena

Euler jauna, izugarri maite baititu Hartz Handia eta **Hartz Txikia**, iparraldera hurbildu zen haiei lasaiago behatzeko. Jon Muñoz

19 *hatz txiki* eskuko bosgarren hatza, nagia ondoan dagoena.

Hatz txikiaren muturra seinalatu zuen hatz lodiaz. Jose Morales

Libre geratu zaion eskuko **hatz** txikia sartzen du ezkerreko belarrian. Anjel Lertxundi

Ezpainetan gorri pittin bat jarri eta **hatz** txikiak ondo banatuz desagerrarazi ditu tolestura gehienak. Eider Rodriguez

Zigarroa lau hatzekin heltzeko ohitura zuen Martak, **hatz** ttikiarekin izan ezik, gainerako guztiekin. Harkaitz Cano

Eta horrela, azkenerako, Zeruetako Jaun zaharra haserretu, ezker eskuko **hatz** txikiaren muturra milimetro hamarren bat mugitu eta akabo mundu guztia. Koldo Biguri

Eraztuna **hatz** ttikitik atera ostean, aitaren esku barrenean ipini zuen. Patxi Zubizarreta

Ezker eskuko **hatz** txikia hautsita du. Berria - Kirola

20 *herren txikian adlag*

Zerbait esan ez esan egon eta gero, jaiki eta, **herren** txikian, musika-salara- erretiratu zen. Anjel Lertxundi

Herren txikian ibiliagatik ere, denen aurretik abiatu zen. Anjel Lertxundi

Ate aldera egin zuen aitak **herren** txikian eta, laster itzuliko naiz esanda, kalera irten zen. Anjel Lertxundi

21 *ipar txiki* ipar haize mota bat.

Eta ekialdeko ukitua duela, baina Pirinio eta Auñamendi elurtuetatik pasatutakoan, hozkirria eraginez datorrena, ahulago, horri **ipar** ttikia deitu izan zaio, *nafar gorria* ere bai, Ipar gaiztoagoaren koloretik baduelako, eta nafar-haize ere bai. Pello Zabala

Aldiz, etzanago ia, nafarraldetik, barreneko parajeetatik datorkigun haizexka mantsoago horri, **ipar** ttikia deitzen diogu, edo eguzki-haizea deitu izan zaio. Pello Zabala

Kontuz, bada, **ipar** ttiki negukoarekin, ez da batere beroa-eta. Pello Zabala

22 *itsaso txiki*

Itsaso txikia zegoen, are apalagoa. Txillardegi

"Kresala usaintzeko, **itsaso** txikitan sarkorrago" neure artean. Txillardegi

23 *izeba txiki* aitaren edo amaren lehengusina.

Eta berorien bi alabak, bukatzeko, Itziar eta Amélie nire bi **izeba** txikiak, oraindik ezkongai. Txillardegi

Amélie Sagardia, ene **izeba** txikia nolabait esateko (izeba-amona delako), eta Amaren lehengusina propioa, Akizen bizi dena. Txillardegi

-Baina Praskovia Fiodorovna ez da arrotza, **izeba txikia** dut. Jose Morales

Izeba bat **izeba txikia** ez izateko arrazoirik ez zagok, ados; baina izeba batek, izan txikia edo izan handia, bere ilobari osaba deitzea, hori ez diat ulertzen. Antton Olano

Izeba-osaben etxean emango zidatela bazkaltzen, ez kezkatzeko horregatik. Arantxa Iturbe

24 *komunio txiki (corpusean komunione soilik)*

Komunione ttipia edo orai erraiten den lehen komunioa maiatzaren 25 eko igandean izan dugu gure parropian. Herria

Iragan igandean ginuen, haur multxo baten **komunione** ttipia. Herria

25 *korrika txikian adlag*

Ubanbe **korrika** txikian hasi zen, alkandora zuria astinduz orduan ere. Bernardo Atxaga

Amak, **korrika txikian** hurbildurik, besarkatu egin ninduen. Anjel Lertxundi

Neskak atzera jiratu eta **korrika txikian** aldendu ziren. Koro Navarro

Imajina ezazue burdinazko bola bat, mundua bezain handia, eta bola hartan inurritxo bat **korrika txikian** jira eta bira etengabean. Joxerra Garzia

26 *lehengusina txiki* bigarren mailako lehengusina.

Beti iruditu izan zait nire **lehengusina txikia** dela, eta ez nire izeba. Txillardegi

Zu Cecily izango zara, nire **lehengusina ttikia**. Antton Olano

Nire **lehengusina ttikia** zen eta ia nire arreba ere bazela esango nukeen. Gotzon Garate

Ekainaren zortzikoa, Ainhoa, **lehengusina** txikia. Patxi Iturritegi

27 *lehengusu txiki (orobat tipi g.er. eta ttiki g.er. eta lehengusutiki g.er.)* bigarren mailako lehengusua.

Salamanca bidali ninduen baina ez bakarrik, **lehengusu** txiki baten laguntzarekin, hark ni zaintzeko eta nitaz arduratzeko aginduekin. Felipe Juaristi

Nire **lehengusu txiki** Juan Mari eta Karlos Garzia Otegi ezagutzen nituen, aitonaren auzoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire aitaren **lehengusu txiki** bati. Xabier Mendiguren Elizegi

Haietarik bat, hiruretan lehena, bere **lehengusu tipi** bat zen, Xalbador Etxegoien. Joan Mari Irigoien

Beren jaioterriko lehengusu nahiz **lehengusu ttiki** guztiekin. Harkaitz Cano

28 ordu txiki

Azken gautxorien eta egunsentiko beharginen arteko **ordu txiki** hura. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Zer ari zara **ordu txiki** hauetan argia piztuta? [Berria - Kultura](#)

Baina, tira!, gaueko **ordu txiki** hauetan, edozer gauza gerta zitekeen, egia esateko. [Antton Olano](#)

Deustuko jaietan hasi zen dena, gaueko **ordu txiki** eta kritiko horietan. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Uda-gau bateko **ordu txiki** sargorietan kokatu beharko nuke Rimbaud ezagutu nuen mentura. [Anjel Lertxundi](#)

29 soinu txiki trikitia.

Soinu txikiaren handitasuna. [Berria - Kultura](#)

Soinu txikia baserri giroko soinu tresna izan zen. [Koldo Izagirre](#)

Soinu handia inportanteagotzat jotzen zen **soinu txikia** baino. [Berria - Kultura](#)

Soinu txiki bat erosi eta bere kasa ikasi zuen. [Koldo Izagirre](#)

Kaletik urruti, munduko doinuak ekarri zizkion **soinu txikiari**, hiriarren usaina. [Iñigo Aranbarri](#)

30 su txiki

Su txikiak atzematen ziren aintziraren ertzean. [Jose Morales](#)

Su txikiak piztu ziren han-hemenka eta jendeak etorkizun berri batez hitz egiten zuen su horien bueltan. [Jon Maia](#)

Arropa bustita neukan eta hura erantzi eta **su txiki** bat egin nuen. Gizona, **su txikiaren** argitan, gezigitzan ari zen. Urrunean, baina ia zuzenean, **su txikiak** zipiritindutako iluntasunezko lakuaren beste aldean. [Jon Maia](#)

Gustavok kostaldea ikusi zuen gertu, labarrak eta labarrak bata bestearen atzetik, desolazioaren irudia, eta **su txikiak** bata bestetik gertu, hango biztanleek piztuta, maltzurkeriaren jokia. [Felipe Juaristi](#)

Irrien espazio aldakor hartan, ez ote zuen ironiaren **su txikiak** berriro ere argi egiten bazterren batetik? [Joan Mari Irigoien](#)

Txiskeroaren **su txikian**. [Unai Iturriaga](#)

31 txakur txiki (orobat txakurtxiki) iz pesetaren bost zentimoko txanpon zaharra.

Kaka putza da **txakur** txikirik ere ez izatea. [Lopez de Arana](#)

Zurekin sekula ez dut **txakur** txikirik irabazi. [Patxi Zubizarreta](#)

Inortxok ez dio **txakur** txikirik emango. [Patxi Zubizarreta](#)

Lau **txakur** txikiren truke igotzen zen ring gainera, kolpe oldearen esperoan. [Paddy Rekalde](#)

Bi liburu besterik ez ditut lapurtu nire bizitza osoan, biak ere karrerako lehen urtean nengoela eta **txakur** txikirik ez neukala. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Txakur txikirik ere ez, eta Franciek ezin izan zion ezer eman. [Lopez de Arana](#)

-**Txakurtxikirik** ez eta hor joiak hori, taxian! [Unai Iturriaga](#)

32 Txakur Txiki (orobat ttiki) zeruko ipar hemisferioko konstelazioa, Geminis konstelazioaren ondoan dagoena.

Txakur txikiak Geminisi jarraitzen dio Hidraren buruaren aurrez aurre. [Santiago Iruretagoiena](#)

Tartean, *Canis major* eta *Canis minor* ere, Txakur handia eta **Txakur ttikia** ere hor dira nonbait. [Pello Zabala](#)

33 txiki-txiki (orobat txikitxiki g.er.) izond

Badira munduan lau izaki **txiki-txiki**, jakintsuak baino jakintsuagoak. [Elizen arteko biblia](#)

Nik, anai Frantziskok, zuen morroi **txiki-txiki** honek. [Askoren artean](#)

Hezurak hezur **txiki-txikiz** eta niminoz eta giharreak giharre **txiki-txikiz** eta niminoz eginda dagozela. [Xabier Amuriza](#)

Leihoetako beirak kristal **txiki-txiki** dirdaitsuz janzen ziren. [Juan Garzia](#)

Eskailera-buruan bai baitzegoen komun **txiki-txiki** bat. [Jon Muñoz](#)

Trena han zihon zurezko etxez eta eliza pintatuz osatutako herri **txiki-txikietan** barrena. [Xabier Olarra](#)

Momentu harrigarri batzuetan, ikusi egiten zituen gauzak, bat-batean, baita gauza **txiki-txikiak** ere. [Xabier Olarra](#)

Zeppelina puntu **txiki-txiki** bat bihurtu zenean, ohe gainera itzuli nintzen. [Anjel Lertxundi](#)

Haietako bakoitzak txarteltxo bat zuen letra **txiki-txikiak** idatzitako izen batekin. [Iñaki Mendiguren](#)

Mailegu **txiki-txiki** bat eskatu nahi dizut, egun gutxi batzuetarako, dolar bakar batzuk besterik ez. [Lopez de Arana](#)

Hark zaindu ninduen **txiki-txikitán**, amak berak baino sarriago aldatu zidan pixoihala. [Aitor Arana](#)

Txiki-txikitán ez, baina azkar samar erabaki nuen ez nuela umerik izango. [Arantxa Iturbe](#)

Templeren formulazio eta azalpenak bat datoz zientziak emandakoekin, salbu eta **txiki-txikitako** besarkadaren eta estu tinkatzearen premian egiten duen enfasian. [Xabier Olarra](#)

Txiki-txikitatik umezurtz, sorgin hutsa omen zen izeba batenean bizi zen. [Juan Garzia](#)

Beti liluratu izan nau etxe zahar higatu hark, **txiki-txikitatik**. [Jon Muñoz](#)

Auzoek, errientak eta apezak nola ez, **txiki-txikitandik** ezagutzen zuten Balantsunen dohaina. [Itxaro Borda](#)

34 txiki-txiki egin erabat txikitu.

Horixe da okerrera, lagun, txikitu zuela, **txiki-txiki egin** ere. [Karlos Linazasoro](#)

Telemakori esango zionat guztia, eta **txiki-txiki egingo** hau! [Juan Kruz Igerabide](#)

Lehoiek beren atzaparretan hartu eta **txiki-txiki egin** zituzten.

-Hari burua **txiki-txiki egin** eta hezurak birrindu arte ez dut onik izango. [Patxi Zubizarreta](#)

Ikarak aidean egoten nintzen eskaileretan, edo **txiki-txiki egingako** leihoetatik itsasora edo ezerezera begira. [Koro Navarro](#)

Paper guztiak **txiki-txiki egin** nituen, behar nituen datuak buruz ikasi ondoren. [Alberto Ladrón Arana](#)

Mailutzarra hartu eta jo eta **txiki-txiki egin** nuen komun-ontzia. [Oskar Arana](#)

Saltsa egiteko kazolan jartzen zituen olio eta tipula **txiki-txiki eginda**, gero azenarioa ere bai, **txiki-txiki eginda**. [Pako Aristi](#)

-Jo eta **txiki-txiki egingo** ditugu, orduan, betegarri horiek? [Mirentxu Larrañaga](#)

Autoa **txiki-txiki eginda** eta sutan. [Anjel Lertxundi](#)

Hantxe zetzan ezpaletan **txiki-txiki eginik** gure enpresari borondate eta ausardia oro ere. [Juan Garzia](#)

Orduan pairatu nituen izu-laborrizko sei orduek **txiki-txiki eginda** utzi zizkidaten gorputz-arimak. [Koro Navarro](#)

Petrolioaren krisiek **txiki-txiki egin** zuten ordea segurtasun eder hori. [Koro Navarro](#)

35 (ik mastekatu)

Barkamena eskatu diot, apal, galeperra ahoan **txiki-txiki egin** eta gero inolako leungarrik espero ez duen ehiza-txakurraren moduan. [Anjel Lertxundi](#)

36 zortziko txiki zortziko mota, zazpi eta sei silabako lerroak txandakatzen dituen.

Zortziko txikian, zortziko handian bezala, lau puntu eta zortzi lerro izango ditugu, eta erriak lerro bikoitzen bukaeran jarriko. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Zortziko txikian jarduten duen bertsolariak, berriz, zortzi lerro botako ditu nahi eta nahi ez, 7 eta 6 silabako lau lerro pare hain zuzen ere. [Iñaki Arranz](#)

Launa bertso bota behar zituzten **zortziko txikian**. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Ahotsa emozioagatik etena, **zortziko txikian** kantatu zuen bertso zirraragarria, senitarteko eta lagunez despedituz eta Jaunari zeruko bidea aurkitzen lagun ziezaien erregutuz. [Karlos Linazasoro](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

abantaila txiki bat (26); **ahots txiki** (9); **aita txiki** (25); **akats txiki** (12); **aldaketa txiki** (35); **aldaketa txiki bat** (8); **alde txiki** (17); **alde txiki bat** (8); **anaia txiki** (42); **animalia txiki** (9); **apartamentu txiki** (10); **arazo txiki** (24); **arazo txiki bat** (10); **areto txiki** (13); **argi txiki** (11); **arrain txiki** (10); **ate txiki** (13); **aukera txiki** (12); **aukera txiki bat** (12)

baina txiki (8); **barre txiki** (34); **barre txiki bat** (19); **bat txiki** (8); **begi txiki** (34); **beltz txiki** (15); **bira txiki** (8); **bular txiki** (8); **bultzada txiki** (8); **buru txiki** (9); **chandler txiki** (10)

dardara txiki bat (9); **denda txiki** (28); **denda txiki bat** (10); **desberdintasun txiki** (9)

emakume txiki (25); **emakume txiki bat** (8); **enpresa txiki** (72); **eremu txiki** (11); **esku txiki** (10); **estatu txiki** (10); **etxe txiki** (33); **eztanda txiki** (8); **eztulu txiki** (8); **gauza txiki** (26); **gela txiki** (66); **gela txiki bat** (11); **gezur txiki** (19); **gezur txiki bat** (10); **gizon txiki** (48); **gizon txiki bat** (9); **gorputz txiki** (12); **gutxiengo txiki** (9)

hain txiki (15); **handi eta txiki** (9); **handi nahiz txiki** (13); **handi zein txiki** (25); **haur txiki** (20); **haustura txiki** (15); **haustura txiki bat** (15); **herri txiki** (152); **herri txiki bat** (15); **herri txiki batean** (39); **herrialde txiki** (11); **hiri txiki** (35); **hotel txiki** (11); **hots txiki** (14); **hots txiki bat** (9)

ikara txiki (9); **iraultza txiki** (8); **irri txiki** (8); **irribarre txiki** (28); **irribarre txiki bat** (15); **irudi txiki** (12); **ispilu txiki** (11); **istripu txiki** (9); **izaki txiki** (9)

jatetxe txiki (8); **jauzi txiki** (20); **jauzi txiki bat** (14)

kamioi txiki (10); **keinu txiki** (14); **keinu txiki bat** (11); **koaderno txiki** (15); **koaderno txiki bat** (8); **kolpe txiki** (18); **kolpe txiki bat** (11); **komunitate txiki** (8); **kontu txiki** (8); **kopuru txiki** (24); **kopuru txiki bat** (11); **kutxa txiki** (17)

lan txiki (12); **leiho txiki** (30); **leiho txiki bat** (9); **letra txiki** (10); **liburu txiki** (16); **lorategi txiki** (8)

mahai txiki (30); **mahai txiki bat** (14); **maleta txiki** (8); **mugimendu txiki** (10); **muino txiki** (11); **multzo txiki** (9); **mundu txiki** (17); **mutiko txiki** (12)

neska txiki (24); **neska txiki bat** (8); **neskato txiki** (11)

ohar txiki (8); **oihu txiki** (9); **omenaldi txiki** (9); **omenaldi txiki bat** (8); **ontzi txiki** (15); **ordu txiki** (8); **orkestra txiki** (11); **oso txiki** (11); **ostatu txiki** (8)

parte txiki (16); **parte txiki bat** (11); **patio txiki** (10); **pauso txiki** (14); **puntu txiki** (17); **puska txiki** (14); **puska txiki bat** (8)

su txiki (9); **sute txiki** (8)

taberna txiki (11); **talde txiki** (50); **talde txiki bat** (16); **tarte txiki** (15); **txakur txiki** (16); **txalupa txiki** (9)

txiki eta ertainak (11); **txiki eta ertainei** (11); **txiki eta ertainek** (8); **txiki eta ertainen** (12); **txiki eta handi** (21); **txiki eta handiak** (9); **txiki gelditu** (17); **txiki geratu** (28); **txiki geratu zen** (8); **txiki geratzen** (8); **txiki nahiz handi** (11); **txiki polit** (13); **txiki samarra** (19)

txiki txiki (270); **txiki txiki bat** (37); **txiki txiki egin** (62); **txiki txiki egin** (62); **txiki txiki egingo** (56); **txiki txiki egingo** (21); **txiki txiki eginik** (8); **txiki txikia** (62); **txiki txikia zen** (8); **txiki txikiak** (25); **txiki txikitandik** (12); **txiki txikitatik** (54); **txiki txikiz** (12)

txori txiki (12)

uharte txiki (17); **ume txiki** (21); **urrats txiki** (12); **urratu txiki** (9); **xehetasun txiki** (13); **zalantza txiki** (8); **zati txiki** (64); **zati txiki bat** (36); **zauri txiki** (10); **zirikitu txiki** (9); **zirikitu txiki bat** (8); **zulo txiki** (13); **zulo txiki bat** (8)

abantaila txikia (17); **ahalegin txikia** (9); **ahizpa txikia** (10); **alde txikia** (22); **anaia txikia** (30); **arriba txikia** (8); **barre txikia** (13); **bezain txikia** (28)

eragin txikia (13); **ez da txikia** (10); **ez txikia** (13); **gauza txikia** (13); **gela txikia** (11); **gizon txikia** (42); **gizon txikia zen** (9); **handia edo txikia** (8); **hatz txikia** (13); **haur txikia** (11); **haustura txikia** (8); **herri txikia** (33); **herri txikia da** (11); **herria txikia** (8); **hiri txikia** (13)

irribarre txikia (25); **irribarre txikia egin** (12); **kopuru txikia** (13); **kopurua txikia** (8); **leku txikia** (14); **maila txikia** (9); **mundu txikia** (18); **nahiko txikia** (8); **neska txikia** (10)

oso txikia (139); **oso txikia da** (40); **oso txikia izan** (11); **printze txikia** (17); **sari txikia** (8); **soinu txikia** (36); **talde txikia** (16); **tarte txikia** (28); **txakur txikia** (12)

txiki txikia (62); **txiki txikia zen** (8); **txikia bada ere** (10); **txikia baina** (17); **txikia baino** (13); **txikia baita** (9); **txikia da** (210); **txikia dago** (10); **txikia izaki** (8); **txikia izanik ere** (10)

ume txikia (23); **zati txikia** (11)

gero eta txikiago (8)

are txikiagoa (8); **askoz ere txikiagoa** (13); **askoz txikiagoa** (33); **baino txikiagoa** (142); **gero eta txikiagoa** (33); **handiagoa edo txikiagoa** (19); **kalte txikiagoa** (9); **kopuru txikiagoa** (8); **orduana eta txikiagoa** (9); **zenbat eta txikiagoa** (8)

askoz txikiagoak (8); **baino txikiagoak** (41); **gero eta txikiagoak** (11)

handiagoan edo txikiagoan (8); **neurri txikiagoan** (13)

maila txikiagoko (8)

aldaketa txikiak (22); **anaia txikiak** (40); **arazo txikiak** (8); **aurrelari txikiak** (14); **barre txikiak** (19); **begi txikiak** (13)

enpresa txikiak (10); **etxe txikiak** (8); **gauza txikiak** (26); **gizon txikiak** (36); **handiak eta txikiak** (10); **haur txikiak** (16); **herri txikiak** (22)

irudi txikiak (8); **istorio txikiak** (9); **jauzi txikiak** (14); **kalte txikiak** (10); **kolpe txikiak** (10); **mugimendu txikiak** (9)

ordu txikiak (23); **ordu txikiak arte** (17); **oso txikiak** (40); **pauso txikiak** (12); **salto txikiak** (9); **soinu txikiak** (11); **talde txikiak** (16); **txantoi txikiak** (8)

txiki txikiak (25)

ume txikiak (17); **urrats txikiak** (8); **zati txikiak** (11)

aulki txikian (10); **bere txikian** (21); **eremu txikian** (8); **gela txikian** (15); **hamarreko txikian** (25); **handian eta txikian** (8); **korrika txikian** (19); **lasterka txikian** (10); **leku txikian** (13); **neurri txikian** (9); **tarte txikian** (14); **zortziko txikian** (50)

aho txikiarekin (11); **alde txikiarekin** (11)

anaia txikiaren (18); **soinu txikiaren** (19)

anaia txikiari (11)

anaia txikiel (8)

anaia txikiel (10); **enpresa txikiel** (11); **haur txikiel** (10); **talde txikiel** (13)

anaia txikiel (72); **anaia txikiel erregela** (8); **anaia txikiel ordena** (18); **gauza txikiel** (9); **haur txikiel** (9); **herri txikiel** (8); **hizkuntza txikiel** (8); **talde txikiel** (10); **ume txikiel** (8)

arrastorik txikiena ere (9); **aukera txikiena** (9); **aukerarik txikiena** (21); **aukerarik txikiena ere** (9); **mugimendurik txikiena** (11); **susmorik txikiena** (9); **txikiena izan** (23); **txikiena izanik** (9)

harri txikietako (18); **herri txikietako** (30)

gaueko ordu txikietan (24); **gauza txikietan** (9); **goizaldeko ordu txikietan** (10); **goizeko ordu txikietan** (16); **herri txikietan** (39); **itzuli txikietan** (11); **ordu txikietan** (78); **talde txikietan** (8)

adin txikiko (34); **formatu txikiko** (24); **gela txikiko** (8); **indar txikiko** (17); **kostu txikiko** (19); **sega txikiko** (19); **taimana txikiko** (11)

adin txikikoak (18)

adin txikikoen (25)

txakur txikiren (8)

txakur txikirik (16)

nire txikitako (9); **txikitako oroitzapenak** (9)

txiki txikitandik (12)

bere txikitasunean (9)

oso txikitatik (8); **txiki txikitatik** (54); **txikitatik ezagutzen** (14); **txikitatik izan** (15)

txikiagotu, txikiago(tu), txikiagotzen (*orobat ttxikiagotu g.er.*) 1 du *ad* txikiago bihurtu.

Neurria **txikiagotu** eta prezioak handituko ditugu, okerreko pisuak erabiliz. **Elizen arteko biblia**

Ez ziren bi minutu baino gehiago pasatuko, eta bat-batean olatuak **txikiagotzen** ari zirela sumatu genuen, eta aparrak inguratzen gintuela. **Koro Navarro**

Orria hurbilgotik ikertu zuen, begiak nabarmen **txikiagotuz**. **Josu Landa**

Odoleko glukosa kantitatea **txikiagotzen** denean agertzen da hipogluzemia. **Berría - Gaiak**

Altzariak horma handiagoetarako eginak ziren, hemen konkortuta bezala zeuden, espazioa **txikiagotzen** zuten. **Jon Alonso**

Goi mailako artearen eta herri artearen arteko distantzia handia **txikiagotu** zuten pop artistek. **Berría - Kultura**

Arretu eta lehortu egin da zurtoina; **txikiagotu**; erdia baino gehiago galdu du zabaleran. **Jon Muñoz**

Gora eta gora egin ahala, urrituz joan zen airea, eta **txikiagotuz** zuhaitzak, gailurrera hurbildu ahala. **Xabier Olarra**

Txikiagotu egin zitzaion bihotza bat-batean, bularra uzkurtu balitzaio legez. **Xabier Aranburu**

Pospolo bat pitzen zenean, haien buruek kulunka egiten zuten eta paretan zabalitzen ziren, eta **txikiagotu** eta handiagotu egiten ziren zezen hegodunen eta pertzen formak.

Koro Navarro

Murrizten da, **txikiagotzean** uzkurto egiten da, orain amaierak bat egiten du hasierarekin. **Monika Etxebarria**

Amerikar defiziten handitasunak eta defizit haiek **txikiagotzeko** zailtasunak [...] maila ezezagunetarako eraman zuten trukeen eta tituluen merkatuen egonagaitasuna. **Koro Navarro**

Amorrua ez duk **txikiagotzen** urteekin, baina azkenean aienatu egiten duk, bizitza bezalaxe. **Xabier Olarra**

Zeharkako bidea, gaitza itxuraz ukitu gabe **txikiagotu** egiten zuena. **Iñaki Iñurrieta**

Azken hau askozaz ere hobe kolesterol-maila **txikiagotzeko**. **Jon Alonso**

2 (era burutua izenondo gisa)

Erretina bera piipaki joa edo pikarta zen itxuraz, eta pigmentazio handiagotuko eta **txikiagotuko** eremuak zituen. **Xabier Olarra**

txikiagotze iz txikiago bihurtzea.

Galtzariaren elastikotasunak berak erakusten du **txikiagotze** hori ez dela ohiko gauza. Ez da aski interesa **txikiagotzea**, **txikiagotzearen** onurak amortizazio-funtsa osatu behar du urterto kapitalaren parte bat ordaintzeko. **Koro Navarro**

txikiarazi, txikiaraz, txikiarazten (orobat txikiarazi) du ad txikitzea behartu.

Are gehiago, adierazle horiek txikiarazi edo **txikiarazten** dituzten zenbait zertzeladek, hau da, herrialde jakin bateko balizko jarduera ekonomikoa handitzen edo murrizten dutenak, nolabait ere xelebrequeriatzat har daitezke. **Iñaki Heras**

Aitari hamabost egunean hiru erregela eta bota pare bat **txikiarazi** dizkiot, erregelak nire hatz puntetan, botak nire giltzurrunetan, gizajoa lumatzen ari naiz. **Pablo Sastre**

txikidun izlag txikiko.

Beti pentsatu dugu politika, hizki handiz, politikarien lana zela eta guri, hizki **txikidun** politika egitea zegokigula. **Ana Urkiza**

Nire ametsa beterik zegoen azkenean eta zorioitsu sentitzen nintzen: ez nuen aurkitu zakil **txikidun** maitale ona soilik; lagun berri samurra ere bazen Joxemari. **Aitor Arana**

Nire neurriko anaia **txikidun** lagun bat -ohetikidea besterik izango ez bazen ere- aurkitu behar nuen eta horretarako jende gehiago ezagutu beharra neukan. **Aitor Arana**

txikietsi, txikiets(i), txikiesten du ad txikitat hartu.

Azkenik, norbere oinpean lur osoa dardaritzen eta hiriak jausten edo jaustear direnean, harrizkekoa al da giza endak bere burua **txikiestea** eta dena gorbarnatzen duten jainkoen ahal handia eta indar txundigarria aitortzea? **Xabier Amuriza**

txikigarri 1 izond txikiagotzen duena.

Gizontzen ari zen zinez, eta Joselu izena **txikigarriegia** ez ote zen zalantzak hartu zuen. **Josu Landa**

2 izond/iz atzizkiez-eta mintzatuz, adierazkortasuna edo txikitasuna adierazten duena.

Labur esanda, hitzetik hortzera atzizki **txikigarriak** erabiltzen hasi zen Francisca. Fonema batzuen palatalizazioaz edo bustiduraz ari gara, eragin **txikigarria** edo gutxiesgarria duten hipokoristikoez, alegia. **Bernardo Atxaga**

Ez zituen **txikigarriak** onartzen; hortaz, Piliri Pilar deitzen zion, esaterako, eta Maruri, Maruja Fernanda. **Berria - Kultura**

Mikhail izenaren **txikigarria** Misha edo Mishka da. **Jose Morales**

Horixe da, hain zuzen ere, *medved* (hartza) hitzaren **txikigarria** ere. **Jose Morales**

Banan-banan froga zenezake hamar zenbakitxoekin -amaitu du **txikigarriekiko** duen bere joera horrekin. **Txikigarriekin** dena errazagoa, onargarriagoa, zilegiagoa, gozoagoa egiten da. **Patxi Zubizarreta**

txikika 1 adlag (izen + izenondo multzoari dagokiola) ik txiki.

Gizon gazte bat sartu da bagoira orduan, baina ezin izan diot eutsi eta barre **txikika** hasi naiz. Alma Katiarengana hurbildu zen pausu **txikika**, eta haren aurrean gelditu zen. **Unai Elorriaga**

Beste gizonak [...] lagunekin iskanbila sortzen ibili beharko zuen, harrokerietan bide bazterretan, tabernako barraren baten kontra jarrita, salto **txikika** eta zaplatekoka Mannesmann Hallen, edo ring bateko zokoan balde baten ondoan ahapeka hizketan. **Koro Navarro**

txikikazko izlag xehekakoa, txikizkakoa.

EHNEk nahiko luke nekazariak baliatzen duten gasolioan erregaien gaineko zerga berezia ez aplikatzea, banatzaileei **txikikazko** salmentaren gaineko zerga kentzea eta %7ko BEZ zerga ezartzea gaur eguneko %16aren ordez. **Berria - Ekonomia**

Txikikazko salmenten igoerak, petrolioaren prezioaren jaitsierak eta hazkuntza erritmo sendoak eragin dute jaitsiera. **Berria - Ekonomia**

Txikikazko Merkataritzaren Plataformako bozeramaileak. **Berria - Ekonomia**

txikikeria (orobat txikikeria g.er.) iz huskeria.

Aipatzerik ere merezi ez zuten **txikikeria**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Euskara eta Euskal Herria batzen ahalegindu beharrean, **txikikeriak** eta txokokeriak erabiliat. **Koldo Zuazo**

[Bizkaiera] inguruko hizkeretatik bereizten eta banatzen zituzten **txikikeriak** eta bitxikeriak piztu eta puztu zituen. **Koldo Zuazo**

Bista ona dugu, badira **txikikeriak** beste batek sumatzen ez dituenak, baina guri ez zaizkigu oharkabea pasatzen. **Fernando Rey**

Lau partidaratarako zigortu zuten, Las Palmaseko jokalaririk batekin izandako sesioagatik; **txikikeria** batengatik, alegia. **Berria - Kirola**

Egunkari bat itxia eta haren arduradunei halako tratua ematea **txikikeria** balitz bezala. **Berria - Harian**

Konturatu naiz irrigarria litzatekeela, funtsean horrelako **txikikeria** batengatik asaldatzea. **Urtzi Urrutikoetxea**

Mila **txikikeria** marraztu nahiz, arrasto urduriekin, margolari-kaierean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Utzia eta axolagabea egin zen lehen arduratsua eta edozein **txikikeria** zaintzeko joera zuen andre bizia. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ortografiarekin zerikusirik duen albistea, **txikikeria** bat. **Iñigo Aranbarri**

Ez zara orain **txikikeria** legalekin hasiko, ezta? **Antton Olano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
edozein txikikeria (6); ez da txikikeria (3); horrelako txikikeria (4); txikikeria bat (6); txikikeria batengatik (3)
edozein txikikeriagatik (3)

txikiratu ik zikiratu.

txikiskula iz adkor letra xehea.

Alabarekin hizketan ari nintzela, konturatu nintzen "maiuskula" eta "minuskula" edo "letra larri" eta "letra xehe" ordez "handiskulak" eta "**txikiskulak**" erabiltzen dituzuela, eta, egia esan, nik ez niten hitzok ezagutzen. Joxerra Garzia

-Handiskulak eta **txikiskulak** bereizten ikasi dugu gaur, ama. Joxerra Garzia

txikitasun 1 iz txikia denaren nolakotasuna.

Jakin behar da bi gauza espezie berekoak daudenean, haien zertasuna ere bat dela, eta ez direla ezberdintzen handitasun edo **txikitasunean** besterik. Xabier Kintana

Pietate honek, behin dastatu eta gero, gizakiari eragiten dio ur dadin bere **txikitasunean** eta ezerezean. Joan Mari Lekuona

Hizkuntza gutxitu gehienen kasuan, behintzat, bat datoz **txikitasuna** eta ahultasuna. Berria - Euskal Herria

Bere **txikitasunaren** eta bekatuaren ezagutza bizia. Askoren artean

Hatzek ez zidaten lehenengo ahaleginetan objektuaren **txikitasun** eta gogortasuna baizik adierazten. Bernardo Atxaga

Gizakiak beren **txikitasunaz** konturarazteko helburuarekin baino ez zuen jaso Keops faraoiak piramide hori. Jon Muñoz

Ezetzaren handitasunak erasanda ez du aitzakiaren **txikitasunik** jaso. Pako Aristi

Gu, gure **txikitasunean** ere, gertuago gaude Europako Haur eta Gazte Literaturarengandik beste asko baino. Ana Urkiza

Hark bere **txikitasunean** nik baino indar gehiago zeukala iruditzen zitzaidan. Pako Aristi

Txikitasunak ematen digu emetasunaren tamaina. Ana Urkiza

Handinahikeriarik gabe **txikitasunetik** abiatu da Borda. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Printzeak esperientzia izatea nahi bazen, adin **txikitasunari** beldur bazitzaion [...] zuzen asko ezarri zen horrelako oinordekotza-ordena bat. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txikitasunaren sakontasuna (3)

bere txikitasunean (9); **gure txikitasunean** (3)

txikiteatu, txikitea, txikiteatzen du ad (zer/nor osagarrikirk gabe) baxoerdiak hartu.

Corn flakes-ak kaxan sartuko dizkiagu berriz eta **txikiteatzera** joango gaituk gero! Andoni Egaña

txikiteo 1 iz baxoerdiak hartzen ibiltzea.

Badago esatea Gabilondo eta haren adiskide taldea direla, dirudienez, **txikiteoaren** benetako asmatzaileak. Askoren artean

Aste-amaieretako ohizko **txikiteoan** berriketan aritu naiz literatur kontuetan zaletua den adiskide batekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

ik beherago 3. Askoren artean

Txikiteoak behera egin badu ere, hiru euskaldunetik batek alkohola edaten du normalean. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehen koadrilak hasiak ziren sartu-atera egiten, auzoko **txikiteo** ibilbideari irteera eman ondoren. Joxemari Iturralde

Aitortu behar dut beste hainbeste gertatzen zaidala **txikiteo** giroan-eta ohikoak diren beste txiste triste horiekin ere. Joxerra Garzia

Adinekoek gogoan dute oraindik **txikiteo** kalea zutela hura sasoi batean. Berria - Harian

Gizarteak bazterrera kondentzen duen jendearen kontura egindako txistek izan ohi dira sarri **txikiteo**-txistek. Joxerra Garzia

3 txikiteoan adlag baxoerdiak hartzen.

Herriko jende asko sartzen zen tabernan: batzuk **txikiteoan**, besteak pintxo batzuk jaterra. Joan Mari Irigoien

Errealak Betisi [...] irabazi zion egun batean izan omen zen, aita **txikiteoan** zebilela, koadrilarekin. Joan Mari Irigoien

Erosketa poltsekin zihazozen emakumeei izkin egin zien, eta baita **txikiteoan** zebiltzan gizonen ere. Unai Iturriaga

Ez dut **txikiteoan** ibiltzeko ohitura handirik, baina eguerdian kalera irten naiz, nire koadrilak egiten duen erronda kuartel aurretik pasatzen baita. Anjel Lertxundi

Goiz goizetik **txikiteoan** mozkortzen diren gizon zahar tripontziak. Sonia Gonzalez

Urduлизtar batzuk domekaro Andrakara etorten ziran **txikiteoan**, Ruforen tabernara. Xabier Amuriza

Hemengo batzuk igande goizean lagunekin **txikiteoan** joateko moduan jantzita etorri gara. Edorta Jimenez

txikitero 1 izond baxoerdiak hartzen ibiltzen dena.

Saltzaileei, **txikiteroei**, andra eta gizon langileei, neska eta mutil ikasleei baimena eman diete kaleek zapalduak izateko. Sonia Gonzalez

Hurrengo tabernara sartu bezain pronto Txirritaren bertsoak kantatzeari eman diogu **txikiteroen** gozamenerako. Xabier Etxabe

Egunez **txikiteroz** eta gauzez nerabe taldez betetzen diren taberna horietako batean. Sonia Gonzalez

2 (hitz elkartuetan)

Garai haietan, ikusi ahal izan nuenez, **txikitero** koadrilaren ibilerak ia egunerokoak ziren. Jon Alonso

Goizeko kafesnea eta kruasana ez ezik, bere baxoerdiak ere hartzen baitzituen aitak, batzuk bakarrik, eta gainerakoak **txikitero** koadrilekin batera. Joan Mari Irigoien

txikito¹ iz baxoerdia.

Bi **txikito** eskatu genituen. Joseba Sarrionandia

-Ateraidak **txikito** bat. Anjel Lertxundi

Bezperan Dionisosek zabaldutako botila ardoari **txikito** bat atera zion, bere buruak eskertuko ziona, noski. Unai Iturriaga

txikito bana edata ari ziren. **Aitor Arana**
Bazirudien beste garai batean **txikitoak** hartzekoa izan zela, baina orain bere itxura guztiz ezberdina zen. **Sonia Gonzalez**

txikito² 1 iz adkor gizona. ik txikitxo 3.

Lanarena errepikatu diot, harako aldizkariarentzat erreportia prestatzen ari naizela, eta gustatzen zaidala ondoko **txikitoaren** espresioa, argazkiak baduela indarra. **Alberto Barandiaren**

2 (deiki gisa erabilia)

Baina hau bizitza da, **txikito**, eta ez loaren zorabioa! **Pako Aristi**
-Konturatu ez bazara, **txikito**, ertzaina naiz: polizia. **Fernando Morillo**
-Hogeita zazpi urte egiteke dauzkat, **txikito**! -Hemen ez zagok kilo erdirik, **txikito**! Eta hik norekin uste duk ari haizela, **txikito**? **Unai Iturriaga**
-Xuabe-xuabe, e, **txikito**! **Unai Iturriaga**
-Hire kakatan ito, **txikito**. **Patxi Iturritegi**

txikitu, txiki(tu), txikitzen (orobat ttikitu g.er.) 1 da/du ad txiki edo txikiago bihurtu; gutxitu.

Gero topoko atearen beste aldean agur egin zenidan, eta kristalean hatsaren orbana handitu eta **txikitu** egiten zen. **Lander Garro**
Pixka bat izaten dudanean egingo dudana lehenengo gauza operazio bat izango da, titiak **txikitze**. **Pako Aristi**
Emakume bat hil da Iruñean, urdaila **txikitze** operatu ostean. **Berria - Euskal Herria**
Azken hamarkada hauetan, Amazoniako oihana **txikitzen** joan da. **Berria - Gaiak**
Zaila da esatea lan taldea **txikitu**, bere horretan utzi edo handitu beharko dugun. **Berria - Harian**
-Anbizinoa **txikitu** eta zaletasuna handitu? **Xabier Amuriza**
Glotisetik datorren hots-uhinaren maiztasunen artean barrunbeentzako dardar moduari dagozkionak indartuta aterako dira, gainerakoak **txikitu** edo erabat desagertuko dira. **Lourdes Oñederra**
Euriak atertu ziren eta ibaien indarra **txikitu** zen. **Xabier Amuriza**
Euskararen eremua etengabe **txikitzen** ari da. **Herria**
Azken hamarkada hauetan, Amazoniako oihana **txikitzen** joan da. **Berria - Gaiak**
Ahuspez gelditu zen Museoko zuzendaria, trajea ordurako zirtzildu eta zikindua, duintasuna ordurako **txikitu** eta gutxitua, gizakia ordurako apaldu eta beheratua. **Felipe Juaristi**
Burtsan salmentak ez ziren **txikitu**. **Berria - Ekonomia**
Ekoizpena 18.000 ibilgailutan **txikitu** dute eta kezkatu dira langileak. **Berria - Ekonomia**
Azken laurdenean hiruko jaurlaketaren bidez baino ez zuten alde **txikitze** aukerarik izan. **Berria - Kirola**
1948an, transistorea asmatu zenean, gauzak zeharo aldatu ziren, konputagailuen neurria **txikitu** egin zelako. **Pello Salaburu**
Metodo horren interes osoa honetan datza: azaleraren eta zirkularen arteko alde nahi adina **txikitu** daiteke, alde kopurua biderkatuz. **Jon Muñoz**
Ortuko produktuetan ere ekoizpena **txikitu** egingo da. **Berria - Harian**
Memorizatzeko kapazitatea **txikitu** da. **Menane Oxandabaratz**
Erraldoiak ziren, benetan itsasargiak ziruditen, eta orain, berriz, bi kuboein **txikitu** egin dira. **Ramon Saizarbitoria**

• 2 du ad puska txikietan zaitu; suntsitu, birrindu, xehatu. ik txiki 34.

Bere sakelatik billeteak atera eta banan-banan **txikitu** ditu, mila zati txikitan. **Pablo Sastre**
Harresiak **txikitu**, birrindu, apurtu... **Paddy Rekalde**
Orduan, bi hartzek oihaneetik atera eta mutiko haietarik berrogeita bi **txikiturik** utzi zituzten. **Elizen arteko biblia**
Bizpahiru aldiz etortzen ziren hegazkin aliatuak Buna fabrika **txikitzen**. **Juan Garzia**
Burdinazko hagin handiak zituen [piztiak]; dena irensten eta **txikitzen** zuen, jan gabe uzten zuena hankapean apurtzen zuelarik. **Elizen arteko biblia**
Aitzurkada batez burua **txikitu** nioan. **Lopez de Arana**
Inork ez zizun itxarongo lantokitik irteteen muturrak **txikitze**, inork ez zizkizun autoaren gurlak zulatuko. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Frankotiratzaile ezkutukoek, tiro zuzen bakar batez, lepo-hezurra **txikitu** zieten, eta bertan seko utzi. **Karlos Linazasoro**
Taliban ezkutu baten tiro trebeak orkatila **txikitu** zion Afganistango Tora Bora menditsuko labarretan. **Fernando Morillo**
Oparitarako egurra **txikitu**, eta Jainkoak esandako lekurantz abiatu zen. **Jose Antonio Mujika**
1898an, ekaitz oldar ikusgarria Madrilén: farol, hesi, zuhaitz, teilatu-sabai... harrapatu zuen gutzia **txikitu** zuen. **Pello Zabala**
Ikastolan, zuzendariari autoa **txikitu** zioten. **Karlos Linazasoro**
Bala zaparrada batek leihotako kristalak **txikitu** ditu. **Karlos Zabala**
Armairu bat **txikitu** zezakeela buruarekin. **Pello Lizarralde**
Ron amorrutik makila **txikitu** beharrenean jo eta jo ari baitzen mahaietan. **Iñaki Mendiguren**
Esmeralda, berez kolore berde bizia daukana, **txikitzen** hauts zuri bilakatzen dela. **Xabier Kintana**
Etengabeko gerrak **txikitu** zuen hiri batean. **Felipe Juaristi**
Urdaiazpikoa eta tipula **txikitu** ditut. **Lander Garro**
Zer **txikitu** seinatu zenieten zuen atzetik etorriko zirenei. **Anjel Lertxundi**
Akulu handia izan ziren "nerbioak" eta fixazioak, harik eta estresarekin loturiko osasun-arazoek gorputza **txikitu** zidaten arte. **Xabier Olarra**
Drogatu egiten gaituzte, enbor **txikitzen** jarrai dezagun. **Pako Aristi**
-Zoria etsai izan zuen, ordea, salto egiterakoan belaua **txikitu** zuen-eta harri tzar baten kontra jota. **Anjel Lertxundi**
Sei metrotik behera erorita, aldaka lau tokitan **txikitu** zuen arte. **Alberto Barandiaren**

3 (janaria-eta ahoan) ik mastekatu.

Ahoan **txikitu**, listuztatu eta irentsi. **Xabier Olarra**
Hortzak ateratzean, janaria **txikitze** prest zeudela uste nian. **Anton Garikano**
Eta hosto bat ematen ziotean, ahoan **txikitze**. **Anton Garikano**
Laster janaria **txikitzen** hasten gara berriz. **Koro Navarro**
Zerbait zerabilen ahoan, **txikitzen** ari zena. **Koro Navarro**

4 (da aditz gisa)

Lurra jo genuen, eta espaziontzia **txikitu** egin zen. **Bernardo Atxaga**
Baldaxo baten gainean zegoen kristalezko arrainontzia eta hau lurrera jausi eta hamaika puskatan **txikitu** zen. **Joxemari Iturralde**
Bi makinak beren bideetatik irten ziren, **txikitu** egin ziren, eta bagoiek akordeo baten itxura betea hartu zuten. **Karlos Linazasoro**
Herrian, urrun egon arren, hogeita hamar etxetan **txikitu** ziren kristalak. **Koldo Biguri**
Hantxe joan zen [gorputza], pirika-pirika, harkaitz punta zorrotzen kontra guztiz **txikitu** zuen arte. **Karlos Linazasoro**

5 (era burutu izenon gisa)

Zubi **txikitu** baten parera heldu ginelarik, bizikletatik jaitsarazi nuen. **Harkaitz Cano**

Egun hartan bezero batek ere ez zuen onartu nik eramandako ogi **txikitu** eta zikindua. **Pello Lizarralde**

Hizkuntza txiki eta **txikitu** bati bereziki, ez zaio horrelako ataka estuan jartzea komeni. Euzkadi murriztua zen Bizkaia **txikitu** hartan ageriko gerra amaitu ostean, [...].
Koldo Zuazo

6 izotz-txikitzeo iz izotza txikitzeo tresna.

Honetan datza teknika: gaixoei konortea galarazten zaie kolpe batez, eta, "anestesia" horren eraginpean daudela, **izotz-txikitzeo** bat indarrez sartzen zaie begi-globoaren eta betazalaren arteko orbitaren gainaldean barrena lobulu frontaleraino; puntu horretan, ebaki bat egiten da alderik alde, tresna alde batetik bestera mugituz. **Xabier Olarra**

Izotz-txikitzeo bat besterik ez zen behar. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldea txikitu (9); **aldea txikitu zuen** (4); **aldeak txikitu** (7); **aldeak txikitu zituen** (4); **arriskua txikitu** (3); **asko txikitu** (3); **autoa txikitu** (4); **belauna txikitu** (4); **belauna txikitu zuen** (3); **burua txikitu** (7); **dena txikitu** (5); **denak txikitu** (3); **egurra txikitu** (4); **erabat txikitu** (6); **gehiago txikitu** (3); **guztiak txikitu** (8); **guztiak txikitu zituen** (3); **guztiz txikitu** (3); **handitu eta txikitu** (4); **jo eta txikitu** (8); **kristalak txikitu** (3); **mila puskatan txikitu** (3); **taldeak txikitu** (3); **tropela txikitu** (5); **tropela txikitu zuen** (3); **txikitu arte** (6); **txikitu beharrean** (4); **txikitu nahian** (4); **txikitu ondoren** (3); **txikitu ostean** (4)

guztiak txikituko (3); **ingurua txikituko du** (3)

autoa txikituta (3); **erabat txikituta** (7); **erabat txikituta geratu** (3); **txikituta gelditu** (6); **txikituta geratu** (12); **txikituta geratu zen** (5); **txikituta utzi** (6); **txikituta utzi dute** (3); **txikituta zegoen** (4)

txikituz joan (6)

txikitzea proposatu (3)

aldea txikitzeo (3); **aldeak txikitzeo** (6); **aldeak txikitzeo aukera** (3); **aurkaria txikitzeo** (3); **sabela txikitzeo** (3); **tropela txikitzeo** (3)

txikitzeo asmoz (3); **txikitzeo aukera** (6); **urdaila txikitzeo** (16); **urdaila txikitzeo ebakuntza** (5); **urdaila txikitzeo ebakuntzak** (3)

begiak txikitzen (3); **dena txikitzen** (3); **egur txikitzen** (3); **elkar txikitzen** (3); **janaria txikitzen** (3); **txikitzen joan** (3); **txikitzen saiatu** (4); **zuloa txikitzen** (4); **zuloa txikitzen ari** (3)

txikitxiki ik txiki 33.

txikitxo (orobat txikitxu g.er. eta ttikitto g.er.) 1 izond adkor txikia.

Gizon **txikitxo** zen, hetikadun bat bezain iharra, makurra eta hanka-okerra. **Koro Navarro**

Amona **txikitxo** zelako eta zakurra oso handia. **Iban Zaldúa**

Antjeren eskolako lagunak **txikitxoak** ziren denak, serioak, ez oso hitzontziak. **Fernando Rey**

Anaia Juan gizon **txikitxo** bat zen. **Josu Zabaleta**

Emakume xehe, **txikitxo** eta zatarra bera, jendeak kakanarru deitzen dien horietakoa. **Jose Morales**

Neskato beltzaran bat zen Giulia, **txikitxo** eta bizkorra. **Juan Garzia**

Gizon zahar bat, **txikitxo**, zegoen mahaiko leku nagusian. **Koro Navarro**

Farmazialari eta kimikari judu **txikitxo** batek. **Josu Zabaleta**

Lauzatu berria nuen logela bateko komuna, neskame mexikar **txikitxo** hori garbiketa egitera sartu zenean. **Koro Navarro**

Leihoko kisketari helduta daukadan eskuaren gainean paratu du berea, **txikitxo** eta leuna. **Koldo Izagirre**

Kezkatuta dagoenean ia nabari ezina den bekokiko zain **txikitxo** bat handitu egiten zaio. **Sonia Gonzalez**

Markes Tellagorriren zakurra zen, zakur **txikitxo** bat, itsusia. **Koro Navarro**

Harro seinalatzen du bere hegazkina: motor bakarreko *Cessna Cardinal* zuri-gorri **txikitxo** bat. **Xabier Olarra**

Beste arkupe-bide batek, hura ere kretonazko ehun kulunkariatz apaindua, korridore **txikitxo** baten gainera ematen zuen. **Mirentxu Larrañaga**

Karrajoaren bukaeran bazen ate **txikitxo** bat, Dionisosek jainkoen edari kaxak gordetzeko erabili ohi zuena. **Unai Iturriaga**

Errepidetik auzora sartzeko oinezkoentzako aldapa **txikitxoan** gora. **Jon Maia**

Koratiiloaren ezker poltsikotik ateratako blok **txikitxo** erakutsi zion. **Joxemari Urteaga**

Argi **txikitxo**, nora eramanen nauzu? **Fernando Rey**

Denok dugu argalgune **txikitxo** bat: barkabera samarrak izaten gara geure buruarekin, eta inguruan bilatzen dugu gure haserrearen zama noren bizkarrera bota. **Jose Morales**

Estatuak badu pittin bat itsusten duen akats **txikitxo** bat: Cromwell kristau sutsuak turbante bat du, edozein turko paganok bezala. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

2 (izen gisa)

Kristoren **txikitxo** haien bertute eta merezimenduak haziz zihazozen eta haien izen onaren usain gozoa inguru guztian zabaldu zen. **Askoren artean**

Esan zuen ezin zuela sinetsi hura bere **txikitxo** kutuna zenik, hain dotore eta hazia ematen baitzuen. **Iñaki Mendiguren**

Herri bateko jende altua jo eta garbitzeko, aski litzateke **txikitxoek** kaleetan barrena zabaltzea gas hori, ez bailieke berei kalterik egingo. **Juan Garzia**

3 (deiki gisa) ik txikito².

-Malette, **txikitxo**, garagardoa aparrik gabe eta plater bat txukrut. **Monika Etxebarria**

-Etxekoandre, **txikitxo**, zatoz! **Monika Etxebarria**

-Hi, **txikitxo** hori, hiri nik... **Karlos Zabala**

-Ai, ene **txikitxo** hori, ez negar egin, maitea, amatxok ez dio utziko-eta zuri egun berezi hau hondatzen! **Iñaki Mendiguren**

4 umetxo.

Berak burdinsarea zulatu zuenean **txikitxoak** ginen. **Koldo Biguri**

Txikitxoak eta maitagarriak diren bitartean aprobeixatu beharra dago. **Iban Zaldúa**

Lehenengo urteko **txikitxoak**. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizon txikitxo (5); **gizon txikitxo bat** (5)

gizon txikitxo (3)

txikitxu ik txikitxo.

txikitzaile 1 izond txikitzen duena.

Masaillezur hotz, **txikitzaile** bat besterik ez banintz bezala. Anton Garikano

Virgilen erantzuna, onez onekoa, itsu gisa portatzea edo are itsu bihurtzea izaten zen: haren egoaren parte baten baliogabetze edo atzera-pausoa; identitate-uko **txikitzaile** eta ezereztaila, alegia. Xabier Olarra

Geldigaitz ziharduen bere egiteko **txikitzailean**. Xabier Montoia

Ezin konparatu ordea herriaren jabe eta **txikitzaile** diren Ondarreko Martxialen ondorengoekin, bihotza ere txatarrez egina baitute, beren dirua bezala. Iñaki Segurola

Korrante alternoaren eragin **txikitzaile** demasak frogatzeko, dozenaka animalia [...] elektrokutatu zituen sistema honen bidez. Harkaitz Cano

Proiektu «**txikitzaileen**» aurka indarrak batzeko deia ere egin zuen. Berria - Euskal Herria

Desarrollismo **txikitzailea**. Iñaki Segurola

Ohartarazpenaren tximista **txikitzaileaz** eta trumoi zalapartatsuez bazterrak zipriztintzen ditu. Xabier Olarra

Merkataritzak baztertu gaitu aurreiritzi basati eta **txikitzaile** horietatik. Andres Urrutia

2 (hitz elkartuetan)

Esklabo-saltzaileak, urre-bilatzaileak, drogamenpekotasun anitzek jotako esploradoreak, buru-**txikitzaileak**, hegaztien zirinen kontrabandoan zaildutako patibularioak, [...].

Jon Alonso

3 irud/hed arauak-edo hausten dituen.

Arrisku gutxi, proposamen ausart eta **txikitzaile** gutxi, harritzeko gutxi. Berria - Kultura

Lehen auto **txikitzailea** 2001ekoa izan zen, oso forma biribildu eta berritzaileekin. Berria - Kirola

txikitze 1 iz txiki edo txikiago bihurtzea. ik txikizio.

Tamainaren itxurazko **txikitzea** urruntasun gisa interpretatuko da. Josu Zabaleta

2 puska txikietan zatitzea; suntsitzea, birrintzea, xehatzea.

Ezintz du bat-batean makila-**txikitze** ederra sasi artean. Pako Aristi

Gero, egur **txikitzeak** eragindako ezpalak jaso zituen bazter batean, eta erratza lakar bat pasatu zuen porlanezko zoruan. Anjel Lertxundi

txikixka izond adkor txikia.

Tarteka izaki **txikixka** batzuekin gurutzatzen nintzen. Pako Aristi

txikixko (corpusean tikixko soilik) izond adkor txikia.

Aitzin gaueko joan-etorri nola-halakoek leku egin zuten nire oroimenean: Klara mozkor arraildua, borrokan bere etxeko atearen zerrailako zulo **tikixkoaren** aurka. Aingeru Epaltza

Alabaina, horrela eginez gero, letra tamaina tipitu beharko nuen -36 bat, **tikixkoa** inondik ere- eta esaldia itsuski moztu. Aingeru Epaltza

txikizio 1 iz puska txikietan zatitzea; suntsitzea, birrintzea, xehatzea.

Hainbeste iraultza, gerra, **txikizio** eta restaurazio artean [...], gizarteak ja ez dio fidatu nahi bere zortea erlijioari edo tradizioari. Joxe Azurmendi

Handia izan zen **txikizioa**, argirik gabe egon ginen bi egunez. Anjel Lertxundi

Minaren mundua, munduaren mina, bizialdi osoan gerra, **txikizioa** eta triskantza besterik ezagutu ez duenarena. Felipe Juaristi

Haren beharrik ere ez **txikizioa** izugarria zela jakiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Txetxeniako **txikizio** eta genozidio justifikatzeko. Berria - Euskal Herria

Sistema demokratikoa ez da gai Amazoniako lur-jabe handien **txikizioei** aurre egiteko. Iñaki Heras

Makina bat baserri erre, makina bat **txikizio** erasan eta eragin izan ditu, miseria franko sortarazi ere bai ekaitzak. Pello Zabala

Orain arte 189,4 milioi bideratu ditu Espainiako Kosta eta Ur Idazkaritzak *Prestige*-k eragindako **txikizioa** konpontzen saiatzeko. Berria - Euskal Herria

Beste malapartatu batzuk etorri dira atzetik zuek margotutako etxeetan **txikizioak** egitera. Anjel Lertxundi

Mexikoko Golkoan urakanek egindako **txikizioak** guztiz konpondu artean, findegiei ezinezkoa izango zaie eraginkortasun osoz lan egitea. Berria - Ekonomia

Txikizioak egin izana, lesioak eragin izana eta bortxa erabili izana egotzi zien. Eduarne Elizondo

Inon ziren bandolerorik, traidorerik eta gaizkilerik lotsagabeenaz eta ausartenaz inguratuak bizi ziren haiek, bazterretan nahi zituzten **txikizioak** eta belzkeriak eginez.

Patziku Perurena

Alkohola sekulako **txikizioak** egiten ari da familietan». Berria - Harian

Ez zieten nonbait milizianoek moja zaharrei ezer txarrik egin; **txikizioak** bai ugari, baina mojei ezer ez. Inazio Mujika Iraola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Pagasarriko maldetan eman zidaten tiro batek laga ninduen horrela, egia esan tiroak berak baino **txikizio** handiagoa egin zigun bataloiko medikuak, izan ere harakin hark ez baitzeukan... Koldo Izagirre

Adiskideek berriz goraserrean hartu naute, **txikizio** itzela egin dute miaketan. Koldo Izagirre

Izurriteek, gatazka heretikoek, erromesaldiek berek, erremediorik gabe bidelapurreria ustel bihurtzen baitira, **txikizio** latzak eragin dituzte jendeen artean. Juan Garzia

Totalitarismoak eta Holokaustoak ez dute aipurik txikiena merezi; nazismoak ekarri duen gerra eta Alemaniaren **txikizio** totala "katastrofe" natural bat da. Joxe Azurmendi

Gobernuari **txikizio** hiltzailetara jotzea galarazten dion alderdia. Nik uste, pluralismoa ez dela ona, **txikizio** dogmatiko batek utzi duen hondar pila moral eta materiala baizik ez denean. Xabier Olarra

Konbentzioak, heziera ona, elkarrekin pasatutako urteak eta odola, batez ere odola... nola desegin hori guztia norberak bere barneko egituran sekulako **txikizioa** eragin gabe? Anjel Lertxundi

Munduko armategi nuklearrak eragin lezakeen energia baino hamar aldiz handiagoa askatu zuen asteroideak, eta ikaragarritzko **txikizioa** eragin zuen planetan. Javi Cillero

Ustezko **txikizio** hauen nondik norakorik, ez da gaur egun arte azaldu. Iñigo Aranbarri

Isileko traizioak, ageriko **txikizioak**. Juan Martin Elexpuru

Halako **txikiziorik** ez zen berriro izan berrogeita bost urtez, 1930etara arte. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berriz ere, hiritarren kontra egiten du PPK, eta orain, gainera, gerra eta **txikizio** armak ekarriz. Berria - Euskal Herria

Gure baldintzak onartzen ez badituzte, Lurrean inoiz ikusi ez den **txikizio** eurite bat izango dute. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

2 hildako, eta uzta **txikizioa** Zaragozako, Lleida eta Gironako, Tarragonako eta Nafarroako lurraldeotan. Pello Zabala

Zaragozatik Tarragonaraino, Anpurda aldean eta Valladolid aldean ere, zubi-**txikizio** eta horrelakoak, edonon gertatu omen ziren... Pello Zabala

Jazarraldi eroak, tiroketak, sute-**txikizioak**, mutilazio gogorrak eta heriotza-eszenak. Xabier Olarra

Giza deseginketaren eta barne-**txikizioaren** amildegira goazela esango banu. **Pako Aristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txikizio handia (4)

txikizioa eragin (3)

txikizioak egiten (3); **txikizioak eragin** (4)

txikizka 1 *adlag* salerozketez mintzatuz, kopuru txikietan. ik **xeheka**.

Eta aurrera beti, ordea; **txikizka** saltzen du; berrogei sos eskuratzen ditu egunero... **Karlos Zabala**

2 irud/hed

[Kolkida] ez da baso zabal bat baino, non herriak, egunetik egunera urrituz doalarik, ez baitu defendatzen bere libertatea turkiarrei eta pertsiarrei bere burua **txikizka** saltzeko baizik. **Iñaki Iñurrieta**

3 **txikizkako izlag**

78 tona gai saltzen dira urtero Mexikon, **txikizkako** merkatuan. **Beria - Gaiak**

Bertoko banku handiak **txikizkako** merkatuetan murgildu dira. **Beria - Ekonomia**

Txikizkako saltokiei eta kontsumitzaileei egindako inkestek iragarri dute kontsumo pribatua hein berean haziko dela. **Beria - Harian**

Marjolin zortzi urte betetzeko zegoela, eta Cadine sei, ama Chantemessek beti alferkerian ibiltze hori aurpegiratu eta bere **txikizkako** salmentara elkartzeko esan zien. **Karlos Zabala**

Txikizkako merkatarientzat eta eraikuntzako enpresaburuentzat, ordea, aurreikuspenak baikorrak dira. **Beria - Ekonomia**

Guardasol harekin babestu zuen **txikizkako** saltzaileak bere saltokia hogei urtean. **Karlos Zabala**

Gertatu zen arroz ale bakar bat ere ez zegoela merkatuan eta Napumoceno jauna arrozaren zain zegoela jakin orduko, **txikizkako** saltzaileek inbaditu zioten bulegoa eta etxean ere ez zuten bakean utzi. **Bego Montorio**

Ercorea supermerkatuak, Bizkaian **txikizkako** banaketan lidergoa duen kateak, Ceal supermerkatuak erosiko ditu ahal bezain azkarren, baliteke urtea amaitu baino lehen izatea. **Beria - Ekonomia**

4 (izen gisa) txikizkaria.

Horrek in bat era ezabatuz egingo ditu baita arrakasta txikiagoko bere freskagarriak erostera bultzatzeko **txikizkako** handiei egiten zizkien deskontuak. **Beria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txikizkako salmenten (3); **txikizkako saltzaileak** (3)

txikizkari 1 *iz* txikizka salerosten duen merkataria.

Nagusiki inbertsiogile instituzionaleri zuzendua izango den arren, **txikizkariak** ere izango dute aukera. **Beria - Ekonomia**

Salgaiak biltegira sartu eta zuzenean saltzen zizkieten **txikizkariak**, norberaren ahalbideen arabera baina betiere kaxa, zaku edo fardelka. **Bego Montorio**

Fadesak 119na akzio esleituak dizkie eskariak egin zituzten **txikizkariak** hamarretik zazpiti, 12,60na eurotan. **Beria - Ekonomia**

Cityko adituak kritikoa agertu dira igoeraren aurrean, libera esterlinaren indarrak eta tasen igoerak manufaktura industria eta **txikizkariak** kalte egin diezaiokeela uste dute. **Beria - Ekonomia**

2 (izenondo gisa)

Eskainitako akzioak halako 6,8 eskatu dituzte inbertsiogile **txikizkariak**. **Beria - Ekonomia**

txikle 1 *iz* mastekatzeko goma zaporeduna. ik **xuingoma**.

Arratsaldeetan, berriz, etxean egoten nintzenez, medikuntza kontuak ikasten edo nobelaren bat irakurtzen, **txikleak** mastekatzeko nuen, etengabe. **Joan Mari Irigoien**

Tabakoa erretzen eta **txikleak** murtzikatzen. **Pello Lizarralde**

Urduri jartzen naizenean, zeren elektriko bat baitirudit, **txiklearen** hausnarrean. **Joan Mari Irigoien**

Menda usaina zegoen, Maialenek beti mendazko **txikleak** jaten zituelako. **Lander Garro**

Zigarroa eskuan eta **txikleak** ahoan dantzan. **Migel Angel Mintegi**

Klorofilako **txiklearen** kolorea. **Unai Elorriaga**

Ondo puzten diren **txikleak**. **Iñaki Mendiguren**

Gela bat bete zitekeen **txikle** harekin egindako hiazintz-koloreko puxikez. **Iñaki Mendiguren**

Badira "arisku gabeko egunak" **txikle** bat balitz bezala luzatzen dutenak. **Luis Elberdin**

Hauteskunde kanpaina hasi gabe ere, denbora **txikle** baten moduan luzatu da gure artean. **Beria - Harian**

Percy Lewis ikusi nuen, eskolan ginela ilean **txikleak** itsasten zidana. **Koro Navarro**

Hurbileneko sarraila-zuloa **txikleak** betetzen ari zen. **Iñaki Mendiguren**

Zirikitutik sartutako nickel batez **txikleak** erosten da. **Lopez de Arana**

Erabat debekatuta daude flashak, zigarroak eta **txikleak**! **Jon Muñoz**

Niri kalte egiten zidak, **txikle** eginda gelditzen nauk. **Pako Aristi**

Txiklearen jakinduriaren jabe da orain zure aho hutsa, haren lezioa ikasi du, zeure damu gorri gaiztoan. **Iñaki Segurola**

2 (hitz elkartuetan)

Bainu-jantzitan ere igartzen zaie dolidunak direla; eta horien ahotsak, nonahi aditzen diren horien **txikle**-ahotsak [...] ene, zeinen jasanezinak diren, hori bai hori Ongizatearen Jendilajea. **Joxe Austin Arrieta**

3 erretxina gomatsua, zapotearen enborretik ateratzen dena, mastekatzeko goma egiteko, besteak beste, erabiltzen dena.

Hautan ekoizten dira kafea, banana, kotoina, azukre kanabera eta **txikleak**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txikleak mastekatzeko (3)

txikletu

Esaldiak ingelesezko eta gaztelaniazko esamoldeekin ziprztinduz, hitzak ebakiz, ezpainen arteko leherdura txistikariek esaldiak **txikletuz**... **Anjel Lertxundi**

txikore ik **txikoria**.

txikoria (*orobat txikore g.er.*) **1** iz konposatuaren familiako landarea, sustraiak eta hostoak mikatzak dituena (*Chicorium intybus*); eskuarki, sustraiak txigortuaz kafearen ordezkoa egiteko erabiltzen den aldaera; delako sustrai hori txigortu eta zehatua.

Ez zuelako bereizten zer zen albahaka eta zer **txikoria**. Fernando Rey

Zerba, espinaka eta **txikoriaren** oihartzuna uzten dute ahosabaian. Joxerra Garzia

Txikoriaren usaina kafearenari gailentzen zitzaion. Bernardo Atxaga

Loalditik atera berria, **txikore** bero bat prestatzen dabil. Berria - Kultura

Mementokotz, **txikorea** basoan isuri eta, pausuki hasten da bere erabakia esplikatzeko. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetako lehen osagai gisa, orobat txikori)

Gosarikoak jaso gabe zituen oraindik eta harraskako putzua tipula zuztarrez eta **txikoria** hostoz leporaino beterik. Berria - Kultura

Ezkerrean, bi **txikori** metaren arteko hutsunean, hamar bat urteko mutiko bat zegoela ohartu zen, lozorroan, irribarrea ezpainetan, aingerua iduri. Karlos Zabala

Erakustokian, ziazarba eta **txikori** orek, ontzietan jarririk, pila biribilak osatzen zituzten, puntan bukatuak eta metal zurizko giderra baino ageri ez zuten pala txiki batzuek ebakiak. Karlos Zabala

3 txikori belar

Gaixo gazte hitz-gabe batek musikari eta dantzari erantzuten zien; beste bat, aste batzuen buruan, nirekin billarrean hasi zen, eta geroago, jardin botanikoan, bere lehen hitza esan zuen: "**txikori-belarra**". Xabier Olarra

Han-hemenka mitxoletak, gorosti aleek, **txikori belarrek** dirgai egiten dute. Itziar Otegi

Udaberrian, **txikoria-belarraren** eta apo-belarraren lore horixkek, gladiolo gorrimin ederrek eta kuku-praka purpura-koloreek distirutzen dute pareten ondoan. Koro Navarro

Afariaren mahaia, Mab Erregina buru dela; eta atzean Zerbitzari Jauna, zeinek eskuan daraman **txikori-belarrari** putz egiten baitio, Maiestateak ordua jakin nahi duenean. Julen Gabiria

Lehorrean, berriz, zelai berdeak, eta berdetasunaren artean bitxilore eta **txikoria-belarren** ñabardura koloretsuak. Migel Angel Mintegi

txikot (orabat **txikota** g.er.) **1** iz soka lodia, eskuarki txalupetan-eta erabiltzen dena.

Txikot horren mutur bat, beste **txikotekoak** bezala, lehorrean zen artean. Karlos Zabala

Karrakaren ababorreko amulako azken **txikotari** korapiloa neuk egin nion. Edorta Jimenez

Ontzia portura estekatzen duen **txikota** estu lotuta dagoen ziurtatu du. Harkaitz Cano

Emadazu **txikota**! Joseba Sarrionandia

Ailegatzean neuk amarratuko nuen **txikota** aihenean. Joseba Sarrionandia

Esan dizuet guk gauzak txarto egin genituela, eta **txikota** botata kaian atrakatuak geneuzkan ontzi biak, faxistez beteak. Koldo Izagirre

Txikotak muturra tornuan lotuta duenez, eta palankak mugituz tornu hori birarazten dutenez, soka tornuaren inguruan biltzen joaten da, eta hala jasotzen dira pisuak obran jarri behar diren lekuraino altxatuz. Santiago Iruretagoiena

Hori egin ondoren, tiratzeko **txikotak** laxatuta jarriko dira aurrean. Santiago Iruretagoiena

Tiroko hiru **txikota** lotzen dira makinan. Santiago Iruretagoiena

Garraio-lanak egiten zituen txalupa ez zen arraunez edo motorrez aurreratzen, mutur bitako **txikota** luze baten atoiari baino. Josu Landa

Gorrotoa bideratzeko modu okerra erabili zuten, guk bizirik utzi behar genuen, Soterok ez zukeen torturatuko **txikota** lepoan lotu behar zion inor. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan)

Bigarren **txikot**-muturra ontzian bertan loturik zeukaten, handixe tira egiteko egokieran. Edorta Jimenez

txikotazo iz txikot kolpea.

Ozta ikusi zuen bagak laguntzaileari eman zion **txikotazo**, putzurakoa izan zen. Koldo Izagirre

txilaba (*orobat jilaba g.er. eta jilbaba g.er.*) **1** iz tunika moduko jantzi luzea, txanoduna eta mahuka-zabala, erdi-ekialdean eta arabiar munduan erabiltzen dena.

Beti bezala bizi baitzen, ohizko moduan, bere **txilaba** jantzi eta Koranak agindutakoa zintzo-zintzo beteaz. Bernardo Atxaga

Zapi beltza darama buruan eta **txilaba** luzea soinean. Berria - Harian

Hamalau urte bide zituen mutil bati josi zion begirakunea: gizona zen, tarrapota, hanka-hutsik zegoen, begitarte eta **txilaba** lohiz zikinduak. Patxi Zubizarreta

Desegoki jantzia zetorren, **jilbaba**, kapela eta sandalia pare batekin. Patxi Zubizarreta

Noizean behin, lur koloreko **txilabaren** hegalk jaso eta jauzi txiki batez gainditzen zuten gaueko euriak sortutako putzua. Bernardo Atxaga

Meharra zen eta, **jilaba** maiztu batez jantzirik egon arren, elbarrigileak esan bezala, gorpuzkera itxurosoa eta duina zuen. Patxi Zubizarreta

2 1936-1939ko gerran matxinatuen alde borrokatu zen marokoarra.

Jende ona ziren **txilaba** haiek, tabakoa ematen ziguten, eta zekiten gaztelania apurra lardaskatzen zuten gurekin. Koldo Izagirre

Txilabak beste norabait bidailita falangistek hartu zuten gu zaintzeko ardura. Koldo Izagirre

"Gorri, egik lan!" **txilabek**, eta guk "Nik bai lan, **txilabak** ez lan!". Koldo Izagirre

txilar **1** iz landa edo larreko zuhaixka adartsua, zur-gogorra eta sustrai-lodia, loreak mordoetan dituena (*Erica scoparia* etab.). ik **ainar**.

Otea eta **txilarra** hazten ziren ur istilen arteko sastraketan. Karlos Zabala

Haritz, isats eta **txilarren** artean doa errepeidea. Piarres Aintziart

Edozein lur elkorretan, hezetan poxi bat nahikoa du, goroldioak eta **txilarrak** humus apur bat prestatzen badiote, han erneko ditu zain xuri finak. Pello Zabala

Graemetarren etxerako bidean **txilarrak** nabarrak zeuden, udako kolore zuri, arrosa eta ubelak galdu eta herdoilaren kolorea harturik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Txilar bat jaio zen, sustraietan pipak egiteko erabiltzen diren **txilar** zurtoin-luze eta zuztar-egurtsu horietako bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Miarritze teilatu gorri eta kontraleiho berdeko herri txuria da, belarrezko eta **txilarrezko** gailurretan paratua, hauen uhindurari jarraiki. Koldo Izagirre

Haren aurpegia [...] lausotzen hasi zitzaidan geure ibilaldiaren koloreetan, bideko errauts zurian, auzo-lurretako **txilarrean**, zelaien eta itsaso zatikatuaren urdin eta berdean. Koro Navarro

Eskua sartuko zenion erlauntzari ezititan barrura, eta ahora eramango ondoren, siropa gozoa **txilarrez** edo mila lorez egindakoa ote zen erabakitzeko. Hasier Etxeberria

2 (izenondoekin)

Txilar gorria, erle eta mendi kaskoekin lotuta dago, maitasunaren gorria berekin duela. Pello Zabala

Txilar xuria, berriz, maitasun grinaren mantsogarri omen da. Pello Zabala

Txilar bat jaio zen, sustraiekin pipak egiteko erabiltzen diren **txilar** zurtoin-luze eta zuztar-egurtsu horietako bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Berthak bezala, hark ere **txilar** ezti-koloreak zituen begiak. Mirentxu Larrañaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txilar sasi batetik bestera lasterka doan sutea bezala. Anton Garikano

Mingain beteen gorria, lakoien horia, paper pusken urdina, hasitako piezen arrosa, **txilar** hostoen berdea, eta odolkien beltza. Karlos Zabala

Arropa grisak zeramazkiten; **txilar** usaina zeukaten. Anton Garikano

Txilar literatura egiten zuen. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txilar koloreko (5); **txilar koloreko frak** (3)

txilardi iz txilarra hazten den lekua.

Londres laster geratu zitzaizen oso atzera, eta haren ordez landa berde txukunak ageri ziren, eta gero, berriz, purpura-koloreko **txilardiak**, jostailuzkoak ematen zuten herrixkak elizatzkoekin, eta hiri handi bizi-bizi bat, kolore askotako inurriak bezalako autoekin. Iñaki Mendiguren

Athelasaren usainak aretoa bete zuenean, eguzkiaren argipean erlez jositako baratze eta **txilardien** lurrinak bezala, Merryk berehala begiak ireki zituen. Agustin Otsoa

Txilardietara abiatu mendi-bidexketan barrera, lastozko teiltatuko etheen aurretik pasatu, Ipar Itsasoko bazterrak ibili. Fernando Rey

txilbor ik zilbor.

txiletar (orobat xiletar g.er.) 1 izond Txilekoa, Txileri dagokiona.

Txiletar militarrek, beren bandera nahikoa erakutsitakoan, alde eginen dute. Joseba Sarrionandia

Helikoptero batetik, Moneda jauregiaren gainetik hegan pasatu ondoren, Konstituzio plaza betetzen zuten milaka lagunengainean 44 **txiletar** poeta gazteren 100.000 lan jaurti zituzten. Berria - Kultura

Jendea Billy Garlic izeneko boxeolari **txiletar** bati buruz marmarrean ari da. Harkaitz Cano

El guante txiletar film laburra dute programatua. Berria - Kultura

Txiletar jatorriko gizon bat ere han ibili zen. Berria - Kultura

Idazle **txiletarren** eta kroaziarrenak ziren poesiak. Berria - Kultura

Roberto Matta pintore **txiletarraren** semea. Berria - Kultura

Nazio Batuen Erakundeko Haitirako ordezkari Juan Gabriel Valdes diplomatiko **txiletarrak** oso ontzat jo zuen atzo hauteskunde eguna. Berria - Mundua

Germaniarrak Frantzian barna sartu zirelarik, iaz, Bruselako **Txiletar** Ordezkaritzan aterpetu zen. Edorta Jimenez

• 2 iz Txileko herritarra.

Ostegunean mahai-inguruan **txiletar** bat, senegaldar bat eta bi ekuadortar bildu ziren. Berria - Euskal Herria

Ehun bat **txiletarren** hiltze edo desagertze kasuak ikertzen dituen Juan Guzman epaileak. Berria - Mundua

Orotara, 8,2 milioi **txiletar** daude deituta gaur egingo diren bozen bigarren txandan botoa ematera. Berria - Mundua

Txiletarra da bera, Santiagokoa. Berria - Euskal Herria

Ate aurrean asmatzen ari dira, gainera; **txiletarra** batez ere. Berria - Kirola

Azken bozketaren ondoren, **txiletarrak** erruz atera ziren kalera asteazken gauean protesta egitera. Berria - Mundua

Serrano **txiletarraren** "Roter Mohn" abesti arrakastatsuak. Alberto Ladron Arana

Euskal jatorriko **txiletarrekin** lantzen ditugu gure harremanak. Berria - Euskal Herria

txiliar izond/iz txiletarra.

Euskaldunen, frantsesen, burundiarren, mexikarren eta **txiliarren** txalo eta dantzek giro on bat emaiten zuten. Herria

txiliatu, txilia(tu), txiliatzen du ad oihu egin.

Akordatuta zegoen, baita, zeinen gaizki eta zenbateko lanturruak **txiliatzen** zituen zakur gajoak, tximista eta trumoi, ekaizteak jotzen zuenean. Pello Zabala

txilibista iz

Arpa eta biola eta **txilibisten** musika eta ahots argien kantuaren erdian, Erregeak lorez estalitako kaleak zeharkatu zituen. Agustin Otsoa

txilibitero iz txilibitu-jotzailea.

Hogei konpainiatan banatuta, lau mila gizon baino gehiago (aizkolariak, eskopeteroak, musikariak, **txilibiteroak** eta zaldunak) eta hogei emakume (kantinerak) Armen Plaza aldera abiatuko dira. Berria - Euskal Herria

txilibittu ik txilibitu.

txilibitu (orobat txilibittu g.er.) 1 iz txistuaren antzeko musika tresna txikia.

Zenbat **txilibitu** egin ote ditugu udaberriz haren [altzaren] puja gaxte berriekin...! Pello Zabala

Aurretik **txilibituak**, gero atabalak, gero danborrak eta kantinera. Berria - Harian

Estazioburuaren **txilibitua** hartu eta txistu egin nuen indar biziz. Harkaitz Cano

Hoopk andreak **txilibitua** eapainetara eraman txistu zuen: hots zoli hura urrutxi bezala entzun zen. **Iñaki Mendiguren**

Orfeok bere **txilibitua**ekin lotarazi zuen, eta Herklesek ere otzinarazi zuen zakur bildurgarri hori. **Gotzon Garate**

Heldu fusilei, sartu baioneta eta egon adi **txilibituari**! **Jose txo Azkona**

Elurrak moteldutako perkean **txilibituaren** hotsa bezain zoliak eta meheak ziren Edithen negar zotinak. **Koro Navarro**

Amona **txilibitu** joka hasiko baita otsoaren sabeletik. **Berría - Kultura**

Txilibitu batzuek, upelak jotzearekin batera, doinu herrikioiak eta soilak jotzen zituzten danborrada hasi zenean. **Askoren artean**

Patrikatik zintzilik zegoen **txilibitu** zilarrezatuari. **Harkaitz Cano**

Hooch andreak ozen txistu egin zuen bere zilarrezko **txilibituaz**. **Iñaki Mendiguren**

2 irud/hed

Bi edo hiru "frageolet" **txilibitu** moduko batzuk zihoazela aurretik, eta danbor moduan sukaldeko tresnarik zaratatsuenak erabiliiz. **Askoren artean**

Megafoniaren, **txilibituen** eta suziriari laguntzaz, «zarata handia» egiteko asmoa dute erakuntzako langileek, hamaiketakoak hartzen duten bitartean. **Berría - Ekonomia**

Kalabaza txikiz egindako **txilibitua** jotzen ari da zumezko otar baten aurrean. **Gotzon Garate**

Tamaina ezberdinetako **txilibitu** mordoxka bat elkarri lotuta ipini, eta halamoduzko eskalatxoa osatzen zuten. **Pello Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Andrearen **txilibitu** -hotsaren zain. **Iñaki Mendiguren**

Bere **txilibitu** ahotsez lelo bera errepikatzen. **Karlos Zabala**

Kaletik begira daude, haien **txilibitu** aurpegi bekaiztiekin. **Karlos Zabala**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hark deitu egiten zidan zaintzaile **txilibitu** batekin, lasterka nindoala ustekabean harrapatzeko eta berari begiratzera behartzeko. **Pello Lizarralde**

5 (izenondo gisa)

Horra Clémence neska **txilibitu** hori. **Karlos Zabala**

6 *adkor* zakila.

Kondoia kendu eta nire **txilibitua** ongi lehortu nuen. **Aitor Arana**

Poliki-poliki, **txilibitua** irabaziz doa gogortasun eta kemenean. **Juan Martín Elexpuru**

Belarriak zabalik eta **txilibitua** lehen baino tenteago nuela jarri nintzen osabari begira. **Aitor Arana**

Neskak arnasa hartu zuen, eta berriro heldu zion **txilibituk**. **Fernando Morillo**

Banekien nire txanda zela, **txilibitua** ahoratu eta janaldi oso gozoa egin nion. **Juan Martín Elexpuru**

Txilibituak miatzatu, arrautzak zurrupatu eta uzkiak milikatuz. **Aitor Arana**

-Kontuz **txilibitua** lar erakutsi gabel! -ziria sartu nion-. **Edorta Jimenez**

Han New Jersey, hamaika juduk zutela horrelako **txilibitu** okertxo alaia mohel haren zirkuntzazio lan eskasa zela-eta. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andreak txilibitua jo (4); **nire txilibitua** (4); **txilibitua jo** (7); **txilibitua jo zuen** (3); **txilibitua jotzen** (3)

txilibitutxo *iz* *adkor* txilibitua.

Eraza zen bere **txilibitutxo** goxatzea ahoan inolako trabarik ez zuelako topatzen, ez baitzen aho gingilera ere iristen. **Aitor Arana**

txilibristu, txilibris(tu), txilibristen *da/du ad* mozkortu.

Laugarren biolin doinurako, denak **txilibristuta** zeuden seko, eta mihiak lehor-lehor eginda zituzten, alkatearen eta haren familiaren alde topa egiteagatik. **Felipe Juaristi**

txilimala *iz* *adkor* hizketaldia.

Hamabost laguneko taldean joan eta zikineta agertu den basurde oinatzari gauekoa edo gutxienez bi eguneko den antzemateko ahalegin eta **txilimalak**, hori zen zoriona haientzat, eta agian horregatik nahiago du isilik egon Istillaga bakarrak mostradore ertzean. **Pako Aristi**

txilimixta *iz* tximista; oinaztarria.

Etsaiaren axtiarazteko, zelüko süia urtukitzen zeioen **txilimistaz** eta ühülgüz. **Herria**

txilin 1 *iz* kanpai edo ezkila txikia. ik **xilintxa; zintzarri**.

Ateko **txilina** entzun zen. **Lopez de Arana**

Tranbia baten **txilina** entzun dinat. **Anton Garikano**

Segidan, ondoan zuen **txilin** bati eragin zion. **Anjel Lertxundi**

Sarreran, emakumeak dunbala jotzen zuen eskuin eskuarekin eta txindatak ezkerrekin, eta ile nahasiko neska batek **txilin** bati eragiten zion. **Koro Navarro**

Lurrean etzan zen eta halaxe zegoen, aurpegia lurraren kontra jarrita, atean **txilinari** eragiten zion hezlearen neska zarpaitsua inguratu zitzaionean. **Koro Navarro**

David eta israeldar guztiak Jaunaren aurrean zihoazen gogotik dantzatzu eta kantatuz, zitarak, harpak, danbolinak, **txilinak** eta turutak joz. **Elizen arteko biblia**

Txilinak jo zuen dendan. **Joxemari Urteaga**

Kobrezko botoiari tira egin nion, eta **txilina** jo zuen etxe ozenean. **Josu Zabaleta**

Neskameari **txilina** jo, eta ahots urratu batez agindu zion kentzeko bertatik jaki nardagarri hura mahai gainetik. **Josu Zabaleta**

Zorionez ez dauka sakrifizioarako deia egiten duen **txilirik**. **Xabier Olarra**

Txilin baten hotsak atera zuen osaba Kamil bere ohiko lozorrotik. **Patxi Zubizarreta**

Txilin baten hots purrustatuak sparring-arengana hurbildu eta haren inguruan estreinako ukabil-zitadak saiatzen hasteko unea adierazi zuen. **Josu Landa**

Okerrago izan zen ontzietan, goizeko lehen otoitzerako deia eginez, **txilinen** hotsak aditzen hasi ginenean. **Edorta Jimenez**

Orain garbi entzuten zituen ahotsak eta baita **txilin** baten tintina eta ate batek, irekitzean eta ixtean, ateratzen zuen kirrinka-hotsa ere. **Iñaki Mendiguren**

Une hartan puntuan tranbiaren **txilina** hurbiltzen zela entzun baikenuen. **Anjel Lertxundi**

Nire bozak mihia lokatu zaion **txilina** eman zuelakoan nago. **Edorta Jimenez**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Goretsazue **txilin** ozenez, goretsi **txilin** durundariz. **Elizen arteko biblia**

Apaindu mantuaren barreneko ertza purpura more, gorri eta gorrimezko granadez, ertzaren inguru guztian urrezko **txilinak** tartekatuz. **Elizen arteko biblia**

Heman, Asaf eta Etan kantariak brontzezko **txilinak** jotzen zituzten. **Elizen arteko biblia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Santutegian Jaunaren aurrera sartzean eta handik ateratzean, **txilin** -hotsa adituko da. **Elizen arteko biblia**

Biraderak aurrera eta atzera katean **txilin** -hotsa eginez, ateak gorantz. **Lopez de Arana**

Gero, anbulantzia baten **txilin** -hotsa. **Lopez de Arana**

Pertzen **txilin** -hotsa eta zopa-ekarleen oihu arruntak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Beheko jantokitik, [...] aiztoek, sardexkek eta platerak eragindako **txilin** -hotsen artean, baltse baten doinu kiribila igotzen zen. **Lopez de Arana**

Miarriztera ari, zaldietako **txilin** -koilareek airea kariloi-hotsez betetzen zutelarik. **Txillardegi**

Horretan, non entzuten dudan **txilin** eta kolpe zalaparta bat. **Josu Zabaleta**

4 txilinaren hotsa.

Erantzun gisa, urrezko kanpaitxoena zirudien **txilina** entzun zen. **Julen Gabiria**

5 *adkor* zakila.

Txilina agerian, hari heldu eta kontaktzen hasi zen: honela heltzen diote eta berehala handitzen zaie. **Aitor Arana**

Ezpada bere zorroan bezala sartu zen **txilin** txikia ene uzkian. **Aitor Arana**

Deus esan gabe, poliki-poliki jarrera egokian jarri eta 69a egin genuen elkarri **txilin** -arrautzak miaztuz. **Aitor Arana**

6 *txilin-belar* gariaren eta artoaren inguruan hazten den landarea.

Han-hemenka haltz eta sahatz sailez banatuta, edo aihen-zuri usaintsuz ezkutatuta, landareak besarkatzen eta **txilin-belar** koloretsuz jositako estalpeak eta orratzak osatzen baititu. **Koldo Biguri**

7 *txilin egin/eragin*

Ez al dizu inork **txilin** egiten? **Juan Kruz Igerabide**

Lepoa luzaturik dabilta, keinuka, begiak batetik bestera, pauso txikian, oinetako katexoei **txilin** eraginez. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txilin hotsa (15); **txilin hotsa entzun** (3)

ateko txilina (4); **txilina entzun** (7); **txilina entzun zen** (3); **txilina jo** (10); **txilina jo zuen** (4); **txilina jotzen** (4)

ateko txilinak (3); **txilinak jo** (8); **txilinak jo zuen** (3); **txilinak jo zuenean** (3); **txilinak jotzen** (4)

txilinaldi *iz* txilin joaldia.

Eta han, "sooo!" luze-luze bat entzuten genuen San Bizente elizaren parean, eta kaskabilen **txilinaldi** etengabea isiltzen zen; eta "Korreopia" sagardotegia gure aurrean agertzen. **Txillardegi**

txilinari *izond* txilin egiten duena.

Zerbitzariak erretilu **txilinaria** sorbaldaren mailara jaso zuen eta ahurrean ezarrita eraman zuen. **Lopez de Arana**

txilindro ik **zilindro**.

txilinka *izond* txilin egiten.

Poliziak giltza sorta atera eta **txilinka** zeuden giltzetatik sarraileri zegokiona aukeratu du. **Urtzi Urrutikoetxea**

Biwaren soinueta entzungo dira ibaiko jela zatiak elkarren kontra **txilinka**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

txilinporta (*orobat txiliporta*) *iz* hegazti palmipedo lumadi ikusgarria duena, hegoak eta isatsa motzak dituena.

Ondoan, aran gardenek birjina baten gozotasun klorotikoak agertzen zituzten; klaudia aranak eta **txiliportak** zurbil-zurbil zeuden, xalotasuneko lore bat bezain. **Karlos Zabala**

–“**Txilinporta**”-esan zien Hermioneek urduri-, baina hori ez da kontua... **Iñaki Mendiguren**

txilintx *adlag* zintzilik.

Lau ezkargi bazterretan, kofoin gorri batean **txilintx** bi medaila eder eta herritarrek azken hamarkada hauetan etxe batetik bestera garraiatzen zuten zilarrezko gurutze pisua.

Itxaro Borda

txilintxa ik **xilintxa**.

txilintxiki *izond adkor* zakila txikia duena.

Esnatu eta bere senar **txilintxikiarekin** itzuli aurretik beste txortaldi bat eskainiko zidan agian eta nik onartu egingo nuen. **Aitor Arana**

Denbora luzea zen lagun **txilintxikien** bila nenbilela eta ordura arte ez nuen ezer iraunkorrik aurkitu. **Aitor Arana**

Gutxienez ordu erdi bat egin nuen Mikel **txilintxikia** txortakatzen. **Aitor Arana**

txilintxo *iz* txilin txikia.

Aldareak aurreko zapi oso berezia zeukan, zilarrezko **txilintxo** baliotsuz apaindua. **Askoren artean**

-Aita jenerala, justizia eskatzen dizut anai Juniperoren kontra, aldare-aurreko hau hondatu egin baitit, sakristian zegoen bikainen; begira orain nola utzi duen zilarrezko **txilintxo** guztiak kenduta. **Askoren artean**

-Ez zaitetz asaldatu **txilintxo** haiengatik, premia handian zegoen andre pobretxo bati eman dizkiot eta. **Askoren artean**

txilio 1 iz oihua.

Ikasleen zerrenda atera zuen eta Harryren izenera iritsi zenean, zirrarako **txilio** bat botatzen eta erori egin zen. **Iñaki Mendiguren**

Bizilagunari txakurkume batenak iruditu zaizkion **txilioak** botatzen dituztenak. **Eider Rodriguez**

-Zer esan nahi duzu? -esan zion Dippetek, **txilio** bat atera zitzaioela, aulkian aurrera eserita. **Iñaki Mendiguren**

Zer mokoraturik ez duen txori baten **txilioak** irten zitzaizkion Norari. **Anjel Lertxundi**

Hasperen eginek, **txilio** gisako bat atera zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Olatuen marmarra, kaioen **txilioak**. **Javi Cillero**

Nota gorenek antxeten **txilioak** dirudite. **Koldo Izagirre**

Txorien **txilioek** festa giroko alaitasun berezia ematen zioten klaustroari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Billar jokalaria zarpail batek bat-batean tapete orlegia tarratatzen nola, hala tarratatzen zen gaua, balaztaren **txilioarekin** batera. **Harkaitz Cano**

Haren ostean **txilioak** eta aieneak etorri ziren. **Edorta Jimenez**

Inguruko auzoetako jendea ere, oihuka eta **txilio** batean egon ohi zen, lortuko ez lortuko. **Pello Zabala**

Klaxonak, leherketa txikiak, balazta hotsa, deiadar eta **txilioak**. **Xabier Montoia**

Dena intziri, dena **txilio** eta negar. **Harkaitz Cano**

Txilioa gogora ez ekartzea besterik ez dago damurik ez sentitzeko, **txilioa** ahaztu eta zure gorpu zurbila, horaila, begiratzen jarraitu. **Eider Rodriguez**

Zumezko bagoien gurgil txikiak **txilioa**. **Karlos Zabala**

Ezin dut konprenitu nola ez zen lokartu ni bezalako ume-moko bat tenore eta soprano lodikote haien italierazko **txilioak** entzunda. **Alberto Ladrón Arana**

2 (izenondoekin)

Odola gatzatzeko moduko **txilio** sarkor batek hautsi zuen isiltasuna. **Iñaki Mendiguren**

Pozik zebiltzan antxetak goi haietan, **txilio** zorrotzak ateratzen zituzten behintzat. **Koldo Izagirre**

Sirenak ikusteko unerik egokiena ilberria da, **txilio** mingarri bitxiak egiten dituzten horretan. **Julen Gabiria**

Bitartean, hegaztia suzko bola bihurtu zen; **txilio** ozen bat egin zuen eta berehala errauts-metatxo bat baino ez zen. Katu baten **txilio** metalikoa lepoa partitzerakoan bezalakoa da dena, guztia, txilioa gogora ez ekartzea besterik ez dago damurik ez sentitzeko. **Iñaki Mendiguren**

Umeen **txilio** jasanezinen artean, gurdien kirrinka jarraituaren erdian, [...]. **Karlos Zabala**

Txilio bizi batekin, eta barrura itzultzeko zalaparta bizian, Scabbers arratoia irristaka mahai gainera irten zen. **Iñaki Mendiguren**

Modu lauso batean konprenitu nuen neu nintzela **txilio** ero haiek egiten zituenak. **Alberto Ladrón Arana**

-Esan dut nahikoa dela! - **txilio** itsusia atera zitzaion Mariri bat-batean. **Joxemari Iturralde**

Argitasun morea sortu zen, petardoena bezalako hotsa, **txilio** zorrotz bat eta berehala Dudley saltoka hasi zen bi eskuakin bere ipurdi gizenari helduta. **Iñaki Mendiguren**

Arratoia **txilio** bizian ari zen, baina ez Hagriden lorategitik iristen ziren hotsak isiltzeko bezain ozen. **Iñaki Mendiguren**

Hagaren biran bueltaka dantza eragiten zioten upel sutuari, oihu eta **txilio** etengabe lagunduta. **Pello Zabala**

3 (adizlagun gisa)

Peru aldean, ilargiaren eklipsea zenean, nola txakurrak ilargiari zaunka eta **txilio** egoten diren, uste zuten animalia hauek ilargiarekin harreman bereziren bat zutela. **Pello Zabala**

Gogoan dut, mutikotan, anpolaiondo gainetik ekarri nuela, deiadar eta **txilio**, nire lehengusua. **Pello Zabala**

Jendea kantari hasi zen, oihu eta **txilio**. **Joan Mari Irigoien**

Oihu eta **txilio**, harria botatzen diozun arbolatik txoriak bezala iriteten dira ikasleak geletatik. **Anjel Lertxundi**

4 (hitz elkartuetan)

Tren bidaian hasi ziren kilimakurrak sabelaldean, bagoian berarekin bakarrik egoteko grina ulertezina, adieraztezin, lagunaren gaztetasun **txilioetatik** gorderik. **Eider Rodriguez**

5 txilio egin

Jendea ikusi zuenean, **txilio egin** zuen, pozez. **Iñaki Mendiguren**

-Gora Britainia! - **txilio egin** zuen Curlyk. **Julen Gabiria**

-Ez zenuke asmatuko! - **txilio egin** zuen, eta hiru aukera eman zizkion. **Julen Gabiria**

-Galdetu berari! - **txilio egin** zuen Filchek, orbainez beteriko eta malkoz zikindutako aurpegia Harryrengana jiratu. **Iñaki Mendiguren**

-Gauzatxo batzuk argitu? - **txilio egin** zuen Pettigrew, berriro ere eroa bezala ingurura begiratu. · Dudleyk **txilio** bat **egin** eta amaren atzera joan zen ezkutatzera. **Iñaki Mendiguren**

Saget andereñoak **txilio** txiki bat **egin** zuen. **Karlos Zabala**

Bat-batean beldurrezko **txilio** bat **egin** eta Neville lasterka abiatu zen. **Iñaki Mendiguren**

Orgasmoa ezustean etorri zitzaidan, lurrikara bat bezala, oso arraroak egin zitzaizkidan **txilio** eta zurrunkak **egitera** behartzen ninduelarik. **Juan Martín Elexpuru**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oihu eta txilio (3); **txilio bat egin** (3); **txilio egin** (13); **txilio egin zuen** (12); **txilio ozen** (3)

txilioka iz oihuka.

-Altxa! -esan zuen **txilioka**. **Iñaki Mendiguren**

-Ai!, higuigarri hori! -dio neskak **txilioka**-. **Juan Martín Elexpuru**

Txilioka, etengabe bihurtuz eta astinka, Ronen eskuari haginika egin nahian. **Iñaki Mendiguren**

Berehala atzeraka salto egin zuten, izuaren izuz **txilioka**. **Iñaki Mendiguren**

Lehendabizi marmarka eta orain **txilioka**. **Mirentxu Larrañaga**

Laborria ahotsean, ia **txilioka** telefonotik. **Oskar Arana**

-Marge! -izeba Petuniak **txilioka**-. **Iñaki Mendiguren**

Txilioka ari naiz nire gas maskara barruan. **Mirentxu Larrañaga**

Scabbersenak ziren hots bakarrak, izututa, **txilioka** ari baitzen. **Iñaki Mendiguren**

Elkarri eskuetatik heldurik, musuka eta **txilioka** hasi ziren biak. **Jose Morales**

Gidariak biraoka eta **txilioka** ekin zion zamariari. **Mirentxu Larrañaga**

Eliza-dorrearen inguruan **txilioka** zebiltzan sorbeltzei so. **Mirentxu Larrañaga**

Gure baforearen dieselak Guardaplatako Farolako harkaitzetan habia egina duten antxetak **txilioka** altzarazten dituenak. **Koldo Izagirre**

Aparteko aukera zen Amama Otso tuntun baten antzera izututa ikusteko eta sorgin baten antzera **txilioka** entzuteko. **Mirentxu Larrañaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txilioka ari (4); **txilioka hasi** (3)

txilokari *iz* oihularia.

Antxeta moduko txoriak, zuriak eta **txilokariak**, hegatzes arituko dira denon buruen gainean. **Joseba Sarrionandia**

txiliotsu *izond* oihutsua.

Soinurik gabeko musika, notetan adierazia, musika kirrinkari eta **txiliotsua**, hantxe zegoan koadernoetan inprimaturik, partiturretan idatzia. **Xabier Olarra**

txiliotxo *iz* txilio txikia.

Aise igarri zuen berak, nire hasperen **txiliotxo** entzun eta bere alkandoraren eskumuturra heze sumatzean. **Harkaitz Cano**

txiliporta ik txilinporta.

txilipristo *iz*

Berba bat eta bestearen artean *maite zaitu*ka ibiltzen diren **txilipristo** horietakoak baino askoz ere nahiago ditu, esaldi hori libratu ezinezko harria bailitzan bizi duten gizonezkoak. **Hasier Etxeberria**

txilipurdi ik zilipurdi.

txilipurdikatu ik zilipurdikatu.

txilista ik dilista.

txillardi ik txilardi.

txillidazale *izond/iz* E. Txillidaren zalea dena.

Batzuk Oteizazale egin ginen eta besteak **Txillidazale**. **Berria - Euskal Herria**

txilotu, txilo(tu), txilotzen du *ad* begiez mintzatuz, erdi itxi, bildu. ik ñarrotu; txitxildu.

Aretoan sartutakoan, Txitxikovek begiak **txilotu** behar izan zituen lipar batez, hain zen itsugarria hango argizarien, lanpen eta damen soinekoen distira. **Jose Morales**

-Oker ez banago -begiak **txilotu** zituen-, Miren Arteagak txosten bat egin zuen Andoni Arrietaren kudeaketaren gainean. **Migel Angel Mintegi**

-Nik ez dut inoren ihes-tutua izan nahi -esan zuen barreka begiak **txilotuz**. **Lopez de Arana**

-Horrela, horrela, segi horrela! -xaxatu du lodikote biziotsuak, begi biak **txilotuta**, estasi gozoan. **Patxi Iturrategi**

Errusiako gurdizainak beren sen onaz baliatzen dira ikusmenak ezertarako balio ez dienean; horregatik, askotan, begiak **txiloturik** heriosuharrean aurrera jo, eta beti iristen dira nonbaitera. **Jose Morales**

Oso hitz balakagarriak erabiliz mintzatu zen berari buruz, eta, begiak **txiloturik**, adiskidetasunaren gaineko gogoeta batzuk erantsi zituen. **Jose Morales**

Afixa sakelatik atera, kandelara hurbildu, eta irakurtzen hasi zen, eskuineko begia apur bat **txiloturik**. **Jose Morales**

Begiak **txilotu**, eta noizean behin kliskatu besterik ez zuen egin handik aurrera. **Jose Morales**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiak txiloturik (4)

txima 1 *iz pl* ile multzo nahasi eta zaindu gabea.

Buruko ileak baino gehiago dira arrazoirik gabe gorroto didatenak, nire **tximak** baino ugariago nire erasotzaileak. **Elizen arteko biblia**

-Poeta arruinatuaren **tximak** dauzkazu -esaten dio andreak senarrari soilgunearen azpian ilea luzeegi, narrasegi hazi zaiolarik. **Iñigo Aranbarri**

Bide-bazterren batean aurkitu bagintuzte bezala oihaneko lianak buruko **tximetan** katramilatuta. **Ander Irizar**

-Ez itzazu ukabilak astindu, **tximak** ateratzen ibiliko bazina bezala. **Itziar Otegi**

Alkandora hutsean, bizarra egin gabe eta **tximak** harro-harro zituela. **Mirentxu Larrañaga**

Armonia, gure etxekoa, maistrak **tximetatik** helduta eskolatik bota ninduean. **Arantxa Iturbe**

Borrokan hasten dira, **tximetatik** tiraka, elkarri kristorenak esaten dizkiotela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (izenondoekin)

Txima zuriak, muturra hennaz tindaturik zutenak, aurpegian behera amiltzen zitzaizkion. **Lopez de Arana**

Belaunak harriaren gainean birrindurik, **txima** horiak ondo lotu gabe, zurbil-zurbil, hildako baten gisan. **Karlos Zabala**

Animalia mesfidati baten begirada zuen, bere **txima** hori-gorrixken azpian. **Karlos Zabala**

Txima gorrixkak atzeman daitezke burkoaren gainean. **Sonia Gonzalez**

Txapel handi bat ipini zuen, badaezpada ere, bere **txima** gorriak ezkutatzeko. **Jon Muñoz**

Tira, Mikel, ikusi arte -eta musu bat pausatu du **txima** tindatuen atzean ezkututzen den Slash-Mikelen ahoan-. **Sonia Gonzalez**

Aurpegi goibela eta **txima** nahasiak zituen gizon baten argazki handiak Harryri begi-keinu egin zion astiro lehenengo orrialdetik. **Iñaki Mendiguren**

Esku-zartatxo urduriez ukitu zituen gero beraren **txima** harrotuak, urdinuak ageri baitzituen aurrealdean. **Mirentxu Larrañaga**

Batetik bestera doaz, **txima** handiekien, maiz zikin aski, noiz edo noiz azazkal luze makur-makurrekin, ia larrugorri, gerrian oihaltxo soila dutela. **Gotzon Garate**

Aitorren elastikoko aurpegiak bizarra ere badu, eta txapela antzeko bat buru gainean, **txima** luzeei eusteko-edo. **Jokin Muñoz**

Fernanez berak ere aitortuko luke, bere begi berde horiekien, bere **txima luzeekin** eta belarrietatik dilindan daraman txatarrerria guztiarekin, [...]. **Aingeru Epaltza**

Gabardina, betaurreko eta gezurrezko **txima** luze haiekin. Joan Mari Irigoien

Neska, berriz, txikia zen, maltzurra eta argala, eta mutur bitxia agertzen zuen, bere **txima** kizkurren sastraka beltzaren azpian. Karlos Zabala

Normandiar ederrak bere farfailazko korapiloa erakusten zuen buruzapiz estalitako **txima** korapilatsu haien erdian. Karlos Zabala

Einsteinek ilea orraztu zuen - **txima** anarkiko haiek astintzeari horrela esan badakioke-, atzera eramanez. Fernando Morillo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizikleta gidatzen saiatzen ziren besaurreen artean egonezin bizian higitzen zitzaidan neska puska bikain, amorruzko distira betean **txima** -harrotu haren jabe zen. Juan Garzia

4 (abereenak)

Zaparrada gorrixkak mandoaren **txima** arreak blaitu zituen. Alberto Ladron Arana

Pizitxo sendokotea zen, **txima** zuri nahaspilatua zituen eta han-hemenka beltzuneak alboetan. Mirentxu Larrañaga

5 irud/hed

Ilunabarrerako, mendi kasko eta mendi lepoetan, holako laino-**tximak** agertuko dira. Pello Zabala

Bestetzuek lantegiko tximiniaren ke-**tximari** erreparatuko zioten... Pello Zabala

Izotz printzak ximurtuz, edo epelez goroldio **tximak** xuxtartuz. Pello Zabala

6 (singularrean)

Ane, beltzarana ilajez eta azalez, sorbaldetaraino heltzen zaion **txima** luzea motots batean lotua, bikea baino beltzagoak begi handiak. Unai Iturriaga

Eskuan gazte bibotedun **txima** luzeko baten argazkia dauka. Jokin Muñoz

- Dena **txima** luze eta gorputz atletiko. Patxi Iturritegi

7 ile-txima pl

Han orrazian kateatzen zitzaizkien ile- **tximak** . Pello Zabala

Haren begirada hura, ile- **txima** kiribilduen atzean ezkatutua. Jokin Muñoz

Beste hiru lagunekin dator, denak, bera bezala, ile- **txima** luzekoak. Jokin Muñoz

8 txima-jario izond tximak nahasiak daramatzana.

-Urka ezak! -oihu egin zuen emakume **txima-jario** batek. Koldo Biguri

-Zerorrek ikusi -esan zion behin Egor Timofeievitxi, eskuaz bizar **txima-jarioa** laztantzen zuen bitartean-. Jose Morales

9 (adizlagun gisa)

Txima jario jaikitzen zen. Karlos Zabala

Dama batek, ordea, gogoko zuen **txima-jario** ibiltzea, eta inpresio bitxi samarra eragiten zuen. Jose Morales

10 txima-gorri (corpusean tximagorri soilik) izond

Altua, argala, **tximagorria** , jertse berde eta galtza urdinekin, egundo baino zurbilagoa, ez duzu zeure burua berehala ametituko. Joseba Sarrionandia

'Eta egia da **tximagorrietan** ez dagoela onik?' esango dizu. Joseba Sarrionandia

11 txima-luze (orobat tximaluze) izond

Ikusi uste dut oraino, gizon mehar handi **txima** -luze hari eskua emanik, urrats bakoitzean estropezuka. Jon Muñoz

Maritxu, alditsu, **txima** -luze! Koro Navarro

Zarpatsu batzuk zeuden gorpuaeren inguruan, haien artean **txima** -luze bat. Josu Zabaleta

Luzea, **txima-luzea**, belarritakoduna eta meharra bata; ñarroa, kaxka-motza, belarri-has eta are meharragoa bertzea. Aingeru Epaltza

Hey, Jon -agur egin dit bizardun **tximaluzeak** , eskuan duen zerbeza-botila kokotsaren pareraino jasoz. Patxi Iturritegi

Azken hitzak gaizkile itxurako **tximaluze** putakume hark ahoskatu zituen: [...]. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ile **txima** (5); **txima jario** (3); **txima luze** (7); **txima luzea** (4); **txima luzeak** (8)

tximetatik tiraka (4)

tximadun 1 izond tximak dituenak.

Urgentea da -esan dio tabernari **tximadunari** . Eider Rodriguez

Mutil **tximadunak** erantzun dio, bera ere polita dagoela ile lisoarekin. Eider Rodriguez

Halaxe adierazi diote lehoriaren begi bihurriek gaztetxo **tximadunari** . Urtzi Urrutikoeetxea

2

Lehoi- **tximadun** jakintsuak zientzia-mundu berriak abiarazi, eta ikusi ondoren onartu nahi izan ez zituelako. Fernando Morillo

tximagorri ik txima 10.

tximaluze ik txima 11.

tximarro izond

Tximarroa zen eta gominak dirdaiarazten zion ilea. Patxi Zubizarreta

tximatsu 1 izond tximak ugari dituenak.

Besterik da osaba Josephekin, langile gaztea, beltzarana, **tximatsua** , marinel lepoa, indar gaitza, esku izugarriak dituenak. Pablo Sastre

2 irud/hed

Lainokume ttiki xarpail **tximatsua** . Pello Zabala

Ez preseski hodeiak, baizik laino, lanbro-laino eta lainobera **tximatsu** hori. Pello Zabala

tximatu izond tximak bezalakoa bihurtua.

Gelara egin zuen Larraitzek: ile beltz-gorri **tximatuekiko** neska bixi potolantxa. Pablo Sastre

tximel *iz txanoa, buruko.*

Beste batzuek, hupelanda luzeaz bilduta eta **tximel** txikerra kaskoan, judu poloniarrek ematen zituzten. Karlos Zabala

tximeldu ik zimeldu.

tximeleta (ximeleta g.er.) 1 *iz lau hego aski handi, gehienetan kolore asko edo bizikoak, dituen intsektua (Lepidoptera).* ik **inguma; pinpilinpaua; pinpirin.**

Bi **tximeleta** hegan jolasean dabiltzanean. Pello Zabala

Udako gauetan ehunka **tximeleta** ibiltzen dira bueltaka, elur malutekin antz handia dutenak. Bernardo Atxaga

Saramagori irakurtzen nioenez, **tximeletarentzat** ez dago gaurik, goizarekin jaiotzen baita eta gauarekin hiltzen. Anjel Lertxundi

Tximeletaren hego-kolpeak ere aroa aldatzean ezar baitezake. Pello Zabala

Tximeleten usaimena harrigarria izaten da eta zentzumen nagusi bezala erabiltzen dute zenbait kasutan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Su-lamara hurbiltzen den **tximeleta** bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Nor dago prest desiraren sutan erretzeko, **tximeleta** bat garraren inguruan bueltaka erretzen den moduan? Iñaki Iñurrieta

Kandela handien argitasunak liluratu duen **tximeleta** bat balitz bezala. Jon Alonso

Landa-herrietan, emakumezkoa ez da **tximeleta** baino zoriontsuagoa. Koldo Izagirre

Inork aditu al du, akaso, ze hots-mota egiten duen **tximeletak** hegalk astintzen dituenean? Jose txo Azkona

Gutunazal zuri bat ikus nezakeen **tximeleta** bihurturik Londresko hiri osoaren gainetik hegan, azkenean tximinia batetik beherantz sartzen zen arte. Joxemari Iturralde

Ez al dakizu **tximeletak** haizearen ezpainetatik ihesi joandako musuak besterik ez direla? Pako Aristi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sits edo **tximeleta** emeak feromona horien lurrinak airean jartzen dituen momentutik, inguruko ar guztiak aztoratzen ditu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Armiarma goseek beste [sare] batzuk egiten zituzten, eta goizean **tximeleta** txikiak eta beste hainbat intsektu agertzen ziren haietan. Juan Kruz Igerabide

Kuskuan gordetako **tximeleta** ahularen egoskortasunarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Poesia **tximeleta** hori bat da. Pako Aristi

Tximeleta urdin txiki bat zegoen han orratz batez zeharkatua. Bernardo Atxaga

Betiko mimoa dakusa bertan, betiko bere numeroa egiten: pailazoz jantzita, aurpegia **tximeleta** gorri bat. Harkaitz Cano

Gauetzko **tximeletak** -gehienetan *sitsak* dei daitezkeenak- direla usainaren bidez orientatzeko behar eta ahalmen gehiena daukatena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Neguko **tximeletak**. Pello Zabala

Sigi-saga zebilkidan Sara, **tximeleta** urduri bat bezala. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dantzaldiak zeuden gauero areto zuri eta urre-koloreetan, **tximeleta** -hegalen antzera dardaratzen ziren gas-lanparen gar dardartien argiaren pean. Xabier Olarra

Hurbildu zitzaidan eta sofarraino eraman ninduen **tximeleta** hegoen gisako musuekin. Juan Martin Elexpuru

Emakume bat biluzik, **tximeleta** hegalk hedaturik, hegan balihoa bezala egunsenti berri baten bila. Koldo Izagirre

Dagoeneko, **tximeleta** efektua lortu du: Lacandonako oihanean piztutako berba gai da, une honetan, munduko beste edozein puntatan oihartzun egiteko. Txema Ramirez de la Piscina

Bere intsektu eta **tximeleta** bilduma. Joan Mari Irigoien

Errosario aleak bezala, listariak hainbat objektu txiki zeuzkan tartekatuta, eta, batez ere, **tximeleta** formako figuratxoak. Bernardo Atxaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gau-**tximeleta** bat jirabiraka zebilen egongelako lanpararen inguruan. Fernando Morillo

Zeta-**tximeleta** emeak oso urrutitik erakartzen ditu arrak. Irene Aldasoro

Gogoko nuen haien izenei zerien doinua aditzea, amak hizpidera ekartzen zituenean: almirante gorri, pauma, aza-**tximeleta**, Adonis urdina. Mirentxu Larrañaga

Hantxe zegoan emakume-**tximeleta**, dekorazio moduan erabilia portafolio batean. Koldo Izagirre

5 irud/hed

Baina ezin sabeleko **tximeletak** baretu. Urtzi Urrutikoetxea

Sabelean **tximeletak** eta golkoan kabitu ezinik bihotza. Edorta Jimenez

6 **lepoko tximeleta** tximeleta-begizta.

Egongelako ate aurretik igaro zenean, Harryk osaba Vernon eta Dudley ikusi zituen esmokinez eta **lepoko tximeletaz** dotore-dotore jantzita. Iñaki Mendiguren

7 **lepo tximeleta** tximeleta-begizta.

Topatua zuen **lepo-tximeleta** zeraman gizon noble bat. Pello Lizarralde

8 **tximeleta-begizta** begizta txiki eta zurrunaren forma duen gorbata.

Laranja-kolore biziko festa-kapela zeraman, **tximeleta-begizta** birakarria eta irribarre nabaria bere aurpegi zabal maltzurtean. Iñaki Mendiguren

9 **tximeleta-balbula** karburagailuko balbula, gasen bolumena doitzen duena.

Automobil batean, adibidez, erregai-kontsumoari loturik dago beti energia-ekoizpena; **tximeleta-balbula** zapaldu, eta erregai gehiago erretzen da, eta bertantxe abiadura handitzen. Irene Aldasoro

10 **tximeleta-lepo** tximeleta-formako alkandora-lepoa.

Banketxean dirua daukan gizon baten aurpegia zen, arrakastaren ispilu ezin hobea, gorbata handi beltz batek estututako **tximeleta-lepo** baten gainean ezin ederkiago kokatua. Lopez de Arana

Bi abokatu ari ziren eztabaidan, zein bere espaloitik, biek ere frak beltza eta **tximeleta-lepo** zurrunak jantzirik. Lopez de Arana

11 **tximeleta-ttattarra** tximeleta-begizta.

Beti gizontxo baten antzera jantzita joaten zen, jaka ongi estuak eta **tximeleta-ttattarrak**. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gau tximeleta (5); intsektu eta tximeleta (3); metro tximeleta (4)

tximeleta bila (7); tximeleta emeak (3); tximeleta espezie (3); tximeleta estiloan (6); tximeleta estiloko (6); tximeleta ikusi (3); tximeleta mota (3); tximeleta tatuajea (6); tximeleta zuri (3); tximeleta zuriak (3); tximeleta zurien (4)

lokartutako tximeletak (3)

tximeletadun *iz tximeleta-begizta daramana.*

Lizardi, txapel eta **tximeletaduna** [...], eta Lauaxeta, betaurreko eta gorbatarekin. Berria - Kultura

tximeletakume iz tximeletaren kumea.

Eta gutzia ere, egoeraren baldintzak, azken buruan giza haur bat ager dadin mundura, eta ez ahatekume bat, jirafakume bat edo **tximeletakume** bat. Juan Garzia

tximeletatsu izond tximeletaz betea.

Jasoak liburu bihurtu ditut, hitz egin dira nire esku **tximeletatsuetan**; eta hitzak, musu. Karlos Linazasoro

tximeletazale izond tximeleten zalea dena.

Eta, irudiak irudiari dei, tximeletaren atzetik **tximeletazalea**. Iñaki Iñurrieta

tximeni ik tximinia.

tximinia (orobat tximeni g.er., tximini g.er., ximinea g.er., ximinei g.er., ximini g.er. eta ximenea g.er.) 1 iz kebedea; teilatutik gora ateratzen den kebede zatia.

Urrunago, lantegiko **tximiniak** zeuden, eta euren atzean, lausotu samar, kanpandorre baten ingerada zorrotza. Urtzi Urrutikoetxea

Sefanitroko **tximiniek** eta gasek Barakaldo ezkutatzen zuten. Paddy Rekalde

Larru fabrika bateko **tximinia**. Urtzi Urrutikoetxea

Adreiluzko **tximinia** handia ikusi zuten urruntasunean. Agustin Otsoa

1910eko argazki bat, non fabrikako instalazio zaharrak agertzen baitziren, lau **tximinia** txiki zituztenak. Joan Mari Irigoien

Erretokia, azkenik, alimaleko bastiza bat, **tximinia** gora batekin. Michel Oronoz

Gustatzen zitzaion han egotea, **tximiniaren** aurrean, baso bat eskuan, bere etxean, etxean. Koro Navarro

Errausketa-labe baten **tximinia**. Urtzi Urrutikoetxea

Leihoaz harantz, zaldiak ikusten nituen lasai belarra jaten, eta **tximiniako** kea bailarako etxeetan. Bernardo Atxaga

Tximiniako tiroa astintzen. Anton Garikano

Tximiniak ondo tiratzen ez, nonbait, eta ke laino bat zegoen gela osoan barreiaturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Lapurrak jaitsi ziren banaka-banaka **tximiniako** zulotik, eta denak olio irakinetan kiskalduta gelditu ziren. Patxi Zubizarreta

Etsetxoak eroso eta segurua ematen zuen iluntasunean, argi goxoa ikusten zen gortinen atzetik, **tximiniak** ke ederra botatzen zuen. Julen Gabiria

Haize zitzukaria **tximinian** gora. Joxe Austin Arrieta

Keak ezin zuen **tximiniatik** gora igo; teilatuen gainean sakabanatzen zen, maindire urratuak bezala. Koro Navarro

Tximiniei kea zerien. Koro Navarro

Azpiegitura horiek eta **tximinetatik** isurtzen dituzten gai toxikoak kaltegarri direla. Berria - Euskal Herria

Laster igo ziren denak teiltura, eta **tximiniatik** begiratu zutenean, han behean hori-hori, urrearen itxurako zerbat ikusi zuten. Patxi Zubizarreta

2 beheko suaren gaineko kanpai modukoa, kebedearen hasiera dena.

Leiho, **tximinia** -suak belzutako harrizko leize handia-, eta ohea. Koldo Izagirre

Zerbitzaria etorri zen, eskukada bat egur zekarrela, eta **tximinia** piztu zuen. Felipe Juaristi

Txoko goxoen **tximiniakoa** zen. Jon Maia

Gustatzen zitzaion han egotea, **tximiniaren** aurrean, baso bat eskuan, bere etxean, etxean. Koro Navarro

Tximiniaren kanpai zabalaren inguruan oihal zuri lisatu bat zegoen zintzilik. Koro Navarro

Liburuak hiruska zeuden metatuta **tximiniaren** apalean. Iñaki Mendiguren

Tximiniako apalean, pitxerrak ageri ziren, kobrez landutako paisaiez hornituak. Karlos Zabala

Tximiniaren erlaitzean geratu ziren lerro-lerro botila hutsak. Koro Navarro

Nire bi lanparak eta **tximiniako** zortzi kandelak piztuta neuzkan. Josu Zabaleta

Leihoetako kristalek kirrinka egiten dute, **tximiniako** hodiak dardara. Itziar Otegi

Latorrizko xafila batez itxitako marmolezko **tximiniara**. Lopez de Arana

Tximinian eskegitako zartagina beste sukalde tresnarik ez zegoen bordan. Koldo Izagirre

Buruz buruko solas luzeak izaten zituen harekin **tximinia** ondoan. Josu Zabaleta

Zolaren logelako **tximinia** buxatu zutela eta idazlea kearen eraginez hil zela aitortu zion Buronfossek Hacquini. Karlos Zabala

Uda zen arren, **tximinia** piztuta zegoen, gerezi egurra erretzen. Felipe Juaristi

Lagun bat zauritu da Iruñean, etxeko **tximiniak** su hartu ostean. Berria - Euskal Herria

Tu egin zuen **tximiniara**, jendetasunik gabe. Irene Aldasoro

Tximinia haundian idi eta basurde osoak erretzen ari ziren. Michel Oronoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lokalaren erdian metalezko berogailu zaharra, **tximinia** -tutu luzekoa, sabairainokoa. Jon Arretxe

Bitxi polit bat, zinez, erosi eta bere bitxi kutxatxoan jarri nuen, **tximinia** erlaitzean. Josu Zabaleta

Tximinia buruaren gainean Txinako pitxerrak eta emakume baten argazki handi bat. Josu Zabaleta

Tximini kanpaiaren azpian eseri ziren, oinak harri gainean zituztela, eta berriketan jan zuten. Josu Zabaleta

Gainerako gelak: batean, **tximinia** arrastoak. Koldo Izagirre

Hartz mordoia hil zuen **tximinia** -garbitzaile batekin jolastea gustatzen zitzaion. Julen Gabiria

Aldian behin sugar gorrixkek ontziaren **tximini** gaina betetzen zuten kearen kiribilen artetik. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kantuan, txoriak baino alaiago, poz-zabalka, nola haizeak etxe **tximinetako** kea zabaltzen duen bezala. Felipe Juaristi

Su **tximinia** txiki hartako txokoa. Jon Maia

Osasunaren ikuspuntutik, horixe litzateke kaltegarriena, industria-**tximinia** batetik isurtzen dena baino askoz arrisksuagoa, zigarro bat erretzean sortutako dioxinen kantitatea txikia bada ere erretzailearen arnasbideetatik sartzen delako zuzenean eta kontzentrazio handitan. Berria - Gaia

5 (itsasontzietakoa)

Ugerrez gorritutako **tximinia** handiko ontzi potoloak. Lopez de Arana

Bonba **tximiniatik** behera amildu zen, eta korazatuaren labeetan zapartatu zen. Koldo Izagirre

Ikusiko duzu bajurako flota osoa nasan lotua gallardetez eta festako banderez apainduta, ikusiko dituzu baforeen **tximinia** ondoko tutuak lurrin jaulkika, ikusiko duzu Franco

badoala bere auto beltzean...

Koldo Izagirre

Tximinia horiko bapore zuri handi bat Askatasunaren estatuaren aurretik pasatzen ari zen.

Lopez de Arana

Kobazuloak **tximiniak** ditu, lantegi bat delako, irudimenaren lantegia.

Berria - Kultura

6 irud/hed

Errazena, azkenean, House **tximinia** ospetsua izan da, hogeii metroko izotzezko sakongunea.

Xabier Montoia

Halako **tximinia** hidrotarmaletan bakterioak eta bestelako bizidunak aurkitu dituzte ozeanoen sakonean.

Berria - Gaiak

Hango ura ez da izozten, izotz geruzak presio izugarri handiaren pean duelako eta hondoan lur azpiko berotasuna askatzen duten **tximinia** geotermikoak daudelako.

Berria - Gaiak

7 tximinia-zulo (orobat tximini zulo eta tximinizulo)

Tximinia -zuloan gora begiratu zuen eta hormak jo zituen.

Julen Gabiria

Ez duzu ikusten kea, **tximini zuloatik** ateratzen?

Xabier Mendiguren Elizegi

Tximinia-zuloa bezain beltza.

Itziar Otegi

Baserriren batean **tximinizuloa** ikatzaren hautsarekin itsutu egingo zela eta suak hartu.

Pablo Sastre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tximinia erraldoi (5); **tximinia garbitzaile** (3); **tximinia gorriak** (3); **tximinia txiki** (3)

tximiniako apalean (3)

tximikian behera (3); **tximikian gora** (3)

tximiniaren aurrean (6); **tximiniaren gainean** (8)

tximiniatik ateratzen (3); **tximiniatik behera** (4)

tximinietako kea (4)

tximiniadun izlag tximiniako.

Gauerdian, lau **tximiniadun** transatlantiko espresoak euren ontziraletan argitsuetatik itsasoratu eta ilunpean pulunpatu ziren.

Lopez de Arana

tximiniatzar iz adkor tximinia erraldoia.

Familia onekoa izaki, herentzia bikaina jaso, eta diru horrekin adreiluzko **tximiniatzarrez** jositako lantegi erraldoi bat eraiki zuen, hiriko auzunerik osasungaitz eta ilunenean.

Iban Zaldua

tximinizulo ik tximinia 7.

tximino (orobat ximino g.er.) 1 iz primateen ordenako ugaztuna, ilerik gabeko aurpegia, besoak zangoak baino luzeagoak eta lau esku dituena.

Alegia, gizakia **tximinoarengandik** datorrela.

Karlos Linazasoro

Gizakiaren eta **tximinoaren** arteko muga lausoak.

Berria - Kultura

Gizakia **tximinotik** aldentzen denerako, mintzaira eta hiletak dira bereizgarriak.

Berria - Kultura

Tximino horiek bi metro dira altu, eta lurrean egiten dituzte euren gordelekuak.

Berria - Gaiak

Tximinoa gorago, eta ipurdia ageriago.

Joxerra Garzia

Tximinoek jauzika, piztiak lauoinka zeharkatzen zuten sastrakaErruki puntu xamur batez begiratzen diogu Atapuercako gizaki erdi **tximinoari**, umetako argazkietan geure burua ikusten dugunean bezalatsu.

Karlos Zabala

Tximinoaren ipurdia baino lotsagarriagoak.

Xabier Mendiguren Elizegi

Miozeno garaian **tximinoen** familiaren bi adar banandu zirela diote zientzialariek.

Berria - Gaiak

Tximinoen ikusmen-kortez primarioan.

Xabier Olarra

Ez nuen itsasoa utzi hiri euritsu honetan **tximinoarena** egiteko.

Urtzi Urrutikoeetxea

Zer da sexua, edertzeko maitasunaren beharra duen ile beltzez inguratutako **tximinoa** ?

Pako Aristi

Tximino batek ere egin zezakeen lan hura.

Koro Navarro

Tximino halakoa!

Juan Kruz Igerabide

2 (izenondoekin)

Tximino biluzia esan izan zaio gizakiari.

Irene Aldasoro

Tximino anker bat zen gizaje hura.

Josu Zabaleta

Tximino handien arbasoa omen dena aurkitu dute.

Berria - Gaiak

Zientzialari talde batek **tximino** nagiak langile bihurtu ditu, gen bat aldatuta.

Berria - Gaiak

Operan aktorearentzat eredia *simia audibilis* da (edo *Pithecanthropos stentor*), **tximino** oihukalaria, alegia.

Xabier Olarra

Zuzenean egingo dugu **tximino** asmatzailearen abenturara.

Patxi Ezkiaga

Tximino imitatzaile gradutik ez da pasa amerikarra.

Patziku Perurena

Tximino arriskutsuei bezala ematen digute jatekoa.

Koldo Izagirre

Uretan bizi ziren izaki nazkagarri batzuk, **tximino** ezkatatsuen antzekoak.

Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sudurretik ahora eta ahotik kokotserako distantzia handiegia zen, eta halako **tximino**-itxura bat ematen zion horrek.

Josu Zabaleta

Tximino ilea dauka, beltz amatatua, lakarra, ezin hezia. Orain moda-modan dagoen **tximino** haragia izango duk.

Eider Rodriguez

AEBetako biologo batek dio **tximino** espezie berri bat aurkitu duela Afrikan.

Berria - Gaiak

Bere aljuba eta kaftanean bildua zihonan, buruzut, bere begitarte beltzaxka eta **tximino** airekoa, ezker-eskuin mugituz.

Patxi Zubizarreta

Bizkar zabaleko gizon txikia zen eta **tximino**-begi nekatu hondoratuak zituen.

Lopez de Arana

Haren **tximino**-aurpegiaren alde bat erabat zimurtua eta okertua zegoen.

Lopez de Arana

Izen hori jartzea ere halako **tximino** festari!

Xabier Paya

4 (*hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela*) Horretaz ari garela, nola du izena agure gizajo **tximino**-aurpegi horrek?

Lopez de Arana

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza-**tximinoa** amorrutik bihurtzeko zuten urrutitik erakusten zizkieten janari ahogozagarri haiek ikusita.

Josu Zabaleta

Basa urdeak, basa **tximinoak**, basa gizonak.

Karlos Linazasoro

5 azken *tximin* adkor pertsona-talde batean garrantzi gutxien duena.

Ni hemen **azken tximinoa** nauk... -ke adar luzea jaurti nuen "Ez erre hemen, mesede" zioen txartelaren aldera. **Aingeru Epaltza**

Azken tximinoa izateagatik! **Jon Arretxe**

Alfabetoaren azkena, Gasteizko **azken tximinoak**. **Txema Ramirez de la Piscina**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere tximino (3); **tximino handien** (6)

bere tximinoa (4); **nire tximinoa** (3)

tximinokeria *(orobat ximinokeria g.er.) iz tximinoari dagokion egintza.*

Lagunartean ez ezik, herriko jende ezagun samarrarekin ere dena zen umearentzako kuximuxi eta txutxuputxua, gurasoak ere pozez hartu behar duen **tximinokeria** hori guztia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

10.000 haur bildu ziren, goizean San Leoneko kirol zelaian, 5 diakre ordenatuak zirelarik; eta aratsaldean zezen-laster lekuan, ainitz josteta, kantu eta **ximinokeriek** loriatu baitzituzten! **Herria**

Tximinokeriak egitea nahiago izan zuen, ezkutuko kamera baten biktima ez ote ziren pentsatzen hasiak ziren ikusleen harridurarako. **Berria - Kultura**

Halatan, ezustean, nolabaiteko babesa ematen dien emaztearengandik urruti direlarik [...] munduarenganako eta beren buruarenganako haserre hitza nagusitzen zaie, mixeriazko **tximinokeriak** eginaraziz. **Markos Zapiain**

tximinotxo *iz adkor tximinoa.*

-Zer habil, **tximinotxo**! negarrez ari haizela ematen din! zer gertatu zain? **Anton Garikano**

tximist ik tximista.

tximista *(orobat tximist, ximista g.er. eta ximixta g.er.) 1 iz argialdi bizi eta laburra, lerro bihurtikatu eta adarkatu bat osatzen duena, ekaitzetan bi hodeiren arteko elektrizitate deskarga batek eragina. ik oinaztura.*

Tximistak zeruan. **Joan Mari Irigoien**

Tximistak etengabe ari ziren bidea argitzen. **Karlos Zabala**

Inoiz baino bortitzago ari zuen kanpoan euria, eta **tximistek** zeru beltza argizatzen zuten, ondoren trumoi hotsa entzuten zela. **Aitor Arana**

Zaldiek irrintzi egin zuten, eta egundoko **tximista** batek urratu zuen zerua, eta halako kolore ñibirri-ñabarrez airea dardarazi zen. **Anjel Lertxundi**

Tximista batek egurtegia argitzen zuen lipar batez. **Anjel Lertxundi**

Tximista batek argitzen du euri-sarea. **Anjel Lertxundi**

Hamaikak aldean, **tximistak** zerua pizten hasi eta etengabe aritu ziren joka handik aurrera. **Karlos Zabala**

Cassinik **tximista** bat antzeman du Saturno planetan lehen aldiz. **Berria - Gaiak**

Zerua bikea baino beltzago, trumoi eta **tximista**, eta itsasoa gorantz elizdorreak eta mendiak adinako olatu beltzekin. **Anton Garikano**

Hirugarren eguna argitzean, trumoiak eta **tximistak** izan ziren mendi gainean, laino itxia eta turutots izugarri handia. **Jose Antonio Mujika**

Tximista eta trumoiak bezala, Indian ustelkeria eta zabartasuna batera doaz. **Gotzon Garate**

Hau baita egia handien zoria, hauek **tximista** baten iraupena baitute. **Juan Martin Elexpuru**

Balboren hitzak, batzuetan, **tximistak** bezain zorrotz zitzaizkidan. **Fernando Rey**

Zakurrak nire aurretik **tximistak** hartua bezala alde egin zuen. **Gotzon Garate**

Hara iristean, **tximistak** harri bihurtu balu bezala gelditu zen. **Agustin Otsoa**

Tximistaren diridaik horrelaxe itzaltzen ditu une labur batez beste argi guztiak, bere gar bizi horiarekin lurra ilunduz. **Jose Morales**

Tximistaren abiadan jaiki, eta bizi-bizi txalotu nituen Armando Bonillaren hitzak. **Karlos Linazasoro**

Une batez, **tximistaren** azkartasunaz, basoan aurkitutakoa guarda bera ez ote zen izango otu zitzaion. **Joxemari Urteaga**

2 (izenondoekin)

Ekaitz eguna zen, hodei biren artean **tximista** lauso batzuekin. **Josu Zabaleta**

Memento hartan, **tximista** zakar batek zerua urratu zuen. **Karlos Zabala**

Noizean behin **tximista** gorri bat ikusten zen, eta zarata gorra entzuten zen aire geldo eta astuna astiro zeharkatuz. **Agustin Otsoa**

Hala nola lehertzen den intxaurren enbor tinkatua, edo larruzko zeruan **tximista** horzduna. **Anton Garikano**

Tximista itsugarria ikusi zen, eta atearen orriak lurrera erori ziren milaka zatitan. **Agustin Otsoa**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Leihotik sartutako **tximista** izpi batek dirdiraka jarri zituen bere azkazalak. **Patxi Ezkiaga**

Harryren bekokiko **tximista** -orbainari begiratu zion-. **Iñaki Mendiguren**

Orbain txiki-txikia zen, **tximista** -forma zeukana. **Iñaki Mendiguren**

Etsaiei, berriz, **tximist** -geziak jaurtikitzen zizkieten. **Elizen arteko biblia**

Mugimendua isilgordeka antolatu da, baina **tximista** -kolpearen pare lehertu berri da. **Karlos Zabala**

-Ada, ez dun hori, sinets iezadan! -une hartan burura etorritako **tximist** -zartaldi baten moduko ideia bat adierazi nion segidan:- [...]. **Anjel Lertxundi**

Tximist -andanak urratu zuen zerua. **Anjel Lertxundi**

Begi gorriak ziren, txinpart eta **tximist** kolpez moldatuak. **Felipe Juaristi**

Gero, etorri deneko **tximista** -abiada berdinean aldegin du, paretik kentzen zitzaizkion pertsonenartetik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gau batean, zirti-zarta batek esnatuko ditu donostiarrak, eta zeru ordura arte beltza **tximista** -kolorez agertuko zaie, eta badiara begira jarriko dira. **Iñaki Iñurrieta**

-Guk, urrunetik, ekaitz giroan bizi zela ikusten genuen, **tximist** -trumioiez inguratuta. **Ander Irizar**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

1971an, Uncastillon, Zaragozan, bola- **tximistak** dorre osoa zartatu eta bota zuen. **Pello Zabala**

-Kanpoan ekaitza genuenean, trumoi- **tximistei** aurre egiteko-edo, amonak esaten zuen: *Santa Barbara, ora pro nobis!* **Joan Mari Irigoien**

5 (erkaketetan lastertasuna adierazten; ik beherago 9)

Tximista baten pare, mutil bat igaro da haren mahaitik. **Patxi Zubizarreta**

Pedaletan zutitu eta **tximistaren** antzera abiatu baino lehen. **Koldo Biguri**

Tximista bezain agudo zetorkien haize erauntsia. **Karlos Zabala**

Tximista bezain bzikor jiratu lora, eta hatzean hozka egin zion, odola isurtzeraino. Jon Muñoz
Burua makurtu nuen zure ondotik pasatzean, eta **tximista** bezain azkar aurrera jo nuen. Eduardo Matauko
Berak **tximistak** baino bzikorrago ihes egingo zuen lasterka kontrako norabidean. Iñaki Mendiguren
Zutitu, eta **tximista** baino arinago iritsi naiz bisitarien mintzalekura. Anjel Lertxundi
Tximista baino azkarrago joan zuan Maria Angeles sukaldera, handik kalendarioa ekartzera. Xabier Etxabe
Tximista baino agudoago agertu zen Ouroanaren eskuan labana bat. Jon Alonso
Jainkoa sakonenean bat-batean sartzeak ikusarazten dio, **tximista** bailitzan, oraindik zer dagoen egiteko. Joan Mari Lekuona
· **Tximista** bezain bizia, etorri handikoa, adar-jotzailea eta alproja samarra. Joxan Elosegi

6 hodei baten eta lurraren arteko elektrizitate deskarga. ikoinaztarri.

Tximistak erori ziren, trumoiak jo zuen, eta zerua sugarretan piztu zen. Koro Navarro
Tximistak hiriko zentral elektrikoa jo du. Xabier Olarra
Txikitán nik gure kalearen alde bat euritan ikusi nuen eta etxe batean **tximista** batek jo zuen. Lopez de Arana
Tximistak jota bezala bihurritu zen Elizabeth ohe ertzean. Anjel Lertxundi
Hau egia ez bada, jo nazala zeruko **tximistak**. Koldo Biguri
Tximista batek kiskali dezala! Sonia Gonzalez
Lo zeudela, **tximista** sartu eta ondoan zuen anaia xixpildu zuen. Gotzon Garate
Bartzelonan, **tximista** katedralean sartu, organoa erre, eta Santa Eulaliaren kapera hondatu zuen. Pello Zabala
Tximista batek jantzien jabea bat-batean lurretik erauzi balu bezala. Harkaitz Cano
Orain dela mende bat **tximista** batek porrokaturiko dorrea berriro altxatzen da Alme ibarraren gainean. Alberto Ladron Arana
Orduan, Jaunak **tximista** bidali zuen, dena kiskali zuena. Jose Antonio Mujika
Zeusek hodei beltz bat jarri zian ontziaren gainean, eta itsasoa ilundu; gero, trumoiak hasi zuan, ontziari **tximista** botatzen zion bitartean. Juan Kruz Igerabide
-Jesus, zergatik ez duzu **tximista** bat botatzen jendilaje horren erdira? Koldo Biguri
Tximistak bihotza erdibitu izan balio bezala izan zen Norarentzat. Anjel Lertxundi

7 irud/hed

[Etnaren] su bortxaz egotzia ahutzetatik okaztatzeko eta garrezko **tximistak** berriro zerura jaurtitzeko. Badira, halaber, beren gau osoan **tximista** horrek behin besterik argitzen ez dituenak. Xabier Amuriza
Kobrak ere halaxe kulunkatzen dira, beren **tximista** jaurtitzen, eta beren kulunkara itzultzen berriro. Josu Zabaleta
Ohartarazpenaren **tximista** txikitzaileaz eta trumoi zalapartatsuez bazterrak zipriztintzen ditu. Xabier Olarra
Desarraren **tximista** ikusi ahala. Txillardegi
Barre **tximista** kutsagarri batek erasan zuen berriro Isabelle. Harkaitz Cano
Argialdi tupusteko horrekin batera, "eureka" ozen bat entzuten da batzuetan, aldi berean **tximista** intelektuala eta bihotz-zirrara adierazten duena. Juan Garzia
Txokolatzeko **tximistak** eta marmeladazko doughnutsak, trifle-a, marrubiak, jalea, arroz-pastela... Iñaki Mendiguren

8 tximista batean tximista bezala.

Horregatik, hain zuzen, guda oinean hegazkin bat **tximista batean** igarotzen denean, alemaniarra da ziur. Josu Zabaleta
Mukitsua **tximista batean** joan zen aitonaarengana. Unai Iturriaga
Tximista batean, umeak eta Perrette etorri zitzaizkion Ruche jaunari gogora. Jon Muñoz

9 tximista bezala ziztu bizian.

Tximista bezala hegan doana. Karlos Zabala
Kotxea **tximista bezala** zihohan. Koro Navarro
Zarata handi bat entzun zen, eta Muxi, egitekoak bukatuta, **tximista bezala** jaitsi zen. Josu Zabaleta
Tximista bezala jalgi ninduan bordatik eta lasterka eta lasterka eta lasterka [...] ene sortetxera itzuli ninduan. Daniel Landart
Bat-batean, beste gela batzuetara **tximista bezala** joan, eta han geldituko zen txunditzen zuten irudiei begira-begira. Xabier Olarra
Ontziak bira erdi bat egin zuen ababor aldera, eta **tximista bezala** abiatu zen gero norabide hartan. Koro Navarro
Bludgerra **tximista bezala** zetorkion ostera, bigarrenez erasotzera. Iñaki Mendiguren
Nire lagunaren herren dotore, sujerente, maitagarri hura ikusi nuenean, irudipena izan nuen, **tximista bezala**, gizon hura infernuaren mandataria zela. Matías Múgica
Ostikoa **tximista bezala** atera zen. Koldo Biguri

10 tximista egin

Ba, euria egin, trumoi egin zein **tximista egin**, ni Antioquiara noa. Joseba Sarrionandia
Geziak jaurtikiz sakabanatu zituen, **tximista eginez** ihes eragin.
· *irud/hed* Agian gizona herabea zen eta horregatik zuen hain irribarre iluna, hortz handiek **tximista egin** arren eta bai ñir-ñir ere biboteak. Matías Múgica

11 tximistaren pare tximista bezala.

Taxitik jaitsirik, **tximistaren pare** abiatu ziren apartamentura. Patxi Zubizarreta
Bere larri hartan, bisirra **tximistaren pare** heldu zen Marsauanengana, eta nola edo hala onik atera ahal izan zuen. Patxi Zubizarreta
Albisteak osaba Kamilengan trumoi baten eragin berbera izan zuen, eta **tximistaren pare** oldartu zen kafe etxera Patxi Zubizarreta

12 tximist-orratz ik tximistorratz.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
trumoi eta tximist (4); **tximist eta oinaztu** (10)
bekokiko tximista (3)
tximista baino azkarrago (7); **tximista batek jo** (4); **tximista baten pare** (4); **tximista bezain** (13); **tximista bezain azkar** (5); **tximista bezain bzikor** (3); **tximista bezala** (42); **tximista bezala joan** (3); **tximista bezalakoa** (3); **tximista gorri** (3); **tximista orbaina** (4); **tximista sartu** (4)
trumoiak eta tximistak (3); **tximistak baino** (4); **tximistak bezala** (6); **tximistak eta trumoiak** (5); **tximistak hartua bezala** (4); **tximistak harturik** (3); **tximistak jo** (6); **tximistak jota** (11); **tximistak jota bezala** (9); **zeruko tximistak** (8)
tximistaren antzera (3); **tximistaren gisa** (3); **tximistaren pare** (27); **tximistaren pare abiatu** (3); **tximistaren pare heldu** (3)

tximistadun 1 izond tximista duena.

Zeus **tximistadunak** nire lagunak kikildu zitian; hantxe hil zituan asko eta asko; beste asko bizirik eraman zitiztean, soroetan lan eginarazteko. Juan Kruz Igerabide

2 irud/hed

Hatsa hartzen du, harreman **tximistadun** hori ez zapartatzeko gisan. Eneko Bidegain

tximistaka adlag tximistak jaurtikiz.

Ezpatata **tximistaka** hasi zen eta hegana egin zuen, milaka zatitan hautsita. **Agustin Otsoa**
Errebolberrera ateratu nuen eta **tximistaka** ikusi nuen nire azpi-azpian fusil baten kanoia. **Fernando Rey**
Haren aginduz urak zeruan pilotatzen dira, hodeiak zerumugan gora igotzen, erautsiak **tximistaka** lehertzen, haizea bere gordelekuetatik ateratzen. **Askoren artean**
Hodeiak zerumugan gora goarazten ditu, erautsiak **tximistaka** lehertarazten, haizea bere gordelekuetatik aterarazten. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erauntsiak tximistaka (3)

tximistaldi iz

"Profetizatzen hasi ziren, baina ez zuten jarraiki"; eta badira, azkenean, **tximistaldi** baten eta hurrengoaren artean tarte luzeago edo laburragorik nabaritzen dutenak ere.
Xabier Kintana

tximistargi 1 iz tximistaren argia.

Tximistargi batek gelako itzalak mugiarazi zituen, eta gehien aurpegi urdurasuna nabariago gelditu zen. **Fernando Morillo**
Tximistargi batek zerumuga argitu zuenean, Mael zutik jarri zen jauzi batean, txalupa modu arriskutsuan kulunkaraziz. **Joanes Urkixo**
Tximistargi bortitz bat hodeietan zehar agertu eta ezpataren gainera jauzi zen. **Joanes Urkixo**

2 (hitz elkartuetan)

-Heriotzara kondenatuak iragana **tximistargi** kolpe batez ikus lezakeen moduan ikusi nuen. **Joxean Agirre**

tximistargitu izond tximistak argitua.

Jaitsi nintzen eskaileran behera: isiltasun **tximistargitua**, eta bufalo bat hantxe zutik, gure aurrean, trenbidearen lerro-pare zuzenaren erdian, besterik ez. **Joxe Austin Arrieta**

tximistari izond tximistak jaurtikitzen dituen.

Ezarritakoa beteko da Jupiter **Tximistariari**, Zeruari, Eguzkiari eta Ilargiari eskainitako eraikinak sabairik gabe egiten direnean. **Santiago Iruretagoiena**

tximistarri iz kuartzoa.

Esan dute inoiz, hilobi megalitikoetan ageri diren sukarrak eta **tximistarri** handien forma, intsusaren hosto luzearena dela. **Pello Zabala**

tximistatsu izond tximistez betea.

Sutondoan elekari, anizteta kantari, so kliska **tximistatsu** batez gerizatzen zituzten borobil zuri hazi berriak. **Itxaro Borda**

tximistatxo iz tximista txikia.

Nire eta haien arteko begirada-trukatze bakoitzarekin, **tximistatxo** bat horra, txiki-txiki baina atzemateko modukoa, mesfidantzaz eta goganbeharrez oratua. **Juan Garzia**

tximistazo iz adkor tximista handia.

Tximistazo antzeko bat izan zen zure aurpegitik pasatu zena, edo ha-la iruditut zitzaidan niri behintzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Halako batean **tximistazo** etxe barrura sartu zitzaigula iruditut zitzaidan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

tximistorratz (orobat tximist-orratz g.er.) 1 iz

Franklinen **tximistorratza**. **Pello Zabala**
Orduko, Meharrak kategoria baten antzera ari zen igotzen **tximistorratzaren** burdinazko kabletik gora eta dorrearen erdi parean zen. **Koldo Biguri**
Bestela, ondorio guztiekin egin dezagun: hau da, penizilinarik ez, **tximistorratzik** ez, betaurrekorik ez, DDTrik ez, radarrak ez, eta abar. **Joxe Austin Arrieta**
Aizkora erremedio ezin hobea dela tximistaren aurka -ereintz, elorri zuri, eguzki lore, **tximist-orratz** erradiaktibo eta gainerako asmakizun berriak baino erabakigarriagoa.
J.M. Olaizola "Txiliku"

2 irud/hed

Amak Joben pazientzia zuen, eta haren pazientzia zen ekaitzak baretzen zituen **tximistorratza** ... **Joan Mari Irigoien**

tximitx ik zimitz.

tximoso izond adkor tximatsua.

Alde ederra, gure Karlos edo zuen **tximosoak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Guapoak eta **tximosoak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Tximoso ezkertiarren artean ere badira aldeak eta badira tirabirak, politika kontu horiek direla eta ez direla. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Batera eta bestera luzatzen du begia, urduri dago are euskaldunon aurretik Espainiako oxtabonetako lehen maizterra izan den etniaren ordezkari **tximoso** hau. **Koldo Izagirre**

tximu 1 iz tximinoa.

Eta noiz utzi zion, ba, gizakiak **tximu** izateari? **Joxerra Garzia**

Burezur hura besteak ez bezalako zen eta **tximuen** eta gizakiaren arteko kate-maila galdua izan zitekeela sinetsi zuten gehienek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiesaren antzeko birusa **tximuetatik** gizakietara pasatu da Afrikan. Berria - Gaiak

Ateko sokataria igotzen nintzen, izututako **tximu** eroa bezala oihuka. Jesus Mari Mendizabal

Gero Lindak bi edo hiru itzulipurdi egin eta gorri jantzitako **tximu** txiki bat zekarrela agertu zen, akrobazia-ariketa batzuk egitera behartu zuena. Koro Navarro

Bederatzi **tximu** ar erabili dituzte esperimentuan. Berria - Gaiak

Gizonari etortzen zaio emakumearen gainera salto egiteko furia izugarri bat, eta **tximu** bat bezala hasten da gainean saltoka, alde guztietatik besarka eta musuka egiten diola. Pello Lizarralde

Bide-bazterren batean aurkitu bagintuzte bezala oihaneko lianak buruko tximetan katramilatuta, **tximuekin** batera jaten aritu bagina bezala baobab puntaren batean. Ander Irizar

Madrilgo gortean bertze **tximuren** bat behar dutenean, deituko zioat. Joan Mari Irigoien

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horra nire ezbeharrak eta gero etorri ziren ondorio guztiak; mutiko serioa nintzen hau gizon itxurako eta **tximu** aurpegiko ergela bihurtzen hasi nintzen. Pello Lizarralde

Zer da **tximu** festa hau? Xabier Paya

Mahaipeko Birmaniako oihanean jo eta su japoniar **tximu**-horiak akabatzen gutxienez ordu erdi luzea neramala, [...]. Iban Zaldúa

3 tximu-tximu egin

Oraingo honetan gazte gorbatahun irribarretsu batzuk ageri dira igerileku baten ertzean, **tximu-tximu** eginda. Jokin Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tximu ar (3)

tximuki iz tximinoa espezieko alea.

Ilerik gabeko **tximuki** bat da, beti kopulatzen dabilena eta bikoteetan bizitzeko ohitura arraroa duena. J.M. Olaizola "Txiliku"

tximur ik **zimir**.

tximurkera ik **zimirkera**.

tximurtu ik **zimurtu**.

tximutu, tximu(tu), tximutzen da/du ad tximu bihurtu.

Zineak gizakume harrituarengan imitaziorako joera sortzen zuen bezala, Tarzan ikusi eta denak mendian Tarzanean egiten, horrela bitarteko informatikoez ere **tximutu** egiten gaituzte, gizona baino. Pako Aristi

tximutx¹ iz

Gerritxori ilunak *tiit-tiit-tiiteroitt*; **tximutx** kaxkabeltxak *pititxui-pititxui*. Iñaki Segurola

tximutx² ik **zimitz**.

txin-txin (orobat txintxin) 1 topa egitearen onomatopeia.

Eta geure edariez topa egin genuen, **txin-txin**. Morfina aski sakatzen eta txertatzen digute gizon politikoez, prediku aulki gisa eraiki aperitifak mahaien izkinetarik, **txin-txin** handik, krax-krax hemendik, herriaren geroaz mintzo diren oroz. Aitor Arana

-Tira, **txin-txin** berriro... Joxemari Iturralde

Lau botila koñak eskuetan, **txin-txin** hoska. Felipe Juaristi

2 metal hotsaren onomatopeia.

Don Pedro Páramok dirua kontatzen zueneko idazmahaiaren gainean pesoek ateratzen zuten **txin-txin** hotsa entzuten zuen. Juan Garzia

Txin-txin, **txin-txin**, diruaren hotsa. Berria - Kirola

3 txin-txin egin topa egin.

Besteok ardoarekin **txin-txin** egiten dugu. Edorta Jimenez

4 txanponez eta kidekoen mintzatuz, hots egin.

Han dirua barra-barra zebilen eztainu-paperezko mahai handien gainean **txintxin** eginez. Lopez de Arana

-Ukitu ere ez? -begi-gorriek **txin-txin** egin zuten ezker eskuaren barrenean preso. Aingeru Epaltza

Ematen zuen zilarrezko kate txiki bat **txintxin** egiten ari zitzaidala ezdarri barruan. Juan Kruz Igerabide

txinal (orobat txinel) 1 iz etxean erabiltzeko oinetako arina, orpoa agerian uzten duena.

Biolonek **txinal** zaharrak jantzi ditu eta ohe artean paseatu da une batez. Itziar Otegi

Xira, bufanda eta oinetakoak erantzi, eta pijama eta **txinalak** jantzi ditu Marialuisak. Eider Rodriguez

Gizonezko botak, zapatak eta **txinalak** kaxatan sartu. Javi Cillero

Burutik oinetara, txanotik **txinal** persiarretara. Karlos Zabala

Zuhaixka baten atzean geratu ziren zain, Evans jauna atzeko gelatik korridorean barna bere **txinalak** arrastatuz etorri eta sarriala irekitzen ahalegintzen zen artean. Koro Navarro

2 hed

Askatasunaren arabera, pasa den hilabetea uretako **txinalekin**, galtzerdiekin eta jertse batekin eduki dute zigor ziegan, eta sarritan biluztu ere egin dute. Berria - Euskal

txinalka *(orobat txinelka) adlag* oinetakoetan orpoa sartu gabe.

Tarrapatán alde egin nuen etxetik Marina korridorera azal zedin baino lehen bata lotzen zuela menturaz, edo zapatillak **txinalka** zituela, ez nuen horrela ikusi nahi. **Koldo Izagirre**

Aldagela erdira etorri zen hura, gorririk, zangoak Kortajarenaren espartinetan **txinalka** laboraraino, eta zegoen hartan hasi zen ilea orrazten niri toaila botatuta. **Koldo Izagirre**

Galtzerdi zaharrez edo bartanez estalitako oin misterioitsu haiek azaldu eta beheko suan berotuxe ondoan, berriz atzera eskarpin xaharren batzuk **txinelka** sartuz estali arteko tartetxoa erne aprobetxatuz, hantxe egoten ginen harriturik. **Patziku Perurena**

txinar ik txinatar.

txinatar *(572 agerraldi, 94 liburu eta 128 artikulutan; orobat txinar 14 agerraldi, 9 liburu eta 3 artikulutan, xinatar 25 agerraldi, 18 artikulutan –guztiak Herriakoak- eta txinatiar g.er.) 1 izlag* Txinakoa, Txinari dagokiona. ik **txino**.

- **Txinatar** gidariak dizue hori dena erran! **Ramuntxo Etxeberri**

Ordu 7'erdí egoten naiz bertan eta beti diferente kobratzen dit amonaxo **txinatarrak**. **Harkaitz Cano**

Behar zuen arma horietarik bat entseatu **Txinatar** militar batzuen aitzinean haiei saltzeko dudarik gabe. **Herria**

Berpizkundearen aurreko hamabost mendeetan, **txinatar** zibilizazioa, teknikoki, Europakoa baino aurreratuagoa izan zela. **Koro Navarro**

Bartzelonan ikasi zuen, eta bertako auzo **txinatarrean** bizi izan zen. **Lander Garro**

Idazkera fina, **txinatar** tintaz egina, gutunekoa bezalakoa. **Jon Muñoz**

50 inguru silaba-zeinu sortu zituzten hizki **txinatarrak** zeinu biribiletan sinplifikatuz. **Ibon Uribarri**

Baina hizkuntza mota guztietan lexikologikoena **txinatar** hizkuntza da. **Isabel Arrigain**

Biharamunean, hitz eman moldean, **txinatar** jatetxe batean afaldu ginen. **Itxaro Borda**

Ivyri nahikoa egoki iruditzen ere bai dagoeneko jatetxe **txinatarren** aukera. **Joxe Austin Arrieta**

Merkatari ingelesek opioa **txinatar** merkatura eraman zutenean hasi zen opioaren lehenengo gerra. **Koro Navarro**

Portzelana **txinatarrezko** katakume basati bat. **Mirentxu Larrañaga**

Bainugela **txinatar** moderno horren argi zurian. **Ramuntxo Etxeberri**

Lirio **txinatarren** gozotasun jasanezina. **Lopez de Arana**

Musika hura pabilioitik zetorren; **txinatarra** zen musika. **Juan Garzia**

2 iz Txinako herritarra.

Japoniarrek bi nazioarekin bakarrik jarduten dute merkataritzan: **txinatarrekin** eta holandarrekin. **Iñaki Iñurrieta**

Txinatarrentzat, ideograma eta hitz mintzatua, biak dira adierazten duten ideia beraren ikurrak. **Isabel Arrigain**

840.000 **txinatarrek** dute GIB birusa, eta horietatik 80.000k garatu dute hiesa. **Berria - Gaiak**

Txinatarren egutegiaren arabera, ahuntzaren urtean sartu gira otsailaren 1ean. **Herria**

Txinatar aberatsak, beren usadioaren legera jantziak. **Karlos Zabala**

Pierre Chaunu-k 1959an zioen bezala, Kristobal Kolon eta Vasco da Gama ez ziren **txinatarrak**. **Koro Navarro**

Zenbait **txinatar** eta beltz kanabera sortak hartu eta haiek xehetzeko zilindro handi batzuk zituen makina batera eramaten ari ziren. **Josu Zabaleta**

Egun ere, Singapurko **txinatarrek**, adibidez, lagunak salatzerá bultzatzen dituzte beren haurrak. **Joxan Elozegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begi txinatar (3); **jatetxe txinatar** (10); **millioi txinatar** (4); **txinatar hil** (6)

auzo txinatarra (3); **txinatarra da** (5); **txinatarra izan** (5)

jatetxe txinatarrean (4)

txinatarren artean (8)

jatetxe txinatarra (5)

jatetxe txinatarretan (3)

txinatiar ik txinatar.

txinaurri ik xinaurri.

txinaurrijale ik xinaurrijale.

txinaurritegi ik xinaurritegi.

txinaurritu ik xinaurritu.

txinbo *iz* hegazti intsektujalea, bizkarraldeko lumak arreak eta sabelaldekoak zurixkak dituen txori kantaria, buru-beltzaxka eta moko-mehea (*Sylvia sp.*).

txindata 1 iz

Alboan Alain Sanz dauka, **txindata** jotzen noizean behin. **Berria - Kultura**

Sarreran, emakumeak dunbala jotzen zuen eskuin eskuarekin eta **txindatak** ezkerrearekin, eta ile nahasiko neska batek txilin bati eragiten zion. Koro Navarro

Musika-banda zoroen moduan hasi zen jotzen, **txindata** eta guzti. Berria - Kultura

Max eserita zegoen, zangoak gurutzatuta, gong, xilofoi, danbor, **txindata** eta abardun orkestra bateko jotzaile baten jarreran. Jon Muñoz

2 txindata-jotzaile (corpusean txindata-jole)

Mugimendu azkar eta bizkorrez estalkiak kendu eta, bandako **txindata-joleak** bailiran, buru gainetik altxatzen dituztenean, gajoek, ni izan naizenetan behintzat. Ramon Saizarbitoria

txindor iz txantxangorria.

Gasteizen fusilatuko dute, goiz eder batean **txindor** baten txintek goxotan dutela. Edorta Jimenez

Txindorrak *uit-uit*; butzangorriak *uit-tro-tro*; txantxangorriak *ttattarraaaaaaatta-ttat*. Iñaki Segurola

Ederki sartu da begiztan **txindorra**. Iñigo Aranbarri

txindurri (54 agerraldi, 18 liburu eta 4 artikulua; orobat txingurri 6 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulua) 1 iz intsektu himenoptero txikia, arrez, emeez eta langileez osaturiko talde handiak eratuz txindurritegian bizi dena (Formicidae familia). ik inurri; xinaurri.

Gelan jatekorik baldin baduzu, ogi papurrak edo, berehala ondoratuko zaizkizu **txindurriak** eta mamorro ugari. Gotzon Garate

Txindurri beltzak ez ezik, zuriak ere ugari dira Indian. Gotzon Garate

Txindurri gorri handi batzuek. Eskarne Mujika

Hozka egiten duten hegadun **txindurriak**. Gotzon Garate

Txindurrien bizieraz eta ohituraz jardun zidan gero, luze eta temati. Jose txo Azkona

Txindurriak urrearen prezioan saltzen dira jatetxe txinatarretan. Eskarne Mujika

Maiatzean **txindurria** ere esnedun izaten da. Pello Zabala

2 (hitz elkartuetan)

Ez dut ikusten nobela luze-errealista batek eskatzen duen **txindurri**-lan diziplinatuan. Xabier Mendiguren Elizegi

Belar hostoak, arrabioak, armiarmaak, okilak, kakalardoak, **txindurri**-erresuma bat. Anton Garikano

3 txindurritan adlag txindurrituta.

Negar batean purrustaka, alde batera eta bestera jiraka, etengabe bihurritzen zen izaren artean, gorputz guztia **txindurritan** balu bezala. Pedro Alberdi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txindurritarako bidea (3)

txindurridura iz gorputzaren adar bat txindurritzean sentitzen den azkura mingarria. ikinurridura.

Larruazalean **txindurridura** arin bat sentitu nuen. Fernando Rey

txindurritegi iz txindurrien bizilekua, lurpean edo zuhaitzen enborrean eginiko igarobidez eta gelatxoez osatua; txindurrien multzoa. ik inurritegi.

Horra berriz **txindurritegia** martxan. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizon-emakumeak gauza ziren munduan den ororen sekretu gordea argitzeko: arranoak nola lortzen duen hegan egitea, txindurriek nola eraikitzen duten beren **txindurritegia**, ilargiaren misterioa, egun-haste eta ilunabarrarena, biziarena, heriotzarena, denarena. Fernando Rey

Zelula anitzez osaturiko gorputz bakarra balira bezala, **txindurritegi** baten antzera hasiko dira mugitzen denak batera. Xabier Mendiguren Elizegi

txindurritu, txindurri(tu), txindurritzen (orobat txingurritu) da/du ad da/du ad gorputzaren adar batean, jarrera txar baten ondorioz edo, azkura mingarria sentitu. ik inurritu.

Luze gabe **txindurritu** egin zitzaidan ezker besoa, eta masailan milaka orratz ikusezinen zitzadak sentitzen nituen. Oskar Arana

-Hankak **txindurrituta** dauzkat -esan diezu-; ezin al dut pasilloan barrera pixka batean ibili? Rafa Egiguren

Gune jakin batean hazka eginez gero, odola berehala joango da azalera, eta alde hori **txindurritu** egingo balitzaigu bezala da. Luis Elberdin

Ipurdia **txindurrituta** dut berriro; ez baita gauza erraza denbora guztian eserita geldirik, eta isil-isilik egon behar hau. Josu Zabaleta

txindurritze (orobat txingurritze) iz gorputzaren adar batean, jarrera txar baten ondorioz edo, azkura mingarria sentitzea.

Azkurak, **txindurritzeak**, kilimak eta beste nahasten diren alderdian sartu gara: bernetan. Luis Elberdin

Tren hartan kitzikadura bat sentitzen nuen nik, **txingurritze** bat, makalaldi bat gorputzean, pozik zaudenean bezala. Fernando Rey

txinel¹ iz herrizaina.

Behin baino gehiagotan, orduko apaizek **txinelaren** laguntza eskatzen zuten soinu jotzaileei isilarazteko, edota modu onean erromeriatik zuhurki alde egin zezaten behartzeko. Berria - Kultura

txinel² ik txinal.

txinelka ik txinalka.

txinera iz Txinako hizkuntza. ik mandarin 2.

Daniel Txinara bidaltzea erabaki zuen bere amak, hamar urterekin mandarin **txinera** ahazten ari zitzaiolako. [Pako Aristi](#)
Umea [...] hemen larregi mendebaleratzen ari zela, Shanghai **txinera** idazten ikasiko duela, hango dialektoa ere bai... [Pako Aristi](#)
Txinera zaharrean, esate bateko, "oinetako" hitzak "elkarren arteko akordioa" esanahia omen du. [Patziku Perurena](#)
VII. mendetik X.era bitarteko **txinerazko** poemen itzulpenak. [Berria - Kultura](#)
Ez eta **txinerazko** testurik, ez maien erreproduktzioak? [Jon Muñoz](#)
Zer loria De Funes aktore ospetsuaren ziminokeriak **txinera** entzutea! [Ramuntxo Etxeberri](#)
Hizkuntza arrotz batez ari direla ematen dik, **txinera** edo antzeko zerbaitez. [Xabier Olarra](#)
Hemen erabiltzen duten ingelesak **txinera** dirudi. [Koro Navarro](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
mandarin txinera (3)

txinga¹ iz txinga-eroate kirolan erabiltzen den pisua.

Bost neskek 25na kiloko bi **txinga** erabiliko dituzte, eta metro gehien egiten duenak jantziko du txapela. [Berria - Kirola](#)
Lehen eguneko garaileak: Fernandito Etxegarai, lokotx-biltzen; Xabier Sein, ingude-altxatzen, Lasarte, harri-jasotzen; Bereau, lasto-altxatzen eta Lazkoz, **txinga** eroaten. [Berria - Kirola](#)
Aizkoran Boisen, **txinga** eroaten Caracasen, ezpatadantzari La Platan, zangoa euskal zeruraino jasoa. [Iñigo Aranbarri](#)
Gogoia behar da gero 37 urtetik gora izan eta oraindik enborrekin, **txingekin** eta harriekin bueltaka ibiltzeko, hala esango du batek baino gehiagok. [Berria - Kirola](#)
11 joko izanen dira: harri altxatzea, ingudea, lasto altxatzea, dantza (fandango / arin-arin), jende froga (binazka elgar eremate), lokotxak, **txingak**, zaku joko, toka, frontza, soka-tira. [Herria](#)

2 (hitz elkartuetan)

Gurdi altxatze txapelketa, azkenean partaidea biltzen badira, **txinga** txapelketa, ingude altxatze txapelketa eta kadete mailako arpana txapelketa ere jokatuko dira. [Berria - Kirola](#)

3 txinga-eroale txinga-eroate kirolan aritzen dena.

Guztira hamaika **txinga eroale** ariko dira aurrera eta atzera, bihar, Berako (Nafarroa) kiroldegia aitazinean, arratsaldeko 7:00etan. [Berria - Kirola](#)

4 txinga-eroate bi pisu esku banatan hartuta atzera eta aurrera eramatean datzan herri kirola.

Ondoren, harri-jasotzea eta **txinga-eroate** probak izango dira ikusgai, lasto-altxatzearekin tartekatuta. [Berria - Kirola](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
txinga eroatea (9); **txinga eroaten** (8)

txinga² iz zirgilo finkoa.

Bizikleta ibai-ertzera eramane, eta lotzen hasi zen kareleko **txingetako** batean. [Anjel Lertxundi](#)
Zin edo birao egiten harrapatuak, izuna ordaindu beharko dute lehenengo aldiari; bigarren, hirugarren eta laugarren, izun bikoitza, hirukoitza eta lauokitza; bosgarren **txingan** lotuko dira; seigarren pikotan, eta goiko ezpaina moztuko zaie. [Juan Martin Elexpuru](#)

txingar¹ iz garrik gabe, gori-gori dagoen zur edo ikatz zatia.

Su handiaren garra **txingar** bihurtu da. [Josu Zabaleta](#)
Ikatzak **txingarra**, egurrak sua. [Elizen arteko biblia](#)
Gero, kakoaren puntaz, **txingarrei** eragin zien sua bizitzeko. [Anjel Lertxundi](#)
Sutegiko **txingarrak** itzaltzen joan ziren pixkanaka eta burdina hoztu zen. [Fernando Rey](#)
Gau oso batez lanpara baten sugar tenteari edo su baten **txingarrari** begira-begira egotea. [Koro Navarro](#)
Zure begiak **txingarrak** bezain distiratsua dira. [Fernando Rey](#)
-Sukaldean zerbait utzi dut **txingarren** gainean. [Juan Garzia](#)
Ogia eta okela **txingarretan** erre eta jan egin dut. [Elizen arteko biblia](#)
Erremontariak burdin puska hartu eta, **txingarretan** goriturik, mailuka moldeatzen du, beso indartsuz lantzen. [Elizen arteko biblia](#)
Agure pare marmartia zirudien biko hori izan zen saioa piztu zuen pindarra aurrena, eta **txingarrei** sugarra atera zion hauspoa hurrena. [Berria - Kultura](#)
Deabruaren eguna, infernuko **txingarren** gainean gaude. [Berria - Kultura](#)
Inor **txingar** gainean ibiltzen ote, oinak erre gabe? [Elizen arteko biblia](#)

2 (izenondoeekin)

Betozkie gainera **txingar** goriak, amil bitez leize sakonera. [Elizen arteko biblia](#)
Suak bizpahiru **txingar** gorri baizik ez zuen, besaulkiaren hankak ozta-ozta argitzen zituztenak. [Josu Zabaleta](#)
Ahalegin guztiak egiten ari zen **txingar** zaharrik ez hauspotzeko. [Anjel Lertxundi](#)
Etxe baten **txingar** ketsuen ondoan gelditu ziren arte. [Joanes Urkixo](#)
Zigarroa hautsontzian zikiratu eta zurtz geldituriko **txingar** tikiari so gelditu zen Kristina. [Aingeru Epaltza](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez da, ez, **txingar** -sua izango, ondoan eseri eta berotzekoa. [Elizen arteko biblia](#)
Gehienetan **txingar** hautsez zikinduta baitzeraman aurpegia. [Felipe Juaristi](#)
Elizaren alde hura epel antzean zegoen **txingar** argi harengatik. **Txingar** koipetsu zatia. [Karlos Zabala](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondoren, aingeruak intsentsu-ontzia hartu, aldareko su-**txingarrez** bete eta lurrera bota zuen. [Elizen arteko biblia](#)
Surtako ikatz **txingarren** antzeko su-galda loreek zaindua. [Anton Garikano](#)
Euri motela, gizona, zaharra, asfalto-**txingarrei** usaina eragiten dien horietakoa. [Jokin Muñoz](#)
Urte horretan piztu omen zitzaizun maitasun-**txingarra** bihotz-txokoa. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

5 irud/hed

Txikitako bere kontakizunekin nire irudimenaren **txingarrei** haizea emateagatik. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Oraindik pizturik daude gorrotoaren **txingarrak** nire baitan. [Juan Kruz Igerabide](#)
Bazirudien haurtzaroko poesia-**txingarrak** suberrituak zirela nigan. [Juan Kruz Igerabide](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txingar gainean (4); **txingar gorien** (3)

txingarren gainean (7)

txingar² ik **txingar**.

txingarketa iz

Une honetara iritsi aurretik, zirti-zartakoak eta jazarketak egon ohi dira, **txingarketak** eta borrokak suaren eta egurraren artean. Joan Mari Lekuona

txingarrontzi (orobat txingar ontzi) iz txingarren ontzia.

Txingarrontzi beltz bat begiztatu nuen, mahai bateko hanken artean erdi kukuturik, animalia arraro eta izuti baten antzera. Alberto Ladron Arana

Egin **txingar** -ontzi, pala, ixipu-ontzi, sardexka eta errauts-ontziak; tresna guztiok brontzez eginen dituzu. Elizen arteko biblia

txingartu, txingar(tu), txingartzen du ad txingar bihurtu.

Hitz horiek Jusuf Khanen gogoia **txingartu** zuten, eta saltzailearekin tratu itxurosoa eginez, emakumea erosi eta jauregira eraman zuten. Felipe Juaristi

txinget iz kisketa.

Azkenean, egoeraren ganorabakoak bultzatuta atearen **txingetari** eragin zion eta ohartu zen giltzatu barik zegoela. Josu Landa

txingi-txingi 1 adlag

Txingi-txingi eman eta eman zoratzear nenbilela, Maiteren potxona Lorarena bezain beroa zela ohartu nintzen. Aitor Arana

2 (izen gisa)

Gero, ahoa urtu egiten zitzaidala nabaritzuz, **txingi-txingi** biziari ekin nion. Aitor Arana

3 txingi-txingika adlag txingi-txingi.

Zein goxoa zen Joseba atzean **txingi-txingika** edukitzea! Aitor Arana

txingo

1 txingoan adlag oin bakar baten gainean. ik txingoka.

Diogenes zaharra, zerua ezabatu zaion **txingoan**, upel eta guzti, zangalatrau. Joxerra Garzia

txingoka 1 adlag oin bakar baten gainean. ik txingo 1.

Deskuido batean ezkerreko hankako behatza motortzerrarekin ebaki, eta eskuinarekin **txingoka** nabil, bi makuluren arrimoan. Patziku Perurena

Barre eutsiezinak puztuta, oilanda bat zirudien, biribil-biribil, hantxe saltoka, **txingoka**, eskortaren erdian. Jon Muñoz

Hanka batekin eta bestearekin **txingoka** errepikatu. Anton Garikano

2 oin bakar baten gainean mugituz harri lau bat lauki batzuetan zehar mugitzean datzan jolasa.

Beste neskekin **txingoka** ibiltzen zèn garaiko pasadizoetatik [...]. Joan Mari Irigoien

Txingoka jolasten ari diren ume batzuk gelditu egin dira une batez, eta "biba" egiten dute oihu. Koldo Izagirre

txingola ik **xingola**.

txingor 1 iz hotzaren ondorioz ale izoztuetan erortzen den euria. ik kaskabar; babazuza; harri 8.

Alargunaren semea **txingorri** begira dago, leihotik. Unai Elorriaga

Horixe da unibertsoan gauza kaltegarriak eragiten dituena, hala nola uholdeak, euri-jasak, elurra, **txingorra**, haizeteak, ostotsa, tximista, airea usteltzea, edo hondamen beldurgarriak. Xabier Kintana

Lau zentimetroko diametroko **txingorrak** jota, bi emakumek larrialdi zerbitzuetara joan behar izan zuten. Berria - Euskal Herria

Arriskuak desagertu ziren, eta ez otsoek, ez **txingorrak**, ez zieten aurrerantzean kalterik egin. Karlos Zabala

Txingorrik ez du bota. Itziar Otegi

Txingorra leihoko kristaletan kax-kax ari delarik. Anjel Lertxundi

Egin duzuen guztia desegin dizuet gorriin, herdoil eta **txingorraz**. Elizen arteko biblia

Bere ahots bortitza entzunaraziko du Jaunak eta bere indar eraginkorra erakutsiko, haserre gorri eta sugar kiskalgarriz, ekaitz, euri-jasa eta **txingor** artean. Elizen arteko biblia

Txingor biguna ere deitzen zaio, ez baita benetako **txingorra**, elurrezkoa baino. Pello Zabala

-1602an, Bartzelonan eta Manresan, egundoko uholdea gertatu zen, euri eta ekaitz, harri eta **txingor**, galera handiak eta kostu ikusgarriak utzi zituen. Pello Zabala

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zeren deus gutxi da **txingor**-ale bat, baina mila **txingor**-alek ubelunez bete dezakete edonoren burua. Joan Mari Irigoien

[Maju] Mariren lurrazpiko aixkirea omen zen, eta harekin katigatzen zen bakoitzean **txingor**-eraso bat botatzen omen zuen ikaragarria. Iñaki Segurola

Hodeien gorputza ez daiteke harri eta zurena bezain trinkoa izan, ez lainoak eta ke hegakorrek bezain xumea; edo, pisuaren astunez, harriak bezala erori beharko bailukete, edo, keak bezala, ezingo bailukete tinko iraun, ez elur izoztuei eta **txingor** ekaitzei eutsi. Xabier Amuriza

Biolontxelo, monodia baten erritmo nekatua etenka markatzen, leihoen kontrako **txingor**-burrunbaren gaindi. Anjel Lertxundi

txingorraldi 1 iz txingor erauntsia.

Txingorraldiak, ekaitz hondagarriak bezala, ur handi oldartsuek bezala. **Elizen arteko biblia**

2 irud/hed

Sei zakuetatik bost dagoeneko ganbaran zirela, eta Peter seigarrena jasotzen ari zela, beheko jostura askatu eta babarrun pinttozko euri jasa bat, edo, hobeto esanda, **txingorraldi** bat erori da airean eskaileteran behera. **Josu Zabaleta**

txingotekeria iz irrigarrikeria.

Huraxe bai, **txingotekeria** galanta! **Josu Zabaleta**

txinguntzi iz

43 araintza-untzi, edo xuxenago erranik **txinguntzi**, eraikiko dira 2003an Euskal Herrian. **Herria**

txingurri ik txindurri.

txingurritu ik txindurritu.

txingurritze ik txindurritze.

txinito iz adkor txinoa; misio lurretako pertsona.

Nik ordurako banekien, eskolan ikasita-edo, **txinitoak** izatekotan Txinan izaten direla. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zer pentsatuko luke osaba Luisek, han urrutian, goseak dauden **txinitoel** laguntzen? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Los Rios-eko **txinitoentzat** itsulapikoak goraino betetzen genituen ikusleok. **Iñigo Aranbarri**

Banekien bazirela, **txinitoen** aldizkarietan ikusten genituen, baina aurrez aurre, benetakoak, han ikusi nituen lehenengoz. **Arantxa Iturbe**

txinka iz txinparta.

Txinka frenetiko eta metalikoak entzuten nituen, makina borobil elipsoidalaren zurubi hidraulikoa jaisten ikusi nuen eta zola kixkailduan pausatzen: gizaki orlegi arin bat emeki-emeki jaitsi zen. **Itxaro Borda**

txino (64 agerraldi, 21 liburu eta 6 artikulu) 1 izond/iz txinatarra.

Dendari **txino** mehe hori babesteko beharbada. **Joseba Sarrionandia**

Ziberkafe **txinoan** izan naiz arratsaldean. **Harkaitz Cano**

Frantsesa ere ez da, **txinoa** da. **Berria - Kultura**

Zergatik izan beharko luke Frantziako ilustrazioak erreferentzia absolutua **txino** batentzat? **Joxe Azurmendi**

Bik soroko peoiak ziruditen; hirugarrenak **txino** -hazpegi baldarrak zituen eta txanbergoa jantzirik edaten zuen. **Juan Garzia**

1894-5eko gerra **txino** -japoniara70 piztu ondorengo berrogeita hamar urteetan, [...]. **Iñaki Mendiguren**

2 txinoek kudetazen denda, eskuarki gauza merkeak saltzen direna.

Eta salto batean Ercilla kaleko **txinora** joango banintz? **Patxi Iturritegi**

Txinatik etorri, Goizuetan **txinoa** zabaldu eta, zorrak kitatu ondoren, Shangain euskal jatetxea irekitzera joango den horrena. **Edorta Agirre**

3 auzoez mintzatuz, portu hirietan-eta prostituzio merkea biltzen dena.

Bidea egin du tresna astunak, Bilboko barrio **txinoko** kabaretetatik mendian gora. **Iñigo Aranbarri**

4 jokalarien ukabil itxian zenbat gauza txiki dauden gorderik asmatzean datzan jokoa.

Eztabaidan aritu ziren, alferrikako eztabaidan, eta azkenik **txinoetan** jokatzera erabaki zuten. **Jon Arretxe**

Ez dakit mus ala poker mahai batean geunden (edo **txinotan**, apalxeago jarrita). **Berria - Harian**

Handik pixka batera, **txinotara** jolasean hasi ziren lau, bromatan lehendabizi, baina, geroz eta berotuago, partida bat jokatzen hasi ziren. **Josu Zabaleta**

Denak ari ziren jolasean, nor **txinotara**, nor kartetan, ukulu barruan; ganora handiz, eta negu gauetako behinolako suhartasunaz. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txinoen esperoan (3)

txinotu, txino(tu), txinotzen da/du ad txino bihurtu.

Gero, begiak **txinotzen** badituzue, orbana forma hartzen hasiko da, eta kolore bizi-biziak ikusiko dituzue, hainbeste ze, begiak gehiago **txinotuz** gero, emango baitu koloreak sutan hasiko direla. **Julen Gabiria**

txinpantze 1 iz gizaki itxurako zimino handia, ile-iluna, hezten erraza, Afrikako zuhaitzetan bizi dena(Pan troglodytes).

Primate talde bat gara, eta gu gatozen eboluzio lerroetik giboia duela 25 milioi urte banandu ziren; orangutanak, duela 15 milioi urte; gorilak, 10 milioi urte, eta **txinpantzeak** eta giza primatuek sortu ziren adarraren banaketa duela 6 milioi urte baino ez zen gertatu. **Luis Elberdin**

Tximinoek, **txinpantze** eta gainerako primatuek -gure ahaide biologiko hurbilene- ile-jantzi sarri bat dute, beste animalia gehienek bezala. **Irene Aldasoro**

Homo floresiensis-ek **txinpantze** baten tamainako burua zuen. **Berria - Gaiak**

Ikertzaileek iradoki dutenez, **txinpantzeak** *homo* generoan sailkatu beharko lirateke aurrerantzean. **Berria - Gaiak**

Txinpantze emeek, adibidez, genitalak igurztzen dizkiote elkarri, batez ere klitoria, harik eta orgasmora iritsi arte. **Luis Elberdin**

2 (hitz elkartuetan)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizakien eta txinpantzeen (3)

txinparta (orobat **txinpart** eta **xinpart g.er.**) 1 iz erretzen ari den zerbaitetik jalgitzen den zatiki gorria. ik **pindar**.

Kableak sutan jausi ziren lurrera, **txinparten** artean. **Txema Ramirez de la Piscina**

Soldatze lanetan sorturiko **txinpartek** sutea eragin zuten. Milaka **txinpart** ihesi zihozzen steam-boataren tximiniatik. **Berria - Mundua**

Suziria ziztuka eta **txinpartak** botatzen hasi zen. **Iñaki Mendiguren**

Txinparta batzuk irten ziren haren makila magikoaren muturretik. **Iñaki Mendiguren**

Zaldiak amasestuka zebiltzan [...] apo ferratuez harri koskorak jo eta jo, **txinpartak** atereaz. **Karlos Zabala**

Noiz edo noiz **txinpartak** gau oso-osoa isurtzen ziren iluntasunera, uholde ikaragarri bat balira bezala. **Fernando Rey**

Ihes-tutuari **txinpartak** zerizkion, gau beltzean. **Joxe Austin Arrieta**

Sua garretan isiotzen denean [...] gutxienez badarama bere gorputzean zertatik sua jaurti eta argia eragin eta zertatik **txinpartak** iraitzi eta hautsa urrun zabaldu. **Xabier Amuriza**

Gortuta geratu ginen, **txinpartek** itsututa eta pisu sutsuak apurtuta. **Koro Navarro**

Ahapeka behar hartan, ilintien, **txinparten** eta sutzarren artean, besterik ere entzun genuen. **Txillardeggi**

Malkoak **txinparta** bihurtzen dira. **Josu Zabaleta**

Ustekabeen harrapaturik, Morgulgo hordak sakabanatu egin ziren, **txinpartak** haizean bezala. **Agustin Otsa**

Txinpartari haize emanez gero, su hartzen du; listua botaz gero, itzali egiten. **Elizen arteko biblia**

Txinpartez zipriztindutako ke iluna. **Lopez de Arana**

Txinpartezko kaleidoskopio bat ematen zuen, ezin konta ahala konbinazio eskaintzen zituen dantzarien higitze bakoitzarekin. **Karlos Zabala**

Txinparta -botaka. **Koro Navarro**

2 (izenondoetan)

Orduan ere distira irtetan da eta sua **txinpart** argietan zabalzen. **Xabier Amuriza**

Gure aurrealde osoan zehar fusil-tiroen **txinparta** distiratsua nonahi, metrailadoreak sugarrak tuka. **Mirentxu Larrañaga**

Barreiatu egiten zuen, **txinpart** biziz osatutako azao zabal baten antzera. **Jose Morales**

Pipa sumendi gorri txiki bat zen, zupada bakoitzean **txinpart** indargeak sortzen zituen. **Lopez de Arana**

Labe piztutik ateratzen diren **txinparta** kontaezinen antzera. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Makila buru gainetik altxatu zuen, inguru hautsezatatu hartan bizkor beheratu eta muturretik gorri eta urre-koloreko **txinparta** -saila bota zuen. **Iñaki Mendiguren**

Txinpart sorta handiak ihesi zihozzen guztiz sutan zeuden etxe haietatik. **Karlos Zabala**

Tximisten **txinpart** -euria noizbehinka, beti bezala, eta erlantz gorria motor-oskolean. **Joxe Austin Arrieta**

Zenbait gaeuz, hauspoaz sua bizitzen zuenean, aroztegi barrena eta ingurua **txinparta** -hodei batek inguratzen zituen. **Fernando Rey**

Txinparta -pare bat atera zitzaion muturretik. **Iñaki Mendiguren**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itzaltzean dagoen ikatz-**txinparta** bezala. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Eztarri-zulotik zuziak iritelen zaizkio, su-**txinpartek** ihes egiten. **Elizen arteko biblia**

Hots batek beste bat baitaragi, behin bat sorturik, askotan bidertuz, su **txinparta** hainbat izpitan zabaldu ohi denez. **Xabier Amuriza**

Adelak begietara zuzendu zizkidan bereak, arbeltz-**txinparta** haiekin, ni barrutik urtzerraino. **Juan Kruz Igerabide**

5 irud/hed

Hasiera-hasieratik nabaritu nuen Olasagasti gatzik eta **txinpartarik** gabe ari zela lanean, nekatuta balego bezala ari zela. **Berria - Kirola**

Gorrotoak **txinpartak** barreiatu zituen, eta **txinpartek** sua piztu. *Asillero*ren aferak **txinparta** piztu zuen joan zen urteko irailaren azken egunetan. **Pablo Sastre**

Begietan **txinpartak** zenituen piztuak, eta mihia aldi berean arin eta baldar. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Pianoaren eta txakurraren arteko loturarena azaldu nion, xanpainaren **txinpartak** lagundurik. **Anjel Lertxundi**

Halako **txinparta** bat eduki behar zuen hari esaten zenionak, halako zer kilikagarri bat. **Oskar Arana**

Liburu honetarako lehenengo **txinparta** piztu zitzaidanetik hartu nuen hura gogoan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gizon indartsua lastoa izango da, eta haren egintzak **txinparta**. **Elizen arteko biblia**

Gure amasa kea besterik ez da, pentsamendua bihotz-taupadaren **txinparta** baino ez. **Elizen arteko biblia**

6 (izenondoekin)

Limoi-azala estututakoan eragindako **txinparta** azkar eta biziak sentitu zituen aho-sabaian. **Anjel Lertxundi**

Horrela agertu zait niri ere **txinparta** gorri bat buruan, Ferminek berak esan aurretik aitona egin zuen lotura ulertarazi didana. **Pako Aristi**

Vincent hark istorio hartako **txinparta** nagusia azkenerako gorderik zuen. **Edorta Jimenez**

Harridurarik gabe begiratu dit amak, jakituriaren **txinparta** jostaria begietan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bazuen erudizioa, baina baita arintasuna, umorea eta **txinparta** narratiboa ere. **Berria - Kultura**

Maitasunugarra pizten da ariman, non **txinparta** gozoak saltatzen baitira eta Jainkoaganako sentipen egarberak. **Joan Mari Lekuona**

Horrela, oinordekoa ere kendu egingo didate; gelditzen zaidan **txinpart** bakarra itzali nahi didate! **Elizen arteko biblia**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Begi gorriak ziren, **txinpart** eta tximist kolpez moldatuak. **Felipe Juaristi**

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizi-**txinparta** dario haren garaje-estudioari. **Xabier Olarra**

Asmamen-**txinpart** oro zotopatzeko, moteltzeko eta kamusteko duten gaitasuna. **Juan Garzia**

Jenialtasun-**txinpartek** distirarazitako zezelkatze josigabea. **Jose Morales**

Sormen-**txinpartak** etengabeak dira, eta elkarren pizgarri gainera. **Berria - Kultura**

Neroni ere harrigarri zitzaizkidan buru betidanik makets horretan aldian-aldian distiratzten ziren adimen-**txinpartak**. **Aingeru Epaltza**

Marta bakarrik, negar-zotin emean [...] pentsamendu-**txinparta** bat begietan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Deskribapenak bakarrik ez, pentsamendu **txinpartak** ere badira liburuan. **Berria - Kultura**

Entzule falta sentitu zuen Jimmyk ilunki: umore-**txinpartak** zirt eta zart ari ziren. **Irene Aldasoro**

Eldarnio-uneetan ere bada barne-**txinparta** bat argi egiten diguna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

9 **txinparta-hots** (orobat **txinpart hots** eta **txinpartots**)

Txinparta-hotsak entzun ziren, eta argi dardarati batek konpartimentua bete zuen. **Iñaki Mendiguren**

Erabateko isiltasunaren gainetik egurraren **txinparta hotsa** entzun zitekeen suteetan. Juanes Urkixo
Azpitik zetorren **txinparta-hotsak** azpian sua piztu zutela adierazi zion Harryri. Metal-hots ozen bat entzun zen, gero **txinparta-hotsa**, eta motorra itzali egin zen. Iñaki Mendiguren
Eltzepeko zotzaren **txinpart-hotsa** bezalakoak ergelaren irria, huskeria hutsa. Elizen arteko biblia
Musikaren **txinpartotsak** jarraitu egin zuen. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txinpart hotsa (3)

lehen txinparta (4); **txinparta ateratzen** (3); **txinparta bezala** (3); **txinparta hotsak** (3); **txinparta piztu** (4); **txinparta sorta** (3)

begietatik txinpartak (3); **txinpartak atera** (4); **txinpartak ateratzen** (6); **txinpartak botatzen** (6); **txinpartak zerizkiola** (4)

txinpartadun *izond* txinpartak dituen.

Mutilak ardo txuri gehiago isuri dio edalontzian, ardo apartsua, **txinpartaduna**, berari gustatzen zaiona. Alberto Barandiaren
Kontraesana zirudien inguru serio eta zorrotz samar hartan publizitate kanpaina probokatzaile eta **txinpartadunak** sor eta gara zitezkeela pentsatzea. Iñaki Zabaleta
Hemen hitzak [...] lehendik emanak daude, eta haiei hertsiki lotu beharra dauka idazleak, eta irudimenaz baliatuz testu **txinpartaduna** lortu. Xabier Olarra

txinpartaka *adlag* txinpartak jautiz.

Motorra **txinpartaka** zuela. Elektrizitate kableak **txinpartaka** dabilta, eta sute txikiak piztu dira. Javi Cillero
Lanpararen olioia **txinpartaka** ari zen eta garra gero eta ahulagotuz zihoan kliskada. Juan Garzia
Bizi-bizi **txinpartaka** ari zen beheko sua. Iñaki Mendiguren
Garrak **txinpartaka** goratu ziren berriz. Fernando Rey
Hodei urratua **txinpartaka** distiratu arte. Xabier Amuriza
Xafila **txinpartaka** ari zen, kea zeriola, sutara botatako adar lehorra bezala. Agustin Otsoa
Mendi eta zeruetako suzko zurrumbilao azkon gorien antzera harrapatu, **txinpartaka**, erre eta desagertu egin ziren. Agustin Otsoa
Ezinbestean entzun behar dut **txinpartaka** irakiten dabilen margarina. Urtzi Urrutikoetxea
Halako zorientasun-sentsazio bat **txinpartaka** hasi zen Ellenen baitan. Lopez de Arana
-Zu ere bai -esan nion **txinpartaka** irri zuriz. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiak txinpartaka (3); **txinpartaka ari** (6); **txinpartaka ari zen** (4); **txinpartaka hasi** (3)

txinpartaketa *iz* txinpartatzea.

Proiekzio lanparen intentsitatea jaso zenean [...] 24 Hz-z goiti igo zen maiztasun kritikoa, eta segundoko 24 irudi proiektatzen berriro azaldu zen **txinpartaketa**. Josu Zabaleta
Txinpartaketa -efektu hori proiekzio-lastertasuna oraindik gehiago jaso gabe konpondu ahal izateko. Josu Zabaleta

txinpartatsu (*orobat txinpartetsu g.er.*) 1 *izond* txinpartez betea.

Bilbo, ordea, su apal eta **txinpartatsu** baten ondoan zegoen eserita. Agustin Otsoa
Gar **txinpartatsu** bat harrotu zen zirimolan dirdiratzen zuela. Koldo Izagirre
Basiliskoaren poziak egunerokoan zehar zulo **txinpartatsu** bat egin zuen. Iñaki Mendiguren
-Kaka! -esan zuen marmarka amorruz-, dragoiari muki lehor **txinpartatsu** handiak... igel-burmuinak... arratoi-hesteak... nahikoa da, gero! Iñaki Mendiguren
Beroa eta bart hartutako edaria bezain **txinpartatsua**. Anjel Lertxundi
Abila izan da beti horrelako bitxikeria **txinpartatsuak** aurkitzen. Anjel Lertxundi
Esloganik **txinpartatsuen**, pindartsuena nori bururatzen, eta horixe erabili izan dugu, nori zer esatea komeni zen kontuan hartu gabe. Joxerra Garzia

2 (adizlagun gisa)

Horrela ulertu behar zuten israeldarrek suak, kazkabar artean gartsu eta euripean **txinpartetsu**, etsaien uztak suntsitzen zituela. Elizen arteko biblia
Bigarrenarekin pozik zegoela nabari zitzaion, **txinpartatsu**. Ramon Saizarbitoria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duelarik)

Emakumeak gauero ametsetan ikusten zituen txori koloretsu eta kantu- **txinpartatsu** batzuek. Pako Aristi

txinpartatu, txinparta(tu), txinpartatzen du *ad* txinpartaz bete.

Auzo herrietako begiak erakarri zituen su ekaizta, ortzi sabai ketsu guztiak **txinpartatzen** ikusirik, [...]. Xabier Amuriza
Badago bero hura gogoan ere, honek suminez irakitean eta begietatik su biziagoa **txinpartatzean** erakusten duena. Xabier Amuriza

txinpartetsu ik txinpartatsu.

txinpartots ik txinparta 9.

txinpartu, txinpartu, txinpartzen du *ad*

Okerrera espainoilista itsuenei ematen dizkieten armak dira, izan sozialista edo popularrak, eta **txinpartu** egiten du. Berria - Euskal Herria

txint

1 *txint batean* zorian.

"Argazki bila oraindik etorri ez den J. B." esateko **txint** batean egon zen, baina ezpainak ziturto zituena, ezjakintasuna agertzeko. Joxemari Urteaga

2 *txintik* *(orobat xintik g.er.; ezezko esaldietan)* tutik, batere.

Txintik ez morrosko ilara luze haietan. Txillardegi

Hortaz, **txintik** ere ez nik, zirkinik ere ez. Eskarne Mujika

Nofuturek ez zuten **txintik** esan. Jon Muñoz

Ez zuen, ordea, **txintik** ere esan, ezta oihu egin ere. Migel Angel Mintegi

Burua pittin bat altxatu dute, eta niri begira **txintik** esan gabe geratu. Txillardegi

Halakoetan, ezin gera naiteke **txintik** esan gabe. Mirentxu Larrañaga

Txintik esan gabe ordaindu eta kito. Berria - Mundua

Inork ez zuen **txintik** esan eskola bukatu arte. Iñaki Mendiguren

Buruz aurrera botako ditu Jaunak, **txintik** ere ezin izango dutelarik esan. Elizen arteko biblia

Hirurek **txintik** atera gabe alde egin zuten. Koldo Biguri

Dontsuak ez zuten **txintik** ere ateratzen. Anjel Lertxundi

Txintik ez dik atera, behintzat. Aingeru Epaltza

Isilik geratu ziren, **txintik** ere atera gabe. Elizen arteko biblia

-Albertek ere ez du **txintik** atera- ohartarazi zuen Maxek. Jon Muñoz

Inork ez zuen **txintik** atera gero. Inazio Mujika Iraola

Ongi... zu hemen geldituko zara minutu batzuk gurekin, **txintik** egin gabe eta inora joan gabe. Koldo Izagirre

Azpian, testu bat, berak **txintik** ere ulertu ez zuena: [...]. Jon Muñoz

Lupinek ezezkoa egin zion buruaz, **txintik** erantzun gabe. Iñaki Mendiguren

Hermannek zioen ez ziola **txintik** entzun isiltzea erabaki zuen egun hartatik. Anjel Lertxundi

Berriro ere gertu-gertu zeuden, eta berriro ere ez zen **txintik** aditzen. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ez du txintik (10); **ez duela txintik** (3); **ez zen txintik** (4); **ez zuten txintik** (54); **ez zuten txintik** (7); **ezta txintik** (4)

txintik atera (69); **txintik atera ez** (4); **txintik atera gabe** (37); **txintik aterako** (3); **txintik ateratzen** (9); **txintik ere** (79); **txintik ere ez** (15); **txintik esan** (70); **txintik esan gabe** (29); **txintik esaten** (3); **txintik ez** (7)

txinta¹ 1 iz tanta.

Ur-**txinta** baten mesedea eskertuko genizuke, hori bai. Anjel Lertxundi

2 izpia, argia.

Gero, egunsentiaren lehen **txintekin**, etxeraino eraman ninduten berriro, ibilgailu zaharkitu eta antigoaleko batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

San Balentin eguna bihar da eta, goiz-goizeko **txintan**, zure leihoari so han da egongo dontzeilau irrikan. Juan Garzia

3 argi-txinta argi izpia; egunsentia.

Laino-arte gero eta ugariagoetako **argi-txinta** horikkek lainoetako griskara zama-tsuarenekin kontrastatzen zuten, dirdai eta ubel, abailtzen ari zen arratsari halako misterio-itxura irrealia emanez. Anjel Lertxundi

Argi-txintaren lehen ikarak gauaren gangan bere lekua harrapatu nahian hasi zirela. Pako Aristi

4 egun-txinta egunsentia.

Egun-txintan jaitsiko dira batez ere Ganga ibai donearen uretan beren gorputz-arimak xahutzera. Gotzon Garate

5 gau-txinta ilunabarra.

Auto bat kalean geldituta, garaje baten aurrean geldituta, **gau-txintan**, ordu txikitan. Karlos Linazasoro

6 goiz-txinta egunsentia.

Eta **goiz-txinta** etorri berri hark, argiaz gainera, gihar-minak ere ekarri zizkigun, gorputz-ajea. Karlos Linazasoro

Ez zen **goiz-txinta** guk nahi orduko iristen. Karlos Linazasoro

Eta orduan geureak izanen dira **goiz-txintak**, itsasoak, mitxoletak, ansfelbitak, hiriak eta gauak, hariztiak, liburuak, zorionaren poro guztiak. Karlos Linazasoro

Goiz-**txintan**, esnatu nintzelarik, paretaren kontra eserita ikusi nuen, erretzen; ohea desegin gabe zeukan. Juan Kruz Igerabide

Goiz txintan haur isila iratzarri eta amaren esnea hartu zuen. Anton Garikano

Uda batean **goiz txintako** argi urratzean pasealdi zoragarria zena ibilaldi luze eta neketsua zen orain, elurretan. Xabier Mendiguren Elizegi

txinta² iz txoriez mintzatuz, kantua.

Aitak gogoko ditu hegatzabalak, gogoko du ikustea nola egiten duten gorantz, goraino-goraino igotzen baitira, haien **txinta** bakarrik entzuteraino. Mirentxu Larrañaga

Kantatuko dugunean, gerezi denbora, zozo zirtolariak, orduan bai ederra **txinta**. Inazio Mujika Iraola

Hitz egiten omen zuen txoritxoan **txinta** azkarrak bezala, ingelesa eta frantsesa nahastuz. Berria - Kultura

Gasteizen fusilatuko dute, goiz eder batean txindor baten **txintek** goxotan dutela. Edorta Jimenez

Pertsianaren arteketatik isurtzen zen argi ezdeusak eta txori bakanen **txintak** aski izaten zitzaizkidan ohartzeko, bizitzak, nire arazoak gorabehera, aurrera egiten zuela eta nire egoera erlatibizatu beharra neukala. Patxi Zubizarreta

txinta³

1 txinta egin

Zerbaitek **txinta** egin zuen lurra kolpatzean, eta burua altxa nuen. Bernardo Atxaga

txintaka adlag txoriez mintzatuz, kantuan.

Goizalbaren lehen argi ubelak laster hasiko ziren **txintaka** ekaitz gero eta goitiagoaren adarretan. Anjel Lertxundi

txintik ik txint 2.

txintxamaria ik **txintxamari**.

txintxar 1 iz hartxintxarra. ik **txintxarri**².

Atzo ordu honetantxe bezala, eguerdia eta uhin barexka haiek, ia nabarmetzen ere ez direnak, aparretan errenditu eta **txintxarretan** barrena txintxarriak; isilunea ondoren, eta berriro gauza bera. **Joxe Austin Arrieta**

Rauschembergen lanen hondarrak, lbaizabalek eramango ditu itsasora eta Txillidaren eskulturak **txintxar** bihurturik, Deustuko Unibertsitateko leiarrak apurtuko dituzte.

Hasier Etxeberria

2 irud/hed

Molekulatxoak abian gora eta behera hasi direneko, eta ur-ttanttak goraka jeltzen direneko, txoke eta tupust dabiltz, jeltaxo eta izotz **txintxarrok**, hodeiaren masa hori elektrizitatez kutsatzen. **Pello Zabala**

Ur-tanta tamaina eta keru guztietakoak, kazkabar **txintxarrak** banaka, harri-txingor kozkorturik aleka, eta tartean elur-maluta ondo gorpuztu gabeak. **Pello Zabala**

3 harri txintxar hartxintxarra.

Erdialdean, lorategiaren ardatz, ibilbidea zegoen, **harri txintxar** zuriz hornitutakoa. **Bernardo Atxaga**

Euria egiten duenean ez dute hainbesteko hotsik ateratzen **harri txintxarrek** hankapean. **Koldo Izagirre**

Harri-txintxarrek kexu ozena ateratzen dute gure ibilian. **Koldo Izagirre**

Haien esana amuarrainaren mugimendua bezalakoa balitz bezala,aldi berean ikus daitezkeenean uraren izurrak eta **harri txintxarrak**. **Anton Garikano**

Harri-txintxararen karraska aditzen zen, landauaren gurpilek zanpatzean egiten zutena. **Xabier Olarra**

Kiris-karras, pasabideko **harri txintxarren** gainetik, panteoi bateraino joan dira. **Patxi Zubizarreta**

Euria egiten zuenean, sekulako putzuak egiten ziren, **harri txintxarrezko** zoruan. **Joxerra Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harri txintxar (4)

harri txintxarrak (6)

harri txintxarren (4)

harri txintxarrezko (3)

txintxarri¹ 1 iz zintzarri txikia.

Ezkilak eta **txintxarriak**, traktore soinuak, urruneko moto baten durunda... **Hasier Etxeberria**

Dantzariaren orkatiletako **txintxarrien** arabera hartzen genuen arnasa: haiekin batera larrituz, haiekin batera lasaituz. **Bernardo Atxaga**

Karroza bakoitzetik tiraka, berriz, lau zaldi beltz, **txintxarritz** beteak. **Joan Mari Irigoien**

Denei ondo iruditu arren gero ez da inor ausartu katuari **txintxarria** jartzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Laurak inguruan telefonoaren **txintxarriak** neure gogoeta astunetatik atera ninduen. **Gotzon Garate**

Txintxarriak bezalakoak ziren, baina soinu tristekoak. **Bernardo Atxaga**

2 (hitz elkartuetan)

Berdez margotutako atearen ertzeko kate bati tira egitean **txintxarri** hotsa entzun zuen barnealdean. **Joxemari Urteaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txintxarri hotsa (4)

txintxarri² iz hartxintxarra. ik **txintxar**.

Biharamunean, hondartzara joan nintzen autoz: oskarbi eta bero, eguerdia eta olatuak bare: uhinen urradura, eta ondorengo **txintxarri**-soinua legarretan barrena. **Joxe Austin Arrieta**

Joanesez, geldi eta inora ezin, sarjentua etxetxora itzultzen ikusi zuen, haren oin-hotsak harri **txintxarrien** aurka entzun zituen. **Felipe Juaristi**

Gure lanak eta ekarpenak, egin ahala, xumeak direla, **txintxarriak** bide malkar amaigabeen. **Berria - Kultura**

txintxarrika *adlag* txintxarri hotsaz.

Berriro sapa urdin hura itsasoaren gainean: atzo ordu honetantxe bezala, eguerdia eta uhin barexka haiek, ia nabarmetzen ere ez direnak, aparretan errenditu eta txintxarretan barrena **txintxarrika**; isilunea ondoren, eta berriro gauza bera. **Joxe Austin Arrieta**

txintxartu, txintxar(tu)m txintxartzen da/du *ad* txintxar bihurtu.

Armarik gabe, hitza **txintxartua**, ez zegoen erraza borrokatzen. **Karlos Linazasoro**

txintxeta iz iltze modukoa, buru zapal eta zabalekoa, paperak pareta edo kideko batean finkatzeko erabiltzen dena.

Arkatzak gordetzeko egundoko potoa zen, tiraderekin: bat, klipentzako; beste bat, **txintxetentzako**; borragoma gordetzeko tokiarekin eta halakoekin. **Jesus Mari Mendizabal**

Korridorearen bukaeran pareta bat beltzez margotu zen eta bertan **txintxetekin** horma-irudiak eta margolanen kopia josi zituzten. **Fernando Rey**

Panel eskerga horretan argazkiak, eskemak eta grafikoak, mapak eta han-hemendik harturiko ebakinak eta prentsa orri moztuak zeuden **txintxetaz** josita. **Joxemari Iturralde**

Hara non ikusten dudan orduantxe, atearen markoan **txintxetaz** josia (horretarako propio kortxo bat dagoen arren), zera bat, eskela bat. **Karlos Linazasoro**

Atea hatzez markatuta zegoen eta han kobrezko **txintxetetz** kontu handiz eutsitako txartel bat ageri zen, *Sunderland* izena behialako ingelesaren karakterez idatzirik zeukana. **Lopez de Arana**

Arratsaldeko bostetan karrikatura hura **txintxeta** batekin irteerako atean zintzilikatu genuen Goiok eta biok. **Joseba Sarrionandia**

Zintzilik jartzen zuten etxe-sarrerako armairutik **txintxeta** batez. **Xabier Etxabe**

Txintxeta bat zapaltzen baduzu, segundo hogeiren batean egingo du atzera oinak. **Irene Aldasoro**

txintxilatu, txintxila(tu), txintxilatzen du *ad* zintzilikatu.

Senar gaiaren palto beltz distiratsua gainean **txintxilatu** zuen zilarrezko izarra irudikatzen zuen gauzatxoa, **Itxaro Borda**

txintxilik ik **zintzilik**.

txintxilika ik **zintzilik**.

txintxilikario ik **zintzilikario**.

txintxilikatu ik **zintzilikatu**.

txintxilu (*corpusean txintxillu soilik*) iz zintzilikarioa.

Bai politikak hurritzaren **txintxillu** horiek! **Patziku Perurena**

Geroxeago, neguko eguzkiaren dindai epelak joko ditu tarteka **txintxillu** miragarri horiek, eta urrezko laztanez goxatu. **Patziku Perurena**

txintximari ik **xintximari**.

txintxirrikatu, txintxirrika(tu), txintxirrikatzen da/du *ad* birrindu.

Jainkoek gizoneri Egia eskaini ziotelarik lurreratzean **txintxirrikatu** omen zen; jendeek puskak bildu zituzten... **Herria**

txintxirrin iz haurren jostailua, gider batek eta astintzean hots egiten duten kaskabilo batzuek osatua.

Arrazoiaren adinera heldu baino lehen, jostatzeko **txintxirrina** apurtzen du haurrak, bere inudearen titiari hozka egiten dio, lepoa bihurtzen dio txoriari. **Juan Martin Elxepuru / Bego Montorio**

Lepokoak, koroak, bularrekoak, sudurrekoak, tribuen maskarak, animalien irudiak txoriak eta sugandilak, besteak beste, ontziak, kaikuak, makilak, **txintxirrinak** ... **Berria - Kultura**

Kobrezko **txintxirrinez** eta suge-koskabiloz jostarazten baitzuten haurra. **Juan Garzia**

txintxo (*orobat xintxo g.er.*) 1 izond adkor zintzoa.

Neska **txintxoak** zerura eta sorgin gaiztoak galaxiako bazter guztietara. **Patxi Iturritegi**

Eman nahi diguten bertsio ofizialak bi bandori buruz hitz egiten digu: polizia **txintxoena** eta lapur gaiztoena. **Berria - Kultura**

Zer interes izan dezake zuretzat ume inuxente **txintxo** horrek? **Fernando Rey**

Txakurrok bai lagun **txintxo**! **Gotzon Garate**

Dena liberal **txintxo** eta kontserbadore-karlista gaiztoen ipuin ezagunaren zelofanean bilduta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Odolkiak, beltzak eta kiribilduak, suge **txintxoak** iduri; andoilak, binan-binan pilatuak, osasuntsuak eta apartak. **Karlos Zabala**

Basatia izateari guztiz utzi ezin dion otso **txintxoa**. **Berria - Harian**

Itxuraz animalia ergela ematen badu ere, oso ernea eta nagusiarekin **txintxoa** omen da. **Gotzon Garate**

Mutil kokxor beltxaran **txintxo** eta serio bat zen Stephen. **Xabier Olarra**

-Orain eskua eman elkarri eta **txintxoak** izan. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan)

Une hartan, ordea, **txintxo** itxura zuen, onerako. **Oskar Arana**

Gelditu dira beraz korrikalariak, eta **txintxo** -aurpegia jarri ere bai erretolika entzuten duten bitartean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 (gauzei buruz)

Hegan egiteko estilo bihurri bat, ideologien kaiolak eta koherentzia **txintxoaren** txorimaloek izutzen ez dutena. **Iñaki Segurola**

Hitz **txintxo** bezain baztertzaleak. **Karlos Zabala**

Izadia jarraitua balitz, eta haren bidea hausturarik eta etenik gabeko bide **txintxoa**, jaurizirik eta bat-bateko aldaketarik gabea, a zer biguna litzatekeen mundua! **Jon Muñoz**

4 (adizlagun gisa) ik txintxoki.

-**Txintxo** ibili. **Koro Navarro**

-Heu ere -erran nion, eskuetan eusten zion lantza odoloztatuari begira-, ez hintzen, ba, oso **txintxo** portatu. **Alberto Ladron Arana**

Txintxo asko ibili behar izaten geninan, eta agudo etxera gainera, eta isilik geratu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

5 txintxo-txintxo izond

Hura eta biok Txile kalean gora genbiltzan elkarrekin, behar bezalako neska **txintxo-txintxo** plantan. **Karlos Zabala**

Ba ote dago une berean politikoki handi bat eta kristau **txintxo-txintxo** bat izaterik? **Joxe Azurmendi**

6 (adizlagun gisa)

Katek bere txandari **txintxo-txintxo** itxaron dio ate ondoan. **Sonia Gonzalez**

Gazteak txintxo-**txintxo** ibiltzen dira. **Berria - Kirola**

Egun guztia emango zuen bere jarleku txikian **txintxo-txintxo** eserita, baldin eta arratsean gozoki bat ematen bazioten sari. **Karlos Zabala**

Animaliek **txintxo-txintxo** obeditzen diote naturaren aginduari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Pittin batez egin dit tira uhaletik hasieran; baina berehala etsi du, eta **txintxo-txintxo** etxeraino lagundu Fernandok bukatzen zuenean, eskerrak ematen zizkion **txintxo-txintxo**, ikusi behar zenuen. **Txillardeggi**

Irakurgelatik irteetan, argia itzali zuen **txintxo-txintxo**. **Aitor Arana**

txintxo eserita (3); **txintxo hori** (4); **txintxo txintxo** (33); **txintxo txintxo eserita** (3); **txintxo txintxo** (3)
neska txintxo (3); **txintxo izan** (5)
txintxoak izan (3)

txintxoki *(orobat xintxoki g.er.) adlag adkor zintzoki. ik txintxo 4.*

Txintxoki erranen dut, orain... **Menane Oxandabaratz**

Kasetalari batek jakitea bisian-bisekoak erantzuten duenez xuxen, edo... **txintxoki**, edo pixkat gordetzen denez, edo... **Menane Oxandabaratz**

Euskaraz bititze hori, ehuneko honenbesteko handi batean, D ereduko bizimodu bat aukeratzea da [...] kontzientzia izeneko poliziak bere buruarentzat egiten duen aukera bat, ohartuki, deliberatuki, **txintxoki**. **Iñaki Seguro**

txintxola

1 *harri txintxola* harri txintxarra.

Lili zuri bat harri-**txintxolen** artean. **Xabier Montoia**

Etengabeki higitu eta itxuraldatzen den ordoki urdina begietsiko zenuke, harri **txintxolazko** ozeano idor honen orde. **Xabier Montoia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harri txintxolak (4)

txintxorro *iz ondo laua duen txalupa txikia.*

Pabetan lotutako potinak batelak txalupak txanelak **txintxorroak**. **Koldo Izagirre**

Halako **txintxorro** bat ipini eutsien, barkutik barkura pasetako. **Xabier Amuriza**

Hamar litro hek ahitutakoan **txintxorroa** berriz hartu eta hor ikusten nuen bazihoala ontziola flotantearen gibeletik, ur onenaren xeka. **Koldo Izagirre**

Xintxorroen lotura erraz lasaitzen du. **Berria - Kultura**

txintxosta *iz txirikorda.*

Emakumeek ilea hagitz luzea, ia gerriraino eramaten dute, usu **txintxostan**, txirikorda egina. **Gotzon Garate**

txintxotasun *(orobat xintxotasun g.er.) iz adkor zintzotasuna.*

Beste menditar horien dohainen bat faltako zaigu apika, *savage* horiek batzuetan izaten duten **txintxotasuna** eta soiltasuna, adibidez. **Bernardo Atxaga**

Kolegioan pasatutako denborak aldatu egin zuen nire lekuari buruzko begirada, eta aurrerantzean zorrotzago aztertu nuen, haur garaietako **txintxotasunik** gabe. **Bernardo**

Atxaga

txintxotu, txitxo(tu), txintxotzen 1 da/du ad zintzotu.

-Asko **txintxotu** haiz. **Urtzi Urrutikoeetxea**

2 (era burutua izenondo gisa)

Etxean gelditu eta sukaldeko lanak egiten badituzu, neskame **txintxotua** deituko dizute mahaxiz. **Patziku Perurena**

txio 1 *iz txorien kantu labor eta errepikatua. ik txiotxio; tiuta; pio; txorrotxio.*

Animalien orroak edo txorien **txioak**. **Oskar Arana**

Haizea, ahotsak, txorien **txioak**, hostoen xuxurlak. **Agustin Otxoa**

Baratzeko txoriren baten **txioak** entzuten ziren. **Josu Zabaleta**

Soilik errekararen berezko marmarra eta inguruko birigarroen **txioa** baino ez zen entzuten bazterretan. **Hasier Etxeberria**

Gero eta hurbilago sentitzen du hiru txita eta ama oiloaren zirin-usaina, eztitan ditu belarriak hegaztien **txio** alaiekin. **Anjel Lertxundi**

Txori kaiolatu eta tristen **txio** etsiak entzun nituen. **Berria - Kultura**

Orduantxe bakarrik hasi zen maiatzeko egunaren argitasunaz eta txorien **txio** gazteez ohartzten. **Joxemari Urteaga**

Egunsentiak gela barrera ñabardura urdinez margotu zuen, eta txolarreen **txio** traketsa inguratu zen leihora. **Ramon Saizarbitoria**

Enarak *txotxi-txotxi* (" **txio** berezi onekin azaltzen dute beren estuasuna ta samiña"). **Iñaki Seguro**

2 (hitz elkartuetan)

1879ko maiatzaren 21ean ezkondu ginen, eguratsa lore urrinez eta txori-**txioz** mukurru agertzen zen larunbat dirdaitu batean. **Txillardeg**

3 irud/hed

Egin otoitz nahi duzun beste, baina ez diozu **txio** bat ere entzungo Hari. **Oskar Arana**

4 *txio egin*

Kanarioak **txio egin** zuen bere kaiolan. **Matías Múgica**

Nork prestatzen dio beleari jatekoa, beraren kumeek, goseak nora-ezean dabiltzalarik, Jainkoari **txio egin** diotenean? **Elizen arteko biblia**

Emakumeek **txio egin** zuten katiluen tintinen artean, txoriek txoritegian bezala. **Lopez de Arana**

Habian utzitako arrautzak hartzen diren bezalaxe hartu dut neuretzat lur guztia, eta ez zuen inork hegalki mugitu, ez **txio egiteko** mokerik zabaldu. -Baina zenbait antzeppen on ere eman dituzte -**egin** zuen **txio** Miss Goldweiserrek. **Elizen arteko biblia**

5 *txio-txio* ik txiotxio.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txio egin (3); **txio txio** (5); **txio txioa** (6); **txorien txio** (4)

txioa *adlag txio egin.*

Txoriak airean **txioka** eta amuarrainak, gorritz jantzita, errekan gora igeri. **Rafa Egiguren**

Txoriak dabilta goialdean, eta **txioka** ari dira. **Mirentxu Larrañaga**

Enara **txioka** bezala ari naiz intzirika, usoa urrumaka bezala. **Elizen arteko biblia**

Enarak aldratan **txioka** ari esnatu naiz gaur. **Txillardegi**

Alai eta kaskarin salto batez jaitsi ziren bagoitik, txolarre jantzidunak balira bezala, eta gutxik egin zuen ez baitziren **txioka** hasi. **Matías Múgica**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txio txioka (6); **txioka ari** (8); **txioka ari ziren** (3); **txioka hasi** (3); **txoriak txioka** (7); **txoriak txioka ari** (3)

txiokari *izond/iz* txioka ari dena. ik **txiolari**.

Ene Errepublikak indartsua berak asmatu Kuku-Herri **txiokariarekin** erkatzen. **Itxaro Borda**

txiokatu

Fawkes buru inguruan zebilkinson itzulika, bere kanta misterioitsua **txiokatzen**, han-hemenka basiliskoaren sudur ezkatatsuari mokoka, haren begi itsutuetatik odola irteten zen bitartean. **Iñaki Mendiguren**

txiolari (*corpusean xiolari soilik*) *izond/iz* txioka ari dena. ik **txiokari**; **txiotxiolari**.

Hegazti tiki nahiz handiak, kukua bezala enara **xiolariak**, eltxo nahiz euli-mandoak, tximeletak eta matxinsaltoak. **Pello Zabala**

txiotxio (*orobat txio-txio*) *iz* txorien kantu labur eta errepikatua.

Eta txoriaren **txiotxioak** ozenki entzuten ditugu honako esaldi kantari honetan: [...]. **Iñaki Arranz**

Gelako isiltasuna, lumak paperaren kontra ateratzen zuen hotsa baizik asalotzen ez zuena, txonta baten **txio-txioak** urratzen zuen noizik behinka. **Karlos Zabala**

Txori xeheen **txio-txio** baketsua eta martxo bukaerako kukuaren kanta. **Itxaro Borda**

Idia bezain eraman handikoa, azeria bezain zorrotza, zaldia bezain azkarra, txorien **txio-txioa** bezain alai. **Jon Alonso**

txiotxioka (*orobat txio-txioka*) **1 adlag** txiotxio egiten.

Txorien modura zuhaitzez zuhaitz dantzan, txorien modura **txio-txioka** kantari. **Felipe Juaristi**

Txoritxoak kantari eta **txiotxioka**, axuleiu kolore-galduak galeriako hormetan. **Karlos Zabala**

Txoriak **txio-txioka** ari ziren, haize errotak jiraka. **Koro Navarro**

Txoriak ehunka eta milaka abiatzen ziren hegan, **txio-txioka** pozaren pozez. **Karlos Zabala**

2 irud/hed

Telefonoa belarrira daramat, eta Brightman bera da hariaren beste aldean **txio-txioka**. **Oskar Arana**

txiotxiolari *izond/iz* txioka ari dena. ik **txiokari**.

Nor engainatu nahi dute gure heroi berri **txiotxiolari** sasijaintokuek? **Karlos Linazasoro**

txiotxioztatu, txiotxiozta(tu), txiotxioztatzen (*corpusean txio-txioztatzen soilik*) *du ad*

eta Mohammedak huraxe [Jomeini] maite zuen mundu honetan beste ezer baino gehiago, harik eta neska alemaniar musugorri bat Tiroleko kantuak txio-**txioztatzen** hasi zizaitza arte, jakina. **Joxerra Garzia**

txip **1** *iz* silizioz edo kideko gai batez eginiko zirkuitu elektronikoa, beste osagai batzuekin loturik bereriazko funtzioa betetzen duena.

Pentium Iko **txip** batek, eta hau izan da mendearen azken urteetan gehien erabili izan den **txipa**, 7,5 milioi transistore inguru ditu barruan, eta bit bakoitza mila atomo inguruan dago bildua. **Pello Salaburu**

Ordenagailuko **txip** baten tamainukoa da aparatua, eta irrati uhinak helarazten ditu. **Berria - Gaiak**

Apple ordenagailuak Intelen **txipekin** funtzionatuko dute aurrerantzean. **Berria - Gaiak**

Aginduak buruan jarritako **txip** baten bidez obedituko balituzte bezala, denek eusten zidaten mugari ez nendin, eta are gutxiago ihes egin nezan. **Jon Muñoz**

Etorkizunean identifikazio txartela patrikan eraman ordez, **txip** antzeko bat txertatuko digute guri ere. **Edorta Agirre**

Txartel berriek betiko banda magnetikoa izango dute, baina baita **txipa** ere. **Berria - Harian**

Bizkar zorroetan ezarritako **txip** baten bidez, ikaslea eskolara noiz sartzen eta ateratzen den jakingo du eskolako ordenagailuak. **Berria - Gaiak**

Coca-Cola lata berriak sakelako telefonoen **txip** bat eta GPS bat du. **Berria - Mundua**

Txip digitala duen txartela abian jartzea ona litzateke. **Berria - Ekonomia**

2 irud/hed

Lau t'erdikoa galtzea kolpe gogorra izan zen, eta **txip**-a aldatu eta binakakoan hastea ez zen batere erraza izan. **Berria - Kirola**

Ea gure problema miopia den, dagoena ez ikustea, ala burmuinekoa, hau da, **txipa** aldatu beharra. **Ana Urkiza**

Arazo kulturalak, nolabait; azken batean arrunki **txip** aldatetaz ezagutzen den horrekin zerikusia dutenak. **Iñaki Heras**

Aldaketa garaia baita hau, diskurtso politiko berrien garaia, politikak behar duen tokia hartzeko garaia, **txip** asko aldatzeko tenorea. **Berria - Harian**

Halere, gure buruetan neguarekiko dugun **txip** hori ezin da eroso sentitu, urtarrilean eguzki garbitako egunak bata bestearen atzetik trailan ikusten ditugunean. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txipa aldatu (10)

txipa ik txipa.

txipatu, txipa(tu), txipatzen *(orobat xipatu)* da/du *ad* blai egin.

Bi neska pollit pasatu ziren nire ondotik eta irri egin zidaten zorrotorik gabe euritan **txipatzen** ari nintzela ikusita, [...]. **Fernando Rey**

Zolan kristal hautsiak [...] galtzontzilo odoldu batzuk, aspaldi odolez **txipatua** egondako musuzapi bat. **Fernando Rey**

Udaberri hastapenetako apirila maitagarrien argitasunaren apurra golkoa inarosten zidan, bide napurretarik nindoala, haize kontra eta hezurretaraino **txipatua**. **Itxaro Borda**

Soingainekoa erabat urratu zen eta ni buruz beheiti erori nintzen legarrezko zola beltz olioz eta lurrunez **txipatura**. **Fernando Rey**

txipi *(72 agerraldi, 9 liburu eta 29 artikulutan)* izond txikia. ik **ttipi**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sudur txipia (3)

txipigarri izond txikigarria.

Elkarri izena baino maizago izenaren laburdura edo **txipigarria** edo goitizena esaten genion gero eta aspaldiz ederragoko garai hartan, deitura zuen gizon honek izena.

Koldo Izagirre

Txomin Peillenek zubererako **txipigarriez** ari delarik hala dio: [...]. **Patziku Perurena**

Maulen gaskoinak dira nagusi, eta -ET eta -OT **txipigarriak** hartzen dituzte. **Patziku Perurena**

txipiño izond txikitxo.

Begi aurrean mirail **txipiño** bat baleuka bezalaxe. **Koldo Izagirre**

Neska **txipiño** hura beso artean estutzeko gogo handia etorri zitzaion. **Koldo Izagirre**

txipiroi *(orobat xipiroi g.er. eta xipiron g.er.)* 1 iz molusko zefalopodo gorputz-luzarana, jateko ona, alboetan hegala moduko bana eta garroetako bi oso luzeak dituena, isurkari beltz bat jaurtikitzen duena (*Loligo vulgaris*).

Muturzorrotzak zer diren jakitea ez da gaur gauza erraza, baina potxak -pota, **txipiroiaren** antzeko animalia, handiagoa eta zabalagoa- harrapatzeko era bertsua erabiltzen da. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Barkuetako pinturak ere egiten omen du kalte dexente, **txipiroiei** aldarazi egiten omen die sexua, esan zuen *greenpeace*ko batek. **Pablo Sastre**

Txipiroi erraldoia aintzira gainean nagi-nagi nola ibiltzen zen ikusiz. **Iñaki Mendiguren**

Beñardo, Imanol, Atanasio, Floren, Martxel, **txipiroitan** ari ziren oraindik. **Koldo Izagirre**

Gau hartan Zierbenako arrantzale bik, **txipiroietan** ari zirela, bera eta balea marraduna ikusi zituztela. **Paddy Rekalde**

2 (janari gisa)

Txipiroiak prestatzeko zuen era nazkagarria. **Iban Zaldua**

Paella edo **txipiroiak**, zer den hobea eztabaidatzea. **Luis Elberdin**

Hara zer prestatzen ari naizen gaur: **txipiroiak** tintan, baina neure ukitu originalaz, ardo zuriaz bustita. **Jon Arretxe**

Txipiroiak dastatzeko aukera ere izan zuen batek baino gehiagok. **Berria - Kirola**

Txipiroi erre puskak eta tomate zati gorriminak. **Jon Muñoz**

Egun batean galdetu zidan egia ote zen **txipiroiak** beteak saltzen zirelako. **Koldo Izagirre**

3 (hitz elkartuetan)

Andreak haragi egosi gehiago eta **txipiroi** ale batzuk ekarri zituen. Dendatik ekarritako baratxuri-olio errea edo **txipiroi**-salsa beltza gaineratuko dio. **Inazio Mujika Iraola**

txipiroiketari iz txipiroitarako txalupa.

Portu hau aldiz, barku, txalupa, **txipiroiketari** eta arrantzarako apailatu edozein ontziz gainezka zegoen. **Elena Touyarou**

txipitasun 1 iz txikitasuna.

Akaso bere gogo arazok, bere gogo **txipitasunarekiko** borrokak, eraman zuen egilea lan hari ekitera. **Iñaki Iñurrieta**

2 (hitz elkartuetan)

Mirafloresko zubipetik igarotzean berpiztu zitzaion **txipitasun** sentsazioa. - Estalkiak alde batera eta, paper zuria belzten hasi, gogo **txipitasun** itogarriaren kontra borrokan sartzeko. **Unai Iturriaga**

txipitu, txipi(tu), txipitzen 1 da/du *ad* txikitu. ik **ttipitu**.

Begiak **txipituak** zitzaizkion, sator bat iduri. **Aingeru Epaltza**

Bi urte lehenago bezain segaila zegoen, eta ez zitzaion **txipitua** sudur-kako handia. **Aingeru Epaltza**

Bera publikoari hurbilena den egitura dela aho beteka kantatzen duen momentu berean, letrakari eta gixeteko langile kopurua **txipitzen** ari da Posta. **Herria**

CFDT-ek uste du lan postuak kenduko dituztela, publikoaren errezibitzeko orenak eta ere postatzeko ordutegia **txipituko**. **Herria**

2 (era burutua izenondo gisa)

Hatsa nondik hartu ezinik zeuden erresumaren indar **txipituak**. **Aingeru Epaltza**

txipitxapa iz pl/nork aldean daramatzen gauza xeheak.

Argi-itzal artean, gizonak zuen neurriaz ohar zaitezen, haren arropa handiak dituzu, hari eginiko argazkiak, hari ebatsitako gauzak eta **txipitxapak**, eta loturak zer diren.

Iñigo Aranbarri

txiqli-txapla 1 *adlag* uretan ziprztinak ateratzen.

"Hotza dago" esan du batek, makurtu eta eskua **txiqli-txapla** sartuta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Mutilaren ibilera sentitzen dut, **txiqli-txapla**, urrutiratzen. **Anjel Lertxundi**

2 (izen gisa)

Bere bila itzul zitezen gerlariei deitzeko asmoz besoa altxatu zuenean, **txiqli-txapla** batek, negar-zotin batez lagundua, bere arreta erakarri zuen. **Joanes Urkixo**

Baina bere zakilak nire baitan jarraitzen du mirakuloski, hain atsegina dudan **txiqli-txapla** hori entzuten dut. **Juan Martin Elexpuru**

3 *txiqli-txaplaka adlag* txiqli-txapla.

Harriekin **txiqli-txaplaka** ibai bazterreko ur uhurretan. **Jokin Muñoz**

Bi ordu baino gehiago neramatzan, barra pareko jarleku garaitik ikararik egin gabe, ene burmuinetako kaka artean **txiqli-txaplaka**. **Aingeru Epaltza**

txipretar ik zipretar.

txipristindu ik ziprztindu.

txirbil 1 *iz* zuraren gainetik marrusketa-edo pasaraztean ateratzen den xafla modukoa, mehea eta kiribila; xafla horien multzoa.

Metala urratzarekin batera, **txirbil** fin-finak harrotzen zituen zizelak. **Iñaki Iñurrieta**

Egurra marruskatzeko makinan eta zerren artean, etzanda egon behar izan genuen **txirbilaren** gainean. **Rafa Egiguren**

Arotza, iltzeak ahotik kendu, amantaletik **txirbila** astindu eta zain geratu zen. **Harkaitz Cano**

Amak **txirbil** batzuk bota zituen su-zulora. **Anjel Lertxundi**

Urratu papera eta, **txirbil** artean hain justu ere, hexurrezko uztaitxo bat ikusi nuen. **Bernardo Atxaga**

Txirbilen artean zerbaiten bila ari dela ikusi du. **Iñaki Iñurrieta**

Txirbilez beteriko lastairen gainean. **Juan Garzia**

Nik esango nuke parkeak iman batek bezala jokatzeko duela eta, metalezko **txirbilak** bezala, Caulfieldek burutzen dituen ekintza guztiak norabide hori hartzen dutela.

Bernardo Atxaga

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txirbil poltsa bat lortu, eta lurtean lo egin ahal izango dugu. **Josu Zabaleta**

Eskailerako esku-karrila arras-arras lixatzen segitzen du, **txirbil** hautsa erortzarekin batera zuraren baitako begi batzuk itsutu eta barruragoko begiak eta korapiloak agerian utziz. **Harkaitz Cano**

Eskua pasatzen zuen gainazaletik, **txirbil** arrastoak kentzeko, eta putz egiten zuen horrekin batera. **Iñaki Iñurrieta**

Mailua utzi eta eskua pasatu zuen plakaren gainetik, eta putz egin zion gero, **txirbil** hondarrak kentzeko. **Iñaki Iñurrieta**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kolpe haiek ahalik eta gehien leuntzeko, zapi bat zur **txirbilez** beteta jarri du Peterrek ate buruan. **Josu Zabaleta**

Lantzoi meheek, zurrin-zurrin, eztainu **txirbilak** ziruditen. **Karlos Zabala**

4 irud/hed

Bikaina izan zen interpretazioa, begiak malkotan jartzerainokoa, eta amaieran eskuetatik **txirbilak** atera arte ekin genion txaloka. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bihotzetik erazutitako **txirbil** multzoa dira erroberaren arrastoak. **Iñaki Iñurrieta**

Ez dago lekurik non ez den pizza papurrik edo Parmako gazta **txirbilik**. **Patxi Iturrategi**

Oraindik gorde du pagoak, bere **txirbilezko** memorian, 5.000 urte iraun zuen ibilaldiaren oroimena, mugimenduaren nostalgia. **Pako Aristi**

txirbildu *izond* txirbil bihurtua.

Bera bezala barrari helduta daudenek osatzen duten ilarari begira jarri da Gabin, bihotz **txirbildu** bakartien klubeko banda, *mes frères, mes semblables*. **Iñaki Iñurrieta**

txirbiltxo *iz* txibil txikia. • *irud/hed*

Metalaren gainazalean egiten zuen lerro bakoitzarekin batera, **txirbiltxo** harrotzen zuen. **Iñaki Iñurrieta**

Kubalibre, gintonic eta topolinoek bilduko dizkigute barruko **txirbiltxo** guztiak, pixa arradetan iraitziko ditugu komunetik behera. **Iñaki Iñurrieta**

Mahaia eta trasteak altxatu dituzte, eta orduan ikusi du Gabinek mahaie izandakoa dena **txirbiltxoz** josita, egindako lanaren aztarna, hondar. **Iñaki Iñurrieta**

txirene *izond* asmotsua eta adar-jotzailea.

-Gizon **txirenea**, Bilbon esaten den moduan esanda -esan zuen bisitariak. **Edorta Jimenez**

Gizon isila zen Manuel fabrikari, Mantxako gazte **txirenetik** arras aldatua. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Madrilgo Sarearen hori idazle **txirenearen** beste ateraldi xelege batzuen sortan sartuz, barregura kasik ezin eragotzi. **Edorta Jimenez**

*La Gaceta*ko zuzendari jauna den eskuindarrari **txirene** begitantzen zaio Desperdicios -hondakinak- ezizena. **Edorta Jimenez**

txiri ik txirri¹.

txiribi *iz* arbiaren antzeko landarea, erro mamaitsu jateko ona duena.

Eltzekarirako barazki sorta lotuak ere saltzen zituen: lau porru, hiru azenario, **txiribi** bat, bi arbi, bi apio hosto. **Karlos Zabala**

Txiribi ardoa besterik ez dago. **Koro Navarro**

txiribiri¹ *iz* metalezko txirbila.

Pentsa, tornuan ari ninduan eta pixt! begian **txiribiri** bat sartu zaidak. **Pablo Sastre**
Lehengoan, bera ez dun arituko eta, tornuan ari zen bati begira zegoela, piezatik askatu eta lepoan **txiribiri** bat sartu zitzaionan. **Pablo Sastre**

txiribiri² izond ergeltxo.

Ez gara parkeetako panpina-trapatan mila gudari ezpatadunen aurka ukabila jasotzen duen trapuzko agure **txiribiria** baino gehiago. **Anjel Lertxundi**

txiribita iz

Gipuzkoako Diputazioak erositako Joan Perez Lazarragaren eskuizkribuak **txiribitak** eragin ditu euskararen ikertzaileen artean, nahiz eta oraindik duda asko egon edo galdera asko egileaz, testuaz, eta ondorioez. **Berria - Kultura**

txiriboga iz ostatua.

Gerra aurreko euskal **txiribogen** antz handirik ez zien hartzen Lauaxetak 1997ko euskal tabernei. **Juan Luis Zabala**

Market kalera jaitsi nintzen nire **txiribogarik** gogokoenean indioilar-otarteko bat jatera. **Javi Cillero**

txiribogin iz ostataria.

Txiriboginak buzkantza zerbitzatu dio. **Txillardegi**

Txiriboginak harrituta begiratu dit. **Txillardegi**

txiribuelta iz itzulipurdia.

Denetan alaiena, Darling andrea: haren **txiribuelta** zoroak! **Julen Gabiria**

txiribuletaka adlag itzulipurdika.

Nanoa jauzika zebilen, eta **txiribueltaka**, eta luze gabe senar-emazteek argi ikusi zuten mozkor-mozkor egina zegoela. **Patxi Zubizarreta**

Ahuntzaren gainetik egiten du salto eta belarretan **txiribueltaka** hasten da. **Julen Gabiria**

Deabruak hartua bezala, lurrean pipirika ibili zen, eta jauzika, eta **txiribueltaka**, eta bien bitartean erantziz joan zen. **Patxi Zubizarreta**

txirikorda 1 iz hiru ile xerlo edo gehiago elkarren artean behin eta berriz gurutzatuz eratzen den bilduma, muturrean lotzen dena.

Adatsa lau **txirikordetan** jaitsi eta ferekatu egiten zion sorbalda ezinago zuria. **Karlos Zabala**

Ilea hiru **txirikordatan** bildua zuen buru gainean, koroa balitz bezala. **Felipe Juaristi**

Hantxe zegoen, leizezulo batean, **txirikorda** ederreko ninfa. **Juan Kruz Igerabide**

Txirikorda ederreko jainkosaren ate aurrean gelditu nintzen; oihuka deitu nion. **Juan Kruz Igerabide**

Han bizi da Kalipso, **txirikorda** ederduna, amodioz zaindu ninduen jainkosa ikaragarri hura. **Juan Kruz Igerabide**

Bakeroz jantzitako eta ilea dozenaka **txirikorda** bihurrietan orraztua zuen neska bat. **Koro Navarro**

Aingerutxo bat zirudien, bere arkume aurpegia inguratzen zioten bi **txirikorda** haiekin. **Josu Zabaleta**

Ellenek burua inarrosiz askatu zuen ilea eta **txirikorda** bat egin zuen bi eskuez. **Lopez de Arana**

Ostatuko indiar etxeoandre **txirikorda** belzdunak ikerlariak ginela uste zuen, nonbait. **Joxe Austin Arrieta**

Perlez, turkesez eta kornalinez nahasitako zintzilikario aberatsak **txirikorda** luzeen muturretan dar-dar. **Karlos Zabala**

Ama Birjinari promes egitera geure ile- **txirikordak** moztu eta eskainiko genizkiola aita sendatzekotan. **Joan Mari Irigoien**

2 (sokekin edo, era berean egiten dena)

Buruan jaun gazte batek kapela bat eraman zuen, xingola ordez **txirikorda** zuena inguruan. azkenik, tatariarrek, oinak **txirikorda** alaietz apainduriko botekin babestuak eta bularraldeak brodatuez josiak. **Xabier Olarra**

Aitak zeta paperetan bildu eta **txirikordaz** lotutako fardeltxo atera du idazmahaiko tiraderatik. **Urtzi Urrutikoetxea**

3 irud/hed

Eskua luzatu nion Adari, eta, lehendabiziko erreparoa gainditu eta gero, dantzarien **txirikorda** luzatu genuen, Herio genuelarik beti ere dantzaburu. **Anjel Lertxundi**

Ez zitzaidan hartarako motiborik falta orduen **txirikordak** ekarri zidan arrosarioan. **Anjel Lertxundi**

Beste kontu asko ere esan zidan emakumeak inoiz akabera izateko itxurarik ez zuen bakarrizketa haren **txirikordan**. **Anjel Lertxundi**

Ezkerreko hanka bazihoan dantzaldiko mugimenduari ekitera, hasia zen airean **txirikorda** bat egiten. **Felipe Juaristi**

Muinen **txirikordan** egundoko buruko mina ari zitzaiola zirudien. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txirikorda ederduna (4); **txirikorda ederdunak** (4); **txirikorda ederreko** (3); **txirikorda handi** (3); **txirikorda luze** (4); **txirikorda luzeak** (4)

kapela txirikordaduneko (4)

txirikordak egiten (3); **txirikordak moztu** (3)

txirikordadun izond txirikordaz hornitua.

Hitz horiek esanda, jirafa-lepoko eta kapela **txirikordaduneko** gaztea azkar joan zen handik, esertzera joan ere. **Xabier Olarra**

txirikordaka adlag txirikordak osatzen.

Urretxindorrek galdutakoan, txori txiki moko-luze kolore-urdinak, beren lurraldean loro deitutakoak, ehun baino gehiago, airean **txirikordaka**. **Felipe Juaristi**

txirikordatu, txirikorda(tu), txirikordatu g.er.) 1 du ad txirikorda egin.

Pozik zegoen Denverrek gogor egin ziolako esan zionean dotore janzteko, edo gutxienez ilea berriz **txirikordatzeko**. Anton Garikano

Adatsa **txirikordatzen** amaitu. Patxi Zubizarreta

Orrazteaz bukatu eta **txirikordatzen** hasten denean, logalea jartzen zaidan. Anton Garikano

Sosa ederki sakelaratzten zuen eta arditen dardaraz edozein neska **txirikorda** zezakeen, oldar ez zitezkeen itsusienak barne, neskek diruaren ohorea baizik ez zutela begiko sinetsirik. Itxaro Borda

Udan soroetan egiten nuen lan, neguan saskiak **txirikordatzen** nituen, edo aldean ekarri nuen urrea xahutzen. Juan Garzia

Artile eta ereinotzez **txirikordaturiko** girlandak zeuzkan lepotik. Juan Garzia

Horman, leiho artean eskegiririk, gurutze moduan **txirikordaturiko** betibiziak. Koldo Izagirre

2 irud/hed

Hainbat ideia **txirikordatzea** ez da erraza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Piamontean eta Turinen ziren, bada, gure sustraiak, ez indartsuak baina bai sakonak, zabal-zabalak eta fantastikoki **txirikordatuak**. Juan Garzia

Nire hainbat burutazio eta aipamen **txirikordatu** ditut ametsarekin batera. Anjel Lertxundi

Ez zagok heriotzarekin familiarizatzeke modu egokiagorik, ideia libertino batekin **txirikordatzea** baino. Anjel Lertxundi

Ispilura saiheska begiraturaz, azken batean zerekin kontsolatua baleuka bezala, bere lanturu hotsak itxaropen menderaezin bat baleuka bezala **txirikordaturik**. Anton Garikano

Koruak Giovanni Gabrieliaren kantata bat **txirikordatu** zuen. Felipe Juaristi

3 (era burutua izenondo gisa)

Neskatxa eta emakume asko ikusi genituen segidan, denak ere guztiz ederrak, beren ile **txirikordatu**, gerruntze gorri eta urdin bikain egindakoekin. Koldo Izagirre

Atzamarrez ukituak eman zizkion ilaia **txirikordatuari**. Patxi Zubizarreta

Zure azoketara luxuzko jantziak, purpurazko soingainekoak, bordatuak, kolore anitzeko tapizak eta soka **txirikordatuak** ekartzen zituzten. Elizen arteko biblia

Haren kapelan soka **txirikordatu** nabari zen, xingolaren orde. Xabier Olarra

Gero erne itxurako bat aurreratu da, artile **txirikordatu**zko kapelu bat buruan. Juan Garzia

Lokarri **txirikordatu** moduko bat al zuen? Xabier Olarra

Lepo luzeko gizon bat ikusi nuen, feltrozko kapela bat zeramana, xingola orde galo **txirikordatu**z inguratua. Xabier Olarra

'Abaka' hosto **txirikordatu**zko etxola tradizionalak. Ramuntxo Etxeberri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

galo **txirikordatu** (8); galo **txirikordatu bat** (4); **txirikordatu moduko bat** (3)

galo **txirikordatu**a (3)

ilea **txirikordatzen** (4)

txirikordatzaile iz aipatzen dena txirikordatzen duena.

Emakumeek bai: gure ama-amonek esku bizi zoliak zituzten, jostun eta sukaldari trebe ziren eskuok, batzuk are piano-jole, urmargoz pintatzaile, brodatu-egile, ile **txirikordatzaile**. Juan Garzia

txirimia (orobat txirimia) 1 iz herri musika-tresna, oboearen antzekoa, mihi bikoitzekoa, hatzekin estaltzen diren 9-10 zulo dituen.

Berehala hasi ziren **txirimi**-atabalak belarrien alaigarri. Patxi Ezkiaga

Tutu-turuta-hotsak eta **txirimia**-soinuak Patxi Ezkiaga

2 irud/hed

Golden Gate txiki bat eta bestelako **txirimiriak** zeuzkan apalategia. Javi Cillero

txirimoia iz zuhaitz tropikal baten fruitua, sagarraren tamainakoa, azal-berdea eta mami-zuria, oso zapore onekoa.

Txinako patata gozoa, **txirimoia**, zidra eta beste hamaikaxo ere Euskal Herriko klima desberdinetan, errentagarri gertatzen diren heinean. Edorta Agirre

txirimolaka ik zirimolaka.

txiringito 1 iz adkor txosna, eskuarki hondartzakoa.

Ematen du koadro arrunta dela, hondartza bateko **txiringitoko** horman eskegitzeko. Unai Elorriaga

Hondartza, patata tortilla, **txiringito** eta ume kakatien sasoia amaitu da. Sonia Gonzalez

Zaindu **txiringittoa**, jefa, esan nion Maialeni, limurtzaileen moduan. Lander Garro

Hondartza ta udako **txiringitoetan** lan egiten dutenek [...]. Pello Zabala

Chichiriviche Macondo dela iruditu zait, era guztietako eta ordenik gabeko **txiringito** zaratatsuez betetako dekadentzian sartua ageri den Macondo zikina. Pako Aristi

2 irud/hed

EHNE ez dago sindikatu berriak sortzearen aurka, baina «negargarria, lotsagarria eta patetikoa» deritzo Aldundiak halako «**txiringitoak**» sortu nahi izateari, «nekazaritzaren ordezkari eta errearen gainetik egiteko». Berria - Ekonomia

Azkarraga jaunak **txiringito** hori antolatu du bere enplegua justifikatzeko, eta ez duelako ausardia politikorik [...] benetako Enpleguaren Euskal Kontseilua sortzeko. Berria - Ekonomia

txiringo iz adkor txosna, eskuarki hondartzakoa. ik txiringito.

Azafata hura hondartzako **txiringo** batean ezagutu genuen; Porto Seguroko ostatu batean zegoen oporretan. Karlos Zabala

txiripa¹ 1 iz zorte kolpea, zortealdia.

Eta hara zer **txiripa**, zer txanpa eta zer kointzidentzia: Elsaren hatz-markak bai, eureka, haiek bat zetozen errebolberrari itsatsitakoekin. Harkaitz Cano

Halabeharra hitza, berdin-berdin erabil liteke euskaraz **txiripa** adierazteko, kasualitate hutsa alegia, ala patua, izarren zainuetan gertatu behar zuela idatzitakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Probabilitateen kalkularen erruz -**txiripa** batengatik, alegia- egokitu nintzen ni hilketa bat gertatu zen lekuan. Anjel Lertxundi

-Ez didazu sinetsiko, baina **txiripa** bati esker ikusi ahal izan dut dena, aingeru goardakoak edo, lagundu dit, antza. Migel Angel Mintegi

Gizaki horiek ere elikatzeko produktuak bertaraino helaraztea denok bete beharreko giza eskubidea da, ez karitatearen aplikazioaren **txiripa**. Edorta Agirre

-Nik ez dut **txiripetan** sinesten. Migel Angel Mintegi

Txiripatzat hartu nuen, ordea, bien arteko lotura. Anjel Lertxundi

Eta **txiripa** batean amak keinu itsusi hura ikusi izan balio, zer, e?, zer? Patxi Iturritegi

2 (izenondoekin)

Argazkia ikusi duen jende asko hurbilduko zaizu hau eta hori esaka; zuk, jaramonik ez; **txiripa** hutsa izan zen argazkiarena eta zu han tokatzearena, entzun? Anjel Lertxundi

Nobela haietako gehienetan kontaktzen zena ez zela, azken batean, **txiripa** harrigarri batzuen pilaketa baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Txiripa handiegia eta unerik egokienean gertatua zen sinesgarria izateko. Migel Angel Mintegi

· **Txiripa** hutsez topatu nuen. Anjel Lertxundi

3 txiripaz zorioneko ezustekoz; ozta-ozta.

Alabaina, higanota, **txiripaz** berriro ere, bizirik atera zen. Martin Anso

Ea luxuzko klub edo zulo haietan **txiripaz** arrastoren bat aurkitzen ote zuen, nondik edo norantz jo zezakeen jakiteko. Migel Angel Mintegi

Txiripaz gaude bizirik. Iñaki Mendiguren

Kasu akzidentalak, kasualitatezkoak, **txiripaz** proposizio egiazko suertatzen direnak. Askoren artean

Tabernan - **txiripaz** aurkitu nuen-, arimarik ez. Joxe Austin Arrieta

Marro ere ia-ia atxilotu zuten, baina **txiripaz** egin zuen ihes. Juan Kruz Igerabide

Eta **txiripaz** ez zitzaion ongi atera. Migel Angel Mintegi

4 txiripazko izlag

Ez da neurtitz-idazlerik, **txiripazko** eta ezteusena izanik ere, bere soneto perfekttoa zizelkatu (aditz hori ez da arrotz izaten halakoaren solasean) ez duenik. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txiripa hutsa (5)

txiripa² ik **xirripa**.

txirla *(orobat xirla g.er.)* 1 iz jateko on diren zenbait itsas molusku maskor-bikori ematen zaien izena (*Tapes, Venus, Mytilus* generoak).

Eguneko ostrak, jan **txirlak** orain, dastatu frantses erara prestatutako gure muskuilu gozoak. Lopez de Arana

Goizero, argitu orduko, txangurro, karakoil, **txirla**, muskulu, lanperna eta arroka inguruan bizi diren edozein izakiren bila abiatzen ziren. Elena Touyarou

Arreta handiz ikusi zuen nola ateratzen zituen **txirlak** maskorretatik bere atzamar arrosa eta finez. Lopez de Arana

-George, nik oso-oso atsegin ditut **txirla** egosiak. Lopez de Arana

Txirlak eta txibiak ontziratzeko kaxa hutsak. Aingeru Epaltza

Ume mihi-lasterrak eta ahots-kantariak, **txirlak** bezain zapalak bularrak, txotxongiloen eta trizikloen inguruan zeuden bilduta. Koro Navarro

Itsas hondoan dagoen fuel-olioak muskuiluak eta **txirlak** pozoitu ditu. Berria - Gaiak

Berak atunduriko plater bete arrosa **txirlekin** irensten nuen bitartean. Josetxo Azkona

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behin bakarrik gogaitarazi zenuen nolabaik ere, **txirla** -zukua isuri zenionean bizkarretik behera. Mirentxu Larrañaga

Zetazko galtzerdiak, harizko zapiak, **txirla** -maskorrezko botoiak, [...]. Pablo Sastre

Txirla -katilu zilar-kolorekotik irteten zen lurrina lanpararen pantailaren erlantz arrosaren inguruan kiribiltzen zen. Lopez de Arana

txirlatxo iz txirla txikia.

Itsasoko belarrez, auka txikiz, zuretako mangolino janezinez, **txirlatxo** ezgauzez eta halakoez estalita eta uretako mamarruek plagatuta. Edorta Jimenez

txirlo iz birla.

Hegoaldearentzat ez dugu xehetasunik: badakigu hor, denbora batez, sagardozaileek bereziki gustukoa zutela birla edo **txirloa**, han dioten bezala. Herria

txiro 1 izond pobrea, behartsua. (pertsonez)

Gas fabrikako langile **txiro** bat. Markos Zapiain

Kantari ari den nekazari **txiro** baten koplari ezkutaturiko kopla batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egurkari **txiro** bat, abarrez arras kargaturik, intziriz eta makur, pauso motelez zihoan, sortaren zamapean. Imanol Zurutuza

Ezkon zaitez neurritasunera eta etxeko zeregin arruntetara jarririk dagoen neska **txiro** on batekin. Jose Morales

Guretzat ezer ez dena, beduino **txiro** horrentzat dena da. Jon Arretxe

"Mikel alemana" [...] XVI. mendean agertu den figura da, herritar **txiro**, ezjakina adierazteko. Joxe Azurmendi

Ez klase **txiroak** bakarrik, baita klase altuak eta baita poliziak berak ere. Pako Aristi

Gure jendea **txiroa** zen, eta hori nahiko motibazio bazen mobilizazioetarako. Jon Maia

Mediku-ikasle omen zen gazte dotore baina **txiro** batekin hipnosi-saioak egiteko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gutxieneko gastu sozialak, oso **txiro** eta zaharrentzat baino ez. Iñaki Heras

Bihotzez behartsu izan ziren eta ondasunetan **txiro**. Askoren artean

2 (bestelakoez)

Gizarte nekazari eta **txiro** batek egin zezakeen neurri apalean, berriro agertu ziren euskarazko liburuak plazan. Koldo Zuazo

Maine-ko herrixka **txiro** batean, aurreneko aldiz, fortuna menturatsu bat amestu zuen. Juan Garzia

Bai herrialde **txiro** eta garatuetan. Iñaki Heras

Auzo hura eremu narras eta **txiro** bat zela artean, [...]. Oskar Arana

Haiti bezalako herrialde beltz, txiki, eta **txiro** batean gertatzen dena bost axola zaie. Berria - Mundua

Hiritik kanpo zegoen errebal gris eta **txiro** bateko plaza arrunt batera heldu zela ikusirik [...]. Aritz Gorrotxategi

Denak infemuaren antzeko gurasoen etxe **txiro** eta zigortu hartan bizi zirenean. Aitor Arana

Su-dirdairik gabeko argi **txiro** bera zunan, orain dagoen lanairearen zapi zurian bildua. Juan Garzia

Pentsamendu zaharren aterpe bihurtu zaio gogoia, nora joanik ez duten pentsamendu alderrai, **txiro** eta zaharrena. Oskar Arana

Nik arte povera edo arte **txiroarekin** ere lotzen dut, politikaren arte **txiroa** deitzen diot. Berria - Kultura

3 (adizlagun gisa)

Doinu azkar haiek elurra bezala airean **txiro** eta alderrai zebiltzanak. Felipe Juaristi

Txiro hasi zen torneoa, beste torneo guztiak baino bikote eta partida gutxiagorekin. Berria - Kirola

Aita, berriz, hiritik urrun bizi dut, **txiro**, lurlean lo eginez eta arropa zirtzilak jantziz. Juan Kruz Igerabide

4 (izen gisa)

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 45.804 **txiro** daude. Berria - Euskal Herria

Gobernuek ez dute **txiro** eta beltzen aldeko neurririk hartu duela 30 urtetik. Berria - Harian

Txiroak andregaiari *pechuga* deitzen dio, eta aberatsak *jeva*. Pako Aristi

Sorginak, fraideak, **txiroak**, prostitutak, astoak eta bestelako pertsonaiak erabiltzen zituen ezjakintasuna edo sineskeria salatzen. Berria - Kultura

Ez nazazu egin ez **txiro**, ez aberats: eman soilik bizitzeko behar dudana. Elizen arteko biblia

Poliziak, gainera, bestelako txikizioen pare jarri zuen sei **txiro** haien hilketa. Karlos Linazasoro

Indiako inpendentziaren alde borrokatu zuen, eta **txiroen** egoera salatu ohi zuen. Berria - Kultura

Berdin lapurtu, egurtu edo hiltzen dute beraien moduko beste **txiro** bat, zapatilla pareia kentzeko. Pako Aristi

5 (hitz elkartuetan)

Zapi zikinez jantziriko **txiro**-samalden erdian. Juan Garzia

6 *txiro-txiro izond*

Hemen daude, gure aurrean Estatu Batuetako bizikerekin, modarekin amets egiten duten **txiro-txiroak**; han daude, etxe dotoreetan, seme-alabak Estatu Batuetara bidaltzen dituzten aberats-aberatsak. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzo txiro batean (4); **herrialde txiro** (5); **nekazari txiro baten** (3)

txiroa da (6); **txiroa izan** (3)

txiroak dira (6); **txiroak ziren** (3)

auzo txiroan (3)

herrialde txiroei (4)

hango langile txiroek (3); **herrialde txiroek** (3); **langile txiroek** (5)

txiroekin bat eginik (4)

aberats eta txiroen (3); **aberatsen eta txiroen** (5); **herrialde txiroen** (14); **herrialde txiroen alde** (3); **txiroen aldeko** (3); **txiroen arteko** (9); **txiroen eta aberatsen** (3)

herrialde txiroenei (4)

herrialde txiroenen (3)

auzo txiroetako (6); **herrialde txiroetako** (10)

auzo txiroetan (7); **herrialde txiroetan** (14); **herrialde txiroetan bizi** (3)

txiroaldi iz txirotasuneko aldia.

Oraingo atseginen truke, ogia eta existentzia geroko **txiroaldi** lantsuari saltzen diona, ugaritasunaren kontrako lan-gerra isila bakez egiten duena, indar-gerra odoltsu eta ondorio ilunekoaren orde. Juan Martin Elexpuru

txiroki adlag txirotasunez. ik pobreki.

Akabo errealak, akabo zurikoak, akabo urrezko ezkutuak; **txiroki** bizi zen ogiz eta gaztaz, eta bere katilu uraz. Juan Garzia

txirola iz

Interdit: **txirolan** ez dago negar egiterik. Lander Garro

txirotasun 1 iz txiroa denaren nolakotasuna. ik pobretasun.

Txirotasuna handitzen. Berria - Mundua

Giza eskubideak bermatzeko, **txirotasuna** gutxitzeko eta droga trafikoa geldiarazteko. Berria - Mundua

Munduko **txirotasuna** borrokatzeko politika sendorik ere ez du bultzatuko. Berria - Mundua

Atzerriko produktu merkeagoek herrialdea inbaditu zuten, eta hala bai langabezia nola **txirotasuna** zabaldu egin ziren hirietan. Iban Zaldúa

2002. urtean 68 milioi pertsona egon ziren **txirotasunaren** mugaren azpitik. Berria - Harian

Hugok ez ditu Miarrizten arrantzaleak, langileak, **txirotasunean** bizi den herri txiki bateko bizitzaren gogorra, ikusi ere egin. Koldo Izagirre

Boulevard Saint Germaineko 202. Txiroa inoiz ez da aterako **txirotasunetik** laguntzarik gabe. Pako Aristi

Txirotasunarekin amaitzeko berehalako neurriak hartu behar direla esan du NBEk. Berria - Gaiak

Txirotasun eta miseriaren aurrean distantzia fokala kalkulatzan hasten diren argazkilarik horiek. Unai Iturriaga

Txirotasunak zein abenturazaletasunak mundua korritzera bidali zituzten hiru gaztetxo horiek -Lech, Czech eta Rus-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jaiotzez itsua denak ezin du iluntasunaren errepresentaziorik izan, zeren argiarena ere ez baitu; basatiak ezin du **txirotasunarena** izan, ez baitu ongizatea ezagutzen.

Ibon Uribarri

EBren ezintasun politikoaren adierazgarri nagusizat haren aurrekontuen «**txirotasuna**» nabarmentzen zuen Langek. Berria - Mundua

2 irud/hed

Horrez gain, gure ohiko inferentzien **txirotasuna** begi-bistan nabarmentzen zaigu. Ibon Uribarri

Orain azter dezagun Anaxagoraren *homeomeria*, grekoek hala derizotena eta guri aberri hizkuntzaren **txirotasunak** geure mintzairan esaten uzten ez diguna. Xabier

Amuriza

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Aborigenen %17,8 **txirotasun** larrian. Berria - Mundua

Ezerk ez zuen higuindu: ez zinikoaren lohitasunak, ez haren **txirotasun** erabatekoak, ez haren bizi publikoaren lazturak. Juan Garzia

Gauza asko behar izate hori erabateko **txirotasunaren** seinale baino ez da. Berria - Kultura

Horrek guztiak **txirotasun** izugarria eragin du palestinarren artean. enbakia ere, non bizi izan baitzen Apollinaire,*Je m'aimé*, **txirotasun** gorrian eta idazkariarena egiten zion baroi erdi ergel bat beste lagunik gabe. Berria - Mundua

Euskararen ezgaitasuna frogatzeko Unamuno-k beti hartzen duen bidea **txirotasun** lexikalarena izaten da. Joxe Azurmendi

Egun ere txirotak dira inguru haiek, uralitazko teiltatuen gaineko telebista antenek iraingarri egiten duten **txirotasun** modernoan. Koldo Izagirre

Azalduko dizu nola eragotzi beharko genituzkeen munduko ondasunak eta **txirotasun** sakratuan. Oskar Arana

Laboratorioa, lege berean, baldarra zen: ez antzinatik bere bilakaeraren eskasean dirauen gauzaren zentzuan, baizik eta **txirotasun** ezinagoarenean. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herritarren %67 **txirotasun** mailatik behera bizi dira gerra aurretik portzentaia %33koa zen. Berria - Mundua

Txirotasun egoerak mozorrotzeko aldagaia aldatu izana kritikatu du Elkartzeneak. Berria - Ekonomia

Bereziki basatia da hau gertatzea jendea Afrikako **txirotasun** arazoak eta klima aldaketarenak konpontzen saiatzeko elkartu den egunean. Berria - Harian

Horrek ingurumen eta **txirotasun** auziak serioago hartzera behartuko du Gobernuak. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txirotasunari aurre egiteko (3)

txirotasunean bizi (4)

txirotu, txiro(tu), txirotzen da/du ad txiro bihurtu. ik pobretu.

Thomas Hobbes Malmesbury-tik gertu jaio zen, **txirotu** egin zen apaiz anglikano baten etxean. Esteban Antxustegi

Zeure zorroan ezer ez daukazunean, ez gehiago **txirotu** mailegaturiko dirua jaietan eralgiz. Elizen arteko biblia

Esku afferrak **txirotu**, beso langileak aberastu. Elizen arteko biblia

Kaltetuak gazteak, **txirotutako** giza taldeak, trafikante txikiak eta abar direlako. Berria - Euskal Herria

txirotze iz txiro bihurtzea.

Erregularitasun hark errazagoa bihurtzen zuen irakurketa, baina, nolana ere, **txirotzea** zeritzon hark horri. Jon Muñoz

Haren gastronomia kulturak beherakada nabarmena jasan zuela, oso **txirotze** tristea. Karlos Linazasoro

Uniformizazio linguistikoak kultura eta gizarte historikoen **txirotzea** dakarrela. Joxe Azurmendi

Martxak, horregatik, aztertzeo gai nagusi bi aukeratu ditu: Txirotasuna, edo emakumeen **txirotze** prozesua, batetik, eta indarkeria, bestetik. Berria - Euskal Herria

Kultura **txirotze** hari bai iritzi zion benetan tristea eta penagarria, eta analfabetismoaren atarian sentitzeak seko hondoratu zituen haren animo lehen ere ajetuak. Karlos Linazasoro

txirrai iz

Iturriaren **txirraik** hantxe jarraitzen du bere ondoan, baina istoriorik kontatu gabe orain. Bernardo Atxaga

Bai, iturriren bat dago paraje horretan, ura **txirraian** isurtzen duena. Bernardo Atxaga

"Jentilen harriak", entzuten du orduan, eta ez daki zehazki nork esan dituen hitz horiek, berak ala iturritik **txirraian** erortzen ari den urak. Bernardo Atxaga

txirri¹ (orobat txiri g.er.) 1 iz tabakoa eta marihuana edo haxisa nahasiz egiten den zigarreta. ik porru².

-Ekatzu kostoa, Fermin, deskribapen horrek **txirri** bat merezi du! Pako Aristi

Txirri bat egin, patxaran botila atera eta ordutan egon zitekeen burua altxatu gabe. Xabier Montoia

Bazter batera doaz eta **txirri** bat liatzen dute. Pako Aristi

Listua emanda **txirria** lotzen ari da. Pako Aristi

Den-denok hil behar dugu, potxolo -esan zuen Rufusek, beste **txirri** bat pizten zuelarik-. Oskar Arana

Txirria sutu eta zupada sakon bat eman dio: haxixaren abisua biriketan, mezularia burura abia dadin. Pako Aristi

Biak gora begira, **txirria** eskuz esku pasatzea beste mugimendurik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Txirria ematen zuen zerbait erretzen ari baitzen. Oskar Arana

Gauetz ateratzen naizenean, hor ikusten dut jendea dantzan, gelditu gabe zerbezak edaten, **txirriak** erretzen, pastillak hartzen... Antton Olano

Beste hiru kalada jo behar izan dizkiot **txirriari**. Pako Aristi

-Zer sentituko ote zuen ostiraleko zitaren aurrean? -galdetu diot, **txirriarekin** batera hitz egiteko txanda ere pasatuz. Pako Aristi

Roke serioak ere erre du denek erre duten **txirria**. Pako Aristi

Bigarrenez isiotu zuen ezpainetan eskegirik zeukan **txirria**. Xabier Montoia

Azkenik neuk ere tira egin diot **txirriari**, ezpainekin kartoia estu-estu eginda. Pako Aristi

Egunaren nekea, edo garagardoen gehiegia **txirriekin** nahastuta. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Iruditzen zaio hor badagoela egia bat, hirian, kaleek eta jendeek berez duten **txirri**-porroarekin ezkututzen zaiona. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste txirri bat (3)

txirri² (orobat xirri g.er.) 1 iz jarioa.

Belarria erne paratuz gero, marmar ozen baten modukoa aditzen zen, gangatik jareginik lurraren kontra kanka jotzen zuten mila tantena eta zilar urtu gisara pil-pil isurtzen eta zoruko pitzaduretatik leize-sakoneratzen ziren **txirriena**. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan)

Urmael borobileko ur-**xirri** entzungaitza han, beti ari... Clark Gable-renen estilora zeramatzan bibote-**txirriak**, eta ile beltzeko xerloak ageri zituen ia nonahi. Txillardeggi

3

Gure pittina, **txirria**, pittina. Mirentxu Larrañaga

4

Liburu txiki distiratsu bat ari zen irakurtzen, **txirri** arraultz baten antzeko azal fiabarreakoa. Anton Garikano

5 txirri-txirri

Ez zegoen esaterik une hartan ari zuena euri-jasa zenik, baina **txirri-txirri** ari zuen euria, aski bizi. Aitor Arana

6 iz

Gauean handik **txirri-txirri** ura, edo kafesnea, kanpora, Nemesiori ohea bustiz... Pako Aristi

Kanpoan gau beteak zen eta **txirri-txirrien** astrapala itzela. Xabier Montoia

Gure oinetakoen hotsa entzuten zen: larruzko zolaren tak-tak lehorra ikasketa-buruarenek, gomaren **txirri-txirria** nireek. Anjel Lertxundi

7 txirrian turrustan.

Ugalde erdia berarekin balerama bezala, bere hegaldiari ekin zion, ura alde guztietatik **txirrian** isuriz, argazki-kameren kli-kla etenen artean. Aingeru Epaltza

Zuku guztia **txirrian** baitzerion frutari. Joxe Austin Arrieta

8 txirri-txarra

-Baina tira -esan zuen Ignatius Gallaherrek-, hemen gaudek, horrelako gauzen berririk gabe **txirri**-txarra aurrera egiten duen Dublin zahar honetan. Irene Aldasoro

txirriatu, txirria(tu), txirriatzen 1 da/du ad blai egin.

Euria etengabe erortzen ari dela, ezta pentsatu ere, ez da inolako nekerik, sartu, sartu barrura, bestela **txirriatu** egingo zara. Jon Alonso

2 (era burutua izenondo gisa)

Erraza izan zen gurdia, bere hartxintzar **txirriatuak** garraio, etorri zeneko tokia topatzen: gupil-arrastoak nabariak ziren, astoaren oinatzak ere bai. Joxe Austin Arrieta

txirribita ik xirribika.

txirrika 1 iz ardatz batean kokaturiko gupila, bere inguru ildodunean soka, kate edo uhal bat daramana, eta zamak jasotzeko edo higidura bat helarazteko erabiltzen dena.

Altamio kokxor bat eraiki zen, **txirrika** bat atondu, gida-sokak paratu. Juan Garzia

Auzoan bazuten putzadera lurpeko bat, ur ateratzeko **txirrika**, urontzi, kate eta guzi. Patziku Perurena

Orduan, zilarrezko haria eten egingo zaik [...] pitxerra iturrian puskatuko, eta putzu gainean **txirrika** zartatuko. Elizen arteko biblia

Bertze batzuk [...] gazteluko kanoi handiak desmuntatzen eta orga batzuetara igotzen ari ziren, **txirrika** baten laguntzaz. Aingeru Epaltza

Bi **txirrika** handi ikusi zituen masta nagusitik brankako trinketera lotutako soketatik zintzilik. Anjel Lertxundi

Hantxe egoten zen eserita, bere **txirrika** eta artile-haria eskuetan. Mirentxu Larrañaga

Hatzak mantso-mantso erabili zituen **txirrika** artean. Mirentxu Larrañaga

Txirrika bidezko sistema baten berri eman zigun tentsio altuko kabletan erabiltzeko. Rafa Eiguren

2 (hitz elkartuetan)

Txabolak teilatu bat zuen **txirrika** sail baten bitartez itxi eta ireki zitekeena. Koro Navarro

Ehunka kotoi-bala zeuden pilaturik bertan, eta ontzigenetik haraino garraiatzeko **txirrika**-sistema burhurr bezain eraginkor baten berri eman zion Andreasek aitari. Anjel Lertxundi

3 gupil edo zilindro modukoa.

Zurezko **txirrika** bat emana zioten, gain-gainean iltzetxo batzuk zituena josirik bira osoan eta haien inguruan artile-hari distiratsuak lotzen aritzen zen, zuzendutako buru-orratz batzuen bidez. Mirentxu Larrañaga

Horrela iragan zen Katherinaren lehen gaztaroa, atsoak farfailgintzarako kuxintxo baten aurrean esertzen eta pazientziaz **txirrika** guztietako hariak xuxen gurutzatzen irakatsi aurretik. Juan Garzia

Bi soldadu **txirrika** batean bildutako txarrantxa-haria askatzen ari dira, auskalo zer hesitzeko asmotan. Harkaitz Cano

4

Etzetxoa hari-**txirrika** baten tamainakoa baitzen orain, oso-osorik segitzen zuen arren. Julen Gabiria

txirrikadun izlag txirrika duena.

Distantzia jakin batera eseri da Arkimedes, eta ahalegin handirik egin gabe, hainbat **txirrikadun** makina bati muturretik eskuaz tira eginez, heldu dio ontziari, eta harengana erakartzen du galera, ontziak olatuak urratu balitu bezain arin eta traba gutxirekin. Jon Muñoz

txirrin (orobat turrin g.er.) 1 iz deitzeko tresna, elektrizitatearen bidez-edo higiarazten den mailuka batek jotzen duen ezkila batek osatua.

Hatza berriro **txirrinarentz** hurbiltzen ari nintzelarik, urrats hotsa entzun nuen atez bestaldean. Alberto Ladron Arana

Txirrinaren zaratak isilarazi zuen Albertoren marmarra. Joxemari Urteaga

253. zenbakian izenik gabeko zenbait **txirrin** zeuden. Lopez de Arana

Txirrinak jo zuen: gizaseme gazte bat zen, garai eta argala, Errege Gudarosteko teniente-jantzian. Juan Garzia

Zazpi-zazpian **txirrinak** jo zuen eta Dyer eta bere bi laguntzaileak azaldu ziren. Xabier Olarra

Txirrinak hiru aldiz jo zuen. Lopez de Arana

Une horretan bertan **txirrina** jo zuten; etxejabea zen. Josu Zabaleta

Bi egun geroago, eguerdi aldera, bulegoan zegoelarik, ateko **txirrina** joka hasi zen. Migel Angel Mintegi

Atezainaren etxean **txirrina** jo eta zain geratu zen. Joxemari Urteaga

Behera jaitsi eta 3B pisuko **txirrina** jo zuen. Fernando Morillo

Del Vallek Weberren etxeko **txirrina** jo zuen, eskularruz bilduriko esku batez. Alberto Ladron Arana

Behin eta berriz sakatu zuen **txirrina**. Migel Angel Mintegi

Txirrina bigarren aldiz zanpatu arte ez zen atea ireki. Aingeru Epaltza

Bostak pasata ziren **txirrinaren** hotsa entzun zenean. Jon Alonso

-Ez dut **txirrinik** entzun, ama -zuritu zuen bere burua Andonik. Joxemari Urteaga

Iratzargailuaren **txirrina**. Xabier Mendiguren Elizegi

Esnagailua, osterantzean, ondo dago: zortzietan **txirrinaren** mihiztoa, eta txortena jaso, **txirrinaren** bozgora baimendu duen polizia bailitza. Pako Aristi

Mutikoe**k** bizikleten **txirr**ina jotzen zuten edo pedalei eragiten zieten. **Koro Navarro**
Telefonoaren **txirrinak** eten zuen Nabucco. **Joxemari Urteaga**
Utzi zure mezua **txirrinaren** ostean. **Unai Iturriaga**
Haren mugikorraren **txirrinak** jo zuela profitatuta zutitu nintzen. **Aingeru Epaltza**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Carl Sandburg poetak oparitu zion **txirrin** zaharra entzuten zen ilunean kantari. **Itxaro Borda**
Abiatu da **txirrina** berriarekin kaletik behera. **Berria - Euskal Herria**
Idazmahaiko kaobazko besaulkian erdi etzanda **txirrin** elektriko bat jo zuen. **Lopez de Arana**
Bat-batean, iluntasunean, hautsaren eta armiarma-sareen erdian, non edo non sabaiaren azpian, berpiztu egin zen **txirrin** elektrikoa. **Jose Morales**
Sakeleko telefonoen **txirrin** urdukiak entzuten dira. **Pako Aristi**
Jabetu egin nintzen bat-batean bizikletaren altzairuzko **txirrinaren** ispilu-distiraz edo enborrak azalean zeukan goroldio mantxaz. **Bernardo Atxaga**
Abuztuko ortziral horretan, beheko **txirr**ina jo ondotik, esperoan gelditu nintzen, ateari kontzen niola. **Aingeru Epaltza**
Hurrengo goizean ateko **txirrinak** esnatu ninduen. **Jasone Osoro**
Antzinako **txirr**ina dauka, bere zaratarekin etxe guztia betetzen duena. **Jon Alonso**
Irteteko **txirrinak** jotzen zuenean, Pito, Poli eta ni lehenengoetakoak izaten ginen eskolatik irteten. **Pedro Alberdi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zeren bada oraindik **txirrin** hari bat ministroa eta atezaina lotzen dituen. **Josu Zabaleta**
Telefonoaren **txirrin** joaldiak moztu egin ziren. **Iñaki Zabaleta**
· Bederatzietan Inesen etxeko atarian nengoan **txirrin** -joka. **Aritz Gorrotxategi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ospitalean ere lege bera dago eta kea sortuz gero alarma **txirr**ina entzuten da. **Berria - Harian**
Telefono **txirrin** bat joka. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Eskola-**txirrinak** jo du eta ilara bitan lerrokatu gara, isil-misilik, hogeina haur inguru. **Mirentxu Larrañaga**

5 txirrin hots (orobat txirrinots g.er.)

Sarrerako **txirrin-hotsa** entzun zen. Telefono baten **txirrin-hotsa** nabaritzen zuela iruditu zitzaion. **Jon Muñoz**
Neure barru-barruan, zerbait hasi zitzaidan barrena jaten, esan egin behar niola, nekien guztia jaulki behar niola, bat-batean **txirrin hotsa** aditu zenean. **Xabier Olarra**
Telefonoaren **txirrin-hots** etengabeak artazi txikien modura ebaki zuen ilunpea. **Mirentxu Larrañaga**
Piera eta biok Natalinarekin gelditu ginen bakarrik etxean, eta gau batez **txirrin-hots** fuerte batek gu iratzarri eta hagitz izaturik jaiki ginen. **Fernando Rey**
Oraintxe puntuan [...] **txirrin hots** indartsu, luze, sarkor bat entzun da. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txirrin hari bat (3); **txirrin hots** (3); **txirrin hotsa** (5)

ateko txirrina (10); **ateko txirr**ina jo (7); **beheko txirr**ina (4); **etxeko txirr**ina (9); **etxeko txirr**ina jo (5); **jo zuen txirr**ina (4)

txirrina entzun (3); **txirr**ina jo (89); **txirr**ina jo orduko (3); **txirr**ina jo zuen (17); **txirr**ina joka (7); **txirr**ina jotzen (11); **txirr**ina jotzen zuen (4); **txirr**ina jotzera (5); **txirr**ina zanpatu (5)

ateko txirrinak (5); **ateko txirrinak jo** (3); **jo zuen txirrinak** (3); **telefonoaren txirrinak** (6)

txirrinak esnatu (3); **txirrinak jo** (21); **txirrinak jo zuen** (9); **txirrinak jotzen** (6)

ateko txirrinaren (3); **txirrinaren hots** (3); **txirrinaren hotsa** (3)

txirrinda (7 agerraldi, 3 liburu eta 3 artikulutan) iz bizikleta. ik txirrindu.

Txakurra, aingerua, agure tangazalea eta Armstrong-en **txirrin**aren plater handia. **Andoni Egaña**
Legatuak parkean **txirrin**dan ibiltzea debekatzen badu ere, parkeko gune batzuk txirringak uzteko atonduko dituzte. **Berria - Euskal Herria**
Jende asko ibiltzen da patinetan, korrika, **txirrin**daz edo oinez bide gorrian. **Berria - Mundua**
Izututa nengoan, nola **txirrin**da kamioiaren alboan. **Hasier Etxeberria**

txirrindola ik txirrin

txirrindolari ik txirrin

txirrindu (22 agerraldi, 5 liburu eta 9 artikulutan; orobat xirrindu g.er.; cf bizikleta 1152 agerraldi, 114 liburu eta 297 artikulutan) 1 iz bizikleta.

Txirrindua hartu nuen, eta erredakziora abiatu nintzen. **Lander Garro**

Txirrindua gidoinaren erditik heldu, eta alboratu egin natzaio. **Txillardeg**i

Mendiko **txirrin**duko jaitziera probetan. **Berria - Kirola**

Qatarko agintariak **txirrin**duak errepidetatik erabat desager ez daitezen saiaturik dira. **Berria - Kirola**

Duela bi hilabete hil zen Salinas, «**txirrin**duan zebilela bihotzekoak jota». **Berria - Kultura**

Denera 750 metro igeri, 25 kilometro **txirrin**duan eta bost korrika egin beharko dituzte. **Berria - Kirola**

Mendi mazela horietan jokatu dire pirripita edo **txirrin**duekin, VTT harrigarri espresekin. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Gero gazte talde bat zetorren, goitik behera kolorezko paperez estalitako karrera **txirrin**duekin. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txirrindua hartu (3)

txirrin

txirrindula (23 agerraldi, liburu 1 eta 20 artikulutan; orobat txirrin

dola 11 agerraldi, liburu 1 eta 6 artikulutan, **xirrin**dula 3 agerraldi 3 artikulutan eta **xirrin**dula g.er. 5 agerraldi 5 artikulutan) 1 iz bizikleta. ik txirrin

Hemen nituen ere, duela hemeretzi urte bizikletaren aitzineko errotaren arraiak xuxenarazi, Piedrafitako patar luzean eroriko eder bat eginik, Elizaberriko Beñaten

txirrindularen gibeleko gupila hunkitu nuelakotz. **Piarres Aintziart**

Grebalariek **txirrindulak** hartu eta karaballotk Betoñako industriagunean duen aurrealdieraino lagundu zuten. Berria - Ekonomia

Igor Elortza Bizkaitarrak aitortu du Baiona/Senpere aldeak maiz kurrizten dituela **txirrindulan**. Herria

Dena den, autobusez, autoz, **txirrindulaz** ala oinez, balioko du Senpererat joatea. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Aurten larunbatez iragan da Baiona/Iruinea **txirrindula** ibilaldia. Herria

Txirrindula elkarteak 50 urte. Herria

Igandean, goizeko 8etarik harat, Aldudeko mendietan gaindi oinezko ibilaldia batzuentzat, mendi-**txirrindulaz** balearen itzulia (35 km) bertzentzat. Herria

txirrindulari

(*2175 agerraldi*, *31 liburu eta 896 artikulutan*; orobat *txirrindolari* agerraldi *1 artikul*u *1ean*, *xirindulari* agerraldi *1 artikul*u *1ean* eta *xirindulari* *9 agerraldi* *7 artikulutan*; cf *ziklista* *130 agerraldi*, *8 liburu eta 38 artikulutan*) **1** iz bizikletan dabilena; eskuarki, txirrindularitzan diharduen kirolaria.

Aro ederrarekin, gero-eta **txirrindulari** edo bizikletari gehiago ikusten da gure bideetan. Herria

Izan ere, elurrak, ohiko egunetan ikusten diren **txirrindulari** eta patinatzaile apurrak uxatu ditu. Harkaitz Cano

Laster agertu zitzaigun **txirrindulari** taldea, hiru mutil, hiru neska eta beste neska bat tandemean, denak barrez eta txirrina joka. Koro Navarro

70 **txirrindulari** inguru herriz herri ibiliko dira egun osoan. Berria - Euskal Herria

Autobusak **txirrindulariak** aurreratu zituen aldapa batean. Koro Navarro

Txirrindulariak parean zuen autoa jo zuen. Berria - Euskal Herria

Txirrindulari bat larri zauritu zen atzo Leitzaan (Nafarroa), auto batek harrapatuta. Berria - Euskal Herria

Bide beretik zihoa **txirrindularia** harrapatu zuen gidariak. Berria - Euskal Herria

Zutiitu zen ozta-ozta **txirrindularia**, eta zakarren artetik atera zuen bizikleta hondatua. Jon Arretxe

Txirrindulari izateko hanka eta "hauspo" onak izatea da beharrezko. Koldo Zuazo

15 **txirrindulari** ditu taldeak, behin-behinean. Berria - Kirola

Lekunberri 13 **txirrindulari** helmugaratu ziren denbora berarekin. Berria - Kirola

22 **txirrindulari** erretiratu ziren, Igor Astarloa tartean. Berria - Kirola

Helmugara 40 **txirrindulariko** tropela heldu zen. Berria - Kirola

Joane Somarriba bizkaitar **txirrindularia** bigarren sailkatu da Italiako Giroan. Herria

Lortuko balute, 16 **txirrindulariko** plantilla izango luke Kaikuk. Berria - Kirola

Libertyko **txirrindulariak** lau etapatak bi irabazi ditu eta beste bietan bigarren iritsi da. Berria - Kirola

Discovery taldeko lau **txirrindulari** sailkatu ziren lehen hamarren artean. Berria - Kirola

Anttonio, nekazaria, gaztetan **txirrindulari** bezala ibili eta hainbat sari irabazitakoa. Bernardo Atxaga

Txirrindulariaren berezko ezaugarriak errespetatu behar dira. Berria - Kirola

Errugabetasun ustea ez omen zen errespetatu, eta proba sendorik gabe, **txirrindularia** erruduntzat jo zuten. Berria - Kirola

Txirrindulari batek positiboa ematen duenean, **Txirrindulari** batek positiboa ematen duenean, [...]. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Gino Bartali **txirrindulari** handiaren bizikleta. Berria - Kultura

T-Mobile ez da taldeko **txirrindulari** onenekin etorriko Euskal Herrira. Berria - Harian

Ez zen **txirrindulari** ona: fenomenoa zen. Xabier Etxabe

Txirrindulari osoa, 20 kilometroko erlojupekoan txukun aritu beharko duelako hurrengo igandean Serviglianon. Berria - Kirola

Txirrindulari mitikoen antzera. Berria - Kirola

Alejandro Valverde Kelmeko **txirrindulari** ohia Italian da, Saeco taldearekin kontratua sinatzeko asmoz. Berria - Kirola

Biper-Saria eman zaio Roberto Leiseka hegoaldeko **txirrindulari** famatuari. Herria

Txirrindulari indartsu asko daudela dio, eta bera oraindik ez dagoela bete-betean. Berria - Harian

Maistra izan zen bestea, **txirrindulari** bikaina hurrena. Berria - Harian

33 urte zituen gizonak, **txirrindulari** gaitza izana, bereziki mendiko etapetan. Herria

Tropelean **txirrindulari** gogorraren sona hartzen hasia omen zara. Berria - Kirola

Hainbat urtez "kargaturik" lehiatzen zen **txirrindulari** profesionalaren antzera nembilen. Itxaro Borda

Donostiako belodromoaren erabiltzaileek badituzte arrangura handiak, bereziki **txirrindulari** pistazaleek. Herria

Marino Lejarreta eta Txomin Perurena **txirrindulari** ohiak. Berria - Kultura

Murruan, Indurain; ez, zazpi Indurain, zazpi posterretan Nafarroako, eta beraz, munduko **txirrindulari** txapelduna. Piarres Aintziart

Bizikleta gainean lo hartu eta bizikleta gaineko postura hartan erori nintzen bidera, jostailu dendetan saltzen zituzten plastikozko **txirrindulari** estatikoak bezala, postura aldatu gabe. Jon Maia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txirrindulari -proba luze horietako batean. Joxerra Garzia

Txirrindulari tropela baino oldarkorragoak izango dira otso talde horiek. Berria - Kirola

Txirrindulari talde bat zegoen bide ertzean, paperezko basoetatik freskagarriak edaten. Koro Navarro

Kalapie Donostiako **txirrindulari** elkarteak ere auzia salatu eta Joxemi Zumalabe Fundazioko kideei babesa agertu zien. Berria - Euskal Herria

17 urterekin, 21-22 urte arte, **txirrindulari** ogibideko lehen urteetan. Berria - Kirola

Urteik urterat fama handiagoa dauka Donostian muntatzen duten **txirrindulari** zoin-lehenka nagusiak.

Kontratua berritu ez zaien **txirrindulari** kopuru bera, hain zuzen ere. Berria - Kirola

Oriko **Txirrindulari** Eskola fundazioarekin ari nintzen, amets bat niretzat. Berria - Harian

3 (adizlagun gisa)

Gaztetan [...] **txirrindulari** ibili ei zan, harik eta, jauskera bat bide zala, aproba gogor samarrak albora itzi behar izan arte. Xabier Amuriza

4 (izenondo gisa)

Mutiko **txirrindulari** batek lagundu dit ostatua bilatzen. Jon Arretxe

Apaiz **txirrindulari** bat! Koldo Biguri

Bi erromes gara 68 urte dituen ingeles bizardun **txirrindularia** eta ni. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bi euskal txirrindulari (4); **manzano txirrindulari ohiaren** (4); **munduko txirrindulari** (8); **taldeko txirrindulari** (34); **tropeleko txirrindulari** (12)

txirrindulari alemaniarrak (7); **txirrindulari ariko dira** (6); **txirrindulari asko** (28); **txirrindulari asko daude** (4); **txirrindulari askok** (10); **txirrindulari askoren** (4); **txirrindulari australiarrak** (6); **txirrindulari azkarra** (6); **txirrindulari azkarrak** (4); **txirrindulari bakarra** (5); **txirrindulari bakarrik** (5); **txirrindulari bat hil** (6); **txirrindulari belgikarrak** (5); **txirrindulari bikain** (4); **txirrindulari bikaina** (6); **txirrindulari bizkaitarrak** (6); **txirrindulari daude** (6); **txirrindulari ditu taldeak** (4); **txirrindulari ditugu** (4)

txirrindulari espainiarra (5); **txirrindulari espainiarrak** (6); **txirrindulari estatubatuarrak** (4); **txirrindulari ezezaguna** (4); **txirrindulari garailea** (4); **txirrindulari gazte** (6); **txirrindulari gazteak** (9); **txirrindulari gutxi** (5)

txirrindulari indartsuena (6); **txirrindulari italiarra** (8); **txirrindulari italiarrak** (8); **txirrindulari izango ditu** (4)
txirrindulari ohia (17); **txirrindulari ohiak** (13); **txirrindulari ohiaren** (7); **txirrindulari on** (9); **txirrindulari on asko** (4); **txirrindulari ona** (10); **txirrindulari onena** (9); **txirrindulari onenak** (10); **txirrindulari onenek** (4); **txirrindulari onenen** (6); **txirrindulari onenetakoa** (6); **txirrindulari osoa** (9); **txirrindulari osoa da** (5); **txirrindulari poloniarra** (4); **txirrindulari sartu** (4); **txirrindulari talde** (10); **txirrindulari talde bat** (4); **txirrindulari taldeak** (4); **txirrindulari taldeko** (8)
txirrindulari zoin lehenka (4)
euskal txirrindularia (7); **euskaltel euskadiko txirrindularia** (5); **kelmeko txirrindularia** (5); **liberty taldeko txirrindularia** (4); **saecoko txirrindularia** (4); **somarriba bizkaitar txirrindularia** (5); **taldeko txirrindularia** (40); **txirrindularia da** (13); **txirrindularia izan** (7); **txirrindularia zen** (6); **urteko txirrindularia** (5)
bere txirrindulariak (4); **dauden txirrindulariak** (4); **dira euskal txirrindulariak** (4); **euskal txirrindulariak** (18); **euskaltel euskadiko txirrindulariak** (8); **kelmeko txirrindulariak** (4); **step taldeko txirrindulariak** (4); **taldeko txirrindulariak** (28); **txirrindulariak ez** (7); **txirrindulariak irabazi** (5); **txirrindulariak izan** (4)
taldeko txirrindulariei (5)
euskal txirrindulariek (15); **txirrindulariek egin** (4)
euskal txirrindularien (4); **txirrindularien artean** (10); **txirrindularien frantziako itzulia** (6); **txirrindularien zerrrenda** (7)
euskal txirrindulariez (4)
euskal txirrindularik (4); **txirrindularik egin** (4); **txirrindularik korrituko** (4)

txirrindularitza 1 iz bizikletarekin egiten den kirola.

Indartsuenak ez du beti irabazten, **txirrindularitza** pedalei eragitea baino askoz gehiago da. **Beria - Kirola**
Oinarri sozialik gabeko kirola da **txirrindularitza**. **Beria - Kirola**
Mikel Zarrabeitia txirrindulariak alde bat uzten du **txirrindularitza**, 33 urtetan. **Herria**
Zein garaitako **txirrindularitza** atsegin duzu gehien? **Beria - Kirola**
Australiako **txirrindularitza** maila gorenean dago azkenaldian. **Beria - Kirola**
Estimazio handia du euskal **txirrindularitzak** atzerrian. **Beria - Harian**
Txirrindularitzaren munduan barneratzen du testuak irakurlea, bizitasun handiko elkarrizketa ironikoen bitartez. **Beria - Kultura**
Passo Gaviak, dena den, ez du eguraldi txarrik behar **txirrindularitzako** ikur bihurtzeko, berezkoa baitu kategoria hori. **Beria - Kirola**
Txirrindularitzako munduko xapelgoan frantsesak ez dute oraindik urrezko medailarik bereganatu. **Herria**
Txirrindularitzan babeslea galtzen bada, dena galtzen da, ez dago irtenbiderik. **Beria - Kirola**
Heldu den urtean Pro-Tour delakoa jarriko da abian, **Txirrindularitzako** Munduko Liga. **Beria - Kirola**
Txirrindularitzan, Iban Mayo bizkaitarrak gaitzeko balentria egin du astebeteko Dauphiné-Libéré lasterkaldia irabaziz. **Herria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hirutan egon da **txirrindularitza** profesionala uztear. **Beria - Kirola**
Erojupekoa errepedeko **txirrindularitza** profesionalen lehiatzeko moduetako bat da berez. **Beria - Gaiak**
Non eta Mortirolon, **txirrindularitza** modernoko harribitxian, inoiz igo den mendate malkartsuenean. **Beria - Kirola**
Giroan puri-purian azaleratzen delako egunero Italiako **txirrindularitza** erasokorra, mugitua. **Beria - Kirola**
Eskualde ederra da hura, **txirrindularitza** ikusgarria ikusteko apropos-aproposa. **Beria - Kirola**
Errepideko **txirrindularitzan** aditua da, eta bulegoko kontu ezkutu eta ilunen jakitun ere bai. **Beria - Kirola**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nazioarteko **txirrindularitza** egutegiko proba nagusietan. **Beria - Kirola**
Lore asko entzuten dira zuri buruz **txirrindularitza** giroan. **Beria - Kirola**
Gure helburua **txirrindularitza** zaletasuna zabaltzea da. **Beria - Kirola**
Alemaniako Itzuliaren alde egiten dute, Euskal Bizikleta baztertuz, jakina denean Alemaniako **txirrindularitza** tradizioa Euskal Herrikoa baino askoz txikiagoa dela. **Beria - Kirola**
Kaikuk amasa eman dio Euskal Herriko **txirrindularitza** harrobiari. **Beria - Kirola**
Pozik **txirrindularitza** kazetariok. **Beria - Kirola**
Afizionatuetan epe bat egin ostean, **txirrindularitza** jardunean jarraitzeko aukera oso txikia da, eta Kaikuk aukera hori nabarmen handitu du. **Beria - Kirola**
Euskaltel Euskadi **txirrindularitza** taldeak, berriz, gaur aurkeztu behar zuen UCI Pro Tourrerako taldea Hondarribiko (Gipuzkoa) Hondartza kirolegian. **Beria - Harian**
Belgikako **Txirrindularitza** Ligako Diziplina Batzordeak lau urteko zigorra eskatu du Jo Planckaert, Chris Peers, Johan Museeuw txirrindulari profesionalentzat. **Beria - Kirola**
Zaila da Nazioarteko **Txirrindularitza** Elkargoaren aldeko edo itzuli handien antolatzaileen aldeko jarrera hartzea, baina UCIn jarrera beste aldearena baino harroputzagoa da, itxuraz. **Beria - Kirola**
Espainiako **Txirrindularitza** Federazioak Aitor Gonzalez ustezko dopin kasuagatik zigortzea proposatzen zuen txostena artxibatzea erabaki du. **Beria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

australiako txirrindularitza (5); belgikako txirrindularitza (3); euskal txirrindularitza (4); frantziako txirrindularitza (3); italiako txirrindularitza (7); nazioarteko txirrindularitza (48); nazioarteko txirrindularitza elkargoa (12); nazioarteko txirrindularitza elkargoak (22); nazioarteko txirrindularitza elkargoaren (6); nazioarteko txirrindularitza elkargoko (3)
txirrindularitza elkargoa (12); txirrindularitza elkargoak (22); txirrindularitza elkargoaren (6); txirrindularitza elkargoko (3); txirrindularitza elkarteak (5); txirrindularitza federazioak (14); txirrindularitza profesionala (4); txirrindularitza profesionalan (6); txirrindularitza taldeak (3); txirrindularitza utzi (6); txirrindularitza utziko (3)
egungo txirrindularitzan (5)
txirrindularitzari lotuta (3)

txirrindularitza zale (corpusean txirrindularitza zale soilik) izond/iz txirrindularitzaren zalea dena.

Urtero hainbat naziotako **txirrindularitza zaleak** biltzen dira Pirinioetan, eta ESAITek aukera aprobetxatu nahi izaten du Euskal Herriak nazioartean selekzioa izateko eskubidea baduela aldarrikatzeko. **Beria - Kirola**
Herriko gazte, **txirrindularitza zale** eta herritar xumeek horrela eman nahi izan zioten azken agurra herriko semeari. **Beria - Kirola**
Cunego delako Italiako **txirrindularitza zaleen** idolo berria. **Beria - Kirola**

txirrinduzale izond/iz txirinduaren zalea dena.

Gasteizko **txirrinduzaleen** elkarteak. **Iñaki Arranz**
Izan dira txirrindulariak Gipuzkoako buelta guztia ia bakarrik egin dutenak, baina ezer gutxi utzi dute **txirrinduzaleen** oroimen kolektiboan. **Beria - Kirola**

txirrinduzaleatasun iz txirinduaren zaletasuna.

Inori otu ote zaio sekula, holandesen **txirrinduzaleatasuna** arrazialki esplikatzea? **Joxe Azurmendi**

txirringa¹ 1 iz bizikleta.

Parkeko gune batzuk **txirringak** uzteko atonduko dituzte. Berria - Euskal Herria

Kanpoan utzi du **txirringa**, hormaren kontra. Urtzi Urrutikoetxea

Polita behar du dena eman ondoren, **txirringa** gainean hustuta doan ziklistarentzat, lagunak irabazi duela jakitea. Berria - Kirola

Giharretako nekea errekuperatu **txirringa** estatikoa eginda. Berria - Kirola

Goenaga orain dela lauzpabost urte hasi zen kirola serio samar hartzen, mendia eta **txirringa** batez ere. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Noizean behin hor ikusten dugu Bombai aldean ohikoak diren taxi-**txirringa** horietakoren bat. Edorta Jimenez

txirringa²

1 *joko txirringa* erruleta.

Joko-**txirringan** aritu ninduan: bi ukendu-pote, gitarra bat eta portzelanazko katilu bat irabazi nitian hasieran. Jose Morales

txirringadun *izlag* bizikletaduna.

Horietako talde batean **txirringadun** polizia ere ezagutu dut. Urtzi Urrutikoetxea

txirringala *iz* mitxelina.

Hura inguratzan zuen bide asfaltatu bat zegoenez, hantxe egunero ordubete-edo arin ibiltzen eginez gero, gantzak erretzen eta **txirringalak** hustutzen hasiko zitzazkion.

Berria - Kultura

Bi urtez neurrigabe jan eta jan ibili ondoren, gizenegia zegoen begibistan zeukan udan **txirringalak** eta gantzakiak lotsarik gabe erakusten ibili ahal izateko. Berria - Kultura

txirrinots ik txirrin 5.

txirrinta¹ *iz* desira, nahia.

Halako **txirrinta** sortu zitzaidan, non edozein gauza egingo nuen hura lortzeko. Joseba Urteaga

Letren jostetan eta arriskutan ibiltzeko **txirrinta** dutenak. Patziku Perurena

Ez da **txirrinta**, baina demokratikoki behar-beharrezkoa. Berria - Kultura

txirrinta² ik zirrinta.

txirrio¹ *iz* oihua.

Kaioen **txirrioek** lan-birao zaharren oihartzunak dakartzate. Anjel Lertxundi

Saguzar baten **txirrioa** entzun da kanpaien segidan. Anjel Lertxundi

Geriatrikoko terrazan nengoelarik [...] enara baten **txirrio** petrala entzun nuen lehendabizi. Anjel Lertxundi

Txirrio gorri-beltz txiki bana irristatu zitzaien ezpain-ertzetatik behera. Anjel Lertxundi

txirrio²

1 *txirrioan adlag* turrustan.

Gorpu burugabea artean odolusten ari zelarik, odola **txirrioan** zihoalarik. Felipe Juaristi

Almak soinu-joleari erreparatu zion, ura iturritik behera bezala zihoazkion hari izerdi tantak aurpegitik behera, **txirrioan**. Felipe Juaristi

txirrioka *adlag* oihu eginez.

Kaio saldo handia zebilen belen artean **txirrioka**. Anjel Lertxundi

txirripittin *iz* ume ederra.

Hara, gure **txirripittina** -eta hurrengo Geralden besoetan jartzen zuen-. Mirentxu Larrañaga

txirripittintxo *iz* adkor txirripittina.

Ez al da polita, gure **txirripittintxo**? Mirentxu Larrañaga

txirriporro *izond* maneratsua.

Baina nondik atera da ume **txirriporro** sasijakintsu hau? Aitor Arana

txirriskila *iz* txori txikia, moko beltza eta lodia duena, eta lumak berde-horixka eta marra beltzez apainduak dituena (*Serinus serinus*).

Ekartzen zizkiguten karnaba eta **txirriskila** guztiak erosten genizkien bertako umeei. **Koldo Izagirre**
Nafarroako Gobernuak aurreko egun hauetan hilik agertutako beste zazpi hegazti ere (hiru zozo, bi uso, oilo bat eta **txirriskila** arrunt bat) bidaliko ditu Madrilera. **Berria - Gaiak**

txirrista 1 *iz* jolas tresna, etzanda nahiz eseririk jaisteko azal irristakorreko malda duena.

Txirristan irrist eginez jaisteko, altu egon behar du. **Arantxa Iturbe**

Gargantuaren **txirristaren** amaieran dauden koltxoien gainean erori zen Uxue, onik. **Iban Zaldua**

Kirol zelaira zuzenki iristen zen argiak aparteko zehaztasuna ematen zien **txirristei**, saski-zutabeei, lurreko marrei. **Bernardo Atxaga**

Lorategia baino gehiago jolasleku txiki bat zen, bazter batean zabuak, beste batean plastikozko **txirrista** bat eta bitartean jostailu eta gomazko baloi andana bat ageri zirela. **Oskar Arana**

Txirrista gehienak amak ez iristeko apropos eginak dira. **Arantxa Iturbe**

Irristaka joan zen harrizko **txirristan** behera, harik eta bukaeran bere poltsarekin topo egin zuen arte. **Iñaki Mendiguren**

Jolas orduetan, katedraleko eskaileraren alboetako baranda erabiltzen zuten **txirrista** gisa. **Joxerra Garzia**

Sorbalda makurtu eta buzoiairen ahotik begira geratu zen, postala **txirrista** ttikian behera nola irristatzen zen entzun eta barruraino heltzen zela ziurtatuz. **Harkaitz Cano**

Txirrista amaigabe, likits eta ilun batean behera jaistea bezala izan zen. **Iñaki Mendiguren**

2 (hitz elkartuetan)

Txirrista -lekurik eta kulunporirik gabe, hots, jolasik gabe. **Iñaki Seguro**

Lehenengo atea, sarrerakoak, isiltasunetik hitzera, errealtatetik fikziora, aspertasunetik poztasunera eramango gintuzke; bigarrenak, irteerakoak, **txirrista** forma izango luke nolabait esateko, eta bere eginkizuna itzulbidea leuntzea, samurtzea izango litzateke. **Bernardo Atxaga**

Harea-**txirristetara** iritsi eta salto egin dute beraiak ere. **Jokin Muñoz**

Kalearen bukaerara iritsita, nasaren ondoko zabor-**txirrista** grisaren gainean etzan zen. **Lopez de Arana**

3 *txirristan adlag* irristatuz.

Nolaz izan zen hain txoraa, galdetu zion, harkaitzetan **txirristan** ibiltzeko bitxiak jantzita? **Anton Garikano**

4 *txirrista egin* irrist egin.

Ura belauetaraino zeukanean **txirrista** egin eta jausi egin zen uretara, denon gozamenerako. **Joxemari Iturralde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txirrista egin (3)

txirristaleku *iz* txirrista dagoen lekua.

Da ikastola bezala, baina **txirristalekurik** eta kulunporirik gabe. **Iñaki Seguro**

Geure buruari ikusarazteko bizimoduan aurrera egitea nola den jolasik, **txirristalekurik** eta kulunporirik gabeko zigor isolamenduzko eta azkengabeko batera kondenatua izatea. **Iñaki Seguro**

txirritxirri *iz* kilkerrek egiten duten hotsa.

Kilkerren **txirritxirriek** gau goiztiarra janzen zuten. **Fernando Morillo**

txirtxilatu, txirtxila(tu), txirtxilatzen 1 du *ad* lehertu, desegin, birrindu. ik txirtxildu.

Erdian harri eta adreiluzko tximinia gaitza, kanoia dena **txirtxilatu**, itxura bitxikoa. **Koldo Izagirre**

Dena dago kendua, apurtua, **txirtxilatu**. **Koldo Izagirre**

Bestela, hegoak moztuko dizkiat, eta birrindu egingo haut, eta **txirtxilatu**, eta xehatu... **Patxi Zubizarreta**

Irun beharean, emeki-emeki **txirtxilatzen** zuen artilea beraren inguruan hegan ibiltzen ziren malutatxotan. **Juan Garzia**

Zanpa-zanpa egin eta **txirtxilatu** egingo zuen bertan gustura. **Juan Garzia**

Luzatu zuen eskua jaulierrak eskaintzen zion papera hartzeko, baina zerbitzuburuak tati egin zion, hartu eta **txirtxila** ez zezan. **Koldo Izagirre**

Urte berean **txirtxilatu** zituzten [Sacco eta Vanzetti] aulki elektrikoan, 1927ko abuztuaren 23an. **Pello Salaburu**

Terrazako biztanle horiek ez dute jakingo, ordea, goiko pisuetatik erori eta bertan **txirtxilatuta** geratu zela langile bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Papera **txirtxilatuta** komunetik beheiti botatzera nindoala [...]. **Koldo Izagirre**

2 (era burutua izenondo gisa)

Hartarako, behar zutela ondo-ondotik soildu beren buru gainak eta bertan behera bizkor bota, hartara behartuz gero, beren iduneko **txirtxilatuak** eta beren mahuka kolorezkoak. **Juan Garzia**

txirtxildu, txirtxil(du), txirtxiltzen 1 du *ad* txirtxilatu.

Laster ekin zion vendettari, besoa erazi nahi zidan, bide batez eskua **txirtxildu** eta bizkarrezurra desegin, hori dena irribarretsua. **Joxean Sagatzizabal**

Lau neska ahots ziren, lau ahots zorrotz, laurak barealdi hura zulatu eta **txirtxildu** zutenak, laurak marineleen bihotz simple eta gogortuak jo zituztenak. **Felipe Juaristi**

Mantala ere, txerri-oilo-txahal-arkume-odolaz blai, eta nolaz ez zuen eskolan abererik zatikatzerik, deklinabidea eta aditzak **txirtxiltzen** zituen. **Joxean Sagatzizabal**

Etsaien bihotz-arimetan etsipenaren hazia sartzea eta han, minbizia balitz bezala, zabaldu eta garatzea, gorputza ezik, gainerakoa **txirtxilduz**. **Felipe Juaristi**

2 (era burutua izenondo gisa)

Airean arropak, pertsonak, oihiak eta metal **txirtxilduaren** hotsak, sua eta anbulantziak. **Joxean Sagatzizabal**

txirtxileria ik zirtzileria.

txirtxirri *iz* enaren oihoa.

Zel 59 eta *LeLu 12,4* pasarteen arabera, enaren pasadizoa -beren **txirtxirri** zaratatsuz sermoia entzuten uzten ez zutelako, Santuak isiltzeko eskatu zieneko hura- Alvianon gertatu zen, Narni eta Orvieto bitartean. **Askoren artean**

txirtxirrika *adlag* txirtxirri egiten.

San Frantzisko predikatzen hasi zen, eta aurrena **txirtxirrika** ari ziren enarei aginduz ziren berak predikatu bitartean isilik egoteko. **Askoren artean**

txirtxirtu, txirtxir(tu), txirtxirtzen du *ad*

Filosofo madrildarra holakoxe samintasun metafisikoetan **txirtxirtzen** bizi den bitartean, kontsolamendu paregabekoa da E. Philipon baten liburua, non ere aurkezten baita tesi berri-berri bat, Iberiako biztanka nola agitu bide zen. **Joxe Azurmendi**

txiruka 1 *iz* olana sendozko bota, zola lodikoa.

Mendirako bezala jantzita zegoen, "**txiruka**" esaten zitzaien bota motxekin eta txandal berde batekin. Burua jaitsi duelarik Abelek bere **txiruka** bustiei eta galtza tarratatu eta lokaztuei begiratu die lehenengo aldiz ikusiko balitu bezala. **Bernardo Atxaga**

2 (izenondo gisa)

Abel, makurtu eta bota **txiruken** lokarrien korapiloak berregin ditu. **Pello Lizarralde**

txirula (*orobat txulula g.er., xirola g.er. eta xirula g.er.*) 1 *iz* flauta.

Turuta, **txirula**, zitarra, alboka, harpa eta beste musika-tresnen hotsa entzun orduko, [...].

Purpura koloreko egunsentian **txirula** baten soinua ateratzen zen etxe barrenetik. **Fernando Rey**

Txirulak eta harpak soinu gozoa dute: bi horiek baino gehiago mihi atseginak. **Elizen arteko biblia**

Galdua zuten Jakoben ondorengoek poza, isilik zeuden **txirula** eta harpa. **Elizen arteko biblia**

Angel Unzuk gitarra jo du, eta Javi Alzolak saxo altua eta **txirula** jo ditu. **Berria - Kultura**

Jende guztia Salomonen ondoren igo zen bozkario handiz eta **txirulak** joz. **Elizen arteko biblia**

Baziren **txirula** joaz sugeak dantzarazten zituztenak ere. **Xabier Montoia**

Txirula jotzea hauspo eta hortz kontua zen. **Fernando Rey**

Peter **txirula** alai-alai jotzen geratu zen apur batez. **Julen Gabiria**

Greziara, zurezko **txirula**, airea bera apenas zauritzen duena; turkiera, danborra, lurraren soinua, mendien oihartzun. **Felipe Juaristi**

Lurrean jesarrita eta bere **txirulari** hots jasangaitzak ateraz. **Jon Arretxe**

Gu hutsaren gainean ibiltzen gara sigi-saga, idazketa orri zurian ibili ohi den bezala, **txirularen** notak isilunean legez. **Anjel Lertxundi**

Txirulak soinua eta jendearen algarek alaitu egiten zuten giroa. **Bernardo Atxaga**

Txirularen soinuan mendia ibili egiten zen, eztanda egiten zuten malkarrek, elurrausok, izotz-gauek, izarrek-. **Fernando Rey**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Batzuek *dutara* jotzen zuten, masustondozko gider luzeko mandolina [...]; besteek *tschibizga*, kanaberazko **txirula** luzea. **Karlos Zabala**

Gelan gora eta behera ibiltzen hasi zen, alai joz bere **txirula** gupidagabea. **Julen Gabiria**

Barruan zurezko **txirula** bat zegoen, zabar landua. **Iñaki Mendiguren**

Basa apaiz bat etorri zen haien aurrean kanaberazko **txirula** bat jotzera. **Juan Garzia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ziegatik heldu zen **txirula**-soinua aditzean bere onera etorri zen. **Fernando Rey**

Hiritik taiko-danbor eta **txirula** doinuak zetozen, bihotza bizkortzen zioten doinuak. **Ibon Uribarri**

Israelen Harkaitz den Jaunaren mendira **txirula**-doinuak erromes doanak bezala. **Elizen arteko biblia**

-Non dago? -esan zuen batzordekideak **txirula**-ahotsez-. **Iñaki Mendiguren**

Oso istorio politak zekizkien, elezhar miragarriak, bildots eta aingeru txikiz beteak, bere **txirula** ahotsarekin serio-serio esaten zituenak. **Karlos Zabala**

Gero eta arinago ibili ziren itsuaren hatzak soken gainean, gero eta arinago juduaren hatzak **txirula** zuloak itxi eta ireki. **Felipe Juaristi**

4 irud/hed

Txirula hartu eta inbertsiogile txiki eta handiak liluratu zituen bere musika alaiarekin. **Berria - Ekonomia**

5 txirula-jotzaile (*orobat jole*) *iz* txirula jotzen duen pertsona.

Trio Philharmonia eta Frey Sigurjonsson **txirula jotzailea** ariko dira Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin zenbait emanalditan. **Berria - Kultura**

Magnus Lindgren saxo eta **txirula jotzaile** suediarra da Hendricksekin batera ariko den taldearen arima eta gidaria. **Berria - Kultura**

Ni **txirula-jotzailea** naiz, ez koblakaria. **Fernando Rey**

Eguzkia gordetzen den unean berean, **txirula-jotzaileak** jotzetik gelditu, txirulak berriz gerrikoan sartu eta zutitu egiten dira. **Fernando Rey**

Hobe nuen haren atzetik joan izan banintz, hari segika joan, Hamelingo **txirula-jolearen** atzetik bezala. **Fernando Rey**

6 (izenondo gisa)

Batez ere albo batean ageri zen neskatila **txirula-jolea** iruditzen zitzaidala liluragarria. **Joxe Austin Arrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txirula atera (3); **txirula jo** (4); **txirula jotzaile** (5); **txirula jotzailea** (3); **txirula jotzen** (11); **txirula magikoa** (3)

danborrak eta txirulak (3); **txirulak atera** (3)

txirulari (*orobat txululari g.er.*) *iz* txirula-jotzailea.

Maulen, **txirularien** zein txalpartarien harrera ukan zuten; Ezpeletan, ostatu eman zieten. **Berria - Euskal Herria**

Bi musikari izango ditu ondoan: Muriel Dupin harpa jotzailea eta Marise Graciet **txirularia**. **Berria - Kultura**

Alferrik izan zitzaizkion **txirularien** doinu sarkorrak, alferrik atabalarrien dei alaiak, alferrik zirtolarrien joko eta txantxak, alferrik maitaleen igurtzi eta ferekak. **Felipe Juaristi**

Beste pertsonaia arraroenetako bat arlote **txirularia** zen. **Jon Arretxe**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ehun txirulari (3)

txirulatxo *iz* txirula txikia.

Musikaz beterik egonik, ahots bikainez, **txirulatxo** hau, ez dakik hala ere mintzarazten. **Juan Garzia**

txisa ik txiza.

txiskero 1 iz pizgailua.

Zigarro bat piztu du eskaileretan behera, Eñautek goiz batean mesanotxe gainean ahaztuta utzi zuen **txiskeroaz**. Sonia Gonzalez

Txiskeroaz sutu zituen bien zigarretak. Unai Iturriaga

Txiskero baten sugarrak argitu zuen haren aho ingurua. Aingeru Epaltza

Rosak **txiskeroaren** garra hurbildu zuen ezpainetara eta zigarroak su hartu zuen astiro. Aritz Gorrotxategi

Kostoa plastikotik atera eta mahai gastatuaren azpitik, erdi ezkutuan, hasi zen **txiskeroaz** desegiten. Sonia Gonzalez

Jakina, **txiskeroentzat** harritxoak behar dira, eta neurri jakin batekoak, hain zuzen. Juan Garzia

Gabiri gustatzen zaio **txiskeroaren** klik-klak hori. Jokin Muñoz

Lulu ekartzen dio gogora, eta Zippo **txiskeroa**, eta Winston kontrabandokoa. Jokin Muñoz

Orain ez du erretzen, poltsan betiko **txiskero** metalikoa gordetzen badu ere. Javi Cillero

Zigarro bat hartu eta autoko **txiskeroaz** piztu zuen. Joxemari Iturralde

2 (hitz elkartuetan)

Albertori men, **txiskero**-harritxo bat ogi-parte bat kotizatzen zen, hots, bizi-egun bat. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txiskeroa atera (4)

txiskerodun izlag txiskeroa duena.

Katena piztu zuen lehenengoz, neskak esku leunen artean **txiskerodun** esku arrotzari heldu bitartean. Sonia Gonzalez

txiski-miski iz

Ama bazihoan baina umea semaforo batek geldiarazi du: izen galaktikodun patata eta **txiski-miskien** zorro koloretsuen deiak. Pako Aristi

txispa¹ (orobat txixpa g.er.) 1 iz txinparta, pindarra.

Han goiko truke horretan **txispa** eta su hasten da energia pilatua: bat-bateko deskargak argitasuna sortzen du hodei barnean, su-mingain adartsuen gisara. Pello Zabala

Martxan jartzeko automatizatuta zeuden makinak piztu eta **txispa** leherketa batek eragin zuen sua. Berria - Ekonomia

Txispa baten izarniadura bordaren barruan, kandela baten argia, eta borta zabalik. Koldo Izagirre

2 irud/hed

Hortxe zegok bada grazia, horrelako binomio fantastikoetatik sor daitekek **txispa**. Iñaki Iñurrieta

Nire baitan zerbait pizten duen ideia edo **txispa** daukadanean, niretzat ezinbestekoa da ideia horri nire bizitzan lekutxo bat egitea. Ana Urkiza

Txispa falta omen zitzaion aurtengo Aimarri, **txispa** besoan. Berria - Kirola

3 irud/hed gatza, biperra.

Artikuluetan zuzentasunaz, gaiak duen interesaz eta hizkuntza aberastasunaz gain «**txispa** eta gatza» saritzen dituztela esan zuen. Berria - Gaiak

Badakik Raulek zer-nolako **txispa** duen hitz egiteko garaian. Xabier Etxabe

Txispa eta poxa galtzeko bideak dira. Andoni Egaña

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txispa falta (4)

txispa² ik zizpa.

txispatsu izond txispaz betea.

-Ariko tsarkai maigh'- **txispatsua** aditu nuen, izaki berde argia inguratzen zuten har zuri malatsen dantza urguilutsua, beribil bereziaren leihatila batetik zetorren laser ezpata mihiak troxatzen ninduela. Itxaro Borda

txispatu, txispa(tu), txispatzen da/du ad apur bat mozkortu. ik txolindu.

Trago luze bat jo diot konbinatuari; gozoa dago, baina **txispatzen** ari naizela sentitzen dut: gauzak irreal bilakatzen hasten diren puntu horretan, hemen zer egiten dugun galdetzeko kemenak iraungitzen diren oren horretan. Pako Aristi

Txispatu ginen batean mozkor-mozkor eginda amaitu genuen azken afarian. Patxi Zubizarreta

Han **txispatu** egin naiz -eta gara-, eta alkoholak ez ezik, Ruben aski irribarretsuen begirakune umelak ere on egin dit. Patxi Zubizarreta

Gaur ere **txispatuta** zegoela ematen zinan. Anjel Lertxundi

Janera baino gehiago edanera emana zen eta **txispaturik** zihuan. Patxi Zubizarreta

txisperu iz

Ezin zitzaion kemena ukatu kontadoreari, ibili behar zen orbel haiekin **txisperuen** artean. Koldo Izagirre

txispis ik txist-pist.

txist interj

Bat-batean, **txist**!, entzuten dut nire atzean. Anjel Lertxundi

Txist! egiten dio, argazkilariak ere atzo niri **txist**! egin zidan bezala. Anjel Lertxundi

txist-pist

1 txist-pist batean (orobat txispis batean) adlag di-da batean.

Natik **txispis batean** jaso zuen mahaia kafea zerbitzatzeko. Aitor Arana

Bere zakil tentea harro eta prest azaldu zitzaidan begien aurrean eta **txist-pist batean** sartu nuen ahoan. Aitor Arana

txistatu, txista(tu), txistatzen 1 du ad adkor ziztatu.

Txistatzen duen landare hau, mendeak eta mendeak pasa, baliatua izan da laborantzan, lurra azkartzeko, baita ere osagarrian, jendeen eta abereen minak artatzeko. Herria

2 irud/hed

Euskaldunek alta, **txistatzea** maite dugu, bizian gatz biperren ezartzea, proiektu berriak sortuz, elkarteak trumilka biziarriz, laborantza ttipiak xutik atxikiz, enpresak sortaraziz, [...]. Herria

txiste (293 agerraldi, 85 liburu eta 40 artikulutan; orobat xixte g.er.) 1 iz denbora-pasa kontatzen den ipuintxo edo gertaera, eskuarki barre eragitekoa. ik izkirimiri.

Kartetan ari ziren bitartean hari entzundako **txiste** bat kontatu zigun: pokerrean ikasten duen zakurrarena. Ramon Saizarbitoria

Txistea kontatu, eta jendeak barre egiten zuen. Joxerra Garzia

Stanley, konta iezaguzu **txiste** bat, kontatu pasadizo xebereren bat barre egin dezagun. Xabier Paya

Zure oinetakoak lotzeko dina ere ez den jendeak **txisteak** asmatzen ditu zure lepotik. Oskar Arana

Julenen harridurarako, **txisteak** ez die entzuleei batere graziazirik egin. Joxerra Garzia

Ezin al duzu **txiste** bat ondo hartu? Koro Navarro

-Ba al dakizu bitter erdiaren **txistea**, Sara? Joan Mari Irigoien

-Non dago **txistea**? Koro Navarro

Golf-jokalari japoniarraren **txistea** erdi-erditik hondatu didazu. Iñaki Mendiguren

Klubeko kideen artean Kohni buruzko **txiste** bat kontatzen zen: [...]. Koro Navarro

Politikoki egokiak diren **txisteak** bakarrik erabil al daitezke? Berria - Euskal Herria

Nik neuk **txistetzat** hartu nuen. Joxe Austin Arrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Garai batean oso **txiste** onak zenekizkien. Xabier Paya

Robertok kontatu zion **txiste** txar hura zerabilen buruan. Harkaitz Cano

Mikel eta Jon, antolatzaileetako batekin gipuzkoar eta bizkaitarren **txiste** txarrak kontatzen eta barrez lehertzen. Unai Iturriaga

Barre ttiki bat atera zitzaion, hura munduko **txisterik** barregarriena balitz bezala. Alberto Ladron Arana

"O! A!", oihiak eta barreak, **txiste** errazen bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Ingeniariei buruzko haren **txiste** inozoek ez naute amorrarazten. Joxe Austin Arrieta

Orduan ere **txiste** berdeak kontatu eta kontatu ari zen. Fernando Morillo

Barre-algara egin nuen, nahi gabe, **txiste** lizunen bat aditzean bezala. Joxe Austin Arrieta

Ondo ulertu nuen Triestekoek beren hiriaz beti egiten duten **txiste** gordin hori. Anjel Lertxundi

Garia lastotik bereizten baino zailago da asmatzen noiz den burutazio bat aforismo eta noiz **txiste** soil. Joxerra Garzia

Aitortu behar dut beste hainbeste gertatzen zaidala txikiteo giroan-eta ohikoak diren beste **txiste** triste horiekin ere. Joxerra Garzia

-Kubatar **txiste** bat kontatuko dizut, Diego -esan zidan halako batean, betiere niri besotik helduta-. Jon Muñoz

Aspaldiko **txistea** dugu koadrilan. Xabier Etxabe

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Medikukideek ezagutzen ninduten, eta bazekiten **txiste**-kontalari trebea izan nintekeela, hainbatetan. Joan Mari Irigoien

Bazekiat **txiste**-izena duela, baina hala deitzen zaiok: Portzinkula Eguna. Xabier Etxabe

Orduko eskuindarrek kontatzen zuten **txiste**-itxura guztia du hona dakarkidan pasadizoak: [...]. Anjel Lertxundi

Bai, egia da, garai batean **txiste** uzta ederra nuen. Xabier Paya

-Lagunetako batek, beti **txiste** kontari aritzen baitzen, galdetu zuen: Zenbat ordain liteke judu batengatik? Anjel Lertxundi

Lagunak bere inguruan bildu eta **txiste**-kontatzen hasten den dantsua konspiratzailetzat hartzen du begiraleen arrazak. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizarteak bazterrerera kondenatzen duen jendearen kontura egindako txisteak izan ohi dira sarri txikiteo-**txisteok**: emakumea jostailu, homosexuala marikoi, eta batez besteko ez dena barregarri bihurtzen dituztenak. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txiste bat kontatu (4); **txiste kontari** (3); **txiste soila** (3); **txiste triste** (4); **txiste txar** (3); **txiste txarrak** (5)

txistea kontatu (4)

txisteak egiten (6); **txisteak kontatzen** (7)

txistelari iz txiste-kontalaria.

Bada oraino beste barruti bat kasik edozer gauza botatzea libre dena, eta hura da umorea, baina ez batek duena [...] baizik-eta "umorismo" bihurtutakoa, bufoien eta **txistelarien** jarduna, erregimen orotan horren garrantzizkoa dena. Iñaki Segurola

txistera 1 iz kapela luzea.

Trajez eta **txisteraz** jantzitako pertsonaia multzo baten bitartez. Josu Zabaleta

Hogeita hamar kilo gizendu ondoren, trajea eta korbata eskuratu zituen, eta baita **txistera** ere. Iban Zaldúa

Enpresa eta enpresarioa, ikkia edo handia, globala hala lokala, definizioz, zantzailea -purua ezpainetan eta **txistera** buruan dutela, noski- **Iñaki Heras**
Nik erosketak supermerkatuan, eta supermerkatuan behirik ez; **txistera** magiko erradotik sortutakoak salgai. **Joxean Sagatzizabal**

2 ik xistera.

txistezale *izond* txisteen zalea dena.

Eta gainera -gehitu zuen funtzionario **txistezaleak** guregana hurbilduz-, Baffinen fantasma uharte horretan bizi da, eta ez zaizkio bisitak gustatzen. **Bernardo Atxaga**

txistor (*orobat txixtor g.er. eta xixtor g.er.*) 1 iz lukainka-mota mehea.

Inoiz baino jende gehiago etorri da, eta sagardoa, **txistorra**, gazta, dena amaitu zaigu. **Berria - Kirola**

Karta luzatu dit: hasierakoetako bat aukeratzeko eskubidea dut: bost xerra **txistor** edo errefauak edo izkirak edo apioa saltsan, erretilu bat. **Monika Etxebarria**

Ardo beltza eta **txistorra** banatzen genuen baserriaren barruan. **Txillardegi**

Nik behintzat nahiago arrautza frijiuak **txistorrekin**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

On egin **txistorrak**! **Pello Zabala**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tabernetan ardoa eskatzea, egun hartan **txistor**-mutur batekin ateratzen zizutena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Idazkariak arrautza bat eta **txistorra** zati bi zituen aurrean, eta eskuoihala lepo inguruan loturik. **Eider Rodriguez**

Txistor puska luze bat jan dut, zutik oraingoan; eta dozena bat sardina erre ere bai. **Txillardegi**

Baionako Gau eskolak ere bere aldetik animazio bat antolatzen du: **txistor** jasta, hitzordua ebiakoitz honetan, 7etarik goiti Baionako merkatuan. **Herria**

Udalak traba ugari jarri dizkigu **txistorra** jana eta kontzertua antolatzeko. **Berria - Euskal Herria**

17tan Olentzero Herriko Etxeko balkoian eta segidan **Txistor** gaua Merkatuan. **Herria**

3 irud/hed

Batak egiten omen du **xixtor** gogorra, bertzeak ur mehea? **Jokin Urain**

"Hau demonio alka!" neska edo mutiko **xixtor** luxanga bategatik. **Patziku Perurena**

txistoso *izond* adkor barre-eragilea, piperduna.

Asistenta narras, zakar eta axologabe bat marituaren konfidente izatea **txistosoa** iruditu zait eta halaxe utzi dut. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Triste nenbilen garai hartan, baina taldekideen artean disimulatzen ahalegintzen nintzen, inoiz baino graziosoago eta **txistosoago** agertzen nintzaiaela. **Joan Mari Irigoien**

Usteak nolako, usadio zaharrak halako! zioen nire lagun **txistoso** batek. **Pello Zabala**

txistu (*orobat txixtu g.er., xistu g.er. eta xixtu g.er.*) 1 iz ezpainetan irekidura mehar bat eratuz eta bertatik airea jaurtikiaz ateratzen den soinuz zolia.

Juan Bautistak bazekien [...] filibusteroen **txistua** jotzen, hala deitzen baitzuen berak, filibusteroena, lau hatz ahoan sartu, mihia tolestu eta oso errime egiten zuena.

Joseba Sarrionandia

Mihiaren aurrealdea goiko hortz-hobietara hurbiltzen da, eta hurbiltze-gune horretatik igarotzen den aireak **txistu** moduko hotsa ateratzen du. **Lourdes Oñederra**

Zuk badakizu, Peppone: **txistu** bat, eta hasiko gara. **Koldo Biguri**

Txistu batzuk entzun dira. **Pako Aristi**

Jende artean zeuden slytherindarrek ere entzunarazi zituzten beren **txistu** eta oihuak. **Iñaki Mendiguren**

Aldi berean ordea, oihu eta **txistu**en gainetik, adi-adi zegokien Patriciari eta aldameneko neskameari. **Koro Navarro**

Arretagabe nenbilen, kaletik **txistua** joaz. **Koro Navarro**

Gauzainak esan dit: "ez da **txistua** jotzen". **Koro Navarro**

Isekaz eta **txistuz** hartu zituzten besteek Alberten hitzak. **Jon Muñoz**

Txistuak eta txaloak, eta txalorik gabeko **txistuak**. **Berria - Kirola**

Mallorcaren aurkako partidaren Sadarren entzun behar izan zituen **txistuak** ahaztu ez dituela argi utzi zuen Krutzagak. **Berria - Kirola**

Oihu eta **txistu** ari zaizkizue. **Xabier Montoia**

2 irud/hed

Ahoa oker, ilea haizeari emana, bere zintzur idorretik **txistu** ulertezin bat baizik ateratzen ez zela. **Karlos Zabala**

Bere arnasa larriaren **txistua** besterik ez dut entzuten. **Xabier Etxabe**

Munduko lore ederrenak dira han heltzen eta xori arraroenen **txistuak** entzuten. **Aurelia Arkotxa**

Txitxikov izutu egin zen halako **txistua** entzutean, zeren bai baitzirudien gela sugez bete zela bat-batean. **Jose Morales**

Haren putzak ere ezin izan zitezkeen kornamusa edo xirula baten **txistu** zerutiarrak baizen. **Joan Mari Irigoien**

Londongo zerua Gernikakoa halako hamar, hogeitaz, berrogei, sirenen **txistua** baino mingarriagoa arranoen amiltze astuna. **Koldo Izagirre**

Merkantzi tren baten triki-traka geldia eta lokomotoraren **txistua** aditzen ziren. **Lopez de Arana**

Trenaren **txistua** entzun genuenean, denbora justua izan genuen trenbidetik apartatzeko. **Harkaitz Cano**

Trumoi-hots eta haize boladen **txistu**en artean. Tartetxo batez ez baitzen haizearen **txistua** beste ezein hotsik aditu han. **Martin Anso**

Edozein soinuz bereizten genuen: fusilak kargatzen zirenekoa, granaden **txistuak** parabolaren goiengo puntuan zeudeneko une mutua, [...]. **Harkaitz Cano**

Bidezainaren **txistua** entzun zuenean trena martxan jarri zuela. **Irene Aldasoro**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Txistu arin bat egin du, begiak zabalitzen dituela bidenabar. **Monika Etxebarria**

Arnasa botatzeaz batera, **txistu** luze bat jaulki zuen. **Lopez de Arana**

Txistu desafinatu bat atera zitzaidan. **Harkaitz Cano**

Latexari eskumutur parean tira egin eta **txistu** desatsegin bat egin zuen eskularruak, egurraz jabetzen ari den suaren antzekoa. **Harkaitz Cano**

Laster hasiko ziren estreinako **txistu** erre ozpinduak. **Karlos Linazasoro**

Kanpoaldetik, kakahuete-gurdi baten **txistu** amaigabea etorri zen. **Lopez de Arana**

Txistu zorrotz hezea bihurtu zen tutua. **Koro Navarro**

Upelaren erpinak, garabiko gurpiltxoaren **txistu** zorrotzaren musikaz, agur moduan egiten zion nasako beheari. **Edorta Jimenez**

Haren hitzak ia deus ez aditzerraino estali zituzten eltzean frijitzen ari ziren xingarren **txistu** alaiak. **Karlos Zabala**

[Ura] gainerakoan afferrik irakiten egoten da, **txistu** leun etengabe batez. **Itziar Otegi**

Haizeak amorrutako **txistuak** egiten zituen gau eta itsaso beltzen gainean. **Koro Navarro**

Itxi belarriak infernuren **txistu** maltzurrei. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sasien artetik joan ginen herrestan, ra-ta-ta, **txistu** seinale bat egin eta belar luzeen artean ezkutatu ginen. Koro Navarro

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harridura-oihuak, miresmen- **txistuak** eta denetariko esklamazioak entzun ziren. Jon Alonso

Tsiganoket lau hatz sartu zituen ahoan, esku bakoitzeko bi, basapiztia baten antzera begiak biribil-biribil zabaldu, eta benetako lapur- **txistu** basati batek urratu zuen epaiketa-aretoko aire geldoa. Jose Morales

Arnasestuka ari dira girazjoak, eta batek bular- **txistua** egiten du. Jose Morales

Zumezko bagoien gurpil txikien txilioa, zerra **txistua** zirudiena. Karlos Zabala

Ba zuen Karmenek argibiderik mendez mende alderrai omen dabilen Mateo Txistuk eragindako haize- **txistuarentzat** ere. Anjel Lertxundi

Musika esaldi kementsu horren erdian, pamesanoak txirula **txistu** mehe bat jaurtitzen zuen noizik behinka. Karlos Zabala

Berak jotzen zuen goizetan iratzartze- **txistua**. Urtzi Urrutikoetxea

6 euskal musika-tresna, aurrealdean bi zulo eta atzean bat dituen zurezko hodi batez eta aho batez osatua, ezkerrez jotzen dena, danbolina lagun duelarik gehienetan.

Txistua eta danbolina ez ziren isiltzen. Txillardegi

Jendea poz-pozik aritzen zen **txistuaren** eta danbolinaren soinuarekin dantzan. Koro Navarro

Soinu tresnetan, hor dira segur **txistua**, xirula, txiribita, txanbela, silbotea eta holako batzu. Herria

Malkoak zerizkiela ikusi ditiagu Zazpi Urteetako gerratean borroka latza egindako sentonak, berriro ere odolak zirakielarik, eta **txistuek** eta dultzainek airea inarrostean zutela. Txillardegi

Sevillanak trikitixa eta **txistua** baino maizago entzuten baitira gure auzoan. Joan Mari Irigoien

Uzkur begiratzen dio Soroak instrumentu guztiak, dultzainak eta panderoak, **txistuak** eta danbolinak dantza korroetatik baztertzen ari zen deabruaren tresna hari. Iñigo Aranbarri

Txistuaren eta pianoaren elkarte bitxi eta harrigarria gutxi balitz dantzarien erakustaldia gehitu zitzairen. Berria - Kultura

Txistu eta trikitri doinuen laguntza izan zuten. Berria - Euskal Herria

Manifestazioa koloretsua eta zaratsua izan zen: **txistu**, danbor eta adar hotsak nagusi izan ziren ibilaldi osoan zehar. Berria - Euskal Herria

Denbora guti eri egonik, pausatu da Narkiz Diez de Ibarondo txistulari eta **txistu** erakasle famatua · Hiru-lau lagunek solfeo eta **txistua** be ikasi eben. Herria

7 irud/hed ik txirula.

Zulo bakarreko **txistua** hantua susmatzen zuen. Itxaro Borda

Annie ogia egiten ari zela, eta ni egurrezko **txistu** bat zizelatzeko ukiluaren gaineko mandioan. Koro Navarro

Zitara eta harpa, danbolin eta **txistu**-soinua eta ardo ugari zuen janaldietan. Elizen arteko biblia

Zergatik gelditu zara, bada, eskortetan, Ruben, artzain- **txistuak** entzuten? Elizen arteko biblia

Jo dizuegu **txistua** eta zuek dantzarik ez; hiletak jo eta zuek negarrik ez. Elizen arteko biblia

8 listua, tua.

Ahoa **txistuz** betea neukan. Koro Navarro

–Heriotz... - **txistua** eztarrian behera pasa ezinik geratu zen- heriotza baten berri ematera natorkizu. Joxemari Urteaga

Frantziskok bere **txistuaz** begiak igurtzi zizkion hiru bider Hirutasun santuaren izenean, eta desiratzen zuen argia itzuli zion. Askoren artean

Beheko ezpainari hozka egin zion Santosek, eta **txistuaz** hezetu aho inguruak. Josu Landa

Tabakoak **txistuaren** konposizioa aldatu eta ahoko minbizia sor dezake. Berria - Gaiak

Eztarrira garbitu eta farol baten oinera **txistua** bota zuen. Lopez de Arana

Paraguayko selekzioko jokalarari bati **txistua** bota ziolako. Berria - Kirola

Txistua bota zuen eskuetara ilean artesia egin aurretik. Koro Navarro

Bigarren ordezkari nagusia familian! -esan zuen, harro-harro **txistua** irentsi. Iñaki Mendiguren

Mingainarekin gorputza **txistu** lodiaz zikinduz. Jasone Osoro

Orain, adur **txistu** lodia egin! Joseba Sarrionandia

Elias Elortzak [...] nahiko lan izaten zuen hitz egiteko, eta, berez notarioak ez ikusiarena egin zuen arren, **txistu** zipritzinen bat edo beste joan zitzaion haren mahuka gainera. Ramon Saizarbitoria

9 txistu-antzeko

Barrako gizonak **txistu-antzeko** hots bat jaulki zuen letaginen artetik. Lopez de Arana

-Hi, adiskidea, alferrikako borrokan ari haiz hor -esan zion ispiluak **txistu-antzeko** ahotsarekin. Iñaki Mendiguren

Orduan Riddleren **txistu-antzeko** ahotsa entzun zuen: "hil ezazu". Iñaki Mendiguren

10 txistu egin

"Sss", **txistu egiten** dio berriro Ryan-ek. Oskar Arana

-Zer iruditu? - **txistu egin** zuen harriturik-. Migel Angel Mintegi

Joan zen astean patronalaren egoitzan egindako bileran, esaterako, lehen ministroari **txistu egin** zioten. Berria - Mundua

Iluntzean **txistu egiten** diot lotara etor dadin. Itziar Otegi

Piztia gutxi batzuek **txistu egin** zuten. Julen Gabiria

Trenmakinak **txistu egin** zuen. Fernando Rey

Hooch andreak ozen **txistu egin** zuen bere zilarrezko txilibituz. Iñaki Mendiguren

Estazioburuaren txilibitua hartu eta **txistu egin** nuen indar biziz. Harkaitz Cano

Zartailuak **txistu egin** du airean. Karlos Zabala

Arnasa zelan hartzen duten aztertze, bularrean entzungailua jartzen badiegu, ikusiko dugu **txistu egiten** dutela. Berria - Gaiak

Belarri barnean **txistu egiten** zidaten oraino egunbete lehenago nire andreak ate horretaz haraindi erran itsuskeria guztiak. Aingeru Epaltza

Isil-misilka **txistu eginez** tren jasorantz jo eta aldirietako trena hartu zuen. Lopez de Arana

Aurrena, pentsatzen hasten zara hainbeste *mesede* ez dela parte onekoa, eta gerora, esaten dizuten bakoitzean belarriak **txistu egiten** dizu. Iñaki Segurola

Etexko taldeari bere zaleek **txistu egiten** diotela ikustea aurkariarentzako atsegina omen da. Berria - Kirola

· Haizeak putz eta **txistu egiten** zuen arbolen adaxka biluzietan eta sasietan. Fernando Rey

[Zooan] ez baita inoiz jakiten zerk **dagien txistu**, marmar edo kurrinka, musika modernoaren antzeko arrabotsa: izan zitekeen tximua, edo txoria, edo agian basakaturen bat, auskalo zer, arreske edo herio-suhar orroka, ezin ba jakin... Joxe Austin Arrieta

11 txistu hots (orobat txistuhots g.er. eta txistuots g.er.)

Ni ez, nik **txistu-hotsa** egiten nuen bi behatz ahoan sartuta bestearen alde nengoelako. Fernando Rey

Gizon-ahotsak entzun ziren nahasi-mahasian, gero isilune bat eta, bat-batean, aizkora baten **txistu-hotsa** eta danbeteo garbia. Obusen **txistu-hotsa** eta aiene-zinkurina, gureganantz hurbiltzen ari direlarik. Iñaki Mendiguren

Gero, esan zion ez iteteko eguerdiko **txistu-hotsa** entzun artean. Mirentxu Larrañaga

Grebaren bostarren egunean sirenak eta **txistu hotsek** hartu zuten Donostia eguerdian. **Berria - Ekonomia**

Tren baten **txistu-hotsa** entzun zuten. **Felipe Juaristi**

Harry biziki azeleratu zuen, haizeak **txistu-hotsa** ateratzen ziola belarrietan. **Iñaki Mendiguren**

Ibaiertz elurrez estali hartara seinالاتu zuen, nondik baitzeterren **txistu-hots** luze sarkor bat. **Irene Aldasoro**

Birikek **txistu-hots** itxuragabea egiten diote. **Patxi Iturritegi**

Kanarioak kaiolan **txistu hots** baketsuak egiten zituela. **Matías Múgica**

Lurrun-zorrotada bat irten zen **txistu-hotsez** kameratik. **Iñaki Mendiguren**

12 txistu jo

Griphooken **txistu jo** eta burdinbidean orga txiki bat etorri zen ziztu bizian haiengana. **Iñaki Mendiguren**

Léak **txistu jo** zion berriz, bestelako doinu. **Jon Muñoz**

Ez da bidezkoa izan Sanzoli **txistu jotzea**; hori ez zait gustatu. **Berria - Kirola**

Lokomotorraren lurruna arnasaren gisa mehe eta zuri arratsalde hotzean, **txistu jo** zuen arropa zabaltzeko sokaren azpitik pasatzean. **Koro Navarro**

Txalo eta **txistu** jotzen diote bere etxetik alde egitean. **Elizen arteko biblia**

Jo nuen **txistu**, egin nion dei, baina alferrik, ez zen ageri. **Anjel Lertxundi**

Ronen anaia bikiak **txistu jotzen** ikusi zituen Harry. **Iñaki Mendiguren**

Txistu jotzen saiatu zen emeki-emeki, baina atera zitzaizkion soinuek ez zuten antzik itxuratu nahi izan zuen doinuarekin. **Mirentxu Larrañaga**

Nik ez entzuna egin nion, eta **txistu joka** jarraitu nuen. **Koro Navarro**

Gure bozina eta **txistu-jotze** aski maiz errepikatuek inolako erantzunik ez baitzuten jasotzen. **Joxe Austin Arrieta**

13 txistu-jotzaile

Berari eta Sabin Bikandi txistulari, Bilbao musika eskolako zuzendari eta etnomusikologian adituari Jose Inazio Ansorenak **txistu jotzaile** eta katedradunak trikiti irakaskuntzaren inguruko diagnostikoa egiteko eskatzean. **Berria - Kultura**

Badakizu, Strabon gure geografo ezagunak, Hispania aldeko populua **txistu jotzaile** bat aipatu zuen! Haietarik dugu. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egiten zuen **txistu** (3); **txistu antzeko** (3); **txistu artean** (3); **txistu egin** (40); **txistu egin zuen** (15); **txistu eginez** (9); **txistu egingo** (4); **txistu egitea** (3); **txistu egiten** (37); **txistu egiten zuen** (11); **txistu hots** (21); **txistu hots txiki** (3); **txistu hotsa** (22); **txistu hotsa entzun** (9); **txistu hotsak** (6); **txistu hotsez** (4); **txistu jo** (15); **txistu jo zion** (4); **txistu jo zuen** (6); **txistu joka** (10); **txistu jotzen** (5); **txistu luze** (4); **txistu luze bat** (3); **txistu mehe** (3); **txistu mehe bat** (3); **txistu soina** (5); **txistu zorrotz** (3)

haizearen txistua (4); **txistua bota** (18); **txistua bota zion** (3); **txistua botatzeagatik** (14); **txistua botatzen** (6); **txistua entzun** (5); **txistua irentsi** (17); **txistua irentsi zuen** (12); **txistua jo** (14); **txistua jotzen** (10); **txistua joz** (6)

egindako txistuak (3); **pianoak eta txistuak** (3); **txistuak entzun** (18); **txistuak entzun ziren** (3); **txistuak entzutea** (7); **txistuak entzuten** (4); **txistuak jo** (4); **zaleen txistuak** (5)

txistuen artean (3)

txisturik ez (4)

txistualdi (orobat txistukaldi) iz txistu jotzea.

Kapitainaren hirugarren **txistualdia** entzun orduko, dist-dast batean atera zen soldadu sail osoa lubakitik. **Josetxo Azkona**

Hots, une horretantxe, Atxeta aldera abiatzera zihoan trenak bere **txistualdi** zorrotz luzea entzunarazi du bazterretan. **Txillardegí**

Pentsakor jarraitu [zuen] nire ganbito-irekierari nola aurre egin, eta txistuka ere bai, erabat urduritzen ninduen bere melodiarik gabeko **txistukaldi** erdi-ahapekatu, oharkabe eta balbula baten zirritzuko xuxurlaren moduko harekin. **Joxe Austin Arrieta**

txistuhots ik txistu 11.

txistuka (orobat xistuka g.er. eta xixtuka g.er.) 1 adlag txistu eginez.

"Sss", atzetik **txistuka** ari zaizkiola entzuten du, aretoaren aurreko aldean ez entzuteko bezain leun. **Oskar Arana**

Hura kantari eta beste guztiok txaloka eta **txistuka**, barrezka eta oihuka, berealdiko iskanbila sortuz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lehen, arriskatu egiten zen, kanpora irten eta **txistuka**, kantuka, oinaz lurra joka, etsaia izutzen saiatu. **Itziar Otegi**

Urrunean norbait ari zen **txistuka**. **Monika Etxebarria**

Tarteka umeak **txistuka** aritzen zitzaizkien zeken merke-nahi zurbilei. **Karlos Zabala**

ETAk hildako guardia baten hileta elizkizunean jendeak **txistuka** ekin dio apaizari euskaraz errezatzen hasi denean. **Bernardo Atxaga**

Claude, eskuak sakeletan, **txistuka**, goizero Parisen erdiraino igotzen zen. **Karlos Zabala**

Orain, gehiegi sufritzen zuen, isiliki gelditzen zen azkenerako, bizkarra makurturik, erdeinuz **txistuka**. **Karlos Zabala**

Kanta bat **txistuka** gogoratzen denean bezala. **Bernardo Atxaga**

Urrutiko herri bati egingo dio dei Jaunak, bandera jasoz eta **txistuka**. **Elizen arteko biblia**

Txistuka jardun zuen, eta aurrera segitu, txaboletatik erantzunik ez-eta. **Joxe Austin Arrieta**

Kanpoaldean, marmolezko hall distiratsuan, Joe O'Keefek *Sweet Rosy O'Grady* kanta zerabilen **txistuka**, igogailuaren zain zegoela. **Lopez de Arana**

2 irud/hed

Txema, ahoa guztiz lehorra eta bronkioak **txistuka** zituela [...] egunsentiarekin batera esnatu zen burua lehertzean. **Josetxo Azkona**

Sukaldean, surtan, kafea **txistuka** ari zen. **Koro Navarro**

Trenmakina **txistuka** sartzen ari zen eta geltokiko burua eskaileretan beheiti heldu zen deus gertatu ez balitz bezala. **Fernando Rey**

Tranbia luze eta hori bat **txistuka** igaro zen handik. **Lopez de Arana**

Bere baitan bildurik, polizia bat **txistuka** hurbildu zen. Ipar haize fina zebilen, bide bazterreko gaztainondoan hosto artean **txistuka**. **Lopez de Arana**

Gauetz haizea **txistuka**, eta kilkerra sasia. **Anton Garikano**

Heroi batek bezala lubaki bat defendatu eta **txistuka** datozen balen artean bandera landatu. **Koro Navarro**

Erradiadoreak joka eta **txistuka** ari ziren. **Lopez de Arana**

3 (hitz elkartuetan)

Behingoa lokartu ziren biak, sekulako zurrungak eginez, zeinei sudur-**txistuka** erantzuten baitzien nagusi jaunak aldameneko gelatik. **Jose Morales**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

balak txistuka (3); **haizea txistuka** (3); **inguruan txistuka** (4); **oihuka eta txistuka** (5)

txistuka agurtu (3); **txistuka ari** (21); **txistuka eta oihuka** (3); **txistuka hartu** (8); **txistuka hartu zuten** (4); **txistuka hartzen** (4); **txistuka hasi** (15); **txistuka hasi ziren** (8); **txistuka hasten** (4); **zaleek txistuka hartu** (3)

txistukada 1 iz txistu jotzea.

Irailaren 14 hartan "libre" hitza entzuten bide zen kanpotikako zarata eta **txistukada** guztien gainetik. Txillardegi

Gure atzean ate irristatzailea itxi eta kanpotik kolpe batzuk jo dituzte; segidan seinalea eman dute. **txistukadak**, trenetan ohi denez, eta gero astinaldi bat: abian ginen. Urzi Urrutikoetxea

Ategorrieta aldetik heldu zen trenaren **txistukada** zorrotz etsiak, eta bagoien tankateko zakarrek, errealitatera erakarri naute. Txillardegi

2 (hitz elkartuetan)

Arrastiri epel bikaina mamitzen hasiz zihoalarik, ohiko tren- **txistukada** luze tristagarriak astindu ninduen Aturriz bestaldetik Txillardegi

3 txistua botatzea.

Federazioak ez du gustukoa izan Freiren **txistukada** eta gezurra. Berria - Kirola

Eto'oren **txistukada** «partidako gertakari» bat izan ez zen bezala, Clementeren hitzak ere ondo pentsatutakoak izan daitezke. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trenaren txistukada (3); **txistukada zorrotz** (3)

txistukaldi ik txistualdi.

txistukari 1 izond txistu egiten duena.

Orduan gogora etortzen zitzaion Marcoren ahots zakar eta **txistukaria**. Lopez de Arana

Borroka betean ari direla, zeharo debekatuta dago baso sakratura sartzea... -esan zuen druidak ahots **txistukariak**. Joanes Urkixo

Askotariko kanarioak, kantariak eta **txistukariak**. Jon Muñoz

Haizeak zekarzkie, bere firfira **txistukariak**, ez nondik eta ez handik zetozkie hots, oihu, argibide, ziri eta mezu haiek guztiak. Anjel Lertxundi

Esaldiak ingelesezko eta gaztelaniako esamoldeekin zipriztinduz, hitzak ebakiz, ezpainen arteko leherdura **txistukariekin** esaldiak txikletuz... Anjel Lertxundi

• 2 izond/iz fonetika-fonologian, kontsonantez mintzatuz, igurzkaria izanik ahoskatzean txistuaren antzeko hotsa egiten duena.

Alegia, *eltze*, *mintzo*, *altzo* bezalakoetan **txistukaria** afrikatua izan ohi da eta ez igurzkaria (*elze*, *minzo*, *alzo*). Lourdes Oñederra

Esan behar da **txistukariaren** ondorengo trabaria ez ahoskabetzeak **txistukaria** ahostuntzea ekar dezakeela. Lourdes Oñederra

Txistukarien ahostuntasuna alofonikoa da euskaraz. Lourdes Oñederra

Gutxi hitz egiten zuen, oso italiera traketsa zuelako behar bada: **txistukari** guztiak berdintzen zituen, eta oso esaldi laburrak ateratzen zitzaizkion, gutzit osatu gabeak haietako asko. Anjel Lertxundi

Ikus *hobikari* atalean **txistukari** apikari eta lepokariaren nahasteaz esanak. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txistukari ahoskabearen (4); **txistukari ahostunak** (7)

ahots txistukariz (3)

txistukaritze iz txistukari bihurtzea.

Ez dira ahaztu behar nafar hiztunen *tr-* taldearen ahoskeran aurki daitekeen dardarkariaren **txistukaritzea** (taldeari afrikatu itxura ematen diona). Lourdes Oñederra

Gaztelaniaren hegoaldeko eta Ameriketako zenbait hizkeratan kontsonante sabaikariaren **txistukaritze** bilakabide interesgarriak gertatzen dira. Lourdes Oñederra

txistukatu, txistuka(tu), txistukatzen 1 du ad txistu eginez doinu bat jo.

Leunki, amasarik hartu gabe, italiar aria erraz bat **txistukatu** zuen. Jose Morales

Eginkizun hartan buru-belarri ari nintzela, konturatu gabe "sous le ciel de Paris" **txistukatzen** hasi nintzen. Ramon Saizarbitoria

"Musika hau beldurgarria duk", pentsatu zuen Henrikek, eta oso isilean hasi zen Vienako balts bat **txistukatzen**. Xabier Olarra

Une hartantxe, zera, medikua kanta bat hasi zuan **txistukatzen**, gure amak goizean etxeko lanak egitean kantatu ohi zuen abesti berbera. Mikel Hernandez Abaitua

2 txistu eginez gaitzespena adierazi.

Ikusleek epaileak 20nako berdinketarekin harturiko erabakia **txistukatu** zuten. Berria - Kirola

3 txistuz estali.

Xalo eta arduratsu, osabak zakilburua miaztu eta **txistukatu** zidan, labankor eta heze eduki nezan kanpaia erosoago jotzeko xedez. Aitor Arana

txistulari (orobat txistulari g.er.) 1 iz txistua jotzen duen pertsona.

Hasieran, herriko **txistulari** zen Bitorio Garmendia izan zuen irakasle. Iñigo Aranbarri

Txistulariak badauzkagu, baina soinu-jolerik ez! Koldo Izagirre

Txistulariek bazuten aski arrazoirik trikitilariekin haserre egoteko. Iñigo Aranbarri

Txistulariak eta gaiteroak entzuten ziren karraketan, eta txapelak gorri eta galtzak zuri jantzitako dantzariak ere bai, erruz, han-hemenka ibiltari. Txillardegi

Altzabiako auzoan erraldoi, gaitero eta **txistularien** ibilaldia. Herria

Goiz-goizetik hasten da **txistularien** diana. Xabier Etxabe

Ortizirale aratsaldean, **txistularien** kontzertua. Herria

Jose Inazio Ansorenak zuzendutako Donostiako Udal **Txistularien** Bandak emanik. Herria

2 (hitz elkartuetan)

-Oraintxe bertan herriko **txistulari** -bandarekin egon nauk bilduta. Xabier Mendiguren Elizegi

Haurren jaunartzeetan ibili nintzen **txistulari** taldean. Xabier Mendiguren Elizegi

Jose Maria Gurrutxaga, Txokolo, eta bere hiru semeak, Juan, Jose eta Antonio ere bai. Azpeitiko **txistulari** familiarik ezagunena osatzen zuten. Iñigo Aranbarri

Trifaldinek hau entzun zuenean, lurreraino belauniko eginda, **txistulari** -ttuntunei jotzeko seinale egin zien. Patxi Ezkiaga

Euskal-Herriko **Txistulari** Taldeen Txapelketan. Herria

3 (izenondo gisa)

Antzeko zerbait iradoki du Don Isidro Ansorena nire adiskide zintzoak, gure Udaletxeko maisu **txistulariak**. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herriko txistulari (4); **txistulari bandak** (4); **txistulari taldea** (4); **txistulari taldeak** (3); **udal txistulari** (5); **udaleko txistulari** (3)
dantzari eta txistulariek (5)

txistumodu iz txistu egiteko modua.

Arrainak, ostera, erakarri egiten zituela esaten zuen Juan Bautistak berak eta Kalaportuko mutiko guztiek ikasi nahi zuten **txistumodua**, eta alferrik saiatzen ziren imitatzen.
Joseba Sarrionandia

txistuots ik txistu 11.

txistuzale izond txistu jotzearen zalea dena.

Beharbada taldeak merezi baino gutxiago egin dute **txistuzaleek**. **Berria - Kirola**

txit 1 adlag oso, guztiz. (dagokion adjektibo edo izenlagunaren aurre-aurrean)

Paul W. gaztea **txit** aberatsa eta **txit** dohakabea zen. **Txit** zuria zen, kareztatu berria zegoen. **Jon Muñoz**

Txit bikaina zen emaitza. **Jon Muñoz**

Barazki pila batzuk **txit** handiak ziren. **Karlos Zabala**

Elkarrekin topo egiten zutelarik, **txit** gozoak ageri ziren, **txit** balakariak. **Karlos Zabala**

Hori pentsatu orduko, soinu bat entzuten du, soinu **txit** atsegina. **Bernardo Atxaga**

Hiri zerutarreko bakea Jaungoikoarekin eta Jaungoikoagan elkarrekin gozatzearen batasun **txit** ordenatu eta **txit** adiskidetsuan datza. **Imanol Unzurrunzaga**

Ohorez bainaiz, jauna, zure zerbitzari **txit** apal eta **txit** esanekoa. **Jon Muñoz**

Txikia zen, biguna, **txit** negartia. **Karlos Zabala**

Txit barregarriak iruditu zitzaizkion Erlojuaren kaian topatu zituen udaltzainak. **Karlos Zabala**

Oi ene seme **txit** ezitia! **Askoren artean**

Entzuna bainuen Zuzendari **txit** agurgarria adimen handiko gizona dela. **Anjel Lertxundi**

Errege **Txit** Kristauak bere Erreinuak luthertiarrekin eta beste heretikoeekin egin zuen bakea. **Piarres Xarriton**

Hona hemen Frantzisko gure aita **txit** dohatsuak eratu zituen gorespenak. **Askoren artean**

Venezia baldintza kultural **txit** espezifikoa. **Santiago Iruretagoiena**

Izaki hobezin, **txit** zintzo eta ahalguztidun honetan pentsatzean. **Imanol Unzurrunzaga**

Bost axolako litzaidake Cécile ttipiaren sakrifizioa, zuk gogo **txit** onez eskainia. **Jon Muñoz**

2 (adizlagun edo kideko bati dagokiola)

Bai, gaur egungo aingeruek masturbazioa, sarketa, kitzikatzea eta abar garbi horiek oro **txit** ongi ikasiak dauzkate. **Iñaki Seguro**

Banuen Brighton Beach-en judutar adiskide bat liburu oso onak **txit** merke saltzen zizkidana. **Gotzon Garate**

-**Txit** egoki adierazia, Jonathan, bejondeizula! **Jon Muñoz**

Bide batez gogoratze, perspektiba hau Nietzschek **txit** zakarki jorratua dago. **Joxe Azurmendi**

Edozein gizon santutzat jotakoren argialdiak dogma bilakatzen zituztelarik **txit** arinki eta komenentziara. **Iñaki Seguro**

Gizon gaztea etzanda zegoen, **txit** zurbil, begiak itsu. Neska gazteak eskuetan zuen aingira askatu eta bizkarra eman zion, sutan, **txit** hanpaturik eta **txit** gorriturik.

Karlos Zabala

Txit lotsati, **txit** kikiidurik azaltzen zen beti haren aurrean. **Karlos Zabala**

Behan ikusia zuen, arrainen azokaren erdian, **txit** lanpeturik. **Karlos Zabala**

3 (izen sintagmaren hasieran)

Txit neska ona da hura ere! **Jon Muñoz**

Txit aurpegi zorrotza zeukan, errezeloa hartuta baitzegoen La Sarrietteren zapi txarki lotua zela eta. **Karlos Zabala**

Einsteinek berak esaten digu aurrerapena hiru urteko haurraren eskuan bizarra kentzeko labana bezala dela, **txit** arma arriskutsua. **Iñaki Seguro**

Tarrapataka atera dute handik, **txit** estualdi larriak pasa ondoren. **Txillardegí**

Biek egin ditzakete, **txit** leku desberdinetatik abiatuz, merituzko nobela edo poemak. **Bernardo Atxaga**

4 (aditzari dagokiola)

Txit harritu zen, bi edo hirugarren egunean portura joanda, ez baitzuen Liftxitzen arrastorik ikusi. **Pablo Sastre**

Harritu egiten da bere buruaz, **txit** harritu ere, ez daki-eta nondik sortu zaion irribarre egiteko gogo. **Karlos Linazasoro**

Herri horretan badira euskara **txit** maite duten familiak. **Gotzon Garate**

Txit zen aberatsa. **Gotzon Garate**

Don Carlosek orduan prediku gaitzak bota dizkie honi eta hari, eta aholku zuhurrak **txit** eta ugari eman ditu. **Txillardegí**

5 txit-txit-txit

Kardantxilo saldo harrigarri bat mundua **txit-txit-txit** ondo egina dagoela kantatzen ari zen goiz eder batez. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita txit dohatsua (4); **aita txit dohatsuaren** (4); **aita txit santu** (5); **aita txit santua** (15); **aita txit santuak** (19); **aita txit santuaren** (11); **aita txit santuari** (7); **ama txit** (14); **ama txit santuaren** (4); **anaia txit** (19); **anaia txit maite** (6); **anaia txit maitea** (3); **anaia txit maiteok** (5); **armada txit zorioneko** (13); **armada txit zorionekoa** (7)

frantziako txit dohatsuaren (6); **frantziako txit santuaren** (4); **gizon txit santuaren** (3); **gorentasun txit ohoragarria** (4); **gorputz txit santua** (7); **hitz txit santuak** (3)

jainko txit ezitia (3); **jaun txit agurgarria** (4); **jaun txit argia** (3); **jaun txit gorena** (4)

odol txit santuak (5); **odol txit santuei** (5); **pobretasun txit gorena** (3); **pobretasun txit gorenaren** (4); **pobretasun txit santuan** (4); **pobretasun txit santuaren** (4); **sakramentu txit santua** (3)

txit agurgarri (11); **txit agurgarria** (22); **txit agurgarriak** (32); **txit agurgarriaren** (23); **txit agurgarriari** (14); **txit apal** (5); **txit apala** (3); **txit argia** (5); **txit behartsuak** (3); **txit bikaina** (5); **txit dohatsua** (5); **txit dohatsuak** (5); **txit dohatsuaren** (11); **txit dohatsuari** (4)

txit eder (6); **txit egokia** (4); **txit esanekoa** (4); **txit ezitia** (8); **txit goren** (5); **txit gorena** (9); **txit gorenaren** (7); **txit gozo** (3); **txit gozoa** (9); **txit gozoak** (3); **txit handi** (4)

txit leiala (4); **txit maite** (12); **txit maite horrek** (4); **txit maitea** (10); **txit maiteok** (5); **txit noblea** (3)

txit ohoragarria (4); **txit ondo** (5); **txit ongi** (11); **txit ospetsua** (3); **txit razionalki** (3); **txit santu** (24); **txit santu haiek** (3); **txit santu hau** (3); **txit santua** (41); **txit santuak** (34); **txit santuak ematen** (3); **txit santuan** (7); **txit santuaren** (39); **txit santuaren arima** (3); **txit santuari** (10); **txit santuei** (8)

txit zintzo (3); **txit zorioneko** (15); **txit zorioneko hartan** (3); **txit zorionekoa** (7)

txitean-pitean 1 *adlag* behin eta berriro, sarritan.

Txitean-pitean bey-a Ahmet kontsolatzen saiatzen zen. **Fernando Rey**

Ez ibili **txitean-pitean**, motiborik gabe deitzen. **Gotzon Garate**

Golek, berriz, bere gerlarien aurrean jarrita, **txitean-pitean** atzerantz begiratzen zuen, urduri antzean, azpijokoren bat egitekotan balego moduan. **Joanes Urkixo**

Aitak, igande goiz oroz, Nona Mália ikustera eramaten ninduen txangoz: astiro joaten ginen Po kalean barrena, eta **txitean-pitean** egiten zuen aitak gelditzera, bidera irteniko katu guztiak ferekatzera, trufa guztiak usnatzera eta bigarren eskuko liburu guztiak orripasakatzera. **Juan Garzia**

2 txitean-piteango izlag

Lantegi hartan bizitzea ez zen zaila: lan egitea zen zaila, **txitean-piteango** oztopo mordoarekin. **Juan Garzia**

txito ik **txita**.

txitxa ik **txita**.

txitxar *iz* intsektu hemiptero kolore-iluna, mintzezko hegoak dituena eta karranka hots beti-batekoa ateratzen duena (*Cicada plebeia*).

Portziunkulako Santa Marian **txitxar** bat egoten zen Jainkoaren gizonaren gelatik hurbil zegoen pikondo batean, kanta-kantari. **Askoren artean**

Kanta, ene arreba **txitxarra**, eta goretsi pozkarioz zeure Jaun kreatzailea! **Elizen arteko biblia**

Astean zehar bero handia egin zuen, **txitxarrek** garrasi egiten zuten gauetz. **Eider Rodriguez**

Ez dakit zenbat denbora egingo genuen batak bestearen aurrean, **txitxarren** karrankek astunago egiten zuten isillasunean. **Ramon Saizarbitoria**

Txitxar arrenak esan beharko nuke, emeak ez baitu hotsik egiten. **Ramon Saizarbitoria**

Oso ezagunak dira, esaterako, [Samaniegoren] **Txitxarra** eta *Inurria, Azeria eta mahatsak* edo *Esne saltzailea* istorioak. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arreba txitxarra (6); **ene arreba txitxarra** (4)

arreba txitxarrari (3)

txitxardin *iz* aingiraren kumea. ik **angula**.

Azken 20 urteotan gure erreketan sartzen den **txitxardina** %90 apaldu da. Hurrengo egunean **txitxardinak** izaten ziren bazkaltzeko. **Berria - Euskal Herria**

txitxare ik **zizare**.

txitxarro 1 *iz* itsas arrain hezurduna, bizkarra berde iluna duena, haragi koipetsukoa, jateko ona (*Trachurus trachurus*).

Bisigua desagertu zen kostalde honetan, **txitxarroa** gero eta gutxiago dago, eta berdela sartu nahi digute, orain hamar urte inork nahi ez zuena. **Paddy Rekalde**

Lupia, berdela, legatza, hegaluzea eta **txitxarroa** arrantatzeko erabiltzen diren sareek galzorian utzi ditute delfin arruntaren espeziea. **Berria - Gaiak**

Atuna baldin bazen, turrin-hots bat; berdela edo **txitxarroa**, turrin bi; eta antxoarekin, hiru turrin-hots. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Aloña, gaur gauean egundoko **txitxarroa** afaltzeko! **Xabier Mendiguren Elizegi**

Arranparrilan erretako **txitxarroari**. **Edorta Agirre**

Munoa Plazan parrilan erretako sardina eta **txitxarroa** eskainiko da. **Berria - Euskal Herria**

Txitxarro frijitua eta arroza tomatearekin. **Jon Alonso**

Atzo eguerdian atera ziguten **txitxarro** erdi zapatu erdi maskalak gaina hartu zion gure pazientziari, eta planto egin genuen. **Anjel Lertxundi**

Jaurlaritzak euskal ontziei **txitxarro** txikiak ez hartzeko agindu, eta galiziarrei Pasaian pila bat kilo deskargatzen utzi. **Berria - Harian**

Ez antxoatan bihar arte ezin baitote urteko kostera mamitsuenari heldu, baizik eta berdeletan, sardinatan eta **txitxarroan**. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan)

Txitxarro harrapaketek ez dute aldaketarik jasango ia. **Berria - Ekonomia**

3 *adkor* zakila.

Antxoak, barbarinak, bisiguak eta halakoak sukaldean utzi ostean **txitxarro** ezkutua bilatzen zioten Tomasito inozenteari... praktetako botoiak askatu ostean aldabari laztan pare bat eman eta han hasten zen haren erreminta handitzen, tentetzen, harrotzen... **Paddy Rekalde**

txitxatxo *iz*

-Uste duzu, **txitxatxo**, hemendik dabilela? erantzun zidan aire kamutsa gordetzen saiatuz, bere bular erraldoiek ene sorbalda kuskatzen zutela. **Itxaro Borda**

txitxi (*orobat xitxi g.er.*) 1 *iz* *adkor* haragia.

Soineko estu baten bildutako biribiltasunak eta soberako **txitxiak** nabarmenki astinduz joan zen bezeroarekin. **Migel Angel Mintegi**

Hilak, biluz gorrian, **txitxirik** ia batere gabe, puska zaharrak bezal-bezala bata bertzearen gainean itzulipurdika. **Eneko Bidegain**

Beragatik, nire **txitxiak** xerradatan ebakiko nituzke; beragatik, su motelean erre nintzaten utziko nuke. **Jesus Mari Mendizabal**

Hamazazpi urteak bete berriak eta oraindik ere beste inoren **txitxiak** zer gustu zuen probatu gabe. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Arroza txiki, baba txiki, / tartean batere ez **txitxi**. **Anton Garikano**

2 txitxi burruntzi (*orobat txitxiburduntzi*)

Nola Héracliusek ia-ia jan zituen antzinako dama galai batzuk **txitxiburduntzian** sartuta. **Josu Zabaleta**

Ileordea erabiltzen zuen, oso zainduta janzen zen, ez zen inoiz gaixo, animalien zale zen, ez zion gorrotorik jendeari, eta galeper **txitxiburduntzien** zale amorratua zen.

Josu Zabaleta

Bigarren gosariko galeper **txitxiburduntziei** ekin aurretik. **Josu Zabaleta**

Txitxi-burruntzia banintz bezala! **Fernando Morillo**

Bihotzari **txitxi** -urka eginez eta arimari izerdia ateraz zuzendu behar izan zuen Galindezek fusilamendua. **Edorta Jimenez**

txitxiburduntzi ik **txitxi** 2.

txitxildu, txitxil(du), txitxiltzen (*orobat txitxitu*) du *ad* begiez mintzatuz, erdi itxi, bildu. ik **ñarrotu**; **txilotu**.

Lantzean behin andreak begiak **txitxildu** eta ikastetxeko kontuak galdetzen zizkidan. **Javi Cillero**

Emakumeak, erantzun aurretik, begiak **txitxildu** eta adi begiratu zion, errezeloz. **Migel Angel Mintegi**

Begiak **txitxildu** eta, idazkera kiribildu batez, honako eskaintza hau irakurri ahal izan nuen: "W.P. Weber standartenführerrari, Reicheko arimarik sentiberenetako bati, esker onez". **Alberto Ladron Arana**

Begi lokabeak **txitxildu** ditu, eta hizkiak ihesi doazkio kaleko mukizuak legez. **Javi Cillero**

Begietara so egin zion, zorrotz, begiak **txitxilduta**. **Migel Angel Mintegi**

Itsasora begiratzen zuen, ile horia haize epelak zirimolatzten ziola, eta begiak **txitxiturik** begiratzen zuen urrunera. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiak txitxildu (6)

txitxipapa

1 **txitxipapetan** *adlag* nahierara.

Elemeniaka, oro begi belarri, mihi, aho eta zintzur, leher eta zapart sekula fingabeko otoruntza eta edasian, goseak amikatuak **txitxipapetan** batetik bestiala. **Jose Angel Irigaray**

txitxipotxoka

1 **txitxipotxoka** *egin adlag* hitz egin.

Azkenik behintzat lasaitu du pertxuna izatez batzuetan bargazta ere bilakatzen den emakumea, egingo duela umearekin **txitxipotxoka**, eta lapurtzat salatu behar bada ere esango duela pulpitotik. **Pako Aristi**

txitxirio 1 *iz* urteroko barazkia, hazi biribilak, horixkak eta jateko onak ematen dituena; landare horren hazia(*Cicer arietinum*).

Ohi bezala, zerbitzari siriarrak botila erdia eta **txitxirio** batzuk atera zizkigun. **Juan Kruz Igerabide**

Ez ziren zain geratu, hurrena zer ikusiko: ez lapikoa **txitxirioekin** kea dariola lurrian, ez galleta-papurak ilaran ate ondoan. **Anton Garikano**

Bere burmuina haizez beteriko buñuelo baten ezerezean dingilizka ari zen **txitxirio** bakarti eta ttipia baino ez zen. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Bere korolaren goialdean **txitxirio** -txerto bat jartzearen gorabeherari aurre egitekotan zen. **Xabier Olarra**

txitxitu ik **txitxildu**.

txitxo ik **txita**.

txixa ik **txiza**.

txixagura ik **txizagura**.

txixalarri ik **txizalarri**.

txixe ik **txiza**.

txixpa ik **txispa**¹.

txixtor ik **txistor**.

txixtu ik **txistu**.

txixtulari ik **txistulari**.

txiza *(orobat txiz g.er., txisa g.er., txixa g.er. eta txixe g.er.) iz pixa.*

Ez dakit beldurragatik zen, baina bat-batean **txisa** egin nuen gainean; nitaz barrez hasi ziren batzuk, eta beste batzuk, berriz, nirekin haserretu ziren, mihiarekin gela osoa garbitu beharko nuela esaten zidaten. **Berria - Euskal Herria**

Barakaldoko Udalak 300 espediente ireki ditu sei hilabetearen kalean **txiza egiteagatik**. **Berria - Euskal Herria**

Han euri urrezko putzu bat egoten zen, edota urreztatzeak eragindakoa, edota zamariren baten **txizak**. **Patxi Zubizarreta**

Besteen hautsak kendu eta besteen **txizak** komunean lagatako putzu lehorra garbitzera! **Jasone Osoro**

Infekzioa moztu zitzaion arte preso antiguarrak odola isuri zuen **txizarekin** batera. **Berria - Euskal Herria**

Odolaz gain, **txizaren** zenbait parametro ere aztertzen dira metodo horrek. **Berria - Kirola**

Lehenengo eta behin neure eremua mugatzea erabaki nuen eta **txizaz** busti nituen bainera, Santiren ohea eta egongelako besaulkia. **Jon Arretxe**

Biziiza, kakaz betetako belaontzia da **txizazko** itsasoan uzkerren haizeak bultzatua! **Joseba Sarrionandia**

Hombre, **txizatan** bainatutakoak badatoz. **Joxean Sagatzizabal**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kalea ilun dago eta **txiza** usaina dario. **Sonia Gonzalez**

Tentetasun harekin ez zegoen jakiterik komunetik kanpora **txiza** arrastorik laga barik egitea posible izango ote zen. **Unai Iturriaga**

Txiza -zorrotadaren erdian zegoenean, Lucasek bira egin eta aingeruaren oinarrira apuntatu zuen. **Unai Elorriaga**

Zira barregarria [...] logelan utzi eta derrigorrezko **txiza** parrastada bota ondoren eseri zen mahaira. **Unai Iturriaga**

Deeena kontatu nion, **txiza** euria, korroan hasi eta nola joan ziren nire hezurrak galtzada harrietara, bertso-saioa, [...]. **Joxean Sagatzizabal**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Ku-kux-klanaren eraso **txiza** -jaurtitzailak sortutako egonezina uxatzeko. **Joxean Sagatzizabal**

4 txiza-arrada *(corpusean txiz arrada eta txizarrada soilik)* txiza zorrotada.

Txiz arrada ederrak lagatzen dituk tazatik kanpora. **Iñaki Iñurrieta**

Ozta-ozta ematen zidan abagunea **txizarrada** bizkor bat eta kaka mokordoa bota nitzan, eta berehala itzularazten ninduen etxera. **Jon Arretxe**

5 txiza egin

Lubeta gainetik, **txiza eginen** duzu itsasora. **Joseba Sarrionandia**

-Bertan egin ezak **txiza**, **egin** ezak bertan! **Jon Maia**

Txiza eginenez markatzen dituzte beren lurraldearen mugak. **Irene Aldasoro**

Errepide bazterreko ostatu parera iritsitakoan, **txiza egitera** aterarazten ditu umeak. **Alberto Barandiarren**

Bidankozeko batailoiari gazte bat, gauean **txiza egitera** irten eta bertan hil zuten. **Jokin Urain**

· Bitartean ez da garbituko eta **txiza** eta kaka ziegan **egingo** ditu. **Berria - Euskal Herria**

6 txiza-erreka *(corpusean txizerreka soilik)* txiza zorrotada.

Hor malda behera hasten da eta, txakurrek hanka jasotzen dutenean, **txizerreka** dendaraino etorriko da. **Pablo Sastre**

· Txorrotadaren azpian sartu-irtena egin eta segituan **txizerrekatxo** horixka botatzen hasi zen. **Jon Arretxe**

7 txizaginean adlag txiza egiten.

Baina Jemek ez zuen komuneko atea gututz itxi eta neska **txizaginean** entzun zuen Ralphek. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egin nuen txiza (3); **txiza egin** (16); **txiza egitea** (3); **txiza egiteagatik** (4); **txiza egiteko** (10); **txiza egiten** (13); **txiza egiten hasi** (4); **txiza egitera** (12); **txiza eta kaka** (3)

txizaginean ik **txiza** 7.

txizagura *(orobat txizagura g.er.) iz txiza egiteko gogoia. ik pixagale.*

Txizagura zuen eta hura zen lehenengo gauza. **Joxemari Iturralde**

Gero **txizagura** etorri zait eta, begiak zabalduz, erreka urre kolorea irteten ikusi dut bainuontziko apar artean, epel, hozten hasitako uretan. **Patxi Zubizarreta**

Jan faltak, **txizagurak**, nekeak edo jarduera sexualaren faltak desoreka sortzen dute, eta, horrenbestez, berriz oreka ezartzeko beharra izaten dugu. **Luis Elberdin**

Txizagurak aztoratutako berna estutze batzuk burutu zituen Mentxuk. **Josu Landa**

txizalarri *(orobat txizalarri g.er.) iz txiza egiteko gogoia. ik pixagale.*

Esku errukitsuek niri ere helarazi zidaten, batek daki nondik, kontserba-lata bat, **txizalarri** nintzela adierazi nuenean. **Urtzi Urrutikoetxea**

Nik ere **txizalarria** nuen eta jaiki egin nintzen, ate ondora joan eta baimena eskatzeko. **Jon Maia**

Hura ere **txizalarriak**, antza. **Hasier Etxeberria**

Ez dakit zergatik, eskaileretan gora zeuden alfombra gorri haiek, areagotu egin zidaten **txizalarria**. **Hasier Etxeberria**

txizarrada ik **txiza** 4.

txizati iz txiza asko egiten duena.

Eta Erribera, eta Ontziola, eta Petit Maison, eta Ikastetxea, eta Zubietako etxe berriak ere desagertu ziren, ume **txizati**en malkarraren ostean, eta Kaioarri geratu zen bakarrik agertuan. **Joseba Sarrionandia**

txizatoki iz txiza egiteko tokia.

Komunera sartu eta, **txizatokian** maskuria husten ari naizen bitartean, parez pare dudak ispiluari begiratu diot. **Xabier Etxabe**

Gogoan dut, gainera, afaltzera joan aurretik Laja soinu-jotzailearekin topo egin nuela taberna bateko **txizatokian**. **Xabier Etxabe**

Txizatokitik pasatu ondoren (bainugela deitzea gehiegi da, zalantzarik gabe), nire ohera jo beharrean, auskalo nola, Tetrako besaulkian amaitu nuen. **Iban Zaldua**

txizzerreka ik **txiza** 6.

txizzerkatxoa ik **txiza** 6.

txizestu iz txisalarria.

Txizestu izan naizen batean, komunera joan, eta, neskenean sartzearekin batera, Tom topatu dut. **Patxi Zubizarreta**

txizontzi iz pixontzia.

Erizainak gela handi, bero eta lehor bateko atea ireki zuenean, besoa luze-luze, saski bat zeraman, **txizontzi** baten modura erabiliz. **Lopez de Arana**

Ikusten zuenean Maitearen **txizontzia** ateratzen, Denver lasterka joaten zen hari hura kentzeko. **Anton Garikano**

Txizontzia husteko esan nahi zuen horrek, eta garbirik itzultzeko ohe bazterrera. **Joseba Sarrionandia**

txo 1 *lgart* gizonezkoekin eta eskuarki mutikoekin deitzeko erabiltzen den deikia. **ikto**¹.

-Ez zekiat, **txo**. **Patxi Iturritegi**

-Ostia, **txo**, arrazoi duk! **Patxi Iturritegi**

-Lasai, **txo**, nik eurak baino eurek ni begi-bistatik galtzeko gogo handiagoa ditek! **Urtzi Urrutikoeetxea**

Nik ere jartzen diat BBC, **txo**, Benny Goodman-en kuartetoa entzuteko. **Anjel Lertxundi**

Joder, **txo**, nik zer ostia jakingo diat ba -erantzun dio-. **Iban Zaldúa**

Oso pozik nago, **txo**; harakinek solomoa oparitzen didate, xerrak oparitzen dizkidate... **Josu Zabaleta**

-Hi, **txo**, eta zurrutean jardun izan bagenu ere, zer?! **Anjel Lertxundi**

-Tira, Eñaut, ze moduz, **txo**! **Sonia Gonzalez**

Hau txute bat bezala duk, **txo**! **Koldo Izagirre**

Esaten eta egiten utzi behar zaiek; libre utzi behar zaiek, **txo**. **Juan Garzia**

Kanela fina, **txo**. **Harkaitz Cano**

2 itsasontziko mutila.

Lemari ero batek gidatu belaontzi mastagabetuko **txo**, eskifaia hordi batek etengabe ipurzulatua. **Aingeru Epaltza**

«Gehienok **txo** bezala hasi ginen, 13-14 urterekin», zehaztu du Romerok. **Berria - Harian**

txobinista ik **xobinista**.

txobino ik **chauvinista**.

txofer (*orobat xofer g.er. eta txofur g.er.*) 1 iz auto edo autobus baten gidaria.

Bigarren tiroa autoaren **txoferrari** ematera, eta ez don Jaime txatxu hari, Bernardino bere ondoan izango zuen erreka ertz hartan. **Bernardo Atxaga**

Autobuseko **txoferra** eta bertan zeuden bidaiariak asko ikaratu ditun. **Mikel Hernandez Abaitua**

Hegazkin pribatuak eta **txoferrek** gidatutako autoak. **Oskar Arana**

Kotxe bat, oso handia, marroiz jantzitako **txofer** batek gidatua. **Fernando Rey**

Williams andreak **xoferra** bidali zuen Jacken maleten bila. **Koro Navarro**

Batzuetan, autoa bidaltzen zion, **txofer** eta guzti, ibilaldi arin bat egin zezan hirian zehar. **Mirentxu Larrañaga**

-Nora? - **txoferraren** galdera. **Agurtzane Juanena**

Atzerako ispiluari begira hitz egin zion **txoferrak**. **Ramon Saizarbitoria**

Txoferrak autoa leun-leun gelditu zuen. **Edorta Jimenez**

Aitak SSetako bere **txoferraren** uniformearen jaka grisa eman zidan. **Alberto Ladron Arana**

Kutxa eta atea itxi ondoren **txoferraren** jarlekuan eseri da. **Pello Lizarralde**

Txoferraren ondoan eseri zen Pat. **Pablo Sastre**

-Boulevard kafetegira -agindu nion **txoferrari**. **Rafa Egiguren**

Zauritua Bilbora eramateko agindua eman zion **txoferrari**. **Ramon Saizarbitoria**

Ni edozein moztorro hartzeko prest nengoan, **txofer**, soldadu, kazetari, edozein, Chavezengana hurbildu ahal izateko. **Pako Aristi**

Herrira egin nuen joan-etorrian **txofer** izan nuen gaztea; Badiola hain zuzen. **Edorta Jimenez**

2 (izenondoekin)

Barruan ikusi genuen **txofer** uniformeduna. **Joxemari Iturralde**

Ez zen neskamerik falta, ezta inudirik, etxeko morroirik, lorezainik edo **txofer** kapeladunik ere. **Berria - Euskal Herria**

Neu nintzen garbitzailea, lorezaina, etxekoandarearen **txofer** pribatua, iturgina eta kristal garbitzailea. **Berria - Euskal Herria**

Utzi nahi ez, nonbait, beste inori gure salbatzaile izaten; **txofer** ona izan balitz sikira, baina kaxkarra baino kaxkarragoa izaki. **Joxe Austin Arrieta**

Txofer beltzak bolizko hortzez beteriko ahoa erakutsi zion. **Lopez de Arana**

Txofer berriak galdetu dio lehengoari: "Eta horiek, nora eraman behar ditugu?". **Bernardo Atxaga**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondo zihoala erantzun zion **txofer** lanetan ari zen emakumezko adindua. **Joxemari Iturralde**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Musuen hagnaz bereizi ginen, taxi **txoferraren** begi-keinuaren benedikazioarekin. **Itxaro Borda**

Logroñora doan taxi **txofur** bat gelditzen zait, berehala erranez, beti hartzen ohi duela Santiagorako bidean dabilela iduritzen zaion norbait. **Piarres Aintziart**

Autobus **txoferra** da bera. **Pako Aristi**

Bus- **txoferra**. **Pako Aristi**

Nagusia gamelu- **txofer**, sermolari edo tximeleta-ehiztari artatsua zen sorterrian **Edorta Agirre**

5 (adizlagun gisa)

Txofer neu joango nintzen, eta ondoan, Roman bera. **Inazio Mujika Iraola**

Mirari zihoan **txofer**. **Fernando Morillo**

Gerran **txofer** ibilia zen, aita bezala. **Ramon Saizarbitoria**

Oraingoan bi kataluniar zetozen **txofer**. **Rafa Egiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txofer eta guzti (3)

autobuseko txoferra (5)

gure txoferrak (3)

txoferraren atetik (3); **txoferraren ondoko** (5)

agindu nion txoferrari (3)

txofertu, txofer(tu) , txofertzen du *ad* txofer gisa gidatu.

Autoa txandaka **txofertzen** zuten, oro har. **Fernando Morillo**

Estebanek artean ez zeukan auto propiorik, ez, baina Irinbeltzagako udalak ordainduta herrira ekarriak ziren bi anbulantziatako bat, Dodge Darr ikusgarria, **txofertzen** zuen.

Pako Aristi

txofertza *iz* txofer aritzea; txoferraren lanbidea.

Berak karnetik ez, eta **txofertza** egiten zion batekin ibiltzen omen zen hara eta hona. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txofertzan aritzea gogorra da, batzuetan, baina diru dezente irabazten dut, eta ez naiz kekatzen. **Iban Zaldúa**

Iruñera itzuli zen Teo, bere jaioterrira; eta lasterrean hasi zen, bada, Erakundearen Nafarroako egoitza aniztan mantentze-lanak egiten: sukaldaritzan, **txofertzan**, komun-garrikuntzan eta beste hainbatetan. **Jose txo Azkona**

txofur ik txofer.

txoil (*orobat txol g.er.*) *adlag* guztiz, erabat.

Txoil ergeldu gabeko haur guztiek nahi dutena garbi-garbi erratea bertzerik ez duzu egin zuk, Saioa: zu zara zu lurreko gatza, zu nere arreba bizkia! **Iñaki Segurola**

Gauza asko esan da gure Orentzero gizajoaz, baina, orain arte aditu ditudanetatik, bat bakarrak ere ez nau **txoil** ase. **Patziku Perurena**

Txoil barregarria da ijito drogazalarekiko elkarriketa ere. **Markos Zapiain**

Geroxeago ohartu zen, nonbait, bere aldamenekoa neska **txoil** polita zela. **Anton Garikano**

Esan nion, bada, amari bakarrik ordu pare baterako nintzela etxean, negozio **txoil** aipagarri eta sekretu batera bidean. **Matías Múgica**

txoka *iz* txori kantaria, hazijalea, lumadi arre gaztainakaria.

Eskolarik gabeko egunetan, padre Velandorekin joaten zen txorietara eta baserriko ukulur erdia bederen kaiola bihurtuta zeukan, beti txoriz bete: **txokak**, kardantxiloak, tarinak... **Jon Maia**

-Olibondoetara noa, ea **txoka** batzuk erortzen diren. Sare bat izango banu, batailoi osoarentzako adina **txoka** hartuko nitizkek. **Jon Maia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txokaren kantua (3)

txokarratu, txokarra(tu), txokarratzen du *ad* gehiegi erre; erabat erre.

Gero, azkon nagusiei lotu dizkieten zuziek estalkiak sutan jarri dituztenean, harresietatik behera bota dituzte portugaldarren buruen gainean, eta hauek izan dira atzera egin behar izan dutenak, matatxerriaren ondoren **txokarraturiko** zerriak bailiran. **Jon Alonso**

Auzoko emakume baten kontra, zeina mindua baitzegoen haiek berari eskatutako manta bat **txokarratuta** itzuli ziotelako. **Fernando Rey**

txokatu, txoka(tu), txokatzen du *ad* erabat harritu. ik **xokatu**¹.

Ikaragarri **txokatu** izan dit horrek argazki hauek ikusi ditudan bakoitzean. **Arantxa Iturbe**

Bere argazkia ikusi dudanez **txokatuta** nagok. **Harkaitz Cano**

Guztiz **txokatuta** azaldu nintzen, behinola hortzetako txotx guztiak Black Caten lurrera bota nituenean bezalaxe: oso seinale txar-txarra zen! **Javi Cillero**

txoke 1 *iz* elkar-jotzea, talka.

Irtan orduko kotxe bat gainera datorkiela ikusten dute; Mikelena, jakina, eta hau gelditzen saiatu arren, danba!, **txokea** ezinbestekoa da. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ahotik aterarazten zuen barruan konprimatutako aire hori, kanpoko airearen kontra jaurtikiz; **txokearen** kolpearekin hotsa ateratzen omen zuen garbi-garbi. **Santiago Iruretagoiena**

Ur-ttanttak goraka jeltzen direneko, **txoke** eta tupust dabiltz, jeltxo eta izotz txintzarrok, hodeiaren masa hori elektrizitatez kutsatzen. **Pello Zabala**

2 irud/hed

Sekulako zalaparta sortu zen, eta hantxe abiatu ziren letra guztiak estropozoka, bata bestearekin **txoke** eginez, eroriz, pilatuz, ahal bezala zutituz. **Bernardo Atxaga**

Diskurto teorikoaren eta antzinako arkitekturaren aztarna arkeologikoen ebidentzia multiforme eta guztiz ez-arautzailearen arteko **txokeak** sortzen zuen txundidura eta harridura. **Santiago Iruretagoiena**

Gaixoak lasaia dira, izenak ere dioenez, urdurientzat eta gogaikarientzat **txokeko** terapiak daude erietxeko zurtasun garratzean. **Joseba Sarrionandia**

Poloniak eta herrialde baltikoek Letonia, Estonia eta Lituania **txoke** terapia gauzatu zuten, Europako erdialdeko beste estatu batzuek aldaketak mailaka egin zituzten bitartean. **Berria - Mundua**

3 gauza harrigarria.

Hi jotzen ikustea egundoko **txokea** zozan, trikitiaren eboluzioaz apur bat jakitun gengoanok higan Rufinoren doble egin-egina ikusten gendualako, ha zaharrea eta hi

txoko (1068 agerraldi, 167 liburu eta 269 artikulutan) 1 iz bazter ezkutua edo. ik **zoko**; **xoko**. (etxe, gela eta kidekoetan)

Eraikinaren **txoko** bateko iturriaren marmar isilak iluntzeko beste zaratak estali zituen. [Fernando Morillo](#)

Otoitzean ari zen elizako **txoko** batean. [Askoren artean](#)

Tabernako **txoko** batean eseri naiz, eta tapiz berdean hedatutako egunkari txatalak hartu eta utzi ibili naiz. [Javi Cillero](#)

Etxebizitza zahar hartan **txoko** bat prestatuta zeukan beti, ohea jantzi berria, mutila noiz agertuko zain. [Javi Cillero](#)

Lozakua zabaldu nuen txabolako **txoko** batean zegoen Antonioren ohe ondoan. [Aitor Arana](#)

Barra amaitzen den **txokora** hurbildu dira. [Sonia Gonzalez](#)

Txoko bat besterik ez diat eskatzen; lurrean ere lasai asko egin zezakeat lo. [Iban Zaldúa](#)

Lehengusuen etxera joaten nintzenez ere, haiek Tintin-en abenturak izaten zituzten eta **txoko** batean ezkutatuta irakurtzen egoten nintzen. [Ana Urkiza](#)

Gauean, ukiuluko **txoko** batean, Peppone eta On Camillo kartetan ari ziren, petrolio-lanpara baten argitan. [Koldo Biguri](#)

Egongelako **txoko** batean zegoen mahai txikiago batean gosaltzea erabaki zuten. [Aitor Arana](#)

Gosaltzeko **txokoan** eseri, kafea hartu eta eraztun bat uzten dut oharraren gainean. [Koro Navarro](#)

Gauero [...] Hermione egongelako **txoko** batean lanean ikusten zuten. [Iñaki Mendiguren](#)

Joseba **txoko** bateko eserlekuan jarri eta mina jasateari ekin zion, mutu. [Fernando Morillo](#)

Emakume zahar batzuk zeuden **txoko** batean eserita, edalontzi txiki batzuetan jereza edaten. [Iñaki Mendiguren](#)

Leihoaren **txokoan** ezkutatu nauk ni, eta ez naiz ikusi. [Anton Garikano](#)

Katuaren etxola dago **txoko** batean, baina ez dago katurik inon. [Javi Cillero](#)

Konturatu ginen etxean epel zegoen **txoko** bakarra beheko suaren ondokoa zela. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Lehenbizi eraman txakurra bere **txokora**, zure gela ez da animalia bat edukitzeko leku aproposena eta. [Joxemari Urteaga](#)

Bera moldatu zen ezagun batzuen etxean **txoko** bat aurkitzeko. [Arantxa Iturbe](#)

Has eta buka edan zuen Abelek limoi-ur basokada handi bat, edarien **txokoan**. [Jon Muñoz](#)

Halako baten arreta jarri zuten kafetegia azken **txokoan** begira-begira zeuzkaten mutilengan. [Jon Arretxe](#)

Bakartien izkina honetan, -sartu eta **eskuineko** txokoan- [...]. [Pako Aristi](#)

Jende guztia bakean itzuliko da nor bere **txokora**. [Elizen arteko biblia](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Barraren izkinan zegoen, aurkitu zuen **txoko** ezkutuenean. [Fernando Morillo](#)

Horretarako etxeko ganbarako nire **txoko** ezkutua erabili genuen. [Aitor Arana](#)

Gela estu bat zunan, bi atekoa, eta bakoitzak beste **txoko** estu batera eramaten zinan. [Anton Garikano](#)

Ahots batek Claudi deitu zion izkinan zegoen ardandegi baten **txoko** ilunetik. [Karlos Zabala](#)

Moldiztegiarentzako tokia ere bai: **txoko** itsusi bat "Euskaldunen karrikan", Errobiren ondoan. [Txillardegia](#)

-Arratibel eta lbeasen galeria **txoko** txikia da, baina, hala ere, arrakasta izango duela uste dute. [Berria - Kultura](#)

Nire **txoko** sekretua da hau -erran zidan Angelak. [Alberto Ladron Arana](#)

Txoko goxoena tximiniakoa zen. [Jon Maia](#)

Hor barruko biltegian **txoko** egokiren bat egongo da, ziurrenik. [Jon Arretxe](#)

Aparteko **txoko** batean, besteen ikusmiratik urrun, jesartzera gonbidatu zuen. [Josu Landa](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emaztea mahatso emankorren antzeko izango duzu etxe **txokoan**. [Elizen arteko biblia](#)

Celarena, ordea, mundiala izan da, heriotza, alegia; Xanpunena, berriz, etxe **txokokoa**, euskaraz bakarrik hil baita bertsolari lapurtarra. [Joxerra Garzia](#)

Taberna **txokoan** zegoen, beso bat barra gainean jarrita eta kafea eskuan. [Jon Maia](#)

Ez dakit zenbat denbora egin nuen ziega **txokoan** eserita, uzkurtuta. [Jon Maia](#)

Amak sukalde **txokoan** irratia bolumena jaitsi zion. [Jon Maia](#)

Txakur-janari nazkagarria jan behar izaten nuen sukalde **txokoko** ontzi zikinean. [Jon Arretxe](#)

Antonio supazter **txokoan** dago. [Jose txo Azkona](#)

4 (bestelakoetan)

Ehuneko ehun segurua den zulo, **txoko**, izkina edo koskara heltzea. Liburu Harryren idazmahaiaren azpiko **txoko** ilunean ezkutatu zen. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Txoko bat aurkitzen zuen beti ohe batean, han eta hemen jaten zuen, zarpa zaharrez jantzen zen. [Karlos Zabala](#)

Maletako **txoko** bat seinalatu zuen. [Alberto Ladron Arana](#)

Janaritegiko teilan artetik aurkitu zuen **txokoa** kardo batek. [Anton Garikano](#)

Max Centerreko poltsa urdinaren bila hasi da furgoneta irauliaren **txoko**-baterretan, baita laster aurkitu ere. [Patxi Iturritegi](#)

Puru-mutturra ezpain **txokoan** zeukan. [Bernardo Atxaga](#)

ik beherago 13.

Bihotzaren **txoko** ahaztu eta aspaldian lokartu hori itzartu egin dela iruditu zai. [Paddy Rekalde](#)

Burmuinaren **txoko** galdu batean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Salmonellaren bakterioak bere burua babesteko eta ugaltzeko **txoko** bat egiten du. [Berria - Gaiak](#)

Gero eta bustiago sentitzen naiz, zakilak nire **txokoa** bila dezala nahi dut, nire barnean sar dadila. [Juan Martin Elexpuru](#)

Uste eta nahi baino askoz lehena isuri nuen hazia **txoko** goxo hartan. [Aitor Arana](#)

Niri beti gustatu izan zaidana buztana **txoko** goxoan gorderik edukitzea baita. [Aitor Arana](#)

Ematen zuen giltza berez erori zela neska gaztearen esku- **txokora**. [Fernando Rey](#)

Musuz betetzen zizkidan izter- **txokoak**. [Karlos Zabala](#)

5 irud/hed

Nik esango nuke bihotzaren **txoko** batean pizturik atxikitzen zeniola esperantza horren kriseluari. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Neguak aurkituko ahal zuen **txoko** laiotz galduren bat iraganaren eremuetan! [Anjel Lertxundi](#)

Baina ez pentsa Euskal Herria dela misoginiaren **txoko** bedekinatua. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Ni ikasle izan ninduzun urte horretan piztu omen zitzaizun maitasun-txingarra bihotz- **txokoan**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Bertan lan egiten dute, eta bertan dute beren maitasun **txokoa**. [Luis Elberdin](#)

Txoko ekologikoa: espezie batek bizi, hazi eta ugaltzeko behar dituen baldintzen eta baliabideen multzoa da. [Berria - Gaiak](#)

6 bi horma edo paretan elkartzen diren lekua.

Aretoaren lau **txokoetara** bakarrik daude zuzenduak zeharreko argiak. [Xabier Olarra](#)

Bazter batean, harresietako **txoko** batean, ba omen dira persiarrek idatzitako bertso batzuk. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Hala ere, baratzearen **txoko** batean ikusi zuen metaluzko platertxo bat, katuei jana emateko modukoa. Javi Cillero

7 pilotalekuan, frontisa eta ezker pareta elkartzen diren lekua.

Xalاک zabaletik pilota zail bat jaso zuen, Titinek **txokora** bidali zuen pilota, baina Pascualek jaso zuen. Berria - Kirola

Txokotik zabalera sakatuz Irujok Gonzalezen autoestimua errekarra bota zuen. Berria - Kirola

Dejadak **txokoan**, zabalera irekiak, airez sarturikoak... Berria - Kirola

Capellaneak hormabikoa jaso, dejada **txokora**, eta tantoa. Patxi Iturrategi

Ikaragarriak izan ziren haren gantxoak eta **txokoan** utzitakoak. Berria - Kirola

Erasoan, halaber, bolea izan zuen arma nagusia, eta **txokoan** zein zabalean ia ez zuen hutsik egin erasoan. Berria - Kirola

Txokoan pare bat, beste bi zabalera eta hormabikoa. Berria - Kirola

Pascualek ez ditu Titinen keinu gehienak ikusten, eta kostata iristen da **txokoko** zuloa babestera. Berria - Kirola

8 hiriez, herrialdez eta kidekoez mintzatuz, bazterra.

Kurasaaleko gunea eta Zurriolako hondartza hainbat doinu zu beteko dituzte munduko **txoko** askotatik iritsita ko musikariek. Berria - Kultura

la laurehun koroaren truke munduko **txoko** ederrak bisita zitezkeen. Anton Garikano

Horiek baino zaharrago direnek mundu zabaleko edozein **txokora** joatea aukeratzten dute uda partean lan eginez laguntzera. Berria - Euskal Herria

Munduko azken **txokoan** ere euskaldunik topatu behar! Martin Anso

Gazte Topaguneko filosofia Euskal Herri osoko **txokoetara** zabaldu gura duen ekimena aurkeztu zuten atzo. Berria - Euskal Herria

Gazte talde handi bat motxilak bizkarrean dituztela hiriko **txokoak** bisitatzten. Berria - Harian

Arrantza-eskola politetnikoaren gibelean dagoen **txoko** polit batean. Koldo Izagirre

Gertuago, Tirol aldean, Suitza eta Austriako **txoko** menditsu horretan. Pello Zabala

Arabako **txoko** baten, euskararen ertz baten, Zigoitian. Koldo Zuazo

Hamar litro gehiago atera ohi ditugu Arantzazuko **txokoan**: 134. Pello Zabala

Herriko beste **txoko** berezi batean, Andra Mariko dorrearen azpian. Berria - Kultura

Txoko bitxia duk Paris zaharreko kale hori! Karlos Zabala

Suresnesera erretiratzeko, bien gustukoa baitzen aldirietako **txoko** hori. Karlos Zabala

Maite nuen, jolas-orduetan, handik zehar galtzea, eta **txoko** bitxiren batean liburu bat irakurtzea. Iban Zaldúa

Uste dute badirela noski unibertsoan hainbat **txoko** bizitza eta, ziurrenik, are bizitza kontzientea hazteko aski egokiak. Juan Garzia

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Paisaiak ere pintatzen nituen, eta kale- **txokoak**. Unai Elorriaga

Bilbori, oraingoan ere, ia 30 litro kentzen dizkio Donostiako golko- **txokoak**. Pello Zabala

10 ik lokal.

Hogeita hamar metro karratu inguruko **txoko** bat zen, argi gutxikoa baina atsegina. Bernardo Atxaga

Hain zuzen ere, 1935az geroztik *Hogar Vasco*ko **txokoan** beren bulego-gela badute gazteek. Edorta Jimenez

Ondorioz, ez gara elkarrekin fidatuko, elkarte eta **txoko** gastronomikoetan lapurretak areagotuko dira. Edorta Agirre

Bi eguneko jardunaldiak goizeko hamarretan hasiko dira, Oiartzungo Herri Musikaren **Txokoan**. Berria - Kultura

Colon de Larreategi kaleko jatetxerantz joateko agindu dionean, euskal sukaldaritzako **txoko** garestienetakora. Urtzi Urrutikoeetxea

Apala da oso, marinel **txoko** horietako bat, baina oso bista onak ditu. Anjel Lertxundi

11 jaioterria.

Txokoarekiko atxikimendua dela eta, hizkuntza komunitate txiki batek atxiki-atxikia jarraitzen du bertan sorturiko tradizioei. Ikustea, alegia, ez dela **txoko** -mintzaira jakin baten kontua lurtasun horrena, eta semantika sakonago, unibertsalago bati dagokiola. Isabel Arrigain

Txoko -hizkera itxienean oinarriturikoak alde batera uztea. Juan Garzia

12 komunikabideetan, tartea.

Hala eta guztiz, poesiari ere **txoko** bat eskainiko diogu. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Bestalde, nire **txoko** propioa izatea esan nahi du, nik nahi ditudan gaiak nahi ditudan moduan esateko espazioa. Ana Urkiza

Bertsolaritzaren interneteko **txokoa** ez dadin bakarrik elkartearena izan Radio Euskadin, Almudena Cachoren umore on eta argia lagun osatu nuen nire **txokoa** urte batzuetan. Berria - Kultura

Lehen plamako albiste zena, albiste bitxien **txoko-txokoan** zokoratua dute orain komunikabideek. Joxerra Garzia

13 *ezpain txoko*

Ezpain txokotik dario hortzetako pasta zuria. Javi Cillero

Bere aurpegi puztuan, begiek zehaztasunik gabe begiratzen zuten; **ezpain txokoetatik** zimur sortak ernatzen zitzaizkion. Bernardo Atxaga

Irribarre sotil batek zeharkatu zituen bien **ezpain-txokoak**. Aritz Gorrotxategi

Adaren **ezpain-txokoek** irribarre bat saiatu zuten. Anjel Lertxundi

Eslabiarren bereizgarri nabarmen bat agertzen zitzaion **ezpain-txokoetan**: haur-itxurako aurpegikera ezta. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egongelako txoko (4); etxeko txoko (3); euskal herriko txoko (11); gipuzkoako txoko (3); munduko beste txoko (3); munduko txoko (8); nire txoko (5); plazako txoko (3); tabernako txoko (3)

txoko batean eserita (5); txoko batean zegoen (4); txoko bateko (3); txoko berezia (5); txoko eta bazter (6); txoko ezkuturen batean (3); txoko guztiak (13); txoko guztietan (12); txoko guztietara (9); txoko guztietatik (8); txoko ilun (10); txoko ilun batean (7); txoko txiki (3)

bere txokoa (15); gure txokoa (3); nire txokoa (3); txokoa bilatzen (3); txokoa topatu (3)

bere txokoak (3)

azken txokoan (4); bere txokoan (14); betiko txokoan (4); erraldoien txokoan (5); leihoaren txokoan (3); supazter txokoan (3); txokoan eginiko (3); txokoan eserita (4); txokoan jarri (4); txokoan utzi (3); txokoan utzitako (4); txokoan zegoen (6)

txokoarekiko atxikimendua (5)

bere txokora (6); txokora joan (4)

azken txokoraino (3)

txokoren bat (7); txokoren batean (18)

barne txokorik gordeena (3); txokorik gordeena aurkitu (3)

munduko hainbat txokotako (3)

edozein txokotan (15); hainbat txokotan (10); hamaika txokotan (4); munduko edozein txokotan (3); zein txokotan (4)

edozein txokotatik (3); munduko hainbat txokotatik (3)

txokotik zabalera (8)

txokokeria 1 iz norbait bizi den txokoko gauzei neurriz kanpoko garrantzia emateko joera.

Usuagoga da erregio prentsa, izararen besteko lau-bost-sei plegu, Frantziatik nazioartera eta kiroletatik iragarkietara, **txokokerian** barna. Iñigo Aranbarri

ikuspegi honetatik erlijio- **txokokeriaren** egungo egoerak mugagabe jarraitzearen zentzugabea gertatzen da. **Iñaki Mendiguren**

2 (hizkuntza-kontuetan)

Euskalkietako **txokokeriak** eta bitxikeriak euskara batuan txertatzeko ahalegina. **Koldo Zuazo**

Gogor salatu zuen zenbait idazleren jokabidea, euskara eta Euskal Herria batzen ahalegindu beharrean, txikikeriak eta **txokokeriak** erabiliaz, hizkuntza desegiten eta desegituratzen zihardutelako. **Koldo Zuazo**

Txokokeriari muzin egin eta Euskal Herri osoan ulertzeko moduko hizkuntza erabili behar du kamara aurrean delarik. **Andoni Egaña**

Zurtuta irakasle kaskasoila nire hitzontzikeriagatik, ez zegoen italiarren **txokokerien** jakinaren gainean. **Fernando Rey**

Batzuek berehala hartu dute beren probetxurako mezu horren zati bat, mezuaren osotasuna atzenduz, eta berehala hasi dira goi mailara eramaten **txokokeriarik** handienak, horrela hobetuko delakoan euskara. **Pello Salaburu**

Bere garaiko euskara mintzatutik gertuegi zegoen Azkueren eredia, eta azken orduko hainbat berrikuntza eta hainbat **txokokeria** onartzea ekarri zuen horrek. **Koldo Zuazo**

txokolata ik txokolate.

txokolate *(orobat xokolate g.er. xokolet g.er., txokolet g.er., xokolot g.er. eta txokolata g.er.)* 1 iz kakao hautsez, azukrez eta beste zenbait gaiez eginiko ore gotortua; gai horrekin egiten den edaria.

Harryk **txokolatea** hartu, bai, baina ez zuen jan. **Iñaki Mendiguren**

Hartu al du **txokolaterik** ? -galdetu zion kezkatuta Pomfrey andreari. **Iñaki Mendiguren**

Kafea xigorkiekin edo **txokolatea** txurro egin berriekin hartzera. **Juan Martín Elexpuru**

Txokolatearen dasta garratza miazkatu nuen aho barruan. **Juan Kruz Igerabide**

Baziren garai batean hiru txokolateria: bata Karrikaburuan, bigarren bat Etxepare edo Iruazketan, zeintan gelditzen baitira oraino **txokolate** egiteko orma edo moldeak.

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez dut **txokolate** hori pozoitu, entzun? **Iñaki Mendiguren**

Eskua jaso nuen, beste **txokolate** bat eskatzeko. **Juan Kruz Igerabide**

Igo **txokolate** bat eta opiltxoak 108. gelara, lehenbailehen, mesedez. **Lopez de Arana**

Txokolate bana eman zien. **Unai Elorriaga**

Hondartza txikiaren gaineko kafetegian **txokolate** bana hartzea proposatu diot. **Txillardegi**

Txokolate apur bat hartuko nuke orain. **Unai Elorriaga**

Txokolate egin berriaren usaina. **Anjel Lertxundi**

Azukrea eta **txokolateak** emango dizkiotela zirkoa ikustera inguratzen den jende guztiari. **Joseba Sarrionandia**

Esan ohi zuen **txokolatea** bezalakoa dela bizitza: baduela alde bat garratza, eta baduela alde bat ezitia. **Juan Kruz Igerabide**

"Ba al dakizue **txokolatea** afrodisiakoa dela?", bota du mutil batek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ontza bat **txokolaterengatik** sentitu litekeen inbidia. **Arantxa Iturbe**

Egundoko arrautza bat, **txokolatezko** arrautza baten erabateko itxura zuena. **Koldo Biguri**

Txokolatezko budinaren eguna. **Julen Gabiria**

Sarreran Dursleytarrek **txokolatezko** izozki handiak erosi zizkieten Dudleyri eta Piersi. **Iñaki Mendiguren**

-Libra bat **txokolatezko** bonboi, mesedez-. **Lopez de Arana**

Gaztarik finena eta gailetak, **txokolatezkoak**. **Unai Elorriaga**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mendazko **txokolate** fin batzuk eskaintzen ari zenean. **Iñaki Mendiguren**

Estimatuko dizu berogarria, **txokolate** ona egiten duzulako lotu baitzuen gaixoa ohera. **Anjel Lertxundi**

Armairua zabaldu, **txokolate** beltza atera, eta bi pusketa kendu zizkion. **Juan Kruz Igerabide**

60 emakume **txokolate** beltzarekin estali genituen eta 75 gizon **txokolate** zuriarekin. **Berria - Kultura**

Amak **txokolate** beroa prestatu zigun, ogi xigortuarekin eta gurinarekin. **Juan Kruz Igerabide**

Sukaldeko mahaiaren jiran eseri dira denak, erdian jarrita **txokolate** bero-beroa, ogi xigortu berria, galletak, bizkotxoak, marmelada eta gurina. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txokolate egina eta gailetak atera zizkidan, zer edo zer hartu nuen itsuskeria ez egiteagatik. **Koldo Izagirre**

Txokolate egosiaren usaina leihoen azpiko burdinsareetatik gora igotzen zen, kiribilka. **Lopez de Arana**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esnea **txokolate** -hautsarekin, ogi xerrak gurina eta konfiturarekin eskaintzen zizkien. **Pablo Sastre**

Gozokiz betetako kristalezko **txokolate** ontzi hautsez zikinduan eta latoizko balantza pisuaren atzean. **Josu Zabaleta**

Excella **txokolate** enpresa eskuratu zuen Zahorrek, Kanadako eta Erresuma Batuko merkatuetan sartzeko asmoz. **Berria - Ekonomia**

Rachelen egoitza garbitzen zuen orduetan, Janinak beti ondotik zeukan **txokolate** ekoi zeulen alaba bihurria. **Itxaro Borda**

Izozkiaren gainean **txokolate** -krema beroa zegoen. **Lopez de Arana**

Zale amorratua naizen **txokolate** pastelak jarri nituen ur botilaren ondoan. **Josu Zabaleta**

Goizean **txokolate** -ura ematen zioten, arratsaldean haragi egosia, eta gauean baratxuri-zopa nazkagarri bat. **Koro Navarro**

Postrean kaputxina tarta **txokolate** saltsarekin. **Berria - Euskal Herria**

Txokolate usaina zegoen airean. prest zegoen ahal zituen **txokolate** -barratxo guztiak erosteko. **Iñaki Mendiguren**

Zutitu, azken **txokolate** -zatia ahoratu eta Gryffindorrek dorrerantz abiatu zen. **Iñaki Mendiguren**

Pomfrey andreak bat-batean **txokolate** -puska handi bat sartu zion Harryri ahora. **Iñaki Mendiguren**

Ogi puska bat eta **txokolate** ontza bat, hori izan zen bere askaria. **Bernardo Atxaga**

Lupin maisua **txokolate** -tableta handi bat zatitzen ari zen. **Iñaki Mendiguren**

Batean freskagarriak zeuden salgai eta bestean jateko goxokiak, sandwichak eta **txokolate** tabletatxoak. **Joxemari Iturralde**

Bere barnea burbuletan lehertzen zen, soda bailitzan, marrubi, endalahar, **txokolate**, gerezi eta banilla zapareko xarabe gozora isuria. **Lopez de Arana**

Batean baratxuri-zopa prestatuko diagu ordu txiketian, bestean **txokolate** -jana. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Haurrek gehien ikusten dituzten emakizunak **txokolate**, soda eta gozoki iragarkiak dira. **Berria - Euskal Herria**

503 zenbakia zeukan ate **txokolate** -koloreko baten aurrean zegoela, traskoak etorri zitzaizkion gogora. **Lopez de Arana**

Beltzaren eta haurraren aurrean **txokolate** katilu bana zegoen. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezpainenetan marroi-**txokolate** kolorea jarri zuen. **Iñaki Zabaleta**

5 *adkor* haxixa.

Izen asko ditu: haxixa, maria, belarra, kostoa, **txokolatea** ... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gure droga **txokolatea** zuen, garai hartan milioi pezeta balio zuen talegoak, xapal-xapalak. **Pako Aristi**
1980ko buelta horretan, berriz, haxixa sartu zen indarrez geure inguruan: **txokolatea**, kostoa, kaka. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txokolate bat (5); **txokolate bero** (4); **txokolate beroa** (18); **txokolate beroa hartzera** (4); **txokolate koloreko** (8); **txokolate ontza** (3); **txokolate puska** (4); **txokolate tableta** (4); **txokolate zati** (6); **txokolate zati bat** (4)

eman txokolatea (3); **txokolatea hartzera** (4); **txokolatea jan** (6)

txokolatezko igel bat (3); **txokolatezko izozki** (5); **txokolatezko izozki bat** (3)

txokolategi *iz* txokolatea hartzen den denda. ik **txokolateria**.

Txokolategi bateko terraza parera iritsi ginen. -Bada, gizon honek -segitu zuen S-k-, alegia Pablo eta Xuanaren semearen semeak, **txokolategi** bat jarri zuen Mexikora iritsi eta laster. **Anjel Lertxundi**

txokolategile *(orobat txokolate egile, xokolategile eta txokolet egile)* 1 *iz* txokolatea egiten duena.

Hot-Barreko lana abandonatu zuen, Rachel eta Jacob Santa Izpiritu auzoko **txokolategileen** neskame bihurtzeko eta diru-trukean jokatu zuten gizonak hautatzeko eskubidearen erdiesteko. **Itxaro Borda**

Baionako 7 **txokolet egileek** beren txokoleta jastarazi dute eta beren egiteko manerak ere erakutsi. **Herria**

Baionako **txokolate-egile** judu leinu baten abenturak. **Herria**

2 txokolate fabrika.

Natrak 55 milioi euroren trukean erosi du Zahor **txokolategilea**. **Berria - Ekonomia**

txokolategintza *iz* txokolatea egiteko jarduera.

-Zergatik aukeratu ote nuen **txokolategintza**! -egiten zuen hasperen. **Bernardo Atxaga**

txokolateki *iz* txokolatea gai gisa hartua.

Patata frijituen, azukre askoko edarien, **txokolatekien** eta gatz askoko zerealen iragarkiak kontrolatu nahi ditu Reidek. **Berria - Gaiak**

Oso modu xumean egin zuten agurra, **txokolateki** batzuekin eta pasta batzuekin, bai eskolan, bai apaizaren sotoan. **Juan Kruz Igerabide**

txokolateria *iz* txokolate fabrika. ik **txokolategi**.

Baziren garai batean hiru **txokolateria**: bata Karrikaburuan, bigarren bat Etxepare edo Irauzketan, zeintan gelditzen baitira oraino txokolate egiteko orma edo moldeak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hortik goraxago bazegoen zubi ttipi bat, zeintatik pasatzen baitzen **txokolateriara** uraren eramaiteko tuioa edo hodia, burdinezkoa. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Txokolateriak eta oihalgindegiak hurbil. **Itxaro Borda**

txokolatero *iz* txokolategilea.

Esan liteke, mende honen erdira arte, herri kozkor gehienetan bazela argizarigile eta konfitero edo **txokolateroren** bat. **Patziku Perurena**

txokolatesne *(orobat xokolatesne)* *iz* txokolatea eta esnea nahasiz eginiko edaria.

Aitonak eta bilobak **txokolatesnea** hartu dute, eta ogi errea ahabi konfiturarekin. **Eider Rodriguez**

Maiana oroitzen zen partekatu zuten **txokolatesne** haguentsuaz. **Itxaro Borda**

Ondotik, elgarrekin goxoki mintzatzen ahalko gira, sagarnoa eta **xokolatesne** beroa hurrupatuz. **Herria**

Txokolatesnea edo kafea aukeran eta bizkotxa xerra idor bana. **Itxaro Borda**

Eude Bessiere esne biltzaleak muntatu zuen **xokolatesne** enpresa bat duela 50 urte BONCOLAC izenarekin. **Herria**

txokolatetxo *iz* txokolate zati txikia, eskuarki lauki formakoa eta paperean bildua. ik **txokolatina**.

Txokolatetxo eztainu-xaflak. **Juan Garzia**

Adak, kaxa gorri batetik **txokolatetxo** bat harturik, niganaino hurbildu, eta ahoan jarri zidan. **Anjel Lertxundi**

Hurrezko **txokolatetxo** bat aukeratzera zihoala, ikusi zuen Sor Begoña zetorrela arin pasilu luzearen beste puntatik. **Joxemari Iturralde**

Txokolatetxo bigundua likatu zitzaidan aho-sabaian. **Anjel Lertxundi**

txokolatezale *izond* txokolatearen zalea dena.

Eta, nola Leire oso **txokolatezalea** baitzen, erantzun nion: [...]. **Joan Mari Irigoien**

Ez da gauza segurua eria sendatuko den, baina Aidek -kausa ezagunak dituzten eritasun guztien erantzule **txokolatezaleak** - estimatuko dizu berogarria, txokolate ona egiten duzulako lotu baitzuen gaixoa ohera. **Anjel Lertxundi**

txokolatina txokolate zati txikia, eskuarki lauki formakoa eta paperean bildua. ik **txokolatetxo**.

Pubean **txokolatinak** erosi eta aluminiozko paperarekin joaten ziren komunera. **Pako Aristi**

Hamar pezetako **txokolatinarena** irentsi zuten. **Joxerra Garzia**

Beti dabil **txokolatinak** oparitzen. **Jon Alonso**

Ni ez nintzela soldadu yanki bat Bigarren Mundu Gerra bitartean mendean hartutako herri batean umeei **txokolatinak** banatzen. **Jon Muñoz**

Uste dut norbaitek haren irudiarekin **txokolatinak** egitea proposatu zuela behin, Mozartenarekin bezala-edo. **Bernardo Atxaga**

txokolet ik **txokolate**.

txokolo *iz pl* eskalapoiak.

Gure oinetan nagusien zapatak zelan, halaxe izaten zirelako **txokoloak** Indalexioeren oinetan; behar baino nabarmen handiagoak. **Edorta Jimenez**
Txokolatea **txokoloetan** gordetzen. **Edorta Jimenez**

txokor (*orobat txonkor g.er.*) *iz* zigarro purua.

Horregatik agian eramango zuen eskua barruko poltsikora, eta handik, metalezko kaxa batetik, **txokor** bat atera eta piztu egin zuen antziaz: La Paz, Wilde Habana. **Hasier Etxeberria**
Han egoten ginen, **txokorrak** erretzen, zezen plazan edo futbolean egongo bagina moduan. **Beria - Euskal Herria**
Bere aldameneko gizona ere geldi, **txokorrari** upaka. **Unai Iturriaga**
Ondoko bibotedunak **txokorra** lurlean amatatu zuen zapatarekin. **Unai Iturriaga**
Txokorrik gabe pilota partiduaz goza daitekeenik ez zaio askori buruan sartuko. **Beria - Harian**
Ducados bat balitz bezain suelto erre zuelako larderiazko **txokor** erraldoia. **Jon Alonso**
Bibote luzeak eta tripa biribila, eskuak galtza narrasetako poltsikoetan, puru **txonkorra** ezpainetan, burdin pila bati begira zegoen. **Pablo Sastre**

txokotxo *iz* txoko txikia.

Emakume ezezaguna **txokotxo** batean eseri eta hizketan hasi zen ahots monotonoz. **Ander Irizar**
Orduan nik haren ondoan egiten nuen lo, bere besoen pean antolatzen zidan **txokotxo** batean. **Juan Garzia**
Txikitant uste zuen isil-isilik eta geldi-geldirik **txokotxo** batean geratzen bazen, azkenean desagertzea lortuko zuela. **Sonia Gonzalez**
Leku bat esleitu ziguten munduan, **txokotxo** bat haien gogamenaren bazter batean, non lasai bizi baikintezkeen inoren eragozpenik gabe. **Ander Irizar**

txokozale *izond* txokoaren zalea da.

Giputzen jarrera itxi eta **txokozaleak** salatu zituen. **Koldo Zuazo**
Giputzen jarrera **txokozalearen** adibide jakin bat aipatu zuen Mitxelenak, hitanoko adizkiei zegokiena. **Koldo Zuazo**

txokozalekeria *iz* txokozaleari dagokion jarrera.

Lekukotasun hauek guztiok erakusten dutenez, **txokozalekeria** eta itsukeria aspaldiko kontua dira gurean. **Koldo Zuazo**
Metropoli [...] **txokozalekeriaren** gotorlekua. **Xabier Olarra**

txol ik **txoil**.

txolarre 1 *iz* txori txiki moko-motza, lumadi arre ilunekoa, jendea bizi den inguruetan oso arrunta (*Passer domesticus*).

Txominek ehizatuak zituen ordurako hiru txori: **txolarre** bat, kaskabeltxa eta karnaba. **Joan Mari Irigoien**
Uso eta **txolarreei** erreparatzen nien, elkarren arteko lehian, ogi apurren bat nork lehenago zintzurreratuko. **Hasier Etxeberria**
Otsailean, goizak haizez, **txolarrez** eta argi urdinez beterik zeudenean. **Juan Garzia**
Gure aurreko ohohezko hesian bi **txolarre** geratu ziren. Egunsentiak gela barrera ñabardura urdinez margotu zuen, eta **txolarreen** txio traketsa inguratu zen leihora. **Bernardo Atxaga**
Hesi batetik **txolarre** baten txorrotxio umela zetorren. **Lopez de Arana**
Batzuetan, hari elektrikoan dauden bi **txolarre** moduan konpontzen ginen, eta beste batzuetan elkarri hozka egiten genion. **Juan Kruz Igerabide**
Hegoak astintzen ditu **txolarreak**, baina ezin da askatu. **Jokin Urain**
Elurteak harrapatutako **txolarre** batena bezalako abailduraz begiratu zidan Müller jaunak. **Anjel Lertxundi**
Felixek arma bizkarreratu, apuntatu, tiro egin, eta **txolarrea** bota du. **Itziar Otegi**
Txolarreen ehiztari dabilen belatzari jarri diot arreta. **Jokin Urain**
Gero [katuak] begiak distiraz eta **txolarrea** ahoan zuela ihes egin zuen handik. **Josu Zabaleta**
Hor doa Delfoseko tenplura, eskuan **txolarre** bat hartuta, gainjantziaren azpian gorderik, orakulari galdera bat egiteko asmoz. **Juan Kruz Igerabide**
Eta ni, **txolarre** ahul bat, hegalak hautsirik, hankak hautsirik, mokoak hautsirik, eta, batik bat, bihotza erdibiturik. **Juan Kruz Igerabide**
Txolarre zauritua erortzen ikusten duen katua bezain objektiboa da. **Beria - Kultura**
Lizardiren **txolarrea** eta Lauaxetaren lilia. **Beria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Askeak ziren eta lotsarik gabeak, teiltatu ertzean ernaltzen ziren **txolarre** bikoteen gisan. **Karlos Zabala**
Txolarre-saldo bat aieratzen ikustean. **Itziar Otegi**
Basoilar edo ahateren bat ekartzen zuen beti bazkaltzeko, edo, batzuetan, **txolarre**-arrautzak soilik. **Jose Morales**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehen aldia da etxe-**txolarrea**, hegabera, enara eta arabazozo pikarta Europan kezka eragiten duten hegaztien zerrendan sartzen direna. **Beria - Gaiak**

txolarretxo *iz* *adkor* txolarrea. • *irud/hed*

Ene **txolarretxoak** oso atsegin du atzetik egitea- eta gehienok begirada apaldu, eta mahaiko ogi apurrak biltzen hasi gara. **Patxi Zubizarreta**

txolarte iz lanartea.

Edozein **txolarte** aprobeztatzen zuten harekin jostatzeko. **Jokin Muñoz**

Txolarteren bat geratzen zitzaigunean, elkarrekin joaten ginen orduan ere, zinera edo beste ikuskizuneren batera. **Joan Mari Irigoien**

Ez zen enologoa, baina bai entomologoa, intsektu eta tximeleta bildumak egiten baitzituen bere **txolarteetan**. **Joan Mari Irigoien**

Bilera osteko **txolarteetan**. **Joxean Agirre**

Poltsa zahar samar baina zabal bat ere hartu nuen, nire **txolarte** urrietan idatzi nuen fikzio-lan baten eskuizkribua bertan sartzeko. **Antton Olano**

txoleta iz tximeleta.

Eta, bat-batean, zinezko tximeleta zuri bat -mitxirrika, inguma, **txoleta** -hegan etorri eta justu goroldio hartan pausatu zen. **Bernardo Atxaga**

Espuru, gezeta, domentxa, inguma, **txoleta**, mitxirrika: elurraren matazak bezala ari ziren hitz haiek erorika, urtu egiten ziren denboraren zoru berria ukitzean. **Bernardo Atxaga**

txolin 1 iz kaskarina, ergela; hitzontzia.

Jarraitzaile asko bildu zitzaizkion Rasputini, emakumeak gehienak: gorteko dama **txolinak**, burgesiako emakume handinahiak, erlijioaren beharrez zeuden arima desorekatuak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Alabak -bi emakume **txolin** eta itsusi- irrikaz ari ziren jaten bisitariak eramandako gozopilak, beste ezeri jaramonik egin gabe. **Josu Zabaleta**

Etxeko alaba **txolin** eta apetatsuak ere beren jantzi eta bitxiez gain beste zerbaitez arduratu beharrez geratu ziren. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Peru eta Marixerena zela esan ziguten baseritarrek, hainbeste ipuin gatzgaberen iturri izan diren senar-emazte **txolinena**. **Anjel Lertxundi**

Erbat liluratu zuen gortearren inguru-minguruan ibili ohi zen jende **txolin** eta kaskarina. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gogorak dira bai, egoskorrak eta **txolinak** benetan espainiar hauek, Patri. **Hasier Etxeberria**

Txolin samarra izaki, bere edertasuna jauregietao luxuzko aretoetan festarik festa luzitzea baino ez omen zuen helburu. **Martin Anso**

Ardi **txolinaren** modura zabilta, bata esan eta bestea esan. **Itziar Otegi**

Txolina alaena, zu ere bai. **Karlos Zabala**

2 (gauzei buruz)

Mari Karmen ia sinetsia dago bera gauzaki **txolin**, zentzugabe eta gauzaeza dela. **Iñaki Segurola**

Nano Zuriak barre **txolina** egin zuen herabeti, eskua ilera eramanez. **Patxi Iturrategi**

Baina bere kezka eta gustuetatik hain urrun zegoen giro **txolin** hura arbuia, eta nahiago izan zuen garai hartan Frantzia zen artearen eta kulturaren eremu abantailatsua izuli. **Ramon Saizarbitoria**

Egia honetaz jabetzeko, aski da gure gurasoen sinismen **txolinera** lotuta jarraitzen duten pertsona apurrei begirada bat botatzea. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Islirik ezin egon eta, neuk ere ez dakit nondik eta nola sortutako burutazio **txolin** eta bat-batekoari bideak zabalduz, esan diot: [...]. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Kontu **txolin** buru-buztanik gabeak! **Anjel Lertxundi**

3 (izenondo elkartuetan)

Donostiako neska tuntun-**txolin** bat. **Joxean Sagatzizabal**

4 (adizlagun gisa)

-Hiru gehi bat, lau! -bota zuen Albertek, **txolin** samar-. **Jon Muñoz**

5 txolin-txolin adlag

Harekin azaltzen denean, edo **txolin txolin** egoten da, edo mutu arraio, oraingo honetan bezala. **Jokin Muñoz**

txolindu, txolin, txolintzen da/du ad edanean apur bat igaro. ik txispatu.

Nozdriovek bi katilu te edan zituen -ez ronik gabeak, jakina-, eta, **txolindurik**, denetariko ergelkeriak botatzen zituen bata bestearen atzetik. **Jose Morales**

Inauterietan **txolindutako** jendearen marmar alai ere entzuten zen. **Jose Morales**

Edateko ohitura faltagatik edo, **txolindu** samar zebilen. **Migel Angel Mintegi**

Ikaragarrizko beldurra zuten Freddy Malins **txolindurik** etorriko ote zen. **Irene Aldasoro**

Denak ere hasirik zeuden **txolintzen**. **Irene Aldasoro**

Orduan konturatu zen Selifan **txolindurik** zegoela. **Jose Morales**

txolinkeria iz txolintasun gaitzesgarria; txolinari dagokion ekintza.

Hantxe egin zuten bat bere kontraesan guztiek, **txolinkeriak** kemenarekin, hitzontziak borondatearekin. **Berria - Kirola**

Jadanik ez diot lotsarik, gainetik kendu ditut **txolinkeriak**. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Nire gelako lagunaren **txolinkeria** izan da. **Anton Garikano**

Bertaren **txolinkeriak** senarraren jelsiaren garra hauspotu zuelako. **Martin Anso**

txolintasun iz txolina denaren nolakotasuna.

Hamlet printzea, gaitzetsirik -hitz laburretan esateko- tristurara amildu zen, eta gero baraura, hurrena lorik ezera, handik ahuleziara, hortik **txolintasunera**, eta, hala, amilbide horretan, orain datzan eta guztiok dolu-penetan gauzkan eromen eldarniotsura. **Juan Garzia**

txollo iz adkor mauka, pagotxa.

Egundoko **txolloa**! **Sonia Gonzalez**

txolo iz mendebaldar gizarteko kide bihurturiko amerikar indiarra.

Txoloak, montubioak, balandroak, arrantzaleak, kontrabandistak, estibadoreak, baporinoak, senar ausenteen emazteen harrapatzaileak... **Joseba Sarrionandia**

txoloma iz uso txikia.

Txoloma talde bat, eta deus gehiagorik ez goiz osoan. Juan Garzia

Harrigarria zen, **txoloma** edo pagausoak pasatzearen itxaropen hutsak, oilagorren bat, kalandriak, kazkardoak edo tzip-tzip kantatzen duen birigarroren bat susmatzearen aukera bakanak zein nolako antzaldaketa eragiten zuen, osterantzean, astean zehar, elkarrekin bizi eta lan egitera derrigortuak zeudela ziruditen anaien aldarlean. Pako Aristi

txolopote iz

Anabasa, nahasteborrastea, **txolopotea**, itzela. Edorta Jimenez

txomorro iz

(Babarrun), baina lokarri zatiz, arrez eta **txomorroz** nahasi. Jokin Urain

txondar ik txondor.

txondor *(orobat txondar g.er.)* 1 iz ikatza egiteko eratzen den egur meta.

Nire aitona Joxemari, ikazkin ibili zen gaztetan, mendian **txondorra** eginez. Xabier Mendiguren Elizegi

Mikel **txondorrean** lanean hasi eta zakurra berriro agertu zitzaion. Martin Anso

Erregeak agindu zuen presta zezatela gazteluaren aurrean **txondor** handi bat, Kameloteko edozein puntutatik ikusteko modukoa. Juan Kruz Igerabide

Herriko gazteek ekainaren hastapenetik San Joanak pasatu arte egin asmo zuten **txondorra**. Hasier Etxeberria

Piztuta ikusi nahi zuten **txondor** itzela. Hasier Etxeberria

Erregina **txondorrean** erretzera eraman eta handik denbora batera, zerbitzari bat itzuli zen Arturrengana, oihuka: [...]. Juan Kruz Igerabide

Emakumeek, gizona hilda, beren buruak gizona erretzen ari den **txondorrera** botatzen dituztela ere entzun edo irakurri izan dugu. Gotzon Garate

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egur **txondorra** gerturik dago ahukua etorri denekoxe. Gotzon Garate

Zeharragak txandaka eta trabeska jarriz su-**txondor** baten moduan egina. Santiago Iruetagoiena

Agindu iezaiek ezen, Itakara itzultzean, umerik egin gabeko behi bat eskainiko dieala eta su-**txondar** bat egingo duala opari anitez. Juan Kruz Igerabide

Munduko estatuak beren senidearteko iskanbila eta borroken biktima gisa jada hileta-**txondorrean** zeutzanean. Iñaki Mendiguren

txongo *(orobat xungo)* iz txerri hanka hezur giharduna.

Zerriaren urdaiazpikoa jan ondoren, hezurra gelditu ohi zen zerbait giharrekin, eta horri "**txongoa**" esaten zitzaion. osetearen garaian, pobreen artean, **txongoak** osatzen zuen haien eltzeetan falta zen koipea. Pako Aristi

Txongoari lizta bat lotu eta babarrun edo lenteja eltzean sartzen zuen aitona. Pako Aristi

Haur nintzenean ez zitzaidan ardikia laketa eta luzaz mokofinarena egiten nuen denek errabiaz ahoratzen zuten hezur-kankail edo **xungoaren** aitzinean, Aiherrako zikiro besta batean, arrailduraren arrailduraz, oharkabean lau kostalet erretik irentsi nituen arte. Itxaro Borda

-Baina eztxiui kiloka saltzen, **xungo** osoka baizik! Itxaro Borda

txonkatil ik orkatila.

txonkor ik txokor.

txonta iz txolarrearen tamainako txori intsektujale kantaria, lumak arreak dituena(*Fringilla coelebs*).

Txonta kantuan hasi baitzen txio-txio zorrotzez. Karlos Zabala

Gelako isiltasuna [...] **txonta** baten txio-txioak urratzen zuen noizik behinka. Karlos Zabala

Tristeena zen **txonta** txiki koitadua zuhaixken artean zebilela jirabiraka. Julen Gabiria

Ikatz argiari kea zerion, eta **txonta**, burua hegalaraz aspian, lo gelditzen zen hanka baten gainean. Karlos Zabala

Logelan, **txontaren** kaiolara joan zen zuzenean, txoria hartu, bi hegalen artean musu eman, eta askatu egin zuen. Karlos Zabala

Zuhaizten hosto berdeen aurretik ziztu bizian igarotzen ziren txantxorriez, **txonta** horiez eta eskilaso luma-urdienez. Oskar Arana

txontxa iz ergela, kirtena.

Txontxa, ez besteren **txontxa**! Anjel Lertxundi

txontxongillo ik txotxongilo.

txontxongilo ik txotxongilo.

txopa 1 iz popa.

Harantz eta honantz zebilen, baina steam-boataren **txopa** utzi gabe. Karlos Zabala

Txopatik brankara joan eta brankatik **txopara** itzuli zen. Edorta Jimenez

Brankaren muturrean ausardiak beteta edo **txoparen** goxoan babestuta... J.M. Olaizola "Txiliku"

Lau aingura bota zituzten **txopatik**. Elizen arteko biblia

Lau bat miliatara geldituko duk lasai kapan kostari **txopa** emanda, baretu arte. Koldo Izagirre

Mesanako edo gibel-masta deritzona, **txopako** gaztelauaren aurrean. Edorta Jimenez

Aldarea **txopako** gazteluaren itzalpean atondu zuten. Edorta Jimenez

Hala esan zion Matiuxenko marinelak Vakulintxuk marinelari ahapetik **txopako** eskaileran. Koldo Izagirre

Branka aldean bazen beste ontzi bat, falua deritzen horietakoa, **txopako** mastan harro eskegita oihal brodatua ageri zuena. Edorta Jimenez

Anaia beheko **txopan** zegoen, karelaren azpian ondo lotuta zegoen upel huts bati helduta. Koro Navarro

Txopako masta baino tenteago zegoen. Edorta Jimenez

2 irud/hed

-Esanen banio neska bati bere **txoparen** kulunka ikusita bururatzten zaidana... Koldo Izagirre

3 txopatik hartu

-**Txopatik** hartzen, batez ere! Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txopako gazteluan (6); **txopako gazteluaren** (5); **txopako gazteluko** (7); **txopako gazteluko talaiara** (4); **txopako gaztelura** (3)

brankatik txopara (5)

txopatik brankara (5)

txopada

iz olatuaren indarra baliatzen duen arraunketa baliabidea.

Nahiz eta bitxeroa galduta, zutik ageri zen oraino Zulaikak abante guztia sartuta ziaboga zakarra egin zuenean aborrera, hurrengo baga handia **txopadan** hartzeko.

Koldo Izagirre

txor-txor

(*orobat txortxor g.er.*) **1 adlag** txioaren onomatopeia.

Kirats eta zarata handia zegoen, kaiola barruko guztiak txilioka, karranka, **txor-txor** edota txistuka ari baitziren. Iñaki Mendiguren

Berotegi Erraldoiaren aurrean, oilobustia **txor-txor-txor-txor** ari zen txio-txio batekin, lumajeari buruz. Xabier Olarra

2 (orobat txurtxur) pertsonen marmarraren onomatopeia.

Malfoy, Crabbe eta Goyle ez ziren entzuten ari; ahopean **txor-txor** ari ziren isildu gabe. Iñaki Mendiguren

Beraien inguruan, jende guztia **txor-txor** ari zen bazkaldu bitartean, poz-pozik arratsalde hartan bertan azterketak bukatuko zituztelako. Iñaki Mendiguren

Txor-txor ari zen jendearen buru gainetik trenaren kea zebilen. Iñaki Mendiguren

Tabernaz taberna, edan eta **txor-txor**, **txor-txor** eta edan, azkenean sekulako melokotoiarekin bukatu arte. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (izen gisa)

Edurneren **txortxorra** are ozenago egin zen. Aingeru Epaltza

-Gaurkoa araudiaren aurka doa zuzen-zuzen -forentsearen ahots zolia, hilerriko txori ugarien **txortxorrekin** lehian-. Aingeru Epaltza

Txortxorrak xurxur egin ziren ni ikusi bezalaxe. Aingeru Epaltza

Kristinak irri apal eta luzea egin zuen, **txor-txor** alkoholiko bat, eta nik barre murrizt batez erantzun nion bere ateraldi zentzugabeari. Aingeru Epaltza

4 (hitz elkartuetan)

Txortxor algarak. Aingeru Epaltza

5 txor-txorrean adlag kalakan.

Parranda txikiak izaten dituk, ez pentsa orgiak-eta egiten ditugunik, baina hortxe egoten gaituk gauero, pattar pixka batekin eta atsoen moduan **txortxorrean**, logurak erretzen erretiratzen garen arte. Xabier Mendiguren Elizegi

txor-txorka

(*corpusean txurtxurka soilik*) **adlag** txortxorrean.

Zenbait etxetako ate aitzinetan emazteki mordoak **txurtxurka** ageriko ziren, eta goiko plazatik pasa behar zuenak zeharka baino ez ei zion begiratuko presondegiari. Koldo Izagirre

txora-txora

1 adlag erabat txoraturik.

Bere bizikleta gaineko dotoreziak **txora-txora** utzi gintuen denak. Berria - Kirola

2 txora-txora egin

erabat txoratu.

Walter-en musikak edota dena delako zerak **txora-txora** egiten naute. Mirentxu Larrañaga

-**Txora-txora egiten** nau zu Water Boy kanta abesten entzuteak -esan zuen emakumeak-. Mirentxu Larrañaga

3 txora-txora eginda

(*orobat egina, eginik*) erabat txoraturik. ik **txoro 6**.

Txora-txora eginda daukak. Patxi Iturritegi

Benetan diotsut, **txora-txora eginda** nauka gizaseme horrek. Mirentxu Larrañaga

Ni **txora-txora eginda** joan naiz, egun oso-osoaan gereziaren hezurrarekin hortzen teklatuan musika eginez. Patxi Zubizarreta

Ni aho zabalik, **txora-txora eginda** uzten ninduten. Jon Muñoz

Txora-txora eginda zagok nirekin. Irene Aldasoro

Txora-txora eginda ibili ziren denak haren atzetik. Jokin Muñoz

Ez zen harriztekoa emakume guztiak **txora-txora** eta lili-lili **eginda** uztea haren agerpen hutsak. Felipe Juaristi

Gizon harekin **txora-txora eginik** egon behar zuen, bestela ez baitzuen Abasekin ezkontzeko asmoa bertan behera utziko eta desohorea hautatuko. Patxi Zubizarreta

Ederra baitzen norbait zuregatik **txora-txora egina** dagoela jakitea. Patxi Zubizarreta

txorabiatu

txorabia(tu), txorabiatzen du *ad adkor* zorabiatu.

Batez ere Donostiara heltzen ziren dilijentziak hantxe gelditzen zirelako; eta birrindutako zaldiak eta **txorabiatutako** andereen zabukak ikusteko parada ematen zigulako.

Txillardegi

Ez duk horregatik **txorabiatzen**, Lubis, erretzen dituen zigarro nazkante horiek gaizkitzen ditek. Bernardo Atxaga

Doinu leun errepikakor batek **txorabiatuta** zeukan gizasemea, hipnotizatuta. Karlos Linazasoro

txorabio

Sukarra, **txorabioak**, jandakoa goitik edo behetik botatzea, ahuldadea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txorabioak harrapatu ninduen. **Txillardegi**

Txorabioa bezalako zerbait sentitu nuen. **Txillardegi**

Egon puskatean hausnarrean, eta hitz egin gero, buruko minak edo **txorabioak** alde egindakoan. **Iñaki Seguro**

Itsasoko **txorabio** eta mareoen aurkako sendagaitzat. **Pello Zabala**

Izerdi-kolpea izan zen, besterik ez, izerdi-emanaldia eta ondoriozko **txorabioa**. **Joxe Austin Arrieta**

Ohe erdialderantz mugitzean Lucyk beste larrialdi bat sentitu du, gertu oraingoan **txorabio** osotik. **Joxemari Iturralde**

txoraize

izond ergela, kirtena. ik **txoro 4**.
Nik "polit hori" deituko diat eta, neska **txoraize** hark Grosrouvreri bezala. **Jon Muñoz**

Nolabaiteko joera izan zen ordu arte berezi bezain **txoraizetat** hartzeko savanten trebetasunak. **Xabier Olarra**

Beste gainerakoan jaun prestua zen, **txoraizea** halere. **Xabier Olarra**

Bere gizonari "polit hori" deitzen dion neska **txoraize** hutsa da. **Jon Muñoz**

Txoraize horrek niri deitu behar zidan, ertzainekin sinpatikoarena egiten ibili ordez! **Anjel Lertxundi**

txoraka

iz txoraizea.
Biolin-jole, zuzentzaile ere bazena, Rosako mutilkote beltzaran **txoraka** bat zen. **Josu Zabaleta**

txorakeria 1

iz adkor zorakeria.
Lelokeria hutsa zen, **txorakeria**, asmakeria, deabruak daki zer! **Jose Morales**

Zaila da jakiten **txorakeria** bat ote den ala zentzuzko gauza. **Felipe Juaristi**

Neronek esan nien ez etortzeko, **txorakeria** bat zela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Baina horiek **txorakeriak** dituk -jarraitu zuen Emilek-. **Lopez de Arana**

Hori bai dela **txorakeria**! **Antton Olano**

Maitaleena **txorakeria** zen, pentsatu zuen, dena berriro gogora ekarri. **Antton Garikano**

Txorakeria irudituko zaizu, seguru aski. **Xabier Olarra**

Ez esan **txorakeriarik**! **Antton Olano**

A zer **txorakeriak** ari diren esaten, pentsatu zuen Charles Tansleyk. **Antton Garikano**

Azkenaldi hartan entzuten zituen **txorakeriak** isiltzeko asmoz. **Bernardo Atxaga**

Denok egiten ditugu **txorakeriak**. **Xabier Paya**

Ez izan tontoa, ez egin **txorakeriarik** eta gorde zak hire dirua. **Matías Múgica**

Nik egindako **txorakeria** baten erruz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Utzi **txorakeriak**. **Antton Garikano**

Txorakeria gutxi, beraz. **Matías Múgica**

Tristura benetakoa, **txorakeriarik** gabeko tristura. **Iñaki Seguro**

Eskolapioetan, zirudinez, zorrotzak omen ziren oso, **txorakeriarik** gabeak, eta lana gogor eginazten zutenak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txorakerietarako umorea ez zitzaigun guztiz joan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txorakeria bat asmatu nuen, Quevedo, Gómez de la Serna, Valle-Inclán eta Francisco Umbral eltze berean nahastuz eta sikulu-saltsa bat eginez, pedantea eta jasangaitza. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haren galderak zitunan **txorakeriarik** handienak. **Antton Garikano**

Nostalgiarena **txorakeria** hutsa da, idealizazio handia izaten da beti gauza horietan. **Karlos Zabala**

Hori **txorakeria** galanta da. **Xabier Olarra**

Dudarik gabe **txorakeria** ederra egin dut baina ezin esplikatu nezake inondik. **Matías Múgica**

Txorakeria itzela. **Jon Alonso**

Idatzitakoak **txorakeria** zentzugabeak direnean barre egin diezaiogeku guk idatzitakoari, eta **txorakeria** zentzudunak direnean berriz, **txorakeria** zentzudunagoak idatzi eta pentsatzen lagun diezagukete. **Harkaitz Cano**

Lasai, lagunok, guk geure esku zegoen guztia egin dugu, edo horrelako zerbait, **txorakeria** infame bat nolana ere. **Karlos Linazasoro**

Gizon hori artzaina zen, eta beraz, eskolan **txorakeria** intelektual gutxi ikasitakoa. **Iñaki Seguro**

Sekulako **txorakeria** duk hire adinean karrera politikoa egiteko aukera alferrik galtzea. **Lopez de Arana**

Ez, ez duk inolako **txorakeria**. **Antton Olano**

3 (hitz elkartuetan)

Txorakeria pare bat zetorren hortik aurrera: nor bere izaerari eustearen eta bestearen nahietara moldatzearen arteko dialektika bat sortzen zela sedukzio-jokoan eta halako topikoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere **txorakeria** (4); ez da **txorakeria** (3); hori bai **txorakeria** (3); hori **txorakeria** (3); **txorakeria** bat (21); **txorakeria** bat da (4); **txorakeria** da (4); **txorakeria** galanta (10); **txorakeria** galanta da (3); **txorakeria** hutsa (3); **txorakeria** irudituko (3); **txorakeria** zen (3); zer **txorakeria** (8)

txorakeriak dira (3); **txorakeriak** egiten (5); **txorakeriak** esan (4); **txorakeriak** esango (3); **txorakeriak** esatea (3); **txorakeriak** esaten (9); **txorakeriak** esaten ari (3); **utzi** **txorakeriak** (5)

ez esan **txorakeriarik** (14); **txorakeriarik** egin (4); **txorakeriarik** esan (4); **txorakeriarik** ez (4); **txorakeriarik** gabe (3)

txoraldi

txoramen

iz adkor zoramena.
Bagenuen biok, hala ere, **txoramen** bat: autoei erreparatzeko zaletasuna. **Xabier Olarra**

Taldea agertokira igo eta jendearen zarata handiagotu zenean, **txoramenak** harturik esku-zarta galantak jotzen eta "Bravo! Bravo!" oihukatzen hasi zen Greg, sekulako

indarrez. [Xabier Olarra](#)

Garbi zegoen aitaren heriotzak lur jota utzi zuela: une hartan ez zuen nabari inolako **"txorametik"** edo arinkeriarik. [Xabier Olarra](#)

txorarazi, txorazar, txorazarzen du *ad adkor* zorarazi.

Ni ere **txorarazi** nindian neska batek behin, gaupasa batean. [Pablo Sastre](#)

txoratu, txora, txoratzten 1 du *ad adkor* zoratu.

Neska horrek **txoratu** egin ninduen eta haren atzaparretan jausi nintzen. [Patxi Zubizarreta](#)

Rock musikak **txoratzten** zuen, batez ere *acid rock*ak. [Xabier Olarra](#)

Ez nuen sekula gorde nire nebak **txoratzten** ninduela. [Karlos Zabala](#)

Beti izan zen trebea eskuekin, eta **txoratu** egiten zuen gauza naturalen egiturak. [Xabier Olarra](#)

Juditzen sandaliak begiak erakarri zizkion eta haren edertasunak **txoratu**. [Elizen arteko biblia](#)

Janari onak beti jartzten nau **txoratzten**. [Xabier Olarra](#)

Orrri bakoitza pasatzean kirats apal horrek hotzikara eragiten zidan bizkarrean eta **txoratu** uzten. [Karlos Zabala](#)

"Jennie Garthek **txoraturik** nauka -esan zuen-. [Xabier Olarra](#)

Benetan **txoraturik** zauzka, ezta? [Oskar Arana](#)

Hain nindukan, zinez, **txoraturik**. [Joan Mari Irigoien](#)

Musika klasikoak **txoraturiko** ameslaria. [Berria - Kultura](#)

• 2 da *ad*

Margaret etengabe **txoratzten** zen Stephenen lanarekin. ipurdia altxatzen nuen zakila sartzekotan zegoela eta **txoratu** egiten nintzen ipurdi-masailetan jotzen zizkidan pintzel-kolpe moduko haiekin. [Xabier Olarra](#)

Eta ez zen pasa laztantxoaz harago, eta gauza ziurra da zaharra **txoratu** egin zela. [Karlos Zabala](#)

-**Txoratuta** zaude ala? -Martak umore onez. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Gogoa dugunean, hirurak endredatzen gara, eta neskek, nahiz eta Paulo Henriquerekin **txoratu** egon, nirekin ere **txoratu** dagoela esaten du, dena primeran dago.

[Karlos Zabala](#)

Txoratuta nembilen. [Daniel Landart](#)

Tabako-zorrotxo bat ere bazegoen pipen artean, posta-geltoki batean **txoratzeko** punturaino maitemindu zitzaion kondesa batek brodatua. [Jose Morales](#)

"Etor hadi gurekin, Juan", esan zidan mutil haietako batek pozak **txoratzten**. [Bernardo Atxaga](#)

Pozek **txoraturik** liriteke hilibia aurkituko balute. [Elizen arteko biblia](#)

Eta, pozez **txoratzten**, kanpora ateratzen zen bere argiteriari begiratu bat ematera. [Fernando Rey](#)

3 (era burutua izenondo gisa)

Ez zen txantxetako, ez, nahiz eta gure familiak oso liberalak eta **txoratu** samarrak izan. [Karlos Zabala](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txoratu zegoen (3)

berarekin txoraturik (3); **txoraturik** zegoen (4)

denok txoratzten gaitu (3); **pozak txoratzten** (12); **pozez txoratzten** (23); **pozez txoratzten jarri** (3); **pozez txoratzten zegoen** (3); **txoratzten hasi** (3); **txoratzten jarri ziren** (3); **txoratzten naiz** (3); **txoratzten zegoen** (7); **txoratzten zeuden** (4); **txoratzten zuen** (3)

txoraxka (*orobat txoroxka*) 1 *izond* txoraxka.

Baserritar txatxutzat joko zuten apirillean egurpiloa ondo hornitu gabe zeukana, eta baita edozelan mahuka-hutsetan eta paparzabal zetorren **txoraxka** ere. [Pello Zabala](#)

Zakurra gauza **txoraxkak** egiten ikusten bazuen, errezeloak piztuko zitzaizkion. [Pello Zabala](#)

Hego bafada sorgin bulkada **txoroxketan** datorkeenarena. [Pello Zabala](#)

2 (adizlagun gisa)

Sua nolatsu zebilen, tximiniak sano tiratzen zuen edo ez, kea **txoraxka** zebilen... horiek denak bere pentsamendua sendotu eta ziurtatu egingo zioten. [Pello Zabala](#)

txordo 1 *iz* bekozkoak.

Buru atzera bueltatu, eta goitik beherako begirada **txordoa** egin dio kamerari, erruki eske bezala. [Patxi Iturritegi](#)

2 *adar-txordo izond* adarrak beherantz dituenak.

Diana adar-**txordo** hau beti izan da animalia moldakaitza, azken boladan izan duen behirik izuena. [Patxi Iturritegi](#)

txori (*1722 agerraldi, 202 liburu eta 112 artikulutan; orobat xori 319 agerraldi, 16 liburu eta 181 artikulutan*) 1 *iz* hegaztia, eskuarki tamaina txikiakoa.

Gure arbasoek asko ikasi bide zuten **txori** eta hegaztiekin. [Pello Zabala](#)

Txori bat neukan, kanarioa, eta lantzean behin letxuga bat sartzen nion kaiolara. [Joseba Sarrionandia](#)

Txominek ehizatuak zituen ordurako hiru **txori**: txolarre bat, kaskabeltxa eta karnaba. [Joan Mari Irigoien](#)

Txori batek oihu egin zuen. [Juan Garzia](#)

Txorien txioen eta hostoen marmarren artean. [Ramon Saizarbitoria](#)

Txioka hasi ziren **txoriak**. [Joxan Elozegi](#)

Lumaje distiratsuko **txori** batzuk txioka eta txorrotxioka ari ziren kokondoan goialdean. [Lopez de Arana](#)

Txorien ttiuttak eta urruneko ardien joareak salbu, ez zen toki haren bakea hausten zuen beste azantzirik. **Txorien** kantak sentitu eta kosta egiten zitzaielako haien bila joan gabe etsitzea. [Elena Touyarou](#)

Hura etxean zenean, **txoriaren** kantak esnatzen gintuen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Txoriak ehunka eta milaka abiatzen ziren hegan, txio-txioka pozaren pozez. [Karlos Zabala](#)

Harria bota zaion arbolako **txoriak** bezala sakabanatu ginen anai-arrebok. [Anjel Lertxundi](#)

Bat-batean, **txori** baten mugimendu arinaz. [Ramon Saizarbitoria](#)

Txoriari lepoa estutu, eta hil egingo du. [Juan Kruz Igerabide](#)

Kamar Al-Samanek **txoriaren** gorpua jaso nahi izan zuen, baina beste bi **txori** mokoka hasi zitzaizkion eta guztiz ezinezkoa gertatu zitzaion. [Patxi Zubizarreta](#)

Mota gutxietako **txoriek** egingo dute habia bertan. Elizen arteko biblia
Bada [hilezkor] haien artekorik, ondo gogoan dut, inoiz zutik ikusi ez dudanak: **txori** batek habia egina zuen haren bularrean. Juan Garzia
Itsasoaren indiferentziak eta **txori** zuri batzuen *krae krae* hotsak baino ez du isiltasun hori etengo. Joseba Sarrionandia
Txori baten zirina erori zen hesi batera. Koro Navarro
Arteak jarri omen zituzten **txoriak** harrapatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"
Leporaino zituen urak eta, kanpotik eta barrutik atsekabeturik, sarean erortzera doan **txoria** bezala aurkitu zen. Askoren artean
Beti **txoriak** lumatzen ari eta ari. Jon Maia
Sugeak **txoriari** begiratzen dionean bezalaxe geratu zen Mikel. Unai Iturriaga
Elizabeth Siddal, bere adats gorriarekin, deikundearen **txoria** eta pasioaren lorea eskuetan. Ramon Saizarbitoria
Txoriak zeruan bizi dira, aingeruak eta jakintsu taoistak bezala. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Iluntzen ari zen zeruan, **txori** txikiak zebiltzan hegan. Juan Kruz Igerabide
Ehunka, milaka aldiz entzuna zuen **txori** txiki izuti haren kantua. Jon Maia
Txori xeheen txio-txio baketsua. Itxaro Borda
Txori zuri handi bat. Julen Gabiria
Txori gris txiki bat, bularrean arrasto zuriarekin, barran igota, kantari ari zen. Juan Kruz Igerabide
Errautsez zipritzinduriko argi grisa, **txori** grisak bezain argi grisa. Felipe Juaristi
Kapitela [...] ilun nabarmetzen zen enborraren zuritasun elurkaran, txapela edo **txori** beltza zirudiela. Jose Morales
Txori harrigarri bat ikusi genuen [...] eta, auskalo zergatik, **txori** tropikalen bat zela erabaki genuen. Bernardo Atxaga
Begiek bi **txori** bizkor ziruditen, bekokiaren pean habia egindakoak. Felipe Juaristi
Hilobien gainetan atsedean hartu eta etzanez, lore berriak, izotz kristalak, **txori** nekatuak bezala. Felipe Juaristi
Itzuliak egiten zituen, **txori** zauritu batek bezala. Josu Zabaleta
Txori kaiolatuak eta katu fereka zaleak dituzte gogoko zaharrek. Imanol Zurutuza
Herioa zekarten **txori** basatien moldean barreiatu ziren gero erasotzaileak. Itxaro Borda
Udarako aukerak ekarri zituen **txori** betizu guziek aldegin ditek. Patziku Perurena
Txori mokomotzak ziren. Pello Zabala
Txori migratzaileak ehizatzea debekatu dute Filipinetan eta Palestinan. Berria - Harian
Txori sarraskijaleak. Berria - Kultura
Taketak daudelako uretan sartuta, irlaren inguruan, eta horietako bakoitzean **txori** zentinelak bat, egunez eta gauez zaindari. Julen Gabiria
Txori mekaniko bat taxutu zuen! Jon Muñoz
Ez zebilen **txori** latorrizkorik airean. Karlos Linazasoro
Txori negarti honek, "gure folklorean aparteko onginahia duela" omen dio J. Alustizak. Patziku Perurena
Badirudi txantxangorria ez dela batera **txori** onbera, inoxoa eta errukarria, guziz bestelakoa baizik. Patziku Perurena
Ehiztari batek topatu zuen elurrezko eta suzko **txori** hura. Patxi Zubizarreta
Ni askatasun haizea naiz, **txori** hegalaria. Jon Arretxe
Zeruaren hegitik, arranoa edo saia zen ez zekitela, **txori** erraldoia jazarri zen, intzirika. Itxaro Borda
Txori hego hautsiaren moduan ez agertu etxera berriro! Joseba Sarrionandia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txori kanta bezain alaia. Felipe Juaristi
Zein **txori** -kantu ederrak lorategietan! Jose Morales
Eguratsa lore urrinez eta **txori** -txioz mukuru agertzen zen larunbat dirdaitu batean. Txillardegia
Txori -txorrotzioak egiten zituen Chicoc sei haietako bat balantzaka ikusten zuen bakoitzean. Koldo Biguri
Txori ziztu burrunbari haiek... Joxe Austin Arrieta
Txori hotsa entzun zezakeen, eta, ahul, belazearen behealdeko erreka. Anton Garikano
Lorea eta lore-usaina bezain txikia, txoria eta **txori** -hegaldia bezain txikia. Felipe Juaristi
Miss Goldweiser ikusi zuen bere **txori** -begitxo gozo eta kexatiak haren aurpegian gogor finkaturik zituela. Lopez de Arana
Txori -bihotzeko elefantea izan behar nintzela. Berria - Kultura
Igeri egin eta gero amuarrainetara edota **txori** habiak bilatzera. Bernardo Atxaga
-Nora zoaz **txori** kaiola batekin ordu hauetan? Juan Kruz Igerabide
Txori -tranpei buruzko txiste errazari mihipean eutsi eta baietz esan nion. Harkaitz Cano
Begiak itxi eta **txori** aldra bat ikusten dut. Juan Garzia
Txundituta zegoen halako **txori** talde ugariak, haien ezberdintasun txit ederraz. Askoren artean
-Ze **txori** mota da zure ustez? Julen Gabiria
Txori -lumak ere erosten zituen. Jose Morales
Txori mordoak hartu genuen. Jon Maia
Txori -ehizan ibiltzea ere laket baitzuen! Joan Mari Irigoien
Txori -faseko umeen manera eta ohiturei buruzko xehetasun interesgarriak. Julen Gabiria
-Guztiok ginen zintzoak -esan zuen **txori** -aurpegi gaiztoko zaharrak. Jose Morales
Iparraldeko ertzaren ondotik igaro eta gero eta gorago kanoi osoaren **txori** -ikuspegia izateraino igo ginelarik." **Txori** -begiko" perspektibak, zeinetan, hiru dimentsioko espazioan, paralelo direnak proiektzioan ere paralelo geratzen baitira. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Kolore distiratsuko txoriak txoritegian ehizatzen dituen **txori-ehiztaria**. Jon Muñoz
Herio **txori** -ehiztari. Felipe Juaristi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sudurra oihan-**txori** baten hezurraz zeharkaturik zuen indigena batek keinua egin zidan itzalean zegoen etxola baten atetik. Jon Alonso
Kanabera artean ezkutaturik, martin-arrantzaletan ñabarra, lezka-**txoria**, uroiloa eta kopetazuri maltzurra egon ohi dira. Koldo Biguri

6 (esapideetan eta)

-Ni ere aritzen nauk **txorietan**, hemengo mendi hauetan asko zagok. Jon Maia
Egun hartan ez zen **txorietara** joan. Jon Maia
Ikasten baino **txoritan** nahiago, goarnizioko soldaduek oparitu balezta zaharrenekin. Aingeru Epaltza
Euskaldun arraio horiek lanean ari zituan, eta gu **txoritan** ! Koldo Izagirre
Zuhurtasun handiz pentsatu baitzuen hobe zela **txori** bat eskuan ezean ez ehun airean. Jose Morales
Tiro batez bi **txori**, pentsatu nuen. Alberto Ladron Arana

Erre ezazu, ba: harri batez, bi **txori**. Koldo Biguri
Harri batez bi **txori**, Aljeria frantses zaintzerakoan, hango frantses-eskualdunak salbatako zituztela barneratzen zuen Beinatek. Itxaro Borda

7 irud/hed pertsona.

- **Txori** hori ez duzu bere habian topatuko -esan zidan, faxista zela eta. Edorta Jimenez
-Esan diat; **txori** hori ez zagok gure kaiolan. Edorta Jimenez
-Lucinda Bereziortua neskatoa da **txoria** eta kaiola, berriz, bere aitak Algortan duen egoitza dotorea. Joxemari Iturralde
-Beste zerbait behar duk horrelako **txori** galdu bat akatzeko! -erantzun zuen On Camillok, ironiaz-. Koldo Biguri
Hain **txori** abaildua ikusten al naun, nik orain habia bat behar dudala esaten hasteko? Anjel Lertxundi
Bigarren bus haren aurretik beste bus bat joan zela, eta bertan zela **txoria**, eta Panizo zela. Edorta Jimenez
Polita da "oroipen-**txori**" delako metafora hori, beti hegan joaten dela iradokitzen diguna. Xabier Mendiguren Elizegi

8 adkor zakila.

Eta hiri zer, **txoria** tente jartzen zaik? Joseba Sarrionandia

9 gerra txori ik gerritxori.

10 galerna-txori ekaitz txoria.

Fanchek eriaz erakusten zizkidan arau **galerna txoriak** miresten nituen harrizkoen bizkarretan pausatzen. Itxaro Borda

11 ekaitz txori

Ekaitz txoria Europan bizi den itsas hegazirik txikiena da, eta 15 bat zentimetro hazten da. Berria - Euskal Herria
Ekaitz txoriak, berriz, planktona jaten du, eta kate trofikoaren oinarriaren osasunaren berri ematen du horrexegatik. Berria - Euskal Herria
Belatz handiak eta **ekaitz txoriak** bioadierazleak dira. Berria - Euskal Herria

12 itsas txori iz itsasoan bizi den txoria.

Itsasoan ekaitza denean, **itsas txoriak** Oria errekan gora joaten dira. Patxi Zubizarreta
Itsas txorien karranka urrunak. Xabier Mendiguren Elizegi
Itsas txori erraldoien hegiagorak hauteman ziren, galernaren ondotik. Itxaro Borda
Horretaz gain, milioika izokin, 250.000 **itsas txori**, 2.800 igaraba, 300 itsas txakur, 250 arrano eta 22 orka inguru hil ziren. Berria - Gaiak
Adituen arabera, garai hartan Alaskako kostaldean zeuden **itsas txori** eta itsas ugaztun asko hipotermiak jota hil ziren. Berria - Gaiak

13 txori-belar kardu mota (Senecio vulgaris).

- **Txori belarra** txoritxoentzat! Karlos Zabala
Normala, berriz, ekilore, **txori-belar**, artatikiki, olo zuritu, beltzata, eta kalamu-hazien nahasketa zen. Jon Muñoz
Lau libera aurreztu zituen bi hilabeteen, lepo otarre txiki baten jabe egin zen, eta **txori belar** saltzaile hasi. Karlos Zabala

14 txori-buru ik txoriburu.

15 txori denda (orobat txoridenda g.er.) iz

Zu **txori-dendan** zauden bitartean, ni arduratuko naiz liburu-dendaz. Jon Muñoz
Mercedes puska bat gelditu zen bat-batean **txori-dendaren** ate aurrean. Jon Muñoz
Txori-dendan aurreneko itzulia egin ondoren, Perrettek ez zuen lortu Maxek deskribatutako neska saltzailea identifikatzea. Jon Muñoz

16 txori galdu ik txorigaldu.

17 txori-izugarri (orobat txorizugarri g.er.) iz txorimaloa.

Gisa horretan da mundua, lehenago Txorierra edo Txoritokieta zabal bat izandako mundua, **txori-izugarri** handitar bat izatera etorri, txoriak estratosferan itotzeraino uxatuz. Iñaki Segurola
Ez zunan agertu; ordu bata jo, artean iritsi ez, eta ohartu nindunan ez zuela zentzurik han **txori-izugarri** segitzeak. Anton Garikano

18 txori kaka (orobat txorikaka) iz gauza hutsala.

Seme nahiz aita gisa [...] porrotora oraindik erabatekoa ez zela frogatua nion neure buruari, eta hori ez zen **txori-kaka**. Eta hori ez zen **txori-kaka**, ez horixe. Aingeru Epaltza
Ez duk **txori kaka** gero! Patxi Zubizarreta
Bolanta izeneko sare pelagikoen kontua **txori-kaka** baino ez da arazo-ozeano horretan. Edorta Agirre
Ni ezdeusa nintzela pentsatuta, beharbada Antjerentzat nire moduko **txorikaka** batekin egotea aspergarria baino aspergarriagoa zela pentsatuta. Fernando Rey

19 txori-kardu kardu mota (Senecio vulgaris).

Elurtearen erdian **txori-kardu** izoztu bat aurkitu duen txolarrea, horixe ematen zuen. Anjel Lertxundi

20 txori-larrosa basa-arrosa.

Hor daude **txori-larrosak**, arrosa zuhailzeiko orri urriekin, haizearen enbatei amore emateko hain gutxi falta dutela diruditela, Han dago Ama Birjina, han daude krabelinak, **txori-larrosak** eta Jesusen Atzaparrak, azokara eraman orduko eskuetatik kenduko zizkietenak. Pako Aristi

21 txori-malo ik txorimalo.

22 txori ume ik txorikume.

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

itsas txori (4); jaunaren txori (3); loak hartutako txori (3)

txori aldra (4); txori asko (4); txori aurpegi (3); txori bat izan (3); txori bat pausatu (3); txori baten moduan (3); txori bati (3); txori beltz (4); txori berde (3); txori bihurtu (3); txori denda (3); txori dendan (3); txori dendara (3); txori desberdinen (3); txori ergela (3); txori eta ikatz (3); txori hilak (3); txori ikusi (3); txori kaka (5); txori klase (3); txori lumak (4); txori mota (6); txori motaren (3); txori talde (3); txori tiki (3); txori txarra (4); txori txiki (12); txori txikia (3); txori txikiak (4); txori txuri (4); txori zuri (3); txoriak txori (4)

ur txori (6)

betiko txoria (6); maitasunezko txoria (4); sekula betiko txoria (6)

txoria balio (5); txoria bezala (10); txoria izan (3); txoria nuen maite (3)

ekaitz txoriak (4); orhiko txoriak (3)

txoriak airean (3); txoriak baino (7); txoriak bezain (4); txoriak bezala (12); txoriak harrapatzen (3); txoriak hegan (5); txoriak kantari (4); txoriak kantuan (3); txoriak txioka (7); txoriak txioka ari (3); zeruko txoriak (3)

txoriaren kantua (3)

sugeak txoriari begiratzen (4); txoriari begiratzen diorean (4)

txoriei begira (4)

txorien habia (5); txorien kantua (4); txorien kantuak (5); txorien modura (6); txorien txio (4); txorien txorrotzioak (3)

burua txoriz beterik (12)

itsas xori (3); xori bat bezala (4); xori baten pare (3); xori berriketaria (5); xori kanta (3); xori mota (3)

xoria bezain (3); xoria harrapatu (3)

bunuztar xoriak (8); gau xoriak (15); gau xoriak taldeak (3); itsas xoriak (3); lasar xoriak (8); urtsuko xoriak (4); xoriak b mailan (3); xoriak dantza taldearen (3); xoriak maillean (6)

xorien kantuen (3)

txoriburu *(orobat txori buru g.er.) izond/iz buruarina, zentzu gutxikoa.*

Nire sehi **txoriburu** horrek ez du ba nire paper zorroa Parisen utzi! **Jon Muñoz**

Hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, etxeoandre goganbehartsua, gazte festazale **txoriburua**, lurjabe zekena, [...]. **Jose Morales**

Ez, ez zen **txoriburua** ania, ez eta artifiziala. **Daniel Landart**

Alchononek gainera **txoriburua** eta alferra izateko fama zuen. **Koro Navarro**

Txoriburu hutsa zen. **Lopez de Arana**

Gazteak ginen, **txoriburu** samarrak... geure buruargitasunak itsutzen gintuen. **Iñaki Mendiguren**

Zure aginduak jaso behar ote ditut, **txoriburu** halakoa? **Itziar Otegi**

-Ba, antzerkian erabiltzeko dirua duk, **txoriburu** alaena, tontolapikoa halakoa! **Lopez de Arana**

Buenetxeak sardinzarrak gordetzeko erabiltzen zituen upelen gudari-hotsen laguntzaz kalejira alaiaren urrez ez baina ardoz ospatzen zuen **txoriburu** talde bati lagun egiten ziotenean. **Askoren artean**

Artea gizartearentzat lau katu **txoribururen** istorioa baita. **Berria - Kultura**

txoriburutu, txoriburu(tu), txoriburutzen da/du ad txoriburu bihurtu.

Neu ere **txoriburutzen** hasi nintzen afariaren azken alderako eta gutziz txoromorotuta nengoan, Louise eta biok, etxera itzultzeko taxi bat eskatu genuenerako. **Hasier Etxeberria**

txoridenda ik txori 15.

txoridun *izond* txoria edo txoriak dituena.

Ireki egin nuen gero, eta, alajaina!, zer ikusiko, eta paretako erloju **txoridun** bat agertu zitzaidan begien bistan. **Josetxo Azkona**

txoriflauta ik txoroflauta.

txorigaldu *(orobat txori galdu) iz adkor* alproja.

- **Txorigaldu** horrek bultzatuko zuen. **Karlos Zabala**

- **Txorigaldu** bat, **txorigaldu** bat -edo beste hitz gordinagoren bat, eta jarraitzen zuen-: hartara kotxez eramango dute, Estrella bezala. **Josu Zabaleta**

txorigari *(orobat xorigari) iz gari* mota.

Bazen **txorigaria** deitzen zioten jeneroa ere, honen berri gehien zekitenak, esan gabe doa, txori mokomotzak ziren. **Pello Zabala**

Sukaldean batu zirelarik gosarizat **xorigariz** egin ogi-zopak esne beroarekin jateko, Graxi eta Domenga bata besteari so egon ziren, etsiturik. **Elena Touyarou**

txorikaka ik txori 18.

txorikume 1 *iz* txoriaren umea.

Esan behar dugu Sekula Betiko txoriek, orain, modu horretan egiten dituztela habiak, hegal zabalarekin, **txorikumeek** bertan har dezaten airea. **Julen Gabiria**

Bere habia lehendabiziko aldiz uzten duen **txorikumea** bezain pozik. **Anjel Lertxundi**

Habiatik uxaturiko **txorikumeak** dirudite Moabeko bizilagunek. **Elizen arteko biblia**

On Camillok kaxatxoaren hondoan bilatu eta gauza txiki arrosa bat atera zuen, **txorikume** baten tamainakoa. **Koldo Biguri**

Dokumentaletan ikusten diren luma bako **txorikume** horien antzera. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Txorikume habiatik erori berriari eskaintzen zaion errukizko maitasun barea ikusi nuen amaren begietan. **Anjel Lertxundi**

txorikumetxo *iz adkor* txorikumea.

Gure **txorikumetxoak** hizketan ikasi du eta! **Aitor Arana**

txorimalo 1 *iz* hazia ereindako soro edo alorretatik txoriak uxatzeko ezartzen den giza irudia, arropa zaharrez jantzia. ik izugarri 4.

Meloi-soroko **txorimalo** dirudite: ez dakite hitz egiten eta garraiatu egin behar dituzte, ez baitira ibiltzeko gauza. **Elizen arteko biblia**

Gizakien antza duten **txorimaloak** ipintzen dituzte bazterretan, giza arropaz jantziak. **Gotzon Garate**

Txorimalo baten antzera ikusi nuen berriz ere neure burua. **Hasier Etxeberria**

Ondoren, elurra esku-beteka hartuz, zazpi **txorimalo** egin zituen. **Askoren artean**

Emaztearen ezpainetako irribarra tristezia bortxatuz lortua dela iruditzen zaiola hala ere, bele horiek ez dira **txorimaloaren** beldur, sumatzen du, aspaldi dira ohituak, jarriak. **Imanol Zurutuza**

Jirabiraka zebilen, **txorimalo** bat haizearen eraginez bezala.. **Joxe Austin Arrieta**

Voodooa egiteko egokiak omen diren lastozko **txorimalo** ttikiak nonahi. **Harkaitz Cano**

Txorimalo baten antzera ikusi nuen berriz ere neure burua. **Hasier Etxeberria**

-Jantzi prakak, **txorimalo** zaharra ematen duzu eta! **Aitor Arana**

Itxura hutsa zen, lastozko **txorimalo** bat. Karlos Linazasoro

2 irud/hed

Ziur zaude ez zaizula axola ni bezalako **txorimalo** batekin ikusten bazaituzte? Lopez de Arana

Isabel xarmangarriak ez zion inori antzepenean parte hartzen uzten, baldin eta **txorimalo** baten lana egiteko ez bazen. Lopez de Arana

Putreak eta arranoak saltzen diguten bide jakin horien kontrakoa delako beti bere hegan egiteko estiloa: hegan egiteko estilo bihurri bat, ideologien kaiolak eta koherentzia txintxoaren **txorimaloek** izutzen ez dutena. Iñaki Segurola

Horrelako eskaerei makilakadaz erantzun behar zaiela uste duten **txorimaloen** harrokeriatik oso urrun nago ni. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aurreko gauean, **txorimalo** txiki bizkorrak ibili ziren trenbidean makurtuta gauzak biltzen. Koro Navarro

-Gorpua ezin bada, errudunaren irudiz egindako **txorimaloa** erre ahal ditek. Edorta Jimenez

txorimalotu, txorimalo(tu), txorimalotzen da/du ad txorimalotu bihurtu.

Gizonak, txoriontasunik gabeko atzerapenak eta ezjakintasunak lotua eta **txorimalotua** dagoen gizonak, bere zarata, zakar eta zikin dirukumez bete du mundua. Iñaki Segurola

txoriño (orobat xoriño) 1 iz txoritxoa.

Zart moztu dituzte helizeek hamaika **txoriñoren** buruak une batean. Xabier Montoia

Habia uzterat zihoan **txoriñoa** banintz bezala. Joan Mari Irigoien

Hegoak ebakiak dituen **txoriño** bat ere eman zezakeen, lur arrasean hegaldatu ezinik ibili ostean. Patxi Zubizarreta

2 adkor pertsona. ik txori 7.

-Barraen ezker aldean duk hire **txoriñoa** -esan dit maleziatsu, eskatutako edari isotonikoa luzatzeaz batera. Patxi Iturritegi

Txoriño lotsagabe batek esan dit eskuratzeko interesaturik egon zintezkeela. Migel Angel Mintegi

-**Txoriño** bat etorri zait kontuarekin, lehen esan dizut, batzuetan lotsagabe eta besteetan lotsati samarra den **txoriño** batek eskaini dit txostena. Migel Angel Mintegi

txoriontasun adkor cf. zoriontasun.

Gizonak, **txoriontasunik** gabeko atzerapenak eta ezjakintasunak lotua eta txorimalotua dagoen gizonak, bere zarata, zakar eta zikin dirukumez bete du mundua. Iñaki Segurola

txoripito iz gizagaixoa, inozoa.

Han nengoen ni sukaldearen erdi-erdian **txoripito** moduan, eta esan zidan: [...]. Jesus Mari Mendizabal

txoritegi iz txorientzako kaiola modukoa, handia.

Lorazain-espetxezainak giltzarrapo lodia zabaldu, eta **txoritegian** sartu zen Max. Jon Muñoz

"Kolore distiratsuko txoriak **txoritegian** ehizatzen dituen txori-ehiztaria"; horrela definitu zuen Platonek matematika! Ruche jaunak bukatu zuenean, **txoritegirantz** jiratu, eta loraari deitu zion Maxek. Jon Muñoz

Emakumeek txio egiten zuten katiluen tintinen artean, txoriek **txoritegian** bezala. Lopez de Arana

txoritxo (orobat txoritxu g.er., xoritto g.er.) 1 iz txori txikia. ik txoriño.

Behin, Frantzisko dohatsua anaiekin mahaian eseria zegoela, bi **txoritxo**, arra eta emea, etorri ziren. Askoren artean

Gure erreklamoa zuhaixkatik tarte batera jarriko dugu, **txoritxoak** kanta dezan. Jon Maia

Txoritxoek keinu harrigarriak egiten hasi ziren: lepoak luzatzen, hegoak zabaltzen, mokoak irekitzen eta santuari arretatsu begiratzen. Aurelia Arkotxa

Jarleku batean pausaturik dagoen **txoritxoak** ematen du neskak. Lopez de Arana

Adibidez, kanario deritzan **txoritxoak** kardu jatera egingo du, bere izaeraren arabera, eta ez basabitziloretara. Jenaro Garate

-Txori belarra **txoritxoentzat** ! Karlos Zabala

Ama **txoritxo** bat bezala hil zen. Alberto Barandiaren

2 adkor pertsona.

Iribeltzagan agertu omen ziren iragarkiak, **txoritxoaren** izen eta guzti, hizki lodietan. Pako Aristi

-Nik **txoritxo** horiek kartzelan ikusi nahi ditut, ulertzen duzu? Lopez de Arana

Peruko Enbaxadan ere sartu dira, bai, zeuon kaiolaren batean polito-polito egon behar duen Leopoldo Panizo **txoritxo** horren bila. Edorta Jimenez

Hilketa bat argitzeko lagungarri izan daitekeen lekuko baten bila nabil, emakume aparta baten bila, zehatza izateko, eta **txoritxo** batek esan dit balitekeela Iparraldean ibiltzea. Migel Angel Mintegi

Eta zer zeraman luma artean **txoritxoak** ?, gure defentsen sistema osoaren informazioa zeraman. Edorta Jimenez

txoritxu ik txoritxo.

txoritzar iz adkor txori handia.

Arrano handi baten antzeko **txoritzarra**. Ibon Uribarri

Hain zuzen ere, gu hara iristen ari ginen uneantxe ari zen halako **txoritzar** beltz-ubel saldo oso bat errai-multzo bati tiraka, hara eta hona, beren moko odoleztatuei sarrats-litsak zerizkiela. Joxe Austin Arrieta

Harrika ekin zien **txoritzar** beltzei, ezin eutsizko amorrazio betean. Joxe Austin Arrieta

txorixo ik txorizo.

txorizero

1 piper txorizero piper mota idortua, ur epeletan jarri eta mamia ateratzen zaiona.

Ettxera joan eta ortuan hartutako letxuga, tomate eta **piper txorizeroekin** afaria momentuan prestatu. **Ana Urkiza**
Bakailaoa, **piper txorizeroak** eta ardoak. **Pablo Sastre**

txorizo (orobat xorizo g.er.) 1 iz Iberiar Penintsulako hestebete mota.

Odolki eta gibel, **txorizo** eta solomo, urdaiazpiko eta txerri-hanka, dena aprobetxatzen zaion jakiduna izaki txerri maitagarria. **Pello Zabala**
Mahain luze baten inguruan denek jastatu dituzte taloak, **txorizo**, biperrak, ardi gasna edo etxe bixkotxak. **Herria**
Txorizo eta lukainka ederrak ekartzen zizkigun bere herriatik, zerria hiltzen zutenean. **Karlos Linazasoro**
Etxejoaunak ogi biribil bat eta **txorizoa** eman zizkigun. **Inazio Mujika Iraola**
Zahatoa, ogia eta **txorizoa**. **Joxean Sagatzizabal**
Raimundo Silvak hiru arrautzako tortila **txorizoarekin** prestatuko du. **Jon Alonso**
Arrautza frijituak **txorizoarekin** eta litro erdi ardo beltz. **Patxi Iturritegi**
Patatak **txorizoarekin**, mundialak. **Joxean Sagatzizabal**
Txorizoak parrilan. **Pako Aristi**
Kea, eta oliotan frijitutako **txorizoaren** usaina. **Txillardegi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Dastatu ditu mokaduak edozelan ere, berehala **txorizo** egosira eta tortillatara itzuli aurretik. **Urtzi Urrutikoeetxea**
Urdai frijitua eta **txorizo** oso bat zeuzkan oraindik gordeta eta paperetan bilduta. **Jon Maia**
Hirugiharrea pixka bat, urdaiazpikoa, **txorizo** lehorra, piper hautsa, tomatea kutxarakada bat, [...]. **Pako Aristi**
Handik pixka batera ekarri zidaten ogitartekoak -ogi idorra, **txorizo** garraztuaren estalki-. **Aingeru Epaltza**
Extremadurako opilak eta patatazko **txorizoa** ere ekartzen zituen gure amak. **Jon Maia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire ahizpa Marisak **txorizo** muturra ahotik zintzilik zuen. **Jon Maia**
Txorizo muturtxo bat agian. **Jon Maia**
Zoriontsu izateko **txorizo** zati bat, ogia eta ardoa besterik behar ez zuena. **Ramon Saizarbitoria**
Usaiako atun ontzia, **txorizo** puska bat, gasna, sagar eta laranjak. **Piarres Aintziart**
Soil-soilik ama falta zen, jostetak ama itutakoan txokolate edo **txorizo** otarteko batekin etortzen. **Patxi Zubizarreta**
Gero jaitisiko zirela Amabira **txorizo** -arrautzekin gosari egitera. **Pablo Sastre**

4 adkor zakila.

Ez potrorik ez **txorizorik**, baina nire emaztea gizaseme bat zen. **Karlos Linazasoro**

txorizugarri ik txori 17.

txorkatila ik orkatila.

txorlero iz

Aldiz, gizalegez baina irmo, **txorleroak**, kabiarra, ur gezako dortokak, antxoak, *pâtés de foie-gras*-ak eta gisako kutixi kristauak eskatzen zituztenek beren hartz izpirituak betiketotasun betierekoan haien arimaz bazkatuko dituzte. **Xabier Olarra**

txoro 1 izond adkor ergela, zentzu gutxikoa, ganoragabea. ik txoraxka. (pertsonez)

Errazegi gutxiesten da gazteen suhartasuna, "gaurko gazte **txoro** hauek" esanda. **Jokin Urain**
Ume **txoro** haiek lan asko ematen zioten. **Julen Gabiria**
Zeren emakumea, errespetu guztiarekin, **txoroa** baita afera hauetan, eta horrelako gauza putzak aintzat hartzea txit emana. **Iñaki Segurola**
Agure zahar kamustuak edo berdin gazte **txoro** argituegiak. **Iñaki Segurola**
"Atso **txoroa**", pentsatzen zuen, "hobe zeure gauzetan sartuko bazina!". **Patxi Iturritegi**
Ameslari **txoro** bat duk mutil hori. **Koro Navarro**
Burugabe **txoro** bat. **Karlos Linazasoro**
Hitzontzi **txoro** berritsua. **Juan Garzia**
Zentzugabea munduratzten duenak izango du atsekaberik, **txoroaren** aitak pozberdik ez. **Elizen arteko biblia**
-Ez zaitez **txoroa** izan, osaba Nat. **Oskar Arana**
Gehienbat gizatarrak diren gobernariak eta gehienbat **txoroak** diren soldaduek eraginak. **Xabier Olarra**
Txoroen hizketa amorragarri gertatzen da. **Elizen arteko biblia**
Milioi bat **txoroen** jakintza, ergelak adierazia. **Xabier Olarra**
Azkenerako "Lisa **txoro** ergela" zela ere hasi ziren esaten ahopeka. **Karlos Zabala**
Badaki **txoro** zahar hori ez dela haserretuko, irri eginen duela. **Monika Etxebarria**
Txoro zikina! **Bernardo Atxaga**
Txoro ostia bat, Bilboko kaleek txakolindegiz josita jarraitzen dutela pentsatzen duten horietakoa. **Hasier Etxebarria**
Txoro samarra izatea leporatzen zioten. **Berria - Kirola**

2 (bestelakoez)

Bizieren iturriak, beraz, baliteke serioak ez izatea [...]; baliteke **txoroak** izatea ere, **txoroak** eta zoroak. **Iñaki Segurola**
Oraingo moda **txoro** bat. **Iñaki Segurola**
Buruan josita dauzkagun uste **txoro** eta topiko hutsalak. **Pello Zabala**
Galdera **txoroari** erantzun halakoxea tokatzen omen zaio. **Pello Zabala**
Nork esan ote dit neri inkesta **txoro** bat aintzakotzat hartzeko? **Iñaki Segurola**
Gure eskematxoak libratzen gaitu poesia **txoroaren** tentaziotik. **Iñaki Segurola**

-Biografiak, denak izaten dira **txoroak**. Koro Navarro
Harropuxkeria **txoro** batek jotzen ditu. Patziku Perurena
Ergelkeria **txoroak** esaten. Koro Navarro
Gure barre **txoro** eta imintzio nabarmenak. Xabier Mendiguren Elizegi
Estatistikak baino, informazio **txoroa** besterik ez da. Berria - Kirola
Geure arteko kontutxo **txoroak**. Juan Luis Zabala
Hitz **txoro** batzuk besterik ez. Pako Aristi
Idea **txoro** hori erakargarria iruditu zait, guztiz tentagarria. Patxi Iturritegi
Kulparik gabe, beldur **txororik** gabe. Karlos Zabala
Napumoceno jaunak hasieratik eman zion ezetza hipotesi **txoro** hari. Bego Montorio
Telebisio espainoleko kultur leihaketa **txoro** horien gisara. Patziku Perurena
Aldaketa-saio hura ez zela, inondik ere, denborapasa xalo **txoro** bat. Karlos Linazasoro
Oka zorabio **txoro** batek baino gauza garrantzitsuagoren batek eragin ziola. Harkaitz Cano
Zuhurrak jakinduria biltzen du, mihi **txorokoak** berehalako hondamendia ekartzen. Elizen arteko biblia
Otsaileko eguzki **txoroak** ondotxo baitaki koskak egiten. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Izan liteke **txoro**-ametsa, edo soilik ausardia. Andoni Egaña
Ez dakit nik guztiz egokia ote denetz jarri dioten **txoro**-fama. Txillardegi
Erbiak beti izan dute alai eta **txoro** ospea. Bernardo Atxaga
Batzuetan eskuindar mozorrotoak besterik ez dira; beste batzuetan [...] arrazistak edo xenofoboak; bestetan, **txoro**-jendea. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak adizlagun balioa duela)

Artean **txoro** barreka ari nintzen, zalditik jaitsi ninduean. Mirentxu Larrañaga
Beti neska-talde handia duelako inguruan, **txoro** barreka. Mirentxu Larrañaga
Jendetzako dama guztiek barre egin zuten, **txoro** algaraka. Mirentxu Larrañaga

4 txoro-haize iz ik txoraize.

Errealitatea adina fantasia ere; seriotasuna bezainbat **txoro-haizea**. Iñaki Segurola
Denek uste dute bakar-bakarrak direla, berdingabeak, eta bere **txoro-haizeak** beste inor ez duela jotzen, bera baizik ez. Orduan zer litzateke morboa?: legea hauste hutsaren laineza eta **txoro-haizea**? Karlos Zabala
Paulok, berriz, aieneka segitzen zuen petrilean, eta halatan, Josuk tonu isekatsua hautatu zuen, Fernando eta Orrondoren **txoro-haizea** baretzeko asmoz. Pedro Alberdi

5 txoro-txoro adlag

Ez baneuzka hirurogei urte eginda, hitza ematen diat, harekin ezkonduko ninduek **txoro-txoro**. Karlos Zabala
Neskazaharrak honela bota zuen **txoro-txoro**, sorbaldak goratzen zituela: [...]. Karlos Zabala
Ez duzu horrela **txoro-txoro** iheska hasi beharrik. Patxi Ezkiaga
Mundu guztia borrokan **txoro-txoro** Kixote eta Dultzinea izan nahian. Karlos Zabala
- Beti **txoro-txoroan** hitz eginik ere -gauzen berri jakiteko gogoia ezkutatzeke, beharbada-, ez zuen sekula ere bere burua agerian uzten. Karlos Zabala

6 txoro-txoro eginda (orobat egina) erabat txoraturik. ik txora-txora 3.

Nire nabek **txoro-txoro egina** nindukan, sorgindua nengoen, haren fanatiko porrokatua nintzen. Karlos Zabala
Eta su-festak piztu zizkidan bihotzean, **txoro-txoro eginda** bainengoen benetan. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

burutazio txoro (3); **gazte txoro** (5)

txoro ametsa (3); **txoro barreka** (4); **txoro bat izan** (3); **txoro eginda** (3); **txoro haizea** (3); **txoro txoro** (11); **txoro txoro eginda** (3); **txoro zahar** (10); **txoro zahar bat** (6)

txoroa da (4)

gazte txoroak (4)

txoroarena egiten (4)

txoroaldi (orobat txoraldi) iz adkor une txoroa.

Barrenak hala eskaturik, edota **txoroaldiak**, ez dakit ongi, ausartu egin natzaio: [...]. Txillardegi
-Adio, jauna, solas suzko bat daukat garretan lehertzear, **txoraldi** honek iraungiko ez balu. Juan Garzia

txorobolada iz txoroaldia.

Publikoa ez da sekula bere buruaz fio, aldian aldiko **txoroboladak** darama arrastan. Patziku Perurena
Ezin nagoke esan gabe ezen Don Bucle dela, ez **txoroflauta** bat, ez txoropanderoa ere, baizik-eta guk teknikoki "txorogaixtoa" esan ohi diogun klaseko giza aletto bat, Egiaren Ministerioak gizanditua eta gizurendua. Iñaki Segurola

txoroflauta (orobat txoriflauta) izond adkor zozoa, ergela.

Ergel haietako ergelena, **txoroflauta** pikortatu lepamehe bat zen, kaskogaineko negargarri bat erakusten zuena arrandian, xingola ordez kordoi ziztrin batekin. Xabier Olarra
Orduan, mesede bat eska diezaioket Giuseppe Botazzi herritarrari, ala iritsi da Komintern-etik agindua Peppone alderdikideak zerbitzutik kanpo ere **txoriflauta** baten antzera joka dezan? Koldo Biguri
Ezin nagoke esan gabe ezen Don Bucle dela, ez **txoroflauta** bat, ez txoropanderoa ere, baizik-eta guk teknikoki "txorogaixtoa" esan ohi diogun klaseko giza aletto bat, Egiaren Ministerioak gizanditua eta gizurendua. Iñaki Segurola

txorogaizto (corpusean txorigaixto) izond zozoa, ergela.

Ezin nagoke esan gabe ezen Don Bucle dela, ez txoroflauta bat, ez txoropanderoa ere, baizik-eta guk teknikoki "**txorogaixtoa**" esan ohi diogun klaseko giza aletto bat, Egiaren Ministerioak gizanditua eta gizurendua. Iñaki Segurola

txoromasa izond adkor zozoa, ergela.

Txoromasa baino ez dena, hagitz izpiritu argi eta finekotzat jotzea, alegia. Patziku Perurena

Txoromasa, publikoa, nonahi eta noiznahikoa dela ere, inolako erantzukizunik gabeko abstrazio harroxka izan ohi da beti. Patziku Perurena

Ongi begiratzuz gero, **txoromasaren** jutzura jotzea besterik ez baita irtenbide hori. Patziku Perurena

txoropandero *izond adkor* zozoa, ergela.

Ezin nagoke esan gabe ezen Don Bucle dela, ez txoroflauta bat, ez **txoropanderoa** ere, baizik-eta guk teknikoki "txorogaixtoa" esan ohi diogun klaseko giza aletto bat, Egiaren Ministerioak gizanditua eta gizurendua. Iñaki Seguro

txoropito *1 izond adkor* zozoa, ergela.

Elosegi **txoropito** eta txolina. Hasier Etxeberria

Malfoy bezalako **txoropito** batek esan ez dezan faboritismoa dela. Iñaki Mendiguren

-Eta nora bidaltzea espero huen ba hik, **txoropito** horrek! -erantzuten dio Joanak sutan. Antton Olano

Argazkietan ikasleak ez ziren ikasmahaian **txoropitoen** moduan barrezka jarriak agertzen, baizik-eta negutegi batean loreak aldatzen, edo, lan-mahai batean oholak moztzen. Jesus Mari Mendizabal

Bi **txoropito**, diplomatikoak, gurekin justu-justuan mintzatzeko gai zirenak, zer konpondu behar ziguten haiek? Karlos Linazasoro

Bere lehengo mutila, **txoropito** ergel hori, haren laguna dela eta poliziaren aurrean salatu duela. Antton Olano

2 (gauzez)

Zain nagoen bitartean, eskailera zuloan kanta **txoropito** bat zabaldu da, ezin ozenago zabaldu ere. ehin film txotxolo bat egitea erabakiz gero, osorik egin behar **txoropito** eta groteskoa. Patxi Iturrategi

txorotasun *iz* txoraa denaren nolakotsuna.

Uf, aski, ordenatu behar dut hau guztia hala edo hola, eldarnioek ere antolatuak egon behar irizpideren bati jarraituz, metodoa eman behar erokeriari, gutxi gorabehera Poloniok Hamleten **txorotasunaz** hitz egiten duen antzera. Karlos Zabala

txoroxka ik txoraxka.

txorrada *iz* ergelkeria, tentelkeria.

Ez **txorradarik** esan. Fernando Morillo

Txorradarik ez. Fernando Morillo

- **Txorradak**! Jon Arretxe

- **Txorrada** galanta. Iban Zaldúa

Inspirazioa **txorrada** bat da, konforme, baina batzuetan zerbait okurrizten zaizu edo ez zaizu okurrizten. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxeo mutikoak edozein **txorradarekin** flipatzen zuen. Jon Arretxe

Gero edozein aitzakia asmatu: lesbianak garela, hilekoa daukagula edo beste **txorradaren** bat eta etxera. Jon Arretxe

Ze ostia pasatzen zaizu gaur horrelako **txorradak** esateko? Jon Arretxe

Hala ere, ez ninduen konbentzitzen: edo **txorrada** yupi bat ateratzen zen, edo pelikula espainolen traza guztiak zituen. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txorrada esan (3)

txorrakeria *iz* txorrada, ergelkeria, tentelkeria.

-Ez esan **txorrakeriarik**! Sonia Gonzalez

Denbora horrelako **txorrakeriatan** galdu baino, hobe nuke dutxa hartzea. Sonia Gonzalez

Ez dut inoiz denborarik eduki politika kontuetan emateko, zure moduan, egun osoa horrelako **txorrakeriekin**, mundua konpontzen. Sonia Gonzalez

txorriotxo *iz adkor* txioa.

Baina musika guztien gaineko musika Ezkuturen ahotsa da, urretxindoraren **txorriotxoak** baino alaiagoa, arima osorik eztitasun iraunkor, goxo, bigunez betetzen didana.

Gotzon Garate

txorro¹ *1 iz* txorrota edo kideko batetik ateratzen den turrusta. ik zurrusta.

Hamar **txorro** daude hemengo dutxategi luzean. Anjel Lertxundi

Bainuontzi biribil ikaragarri hark txunditua utzi ninduen, ia lurraren mailan zegoen eta urre-koloreko ispilu eta **txorroek** diz-diz egiten zuten. Juan Martin Elexpuru

Erdi-erdira apuntatuta ere **txorroak** beti ateratzen zituela zipriztintxoak, eta barkatzeko errealismo eskatologikoa. Iñaki Iñurrieta

Gorputz-arimetako gogorruneak beratzeagatik edo, itsasoari kendutako uretan sartzen naiz gozoro ("talasoterapia" deitzen diote): **txorroa** han eta **txorroa** hemen, klase denetako **txorroen** mendean entregatzen dut nere izate gogortuegi hau. Iñaki Seguro

Zupoarekin ekin zien, txandaka, untxi maniako baten gisara, eta batarí nola besteari espermazko **txorro** koloreaniztun emankor, oparo, naro bana oparitu zien, eskuzabal. Jon Alonso

2 (hitz elkartuetan)

Hazi- **txorroari** jarein nionean bere barnemuinetan, zerua buru gainera erori zitzaidala uste izan nuen. Juan Martin Elexpuru

txorro²

1 *txorro-morro*

Petroniok nik neuk haurtzaroan ezagututako jostaketa bat aipatzen du, nire herrian **txorro - morro** deitzen zena, eta Katalunia eta beste toki batzuetan *cavall fort* deitzen

dutena. Bernardo Atxaga

Esan dizuet, ni neu ere ibili nintzen **txorro-morrotan**. Bernardo Atxaga

txorro³ iz

499 animalia berreskuratu zituen poliziak, artikuluak zehazten zuzenez: **txorroak**, ipurtxuntur gorriko papagaitxoak, Floridako dortokak. Jon Muñoz

txorroka *adlag* txorroak jaurtitzen.

Gero, kanila giltzarik gabek **txorroka** segitu du, ordu arteko kemen beraz. Anjel Lertxundi

txorroskilero (*orobat txorroskillero*) iz *adkor* kalez kale dabilen zorroztailea.

Txorroskilero, eltzegile eta buztzingileek. Pello Zabala

Aterki saltzaile eta guardasol konpontzaile **txorroskillero** haiek. Pello Zabala

Edonork ikusi izan balu, han, leihoan lerraturiko whisky botilekin **txorroskileroarena** egiten, erreka jotako burugaldutzat hartuko zukeen. Harkaitz Cano

txorroskillero ik txorroskilero.

txorrot ik txorrota.

txorrota (*orobat txorrot*) 1 iz isurkari baten irtengunean, hari ateratzen uzteko edo galarazteko ezartzen den tresna giltzaduna. ik kanila; dutxulu.

Ur beroaren **txorrota** zabaltzen. Anjel Lertxundi

Berriro ireki du uraren **txorrota**, hortxe sartu ditu eskuak. Paddy Rekalde

Sarritan, **txorrota** bat irekitzen zuen isil-ostuka, eta poz-pozik jartzen zuten zurrustaren zipritzinek. Karlos Zabala

Jarioa duen **txorrota** bat. Irene Aldasoro

Hortzak garbitu edo bizarra egiterakoan, beharrezkoa ez den uneetan, **txorrota** itxi egin behar da. Eskuak **txorrota** azpian jarri eta mandarrean idortu zituen. Berria - Harian

"Hontanas" hitzak erakustera emaiten duen iturria ikusi dut, bere ura bi **txorrotetatik** nasaiki dariola. Piarres Aintziart

Goizez, sutegi txiki bat piztu beharra zegoen **txorroten** azpian, ur xirripa bat lortzeko. Karlos Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Dutxako **txorrota** irekita, ez zuen ondo aditzen Dionisosen ahotsa. Unai Iturriaga

Kobrezko **txorrotetako** baten albo batean markatuta suge ñimiño bat zegoen. Iñaki Mendiguren

Zisne lepoko **txorrota** kobrezko batzuek ur xirripa meheak botatzen dituzte. Karlos Zabala

Behar baino denbora gehiago eman du ia mintzerainoko **txorrota** beroaren azpian. Sonia Gonzalez

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aitak ur-**txorrota** irekitzen du tomateak garbitzeko. Anjel Lertxundi

Iturrira joan eta zeharo biluztu ginen, ur-**txorrot** emankorrean geure burua garbitzeko asmoz. Aitor Arana

Gibelean atea itxi eta iturri-**txorrotak** dena emanda irekiz gero [...]. Mirentxu Larrañaga

Esperimentuek frogatu dute gas **txorrota** baino hobea dela tranbia bultzatzeko eta zaldiak baino argi gehiago ematen duela. Xabier Olarra

4 irud//hed

Berehala **txorrotak** argi zuri distiratsu bat bota zuen eta bira ematen hasi zen. Iñaki Mendiguren

Bushek ez du **txorrotik** irekiko, baina uda igaro arte petrolio erreserbak bere hartan uztea erabaki du. Berria - Ekonomia

AEBetako biltegiak 1975ean sortu ziren, 1973ko hornikuntza eskasiaren ondotik, eta orain arte soilik hiru alditan ireki da **txorrota**: 1991n, Golkoko Gerragatik; 2000n, petrolio garestiagatik (30 dolarrean zen upela); eta 2005ean, Katrina zirimola zela medio. Berria - Ekonomia

Eta, hurrengo unean, ilusenti **txorrota**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txorrota ireki (5); **txorrota ireki zuen** (3); **ur txorrota** (3)

txorrotaren azpian (5); **ur txorrotaren** (3)

txorrotada 1 iz *adkor* botila edo kideko batetik ateratzen den turrusta.

Botaiozu **txorrotada** bat kubalibrean, triste dabil gaur morroi hau. Iñaki Iñurieta

Berehala jasan behar izan nuen nigana zuzendutako eta erruki gabe jarraitzen ninduen ur-mahuka antzeko baten ustekabeko **txorrotada**. Urtzi Urrutikoetxea

-Te-ontzia erotu egin zen eta ur irakin **txorrotadak** botatzen zituen alde guztietara. Iñaki Mendiguren

Gero, komunean sartu, eta **txorrotada** bat eginda alde egin du, bonbako katetik tiratu barik. Patxi Zubizarreta

Begira egoten nintzen nola jotzen zuen kanpaia, zakila lehertzeko zorian jarri arte, eta orduan, gozatzeko momentuan, nire aho irekita zuzentzen zidan **txorrotada**. Karlos Zabala

Nahikoa zen, beraz, **txorrotada** soil bat edalontziratzea, isurtze behar horiek patxadan egiten bazituen ere. Josu Landa

Erretxinaren **txorrotada** lodia erreten-buruko askatxoan hantxe baratu zen, ispilu beltz dirdaitsu bat osatuz. Juan Garzia

Neskari **txorrotada** bat pasatu zion ahotik ahora trebezia handiz. Jon Arretxe

Eztanda sor zakar bat eta lama gaizto bat eraginez izeki zen barranean nafta hautsezatuzko **txorrotada**. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ur **txorrotadaz** baldea bete eta errataz lurra igurzten aditu zezakeen hormaz bestaldetik. Josu Landa

Argitaletxea txikia bada, alkohol **txorrotadek** handiak izan behar dute. Harkaitz Cano

Lehen whisky **txorrotadak**, kosk egin berri zion zakurraren ilajearen zaporea zuela iruditu zitzaion. Harkaitz Cano

Exeratu eta lau pastilla irentsi zituen, *Cutty Shark* **txorrotadarekin** batera. Harkaitz Cano

txorrotadaka *adlag* txorrotadak boteaz. ik **txorrotaka**.

Busti zuen puta... jaurti zuen esne apartua **txorrotadaka** bere arima kiskaliaren hondoraino: hartzeko baino ez da bizi!... aha! aha! aha! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

txorrotadatxo 1 *iz* txorrotada txikia.

Aski izan zen soluzio kontzentratutik **txorrotadatxo** bat, galtzetan barrena lerratu baitzitzaidan, zimitarra-kolpe batez bezalako zast ebakitzeko galtzok. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Portzelanazko pote batetik ontzi txiki batera isuri zuen likido garden **txorrotadatxoa**. Josu Landa

3 irud/hed

Matxismotik apur bat eta arrazismo **txorrotadatxoa**. Urtzi Urrutikoeetxea

txorrotaka 1 *adlag* txorrotadaka.

Brastakoan, odola hasi zitzaion garondotik **txorrotaka**. Anjel Lertxundi

2 (izen gisa) txorrotada.

Etxean ondo prestatu: Ur hodiak ez izozteko etxeko iturriren batean ur **txorrotaka** txiki bat utzi. Berria - Harian

txorrotx *izond* adkor zorrotza.

Zerutik eroritako aingeru bat bezain zuzen eta **txorrotxa**. Iñaki Seguro

-Metro t'erdikoa nahi baduzu -oihukatu zuen ahots **txorrotxaz** -. Koldo Biguri

Belarriko min **txorrotxa** sendatzeko eskariak. Pello Zabala

Demagun gobernu horrekin bat ez datorren euskal prentsarik ere izango dela, kritikoa, **txorrotxa**, gaiztoa. Iñigo Aranbarri

Eguraldia bera izan ohi da usteak ustelarazten dizkizuna eta jakite **txorrotxa** koskaz kamusten dizuna. Pello Zabala

Sotoko eskailera **txorrotxa** da, osaba-izebek galarazia zidaten jaistea. Juan Garzia

Bere arropostua, zirtolari bezain **txorrotxa** : [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Ederki aditu zidan, Kristinak belarri **txorrotx-txorrotxak** baititu. Aingeru Epaltza

txorrotxio 1 *iz* txoriez mintzatuz, kantu hotsa.

Karakaz dabil uroloa belar artean, txioka burugorriak batera eta bestera hegaz, noranahi hedatzen da hegazabalen **txorrotxioa** airezko zurubi ikusezinean barrena, bazter batean aditzen da kurrilo-saldoen kantua. Jose Morales

Txorien **txorrotxioak**: gainerakoan, hilobietako isiltasuna. Joxe Austin Arrieta

Abuztuko egun beroetan han itzalean lo egin zitekeen, txorien **txorrotxioek** eta eulitzarren durundiak urrumaturik. Koro Navarro

Txorien **txorrotxioa** eta zomororen baten zunburruna, beste soinurik ez zen aditzen. Fernando Rey

Zioenez, delako monjeak urretxindor bat ikusi zuen adar batean txorrotxioka, eta hain politik ziren haren **txorrotxioak**, hain lilugarriak, non hari entzuten ez dakit zenbat mende egon baitzen. Migel Angel Mintegi

Era guztietako txori talde handi bat etorri zitzaion; beren **txorrotxioz** eta hegoak astinduz poz eta alaitasun handia agertzen zuten. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hegazti nabarrek, baso apartatuetan hegan, bazterrek aire samurrean zehar euren **txorrotxio** gardenez betetzen dituztenean. Xabier Amuriza

Patioan bere **txorrotxio** zaratsuak kantatzen jarraitzen zuen kanarioak. Josu Zabaleta

Lapur-txorien **txorrotxio** istilutsua. Joxemari Urteaga

Hesi batetik txolarre baten **txorrotxio** umela zetorren. Lopez de Arana

Burdin sareen segidan, kexuzko **txorrotxio** betiereko bat izaten da, hostoen azpiko txorien barne kantu bat. Karlos Zabala

Erreka nagusitik bananduta arranoaren habian arranoak edukitu behar duten **txorrotxio** eziaz xuxurlatzen duten xirripak. Koldo Izagirre

- **Txorrotxio** handikoak dira Baztan aldeko txoriak, antza. Hasier Etxeberria

3 (hitz elkartuetan)

Orain esna zegoela, ezin zuen ulertu nola lo egin ote zuen txoriek ateratzen zuten **txorrotxio**-hotsaz. Iñaki Mendiguren

- Txori-**txorrotxioak** egiten zituen Chicok sei haietako bat balantzaka ikusten zuen bakoitzean. Koldo Biguri

4 irud/hed

Irri garden bat, ume irri bat, lokarturiko etxearen isiltasun handian txirula baten **txorrotxio** samurra zirudiena. Karlos Zabala

-Lerroa, berriz, zabalerarik gabeko luzera da -egin zuen **txorrotxio** Maxek. Jon Muñoz

-Tira, haurrok, joan zaitezte beste gelara jolas egitera, guk kafea hartzen dugun bitartean - **txorrotxio** egin zuen izeba Emilyk-. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txorien txorrotxioak (3)

txorrotxioka *adlag* txorrotxioak eginez.

Txoriak **txorrotxioka** aritzen dira iskanbila zalapartatsuan eta airera igortzen dute oilarrek, erronka bailitzaan, beren kukurruku ausarta. Koro Navarro

Hesian, txolarreek **txorrotxioka** ziharduten elkarri mokoka. Lopez de Arana

Lumaje distiratsuko txori batzuk txioka eta **txorrotxioka** ari ziren kokondoan goialdean. Lopez de Arana

Lorategi bat, zaldiko-maldiko, bilintzi-balantza eta guztikoa, eta azken honen gainean Pepponenen semerik txikiena, txoritxo baten moduan **txorrotxioka**. Koldo Biguri

txorroxtasun *izond* adkor zorrozatasuna.

Eta hura zen **txorroxtasun** kartografiko-toponimikoa, Azpeitiko Martxialenekoe (Marcial Ucin, gero Aceralia, etc.) Baionan fabrika berria jarri, eta Fededunon Egunkariok nazioan ordu arteko markak hautsi zituztelarik: fabrika ez zutela "Frantziara eraman". Iñaki Seguro

txorroxtu, txorrotx/txorroxtu, txorroxten da/du *ad adkor* zorroztu.

Atentzio pixka bat jarri eta begiak ondo **txorroxtu** : horixe duk egin beharreko guztia. Jesus Mari Mendizabal

Datuen ziurrak eta zientziaren gurpilak jakitea **txorroxten** dizu. Pello Zabala

txorru *iz*

Bergher juduak gertaturiko berrogeiren bat kiloko fardelak bizkarrean dituztela, boltxebikeen, **txorruen** (militar poloniarren) eta nekazarien beldur handirik gabe, Polonia eta Bielorrusia artean kontrabando jardunean, Sergiuszek eta bere lagunek ibilaldi luzeak egiten dituzte. Pablo Sastre

txorruko

Fonderiako burdinagileek **txorrukotan** metatuak zizkieten urtuketa-moldeetan erabili lurra. Koldo Izagirre

txorta¹ *iz adkor* larru jotzea.

Emakumeak aukeratu behar, zeren, **txorta** nahi bazuen, ezin kokarik hartu, eta alderantziz. Karlos Zabala

Gixajo baten moduan ibiltzeko, egunero paseoa eskutik helduta, noizbehinkako **txortaren** truke? ez du merezi. Jon Arretxe

Gero eta **txorta** hobeak dik urdanga horrek. Joan Mari Irigoien

Orain, pelikula bukatzen denean ohera sartu, **txorta** pixka bat egin eta lo gelditzen nauk. Pablo Sastre

Antzeko oihuak zabaltzen zituen Lutxanako tabernako alaba atzeratuak, aita konturatu barik, labe garaietako langile **txortarako** beti prestuekin. Paddy Rekalde

2 (hitz elkartuetan)

Honi bai gustatzen zaiola **txorta** -kontua, Harry. Jon Arretxe

Horri esaten zaio, betiko alarde honetan, "ohean ona" izatea: **txorta** -laguna errenditzea, menderatzea. Iñaki Segurola

3 *txortan adlag* larrua jotzen. ik beherago 7.

-Ba horixe, zirri batzuk, sexu apur bat... **txortan** edo. Jon Arretxe

Normalean larunbatetan elkartzen ginen laurok, arratsaldean **txortan** ibili, gero zinera joan eta ondoren berriro larruketan ibiltzeko. Aitor Arana

la beste urte bi dauzkagu **txortan** aritzeko! Unai Iturriaga

Zuk gura baduzu, goizeko zortziak arte **txortan** jardungo dugu eta gero gerokoak. Jon Arretxe

Atsegin ikaragarria hartzen zuen zaldiak **txortan** ikusita. Karlos Zabala

Nire barne tenperatura deabruarena bezain handia izan zenean, berau **txortan** hasi zen; jarraikor eta sutsu lehenengo, etengabe eta bortitz ondoren, eta nik hantxe plazerrez erdibituko ninduela pentsatu nuen. Aitor Arana

Txortan segitu genuen eta mingaina oso-osorik nire ahoan sartzeko erregutu nion. Karlos Zabala

Ondo eta azkar, konejuak **txortan** . J.M. Olaizola "Txiliku"

4 *txorta jo*

Parrandan ibiltzea maite zuen, edo nirekin oheratzea, **txorta jotzen** genuen elkarrekin fortunatzen ginen guztian kasik. **Txorta jotzeko** arazoak aritzeko ordaina! Karlos Zabala

Horrela ez dago lasai **txorta jotzerik** . Karlos Linazasoro

Bide batez, koka zaitetz ipurdia niri emanez: **txorta joko** dizut, Agustinek atzetik ematen didan bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

5 *txorta jole*

Beste batzuek Veneziako larruaz egindako zorrotxo bat erabiltzera behartzen dituzte beren **txorta-joleak** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

6 *txorta jotze*

Hamabost urtetik beherako neska-mutilen **txorta-jotzeak** , adar-jartzeak, sexu-perbertsioak dituzte hizpide, seguru. Lutxo Egia

7 *txortan egin* ik *txortakatu*.

Sor itzazue umeak eta ugaldu, esan zuen Jainkoak, baina **txortan egin** gabe. Karlos Zabala

Noe, badakizu, kristoren mozkorra harrapatu eta bere alabekin **txortan egin** zuena. Karlos Zabala

Zaldun, **txortan egiozu** ama zorabiatuaren bular gainean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Portugalen oso ondo **egiten** da **txortan** , jendeak kontrakoa uste badu ere. Karlos Zabala

Gizon heldu asko daude **txortan** majo **egiten** dutenak. Aitor Arana

Orain libre zuen bidea, maistrarekin **txortan** berak bakarrik **egiteko** . Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txorta jotzen (4)

berarekin txortan (3); **nirekin txortan** (3); **txortan ari** (5); **txortan egin** (24); **txortan egin gabea** (3); **txortan egitea** (5); **txortan egiteko** (10); **txortan egiten** (8)

txorta² *iz* sorta.

EHun leka-makila, perrexil **txorta** eta txerri txiki bat. Edorta Agirre

Arratsaldeko zazpi eta erdietan, ekitaldia hasteko orduan, parte-hartzaile baino euri **txorta** gehiago zeuden. Berria - Euskal Herria

txortakatu, txotaka(tu), txortakatzen du *ad* txortan egin.

Zeharo beroturik zegoen eta, larrua jotzeko beharra ongi nabari nionez, ni lasai **txortakatzen** utzi nion behar izan zuen denbora guztian. Aitor Arana

Gutxienez ordu erdi bat egin nuen Mikel txilintxikia **txortakatzen** eta tarteka potroazala eta zakilmokoa ferekatzen nizkion esku batez Aitor Arana

txortakatze *iz* txortan egitea.

Orgasmoari lauzpabost aldiz eutsi nion **txortakatzearen** abiadura motelduz eta tarteka geldituz. Aitor Arana

txortaketa *iz* txortan egitea.

Eskua alde guztietara maisuki mugitzen zuela, literalki esku **txortaketan**, ari zitzaidala nabari nuen eta elefantea sudurraz edo zaldia bere zakiltzarraz popatik ematen ari balitzait bezala sentitzen nuen. Aitor Arana

txortakide *iz* txorta-laguna.

Txortan egiteko era hau hain gozoa denez, emakumeak berak eskatu behar die bere **txortakideei**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Esan beharrik ez dago hurrengo asteetan Arin **txortakide** izan genuela ia egunero. Aitor Arana

txortalari *izond* txortan egiten duena.

Gizonak kate bat askatu du, orduan buelta hartu du bikote **txortalariak**, neskari eskuak lotu dizkiote katez atzean. Juan Martin Elexpuru
Zure prostitutu **txortalari** horietako bat ekarri duzula zurekin eta logelan duzula zain? Aitor Arana
Orduan bi **txortalari** haien plazerra nola areagotu pentsatzen hasi nintzen, begira nengokiela. Aitor Arana
Adamenekoa lo zetzala eta ezin nuela, beraz, ez beheko **txortalaria** maiseatu ez imitatu. Xabier Mendiguren Elizegi

txortaldi 1 *iz* txorta jotzea.

Ordu erdiko **txortaldia** egin genezake; nahikoa, denbora alferrik galdu ezean. Jon Arretxe
Hamalau **txortaldi** jo zizkion segidan, su eta fu, begiak zuri-zuri, mihia hortzartean dantzari, espasmodikoki. Karlos Linazasoro
Gauko bere arrantzaldi haietan, zenbat **txortaldi** izan zituen, horren arabera arrain bat edo beste harrapatu zuela esango zuen. Xabier Mendiguren Elizegi
Segituan ulertu nuen alferrik ari nintzela, nire ardo txuria ez zela inoiz berea bezain ona izango [...] ezta nire mihi-arrainak bereak bezain freskoak eta bezain ongi prantatuak, nire neskek bereak bezain eder eta interesgarriak, nire **txortaldiak** bereak bezain erotikoak. Jon Alonso
Lehenengo **txortaldian** lasai eta gustura ibili baginen, lasaiago eta gusturago ibili ginen bigarrengoan. Aitor Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Txortaldi on baten beharra neukan aspaldiko partez. Aitor Arana
Etxe honetako hormak elkarrengana grinarik bizien eta **txortaldi** beroenen lekuko izan baitira. Xabier Montoia
-Gizon bakar batek ere ez dit larrau jo zuk egiten duzun bezala, zakur basati horrek -esan ohi zidan amoranteak **txortaldi** luzeetan-. Jon Arretxe
Orain dela bi mila bat milioi urte halabeharrez bereizi ziren bakterio biren arteko lehenbiziko **txortaldi** gogoangarria. Markos Zapiain

txortaleku *iz* txortan egiteko lekua.

Bestelako ekintzetara jo zuen orduan: oiltategiko eta beste toki aproposetako txokorik ezkutu eta leunenetan -bere iritzi **txortaleku** ederrak zirenetan- zepoak jarri zituen. Xabier Mendiguren Elizegi

txorten (*orobat xorten g.er.*) 1 *iz* hostoak eta fruituak abarrera lotzen diren kirten modukoa; zurtoina, gara.

Marrubiei hostoak eta **txortenak** kentzen. Josu Zabaleta
Zuhaitzetik eroritako gaztaina baten morkotsa zeukan eskuan **txortenetik** helduta. Bernardo Atxaga
Arrosarik ederrenetako baten **txortena** puskatzen. Josu Zabaleta
Zortzi orrialde, sei artikulu nagusi eta hamaika **txorteneko** hamabi piku. Iñigo Aranbarri
Lau **txorteneko** loreen azpian ezkutaturik. Koro Navarro
Anpolai biribil-biribila, gorria, distiratsua, likitsa eta **txorten** luze batetik zintzilikatzen zena. Jasone Osoro
Iturri-bellarraren **txortenak** behintzat beltz-beltzak dira. J.M. Olaizola "Txiliiku"
Landare baten **txortenean**, berdea berdearen kontra mimetizaturik, gorputz luzeko intsektu bat. Berria - Kultura
Erabil zitezkeen metodoen jakitun izan nintzen pixkanaka, puntua egiteko orratza, perrexilaren **txortena**, xaboi-urezko injekzioak, ekitalzioa. Joseba Urteaga
Galdur aldean, berriz, erdiko xurtar nagusiaren akabera, lore morddo banari eusteko **xortenak** ageri dituzte bi biak, gordasol aihenen antzera zabalduak. Patziku
Perurena

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antoniok mingaina atera zuen nire ahotik, eta gerezi-**txortenak** bi korapilo zituela erakutsi zidan. Jasone Osoro
Nik oparitutako orkidea-**txorten** idortu batekin batera. Xabier Olarra
Arestian zirriborratu dizkizudan aza **txortenetan** landuak eta orratzez apainduak dauden bi handitsu horiek kolumnata bat dute oinarri. Koldo Izagirre

3 irud/hed

New Yorkeko Poliziak berrogeita bat tiro emanda erail baitzuen, Bronxen, Sagar Handiak bere **txortena** galtzen duen lekuan. Harkaitz Cano

txortentxo *iz* txorten txikia.

Buruan, gailurrean **txortentxo** bat zuen kapela beltz zapala. Jon Maia

txortola *iz* xortola.

txosna 1 *iz* erromerietan eta jaietan eskuarki, janariak eta edariak saltzeko jartzen den behin-behineko denda modukoa.

Aipatzen ditu aureskuak, txistuak, irrintziak, pontxea edateko **txosnak**... Iñigo Aranbarri
-Hantxe, bada planoan agertzen ez den **txosna** bat. Itxaro Borda
Trikitixa ari zen, animazio handia bertan eta aldameneko **txosnan**. Joxean Sagatzizabal
Hasiak ziren saltzaileak beren **txosnak** eraikitzen, eta gozogile bati lagundu zion berea altzatzen. Xabier Aranburu
-Zein **txosnatan** egon haiz aurten: presoak, Egunkaria, Eguzki, Kaskajarrai? Unai Iturriaga
-Zu seguru ambienteko tabernetan ibili zarela **txosnetatik** pasatu ere egin gabe. Unai Iturriaga
Zerbeza lata hatz artean marruskatu, eta HIESaren kontrako **txosnara** abiatu da. Patxi Iturritegi
Abuztuko festen hasieran *Gasteiz Izanen* **txosnan** kateatu ziren hiru lagunak epaituko dituzte datorren asteartean. Berria - Euskal Herria
Berrogeita hamar **txosna** bazituan azokan. Jose Morales

2 irud/hed

Txosna eta etxola grisek osaturiko karrika zuzen eta ilunak elkarren artean gurutzatuta. **Agustin Otsoa**

Txosna batean entsalada-oilasko ogitarteko bat eskuratu nuen eta metrotik aire libreria atera nintzen. **Itxaro Borda**

Hor gelditu da Sion hiri ederra mahastian txabola eta meloi-sailean **txosna** bezain bakarti. Inguru haietan bada liburu zaharren **txosna** ugariz beteriko kale bat. **Elizen** arteko biblia

Kafe eta kruasan bana hartu, zigarrorixoren bat erre, eta Sena ondoko liburu zaharren **txosnetara** joaten ginen. **Anjel Lertxundi**

Ondoko **txosna** batean aldizkari eta komiki lizunak saltzen zituen agure konkordun batengana jo nuen. **Anjel Lertxundi**

Aldiro-aldiro liburu-saltzaileraren bat agerturik, bere **txosnako** pertsiana alderik alde hartzen zuen burdin hagaren bi muturretako sarraila tzarrak askatzen zituen, erritual bateko gidaria balitz bezain zeremoniatu. **Anjel Lertxundi**

Balançoneko enparantzan paseatzen ari zen egun batean zurezko **txosna** handi bat ikusi zuen; sekulako zaratak ateratzen ziren handik, eta pailazo lokatu bat Tomahawk edo Trumoi Burrenba izeneko piztia-bezatzaille apatxe beldurgarria lanean ikustera sartzeko deika ari zen oholzza gainetik. **Josu Zabaleta**

Besotik heldu, eta **txosna** gurpildun hartara sartu ninduen. **Juan Kruz Igerabide**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Era askotako zerbitzuak eskainiko dira barru estali horretan: ogitartekoak, **txosna** guneak, komunak. **Berria - Kultura**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azaldu zidan nola Xiberoko ikastolak usaian lau izozki **txosnetaz** axolatzekoak ziren Herri Urratsen. Saltzaile berantiarrenek ere beren liburu-**txosna** hamaiketarako zabaltzen zutelako adierazi zidan hoteleko harrerako andereak. **Itxaro Borda**

Norbaiti magdalena baten usainak gaztetako hondartzako kutixi-**txosna** bat gogora ekartzea noski. **Juan Garzia**

txosperri iz

Kolarren, **txosperri** adarra dago ate zangoan. **Iñigo Aranbarri**

txostakari ik jostakari 2.

txosten (orobat txosten g.er.) 1 iz gai jakin bati buruzko azalpen idatzia.

Sukarrak hartuta bezala irakurtzen nituen **txosten**, izkribu eta paper ezezagun haiek. **Txillardegia**

Egoerari buruzko **txosten** bat. **Edorta Jimenez**

Gobernuko bi ikuskariak **txosten** bat atera berria dute Euskal Herriko laborantzaz. **Herria**

Begoñak aurkeztu zuen ihesari buruzko **txostena**, eta gure asmoak nola bideratu erabaki genuen ondoren. **Rafa Egiguren**

Itoizko Koordinakundeak plazaratutako **txostenak** ez dituzte adituek egin. **Eduarne Elizondo**

Txostena osatu gabe zeukan. **Migel Angel Mintegi**

Txostena lau orrialde lerro estuez polito beteak osatzen dute. **Edorta Jimenez**

Dena dela, denbora beharko diat **txostena** prestatzeko. **Aingeru Epaltza**

-Ikus al ditzaket zure **txostenak**, mesedez? **Anjel Lertxundi**

-Medikuaren **txostenak** zer dio? **Migel Angel Mintegi**

Horrela zioen hitzaurrean **txostenak**: [...]. **Rafa Egiguren**

1944ko martxoaren 4ko **txosten** batean esaten denez, [...]. **Edorta Jimenez**

Adituak, bere lana amaitu zuenean, honako ohar hau erantsi zion **txostenari**: [...]. **Joxerra Garzia**

Argibideren bat nahi izanez gero dei lezaguzu **txostenean** azaltzen den zerbaki. **Migel Angel Mintegi**

Txostenak frogatutaz eman du European enplegua sortzeko oztopotzat hartu ohi diren zenbait erakundek [...] ez dutela halako trabarik eragiten. **Iñaki Heras**

Zure emazteak **txosten** bat egin zuen, Arrieta kinka larrian jartzen zuena. **Migel Angel Mintegi**

Lagunduko ote zion **txostena** egiten? **Migel Angel Mintegi**

Txosten hori idatzi zenean urtebete ez zen falta European Gerra amaitu zedin. **Edorta Jimenez**

"Gerra, benetakoa, laster da hemen", idatziko du bere **txostenean** Bowersek. **Edorta Jimenez**

Iparraldera euskaraz idatzita ailegatzaren ziren eskutitz eta **txostenak** zuk itzultzen zenituela esango diozu. **Rafa Egiguren**

Norbaitek ez zuen batere gogorik Ttipik agindutako **txostenaren** bigarren parteak argia ikusteko. **Aingeru Epaltza**

Txosten horiek epaitegietara iritsi dira, baina inork ez du proiektua geldiarazi. **Eduarne Elizondo**

Hurrengo **txosten** edo memorandumean ekintza jakin bat bidera dadin proposatuko du. **Edorta Jimenez**

El Correo egunkariak bor-bor jarri zuen gaia, ustez Jaurilaritzak EHuko talde bati agindutako **txosten** bat filtratu zuenean. **Berria - Ekonomia**

Txosten hark jasotako ondorioen artean, [...]. **Eduarne Elizondo**

Lehen tomoak gramatika gaiak aztertzen ditu (25 **txosten**) eta bigarrenak literatura saila du jorratzen (17 **txosten**). **Herria**

Gainera, gutzia zakiat, xehetasun guztiekien, poliziaren **txosten** baten zehaztasunez. **Xabier Olarra**

Mende honetan zehar, biologiako **txosten** bat sinatzen duten egileen kopuruak gora egin du nabarmen. **Juan Garzia**

SIPMko **txostenen** arabera, "Burusoiak" postari eta bitartekari lanetan jarduten zuten Iparraldeko euskal erakundeen artean. **Alberto Ladron Arana**

Brundtland **Txostenaren** arabera, iraunkortasuna garapenaren baldintzatzaile ekologikoa da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

-Zer **txosten** eta **txosten** ondo! **Migel Angel Mintegi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Biltzar Nagusirako **txosten** nagusiak hirugarren puntuan langileriaren eta sindikalismoaren errebaso bat egiten du. **Berria - Ekonomia**

Horregatik egin nahi diat **txosten** on bat (politikoa, nolabait esateko). **Rafa Egiguren**

Hau orduan, hasi zen, belauniko, irakurtzen funtsean Severino Kardinaleak eginarazi **txosten** luzea zeukan delako sententzia. Berehala **txosten** laburrekin emandako argazkia ekarri zuen gogoaren pantailara. **Piarres Xarriton**

BBVA fundazioak Espainiarako argitaratu duen **txosten** mardul batean ere datu interesgarriak jasotzen dira. **Iñaki Heras**

Hala dio Eusko Ganberak eta Jaurilaritzaren Industri Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak (SPRI) landu duten **txosten** estrategikoak. **Berria - Ekonomia**

Oso ohikoa da horrelako lanak hasi baino lehen mota guztietako **txosten** teknikoak enkargatu eta egitea. **Eduarne Elizondo**

Txosten ofiziala zalantzan jarri du Ikerketa Batzordeko lehen lekukoak. **Berria - Mundua**

Txosten juridikoa eskatzea Marisa Saenz patronatukidearen ustezko bateraezintasunaz. **Berria - Kultura**

Estilo hanpatuko **txosten** korapilatsu bat. **Alberto Ladron Arana**

Erromako Klubaren **txosten** ezagun batetik ateratako hitzak. **Iñaki Heras**

Euzkadi'ko Jaurilaritzaren **txosten** sekretuan esaten denez egunkari hori Falange Españolaren ideien ildokoa zen. **Edorta Jimenez**

Henry Gastaut neurologo frantsesak **txosten** aipagarri bat idatzi zuen 1956an, Van Gogh-en kasua azertzen zuena. **Xabier Olarra**

Edota zergatik ez... berak ostu ematzei **txosten** konprometzerria eta... beste batek hil, Arrietak esaterako. **Migel Angel Mintegi**

-Behar beharrezko ez bada ez aipatu **txosten** madarikatua. **Migel Angel Mintegi**

Ez dut neure bitzita osoa **txosten** ziztrinak idazten pasatu nahi. **Javi Cillero**

"Ecological Footprints of Nations" **txosten** osoa ikusteko helbidea. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Agiririk ez da falta: eskutitzak, haren biziaren gaineko idazki-zatiak, isilpeko **txostenak**, poliziaren artxiboak. **Monika Etxebarria**

Medikuntza aldetik batere arazorik ez zegoela [...] beharrezko **txostena** eskuratuz gero. **Joxe Austin Arrieta**

Zer demontre ote zen zorieko **txostena** ? **Migel Angel Mintegi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nik **txosten** -tonu berberaz erantzuten nien. **Joseba Urteaga**

Maria Sara doktoreak **txosten** bilduma bat hartu zuen bere ondoko apalategi baxu batetik. **Jon Alonso**

Gure bulegoko lan-liburutegia eta **txosten** -altxorra, gero eta aberatsago bihurtzen ari ziren. **Txillardegí**

Bioletak -hura zuritzeko, pentsatzen dut- "oso lanpeturik dabil" esan zuen, eta berak ere **txosten** piloa zuela artxibatzeko gogorarazi zidan. **Ramon Saizarbitoria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskal Herrian itxitako hedabideei buruzko jarraipen- **txosten** «inpartziala» landuko du Jaurlaritzak. **Berria - Euskal Herria**

Kontu handiz kopiatua zuen han, zer, eta polizia- **txosten** bat. **Jon Muñoz**

Aurreko urtean zendutako euskaltzain guztien omenezko hilberri- **txostenak** irakurri zituzten. **Berria - Kultura**

Berari buruzko artikulu beltzaileak idazten zituzten egunkarietan, finantza- **txostenen** itxurarekin. **Jose Morales**

Segurtasun- **txostenek** ziotenez, gizon lodikote hura jenio hutsa zen supersokei eta kromodinamika kuantikoari zegokienez. **Fernando Morillo**

Osasun- **txosten** hauek Fresnesko edo Villepinteko espetxeetan lapurtu edo gorde zituztela garbi dauka medikuak. **Berria - Mundua**

IAEako zuzendari nagusi Mohamed el Baradeik Iranen jarduera nuklearrez argibide **txosten** bat aurkeztuko duelarik, [...]. **Berria - Mundua**

2003-2004an, hainbat hobiri buruzko aurre- **txostenak** egin zituen Aranzadik. **Berria - Euskal Herria**

Multinazionalaren barne **txosten** batean hemendik bi urtera herrialdetik joateko aukera jasotzen da. **Berria - Mundua**

Armadak berak kapitaina "istripuan hil zela" idatziz zarratu zuen ikerketa **txostena**. **Iñigo Aranbarri**

Hainbat fosil beneragarri aurki daiteke bertan, hala nola elezaharrezko iker- **txosten** hura zeinean Wöhlher gure aitak lehen sintesi organikoaren berri ematen baitu. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argitaraturiko **txosten** (5); argitaratutako **txosten** (5); aurkeztutako **txosten** (8); azken **txosten** (6); barne **txosten** (15); barne **txosten** bat (5); barne **txosten** batean (6); beste **txosten** bat (12); buruzko **txosten** (44); buruzko **txosten** bat (16)

egindako **txosten** (37); egindako **txosten** batean (5); eginiko **txosten** (9); eskatutako **txosten** (5); gaineko **txosten** (9)

igorritako **txosten** (6); ikerketa **txosten** (5); inguruko **txosten** (19); inguruko **txosten** bat (9); kaleratutako **txosten** (8); mediku **txosten** (5)

onartutako **txosten** (8); polizia **txosten** (6)

txosten bat aurkeztu (17); **txosten** bat egin (17); **txosten** bat egitea (9); **txosten** bat egiteko (5); **txosten** bat eskatu (6); **txosten** bat helarazi (5); **txosten** bat idatzi (7); **txosten** batean bildu (7); **txosten** batek dioenez (6); **txosten** baten arabera (45); **txosten** baten bidez (12); **txosten** berezi (6); **txosten** berri (9); **txosten** berri bat (6); **txosten** berria (6)

txosten egin (7); **txosten** eta (16); **txosten** gehiago (5); **txosten** guztiak (14); **txosten** hau (9); **txosten** honek (9); **txosten** honen (8); **txosten** honetan (7); **txosten** hori (51); **txosten** horren bidez (5)

txosten juridiko (15); **txosten** juridiko bat (6); **txosten** juridikoa (12); **txosten** medikuak (9); **txosten** morala (5); **txosten** nagusia (5); **txosten** nagusian (5)

txosten ofizial (6); **txosten** ofizialak (7); **txosten** osoa (12); **txosten** politiko (5); **txosten** politiko (22); **txosten** politikoak (8); **txosten** politikoan (12); **txosten** politikoaren (14); **txosten** politikoari (5); **txosten** teknikoak (8)

agindutako **txostena** (5); aldeko posta **txostena** (5); aldeko **txostena** (6); aurkako **txostena** (5); aurkeztu zuen **txostena** (6); aurkeztutako **txostena** (11); azken **txostena** (22); behin betiko **txostena** (10); bere **txostena** (19); bigarren **txostena** (6); biltzen dituen **txostena** (5); buruzko **txostena** (106); buruzko **txostena** aurkeztu (16); buruzko **txostena** egin (8)

egin du **txostena** (5); egin zuen **txostena** (5); egindako **txostena** (29); eginiko **txostena** (12); egoerari buruzko **txostena** (8)

ikerketa **txostena** (5); imcren **txostena** (6); inguruko **txostena** (42); inguruko **txostena** egin (5); izenburuko **txostena** (7); izeneko **txostena** (21); jasotzen duen **txostena** (5); kalteari buruzko **txostena** (5); kudeaketa **txostena** (10); lehen **txostena** (8); medikuaren **txostena** (5)

onduetako **txostena** (5); posta **txostena** (5); segurtasunari buruzko **txostena** (5)

txostena argitaratu (12); **txostena** aurkezteko (9); **txostena** aurkeztu (75); **txostena** aurkeztu zuen (32); **txostena** aurkeztuko (17); **txostena** aurkeztuko du (10); **txostena** aztertu (9); **txostena** aztertze (5); **txostena** bidali (14)

txostena egin (46); **txostena** egin du (10); **txostena** egingo (14); **txostena** egingo du (5); **txostena** egitea (11); **txostena** egiteko (15); **txostena** egiten (10); **txostena** eman (9); **txostena** eskatu (11); **txostena** hartu (6); **txostena** helarazi (10)

txostena idatzi (14); **txostena** igorri (6); **txostena** izan (10); **txostena** izan zen (5); **txostena** jaso (14); **txostena** jaso zuen (5); **txostena** kaleratu (22); **txostena** kaleratu zuen (13)

txostena onartu (17); **txostena** onartu zuen (5); **txostena** osatu (12); **txostena** osatu du (5); **txostena** osatzeko (5); **txostena** plazaratu (11); **txostena** plazaratu du (5); **txostena** prestatu (8); **txostena** prestatzeko (8); **txostena** zabaldu (8)

urteko **txostena** (10); urteroko **txostena** (9)

aipatzen ditu **txostenak** (5); aurkeztutako **txostenak** (9); azken **txostenak** (7); batzordearen **txostenak** (6); buruzko **txostenak** (17); dio **txostenak** (75); direla dio **txostenak** (5)

egindako **txostenak** (27); eginiko **txostenak** (8); erakundearen **txostenak** (5); guardia zibilaren **txostenak** (6)

ikerketa **txostenak** (6); inguruko **txostenak** (5); kaleratutako **txostenak** (8); mediku **txostenak** (7); medikuaren **txostenak** (5); medikuen **txostenak** (6); nabarmentzen du **txostenak** (5)

polizia **txostenak** (7); proposatzen du **txostenak** (7); pse eeren **txostenak** (6)

txostenak aurkezteko (5); **txostenak** berak (8); **txostenak** dio (42); **txostenak** dioena (6); **txostenak** dioenez (28); **txostenak** egin (9); **txostenak** egiten (6); **txostenak** erakusten (5); **txostenak** eskatu (5); **txostenak** jasotzen (13); **txostenak** jasotzen duenez (5); **txostenak** prestatu (5)

urteko **txostenak** (6)

aurkeztutako **txostenaren** (8); aurkeztutako **txostenaren** arabera (5); azken **txostenaren** (7); azken **txostenaren** arabera (5); buruzko **txostenaren** (7); egindako **txostenaren** (22); egindako **txostenaren** arabera (12); inguruko **txostenaren** (5); izeneko **txostenaren** (9); kaleratutako **txostenaren** (8); kaleratutako **txostenaren** arabera (6)

txostenaren arabera (191); **txostenaren** atal (7); **txostenaren** aurkezpena (6); **txostenaren** aurkezpenen (9); **txostenaren** berri (25); **txostenaren** berri eman (10); **txostenaren** edukia (7); **txostenaren** egileak (10); **txostenaren** egileek (15); **txostenaren** egileetako (8); **txostenaren** kopia (6); **txostenaren** lehen (6); **txostenaren** ondorio (6); **txostenaren** ondorioak (12); **txostenaren** zain (7)

urteko **txostenaren** (6)

aurkeztutako **txostenean** (7); azken **txostenean** (11); bere **txostenean** (30); brundtland **txostenean** (6); buruzko **txostenean** (10); diote **txostenean** (8); egindako **txostenean** (11); igorritako **txostenean** (5); izenburuko **txostenean** (5); izeneko **txostenean** (14)

txostenean ageri (6); **txostenean** agertzen (7); **txostenean** aipatzen (7); **txostenean** dioenez (6); **txostenean** esaten (7); **txostenean** jaso (11); **txostenean** jasotzen (13); **txostenean** oinarrituta (10)

urteko **txostenean** (8); urteroko **txostenean** (7)

egin dituzten **txostenek** (5)

txostenen arabera (17); **txostenen** inguruan (5)

buruzko **txostenik** (9); **txostenik** gabe (5)

txostendun *izond* txostenez hornitua.

Garapenaren, Aspermenaren eta Ezbeharraren Ministerioek aise garbitzen ahal dituzte beren esku odoldu **txostendunak**, "halabehar deitoragarriaren" uretan eta

txostengai iz txosten bihurtzeko gai den izkribua.

Burutik orporaino blaitzen nauen sentimentua ez da hain atsegina, inola ere ez, [txostengai](#) den hitzari buruzko susmorik txarrenak baieztatzen diren ber. [Jon Alonso](#)

txostengile (orobat txosten-egile g.er.) 1 iz txosten jakin baten egilea.

[Txostengilearen](#) arabera -horren izena ezabaturik da-, Antonio Irala Mexiko Hirira maiatzaren 19an iritsi zen. [Edorta Jimenez](#)

"Doyleekin hitz eginda zetorren", dio [txostengile](#) den 'civil attaché'k. [Edorta Jimenez](#)

Eta horretara behartzea komeniko ote litzatekeen galdetzen du [txostengileak](#). [Edorta Jimenez](#)

[Txostengilea](#) aldatu ere egin dute azkenean: aurreneko txostena, inpugnazioa onartzearen aldekoa, Guillermo Jimenez magistratuak egin zuen, baina proposamenak gehiengo lortu ez zuenez, bigarren txosten bat egin dute Javier Delgadok eta Vicente Condek. [Berria - Euskal Herria](#)

[Txostengileek](#) ezkerreko hegalariei buruz esan dutenari ere erreparatu dio Itoitzekin Solidarioak taldeak. [Berria - Euskal Herria](#)

Arrazakeriaren aurkako taldeak, talde islamikoak, giza eskubideen aldeko erakundeetako informazioa, hedabideetako erreportaiak eta artikulak eta agiri ofizialak izan dituzte [txostengileek](#) informazio iturri. [Berria - Harian](#)

2 batzorde txostengile

Bitartean, Espainiako eta Kataluniako legebiltzarretako ordezkariak Estatutuaren [batzorde txostengile](#) mistoa osatu zuten. [Berria - Mundua](#)

Foru Aldundia aurrekontuak lantzen hasiko da, eta sindikatuak lehortzeaz ezbaidatzeko [batzorde txostengile](#) bat eratzeko eskaera ofiziala entregatu zuen Batzar Nagusien egoitzan. [Berria - Ekonomia](#)

Eusko Legebiltzarren [batzorde txostengilearen](#) lanak aurrera joan ahala EAEko Lurzoruaren lege egitasmoak atxikimendu gehiago biltzea lortu du. [Berria - Euskal Herria](#)

Nafarroako hizkuntza politika aztertzen ari den Nafarroako Parlamentuko [batzorde txostengilean](#) Hizkuntz Eskubideen Behatokia eta Euskararen Gizarte Eragileen Kontseilua agertu ziren atzo, gaiari buruz duten iritzia agertzeko asmoz. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[batzorde txostengile](#) (5)

[batzorde txostengilea](#) (3)

[batzorde txostengileak](#) (4); [dio txostengileak](#) (3)

[batzorde txostengilean](#) (4)

txostengintza iz txostenak egitea.

Beldur izateko motiborik bai ala ez, FBIko SISko agente Laddy Ernest Hemingwayren eta haren lagunaren gainean [txostengintzan](#) segituko du. [Edorta Jimenez](#)

txostentxo iz txosten laburra.

-Zuri laguntzearen, esku hutsik has ez zaitezten, aferari buruz [txostentxo](#) bat prestatu dizugu -gazteak orri pare bat luzatu zion. [Migel Angel Mintegi](#)

Beste zeregin batzuen artean, Euzkadi'ko Jaurilaritzako Erri-Ixaskintza-Oro Artezkaritzako Seccion de Comunicaciones y Personal -azken hau erdaraz- dioen zigiluaren marka ezarri dio Tiburtzio Izagirrerri buruzko [txostentxoari](#). [Edorta Jimenez](#)

txota¹ (orobat xota) iz espainiar joko kartetan, erregearen eta zaldiaren azpian doana.

Handira jotzeko ez neukan, baina bi zaldi esku artean, Egoi lagunari afaria irabazteko nahikoa, hark bi [txota](#) baitzuten. [Berria - Kirola](#)

Orain [xota](#) eskuratu zuen. [Iñaki Zabaleta](#)

txota² iz

Espainiar kartzeletan eta kontzentrazio eremuetan aspaldikoak dira [txota](#) edo *cabo de vara* deituak, kartzeleroei lanik zikinenetan laguntzen zietenak. [Jokin Urain](#)

txotis iz eskoziar jatorriko dantza, Madrilen tipikoa izan zena.

Jugada ona egin zuen: bere trikiilari sena oso-osorik gordetzea eta lantzea posible egin, eta era berean modako piezak, helduta dantzatzeko pasodobleak, tangoak, [txotisak](#) eta abarrak jotzeko aukera ematen zion soinua bereganatu. [Pako Aristi](#)

txoto iz

Drogamenpekotasun anitzek jotako esploradoreak, buru-txikitzaileak, hegaztien zirinen kontrabandoan zaildutako patibularioak, [txoto](#) hegalezabaleko begibakarrak, presondegiz izugarrirenetatik ihes egindako zorritsuak. [Jon Alonso](#)

txotx 1 iz hortz-haginak garbitzeko erabiltzen den makiltxo edo ziritxo.

Gizonak [txotx](#) bat zerabilen ahoan; gizon mozkotea zen, ile motz kizkurrekoa. [Koro Navarro](#)

Paperezko ezpain-zapi erabiliez, zigarrokin eta [txotx](#) mutur gabetuez bateriko lurrak, gu mahaira jarri eta bortz minutura itzali zuten musika hortzerak eta bi zerbitzarien begirada berantetsiek borobiltzen zuten desastrearen antzeztokia. Guztiz txokatuta azaldu nintzen, behinola hortzetako [txotx](#) guztiak Black Caten lurrera bota nituenean bezalaxe: oso seinale txar-txarra zen! [Aingeru Epaltza](#)

2 adkor zotza.

Isilik gelditu da, pipako tabakoa [txotx](#) bategaz harrotzen. [Koldo Izagirre](#)

Lehenbizi paper mutur bat, gero [txotx](#) batzuk -gehiegi ez-, bakar batzuk, sua indartu eta gehiago eskatu arte. [Anton Garikano](#)

Hainbeste su eginda, [txotx](#) bakar bat ere ez zuan geratu hurrengo egunerako. [Anton Garikano](#)

Kanela adarren ahalik eta antzekoetan ziren [txotx](#) hezeak. [Harkaitz Cano](#)

Mandio hartan ikusi zuenak apurto egin zinan, [txotx](#) baten antzera. [Anton Garikano](#)

3 (hitz elkartuetan)

Urak arrastan ekarritako **txotx** muttur ihar eta xakar hondar batzuekin. Patziku Perurena

- Nola, Eguberri inguruan ateratzen den txantxangorria urki **txotx** bat hartuta basarregetxo (txepetxa) harrapatu eta akabatzer ahoan menda **txotx** bat eramateak arnasa aldatzen zuelakoan. Patziku Perurena

4 irud/hed

37 dinamita **txotx** aurkitu zituzten Aix-en-Provenceko auzitegitik hurbil. Berria - Mundua

5 upelaren txorrota irekitzea.

Haietako batek «**txotx**» oihu egin du, eta upela ireki du. Xabier Paya

Han ere bertsoa izango da nagusi, baina aurretik egunak merezi bezalako afaria eta **txotx** batzuk izango dira. Berria - Kultura

Lau hilabeteko "**txotx**" sasoiari joaiteen dira hemengo hogeitabost tona ardi gasna, eta Périgord aldetik ekar arazi hogeitamar tona intzaur. Herria

Urteko lehen hitzordua urtarrilean izaiten da "**txotx** egunarekin". Herria

6 *txotxetan* txotx eginez.

Bena sari nausia **txotxetan** tiratū behar zen, eta Anne-Marie Chimits haūtatū dū txoxketak. Herria

7 *txotx ala motx egin* bi txotx, luzea eta motza, erabiliz, zotz egin.

Eraso egin edo atzera egin zalantzan nagoenean, ez naiz zalantzan minutu bat ere egoten... **txotx ala motx** egiten dut. Xabier Olarra

8 *txotx egin* zotz egin, zozkatu.

Gotzon Garatek bildutako haurren arteko **txotx egiteko** jokoa ere polita da: *Kuku miku, anda miku, txantxa perro, castellano, plon plon, mikusien lerdie, lau txerri, pluskerrena, plus ladoron y milistron*. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txotx batzuk (3)

lehen txotxa (4)

txotxabar *iz* txotxa.

Maribel, hosto erori berrien gainean kukubilko, **txotxabarra** motxinean gora eta behera, gora eta behera sartzen harrapatu zutenekoa. Alberto Barandiaren

txotxaldi *iz* norbait txotxatzen den aldia.

Gurasoa bere **txotxaldian** desintegratzen ari den gizartea da; kimua jaioberri jostaria da. Iñaki Mendiguren

txotxatu, txotxa(tu), txotxatzen 1 da/du *ad* zaharrez mintzatuz, haurren modukoa-edo bihurtu. ik **txotxindu**.

Nire senargaia gero eta aspergarriagoa iruditzen zitzaidan, **txotxatzen** hasitako atso bat ematen zuen batzuetan. Ezpainak estutu zituen: "**txotxatzen** hasi haiz, maitea".

Karlos Zabala

Aitonarekin legitimoa izan gabe bizi zen andre xaharraren istorioa eta fusilaren istorioa zirela-eta, bi abokatu usteli esker, gaitasunik gabe utzi zuten, hau da, **txotxatutzat** jo zuten legez. Pello Lizarralde

2 (era burutua izenondo gisa)

Batzordekoak agure **txotxatu** batzuk dira, eta izututa egongo ziren. Iñaki Mendiguren

txotxindu, txotxin(du), txotxintzen 1 da/du *ad* zaharrez mintzatuz, haurren modukoa-edo bihurtu. ik **txotxatu**.

Printzea zahartua dago eta **txotxindua**, seme faltsu horrek, frantses horrek, bere sareetan harrapatua dauka. Matias Múgica

Erabat **txotxinduta** dago; **txotxinduta**, suabe esateagatik; ganbara hartuta dauka, burmuinek beste harako hark San Cristobal urtuta egin zituen joareek baino kulunka gehiago egiten diote. Jon Alonso

2 (era burutua izenondo gisa)

Berriro ekin zion bere bizitzaren kontaktetari, agure **txotxinduak** euren batailatxoen berri ematean baino are pozago. Jon Arretxe

txotxo 1 *iz* *adkor* umea-edo.

Taberna txipi batera eraman ninduen, portua lehendik ezagutuko balu bezala zebilen **txotxoa** zurezko etxe eta biltegi multzo haietan barrena. Koldo Izagirre

-Eta, **txotxo** maiteok, zer uste zenuten, niri entzun gabe bazenekizkitala egundaino gure herriak egin dituen ezintza lorios guztiak? Koldo Izagirre

Haserrea baino interesgarriagoa da beti mendekuaren dastatzea, oraindik ikasteko asko daukate **txotxo** hauek. Koldo Izagirre

Txanda ezin emanik ibiltzen baita, batez ere **txotxoekin**. Koldo Izagirre

2 (deiki gisa)

-Ez izan baboa, **txotxo**. Harkaitz Cano

-Zaude lasai, **txotxo**! -esan nion-. Nik adierazi nahi dudana ulertuko duen abokaturik ez zagok, **txotxo**. Koldo Izagirre

-Har ezak hauxe ongi gogoan, **txotxo**: koilarak gidatzen dik beti giderra! Koldo Izagirre

-Orduan, lasai, **txotxo**. Javi Cillero

txotxola (*orobat xoxola g.er.*) *iz/izond* emakume txotxoloa.

Eskuak gerrian ipini eta alboka ikusi dut neure burua, **txotxolaren** moduan galdetuz inoren gustukoa izan naitekeen, esaterako Goioren gustukoa izan naitekeen. Joseba Sarrionandia

Zer **txotxola**! Ana Urkiza

txotxolo (*orobat xoxolo g.er.*) 1 *izond/iz* ergela, buruarina.

-Itxaron ezazu apurtxo batez, Morales jauna -esaten zion beti egongelan edukitzen zuen andereño **txotxolo** hark-. Joxemari Iturralde

Halakoetan beti izan ohi da kazetari **txotxoloren** bat. Joan Mari Irigoien

Nagusi **txotxoloarekin**, maitasun handia izanik ere, txakurrak **txotxolo** jardungo du. Gotzon Garate

Beren pulpituko erretolilikaz aspertzen gaituzten burugabe **txotxolo** horiek. Karlos Zabala

Eta infernua zuk joan beharko zenuke, agure **txotxolo** horrek. **Koldo Biguri**
Gu, **txotxolo** samarrak eta txilibituak bai, baina farsanteak ez ginen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Nahiko **txotxoloa** zara ba, zeu baino handiagoekin borroka egiteko! **Joseba Sarrionandia**
Txotxolotzat hartuko zaituzte. **Ana Urkiza**
Orain edozein **txotxolok** uste du bere blogak Spinozaren *Etika*-k bezainbeste balio duela. **Berria - Kultura**
-Ez dio axola, **txotxolo** hori. **Lopez de Arana**
-**Txotxolo** ergela halakoa! -esan zuen neskak-. **Mirentxu Larrañaga**
Txotxolo bihotz-ergel alenok, profetek hitz egin duten guztia sinesteko! **Patxi Altuna**
-Zuek biok nik ezagutu dudan **txotxolo** bikoterik hoberena egiten duzuela uste dut. **Xabier Olarra**

2 (gauzez)

Behin film **txotxolo** bat egitea erabakiz gero, osorik egin behar txoropito eta groteskoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Arazo praktiko **txotxolo** horiek. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Guztiz sinplista eta nahiko **txotxoloa** zen nire anarkismoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Ez dakit nola, herabetasun **txotxolo** horren kontrako erreakzio moduan-edo, esaldi honek egin zidan ihes ahotik: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

txotxolokeria iz ergelkeria, inozokeria.

Inuxentekeri itzelak, txorakeriak, baserria, baserria txuria zela, zerua urdina, gure baso berdeak eta dena holako **txotxolokeriak**! **Pako Aristi**
Txotxolokeriak egitea ez ezik, "goikoa ontzeko" grina ere izaten du bere burua "behean" ikusi ohi duenak. **Koldo Zuazo**
Goikoeekin berdindu -edo homologatu- eta moderno itxura hartu nahiak **txotxolokeria** galantak egitera ere eraman ohi duenez [...]. **Koldo Zuazo**
Ez zebilela bere eromenean asmatutako **txotxolokeriak** esaten. **Aitor Arana**
Baina esaidak, aita ez zuan hasiko **txotxolokeriak** idazten ezta? **Pako Aristi**
Maitasuna bai, baina **txotxolokeriarik** ez. **Gotzon Garate**
Eta barkatuko didazu **txotxolokeriekin** hasten banaiz, adin kontua izango da. **Pello Salaburu**

txotxolotasun iz txotxoloa denaren nolakotasuna.

Guztiz sinplista eta nahiko txotxoloa zen nire anarkismoa, baina ezaugarri biak ere ulertzekoak dira: **txotxolotasuna**, ezinbestean neurri batean, eta sinplista, hezkuntza zapaltzaile baten pean hazitakoak erantzun erraz eta sinpleak behar zituelako. **Xabier Mendiguren Elizegi**

txotxolotu, txotxolo(tu), txotxolotzen 1 da/du ad ergeldu, inozotu.

Hori nahikoa litzateke edozein mutiko **txotxolotzeko**. **Iñaki Mendiguren**
Txotxolotua Hollywoodeko ilehori batekin? **Fernando Rey**
Erabat **txotxolotuak** zeuden elkarrekin eta munduan beste inor ez balitz bezala jokatzeko zuten. **Fernando Rey**
Andreak eta haurtzainak gaizki ohituak zituzten haurrak eta biak ala biak **txotxolotuak** zeuden haiekin. **Fernando Rey**
Jakin nahi nikek zer ikusi duan momia horrengan hain **txotxolotuta** egoteko. **Migel Angel Mintegi**
Zaintzen al zaitu, edo bere etxea eraiki behar horrekin **txotxolotuta** jarraitzen du. **Oskar Arana**
Sorgin horrek **txotxolotu** zuen. **Fernando Rey**

2 (era burutua izenondo gisa)

Agure **txotxolotu** madarikatua! **Agustin Otsoa**
Eskertuko zidaten, inoiz baino **txotxolotuago** nabaritzen baintuen gabon giroko egun haietan. **Xabier Montoia**

txotxona iz panpina mota.

Baina zein epel egoten den tonbola berrian, eta zenbat **txotxona** saltzen diren. **Berria - Kultura**
Jarraitzen zuen letania baten batek irriz, lepoko girgilak, urre eta zilar batera, zaratatsu erakusten zituztenen estralurtar aurpegietara so, auxiliik **txotxona** errateko maneran. **Itxaro Borda**

txotxongilari iz

"Jabron Rouge" konpainiako Nathalie Roques **txotxongilariak** "Jeux de M6" izeneko 50 minuteko emanaldia gozaraziko du haur eta heldueri. **Herria**

txotxongilo (orobat txontxongilo g.er. eta txontxongilo g.er.) 1 iz eskuen edo harien bidez higiarazten den panpina edo irudia.

Titiritero ibiltarien **txotxongiloak** mugitzen dituzten ezkutuko hariak bezalakoa zen. **Xabier Olarra**
Don Kijotek **txotxongiloen** artean mairuak ikusi orduko, ezpata atera eta **txotxongiloen** aurka hasiko da su eta gar. **Patxi Ezkiaga**
Panpinak jarri baitzituzten hildakoen eserlekuetan, **txotxongiloak**, kartoi-harrizko tigreak edo putreak edota salamandrak, igeltsuzko giza-irudiak, pelutzezko hartzak. **Karlos Linazasoro**
Patioan atzera eta aurrera ibili genuen irakaslea, **txotxongilo** baten moduan, bost minutu luzez. **Anjel Lertxundi**
Nerbioen lau harietatik zintzilik zegoen, **txotxongilo** baten gisan. **Harkaitz Cano**
Txotxongilo baten eran luzatu nituen besoak, modu automatikoa. - Andreamen epela galdu berri duten ezinduek dira Markos eta Nestor, pilak ahituriko **txotxongilo**, esku krudel batek zutik atxikiak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 irud/hed

AEBek Haitin ezarri duten **txotxongiloa** da Latortue. Uste baduzu zure kapritxoaren arabera ibiliko den **txotxongiloa** dela, oso oker zabilta. **Berria - Mundua**
Gorte arrotz baten **txotxongilo**! **Txillardegi**
Min egin zidan konturen bat ere entzun behar izan nuen, aita zure **txotxongilo** hutsa besterik ez dela. **Josu Landa**
"Kontuz, **txotxongilo**, nabarmen geldituko haiz lagunaren aurrean" xuxurlatu zuen Mentxuk gaiztakeriaz. **Josu Landa**
Kolpe hark begiak irekiarazi zizkidan: ahots huts besterik ez zen **txotxongilo** baten lagun egin nintzen. **Karlos Linazasoro**
Ez dakizue noren **txotxongilo** zabilzaten ere!, esan zidan. **Anjel Lertxundi**
Rol joko batean, era horretara zu, zure rola irudikatzen duzula, propio hala nahita zeure buruaren **txotxongiloa** baizik ez zara. **Josu Zabaleta**

Seguru nungoen gobernu haiek erabili eginen gintuztela eta, **txotxongiloak** bezala dantzarazi ondoren, ahantzi eginen gintuztela gero. Alberto Ladron Arana

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Txotxongilo triste honek, gizajo tetelo babesgabe honek, Antjek dena esatea nahi nuen: zertarako gauden munduan, elkar maitatzea ez al den zilegi. Fernando Rey

Txotxongilo ahul bat bezala. Fernando Rey

-Gura duzun legez -buruari eragin zion **txotxongilo** barregarri baten antzean. Josu Landa

Zutika jarri zen, burua oraindik ere **txotxongilo** grotesko batek bezala zintzilika zuela. Iñaki Mendiguren

Orain aita aukitit jarraitu du, **txotxongilo** patetikoak. Joseba Sarrionandia

Tortura hark pixka bat irauin zuen, neskak gora eta behera mugitzen ninduen trapuzko **txotxongiloa** banintz bezala. Pello Lizarralde

Portzelanazko **txotxongilo** bat bezala. Fernando Morillo

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horrelaxe transmititzen zigun irriatiak **txotxongilo** antzerki lazgarri hori. Josu Zabaleta

Badirudi **txotxongilo** -festa erraldoi bateko harien jabea dela Adur. Anjel Lertxundi

500 bat mila ikusle biltzen ditu Taipei hiriko nazioarteko **txotxongilo** jaialdiak. Berria - Kultura

Tres espinas ikuskizuna ekarriko du *El Chonchon* **txotxongilo** taldeak Argentinatik Bergarako Gaztetxera. Berria - Kultura

Nik beste pertsona bat gogoratzen dut, **txotxongilo** antzerkitxoak antolatzen zituen mutil argala. Mikel Hernandez Abaitua

Txotxongilo saio bat egiten ari ziren, ezker-eskuin eskuetako hatz erakusle margotuak panpinatxotzat harturik. Joan Mari Irigoien

Salara sarturik dantzan hasi baitira, musika-hariak, **txotxongilo** hariak balira bezala, eramanik. Felipe Juaristi

Bere **txotxongilo** gorputz xumea kiribilkatuz. Josu Zabaleta

Nire **txotxongilo** -keinuei egiten zien irri. Fernando Rey

5 (izenondo gisa)

Garraiolari **txotxongilo** bat bila ezazu nahi baduzu baina nik, bederen, ez dut eginen besterik. Iñaki Zabaleta

Errusiak Txetxenian ezarrirako Alu Alukhanov presidente **txotxongiloa**. Berria - Mundua

Egoera txarregia eta arrikutsuegia da zeinahi gobernuak horri aurre egiteko, eta gobernu **txotxongilo** hau ez da salbuespena. Berria - Harian

Protagonista inoiz baino afektuen **txotxongiloago** ageri da hemen, erabat sonanbulu eta ezindu, Floraren heriotzaren aurreko orduetan nabarien. Markos Zapiain

- Gobernu ustel bat jarri digute, gurea dela esanez, agintari- **txotxongilo** batzuk besterik ez direnean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kritikagarria da, halaber, kontsumitzaile- **txotxongilo** erabatekoaren hipotesia. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txotxongilo antzerkia (8); **txotxongilo egunak** (6); **txotxongilo ikusgarri** bat (3); **txotxongilo ikusgarria** (13); **txotxongilo jaialdiak** (3); **txotxongilo jaialdian** (7); **txotxongilo taldearen** (3)

txotxongiloen munduan (3)

txotxongilotiar *izond* txotxongiloena, txotxongiloei dagokioena.

Antzinako eta Modernoen Kereila **txotxongilotiar** hori, "kuestioaren hondoan" izpiritu nazional espainolaren arazoa baino ez baitzen. Joxe Azurmendi

txotxongilozale *izond* txotxongiloen zalea dena.

Txotxongilozaleek azken egunak dituzte beraz Bulgariatik, Palestinatik, Errumaniatik, hots 16 lurralde desberdinetatik jinikako txotxongiloen ikuskizunak gozatzeko.

Herria

txoxketa *iz* zozketa.

Bena sari nausia txotxetan tiratū behar zen, eta Anne-Marie Chimits haütatū dü **txoxketak**. Herria

txoxtakatu, txoxtaka(tu), txoxtakazen da *ad ipar* jostatu.

Eta gero noiztenka bai, joaiten güntützün bestara, Urdiñarberat edo hola, eta beti kartieleko haurrekin **txoxtakatzen**. Menane Oxandabaratx

txoxten ik **txosten**.

txoza *iz* etxola.

Aurrerago, landare eta bananondoan artean, **txoza** pobreak. Joseba Sarrionandia

Bananondoaz zainduriko **txoza** aurrean bost ume bata bestearen alboan ilaran ia biluzik, argal argalak, lurraren kolorekoak eta begiak erne. Joseba Sarrionandia

txu 1 *iz* txistua. ik listu¹; tu.

Belaskok, erdi-erdian piztiaren aurrean, **txua** irentsi adorea berreskuratzeke, eta hortz artean esan zuen: [...]. Joanes Urkixo

Gainera, zerri halakoak lantzean behin karkax-hotsa atera eta segituan **txua** botatzen du lurrera. Jon Arretxe

Bultoa lurrean utzi zuen, eta eskuineko eskuaz ganibet gorri handia atera eta **txuaz** busti zuen gero. Agustin Otsoa

Txua egin zidan aurpegira, apurtu egin zizkidan ezpainak. Joseba Sarrionandia

2 *txu* egin

Pistoleroak menderatzen zuen prostitutak **txu** egin zion hilotzari aurpegian. Javi Cillero

Aitak aurpegira **txu** egin izan balio, zazpi egunez lotsatan egon beharko zukeen, ezta? Elizen arteko biblia

Ettxeko andreak ikusi ninduenean, **txu** egin zuen lurrera eta hiru hilabeteko kontu atzeratua ordaintzeko eskatu zidan. Javi Cillero

Eta gogotik **txu** egin zenion azalari, arrabiak lehertzeaz. Josetxo Azkona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txu egin (5)

txukatu ik xukatu.

txukel (orobat xukel) iz adkor txakurra, polizia.

-Orain, laster, Jaen osoko **txukelak** helduko dira uluka eta aztoraturik. **Koldo Izagirre**

Propaganda faxistak kabala bilakaturiko gizakiak ziren, eta, **txukel** haginkariek bezala, beldurra eragiten ziena. **Koldo Izagirre**

-**Txukel** zikin bat duk mediku hori. **Koldo Izagirre**

Atxilotua desmoralizatu nahi izan du **txukelak**. **Koldo Izagirre**

Bigarrenak bestelako karga bat du: txakurrak espainiar polizia, oiloak frantsesei, zipaioak ertzainei... eta uniforme artean asko bereizi gabe **xukela**, alegia, txakurra eromintxelaz ijtoek. **Iñigo Aranbarri**

txukeltegi iz polizia-etxe. ik komisaria.

Kasta baroak eman zizkidaten Via Layetanako **txukeldegian**. **Koldo Izagirre**

Txukeldegian erabiltzen duten adeitasun bera. **Koldo Izagirre**

Algara modulatu bat egin du jaulierak, badaki agirretarrok **txukeltegiatan** esperientzia handia bagenu bezala mintzo gara beti. **Koldo Izagirre**

txukrut ik xukrut.

txuktxi (orobat txuktxe) iz Siberiako ipar-ekialdean bizi den herri bateko kidea.

Bost gobernutan edo probintzian zatiturik dago: Tobolsk, Jeniseisk, Irkutsk, Omsk eta Jakutsk; bi barruti ditu: Okhotsk eta Kamtxatka; eta bi herri: kirgizak eta **txuktxiak**, biak Errusiaren menpe gaur egun. **Karlos Zabala**

Sovieteko diputatua izango denean -amets egiten du-, bere lanaren eraginez **txuktxeak** eta eskimoak harginak eta meatzariak izango dira... **Pablo Sastre**

-Ni ez mozkor! -zapuztu zen Ovto; gero, **txuktxe** hizkuntza-: Bermut botila bana besterik ez baitugu edan. **Pablo Sastre**

txukun 1 izond garbia eta apaina, nahaspilarik eta lardaskarik gabekoa. ikgurbil.

Oso gizon **txukuna** zen, baina azkenera narrastu egin zen. **Koldo Izagirre**

Hildako **txukunek** argazkietan bezala eskuak kutxa torazikoaren gainean ipinita. **Koldo Izagirre**

Baionako gela apurraren ordez eta ordainez, etxebizitza **txukun** bat erosteko hautua egin nuen. **Txillardegi**

Kafetegia ez zen handia, baina **txukuna** eta abegikorra ematen zuen. **Migel Angel Mintegi**

Oso **txukuna** da ziega, egon naizenetan **txukunena**. **Koldo Izagirre**

Errekisa **txukun** bat egiteko asmoan hartu genuen zenbait lagunek noizbait Eibarrera, kanoiak behar genituen gure baforeak artilatzeke. **Koldo Izagirre**

Astiro egiten du berba, ingeles **txukunean**. **Jon Arretxe**

-Ohitura **txukunak** eskatzen dizkiet nirekin bizi behar dutenei. **Koldo Izagirre**

1920an, abuztuaren 11tik aurrerako datuak helarazi zituen Igeldora, hilero-hilero, ilara **txukunetan**, datu plubiometriko eta termometrikoekin batera. **Pello Zabala**

Eruditoa, txikia eta **txukuna** zen idazkera. **Koro Navarro**

Pentsatzen jarri eta ezer **txukunik** bururatu ez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lan **txukuna**, **txukuna** oso... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nahiko lubrikazio **txukuna** eskaintzen dute gorputzeko fluidoek. **Irene Aldasoro**

Txukuna egongo da bihar Xabi! **Xabier Etxabe**

Txukuna habil, neska. **Anton Garikano**

2 (izenondo bikoteetan)

Hiritxo **txukun** kaxkariña. **Lourdes Oñederra**

Eliza polit **txukuna** zuen, monasterioa bezala, eraikin erromanikoa baitzen. **Felipe Juaristi**

Londres laster geratu zitzairen oso atzera, eta haren ordez landa berde **txukunak** ageri ziren. **Iñaki Mendiguren**

Asfaltozko errepide **txukun**-estu batek lotzen ditu baserriak egun. **Iban Zaldúa**

-
-

Klinika pribatu txiki **txukun** baten argi garbia. **Lourdes Oñederra**

Mutiko **txukun** eta gorritza omen zen, ahots ezti, aurpegi alai, eta sudurtxo atseginekoa. **Jon Muñoz**

Nire arrebaren letra biribil eta **txukuna** da, ezbairik gabe, bunbuiloen barruan agertzen dena. **Iban Zaldúa**

Hizkuntza **txukun** eta landua erabiltzeko. **Pello Salaburu**

Gazte-itxura izan nahiko gizona zen, oso planta dotore eta **txukunekoa**. **Josu Zabaleta**

Ezohiko itxura **txukun** eta garbia hartu zuten bi gela haiek. **Jose Morales**

Predikatu ziezaietela, Kristoren Gorputza leku **txukun** eta egokian jartzeko. **Askoren artean**

Gazte-itxura izan nahiko gizona zen, oso planta dotore eta **txukunekoa**. **Josu Zabaleta**

3 (adizlagun gisa) ik txukunki.

Ez dut menderatzen **txukun** hitz egitearen antze zail hori. **Jose Morales**

Datuak idazten eta **txukun** txarteletan biltzen. **Pello Zabala**

Ohea **txukun** egina zegoen, eta ez zen arroparik ageri aulki gainetan. **Bernardo Atxaga**

Azal dezadan auzia **txukun**. **Bernardo Atxaga**

Lana **txukun** egiteko ez bada, nahiago dut ezer ez ukitu. **Xabier Olarra**

Barrualdetik, indar handiz eta bi ahotsez **txukun** emana, karlista boluntarioen artean modan jartzen ari zen kanta berri hau entzun zitekeen: [...]. **Txillardegi**

Jauregi txiki baina **txukun** batean. **Felipe Juaristi**

Ohera ekarri diote zopa, zopa **txukun** prestatua. **Itziar Otegi**

Ernest Weldonen emaztea harat-honat zebilen egongela **txukun** ordenatuan. **Mirentxu Larrañaga**

Berrogei bat urtekoa, ile beltz **txukun** orraztukoa eta begi urdin samurrekoa. **Oskar Arana**

Iritzi nion gutxi gorabehera zazpiehun edo zortzihun liburu izango zirela hain **txukun** antolatutako leku hartan. **Oskar Arana**

Hantza ageri ohi zitaizaien, **txukun** eta dotore, zuaiztirik gabeko sopilean zutunik, karratu eta sardo, tinko eta iraunkor. **Mirentxu Larrañaga**

Oso **txukun** moztutako bizarrarekin. **Bernardo Atxaga**

Oso **txukun** eta duin ari dira lanean, eta gizarteak zorra dauka irakasle horiekin. **Berria - Harian**

Petersburgekoek bezala, oso **txukun** eta gustu onez orrazturik zeuzkaten belarrondoko bizarrak. **Jose Morales**

Bigarren eta hirugarren postu asko lortu ditugu, eta nik uste nahiko **txukun** aritu garela. **Berria - Kirola**

Labandaria gertu du eta nahiko **txukun** dago. **Harkaitz Cano**

-**Txukunegi** zabilta zu kalekoa izateko. **Harkaitz Cano**

4 (adizlagun bikoteetan)

Burutxoan **txukun** eta apain bildurik zeraman bere adats urrekolorea. **Jose Morales**

Idazketa amaitu duzunean, egitekoa zure ustez **txukun** eta eder burutu duzunean, betetasun harrigarri bat sentitzen da barruan. **Pako Aristi**

Ez zuen beste ardurarik etxea **txukun** eta garbi edukitzea baino. **Ramon Saizarbitoria**

Haren herrixkako jendea **txukun** eta dotore janzten zen. **Jose Morales**

Hartara, enperatrizarren galdi ederretik ikusita, **txukun** eta oparo ematen zuten, berez miseriazkoak zirenak. **Iñaki Heras**

Motorrak oinarri sendo bat behar du, lana **txukun** eta astinaldirik gabe egingo badu. **Irene Aldasoro**

5 txukun-txukun adlag

Zaldiak **txukun-txukun** orrazturik zeuden. **Jose Morales**

Txukun-txukun jantzia ateratzen da arratsaldero paseatzera. **Bernardo Atxaga**

Pinguino jantzia **txukun-txukun** eskegia du atzealdeko kakoan. **Patxi Iturritegi**

Bi fotoak eta paskin mordoxka hura **txukun-txukun** bildu, eta gorde egin nituen. **Txillardegi**

Lokala **txukun-txukun** jarri eta garestiago saltzeko. **Anjel Lertxundi**

Arretaz takigrafiatu zituen lezio haiek areto nagusian, eta gero, etxean, **txukun-txukun** pasatu zituen garbira. **Anton Garikano**

Tiradera batean gordetzen dut **txukun-txukun**. **Eskarne Mujika**

6 (izenondo gisa)

Mutilak, **txukun-txukuna** bera, minutu batzuk lehenago poltsa batean utzitako paper berberak. Itxura **txukun-txukuneko** zen. **Antton Olano**

7 txukun-urruti izond

Hori baita egin ere arraza espainolak betidanik egin duena, mairu, judu eta heretiko txukun-**urrutiak** oro merezi bezala tratatuz. **Joxe Azurmendi**

Ilustrazio salbagarria txukun-txukun eskuinean eta Erromantizismo malapartatua ezkerrean txukun-**urruti**. **Joxe Azurmendi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bezain txukun (11); **bezala txukun** (3); **bizarra txukun** (3); **dena txukun dago** (3); **dena txukun txukun** (3); **denak txukun** (3); **ele txukun** (3); **garbi eta txukun** (6); **gauzak txukun** (6); **hizkuntza txukun** (3); **itxura txukun** (3); **lan txukun** (6); **nahiko txukun** (29); **nahiko txukun ari** (3); **nahiko txukun aritu** (11); **oso txukun** (47); **oso txukun aritu** (14)

txukun antolatzea (3); **txukun antzean** (8); **txukun antzera** (3); **txukun ari** (23); **txukun ari da** (10); **txukun aritu zen** (27); **txukun aritzea** (3); **txukun aritzen** (3); **txukun asko** (6); **txukun atera** (3); **txukun bete** (7); **txukun bete zuen** (3); **txukun dago** (6)

txukun egin (9); **txukun egiteko** (8); **txukun egiten** (10); **txukun ekin** (3); **txukun eta garbi** (9); **txukun hasi** (9); **txukun hasi du** (3)

txukun ibili (13); **txukun ibili ziren** (3); **txukun ibiltzen** (3); **txukun idatzia** (4); **txukun jantzita** (4); **txukun jardun** (13); **txukun jardun zuen** (4); **txukun jarri** (9); **txukun jarrita** (11); **txukun jartzen** (5); **txukun jokatu** (5); **txukun jokatzen** (4); **txukun moldatu** (3); **txukun moldatzen** (6)

txukun ordenatuta (3); **txukun samar** (4); **txukun samarra** (5); **txukun txukun** (79); **txukun txukun jarrita** (5)

txukun uzteko (3); **txukun zegoen** (6)

denboraldi aurre txukuna (3); **denboraldi txukuna** (25); **denboraldi txukuna egin** (6); **denboraldi txukuna egiten** (6)

egindako lan txukuna (3); **emaitza txukuna** (4); **fraseatze txukuna** (3); **hasiera txukuna** (4)

ibilbide txukuna (3); **irudi txukuna** (3); **itxura txukuna** (13); **itxura txukuna eman** (3); **itxura txukuna emanda** (3); **joko txukuna** (4); **lan txukuna** (147); **lan txukuna egin** (74); **lan txukuna eginda** (4); **lan txukuna eginez** (4); **lan txukuna egitea** (7); **lan txukuna egiteko** (19); **lan txukuna egiten** (18); **lasterketa txukuna** (3); **maila oso txukuna** (3); **maila txukuna** (30); **maila txukuna eman** (18); **nahiko txukuna** (10); **nahiko txukuna egin** (3)

oso denboraldi txukuna (3); **oso lan txukuna** (18); **oso maila txukuna** (4); **oso partida txukuna** (3); **oso txukuna** (29); **partida txukuna** (27); **partida txukuna egin** (9); **partida txukuna jokatu** (8); **saio txukuna** (3); **saio txukuna egin** (3); **sarrera txukuna** (3); **talde txukuna** (6)

askoz txukunago (4); **baino txukunago** (7); **baino txukunago aritu** (4); **txukunago aritu** (6)

lan txukunagoa (6); **lan txukunagoa egin** (4)

emaitza txukunak (3); **lan txukunak** (3); **nahiko txukunak** (3); **partida txukunak** (4)

egindako lan txukunari (3); **lan txukunari esker** (5)

euskara txukunear (3); **leku txukunear** (5); **leku txukunear jar** (4); **maila txukunear** (6); **modu txukunear** (5)

ahal den txukunen (3); **ahalik eta txukunen** (10)

lan txukunena (11); **lan txukunena egin** (6)

txukundade *(orobat txukundara g.er.)* iz txukuntasuna.

Puntualtasuna eta **txukundadea** izan zitezkeen bere bertuteak, baina pazientzia ez behinik behin. **Joxean Agirre**

Ordena bat, taxu bat, **txukundade** aratz bat. **Harkaitz Cano**

Rositak garbiketa-tramankuluak jaso zituen, sorgor, **txukundade** handiz. **Karlos Linazasoro**

Txukundadearena konpontzeko beste saio gutziek, txandak antolatzea eta abar, porrot egiten zuten. **Iñaki Iñurrieta**

Protestarik egin gabe ezin errenditu gizona, esanez ea zer **txukundade** den hori. **Pako Aristi**

txukundara ik txukundade.

txukundu, txukun(tu), txukuntzen da/du ad txukun jarri; txukun bihurtu.

Juanek bizarra **txukundu** zion arrebaren guraizeekin. **Bernardo Atxaga**

Zure emakumeak inoiz ez zizun ilea **txukundu**? **Oskar Arana**

Norbait egona zen han gela **txukuntzen**; leihoak zabalik zeuden eta eguzkia barrura sartzen zen. **Iñaki Mendiguren**

Ni lorategiaz arduratzen nintzen, belarra moztzen nuen eta sasiak **txukuntzen** nituen. **Koro Navarro**

Ordu erdi neukan beraz gauzak **txukuntzeko**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ontzi barruak zehatz, aratz eta tentuz **txukundu** behar genituen. **Edorta Jimenez**

Han, mojak, kezkatuta eta borondate onez, gu **txukuntzen** eta garbitzen ahalegintzen ziren. **Ander Irizar**

Txukuntzen ari omen zen, hau da, azken ukituak ematen. **Migel Angel Mintegi**

Zu **txukundu** zaitez eta usaingozatu; gero, soingainekoa jantzi eta joan larrainera. **Jose Antonio Mujika**

Txukundu, usain-gozatu eta soinekorik ederrenaz jantzi zaitez. **Elizen arteko biblia**

Zera, apur bat **txukunduko** al gara harrera egiteko? Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio

Zertxobait **txukundu** eta jaitsi egin nintzen. Josu Zabaleta

Garbitu eta **txukundua** zetorren. Joxemari Iturralde

Goiz hartan ez zion ez kokotsari ez aurpegiari erreparatu, eta halaxe, **txukundu** gabe, bizkor jantzi zen. Jose Morales

Afaria iragarri aurretik joan zitekeela senarra bere burua **txukuntzera**. Mirentxu Larrañaga

Ohartu haiz ordubete behar izan duala heure burua **txukuntzeko**? Lopez de Arana

Aurpegia ia erabat estaltzen zioten ile-adats luzeak eta bizar nahasi **txukundu** gabeak. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apur bat txukundu (3); **burua txukundu** (3); **etxea txukundu** (3); **goitik behera txukundu** (3); **ilea txukundu** (6); **ondo txukundu** (3); **pixka bat txukundu** (5); **txukundu gabe** (5); **txukundu ondoren** (4); **zertxobait txukundu** (3)

burua txukuntzeko (4)

etxea txukuntzen (3); **gela txukuntzen** (4); **mahaia txukuntzen** (3)

txukuntzen ahalegindu (3); **txukuntzen ari** (11); **txukuntzen ari zen** (3); **txukuntzen aritu** (4); **txukuntzen hasi** (7); **txukuntzen hasi zen** (3); **txukuntzen hasteko** (3); **txukuntzen lagundu** (3); **zertxobait txukuntzen** (4)

txukunez *izond* txukundaderik gabea.

Havertà delakoak joera du **txukuneza** eta lotsagaldua izateko, eta definizioz dago etxeko nagusien aztura eta jardunen halako jakingura gaizto batek harturik. Juan Garzia

txukunketa *iz* txukuntzea.

Etxeko **txukunketa** egiten zion emakumeak aurkitu du hilda, orain ordu pare bat edo. Migel Angel Mintegi

Etxera joan beharra daukala, **txukunketa** pixka bat egitera, hori jarri du aitzakia. Iñaki Iñurrieta

Askoz ere erlaxatuago atera zen lurrinez gorputza igurtzi eta bere burua txukundu ondoren: **txukunketa** haiek izaten ziren gainera onenak. Harkaitz Cano

Erreplikaren eraikuntzak, Lili jauregiko historiaurreko museoak eta Sastarrain bailararen **txukunketa** lanek 15 milioi euroko kostua izango dutela guztira. Berria - Kultura

Ishmirren geletan jostun eta otseinak azken momentuko **txukunketetan**. Xabier Mendiguren Elizegi

txukunki (*orobat xukunki g.er.*) *adlag* txukun, txukuntasunez. ik txukun 3.

Besoak V moldean airean altxatuz, ezagunak **txukunki** agurtuz. Itxaro Borda

Artean Kennedy lehendakariaren auto iluna Texasako hiriko karrika irekitik **txukunki** lerratzen zen. Itxaro Borda

Iragan astean agertu egitaraua ahal bezain **txukunki** errespetatuz. Herria

Zaku eta puska berriek ez ote dute laneko gostua sorrarazten, **xukunki** hasteko gutzia pizten! Herria

txukuntasun 1 *iz* txukuna denaren nolakotasuna.

Txitxikovek gainbegiratu bat egin zion zerrendari, eta harriturik utzi zuten hango zehaztasunak eta **txukuntasunak**. Jose Morales

Jantziak apaingarritasuna gehitzen dio **txukuntasunari**. Santiago Iruetagoiena

Dotoretasuna eta **txukuntasuna**, luxu ukitu batekin, nonahi zeuden. Migel Angel Mintegi

Ez zen etxeko **txukuntasuna** Edurneren saioek ekarri zuten ondorio on bakarra. Jon Arretxe

Amona Erikak esaten zuen sukaldeko **txukuntasunak** erakusten duela etxekoandre baten nolakoa. Anjel Lertxundi

Beheko dendako nahaspilaren eta anabasaren aldean, goiko solairua lasaitasunezko eta **txukuntasunezko** paradisua zen. Oskar Arana

Nire **txukuntasunerako** obsesioak ez luke sekula halako kuxidaderik onartuko. Karlos Linazasoro

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru bidaiarion **txukuntasun** maila ezagututa, paperezko argazkiak galtzeko arrisku latza genuke. Joxerra Garzia

Baina berriz burura ekartzean **txukuntasun** ekintza xume horiek, ez dut ulertzen nola egin ahal izan ditudan: hain dira hutsalak. Monika Etxebarria

Noiztik Hauster **txukuntasun** kontuez arduratuta? Iñaki Iñurrieta

Raimundo Silvaren bulegoa salbuetsirik dago, noski, han **txukuntasun** faltak lanaren beraren baldintza ematen du. Jon Alonso

Arrebaren zirikatze gogoa, amaren **txukuntasun** nahia eta amonaren diziplina. Berria - Kultura

txukuntze *iz* txukun jartzea; txukun bihurtzea.

Katemea agertu zenerako, eginak genituen ontziaren **txukuntze** lanak. Edorta Jimenez

Inondik ere, mundua sortu zenetik inork ez du hain denbora luzea eman **txukuntze**-lanetan. Jose Morales

Santosen etsipen imintzioak baretu guran Mentxu **txukuntze** zeregin zentzubakoetan hasi zen gelan bakarrik gelditu zirenean. Josu Landa

txukunxe 1 *izond* txukun samarra.

Prest nintzen barruko gelak altzari elkarrekin gaizki egokitu eta hautsien bilduma higuigarri batez lepo beterik aurkitzeko, baina agitu zen lekua erakusteko baino

txukunxeagoa zela. Oskar Arana

2 (adizlagun gisa)

Bigarren zatian **txukunxeago** aritu zen Reala, baina ni gehiago haserretu nintzen. Berria - Kirola

txukunzale *iz* txukuntasunaren zalea dena.

Izaeraz txukun eta **txukunzale** izanik, poliki-poliki taxua ematen hasi zitzaion Administrazio lan hari, eta handik hamabi hilabetera paperak oro pilatuta zituen, gaika eta urteka. Felipe Juaristi

txula *iz* okela-zatia; urdai-xerra.

Larunbat goizean, Bardeetara doatzin artzainak dira gurutzatuko: batzu altxunbidean barna (kabalentzat idekitako bidea) dira ibiliko, bertze batzu aldiz ardiak xakitzen

(markatzen) ariko dira eta ere hamaiketako prestatan, otapurrak eta **txulak**. **Herria**

txulalai iz

Ttipienek (7 eta 10 urte artekoek) desfilea, esku dantza, zazpi jauziak, marmutx, San Petrike eta **txulalai** dantzak emanen dituzte. **Herria**

txulatu ik zulatu.

txuleria iz *adkor* harrokeria, harropuzkeria.

Puzkerra baita, azken batean, gure arteko patxada, lotsa, itxura, nobleza, **txuleria** eta abar neurtzeko metrorik bat-batekoena, **Patziku Perurena**

txuleta (*orobat xuleta g.er.*) 1 iz bizkarraldeko saiets-hezurren ondoko haragia, hezur eta guzti ebakitzen dena.

Aratseko 9-etan, Donamaria ikastegian, sagarnotegi moldeko afaria, 20 eurotan jende bakoitz: arrollte moleta bakalauarekin, **txuleta** lur sagar frituekin, ardi gasna intxaurrekin, sagarnoa nahi bezenbat denentzat...! **Herria**

Hango **txuleta**, hango axuri saiheskia, arraina, berehala asetzen ginen. **Berria - Kirola**

Biek ere **txuleta** bana, patata egosi bana, ilar-pilo txiki bana eta perrexil-sorta bana zeuzkaten euren plater urdinen barnean. **Lopez de Arana**

Txuletak, azkenean, eginda daude. **Eskarne Mujika**

Hala, bada, kanpora irteten ziren, **txuletak** prestatzen zituzten jatetxeetara eta kabaret merke samarretara. **Mirentxu Larrañaga**

Txuleta gorri ederrak emango ditu. **Patxi Iturritegi**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Inoiz ezin jakin idi **txuletak** edo guraso baten saiheskiak jaten ari garen. **Patziku Perurena**

Txahal- **txuletak**, patata frijituak eta brokolia. **Lopez de Arana**

Haragi erre, oilasko erre, txerri- **txuletak** eta arkume- **txuletak**. **Iñaki Mendiguren**

Zerri- **txuletak** eta arrain egosia gozo-gozoak zeuden. **Jose Morales**

Jimmyk bere bildots- **txuleta** ebakitzen du erantzun gabe. **Lopez de Arana**

3 *adkor* paper mutur idatzia, azterketetan erabiltzen dena ezkutuan bertatik kopiatzeko.

Nik horrela gainditu nuen karrera osoa: enroilatzeko azterketetan irudimena eta larrua konbinatuz, eta bestelakoetan **txuletekin**. **Jon Arretxe**

Azterketarako, definizioa buruz ikasiko dute batzuek, edo **txuletarekin** bidez aprobaturako besteek, baina elipsia zertarako erabil daitezkeen arrastorik gabe amaituko dute eskolaldia. **Andoni Egaña**

Ikasleek jakingo balute nik gai honetaz ideia putarik ez daukadala eta karreran ikasi nuenean **txuletekin** gainditu nuela! **Jon Arretxe**

Jokin **txuletatik** kopiatzen ari dela uste dut. **Jon Arretxe**

Ikasle batzuek horrenbesteko trebezia hartzen dute **txuletarik** trinkoenak, kontzentratuenak egiten, non labor-zurrean bildu beharrak berak bultzatzen baititu eskemaren funtsari antzematera, eta hartara gaia goitik behera menderatzera iristen dira. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bildots txuleta (4)

txuletagile iz *adkor* azterketetan erabiltzeko txuletak egiten dituen.

Txuletagileak, burua makurtu eta joan da, mantso-mantso, irakaslearen agindua betetzera. **Joxerra Garzia**

txuletagintza iz *adkor* azterketetan erabiltzeko txuletak egitea.

Txuletagintzan, trinkotzeko gaitasuna ez ezik, nonahi adierazpen trinko abstraktuak ikusteko joera garatuko dute. **Iñaki Iñurrieta**

Beste ikasbide garrantzitsu batzuk ere izango ditu **txuletagintzak**. **Iñaki Iñurrieta**

txuletila iz arkume txuleta.

Oraintxe, esan zuen, mmm, oraintxe arkume bat, oraintxe sarmientoekin erreta **txuletila** batzuk... **Pablo Sastre**

txuletoi iz txuleta handia.

Nik belarri gainean matxetea ikusten nion, sagardotegirako **txuletoiak** mozteko erabiltzen diren ikaragarri horietako bat. **Joxean Sagatzizabal**

Gonbidatuak eseri eta berehala hasi ziren bazkaria dastatzen: bakailao tortillaren ondotik **txuletoi** ederra, eta, postrerako, intxaurrak, gazta eta irasagarra. **Berria - Euskal Herria**

txuliatu, txulia, txuliatzen 1 du *ad* izkin egin, saihestu.

Alentejoko herrietara laguntza-arrenak eramango zituzten mezulariek setioa **txuliatu** zezaten eragozteko. **Jon Alonso**

Abokatu [...]: legea **txuliatzen** trebea den pertsona. **Xabier Olarra**

Orduan kale erdian zetorren itzal bat **txuliatu** behar izan zuen. **Patxi Zubizarreta**

Bekatu larrietan egindako hutsak hobeki ezagutzeko, begira haien aurkakoei; hartara, hobeki **txuliatzeko**, erabaki eta saia jardun hauen bidez haien aurkako zazpi bertuteak beretzen eta edukitzen. **Patxi Altuna**

2 (norbaiti) barre, iseka egin.

Zalantzatan nengoen ea ez ote zitzaidan **txuliatzen** ari Parent doktoarearekin batera, ez ote zen aurrez prestatu eta ederki burututako adarjotze bat hura guztia. **Josu Zabaleta**

txulo¹ 1 iz adkor zuloa. ik xulo.

Leienda horietan egundokoak asmatzen dituzte: erizainak **txulo** batetik begira egoten garela, nor duen handiagoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

[Teleskopioa] muntatu, **txulotik** begiratu eta... hara non ikusten duen pareko neska berari teleskopio batez begira. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Koltxoiaren **txulo** batean mugitzen zen hari-izpi moduko bat jo nuen begiz. **Bernardo Atxaga**

Txulokiko galtzerdi beltzak. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Nire bihotzak halakoxe zulo txiki bat eskaini nahi zion Ana Morenaren bizizari, begi-**txulo** bat non argi-zirrinta salbatzailearen hatzek bere graziaz ukitu ahal izango baitzuten...

Karlos Linazasoro

3 alua; uzkia.

Pantailak orduan haur biluzi biren argazkiak erakutsiko zituen, urtebete ingurukoak, txintxilarioa eta **txuloa** agerian zituztela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eskuaz kontuz heldu nion zakiltxoari eta nire **txulo** busti eta gosetira zuzendu nuen. **Aitor Arana**

Uzkie musukatuta eta goxo-goxo miatzatu zidan mihia **txuloan** sartuz. **Aitor Arana**

4 txulo-miaketa (corpusean txulomiaketa soilik)

Desenkusatzeko hasi nintzaion, baina berehala konturatu nintzen ez zidala hartu, ni horren goiz egoiz eta **txulomiatetan** harrapatuagatik. **Inazio**

Mujika Iraola

5 txulo-miatu (corpusean txulomiatu soilik)

Lehen konplexuak eta lotsak azkar bazterturik, ontzi barranean egokitu dira, eta han-hemenka **txulomiatzen** dabilta, beren begirakune xarmant, xalo, sarkor eta maleziatsuekin. **Patxi Zubizarreta**

6 txulo-miatzaile (corpusean txulomiatzaile soilik)

Txulomiatzaile xamarra izaki, eskolan zer jostailu eta zer Lego-kaxa ote zuten ikusteko irrikaz nobilela uste dut). **Jesus Mari Mendizabal**

txulo² 1 iz/izond adkor putazaina; harroa, harroputza.

Atea zabaldu eta antzerkiko gertaleku bat zirudien: putak, **txuloak**, bezeroak, madama. **Koro Navarro**

Txuloak eta proxenetak ere baziren. **Berria - Harian**

Gure borondateari entzungor eginez, prostituta, **txulo** eta droga saltzaileek periferiako auzoak gugana ekartzen dituzte ilunabarrean. **Harkaitz Cano**

Txulo bat zuhaixka baten atzetik puten kiriketara nola, halaxe nengoen ni ere Tomen aldameneari. **Koro Navarro**

Antoñito hori **txuloaren** morala zuen andaluziar bat zen; emakume bati zerbait atera gabe joaten uztea hutsegite handia iruditzen zitzaion. **Josu Zabaleta**

Maila apaleko jendearentzat, hika hitz egin diezaikeentzat, **txulo**, neskame, jokalarientzat zituen don Pedrok bere begikotasun guztiak. **Josu Zabaleta**

Txulo arraioa, asesinoa, ostikoak ematen besterik ez dakian astakirtena... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Geroxeago azaldu da mahuka jasozko cowboy-alkandoradun tipoa, lehenagotik ere behin baino gehiagotan xaxatua ninduen gazte-plantako **txuloa**, neskaren neba, alegia.

Joxe Austin Arrieta

2 puta-txulo putazaina.

Neba jonki, **puta-txulo**, trafikante eta delinkuentea. **Sonia Gonzalez**

3 txulo-txulo adlag

Antzerkiarekin segitu nuen, hala ere, **txulo-txulo**. **Jon Alonso**

txulomiaketa ik txulo¹ 4.

txulomiatu ik txulo¹ 5.

txulomiatzaile ik txulo¹ 6.

txuloputa izond putazaina; harroa, harroputza. ik txulo¹.

Biluzgorrituta, lotsatuta, beldurtuta, zoriaren mende, une hartan pena handia eman zidan, eta nire pentsamenduetan kaka egin nuen emakume hura modu hartan txantaitzen

zuten **txuloputa** haien gainean. Zer, joan da **txuloputa** hori? -galdetu die Mikelek. **Juan Martin Elexpuru**

Exekutibo agresibo, yupi nazkagarri, **txuloputa** tankerakoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Makarra, **txuloputa**, nazkagarri alu hori? **Xabier Mendiguren Elizegi**

txulotu izond txulo bihurtua.

Zer espero liteke, ordea, besteren gaitzespenetik eta bere burua gaitzestetik ikasten ez dakien herri "gizajo **txulotu**" batengandik? **Patziku Perurena**

txulotxo iz adkor txuloa.

Dutxatik irten zenean irakiten zegoen italiana, tartean behin **txulotxotik** txorrotadaren bat jaurtitzen. **Unai Iturriaga**

Balkoiko atea zabalik dago, eta, lurraren erdi-erdian, krisketaren muturra lotzeko **txulotxo** bat dago. **Anjel Lertxundi**

Berriro ere **txulotxoan** sartu dut babarrun-alea, ostera lan berari ekiteko... **Anjel Lertxundi**

txulufrei ik julufrai.

txulula ik txirula.

txundialdi iz txunditze aldia.

Txundialdia izan zen, ustekabeko agerraldia. **Joxan Elozegi**

txundiarazi, txundiaraz, txundiarazten du ad txunditzera behartu.

Azken esandakoak erabat **txundiarazi** zuen Lisa, fikziozko mundu batera eraman zuen, iluna baina erakargarria. **Migel Angel Mintegi**

Ezertxok ere ez zezakeen **txundiarazi**. **Mirentxu Larrañaga**

txundibide iz txunditzeko zioa.

Ez du **txundibide** gutxiago eskaintzen kapituluak banaka aztertzeak. **Juan Garzia**

txundidura 1 iz txunditzea. ik txundimen.

Ez **txundidurarik** ez eskandalurik, apika; apika, harridura apur bat, hutsaren hurrengoa. **Juan Garzia**

Maelen begietan **txundidurak** eta haserreak bat egin zuten. **Joanes Urkixo**

Nire aurrean, judu zaharraren aurpegia perlesiatuak gelditu zen **txundiduraren** eta izu-laborriaren arteko keinu errukarri batean. **Alberto Ladron Arana**

Golek bekainak uztartu zituen, harritu itxurak eginez, Maelek, **txundidura** eta beldurraren artean, zera galdetzen zuela: [...]. **Joanes Urkixo**

Aurreko bietan **txundidurak** baizik ez baninduen jo, oraingo aldiaren sentipen ernegarri bat ernatu zen nire baitan. **Aingeru Epaltza**

Lager-eko arrotz kutsuko alemanerak harridura moduko bat, **txundidura** moduko bat salatzen zuen nire ustez erresumina baino gehiago. **Urtzi Urrutikoetxea**

Berean berehala ikusi nuen **txundiduraren** antzeko zerbait, izu gisako bat, oro har itxaropen gabeko gaixoei, kondenauei edo, esan dezagun, kutsatuei begiratzen zaien bezalakoa. **Urtzi Urrutikoetxea**

Antza zenez, ederki nabarmentzen zitzaizkien sentitzen nuen **txundidura**. **Alberto Ladron Arana**

Beste ezerk ez zion hainbeste barrena goxatzen, bizitzaren aurreko **txundidura** arintzen, eta bertako zamak mirariz bezala altxatzen, botere goren honek adina. **Anton Garikano**

Gertaera gorabeheratsu samarra izan da, eta oraindik ere ez zait **txundidura** pasatu. **Juan Kruz Igerabide**

Ez nintzen **txundiduratik** irteten; inoiz ez nuen usteko halako gauza batek jota utziko ninduenik. **Juan Kruz Igerabide**

Txundiduraren distira zeukan begietan. **Fernando Morillo**

Txundidurazko begirada ikusi diot Lotinantari aurpegian, belaunburuen gainera erori denean, zerbait esan nahi izan balit bezala. **Mirentxu Larrañaga**

-Egiaz diozu? -esan zuen mutilak, **txundidurazkoa** zirudien ahotsez, mindutakoaz bainoago. **Mirentxu Larrañaga**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Rosie Judori ere bizia barkatu zioten, **txundidura** handiz, 1.500 voltioko deskarga elektrikoa bere gorputzetik batera kalterik sortu gabe pasatzen zela ikusi ondoren.

Harkaitz Cano

Ukitu epel, umel eta apur bat itsaskorra sentitu nuen, eta **txundidura** atsegina segidan. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hala nagusitu zen nigan gutxika-gutxika, ez harridurarik edo **txundidura** zohardirik gabe, ideia bat, susmo bat. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hasierako **txundidura** gaindituta, gerlari ilehoriak ere bizkarretik eraso zion. **Joanes Urkixo**

Aurreneko **txundidura** pasaturik, jendea lasterka abaildu zen haiengana, jipoitzeko asmoz. **Juan Kruz Igerabide**

Gertaera gorabeheratsu samarra izan da, eta oraindik ere ez zait **txundidura** pasatu. **Juan Kruz Igerabide**

Aitak ustekabeko zartakoa jaso duenaren aurpegia zuen, mindua eta heriozko **txundidura** batek hartua. **Alberto Ladron Arana**

3 (hitz elkartuetan)

Lehenengo **txundidura** unea igarota, izua sentitzen hasiko zen. **Alberto Ladron Arana**

Higitu da, atzera jiratu, **txundidura** eta sumindura aurpegiz. **Urtzi Urrutikoetxea**

txundigarri 1 izond txunditzen duena.

Stephenek umeen gisara erreakzionatu zuen hango margolan **txundigarrien** aurrean. **Xabier Olarra**

Dena gorberritzen duten jainkoen ahal handia eta indar **txundigarria**. **Xabier Amuriza**

Margolanen aldamenen, eranskin **txundigarri** gisa, argazki batzuk zeuden. **Xabier Olarra**

Aurkikuntza **txundigarria** egin berria zuen Pitagorasek: bitarte musikala bi zenbakiren arteko erlazioa da. **Jon Muñoz**

Zein lilurakizun **txundigarriak**! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Udaberriko egun batez, lorategian barrentzean, zirrara **txundigarri** bera sentitzen dut urtero. **Juan Garzia**

Naretasun **txundigarri** bat nagusitu zitzaion. **Xabier Olarra**

Erraztasun **txundigarritz** bereganatua zuen Euler-en lan erraldoia. **Jon Muñoz**

Denok liluratu gaituen prosa eder eta **txundigarri** horretan apur bat lokaturik. **Berria - Kultura**

Zehaztasun ia fotografikoz dihardu Francok, kopiatzeko ahalmen mikroskopiko **txundigarritz**. **Xabier Olarra**

Sorlekura itzulia, erabaki denendako **txundigarria** hartu zuen. **Aingeru Epaltza**

Modu **txundigarrian** laburbildu digu, gero, bere etxeko bizimodua. **Mirentxu Larrañaga**

Harreman hori suntsitzailea izaten da sarritan, baina, beste batzuetan [...] abaila eta espontaneitatea eman ditzake, eta modu harrigarri eta **txundigarrian** jokatzeko gaitasuna ere bai tarteka. **Xabier Olarra**

2 (predikatu gisa)

Bi egoeren antzekotasuna **txundigarria** zen, hala ere. **Jon Muñoz**

Txundigarria zen gaitasun hori Stephenen kasuan. **Xabier Olarra**

Hori **txundigarria** zen zientzialarientzat, eta batzuek uste zuten fisika klasikoaren oinarriak erabat hankazgoratzen zituela. **Xabier Olarra**

Jadanik ez zen bitxia, **txundigarria** baizik. **Jon Muñoz**

Zehaztasuna **txundigarria** zen, eta orobat marrazketa-abaila, marra-ekonomia eta marrazkien xarma eta estiloa. **Xabier Olarra**

Txundigarria da benetan gorrotoa. **Jenaro Garate**

Eszena gainean lehen kolpean ikusten duguna nahiko **txundigarria** da. **Berria - Kultura**

Bestalde, kristaua bi aukerabideren artean hautatu beharrean aurkitzen da, biak izanik larriki **txundigarriak**: [...]. **Iñaki Mendiguren**

Hori zen **txundigarriena**: nola lortzen zuen instant batean jabetzea. **Xabier Olarra**

Jendea olatuen mota bezalakoaren errepikaporra, batzuetan; **txundigarria**, bestetan. **Fernando Morillo**

Txundigarria batzuetan, jakingarria beti. **Berria - Kultura**

: **Txundigarri** zitzaion, oro har, itzalen kontzeptua, argia estaltzen zuten zerena. **Xabier Olarra**

Zinuarena benetan **txundigarri** egin zitzaidan. **Edorta Jimenez**

Beste egoera tarteko bat ere izaten zen, Amyri **txundigarri** iruditzen zitzaiona. **Xabier Olarra**

3 (hitz soila izen gisa –en atzikiaren eskuinean)

Hara non, guztion **txundigarri**, gene berak aurkitzen ditugun, antzeko eginkizunekin, hainbat organismo are beren artean oso desberdinetan. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

"Looping" **txundigarri** sorta bat egin zuen hegazkin zintzilikatuen hegalean inguruan. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txundigarri zitzaion (3)

txundigarria da (11); **txundigarria egin** (3); **txundigarria izan** (3); **txundigarria zen** (7)

txundigarri *adlag* era txundigarrian.

Aise gertatu zen dena, **txundigarriro**; aiseago ezin. **Mirentxu Larrañaga**

txundimen 1 iz txunditzea. ik txundidura.

Barruan daukadan ron bizigarriari neskaen ukitu leunak azaleratu dizkidan sentipen kilikagarriak gaineratzen zaizkio, eta horri hizketarako duen jakinduriak eta patxadak sortutako **txundimena**. **Pako Aristi**

Margolariak dagerrotipoaren aurkikuntzaren aurrean izan zituzten erreazioek - **txundimenetik** higuinerainokoak-, [...]. **Josu Zabaleta**

-Amontilladoa! -oihu egin zuen nire lagunak, bere **txundimenetik** atera ezinda. **Koro Navarro**

Emango zuen neska urtebete-edo han lanean, eta halako batean dendatik desagertu zen, haren miresleen **txundimenerako**. **Koro Navarro**

Gure herria egurrez, harriz eta zotal lurrez egindako etxola multzo bat besterik ez zen, eta, denon begien **txundimenera** ageri den itsasadar zabal bera ere, ez zen halamoduzko ertz-mugetan ur zabalera arrunt samarra zeukan ibaia baino. **Pako Aristi**

2 (izenondoe kin)

Txundimen handiena eragiten zuten nesken artean bazen ilehori bat, oso polita, ikusgarria oso. **Josu Zabaleta**

Martinek eta Bautistak halako **txundimen** komiko batez begiratzen zioten elkarri. **Koro Navarro**

Hemen bat-batean isildu nintzen berriz ere, eta **txundimen** gogorreko sentipen batez oraingoan, zeren dudarik batere gabe une horretan bertan entzun bainuen [...] garrasi edo kirrinka hots guttiz ezohikoa, apala, itxuraz urrunekoa, baina lakarra eta luzea. **Koro Navarro**

txunditu, txundi, txunditzen 1 da *ad* erabat harriturik gelditu, zur eta lur gelditu.

Quenu ohi baino gehiago **txunditu** zen, kinka larri hartan hain egoki ikusita. **Karlos Zabala**

Eguzkia igo zenean, **txunditu** egin zen ikuspegi haren edertasun bikainaren aurrean: "ezin nuen sinetsi ere egin; ederra zen zinez". **Xabier Olarra**

Baserritartako saguek, tropa hura ikusita, izango zuten norekin harritu eta zerekin **txunditu**. **Pako Aristi**

Yusuf izutua zegoen, **txunditua**. **Fernando Rey**

Lavender Brownek **txundituta** zirudien, baina ia beste guztiak eskuak ahora eraman zituzten izututa. **Iñaki Mendiguren**

Inguruko aberastasunei begira, **txunditurik** zeuden bi gazteak. **Juan Kruz Igerabide**

Franco bera ere **txundituta** zegoen bere pinturarekin, gai baitzen margotzeko eta barnekoa kanporatzeko. **Xabier Olarra**

Txundituta konturatu nintzen ni ez nintzela ez mundu batekoa ez bestekoa. **Koro Navarro**

Bere zorte onaz **txundituta**, Harryk azkar alde egin zuen bulegotik. **Iñaki Mendiguren**

Anaia hura **txundituta** eta lotsaturik geratu zen. **Askoren artean**

-Ezin ederragoa duk gero -xuxurlatu zuen Claudek, guztiz **txunditurik**. **Karlos Zabala**

Arras **txunditurik** nengoen, entzuten ari nintzenak liluraturik. **Alberto Ladron Arana**

Harry **txundituarena** egiten saiatu zen. **Iñaki Mendiguren**

Abokatu defentsariak agurtu ondoren, eta haien begi errukior, erruduntasun-adierazle eta ezintasunez **txundituei** ihes eginez, [...]. **Jose Morales**

• 2 du *ad* erabat harriturik geldiarazi, zur eta lur geldiarazi.

Ezerk ez nau harritzen hartatik; ez **txunditzen** ere. **Josu Zabaleta**

Nire adiskidearen maneren koherentzia faltak, haien lotura ezak, berehala **txunditu** ninduen. **Koro Navarro**

Hurrengo kale kantoian zain duzula **txundituko** zaituen emakumea. **Patxi Iturritegi**

Ikara sentitu nuen pentsaturik ez zela geratuko **txundi** nintzakeen gauzarik. **Juan Garzia**

Hegaztien «aho zabalik, **txundituta** uzten dituzte txangozaleak erakusten duten edertasunagatik». **Berria - Euskal Herria**

Hari lotuak zeuden, bada, bere aztiakeriaz **txunditurik** baitzeuzkan. **Elizen arteko biblia**

Haren hitz harrigarriek erabat **txunditurik** utzi ninduten. **Alberto Ladron Arana**

Hitz bitxi haiek guztiak esaten zituelarik ahots goraz, edonor **txunditzeko** moduan. **Mirentxu Larrañaga**

Txunditu egin baininduen haren adierazpenaren segurantzia, besterik ez. **Joxe Austin Arrieta**

Han geldituko zen **txunditzen** zuten irudiei begira-begira. **Xabier Olarra**

Irakurleak txunditzeko mauka aurkitu zuelakoan. **Aingeru Epaltza**

Lum **txundituta** zeukala ematen zuen, baina erabat **txundituta**. **Antton Olano**

Heriotza sarri aipatzen zuenez, gu gazteok **txunditzeko** boutadetzat jo genuen ateraldia. **Joxerra Garzia**

Elkar **txunditzen** irakastea ez da eskolaren egitekoa, nonbait. **Joxerra Garzia**

3 (era burutua izenondo gisa)

Zu maite ordez, zure egintzak maite dituztenak hizlari jakintsu, bikainaren entzule **txundituen** antzekoak dira. **Imanol Unzurrunzaga**

Ikuskizun teatral bati bezala begiratuko dio saldo **txundituak** suteari. **Harkaitz Cano**

Gero, herritar **txundituei** baserrira laguntzeko, horma zulotik enborra ateratzeko eta erretzeko eskatu zien. **Martin Anso**

Kernan andrearen begi **txundituak** kotxeari begira egon ziren. **Irene Aldasoro**

-Norbait hiltzera doa! -oihu egin zuen, eta Ronen eta Hermioneren aurpegi **txundituei** jaramonik egin gabe, hurrengo eskailera-tartean hirunaka igo zituen mailak. **Iñaki Mendiguren**

Txunditu baten begiak geratzen zitzaizkidan kopetaren erdian horrelako zerbait gertatzen zen aldiro. **Joxan Elosegi**

Erabateko **txunditu** itxurarekin. **Anton Garikano**

4 txundi-txundi egin

Galdera bat egiten asmatu nuen, **txundi-txundi egina** nengoen arren: [...]. [Joxan Elozegi](#)

Poxpolo-kutxa biltzaile bat, 50 eko urteetako aleek **txundi-txundi eginik** uzten zuten horietakoa. [Joxan Elozegi](#)

Txundi-txundi eginda utzi gintuen denak gure jakintsuaren erakustaldi hotzak. [Karlos Linazasoro](#)

Ostertzari so **txundi-txundi eginda**, zera pentsatu nuen: [...]. [Jose txo Azkona](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begi txundituak (3)

bezain txunditurik (3); **erabat txunditurik** (12); **erabat txunditurik utzi** (3); **guztiz txunditurik** (3); **haren irakaspenaz txunditurik** (3); **irakaspenaz txunditurik zegoen** (3)

txunditurik begiratu (8); **txunditurik begiratu zion** (4); **txunditurik gelditu** (18); **txunditurik gelditu zen** (10); **txunditurik geldituko** (3); **txunditurik gelditzen** (3); **txunditurik geratu** (19); **txunditurik geratu zen** (12); **txunditurik geratzen** (4); **txunditurik geratzen zen** (3); **txunditurik nago** (3); **txunditurik nengoen** (8); **txunditurik nindukan** (4); **txunditurik utzi** (21); **txunditurik utzi ninduen** (4); **txunditurik uzten** (3); **txunditurik zegoen** (12); **txunditurik zeuden** (10)

zeharo txunditurik (10); **zeharo txunditurik gelditu** (4)

bera ere txundituta (4); **erabat txundituta** (21); **erabat txundituta gelditu** (3); **guztiz txundituta** (8); **hain txundituta** (6); **hain zegoen txundituta** (3); **harry txundituta geratu** (3); **harryk txundituta** (7); **harryk txundituta begiratu** (3); **jendea txundituta** (3); **ni txundituta** (5)

txundituta begiratu (12); **txundituta begiratu zion** (7); **txundituta begiratzen** (4); **txundituta dago** (3); **txundituta daude** (3); **txundituta ematen zuen** (3); **txundituta eta lotsaz** (3); **txundituta gelditu** (18); **txundituta gelditu zen** (9); **txundituta gelditzen** (6); **txundituta geratu** (44); **txundituta geratu nintzen** (7); **txundituta geratu zen** (25); **txundituta geratuko** (4); **txundituta geratzen** (9); **txundituta nago** (3); **txundituta nengoen** (4); **txundituta utzi** (43); **txundituta utzi ninduen** (7); **txundituta utziko** (3); **txundituta uzteko** (5); **txundituta uzten** (11); **txundituta uzten ninduen** (3); **txundituta zegoela** (6); **txundituta zegoen** (22); **txundituta zirudien** (6)

zeharo txundituta (6)

txunditzeko moduan (4)

txunditzekoa da (3)

txungo 1 izond adkor txar arraioa.

To! **txungoa** behar dik horrek... [Pablo Sastre](#)

Donostiatik Leioara eta Leioatik Donostiara autobusez noala, sarri konturatzen naiz bidaia ez dela gauzarik **txungoena**. [Joxerra Garzia](#)

2 (adizlagun gisa) gaizki arraio.

Hau **txungo** jarri duk. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

txuntxur iz tontorra.

Beste batzuk, beren hasieran handi zabalak bai, baina meta-**txuntxuraren** gisara, gora eta estuago, azkenik hutsean bukatu arte, meta-**txuntxurari** muturrean gertatzen zaion bezalaxe. [Patxi Ezkiaga](#)

txupa iz adkor jaka.

Freskatu egin du eta **txupa** bat hartu beharko nuke. [Sonia Gonzalez](#)

Txupa kenduta bular guriak nabari zaizkio, ez handiak ere, baina bai ongi biribilduak. [Pako Aristi](#)

Txuparen kremailera goraino jaso dut, kaskoa ukondoraino sartu. [Pako Aristi](#)

Neska barrura dator; **txupa** beltza, kotoizko galtza marroiak, ez oso estuak ere, eta kaskoa ezker ukalondoa trabatua. [Pako Aristi](#)

Larruzko **txupa** darama jantzita eta, neskek hurbil-hurbiletik zer bait esaten dionean, ahaztu ilara zuria agerian utzita egiten du barre. [Sonia Gonzalez](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

larruzko txupa (3)

txupatu, txupa(tu), txuputzen 1 du ad miaztu, xurgatu.

Leire ogia **txuputzen** ari eta, denak berari begira. [Pablo Sastre](#)

Gure amaren jostundegiko botoiak **txupatzea** gustatzen zitzaidan, bezeroen jantziertzako botoi zoragarri batzuk, esnegainaren kolorekoak. [Pello Lizarralde](#)

-Desizoztu eta berotu on bat eman ondotik, bai itxurari bai usainari errepertatuz gero, primeran eta hatz-mamiak **txupatzeko** moduan dagoela dirudi. [Jose txo Azkona](#)

Emakumeak beti lortzen zuen sinestaraztea ordura arte inori ere ez ziola zakila **txupatu**. [Karlos Zabala](#)

Txupazak hemen, errepikatu nuen, ez nekien jendeak elkar miazkatzen zuen edo ez, barrenak agindu zidan, horrela deskribatuko nuke orain. [Karlos Zabala](#)

Txupazkidazu pezoiak. [Karlos Zabala](#)

Natxok keinu zantarra eginez erantzun dio kamioi gidariari: "**txupadak** zinbel punta, mamanton horrek!" [Patxi Iturritegi](#)

2 irud/hed

Plazer handiz eta aditu-airez azalpenak ematen zituen kazetariaren aurrean, kamera **txupatzeko** presak gertatutakoaz informaziorik batera lortzea galarazi zion arren. [Jon Alonso](#)

Eta agorreko esaminekin ez kezkatu, hori **txupatuta** zegoek eta. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

txupatxus iz gozoki biribil kirtenduna.

Marialuisak *Pronto* eta *Marie Claire* erosi ditu amandako 4 euroekin, eta soberakinekin bi **txupatxus**. [Eider Rodriguez](#)

Ron pentsakor geratu zen azidozko **txupatxusen** kaxari begira. [Iñaki Mendiguren](#)

txupatze iz miazkatzea, miaztea.

Lehen aldia izatearen kontu horrek garrantzi handiagoa zuen, kasu horretan, **txupatzeak** berak baino. [Karlos Zabala](#)

txupesta ik su 42.

txupete iz haurrei xurgatzeko ematen zaien gauzaki malgua, titiburuaren itxura duena.

Une horretan bertan Maddi esnatu, eta negarrez hasi zen; **txupetea** ipini nion, baina, isiltzen ez zenez, gurditotik atera nuen. [Iban Zaldúa](#)

txupinazo iz festen hasiera adierazteko suziria botatzea; botatzen den suziri hori.

10:00etan diana eta **txupinazoa** herriko plazatik. **Berria - Harian**
Ortzirale artsean, Pausun, Xaia ostatuan, **txupinazoa**, Sustraia taldearekin. **Herria**
Sanferminetako **txupinazoa** botatzeko aukera ere eman zidaten eta ahaztezina da hori. **Berria - Kirola**
Gasteizko jaietako **txupinazoa** bota baino ordu batzuk lehenago. **Berria - Euskal Herria**
Ikurrinarena ohiko errebindikazioa izan da Iruñean, **txupinazoaren** egunean. **Berria - Euskal Herria**

txupinera iz txupinazoa botatzen duen emakumea.

Joxeanjel Irigarai idazleak eta iaz Bilboko Aste Nagusiko **txupinera** izan zen Maite Perez Amurriok irakurri zuten manifestua. **Berria - Euskal Herria**

txupito iz likore kopuru txikia, oso edontzi txikian zerbitzatzen dena; edontzi hori.

Hurbildu barrara **txupito** bana eskatzera. **Sonia Gonzalez**
-Idoiaren eskuetatik banandu zituen bereak whisky **txupittoa** kolpe batez husteko. **Sonia Gonzalez**
Amaitu egin zait **txupittoa**... **Sonia Gonzalez**
Txupittoa hartu eta ahora eramateko keinua egin baina, zirkin bihurri batekin katxiaren barrura bota du. **Pako Aristi**
"Hau ez duk ba urdekumea izango?", esan du Dinok, hatzak katxiaren barrura sartu eta **txupittoa** ateratzen hasi den bitartean. **Pako Aristi**

txupoi iz xurgatzailea; edoskitzailea.

-**Txupoi** ? -galdetu zuen harrituta; zer da hori, zer txupatzen du? **Joseba Sarrionandia**

txuri (541 agerraldi, 96 liburu eta 55 artikulutan) 1 iz adkor zuria.

Paper **txurian** zirriborro bat egiten denean bezala. **Bernardo Atxaga**
Zaldi gainean zihoan Margarita, txapel **txuriz** eta amazona beltzez jantzirik. **Txillardegi**
Kattalinek jantzi berri du tulezko gonatxo **txuri** arina. **Anjel Lertxundi**
Lilyren xarma begi txinatar haiek zirela, bere aurpegitxo **txuri** ximur hartan zeharka jarriak. **Anton Garikano**
Emakumeek zapi **txuri** bana atera zuten soinekoaren poltsikotik eta negar malkoak xukatu zituzten. **Felipe Juaristi**
Miarritze teilatu gorri eta kontraleiho berdeko herri **txuria** da. **Koldo Izagirre**
Gauza hauek ez dira agerian esatekoak, badakit, eta horregatixe (eta zure itzal **txuriegia** bixitzearren) esango ditut hemen. **Iñaki Seguro**
Bandera **txuri** -urdinen uhinak. **Joan Mari Irigoien**
Babarrun **txuria** eta ortuariak. **Jon Alonso**
Basoerdi bana ardo **txuri** jarri digute, freskoa. **Pako Aristi**
Txuria, gorria eta berdea!, erakutsi nion. ik beherago 4. **Askoren artean**

2 txuri-beltz (orobat txuribeltz) izond adkor zuri-beltza.

Eta hementxe du hiltzea eta akabera gogoetatxo **txuri-beltz** honek. **Iñaki Seguro**
Paretetan makina bat lagunengatik eta karikaturen fotokopia nahikoa gardenak zeuden zintzilikaturik, bata bestearen gainean, mosaiko **txuri-beltz** barrokoa osatuz. **Iban Zaldua**
The Cruise izeneko **txuribeltzeko** dokumental bat. **Harkaitz Cano**
Egin diot, **txuribeltzeko** karreteja daraman argazki kamerarekin, inor odollez ez orbantzeko. **Pako Aristi**

3 txuri-gorri izond adkor zuri-gorria.

4 txuri-gorri-berde (orobat txurigorriberde) izond adkor zuri-gorri-berdea.

Euskadiko trapu **txuri-gorri-berdea** udaletxeko balkoian jaso zuten momentuan. **Iñaki Seguro**
Euskara aberri bat dela diote poeta **txurigorriberdeek**. **Iñaki Seguro**

5 txuri-uridin (orobat txuriurdin g.er.) izond/iz Real Sociedad futbol taldearena, talde hori dagokiona.

Atzelari **txuri-uridinak** ere ez ziren batere egoki aritu joko kanpokoaren bila. **Berria - Kirola**
Talde **txuri-uridinak** Malaga gaindi-tuko balu, 45 puntu batuko lituzte. **Berria - Kirola**
Azken hamar minutuetan ederki sufritu zuten **txuri-urdinek**, baita Anoetan zeuden jarraitzaileak ere. **Berria - Kirola**
Lan duina eta txukuna egin zuten **txuri-urdinek**, baina ezertarako ez zien balio izan. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardo txuri (9); elastiko txuri urdina (6); entrenatzaile txuri urdinak (10); etxe txuri (4); etxetxo txuri (3); jokalaria txuri urdinak (3); orri txuri (3); talde txuri urdina (24); talde txuri urdinak (73); talde txuri urdinarekin (5); talde txuri urdinaren (9); talde txuri urdinarentzat (4); talde txuri urdinari (6); talde txuri urdinean (12); talde txuri urdineko (13); txori txuri (4)
txuri beltz (4); txuri beltzean (6); txuri beltzeko (4); txuri berri (4); txuri urdin (29); txuri urdina (45); txuri urdinak (113); txuri urdinarekin (6); txuri urdinaren (10); txuri urdinarentzat (4); txuri urdinari (6); txuri urdinean (12); txuri urdinei (4); txuri urdinek (72); txuri urdinekin (3); txuri urdineko (14); txuri urdinen (29); txuri urdinen artean (3); txuri urdinarentzat (3); txuri urdinez (3)
zapi txuri (3)
ardo txuria (4); txuri txuria (6)
esku txuriak (3); lauso txuriak (3)
txurian beltz (3)
ardo txuriz (3); txuriz jantzitako (4)

txuribeltz ik txuri 2.

txurigorri ik txuri 3.

txurigorriberde ik **txuri 4**.

txurikin ik **zurikin**.

txuringa iz uzkiko esfinterra.

Txuringa haztakatzen ari zitzaidan, uzkiko esfinterra alegia. [Aitor Arana](#)

Txuringa ongo bigundua eta uzkia blai eginda neuzkanean, Satanek txakurka jarri ninduen. [Aitor Arana](#)

Gure kubatarrak hatz luzeak zeuzkanez gero, uzkiaren kanpoaldeko **txuringa** laxotu eta zabaltzeaz gain, barrualdea ere egoki lantzen zuen. [Aitor Arana](#)

Txortaldia amaitu eta gero bereizi ginenean, bainugelara dutxatzera joan eta uzkiko **txuringa** urratuta neukala baieztu nuen. [Aitor Arana](#)

txuriska ik **zurixka**.

txuritasun ik **zuritasun**.

txuritu ik **zuritu**.

txuritxo ik **zuritxo**.

txuriune ik **zurikin**.

txuriurdin ik **txuri 5**.

txurixka ik **zurixka**.

txurizta ik **zurizta**.

txurriano iz ik mantxurriano.

Iruditzen zitzaidan, ez dakit, **txurrianoen** janari bat-edo, badakizu? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

txurripanpli iz

Zabaldu omen dira probintzia osoan ere, **txurripanpli** izeneko musika gatzgabe batez lagundurik. [Anjel Lertxundi](#)

txurro 1 iz irin ore frijitzuzko makila modukoa, ildoduna, eskuarki txokolatean sartuta jaten dena.

Zartaginean etengabe darabiltza **txurroak** eta porrak. Nolako **txurroak** egiten dituzte, handi-handiak? [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Nik **txurro** batzuk frijitu, eta **txurroak** txokolatean sartuta jan genituen. [Joan Mari Irigoien](#)

Kafearekin **txurroak** jan nituen, ohi denez hotz eta koipetsu zeudenak. [Ramon Saizarbitoria](#)

Azken **txurroa** hartu, zatitu eta erdia eman diot, irribarre eginez. [Xabier Etxabe](#)

Kafea xigorkiekin edo txokolatea **txurro** egin berrieekin hartzera. [Juan Martin Elexpuru](#)

Ez dute Eguberriko argiek, txokolateek eta **txurroen** olio usainek berotzen Baionako karriketako hotza. [Berria - Euskal Herria](#)

Tomas Javierre delako haren kasua etorri zaio Antoniori gogora **txurroen** usainarekin batera. [Iban Zaldua](#)

Hau ez da **txurroak** egiteko lantegi bat. [Berria - Kirola](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eguerdietan **txurro** saltzaileek kauserak egiteari ekiten zioten. [Jon Maia](#)

Madrek dena ondo-ondo bildu zuen **txurro** paperetan eta kanpora atera zenean begiak gorri-gorri zituen. [Jon Maia](#)

Gainera, Lezama ez dela «**txurro** fabrika bat» gogorarazi zuen, eta klubean sortzen diren jokalariei garrantzia eman behar zaiela. [Berria - Kirola](#)

3 irud/hed

Txurroetan bildutako txima luzeak zituen mutiletako batek, leotardo tankerako galtza elastiko beltzak zituzten jantziak, neska zein mutil, bizpahiruk... [Juan Luis Zabala](#)

Ileetako **txurroek** apenas uzten dioten errepidea ikusten. [Harkaitz Cano](#)

txurrodun izlag ilean txurroak dituena.

Pistan dantza egitera joaten ziren neska mamaletatik hasi eta **txurrodun** gazte kanuterotara arte. [Unai Iturriaga](#)

txurrustada iz txorrotada.

Ez al dut argi utzi izain-zukuaren **txurrustada** bat nahikoa zela? [Iñaki Mendiguren](#)

txurrustaka *adlag* txorrotadaka.

Mutilek ez zuten halakorik espero, eta flipa-flipa eginda geratu ziren, lerdea **txurrustaka** zeriela. **Patxi Iturritegi**

txurru*t* ik **zurru*t***.

txurru*t*ada ik **zurru*t*ada**.

txurru*t*ada*t*xo ik **zurru*t*ada*t*xo**.

txur*t*en ik **txor*t*en**.

txur*t*xur ik **txor-i*t*xor 2**.

txur*t*xurka ik **txor-i*t*xorka**.

txurunbel *iz adkor* haurra.

Noiznahi mintzaten baitzitzaion Edu, hiru hurrekin amets egiten zuela: hiru **txurunbel**, haren hitzetan. **Joan Mari Irigoien**

Eta orduan ohartu zen Sara, berak ez zituela hiru **txurunbel** nahi. **Joan Mari Irigoien**

txusta

1 lo txusta ik **lo 28a**.

txustar ik **zuztar**.

txuster ik **zuztar**.

txut¹ *iz* baloia oinaz jaurtitzea.

Emiliok zelaiaren ia erditik beste **txut** bat jo zuen eta gol. Zapata apurtu ez bazuen baloiaren itinerarioa miresten zuen, harik eta pilota nonbait erortzen zen arte, patioan bertan **txut** bertikalarekin, edo lkastetxeko teilaturen batean edo lekutako orturen batean **txut** eliptikoagoekin. **Joseba Sarrionandia**

txut² ik **zut**.

txutategi *iz adkor* txute bat hartzeko tokia.

Duda egin zuten Alde Zaharreko mozkortegietara ala udal **txutategira** jo, hau da, Etxebarria parkera. **Patxi Iturritegi**

txutatu, txuta(tu), txutatzen du *ad* baloia oinaz jaurti.

Ez baitakit korrika egiten, ez jauzi egiten, ez buruz murgil egiten, ez baloia harrapatzen, eta are gutxiago **txutatzen**... **Jesus Mari Mendizabal**

txute 1 *iz* droga-zitada.

Ebek **txuteak** prestatzeko parafernalia gutzia lehenbiziko tiraderan gordetzen du. **Sonia Gonzalez**

Txute bat ezin da taberna bateko komunean sartu, trankil eta intimitatean egin beharreko gauza da. **Sonia Gonzalez**

Euren bizimoduaren beldur, euren etsipenaren beldur, euren egunen beldur: **txutea** sartu eta hurrengorako dirua atera, **txutea** eta dirua, **txutea** eta dirua... egunez egun, astez aste, urtez urte... **Sonia Gonzalez**

Hau **txute** bat bezala duk, txo! **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan)

M.H.D. toxikomanoa da, eta eguneroko bere kezka bakarra heroina **txute** bat edo bi sartzeko behar duen dirua lortzea da. **Pako Aristi**

txutxe *iz adkor* litxarrerria. ik **txutxeria**.

Txutxeak, berriz, orain Koldo Mitxelena kulturunean dagoen inguru horretan erosten zituzten, Donostian horrelakoak saltzen zituen denda bakarrean: *La Alicantina* delakoan. **Joxerra Garzia**

txutxen ik **zuzen**.

txutxeria *iz adkor* litxarrerria.

Erresidentzian, zaharrari adi, Evelyn era guztietako goxoki eta **txutxeriak** jaten aritzen da. **Pablo Sastre**

txutxu-mutxu (*orobat txutxumutxu*) 1 *iz* ahopeka hitz egitea. ik **xuxu-muxu**; **xuxurla**.

Zer ote dira **txutxu-mutxu** horiek guztiak? **Fernando Rey**

Jendeak sexua hainbeste kakarekin lotuko ez balu -zitalkeria, zeloak, hisiak, ziurtasun-eza, **txutxu-mutxuak**, errezelok, "ego" harrotuak, kaka eta kaka gehiago-, [...]. **Karlos Zabala**

Handituz zihoan hiria izanagatik, txikiegia zen artean **txutxu-mutxuak** ziztu bizian ez barreiatzeko lau haizeetara. **Mirentxu Larrañaga**

Ezin etxetik atera **txutxu-mutxuak** piztu gabe, etxekoak ere ezin kalera jaitsi atzetik zurrumurruren bat entzuteko beldurrik gabe. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nesken **txutxu-mutxuak** eta berbaroa apurka-apurka amaturte arte itxaron dute, gero, isilka-misilka, beren planari ekiteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Poker jokalarien arteko **txutxu-mutxuak** eten dira. **Xabier Paya**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Dubarry andereak astean hiru aldiz irakurtzen zizkion erregeari hark idazten eta apaintzen zituen **txutxu-mutxu** pribatuak, zeinetan Parisko izen txarreko lekuetan gertatzen zen guztia kontatzen zen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Prest egoten zen halere jendearen **txutxu-mutxu** hutsalenak ere entzuteko. **Fernando Rey**

Txutxu-mutxu bizkor eta zoro batean hasi dira eta orduan egin dut aurkikuntza harrigarria. **Urtzi Urrutikoetxea**

Paolak konfiantzan esana ziolako, sofan, **txutxu-mutxu** gordeetan. **Fernando Rey**

Azkenerako aski da ixrr bat ahoskatzea **txutxu-mutxu** berankorren bat isilarazteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ilforden ere esamesak eta ezkutuko **txutxu-mutxuak** erraz zabaltzen ziren, aho-mihietan ibilitakoak enteratu aurretik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

3 irud/hed

Orduantxe entzun nuen, lehenengoz, Koronelari eta Otsemeri buruzko **txutxu-mutxua**. **Mirentxu Larrañaga**

Nahiago dik dudarik gabe zuen hiru alaba txiki horiekin geratu [...] tertuliako **txutxu-mutxu** gupidagabeak entzutea baino. **Pedro Alberdi**

Aspaldion tratu txarren gaineko salaketak ikusizun eta **txutxu-mutxu** bihurtu dituzte telebistetako hainbat programetan. **Berria - Euskal Herria**

4 (adizlagun gisa)

Txutxu-mutxu eta marmar ibili dira pixka batean, zer galdetuko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txutxu mutxu (13); **txutxu mutxuak** (11)

txutxu-mutxuka (*orobat txutxumutxuka*) *adlag* ahopeka. ik **xuxu-muxuka**.

"Potzolo", berriz, forentsearekin **txutxu-mutxuka** hasia zen, bertezengandik aparte. **Aingeru Epaltza**

Bizi-bizi **txutxu-mutxuka** ari ziren elkarrekin. **Iñaki Mendiguren**

Oroitzen zara nola aritzen ziren beti **txutxu-mutxuka** Terni gizajoarekin? **Fernando Rey**

Bi polismanak **txutxu-mutxuka** mintzatu ziren, begiratu batzuk egin zizkidaten. **Fernando Rey**

Aurrera egiten saiatzen nabilela, patioan zehar negoziotan buru-belarri zihardutenen eta **txutxu-mutxuka** zebiltzanen artetik, norbaitek nire bidean topo egin zuen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ahotsak entzuten zituen **txutxu-mutxuka**, isilik mintzatu nahian. **Karlos Zabala**

Bazterretan eserita edo bizkarra paretaren kontra jarrita, taldetotan daude bilduta neskek eta mutilak, lagunekin **txutxu-mutxuka** eta besteek kirika. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txutxu mutxuka (23); **txutxu mutxuka ari** (4)

txutxumutxuka ari (6); **txutxumutxuka ari ziren** (3); **txutxumutxuka hasi** (3)

txutxu-mutxuzale (*corpusean txutxumutxuzale soilik*) *izond* txutxumutxuen zalea dena.

Idoiarekin isiltasuna partekatzea, hain **txutxumutxuzale** izanik bera, azkenean bion arteko bizikizun zoragarri bihurtu genuen. **Juan Kruz Igerabide**

txutxu-putxu (*orobat txutxuputxu*) 1 *iz*

Lagunartean ez ezik, herriko jende ezagun samarrarekin ere dena zen umearentzako kuximuxi eta **txutxuputxua**, gurasoak ere pozez hartu behar duen tximinokeria hori guztia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 *txutxu-putxu*

Pepponek **txutxu-putxu** egin zuen batzordearekin une batez, eta gero buelta emanda: [...]. **Koldo Biguri**

txutxukatu, txutxuka, txutxukatzen du *ad* xuxurlatu.

Eguerdikoa saldaren ontzeko baratzeikiak bipiltzeari ekinez, sakrifizio gehiago behar balde zitekeela **txutxukatu** zuen, bereber. **Itxaro Borda**

txuxen ik **zuzen**.

txuztar ik **zuztar**.

tzar *izond* gaiztoa; txarra; erraldoia.

Aitzina ene trufan ari zen Elixabet **tzar** hura. **Janbattitt Dirassar**

Alabainan, hila giza **tzar** bat da, emakoa, drogazalea, bortxatu duelarik eta, azkenean, hilarazi neska gazte bat. **Herria**

Luixa, bere irri argiarekin eta bere musu goxoekin, ez zela neska **tzar** zanpaila atrebitu bat baizik! Janbattitt Dirassar

Jokaldi eta ostiko-zanpako, gaixtagin **tzar** batzuen lehertzeko egin ohi den bezala. Herria

Baina beste arazo bat, ezustezkoa hau ere: bi zakur ene zain, bata alimalea, bestea txarra bezain **tzarra**, iduriz. Piarres Aintziart

Jinen zela eta jinen zela, hori ginuen beldurra, eta jin da beraz gerla **tzar** eta higuin garri hori! Herria

-Ikasak nahi duanarekin, bota zidan gaitzeko esker **tzarrarekin**! Janbattitt Dirassar

Gauzek hola irau zuten, baina, egun batez, 1903an, Errepublikak lege **tzar** bat bozkutzen du, honen arabera behar baitira eskolak hetsi eta fraile-serorak kanporatu.

Michel Oronoz

Gripe **tzar** bat ukan banu bezala, hezurren juntura gehienetan min nuen. Daniel Landart

Jatekoa biziki **tzarra**. Marzel Etxehandi

Gérard ere lasaitzen da, hastapeneko mutur **tzarra** alegeratzen zaio. Eneko Bidegain

Pilda batzuk soinean, zikinak eta higuatuak, dena petatxu, oinetan espartin **tzar** batzuk, zola jana zutenak. Janbattitt Dirassar

Haize hegoak ongarrizuloetarik zetozen urrin **tzarrak** hirian barna barreiatu zituen. Elena Touyarou

Bihurgune **tzar** batean. Janbattitt Dirassar

Hiltzera doan traste **tzar** herdoilduaren azken kirrinkak dira, adibidez, bake prozesuaren aurkako jarrerak. Markos Zapiain

Guk orduan bi estatu genituen arerio **tzar**. Itxaro Borda

Bazen beste arrano handi bat ere, hegal **tzar** luzekoa eta lumaia ugarikoa. Elizen arteko biblia

Hutsak xurgatu ninduen berriro, otso **tzar** baten ahoak irentsiko banindu bezala. Juan Kruz Igerabide

Mikel Strogoff tarantaseraino iritsi zen uanean, piztia **tzar** batek atzera egin zuen berari kontra egiteko. Karlos Zabala

Aste huntan ere, haizeak sekulan baino aldakorrago, nehorik ezin erran nun izanen diren hunkienak Pariseko berriketari batek "pozoin beltza" deitu duen kotsadura **tzar** horrekin. Herria

-Barda, euri **tzar** harengatik, arrunt ahantzia dut gauzaño baten zuri erraitea. Janbattitt Dirassar

Maddalen hil zelarik, bere bizikletaren gainetik kamiun **tzar** batek bota zuenean. Janbattitt Dirassar

Uhain **tzar** itsusi batek biak eraman zituen! Janbattitt Dirassar

Sarrerako harlosa **tzarra** astiro-astiro mugitzen hasi orduko, urrezko distira sekulako batek itsutu zuen eguna. Anjel Lertxundi

Monumentu **tzar** horiek. Harkaitz Cano

Megadenda **tzar** batean sartu nintzen halako batez, bidaiarako behar nituen bizarra kentzeko trepetak eta hortzorea erostera. Anjel Lertxundi

Pantxok, hala beharko, lagunak bezain agerian utzi ditu bere tripatzarra eta ipurdi are **tzarragoa**. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

belar tzar (3); **bunba tzar bat** (3); **dena jestu tzar** (3); **eritasun tzar** (6); **eritasun tzar batek** (3); **eroriko tzar** (3); **gerla tzar** (4); **gripa tzar** (6); **gripa tzar hori** (3); **harri tzar** (4); **haur tzar** (3); **kolpe tzar** (5); **kotsadura tzar** (7); **lan tzar** (18); **mutiko tzar** (3); **puska tzar** (3)

tzar handi (4)

usain tzar (3)

ate tzarra (4); **barne tzarra** (6); **bero tzarra** (3); **lan tzarra** (4); **lo tzarra** (3)

belar tzarren (4); **lan tzarren** (3); **puska tzarren** (3)

lan tzarretan (3)

tzarkeria *(orobat tzarkeri g.er.) 1 iz ipar gaiztakeria, txarkeria.*

-Nola har dezakezu haren aldean egin zituen **tzarkeria** guzien ondotik? Elena Touyarou

Luzaiden ibili zen Karlos VII., ez zutelarik alta biziki maite, hemen gaindi **tzarkeri** frango egin zuelakotz eta ere jendea gaizki tratatu anitz aldiz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jakin zuelarik berriz ere zerbait **tzarkeria** gogoan zutela Luzaidekoek, bidean gorde zen lagun zenbaitekin, zanpatu zituzten, hamabi preso ereman, horietan alkatea, hura baitzen beti holako jokoen asmatzalea. Michel Oronoz

Neu egin ninduten **tzarkeria** okaztagarri horren erantzule. Joxan Elozegi

Denboraren buruan delako aitamek aitortu dute beste auziperatu guziak gezurrez zituztela salatuak, mendekio hutsez eta **tzarkeriaz**. Herria

Itxura guzien arabera, norbaitek du su eman, **tzarkeriaz** eta mendekioz. Herria

Ez nintzen ari **tzarkeriaz** baina bertute eskasez. Janbattitt Dirassar

Itsuskerian eta **tzarkerian** ari girelakotz dute herra hori guretzat. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Baina Estatuari ez zitzaion aski eta beste **tzarkeri** hazi mota bat erein zuen. Michel Oronoz

tzarpail ik zarpail.

tzartu, tzar(tu), tzartzen da/du ad tzar bihurtu.

Energia hori dena, baina nondik? Elektrizitatea abian ipintzen da hodeia hazi eta **tzartu** ahala. Pello Zabala

tzigano *(orobat tzigane eta tzigan g.er.) iz ijitoa.*

Tziganoen hizkuntzan, *tchatché*-k erran nahi du "egia da". Herria

Ondotik heldu ziren juduak, geroago ijitoak eta **tziganoak**. Eneko Bidegain

Pauetik jinikako hiru musikarik eskainiko dute **tzigano** musika, bereziki Hongriako **tziganoena**. Herria

Errumaniatik etorri musika jole hirukoteak **tzigane** aireak eskaintzen zituen. Itxaro Borda

Eta berriz **tzigan** kutsuko aire baten azpiltzeari ekin zioten. Itxaro Borda